

Jakintza-arloa: Hizkuntzalaritza

Larramendiren *Hiztegi* *Hirukoitza*-ren osagaiez

Egilea: **BLANCA URGELL LÁZARO**

Urtea: 2000

Zuzendaria: JOSEBA ANDONI LAKARRA

Unibertsitatea: UPV/EHU

ISBN: 978-84-8438-491-5

Hitzaurrea

Hamahiru urte beranduago

Hau dela eta bestea dela, ez-arian, hamahiru urte joan dira tesia aurkeztu nuenetik. Atal batzuk Euskal Herriko aldizkarietan atera badira ere gutxika, egia esanda bada hemen material argitaragabe nahikoa Larramendiren hiztegi gintzaz edota euskal lexikoaren historiaz interesik lukeenarentzat erabilgarri. Eskerrik asko, beraz, TESIKER egitasmoari, denon eskura jartzeko aukera emateagatik.

Tesiari ekin nionean argi neukan Larramendiren ekarpenaz hitz egiteko, Mitxelenak (1983), Lakarrak (1985) eta Sarasolak (1986) ezarritako ulerkera aberasgarritik aurrera, *Hiztegi Hirukoitz*-era bertara jo beharra zegoela behingoan, Larramendik euskal lexikoa biltzeko eta eraberritzeko ezarri zituen irizpideak hiztegi edukiarekin erkatzearen.

Tesiak hiru atal ditu, bata bestearen osagarri. Lehendabizikoan (§ I) hiztegiaren deskribapena egin nuen: zein eratako hiztegia den, nola dagoen antolatuta, zer-nolako edukiak dituen (adibideak, atsotitzak, gramatika azalpenak...), grafi sistemaren azterketa, etab. Atal honetako gehiena Espainiako Akademiaren *Diccionario de Autoridades*-ekiko erkaketari eskainia da, horixe baita Larramendik gaztelaniazko nomenklatura eratzeko erabili zuena, bai eta oro har haren eredu lexikografikoa ere. Atal honetako gehiena argitaratuta dago (Urgell 1998a, 1998b, 1999, 2001, 2002b).

Bigarrenean (§ II) Larramendiren hiztegiaren *Eranskin* ospetsuari ekin nion, aurretik Mitxelenak (1970) eta Lakarrak (1991, 1993, 1994a eta 1996a) egindako azterketa bikainak bateratu eta zenbait alderdi berri arakatzeko asmoz. Nire ondorio garrantzizkoena, hauxe: *Eranskina* ez da hiztegi handi baten eranskin xume bat baizik, *Hirukoitz*-eko joera berberak islatzen baititu, hala nola liburuetatik hartu ahala hartzea, formak egokitzea, kidetasun etimologikoak agerian jartzea, sinonimoak pilatzea, oinarrietatik eratorriak ateratzea, eratorrietatik oinarriak erauzte, etab. Beraz, *Hirukoitz*-aren aldean tamaina txikiko corpusa izanik, aukera eman zidan Larramendik ez bakarrik hitzak *nondik* hartu zituen, baita *nola* hartu zituen ere, hots, hiztegi gile gisa zituen joerak aztertzeko. Atal osoa argitaratua izan da (Urgell 2002a).

Hirugarrenean (§ III) hasierako egitasmoari heldu nion azkenik, hots, *Hirukoitz*-eko euskal hitzak aztertzeari, baina aitortu behar dut aurreko atalak landu ezean ez nintzela gai izango han aurkitu nuen anabasan ordena pixka bat ipintzeko. Izan ere, iturri batzuk hipotetikoki ezagunak ziren (Larramendik hiztegi hitzaurrean aipatzen dituen euskal liburuak eta ahozko galdeketak batik bat), baina materiala landu ahala ezustekoak ere agertu ziren nahikoa. Esate baterako, egun batean bazkalostean Espainiako Itzulia ikusten nintzelarik, kazetariak Astorki mediku ospetsua aipatu eta *eureka* une bat izan nuen: Hara! Larramendik onomastika ere erabili zuen hiztegia osatzeko! Telebista itzalita errazenera jo nuen, Gipuzkoako herrien izenak bilatzera, eta hantxe zeuden asko eta asko: *Abalziketa*, *Aduna*, *Amezketeta*, *Arrasate*, *Astigarraga*, *Berastegi*... Hortaz, *astorkia* "onobryche, planta" jadanik *asto* + *orro* + *-ki* bezala analizatu eta *Autoridades*-en etimologiaren arabera ("Es voz Griega, que vale Asno y grito, porque dicen que grita el asno si come de ella") eratutako neologismoa zela proposatua banuen ere, argi zegoen alderantziz zela, alegia, Larramendi deituratik abiatu zela, deituraren "esanahi ezkutua" aurkiturik hitza berreskuratua eta hiztegiatu zuela. Atal honetan, bada, esateko moduan dena dago denarekin lotua: iturrietako formak bere horretan aurki ditzakegu hiztegian, edota Larramendik eman bide zion etimologiaren arabera erabilia, edota horrexen arabera aldatuta, baita era batera baino gehiagotara eratorrita, edota jatorrizko atzizkia Larramendik nahiago zuenaz

ordezkatuta, edota haren oinarria laburtuta hitz elkartu baten osagai gisa... Hitz batean, askotan ez dugu erraz esango zein den lehenago, arraultza ala oiloa.

Hautatzekotan, berrikuntza gehienak eratorpenean (§ III.2), elkarketan (§ III.3) eta "hitzberrigintzako gertakari orokorrak" izena eman nion atalean (§ III.5) bide daude: hainbat atzizki berri edo azalgaitz eta hainbat elkarbide zein eratorbide berezi (hala nola parasintesia eta atzeranzko eratorpena) azalduta daude bertan. Horrezaz gain, etimologiak nagusiki hitz gaiak lortzeko eginak direla frogatu uste dut, batetik (§ III.6); eta, bestetik, ahozko euskaratik hartutako hitz eta esapide mordoa dagoela *Hirukoitz*-ean, zoritxarrez oraindik behar bezala ustiatu gabe dagoena (§ III.12). Hirugarren atal honetatik oso gutxi argitaratu da (Urgell 2003, 2008a, 2008b).

Tesiaren ondorioak hala erdaraz (Urgell 2002) nola euskaraz (2004) plazaratu dira. Tesia oso zabala da, zabalegia agian, baina zin dagit hori dena aztertu gabe ez nintzela Larramendiren lanaren konplexutasunaz jabetzeko gauza izango. Zazpi amuarrain batera hartu nahi izan nituen, eta denak ez ziren irristatu, nik uste, baina baten bat agian bai. Dena dela, Larramendik egundoko lana egin zuela agerian dago honezkerok, eta nekez esan ahalko da berriro hiztegia txantxetan egin zuela, erdaldunak engainatzeko edo.

Blanca Urgell
2014

Erreferentzia berriak

- Urgell, Blanca, 1998, "Hiztegi *Hirukoitza* eta *Diccionario de Autoridades* erkatuaz (I): oinarritzko ezaugarri zenbait", *ASJU* 32:1, 109-163.
- , 1998, "Hiztegi *Hirukoitza* eta *Diccionario de Autoridades* erkatuaz (II): sarreraren edukia", *ASJU* 32:2, 365-414.
- , 1999, "Hiztegi *Hirukoitza* eta *Diccionario de Autoridades* erkatuaz (III): Gaztelania", *ASJU* 33:1, 157-238.
- , 2001, "Euskal formen aurkezpena Larramendiren hiztegian", *ASJU* 35:1, 107-183.
- , 2002a, *Larramendiren Hiztegi Hirukoitza-ren Eranskina: Saio bat hiztegiaren testukritikaz*, (Monumenta Linguae Vasconum. Studia et Instrumenta 1, *ASJU*-ren Gehigarriak 47). Bilbo: "Julio Urkixo" Euskal Filologia Mintegia & GFA.
- , 2002b, "Hiztegi *Hirukoitza*-ren kanpoko eta barruko historiaz", in X. Artiagoitia, P. Goenaga & J. A. Lakarra (arg.), *Erramu Boneta. Festschrift for Rudolf P. G. de Rijk* (*ASJU*-ren Gehigarriak 44). Bilbo: UPV/EHU, 629-649.
- , 2002c, "Etimología y creación léxica en el diccionario vasco del P. Larramendi (1745)", in M. A. Esparza, B. Fernández & H.-J. Niederehe (arg.), *SEHL 2001. Estudios de Historiografía Lingüística*. Hamburg: Helmut Buske Verlag, 989-1000.
- , 2003, "Eratorpena Larramendiren hiztegian (I): Eratorbideen analisisa", *ASJU* 37:1, 203-260.
- , 2004, "Etimologia eta neologia Larramendiren *Hiztegi Hirukoitz*-ean (1745)", *Lapurdum* 9, 299-310.
- , 2008a, "Maileguak Larramendiren hiztegian", *FLV* 108:1, 5-44.
- , 2008b, "Onomastika Larramendiren hiztegian", *Sancho el Sabio* 29, 21-46.

MARIA BLANCA URGELL LAZARO

LARRAMENDIREN *HIZTEGI HIRUKOITZA*-REN OSAGAIEZ

Euskal Filologian doktoregoa erdiesteko tesia

Euskal Filologia Saila

Euskal Herriko Unibertsitatea

Gasteiz

2000

AURKIBIDEA

I. liburukia

Aurkibidea	i
Esker ematea	xiii
Aurkezpena	xv
I. <i>Hiztegi Hirukoitza</i> -ren izaera, eredu eta antolakuntzaz	1
1. Oinarrizko jakingarri zenbait	3
1.1. Tamainaz eta edukiaz: lehenengo hurbiltzea	4
1.2. Egileez	10
1.3. Lan egiteko formaz dakiguna	12
1.4. Barneratutako hizkuntzak	16
1.5. Aurkezpen grafikoa	27
1.5.1. Alfabeto hurrenkeraren bilaketa: izenburutxoak	28
1.5.2. Sarreraren bila: frantses lerrokada	29
1.5.3. Sarrera eta sarrera barruko informazioa: letrak	29
1.6. Ondorioak	35
2. Alfabetatze maila	39
2.1. <i>DAut</i> -ek eragindako desbideratzeak	42
2.1.1. Partizipioak	42
2.1.2. <i>-nte</i> atzizkidun adjektiboak	43
2.1.3. <i>-se</i> aditzak	45
2.2. <i>HH</i> -aren desbideratzeak	47
2.3. Desbideratzeen kokagunea	50
2.4. Desbideratzeen arazoak	51
2.4.1. Hitz-familiak	51
2.4.1.1. Aditz multzo hedatuak	53
2.4.1.2. Izena	55
2.4.1.3. Adjektiboa eta partizipioa	57
2.4.2. Grafi aldaketak	57
2.4.2.1. Grafia berria, leku zaharra	58
2.4.2.2. Gaizki tartekatutak	58
2.4.2.3. Grafia zaharra, leku berria	59
2.4.3. <i>DAut</i> -en oharkabeko desbideratzeak	59
2.4.4. <i>DAut</i> -eko azpisarrerak	59
2.4.5. <i>HH</i> -aren buru bakuntzeak	60
2.4.6. <i>HH</i> -aren sarrera bakuntzeak	60
2.4.7. Aditz multzoaren aldaketak	60
2.4.7.1. Adierakako antolakuntza	61
2.4.7.2. Partizipioa aditzari itsatsita	64
2.4.7.3. Partizipioa aurretik	65
2.4.7.4. <i>-se</i> aditza aurretik	65
2.4.7.5. Erorriak aurretik	66
2.4.8. Larramendiren aldaketak	66
2.4.9. Sarrera eta azpisarrera berriak	66
2.4.10. Erratak	67
2.4.11. Azal ezin daitezkeen desbideratzeak	68
2.5. Ondorioak	69
3. Sarreraren edukiaz	71

3.1. Makrosarrerak vs mikrosarrerak	72
3.2. Sarrera bakunak	74
3.3. Gramatikazko informazioa	75
3.3.1. Gramatika kategoriak	76
3.3.2. Maskulinoa / femeninoa	76
3.3.3. Gramatikazko azalpenak	79
3.3.3.1. Aditzak nola joka	80
3.3.3.2. Aditz trinkoak	81
3.3.3.3. Bestelako oharrak	84
3.3.3.4. Larramendiren "nota"-k	85
3.4. Azalpenak	87
3.4.1. Entziklopedi informazioa	88
3.4.2. Informazio diakronikoa	90
3.4.3. Hitzen hedaturari buruzko informazioa	92
3.4.4. Lexiko berezituari buruzko informazioa	95
3.4.5. Estilozko informazioa	96
3.4.6. Maiztasunaz	97
3.4.7. Garapen semantikoa	98
3.4.8. Etimologiak	98
3.4.9. Ortografia	100
3.4.10. ...eta ahoskera	101
3.4.11. Euskal hitzen esanahiaz	106
3.4.12. Larramendiren gomendio edo erabakiak	107
3.5. Adibideak	108
3.6. Errefrauak	110
3.7. Ondorioak	120
4. Gaztelania (I): Ereduarekiko aldentzeak eduki orokorraren aldetik	123
4.1. Larramendiren hautapenak	123
4.1.1. Sarrerak	124
4.1.1.1. Ageriko arrazoiak	125
4.1.1.2. Partizipioak	126
4.1.1.3. Hitz eratorriak	127
4.1.1.4. Ezohiko hitzak	128
4.1.1.5. Desagertutako hitz nagusien ondorenak	130
4.1.1.6. -se aditzak	131
4.1.1.7. <i>DAut</i> -en "véase"-ak	131
4.1.1.8. Sarrera bakanketak	131
4.1.1.9. Aldaketak	132
4.1.1.10. Labur bilduz	132
4.1.2. Adierak	133
4.1.3. Esapideak	138
4.1.4. Atsotitzak	140
4.2. Izaera aldaketak	140
4.3. Bidalketa-deiak	141
4.3.1. Dei motak	142
4.3.1.1. Sarrera normal batean	142
4.3.1.2. Etimologia batean	142
4.3.1.3. Gramatikazko oharrak	143
4.3.1.4. Bidalketa-dei hutsak	143
4.3.1.5. Agindurik gabeko deiak	145
4.3.2. Bidalketa-deien betebeharrak	147
4.3.2.1. Esanahikideak lotzea	147
4.3.2.2. Hurbileko hitzak bakuntzea	148
4.3.2.3. Aldaerak lotzea	148
4.3.2.4. Bestelako xedeak	149
4.3.3. Bidalketa-deiek eragiten dituzten hitzen nolakoa	150
4.3.3.1. Adierak eta esapideak ere	150
4.3.3.2. <i>DAut</i> -ek ez eragindakoak	151
4.3.3.3. <i>DAut</i> -ek eragindakoak	152
4.3.3.4. Ezohiko hitzak	154
4.3.4. Bidalketa-deien eraginkortasuna	155
4.4. Eransketak	157
4.4.1. Sarrerak	157
4.4.2. Adierak	160
4.4.3. Esapideak	164
4.4.3.1. Esapide berrien nolakoa	168
4.5. Sarrera errepikatuak	169
4.5.1. Aldaerak eragindako errepikapenak	169
4.5.2. Familiakako ordenak eragindakoak	171
4.5.3. Bata bestearen ondoko errepikapenak	172
4.5.4. Errepikapen hurbilak	172
4.5.5. Esapideak	173
4.5.6. Inprentako hutsak	174
4.6. Ondorioak	174

5. Gaztelania (II): Azalpenak	179
5.1. Azalpen motak	180
5.1.1. Definizio perifrastikoak	181
5.1.1.1. Forma	181
5.1.1.2. Edukia	182
5.1.2. Definizio sinonimikoak	183
5.1.3. Zehaztapenak	184
5.1.4. Aurreko sarrera bati buruzko erreferentziak	187
5.2. Azalpenen etorkia	188
5.3. Azalpenen betebeharrak	191
5.3.1. Adiera argitzea edota bereiztea	191
5.3.2. Aldaerak aurkeztea	193
5.4. Ondorioak	195
6. Gaztelania (III): Grafia	197
6.1. Etimologiak eragindako aldaketak	198
6.1.1. vs <v>	199
6.1.2. <h>	203
6.2. Bestelako aukerak	204
6.2.1. <ce>, <ci> vs <ze>, <zi>	205
6.2.2. <y>	207
6.2.3. <ss>	208
6.2.4. <x>, <j>, <g>	209
6.2.5. <ch>, <ph>, <rh>, <th>	209
6.2.6. <sc>, <st>	211
6.2.7. Kontsonante multzoak	211
6.3. Ondorioak	212
7. Latina	215
7.1. Ezaugarri orokorrak	218
7.1.1. <i>DAut</i> -eko etimologiak	219
7.1.2. Kasu desinentziak eta pertsona adizkiak	220
7.1.3. Zuzenketak eta hutsak	223
7.1.4. Adiera bakanketa	225
7.1.5. Hitz-familiak	225
7.1.6. Larramendiren latina	226
7.1.7. Metahizkuntza	227
7.2. Ordain gordeak	228
7.3. Aldaketa txikiak	230
7.4. Hautapenak edota laburketak	232
7.5. Gehiketak	236
7.5.1. Ordain gehituak	236
7.5.2. Zehaztapen berriak	237
7.6. Ordain aldaketa konplexuak	238
7.6.1. <i>HH</i> -an azalpena duten aldaketak	238
7.6.1.1. Sarrera barruko gertakariak	239
7.6.1.2. Familiarteko loturak	240
7.6.2. Estilo aldaketak	241
7.6.3. Laburtzea edota zehaztea xede	242
7.6.3.1. Ordain laburtu eta aldatuak	242
7.6.3.2. Ordain bakun bilakatutako perifrasiak	243
7.6.4. Zatikako aldaketak	243
7.6.5. Erabateko aldaketak	244
7.7. Ordain berriak	245
7.8. Latinik gabeko sarrerak	247
7.9. Ondorioak	248
8. Euskara	251
8.1. Forma kanonikoa	251
8.1.1. Izenkiak	253
8.1.2. Adizkiak	254
8.2. Ordain kopuruak	256
8.3. Ordain motak	259
8.3.1. Ordain bakun, perifrastiko eta zehazgabeak	259
8.3.1.1. Definizioak	263
8.3.1.2. Ordain zehazgabeak	265
8.3.2. Ordain errekurtsiboak	265
8.3.3. Ordain errekurtsibo laburtuak	270
8.3.4. Partizipio bakanduak	271
8.3.5. Ordain laburtuak	272
8.3.6. <i>Item</i> -ak	273

8.3.7. Aldaerak	274
8.3.8. Maileguak	275
8.3.9. Etimologietako ordainak	276
8.4. Grafia	280
8.4.1. Bokal bikoitzak	283
8.4.2. , <v>, <u>, <ü>	284
8.4.3. <c>, <qu>	286
8.4.4. <g>, <gu>, <gü>	286
8.4.5. <s>, <ss>	287
8.4.6. <ts>	288
8.4.7. <c>, <z> eta <tz>	288
8.4.8. <is>, <(i)sy>, <ch>, <x>, <g>, <j>	289
8.4.9. <id>, <y>, <ty>, <g>	295
8.4.10. <ch>, <tch>	296
8.4.11. <j>, <g>, <y>, <i>, <i>	296
8.4.12. <g>, <j>, <x>	299
8.4.13. <h>	300
8.4.14. <ll>, <il>, <ill>	303
8.4.15. <ñ>, <iñ>, <in>	304
8.4.16. <mp>, <mb>	305
8.4.17. <lz>, <nz>, <ltz>, <ntz>	306
8.4.18. <sK>	307
8.5. Mugatzailea eta hitz bukaerako hiatok	308
8.5.1. Berezko -a?	309
8.5.2. Hiatok	313
8.5.2.1. -ea, -ia	314
8.5.2.2. -ua	320
8.6. Ondorioak	321
9. Ondorioak eta hauen gaineko aitzinamendu zenbait	333
9.1. Ereduaren erabilera	333
9.1.1. Aurkezpen grafikoa	334
9.1.2. Antolakuntza orokorra	335
9.1.3. Sarrera barruko antolakuntza	335
9.1.4. Nomenklaturako aldaketak	336
9.1.5. DAut-en sarrera barruko eragina	337
9.2. Hiztegia norentzat?	338
9.3. HH-aren historiaz	344
II. Hiztegi Hirukoitza-ren Eranskina	353
0. Ikerketaren egoera eta xede berriak	355
0.1. Axular	362
0.2. <i>Refranes y Sentencias</i>	363
0.3. Harriet	364
0.4. Landucci	365
0.5. <i>Refranes y Sentencias</i> -en zati galdua	367
0.6. Ekialdeko iturri ezezaguna	369
0.7. Larramendik eratu edo itxuraldatutako hitzak	370
0.8. Ahozko iturria	371
1. Iturrien erabilera	375
1.1. Grafia	375
1.1.1. <i>, <j>, <y>, <i>	375
1.1.2. <v>, , <u>, <ü>	377
1.1.3. <h>	378
1.1.4. <ç>, <c>, <z>, <tç>, <tc>, <tz>	379
1.1.5. <ss>	380
1.1.6. Txistukariak erabakitzen	380
1.1.6.1. <l, n, r> osteko txistukariak	380
1.1.6.2. <st> : <zt> aldaketa	381
1.1.6.3. Landucciren <sç>	381
1.1.6.4. Frikari ala afrikatuak RS-n?	382
1.1.6.5. <x> eta <tx>	382
1.1.6.6. <ch> Iparraldeko testuetan	383
1.1.6.7. <tch> Iparraldeko testuetan	383
1.1.6.8. Puntuzko aldaketak	383
1.1.7. Bustidurak	384
1.1.8. <th>, <k(h)> eta <cc> Iparraldeko testuetan	385
1.1.9. <nh>, <lh> eta <rh> Iparraldeko testuetan	385
1.1.10. <qu>	386
1.1.11. <g> <gu>-ren ordeez	386

1.1.12. <r> vs <rr>	386
1.1.13. <mp>, <mb>	386
1.1.14. Kapelak kentzen	337
1.1.15. <t> ozen eta herskariaren artean	387
1.1.16. Elkartu eta eratorriak batzen	387
1.1.16.1. Lotura grafikoa	387
1.1.16.2. Hots aldaketak	387
1.1.17. Aldaerak hautatzen edo gehitzen	388
1.1.18. Erratak eta irakurketa txarrak	389
1.1.18.1. Errata berriak	390
1.1.18.2. Errata proposamen berriak	393
1.1.18.3. Iturri ezezaguneko hitzetako erratez	395
1.2. Morfologia	396
1.2.1. -ea bizkaierazko izenetan	397
1.2.2. Iturrietako pluralak	397
1.2.3. Iturrietako mugagabeak	397
1.2.4. Erroa ateratzeko arazoak	398
1.2.5. Partizipioa asmatzen	399
1.2.5.1. Jatorrizko -du	399
1.2.5.2. Aditzoinak partizipio bihurtzen	399
1.2.5.3. Aditzizenak partizipio bihurtzen	399
1.2.5.4. Trinkoa partizipio bihurtzen	401
1.2.6. Morfologi egokitzapen edo zuzenketak	401
1.2.7. Eratorpena eta elkarketa	402
1.2.7.1. Iturrietatik erauzi eta eratorritako formak	402
1.2.7.2. Atzizki zenbaiten maiztasuna	404
1.2.7.3. Atzizkiak eta Larramendiren irakurketak	407
1.3. Esanahia	409
1.3.1. Landucci	410
1.3.2. <i>Refranes y Sentencias</i>	411
1.3.3. Harriet	413
1.3.4. Axular	414
1.3.5. Erdal sinonimia <i>Erans</i> -ean	417
1.3.6. Itzulpenaren indarra	419
1.4. Iturriko agerlekua	419
1.4.1. Landucci	420
1.4.2. <i>Refranes y Sentencias</i>	422
1.4.2.1. Lehen koadernotxoak	424
1.4.2.2. Laugarren koadernotxoak	426
1.4.2.3. Oihenarten alea	427
1.4.2.4. Larramendiren alea	427
1.4.3. Harriet	429
1.4.4. Axular	430
1.5. <i>Erans</i> -eko kokalekua	431
1.5.1. Sarrera barruko ordena (I): Iturrien ordena	431
1.5.1.1. <i>Refranes y Sentencias</i>	434
1.5.1.2. Landucci	435
1.5.1.3. Axular	435
1.5.1.4. Harriet	436
1.5.1.5. Iturri ezezaguneko hitzak	436
1.5.2. Sarrera barruko ordena (II): Iturrietako ordena	436
1.5.3. Alfabeto hurrenkera	438
1.5.3.1. Harriet	439
1.5.3.2. Axular	440
1.5.3.3. Landucci	441
1.5.3.4. <i>Refranes y Sentencias</i>	442
1.5.3.5. Iturri ezezagunekoak	442
1.5.3.6. Ondorio zenbait	443
1.6. <i>HH</i> -tik <i>Erans</i> -era	444
2. Azterketa berri baterako	449
2.1. Agerraldi bat baino gehiago	450
2.1.1. Grafia	450
2.1.2. Erratak eta irakurketa txarrak	451
2.1.3. Aldaerak	452
2.1.4. Morfologia	452
2.1.5. Itzulpena	454
2.1.5.1. Landucci	454
2.1.5.2. <i>Refranes y Sentencias</i>	454
2.1.5.3. Harriet	455
2.1.5.4. Axular	456
2.1.6. Testuingurua	457
2.1.7. Erabilitako orrialdeak	459
2.1.7.1. <i>Refranes y Sentencias</i>	459
2.1.7.2. Harriet	460

2.1.8. Erabilitako zatiak	460
2.1.8.1. <i>Refranes y Sentencias</i>	460
2.1.8.2. Axular	461
2.1.8.3. Harriet	463
2.1.8.4. Landucci	464
2.2. Iturri bat baino gehiago	464
2.2.1. Forma erabakigarri	471
2.2.2. Esanahia erabakigarri	472
2.2.3. Forma eta esanahia iturri baten alde	474
2.2.4. Berdinketak	475
2.3. Zalantzazko iturria	477
2.4. Iturri ezezagunekoak	479
2.4.1. Proposamen berri zenbait	481
2.4.1.1. Erauzi eta eratorriak	481
2.4.1.2. Aldaerak eta	483
2.4.1.3. Larramendiren hitz berriak?	484
2.4.1.4. Mugagabe eta pluralak	485
2.4.2. <i>RS</i> -ren zati galdua	485
2.4.2.1. Grafia	486
2.4.2.2. Morfologia	487
2.4.2.3. Itzulpena	488
2.4.2.4. Erratak	489
2.4.2.5. Hitz familiak	489
2.4.2.6. Bizkaierazko hitzak	490
2.4.2.7. Maileguak	491
2.4.2.8. <i>Erans</i> -eko kokalekua	491
2.4.3. Iparraldeko iturri ezezaguna	492
2.4.3.1. Grafia	492
2.4.3.2. Erratak	493
2.4.3.3. Maileguak	493
2.4.3.4. Itzulpena	493
2.4.3.5. Iparraldeko hitzak	494
2.4.3.6. Iparraldeko idazleak	494
2.4.3.7. <i>Erans</i> -eko kokalekua	497
2.4.4. Gipuzkoaldeko hitzak	497
2.4.4.1. Hitz familiak	500
2.4.4.2. <i>Erans</i> -eko kokalekua	501
2.4.5. <i>Erans</i> -eko hapaxak	502
3. Ondorioak	503
3.1. Erratak eta irakurketa txarrak	504
3.2. Grafiak eta hotsak	505
3.3. Morfologia	506
3.4. Esanahia	508
3.5. Harlekua	509
3.6. Iturrien sar-ordena eta lan egiteko forma	510
3.7. Iturri ezezagunak	512
2. liburukia	
III. Hiztegi Hirukoitza-ren iturrien azterketa baterako oinarriak	517
1. Euskal hitza zer den edo hitzberrigintzaren oinarri teorikoak	519
1.1. Apologia eta hizkuntzaren defentsa	522
1.2. Euskara ikasi beharrez	532
1.3. Hizkuntza aldagabea, edo ustelketaren aurkako borroka	535
1.4. Hizkuntzaren ezaugarriak	540
1.4.1. Aberastasun motak	541
1.4.2. Hizkuntza filosofikoa eta hiztegi sortzailea	544
1.5. Hitz berriak egiteko bideak	551
1.5.1. Hitz filosofikoak (edo cratolikoak)	551
1.5.2. Etimologi azterketaren ondorenak	552
1.6. Sarturre gisa	556
2. Larramendiren sorbideen bila (I): Eratorpena	557
2.1. Atzizkiak banan-banan	559
2.1.1. Atzizki adierazkorrik (- <i>txo</i> , - <i>tzar</i> , - <i>txar</i> , - <i>xka</i> , - <i>to</i> , - <i>sko</i> , - <i>skote</i> , - <i>xar</i>)	559
2.1.2. Izen abstraktugileak (- <i>tasun</i> , - <i>keria</i> , - <i>go</i> , - <i>tza</i> , - <i>dade</i> , - <i>kintza</i> , - <i>kida</i> , - <i>tzia</i>)	565
2.1.3. 'Egilea' adierako izengileak (- <i>ari</i> , - <i>tzaile</i> / - <i>le</i>)	572
2.1.4. 'Langile' izenak (- <i>kin</i> , - <i>gile</i>)	581
2.1.5. [+gizakia] tasuneko bestelako izengileak (- <i>ko</i> , - <i>kide</i> , - <i>zai</i>)	583
2.1.6. Multzokariak (- <i>di</i> , - <i>aga</i> , - <i>eta</i> , - <i>tza</i> , - <i>te</i> , - <i>zu</i> , - <i>ada</i>)	585

2.1.7. 'Tresna' edo 'baliabidea' adierako izengileak (-garri, -ki, -kai)	591
2.1.8. 'Objektua'/'produktua' adierako izenen sortzaileak (-ki,-kai,-ko,-ada,-ari)	593
2.1.9. 'Lekua' adierako izengileak (-tegi)	597
2.1.10. 'Denbora' adierakoak (-te, -aldi)	598
2.1.11. Aditzizena eta haren ondorenak (-tze, -te, -de, -ta, -da, -nde, -lde)	599
2.1.12. 'Ekintza' / ondorioa' adierako gainerako atzizkiak (-era, -pen / -men, -keta, -dura, -tza, -aira, -zio, -kuntza, -kun, -ada, antza)	607
2.1.13. 'Ugaritasuna' edo 'maiztasuna' adierako izenondogileak (-ti, -tsu)	617
2.1.14. 'Jatorria' adierako izenondogileak (-(t)ar)	619
2.1.15. 'Joera' / zaletasuna' adierakoak (-kor, -koi, -zale, -tiar)	621
2.1.16. 'Gaitasuna' adierakoak (-garri, -kizun)	623
2.1.17. 'Jabetza' adierakoak (-dun, -duri, -ko)	625
2.1.18. Aditz sortzaileak	630
2.1.19. Aditzondo sortzaileak (-ro, -kiro, -ki, -to, -doro, -ka)	633
2.2. Datuen analisia	642
2.2.1. Atzizki bakartuak vs emankorrek	645
2.2.2. Alomorfoak	647
2.2.3. Oinarriak	652
2.2.4. Eratorrien adiera	655
2.2.4.1. Bana-banako egokitasunak	656
2.2.4.2. Izen abstraktuak eta ekintza-izenak	657
2.2.4.3. Erdal erlazio-izenondoak	658
2.2.4.4. DAut-en ereduaren eratorpenean	659
2.2.4.5. Gaztelaniak euskarari zor dizkion atzizkien berreskuratzea	660
2.2.4.6. Sail bereko atzizkien arteko ezberdintasunak	661
2.2.5. Hots-aldaketak	662
2.2.5.1. Zaharkituak	663
2.2.5.2. Ongi lekukotutako edota hedatutako formak	665
2.2.5.3. Arau edo joera berriak	669
2.2.5.4. Morfonologiako gertakari bereziak	672
2.2.5.5. Ordain azaltzaileak	673
2.2.6. Atzizki kateak	673
2.3. Ondorioak	676
3. Larramendiren sorbideen bila (II): Hitz elkartuak	681
3.1. HH-ko hitz elkartuen sailkapena	686
3.1.1. Izen elkarteak	687
3.1.1.1. Kopulatiboak	687
3.1.1.2. Menpekotasunezkoak	689
3.1.1.3. Justaposizioak	692
3.1.1.4. 'izena + -ko / -en + izena'	693
3.1.1.5. Onomatopeiak	693
3.1.1.6. 'mugakizuna + mugatzailea' ordena	693
3.1.1.7. 'x + [aditza ken -tu] > izena (izenondoa)'	693
3.1.2. Izenondo elkarteak	694
3.1.2.1. Dvandvak	694
3.1.2.2. Menpekotasunezkoak	694
3.1.2.3. 'izena + izenondoa' (Bahuvrīhiak)	695
3.1.3. Aditz elkarteak	695
3.1.4. Aditzondo elkarteak	699
3.1.5. Bi osagai baino gehiagoko elkarteak	699
3.1.6. Elkarketaren inguruko sail berezi zenbait	700
3.1.6.1. Lehen osagai bereziko izen elkarteak	700
3.1.6.2. Bigarren osagai bereziko izen elkarteak	702
3.1.6.3. Aditz arazleak	706
3.1.6.4. Esaldi hitzak	707
3.1.6.5. Animalia, harri, izar... izenak	707
3.1.6.6. Zenbatzaileak	709
3.1.7. Parasintesia	710
3.2. Hots aldaketak	712
3.2.1. Tradiziokoak	713
3.2.1.1. Forma zaharkituak	713
3.2.1.2. Ongi lekukotutako edota hedatutako formak	715
3.2.2. Oker ezarritako arauak	716
3.2.3. Arau edo joera berriak	717
3.2.3.1. Lehenengo osagaiaren bukaeran edota elkargunean	717
3.2.3.2. Elkargunean	720
3.2.3.3. Bigarren osagaiaren hasieran	723
3.2.3.4. Bigarren osagaiaren bukaeran	724
3.2.3.5. Osagaiak pairatzen dituzten itxura aldaketa bereziak	725
3.2.3.6. Hots jokoak	725
3.2.3.7. Morfonetikako gertakari zenbait	725
3.2.3.7.1. Bigarren osagai eratorria	726
3.2.3.7.2. Osagaien egokitzeak	728
3.2.3.7.3. Hitz elkartuen eratorriak	729

3.3. <i>HH</i> -ko elkartu zenbaiten etorkia	733
3.3.1. Analogiak eragindako elkarteak	734
3.3.1.1. Latinez	734
3.3.1.2. Grekeraz	735
3.3.1.3. Gaztelaniaz	735
3.3.2. Esanahiak eragindako elkarteak	737
3.3.2.1. <i>HH</i> -ko azalpenen eragina	737
3.3.2.2. <i>DAut</i> -en informaziotik eratorritako hitzak	738
3.3.2.3. Larramendiren irudimena	742
3.4. Ondorioak	742
4. Larramendiren sorbideen bila (III): Gaztelaniazko aurrizkien euskal ordainak	745
4.1. Erdal aurrizkiak banan-banan	749
4.1.1. <i>ante</i> -.....749. 4.1.2. <i>anti</i> -.....749. 4.1.3. <i>archi</i> -.....750. 4.1.4. <i>bi(s)-</i> , <i>biz-</i> , <i>di</i> -.....750. 4.1.5. <i>circun</i> -.....750. 4.1.6. <i>co(n)</i> -.....751. 4.1.7. <i>contra</i> -758. 4.1.8. <i>de(s)-</i> , <i>dis</i> -.....758. 4.1.9. <i>entre</i> -.....762. 4.1.10. <i>ex</i> -.....763. 4.1.11. <i>ex</i> - + <i>extra</i> -.....764. 4.1.12. <i>extra</i> -.....764. 4.1.13. <i>hemi</i> -.....764. 4.1.14. <i>i(n)</i> -.....765. 4.1.15. <i>infra</i> -.....769. 4.1.16. <i>inter</i> -.....770. 4.1.17. <i>micro</i> -.....770. 4.1.18. <i>mono</i> -.....771. 4.1.19. <i>multi</i> -.....771. 4.1.20. <i>pos(t)-</i>771. 4.1.21. <i>pre</i> -.....772. 4.1.22. <i>pro</i> -.....773. 4.1.23. <i>proto</i> -.....774. 4.1.24. <i>quad(r)-</i> , <i>quatr</i> -.....774. 4.1.25. <i>re</i> -.....774. 4.1.26. <i>retro</i> -.....777. 4.1.27. <i>semi</i> -.....777. 4.1.28. <i>so-</i> , <i>sub</i> -.....778. 4.1.29. <i>sota</i> -.....778. 4.1.30. <i>super-</i> , <i>sobre</i> -.....779. 4.1.31. <i>tra(n)s</i> -.....780. 4.1.32. <i>tri-</i> , <i>tres</i> -.....781. 4.1.33. <i>ultra</i> -.....783. 4.1.34. <i>uni</i> -.....783. 4.1.35. <i>vice</i> -.....783.	
4.2. Aurrizkidun hitzen ordezkapeneko joera orokorrak	784
4.3. Larramendiren lan sistemari buruzko ebidentziak: aurrizkidun hitzak	792
4.4. Ondorioak	793
5. Larramendiren sorbideen bila (IV): Hitzberrigintzako gertakari orokor zenbait	797
5.1. Esanahi hedadura	797
5.2. Kategoría aldaketa	800
5.2.1. Izenondoa eta izena	802
5.2.2. Izenondoa eta aditzondoa	807
5.2.3. Partizipioa eta izena	809
5.2.4. Partizipioa eta izenondoa	810
5.2.5. <i>-ka</i> aditzondoa eta izena	812
5.2.6. Kasu berezi zenbait	813
5.3. Analogiazko eraketak	813
5.4. Atzeranzko eratorpena	816
5.4.1. Atzeranzko eratorpena eratorbide eta deklinabidean	821
5.4.2. Atzeranzko eratorpena hitz berrien osagaietan	825
5.5. Ondorioak	828
6. Larramendiren sorbideen bila (V): Etimologiak	833
6.1. Larramendiren heziketa dela eta	836
6.2. Tradiziozko etimologigintzaren oinarri kontzeptualak	839
6.3. Larramendiren etimologiak	843
6.3.1. Etimologia cratilotarrak	844
6.3.1.1. Azterketa morfologikoa	844
6.3.1.2. Paronimia	851
6.3.1.3. Beste ezaugarri zenbait	854
6.3.2. Sistemaren berrikuntzak	855
6.3.2.1. <i>DAut</i> -en eredia	857
6.3.2.2. Oihenarten eredia	860
6.3.2.3. Larramendiren bestelako lorpenak	862
6.4. <i>DAut</i> etimologiaren eredu gisa	863
6.5. Etimologiak eta euskal ordainak	864
6.5.1. Etimologiak eta maileguak	864
6.5.2. Etimologiak eta hitz berriak	868
6.5.3. Grekozko etimologiak eta hitz berriak	872
6.6. Ondorioak	874
7. Larramendiren sorbideen bila (VI): Maileguak	875
7.1. Maileguak egin edo gordetzeko arrazoi nagusiak	881
7.2. Maileguen izaera orokorra	883
7.2.1. Arlo semantikoak	883
7.2.2. Gramatika-kategoriak	884
7.2.3. Lehenago lekukotutako maileguak	884
7.2.3.1. Tradizio sendoko hitzak	885
7.2.3.2. Bakanki lekukotutako maileguak	887
7.2.3.3. Hitzegietako maileguak	888
7.2.3.4. Alde batera utzitako maileguez	890

7.3. "Benetako" maileguen erabilera	891
7.3.1. Ezinbesteko maileguak	892
7.3.2. Behin-behineko maileguak	894
7.4. Etimologidun maileguak	897
7.4.1. Etimologidun maileguen familia	897
7.4.2. Etimologidun maileguen izaera	899
7.4.3. Etimologidun maileguen erabilera	901
7.5. Ondorioak	905
8. Larramendiren sorbideen bila (VII): Toponimia eta antroponimia	907
8.1. Diren eta ez direnen artean bereizteko irizpideak	913
8.2. Toponimoen erabilera	914
8.3. Geroko euskararako inplikazio zenbait	920
8.4. Ondorioak	922
9. Iturri idatziak (I): Euskal liburuak	923
9.1. Larramendiren liburuak	928
9.1.1. Leizarraga	929
9.1.1.1. Larramendiren alea	930
9.1.1.2. Leizarraga <i>HH</i> -ko hitzaurrean	933
9.1.1.3. Leizarraga transkribatzen	937
9.1.2. Axular	937
9.1.2.1. Larramendiren alea	938
9.1.2.2. Axular transkribatzen	939
9.1.3. Etxeberri Ziburukoa	940
9.1.3.1. Larramendiren <i>Noelak</i>	941
9.1.3.2. Larramendiren <i>Manuala</i>	944
9.1.3.3. Etxeberri transkribatzen	945
9.1.4. Materre	946
9.1.5. Haranburu	946
9.1.6. Argaignarats	948
9.1.7. Gasteluzar	948
9.1.8. Xurio	949
9.1.9. Lavieuxvilleren dotrinak	950
9.1.10. <i>Exerzizio Spirituala</i>	951
9.1.11. Beriain	952
9.1.12. Hegoaldeko dotrinak	953
9.1.12.1. Arzadun	955
9.1.12.2. Elizalde	956
9.1.12.3. Irazusta	956
9.2. Iparraldeko tradizioa <i>HH</i> -an	957
9.2.1. Iparraldeko tradizioaren garrantzia	957
9.2.2. Azterketaren mugak	959
9.2.3. Iturritasuna frogatzeko posibilitateez	963
9.2.4. Iparraldeko hitzak idazleaz idazle	966
9.2.4.1. Leizarraga	966
9.2.4.2. Axular	970
9.2.4.3. Etxeberri Ziburukoa	973
9.2.4.4. Materre	974
9.2.4.5. Gainerako idazleak	976
9.2.5. Erabakiezineko hitzak	978
9.2.6. Eztabaidatzeko hitzak	981
9.2.7. Zalantzapeko hitzak	983
9.2.7.1. Literatura ala ez	984
9.2.7.2. Eratorriak noraino?	992
9.2.7.3. Iratxo eta bestez	997
9.2.7.4. Iturri berririk?	999
9.2.7.5. Maileguen kontua	1000
9.2.8. Iparraldeko idazleen hitzen patua	1001
9.2.8.1. Leizarragaren itzulpenak	1001
9.2.8.2. Hiztegia osatuaz	1003
9.2.8.3. Hiztegiko kokalekua	1006
9.2.8.4. Iturriko agerlekua	1009
9.3. Hegoaldeko testuak	1010
9.3.1. Hegoaldeko dotrinak	1010
9.3.1.1. Elizalde	1010
9.3.1.2. Otxoa	1011
9.3.1.3. Kapanaga	1012
9.3.2. <i>Refranes y Sentencias</i>	1013
9.4. Ondorioak	1016
10. Iturri idatziak (II): Hiztegiak	1021
10.1. Etxeberri Sarakoaren hiztegi galdua	1022

10.1.1. Arazoaren egoera	1023
10.1.2. <i>SbUrq</i> eta <i>HH</i> : lehen hurbilketa	1024
10.1.3. <i>SbUrq</i> -en ezaugarri zenbait	1030
10.1.3.1. Antolakuntza	1030
10.1.3.2. Grafiazko gogoetak	1030
10.1.3.3. <i>SbUrq</i> -en (berr)egilearen hizkuntza gaitasunez	1032
10.1.4. Etxeberri ala Larramendi?	1034
10.1.4.1. <h> dela eta	1035
10.1.4.2. Hiruretan diren Etxeberriren hitzak	1037
10.1.4.3. Iturri ezezaguneko Iparraldeko hitzak	1042
10.2. Landucci	1047
10.3. Harrieten gramatikako hiztegitxoak	1052
10.3.1. Harrieten hitzak ezagutzeko argudioak	1054
10.3.1.1. Huts bateratzaileak	1054
10.3.1.2. Grafia bereziak	1054
10.3.1.3. Harrietek azal ditzakeen hutsak	1055
10.3.1.4. Aldaera bereziak	1055
10.3.1.5. Morfologiazko berezitasunak	1056
10.3.1.6. Sarrera bereko hitzak	1057
10.3.1.7. Familia bereko hitzak	1057
10.3.1.8. Esanahia	1059
10.3.1.9. Esapideak	1062
10.3.1.10. Lekua	1062
10.3.1.11. Noraino iritsi zen	1064
10.3.2. Harrieten hitzen patua	1066
10.3.2.1. Grafia	1066
10.3.2.2. Zuzenketak-edo	1067
10.3.2.3. Aldaera aldaketak	1068
10.3.2.4. Morfologia	1068
10.3.2.5. Hitz berriak egiten	1069
10.3.2.6. Familiakideak	1070
10.3.2.7. Esanahikideak	1074
10.3.3. Ondorioak	1075
11. Iturri idatziak (III): Erdal liburuak	1081
11.1. Zenbait iturriri buruzko xehetasunak	1084
11.1.1. Isasti	1084
11.1.2. Pierre de Marca	1085
11.1.3. Oihenart	1086
11.1.4. Perotxegi kapitaina	1088
11.2. Euskal hitzen esanahi ezkutua	1089
11.3. Antzinako hizkuntzaren hitzak	1092
11.4. Han-hemengo etimologigaiak	1096
11.4.1. Aitzindarien erabilera	1099
11.4.1.1. Larramendiren iturriak	1100
11.4.1.2. Iturrien arteko auziak	1102
11.4.1.3. Formazko aldaketak	1105
11.4.1.4. Esanahi aldaketak	1110
11.4.1.5. Zeharo aldatutako etimologiez	1114
11.4.1.6. <i>DAut</i> -en eragina	1114
11.4.1.7. Baztertutako etimologiak	1115
11.4.1.8. Euskalki markak	1116
11.5. Etimologigintza berria	1117
11.6. Iturrietatik hartutako ordainak	1120
11.6.1. Ordain etimologikoak	1120
11.6.2. Bestelako ordainak	1126
11.6.2.1. Marineo Siculo	1126
11.6.2.2. Pierre de Marca	1127
11.6.2.3. Etxabe	1127
11.6.2.4. Oihenart	1128
11.6.2.5. Isasti	1128
11.6.2.6. Garibai	1129
11.7. Ondorioak	1129
12. Entzundako hitzak	1131
12.1. Metodoak, mugak eta arazoak	1138
12.1.1. Azkueren "dialektologia"	1141
12.1.2. Gure jokabidea	1146
12.2. Azkerketaren emaitzak	1149
12.2.1. Lehen lekukotasunen garrantzia	1149
12.2.2. Hegoaldeko lehen lekukotasunak	1151
12.2.3. Hitz orokorren lehen lekukotasunak	1152
12.2.4. Hegoaldeko hitz orokorrak	1152
12.2.5. Hego erdialdeko hitzak (G-GNkoak)	1153

12.2.6. Gipuzkerazkoak	1153
12.2.7. Bizkaierazkoak	1154
12.2.8. Loiola inguruko euskara	1155
12.2.9. Ekialdeko hitzak edo aldaerak	1158
12.2.10. Bestetan lekukotu gabeko hitz edo aldaerak	1161
12.2.10.1. Gertuko laguntzak	1161
12.2.10.2. <i>HH</i> barruko argudioak	1165
12.2.10.3. Azalpenik gabeko hitzak	1167
12.3. Ondorioak	1167
Ondorioak	1173
Bibliografia	1215

ESKER EMATEA

Joseba A. Lakarra irakasleak 1993an berea utzi zuen puntuan bertan hasten da tesi-lan hau. Nahi izanda ere, ezingo nuke inoiz berarekin dudan zorra osoki kitatu. Aitzindari argi eta *sparring* gogorra izateaz gainera, tesi zuzendari langile ere izan da: pertsonak pairatu ohi duen baino zirriborro gehiago eta, bistan da, orrialde gehiago irakurri ditu. Berari doakiola, beraz, nire lehenengo esker aitormena.

Honetaz gainekoekin ditudanak aipatzen hasiko banintz, gehiegi luzatzeaz gain ziur naiz labur geratuko nintzatekeela. Hiru salbuespen egin nahi ditut, halere, albo batera utziak ahaztuak sentituko ez direlakoan.

Lehena, Euskal Filologiako sailkideei luzatu nahi diet, beti hitz eztiak entzun eta maiz laguntza aurkitu dudalako, den bezain sail ñabar batean era askotako hurbilketak —niretik aski ezberdinak askotan eta, horrexegatik, zeharo irakasgarriak— elkarrekin bizi direnez gero. Sailkideen artean urte batzuetan kideena izan dudan Pilartxo Etxeberriari aipatutako guztiak eta are jasapen eta ulerkortasun neurritz gainekoa eskertu nahi diot.

Bigarren, *Orotariko Euskal Hiztegi*-ko lankide ohiei, haien artean eta haiekin batera bizitzako ordu —ez soilik filologiko— onen eta aberasgarrienetakoak igaro ditudalako, Koldo Mitxelena eta Ibon Sarasola maisuen babespean nor bere aldian —neofito xamar— sartuaz joan ginenetik elkarren laguntzan filologiaren bide malkartsuetan barrena ausartu ginelarik.

Hirugarren, baina azken lekua ere ohorezko izan ohi, familiakoei, Victor eta Estibaliz Alonsori, bere-bereak ziren astialdi galduengatik: ai berdintzerik banu!

Tesia eskaini, berriz, Feli Ramírez Vallejori eskaini nahi diot. Lana sekula buka nezakeenik sinistu gabe joan bide zinen bestaldera, apika. Baina hona hemen.

AURKEZPENA

Ikerketa honen xede orokorra Manuel Larramendiren *Diccionario Trilingüe del Castellano, Bascuence y Latín* (euskaraz *Hiztegi Hirukoitza* deitua, hemendik aurrera *HH*) hiztegiaren ezagutzan aurrerapausu zenbait egitea da. Literatur historietako ohiko ebakidura kronologikoen arabera, *HH* euskararen historiaren aldaketa sakon baten atarian aurkitzen dugu, eta bera izan zen horren eragile nagusia eta eusle garrantzitsuenetako bat:¹ Hegoaldeko euskara zaharraren lekukotasun urri eta zatikakoetatik euskara idatzi eta neurri batean (tradizio jakin bati atxikitzen zaion neurrian, hain zuzen) kodifikatu batera daramana. Aldaketa nola eta zergatik sortu eta hedatu zen gero eta argiago badugu ere, egiatan *HH*-az hiztegia den bezainbatean, haren izaera eta edukiaz ezer gutxi dakigu. Bistan da eragin zuen aldaketa bere osoan ulertzeko ezinbesteko urrats hori emateko garaia iritsi dela.

Honezkero, esan gabe doa ikerlan honen ikuspuntu orokorra historikoa izango dela, lehenago zegoena oso kontuan hartuta eta gero etorriko zena ahaztu gabe moldatua. Honelako azterketa bat, gaiak ibili diren iritzi eta aurreiritziak gaindituta bakarrik gauza daiteke, hiztegiak eskaintzen dituen datuak arakatuaz. Halaz ere, zertan ari den dakienak ez luke bere burua datuen objektibotasunpean estali behar, aspaldi ezeztatu baitzen —teorian bederen— “the confident nineteenth-century ideal of the historian’s perfect objectivity” hura (Law 1990: 61). Darwinek zioenez (ap. Gould 1999: 30), “Qué raro es que nadie vea que toda observación debe hacerse a favor o en contra de determinadas hipótesis, si es que ha de servir para alguna cosa!”: azterketa hau ere oinarria eta zentzua eman dion —eta ziurrenik ezinbestean baldintzatu duen— gertakariak ulertzeko modu batetik abiatzen da. Aurkezpen honetan, bada, ezer baino lehenago nire urratsak gidatu dituzten irizpideak agerian jarriko ditut, gero tesigaiaren jomuga zehatza eta hartara iristeko saiatu asmo ditudan ikerbideak azaltzeko.

¹ Aurkeztu den azken periodizazio saioan ebakidura bera onartzen da (Lakarra 1997: 511-517), *HH*-aren argitalpen urtearen aurreko garaia (1600-1745, “euskara zahar eta klasikoa”) eta ondokoaren artean (1745-1890, “lehen euskara modernoa”) bereizteko (Hegoaldeko) literatur hizkuntzaren bilakabideari (lexiko zainduagoa, eratorpenaren ugalketa, maila jasoagoa eta sintaxi periodo zabalagoak) begiratuaz.

1. Arazoaren bilakaera eta egoera

1.1. Larramendi euskararen historian

Larramendiren lan erraldoiek, zalantzarik gabe bere nortasun biziarekin batera, Hegoaldeko euskaldunen gogoia irauli zuten, euren hizkuntzaren garrantzia ozenki aldarrikatuaz eta haren posibilitateetan sinisteko oinarri sendoak eskainiaz. Mogelek, beste asko baino josulagunarekiko uzkurxeago agertu arren (Altzibar 1986: 18), honela aitortzen zuen:

Confieso que aquel Savio ingenioso trabajó qual ninguno en sacar a público nuestro idioma, que él le ha hecho conocer hasta en Italia, Berlín y Londres; que él sólo era capaz para formar un arte y diccionario (...) (Mogel, *Apología de la Lengua Bascuence*, ap. Altzibar *loc. cit.*, 2. oh.).

Bat-batean ia, egoera goitik behera aldarazi zuen, ez bakarrik pizgarriak (apologiazko lanak) eta lanabesak (gramatika, hiztegia) emanaz, baina are euskara idatziaren lehen urratsen begirale papera bere gain hartuaz: *HH* atera eta bigarren urtean jada aintzat hartzeko moduko idazlan bi kaleratu ziren, Sebastian Mendibururen *Jesusen Bihotzaren Devocioa* (Donostia, 1747), Larramendiren hitzaurre gogoangarriarekin,² eta beraren Asteteren itzulpena (Burgos, 1747), gidari berberaren zuzenketez apaindua.³

Larramendiren itzalak mende eta erdiz bere hartan irauin zuen, artean euskal liburuen ekoizpen eta argitalpenak arras ugaltu zirelarik (Sarasola 1976: 182-183).⁴ Erraz aurkitzen dira —betiko salbuespenak alde batera utzita— Larramendiren ideiak eta *HH*-ko hitzak garai haietako idazleengan —batzuetan baita Iparraldekoetan ere⁵—, eta pentsatzekoa da gramatikaren eragina neurtzen hasi orduko ere emaitzak ez direla eskasagoak izango.⁶ Alabaina, egia esanda, iraute hura aldez bederen geldialditzat hartu behar dugu: Hegoaldeko euskal kultura lehen abiada indartsu hartan itxaron zitekeen baino askoz motelago garatuaz joan zen, XIX. mendearen lehen hamarkadetan gure bazterrak lardaskatu zituzten gerlak, gobernu aldaketak, argitalpen debekuak eta bestelako ezbeharren eraginez. Tartean Larramendik irekitako bide ezberdinak jorrazteko eta ezarritako oinarriak berritzeko zenbait saio garrantzitsu izan baziren ere, berak landatutako kimua hortxe zela erakutsiaz, egiatan erlijio

² Ik. Altuna & Lakarra 1990: 33-37, azkeneko argitalpena, non *Euskara berriaren "Carta Magna"* izen handi bezain mereziaz bataiatua izan den. Lakarra (1985c: 443-448), Mogelek *Confesio ta comunioco...* (1800) liburuan galanto erabili zuela gogoratzeaz gain, lztuetak ere, behinik behin, beste hainbeste egin zuela erakutsi du, "1900 ingurura arte hegoaldean hau baino garrantzi gehiagoko testu gutxi dugula" ondorioztatuaz, arrazoiz inondik ere.

³ Dotrina honen egiletasun gorabeheraz ik. Altuna 1982: xvi-lvii. Loiolako eskuizkribuaren argitalpena bertan (*ib.* 1-46) aurki daiteke, argitalpena eta eskuizkribuaren arteko erkaketa Lakarra 1986a-n eta faksimilea eta hiztegia Lakarra 1987a-n.

⁴ Sarasolaren taulek, ezaguna denez, argitalpenak baino ez dituzte jasotzen: esan gabe doa eskuizkribuan geratu ziren hainbat eta hainbat lan garrantzitsu ere eskubide osoaz bultzada berari egotzi behar zaizkiola.

⁵ Ik. Lakarra 1985a: 31-34, Sarasola 1986: 203 t. hur. eta Urkizu 1992.

⁶ Literatura barruko eraginaz ari naiz, jakina, ezen euskal gramatikagintzaren historian (Añibarro, Lécluse, Zabala, Lardizabal...) jadanik aski ezaguna baita, nahiz oraindik xeheki aztertzeke dugun. Xehetasunetarako, ik. hurrengo oharra.

liburuez landara ezer gutxi iritsi zen argitara, eta hauek ere nekez batzuetan; 1850 baino lehen ondutako gramatika eta hiztegi guztiak, bestalde, eskuizkribuan geratu ziren.⁷

Ziurrenik lehen higidurak 20-30 urte lehenago kokatu behar diren arren,⁸ Foruen desagerpenari (1876) egotzi ohi zaio⁹ mendearen bigarren zatian gertatzen den susperraldia. Une hartan mamitzen da gaur arte etengabe —denok ezagutzen dugun eten gogorra gorabehera— goraka diharduen euskararen kultur mailako gaitze saioa, euskaltzaleen gogo berriztuek adierazpide eragingarriagoak (aldizkariak, kasu) eta lehenengoz nolabaiteko jarraipenaz aginte eta dirudunen laguntza erdietsi zutelarik. Lehenagoko lanak —argitaratu zein argitaragabeak— ezagutzeko eta ezagutzera emateko egarri biziak batera,¹⁰ euskara sekula ez iritsitako bazterretan sartzen da orduan. Eredua, ezinbestean, Larramendi izan behar, zehazkiago haren hiztegia, hain zuzen ere lehendabizikoz honen eduki itzela hiztegietatik kanpo erabiltzeko aukera heldu zen eta. Loraldiaren erpina 1879-1896 bitartean kokatu behar dugu (I. Pagola 1984) eta haren oihartzuna XX. mendearen lehen urteetara arte zabaldu: artean Arana-Goiri eta Azkue, zein bere aldetik, Larramendiren garaia ixteko arrazoiak eta baliabideak

⁷ Astarloa, Añibarro, Zabala, Lécluse, Iturriaga, Iztueta, Aizkibel eta Lardizabal aipa daitezke, hurrenez hurren, Larramendiren gramatika edota hiztegia berri edo osatzeko saio nagusien erakusgarri gisa. Batzuen argitalpen berankorrek (Zabala, Lardizabal) hurrengo oharrean jasotzen dira; are berankoragoak (Astarloaren *Discursos*, Aizkibel), 10. oharrean. Argitalpen modernoetan bakarrik ikusi dute argia Añibaroren hiztegiak (Villasante 1963) eta gramatikak (Villasante 1969) eta Iztuetaren hiztegiak (Urkizu 1996). Galdutzat eman behar ditugu, berriz, Iturriagaren hiztegi-gramatikak (Garmendia 1968; Lakarra 1985a: 43 eta 1985c: 452; Urgell 1995: xxiv-xxviii) eta Lardizabalen hiztegia (Garmendia 1980; Urgell 1995: xxii-xxiii). Salbuespen bakarrak Astarloaren *Apologia* (1803) eta Lécluseren gramatika hiztegiduna dira (1826), baina honen hiztegi handia, berriz, gainerakoen patu txarrak hartu zuen (txarrenak, agian: Pabeko Bibliotekan gordetzen bazen ere, fitxatan, 1920az gero ez dago haren berririk: ik. Urquijo 1923: 336, 1. oh.).

⁸ Kontuak argi eta garbi aldatuz doaz, Gipuzkoan behintzat, Iturriaga-Iztueta bikotearen garaitik aurrera, oraindik gorabehera handiekin izan bazen ere, eta Gipuzkoako Aldundiak zerikusi zuzena izan zuen aldaketan (Urgell 1995: xxii-xxxii). Ordura arteko erlijio liburuen erabateko nagusitasunaren aldamenean, honako zerrenda esanguratsu hau era daiteke 1841-1876 bitarterako, euskaraz zein gaztelaniaz eragin teorikoren bat izan zezaketen lan argitaratuei dagokienez: Iturriagaren *Arte de aprender a hablar la lengua castellana...* (1841), *Diálogos basco-castellanos* (1842) eta *Fábulas* (1842), Iztuetaren *Condaira* (1847), Zabalaren *Verbo Regular Bascongado* (1848), Larramendiren *Imposible Vencido* eta *Diccionario Trilingüe* aren berrargitalpenak (1853), Lardizabalen gramatika (1856), Zabalaren *Noticia de las obras vascongadas...* (1856), Gorosabelen *Diccionario histórico-geográfico-descriptivo...* (1862), Arakistainen *Tradiciones Vasco-cántabras* (1866), Egurenen *Método práctico* eta haren ondorenak (1867tik aurrera), Dasconaguerreren *Ecos del paso de Roldán*-en Manterolaren gaztelaniazko itzulpena (1872), Soraluzeren *Historia General de Guipúzcoa* (1870) eta *Más biografías y catálogo de obras vasco-navarras* (1871) eta G.Z. delako baten *Iracurtzaren asierac edo lenasteac euscalerrico aurrentzat* (1875). Erantsi behar zaie 1825ean lehenengoz argitaratu zen baina 1840-1876 artean hainbat aldiz (11 orotara, Vinsonen arabera, baina bada beranduagokorik: Lakarrak (1993: 364, 71. oh.) 1936 arteko jarraipena idoro du) berrargitaratu zen Astigarragaren hiztegitxoa.

⁹ Ik., besteak beste, Mitxelena 1960: 135 t. hur. eta Villasante 1979: 281. Lakarrak (1997: 517), aipatutako periodizazioan, aldaketari baino jarraitasunari garrantzi gehiago eman dio data hau balioesterakoan, 1884an hasten den *Eskualduna*-ri eta 1891n agertzen den *Euskal Izkindea*-ri euskararen historiarako Foruen galerari baino esanguratsuago iritzirik.

¹⁰ Villasantek (1979: 281) Tolosako Eusebio Lopez argitaratzailea bereziki aipatzen du; eta, garai hartan berreskuratu ziren lan argitaragabe zein argitaratu zaharren artean, Mogelen *Peru Abarka* (1881; 1800 inguruan idatzia), Astarloaren *Discursos filosóficos* (1883; 1800 inguruan idatzia), Henaoren *Antigüedades* (1894; 1689-1691n arg.) eta Moreten *Anales* (1890; 1684-1715 artean arg. eta 1766an berrarg.). Erantsi behar zaizkie Aizkibel (1883; 1853 baino lehen egina) eta Novia de Salcedoren hiztegiak (1887; 1865 baino lehenagokoa), behinik behin. 1841-1876 zein 1876tik aurrerako berreskurapenen ezaugarria da denak liburu teorikoak izatea (*Peru Abarka* ere teorikoa baita, jakina): honek argi aski adierazten du aurreneko garaietan zer bilatzen zuten.

pilatzen ari dira baina, ezpairik gabe, bigarrenaren hiztegiaren argitalpena (1905-1906) izan zen *HH* ganbarara kondenatu zuen gertakari zehatza, adibidetzat eman ohi den Txomin Agirrerren bilakaera lekuko (Mitxelena 1970: 18).

Etena, itxuraz behinik behin,¹¹ erabatekoa da. Ez da ahaztu behar bi maisu berriak bizkaieratik abiatu zirela, beheragunearen eragina gehien pairatu zuen euskalkitik, hain zuzen:¹² bitartean Mogel eta Añibarroren ereduak zaharkitu egin ziren, susperraldiko idazleek ia nork bere bidea urratzeak erakusten duen bezala (Laka 1988: 180). Azkue eta Aranarentzat, beraz, errazago izan bide zen hain urrungo ereduarekin haustea, bide zeharo berriak irekitzea, gipuzkerazko tradizioan hezita ari zitekeenarentzat baino, demagun. Edonola ere, ondorioak oso ezberdinak diren arren, biak neurri handi batean ados daude lehenagoko saioak atzean utzi behar direlakoan eta, zehazkiago, maileguen aurkako gurutzadan eta Larramendiren neologismoak —direnak direla— oro har gaizki eratuta daudelako ustean. Ez dago esan beharrik euren lanek erdietsi zuten arrakasta: hain izan zen handia, ostera, bien irizpideen arteko tirabirek denen arreta bereganatu baitzuten, inolako gudurik gabe eta oso epe laburrean Larramendiren garaia ziplo bukatutzat emanik. Goizetik gauera, Larramendiren itzalpean egindako lanak zahartzat —eta txartzat, nahiz honetan Urquijoren begirune neurtutik Kirikiñoren gorroto neurrigaberaino, adibidez, tarte handia egon¹³— hartzen dira.

1935ean J.M. Mokoroa “Ibar”-en *Genio y Lengua* liburua argitaratu zen. Urte txarrean, inondik ere, laster zeregin premiatsuagoak izan behar zituzten euskaldunen begietara iristeko. Hala eta guztiz ere, gerra ondoren aurkitu zuen, baita onenen eta eragingarrienen artean aurkitu ere,¹⁴ bilatzen zuen irakurleria, hots, aurreko gehiegikeriak arbuatuta euskal senari atxikiago eta, beraz, euskaldun irakurleengandik hurbilago ibili nahi zukeen idazle belaunaldi berria. Funtsean, Ibarrek euskara idatzia zuzenago bideratzeko egitamu berri bat aurkeztu nahi zuen, haren historiaren berrirakurketa oso kritiko batean oinarri harturik. Literaturan izan zezakeen eragina gorabehera, ondoko urteetan ondu ziren euskal literaturaren histori liburu guztiek¹⁵ ontzat ematen dute haren interpretapena, eta esan gabe doa denbora luzean ikerlan guztiak baldintzatu —eta oraindik ere batzuetan baldintzatzan— dituela.

Ibarren ustez Hegoaldeko euskal literaturaren gaitzak jatorrizkoak dira, Larramendik lehen abiada eman zionetik itsatsiak. Lehenik, Iparraldeko tradizio aberats eta jatorrari jarraiki

¹¹ Cf. Laka 1986, Azkueren lehen lanetan (eta ziurrenik baita geroko zenbait alderditan) Astarloak izan zuen garrantziak, eta Laka 1987, Azkueren *Euskal Izkindea*-k Aranaren ereduaren jokatu zuen paperaz.

¹² Sarasolaren arabera (1976: 182-183), XIX. mendearen bigarren zatian 4 liburu berri, bat ere ez jatorriz euskaraz idatzia, eta orotara 27 liburu bakarrik argitaratu ziren bizkaieraz, gipuzkeraz 16 berri, 16 jatorriz euskarazkoak, eta orotara 96 liburu egin ziren bitartean. Ohar bedi 23 berrargitalpenetatik bost Añibarroren *Esku-liburua*-renak direla (1852, 1854, 1866, 1891 eta 1897), nolako egoera zegoen hobeki antzemateko.

¹³ Ik. Lakarra 1985a: 36, 38bis oh., eta Urgell 1992: 222-225.

¹⁴ Mitxelena (1960: 32, 13. oh.) “libro definitivo” deitu zuen orduan.

¹⁵ Onaindia (1972: 199-200), Villasante (1979: 22, 119-120 eta 134-136, besteak beste), Sarasola (1976: 54-55), Mujika (1979: 16), etab. Bestetan hurbilketa berritzaileak egiten badaki ere, puntu honetan lehengoan geratzen da Juaristi 1987 ere.

hasi beharrean, bere bidetik abiatu zen.¹⁶ Bigarrenik, Larramendik batez ere erdaraz eta erdaldunentzat idatzi zuen, hizkuntzaren garapenak baino haren ospeak eta etsaien jazarrei erantzun beharrak kezkatuago; harrezkero, handinahi eta itxurazaleak izan omen dira Hegoaldean egindako gauza gehienak. Eta, hirugarrenik, agerian dago etimologiak eta hitz berriak erdaldunak zapuzteko eta atzipetzeko saioak baino ez direla: ez Larramendik eta ez haren ondokoek halako asmakeriak zinetan hartu zituzten, beren idatzietan daukaten neurri onak erakusten digun bezala. Tamalez, hurrengoak, jatortasun eta neurriaren zentzua galdua, barra-barra erabiltzen hasi ziren, baita zorakeria berriak asmatzen ere. Azken finean, beraz, Larramendi da, nahi gabe bada ere, Hegoaldeko garbizalekeria zentzugabekoaren aita.¹⁷

Ibarren lanaren eragin zuzen edo zeharkakoa azertu gabe badago ere, zalantzarik gabe esan daiteke Mitxelena izan zela teoriaren aldezerik zentzudun eta eragingarriena, eta sarritan haren bitartez eta haren begiek iragazita eta txukunduta gainerakoengana iritsi zela. Larramendiz kezkatu zen lan guztietan begi onez begiratzen zuela ezin uka daiteke, andoaindarraren nortasun eta idaztankera gatzozpinduak, besteak beste, erakarrita, baina orokorki ez du inolako kritikatzen, osatzen baizik, Ibarrek Larramendiren eraginaz egindako epaia.

Mitxelenaren ustez (1959a, bereziki), Ibar baino Larramendiren lanari buruzko ikuspegi orokorrago batetik abiatuta, haren berritasuna ez datza historia edo hizkuntzari buruzko ideietan, ezer gutxi urruntzen baita hartaz lehenago idatzi zutenengandik, gramatikan eta hiztegian baizik. Eta hiztegian aurkitzen du Mitxelenak, Ibarrek bezalaxe, arazoaren muina.

Hiztegiaren egiturak berak —erdara-euskara izateak, alegia— kanpora begira egina dela erakusten omen du, kanpokoak harri eta zur uzteko pentsatutako tresna.¹⁸ Egitura horrek

¹⁶ Ez du zalantzarik honi dagokionez aski zabaldua bide zegoen iritzi batean oinarri hartu zuela. Bertsiorik gogorrena Etxegarairena da (1901, ap. Urquijo 1907d: 54), alegia, XX. mendera arte euskal idazleak bakardadean lan egin zutelakoa. Urquijok baieztapenaren hedadura asko murriztu zuen (*ib.* 55), XVII-XVIII. mendeetako Iparraldeko literaturari ezin egotz dakiokela aldeztuaz, baina bai 1877-1880 (Manterolaren *Cancionero*) aurreko Hegoaldekoari. Geroxeago Urquijok hau bera ere zalantzan jarri zuen, baina ez Ibarrek garaz ezagutzeko ez eta honen eragina suntsitzeko moduan (cf. Urquijo 1967: 4).

¹⁷ Ibarrek atzamarrak ezin seinala zezakeena, ondokoek egin zuten. Pasaerterik esplizituenetakoak Sarasolaren hurrengo hauek izan daitezke (1976: 54 eta 76): “La postura ante el euskera adoptada por Arana-Goiri no es más que una radicalización de la de Larramendi”, eta “Por lo que toca a la cuestión de la lengua, Sabino Arana nos hace pensar de inmediato en el Padre Larramendi. Arana se limitó a sistematizar por su cuenta las posturas de su predecesor, a llevarlas hasta sus últimas consecuencias, y a completarlas con un fuerte activismo político. Como Larramendi, escribió la parte mayor y más importante de su obra en castellano, y lo hizo, como él, por motivos extralingüísticos. Es necesario, sin embargo, advertir una diferencia fundamental entre ellos. En lugar de seguir a Larramendi y dejar la teoría en el nivel de la pura especulación, Arana la llevó a la práctica por completo utilizando para ello todas las fuerzas políticas a su alcance, como lo exigía la ideología política que estaba construyendo”.

¹⁸ Honi jarraiki egindako balioespenak hamaika badira ere, merezi du hona ekartzea Tovar-ena (1980: 12): “En los estudios vascos representa el siglo XVIII un gran progreso. Larramendi, a pesar de sus teorizaciones, es el autor de la primera gramática de la lengua y del primer diccionario. Lástima que éste fuera compuesto para demostrar la tesis de la riqueza del vascuence y de que de esta lengua deriva mucho del castellano y... del latín”. Tovar-ek ez bide zuen aurkitzen inolako jauzi logikorik bere hitzetan, ez eta ondoko hauetan ere (*ib.* 87): “Como la obra [hiztegia] trata de defender la capacidad de la lengua para expresarlo todo, se comprende que Larramendi, sin duda el primero, presentara a continuación una teoría de la formación de neologismos...”.

ezartzen zion “pie forzado”¹⁹ delakoak ezinbestean hitz berriak ehundaka asmatzera eraman omen zuen, bidenabar euskal lexikografiari sekulako arazoa sortaraziaz: ematen dituen datuak ez omen dira fidatzekoak, benetako hitzak eta asmatuak hain estu elkarrekin josi baitzituen, non sarritan ez eta filologoak ere baitaki zer zer den. Bestalde, etimologiak denak txarrak omen dira, barregarriak, eta ziurrenik egilearen izaera auzizaleak azaltzen ditu: erdi-txantxetan eginak dirateke, bere teoriak etsaiek erraz ezin eztabaida zitzaketen frogez jantzi nahian eta, bide batez, haien lepora ederki barre egiteko, apika.

Iritzi hauen berrespena, Ibarrek bezala, Larramendiren idazkeran aurkitzen du Mitxelenak: bere iritziz, ezin esan daiteke euskaraz gehiegi idatzi zuenik, baina gutxi hura ondo egin zuen, zuhurki hitz berriak ez erabiliaz eta maileguei ateak itxi gabe. Larramendik honetan, gaixoei gomendatutako botikak bere buruari ematen uzkur dabiltzan medikuak bezalaxe jokatu omen zuen, beraz.

Honainokoa dugu, laburbilduta, Mitxelenak denbora luzean eutsiko zion teoria estandarra, urteetan zehar hainbat adabaki jarri bazizkion ere; haien artean gramatika eta hiztegia egiteko Larramendik herriarengandik eta lehenagoko idatzietatik berri asko bildu behar izan zituela azpimarratzea (1960: 98), *HH*-aren eta haren bukaerako *Eranskina*-ren arteko funtsezko ezberdintasuna mugatzea (1961: 364) eta Sarako Etxeberrirekiko zenbait batetortze aurkeztea (1970: 29-30) izan daitezke aipagarrienak.

Alabaina, 1983. urtean, aurreko lanetan aipamen labur bat besterik merezi ez zuten gai bik gainerakoei lekua kentzen diete, Larramendi begi berriz begiratzen hasi zelako seinale: batetik, Larramendik euskaldunengan izan zuen eraginaren indarra eta zabalkundea, eta bestetik, haren euskararekiko asmoa zein izan zen eta hiztegi mailan nola gauzatu zen.²⁰ Ikuspuntu aldaketa ezin nabariagoa da: lehenago “su finalidad principal, como la de los apologistas anteriores y posteriores a él, fue la de defender y justificar la lengua ante los extraños, no la de afinarla para uso de los propios” (1960: 97) idaztera heldu bazen ere, euskaldunen arteko eragina halabeharrezkoa bailitzan, orain besterik uste du: gehiena erdaraz idatzita egoteari ez deritza hain garrantzizkoa, teoriar horrexek ez baitu oztopatzen euskaldunentzat onuragarria izatea; izan ere, nabarmena da halaxe izan zela, haren lanek berehalakoan eta indarrez oihartzuna aurkitu baitzuten bai josulagunen artean, bai handik kanpoan, euskalki mugak gaindituaz eta are Iparralderaino iritsiaz ere (1983a: 912-913 eta, luzexeago, 1983b: 956). Honexek —hau da, euskaldunek eurek hala ulertzeak— erakusten bide digu ezerk baino argiago eurentzat idazten ari zela.

Argi berri honetara begiratuta, Larramendiren asmoa oso bestela agertzen zaigu: “Euskarak burua jasoko bazuen (...) premiazko iruditzen zitzaion, gure alde honetan batez ere, artean ez bezalako euskal prosa erabiltzea: garbiagoa, jatorragoa, apainagoa” (1983a: 913) eta

¹⁹ Adierazpidea Ibarrena da (1935: 121), baina halako arrakasta bat erdietsi du gaiaz idatzi dutenen artean: ik., besteak beste, Mitxelena 1959: 907, 1960: 98 eta Villasante 1979: 134.

²⁰ Ik., adibidez, 1959: 907-908, non bi gaiak elkarrekin lotuta baina iragaitzaz bezala bakarrik ageri diren.

“izkribuz eta predikuetan erabiltzen zen euskara garbitu nahi izan zuen, jaso eta aberastu; eredu bat sortu eredurik ez zuen hizkeran” (1983b: 956). Larramendiren lana, beraz, horretarako lanabesak eskaintzea izan zen eta, agian, ezin zitekeen askoz gehiago izan; nolana ere, hor gelditu zen, “marka ahal zezanak, ahal zitekeen momentuan, berdin eta gaindi zezan” (1983a: 913). Gauzak honela, bistan da Larramendiren jokabidea aztertzeak baduela zentzua, euskara jasotzeko saio orokor bat izan zen aldetik. Bada, hiru bidetatik deritza Mitxelenak Larramendi euskara aberasten saiatu zela (1983a: 914-915 eta 1983b: 957):²¹

a) Edozein alde eta alditako euskal hitza, hangoa nahiz hemengoa, inoizkoa nahiz oraingoa, euskarazkoa den aldetik erabil daiteke bertako nahiz bestetango euskaraz (...).

b) (...) eskubide osoa dugu hitz horien zentzua eta adiera ahal adina hedatzeko eta zabaltzeko, testuinguru berriak aukeratuz (...).

c) Hitz berriak sortzeko eskua ere badugu, edozein hizkuntzatan gertatzen denez (...). Baditugu gainera geureganatuak eta etxerakotuak ditugunak metaka eta ez genituzke (...) bertan behera utzi behar. Horrelakoetan, aski da, garbiminak joak daudenetzat, mailebuen norabidea aldatzea.

Azkenik, Sarasolaren *Hauta-Lanerako Euskal Hiztegia*-ri egin zion aurkezpen gogoangarrian, Larramendiren esanguraren berpasa oso berri bat eskaini zuen (1984: 13-16), aurreko urtean hartutako bidetik. Lehenengo irizpidearekiko aldaketarik aipagarrienak honako hauek direla esango nuke: (1) *HH* eta *Eranskina*-ren arteko muga, lehen hain gotorra, lainotzea:

Euskal hitzak bildu zituen aurrenik, edozeinek jatortzat har zitzakeenak, entzunak maiz eta irakurriak bestetan. Ez zuen inoiz inongo euskalkirik baztertu nahi izan, ezaguera zen traba bakarra. Hauek bederen aipa daitezke, saiatu zelako lekuko: hiztegiari berari erantsi zizkion harako *Suplemento* ezagun hura, eta beste bi erdal-euskal gehigarri (Fitak joan den mendean besteren izenpean azaldua eta Goikoetxea-Altunak oraintsu kalera dutena).

(2) lehenengoz Larramendiren mailegukiko jarrera definitzen saiatzea:

...badirudi, arras oker ez banabil, erabiltzen ziren erdaratikoak hartu zituela bere obran; ez zuela gehiagorik erabili ez besteri erabilerazi.

(3) hitz berrien papera hobeki kokatzea:

Larramendik aldiak eskatzen zuen baino gehiago opa zigun. Estualdian zegoelako, noski, Mayans eta besteen akuiluiari nondik itzuriko, baina premia horrek behartu zuen elizako eta egunoroko auzietarik urruntzera. Labur eta zehazkiago aitortu dezadan: Larramendi izan da, lehenbiziko aldiz eta erabat, hizkuntza larrekia noranahiko bihurtu izan nahi duena. Hiztegiaren bitartez zabaltu ditu *voces facultativas* direlakoak, gero hiztegi *berezituetan* (eta *berezitu* hitza Larramendik asmatu zuen) ager daitezkeen modukoak.

(4) Larramendirengandik hain hitz gutxik irautearen arrazoi berriak iradokitzea:

Han zeudela, besterentzat eragozpen, izan zen, nik uste, Larramendiren hitz berriak, 150 urte ez badira aski horrelakoak zahartzeko, uxatzeko jokatu zuen arrazoi nagusia. Arrazoibide teknikoagoak ere bazebiltzan tartean, eta ez nuke esango zuzenak ez zirenik. Mordoiloak omen dira hitzok, itxuragabeki eratuak eta, hori dela medio, ilunak eta zatigaitzak: nor esan, izan ere, arima herratuen psikoanalistaren batek izan ezik, nondik atereak diren *megopea* edo *txaberama*?

eta (5) haren iraultza besteenarekin “bestela” erkatzea:

Aitzindari izan genuen Larramendi eta ez zuen esateko moduan deus desegin, zenbait ohitura kaxkarrez beste. Hurrengoek deuseztatu zuten haren lana, berririk nahi ez zutelako edota guztia berritu nahi zutelako erabat.

Arestiko historia, apenas historia dena, idazten hasteko unea heldua dateke gai honetan. Mitxelenaren aldaketa ez da Sauloren erorikoa bezain bat-batekoa, ez eta hura bera

²¹ Bigarrenetik aldatuko dut, trinkoagoa delako.

bezala zerutik agindua. Zalantzarik gabe, *Orotariko*-aren lehen hitzak ikuskatzeak (ikus bedi *adin*-en sarrera garrantzitsua, esaterako) ustekabe aski jarri zizkion begi aurrean Larramendi zela eta, hala nola Iparraldeko tradizioarekiko atxikimendua, ez jadanik hain ongi ezagutzen zuen *Eranskin*-ean (cf. Mitxelena 1970), baizik eta *HH*-aren barruan bertan. Honi bere garrantzia kendu gabe, lehenago eta nagusiki Mitxelenaren aldaketaren oinarrian beste bi arrazoi daude, nik uste, zein baino zein garrantzizkoagoak.

Lehen lekuan aipatu behar da artean egin zen Larramendiren eskuizkribuen argitalpen-lan eskerga eta gure artean ezohikoa: Altuna 1967 ezinutzizkoa da, adibidez, baina batez ere goraiatu nahi nuke Tellechea-Idigorasen lan etengabea (1966a eta b, 1969, 1973, 1983 eta 1990), Larramendiren gainerako eskuizkribu guztiak —ia guztiak, itxaropenak huts egiten ez badigu— argitaratu baititu, bere aldetik interpretapen eta joscura lan handia eginez hitzaurreetan.

Ahalegin honek, itoxuraren modura gutxika-gutxika ari, azkenean ordaina hartu zuen Mitxelenaren inguruan, Gasteizko Filologi Fakultatearen sorrerak ideia harremanak erraztu zituen garai egoki hartan. Izan ere, bertako Euskal Filologia sailkideen artean Larramendiri buruz kezka berri eta bizia sortu zen, bata bestearen jarraian agertu ziren hainbat lan (Pagola 1984, Lakarra 1985a, b, c eta Sarasola 1986, besteak beste) lekuko. Giro berri honetan, gaiari fidelenik —baita goizenik ere, agian²²— eutsi dion ikertzailea, Lakarra irakaslea izan dugu, ezaguna denez, eta berari zor zaio tesi honen oinarrian dagoen irizpidea.

Hitz gutxitan esanik (gehiago zehazteko aukera ez eze, beharra ere izango dugu gero), Lakarrak (1985a eta ondoko lanak) frogatu du Larramendiren lana nork bere hizkuntza duin dela erakusteko eta kultur hizkuntza bilakarazteko Errenazimenduaz gero Europa osoan egiten diren saio anitzetako bat baino ez dela, apologia, gramatika eta hiztegiak, zeinek bere leku eta betebeharra dutela orokortasun horretan. Apologia garai hartan ezinbestekoa zen, euskarak gainerako hizkuntza jasoen artean lekua merezi zuela frogatu behar baitzen lehenik, hots, hizkuntza basa ez dela, arauak eta dohain bereziak dituena baizik. Gramatika izango litzateke eraikuntzaren bigarren solairua: erdaldun egoskorrak ixiltzeko bidea, bai, baina baita, eta bereziki, euskara —hutsetik zein eguneroko hizkeratik hasita— ikasi nahi lukeenarentzat egindakoa. Hirugarren urratsa hiztegiarekin eman zuen, berriz, edozein gaiz euskaraz aritzeko eta, zehazkiago, erdaraz bakarrik emana zetorren kultura euskaratzeko tresna gisa euskaldunei eskainia.

Lakarraren hurbilketak agerian utzi ditu aurreko ikuspuntuaren bi ahulgune nagusiak: euskararen historia Europako kultura eta hizkuntzena kontuan hartu gabe egitea, eta oro har historian anakronikoki aritzea, norberaren garaiko on-gaitzak lehenaldian bilatuaz.

²² Begi aurrean daukat “Euskal lexikografiaren historiarako oharra: Euskal hiztegi-gintza haseratik 1800 arte” deritzan argitaragabe baten ale fotokopiatua, 1983ko maiatzekoa. Lakarra 1985a eta ondokoan aldean ezer ez bada ere, bertan daude gero ezarriko zituen irizpideen hasikinak, *HH*-aren egileak zer egin nahi zuen eta nola jakiteko, hiztegioko hitzaurrea *irakurriaz* erdietsitakoak.

Ondoren etorri diren guztiak —edo gehienak²³— Lakarrak ezarritako ikerbide berrietan barrena hastera edo berak iradoki baino ez dituen ideiak osatzera datoz. Den-denak aipatzea ezinezkoa izango badut ere, hona hemen adierazgarrienetako batzuk, gure gaitik kanpora geratuko den eraginen kontua alde batera utzi eta Larramendiren eginen aldetik zer aurreratu den irudikatzeko asmoz: Lakarrak berak, “Azkoitiko Sermoia” deitu testuaren aitatasuna frogatzeko, haren grafia, idaztankera eta lexikoari buruzko ohar interesgarriak bildu ditu (1985b), eta Harrieten bitartez *HH* eta *Eranskina*-ren arteko funtsezko lotura azpimarratu (1991, 1992b, 1993), Altunarekin batera (1990) Larramendiren euskal testuak lehenengoz bilduta argitaratzeaz gainera. Sarasolak (1986), *HH*-aren ondoko idatzietan hitz eratorriek egiten duten gorakada aintzat hartuta, Larramendik gaizki eratutako hitzekin batera ongi eratutako mordoia ere sortu eta, hiztegiaren bitartez baina guretzat ia oharkabean, hedarazi zuelako hipotesia egin du. Alzibarrek (1992) literatur gipuzkera jaio zeneko testuinguru sozioekonomikoa marraztu eta Larramendik haren sorreran jokatu zuen papera aztertu du. Azkaratek (1992) *HH*-ko hitzberrigintzaren zenbait ezaugarri azaleratu ditu. Gómez-ek (1992) *Imposible vencido* garaiko gramatikagintzaren historian kokatzeko saio interesgarri bat eskaini digu. R. M. Pagolak (1992) dialektologiaren ikuspuntutik balioetsi du Larramendik herrietan egin zuen hitz bilketaren deskribapen zehatza. Eta Urgellek (1992a) Ibarren teoriaren kritikatik abiatuta, Hegoaldeko literatura Iparraldekoarekin inolako zerikusirik izan gabe hazi eta hezi zelako iritzia eztabaidatu du (ik. halaber Lakarra 1985a eta 1992b), guri dagokigunez, *HH*-an ere hango literaturaren arrasto garbiak (Leizarraga eta Axularrenak, zehazkiago) badirela frogatuaz.

Asko da, beraz, hamabosten bat urteren epean Larramendiren ezagutzan aurreratu dena, baina aldi berean inoiz baino nabarmenago egin zaigu gaiaren inguruan ari garen guztioi egiteke duguna. Beharbada zeregin larrienetako bat, *HH*-aren irakurketan hitzaurretik aurrera (edota *Eranskin*-etik atzera) abiatzea izango litzateke, hain zuzen, eta hauxe izango da tesi-lan honek proposatzen duen bidaia.

1.2. Larramendi euskal lexikografiaren historian

Euskal hiztegi-gintzaren historian *HH* leku gailenean jarri beharra dagoela eztabaidaezinezkoa da. Lehen hiztegi orokor argitaratua da, izan ere, baita mende eta erdiz euskara ezagutu edo landu, euskaraz idatzi, euskarara itzuli zein hiztegi berri bat moldatu nahi

²³ Bestela ari den azkena, dakidalarik, X. Mendiguren Bereziartu (1995) dugu, euskal itzulpenaren historian Larramendiri eskaintzen dion pasartean (109-110. or.) Mokoroa baita aipatzen duen iritzi emaille bakarra, arteko 60 urteetan hartaz ezer idatzi ez bailitzan. Egileak ez bide du sentitu inolako kontraesanik Mokoroari hartzen dizkion epaien eta Larramendiri itzulpengintza teoriak gaurko euskarara ez eze gaurko terminologiara itzultzen dizkion *HH*-aren hitzaurreko hitzonen artean: “...itzulpen egokiak egiteko sorburu-hizkuntza ezezik xede-hizkuntza ere ongi ezagutu behar dela, nahiz eta testu itzuliak beti gaitzen duen egokitasun eta eraginkortasun apur bat. Zenbait kasutan itzultzaileak itzulpen egokiaren (*legítima traducción*) legeak bete ordez gaztelaniaren doinu materiala (*sonsonete*) jarraitzen omen dute, hitzen kantitate eta kalitatearen baliokide puntualegiak bilatuz, eta ondorioz, gaztelaniaz indarra duen esamoldea euskarazko gordin edo ahul bihurtuz, nahiz eta zentzuari jaramon egin eta parafraasiak burutuz gero, grazia eta dotoretasun handiagoko perpausak sor litezkeen”.

izan zutenek eskura izan zuten erreferente lexikografiko bakarra. Erabat txundigarria da Larramendik posibilitate hau aurrez ikusi zuela ohartzea, harako

La 2. razón para no contentarme con un Diccionario menor, fue el saber de fixo, que ningún otro Bascongado querría aplicarse a sacarle mayor, ni añadir o suplir las faltas del primero, y que si yo no lo hacía ninguno abría que lo quisiese hacer. Aun como sale el Diccionario, tiene mucho que añadir, componer y perficionar, pero seguramente se quedará con sus tachas, si Dios no muda en adelante el temple de ánimo y mente de los Bascongados (1745: xlv).

hura idatzi zuenean. Errua, ostera, ez zen erabat euskaldunena izan, zeren eta 1745 baino lehen —berak jakin gabean bada ere—, baita ondoren ere ugari, ez baitira falta hiztegi-gile saiatuak, baina batzuen eta besteen asmoek denek huts irten zuten. *HH*-aren berezko balio zein akatsez gaineratik, egoerak erabaki zuen hala izan zedila.

Aldeko aipuak baino egoera honetaz kexu diren batzuk aipatzea adierazgarriago izan daiteke, beraz:

El Diccionario de Larramendi ha sido de corto uso: así porque empieza con las palabras españolas y sólo puede servir a los que desean aprender el Bascuence, que son pocos, como porque introdujo muchas etimologías forzadas y violentas, guiado por el mero sonido, teniendo otras raíces más ciertas (Campomanes 1773, ap. Echenique 1997: 192).

El Diccionario de Larramendi es solamente Español-Vasco. Esta disposición procura muy poco auxilio a los gramáticos, por lo cual mi primer trabajo ha sido formar según el diccionario de Larramendi otro vasco-español (por decirlo así, una obra que pueda ser su índice. Este es, pues, del que yo me sirvo siempre en mis trabajos sobre esta lengua, después de haberle aumentado, sirviéndome de otros trabajos para el efecto (Humboldt 1817: 106).

Iraute hark, eta batez ere XIX. mendearen bukaerako berpizkunde hark badirudi hurrengo belaunaldiarentzat jo eta lurrera botatzeko xede nagusi bilakatu behar zukeela baina, ikusi berri dugun bezalaxe, nolabaiteko urruntasun sentimendu bategatik, burupe nahikotxoarekin batera ziurrenik, maisu berriek ez zuten ahalegin handirik egin euren bidetik alboratzeko. Ezin esanguratsuagoak dira Azkuek, *HH*-aren garaia bertan behera amaitu behar zuten bere hiztegiaren hitzaurrean, Larramendiri eskaintzen dizkion hitz soil hauek.²⁴

Con grandísimo sentimiento he tenido que dejar a un lado el Diccionario trilingüe del gran vascofili Larramendi, porque viendo que había un sinúmero de voces debidas a su fecunda pluma, no sabía cuales eran las populares y cuales las elaboradas. Muchas he visto confirmadas por el pueblo y las he incluido en la obra. A la futura Academia le corresponderá, sin duda, la tarea de analizar sus propias palabras.²⁵ Al hablar del neologismo (...) se verá por qué no he podido dar cabida aquí a ninguna de estas últimas (Azkue 1905: xiii).

²⁴ Sabino Aranak, dena dela, Azkuek baino Larramendiri erasotzeko behar gehiago sentitu bide zuen, bere lanetan zehar sakabanatuta dauden eztenkadek aditzera ematen dutenaren arabera. Cf., adibidez: “Todavía hoy, no quieren todos comprender esta verdad: que Larramendi es el primer euskerólogo, considerado cronológicamente, pero, científicamente juzgado, es uno de los últimos” (OCCC I, 217) edo “No es menos peregrina la etimología dada por otro autor (Larramendi, si mal no recuerdo, y si no es de él merece serlo)” (*ib.* III, 1801). Dena dela, Larramendiren kontra zuzenean baino, haren itzalaren kontra dabilela dirudi, zeren eta —Azkuek berak bezala (cf. hurrengo oharra)— ez baitzuen haren lanak ezagutzeko ahalegin handirik egin, berak dioskunez: “No se si Larramendi le señalaría algún otro origen [a *aste*]. Lo poco, muy poco, que he leído de este autor me ha quitado las ganas de leerle más” (OCCC, III, 2361).

²⁵ Pasarte a anbiguo xamarra da, *propias* Larramendirenak zein Euskaltzaindiarenak izan baitaitezke. Logikak, nik uste, Larramendirenez hitz egitea eskatzen zuen, baina egingo nuke zuzenean Euskaltzaindiaren hitz berriez diharduela, harenak baliogabekoak direla jakintzat emanik: izan ere, ez zen inork —are gutxiago Azkuek— hura sortu eta ondoko urteetan Larramendirenak eztabaidatzeko inolako asmorik izan. Erants bekio neologismoei buruzko atalean ez duela *HH*-korik ezertarako aipatzen, Añibarro, Duvoisin, Arana-Goiri eta bereak bakarrik baizik (Azkue 1905: xviii-xix). Honek argi aski erakusten du

Beraz, txanda pasatu eta ongi irabazitako erretiro ixila izango zen, Ibarrek gaia berriz plazaratu izan ez bazuen; baina honek bere teoriaren frogarrikeria onenak *HH*-an idoro zituen, hitzaurre apologetiko eta liskartsua, etimologia zoroak eta hitz berri mordoiloak, alegia. Honen aldean, gramatika —gehienean aitzakiarik aurkitu ez zaiona²⁶—, eta apologia bera —ipuspegi positibista batetik berez baliogabetzen baita— ia oharkabean igaro dira. Larramendi garbizalekeriaren aita baldin bada, zalantzarik gabe *HH* haren sehaska eta altxagarria dugu. Gogora ditzagun Ibarren hitzak:

Del GUERO de Axular (1643) y del DICCIONARIO TRILINGÜE del P. Larramendi arrancaron, uno en pos del otro, y con cien años de intervalo, los dos movimientos literarios de las vertientes septentrional y meridional de nuestro Pirineo (Ibar 1935: 103).

Ibarren ideiak ezin hobeto elkartu ziren euskal lexikografiaren historia ikuspegi utilitaristatik soilik —hiztegi gisa lehen, hitz altxor gisa Azkuez gero— begiratzeko joera zaharrarekin, eta biek gaur arte hiztegi zaharrei buruz egin izan den ia argitalpen eta ikerketa oro azpian hartu dituzte.

Oro har, esan liteke Azkueren hiztegia argitaratu arte, XIX. mende guztian zehar, euskalari-euskaltzaleen kezka nagusia alde honetatik hiztegi on bat lortzea izan zela, ez gehiago, ez gutxiago:²⁷ gero eta urrunago zegoen *HH*-aren argitaratze data eta, halaz ere, ez hura berrargitaratzeko, ez berririk argitaratzeko modurik egon zen luzaroan.²⁸ Berpizkunde aurreko garaian *HH*-aren bigarren argitalpena erdiesten da (1853) eta Berpizkundean bertan egileak hil ondoren argitaragabe geratutako bi hiztegiaren eskuizkribuak berreskuratu eta bata bestearen ondoren argitaratzen dira (Aizkibel 1883 eta Novia de Salcedo 1887). Azkueren hiztegiak geroz gauzak zeharo aldatzen dira: hiztegi on bat izateko oinarritzeko premia asetu zenez eta Azkuek berak gehienak hustu zituen zehar, hiztegi zaharrek alderdi praktikotik piz zezaketen interesa ia erabat itzali zen. Honi XX. mendearen hasieran testu zaharrekiko nagusi ibili zen axolagabekeria gaineratzen baldin badiogu, hiztegien argitaratze eta ikerketa lanetan somatzen den etena erraz xamar azal dezakegu.

hiztegiaren aurreko hiztegi gileekin izan zituen buruhauste bakarrak bere kutunek sortu zizkiotela, edo hala zeritzala, eta ez itxura guztien arabera ireki ere egin ez zuen *HH*-ak.

²⁶ Aho batez gramatika ontzat hartu izan da (ik., adibidez, Mitxelena 1959: 903-905, Villasante 1979: 132 eta Tovar 1980: 72). Oniritziak bezain esanguratsua izan daiteke, esate baterako, Villasantek (*loc. cit.* 59. oh.) oharrean baino ez aipatzea aurkitu uste dion akatsa, alegia, erdal erduetan (guztiz latinean) kalkatua izatea eta, beraz, euskarari dagozkion zenbait ezaugarri (mugagabearen deklinabidea, adibidez) oharkabean igaro zaizkiola gramatikariari. Gai honetaz ik. orain Gómez 1992.

²⁷ Ondoren doazen ideiak nasaikiago azaltzen dira Urgell 1997n. Bertan daude bilduta hemen egiten diren baieztapenak frogatzeko erabilgaitako pasarte ugariak.

²⁸ Salbuespen bakarra —salbuespen handia, halaz ere, berrargitalpen kopuruak adierazten duenez— jadanik aipatutako Astigarragaren hiztegitxoa da (ik. 8. oh.). Adierazgarria da, berez eta ematen dituen datuengatik, sarreraren dioena: “como el único diccionario de que tengo noticia es el del padre Larramendi, el cual consta de dos grandes tomos en folio, y no se encuentran ejemplares de él, por lo cual los pocos que hay cuestan trescientos o cuatrocientos reales, estoy firmemente persuadido de que en dar a luz este pequeño manual hago un importante servicio al país vascongado” (ap. Lakarra 1993: 364, 71. oh.). Aizkibelek ere (1883 [1855], “Euskaldunak” deritzan atarikoan), *HH* argitaratu zenetik “mende bat eta amar urte” igaro direla aipatu ondoren, hauxe dio: “Lenengo biar degun gauza da Euskal itz-tegi on bat idukitzea, bada oraindano ez daukagu bat-ere”.

Baina Azkuek hiztegiaren hitzaurrean (1905: xiii) irmoki landatuta utzi zuen gerora guztizko eragina izango zuen bereizkuntza bat: banan-banan aipatu zituen, izenez, hiztegi-gile baliagarriak eta baliogabekoak, eta Larramendi, ezinbestean, alde gaitzean erori. Azkuek herrikoia-aren eta asmatutakoaren, jatorriaren eta arrotzaren artean bereizteko epaile izendatu zuen bere burua, eta gerokoek, hoberik ezean beharbada, begi itsuka jarraitu zioten honetan, are *DVCF*-aren hitzaurrean ulergarri izan daitezkeen bereizketak lege orokor bilakaraziaz. Azken Epaia iritsiak bailiran, gure hiztegi-gile zaharrak ezker-eskuin ezarriak agertzen dira: eskuinean, hiztegi-gile zintzoak, gaingiroki euskal hitzak artez jaso zituztenak; bekatu txiki arinik kausituko balitzaieke, lanaren handiak kitatzen die. Ezkerrean, Infernu beltzerako direnak, Larramendi denen buru eginik, hizkuntzaren historiari —eta are etorkizunari (!)— inolako begirunerik gabe hitzak asmatu, bihurtu eta desgisatzeari ekin baitzioten.

Eta, ondorioz, Larramendiz ari den edozein ikertzaile oso egoera berezian aurkitzen da, ia beste edozein euskal hiztegi eta are beste edozein hiztegi ari dena ez bezala. Pouvreaux ari denak —behi sakratuetatik bat aipatzearen— jatorriaren aurreiritziaren kontra ari behar du, Lakarra (1995a) erakutsi bezala, hots, haren hitzak —oro har garaiko edozein hiztegitakoak bezala— nahitaez entzunak edo irakurriak ez direla, asko eta asko hizkuntzaren legeak ezagutzetik (edo ezagutu ustetik) eratorriak direla frogatu behar du.²⁹ Beste horrenbeste gertatzen da Urte (Lakarra 1994b), Duvoisin eta ia Iparraldeko edozein hiztegi-gilerekin eta, Larramendirekin batera kondenatuta daudenak alde batera utzita, ia-ia berbera gainerako guztiekin, behin *HH*-tikako ekarpena kenduz gero: Añibarroren hiztegi-az Villasantek (1963) egin duen interpretapen inork ez eztabaidatua³⁰ izan daiteke adibiderik argi eta konplituena. *HH* dela eta, berriz, guztiz alderantzizko aurreiritzia azpiratu beharra dugu: Larramendiren hiztegi-aren diren hitzak oro susmagarriak dira, guztiak zalantza eta debekupean ditugu, datozen lekutik datozelako besterik gabe.

Azkueren ebakidura honek gaur arte iraun du, Larramendi, noski, eta honekin batera Fabre eta Novia de Salcedo txokorik bazterrenera kondenatuz³¹ —bere atzamar akusatzaileak zuzen seinlatu baitzituen—, baita Aizkibel ere, nahiz Azkuek erdizka zuritu zuen, ziurrenik

²⁹ Mitxelenak (1960: 70) honelaxe zioen —eta honelatsu errepikatu dute gerokoek (Ik. Villasante 1979: 86, Mujika 1979: 137, etab.)—: “...para componer el cual estudió Pouvreaux detenidamente las obras impresas de varios autores vascos (Leizarraga, Axular, Harizmendi, Etcheberri, pero no Dechepare) y contó entre sus informadores a Oihenart”.

³⁰ Urgell 2000d-n *HH*-ak Añibarroren hiztegi-aren edukian erabateko garrantzia izan zuela erakutsiko dut, sarrienik bertako sarrerak hautatu eta osoki edo ia osoki kopiatzen baititu, hitzak belarriz-edo euskalkika sailkatuz eta ez gutxitan Larramendiren hitzak bizkaierara “itzuliaz”. Zenbait adibide aurki daitezke dagoeneko tesi honetan (III, § 12.1.1).

³¹ Esate baterako, eta beti bezala *opinio communis*-aren biltzaile eta azaltzailerik onena den heinean aipatzen dut, Villasantek lau lerro eskas eskaintzen dizkio Fabrerri (1979: 200, § 223), bere lanen zerrenda eta iritzi bakarra sartuz: hiztegia Bonaparte printzearen ustetan akatsez betea zegoela, alegia. Novia de Salcedo diputatu nagusiari buruz ezinbestean gehixeago esan behar (*ib.* 262-263), ostera, baina *HH* honen iturria izan zela esanez “...está dicho que participa de todos sus defectos y características”; honi Vinsonen eta Unamonoren aurkako iritziak eransten dizkio, azkenik “...si su diccionario vale realmente poco, siempre queda en pie el valor de ejemplaridad de este hombre público que consagró al vasco una buena parte de sus afanes y trabajos” ondorioztatzeko, logikaren arauak jendetasunaren izenean zapalduaz, nik uste.

onuragarri izan zitekeen guztia ustiatu ziolakoan.³² Haren eragina, dena den, askoz zabalagoa da: Azkuek hustu (omen) zituen hiztegiak (Pouvreau, Duvoisin, Maurice Harriet...) argitara ez eze ikergabe diraute,³³ egin ezin izan zituenak (Landucci, Bela, Urte, Larramendiren *EGH*, Iztueta...) pixkanaka argitaratuaz joan diren bitartean, baita oraindik altxorren bat gordetzen dutela iritzi dietenak ere (Añibarro).

Zeren eta Azkueren hiztegiaren argitalpenak ekarri zuen osobetetasun inpresioa bat-batekoa eta handia izan zen,³⁴ baina funtsezkoenean oso iraupen laburrekoa: laster hasi zen igartzen, gero eta nabarmenago, hura ere hobe zitekeela, eta hobekuntza zein zuzenketa zeregin handien artean berak ez iritsitako testu zaharrak —hiztegiak barne— hustea ez zen txikiena. Euskaltzaindiak 1956an —egilea hil eta bost urtetara— lan honen zama Mitxelenaren bizkar gainean ezarri zuen. Honek azaltzen du, aldi berean, hiztegi zaharren argitalpenek hartu zuten abiada eta haiei buruzko ikerketei eman zitzaizen norabidea.

Bi urte beranduago baino ez, hiztegi zaharrei buruzko interes berriaren lehen zantzua kaleratzen da: Agud & Mitxelenaren Landucciren argitalpena (1958). Hasiera harrigarria, lehen begiratuan, zeren ez baita inork harrotasunez auzokoari erakutsiko liokeen euskal hiztegia; aitzitik, Larramendirengandik hasita bederen ezaguna izan arren,³⁵ erdi-izkutatuta egon da —Madrilen ondo gordea— mendeetan zehar. Argitaratzaileak honen jakitun dira, baina, dena dela, Mitxelenak, argitalpenaren atarian ezarri zuen maisu ikerlanarekin, historia gain-azpi jartzea lortu zuen, eta halako testuak berreskuratzeak ekar ditzakeen onurak argi eta garbi erakustea, hapax eta forma berezi anitzen kabia zela frogatzeaz gainera, haren gainean euskal dialektologia dardarazteko moduko berreraiketa bat egin baitzuen: Arabako euskararena, alegia.³⁶

³² Larramendi, Aizkibel eta Novia de Salcedo argitalpen faksimile murriztuak (350, 600 eta 700 ale, hurrenez hurren) eta neurritz gainean garestiak egitera emanak diren (edo ziren) argitaletxe zenbaiten eskuetan erori ziren, hirurak 1984an. Besteekin zer gertatu den ez dakit, baina *HH* bederen, urte frango igarota, tiradako hondarrak saltzera dedikatzen diren liburudenda horietako batean aurkitu nuen, erosteko moduan merketuta.

³³ Esan gabe doa gauzak aldatzen ari direla: Harrieten hiztegiari buruz Knörr-ek (1987) iturrien azterketa bibliografikoa eta zati baten (H letraren) argitalpena egin zituen; tamalez hiztegia ez eze, tesia bera ere argitaragabe daude. Pouvreauz, Lakarra 1995a-z gainera, Kerejeta 1991 ezinutzizkoa da, eta denok espero dugu Pouvrearen hiztegiak prestatzen ari den tesia aurki eskuartean izatea.

³⁴ Schuchardt-ek berak (1906) erreseina luze eta guztiz aldekoa eskaini zion, Mitxelenak (1970: 18) hizkuntzalari austriarraren "grito de júbilo y de agradecimiento" deitu ziona. Cf., honezaz gainera, Urquijo 1905, hain goiz, "Los precursores de Azkue" deritzon lana.

³⁵ Lehenengo erreferentzia Mayansena da (1737), argitaratzaileek (1958: 9, 2. oh.) bestela uste izan arren; argi dago euren aipuan haren lana bigarren eskutik bakarrik ezagutzen dutela. Tovar-ek (1980: 94) jadanik azpimarratu zuen Mayansen lehentasuna.

³⁶ Ik. orain Zuazo 1998a, non hainbat xehetasun zahar-berri eransten zaizkion Arabako euskaraz Mitxelenaz geroz geneukan informazioari. Euskalki berri bat aintzat hartzearen alde zein aurka egon, bistan da Arabako lekukotasunek Hegoaldeko euskarari buruzko ikuspegia goitik behera aldatu dutela.

Halako hasiera batekin ulertzekoa da argitalpenek hartu zuten indarra, baina, halaber, Landucciren argitalpen hau aipatzea baino ez dago, Mitxelenaren jakinahia batez ere euskararen historiaren aldera makurtzen zela ohartzeko, bestela ere aski ezaguna ez balitz.

Azkueren berriak egiaztatu, hutsuneak bete eta lerradurak zuzentzeko, lehen oztopo nagusi bat aurkitu zuen berehala, Larramendiren hiztegia, hain zuzen, eta hango hitzen etorkia ezagutzeko aitortzen duen zailtasun eta are ezintasuna:

Azkuek nere iritziz, gogorregi artu du bere arbasoa alde batetik eta biguiñegi bestetik. Gogorregi, ate guztiak itxi dizkiolako, aren berririk jakin nai ezuelako, naiz eta beti komeni den Larramendik zer dion gogoan edukitzea (...). Biguiñegi, berriz, Larramendiri ateak arriz eta burniz itxitzien zizkion bitartean ezizkiolako zirrituak estali eta ori dela medio maiz topa dezakegulako Larramendi eskumikatua Azkueren iztegian (Mitxelena 1961: 365).

Jarraian, beraz, *HH*-ko *Eranskina*-ren (hemendik aurrera *Erans*) ikerketa interesgarriari ekin zion (lehenik 1961ean eta, osatuago, 1970ean), eta berau har daiteke, lehen begiratuan, *HH*-arena inoiz egiteko aurrerapen gisa, aurreko literaturaren eta ahozko iturri modernoan erabilerarekin hitzen etorkia garbitzeko saioa den heinean. Baina inpresio hau erabat okerra da. Lehenik eta behin, azterketari ekin zionean Mitxelenaren ustetan *Erans* ez da *HH*-ko zati arrunt bat, eranskin arrunt bat. Alderantziz, oso gauza ezberdina dela uste du:

itz berrien asmatzeak uzten zizkion txolarte laburretan irakurri —eta bearbada entzun— zituen euskal itzen zerrenda iztegiari erastea baizik, betegarri gisa (1961: 364).

Gainera, argi uzten du (1961: 365-366) ez duela *Erans* deusen probaleku gisara hautatzen, ezpada *HH*-aren aldean Azkueren (eta besteren) hiztegian egin zitzaion harrera hobe zela eta, haren edukia jatorrizko iturrietan egiaztatu nahi du, “ugari bezain larri ageri diren” hutsetatik garbitzeagatik.

Hala eta guztiz ere, *Erans*-aren azterlanak badu irakurketa orokorragorik, baina ez Larramendiri dagokionez, oro har hizkuntzaren historia egiterakoan edozein hiztegi izan dezakeen lekukotasun gisako balioaz baizik, hiztegi zaharrak noiz, nola eta zertarako ikertu behar diren mugatzen duen teoria bat eratzen baitu, eratu ere, 1970eko lanaren atarian.

Hiztegiak hizkuntzaren historian egin dezaketan laguntzaz baina, batez ere, haren gainean bota ditzaketan lainoez ari dela, oinarritzko premisa batetik abiatzen da: hiztegiak *per se* iturri zalantzazkoak direla, alegia:

La lexicografía es probablemente la actividad erudita en que el ejercicio de la crítica es más necesario. (...). El compilador de un diccionario general a duras penas renunciará a incorporar al suyo las riquezas, a menudo más especiosas que reales, que halla en las obras de sus predecesores, a los cuales se esfuerza en sobrepasar añadiendo nuevos materiales a los que ha recogido de ellos, con el resultado inevitable de que a la crecida suma de los antiguos errores incorpora algunos nuevos de su propia cosecha (Mitxelena 1970: 26).

Eta oinarri honen gainean *codex descriptus*-aren hertsapena ezartzen du:

...es evidente que, en cuanto se introduce la dimensión histórica en un diccionario, la crítica de fuentes habrá de ser llevada a sus últimas consecuencias. Hay que llegar en lo posible al origen primero de los datos, sin dejarse desviar ni influir por fuentes secundarias. Las noticias vienen corriendo de mano en mano y las transmisiones sucesivas nada suelen añadir, si no es herrumbre y confusión, a la autoridad de la primera fuente (*ib.* 27).

Hertsapen honen arabera, Vulcanius-en hiztegitxo (1597), osorik bi iturri ezagunetatik —Marineo Siculoren hitz zerrendatik eta Leizarragaren Testamentutik— egina denez gero,

codex descriptus hutsa da, "...y, como tal, podemos y debemos prescindir de él en absoluto" (*ibid.*). Mitxelenaren hurbilketa ere, dakusgunez, zeharo utilitarista izan zen: euskal hiztegiez den bezainbatean hitzak bakarrik interesatzen zitzaizkion, eta hitzetatik euskararen historiaz atera daitekeen informazioa, besterik ez.

Ildo honetatik, *Erans*-aren izaera bereziak ez dio Larramendiren alderdi ezezagun baten aurrean dagokeela iradokitzen, ez eta hurrik eman ere. Aitzitik, *Erans* ere osorik *descriptus* bilakatu nahi zukeen, baita neurri handi batean (hitzen %65 inguru iturri ezagunei dagokienez, nire kalkuluen arabera) lortu ere lortu zuen. Honexegatik, eskaintzen duen dokumentazioa maiz inor harri eta zur uzteko modukoa da, batez ere delako hitz baterako iturririk ez aurkitutakoan,³⁷ baina baita honela ez denean ere: adibidez, *billacatu* (1970: 63, 66. zb.) Axularrengan aise kausitu arren, Pouvreau, Haranburu eta Belapeire ere aipatzen ditu, etimologi proposamen bat egiteaz gainera; beste horrenbeste gertatzen da *burueman*-ez (*ib.* 73, 139. zb.), non *buru egin* (Axular), *kobru emon* (Azkue eta f. Bartolome) eta *buru emon* (Añibarro eta Azkue) ere iruzkin modura dakartzan; *jarrugui* (*ib.* 84, 235. zb.) "Arrasateko erreketeta"-ren pasarte zail bat azaltzeko profitatzen du. Nabaria da, honelako eta bestelako kasu ugarien arabera, ez zuela iturriak berak kezkatzen, hitza ongi dokumentatzeak baizik: Leizarragaren lekukotasunak, adibidez, nahiz iturrietatik ez den, *Erans*-eko berria berdin-berdin *descriptus* bilakatzeko aukera ematen dio (ik. *hauzu*, *ib.* 99, 372. zb.).

Inoiz edo behin *Erans*-eko sarrera datorren iturriko pasarte zehatza aurkitzen saiatzen da, baina hau Larramendiren lekukotasunak forma zein esanahiaren aldetik zailtasunen bat duenean bakarrik gertatu ohi da.³⁸ Gainerantzean, izan daite(z)keen iturri(ar)en pasarteren bat (edo anitz) aipatzea aski izaten du.³⁹ Beraz, behin edo behin baizik ez dugu aurkitzen lexikografoak hitzak hautatu, testuingurutik atera, normaldu eta gaztelaniaz itzultzeko egin behar izan zituen operazioei buruzko oharrik, haien etorkia frogatzeko beharrezkotzat jo zituenak izan ezik.

Ikusmolde utilitarista honek, nik uste, Larramendiren hiztegi osoa ezagutzeko aski argudio ematen zizkion, barruan zer zegokeen suma zezakeen Mitxelena bezalako ikerlari sen handikoari. Euskararen historiaren ezagutzan ahalik eta oinarririk sendoenen gainean aurreratu nahi zuenez gero, ulergarria da, alde batetik, Azkuek bezalaxe *HH*-ko hitz asmatuak bere bidetik kendu nahi izatea; alabaina, honexegatik beragatik, berez bezala dator Azkueri egiten dion kritikaxoa, "gogorregi artu du" hura,⁴⁰ bai baitaki, jakin ere, besterik egon daitekeela:

...para escribir el *Diccionario* tuvo Larramendi que recoger muchas noticias de labios del pueblo y de las obras impresas que buscó con afán, dándonos un primer esbozo del pasado de la literatura vasca (Mitxelena 1960: 98).

³⁷ Ik., adibidez, *bordoincatu* (1970: 67, 95. zb.), *irayo* (*ib.* 68-69, 110. zb.), *seldorra* (*ib.* 70, 121. zb.) edo *coitiguia* (*ib.* 71-72, 131. zb.).

³⁸ Ik., adibidez, *forogu* (*ib.* 84-85, 238. zb.) esanahirako eta *ecaira* (*ib.* 106, 443. zb.) formarako.

³⁹ Cf., esate baterako, *amoranteac* (*ib.* 83, 230. zb.), Axular eta Landuccirengan aurkitzen duena.

⁴⁰ Ik. halaber "sin querer ni enterarse de lo que su antecesor pudo decir" (Mitxelena 1970: 27).

Literaturaren historian dioenak baino, euskararen historiarako zutabe den *Sobre el pasado...* bezalako lan batean esanak argiago utzi behar du iritzi horretan zegoela:

Consisten éstos [Larramendiren eragozpenak] en el laberinto inextricable en que sumió en tantas cuestiones a la lexicografía vasca posterior por su genio enredador y por su poco cuidado en distinguir los datos recogidos de oído o en lecturas —que son más abundantes de lo que se suele decir— de los productos de su imaginación que encontraron aceptación en más autores de lo que se cree (Mitxelena 1964: 25).

Eta hitzek baino eginek areago. Izan ere, *HH*-ko lekukotasunak han-hemen kausi daitezke bere lanetan, ezpairik gabe oso gertakari bakana bada ere: adibidez, *Erans*-aren azterketan bertan *aldi* (Mitxelena 1970: 100-101, 385. zb.) eta, oraindik garrantzizkoago, *Fonética Histórica Vasca*-n *ardore* (1977a: 339). Ez du zalantzarik *HH*-ko hitz guztiak bitan banatuak izan nahi zituzkeela, benetakoak eta asmatuak, lehenak eskura, hiztegi berrian —eta ikerketa berrietan, jakina— eskubide osoz sarrarazteko, eta bigarrenak, uxatu ez bada ere, nolabait markatuta utzi ahal izateko. Halere, *HH*-ko hitzen etorkia ezagutzea lan zaila, agian ezinezkoa dela etsita dago:

...ezta erraz jakiten euskal-itx direlako orietan zer den entzuna edo irakurria eta zer den aldatua edo burutik burura asmatua (Mitxelena 1961: 364).

Meillet-en maisutzapean, bazekien egingabe aurkitzen zituen filologi lanak egiten, lexikografiatik atera gabe Landucci eta *Erans*-aren azterketek ederki erakusten dutenez. *Erans*-ean hitz ia guztiak entzunak edo irakurriak, ez asmatuak, direlako ziurtasuna aurkitu uste zuen; honek kritika filologikoa saiatzeko aukera paregabea eskaintzen zion, batez ere haren iturri gehienak ezagunak direla kontuan harturik.

Erans-aren kasuan erudizio erakusketa atsegina dena, zoramen bilaka daiteke *HH*-an, zeren eta bai baitzekien bere 828 orrialde handien edukiaren zati handi bat —gehiena?— ez dela *descriptus* izango. Zalantzarik gabe, Larramendiri zegokionez “ibartarra” izateak huts egin zion arazoaren une honetan, Ibarrek piztu eta berak berretsi zuen mesfidantza *HH*-aren azterketari ekiteko oinarri teorikorik gabe utzi baitzuen: “su genio enredador...”, “su poco cuidado en distinguir los datos...”. Azken aldera ere ez zen alde honetatik gehiegi aldatu; gogora lehenago aipatu dudan “nork esan, izan ere, arima herratuen psikoanalistaren batek izan ezik, nondik atereak diren *megoepa* edo *txaberama*?” hura (Mitxelena 1984: 17). Uzurtasun honekin begiratuta, inolaz ere, *HH* zingiradi arriskutsua —“labirintu askaezina”— bilakatzen da Mitxelenak hartaz eraiki zuen irudian, *descriptus* ez den neurrian hitz zalantzazkoz betea. Beraz, gabe pasa behar, haren azterketak ziur aski emaitza interesgarriak baino arazo pila errazago ekarriko baitigu.

Premisa hauekin, ziur naiz *HH* ireki eta bertan zerbaiten bila abiatu den edozein filologok zirrara berezi bat sentiitu duela, ia-ia debekuren bat hausten duenaren edo galbidez beterikako oihanean sartzen denaren antzera. Etsimenduak itzala luzatu du hiztegi honen gainetik, eta gauzak ez dira harrezkero gehiegi aldatu, nahiz eta, bestalde, teoriaren aldetik Larramendiren eginak —*HH* barne— izugarrizko jakinmina piztu duten azken urte hauetan.

Haatik, orain badugu lanari ekiteko Mitxelenak izan ez zuen oinarri teorikoa, hiru puntutan —hiru hurbilketa modutan— laburbilduko nukeena. Alde batetik, gaztelaniazko ereduaren garrantzia ez da etsigarria, azalgarria baizik, *HH* haren gainean moldatuta baldin badago, bera ezagutzeko biderik errazena izan baitaiteke. Bestetik, *Erans* hiztegi handiaren zatitxo bat baino ez izanik, bertan islatzen diren joerak bestean ere aurkitzea espero izatekoa da. Eta, azkenik, orain badakigu hizkuntza aztertzetik, haren baliabideak ezagutzen hastetik sortzen dutela garai haietako euskaldunek ez eze, Europako hiztegi-gile berritzaile guztiak ere lexiko berria. Honek zehatz-mehatz inplikatzeko du Larramendiren asmakuntzak ez direla bere “genio enredador”-ak hanka-bururik gabe sortuak, euskararen hitz sorbideez ikasi ahal izan zuena erabiliaz baizik; eta ez dugula “arima herratuen psikoanalarik” behar haien azterketarako, lan hipotesi gisa Larramendiren hitzberrigintzan sistemaren bat badela darabilten filologoak baizik. Honen ondorioz, lehenengoz *HH* aztergai bilakatzen da.

2. Tesi lan honen ikuspegia

HH-aren iturriak arakatzeko ideia filologiaren mundutik jalgi da, berez dagokionez, baina lanaren izaerak berak laster testukritika lan “soilaren” mugak gainditzeko eta bestelako jakintzek eskaintzen dizkiguten tresnekin lanean abiatzeko premia sortu du, mende honetan zehar filologia testukritika huts bihurtu duen joera hautsi eta filologiarik zabal eta beteeneren —Larramendik *askijakindea*, hots, ‘askojakintza’ deitu zuen haren— tradizioan.⁴¹

Demagun lehenagoko atzerakuntzak alde batera utzita, *HH* ireki eta irakurtzen hasten garela, haren edukia zein den ahalik xehekiena jakiteko asmoz. 828 orrialde handitako testu bukaezin batekin borrokatu beharrean gaudela dakigun arren, hastean ohi den alaitasunaz (adiera zahar eta berrian) batera filologo bizantinoen eroapen mitikoaz armaturik, apuntatzen hasten gara ikusi uste ditugun ezaugarri interesgarriak oro: lerro honetan grafia, hurrengoan eratorpena, hemen Axularrengandik ezaguna egiten zaigun hitza, han ezinbestean hutsa izan behar duen forma. Orriak eta orriak bete bitartean, Mitxelenaren hitzek —“ezta erraz jakiten euskal itz direlako orietan zer den entzuna edo irakurria eta zer den aldatua edo burutik burura asmatua”, alegia— marmar egiten digute buru barruan. Egun gutxiren epean folio eta ideia asko bagenituzke, beharbada, baina ez lana antolatu eta bideratzeko inolako zuzenbiderik.

Antzeratsu gertatzen zaigu *OEH*-aren bidea, hitzez hitzekoa alegia, hautatzen baldin badugu. Izan ere, aurrerantzean behin eta berriz antzeman ahalko den bezala, Mitxelenaren hiztegia laguntza itzela da aintzat hartu dituen hitzetarako, *HH*-ko berria lehenagoko eta beranduagoko lekukotasunez lagunduta —edo zeharo bakarturik— agertzen denez gero, bertatik, gehiago gabe, hainbat ondorio atera baitaitezke. Alabaina, ikerbide honen akatsa, eta hau ere agerian utzi uste dut lanean zehar, hitzak bakarka hartzean beren artean dauden

⁴¹ Oso argigarriak dira *filologo* hitzaren bilakaeraz eta filologoaren zereginaz Tagliavinik (1973: 47, 2. oh. eta 107-108) ematen dituen xehetasun historikoak.

loturak eta, beraz, gertakari anitzetarako bestela erraz aurki daitezkeen azalpenak ikertzaileari —eta hiztegi-gileari berari— ia erabat estaltzea da.

Beraz, *HH*-aren edukiari buruzko ideia orokor baina ez nahitaez exhaustiboa lortzekotan, hau bezalako testu baten ikerketak zein arlo nagusitan garrantzia izan dezakeen mugatu beharra zegoen, eta bakoitzak eragiten dizkigun galderei erantzuna emateko eskura jartzen dizkigun hurbilketak profitatu.

Tesi lan honek lau ikuspegi izango ditu, laurak elkarren artean aski ezberdin baina,aldi berean, elkarren osagarri; hiztegi zaharrek (1) lexikografiaren historiaz eta teknika lexikografikoen garapenez erakusten digutena; (2) hizkuntza jakin bati (eta, oro har, hizkuntzari) buruzko pertzepzioen lekuko gisa eta (3) garai bateko hizkuntza aztertzeo oinarri dokumental gisa daukaten balioa; eta (4) testukritikaren ikergai gisa aurkezten dituzten arazo bereziak.

2.1. *HH* lexikografiaren historiaren barnean

Hiztegiak bere moduko liburuak dira: ez daude hasi eta buka irakurtzeko eginda, ireki eta orrialde jakin bateko zutabe batean dagoen ataltxo bat ahalik eta errazenez bilatu ahal izateko baizik; gainera, ez dira hizkuntz testu arruntak, barruko gehiena zehatz-mehatz hitz eginez metahizkuntza baita; eta, azkenik, jakintzaren igorle diren heinean garapen endogamiko xamarra izan dute mendeetan zehar, euren arteko erlazio sare tapituak eraginez. Honegatik, besteak beste, denbora luzean alderrai ibili dira giza-zientzien munduan, euren azterketa leku jakin batean kokatu ezinik.

Literaturarekin dituzten norabide ezberdineko erlazioak sakonak dira inondik ere, baina nabarmena da literatur kritikak beretzat gorde duen eremua oso urrun geratzen dela hiztegietatik. Hiztegi formatoa hartu duten literatur lanez gainerakoa, badirudi hizkuntzaren historiaren zein testukritikaren eremuetan egokiago sar litekeela: literatur hizkuntzen hasikinetan hiztegiek batzuetan jokatu duten papera, literatur lan jakin batean delako hiztegi batek izan duen eragina, edota literaturaren eragina hiztegien edukian (hitz zein aipamen iturri gisa), adibidez.

Mitxelenaren kasua, bestalde, ezin adierazgarriagoa da hizkuntz historialariek hiztegiekiko izan ohi duten jokoerari dagokionez. Izan ere, hiztegiak hizkuntz testuak dira, hizkuntzari buruzko informazio baliagarriak beteak baina, gainerako testuen aldean naturaltasun gutxiagoko edota artifizio nabariagoko itxura dutenez gero, aukeran bestelakoak nahiago dituzte lekukotasun gisa; eta noraezean aintzat hartzea behartuta daudenean, lehen-lehenik testukritikari berea eskatzen diote, ikusi bezala.

Gainerako guztiak, beraz, ados daude nagusiki hiztegiek testukritikaren arloan erori behar dutela, hots, batez ere testu diren heinean azter daitezkeela, eta filologoek ere ez dute eragozpenik ipini: luzaroan hiztegiek jaso duten azterketa, filologikoa izan da batik bat. Alabaina, oso testu mota berezia, hainbat alderditatik gainerako testuekin ezin parekatua dela

bistan dagoen arren, ez da horregatik testukritikazko eskuliburuetan berezitasun horrek ekar ditzakeen arazo bereziei buruzko inolako ardurarik antzematen (Lakarra 1993: 344).

Aterabidea, ezinbestean, hiztegiak berez aztertzen dituen arlo bat sortzea izan da, ohiko testukritikaren sareetatik atera eta transmisioan, hizkuntzaren erabileran zein antolakuntzan dituzten ezaugarriak definitu eta azterketaren xede bilakatuaz. Ez dago azken berrogei urteetan gertatu den aldaketaren kontu emateko bide hoberik, nik uste, ikerketak aldi berean —eta elkarren lagun— hartu dituen bi norabide nagusietan eredugarri izan diren bi lan aitzindarien metodoak eta xedeak agerian jartzea baino.

Askoren iritzian, alorra eratzten hasi zen 1946an agertu zen Starnes eta Noyes-en *The English Dictionary from Cawdrey to Johnson 1604-1755* liburuarekin.⁴² Hona egileek hitzaurrean aurkezten dituzten ikergaiak:

The qualifications of dictionary-makers for the tasks which they set for themselves, their expressed aims (as far as possible in the language of the compilers themselves), their sources, their methods of compilation, the interrelationships of the various texts, the relation of English dictionaries to contemporary bilingual dictionaries, the readers for whom each work is intended, the vogue and usefulness of the various dictionaries —these are among the more important topics treated in this book. The authors thus provide a complete history, as far as information is available, of each dictionary in its numerous ramifications, and trace the slow and uncertain growth toward a definitive and authoritative dictionary of the English language (Starnes & Noyes 1946: iii).

Eta agerriki adierazten dute:

The method is historical. Questions of philology and etymology have been discussed only in so far as they contribute to the history of the English dictionary (...). (*ibid.*)

Labur bilduz, aurreko ikerketen aldean lan honen berrikuntza hiztegi sorta oso bat, historiaren aldetik hiztegi guztiak koherenteki hautatu, kokatu eta elkarrekin loturik, lexikografiaren aldetik xeheki ezaugarritatzean datza (Stein 1991: viii).

Ikuspegi historikoa begibistatik behin ere galdu gabe egindakoa den heinean, oso antzerakoa da Quemadaren *Les Dictionnaires du français moderne* (1967) ikerlana; baina honetan, are eta gehiago, nabarmena da lan filologikoa (iturri bilaketa, hiztegien arteko erlazioak, etab.) azterketaren gunea diren metodo lexikografikoen (nomenklatura, sarrera motak, definizioak, aipamenak...) menpe dagoela, erabat.

Azken 20-30 urteetan, teknika lexikografikoen izaera eta bilakaerari buruzko interesa areagotu da agerriki, eta orain “Metalexikografiaz” edota “Lexikografi teoriaz” mintzatzen da. Honela defenitzen du Hausmann-ek:

Si on appelle *lexicographie* la pratique scientifique qui a pour but de confectionner un dictionnaire (...), on pourra appeler *métalexicographie* toute activité qui fait du dictionnaire un objet de réflexion et de recherche mais qui, elle-même, ne vise pas à la production de dictionnaires (Hausmann 1989: 216).

Eta hauek dira bere betebeharrak:

⁴² Arestiko lan batean, Béjoint eta Thoiron-ek (1996: 5) hirurogeien hamarkada hartzen dute aldagunetzat, 1960ko Bloomington-eko biltzarra (ik. Housholder & Saporta 1962) ingeleserako eta Quemada 1967 frantseserako. Halaz eta guztiz ere, Starnes & Noyes-en berrargitalpeneko Stein-en hitzaurrea (1991) irakurtzea aski da lan horri ezagutzen zaion aitzindarietasunaz ohartzeko, oraindik ere bertan aztertzen den garaiko hiztegiatarako ezinbesteko erreferentzia izateaz gainera.

La métalexigraphie se doit, entre autres, de décrire et de commenter l'évolution historique et l'état actuel des différentes techniques (principalement typographiques) mises en oeuvre pour assurer la consultation du dictionnaire. Cette description critique est d'autant plus urgente qu'on peut régulièrement observer une certaine insensibilisation du public, mais aussi de certains éditeurs, vis-à-vis de la composante matérielle du dictionnaire (Bray 1989a: 136).

Ez da horregatik alde batera utzi hiztegien arteko erlazioen azterketa —Illsonek “Lexikografi Arkeologia” deritzona—, hiztegien historiari eta hiztegi bakoitzaren jatorri eta izaerari buruz hainbeste xehetasun jakingarri eman beharrekoa: hiztegi beraren argitalpenen, iturri komun batetik eratorritako hiztegien edota argitaratzaile (zein hiztegitile) beraren eskutik ateratako hiztegien arteko erkaketa (Illson 1986: 127).

Ildo honetatik, eta euskal lexikografiaren historiari buruzko ikuspegi utilitarista lehenengoz eta berariaz alde batera utzita, azken urteotan (ik. bereziki Lakarra 1991, 1992b, 1993, 1994a, 1994b, 1995 eta 1996a) hiztegia bera, kultur objektu gisara, xede nagusizat eta lexikografiaren historia (Europakoa batez ere, noski) sustraitzat daukan ikermoduari abiada eman zaio gure artean.

Edozein euskal hiztegi —eta areago Larramendirena, apika— “gogoeta eta ikerketaren objektu” —eta ez aitzakia— bilakatzea, alde bio-bibliografikoaz behingoz ahaztea, berez eta bestelako arrazoirik gabe ezin interesgarriagoa izan liteke, begiratuaren berritasunagatik baino ez bada. Hala eta guztiz ere, egindako saioek argi utzi dute interesgarri izateaz gainera, munduan zehar ongi ezarritako iker-ereduetara joaz eta arlo honetan ohikoak diren teknikak erabiliaz euskal hiztegiak zeharo itxuraberrituta ateratzen direla, euskal lexikografiaren historiari aritzerakoan erabili ohi diren aurreiritzi sustraitu bezain okerretatik askatuta.

2.2. Euskarari (eta hizkuntzari) buruzko pertzepzioen lekuko gisa

Zientzia guztien historiografietan —baita giza-zientzietan ere— XX. mendearen bigarren zatian aldaketa nabarmen bat gertatu da: haien historiak data eta anekdota bildumak izatetik, zer-nork-noiz-nola asmatu zuen kontatzetik, hau da, “zientziaren aurrerapenaren zutabeak” zerrendatzetik ideien historia egitera igaro da. Aldaketa agerriki lotuta dago bai Historia egiteko metodo berriekin, baita Zientzi-Filosofian gertatutako higidurekin. Prozesu hau azaltzea lan honen muga eta ahalbideak nasaiki gaindituko lituzkeen zeregina da, baina haren oinarri teoriko eta ondorio metodologikoak agerian jartzea merezi du. Kuhn-en lan klasikoak aldaketaren muinean koka gaitzake:

Si se considera a la historia como algo más que un depósito de anécdotas o cronología, puede producir una transformación decisiva de la imagen que tenemos actualmente de la ciencia (Kuhn 1962: 20).

Izan ere, aldaketaren azpian oinarritzko ideia hau datza: historialariaren ikuspegiak hein handi batean historia aurkezteko moldea baldintzatzen du (Hüllen 1990a: 9). Gogora dezakegu orain hasieran aipatutako Darwinen esaldia: jakinaren gainean zein oharkabea, hipotesi zehatz batzuen alde edo kontra lan egiten da. Eta zientziaren historiografian —nahiz hartan bakarrik ez, jakina— ikuspegi tradizionala bi ideia nagusitan oinarritu izan da oraintsu artean, historia linealaren kontzeptuan eta aurrerabidearen ideian: zientziak gutxika-gutxika baina

irmoki aurrera egin omen du antzinatek hona dakarren marra gero eta sendoago batean zehar. Ondorioz, historiografiak aurrerapen honen mugarrak bilatzen ditu Historian.

Bi ideia hauek oso sustraiturik dauden eta zalantzarik gabe, hein batean aurreraxeago ikusiko dugun bezala, oraindik bere hartan, gutxi-asko mozorrotuta, dirauten arren, gogor aitzin egin izan zaie, testuinguru soziokulturala azpimarratu nahi duen ikuspegi historiko ezberdin baten alde:

Toda la gran ciencia, y en realidad todo el pensamiento fructífero, ha de tener lugar en un contexto, social e intelectual; y es tan probable que los contextos promuevan ideas como que constriñan el pensamiento. La historia no se desarrolla a lo largo de una línea de progreso, y el pasado no fue sólo un tiempo antiguo y malo que iba a ser sustituido y rechazado por su inevitable antigüedad (Gould 1999: 27).

Lehenago esan-eginak sortu ziren testuinguru soziokulturalean kokatzea ideia nagusi bilakatzen da (Ayres-Bennett 1990: 195; Swiggers 1990: 21). Labur esanda, edozein histori garaitako gertakariak baldintza berdintasun (nabarmenki gezurrezko) batean neurtzen dituen ikuspegia utzita, gure aurrekoak ez gure aurreiritzien —ahal den heinean—, ezpada beren baldintzen, beren garaiaren eta jakintzat emandako tradizioen argitara ikertu nahi dira, garai bateko iritzi-giroa ulertzen saiatuaz (Koerner 1989: 62 eta 49), bidenabar, lehenaldiko hizkuntza gaurko hizkuntzara “itzuli” behar dugula, tartean hitzek sarritan adiera aldatu dutela ahaztu gabe (Hüllen 1990b: 88-89; Seiffert 1990: 242). Azken buruan, egin nahi litzateke “a kind of historiography which shows how the history of linguistics can illumine, not just our own intellectual pedigree, nor the specific ideas with which we, as linguistics, work, but which can tell us something which is relevant to us all as human beings” (Law 1990: 68).

Gure eremuan sartuta, beraz, historiografia linguistikoan, aipatutako oinarrien gainean, bi interesgune nagusitzen dira (Swiggers 1990: 26), hizkuntz filosofiaren historia eta gramatika teoriaren historia, haietako bakoitzean agertutako arazoek (eta emandako askabideen) eta erabilitako teknika eta ereduen historia egin nahian. Jadanik ikusi dugu lexikografiaren azterketan honek izan duen erabateko garrantzia. Izan ere, asmoa lehenaldiko izen handi zein txikiei buruzko hurbilketa atomistak alde batera uztea da, gaietan interesa jarriaz, gai handi edota txikietan, orokor edota xehetan: hizkuntzarekin zerikusia daukaten praktikak, beharrak eta interesak oro har (gramatika heziketa, hiztegitintza, hizkuntz konparaketa...), betiereko gaiak (gramatika orokorra, hizkuntz genealogia, hizkuntzaren bizitza...) eta metodo deskriptibo edo praktikoak (alde batetik neogramatikoen lana eta bestetik hizkuntza irakasteko metodo ezberdinak, adib.) (Swiggers, *ib.* 28).

Testuinguru honetan, izen nagusiak bezain interesgarriak izan daitezke bigarren eta are hirugarren mailako iturriak, eskuarki ideia eta ereduen “sukaldea” bertan antzeman baitaiteke (Swiggers, *ibid.*). Swiggersek berak (*ib.* 22) guretzat bereziki iradokigarria den adibide bat eskaintzen du, oro har gramatikari buruzko hausnarketak kultur kontaktuek suspertu dituztela eta, zehatzago, XVIII. mendean paleodialektologia bat eremu elebidunetan sortu izana inolaz ere kasualitatea ez dela gogoratuaz. Ikuspuntu honetatik, diodan bidenabar, berriz aztertzea dugu ea benetan Larramendik ez duen ezer berritzen hizkuntzari buruzko ideien eremuan (aurrerapen batzuetarako, ik. R. M. Pagola 1992).

Kontua joerak eta ereduak aurkitzea da, bai kanpoko faktoreetan, baita hizkuntz deskribapen eta analisisetan (Ayres-Bennet 1990: 195). Zeren eta, historiografia ez baita bere hartan bukatzen den xedea, bestelako jakintza arloetan eragina duena baizik. Esate baterako, Lakarrak (1997: 455, 17. oh.) argi ikusi du genetikoki lotuta ez dauden hizkuntzen arteko historia konparatuak, eredutzat hartutakoaren ezaugarriak (kronologikoak eta tipologikoak batik bat) ondo aukeratzen badira, euskararen historia berreraikitzen laguntza handia egin dezakeela (adib. Leizarragaren Testamentuaren itzulpena Agricola finlandiarrarenarekin (1548) erkatzea; cf. Sauvageot 1973), baldintza hain ezberdinetan garatu diren eredu hurbiletan —frantses eta gaztelanian— tematzeak sarritan hurbilketa arazoak baino ez dakartzan bitartean.

Nolanahi ere, gure oraingo arlora itzulita, edozein aurreko lanek —dirudien bezain inozo eta desinformatua dirudiela gure begietan— barruan daukan informazioa sarritan oso baliotsua da gure aitzinekoek hizkuntza, haren etorkia, egitura eta osagaiak nola ulertu zituzten jakiteko eta hizkuntza jakin bati buruz erdietsi ahal izan zituzten ezagupenen multzoa ezagutzeko. XX. mendeko zientziaren goiendetik (Larramendik esango zukeen bezala) begiratzea eta aitzinekoengan geroko aurrerapenen lehen zantzoak bakarrik bilatzea, ostera, arazoari oker heltzeko bidea da, inondik ere, zeren eta ikertzaileak, kolore jakineko betaurrekoekin jantzirik, noraezean alde batera utziko baititu, utzi ere, aurreiritziek markatzen dioten eremutik kanpora geratzen diren gertakariak oro.

Ideien historiak har dezakeen bide antzu xamar honen adibide galanta dugu, askoren artean eta euskarari buruzko ideien historiari dagokionez, Tovar 1980an (ik. Lakarra 1985a: 16 eta 1993: 318, besteak beste), objektibotasun aldarrikapen batetik abiatuaz bada ere, azken finean, hutsune aipagarri zenbaitez gainera (Etxeberri Sarakoarena dukegu larriena), testuinguru historiko egokirik eman gabez eta zientzia mitotik interesatuki bereizi beharraz zamatutako ikerketa baita. Tesian barrena izango dugu, Larramendi zuzen-zuzenean ukitzen baitu, kritika honetan xeheki eta lasaiago aurreratzeko aukera, egiten dituen funtsgabeko baieztapen guzti-guztiak ezeztatzeari lan oso bat eskaini beharko balitzaioke ere.

Alderdikeria bezain arriskutsua izan daiteke, agian, beste muturrera jotzea: nagusitasun intelektualaren sentimenduaz gainezka, baina neogramatikoen ondoren bizi garenez jakintza-arlo baten aitzindariak epaitzea errazegia dela aitorturik, aurreko lanak begi onbere irakurtzea, haiengan lorpenak —puntualak zein teorikoak— bilatuaz. Jarrera honen aztarna ezagunak dira, adibidez, euren jakinduria —beti ere garaiak eskatu baino haratagokoa— goraiatzea edota lorpenak estatistikoki neurtzea, egilearen gainerako lanak, gainerako ideiak, etab. eta haien arteko lotura alde batera uzten diren bitartean. Ayres-Bennet-ek (1990: 198-199) Ménage etimologo frantsesari (1613-1692) buruzko azken urteetako hainbat lan kritikatzeko dituen alde honetatik, eta oso antzerakoa da, nik uste, Lope Blanch-ek (1990: 21-23) egiten duen Covarrubias espainiarraren (1539-1612) irakurketa, esaterako.

Dena dela, funtsean okertzat eman behar dugun iritziaren gainean eraikitako lan batean nolako gauzak izkuta daitezkeen antzeman ahal izateak begiak ireki diezazkiguke, Larramendiz aritu beharko dugunez gero. Adibide ezin hobea dugu Coseriuk (1977a: 103-116) Pierfrancesco

Giambullari (1495-1555) italiarrari buruz gauzatu zuen lana. Izan ere, Giambullari bere gramatika bikainaz baino, hizkuntzalaritzaren historian ezagunagoa da toskaneraren jatorriaz idatzi zuen liburuan (*Il Gello*, Florenzia, 1546) aldeztu zuen teoria zoroarengatik. Giambullariaren ustetan, toskanera askotariko hizkuntza izango litzateke, baina oinarrian etruskoa, hots, arameoa —bi hizkuntza hauek berdindu baitzuten— dateke. Hau dena frogatzeko eratu zituen etimologi zerrendek, Coseriuk frogatu du asmaketa protzentaia harrigarriak dituztela, egun ere zeharo antzemangaitz diren edota azalgaitz dirauten hainbat etimologia barne.

Ez dut estaliko Larramendirekiko erkaketa bereziki ongi onartzen duen adibidea hautatu dudala. Gaztelaniaren etorkia eta honen eta euskararen arteko erlazioen norabidea askoz argiago ditugun neurrian, *HH*-ko etimologiak “ez zientifikotzat” emanez haien azterketa erraz saihesteko motiboak ez dira faltatu eta. Bestelako iritzia izango genuke, dudarik ez, gai horiei buruz ideia argirik izan gabe —edo ideia argi bezain okerrak izanik— bat-batean aurkituko bagina, XVIII. mendearen hasieretan, adibidez; arazoari emandako azalpen orokorra okerra izateak ez du esan nahi, nahitaez, hara iristeko erabilitako datu eta interpretapenek denak okerrak izan behar dutenik. Datuak beti datu, batzuetan aurkako teoriei eusteko erabil badaitezke ere.

Halaz ere, etimologiak Larramendiren pentsamoldearen alderdi ttiki bat baino ez dira. Berarekin egin litekeen lanaren neurri egokiagoa ematen digu Nieto Jiménez-ek (1975), Bernardo José de Aldrete (1560-1641) jakitun espainarraren obra linguistikoari buruz egin zuen lan goraipagarrian. Oso adibide ezberdina dugu, zeren eta Aldrete izan baitzen, oraindik batere argi ez zegoen garai batean, gaztelania latinetik zuzenean datorren hizkuntza dela luzekienik eta argudiorik onenez defendatu zuen hizkuntzalaria, halako moldez non bere lana gramatika historiko eta konparatuaren hasikintzat hartzeraino iritsi baita.⁴³ Hizkuntzari buruzko ideien eta hizkuntzalaritzaren garapenaren historian zuzenago kokatuaz, Nietok gainbegirada sarkor eta oso irakasgarri bat bota dio Aldreteren lanari: hizkuntzaz (bere izaera, etorki, funtzionamendu, egitura, ezaugarri eta funtzioez), gramatikaz, hizkuntzaren historiaz (erromanizazioaz, latinaren hizkuntza arrunt izaeraz, Iberiako lehen hizkuntzaz edo hizkuntzez, erromantzearen etorki latinoaz eta sorkuntzaz, latina eta erromantzearen arteko ahaidetasunaz) eta gaztelaniaren osagai lexikoez zeuzkan usteak eta haiek oinarritzeko bildu zituen frogak xeheki miatu ditu, besteak beste.

Halako lan bat Larramendirekin egitea, esan gabe doa honenbesteko tesi bat eskatuko lukeela. Ez da hori, hortaz, gai hau ikuspegien eta ikermugen artean jartzera eramán nauen zioa, jadanik egin diren aurrelanei (ik. Lakarra 1985a eta 1993, batez ere) ekarpenen bat egiteko paradán egongo garela pentsatzekoa bada ere. Halaz ere, Larramendiren lan guztien azpian dautzan ideia linguistikoak —hizkuntzen etorkiaz, ahaidetasun erlazioez, euskararen izaeraz zein euskararen mekanismoen funtzionamenduaz— aintzat hartzea funtsezkoa izango

⁴³ A. Alonso, *Castellano, español, idioma nacional*, ap. Nieto 1975: 33-34.

da, erakusten saiatuko naizen bezala, *HH*-ko euskal edukia behar bezala eta bere osoan ulertzeko.

2.3. XVIII. mendeko euskararen lekuko gisa

Hizkuntzaren historia berreraikitzeke idatzira jotzea ezinbestekoa dugu, lehenagoko mendeetako ahozko hizkuntzari buruz ezer gutxi —sarritan ezer ez— baitakigu. Horregatik ez da batere harrigarria lehenengo konparatzaile handienak (Jakob Grimm, Friedrich Diez...) filologo izan zirela jakitea: testu zaharretan hartu zuten eskarmentua izan zen metodo konparatiboa garatuaz joan zedin izan zezaketen oinarri irmo bakarra. Euskarari dagokionez, ezinutzizkoa da Mitxelenaren aipua, jakina, berez hizkuntzalari izan arren, bere kabuz aztertu behar izan baitzuten —ezer ziurrik eraiki edo berreraiki nahi izatekotan— testurik zaharrenak edo esanguratsuenak, baita inoren azterketak kritikatu eta osatu ere (Lakarra 1987c eta 1997; Urgell 1987c). Bi lerrokada hauetan laburbil daiteke gaiari buruz zeukan ikuspegia:

Aunque debiera ser innecesario —y lo es en teoría, pero no en la práctica—, es preciso hacer constar explícitamente que las conclusiones de la historia de la lengua tienen una prioridad absoluta, para el período a que alcanzan sus datos y en las extensión que éstos abarquen, sobre todas las inferencias, aun las más seguras, a que se pueda llegar con el uso de métodos indirectos.

(...)

De cualquier modo, la prehistoria, el andamiaje más o menos inestable de hipótesis sobre lo no directamente conocido, sólo puede sostenerse sobre el fundamento de la historia, de los estados documentados de lengua, y no existe más que en función de ella, puesto que su valor suele ser en la práctica equivalente a su capacidad de iluminar estos estados. Para dedicarnos con tranquilidad a la prehistoria, habremos pues de esforzarnos en adquirir el conocimiento más exhaustivo posible de los datos disponibles, sin dejar ninguno de lado y sin ahorrarnos molestias en buscarlos y comprobarlos (Mitxelena 1963: 15-16).

Honelako hitzen —eta bere ereduaren— balioa ez da mugatzen une hartako euskarari buruzko ikerketen egoerara. Aitzitik, ez dute galdu ezer ere, ez hemen eta ez kanpoan, zeren eta, Rissanen-ek (1990: 253 t. hur.) azaldu bezala, azken hamarkadetan filologia eta linguistikaren arteko aldea —ezinikusia ere batzuetan— nabarmen xamarra izan baita. Hizkuntzalariak, araupeko orokortasunen bila, emaitza interesgarriak lortzen ari ziren fonologia eta morfologia historikoaren arloetan, baina sintasi eta lexikoari zegokionez oso eskas ibiltzeaz gainera, oro har aldaketa linguistikoaren mekanismoei buruzko interes urria lepora zekiekeen.⁴⁴ Kasurik larrienetan, besterik ere lepora zekiekeen filologoek ikuspuntutik: datuak behar arretaz ez zaintzea eta filologian egindako aurrerapenei jaramonik ez eginez erabiltzea, alegia (Bernabé 1984). Filologoek, euren aldetik, testuen ezagupen sakonaren laguntzaz gai ziren iraganeko hizkuntzaren egituren eta lexikoaren esanahiari buruz ohar sarkorrak egiteko, baina, aldi berean, ez zirudien xehetasunei buruzko beren eztabaidak hizkuntzaren garapenaren

⁴⁴ Ezin adierazgarriagoa da Calbert Watkins-ek (1989) —gaur den egunean munduan diren konparatistatik onenetakoa— nolako tonon aritzen den “the Society”-ren (American Society of Linguistics, I supose) aurrean. Besteak beste, hauxe diosku (*op. cit.* 784): “It is possible to get a Ph.D. degree in linguistics at a number of fine and distinguished American universities without ever taking a course in historical linguistics, and there are good linguists teaching in my own department who have never had such a course. The result is that there are a lot of people out there who have very little idea of what it is that we do, or of what historical linguistics has accomplished. That is a pity”.

ezaugarri eta joerekin bateratu behar zirenik uste zutenik. Beharbada hizkuntzalarien ustetan filologoek “teoriafobiak” jota zeuden.

Jakintza bien azken aurrerapenak berriz biltzen ari diren faktoreak anitz dira, soziolinguistikaren eta dialektologia historikoaren azken lorpenak tartean daudela. Bitariko ariketa honek, testuen menperakuntzari arazo linguistikoek ezagutza gaineratzen diona, emaitza interesgarriak eman izan ditu gutxi ezagutzen diren hizkuntzen edota galdutako barietateen kasuan. Benetan ikusgarria da, edozein alderditik begiratuta, Campbell-en (1990) lantxoak hizkuntza mayei buruz: antzinako dokumentazioa —Colon osteko misiolarien gramatika eta hiztegiak gehienbat— eta antzinagokoa —geroglifiko mayen ulerpenean egindako azken aurrerapenak— erabiltzeak aukera ematen dio hamaika norabidetan hizkuntza haiei buruzko ezagutza aurreratzeko. Saioaren ondorioak bai hizkuntza haien ezagupenerako, noski, baina baita filologiarako eta, batez ere, linguistika historikorako oro har txundigarriak dira: (a) egun galdutako antzinako kontrastei buruzko dokumentazioa aurkitzea, (b) baita aitzin-mayaren segmento fonologikoen kopuru eta forma mugatzeko ebidentziak; (c) arau fonologikoak eta hots-aldaketak hizkuntzen mugen gaineratik heda daitezkeela —eta hedatu ere direla— ezartzea; (d) hizkuntza barruan egindako azpitaldeak berrestea eta berrikuntza mailegatuak konpartituetatik bereiztea; (e) idazkera eta eskakizun teorikoen arteko erlazioa balioztatzea, (f) egun suntsitutako hizkuntzak identifikatzeko eta (g) aldaketen garaia ezartzeko.

Mitxelenaren adibide klasikoan zein Campbellen berriagoan antzeman daiteke filologia eta hizkuntzalaritza historikoaren artean berez dauden harreman estu eta aberasgarriak: Hizkuntz historiari —adierarik hertsienean, hots, dokumentazioa dagoen tarteari— dagokionez, filologi lana —“painstaking collection and careful evaluation of details” (Winter 1990: 371)— lehenagokoa eta ezinbestekoa du hizkuntzalariak; baina, aldi berean, hizkuntz historiaren arazoak non dauden eta azalbideak nondik doazkeen aurretiaz jakitea, filologoak izan dezakeen lan egiteko formarik emankorrena dugu (Bernabé 1984: 299; Posner 1990: 337; Sánchez Prieto 1996: 22). Aurreraxeago ere irits gaitzke:

...philology is the life-blood of historical linguistics. I would go further and maintain that just as diachronic linguistics requires theoretical support from synchronic linguistics, synchronic study would itself be crippled without the insights by a historical perspective (Posner 1990: 349).

Nolanahi ere, arestian Lakarrak (1997: 448-449) gogoratu digunez, testu corpora izatea ez da nahikoa, ez eta corpora ugaltzearen alde lan egitea ere, hizkuntzaren historia egiteko, nolabaiteko antzinasuneko lekukotasun idatziak izatea suerte makala ez bada ere, dena dela, munduko hizkuntzetan anitzek euskarak baino modernoago edota eskasagoa den informazioaz besterik ez dutela, eta beste anitzek batere ez dutela kontuan hartuta. Aitzitik, corpusaren nondik norakoa —besarkatzen duen denbora tartea eta datuen dentsitate eta jarraitasuna— ezagutzea eta corpora bera xeheki menperatzea, ezinbestekoak dira.

Gure corpora ez da oso zabala. Lakarrak berak dioskunez “1745 baino lehen ez dira 500 folio izango Hegoaldean eta 5.000 bat Iparraldean; Lope de Vegak berak badu gehiago” (*op. cit.* 455). Gainera, ez ditu euskalki guztiak antzinasun eta jarraitasun berarekin jasotzen:

Etxeparerengandik (1545) Alfonsa Rodrigezganaino (1782) ia-ia ez dago ezer behenafarrerarako, adibidez, eta gipuzkera zaharra bizkaiera baino askoz urriago ordezkatuta dugu. Honegatik, dagoena zeharo ustiatuta egotetik urruti bagaude ere, argi dago ez garella bestelako lekukotasunak arbuizatzeko moduan, are gutxiago euskararen historiaren alderdi ezezagun edo ia ezezagunak argi ditzakeela aurreikus daitekeen lekukotasunez den bezainbatean. Hauxe da, jakina, Larramendiren hiztegiaren kasua, Mitxelenak bere aldian somatu zuen bezala, eta gauzak ez dira harrezkero gehiegi aldatu. Itxaron dezakeguna erakusten diguten bi adibide baino ez ditut emango, baina zein baino zein adierazgarriagoak, inondik ere:

1) *alagoza* “dote”: *OEH*-ak jaso ere jaso ez duen *HH*-ko hitza da, *alagozatu* “dotar” eta *alagozeco* “dotal” eratorriekin batera; nabarmena da, hortaz, beste lekukotasunik aurkitu ezean, Larramendik eraturako hitzat jo eta, geroko tradizioz ez zuenez, kalte larregirik gabe alde batera utz zitekeela erabaki zutela. Alabaina, ezpairik gabe, XVI. mendetik atzerantz bakarrik lekukotuta zegoen *alagoza* “esposa”-rekin —erromantzetik hartutako arabismo zahar eta garbia (ik. *OEH*, s.v. *alagoza*) , ‘dote’ adieran ere lekukotua— lotu beharra dago (Lakarra 1993: 341, 51. oh. eta 1997: 467, 39. oh.). Esan gabe doa *HH*-ko berri berankorrek ez euskaraz soilik, baita gaztelaniaz ere hitzaren hedaduraz eta iraupenazko ondorioak berrikustera garamatzala.

2) *oski* “zapato”: oraingoz *OEH*-aren laguntzarik ez izaki, *EH*-aren berri laburrekin jokatu behar dut, hots, lehendabizikoz 1596an (*Refranes y Sentencias*-en) eta XX. mendera arte gutxi erabilia izan dela. Honek esan nahi dezake, hainbatetan bezala, Azkuek berriro boladan ipini arte ahaztu edota txokorik gordeenetan bakarrik ezagututako hitza datekeela. Izan ere, Azkuek berak (1905-1906, s.v.) *RS*-ko bi agerraldiez gain (275 eta 288) Oihenarten atsotitz baten (163) lekukotasuna bakarrik erantsi zuen, euskalki markak (B, arc, BN-am, R, S) erdizka bederen bi testuon gainean eraikirik, ziurrenik. Bada bederen ezagun xamarra den hirugarren agerraldi bat, nahiz eta ez askea, ezpada inondik ere *RS* 275tik hartua: *Erans* 690 “Zapato, *osquia*” (Mitxelena 1970: 133 eta Lakarra 1996c: 115). Larramendik *RS*-ko berriak oro *Erans*-ean sartu zituela eginez (hura jaso zuen denboraz esaten dituenak aintzat hartuta), *HH*-ko *osquea* “zapato” erabat ziur eta askea den hitzaren laugarren lekukotasun zaharra genuke, formaz erantsi beharko diren iruzkinak gorabehera, XVI-XVIII. mendeetako tartean haren bizitasunaz —eta euskalki zabalkundeaz, agian— berri ederra demaiguna.

Alabaina, ongi dakigunez, *HH*-ak datuak erruz eskaini arren, gehienak kritikaren bahetik igaro eta egiaztatu gabe ditugu, eta haren lekuko gisako balioa bera —hiztegia izatea eta areago Larramendirena izatea— kolokan dugu. Galdera hauxe da: itxuraz hamaika filologoren bata bestearen gaineko lana eskatzen duen halako testu “arriskutsu” batetik, ba al dago hizkuntzalarientzat baliagarria izan daitekeen materiala ateratzeko modurik, halako hitz solteez besterik? Baietz erantzungo dut, baina horretarako, nahitaez, testukritikaren arlora itzuli behar dugu.

2.4. Hiztegiak testukritikaren ikergai

Filologia, aurreneko ataletan aurkeztu ditudan azterbideen lagungarri bat besterik ez da izaten; Starnes eta Noyesen hitzetan, filologi kontuak “hiztegiaren historiari laguntzen dioten heinean bakarrik” aintzat hartzekoak dira. Hau, ene usteko, printzipio aldarrikapen gisa ulertu behar da —areago, egin zen garaian eginda—, aztertzaileren egiteko kritikoak ez filologoen “zirujanokeriak”⁴⁵ —filologo ez den bati, noski, entzundako esapide polit eta ez erabat desegokiaz baliaturik—, hiztegien azterketak eskatzen dituen haiek —direnak direla eta haiek bakarrik— baizik direlakoan. Beren liburuan bertan egiazta daitekeenez, ostera, filologia, testukritika zehazkiago, ezinutzizkoa da antzinako hiztegi eskuizkribatuen arteko erlazioak, argitalpen ezberdinen hurrenkera edota hiztegi baten iturriak, adibidez, ezartzerakoan.

Alabaina, edozein hiztegitarako testukritika lana beharrezkoa baldin bada, *HH*-aren kasuan bere azterketak —edo azterketa-erak— sortu dituen errezeloak gainditzeko bide bakarra dela nabaria da. Eta, alde honetatik, hiru zeregin premiatsu ditugu: argitalpen kritikoa, ereduarekiko erkaketa eta iturrien arazoaren garbiketa, zein baino zein premiatsuagoak, ezein aldetatik ezer garbirik atera nahi izatekotan.

Lehenari dagokionez, tesi honetan erabiliko den materialaren irakurketa kritikoa bakarrik eskain daiteke, baina hura ahalik hobekiena zaindu da, eskuztatutako hitzak eta hauek hartzen dituzten sarrerak antzeman ahal izan diren huts guztietatik garbituaz. Zeren eta *HH*-ari —beste edozein testuri bezalaxe— ez zaizkio hutsak falta, eta are batzuetan bestek baino harrapatzen zailagoak ere baditu: XIX. mendeko testuetan eta batez ere hiztegietan zehar bere hitzek izan zuten transmisio aberats eta nabarrak gaitz baino gaitzago egiten du ohartu eta zuzentzeko lana, *OEH*-aren sarrera batzuetan ikus daitekeen bezala.⁴⁶

Bigarren eta hirugarrenari dagokienez, xedeak argiak badira ere, berehalakoan arazo larri batekin egin dut topo. Izan ere, oso zatikako ereduak baino ez ditut aurkitu lexikografiaren historiazko zein hiztegien lekukotasuna baliatuz egindako hizkuntzaren historiazko lanetan.

Lexikografiaren historialariak gehienbat hiztegien arteko erlazioez —eta ez hiztegien eta literaturaren edota ahozko hizkuntzaren arteko— kezkatzen dira.⁴⁷ Eta egiten ari diren lanen arabera, balirudike testukritikaren ohiko tresnak baino gehiago ez direla behar, eskuarki zenbait batetortze esanguratsu aski izaten baitira iturria identifikatutzat emateko. Kontuan har dezagun hiztegi gintza oso lan neketsua dela eta, aukeran, hiztegi gileek aurrean hiztegi bat edo batzuk

⁴⁵ Menéndez Pelayok “los copistas de inscripciones, los amontonadores de variantes, los naturalistas de lo por menor” deitzen zигun (ap. Blecua 1991: 73). Ik., halaz ere, Balduinok (1983: 2-3) “filologismoaz” egiten duen errebindikapen zuhurra.

⁴⁶ Onerako zein, tamalez sarriago, txarrerako. Cf., adibidez, Azkueren bitartez itzuri zaion **aukoz* iratxoa, egiatan *HH*-an sarri (ik. s.vv. *boca arriba* eta *espalditendido*) agertzen den *auzkoz*-en ordezk hutsa, bertan sortua (ik. s.v. (*boca*) *arriba*), *OEH*-ak Azkue besterik aipatu ez arren. *OEH*-ak ongi zuzendu dituenak ere badira, ordea: cf. **alderagi* “accesible”, *alderagarri* zuzendua, abisatu gabe bada ere.

⁴⁷ Oso adierazgarria da, adibidez, Steiner-ek (1970: 11-12, Schlipg-en lanaren iruzkinean, batez ere) hiztegien iturrien azterketa “the dependence of lexicographers upon the work of their predecessors”-ekin erabat identifikatzea, bestelako gauzak egiten badaki ere, ikusiko dugun bezala.

izanik lan egin nahiago dutela, beren burutik edota testuak hustuaz bakarrik baino, eta sarritan hauek gabe ere (Osselton 1983: 13). Hortaz, hiztegien iturririk usukoenak hiztegiak eurak dira eta, behin delako hiztegi bat iturria dela egiaztatuz gero, emailak eta hartzaileak berdina daukaten guztia iturriari zor zaiola erabaki daiteke, egiatik gehiegi aldendu gabe.⁴⁸

Hala izateak ez gaitu harritu behar, dena dela. Gehien aztertu izan diren lexikografi tradizioetan —ingeleza, frantsesa, alemana, italianoa edo gaztelarra, demagun— hiztegiek oso paper txiki eta marjinala jokatu izan dute hizkuntzaren historia berreraikitzerakoan;⁴⁹ erran nahi baita, historia oso finkatuta dago, eskuarki lexikografiaren historia bainoago eta bera gehiegi kontuan hartu gabe. Esan gabe doa bestelako lekukotasunak halako hizkuntzetan aski eta sobera izan direla eta direla langile samaldak lanpetuta izateko. Horregatik, hiztegi aztertzaileek zenbait hitzen data aurreratzeko eta, batzuetan, hizkuntzaren alderdi ezezagun batzuk hobeki menperatzeko datuak aurkitu dituztela aldarrikatzen badute ere, ez dirudi hiztegien eraginaren azterketak hizkuntza hauen historiaren oinarriak ikaratuko lituzkeenik inork —ez eta eurek ere— uste duenik.

Lexikografi historialariek egin izan ez dutena, are gutxiago egin zezaketen hizkuntz historialariek, beharbada haien aldarrikapen urriek hauengan oihartzun gutxi aurkitu dutelako ere. Salbuespenak egon badaude, ostera, baina eskuarki oso garai zehatz eta goiztiarretan agertzen dira, denaren beharretan daudenean, hain zuzen, eta hemendik dator Erdi Aroko glosei eskaini zaien arreta, esaterako. Salbuespenen artean handienak gorago aipatu dugun Campbell-en lana edota A. Alonsoren “Formación del timbre ciceante” (1951) bezalakoak dira, ikertzailearen argitasunari —eta ez behar hutsari— egotz baitakioke jadanik ezagunak diren zenbait gertakariren gainean begi berriz aritzeko datu jakingarriak halako testuetan aurki daitezkeela gogoak ematea.

Gainerantzean, Mitxelenak erakutsi digun bezala, hizkuntz historialariek bestelako lekukotasunak hobesten dituzte, hanbatik hanbatean fidagarriagotzat baitauzkate. Hein handi batean ez zaie arrazoirik falta, ez bakarrik lexikoa ugaltu edota zuzentzeko eta elkarri kopiatzeko hiztegiileen ohitura ezagun eta ez gutxitan aitortuarengatik, baina baita hizkuntza hauetako lehen hiztegi elebakarrak, tradizionalki aintzat hartu izan ohi diren bakarrak,⁵⁰ lekuko

⁴⁸ Dena dela, Lépinette-k (1992: 228) dioenez, halako lanari ere ñabardura gehiago eman dakioke, zeren eta “...débusquer ces emprunts, en évaluer l’origine exacte (...), en calibrer la dimension —avec ce qui a été retenu et ce qui a été éliminé— interpréter les raisons de cette sélection (i.e., la ‘méthodologie’ du compilateur), représente un travail du point de vue historique, patient (...), et du point de vue lexicographique, pas toujours aussi simple qu’il pourrait paraître à première vue”.

⁴⁹ Adibide bat baino ez: Lapesak (1984) *Historia de la lengua española* liburu bikainean ez du hiztegiei buruzko inolako aipurik aurkibide orokorrean, eta gaikakoan Erdi Aroko latina-gaztelania glosarioak (yeismo goiztiarri buruzko ohar batera bidaltzeko) eta Done Emiliaga eta Silosko glosak baino ez dira bereizita agertzen. Bistan da, bestalde, zeinez bere txandan Covarrubias (416), Palencia (287), Nebrixa (290) eta *DAut-ez* (419-420) mintzo dela, baina —azkenean izan ezik, agian— hiztegiak garaian garaiko kezka eruditoen ondorio gisa aurkezten dira gehienez, ahozko hizkuntzarekin edota literaturarekin izan ditzaketen erlazioei buruz ezer ere eskaini gabe.

⁵⁰ Oso adierazgarria da, adibidez, Stein-ek (1991: ix-x) lexikografia ingelesari buruz egiten duen iruzkina. Hiztegi elebidunekiko oro har somatzen den ezaxola handiogoaren erakusgarri modura, Verdonk-ek (1992: 43) salatu du, bestalde, Gili Gayak bere *Tesoro Lexicografico*-an (1960) elebidunen artean

gisa sarritan ez baitira ezer garai bereko eta are aurreragoko gainerako idatziekin erkatzen badira. Adibidez, lehenengo hiztegi osoki ingelesak (Cawdrey, 1604) 2.500 sarrera zituen, garai bereko elebidunak 20.000 ingururaino iristen ziren bitartean (Osselton 1983: 14). Hiztegi gintza elebakarraren atzerapena hobeto ulertzeko, ostera, adierazgarriagoa izan daiteke, 1604an Shakespearearen lanen bi herenak idatzita zeudela aipatzea eta, areago, antzerkigileak eskura zituzkeen hitzak 15.000 inguru zirela (Starnes & Noyes 1946: 1).

Alabaina, hiztegi gintzaren historiak kezkatzen direnek, azken urteotan gero eta ozenago, tradizio ezberdina osatzen duten hiztegi elebidun (eta eleanitz) zaharren lekukotasunen garrantzia aldarrikatu dute, lexikografiaren aurrerapenean jokatu duten paperagatik ez eze, sarritan garai bereko eta beranduagoko elebakarrak baino hizkuntzaren islapen gaurkotu eta zehatzagoak eskaintzen baitituzte.⁵¹ Quemadak frantsesaren lehen hiztegitzat hartu ohi den Estienne-ren *Thesaurus latin français*-ean (1531) ahozko hizkuntza ez-arian bezala nola sartzten den agerian utzi du, adibidez:

Il est indéniable que la première intention d'Estienne avait été de ne préparer qu'un dictionnaire monolingue latin. Le français s'y trouva introduit à des fins utilitaires mineures, faciliter la consultation de l'ouvrage aux étudiants par exemple. Mais dans un travail aussi élaboré, la participation du français ne put demeurer longtemps rudimentaire. Les simples correspondances mot-à-mot, héritées des répertoires médiévaux et pratiquées par tous les ouvrages contemporains, se révélèrent insuffisantes. Des exemples, des locutions et des idiotismes français furent utilisés pour interpréter des mots difficiles ou des éléments phraséologiques, et de véritables définitions furent introduites (Quemada 1967: 46).

Osseltonek (1973: 49) honela dio neerlandera eta ingelesa barneratzen dituzten hiztegi elebidunetz: "...the fact is that Hexham [1647] and other bi-lingual dictionaries of the day provide a far better catalogue of current English usage than do any of the native English dictionaries that had yet been produced".⁵² Honetaz ohartzeak, ene usteko, luze jo dezakeen iraultza baten atarian ipini gaitu, zeren honelakoetan somatzen hasi baitira, hasi ere, errealtatearen (hots, literaturaren eta hizkera estandarreko lexikoaren) eta hiztegien artean dauden norabide bikoitzeko erlazioak, oraindik honen inplikazioak oro ustiatu ez badira ere.

Hiztegietatik hizkuntzara (bere maila jasoetara, behinik behin) zein literaturara doazen marrak, gaingiroki hitz eginez, aztertu gabe daude. Halaz ere, badira horren zantzuak han-hemen. Shakespearearen adibidearekin jarraituz, eta idazle zaharrek dena bere burutik

gatzelaniazko nomenklatura daukaten hiztegiak bakarrik aintzat hartu zituela, hainbat xehetasun jakingarri alde batera utziaz.

⁵¹ Hauetan batez ere aurkitu izan dira zenbait hitzen datazioak aurreratzeko lekukotasunak; adibidez; honelako hutsuneak somatu dira *Oxford English Dictionary* bezalako hiztegi historiko fidagarri batean (cf. Osselton 1973: 53, neerlandera eta ingelesa hiztegiatarako). Datazioa baino oraindik garrantzitsuagoa izan daiteke, hiztegi elebidunek batzuetan bederen ahozko hizkuntzaren gauzen, elebakarrek baino kontu fidelagoa ematen dutela ohartzea; adibidez, Verdonk-ek (1992: 36 t. hur.) Rodriguez-en (Amberes, 1634) eta De la Porte-ren (Amberes, 1659) nederlandera-gatzelania hiztegiek hitz zenbait gatzelaniazko hiztegiek (adiera hertsian) baino askoz lehenago jasotzen dituztela erakusten du, nahiz hitz berberak garaiko eta lehenagoko testuetan lekukotuak egon.

⁵² Eta oraindik (*ib.* 92), Sewel-en hiztegiaren azken berrikuspenaz (1766) ari dela: "...it has become a remarkable repository of seventeenth and eighteenth century words and idioms. The historian or literary scholar who is working on documents from that period can frequently turn with profit to this, the end-product of the accretive Sewel tradition, for much that has since been lost to the language is faithfully recorded here".

ateratzen zutelako ustea deuseztatzeko moduan, agerian jarri da, bai berak baita bere garaiko beste idazle zenbaitek ere elebakarrak baino askoz aberatsagoak ziren honelako hiztegi batzuk —zehazkiago, Cooper-en *Thesaurus linguae Romanae & Britannicae* (1565) eta Florio-ren *Worlde of Wordes* (italiera-ingelesa, 1598)— bederen ezagutu eta erabili zituztela (Starnes & Noyes 1946: 5). Hizkuntza berean, oso nabaria da latina-ingelesa hiztegien lotura zuzena —batzuetan ingeles hutsezko hiztegien bitartez— hizkuntzak barneratu dituen latin hitz ugarien hautapenean (Starnes & Noyes 1946: 40-43 eta Osselton 1983: 15-16).

Alderantzizko eraginaz, hots, literaturak edo ahozko hizkuntzak hiztegiak osatzeko izan dezaketenaz, lehenaz ugarixeago bigarrenaz baino, dauden aipuak oro biltzea bukatuezinezkoa izango litzateke, nahiz eta gai hauetan ere halako herabetasun bat, gaiei axaletik baizik ez hartzeko ohitura bat somatzen den. Literaturaz den bezainbatean, Quemada (1967: 515-522) eta Seco (1987: 111-128) hautatu ditut, hurrenez hurren, hiztegi sorta baten eta hiztegiak bakar baten literatur aipuei eskainitako lan ezberdinen adibidetzat: honelako lanetan, batetik, iturri aitortuak (guztiz agerraldiz agerraldiko aitorenarekin markatuak) bakarrik hartu ohi dira aintzat eta, bestetik, haiek zerrendatu eta, gehienez ere, beren betebeharra zehaztu egiten da. Jokaera honen azpian, literatur aipamenak sarrienik dagoeneko ezagun zena (hizkuntza bizian zein beste hiztegiatan aurkitutakoa) sendotzeko —eta ez hiztegia hitz berriez hornitzeko— erabiltzen direla dago (cf. Starnes & Noyes 1946: 43-44 eta Osselton 1973: 90).

Antzeratsu gertatzen da ahozko hizkuntzaren arloan. Hasteko, gehienez jakintzat ematen da ahozko osagaia, guztiz hasikinetako hiztegiak, nondik datorren (hiztegiak learen hizkuntz gaitasunetik?) galdera, teorikoki baino ez bada ere, egin gabe.⁵³ Berriemailerik egon delako iradokizuna noizean behin kausitzen da (ik., adibidez, Steiner 1970: 22), eta, are bakanago, benetan hizkuntzaren historiarako interesgarriak diren oharrak.⁵⁴

Ez dut gai hauei buruzko lan orokorrik aurkitu, oster, ez eta “halako edo holako idazlana erabili dut” aitoren hutsaren gainean haren hiztegi eragina xeheki —azken bururaino— neurtzen saiatu denik. Testukritikak hiztegien azterketaren teorizazioan izan duen axolagabeak ere zerikusiren bat dauka txirotasun honetan, ez baitu hiztegiak hiztegi erlazio jakin honetaz gainekoei buruz aritzeko aterabide imaginatiborik eskaini. Haatik, ziur naiz errurik handiena lexikografiaren historiografia garatzen joan den moduan bertan aurkitzen dela, lehenik eta behin hiztegiak hala moduzko lekukotasunak direla asumitzean, eta bigarrenik bai hiztegi

⁵³ Salbuespen bakarra, berriro ere hiztegi elebidun batean, Verdonk-ek (1992: 43) eskaintzen digu: “...resulta fácil explicar por qué la parte N[eerlandés]-E[español] es la más espontánea y original en cuanto al léxico español. Sabido es que sus entradas neerlandesas Rodríguez [Amberes, 1634] y De la Porte [Amberes, 1659] las copiaron sencillamente de un diccionario N-F[ancés] existente (...). Al contrario, para redactar las traducciones al español de estas entradas, sólo podían contar con su propia competencia y la del medio en que vivían: no disponían de ningún modelo N-E anterior”.

⁵⁴ Bakanetako bat, adibidez: Verdonk (1992: 39 t. hur.), Rodríguez-en neerlandera-gaztelania (Amberes, 1634) eta De la Porte neerlandera-gaztelania / gaztelania-neerlandera (Amberes, 1659) hiztegien lekukotasunen bitartez, frogatzen saiatu da Flandesko gaztelanian, bertako hizkuntzen eta alde hartan mintzatu ziren bestelako hizkuntzen eraginez, hainbat mailegut berezi erabiltzen zirela, eta konstatazio honek eragina izango lukeela orain artean Penintsulako gaztelaniaren oihartzun hustzat hartu izan ohi den hango mintzairari buruzko iritzian.

elebkarrei eman izan zitzairen oroz gaineko lehentasunean, baita elebidunetan norberaren hizkuntzako gauzei bakarrik arreta ipintzean, ikerketen norabide aldaketarekin azaltzen hasi diren bestelako galderek eta bestelako erantzunek erakusten digutenez.

Alde honetatik, azken urteetako ekarpenik garrantzitsuenetako bat Europa osoan mendeetan hiztegiek gramatikaren pean egon direla, eta honen ondorioz gaitasuna —eta ez ariketa— islatu nahi zuten hiztegiak badirela egiaztatzea izan da (Lakarra 1995a). Jones 1991 lan aitzindaria dugu, zeren eta alemanerazko zenbait hiztegi zaharretan (Dasypodius, 1535-1516; Maaler, 1561; Stieler, 1691; Kramer 1700-1702) dagoen alderdi arau-emailea eta jakinaren gaineko neologismorako joera —hizkuntzari buruzko hausnarketan ondorioz, noski— aztertu baititu. Joera berberaren barruan sartu behar dira Urtez eta Pouvreauz Lakarrak egin dituen lanak (1994b, 1995a). Argi eta garbi, jaramonik egin ez zaion edo gaizki ulertu den alderdi hau da hiztegiak definitzerakoan peitu ditugun giltzetako bat. Orain artekoa laburbilduz, beraz, ene ustetan hiztegien izaera honako lau ezaugarri hauen arabera, haietako bakoitzaren eraginaren arabera berdefini daiteke, ezagunenetik ezezagunera joaz: 1) tradizio lexikografikoarekiko atxikimendua; 2) datuen iturri edota berrespen gisa literaturaren erabilera; 3) eguneroko hizkuntzaren isla; eta 4) gaitasunaren gauzatzea.

Jakina da⁵⁵ Europako hizkuntza guztien lehen hiztegiek eta, garai ezberdinetan, hizkuntzaren lexikoa berri edota aberastu nahi izan dutenek, erreferentetzat hartu izan dituztela, eskuarki hiztegi elebidunak eginez, hizkuntza jasoago, landuago edo lexikografian aurreratuago baten hiztegiak, latina lehen, hizkuntza modernoak gero. Lexikografiaren lehen urrats hauetan (baita beranduagoko hainbatetan ere, zalantzarik gabe), edonon arazo berberak agertu dira behin eta berriz, hau da, aitzindari gabekotasuna, iturri hizkuntzaren hitzak oro ordezkatzeko zailtasunak, eta bertatik datorren aukerak (mailegua, kalkoa, perifrasi, hitz berria?) egin beharra.⁵⁶ Arazo hauei eman izan zaien irtenbidea neurri batean egilearen baitan egon da, noski, baina ezpairik gabe baita garaiko ideia gramatikalen eta egoera soziolinguistiko zein kulturalaren baitan ere: honen arabera da, beraz, eredu gisa erabilitako hizkuntzatik mailegu gehiago edo gutxiago hartu izana (ingelesezko *hard word* hiztegien kasua argienetakoa dukegu, eguneroko hizkuntzak ia lekuri ez baitu; ik. Osselton 1983: 15-16) eta hitzberrigintzaren eragin handi edo txikiagoa. Mailegaketa edota hitzberrigintza lana, jakina, ez da nahitaez hiztegien bitartez bakarrik egiten, baina halaxe egiten den neurrian ikertzeko dago, hain zuzen, hartan izan duten papera: zeharka eta bakanka baizik ez zaizkie honelako gaiei heldu oraingoz.

Hiztegien izaera, bertan bilduta dagoen hizkuntz materialaren etorkia eta kultura linguistiko baten eta hizkuntza baten igorle gisa izan duten bilakaera historikoa nekez ulertu

⁵⁵ Gai honi buruz beranduago (I, §§ 1.4 eta 1.6) aritu beharko dugu luzez; bertan aurki daiteke dagoen bibliografia ugariaren erakusgarri bat.

⁵⁶ Oso adibide onak eskaintzen ditu Osseltonek nederlanderari buruz: mailegukiko gorabeherez (1973: 97 eta 108), *ad hoc*-eko itzulpenez (ib. 76) eta aldi berean itzultzaile eta hiztegitzaile izan direnez (ib. 61-62). Azkenekoak Pouvrearen kasua dakarkigu gogora, jakina.

badira, ez da harritzekoa hizkuntzaren lekukotasun gisa daukaten balioa —hasierako galderara azkenik itzultzen gara— gutxietsi izana.

Jadanik dakigunez, lekukotasun lexikografikoak erabil daitekeen material bakarra edo ia bakarra diren garaietarako bakarrik erabili izan dira zehatz eta osoki, baita derrigor erabili ere. Dena dela, exhaustiboki ez bada ere, gutxienez halako maiztasun batez hiztegiak lekukotasun gisa erabiltzen direneko beste toki jakin bat dugu: hiztegi historikoak, alegia, eta zehazkiago, hitzen datazioak ezartzerakoan. Gogora dezagun hurbilen dugun adibidea, *OEH*, berez hiztegi historikoa ez izan arren. Gaia zuhurki azaldu du Osseltonek (1990), *Oxford English Dictionary (OED)*-ri dagokiola, honelako bigarren mailako iturriak normal erabiltzeko uzurtasuna —eta honek dakarren funtsik gabeko erabilera— agerian jarriaz. Arazoa nabarmenki unibertsala izateaz gainera, are eta larriagoa da gurea bezalako corpus txikiko hizkuntzen kasuan.

Osseltonek ikuspegi tradizional batetik aurkezten du arazoa, Mitxelenarengan aurkitu dugun eta hizkuntzalari historiko askok —hiztegi historikoen egileak barne— daukaten ikuspegi beretik, alegia, bertan kontraesan larri zenbait agertaraztea lortzen badu ere. Ikuspegi hartatik, beraz, lexikografi materiala oro har ez da, edo ez nahitaez, delako garai batean delako hitza benetan erabilia zelako lekukotasun ziurra. Orduan, lekukotasun zuzenak ugari liratekeen mundu ideal batean, honelako bigarren mailakoetara jo beharra ez litzateke erabatekoa izango; baina, bestelako munduan ari garenez gero, ez bakarrik erabili behar ditugu, hau nabarmena baita, baita nola erabiliko ditugun erabaki behar dugu, eta hau saihestu ohi den gaia dugu.

Erabiltzeak dakartzan arazoak ezagunak dira: lekukotasun bakartuak, batzuetan erabat, besteetan mendeetako tartean; hitz zaharkituen iraupena, euren galera bestelako testuetan ongi lekukotuta egon arren. Honek ekarri du, adibide hurbilak ematearren, *OEH*-ak hiztegi eta antzekoen lekukotasunak bereiz aipatzea, eta Sarasolak (1996) *EH*-an izarrak markatzen ditu hiztegietakoko lehen lekukotasunak, testuetakoak ez bezala. Dena dela, arazoez ez dute inolaz ere zurrizten, bestetan hain zuzena den *OED*-an —beste hainbeste esan daiteke *OEH*-rako, tesian zehar ikusiko dugunez—, lexikografi lekukotasunen erabilera erabat gorabeheratsua izatea, irizpiderik gabekoa: edo ez dute balio, eta orduan ez dira erabiltzen; edo balio dute, eta orduan sistematikoki erabiltzen dira, tradizioa desgisatu nahi ez baldin bada, behintzat.

Inplizituki, Osseltonek agerian jartzen du hizkuntz historian hiztegien balioa aintzat hartzeko dagoen lege bakarra praktikotasun hutsa dela —komeni zaigunean bai, bestela ez—, eta ez dirudi epistemologikoki oso jarrera legezkota denik. Aitzitik, badirudi arradaki bera erabili beharko genukeela garai guztietako eta izaera guztietako hiztegiekin. Areago, nire ustez, hizkuntzaren historian hiztegiak lekukotasun beharrezkoak direla aldeztu daiteke, lehenago definitu ditugun euren izaeraren ezaugarrietan oinarri harturik, hain zuzen.

Ezer baino lehenago jakintzat eman behar dugu, testuak diren bezainbatean, ohiko zorrotasunaz aplikatu behar zaizkiela filologiaren —testukritikaren— metodoak. Honegatik ulergarria da, honelako “aurrerapenak” hain arrotz zitzaizkion euskal filologian, Mitxelenak ezarri zuen *descripti*-ei buruzko lege zorrotza. Alabaina, halako lege argi batek sinplifikatu baino ez du

egiten berez oso konplexua den mundu bat, arazoak aintzat hartu beharrean bidetik alderatuaz. Osseltonek agerian jarri ditu sinplifikazioak alde batera uzten dituen lekukotasunen garrantzia, hala nola forma zaharkituen onarpen pasibo baina esanguratsua, edota hiztegiaren iruzkinak (hitza zaharkituztat emanez, esate baterako). Adibide bat jarriko dut: Añibarroren hiztegi *bidekaia* “itinerario”-k ez du *HH* erabili zuela bermatzeaz beste baliorik, antza. Baina, Añibarrok hitzak dialektalki markatzen dituen gero, edozein marka oso esanguratsua da. Marka “c.” (= “komuna”) denean, gure adibidean bezala, susma dezakegu hiztegiak komuntzat jotzen zuela inon ere aurki ez zezakeena, hitz berria delako hipotesia —bestela ere berrets dezakeguna— bermatuaz. Añibarroren kasuan, hainbatetan bezala, bere hizkuntzaren item bati buruzko hiztun baten lekukotasun zuzenaren aurrean gaude.

Ikusiak ikusirik, zinez eta benetan gure buruari galdetu behar diogu ea literatur idazlearen hizkuntz jokoak, edo hizkuntza ia osoki kodifikatu batekin eskribauak dauzkan tirabirak egiazki esanguratsua diren, edo sinesgarriago, lexikografoaren intuizio linguistikoak baino. Izan ere, jakina da, definizioz, edozein testu idatzik hizkeratik urruntzen duen kodifikazio maila bat baduela eta idazkerak oro har luzez aldagabe irauteko joera handia duela (Meillet 1925: 22 t. hur.); beste muturretik, hori bezain jakina da literaturak, berez, neologismorako (eta ez bakarrik lexikorako) joera handia duela. Halaz ere, literaturaren lekukotasunak erabiltzeko arazorik ez dugu: behin idazkeraren formalizazioari buruz egin beharreko diren hertsapenak eginik (Bynon 1981: 17), *ahozkoak bailiran* hartzen dira. Ez dakit orduan hiztegiak ere, tradizioari edota berritasunari buruz egin beharreko diren hertsapenak eginik, *ahozkoak bailiran* hartzeko zein arazo dagoen.

Agian garai jakin bateko hizkera ariketan —ahozkoan zein horren truk erabiltzen dugun idatzian— agortzen ez dela sarrixeago gogoratu behar genuke, eta hiztegiak, besteak beste, hizkuntzaren beste bi ezaugarri bederen jasota egon daitezkeela: tradizioa eta gaitasuna, hots, alde batetik ezarrita dagoena, baita batzuetan zaharkitua bera ere, eta bestetik, gauza litekeena, gerora xeheki ezin aurreikus daitezkeen ondorioekin. Hiztegiak lekukotasunak itxuraz eskasak izan arren, buruan izan behar genuke, azken batean, linguistika historikoa dela “the art of making the best use of bad data” (Labov 1994: 11, ap. Lakarra 1997: 463).

Gure arazo bakarra zein motatako materialekin lan egiten dugun ongi jakitea da, zein garaitakoa den, eta nolako kultur giroa, nolako hizkuntz ideiak, hizkuntzari buruz zernolako hausnarketa (edo haren falta) itxaron dezakegun. Ez Quevedo, ez Axularren idazlanak euren garaiko hizkeraren lekuko fidelak dira, hiztun askori arrotz zitzaien giro batean, idazkerarenean, bereziki trebe izan ziren hiztun on, jakintsu, sen handiko baina oso berezi batzuek gauza zezaketaren erakusgarri baizik. Ez eta Erdi Aroko latinezko agiriak ere, lumaren atzean izkutatzen den benetako hiztunari idazkera oso finkatu batetik ia oharkabean isuri zitzaizkion izpietan izan ezik. Kasu guztietan idatzia —idazkeraren kodea— hizkeraren gainean ezarrita daukagu, eta kultura —orokorra nahiz norberarena— naturaren gainean.

Hiztegiei egokitu zaien ezaxolak azaldu bai, baina ez du zuzitzen dautzan egoera. Testuak diren bezainbatean, filologiak eta hizkuntzalaritza historikoak, biek dute haien

lekukotasunen fidagarritasuna ziurtatu beharra. Eta ezaxolaz edo berez, ez dakit zeinez gehiago, hiztegiek interpretapen lan handiagoa eskatzen dute, filologi lan zorrotzagoa, gutxienez ondokoak kontuan harturik: 1) erabili d(it)uen eredu lexikografikoa(k), eta haiekiko duen menpekotasun maila; 2) erabiltzen dituen literatur iturriak; 3) eguneroko hizkeraren lekukotasunik dakarren ala ez; 4) neologismora (adiera zabalean) jotzen duen ala ez. Hiztegi baten lekukotasuna behar legez erabiltzeko, beraz, gutxitan egin izan den bezalako aurrelana egitea ezinbestekoa da, bai hiztegiaren egiturari dagokionez, baita arakaketa filologiko finenari dagokionez ere.

Euskararen kasua oso bestelakoa da, dakigunez, eta honegatik gorago atereaz joan diren hainbat galdera egitera gonbidatzen gaitu, hiztegiak hortxe ditugula ahazteko moduko corpusik ez dugunez gero: gaztelaniaz edo ingelesez, demagun, ezikusiarrena egin diezaiekete beharrik ez duten garaietarako, baina guk ez. Jadanik aurreratu bezala, alde batetik, garai eta leku zenbaiten euskara ezagutzeko hiztegiak baino lekukotasun oparoagorik ez dugu: pentsa dezagun zer genekikeen Mendebaldeko euskalkiari —edo dena delakoari— buruz Landucciren hiztegiaren laguntza izango ez bagenu edo, gure arlora etorrita, zer dakigun XVIII. mendeko gipuzkeraz, eta zer dakigukeen orduko testu txiki pobreak bildu eta arakatuta ere,⁵⁷ gainera, uste izatekoa da *HH*-ak gipuzkera gainditzen duten eta gutxienez mendebaldeko euskarari buruz hitz egiteko adinako lekukotasunak izkutatzen dituela. Esan gabe doa filologiaren ez eze dialektologiaren laguntzaz baliagarri izan daitezkeen moduan jarriko bagenitu, datuak txit ugalduta ahalko genituzkeela.

Bestetik, Hegoaldeko literatur euskararen eraikuntza bera ez zen bultzatu literaturaren bidez —Biblia itzuliaz, demagun—, gramatika baten eta hiztegi baten bitartez baizik: sortu zuten gramatika eta hiztegi gintza tradizio luze eta aberatsa bezain garrantzitsua da literaturari eskaini zioten ereduak. Lexikoari bakarrik begiratuta, argi dago ordutik aurrera gauzak ez direla berriro berberak izango, ez nolabaiteko mailan lan egin nahi zuten idazleentzat, ez eta haien lana ikertu behar dugunontzat: adibidez, badakigu⁵⁸ *jakiunde* tradiziozko hitza dela; alabaina, *HH*-an agertzen denez gero, hiztegi honetaz nabarmenki baliatu ziren idazleengan (Lardizabalengan, adibidez) agertzeak oso bestelako esangura izan lezake edo, gutxienez, ez dauka inondik inora Otxoa edo Amilletarengan agertzeak daukan balio frogatzailea. Honen ondorioak gaurko euskara estandareraino iristen bide dira, mende eta Erdiko eraginak erraz suntsi ezin daitezkeen eta, halaber, erraz antzeman ezin daitezkeen lortzak utzi baititu ezinbestean.

Bada, azkenik, *HH* eta aztertu diren beste hizkuntzetako hiztegien artean erabateko ezberdintasun bat: Larramendik ez zuen izan eredu / iturritzat nire lanaren erdiak zuri litzakeen

⁵⁷ Ez dut Fidel Altuna aurrera eramaten ari den ikerketa honen balioa gutxietsi nahi, jakina: Otxoa vs Larramendi oposaketan bestek baino gutxiago sinesten badut ere (cf. Mitxelena 1970: 29), argi dago lan hori egin gabe oso nekez mintza daitekeela gipuzkera zaharraz. Areago, lan hori egin gabez hemen nahi nukeen baino zalantza gehiagorekin mintzatu beharko dut sarritan.

⁵⁸ Fidel Altunak duela gutxi gogoratzen zidan bezala.

euskal hiztegiak. Izatekotan, berak esana, ziur da erabiliko zuela. Baina zirenak oro eskuizkribuan zirauten —edota Urterena bezain urruti— eta haietatik biren —Sarako Etxeberri eta Landucciren— ezagutza baino ez zuen izan, berea kalera baino bizpahiru urte lehenago argitara zen Harrieten gramatikako txikiak ahaztu gabe. Denok, dakigunez, jadanik aski osatua zegoen euskal edukia osatzeko baizik ezin izan zituen erabili, eta tamainaren aldetik ere ez dirudi askoz gehiagotarako izan zitezkeenik: ez, inolaz ere, Larramendik egin nahi zuen bezalako hiztegi orokor baten eredu, behinik behin. Aitzitik, berak emandako xehetasunei jarraiki, badirudi iturri idatzirik izatekotan euskaraz idatzitako liburuak izan zirela, asko eta mardulak irakurri baitzituen, hitz gehien eskaini ziotenak.

HH-aren iturriez den bezainbatean, eta gorago aipatu ditugun azterketetan aditzera ematen den ez bezala, (1) literatura —gutziz Iparraldekoa— ziurtasun osoz hiztegia hitzez hornitzeko erabilia izan zen, ez *dagoeneko ezagutzen zuena sendotzeko*, nahiz *sarraski* bezalako gurutzamendu bakanen batzuk⁵⁹ egotea litekeena den; (2) ahozko osagaia dagoen arren, aurreritziaren gainetik nabarmenak diren arrazoiengatik, ez dago hiztegiako eduki osoa *ahozkoa bailitzan* hartzeko modurik; (3) hiztegiaren gaitasunaz bakarrik mintzatzea (eta berbera gertatzen zaigu Pouvreaux zein Urtez mintzatzerakoan; ik. Lakarra 1994b, 1994c eta 1995a) laburregi geratzea da: aitzitik, nabarmena da horrezaz gainera hizkuntzaren mekanismoei buruzko aurrelan ikaragarria dagoela.

Gure egoerak berak, hortaz, bide berriak saiatzera garamatza ezinbestean testukritikaren arloan, gutxienez ondoko eskakizunak betetzeko: (1) Larramendik literaturatik —gutziz Iparraldekotik— zer hartu zuen jakin, *HH*-ko tradizioaren eragina neurtu ahal izateko eta, aurrerago joaz, Hegoaldekoan bere hiztegiaren bitartez hedatu ziren eta “gaur egun erabatekotzat edo euskalki guztietan betidanikotzat jotzen” ditugun hitzak (Sarasola 1986: 204) mugatzen hasteko; (2) Larramendik euskal lexikoan egindako berrikuntzak —neologismoak, hitz honen adierarik zabalenean—, ezagutzeko argudioak aurkitu, ez bakarrik “bere hitzak” salatzeke edo zor diogunaren handi-txikia neurtzeko, baina baita euskaraz zeukan irudia, haren lege eta jokabideez zekiena ezagutzeko; eta (3) herriaren ahotik inolako zalantzarik gabe erruz hartu zituen berriak —arkaismo eta hapaxak ere gutxi ez bide direla (Lakarra 1985a: 25, 21. oh.)— bildu eta, ahal den heinean, dialektalki kokatu.

Eskakizunak, aitor dezadan, oso handiak dira, handiegia nonbait, eta tesi-lan honen xedea, denei erantzun ematea baino, haietara iristeko lehenengo urratsak egitea, marra nagusiak ezartzea izango da, iragarri ditudan ikerbide berriak frogapean ipiniaz, hain zuzen. Nago lor daitezkeen aurrerapen teorikoak Larramendiren hiztegiaren ez eze, edozein euskal hiztegitan —baita agian edozein hiztegitan ere— baliagarriak izan daitezkeela. Orokortasun horren bila eginak dira, behinik behin. Horregatik, nire aldetik ere filologiaren “zirujanokeria” gehienak alde batera utzita, hots, noraezean egindako filologia atomista, anekdotiko eta

⁵⁹ Hitzaurrean ahozko zein idatzizko lekukotasunak ugari aipatzen ditu Larramendik (1745: xxxviii).

ateorikoa zeharo arbuatuta (cf. Hüllen 1990b: 88), baina baita espekulazio hutsa ere —hots, “abstrakzioaren Eszila eta historialaria bera irunts dezaketen datuen Karibdisaren artean” (Law 1990: 70)— hiztegi bat eta haren iturrien arteko erlazioak froga edo zehatz ditzaketen ezaugarrietara, eta haiek somatzeko azterbideetara mugatuko naiz.

3. Metodologia (eta irakurlearentzako gida)

HH-aren euskal edukia aztertzeko irekitzen duten oinarri teorikoak nagusiki hiru dira, lehenago azaldu dudan bezala: erdal ereduarekiko erlazioa, idatzizko eta ahozko iturrien erabileraz *Erans*-ean aurki dezakegun isla eta Larramendiren hitzberrigintzan sistemaren bat egon beharra. Azterketa hiru gai nagusi hauen inguruan eratu da, eta gaingiroki haietako bakoitzari tesiko atal bat dagokio.

Beregaineko azterketak dira berez; haatik, hiruretan ikerketa osoaren norabideak erabat baldintzatu du hurbilketa modua. Zehazkiago, lehenengo biak elkarren osagarri eta hirugarrenerako sarrera eta euskarriztat hartu ditut. Honegatik, ohiko bidalketa-deiez gainera, III. atalari begira, ondorioz ondorioko sistema bat eratu dut; oso luze eta korapilotsua den I. atalean batez ere soma daiteke honen beharra, bestela sarritan datu pilaren azpian gal baititezkeen, galdu ere, *HH*-ari buruz azpiatal bakoitzean erdiesten ari ginen ezagutzaren ezaugarriak iraunkor eta garrantzitsuenak. Honekin batera, bai honetan eta bai II.lean ere, atalaren emaitzen laburpena eskaini eta tesiaren testuinguru osoan euren berrirakurketa proposatzen duen azken atal bat aurkituko da, bertatik zuzenean III.era igarotzeko moduan. Beste horrenbeste egin dut, jakina, lanaren bukaeran, erdietsitako ondorioak ez eze, lanak ireki dituen ikerbideak eta eragiten dituen galdera berriak biltzeko asmoz.

3.1. *Hiztegi Hirukoitza*-ren izaera, eredu Errorea! Laster-marka definitu gabe.eta antolakuntzaz

HH-ari buruzko literatura ia guztia Larramendiren asmoetan geratu edo eraginetatik abiatu denez gero, beldurrik gabe esan daiteke gaur den egunean ez dakigula ezertxo ere hiztegi honetaz hiztegi den bezainbatean: ez da behin ere bere tamainaz, biltzen duen lexikoaren zabaltasunaz, ez idazketa lanaz eta antolakuntzaz, ez sarreren egituraz zein edukiaz deusik ere esan. Azken aurrerapenak egilearen baieztapenak kontuan harturik —*HH*-aren hitzaurrea irakurririk— egindakoak izatea eskertzekoa izan arren, honek ezin du estali datuak —honelako ikerketak berresten dituzten datu burugogorak— oraindik ere hiztegiaren gorputzeko 828 orrialde handietan galdu eta sakabanatuta daudela.

Aipatutako gaiak garrantzi gutxikoak direla pentsa lezake norbaitek oraindik ere: argi hitz eginez, *HH*-az kezka daitekeen edozeinen helburua biltzen dituen euskal hitzen nolakoa ezagutzea izanik, eta gaztelaniaz zein latinez dioena inorena, erabat ezaguna eta inori ere axola ez diona, zergatik denbora galdu ez, eta gehiago gabe euskal hitzei zuzenean ekin?

Bada, arrazoi bakar bezain baitezpadako bategatik: ezertaz ere ez jabetzeko arriskua erabatekoa izango litzatekeelako. Izan ere, ezjakintasun egoera honetan, euskal zatiari su eta gar erasoko liokeen ikerketa batek ziurtasun gutxi —edo batere ez— eskaini lezake, euskara txertatzen den makroegitura eta bertako xehetasun bakoitzaren benetako balioa ezagutu gabe. *HH* anitz osagai ezberdinen multzoa da: alde batetik, gainegitura lexikografikoa, beste edozein hiztegitan legez generoak berezko dituen konbentzioen pean; bestetik, hiru hizkuntza, aurreikus daitekeen heinean oso betebeharrak ezberdinekin, baina elkarren aldean eta elkarren azalbidetik; eta, azkenik, oinarria eskaini eta muga zehatzak ezarri bide zituen eredu ezaguna. Esan gabe doa osagaiok ez direla aske: elkarren artean sortzen diren loturek azaltzen eta osatzen dute hiztegia, eta batzuk eta besteak ezagutu gabe nekez esan dezakegu ezer haietako bakoitzari buruz.

Beraz, Metalexikografian ohiko diren konbentzioei atxikita, Lexikografiaren Historiografian garrantzi gehien ematen zaien alderdien ikerketa ahalik zehatzenean abiatu naiz. Hiztegi osoaren ordezkari, corpus mugatuak erabili ditut, baina gertakari nemiñoenak ere jasoaz, zeren eta corpusean ezerez eman lezaketen xehetasunek hiztegian behin baino gehiagotan gertatzeko aski den adinako probabilitatea baitute.

Ikerketa honek zenbait helburu zehatz ditu, eta haien artean lehena bi aurreiritzi oso sustraitu gainditzea da, Larramendiren lanaz ez eze, gainerako euskal hiztegiez —baita inoiz edozein hiztegi ere— izaten dugun ikuspuntua baldintzatzen baitute.

Lehenengo aurreiritzia *euskal* hiztegia delakoa da: izan ere, gure hiztegi guztiak, oraintsu arte, denak gutxienez bi hizkuntzadunak izan dira eta, besterik frogatzen ez den bitartean, bata bestea bezain garrantzitsuak izan litezke, egileak zer lortu nahi zuen —edota guk zer ikertu nahi dugun— eta horren arabera. Adibide txiki bat: Landucciren hiztegiko euskal zatiaren azterketak izugarritzko garrantzia izan du euskararen historian eta dialektologia diakronikoan, besteak beste; hain hil edo biziko kontua izango ez balitzateke ere, Landucciren gaztelaniaren eredu izan zen Nebrixaren hiztegiaren transmisioaz kezkatutako ikertzaileak, beharbada euskal zatiari jaramonik egin gabe, erdal sarrerak bakarrik aztertuko lituzke, hartu, kendu, aldatu edo erantsi zuena neurtzearen.

Bigarren aurreiritzia, lehenarekin lotua, hiztegi elebidun batean (ahantz dezagun latina oraingoz) euskal zatia berez eta berari bakarrik begiratuta azter daitekeelakoa da. Hauxe da, izan ere, Ibarren ideiek *HH*-aren ikerketari jarri zioten muga (ustez) gaindiezina, “pie forzado”-aren argudioa, alegia: Larramendik gaztelania-euskara hiztegi bat egitea erabaki zuenez gero, zekizkien euskal hitzak zintzoki bildu beharrean, “erdal itzak etorri-ala euskerara-edo biurtu” behar izan zituen (Mitxelena 1961: 364) eta, horregatik, jatorrak ala asmatuak diren ez dakigu. Kale itsu honetatik ateratzeko bidea nabarmena da, soilik eta baldin soilik aurreiritzia gainditzen badugu, hots, “pie forzado” hori zein den eta nolako eragina izan zuen aztertuz.

Bi ideia hauen gainean, beraz, *HH*-aren izaera, eredu eta antolakuntzaz egin ditzakegun gutxienezko galderak hauexek dira:

1) Eredua zertarako eta nola erabili zuen? Oinarritzat Espainiako Akademiaren hiztegia hartu eta aldamenean euskal hitzak eta latinezkoak ipinita egina omen da (Villasante 1979: 134), *HH*-aren ereduaz aurkitu ahal izan dudana pasarterik luzeenak dioenez. Halaxe begiratuta, *Diccionario de Autoridades* (hemendik aurrera *DAut*) hura zein beste bat erabili, orobat, garrantzia daukan kontu bakarra alderatu zituen euskal hitz horiek bakarrik baitira, “pie forzado” delakoa hura erabiliaz laburrago batekin baino neketsuago bilakatu zitzaioela ez bada, noski. Haatik, nik nahita “eredu” hitza erabili dut, ez baitago gatelaniazko nomenklatura —hitz zerrenda hutsa— erabili zuela sinisteko inolako arrazoirik eta bai, aitzitik, goitik behera irakurri eta haren gainean hausnarketa egin zuela frogatzeko Larramendiren aipamen esplizitu bat (1745: lii). Azken finean, espero izatekoa ere bada, *DAut* hiztegi landu eta aberatsa —orduan Europan aurki zitekeen aurreratuenetakoa— baita: hitzak ia erabat alfabetikoki ordenatuta daude, adieraka antolatuta eta definizio zehatzez, literaturatiko adibideez, esapide eta atsotitez hornituta. Biak edozein orrialdetan alderatzea aski da, berdintasun zenbaitekin batera ezberdintasun nabarmenak ere badirela ohartzeko. Edukian eta forman eredutik aldentzea zein hari atxikitzea, biak gertakari ezin esanguratsuagoak dira, ez bakarrik *HH* oro har hobeki ezagutzeko, ez bakarrik gure ikergai diren euskal hitz horiek nola aurkezten dituen jakiteko, baizik eta are batzuetan euskal hitzak eurak zein diren, nola eta zergatik somatzen hasteko bitarteko ziur gisa. *HH* eta bere ereduaren arteko erkaketaz, hortaz, luze arituko gara, aurkezpen, antolakuntza eta edukian batetik bestera dagoen isuria, baita aldeak ere noski, mugatzeko asmoz.

2) Norentzat egina da? zein ikuspuntutatik? Larramendik hiztegiko hiru hizkuntzak —gatzelania, euskara eta latina— zein zertarako erabili zuen hiztegi barruko argudioez jakiten saiatu behar genuke. Hiztegia hobeto ezagutarazteaz gain, bistan da azterketa hau Larramendi euskaldunentzat batez ere ari zelako hipotesia bermatu zein ahultzeko frogarri bikaina izan daitekeela.

3) Larramendik hiztegia nola bildu eta nola idatzi zuen? Galdera honi erantzutea, *HH*-ko misteriorik handienetako bat argitzeko adinakoa da: alegia, zer izan zen zer baino lehenago, *DAut*-en nomenklatura kopiatu, hitzak bildu ala hitzak asmatzea? Galdera ez da alferrikakoa, erantzunak erraz baitezake iturrien identifikazioa eta haietaz egin zuen erabilera argitu. Honezaz gainera, noiz eta nola ondu zuen —hasi eta buka ala tarteka idatzi zuen— ere ez dakigu. Honi buruz bil ditzakegun berri guztiak, beraz, ongi etorriak izango dira.

4) Ba ote da erlazorik gatzelaniazko hitzen eta euskal ordainen artean? Eta latinezko ordainen eta euskal ordainen artean? Jadantik iradoki dut hiztegi gintza tradizio baten hasieran kanpoko ereduak listoia ezarri ohi duela, eta hortik abiatuta hartzen dutela hiztegi gileek hartu beharreko erabakiak. Gatzelania eta euskararen artean behinik behin erlazioren bat egongo dela egin dezakegu, maileguetan besterik ez bada, baina baita ziurrenik hitz berrietan ere. Latina, berriz, apaingarri modura baino ez dagoela dirudien arren, ez dut uste behingoan alde batera utz dezakegunik. Edonola ere, honi erantzuna emateko *HH*-ko gatzelania eta latina xeheki aztertu beharko dira.

5) Zein da hiztegiaren antolakuntza orokorra? Esangura berezirik ote du? Hiztegiak berez alfabetikoki antolatutako lanak direlakoan bizi gara gehienok. Egingo nuke “hiztegi” hitzaren edozein definizio informaletan agertuko litzatekeen ezaugarria dela. Honegatik, ez da batere harrigarria *HH* alfabetoaren arabera antolatutakoa dela esan gabe egotea: antolakuntza hau jakintzat eta betidanikotzat daukagunez gero, ohartu ere ez gara egiten, falta denean baino. Haatik, ikusiko dugun bezala, alfabetoaren araberako antolakuntza pixkanaka —eta bestelakoekin borrokan— eratu, eta XVIII. mendean oraindik gorabehera askorekin erabiltzen zen (Osselton 1989a). Gainera, aukera ez da ia inoiz itsua izaten, ereduak baldintzatua edota egin nahi den hiztegiaren araberakoa baizik eta, nolana ere, sekula ez da neutroa, hau da, ondoriorik gabekoa. Adibide argi bat ematearren, gure artean Lakarrak (1995a: 21 t. hur.) erakutsi du Pouvreauren hiztegian hitzak familiaka antolatuta egoteak hitzberrigintzarekin daukan lotura zuzena.

6) Hitzak bakarrik jasotzen ditu? Buruan, beharbada, dugun ‘gaztelaniazko hitza-euskal hitza-latin hitza’ egitura bakuna oso bakanki aurkitzen da hiztegian zehar, irekitze hutsaz ikus dezakegun bezala; beraz, ez da hiztegi itzultzaile hutsa, hau da, gaztelaniazko hitzaren ordaina(k) baino ematen ez d(it)uena. Sarreretan biltzen dituen informazio mota ezberdinak (definizioa, gramatikazkoa, etimologiazkoa, etab.) eta bestelako osagaiak (adibideak, esapideak, atsotitzak, etab.) euskal ordain soilak bezain garrantzizkoak izan daitezke guretzat.

7) Ba ote da esanguratsu edo anbiguo izan litekeen sarreraren antolakuntza edo aurkezpeneko xehetasunik? Normalizazio mailari ere begirada bat ematea komeni da, ea informazioa beti ordena berean edota marka berez lagunduta aurkezten duen ala alirizira agertzen den. Hau ezagutzea hiztegi hainbat kontu hobeto ulertzeko bidea izan liteke, zeren eta automatismo hutsez hiztegiak errepikatu ohi dituzten zenbait gauza, bakanki ikusita ulergaitzak baitira, areago alde honetatik oso gorabeheratsuak izaten diren hiztegi zaharretan.

Galderak iradokitzaile badira ere, funtsean atal hau oso teknikoa da, datuz betea eta, beraz, lehor xamarra. Azterketaren ondorioak bakarrik ematea nuen, baina hauei bezain interesgarria deritzat aztermoduak eurak aurkezteari, gure artean oraindik oso ezagunak ez direnez gero. Erantzunetan bakarrik interesatuta dagokeen irakurleak, kapituluka antolatu ditudan ondorioak hurrenez hurren irakur ditzake eta, bereziki, azkenera jo dezake (I, § 9): bertan daude bilduta ondoko azterketaren aldetik esangura gehien daukatenak, baita, bestalde, Larramendiren asmoez, jokabide lexikografikoaz eta lan egiteko formaz dakizkigun beste zenbait gauza ere.

Salbuespen bat egin dezake euskal gauzez bereziki kezkatzen den irakurleak 8. atalarekin, ezen bertan bilduta baitaude alderdi lexikografikotik *HH*-ko euskal osagaiak esan daitezkeenak oro: hitzek hartzen duten forma neutroa, ordainen sarrerako batzuetan besteko kopurua eta, oso bereziki, ordainen ezaugarri orokorrak, hots, bakunak ala perifrastikoak diren, familia bereko hitzen ordainen artean azpimarra daitezkeen erlaziorik ote dagoen, etab. Honekin batera, baina lexikografiaren eremu zehatzetik kanpora zertxobait irtenik, *HH*-aren azterketa

guztian zehar gertakari zenbaiten ulerpenean eragin zuzena daukaten hizkuntz alderdi batzuk aurkezten dira: zehazkiago, grafia eta hitz bukaerako hiatoen bilakaerak.

Bide batez, lexikografiaren aldetik —baita hari atxikiak ageri diren zenbait arlotan, hala nola tipografian— neurri handi batean finkatu gabe dagoen terminologiari ekarpen zenbait egiten zaizkio tesi honetan: aukeratutako adierazpideari berri edo oraindik zeharo finkatua iritzi diodan bakoitzean, ingelesezko edota frantsesezko kideaz lagundu dut.

3.2. Hiztegi Hirukoitza-ren Eranskina

HH-aren azterketan egindako bigarren urratsa, gorago adierazi bezala, tresnak *Erans*-ean zorroztea izan da. Lehen begiratuan tesiaren xedetik alderatzen garela eman badezake ere, egiatan iturriekiko Larramendiren ohiko jokabidea aurretiaz ezagutzen lagunduko digun bideziorra baino ez da eta, beraz, hiztegi erraldoian itsuka barneratu beharrean, alderdi zenbaitetan bederen jakinaren gainean aritzea ahalbidetuko diguna.

Testu txikia da, oso ondo aztertua eta ehuneko gora batean iturri ezaguneko hitzez osatua, zeinagatik burura dakizkigukeen ikerbide berriak saiatu eta haien indar frogatzaile edo azaltzailea neurtzeko aukera paregabea eskaintzen duen. Azterketa honek ez luke zentzurik oinarrizko hipotesi hau gabe: *Erans HH*-aren osagarri arrunt bat da eta, honegatik, bertan islatuko dira, *HH*-aren beste edozein zatitan bezalaxe, Larramendiren joera eta jokabideak.

Honelako azterketa baten ondorio zuzena testuko hitzak banan-banan hobeki ezagutzea bada ere, lanean zehar eta batez ere ondorioetan argudioak eta haien balioa izango dira interesgunea, hots, *Erans*-ak Larramendiri buruz hiztegiak modura irakasten diguna, honek eskain ditzakeen argibideak —baita txikiak ere— *HH*-aren azterketan ezinutzizkoak izan daitezkeela oso kontuan izanik, zeren eta hiztegian hitz kopurua, iturrigaiak eta, beraz, arazoek kopurua izugarri ugalduko baitira.

Honetarako, ez Larramendik hitzak *nondik* hartu zituen bakarrik, hori aski ongi ezagutzen dugu eta, baita *nola* hartu zituen ere ikertu behar dugu. Mitxelenaren (1970) lorpenak profitatuaz, beraz, baina Lakarrak (1991, 1993, 1994a eta 1996a) *Erans*-aren azterketari emanarazitako ikuspuntu aldaketaren arabera, hau da, biltzailearen jokaerari hitzen etorkiaren bilaketa hutsari baino garrantzi gehiago emanez, lehendabizi bildumatxo honetan diren gertakari zurrak berrikusi ditut; eskuarki jadanik ezagunak baina inoiz sistematizatu gabeko gaiak dira, hala nola iturritik hiztegitxora dauden grafi aldaketak edo hitzen forma neutroa zein esanahia erabakitzeak hiztegiak izan zituen lagungarri eta arazoak.

Zeregin honetan Mitxelenaren lana, lagungarri bada ere, ez da asebetegarri suertatzen: Larramendiren lekukotasuna lekukotasun hobe edo ziurrago batekin ezabatu nahi ez dugunez gero, jakin behar dugu ez bakarrik hitza, demagun, Axularrengandik datorrela, ezpada hitza hartu deneko pasarte zehatza ere; honegatik, Mitxelenak egindako egozpenak banan-banan berpasatu behar dira, orduan baino orain tresna hobeak ere baditugula kontuan harturik.

Honela bakarrik ezagutu ahalko ditugu hitzak hautatu, testuingurutik atera, forma neutroan ezarri eta gaztelaniaz itzultzeko hiztegegilea gidatu duten irizpideak.

Halaber, baliteke *Erans*-ak iturriei eurei buruzko datuak eskaintzea: jatorrizko testuan *Erans*-eko hitzek daukaten banaketa berreraikitzen badugu, osorik ala zatika erabili zuen jakin ahalko dugu, Lakarrak jadanik *Refranes y Sentencias* eta Harrietekin egin bezala (ik. 1996b: 77-115 eta 1993: 270-281, hurrenez hurren). Ikermodu honen garrantzia, itxura batean bazterrekoa badirudi ere, Lakarrak berak erakutsi digu: Harrieten hitzen banaketak berehalakoan Larramendik *HH*-an ere erabili zuela auresateko oinarria eman eta gero, halaxe dela erraz frogatu ahal izan du. Oraindik garrantzitsuagoak dira *Refranes y Sentencias*-en hitzen banaketatik atera daitezkeen ondorioak, zeren eta *HH*-aren mugak gainditu eta iturria bera hobeto ezagutzeko xehetasunak eskaini baitizkigute: Larramendik ziurrenik ezagutu ez zituen errefracuak iturritzat arbuia eta guk ezagutzen ez ditugunak iturriari gisara aurkezteaz gainera, Darmstadt-eko *unicum*-arekin berak erabili zuen aleak zituen ezberdintasunak, hots, peitu zituen zatiak ezartzeko eta berearekiko gure aleari falta zaizkionak auresateko modua ematen baitu.

Honezaz gainera, oraino ibili gabeko azterbide bat dugu: *Erans*-aren barruko ordena, hots, sarreren hurrenkera eta sarrera barruko osagai ezberdinen hurrenkera; baliteke bide honetatik iturrien sar-ordena berreraikitzeko oinarriren bat aurkitzea.

Hitz ziurretatik atera daitezkeen guztia zukutu eta gero, neurriren batean iturritasuna kolokan daukaten hitzetara itzul gaitzeko, erdietsitako irizpideek lehengo erabakiak bermatzeko edo erabaki berriak hartzeko aukera emango digutelako ustean. Eta, azkenik, jatorri erabat ezezaguneko hitzei aurre egin beharko, testu edo hizkuntz irizpideen arabera haiei buruz ahalik eta informazio gehiena bilduaz.

3.3. Hiztegi Hirukoitza-ren iturrien azterketarako Errorea! Laster-marka definitu gabe. oinarriak

Hona iristerako, Larramendiren hiztegiaren eredu, egitura eta edukiaren, alde batetik, eta bestetik bukaerako *Erans* ttikiaren iturrien azterketan aritu gara. Bi azterketa motek berezko balioa dute, baina hemen xede trinko batekin bilduta agertzen dira: Larramendiren hiztegiaren mekanismoak ezagutzea. Batzuk orokorrak dira, hots, garaitzuko zein betiereko hiztegiaren estrategiei dagozkienak, eta halakoak dira gehienbat lehen kapituluaz aztertutako gertakariak; honako honi begira, berebiziko garrantzia izango du ereduari edota hiztegiaren egiturari berari zor dizkion gauzak gainontzekoetatik bereizten ikasteak. Besteak, berriz, hein handi batean berezkoak dira, Larramendik hitzgaien aurrean hartutako erabakiei dagozkienak, eta bigarren hauek dira *Erans*-aren azterketak eskainiko dizkigunak: zer nolako grafi aldaketak egin ohi zituen, hitzak nola biluzten eta itzultzen zituen, non kokatzen zituen, etab.

Oinarri hauekin hobekixe ekin dakioke, zalantzarik ez, *HH*-aren iturrien azterketari, baina, dena dela, berehala ikusi ahalko dugu honek arazo eta galdera berriak sortzen dituela, bai aztergaiaren izaeraren, baita erabili beharko dugun material lagungarriaren aldetik.

Derradan aurretik, iturriez mintzo naizenean, oso adiera zabalean erabiltzen ari naizela hitza: *HH*-ko sarrerak osatzeko gaiak nondik atera zituen adierazi nahi dut; beraz, hainbat nagokie adiera hertsian “iturri” deritzenei —idatzi zein ahozkoiei— nola euskal lexikoa osatu edota hedatzeko erabil zitzakeen gainerako baliabideei. Azken finean, hiztegiaren osagaiak eta bai nondik jaso zituen baita elkarrekin nola lotzen diren aztertu nahi nuke.

Iturri bilatze lana, Mitxelenari zor zaizkion betiko salbuespen garaiak gorabehera, nahikoa ahaztuta izan dugu —eta hein handi batean oraindik ere badugu⁶⁰—, nahiz munduan zehar filologoen ariketarik usuenetakoa den: zeren, izan ere, edozein idazlanen —areago, ikusi bezala, hiztegi baten— azterketaren urratsik oinarrizkoenetakoa da, berezko duen eta inorenetik duenaren arteko bereizketa anekdotikoaz gainera, egilearen asmo eta joerak nondik ibili diren ezagutzen laguntzen digu eta. Mitxelenak zioenez,

Iturri-bilatze au, etxe-garbiketa bezala, ezta bear bada egunoroko eginbearra, bai, ordea, noizean bein —eta zenbat ere maizago obe— egitekoa, autsak eta pipiak jango ezpagaitu (Mitxelena 1961: 361).

Honetan zerikusi handia izan bide du euskalari-euskaltzaleak, gure mende honen ateetara arte behintzat, nor bere aldetik ibili direlako uste okerrak.⁶¹ Inon halako ikerketa bat peitu bada, eta ustearen okerra inon ageri bada, bere irakurketak eta oro har hiztegiko gaiak biltzeko erabilitako bideak hain agerian aitortzen dituen Larramendiren kasuan da⁶² eta, halaz ere, hari dagokionez, hautsak eta pipiak janda bizi gara oraindik ere.

Orokorki, ikergaiak hiru direla esan dezakegu, Gipuzkoari egin zion eskaintzan Larramendik nola edo hala aipatzen dituen hirurak —liburuak, herriaren ahoa eta sormena— aintzat hartuaz:

La lectura y la observación de lo que se halla en los libros suele hacer todo el coste. Pero el de nuestra lengua, sobre el trabajo material, insípido, árido, inameno que de suyo requieren obras deste género, dió mucho ejercicio a la inventiva y al discurso. Y la fatiga de una y otra especie de trabajo creció a tal punto, que ningún otro motivo humano me la pudiera suavizar, sino el saber que esta obra era deseada de V.S., y que en llevarla adelante se le hacía especial obsequio. Los libros de una lengua, siendo muchos y de varias materias, son de un gran socorro en semejantes obras. (...) Mas este socorro me faltó casi enteramente, por ser mui poco lo que se halla escrito en nuestra lengua (...). Por esso, a falta de libros me fue forzoso consultar el uso verbal de nuestros patricios; oír a cultos y no cultos; notar cómo se habla en los pueblos y en las caserías; peregrinar a varios parages,

⁶⁰ Salbuespen klasikoena Axularren Granadarekiko zorrari buruz Urquijok (1912) egin zuen lana da. Arestian, antzerako bidetik aurrerago joaz, Salaberri Muñoak (1999) “euskal eremuko iturriak” ere aztertu izan ditu, jadanik ezagutzen genuen Materrenerari Leizarragarena erantsiaz, eta Materrek berak ere Leizarraga ezagutu zuela gaineratuaz. Ez dakit Salaberri —“Axularren obraren taxuketa bideratu zuten faktoreen” ikerketan buru-belarri dabilela, denok eskertzeko moduan— literatur euskararen historiarako bere aurkikuntzek daukaten garrantzi erabatekoaz ohartu den. Ik. orain Urgell 1999a.

⁶¹ Ik. Urgell 1992: 225-227 batik bat.

⁶² Gainerako hiztegi zaharrak aztertu dituztenek ez dute beti halako laguntza ederrik izan; cf. Osseltonek (1973: 89) dioena, bere iturriak lainoki aitortzen dituen Buys-i buruz (1766): “So frank an acknowledgement of sources is unusual at this time...”.

y más con el empeño de comprender en mi diccionario todos los dialectos del Bascuence, hacer apuntamientos, observar, combinar, separar el uso del abuso, adivinar la ortografía, investigar etimologías y raíces; y en fin juntar y organizar un cuerpo de lengua que dividido en menudos trozos estaba derramado por varios lugares y países (1745, Gipuzkoari eskaintza [2]).

Tradizionalki Larramendiren hiztegiak mintzatu izan denean, bi atali bakarrik —asmatutako hitzei eta etimologiei— eskaini izan zaie nolabaiteko arreta, ezaugarri nabarmenok gainerako iturrien ekarria hutsean utziko bailuten, sarritan are bestelakorik egongo ez bailitzan ere. Esan gabe doa, ikergaiaren gehiegizko sinplifikazio bat besterik ez dela, Larramendiren “estiloa” bere bitxikeriengatik definitu nahi izatea, alegia. Ez dezagun ahaztu, diletanteek pitxien ehizarako izan ohi duten zaletasunaz gainera, lanik serioenen azken xedea ez dela berez Larramendi definitzea izan, Larramendi ez dena baizik. Eta Larramendi “ez da” bestetan aurki daitekeena (Axularren luman zein herritarren ahoan): honetan aritzen da Mitxelena, esan bezala, *Erans*-aren azterketan, eta honetan bertan Villasante Añibaroren hiztegiaren aurkezpenean, esaterako. Ikuspuntu honetatik, *HH*-ko iturrien azterketa batek bihia eta lastoa bereizten saiatu beharko luke, ondoko literatura eta hiztegietan —eta azken finean Azkueren hiztegiaren— itzuritako “larramendikeriak” salatzen jakin dezagun edo, orain artean baino begi arraiagoz begiratuta, halakoak ez direnez balia ahal gaitezen, nahi izatekotan. Esan gabe doa ez dela hau nire oraingo interesa, halere euskal hitz zenbaiten historiarako datu jakingarriak bildu arren: Larramendi dena da, bildu duen eta berri duen neurri guztian. Haren lana eta eragina berrikuntzara mugatzea, bildu eta plazara atera zituen ehunka hitzen kaltetan, gure literaturaren eta hiztegi gintzaren historia zeharo herren berreraikitzea da.

Alabaina, halako beharra —eta halako beldurra— sentitu dutenetatik inortxo ere ez da saiatu “larramendikeria” zertan datzan definitzen, “definitzeaz” datuak arakatzea ulertzen baldin badugu behintzat. Estigmak *HH* apaletan utzi du urteetan: hartaz mintzatzea zilegi ez eze onuragarri (zentzagarri edota zentzarazgarri) bazen ere, irekitzeak berak gaixotasuna kutsa lezakeela zirudien. Gauzak zertxobait aldatu direlako seinale, hortxe dugu Azkaratek (1992) arestian alderdi zenbaiti buruz —aurrizki eta atzizkiez batik bat— egin duen hurbilketa lana, baita *OEH*-aren erabilera ez-sistematikoa ere.⁶³

Egia da intuitiboki badirudiela Larramendiren hitzak sarri begikolpean bereiz daitezkeela, nolabait “etxeko markaren” bat badutela, baina halako intuiziozko bereizketek *grosso modo* aritzeko bakarrik balio dute, eta nahi baino gehiagotan engainagarriak izan daitezke, gertakari garrantzitsu baina ez hain nabariak estaliaz.

⁶³ Alderri dabil gehienetan *HH* dela eta Mitxelenaren hiztegia: liburukiz liburuki dauden irizpide aldaketa ezagunez gain (cf. *OEH*-aren II eta V. liburukien atarian dauden iruzkinak), lan honetako eranskinetako iruzkinetan antzeman ahal da zenbat hitzetan honen lekukotasuna —sarritan lehena— ahazten duen (*EH*-aren datazioetan ere antzeratsu, noski) eta zenbatetan haren hitzak (bestelako lekukotasunik izatea irizpide dela, baina irizpide aldakor) agertu ere ez diren egiten, direnak direla. Egia da hautatu dudan corpusa —euskarazko A letra, berehala azalduko dudanez— denik txarrena dela *OEH* epaitzeko, lehen liburukia, hain zuzen, nahiz besteek ez dituzten Mitxelenaren ohar ezinutzizkoez jantzia egon, gutxien zaindu dena baita (cf. De Rijk 1988). Dena dela, Larramendiri buruzko gorabeherak obra osoko kontu direla esateko paradan nago.

Ikerketan barrena abiatzeko, ostera, guztiz alderantzizko ikuspuntuari atxiki natzaio, gainerako euskal hiztegiekin —gainerako hiztegiekin oro har— erabili ohi den neurri beraren arabera, hain zuzen: *HH*-an dagoen guztia, besterik frogatzeko gauza ez garen bitartean, etxean ikasia, entzuna edota irakurria da. Gure erronka, beraz, Larramendik aldatu, eratu, sortu edo asmatutakoa zer den, eta nola, frogatzea izan da: inolako zalantzarik gabe, frogatzea beharra gure da, ez Larramendiren. Asmo honekin, bereiz miatu ditut hiru ikergaiak —hitzberrigintza, iturri idatziak eta ahozko gaiak—, bakoitzean ikuspuntu eta ikerbide ezberdinak erabiliaz. Dena dela, atalok ez dira elkarren etsai, jakina: hitz elkartu, eratorri eta maileguak berriak zein herrikoiak zein liburuetakoa izan daitezke, irakurri edo entzundako hitzetatik Larramendik eratorri berriak egin zitzakeen, etab., etab. Horregatik, multzo bat mugatzeko erabil daitezkeen irizpideak, mugakide diren heinean beste multzoak are ziurtasun handiagoz bereizteko lagungarri handiak dira.

Halaxe begiratuta, badirudi kontua erraza —edo errazagoa bederen— dela, *Erans*-ek galdera berari abantzu erantzuteko eredia erakutsi eta gero, hemengo zeregina *HH*-ko hitz bat hiru talde horietatik zeinetan koka daitekeen erabakitzeke argudioak bilatzea izango bailitzateke; halaz ere, orain oso urruti gaude hark eskaini digun ziurtasunetik.

Honekin lotuta dago oinarri-oinarrizkoa den arazo bat, hots, ikerketa-ereduaren eta ikergai berriaren izaeren funtsezko ezberdintasuna. Teorikoki oso garrantzizkoa izan da, ikusi dugunez, *Erans* eta *HH*-aren arteko lotura ez halabeharrezkoa —hots, liburu berean bata bestearen ondoren agertzeak dakarrena—, baizik eta funtsezkoa —*Erans* *HH*-aren eranskina da— dela abiapuntutzat ezartzea. Hala eta guztiz ere, behin honetara ezker, eranskin baten eta hiztegi orokor baten artean dauden ezberdintasun nabariak aintzat hartu behar dira. *Erans* muga eta eredurik gabeko hitz-talde irekia da. Mitxelenak behinola egin definizioa, nahiz ironiak adierazten duen ikuspuntua geroago aldatuko zuen, baliagarria izan daiteke oraindik ere:

Azkeneko zortzi orrialde orietara eldu zenean, ordea, *Suplemento* izendatu zuen eraskin edo osagarri, etzeukan erderaren kezkarik, itzuliak baitzituen ordurako *metopa*, *oxímaco*, *sincategoremático* eta orien antzeko beste ezin konta ala aldrebeskeria. Etzeukan, bada, beste egitekorik, itz berrien asmatzeak uzten zizkion txolarte laburretan irakurri —eta bear bada entzun— zituen euskal itzen zerrenda iztegiari erastea baizik, betegarri gisa (Mitxelena 1961: 364).

Hau da, hiztegiaren osagarri bat besterik ez zenez gero, biltzailea zeharo aske zebilen nahi adina hitz eta nahi bezalakoak batzeko, ez letren tamainak, ez gramatika kategoria ezberdinak ordezkatu beharrak, ez eta era bateko edo besteko lexikoa islatzeko premiak hertsituztelarik: ia soilik entzundakoa edo irakurritakoa islatzen du. Ondorioz, aski da hitz bat Axularrengan izatea, bertatik hartua dela ahal den eta ziurtasunik handienaz baieztatzeko eta, alderantziz, iturri ezagunetan ez agertzea ziurrenik herriaren ahotik hartua dela uste izateko. *HH*-ak, hiztegi orokorra izaki, ezinbestean eduki orekatu bat eskaini behar du, zehazkiago ereduko hiztegiak aurretiaz ezartzen dion gaztelaniazko nomenklaturaren ordain guztiak: erabakita demaio hiztegiileari zer bilatu behar duen. Beraz, nolabait adierazteko, iturrietan erdietsitako hitzak aurretiaz antolatutako kutxatiletan sartzan saiatu behar zuen, baita hutsuneak betetzeko aterabideak aurkitu. Lan sistema ezinbestean ezberdina izan behar, eta ondorioak ere hala.

HH-aren azterketak, *Erans*-enaren aldean, bi arazo praktiko eta teoriko bat bederen aurkezten ditu. Lehenik, *Erans*-ean sei bat iturri ezberdinekin jokutzen aritu gara orotara, *HH*-an erabilitako euskal liburuak bakarrik hamabi baino gehiago diren bitartean, arazoak —esan gabe doa— hainbatetan bederen (baina progresioa geometrikoa delakoan nago) biderkatuaz. Baliteke, noski, Larramendik aipatu gabe utzi zuen iturrikeria ere egotea, *Erans*-ean Landuccirekin gertatu bezala, baina lehenengo hurbilketa honetan ezagunean geratzea bidezkoa dela deritzat.

Bigarrenik, 8 orrialdeko eranskin txiki baten ordean, 828 orrialdeko hiztegi handi bat miatu behar dugu: alderdi bakan batzuk bakarrik aztertu ezean (eta are agian nahi gabe emaitzak desorekatzeko arriskuaz), nekez pentsa zitekeen hiztegi osoa hartzea. Nahiago izan dut corpusaren hedadura murriztu, ezen ez azterketak erantzun behar lituzkeen galderen kopurua. Horregatik, euskarazko A letraren hitz guztiak, 4.867 sarrera ezberdin orotara, hartzen dituen corpusera mugatzea erabaki dut;⁶⁴ Azkueren hiztegiaren batz bestekoen arabera, hiztegi osoko %11,6, beraz. Bestalde, alderantziz egin nezakeen, hots, gaztelaniazko atal oso baten gainean lan egin, baina egitura aztertzerakoan hiztegi zehar (eta guztiz A letraren barnean) antzeman dudana bilakaera dela eta, hiztegi osoko lagina eman diezaigukeen metodoa hobetsi dut. Hemengo azterketa, hortaz, gehienbat corpus horretako datuen gainean eraikita dago, atal batzuetan (erdal aurrizkietan batez ere) bestelakoak ere erabili beharrezkoak izango diren arren.

Arazo teorikoa bestetik datorkigu: alegia, goiko aldarrikapena gorabehera, *HH*-an hitzberrigintzak leku handia duela jakitetik. Arazo izateak ez du esan nahi, ordea, ezinbestean txarra denik: ziurrenik hitz eratorriak edota maileguak, arlorik nabarmenenak aipatzearen, literatur tradizioetik hartuak diren ala berez sortuak —oinarriak sistematikoki eratorriaz, zuzenean mailegatuaz— erabaki behar diren kariak gehiago ikas daitezke Larramendiren jokabideaz, hitz bat Axularrengan kausituaz baino.

Funtsean ezer baino lehenago corpuseko hitz guztien bana-banako gain-gaineko azterketa egin dut, *OEH*-ak eskaintzen dituen daturik esanguratsuenak (*HH* aurreko agerraldiak, ahozko lekukotasunak) bilduaz, hala nola hitzik ezezagunei buruz jaso ahal izan dudana informazio egoki guztia. Honetarako, azken urteotan nahikoa ugaltzen ari diren herriz herriko hizkeren buruzko ahalik eta bilduma gehienak eskuratzen saiatu naiz, *OEH*-ak ustiatu gabe dituen zenbait zahar ahaztu gabe. Datu bilaketa honetan eragozpen handia izan da bildumen arteko irizpideen ezberdintasuna eta, batez ere, Azkueren (zein Lhanderen) euskalki markekiko izan behar dugun mesfidantza. Halaber, testuei dagokienez, zenbaitetarako lagungarri bikainak eskura badaude ere (lexikoiak, argitalpen kritikoak), gehienetarako aurrean

⁶⁴ Corpora hiztegiko sarreretan agertzen diren euskal hitz oroz osatuta dago, hau da, bai euskal ordain zehatzez, haien agerraldi guztiak hartuta, bai han-hemen sakabanatuta dauden hitzen agerraldi oroz, dagozkien sarreretan “ahaztutako” hitz edo adierak barne. Etimologietan agertzen diren hitzak, bestalde, jasota dauden arren, bereizten saiatu naiz, hauen izaeraz ezer ziurragorik jakin artean halaxe komeni zelako ustean.

nekosoak egin behar izan ditut, Larramendik erabilitako argitalpen zehatza —zehatz daitekeen heinean— zein den erabakitzeke, hura aurkitzeke eta goitik behera miatzeko.

Hala bildutako datuen arabera, hitzaren euskalki banaketaz, izaeraz (mailegua, etimoa, toponimoa...) edo eraketaz (eratorria, elkartua...) aldez aurretiko hipotesi bat egin dut eta, eraketaz den bezainbatean, hitza zatikatzen, haren osagaiak aurkitzen eta gertatutako hots-aldaketak markatzen ere saiatu naiz.

Xehetasun hauek aintzat harturik, corpus txiki eta eskuragarriagoak eratu ditut, bakoitzean delako atal batean ezinbestean ikertzekeak ziruditen hitzak bilduaz; corpus txiki hauek eranskin modura aurkeztu ditut, atal bakoitzean adierazten denez, baldin eta bildutako datuak azalpenerako interesgarriak izanik, tesiaren gorputzean barneratzea neurritz gainekoa bazen.

Corpus txiki hauek zeharo aldakorrak suertatu dira ikerketan zehar. Analisiak berak, ikusiko dugunez, gai berriak agertarazi ditu, eta hauek berekin eraman dituzte oinarria ematen zieten hainbat hitz, jakina. Bestalde, xehetasun berri baten, joera edo arau berri baten aurkikuntzak ere hiru gai nagusietan hitz askoren sarrera edo irteera eragin du: ustekabean bildutako ahozko lekukotasun batek *in extremis* ordura arte zalantzapean utzitako hitz bat “entzundako hitzen” eranskinean sartu beharra zela erabaki du batzuetan, adibidez, eta beste horrenbeste gertatu da testuetan itzuritako zein hasieran ezin zatikatutako hitzekin. Honelako gauzak sarri baino sarriago gertatu zaizkit, eta ziur naiz etorkizunean ere halaxe izango dela, ahozko bilduma hobek (Atlasean pentsatzen ari naiz, jakina), liburu zaharren argitalpen ezberdinen arteko kolazioak edota, analizatzeko egin ditudan saio guztiak gorabehera, oraindik azalgabe geratu zaizkidan hitz zenbaitetarako azalpen onak izan bitartean.

Halako hitz batzuen arteko dantzek, ostera, ez dute garrantzi handirik, euren gainean eragina daukaten eta definitzen dituzten arlo orokorrak eta fenomenoak ongi mugatzea lortu baldin badut, behinik behin.

3.3.1. Larramendiren sorbideen bila

Lehenik eta behin, euskal lexikoa aberasteko Larramendik erabili zituen bideez arduratu naiz. Aurretiaz esan daiteke, okertzeke arriskurik gabe, lexikoa goitik behera berritu zuela, garaitsukoaren artean ezagutzen ditugunetatik Urterekin bakarrik aldera daitekeen modu eta neurrian:⁶⁵ euskararen baliabideei anartean baino askoz maiztasun eta indar handiagoz beren betebeharra jokarazi zien eta, ez gutxitan, ohikotik atera eta lanbide berrietan ipini zituen. Ezin zitekeen besterik espero. Leizarraga batek, Axular batek, beren lanen handi-txikiaren arabera, ez zuten gutxiago egin (Lakarra 1985a: 22), baina hiztegi erraldoi batek ikaragarritzko ahalegina

⁶⁵ Halaz ere, honek ez du esan nahi bere aurrekoak ausart izan ez zirenik. Urtek ale ederrak eskaintzen ditu hiztegian (cf. Lakarra 1994b), bertan ausartago izan baitzen idatzietan baino; alderantziz, Pouvreaux, hiztegian aski neurritsu izan arren, idatzietan sekulakoak erabili zituen batzuetan: cf. *ezin-neurt-daitekeentasun* “inmensidad” (POB 39), adibidez.

eskatzen zuen, hain eremu mugatueta erabilitako, ia idatzi gabeko hizkuntza bat behingoan noranahiko bilakatu nahi izatea. Larramendiren berezitasuna ez datza berriketan, beraz, hura egiteko moduan baizik, eta hau azaleraztea dugu lan honen ardatza.

Gure artean —arrazoi sobera ezagunez— “neologismo” edo haren ordezt erabiltzen dugun “hitz berri” hitzek esanahi berezi eta oso hertsia bat izan ohi dute: euskal osagaiez berriki (eta mailegu baten ordezt, jakina) asmatutako hitza. Kutsu txarra ere hartzera iritsi da garai jakin batean. Haatik, munduan zehar “neologismo” hitzak esanahi ñabarragoa dauka. Ikus dezagun adibide gisa *Nouveau Petit Robert* hiztegiak (Paris, 1995) eskaintzen duen definizio trinko bezain aberatsa:

Emploi d'un mot nouveau (soit créé, soit obtenu par dérivation, composition, troncation, siglaison, emprunt, etc.: *neologisme de forme*) ou emploi d'un mot, d'une expression préexistants dans un sens nouveau (*néologisme de sens*).

Euskaraz ere “neologismo” hitza bere nazioarteko esanahi osoan gordetzea komeni dela deritzat —eta halaxe egingo dut lan honetan, adiera hertsian “hitz berri” erabiltzen dudana bitartean—, nabarmenak diren arrazoiez gainera, “neologismo” vs “mailegua” oposaketan islatzen diren aurreiritziak, direnak direla, filologo gisa gainditzeko bidea ez eze, arrazoiak ere eskaintzen dizkigulako. Are nabarmenago gertatzen da honen beharra gure gizarte zeharo elebidun honetatik atzerantz egiten dugunean, edozein gaztelaniazko (edo frantseseko) hitz euskararen barruan sortutako hainbat eta hainbat hitz (zahar zein berri) baino ulergarriagozat izatea askoz zailagoa zenean. Larramendiren lekukotasuna erabil dezakegu, adibidez, garai haietan hitz berria baino mailegua “berriago” izan zitekeela ulertzeko:

...aun para el vulgo son más perceptibles estas voces bascongadas, *Jaincoquindea, Izarquindea, Ceruquindea, eraquindea*, que no las correspondientes *Theología, Astrología, Uranología, Chronología*, porque en éstas nada les suena a bascuence, y en aquellas sí (1745: xlix).

Lekukotasuna ezin egokiagoa da, jakina, hitzberrigintzaren aitatzat hartu izan den eta, dena dela, nabarmenki *DAut*-ek ezartzen zizkion erdal sarrera guztiak itzultzeko *HH*-an ahalegin neologiko handia egin behar izan zuen Larramendirena delako, hain zuzen. Nolanahi ere den, eta gure gaian zuzenean sartuaz, Larramendik gaztelaniazko kultura itzuli ahal izatearren (1745: xliii) euskarak zituen hutsune terminologikoak betetzeko hitz berriak bakarrik erabili zituela frogatzeke dagoen ustea da, besterik ez.

Tesi-lan honetan Larramendiren lexiko berrikuntzaren azterketa goragotik hasten da, atari moduko kapitulu batean (III, § 1) berak gaiaz zeuzkan iritziak eta hiztegirako hartu zituen erabakiak laburbildu eta iruzkinduaz, alegia. Berez, ataltxo hau egiatan azterketaren fruitua da, corpusa aztertuz eta honen emaitzak *HH*-ko hitzaurrearen berrirakurketarekin erkatuz erdietsitako ondorioen bilduma. Halaz ere, aurretiaz ematea komeni zen, zeren eta ideia guztiak zein bere lekuan kokatzen hasi ziren unetik aurrera, ondorio hauek gidatu baitute, gidatu ere, datuei eman zaien interpretazioa. Hortaz, *HH*-an aurkitzen ditugun euskal hitzen nondik norakoa ulertzeko, euskararen izaerari buruz eta euskal hitzaren definizioaz Larramendik zituen iritziak ezagutzea ezinbestekoa dela aldeztuko dut.

Gainerantzean, gaurko morfologiak eta betiko filologiak eskaintzen dituen ikerbideak egokitu dizkiet *HH*-ko hitzei. Esanak esan ondoren, bistan da saiatu dudana analisi motarekin ez dudala bilatzen hitz berri bakoitza atzamarrarekin seinalatzea, nahiz eta, ezpairik gabe, zentzu honetan haietako askotarako argudioak aurkitzea espero izatekoa den. Askoz gehiago interesatzen zait, gorago adierazitakoaren ildotik, bere garaiko hizkuntzari buruz zer-nolako datuak eskaintzen dituen, hizkuntzaren zein mekanismoz jabetu zen edo jabetu uste zuen, eta nola baliarazi zituen. Ezinbestekotzat jotzen ditugun eratorpen-elkarketatik hasi naiz, baina azterketan zehar bestelako jokabideak ere azaldu izan dira, orotara hitzberrigintzaren barruan zazpi atal ezberdin eratu ahal izateraino:

1) *Eratorepena*: Azkaratek (1992) ireki bidean aurrera joaz, *HH*-ak alde honetatik zer eskaintzen duen aztertu dut, lehenik atzizki emankor eta ez emankorren artean bereiziaz, eta gero oinarriaren kategorian, hitz eratorriaren adieran, atzizkiaren forman, hots-aldaketetan edo atzizki-kateetan Larramendiren eskua sala lezaketen bestelako ezaugarriak azaltzen ote diren miatuaz.

2) *Elkarketa*: *HH*-ko hitzik bitxienak, edozein filologok begikolpean Larramendik egindakotzat joko lituzkeenak, elkartuak dira denak. Mitxelena (1984: 17) idatzi zuenez, eta ezin zalantzan jarri honelakoez ari zela, “Mordoiloak omen dira hitzok, itxuragabeki eratuak eta, hori dela medio, ilunak eta zatigaitzak”. Halaz ere honelakoak ez dira, ez eta hurrik eman ere, hiztegiaren agertzen diren elkartu bakarrak, elkartu arruntak ere ugari aurkitzen dira eta. Bien multzoen arteko muga aurkituaz Larramendik egin eta entzundako elkartuen artekoa lortuko dugulako —edo bederen hortik oso hurbil ibiliko garelako— hipotesia eginez, soma daitezkeen anomaliak harrapatzeko eta Larramendiren sistemaren barruan zein paper jokutzen duten —hots, ia benetako anomaliak diren ala bertan nolabait arau kategoria daukaten— definitzeko ahalegina egin dut, bide batez euren zatigaiztasunaren arrazoiak bilatuaz.

3) *Erdal aurrizkien euskal ordainak*: jadanik aski ezaguna da *des-* aurrizkiak eta *-kide* atzizkiak Larramendik egin zuen erabilera, berak hitzaurrean azaldua (1745: I), baina gainerakoan nola moldatu zen aztertzeo daukagu.

4) Eratorpenaren eta elkarketaren artean zangalatrauan dauden edo biak berdintsu eragiten dituzten zenbait gertakarik beren burua agertu dute corpusean:

a) *Esanahi hedadura*: lexikoa ugaltzeko bide nabarmena, baita Larramendirentzat ere (1745: xii). Mitxelena (1983b: 957) jadanik iradoki zuen honek *HH*-ko hitzberrigintzan zerikusia izan dezakeela.

b) *Kategori aldaketak*: euskaraz ia aztertu gabeko gaia izan arren, gutxienez izena eta izenondoaren arteko mugak *HH*-an lausoak izan daitezkeela badakigu (Azkarate 1992). Azterketa historikoa merezi du gai honek, aitzin-euskararen kategoria zenbaiten arteko mugak arinagoak bide zirenez gero (Mitxelena 1964a: 56).

c) *Analogiazko eraketak*: inolako arauri jarraiki gabe, jadanik badagoen lexema baten arabera eta horren arabera bakarrik eratutako hitzei dagokie (Bauer 1983: 96).

d) *Atzerantzko eratorpena*: eratorpenaren (baita inoiz bestelako morfologi prozesuen) arauak atzeraka ezarriz edo —zehatzago, agian— benetako edo ustezko atzizki (zein aurrizki) kenketaren bitartez erdiesten diren hitzen sorbideari deritza (Spencer 1991: 20, 16. oh.).

5) *Etimologiak*: Euskara gaztelaniaren ama hizkuntza dela frogatzeko eskaini zituen etimologiek lexiko berrikuntzan izan zuten eragina neurtu beharra dago, etimologidun hitzen eta haien ordainen artean aurki daitezkeen loturak aztertuz. Abiapuntu gisa, Mitxelenaren (1983, 1984) iradokizun bat dugu: *HH*-ko maileguen eta etimologiaren artean lotura zuzena egon daitekeela, hau da, Larramendik etimologiak maileguaren norabidea aldatzeko baliatu bide zituela.

6) *Maileguak*: azterkizun dugu ea benetan —orainago esan bezala— lehenik erabiliak edota etimologiadunak bakarrik sartu zituen, hots, erabiltzen ari garen terminologiaren barruan, ea maileguen aldetik lexiko berrikuntzarik izan ote zen, ala hizkuntzak jadanik bere zeukana soilik onartzera mugatu zen.

7) *Toponimia eta antroponimia*: ezaguna ez bazen ere, azterketak berak erakutsi du hainbat hitzen azalpena hemen kausitzen dela, toponimo-antroponimoak *HH*-aren osagaietako bat direla, alegia. Neologia dugu, ezpairik gabe, oso zentzu argi batean: toponimian-eta fosilduta zeuden atzizkiak ez eze, hitz osoak ere berpiztu nahi izan zituen Larramendik, beren osaketa eta esanahia aztertuz erabilera berriak aurkiturik. Arreta berezia jarri diet atzizkiei, *HH*-ko aztarnen bitartez euren egiazko bizitasun edo bizitasun ezaz ezinutzizko datuak erdiets baitaitezke.

3.3.2. Iturri idatziak

Denak “idatzi” izateagatik, testukritikan ohiko diren baliabideak erabili behar dira, jakina, *Erans*-ean bezalatsu. Alabaina, berez oso testu mota ezberdinak eta, aurreikus daitezkeenaren arabera, horregatik Larramendik ere zeharo ezberdin tratatu bide zituen iturri motak izaki, hiru multzo nagusitan banatu ditut: euskal liburuak, hiztegiak eta erdal liburuak.

3.3.2.1. Euskal liburuak

Larramendik berak eskaini zigun, behar bezala inoiz aztertu ez den *HH*-ko hitzaurreko pasarte batean (1745: xxxiv-xxxviii), bere hiztegiaren bilketan baliatu zituen euskal liburuen zerrenda. Iparraldeko literatura zahar eta garaikidetik ezer gutxi itzuri zitzaion izendegi hartan, Leizarragarengandik hasi eta 1733an Baiona utzi zuenean argitara berri-berriak ziren Laveuxville-ren dotrinetan buka.

Jasotzen diren liburuen ugari eta zehatzak erabilera bibliografikoa eragin du batez ere. XVIII-XIX. mendeetako euskaltzaleek zalantzarik gabe bertara jo zuten zer irakurri behar zen jakiteko (Urgell 1992a: 236-237) eta, bibliografiaren beharra euskararaino iritsi zenetik Larramendiren zerrenda *ad quem* zein *post quem* -eko puntu bilakatu zen (Zabalaren *Noticia de las obras...*, Humboldtten *Berichtigungen und Zusätze...*). Vinsonek (1891-1898) oraindik

hartakotzat estimatu zuen, hango berriak profitatzen ez eze, berak erdietsitakoekin Larramendirenak zehazten ere jakin baitzuen, zorra neurri batean kitatuaz. Badirudi bide honetatik bakarrik ezagutu zuela Mitxelena batek —Ibarrek xehetasun “txiki” hau osoki ahaztu zuen eta—, eta honek azal lezake (baina ez zuritu, jakina) zergatik zerrendaren inplikazio lexikografikoak alde batera utzita berehalakoan historikoetara igarotzen den hartaz egin zuen aipu bakarrean: “...para escribir el *Diccionario* tuvo Larramendi que recoger muchas noticias (...) de las obras impresas que buscó con afán, dándonos un primer esbozo del pasado de la literatura vasca” (1960: 98).⁶⁶

Atal honetan berebiziko garrantzia du *Erans*-arekin egindako saioak, iturri idatziak antzemateko eta haien artean bereizteko baliatutako argudioek hemen batez ere aurkitzen baitute euren aplikalekua. Alabaina, azterketari ekin aurretik, zerrendan izenez aipatzen diren lanak zein diren argitzen saiatu beharra dago, zehazkiago Larramendik erabilitako alerantz hurbil gaitzaketen xehetasun guztiak batzen.

Iturriak identifikatu eta gero, batez ere Iparraldekoa izango den literatur tradizioaren pisua neurtu behar da. Lehenengo hurbilketa izanik, aski dateke Iparra vs Hegoa oposaketarekin eta, bide batez, 1960ez gero azkenik Iparraldeko tradizioa geureganatu dugulako iritzi zabalduarekin bukatzeko lehen aztarnak eskaintzea: 1745 baino lehen Iparraldean, eta han bakarrik, jasota zeuden hitzen *HH*-ko kopuruak inpresio on bat emango bide digu baina, irakurleen jakituriak, ziur naiz, handik eta Hegoaldeko literaturak gerora ezagutuko zuen hazkunderan goxo-goxo guganaino iritsi diren eta “batutzat” ematen ditugun hitzak badirela erraz somaraziko die. Beste hainbeste gertatzen da, dena dela, prozedurekin ere, hots, atzizkiak eta oro har hitz berriak egiteko edota gaztelaniazko hitzak ordezkatzeko bertan aurkitu zituen ereduekin. Esan gabe doa honelakoak agerian jartzen arreta berezia jarri dudala.

Iturrion erabilera norainokoa izan daitekeen —eta, bide batez, aurreiritziek nolako itsukeria eragin dezakeen— antzeman ahal dadin, ez zait iruditu Leizarraga *HH* aurrean dugula irakurtzen hastea baino bide nabarmenagorik dagokeenik. Proba egiteko, Mateoren ebanjelioa hautatu dut, lehenengo zortzi atalak bakarrik arakaturik (28 orrialde eskas) eta hitzik nabarmenenak bakarrik hartuaz, emaitzak inor txundituta uzteko gauza direla nago. Hona hemen, ezkerrean Leizarragaren pasartea eta eskuinean *HH*-an dagokion sarrera doazelarik:

Evangelio Saindua S. Matheven araura / "Según San Matheo, según San Lucas, jondone Matheoren araura...".

Mt 1, 18: *Iesus Christen sortzea / "Concepción, sortzea, asidorea"*.

Mt 2, 1 *Çuhurrac Orientetic ethor citecen / "Magos, Sabios, Zuhurrac, jaquintiac"*.

Mt 2, 6 *Israel ene populua bazcaturen duen gobernadora / "Regir, gobernatu, erondu, erondetu, bazcatu, aguindu"*.

Mt 2, 7 *informa cedin hetaric diligentqui / "Diligentemente, equinairo, diligenqui, lasterquiró, viciró"*.

Mt 2, 10 *bozcario handi / "Alborozo, alborozoa, arazo gozoá, pozá, pozaldíá, bozcario andia, sendagallá"*.

Mt 2, 11 *ahozpez / "Boca abajo, auzpez, ahozpez"*.

⁶⁶ Tovar-en (1980: 90) ulerpena are mugatuagoa da: bere ustez, zerrenda Mayansen baieztapenari —alegia, euskal liburu bakarra Leizarragaren Testamentua dela— erantzuteko asmoz egina da.

Mt 2, 16 *Bethlehem eta haren aldiria gucietan* / "Comarca, aldiria".
 Mt 2, 18 *deithore eta nigar eta auhen handi* / "Clamor, deadarra, ojua, eiagora, ocenguia, auhena, deitore".
 Mt 3, 3 *aphain eçaque launaren bidea, çucen itzaque haren bidescâc* / "Atajo, bide chigorra, chidorra, bidesca".
 Mt 3, 4 *Ioannes hunec bada çuen bere abillamendua camellu biloz* / "Vestido, soñecoa, jazcaya, jaunzcaya, aldagarria, filda, abillamendua".
 Mt 3, 4 *haren viandâ cen othiz eta bassa eztiz* / "Langosta, insecto, larrapotea, otiya, othia".
 Mt 3, 10 *arbore fructu onic eguiten eztuen gucia piccatzen da eta sura egoizten* / "Cortar, epaqui, ebaqui, picatu, trencatu".
 Mt 4, 6 *eure oinaz harrian behaztopa ezadinçât* / "Tropezar, beaztopa, beaztopatu, aburicatu, estropezatu".
 Mt 4, 17 *Orduan-danic has cedin Iesus...* / "Desde entonces, orduandanic, ordutic, arrezquero, azquero, orduz gueroztic".
 Mt 5, 13 *eza guehiagoric deusgay camporat irazitico eta guiçonéz ohondicatu içateco baicen* / "Acozear, dar de cozes, osticatu, ohondicatu, osticoz jó, ohondicoz erasó".
 Mt 5, 26 *ezaiz ilkiren handic, renda diroano azquen pelata* / "Cornado, moneda, pelata, cornadua".
 Mt 5, 27 *Eztuc adulterioric iauquiren* / "Cometer algún delito, iauqui, iauquitu, gaizquia equin".
 Mt 5, 32 *norc-ere vçiren baitu bere emaztea, salbu paillardicârê causaz* / "Fornicación, emajauztea, andraqueta, paillardiza".
 Mt 6, 16 *desguisatzen dituzté bere beguitharteac* / "Desfigurar, eragaiztu, desguisatu, itsusquitu, desichuratu".
 Mt 7, 13 *bide çabala da perdicionetara irioiten duena* / "Llevar, eraman, eroan, irioitu, egartu".
 Mt 8, 2 *sorhayo* / "Leproso, leguenartia, leguenartsua, sorayoa".
 Mt 8, 3 *Eta bertan chahu cedin haren sorhayotassuna* / "Lepra, leguenarra, sorayotasuna".
 Mt 8, 12 *han içanen da nigar eta hortz garrascots* / "Cruxido de dientes, orz garrascots".
 Mt 8, 14 *haren ama-guinharreba ohean cetzala, eta helgaitzac çaducala* / "Calentura, elgaitzá, sucarrá, beroá".
 Mt 8, 20 *Aceriec çulhoac citié eta ceruco choriéc ohatzeac* / "Nido, cabia, abia, cafia, ohatzea".
 Mt 8, 21 *permitti içadac behin ioan nadin neure aitaren ohorztera* / "Sepultar, obiratu, obian sartu, ehortzi, ohortzi".
 Mt 8, 22 *Arreit niri* / "Sígueme, seguidme, síganme, arreit niri, jarrai niri".
 Mt 8, 26 *eta sossagu handia equin cedin* / "Sosiego, sosegua, pausa, cesua, sosagua".
 Mt 8, 32 *vrðalde hura gucia oldar cedin garaitic behera itsassora* / "(De) arriba abaxo, goitic berá, garaitic beherá".

Jakina, konparaketa honek muga argiak ditu, bildutako adostasun guztiak banan-banan beste inondik etor ez daitezkeelako bermerik gabe egin baitut. Dena dela, kopuruak berak jadanik adierazten digu halabeharrak paper laburra jokatu duela, eta *bazkatu* "regir, gobernar" bezalakoetan bat ere ez. Geroxeago, eta ahal diren berme guztiekin, hemen lortutako inpresioa egiazkoa dela frogatzen saiatuko naiz.

Hegoaldeko ekarria neurgaitzagoa da. Hasteko, gorai patzen duen Beriainen dotrina landa, hiru euskalkietan idatzitako *dotrina zenbait* irakurri zituela baino ez zuen zehaztu Larramendik (1745: xxxv), haietaz kontu gutxi eginik. Bada, ostera, erabili zituen batzuk bederen berreskuratzeko biderik, zehazkiago *Corografía*-n (298-299) ematen dituen izenak, bere liburutegiaz utzi zuen zerrenda (Tellechea-Idigoras 1966a) eta josulagunek Loiola utzi eta laster Landa eskribauak egin zuen inbentarioa (Altuna 1984). Dena dela, Iparraldeko iturriak ez bezala, Hegoaldekoak zein diren jakitea baino askoz zailagoa da iturri gisa erabili zituela frogatzea, bere arduragabetasunak iragartzen duenez lexikoaren aldetik eskas xamarrek baitira.

Gipuzkerari dagokionez, orduko egoera oso gaizki ezagutzeaz gain, buruan izan behar dugu Larramendik, alde edo moldez, ondo ezagutzen zuela. Litezkeen liburuak ere oso gutxi dira, eta haien tamaina, gaia eta gaiaren trataera iturritasuna nolabaiteko ziurtasunez ezartzeko ez egokiak. Antzera gertatzen zaigu oro har bizkaieraz eta nafarreraz ere, ezagut zitezkeen

dotrinak —berak esan bezalatsu, bide batez— mailegu sorta eder batez kanpo oinarritzko hiztegioko hitzak baino askoz gehiago ez baitzioten eskaini ahal.

Atal berezi bat eskaini diot, azkenik, *Refranes y Sentencias*-i, Harrieten hiztegia bezala hau ere *Erans*-ean eta *HH*-an, bietan erabili ote zuen aztertzeke asmoz, eranskinaren azterketan antzemandako zenbait batetortze aitzakia harturik.

3.3.2.2. Hiztegiak

Sail honetan hiru hiztegi —Sarako Etxeberri, Landucci eta Harriet— sartzen dira hasiera batean, baina ezin dira era batera aztertu zeinek bere arazoak aurkezten baititu iturritasunaren auzian.

Etxeberriren kasuan, esan gabe doa testua bera ez ezagutzea gaindiezineko arazoa dela. Alabaina, ezin dugu kontua zeharo itxi, lehenik Sbarbi-Urquijo (aurrerantzean SbUrq) hiztegiaren auziari eutsi gabe: dakigunez, Etxeberrirenaren birmoldaketa izan liteke (cf. batez ere Urquijo 1907a: 81-83, Mitxelena 1970: 29-31 eta Lakarra 1993: 76-88), berak bakarrik erabili zituen hitz zenbait jasotzen baititu; guri interesatzen zaigun heinean, gainera, haietako batzuk *HH*-an ere badaude (*alosis* ospetsua, kasu) eta, bestalde, Larramendirenak bide direnak ere agertzen dira.

Azterketan abiatzeko oinarritzko hipotesia, beraz, Etxeberriren hiztegia eta SbUrq-en artean erlazio zuzenen bat badela izango da. Triangeluaren hirugarren osagaian orain artean baino arreta gehiago jar dadin proposatuko dut hemen, zeren eta hipotesia egiazkoa izatera, SbUrq-ek azaldu beharko bailituzke *HH*-ko hainbat hitz, Larramendiren esanaren arabera (“...entresaqué muchas voces del dialecto labortano, para ponerlas después en las correspondientes del Castellano”, 1745: xxxvi). Halaber, SbUrq-en ezaugarriari (grafiari eta hiru erdaretan dauden gorabeheri batez ere) oraindik etekina ateratzeko modua dagoela erakusten saiatu naiz.

Landucciren hiztegia, itxuraz *Erans* osatu baino nahikoa lehenago ezagutzen zuen: erabili zuen kopia (Larramendi 1745: xxxv-xxxvi) Mayansen berria (1737: 347) irakurri eta berehala lortutakoa bide da. Ustekabean egiaztatu zen, *HH*-aren hitzaurrean astinaldi galanta jasotzen duen arren, *Erans* osatzeko baliatu zuela (Agud & Mitxelena 1958: 12-14). Gertakari honetan oinarri harturik, baderitzat egiantzekoa dela Axularren moduan testu hau ere bietan erabili izana eta, hala ez balitz ere, hipotesia egiaztatzea merezi duela.

Harrieti dagokionez, egoera argia da. *HH*-aren azkenaurreko iturria izanik, hiztegiaren eta eranskinaren artean zangalatrauan geratu zen: Larramendik *Erans*-ean nagusiki I letratik aurrera baliatu zuenez gero, lehenagoko zatia *HH*-aren gorputzean kausitzen dela begibistan dago (Lakarra 1991 eta hur.). Halaz ere, hau ezagutu orduko lapurterazko hitz gehienak jadanik jasota zeuden, hiztegiak (1745: xxxv) agerian utzi zuen bezala; beraz, Harrietek bakarrik azal ditzakeen hitzak markatzeaz gainera, lehenago erabili zituen testuetan ere dauden arren honen eskutik zuzenean iritsi zituenak bereizteko argudioak eztabaidatu behar dira.

3.3.2.3. Erdal liburuak

Larramendik (1745: liii) agerian jarri zuen euskal liburuez gain, euskarari buruzko erdal liburu zenbaitetara ere (Oihenart, Moret, Poza, Etxabe...) jo zuela hiztegia osatzerakoan. Ezer baino lehenago, beraz, bere lanetan zehar sakabanatuta dauden halako egileak bildu behar dira, gero haien berriak aztertu eta nola eta zertarako erabili zituen egiaztatzeko.

Lehendabiziko hurbilketa honetan, ordura arte euskararen jatorriaz edota izaeraz kezkatu izan ziren euskotarren lanetara mugatuko naiz, kontrapuntu modura gehienetan —baina ez beti— haien iritzien aitzari ziren idazle espainiarrak (Mariana, Aldrete, Covarrubias, Mayans...) erabiliaz; egin beharreko salbuespen argiak dira, bestalde, Marineo Siculoren hitz zerrenda eta *HH*-ko hitz baten iturri gisa agerriki aipatua agertzen den atzeritar bakarra: Pierre de Marca (ik. *HH* s.v. *procuración*).

Oihenart, Moret, etabarren euskarari buruzko berrietan gehiena etimologiak direla jakinik, aurrera daiteke alde honetatik batez ere izan dezaketela eragina *HH*-an. Alabaina, Oihenartek eta Isastik, adibidez, badituzte han-hemen sakabanatuta bestelako informazio erabilgarriak, hala nola literatur zatiak (atsotitzak, bertsoak, etab.), euskal hitz solteak, etab. Bi norabide hauetan hedatu da, beraz, ikerketa.

3.3.3. Entzundako hitzak

HH-aren hitzaurreak hiztegi barruko edukiaz ematen dituen berri zehatzak ez dira bukatzen euskal liburuen zerrendan; halere, zerrenda honek halako sona bat lortu duen bitartean —bibliografoei esker, ikusi dugun bezala—, herrietan Larramendik egin zuen lexiko bilketaren deskribapenari ez zaio lerro bakar bat ere eskaini oraintsu artean, folio tamainako bi orrialde oso betetzen dituen arren (1745: lii-liv).

Alabaina, lehenik eta behin, Larramendik erabili zituen metodoen deskribapenak inplikazioak ditu oro har hizkuntz galdeketen historiarako, zeren eta Larramendi Sarmientoren garaikide hertsia baita eta, beraz, metodoaren arbasoak baino askoz lehenagokoa (Tovar 1980: 87 eta, batez ere, R.M. Pagola 1992).⁶⁷ Eta bigarrenik, guri dagokigunez, hiztegian ahozko osagaia badelako seinale ageri eta nabarmena da, Mitxelenak (1960a : 98) iragaitzaz idatzitako “...para escribir el *Diccionario* tuvo Larramendi que recoger muchas noticias de labios del pueblo” hotz hark iradoki ezin zezakeen heinean.

⁶⁷ Uste dut, dena dela, marra bat ezarri beharko litzatekeela, Pagolak hein handi batean egin ez bezala, hizkuntz galdeketen historiaren eta dialektologiaren historiaren artean, eta bakoitzari berea eman. Euskalkien banaketaz eta haien arteko ezberdintasunez —baita euskalki beraren barrukoez— zituen iritziak eta eman zituen xehetasunak hiztegiaren hitzaurrean (1745: xxv-xxx) eta *Corografía*-n (295-302) irakur daitezke. Larramendiren galdeketa, ostera, euskal lexikoa ahalik eta ugarienik jasotzeko eta alderdi dialektologikoa zeharo galdeketatik kanpo utziaz egindakoa da, guztia antzinako euskara komunarena delakoan bildua eta etorkizunean berriro hala izan dedin hiztegiaren barneratua.

Larramendiren adierazpenak, dena dela, ez du eginkizuna errazago bilakatzen. Edozein alderditatik begiratuta, sailik zailena dugu, haren azterketari ekiteko metodorik osoki peitzen dugulako, dakigunez, arazoak (lekukotasunen zalantzazkotasuna edota urria, besteak beste) anitzez handiagoak diren bitartean. Aurreko atalek zenbait muga ezartzen lagunduko dutelakoan ezarri dut, ezarri ere, lanaren bukaera-bukaeran.

Larramendi baino lehenago zein beranduago ongi lekukotutako hitzez osatu dut nagusiki atal honi dagokion corpusa, bildutako lekukotasunak ahalik eta kritikokienik epaituaz. Garrantzi berezia emango diot bildu zituen hitzen euskalki hedadurari, zeren eta *HH*-an hitz herrikoirik egon daitekeelakoan jokatu den aldi bakanetan (cf., adibidez, Lakarra 1985b: 264, Azkueren “G-and” laburduraren esanahiaz) jakintzat eman baita nahitaez gipuzkerazkoak —eta areago bere etxeakoak— izan behar dutela; bide batez, Urterenak nahitaez Donibanekoak bezala (cf. Urkizu 1989 *passim*). Lexikografoak nagusiki mahaian lan egiten duela, batetik, eta buruan aitamek irakatsitako hizkera huts-hutsean duela, bestetik, bi iritziok dira, ezpairik gabe, halako aurreiritzien iturburuak. Larramendiren kasuan, ene ustetan, Andoingo euskarari inondik ere Hernanikoa gailendu behar izan zitzaion, baina hau ere anekdotikoa baino ez da, galdeketa gehienak Loiolako egotaldian —bizkaieraren mugatik ez urrun, besteak beste— egin behar izan zituela kontuan harturik.

Horretaz gainera, hurbilketa metodo ezberdinak baliatuaz, gainerako ataletan azalpenik aurkitu ez duten eta inoiz bestetan *HH*-arekiko erlaziorik soma ezin daitekeen moduan lekukotuta dauden zenbait hitzen herrikoitasuna erakusten saiatu naiz. Hizkuntz argudioak eta testu argudioak, bietakoak erabili ditut saioan. Hizkuntz argudioei dagokienez, adiera edota forma beretsuko lekukotasunak, euskarazkoak zein erdarazkoak, baliatzea badirudi urratsik nabarmenena dela. Bigarrenekoei dagokienez, berriz, aurreneko ataletan ikasitakoak baduke zeresana: *DAut*-en nomenklaturari berariaz erantsitako sarreretan agertzea, *HH*-an emankorrek ez diren atzizkiez osatutakoak izatea edota, maileguen kasuan, espero ezin daitekeen esanahia izatea, adibidez, besterik ezean hitz baten izaera agerian jartzeko bide egokitzat hartu ditut.

4. Azkena

Liburu erraldoi eta konplexua aztertu beharra zegoenez, hasieratik nabarmena zirudien azterketa konplexua —baita erraldoia ere, agian— zegokiola, baina gehiago frogatzea beharreko hipotesien aldetik, ezen ez nahitaez aztertutako corpusaren aldetik. Esan daiteke *HH*-aren argazkia lortuta dagoela, eta gainerakoan sarraldi nahikoa egin ere egin ditudala, datuen aldetik bederen behar adinako ziurtasuna erdietsiaz. Alabaina, corpusa eta haren gainean egindako galderak berariaz eta kontuz aukeratuak izan dira hiztegi osoaren egitura eta osaketaren berri eman ahal diezaiguten.

Jakina, lanean oreka moduko zerbait lortu beharra zegoen, bai lanagatik beragatik, baita, batez ere, Larramendiren jokabidea behar bezala aurkezteko. Hartu ditudan lehen erabakietan erabateko garrantzia izan du hurbilketa teorikoak, hau da, bai historiografiaren,

baita lexikografiaren aldetik zein alderdi esanguratsu ukitu gabe zeuden jakiteak. Hauen arabera ezarritako hipotesiak oso emankorrak izan dira, emankorregiak batzuetan —hala esan badezaket—, *HH*-aren iturrien azterketarako oinarriak bilatzea jomuga izanik.

Larramendiren pentsamoldea ez da, tesi lan honetan somarazi uste dudanez, ez bakuna ez txiroa, eta bere dimentsioak oro ezagutu baino lehen, eta areago teoriak zituen inplikazio guztiak ongi ulertu baino lehen, hipotesiak eta datuak elkarren gainka zetozen, zurrunbiloan, gero eta ikerbide berri gehiago irekiaz. Norabide anitzetan hedatu behar izan dut begirada, beraz, eta gehienetan orotara atera daitekeen etekina oso handia dela iruditu zait. Kostarik utzi dut ondoren datozen gaietarik bakoitza utzi dudana puntuan, eta kostarik alderatu behar izan ditut gai zenbait, hala nola Larramendiren etimologietan euskarari buruz zekienaz aurkitzen den informazio aberatsa, nahiz eta han-hemen tesian zehar halakoetatik erdietsitakoa baliagarri izan den. Halaz ere, azkenik egitura koherente bat lortu dudala uste dut, Larramendik erabili zituen tresna lexikografikoak eta lexikoari buruz zituen ideiak ezagutzetik bere praktika lexikografikoak —iturrien erabilera— ezagutzera daraman bidea, hain zuzen.

I

HIZTEGI HIRUKOITZA-REN IZAERA, EREDU ETA ANTOLAKUNTZAZ

1. Oinarrizko jakingarri zenbait

HH-aren izaeraz ia dena ezezaguna denez gero, badirudi xehetasunetan sartu aurretik ezaugarri nabarmenenak aurkeztu eta euretatik ilki daitezkeen lehenengo ondorioak finkatzea komenigarria izan daitekeela. Asmo honekin, beraz, ondoko gaiok jorratuko ditut:

1) Tamaina eta edukiaren arteko erlazioa: alde batetik, bide ezberdinak elkarren osagarri erabiliaz *HH*-aren sarrera kopuru eta euskal hitz kopuru orokorretara hurbiltzen saiatu naiz; bestetik, *DAut*-etik *HH*-ra dagoen tamaina eta sarrera kopuru ezberdintasunak erakutsi eta gero, honek hiztegiaren luzeran gorabeherarik eragin duen ala ez frogapean jarri dut (§ 1.1).

2) Egiletasuna: Larramendik egile bakarra izatetik egile taldea izatera dagoen aldeari zeritzana, berez interesgarria izateaz gainera, halako hiztegi handi baten egileak bakardadean aritzearren izan zituen abantailak eta gainditu behar izan zituen oztopo larriak, baina baita gainditu gabe geratu zitzaizkionak ere ulertzen hasteko bide egokia izan daiteke (§ 1.2).

3) Larramendiren lan egiteko formaz dakizkigun apurrak bildu ditut, erabilitako teknikak —hitzak non eta nola apuntatzen zituen— hiztegiaren antolakuntzan behinik behin eragina izan dezakeelakoan (§ 1.3).

4) Barneratutako hizkuntzak: hiztegiko hiru hizkuntzak, zein zertarako erabili zituen gaingiroki mugatu dut, lehengo ahaztuak (latina, zehazkiago) eta lehengo eztabaida (gaztelania-euskara zergatik?) datu lexikografiko eta historikoen oinarriarekin gainditzen ahaleginduaz. Honekin hiztegiaren izaera orokorra —zer nolako hiztegi hirukoitza den— eta bi hizkuntza nagusien, gaztelania eta euskararen, arteko erlazioa hobeto defini daitezke, geroko hainbat ataletan ekingo diodan azterketari bidea irekiaz (§ 1.4).

5) Aurkezpen grafikoa: tipografia hiztegiari forma emateko hiztegiak eskura duen tresna garrantzitsuenetakoa izanik, nola erabili duen aztertuz hainbat ondorio atera daitezke, bere prestakuntza teknikoaz ez eze, lortu nahi zukeen hiztegiak ere (§ 1.5).

1.1. Tamainaz eta edukiaz: lehenengo hurbiltzea

Larramendiren hiztegia bi liburukitan izan zen argitaratua, *in-folio* txikian:⁶⁸ Vinsonek (1891-1898: 192, 75a zb.) esku artean izan zuen ale bereziki eder bat 30,35 x 20,4 zmkoa zen. Liburuki bakoitzaren egitura eta hedadura honako hauek dira:

I) 18 orrialde zenbatu gabe: [i-ii] izenburua; [iii-viii] Gipuzkoako Probintziari eskaintza; [ix-xviii] oniritziak, baimenak, pribilegioak, tasa eta hutsen zuzenbidea. Hitzaurrea (i-ccix). Hiztegiaren lehen zatia (1-436, A- Hyssopo).

II) 2 orrialde zenbatu gabe izenburuarekin. Hiztegiaren bigarren zatia (1-392, Ibero-Zuzon). 11 orrialde zenbatu gabe: [i-viii] Hiztegiaren *Eranskina*; [ix-xi] hutsen zuzenbidea.

Orain interesatzen zaigunera —literatura berrian "A-Z atala" deitu ohi dena— mugatuta, orotara 828 orrialdetako hiztegia da. Hiztegi guztian zehar zunda bota eta alirizira 33 orrialdetako emaitzak aintzat hartuaz, ez dut aurkitu 44 sarreratik behera ez 72tik gora daukanik (sarreratzat oraingoz lerrokadak harturik);⁶⁹ usukoenak, ordea, 50-60 tartean daude:

I. liburukia

or.	15	36	59	82	110	129	167	189	231	262	295	326	335	369	392	418	435
sar.	45	46	45	47	46	50	61	50	52	63	63	53	63	72	48	53	44

II. liburukia

or.	15	33	55	90	115	143	170	187	211	230	249	287	311	333	348	388
sar.	63	56	55	54	56	54	53	51	55	54	52	53	53	56	60	45

Sarrera usukoena bi lerrokoa izaten da, baina hitzen arabera alde handiak ager daitezke, jakina; muturreko kasua aditz trinkoek eskaintzen digute, zeren eta haien paradigmek orrialde osoak (*ver*-en kasuan orrialde erdia, lau pasatxo *andar*-enean, eta sei baino gehiago *hacer*-enean, adibidez) betetzen baitituzte batzuetan. Gainerantzean, antzematen diren gorabeherak etimologiek (ohi baino lerrokada luzeagoak eskatzen baitituzte sarritan), alfabeto hurrenkeran hitzen bigarren letraren aldaketa (AB, AC...) iragartzen duten izenburutxoek (ik. § 1.5.1) eta, jakina, azalpenen luze-laburrak baldintzatuta daude. Ohar bedi, dena dela, hasierako

⁶⁸ 1650-1750 arteko hiztegi frantses gehienak ere *in-folio* argitaratu ziren (Bray 1989a: 137). Esan gabe doa, egile berak gogoratzen duenez, halako tamainako hiztegiak ez direla irakurle arruntarentzat eginak, orduko biblioteka bakanetako apaletan burua ederki agertzeko baizik. Egia esan, orduan ez zegoen irakurle arrunt ez eta hiztegi erabiltzaile gehiegi. Hizkuntza berean, XVIII. mendearen erdialdetik aurrera, tamaina jaisten da erosleria zabalago baten bila, eta aldaketa bereziki argia da XIX. mendean, hezkuntzaren hedadurarekin batean. Alde honetatik, adierazgarria da *HH*-aren bigarren argitalpena (Donostia, 1853) *in-4^o* atera izana. Dena dela, Larramendik bere lanaren erabilgarritasunaren aldeko adierazpen interesgarri bat egiten du, bai tamainaz baita liburukien kopuruaz ere: "pero porque son muchos, y grandes, sus tomos [*DAut*-enak] no son manejables para los Gramáticos y Aprendices del Latín. Dos cuerpos son, y no más, mi Diccionario, y de fácil manejo" (1745: xlv).

⁶⁹ Hiztegi baten edukia neurtzeko erabiltzen den sarrera adieraz ik. Landau 1989: 84-87, eta hiztegi zaharretan halako neurketetan sartzeko dauden arazoez, ik. Quemada 1967: 265 t. hur. Arazoak bereziki larriak dira *HH* bezalako hiztegietan, sarrera bereiz dezakeen grafismorik ez duelako (ik. § 1.5.3).

orrialdeetan batz besterik gutxiago izateko joera dagoela: laginean 110. orrialdera arte behin ere ez dugu 50 sarreratik gorakorik aurkitu. Honenbestez, badirudi Larramendik hiztegian aurreratu ahala sarrera laburragoak egiten saiatu zela eta, beti goiko erakuskariaren arabera, neurria 129. orrialdearen inguruan —hots, B letraren hasieran— iritsi zuela, nahiz eta 2. liburukian egonkorrago izan 1.an baino.

Orotara hiztegiko sarrerak beharbada 40-45.000 izan daitezkeela deritzat, orrialdeko 50-55 sarrerako kopuru ez ausarta aintzat hartuaz; nolana ere, ez lirateke 40.000 baino gutxiago izango. Osseltonek (1973: 35, 5. oh.), adibidez, erraldoitzat jotzen du gutxi gorabehera halako tamaina daukan Hexham-en neerlandera-ingelesa zatia (1647), garai bereko ingelesezko elebakarrik handienak (Phillips-en *New World of English Words*) 1658ko argitalpenean 11.000 eta 1696koan 17.000 ditu eta.

Zailagoa da, baina aldi berean jakingarriagoa, zenbat euskal hitz egon daitezkeen kalkulatzea; bidalketa-deiak eta ohiko errepikapenak buruan izanik, demagun sarrerako euskal ordain bakarra dagoela, ziurrenik gehixeago ere egon litezkeen arren:⁷⁰ honek 40.000 inguru euskal hitz egingo lituzke. Kopurua erraldoia da: esate baterako, Urteren hiztegi handiak (2.457 orrialde) 10.000ren bat euskal hitz ditu, Urkizuren (1989: 90) kalkuluen arabera. Dena den, Urteren orrialde / euskal hitz proportzioan *HH*-arekiko dagoen aldea zeharo deigarria izanik, erkaketak erabateko balioa izan dezan Urteren errepikapenerako joera ezaguna gogoratu behar dugu hemen, besteak beste, zeren soilik euskarazko A letran jadanik 4.867 euskal hitz ezberdin baitaude *HH*-an. Beraz, hasierako letren maiztasunari buruz dakigunagatik, pentsatzekoa da E eta A letrek, elkarrekin hartuta, euren bakarrik egin lezaketela Urtek adina euskal hitz.

Beste era batera ere saia gaitzke gutxi gorabeherako kopurura iristen, Azkueren hiztegian, aldeak alde,⁷¹ letra bakoitzak betetzen duen lekuaren arabera, alegia:

A	120 or.	%11,6	M	58 or.	%5,6
B	73	%7	N, Ñ	30	%2,9
D	16	%1,5	O	62	%6
E	96	%9,3	P	36	%3,4
F	5	%0,4	S	46	%4,4
G	62	%6	T	88	%8,5
I, J	79	%7,6	U	47	%4,5
K	58	%5,6	X	18	%1,7
L, LL	49	%4,7	Z	87	%8,4
			orotara	1030 or.	

Azkueren hiztegian A %11,6 izanik, orotara Larramendiren hiztegian 41.956 euskal hitz egon litezkeela ateratzen zaigu, proposatu dugunetik ez urruti. Ez zuen alferrik esan Larramendik: "La cantidad de voces que he recogido en este Diccionario es grande, y

⁷⁰ Lakarrak (1993: 326) 60.000tik gora izan daitezkeela proposatu du, 800 orrialde x 80 hitz inguru bakoitzeko eginez.

⁷¹ D letran, adibidez, *HH*-an *des-* aurrizkiaren bitartez eratorritako hitzak ehundaka dira, bestean ez bezala. Jakina da, bestalde, Azkuek xehekiago jaso zituela II. liburukiko hitzak, M-tik aurrerakoak.

sorprenderá a Bascongados y Castellanos" (1745: xlv). Inolako zalantzarik gabe baiezia daiteke ordura arte egindako euskal hizteirik handiena izan zela, alde handiaz, gainera.⁷²

Ez dugu hainbeste xehetasunen beharrik *DAut*-i dagokionez; sei liburukitan argitara zen (1726, 1729, 1732, 1734, 1737 eta 1739); lehenak 96 orrialdetako hitzaurrea darama, eta azkenak "Continuación de la historia de la Real Academia Española" deritzana. Liburukien edukia honako hau da: I. (A-Buzon) 723 or.; II. (C-Cyone) 714 or.; III. (D-Futuro) 816 or.; IV. (G-Ñudoso) 696 or.; V. (O-Ruxar) 656 or.; VI. (S-Zuzon) 578 or.

Orotara, beraz, 4.183 orrialdeko hiztegia. 37.600 sarrera baino gehiago ditu, adierak, esapideak eta erretrauak kontuan hartu gabe (Lázaro Carreter 1981: 113). *HH*-aren eta haren ereduaren arteko aldea begibistakoa da: orrialdeetan ereduaren bostena baino ez du egiten, eta sarreretan ere —adiera estuan— askoz gutxiago bide ditu, gure zenbakietan Lázarak bereetan aintzat hartu ez dituen osagaiak sartuta baitaude, esan bezala.⁷³ Dena dela, ziurrenik aldea ez da dirudien bezain handia, bakoitzaren sarreraren oinarritzko edukiak ezberdinak izaki (ik. § 3), Larramendirenak gehienetan askoz laburrago suertatzen dira eta.

Inoren esanak bete-betean sinistea, egiaztatu gabe, oso arriskutsua izan daiteke honelako kontuetan: Larramendik "contiene todas las voces Castellanas de aquel gran Diccionario Español en sus seis gruesos tomos" badio ere (1745: xlv), ikusi berriak gara hitzen bat bederen peitzen bide duela, eta ez litzateke harrigarria izango, zenbakien arabera, hiztegi osoan zehar ehunka ere peitzea. Honen ildotik, oinarritzko galdera bat sortzen zait: Larramendik oro har *DAut*-en gaztelaniazko nomenklatura, kenketaren batekin balitz ere, hasi eta buka, proportzioak gordez baliatu zuen, ala badagoke nonbait jauziren bat? Galdera ez da, noski, alferrikakoa, erantzunak ereduarekiko erlazioaren sendoa berma baitezake edo, alderantziz, haren ahultasuna igartzen hasteko aztarnak eman. Ondoko zutabeetan, hurrenez hurren, letra bakoitzeko ondoko xehetasunok eskaintzen dira: (1) *DAut*-eko orrialde kopurua; (2) osotasunarekiko portzentaia; (3) *HH*-ko orrialde kopurua; (4) osotasunarekiko portzentaia;⁷⁴ eta (5) letrako *HH*-ak *DAut*-i buruz galdu duen portzentaia (1 eta 3. zutabeen artekoa):

	1	2	3	4	5
A	524	%12,5	122	%14,4	%23,3
B	199	%4,76	32	%3,77	%16,1


⁷² Pouvreauren hiztegia, dakidalarik, neurtu gabe dago: ikusi dudak eskuizkribuaren kopiaren arabera, ordea, nahikoa txikiagoa da. Etxeberri Sarakoarena, Larramendiren hitzei jarraiki (1745: xxxvi), ez bide zen hiztegi txiki bat baizik "...que impresso pudiera servir para entender los pocos Libros que ay en Bascuence, aunque no con toda extensión" (etzana neurea da). Harrietenak, berriz, 1.650 bat sarrera ditu euskara-frantsesa zatian eta 3.350 bat frantsesa-euskararen, eta Landuccirenak 6.000 sarrera, S-tik aurrera gehienak hutsik, ezaguna denez (Lakarra 1993: 91 eta 139). Gainerako hiztegi zaharrez ditugun datu apurrek aukera gutxi ematen digute haien luze-laburraz ezer argirik ateratzeko, salbu eta Pierre Duhalde josulagunarenaz, eskuizkribuak *in-folio*-ko hiru liburuki betetzen zituela baita hartaz dakigun gauza ia bakarra (Humboldt 1817: 111; ik. halaber Lakarra 1993: 90): tamaina bateko hiztegia izan bide zen, beraz.

⁷³ *DAut*-etik *HH*-ra dagoen sarrera eta bestelako osagaien bilakaeraz ik. § 4.

⁷⁴ Orotara, esan bezala, 828 orrialde badiu ere, portzentaia 849ren gainean egin dira, *DAut*-ekin berdintzeko: zeren honek —Larramendik ez bezala— letra bukatzearekin (geratzen den lekuan geratzen dela) bukatutzat ematen baitu orrialdea.

C	714	%17,1	97	%11,4	%13,6
D	354	%8,46	54	%6,36	%15,3
E	348	%8,32	60	%7,07	%17,2
F	114	%2,73	22	%2,59	%19,3
G	102	%2,44	27	%3,18	%26,5
H	98	%2,34	29	%3,42	%29,6
I	114	%2,73	26	%3,06	%22,8
J	24	%0,57	6	%0,71	%25
K	2	%0,05	0	0	0
L	102	%2,44	28	%3,3	%27,5
M	198	%4,73	52	%6,12	%26,3
N	56	%1,34	11	%1,3	%19,6
O	68	%1,63	16	%1,88	%23,5
P	376	%8,99	75	%8,83	%19,9
Q	32	%0,77	10	%1,18	%31,3
R	180	%4,3	48	%5,65	%26,7
S	200	%4,78	47	%5,54	%23,5
T	182	%4,35	45	%5,3	%24,7
U	22	%0,53	5	%0,59	%22,7
V	126	%3,01	22	%2,59	%17,5
X	10	%0,24	4	%0,47	%40
Y	6	%0,14	2	%0,24	%33,3
Z	32	%0,77	9	%1,06	%28,1
OROTARA	4183		849		%20,3


C letraren ia 6 puntuko jaitiera eta, neurri txikiagoan, A-ren ia 2 puntuko igoera eta D-aren beste horrenbesteko jaitiera dira erkaketan ageri diren gailur bakarrak. Orokorrean, ordea, ezin esan daiteke aldaketa esanguratsurik egon denik: Hurrengo irudiko beheko bi marretan [non X = letrak (A-tik hasita hurrenez hurren zenbakiez ordezkaturak), eta Y = portzentaiak (goiko taulako 2 eta 4. zutabeak)] ikus daitekeen bezala, bi hiztegieta letrako orrialde portzentaia orokorrak (osotasunarekikoak) parean doaz gora eta behera, sarritan elkarren gainean ibilki:⁷⁵



Gorago ageri den marra hagin zorrotzekoan, berriz, letrako *HH*-aren *DAut*-ekiko portaera (goiko taulako 5. zutabea, alegia) irudikatzen da. Ageri diren aldeek hasieran

⁷⁵ Taulak eratu eta behar bezala ulertzeko Angel Martín Fradejas jaunaren laguntza ezinutzizkoa izan dut.

adierazgarriak eman badezakete ere, badirudi letra bakoitzaren orrialde kopuruarekin lotuta daudela eta, beraz, kasuistika hutsari egotz dakizkiokeela neurri handi batean: hurrengo orriko irudian ikus daitekeen bezala, lehengo datu berberak bestela antolatuta, hau da, letrak orrialde kopuruaren arabera (kopuru txikietatik hasita, ezker-eskuin) ezartzen baditugu, zenbat eta letra batek orrialde gutxiago izan, *HH*-ak jasotzen duen portzentaia aldakorragoa baita (cf. ezkerreko hagin zorrotzak) eta, alderantziz, zenbat eta orrialde gehiago, orduan eta egonkorragoa (cf. 50 orrialdeko kopurua baino lehentxeagotik eratzten hasten diren bihurgune ireki eta borobilagoak):



Esan gabe doa, azken finean, orrialde kopuru txikiko letretan orrialde gutxi batzuen gorabeherak eragin handiagoa izango duela, kopuru handikoetan baino: ezker-ezkerrean ditugu, hain zuzen, bi muturrak: batetik, K letrak zituen 2 orrialdeak zeharo galdu ditu (%0); bestetik, X-k zituen 10etatik 4 gorde ditu (%40).

1.2. Egileez

Badago funtsezko ezberdintasun bat bi hiztegien artean, Larramendik agerian jarri zuen bezala:

Para que la Lengua Castellana tenga un Diccionario digno de si misma, y de su Magestad y grandeza, ha sido necessario que toda una Academia Real Española aya empleado sus luces y cuidados en esta empresa: y para entender lo arduo y trabajoso del empeño, no hai más que leer su Historia, especialmente al principio del tomo 6. Allí se verá cómo y entre cuántos Académicos se repartieron las Letras y sus diferentes combinaciones; allí las juntas repetidas de cada semana, los exámenes, revisiones, correcciones. Allí no se puede ver, a la verdad, la fatiga inmensa de cada uno de los Académicos, el estudio, la elección de Autores selectos, observación de las voces, distinción de los significados... (Larramendi 1745: li).

Gaztelaniazko hiztezigile bakarti zenbaiten ustetan —Seco-k (1987: 145-147) bildutako berrien arabera— Akademiaren hiztegiaren (hiztegien) akats gehienak alde honetatik datoz, hain zuzen. Lehenengo akademikoek bazekiten Frantziakoak erredaktore bakar bat —Vauguelas lehen, gero Mezeray— izendatuta, bere lana gero denen artean eztabaidatzen zutela, baina metodoa luzetsi eta elkar-lana egitea erabaki zuten. Hiztegia egin orduko izan zituzten buruhauste gehienak, ostera, erabaki honek eman zizkien: akademiko batzuen alferkeria, estilo ezberdintasunak, liburu bera hiztegiako atal bakoitzeko hainbat aldiz irakurri

beharra... aurrez ikusi ez zituzten honelako eta bestelako arazoak gaindituaz bakarrik aurrera atera ahal izan zuten, azkenik, lehenengo hiztegi hura (Lázaro Carreter 1981: 110-111).

Larramendi bera ere ohartu zen honetaz baina, esanguratsuki, batere kritikarik gabe aipatzen du: "...observé la diferencia de las manos, pero blancas todas; la diversidad de estilos, todos agudos y bellos; la discrepancia de ortographías y puntuaciones, todas en mi opinión corrientes" (Larramendi 1745: lii)⁷⁶. Esanguratsuki diot, zeren eta goiko eta beheko pasarteak, eta hitzaurrean zehar aurki daitekeen besteren bat ere, denak *HH* gizon bakar batek egindako lana dela azpimarratzeko idatziak baitira. Nork daki nahita ala beharrez izan zen? Kexatu, bederen, egiten da pasarte batean baino gehiagotan; hona hemen sentikorrena: "Halléme con el camino totalmente cerrado, y sin guía alguna, sin compañero que quissiese ni supiesse ayudarme, siquiera en la combinación seguida de alguna Letra" (Larramendi 1745: lii).

Alabaina, Larramendi ez da bere kabuz eta indar hutsez aritu den euskal hiztegi-gile bakarra; aitzitik, badirudi XX. mendera arte haxe izan dela ia denen patua; bi salbuespen bikain aipatu behar ditugu, ostera: Oihenartek *Pouvreuren* hiztegian egin zuen zuzentze, argitze eta osaketa lana⁷⁷ eta Abbadie-ren ekarpena *Lécluseren* gramatikakoetan.⁷⁸

Zalantzarik gabe, hizkuntzaren egoerak zerikusi handia izan du honetan: euskal hiztegiak gizon bakar —eta sarritan bakartu— baten ahaleginaren ondorena dira, eta eskuarki gizon bakar horren intuizio eder zein hutsen, zaletasun zein gorrotoen fruitua. Talde-lana hiztegi-gintzan oso-oso berandu sartu da Euskal Herrian. Orain gogoratzen dudana lehen alea, *Tournier-Lafitte* hiztegia da (1953), baina gure historiaren alderdi honek ere azterketa lasaia gizon baten beharra dauka. Adibidez, Azkuek "colaboradores" deitzen dituenak (1905: x-xiii), gehienak hiztun arruntak —informante hutsak— dira; izen batzuek, aldiz, bestelako laguntza izkutatzen bide dute: *Broussain*, *Daranatz*, *Lacombe*, *Landerretche*, *Constantin*...; *Louis Chollet*, berriz, argitaletxeak frantsesezko alderdia zaintzeko jarri zuen zuzentzailea izan zen. Informanteek, *Landuccirengandik* hasita (1562), hainbat euskal hiztegitan hartu dute parte, Larramendiren hiztegia barne, baina nabarmena da ez dutela hiztegia mamitzen lagun dezaketen letradunekin inolako zerikusirik.

Erdalerrietan, berriz, gauzak askoz lehenago aldatu ziren: Akademien hiztegiak alde batera utzita ere, ez dira falta XVIII. mendean izen bakar baten itzalpean argitaratu arren, laguntzaileak izan zituzten hiztegiak: esate baterako, definizioak dituen frantsesezko lehen hiztegi elebakarraren (*Richelet-en Dictionnaire François*, 1680) osaketan, arlo ezberdinetan lagundu zioten kolaboratzaile bat baino gehiagok esku hartu zuten eta, adibidez, *François*

⁷⁶ Alabaina, bestelako kritika implizitua dago "todas en mi opinión corrientes" hitzetan, zeren eta ez baitzegoen ados Akademiak proposatutako grafi sistema berriarekin, guztiz batera nahiarri zegoenez. Jarrera honek *HH*-an izan zituen ondorioez, ik. § 6.

⁷⁷ Elkarren artean izan zuten gutuneriaren zati bat bederen —Oihenarten erantzunak, edo haietako zenbait— gordetzen da eta, bestalde, badakigu hiztegiaren bigarren kopiari falta zaion lehen zatia Oihenartek eskuartean izan zuela (Kerejeta 1991).

⁷⁸ Bere jaioterriko ehundaka hitz luzatu zizkion hiztegia hornitzeko (Lakarra & Urgell 1988: 103).

Cassandre deitu bat hitz zailez kezkatu zen (Bray 1986: 18). Samuel Johnson-en *A dictionary of the English Language* (1755), hizkuntza hartan mugarri bat ipini zuen hiztegiak, berriz, sei laguntzaile izan zituen (Casares 1992: 145-146).

1.3. Lan egiteko formaz dakiguna

Hiztegiaren edukia izango dena —hitzak-eta— idatziz jaso eta ordenatzerakoan hiztegiak erabili duen prozedura guztiz jakingarria da, bai teknikaren historian gertatu diren aldaketak ezagutzeko eta, bide batez, lanaren handiaz jabetzeko, bai eta hiztegian izan litzakeen ondorioak —hala nola alfabetatze gorabeherak, adibidez— aurrez ikusteko.

Akademikoek, hasieran bederen, orrietan idazten zituzten definizioak eta adibideak, gero ebaki eta behar zen ordenan kokatu ahal izateko alde bakarra erabiliaz; egin dezakegu zatiak orri berrietan itsatsi behar zituztela, idazketa, mozketa, ordenatze eta itsasketan denbora luzea emanez. 1721-VI-26 arte (hots, lana hasi eta zortzigarren urtera) ez da "cédula" hitzaren aipurik Akademiaren agirietan (Lázaro Carreter 1981: 111). "Cédula" hauek egun "fitxa" deitzen ditugunak dira. Halakoak asmatu zituenak —nago ezezaguna dela, halaz ere— hiztegi gintzarako arroberaren pareko asmakuntza egin zuen, goikoa baino eta, ziurrenik, imajina dezakegun beste edozein eskuzko sistema baino askoz arin eta erosoagoa baita. Ordenagailuz betetako mundu honetan ahaztuxe bide dugu duela 10-20 urte, ez gehiago, edozein buru-lan egiteko ezinbestekoak zirela: paper-zati haiek, pilak ordenatzen orduak eta orduak eman eta gero zapata zein harilko-kutxetan gordeta, Mitxelenaren, Umandiren zein Mokoroaren hiztegi erraldoiei —berri eta gure batzuk baino ez aipatzearren— oinarri eman zieten.

Alabaina, fitxa bera ere berandu xamar sartu bide zen euskal lexikografian: ezagutzen dudan lehenengo erabilera (gazt. "billete" izenez), Aizkibelena, 1828-1829an data daiteke (Urquijo 1933: 452) eta, dena dela, nekez sinets daiteke Larramendi berrikuntza hau erabiltzera iritsi zenik. Esateko moduan ez dakigu ezer bere lan egiteko formaz, ezpada berak eskuz egina dela, zehazki inoiz idazkaririk baliatu ez zuela esana utzi baitzuen (*Autobiografía* 41). Haatik, badugu beste lekuko bat: *Euskara-Gaztelania Hiztegi* bukagabea (hemendik aurrera *EGH*).

Altunak (1967: 142-143) kontatu zigun bezala, 112 orrialdeko eskuizkribua da, gaur Loiolako artxiboan gordea. Orrialde bakoitzak, argitalpenean ageri den bezala, buruan AB erako izenburua darama, eta hauetako batzuk orrialde batean baino gehiagotan errepikatuta agertzen dira. Hitzak hiru zutabetan banatuta daude, batzuetan zutabeak zeharo bete gabe. Beraz, *HH*-an hitzak aurkitu ahala zegokien orrialdera aldatzen zituela dirudi, euskararen arabera ordenatzeko lehenengo bi letrak baino kontuan izan gabe. Hauxe izan zen, gutxi gorabehera, Altunak eman zion interpretapena.

Erraz frogatu daitekeen zerbait da. Labur beharrez, har ditzagun lau orrialde bukagabe, eta *HH*-arekin erka. Ezkerretara *EGH* ematen dugu, dagoen-dagoenean; eskuinetara, *HH*-ko sarrera-hitza eta *EGH*-koari dago(z)kion euskal ordaina(k) bakarrik. Bataren eta bestearen

ordenak bat ez datozenean (*zucentaria-zucendu-zureutsi*-n gertatzen den jauzi ttiki-ttikia kontuan izan gabe), marra luze bat ezarri dut, hipotesia gezurta lezaketen datuak direlako:

<i>EGH</i>	<i>HH</i>
AH	
<i>Ahorratu</i> , ahorrar.	Ahorrado assí, <i>ahorratua</i> .
<i>Ahurra</i> , la mano casi cerrada y también puño cerrado.	Ahorrar, (...). En este sentido viene de el Bascuence <i>ahorra</i> u <i>ahurra</i> , (...) la mano medio cerrada, como de quien guarda y retiene algo.
<i>Ahalea</i> , ánade.	Anade, <i>ahalea</i> .
<i>Ahalca</i> , <i>ahalquea</i> , vergüenza.	_____
<i>Ahalcatu</i> , <i>ahalquetu</i> , avergonzar, -se.	Avergonzar, <i>ahalquetu</i> , <i>ahalcatu</i> .
<i>Ahumena</i> , bocado.	Bocado, <i>ahumena</i> .
<i>Aheria</i> , canción.	Canción, <i>aheria</i> .
<i>Ahacoa</i> , cognación.	Cognación, <i>ahacoa</i> .
<i>Ahala</i> , icus <i>ala</i> , <i>ahal</i> , <i>al</i> .	_____
<i>Ahanci</i> , olvidar.	_____
<i>Ahancor</i> , olvidadizo.	_____
<i>Aharanza</i> , conversación.	Conversacion, <i>aharanza</i> .
AO	
<i>Aoa</i> , boca; <i>aocada</i> , bocanada.	_____
<i>Aosoca</i> , barboquejo, bozo, bozal.	Barboquexo, <i>aosoca</i> .
<i>Aorequia</i> , bobo, bausán, boquiabierto.	Bausán, bobo, de boca abierta, <i>aorequia</i> .
<i>Aoboa</i> , boato en la voz.	Boato en la voz, <i>aoboa</i> .
<i>Aomena</i> , bocado.	Bocado, <i>aomena</i> .
<i>Aoburnia</i> , bocado del freno.	Bocado, <i>aoburnia</i> .
<i>Aocoa</i> , bocal; <i>otoitz aocoa</i> , oración vocal.	Bocal, <i>aocoa</i> , como oración bocal, <i>otoitz aocoa</i> .
<i>Aotzayoa</i> , bocina; <i>autzayoa</i> .	Bocina, <i>autzaioa</i> .
<i>Aoquitza</i> , boqueada.	Boqueada, <i>aoquitzea</i> .
<i>Aoquitu</i> , boquear.	Boquear, <i>aoquitu</i> .
<i>Aochabala</i> , boquiabierto.	Boquiabierto, <i>aochabala</i> .
<i>Aochimurra</i> , boquifruncido.	Boquifruncido, <i>aochimurra</i> .
<i>Aochacona</i> , boquihundido.	Boquihundido, <i>aochacona</i> .
<i>Aozabalca</i> , bostezo.	Bostezo, <i>aozabaltzea</i> .
<i>Aozabalca egon</i> , bostezar.	(Está) bostezando, <i>aozabalca dago</i> .
<i>Aoputzua</i> , brocal del pozo.	Brocal de pozo, <i>aoputzua</i> .
<i>Aocanoya</i> , cerbatana para tirar y hablar.	Cerbatana, <i>aocanoya</i> .
<i>Aosapaya</i> , cielo de la boca.	Cielo de la boca, <i>aosapaya</i> .
<i>Aozqueria</i> , cuchillada.	Cuchillada, <i>aozqueria</i> .
<i>Aocadura</i> , dentadura.	Dentadura, <i>aocadura</i> .
<i>Aocarucada</i> , dentellada.	Dentellada, <i>aocarucada</i> .
<i>Aocarutua</i> , dentellado.	Dentellado, <i>aocarutua</i> .
BRO	
<i>Broqueldu</i> , abroquelarse.	Abroquelarse, <i>broqueldu</i> .
<i>Broquela</i> , broquel.	Broquel, <i>broquela</i> .
<i>Broturi</i> , <i>broturitu</i> , manar, brotar.	Brotar, manar, <i>boturi</i> .
<i>Brocela</i> , carro de mimbres.	Carro, hecho de mimbres, <i>brocela</i> .
ZU	
<i>Zucena</i> , derecho, acción.	Acción, derecho, <i>zucena</i> .
<i>Zucemena</i> , aderezo.	Aderezo, <i>zucemena</i> .
<i>Zuganatu</i> , <i>zeuganatu</i> , <i>zureganatu</i> , <i>zeureganatu</i> , adherir, llegarse a ti, apuntar a ti.	Adherirse a ti, <i>zu</i> , <i>zeuganatu</i> , <i>zure</i> , <i>zeureganatu</i> .
<i>Zuenganatu</i> , <i>z[e]juenganatu</i> , adherir, llegarse a vosotros, apuntaros.	Adherirse a vosotros, <i>zuenganatu</i> , <i>zeüenganatu</i> .
<i>Zulatu</i> , agujerar.	Agujerar, <i>zulatu</i> .
<i>Zuloa</i> , agujero, hoyo.	Agujero, <i>zuloa</i> .

<i>Zurtu</i> , ajuiciari, hacerse prudente, cauto, guardado, sabio.	Ajuiciari, entrar, hazerse juicioso, <i>zuhurtu</i> .
<i>Zumardia</i> , <i>zumarradia</i> , <i>zuaiztia</i> , alameda, arboleada.	Alameda, <i>zumarradia</i> , <i>zuaiztia</i> .
<i>Zumarra</i> , álamo, negrillo.	Álamo, <i>zumarra</i> .
<i>Zumintza</i> , linaloe, árbol.	Aloe, linaloe, <i>zumintza</i> .
<i>Zumeotarrea</i> , <i>zumesasquia</i> , altabaque, cestillo de mimbres.	Altabaque, <i>zumeotarrea</i> , <i>zumesasquia</i> .
<i>Zucuruztu</i> , amedrentar.	Amedrentar, <i>zucuruztu</i> .
<i>Zuarria</i> , amianto, alumbre de pluma.	Amianto, <i>zuarria</i> .
<i>Zuretu</i> , <i>zeuretu</i> , hacerlo tuyo, apropiartelo.	Apropiartelo tu, <i>zeuretu</i> .
<i>Zeurendu</i> , <i>zeüendu</i> , hacerlo vuestro, apropiaroslo.	Apropiaroslo vosotros, <i>zeuretu</i> , <i>zeuendu</i> .
<i>Zucentaria</i> , apuntador, assestador.	Apuntador, con escopeta, <i>zucentaria</i> .
<i>Zucendu</i> , apuntar, asestar, dirigir, enderezar.	Apuntar, asestar, <i>zucendu</i> .
<i>Zureutsi</i> , <i>zureustetu</i> , apuntalar, apoyar con vigas.	Apuntalar, sostener con puntales, <i>zureustetu</i> , <i>zureutsi</i> .
<i>Zuaitza</i> , árbol.	Árbol, <i>zuhaitza</i> .
<i>Zuaiztia</i> , arboleada.	Arboleada, <i>zuaiztia</i> .
<i>Zuaritza</i> , árbol, roble bravo.	_____
<i>Zuariztia</i> , arboleada de árboles bravos.	_____
<i>Oncia zuaiztu</i> , arbolar el navio de mástiles.	Arbolar el navio (...) de mástiles, <i>ontzia zuaiztu</i> .
<i>Zucelecua</i> , archivo.	Archivo, <i>zucelecua</i> .
<i>Zucelecuan gorde</i> , archivar.	Archivar, <i>zucelecuan gorde</i> .
<i>Zucelecuaaren zaya</i> , <i>zaina</i> , archivero.	Archivero, <i>zucelecuaaren zaya</i> .
<i>Zuralá</i> , armadia.	Armadia, <i>zurala</i> .
<i>Zuspildu</i> , arrugar, se.	Arrugar, <i>zuspildu</i> .
<i>Zulcatu</i> , icus. <i>artisteac</i> .	Assentar piedras preciosas los Plateros, <i>artisteac zulcatu</i> .
<i>Zurrá</i> , prudente, cuerdo.	_____
<i>Zurtu</i> , assessar, hacerse prudente, cuerdo.	Assessar, <i>zurtu</i> .
<i>Zuhurtu</i> , idem.	Assessar, <i>zuhurtu</i> .
<i>Zucembaguea</i> , avieso, perverso.	Avieso, <i>zucembaguea</i> .
<i>Zuresia</i> , balaustrada de madera.	Balaustrada, <i>zuresia</i> .
<i>Zulepaquia</i> , barranco.	Barranco, <i>zulepaquia</i> .
<i>Zuricoa</i> , blanca, moneda.	Blanca, moneda, <i>zuricoa</i> .
<i>Zuria</i> , blanco.	Blanco, <i>zuria</i> .

Begibistan dago ia sarrera guztiak *HH*-aren hurrenkera berberean hartuak direla. Badira, halere, jatorrizko ordena estaltzen duten gertakari batzuk:

1) Batzuetan *HH*-an sarrera-burua den erdal hitzaren aurrean —edo haren orde— esanahikide bat ezarri du (*broturi*, *zucena*, *zumintza*, *zuretu*, *zeurendu*), jadanik Lakarrak (1993: 327) ohartu bezala.

2) Hitz batek beste hitz bat ekarri dio burura. Birritan aditzak erroan daukan izenkia gogorarazi dio (*ahalcatu*, *ahalquetu* "avergonzar"-ek *ahalca*, *ahalquea* "vergüenza", *zurtu* "assessar"-ek *zurra* "prudente") eta behin elkartu batek eragin bera izan du (*aosoca*-k *aoa*). Azalpen beretsua emango nioke *zuaiztia-zuaiztia-zuaritza-zuariztia* segidari; alabaina, azken biak (ikertu gainerako hitz guztiak ez bezala) ez daude *HH*-an jasota eta, beraz, itxurak (eta

etorkiak) azal litzakeen arren, nabarmena da iruzkin filologiko konplexuago baten beharrea geratzen direla.⁷⁹

3) Azalpen errazik ez duten hiru hitzak elkarren ondoan daude, *ahacoa* "cognación" eta *aharanza* "conversación" artean kokatuak: *ahala*, *ahanci* eta *ahanzcor*. *HH* osoan zehar *ahahasi*era daukaten hitzak gehiegi ez izanik,⁸⁰ baliteke Larramendik buruz —segida osatzeko— idatziak izatea, euren aldamenetan agertzen diren biak baino *ahala* eta *ahanci* (eta honen haritik *ahanzcor*) askoz arruntagoak dira eta.

4) Bada ezustekoren bat ere: *autzaioa* > *aotzayoa*, *autzayoa* "bocina", *aozabaltzea* > *aozabalca* "bostezo", *boturi* > *brohuri*, *brohuritu* "brotar", *zuhurtu* > *zurtu* "ajuiciar", *zumarradia* > *zumardia*, *zumarradia* "alameda", *zeuretu* > *zuretu*, *zeuretu* "apropiártelo". Hiztegi berria, beraz, derradan bide batez, ez bide zen zaharraren kopiatze akritikoaz tajutzen, eransketaz, autozuzenketaz eta aukera berriz baizik.⁸¹

EGH-ak eskaintzen digun lekukotasuna gutxi balitz, hona hemen *HH*-aren hitzaurrean, gerora egiteko uzten zuen bihurketa hartaz mintzo dela, hain zuzen, Larramendik (1745: xliii) dioena: "...pues leyéndolas [hitzak] en este Diccionario, y teniendo dispuestos los pliegos y quadernos necesarios, las pueden ir escribiendo en la Letra y combinación que les toca"; hau da, deskribatu dugun sistema berbera.

1.4. Barneratutako hizkuntzak

Larramendiren hiztegiaren izaera ez eze egitasmo osoa ulertzeko daukagun erronkarik handienetakoa, barneratzen dituen hiru hizkuntzetatik bakoitzak daukan betebeharra ongi mugatzea da. Gogora dezagun *HH*-aren inguruko eztabaidako mugarría hiztegia norentzat —batez ere erdaldunentzat ala batez ere euskaldunentzat— egin zen galdera dela, eta erantzuna beti ere gaztelania-euskara ordenari eman zaion interpretapenetik etorri dela. Eztabaida honen bilakaeraz aurkezpenean luzatu naizenez gero, zilegi bekit lehenengo teoriaren erakusgarritzat hasierako Mitxelenaren pasarte oso esplizitu bat bakarrik aipatzea:

Iztegi orren alderik txarrenak ontatik datoz batez ere: arrotzentzat, erdaldunentzat egiña izatetik, euskaldunentzat baiño geiago. Zekizkien euskal itzak —eta ugari eta ederki zekizkien— ipiñi izan balitu errenka, erdal itzulpena aldamenean emanik, bestelako tresna geneukan orain eskuetan. Nola atzekoz aurrera egin zuen lana, ordea, erdal itzak etorri-ala euskerara edo biurtuaz, erdaldunak arritu bearrez noski... (Mitxelena 1961: 364).

⁷⁹ Azkuek *zuarizti* sarrerapean Arakistain aipatzen duenez gero, bertara jo dut eta ekarri badakar: "Roble empinado y alto para fábricas de casas y navíos, *zuaritza*, g." (Fita 1881: 51, 369. zb.). Larramendik *EGH*-an Arakistainen eranskina baliatu zuela esateko gutxiegi da baina, erretrauak dioenez, gutxika-gutxika...

⁸⁰ Orotara 36 zenbatu ditut, baina denak zortzi taldetan utz daitezke: *ahalke*-ren familiakoak (12 osagai), *ahal*-enak (6), *ahaika*-renak (5) eta *ahanzi*-renak (5) dira handienak.

⁸¹ Esan gabe doa Altunak hartaz eman zigun inpresioa —bihurketa hutsa zela, alegia— berraztertu beharko dela, orain berak baino tresna hobek eta motibo indartsuagoak (Larramendiren bilakaera ezagutzea, adibidez) ditugunez gero.

Bigarrena aldezteko, berriz, Lakarrak (1985a: 18 t. hur. eta, berriki eta zabalkiago, 1993: 320-329) erakutsi du ez dagoela Larramendi bera baino lekukotasun hoberik, agerian jarri baitzituen gaztelania-euskara ordena hobesteko izan zituen arrazoiak:

Mi primer pensamiento fue poner primero la voz Bascongada y después la correspondiente Castellana y Latina: pues así se llamaría al parecer con más oportunidad Diccionario del Bascuence. Pero mudé la idea, atendiendo a la utilidad deste género de obras. Poniendo primero las voces Bascongadas, vendría a ser el Diccionario de muy corta o ninguna utilidad; porque la mira principal es que así los Naturales como los Extraños puedan, si quisieren, aprender el Bascuence, para cuyo fin ayudaría muy poco el que en el Diccionario precediessen las voces Bascongadas, y se siguiessen las Castellanas. Los que oy pueden aprovecharse del Diccionario acá en España, saben el Castellano, y querrán instruirse en el Bascuence buscando en esta Lengua las voces que corresponden a las Castellanas que ya saben, y no las pueden buscar con orden y fácilmente, si no ven primero colocadas por su orden las voces Castellanas. En Bascuence no ay más Libros que los pocos de que he hecho mención arriba: para entenderlos y traducirlos, serviría el Diccionario en que estuviessen primero las voces del Bascuence. Es utilidad, pero corta por ahora, y sería grande quando huviesse mucho escrito en nuestra Lengua, y en cada uno de sus dialectos.

Por el contrario, ay mucho escrito en Castellano en las más de las Artes y Ciencias, especialmente en lo Doctrinal y moral. Para entender estos Libros y traducirlos al Bascuence en todo o en parte, sólo puede servir, como es claro, un Diccionario en que vayan antes las voces Castellanas, y se sigan las Bascongadas, que de otra suerte no se sabrán sino por casualidad. (...) Por esta razón he observado este método en el Diccionario, esperando que otro curioso que quisiere trabajar algo, podrá sin mucha dificultad disponer el Diccionario en que se pongan antes las voces del Bascuence y después las del Romance (Larramendi 1745 : xliii).

Lakarrak azpimarratu du Larramendiren hitzok indartuta ateratzen direla praktikan egin zuenarekin, zeren eta ez baitzuen itxaron —edo aurkitu— hiztegia bihurtzeko lana hartu nahi zukeenik⁸² eta horregatik bera hasi baitzen *HH* atzekoz aurrera jartzen, jadanik aipatu dudana *Euskara-Gaztelania Hiztegia*-n.

Zalantzarik gabe, hiztegi-gilearen beraren esan eta eginak aintzat hartzen ez dituen edozein interpretapen arbuia zekoa da. Alabaina, Larramendiren lekukotasuna biltzea lanaren hasiera baino ez dugu, zeren eta arazoari goragotik eta objetibokiago ere hel baitakioke, bere esanen berrespen, zehaztapen zein —hala balegokie— gezurtamenaren bila lexikografiaren historiari eta hiztegiaren egitura eta edukiari begiratuaz. Lehenengo bidea Lakarrak dagoeneko aski ibilia dauka, baina badagoke oraindik zer esan eta zer eginik, batez ere *HH*-ak bere buruaz esan diezaigukeenaren aldetik.

Ataltxo honetan arazoa zertan datzan eta aterabidea nondik joan daitekeen aurkeztu baino ez dut egingo, ondoko ikerketan —eta guztiz gaztelaniari (§§ 4 eta 5), latinari (§ 7) eta euskarari (§ 8) eskainiko dizkiodan ataletan— hemen ezarriko ditudan galderei erantzuna aurkitu ahalko diegulakoan.

Kontuan hartzen dituzten hizkuntzen kopurua hiztegiak sailkatzeko usuko bidea da. Larramendiren hiztegiak hirukoitzasuna aldarrikatzen du izenburuan, eta ezin zaio ukatu, bistan da eta, hiru hizkuntza barneratzen dituela: gaztelania, euskara eta latina. Hiztegi hirukoitzak,

⁸² Hiztegiak beraz etsita zioenez: "...fue el saber de fixo que ningún otro Bascongado querría aplicarse a sacarle mayor, ni añadir o suplir las faltas del primero, y que si yo no lo hacía, ninguno abría que lo quisiesse hacer" (1745 : xlv). Lakarrak (1993: 324) aipatzen duen *Bullet 1755*eko saio goiztiar baina ez oso eta nahikoa okerra gorabehera, bihurteta egiteko (eta, bide batez, osatzeko) lehenengo saio burutuak *Lécluse 1827* (gaur galdutzat joa; ik. Lakarra & Urgell 1988: 109) eta *Aizkibel 1883* (c. 1853, ziurrenik lehenagokoa; ik. Urgell 1997) izan ziren.

izen honexekin beren burua aurkezten dutenak ez dira ezezagunak: cf., adibidez, Bento Pereira josulagunaren *Prosodia in vocabularium trilingue, latinum, lusitanicum et hispanicum digesta* (1634; ap. Teyssier 1985: 248). Gainera, ez nituzke Frai Bartholome de Galarza onirizpengile eta adiskideak antzeman zituen lotura jainkozko eta filosofikoak ezertan utzi nahi:

No en vano se intituló *Trilingue*, porque sobre ser misterioso el número ternario en Divinas y humanas Letras, tres, que son uno, dice el Benjamin de los Evangelistas, nos dan en Cielo y Tierra testimonio, que por esso sin duda nos ofrece también el Author su *Diccionario* en tres Lenguas, que quasi son una; o en tres, que son todas, epilogando en ellas quanto desear puede la curiosidad, la aplicación y el estudio. (...) Parece que el Sabio Escritor tuvo mui presente la profunda sentencia del Príncipe de los Filósofos. Todas las cosas son tres, dixo Aristoteles. *Tria sunt omnia...* (ap. Larramendi 1745: [viii]).

Alabaina, zehaztaperen batzuk egin behar dira, hiru hizkuntzak ez baitaude maila berean hiztegiaren zehar, ez eta hurrik eman ere, eta haien artean gaztelaniak *DAut*-en zeukan paper nagusia gordetzen baitu, itxuraz behintzat, hala nola latinak bazterrekoa:

a) Gaztelania iturri-hizkuntza (ing. "source language", fr. "langue source") da A-Z zatian, baina baita oro har hiztegiaren metahizkuntza ere, sarrera-buruak ez eze haien definizio, zehaztaperen eta azalpen gehienak, gramatikazkoak zein bestelakoak, emateko erabilia eta, gainera, A-Z ez den guztiko hizkuntza baita, euskaraz eta latinez dauden pasarte labur zenbaitetan izan ezik.

b) Euskara xede-hizkuntza (ing. "target language", fr. "langue cible") da, gaztelaniazko hitzei ordainak eskaintzen dizkiona. Izenak ez gaitu nahasi behar, ordea, xede-hizkuntza izatea, munduan zehar ulertzen den eran, ez da egilearen xedea den hizkuntza, mekanikoki *output* deitu lekuan ezartzen duena baizik. A-Z ataletik kanpo behinik behin, argi geratzen da zein den hiztegiaren azalgaia; berriz, barruan euskaraz gaztelaniaren aldean betetzen duen lekua —norentzat ipinita dagoen, alegia— aztertu beharreko kontua da oraindik.

c) Latina ere xede-hizkuntza lekuan agertzen da, euskararen ostean. Ordainak edota gaztelaniazko hitzen perifrasiak eskaintzen ditu. Beste xede-hizkuntzaren aldean, ordea, eskuarki ez da berari buruz bestelako informaziorik eskaintzen.

Hiru hizkuntzen artean, latinaren kaltetan, antzematen den desoreka hau ez da Larramendiren hiztegiaren ezaugarri, ereduaren eta, areago, Europako hiztegiaren herentzia baizik. Beste hiztegi hirukoitz anitz bezala, *HH* ez da zerotik hasia, jadanik bi hizkuntza hartzen zituen hiztegi baten —*DAut*-en— hedapena baizik, hirugarren hizkuntza bat erantsiaz; kultur inguruneak edota giro politikoak azaldu ohi dute honelako hirukoitzaren ekoizpena (Malkiel 1975: 13)⁸³. Hala eta guztiz ere, *DAut* eta bera bezalakoak ez dira elebiduntzat hartu ohi, nahiz hitz guztiak latinez itzultzen tematu: izan ere, iturri-hizkuntzak bere burua deskribatzen du, aldi berean metahizkuntza eta deskribakizun izanik, latina konparabide, ikasbide edota argibide modura soilik agertzen den bitartean, hiztegiaren funtsezko elebakartasuna ezertan ere aldatu gabe (Malkiel, *ib.* 11; Quemada 1967: 38 eta 52). Goitik

⁸³ Leku berean, Malkiel jaunak Larramendiren hiztegia —Azkuerenarekin batera— "French-Spanish-Basque"-tzat jotzen du (?).

behera elebarkar diren hiztegiek genero zeharo berri eta berankor bat osatzen dute Europako hiztegi-gintzan (Malkiel, *ibid.*). Latinak Mendebaleko Europan jokatu zuen kultur hizkuntza paperak eta, honen barnean, bertako lexikografiaren garapenean izan zuen garrantziak azaltzen dute ia erabat hainbat hizkuntzaren lexikografia elebarkarrean erdietsi zuen iraupen luzea.⁸⁴

Itxuraz, beraz, hiztegi sasi-hirukoitz baten aurrean gaude: ereduko egitura gaztelania-latina sasi-elebidunak iraun du, eta horri garrantzi gehiagoko gaztelania-euskara elebiduna erantsi zaio, dudarik gabe lehengo elebarkartasunetik ezaugarri zenbait (gogoratu tamaina aldaketa, kasurako) galduaz.

Hiztegi-gaztelania eta euskararen arteko erlazioari dagokionez, berriz, esanak esan ondoren eman lezake gaztelania gailen ateratzen dela erkaketan, hiztegia batez ere kanpoko erdaldunentzat egina dela uste (izan) dutenen alde. Inpresio honen aurka dagoen lehen argudioa, gaztelaniak hiztegi batez behar zuen bitarteko papera da (Lakarra 1993: 322). Gorago irakurri dugun bezala, Larramendiren ustetan hiztegiari bi aplikazio eman zekizkiokeen —euskara ikastea eta euskarara itzultzea—, eta bietatik edozeinetan gaztelania espero zitezkeen irakurleei bidea errazteko modu ziurra zen, bai espainiar zein euskotar erdaldunei, baita (Hegoaldeko) euskaldun ikasi eta, beraz, elebidunei. Esan beharrik ez dago euskaldun huts eta, beraz, letragabekoak hiztegi erabiltzaile zerrendatik at berez —letragabekoak ziren heinean, jakina— geratzen zirela.

Haatik, Larramendik bi aplikazioak bata bestearen ondoan aipatu bazituen ere, nabarmena da ez daudela maila berean, ez berez eskatzen duten hiztegi motan ez eta euskararen historiako izan dezaketen esanguran. Larramendi euskara kultur hizkuntza bilakartzeko egitasmo orokor baten egile izan baldin bazen, uste dugun bezala, hiztegia ezer baino lehenago gaztelaniazko kultura euskaratzeko tresnatzat jo behar dugu, eta soilik bide batez bezala euskara ikastekoa.

Ereduak eskaintzen digu bigarren argudio multzoa. *DAut* ez da itsuka aukera daitekeen eredu, orduko gaztelaniazko hiztegi oso eta onena baizik. Eskarmenturik gabekoa izan arren, edozeinek susma lezake zein lan handia eskatzen duen 4.000 orrialdetik gorako hiztegi elebarkarra elebidun bihurtzeak. Badirudi, beraz, lanaren handiak egitasmoaren handiari erantzun behar diola: inork ez luke eredutzat hartuko, bigarren hizkuntzan gutxienez berdintzeko esperantzaz arituko ez balitz. Haatik, zertarako berdindu? Akaso euskarak arrotzen aurrean burua ager zezan? Hala izan balitz, egiatan esan genezake Larramendi munduan izan den hiztegi-gilerik inozoena dela, 828 orrialdeko hiztegi bat horretarako bakarrik eginaz. Aitzitik,

⁸⁴ *DAut*-i jarraitu zion Akademiaren hiztegiak 1869ko argitalpena arte gorde zituen latinezko ordainak (Seco 1987: 183) eta, oro har, elebarkar hutsak gaztelaniaz XIX. mendeko berrikuntza dira (Malkiel 1975: 11). Zertxobait berritzaileago dukegu portugesa, adibidez, bertan latina erabat alde bat utzi zuen lehen hiztegia 1789koa baita (Teyssier 1985: 249). Eta berritzaileenetatik, alde bederen, frantsesa, Akademiak hasiera-hasieratik uxatu baitzuen latina, “qui s’est voulu ainsi résolument moderniste” (N. Catach 1995: 144). Halaz ere, oso argigarriak dira Quemadaren (1967: 52-61) datu eta iruzkinak, latinak hainbat hiztegi frantsesetan tradizioaren gainetik lexikografiaren mesedetan gorde zuen indarrak.

apologi zeregin horretarako, edozein hizkuntzaz ere dela, apologiak erabiltzen ziren, ez hiztegiak, eta Larramendik nahikoa egina zuen bestetan, bere jomuga apologia hutsa izan balitz (Lakarra 1993: 309-319).

Antzeko egoeran aurkitzen ziren Herri Katalanetan *DAut*-ek garai beretsuan eta geroago ere (cf. Euskal Herrian Aizpitarteren saioa mendearen bukaera aldera) eragin zituen ondorenek zentzuzko erantzuna ematen digute (Colon & Soberanas 1985: 127; ik. Lakarra 1993: 322-323): *DAut* gaztelaniaren inguruko hizkuntza “txikiek” ezertarako baziren euren buruari ezarri zioten listoi lexikografikoa izan zen.

Kultura nork bere hizkuntzaz ipintzeko beharra Mendebaleko Europako herri guztiek —gure eremua zertxobait murriztearren— noizbait pairatu dute, eta are egun pairatzen ere dute, dela Errenazimenduan, haietatik zenbaitek kultur hizkuntza bilakatzeko bideari ekin ziotenean, edo dela beranduago izan diren egoera ezberdinetan, *à la page* egoteko ezinbestekoa den gaurko ingelesarekiko menpekotasunera iritsi arte. Hizkuntza “handi” eta “txikien” arteko ezberdintasun bakarra —ez nolanahikoa, halaz ere—, batzuek garaian garaiko kultur hizkuntzarik indartsuenarekin lehian ibili behar duten bitartean, besteak aldi berean —edo, hobeto esanda, usuenik batez ere— beren eremuan kultur hizkuntza papera betetzen duenarekin aritu beharra da. Mota bietako lehiaketa hauetan sortzen diren erlazio ezberdinak, berriz, denak oso ondo islatuta daude Europako hizkuntza guztietako itzulpengintzan eta baita hiztegi gintzan ere, noski.

Guri dagokigunez, hiztegi elebidunak —eleaniztunak oro har— elebakarrak baino lehenago agertzen dira non-nahi ere dela: latina ikasi zein latinez idatzi beharrez lehendabizi eta gero, erlazioak aniztu ahala, gero eta norabide gehiagotan. Esan nahi dudanaren adibide ezin hobeak aurkitzen dira Osselton 1973an, esate baterako, non neerlandera eta ingelesaren arteko XVII eta XVIII. mendeetako erlazioak —ingelesaren irakaskuntza, bi hizkuntzetako hiztegiak, baita batzuetan ingelesetik neerlanderara egindako itzulpenak ere— aipatzen diren.⁸⁵

Larramendik gaztelania-euskara hiztegia zergatik egin zuen eta, orobat, hiztegi elebidunen lehen tasun eta nagusitasuna nondik datorren ulertzeko, kultur menpekotasunaz gainera beste zerbait aipatu beharra dago, zein ere den nabarmena: hiztegi mota ezberdinak erabiltzaileen beharren arabera jaio direla, alegia. Hiztegi gintza elebakarra oro har berandu agertu baldin bazen, beraz, ez zen izan zehazki inori burura etorri ez zitzaiolako, hartarako premiarik sentitzen ez zelako baizik. Nahikoa goztiarra izan den ingeles lexikografiaren kasuan, adibidez, lehen hiztegi elebakarra (Cawdrey, 1604) “hard word”-ez —hitz zailez— betetako hiztegia da. O letra *obdurate-obeisance-object-oblation-oblactation-obliged-oblique-oblivious...* segidarekin hasten da, *oak-tree, oats* edo *obey* bezalako hitz arruntak aipatu gabe (Osselton 1983: 15-16). Osseltonek berak azaltzen duenez, 1750 arteko ingelesezko hiztegien zeregina “...to enable a wider, unlatined, reading public to understand and to learn to use the new

⁸⁵ Ikus bitez bereziki Sewel-i buruzkoak (Osselton 1973: 59-86), Pouvreauren kasua —hots, aldi berean hiztegi gile eta itzultzailea izatea— berehala gogora dakarte eta.

technical and abstract vocabulary of learned words [hots, Larramendik “hitz fakultatiboak” zeritzenak], which in many cases thus became less ‘hard’ and were assimilated into the language” (*ibid.*). Alderantziz, hiztegi orokorrek garai haietan elebidunak izateko joera zuten. Halaxe berresten digu frantsesaren kasuak ere, 1550-1850 bitartean hiztegi elebakarren erabiltzaile bilatua hiztun ona baitzen, hiztegian nozio abstraktuak, hitz zail zein arraroak, hizkuntza erabiltzeko arauak edota adierazpide xehetasunak bilatzen zituen, hizkuntza moderno bi edo gehiago hartzen zituzten hiztegiek hitzik eta hitzen erabilerarik arruntenetan arreata jartzen zuten bitartean (Quemada 1967: 40-41).

Larramendiren garaian, lehenago eta askoz beranduago ere bezalaxe, euskal hiztegi elebakarra ezinpentsatuzkoa zen, gaztelaniaz, frantsesez edota latinez alfabetatutakoa baitzen erabiltzaile posible bakarra. Honexegatik, XVII-XVIII. mendeetako euskal hiztegiak, denak gutxienez elebidunak dira, ezagutzen ditugun heinean: Bidegarai (euskara-frantsesa-latina-gaztelania), Etxeberri Ziburukoa (euskara -latina ala latina-euskara?)⁸⁶, Pouvreau (euskara-frantsesa batez ere), Oianguren (tagalog-gaztelania-euskara), Etxeberri Sarakoa (euskara-latin-frantsesa-gaztelania) eta Urterena (latin-euskara). Gauza berbera esan daiteke *HH* ondoko hiztegiez: Añibarro eta Iztueta (gaztelania-euskara), Aizkibel (euskara-gaztelania), Duvoisin eta Harriet (euskara-frantsesa), Lécluse eta Azkue (euskara-gaztelania-frantsesa), etab. etab. Argitara den lehenengo hiztegi elebakar osoa,⁸⁷ Sarasolaren *Hauta-lanerako Euskal Hiztegia* izan da (1984-1995). Data horrexen inguruan hasi zuen Umandik bere *Asmo Hiztegia*, gaur argitaratua izateko itxaropena baino ez daukana.

Ildo beretik doa norabide bikoitzaren kontua: aipatutako denbora tartean, hiztegi handiak, denak ere norabide bakarrekoak dira. Lehen euskal hiztegi bikoitza Harrieten gramatikako txikia da (1741), euskara-frantsesa eta frantsesa-euskara, nahiz eta oso tamaina eta eduki ezberdinetakoak izaki, frantsesa-euskara erako zatia argi eta garbi nagusi izan, bai hitz kopuruaren baita hitzen nolakoaren aldetik (Lakarra 1993: 148 t. hur.). Larramendi etsita zegoen, goraxeagoko aipamenean ageri denez, euskara-erdara hiztegi baten premia alderantzizko ordenakoaren aldean txikia zela —“por ahora”, baikorki zioenez—, eta *EGH*-ari ekin bazion, gauzak aldatzear zeudelakoan egin bide zuen. Baina, dakigunez, egiatan gauzak ez ziren gehiegi aldatu honetan ere: oso oker ez baldin banago, bi norabideak dauzkan lehenengo hiztegi-hiztegia BeraLzM da (1916).

Honezkero, bada ordua unetxo batez alde batera utzi dudan gaiari eusteko: zergatik gaztelania-euskara, eta ez alderantziz? Hiztegi elebidun edo eleanitz norabide bakarrekoak egiteko euskal lexikografoengan ikusi dugun adostasuna hautsi egiten da puntu honetan: Pouvreau eta Etxeberri vs Urte eta Larramendi aipatzea baino ez dago honetaz ohartzeko.

⁸⁶ Garaiko usadioak ezagututa, nago latina-euskara izango zela, baina ez dago aldeko ez kontrako daturik, dakidalarik.

⁸⁷ Osorik egon ez arren, aipamena merezi du G. Arestiren *Hiztegi tipia (lehen entrega: A, B, C, D)-k* (Donostia, 1973).

Burura datorkidan lehenengo erantzuna, hiztezigile bakoitzaren jarrera da. Etxeberri eta Pouvreauk XVIII. mendeko Iparraldeko literaturaren sendoa oinazpian sentituaz ekiten diote lanari; Urtek eta Larramendik, berriz, ageriko arrazoi ezberdinengatik bada ere, ziurtasun hori peitu zuten: kanpoan (libururik gabe?) egoteagatik batak, euskara hegoaldekoago —orokorrago?— baten bila zebilelako besteak.

Haatik, jarrera baino funtsezkoagorik ere badagoke, asmoen aldetik hain zuzen. Kasurik argiena, inondik ere, Etxeberri dugu: Larramendirekin hainbat eta hainbat ideiatan zeharo bat etorri arren (Lakarra 1993: 309-319), hiztegia (eta gramatika) egiteko izan zuen asmoa ez zen euskara bera janztea, euskaldunak baizik: “bide hartaz Escualdun guztiec eta bereciqui ene Lau-Urtarrec cembait fagore eta laguntça içan leçaten gatic: bere herritic camporat ilkhi gabe, cembait hitzcuntçaren parte bederen ikhasteco” (Etxeberri 1712: 320). Ordenak asmoari erantzuten dio, beraz.

Zailxeagoa da Pouvreauen asmoak azaltzea, bere adierazpenik izan ezean hiztegitik deduzitu behar ditugunez gero. Alabaina, zer edo zer esan daitekeela argia iruditzen zait. Har ditzagun kontuan bi datu esanguratsu: Larramendirena baino nahikoa txikiagoa dugu —azken bertsioan izan behar zuen laukoitzari (Bilbao 1992) dagokionez— eta ezagutzen zaion iturri bakarra Oudin-en frantsesa-gaztelania (1607ko lehen argitalpenetik aurrerakoetako bat, oraingoz identifikatu gabea; Lakarra 1995: 24) da, antza denez hiztegiaren lehenengo bertsioa goitik behera osatzeko erabilia. Oudin-i dagokionez gogora dezagun, gainera, hiztegi elebidunei egotzi diegun hitz arruntak jasotzeko joera, elebkarrekoek hitz tekniko, zail edo bitxiatarako zeukaten interes nagusiaren aurrean.

Salbuespenak salbuespen, Pouvreauen hitz berriak —eta honetan ereduarekin bat datorke— ez dira hitz arruntak, baina ez eta hitz teknikoegiak ere. Hona Lakarrak A letran bildutako hitz eratorri eta elkartuen lehen lekukotasunak Pouvreauen hiztegian:⁸⁸

abadegaya, abade nahia, abade ordea, abadetxea, abadetasuna, abadezza, aberatsailea, aberatstura, itsas-abreac, abrequeria, abretasuna, abretcea, abricotcea, absoluacionea, absolutatçaillea, ogui açala, accionatcea, accionetsua, accordamendua, achelaria, acholatasuna, acholatsua, acitun-ondoa, acometadura, acometamendua, acometatçaillea, açorriatcea, açotatzaillea, acuilu puntatzaillea, adarsua, adats izpia, adimenduduna, adimendutsua, adintsua, adisquidetçaillea, adisquidetchoa, adoratçaillea, adoratcecoa, adreillucoa, adreilluztatcea, afalmuga, affaitadura, affaitatasuna, affaitaquetac, afaitatçaillea, afruntatcea, afruntatçaillea, agradablea, agradamendua, agradablequi, agortasuna, agortura, agudotcea, agudotasuna, agudoqui, agueriqui, aguermendua, aguertçaillea, aguitcea, ahaidetasuna, ahaidetcea, ahalquegaberia, ahalquetia, ahalquegarria, ahalcorra, ahantscortcea, ahantscortasuna (ap. Lakarra 1995: 18-19).

Ez dago bertan Larramendiren *abetxalki* “capitel de columna”, *adiabiursa* “endecha”, *antzeskintza* “pintura, arte” edo *atiska* “válvula”, ez eta Urteren *abailegile* “balistarius”, *aberialki* “adverbialiter”, *abrasenda belhar* “asya” edo *abrejokalaria* “arenarii” bezalakorik, bakan batzuek besterik. Hiztegia egiteko modua —hitzak etimologikoki sailkatzea eta familiak ia

⁸⁸ *HautaL*-ren datuak bakarrik erabiliz egindako zerrenda denez gero, ziurrenik zenbait kendu beharko lirateke zerrendatik *OEH*-an egiaztatuz gero, Axularrek darabilela gogoraturik desagertarazi dudana *adisquide-quidea* bezala. Alabaina, honek ez luke inolaz ere zerrendatik atera daitezkeen ondorioak aldaraziko.

sistematikoki litezkeen eratorriez osatzea— indartu baino ez zen egin ereduaren erabileraz, Lakarrak (1995: 23-24) eman adibideen arabera dirudienez.

Argi dago, beraz, Pouvreauren asmo nagusia ez dela kultura frantses, latin zein gaztelaniatik euskarara itzultzea, euskararen ahalbideak ia huts-hutsean gauzatzea baizik. Pouvreaux ere, hortaz, egin nahi zuen hiztegiari egokitutako eredu eta ordena hautatu zituen. Honek ez du esan nahi euskara-erdara ordenan *HH*-aren antzeko hiztegi bat egitea ezinezkoa denik. Bestelako eredu batek, *DAut*-ek adibidez, beste gisa bateko hiztegia eginaraziko ziokeen Pouvreauxi, euskara-erdara(k) ordenan eginda izanik ere Larramendi eta Urteren hiztegietatik gertuago legokeena. Fra Antoni Oliver-en *Vocabulari mallorquí-castellà*-n, esate baterako, *DAut* eredutzat hartzeagatik “*acció afectada, melindre*” bezalako itzulpen artifiziosak agertzen dira (Colon & Soberanas 1986: 125-126). Iturri-hizkuntza ezberdina ez da oztopoa, orobat, Huloeten *Abecedarium Anglico Latinum*-aren (1552) iturri nagusietako bat Etienne-ren *Dictionaire françois-latin* (1549) izateko (Starnes 1954: 149-150). Alabaina, bistan da askoz zailagoa dela, ordainak bilatzeaz gainera behin eta berriz ordena zeharo berrian jarri behar dituenz gero. Harrietek ere (1741: 507), “...escualdunec berce hitzcuncetaric hartuac dituzten hitcen khentceco” saio idatzi bat egina zuela adierazi zuelarik, euskara-frantsesa ordenan hitzak ziren bezala-edo jaso zituen, frantsesa-euskararen bestearen maileguak ordezkatu eta bestelako aukerez hornitzeko lana hartu zuen bitartean.

Behin honaino iritsiez gero, ezinbestean aipatzekoa da Larramendik “*metopa, oxímaco, sincategoremático* eta horien antzeko beste ezin konta ala aldrebeskeria” (Mitxelena 1961: 364) itzultzeko hartu zuen lanaren kontua, alferra omen baita, dagozkien *doyusquia* eta *berestizquidea*⁸⁹ sekula erabili ez izanak (*OEH*-ak ez dakartza, behinik behin) erakusten omen duen bezala.

Lehenengo ingelesezko hiztegi elebakarrak batez ere hitz “zailak” argitzeko eginak direla ikusi dugu goraxeago; eguneroko hitzek beranduago eta gutxika baizik ez dute sarrerarik izango halakoetan (Osselton 1983: 15-16): halako edo holako antzinako testu batean bakarrik, edo latina itzuli beharrez ari zen beste hiztegi batean topatutako hitzak hiztegi hiztegi igaro dira ingelesaren historian, tartean inor gutxik erabilita. Latin hiztegiak egindako hitz-zerrendak “heterogeneous and partly irrelevant” —diosku Osselton-ek (1973: 108)— ingeles hutsezko hiztegiak ez eze, hizkuntza modernoko elebidunetara ere igarotzeko joera izan zuten mendeetan. Honela, bada, *Twentieth Century Dictionary*-k (Chambers, 1975) *commemorable* eta *liquescenty* bezalako hitzak gaurko lexiko ingelesaren barruan sartzen baditu ere, *Oxford English Dictionary*-k ez dakar hiztegiakoez beste lekukotasunik: hiztegi hiztegi igaro bide dira, sekula ere erabiltzailerik aurkitu gabe eta,aldi berean, sekula ere ohiko hiztegiakoez zerrendatik erori gabe (Osselton 1983: 15). Berbera idorotzen dugu neerlandezko hiztegi batzuetan, non ingelesak berak ere inoiz erabili ez dituen hitzak ordaineztatuta ageri diren:

⁸⁹ Mitxelenak —oharkabeen, ziurrenik— iruzur egin zuen *oxímaco* taldean sartuaz, Larramendik “egazti arrapari bat” bakarrik jartzen baitu, tentu handiaz. Honelako “ordainez” ik. § 8.3.1.2.

“neither Dutch nor English ever possessed or needed an equivalent to *quindecem*, and ‘English’ words such as *interfulgent* or *bacciferous* were at no time really a part of the living vocabulary” (Osselton 1973: 108-109).

Badirudi, beraz, *denari* ordainak aurkitzea aski kirol arrunta zela orduan. Ohar bedi erabilera, hala sortutako hitzen patua, ez dela hiztegiileen esku egoten, erabiltzaileenean baizik, Larramendiri zegokionez Sarasolak (1986) ezin argiago adierazi duen moduan: *HH*-ko hitz (fakultatibo) berriak liburu berezituak idatzi diren neurrian erabili izan dira, eta delako gai bati buruz gehiago idatzi den neurrian, zenbait hitz (erlijio hiztegiak, adibidez) zeharo normaldu dira denborarekin; *doyusquia* edo *berestizquidea*-ren lekukotasunik aurkitzeko posibilitateak zeroren pare dira, ordea, artean euskaraz ez arkitekturari buruzko ezer, ez gramatkarik idatzi ez zenez gero.

Laburbilduz, lexikografiaren historian bildu ahal izan ditugun datu eta argudioek *HH* batez ere euskaldunentzat egindako hiztegia dela adierazten dute, aurrerantzean euskara lantzeko tresna egokia izan zezaten. Ondoko atalen ondorioei itxaron beharko diegu, berriz, hiztegi barruko informazioak gai honi buruzko ebidentziarik eskaintzen duen ala ez jakiteko.

1.5. Aurkezpen grafikoa

Itxuraren aldetik *DAut* eta *HH* oso hiztegi ezberdinak dira, begi aurrean izan dituen orok dakien bezala. Hitz gutxitan esateko, ez bata ez bestea dira oraingo hiztegien modukoak, baina Larramendiren hiztegia askoz urrunago dago. Hau ez da funtsik gabeko xehetasun bat.⁹⁰ Tipografia, inprenta jaio zenetik, hiztegiileen lagungarri ezinutzizkoa izan da, hiztegien beharrezkoak diren hainbat bereizkuntza egiteko aukera ematen baitie. Hiztegi erabiltzaileok, berriz, hari esker erraz murgiltzen gara hiztegietakako orrietan zehar; baina, bitzta eroso egiten diguten zer gehienekin gertatu ohi den bezala, jakintzat ematen dugu, zertan datzan gehiegi hausnartu gabe.

Hiztegiaren bat hasi eta buka irakurri duenik —edo hartan saiatu denik— denok ezagutzen bide dugu, baina, egia esan, salbuespenak baino ez dira: eskuarki hitzak banaka bilatzen ditugu, behar ahala, eta hartan ari garela begiek orriak goitik behera igarotzen dituzte, ez ezker-eskuin (edo eskuin-ezker, kulturen arabera), irakurketa arruntean bezala. Banaka bilatze horretara zuzenduta daude, hain zuzen, hiztegiaren ezaugarri tipografiko gehienak.

Lehenik eta behin, behar dugunera iristeko daukagun bitartekoa “sarrera” deritzona —hitzari buruzko informazioa biltzen duen atala— da: honexegatik sarrera erraz antzeman daitekeen moduan apailatu beharra dago. Erraztasuna bi aldetatik etortzen zaigu: sarrera zein orrialdetan dagoen asmatzen laguntzen duen zerbait izatetik, eta gainerako testutik ongi bereizia eta grafismo egonkor batez —beti bat eta beraz—markatua egotetik.

⁹⁰ Azalpen eta adibide gehienak Bray 1989a-tik atera ditut, eta terminologia eta teknikako xehetasun zenbait Martínez de Sousa 1981 eta Dreyfus & Richaudeau 1990 lanekin osatu.

Bigarren, sarreraren barruko informazio-mota ezberdinak ez dira denak maila berekoak: adierak, erabilerak, esapideak, adibideak, etab. hierarkizatuta daude berez, eta tipografiak hierarkizazio hori nabarmenarazten duen tresna da.

1.5.1. Alfabeto hurrenkeraren bilaketa: izenburutxoak

Hiztegiak inprimatzen hasi zirenetik eta XIX. mendearen bukaera arte, irakurlea bilatzen ari dena zein orrialdetan dagoen asmatzen laguntzeko erabilitako sistema fr. *lettrines* eta gazt. *titulillos*, hots, "izenburutxoak" ziren, hau da, orriaren goialdean jarritako letrak (hitzak edo hitz-zatiak, hiztegien arabera). Egun ere, Europako hiztegi gehienek berbera baliatzen dute, hobekuntza batzuekin; Estatu Batuetan, berriz, eskuarki azkazaltxoak (fr. *onglets*), hots, liburuaren ertzean egindako azkazal itxurako (zirkuluerdi-formako) ebakidura batzuk erabiltzen dituzte letra bakoitzaren hasiera markatzeko.

XX. mendea baino lehen izenburutxoek, ezarrita dauden zutabeen agertzen den lehenengo hitzaren hasierako letrak (bizpalau) iragartzen zituzten: zenbat zutabe, hainbat izenburutxo orrialdeko. Sistema ez zen erabat zehatza zeren eta, alde batetik, zutabeen zehar aldaketak gertatzera ez baitzuen haien kontu ematerik eta, bestetik, zenbait letra-taldek orrialde mordo besarkatzen baitzuten: sarrerak gutxi gorabehera aurkitzeko bidea zen. XVII. mendean zehar, sarreraren kokalekua zehazten berrikuntza batek lagundu zuen: orrialde barruko izenburutxoak, zutabe barruko aldaketen berri emateko ezarriak, hain zuzen. Barruko izenburutxo hauek Frantzia XIX. mendearen bigarren zatira arte (Akademiaren hiztegiaren 1878ko argitalpena arte) ikusten dira; hasierako letrekin osatutako goialdeko izenburutxoak, berriz, gutxika-gutxika desagertzen da XIX. mendearen bukaeran, eta gaur egun ezagutzen dugun goialdeko izenburutxo motak (eskuarki orrialdeko lehen eta azken hitzak aipatzen dituen) ordezkatzeko.⁹¹

Gure bi hiztegiak izenburutxodunak dira. *DAut*-ek zutabe bakoitzeko hiru letrako sekuentzia (ABC hurrenkera) eskaintzen du orrialdearen goiko aldean, batetik; bestetik, zutabe barrukoak ere baditu, bi letrakoak. Larramendiren goialdeko izenburutxoek, berriz, AB segida baino ez dute kontuan hartzen, barrukoak bezalaxe: orainago ikusi dugu bi letrako hurrenkera izan zela lan egiterakoan ere baliatu ohi zuten neurria.

1.5.2. Sarreraren bila: frantses lerrokada

Asmatu zenetik (1815 inguruan) eta gaur arte, letra beltzak sarrera-burua bereizteko papera izan ohi du, berez aski baita goitik beherako irakurketaren geltokiak markatzeko. Horrelakorik ez zegoenean, oster, zutabeen forma irregulartzera jotzen zen asmo berarekin. Gure bi hiztegiek ederki ordezkatzeko dute erabiliena: fr. *débord* "(ezker aldetiko) gainezkatzea",

⁹¹ Ik. Quemada 1967: 331-333, hiztegi frantsesetako izenburutxoaren bilakaeraz.

gazt. *párrafo francés* eta ing. *french paragraph* "frantses lerrokada" deitzen dutena da, hots, sarrerako karakter batzuk zutabeko ezkerreko ertzaren ezkererantz aurreratzea edo, bestela esanda, hasierako lerroa izan ezik gainerako guztiak sangratzea. Adituen ustez, prozedura hau oso onuragarria da ezkerretik eskuinera irakurtzen dugunontzat, ezker-ezkerrean dagoena azkarren antzematen duguna baita.

1.5.3. Sarrera eta sarrera barruko informazioa: letrak

Behin sarrera aurkituez gero, gainerakoari dagokionez, ideala letra mota bakoitzari betebeharrak jakin eta bakar bat egokitzea da. Idealak, baina, gutxitan lortzen diren gauzak dira, are hiztegi berrietan ere. Ez gaitu harritu behar, beraz, hiztegi zaharretan araua behar bezain ongi ez beteak. Osterantzean, garaiaren eta lekuaren arabera betebeharrak bakoitzerako erabiltzen diren konbentzioak aski aldakorrak dira.

Gaur egun, hiztegi batek eskatzen dituen bereizketak hiru bidez egin daitezke: letraren formaz (borobila vs etzana, larria vs xehea), tamainaz (teknikoki "gorputz-indarra" deitua) eta kolorearen intentsitateaz (erdi-beltza, beltza, oso beltza). Alabaina, azken bidea oso berria da: jadanik ikusi dugu letra beltza zeinen berandu sortu zen. Formaz eta tamainaz joka zezaketen, beraz, hiztegi zaharrek. Esate baterako, Cockeram-en ingelesezko hiztegian (1623) aditzak *to-z (to Rob)* eta izenak artikuluz (*a River*) markatuta agertzen dira sarrera-buruan, eta honek alfabeto hurrenkera begiei ezkutatzeko arriskua zeukan; hitz hasierako letra larriak, hortaz, hurrenkera berreskuratzeko eta begietaratzeko zeregina zeukan (Osselton 1989a: 169). Hiztegi gintza tradizio berean, berriz, sekulako berrikuntza izan zen Johnson-en hiztegian (1755) lehenengoz sarrera-buruak versalez (hitz nagusietarako) eta versal txikiak (elkartu-errotietarako) bereizita egotea (Osselton 1989a: 171). Azken xehetasun hau garrantzizkoa da guretzat, zeren eta ari garen garaikoa baita, gutxi gorabehera.

DAut-en alderdi hau aski zaindua dago: lau letra tipoz baliatzen da (versal, versal txikia, borobila eta etzana), bakoitza bere zeregin(ar)ekin. Sarrera-hitza versaletan dago; bigarren mailako adierak, berriz, versal txikitik, hala nola hitz beretik hasten diren esapide eta erretrauak ere; beste hitz batez hasten direnak, berriz, txiki borobiletan, eta haien barruan sarrerako hitza etzanez azpimarratuta. Latinezko ordaina etzanetan, beti "Lat." laburduraren ondoren. Testuan, normalean etimologiazko azalpenetan, etzanetan agertzen dira beste hizkuntzetako hitzak (latina, grekoa, etab.); aipatzen diren gaztelaniazkoak, ordea, borobiletan egiten dira, lehena letra larria izanik gehienetan. Adibideak, idazle-liburuei dagozkien laburduren ondoren, borobiletan daude, sarrerako hitza letra etzanez azpimarratuta; bertsoak direnean alderantziz jokatzen dute, berezko duten lerroz lerroko aurkezpena gordeaz, gainera. Azkenik, sarrerako atal bakoitza, den adiera, esapidea edo erretraua, gainezkatzeaz —frantses lerrokadaz— markatuta dago.

Gainezkatzearen eta lerrokada bakoitzaren hasierako letra tipo ezberdinen bitartez, irakurleak begi-ukaldian sarrera non hasi eta non bukatzen den ikus dezake, baita sarrera

barruan maila ezberdin zenbait antzeman ere. Hala eta guztiz ere, sistema hau, akats batzuk izateaz gainera —ohartu borobil eta etzanek balio gehiegi dituztela—, oso erredundantea da oraindik: sarrera-hitza hamaika bider errepikatuta ager daiteke, behin versaletan, gainerakoetan versal txikitan; grafismoak, gainera, ez du *per se* erabateko baliorik; adieren azalpenak honelatsu hasten dira maiz: "Significa tambien...", "Vale tambien...", "Se llama tambien...", "Con esta palabra se significa tambien...", etab.

Hitz baten adiera guztiak atal berean, sarrera bat eta bakarraren azpian sartzea, beren arteko bereizkuntza zenbakien bidez eginaz, nahiko sistema berria da. Ingeleseztan Benjamin Martin-ek (1749; Osselton 1983: 13 eta 18) erabili bazuen ere, gurean ez da antzekorik ikusten XIX. mendearen bukaera-bukaera arte, Maurice Harrieten hiztegiara arte, alegia; argitaratuen artean, oso oker ez baldin banago, Azkuerena da lehena. Hori baino lehenago, Aizkibel (1883) eta Fabr ren (1870) hiztegietan barra bikoitza (gazt. *doblo pleca*) dago adierak bereizteko, eta van Eysenean (1873) marra luzea.

Larramendiren sistema anitzez bakunagoa da alde guztiz. *DAut*-en sofistikaiziotik lerrokaden gainezkatzeak bakarrik iraun du bere hartan. Bi letra tipo baino ez ditu baliatzen, borobila eta etzana, eta *grosso modo* etzanak euskara seinalatzen du, borobila ezertarako den bitartean. Letra larria ere agertzen da, baina oso betebeharr mugatuaz eta goian aipatu bereizi beharrekin batere loturirik gabe: borobil xeheari egokitzen zaion larria (8 puntukoa)⁹² darabil ohar berezi batzuen izenean ("NOTA" deritzenetan, hain zuzen)⁹³, gorputz askoz handiagoko tipo bat (21 puntukoa) letren aldaketa iragartzeko (DE LA LETRA A, etab.) eta hau baino txixixeago den bat (17 puntukoa) letra barruko azpialalen izenak (AB, AC...) adierazteko.

Letra tipo bereizgarrien urriak oso ondorio nabarmenak ditu Larramendiren hiztegiari:

1) Sarrera-hitza ez da sarrerako gainerako testutik bereizten lehenengo begiradan. Aitzitik, euskarazko ordainak baino lehen gaztelaniazko ezer gehiago agertzen den oro, irakurri egin behar da, iruzkindutakoa eta iruzkina nondik nora doazen somatzeko. Honek zenbaitetan zalantzak zor ditzake irakurlearengan, gaztelania (edota euskara) noraino menperatzen duen eta horren arabera: tipografikoki ez dago jakiterik, adibidez, "M s, mucho m s" bezalako hasiera batean⁹⁴ *m s, mucho m s* osorik erabiltzen den esapidea ala *mucho m s* esapidea bakarrik adierazi nahi izan den, edo "Broza de impressores" bezalakoan gaztelaniazko esapide bat ala *broza* hitzaren adiera berezi bat ordezkatu nahi den.

2) Hierarkizazioa lortzeko baliabideen urriak eraginda, *DAut*-en mailakatuta zeuden item-ek inolako bereizkuntza grafikorik gabe lehenengo hurrenkeran dira. Ezinezkoa da lehen begi kolpean benetako sarrera nondik nora zabaltzen den antzematea. Ez du adieren arteko

⁹² Faksimileak —eta eskarmentu gutxi izanak— engainatzen ez baldin banau; balio beza ohar honek ondoan doazen gainerako neurrietarako. Nire irakaslea Bandry (1993: 2337) izan da.

⁹³ Hiztegiaren zenbait sarreraren ondoren agertzen dira, bakanki, azalpen bereziak emateko. "NOTA" izenburutxoaz gainera, ez dira ezertan ere bereizten zutabeko gainerako informazioz (ik. § 3.3.3.4).

⁹⁴ Adibidea *Erans*-etik hartu dut, une honetan —gertatu ohi den bezala— ez baitut *HH*-an alerik aurkitzea lortu.

lotura ohartzeko tresna grafikorik⁹⁵ (1), ez eta hauen eta esapide zein erretrauen artean bereiztekorik (2): denak ezkerretarantz gainezkatuta eta letra txiki borobilez ematen ditu. Inoiz iruzkinak berak ere gainezkatuta daude (3):

- | | |
|---|---|
| <p>(1) Assentar, presuponer...
Assentar, por tomar o dar asiento...
Assentar pazes...
Assentar, anotar...
Assentar en la Cantería...
Assentar piedras preciosas...
Assentar bien o mal una cosa a alguno...</p> | <p>(2) Asno...
Asno salvage...
Caer de su asno...
Asno con oro, alcánzalo todo...
Asno de muchos, lobos le comen...
A asno tonto, harriero loco...
Al asno muerto, la cebada al rabo...
No se hizo la miel para la boca del asno...</p> |
| <p>(3) Assemejarse, <i>irudin</i>...
Véanse en el verbo <i>parecer</i> los irregulares de el <i>irudin</i>...</p> | |

3) Borobil xeheak, orotara, bost lan ezberdin ditu: sarrera-hitza, gaztelaniazko azalpen arrunta, gehigarritzko iruzkinak, adibideen erdal bertasioak eta latina. Oro har, erdarak markatzen dituela esan daiteke, hori zerbait esatea balitz. Latina bereizten duen marka bakarra, *DAut*-ek ere darabilen "Lat." laburdura da. Ikus dezagun adibide bat:

Acaso, adverbio, unas vezes viene con duda, *bearbadá*, *nabasqui*, *noasqui*, *noasquiro*, *aujaz*, *ausaz*, *ausa*, *menturaz*, *aguian*. Lat. Forsan, forsitan, fortassis, fortasse. Acaso no es verdad, *bearbada eguia ezta*, *noasquiro eguia ezta*, *eguia ezta ausa*, &c.

4) Etzan xeheak ere lau betetzen ditu, baina, borobilak ez bezala, ez dira denak maiztasun berekoak. Lan nagusia, inolako ezpairik gabe, euskara markatzea da, bai euskal ordainetan baita adibideen euskal bertasioetan ere, goiko adibidean ikus daitekeen bezala.

Maiztasun ezberdinez, baina ez beti-beti, (1) bildaketa-deietako erreferentzi hitzak, (2) etimologietan aipatu edozein hizkuntzako hitzak, eta (3) literatur adibideetako erreferentziak azpimarratzeko balio du:

- (1) Obtestación, véase *protesta*.
 (2) Calabaza (...) y de aquí viene el Latín *cucurbita*, y...
 (3) Desperpentar, cortar, llevarse de un golpe, arrancar, cortando con violencia, *zatautsi*, *beingoan epaqui*. Lat. (...). *F. Juan de Santa Maria Relac. de los Martyres de el Japón cap. 5. Y a quatro hachazos...*

Baina, (1) A letran bederen askotan huts egiten du; (2) gehienetan borobilez agertzen dira (cf., adibidez, *absorto*, *vello*, *veloz*); eta (3) *HH*-an zehar halako beste bat bakarrik aurkitu ahal izan dut (s.v. *hoya*), eta laburduraz emana egoteaz gainera borobilez dago: "Ambr. Mor. lib. 9. cap. 7".

Aurkezpen grafikoaren aldetik, beraz, ereduak eragin gutxi izan zuen *HH*-an: begien aitzinean garaiko hiztegiak landuenetakoa izan arren, Larramendi aurreko mendeko eta are lehenagoko hiztegi zenbaitek bakarrik aurkezten duten bereizkuntza maila txikira baino ez zen iritsi: adibidez, Francisco del Rosal-en hiztegi etimologikoa (c. 1601; ik. Carrasco 1992: 84) eta Covarrubias (1611; ik. von Gemmingen 1992: 25) gaztelaniazkoen artean, eta katalanez Busa-

⁹⁵ Era ezberdinetako baliabideak (hala nola gaztelaniazko azalpenak edo zehaztapenak, batez ere) erabiltzen ditu, bat ere ez formarekin, tipografiarekin, lotuta. Honetaz, ik. § 5.3.1.

ren *Lexicon* ere (1507; ik. Colon & Soberanas 1985: 60) honelatsukoak dira. Hiztegi arkaiko xamar hauetan, *HH*-an bezalaxe, hiztegi modernoetan goitik beherako irakurketa errazteko makroegiturari (hiztegiaren antolakuntza orokorra) edo mikroegiturari (sarreraren antolakuntza) dagozkien ezaugarri bereziak elkarrekin —nahasita— agertzen dira (Colon & Soberanas *loc. cit.*).

Alabaina, *DAut*-ek aurkezpen grafikoan dituen abantailak guretzat bezain argiak izan behar ziren berarentzat ere. Bestelako arrazoiak bilatu beharko genituzke, beraz, Larramendiren jokabidea ulertzeko. Baliteke, adibidez, diruak baldintzatuta egotea, baina alderdi askotatik ez zait iruditzen erabakigarria izan zenik. Ez dakigu ezertxo ere Gipuzkoako Foru Aldundiak bere gain hartu zuen betebeharrak, liburua ordaindu zuela izan ezik; ez dakigu, beraz, dirulaguntzari mugarik ezarri zion ala ez, baina hurrengo mendeko lanez dakigunaren arabera⁹⁶ egin daiteke ordaintzeko erabakia originala ezagutu ondoren hartu zuela eta, ziurrenik, argitaratzailearen faktura ordaintzera mugatu zela. Nolanahi ere den, ez dago pentsatzerik versal batzuek liburua garestituko zutenik, gainezkatzea lan zail eta garestia den bitartean (Bray 1989a: 139).

Egia da, bestalde, euskal eredu falta nabarmena jasan zuela. Lanaren bukaeran baino ikusi ez zituen Harrieten hiztegitxoek, berriz, ez dauzkate *HH*-aren zailtasun gehienak, zeren eta hizkuntz hiztegi huts-hutsak izanik (“hiztegi itzultzaile” deritzenetakoak), aski baitu hizkuntza bakoitzekoa letra mota batez adieraztea: zehazkiago, bai euskara-frantsesa bai frantsesa-euskara hiztegian, frantsesa etzanaz agertzen da eta euskara borobilaz. Ohartzekoa da, oster, hemen ere aurkitzen dela *HH*-an azpimarratu dugun desegokitasunetatik bat, alegia, item-ek hierarkiaren aldetik bata bestearen menpeko diren gauzak maila berean aurkeztea: (1) aditza vs partizipioa; (2) genero ezberdinak; (3) erabilera ezberdinak; (4) hitza vs haren erabilerak edo adibideak; eta (5) adiera ezberdinak:

- | | | | |
|-----|--|-----|--|
| (1) | abandonatzea, largatzea, <i>abandonner</i> .
largatua, <i>abandonné</i> . | (2) | adisquidea, <i>ami, m</i> .
adisquidea, <i>amie, f</i> . |
| (3) | á la mere, <i>amari</i> .
á faire, <i>eguiterat</i> . | (4) | abri, <i>leiorra, malda</i> .
a l'abri, <i>maldan, estalgunan, atherian</i> .
accusser, <i>acusatzea, gaineguitea</i> .
il m'a accusé, <i>ene gaiñ eguin du</i> . |
| (5) | esperer, <i>uste içatea</i> .
esperer, <i>iguriquitzea</i> . | | |

Azalpena —edo azalpenaren zati bat— eskarmenturik eza izan daiteke, beraz. Halaz ere, oso egiantzekoa dirudi erabilitako argitaletxearen mugak izateak. Gogora dezagun Gipuzkoan inprentak ordura arte zeukan historia laburra:⁹⁷ Larramendiren hiztegia izan liteke, oso erraz, Riesgok egin zuen lan handi eta zailena.⁹⁸

⁹⁶ Ik. Urgell 1995: xxii-xxxii, Aldundiak Lardizabalen eta besteren lanekiko izan zuen jarreraz.

⁹⁷ Vinsonen lanean *HH* baino lehenago hiru liburu bakarrik agertzen dira Donostian argitaratuak, hirurak Pedro de Uharte edo Ugarterenean: Luzuriagaren *Paronympho Celeste...*, Arantzazuko santutegiaren

Edonola ere, ezin dugu erantzukizuna Larramendiren bizkar gainetik zeharo kendu. Letra bereizgarri bakarra, etzana, baliatu zuen, ia bakarrik euskara markatzeko erabili ere, ikusi dugun bezala. Gutxieneko baliabideekin jokatzera estututa dagoenean, zuhurra apaingarriak alde batera utzi eta funtsezkoarekin bakarrik geratzen da: eta funtsezkoa *HH*-an euskara da. Tipografikoki, argi eta garbi, *euskarazko* hiztegi kontzeptua erabat indartuta ateratzen da.

Ehun urtez, dakigun bezala, ez da beste euskal hiztegiarik argitaratzen eta, beraz, ez eta *HH*-ak planteatzen dituen arazo teknikoei bestelako erantzunik emateko aukerarik ere. Hurrengo argitalpenean —*HH*-aren bigarreanean (1853), hain zuzen— sarreraren bilatze lana itxuraberritu eta erraztu zen, barruko izenburutxoak kendu eta zutabe gainekoak hiru letratar hedatuaz; honezaz gainera, bada makroegitura eta mikroegituraren arteko bereizketari dagokion aldaketa garrantzitsu bat: lerrokada sistema mantendu bazen ere, sarrera-burua letra beltzez dago, adierak-eta versal versalitarekin erabiliaz adierazita dauden bitartean.

1.6. Ondorioak

la-ia gutxieneko kopuruekin bakarrik jokatuaz *HH*-ak 40.000 sarrera baino nahikoa gehiago eta, batzaz beste, beste horrenbeste euskal hitz dituzkeela mugatu ahal izan dugu, barruan aurki dezakegun aberastasun eta ñabartasunaren behin-behineko erakusgarri gisara.

Gutxi gorabeherako hurbilketa hau aski da, gainera, ezagutzen ditugun XVII-XVIII. mendeetako gainerako hiztegietatik Larramendirenera tamaina jauzi handia dagoela baieztatzeko. Jauzia espero izatekoa zatekeen baldin eta Larramendik aurreko tradizio lexicografikoaren alerik onenak (Pouvreau, demagun) helmenean izan bazituen, zeren eta hiztegiak "...are by nature cautious men, more given to copying than to starting afresh (...)" (Osselton 1983: 13). Esate baterako, nabarmena da garapen lexicografiko goiztiar eta jarraia izan duen frantsesa bezalako hizkuntza batean eta dagokigun garaitsuan, hiztegi orokorrek gero eta hitz gehiago jasotzen dituztela (Quemada 1967: 266), jadanik jasotakoa emendatuaz aitzinatzen den norgehiagoka etengabe. Larramendi, ordea, ia aitzindaririk gabe edo, hobeto esanda, berearen aldean ia ezer ez diren hiru hiztegi baizik (Landucci, Etxeberri Sarakoa eta Harriet) ezin erabilirik aurkitu zen. Honezkero, badakigu ezen ezohiko ahalegina egin behar izan zuela, ziurrenik ezohiko motiboengatik, eta hartarako aurkitu zuen euskarria bere gaztelaniazko eredu —*DAut*, alegia— izan zela.

Tradizio lexicografiko sendorik eta euskaraz alfabetatutako erabiltzailegairik ezean, Larramendik —oraintsu arte aurreko eta osteko gainerako euskal hiztegiak guztiek bezala— hiztegi nagusiki elebidun bat egitea erabaki zuen. *HH*-ak hirugarren hizkuntza bat ere —latina— aurkezten du, baina dudarik gabe ohituraren eta, zuzenago, ereduaren eraginez eta, hortaz,

historia baten bigarren argitalpena (Vinson 1891-1898: 40b zb.), Zubiaren dotrina (*ib.* 42a zb.) eta Otxoarena (45. zb.).

⁹⁸ Hainbat urtez Gasteizen bizi eta lan egin ondoren, Riesgo Donostiara joan zen 1735ean, Aldundiaren argitaratzaile izateko, hain zuzen (Santoyo 1995: 74).

apaingarri moduko zerbait izateko itxura baino ez daukana. Ikertzeko geratzen da, dena dela, euskararen eta latinaren artean erlazio aipagarriak dagoen *HH*-an.

Ereduak izugarritzko garrantzia dauka *HH* edozein alderditatik ikuskatzerakoan. Hasteko, gutxienez sarrera-buruan ipini behar zukeen gaztelaniazko nomenklatura ezarrita eta alfabetikoki ordenatuta begibistan izateko aukera eman zion; hitz biltze eta ordenatze lanaren neketsua ezagututa, lexikografikoki ez dugu axola gutxiko kontua:

All, or nearly all, dictionaries derive from other dictionaries, for the simple reason that no single compiler could devise any reasonably adequate list of entries in the right sequence, or find the time to collect and order a complete list from casual reading or conversation (Osselton 1973: 42-44).

Alabaina, hiztegiaren izaera eta betebeharraren alderditik ere funtsezko ondorio zenbait ateratzeko oina ematen digu. Adibide ezberdinen bitartez ikusi ahal izan dugu lexikografoak bere asmoei hobeto egokitzen zaizkien eredia eta antolakuntza hautatu ohi dituela. *DAut* eredutzat aukeratzeak, ezer baino lehenago, euskarak kantitatean eta kalitatean erantzun beharko ziola jakinaren gainean egotea eskatzen du. Beraz, alderantziz egokiago helduko diogu gaiari: alegia, *DAut* bezalako hiztegi bat hautatu zuen halako ondorioak lortu nahi zituelako, hain zuzen. Izan ere, Larramendik berak diosku bere asmoa euskara ikasteko eta kultura —bere erabiltzaileei zegokienez, gaztelaniaz zetorren kultura— euskarara itzuli ahal izateko tresna bat eskaini nahi zuela. *DAut*-ek, garaiko gaztelaniazko hiztegiarik onena eta osoena, gainez ere betetzen du lehen funtzioa (xumeago batekin ere aski izan zitekeen eta), eta nagusiki bigarrenari egokitzen zaio, zeren eta biltzen baitu —hutsuneak hutsune (cf. Seco 1987: 133 t. hur.)— gaztelaniazko liburu onenetatik-eta jasotako lexiko guztia. Bide batez, Larramendik hala liburuaren laguntzaz egiten duen laudorioak nola euskal liburu gutxiegi izateaz egiten duen deitorea argi aski adierazten dute ereduaren *autoritate hiztegi* izaerari eskaini zion garrantzia.

Halako asmoekin, hizkuntzak ezinbestean gaztelania-euskara ordenan ezarri behar ziren, alderantzizko ordenak —berak zioenez— euskaraz idatzitako liburu gutxiak irakurtzeko bakarrik balio baitzezakeen, une hartan oraindik oso premia gutxiko kontua eta, gainera, hiztegi txikiago batek ere ederki bete zezakeena.

DAut-ek asmoa errazkiago betetzeko euskarria eskaini zion, beraz, eta aurrerantzeko ataletan ezinbestean behin eta berriz harekiko eraketara jo beharko dugu Larramendik bertatik hartu zuena, hartu ez zuena eta berritu zuena, hots, nola eta zertarako erabili zuen jakiteko. Haatik, aurrez egin daiteke tradizio elebidun sendo baten gainean eraikitzen diren hiztegien aldean *HH*-ak gorabehera gehiago izango dituela, euskara sartzeak berekin zekartzan arazo gehienei lehenengoz aurre egin behar izan zenez gero. Dagoeneko *DAut* eta *HH*-aren arteko ezberdintasun zenbait somatu ditugu, somatu ere, eta badirudi denak edo gehienak alde honetatik datozkeela.

Lehenik, batetik bestera tamaina jaitsiera nabarmena dago. Gehiegi hausnartu gabe, hiztegi elebarkar erraldoi bat elebidun erabilgarri bihurtzeko egindako operazio ezberdinen ondorio normala dela ondoriozta dezakegu: inondik ere, ereduko informazioaren zati handi bat

hutsala edota gehiegizkoa izan daiteke euskara erakustea xedetzat daukan hiztegi baterako; besteak beste, gaztelaniari dagokion ia guztia jakintzat eman zezakeela dirudi. Geroago arakatu beharko dugun gaia da.

Antolakuntzari dagokionez, bigarrenik, badakigu Larramendik hitzak zirriborroan lehenengo bi letren arabera ordenatzen zituela, horretarako konbinazio bakoitzari behar adina orrialde eskainiaz. Pentsatzekoa da, ostera, *DAut*-en antolakuntzak lan handia kendu ziola, baina hau ere ikertzeko gaia dugu.

Eta, azkenik, aurkezpen grafikoaren aldetik, *HH* oso itxura arkaikokoa dela ikusi dugu, *DAut*-en aldean tipografi baliabide gutxi eta bereizkuntza botere oso urrikoak erabiltzen ditu eta. Larramendik ez zuen ia ezer profitatu *DAut*-ek eskaintzen zion eredu aberats eta zaindutik; beharbada ez zuen baloratzen ere jakin. Ondorioz, hiztegia irekitzerakoan, AB-AC erako zutabe gaineko eta barruko izenburutxoak alde batera utzita, frantses lerrokada hurrenkera huts bat baizik ezin antzeman dezakegu: sarreren eta adieren arteko ezberdintasuna erabat ezabatuta dago *HH*-an, baita hauen eta esapide, errefrau zein bestelako oharren artekoa ere. Hortaz, erabiltzaileak kontu handiz ibili behar du, goraxeago edo beheraxeago interesgarria den zerbait ez ote den egongo.

Bestalde, argi eta garbi bereizteko moduan dagoen sarrerako osagai bakarra euskarazkoa da, letra etzanaz azpimarratua, gainerakoa —gaztelania zein latina, sarrera-buruak zein azalpenak, etab.— letra tamaina eta forma berberaz (borobil txikiaz) dago eta; latinak “Lat.” laburdurarekin halako autonomia bat izaten du, dena dela. Honek arta berezia eskatzen dio erabiltzaileari —baita ikertzaileari ere, noski—, zer zer den jakiteko, guztiz gaztelaniatzko zatietan; baina, bide batez, hiztegiak garrantzi gehiena zeri ematen zion ondotoxo erakusten digu.

2. Alfabetatze maila

Lakarrak (1993: 20) gogoratu digun bezala, hiztegiak abeze hertsiaeren arabera ordenatzeko ohitura aski berria da. Ohiturarekin batera, hiztegiak halaxe —eta halaxe bakarrik— izan behar direlako uste okerra ere erabat hedatu da. XVII. mendean, Frantzian, alfabeto hurrenkera *le bel ordre* bilakatzen da, eta *ordre dictionnaire* zein *en forme de dictionnaire* orduko esapideek argi eta garbi adierazten dute berehala alfabeto hurrenkera eta hiztegia zeharo berdindu zirela (Quemada 1967: 328).

Alabaina, XVII. mendera arte hiztegiarik usukoenak gramatika kategoria zein alor semantikoen arabekoak ziren; alfabetoaren arabera ordenatutako hiztegiak gehienez ere AB ordenaraino (hots, lehenengo bi letren arabekoraino) heltzen ziren. Ingelesak, adibidez, ez zuen gehiago erdietsi Cawdrey-en *A Table Alphabeticall* (1604) arte, izen ezin adierazgarriagoaz. Dena den, honetan ez eze geroko guztietan ere (1755eko Samuel Johnson-ena arte behinik behin) alfabetatze maila ez da hertsia-hertsia, zenbait gertakarik —ez gutxitan ustekabekoak— alda dezaketena baizik (Osselton 1989a: 169).

Alfabeto hurrenkeraren historia Erdi Aroan hasten da, lehenengo letarren edo lehenengo bi letren arabera ordenatutako glosarioekin.⁹⁹ Sarrera kopurua handitu ahala, sistema gero eta desegokiago bilakatuaz zihoan; halaz ere, hobekuntzak oso pixkanaka gertatu ziren, eta irakurleak eurak sisteman hezi beharra agerrian dago aitzindarietan.¹⁰⁰ Gure artean, Martin Harrietek honela azaltzen dio irakurle euskaldunari alfabeto hurrenkeraren erabilera:

Seguidan aurquituco dituçu jesueco letrac beçala hitz beharren direnen explicatione edo balioa, escuaraz *atic* hasten diren hitçac lehenic, guero *betic* hasten direnac, eta guero berceac seguidida hartan, halatan noiz ere jaquiñ nahi baituçu nola deitzen den *aita* francesez, beha dioçoçu nola hasten den escuaraz hitz hori, eta aurquitcen duçu *ai* hasten dela, goan çaita bada *ai* hitçac hasten diren plamura, eta aurquituco duçu *aita*, *pere*, eta hala eguiñen duçu bercetan ere, hitçac escuaraz

⁹⁹ Ik. Hüllen 1989: 109-114, zehaztapen jakingarri batekin: "Admittedly, the alphabetical dictionary (...) outran all the others in the course of history. But this because alphabetisation proved more practical for the needs of dictionary users (...) not because it was *per se* lexicographically more advanced".

¹⁰⁰ Ik. Osselton 1989a: 166, Cawdrey-ren azalpenei buruz.

hasten diren diccionarioan, eta jaquiñ nahi duçunean cembait francez hitz, aurquituco duçu guisa hartan berean francez hitçac lehenic eçarriac diren diccionarioan... (Harriet 1741: 266).

Bilakaera lasaian, ezpairik gabe, parte handia izan zuten ortografiak eta honi buruzko konbentzioek (Quemada 1967: 324-325 eta Picoche & Marchello-Nizia 1989: 333), ezen hitzen idazkera eta letren hurrenkera ongi finkatu artean oso aldakorra baitzatekeen hitz batek hiztegi alfabetikoan bete zezakeen lekua, agerian denez.

Espainiako akademikoek alfabetozko ordena hobetsi zuten, beste era bateko hiztegiak (hitz familiaka antolatutakoak, zehazkiago)¹⁰¹ ere hautagai zitezkeela buruan zutela: "...observando rigurosamente el orden Alfabético en su colocación: y assí todas se deben buscar por él, y no por sus raíces y voces primitivas de quienes se derivan, habiendo tenido la Academia este método por más claro" (*DAut* 1726 : vi)¹⁰². Larramendik, bere aldetik, ez zuen gaia agerian ikutu. Jakintzat eman behar dugu, beraz, eta ondoren frogapean jarri, ereduari atxiki zitzaiola.

Izan ere, bi hiztegi on antolamendu orokorra bera da, hitzaren lehendabiziko letraren arabera egindakoa eta letra berak aintzat hartuta, aurkezpen grafikoa ezberdina den arren: *DAut*-ek "letra loratua" edo "historiatua" deitu ohi denaz irekitzen ditu atalak, honen alboan eta azpian letraren ahoskeraz eta erabilerazko oharra batzen dituen sarrera bat eginez: "A. PRIMERA letra del alfabeto...", "B. SEGUNDA letra del Alfabeto...", etab., "Z. ULTIMA letra de nuestro Alfabeto..." arte. Larramendik, berriz, "DE LA LETRA A", "DE LA LETRA B",... "DE LA LETRA Z" izenburuez egiten ditu bereizketak: letrek ez daukate sarrerarik *HH*-an, eta letra loratua saileko lehenengo hitzari egokitzen zaio. Hurrenkera konbentzioak, ostera, berdinak dira: bietan CH C letraren barrukoa da (CE-CH-CI), LL L-koa (LI-LL-LO) eta Ñ N-ren bukaeran dator (NY-ÑA-[ÑI])¹⁰³-ÑO-ÑU); halaber, Harrietenean ez bezala (Lakarra 1993: 140), I eta J eta U eta V

¹⁰¹ Eta, zehazkiago oraindik, Frantziako Akademiaren hiztegia: "Comme la Langue Françoisse a des mots Primitifs, & des mots Derivez et Composez, on a jugé qu'il seroit agreable & instructif de disposer le Dictionnaire par Racines, c'est à dire de ranger tous les mots Derivez & Composez après les mots Primitifs dont ils descendent..." ("Préface", ap. Finoli 1959: 135). Vauguelas-ek, besteak beste, hurrenkera alfabetikoa zeharo gaitzesten zuen: "...cet ordre Alfabétique ne produit de soy autre chose, que de faire trouver les matières plus promptement; c'est pourquoy il a tousjours esté estimé le dernier de tous les ordres, qui ne contribuë rien à l'intelligence des matieres que l'on traite" (*Remarques sur la langue françoise...*, Paris, 1934, vii, ap. Quemada 1967: 333-334). *DAut*-en ereduez oro har, ik. Lázaro Carreter 1981: 102 t. hur.

¹⁰² Egiantan, lehenengo unean hiztegi misto bat egiteko asmoa hartu zuten, alegia, eratorri eta elkartuak behin familiaka eta gero alfabetozko ordenan ezartzea: "Poner las voces primitivas con su Definición u Descripción, y su Etymología; y después las derivadas, compuestas..." (*DAut* 1726 : xvi) eta geroxeago: "La explicación u definición, uso y phrases de los Verbos o Voces derivadas o compuestas que se ponen seguidas a sus Raíces, se reservará para dársela en el lugar que les toca del riguroso Alfabeto. Por ser adonde quien las huviere menester, naturalmente las ha de buscar de primera instancia; a causa de ignorar, u de no hacer la bastante reflexión a que son derivadas o compuestas de otras Voces simples o primitivas" (*ib.* xvii).

¹⁰³ Honen azpian agertzen den hitz bakarra, *ñiquiñaque*, ez du Larramendik jaso.

ongi berezita datoz.¹⁰⁴ Maila honetan dagoen ezberdintasun bakarra, *HH*-an K letra desagertu izana da.¹⁰⁵

Bat da, berebat, bigarren mailako antolamendua, letra bakoitzaren barnekoa, beti hitzaren lehenengo bi letren arabera egina, jadanik ezagutzen ditugun izenburutxoek bitartez: AB, AC, AD, AF, etab., alfabetatzea bigarren letrarainokoa bakarrik bailitzan. Euskal hiztegietan, zatikaketa bera aurkitzen dugu Urterenean ere (Lakarra 1993: 125), baina XIX. mendeko hiztegi argitaratueta zeharo desagertu da, espero izatekoa zen bezala: ez dago antzekorik ezer van Eys-enean (1873), eta Fabrék (1870) eta Aizkibekek (1883) zutabe gaineko izenburutxoak bakarrik eskaintzen dituzte, hiru letrakoak bietan.

DAut eta *HH*-aren arteko ezberdintasunak hemendik beheragoko mailan, hitzen benetako hurrenez hurrenean hasten dira. Bietan alfabetatze maila ez da erabatekoa, hots, alfabetoa ez da beti eta salbuespenik gabe irizpide bakarra. Honaino berdintasuna. Ezberdintasuna, berriz, honetan datza, alegia, *DAut* hurbilago dagoela erabateko alfabetatzetik *HH* baino. Zeren Larramendi ereduari atxiki zaio baita alfabeto hurrenkera apurtzen zuenean ere, baina zenbait desbideratze berri erantsi ditu. Konpli da, beraz, bi gertakariok zein bere aldetik azter ditzagun.

2.1. *DAut*-ek eragindako desbideratzeak

Atal honetan gertakari sistematikoak bakarrik aztertuko ditugu, hots, jakinaren gainean egindakoak; Larramendiren hiztegiarekiko erkaketak geroago *DAut*-en dauden oharkabeko desbideratzeak agerian jarriko ditu (ik. § 2.4.3).

2.1.1. Partizipioak

DAut-en alfabeto hurrenkera hausten duten gertakari sistematiko bakarrak partizipioak omen dira, akademikoek hitzaurrean esandakoaren arabera:¹⁰⁶

del qual [metodotik] sólo se exceptúan los participios de los verbos, porque en ellos para mayor brevedad, y no repetir todos los significados de cada uno (que algunas veces son muchos) se ponen inmediatos a los verbos, no observando en ellos el rigor Alfabético, en cuyo orden varias veces tuvieran lugar mui lejos de sus verbos, y las más antes que éstos, lo que sería de notable desproporción (*DAut* 1726: vi).

¹⁰⁴ Larramendik bere burua "DE LA LETRA U VOCAL" zehaztera behartuta ikusi zuen, eta ez da harrigarria, bien arteko bereizkuntza gaztelaniaz *DAut*-ek finkatu baitzuen (ik. *DAut* 1726: lxxi eta Lázaro Carreter 1981: 109, batez ere 34. oh.).

¹⁰⁵ K letratik *HH*-ra igaro diren hitz bakarrak C azpian agertzen dira (*calenda*, *calendario*), baina ohartu behar da biok *DAut*-en ere sarrera dutela ("CALENDA. Vease Kalenda", "CALENDARIO. Vease Calendario"), gainerakoek ez bezala.

¹⁰⁶ Hemendik aurrera, *DAut*-eko sarrera-buruak letra larriz aipatuko ditut, eta *HH*-koak letra xehez, halaxe izateaz gainera, bien arteko berehalako bereizketa egiten laguntzen digute eta. Bestalde, batean zein bestean, beharrezkoa denean baizik ez ditut aipatzen hitz segidetan bigarren mailako adierak eta esapideak.

Partizipioen eredura eraturako baina bakartuta —hau da, aditzik gabe— agertzen diren zenbait gorabehera (ALFEÑADO, ALFORJADO, etab., Akademiak beti adjektibotzat joak eta alfabetoaren arabera dagokien lekuan sartuak), horixe da, hutsik gabe, *DAut*-ek darabilen sistema; hiztegia nola bakuntzen eta erosoagotzen duen ikusteko, adibide batek bost azalpenek baino argi gehiago egingo digu:

ABALANZAR. Igualar los pesos de la balanza...
ABALANZAR. Acometer de repente...
ABALANZARSE. Arrojar con ímpetu...
ABALANZADO, DA. part. pas. de este verbo, según sus acepciones.

Interesgarria da, alde honetatik, partizipio irregularretan ere bide berari jarraitu ziotela ohartzea:

ABRIR. ABIERTO. ABROCHADURA...
DECIR. DICHO. DECISION...
FREIR. FRITO. FREMITO...
HACER. HECHO. HACHA...
VOLVER. VUELTO. VOLVIBLE...

Honelako partizipioen erro beretik datozen gainerako hitzak, berriz, beren tokian agertzen dira salbuespenik gabe:

ABEZAR. ABIERTAMENTE. ABIGARRAR...
DICHARACHO. DICHIDO. DICHO. DICHO. DICHOSAMENTE...
FRITILLAS. FRITO. FRITURA...
HECHIZO. HECHO. HECHO. HECHURA...
VUELO. VUELTA. VUESSA MERCED...

Ikusi bost adibideetatik hirutan, partizipioa bera ere bere tokian agertzen da, baina irakurlea infinitibora bidaltzea beste xederik gabe:

DICHO, CHA. part. pass. del verbo Decir. Vease Decir.
FRITO, TA. part. pass. del verbo Freir. Vease Freir.
HECHO, CHA. part. pass. del verbo Hacer. Vease Hacer.

DAut-en eraginez, beraz, *HH*-an ere partizipio guztiak infinitiboaren ondoren agertu ohi dira:

Abanderizarse. Abanderizados. // Abandonar. Abandonado. // Abrir. Abierta. Abierto. // Decir. Dicho. // Freir. Frito. // Hazer. Hecho. // Sepultar. Sepultado. // Templar. Templado. // Volver. Vuelto.

Halaber, inoiz edo behin partizipio irregularra berez zegokion tokian errepikatzen da:

Abiar. Abierta, to. Abigarrado. // Fritada. Frito. Friura.

Behin, bi eratako partizipioak jarraian atzeman ditugu batean eta bestean:

POSSEER.	Posseer.
POSSEIDO.	Posseído.
POSSESSO "Segundo part. del verb. Posseer...".	Possesso.
POSSESSION.	Possesión.

2.1.2. -nte atzizkidun adjektiboak

Akademikoek partizipioen sail berean sartu zituzten tradizionalki "participio activo" izenaz ("Part.act." *DAut*-en laburduretan) ezagutu izan diren *-nte* atzizkidun aditz-adjektiboak¹⁰⁷ eta, hortaz, hauek ere alfabeto hurrenkera hautsiaz infinitiboaren ondoan ezarri zituzten; agertzen denean, lehen aipatu partizipioaren (*DAut*-en hitzetan "Part.pas." = "Participio passivo"-aren) aitzineko lekua hartzen du "aktiboak". Ordena bera aurkitu ohi dugu *HH*-an ere:

DELATAR. DELATANTE. DELATADO > Delatar. Delatante. Delatado.
DELEGAR. DELEGANTE. DELEGADO > Delegar. Delegante. Delegado.
DELINQUIR. DELINQUENTE > Delinquir. Delinvente.
DELIRAR. DELIRANTE > Delirar. Delirante.
JUDAIZAR. JUDAIZANTE > Judaizar. Judaizante.
NAUFRAGAR. NAUFRAGANTE > Naufragar. Naufragante.
NACER. NACIENTE. NACIDO > Nacer. Naciente. Nacido.
OBEDECER. OBEDECIENTE. OBEDECIDO > Obedecer. Obediente. Obedecido.
OBSEQUIAR. OBSEQUIANTE. OBSEQUIADO > Obsequiar. Obsequiante. Obsequiado.
QUEBRANTAR. QUEBRANTANTE. QUEBRANTADO > Quebrantar. Quebrantante. Quebrantado.
OBSTAR. OBSTANTE > Obstar. Obstante.
OCURRIR. OCURRENTE > Ocurrir. Ocurrente.
PADECER. PADECIENTE > Padecer. Padeciente.
PALPITAR. PALPITANTE > Palpitar. Palpitante.
QUERELLARSE. QUERELLANTE > Querellarse. Querellante.
VACAR. VACANTE > Vacar. Vacante.
VACILAR. VACILANTE > Vacilar. Vacilante.
VAGAR. VAGANTE > Vagar. Vagante.
YACER. YACENTE > Yacer. Yacente.

Aurkitu dudun salbuespen bakarrean, partizipio aktiboa dagokion lekura itzulia izan da, ziurrenik *-mente* atzizkidun bere eratorriaren eraginez (ik. § 2.4.1.3):

IGNORANCIA. IGNORANTEMENTE... IGNORAR. IGNORANTE. IGNORADO > Ignorancia. Ignorante. Ignorantemente. Ignorar. Ignorado.

Nolanahi ere, badira batoren eta bestearen ereduak zertxobait ezberdinak egiten dituzten gertakari bi. Lehena, hiru osagaien hurrenkera *HH*-an kostata mantentzen dela, partizipio pasiboak oro har aditzari itsatsita jarraitzeko joera handia baitauka (ik. § 2.4.7.2), besteak beste:

AMAR. AMANTE. AMADO > Amar. Amado. Amante.
DEPONER. DEPONER... DEPONENTE. DEPONENTE. DEPUESTO > Deponer. Depuesto. Deponer... Deponente.
QUEBRAR. QUEBRAR... QUEBRANTE. QUEBRADO > Quebrar. Quebrado... Quebrante. Quebrado.
QUEMAR. QUEMAR. QUEMARSE. QUEMARSE... QUEMANTE. QUEMADO > Quemar. Quemado. Quemarse. Quemante.
RASPAR. RASPAR... RASPANTE. RASPADO > Raspar. Raspado. Raspar... Raspante.
VERTER. VERTIENTE. VERTIDO > Verter. Vertido. Vertiente.

¹⁰⁷ Eta adjektiboak bakarrik: etorki bereko izenak dagokien lekuan azaltzen dira: "BATIDOR. BATIENTE. BATIFULLA...", adibidez. Gauza bera gertatzen da aldean aditzik ez dutenekin ere (BALBUICIENTE, kasurako), eta honelakoak "adj." laburdurarekin agertzen dira. Harrigarriago egiten zait ARDIENTE ere dagokion lekuan (eta "adj." laburduraz) agertzea, eta ez bere infinitiboarekin, aipatzen duten lat. *ardens*-etiko etorki zuzenak azaltzen ez badu behintzat. Gorabehera hauek, denak alfabeto hurrenkerearen aldekoak, erantzuna daukate *HH*-an: "Ardidoso", "Ardiente", "Ardientemente"; "Balazo", "Balbuiciente", "Balcon".

Bigarrena, partizipio pasiboa ez dela beti-beti jasotzen:¹⁰⁸

ANDAR. ANDANTE. ANDADO / Andar. Andante.
CADUCAR. CADUCANTE. CADUCADO / Caducar. Caducante.
OBSERVAR. OBSERVANTE. OBSERVADO / Observar. Observante.

2.1.3. -se aditzak

DAut-ek ez du beti jokabide bera gaztelaniaz aski sail ñabarra osatzen duten aditz hauei dagokienez; alde batetik, sarrera nagusi gisa ager daitezke, aditza eta partizipio pasiboaren artean, eta "v.r." (= "verbo reciproco") markaz lagunduta:

ABALANZAR. ABALANZAR. ABALANZARSE. ABALANZADO. ABALGAR...
ABANDONAR. ABANDONARSE. ABANDONADO...
BANDEAR. BANDEAR. BANDEAR. BANDEARSE. BANDEADO...
QUEMAR. QUEMAR. QUEMARSE. QUEMARSE. QUEMARSE... QUEMANTE. QUEMADO...
SACRAMENTAR. SACRAMENTARSE. SACRAMENTADO...
ZABULLIR. ZABULLIRSE. ZABULLIRSE. ZABULLIDO...

Bestetan aditzpean, azpisarrera gisa agertzen dira (noiz versalez, noiz versal txikiz), esapideen aurretik:

CAER. CAER. CAER... CAERSE. CAER A ESTA... CAIDO...
CALAR. CALAR. CALAR... CALARSE. CALARSE. CALAR EL CAN. CALADO...
ECHAR. ECHAR. ECHAR... ECHARSE. ECHARSE. ECHARSE. ECHAR A BORBOTONES. ECHADO...
ENRISCAR. ENRISCARSE. ENRISCADO...
EXPLAYAR. EXPLAYARSE. EXPLAYARSE. EXPLAYADO...
GORGEAR. GORGEARSE...
GOZAR. GOZARSE. GOZAR DE DIOS... GOZADO...

Bestetan, azkenik, eurak dira burua:

ATUFARSE. ATUFADO...
AVECINDARSE. AVECINDADO...
AVEJENTARSE. AVEJENTADO...

DAut-i dagokionez, lehenengo erara bakarrik hausten da alfabeto hurrenkera nagusia, azpisarrerak grafikoki ongi bereizita daudelako, dakigunez: aurretik ez dago inoiz arazorik, baina bai batzuetan atzetik; eman sei adibideetatik bakar batean —aski, ordea— hurrenkerak *sacramentar* - *sacramentario* - *sacramentarse* eskatuko luke. Dakusgunez, hitzaurrean iragarri zutena baino zertxobait gehiago dago hiztegi honetan: *DAut*-en egileentzat aditza forma multzo bat da, infinitiboa, -se forma, partizipio aktiboa eta partizipio pasiboa hartzen dituen —edo har ditzakeena— eta infinitiboa da haietatik alfabetozko lekua beti gordetzen duen bakarra.

Esan gabe doa gertakariok ere *HH*-an nolabait islatuta daudela; era ezberdin batean, ordea, *DAut*-en bereizketa grafiko sistema aberatsa ez daukalako, besteak beste. -se aditzak oro har hartuta, lau ondorio aurkitu ditut, goian emandako sailkapena aldez bakarrik gogoraraziaz:

¹⁰⁸ Partizipio pasiboak *DAut*-etik *HH*-ra bitartean desagertu diren hitz multzoetatik garrantzitsuenetako bat da; anitzek oraindik lekua aurkitu bazuten ere, itxura guztien arabera Larramendi neurri bateraino infinitiboa eta partizipioa sarrera banatan euskarara itzultzea denbora (eta lekua, batez ere) galtzea zela ohartu zen. Jasotzen ez diren hitzez, eta bereziki partizipioez, ik. § 4.1.1.

1) Infinitiboa eta -se aditza, biak eta ordena berean mantendu ohi ditu. Hemen ere indarra dauka goraxeago aipatu joerak: hots, batzuetan partizipioa aurreratu egiten zaio -se aditzari:

Bandear. Bandearse.
Caer. Caer. Caerse. Caerle. Caerse. Caerse. Caer malo. Caído.
Calar. Calado. Calar. Calado. Calar. Calar. Calarse. Calar. Calar. Calar. Calar. Calar.
Echar. Echarse. Echados.
Enriscar. Enriscarse. Enriscado.
Quemar. Quemar. Quemado. Quemarse.
Sacramentar. Sacramentado. Sacramentarse.
Zabullir. Zabullirse. Zabullido.

Haatik, ezberdintasun grafikoak direla kausa, hemen birritan hausten da alfabeto hurrenkera: jadanik ezagutzen dugun *sacramentar*-enari *calar-calarse-calar* (eusk. *lur cararriduna*) segida erantsi behar zaio.

2) *DAut*-eko buru-hitzak ere mantendu egin ditu:

Atufarse. Atufado.
Avecindarse. Avecindado.
Avejentarse. Avejentado.

3) Inoiz *DAut*-ekoetatik -se aditza bakarrik ezarri du, *HH*-an oro har *DAut*-eko adierak bakantzeko dagoen joerarengatik (ik. § 4.1.2): “Abalanzarse”.

4) Bestetan, eta arrazoi beragatik, ez du -se aditza jaso:

Abandonar. Abandonado. Abandono.
Explayar.
Gorgear.

2.2. *HH*-aren desbideratzeak

Larramendiren hiztegia irekitzea aski da *DAut*-en erabakiak hurrenkeratiko desbideratze bakarrak ez direla ohartzeko; bi lerrokada hartzen dituzten hitzak bakanduta, 1-2-3-4-5-6-10-11-7-8-9-12 segida "oker" hau daukagu hasiera-hasieran:

A. Aba. Ababol. Abaceria. Abacero. Abad. Abadesa. Abadía. Abada. Abadejo. Abades. Abahar.

Arrazoiak geroko utziaz, desbideratze hauen portzentaiak aterako ditut, berriro ere ingelesaren kasua erkagaitzat harturik: kontuan izan bedi Cawdrey-rena (1604) %12tik pixkat beherago geratzen dela eta ondoko hiztegitileena %6-8 inguruan dabilela, mendea bukatu ahala jaitsiaz, baina Johnsonen 1755ekoan oraindik ere zenbait badirelarik (Osselton 1989a: 166 eta 168 t. hur.).¹⁰⁹

Dagoeneko badakigu Larramendiren hiztegian *DAut*-en ereduak behartutako desbideratze portzentaia bat badela. Ez dugu, halaz ere, kontuan hartuko. Zeren erabiltzen ari garen hasierako hipotesiaren arabera hiztegitilearen eredu nagusia ez baita alfabeto

¹⁰⁹ Gehiago zehazten du, behetik Blount (1656) —%4,5 inguruan— eta goitik Coles (1676) —%11n— aipatuaz.

hurrenkera, *DAut*-en nomenklaturaren hurrenkera baizik. Beraz, alfabetatzearen hausketak eurak baino gehiago, *DAut*-en ereduari buruzko desbideratzeak dira interesatzen zaizkigunak. Horrexegatik, alfabeto hurrenkeraren kontrako gainerako okerrak ez eze *DAut*-en eredu horrekikoak ere (guztiz aditz multzoa apurtzen dutenak) sartuko ditut kopuruetan, geroko ataletan gertakari bakoitzaren nolakoak eta zenbatekoak zehaztuaz.

Ezer baino lehenago, komeni da orain artean sarrerak kontatzeko erabili dudan neurri eskasa —lerrokada, alegia— dagoeneko utz dezadan, eta alfabetatzea gorabehera *HH*-an sarreratzat har daitekeena definitzen has. Hala bada, hemendik aurrera “sarrera” adigaiari hitz baten adiera guztiak, gehi aldamenean (sarrienik azpian) agertzen diren berari buruzko azalpen, adibide, esapide, kolokazio zein errefrauek sartuko ditut, osagai hauetarik gehienak lerrokada ezberdinetan —eta, dakigunez, bereizkuntza grafikorik gabe— azaltzen diren arren. Aditzei dagokienez, berriz, orainago esana berretsiaz, sarrerak *DAut*-eko ohiko osagaiak ere (infinitiboaz gainera, *-se* aditza eta bi partizipio motak) aintzakotzat hartuko ditu.

A letrako lehen 10 orrialdeek (219 sarrera) 41 desbideratze (%18,7) eskaintzen dituzte. Portzentaia, bistan da, garaiko ingelesekin erkatuta oso altua da, altuegia nonbait. Alabaina, aukeratutako corpusa ez da inondik ere *HH* osoaren ordezkari on bat, zeren eta jarraian ikusiko dugun bezala,¹¹⁰ A letra berezia baita hiztegi honetan. Saio bera B-arekin eginez, ondorioak zeharo bestelakoak dira: nahiz sarrera kopurua handiagoa izan (300), birritan (%0,7) bakarrik hausten da alfabeto hurrenkera. H-aren (hots, I. liburukiko azken letraren) lehenengo 253 sarrerak hartuta (408-423 or.)¹¹¹, berriz, desbideratzeak 5 (%2) baino ez dira. I-n (II. liburukiko lehen letran), oraindik 417 sarrerako corpus zabalago baten gainean, desbideratzeak 6 (%1,4) dira. Eta, azkenik, Z osorik hartuta, 306 sarreratan desbideratzeak 8 dira (%2,6), altuxeago baina A-renetik oso urruti dagoen portzentaian.¹¹²

Ikusiak ikusirik, aldagunearen bila A letrara bihurtzen bagara, zati ezberdinak arakatuaz oro har portzentaia letra honetan guztian zehar gainerakoetan baino gorago dabilzala dakusgu, baina hasierako 40-50 orrialdeetan bakarrik dagoela gorago antzemandakoa, handik aurrera nahikoa txikiagoak diren bitartean. Hortaz, aldaketa B-n gertatu zela baieztatu badaiteke ere, A-ren barruan gerokoa iragartzen duen mailakatze bat dago, hurrengo taulan ikus daitekeen legez, (1) letra edo letra zatia, (2) orrialdeak, (3) aztertutako sarrera kopurua, (4) desbideratzeak eta (5) desbideratze portzentaia jasoaz:¹¹³

1	2	3	4	5
A 1	I, 1-10	219	41	%18,7
A 2	I, 33-42	252	49	%19,4
A 3	I, 43-52	208	15	%7,2

¹¹⁰ Eta dagoeneko sarrera kopuruan ere igarri diogun bezala (§ 1.1).

¹¹¹ *egin* aditzaren trinkoek betetzen dituzten 7 orrialde inguruko tartea alde batera utzi dut beste letren pareko corpusa erdiestearren.

¹¹² Beranduago (§ 2.4.3) ikusi ahalko dugu igoyeraren arrazoia zein den.

¹¹³ Corpus osoa bilduta dago 1. eranskinean.

A 4	I, 53-62	348	20	%5,7
A 5	I, 103-112	298	12	%4
A 6	I, 113-122	275	11	%4
B	I, 122-131	300	2	%0,7
H	I, 408-423	253	5	%2
I	II, 1-10	417	6	%1,4
Z	II, 384-392	306	8	%2,6
orotara			169	

Orrialdeka xehekiago ikus dezakegu:

A1	or.	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
	desb.	2	1	6	6	2	6	8	3	3	4

A2	or.	33	34	35	36	37	38	39	40	41	42
	desb.	8	8	9	4	3	1	4	6	2	4

A3	or.	43	44	45	46	47	48	49	50	51	52
	desb.	3	2	0	1	3	2	0	0	1	3

A4	or.	53	54	55	56	57	58	59	60	61	62
	desb.	2	1	0	1	1	3	3	5	2	2

A5	or.	103	104	105	106	107	108	109	110	111	112
	desb.	3	0	0	0	0	1	1	0	2	4

A6	or.	113	114	115	116	117	118	119	120	121	122
	desb.	2	2	1	0	1	0	0	1	3	1

B	or.	122	123	124	125	126	127	128	129	130	131
	desb.	0	0	0	0	0	1	0	0	1	0

H	or.	408	409	410	417	418	419	420	421	422	423
	desb.	0	0	1	0	1	0	2	1	0	0

I	or.	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
	desb.	0	1	1	0	1	1	0	0	1	1

Z	or.	384	385	386	387	388	389	390	391	392
	desb.	1	1	4	0	1	0	0	0	0

A ez diren letretan orrialdeen %41ean bakarrik agertzen da desbideratzeren bat, eta hauek orrialdeko bat baino ez dira izan ohi, Z-ko 4ko erpina zeharo isolatua dagoelarik. A-n, oster, desbideratzeak %80an agertzen dira, eta hauetatik %61a batetik gorakoa da orrialdeko.

Desbideratzeen gutxitzean, bestalde, mailakatze bat dago A-n zehar: A1 eta A2-n desbideratzeak orrialdeen %100ean agertzen dira, eta batekoak %10ean; A3 eta A4-n desbideratzeak %80an eta batekoak %25ean; A5 eta A6-n desbideratzeak %60an eta batekoak %30ean. Mailakatze hau AZ-rekin batera zeharo eteten da: B-tik aurrera desbideratzeen kopurua eta banaketa egonkorra da.

2.3. Desbideratzeen kokagunea

Urruntasun-hurbiltasun parametroen aldetik, *HH*-ko desbideratzeak maizenik AB hurrenkeraz atetikoak dira, hots, lehenengo bi letrak gutxienez errespetatzen dituzte;¹¹⁴ hauen artean usukoenak (corpusaren %77an), berriz, 1-2 lerrokadako¹¹⁵ jauzia soilik eskatzen dute;¹¹⁶ ikus ditzagun adibide batzuk:

2-3-1 Abatanar. Abatanado. Abatanador.
2-1-2 Azada. Azacan. Azada.
1-4-2-3 Bandolero. Banduxo. Bandullo. Bandurria.

3-4ko gutxi batzuk ere (11 orotara, %6,8) badira; cf., adibidez:

2-3-4-1 Alabega. Alabeo. Alabesa. Alabeces.
2-5-6-1-3-4 Alianza. Aliarse. Aliado. Aliaga. Aliara. Aliaria.
4-1-2-3-5 Importunidad. Importunación. Importunamente. Importunar. Importuno.

Handixeago diren bakan batzuetan (10etan), familia bereko hitzen arteko ordena-nahasketa bakarrik gertatu da:

3-3-5-1-4-4-2 Abatir. Abatir. Abatido. Abatidor. Abatirse. Abatirse. Abatimiento.
3-3-5-2-4-6-1 Afirmar. Afirmar. Afirmado. Afirmador. Afirmarse. Afirmativamente. Afirmación.
1-2-3-4-6-5-6-4-6-6-1 Ajustadamente. Ajustador. Ajustamiento. Ajustar. Ajustado. Ajustarse.
Ajustado. Ajustar. Ajustado. Ajustado. Ajustadamente, en este sentido.

Orain arteko guztiek hitzaren aurkikuntza oso nekez oztopa lezaketela nabaria da. Are gutxiago, jakina, dagokien lekuan deia daukatenez: *abertura* eta *abiertamente abrir*-pean azaltzen dira, baina zeinek bere lekutik hara eramaten gaituzten "Abertura. Vease abrir" eta "Abierta, to, vease *abrir*" sarrerak dituzte. Beste horrenbeste esan daiteke *hazer*-i buruz: hurrenkera "Hacendoso. Hazer. Hecho. Hacha" da,¹¹⁷ alfabetatze hertsian okerra, baina esan beharrik ez dago edozeinek aurkitzeko moduan dagoela.

Nekosoagoa dirudi, ordea, *aguardiente*, *aguamanos* eta *aguapie* aurkitzeak, *agua*-peko "Agua llovediza", "Agua bendita", etab. azpisarrerren artean nahasita baitaude, eta zein bere familiatik aldentuta: cf. "Aguage. Aguamanil. Aguanoso" hurrenkera *aguamanos*-erako eta "Aguardar. Aguardentero. Aguatocha" *aguardiente*-rako.

Badira, azkenik, erraz idoro ezin daitezkeen hitzak, benetako auzokoetatik urruti xamar daudelako: *abjurar* eta *abjuración*-ek 13ko jauzia egin dute; *alcanfor* eta *alcanforado*-k 12koa; *zainas*-ek 8koa; *almuerzo*-k 6koa; *abadesa* eta *abadía*-k 5koa, dagokien orrialdetik aurrekora igaroaz. Zailena —gaurko begiez begiratuta bederen— *asilo* da: bere lekutik 133 sarrerako jauzia egin du, <asylo>-ren tokiraino.

¹¹⁴ Zeharo normala, hasierako bi letren segidari Larramendik bai hiztegian, baita batez ere lan egiterakoan ematen zion garrantzia ezaguturik (§§ 1.3 eta 1.5.1).

¹¹⁵ Ataltxo honetan lerrokadetara itzuli naiz, hiztegi honetan irakurlearen begiek erabil dezaketen neurri bakarra izanik, noraino luzatu behar diren agertarazteko asmoz.

¹¹⁶ Espero zitezkeen bezala, A letrari, hots, aztertu corpusaren %60ari, 1-2tik gorako desbideratzeen %89,4 dagokio.

¹¹⁷ Askok erraztuaz, tartean 6 orrialde pasa trinkoen paradigmatz osatuta baitaude, besteak beste.

2.4. Desbideratzeen arrazoiak

A letrako hasiera alde batera utzita, *HH*-an garai horretako hiztegi batean espero baino desbideratze gutxiago dago, ingeles tradizioarekin erkatuta. Dударik gabe, hau ez da Larramendiren lorpena, erdizka baizik: eredutzat bereziki zuzen alfabetatutako hiztegia aukeratu zuen heinean, alegia. Alfabetatzearen aldetik, hortaz, gaingiroki esan liteke ondo dagoena *DAut*-i zor zaiola, eta gaizki dagoena, berriz, Larramendiri. Atal honetan erakutsi nahiko nuke gauzak ez direla zeharo horrela, ondoko puntu hauek frogatuaz: 1) *HH*-an dauden desbideratze gehienek azalpen trinkoa daukatela, hau da, ez direla akatsak, hiztegiko hurrenkerari buruzko ikuskera ezberdin baten ondorenak baizik; 2) batzuk *DAut*-ek eragindakoak direla; eta 3) A-n eta gainerako letretan dauden desbideratze motak berak direla, hots, maiztasuna dela aldatzen den gauza bakarra.

2.4.1. Hitz-familiak

Gorago ikusi bezala, hitzak ez abeze hertsiaeren arabera, familiaka baizik antolatzea, *DAut*-en egileek gogoan hartu zuten hiztegia ordenatzeko beste modua izan zen. Familiakako hiztegiak, orain ere badirelarik,¹¹⁸ orduan maizago aurkitzen ziren, hitzen jatorriaz —adituak bederen— orain baino kezkatuago zeudelako, besteak beste. Euskararekin ere eredu hau saiatu dutenak ez dira gutxi: Pouvreau, van Eys, Maurice Harriet, Lhande...

HH-aren desbideratzeetan honek izugarritzko pisua dauka, eta badirudi A letraren hasiera osatzerakoan ia-ia alfabeto hurrenkeraren bestekoa izan zela Larramendiren buruan. B-tik aurrera *DAut*-en ereduari gehiago atxikita, oro har *HH* alfabetikoki antolatutako hiztegia dela esan beharra badugu ere, hasierako zalantza horren arrasto zenbait hiztegi guztian zehar antzematen dira.

Hala eta guztiz ere, hitzen etorkiaren arabera gutxi-asko antolatutako hiztegietan, oinarrizko hitzak —akademikoek hitzaurrean “primitivas” deitutakoak— izaten dira familiaren buru, eta haien azpian kokatzen dira, hiztegiak hautatutako ordenan,¹¹⁹ gainerako guztiak. Ez dugu honelakorik itxaron behar *HH*-an: hitzak familiaka batzeko joera indartsuenik dabilenean ere, gehienara jota familiako partaideak elkarren segidan ezartzen dira (tarteko “atzeak” aurreratu zein atzeratuz), famili-buru argirik gabe. Adibidez, ABSOL- hasieradun sei hitzak bi familiatan banatu dira, lehen lekua batean aditzak (nahiz *absolución* izan bere lekuan dagoen bakarra) eta bestean adberbioak (alfabeto hurrenkeraren arabera lehena, hain zuzen) harturik; hurrenkera honela geratu da:

¹¹⁸ Espainian bederen hain ospetsu eta erabilia den Moliner-en *Diccionario de uso del español* (1988) lekuko.

¹¹⁹ Aukera bat baino gehiago dago: berriro alfabeto hurrenkerara bihurtzea, edo atzizki batzuei besteen gaineko lehentasuna ematea, adibidez.

5-1-4-2-3-3 Absolver. Absolución. Absolvederas. Absolutamente. Absoluto. Absolutas.

Hiztegi zaharretan honelako gertakariak ez dira ezohikoak, alegia, alfabeto hurrenkeraren araberako antolakuntza nagusi baten azpian halako edo holako maiztasunaz eratorriak oinarritzko formaren ondoren agertzea: beste horrenbeste kausitzen dugu Nebrixa (1495), Las Casas (1570), Cawdrey (1604), Covarrubias (1611) edo Frantziako Akademiaren hiztegian (1694), adibidez (cf. von Gemmingen 1992: 25; Steiner 1970: 103). Cawdrey-ri gertatu bezalaxe (Osselton 1989a: 167), Larramendik bi letra tipo baino ez zituenenez, ez zeukan azpisarrerak markatzeko baliabiderik eta, halaz ere, alfabeto hurrenkerari uko egiten dio hitz-familiak bilduta ematearen alde.

Nolanahi ere den, familia bereko segida horien barruan, badira gramatika kategoria batzuk beste hitzak —dagokien lekutik atereaz, den hau familia barrukoa zein kanpokoa— bere ondora erakartzeko gaitasuna dutenak.

2.4.1.1. Aditz multzo hedatuak

DAut-en aditzak osatzen duen multzoa *HH*-an indartzen da, beste arrazoi batzuen artean hiztegi honetan —*DAut*-en ez bezala— adierak ere beste kategoria batzuen erakarle izan daitezkeelako, guztiz partizipioaren (ik. beherago § 2.4.7.1). Familiakako antolakuntzan oro har, gertakari honek garrantzi handia izango du, desbideratzeak biderkatuaz, ondoko abideetan antzeman daitekeen bezala:

Afinar. Afinador. Afinar. Afinador.
Azogue. Azogar. Azogue. Azogarse. Azogue.

Aditz multzo handi horiek ia edozertariko gauzak erakar ditzakete beren barnera, eta batzuetan segida luze korapilotsuak sortu; ikus dezagun hauetako bat:

Abrir. Abrirle a uno la cabeza. En un abrir y cerrar de ojos. Abierta puerta. Abierta la cabeza. Abiertamente. Hombre abierto. Abierto, resto en el juego. Abertura. Abrirse. Abrirse el erizo. Abierto así. La castaña. Abrirse, por henderse. Abertura así.

Honetaz dena dela, aditzak berez eratorri mota zenbait bere ondora erakartzeko joera dauka, eta hauxe da, hain zuen, *HH*-an gailentzen den desbideratze sail oparoena. Erakarberenak, zalantzarik gabe, *-dor* atzizkidun hitzak dira, normalean "Infinitibo. (Partizipio). *-dor*" segidak osatuaz; alegia, oro har, Larramendik *DAut*-en oinarritzko sistema gordetzen du, aditzaren ondo-ondoko lekua partizipiorako utziaz. Salbuespenak bi baino ez dira (ik. *infra* "Agarrar" eta "Alcanzar"). Honelakoek, aztertu 169 desbideratzeetatik 41 (%24,3) azaltzen dituzte, eta gehienak bakunak dira:

Abatanar. Abatanado. Abatanador // Abonar. Abonado. Abonador // Abultar. Abultado. Abultador // Afamar. Afamador // Afeiar. Afeado. Afeador // Afeitar. Afeitador // Afianzar. Afianzado. Afianzador // Afilar. Afilado. Afilador // Afinar. Afinado. Afinador // Afinar. Afinador // Afrentar. Afrentado. Afrentador // Agarrar. Agarrador // Agarrochar. Agarrochador // Agasajar. Agasajado. Agasajador // Agraviar. Agraviado. Agraviador // Aguadañar. Agua[da]ñador // Aguijar. Aguijado. Aguijador // Agujerar. Agujerado. Agujerador // Aguzar. Aguzado. Aguzador // Ahuchar. Ahuchado. Ahuchador // Alagar. Alagador // Alargar. Alargador // Alcanzar. Alcanzador // Almohazar. Almohazado. Almohazador // Atisbar. Atisbado. Atisbador // Atormentar. Atormentado. Atormentador // Atosigar. Atosigador. Atosigar. Atosigador // Atronar. Atronado. Atronador // Aumentar. Aumentado. Aumentador.

Bestetan, ordea, *-dor* atzikidunarekin batean, aditz multzo berri hauetan bestelako eratorriak ere ager daitezke, batez ere *-miento* atzikidunak (6), baina baita *-dura* (3) eta *-ción* (1) ere. Ohartu denak berez aditzaren eratorriak direla, oinarriari "egilea" eta "ekintza" adiera eransten diotenak. Honelakoak *-dor* atzikidunen atzean agertu ohi dira, aipatu "Infinitibo. (Partizipio). *-dor*" segida bere hartan utziaz, baita aditzak adiera bat baino gehiago duenean ere:

Abatir. Abatido. Abatidor. Abatirse. Abatirse. Abatimiento.
Abollar. Abollado. Abollador. Abolladura.
Abrasar. Abrasado. Abrasador. Abrasarse. Abrasamiento.
Abreviar. Abreviado. Abreviador. Abreviatura. Abreviatura. Abrevia. En fin, por abreviar.
Aferrar. Aferrado. Aferrador. Aferrar. Aferrado. Aferramiento.
Afirmar. Afirmando. Afirmarse. Afirmativamente. Afirmación.
Ahogadero. Ahogar. Ahogado. Ahogador. Ahogarse. Ahogamiento. Ahogo.
Alisar. Alisado. Alisador. Alisar. Alisaduras.
Allanar. Allanado. Allanar. Allanador. Allanar. Allanarse. Allanamiento.
Allegar. Allegador. Allegamiento. Allegar.

Ildo beretik, *-dor* ez egon arren, eratorriak aditzaren atzean ezarriak ager daitezke eta, behin izan ezik (cf. behean "Incomodar"), honek ez du apurtzen infinitiboa eta partizipioaren arteko oinarritzko lotura. Sail honetan atzikiek buruz lehen antzemandako joerak indartzen dira (*-miento* [4], *-ción* [5], *-dura* [4]), baina baita berri zenbait ere agertzen (*-mente* [6], *-dad* [1], *-dero/-a* [2], *-cia* [1], *-era* [1]):

Abjurar. Abjuración // Abotonar. Abotonado. Abotonadura. Abotonar. Abotonado // Abreviar. Abreviado. Abreviador // Abrir. Abierta. Abierta. Abiertamente. Abierto. Abierto. Abertura. Abrirse. Abrirse. Abierto. Abrirse. Abertura // Absolver. Absolución. Absolvederas¹²⁰ // Advertir. Advertidamente. Advertencia // Achar. Acharaduras // Afectar. Afectado. Afectadamente // Afeminarse. Afeminadamente // Afligir. Aflicción // Agradar. Agradablemente // Agregar. Agregado. Agregado. Agregación // Aherrojar. Aherrojado. Aherrojamiento // Ahorrar. Ahorrado. Ahorramiento. Ahorrar. Ahorrado // Ajustar. Ajustadamente // Aterrar. Aterramiento. Aterrado // Atildar. Atildadura // Atribuir. Atribuido. Atribución // Azomar. Azomado. Azomamiento // Incomodar. Incomodidad. Incomodado.

Azkenik, aditza bere ondora izen soila ere erakartzeko gai da; aurrean aipatu ditugunetatik berezia da erabat, izena orain "atzetik" datorrelako, adizetik banantzen zuten sarrera zein azpisarrerei aurrea hartuaz (izenok azpimarratu ditut):

Abonar. Abonado. *Abono*. Abonado... Abonar. *Abono*. *Abono*. Abonar.
Afeitar. Afeitado. *Afeites*. Afeitar. Afeitado. Afeitador.
Aforar. *Aforo*. Aforismo.
Aforrar. *Aforro*. Estar bien aforrado.
Agradar. Agradablemente. *Agrado*. Agradecer. Agradecimiento.
Almorzar. *Almuerzo*. Almotazen. Almotazenazgo. Almoxarifazgo. Almoxarife. Almud. Almudena.
Atrasar. Atrasado. Atrasarse. Atrasarse. *Atraso*. Atrasmano.

Behin, joera guztiok batera ikus daitezke:

Abrazar. Abrazado. Abrazador. Abrazo. Abrazaderas.

Orotara, aditz multzoaren handitze honen bidez 85 desbideratze (%50,3) azaldu ditugu.

Erabilitako corpus murriztean harrapatu dugun "Incomodar"-en segida, baliteke gutxiegi izatea joera hau A-tik kanpo ere agertzen dela zeharo frogatutzat uzteko. Haatik, beste zunda

¹²⁰ Alabaina, lekua izenarena da, goraxeago azpimarratu dudana bezala.

batzuk botatzea aski izan da joerak, oso moteldua bada ere, badirauela eta, are gehiago, gaineratu behar dugun *-ble* berriaren adibide bat izan ezik, atzizki berberen gainean (*-dor, -ción, -dura, -mente*) indarrean dagoela ohartzeko:

Dedicar. Dedicado. Dedicación // Destruir. Destruidor. Destruído // Disponer. Dispuesto así. Disponedor así. Disposición así. Disponer. Disponer. Disponedor así. Disposición así // Fanfarronear. Fanfarronamente // Navegar. Navegable. Navegación. Navegante. Navegado // Vaciar. Vacidor.

Joera hau A-n oso indartsua da: *-dor*-en kasuan, aztertutako orrialdeetan alfabetikoki oker/zuzen proportzioa 41/19koa da; aitzitik, D letra osoan, adibidez, 2/65koa. Espero bezala, A-ren bilakaerak gainerako letretan gertatuko dena iragartzen du:

A1: 8/2 (Abogador. Abridor).
A2: 18/1 (Aguador).
A3: 4/2 (Ajustador. Alborotador).
A4: 5/1 (Aliñador).
A5: 4/8 (Assador. Assaltador. Assegurador. Assentador. Asserrador. Assolador. Atacador. Atador).
A6: 2/5 (Aventador. Averiguador. Ayudador. Ayunador. Azufrador)¹²¹.

2.4.1.2. Izena

Familiako beste gunek bat izena izan daiteke, bere ondora beste osagai batzuk —ez nahitaez denak— erakarriaz. Hau ez da beti era batera gertatzen; sarrienik, dagokion lekutik atera eta gainerakoei aurrea hartu die (honela eraturako taldeak taket artean nabarmendu ditut):

1-5-2-3-4 Abastanza. [*Abasto*. Abastar. Abastado]. Abastecer.
1-5-2-3-4-6 Abión. [*Abismo*. Abismar. Abismarse. Abismado]. Abispa.
1-3-2-3-4 Afinco. [*Afinidad*. Afines así. Afinidad]. Afinojarse.
1-3-2-4 Agostar. [*Agosto*. Agostizo]. Agotar.
1-3-2-4 Alcorci. [*Alcornoque*. Alcornocal. Alcornoqueño].
1-3-2-4 Almario. [*Almarjo*. Almarjal]. Almaro.
1-3-2-4-5 Avanzo. [*Avaricia*. Avaramente. Avariento. Avaro].
1-5-2-3-5-4-5-6 Azofar. [*Azogue*. Azogar. Azogado así. Azogue. Azogarse así. Azogue]. Azolar.
1-4-2-3-5 Azufrador. [*Azúfre*. Azufrar. Azufrado]. Azul.
1-3-2-4 Barquilla. [*Barquillo*. Barquillero]. Barra.
1-5-2-3-4-6-6 Importante. [*Importunidad*. Importunación. Importunamente. Importunar. Importuno. Importuno].

Bestetan, berriz, lekua berea da eta erakarri dituen familikideen buru-buruan agertzen da:

1-2-6-7-3-4-5-8 Abacero. [*Abad*. Abadesa. Abadía]. Abada. Abadejo. Abades. Abahar.
1-2-2-2-5-5-3-4-6 Abstinencia. [*Abstracción*. Abstracción. Abstracción. Abstrahído. Abstrahído. Abstrahído. Abstracto. Abstraher]. Abstruso.
1-2-4-3-3-4-5 Afice. [*Afición*. Aficionado. Aficionarse. Aficionarse. Aficionado]. Afigir.
1-2-2-3-3-4-2-5 Artificialmente. [*Artificio*. Artificio. Artificiosamente. Artificiosamente. Artificioso. Artificio]. Artillar.

¹²¹ Aditzetan agertzen ez diren adierak kontuan hartuko bagenitu (cf. "Aliñador, en lo antiguo era el que tenía a su cargo algunos bienes" vs "Aliñar, componer"), aldeak handixeago izango liriateke oraindik.

Halaz ere, *HH*-an erakartzeak ez du nahitaz ondora ekartzea esan nahi: hurrengo bi adibideetan izenak bere lekura eratorria edo aditz multzoa (*-dor* eratorria eta guzti) erakarri du, baina aski izan da aurrean geratzearekin:

1-5-3-4-3-4-2-6-7 Alaga. Alagartado. [Alagar. Alagado. Alagar más. Alagado más. Alagador. *Alago*]. Alagüño.
2-1-3-3-4 Alamin. [Alameda. *Alamo*. Alamo]. Alancear.

Agerian dago aditzaren aldean izena oso erakarmen murrizteko kategoria dela; halaz ere, corpuseko 20 desbideratze (%11,8) azaltzen ditu. Azpimarratzekoa da, lenenik eta behin, izen erakartzailea eratu duen familiaren osagaietako baten eratorria izan daitekeela (*afinidad, avaricia, importunidad, abstracción*). Erakartzen dituen hitzak, bestalde, etimologikoki bere menpekoak izaten dira gehienetan: aditza edo aditz multzoa (6), multzokariak (3), adjektibo eratorriak (2), femeninoa (1), kargu izena (1), egile izena (1). Hala izan zein ez, oso maiz adieraren aldetik erakartzen ditu:

Abstracción de sentidos. Abstracción, recogimiento. Abstrahído de sentidos. Abstrahído, recogido. Abstrahído yo.
Afición a cosas de comer (...). Aficionado, amigo de estas cosas. Aficionarse así. Aficionarse de otra manera. Aficionado así.
Afinidad, parentesco por casamiento. Afines así. Afinidad, cercanía.
Artificio, obra según arte. Artificio, primor. Artificiosamente, según arte. Artificiosamente, con primor. Articioso, cosa de artificio. Artificio, por engaño.
Azogue. Azogar, cubrir con azogue. Azogado así. Azogue, inquieto, bullicioso. Azogarse así. Azogue, azoguejo.

Ondorioz, esan liteke izenak aditza ia berdintzen duela maiztasunean ez bada indarrean behinik behin, zeren eta familiako hitz guztiak edo ia guztiak batzeko indarra baitu batzuetan (cf. goian "Abad", "Avaricia" edo "Importunidad"), baita lehentasuna erdietsi ez duenean ere (gogoratu *absolución*-en kasua); areago, birritan partizipioa bere egin du, aditza honen menpeko eginaz ("Afición") zein bere lekuan utziaz ("Abstraher"). Ez da harrigarria, nolnahi ere, familiakako ordenatzeetan izenak izan ohi duen nagusitasuna kontuan izanik.

Dagoeneko baditugu beste letretako bi ale; hona hemen beste zenbait:

Falda. Faldamento. Falda.
Farandula. Farandulero. Farandula.
Quexido. Quexicoso. Quexoso.
Tallo. Talludo. Tallo. Talludo.

2.4.1.3. Adjektiboa eta partizipioa

Adjektiboak, oso neurri laburrean bada ere (orotara 4, %2,4), badu hitzen bat edo beste bere egiteko gaitasuna, batez ere *-mente* atzizkidunak, baina baita inoiz izen abstraktu eratorria ere. A letraren hasierako hitzetan bederen, erakarritako hitza adjektiboaren eta "hacerse..." erako azpisarreraren artean (ik. § 4.4.3.1) ager daiteke, aditz-multzoen antzera adjektibo-multzoak ere baditugula erakutsiaz:

Afable. Afablemente. Hazerse afable.
Agraciado. Agraciadamente.
Agrío. Agrura. Hazerse agrío.

Talde honetan sartzen da, baita bete-betean sartu ere, Larramendiren ereduaz ezagutuko ez bagenu isilean igaroko litzatekeen honako hau, non partizipio aktiboa alfabetozko lekura itzuli duen, *-mente* atzizkidunak erakarrita:

IGNORANCIA. IGNORANTEMENTE... IGNORAR. IGNORANTE. IGNORADO > Ignorancia. Ignorante. Ignorantemente. Ignorar. Ignorado.

Aditzak erakarritakoen sailean aipatu ditugun kasu bakan batzuk hemen ere koka genitzakeen, aditz multzo barruko partizipioak erakarritakotzat jo daitezke eta:

Abrir. Abrirle. En un abrir. Abierta. Abierta. Abiertamente. Afectar. Afectado. Afectadamente.

Joera mantentzen da; hona hemen beste letretako adibide zenbait:

Defectuoso. Defectuosamente. Definitivo. Definitivamente. Magestuoso. Magestuosamente.

2.4.2. Grafi aldaketak

Larramendik hainbatetan *DAut*-ekoez bestelako hautapenak egin ditu grafian (ik. § 6). Honek, oraingo arloari dagokionez, lau ondorio izan ditu: (a) sarrera batzuk lekuz mugitu dira, hautapen berriaren arabera; (b) mugitzerakoan, ez dira beti ongi tartekatu; (c) grafia aldatu arren, ez dira lekuz mugitu; eta (d) lekuz mugitu arren, lehengo grafia gorde dute. (b), (c) eta (d) puntuek, agerian denez, alfabeto hurrenkeraren kontrako hutsak sorrarazi dituzte. Grafiak gure corpusean orotara 16 desbideratze (%9,5) azaltzen ditu. Ikus ditzagun, kopuru honetan izan duten garrantziaren arabera ordenatuta:

2.4.2.1. Grafia berria, leku zaharra

Hauxe da maizenik antzematen dugun desbideratze mota:

Absorto. *Absorbente*. Abstenerse / ABSORVENTE.
Alabesa. *Alabeces*. Alacena / ALABEZ (sing.).
Alcamonias. *Alcanfor*. *Alcanforado*. Alcance / ALCAMPHOR, etab.
Alfanjazo. *Alfange*. Alfaqueque / ALFANJE.
Alhargama. *Alhacena*. Alhelga / ALHAZENA.
Alhurreca. *Alhucema*. Alianza / ALHUZEMA.
Alixares. *Alizaze*. Alizar / ALIZACE.
Astuto. *Asilo* / ASYLO.
Atravesano. *Atravessar*. Atravesia / ATRAVESAR.
Bandolero. *Banduxo*. Bandullo / BANDUJO.
Hacendoso. *Hazer*. Hacha / HACER.
Hecatombe. *Hechizeria*. *Hechizero*. Hechizar. Hechizo / HECHICERIA, HECHICERO.
Zaherido. *Zainas*. Zahon / ZAHINAS.

Corpusetik kanpo honako adibide hauek erants ditzaket:

Cachupin. Cazicazgo. Cacique / CACICAZGO.
Cabalgar. Cabaluste. Cabalina / CABALHUSTE.

2.4.2.2. Gaizki tartekatuak

Corpusean agerraldi bakarra baino ez dut aurkitu, eta ohartu behar da *HH*-an “assassino” sarrera ere badela:

Asadura. *Asasino*. Asarabacara / ASSASINO.

Ikus, ordea, handik kanpo ditugun beste hauek:

Falangio. *Falaris*. Falarica / PHALARIS.
Feamente. *Febeo*. *Febo*. Feamiento / PHEBEO, PHEBO.
Gabela. *Gabilla*. *Gabia*. Gabinete / GAVIA... GAVILLA.

2.4.2.3. Grafia zaharra, leku berria

Honek ez du ordezkariarik aztertutako corpusean, baina behin bederen handik kanpo aurkitu ahal izan dut:

Paguro. *Payla*. *Paylon*. Pairar.

2.4.3. DAut-en oharkabeko desbideratzeak

Eskuz ordenatzea lan gaitza da. Akademikoez ere badituzte oharkabeen egindako desbideratze batzuk, *HH*-an islapen zuzena izan dutenak. Orotara, *DAut*-ek azaltzen dituen desbideratzeak 13 dira (%7,7):

Albornoz. <i>Alboroque</i> . Alboronia.	Zamboa. <i>Zamborotudo</i> . Zambomba. Zambombo.
Alhucema. <i>Alianza</i> . <i>Aliarse</i> . Aliaga. Aliara.	Zancajera. <i>Zancajear</i> . Zancajo.
Aliaria. Alica.	Zángano. <i>Zanganear</i> . Zangarilleja.
Atadura. <i>Atafea</i> . Atafarra.	Zarandajas. Zarandar. Zarandado. <i>Zarandador</i> .
Haldear. <i>Haldada</i> . Haldudo.	Zarandillo.
Imbeato. <i>Imbecilidad</i> . Imbecil.	Zocato. Zoco. Zocoba. <i>Zoclo</i> . Zodiaco.
Incensario. <i>Incentivo</i> . Incensurable.	
Zafari. <i>Zaferia</i> . Zafariche.	

Ohartu hiztegiko azken letren aldera *DAut*-en dagoen maiztasun igoera, hemen ezin azter dezakeguna: hala eta guztiz ere, guretzat oso garrantzitsua da, zeren eta Z letran antzeman dugun desbideratze gorakada ttikia ereduari egotzi behar baitiogu zeharo.

Corpusetik kanpo ere ez da ezohizkoa, eta batzuetan bereziki korapilotsua:

Naranja. *Naranjal*. Naranjada. Naranjado. *Naranjero*. Naranjazo. Naranjero.
Oenathe. Oenas.
Padrina. *Padrino*. Padrinazgo. Padrón.
Racelas. Racimado. *Rachitis*. Racimo.
Sabático. *Sabatarios*. Sabatismo < SABATICO. SABATINA. SABATARIOS. SABATINO.
SABATISMO.
Xabonar. Xabonado. *Xabonadura*.
Xaguadero. Xagua.
Yambo. Yámbico.

2.4.4. DAut-eko azpisarrerak

DAut-ek sarrera barruan eskaintzen dituen esapideen artean elkartu zenbait agertzen dira. Hango ordena mantentzeak, beraz, desbideratze —inoiz larri— batzuk sortarazten ditu

HH-an, bereizketa grafikorik ezagatik. Aztertu corpusean 4 desbideratze (%2,4) azaltzen ditu honek: “*Agua. Aguardiente. Agua. Aguamanos. Agua. Aguapie. Aguas*” eta “*Zambullida. Zampar. Zampalimosnas. Zampatortas*” segidetakoak.

Eta corpusetik kanpo: “*Majar. Majagranzas*” eta “*Rajar... Rajabroqueles*”.

2.4.5. *HH*-aren buru bakuntzeak

Larramendik batzuetan *DAut*-ek sarrera-buruan eman aukeren (hots, hitz beraren aldaeren) artean bat bakarrik hautatu du; hautatutakoa, sarrera lehengo tokian mantendu baldin badu, oker gera daiteke, corpusean birritan (%1,2) gertatzen zaigun bezala:

Alkali. Alkakenji < ALKANQUEGI, o ALKAQUENGI, o ALKAKENGI.
Almagre. Almagrar < ALMAGRA o ALMAGRE.

2.4.6. *HH*-aren sarrera bakuntzeak

Larramendik sarreren kopurua txikitzeko daukan sistema bat, familia eta esanahi bereko bi hitz —beraz, euskaraz ordezkari berberak lituzketenak— bat egitea da (§ 4.1.1.8). Inoiz, sarrera bakuntze hau okerreko lekuan egin du. Eskura daukagun adibide bakarra corpusetik kanpokoa da:

Guijarro. Guijarreño, guijeño < GUIJARREÑO. GUIJARRILLO. GUIJARRO. GUIJEÑO.

2.4.7. Aditz multzoaren aldaketak

Aurreko atal batean (§ 2.1) ikusi dugu nolako aditz multzoak gertatzen diren *DAut*-en, eta ezarrita utzi dugu Larramendi *DAut*-en berezitasun honi ere orokorrean atxiki zitzaiola. Gure corpusean, halere, badira ereduaren ordena —*DAut*-ek estuki jarraitzen duen "Infinitihoa, -se aditza, part. aktihoa, part. pasihoa" ordena— hausten duten zenbait adibide. Merezki du, nik uste, aztertutako corpusean nolako eragina daukaten neurtzea. Ezer baino lehen, esan dezadan corpusean 332 aditz multzo daudela, hots, infinitiboaz gaineko beste osagarriren bat daukatenak; eta gogoratu behar dugu, bestalde, *HH*-ko multzoek eratorri zenbait (guztiz *-dor* atzizkidunak) ere onartzen dituztela. Multzo gehienak (256, %77,1) "normal" dira, hau da, (a) goian aipatu oinarrizko ordena gordetzen dute, nahiz eta (b) adiera ezberdinak edota (c) hitz eratorriak bere baitan batu.¹²² Adibidez:

- | | | | |
|-----|---|-----|--|
| (a) | Ahitar. Ahitarse. Ahitado.
Impetrar. Impetrante. Impetrado. | (b) | Agavillar. Agavillar. Agavillarse. Agavillado. |
| (c) | Afectar. Afectado. Afectadamente.
Agarrochar. Agarrochar. Agarrochado. Agarrochador. | | |

¹²² Zaku berean sartu ditut, jakina, *DAut*-en ez zegoen osagarri berriren bat daukatenak.

Eredu teorikoarekiko atxikimendua, inon baino hobeto antzematen da *DAut*-ek arauz kontra, diren arrazoiak direla, dakartzan hitzetan —hala nola “ABSTENERSE... ABSTINENCIA. ABSTINENTE” > “Abstenerse. Abstinente. Abstinencia”—, edota itxuraldatu diren hitzetan: adibidean, *abocarse* bihurtu den *DAut*-eko lehen adiera, *HH*-an azken agertzen da:

ABOCAR. Convocar o juntarse de concierto... ABOCAR. (...) asir alguna cosa con la boca. ABOCAR LA ARTILLERIA > Abocar, assir con la boca. Abocar la causa. Abocar la artillería. Abocarse, juntarse de concierto.

Itxurazko desbideratze zenbaitek, berriz, *DAut*-en dute oinarri, hots, hango ordenari zor zaizkio:

AFRONTARSE. AFRONTAR > Afrontarse. Afrontar.
ALINDADO. ALINDAR > Alindado. Alindar.
ALISTADO. ALISTAR > Alistado. Alistar.
ATREGUADO. ATREGUAR > Atreguado. Atreguar.
ATREVERSE... ATREVIDAMENTE... ATREVIDO > Atreverse. Atrevidamente. Atrevido.

Gainerantzeko 71en¹²³ berri ematen saiatuko naiz, bada, ondoko ataletan.

2.4.7.1. Adierakako antolakuntza

Bereizkuntza grafikorik ez izanik, batetik, eta hiztegia elebiduna delako *DAut*-ek egindako partizipioen bakuntzearekin arazoak izanik, bestetik, Larramendik beste bide bat hautatu du, batzuetan bederen, adiera bereko gauzak batzeko. Hautapen hau zeharo lotuta dago, jakina, hitz-familiakako antolakuntzak hiztegian daukan garrantziarekin. Izan ere, hainbatetan aditz multzoa azpimultzo bitan edo gehiagotan zatikatuta dakusgu, eta bakoitzak bere infinitiboa, bere partizipioa, bere esapideak eta are bere eratorriak izan ditzake, ondoko era honetara, errazenetatik hasita:

[1-2] [1] Avanzar, adelantar. Avanzado. Avanzar, acometer.
[1-2] [1-2] Aspar. Aspado. Aspar, crucificar en el aspa. Aspado assí.
[1-2] [1-2][1-2] Ahumar. Ahumado. Ahumar, curar algo al humo. Ahumado assí. Ahumar, perfumar. Ahumado assí.
[2-3-1] [2-3] Abotonar. Abotonado. Abotonadura. Abotonar, echar los árboles y vides el botón. Abotonado en los árboles y vides.
[2-3] [2-3-1] Atildar, poner lo escrito en toda su perfección. Atildado assí. Atildarse, componerse, assearse. Atildado assí. Atildadura, aseo.
[1-1-3] [1-3] [2] [2] Bañar. Bañar, el mar o el rio algún lugar. Bañado. Bañar, cubrir una cosa con otra líquida. Bañado assí. Bañarse, por nadar. Bañarse en agua rosada.
[2-3-1] [2-3-1] Atosigar, dar veneno. Atosigado assí. Atosigador assí. Atosigar, dar demasiada prissa. Atosigado assí. Atosigador assí.
[3-4-1-1-1-2] [3] [4] Allegar, recoger. Allegado. Allegador. Allegadores. A Padre allegador. Allegamiento. Allegar, en el sentido de llegar. Allegados, parientes.
[2-4] [3-4] [2-4] [4-1] Ajustar. Ajustado. Ajustarse. Ajustado assí. Ajustar cuentas. Ajustado, conforme. Ajustado a la razón. Ajustadamente, en este sentido.

Usteko adiera ezberdina “más” edota “demasiado” zehaztapenak bereizten duenean, sarritan nolabait azpimultzo berezi bat osatzen dela esan daiteke: hori tartean ez balego bezala, *-dor* atzizkiduna parentesiaren bukaeran agertzen da:

¹²³ “Alistado”-ren kasua berrartu behar dugu, *DAut*-ek azaltzen duen desbideratzeaz gain bai baitu gehiago.

Afrentar. Afrentado. Afrentar más. Afrentar demasiado. Afrentado más (...), demasiado. Afrentador.

Alagar. Alagado. Alagar más (...), demasiado. Alagado más (...), demasiado. Alagador.

Alargar, hazer más largo. Alargado. Alargar aún más. Alargado más. Alargador. La acción de alargar. Alargar, o dexar o soltar lo que se tiene assido. Alargado assí. Alargarse.

Allanar. Allanado. Allanar más, (...) demasiado. Allanador. Allanar dificultades. Allanarse, sugetarse. Allanamiento assí.

Orotara 47 adibide ditugu aztertu corpusean;¹²⁴ haxe da, beraz, gertakaririk eraginkorrena, aditz multzo berezien %66,2 azaltzen baitigu. Areago, itxura ortodoxoa duten beste sarrera batzuetan ere gauza berbera gertatzen da, baina adiera bakar batek —eskuarki azkenak— bakarrik jasotzen du partizipioa (partizipioa azkena ez den adierari dagokionean izarraz markatu dut):

Agavillar assí, *gabillatu, gabillac eguin, zamatu, zamac, sortac eguin, azaoac eguin, azaotú*.

Agavillarse, meterse en tropa y mezclarse con otros para alguna fechoría, *gabillatzea, gabicotzea, gendedia biltzea, biribillatzea, balleratzea*.

Agavillado, *gabillatua, gabicotua, balleratua, &c.*

Aliviar, *arindu, arinéguin, astuna quendú*.

Aliviar, dar descanso, *unalaitu, nequeac arindu, gozatu, atsedem ecarri, eman*.

Aliviado, *unalaitua, arindua, gozatua, atsedendua*.

Assemejar, *irudierazo, cerbaiten irudira, anzora eguin*.

Assemejarse, *irudin, irudia, anza, anzoa izan*.

Assemejado, *dirudiena, irudia, irudina, anza duená*.

Assistir, estar presente, *beraurquitu, beraurquetu*.

Assistir, socorrer, *lagundu*.

Assistido, *lagundua*.

Atestar, testificar, *daquirasi, lecucoera eman*.

Atestar, henchir y llenar, *bete aguitz*.

Atestado assí, *aguitz betea*.

Atolondrar, *burua joaz cordebaguetu*.

Atolondrarse, *sor eta gor guelditzea*.

Atolondrado, *sortua ta gortua*.

Atracar, echar harpeos un navío a otro (...) *atraca, atracatu...*

Atracarse las naves, arrimarse, *ertzatú, ertzaz ertza jarri*.

Atracado, *erzatúa*.

*Barrer, *erratzatu, escobatu, erratzaz, escobaz garbitu*.

Barrerarse algo de la memoria, *oroitzatic cerbait joatea, erortea, jauzte*.

Barrido, *erratzatua, escobatua*.

*Hallar, *arquitu, idoro, causitu, ediro, eriden*.

Hallarse, estar, *egon*.

Hallado, *arquitua, &c.*

Bestetan, berriz, partizipioan batu dira adiera ezberdinak, *DAut*-en bezalaxe:

Atropellar, (...). *Tropeliatu, aurizquitu*. Lat. Protero, conculco.

Atropellarse, darse demasiada prissa, *tropeliatu, aurizquitu, urduritu*. Lat. Nimum properare, festinare.

Atropellado, *tropeliatua, aurizquitua, urduritua*. [Lat.] Conculcatus, nimum properans.

Avisar, *avisa, avisatú, mezutú, gaztiga, gaztigatu*. Lat. Nunciare.

Avisar, amonestar, *mezutu, avisatu, adierazo*. Lat. Monere.

Avisado, *avisatua, mezutua, gaztigatua, adierazoa*. Lat. Nunciatus, monitus.

¹²⁴ Ik. *abatir, abiar, abonar, abrir, abultar, advertir, afear, afeitar, aferrar, afianzar, afinar, agarrar, agrandar, ahilarse, ahorrar, ahuecar, ajar, alentar, aligerar, alimentar, alisar, alistar, assar, assombrar, atajar, atarugar, aterrar, atravessar, aventar, babosear, baptizar, imponer eta inclinar* ere.

Hermanar, hazer a uno hermano de otro, *anaitu*.
Hermanar, hazer a una hermana de otro, *arreatu*.
Hermanar, hazer a una hermana de otra, *aizpatu*, *aiztatu*.
Hermanado, *anaitua*, *arreatua*, *aizpatua*.
Hermanar, conformar, unir, *eraquidatu*, *elcartu*.

Hartar, *asé*.
Hartar, hasta fastidiar, *igüitu*.
Harto, part. *asea*, *igüitua*.

Herir (...). *Eritu*. Lat. Ferire, percutere.
Herir, haziendo llaga, *zaurtu*, *zauritu*; lastimando algo, *arrazatu*. Lat. Vulnerare, sauciare.
Herido, *eritua*, *zaurtua*, *arrazatua*. Lat. Percussus, vulneratus.

Imprimir, generalmente, representando alguna figura, *ecanzatu*. Lat. Imprimere.
Imprimir, lo mismo que *impressionar*, véase.
Imprimir, de imprenta, *moldizquiratu*. Lat. Typis mandare.
Impresso, *ecanzatua*, *moldizquiratua*. Lat. Impressus, typis mandatus.

Hau berau gertatzen da, jakina, gaztelaniazko infinitiboaren eta -se aditzaren artean dagoen ezberdintasun bakarra, euskaraz bata iragankor eta bestea iragangaitz izatea denean; hona adibide bat:

Atarear, *saillatu*.
Atarearse, *saillatu*, con las terminaciones de el neutro.
Atareado, *saillatua*.

Partizipioaren antzera, inoiz *-dor* atzizkidunak ere bi adiera bat egin ditzake bere baitan:

Aumentar, *gueitu*, *gueyagotu*, *berretú*.
Aumentado.
Aumentar en número, *ïoritu*, *iyoritu*.
Aumentado así.
Aumentador, *gueitzallea*, *gueyagotzallea*, *berretzalea*, *iyoritzallea*.

2.4.7.2. Partizipioa aditzari itsatsita

Haxe da dagoeneko ikuskatuta geneukan bakarra. Aurreko atalean zenbatu ditugun 47etatik hainbatetan partizipio bat edo batzuk -se aditzaren aurretik gertatzen dira, beren adierako aditzari (den hau infinitiboa zein -se aditza) erabat lotuta agertzen direlako, hain zuzen. Ez gara horietaz kezkatuko hemen, adierakako antolakuntzak aski azaltzen dituelako ustean. Badira, halaz ere, adiera bakuna daukaten baina ordena kanonikoa hausten duten aditzak, 10 orotara, eta ohartu *abrasar*, *afirmar* eta *ahogar*-en familietan partizipioak *-dor* eratorria (baina ez gainerakoak) berekin eraman duela:

Abrasar. Abrasado. Abrasador. Abrasarse. Abrasamiento.
Afirmar, asegurar alguna cosa. Afirmar, diciendo. Afirmado. Afirmador. Afirmarse en lo dicho.
Afirmativamente. Afirmación.
Afligir a otro. Afligido. Afligirse. Afligirse, dársele poco o mucho por algún suceso. Aflicción.
Ahogar. Ahogado. Ahogador. Ahogarse. Fácil de ahogarse. Ahogamiento.
Ahorcar. Ahorcado. Ahorcarse.
Alabar. Alabado. Alabarse.
Albergar. Albergado. Albergarse.
Atrasar. Atrasado. Atrasado. Atrasarse.
Avergonzar. Avergonzado. Avergonzarse.
Avistar. Avistado. Avistarse.

A letratik kanpo ere aski normala da:

Decentar. Decentado. Decentarse. // Declarar. Declarado. Declararse. // Quemar. Quemado. Quemarse. // Sacramentar. Sacramentado. Sacramentarse.

Aditzak bi partizipio izateagatik zeharo berezia den adibide batean, Larramendik aditz multzoan erantsi du *DAut*-ek leku alfabetikoan dakarren irregularra:

AHITAR. AHITARSE. AHITADO. AHITERA. AHITO > Ahitar. Ahitarse. Ahitado. Ahito. Ahitera.

Goian antzeko gertakariak *-nte* adjetiboekin ere ikusiak genituen; gure corpusean agertzen den bakarra, adierakako antolakuntzarekin zaildua dago:

Agravar. Agravado. Agravar más. Agravar demasiado. Agravado más. Agravante. Agravarse.

2.4.7.3. Partizipioa aurretik

Desbideratzerik bitxienak, ziurrenik, partizipioa infinitiboaren aurretik ezartzera daramatenak dira, *DAut*-en eredia eta Larramendiren ohiturarik indartsuenetako bat haustean gainera, nahita edo nahi gabe alfabetozko ordena berrezartzen dutelako. Corpusean honelako hiru adibide daude, eta ohartu erdikoan *-dor* atzizkidunarekiko haustura ere gertatzen dela:

Abuhado. Abuharse.
Afamado. Afamar. Afamador.
Aherrumbrado. Aherrumbrarse.

Oso antzerakotzat jo daiteke adiera barruko ordena bera partizipio aurreratu batek hausten dueneko adibide hau:

Impedir. Impedido. Impedido, de sus miembros. Impedirse, hazerse así impedido.

2.4.7.4. -se aditza aurretik

Bitan, *-se* aditza infinitiboaren aurrean agertzen da; bietan *DAut*-en ez zegoen zerbait erantsi du Larramendik, euskarak-edo behartuta: lehenean, *abrigarse* (vs *abrigar* "activo"); bigarrean, *aterir*, euskal etimologia eskaintzeko:

Abrigarse, calentarse. Abrigar, activo. Abrigarse, recogerse o retirarse. Abrigarse así. Abrigado lugar.
Aterirse. Aterido. Aterir.

2.4.7.5. Eratorriak aurretik

Orain artean ikusi izan dugun joerarik indartsuenen kontrako bi adibide topatu ditut; bietan eratorriak aditz multzo barruan daude, baina partizipioari aurrea harturik:

Alcanzar. Alcanzador. Alcanzado.
Incomodar. Incomodidad. Incomodado.

2.4.8. Larramendiren aldaketak

Gure corpusean behin baino agertzen ez den gertakaria da, baina *HH* osoan baliteke kontuan hartzeko zerbait izatea:

Afuciar. A fuer de. Afuera < AFUER.

Aldaketa ttiki batek, zalantzarik gabe benetako usadioa hobeki azaltzeko egina, *DAut*-en zegoen ordena apurtu egin du. Honi beste gertakari xume bat erantsi diezaiokegu: "Occisión. Tañer de occisa. Océano" segida berezia, Larramendik erdikoaren gainean zegoen OCCISO, SA sarrera ezabatu duelako gertatua.

2.4.9. Sarrera eta azpisarrera berriak

Larramendik *DAut*-i egin zizkion eransketak hurrengo atal bateko gaia izango dira (§ 4.4). Alabaina, sarrera berrien eta desbideratzeen artean nahitaez hemen ikutu beharrekoa den loturaren bat badago, zeren eta hortik jo ezean corpuseko bi adibide azalgabe geratuko bailirateke:

Abejera. *Abejita*. Abejero.
Abonar. Abonado. Abono. Abonado. *Abondamiento*. *Abondo*. Abonar. Abono. Abono. Abonar.
Abonado. Abonador.

Abejita, *HH*-an dauden beste txikigarri batzuk bezala, Larramendik erantsitako sarrera da, oharkabean lekuz kanpo (baina familia barruan) tartekatua. Bigarren adibidean, berriz, zeharo gertakari bakana harrapatu dugu: beste familia bateko bi hitz *HH*-an hain trinkoa izan ohi den aditz multzoaren erdian agertzea. "Abondo"-ren ondotik datozen "Abonar", etabarren adiera(k) Larramendik erantsitakoak direla esanez bakarrik azal daiteke.

Antzeko azalpena izango luke hurrengoak ere, zeren *agilitarse* erantsi ohi dituen "hazerse..." direlakoen ordeztu baitago, beren ohiko lekuan alegia:

Agil. Agilitarse, es lo mismo que hazerse ágil. Hecho ágil. Hazerse más ágil. Hazerse demasiadamente ágil. Agilidad.

Nolanahi ere den, aipatu loturak eragina dauka familiakako antolakuntzaren bidez azalpena aurkitu duten hainbatetan; hona hemen *DAut*-en agertzen ez direnak:

-DOR: Abatanador. Abatidor. Abollador. Abonador. Abultador. Afamador. Afianzador. Afrentador. Agarrochador. Aguadañador. Aguijador. Agujerador. Ahogador. Alargador. Alisador. Allanador. Almohazador.
-MENTE: Afeminadamente. Agraciadamente. Agradablemente. Fanfarronamente.
-CION: Abjuración.
-MIENTO: Ahorramiento.

HH-an lekuz kanpo azaltzen diren *-dor* atzizkidunen %47,3 sarrera berriz osatuta dago. Inor ez bide da dagoeneko harrituko, dagokien lekuan dauden *A*-ko *-dor* guztiak *DAut*-en bazeudela esaten badugu.

Halaz ere, erlazioa egon badagoen arren, zilegi bekit markatzea, nire ustez berriak izatea ez dela desbideratzeen arrazoa, haien ikuspegi bat baizik. Lotura goragotik egin beharrean gaude: hitzak ez daude alfabetikoki lekuz kanpo sarrera berriak direlako, familiakako

ordena dela eta baizik. Baina bi gertakariak batera gauza bat erakusten digute: A beste era batera egiten hasi zela, *DAut*-etik askeago zen era batera. Hitzak eranstea eta lekuz aldatzea egia horren bi erakusgarri baino ez dira.

2.4.10. Erratak

Hutsak ez dira, jakina, aurreko kopuruetan inoiz ere sartu, itxuraz bakarrik hausten baitute hurrenkera. Corpusa ez legoke osoki deskribatuta, ordea, hauen berri eman gabe, bide batez *HH*-aren argitalpen kritiko baten beharra zeinen handia den erakutsi nahiko nukeelarik. Hain corpus txikian, orotara hurrenkera apurtzen duten zortzi errata antzeman ditut:

Ahuecar. Ahueco [AHUECADO]. Ahuecarse.	Hemorroidas. Hemorrheo [HEMORRHOO]. Henchimiento.
Alcaide. Alcaide [ALCAIDE]. Alcaidesa.	Zarzaparrillar. Zaraperruna [ZARZAPERRUNA] ¹²⁵ . Zarzo.
Alcazar. Alcacuz [ALCAZUZ].	Zurujano. Zurrillo [ZURULLO]. Zurumbet.
Alhosigo [ALHOCIGO]. Alholba.	
Balaustrado. Baraustrillo [BALAUSTRILLO]. Balax.	

Corpusetik kanpo aztertu zatietan, berriz:

Fardo. Farcellon [FARELLON]. Farfala.	Pampanada. Pamponage [PAMPANAGE]. Pampanilla.
Ladrar. Ladrallal [LADRILLAL]. Iadrillar. Iadrillar.	Quebrantador. Quebrantura [QUEBRANTADURA]. Quebrantahuessos.
Palumbario. Paludo [PALURDO]. Palustre.	

2.4.11. Azal ezin daitezkeen desbideratzeak

Orain artean aipatu motetan bildu ezin daitezkeen 13 desbideratze dauzkagu:

Abalado. Abalgar. Aballar. *Abalanzarse*. Abalorio // Abeñuela. Abenuz // Abernardarse. *Abertero*. *Abertura*. Abernuncio // Abintestato. *Abjurar*. *Abjuración*. Abión // Adversidad. Adversario // Afición. *Afice*. Afición // Afilar. Afilador. Afiligranado. *Piedra de afilar* // Alcalde... Alcalde pedáneo. *Alcaldía*. Alcalde de Aldea... [=errefr.]. Alcalde... [=etim.] // Alchimia. *Alchimilla*. Alchimia // Azada. *Azacan*. Azada. Azadon // Helgadura. *Helioscopio*. Heliaco. Helice. Helioscopio.

Haietatik lautan gertakari bera antzematen da, ostera: hitz bera (*afición*, *alchimia*, *azada*, *helioscopio*) birritan baina bata bestetik ez urrun agertzen da. Ez da oso ezberdina *afilar*-en kasua: bere ondoan joan beharko lukeen esapidea ("Piedra de afilar") aditz multzoko ez den hitz batek atzeratuta dago. Eta *abertero-abertura*-renean, biak bidalketa-deiak baino ez dira. Guztiok azalpen bat iradoki dezakete, besteetarako (eta bestetarako oro har) ere balio izan lezakeena; hona hemen: Demagun eskuzko originalean tokiz kanpoko sarrera haiek ertzetan agertzen zirela, argitaratzerakoan zegokien lekuan eransteko asmoz; eta demagun, halaber, argitaratzaileak oharkabean okerreko lekuan erantsi zituela. Azalpena ez dagoke, inolaz ere, honetatik oso urruti, nahiz proba zuzenketan hiztegiak ez harrapatzea alde bederen harrigarria izan; alde, ostera, *Etiam Homero dormiat*, esan ohi den bezala, eta ez dirudi Larramendi honelako "txikikerietan" erneegi ibili zenik, gainera.

¹²⁵ Hauxe da hutsen zuzenbidean agertzen den bakarra, baina han ere ez zuzen: "Zarzaperuna".

2.5. Ondorioak

Oro har, *HH* antolakuntzaren aldetik osoki alfabetatutako hiztegia dela esan dezakegu, berariazko zein oharkabeko desbideratze zenbait —haisetako hainbat ereduaren heredentziaz— baditu ere, zeren garai beretsuko ingeles hiztegien gainetik ere baitabil zuzentasunean (§ 2.2). Izaera nagusi hau ereduari egotzi behar diogu.

Halere, ereduaren alfabetatze ia osoko sistemari ez zitzaion lehen unetik atxiki, B letratik aurrera bakarrik baizik. Jadanik antzeman dugu A letrako orrialdeetan batz besterik sarrera gutxiago daudela eta, hortaz, sarrerak luzeagoak direla gero baino (§ 1.1). Honi erantsi behar diogu, hiztegiaren antolakuntzaren aldetik, A letran neurritz gaineko desbideratzeak daudela, guztiz hasiera-hasieran.

A-ren berezitasun hauek ez bide dira garrantzi gutxikoak: sarreren tamaina handiagoa (cf. § 1.1) nondik datorren oraindik aztertzeo dugun arren, dagoeneko baiezta daiteke hasiera batean eruditik urrunago zegokeen hiztegi bat egiten hasi zela, eta haren ezaugarrietatik bat alfabeto hurrenkerari familiakako antolakuntza nagusitzea dela, garaiko hainbat hiztegiaren antzera (§ 2.4.1). Familiak eskuarki aditzaren inguruan antolatuta daude (§ 2.4.1.1), jadanik *DAut*-en zegoen joera askoz gehiago indartuaz, baina izenaren zein adjektiboaren inguruan egindakoak ere kausitu ahal izan ditugu.

Erabaki hau erabat lotuta dago, itxura guztien arabera, hiztegiaren elebiduntasunarekin eta, zehazkiago, euskararen ahalbideak ustiatzeko asmoarekin: ezen honela delako hitz batetik —aditzetatik, demagun— atera daitezkeen eratorri guztiak-edo emateko aukera handiagoa baita. Honen alde dator bereziki *-dor* bezalako atzizki batean antzeman dugun sarrera berrien eta desbideratzeen arteko lotura ia erabatekoa (§ 2.4.9).

Halaz ere, une batetik aurrera joera etimologiko hau ahulduaz doa eta B-tik aurrera bederen, arrastoren batek badirau ere, hiztegia definitzerakoan hutsaren hurrengo gertatzen. Hau lotu behar dugu lan egiteko forma zehatzari buruz geratu zaizkigun zalantzekin (§ 1.6): Alfabetatzeak B-tik aurrera AB, AC... erako orrietara *DAut*-eko sarrera-buruak zeuden ordenan aldatu zituela baieztatzeko ebidentziak eskaini dizkigu, guztiz ereduko oharkabeko desbideratzeak ere bere hartan gorde izan dituenen. Beraz, baliteke lan sistema hau hiztegiaren aurrera azkarrago ibili nahiak eraginda izatea. Zer egiten zuen orduan aurreneko zatian? Inolako ere A letra xehekiago aztertu beharko da erantzunik emateko, baina baliteke, sarreren luzera ere kontuan izanda, *DAut*-etik hitz nagusi bat hartu eta hartaz bururatzen zitzaion guztia —eratorriak ere barne— segidan apuntatzea.

Azpimarratu behar dugun beste datu bat, familiakako antolakuntzaren azpian ageri den adierakako antolakuntza da (§ 2.4.7.1), zeren eta inolako dudarik gabe euskaraz adieraren arabera ordain ezberdinak eman beharri zor baitaio.

Alfabetatzean eragin gutxiago izan arren, geroko gorde behar ditugu hurrengo ideia hauek ere: 1) Infinitiboa eta partizipioaren arteko lotura estua, *DAut*-i zor zaiona baina adierakako antolakuntzaren bitartez euskararen berezitasunari egokitua (§§ 2.1.1 eta 2.4.7.2), hala nola infinitiboa eta -se aditzaren artekoa (§ 2.1.3). 2) Grafiazko ez adostasunak (§ 2.4.2); gero astiroago miatu beharko ditugu (§ 6); 3) *DAut*-en nomenklaturan egindako ezabaketa (*passim*) eta sarrera zein azpisarrera berri batzuk (§ 2.4.9) ikusi ditugu dagoeneko atal honetako adibideetan; gaia beranduago berrartuko dugu (§ 4). 4) Sarrera errepikatuak, ziurrenik lan egiteko formari zor zaizkionak (§ 2.4.11).

3. Sarreraren edukiaz

Hiztegi bat defini dezaketen ezaugarrien artean bada multzo bat sarrera barruko informazioari dagokiona: zer jasotzen den sarrera bakoitzean, eta nola. Esku artean ditugun bi hiztegiak oso ñabarrak dira alde honetatik, eta hau bereziki azpimarratzekoa da *HH*-an, ereduak baino hizkuntza bat gehiago jasotzen duenez gero: hirueleduna izan arren, ez da erdarazko sarrera-hitza eta haren euskal eta latinezko ordainak huts-hutsean jasotzen dituztenetakoa, Larramendik ezagutu zituen aurreko hiztegiak —Landucci, Etxeberri eta Harriet— bezala; ez da, labur esanda, hiztegi itzultzaile hutsa, itzulpenarekin batera era askotako osagarriak eskaintzen baititu. Ñabartasun honen alderdi batzuk —gehienak— gaztelaniazko erudian aurkitu zituen: ez zen mugatu, beraz, *DAut*-eko nomenklatura (sarrera-hitzen zerrenda) kopiatzera; aitzitik, sarrerak osoki irakurri eta, buruan zeukan hiztegi egitasmoaren bahetik igaro ondoren, beharrezko edo interesgarri iruditu zitzaion guztia berera aldatu zuen, gauza asko alde batera utziaz, jakina, baina baita bere aldetik taiu bereko edo bestelako osagarriak erantsiaz ere.

Ereduarekiko erkaketaren bitartez, hortaz, honek zer eskaini zion, eta nola eta noraino baliatu zuen deskubritzen has gaitezke, baita zer erantsi behar izan zion eta, bide batez, batera eta bestera jokatzera eraman zuten zioez ere jabetzen.

Ezer baino lehenago, aurkezpen grafikoa dela eta antzemandako ezberdintasunek *HH*-ko sarrerak nola eragiten dituzten aztertuko dut, *DAut*-eko sarreraren osagaiak eta haien antolakuntza *HH*-koekin erkatuz (§ 3.1), eta bakoitzaren sarrera kanonikoa —ohiko osagaiez osatutakoa— deskribatuko (§ 3.2). Ondoko ataletan, berriz, batean eta bestean diren osagai ezberdinak aztertzeari ekingo diogu: gramatikazko informazioa (§ 3.3), edozertariko azalpenak (§ 3.4), adibideak (§ 3.5) eta errefrauak (§ 3.6). Sarreraren eduki osagarrietara mugatuko naiz oraingoz, gaztelaniazko sarrera-hitzak eta definizioak, hala nola euskarazko eta latinezko ordainak azterketatik kanpora utziaz, arreta berezia —eta azterketa oso bana— eskatzen dute eta.

Gertakari bakoitzaren maiztasuna eta hedadura neurtzen lagunduko digun corpus bat eratu dut (ik. 2. eranskina). A letran antzemandako funtsezko ezberdintasunengatik (§ 2.5)

iruditu zait zati jakin bat —letra bakar bat, adibidez— hautatzea arriskutsua izan zitekeela eta, horregatik, hiztegi osoko lagina lortzearren, alirizira lehenengo liburukian 6. orrialdetik eta bigarrenean 21.etik hasita, 50 orrialdero bat hautatu dut: orotara 17 orrialde oso eta 13 letra ezberdinen adibideak izango ditugu, era honetara: A (I, 6, 56 eta 106), C (I, 156 eta 206), D (I, 256), E (I, 306 eta 356), G (I, 406), I (II, 21), M (II, 71), O (II, 121), P (II, 171), R (II, 221), S (II, 271), T (II, 321) eta V (II, 371). Dena dela, behar eta ahalen arabera, *HH*-an zehar egindako bestelako ibilaldietan erdietsi ditudan xehetasunak ere erabiliko ditut noizean behin.

3.1. Makrosarrerak vs mikrosarrerak

DAut-ek "makrosarrerak" dei ditzakegunak ditu, grafikoki hierarkizazio estu xamar baten arabera (1) adiera ezberdinak bata bestearen jarraian, (2) esapideak¹²⁶ bi sailtan (lehen hitzaz beraz hasten direnak eta gero bestelako hitzez hasten direnak) alfabetikoki ordenatuta, eta (3) errefrauak alfabetikoki ordenatuta jasotzen dituztenak.

Ez da horrelakorik Larramendiren hiztegian, grafismoaren aldetik item ezberdinen artean inolako bereizkuntzarik egiten ez delako, hain zuzen, ikusi dugun bezala (ik. § 1.5.3). Beraz, beti grafismoari begira, Larramendiren hiztegia bereizkuntzarik gabeko eta maila ezberdinetako item segida bat da, "makrosarrera" "mikrosarreratan" zeharo barreiatuta geratzen delarik.

Honi gaineratu behar zaio alfabeto hurrenkerari jarraitzeko *HH*-an dagoen malgutasuna: Alde batetik, mikrosarrera direlako horiekin jadanik hausten da hurrenkera, besterik gabe, jatorrizko makrosarreraren osagaiak (esapideak, errefrauak, etab.) hasiera ezberdinekoak diren oro. Bestetik, hitzak familiaka eta familien barruan adieraka biltzeko joeragatik, baita bestelako arrazoiengatik ere (grafi aldaketak, etab.) hurrenkera kolokan geratzen da sarri. Labur bilduz, esan daiteke *HH*-ko mikrosarrerak, barriatuak izateaz gainera oso mugikorrek direla, agertuko diren lekua alfabetoaren hurrenkeraren baino hiztegitilearen behar eta asmoen arabera bago baita, eta haren edo inprimatzailearen hutsek erraz eragin dezaketena.

Inpresio hori areagotu daiteke gauzei gertuagotik begiratuaz: izan ere, *DAut*-ek gordetzen duen esapideen arteko alfabeto hurrenkera estua, sarritan hautsita agertzen da *HH*-an; ondoko adibidean aurrez aurre jarri ditut hiztegi bietan agertzen diren *pie* hitzaren esapideak,¹²⁷ *DAut*-en dagoen ordenaren arabera; zenbakiek *HH*-an daukaten ordena, batzuetan ezberdina, adierazten dute:

PIE DE ALTAR.	1 Pié de Altar.
PIE DE AMIGO.	2 Pié de amigo.
PIE DE GALLINA.	3 Pié de gallina.
PIE DE GALLO.	4 Pié de gallo.

¹²⁶ Oraingoz "esapide" hitza erabiliko dut adiera ez tekniko batean, benetako esapideak zein egun "kolokazioak" deritzenak barruan hartuaz. Bereizkuntzarako, ik. § 4.1.3.

¹²⁷ Larramendik hartu dituen item-ak bakarrik jasoko ditut; aurrerago (§ 4.1) aurki daitezke *DAut*-aren nomenklaturan ez eze makrosarreraren maila guztietan ere egin zuen inausketari buruzko xehetasunak.

PIE DE LIEBRE.	5 Pié de liebre.
A los pies de V.m.	6 A los pies de v.m.
Al pié.	7 Al pié de un roble, &c.
Al pié.	8 Al pié de, casi.
Al pié de la letra.	13 Al pié de la letra.
A pié.	9 A pié.
A pié enxuto.	10 A pié enxuto.
A pié firme.	11 A pié firme
A pié quedo.	15 A pié quedo.
En pié.	12 En pié, de pies.
En un pié de tierra.	14 En un pié de tierra.
Irse por pies.	16 Irse por pies.
Poner pies en pared.	17 Poner pies en la pared.
Poner pies en polvorosa.	18 Poner pies en polvorosa.

Larramendik hurrenkerari jartzen zion arreta eskasa oraindik hobeto antzematen da esapideen artean berak erantsitako zerbaitek agertzen denean, eta esan gabe doa grafi aldaketek ere ez dutela esapidea lekuz zertan aldatu:

PIEDRA	Piedra, arria.
_____	Piedra cenizal...
PIEDRA.	Piedra, granizo...
PIEDRA DE AMOLAR.	Piedra de amolar...
PIEDRA DEL AGUILA.	Piedra de el águila...
PIEDRA DE TOQUE.	Piedra de el toque...
PIEDRA INFERNAL.	Piedra infernal...
PIEDRA PHILOSOPHAL.	Piedra Filosofal...
PIEDRA POMEZ.	Piedra pómez...
PIEDRA PRECIOSA.	Piedra preciosa...
_____	Piedra de molino...
_____	Piedra de el saque en el juego de la pelota a mano...
A piedra y lodo.	A piedra y lodo.

3.2. Sarrera bakunak

HH-aren sarrera arrunta, bere izenak eta izanak eskatzen duen bezala, "GAZTELANIA, EUSKARA. LATINA" da, alegia, (1) erdarazko *input*-a, (2) euskarazko ordaina(k) eta (3) latinezko ordaina(k), ordena honetan. Adibidez:

Mañoso, el que tiene maña, industria, *trebea, cintzoa*. Lat. *Habilis, dexter*.
 Océano, *itsasoa*. Lat. *Oceanus*.
 Sanar, *sendatu, osatu, gueritu, erutsitu*. Lat. *Sanare, sanum facere*.
 Vertedero, vertedor, *isurteguia*. Lat. *Locus quo aqua effunditur*.

Gure corpusean honelakoak 658 dira (% 73,8).

DAut-en sarrera arruntak, ordea, askoz eduki berezi gehiago dauka: "HITZA. G.K. AZALPENA. LATINA. ADIBIDEA(K)", hots, (1) *input*-a, (2) gramatika-kategoria laburduraz adierazia, (3) azalpena edo definizioa, (4) latinezko ordaina(k) eta (5) liburuetatik ateratako adibideak; esate baterako:

ARVEJAL. s.m. Sitio donde se siembran y nacen muchas arvéjas. Lat. *Locus ervilia satus*.
 GRAC. Mor.fol.143. El vicio de criar caballos no quiere *arvejáles*, sino eras fertilissimas.

Bi hiztegien artean dagoen ezberdintasun hau erabat espero izatekoa zen: "The more languages included, the more difficult the problems become" (Landau 1989: 10). Eskuarki,

hizkuntza bat baino gehiago hartzen dituzten hiztegiak bakunagoak izateko joera dute. Zer esanik ez, bitik gora hartzen dituztenetan. Adibidez, "Sbarbi-Urquijo" deitu hiztegia, laueleduna, Larramendirena baino oraindik bakunagoa da, eta normalean hizkuntza bakoitzeko ordain bakarra, bi asko jota, jasotzen du, era honetara:

tabala: tympeum, l; tambor, c; tambour, fr.

tabere: postpos praeter quam quod, l; tras que, tras de, c; autre que, fr.

Ez da honelakoa Larramendiren hiztegia, ez eta bere gaztelaniako eredu ere. Gorago aurkeztu ditudan sarrera kanoniko haietan jasotzen dena gutxieneko informazioa da, baina batean zein bestean gehiago agertzen da sarritan. Honela deskribatu zuen Larramendik berak (1745: liv): "He puesto en los lugares y voces correspondientes, para suplir lo que en esto falta al Arte, muchissimos irregulares, que con mas frecuencia tienen uso en el Lenguage comun; muchos refranes, frases y modos de hablar". Beraz, aditz trinkoak, atsotitzak, esaerak eta esapideak itxaron ditzakegu gutxienez, baita horiexen ondoan aipatzen dituen etimologi ospetsuak ere, jakina. Ondoko ataletan bere esan hori zertan gauzatzen den, ereduak eskaintzen ziona nola erabili zuen eta bere aldetik zer erantsi zuen aztertzen saiatuko naiz.

3.3. Gramatikazko informazioa

Akademiak zenbait urte beranduago gramatika bat argitaratuko zuen. Larramendik, bere aldetik, urteak ziren kalean zuela. Bataren eta bestearen hiztegietan agertzen diren era honetako berriak ez dira, nolnahi ere, ez gutxi ez hala-holakoak. *HH*-ak oro har arreta gutxi jartzen die gaztelaniaren gorabehera gramatikalei, baina euskal gramatikazko osagarri mamitsu bat jasotzen du bere baitan, hiztegiaren eta gramatikaren arteko loturaren lekuko eta ondorio. Inondik ere, hiztegiaren informazioa bildu beharko da inoiz, Larramendiren ekarpen gramatikala bere osoan neurtuko bada.¹²⁸

3.3.1. Gramatika kategoriak

DAut-ek, sarrera kanonikoaren aurkezpenean ikusi bezala, sarrera guztietan laburdura sistema trinko baten bidez hitzaren kategoria eta are beste informazio batzuk (izenkien generoa, adizkien portaera sintaktikoa, etab.) eskaintzen ditu; hona hemen hasieran ematen duen laburduren zerrenda:

S.m. = "Nombre substantivo masculino", S.f. = "Nombre substantivo femenino", S.amb. = "Nombre substantivo ambiguo", "Adj. = "Nombre adjetivo", "Adj. de una term. = "Adjetivo de una terminación", Pron. = "Pronombre", V.a. = "Verbo activo", V.n. = "Verbo neutro", V.imp. = "Verbo impersonal", V.r. = "Verbo recíproco", Part.act. = "Participio activo", Part.pas. = "Participio passivo", Prep. = "Preposición", Adv. = "Adverbio", Interj. = "Interjección", Conj. = "Conjunción" (*DAut* 1726: lxxxx).

¹²⁸ Orain arteko hurbilketa bakanez, zatikazkoak —Alberdi 1989, deklinabideaz— zein orokorrak —Oiharçabal 1992, Larramendiren aurreko euskal gramatikagintza; Gómez 1992, Europako gramatikagintza tradizioak Larramendiren gramatikan utzi dituen aztarnez— izan, denek *Imposible Vencido* bakarrik hartzen dute aintzat.

Laburdura hauetatik, edo ordezkutzen dutenetik, ezer gutxi geratu da *HH*-an. Egon badaude batzuk baina, batetik, formaz aldakorak dira, inoiz hitza osorik emateraino iritsiaz;¹²⁹ eta, bestetik, *HH*-an zeregin zeharo ezberdina daukate gehienetan: adieren arteko bereizketa egiteko erabiltzen dituen baliabideetatik bat baino ez dira, eta ez inondik ere ohikoena (§ 5.3.1). Ezaugarri biok iragartzen duten bazterreko papera baino ez du betetzen gure corpusean, bost ale soilekin:

"Defensivo, va, adjetiv." vs "Defensivo, por *defensa*".
"Guay, interjección, lo mismo que *ay...*".
"Interrogatorio, subst." vs "Interrogatorio, adjet.".
"Intestino, adjet." vs "Intestino, tripas".

Han-hemen aurkitutako beste adibide batzuek halakoen betebeharrak nagusia adiera bereizketa dela egiaztatzen dute:

"Bien, adverbio" vs "Bien, el bien".
"Colorido, subst." [vs ematen ez duen partizipioa].
"Conventual, adjetivo" vs "Conventual" (cf. *DAut*: "...el Religioso que reside...").
"O, interjección" vs "O, conjunción".
"Panegyrico, substantivo" vs "Panegyrico, adjetivo".
"Peinado, substantivo" vs "Peinado" (partizipioa).
"Plano, substantivo" vs "Plano, adjetivo".
"Poco, adverbio" vs "Poco" (adjektiboa).

3.3.2. Maskulinoa / femeninoa

DAut-ek adjektibo eta partizipioetan forma maskulinoa buruan eta ondoren femeninoa ordezkatzeko duen bukaera jartzen ditu beti:

ABONANZADO, DA.	COBDICIOSO, SA.
ABONADO, DA.	COCCINEO, NEA.
ALEVOSO, SA.	

Honelako bereizkuntzarik ez dagoenean, laburdura batez baliatzen da:

COBARDE. adj. de una term.
DEFENSABLE. adj. de una term.

Izenetan, genero bereizkuntza "s.m." eta "s.f." bidez markatzen du, goiko laburdura bilduman ikus daitekeen bezala.

Larramendik, berriz, ez du honelako informaziorik jaso ohi. Gaurko begiz begiratuta —zilegi bekit unetxo batez *politesse* kontuak alde batera uztea—¹³⁰ normala eman lezake, euskal hiztegi bat egitea xede, genero kontuak aipatu ere ez egitea: ezen alferrikakoa da erabat, euskarazko ordainetan inolako erantzunik izango ez duenez gero. Haatik, XVII-XVIII.

¹²⁹ Ikusiko ditugun adibideen arabera, badirudi hiztegiaren bukaeran laburdurak utzi eta osorik emateko joera izan zuela.

¹³⁰ Gaurko hiztegi elebidunetan (aurrean daukadan Elhuyar 1996, adibidez) izenkietan femeninoa ere adierazten da, bai euskara-gaztelania zatian bai gaztelania-euskaran, *DAut*-en sistemaren antzera (*capitán*, *-ana* edo *catódico*, *-a*), baina ez da gaztelaniazko izenen genero gramatikala aipatzen: argi dago xedeak ez dela gaztelania erakustea.

mendeetan ez zen inolaz ere hain nabarmena, eta ez egitea Larramendiren berrikuntzatat jo behar dugu.

Urteren hiztegiaren bitxitasunetatik bat, *ema-* aurrizkia daukaten hitzak dira,¹³¹ erdarazko mask. / fem. bereizkuntza jasotzeko nahiak eraginda, zalantzarik gabe:

ema balesaltçáillea eta *emabaleaçálea* <-calea> "cetaria" vs *balea saltçaillea* eta *balea çalea* "cetarius" (IV, 450).
emacaçhcárota "circulatrix" vs *caçhcarota* "circulator" (V, 51-52).

Oso antzekoa da Landucciren hiztegiko aterabidea:

andra lagunçallea "ayudadora" vs *lagunçallea* <-callea> "ayudador" (230r).
andra oquina "amassadera"¹³² vs *guiçon oquina* "amassador" (233r).
andra dançaria "bayladera" vs *dançaria* "baylador" (239r).

Harrieten kasua doi bat ezberdina da, zeren eta "francez hitzcunça ikhasi nahi dutenen faboretan" egindako gramatika izanik, euskara-frantsesa hiztegian —baina ez alderantzizkoan— frantsesezko ordainen aldamenean "f." eta "m." laburdurez hitzaren generoa jasotzea normala eta are beharrezkoa baita, noski. Haatik, honek ere badu bitxitasun bat, alegia, adjektiboetan euskal sarrera-burua errepikatuta agertzea, erdal ordainaren genero bereizkuntzaren eraginez:

adisquidea, *ami*, m.
adisquidea, *amie*, f.

ahalguetia, *honteux*, m.
ahalguetia, *honteuse*, f.

bastarta, *batard*, m.
bastarta, *batarde*, f.

Larramendik bestek baino euskarari buruzko hausnarketa gehixeago egin zuela erakusten digu generoa zela eta hartu zuen erabakiarekin: izan ere, gramatikan bost orrialde oso eman zituen genero bereizkuntza izenkietan arrazoiaren arabera zergatik ez den beharrezkoa demostrazeko (Larramendi 1729: 250-255). Alabaina, ulertu behar da teorikoki halako zerbait aldeztetik eta praktika lexikografikoan gauzatzera urrats handi bat eman behar dela: euskal lexikografia erredundantziaren munduan murgilduta zegoen oraindik —gaztelaniazko infinitiboak eta partizipioak zein bere aldetik itzuli beharra, adibidez—, eta *DAut*-ek maskulinoa eta femeninoa sarrera bakarrean emateak nahikotxo lagundu bide zion *ema balesaltzaileak* eta *andra lagunzaileak* saihesten.

Dena dela, inoiz edo behin ereduko femeninoak itzuri zaizkio, nahiz behin ere euskal ordainetan eraginik izan gabe; corpusean bi baino ez ditut aurkitu, biak orrialde berean:

Defensivo, va < DEFENSIVO, VA.
Definitivo, va < DEFINITIVO, VA.

¹³¹ Ik. Urkizu 1989: I, 117. Ematen dituen adibideetan, oharkabeen agian, testuinguru horretan egon beharko ez litzatekeen *emasabela* "alvus", oso ezaguna eta hedatua (cf. *OEH*, s.v.), itzuri zaio. Esan beharrik ez dago, hiztegiaren "berregituran" (Urkizu, *ib.* 210-211) agertzen diren *emagin*, *emagura*, *ematu*, etabarren taldekoa dela, eta Urtek *ema-* aurrizkiak egiten duen erabilera berriarekin inolako zerikusirik ez duela. Bestalde, hobeto aztertu beharko litzateke *ema-* aurrizkiaren eta *-sa* atzizkiaren banaketa hiztegi honetan (ik. Urkizu, *ib.* 114), dirudienez zeharo konplementarioa.

¹³² Informatzailearen gaizki ulertua badirudi ere, ez da hala: cf. Nebrixa "amassador de pan, *pistor -oris*" eta "amassadera de pan, *pistrix, -icis*".

Erants bekizkie corpusetik kanpo atzeman ditudan hurrengoak ere:

“Buscon, buscona, *muscaria*, *billaria*. Lat. Quærens, inquirens” + “Buscon, na, quien hurta rateramente, y estafa con arte” < BUSCON, NA “En lo literal vale la Persona que busca; pero en este significado no tiene uso, y solamente se toma por la que hurta rateramente, o usa con malicia y arte de sacaliñas para estafar”.

“Camarera, camarero¹³³, *gambararia*, *gambarazaya*, *guelazaya*. Lat. Cubicularia, cubicularius” < CAMARERA + CAMARERO.

“Camarera, ro, mayor, *gambarari nagusia*. Lat. Reginae cubicularia, regius cubicularius” < CAMARERA MAYOR + CAMARERO MAYOR.

“Cantador, ra, véase *Cantor*” + “Cantor, *cantaria*, *otsastaria*. Lat. Cantator, vel cantatrix” < CANTADOR + CANTOR, RA.¹³⁴

Panadero, ra < PANADERO, RA.

Paniego, ga < PANIEGO, GA.

Papandujo, ja < PAPANDUJO, JA.

3.3.3. Gramatikazko azalpenak

DAut-ek, aipatutako marka sistematiko horietaz gain, batzuetan bestelako informazioa eskaintzen du "azalpena" deitu dudan atalean. Izan ere, hori egiteko asmoa lehenengo egitasmotik ageri da: “En los Verbos que tuvieren irregulares algunos tiempos o Personas, &c. se debe advertir: como en *Traher*, *Traxe*, en *Andar*, *Anduve*, &c. y lo anómalo que huviere en otros Verbos y Nombres” (*DAut* 1726: xv). Aztertutako corpusean hiru eratako berriak aurkitu ditut: (1) izenei buruz: “usado regularmente en plural” (s.v. *assensios*); (2) aditzei buruz: “generalmente se usa con la particula *se*” (s.v. *assentar*), “Usase mui frequentemente como verbo recíproco” (s.v. *maravillar*); eta (3) aditzen forma irregularrei buruz,¹³⁵ bi eratara: “En algunas Personas de los tiempos presentes recibe *i* antes de la *e*: como Yo me asiento, tu te assientas, &c.” (s.v. *assentar*; ik. *assentir*, *asserrar*, etab.) edo “Tiene la anomalía de mudar la *o* en *ue* en algunas personas de los tiempos presentes: como yo cuezo, cuece tu, &c.” (s.v. *cocer*), “Este verbo tiene la anomalía de los acabados en *car*” (s.v. *cocar*).

HH-an ez dago atal honetan aurrekoetan baino interes gehiago gaztelaniaren gramatikaz. Corpusean, honi dagokionez, iruzkin bakar bat kausitu dut: “Obstante, se usa con la negacion, *no obstante...*” < “OBSTANTE. (...) que solo tiene uso en la phrase No obstante...”. Handik kanpo, proposatutako euskal ordainaren eta erdal aditzaren erregimenen artean dagoen ezberdintasuna markatzen duen ohar bat ere badugu: “El castellano saber es impersonal en este sentido [“saber la comida...”], y el Bascuence *miuquitu* es activo” (s.v. *saber*).

¹³³ Jatorrizkoan *camarero* letra etzanaz agertzen bada ere, nabarmena da, batez ere lat. *cubicularia*, *cubicularius* argigarriari begiratuaz gero, ez dela euskal ordaina, gaztelaniazko hitza baizik, ezohiko mugagabeak ere suposaraz zezakeen bezala. Hizka jokatzen duenez gero, ez da harrigarria *OEH*-ak (s.v.), honetaz ohartu gabe, Larramendik euskaraz *kamarero* dakarrela jasotzea.

¹³⁴ Sarrera honetakoa interesgarria da, zeren eta *DAut*-ek (s.v. *cantor*, *ra*) latinez *Cantor*, vel *Cantator*, hots, maskulinoa bakarrik eskaintzen baitu eta, beraz, Larramendik osatu baitu latinezko femeninoa, gaztelaniaz bukaera femeninoa jarri ez badu ere.

¹³⁵ Hau ez da batere ohikoa, batez ere geroko hiztegieta. Ik. honi buruzko iruzkina Lázaro Carreter 1981: 104n.

Euskararen aldetik, ordea, oso arlo garatua da Larramendiren hiztegia. Azpimarratzekoa da *HH*-an agertzen den informazioa maizenik berria dela, hots, gramatikan ez dagoena edo gramatikan dagoena baino zehatzagoa. Zalantzarik gabe, hiztegia gramatikaren eranskin ez eze osagarritzat hartu zuen.

3.3.3.1. Aditzak nola joka

Hauxe da *HH*-ko gramatikazko ohar gehienen gaia. Hiru bidez baliatzen da Larramendi irakurleari hau zehazteko:

1) Adibideen bitartez:

Abonar, dar por bueno, *ontzatú, ontzát emán*. (...). Le abonó en cuentas aquel dinero, *ontzatu cion cóntuetan diru hurá, ontzat artu cion*.

Abordar una Nave a otra (...), *ertzatu*. Se han abordado, *ertzatu dirade*.

Aborrecer, *gorrotatu, gaitzetsi, higuindu, gorrotoa, gaitzerizcoa, gaitziriztea izan, iduqui*. (...) Me aborreces, te aborrezco, *gorrotatzen nazu, gorrotatzen zaitut; gaitzesten nazu, gaitzesten zaitut*. Item *górrotoa, gaitzerizcoa, gaitziriztea didazu, gorrotoa, gaitzerizcoa, gaitziriztea dizut*.

(Ponérsele a uno algo en la) cabeza, *bururatu, buruan jarri, buruac eman, burutaciñoac emon*. (Púsosele en la) cabeza, *bururatu zayo, buruac eman dio*.

2) Laguntzaileak erantsiaz:

Assentir, *nayeratu, guraeratu, naiz, cera, da*.
Temer, *bildur, beldur naiz, cera, da, &c*.

3) Ageriko oharraz:

NOTA.

Nazcatu, nagatu significa mover la ofensión y aborrecimiento, y esso lo haze el objeto; y por esso para dezir que abomino el pecado, no diré *nazcatzen det pecatua*, sino *nazcatzen nau pecatuác*; abomino la porquería, *nascatzen nau urdaqueriac*. También dezimos bien en la passiva, *nazcatzen naiz pecatuáz, urdaqueriaz...* (s.v. *abominar*).

Embarcar, *embarcatu, itsasgoitu, onciratu*.

Embarcarse, *embarcatu, itsasgoitu, &c*. con las terminaciones de el neutro.

Sanar, *sendatu, osatu, gueritu, erutsitu*.

Sanar, cobrar la salud, *sendatu, &c*. con las terminaciones de el neutro.

Templar apetitos, &c. *gogurritu, goguirotu, templatu*.

Templarse, *gogurritu, goguirotu, y las terminaciones de el neutro*.

Adibide bidezko sistemak batez ere A letrako gertakari dela dirudi: edozertariko aditzen jokoa azaltzeko balio du baina, arrazoiren bategatik, une batetik aurrera halako zehaztasunak beti emateari utzi zion;¹³⁶ honen orde, era bateko aditzak bakarrik markatzeari ekin zion, eta termino markatuak aditz iragangaitzak izan ohi dira: berez iragangaitzak direnetan laguntzailea erabiltzen duen bitartean, ageriko oharra erabilera iragankor eta iragangaitza —"aktiboa" eta "pasiboa" Larramendiren terminologian—, biak dauzkaten adizetan baliatzen du.

Corpusean birritan baino ez dira aurkitzen iragankorra eta iragangaitza biak sarrera-buruan, jokoa irakurlearen eskuetan utziaz: "Evadir, evadirse" eta "Internar, internarse".

¹³⁶ Beraz, kontu honek azal dezake, aldez bederen, A letrako sarreren luzera handiagoa.

3.3.3.2. Aditz trinkoak

Aditz trinkoak, Larramendik "irregular" deitzen zituen haiek, bere gramatikako 232-240. orrialdeetan azalduta agertzen dira, paradigma zenbaitekin. Hantxe zioen "No pongo más irregulares por evitar prolixidad, y por la misma razón dexo de poner algunas observaciones" (Larramendi 1729: 240). Hiztegirako gorde bide zituen xehetasunok. Izan ere, jadanik hitzurrean iragarri zuen, aipatu dugun bezala: "He puesto en los lugares y voces correspondientes, para suplir lo que en esto falta al Arte, muchísimos irregulares..." (Larramendi 1745: liv).

Gainbegirada batez, badirudi batetik besterako aldea honako puntuotan datzala:

1) Gramatikan eman zituen paradigma eskematikoak denbora, aspektu eta pertsona guztietan osatzen saiatu zen. Honen barruan aipamen berezia merezi dute NORI barneratzen duten adizkiek; erka ditzagun, adibide ttiki bat ematearren, *egon* aditzaren bietako paradigmak NOR *ni* denean:¹³⁷

1729	1745
nágoca	nagoca
néngocan	nengocan
nágocac, nágocan	—————
nágotzu	nagotzu
	nengotzun
nágotzute	nagotzute
	nagocate
	nengocaten

2) Aldaerak —puntuozkoak zein orokorrak, beste euskalkietakoak zein gizpuzkeraren barrukoak— eskaintzen ditu, gehienetan lehenengo aldiz. Adibidez, *ekarri* aditzaren NOR pluraleko adizkiak hauexek dira:

1729	1745	1729	1745
dácartzit	dacartzit	dácartzigu	dacartzigu
	dacazt		dacaizcu
	dacardaz		dacarguz
	dacazquit		
dácartzic, in	dacartzic, in	dácartzizute	dacartzizute
			dacaitzute
			dacarzuez
dácartzi	dacartzi <-tiz>	dácartzite	dacartzite
	dacaz		dacazte
	dacazqui		dacaze
dácartzitzu	———— [oharkabeen janda]		
	dacaitzu		
	dacarzuz		
	dacazquitzu		

3) Bateko eta besteko adizkiak ez dira nahitaez berberak.¹³⁸ Eta aldaketa gehienak, dirudienez, pluraleko formetan (*zu* barne) gertatzen dira. Jar dezadan adibide pare bat (*egon*-

¹³⁷ Gogoan izan behar da *HH*-an *egoqui* aditza tartean sartzen duela, eta honi dagozkion paradigmak lehen lekuan ematen; hortik dator *hiri*-renak ez jaso izana.

¹³⁸ Ez dago esan beharrik, hau ondoko idazle eta gramatikagileengan aztertu beharko litzatekeela, alegia, Larramendik honetan ere eragina izatekotan, nondik gehiago: gramatikatik ala hiztegitik?

etik bata eta *irakin*-etik bestea), adizkiak pertsonaka antolatuta eta ezberdinak izarrak nabarmenduaz:

1729	1745
nágo	nago
ágo	ago
zágoz, záude	zagoz, zaude
dágo	dago
gágoz, gáude	gagoz, gaude
*zágoze, záute	zaute, *zaudete
dágoz, dáude	dagoz, daude
néngoan	nengoan
*égoan	*engoan
*cégozan, céunden	*cengozan, ceunden
cégoan	*egoan, cegoan
*guégozan, guéunden	*guengozan, gueunden
*cégozaen, céundetén	*cengozaten, *ceunten, ceundetén
*cégozten, ceuden	*cegozan, ceuden
níraquien	niraquien
*círaqizun	*ceniraquien
círaquien	ciraquien
*guíraquigun	*gueniraquien
*círaqizuten	*ceniraquiten
ciraquiten	ciraquiten

4) Zenbaitetan gramatikan emandakoari aski zeritzon. Dakidalarik, hau *etorri*-rekin ("Véanse así los absolutos como los transitivos en el Arte, donde están a la larga", Larramendi 1745: II, 367) eta *izan*-ekin ("Véanse sus irregulares en el Arte", *ib.* 285) bakarrik gertatzen da.

5) Hutsuneak aitortu ohi ditu:

El verbo *irozo*, aguantar, tenía o tiene sus irregulares, y se colige de este modo de hablar, *daguienac darizola*, el que lo hiziere, que lo aguante y sufra, pero no los tengo presentes (Larramendi 1745: I, 41).

No pongo las terminaciones relativas [*ikusí*-renak] por no tenerlas muy presentes ni averiguadas (*ib.* II, 369).

6) Talde handi bat lehendabizikoz agertzen da. Hona hemen batean edota bestean agertzen direnen behin-behineko zerrenda, inoren lana erraztuko duelakoan eskainia:

*EDUN: 1745: II, 323.	EZAGUTU: 1745: I, 222.
EGIN: 1745: I, 410-417.	IBILLI: 1729: 245; 1745: I, 72-73 eta 75-76.
EGOKI: 1745: I, 350-352 eta II, 166.	IDURI: 1729: 246; 1745: II, 144.
EGON: 1729: 244; 1745: I, 350-352.	IKUSI: 1745: II, 368-369.
EKARRI: 1729: 236-238; 1745: II, 338-341.	INOTSI: 1745: II, 54.
ENTZUN: 1745: II, 124.	*-IO-: 1745: I, 254.
ERABILLI: 1729: 241-242; 1745: I, 73-75 eta II, 102-105.	IRAKIN: 1729: 247; 1745: I, 424.
ERAMAN eta EROAN: 1729: 238 eta 240; 1745: II, 48-53.	IRAUN: 1729: 248; 1745: I, 302.
ERAUNSI: 1745: II, 54.	IROZO: 1745: I, 41.
ERAUSI: 1729: 248-249; 1745: I, 409-410.	ITXEKI: 1745: II, 155.
ERITZI: 1729: 246-247; 1745: II, 47 eta 144.	IZEKI: 1745: I, 94.
ERRAN eta ESAN: 1745: I, 254.	JAKIN: 1729: 242-243; 1745: II, 265.
ETORRI: 1729: 168-195; 1745: II, 367.	JARDUN: 1745: I, 76.
ETZAN: 1745: I, 24 eta 303.	JARIO: 1729: 247; 1745: II, 65-66.
EUKI edo IDUKI: 1729: 234-236; 1745: II, 323.	JARRAI: 1745: II, 278-279.
	JOAN: 1729: 245-246; 1745: II, 23-24.
	UTZI: 1745: I, 289.

Zerrendan salbuespen batzuk ageri diren arren, oro har paradigmak hiztegiari behin baino ez ditu jarri ohi; hortaz, dauden lekura igortzen duten deiak sarritan aurkitzen ditugu:

Véanse en el verbo *parecer* los irregulares de el *irudin*, que sirven comúnmente (s.v. *asemejarse*).

Sangrar, arrojar sangre, *odola jario*, con los irregulares *dariot*, *dariozu*, *dario*, &c. que se pueden ver en la voz manar.

batzuetan jakintzat ematen badu ere: "Assentar bien o mal alguna cosa a alguno, *egoqui*, con los irregulares *dagoquit*, &c."

7) Larramendik trinkoak irregulartzat izan zituen arren, inoiz haien erabilera hitz berrietara hedatzeko gomendatzen du:¹³⁹

Deducir, *becarri*, *bejeistu*. (...). Este verbo *becarri* admite los irregulares de *ecarri*, que se pueden [ver] en la voz *traer*: v.g. *bedacart*, *bedacarzu*, &c. lo deduzco, lo deduces.

3.3.3.3. Bestelako oharrak

Gure corpusean, han-hemen, era askotako oharrak dakuskigu, gehienak morfosintaktikoak; hona hemen direnak:

Así que, denotando tiempo, se haze con la terminación verbal correspondiente al *desde que*, véase; y también *quando*, que es *anean*...

(Al) cabo, al cabo de, lo mismo que después de, *buruan*, *ondoan*, pospuesto al genitivo precedente, al cabo de dos días, *egun biren buruan*. Item *ezquero*, con nominativo precedente, *egun bi ezquero*.

(En una) ocasión, en cierta ocasión, *bein batean*, *mugaldi batean*. En otra ocasión, *beste batean*. Siendo futuro el verbo, *urangoan*.

No obstante, siguiéndose plural, *eztirálá ansi*; no obstante las fuerzas y costumbres, *eztiradelá ansi indar ta oitura guciac*.

Pie, tronco u árbol, *zutondoa*, *zucoitza*. (...) Item *ondo*, pospuesto al nombre de el árbol, como *sagarrondoa*.

Azkenean geratuko gara zertxobait.¹⁴⁰ Gramatikan bada atal bat ("Formación de los nombres substantivos y adjetivos", Larramendi 1729: 264-268) eratorpenari buruz, eta bertan atzizki zenbaiten kontu ematen da. Hiztegian, ordea, hauei buruzko oharrak ez dira falta, bai zein eratako atzizkiak diren, bai erroari nola eransten zaizkion erakusteko eginak. Gehienak, oker ez banago, etimologietan aurkitzen dira; hona adibide bana:

Algarada, grito y vozería, es voz puramente Bascongada, de *algara*, grito, y la terminación *da*, y significa el modo de la acción. Lat. Vociferatio.

Baxío, viene de el Bascuence *beajo*, que significa dar o tocar en lo baxo, de *bea* y *jo*. *Bea*, *pea*. *Bea*, quando lo baxo no se contrahe a alguna cosa; *pea*, quando viene contrahido y se pospone.

Baina ez etimologietan bakarrik:

Capaz de hazerse, dezirse, &c. *quizuna* pospuesto al infinitivo, *eguinquizuna*, *esanquizuna*, &c. (I, 171).

Esta preposición *con* haze parte de muchas voces compuestas, y sus simples quedan puestas hasta aquí y se pondrán en otras letras. En esta composición la voz *con* significa por lo común junta, simultad con otro en la acción, calidad y oficio, &c. Esta simultad la explica el Bascuence con las voces pospuestas *quideá*, *quida*, v.g. *aitaquidea*, compadre, *amaquidea*, comadre; *aitaquidatu*, hazerse compadre; y así en las demás voces (I, 216).

¹³⁹ Ustekabean idorotako adibidea da; ez dakit, beraz, gomendioak norainoko eragina izan zuen.

¹⁴⁰ Hizpide eman didan adibidekoa, hala nola beherago azalduko diren zenbaitetakoak ere, ez dira benetako atzizkiak, jakina, antzeratsu dabilzan posposizioak-eta baizik (cf. Azkarate 1991: 103-107). Halaz ere, ez dirudi maila honetan bereizkuntza esanguratsua denik.

NOTA.

Zaya y *zaina* vienen comúnmente en composición y pospuestos, como *mastizaya*, *mastizaina*, guarda viñas, *irurazaya*, guarda riberas, y por eso al Pastor, que es guarda de el ganado, *arzaya*, al arriero, *mandazaya*, &c. (I, 404).

Lugar, quando viene con otro nombre, como lugar de páxaros, &c. entonces se pospone *lecuá*, *toquia*: *chori lecuá*, *choritoquia*, *chorien lecuá*, *toquia*; o se pospone el nombre pospositivo *teguía*, que siempre viene en composición, de que se componen nombres sin número (II, 57).

Eratorpenezkoekin batera, euskal deklinabideari buruzkoak bide dira *HH*-an maizenik agertzen diren oharrak, eskuarki erdal preposizioen azpian kokatuak; adibidean gardena da *para* preposizioaren sarrera euskararen arabera antolatu duela:

Para, preposición, viene en varias circunstancias, y le corresponden en Bascuence diferentes preposiciones.

Para, quando corresponde el dativo a los nombres, *rénzat*, *réndaco*, *rentzaco*, v.g. para el padre, *aitarentzat*, *aitarendaco*, *aitarentzaco*. Véanse en el Arte, las que corresponden a los pronombres.

Para, denotando el orden o fin, sea con verbos, sea con nombres, *eraco*, para comer, *játeraco*, para beber, *edáteraco*. Y también *teco*, *tzeco*, *játeco*, *edáteco*, *etórtzeco*, *amátzeco*, *aditzeco*, &c. *Mendiraco*, *mendietaraco*, para el monte, para los montes. Lat. Ad, in, ut.

Para, azia algún lugar, véase *azia*.

Para con, *réquico*. Lat. Erga. *Aitarequico*, para con el padre, *nerequicó*, para conmigo, *berequicó*, para consigo. Siendo plural, *equico*, *gurásoequico*, para con los padres, *guizónequico*, para con los hombres.

Para, señalando tiempo, *eraco*. Lat. In. *Oguei urteraco*, para veinte años, *datorren urteraco*, para el año que viene, *joan dan asteraco*, para la semana pasada. Siendo plural, *taraco*, *era áetaraco*, para aquellos tiempos; y también, si es singular, acompañado, &c. por nombres pospuestos, *erri artaraco*, para aquella tierra, *eché onetaraco* <-teraco>, para esta casa.

Hona hemen beste era batzuetako azalpenak, bata euskalki bateko —lapurterazko— berezitasun batez, bestea ohar historikoa, *HH*-aren aberastasunaren ez eze Larramendiren jakinduriaren zein senaren kontu ere eman dezaketanak:

Más, aun quando viene con verbos, en un dialecto es *ago* pospuesto entre el modo de infinitivo y la terminación: *jatenago du berceac baño*, más come que el otro, *edertzenago da*, más se hermosea, &c.

Este verbo *irudi* o *iduri*, tiene sus irregulares, de los cuales colijo que es *irudi* y no *iduri*, aunque es el más usado, pues no se dize *didurit*, sino *dirudit*, &c. (II, 144).

3.3.3.4. Larramendiren "nota"-k

HH-aren berezitasun bat, *DAut*-en ez dagoena, han-hemen agertzen diren *NOTA* izeneko atalak dira. Denak bilduta, orotara 35 daude hiztegian zehar, haietatik 18 A letran. Larramendik morfologia, joskera eta semantikazko azalpenak emateko erabili ohi ditu eta, beraz, edukian ez dira gehiegi aldendu goian ikusi ditugun izenbururik gabeko oharretarik.

Gehienak (20) aditz baten trinkoak jasotzeko dira (cf. *supra* § 3.3.3.2); gehiengo hau, batez ere A-tik aurrerako letretan igartzen da:

I, 72 (*ibili*).

I, 72 (haren jarraipena, NORI erantsita).

I, 73 (*erabili*).

I, 75 (*ibili*-ren ahalerazkoak).

I, 76 (*jardun*).

I, 94 (*izeki*).

I, 302 (*iraun*).

I, 303 (*etzan*).

I, 345 (*itxedon*).

I, 350 (*egon* eta *egoki*).

I, 409 (*erausi*).

I, 410 (*egin*).

II, 47 (*eritzi*).

II, 48 (*eraman* eta *eroan*).

II, 53 (haien jarraipena, ahalerazkoekin).

II, 54 (*eraunsi* eta *iñotso*).

II, 65 (*jarío*).

II, 124 (*entzun*).

II, 166 (*egoki*).

II, 368 (*ikusi*).

Sei bider, emandako ordainen azalpena eskaintzen du, zergatik hautatu dituen edo haien artean zein ezberdintasun dagoen zehaztuaz. Bat, *zaia*, *zaina*, etab. azaltzen dituen (I, 404), gorago ikusi dugu (§ 3.3.3.3). Hona hemen besteak:

Abolladura, *abollantza*, *zacona*, *zocona*, *cosca*. Item *abollatzea*, *zacontzea*, *zocontzea*, *coscatzea*, *maliatzea*, *mallatzea*.

NOTA.

A lo que está hundido en redondo llama el Bascuence *zacona*, *zocona*; v.gr. *platera zacona*, *erretillu zocona*; y de aquí se hazen *zacondu*, *zocondu*. (...) A las esquinas o prominencias en plano y en el medio llamamos *coscac*; y de aquí *coscatu* al hazer estas prominencias (...). Magullar una cosa, dezimos *maliatu*, *mallatu*... (I, 5).

Abroquelarse, cubrirse con el broquel, *broqueldu*, *ezcutatzea*, *ezcutuaz estaltzea*, *gordetzea*.

NOTA.

Al esconderse y guardarse uno, llamamos *ezcutatu*, de la palabra *ezcutua*, que significa escudo y broquel, y escudo viene del Bascuence. Y como abroquelándose se esconde y guarda la parte que se quiere defender, por esso abroquelarse es *ezcutatzea*. Véase *escudo* y *escudarse* (I, 9).

Albedrío, libertad, *escucoera*, *autaquiña*.

NOTA.

No está en mi albedrío es no está en mi mano, y lo dize el Bascuence con lo que corresponde a esta última frase, *eztago nere escuan*. De aquí dezimos *ez naiz nere escuco*, no tengo albedrío; y para explicar este modo de tener o no tener mano, llama al albedrío *escucoera*. El albedrío es la potencia que haze elección de las cosas; elegir dezimos *autatu*, y a la potencia de esta elección *autaquiña* (I, 50).

Alentar, respirar, *asnase artu*, *ats eguin*.

NOTA.

Atseguin propriamente es respirar y tomar huelgo; y porque esto alegra y consuela, llamamos también *atseguña* a la alegría y gusto (I, 55).

Transubstanciar, *bestegopetu*.

NOTA.

Esta voz Theológica *bestegopea* en su composición, y el verbo *bestegopetu* son de mi invención; pero guardan toda la significación theológica. *Egopea* filosóficamente es la sustancia, *bestea* es otra, y *bestegopea* otra substancia. De aquí *bestegopetu*, según el carácter de la Lengua, es hazerse otra substancia o convertirse en ella, *bestegopetzea* la conversión de una substancia en otra (II, 343).

Sei bider, aditza nola joka erakusten duten oharrak dira (cf. § 3.3.3.1), eta ohartu informazio bat baino gehiago jasotzen duten oharrak badirela (kasu honetan, *eraunsi* eta *iñotso*-rena):

I, 6 (*nazkatu*).

I, 31 (*gurtu* eta *gurkatu*).

I, 39 (*oniritzi*).

I, 110 (*arretatu* eta *oartu*).

I, 298 (*min izan*).

II, 54 (*eraunsi* eta *iñotso*).

Bitan, hitzaren ordainen artean jasotzen ez diren erabilera jatorrak eskaintzen ditu:

Agradecer, *esquerreman*, *esquerreguin*, *doaiquertú*.

NOTA.

Decimos con elegancia, *esquér náztatzu*, *esquér nátzayo*, *náztaca*, *esquér natzatzue*, *esquér nátzaye*, *náztayote*, *náztatee*, yo te agradezco, le agradezco (...). Véase *esquér* en la palabra *gracias* (I, 39).

Anteceder, preceder, *aurreratú*, *aitzindu*.

NOTA.

Mejor se hazen con *aurrera joan*, *aitzinat gan* y los irregulares transitivos de el verbo *joan*, que pueden verse en la palabra *venir*. Me antecede, *aurrera dijoaquit*, *doaquit*; le antecedo, *aurrera noaquoio*, &c. (I, 79).

Behin, etimologia baten eztabaida:

Censuran algunos a Nebrija, porque dixo *vicinus* por *aldeano*. Pero si se atiende a la significación radical y primitiva de *aldeano*, se debe dezir *vicinus*, vezino o cercano; pues, como acabamos de dezir, *aldea* significa vezindad y cercanía... (I, 54).

Eta behin, azkenik, *ibili* eta *erabili*-ren arteko ezberdintasunaz dihardu (I, 73).

3.4. Azalpenak

DAut-en sarrera kanonikoa deskribatzerakoan, atal bati "azalpena" izena eman diot. Berez, hitzaren definizioa jasotzen duena da. Alabaina, *DAut*-ek definizioaz gaineko era askotako informazioa batzen du azalpen hauetan; besteak beste, honelako datuak eman nahi zituzten akademikoek: "En cada Voz expressar su qualidad: conviene a saber, si es antiquada, o usada; si es baxa o rústica; cortesana, curial o Provincial; equívoca, proverbial, metaphórica o bárbara" (*DAut* 1726: xvi).

Larramendik, gaztelaniari dagokionez, orokorrean kendu egin dituen gauzak dira; euskarari dagokionez, berriz, alde honetatiko berri zenbait eskaintzen ditu, dirudienez etimologietan batez ere. Ondoko ataletan, beraz, zer gorde duen eta zer ez, zer erantsi duen eta nola zehazten saiatuko naiz.

3.4.1. Entziklopedi informazioa

Teorikoki bederen, hiztegiak eta entziklopediak zeharo gauza ezberdinak dira: "Dictionaries are about words, encyclopedias are about things" (Landau 1989: 6; ik. Haensch *et alii* 1982: 128-133 ere). Praktikan, ezaugarri batzuk (alfabeto hurrenkera, adibidez) ia beti elkarrekin izateaz gain, bien izaeratik zerbait duten hiztegiak, edo entziklopediak, edo entziklopedi hiztegiak, asko eta asko dira.

DAut, inolako zalantzarik gabe, alde honetatik hiztegi mistoa da: entziklopedia baten lehen ezaugarria ez du betetzen, alegia, ez du normalean izen berezirik hartzen;¹⁴¹ baina bigarrena bai: "a prodigality of comments in ordinary words that seems far in excess of the need for sober definition" (Malkiel 1975: 14). Hitzaren definizioarekin batera, sarritan informazio entziklopedikoa jasotzen du, hots, hitzaren baino gauzaren deskribapenari gehiago —edo erabat— dagozkion azalpenak. Ale batzuk atera ditut corpusetik, baina halakoak ehundaka dira:

CABEZON. Una media luna de hierro, redondo por afuera y por la parte de adentro con unos dienteillos, la qual a sus extremos tiene unas asillas a que se atan unos ramales gruesos hechos de cáñamo, y puesto este instrumento sobre las narices del potro u de algun caballo mui soberbio, afianzado a la cabezada del freno para que no se caiga, le sujeta y mortifica de modo que le hace obedecer al freno.

COCA. Es tambien cierta hoja pequeña y verde, que se cría en el Perú y nace en unos arbolillos de cosa de un estado de alto. Críase en tierras calidissimas y húmedas, y se coge cada quatro meses. Los Indios la estiman mucho, y su uso es para traerla en la boca y mascarla chupándola: y aunque no la tragan, dicen les mantiene y da esfuerzo.

Juego de la Oca. Cierta juego que está pintado en un mapa en forma de óvalo, con sesenta y tres casillas, que van subiendo desde el número primero, y todas las que cuentan nueve tienen pintado un ganso, y tiene otras figuras en varias casas, como son Puente, Pozo, Barca, Muerte. Juégase con dos dados, y segun van saliendo los puntos, va corriendo el juego, que cada uno señala con un tanto en el punto donde ha llegado. El que cae en la casa de la Oca

¹⁴¹ Cf. "...y por consiguiente quedarán excluidas del Diccionario todas las voces y nombres propios de Personas y Lugares que pertenecen a la Historia y a la Geographía" (*DAut* 1726: xv).

passa otros tantos puntos como ha echado. El que en la Puente paga y passa al numero 12. El que en el Pozo o la Barca, se está allí hasta que otro le saca, y el que en la Muerte, vuelve a empezar de nuevo...

TEMPLARIOS. Orden de Caballería que tuvo principio por los años de 1118. Sus fundadores fueron Hugo de Paganis y Jofre de S. Ademaro. Su Hábito era un manto blanco, a que añadió Eugenio III. una Cruz roxa. Su instituto era asegurar los caminos a los que iban a visitar los Santos Lugares de Jerusalem, y exponer la vida en defensa de la Fé Cathólica, lo que acreditaron gloriosamente por espacio de docientos años, y se extinguió en el Concilio de Viena.

Hiztegi huts batek bestelako azalpenak —eta batez ere askoz laburragoak— emango lituzke hitz hauei buruz. Dagoeneko esan dugun bezala, hiztegi eleaniztunak bakunagoak izan behar eta, horregatik, ez da batere harritzekoa honelakorik ia batere ez berragertzea *HH*-an: erdarazko azalpenek, daudenean, beste era bateko zeregina izan ohi dute, adieren arteko bereizketa agertaraztea, alegia (§ 5.3.1). Dena dela, *DAut*-eko iruzkinen hondakin batzuek iraun dute bere hartan, hangoen aldean labor eta urri diren arren. Hona hemen adibide luzeenetariko batzuk, aldean *DAut*-en pasarteak daramatzatela, Larramendik nola egokitu dituen ikus dezagun:

ABANINO. Moda que en España introduxeron las Damas de Palacio, que se reducía a una porción de gasa blanca de un palmo de largo, entorchada con unos como bollos, la qual se ponía atravesada u ondeada en el escote del jubon como los bobillos o maragatos: y con esta señal u divisa (que solo podían traer estas Damas) se distinguían de las demás...

Abanino, moda de que usaban las Damas de Palacio, y era un pedazo de gassa blanca, atravessada en el escote de el Jubon.

ABATANAR. Batir y golpear el paño en el batán para que se limpie del azeite, y se incorpore y apriete mejor.

Abatanar, golpear los paños en el batán para que se tupan y limpien de el azeite.

ALEXIJAS. Es una especie de puches, solo diferente en el nombre del farro: pues de hacen como este de la cebada quebrantada y medio mólida despues de tostada y mondada, la qual se cuece con agua y sal hasta que se espessa (...). Tamarid las llama Alexías; pero el uso comun con que se pronuncian en Andalucía, donde se venden publicamente por las calles...

Alexijas, puches que se hazen de cevada, agua y sal (...); se venden en Andalucía.

CAPRICORNIO. El décimo signo del Zodiaco y quarto de los Australes, que corresponde al mes de Diciembre, (...). Entra el Sol en este signo, segun reglas Astronómicas, cerca de los 21 de Diciembre.

Capricornio, signo de el Zodiaco en que entra el sol cerca de los 21 de Diciembre.

COCA. Droga o hierba que comunmente llaman los Boticarios y Herbolarios coco de Levante o Levantino, lo qual creen los mas ser el fruto de la Aristolochia clematítide, y otros...

Coca, yerba, (...). Los Boticarios la llaman Coco de Levante.

EGIRA. Voz Arabe que significa fuga y salida. Usan de esta voz los Arabes para el cómputo de sus años. Lat. *Egira*. MARIAN. Hist.Esp. lib.6. cap.26. Desde este tiempo quando Mahoma se llamó rey, comienzan los Arabes a contar los años de la *égira*...

Egira, significa fuga. De la que hizo Mahoma cuentan sus años los Arabes.

Informazio mota hau inoiz erdaraz gabe euskaraz gorde da. Ez dago, dakidalarik, beste adibiderik XX. mendera arte: nabaria da, beraz, *HH*-an dauden gutxien garrantzi berezia. Hona hemen entziklopedi informazioari hobekien egokitzen zaion adibidea:

Juego del *abejón*. Llámase así el juego de que usa la gente rústica por entretenimiento, y se executa entre tres personas puestas en hilera. El que está en medio abierto de piernas, y juntas las manos, moviéndose a un lado y otro, hace un ruido con la boca al modo del del *abejón*: amaga a uno de los dos que están a los lados, que le esperan con un brazo levantado, y la mano del otro puesta en la mejilla, y da al que se descuida un golpe en la mano que tiene puesta en el carrillo; y si no hurta, y aparta tan presto el cuerpo, recibe otro del que le está esperando.

(Juego de el) *abejón*, *listor jooa*, *irurén ártean eguiten da*, *erdián dagoana listor*, *ta masallean jotzera*.

3.4.2. Informazio diakronikoa

DAut-ek garai guztietako hitzak jasotzen ditu;¹⁴² hau dela eta, hitz eta adiera zaharrak zein zaharkituak banan-banan markatzen ditu:

ABONDO. Término antiguo que significa lo mismo que...
 ALEVE. (...) Es término antiguo, pero mui usado en el language Castellano antiguo, y en las leyes.
 ALFAGEME. (...) Está antiquada,...
 ASSEGURANZA. (...) Es voz antiquada.
 COCA. Antiguamente significaba lo mismo que...
 MAÑERA. Se llamaba en lo antiguo...

Larramendiren hiztegiak *DAut*-ek eskaintzen dituen hitz zahar eta zaharkitu asko hartu ditu, eta ez arrazoirik gabe: Ez genuke ahaztu behar, bere hipotesiaren arabera hitzak zenbat eta zaharrago, hainbat eta euskaratik hurbilago egon daitezkeela. Era honetako informazioa bestelakoa baino sarrago gorde ohi du, beraz: gure corpusean diren sarrera-azpisarreretatik 65ek honelako iruzkinak daramatzate *DAut*-en; *HH*-an dirauten 24etatik 15ek (%62,5) gorde dute.¹⁴³ Ikus ditzagun, *DAut*-en lekukotasuna aldean dutela:

<i>HH</i>	<i>DAut</i>
Alesnar, (...) voz antiquada...	Es término antiquado...
Aleve, en lo antiguo significaba...	Es término antiguo...
Alfarda, oy...	Está antiquada, y oy se dice...
Alfayate, voz antiquada...	Es voz antiquada.
Alfiler, y en lo antiguo alfilel...	ALFILEL. (...) Es voz antiquada...
Et, antiquado...	Es antiquada...
Evad, antiquado...	Es término antiquado.
Evenir, antiquado...	Es voz antiquada.
Guarnimiento, antiquado...	Es voz antiquada.
Guarnir, antiquado...	Es voz antiquada.
Mañero, en lo antiguo era...	Se usaba en lo antiguo por...
Piertega, antiquado...	Es voz antiquada.
Salvedad, antiquado...	Es voz antiquada.
Templamiento, antiquado...	Es voz antiquada.
Vesquir, antiquado...	Es voz antiquada.

¹⁴² Dirudienez, bere erduetatik Furetière-renak bakarrik nahi ditu jaso "tous les mots français tant vieux que modernes"; Frantziako eta Cruscaren Akademienek, berriz, espresuki eta sistematikoki mugatzen dute beren arloa hitz garaikideetara (Lázaro Carreter 1981: 102).

¹⁴³ Larramendik hartu zituen eta ez zituen hitz zaharkituei buruz, ik. § 4.1.1.1.

Bi hiztegien arteko erkaketak erakusten digu adierazpenean Larramendik ez ziola *DAut-* i erabat jarraitzen. Are interesgarriago hiztegi-intzaren teknikaren aldetik, bai batak eta bai besteak une batetik aurrera adierazpena berdintzera jo zuten, bide ezberdinetatik bada ere; eta Larramendik biderik erraz eta trinkoena (aditzik gabeko definizioa) hautatu zuen.

Euskarari dagokionez, berriz, argi dago Larramendik noiznahiko euskara jaso nahi zuela, etimologiek eskaintzen zizkieten euskararik zaharrenaren arrastoetatik hasita geroko asma zitezkeen hitzetaraino. Bi muga horien artean geratzen den gehiena, zalantzarik ez, garaiko euskaratik jasotakoa da. Alabaina, liburuez baliatu zen neurrian (gogora ditzagun *Refranes y Sentencias* eta Leizarraga, esate baterako), hitz zahar eta zaharkituak ere sarrera izango zuten nahitaez. Hizkuntzek jasaten dituzten aldaketez berriren bat badu ere,¹⁴⁴ Larramendiren egitasmoan euskara diakronikoki bat dela dirudi, ostera: sinkronikoki euskalkien ezberdintasunekin egingo duenaren antzera (ik. § 3.4.3), hitzak zaharrak edo berriak diren ez zaio axola, ez eta ustez erromatarrak etorri aurretikoak direnean (ik. § 3.4.8), euskararen hiztegia aberastearen alde. Asmo honetan oztopo bakarrak etimologietan azaltzen zaizkio, egungo usadioarekin bat ez datozenean, hain zuzen, eta ez da harrizkoa haietan bakarrik aurkitu izana hitzaren antzinatasunari dagozkion oharrak: "...y de *capu*, que en Bascuence antiguo es cabeza, a quien aora llamamos solamente *buru*" (s.v. *cabildo*).

3.4.3. Hitzzen hedadurari buruzko informazioa

DAut-ek ez zituen dialektalismoak alde batera utzi (Lázaro Carreter 1981: 102); arreta berezi bat jarri zuen, hortaz, hitzaren hedadura markatzen, batzuetan zehaztasun harrigarriaz:

ALETRIA. (...) se conserva en el Reino de Murcia.

ALFALFA. (...) mui conocida con este nombre en los Reinos de Murcia y Valencia, introducido ya en muchas partes de España, donde su propio nombre es Mielga.

ALFARDERO. (...) Es voz peculiar del Reino de Aragón.

ALGAIDO, DA. (...) Usase en Andalucía, y particularmente en la parte que confina con el Algarbe por el Condado de Niebla...

COCA. En algunas partes, como es en Galicia y la Mancha, llaman así a...

Erabili dugun corpusean ez dago honelakorik batera *HH*-an; areago, barietateaz beste irizpiderik gabe aukeratu ditudan bost adibideetatik bat bakarrik berraurkitzen dugu han, eta berau bidalketa-dei huts bilakatuta: "Alfalfa, lo mismo que *mielga*, véase". Ez genuke harritu behar: honelako informazioak ez dirudi *HH* bezalako hiztegi eleaniztun batean agertzeko adinako garrantziko denik; ez eta beharbada honelako hitzak ere.¹⁴⁵ Informazio ez premiazkoa

¹⁴⁴ Argudio hori erabiltzen du, adibidez, Plinio, Quintiliano eta besteren liburuetan aipatzen diren Iberiako hitz zaharrak euskaraz zergatik aurkitzen ez diren erakusteko: "Si valiera este modo de argüir, sería buena esta consecuencia, que el Romance no fue trecientos años ha la Lengua común de Castilla: porque en la Lengua de ahora 300 años se hallaban y se usaban muchos vocablos que hoy no se usan, y que antes bien los desecha la Lengua Castellana; no los desechara si el Romance huviera sido 300 años ha la Lengua común de Castilla: luego no lo fue. Esta ilación es inconnexa y ridícula; porque muchas voces antiguas o se olvidan por falta de uso, o se desechan por menos cultas; y esto es lo que ha sucedido al Bascuence respecto de aquellas voces, como al Romance y demás Lenguas respecto de otras muchas, quedando en pie y vivo el cuerpo de las mismas Lenguas" (Larramendi 1745: cliv).

¹⁴⁵ Desagertu ohi diren hitz motez, ik. § 4.1.1.

itzurtzeko lekurik aproposena A letra delakoan, lehenengo 50 orrialdeak ikuskaturik, ale bakar bat aurkitu ahal izan dut: "Abesana, junta de Bueyes, es término de Andalucía...".

Corpusak aldez huts egin digu eta aldez ez. Orain artekoak halakoak Larramendiri deus gutxi interesatzen zitzaizkiola erakutsi digu, eta halaxe da. Arrazoi indartsu batek bakarrik eramanez zezakeen honelako informazioa ematera. Eta egon, badaude bi, corpusak islatu ez dituenak:

1) Euskal Herrian erabiltzen zen gaztelaniaren erakusgarriak ematea. Gertakari bakana da, nolahi ere, hiztegia egin ahala *DAut*-ek ez dakarren zerbait gogoratzeko lana eskatzen duelako; aurkitu dudana lehen kasuan, gazt. *laya*-ren etimologiak ekarri dio burura:

Laya, llamamos aun hablando Castellano, al instrumento dicho.
(Andar a la) postulación, dicen en su mal Romance los Bascongados al andar pidiendo.

2) Maiztasun esanguratsu batekin, etimologietan agertzen da, eta denak hizkera bakar bati dagozkiola: Aragoikoari. Lehenengo hiru letretan, adibidez, zortzi dira ohar hori daramaten etimologiak:

Aclocarse, dicen en Aragón por...	Bahurero, voz de Aragón antiquada...
Ajolio, voz usada en Aragón...	Baile, juez ordinario, es voz de Aragón...
Assayar, intentar, voz antiquada de Aragón...	Baque, en Aragón significa...
Assisia, voz antigua de Aragón...	Cambra, voz antigua de Aragón...

Badirudi, beraz, *DAut*-ek alderdi hartako hitzak bereziki maiz sartzeari esker (Lázaro Carreter 1981: 90-91), Larramendi Pirineoetako hizkeren funtsezko batasunaren izpi zenbait igartzeko gauza izan zela. Alabaina, gertakari honen benetako hedadura eta esanahiaz *HH*-ko etimologia guztiak aztertu ondoren bakarrik jabetu ahalko dugula deritzat.

Euskarari nagokiola, gauzak ez dira gehiegi aldatzen, baina arrazoi ezberdinengatik: nahita eta agerian egiten duen hautapena da. Non-nahiko hitzak bildu nahi zituen, eta nongoak ziren markarik gabe jarri, zeren eta etsita baitzegoen euskararen hitzak euskalkietan sakabanatuta daudela¹⁴⁶ eta bakoitzean besteetan peit daitezkeen zenbait aurkitzen direla. Halaz ere, gainerako euskalkietatik hartu nahi gabez, ezjakintasunaz batzuetan eta etsakeriaz bestetan, erdaratik hartzen dira falta direnak:

Para desterrar, en quanto pueda, este embarazo, he hecho estudio de poner en el Diccionario sin distinción alguna de dialectos todas las voces que me han ocurrido del Bascuence, para que se hagan comunes todas ellas a todos los Países y dialectos diferentes de la Lengua, como lo son un gran trozo de vocablos que se usan en todos los dialectos. Assí por exemplo en la voz *Amar* pongo *amatu, onetsi, oneritzi, maitatu, maite izan*; en la voz *poner*, *ifiñi, ibeni, ereñi, ezarri, paratu*; en la voz *cansar*, *cansatu, necatu, aricatu, unatu*, &c. sin decir que *aricatu* se usa en Bizcaya, *unatu* en Labort, *necatu* en Guipuzcoa, *cansatu* en todas partes. Con esto mutuamente se enriquecen los dialectos entre sí, y se hacen mas inteligibles y usuales, sin dexar de ser dialectos diferentes. Sea común la voz *aricatu*, y use della cada dialecto a su modo diferente en la terminación, v.g. *aricatu jataz, aricatu zaizt, aricatu zaizquit*, se me han cansado. Sea común *ereñi*, y diversa solamente la terminación, v.gr. *ereñi diozcat, ereñi dizquiot, ereñi deusadaz, ereñi darotzat, ereñi derautzat*, se los he puesto (Larramendi 1745: xlvj).

¹⁴⁶ Larramendiren lanaren ulerpenean honek daukan garrantziaz eta, bestalde, Sarako Etxeberrirekin arlo honetan Larramendik daukan kidetasunaz jadanik Lakarrak (1985a: 25-26) ohartarazi zigun.

Ongiegi ezagutzen bide zuen euskararen egoera —eta euskaldun askoren pentsamoldea— bere burua engainatzeko. Jarraian, proposamenaren indarra moteldu egiten du, beste euskalkietako hitzak maileguen ordeztatzeko gomendatuaz:

El que habla en Guipúzcoa, use norabuena de las voces allí corrientes, entendidas: pero si tal vez, o muchas, le faltan voces Bascongadas para explicarse, no se valga de las Castellanas o Latinas, sino de las Bascongadas de Bizcaya, o Navarra, o Labort, quando se hallaren es esos dialectos (*ibid.*).

Ez, ordea, litezkeen erabilera praktikoko zenbaiten berri eman gabe, nolabait lehengora itzuliaz:

Y aunque el Guipuzcoano use del *necatu* en el uso ordinario, teniendo noticia del *aricatu*, podrá usarlo, o quando hable con el Bizcaíno, o quando le haga al caso para algún metro, o quando quiere variar de frase por la variedad y hermosura; y assí quedará enriquecido cada dialecto (*ibid.*).

Agerian dago ez diharduela lagunarteko hizketaz, hizkuntza jasoaz —literatur hizkuntzaz— baizik. Halaxe ulertu zuten geroko hainbat idazlek: esate baterako, XIX. mendeko hiru idazle zaldibiarrek, Iztueta, Jauregi eta Lardizabalek, ez diote bizkaierazko hitzen erabilerari muzin egiten (Urgell 1995: xlvi-lvi), ez eta Añibarrok gipuzkera eta nafarrerazkoenari.¹⁴⁷ Areago, neurtu gabe dagoen neurrian, harrezkero Hegoaldekoek Iparraldeko liburuak irakurri eta itzultzeari ez eze, hitzak euren hiztegiatan sartu eta euren idazlanetan erabiltzeari ere ekin zioten.¹⁴⁸

Eragina berehalakoan gauzatu zen, nolana ere: bi urte beranduago argitaratu zen Hego Euskal Herriko lehen liburu landuan, Mendibururen *Jesusen bihotzaren devocioa*-n, egileak aintzakotzat hartu zituen Larramendiren iradokizunak, honek berak, egin zion gutun ospetsuan, goraiatzeko bezala, lehenagoko argudio nagusiak ia hitzez hitz itzuliaz:

Lajatuco ditugu erbesteco hitz horiec, nai badegu, gure Eusquerarenac piscabana usatuaz ta erabilliaz, escucoi ta jaquiñac eguingo diradenean. Ongui eguin dezu Nafarroaco hitzen batzuec ecartzea, egoquiac diranean eta besteric eztañean: Cerren lembician, ta batbatetan aditzen ezpadira, aurqui adituco dira, ta gueyenac dagoaneco aditzen ere badira: ta ala Eusquera bide batez edertzen ta ugaritzen da (Larramendi 1747: 36).¹⁴⁹

Halaz ere, ondoko euskal hiztegiak batzuek, lehenago Oihenartek *Neurtitzetan* (1657) egin zuen bezala (ik. Lakarra 1993: 23), bestelako iritzia izan eta gauzatu zuten. Azkue da, jakina, honen ordezkari nagusia, baita muturrekoena ere, herria markatzeraino iritsi baitzen,

¹⁴⁷ Hau, bere idazlan guztietan gutxi-asko nabarmena den arren, bereziki argia da *Geroko Gero*-aren itzulpenean, non Axularren hainbat eta hainbat hitz bizkaierari egokitu edo zuzenean hartu egin baitzuten. Xehetasun gehiagotarako, ik. Urgell 2000f.

¹⁴⁸ Adibide sorta luzexka aurki daiteke Urgell 1992a: 236-244n.

¹⁴⁹ Pasarte honek argitalpen kritiko on baten —eta guztiz puntuazioa gaurkotzearen— garrantziaz eta arriskuaz asko diosku. Lakarra (1985a: 39) honela dakar testua: "Lajatuco ditugu erbesteco hitz horiec, nai badegu gure Eusquerarenac, piscabana usatuaz ta erabilliaz, escucoi ta jaquiñac eguingo diradenean"; Lakarraren interpretapena, testuinguruak ere halaxe ziurtatzen digu, "erdal hitz horiec euskarari, nahi badugu, utziko ditugu" da. 1973ko argitalpenetik aipatzen ari zen, eta hango puntuazioa, jatorrizkoari jarraiki ziurrenik, zalantzarikoa zen, apika: "...hitz horiec, nai badegu, gure Eusquerarenac, piscabana...". Berriki paratu den argitalpenean (Altuna & Lakarra 1990), koma bakar baten gorabeheraz, okerra zuzendu da, zeren eta inolako zalantzarik gabe (eta horregatik Larramendik egiten duen maileguen defentsari ezer kendu gabe) honela ulertu behar baita: "erdal hitzak lajatuko ditugu, hots, bazterrera utziko, euskal hitzak eskuko [erabilgarri] eta jakinak egingo direnean".

baina artean Añibarro, Aizkibel edo Maurice Harriet, adibidez, hitzak euskalkika ezberdintzen saiatzen dira —gorabehera eta zehazgabetasun handiaz bada ere.

HH-ko salbuespenak oso urri dira eta, oker ez banago, etimologietan biltzen dira denak. Izan ere, batzuetan etimologia azaltzeko erabiltzen dituen euskal hitzen euskalkia aipatzen du, bizkaiera eta batez ere lapurtera.¹⁵⁰ Eman diezaiozun zeini bere adibidea:

Acertar, suceder, (...) viene de el Bascuence *acertau*, *acertadu*, que en el dialecto Bizcaíno significa acontecer, suceder.

Andar, pudo venir de el Bascuence *andá*, que en el dialecto Labortano significa un género de literilla y también un corredor oportuno para andar.

Antzeko oinarri teorikoak eta antzeko ondorioak ikusi ditugu aurreko atalean.

3.4.4. Lexiko berezietei buruzko informazioa

Bi eratakoa izan daiteke, eta bitarikoa jasotzen du *DAut*-ek: batetik argotak, eta bestetik zientzia eta arteei berezko zaien lexikoa.¹⁵¹ Lehenengoari dagokionez, ezaguna da "Germanía" deitutako garaiko gaizkinen argotari leku egin ziola, orduan ohi zen baino esku askoz zabalagoarekin, Juan Hildagoren hitz-bildumaz baliatuz. Gure corpusean honako hauek agertzen dira:

GUIDO, DA. Voz de la Germanía que significa bueno.

GUINCHADO, DA. Voz de la Germanía que significa perseguido.

MARAÑA. En la Germanía significa la muger pública.

Bat ere ez dago *HH*-an jasota. Larramendik ez zuen *DAut*-en eskuzabaltasuna begi onez ikusi.¹⁵² "No he puesto, exceptuando tal qual, las voces de la Germanía, en que todo es rufianes, mancebías, rameras, puñales, ladrones, y fuera mejor borrar semejante language de la memoria de los hombres" (Larramendi 1745: liv). "Exceptuando tal qual" horrekin, batzuk bederen aurkitu ahalko direla suposatu behar, eta halaxe da, izan ere, baina berriro salbuespenak etimologietan bakarrik gertatzen direla dirudi:

Cica, en la Germanía bolsa, viene de el Bascuence *ciscua*, *chiscua*, que significa lo mismo.

Gura, voz de la Germanía, Justicia, *gurapas*, galeras. *Gura* es voz Bascongada, y significa el querer...

¹⁵⁰ Ohargarria da honelako zehaztapenak *De la Antigüedad...*-tik *HH*-ra urritu egin zituela (baina ez denak kendu), "en el dialecto Bizcaíno [edo Labortano]-ren ordez "en un dialecto" ezarriaz: cf., adibidez, "Cris. viene del bascuenze *ahurrá* o *ahorrá*, que en el dialecto labortano significa la mano medio cerrada, como de quien guarda y retiene algo" (Larramendi 1728: 44) vs "Ahorrar, reservar lo que se avía de gastar. En este sentido viene de el Bascuence *ahorra* u *ahurra*, que en un dialecto significa la mano medio cerrada, como de quien guarda y retiene algo" (Larramendi 1745, s.v.). Bide batez, liburu bietako etimologiari arteko erlazioa, oso oker ez baldin banago, ohartu gabe zegoen, oso nabaria —eta oso garrantzizkoa— izan arren. Ezinbestean, *HH*-aren iturriak arakatzerakoan berrartu beharko dugun gaia da.

¹⁵¹ Erabaki honen ereduez, ik. Lázaro Carreter 1981: 102-103.

¹⁵² Halako gorabeherak erabat arruntak dira hizkuntza guztietan; modu xeble honetan zurrizten zuen Cocker-en izenean 1704an ingelesezko hiztegi bat argitaratu zuenak "cat terms" ere sartua: "That it is no Disparagement to understand the Canting Terms of the Tribe of Gypsies, Cheats and Beggars, because it may chance to save a Man's throat from being cut" (ap. Starnes & Noyes 1946: 82).

Zientzia eta arteei dagokienez, berriz, *DAut*-ek oso-oso sarri egiten ditu honelako iruzkinak:

ALFEIZA. (...) Es voz de la Architectura y Albañilería.	CABO. Term. de Geographía.
ASSEGURAR. En términos de comercio es...	DEFERENTE. Voz Astronómica.
ASSENTADOR. Term. de Cantería.	DEFERENTES. Se llaman en la Anatomía...
ASSENTAMIENTO. Voz forense.	DEFLUXO. Llamam los Astrólogos al...
CABLE. Term. naut.	DEGOLLADURA. En la Albañilería se llama así...
CABO. Voz náutica.	OBSTRUIR. (...) Es voz usada de los Médicos.

Larramendik honelakoak ere gehienetan alde batera utzi ditu, eta, dirudienez, hitzaren azalpena errazteko balio zioten neurrian soilik erabili. Honako hauek dira corpusean aurkitutako bakarrak, eta ohartu adierazpidea ez dela *DAut*-eko bera, bakunagoa baizik:

Assentar en la Cantería... < ASSENTAR. (...) lo que con propiedad se dice en el oficio y arte de Cantería quando...
Assentar piedras preciosas los Plateros... < ASSENTAR. Term. de Plateros.
Interrogación, interrogante, en la ortographía... < INTERROGACION. En la Gramática...
Intersección, en la Geometría... < INTERSECCION. Term. Geometrico.
(Tañer de) occisa, en la Montería... < Tañer de *occisa*. Phrase usada en la montería...
Piezas, en el juego de damas... < PIEZAS. Se llaman también los bolillos o figuras (...) que sirven para jugar a las damas, axedrez y otros juegos.
Templa de Pintores... < TEMPLA. Term. de Pint.

Euskal munduko gauza bereziak azaltzeko erantsi dituen sarreren artean ere badira honelako zehaztapenak: "Piedra de el saque, en el juego de la pelota a mano, *botarria*".

3.4.5. Estilozko informazioa

Hitz batzuk ez dira nolana ere erabiltzekoak: jasoenetik zabarrenera, badira zein bere giroan bakarrik erabili ohi direnak: poesian, familiartearen, txantxetan... eta *DAut* bereizkuntza hauek egiten saiatu zen:

ABONDO. (...) Es voz familiar y algo baxa.
Qué *alforja*? Término vulgar...
Sacar los pies de las *alforjas*. Phrase vulgar y de que solo se usa en conversaciones familiares...
ASSENSIOS. (...) Es voz baxa y vulgar, aunque usada en lo antiguo...
GUEDEJAR. (...) Es voz jocosa...
INTONSO, SA. (...) Es voz Poética, no bien usada en la prosa seria.
MAÑANICA. (...) Es del estilo familiar.

Ez dugu honelakorik *HH*-an: gehiegizko informazioa bide zen Larramendirentzat, eta are honelako markak daramatzaten sarreretatik batzuk (aipatuen artean *alforja*-ren bi esapideak eta *guedejar*) desagertzen dira bere hiztegian, ziurrenik arrazoi ezberdinengatik bada ere. Halaz ere, oso noizean behin (eta etimologia batean berriz ere!), euskarari buruzko honelako informazioa ager daiteke:

Guindaleta, (...) viene de *eguinda*, *eguindala*, que significa que ya está acabado, está hecho, está subido, &c. y es la locución familiar con que acaban toda faena, especialmente la de subir y baxar pesos grandes, *eguinda*, *eguinda*.

3.4.6. Maiztasunaz

DAut-ek arreta handiaz jasotzen duen beste informazio mota bat hitzaren erabileraren maiztasuna da, berez zein esanahi bereko beste batekin konparatuta, diakronikoki zein sinkronikoki, are batzuetan ia bakarrik hiztegiatako hitza dela ohartzearaino. Ikus ditzagun adibide ezberdin zenbait:

ABONAMIENTO. (...) Es voz de poco uso.
ABONANZA. (...) Es voz que no tiene uso, porque ya se dice communmente...
ABONDARSE. (...) No tiene ya uso.
ALGAIDA. (...) En este significado ya no tiene uso esta voz.
ASSEGURACION. (...) Oy mas comúnmente se llama seguro.
COBDO. (...) Tiene ya poco o ningún uso.
DEIDAD. (...) oi es mui usado entre los Poetas.
EMBALSAMADOR. (...) Otros le llaman Embalsamero; pero estas voces son poco usadas, aunque se hallan en algunos Vocabularios.
EMBARGAR. (...) En este significado fue mui usado antiguamente este verbo.
TEMPERACION. Lo mismo que Temperamento. Es menos usado.

Ikusiak ikusirik, nabarmena da honelako berriek ere nekez izan zezaketela sarbiderik *HH*-an. Alabaina, euskarari buruz baten bat ediren daiteke, beti bezala etimologietan:

Sotrozo (...). *Sotrotsa* en Bascuence es una voz comuníssima...
Veta (...). Esta voz *beta* en el mismo sentido es muy usada en Bascuence...

3.4.7. Garapen semantikoa

Secok (1978: 219) "explicación de las transiciones semánticas" deritzenak hitzaren garapen semantikoari dagozkion azalpenak izanik, bigarren mailako adieretan agertu ohi dira, jakina: metaforaz, metonimiaz, analogiaz, esanahi hedaduraz, etab. sortu diren adiera berrietan, hain zuzen. Honelako informazioa, ez beti era finkoan, askotan jasotzen du *DAut*-ek; adibidez:

ABORRECER. Latamente se toma algunas veces por mirar con desafecto, disgusto y desazón alguna cosa, no gustar de ella, no apreciarla, ni apetecerla.
ALFOMBRA. Se llama también por translación la enfermedad a manera de sarampión que de ordinario suelen padecer los muchachos; y es una inflamación y encendimiento que se extiende por el cutis, y brota afuera como unas manchas rojas; y porque parecen matizadas como las de las alfombras se le dio este nombre.
CABEZUDO. En lo literal vale disforme y grande de cabeza. Usase más translaticamente, y se toma por el terco, porfiado, tenaz y assido a su dictamen, que no se sujeta a la razón ni a la opinión de otro.
COCIDO. Por Antonomasia se entiende y llama la olla o el puchero guisado.
GUARNECER. Metaphóricamente vale adornar una cosa con otra, darla hermosura, gracia y perfección.
INTERPRETE. Se llama en sentido analógico, lo que explica u da a conocer la voluntad u otros afectos del ánimo. Y en este sentido se dice que los ojos son los intérpretes del alma u del corazón.
MAPA. Se llama por semejanza la figura que se forma de qualquiera eclipse del Sol o Luna, en quien como imagen suya, se expresa su magnitud, duración, incidencia y repleción.

Esapideek ere sarri xamar halakoak jasaten dituzte:

CABEZA REDONDA. Figuradamente se aplica y dice del que es duro en comprehender las cosas, y no menos torpe en explicarlas.
Dexar a uno de *pié*. Además del sentido recto, metaphóricamente vale quitarle la conveniencia o empleo que tenía, dexarle desacomodado.

Honelako ia ezertxo ere ez da geratu *HH*-an; adibide pare bat baino ez dut aurkitu hiztegian zeharko ibilaldietan, biak A-ren hasieran:

Acorralar a uno, metaphóricamente tenerlo cerrado, apretado, amedrentado.
Aferrar, metaphóricamente, por assir, agarrar.

Alabaina, inoiz edo behin etimologietan azalpen mota honetaz baliatzen da:

Balanza, puede venir de el Bascuence *zalanzá*, que significa movimiento azia el un lado y el otro, como sucede en la balanza, y por esta analogía dezimos *zalanzan nago*, estoy en duda y perplexo.

3.4.8. Etimologiak

Larramendiren etimologiek eurei zuzenean eskainitako azterketa berezia merezi dute, ezpairik gabe. Definizioaz gaineko informazioaz ari garen honetan, hala ere, komeni da arlo hain nabarmen honi lekutxo bat egitea, gutxienez alde formaletik bi hiztegien arteko antzekotasun eta ezberdintasunak agertzeko.

Bietan etimologiak egon badaude, baina ez forma eta kopuru berean. Akademikoek, tentuz, hitzen etimologiari buruzko informazioa ere jaso zuten: etorkizko hizkuntza, etimoa dena edo izan litekeena, haren azalpena, baita batzuetan aukeran zeudekeen etimo ezberdinak ere. Haien asmoa, oinarrizko hitzetan bakarrik ematea zen (*DAut* 1726: xv) eta gaztelaniak hitza zuzenean hartu duen hizkuntzaraino bakarrik iritsiaz, etimologietan gorago eta antzinago iristen saiatu gabe (*ib.* xvi). Lanaren handiaz gainera, hiztegiaren eta sarreren tamaina gehiegizkoa ez izatea izan zuten kontuan (*ib.* i-ii) gehiago ez sakontzeko; etimologiak sartzeko, berriz, esanahia eta ortografia zehazten zenbat laguntzen duten (*ib.* li).

Larramendik, bere aldetik, ez du erdarazko etimologietarik bakar bat ere jasotzen, ez eta erdal hitzen etorkiari buruzko ezertxo ere, berak emandako etimologia baten barruan eztabaidatzeko ez bada, behintzat, eta hauxe ere ez sarri:¹⁵³

Aberes, hazienda, riquezas, viene de el Bascuence *abere*, ganado, y antiguamente las riquezas eran en ganados, y por eso a los ricos llamamos *aberatsac*, como el Latín *pecuniosos* de *pecus*; y assí no viene de *aver* ni *haver*.

HH-an etimologiak agertzea edo ez agertzea, hitz bat euskararen bitartez azaltzeko aukeraren araberakoa da, dakigunez. Alde honetatik, Larramendiren hiztegiak *DAut*-en osagarria izan nahi luke, eta oso urruti dago, adibidez, Novia de Salcedoren saiotik. Haatik, noizean behin euskal hiztegi etimologiko baterako gaiak aurki daitezke: ohiko etimologiek aukera ematen diote euskal hitz batzuk azaltzeko; esate baterako, aipatutako adibidean ezartzen duen *abere* eta *aberats*-en arteko erlazio interesgarria —eta zuzena, bide batez. Honez gain, baina are eta bakanago, “*Ceaguia* se dixo de *ce*, particula negativa, y *aguia*, apariencia, semejanza, representacion...” (s.v. *idolo*) bezalakoren bat dago, non hitz berri baten osakera argitzen duen.

¹⁵³ Hauxe da *De la Antigüedad...*-eko saiotik *HH*-ra desagertu den beste osagarri bat; cf., adibidez, “*Bruzes*. Dic. [= *DAut*] dice que significa los labios, y que viene de *boca*, o de *bezo*. Cris[is]. no es tal; significa la postura o ademán de inclinarse, o echarse cabeza abaxo, y viene del Bascuence *burúz* syncopado en *bruz*, y significa de cabeza” (Larramendi 1728: 67) vs “*Bruzes* o *bruzas*, la postura de echarse cabeza abaxo, viene de el Bascuence *buruz*, syncopado en *bruz*, y significa de cabeza” (Larramendi 1745, s.v.).

3.4.9. Ortografia

Akademikoak ortografiaz oso kezkatuta ageri dira euren hitzaurrean. Hiztegiaren egitasmoa deskribatzerakoan, eginbeharren artean hauxe jartzen dute: “Observar exactamente la Orthografía de las Voces, de suerte que no se oscurezca su primitivo origen, desterrando los abusos que en contrario se hallaren” (*DAut* 1726: xvi). Honen arabera jokatu zuten gehienetan, honako adibide hauetan ikus daitekeen bezala:¹⁵⁴

ALFAGEME. (...) y aunque algunos la escriben con *j*, es más conforme a su origen escribirse con *g*.
ALFIL. (...) Es voz Árábica, según el P. Alcalá, compuesta del artículo *Al*, y de la palabra *Fil*, (...); y aunque muchos escriben y pronuncian *Arfil*, es impropriamente.
AVISPA. (...) Viene del Latino *Vespa*, que significa esto mismo, por lo que se debe escribir con *v*, y no con *b*.
DEHESA. (...) Algunos escriben esta voz con *ss*; pero atendiendo su origen solo le toca la una.
MAPA. (...) Es voz Latina *Mappa*, (...) y aunque por esta razón debiera escribirse con la *p* duplicada, el uso ha excusado hacerlo por suavizar la pronunciación.

Larramendik ez dauka beti hauen iritzi bera baina, dena dela, gehienetan adierazi beharrean gauzatu egiten du, besterik gabe: cf. *abiar*, *abión*, *abispa* (*HH*) vs *aviar*, *avión*, *avispa* (*DAut*), adibidez. Alabaina, gutxi batzuetan agerian ezarri zituen bere irizpideak, etimologiak eragindako aldaketak direnean, hain zuzen:

Adarve, debiera escribirse *adarbe* (...). Es voz bascongada, de *adar* y *be*...
Embararse, viene de el Bascuence *baratu*, (...) y por esso escribo embararse, y no envararse.

Honetaz gainera, kasu bakar batean behartzen du bere burua gaztelaniaren grafiak adierazten duena zehaztera: <x>-z hasten diren baina ohiko moduan ahoskatzen ez diren hitzetan (*DAut*-ek beti “se pronuncia la *x* suavemente” bezalako adierazpideak darabiltza), idazkeraren aldamenean ahoskera islatu nahi duen forma ezartzen du beti; zer erabiliko, eta euskaraz erabili ohi duen <sy> digrafoa (§ 3.4.10). Lehenengo agerraldian bakarrik agertzen du asmoa:

Xa, pronunciado *sya*. Xaga, *syaga*. Xamar, *syamar*. Xano, *syano*. Xapelete, *syapelete*. Xapurear [*sic*, *xapurcar*-en orde], *syapurear*. Xato, *syato*. Xeno, *syeno*. Xeto, *syeto* <*yse*>. Ximenzar, *syimenzar*.

Zilegi bekit euskarari dagokiona ondoko atalean azaltzea, ez bestegatik ezpada ahoskeraz dioenetik ia-ia bereiztezinezkoa baita, beherala ikusiko dugun bezala.

3.4.10. ...eta ahoskera

Gaztelaniaren eta euskararen grafi sistemek, jakina denez, beste hizkuntza batzuenak baino lotura hertsia goa gordetzen dute ahoskerarekiko: hotsen eta grafemen artean erabateko biunibokotasunik ez izanda ere, hortik oso gertu daude biak. Honegatik, *DAut*-en eta *HH*-an ahoskerari buruzko berri labur batzuk baizik ez izatea espero izatekoa zen.¹⁵⁵ Akademikoek,

¹⁵⁴ Gai honetaz ik. Lázaro Carreter 1981: 106-110, non joera etimologizalea eta ahoskerak agintzen zuten artean izan zituzten zalantzez eta hartu zituzten erabakiez xeheki mintzo den.

¹⁵⁵ “Honek [biunibokotasunak] euskarari garrantzia emateaz gain, euskararen fonologiari interesa kentzen dio, are gehiago ortografiaz ari diren artean” (Oñederra 1992: 55). Lan berean (54-55. or.) ikus daiteke Larramendi ondoko zenbaiten honetaz esana. Hala eta guztiz ere, lehenengo frantseseko hiztegi elbakarretan ere ez da horregatik ahoskera islatzeko interes gehiago igartzen (Quemada 1967: 106-113);

hiztegiaren lehenengo egitasmoan, berezitasunak agerian jarri beharko zirela zioten, zeren eta bai baitziren oraindik konpondu ez zituzten arkaismo grafiko eta ezadostasun zenbait:¹⁵⁶

Si se encontrare extraordinaria pronunciación de una letra en diferentes voces, se explicará esta variación: como *Vexamen*, en que se pronuncia la *x* como *j*. Y *Examen*, en que se pronuncia como verdadera *x*. Y en *Chamelote* se pronuncia el *cha* con el modo usual Español, y en *Patriarcha* como si fuesse *K* (*DAut* 1726: xvi).

Hiztegia gauzatzerakoan, ordea, ez dirudi hitzez hitz arreta berezirik jarri ziotenik: *vexamen* eta *chamelote*-k gero ez daramate azalpenik, adibidez, baina bai *patriarcha*-k ("...se pronuncia la *ch* como *k*") eta *examen*-ek ("...se pronuncia la *x* como *cs*"). Hots, bi adibideetatik "bitxia" bakarrik azaldu da batean, eta "normala" bestean. Corpusean adibide bakar bat aurkitu dut, *patriarcha*-ren parekoa ("EUNUCHO. (...) Pronúnciase la *ch* como *k*"), eta hiztegian gora eta behera egin ditudan ibilalditxoetan ez dut askoz gehiago idoro. Ohartu behar da letra guztien hasieran, beste berri zenbaitekin batera, euren ahoskeraz edo ahoskerez mintzo direla; badirudi, beraz, hantxe batu zutela bestela hitzez hitz esan beharko zutena; C-ari dagokion sarreran honela diote, esate baterako:

Quando la *c* precede a la *h* en qualquiera de las vocales de este modo *cha*, *che*, *chi*, *cho*, *chu*, tiene particular pronunciación en nuestro idioma: la qual se forma echando con fuerza el aliento (...); esto se entiende y observa en todas las voces Castellanas que no trahen origen de la Lengua Griega: como *chapa*, *chico*, *choza*, *chuzo*, porque si el origen es Griego, como en *charidad*, *Christiano*, *Monarcha*, *chímica*, &c. se pronuncian como *K*.

Larramendik, batetik, ez die letrei sarrerarik eskaini, dakigunez, eta bestetik, ez du behin ere sarrera batean antzekorik jasotzen, gaztelaniaren ahoskeran inolako interesik azaldu gabe, beraz. Euskarari dagokionez, honetaz behar zuen guztia hitzaurrean eskaini zuen, bai orokorki "El Bascuence es lengua fácil" atalean (1745: xxxviii-xxxix), baita euskalki bakoitzari buruzkoetan ("Del dialecto navarro y labortano", "Del dialecto de Bizcaya" eta "Del dialecto de Guipúzcoa", 1745: xxvii-xxx). Bi erako kezkak agertzen ditu egileak: lehenik, arrotzek euskara idatzian erabiltzen diren letrak ongi ahoskatzeko izan ditzaketan eragozpenak:

No tiene el Bascuence aquellas dificultades que acompañan a otras muchas Lenguas; escríbese como se habla, y quanto se habla puede escribirse con facilidad, sin que el uso y tácita inteligencia tenga que añadir o quitar a la pronunciación establecida de las letras. Tres o quatro pronunciaciones se hacen difíciles a los que no saben Bascuence y le quieren aprender; y hablo de los Españoles, porque para otras Naciones no lo son, como lo he probado por experiencia (Larramendi 1745: xxxviii).¹⁵⁷

Akademiarenak, adibidez, ahoskera hiztunen ezpainetan bakarrik ikas daitekeela, eta bestela azaldu nahi izatea itsuari inoiz ikusi ez dituen koloreak azaltzea bezalaxe dela dio (1694ko hitzaurrean, ap. Quemada, *ib.* 107). Bestelako kontuak ditugu ingelesaren kasuan, jakina (ik. Bronstein 1986), eta hizkuntza honetan agertzen diren lehenengo ahoskera-hiztegiaren eraginez, frantsesezko elebidunetan ere sistematikoki honi buruzko oharrak eransten hasten dira (Quemada, *ib.* 52).

¹⁵⁶ Ik. hauetariko batzuen berpasa Lázaro Carreter 1981: 109n.

¹⁵⁷ Pasartearen hasiera *De la Antigüedad...*-etik hartua da (1729: 88), baina han zehatzagoa izan zen euskarak ez dituen eta badituen gauzak aipatzerakoan: "No tiene el Bascuence aquellas dificultades que acompañan a otras Lenguas. Escríbese como se habla, y quanto se habla, puede escribirse con facilidad. No ay concurrencia de letras, ni de consonantes, ni de diphtongos, ni tritongos [sic] que embarazan la pronunciación. Ay concurrencia de muchas vocales, pero no se syncopa su pronunciación, ni se elide por sinalepha alguna dellas, v.g. *aiei*, o si no *aei*, a aquellos, se pronuncian todas las letras". Ondoren, hemen ere zailak izan daitezkeen hotsez —baina <tz> eta <ts> bakarrik aipatuaz— aritzen da.

Eta, beraz, letra hauek —<tz>, <ts>, <x> eta <ty> (orain <tt>)— nola ahoskatu behar diren azaltzen luzatzen da ondoren. Bigarrenik, euskaldunen artean dauden ahoskera ezberdinez kezkatuta ageri da, baita Hego eta Iparraldeko usadioen artean somatu dituen idazkera ezberdin zenbaitez ere. Hiztegi barruan idoro dezakegunaren bide-erakusle izan daitekeen neurrian behinik behin,¹⁵⁸ badirudi interesgarria izango dela haietaz adierazi zituen iritziak astiro berpasatzea.

Ezer baino lehenago, ahoskera eta idazkera biak batera aipatu ditudanez gero, komeni da gogoratzea garai hartan ez eze XX. mendera arte gutxienez normala izan zen bezala (Oñederra 1992), Larramendik grafia eta ahoskera —letrak eta hotsak— bat bailiran hartzen dituela. Honetaz gainera, azpimarratu behar da *HH*-ko honi buruzkoa jadanik *De la Antigüedad...*-en (1728: 88-89) aurrerapen batzuk eskaini eta *Imposible Vencido*-n (“Pronunciación y ortographía del Bascuenze” atalean, 1729: 337-340) puntu istilutsu guztiei buruzko bere iritzia eman ondoren idatzi zuela, eta are oraindik *Corografía*-n (“De los dialectos del vascuence...” atalean, 296-298. or., zubereraz eta lapurteraz ari dela) gaira itzuliko zela: nahikoa kezkatzen zuen kontua bide zen, beraz.

Larramendiren jarrerari dagokionez, erabat egokiak iruditzen zaizkit oro har *Imposible Vencido*-n hartu zuenaz Gómezek (1992: 266) idatzi dituen hitzok: “...usadio ezberdinak onartzen dituela esan behar da. Ez da arauemailea, ez behinik behin geroxeago Erret Akademiaren Gramatika (1741) izango den [eta, guri dagokigunez, *DAut* izan zen] bezala. Dena dela, nolabaiteko arauak, norma bat, ezarri nahi dio euskarari, baina ez du kontu honetan oso hertsiki jokutzen”. Hona hemen norma edo norma-hasikin haren osagaiak:

1) <j> /j/ ahoskatzen dela —eta ahoskatu behar dela— diosku (1745: xxxviii), baina ez leku guztietan:¹⁵⁹

No tiene el Bascuence aquellos sonidos que llama Quintiliano inenarrables, ni aquellos que se oyen allá en lo profundo de la garganta, y en el paladar. Por lo común es lengua leníssima y suavíssima, como la llamó Escaligero; su general pronunciación muy dulce y graciosa, con un ceceo natural, sin la aspereza que en el Castellano, y sin lo femenino del seseo.¹⁶⁰ La pronunciación de la *j* gutural, que ay en algunos parajes, no parece del Bascuence, sino pegadiza del Castellano, *jauna, jan, joan, jo*, que en lo general del Bascuence se pronuncian *jauna, jan, joan, jo*, inclinándose a *yauna, yan*, &c. (*ibid.*).

En este dialecto de Guipúzcoa se ha introducido la pronunciación Castellana de la *jota* gutural y fuerte, *Jauna, jo, jatorriz*, &c. que es contra la costumbre de todos los demás dialectos, y parece pronunciación pegadiza (*ib.* xxx).

2) <h> Iparraldeko euskalkietan hasperenduna dela lainoki aitortu arren, ez dirudi hotsa atsegin zuenik (“...aspiran mucho las voces...” *ib.* xxvii), are gutxiago eztarriaren barrunbean ahoskatzen direnei buruzko goiko adierazpena irakurri ondoren. Orobat lapurteraz “en otras que

¹⁵⁸ Baina baita *Imposible Vencido*-ko ideiak osatzearren, zeren eta —jadanik gramatikaz adierazi moduan— hauxe izan baita honetaz ezagutzen dudan lan bakarrak (Oñederra 1992) aintzat hartzen duen informazio iturri bakarra.

¹⁵⁹ Adierazpena gramatikan baino xamurragoa da: ezen han “...la pronunciación gutural de la *j* y de la *g* no es del Bascuenze (...) y es menester guardar la primitiva pronunciación” baitzioen (Larramendi 1729: 337).

¹⁶⁰ Hasieratik eta honainokoa, ia hitzez hitz, *De la Antigüedad...*-etik hartua da (Larramendi 1728: 89).

no aspiran, ponen sin necesidad la *h*” (*ibidem*) badio ere, letra hitz batzuetan gordetzearen alde dago erabat, esanahia bereiztearren (ib. xxxviii). Ahoskeran, ostera, bere iritziak gorabehera, ziurrenik ulertu behar da gramatikan adierazi zuen berbera, alegia: “En esto cada Provincia guarde su estilo, como en el tonillo particular de la voz” (Larramendi 1729: 338).

3) <k> zeharo alferrikakoa iruditzen zaio, <c> edo <q>-k haren lana egin dezaketenez gero (1745: xxvii). Hasiera batean biunibokotasun ospetsuaren aurka ari dela badirudi ere, ohar gaitezen berak ezagutu zituen Iparraldeko testuetan ez zegoela —ezin egon zitekeela— <k> ahalorodunaren arrastorik,¹⁶¹ haietako batzuetan herskari hasperenduna adierazteko erabiltzen zena bakarrik baizik:¹⁶² hiru grafemaren ordezkari aski zela zeritzon, beraz, eta besterik ez. Dena dela, bazekien <kh> digrafoak bederen herskari hasperenduna ordezkatzeko zuela: “En este dialecto [lapurteraz] no se aspiran tanto las voces como en el zuberano, y con todo eso escriben muchas inútilmente con la *h*. ¿No es más liso y llano escribir como nosotros *icusi*, que no *ikhusi*?” (*Corografía* 298); erantsi behar da Axular bere alde aipatzen duela, honek *iccusi* idazten zuela profitatuaz.¹⁶³

4) <ch> Iparraldean bigunago (“más blandamente”, *ib.* xxvii) ahoskatzen zela ohartu zen, Hegoaldean “a la Española” (*ib.* xxviii eta xxx) egiten zen bitartean. Inoiz ere <x> (edo haren ordezkari <i>sy>, <i>sy>, etab.)¹⁶⁴ eta Iparraldeko <ch>aren arteko lotura agerian jarri ez bazuen ere, argi dago haren balioa ongi ezagutzen zuela, ez bakarrik Iparraldeko hitz zenbait bere sistemara aldatzen jakin zuelako (cf. *aisolduria* “cuidadoso”), baizik eta frantsesezko usadioarekin zuzen lotu zuelako: “...porque sin la *t*, acostumbrados a la pronunciación francesa, pronuncian *Charité*, *Cyarite*, la *y* consonante” (*Corografía* 296). Jokabidea, dena dela, aipagarria da, zeren eta ez baitzuen batzuen usadioa besteena baino hobea edo txarragoa zenik esan nahi izan eta, honen arabera zuzenean, ez zuen <ch>aren Iparraldeko erabilera hiztegian gaitzetsi. Honen ondorioz, <ch>k *HH*-an balio bikoitza izan dezake (cf. *chedea* “intención”, “objeto”, *chotilla* “lindo”, etab., etab.)¹⁶⁵. Osterantzean, *orixe*, *alaxe* bezalako

¹⁶¹ Urratsa, Iparraldeaz den bezainbatean, *Andre-dena Mariaren ilhabethea* liburuan (Baiona, 1838) eman zen, oso oker ez baldin banago. Pikabeak (1993) bilakaera fonetikoarekin (bustiduraren adierazpena) eta morfofonologiarekin (*bait*- + adizkia' lotura) zerikusia duten gertakari zenbait bakarrik aztertu ditu, tamalez, izenburuan lapurtera *idatzia*ren bilakaera aztertuko duela iragartzen duen arren. Hegoaldeko gorabeheraz, ik. Urgell 1987a: 365-368.

¹⁶² Zehazkiago, Larramendik ezagutzen zituen liburueta mugatuta, <c/qu> vs <k> Leizarraga eta Materrerengan bakarrik aurkitzen da; Axularrek <k>ren ordezkari <cc> darabil (Larramendik azpimarratu zuen bezala: ik. *Corografía* 298). Gainerantzean, Etxeberri Ziburukoaz geroz sistema arrunta <c/qu> vs <kh> da idazle guztietan (Argaignarats, Etxeberri Sarakoa, Xurio, *CatLav* txikia zein handia eta Harriet).

¹⁶³ Larramendi maltzurtzat hartzeko joera gure artean oraindik ere indar handiaz dabilenez gero, zehaztu behar dut zehazki Axularrek zer erabiltzen duen esan gabe aipatu zuela bere alde; haatik, ez nuke ulertzea nahi azpikokan ari zenik. Izan ere, hartaz idatzi zuenari begira, ezin ziur egon gaitzke <k> soilak eta Axularren <cc> honek adierazten zutena somatzeko gauza izan zen ala ez, <kh>arena, ikusi berri dugun bezala, agerian jarri zuen bitartean. Areago: ziurrenik ez zion axola, zeren eta grafia baita nolabait finkatu nahi zuen gauza bakarra; ahoskerari dagokionez, “nork bere estiloa gorde dezala” hura gogoratu behar dugu.

¹⁶⁴ Hots honen adierazpenak Hegoaldean sortu dituen buruhausteez ik. Urgell 1987a: 360-365.

¹⁶⁵ Ez dira honetaz ohartu Larramendiren hiztegia baliatu duten hiztegi berriek: *atxa* transkribatu dute *OEH*-ak eta *EH*-ak (s.v. *haxa* lehenak eta s.v. *hax* (?) bigarrenak) *HH*-ko <acha>, eta *OEH*-ak *atxuri* (s.v. *axuri*) *HH*-ko <achuri>, adibidez, lehena inolako zalantzarik gabe *axa* dela, eta bigarrena ziurrenik *axuri*

hitzetan izan ezik (cf. Larramendi 1729: 338, eta ik. Mitxelena 1978b: 394 eta Urgell 1987a: 361), eskuarki idatzietan <is> (*puisca, choraиска..*) eta hiztegiko sarreretan <is> (*aiseria* “zorro”; *eistua*, s.v. *troxecillo*) edo, bakanxeago itxuraz, <sy> (*asyeria* “raposa”) baliatzen ditu. Ordezko grafema hauek abantaila nabarmen bi zeuzkaten: alde batetik, haren ustez ahoskera hobekixe islatzen zuten (“...se inclina a la pronunciación de *orisie, alasié*”, 1729: 338; “...se pronuncian casi *ausye, orisye, gueisyeago, goisyo...*”, 1745: xxxviii); eta, bestetik, gaztelaniazko <x>ren bilakaera eta orduko ahoskera zeharo ezberdinagatik sor zitezkeen zalantzak uxatzen zituzten.

5) Antzera gertatzen da gaur <tt> idazten dugun hotsaz: alde batetik, orokorrean, <ty>z transkribatzen duen hots batez mintzatzen da (1745: xxxviii); eta, bestetik, Iparraldeko idazleek darabilten <tt> grafemaz (*ib.* xxvii). Bien arteko lotura, berriro ere, bere beste lan batek egiten laguntzen digu:

...la *t*, además de la regular pronunciación, tiene otra diversa, siguiéndosele *u*: y es media entre la que tiene la *t*, y la *j* consonante, no tan fuerte como la primera, ni tan suevo como la segunda. Tiene casi el sonido de *tiu* monosyllabo, *ditut, badituzte, ditiut, baditiuzte*. Y para significar esta pronunciación duplican en algunas partes la *t* (1729: 338).

Haatik, inguruneak eragindako¹⁶⁶ <tt> honi buruz esan daitekeen garrantzizkoena, nik uste, adibideen arabera automatikotzat (gaurko hitzez esanda), hots, grafiak jaso beharrik ez duen ezaugarritzat jotzen duela da, zeren ez baitu behin ere, ez idatzietan ez eta hiztegian ere *ditut* bestela idazteko inolako asmorik agertzen. Esan gabe doa honekin zenbait hizkeraren —ziurrenik berearen— ezaugarri baino ez dena orokortzat ematen ari dela baina, aldi berean, ohartu grafi islapenik ez izanik edonongo ahoskapanari ere lekua uzten ziola: berriro ere “nork bere estiloa gorde dezala” izan daiteke, beraz. Bestelako kontua dugu *ttantta* bezalako zerbait nola adieraziko zukeen asmatzea, baina dena dela, honetaz nik baino gehiago dakienak jadanik azpimarratu du “...kuriosoa dela, gipuzkoarra izanik, gainerako bustiduren berri ez ematea” (Oñederra 1992: 57). Iparraldeko idazleengan aurkitzen zuen *-tto* atzizkiari, adibidez, badirudi txokokeria iritsi ziola: “...aunque no es tan general, que muchas veces no escriban el *cho*, como en España” (Larramendi 1745: xxvii).

6) Sudurkariaren bustidura buruhauste gehiago emateko modukoa izan zela dirudi, ezen euskalki guztietan <ñ> vs <n> erabilerak somatu baitzituen. Halaz ere, <ñ> ahoskeraren alde agertu zen irmoki; ikus dezagun nafar-lapurteraz, bizkaieraz eta gipuzkeraz, hurrenez hurren, dioena:

En el uso del *ña, ñe, ñi, ño, ñu* ay la misma variedad que en España; pues unos pronuncian *miná, mainá*, y otros siempre *miña, maiña*, y es como se debe pronunciar; pero quando estas voces vienen en composición, pierden la pronunciación de la *ñ*, y se dice *minduna, mainduna*; y, no obstante, en baxa Navarra escriben *miñduna, maiñduna* (Larramendi 1745: xxviii).

En el *ña, ñe, ñi, ño, ñu* ay diferencia, pues en partes lo pronuncian assí, y en partes *na, ne, ni, no, nu* (*ib.* xxviii).

dela erreparatu gabe. Arazotsuagoa da oraindik Larramendik *churi* bezalako zerbait idazten duenean azpian zer dagoen erabakitzea; alabaina, bistan da, ene ustez, “nork bere estiloa gorde dezala” epaiak hemen ere zerikusia duela.

¹⁶⁶ Oñederrak (1992: 57) seinatu du lehendabizikoz gertakariaren ingurunea —baina oker: “siguiéndosele *u*”— jaso zuela. Ohargarria da —oharra Lakarra irakasleari zor diot— okerra, batek daki nola, Greenberg (arg.) 1978ra iritsi dela (ik. Bhat 1978: 54; iturritzat Lochak 1960 aipatzen du).

El *ña*, *ñe*, *ñi*, *ño*, *ñu* es corriente, aunque en tales cuales voces ay alguna variedad, como *miña* o *miná*, *iñor*, *inor*, *ceiña*, *ceina* (*ib.* xxx).

7) Azkenik, Iparraldeko grafia etimologizaleen kontrakoa izan zen:

...por guardar, a su parecer, demasiada puntualidad, desfiguran en lo escrito lo pronunciado. Assí dicen *haiñ handia* lo que nosotros *ain andia*; *hambat dohaiñ*, y nostros *ambat doaiñ*; *guehiago nahi bear* [sic] *dugu*, y nosotros *gueyago nai bear degu*. Assí dicen *bekatorea*, *elkhar*, y nosotros *becataria*, *elcar*. Assí dicen y escriben de *uts*, *utstú*, *otz*, *otztú*, y nostros *ustú*, *oztú*, y es lo que se pronuncia (*ib.* xxvii).¹⁶⁷

Zehaztapen orokor hauen ondoren, Larramendik ez zeukan zer esan handirik hitzez hitzeko kontuan. Besterik da, ostera, *HH*-ak jasotzen duen grafi sistemaz edo sistemez den bezainbatean, baina gai honetaz euskal ordainen beste ezaugarri batzuekin batera jardungo dugu (§ 8.4).

3.4.11. Euskal hitzen esanahiaz

Dagoeneko ikusi dugu Larramendiren "nota" zenbait euskal hitzen esanahiri buruzkoak direla. Etimologietan ere, oro har, alde honetatik datozen zehaztapenak aurkitzen dira, hala nola "Alcandora, vestidura blanca a modo de camisa, es voz Bascongada, y llamamos assí a la camisa de hombre, *atorra* a la de muger". Bi bide hauetaz gain, badira sarrera arruntetan, noizean behin, halako azalpenak. Hona hemen aurkitu ditudanak, bilaketa arretatsuago batek gehiago eskainiko duelakoan:

Abonar assí, *cimaurtú*, *iñaurquindu*, *basaratú*. Véase *estercolar*, y allí se dirá la diferencia de abonos, y sus nombres.¹⁶⁸

Mañoso, *mañatsua*, *mañaduna* <-ña>, *mañatia*, significa en Bascuence al que tiene mañas e impertinencias.

Saín, grosura de animal, *saiña*, *lumerá*, *gantza*. *Lumera* dezimos al saín de la ballena.

Seta, setas, *zuzac*, *cizac*, *susac*. // Setas mayores, *perrechicuac*. (...) Ay varias especies, véanse algunas en la voz *honggo*. // Hongo, fruto silvestre de la tierra, viene de el Bascuence *ontoa*, *ontyoa*. (...) Ay varias especies que se comen, v.g. fuera de el *onto*, *gureto*, *guibelurdin*, &c. Y en general a todas se llama *perrechicua*.

Hiztegitilearen zehaztapen nahia —eta zintzotasuna— honelako oharra egiteraino irits daiteke: "Fice, pescado pequeño y tierno; parece que es el mismo que en Bascuence llamamos *zarboa*".

3.4.12. Larramendiren gomendio edo erabakiak

HH, euskarari dagokionez, objektiboki deskriptiboa (Malkiel 1975: 19) dela esan daiteke: euskalki guztietako hitzak neurri berean —bere egin ahala beste mugarik gabe— jaso

¹⁶⁷ Azkenekoari buruz araua emana zeukan jadanik gramatikan: "...muchas veces se forman verbos de aquellas voces que tienen la *tz* y la *ts*; pero siguiéndose otra simple *t*, se pierde la *t* de la *tz* y de la *ts*: v.g. de *gatzá*, sal, *gatzú*, salar; de *otzá*, frío, *oztú*, enfriar; de *utzí*, dexar, *ez dit uzten*, no me dexa. Item de *utsá*, vacío, *ustú*, vaciar, &c. Lo mismo es en otros nombres compuestos, v.g. de *hitzá*, palabra o dicción, *hizteguia*, diccionario; de *gatzá*, sal, *gazteguia*, salina" (Larramendi 1729: 339).

¹⁶⁸ Gero, egiatan, aurreratutako oharra ahaztu egin zuen, baina aitortu behar zaio benetan ordain gehiago eskaintzeko gai izan zela: "Estercolar, *goroztu*, *gorotzatu*, *goroztatu*, *cimaurtu*, *cismaurtu*, *iñaurquindu*, *basaratu*" eta, batez ere, "Estiércol, *gorotza*, *cimaurre*, *cismaurre*, *iñaurquina*, *basara*, *basá*".

nahi ditu, ez du fonetika, morfologia zein joskerazko aldaeren artean hautapenik egiten (§ 8.3.7) eta grafi eredu bati baino gehiagori lekua egiten dio (§ 8.4). Alabaina, baieztapen honek zehaztu beharra dauka. Hitzaurrean bederen, xede arauemailea ez du erabat ukatzen:

Por esso a falta de libros me fue forzoso consultar el uso verbal de nuestros Patricios; oír a cultos y no cultos; notar cómo se habla en los Pueblos y en las Caserías; peregrinar a varios parages, y más con el empeño de comprehender en mi Diccionario todos los Dialectos del Bascuence, hacer apuntamientos, observar, combinar, *separar el uso del abuso*, adivinar la Ortographía, investigar etymologías y raíces... (Larramendi 1745, [ii]; etzana nirea da).

Euskal grafiaz den bezainbatean, Larramendi arauemaile baino aholkuemaileago izan zela etsita nago, gorago adierazi dudan bezala, bere aholkuek gero izango zuten arrakasta gorabehera. Beste puntu batzuetan, ordea, ez dut uste hain goxoa izan zenik. Zehazkiago, badirudi sutan jartzen zela euskal hitzak baztertu eta erdarazkoak beharrik gabe erabiltzen zirenean; *HH*-ko maileguez azterketa berezia eskatzen badute ere, konpli da hemen erants dezadan honek eragina izan duela *HH*-ko sarreretan eskaintzen duen informazioan. Hona hemen idoro ditudan erakusgaiak, haietatik bat oso-osorik euskaraz emana:

Lienzo, *euná, ehuná, lieutá, liñeuta, linteoa*. (...) *Euna* es el nombre general de el lienzo y, no obstante, con sobrada impertinencia dan las mugeres oy el nombre de *euna* a sólo el lienzo de la tierra y que no viene fuera de el Reyno.

Salutación angélica, el Ave María, *Aingueruaren agurra, agur Maria*. *Esta eusqueraz esan bear Jaincoac salvazaitzala, ezpada agur Maria, &c.*

San, *doné, jaun done*.

San Sebastián, *Donostia*, San Juan, *Done Joaná*, San Esteban, *Done Estebe*.

En estos tres, que son nombres de Pueblos, todos los Bascongados usan el *Doné*, y deben usarlo en todos los demás.

3.5. Adibideak

DAut, bere izenak adierazten duen bezala, batez ere literaturaren gainean eraikitako hiztegia da: "...en el [punto] que se convino con mayor constancia fue en confirmar quantas voces se pudiesse con autoridades de los mejores Autores..." (*DAut* 1726: xviii). Orokorrean, bada, tradizio idatziak berretsitako hitzak jasotzen ditu ahaleginean; ez osoki, halere:

...obliga la necesidad a que una u otra vez falten autoridades para algunas voces: singularmente para aquellas cuya vulgaridad las excluye de escritos serios, y no ha logrado el cuidado encontrarlas en los de asunto jocoso; sin que por esto sea culpable la Academia, que se reconoce obligada a todo lo que es estudio, pero no a lo que en tanta parte pende de la contingencia (*ibid.*).

Ezin naiz orain gehiegi luzatu honetaz, baina argi dago hitz asko eta asko hiztegietatik zuzenean hartutakoak direla (Covarrubiasen *Thesoro*-tik batez ere), halakoetan ohi den bezala hiztegiez kanpoko bizitzarik izan gabe sarritan. Honetaz dena dela, hemen bereziki interesatzen zaigu sarrerako zati ia ezinutzizko bat literaturatiko adibideek osatzen dutela.

Larramendik, berriro ere, honelako informazioa hiztegitik kanpo utzi zuen. *HH*-an zehar egin ditudan ibilalditxoetan bi salbuespen aurkitu ditut, halaz ere, honexegatik zeharo markagarriak. Lehena, *DAut*-ek ez dakarren hitza da, eta badirudi ereduaren erara sendotu nahi izan zuela, irakurri zuen liburutik adibidea emanaz:

Desperpentar, cortar, llevarse de un golpe, arrancar, cortando con violencia, *zatautsi, beingoan epaqui*. Lat. (...). *F. Juan de Santa Maria Relac. de los Martyres de el Japon cap.5*. Y a quatro hachazos, el propio viento le desperpentó (al arbol) y le llevó en alto, sin tocar en el navío.¹⁶⁹

Bigarrena, berriz, *DAut-ek dakarren bi adibideetatik bat da*, emandako etimologia eta haren esanahia sendotzen laguntzen ziona, hain zuzen; irrifarrez baizik ezin irakur daiteke testuinguru honetan bere alde erabili duen idazlearen —Ambrosio de Moralesen— izena:

Hoya, hondura en los campos, es voz Bascongada, y se dixo de *oyá*, que en un dialecto es cama y asiento u descanso plano, y es la significación que tiene *hoya* muchas vezes, y no la de el Latino *fossa*: v.g. Ambr. Mor. lib.9. cap.7. el sitio de suyo está levantado sobre una hermosa hoyo de tierra, de más de dos leguas.

Euskaraz, ordea, hitzak zein euskalkitakoak diren ez markatzeko daukan arrazoi beragatik, antza denez, inoiz ere ez liburuetakoko hitzak diren ala ez eta norenak, ez eta ematen dituen adibideak bereak ala norbaitenak diren aitortzen du. Bestelako iritzia agertuko zuen Aizkibelek, *HH*-ko hitz zenbait idazleen aipamenei bidez berretsiaz; honela azaldu zuen hitzaurrean:

Convencido íntimamente de la utilidad de las citas, que destierran toda sospecha de que hayan podido inventar los lexicógrafos algunas de las palabras que no están en uso, pongo todo mi cuidado en enriquecer este Diccionario con el mayor número de citas que puedo, particularmente aquellas voces o dicciones que son peculiares de un solo dialecto, o no son comunes en la conversación (Aizkibel 1883: ii).

HH-an honetan ere bi salbuespen idoro ditut, lehena Leizarragaren Testamentutik eta bigarrena Marca-ren *Histoire de Bearn*-etik (Paris, 1640):

Placa, moneda antigua de España de muy poco valor, creo que es la misma que el Bascuence llamaba *pelata* (...) en el Nuevo Testamento Bascongado se pone por moneda de poco precio. Procuración, contribución que los Prelados sacan de las Iglesias que visitan, *arceutsa*. (...) De esta voz *arceuts* en este significado ay mucha memoria en la historia de Bearne de el señor Marca.

Nolanahi ere den, liburuaren hasiera aldera badirudi Larramendik sarrerak euskal adibidez hornitzeko asmoa izan zuela, hitzen —eta, esan bezala (§ 3.3.3.1), batez ere aditzen— joskera nolakoa zen erakusteko. Gure corpuseko lehen orrialdean (I, 6), laburrago batzuekin batera, honako lau adibide sorta hauek irakurtzen dira:

(Es una grande)¹⁷⁰ abominación, *nazca aundi bat da, naga aundi bat da*]t̪f. Item *nazca aundi batecoa da, naga aundi batecoa da*.

Abonar, (...). Le abonó en cuentas aquel dinero, *ontzatu cion cóntuetan diru hurá, ontzat artu cion*. No ha menester que le abonen, *eztu iñoren ontzateren bearric*.

Abonar, salir por fiador, (...). Ha dicho cosas bellas en su abono, *gauza ederrac esan ditu bere ontzatean*. Qué podrás hablar en abono de un ladrón? *Cer hitzeguin dezaquezu, cer erausi daguiquezu lapur baten ontzatean?*

Aborrecible, objeto digno de aborrecimiento, *erabea*. Este es mi objeto aborrecido, *au da nere erabea*.

¹⁶⁹ Ez dago, oker ez banago, Larramendiren liburutegikoaren artean (Altuna 1984). Palauren arabera, gaztelaniazko bi argitalpen zahar daude, eta Larramendik ematen duen izenburuari hobekien egokitzen zaiona, *Relación del martirio que seys Padres Descalços Franciscanos, tres hermanos de la Compañía de Iesus, y diecisiete laponeses Christianos padecieron en lapon* (Madrid, 1601) deritzona da.

¹⁷⁰ *OEH*-ak baliatu ohi duen parentesiaren sistema hau baliatuko dut nik ere sarrera-buruaz hasten ez diren lerrokadak testuingurutik kanpo aipatu behar ditudanean, begi-kolpean eta bestelako adierazpenik gabe pasarteak nondik hartua den adierazteko modu eroso eskaintzen du eta.

Adibideok, dakidalarik, Larramendiren burutikoak dira: ez bederen *DAut*-ekoen itzulpenak, ez eta, zehazta dezakedan neurrian, euskal literaturatik erauziak. Lanaren handiak edota liburuaren luzerak atzeratu bide zuen, halere, gainerakoan ez baita ia honelakorik berriro ikusten. Corpuseko salbuespenak bi dira:

(Al) pié de, casi, *ozta*. Lat. Ferè. Ya avía al pié de quinientos hombres, *baciran ozta bosteun guizon*. Lat. Erant ferè quingenti homines.

Adibide hau, *DAut*-ek ematen dituen hiruretatik azkena da, egokitua bada ere:

Y por si acaso este faltasse, le envió otro nuevo nombramiento, para el que había de gobernar lo que tocasse a lo del Puente, que eran *al pié* de dos mil hombres (Gonzalo de Céspedes, *Historia de Phelipe Quarto*, lib. 6, cap. 17).

Bigarrena, berriz, euskararen berezitasun bat adierazteko eratu duen sarrera berri batean agertzen da:¹⁷¹

(No) obstante, siguiéndose plural, *eztirala ansi*; no obstante las fuerzas y costumbres, *eztiradela ansi indar ta oitura guciac*. Lat. Viribus, & consuetudinibus non obstantibus.

3.6. Errefrauk

Hiztegietan esaera zaharrak jasotzea garaiko gustuei bete-betean egokitzen zitzaizkien zeregina zen: *DAut*-en eredu guztiek ere —Covarrubias barne— horrela jokatu zuten (Lázaro Carreter 1981: 103).¹⁷² Ezin konta ahala dira, beraz, ereduak Larramendik irakurri zituenak, baita haietatik asko (baina ez denak) berera ekarri ere, euskal ordainak eskainiaz. Alabaina, *HH*-an irakur daitezkeenak ez dira beti etorki berekoak, ez eta denak *DAut*-en ereduari zor zaizkionak ere.

Aurreko mendearen erdialdean, Oihenarten bildumekin (1657-1665), euskal errefrauzaletasunak erpina jo zuen, mende eta erdiko ekoizpen aberatsaren ondoren (Lakarra 1996b: 145). Beste mende eta erdiz, ordea, ia ixilean igaro zen, Erromantizismoak herri jakituria ezagutzeko kezka berpiztu zuen arte.¹⁷³ Bere garaiko euskaldunek bezala, uste dut Larramendik ere ez zuela esaera zaharren zaletasun berezirik izan: landu zituen arloen artean, honek bazterleku bat baino ez du betetzen; bildumak, nonbait, ez zeuden boladan.

Haatik, euskal errefrautegiaren historia baten ezean marraztu dudana bilakaera hori zuzena bada, Larramendiren *HH*-ko errefrauek¹⁷⁴ esanahi berezia daukate, XVIII. mendeko lekukotasun

¹⁷¹ Nire ezjakintasunean nondibait hartua delako itxura hartu banion ere, latinezko ohiko esaera bildumetan bederen ez da agertzen, Ruiz Arzalluz irakaslearen gidaritzapean egiaztatu ahal izan dudanez.

¹⁷² Atsotitzak sartzeko asmoa hiztegiaren lehenengo egitasmotik hantxe zegoen: ik. *DAut* 1726: xv-xvi.

¹⁷³ Oso adierazgarria izan daiteke, agian, Garatek (1998: 24-32) "Atsotitzen kondaira" atalean Oihenartengandik gizaldi honetako bildumetara igarotzea, tartekorik gabe. Oihenarten ondoko lehen bilduma argitaratua, badirudi G. Brunet-en *Anciens proverbes basques et gascons recueillis par Voltaire...* (Paris, 1845) izan daitekeela (ik. Vinson 1891-1898: 12h zb.), Voltoireren atsotitzen bilduma (78 orotara, Akasoloren [1985: 130] datuen arabera). Data beretsuan ondu zuen M. Hiribarrenek (1810-1866) bere bilduma argitaragabe eta, dakidalarik, ikergabea (Azkuek [1945: 23-24] "atsotitz itzultzaileen" artean sartu zuen), Uriartek bezalatsu (*Euskalzale* aldizkarian lehenengoz argitaratua; Azkue 1945: 16-17). Argitalpenaren aldetik ez bada ere, denoi Mogel aurreratu zitzaizkien, *Peru Abarka*-n jasotzen dituenekin.

¹⁷⁴ *HH*-koei han-hemen sakabanatuta utzi zituen batzuk ere bildu beharko litzaizkieke. *Corografía*-n (c. 1754) bederen badira beste bi: "Aquí tienen un refrán: *Goiz gorri euri daidi, arrats gorri eguradi*, y quiere

bakarra ez badira behintzat, ziurtasun osoz handiena osatzen dutelako. Halaz ere, ez du ikertzaileen ez eze atsotitz biltzaileen inolako arretarik erakarri, dakidalarik.¹⁷⁵ Ahaztu honen azalpena erraza delakoan nago. Ni neu, atal honi ekin nionean, etsita nengoen *HH*-ko errefrau gehienak *DAut*-ekoen Larramendiren itzulpenak zirela. Anitzek itxura hori daukate, bai; baina itxura, dakigunez, engainagarria izan ohi da. Hasiera batean, bada, honela sailkatu nuen Larramendiren uzta, eta derradan aitzinetik sailkapenak oro har balioko duela, nahiz ordutik hona sail bakoitzean sartu beharreko errefrauen kopurua nahikoa aldatu eta, beraz, baita iritzia ere:

a) Talde handi bat itzuli egin zuen. Nabarmena da oso zaila dela den-denen herrikoitasuna *a priori* ukatzea, bi tradizioek elkarrekin dituzten esanahi ez eze forma bereko edo antzerako errefrauen ugaria ezagututa.¹⁷⁶ Beste buruan, Larramendiren aurreko euskal hiztegiileek¹⁷⁷ argi eta garbi erakusten digute iturri(ar)en atsotitzak itzultzea ez gaizki ikusia, normalizat hartua baizik zegoela garai haietan: itzuliak dira, denak edo gehienak, Voltaire-ren *Tresor*-ekoak (liburu osoa itzulpena da), baita Pouvreauren eta Urteren hiztegiokoak ere.¹⁷⁸

b) Beste batzuk, berriz, badirudi gaztelaniazko errefrauen euskal kideak direla, Larramendik entzunak edo irakurriak.

c) Azken talde batean sartuko lirateke Larramendik euskaraz bakarrik ezagutzen zituenak.

Esanak esan, ez da garrantzi txikiko kontua, itzuliak zein diren (a) eta zein jasoak (b,c) erabakitzea. Eta ez da begi-kolpean egin daitekeen zerbait. Lehen hurbilketa gisa, han-hemen jasotako errefrau sorta batek zer nolako emaitzak eskaintzen dituen aztertzea aski izan daitekeela deritzot. Hona hemen:

1. "Por Abril aguas mil, *Apirillean euri betean*" (1, 8).

decir que arboles encendidos de la mañana son señales de agua, y los de la tarde de buen tiempo" (41. or.) eta *Egoqui Machini mantua* (188. or.).

¹⁷⁵ Azkuek, behinik behin, ez zuen aipatu ere egin *Euskalerrriaren Yakintza*-n, errefrau biltzaile zein itzultzaile ezagun guztiak banan-banan —eta onerako zein txarrerako— aurkeztu arren (1945: 23-24). Ezin sinets daiteke, oster, *HH*-an errefrauak badirela ez zekienik: hitzak bezain susmagarriak iruditu bide zitzaizkion, eta aipatzea bera kaltegarri, nonbait. Bide batez, orobat ez du aipatzen (baina ezagutzen zuen: Mitxelena 1970: 137) Arakistainek Larramendiri bidalitako eranskinetan agertzen den eta nik neuk ezagutzen dudana XVIII. mendeko beste bilduma bakarra. Zertxobait kezkatu da arestian Kaltzakorta (1996, 1997), gutxi gorabehera hemengo ondorio berberak erdietsiaz, corpus txikiago batekin eta errefrauen herrikoitasuna erabakitzeke erabili dituen iturriak aitortu gabe bada ere; gainerantzean Mitxelenaren aspaldiko ohar bat (1959: 74-75) eta Arzubiaga 1952ko bilduma txikitxo baina, berak ere ez du *HH*-ko errefrauei buruzko besterik ezagutzen.

¹⁷⁶ Cf. Lakarraren saio interesgarriak (1996b: 158-166 eta 1996c: 30-75) *Refranes y Sentencias* eta Hernán Núñez-en bildumaren arteko antzekotasunez.

¹⁷⁷ Ez haiek bakarrik: cf. Axularren *Letra gabeko aisia, gizon biziaren hobia* ederra (*Gero* 42), Senekaren *Otium sine litteris vivi hominis sepultura*-ren itzulpena.

¹⁷⁸ Voltaire-ri buruz, ik. Vinson 12i; Pouvreaux, Kerejeta 1991: 869, 12. oh. Biak lotuta, Lakarra 1996b: 146-147n azaltzen dira. Urkizuk —Urteren hiztegioko beste arlotan bezala— bete-betean haien jatorrasunean sinisten duela dirudi: "...Oihenartek, Garibaiek [sic], Lope Isastikoak, Jakes Belakoak, Voltaire-k eta beste askok bezala Urtek bildu zituen, edo hobe esan, gogoan zituen edo gogora zetozkion atsotitzak sakabanaturik aurkitzen dira, joia eder bailirean, hiztegian" (Urkizu 1989: 101). Besteak beste, eskaintzen duen sortatik, nekez mantentzeko daitezke "*Their hour-glasses running with water as ours do with sand*". Hequien ur-orénac badihóaz gure hare orenac beçala", nabarmenena aipatzearen, euskal errefrau jatorra denik, ingelesetik euskarara zuzenean itzulitako lehena —eta lehen esaldia, orobat— izateko ohorea erraz aitortzeko bitartean.

2. "A la vejez, aladares de pez, *agureac quiscur, centzua labor*" (I, 47).
3. "Ay abuelo, sembráisteis alazor, y naciónos anapelo. Refrán para los que hazen, y no son correspondidos, *erein dezu garía, eguin zatzu sasia*" (I, 49).
4. "A un traydor dos alevosos, Refr. *beari bati berreun da bi, etoi bati, bearí bi*" (I, 56).
5. "Allegadores de la ceniza, y derramadores de la harina, *zayetán zur, ta iriñetan eró, iriñetan zogul*" (I, 60).
6. "A padre allegador, hijo expendedor, *aitá biltzálle, semé galtzálle*" (I, 60).
7. "No por mucho madrugar, amanece más temprano. Refr. *Goiz jaiquiá eztá egun sentia*" (I, 66).
8. "A muertos y a idos, no ay amigos, *adisquide guichí, illai ta joan dirana*" (I, 68).
9. "Obras son amores, que no buenas razones, *obrac dirade amoré, ez hitz ónen coloré*" (I, 69 eta II, 120).
10. "En los nidos de antaño no ay páxaros ogaño, *igazcó cabiac utsic, ezta an aurten choriric*" (I, 78).
11. "Antes que te cases, mira lo que hazes, *ezcondu baño len, contu cer eguiten den*" (I, 79).
12. "*Alper da Maria maquillatu, berez beardu*. Refrán que enseña que no sirven los palos para hazer, v.g. discreto a un tonto, si de suyo no tiene fondos. En Navarra lo dizen assí: *Alper da Maria maquillatu, ezta berdin centzatu*" (I, 83).
13. "*Arlote, arbuya, zarpa, laztan*, es un refrán que de otro mode se dize, *arrote igüi, zarpa laztan*; y se aplica a los que de palabra hazen ascos de andrajosos, y de obra son recogedores hasta de los andrajos" (I, 95-96).
14. "Al asno muerto, la cebada al rabo, *astoa illa danean, garagarra buztanean*. Lo mismo significa que estotro refrán, *usoac joan eta sareac eda*" (I, 104). Bigarrenerako, ik. 22.
15. "Haz bien, y no mires a quién, *eguizu on, ta ez jaquin non*" (I, 137).
16. "Bien vengas mal, si bienes solo, *gaitza naibadec ator, bacar baldin baator*" (I, 137) eta honen aldaera: "En hora *buena* vengas mal, si vienes solo, *ordu onean gaitza atoz, bacarric bazatoz*" (II, 63).
17. "Y aun ay un refrán muy expressivo, que dize: *agoa, bero deño, galdá*, y significa en lo literal, que a la massa de hierro, que llamamos *agoá*, se le han de dar las caldas antes de dexarla enfriarse: y debe hazerse lo mismo en los negocios, sin dexarlos que se enfríen" (I, 161).
18. "Lo que ha de cantar el carro, canta la carreta, *idiac bearrean gurdia orró*" (I, 178).
19. "Ceribon, ceribones, en Bascuence dizen *cedebon*, y ay uno como refrán, que dize, *cedebon, ecin duenac, ecin emon*" (I, 190).
20. "No ay olla tan fea, que no tenga su cobertera, *eztá eltzé ain itsusiric, bere estalquia eztuenic*" (I, 206).
21. "Cobra buena fama, y échate a dormir, *otsande ona badezú, lo gozó eguiñ ezazú*" (I, 206).
22. "Despues de ido el conejo, tomamos el consejo, *usoac joan ta sareac eda*" (I, 219). Ik. 14.ean beste agerraldi bat.
23. "Y aquí el refrán, *auqueraren mauquera, atzenean oquerrá*, y significa que el que es impertinente en sus elecciones, al cabo escoge lo peor" (I, 304).
24. "Tenemos un modo de refrán, *echura bay, ta quemenic ez*, y lo aplicamos a los que tienen mucha ostentación, y no tienen *sustancia*" (I, 421).
25. "No ay mal que por bien no venga, *eztá gaitzic onic eztacarrenic*" (II, 62).
26. "Mal de muchos, consuelo de bobos, *ascoren miña choroen atseguña*" (II, 62).
27. "Malo vendrá, que bueno me hará, *ondoren gaitzoc onduco nau*" (II, 64).
28. "El malo siempre piensa engaño, *gure catuac buztana luce, norc bera bezala besteac uste*" (II, 64).
29. "Manda potros, y da pocos, *urrea esan, ta urri eman*" (II, 67).
30. "Quien tal haze, que tal pague, *daguienac darizola*" (II, 135). Cf. s.v. *aguantar*: "El verbo *irozo* tenía o tiene sus irregulares, y se colige de este modo de hablar, *daguienac darizola*, el que lo hiziere, que lo aguante y sufra".
31. "Más cerca están mis dientes, que mis parientes, *aideac alboan, ortzac ordeá aboan*" (II, 145).
32. "La muger, y la pera, la que calla es buena, *emacumé ta udaré, isilic dagoana da obé*" (II, 161).

33. "Ni en burlas, ni en veras, con tu amo no partas peras, *ez benaz, ta ez burlaz, ez adi josta nagusiaz*" (II, 161).
34. "El que las sabe, las tañe, *daquienac daqui, daquienac daquio*" (II, 265) eta berriz "Quien las sabe, las tañe, *daquienac daqui*" (II, 316).
35. "Quando te dieren la vaquilla, acude con la soguilla, *danean eguzqui, zapiac ichequi*" (II, 298).
36. "Al Sol que naze, *noronz eguzqui, aronz burusi*" (II, 298).
37. "Al primer tapón, zurrapas, *cipotza bein quendu, ta orduan liac aguertu*" (II, 317).
38. "Más vale tarde que nunca, *obe da noiz, ecen ez iñoiz*" (II, 318).
39. "Quien tiene tejado de vidrio, no tire piedras al de su vezino, *beira-tellatua badezu, auzoari arrica ezteguiozu*" (II, 320).
40. "Cada loco con su tema, *choroac oquer, edocean ayér*" (II, 320).
41. "Dice assí un refrán, *aritzác azalá, ametzác bezalá: zarrac ecin daguique gazteac bezala*: Y quiere decir que el quexijo, especie de roble, y el roble echan o tienen corteza semejante, pero que los viejos no pueden hazer lo que los mozos" (II, 373).

Aipatu aurreiritziarekin jokatu arren, hasiera-hasieratik bistan zegoen atsotitz hauetakoa zenbaiten jatortasuna frogatzeko bazirela kanpoko eta barneko argudio zenbait, berez errazena diren (c) taldekoetatik hasita:

3.6.1. Batzuk ez daude ereduaren eta, beraz, badirudi Larramendik buruz aipatu zituela: 12, 13, 17, 19, 23, 24, 25, 26, 30, 41. Haietatik hiru (25, 26 eta 30) oraingoz kanpo utzi behar ditugu, *DAut*-ek ez dakartzan gaztelaniazko errefrauek ezagunak direlako.

3.6.2. *DAut*-en dauden errefrauek —baita ez dauden hiru haiek ere— oso sarrera bakunak osatzen dituzte *HH*-an: alegia, gaztelaniazkoaren ondoren euskal ordaina dator, huts-hutsean. Larramendik *DAut*-ek ematen dien azalpena albo batera utzi eta ordaineztatu egin ditu, besterik gabe, hitzekin egin ohi duen bezalaxe. Salbuespenak hasiera aldera batzen dira denak, A letran dagoeneko somatu ditugun gainerako irregulartasunen modura: 3.ean erdarazko azalpena agertzen da; 4 eta 7.ean "Refr." laburdura gorde du.

Bereizi ditugun zazpitan (12, 13, 17, 19, 23, 24 eta 41), berriz, bi ezberdintasun erabakigarri agertzen dira: Batetik, ez dago oina eman diezaiekeen erdal errefraurik; euskal hitzak hizpide eman dio Larramendiri, eta errefraua burura ekarri. Bestetik, guztiek azalpena —batzuetan luzea— daramate; behin bederen (12), haren aurkezpena *DAut*-ek ezarri ohi duen berbera da: "Refrán que enseña que...". Cf. adibidez: "La muger y la *pera*, la que calla es buena. Refr. que enseña a las mugeres quán provechoso y laudable les es el silencio" (*DAut*, s.v. *pera*).

Honekin batera, hasiera aldera errefrauek (2 eta 3 izan ezik) latinezko ordaina galdu dute. 11. errefrautik aurrera denek daramate, ostera, gure zazpi horiek (gehi *DAut*-en ez datozen gaztelaniazkoetatik bat, 30.a) izan ezik.

3.6.3. (c) taldekoak, beraz, inolako zalantzarik gabe, Larramendik euskaraz bakarrik ezagutzen zituen errefrauek dira. Zalantza izpirik geratzekotan, ohartu behar da haietako batzuk (12, 17, 19,

23 eta 41) ongi lekukotuta daudela, dela lehenagoko literaturan¹⁷⁹ edo dela XX. mendeko ahozko tradizioan:

12. *Alper da Maria makilatu, ezpada berez biurtu* (Bc), ...*berez bear du* (Uriarte, B-lzapazter), etab. (Azkue 1945: 125. zb.). *Alperrik Maria makillatu: berez bear du* (G-Gainza; Inza 1963-64: 148).
17. *Agoac bero deño galda* (Isasti 2). *Burdinabero deno yo behar da* (Darthayet, 123 zb.) eta *Burduña bero deno dugun yo* (S; Azkue 1945: 2160. zb.). *Jo burdina bero deno* (Moulin & Uhart 1979: 52).
19. *Zeledon: ezin duenak ezin emon* (B-oñ, F. Segura eta ms.Otx. 70. or., ap. Azkue 1945: 272. zb.).¹⁸⁰
23. *Auqueraren mauquera, azquenean oquerra* (Isasti 11). *Aukera maukera, azkenik traukera* (GN), ...*azkenean...* (G-Amezketeta) (Azkue 1945: 717. zb.).
41. *Haritxak axala ametzak bezala, gazteak ez dü balio zaharrak bezala* (S; Garate 1998: 6369. zb.).

Honenbestez, 13 eta 24 bereziki garrantzitsuak dira, 1745ean bai eta berriro inoiz jaso ez bide diren erretratuak baitira.¹⁸¹

3.6.4. Lekukotasunek asko lagun diezaigukete (a) eta (b) taldeen artean bereizketak egiten. Era askean bestetan jasotako erretratuak ere ziurtasun osoz jatortzat jo beharko genituzke. Hauxe da honako erretratu hauen kasua:

5. Cf. *Çayetan zur, eta yriñetan ero* (Isasti 19). XX. mendeko biltzaileen datuen euskalki hedadurak eta aldaeren aberatsak ere bermatzen duten erretratu da: *Zaietan ziogi, urunetan ero* (B), *ziogi-ren orde zoin, zur zein zintzo* aurkitzen delarik (Azkue 1945: 2866. zb.), *Arditan zuhur, sosenan erho* (Z; Azkue 1945: 1935. zb.) eta *Zayetan legor, iriñetan abar* (Inza 1963-64: 161). Cf. gainera Garatek (1998: 13489. zb.) bildutako aldaera ere.
6. Azkuek (1945: 1229. zb.) Bizkaitik hasi eta Behe Nafarroarainoko aldaerak eskaintzen ditu, gehienak *HH*-koaren egitura berarekin: bizkaieraz *batzaile... banatzaile*, erronkarieraz *irabasle... gastazale*, amikuzeraz *biltzale... igortzale*. Hauen aldamenen badago beste tradizio bat, erdarazkoak bezala datiboa eransten diona, hala nola Oihenart (15 *Aita biltzaleari seme barreari*), Arakistain (*Biltzale onari barratzale* (GN), 63. or.) eta Duvoisinen (*Aita biltzaleari, seme barraiari*, ap. Azkue 1945: 1237. zb.) bertsioak. Cf., gainera, Garatek (1998: 388. zb.) bildutako aldaerak; haietako bat, Aramaion bildua, ia-ia *HH*-koa da: *Aita biltzaleak semea gastatzallea*.
11. Cf. *Ezkondutako baino len kontu zer egiten den* (Azkue 1945: 1361. zb.), iruzkin honekin: "Leí en un viejo manuscrito que perteneció a Bonaparte". Letraz letra *HH*-ko erretratu berbera jasotzen duenez gero, badirudi eskuizkribua Larramendiren irakurlearen batena izan daitekeela. Halaz ere, funtsean herrikoia da: cf. *Ezkondutako baino le(he)n, begira zer egiten den* (Azpeitia, G), *Ezkondutako baino len, kontu atere* (Goizueta, GN) eta *Ezkondutako baino llehen ezagutzak egin* (Jean Elissalde) (Garate 1998: 4911. zb.).
15. Cf. *Egizu beti on, ez yakinarren non* (B-mu; Azkue 1945: 2237. zb.). *Egik untsa, ez jakinagatik non* (Aiherra, BN) eta *Egizu on, ez dakizula non* (Goizueta, GN) (Garate 1998: 10613. zb.).
18. Cf. *Idiaco oñon bidean gurdia* (RS 305), *Idiaco erausi bearrean, gurdia inno* (Isasti 49), *Idiaco erassi bearrean, gurdia* (Oihenart 273), *Idiaco oñon bearrean burdiaco*

¹⁷⁹ Aipatuko ditugun zenbait, Isasti eta Axular bereziki, Larramendiren iturri ere izan daitezke.

¹⁸⁰ Ez dut Otxandioko eskuizkribuan atsotitza aurkitu, ez Azkuek aipatu orrialdean, ez eta gora eta behera egin dudako azaleko begiradan.

¹⁸¹ 24.aren antzekoak badira, osteraz: cf. *Itxura ona, barren beltza*, etab. (Garate 1998: 7538-7540. zb.).

oñoten (B-izp, Uriarte, ap. Azkue 1945: 498. zb.). Cf. Garatek (1998: 7057. zb.) bildu aldaerak ere.

22. *HH*-an birritan aurkitu dugun atsotitza da. Lehen agerraldian (14), erdarazkoaren hitzez hitzeko itzulpenaren ostean agertzen da ("Lo mismo significa que estotro refrán..." aurkezpenaz), eta han eta bigarreanean erdarazkoarekin ez du esanahiaz bestelako erlaziorik. Izan ere, lehenago Isasti (86 *Vssoa joanda sareac gora*) eta Axularrengan ere (*Usoac ioan, sareac heda*, 236. or.) jasotako atsotitza da. Azkuek (1945: 653) komuntzat jotzen du. Garatek (1998: 13297) aldaera gehiago eskaintzen ditu: *Usoak pasa ta sareak heda* (Landibarre, BN), *Urtzoak...* (Arizkun, GN), *Urtzoak iraganez geroz, sariak heda* (Zalgize).
25. *Ezta gaitzik, onik ez dakarrenik* (Idiazabal, G; Goizueta, GN), *Ezta gaitzik, zeozer onik ez dakarrenik* (Azpeitia, G) (Garate 1998: 5160. zb.).
26. *Askoren mina, txoroen atsegina* (Oderitz, GN-larr, ap. Azkue 1945: 1974. zb.); eta Loidi Bizkarrondo, ap. Garate 1998: 1388).
28. *Gure catuac buztana luce, nor bera leguez besteac uste* (*msOch* 355). Cf., halaber, *...bera bezela...* (G-Errexil), *...bera bezala...* (GN), *Gure txakurrak...* (BN-Aldude) aldaerak ere (Azkue 1945: 484. zb.). *Gure katuak isatsa luze, besteak hala direla uste* (G), *Gure gathuak buztana luze, bera bezala bertzeak uste* (Jean Elissalde) (Garate 1998: 8364. zb.), *Gure zakurrak muturra luze, besteek hala dutela uste* (erreferentziarik gabekoa) (*ib.* 13606. zb.).
29. Egitura bereko eta oso antzeko formako hainbat aldaera jaso izan dira: Cf. *Urria esan, da urria izan*, Decir octubre, y ser octubre (B-m; Azkue 1945: 1821. zb.). *Urrea esan da urria* ['eskas'] izan (erref. gabekoa), *Urria esan da urdia* ['zerria'] izan (Azpeitia, G), *Urrea esan ta urria eman* (Antonio Zavala) (Garate 1998: 13078 eta 13076. zb.).
34. Badirudi Larramendik bestetan luzeago izan daitekeen atsotitz bat jaso zuela: Cf. *Dakienak daki uzkarra burduntzian sartzen* (Ubidea, B; Azkue 1945: 2172. zb.). *Dakienak badaki puzkerra kerrenean sartzen* (Mariano Izeta), *Dakienak daki nun den Landibarren Haranburia* (L (?)) (Garate 1998: 7779 eta 7780. zb.). Gainera, gogora dezagun *HH*-an aldaera bi daudela: *dakienak dakio* oraindik gardenago iruditzen zait, 30. erretraua dela eta eman arrazoi beretsuagatik (ik. § 3.6.6).
35. Cf. *Denean eguzki, oihalak heda* (Landibarre, BN; Garate 1998: 3594. zb.).
36. Cf. *Nondik eguzki, harat buruzki* (AN-b, BN), *Norat eguzki, harat buruzki* (BN-gar), *Nora eguzki, ara burusi* (G), *Noruntz eguzki, aruntz burusi* (V,G) (Azkue 1945: 1214. zb.), *Norat iguzki, harat buruzki* (Donazaharre, BN) (*ib.* 1788. zb.), *Norat iguzki, arat buzurki* (BN; Inza 1963-64: 171) eta *Norata eguzki, arata beroki* (Esteribar, GN; Inza 1972).

HH-aren iturriez III. atalean arituko garen arren, ezin esan gabe utzi Isasti haietako bat izan daitekeela, aztertutako 5, 17 eta 23. erretrauen arabera; honetarako, aldaketa tiki batzuk baino ez ditugu proposatu behar: *eta* > *ta* (5), *agoac* > *agoa* (17) eta *azquenean* > *atzenean* (23). Aldaketok, ordea, ez lirakeke nahitaez Larramendik egindakoak, halaxe izatea ere ezinezkoa ez den arren:¹⁸² gogora dezagun Isastiren lana ez zela 1850 arte argitaratu eta, horren orde, berrehun urte baino gehiagoz (*HH* mugatzat ipinita, 160ren bat) hainbat kopia eskuz esku ibili zirela,¹⁸³ aldaketok ez eze handiagoak ere pairatzeko moduan. Aitzitik, ez dirudi 18.a honela azal daitekeenik, eta 22.ean Axularren bertsiotik anitez hurbilago dago.

3.6.5. Inoiz, ordea, lekukotasunak ez dira aski —edo ez aski fidagarri— erretrau baten jatortasuna frogatzeko:

¹⁸² Zalgize eta Oihenarten atsotitz batzuk ere, adibidez, berreginak izan daitezke (cf. Lakarra 1996b: 170-171).

¹⁸³ Argitalpenaren *sine die*-ko atzeratzeaz, kopiez eta bestez, ik. Sorrain 1891: 658. zb.

7. Cf. *Goiz jagia, ezta egun sentia* (erref. gabe; Garate 1998: 5933); *jaikia* > *jagia* aldaketatxoa baino ez dakua *HH*-ko bertsioarekin erkatuta. Erreferentzi gabetasunak batez ere egiten du susmagarri, dena dela.
10. Cf. *Igazko kabiak utsik, ezta an aurten txoririk* (B, F. Segura, ms., 129. or., ap. Azkue 1945: 1717. zb.). Segurak Larramendiren hiztegia ondo ezagutzen zuenez gero (Azkue 1945: 17), zeharo susmagarria deritzat letra bakar bateko aldaketarik aurkezten ez duen lekukotasun honi. Cf., ostera, honen antzeko atsotitz zahar zenbait, taiu berekoak, baina zeharo ezberdinak: *Xazko arstoak aurten orroa* (erreferentziarik gabe) eta *Igazko abietan aurten txoririk ez* (RS), *Igazko lapurrok aurtengoan urkatzalla* (RS) eta *Xazko epaslea, aurtengoan urkazalea* (Oihenart) (denak ap. Garate 1998: 7090-7091. zb.).
14. Errefraua ezaguna da Hego Euskal Herriko zenbait lekutan, baina ahozko tradizio honek beti beste bide batetik (erdarazkotik urrunago dagoen batetik) jotzen du: cf. *Asto ilari uzkitik zuku* (R-bid), *...lasto* (R-uzt), *...olo* (Sal) (Azkue 1945: 352), *Astoa il-da, garagarra* (Zumaia, G), *Itzen denean oloa* (Araiz, GN) (Inza 1963-64: 151), *Mando hilari uzkitik olho* (Moulin & Uhart 1979: 61) eta *Asto hilari, uzkitik olo* (Landibarre, BN) (Garate 1998: 1426. zb.); *Astoa ila denean, garagarra buztanean* (Antonio Zavala, ap. *ibid.*) bertsioa, berriz, *HH*-ko berbera da eta zalantzazkotzat daukat, beraz.
16. Cf. *Gaitza, nai badek ator, bakar baldin baator* (Antonio Zavala, ap. Garate 1998: 5174. zb.). *HH*-ko berbera da, 14.ean gertatu zaigun bezalaxe.
20. Cf. *Ezau faltatan eltxano bapanari bere eltzabaldea* (R; Azkue 1945: 1359. zb.), *Nolako marmita, alako tapa, beiñere ezta palta* (Zarauz, G) (AEF 1921: I, 57) eta *Eltze bakotxak bere tapa* (Sunbilla, GN; Garate 1998: 3756. zb.). Berriz ere ahozko tradizioa beste bide batetik doa. Garatek leku berean bildutako *Ezta eltze hain itsusirik bere estalkia ez duenik* (Jean Elissalde) bertsioari, *HH*-ko berbera baita, susmagarria deritzat oso.
27. Cf. *Ondoren gaiztok onduko nau* (Antonio Zavala, ap. Garate 1998: 10724. zb.). Gertakariak pilatu ahala (ik. 14 eta 16 ere) gero eta nabarmenagoa da Zavalak *HH* (edo haren ondorengoren bat) baliatu duela.
31. *Aguinac urrago, aydeac baño* (RS 138). Cf. *Aideak alboan, ortzak agoan* (B?, G?), *Aideak ez urrin, ortzak nerekin* (F. Segura; Azkue 1945: 976. zb.). *Ahaideak alboan, ortzak aboan* (Jul[jio] Urk[jijo]?; Garate 1998: 250. zb.). Aldaera zalantzazko segida bat: haietatik bakar bat ere ez da ziurtasunez herrikoia; lehena eta azkena, neurria mozten zuen *ordea* kentzeaz eta aldaketaño batzuk (*aideak* > *ahaideak*, *aboan* > *agoan*) egiteaz gainera, *HH*-ko bera baino ez bide dira; Azkueren zehaztasun faltak ere bere iturria berriro Larramendiren irakurleren bat izan dela sinisteko bidea ematen digu.
39. *Ber'exea beires daducanac estaliric, espesa aurtic berserenera harriric* (Oihenart 92). Inork ez du esan, dakidalarik, Oihenartek errefraurik itzuli zuenik; nire ustez, hau eta Larramendirena erkatzea askitto izan daiteke hori bien kasuan sinisteko. Cf. oraindik *Beirazko teilatua duenak, auzoari harrika ez egin* (erref. gabe; Garate 1998: 2271. zb.), *HH*-koaren antzekoa, baina puntua zeharo galduta, besteak beste.

3.6.6. Badira, ordea, tradizioaz bestelako arrazoiak errefrau bat jatortzat emateko; besteak beste, euskararen historiak eskain ditzakeenak:

30. *DAut*-ek ez dakar baina gaztelaniaz, era batera edo bestera ("Quien la hace la paga" esango nuke nik), ezaguna da. Bada, ondoren datorrena ere ezin zalantzan jar daiteke euskal errefraua dela: Larramendik s.v. *aguantar* egiten duen iruzkina aski eta sobera da horixe frogatzeko, *darizola* berarentzat adizki zaharkitua baita, errefrautik bakarrik ezagutzen duena.

3.6.7. Alderantzizko bidetik abiatuko naiz orain, hots, nahitaez edo ziurtasun handiz bederen itzulia izan behar duenik ba ote dagoen aztertzen. Itzulpenak bakarrik —eta zehazkiago *DAut*-eko sarreraren osagaiek— azal dezakeen bat badugu:

2. *kiskur*-en zentzua ez dago ulertzerik, *aladares* "los cabellos peinados con curiosidad a lo antiguo" (Larramendi) edo "los cabellos de los lados de la cabeza..." (*DAut*)

direla jakinik, baina bai "Rizó los aladares Galerana" adibidea (Quevedo, ap. *DAut*) irakurri ondoren. Ostera, *DAut*-en azalpena honako hau da: "Refr. que reprehende a los viejos que quieren parecer mozos, *tiñéndose las canas* para dissimular los años" (etzana nirea da).

3.6.8. Haietako batzuetan Larramendiren hitz berriak azaltzen dira: *beiri* (4), *otsande* (21). Edota haren sarreretako proposamenak: 37.erako cf. *cipotza* "tapón" eta *liac* "zurrapas". Edota siniskaitzak diruditen gauzak: *beira-teillatua* (39) bezala, areago *beira* Larramendiz gain Iparraldeko idazle zaharrek (Leizarraga, Axular, etab.) baizik XX. mendera arte beste inork erabiltzen ez duela kontuan izanik (cf. *OEH*, s.v.). Honen antzera, *aier* (40) Iparraldeko hitza da, eta izenki gisa ia inork ez erabilia (cf. *OEH*, s.v. *aier* II). Era honetako argudioak berez ez dira erabakitzaile, berregindako errefracuak izan baillitezke —Isastirenez esan bezala—, baina bai lagungarri.

3.6.9. Forma ere argudiotzat erabil daitekeela dirudi, neurri batean behintzat. Ziurtzat eman dugun 2. errefracua bezalaxe, gainerako gehienak ezaugarri garrantzitsu batean bat datoz: taiu berekoak izatea, hots, elkarren artean errimatzen duten bi zatikoak. Oro har errefracuak itzultzea aski ariketa normala izan dela esan dugu gorago, baina zehaztu beharko genuke normalena bertsotan ematea zela.¹⁸⁴ Ohartu, gainera, bi zati baino gehiago duten guztiak (28 eta 41) jatorrak direla. Areago, puntu beretsuak izateko joera dute: *-ik* (10, 25), *-zu* (21, 39), *-ean* (1, 14), *-ia* (3, 7). Argudio hau ahula da errefracu bat itzulia izan dela frogatzeko, jatorizat jo ditugun hainbatek ere bi baldintza horiek betetzen dituztelako. Baina balio lezake, *a contrario*, 27.aren jatorritasunaren alde egiteko, oraingoz (a) taldean ditugunen artean punturik gabeko bakarra baita, (b) eta (c)-ko hainbatekin (13, 17, 18, 22, 24, 30 eta 34) bat datorren bitartean.¹⁸⁵

3.6.10. 16.aren bi aldaerei ere,¹⁸⁶ zein bere erdal errefracuaren aldaerari dagozkiola, oso susmagarri deritzet.

3.6.11. Ez dirudi Larramendi berariaz errefracu bila ibili zenik. Egia da ez bide zituela bere aurreko bilduma gehienak ezagutu, Isastirena eta, bukaera-bukaeran, *Refranes y Sentencias* izan ezik.¹⁸⁷ Alabaina, ez Isastiren ez, adibidez, Axularren guztiak biltzen ahalegindu zen, ez eta hurrik eman ere. Esate baterako, Axular batengan badira, izan ere, erabili ez zituen erdal errefracu zenbaiten itzulpenak:

¹⁸⁴ Cf. Seco 1987: 169, 5bis oh.: "Conviene recordar que no es Dominguez [*Diccionario nacional...*, Madrid, 1846-18447] el primero en utilizar la métrica para glosar los refranes: la misma Academia, en el *Diccionario de Autoridades*, puso en verso su explicación latina de ellos —alarde poético que, por cierto, fue juzgado poco favorablemente por un buen latinista como Rufino José Cuervo (...)—. Hay, claro está una diferencia importante entre los hexámetros o dísticos de la Academia y los pareados o cuartetos de Dominguez: los primeros están hechos en serio".

¹⁸⁵ Lakarrak (1996b: 172) azpimarratu du Isastiren bilduman dagoen bi zatiko errefracu puntugabeen proportzio handia (36/86), *RS*-en eta Garibairen bildumetan baino askoz handiagoa. Gure laginaren arabera, *HH*-ko errefracu ez itzultitakoetan ere handi xamarra da, dakusgunez.

¹⁸⁶ Lehena jasota dago Garateren bilduman (1998: 5174. zb.), baina gorago oso zalantzazkotzat jo dugun Antonio Zavalaren berme hutsarekin.

¹⁸⁷ Bilduma hau ziurrenik *Erans*-ean bakarrik erabiltzeko moduan iritsi zuen, "al acabarse la impresión del Diccionario" zehazkiago, bertan adierazten duen bezala.

(De lo) contado come el lobo, *contatutic otsoac jan oi dic / GGero 242 otsoac ian baiteçaque ardi con[ta]tuetaric.*

(Haz) bien y no mires a quien, *eguizu on, ta ez jaquin non / GGero 224 Daguigun ongui, eta ezteçagula beha nori.*

3.6.12. Ondorioz, goiko taldeak honelatsu geratuko litzateke:

a) 1, 2, 3, 4, 7, 8, 9, 10, 14, 16, 20, 21, 31, 32, 33, 37, 38, 39, 40 (orotara 19 = % 46,3).

b) 5, 6, 11, 15, 18, 22, 25, 26, 27, 28, 29, 30, 34, 35, 36 (orotara 15 = % 36,6).

c) 12, 13, 17, 19, 23, 24, 41 (orotara 7 = % 17).

Espero ez nuen bezala, beraz, erdiak baino gehixeago (% 53,6) jatorrak edo egiantz handiaz hartakotzat jo daitezkeenak dira. Honek oina ematen dit, ziurrenik (a) taldea oraindik gehiago labur litekeela uste izateko, zenbat eta euskal errefraua hobeto ezagutu, hainbat eta (a) taldetik (b) taldera igarotzen den gehiago agertzen baita; Garateren bilduma berri eta osoagoaren laguntzaz, adibidez, bost errefrauren lekukotasun herriko bakarrak (11, 25, 35 eta 41) eta baten lekukotasunik onena (15) erdietsi ditugu.

3.7. Ondorioak

Larramendiren asmoa euskara erakustea/irakastea izan zela frogatzeko hainbat xehetasun jakingarri lortu ditugu, *DAut*-ekiko erkaketari esker: izan ere, gaztelaniazko informazio gehiena desagertarazi zuen, han-hemen itzuritako apur batzuk izan ezik, gainerantzean beharrezkotzat jo zuena baizik ez erabiliaz. Beharrezkotzat jotako artean, bereziki azpimarragarriak dira etimologietan agertzen direnak, hauetan gaztelaniazko hitzari buruzko berri gehiago —bestetan jaso ohi ez zituen hainbat gauza— agertzen baitira, azalpen etimologikoari bidea zein oinarria eman ziezaioketen guztiak bilduaz.

Gaztelaniari buruzko informazioaren ordez, berriz, euskarazkoa eurrez barneratu zuen, batez ere gramatikari dagokionez: *HH* Larramendiren gramatikaren osagarri ezinutzizkoa da, nahita geroko utzitako, oharkabean ahaztutako zein artean ikasitako hainbat azalpen hiztegioko sarreretan sakabanatuta aurkitzen ditugu eta. Honekin batera, aldian behin *DAut*-ek gaztelaniari buruz eman ohi dituen xehetasunetatik zenbait euskarari buruz eskaintzen ditu Larramendik: euskal hitzen esanahi, osaketa, euskalki hedadura, etabarrez, alegia. Hau ere gehienbat etimologietan gertatzen da, eta goian emandako arrazoi berberengatik.

Bestalde, *HH*-ko A letraren berezitasuna bermatzeko xehetasun gehiago bildu ahal izan ditugu: geroago ez beharrezkotzat joko zuen gaztelaniari buruzko informazio gehiago itzuri da (hitzaren esanahizko hedaduraren zein banaketa geografikoari buruz itzuritako adibide bakanak, adibidez, edota errefrauen gaztelaniazko azalpena); halaber, *NOTA* gehienak letra honetan agertzen dira, hala nola adibide ia guztiak. Gera gaitezen apur bat azkenekoan: itxura denez, hasieran hiztegia adibidez hornitzeko asmoa hartu zuen, *DAut*-en modura, baina honen autoritateen laguntzarik gabe: bere burutik-edo ateratako adibideez, alegia. Asmoa aski ausarta dela azpimarratu behar da, nahiz beste lexikografia batzuetan zegoeneko oso ezaguna izan (cf. Quemada 1967: 507-515 frantseserako): nolabait, *beharrak zaharra merkatura*, ezinbestean bere

burua autoritate bilakatu zuen, hitzberrigintzan ere hartu behar izan zuen erantzukizunarekin bat. Alabaina, lanaren handiak edota horrekin hiztegiak hartuko zuen tamainak atzeratu egin bide zuten, eta une batetik aurrera bakan-bakanak dira, hutsaren hurren. Esan gabe doa, hasi eta buka adibideak izatera bestelako hiztegia izango genukeela esku artean, edukiaz eta formaz; dena dela, Larramendik lanean abiatzerakoan geroxeago baino arnasa luzeagoko egitasmoa zeukala agerian geratu da.

Ortografia eta ahoskerak jarduteko gai gehiago eskaini digute, aurrean ikututako hainbatek baino, Larramendiren azalpen zehatz eta korapilotsuak hartaratuta, baina baita honi buruzko ikerketaren egoerak lagunduta ere. Punturen batean izan ezik (hala nola <j>ren ahoskapena), Larramendi ahoskeraz den bezainbatean, begirale erne modura burua agertzeaz gain, edonongo ahoskera onartzeko prest zegoela erakutsi uste dut: “probintzia bakoitzak gorde dezala bere estiloa” esaldia *leit motiv* izan dugu, izan ere, kasu istilutsu gehienetan. Alde honetatik ulertu behar dira, halaber, ahoskera askea zilegi egiten duten grafia zenbait (<it> *ditut* bezalakoetan, edo Hegoaldean batera eta Iparraldean bestera irakurtzeko zen <ch>) sustatzea. Honetaz gainera, interesgarria izan daiteke gaztelaniazko ortografian Larramendi akademikoekin beti bat etorri ez zela gogoratzea eta, bereziki, etimologiek gaztelaniazko hitzen grafia (<v> / auzian, behinik behin) baldintzatzeko indarra daukatela *HH*-an: pentsatzekoa da bi xehetasunok eraginen bat izango dutela euskarazkoan ere, gutxienez maileguen idazkerari dagokionez.

Azkenik, *HH*-ko zenbait errefrau aztertuz, erdiak-edo herrikoiak direla baieztatzeko arrazoiak aurkeztu ditut, neronek ere neukan inpresioa —alegia, denak edo ia itzuliak zirela— kolokan utzirik. Hauetako gutxi batzuen iturria Isastiren bilduma izan litekeela ere aurreratu dut. Nolanahi ere den, hainbat euskal hiztegiak eta atsotitz biltzailek —baita Espainiako akademikoek euren, besteak beste— errefrauak itzultzeari muzin egin ez ziotela jakinik, askoz hobeto uler daiteke Larramendiren jarrera, garaiko usadioei —eta ez hiztegiakaren apetei— lotua. Esan gabe doa, honezkero, *HH*-ko errefrauei orain artean baino arreta gehiago jarri beharko zaiela.

4. Gaztelania (I): Ereduarekiko aldenteak eduki orokorraren aldetik

Gaztelaniazko nomenklaturaren hurrenkeran Larramendik batzuetan bere erara jokatu zuela jakin eta gero, orain haren edukiarekin zer egin zuen aztertzeko garaia iritsi da. Asmo honekin, aurreko ataleko corpus berbera erabiliko dut (ik. 2. eranskina).

Azterketak joerarik indartsuena edukia bakantzea izan zela erakusten digu, eta bi eratarata: *DAut*-eko sarrera nagusi zenbait, eta adiera, esapide eta errefracu anitz kenduaz (§ 4.1), eta sarrera eta azpisarrera asko bidalketa-dei bihurtuaz (§ 4.3). Alabaina, dena ez da kenketa. Alde batetik, ereduko edukia bestela antolatzeko zioen bat ere izan zuen (§ 4.2). Bestetik, batez ere euskara deskribakizun izateak, *DAut*-ek eskaintzen ez zuen informazio multzo bat eranstera eraman zuen. Informazio orokorra, guztiz gramatikazkoa, dagoeneko aztertu dugu; atal honetan, nomenklaturan erantsi zituen gauzak (sarrera, adiera zein esapide berriak) miatuko ditugu (§ 4.4). Joera nagusiaren —hots, hiztegia laburtzearen— kontra jokatzeko duen beste eransketa mota bat badago, azkenik: *HH*-an dauden sarrera errepikatuen kopuru ez txikia (§ 4.5).

4.1. Larramendiren hautapenak

Larramendiren esana, alegia, hitzez hitz jarraitu ziola *DAut*-i, *cum mica salis* hartu behar da. Honetaz ohartzeko aski dateke gogoratzea corpusean *DAut*-ek 857 makrosarrera dituela eta *HH*-ak, berriz, 891 mikrosarrera:¹⁸⁸ aldeak 34 baino ez lituzke utziko Akademiaren hiztegiaren adiera, esapide eta errefracu ugariak jasotzeko. Bistan da, beraz, bakanketa lana handia izan dela, baina ez maila guztietan neurri berean gertatu da, ez eta beti arrazoi berengatik. Ondoko atalen helburua maila bakoitzean Larramendik zein osagai eta nolakoak alde batera utzi zituen erakustez gain, horretarako izan zituen zioak ahaleginean zehaztea izango da.

¹⁸⁸ Zehaztu behar dut alfabetatzean ez bezala kopuru honetan partizipioak eta -se aditzak sartu ditudala, hauekin ere zer gertatzen den guztiz jakingarria baita, noski.

4.1.1. Sarrerak

DAut-eko 857 sarreretatik 210 (%24,5) galdu egin dira batetik bestera igarotzean. Ondoko taulan jasotzen diren datuak hauexek dira: (1) *HH*-ko orrialdea, (2) *DAut*-eko sarrera kopurua, (3) alde batera utzitako sarrera kopurua eta (4) hauen portzentaia orrialdeko:

1	2	3	4	1	2	3	4
<I, 6>	27	9	%33,3	<II, 21>	69	8	%11,6
<56>	81	39	%48,1	<71>	28	5	%17,9
<106>	38	8	%21,1	<121>	49	8	%16,3
<156>	26	7	%26,9	<171>	20	7	%35
<206>	62	18	%29	<221>	33	6	%18,2
<256>	67	18	%26,9	<271>	48	8	%16,7
<306>	61	19	%31,1	<321>	52	9	%17,3
<356>	77	15	%19,5	<371>	73	14	%19,2
<406>	46	12	%26,1				

Taulako emaitzetatik dagoeneko ondorio orokor zenbait atera ditzakegu. Ohartu hiztegian zehar hiru zati aski argi egin daitezkeela: lehen bi orrialdeek, A letrakoak (beti bezala berezi xamarrek), kenketa portzentaiarik handienak ematen dituzte; bi hauek kenduta, berriz, portzentaiak aski egonkorak dira: I. liburukiko gainontzeko orrialdeetan %20-30 inguruan (7tik 5etan %25etik goiti) daude; eta II. liburukian (171. or.ko erpina kenduta) %10-20 inguruan (7tik 6tan %15etik goiti). Beraz, A letran gehien kendu zuela esan daiteke, eta oro har I. liburukian gehiago, II.ean baino; bataz bestekoka esanda, A letran %40 inguru,¹⁸⁹ I. liburuko gainerako letretan %25,8 eta II. liburukian %19.

4.1.1.1. Ageriko arrazoiak

Larramendik bi erako salbuespenak adierazi zituen Hiztegiaren hitzaurrean: germaniaren hitzak eta hitz zaharkituak. Konpli da, beraz, ezer baino lehenago zehaztea hauei zer nolako zatia dagokien hiztegi batetik bestera galdu diren hitzen kopuruan.

Germaniaren hitzei dagokienez, nabarmena da bi hiztegien arteko aldea ez dutela oso neurri txikian baizik azaltzerik, berez *DAut*-en osotasunean deus gutxiko kopurua osatzen baitute. Gure corpusean 3 (baztertutako hitzen %1,4) baino ez dira: *guido*, *guinchado* eta *salvatierra*.

Zer esan gehiago ematen dute hitz zaharkituek. Larramendik, jadanik aipatu dugu, "También puede ser que se me ayen escapado algunas pocas voces antiquadas" aitortzen zuen (1745: liv), hori aitortzea bada, zeren eta zalantzarik gabe hauxe baita galeraren arrazoietatik bat. Ikus ditzagun orrialdeko, honelakorik agertzen ez den orrialdeak kenduta, (1)

¹⁸⁹ Kopurua ikaragarria da, baina bi orrialderen gainekoa baizik ez izanik —baita antzemandako bestelako arrazoiengatik ere— komeniko litzateke A letran azterketa zehatzagoa egitea.

hitz galduen kopuru orokorra, (2) haietatik *DAut*-ek "antiquada"-tzat —inoiz adierazpen konplexuagoen bitartez— jotzen dituenen kopurua, (3) haien portzentaia galduei buruz, eta (4) zein hitz diren:¹⁹⁰

<I, 56>	39	12	%30,8	alfadía, alfaja, alfalfez, alfaya, alfeña, alfeñado, alferizado, alfilel, alfirecia, alfirez, alfolla, alfofostigo.
<106>	8	1	%12,5	aseguranza.
<156>	7	3	%42,9	cabezai, cabezo, caboral.
<206>	18	11	%61,1	cobdicia, cobdiciar, cobdicioso, cobdiza, cobegera, cobijadura, cobijera, cobramiento, cobrir, coce, coceadura.
<256>	18	3	%16,7	defensar, defeso, degredo.
<306>	19	3	%15,8	embarcadura, embargamiento, embargoso.
<II, 21>	8	1	%12,5	intima.

Orotara, galdutako 34 hitzen (%16,2) kontu ematen digu eta, corpusaren arabera, hitz zaharkituak bakantzea oso nabarmenki batez ere I. liburukiko gertakaria da, bigarreanean ziur aski ia eraginik izan ez duen bitartean.

Labur bilduz, Larramendik agerian ematen dituen bi arrazoen artean, 37 hitz (%17,6) baino ez ditugu azaldu. Bistan da hitz gehienak bestelako arrazoiak galarazi dituztela. Kenketa lanean ez nahierara, irizpide gutxi-asko trinko batzuekin baizik aritu zela erakusten digu azterketak. Gure corpusak, bere txikian, hiru arrazoi nagusi eskaintzen dizkigu, eragin txikiago daukaten beste batzuekin batera, hurren ikustera goazen bezala.

4.1.1.2. Partizipioak

Hona hemen Larramendik aitortzen ez duen arrazoi nagusienetako bat. Halaz ere, badirudi ez aitortua ulergarria ez eze espero izatekoa zela. Izan ere, Larramendiren sistemari euskal partizipio mugagabea erdarazko infinitiboaren ordain normala da, eta erdarazko partizipioarena, berriz, partizipio mugatua (§ 8.1.2): "Comentar, *azaldu, edarguitu*", "Comentado, *azaldua, edarguitua*", adibidez. Larramendi ez da alboko erdaren eta euskararen arteko asimetria honekin topoz topo egiten zuen lehen hiztegiilea: Harrietek bere gramatikako hiztegiaren bi prozedura ezberdin erabili zituen, hiztegiaren norabidearen arabera (Lakarra 1993: 158): euskara-frantsesean euskal aditzizenari infinitiboa eta, partizipioa jasotzen duen gutxietan, birritan emandako partizipio mugatuari frantsesezko partizipio maskulino eta femeninoa dagozkie:

aberastea, <i>s'enrichir</i>	aditcea, <i>entendre</i>
aberastua, <i>s'enrichi, m.</i>	aditua, <i>entendu, m.</i>
aberastua, <i>s'enrichie, f.</i>	aditua, <i>entendué, f.</i>

Frantsesa-euskara hiztegiaren ordea, salbuespen bakar batekin, frantses infinitiboa eta euskal aditzizena baino ez ditu ematen. Larramendi erdibidean geratuko da. Lehenago (§ 3.3.2)

¹⁹⁰ Besterik esaten ez dudana bitartean, hauek berak izango dira ondoko atalen tauletako osagaiak.

ikusi dugu *DAut*-ek partizipio maskulino eta femeninoa, biak sarrera beraren azpian jasotzen dituen arren, Larramendik eskuarki genero bereizketa alde batera utzi duela. Ereduari atxikita, baina, ez du erabat saihesten bi hizkuntzen arteko asimetria, euskal zatian errepikapenak maiz sortzen dituen. Baditu, halere, estrategia batzuk errepikapenok saihesteko, hala nola “Descoger, *desbildu, destolestu, zabaldu*”, “Descogido, *desbildua, &c.*”, eta hauen barnean sartzen da aditz zenbaiten partizipioa zeharo ezabatzea. Zerrendatik kenduko ditugu aditza bera ezabatu —edo bildaketa-dei bihurtu— delako desagertzen diren partizipioak (ik. § 4.1.1.5).

<I, 6>	9	2	%22,2	abominado, abonanzado.
<106>	8	3	%37,5	asegurado, asentado, aserrado.
<256>	18	1	%5,6	dehesado.
<306>	19	11	%57,9	embalado, embalijado, emballenado, embalsamado, embalsado, embalumado, embarbascado, embarnecido, embarrado, embarrilado, embastado.
<356>	15	4	%26,7	estufado, estuprado, esturado, eternizado.
<II, 71>	5	1	%20	maquilado.
<121>	8	1	%12,5	observado.
<221>	6	1	%16,7	rascado.
<371>	14	1	%7,1	vestido.

Orotara, beraz, galdutako 25 hitzen (%11,9) kontu ematen digu partizipioaren desagertze honek. Azpimarra dezadan hiztegi guztiko gertakaria dela: 306. orrialdeko erpina aditzak bereziki ugari diren zati bat baino ez da.

4.1.1.3. Hitz eratorriak

Tartean behin familia bateko hitzen bat desagertzen da, normalean eratorri bat:

<I, 6>	9	1	%11,1	aborrecedor.
<56>	39	7	%17,9	alfalfar, alfanjonazo, alferazgo, alforjado, alforjero, alforjitas, alforjuela.
<106>	8	2	%25	aseguramiento, asentamiento.
<156>	7	3	%42,9	cabido, cabildada, cabillo.
<206>	18	1	%5,6	cocheril.
<256>	18	4	%22,2	defendedor, defendiente, defension, dehesero.
<306>	19	4	%21,1	embaracillo, embarazadamente, embarazadillo, embarazador.
<356>	15	4	%26,7	estudiosamente, estudiosidad, estudio-sissimo, eutrapelico.
<406>	12	6	%50	guedejilla, guerrilla, guiamiento, guijarrazo, guijarrillo, guijeño.
<II, 21>	8	3	%37,5	interrogante, interrogativo, intestinal.
<71>	5	2	%40	mañuela, maquilón.
<121>	8	2	%25	obstinadissimo, ocasionadissimo.
<171>	7	3	%42,9	pictorico, piedrecilla, piernitendido.
<221>	6	2	%33,3	rarissimo, rasante.
<271>	8	2	%25	salvante, sandalino.
<321>	9	5	%55,6	temedor, temerosissimo, temperatissimo, templadico, templadissimo.

<371>	14	6	%42,9	verruguilla, versillo, vertiginoso, ¹⁹¹ vestidillo, vetilla, vexaminista.
-------	----	---	-------	---

Ikus daitekeen bezala, honelako bakanketak orrialde guztietan aurkitzen dira. Arrazoi indartsu bat, bada: galdutako 57 hitzen (%27,1aren) atzean dugu. Atzizki batzuk desagerkizunago dira besteak baino, guztiz txikigarriak (15) eta superlatiboak (7): lehenengoetatik bat edo batek irauten du corpusean, baina bigarreneko guztiak desagertu dira. Hona hemen errepikatzen diren bestelako erator atzizkiak: *-dor* (4), *-nte* (4), *-miento* (3), *-azo* (2), *-ero* (2), *-ico* (2), *-mente* (2) eta izen balioko partizipioak (2).

4.1.1.4. Ezohiko hitzak

Egindako sarrera bakanketaren zergatien bila, *DAut*-ek ematen duen gehigarriko informazioari garrantzi berezia aitortu behar zaiolakoan nago. Desagertzen diren sarrera nagusietatik 47k (%22,4) hitza gutxi erabilia, dialektala, txantxetakoa, asmatua, latin hutsa, etab. bezalako iruzkinak daramatzate *DAut*-en. Badirudi, beraz, Larramendiren esana egiatik hurbilago legokeela, baldin eta gorago ikusi ditugun hitz zaharkituez gain oro har ezohikoak — arrazoiak arrazoi— diren hitz zenbait ere "beharbada" kendu zituela esan izan balu. Jarraian azalpenka sailkatuko ditut, zeinek bere garrantzia hobeki erakus dezan; alabaina, kontuan izan behar da hitz batzuetan arrazoi bat baino gehiagok joka zezakeela, agian.

Talderik handiena (18 hitz, %8,6) *DAut*-ek "de poco uso", "no tiene ya uso", "es menos usado que..." eta antzeko adierazpidez azaltzen dituen hitzek osatzen dute:

<l, 6>	9	5	%55,6	abominador, abonamiento, abundarse, aborrecedero, aborreciblemente.
<56>	39	1	%2,6	algaida.
<206>	18	1	%5,6	cobdo.
<256>	18	3	%16,7	defensatriz, dehender, dehendimiento.
<356>	15	4	%26,7	estultamente, eternal, eternalmente, evangelistero.
<ll, 321>	9	1	%11,1	temperacion.
<371>	14	3	%21,4	vero, versar, vespertillo.

Bigarrenean dialektalismoak ditugu, 11 hitz (%5,2) azalduaz:

<l, 56>	39	7	%17,9	aletría, alevo, alfarge, alfarma, alficoso, alfonsearse, algaido.
<106>	8	1	%12,5	asestadero.
<206>	18	1	%5,6	cocarar. ¹⁹²
<256>	18	2	%11,1	defenecimiento, defusion.

DAut-ek "voz inventada", "jocosa" edota "voluntaria"-tzat jotzen dituen hitzak beti desagertzen dira *HH*-an; halaxe gertatzen da bederen gure corpusean, adibideak asko ez badira ere, 6 (%2,9) orotara:

<l, 156>	7	1	%14,3	cabizbaxar.
----------	---	---	-------	-------------

¹⁹¹ *DAut*-en *vestigioso*, huts argia.

¹⁹² *DAut*-ek ez du agerian esaten, baina *coca*-ren eratorria da, eta argi aski geratzen da amerikanismoa dela.

<406>	12	1	%8,3	guedejar.
<II, 71>	5	1	%20	mañanar.
<171>	7	2	%28,6	pido, pidón.
<321>	9	1	%11,1	tempestividad.

DAut-ek "es voz puramente latina", "es voz latina" eta antzeko adierazpideez agertzen dituen hitz zenbait eta, hain gabe, aldamenean dakarren latinarengatik halakotzat jo daitezkeen beste zenbait ere desagertutakoen artean topatzen ditugu;¹⁹³ orotara 5 (%2,4):

<II, 71>	5	1	%20	mapalia.
<121>	8	1	%12,5	obtento.
<271>	8	3	%37,5	sampsuchino, sancta sanctorum, sanctus.

Badira batzuk azalpen bakarra hitz berezituak izatean aurki lezaketenak, hots, Arkitekturan, Auzitegian, Astronomian, etab. bakarrik erabilera daukatenak; orotara 8 hitz (%3,8):

<I, 56>	39	1	%2,6	alfeiza.
<106>	8	1	%12,5	asserto.
<206>	18	1	%0,1	cochinata.
<256>	18	3	%16,7	defensoria, deferente, defluxo.
<406>	12	1	%8,3	guarnes.
<II, 21>	9	1	%11,1	interusurio.

Azkenik, bada sail handi bat *DAut*-en azalpenetan zuzenean kendua izateko ziorik aurkitzen ez duena, baina haien artean dauden hitzek, itxuraz zein esanahiaz, ezohikoak direla erakusten digute. Orotara 16 hitz (%7,6). Erdiak baino gehiagok gaztelaniaz beste ordainen bat badu, kendutakoa baino ohikoagoa, eta Larramendik huraxe jaso zuela erakusten saiatzen naiz behean. Taldean harrigarri egiten zaidan bakarra *alfil* da, baina hemen sailkatu dut, beste inon sailka ezin zitezkeenez gero:¹⁹⁴

ALETO. Especie de halcón que se cría en las Indias...

ALFAMAR. Manta o cobertor, y lo mismo que Alhamar (cf. *HH* "Manta" eta "Cobertor").

ALFELICHE. Lo mismo que Alferecía (cf. *HH* "Alferecía").

ALFEÑICADO, DA. Metaphóricamente se dice de la cosa que es sumamente blanda, delicada y sutil.

ALFIL. Pieza del juego del Axedrez.

ALFITETE. Composición de massa como la sémola o sarro, o como los hormigos y alcuçuz de Andalucía.

COCATRIZ. Serpiente que se cría en el Nilo, lo mismo que Crocodilo (cf. *HH* "Crocodilo").

COCHITEHERVITE. Modo de hablar baxo y vulgar que se compone de palabras bárbaras, con que se significa que se hace o se ha hecho alguna cosa atropelladamente...

ESULA. Una de las siete especies u diferencias de la hierba llamada en Castellano Lechetrezna... (cf. *HH* "Lechetrezna").

ETNA. Lo que está mui encendido y ardiente, y como echando llamas. Díxose assí a semejanza del monte Etna...

EVEHENTE. Lo mismo que Ascendente. Es epítheto que se suele dar al Nodo boreal de la Luna... (cf. *HH* "Ascendente, término de Astronomía").

GUERMECES. Enfermedad que padecen las aves de rapiña en la cabeza, tragadero y oídos, y son muchos granos pequeños...

INTITULATA. El título o inscripción del libro u otro escrito (cf. *HH* "Título, inscripción").

¹⁹³ Hauen estatusa behar bezala ulertzeko, interesgarria izan daiteke Covarrubiasen antzeko hitzei buruzko iruzkinetako bat ezagutzea: "MACULA, este vocablo es más Latino que castellano, pero al fin se usa del" (ap. von Gemmingen 1992: 29).

¹⁹⁴ Jakina, oharkabean ahaztutako hitzen bat edo beste ere egon daiteke.

RASCON. Ave lo mismo que Rey de Codornices.
 SAMPUSCO. Lo mismo que Almoradux (cf. *HH* "Almoradux").
 VEROS. En el Blason son unas figuras como copas o vasos de vidrio...

4.1.1.5. Desagertutako hitz nagusien ondorenak

Aditz bat sarrera normala osatu beharrian bidalketa-dei bihurtuta geratzen denean, aditz-multzoko beste osagaiak, guztiz partizipioak, desagertzen dira. Askoz adibide gutxiago eskaintzen duen arren, berbera gertatzen da, jakina, beste norabait bidaltzen den edozein hitzen eratorriekin. Honekin 14 hitz (%6,7) azal daitezke:

<I, 6>	9	1	%11,1	abondado.
<56>	39	3	%7,7	alfardero, alfordilla, alfordón.
<306>	19	1	%5,3	embarnizado.
<406>	12	1	%8,3	guarnido.
<II, 21>	8	2	%25	interrogado, intimidado.
<121>	8	2	%25	obtenido, obviado.
<221>	6	1	%16,7	rascuñado.
<321>	9	2	%22,2	temperante, temperado.
<371>	15	1	%6,7	verosimilitud.

4.1.1.6. -se aditzak

Erakutsi dut dagoeneko (§ 3.3.3.1) sarri xamar Larramendik ereduari atxikitzen zaiola aditz arrunta eta -se aditza sarrera banatan emanaz, nahiz eta eskuarki euskaraz aditz beraz edo berez adieraz daitekeen, laguntzailearen aldatze soilarekin. Inoiz edo behin, ordea, errepikapena saihestu du, -se aditza ezabatuz. Orotara 5 hitzetan (%2,4) eman daitekeen azalpena da, eta ohartu batez ere bigarren liburukiko gertakaria dela:

<I, 206>	18	1	%5,6	cocerse.
<II, 171>	7	1	%14,3	picotearse.
<271>	8	1	%12,5	sangrarse.
<371>	14	2	%14,3	versarse, vestirse.

4.1.1.7. DAut-en "véase"-ak

Hitz bat *HH*-an ez agertzeko arrazoi bat, *DAut*-en bidalketa-dei huts gisa azaltzea da; orotara 5 hitz (%2,4):

<I, 56>	39	2	%5,1	alfonsí, alfonsina.
<256>	18	1	%5,6	de forma.
<II, 121>	8	1	%12,5	obsidional.
<171>	7	1	%14,3	pictima.

4.1.1.8. Sarrera bakanketak

Larramendik hiztegia laburtzeko daukan estrategien artean bat da bi sarrera hurbiletik bat egitea. Honela azaltzen diren hitz desagertuak orotara 20 dira (%9,5) eta, asko ez badira ere, ohartu adibideak nahiko erregularri banatzen direla lagin guztian zehar. Maiz, familia

bereko hitzekin bidalketa-dei bakar bat eratzeko eginak dira (“>” zeinuak *DAut*-eko hitza nora doan adierazten du):

ABONDAR > Abondamiento, abundar.	VERMINOSO > Vermicular, verminoso.
COCEDRON > Cocedra, cocedrón.	VERRUECO > Verrocal, verrueco.
INTERROGAR > Interrogación, interrogar.	VERTIGINOSO > Vértigo, vertiginoso.
OBTENER > Obtención, obtener.	VESTIMENTO > Vestimenta, vestimento.
RASCUÑO > Rascañar, rascaño.	

Bestetan, berriz, sarrera normal bakar bat lortzen da, euskarazko eta latinezko ordainekin:

ALFILEL > Alfiler, y en lo antiguo *alfilel*.
 CABILLO > Cabito, cabillo.
 DEFENSION > Defendimiento, defensión.
 EMBARAZADAMENTE > Embarazosamente, embarazadamente.
 ETERNALMENTE > Eternamente, eternalmente.
 GUIJEÑO > Guijarreño, guijeño.
 INTERROGANTE > Interrogación, interrogante.
 MAQUILON > Maquintero, maquilon.
 OCCIDENTE > Occaso [sic], occidente.
 RAREZA > Raridad, rareza.
 TEMEDOR "Lo que es digno de temerse" // "El que teme" > Temedero, temedor // Temiente, temedor.

4.1.1.9. Aldaketak

Hitz bakar bat azalgabe geratu zaigu; halaz ere, corpusean ia ezereza izan arren, badirudi ezin dugula hortik bet-betan erabaki *HH* osoan ere hala izango denik. Kontua da *DEGENERANTE* sarrera ez dela bere lekuan agertzen, eta bai ostera inolako zalantzarik gabe haren ordekoa den "(El que) degenera u ha degenerado" (cf., beharrezkoa balitz, *DAut*-en definizioa: "El que degenera"). Itxurazko kenketa bat baino ez da izan, beraz.¹⁹⁵

4.1.1.10. Labur bilduz

DAut-eko hitzak *HH*-an ez agertzeko aurreneko ataletan jorratu ditugun zioak hurrengo taulan bilduta daude, eraginaren arabera kokatuak. Kontuan har bedi hitz batzuek azalpen bat baino gehiago erdietsi dutela. Taulak (1) arrazoia, (2) eragindako hitzen kopurua eta (3) portzentaia jasotzen ditu hurrenez hurren:

ezohiko hitzak	64	%30,5
eratorriak	57	%27,1
zaharkituak	34	%16,2
partizipioak	25	%11,9
sarrera bakanduak	20	%9,5
hitz nagusiaren desagerketak eragindakoak	14	%6,7
-se aditzak	5	%2,4
véase-ak	5	%2,4
germaniakoak	3	%1,4
itxura aldaketak	1	%0,5

¹⁹⁵ Sarrerako beste maila batzuetan dauden Itxurazko kenketez eta gehiketez, ik. § 4.2.

4.1.2. Adierak

Hitzetan baino, adieretan igartzen da areago Larramendik *DAut*-ekin egin zuen murrizketaren handia. Gure corpusean, Larramendik aukeratu dituenetatik *DAut*-en adiera bat baino gehiago duten hitzak 216 dira, eta haietatik *HH*-an 36k (%16,7) bakarrik gorde dituzte denak.¹⁹⁶

Badirudi adiera guztiak gordetzeko joera zertxobait sendotzen dela, beti ere bere txikian, 2. liburukian; kontuak honela daude, orrialdeko adiera bat baino gehiago duten sarrerak denak gorde dituztenekin erkatuaz:

<l, 6>	1/7	%14,3	<ll, 21>	1/14	%7,1
<56>	2/9	%22,2	<71>	2/10	%20
<106>	0/9	%0	<121>	4/14	%28,6
<156>	1/8	%12,5	<171>	1/9	%11,1
<206>	4/18	%22,2	<221>	4/11	%36,4
<256>	1/19	%5,3	<271>	5/14	%35,7
<306>	2/10	%20	<321>	3/16	%18,8
<356>	2/18	%11,1	<371>	2/21	%9,5
<406>	1/9	%11,1	orotara	36/216	%16,7

Adiera edukia errazkienik gorde duten sarrerak, bi adieradunak izan dira (33 orotara, %91,7); handik gora, *cochinilla*-k 3 eta *mañero* eta *témpano*-k 4na adiera gorde dituzte, baina salbuespenak dira. *HH*-aren joerarik sendoena adiera kopurua batera jaistea da. *DAut*-en, oro har, bi adieradun sarrerak usukoenak direlarik, 2 > 1 jaisketa 88 bider (galdutakoen %40,7) gertatzen da; hona gainerakoak:

1erako jaisketa (+44, beraz, orotara %61): 3 > 1 (24 bider); 4 > 1 (15); 5 > 1 (2); 6 > 1 (2); 13 > 1 (1).
 2rakoa (orotara 33, %15,3): 3 > 2 (12); 4 > 2 (11); 5 > 2 (5); 6 > 2 (1); 7 > 2 (2); 8 > 2 (1); 13 > 2 (1).
 3rakoa (orotara 8, %3,7): 4 > 3 (2); 5 > 3 (2); 6 > 3 (2); 7 > 3 (1); 13 > 3 (1).
 goitikoak (orotara 7, %3,2): 5 > 4 (2); 9 > 4 (1); 10 > 5 (1); 16 > 5 (1); 10 > 7 (1); 12 > 8 (1).

Honek esan nahi du, laburbilduz, 216 adieradun sarreretatik 84k bakarrik (%38,9) mantendu dutela adiera bat baino gehiago; 160 sarreratan (%74,1) murrizketa %50 edo gehiagokoa izan dela; eta, orotara, *DAut*-eko 683 adieretatik *HH*-an 336 bakarrik (%49,2) gorde direla. Inausketa itzela, edonola ere.

Hautatutako adieraz den bezainbatean, murrizketa hobekien definitzen duen gertakaria, *DAut*-eko lehen adiera 209 aldiz gorde dela da: hau da, murrizketak zazpitan bakarrik (*embaimiento*, *estufilla*, *mañoso*, *ocaso*, *temblante*, *tempestad*, *vertedor*) adiera nagusiaren sunsipena erakarri du. Honek, lehen eta behin, euskaraz behin eta berriz ordain berbera izango luketen adierak nagusiari itsatsi dizkiola esan nahi du; batzuetan agerian, neurri bateraino bederen:

GUARNECER. Circundar o rodear alguna cosa...

Guarnecer, plazas, vestidos, *goarnitu*, *gordacaitu*...

¹⁹⁶ 36etatik bakar batean (*abonar*-en) adiera kopurua handitu egin da; 6 bider (*abono*, *cocer*, *cocido*, *guerra*, *mañoso* eta *templar*-en) sarrerak adiera zenbait galdu eta beste zenbait irabazi egin ditu, baina hemen kenketak bakarrik hartuko ditut kontuan; gehiketez, ik. § 4.4.1.

GUARNECER. Vale también adornar los vestidos...

GUARNECER. Se toma también por engastar alguna cosa en oro...

GUARNECER. Significa también presidir alguna Plaza...

GUARNECER. Metaphóricamente vale adornar una cosa con otra...

GUARNECER. En la Volatería vale poner lonja y cascabel al ave de rapiña.

baina bestetan *de facto*; jarriko dudan adibideko inausketa handienetakoa izan da (1/13) eta adiera gehienek —zenbat esatera ez naiz ausartzen— argi dago euskaraz itzulpen bat eta bera leukaketela edo, osterantzean, irakurleak hiztegiko esanahikide berezituagoetan (*adornar, guarnecer, dissimular, etab.*) errazkiago bila litzakeela:

VESTIR. Cubrir o adornar el cuerpo con el vestido.

Vestir, *janci, jaunci, beztitu.*

VESTIR. Por extensión se toma por adornar cualquier cosa...

VESTIR. Se usa también por guarnecer o cubrir alguna cosa...

VESTIR. Vale también dar a otro liberalmente, u de limosna, con que se vista.

VESTIR. Metaphóricamente vale adornar con conceptos y palabras...

VESTIR. Vale asimismo disfrazar u dissimular artificiosamente la realidad...

VESTIR. Significa también andar vestido...

VESTIR. Se dice por extensión de los brutos y plantas, respecto de las pieles u cortezas...

VESTIR. Significa también hacer los vestidos para otro...

VESTIR. Vale también instruir a alguno de noticias...

VESTIR. Vale asimismo afectar alguna pasión del ánimo, demostrándolo exteriormente (...): y así se dice: Fulano vistió el rostro de severidad...

VESTIR. En la Arquitectura es guarnecer u cubrir enteramente la fábrica de hyesso...

VESTIR. Usado como sustantivo, se toma por lo mismo que vestido.

Inoiz, ideia hori buruan zuela agerian utzi zigun Larramendik:

Ala, en todas las demás significaciones, *egalá.*

Caer, tiene otras significaciones, y en las más es *erori, jauci.*

A letran, gure corpusaren arabera, gerta daiteke adiera ez benetan desagertzea, beste batera egitea baizik, baina berezkotasuna nolabait gordeaz:

ASSEGURACION. Resguardo y seguro que se da (...). Lat. Fiducia, ae. Cautio, onis. Securitas, atis.

Asseguración, (...). Lat. Cautio, securitas. De una paga...

ASSEGURACION. Contrato que se hace entre dos o más personas de poner en alguna parte dinero...

ASSEGURAR. Dar firmeza a una cosa (...). Lat. Rem aliquam stabilem facere...

Assegurar, poner segura alguna cosa, (...). Lat. Stabilem facere. Una paga...

ASSEGURAR. En términos de comercio...

Sarrera mailan jadanik ikusi bezala (§ 4.1.1.8), adiera mailan ere inoiz edo behin itxuraz desagertutako adiera familiako esanahikide batera eramana izan da:

VERTEDERO. El sitio u parage adonde se vierte u por donde se vierte.
VERTEDOR. Lo que vierte. Aplícase regularmente en los puentes u otras fábricas a las figuras o canales por donde se da curso a la agua...

Vertedero, vertedor.

Bestalde, *DAut*-eko sarrera nagusien ezabaketa azaltzeko baliatu ditugun irizpideek hemen ere zerikusia izan dute; ikus ditzagun adibide batzuk:¹⁹⁷

Adiera zaharra edo zaharkitua:

ABONDO. Copiosa y abundante, con abundancia y largueza.
ABONDO. Término antiguo, que significa...
ALFANEQUE. Ave de rapiña, especie de halcón...
ALFANEQUE. Significa también la tienda o pabellón de campaña. Es voz antiquada.

Abondo, con abundancia...

Alfaneque, ave de rapiña...

Hedadura gutxikoa:

COCA. Droga o hierba...
COCA. Es también cierta hoja pequeña y verde que se cría en el Perú...
COCA...
COCA. En algunas partes, como es en Galicia y la Mancha, llaman así a la que comúnmente se llama Tarasca...
VERTER. Derramar u vaciar alguna cosa, arrojándola.
VERTER. Significa en Madrid...

Coca, yerba...

Coca, una hoja...

Verter, *isuri*.

Germaniakoa:

MARAÑA. La abundancia de malezas..
MARAÑA. Por translación significa el enredo y confusión que suele haber en las madexas de seda, hilo, lana...
MARAÑA. Metaphóricamente significa el enredo, confusión...
MARAÑA...
MARAÑA...
MARAÑA. En la Germania significa la muger pública.
SANGRIA. Incisión de la vena...
SANGRIA...
SANGRIA...
SANGRIA...
SANGRIA...
SANGRIA. Se toma también por lo mismo que sangradura.
SANGRIA. En la Germania significa la

Maraña, abundancia de maleza...

Maraña en la seda, hilo, lana...

Maraña, véase enredo...

Sangría, incisión de la vena...

Sangría, lo mismo que *sangradera* [sic]...

¹⁹⁷ Hurrengo adibideetan bestelako arrazoiez desagertzen diren adierak aipatu baino ez ditut egiten.

rasgadura...

Gutxi erabilia:

COBERTOR. Cierta género de manta... Cobertor, *oestalquia*...

COBERTOR. Vale también lo mismo que
Cubierta o tapa. Tiene poco uso en
este significado... _____

ESTUFAR. Caldear, calentar... Estufar, *berotu*...

ESTUFAR. Se toma también por Estofar y
guisar la carne; pero en este sentido no
tiene uso... _____

Lexiko berezitukoa:

OBTUSO. Lo que está sin punta. Obtuso, sin punta...

OBTUSO. En la Geometría. _____

VESPERTINO. Lo que pertenece a la tarde... Vespertino, *arratsaldeco, arrasteguicoa*...

VESPERTINO. Se llama en la Astronomía... _____

Irizpide berri eta oso indartsu bat sartzen da, ordea: lehenago (§ 3.4.7) "garapen semantikoa" deitua. Paper handia dauka honek adiera ugalketan, jakina denez, eta neurri beretsuan *DAut-etik HH-ra* galdu diren adieren desagerpenean. Begiak goiko *vestir*-a bihurtzen baditugu, hango hiru adiera azalpen honek zuritzen dituela ikusiko dugu; zeren eta han esandakoarekin (hots, Larramendik adiera nagusiaren aldeko apostua egin zuela) erabat lotuta baitago. Erants ditzagun era ezberdinetako adibide zenbait:

COCEAR. Dar golpes con los pies... Cocear, *osticatu*...

COCEAR. Meafóricamente vale resistir... _____

DEGRADAR. Privar, deponer a alguna persona... Degradar, *eiderperatu, ohorejausi*...

DEGRADAR. Por Antonomasia se entiende del Clérigo a quien privan... _____

DEGUELLO. La acción de degollar... Degüello, véase *degollación*.

DEGUELLO. Por extensión se suele llamar así la parte estrecha de alguna cosa... _____

ESTUDIO. Aplicación a saber y entender... Estudio, *articasdea, estudioa*...

ESTUDIO... _____

ESTUDIOS. Figuradamente se suelen llamar las mismas obras, escritos y tratados... _____

ESTUDIO... _____

ESTUDIO... _____

ESTUDIO... _____

INTRATABLE. Lo que no se puede tratar o manejar... Intratable, *uquitezgarria*...

INTRATABLE... _____

INTRATABLE. Por analogía se dice de los caminos... _____

MAQUILAR. Medir, cobrar y sacar para sí el molinero... Maquilar, *lacatu*...

MAQUILAR. Por semejanza significa cercenar y desfalcicar alguna cosa de la porción principal... _____

SANGRE. Humor roxo... Sangre, *odola*...

SANGRE...	_____
SANGRE. Se toma también por qualquiera cosa útil que haya costado trabajo (...): tomada por Metonymia, la causa por el efecto...	_____
SANGRE...	_____
VERRIONDEZ. El zelo de los puercos...	Verriondez, zelo de los puercos...
VERRIONDEZ. Por translación se dice de las hierbas que están lacias...	_____

Hau dela eta, ezin adierazgarriagoa da —erdaraz "aviso para navegantes" deitu ohi diren horietakoa, inondik ere— honetaz Larramendik hitzaurrean egin zuen iruzkina:

...si los Bascongados se toman, como pueden, la licencia de usar la analogía y metáfora, será el Bascuence incomparablemente Lengua más fecunda que las otras: las quales, con especialidad el Romance, si cercenan essas locuciones figuradas, perderán más de la mitad de lo que llaman afluencia (Larramendi 1745: xii).

Bazekien zertaz hitz egiten ari zen, noski.

4.1.3. Esapideak

Mailaz maila jaitsi ahala murrizketa areagotzen da. Larramendik aukeratutako sarreretatik *DAut*-en esapideren bat daramatenak 83 (%12,8) dira, eta haietatik 24k (%28,9) bakarrik gorde dute zerbait. Zenbaki hori, nolana hiko ere ez izaki, errealitate gordinagoa estaltzen ari da. Gertatu denaz ongi jabetu nahi badugu, alde esanguratsu bi azpimarratu behar ditugu adierak eta esapideen artean: Batetik, hitza galdu ezean, adiera bat bederen gorde behar da, jakina; esapideetan, berriz, 59 sarreratan (%71,1) ez da bat ere geratu. Bestetik, adieretan corpusean aurkitu dugun kopururik altuena 16koa izan den bitartean, esapideetan askorekin gainditzen da, 76ra (ez behin, bitan baizik: *cabeza* eta *pié-n*) iritsiaz;¹⁹⁸ beraz, orotara zenbat esapide dauden jakingarriagoa da, zenbat esapidedun sarrera dauden baino: *DAut*-eko 423 esapideetatik 69k (%16,3) bakarrik iraun dute *HH*-an.

Desagerketaren arrazoiak ez bide dira bereziak, aurreko ataletan bezala. Antzeman dezakedan arrazoi objektibo bakarra, haietako zenbait *DAut*-en bidalketa-deiak izatea da; cf., adibidez:

MAÑANA SERA OTRO DIA. Véase Día.
 TEMPLAR GAITAS. Véase Gaita.
 Al *temple*. Véase Pintura.
 VESTIDO Y CALZADO. Véase Calzar.

Baina honek oso eragin txikia du laginean (%1,7). Gainerantzean, susmoa dut oro har gaztelaniazko esapideei axola gutxi ziela Larramendik, eta badirudi esapideek bestalde jasaten dituzten eransketek (ik. § 4.4.3) sendotuko luketela nire susmoa. "Esapideak" izenarekin

¹⁹⁸ Corpusa zertxobait handitu behar izan dut atal honetan, aukeratutako orrialdean esapide batzuk bakarrik —hasierakoak zein bukaerakoak— aurkeztu zituzten hitzetan esapide guztiak arakatzeko. Hau ezinbestekoa izan da, ez bakarrik esapide talde luze-luze horietan zer gertatzen zen jakin ahal izateko, baina baita halako erraztasun batez bi hiztegi-taldeen esapide taldeak erkatu ahal izateko, *HH*-an egon litekeen desordena gogoratuaz (§ 3.1).

bataiatu dudan taldea, sarreraren gainerako osagaien aldean, saski-naski bat da *DAut*-en,¹⁹⁹ honako talde hauek gutxienez barneratuaz:²⁰⁰ esapide adierazleak (“Noche toledana”, “PIE DE ALTAR”, “Tomar *pie*”, etab.), loturazko esapideak (“AHORA BIEN” zein “Al *pie* [de]” motakoak), kolokazioak (“CABEZA DE BANDO, DE PARTIDO, TUMULTO Y OTRAS COSAS”, “PIE GEOMÉTRICO”), hitz elkartu zenbait (“AGUAMANOS”, “AGUANIEVE” vs “AGUAMANIL”) eta esaerak (“Estar con un *pie* en la sepultura”).

Argi dago aipatutako guztiak ez daudela egoera berean, ez hizkuntzan bertan, ez eta, hainbat gutxiago, hiztegi elebidun bati begira. Kolokazioak, esate baterako, esapideen aldean finkotasunik gabekoak eta esanahi gardenekoak direnez gero (Hausmann 1989: 1010), haietako hainbat eta hainbat hiztegiak bestela aska zitzakeen, osagaiak zein bere lekuan eskainiaz, alegia. Esapideak, eta batez ere esaerak, hizkuntza batenak bai eta nekez beste batenak izan ohi dira (Casares 1992: 196). Badirudi Larramendik ulertu zuela ez zutela nahitaez euskal ordain berezirik behar. Honetan bederen “pié forzado” hain aipatuak eragin gutxi izan zuela uste dut: hiztegiak, nonbait, euskaraz baliagarri izan zitezkeenak bakarrik jaso zituela nago, eta erdaraz ez zeudenak (ikusiko dugun bezala) erantsi.

Nolanahi ere den, esapide batzuk batu egin ditu:

De <i>piés</i> . Modo adv. que vale lo mismo que en pié. En <i>pié</i> . Boca <i>rasgada</i> . Ojos <i>rasgados</i> .	En pié, de piés. Ojos rasgados, boca rasgada, &c.
--	--

Edo beste sarrera batera eraman:

A las mil <i>maravillas</i> .	Maravillosamente, (...). Lo mismo es a las <i>mil maravillas</i> .
-------------------------------	--

4.1.4. Atsotitzak

Erabatekoa da atsotitzek jasaten duten inausketa: 28 atsotiztun sarrera kontatu ditut *DAut*-en, orotara 65 atsotitz, eta 3 sarrera errefrau banarekin *HH*-an (ik. *alevoso*, *cobertera* eta *cobrar*). Arrazoiak, hemen ere, objektibaezinezkoak direla deritzat. Larramendik jasotako errefrauen nolakoa ezagututa (§ 3.6), badirudi aukerak (euskal kidea ezagutzea) eta gogoak (atsotitz itzulien kasuan) baino ezerk ez duela paper erabakigarririk jokatu gertakari honetan. Zalantzarik gabe, esapideez esandakoarekin lotu beharrean gaude.

¹⁹⁹ Ziurrenik garaiko beste edozein hiztegi handitan bezala. Ez da berez Akademiaren akatsa: jakina, artean hainbat hobekuntza egin dira, bai lexikologian baita lexikografian ere, esapide eta bereziki kolokazioen atalean, baina, halaz ere, batzen dituen gauzen arteko mugak gaur ere hein handian zehaztugabe, eztabaidapean kasurik onenetan, daude (cf. Haensch *et alii* 1982: 249 t. hur.); gainera, nabarmena denez, sintagma osatzen duten hitzen arteko lotura —behin-behinekotik egonkorrera— historikoki aldakorra da (Casares 1992: 93-94).

²⁰⁰ Haren edukia deskribatzeko, Akademiaren hiztegiak gutxi adina ezagutzen dituen Casaresen lanaz (1992: 95-187) baliatu naiz, beti oso ortodoxoa ez den arren, oso argia delakoan. Ahaleginean, ortodoxoago bilakatu dut, Haensch *et alii*, 1982 eta Hausmann 1989ekin.

4.2. Izaera aldaketak

Sarrera, adiera eta esapideei eskainitako ataletan jasotako zenbaki huts eta hotzek bestela aditzera ematen badute ere, *DAut*-eko edukiak *HH*-an diren ala ez, eta non zehaztea ez da beti erraza suertatzen: sarrera buruak grafikoki bakunagoak izateaz eta alfabetikoki desordenatuagoak egoteaz gain, bidalketa deiek (§ 4.3) eta definizioek —eta azken hauen artean zehaztapenek (ik. § 5.1.3) batez ere—, sarritan ereduko sarrera oso ezberdin bilakatu dute, erkaketa zailduaz.

Halakoak geroko utziaz, hemen oso gertakari berezi batez mintzatzera mugatuko naiz: izaera aldatu dutenez, hots, *DAut*-en adiera izatetik *HH*-an esapidea izatera, edo alderantziz, igaro direnez. *DAut*-en aldean *HH* bereizketa grafikorik gabeko hiztegia izanik, izaeraren aldakuntza ez da sarreraren itxuran antzematen, baina bai sarreraren edukian eta, jakina, honek eragina izango du, hala informazioa aurkezteko eran, nola euskarazko eta latinezko ordainetan; zehazkiago, badirudi sarritan hiztegiileari *DAut*-en aurkezpena desegokia iruditu zitzaioela euskal ordainak ahalik eta argiena emateko, hots, euskarak zerikusi zuzena izan duela bere hautapenean. Adibideak corpusean ez dira oso ugari, baina bai, nik uste, adierazgarriak:

a) Esapide bihurtu diren adierak:

ASSI. Adv. de tiempo y su inmediación: como cuando se dice Assí que llegó la noticia, assí que amaneció...	Assí que, denotando tiempo, se hace con la terminación verbal correspondiente al <i>desde que</i> , que es <i>anean</i> , y el adverbio <i>bereala</i> , <i>bertatic</i> .
INTIMO. Significa también amigo estrecho...	Intimo amigo, <i>onetsia</i> , <i>adis-quide biotzeco</i> .
RASERO. Metaphóricamente significa igualdad rigurosa...	A todos por un rasero, <i>guciac erabatera</i> , <i>guciac arrasquin batez</i> .
SALVO. Usado como adverbio, equivale a con exclusión o excepción de alguna cosa...	Salvo uno, todos los demás, <i>bat ez beste guciac</i> , ²⁰¹ <i>salbu bat</i> , <i>berce guztiac</i> , <i>ezpada bat</i> , <i>beste guciac</i> .
TEMPLE. Metaphóricamente vale la calidad u estado del genio (...); y assí se dice, estar de buen o mal temple.	Está de buen temple, <i>onguiroa dago</i> , <i>gozaldiaz dago</i> . Está de mal temple, <i>gaizguiroa dago</i> , <i>gozacaitza</i> , <i>goza-guea dago</i> .

b) Adiera bihurtu diren esapideak:

Hombre abonado.	Abonado, en hacienda, <i>aberatsá</i> , <i>dirutia</i> , <i>onic asco duena</i> .
Dar <i>cabezadas</i> .	Cabezadas, de el que duerme, <i>culuscac</i> , <i>loculuscac</i> .
Juego de la Oca.	Oca, juego de la oca, <i>oca</i> .

²⁰¹ Jat. *guciaz*.

4.3. Bidalketa-deiak

Bidalketa-deiek bi erako lanak bete ditzakete: sarrera osatzea, informazio gehiago aurki daitekeen beste batera bidaliaz, edo sarrera bere gutxieneko neurrian uztea; bigarrenean, sarrera bera edukiz hustuta bidalketa-dei bihurtzen da, jakina. *DAut*-en lehenengo erakoak dira agertzen diren ia guztiak; adibidez:

ALFAJOR. Lo mismo que Alajú. Véase. ALFAR. fol.42. No lo hace el adobo, sino que este gentilhomme se ha criado con rosquillas de *alfajor*.

Bigarren modua, gutxi-gutxitan baino ez du baliatzen: gure corpusean 12 sarrera baizik ez daude era honetara antolatuta. Haietatik 10 aldaera hobetsien kontu emateko dira:

ALFONSI. Véase Alphonsí.
ALFONSINA. Véase Aphonsina.
COCEDRA. Véase Colcedra.
COCEDRON. Véase colcedrón.
PICTIMA. Véase Epithyma.

SAMUGA. Lo mismo que Xamuga.
VEROSIMIL. Véase Verisimil.
VEROSIMILITUD. Véase Verisimilitud.
VERROCAL. Véase Berrocal.
VERRUECO. Véase Berrueco.

Batean bakarrik badirudi esanahikide batera bidaltzekoa dela: "GUAY. Véase Ay". Eta, azkenik, beste baten xedea hitza lagundu ohi duten hitz bakanen sarreretara bidaltzea da: "OBSIDIONAL. Véase Línea y Corona", egiatan hauen azpiko LÍNEAS OBSIDIONALES eta CORONA OBSIDIONAL espideetara daramana.

HH-an proportzioak guztiz alderantzizkoak dira. Aztertu dudanean corpuseko 891 sarreretatik 151k daramate bidalketa-deia, eta haietatik 133 (%88,1) dei hutsak dira. Hurrengo ataletan, Larramendik hainbeste erabilitako prozedura honek nolako motak dituen (§ 4.3.1), zeintzuk diren bere betebeharrak (§ 4.3.2), nolako hitzak eragiten dituen (§ 4.3.3) eta deien eraginkortasuna (§ 4.3.4) azaltzen saiatuko naiz.

4.3.1. Dei motak

4.3.1.1. Sarrera normal batean

Aurreratu bezala, hauek dira usukoenak *DAut*-en; *HH*-an, berriz, zortzi (%5,3) baino ez, eta erdiak 6. orrialdean daude. Ohartzekoa da adierazpidea normalduta dagoela ("véase" denetan) baina deiak ez daukala leku zehatzik sarreran: buruan, erdian zein bukaeran joan daiteke, bukaera alderako joera handixeagoa badu ere. Ikus ditzagun adibide guztiak:

- <6> Abonar, salir por fiador. Véase *fiador*, *afianzar*. Ha dicho cosas bellas en su abono, *gauza ederrac esan ditu bere ontzatean*. Qué podrás hablar en abono de un ladrón? *Cer hitzeguin dezaquezu, cer erausi daguiquezu lapur baten ontzatean?*
Abono assí, en particular de fiemo, de estiércol, &c. *Cimaurrá, iñaurquina, basará*. Lat. Fimus, is; stercus, oris. Véase *estiércol*.
Abonar assí, *cimaurtú, iñaurquindu, basaratú*. Véase *estercolar*, y allí se dirá la diferencia de abonos y sus nombres.
Abordo, *ertzatzea, ertzaera*. Lat. Appulsus, commissio. Abordo, véase *bordo*, ir a bordo, *ontzian egotea, ontzira joatea*. Lat. In navi esse, ad navem accedere.
- <106> Asseguración, *segurutzea, segurundea, bermea, bermegoa*. Lat. Cautio, securitas. De una paga, *ditá*. Véase *saneamiento*.
- <206> Cocido assí, *verdoldua*. Lat. Semi coctus, véase *sancochar*.
- <71> Maraña, véase enredo, *naspilla, catrambilla*. Lat. Fraus, dolus.
- <171> Piedad, *biotzuquia, biotzuquiera, biozbera*, véase *lástima, compasión*.

Sarrera normalaren eta dei hutsaren artean geratu diren adibide batzuk ere baditugu, dela latina dela euskal ordaina, baina bietako bat bakarrik, erantsi duelako:

Degolladura, véase *degollación*. Lat. *Vulnus jugulo inflictum*.

Embaidor, *bairatzallea*, véase *engañador*.

Embaimiento, *baira*, véase *engaño*.

4.3.1.2. Etimologia batean

Orotara 5 adibide (%3,3) ditugu; haietatik hiruk, beste dei normalen antzera, etimologia daraman aldaeratik euskal ordainak daramatzanera bidaltzen dute ("Assensios", "Guay", "Veta"). Beste biek, berriz, zeregin berezia daukate: bigarren mailako etimologiatik etimologia nagusira bidaltzea. Hemen ere adierazpidea "véase" da eta bukaera aldera agertzen, baina erreparatu lehenetik beste hiruretara dagoen joskera ezberdintasunari:

Abordar, viene de *borde* u *bordo*; y este nace de el Bascuence, véase.

Assensios, es palabra Bascongada que significa axenjos. Véase *axenjo*.

Asserrar, *cerratu*, *cerraztu*. Tiene origen Bascongado. Véase *sierra*. Lat. *Serra secare*.

Guay, interjección, lo mismo que *ay*, se tomó de el Bascuence, y significa ay de nosotros, de *gu* o *gueu*, nosotros, véase *ay*.

Veta, lo mismo que vena, véase. Esta voz *beta* en el mismo sentido es muy usada en Bascuence...

4.3.1.3. Gramatikazko oharra

Birritan (%1,3), deia beste nonbait azaltzen diren gramatikazko azalpenetara —batean adizki trinkoak, bestean denborazko menperagailuak— bidaltzeko da; oso sarrera bereziak dira:

Véanse en el verbo *parecer* los irregulares de el *irudin*, que sirven comúnmente (s.v. *asemejarse*).

Assí que, denotando tiempo, se haze con la terminación verbal correspondiente al *desde que*, véase; y también *quando*, que es *anean*, y el adverbio *bereala*, *bertatic*.

4.3.1.4. Bidalketa-dei hutsak

Hauek dira gehien-gehien agertzen direnak, orotara 111 (%73,5). Asko direnez gero, sarreraren normalkuntzan urrats gutxitxo emana den hiztegi batean espero zitekeen bezala, 12 adierazpide ezberdin aurkitzen ditugu. Hona hemen, bakoitzeko adibide batzuk eta agerraldien kopuruak orotara eta orrialdeko zehaztuta:

1. Orotara 38 (%34,2). Orrialdeko: 2 (I, 6)- 6 (56)- 0 (106)- 3 (156)- 2 (206)- 0 (256)- 0 (306)- 1 (356)- 1 (406)- 2 (II, 21)- 1 (71)- 6 (121)- 0 (171)- 3 (221)- 5 (271)- 3 (321)- 3 (371).

Abonanza, lo mismo que bonanza. Véase.

Cabezalero, lo mismo que *albacea*, véase.

Estuque, lo mismo que *estuco*, véase.

Maraguto, lo mismo que *foque*, véase.

Sandix, lo mismo que *albayalde*, véase.

Versión, lo mismo que *traducción*, véase.

2. Orotara 35 (%31,5). Orrialdeko: 0 (I, 6)- 1 (56)- 1 (106)- 4 (156)- 3 (206)- 3 (256)- 3 (306)- 5 (356)- 0 (406)- 2 (II, 21)- 1 (71)- 2 (121)- 1 (171)- 1 (221)- 3 (271)- 3 (321)- 2 (371).

Alfóndiga, véase *alhóndiga*.
Cabo de esquadra, véase *esquadra* y *oficial*.
Cochino, sucio, véase *puerco*.

Evanecer, véase *desaparecer*.
Piedra cenizal, véase *sel*.
Temoso, véase *temático*.

3. Orotara 19 (%17,1). Orrialdeko: 0 (I, 6)- 0 (56)- 0 (106)- 0 (156)- 1 (206)- 1 (256)- 3 (306)- 7 (356)- 0 (406)- 1 (II, 21)- 1 (71)- 2 (121)- 2 (171)- 1 (221)- 0 (271)- 0 (321)- 0 (371).

Cobrase, *recobrase*, véase.
Evacuación, *diarrea*, *camaras*, véanse.
Intimo, *interior*, véase.
Mañanear,²⁰² *madrugar*, véase.

(Poner) pies en polvorosa, *escapar*, *huir*, véase.
Rasgo, *garbo*, véase.

4. Orotara 6 (%5,4). Orrialdeko: 1 (I, 206)- 1 (II, 221)- 1 (321)- 3 (371).

Cocedra, cocedron, véase *colcedra*.
Rasguñar, rascuño, véase *rasguñar*.

Temperancia, temperanza, véase *templanza*.
Vermicular, verminoso, véase *gusaniento*.

5. Orotara 4 (%3,6). Orrialdeko: 1 (I, 6)- 1 (II, 21)- 1 (121)- 1 (371).

Abondamiento, abondar. Véase *abundamiento*, *abundar*.
Interrogación, interrogar, véase *pregunta*, *preguntar*.

Obtención, obtener, véase *consecución*, *conseguir*.
Verrocal, verrueco, véase *berrocal*, *berrueco*.

6. Orotara 2 (%1,8). Orrialdeko: 2 (I, 256).

Defensivo, por *defensa*, véase.
Definición, por *decreto*, véase.

7. Orotara 2 (%1,8). Orrialdeko: 1 (I, 406)- 1 (II, 271).

Guarnir, antiquado, *guarnecer*, véase.
Salvedad, antiquado, *impunidad*, véase.

8. Orotara 1 (%0,9). Orrialdeko: 1 (I, 56).

Aleve, en lo antiguo significaba *alevosía*, véase.

9. Orotara 1 (%0,9). Orrialdeko: 1 (I, 56).

Alfarda, oy *farda*, véase.

10. Orotara 1 (%0,9). Orrialdeko: 1 (I, 56).

Alfayate, voz antiquada, lo mismo que *sastre*, véase.

11. Orotara 1 (%0,9). Orrialdeko: 1 (I, 106).

Assentar, por tomar o dar asiento. Véase *sentar*.

12. Orotara 1 (%0,9). Orrialdeko: 1 (II, 171).

(Poner) pies en pared, es *insistir*, véase.

1. eta 2. adierazpideak dira, alde handiaz, gehien erabiliak gure corpusean: beste guztiek batera hartuta hauen erdia inguru baino ez dute egiten. Haatik, paretsuan badabiltza ere, ohartu 2.ak oro har banaketa erregularragoa daukala hiztegi guztian zehar. Badago

²⁰² Jat. *mañanear*.

gutxienez beste xehetasun bat, hiztegi osoan 2.aren alde mintzo dena, batetik, eta bestetik 3.aren indarra gutxiestetik urrundu behar gaituena, alegia, 4.etik aurrerako adierazpide guztiak gehien erabiltzen diren hiru horien aldaerak baino ez direla, ondoko eskeman ikus daitekeen bezala (parentesi artean denak batuta egiten duten deien kopurua azaltzen da):

- 1-10 (=39).
- 2-4-5 (=45).
- 3-6-7-8-9-11-12 (=27).

Azkenik, erreparatu 10.ak 1.ari eta 7, 8 eta 9.ak 3.ari eransten dioten informazioa diakronikoa dela ("antiquado", etab.); berriz, 6, 11 eta 12.ak 3.ari adierazpidea luzatu baino egiten ez duten (eta, beraz, ekonomiaren kontra doazen) hitzak ("por", "es") gehitzen dizkiote. Bigarrenaren aldaerek, aldiz, informazioa trinkoagotzera jotzen dute bi hitz bakar batera (4) eta bi hitz zein bere kidera (5) bidaliaz.

Esanguratsuki, bestalde, agerraldi bakarra baino ez daukaten sei adierazpideetatik bost (8, 9, 10, 11 eta 12) lehenengo liburukian batzen dira, C letratik atzera.

4.3.1.5. Agindurik gabeko deiak

Bidalketa-deien antzera eratuak, baina "véase" falta dutela, sarrera kopuru ez txiki bat (22 orotara, %14,6) aurkitzen dugu corpusean. Badakigu, bestalde, *DAut*-en ere ez direla ezezagunak, itxura guztien arabera gutxiengoan badaude ere: gorago aipatu 12 bidalketa-dei hutsetatik bat hauxe da: "SAMUGA. Lo mismo que Xamuga". Besteak ez bezala, honek ere "véase" falta du. Gogoratzea baino ez dugu adierazpidearen aldetik normaldu eta bakunduago dauden hiztegi modernoetan laburdura batek ("ik."), zeinu batek (*) edo letra-tipo batek (beltza, demagun) bete ohi duela "véase"-aren lekua, beti ere ekonomiaren mesedetan. Beraz, azken finean honelakoak bidalketa-deitzat har ditzakegula dirudi. Ikus ditzagun orain, adierazpideka, gure corpusak eskaintzen dizkigun adibideak:

- 1. Orotara 10 (%45,5). Orrialdeko: 1 (6)- 1 (206)- 1 (21)- 1 (71)- 1 (171)- 4 (321)- 1 (371).

Abonar el tiempo, lo mismo que <i>abonanzar</i> .	Temblante, lo mismo que <i>tembleque</i> .
Cocho, cocha, lo mismo que <i>cocido, da</i> .	Tembloso, lo mismo que <i>temblón</i> .
Interromper, lo mismo que <i>interrumpir</i> .	Temperatura, lo mismo que <i>temperamento</i> .
Marañado, lo mismo que <i>enmarañado</i> .	Templanza, lo mismo que <i>temple de aire, &</i> .
Picudo, lo mismo que <i>picotero, hablador</i> .	Veste, lo mismo que <i>vestido</i> .

Kopuruan sartu beharko genuke honako hau ere: "Interposita persona, *hitzarteduna, hitzartecoa*, lo mismo que *interlocutor*".

- 2. Orotara 5 (%22,7). Orrialdeko: 3 (356) - 1 (406)- 1 (321).

Et, antiquado, <i>y</i> , conjunción.	Guarnimiento, antiquado, <i>adorno</i> .
Evad, antiquado, <i>mirad</i> .	Templamiento, antiquado, <i>templanza</i> .
Evenir, antiquado, <i>suced</i> .	

- 3. Orotara 2 (%9,1). Orrialdeko: 1 (171)- 1 (371).

Piértega, antiquado, lo mismo que <i>pértiga</i> .
Vesquir, antiquado, lo mismo que <i>vivir</i> .

4. Orotara 1 (%4,5). Orrialdeko: 1 (306).

(No) embargante, es lo mismo que *sin embargo*.

5. Orotara 1 (%4,5). Orrialdeko: 1 (71).

Mañero, en lo antiguo era *substituto* para pagar por otro.

6. Orotara 1 (%4,5). Orrialdeko: 1 (371).

Vestidura, lo mismo. Lat. *Indumentum*.

7. Orotara 1 (%4,5). Orrialdeko: 1 (171).

Pieza, lo mismo que *porción*, antiquado.

Ohar hauen adierazpideak bat datoz —erabat batzuetan, ia-ia bestetan— bidalketa-deienekin, "véase" kenduta. Egokitasunak honako hauek dira:

1 = 1 // 2 = 7 // 3 = 10 // 4 = 1 // 5 = 8 // 6 = 1 // 7 = 10

Bidalketa-deien 1. adierazpideari bete-betean dagokiona hemen lehena da; 4.ak "es" aditza eransten dio; 6.a, berriz, ekonomiaren aldeko saiorik indartsuena da: izan ere, sarreren hurrenkera honako hau da:

Veste, lo mismo que *vestido*.

Vestido, *soñecoa, jazcaya, jaunzcaya, aldagarria, filda, abillamendua*. Lat. *Vestis, vestitus*.

Vestidura, lo mismo.

Talde honetako sarrerak beste zerbaitean datoz bat: batean izan ezik ("marañado"), hurbil-hurbil (orrialde berean kasu gehienetan) dauden, inoiz familia berekoak diren hitzei buruzkoak dira denak. Sarrera hauetatik gehienak (11 orotara), beraz, inguruneko hitz bati buruzkoak dira, eta emango luke honelakoetan "véase" alfertzat jo zuela Larramendik. Alabaina, ohartu behar da dei normalak diren sarreretan ere badirela —eta aski sarri— honelako gertakariak (cf., eman adibideen artean, "temoso", "íntimo", "rascuñar" edo "temperancia", nabarmen batzuk baino ez aipatzearren).

Bigarren taldea (8 hitzekoa) ñabarragoa da adierazpidearen aldetik: 3.a ia-ia 10. adierazpide bera da, baina, hemengo guztiak II. liburukikoak izaki, "voz antiquada" "antiquado" laburragoaz ordezkaturata dago; 7.ak osagaien ordena aldatuta beste ezberdintasunik ez du. 5.a, berriz, 8. adierazpidearen kidea da, hemen "era" eta han "significaba" aditzarekin (berriro ere II. liburukian laburragoa I.an baino). Hauen ezaugarria, informazio diakronikoa eskaintzea da. Bidalketa-deietan honelako 5 baino aurkitu ez dugunez gero, gure corpusaren arabera badirudi, beraz, era honetako informazioa maizago "véase" deirik gabe eskaintzen dela *HH*-an.

4.3.2. Bidalketa-deien betebeharrak

4.3.2.1. Esanahikideak lotzea

Aztertutako corpusean agertzen diren edozein motatako 151 bidalketa deietatik 132k (%87,4) esanahikide batera bidaltzen dute irakurlea. Nabarmena da, beraz, esanahikidetasunak

paper nagusi bat jokatu duela Larramendik *DAut*-etik ahalik eta informazio gehiena ahalik eta leku laburrenean emateko egin duen saioan: sarrerako atera zaigun 2 lerroko bataz bestekoan (§ 1.1), zalantzarik gabe, zerikusi handia dute gehienetan lerro bakar batean geratzen diren bidalketa-dei hauek.

4.3.2.2. Hurbileko hitzak bakuntzea

Familia beraren barruan esanahi bereko hitzak egonez gero, hiztegitik oso tarte laburrean euskal ordain berberak errepikatu beharko lituzke. Ekonomiaren kontrako gertakari hauek saihesteko, hain zuzen, sarritan (34 bider, %22,5) deiez baliatzen da (zeinuak deiak nondik nora bidaltzen duen adierazten du):

Aleve > Alevosía. Alevoso > Aleve. Cabezal > Cabecera. Cabezuela > Cabecilla. Cabimiento > Cabida. Cocedura > Cocción. Cocho > Cocido. Defensible > Defendedor. Defensivo > Defensa. Degolladura > Degollación. Degüello > Degollación. (No) embargante > (Sin) embargo. Guarnir > Guarnecer. Internamente > Interiormente. Interno > Interior. Picudo > Picotero. Rasco > Rascadura. Rasgadura > Rasgón. Salvatiquez > Salvagería. Sanado > Sano. Temblante > Tembleque. Temboso > Temblón. Temedero > Temedor. Temoso > Temático. Temperancia > Templanza. Temperar > Templar. Temperatura > Temperamento. Templamiento > Templanza. Temple del aire. Temple > Templarios. Verticidad > Vertibilidad. Veste > Vestido. Vestidura > Vestido. Vestimenta > Vestido.

Hertsiki familia berekoak ez izan arren, antzera jokatu du oso hurbil dauden ondoko hauekin ere:

Abonar el tiempo > Abonanzar. Embargar > Embarazar. Intestino > Interior. Intimo > Interior. Obyecto > Objeción. Ocha > Octava. Ochava > Octava.

Orotara, beraz, gutxienez 41 dei (%27,2) zio honegatik azal daitezke.

Ohartzekoa da, amaitzeko, familia barruko deien xedea beti sarrera bera izan ohi dela: *degollación (degolladura eta degüello)*, *interior (interno, intestino eta íntimo)*, *octava (ocha eta ochava)*, *templanza (temperancia eta templamiento)*, *vestido (veste, vestidura eta vestimenta)*.

4.3.2.3. Aldaerak lotzea

Corpusean 12 sarreratan (%7,9) elkarrekin lotzen diren sarrera-buruak ez dira esanahikideak zehazki, hitz beraren aldaerak baino: normalean, *DAut*-ek zaharkituztat ematen duenetik erabiltzen ari denera bidaltzen du *HH*-ko deiak, ereduaren iradokizunak onartuz:

ABONDAMIENTO. (...) Es voz antiquada, y modernamente se dice abundamiento.	Abondamiento, abundar. Véase <i>abundamiento, abundar.</i>
ABONDAR. (...) Es voz antigua y de poco uso, porque comúnmente se dice abundar.	
ALFONDEGA O ALFONDIGA. Lo mismo que Alhóndiga. Es voz antiquada.	Alfondiga, véase <i>alhóndiga.</i>
ASSENSIOS. (...). Lo mismo que Axenjos. Véase. Es voz baxa y vulgar...	Assensios, (...). Véase <i>axenjo.</i>
COCEDRA. Véase Colcedra.	Cocedra, cocedrón, véase <i>colcedra.</i>
COCEDRON. Véase Colcedrón.	
ESTUQUE. Lo mismo que Estuco.	Estuque, lo mismo que <i>estuco</i> , véase.
INTERROMPER. Lo mismo que Interrumpir. Tiene poco uso.	Interrumper, lo mismo que <i>interrumpir.</i>

PIERTEGA. Lo mismo que Pértiga. Es voz antiquada.
 RASCUÑAR. Lo mismo que Rasguñar.
 RASCUÑO. Lo mismo que Rasguño, que es como oy se dice.
 SAMUGA. Lo mismo que Xamuga.
 TEMPANO. Lo mismo que Tympano.
 VEROSIMIL. Véase Verisimil.

Piértega, antiquado, lo mismo que *pertiga*.
 Rascuñar, rascuño, véase *rasguñar*.
 Samuga, lo mismo que *xamuga*, véase.
 Témpano, lo mismo que *tímpano*, véase.
 Verosimil, véase *verisimil*.

Orobat, aldaera ortografikoez deia eragin dezakete, noiz *DAut*-i jarraiki, noiz bere irizpide edo zalantzei:

—————
 VERROCAL. Véase Berrocal.
 VERRUECO. Véase Berrueco.

Etica, enfermedad, véase *hética*.
 Verrocal, verrueco, véase *berrocal*, *berrueco*.

Gure corpusean ez dago behar bezala ordezkatur, oro har gune "beroak" harrapatzen ez dituelako, baina orokorrean honelako deiek ere pisu handia daukate Larramendiren hiztegian. Besteak beste, sarrera erantsiei buruzko atalean (§ 4.4.1) erakusten saiatuko naiz ortografiatzko aldaerak eta deiak asko ugaltu zituela Larramendik *DAut*-en aldean (cf. *ética* gure adibidean).

4.3.2.4. Bestelako xedeak

Beste xede bat sarrera-buruaren aldaketaren berri ematea da; hau birritan aurkitu dut, eta bietan preposizioa aurrean itsatsita daramaten hitzak —eta haien esapideak, etab.— beste leku batean agertuko direla iragartzeko eginak dira:

ABORDO. El acto de abordar...
 ABORDO. También se usa esta voz para decir que se ha estado en alguna embarcación...
 DEFUERA. adv. de lugar. Lo que está o se ve de la parte exterior de cualquier sitio u cosa...
 Caer por *defuera*..
 Por *defuera*...

Abordo, *ertzatzea*, *ertzaera*. Lat. Appulsus, commissio. Abordo, véase *bordo*, ir a bordo, *ontzian egotea*, *ontzira joatea*.
 Lat. In navi esse, ad navem accedere.

Defuera, véase fuera.

Lehen adibidea aski ñabarra da (A-ren hasieran espero daitekeen bezala), *DAut*-en bi adiera ezberdin (izena eta preposiziodun esapidea) sarrera bakarrean emateaz gain, bigarrenaren adibideak ematen baititu, berari dagokion deia gorabehera.

Beste behar bat, sarrerako hitzarekin erlazionatuta dagoen hitzen batera eramatea da; eskuarki, sarrera-buruaren aldamenean datorren azalpenaren partaide izan ohi da eta, beraz, berarekin esanahi bereko ordaina erraz erdiets daiteke; gainera, deian sarrera-buruaren esanahikide bat ere badator, corpusean agertu zaizkigun aleetan bederen:

Abonar, salir por fiador. Véase *fiador*, *afianzar*.
 Cabo de esquadra, véase *esquadra* y *oficial*.

Corpusean batere ordezkapenik izan ez arren, beste bat dagoeneko ezagutzen dugu (§ 2.3): familiakako antolakuntza dela eta, familiara —zehazkiago, aditz-multzoaren burua den

infinitebora— daramatenak: "Abertura. Véase abrir", "Abierta, to, vease *abrir*" edota "Acierto, véase *acertar*", adibidez.

Azkenik, gogoratu etimologiadun sarreretan (§ 4.3.1.2) batzuetan deiak etimologia nagusira bidaltzeko erabiltzen dituela, eta badela inoiz adizki trinkoak luzez azaldu diren lekurako deiren bat ere (§ 4.3.1.3).

4.3.3. Bidalketa-deiek eragiten dituzten hitzen nolakoa

4.3.3.1. Adierak eta esapideak ere

Murrizketarik handiena —goian ikusi dugu— eskaini adieren eta esapideen kopuruan gertatu da. Gure corpusean ageri da adiera murrizketan deiek ere paper handia jokatu dutela: Batzuetan deia besterik ez delako geratzen; adibidez:²⁰³

ALFAJOR. Lo mismo que Alajú. Véase.	Alfajor, lo mismo que <i>alajú</i> , véase.
ALFAJOR. Se llama también cierta bebida compuesta de vino...	

Beste batzuetan, era ezberdinetako konbinazioetan, adiera bat edo batzuk dei huts bihurtu direlako; adiera bat baino gehiago gorde duten 83 hitzetatik 40k (ia erdiak, hortaz) dei bat daukate gutxienez; adibidez:²⁰⁴

ALEVE. Vale lo mismo que Infiel, desleal, pérfido, alevoso y traidor...	Aleve, traidor, (...) <i>aribea</i> , <i>bearia</i> , <i>etoa</i> , <i>etoya</i> . Lat. Proditor, ris.
ALEVE. Lo mismo que Alevosía o traición. Es término antiguo...	Aleve, en lo antiguo significaba <i>alevosía</i> , véase.
OCASION. Oportunidad o comodidad de tiempo o lugar...	Ocasión, <i>mugua</i> , <i>derechea</i> , <i>parada</i> , <i>mugaldia</i> , <i>goitaldia</i> .
OCASION. Vale también causa o motivo...	Ocasión, lo mismo que <i>causa</i> , <i>motivo</i> , véase.
OCASION. Significa también peligro u riesgo.	Ocasión, lo mismo que <i>peligro</i> , véase.
OCASION. Se toma también por tiempo oportuno, sazón y coyuntura.	_____

Batek interes berezia dauka: *estupor*-ek *DAut*-en zituen bi adierak mantendu ditu, baina biak dei bihurtuta:

ESTUPOR. Entorpecimiento de los nervios...	Estupor, <i>entorpecimiento</i> , véase.
ESTUPOR. Vale también admiración, assombro, pasmo...	Estupor, <i>admiración</i> , <i>assombro</i> , véanse.

Gure corpusean aski berandu arte ez da ia deirik aurkitzen esapideetan; badira batzuk halaz ere:

²⁰³ Ikus *alfarda*, *cobija*, *degolladura*, *degüello*, *embarnizar*, *eunucho*, *obtener*, *temblante*, *vestidura* eta *veta* ere.

²⁰⁴ Ikus *cabezal*, *cabezón*, *cabezuela*, *cochino*, *defender*, *defensivo*, *definición*, *embargar*, *embarrar*, *estupor*, *evacuación*, *interrogación*, *íntimo*, *mañero*, *oca*, *ochava*, *picudo*, *piedad*, *pieza*, *rapto*, *rasgo*, *sangradera*, *sangría*, *témpano*, *templanza*, *temple* eta *verónica* ere.

(No) embargante, es lo mismo que *sin embargo*.

(No) obstante que, véase *aunque, después que*.

(Irse por) pies, *escaparse*, véase.

(Poner) pies en pared, es *insistir*, véase.

(Poner) pies en polvorosa, *escapar, huir*, véase.

Piedra cenizal, véase *sel*.

Sangre de espaldas, véase *almorrana*.

4.3.3.2. *DAut*-ek ez eragindakoak

Irakurleak dagoeneko susmatzen bide du Larramendik deiak beti edo gehienetan *DAut*-en iradokizunak baliatuaz osatu zituela. Aztertu ditugun 151 deietatik 21i (%13,9) bakarrik ez die *DAut*-ek zuzenean biderik eman. Ikus ditzagun, arrazoi orokorrak ahal den heinean zehaztuaz:

a) Familia bereko esanahikideak direnean, ezeren beharrik ez zuen bere kabuz lotura asmatzeko: *alevoso, cabezuela, defensible, degolladura, picudo, salvatiquez, tembloso, temedero, temoso, templanza, verticidad*.

b) *DAut*-en ez dauden hitzak direnean, bistan da Larramendik moldatuak direla; bi kasutan (*rasgadura, sanado*) eratorriak dira, behin (*ética*) grafi aldaera eta beste behin (*abonar el tiempo*) esanahikidetik oso hurbil dagoena. Interesgarrienak, inondik ere, ereduak jasotzen ez dituen adierak (*abono, abonar así* eta *cocido así*) eta esapideak (*pedra cenizal*)²⁰⁵ dira.

c) Sei kasutan, Larramendiren erabakiak dira, *DAut*-ek zuzenean ez baitzion inolako laguntzarik eskaintzen: *abordo, aseguración, cabo de escuadra, embarrar, (no) obstante que, salvedad, sangre de espaldas*.

d) Bi bereizi behar ditugu: hain zuzen euskal gramatikazko kontuei buruzkoak (§ 4.3.1.3).

4.3.3.3. *DAut*-ek eragindakoak

Larramendik *DAut*-ek sarreran eskaintzen dituen gai ia guztiak baliatu ditu, nahiz neurri ezberdinetan, bidalketa-deiaren jomuga hautatzeko:

a) *DAut*-en dei hutsak (5 kasutan, %3,4); adib.:²⁰⁶

SAMUGA. Lo mismo que Xamuga.
VEROSIMIL. Véase Verisimil.

Samuga, lo mismo que *xamuga*, véase.
Verosímil, véase *verisimil*.

b) *DAut*-eko sarrera normaletan agertzen diren "véase"-ak (orotara 7tan, %4,7); adib.:²⁰⁷

ALFABEGA. Lo mismo que Alabega,
Alhabega y Albahaca. Véanse.

Alfabega, lo mismo que *albahaca*, véase.

²⁰⁵ Honetan, deiaren jomuga den *sel* ere ez dago *DAut*-en.

²⁰⁶ Ik. *cocedra, guay* eta *verrocal* ere.

²⁰⁷ Ik. *alfageme, alfajor, alfóndiga, assensios* eta *cobertura* ere.

ALFALFA. Hierba mui conocida con este nombre en los Reinos de Murcia y Valencia, introducido ya en muchas partes de España, donde su propio nombre es Mielga. Véase.

Alfalfa, lo mismo que *mielga*, véase.

c) *DAut*-ek agerian eskaini esanahikidea edo esanahikideetatik bat(zuk); sarrienik "(Es) lo mismo que" aurkezpenaz agertzen dira. Oro har talde honek, alde handiaz, *HH*-ko dei gehienak eskaintzen ditu (orotara 62, %41,6); adib.:²⁰⁸

CABEZON. (...) Covarr. dice que es lo mismo que Encabezamiento...

Cabezón, lo mismo que *encabezamiento*, véase.

CABO. (...) Llámase también Promontorio.

Cabo de mar, véase *promontorio*.

ESTUPOR. Vale también admiración, assombro, pasmo.

Estupor, *admiración*, *assombro*, véanse.

EVACUACION. Se toma vulgarmente por la copia grande de humor excremental que los Médicos llaman Diarrhea, y el común Cámaras.

Evacuación, *diarrhea*, *cámaras*, véanse.

MARAGUTO. Lo mismo que Foque.

Maraguto, lo mismo que *foque*, véase.

d) *DAut*-ek definizioan eskaini esanahikideetatik bat(zuk) (orotara 20, %13,4); aurrekoaren oso antzekoa da, maiz erredaktoreak aukeratutako formulan baino bereizten ez dena; adib.:²⁰⁹

COCHINO. Metaphóricamente se llama así la persona que es desaliñada, asquerosa o puerca.

Cochino, sucio, véase *puerco*.

EMBARAZADA. Se dice de la muger que está en cinta y preñada.

Embarazada muger, *preñada*, véase.

ESTULTICIA. Locura, bobería, necedad y falta de juicio.

Estulticia, *necedad*, véase.

EUNUCHO. El hombre castrado que común y vulgarmente se llama Capón.

Eunucho, véase *castrado*, *capón*.

INTIMIDADO, DA. (...) Amedrentado, turbado de miedo o temor.

Intimidar, lo mismo que *amedrentar*, véase.

e) *DAut*-en definizioan haren lekua betetzen duen hitza, nahiz zehazki esanahikidea ez izan (orotara 9, %6):²¹⁰

ESTUPOR. Entorpecimiento de los nervios.

Estupor, *entorpecimiento*, véase.

SANDIX. El albayalde preparado al fuego y quemado hasta que toma un color mui roxo...

Sandix, lo mismo que *albayalde*, véase.

f) *DAut*-en definizioko hitz bat (orotara 8, %5,4):²¹¹

²⁰⁸ Ik. *aleve*, *alfonsario*, *aseguradamente*, *assentar*, *cabzalero*, *cabimiento*, *coccíneo*, *cocedura*, *cocho*, *embaimiento*, *emballestado*, *embargar*, (*no*) *embargante*, *embarnizar*, *embastardar*, *estunque*, *et*, *étnico*, *eupatorio*, *evad*, *evenir*, *guarnir*, *gueltre*, *internamente*, *interno*, *interposita persona*, *interromper*, *intestino*, *marañado*, *obyecto*, *oca*, *ocasión* ('causa, motivo'), *ocasión* ('peligro'), *ocha*, *ochava*, (*poner*) *piés en polvorosa*, *piedad*, *piertega*, *pieza*, *rapto* ('éxtasis'), *rasco*, *rascuñar*, *samblage*, *sangradera*, *temblante*, *témpano*, *temperancia*, *temperar*, *temperatura*, *templamiento*, *verónica*, *vértigo*, *vesquir*, *veste*, *vestidura*, *vestimenta* eta *veta* ere.

²⁰⁹ Ik. *alfayate*, *cobrase*, *defender*, *defensivo*, *estúpido*, *evanecer*, *eversión*, *interrogación*, *íntimo*, *obtener*, *obviar*, *sanción*, *tempestivo*, *verrucaria* eta *versión* ere.

²¹⁰ Ik. *cobija*, *estuoso*, *guarnimiento*, *mañanear*, *maraña*, *obtestación* eta *rapto* ('robo') ere.

CABEZAL. Se llama también una almohada larga que coge todo el ancho de la cama, y se pone a la cabecera de ella...	Cabezal, la almohada larga, véase <i>cabecera</i> .
EMBAIDOR. El que engaña y embeleca...	Embaidor, <i>bairatzallea</i> , véase <i>engañador</i> .
VERMICULAR. Lo que tiene gusanos o los cría.	Vermicular, verminoso, véase <i>gusaniento</i> .
g) DAut-en definizioa (orotara 2, %1,3):	
MAÑERO. Se usaba en lo antiguo por delegado para pagar por otro.	Mañero, en lo antiguo era <i>substituto</i> para pagar por otro.
OCCISION. Muerte violenta.	Occisión, <i>muerte violenta</i> , véase.
h) DAut-en etimologia (orotara 3, %2):	
ABORDAR. (...) Es voz compuesta de la partícula A, y del nombre Bordo.	Abordar, viene de <i>borde</i> u <i>bordo</i> , y éste nace de el Bascuence, véase.
DEFUERA. (...) Es compuesto de la preposición De, y de la voz Fuera.	Defuera, véase fuera.
DEGUELLO. (...) Viene del Latino <i>Decollatio</i> , que significa esto mismo.	Degüello, véase <i>degollación</i> .
i) DAut-en latina (orotara 2, %1,3):	
DEFINICION. Significa también Decisión u determinación de alguna duda, pleito u contienda, hecha por autoridad o superioridad de Juez; y así se llaman Definiciones las resoluciones u determinaciones de los Concilios y de los Papas. Lat. <i>Decisio. Decretum, i.</i>	Definición, por <i>decreto</i> , véase.
Poner <i>piés</i> en la pared. (...). Lat. <i>Tenaciter insistere</i> .	Poner <i>piés</i> en pared, es <i>insistir</i> , véase.

4.3.3.4. Ezohiko hitzak

DAut-ek HH-ari deien xedea eskaintzeaz gain, arrazoiak ere sarritan berak egiten dituen hitzei buruzko iruzkinak dira. Bidalketa-deietatik 40tan (%26,8), hitzak zaharkituak edo gutxi erabiliak dira; adib.:²¹²

ABONANZA. (...) Es voz que no tiene uso, porque ya se dice comunmente bonanza.	Abonanza, lo mismo que bonanza. Véase.
EUPATORIO. (...). En Castellano, vulgar y comúnmente, se llama Agrimonia.	Eupatorio, yerva, véase <i>agrimonia</i> .
GUARNIMIENTO. El adorno y vestidura de la persona. Es voz antiquada.	Guarnimiento, antiquado, <i>adorno</i> .
INTERROMPER. Lo mismo que Interrumpir. Tiene poco uso.	Interromper, lo mismo que <i>interrumpir</i> .
MAÑANEAR. Madrugar mucho, levantarse mui temprano. Trahe esta voz el P. Alcalá en su Vocabulario, y tiene poco uso.	Mañanear, <i>madrugar</i> , véase.

²¹¹ Ik. *asserrar, manera, (irse por) piés, rasgo* eta *Temple* ere.

²¹² Ik. *abondamiento* (eta *abondar*), *abordonar*, *alfarda*, *aleve*, *alfageme*, *alfayate*, *alfóndiga*, *alfonsario*, *cabezalero*, (no) *embargante*, *embastardar*, *estulticia*, *estuoso*, *estúpido*, *et*, *evad*, *evanecer*, *evenir*, *guarnir*, *interrogación*, *mañero*, *manera*, *obyecto*, *piértega*, *pieza*, *rascuño*, *salvatiquez*, *salvedad*, *temblosa*, *templamiento*, *verónica*, *vesquir*, *veste* eta *vestimenta* (eta *vestimento*) ere.

OBTESTACION. Protesta o amenaza (...). Obtestación, véase *protesta*.
Es voz de poco uso...

Haien arteko zenbait (cf., adib., *estulticia*, *estuoso*, *estúpido*, *et*), gutxi erabiliak izateaz gain, "puramente latina" antzeko iruzkinaz agertzen dira. Ziurrenik, erabilerari buruzko oharrik gabe agertzen denean ere, halako iruzkinak —hitz bat latin edo greko hutsa dela esateak, alegia— nolabaiteko garrantzia izan du Larramendiren hautapenean, hitz horiek esanahikide ezagunagoak dituztenean. Orotara 11 kasu argi (%7,4) idoro ditut; adib.:²¹³

COCCINEO, NEA. Lo mismo que Purpúreo. Es voz puramente Latina <i>Coccineus</i> .	Coccíneo, lo mismo que <i>purpúreo</i> , véase.
ESTUPOR. Entorpecimiento de los sentidos. Es voz Latina <i>Stupor</i> .	Estupor, <i>entorpecimiento</i> , véase.
ETHNICO, CA. Lo mismo que Gentil. Es voz Griega...	Ethnico, véase <i>gentil</i> .
EVERSION. Destrucción, ruina, desolación. Es voz Latina <i>Eversio, nis</i> .	Eversión, <i>destrucción</i> , véase.
TEMPERANCIA o TEMPERANZA. Lo mismo que Templanza. Es voz puramente Latina.	Temperancia, temperanza, véase <i>templanza</i> .

Alabaina, oro har bidalketa-deiak antolatzeko eragingarrienik suertatu den faktorea, *DAut*-ek haren esanahikide bat oro har —den hura gaztelaniaz, den latinez— eskaintzea izan da.

4.3.4. Bidalketa-deien eraginkortasuna

Larramendik gehien erabili ohi dituen bidalketa-deiek informaziorik galdu gabe hiztegia laburtzen laguntzen diote. Hiztegietakoa lanabes ezinutzizkoa izan ohi badira ere, argi dago ez irakurlearentzat ez egilearentzat erosoak direla. Aparteko lan bat eskatzen diote bai batari, begiratzera joan den hitzetik beste barera joanaraziz, bai besteari ere, sarreren arteko koordinaketa bereziki zainduaraziz; bigarrena da garrantzizkoena, noski, zeren eta bere lana behar bezain ondo beteko ez balu, hiztegiaren erabiltzaileari alferrikako lana eragingo bailioke. Erabiltzaile garenez, denok dakigu honek zer nolako amorrazioa eman dezakeen; alabaina, ulertu behar dugu hiztegiaren lanaren handia, areago orain baino arras baliabide tekniko gutxiago ziren garaietan. Baldintzok buruan izanik, beraz, interesgarria izan daiteke *HH*-aren alde honetatiko zuzentasuna neurtzea.

Jakina, *HH*-ko dei gehienek bere papera betetzen dute, behar den lekura bidaliaz; alabaina, corpusean, inora ez daramaten edo leku okerrera daramaten 9 dei (%6) aurkitu ditut. Ezin esan daiteke kopurua harritzekoa denik, eta bai ordea, ia-ia gutxi dela pertsona bakar batek egin eta zuzendu duen hiztegi erraldoi bat izanda. Ikus ditzagun orain, banan-banan, antzematen diren gertakariak:

a) Lautan, era ezberdinetara, hitz zehatza ez dugu gero aurkitzen, nahiz familiakorik baden: (1) "Abondamiento, abundar. Véase *abundamiento*, *abundar*" sarrerari gero ABUN-en

²¹³ Ik. *eunucho*, *interposita persona*, *sandix*, *temperar*, *temperatura* eta *verrucaria* ere.

abundar sarrerak bakarrik erantzuten dio; (2) "Abordonar, lo mismo que *bordonear*"-ek ez dauka erantzunik BORD-en, non *bordón*, *bordoncillo*, *bordonería*, *bordonero* bakarrik azaltzen diren; (3) "Evad, antiquado, *mirad*"-ek ez du —baina ezta behar ere— erantzunik *mirar* azpian; eta (4) "Occisión, *muerte violenta*, véase" dela eta, egiatan gero ez dago horrelakorik: irakurleak "muerte, activamente, *eríoa*" kausituko du, gehienera jota; s.v. *violento* ematen dituen ordainak, berriz, halakoa den pertsonari dagozkionak dira (*borcharia*, *queisaria*).

b) Hirutan, bidalketa-deiak beste dei batera darama, eta hirugarrenean soilik edireten da lortu nahi zen informazioa; hona hemen erabiltzaileak egin behar duen bide gogaikarria:

Eunucho, véase *castrado*, *capón* > Castrar, castrador, &c. véase *capar* > Capón, *chiquiratuá*, *irancia*...

Rapto, lo mismo que *éxtasis*, véase > Extasis, extático, véase *arrobamiento*, *arrobado* > Arrobamiento, arrobo, éxtasis, *cenzuztea*, *cordebaguetzea*...

Vértigo, vertiginoso, véase *vaguido* > Vaguido de cabeza, véase *vaido* > [baina orrialde berean] Vaido de cabeza, *zorabilla*, *burucó aldia charra*.

c) Batean, grafiak huts egin dio:

Marañado, lo mismo que *enmarañado* vs Emmarañar, *catrambillatu*...

d) Beste batean, irakurlea gurpil zoro batean sarrarazten du:

Cabo de mar, véase *promontorio* <> Promontorio, lo mismo que *cabo*, véase.

Aipatzekoa den beste huts bat jadanik ezagutzen dugu (§ 3.4.11): hasierako hitz batean egin zuen agindua ez betea, alegia:

Abonar así, *cimaurtú*, *iñaurquindu*, *basaratú*. Véase *estercolar*, y allí se dirá la diferencia de abonos y sus nombres > Estercolar, *goroztu*, *goroztatu*, *goroztatu*, *cimaurtu*, *cismaurtu*, *iñaurquindu*, *basaratu*.

4.4. Eransketak

4.4.1. Sarrerak

Badago guretzat —baita espainiar filologoentzat ere, ausaz— interes berezia duen beste frogakizun bat: Larramendik hitzaurrean "he añadido algunas otras [voces] que no se encuentran en el Diccionario Español" (1745: liv) baieztatu zuen, eta gure zeregina, badirela egiaztatu ondoren, zein eta zein eratakoak diren zehaztea izango da.

Corpusean, *HH*-ak jasotzen dituen 647 sarrera nagusietatik berriak orotara 12 (%1,9) baino ez dira. Ohi bezala taldeak egiten baditugu, gainera, berehala antzemango dugu benetan Larramendiren ekarria alde honetatik oro har oso txikerra dela:

a) Aldaera ortografikoek eragindako sarrera berriak:

embaramiento (+ envaramiento) / ENVARAMIENTO

embararse (+ envararse) / ENVARAR

embarado (+ envarado) / ENVARADO

ética (+ hética) / HETICA

b) *DAut*-ek jasotzen ez dituen partizipioak: *abordado*, *assesado*, *obstruído*, *sanado*.

c) *DAut*-ek jasotzen duen familia bateko hitz berriak:

obvenirse / OBVENCION
ocasional / OCASIONALMENTE, etab.
rasgadura / RASGAR, RASGADO, etab.

Beti bestela dabilen A-ren hasieran (1-20 or.) bilaketa bera egin dut, ostera, eta zati horretan gauza interesgarri gehiago edireten da, inondik ere:

a) Aldaera ortografikoak oso-oso sarri aurkitzen dira zati honetako sarrera berrien artean; taldetxo bat aldaera nagusirako bidalketa-deia egiteko baino agertzen ez direnek osatzen dute:

abajar / ABAXAR
abechucho / AVECHUCHO
abitar / HABITAR
abito / HABITO
abituar / HABITUARSE

abivar / AVIVAR
abla / HABLA
abocar / AVOCAR
abuvilla / ABUBILLA
accidente / ACCIDENTE

baina gehien-gehienak sarrera normalak dira:²¹⁴

aberes / HABER
aberia / AVERIA
abestruz / AVESTRUZ
abezado / AVEZADO
abiar / AVIAR
abiado / AVIADO
abil / HABIL
abilidad / HABILIDAD
abilitar / HABILITAR
abilitado / HABILITADO
abiltar / AVILTAR
abion / AVION
abismo / ABYSMO
abismar / ABYSMAR
abispa / AVISPA

acayrelado / ACAIRELADO
acéfalo / ACEPHALO
aceitero / AZEITERO
acelerar / ACCELERAR
acelerado / ACCELERADO
aceleración / ACCELERACION
aceleradamente / ACCELERADAMENTE
acemilero / AZEMILERO
acento / ACCENTO
acentuar / ACCENTUAR
acentuado / ACCENTUADO
aceñero / AZEÑERO
acequia / AZEQUIA
acerola / AZEROLA
acinado / HACINADO

Normalean erabiltzen dugun 17 orrialdeko corpusean, honelako 4 aurkitu ditugu (orrialdeko 0,2); A-ko laginean, berriz, 40 (orrialdeko 2). Azken finean sarrerak ugaltu baina informazioa lehengo bera denez gero, oso antzekoak dira *DAut*-eko sarrera berean agertzen diren bi formaren banakatzek:

ABEJERUCO, o Abejaruco.

Abejaruco.
Abejaruco.

AVUELO, LA.

Abuela.
Abuelo.

Alabaina, egiatan oso esanahi ezberdineko adibideak dira: *abejaruco* sarrerakide ohira daraman bidalketa-dei hutsa da; beraz, A letraren hasieran *DAut*-eko informazioa bere erara antolatzeko Larramendiren joeraren erakusgarri berri bat baino ez, dirudienez. Bestean, berriz, grafia gorabehera, Larramendik euskal ordain ezberdinak eman beharrari erantzun dio sarrera bikoizketarekin.

Bete-beteen sail honetan kokatzekoak dira, ordea, eransten dituen preposiziodun sintagmak, beti ere hitz nagusiaren lekura bidaltzeko:

Abuelas de esso, *orrequin batean, orrez naste*. (...). Véase *vuelta*.

²¹⁴ Larramendiren grafi zalantzek eragindako errepikapenatarako, ik. § 4.5.1.

Abuenas, de buenas a buenas, véase *bien*, *buena*.
Abulto, véase *bulto*.
A cada passo, véase *cada*.
A cozes, véase *coz*.

b) Partizipio berriak berdintsu dabilta bi laginetan (bietan 4 ale, orrialdeko 0,2): *abismado*, *abordado*, *acechado*, *acocotado*. Ostera, A-n gure corpusean ikusi ez dugun zerbait agertzen da, hots, sarritan *-se* aditzak erantsi egin zituela:

*abaxarse, *abismarse, *ablandarse, abnegarse, abrigarse, *aburrirse, acañaberearse, *acañonearse, *aclararse.

Denek *DAut*-en hutsuneak betetzen dituzte: *abnegarse*-ren kasuan, akademikoek *abnegación* bakarrik jasoa zuten; *abrigarse*-k ereduko adiera iragankorrei adiera berri bat (“recogerse o retirarse a lugar seguro y defendido”) eransten die, eta *acañaberearse*, Larramendik dioenez, “Arundinibus se mutuo impetere” da, eta “Usábase antiguamente en el juego de cañas”. Izarraz markatu ditudanak ere, denak gaztelania arruntekotzat jo daitezke, baina guri dagokigunez taiu ezberdinekoak dira: aditz “normalaren” azpian eta haren euskal ordain berberak daramatzate, aditzak nola jokatu behar diren erakusten duten argibideetako batez (§ 3.3.3.1) lagundurik; beraz, halako erdal aditzen euskal kideek bi jokoak —iragankor eta iragangaitza— izan dezaketela azpimarratzea da, antza denez, eransketaren xede nagusia. Haatik, A-tik aurrera *DAut*-ek dakartzanak bakarrik jasotzera mugatu zela dirudi, exhaustibitate edota pedagogi asmoari arintasunaren izenean uko eginez.

c) Familietako partaide berrietan ere, alde handi bat igartzen da sail batetik bestera; corpusean 3 adibide (orrialdeko 0,2) baino ez daude, eta A letrako laginean, berriz, 18 (orrialdeko 0,9); jadanik somatu dugunez (§ 2.4.9) *-dor* atzizkiaz berriki eratutako izenen saila bereziki handia da (orotara 13):

abatanador, abatidor, abejita, abilmente, abjuración, abollador, abultador, aburrimento, acallador, acanalador, acañoneador, acaudalador, acendrador, acepillador, acerador, acertable, achicador, achicharrador.

d) Corpusean ez bezala, A letrako behaketan hitz berriak eta are familia berriak aurkitzen ditugu: *abetunar* / *abstruso* / *aburrado*, *aburrarse* / *acalcar*, *acalcado*, *acalcador*, *hacerlo acalcar* / *acenoría* / *achocharse*, *achochado*.

Bilaketa bera P letraren hasierako 20 orrialdeetan eginez, ostera, ez dut sarrera berri bakar bat ere aurkitu.

4.4.2. Adierak

Adierak dira *DAut*-etik *HH*-ra murrizketarik handiena jaso duten sailetatik bat (§ 4.1.2). Corpusean,²¹⁵ berriz, 6 adiera berri agertzen dira, batzuk adiera-familia osoak sortaraziaz. Ikus ditzagun, ezkerretara *DAut*-eko adiera guztiak eta eskuinetara *HH*-ko berriak bakarrik jasorik:

ABONAR. Aprobar...	Abonar el tiempo.
ABONAR A OTRO. Es salir por él saneándole y fiándole...	
ABONO. La afirmación o aprobación...	Abono de tierras, sembrados, huertas, &c.
ABONO. En las cuentas es el seguro...	Abono assí, en particular de fiemo, de estiércol, &c.
ABONOS. En las haciendas se llamaban antiguamente las mejoras...	Abonar assí. Abonado assí. Abonador assí.
ABORRECIBLE. Digno de ser odiado...	Aborrecible, objeto digno de aborrecimiento.
ABSOLUTO. Despótico, independiente, soberano...	Absolutas proposiciones, dichos sin ninguna restricción.
ABSOLUTO. Latamente se toma por libre, resuelto...	
COCER. Preparar con fuego...	Cocer en agua. Cocido assí.
COCER. Por analogía se dice también de otras cosas que no se cuence al fuego...	
COCER. Metaphóricamente vale premeditar...	
COCER. Hervir...	
COCERSE. Deshacerse...	
MAÑOSO. Lo que tiene o se hace con maña.	Mañoso, <i>mañatsua</i> , <i>mañaduna</i> <-ña>, <i>mañatía</i> , significa en Bascuence al que tiene mañas e impertinencias.
MAÑOSO. Se toma también por el que tiene maña y habilidad.	

A-ko lehenengo 20 orrialdeetan, berriz, adiera erantsi gehiago aurkitzen ditugu, 21 orotara, hitz batzuetan berriak bat baino gehiago izaki, gainera:

ABACERIA. Tienda donde se vende azeite, vinagre, pescado seco y otras menudencias.	Abacería, por Pescadería, (...); por Carnicería...
ABACERO. La persona que se obliga en las villas o lugares a mantener la tienda de Abacería...	Abacero, por Carnicero, (...); por Pescadero...
AVISPON. Voz de la Germania. El que anda reconociendo donde se podrá robar.	Abispón, tábano.
ABOGAR. Defender los abogados en juicio...	Abogar, pedir por alguno.
[gorago ikusia]	Abonar el tiempo.
[gorago ikusia]	Abono de tierras.
[gorago ikusia]	Aborrecible, objeto.

²¹⁵ Alde batera utzi ditugu *DAut*-ek eskuarki bateratuta ematen dituen eta *HH*-an bitan edo gehiagotan (zein bere adierako aditzaren azpian agertuz) banatzen diren partizipioak (§ 2.4.7.1). *Abonar* eta *cocer*-ek segituan bi adibide eskainiko dizkigute.

ABRIGAR. Arropar, reparar y defender del frío.	Abrigarse, recogerse o retirarse a lugar seguro y defendido.
ABRIGAR. Metaphóricamente es defender...	
ABRIGO. Lo que defiende del viento, lluvia o frío. El reparo u defensa contra estas incomodidades.	Abrigo, la acción de calentarse al sol, a la lumbre y en lugares abrigados.
ABRIGO. Metaphóricamente vale defensa, patrocinio, amparo...	Abrigo, aquel calor, alivio o fomento que se toma de el vestido, de el lugar abrigado, &c."
ABRIRSE. Se dice de todo aquello que por si mismo y sin ayuda se hiende, se raja...	Abrirse, (...). Se han abierto las ventanas...
	Abrirse el erizo con su castaña, o la corteza con la nuez. Abierto así.
ABSTRACCION. (...) aquella enagenación que causa en los sentidos alguna alta contemplación...	Abstracción, recogimiento, retiro. Abstrahído, recogido, retirado.
ABULTAR. Dar cuerpo, aumentar o hacer mayor alguna cosa.	Abultar, en significación como neutra, parecer de bulto u volumen alguna cosa.
ACASO. Suceso impensado.	Acaso, adverbio, unas veces viene con duda, (...). Lat. Forsan, forsitan, fortassis, fortasse. Acaso no es verdad...
ACASO. adv. Vale lo mismo que sin pensar, casualmente y sin esperarlo.	
ACASO? Puesto con interrogación vale lo mismo que por ventura o por suerte.	
AZEITERO. El que vende azeite.	Aceitero, el que lo haze o saca.
AZEITERO. Llamam los Pastores un cuerno...	Aceitero, amigo de aceite.
ACCENTUAR. Pronunciar las palabras propia y debidamente...	Acentuar de una manera u de otra.
ACCENTUAR. En lo escrito es poner los acentos...	
ACCENTUAR. En la Música es...	
ACEPILLAR. Labrar y poner lisa la superficie...	Acepillar según, según la diversidad de cepillos se dize diversamente.
ACEPILLAR. Vale assimismo limpiar la ropa...	Acepillado.
ACEPILLAR. Metaphóricamente vale tanto como desbastar...	Acepilladura.
ACEPTAR. Admitir lo que se ofrece...	Aceptar personas.
	Aceptar así.
	Aceptación, acepción de personas.
	Aceptador de personas.
ACEPTABLE. Lo que se puede admitir...	Aceptable, agradable.

P-ko lehen 20 orrialdeetan, adiera berriren bat bada ere (orotara 5), oso urruti dago A-ren maiztasunetik:

PABULO. Pasto, comida, alimento para la subsistencia...	Pabulo de el fuego.
PABULO. Por translación se dice qualquier sustento o mantenimiento de las cosas immateriales.	
PARECER. Vale también hacer juicio u dictamen acerca de alguna cosa.	Parecerle así equivocándose. Este parecer equivocado.

PARTIR. Dividir una cosa en partes.	Partir, dividir en dos mitades.
PARTIR. Vale assimismo romper u deshacer la unión...	Partir, desquartzando.
PARTIR. Vale tambien repartir u distribuir...	
PARTIR. Vale assimismo romper o casca los huessos de algunas frutas...	
PARTIR. Significa también distinguir o separar una cosa de otra.	
PARTIR. En la Arithmética es bucar un tercer número...	
PARTIR. Vale también separar o apartar.	
PARTIR. Vale assimismo empezar a caminar.	
PARTIR. Significa también acometer en pelea...	
PARTIR. Metaphóricamente vale resolverse...	
PASTELERIA. La tienda donde...	Pastelería, oficio.
PASTELERÍA. Se llama también el conjunto u copia de diversidad de pasteles...	

Laburpen gisa, bataz bestekoak erkatuko ditugu, A letran kenketak ez eze (baina askoz neurri txikiagoan, ik. 4.1.1) eransketak ere inon baino gehiago izan zirela nabarmentzeko:

corpusean: 6 (orrialdeko 0,4)
 A letran: 21 (or.ko 1,1)
 P letran: 5 (or.ko 0,3)

Eransketen zergatiari dagokionez, nabarmena da gehienak akademikoei itzuritako adierak direla, eta baliteke baten bat hitzaren historiarako jakingarria izatea.²¹⁶ Haatik, are nabarmenagoa da batzuk euskal hitz bereziak —gaztelaniaz, ustez behintzat, baliokide trinkorik ez dutenak— sartzeko eginak direla, honetarako inoiz (cf. *erabea* edo *oliozalea*) gaztelaniaz, dakidalarik, ezezagunak diren adierak asmatu behar izan baditu ere; hots, garbiki esanda, euskarak gaztelania baldintzatu eta are behartu duela:

erabea “aborrecible, objeto digno de aborrecimiento”, *au da nere erabea* “éste es mi objeto aborrecido” (ohartu adibidean jasaten duen adierazpen aldaketari).
elicatu, *lecadatu* “cocer en agua”.
miaurtu, *azarracatu* “abrirse el erizo con su castaña, o la corteza con la nuez”.
olioquiña “aceitero, el que lo haze o saca”.
oliozalea “aceitero, amigo de aceite”.
garlopatu, *guillamatu*, *junteratu*, *molduratu* “acepillar, según la diversidad de cepillos se dize diversamente”.
iduritu, *iruditu*, *beguitandu*, *beguitatu* “parecerse assí, equivocándose”, *beguitacioa*, *beguitacinoa* “este parecer equivocado”.
erdiratu “partir, dividir en dos mitades”.
ocorequintza, *pastelquintza* “pastelería, oficio”.

Illo beretsutik, itxuraz berriztat har zitezkeen adiera zenbait, *DAut*-en batuta zeudenetatik atera dira, euskaraz ordain ezberdinak eman beharrak eraginda; hona hemen hiru corpus ezberdinetan azaldu diren adibideak:

<corpus normala>

²¹⁶ Adibidez, *DCECH*-k (s.v. *bueno*) 1800 inguruan (Jovellanos-engan) lekukotzen ditu lehenengoz *abonar* ‘fertilizar’ eta *abono* ‘fertilizador’.

EUCHARISTIA. Acción de gracias. Por este nombre se entiende por Antonomasia el Santísimo Sacramento del Altar...	Eucharistía, acción de gracias. Eucharistía, Sacramento.
EVANGELIO. La vida, doctrina y obras maravillosas de Nuestro Señor Jesu Christo, contenidas en los quatro Libros (...). Es voz Griega que vale buena nueva...	Evangelio, significa buena nueva. Evangelio, sagrada Escritura.
<A letra>	
ACOBARDAR. Turbar, poner miedo y temor; consternar a uno de manera que, enflaquecido el ánimo, desista del intento...	Acobardar, desanimar, hazer a uno cobarde. Acobardar, <i>amedrentar</i> , <i>atemorizar</i> , véanse.
<P letra>	
PAÑALON. Pañal grande. Llamen así al que por desaliño o negligencia le trahe colgando siempre.	Pañalón. Pañalón, a quien le cuelga el pañal.
PARADOR. El que para. Dícese freqüentemente de los caballos que paran bien o con facilidad, y en el juego, del que para mucho.	Parador caballo. Parador en el juego.
PASTOREAR. Llevar o conducir los ganados al campo u a pacer, hacer el oficio de pastor...	Pastorear, hazer oficio de pastor. Pastorear, llevar el ganado a pacer.

4.4.3. Esapideak

Hiztegia eraterakoan, esapideetan adieretan baino inausketa oraindik handiagoa egin zuen Larramendik (§ 4.1.3). Sail honetan gertatzen diren eransketek erakutsiko digute, besteak beste, benetan kenketaz baino agian hobeto ordezkatzear mintzatu beharko genukeela. Izan ere, corpusean berriki erantsitako esapideak (hitza erabiltzen ari naizen adiera zabalean ulertuta) 29 dira (orrialdeko 1,7). Kopuru horretan bi gertakari ezberdin batzen dira eta, halaz ere, eransketon zioa euskal zatia indartzea izan dela konturatzeko zein baino zein adierazgarriagoak:

a) Benetako esapideak:

(Aun) así, <i>ala ere</i> , <i>alambere</i> . Assí que, y assí, y por esso, <i>eta ala</i> , <i>eta alan</i> . (De) cabeza, <i>buruz</i> . Cocer demasiado, <i>zucutu</i> . Cocido así, <i>zucutua</i> . Cocer, medio cocer, <i>verdoldu</i> . Cocido así, <i>verdoldua</i> . Etefe que, <i>ara non</i> . (El día de) mañana, <i>biarco eguna</i> . (Passado) mañana, <i>etzi</i> . (Después de pasado) mañana, <i>etzidamu</i> . Aun otro día después, <i>etzidazu</i> . (Esta) mañana, <i>egun goizean</i> . (Muy de) mañana, <i>goizean goiz</i> . (Tan de) mañana, <i>ain goiz</i> , <i>ain goizetic</i> .	No obstante que, véase <i>aunque</i> , <i>después que</i> . (Buena) ocasión, mala ocasión, <i>mugoná</i> , <i>mugaitza</i> . (En una) ocasión, en cierta ocasión, <i>bein batean</i> , <i>mugaldi batean</i> . En otra ocasión, <i>beste batean</i> . Siendo futuro el verbo, <i>urrengoan</i> . Piedra cenizal, véase <i>sel</i> . Piedra de molino, <i>eotarria</i> , <i>errotarria</i> . Piedra de el saque, en el juego de la pelota a mano, <i>botarria</i> . Piezas inferiores de una casa, las de escalera abaxo, <i>zuñoldea</i> . San Sebastián, <i>Donostia</i> , San Juan, <i>Done Joaná</i> [sic], San Esteban, <i>Done</i>
--	--

(No es de) maravillar, no es maravilla,
*ezta miresteco, marabillaric ezta.*²¹⁷

(No) obstante, siguiéndose plural, *eztirálá
ansi*; no obstante las fuerzas y
costumbres, *eztiradelá ansi indar ta
oitura guciac.*

Estebe. En estos tres que son nombres
de pueblos, todos los Bascongados
usan el *Doné*, y deben usarlo en todos
los demás.

Zerrenda irakurrita berehala ohartzen gara, nahiz batzuk erdaraz ere badiren, amankomunean duten ezaugarri bakarra hauxe dela: euskaraz era berezi batean esaten diren gauzak dira. Salbuespen bakarra "No obstante que" dugu, bidalketa-dei normala; beste deia, ordea, bete-betean euskal hitz batera darama, zeren eta ez "piedra cenizal" ez "sel" erdal hiztegieta agertzen diren hitzak baitira.²¹⁸

b) *DAut*-etik hartutako sarrerei egindako eransketak, euskal gertakari zenbaiten kontu emateko balio dutenak; ezkerretara sarrera nagusiak eskaintzen ditut, eta eskuinetara handik eratorritako esapideak:

Aleve, traidor, (...) *aribea, bearia, etoa,
etoya.*

Asserrar, *cerratu, cerraztu.*

Cobre, *cobrea, urraidá.*

Cocina, *sucaldea, subatea, suiña,
ezcaratza.*

Guerra, (...) *guerra, guerra.*

Rascar la sarna u otra cosa que pica,
atzeguín, carracatu, azcatu.

Hazerse aleve, *aribeatu, bearitu, etoitu.*

Asserrar con sierra o sobre sierra corva,
codeñatu, codeñeaz epaqui.

Cosa de cobre, *cobrezco, urraidazcoa.*

Amigo de cocina, *sucalcuya.*

Guerras grandes, tiempo de guerras,
guerratea.

Gana de rascarse así, *atzá, azgalea.*

Bistan denez, "esapide" izena ez da batere egokia kasu honetan: egiatan, hitz bakunen euskal eratorriak —erdaraz itzulpen trinkorik gabeak— sartzeko baliatu zuen prozedura da. Jadanik hitzaurrean abisatua zeukan, bestalde, gaztelaniatik euskarara ez eze alderantzizko bidean ere baliokide bakunik izango ez zuten hainbat hitz badirela:

...para desengañar a aquellos mal instruídos Bascongados, que con errada aprehensión piensan que a toda voz Castellana ha de corresponder otra voz simple Bascongada. Qué presto y fácilmente depondrían este error, si al contrario quisieran buscar en Castellano voces correspondientes a otras muchas del Bascuence: pues, luego por experiencia encontrarían muchísimas voces sin correspondientes simples en Castellano (Larramendi 1745: xlv).

Alde honetatik, badirudi hiztegi osoan zehar berdintsu jokatu zuela, A eta P letretan eranskin ugari aurkitzen baitira, nahiz oro har A-n ugariago (eta zehaztasun gehiagoz) P-n baino:

<A letra> (52, orrialdeko 2,6)

Abesana mayor, muchas juntas de bueyes,
lorrá.

Abrigado lugar, *lecu beroa, otzetic gordea,
segurua, nozguea, abrigua.*

La castaña, nuez y otras frutas, quando
llegan a tal sazón, *miauria* (s.v. *abrirse*).

Acercarse demasiado, *aldereguitu,
alboreguitu...*

(Lo tengo por más) acertado, *obeagotzat
daucat, zucenago derizat.*

(Lo más) acertado será, *gauzaric onena izango
da.*

²¹⁷ Cf. *DAut* "MARAVILLAR. Admirar, causar extrañeza (...). Y no se maravillaría desto, quien huviere visto y notado...".

²¹⁸ Erkaketarako baliatu dudán Moliner-enean honako hau bakarrik edireten da: "Sel (Santander). Prado en que sestean las vacas". Hona hemen *HH*-koa: "Sel, es un monte de árboles en círculo perfecto, con su mojón en el centro, *sarobea, cortá*".

Quedarse, ponerse absorto, *sorrá guelditzea, arritzea...*
 Abstrahído yo, *nere, neurequicotua*, abstrahído tú...
 (Más) acá, *onago, onarago, onatago*. Ven más acá, *atoz onarago...*
 (Hacia) acá, hacia acá, *ononz, unonz...*
 (Hacia) allá, aciallá, *aronz, arunz...*
 (Lo que falta para) acabar, *osagarri*.
 (Hazerle) a uno acabar, *bucaraci, bucaerazo...*
 (Al) acabarse la comida, la cena, &c. *barazcalondoan, afalondoan, &*.
 Acabóse, no ay más que hazer, *eguin da, ezta cereguiñic*.
 Acabáronse mis contentos, *aitu dira nere pozac...*
 (Hazerlo) acalcar, *calcarazi...*
 (Por si) acaso, *baldin ere, baldindez*.
 (Hacerlo) acechar, *celataraci...*
 Acedarse la leche, *lapastú, gazuratú*. Aceda leche, *lapastua, gazuratua*.
 (Este oficio) de aceitero, *olioquintza*. andar o estar en esse oficio, *olioquiñen ibilli, olioquintzan egon*.
 Cosa de aceite, *oliozcoa, olioduna*.
 Aceleradamente con demasia, *lasterregui, agudoequi...*
 Aceñas, paraje de muchas aceñas, *errotateguia, igarateguia, bolueta*.
 (Hacerse) acepto, agradable, *oniriztú, oniriztea*.
 (Remanso o recodo de la) acequia madre, *latsbeguia*. (...). Estaba el salmón en un remanso de la acequia madre, *latsbegui batean cegoan izoquia*.
 (Fabricador de) acero, *alzairuguiña, altzairugillea*.
 (El oficio de fabricar) acero, *altzairuquintza*.
 Acercarse más, *alderagotu, alboragotu...*

(Tiene grandes) aciertos con los enfermos, *soma andia du eri edo gaisyo diranacquin*.
 Achicar demasiado, *chiquieguitu...* Achicado demasiado, *chiquieguitua...*
 Achicar más, *chiquiagotu...* Achicado más, *chiquiagotua...*
 Acia aquí, acia allí, *ononz, aronz; onunz, arunz*.
 Acia ahí, *orronz, orrunz*.
 Acia dónde? *noronz, norunz?*
 Acia todas partes, *alde gucietaronz*.
 Acia baxo, acia arriba, *beronz, goronz*.
 Acia la izquierda, azia la derecha, *ezquerreronz, escuyeronz*.
 Acia delante, acia tras, *aurreronz, atzeronz...*
 (Más) acia aquí, acia allí, acia ahí, *ononzago...*
 (Más) acia arriba, acia baxo, *goronzago...*
 (Más) acia la izquierda, acia la derecha, *ezquerreronzago...*
 (Demasiadamente) acia aquí, allí, ahí, *ononzegui...*
 (Demasiadamente) acia baxo, arriba; a la izquierda, a la derecha, *beronzegui...*
 (Hacerse) acia aquí, *ononza, onanzatu, onunza, onunzatu*.
 (Hacerse) acia allí, acia allá, *aronza...*
 (Hacerse) acia ahí, *orronza...*
 (Hacerse) más acia aquí, allí, ahí, *ononzago...*
 (Hacerse) demasiado acia aquí, *ononzeguitu...*
 (Hacer) acia aquí, allí, ahí en la activa, y en significación de traerlo acia aquí, allí, ahí, los mismos verbos, *ononzatu, aronzatu...*
 (Hecho) acia aquí, *ononzatua...*
 Aclarar más, *arguiágotu, clarúgotu*.
 Aclarar demasiado, *arguiéguitu, clarúguitu*, Aclarado más, *arguiagotua*; demasiado, *arguiéguitua*.

<P letra> (37, orrialdeko 1,9)

(Estoy muy) pagado de ti, *zuzaz pagatua nago chit*.
 Palo de carbonero con una tabla al remate, *beraquia*.
 Pan de maíz, *artoa*.
 Pan subcinericio, *taloa, galoa*.
 Pan bazo, *erresa, nasquia, pasalloreia, tremesa, onidiquia*.
 Pan cocido que aún no se ha enfriado, *zarrapela*.
 (Lugar) pantanoso, *linzurá*.
 Para aquello, para esto, para esso, *artaco, artaraco; ontaco, onetaraco; ortaco, onetaraco*.
 Para todo, *gucitaraco*, para nada, *ecertaraco, deusetaraco ez*.
 Para cuándo? *noizcó?*
 Para mañana, pasado mañana, &c. *biarcó, etzico, &*.
 Para en uno, *batetaraco, bateraco*.
 Para entre los dos, *bien arteco, bien arteraco*.
 Parar perjuicio, *calte eguin, ecarri, eracarri*.
 Pardo, hazer y hazerse pardo, *arretu...*
 Paréceme que sí, *deritzat bayetz*; paréceme que no, *deritzat ezetz*.

(A mi) parecer, *nere iritzian...*
 (Ya tienes a quién) parecerte, *badec noronz*.
 (Hendida está la) pared, *orma arracatua dago*.
 Parientes cercanos, *aide urcoac*.
 (No somos) parientes, ni tenemos inclusión ni relación alguna, *ez aite, ta ez bernage guera*.
 (Al) parir murió, *aurguitz il zan, aurguitean, erditzean...*
 (Los pelos del) párpado, *betuleac*.
 (En todas) partes, *lecu gucietan, edocean lecutan...*
 (En ninguna) parte, *iñon ere ez...*
 (En ambas) partes, *alde bietan*.
 (De ambas) partes, *alde bietatic*.
 (Dar) parte, es avisar, véase.
 (Antes del) parto, en el parto y después de el parto, *erdibaño len, erditzean, ta erdi ezquero...*
 Parto malo, abortivo, *bertitzá*, véase *aborto*.
 Passarlo bien o mal, *ongui edo gaizqui egotea*.
 (Estáse) paseando, *boatitzen dago, pasean dabil, paseatzen dabil*.
 (A) patadas, *osticoca, osticadaca, oincadaca*.
 (Dar uno de) patadas, *osticatu*.

Parece que sí, *bayetz dirudi...*
Según parece, a lo que parece, *dirudienez...*

(Déxanos en) paz, *uzcuzu paquetan, paquean.*

Dakusgunez, berriro ere corpus normalaren eta P letraren portzentaiak oso hurbil daude (%1,7 eta 1,9 hurrenez hurren), eta A-renetik beheiti (%2,6). Aldea inondik ere handiagoa da: A letraren hasiera-hasieran, honelakoak sarrera barruan agertu ohi dira; AB bukaeraren inguruan bakarrik hasten dira nolabaiteko maiztasunez lerrokada berezitan agertzen. Alabaina, neurritzat hartu dudán mikrosarrera kopurua eragiten ez dutenez gero, ez zen bidezko hemen aztertzea.

Bestalde, adieretan gertatu den bezalaxe, *HH*-ko esapide berri zenbait, *DAut*-ek bestela ematen zuen informaziotik (noiz azalpenetatik, noiz adibideetatik) jalgiak dira, euskaraz nola esaten diren argitu beharrez; ohartu, gainera, hainbat adiera esapidez azaldu nahiago izan duela, zuzenean baino:

<corpusa>

DEGOLLACION. (...) Por Antonomasia se dice y entiende por la memoria y celebridad que hace la Iglesia del Martirio del Precursor San Juan Bautista.

Degollación de S. Juan, *Doné Joané burutemana.*

<A letra>

ABSTENERSE. (...) como privarse de los manjares, de oír comedias, de murmurar, y así de otras cosas.

Abstenerse de.

ACA. Denota también y señala tiempo en que sucedió o se hizo alguna cosa, como desde un mes *acá*, desde tal suceso *acá*. Suélese anteponer la voz Después, diciendo: después *acá*, que vale lo mismo que desde entonces...

Después acá.
De un año acá.

ACCENTO. (...) Según los Latinos son tres los *acentos*, agudo, grave y circunflexo.

Acento agudo.
Acento grave.
Acento circunflexo.
Acequia madre.

AZEQUIA. (...) Las que se hacen para desaguar las tierras o hazas sembradas se llaman *azequias* madres.

<P letra>

PAGAR. Metaphóricamente vale satisfacer por el delito, culpa o yerro (...). Aunque me pongan en un palo me la ha de *pagar* fulano.

(Tú me la) pagarás, *gogoangodidac.*

PARCHAZO. (...) Tiene más uso en el sentido metaphórico, en las frases dar o pegar un parchazo, que valen engañar a otro en materia de interés, y también ponerle a alguno alguna nota que le desluzca.

(Dar o pegar un) parchazo, es engañar a otro en materia de interés, &c. Véase *engañar.*

PARECIDISSIMO, MA. Mui parecido.

(Es) parecidísimo a su padre, *chit aitaren antzeco da...*

PARIDA. (...) para servicio de la Virgen recién *parida*.

(Recién) parida, *erdiberría.*

PARTE. Hablando del tiempo (...) de poco tiempo a esta *parte* le reconocieron...

(De poco tiempo a esta) parte, *orañagotic.*

PARTE. Significa también la dependencia o conexión (...). Salen todos los muchachos y los pastores de ganado, de <i>parte</i> de noche, por los campos...	(De) parte de noche, <i>gabaz, gaubaz</i> .
PARTE. Usado como adverbio (...). Quantas veces sois con nosotros crueles, <i>parte</i> por recreo de vuestra inclinación feroz, <i>parte</i> con pretexto de cumplimiento de las leyes?	Parte por esto, parte por essotro, <i>beñ onegatic, berriz orregatic</i> .
PARTES. Se llaman assimismo los instrumentos de la generación.	Partes vergonzosas, <i>ezcutaquiac</i> .
PAZ. En el juego se toma por la igualdad del caudal u del dinero que se expone, de modo que no hai pérdida ni ganancia...	(Estamos en) paz, en el juego, <i>quito gaude, guera</i> .

4.4.3.1. Esapide berrien nolakoa

Hiru adibide multzoetatik aski gaia izan dezakegu, nik uste, *HH*-an oro har aurkituko direnak, usukoenak bederen, nolakoak izango diren igartzeko asmoz.

a) A-ko zehatz-nahiaren agerbide eder bat dugu ugari aurkitu ditugun "más" eta "demasiado/-damente"-z osatutako sarreretan (*acercarse, achicar, acia, aclarar*); berrizko, euskal ordain berezi baten kontu emateko bakarrik topatu dugun zerbait da (*cocer*). Ez dirudi gainontzeko letretan aditzari erantsitako *-ago* eta *-egi*-ko eratorbide automatiko hau berriro agertzen denik. Adizlagunekin ere antzeko zerbait gerta daitekeelako adibide bat dugu (*aceleradamente*).

b) Halaber, hasierako ezaugarria bide da aditz erazleak eranstea: *acabar, acalcar, acechar*.

c) Adjektiboen sarreren ostean agertzen diren "hacerse"-dun sarrerak, berriz, liburu guztiko gertakariak dira, apika: A letran (*acepto, aleve, acá*) zein P letran (*pardo*) azaldu zaizkigu. Gogora dezakegu, gainera, *Erans*-ean ere sarri xamar agertzen direla: *Común-Hacerse común, Cuidadoso-Hacerse cuidadoso, Decrépito-Hacerse friolento, Gafo de manos-Hacerse gafo, Ligero-Hacerse ligero*.

d) Esanahi orokorra mugatzen duten euskal hitz trinkoak: *kodeñatu, kodeñeaz epaki* "asserrar con sierra corva", *lapaztu, gazuratu* "acedarse la leche", *berakia* "palo de carbonero", *artoa* "pan de maiz", *taloa, galoa* "pan subcinericio", *erresa, naskia*, etab. "pan bazo", *zarrapela* "pan cocido...".

e) 'Taldea' edo 'multzoa' adierazten duten euskal hitz trinkoak: *lorra* "abesana mayor, muchas juntas de bueyes", *errotategia*, etab. "(paraje de muchas) aceñas".

f) *-zko* atzizkia: *oliozcoa* "(cosa de) aceite", *cobrezco, urraidazcoa* "(cosa de) cobre".

g) Lanbidea edota langilea: *olioquintza* "(este oficio de) aceitero", *olioquiñen ibilli, olioquintzan egon* "andar o estar en esse oficio"; *altzairuguiña, altzairugillea* "(Fabricador de) acero", *altzairuquintza* "(el oficio de fabricar) acero".

4.5. Sarrera errepikatuak

Alfabeto hurrenkerari buruzko desbideratzeak dauzkaten hiztegieta sarrera errepikatuak, hots, hitza bere lekuan eta lekuz kanpo agertzea aski normala da.²¹⁹ Larramendirena, beraz, halakorik gertatzeko eremu ezin hobea da. Hurrengo lerroetan *HH*-ko sarrera errepikatuen mota ezberdinak deskribatzeari ekingo diot baina, gertakari bakana izanik, batez ere *A*-tik kanpo, ohiko *corpusa* alde batera utzi eta *HH*-ko ibilaldietan harrapatutakoak izango dira iruzkinaren oinarria.

4.5.1. Aldaerak eragindako errepikapenak

Erdal grafiarekiko zalantzak zirela eta, *DAut*-ek bezalaxe jokatu zuen, nahiz hautapenak ez diren beti berberak, batzuetan aldaera hobetsira véase batez bidaliaz ("*Avutarda*, véase *abutarda*"), besteetan hobespena *de facto* eginez, haren kontu eman gabe (*HH*-an *abismo* vs *DAut*-en *abysmo*).

Gutxi batzuetan, bi sarrera agertzen dira, zein bere ordenan, eta ez dira biak nahitaez berdinak, ez eta, hala badagokie, familian jasotzen diren hitzak ere; ikus ditzagun halakoen adibide zenbait, buruan *DAut*-en hautapena, eta gero *HH*-ko aldaerak ezker-eskuin ezarrita:

AVERIA

Abería, es Bascuenze; significa gasto.

Avería, es palabra bascongada, y en el dialecto labortano significa gasto y en los otros pérdida, de *au ería*, esta enfermedad, indisposición, daño, y se aplican a otras cosas. *Averia*, *caltea*. Lat. Jactura, damnum.

AVESTRUZ

Abestruz, sayea. Lat. Struthi-Camelus, i.

Avestruz, sayea. Lat. Struthio-camelus.

²¹⁹ Halaxe Cawdrey-renean (Osselton 1989a: 167) eta Covarrubias-enean (Guerrero 1990: 139). F. del Rosal-en hiztegi etimologikoan (Carrasco 1992: 84), ikertzaileak hiztegiek bere ortografia ez normalizatzeari egozten dio hau.

HABIL

Abil, hábil, capaz, diestro, ingenioso para alguna cosa, *gay*, *ajutuá*, *cintzoa*, *entregú*. Lat. Habilis, aptus, idoneus. No es ábil para esso, *ezta orretaraco gay*. Para todo es ábil, *gustiraco da cintzoa*, *entregú*; *gucitaraco sortua*, *jayoa*. Demasiadamente, *gayeguiá*, *cintzo-eguiá*, *entregueguiá*.
Abilidad, *abilidadea*, *gaytasuna*, *cintzo-tasuna*. Fulano es de grande abilidad, *urlia da cintzotasun andícoa*. Lat. Ingenium, mentis solertia, acumen.
Ablitar a uno, *cintzotu*, *gay eguin*. Lat. Aptum, habilem efficere. Le han abilitado, *cintzotu*, *gay eguindute*.
Abilitado, *cintzotua*, *gay eguiña*. Lat. Aptitudine donatus.

ACAIRELADO. Adornado con cairel.

Acairelado, adornado con caireles, *cirpitz ederréz ertzatua*. Lat. Floculis fimbriatus, a, um.

ACINA. Véase Hacina.
ACINAR. Véase Hacinar.

Acinar, juntar dineros, hazienda, &c. *bildu*, *biribillatu diruac*, &c.
Acinar, *gabillatu*, *gabicotu*, *gabillac*, *gabicoac eguin*.
Acinado, *gabillatua*, *gabicotua*.
Acina, montón de haces, *gabillá*, *gabicoá*. Lat. Fascium congeries, ei.

HALAGADOR

Alagar, [h]alagar, acariciar, viene de el Bascuence *balacua*, *balacatu*, que significa acariciar.
Alagar, *balacatu*, *palacatu*, *maitatú*. Lat. Blandior, iris; demulceo, es.
Alagado, *balacatua*, *palacatua*, *maitatua*. Lat. Blanditiis allectus, exceptus, a, um.
Alagar más, *balacaagotu*, demasiado, *balacaeguitu*.
Alagado más, *balacaagotua*, demasiado, *balacaeguitua*.
Alagador, que alaga, *balacaria*, *palacaria*, *maita]t]zallea*. Lat. Blandiens, tis.
Alago, *balacua*, *palacua*, *maitapena*. Lat. Blanditiae, arum; blandimentum, i; illecebrae, arum.
Alagüeno, lo mismo que *alagador*.

ENVARAMIENTO

Embararse, (...) *latutu*, *latua guelditu*. Lat. rigore, torpore membrorum affici.
Embarado, *latua*. Lat. Torpore affectus.
Embaramiento, *latuera*, *latugoa*. Lat. Membrorum rigor, torpor.

Bestelako aldaerak ere eragin bera izan lezakete:

Hábil, *gai*, *cintzoa*, *entregu*. Lat. Habilis.
Habilidad, *gaiquera*, *cintzoera*, *entregudea*. Lat. Dexteritas, facilitas.
Habilísimo es, *chit da gai*, *cintzó*, *entregu*. Lat. Valde habilis est.
Habilitación, *gaitutzea*, *cintzotzea*, *entregutzea*. Lat. Habilem reddendi actio.
Habilitar, *gaitu*, *cintzotu*, *entregutu*, *gai eguin*, *cintzo eguin*. Lat. Habilem reddere.
Habilitado, *gaitua*, &c. Lat. Habilis redditus.

Acayrelado, bordado o hermoñado de cayreles, *ederqui ertzatua*, *ertz ederrez eguiña*, *estalia*. Lat. Taeniis fimbriatus, a, um.

HACINA

Hacina, (...) *gabilla*, *pillá*. Lat. Fasciculorum strues.
Hacinador, *gabillaria*, *pillaria*. Lat. Acervator.
Hacinar, *amontonar*, véase.

Halagador, *balacaria*, *palacaria*. Lat. Qui blanditur, mulcet.
Halagar, *balacatu*, *palacatu*. Lat. Blandiri.
Halago, es de el Bascuence *balacua*, *palacua*, que significa lo mismo. Lat. Blanditiae.
Halagüenamente, *balacutiró*, *palacutiro*. Lat. Blande.
Halagüeno, *balacutia*, *palacuduna*. Lat. Blandus.
Halagüero, antiquado, *halagador*.

Envaramiento, *latera*, *sorrera*. Lat. membrorum rigor: véase *embararse*.
Envararse, *latu*, *sortu*. Lat. membra rigescere, torpore affici.
Envarado, *latua*. Lat. Rigidus, torpore affectus..

ACOMBAR. Véase Combar.

Acombar, hazerlo combo, hueco, como hundido y arqueado, *zacondú, zocondú, macurtú*. Lat. Arcuare, curvare, fornicare.

Acombado...

Acombadura, *zaconá, zoconá, macurrá*; item *zacónera, zocónera, macúrrera*. Lat. Convexitas, tis; convexum, i.

Comba, *zacona, zocona, biurtza*.

Combadura, *zaconera, zoconera, biurrera*. Lat. Curvatura.

Combar, véase *acombar*.

4.5.2. Familiakako ordenak eragindakoak

Alfabeto hurrenkeraren kontrako desbideratzerik usukoenak, hitzak familiaka ordenatzeko joerak eragin zituen (§ 2.4.1). *DAut*-en joerarik indartsuena alfabetoari jarraitzea izaki, ez da harritzekoa inoiz bi lekuetan, alfabetokoa eta familiakoa, hitza ez eze sarrera osoa aurkitzea. Dena dela, honelako ale bakar bat baizik ez dut aurkitu; ikus daitekeenez, *DAut*-ek eskaintzen zuen bidalketa-deia sarrera bihurtuta ageri da *HH*-an:

FRITO, TA. part. pass. del verbo Freir en sus acepciones. Lat. *Frixus*.

FRITO, TA. part. pass. del verbo Freir. Véase Freir.

Freir...

Frito, *frigitua, sartaguitua, erragosia*. Lat. *Frixus, frictus*.

Fritada...

Frito, *erragosia, frigitua*. Lat. *Frictus*.

4.5.3. Bata bestearen ondoko errepikapenak

Elkarren osagarri dirudite bata bestearen ondoan errepikatuta agertzen diren ondoko sarrerok, batzuetan era ezberdinetakoa euskal ordainen kontu emateko (cf. *acordar* eta *acordarse*), besteetan, ziurrenik, hiztegitik geroago —eta sarrera zaharraren egitura apurta nahi edo ahal izan gabe— egindako eranskinak (cf. *acaudillar*, adibidez):

Abusar, usar mal, *gaizqui-usatzea, dongaró usatzea*. Lat. Abutor, oris. Abusa de sus bienes, de sus prendas, *bere ondasunaz, bere doaiñaz gaizqui, dongaró usatzen da; bere ondasunac, doaiñac gaizqui usatzen ditu*.

Abusar, *gaizqui erabilli*; abusa de sus bienes, *gaizqui dárabiltza, dárabiltzi beré ondasúnac*.

Acaso, preguntando, *nauasqui, noasqui, noasquiró, ausá, aujaz, menturaz*. Lat. An, utrum, num, nonne. Acaso no es tan sabio como el otro? *Noasquiro ezta bestea bezain jaquiña, jaquintsua?* Lat. An aeque sapiens non est atque alius?

Acaso, preguntando, *oté, eté*. Acaso será bueno? *Ona oté da?* Acaso vendrá? *Etorrico ote da?*

Acaudillar, *beré escúpean, aguindepean gendé diaren bat, gendetzaren bat quidatu, zuzendu, eraman*. Lat. Duco, is; ducto, as.

Acaudillar, *gendatzearen aguintaria izan*. Acaudilló las tropas de el Rey, *erreguearen gendatzea bere escupean quidatu zeuan, eraman ceuan; bere aguindepean zuzendu zuen; erreguearen gende diaren aguintari izandu zan*.

Acordar así, *acorda, acordatu, oroitu, comuta, comutatú*. Lat. Moneo, es; in memoriam revoco, as. Acuérdamelo, *oroit nazazu, comuta eguidazu, acaba zadazu*.

Acordar así, *acorderazo, oroiterazo, comutaerazo, acordaraci, oroitaraci, &c*.

Acordarse, *acordatu, oroitu, comutatu izatea*. Lat. Memini, isti. Me acuerdo, te acuerdas, se acuerda, *oroitzenaiz [sic], oroitzen cerá, oroitzen da*.

Acordarse, *gogoan iduqui*. Y se hazen con la voz *gogoan*, con toda elegancia, haziéndola verbal en el futuro, *gogoango*. Acordaréme de ti, *gogoango zaitut, &*

4.5.4. Errepikapen hurbilak

Batzuetan, sarrera bat alfabeto hurrenkeraren arabera dagokion lekuan eta oso hurbil dagoen beste batean errepikatuta agertzen da, eduki ezberdinekin. Balirudike halakoetan hiztegitilea ez dela errepikapenaz ohartu. Honen ale bat idoro dut:

Achicar.
Achicado.
Achicoria, véase *chicoria*, que es su nombre.
Achicharrar.
Achicharrado.
Achicharrador.
Achicoria, escarola silvestre, *osterchuria*. Lat. Cichorium, ii; intybus, i.

Azalpen korapilotsukoa izan arren, merezi du, nik uste, saiatzea, Larramendiren lan egiteko formarantz hurbiltzen gaitu eta. Hona nire ustez eman zituzkeen urratsak: 1) Kronologikoki lehena bidalketa-deia dateke, eta alfabetoaren arabera gaizki tartekatua izan zen; "que es su nombre" biribil horrek iradokitzen dit azkenean gauzatu ez zen etimologia batek eragin zukeela: cf. *chico* (< *txiki*) eta *zanahoria* (< *zana* + *horia*), adibidez.²²⁰ Gogora dezagun A letraren hasiera gorabeheratsuan gabiltzala; 2) Geroago euskal ordaina erdietsi zukeen eta, zalantzarik gabe *DAut* aurrean zuela,²²¹ sarrera arrunta eratu.

Ondokoa, berriz, 4.5.3. atalean ikusitakoan tankerakoa da; baliteke, beraz, inprimatzaileak leku okerrean txertatu izana:

(Por si) acaso, *baldin ere, baldindez*. Véase si. Lat. Si forte.
Acaso, casualmente...
(Por si) acaso, *bearbada ere*. Lat. Si forte. Por si acaso yo viniere, *bearbada ere etorte-ezpanaiz* [sic]. Esto lo digo por si acaso, *au diot, cerren orren*.

4.5.5. Esapideak

Inoiz esapide bat osatzen duten bi hitz nagusien azpian agertzen da:

	PIEDRA DE AMOLAR.
Amolar.	Piedra.
Amolado.
Amolador.	Piedra de amolar, <i>ezterá, zorroztarria</i> . Lat.
Piedra de amolar, <i>ezterá</i> . Lat. Cos, tis.	Cos, cotis.

Cf. oraindik ondoko agerraldia, adierazpidea zertxobait aldatuta, non esapidea lekuz kanpo dagoen, eransketa delako seinale:

Afilar.
Afilado.
Afilador.
Afiligranado.
Piedra de afilar, *ezterá, cimarría*. Lat. Cos, tis.

²²⁰ Nolanahi ere, *chicoria* sarrera dei hutsa da: "Chicoria, yerba, la misma que *endibia*, véase".

²²¹ Cf. bertako sarrera: "ACHICORIA. Lo mismo que escarola o endivia silvestre. Véase Escarola. Lat. *Cichorium* vel *cichoreum*. *Intybus*, *i* vel *intybum* vel *intubum*".

4.5.6. Inprentako hutsak

Oharkabeko errepikapenak, hutsegitezkoak ere badira; ikus ondoko adibidea, non inprimatzaileak bi sarrera nahasita, erdikoa sobran dagoen:

Haciacá, hacia acá, *ononz, unonz*, más haciacá, *ononzago, unonzago*.

Hacia allá, aciallá, *aronz, arunz*; más haciacá, *ononzago, unonzago*.

Hacia allá, aciallá, *aronz, arunz*; más aciallá, *aronzago, arunzago*.

4.6. Ondorioak

Sarreraren eduki osagarriaren murrizketa latzak (§ 3) nahikoa ongi azaltzen du hiztegi bien artean antzeman dugun tamaina aldaketa (§ 1.1), baina nomenklaturen erkaketak agerian jarri du horrezaz gainera maila honetan ere inausketa lana handia izan dela. Gutxi gorabehera *DAut*-eko sarreraren laurdena, adieren erdia, esapideen hiru laurdenak baino gehiago eta erretrauen %95 zeharo suntsitu dira *HH*-an; honekin batera, ereduko hainbat sarrera eta bigarren mailako hainbat adiera bidalketa-dei huts bilakatu dira. Honen aldean, gehiketa lana oro har hiztegi osoan zehar txikia da, nahiz ez mesprezagarria: *HH*-ko sarreraren eta adieren %2, eta esapideen %30 berria da.

Kenketaren azalezko arrazoia, *HH* eredia baino eskuragarri edota erabilerrazago bihurtzea izan zen. Gogora dezagun Larramendi honetaz harrotzen zela jadanik ezagutzen dugun pasarte batean (1745: xlv, § 1.1, 1. oh. aipatua). Izan ere, antzeman ditugun erabaki batzuk hiztegiaren tamainari dagozkio huts-hutsean: esanahikide hurbilak sarrera bakar batean bilduaz (§ 4.1.1.8) eta sarrera arrunten ordezkio bidalketa-deiak ugaltuaz (§ 4.3) hiztegiaren erabiltzailea gehiegi kaltetu gabe hiztegia txikiagotzea lortzen da, nabarmena denez. Halaz ere, azterketak maila guztietan item mota batzuk galkorrako suertatu direla erakutsi digu eta, hortaz, hautaketa lana irizpide trinko xamar batzuen arabera egin izan zela. Irizpide hauen interpretazioan, hain zuzen, aurki dezakegu Larramendik bilatu nahi izan zuen irakurlearen argazki xeheagoa.

Dagoeneko badakigu *HH*-aren erabiltzailegaiak ezinbestean gaztelaniaz alfabetaturikoak zirela (§ 1.4). Sarrera mailako kenketen ia erdiak, “ezohiko hitzak” deitu ditugunen, hitz zaharkituen eta germaniakoen artean zurriz direnez gero (§ 4.1.1.10), hiztegiak *DAut*-en eduki lexikografikoa batez ere norabide batean inausi zuela esan dezakegu: garai hartako hitzun neutro —dialektalistorik gabeko— eta jaso —baina ez jasoei— batek menperatzen ez zituen edo, ziurrenik hobeto, menperatu beharrik ez zuen hitzen aldetik. Beraz, *DAut* batzuetan gehiegizko eredu gertatu zitzaioela egin behar dugu, zeren eta Sevillan edo Murtzian, *Fuero Juzgo* edo kronika zaharretan, edota Quevedoren jolas poetiko batean bakarrik agertzen diren hitzak jasotzea, bestelako arrazoiak tartean ez izatera (etimologiak, adibidez), alferrikako lantzat jo baitzuen, eskuarki halako hitzek gaztelaniaz esanahikide arrunt ezagunagoak dituztela kontuan izanik. Asmo berberaren barruan ulertu behar dira eransketa anitz ere, *DAut*-ek alde batzera utzitako hitz zein adiera gutxi-asko normalak baitira (§ 4.4). Ez dezagun ahaztu oro har hiztegi elebakar orokorreko eguneroko

hizkuntzan bizirik zeuden hainbat hitz eta erabilera jasotzeko izan zuten atzerakuntza garai bereko elebidunen aldean (§ 1.4).

Erabiltzailearen argazkia hobe dezakegu aldaera ortografikoak jasotzea beste ziorik ez daukaten eransketen kopuru ez txikia aintzat hartuz (§ 4.4). Egia da Larramendi hiztegiaren zehar akademikoekin norgehiagokan dabilela, ortografia bateratu eta etimologizale berriaren aurka (§§ 3.4.9 eta, xehekiago, 6). Halaz ere, itxuraz behargabeko diruditen *abivar* edo *avivar*, *abechucho* edo *avechucho*, *abitar* edo *habitar* bezalako aukerak eta, batez ere, *abulto*, *a cada paso* edo *a cozes* bezalako esapideetarako zein bere A letrako tokian bidalketa-deiak eransteak iradoki dezake ezen Larramendiren borroka ortografikoa ez zela estetikoa bakarrik izan, praktikoa ere baizik: hitzaren etimologia latinoak zein grekoa, eta areago hitzaren edo sintagmaren idazkera arruntena bera ere beharbada ezagutzen ez zituen erabiltzailea gogoan zuela, alegia, eta ez Mayans bezalako jakitunik.

Orain artean berpasatu ditudan gertakari guztiak iturri-hizkuntzari dagozkio: hiztegiaren erabiltzailea zeren bila abia zitekeen eta hori aurkitzen laguntzeko eransketak, edota zeren bila ez bide zen abiatuko eta horren araberrako kenketak. Haatik, honelako gertakariak Larramendik egin zuen egokitze lanaren alderdi bat bakarrik argitzen dute. Gainerantzean xede-hizkuntzak agindu zuela esan beharra dago.

DAut-eko adierak batera (%60) edo asko jota bitara (%15) jaisteko erabakiak (§ 4.1.2), eskuarki ezohikoak eta guztiz esanahi hedaturakoak ezabatuz, euskaraz ordainak errepikatu beharra saihestu nahi izan zuela adierazten digu. Are esanguratsuagoa da esapideetan gauzatu zuen iraultza, *DAut*-ekoen %83 desagertaraziz eta *HH*-ekoen %30 erantsiaz (§§ 4.1.3 eta 4.4.3). Desagerpena hiztegia txikiago egiteko asmoari egotz badakioke ere, bistan da aldi bereko eransketak —proportzioan txikiagoa izan arren— beste zerbait aditzera ematen duela: euskaraz adierazpide egokia izan zezaketen gaztelaniarazko esapideekin bakarrik geratu eta gero, euskaraz era berezian esaten diren gauzak adierazteko eta gaztelaniarazko baliokide trinkorik ez daukaten euskal hitzei lekua egiteko esapide berriak —hazteko asko *ad hoc*-ekoak baino ez— gehitu zituen.

Modu berean epai daitezke honako gertakari guztiak ere: euskal hitzak izateagatik erantsitako zein euskaraz ordain ezberdinak eskatzeagatik bikoiztutako adierak (§ 4.4.2); euskaraz adierazpide berezia izateagatik *DAut*-en definizio zein adibideetan kausitu dituen zenbait sintagma zein joskerak baldintzatutako esanahia izateagatik zenbait adiera esapide bihurtu izana (§ 4.4.3); eta oro har izaeraz aldatu diren itemak (§ 4.2): esapideak adiera eta adierak esapide bilakatu dira, hiztegiak *DAut*-en aurkezpenari euskal ordainak argi azaltzeko ez egoki iritzi dion bakoitzean.

Interpretapen hau sendotzen da eransketetako zenbaitek, bereziki A letran, sistematikoak izateko joera daukatelako (§ 4.4.3.1): “aditza + *más*” eta “aditza + *demasiado*”, “*hacer* + aditza” edota “*hacerse* + adjektiboa” eransketa sistematikoek ez dute inolako zentzurik gaztelaniari begira, baina bai *handiagotu* eta *handiegitu* bezalakoak egiteko modua, aditz arazle

bereziak eta izenondotik aditzak eratortzeko erraztasun handia dauzkan euskarari dagokionez. Honen ildotik, *-dor* eratorrien eransketa ere, adibidez, gaztelaniazko nomenklatura osatu beharrak baino errazago, euskaraz *-tzaille* egiteko sentitzen zuen askatasunak azal dezake. Honelako guztietan, labur bilduz, euskarak hitzgintzan dituen baliabideak erakusteko eta ahalbideak garatzeko asmoa agertzen da.

Atal honetan jaso ditugun emaitzetan A letraren berezitasuna inoiz argien ageri zaigu: sarrera gehiago galtzeaz gain (%40, 1. liburukiaren %25aren eta 2. liburukiaren %20aren aldean; § 4.1.1), erantsi ere gehiago erantsi zaizkio (3,4 eransketa orrialdeko, corpus arruntaren 0,6koaren aldean; § 4.4.1), hala nola adierak (1,1 orrialdeko, corpusaren eta P letraren 0'3-0'4koaren aldean; § 4.4.2) eta esapideak ere (orrialdeko 2,6 vs beste bi laginen 1'7-1'9; § 4.4.3). Lehenago esan bezala (§ 2.5), hasieran beste era bateko hiztegia egin nahi izan bide zuen, *DAut*-etik bereziagoa. Atal honetan ikertu ditugun alderdiei dagokienez, berezitasunik handi eta esanguratsuen eransketa sistematikoen ugaritasuna eta maiztasuna da (§ 4.4.3.1): aditz arazleak, partizipioak eta aditzen bertsio iragangaitzak (*-se* aditzak) eta *-dor* eratorriak, besteak beste. Une batetik aurrera, berriz, kontuak aldatuaz doaz. Haatik, azterketak erakutsi digu ez direla beti berdin aldatzen.

Izan ere, 2. liburukia beti ere *DAut*-etik hurbilago ageri zaigu, A alde batera utzita ere, 1. liburukia baino. Har ditzagun adibidetzat partizipio eta eratorri kenduak (§§ 4.1.1.2 eta 4.1.1.3): corpuseko A letraren hiru orrialdeetan 17 partizipio (orrialdeko 5,7) eta 56 eratorri (or.ko 18,7) desagertu dira, gainerantzeko 6 orrialdeetan 52 partizipio (or.ko 8,7) eta 97 eratorri (or.ko 16,2), eta 2. liburukiko 8 orrialdeetan 4 partizipio (or.ko 0,5) eta 65 eratorri (or.ko 8,1) galdu diren bitartean. Dakusgunez, partizipioa ezabatzeko joera gora doa A-tik aurrera, baina bigarreanean ia hutsaren hurren bilakatzen da; eratorriak ezabatzekoak, berriz, A-tik aurrera pare bat puntu bakarrik galdu dituen bitartean, bigarreanean A letraren aldean erdia inguru baino ez da. Zenbat eta ereduak gertuago lanean ari, nabari denez, hainbat eta pentsatu behar gutxiago eta, hortaz, azkartasun gehiago: A-n hiztegiari eman zion jitearen handinahia, hainbat ezaugarritan ikusi dugunez, moteldu behar edo nahi izan zuen B letratik aurrera; bigarren liburukia hasterako-edo, berriz, bere buruari oraindik eskakizun gutxiago ezarri zizkion.

Euskal lexikografiaren historiarako daukan garrantziarengatik azpimarratu nahi nuke partizipioen eta *-se* aditzen desagertzea (§§ 4.1.1.2 eta 4.1.1.6), ezen erreferentzi hizkuntzen eta euskararen artean dauden asimetriek eragindako erredundantzien saihestean urrats bat izan baitzen, oraino txikia izanda ere. Partizipioetan urratsik handiena, ikusi berri dugunez, B letratik aurrera eta 1. liburukian zehar gertatu zen, eta itxurazko kontraesana —alegia, partizipio berriak agertzea (§ 4.4.1)— hausten da, denak A letran edo 2. liburukian daudela dakusgunean.

Bigarren kontraesan bat ere badugu: nolatan eratorriak kendu eta aldi berean erantsi (§ 4.1.1.3 eta 4.4.1)? Kontraesana batez ere A letran aurkitzen dugu: corpusean orrialdeko 18,7ko kenketa eta letra honen lehen 20 orrialdeetan orrialdeko 1,8ko eransketa somatu ditugu; kenketa 1. liburukian gorantz doa, baina eransketa oro har desagertzen da. Hau, azterketa zehatzagoaren zain geratzen bada ere, zuzenean lot daiteke, nik uste, “*más + aditza*”,

“*demasiado* + aditza” edo aditz arazleen zein erabilera iragankor eta iragangaitza daukaten aditzen kasuarekin: hasieran Larramendik, nonbait, erabat exhaustiboa —eta erabat pedagogikoa— zen hiztegi bat lortu nahi zuen, eta horretarako interesatzen zitzaizkion alderdiak sistematikoki lantzen zituen, interesatzen ez zitzaizkion zenbait alde batera uzten zituen bitartean. Geroago asmoari utzi behar izan zion, bukatzeko premiak edo gogoak eraginaz inolaz ere, eta gutxi batzuetan izan ezik, kenketa joera garaile atera zen. Alabaina, aldaketa hau erabaki pisutsuago baten ondorioa ere izan daiteke: errepikapenaren errepikapenak gogaituta-edo, une batetik aurrera erabaki bide zuen gramatikaren eta hiztegiko gainerako eduki zehatzaren bitartez edozein euskaldunek, behar izatekotan, arazorik gabe berak irekitako bidetik aurrera egin zezakeela, batzuetan behintzat.

Amaitzeko, zertxobait ikasi dugu Larramendiren lan egiteko formaz sarrera errepikatuei eta bidalketa-deiei esker (§§ 4.5 eta 4.3). Halako maiztasun batez hitz baten bi aldaera (ortografikoak batez ere) zein bere lekuan eta zein bere euskal ordainekin agertzen dira, eta ordainak ez datoz beti bat; badirudi, beraz, aurrera ahala aurrera aritu zela, honelako bikoiztasunak uxatzeko beharrezkoak diren frogantzak egin gabe sarri; antzeko ondorioetara iritsi gara inora ez daramaten bidalketa-deien kasuan (§ 4.3.4). Halaber, badira egilearen beranduagoko eransketak izateko itxura daukaten errepikapen batzuk, baina ez dago jakiterik, originalik ez dugunez gero, eskuizkribuzkoak ala inprenta-probetakoak diren. Dena dela, Larramendik ez zuen hartu sarrera berrantolatzeke astirik, eta bata bestearen jarraian utzi zituen, elkarren osagarri; antzeko azalpena eman behar zaie, dudarik gabe, bidalketa-dei hutsak egiteko ohitura hautsiaz deia eta euskal ordaina daramatzaten sarrerei (§ 4.3.1.1). Areago, batzuetan eransketa lekuz kanpo egin izan da, eta honek badirudi berresten duela inpresoreak eransketak ongi kokatzeko arazoak izan zituela (§ 2.4.11), baina, ikusiak ikusirik, baliteke Larramendik arretarik gabe erantsi izana.

5. Gaztelania (II): Azalpenak

HH-aren erdigune eta xede den euskal zatira iristeko bitartekoa, ikusten ari garen bezala, *DAut*-etik zuzenean hartutako gaztelaniazko nomenklatura da, batik bat. Haatik, gaztelaniazko zatia ez da buru-hitzean amaitzen, edo ez beti behintzat. Gure corpuseko 891 sarreretatik 418k (%46,9) *input* bakuna daukate, hots, gaztelaniazko hitz edo esapide bakar batez²²² irekitzen zaie bidea euskal ordainei. Ezberdinak direnetatik batzuk jadanik ezagutzen ditugu:

- a) 133 bidalketa-deiak baino ez dira (§§ 4.3.1.4 eta 4.3.1.5); eta bat, sarrera normal batean buru-hitzaren aldamenean agertzen den bidalketa-deia (§ 4.3.1.1).
- b) 14 dagokien lekutik kendu eta familiako esanahikide baten ondoan agertzen dira (§§ 4.1.1.8 eta 4.1.3). Hemen, horretaz gaineko ezer ez daukatenak (13 orotara) ez ditut berriz hartuko.
- c) 5ek aldamenean gramatika-kategoria adierazita daramate (§ 3.3.1); alabaina, haietatik 3 bakarrik ez dira dei hutsen taldean jadanik zenbatu.
- d) 2k 'aditza + -se aditza' egitura daukate (§ 3.3.3.1).

Eta hauetaz gainera honako hauek alde batera utzi behar ditugu hemen:

- e) 18k sarrera-hitzaren ondoan azalpen etimologikoa daramate.
- f) 2 ez dira benetako hiztegi-sarrerak, Larramendiren oharrak baizik (baina "nota" izenik gabe; § 3.3.3.3), grafikoki haietatik bereizten ez diren arren.

Orotara, beraz, 301 sarreraren, corpusaren herenaren kontu emateko dugu atal honetan (ik. 3. eranskina). Sarrera hauen berezitasuna, buru-hitzaren aldamenean azalpenen bat eramatean datza, eta nire aztergaiak, azalpenok nolakoak diren, zertarako balio duten eta nondik hartu dituen izango dira.

²²² Birritan, bi esapide batera azaltzen dira *input*-ean: batean, ereduko bitik bat egin du (ik. § 4.1.3); bestean, ereduan zetorren horrela: "Al cabo al cabo, al cabo y a la postre" < "Al cabo, o Al cabo al cabo, o Al cabo y a la postre".

5.1. Azalpen motak

Era anitzetako azalpenak kausi ditzakegu aztertutako corpusean, baina gehien-gehienak 3tan bil daitezke: definizio perifrastikoak (§ 5.1.1; eranskinean izarraz markatuak), definizio sinonimikoak (§ 5.1.2; eranskinean gurutzeaz) eta zehaztapenak (§ 5.1.3; eranskinean “&” zeinuaz). Talde berezi batean ezarri ditut, berriz, aurreko sarrera bati buruzko erreferentziak (§ 5.1.4). Ikus ditzagun orrialdeko, sarrera kopuru orokorraren aldamenean, mota bakoitzaren eragina eta portzentaiak:

		1	2	3	4
<l, 6>	28	6 (%21,4)	0	3 (%10,7)	6 (%21,4)
<56>	47	19 (%40,4)	4 (%8,5)	3 (%6,4)	0
<106>	50	6 (%12)	3 (%6)	10 (%20)	0
<156>	46	10 (%21,7)	3 (%6,5)	7 (%15,2)	0
<206>	62	5 (%8,1)	6 (%9,7)	5 (%8,1)	3 (%4,8)
<256>	56	2 (%3,6)	2 (%3,6)	2 (%3,6)	0
<306>	53	5 (%9,4)	5 (%9,4)	2 (%3,8)	0
<356>	68	3 (%4,4)	3 (%4,4)	8 (%11,8)	0
<406>	38	2 (%5,3)	5 (%13,2)	8 (%21,1)	0
<ll, 21>	63	2 (%3,2)	1 (%1,6)	3 (%4,8)	0
<71>	43	8 (%18,6)	3 (%7)	3 (%7)	0
<121>	58	9 (%15,5)	4 (%6,9)	4 (%6,9)	0
<171>	59	3 (%5,1)	7 (%11,9)	18 (%30,5)	0
<221>	45	7 (%15,6)	8 (%17,8)	9 (%20)	1 (%2,2)
<271>	57	14 (%24,6)	3 (%5,3)	10 (%17,5)	2 (%3,5)
<321>	59	4 (%6,8)	5 (%8,5)	11 (%18,6)	1 (%1,7)
<371>	59	9 (%15,3)	5 (%8,5)	2 (%3,4)	0
OROT.	891	114	67	108	13

Azalpen mota hauen banaketa corpusean zehar aski irregularra da: honek iradokitzen digu sarrera-hitzaren nolakoak zerikusi handia izan duela. Halaz ere, joera batzuk antzeman daitezke: (1) definizio perifrastikoak A letran bestetan baino sarriago agertzen dira; (2) esanguratsua izan daiteke, halaber, 6. orrialdean definizio sinonimikorik ez agertzea; (3) zehaztapenak hiztegiaren bukaera aldera nagusitzen dira; eta (4) erreferentziak A letraren hasieran maizago baliatu bide zituen.

Ikus dezagun orain sarrera azalpendun hauen eragina oro har orrialdeko:

<l, 6>	28	15 (%53,6)	<ll, 21>	63	6 (%9,5)
<56>	47	26 (%55,3)	<71>	43	14 (%32,6)
<106>	50	19 (%38)	<121>	58	17 (%29,3)
<156>	46	20 (%43,5)	<171>	59	28 (%47,5)
<206>	62	19 (%30,6)	<221>	45	25 (%55,6)
<256>	56	6 (%10,7)	<271>	57	29 (%50,9)
<306>	53	12 (%22,6)	<321>	59	21 (%35,6)
<356>	68	14 (%20,6)	<371>	59	16 (%27,1)
<406>	38	15 (%39,5)			
		OROTARA			302 ²²³

²²³ Adierazi dugun baino sarrera bat gehiago agertzen zaigu, sarrera misto bat daukagulako.

Neurri batean bederen, honen argitara irregulartasunaren kontu eman dezakegu: (1) bi sakonuneak (256 eta 21. or.) DE- eta IN- hasieradun hitzei dagozkie, zati on batean azalpen berezirik behar ez duten aurrizkidunei, hain zuzen; (2) erpinak hasieran (A letran, espero bezala) eta bukaera aldera (171, 221 eta 271. or., P-R-S letrak) agertzen dira; bukaerakoentzat ez daukat oraingoz azalpenik; (3) gainerakoetan, portzentaia gehienak %20-40 barru nasaian murgiltzen dira.

5.1.1. Definizio perifrastikoak

5.1.1.1. Forma

Definizio perifrastiko gehienak zuzenean ematen dira, buru-hitzarekiko loturarik gabe, era honetara: “Abonar, dar por bueno”. Haatik, inoiz edo behin loturako aditza ager daiteke; honako 6 hauek bakarrik aurkitu ditut (ohartu *ser*, *significar* eta *llamarse*-k²²⁴ bina adibide lortzen dituztela):

Cabos, en el vestido *son* todo lo que no es la tela principal.
 Evangelio, *significa* buena nueva.
 Mañoso, (...) *significa* en Bascuence al que tiene mañas e impertinencias.
 Obsidiana, *se llamaba* una piedra negra que servía de espejo, y ya no se halla.
 Tañer de occisa, en la Montería, *es* avisar con la bocina, estar muerta la res.
 Sangradura, sangría, *se llama* la parte de el brazo que se dobla y sangra.

Bidalketa-deietan jadanik ezagutu ditugun bestelako loturak ere (guztiz *lo mismo que*) ager daitezke:

Assentada, <i>lo mismo que</i> vez.	Maravillosamente, (...). <i>Lo mismo es</i> a las
Assentar, <i>por</i> tomar o dar asiento.	mil maravillas.
Al cabo, al cabo de, <i>lo mismo que</i>	Salve, <i>lo mismo que</i> Ave.
después de.	Veta, <i>lo mismo que</i> vena, véase.
Interposita persona, (...) <i>lo mismo que</i>	
interlocutor.	

Ondokoak, berriz, oso antzekoa den zerbait aipatzeko balio du: “Sandáracas, especie de rejalgas”.

Izenek, eskuarki, artikulurik gabeko definizioa daramate; hona hemen adibide batzuk:

Aborrecible, objeto digno de	Cochío, calidad de cocerse bien...
aborrecimiento.	Maraña, abundancia de maleza.
Alexijas, puches que...	Raqueta, juego de pelota...
Cabial, manjar de huevos de pescado.	

Dena dela, gutxi batzuetan erregela apurtu egiten da:

²²⁴ *llamar* aditzarekin atal honetan erdizka baizik ezin sar daitekeen beste adibide bat dugu: "Pieza de artillería, yo la llamo...", jadanik hitzaurrean aitortutako hiru hitz berrietatik baten —*sutumpa*-ren— aurkezpena egiteko, hain zuzen.

Alferez, *el* cabo que lleva la vanderá.
Algalia, *el* sudor del gato de algalia.
Cabezada, *el* golpe de cabeza.
Coca, *una* hoja que mascan...
Mañana, *el* día siguiente.
Oca, *una* raíz dulce...

Ocal, *el* capullo que forman...
Occipital, *un* hueso del colodrillo.
Ochava, *la* octava parte.
Raqueta, *la* pala de red.
Sangraza, sanguaza, *la* sangre aquosa.

Adjektiboetan, osterá, erlatibozkoaz azaltzen direnean, artikulua eraman dezakete zein ez:

Mañero, *el* que tiene maña.
Mañoso, *el* que tiene maña...

Obsoleto, que ya no está en uso.
Temeroso, que causa miedo.

Definizio gehienak sarrera hitzaren ondo-ondoan agertzen dira; hirutan bakarrik aurkitu ditut sarreraren bukaeran, hirurak jadanik aipatuak: *interposita persona*, *mañoso* eta *maravillosamente*. Eta behin bitan banatua, hasieran zehaztapena eta bukaeran sinonimo baten eskaintza perifrastikoa: “Coca, yerba, (...). Los Boticarios la llaman *Coco de Levante*”.

5.1.1.2. Edukia

Nahiz edukia ia beti *DAut*-en zordun izan, gero ikusiko dugun bezala, Larramendiren definizioak —oro har hiztegi elebidun batean espero bezala— anitez laburragoak dira. Hasteko, jadanik entziklopedi informazioaz mintzaterakoan (§ 3.4.1) azpimarratu dut halako berriak eskuarki *HH*-ko sarreretatik desagertu egin direla; izan ere, ezer gutxi —adibide bakar bat— agertzen da gure corpusean: “Alexijas, puches que se hazen de cevada, agua y sal (...); se venden en Andalucía”. Halako informazio mota, batez ere definizio zehatzagorik ematerik izan ez duenean edireten da,²²⁵ eta inoiz definizio osoa hartakotzat jo daiteke:

Cabezuela, yerba de que se hazen escobas.
Coca, una hoja que mazcan [sic] los Indios y la chupan.
Obsidiana, se llamaba una piedra negra que servía de espejo, y ya no se halla.
Oca, una raíz dulce de el Perú.
Sándalo, árbol de Indias cuya madera es medicinal.

Bestalde, corpuseko lehen orrialdeetan aurkitzen ditugun definizio luzeak

- <6> Abominar, tener horror, aborrecer y ofenderse mucho de una cosa (2 lerro ken 5 karaktere).
Abordar una nave a otra, u con otra cosa, acercarse, pegarse borde con borde (2 lerro gehi 5 karak.).
- <56> Alexijas... (ik. *supra*; 2 lerro gehi 5 karak.).
Alferecía, enfermedad convulsiva que inutiliza y turba las acciones animales (2 lerro gehi 3 karak.).
Alfombrilla, enfermedad a manera de sarampión y con manchas (2 lerro ken 8 karak.).

bakanago eta oro har laburxeago baizik ez dira gainerakoetan agertzen:

- <156> Cabezal, colchoncillo largo y angosto en que duermen los labradores (2 lerro ken 6 karak.).
- <71> Marbete, pedacito de papel que ponen a los extremos de las piezas de paño, &c. (2 lerro gehi 3 karak.).
- <121> Obsidiana... (ik. *supra*; 2 lerro).
Tañer de occisa, en la Montería, es avisar con bocina estar muerta la res (2 lerro).
- <271> Sangradura, sangría, se llama la parte de el brazo que se dobla y sangra (2 lerro ken 7 karak.).
- <321> Templanza, virtud que modera el exceso de sentidos y apetitos (2 lerro ken 11 karak.).

²²⁵ Dakusgunez, definizio ahulak landareetan batik bat agertzen dira, baina itxura denez baita harrietan ere bederik; susmatzekoa da, beraz, Lehen Erreinuaren ere antzekoak izango ditugula.

5.1.2. Definizio sinonimikoak

Zehatzak eta batez ere laburrak, esanahikideen (edo, esapideen kasuan, esapide baliokideen) bidezko definizioak egokienak bide dira *HH* bezalako hiztegi eleaniztun baterako. Alabaina, Larramendik perifrastikoak baino nahikotxo gutxiago (67/113) erabili zituen, baliatzen ari naizen laginaren arabera, ziurrenik ereduak berak hartaraturik. Gehienetan esanahikide bakar bat aski da, nahiz ez diren falta bi daramatzen sarrerak ere ($12/67 = \%17,9$):

Alesnar, alisar, bruñir.	Embarbascarse, trabarse, enredarse.
Assí que, y assí, y por esso.	Guaya, lloro, lamento.
Cabezudo, terco, porfiado.	Pieza, sala, aposento.
Cabida, entrada, amistad.	Ras con ras, junto, pegante.
Cobro, seguridad, resguardo.	Rascar, refregar, frotar.

Haietatik bi, ordea, bereziak dira, esanahikideak juntagailuz lotuta baitaude, lehena hautakariaz eta bigarrena kopulatiboaz: "Pié, tronco u árbol" eta "Raro, extraordinario y tal qual".

5.1.3. Zehaztapenak

Batzuetan, buru-hitzaren aldamenean agertzen dena ez da definizioa, esanahia mugatzen edo zehazten laguntzen duen xehetasun bat baizik; corpusean honelakoak definizio perifrastikoen ia parean dabilta kopuruaren aldetik. Zehaztapen motak anitz dira; usukoenek (orotara 71, $\%65,1$), esanahia izenlagun edo adizlagun baten bitartez zehazten dute;²²⁶ sarrien agertzen denetik hasita aipatuko ditut:

<i>de</i> preposizioaz (orotara 36)	<i>Abono de tierras, sembrados, huertas, &c.</i> <i>Assessor de juez lego.</i> <i>Cabezadas de el que duerme.</i> <i>Cabezada de mula o caballo.</i> <i>Cabezal de sangría.</i> <i>Cabezón de camisa.</i> <i>Cabo de cuchillo, &c.</i>
<i>en</i> preposizioaz (16)	<i>Abonado en hacienda.</i> <i>Aletas, en los pezes.</i> <i>Cabra, cabrilla en las piernas.</i> <i>Cocer en agua.</i>
osagarri zuzenaz, edo subjektuaz inoiz (13)	<i>Abonanzar el tiempo.</i> <i>Assentar pazes.</i> <i>Assentar piedras preciosas los plateros.</i> <i>Assestar artillería, &c.</i>
<i>a</i> preposizioaz (3)	<i>Deferir al juicio o dictamen de otro.</i> <i>Rapto a la cabeza.</i> <i>Salvarse, al Cielo.</i>
<i>para</i> preposizioaz (2)	<i>Cochinilla, para teñir.</i> <i>Cocimiento, para curar.</i>
<i>con</i> preposizioaz (1)	<i>Asserrar con sierra o sobre sierra corva.</i>

²²⁶ Hurrengo atalean ikusi ahalko dugu *DAut*-en sarrera bakunen orde zehazten direla eta, hein handi batean bederen, hango definizioetatik ateratakoak direla.

Adierazpide hauek adiera bereko hitzetan errepika daitezke, nahiz, daukagun adibide bakarrean bezala, bata bestearen ondoan doazen:

Rapto *de muger*.
Raptor *de muger*.

Halaber, buruaren gramatika kategoriaren arabera zeini berea egoki dakioke; gure adibideetan, gainera, bi hitzen artean lerrokada gehiago daude:

Asseguración (...). <i>De una paga</i> .	Guarnecer <i>plazas, vestidos</i> .
...	...
Assegurar, (...). <i>Una paga</i> .	Guarnición <i>de plaza, vestido, espada</i> .
Assentador <i>de cantería</i> .	Rasadura <i>de medidas</i> .
...	...
Assentar <i>en la Cantería</i> .	Rasar <i>las medidas</i> .

Amaitzeko, adiera zehazten duen sarrera nagusiak definizio perifrastikoa eraman dezake, eta gainerakoek, berriz, hari buruzko erreferentzia laburtuak:

Templador *de afectos, apetito, &c*.
...
Templanza, *virtud que modera el exceso de sentidos y apetitos*.
...
Templar *apetitos, &c*.

Mota ezagunago bat, hitza zein arlotakoa den (oso zentzu zabalean)²²⁷ jasotzen duena da; honelako 24 ale (%22) agertzen dira; adibidez:

Ethiopide, <i>yerba</i> (ik. <i>euphrasia</i> ere).	Maravilla, <i>flor</i> .
Cochinilla, <i>insecto</i> .	Pié <i>de liebre, planta</i> .
Esturión, <i>pescado</i> .	Piedra <i>infernál, cáustico</i> .
Ethesios, <i>vientos</i> .	Salvia, <i>mata</i> .
Eubolia, <i>virtud</i> .	Sambuca, <i>instrumento músico</i> .
Eucharistía, <i>sacramento</i> .	Sandalia, <i>calzado</i> .
Euphorbio, <i>árbol</i> (ik. <i>guindal</i> ere).	Templarios, <i>Orden de Caballería</i> .

la beti ikusi bezain hitz gutxikoa da; salbuespen bakarrak deskribapen zertxobait zehatzagoa ("Alfaneque, *ave de rapiña*", "Degolladero, *parte del cuello*", "Evangelio, *sagrada Escritura*", "Guincho, *ave marítima*", "Guayaco, *árbol de Indias*",²²⁸ "Rascador, *adorno de la cabeza*", "Tembleque, *adorno de la cabeza*"), bi batean ("Alfónsigo, *alhócigo, árbol y fruta*"), loturazko aditza ("Pié *de gallina, (...); es una planta*") eta *cierto* zehaztaile indefinitua²²⁹ ("Sánalo todo, *cierto emplasto*") agertzen denekoak dira.

Jadanik %87,1era iritsi garenez gero, bistan da gainerako zehaztapenek oso adibide gutxi eskaini dituztela; hona hemen direnak:

²²⁷ Oso interesgarriak dira Quemada-k (1967: 418-424) honelako definitzaileez egiten dituen iruzkinak.

²²⁸ Agerian dago gorago azpimarratu ditugun definizio perifrastiko ez zehatzetatik oso gertu dagoela azken hau.

²²⁹ *Cierto* dela eta, jakingarria da Moliner-ek (1988, s.v.) dioena: "...su empleo se hace necesario en algunas definiciones: definiendo "moaré" como "tela de seda", puede interpretarse que ese nombre es aplicable a cualquier tela de seda; es necesario decir 'cierta tela de seda' para que no ocurra así".

a) Sarrera-hitza zehaztapenaren parte izatea; zehaztapena bainoago bigarren zatia, batzuetan bederen, benetako sarrera da, eta sarrera-buruan esapide edo kolokazioaren hitzik garrantzikoena, hots, alfabetikoki zeren arabera ordenatu behar den eta hori agertzen da:

Cocer, medio cocer.
Oca, juego de la oca.
Ocal, pera, manzana ocal.
Salve, oración de la Salve.

Erans-ean berbera adierazteko beste bide bat —erredundantziarik gabekoa— aurkitu zuen: “Andar (modo de)”, “Bartholomé (San)”, “Bastón (afirmarse en el)”, “Caer (hacer)”, etab. Halaz ere, *HH*-ko adierazpidearen adibideak oraindik ere ugari daude: “Cierto, de cierto”, “Cobro, dar cobro”, “Decir, qué decir”, “Disgusto, a disgusto”, etab.

b) Zehaztapen gramatikala:

Assí que, denotando tiempo.
Obstante (...) quando no se le añade que.
Obstante, siguiéndose plural.

Sail honen barruan sartu behar dira gramatika-kategoria adierazita daramaten haiek ere (ik. § 3.3.1).

c) Zehaztapen morfologikoak:

A los piés de v.m. (...) *si es estar*; (...) *si es echarse*.
Echar las cabras a *otro*.
Mañana, *la mañana*.²³⁰

d) Adjektiboari aldean eraman ohi duen izena —kolokazioaren oinarria (Hausmann 1989: 1010)— eranstea: “Intimo *amigo*”.²³¹

5.1.4. Aurreko sarrera bati buruzko erreferentziak

HH-ko sarrerak ez dira nahitaez beregainak: adierakako antolakuntzak (ik. § 2.4.7.1), batez ere aditz multzoetan, forma zenbaiten esanahia eman beharra saihesteko aukera eskaintzen du. Hau bereziki nabarmena da partizipioetan, eskuarki dagokien aditzaren ondo-ondoan agertzen baitira, dakigunez. Ondorioz, hiru sarrera molde izan ditzakegu: alde batetik, infinitibo azalpendunaren gerizapeko lekuaz beste ezertaz adiera agertzen ez dutenak edota infinitiboaren azalpen bera (edo haren laburpen bat) daramatenak; ondoko adibidean, adiera bakoitzean esandako molde baten adibidea dugu:

Rasgar, romper.
Rasgado.
Rasgar, rasguitar la guitarra...
Rasgado, rasgueado.

²³⁰ Horrela izena dela adierazten du, aditzondotik bereizteko.

²³¹ Corpus zerrendatuan ikus daitekeen bezala, *DAut*-ek *íntimo* bakarrik jasotzen du buruan.

Bestetik, eta hauxe da atal honen xedea, aurreko sarreraren erreferentzia hitz estandar batez, batez ere *assí*-z (13 adibidetatik 12tan), adierazita daukatena; esate baterako:

Cocer.	Rascar la sarna u otra cosa que pica.
Cocido.	Gana de rascarse <i>assí</i> .
Cocer en agua.	Salvar, dando la Gloria eterna, que es propio de Dios.
Cocido <i>assí</i> .	Salvado, salvo <i>assí</i> .
Cocer demasiado.	Sangrar, abrir la vena.
Cocido <i>assí</i> .	Sangrado <i>assí</i> .
Cocer, medio cocer.	Templar, apetitos, &c.
Cocido <i>assí</i> .	Templado <i>assí</i> .

Baliabide hau, antza denez, hiztegiaren hasieran maizago erabili zuen eta, gure corpusaren arabera, orduan bakarrik adiera bereko hitz bat baino gehiago harrapa dezake: 13tik 6 adibide 6. orrialdean kausitzen ditugu, bi segida batekoak eta beste laurak bestekoak; ohartu, halaber, normalduta ez dagoen adierazpide bakarra (*en este sentido*) ere bertan daukagula:

Abonar, dar por bueno.	Abono de tierras, sembrados, huertas, &c.
Abonado <i>assí</i> .	Abono <i>assí</i> , en particular de fiemo, de estiércol, &c.
Abono, <i>en este sentido</i> .	Abonar <i>assí</i> .
	Abonado <i>assí</i> .
	Abonador <i>assí</i> .

5.2. Azalpenen etorkia

HH-ko sarrera gehienak *DAut*-etik hartuak diren bezalaxe, sarrera-hitzari dagozkion azalpenak ere bertatik izan ohi dira. Alabaina, *DAut*-en definizioak era askotakoak dira, sinonimo hutsetatik gauzaren deskribapen batzuetan oso luzeak ematerainokoak.

Eranskinean parean jarri ditugu bateko eta besteko lekukotasunak, *DAut*-en zutabean, labur beharrez, *HH*-koa ulertzeko premiazkoena baino ez jasoaz eta sarrerak edota azalpenak bertatik ez datozenean marra bat ezarriaz. Orotara, *HH*-aren eremuan oinarriak aurkitzen ez dutenak 44 (%14,6) baino ez dira.

Egiaztatzeko talderik errazena, definizio sinonimikoena da. 67tatik 50 (%74,6) zuzenezuzenean *DAut*-eko sarreran eskaintzen diren aukerak dira, eta haien artean guztiz azpimarragarriak dira bi esanahikidedunak (ik. gorago § 5.1.2), 12tik 9tan (*alesnar*, *cabezudo*, *cabida*, *cobro*, *embarbascarse*, *guaya*, *pié*, *pieza* eta *rascar*) biak *DAut*-ekoak baitira; batean (*raro*), bietatik bat bakarrik. Osterantzean, 5 aldiz *DAut*-ek eman definizioa hitz baliokide batez ordezkatuta dakusgu *HH*-an:

CABO. El extremo de las cosas...	Cabo, extremidad.
DEFENDEDERO, RA. Todo lo que se puede defender...	Defendedero, defendible.
EMBARCACION. Qualquier género de nave que...	Embarcación, navío.
MAÑERO. Significa también fácil de tratarse...	Mañero, tratable.

PICOTERO, RA. adj. que se aplica a la persona que habla mucho...	Picotero, hablador.
PIEDRA. Se llama también al agua congelada que cae de las nubes...	Piedra, granizo.

Egokitze-lana, hain zuzen, oso nabarmena da halakoetan: *DAut*-ek eskaini aukera anitzetatik bakar batekin geratu da sarri; adib.:

ALEVE. Vale lo mismo que infiel, desleal, pérfido, alevoso y traidor.	Aleve, traidor.
COARTAR. Limitar, estrechar, restringir, no conceder enteramente alguna cosa.	Coartar, limitar.

Eta gehienetan (ik. salbuespenak gorago, § 5.1.1.1) esanahikidea edo baliokidea besterik ez du hartu, *DAut*-eko aurkezpen hitzak (*significa también*, etab.) eta beharrezko ez den informazioa ezabatuaz; adib.:

ASSENTAR. Significa también anotar y escribir alguna cosa para que no se olvide, de donde tomaron la denominación los libros de asiento.	Assentar, anotar.
EMBALLENADOR. El que hace los jubones y otros géneros de trages y vestidos mugeriles, afianzados con pedazos de barbas de ballena, para que estén estirados y fuertes, que modernamente, con la variedad de los trages, llaman Cotillero.	Emballenador, cotillero.
ETHICA. La parte de la Philosophía que pertenece a las costumbres, y por otro nombre se dice Philosophía moral.	Ethica, philosophía moral.
MAÑEAR. Disponer con maña y artificio alguna cosa para lograr el buen suceso de ella.	Mañear, disponer.

Zehaztapenetan, adizlagun edo izenlagun batez eraturako 71etatik 58k (%81,7) ereduan dute azalpen argia; beste 4, berriz, normalean baino aldatuago daude, zehatzago edota argiago (baina beti laburrago) bihurtzeko asmoz:

Hombre <i>abonado</i> . El que tiene crédito y caudal bastante para que se le fie qualquiera negocio de interés y su manejo.	Abonado en hazienda.
INTERROGACION. En la Gramática, es una apuntación que se pone en el lugar donde el Autor habla preguntando, a fin de que el lector eleve la voz y la varíe. Señálase con una s vuelta al revés y un punto debaxo en esta forma ?.	Interrogación, interrogante, en la ortographía.
PIE. Se toma también por la parte inferior de alguna cosa, sobre que está lo demás.	Pié, de montaña, &c.
Al <i>pié</i> . Modo adverb. que vale lo mismo que con cercanía o inmediación a alguna cosa: como Al pié del árbol, Al pié del monte.	Al pié de un roble, &c.

'Taldea' adierazten duten 24 zehaztapenetatik, berriz, 23 hitzez hitz edo ia, *DAut*-etik hartuak dira; salbuespen bakarra "*Evangelio*, Sagrada Escritura" da, baina jadanik badakigu *HH*-an bikoiztu den ereduko sarrera batetik aterea dela (§ 4.4.2).

Zehaztapenak, oro har, definizioa saihesteko biderik eroso, eraginkor eta laburrena izan ohi dira; ikus ditzagun adibide zenbait (Larramendik erabilitako zatia *DAut*-en etzanetan jarri dut):

ALETAS. Se llaman <i>en los peces</i> aquellas palas que tienen en los costados, con las cuales se mueven hacia la parte que quieren: y se llaman así por la semejanza con las alas de las aves.	Aletas, en los pezes.
ASSENTADOR. Term. <i>de Cantería</i> . El oficial que assienta las piedras de sillería en las obras que se hacen de este material.	Assentador de cantería.
ESTURION. <i>Pescado</i> mui regalado y sabroso, que tiene las escamas al revés de los demás, vueltas hacia la cabeza, y nada siempre contra la corriente de las aguas.	Esturión, pescado.
PIERNA. Se llama el muslo del animal en la Carnicería: y también el del ave. Lat. Cora carnea. GRANAD. Art.de Cocin. f.12. Desta manera es mui sabrosa la carne de la <i>pierna del carnero</i> .	Pierna, de carnero, &c.

Azpimarra daiteke, batetortze nabarmenez gain, Larramendiren zehaztapenen iturri inoiz adibideak ere izan daitezkeela (cf. *pierna*).

Sail honetako beste berezitasun bat, adiera batuketak dira: *HH*-ko "Guarnecer, plazas, vestidos" *DAut*-eko birena da, "Guarnición de plaza, vestido, espada" hirurena eta "Guía, de danzas, juegos, &c." beste birena.

Definizio perifrastikoen artean, azkenik, 113tik 9 besterik ez dira nolabait Larramendik bere erara antolatutak, dela sarrerak berriak direlako, dela *DAut*-ekoak asebeste ez zuelako. Gainerakoetan (%92), *DAut* da inolako zalantzarik gabe *HH*-ko definizioaren iturria. Hasteko, ohartu portzentaiak gorantz dihoazkigula sailez sail, sinonimoek emandako %74,6 eta zehaztapan arruntenen %81,7tik oraingo kopurura. Mota honetan gertatu den laburpen lana adierazteko, corpuseko definiziorik luzeenetan luzeena ekarriko dut, eta eredukoarekin erkatuko (*HH*-koaren oinarri diren hitzak etzanetan jarri ditut):

ALEXIJAS. Es una especie de <i>puches</i> , sólo diferente en el nombre del farro: pues se <i>hacen</i> como éste <i>de la cebada</i> quebrantada y medio molida después de tostada y mondada, la qual se cuece con <i>agua y sal</i> hasta que se espessa y toma algún cuerpo: y para que estén más sabrosas le echan por encima Ajonjolí o Alegría. Tamarid las llama Alexías; pero el uso común con que se pronuncian <i>en Andalucía</i> , donde se <i>venden</i> públicamente por las calles, es de Alexijas, y es más conforme a su origen Árábigo.	Alexijas, puches que se hazen de cevada, agua y sal (...); se venden en Andalucía.
---	--

Handian bezala txikian ere jokatu zuen; ohartu, besteak beste, izen bereziaren laburpenari:

VERONICA. La *imagen* o representación del *Rostro de* nuestro Señor Jesu-*Christo*, que quedó impressa en el lienzo con que aquella piadosa muger, a quien dan este mismo nombre, le limpió el sudor quando iba con la Cruz acuestas camino del Calvario. También llaman assí a las copias sacadas de los originales que se veneran en Jerusalén, Roma y España, por haber quedado impresso en los tres dobleces del lienzo.

Verónica, imagen de el Rostro de Christo.

Batzuetan, ostera, laburpena aurkezpen hitzak kentzean datza:

SANGRAR. Usado como verbo neutro, se toma por lo mismo que *arrojar sangre*.

Sangrar, arrojar sangre.

Inoiz bi sarrerak berdinak dira, juntagailua edo artikulua gorabehera:

SANGRAZA o SANGUAZA. La sangre aquosa.

Sangraza, sanguaza, la sangre aquosa.

VERRIONDEZ. El zelo de los puercos.

Verriondez, zelo de los puercos.

Alderantziz, gutxi batzuetan badira Larramendiren eransketak:

EMBATE. Se llama también el viento fresco y suave que suele correr en el verano, y se experimenta más en las cercanías del Mar.

Embate, ayre fresco *con neblina alta*.

GUBIA. Escoplo de media caña, delgado, de que se sirven los Carpinteros y otros Artífices para las obras más sutiles y delicadas.

Gubia, escoplo delicado, *arqueadito*.

Lehenengorako ez daukat azalpenik; bai, ordea, bigarrenerako: eransketak Larramendiren etimologiari bide ematen dio: "...es voz Bascongada, que significa arco, corvadura...".

5.3. Azalpenen betebeharrak

5.3.1. Adiera argitzea edota bereiztea

Aztertu ditugun azalpenak ez dira ereduaren heredentzia hutsak. Neurri handi batean bederen, hitz ezohikoen adiera argitzea xede eginak direla dirudi: 301 azalpendun sarreretatik 134 (%44,5) adiera bakarreko hitzak dira.²³²

Gainerakoan, azalpenak adiera bat baino gehiago daukaten hitz edo esapideetan agertzen dira eta, horretarako grafismo berezirik ez egonik, argi dago adiera bereizketan paper nagusia joka dezaketela, taiu berekoak izan ohi diren bidalketa-deiekin batera. Corpuseko 92 hitz edo esapidek adiera bat baino gehiago daukate, eta haien artean ez dago era batera edo bestera adieren arteko bereizkuntza azalpenen bitartez egiten ez duenik; hots, adieren arteko bereizketa grafiko eza bereizketa kontzeptualaren bitartez estali da.

²³² Kopurutik partizipioak eta oro har *assí* tankerako erreferentzia daraman oro kendu ditut.

Maiz (25 bider, %27,2), lehenengo adiera hutsik doa, eta bigarrenetik aurrera hasten dira azalpenak agertzen; adib..²³³

Aborrecible.	Ocasión.
Aborrecible, objeto digno de aborrecimiento.	Ocasión, lo mismo que <i>causa, motivo</i> , véase.
Cocer.	Ocasión, lo mismo que <i>peligro</i> , véase.
Cocer en agua.	Pierna.
Cocer, medio cocer.	Pierna, de carnero, &c.
Cocer, hervir.	Pierna de sábana.

Behin bakarrik aurkitzen da alderantzizko kasua, eta honetan *DAut*-eko adieren ordena alderantziz ezarri da, bere xedearen ondo-ondoan bidalketa-deia ipintzeko:

Picotero, hablador.
Picudo, lo mismo que *picotero, hablador*.
Picudo.

Maizenik, beraz, adiera guztiek zeinek bere azalpena daramate; ohartzekoa da adiera bakoitzak eskatzen duen edo iradoki duen azalpen mota daramala, beste sistemarik gabe; adib.:

Abono, en este sentido.	Rapto, lo mismo que <i>hurto, robo</i> , véase.
Abono de tierras, sembrados, huertas, &c.	Rapto, lo mismo que <i>éxtasis</i> , véase.
Abono, así, en particular de fiemo, de estiércol, &c.	Rapto a la cabeza.
Aleve, traidor.	Rapto de muger. ²³⁴
Aleve, en lo antiguo significaba <i>alevosía</i> , véase. ²³⁵	Rascar, refregar, frotar.
Assegurar, dezir algo con asseveración.	Rascar la sarna u otra cosa que pica. ²³⁶
Assegurar, poner segura alguna cosa. ²³⁷	Salvarse, al Cielo.
Cabo, extremidad.	Salvarse de algún riesgo. ²³⁸
Cabo de cuchillo, &c.	Salve, lo mismo que Ave.
Cabo, cuerda en el navío.	Salve, oración de la Salve. ²⁴⁰
Cabo de mar, véase <i>promontorio</i> .	Verónica, lo mismo que <i>betónica</i> , véase.
Cabos en los caballos, los pies, hocico, &c.	Verónica, imagen de el rostro de Cristo. ²⁴¹
Cabos, hilos que penden de las telas.	Vestuario, vestidos.
Cabos, en el vestido son todo lo que no es la tela principal. ²³⁹	Vestuario, donde se viste. ²⁴²

²³³ Ik. *alfombrilla, asserrar, cabida, cochinilla, cocimiento, cocina, defender, definición, embargar, embargo, embarrar, evacuación, guía, maravilla, ocasionado, picotear, pié, piedra, ras con ras, sanar, vexiga* ere.

²³⁴ Ik. bidalketa-deia(k) + zehaztapena(k) (edozein ordenatan) *cabezón, defensivo, interrogación, íntimo, rasgo* eta *sangradera*-n ere.

²³⁵ Ik. sinonimoa + bidalketa deia (edo alderantziz) *cochino, intestino, obyecto*-n ere.

²³⁶ Ik. sinonimoa(k) + zehaztapena(k) (edozein ordenatan) *assí que, degolladero, rasgar, templar* eta *temple*-n ere.

²³⁷ Ik. definizio perifrastikoak adiera guztietan *algalia, coca, cocar, mañoso, raqueta, salvar, sándalo* eta *vertiente*-n ere.

²³⁸ Ik. zehaztapenak adiera guztietan *guarnición, interrogatorio, obstante* eta *templador*-en ere.

²³⁹ Ik. hiru adieratik gorako segida konplexuak *abonar, assentar, cabezal, mañero, oca, pieza, templanza* eta *témpano*-n ere.

²⁴⁰ Ik. definizio perifrastikoa(k) + zehaztapena(k) (edozein ordenatan) *cabezada, embate, evangelio, eucharistía, mañana, ocal, rascador* eta *sangrar*-en ere.

Cobro.
Cobro.²⁴³

Estupor, *entorpecimiento*, véase.
Estupor, *admiración*, *assombro*, véanse.

Bi adiera multzo berezi baino ez dut aurkitu; lehenean, adiera bata sinonimiaz eta bestea pluralez berezita daude:²⁴⁴

Tempestad, tormenta.
Tempestades.

Bestean, definizioaz eta zehaztapenez berezitateko bi adieraren ondoren, azalpenik ez daraman bidalketa-dei batez argitzen da azkena:

Maraña, abundancia de maleza.
Maraña en la seda, hilo, lana, &c.
Maraña, véase enredo.

5.3.2. Aldaerak aurkeztea

Ingeleseko hiztegi zaharretan, batzuetan morfologi eta fonetika aldaerak elkarren ondoan, giltzez edo taketez lotuta ("bracketed") azaltzen dira ezkerretara, eta eskuinetara definizio bakarra dagokie (Osselton 1989a: 167-168). Ikertzen ari garen hiztegian eta haren ereduan bada, izan ere, sarrerak ekonomizatzeko honen antzeko biderik. Has gaitezen eredutik: *DAut*-en halakoak batzuetan sarrera-buruan adierazten dira, buru-hitzaren grafismo beraz, biak juntagailuaz lotuta:

SANGRAZA o SANGUAZA. La sangre aquosa.

Bestetan —gehienetan—, sarrera barruan jasota daude, eskuarki definizio lexikoaren ostean, baina kasuan kasuko aurkezpen-hitzez inguratuta:

RASGAR. Significa assimismo tocar la guitarra u otro instrumento semejante (...). En esta acepción dicen algunos Rasguear.
ALFOMBRA. (...) Muchos escriben esta voz con *h*, diciendo Alhombra.

Bai batzuk eta bai besteak, *HH*-an buruan agertzen dira, buru-hitzaren jarraian, eta berezikuntza grafikorik ezagatik, besteak beste, sinonimoak bailiran.²⁴⁵ Hauxe da ondoko hitzen kasua:

Alfoli, *alholi*, alhóndiga de trigo.
Alfombra, *alhombra*.
Alfónsigo, *alhócigo*, árbol y fruta.
Cabra, *cabrilla* en las piernas.
Guindal, *guindo*, árbol.

²⁴¹ Ik. bidalketa deia eta definizio perifrastikoa (edo alderantziz) *cabezuela*, *ochava* eta *sangría*-n ere.

²⁴² Ik. sinonimoa + definizio perifrastikoa (edo alderantziz) *embarcación* eta *temeroso*-n ere.

²⁴³ Ik. sinonimoak adiera guztietan *guillote*, *observar*, *raridad* eta *raro*-n ere.

²⁴⁴ Bigarrenean, latina ("Dura verba") askoz argiagoa da.

²⁴⁵ Hain zuzen, halakoak huts-hutsik azaltzen direnean (*alfombra*, adib.) sinonimotzat hartu ditut goiko analisisian, nahiz ez den erabat zuzena, baina bai barkakizun, beharbada, mugak non jarri argia ez delako; gainerakoetan, berriz, alde batera utzi ditut azalpen mota erabakitzerakoan.

Rasgar, *rasguear* la guitarra u otro instrumento.²⁴⁶
Sangradera, *sangradura* de algún caz o corriente.
Sangradura, *sangría*, se llama la parte de el brazo que se dobla y sangra.
Sangraza, *sanguaza*, la sangre aquosa.
Verruguiento, *verrugoso*.

Larramendik prozedura hau berau, bere aldetik bakandu zituen familiakideen sarreretara²⁴⁷ hedatu zuen, nahiz hartara ekarri zituen hitz berriak, gehien-gehienak ez fonetika-aldaerak (*alfiler* / *alfilel* pareta baino ez), morfologi aldaerak baizik diren:

cabito / cabillo, defendimiento / defensión, embarazosamente / embarazadamente, eternamente / eternalmente, gujarreño / guijeño, interrogación / interrogante, maquilero / maquilón, rareza / rareza, temedero / temedor, temiente / temedor, vertedero / vertedor.

Areago, leku berean —eta, antza denez, arrazoi berengatik— agertzen dira *DAut*-en kausitzen ez diren beste zenbait ere:

Defendedero, *defendible*.
Sandío, *sando*.²⁴⁸

Eta, azkenik, leku berean erantsita dakusgu *DAut*-ek adiera honetan²⁴⁹ jasotzen ez duen esapide baten aldaera ere: "Pie de gallo, *pata de gallo* en las damas".

Ageri zaigun salbuespen bakarra, *DAut*-en erara loturazko hitzez erantsi duen (eta han ez dagoen) hurrengo hau da: "Guimbalete, de bomba, también se decía *bimbalete*".

5.4. Ondorioak

Hiru hizkuntza biltzen dituen hiztegi bati dagokionez, sarrera-hitzaz gainerako informazioa oso gutxi eta oso laburra da gehienetan *HH*-an. Sarreren erdiek inguru gaztelaniazko sarrera-burua, euskal ordainak eta latinezkoak bakarrik eskaintzen dituzte, bestelako azalpenik gabe. Beraz, *DAut*-etik *HH*-ra era askotako informazio osagarriarekin batera (§§ 3.3 eta 3.4) definizioak ere desagertu dira.

Larramendik bi arrazoi nagusi izan bide zituen definizio modura balio zezakeen azalpenen bat eranstea: ezohiko hitzak argitzea eta adierak bereiztea (§ 5.3.1). Lehenengo arrazoa berriro ere nahitaez kultura handikoa izan behar ez zuen irakurlegai mota batez mintzo zaigu (cf. § 4.6). Adierak nolabait bereiztea, ostera, hiztegiaren antolakuntzaren eskakizuna zen, tipografiaren laguntza alde batera utzi zuenez gero (§ 1.5.3).

Azalpenak nagusiki *DAut*-etik hartuak dira (§ 5.2), definizioa edo informazio osagarria (hitza zein arlotakoa den, adibidez) erabili, baita gutxi batzuetan adibideak ere. Nolanahi ere,

²⁴⁶ Cf. "Rasgado, *rasgueado*" ondorena ere.

²⁴⁷ Honela bakandutako sarreretarako, ik. § 4.1.1.8, eta adieretarako § 4.1.2.

²⁴⁸ Larramendik eskainitako *sando* hori ez dut ezagutzen, ez ohiko hiztegiaren aurkitzen (cf., adibidez, *DCECH*, s.v. *sandio*).

²⁴⁹ s.v. *gallo* oso adiera ezberdinean dakar.

gutxieneko hitzetan utzi du gehienetan, definizioko osagarri nagusiak edo sinonimoak bakarrik hartuaz, eta ia beti loturazko hitzik (“se llama”, “es lo mismo que”...) gabe. Ondorioz, *HH*-ko azalpen gehienak perifrasi laburrak, zehaztapenak edo sinonimo hutsak dira.

Oro har, azalpen gehiago dago hasieran (A letran) eta bukaera aldera, erdialdeko letretan baino (§ 5.1). A letran definizio perifrastiko gehiago eta luzexeagoak aurkitu ditut (§ 5.1.1.2), baita gero gutxitan baizik ez dauden aurreko sarrera bati buruzko erreferentziak ere (“assí” motakoak adierakako antolakuntzan; § 5.1.4). *HH*-aren bukaera aldera, berriz, zehaztapenak nagusitzen dira. Ohargarria da, halaber, DE- edo IN- bezalako aurrizki emankorrez hasten diren hitzetan ia azalpenik ez kausitzea, azalpena oinarrian aurkitzea espero zuelako seinale.

Zintzilik ditugun gaietarako argigarri zein geroko interesgarri izan daitezkeen beste datu zenbait: 1) Azalpen sinonimikoak diruditen batzuk halaxe zeuden *DAut*-en, aldaera batzuk buruan elkarrekin eman ohi ditu eta; beraz, Larramendik sarrerak bakantzeko erabili zuen sistema hau ere (§ 4.1.1.8) ereduan ikasi zuen; 2) “cocer, medio cocer” taiuko sarrerak, esapide edo kolokazio bat hitz nagusiaren arabera alfabetikoki ordenatzeko batzuetan baliatu zuen prozedura da (§ 5.1.3): “medio cocer” da, hortaz, euskal ordainek erantzun beharko dioten egiazko sarrera; 3) Zehaztapenek adiera batuketan parte izan dute, guztiz aditz batzuetan, adiera bi edo gehiagorenak bakar batera eraman ahal izan baitzituen (§ 5.2); 4) Larramendik oso eransketa gutxi, ia bat ere ez, egin ditu azalpenotan; haatik, haietako bat bederen etimologiak eskatu edo behartutakoa dela ikusi ahal izan dugu, hots, etimologiari eman nahi izan zion norabidearen lagungarri (§ 5.2).

6. Gaztelania (III): Grafia

Una de las principales calidades que no sólo adornan, sino componen qualquier Idioma, es la Orthographía, porque sin ella no se puede comprehender bien lo que se escribe, ni se puede perceber con la claridad conveniente lo que se quiere dar a entender. Es la Orthographía una Facultad o Arte de escribir rectamente las Voces conforme a su origen, significación y sentido de las palabras y de las syllabas (*DAut* 1726: lxi).

Akademikoek garrantzi handia eman zioten beren zereginen alderdi honi, hitzaurrearen atal oso bat —"Discurso proemial de la Orthographía de la Lengua Castellana" deitua— eskainiaz. Arauemaile izan nahi du *DAut*-ek, zeuden zalantzak eta kontraesanak arbuiauz:

Esta irregularidad y defecto es tan indecoroso y ofensivo de la nobleza y lustre de la Lengua, que siendo en sí puríssima, elegante y clara, la hace obscura, intrincada y dificultosa: y al passo que da motivo para que se dude en muchas palabras el modo con que se deben escribir, ocasiona en los estraños el embarazo de que dificulten o no alcancen lo que se quiere dar a entender, por hallarlas diversamente escritas (1726: lxxvii).

Ez da nire oraingo lana Akademiak alde honetatik eman urratsak eta erdietsi arrakasta — handia, inondik ere— azaltzea (ik. Lázaro Carreter 1981 : 106-110). Halaz ere, bere irizpide zenbait bederen agertu beharko ditut, Larramendik, adostasun askorekin batera, desadostasun bat baino gehiago erakutsi baitzuen. Tirabira ortografiko hauetan aurkitzen da jadanik aztertu dugun *HH*-aren antolakuntza ezberdinaren sustraietarik bat. Esan gabe doa, gaztelaniaren ortografiaren historiako jakingarri izan litekeela *DAut* atera eta berehalako erantzun hau; baina, bestela badirudi ere, jakingarria da aldi berean euskal grafiarenerako, Larramendik batean eta bestean izan zituen ikusmoldeak elkarrekin lotuta daudelako, ezinbestean. Errazegi alde batera uzteko joerari amore eman ohi zaion arren, euskarak ez zuen luzaroan grafi sistema berezkorik erdietsi; honegatik, Echeniquek (1997: 79) garai goiztiaragoetarako esanak balio betea du oraindik XVIII. menderako: lehen unean inguruko *scripta* erromanikoak eredutzat hartu zituen bezalaxe, hurrengo urte eta mendeetan euskal grafolektoa aldameneko sistema nagusien menpean garatuko da, haietan izandako aldaketen eragina pairatuaz (Mitxelena 1978b: 391). Hortaz, hemen aztertuko ditugun arazoetarik bat baino gehiagok euskal grafian Larramendik hartu zituen zenbait erabaki —edo izan zituen zenbait joera— ulertzen lagunduko bide digu.

Gune "bero" zenbait nabarmentzen dira Larramendiren hiztegian, eta haietan bereziki jarriko ditugu begiak: Lehen-lehenik A letra, beti bezala gainerakoak baino *DAut*-etik bereziagoa,

eta dagokigun puntu honetan ausartagoa; geroko guneak aukeratzen eta aurkitzen, hiztegian zehar egindako ibilaldiez gain, *DAut*-ek berak hitzaurrean aipatzen dituen arazoez lagundu didate.

Larramendiren jokaera *DAut*-ena baino anitzez aldakorragoa da, honek ere inkoherentzia zenbait aurkezten baditu ere, oro har bereari eusten dio eta. Dagoeneko ezin harri gaitzeko, zeren eta jadanik baitakigu euskaldunaren ustetan gaztelaniaz grafi aldaerak egotea ez zela arazotsua —are gutxiago “hizkuntzaren osperako desitxuroso eta iraingarria”—, normalizat jotzen zuela (1745: lii; § 1.2) eta, beharbada, aukera hobea irudi zekiokela etimologian ez oso jantzitako irakurleari begira (§ 4.6). Aldakortasun horren barruan, bi joera argi nabarmentzen dira *HH*-an, bigarrena argiago lehena baino: euskal etimologia berrien arabera gaztelaniazko hitzen idazkera erabakitzea (§ 6.1) eta idazkera erraztea, *DAut*-ek aldeztutako grafia etimologizale zenbaiten aurkako erabakiak hartuz (§ 6.2).

6.1. Etimologiak eragindako aldaketak

"Es la Ortografía una Facultad o Arte de escribir rectamente las Voces conforme a su origen..." zioen Akademiak gorago aipatu dudana hitzaurreko pasartean. Hiztegi barruan ere irizpide hau izango da nagusi:

ALFAGEME. (...) y aunque algunos la escriben con *j* es más conforme a su origen escribirse con *g*.

BELEÑO. (...) Débese escribir con *b* por su raíz Arabe *Bengi*.

DEFECTO. (...) Algunos omiten la *c*; pero se ha de escribir con ella, atendido su origen, que es del Latino *Defectus*, que significa esto mismo.

HEPTAGONO. (...). Es voz griega, y se debe escribir con aspiración, aunque algunos la omiten.

Akademikoen esanari eutsi zion Larramendik, berak egindako etimologia berriei paper arauemaile hori emanaz. Eragina bi grafemaren —<*v*> eta <*h*>aren— kontrako jokabideetan gauzatzen da, baina, ikusiko dugun bezala, kontrako joera hori haratago doa, euskal etimologiarik gabeko (edota eztabaidatu gabeko bestelako etimologidun) hitzak ere eraginez.

6.1.1. <*b*> vs <*v*>

Bi grafema hauen arteko muga ezartzeko, *DAut*-ek (1726: lxxii) etimologiari begiratzeko gomendatzen du. Larramendik, gomendioari jarraiki, euskal etimologidun hitzetan <*b*> ezarri zuen. Ohartu hurrengo gaztiguari:²⁵⁰

Carbi, así se debe escribir, véase *carvi* (< eusk. *alcarbi*, vs *DAut* CARVI).

HH-aren ezaugarri oso interesgarria da, zeren eta, dakidalarik, ez baitago bere idatzietan erabaki hau aldeztu edo bederen iradokitzen duen aipurik, nahiz eta <*b*> euskal letra delako —edo <*v*> ez delako— siniste zabaldu eta gerora hain eragingarriaren oinarri-

²⁵⁰ Honelako abisu gehiago bildu ditut lehenago (§ 3.4.9).

oinarrian dagokeen.²⁵¹ *HH*-ko praktikak beste eragina edo gehiago izan bide zuen liburu batean —*Euscararen berri onak*-en (1761: 24-25)— Kardaberatzek argi utzi zuen: "A. Larramendic ondo dio, Eusquerazco itzac beren jatorrizco sustraiean ez *v*, ezpada *B,b* dutela".

Ereduarekiko aldaketa bat baino gehiago eragiten du honek:

ABAHAR. Véase Avahar. AVAHAR.	< gazt. <i>vaho</i> ²⁵²	Abahar, avahar. Abahadas. Avahar, vease <i>abahar</i> .	< eusk. <i>abo</i>
ABER. Vease Haver. ²⁵³ HABER.		Aberes. Aver, averes, (...) véase <i>aberes</i> . ²⁵⁴	< eusk. <i>abere</i>
AVERIA.	(zalantzazko etimologia)	Abería. Avería.	< eusk. <i>abería</i>
ABEZAR. Vease Avezar. AVEZAR.	< gazt. <i>vez</i> ²⁵⁵	Abezarse. Avezar, vease <i>abezar</i> .	< eusk. <i>bezatu</i>
ACAÑABEREAR.		Acañaberear.	< eusk. <i>cañabera</i> ²⁵⁶
AVIAR.	< lat. <i>via</i>	Abiar. Aviar, véase <i>abiar</i> . Avío, vease <i>abiar</i> .	< eusk. <i>abiatu</i>
AVION.	(etimologia <i>aviar</i> -ekin erlazionatuaz)	Abión, avión. Avión, vease <i>abión</i> .	(erlazio bera gordeaz)
BARAR. VARAR.	< gazt. <i>vara</i> ²⁵⁷	Barar. Varar, véase <i>barar</i> .	< eusk. <i>baratu</i>
VASCONGADO. VASCUENCE.		Bascuence. Bascongados. Vascuence, vascongado, véase <i>bascuence</i> .	< <i>baso</i> ²⁵⁸

Beraz, Larramendik batzuetan *DAut*-en sarrerari aurea hartu zion, sarrera arrunta -ari dagokion lekuan eginez, eta <v>-arenean bidalketa-deia baino ez utziaz (*abiar*, *abión*, *bascuence*); leku aldaketa beharrik ez zegoenean edo tartea oso txikia zenean, berriz, bere kabuz eta abisatu gabe ezarri zuen (*acañaberear*). Hauetako batean, ordea, lehen ohar txiki bat baino ez zuen utzi, geroago azalpen guztia egiteko:

²⁵¹ Geroagoko aipamenen bildumatxo bat eta XIX. mendeko garapenaren xehetasunen bat aurki daiteke Urgell 1987a: 372-376n.

²⁵² Akademikoek (s.v. *avahar*) agerrian diote: "Es formado del nombre Vaho, por lo que no se debe escribir con *b*, diciendo Abahar, como se halla en varios Autores, sino con *v*".

²⁵³ Dakusgunez, *DAut*-ek ere badu inkoherentziaren bat: 1. liburukitik 4.era edo, nahiago bada, 1726tik 1739ra doan denbora tartean hutsa zuzendu ahal izan zuten.

²⁵⁴ Larramendik ez du hitz hau *haber* aditzarekin lotzen: bata euskaratik eta bestea latinetik datozela uste zuen (aditzerako, ik. bere adierazpena beheaxeago, § 6.1.2).

²⁵⁵ Cf. *DAut*, s.v. *avezar*: "La etimología de este verbo viene del nombre Vez (...). Hállase escrito en algunos Autores con *b*, diciendo Abezar, derivándole del nombre Bezo, y así lo dice Covarrubias; pero Juan Lopez de Velasco, en su Ortografía, y otros concuerdan en que sale de Vez".

²⁵⁶ Cf. gazt. *cañabera* ere, nahiz <v>-ari dagokion lekuan agertzen den (cf. § 2.4.2.1).

²⁵⁷ *DAut*-en beste inkoherentzia bat: bi sarrerak normalak dira, eta ia-ia berdinak, nahiz elkarri erreferentziarik egin ez.

²⁵⁸ Hitzaurrean agintzen duen arren (1745: cxxvii), etimologia ez da gero *HH*-an agertzen, baina *De la Universalidad*...-en jasota zegoen jadanik (1728: 60).

Aberia, es Bascuenze; significa gasto.

Avería, es palabra Bascongada, y en el dialecto Labortano significa gasto, y en otros pérdida, de *au eria*, esta enfermedad, indisposición, daño, y se aplican a otras cosas. *Averia, caltea*. Lat. *Jactura, damnum*.

Bestetan, berriz, *DAut*-en bidalketa-deia profitatu zuen sarrera -ren lekuan egiteko, eta *HH*-an deia <v>-n agertzen da (*ababar, aberes, abezarse*); beste horrenbeste egin zuen ereduko bikoizketekin (*barar*).

Halaz ere, badira euskal etimologia izan arren sarrera berririk eragin ez duten hainbat hitz: adibidez, *VA-VE* zatian 25 etimologia ezberdinetatik lauk bakarrik daukate oihartzunik B letran,²⁵⁹ eta salbuespenik gabe *DAut*-en oharkabeko bikoizketak (*barar* eta *varar, baya* eta *vaya*) edo bidalketa-deiak (*berriandez, beta*) egoteari zor zaizkio. Zalantzarik gabe, Larramendik B eta V zein bere aldetik eratu zituen, elkarren datuak erkatu gabe.²⁶⁰

Ziurtasunez mintzatzeko hiztegi osoaren azterketa egin beharko litzatekeen arren, honezkero pentsatzekoa da *DAut*-en laguntzarik edo nolabaiteko hurbiltasunik izan ezean, aldaketak eragin txikia izango duela nomenklaturan; euskal ordainetan, maileguetan zehazkiago, eraginik izan duen ala ez —gorago eusk. *averia* ikusi dugu, adibidez— geroko utzi behar dugu (§ 8.4).

Pentsatzekoa da, halaber, aldaketa gehienak A letran biltzen direla. Nolanahi ere den, interesgarria da astiroago eta xehetasunei arreta gehiago ipiniaz ibiltzeko aukera izan zuenean nola jokatu zuen miatzea, zeren eta espero izatekoa baita antzeko jokaerak —nahiz maiztasun gutxiagoz— hiztegi guztian zehar aurki ahalko direla eta, gainera, eta <v>-aren arteko gorabeherek eragina izan baitute, jadanik ikusi dugunez, alfabeto hurrenkeraren kontrako desbideratzeetan (§ 2.4.2), grafi aldaerak jasotzen dituzten sarrera berrien agerpenean (§ 4.4.1) eta sarrera errepikatuak ugaritzean (§ 4.5.1).

Inoiz, euskal etimologiari gabe, aldaketa akademikoek errespetatu ez duten *DAut*-eko etimologiari zor zaiola dirudi:

ABSORVENTE (< lat. absorbens).

Absorbente.

Bestetan, euskal etimologia dagoen arren, honek ez du *DAut*-en aukera aldarazteko motiborik ematen eta, halaz ere, Larramendik <v>-ari dagokion lekuan bidalketa-deia erantsi du:

ACOBARDAR

Acobardar, viene de *Cobarde*, y éste de el Bascuence.

Acovardar, vease *acobardar*.

²⁵⁹ Gainerakoak hauek dira: *vaho, valioso, vardasca, varones, veda, vega, vehemencia, vela, velacho, velarte, vello, vellora, vellori, velocidad* (eta *veloz*), *vera, verdacho, vereda, verga, vergel, vericuetto* eta *vexación*.

²⁶⁰ Honek azaltzen du, besteak beste, zergatik bera ere ez zen ohartu *baya* eta *vaya* errepikapenez: bi sarrera arrunt egin zituen, bata bestearen erreferentziarik gabekoak eta bigarrean bakarrik etimologia emanaz.

Dudarik gabe, bigarren kasu hau da Larramendiren jokaeraren kontu konplituena demaiguna: A letran zehar *DAut*-en interpretazio etimologikoaren aurkako eta euskal etimologiarik gabeko aukera ezberdinak eta zalantzak maiz aurkitzen dira; joera beti indartzea da, dela <v>-rako bidalketa-deien, dela -dun sarrera berrien bitartez:

AVECHUCHO	Abechuchu, véase <i>ave</i> . Avechuchu.
AVESTRUZ	Abestruz. Avestruz.
AVISPA (< lat. <i>vespa</i>).	Abispa. Avispa, vease <i>abispa</i> . Avisparse. Está abispado.
AVIVAR (< gazt. <i>vivo</i>).	Abivar, vease <i>avivar</i> . Avivar.
ABOLENGO. Véase Avolengo. ABOLORIO. Véase Avolorio (< lat. <i>avus</i>).	Abolengo, abolorio. Avolengo, vease <i>abolengo</i> . Avolorio, lo mismo que <i>avolengo</i> .
ABUCASTA. Véase Avucasta.	Abucasta. Avucasta, véase <i>abucasta</i> .
ABUELO. Véase Avuelo (< lat. <i>avus</i>).	Abuelo. Avuelo, véase <i>abuelo</i> .
ABUTARDA. Véase <i>avutarda</i> .	Abutarda. Avutarda, véase <i>abutarda</i> .
ABUBILLA	Abubilla. Abuvilla, vease <i>abubilla</i> .

Inoiz gerora nagusituko zen forma (*abuelo*) asmatzea ezin dugu esanguratsutzat hartu: aldaketa hauek guztiak hobesten dute, ziurrenik bikotearen osagai ez markatu gisara, baina irakurleak formaren bat <v> azpian bila dezakeelako posibilitatea ere ez dute alde batera uzten, etimologiari inolako begirunerik gabe; gaztelaniaren grafia ez bateratuaren aldeko Larramendiren esanak berresten dituzte, beraz, eta agian <v> eta zorrozki bereizteko arazoak izan zitzakeen irakurleari hiztegia erabilerraz egiteko asmoa ere adierazten dute.

6.1.2. <h>

Euskaraz grafema hau erabiltzeaz adierazi zuena ezaguturik (§ 3.4.10), azalpen bera eman beharko genioke, zenbaitetan bederen, <h> ezari, baita beharbada <h> gabeko formetara eramateko eranstean dituen bidalketa-deiei ere:

HABER. (...) Sale del Latino <i>Habere</i> , por cuya razón se debe escribir Haber, y no Aver, como hacen muchos.	Aberes, hazienda, riquezas, viene de el Bascuence <i>aberé</i> (...); y así no viene de <i>aver</i> , ni <i>haver</i> . Aver, averes, (...) véase <i>aberes</i> .
ACINA. Véase Hacina. ACINAR. Véase Hacinar. (< gazt. <i>haz</i>).	Acinar. Acinado. Acina... (< eusk. <i>acia</i>). Hacina. Hacinador...
HEMINA (< grek. <i>hemi</i>).	Emina (< eusk. <i>imia, imiña</i>). Hemina, véase <i>emina</i> .
ERMITA (< grek. <i>erimos</i>).	Ermitea (< eusk. <i>eremua, ermua</i>). Hermita, véase <i>Ermitea</i> .

Badugu honetarako egiaztapenik: halako batean (1745: I, 96) taketez hesitutako lauki bat aurkitzen dugu —ez dago besterik hiztegian— ondoko abisu honekin: "Debiéranse escribir sin *h* por el origen Bascongado". Abisua eskuineko zutabearen txertatuta dago, gaurko entziklopedietako argazkien antzera, honako sarrera hauen eskuinean, eta denei dagokielarik:

Arpía, véase *harpía* < ARPIA. Véase Harpía.
 Arpillar, véase *harpillar* < ARPILLAR. Véase Harpillar.
 Arpillera, véase *harpillera* < ARPILLERA. Véase Harpillera.
 Arpón, véase *harpón* < ARPON. Véase Harpón.

Ohartu bidalketa-dei guztiok *DAut*-i zor zaizkiola. Gero H letran *harpya*, *harpillera* eta *harpón* baino ez ditugu aurkitzen, baina hirurek euskal etimologia daramate.

Alabaina, hemen ere etimologiez gaineko edota *DAut*-en erabakien aurkako zalantzak erakusten ditu Larramendik, beti ere <h> gabeko aldakiak erantsi edo indartuaz:

HABIL (< lat. <i>habilis</i>).	Abil, hábil. Hábil.
HABITUARSE.	Abituar, véase <i>habituat</i> . Habituar.
HABLA.	Abla, véase <i>hablar</i> . Habla.
ACIA. Véase <i>hacia</i> . Esta voz se halla usada muchas veces sin la <i>h</i> ; pero atendiendo a la etimología que le de Covarr. de la palabra Haz, y traerla con <i>h</i> Nebrixa, el P. Salas y otros Diccionarios, y hallarse del mismo modo en muchos Autores clásicos antiguos, se debe escribir con ella.	Acia. Hacia, adverb. véase <i>acia</i> .
HACIA.	
EGIRA. (...) Lat. Egira.	Egira.
HEGIRA. (...) Y aunque esta voz por escribirla promiscuamente los Autores Castellanos, está ya puesta sin aspiración en la letra E: respecto de que los hombres más críticos y que han escrito sobre la Hégira, como también los Diccionarios de otras Lenguas, la escriben con <i>h</i> , se pone con ella, que es como se debe escribir (...). Lat. Hegira.	Hégira, véase <i>Egira</i> .

Balirudike batez ere irakurleak gidatu nahian dabilela; cf. hurrengo ohar adierazgarria OJ atalaren hasieran:

Las voces que no se encontraren aquí, búsquense en la HO, v.g. *oja*, véase *hoja*.

Baina, funtsean, orain artean ikuskatu ditugun eragiketa guztien azpian idazkera etimologizaleek eskatzen duten lan bereziaren —eta bere ustetan alferraren— aurkako jokaera datza, hurrengo aldarrikapen ezin argiagotan antzeman daitekeenez:

Haber, es empeño inútil que este verbo auxiliar se aya de escribir con *h* porque sale de el Latino habere; pues otras innumerables voces no siguen su origen Latino, ni de esta regla hazen caso los Franceses en su *avoir*, que igualmente viene de el *habere* (1745, s.v.).

6.2. Bestelako aukerak

<v> eta <h> grafemetan ikusi ditugun aukera ezberdinez gain, badira bestelako grafia istilutsuetan Larramendik bere erara erabaki dituen auziak; maiztasun edo garrantzi gehien erakusten dutenei begirada bat emango diegu ondoko ataletan.

6.2.1. <ce>, <ci> vs <ze>, <zi>

Sarri, baina ez beti, Larramendik hitz barruan, bokal artean, <ze>, <zi> idazten du, akademikoen gomendioaren aurka (*DAut* 1726: lxxii t. hur.). Hau eskuarki sarrera barruan (definizio-iruzkinetan) gertatzen da; betiko corpusera itzulita, honako aleok agertzen zaizkigu:

pezes (s.v. *aletas*), *hazen* (s.v. *alexijas* eta *cabezuela*), *pazes* (s.v. *assentar*), *hazer* (s.v. *cocar* eta *embalar*), *hazienda* (s.v. *abonado*), *dezir* (s.v. *asegurar*).

Hiztegiko sarreretan gutxi-gutxitan baino ez da gertatzen, ziurrenik alfabeto hurrenkerari buruzko arazoengatik; nolahi ere den, gertatzen denean ez du hurrenkera hautsi ohi, eta <z>-dun hitzak <c>-dunak balira bezala kokatzen dira *HH*-an:²⁶¹

ACOCEAR > Acozear.
CACICAZGO > Cazicazgo (baina *Cacique*).
HACER > Hazer.²⁶²

Aitzitik, *DAut*-ek <ze>, <zi>-z emandako hitz gehienak²⁶³ (alfabetikoki <z>-ri dagokion lekuan kokatuak) <ce>, <ci> bihurtzen ditu, eta <c>-ren lekura eramaten, gehienera jota <z>-n bidalketa deia (batzuetan orokorra, cf. behean *acémila*) utziaz. Hitzon *DAut*-eko grafia bereziak beti ere oinarri etimologikoa dauka, eta arabetiko etorkia; cf. adib.:

...por cuya razón se debe escribir con z, como la trahen Nebrixa y otros Autores modernos y antiguos, y no con c, como hacen algunos (s.v. *azémila*).

Hona hemen hitzak eta *HH*-ko bilakaerak:

ACEBO. Véase Azebo (< ar. <i>zebege</i>).	Acebo. Azebo, véase <i>acebo</i> .
ACEBUCHE. Véase Azebuche (< ar. <i>zebujun</i>).	Acebuche. Azebuche, véase <i>acebuche</i> .
ACEITE. Véase Azeite (< ar. <i>zeit</i>).	Aceite. Azeite, y derivados, véase <i>aceite</i> .
ACEMILA. Véase Azémila (< ar. <i>zemil</i> edo <i>zemiletum</i>).	Acémila. Azémila y otros nombres, véanse en <i>ace</i> .
ACEMITE. Véase Azemite (< ar. <i>zemit</i>).	Acemite. Azemite, véase <i>acemite</i> .
AZEÑA (< ar. <i>zima</i>).	Acenia (euskal etimologiaz).
AZEQUIA (< ar. <i>zaquia</i>).	Acequia.
AZEROLA (< ar. <i>zaror</i> , <i>zarur</i> , <i>alzarur</i> ; s.v. <i>azerolo</i>).	Acerola.

²⁶¹ Adibideak, letra orotan C-aren lehen agerpena (hirugarrena kontsonanteetan, bigarrena bokaleetan) bakarrik begiratuaz lortu dira; ondoko agerpenak ere menperatu ezker, nago kopurua ez litzatekeela gehiegi igoko eta, dena den, aztertutako zatian 3 agerraldi baino ez aurkitu izana aski adierazgarria dela.

²⁶² Aditz hau eta honen adizkiak <z>-z agertzen dira ia beti hiztegian zehar.

²⁶³ AZ zatitik *azeche*, *aziago* eta *azitara* baino ez dira lekuan geratu *HH*-an.

Bestetan, berriz, <z> : <c> bihurketa egiterakoan *DAut*-ek hautatutako bideari jarraitu besterik ez du egiten; ohartu, dena dela, hango bidalketa-dei gehienak ezabatu egin dituela:

AZEDAR. Véase Acedar.	Azedar, azedera, &c. véase <i>acedar</i> .
AZEDERA. Véase Acedera.	
AZEDIA. Véase Acedia.	
AZEDO. Véase Acedo.	
AZIAL. Véase Acial.	Acial.
AZIBAR. Véase Acíbar.	Acíbar.

Gorabehera hauek, ordea, inoiz edo behin sarrera errepikatuak eragin dituzte:

ACIAGO. Véase Aziago.	Aciago, triste, azaroso día, <i>egun gaistó, doacabea</i> . Lat. Dies infaustus, nefastus, nigro lapillo notatus, a, um; dies ater. Aziago, <i>doacabea, zorigaistocoa, patugaitzeco</i> . Lat. Malum omen portendens. ²⁶⁴
-----------------------	---

A letran antzeman dugun bezalako corpus handirik gaitza da bestetan topatzen,²⁶⁵ dena den, berehala igartzen dugu beranduago hobeki atxiki zitzaiola kontu honetan *DAut*-ek ezarritako ereduari, ordena buruhaustek uxatu nahian apika:

GAZELA (< ar. <i>gazél</i>).	Gazela.
GAZETA (< it. <i>gazzeta</i>).	Gazeta.
GAZETERO.	Gazetero.
GAZETISTA.	Gazetista.
GAZIES (< ar.).	Gazíes.
TROZEO.	Troza, trozeo. ²⁶⁶
XAZILLA.	Xazilla.

Talde berean sartu behar ditugu ZE eta ZI hasierak dituzten hitzak ere, denak xeheki errespetatuak. Aukera askoz lehenagokoa dela ulertzeko, aski izan daiteke C letran agertzen den bidalketa-dei sorta luze xamar hau aipatzea: "Celador, véase *zelador*", "Celar con zelo, véase *zelar*", "Cenith, véase *zenith*", "Cequí, véase *zequí*", "Cizaña, véase *zizaña*", denak *DAut*-en bidalketa-deien kopia, azkenekoa izan ezik. B/V kasuan bezalatsu, dudarik gabe *DAut*-eko azken liburukia eskuetan izan gabe —eta, hortaz, zer etorriko zen jakin gabe— jokatu behar izan zuenez gero, errazenera jotzea erabaki zuen.

Aurkitutako salbuespen bakarra, etimologia dela kausa, antza denez, honakoa da:

REZELAR. REZELO. REZELOSO (< gazt. <i>zelo</i>).	Recelar... (< eusk. <i>errecela</i>). Rezelar, temer, desconfiar, véase <i>recelar</i> . Rezelo, rezeloso, véase <i>recelo, rezeloso</i> [sic].
---	--

²⁶⁴ Inolako zalantzarik gabe, lehena buruz-edo egina da, *DAut* kontuan hartu gabe bederen, bigarrenak ereduari jarraitzen dion bitartean: besteak beste, latinezko ordaina berbera da bi hiztegiatan.

²⁶⁵ Bakanka agertzen direnetatik batzuk, *HH*-an desagertu dira: cf., adib. HAZINO edo MEZEREON. Bestalde, *DAut*-ek A-tik aurrera <c>-ren aldeko erabakiak bidalketa-deien bitartez agertarazteari uzten dio.

²⁶⁶ Bi sarreretatik bat eginez (cf. § 4.1.1.8).

6.2.2. <y>

DAut-en proposamena K<y>K <i> idaztea da, grekozko etimologidunetan izan ezik (1726: lxxi). Larramendik hauetara ere hedatu ohi du erregela:²⁶⁷

ABYSMO.	Abismo.
ACOLYTO ²⁶⁸ (< gr.).	Acólito.
CY. (16 sarrera).	CY. Cyclo, cyclope, cilindro, y otras voces, búsquense en <i>Ci</i> .
GY. (5 sar.).	Gyrrar, gyro, &c., véanse en <i>girar</i> . ²⁶⁹
PY. (15 sar.).	PY. Véanse en la PI las voces siguientes. Pyra, pyramidal, pirámide, pyrausta, pyromancia, pyromántico, pyrofilacio, pyropo, pyrotecnia, pyxide.
SY. (63 sar.).	SY. Véanse en la <i>si</i> las voces siguientes. Sycomántico, Sycomoro, Sicophanta [sic]. Sylaba, Sylepsis, Sylogismo, sylva. Silvanos, Sylvestre, Symbolo, Symetría. Sympatía, Synfonía, Symptonía, &c.
TY. (19 sar.).	TY. Véanse en <i>ti</i> en los lugares correspondientes, tymbal, tymbre, tympano, typhón, typo, typographía, tyranía, tyrannizar, tyrocinio, tyrón.

Letra batzuetan *DAut*-eko kokalekua gorde du, halaz ere:

DY. (3 sarrera).	Dysentería. Dysentérico. Dysuria. ²⁷⁰
HY. (64 sar.).	HY. (57 sar.).
LY. (7 sar.).	(6 sar.). ²⁷¹
MY. (13 sar.).	MY. (12 sar.).
NY. (3 sar.).	NY. (3 sar.).

6.2.3. <ss>

DAut-ek aski argibide zehatzak eskaintzen ditu hitzaurrean (1726: lxxviii), digrafo hau nola erabili behar den jakiteko, zalantzak zeudelako seinale. Baita behar ere. Ezaguna denez, <ss> fonema baten —s apikari-albeolar frikari ahostunaren— bokalarteko idazkera zen; *DAut*-en garairako, baita nahikoa lehenagotik ere, oposaketa kide ahoskabearen alde zeharo galdutzat eman daiteke eta, halaz ere, idazkerak ofizialki Akademiaren 1763ko Ortografia arte iraun zuen (Lapesa 1984: 283, 33. oh., 371 eta 423).

²⁶⁷ Miaketa kasu honetan, bigarren letran (BY, CY...) etenduko dut, A-n lortutako adibideren batzuk kenduta.

²⁶⁸ Hitza *DAut*-en lekuz kanpo dago, *acoll*- aurrean, hain zuzen *acoli*-ri dagokion lekuan; etimologiak, azpisarrerek eta adibideek, ordea, ez dute grafiari buruzko zalantzarik uzten.

²⁶⁹ Ohar hau GU-ren bukaeran dago, GY aurkezpenik gabe.

²⁷⁰ Eta, gainera, cf. "Disentería, véase *dysentería*". Alabaina, DY aurkezpenik gabe daude, DU-ren bukaeran.

²⁷¹ LU-ren bukaeran, aurkezpenik gabe. Cf. "Lira, lírico, véase *lira* [sic]".

HH-an oro har badirudi *DAut*-en ereduari jarraitzen zaiola, salbuespen zenbaitekin halere; adib. (salbuespenek izarra daramate):²⁷²

*ABADESSA > Abadesa.	NARICISSIMO > Naricísimo.
ABSCESSO > Abscesso.	NASSA > Nassa.
CANTUESSO > Cantuesso.	NASSON > Nassón.
CARISSIMO > Carísimo.	*SABUESSO > Sabueso.
CASSACION > Cassación.	SACRATISSIMO > Sacratísimo.
CASSAR > Cassar.	SALPRESSAR > Salpressar.
CASSIOPEA > Cassiopea.	SANTISSIMAMENTE > Santísimamente.
NARCISSO > Narcisso.	SANTISSIMO > Santísimo.

6.2.4. <x>, <j>, <g>

Akademikoen gomendioa (1726: lxxiv) oso konplexua da, baina orokorrean hitzen etorkiaren arabera. Larramendik eskuarki *DAut*-en aukerak gordetzen ditu; baditu, halere, geroko usadioa iragartzen duten zenbait aldaketa.²⁷³

*ABAXAR > Abajar, véase <i>abaxar</i> .	CARTUXA, CARTUXANO > Cartuxa, Cartuxano.
ABEJERA, ABEJERO, ABEJERUCO > Abejera, Abejero, Abejeruco.	CAXA, CAXERO, CAXETA, CAXON > Caxa, Caxero, Caxeta, Caxón.
ABERENGENADO > Aberengonado.	NARANJERO > Naranjero.
ABIGEO > Abigeo.	NAVAJERO > Navajero.
CABIZBAXO > Cabizbaxo.	SACRILEGIO > Sacrilegio.
CALIGINOSO > Caliginoso.	SAGE > Sage.
CALLEJEAR, CALLEJERO/RA > Callejear, Callejera.	SAGITARIO > Sagitario.
CANGE > Cange.	SALVAGE, SALVAGERIA, SALVAGINA > Salvage, Salvagería, Salvagina.
CANGILON > Cangilón.	SAMBLAGE > Samblage.
CANONGIA > Canongía.	SARGENTO... / Sargento...
CARCAX > Carcax.	*SARGUETA > Sarjeta, sargueta. ²⁷⁴
*CARCELAGE > Carcelaje.	SARJIA > Sarjía.
CARNAGE > Carnage.	SAXATIL > Saxatil.
CARRUAGE > Carruage.	SAXIFRAGA > Saxifraga.
CARTILAGINE > Cartilagine.	

6.2.5. <ch>, <ph>, <rh>, <th>

DAut-ek grafia etimologizale hauek gordetzen baditu ere, Larramendik denak ahoskapenari egokitzen zaion grafiaz ordezkatzeko dituzte. Hiztegiearentzat istilutsuena <ch> grafema da, ez baitago bestetan bezala egindako aldaketen kontu ohar bakar batez ematerik; horregatik, behin eta berriz bidalketa-deiak aurkitzen ditugu:

CHALCANTO >	Calcanto. Chalcanto, lo mismo que <i>caparrosa</i> , véase <i>calcanto</i> .
CHALCEDONIA >	Calcedonia. Chalcedonia, piedra preciosa, véase <i>calcedonia</i> .
CHAMALEON >	Camaleón. Chamaleón, véase <i>camaleón</i> .
CHAMEDAPHNE >	Camedaphne. ²⁷⁵ Chamedaphne, planta, véase <i>camephne</i> .

²⁷² Hiztegi guztiko joera antzemateko asmoz, AB, CA, NA eta SA atalak goitik behera erkatu ditut bietan.

²⁷³ Hemen ere lagin bera erabili dut.

²⁷⁴ Hau ez dut uste azaltzen erraza denik.

CHERUB, CHERUBIN >	Cherub, Cherubín, véase <i>Querub</i> . Querub, querubín.
CHIROMANCIA >	Chiromancia, véase <i>Quiromancia</i> . Quiromancia.
CHOROGRAPHIA >	Corographía. ²⁷⁶ Chorographía, véase <i>corographía</i> .
CHRONICA >	Crónica. Crónica, véase <i>crónica</i> .
CHYLO >	Chylo, véase <i>quilo</i> . Quilo.

C eta CH-aren arteko hurbiltasunak eta QU-aren aurrean C-aren lehentasunak lagundu dio bestetan baino koherente eta sistematikoago izaten. Gordetzen dituen bakarrak *chrisma* eta *christiano* familiakoak dira.

PH atalean iragartzen duen bezala, <ph>-z hasten diren hitz guztiak F letrara eraman ditu; cf., adibidez:

PHALANGE > Falange.	PHILOLOGIA > Filología.
PHANTASIA > Fantasía.	PHOCA > Foca.
PHEBEO > Febeo.	PHRASE > Frase.
PHENIX > Fénix.	PHYSICA > Física. ²⁷⁷
PHILANTHROPOS > Filantropos.	PHYTHONISSA > Fitonissa [sic], véase <i>pitonisa</i> . ²⁷⁸

Halaber, <rh>-z hasten diren hitz guztiek <r> daukate *HH*-an, RE atalaren bukaera-bukaeran txertatu duen oharrean²⁷⁹ dioenez; adib.:

RHACHITIS > Rachitis, véase <i>raquitis</i> . ²⁸⁰
RHETORICA > Retórica.
RHEUMA > Reuma.
RHODOMEL > Rodomel.
RHOMBO > Rombo.
RHYTHMO > Ritmo. ²⁸¹

Eta orobat *DAut*-en <th>-z hasten diren hitzetan, TH atalean "Véanse en Ta, Te, Ti, To, las voces siguientes y otras. Thálamo, thaliestro..." oharra irakurtzen delarik:

THALAMO > Tálamo.	THE > Té.
THALASOMELI > Talasomeli.	THEAME > Teame.
THALIESTRO > Taliestro.	THEATINOS > Teatinos.
THAPSIA > Tapsia.	THEATRAL > Teatral.
THAUMATURGO > Taumaturgo.	THEATRO > Teatro.

²⁷⁵ Ohartu ez duela <ph> aldatu.

²⁷⁶ Hemen ere <ph> gorde du.

²⁷⁷ Ohartu <y> : <i> aldaketari ere.

²⁷⁸ Baina azkena ez da agertzen.

²⁷⁹ "Véanse en RA, RE las voces siguientes: Rhacritico [sic], rhacuitis, rhacitis, rhetórica, rhetórico, rheuma, rheumatismo. Véanse en RI, RO las siguientes: Rhinoceronte, rhodomal [sic], rhombo, rhomboides, rhomphea, rhythmico, rhythmó".

²⁸⁰ Ohartu <ch> : <qu> aldaketari; dena dela, gero ez da bere lekuan agertzen; *rhinoceronte* sarrera ere aldaketan galdu egin da.

²⁸¹ Ohartu <y> : <i> eta <th> : <t> aldaketei ere.

6.2.6. <sc>, <st>

SC atalean eta SO-ren bukaeran ohar hauek irakur daitezke:

Véanse en ES las voces siguientes: Scandice, Scelesto, Scenografía, Scenopegia, Scéptico, Scible, Sciena, Sciencia...
Stachy, Stacte, Steba, Stentóreo, Estereographía y otras voces, véanse en la Es.

Beraz, aurreko atalekoekin bezalaxe jokatu du etorkiz <sc> zein <st> hasiera duten hitzekin; adib.:

SCANDICE > Escandice.

SCELESTO > Escelesto.

SCIENTE > Esciente.

SCOLOPENDRA > Escolopendra.

SCYTAL > Escitale.²⁸⁴

STACHY > Estachy, véase *estaqui*.²⁸²
Estaqui.

STACTE > Estacte, stacte.

STEBA > Esteba, steba.

STENTOREO > Estentorio.²⁸³

STEREOGRAPHIA > Estereografía.²⁸⁵

6.2.7. Kontsonante multzoak

Sail honetan ere, batzuetan behintzat, *DAut*-en eta *HH*-aren bideak banakatzen dira, bata hitzaren etorkiari eta bestea ahoskapenari jarraiki; geroak ez dio beti berari arrazoia eman.²⁸⁶

ACCELERAR

ACCENTUAR

ACCIDENTE

ACETAR. Véase Aceptar.²⁸⁷

Accelerar, véase *acelerar*.

Accentuar, véase *acentuar*.

Acidente, accidental, véase *acc-*.

Aceptar, véase *acetar*.

Acetar.²⁸⁸

Ezin ziur esan dezaket beste letretan gertatzen denentz; OCC- hasierak bederen (*occidental, occipital, etab.*) zeuden-zeudenean gorde egin ditu.

6.3. Ondorioak

Ezpairik gabe estetikoa baino praktikoagoa zen ortografiaren ikuskera izanik eta hiztegia erabiltzaileentzat eskuragarriago egiteko asmoz, Larramendi argi eta garbi aldendu zen Akademiaren arau etimologizaleetatik: mende haietan aritu ziren gaztelaniaren ortografiaren berritzaileetatik, hura etimologietatik askatu eta ahoskeratik ahalik eta gertuena ipintzearen aldekoen artean kokatu beharko genuke. Bide honetatik doaz *DAut*-ek eskaini ereduarekiko egin zituen aldaketa gehienak, hala sistematikoak, nola bakanka baizik gertatzen ez direnak. Atal

²⁸² Ohartu <ch> : <qu> eta <y> : <i> aldaketei ere.

²⁸³ Ohartu *-reo* > *-rio* aldaketari.

²⁸⁴ Ohartu <y> : <i> aldaketari ere.

²⁸⁵ Ohartu <ph> : <f> aldaketari.

²⁸⁶ <cc> dela eta, ik. akademikoen gomendioa (*DAut* 1726: lxxvi).

²⁸⁷ Cf. s.v. *acceptar*: "Covarr. trahe esta voz en su Diccionario con todos sus derivados sin P, y otros executan lo mismo; pero se debe escribir con ella, siguiendo su origen y manera natural de pronunciarla".

²⁸⁸ Hala ere, eratorri guztiak *accept*-en agertzen dira.

batzuetan, hala nola <ss> / <s> edo <x> / <j> / <g> auzietan, berriz, kontserbatzaile ageri da ia beti.

Derradan bide batez, honek zerikusi zuzena duela euskal ortografiaren bilakaerarekin: itxura guztien arabera, Larramendik ipini zituen oinarriak, gaztelaniaz oso neurri txikian baino irabaziko ez zuen joera hori, XVIII eta batez ere XIX. mendeetan zehar Euskal Herrian indar eta gara zedin, XX. mendeko grafi sistema eratuaz.

Ahalegin hartan euskal etimologiek euskarriren bat eskaini zioten, *DAut*-en arma berberak erabiliaz -aren zein <h> ezaren —hots, bi oposaketetan osagai ez markatuen— lehenetasuna baieztatzeko bidea ematen baitzioten.

Aitzitik, bere kontra jokatu zuen lan egiteko formak. Dirudenez, *DAut*-en liburukiak agertu ahala hiztegia onduaz joan zen: atal honetan B (1726) eta C (1729) letrak osatzerakoan oraindik V eta Z letrak (1739) ezagutzen ez zituelako ebidentzia argiak aurkitu ahal izan ditugu eta, beraz, bi letra haiek idatzi zitueneko *ad quem* eta *post quem*-eko mugak (§§ 6.1.1 eta 6.2.1). Hiztegia osoki berrantolatu ezean, gauzak zeuden-zeudenean utzi behar izan zituen sarritan, beraz. A letran gehixeago saiatu zen, *h*-dun eta gabeko aldaeren ugaritasunak adierazten digun bezala (§ 6.1.2); B letran ere ahaleginen bat egin zuen, *DAut*-ek eskaintzen zizkion laguntzak (bidalketa-deiak batez ere) V-ko hitz batzuk aipatzeko baliatuaz (§ 6.1.1), baina itxura guztien arabera C letrarako jadanik etsi zuen, Z-ra bidaltzen zuten deiak ere zeuden-zeudenean utziaz (§ 6.2.1).

Ahal izan zuen neurrian, beraz, bidalketa-deiak erabili zituen hitzak hiztegian berkokatzeko, bai ortografia “akademikoa” bilatuaz, bai tradizio jasoari baino belarriari kasu gehiago eginez, baita zeharo galduta barnera zitekeen irakurlearentzat sarbide erosoan erdietsi nahian. Bidalketa-dei hauek errazki sartu ahal izan zituen aldaketak hiztegiko atal oso bat hartzen zuenean (PH, RH edo TH, eta SC edo ST, adibidez; §§ 6.2.5 eta 6.2.6), nahiz honetan ez zuen beti era berera jokatu: DY, HY, LY, etab. bere hartan utzi zituen, CY, GY, PY, etab. aldatu zituen bitartean (§ 6.2.2), eta ez tamainak ez kokalekuak azal dezakete portaera aldaketa. Dena den, egindako aukeraketa berriek nahi baino arazo gehiago sortu zioten hiztegiileari, batez ere haien kontu ohar bakar batez ematerik ez dagoenean, inkoherentziak, errepikapenak eta aldaketan desagertutako sarrerak eraginez.

7. Latina

Latinezko zatia *HH*-ko apalena da, erabilitako ereduaren ondare zuzena eta, gorago joaz, Mendebaldeko hiztegi gintzaren latinezko hasieren ondorioz luzaro mantendu zen ohituraren isla anitzetatik bat baino ez (§ 1.4). Hizkuntza honek lekua izan zuen 1745 artean ondu ziren asmo handiko euskal hiztegi guztietan (Bidegarai, Etxeberri Ziburukoa, Pouvreau, Etxeberri Sarakoa, Urte), eta Larramendik ere —bere garaiko gehienek bezalaxe— latinik gabeko hiztegi bat osagabetzat joko zukeen.

Edonola ere, ez zuen jakintzat bederen eman, eta hitzaurrean *HH*-ko latina gaztelaniazko erreferentearen indarra ema zezakeen konparabide eta ikasi nahi zuketenenetzako tresna gisa zuritzen du, zuritu ere:

Es trilingüe el Diccionario, porque al Castellano y Bascuence me ha parecido añadir el Latín; y esto, entre otras, por dos razones. La primera, para desengañar a aquellos mal instruídos Bascongados, que con errada aprehensión piensan que a toda voz Castellana ha de corresponder otra voz simple Bascongada. (...) Pongo pues el Latín, para que vean que aun en esta Lengua muchas veces no puede explicarse una voz Castellana sino por perífrasi, o por dos o más voces, y que no deben extrañar esto en el Bascuence. La segunda razón es para ayudar a los que quieren aprender el Latín. Los Diccionarios que ay de Castellano y Latín, como de Nebrija y Salas, y las adiciones de Requejo, son tan pobres de voces Castellanas, que apenas tienen una tercera parte de la Lengua, y se hallan a cada paso atajados los que aprenden Latín, por no hallar en esos Thesauros o Diccionarios innumerables voces que traen Autores Castellanos (Larramendi 1745: xliv).

Arrazoi biak, latina sartzeak eskatu zion lanaren aldamenean, oso ahulak dira, zalantzarik gabe. Lehena euskarari eskainitako atalean berrartuko dugu (§ 8.3.1), baina aurrera daiteke irakurleari zein “gaizki hezitako euskaldunari” zuzendurik halako egiaztapena egiteko, ziurrenik adibide hautatu sorta bat aski izan zitekeela; beraz, hitzez hitz, latinaren laguntza —halakorik balego— hiztegi gilearentzat dateke onuragarri, *DAut*-eko latinaz arduratu zirenek arazoa nola konpondu duten begietaratuaz. Bigarrenari dagokionez, Larramendik jadanik ezagutzen dugun argudioa —hots, *HH DAut* baino erabilgarriago dela (§ 1.1)— erabiltzen du aipatutako pasartearen hurrengo lerroetan. Ez nekike esaten Larramendik benetan sinesten ote zuen Espainiako ikasleek *HH* halako zer baitetarako aukera zezaketela, edo irakasleek gomenda, baina zail xamarra deritzat; egiantzekoago lirudike euskaldunei begira egindako saioa balitz, hauek bi eratako erabilera —euskara zein latina ikastea— eman baitzekioketen. Honek ezinbestean Etxeberri Sarakoa

gogora dakarkigun arren, Larramendiren hitzetan ez dago bere herritarrak hezteko haren asmoarekin bat datorren ezer: baliteke, beraz, esate aldera esana.

Arrazoiak arrazoi, latinezko ordainak *DAut*-en ere egoteak, betiko galdera eragiten digu, hots, ereduari atxiki zitzea ala bere aldetik aritu ote zen. Hauxe da Larramendik hitzaurrean demaion erantzuna:

Añado finalmente el Latín correspondiente, no siempre el que está en el Diccionario [*DAut*-en], pero sí comúnmente, y muchas veces con harto escrúpulo, y sin atreverme a decir que sea de su cuenta. Qué le haremos? no será este el único defecto que tendrá mi Diccionario (1745: liv).

Beraz, gehienetan hari darraio, nahiz uzkur ari:²⁸⁹ honetan bestetan baino nabarmenago gera daiteke Larramendiren aldetik, bere hitzak sinisten baditugu, hiztegiileek elkarri kopiatzeko daukaten jaidura. Gure esku geratzen da, beraz, erraztasunari noraino amore eman zion erabakitzea.

Ondoko ikerketa apal-apala izango da, gertakariak ahalik eta xehekiena eskainiaz, baina haien interpretapenari dagokionez alderdirik mekanikoenetaraino bakarrik iritsiaz. Alor ederra izan daiteke Larramendik egindako aukeraketak estiloaren aldetik zein eratakoak diren erabakitzeko gauza den latinistarentzat; honetan egin ditudan sarraldi urriek begibistakoena baino —eta hau ere herabe— jasotzen ez dute.

HH-ko latinaren iturri nagusia, berehala ikusi ahalko dugun bezala, *DAut* bera da, nahiz eta gehienetan hango ordainak laburtuta ageri, handiegia izan nahi ez zuen hiztegi hirueledun batean sartzeko moduan. Badago, halaz ere, *DAut*-i egotzi ezin dakiokkeen aldaketa eta eransketa hondakin bat eta, oraingoz, Larramendiren latinaren ezagutzari zor zaiola onartuko dugu, bestelako iturririk dagoen ala ez erabakitzea geroko ikerkizun utziaz.

Esan gabe doa Larramendik latina menperatzen zuela (cf. bere latinezko idatziak,²⁹⁰ besteak beste); aztertzen den arte, ordea, ezin baztertu orduan Espainian eskura zitezkeen hiztegietatik bat edo batzuk baliatu izana, hiztegiilerik ausart eta buru-jantzienak ere bere burua baino —edo bere burua bezainbatean bederen— nahiago baitu eskuarki aurreko hiztegien laguntza. Dena dela, iturri berrien bilketa lanak kontuan izan beharko du *DAut*-ek dagoeneko Calepino Paseracio²⁹¹ eta Aita Enriquez-en *Diccionario latino*²⁹² (Cotarelo 1914: 115) erabili

²⁸⁹ Latinezko ordainak Aita Juan Interián de Ayalak osatu zituen lehenengo hiruzpalau letretan (*DAut* 1726: xxxviii), eta handik aurrera —1730ean hil baitzen— Aita Carlos de la Reguera-k (*DAut* 1739: [vii]).

²⁹⁰ Ikus bedi *Pallium Thomisticum se larvae jansenianae* (1720 ingurukoa) *Escritos breves*-en (Tellechea-Idígoras arg., 1990: 23-42). Argitaratzaileak —ezinukatzeko autoritateaz— “Muestra un perfecto dominio de la lengua latina, cualidad típica de la formación humanística singular de los jesuitas durante siglos” (ib. 14) diosku.

²⁹¹ Honela deitzen zaio, antza denez, Passerat irakasle frantsesak (1534-1602) emendatu zuenari (xeheetasunak Espasa entziklopediatik erdietsi ditut, s.vv. *Passerat* eta *Calepino*). Palauk Passerat eta J. L. de la Cerdaren eranskinak biltzen dituen argitalpen bat (*Lugduni*, 1647) aipatzen du; latinaz gainera hebreoa, grekera, frantsesa, italiera, gaztelania eta alemaniera jasotzen ditu, *in folio*-ko bi liburukitan.

²⁹² Ez dut ohiko lekuetan honen berririk aurkitzerik izan: Nebrixaren ondoren garai haietan erabili eta argitaratuena ziren eta bata bestearen berregiteak diren Nizolio-Bravo-Salas... hurrenkeraren (cf. Palau) beste bertsio bat ote?

zituela, baita Nebrixa eta Aita Salas-enak ere.²⁹³ Kontuan hartu beharko da, halaber, halako hiztegiak beti ere *DAut* erraldoia baino laburrago eta honek jasotzen dituen hainbat hitz peituko dituztenak izango direla, Larramendik esan bezala. Honek ere, gorago ikusi moduan, Nebrixa eta Salas aipatzen ditu, eta Requejoren eransketak;²⁹⁴ lehenaren *VRL* eta *DLE* bakarrik eskura izan dut, eta *VRL DAut*-en iturri argia izan dela baino ez dut egiaztatzerik izan, gure corpus mugatuan honen eta *HH*-aren arteko zenbait bat etortze (ez oso esanguratsu, egia esan) aurkitu baditut ere.²⁹⁵ Gainerakoen kasuan, argitalpen ezberdinen ugari eta nahasiaren aurrean, eta haiei eta haien iturriei buruzko ikerketarik ezagatik, nahiago izan dut oraingoz alde batera utzi, lan honen xedetik gehiegi urruntzen ninduen amildegieta sartzea baitzatekeen: ohartu, dena dela, Requejok berregindako Salasen hiztegiaren argitalpena (1729) zeinen data egokian kalera zen *HH*-rako.

Honenbestez, *DAut* eta *HH*-ko latinak erkatzerakoan antzemandako gertakariak soilik aztertuko ditut, gehienak ereduarekiko erlazioak ongi azaltzen dituelako ustean: ezaugarri orokorrak (§ 7.1), ordain gordeak (§ 7.2), aldaketa txikiak (§ 7.3), hautapenak edota laburketak (§ 7.4), gehiketak (§ 7.5), ordain aldaketa konplexuak (§ 7.6), ordain berriak (§ 7.7) eta latinik gabeko sarrerek (§ 7.8). Datuak 4. eranskinean ikus daitezke.

7.1. Ezaugarri orokorrak

DAut-eko latina eta *HH*-koa erkatzerakoan ezberdintasun eta irizpide ezadostasun orokor zenbait hautematen dira. Oso maila ezberdinetakoak dira baina, funtsean, hiztegi bakoitzaren izaerari —zehazkiago, bakoitzean latinak duen betebeharrari— eta latina aurkezteko moduari (normalizazio gorabeherak, hitzen forma kanonikoari buruzko irizpide ezberdinak, etab.) dagozkie. Honelakoak aurretiaz ezagutzea komeni zaigu, gero egin beharko dugun sailkapenean aldagai aske gisa jokatu baitute gehienetan.

²⁹³ Nebrixa oso sarri aipatzen du, ziurrenik *Vocabulario de Romance en Latín*-etik (1495) batez ere, baina baita agian *Dictionario Latino-Español*-etik ere (1492; hemendik aurrera *VRL* eta *DLE*, hurrenez hurren). A. Salas-en aipamena behin aurkitu dut (ik. § 6.1.2, s.v. *acia*), zalantzarik gabe josulagun honen *Thesaurus Hispanolatinus*-etik (1645etik aurrera hainbat argitalpen; ap. Palau), baina hainbat argitalpen, anitz emendatuak, izan zituen; ik. hurrengo oh.

²⁹⁴ Valeriano Requejo josulagunak (1621-1686) paratutako Salas-en argitalpen berri bat da: *Thesaurus Hispano-Latinus utriusque linguae verbis et phrasibus abundans: olim ap. Bartholomeo Bravo e Societate Jesu inventis, portea a P. Petro de Salas ex eadem Societate locupletatus: nunc mendis expurgatus, multis dictionibus, formulisque elegantibus auctus ex excultus, particulisque ad orationem perfoliendam explicatis, illustratus a P. Valeriano Requejo in Provincia Castellana ejusdem Societatis Humaniorum litterarum Professore* (Salamanca, 1729; berriak Espasa entziklopediatik erdietsi ditut; Palauk 1761etik aurrerako argitalpenak bakarrik aipatzen ditu).

²⁹⁵ Halakoak oharretan aipatu ditut. Larramendik Nebrixa iturritzat izan zuela baieztatzeko oztopo larri bat daukat: bere hiztegia Salas eta besteen iturri ere izan daitekeela, alegia. Bide batez, Echeniquek (1997: 221) Larramendik "...iba anotando las equivalencias en latín (tomando como guía el Calepino)..." dioenean, ez dakit nola ulertu behar den, lerrokada berean *DAut*-en eredutasun argiaz mintzatu baita: ba ote du besteren zantzurik ala *lapsus* txiki baten aurrean gaude?

7.1.1. *DAut*-eko etimologiak

DAut-en izaeratik dator latina egoera berezian egotea, ordainak aldioro eman beharraz gainera, oso sarri gaztelaniazko hitzaren etimoa ere latinezkoa da eta. Batzuetan bi atalak zeharo ezberdinduta agertzen dira:

OBVIAR. Evitar, huir, apartar y quitar de en medio lo que puede ser contrario, o tener inconvenientes. Viene del Latino *Obviare*, que significa salir al encuentro. Lat. *Occurrere. Vitare*.

Haatik, etimoa ordain ere izan daitekeenean, *DAut*-en egileek ez zuten irizpide bateraturik erabili. Gure corpusaren arabera, maizenik —eta guztiz hiztegian aurrera ahala— bitariko informazioa eskaintzen duen atal bat eratu zuten, nahiz eta atalaren adierazpidea zeharo normalduta ez egon. Hauek dira aurkez ditzakeen itxuretatik batzuk:

OBSERVAR. (...). Viene del Latino *Observare*, que significa esto mismo.

OBSTAR. (...). Es voz Latina *Obstare*.

OBSTINARSE. (...). Lat. *Obstinari*, que es de donde viene.

Dena dela, batzuetan egitura arrunta mantendu zuten, alde batetik etimologia eta bestetik ordainak emanez. Kasu honetan, etimoa ordainen artean errepikatuta ager badaiteke ere, oso maiz jakintzat ematearen alde jokatu zuten, gehienetan esanahikidetasuna era batera edo bestera agerian ipiniaz bada ere:

ABOMINACION. (...). Viene del Lat. *Abominatio, is*. Lat. *Abominatio, detestatio, execratio, &c*.

ABOMINAR. (...). Viene del Lat. *Abominare*, que vale esto mismo. Lat. *Execrari, detestari*.

OBSTACULO. (...). Viene del Latino *Obstaculum*, que significa esto mismo. Lat. *Impedimentum. Obex*.

Larramendik *DAut*-eko sarrerak osoki irakurri ohi zituelako aztarna berri bat dugu hemen, zeren eta eskaintzen dituen ordainen artean etimoa ere agertzea, eta are aukeratzen duen bakarra etimoa izatea ez baita ezohiko gertakaria: orotara, 21 aldiz etimoa ere aukeran zeukan eta haietatik bederatzitan ez du aintzat hartu, baina zortzitan bera da aukeratu duen ordain bakarra eta lautan bera eta ordaina(k). Ikus dezagun adibide bana:

MAPA (...). Es voz Latina *Mappa*, que suele significar lo mismo (...). Lat. *Tabula Geographica. Orbis seu alicujus Provinciae delineatio > Tabula Geographica*.

OBSTACULO (...). Viene del Latino *Obstaculum*, que significa esto mismo. Lat. *Inpedimentum. Obex > Obstaculum*.

EVAPORAR (...). Es tomado del Latino *Evaporare*. Lat. *Exhalare. Efflare > Evaporare, exhalare*.

Esan gabe doa *DAut*-ek etimoa bakarrik eskaintzen duenean *HH*-ak ere huraxe jaso ohi duela ordaintzat; goian aipatutako adibideak honela geratzen dira *HH*-an:

Lat. *Servare, observare* "observar".

Lat. *Obstare* "obstar".

Lat. *Obstinari* "obstinarse".

Honen ildotik, latinetik gaztelaniarako bidean aldaketarik gertatu ez denean, *DAut*-en egileak eskuarki latinezko hitza dela esatera mugatu ziren; ordain sor hau da, hain zuzen, *HH*-ak jasotzen duena:

"Voz Latina" > *Salve* "salve". "Es voz puramente Latina" > *Salvia*, ae "salvia". "Es voz Latina" > *Sambuca* "sambuca". "Es voz Latina" > *Vertebra* "vértebra".

Hurrengo adibidean *DAut*-eko sasi-etimoaz batera ordain sorra ere jaso du:

Dixose quasi *Vera-icon*, que significa verdadera imagen > *Veronica, vera icon* (Veronica).

Azkenik, Larramendik etimologiari jarri zion arretaren berri ematen digute gaztelaniazko hitzaren etorkia edo familiakidea aurrera eramateko xedeaz egindako hainbat aldaketak:

Protegens. Defendens, tis > *Defendens, protegens* “defensivo, va, adj.”.

Exauguratio. Degradatio > *Degradatio, exauguratio* “degradación”.

Denunciatio. Intimatio > *Intimatio, denuntiatio* “intimación”.

7.1.2. Kasu desinentziak eta pertsona adizkiak

Bai hiztegi batean eta bai bestean, latinezko izenkiak nominatiboan eta aditzak infinitiboan ematen dira, baina ez salbuespenik gabe. Batzuetan izenak genitiboari eta hiru bukaeradun adjektiboak femenino eta neutroari dagozkien desinentziaz lagunduta daude bietan, ohi denez, baina ez beti, ez eta era berera. *DAut*-en, oker ez baldin banago, iritzira —noiz bai, noiz ez— agertzen dira, eta beste horrenbeste esan daiteke *HH*-ari buruz oro har, harenak beti ez jasotzeaz gainera zenbaitetan han ez zirenak erantsi baititu.

Zehazkiago, aztertutako corpusean *DAut*-ek 104 sarreratan (%13,8) ordainetatik bati bederen desinentzia marka erantsi dio, eta *HH*-ak 65ri (%8,6). Bietan aurrera joan ahala gutxiagotan eranstejoera somatzen bada ere, *HH* alde honetatik bere kasa dabilela erraz frogatu daiteke, bietako orrialdekako banaketa so eginez beste gabe:

or.	AB	AL	AS	CA	CO	D	EM	ES	G	I	M	O	P	R	S	T	V	orot.
<i>DAut</i>	1	15	8	4	14	21	3	7	4	2	0	2	7	1	5	1	9	104
<i>HH</i>	7	18	2	2	10	5	1	3	0	1	0	3	4	1	4	0	4	65
<i>HH=</i>	1	13	2	2	9	4	1	1	0	0	0	1	4	0	2	0	2	42
<i>HH+</i>	6	5	0	0	1	1	0	2	0	1	0	2	0	1	2	0	2	23
<i>HH-</i>	0	2	6	2	5	17	2	6	4	2	0	1	3	1	3	1	7	62

Oro har, ordainak berdinak diren ala ez oraingoz begiratu gabe, Larramendik *DAut*-en desinentziaren bat agertzen zeneko 42 sarreratan mantendu du (taulan *HH=*), 62tan kendu (*HH-*) eta 23 berritan erantsi (*HH+*). Beraz, *HH*-ko joera nagusia desinentzia kentzea izan zela esan dezakegu, baina hiztegia hiru zatitan banatzeko adinako gorabehera aipagarri zenbaitekin: (1) hasieran zeharo alderantziz (*DAut*-ek peitutakoak osatzen, alegia) ibili zen: eransketen erdiak inguru (11/23) AB eta AL orrialdeetan pilatzen dira eta, bestalde, AL arte (s.v. *aletas*), ez dago kenketarik; (2) asmo hori utzi eta nagusiki kentzeari ekin zion: *AS*tik *ES* arte eransketak bakanak dira (2 baino ez) eta kenketak ugari (32, erdia baino gehiago); mantenketak eurak ere (*CO*-ren salbuespenarekin) gutxi izaten dira; eta (3) lehenengo liburukiaren bukaera aldera kendu beharra zerbait arindu eta, kenketa beti ere nagusi, eransketak ugarixeago agertzen dira, joera berri honek bigarren liburukian ere dirauelarik.

Kokaguneak ez du beti itsuki desinentziaren aurka jokatzeko: lotura argi bat dago —ez erabatekoa, ordea— hitzaren deklinabidea asmatzeko erraztasunarekin: hiru deklinabideko adjektiboen eta 1. deklinabideko izenen desinentziak dira, hurrenez hurren, galkorrenak. Lehenengoetatik 21 desagertzen dira (hala nola *defensus*, *a*, *um* > *defensus* “defendido” edo *liberius ductus*, *a*, *um* > *liberius ductus* “rasgueado”), *HH*-an halako 11 (6 mantendu eta 5 erantsi) baino aurkitzen ez diren bitartean, eta hauetatik 5 AB-AL orrialdeetan. 1. deklinabideko singularrean, berriz, kenketak 12 dira (hala nola *glarea*, *ae* > *glarea* “guija”), 6 mantenketa eta 2 eransketaren aldamenean (hauetatik 6 AB-ALn) eta pluralean mantentketak eta kenketak banako berdinketa dute (*Pinnae*, *arum*. *Pinnulae*, *arum* > *Pinnae*, *pinnulae* “aletas” baina *AEthesiae*, *arum* > *AEthesiae*, *arum* “ethesios”).

Hipotesia 2 eta 3. deklinabideetako hitzekin berma daiteke, hemen gauzak oso bestela badabiltza ere, zeren eta bietan kenketak nagusi izan arren, paretsuan baitabiltza mantentzekin, eta 3.ean bederen eransketak ere ez dira gutxi (2.ean 11/10/3 eta 3.ean 20/17/13, hurrenez hurren). Alde batetik, 3. deklinabideko eransketak nagusiki erroan aldaketaren bat aurkezten duten hitzetan gertatzen dira:

tapes, *tis* “alfombrilla”, *sturio*, *nis* “esturión”, *interpres*, *tis* “intérprete”, *occidens*, *tis* “ocaso”, *sanguis*, *inis* “sangre”, *verres*, *is* “verraco”, *vertex*, *icis* “vértice”.

Bestetik, kenketa zenbait 3.ean atzizki ezaguna [-*tio*/*sio*/*cio* ‘ekintza’, -*or* ‘egilea’, -*itas* ‘kualitatea’, -*ens* (orainaldiko partizipioa) edo -*ale* (adj.)] zein 2.ean zalantzagabeko nominatiboan (-*us*, -*um*) izateari egotz dakizkieke:

cautio [*onis*] eta *securitas* [*atis*] “aseguración”, *assessor* [*oris*] “assessor”, *decoctio* [*onis*] “cocimiento, para curar”, *defensio* [*onis*] “defendimiento”, *defendens* [*tis*] “defensivo, adj.”, *definitor* [*is*] “definidor”, *conscensio* [*nis*] “embarcación”, *ceremoniale* [*lis*] “etiqueta”, *internecio* [*onis*] “interneción”, *subatio* [*onis*] “verriondez”.

pulvillus [*i*] “cabezalejo”, *palus* [*i*] “guimbaleta”, *mirum* [*i*] “maravilla”, *sandalium* [*ii*] “sandalia”, *phlebotomus* [*i*] “sangrador”, *vestiarium* [*ii*] “vestuario”.

Gainerantzean, badirudi kokaguneak batik bat erabakitzen duela, izaera bereko hitzak AB-ALn batera eta Vn bestera ager baitaitezke (*odium*, *ii* “aborrecimiento”, *pistacium*, *ii* “alfónsigo” vs *vestiarium* [*ii*] “vestuario, donde se viste”), arazorik ez dutenei E letran desinentzia erants baitakieke (*aether*, *ris* “ether”) eta batez ere AStik aurrera zalantzazkoak izan litezkeenei ken baitakieke (*assessoris munus* [*eris*] “assessoría”, *ferale pegma* [*tis*] “degolladero, cadahalso”, *pascua* [*orum*] “dehesa”, *dux* [*ucis*] “guía”, *grando* [*inis*] “piedra, granizo”), Larramendik testua luzatu edo laburtzeko izan zuen aukera edo gogoaren arabera.

Bestalde, 2 eta batez ere 3. deklinaziokoetan biek zalantzak dituzte, desinentzia erantsita aldatzen den zatia bakarrik ala horren aurreko letra ere jasotzeko;²⁹⁶ erka bitez hurrengo bi adibideok:

lodix, -*icis* > *lodix*, -*cis* “cobertor”.
institor, -*ris* > *institor*, -*oris* “embarcador”.

²⁹⁶ Lehenengo deklinabidean ere bada kasu bat, Larramendik normaldu egin duena: *Mantica*, *cae* > *Mantica*, *ae* “alforja”.

Desinentziaren forma 13 adibidetan (mantendutakoen %31) aldatzen da: gutxiegi, nonbait, ezer ziurrik esateko, baina badirudi norabide bietako aldaketak paretsuan dabiltzala. Larramendi, dena dela, desinentzia laburrak ematerakoan erroaren aldaketa estaltzera irits daiteke (cf. behean *pumex*) eta, alderantziz, luzeetan genitiboazko forma osoki ematera (cf. *cotis*):

proditor, oris > proditor, ris "aleve".	cisium, i > cisium, ii "coche".
acinax, acis > acinaces, cis "alfange". ²⁹⁷	coccus, i > coccus, ci "cochinilla".
horreum, ei > horreum, i "alfoli".	apologeticus, i > apologeticus, ci "defensorio".
lodix, icis > lodix, cis "cobertor".	deifer, i > deifer, ri "deífero".
pes, edis > pes, dis "pié".	institor, ris > Institor, oris "embarcador".
pumex, icis > pumex, cis "piedra pómez".	cos, <i>otís</i> > cos, <i>cotis</i> "piedra de amolar".
subans, antis > subans, tis "verriondo".	

Aditzei dagokienez, lehenengo orrialdeetan Larramendik ereduko infinitiboak orainaldiko lehen (sarrienik baita bigarren) pertsonaz ordezkatzeko gehienetan,²⁹⁸ adibidez:

Halo, as "abahar". *Everto*, is; *affligo*, is "aballar". *Derelinquo*, is "abandonar". *Batuo*, is "abatanar". *Assuesco*, *consuesco* "abezarse". *Abjuro*, as "abjurar". *Mollio*, *emollio*, is "ablandar". *Abnego*, as "abnegarse". *Abomino*, *detesto*, *execro* "abominar". *Sereno*, as; *tranquillo*, as "abonanzar el tiempo". *Probo*, as; *approbo*, as "abonar". *Odi*, *isti*, *detesto*, *execro*, *aris* "aborrecer". *Aborio*, *iris*; *abortio*, is, *ibi* "abortar". *Intumesco*, is "abotagarse". *Gemmo*, as, *gemmasco*, is "abotonar". *Vro*, *comburu* [sic], *exuro*, is "abrasar". *Amplector*, *eris*, *complector*, *eris*, *amplexor*, *aris* "abrazar". *Brevio*, as, *contraho*, is "abreviar". *Aprico*, *aris* "abrigarse". *Absolvo*, is "absolver". *Abstineo*, es "abstenerse".

Halako pertsona-adizkiak corpusean lehenengo hiru orrialdeetan biltzen dira, guztiz AB zatian:

abomino, *detesto*, *execro* "abominar". *sereno*, as; *tranquillo*, as "abonanzar". *probo*, as; *approbo*, as "abonar, dar por bueno". *odi*, *isti*, *detesto*, *execro*, *aris* "aborrecer". *polio*, is; *levigo*, as "alesnar". *assentio*, *assentior* "assentir".

7.1.3. Zuzenketak eta hutsak

Hiztegi batetik bestera dagoen aldaketa tiki mordoska bat *HH*-ko zuzenketak dira; batzuko *DAut*-eko latina beti erabat zuzena ez izateari zor zaizkio, baina gehientsuenak aukerak baino ez dira: latinistek esan beharko digute, beraz, Larramendik hobetsitakoen artean ezereen aldeko joerarik hautematen den ala ez. Hona hemen direnak, kausitu ahal ditudan azalpenak oharretan doazelarik:

laevigare > *levigo*, as "alesnar".²⁹⁹ *acinax* [sic], *acis* > *acinaces*, *cis* "alfange".³⁰⁰ *foeditas* > *faeditas* "no ay olla tan fea...". *foetor* > *faetor* "cochambre".³⁰¹ *diffinitor* > *definitor* "definidor".³⁰² *lugulatus* > *Jugulatus* "degollado".³⁰³ *in sportis dorsuariis* > *in sportas dossuarias* "embanastar".³⁰⁴ *incrustrator*

²⁹⁷ Zuzenketez ik. § 7.1.3.

²⁹⁸ Hau, jakina, ez da berak asmatutakoa: oraingo hiztegietan ohikoa izateaz gainera, Nebrixaren *VRL*-ak ere honelatsu ematen ditu, besteak beste.

²⁹⁹ Larramendik etimologikoa (cf. *levis*) hobetsi du.

³⁰⁰ *DAut*-ekoek nominatiboa gaizki deduzitu dutela dirudi.

³⁰¹ Biak posible dira, baina oraingo hiztegiek (*ALD*, *DLF*) *foeditas*, *foetor* formak hobesten dituzte.

³⁰² Biak posible dira. Nebrixaren *VRL*-ak *Definio* eta *Diffinio* "difinir", *Definitio* eta *Diffinitio* "diferencia" dakartza.

³⁰³ Gainerakoan *DAut*-ek berak *Jugulum* "degolladero", *jugulator* "degollador", etab. idazten du, ohi denez.

[sic] > *incrustator* “embarrador”.³⁰⁵ *incrustatio* [sic] > *incrustatio* “embarradura”. *argillae incrustare* [sic] > *argillā incrustare* “embarrar”.³⁰⁶ *eurum* [sic] > *eurus* “euro”.³⁰⁷ *stragulae* > *stragula* “guarniciones de caballos”. *stragularum* > *stragulorum* “guarnicionero”.³⁰⁸ *denunciatio* > *denuntiatio* “intimación”. *denunciare* > *denuntiare* “intimar”.³⁰⁹ *marabotinus* > *marabetinus* “maravedí”.³¹⁰ *lapis obsidiana* > *lapis obsidianus* “obsidiana”.³¹¹ *ex ansare* > *ex ansere* “oca, juego de la”.³¹² *Incisione* [sic] *venae passus* > *Incisionem venae passus* “sangrado assi”. *ocisae* [sic] > *occisam* “tañer de occisa”. *calamister scalptorius* > *calamistrum scalptorium* “rascador, adorno”.³¹³ *hostiorium* [sic] > *hostorium* “rasero”.³¹⁴ *fussus* [sic] > *fusus* “vertido”.

Alderantziz, bestetan *HH*-koa ziurtasunez huts edo erratatzat eman behar dugu:

vitta > *vita* [sic] “alfareme”. *etymologia* > *etimologia* [sic] “etymologia”. *etymologicus, a, um* > *etimologicus* [sic] “etimológico”. *antlicus palus* > *palus anthliae* [sic] “guimbalete”.³¹⁵ *intricare* > *intrincare* [sic] “intrincar”.³¹⁶ *crastina die* > *crastina dies* “mañana”.³¹⁷ *vesicae* > *vexicae* [sic] “vexigazo”.

7.1.4. Adiera bakanketa

Nahitaez *DAut*-etik *HH*-ra gertatu den adiera bakanketa handiak (§ 4.1.2) eraginen bat izan behar zuen latinezko ordainetan. Larramendik honelakoetan eskuarki adiera nagusiko ordaina bakarrik aukeratu du bere hiztegirako:

EVACUAR	Viene del Latino <i>Evacuare</i> . Lat. <i>Exinanire</i> . Lat. <i>Extrahere</i> .	Lat. <i>Evacuare</i> .
---------	--	------------------------

³⁰⁴ Berez *sporta, ae* da. *ALD*-en arabera, normala *dossuarius, a, um* eta *dorsualis, e* dira. *DLF*-en arabera, *dorsualis* (Apuleyo, Amiano Marcellino), *dorsuarius* (*Corpus Glossariorum Latinorum*) eta *dossuarius* (Varrón). Cf. Ernout-Meillet s.v. *dorsum*: “*dorsualis* (*dorsalis, dorsanus* tardifs): dorsal (tardif). Comme *dossuarius*, sans doute fait d’après les dérivés tirés de thèmes en *-u-*, type *ossuarium*”.

³⁰⁵ Hau eta hurrengoetan, klasikoak *incrustator, incrustatio* eta *incrustare* dira, jakina. Nebrixaren *VRL*-ek *Argilla incrusto* “embarrar” eta *Argillae incrustatio* “embarradura” dakartza.

³⁰⁶ Badirudi *DAut*-ek nahasteren bat izan duela, genitiboa zein plurala (*argilla* zenbakaitza dela eginik) ezinezkoak direnez gero.

³⁰⁷ Cf. Nebrixa *DLE*: “*Eurus, i*, por el viento del oriente del invierno”.

³⁰⁸ *DAut*-ek *stragula, -ae* baten ganean ari den bitartean, Larramendik *stragulum, -i* hartzen du ontzat. Bigarren forma da *ALD*-k eskaintzen duen bakarra, baina *DLF*-k bai *stragula, ae* (f.) bai *stragulum, i* (n.), biak jasotzen ditu.

³⁰⁹ *ALD*-k biak jasotzen ditu, nahiz nagusitzat *denunt-* formak eman.

³¹⁰ Hitz hau ez da ohiko hiztegieta agertzen, noski, baina ez dut kausitu *DAut*-en forma berrets dezakeenik. Cf. Covarrubias, s.v. *maravedí*: “El Brocense, maravedí, hebreo *marvit, incrementum maravetinum*, corona de oro como un ducado. (...) Algunos dicen ser este vocablo árabe, y que le pudieron aver introducido los almoravides (...), y si acaso batieron alguna moneda, quitando el *al* de su nombre se pudieron llamar *moravedís*, y corruptamente *maravedís*”. Cf., gainera, *DCECH* s.v. *morabito* (135. or.): “*Maravedí* [*morabetins*, doc. de Tudela, a. 1127; *maravedí*, doc. de 1203; etc.], del ár. *murabifí* ‘relativo a los Almorávides’, que acuñaron esta moneda; hay muchísimas variantes”.

³¹¹ Larramendi *lapis*-en generoari atxiki zaio.

³¹² Klasikoa *anser, eris* da, baina latin arruntean *ansar, ansaris* (*DCECH*, s.v. *ánsar*).

³¹³ *Calamister, -tri* zein *calamistrum, -tri*, biak aukera onak dira. *ALD*-k zehazten du *-mister* “ante- and post-class[ic]” dela, *-mistrum*-erako Plauto eta Varrón aipatzen dituen bitartean.

³¹⁴ *DAut*-ek, antza denez, aditzaren (*hostio*-ren) ganean ari da, baina hiztegieta (*ALD*-n zehazkiago) *hostorium* bakarrik aurkitzen da (Priscianoren gramatikako erreferentziarekin). Nebrixaren *VRL*-k *Hostorium -ii* dakar.

³¹⁵ Hitz *antlia* da (< gr. *αντλία*); *ALD*-k M Valerius Martialis eta Suetonio aipatzen ditu.

³¹⁶ Cf. *DCECH* s.v. *intrincar*: “alteración del anticuado *intricare*, tomado del lat. *intricare*”.

³¹⁷ Cf. *DAut*-eko azalpena (“adv. de tiempo, que significa el día siguiente al en que se habla”) eta *HH*-ko ordainak (*biar, bigar*).

	Lat. <i>Vacuare</i> .	
	Lat. <i>Finire. Absolvere</i> .	
GUIAR	Lat. <i>Ducere</i> .	Lat. <i>Ducere</i> .
	Lat. <i>Dirigere</i> .	
	Lat. <i>Exemplo ducere</i> .	
	Lat. <i>Ductorem vel arbitrum esse</i> .	

Baina batzuetan taiu ezberdineko konbinaketak egin ditu jatorrizko ordainen artean, hala nola ordain ezberdinak batzea:

Operculum + Tegmen > Operculum, tegmen “cobertera”.
Subgrunda, ae + Tectum, i > Subgrunda, tectum, i “cobertizo”.

ordainetatik osagai zenbait aukeratu eta elkartzea:

Cubiculum calidarium + Cubiculum sudatorium + Vaporarium > Cubiculum vaporarium “estufa”.

edo ordainak zeharo bakantzea:

Militum praesidium + Limbus in vestis ora textus, ornatus + Ensis capulus > Munitio, ornatus, capulus “guarnición de plaza, vestido, espada”.³¹⁸ *Choriphaeus + Ductor > Ductor* “guía, de danzas, juegos, &c.”. *Lapideus. Lapidus + Limpidus, durusque. Lapidus > Lapideus* “guijarreño”. *Introire. Penetrare. Introducere + Introduci. Insinuare se > Introduci* “internar, internarse”. *Interventio + Interventus judicialis, vel interventio > Interventio, interventus* “intervención”. *Fortitudo. Magnanimitas. Strenuitas + Audacia imprudens > Audacia* “intrepidez”. *Intrepidus + Impavidus + Audax. Praeceptus > Intrepidus, audax* “intrépido”.

7.1.5. Hitz-familiak

HH-an oso nabarmena da aldamenean agertzen diren familiakideetan latinezko ordainak taiu berekoak izateko joera, kontuan izanik hau ez dela beti *DAu*-i zor dion ezaugarria. Ikus ditzagun adibide ezberdin batzuk:

INTERPRETACION	Es voz Latina <i>Interpretatio</i> .	Lat. <i>Interpretatio</i> .
INTERPRETAR	Es del Latino <i>Interpretari</i> . Lat. <i>In aliud idioma convertere, traducere</i> . Lat. <i>Accipere in alienum sensum. Interpretari</i> .	Lat. <i>Interpretari</i> .
INTERPRETADO	Lat. <i>Interpretatione acceptus. In alium sensum, in aliud idioma traductus</i> .	Lat. <i>Interpretatione donatus</i> .
INTERPRETATIVO	Lat. <i>Interpretans, vel etiam Interpretativus</i> .	Lat. <i>Interpretativus</i> .
INTERPRETE	Viene del Latino <i>Interpres</i> , que significa lo mismo. Lat. <i>Interpres. Index</i> .	Lat. <i>Interpres, tis</i> .
OBSTINACION	Viene del Latino <i>Obstinatio</i> , que significa esto mismo. Lat. <i>Pertinacia. Obstinatio</i> .	Lat. <i>Obstinatio</i> .
OBSTINADAMENTE	Lat. <i>Obstinatè. Pertinaciter</i> .	Lat. <i>Obstinatè</i> .
OBSTINARSE	Lat. <i>Obstinari</i> , que es de donde viene.	Lat. <i>Obstinari</i> .
OBSTINADO	Lat. <i>Obstinatus. Pertinax</i> .	Lat. <i>Obstinatus</i> .
RAREFACCION	Lat. <i>Rarefactio</i> .	Lat. <i>Rarefactio</i> .
RAREFACERSE	Lat. <i>Rarefieri. Rarescere</i> .	Lat. <i>Rarefieri</i> .
RAREFACTO	Lat. <i>Rarefactus</i> .	Lat. <i>Rarefactus</i> .

³¹⁸ Cf. *Munitus, ornatus* “guarnecido” bietan, *munitio*-rako.

Beraz, honen arabera epaitu behar dira hainbat ordain kenketa, goiko adibideetakoak bezalakoak, baina baita aldaketa eta eransketa batzuk ere:

DEFINITIVO	Lat. <i>Definitivus. Decretorius, a, um.</i>	Lat. <i>Definitivus, decretorius.</i>
DEFINITIVAMENTE	Lat. <i>Definitè.</i>	Lat. <i>Definitè, decretoriè.</i>
INTRINCADAMENTE	Lat. <i>Perplexè. Implicatè.</i>	Lat. <i>Intrincatè, implicatè.</i>
INTRINCAR	...y viene del Latino <i>Intricare.</i>	Lat. <i>Intricare, implicare.</i>

7.1.6. Larramendiren latina

Hautatu dugun corpus txiki xamarrean joera gisa agertzen diren zenbait ezaugarri azpimarra daitezke, Larramendik latin hobe edo, agian, argiagotzat zeukana definitzen hasteko adinakoak, nik uste. Haietan ziurrena hitz-ordenari dagokio: hainbat aldaketa genitiboa eta adjektiboa izenaren ondoren ezarriaz gertatu dira:³¹⁹

Acinacis ictus > *Ictus acinacis* “alfanjazo”. *Captivorum Redemptor* > *Redemptor Captivorum* “alfaqeque”. *Implicatum nemus* > *Nemus implicatum* “maraña, abundancia de maleza”. *Lidius lapis* > *Lapis lidius* “piedra de el toque”. *Locus in quo cantus libri collocantur* > *Locus in quo libri cantus collocantur* “versícula”.

Salbuespen bat, gaztelaniatzko hitzaren oihartzunak eraginda, apika:

Mente sana > *sanâ mente* “sanamente”.

Gaztelaniatzko esapidearen hitz ordena kalkatu du ondokoan:

Non foeditas quae careat EST amatore > *Non EST foeditas, quae careat amatore* “no ay olla tan fea (...)” (s.v. *cobertera*).

Bestalde, badirudi oro har preposiziodun sintagmak hain gabekoen ordezkari gabe dituela:

NAVIUM conscensio, nis > *IN NAVEM conscensio* “embarcación, acto de embarcarse”. *ARGILLAE incrustatio* > *EX ARGILLA incrustatio* “embarradura”. *Emolumenta ALTARI inservientum* > *Emolumenta EX ALTARI* “pié de altar”. *Tuis PEDIBUS summissus, vel devolutus* > *Tuos AD PEDES devolutus* “(a los) piés de v.m.”.

Eta genitiboak erlazio izenondoen ordezkari gabe.³²⁰

Stratum rusticanum > *Stratum rusticorum* “cabezal”. *Culinarium sordium graveolencia. Putor. Foetor, oris* > *Faetor, putor culinae* “cochambre”. *Antlicus palus* > *Palus anthliae* [sic] “guimbalete”.

7.1.7. Metahizkuntza

Latinezko metahizkuntza da Larramendik sarri xamar ikutu duen beste zerbait; alderdirik nabarmenena, *DAut*-ek hain maiz erabiltzen dituen juntagailu hautakariak, ia denak desagertzea da: *vel* 60 agerralditatik bakar batera igarotzen da, eta honetan lemaren eraginez [s.v. (*dar o tomar*) *ocasión*]; birritan “&” markaz ordezkatuta dago (s.v. *guijarro* eta *vertiente*) eta behin *aut*-ez (s.v. *embalumar*). Behin aurkitu dugun *vel etiam* (s.v. *interpretativo*) ere aienatu da. 7 bider agertzen da

³¹⁹ Esan gabe doa ordena “erromantzeagoa” dela (cf. Tagliavini 1973: 322-323).

³²⁰ Adjektiboa genitiboaren ordezkari gabe erabiltzea latin kristauaren ezaugarritzat jo daiteke (García de la Fuente 1994: 50).

aut, eta *HH*-ko agerraldi bakarra aipatutakoa da. Desagerpen hauetako gehienen ostean hautakariak ahalbidetzen zuten aukerako osagaietatik bat desagertu izana dago:

Tapes Babylonicus, vel *Phrygius* > *Tapes Babylonicus* “alfombra”.
Qui balsamo, vel *aromatibus corpora linit*, vel *medicatur* > *Qui balsamo condit* “embalsamador”.
Quidvis alicui animo, aut *capite infigi* > *Quidvis alicui capite insidere* “(ponérsele a uno algo en la) cabeza”.

Halaz ere, aukera desagertu ez arren ere halakoak saihesteko asmoa nabari da:

Satisdare, vel *cautionem praebere* > *Satisdare*, *cautionem praestare* “sanear”.

DAut-en latinezko ordainen beste ezaugarri bat ordain itzultzaile bakunak emateko zailtasuna, ordain perifrastikoak bainoago latinez gaztelaniazko hitzaren definizioak —batzuetan aski luzeak— eratuaz saihestea da. Larramendik oro har (ikusiko dugun bezala) halakoak laburtzeko joera dauka baina, metahizkuntzaz den bezainbatean, *DAut*-ekoa aldatzeko joera ere badauka, dela *sic dicta quaedam*-ez ordezkatuaz:

Peruana radix, *sic dicta* > *Peruana quaedam radix* “oca, una raíz dulce de el Perú”. *Pyri species*, *sic dicta* > *Pyri species quaedam* “oca, pera”.

edo erabat ezabatuaz:

Ludus sic dictus, *ex ansare* [sic] *depicto* > *Ludus ex ansere depicto* “oca, juego de la oca”.

dela erlatibozkoak ezabatuaz:

Locus UBI ligna serra secantur > *Locus secandorum serrâ lignorum* “asserradero”. *Mensura QUA molitor mercedem assumit* > *Mensura pro mercede molitoris* “maquiladero”. *Ludus QUO pila reticulo impellitur* > *Ludus pilae reticulis exceptae*, ac *redditae* “raqueta, juego”. *Sagum infame*, *QUO notantur QUI à Fide defecerunt* > *Sagum infame decussatâ cruce rubens* “sambenito”.

edo dela izenordain zehaztugabeak kenduaz:

Navem ALIQUAM ALICUI ALTERI applicari, è *proximo ad illam accedere* > *Navem navi appellere* “abordar una nave a otra”. *REM ALIQUAM stabilem facere*, *firmare*. *Item*. *Adpromittere de aliquo contractu*, *spondere*, *sponsorem fieri* > *Stabilem facere* “asegurar, poner segura”. *ALIQUEM ad fugiendum per semitas cogere*, *adigere* > *Ad fugiendum per semitas cogere* “assenderear”. *NONNIHIL pavere* > *Pavere* “cobardear”. *ALIQUID definire*, *diffinitione explicare* > *Definire* “definir”. *Volumine*, vel *mole ALIQUA onerare inaequaliter*, vel *augere* > *Mole*, aut *volumine inaequali onerare* “embalumar”. *Re intacta*, *relicto*, *IPSAM superare*, vel *praeterire* > *Rem intactam praeterire* “salvar, passar por encima”. *Malè*, vel *levitèr ALLIQUID coquere*, vel *frigere* > *Malè coquere* “sancochar”. *Locus quo ALIQUID effunditur* > *Locus quo aqua effunditur* “vertedero”.

Salbuespenen bat bada, ostera:

In navim imponere > *Navibus aliquid imponere* “embarcar”.

7.2. Ordain gordeak

753 sarrera ordaindunetatik, ohitura grafiko ezberdinak alde batera utzita,³²¹ *HH*-ko eta *DAut*-eko latinezkoak 241etan (%32) zeharo bat datoz, hots herenean bakarrik. Ikus ditzagun orrialdekako banaketa eta ehunekoa ordaindun sarrerei buruz:

³²¹ *DAut*-ek latinezko ordainak puntu artean ematen ditu eta, beraz, beti letra larriz hasirik; *HH*-ak, berriz, koma artean eta letra xehez. Eskuarki, biek azentua markatzen dute, baina ez ditut kontuan hartuko honetan dauden ezberdintasun nimiñoak.

OR.	GORDEAK	SAR.	PROP.		OR.	GORDEAK	SAR.	PROP.
<6>	0	23	%0		<21>	23	56	%41,1
<56>	10	37	%27		<71>	12	36	%33,3
<106>	5	46	%10,9		<121>	20	47	%42,6
<156>	14	39	%35,9		<171>	14	52	%26,9
<206>	15	54	%27,8		<221>	13	39	%33,3
<256>	21	50	%42		<271>	9	47	%19,1
<306>	10	46	%21,7		<321>	19	47	%40,4
<356>	24	52	%46,2		<371>	21	47	%44,7
<406>	11	35	%31,4					
OROTARA	110	382	%28,8		OROTARA	131	371	%35,3

Taulan ikus daitekeen bezala, oro har bigarren liburukian lehenean baino gehiagotan ezer ikutu gabe gorde zituen *DAut*-eko ordainak, batetik bestera 6,5 puntuko aldea dagoelarik. Bigarrean, gainera, banaketa erregularragoa da, behetik dauden biak salbu, proportzioa %33-44 artean (hots, batezbestekotik ez urruti) ibiltzen da eta. Bestalde, 1. liburukiaren jauzirik handienak —beti bezala— hasieran aurkitzen dira, AB eta AS orrialdeetan zehazkiago, abiatzerakoan latina bereago egiteko asmoa izan zuela iradokiaz.

Gordetako ordainen nolakoaz ere zeresana dagoke. Haien artean denetik dugu: ordain bakunak (*proditio* “alevosía”, *assensus* “assenso”), hitz bitakoak (*pultis hordeacea* “alexijas”, *crassionem fieri* “embarnecer”) eta definizio luzexkak (*pulmentum ex ovis piscium* “cabial”, *bombycis folliculus duplicatis filis contextus* “ocal, el capullo”); esaeren (*Bonum parato nomen, & tutus cuba* “cobra buena fama, y échate a dormir”), esapideen (*a capite ad calcem* “(de piés a) cabeza”) eta bestelako lema konplexuen (*occasio proxima* “ocasión próxima”) itzulpenak; desinentziak lagundutako (*figlina, ae* “alfahar”, *figulus, i* “alfaharero”) eta ez lagundutako ordainak, etab.

Halaz ere, aldakortasun honen gaintik deigarria da oso, ordain bakarra eta hura hitz bakarrekoa³²² daukaten sarreren kopuru altua (orotara 158, %66,1). Beste muturrean, ordain bitik gorako sarrerarik ez dago, eta bikoak eurak ere 25 (%10,5) baino ez dira. Halaber, ordain perifrastikoek gehienera jota bi hitzekoak izateko joera dute (40, %16,7), eskuarki ‘izena + izenondoa’ (*specula observatoria* “observatorio”, *objurgatio satyrica* “vexamen”), ‘izena + izenlaguna’ (*interrogationis nota* “interrogación”, *os occipitis* “occipital”) edo ‘aditza + osagarria’ (*sanum facere* “sanar”, *dentibus infrendere* “verraquear”) itxurakoak; ordain gutxi-asko itzultzaileon ordez definizioa dakarten sarrerak, ostera, oso gutxi dira, 13 baino ez: 3 hitzeko zortzi (ss.vv. *Algalia, Cabial, Cabos en los caballos, Degolladura, Dehesar, Guijarra, Raqueta* eta *Vertellos*), 4ko lau (ss.vv. *Cabezal de sangría, Guindalera, Rasgar, rasgear* eta *Vexigatorio*) eta 5eko bi (ss.vv. *Ocal* eta *Pié de gallo*).

Bestalde, gordetako ordainetan izugarrizko pisua dute gaztelaniazkoen arbaso nabarmenak diren hitzek (*internodium* “internodio”, *obstare* “obstar” edo *raritas* “raridad”

³²² Beti bezala, preposiziodun sintagmetan preposizioa kontuan hartu gabe.

bezalakoak): hertsikiegi jokatu gabe, 111 hitzek bederen (%46,4) daukaten ordain bakarria halakoa da. Adibide bakar batean, *DAut*-ek emandako etimoa eta ordaina, biak batuta daude *HH*-an:

VESTIR. (...). Es del Latino *Vestire. Induere* > Lat. *Vestire. Induere*.

7.3. Aldaketa txikiak

Ataltxo honetan bildu nahi izan ditut berez *DAut*-eko ordainak eta eurak bakarrik jaso arren, Larramendik zertxobait aldatu dituenak, eskuarki gorago zehaztu ditugun aldaketa orokorretatik baten (inoiz bat baino gehiagoren) eraginpean. Orotara 98 sarrera (%13) baino ez dira, ondoan erakusten den bezala sakabanatuak:

OR.	ALDATUAK	SAR.	EHUN.		OR.	ALDATUAK	SAR.	EHUN.
<6>	4	23	%17,4		<21>	5	56	%8,9
<56>	12	37	%32,4		<71>	3	36	%8,3
<106>	3	46	%6,5		<121>	7	47	%14,9
<156>	0	39	%0		<171>	6	52	%11,5
<206>	8	54	%14,8		<221>	3	39	%7,7
<256>	12	50	%24		<271>	6	47	%12,8
<306>	2	46	%4,3		<321>	1	47	%2,1
<356>	10	52	%19,2		<371>	13	47	%27,7
<406>	3	35	%8,6					
OROTARA	54	382	%14,1		OROTARA	44	371	%11,1

Badirudi, beraz, aztertutako azken orrialdea alde batera utzita, bigarren liburukian oro har honelako xehetasunetan denbora gutxiago eman zuela, hemengo emaitzek liburuki honetan somatu dugun *DAut*-eko ordainak dauden-daudenean uzteko joera handiagoa berresten dutelarik.

Talde honetan sartu ditugun gertakariak ondokoak dira:

1) Izenkietan desinentzia galdu, hartu edo aldatu bakarrik egin duten sarrerak (58, orotara), hala nola aditzetan infinitiboaren ordeztuak pertsona-adizkiak dauzkatenak (2) ere.

2) Ordain sorrak agerrarazi dituzten sarrerak (“salve”, “salvia”, “sambuca”, “vértebra”) eta sasi-etimoa eta ordain sorra ematen duen bakarria (“Verónica”).

3) Ageriko ordainak baizik jaso ez dituen sarrera (*Abominatio, detestatio, execratio, &c.* > *Abominatio, detestatio, execratio* “abominación”).

4) Ordainen arteko ordena aldaketa edo ordaineko osagaien ordena aldaketa baizik jasan ez dutenak (batetik *Portio. Pars* > *Pars, portio* “pieza, pedazo”, eta bestetik *Lidius lapis* > *Lapis lidius* “piedra de el toque” bezalakoak, 9 orotara), baita ordena aldaketarekin batera bestelako aldaketa txikiak jasan dituztenak ere: zuzenketa (*Denunciatio. Intimatio* > *Intimatio, denuntiatio* “intimación” eta *Non foeditas quae careat est amatore* > *Non est foeditas, quae careat amatore* “(no ay olla...) cobertera”), desinentzia kenketa (*Protegens. Defendens, tis* > *Defendens, protegens*

“defensivo, va, adj.”) zein eransketa (*Vexillifer. Signifer > Signifer, vexillifer, ri* “alférez”)³²³, etimoaren eransketa (*Vestitus* (ETIM)³²⁴. *Vestis > Vestis, vestitus* “vestido”) eta, azken honetaz gainera, pertsona-adizki bihurketa (*Abominare* (ETIM). *Execrari, detestari > Abominor, detestor, execror* “abominar”). 15 sarrera, orotara.

5) Adiera bakanketaren ondorioz latinezko ordainak *HH*-ko sarreran pilatuta agertzen direneko sarrerak (“cobertera” eta “cobertizo”).

6) Zuzenketa baizik jaso ez dutenak (“alfange”, “definidor”, “embanastar”, “euro”, “guarnicionero”, “intimar”, “mañana, el día siguiente”, “maravedí”, “obsidiana”, “rascador, adorno”, “rasero” eta “sangrado”).

7) *sic dicta > quaedam* aldaketa bakarrik pairatu dutenak (“oca, una raíz dulce de el Perú” eta “oca, pera”).

8) Numero aldaketa adibide bakar batean aurkitzen da, eta sarrera-buruaren aldaketarekin lotuta dago (ik. § 7.6.1.1):

Evangelistae “evangelistas” > *Evangelista* “evangelista”.

Ordainen nolakoaz den bezainbatean, gordeetan antzemandako joerak berragertzen direla esan beharra dago, baina sail ezberdinen arteko aldeak hemen zertxobait ematen direla zehaztuaz: hitz bakarreko ordain bat soilik daukaten sarrerak 53 dira (%54,1), bi ordainetakoak 26 (%26,5) eta 2 hitzeko ordainak 14 (%14,3). Atal honetan agertzen dira 3 ordaineko sarrera bakarrak, biak ABkoak (“abominación” eta “abominar”).

Beste horrenbeste esan daiteke ordainaren izaeraz ere: ordain bakarreko sarreretan 30 (%30,6) agerriki gaztelaniazko hitzaren arbaso edo arbasotzako (cf. “maravedí”) dira.

Gertakari bi hauek buruan gorde behar ditugu, *DAut*-ek eskaini ordainetan aukeraketak edota aldaketa handiak egiterakoan ere eragin handikoak izango baitira.

7.4. Hautapenak edota laburketak

179 sarreretan (%23,8) *DAut*-ek eman aukeretatik bat(zuk) bakarrik hartu d(it)u Larramendik. Soiltze lan honen arrazoa, *DAut*-ek eman informazioa behar baino gehiagokoa zela jotzea izan bide zen, dela Larramendi alor honetan ere labor beharrez ari zelako, dela latinari hiztegiaren osotasunean garrantzi gutxixeago eskaintzen ziolako. Hona orrialdekako banaketa:

OR.	HAUTATUAK	SAR.	PORTZ.		OR.	HAUTATUAK	SAR.	PORTZ.
<6>	2	23	%8,7		<21>	17	56	%30,4
<56>	7	37	%18,9		<71>	7	36	%19,4
<106>	19	46	%41,3		<121>	8	47	%17

³²³ Nebrixaren *VRL*-ko ordena da.

³²⁴ Laburdura honekin hemendik aurrera *DAut*-eko etimologiari buruzko atalean bakarrik agertzen direnak markatuko ditut.

<156>	8	39	%20,5		<171>	13	52	%25
<206>	15	54	%27,8		<221>	9	39	%23,1
<256>	6	50	%12		<271>	14	47	%29,8
<306>	13	46	%28,3		<321>	16	47	%34
<356>	10	52	%19,2		<371>	8	47	%17
<406>	8	35	%22,9					
OROTARA	88	382	%23		OROTARA	92	371	%24,8

Atal honetan bildutako gertakariei dagokienez, hurbil xamar daude bata bestetik bi liburukiak, bigarrenak emaitza altuxeagoak baditu ere. Orrialdeko banaketa, berriz, erregularragoa da bigarrenean, zeren liburu osoko bi muturretako emaitzak —espero zitekeen bezala— A letrako orrialdeetan (AB eta ASn) aurkitzen baitira, oraingoan emaitza baxuetan D letraz lagundurik; gainerakoan, usuenik portzentaiak %17-27 tartean dabilta. Beraz, bigarren liburukian, DAut-eko ordainak zeuden-zeudenean gordetzeko joera handiagoaz gainera, DAut-ekoak eurak baina zertxobait laburtuta emateko joera ere agertzen da lehenean baino indar handixeagoaz.

Zehatz ditzagun orain formaren aldetik aintzat hartu ditugun ordainen ezaugarriak, emankortasunaren araberrako hurrenkeran:

1) Ordain bakanketa hutsa gertatu da 125 sarreratan; adib.:

Abundè, affatim > Abunde “abondo”. *Proditor, oris > Proditor, ris* “aleve”. *Mantica, cae. Duplicis fundi pera. Gemini capitis & fundi saccus > Mantica, ae* “alforja”. *Fiducia, ae. Cautio, onis. Securitas, atis > Cautio, securitas* “asseguración”. *Choriphaeus + Ductor > Ductor* “guía, de danzas, juegos, &c.”.

2) Perifrasietan emandako aukera bakanketa 27 sarreratan; adib.:

Vitta aut infula capitis > Vita [sic] capitis “alfareme”. *Tapes Babylonicus, vel Phrygius > Tapes Babylonicus* “alfombra”. *Terriculis & gesticulationibus deludere, terrificare > Gesticulationibus deludere* “cocar, hazer cocos”. *Sarcinas struere, componere > Sarcinas componere* “embalar”. *In navi impositio, vel introductio > In navi impositio* “embarco”. *Seria vel doliolo includere > Doliolo includere* “embarillar”. *Re intacta, relicto, ipsam superare, vel praeterire > Rem intactam praeterire* “salvar, passar por encima”.

3) Perifrasia bestela (baita batzuetan aukera bakanketa ere eginez) laburtu izan da 19 sarreratan; adib.:

Aliquem ad fugiendum per semitas cogere, adigere > Ad fugiendum per semitas cogere “assendear”. *Serra ligna secans > Serrâ secans* “asserrador”. *Sucula insectum > Sucula* “cochinilla, insecto”. *Elixae ac frixa carnis edulium > Elixae, ac frixa caro* “cochifrito”.

4) 5etan ordain bakanketaz gainera era bateko edo besteko perifrasi laburketa ere gertatu da:

Rem aliquam stabilem facere, firmare. Item. Adpromittere de aliquo contractu, spondere, sponsorem fieri > Stablem facere “assegurar, poner segura”. *Utut evéniat. Utcumque res cadat. In omnem eventum > Utut, utcumque* “assí como assí”. *Fortitudo. Magnanimitas. Strenuitas + Audacia imprudens > Audacia* “intrepidez”. *Salvum fieri. Incolumen evadere, vel servari > Incolumen evadere* “salvarse de algún riesgo”. *Montis, vel collis declive. Alveus, ei > Declive montis, &c.* “vertiente, sitio por donde corre el agua”.

5) 4tan ordain perifrastikoen osagaien konbinaketa:

Culinarium sordium graveolencia. Putor. Foetor, oris > Faetor, putor culinae “cochambre”. *Condire unguentis. Balsamo linire > Balsamo condire* “embalsamar”. *Cubiculum calidarium + Cubiculum sudatorium + Vaporarium > Cubiculum vaporarium* “estufa”. *Filorum tricae glomeratae. Implicatio > Filorum implicatio* “maraña en la seda, hilo, lana, &c.”.

Inausketaren ondoren ordain bakar bat gorde duten sarrerak 159 (%88,8) dira, gainerako guztiak (20 baino ez, orotara) ordain bitan utzi dituen bitartean: corpusean ez da bitik gora mantendu duen sarrerarik, nahiz *DAut*-en 3koak oso-oso maiz agertu. Hona adibide batzuk:

- 2 > 1 *Abundè, affatim* > *Abunde* “abondo”.
- 3 > 2 *Fiducia, ae. Cautio, onis. Securitas, atis* > *Cautio, securitas* “aseguración”.
- 3 > 1 *Asseverare. Affirmare. Asserere* > *Asseverare* “asegurar, dezi”.
- 4 > 1 *Probatio, vel approbatio, assertio. Probata cautio* > *Probatio, nis* “abono”.

Sarrienik, ordain bakun multzoa bakandu egin du, emandako adibideetan ikus daitekeen bezala. Alabaina, bestetan bitariko ordainak zeuden, bakunak eta perifrastikoak, eta orduan 24 sarreratan aukeran hitz bakarreko ordaina —edo haietatik bat— hobetsi du, perifrastikoak alde batera utziaz. Bereziki esanguratsuak dira ordain ez itzultzaileak (definizioak) alde batera utzi dituenekoak, hala nola *Pacto mercium in tuto collocandarum* “asegurador” edo *Qui speciem alterius refert* “asemejado” bezalakoak. Salbuespenak sei (*alforza, asemejar, embarcarse, embarrar, mapa* eta *vertiente, sitio*) baino ez dira.

DAut-eko ordain perifrastiko konplexuak (osagairen batean aukera bat baino gehiago dutenak, alegia) Larramendik soildu egin ohi ditu, adjektibo (*alfombra, cabos en el vestido, mar en leche, piedra infernal, pieza de artillería, tempestades*), aditz (*asserrar, echar las cabras, embalar, embaljar, salvarse, sangrar*), izen (*alfareme, cabo de ronda, cocar, embarco, embarrilar, interpressa, ocasionar, a pié quedo, sangre lluvia, vexigazo*), partizipio (*sancochado*), adberbio (*interpretar*) edo erlatibozko (*sangradura*) bakarra utziaz. Sarrera bitan (*embalsamar, maraña*) *DAut*-eko bi ordainak batera ekarri ditu, hurrenez hurren, bataren aditza eta bestearen izena edo bataren genitiboa eta bestearen izena elkartuz.

26 sarreratan gaztelaniazko hitzaren etorkia —edo familiako kide hurbila bederen— den ordainaren alde egin du, gainerakoak uxatuaz; behin (*evadir*) bera eta beste bat hautatu du. Salbuespenak —hots, familiakoa ez dena hobetsitakoak— 3 baino ez dira: “templanza, moderación”, “templar, moderar”³²⁵ eta “versado”.

Etimoa eta ordainen artean, 7tan (*estudioso, estuprar, intolerable, obstáculo, temer, temerario, templar*) lehena aukeratu du, behin (*evaporar*) hura eta beste bat eta bostetan (*asemejar, mapa*,³²⁶ *pierna, tempestuoso, vernal*) etimologiakoa arbuia du. Azken hauek, bide batez, euskal etimologia gabekoak dira —*pierna* izan ezik— eta, beraz, alde honetatik hautaketa askea bide da.

DAut-ek barbarotzat edota *vulgata*-tzat agerian joak (*algalaba* eta *defensorio*) ez ditu behin ere jaso.

³²⁵ Bi hauetan esanahia bereizi nahiez: cf. *Temperantia* “Templanza, virtud que moder el exceso de sentidos y apetitos” eta *Temperare* “Templar apetitos, &c.”.

³²⁶ Lat. *mappa*-k oso esanahi ezberdina baitzuen (‘eskuzapia’, etab.) eta, nahiz *DAut*-ek “que suele significar lo mismo” zehaztu, azalpena honelatsukoa da: “del lat. *mappa mundi* ‘mapa del mundo’, donde *mappa* es ‘pañuelo’, ‘servilleta’; por el lienzo que se empleó antiguamente para hacer mapas” (*BDEL*, s.v.).

Perifrasi laburtuetan, desagertutakoak izenordain zehaztugabeak edo kidekoak izan daitezke (*rem aliquam* “asegurar”, *aliquem* “assenderear”, *res* “assí como assí”, *nonnihil* “cobardear”, *aliquid* “definir”, *aliquid* “sancochar”), zehaztapenak (*ligna* “asserrador”, *cogitabundus* “cabizbaxo”, *insectum* “cochinilla”, *radicibus* “embarbascarse”, *in alicujus animum vel amicitiam* “intimarse”, *ex farina* “maquila”, *unciae* vel *mensurae* “ochava”, *humoris* “rpto”, *omnino* “rasamente”, *pensile* “tembleque”), edota metahizkuntzako hitzak (*sic dictus* “oca, juego de la”).

Laburketaren bitartez, 8 perifrasi (*cobardear*, *cochinilla*, *definir*, *embarbascarse*, *intimarse*, *rpto*, *rasamente*) hitz bakarreko ordain bilakatu dira.

Batzuetan ordain bakanketa familian oro har gertatutako adiera bakanketari zor zaio (§ 7.1.4):

Evacuatus. Exhaustus. Exinanitus > *Evacuatus* “evacuado”. Cf. *HH*-ko *Evacuare* “evacuar”, *DAut*-eko adiera nagusiko ordaina.

Ductus. Directus > *Ductus* “guiado”. Cf. *HH*-ko *Ducere* “guiar”, *DAut*-eko adiera nagusiko ordaina.

Hostitus. Leviter tactus > *Hostitus* “rasado”. *Leviter tactus* < *Leviter tangere*, *rasar*-en *DAut*-eko bigarren adiera, *HH*-ak ez jasoa.

Vexatus. Satyricè objurgatus > *Vexatus* “vexado”. Cf. *HH*-ko *Vexare* “vexar”, *DAut*-eko adiera nagusiko ordaina.

Bestetan, inausketa familiari oro har emandako ordainen araberakoa da agerriki (§ 7.1.5):

Sequestratus. Impeditus > *Sequestratus* “embargado”. Cf. *Sequestrator* “embargador”, *Sequestrare* “embargar” eta *Sequestrario* “embargo” bi hiztegietan.

Argillae incrustare [sic]. *Linire* > *Argillâ incrustare* “embarrar”. Cf. *Argillâ incrustator* “embarrador” eta *Argillae incrustatio* [sic] > *Ex argilla incrustatio* “embarradura” bietan.

Rarefieri. Rarescere > *Rarefieri* “rarefacerse”. Cf. *Rarefactio* “rarefacción” eta *Rarefactus* “rarefacto” bietan.

Beste batzuetan, latinez nolabaiteko esanahi bereizketa egiten saiatu dela dirudi:

Vesica, vel *vesicula* > *Vesicula* “vexiga, la que se levanta en el cutis”; *vesica* “vexiga”-rako utzi du.

Eta, azkenik, behin bederen euskaraz esapide ezberdinik izango ez zukeen femeninoa ezabatu du (§ 3.3.2):

Bellator. Bellatrix > *Bellator* “guerreador”.

7.5. Gehiketak

7.5.1. Ordain gehituak

DAut-ek eman baino *HH*-an latinezko ordain gehiago agertzea oso gertakari bakana da: orotara 19 adibide (%2,5), eta haietatik bitan (*aborrecer*, *cobrar*) gehiketa etimoa kontuan hartu gabe gertatu da. Atal honetan idoro genitzake iturrigai berrien frogarri onenetakoak. Adibidez, Nebrixaren *VRL*-an haietako zenbait aurkitu ditut, nahiz eta ez kopuruan ez izaeran iturritasunik frogatzeko adinakoak, nik uste:

Abhorrere (ETIM). *Odio habere, prósequi* > *Odi, isti, detestor, execror, aris, odio habere, prosequi* “aborrecer”.³²⁷ *Stragulae* [sic] > *Phalerae, stragula* “guarniciones de caballos”.³²⁸ *Mare* > *Mare, pontus* “mar”.³²⁹ *Petra* > *Lapis, saxum, petra* “piedra”.³³⁰

³²⁷ Cf. *VRL odi odisti* “aborrecer” eta, oso gertu, *detestor -aris. Execror -aris* “abominar”.

Alabaina, gehiketa batzuk iturri berririk gabe erraz azaltzen dira; ondoko guztiak familiako ordainei egokitzeagatik gertatu dira:

Odibilis > *Odibilis*, e; *detestabilis*, e; *execrabilis*, e “aborrecible”.³³¹ *Definitè* > *Definitè*, *decretoriè* “definitivamente”.³³² *Carnifex, cis* > *Carnifex, jugulator* “degollador”.³³³ *Exauguratus, a, um* > *Exauguratus, depositus honore* “degradado”.³³⁴ *Intricare* > *Intrincare* [sic], *implicare* “intrincar”.³³⁵ *Scissus* > *Discissus, scissus* “rasgado”.³³⁶

Eta behin gaztelaniazko azalpena itzuli du (antzeko gertakarietarako ik. § 7.6.1.1):

Axilla, ae > *Axilla, ae*; *ala exigua* “aleta, [a]la pequeña”.

Gainerakoetarako, ostera, ez dut aurkitu azalpen berezirik:

Ponere. Statuere > *Ponere, supponere, statuere* “assentar, presuponer”. *Frontale, is* > *Frontale, is, capistrum* “cabezada de mula”. *Cuperare* (ETIM). *Recuperare. Recipere* > *Exigere, recipere, recuperare* “cobrar”. *Etymologia* > *Etimologia* [sic], *origo* “etymologia”.³³⁷ *Pedibus* > *Pedes, itis, pedibus* “(a) pie”. *Scissura* > *Scissio, scissura* “rasgón”. *Sandalium, ii* > *Sandalium, solea, ae* “sandalia”. *Temperator* > *Temperator, moderator* “templador de afectos”.

Gutxi izan arren, azpimarragarria da oro har daukaten banaketa aski erregularra: adibiderik gabeko orrialdeak oso gutxi dira (I, 306; II 121 eta 371); 3 orrialdetan %1-2 bitartean dabilta, 7tan %2-3 eta 3tan %4-6 bitartean; handik gora dabilen orrialde bakarra lehena da, gorago antzeman diogun *DAut*-eko ordainak ez bakantzeko joeraren osagarri.

Ohartu, bestalde, eransketak ordain bakarrekoak izan ohi direla.

7.5.2. Zehaztapen berriak

Are bakanago (4 adibide, %0,5), perifrasiak zein hitz bakarreko ordainak zehaztapen berriez lagunduta datoz *HH*-an:

Levis armaturae equitatus > *Maurorum levis armaturae equitatus* “alfaraces, caballos ligeros de los Moros”. *Sacchari gluten. Penidium, ii* > *Sacchari, mellisque gluten, penidium, ii* “alfeñique, pasta de azúcar”. *Incrustator* [sic] > *Argillâ incrustator* “embarrador”. *Sedato animo, vel ira* > *Deferente irâ, sedato animo* “(a) sangre fría”.

³²⁸ Cf. *VRL Phalerae -arum* “guarnición de caballo”.

³²⁹ Cf. *VRL Mare -is. Pontus -is* “mar, generalmente”.

³³⁰ *saxum* eta *petra*-ren artean ez dago kakorik, baina esanahikideak dira. Cf. *VRL Lapis -idis. Saxum -i. Scrupus -i* “piedra”.

³³¹ Cf. *detestor, execror* “aborrecer” *HH*-an: hauek ere Larramendiren eransketak dira, eta beheraxeago azaltzen ditut.

³³² Cf. *Definitivus, decretorius* “definitivo” bietan.

³³³ Cf. *Jugulum* “degolladero” eta *Jugulare* “degollar” bietan.

³³⁴ Cf. *Aliquem deponere, exaugurare* “degradar”.

³³⁵ Cf. *Implicate* “intrincadamente” bietan.

³³⁶ Cf. *Discindere, scindere* “rasgar” bietan.

³³⁷ Hau oso eransketa esanguratsua da baina, bestalde, oso klasikoa: idazle latindarrek (Quintilianok, besteak beste) hitz grekoaren ordeztu erabili zituztenetako bat (Zamboni 1988: 17-19).

Arrazoa, gainera, zeinek berea daukate: lehenengo adibidean, gaztelaniazko azalpenari xehekiago lotu zaio Larramendi; hirugarrenean, familiak ematen digu azalpena;³³⁸ bigarrenean, beharbada *sedata* ez da *ira*-rekin ongi datorren adjektiboa; eta bigarrenean, berriz, ez dut asmatzerik izan *mellisque* 'eta ezta' zer dela eta erantsi duen.³³⁹

7.6. Ordain aldaketa konplexuak

Aztertzeo geratzen zaizkigun ordain gehienek (orotara 134, %17,8) bilakaera konplexuagoa izan dute, hitz zenbaiten ordezkapenaz gainera, sarritan gorago aztertu gertakarietatik bat baino gehiagoren pean eratuak izan baitira; zenbaitetan, *DAut*-eko antzik ere gorde ez dute. Azalpena errazteko, bost gertakari mota bereizi ditut: *HH*-an azalpena duten aldaketak (§ 7.6.1), estilo aldaketak (§ 7.6.2), ordainak laburtzeko xedez egindako aldaketak (§ 7.6.3), zatikazko aldaketak (§ 7.6.4) eta erabateko aldaketak (§ 7.6.5).

7.6.1. *HH*-an azalpena duten aldaketak

DAut-en ereduarekiko desbideratze zenbait latinaz kanpokoak dira, hau da, *HH*-an dauden eduki berri(tu)en edota egin diren aldaketen ondorio zuzenak (28 orotara, %3,7). Hauen artean, honako bereizketa hauek egingo ditut: (1) sarrera barruko gertakariak (hots, sarrerako edozein osagaik eragindakoak); eta, sarreraz kanpokoan artean, (2) familiak eragindakoak eta (3) leku-aldaketek eragindakoak.

7.6.1.1. Sarrera barruko gertakariak

Dakigun bezala (§ 4.6), Larramendik batzuetan *DAut*-en aurkitutako sarrera bere erara antolatzen edo aurkezten du *HH*-an. Sarrera barruan diren osagaietatik eragintsuenetakoa, sarrera-buruaren forma aldatu izana dugu, honen arabera latinezko ordaina ere aldatua izan baita:

Nec caput, nec pedes habere "No tener o llevar pies ni cabeza" > *Sine capite, & calce* "(sin pies, ni) cabeza". *Caput somno tentari* "Dar cabezadas" > *Dormientis capitis decidui motus* "cabezadas de el que duerme". *Se in tutum recipere* "Ponerse uno en cobro" (s.v. *cobro*)³⁴⁰ > *Locus tutus* "cobro, seguridad, resguardo". *Phrenesis, vel insania intervallum* "Lúcido intervalo" > *Phrenesis intervalla* "(lúcidos) intervalos". *Intimus amicitia* "íntimo" > *Amicissimus* "íntimo amigo". *Ansam arripere, vel Causam quarere* "Tomar ocasión" > *Ansam dare, vel arripere* "(dar o tomar) ocasión". *Planta. Truncus* "Pié" > *Truncus, arbor* "pié, tronco u árbol". *Vas, sis. Supellex, tilis* "Pieza" > *Vas aureum, &c.* "pieza de oro, &c."³⁴¹ *Locum appetere* "Tener gana de rasco" > *Jocari appetis* "(tienes gana de) rasco". *AEqualitas. Aequitas* "Rasero" > *Omnnes eodem jure, eodem pede* "(a todos por un) rasero". *Praegranda os* "Boca rasgada" + *Patuli oculi, longique* "Ojos rasgados" > *Apertus* "(ojos) rasgados, boca rasgada". *In tutum. Ex tutò. Tutò* "En salvo" > *In locum tutum se recipere* "(ponerse en) salvo".

³³⁸ Cf. *Argillae incrustatio* > *Ex argilla incrustatio* "embarradura" eta *Argillae incrustare* > *Argillâ incrustare* "embarrar".

³³⁹ Cf. *DAut*-en azalpena: "Pasta de azúcar, que se suaviza con azeite de almendras dulces (...)". Euskaraz ere *orasucra* dio bakarrik.

³⁴⁰ *DAut*-ek ez du beste latinezkorik ematen azpisarrera honetan.

³⁴¹ Nebrixaren *VRL-k Aureus -i. Aureolus -i* "pieça o moneda de oro" dakar.

Exceptó. Seclusò. Praeter “Salvo” > *Praeter unum omnes* “salvo uno, todos los demás”. *Indolis, vel genii qualitas, aut modus* “Temple” > *Soluto, atque hilari animo est* “(está de buen) temple” + *Male affectus est* “(está de mal) temple”.

Antzeko eragina izan du Larramendik buru-hitzaren aldamererako hautatu duen azalpenak: adibide zenbaitetan *DAut*-eko latinezko ordaina alde batera utzi eta gaztelaniazko azalpenaren latinezko itzulpena ipini du:

Tignum exiguae latitudinis > *Tignum extruendis januis, ac fenestris* “alfargía, madero para fundar puertas y ventanas”.³⁴² *Uno haustu. Una comestione* > *Una vice* “assentada, lo mismo que vez”. *Scripto tradere, consignare* > *Annotare* “assentar, anotar”. *Coctio. Coctura, ae* > *Facilitas coquendi* “cochío, calidad de cocerse bien alguna cosa”. *Praesidio tutus, munitus, a, um* > *Quod defendi potest* “defendedero, defendible”. *Artem adhibere. Industriosè agere* > *Disponere* “mañear, disponer”.

Batzuetan, bestelako ordainik onartu zein ez, esapidearen hitzez hitzeko itzulpena eskaini du Larramendik:

Stabiliter. Constanter. Securè > *Firmo pede* “(a) pié firme”. *Unio. Gemma. Bacca, ae* > *Lapis pretiosus, gemma* “piedra preciosa”. *Firmiter. Stabiliter. Durè* > *Lapide, & caemento, firmiter* “(a) piedra y lodo”.

Behin bederen, euskal etimologiak eragin du latinezko ordainaren aldaketa (baita azalpena ere: ik. § 5.2):

Cavatus scalper > *Scalpellum arcuatum* (“Gubia, escoplo delicado, arqueadito, es voz Bascongada, que significa arco, corvadura, de donde dezimos *gubiatu* por arquear, encorvar...”).

Hurrengo sarreretan, ordea, badirudi euskarak eragin duela aldaketa edo, gutxienez, euskaraz eta latinez interpretapen bera egin duela:

Lapis nudus, vel limpidus > *Lapis laevis, & rotundus* [“Guijarro, (...) *arri leuna, arri boilla*”]. Cf. halaber *DAut*-en azalpena: “Piedra lisa y casi redonda (...)”.
Plana superficies, vel aqua. Planè plenus > *AEqualis* [“Ras, igualdad en la superficie (...)”. *Berdin, bardin*].

Konplexuagoa da hurrengoa:

[*Applicatio navium* > *Appulsus, comissio*] + [*Ad navim in navi applicatio, vel appulsus* > *In navi esse, ad navem accedere*] “abordo”.³⁴³

7.6.1.2. Familiarteko loturak

Dakigunez, Larramendik *DAut*-en egileek baino familiarteko loturei garrantzi handiagoa eman zien, sarritan familia bereko hitzak, alfabeto hurrenkeraren kaltetan, elkarren jarraian emateko joera izanik. Alde honetatik uler daitezke, beraz, familiakideen latinezko ordainen arabera aldatu izan direnak:

Dare praedes pro aliquo, vel pro aliqua re spondere > *Probo, as; approbo, as* “abonar”. Cf. *Probatius* “abonado” bietan eta *Probatio* “abono” *HH*-an.
Solum tapetibus & stragulis insternere > *Tapetibus sternere* “alfombrar”. Cf. *Tapetibus stratus* “alfombrado” bietan.

³⁴² Cf. euskaraz *ate leyoac ifinteco zur bat*.

³⁴³ Larramendik *DAut*-eko bi adiera elkarren segidan, sarrera berean ematen ditu: lehena “El acto de abordar” eta bigarrena “También se usa esta voz para decir que se ha estado en alguna embarcación, o que se va a ella” dira *DAut*-en arabera. Larramendik familiakoei emandako itzulpenaren arabera (cf. *Apulsus, a, um; alteri comissus, a, um*) itzuli du lehena, eta *DAut*-eko azalpenaren arabera, hain zuzen, bigarrena.

Aliquem ore, aut moribus exhibere, referre, reddere, repraesentare > *Similem esse, alterum referre* “asemejarse”. Cf. *Similem facere* “asemejar” bietan.

In scopum directus, adactus, a, um > *Collineatus* “asestado”. Cf. *HH*-ko *Collineare* “asestar artillería”, *DAut*-eko ordainetatik bat.

Constanter assertus, a, um > *Asseveratus* “asseverado”. Cf. *Asseverare* “asseverar” bietan.

Cui transversum est caput, aut in humerum inclinatum > *Obtorto capite* “cabiztuerto”. Cf. *Demisso capite* “cabizbaxo” eta *Decidente capite* “cabizcaído”.

Decoctus. Concoctus, a, um > *Coctus, a, um* “cocido”. Cf. *Coquere* bakarrik “cocer” bietan.

Cum vitio, vel imperfectione > *Imperfectè, mendosè* “defectuosamente”. Cf. *Imperfectus, mendosus* “defectuoso” bietan.

Gradus aut honore aliquem deponere > *Aliquem deponere, exaugurare* “degradar”. Partizipioa *exauguratus, a, um* da *DAut*-en. Cf. *Degradatio, exauguratio* “degradación” ere, bietan.

Illusus. Delusus > *Deceptus* “embaído”. Cf. *HH*-ko *Decipere* “embair”, *DAut*-eko ordainetatik bat.

Tetannus, i “envaramiento” > *Membrorum rigor, torpor* “embaramiento”. *Torporare. Torpore afficere, rigere* “envarar” > *Rigore, torpore membrorum affici* “embarar”. Cf. *Torpore affectus* “envarado” > “embarado” bietan.

Molestus. Laboriosus. implicatus > *implicatus, impediens* “embarazoso”. Cf. *Impedire, implicare* “embarazar” bietan.

AEternitati, vel immortalitati commendare, traddere > *AEternum facere* “eternizar”. Cf. *AEternus* “eterno” bietan.

Coomare + Praesidiis munire > *Munire urbem, ornare vestem* “guarnecer plazas, vestidos”. Cf. *Munitus, ornatus* “guarnecido” bietan.

Plorare. Lamentari. Lugère > *Plangere, plorare* “guayar, llorar”. Cf. *HH*-ko *Planctus* “guaya”, *DAut*-eko ordainetatik bat.

Usufructuarius > *Fructuum collector* “guillote”. Cf. *HH*-ko *Copia fructuum* “guilla”.

Intime ductus. Insinuatus > *Introductus* “internado”. Cf. *HH*-ko *Introduci* “internar”, *DAut*-eko ordainetatik bat.

Intimatus. Alicujus animo vel amicitiae intimatus > *Intimatus, denunciatus* “intimado”. Cf. *Intimare, denuntiare* “intimar” bietan.

Perplexè. Implicatè > *Intrincatè* [sic], *implicatè* “intrincadamente”. Cf. *Intricatus* “intrincable” bietan eta *Intrincare, implicare* “intrincar” *HH*-an.

Causatus > *Occasionem datus* “ocasionado”. Cf. *Occasionem dare* “ocasionar”, bietako ordainetatik bat (*DAut*-ek *Occasionem dare, vel causam* zekarren).

Sanum fieri. Convalescere. Consanescere > *Sanari, sanum fieri* “sanar, cobrar la salud”. Cf. *Sanare, sanum facere* “sanar” bietan.

Modum habere. Moderari. Sedari > *Sibi in aliquo temperare* “templarse”. Euskaraz *gogurritu, goguirotu*; cf. “Templar apetitos, *gogurritu, goguirotu, templatu*. Lat. *Temperare*”, haren *NOR-NORK* forma.

DAut-eko adiera ezberdinetak ordainak bat eginda eta bakanduta agertzen direnean ere familiak erantzukizunen bat izan dezake *HH*-ko ordainetan:

Militum praesidium + Limbus in vestis ora textus, ornatus + Ensis capulus > *Munitio, ornatus, capulus* “guarnición de plaza, vestido, espada”. Cf. *Munitus, ornatus* “guarnecido” bietan, *munitio*-rako.

7.6.2. Estilo aldaketak

Hitz edo esapide beraren inguruan egindako aldaketa txikiak baino ez dira: adberbiozko perifrasi adberbio soilaren ordez (*execrabili ter* > *execrabili modo* “abominablemente”), preposiziodun sintagma hain gabekoaren ordez (*Navium conscensio, nis* > *In navem conscensio* “embarcación, acto de embarcarse”, *Argillae incrustratio* [sic] > *Ex argilla incrustatio* “embarradura”), genitiboa erlazionalaren ordez (*Stratum rusticanum* > *Stratum rusticorum* “cabezal”, *antlicus palus* > *palus anthliae* [sic] “guimbaleta”), adjektibo bakuna aurrizkidun eratorriaren ordez (*Circumvicini agri fines, ium* > *Vicini agri fines, ium* “alfoz”), deitura zehatza deskriptiboaren ordez (*Dies quatuor temporum* > *Quatuor tempora* “témporas”) edo genitiboa erlatibozkoaren ordez (*Locus ubi ligna serra secantur* > *Locus secandorum serrâ lignorum* “asserradero”). Larramendik “bestela” hobeto —zehatzago zein zuzenago— esanda zegoelakoan eginak bide dira.

7.6.3. Laburtzea edota zehaztea xede

Antzeman dugun laburketarako joera orain artean azaldu baino eragingarriagoa da latinezko ordainetan. Osagaien bat aldatuta agertzen diren ordain edo ordain multzo gehienak aldi berean laburtuta ere daude, eta ez gutxitan aldaketa laburtu beharraren ondorioetarik bat baino ez da.

7.6.3.1. Ordain laburtu eta aldatuak

Aurreneko atal batean (§ 7.4), osagaien bat ezabatuz *HH*-an laburrago agertzen diren perifrasiak aztertu ditugu. Laburketak, ostera, batzuetan aldaketa zenbait ere eskatu edo eragin ditu. Talde honetako adibideen artean corpuseko luzeenak —bene-benetako definizioak— aurkitzen dira, eta *HH*-an, ordain itzultzaileak izatera iritsi gabe agian, halako neurri batera ekarriak izan dira:

Ad fugiendum per semitas coactus, adactus, a, um > Fugere coactus “assendereado”. *Is qui pacto inito cum Rege, vel Republica, copiis succurrit, consignatis eidem pro solutione propria vectigalibus > Vectigalium regionum ex pacto administrator* “assentista”.³⁴⁴ *Prudentiam, & cordatiores mores, paulatim induere > Cordatum, ac prudentem fieri* “assessar”. *Devictos collusores sortes inter se mittere, quis eorum devictus maneat, & totam ludi sponsonem numerae debeat > Totam ludi sponsonem postremò ludere* “(jugar las) cabras”. *Locus ad navium conscensionem paratus & opportunus > Locus conscendendi in navem* “embarcadero”. *Mensura qua molitor mercedem assumit > Mensura pro mercede molitoris* “maquiladero”. *Suini corporis pars dimidia trunca, vel tympanum > Suini corporis dimidium* “témpano”.

Aldaketak bakunxeagoak izan daitezke, hala nola perifrasiko aukerak desagertzeaz gainera osagaietako bat aldatzea:

Quidvis alicui animo, aut capite infigi > Quidvis alicui capite insidere “(ponérsele a uno algo en la) cabeza”. *Panni undantes fili, aut fimbriae > Panni excurrentia fila* “cabos, hilos que penden de las telas”. *Rhedarum cella receptatrix, vel Earum officina > Essedorum cella receptatrix* “cochera”.³⁴⁵ *Primas alicui deferre. Alicuius prudentiae, ac doctrinae plurimum tribuere > Primas deferre, alterius prudentiae multum tribuere* “deferir al juicio o dictamen de otro”. *Ex balena thoraces construere, sarcire > Ex balena thoraces conficere* “emballenar”. *Qui balsamo, vel aromatibus corpora linit, vel medicatur > Qui balsamo condit* “embalsamador”.³⁴⁶ *Volumine, vel mole aliqua onerare inaequaliter, vel augere > Mole, aut volumine inaequali onerare* “embalumar”.³⁴⁷ *Tuis pedibus summissus, vel devolutus > Tuos ad pedes devolutus* “(a los) piés de v.m.”. *Panchestrum remedium, vel medicamen > Medicamen cuicumque malo* “sánalo todo, cierto emplasto”. *Aquam ab amne derivare, per emissarium accipere > Aquam per incilia derivare* “sangrar algún río”.

edo perifrasiko osagai bat kendu eta beste bat aldatzea:

Adstrictorii thoracis muliebris sartor > Districtorii muliebris sartor “emballenador”. *Emolumenta altari inservientum > Emolumenta ex altari* “pié de altar”.

edo ordain bakarra utzi eta hura aldatzea:

³⁴⁴ Egian, *DAut*-ena definizioa da.

³⁴⁵ Cf. *Essedum* “coche” bietan.

³⁴⁶ Cf. *Condire unguentis* “embalsamar”.

³⁴⁷ Izenordain zehaztugabeak uxatzeko joerak ere jokatu du hemen (ik. § 7.1.7).

Retinacula. Funis quintuplex > Funis cannabinus “guindaleta”. *Interpretatione acceptus. In alium sensum, in aliud idioma tractus > Interpretatione donatus* “interpretado”.

edo ordain ezberdinak konbinatzea, bakar bat lortzearren:

Aedificii lapides ponere. Statuere. Collocare > Lapides ad amussim collocare “assentar en la Cantería”.

Behin, argi eta garbi gauzaren definizioa (izena + adj. + adj.) gauzaren izenaz ordezkaturatua agertzen da:

PATELLA PLANA, & CIRCULARIS ad sustinenda pocula > DISCUS ad pocula ferenda “salvilla”.

7.6.3.2. Ordain bakun bilakatutako perifrasiak

Aldaketa handi zenbait azaltzeko formarik zuzenena, Larramendik DAut-eko perifrasiaren ordezkari bakunak aurkitua da:

Jesu Christi interfecto, oris > Christicida “deicida”. *Christi Jesu occisio, onis > Christicidium* “deicidio”. *Attamen. Hoc non obstante > Nihilominus, attamen* “(sin) embargo, no obstante”.

Bestetan, berriz, DAut-eko zehaztapenak alde batera utzi ditu, besterik gabe:

Sedari, tranquillari mare, coelum, &c. > Sereno, as; tranquillo, as “abonanzar el tiempo”.³⁴⁸ *Extremitas parvae rei > Fragmentum, extremum* “cabito, cabillo”.

7.6.4. Zatikazko aldaketak

Adibide multzo batean ez da ordainak laburtzeko asmorik ageri: luze-laburraren berdintsu dira, are batzuetan luzeago ere badira, baina denek aldaketaren bat jasan dute:

1) Ordain multzoaren edo perifrasiaren osagaietako baten aldaketa:

Odio hábitus, exceptus, a, um > Odio habitus, invisus, a, um “aborrecido”. *Capito, onis. Cervicosus > Cervicosus, pertinax* “cabezudo, terco, porfiado”. *Aquarum statio > Aquarum stagnatio* “embalsadero”. *In stantem aquam armenta immittere > In stagnantes aquas armenta immittere* “embalsar”. *Abundantia fructuum > Copia fructuum* “guilla”. *Quaestio. Interrogandi forma > Ratio, forma interrogandi* “interrogatorio, subst.”. *Inscribere. Titulum adhibere > Inscribere, titulum praefigere* “intitular”. *Ferae ocisae [sic] buccinâ signum dare > Feram occisam buccinâ canere* “(tañer de) occisa”. *Pediculus. Pedusculus > Pedusculus, petiolus* “piececillo”.³⁴⁹ *Satisdare, vel cautionem praebere > Satisdare, cautionem praestare* “sanear”. *Fluentum. Fluens > Aquarum divortia, fluens* “vertiente, lo que vierte”.

2) Ordain multzoaren edo perifrasiaren osagaietako baten aldaketa eta beste baten eransketa:

Praedives. Pecuniosus homo “Hombre abonado” > *Locuples, pecuniosus, opulentus* “abonado en hacienda”.³⁵⁰ *In navim imponere > Navibus aliquid imponere* “embarcar”. *Venti reflantis impetus > Venti suaviter flantis impetus* “embate, ayre fresco”. *Salutem aeternam assequi, vel adipisci > Salvare, salutem aeternam consequi* “salvarse, al Cielo”.

3) Ordain edo aukera bakanketarekin batera zerbaiten eransketa:

³⁴⁸ Cf. DAut-eko definizioa: “Serenarse el tiempo, cessar la tormenta, seguirse la tranquilidad”.

³⁴⁹ *pediculus* zorriaren izena da latinez; hemendik aldaketa, ziurrenik.

³⁵⁰ Desagertutako zehaztapena (*homo*) DAut-eko sarrerari zor zitaion (Hombre abonado).

En vel Ecce illum > Ecce illum, eccum “étele”. *Sanies. Sanguis aquosus > Sanguis aquosus, lividus* “sangraza, sanguaza, la sangre aquosa”. *Ad verbum. Exactè* “Al pié de la letra” > *Omnia ad verbum* “(al) pié de la letra”.³⁵¹ *Quietè. In otio. Placidè > Laxè, ac placidè* “(a) pierna suelta”. *Ad concordiam, vel consonantiam adducere, componere > Fides ad concentum componere* “templar instrumentos”.

4) Aukera bakanketarekin batera ordain baten aldaketa:

Occasione data vel oblata. Per accidens > Datâ occasione, occasionaliter “ocasionalmente”.

5) Izenordain zehaztugabeen ordezkapena (cf. § 7.1.7):

Navem aliquam alicui alteri applicari, è proximo ad illam accedere > Navem navi appellere “abordar una nave a otra”. *Locus quo aliquid effunditur > Locus quo aqua effunditur* “vertedero”.

6) Antzeko osagaiekin beste era bateko egitura:

Molitor mercedem accipiens > Curator mercedis pro molitore “maquintero”. *Ludus quo pila reticulo impellitur > Ludus pilae reticulis exceptae, ac redditae* “raqueta, juego”. *Liberiùs ductus calami effingere > Calami ductus liberiores formare* “rasgear”. *Clavicula ad lyrae consonantias componendas > Clavicula pro fidibus lyrae componendis* “templador de harpa”.

7) Azalpenaren aldaketa:

Sagum infame, quò notantur qui à fide defecerunt > Sagum infame decussatâ cruce rubens “sambenito”.

7.6.5. Erabateko aldaketak

Menperatzen ditugun aldagaiek zuri ez dezaketen erabateko ordain aldaketa mordoska bat (19, %2,5) geratu zaigu:

Dare praedes pro aliquo, vel pro aliqua re spondere > Probo, as; approbo, as “abonar, dar por bueno”. *De re quapiam inter aliquos convenire. Ex pacto facere, atque pacisci > Foedus inire* “assentar pazes”. *Etiàm* “ASSIMESMO o ASSIMISMO” > *Item, itidem* “assimismo”.³⁵² *Extremitas. Ora > Extremum, finis* “cabo, extremidad”.³⁵³ *Cereae vel sevaceae candelae extrema pars > Extremum, fragmentum, residuum* “cabo de vela, hacha, &c.”. *Linitus > Conspurcatus* “embadurnado”.³⁵⁴ *Bellum agere, inducere, ciere. Bellare > Belligerari* “guerrear”.³⁵⁵ *Mirabiliter > Mirè, mirifice* “maravillosamente”.³⁵⁶ *Obstans > Nihilominus* “[no] obstante”.³⁵⁷ *Causam praebens. Provocans > Contentionum cupidus* “ocasionado, provocativo”. *Crassamen. Sedimen > Sedimentum* “pie, en los licores”.³⁵⁸ *Pedibus > Supra pedes, stans* “(en) pié”. *Cora carnea > Coxa* “pierna de carnero, &c.”. *Levi tactu > Juxta* “ras con ras, junto, pegante”.³⁵⁹ *Tremiscere. Nutare > Tremere, contremiscere*

³⁵¹ Cf. *DAut* “Al pié de la letra. Véase Letra”: leku aldaketa ere gertatu da, beraz.

³⁵² Ohartu *DAut*-ek *assignatura* eta *asimilación* artean ematen duela, Larramendik *assí*-ren esapideen artean ezarri zuen bitartean: beraz, agian *DAut*-ekoa kontuan hartu gabe egina da.

³⁵³ Nebrixaren *VRL*-ek *Finis. Terminus* “cabo, por fin o término” dakar.

³⁵⁴ Benetako aldaketa, corpusetik kanpo geratu bazaigu ere, *Linire > Conspurare* “embadurnar” da. Agian aldaketa *DAut*-eko ondoko iruzkinarekin dago lotuta: “Es término jocoso y vulgar”.

³⁵⁵ Nebrixaren *VRL*-ek *Belligero -as. Belligeror -aris* “guerrear”.

³⁵⁶ Bertan, “Lo mismo es a las mil maravillas” dio; eta esapide honen azpian *DAut*-ek *Mirificè. Admirandum in modum* dakar. Nebrixaren *VRL*-k *Mirabiliter. Mire* “maravillosamente” dakar.

³⁵⁷ *DAut*-ek, bistan denez, “obstante” bakarrik itzultzen du.

³⁵⁸ *Sedimen* eta *sedimentum*-ez, cf. *DCECH* (s.v. *sentar*, 206. or. eta 8. oh.): “También existe en latín otra forma *sedimen* ‘sedimiento, poso’, no menos documentada y más antigua que la otra [i.e. *sedimentum*], que ha dejado descendencia popular en italiano antiguo y dialectal (*REW* 7784)”.

³⁵⁹ Cf. *DAut*-en azalpena, bere itzulpena azaltzen duena: “Se dice también cuando passa tocando ligeramente un cuerpo a otro”.

“temblequear”. *Tremiscens* > *Tremens* “temblón”. *Veritus. Formidabilis* > *Formidandus* “temido”.³⁶⁰
Versificare (ETIM) > *Versus, carmina facere, condere* “versificar”. *Vestimentum* > *Indumentum*
“vestidura”.³⁶¹ *Quod integram vestem componit, vel complet* > *Vestimenta* “vestuario, vestidos”.

7.7. Ordain berriak

Corpuseko 53 sarreratan (%7) *HH*-ak eskaintzen ditu *DAut*-en inolako erreferenterik ez duten latinezko ordainak. Oso noiz-behinka, ereduak zituen hutsuneak bete behar izan ditu, orotara 13 sarreratan:

Gemmas argenteo, aurove inserere, figere “assentar piedras preciosas”. *Decidente capite* “cabizcaído”. *Exactus, receptus* “cobrado”. *Herba quaedam pisces inebrians* “coca, yerba”. *Frons ab Americanis sugi solita* “coca, una hoja”. *Degener, ris* “el que degenera, u ha degenerado” (< DEGENERANTE). *Navi impositus* “embarcado”. *Quod spectat ad interrogationem* “interrogatorio, adjet.”. *AEquè* “ras con ras”. *Plagam, ictum accepit* “ya lleva qué rascar”. *Salve Regina* “salve, oración”, *Sanctus* “san”, *Aquosus pepo* “sandía”.

Maizenik, ostera, ordain berriak berak eraturako sarrera berrietan agertzen dira, orotara 38 sarreratan:

Satorum, glebarum, &c. Levamen, fomentum “abono de tierras, sembrados, huertas, &c.”. *Fimus, is; stercus, oris* “abono assí, en particular de fiemo, de estiércol, &c.”. *Appulsus, a, um; alteri commissus, a, um* “abordado”. *Agere proditorem, fieri* “(hazerse) aleve”. *Serrâ curva secare* “asserrar con sierra o sobre sierra corva”. *Cordatus factus* “assessado”. *Sic etiam* “(aun) assí”. *Siccine* “assí? de essa suerte?”. *Verso capite* “(de) cabeza”. *Cupreus* “(cosa de) cobre”. *Aquâ coquere* “cocer en agua”. *Aquâ coctus* “cocido assí”. *Nimum coquere* “cocer demasiado”. *Nimum coctus* “cocido assí”. *Semi coquere* “cocer, medio cocer”. *Semi coctus* “cocido assí”. *Culinae deditus* “(amigo de) cocina”. *Sancti Joannis decollatio* “degollación de San Juan”. *Et en* “étele que”. *Gratiarum actio* “eucaristía, acción de gracias”. *Bonum nuntium* “evangelio, significa buena nueva”. *Bella ingentia, bellorum tempus* “guerras grandes, tiempo de guerras”. *Dies crastinus* “(el día de) mañana”. *Perendie, post diem crastinum* “(passado) mañana”. *Hoc mane* “(esta) mañana”. *Valde manè* “(muy de) mañana”. *Tam multo manè* “(tan de) mañana”. *Nihil mirum* “(no es de) maravillar, no es maravilla”. *Obstructus* “obstruído”. *Obvenire* “obvenirle”. *Occasio opportuna, importuna* “(buena) ocasión, mala ocasión”. *Occasionalis* “ocasional”. *Mola asinaria* “piedra de molino”. *Lapis pilae emittendae destinatus* “piedra de el saque”. *Scabere* “rascar la sarna”. *Prurigo, pruritus* “(gana de) rascarse assí”. *Plenâ manu pulsatus* “rasgado, rasgueado”. *Salvatus* “salvado, salvo assí”.

Bakar batean, adibidea bakarrik itzuli du, itzuli baldin badu:

Viribus, & consuetudinibus non obstantibus “(no) obstante, siguiéndose plural”.

Eta beste batean, adibidea ere:³⁶²

Ya avía al pié de quinientos hombres, *baciran ozta bosteun guizon*. Lat. Erant ferè quingenti homines “(al) pié de, casi”.

Halako sarrerak latinaren aldetik osatzeko, nabarmena da sarritan familiako beste hitzetara jo duela, batez ere partizipioetan, nahiz hauetan ordainak gutxitzeko joera argia antzematen zaion:

Appulsus, a, um; alteri commissus, a, um “abordado” < *Appulsus, commissio* “abordo”.
Agere proditorem, fieri “(hazerse) aleve” < *Proditor* “aleve”.
Cordatus factus “assessado” < *Cordatum, ac prudentem fieri* “assessar”.
Exactus, receptus “cobrado” < *Exigere, recipere, recuperare* “cobrar”.
Navi impositus “embarcado” < *Navibus aliquid imponere* “embarcar”.
Obstructus “obstruído” < *Obstruere* “obstruir”.

³⁶⁰ Cf. *DAut*-eko *Formidandus* “Temeroso. (...) Lo que pone o causa miedo”.

³⁶¹ Nebrixaren *VRL*-k, besteren artean, *Indumentum* -i “vestidura” dakar.

³⁶² Bi adibide hauen etorki eta berezitasunez, ik. § 3.5.

Obvenire "obvenirle" < *Obventio* "obvención".
Plenâ manu pulsatus "rasgado, rasgueado" < *Plenâ manu fides pulsare* "rasgar, rasgear".
Salvatus "salvado, salvo assi" < *Salvare, aeternam salutem conferre* "salvar, dando la Gloria eterna".

Beste aukera bat, *DAut*-eko edota *HH*-ko azalpenari jarraitzea izaten da:

Gratiarum actio "eucharistía, acción de gracias".
Bonum nuntium "evangelio, significa buena nueva".
Bella ingentia, bellorum tempus "guerras grandes, tiempo de guerras".
Quod spectat ad interrogationem "interrogatorio, adjet.". Cf. *DAut* "Lo que es perteneciente al acto de interrogar (...)".
Aquosus pepo "sandía, melón de agua".

7.8. Latinik gabeko sarrerak

Corpuseko 24 sarreratan (%3,2) latinezko atala osoki peitu da. Hau sarrera mota ezberdinotan antzeman daiteke:

a) Sarrera normaletan. Eskuarki oharkabeko ahaztuak dirudite, baina 5etan sarrera ez da zeharo normala: euskal ordainak (*embaidor, embaimiento, piedad, sangrar*) edo adibideak (*abonar*) izan arren, bidalketa-deia dago (ik. 4.3.1.1) eta ziurrenik honexek galarazi du latina:

Abonar, salir por fiador. (A un traydor dos) alevosos. Refr.³⁶³ Cabra saltante. Cabra, cabrilla en las piernas. Embaidor. Embaimiento. Estupendamente. Piedad. Sangrar, arrojar sangre.

b) Sarrera berrietan; denak edo gehienak oharkabeko ahaztuak dira, ausaz:

Abonar assí. Abonado assí. Abonador assí. Aborrecible, objeto digno de aborrecimiento. Assí que, denotando tiempo. (Después de pasado) mañana. Aún otro día después. Mañoso, significa en Bascuence... (En una) ocasión. Piezas inferiores de una casa.

c) Adibideak emateko eratutako "sarreretan":

(Púsosele en la) cabeza. San Sebastián.

d) *DAut*-ek ere ez dakarrenean: *Guay*.

e) *DAut*-ek "Phrase latina" edo "puramente latina" dioenean:

Etcétera. Interposita persona.

Hauekin batera aztertu behar dira, sarrera baten barruan agertzen diren euskal ordainak baina latinik gabeko zehaztapenak: "Asseguración... De una paga", "Assegurar... Una paga", "Cabra... Muerta".

Bide batez, Larramendik ez du beti eta kostarik kosta latina ematearen alde jokatzeko: corpusetik kanpo bada ere, elkarren ondoko sarreretan latinezko ordaina errepikatu beharrean *Idem*-ez baliatutako bi adibide aurkitu ahal izan ditut:

Balaustrada de hierro, *burniesia, burdinesia*; de madera, *olesia, zuresia*. Lat. Septa clathrata (= *DAut* s.v. *balaustrada*).

Balaustrada, *barandesteá*. Lat. Idem.

Cabronazo, *aquertzarra*. Lat. Proprii thalami prostitutor.

Cabroncillo, cabronzuelo. Lat. Idem.³⁶⁴

³⁶³ Latina daramaten eta ez daramaten errefracuz ik. § 3.6.2.

³⁶⁴ Kasu honetan, *DAut*-ek ez du latinezkorik ematen s.v. *cabronazo*; s.v. *cabroncillo* o *cabronzuelo*, berriz, Lat. *Uxoris suae turpis & ridiculus prostitutor* demaio.

7.9. Ondorioak

HH-ko latinezko ordain gehienak *DAut*-etik zuzenean hartutakoak dira, Larramendik aitortu zuen bezala: 518 ordain (%68,8) ereduko berberak dira, osoki (§ 7.2), ala forma aldaketa (§ 7.3) zein osagai bakanketaren batez (§ 7.4) bada ere. Haatik, bada beti erraz ezin azal daitekeen osagai aldaketa eta eransketa kopuru ez txiki bat: beharbada Larramendik bere kasa eginak izan badaitezke ere, garaiko hiztegiren batek —guztiz Nebrixarenak edo, agian hobeto, Requejok emendatutako Salasenak— zerikusirik izan duen aztertzea merezi luke. Nebrixaren *VRL* eta *HH*-aren arteko batetortzeren bat aurkitu dut, baina ez zait iruditzen oraindik ezer baieztatzeko modukoak direnik.

Nolanahi ere den, *DAut*-etik hartutako ordainek sarri xamar (%64) aldaketak pairatu dituzte. Lehenik eta behin, gaztelaniarekin gertatu moduan, latinak ere eredukoaren aldean garrantzia galtzen du: ordain gutxiago eta laburragoak ipintzeko joera handia somatzen da oro har, ereduko ordain kopurua bakar batera edo, gehienera jota, bitara jaitsiaz eta perifrasiak nahikoa laburtuaz. Adibideak gutxi izan arren, alde berera hartu behar da sarrera batzuetan latinezko ordainak ahaztua (§ 7.8).

Larramendik egokitze-lan handia egin izan zuen sarrera-buruaren aldaketaren eraginez (§ 7.6.1.1). Honezaz gainera, inoiz *DAut*-en ordainak baino gaztelaniazko azalpena latinez itzuli nahiago izan zuen (§ 7.5.1 eta 7.6.1.1), halako azalpenei eman zien garrantziaren seinale. Adierazgarria da, orobat, gaztelaniazko familiak latinez era beretsura ordezkatzeko joera (§§ 7.1.5 eta 7.6.1.2), *DAut*-ek alde honetatik dituen gorabehera batzuk zuzenduaz; hitz familiak aintzat hartzeko Larramendik izan zuen joera sendoaren erakusgarri berri bat, inolaz ere.

Ordain etimologikoak hobesteko eta esapideen hitzez hitzeko itzulpena eskaintzeko joera ere —handiagoa lehenen kasuan— somatu dugu (§§ 7.2 eta 7.6.1.1, hurrenez hurren). Bide batez, honek adierazten digu *DAut*-eko sarrerak osoki eta astiro irakurtzen zituela, eta lehenago aurkitu ditugun ildo bereko beste gertakariak erantsi behar zaizkio: *DAut*-eko azalpen zein adibideetatik esapide berriak (§ 4.4.3) eta zehaztapenak (§ 5.2) erdietsia, alegia.

Lortu dugun daturik jakingarri eta garrantzizkoenetakoa euskarazko eta latinezko ordainen arteko batetortzeak dira (§ 7.6.1.1). Beste atal batean (§ 1.6) bi hizkuntza hauen artean berez erlaziorik izan beharrik ez zegoela aurreratu dudan arren, orain ikusi ahal izan dugu egon badela, nahiz eta corpusaren arabera txikia izan. Zalantzarik gabe, xeheki ikertua izatea merezi duen gaia da, eta aurrerantzean euskal ordainak aztertzerakoan oso kontuan hartzekoa. Azalpena, inolaz ere, Larramendik (1745: xlv) emana da: “Pongo pues el Latín, para que vean que aun en esta Lengua muchas veces no puede explicarse una voz Castellana sino por perifrasi, o por dos o más voces, y que no deben extrañar esto en el Bascuence”. Aholkua irakurle egoskorren —eta agian etorkizuneko itzultzaileen— mesedetan jarri bazuen ere, ikusiak ikusirik badirudi hiztegitik latinaren *auctoritas*-a bere alde erabiltzen ere jakin izan zuela, gaztelaniazko ordaina euskal hitz bakar batez itzuli ezinik, latinez eta euskaraz ordain tankera berberak erabiliaz.

8. Euskara

Nahiz eta euskal zatia berez lan honen III. kapituluaren gaia izango den, formazko alderdiaz ari garen honetan, lehenengo hurbilketa gisa puntu zenbait zehazten saiatuko naiz, edukia aurkezteko erari dagozkionak, hain zuzen: hitzen forma kanonikoa (§ 8.1), ordainen batz besteko kopurua (§ 8.2), ordain motak (§ 8.3), grafia (§ 8.4) eta mugatzailea eta hitz bukaerako hiatoak (§ 8.5).

8.1. Forma kanonikoa

Edozein hizkuntzaz dela, hiztegiatan agertzen den hitzaren itxura ez da nahitaez naturala (hots, "Nola esaten da...?" galderari hitzunik emango liokeen erantzunaren arabera) eta bakarra, hitzarmen baten ondorioa baizik: hori da "forma kanonikoa" deitzen dena.

Forma kanonikoa, aldaera fonetikoaren artean estandarra, eta itxura morfologiko ezberdinen artean hiztunek —edo, hobeki esanda, hiztegi erabilzaileek— konbentzioz paradigma osoaren ordezkariatzat ezagutzen dutena izaten da (Landau 1989: 76-77). Euskal hiztegi modernoak, aldaera fonetikoaren artean hautatzeko oraindik dauden zalantzak gorabehera, ados daude izenkietan mugagabea eta aditzetan partizipioa forma kanonikotzat ematen,³⁶⁵ baina egoera hau duela oso gutxi lortutakoa da. Hiztegiak zaharrek, XIX. mendearen bigarren zatira arte bederen, bestela jokatzen zuten, oro har hitzunen erantzun naturala errespetatuz: van Eys-en hiztegiak arte (1873)³⁶⁶ ez dago, dakidalarik, izenkiak mugatuta ematen ez dituen euskal hiztegiarik. Aditzean

³⁶⁵ Aditzoina eta aditzizena ere zenbaitetan emateko batzuek egiten duten saio onuragarria alde batera utzita, jakina.

³⁶⁶ van Eys-en hiztegia hobeto aztertu beharko litzateke, alde honetatik bederen: izenkietan egiten duen berrikuntzaz gain, bera bide da aditzetan buruan agertzen den partizipioarekin batera, aditzizena (*Abarkatu*, *abarkatzen*) edota, Iparraldeko aditzetan, aditzoina (*Abaztorra*, *abaztorratu*) eskaintzen dituen lehena.

bi tradizio zeuden: Iparraldeko hiztegi zaharretan, aditzak aditzizenaz irudikatuta daude eskuarki;³⁶⁷ Hegoaldekoetan, berriz, partizipioaz.

Tradizio luze eta aberatsagoko hizkuntzak ere ez dira egungo konbentziora gorabeherarik gabe iritsi. Jadanik ikusi dugu (§ 1.5.3) ingelesezko hiztegi zenbaitetan, adibidez, aditza *to-z* eta izena *a* artikuluz lagunduta agertzen dira buru-hitzak direnean (Osselton 1989a: 169). Osseltonek adierazten duen bezala, gramatika informazio premiazkoena kodetzeko bide ona da (oraingo laburpenen parekoa), nahiz eta alfabetozko ordena zertxobait desitxuratzen duen. Oraindik ere, hiztegi elebidunetan, ingelesa xede-hizkuntza denean, aditzak *to-z* markatuta daude, izen homonimoetatik bereizteko.³⁶⁸

Gaztelaniari dagokionez, ez dugu oso urruti joan behar: Iburguen-Cachopinen kronikaren bukaeran agertzen den hiztegitxoan (Sarasola 1983: 161-171) —baina gaztelania-euskara zatian bakarrik, eta honetan ere lehenengo folioan baino ez— erdal sarrerak artikuluz agertzen dira: "la caueça", "el cabello", "la frente", "los ojos", etab.

Larramendiren hiztegia, esan gabe doa tradizio zaharrea murgilduta dagoela eta are, geroko hainbat hiztegiaren eredu izan zen neurrian, haren iraupenean zerikusia izan zuela. Haatik, *HH*-ko sarreren edukia formaren aldetik uste baino ñabarragoa da: honetan ere normalizazio faltak baduke bere pisua, baina badira hobeto ikertu beharko diren ustekabe batzuk, dela iturriei, dela orain arte deskribatu ez diren gramatikari buruzko pertzeptzio ezberdinei zor dakizkiekeenak.

8.1.1. Izenkiak

HH-an, izen, izenondo (eta partizipio), izenlagun eta izen sintagmak oro har mugaturik azaltzen dira:

Alforja, *zacutoa*, *alporcha*, *maletá*.
Cabezudo, terco, porfiado, *hisitia*, *burutia*, *burugogorra*, *burcoia*.
Cobijado, *estalia*.
Ocasional, *mugaldicoa*, *goaitaldicoa*.
Alfana, caballo fuerte, *zaldi indartsua*.

Salbuespenak, pentsa litekeen baino gehiago dira, nahiz eta hiztegiaren osotasunean ezer gutxi izan (ohiko corpusean, sarreren %1,1 baino ez du eragiten):

Cabito, cabillo, *condo chiquia*, *condocho*, *puisca*.
(Cosa de) cobre, *cobrezco*, *urraidazcoa*.
Intestado, *azquenaibague*.
Mañero, el que tiene maña, *mañeru*, *mañaria*.
Maravedí, *citá*, *cipá*, *marai*, *marabedia*.
Raro, ralo, *arroa*, *üanditua*, *meatsa*, *bacan*.
Raro, extraordinario y tal qual, *bacan*.
Vespertino, *arratsaldeco*, *arrasteguicoa*.

³⁶⁷ Alabaina, Erronkarin eta Zuberoan bakarrik jasotzen da (zen, tamalez, lehenaren kasuan) aditzizena infinitibo erromantzearen itzulpenaz galdetuta (Mitxelena 1977b: 317).

³⁶⁸ Halaxe aurrean daukadan Collins 1993an, adibidez. Ik. oro har Martin 1967: 157. Ohitura jadanik hiztegi elebidun zaharretan aurki daiteke (Percyvall 1591, ap. Steiner 1970: 31, adibidez).

Bistan da, bestalde, mugatuta azaltzeak edozein irakurleri —ordukoari zein gaurkoari— oztopoak ezartzen dizkiola, larriak batzuetan, hitzaren era mugagabea zein den jakiteko, jadanik Arakistainek ikusi zuen bezala (nahiz luzaroan beste inor ez ohartu, antza denez), hiztegiaren berrargitalpenerako maisuari aipatu zizkion zuzenkizunen artean:

...si fuera remediable, juntando a la voz algún numeral o adjetivo, el conocer si la *a* final es artículo o parte de la voz, sería mucha ventaja para el debido uso, porque no se puede conocer no saber esto por solo el Diccionario; verbigracia, no se puede saber si la voz es *gauza*, *eleiza* o *gauz*, *eleiz*.

De hecho, de este segundo modo se ponen alguna vez (si no es yerro de impresión) la voz *eleiz* en el arte, y *gauz* en el Diccionario (Arakistain 1746, ap. Fita 1881: 65).

Areago oraindik: inoiz Larramendik tradizioz "eufonia" deitu izan diren gertakari morfofonetiko zenbaitu leku egiten die: *-ea* bukaerak (< *-a* + *a*) bereziki maiz aurkitzen ditugu (cf. *buruisquea* "cabezuela", *canalla*, *canallea* "canalla", *arrasca*, *arrasquea* "canalón", *capa*, *capea* "capa", *derechea* "ocasión", *bernea* "pierna") eta, hein txikiagoan, baita *-aa* (*atea*, *ataa* "pato"), *-iya* (*ansiya* "pena") eta *-a* / *-ya* dobleteak (cf. *etoa*, *etoya* "aleve"), eta are ekialdeko *-uia* (*burua*, *buruia* "cabeza") ere; eta, ikusiak ikusirik, aztertzekoa da *-ia* guztiek *-i* eta *-ua* guztiek *-u* bukaera daukatenentz. Baina honelakoez beranduxeago (§ 8.5.2) jardungo dugu.

8.1.2. Adizkiak

Gaztelaniazko infinitiboaren ordaina *HH*-an euskal partizipioa izan ohi da, Hegoaldean ohitura izan den bezala:³⁶⁹

Abominar, (...), *nazcatu*, *nagatu*.
Alesnar, *leundu*.

Batzuetan, ordea, aditzizena da, Iparraldeko hiztegien modura; corpusean adibide bi baino ez ditut idoro:

Abordar (...), *ontzi bat besteari alderatzea*, *alboratzea*, *ta ertzaz ertzari dichecala jartea*, *ertzatu*.
(Tañer de) *occisa* (...), *aberea il dalaco adiera jotzea*.

baina hauek iradokitzen duten baino askozaz agerraldi gehiago dago, batez ere A letran:

Abahar, *asnasé ematea*, *hatseman*, *atsedatu*.
Abarcar, *abarcatu*, *gauz ascó eguitea*, *artzea*.
Abarrancarse el ganado, (...) *abéreac lur epaqui zulodúnetan sártzea*, *epaizulotú*, *centernatú*.
Abatir a uno, *norbait azpirátzea*, *lurrerátzea*, *beeratzea*.
Abribonarse, (...) *alperquerian sartzea*, *alper eguitea*, *alperquerian vicitzea*.
Abrigarse, (...) *nozguetu*, *abrigatu*, *arropaz edo bestela berotu naiz*, *cera*, *da*; *otzetic gordetzea*, *otza eragozte*, *quentzea*.
Abultar, (...) parecer de bulto u volumen alguna cosa, *aundia*, *andia*, *lodia izatea*, *iduritzea*.
Acabarse, *bucatztea*, *acabatzea*, *aitutzea*.
Acaudalar, (...), *ondasunac biltzea*, *biribillatzea*, *diru-gordairua eguitea*, *ondasunen gordairua ta pilla anditzea*, *guyagotzea*, *gueitzea*.
Acometer, *eraso*, *eraunsi*; *acopilatzea*.
Acomodar, poner a uno a su gusto (...), *acomodatu*, *eraratu*, *norbaiti bere zucenbidea ematea*; *bere erara ifintea*, *paratzea*, *norbait zucenbidetzea*.
Acopiar, (...), *taldea cembatean larrera sartuco dan comundatzea*, *ajustatzea*.

³⁶⁹ Larramendik baino lehenago, Landuccik (*abatidu* "abatirse", *veratu* "abaxar"...) lekukotua. Ibarguen-Cachopinen hiztegitxoan izenkiak bakarrik jasotzen dira. Maríneo Siculorenean, berriz, *onerextea* "amar" daukagu (Lakarra 1993: 9), gauzak bestela ere izan zitezkeela —edo bestela izan zirela— iradokiaz.

Acostarse, *etzin, echun, oeratzea*.
 Acostarse, hazerse de el lado de otro, *bestereguna alderatzea, besteren aldera jartea*.
 Adelantarse, *aurreratzea, aurratzea, aitzinatzea*.
 Aderezar la comida (...), *barazcaria, afaria, gosaria maneatu, prestatu, comendu, mainatzea*.
 Adulterar, (...), *iñoren emaztearequin araguzco becatua eguitea, iauquitea, bestereganatzea*.
 Afeitar, poner afeites, *arpeguia coloreztatzea, apaintzea, afaintzea, edertzea*.
 Afistolarse, *zauri zornajarioa utsunez betetzea; zauri zornatu, zoldituan barren zuloac eguitea, aguertzea*.
 Agasajar, *norbait ondo artzea, gozoró tratatzea, agasajatzea*.
 Agobiarse, *macurtzea, gubiatzea, erorcatzea [sic]*³⁷⁰.
 Agostarse los campos, *sozoac (...) igartzea, eyartzea, agortzea, idortzea, leortzea*.
 Ajustarse, *compontzea, comundatzea, ongundetu, eguiunetu, ajustatu*.
 Alabear, *labeatzea, uztaitzea, macurtzea*³⁷¹ *aldeetatic*.
 Almonedear, *almonedan saltzea*.
 Amusgar, (...). *Abereac musucatztea*.
 Animar, esforzar, *animatu, alaitu, indartu, quemendu, curayatzea, bandatzea*.
 Apoltronarse, *alperetzea, naguitzea, zanartzea*.
 Bohordar, *ezpatiyaz jocatzea, ezpatiyac elcarri tiratzea*.
 Crecer a palmos, *árraca azitza, anditza*.
 Dársele o no dársele nada a uno, *antsiaric artzea, edo ez artzea*.
 Descerrumarse, (...) *abere bat tiroquertzea*.
 Hermanear, *norbaiti anai deitzea*.
 Lunas, tener lunas, *aldiac izatea, euquitza*.
 (Cogerle de) nuevo, *lenengoan gauzaren bat aditza*.
 Recalar el viento, (...) *aicea jaiquitza*.
 Tascar la yerba, *abereac ortzaquin belarra ebaquitza*.
 Traspintarse, (...) *alderanciz guertatzea*.

Han-hemen jasotako adibide hauen aurrean, badirudi gutxienez baieztatu daitezkeen euzen:

1) Larramendik aditzaena batez ere ordain perifrastikoetan³⁷² baliatu zuela, sarrera beraren barruan (cf. *ababar, abarcar, abarrancarse, abrigarse, acomodari*) ordain bakunak partizipioaz eman zituen bitartean. Elkarren ondoan agertzen diren bi sarreraren eraketa ere oso adierazgarria izan daiteke alde honetatik:

Confessar, *confesatu, aitortu, autortu, aboatu*.
 Confessar sus pecados, *bere pecatuac esatea, salatzea, aitortzea, aboatzea*.

Dena dela, honek ez du esan nahi ordain perifrastikoak derrigor aditzaenaz ematen direnik; cf., adibidez:

Aballar, (...) *artaldea larrerá, bazcátzera, játera eráman, eróan*.
 Abaratar, *merquetú, merqué ifini*.
 Abarracarse, (...) *echoletan, chaoletan sartu*.
 Abastar, (...) *ornitu, bear dan gucias zuzquitu, beté*.

2) Ordain bakunak aditzaenaz -se aditzetan bakarrik agertzen direla (cf. *acabarse, adelantarse, agobiarse, apoltronarse*).

³⁷⁰ *erorcatzea* xeblebre hori *crocatzea*-ren ordezkotutza da, partizipioan *crocatua* baitago haren lekuan; cf. *crocatua* "corcobado", "gibado".

³⁷¹ Jat. *macartzea*, egileak zuzendua.

³⁷² Beherago arituko naiz halakoez: ik. § 8.3.1.

3) Sarri xamar, ordain batzuk batera eta besteak bestera agertzen direla; aditzizenaz, normalean lehenak edo azkenak (cf. *acometer, acostarse, aderezar, ajustarse, animar*). Honek zerikusiren bat izan lezake iturrien arazoarekin.

4) -se aditz mordoxka batean, aditz beraren partizipioa eta izena, biak agertzen direla; batu ditudan adibide guztiak lehenengo orrialdetakoak direnez gero, pentsa daiteke hasiera batean bi formak eskaintzeko asmoa hartua zuela:

Abanicarse, *aizatu, aizatzea*.
 Aburrirese, *gogaitu, gogaitzea*.
 Adamarse, *damatu, damatzea, andere, anyeretzea, edertzea, chucuntzea, politatzea*.
 Adargarse, (...) *adargaztatzea, adargaz estali, estaltzea, ezcutatzea*.
 Adozenarse, *hamabicatzea, balsatu, balsatzea, char ascorequin sartzea, deungueacaz nastea, anitz beeragoacquin nahassitza*.

Euskal aditzaren hirugarren forma jokatuabeak —aditzoinak— ere badu lekua *HH*-an, nahiz eta ez partizipioak eta aditzizenak adinakoa. Eskuarki, etimologietan agertzen da, partizipioarekin batera, agian gaztelaniazko aditzarekiko lotura argiagotzearen:

Abiar, (...). Viene de el Bascuence *abia, abiatu...*
 Baldar, viene de el Bascuence (...) *alda, aldatu, mudarse...*
 Caber, viene de el Bascuence *cabi, cabitu...*
 Deparar, puede venir de el Bascuence *para, paratu...*
 Ensartar, viene de el Bascuence *sar, sartu...*

Behin bederen, sarrera normal batean ere ikus daiteke, beti partizipioaren aurrean; formak zuzenak dira beti (cf. *lot*), gaia menperatzen zuelako seinale:

Agarrar, *arrapa, arrapatu, itsatsi, ichequi, el, eldu, atzeman, atzaman, lot, lotu*.

8.2. Ordain kopuruak

Corpusean diren 750 sarrera ordaindunetan³⁷³ —eta oraingo ordainen izaera kontuan hartu gabe— honako hauek dira sarrerako ordainen kopurua eta proportzioak:

ordain.	sar.	ehun.
1	369	%49,1
2	233	%31,2
3	98	%13,2
4	32	%3,9
5	12	%1,7
6	2	%0,3
7	1	%0,1
8	1	%0,1
9	1	%0,1
10	1	%0,1

Hiztegiaren ñabartasunak beharbada bestelako ustea izatera eramán balezake ere, zenbakiok ikusita argi dago *HH*-ko sarreren erdiak euskal ordain bakar batez osatuta daudela.³⁷⁴ Bateko eta bikoen artean, berriz, hiztegiko sarreren %80 egiten dute.

³⁷³ Bidalketa-dei hutsak (133), ordainik gabeko etimologiak (4), oharrak (2) eta adibideak (2) kenduta.

Orrialdeko banaketa, bestalde, honako hau da, hurrenez hurren sarrera kopuru orokorra eta 1etik 10rako ordaindun sarreren kopurua emanez:

	k.o.	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
<1, 6>	22	3	6	9	2	1	0	0	0	1	0
<56>	37	18	9	7	2	0	1	0	0	0	0
<106>	45	13	16	7	5	4	0	0	0	0	0
<156>	39	23	10	4	2	0	0	0	0	0	0
<206>	54	29	20	3	2	0	0	0	0	0	0
<256>	49	15	18	9	4	2	0	0	1	0	0
<306>	46	23	8	11	1	1	0	1	0	0	1
<356>	52	32	15	2	2	1	0	0	0	0	0
<406>	34	20	6	7	1	0	0	0	0	0	0
<11, 21>	56	26	24	5	1	0	0	0	0	0	0
<71>	37	16	13	7	1	0	0	0	0	0	0
<121>	47	31	8	5	1	2	0	0	0	0	0
<171>	52	33	14	2	2	1	0	0	0	0	0
<221>	39	15	18	4	2	0	0	0	0	0	0
<271>	47	22	18	4	3	0	0	0	0	0	0
<321>	47	25	15	6	1	0	0	0	0	0	0
<371>	47	25	15	6	0	0	1	0	0	0	0
orot.	750	369	233	98	32	12	2	1	1	1	1

Bigarren taula honek, 1-4 bitarteko ordain kopurua hiztegiko edozein orrialdetan ager daitekeela erakusten digu. Gainera, hiru orrialdetan (106, 256 eta 221) biko sarrerak batekoei nagusitzen zaizkie; beste bitan (21 eta 71), berriz, ia parean daude biak.

5etik gorako ordaindun sarrerei buruz, zenbakiak baino interesgarriago, haien edukia nolakoa den ikustea izango da. Zeren eta ordain guztiak, edo gehienak bederen, benetan berezi — eta apika etorki ezberdinekoak— dituztenak gutxienak baitira; hona hemen gure adibide bakarrak:

Assentaderas, *epurmamiac*, *epurdia*, *eperdia*, *atzecoaldea*, *esergarria*.
 Assessar, *senondú*, *zurtu*, *zuhurtu*, *zentsatu*, *zoritu*.
 Embarazar, *eragotzi*, *catibatu*, *empachatu*, *debecatu*, *ecairatu*, *trabatu*, *fachelatu*.
 Ocasión, *mugua*, *derechea*, *parada*, *mugaldia*, *goaitaldia*.
 En pié, de piés, *zutic*, *zutinic*, *chutic*, *chut*, *zut*.
 Vestido, *soñecoa*, *jazcaya*, *jaunzcaya*, *aldagarria*, *filda*, *abillamendua*.

Gainerakoetan, irakurlerik inpartzialenak ere ikusiko luke aniztasuna hizkuntzaren baliabide ezberdinak erabiliaz erdietsi dela. Konpara ditzagun goragoko *embarazar* sarrera eta ondoko hau, zalantzarik gabe bata bestearen zordun:

Embarazo, (...). *Arazoa*, *eragozqueta*, *echiquidura*, *catibuera*, *debecandea*, *debecua*, *ecaira*, *ecaya*, *empachua*, *fachelua*.

Ikusi, halaber, familia honen bilakaera:

Alfombra, *alhombra*, *oñazpicoa*, *oyalpecoa*, *cerriá*.
 Alfombrar, *oñazpicotu*, *oyalpetu*.
 Alfombrado, *oñazpicotua*, *oyalpetua*, *oñazpicoz*, *oyalpez estalia*, *janciá*.

³⁷⁴ Ehunekoak zertxobait jaitsi behar da (%46,8ra), bertan sartu baitituzt "eta abar" adierazten duen zeinuaz eraturako sarrerak; dena dela, sarrera hauek oro har interesik gabekoak izan ohi dira, erdarazko infinitiboan emandako ordain berberen errepikapena izaki. Ik. § 8.3.3.

Gertakari hauen deskribapena geroko utziaz (§ 8.3.2), hemen azpimarratu nahi nuke ordain bakunen kopuruari dagokionez, *HH*-aren muga 5-6tan egon ohi dela, corpusean kopuru txikiak (12 eta 2, hurrenez hurren) baina ez adibide bakarra (handik goitikoak bezala) erdietsi dituztenetan, hain zuzen. Sei ordainetaraino iristen diren sarrerak, gutxitxo izan arren, ez dira erabat aurkigaitzak, eta egindako bilketa-lan handiaren berri demaigute:

Baba, *erdea, linguerdá, adurra, elderra, guirlia, lerdea*.
Cansar, *cansatu, necatu, aricatu, unatu, laatu, enoyatu*.
Comedor, *jalea, mandica, nayoa, triponcia, sayea, cintzurcويا*.
Corcoba, *curcua, corcuya, crocá, chungurra, cuncurrá, burcolla*.
Resbalar, *limburtu, limuritu, limurtu, labaindu, lerratu*. (...) Item *irristatu*.

Jakina, tartean luzeagoak ere badira; hona hemen eriden ditudan aberatsenak:

Bofetada, bofetón, viene de el Bascuence Labortano *bufetá*, que significa lo mismo, *masalleco, matralleco, matalecoa, autzecoa, belarrondocoa, zaplada, cinqueña, ucaldia*.
Flaco, *flacoa, flacua, argala, erbala, masquela, mascarra, santarra, erquitua, ahula, hebaina*.

Adibide klasiko batekin buka dezakegu: *mariposa* sarrerepean, Larramendik bost ordain aski ezberdin —eta bat bederen bere hizkeratik aski urrutikoa— eskaintzen ditu:

Mariposa, inguma, chiquetá, chirita, micheletea, ulifarfalla.

8.3. Ordain motak

8.3.1. Ordain bakun, perifrastiko eta zehazgabeak

HH-ko ordain gehienak bakunak edo "itzultzaile" (fr. "traductifs") deritzenak dira: iturri-hizkuntzaren hitzak edo esapideak xede-hizkuntzan adiera ahalik eta hurbileneko hitzek edo esapideek ordezkatzan dituzte, definizio lexikografikoaren —eta aldi berean, hiztegi elebiduna izaki, itzulpenaren— lege nagusienetatik baten ariaz: ordezkagarritasunaz (ing. "substitutability")³⁷⁵; adib.:

Sangre, *odola*.
(A) sangre fría, *odol otzean, odol gueldian*.
(Sin piés, ni) cabeza, *ez buru, ta ez oiñ*.

Honelakoak, aztertzen ari garen 750 sarreretatik 566 (%75,5) dira. Gainerakoetan, gaztelaniazko hitz baten ordainez, euskarazko hitz bat baino gehiago agertzen da sarritan.³⁷⁶ Batzuetan, ez dago zalantzarik perifrasi ordain ona dela, aldamenean inoiz doan hitz trinkoa baino hobeia maiz, batez ere aditzetan:³⁷⁷

Alfombrado, *oñazpicotua, oyalpetua, oñazpicoz, oyalpez estalia, janciá*.
Assegurar, *dezir algo con asseveración, segurutzat esan*.

³⁷⁵ Hots, bata bestearen lekuan jarri ahal izateaz; lege honen erabilgarritasunaz eta mugez, ik. Seco (1987: 19-23) eta Landau (1989: 132-134), baina hiztegi elebarkarrez ari direla.

³⁷⁶ Jakina, alde batera utziko ditut euskaraz hain arruntak diren aditz lokuzioak (*hitz egin, hitz eman* edo *hitz hartu* erakoak). Cf. Quemada 1967: 43, 1539-1863 arteko frantsesezko hiztegi eleanitzez ari dela: "Si aucun mot traducteur n'existe dans la langue de sortie, une périphrase peut en tenir lieu dans des conditions identiques [hots, biak baliokidetzat emanez]".

³⁷⁷ Euskal lexikoan, dakigunez, aditz perifrasiak oro har oso usuzkoak dira (Mitxelena 1977b: 315).

Assemejar, *irudierazo, cerbaiten irudira, anzoa eguin*.
 Assemejarse, *irudin, irudia, anza, anzoa izan*.
 Assenderear, *bidescatu, bidesquetatic ibillaraci*.
 Asserrar con sierra (...) corva, *codeñatu, codeñeaz epaqui*.
 Embalijar, *bidezorroan sartu*.
 Embarrilar, *barrilatu, barrilean sartu*.
 Evangelizar, *evangelioa adierazo, enzunerazo*.
 Sangrar, abrir la vena, *sangratu, zancitu, odola atera*.
 Sangrar, arrojar sangre, *odola jarío*, con los irregulares...
 Versificar, *biursac, lototsac, versoac eguin*.³⁷⁸
 Vetado, *betaz betea*.

Bestetan, ordea, ordain perifrastikoak nekez betetzen du ordezkagarritasunaren legea, eta sarritan hurbilago dugu definiziotik, ordaina izatetik baino. Hau ez da Larramendik isilean egin zuen zerbait, latina sartzeko izan zituen arrazoiak direla eta jadanik ezagutzen dugun pasarteetan lehiatuki aldeztu zuena baizik; gogora dezagun:

[He añadido el Latín] para desengañar a aquellos mal instruídos Bascongados, que con errada aprehensión piensan que a toda voz Castellana ha de corresponder otra voz simple Bascongada. Qué presto y fácilmente depondrían este error, si al contrario quisiera buscar en Castellano voces correspondientes a otras muchas del Bascuence: pues, luego por experiencia encontrarían muchísimas voces sin correspondientes simples en Castellano. Pongo pues el Latín, para que vean que aun en esta Lengua muchas veces no puede explicarse una voz Castellana, sino por perifrasi o por dos o más voces, y que no deben extrañar esto en el Bascuence (1745: xlv).

Akademiak latinezko ordainetan hartu zuen erabakia gidari izan bide zuen:

En la versión Latina de las voces ha procurado poner la Academia la mayor conformidad; aunque muchas veces es casi imposible convertir igualmente la voz Castellana en otra Latina, por cuya razón para inteligencia de los extrangeros se ha usado de algunas frases en los casos que ha sido preciso, con el deseo de la mayor claridad y conocimiento de los Lectores: y también por evitar no volver la voz Española en otra Latina menos expressiva, y no tan correspondiente (*DAut* 1726: vii).

Gaztelaniatzko azalpenaren itzulpen hutsa izan daiteke euskarazko ordaina, inoiz oso luzea, *abordar* eta *occisa*-n ikus daitekeen bezala:

Abordar una nave a otra, u con otra cosa, acercarse, pegarse borde con borde, *ontzi bat besteari alderatzea, alboratzea, ta ertzaz ertzari dichecala jartea, ertzatu*.
 Alfana, caballo fuerte, *zaldi indartsua*.
 Alfaqueque, redemtor de cautivos, *catibu diranen eroslea, ateratzallea*.
 Alfaraces, caballos ligeros de los moros, *Mairuen zaldi ariñac*.
 Alfareme, toca o velo de la cabeza, *ibiquia, buruco estalquia*.
 Alfargía, madero para fundar purtas y ventanas, *ate leyoac ifinteco zur bat*.
 Assentar, presuponer, *aurrena, lenena ezarri, ifiñi*.
 Deicida, el que a Christo quita la vida, *Jaincoaren <Joai->, Christoren erallea*.
 Eucharistía, acción de gracias, *esquerguita, esquerrac, esquerr-emaitea, esquerrac emotea*.
 Ochava, la octava parte, *zortzigarren partea, ochava*.
 Salvar, passar por encima sin tocarlo, *eraguin, uquitubague irago*.
 (Tañer de) occisa, en la Montería es avisar con la bocina estar muerta la res, *aberea il dalaco adiera jotzea*.

Edo bestela latinez demaigunarena, jadanik somatu dugun bi hizkuntzetako ordainen arteko erlazioa berretsiaz (§ 7.9):

Assentista, *erreguearen ondacartzallea, ondacarrac bere contura artzen dituena*. Lat. Vectigalium regiorum ex pacto administrator.
 Definitorio, *arpeztarien bilguma*. Lat. Diffinitorum consessus.
 Guijarro, (...) *arri leuna, arri boilla*. Lat. Lapis laevis & rotundus.
 Guincho, ave marítima, *cayo morea*. Lat. Gavia cinerea.

³⁷⁸ Cf. *HH*: "Verso, *biursa, lototsa, versoa*".

Témpano, medio tocino, *cherriquiaren alderdia*. Lat. Suini corporis dimidium.
Versicula, *coruco librutoquia*. Lat. Locus, in quo libri cantus collocantur.

Bestetan, gaztelaniazko zehaztapena barnera dezake:

Abonanzar el tiempo, *eguraldia ondu, ondotu, onguitu, malsotu*.
Assentar piedras preciosas los plateros, *artisteac zulcatu, sildatu*.
Assestar artillería, &c. *sutumpa aurquetu, zucendu, destatu*.
Cabra, cabrilla en las piernas, *aztaleco anchumea*.
(Echar las) cabras a otro, *auntzac besteri egotzi*.
Deferir al juicio o dictamen de otro, *eraquidatu, besteren usterari jarrai*.
Embalar, hazer fardos, *lopillatu, bilgotu, lopillac, loturac, bilgoac eguin*.
Eucaristía, Sacramento, *Esquerremateco ezcutapea, Sacramentua*.³⁷⁹
Pieza de oro, &c. alaja, *urrezco garautá*. Lat. Vas aureum, &c.
Rapto a la cabeza, *burura igotzea*.
Sangrar algún río, &c. *ibayari ugoaira eman, eguin*.
Témpano, en el pandero, *zaldabayaren larrua*.

Beste anitzetan azalpena euskararen barruan bakarrik topatzen da; erkaketa eginez gero, ordea, *DAut*-eko azalpenen eragina nabarmena da, bai edukian baita forman bertan ere. Adjektiboak (eta pareka daitezkeen beste zenbait egitura), adibidez, erlatibozko esaldi batez itzul (edota azal) ditzake, gehienetan ereduari jarraiki:

Abonado en hacienda, *aberatsá, dirutia, onic asco duena* < "El que tiene crédito y caudal bastante...".
Assemejado, *dirudiena, irudia, irudina, anza duená*.
Deífero, *Jainco-eramallea, Jainco-eroallea, Jaincoa berequin daramana, beregaz daroana* < "La persona que lleva consigo a Dios...".
Eterno, *betirauna, beticoa, beti dirauena* < "Lo que (...) ha de durar siempre y por siempre".
Etmológico, *hitz jayotzari dagocana* < "Cosa tocante a etymología".
Evangélico, *evangelioari dagocana* < "Lo perteneciente al Evangelio".
Mar en leche, *ichaso eznetan, gueldi, malso dagoena* < "El que está sossegado y benigno, sereno y sin alteración".
Veterano, *zarrá, zardana*.

Izen asko, berriz, 'izena + izenondoa' egituraz ordezkutzen dira, arrazoi ezberdinengatik, baina sarritan *DAut*-eko azalpenen eraginez, eta inoiz gaztelaniazko hitzaren berarenez (cf. *obtusángulo*):

Cochinilla, *cherricho emea* < "Cochina pequeña".
Defensorio, *eranzuqui escudataria* < "Manifiesto, escrito apologético en defensa o satisfacción de alguna persona, u de otra cosa".³⁸⁰
Guija, *arricho leuna* (eta "Guijarreño, *arri leunezcoa*").
Internuncio, *mandatari bitartecoa*.
Obtusángulo, *choquezqui ciaguea*.³⁸¹
Piélago, alta mar, *ichaso betea, ichaso zabala*.
Sándalo, yerba, especie de yerba buena, *menda samurra* < "Hierba enteramente parecida a la hierbabuena (...). Tiene las hojas más tiernas...".
Vestuario, vestidos, *jancialdia, jazcai osoa* < "El conjunto de las cosas necesarias para el vestido".

Gauza bera gertatzen da bestelako egituretan ere:

Assentador de cantería, *arlanden zucentaria* < "El oficial que assienta las piedras de sillería...".
Assentar en la Cantería, *arlandac zucendu* < "...se dice (...) quando se assientan una sobre otra las piedras de sillería...".
Assessor de juez lego, *letradun laguna* (eta "Assessoría, *letradun lagunaren egoquia, equinza*") < "...el Letrado que se da al Juez lego por acompañado..."

³⁷⁹ Cf. *HH*: "Sacramento, *sacramentua, ezcutapea*".

³⁸⁰ Cf. *HH*: "Apología, *eranzuquia*" eta "Defensor, *escudataria*".

³⁸¹ Cf. *HH*: "Angulo, *choquezquia*" eta "Obtuso, *ciaguea*".

Asseverar, *osoró esan, erran* (eta "Asseveración, *osoró esatea, oso ta oro erratea*") < "Decir con firmeza alguna cosa...".

Deicidio, *Christo gure jauna eralletzea, hiltzea* < "El homicidio de Christo nuestro Bien...".

Eternizar, *betiraundu, beticoeratu, beti iraunerazo* < "Perpetuar para siempre".

Etymología, *hitzen jayotza, sortzea* < "Origen, raíz y principio de las palabras...".

Obsesión, *gaizquiñez ingurutua egotea* < "Asistencia de los Espíritus malignos al rededor de alguna persona...".

Obsesso, *gaizquiñez ingurutua* < "adj. que se aplica a los que tienen arrimados a los Espíritus malignos, que los cercan y rodean...".

Versiculario, *Coruco libruzaya* < "El que cuida de los libros de Choro...".

Vespero, *illunabarreco izarra* < "El Lucero de la tarde".

Gure corpuseko pare bat hitzetan, biak familia berekoak, Larramendiren ordain perifrastikoak erdal hitzek iradoki dituztela dirudi:

Picotear, hablar mucho, *moco utsa izan, erausi*.

Picotero, hablador, *hizjarioa, moco utsa*.

Ordain perifrastikoen artean badira aipamen berezia merezi duten bi talde: definizioak eta ordain zehazgabeak. Baina lehenago, hiztegi ospetsuago bateko halako ordainez ikertzaileak zer dioen aipatuko dut, Larramendirenak beren testuinguru historikoan eta esanahi sakonean ulertzen lagunduko digulakoan:³⁸²

...Nebrixa en su deseo de exhaustividad ha de dar entrada en el *Lexicón* [hau da, latina-euskara hiztegi] a voces latinas cuyo significado le resulta oscuro en castellano y así, por ejemplo, de *Alcedo* dirá "cierta ave marina", o en otros casos tendrá que dar la equivalencia a la voz latina correspondiente mediante una forma analítica por no conocer la sintética correspondiente (...) como en *Carnífica* "el lugar donde atormentar" (Acero 1985: 19).

8.3.1.1. Definizioak

Inoiz, ordainik gabe (gutxiagotan ordainen baten aldamenean), erdal hitzaren definizioa da *HH*-ak euskaraz eskaintzen duena; honelakoak, gorago aipatu hainbat ordain perifrastiko bezalaxe, Nebrixaren *Carnífica*-ren kideak dira. Esan gabe doa Larramendiren definizioa *DAut*-ekoaren zordun izan ohi dela:

Algalia, el sudor de el gato de algalia, *cataurrinaren icerdia, ta andic eguiten dan autsá*. Lat. *Felis odoratae pulvis*.³⁸³

Emballenar, *balea-bizarrez soñecoac equin* < "Afianzar y guarnecer con pedazos de barbas de ballena los jubones y otros vestidos...".

Interregno, *erregeric eztaneco erartea* < "El tiempo que un Reino está sin Rey...".³⁸⁴

Ocasión próxima, *mugaldi urcoa, mugaldi gaitzá, berequin pecatua urrean dacarrena* < "...aquella en que puesto alguno voluntariamente, siempre o casi siempre cae en la culpa...".

Badago definizio mota konplexuago bat, *iritzi* edo, gutxiagotan, *deitu* aditzaz osatutako adierazpenaz hasten eta, inoiz, euskaraz —eta hau oso garrantzitsua da— hitzari buruzko informazio lexikografiko berezia ematen duena, *DAut*-ekoa Larramendiren erara laburtuaz. Bildu ditudan adibide guztiak corpusetik kanpokoak dira, eta haien artean *adverbio* hitzaren definizioa

³⁸² Berbera gertatzen da ezinbestean beste hizkuntzako hitzak nolabait ordezkatu behar dituzten hizkuntza modernoko hiztegi elebidunetan. Cf. Steiner 1970: 27 Percyvall-en gaztelania-ingelesa hiztegi (1591): "Percyvall sometimes uses definitions as makeshift substitutes for an equivalent he does not know".

³⁸³ Definizio hau bereziki azpimarragarria da, *DAut* eta *HH*-ko latinak berdinak izaki, *autsa* latinetik bakarrik har baitzezakeen: gaztelaniaz *sudor* eta *manteca* baino ez baita aipatzen.

³⁸⁴ Cf. *HH*, orrialde berean: "Intervalo, *utsarte, erarte*".

—gramatika kategoría bat euskaraz definitzeko bigarren saioa, Etxeberrirenen ondoren—
azpimarratuko nuke:

Adverbio, *ala deitzen diogu verboari da*][*raican eraiscun bati, eta aren adieracia nolutzen duenari: eguin, orra verboa; gaizqui, ondó, ederqui, itsusqui, orra adverbioac, verboaren adieracia nolutzen dutenac.*³⁸⁵

Agnus, los Agnus que vienen de Roma, *ala derizte arguizqui meecho biribil batzueg eguinicaco bildochai, aita Santuac bere eguin berrian bedeicatuac; agnusa, arguizaguizco bildoch bedeicatuac.*³⁸⁶

Aleluyas, los papelillos que se arrojan el Sábado Santo, *alá deriste Larumbat Santuan botatzen diraden paperezco bicheletac* [sic, -ai-ren orde], *lendabicico aleluya esatean.*³⁸⁷

Atrición, *iztamua, icidamua, izudamua*. Lat. Attritio. *Ala deritza, izuác edo icarác diacargun damuari, noiz eta ifernua gogoratu ta, aren bildurraz damu artzen degun Jaincoa ofendituaz.*³⁸⁸

Babieca, *ala ceritzan Ciden zaldíari; baña diogunean* es un babieca, *esan nai degu, guelbera, illaun, motel, gueisancha bat dala.*³⁸⁹

Corniculario, *ala ceritzan Erromatarren goyende bati, eta esan nai du adarzaya.*³⁹⁰

Pentecostés, *berroquetamar ondoreco jaya*. Lat. (...). *Ala deritza Pazcoa Mayatzeco egunari.*³⁹¹

Hona hemen beste era bat:

Serafín, Angel de el primero y supremo Choro, *hitz onec esan nai du, iracequia, Jaincoaren amodioz sutua, amorezco suac eta garrac dariozcana. Serafiña.*³⁹²

Euskaraz bakarrik egiten dituen zehaztapenen adibide eder pare bat aurkitu dut corpusetik

kanpo:

Alamar, alamares, son presillas, ojales postizos en los capotes y otros vestidos, *alamarac, aribeguiac, ariz eguinicaco beguiac, ta ari hori da edo sedaz, edo cillarrez, edo urrezcoa.*³⁹³

Beatificar, *doatsuguin, santuren bat ceruan dagoala esan, erabaqui, ceíña dan Aita Santuaren equintza.*³⁹⁴

³⁸⁵ Cf. *DAut*: “Es aquella voz que modifica la significación del verbo [= *aren adieracia nolutzen duena*], y da a entender el modo o la calidad con que se hace, se dice o se piensa: como velozmente, respecto de correr; elegantemente, respecto de hablar, y ingeniosamente, respecto de discurrir. Y éstos se llaman propiamente adverbios de modo. Otros hai de lugar...”.

³⁸⁶ Cf. *DAut*, s.v. *agnusdei*: “Unos pedazos de cera blanca, amasados por el Papa, con polvos de reliquias de Santos, a quien sirven y asisten para esto algunos Cardenales y Prelados; métese esta cera entre dos formas, que la una tiene abierta a cincel la forma de un Cordero con la inscripción *Agnusdei*, y la otra la Imagen de Christo, de nuestra Señora, u de algún Santo, con su inscripción y el nombre del Pontífice que los hace y bendice; y assí salen estas formas en la cera de medio relieve, y regularmente de hechura circular o elyptica”.

³⁸⁷ Cf. *DAut*: “Se llaman por analogía las estampas de papel o vitela que se arrojan en demostración de júbilo y alegría el Sábado Santo, al tiempo de cantarse la primera vez solemnemente por el Celebrante la Aleluya...”.

³⁸⁸ Cf. *DAut*: “Dolor, detestación y arrepentimiento de los pecados cometidos, que nace del temor del eterno castigo de Dios, y de las penas que por ellos se merece, assí de daño, como de sentido, u de otros motivos honestos y sobrenaturales regulados y manifestados por la Fé Divina”.

³⁸⁹ Cf. *DAut*: “En lo literal es el nombre que pusieron al caballo del Cid; pero se usa de esta voz por translación mui freqüentemente por lo mismo que bobo”.

³⁹⁰ Cf. *DAut*: “Cierta Oficio u Dignidad [= *goyende*] entre los Romanos, que según dice Calepino era el que mandaba el cuerno o a la derecha, o izquierda del ejército”.

³⁹¹ Cf. *DAut*: “Era una fiesta de los Judíos (...) y se celebraba cincuenta días después de la Pascua del Cordero; y por esto se llamó Pentecostés, que significa día quinquagésimo. Por la misma razón se da este propio nombre a la festividad de la venida del Espíritu Santo...”.

³⁹² Cf. *DAut*: “Es voz Hebrea, que vale encendido o inflamado, por ser estos Espíritus los más abrasados en el amor de Dios”.

³⁹³ Cf. *DAut*: “Hácese de varias maneras, y de diferentes materias: como de estambre, seda, hilo, plata, oro, u otro metal”.

Ohar bedi *HH*-ko euskal metahizkuntza Larramendiren euskalkia dela, bere ohiko idazkera, zehazkiago.³⁹⁵

8.3.1.2. Ordain zehazgabeak

Nebrixaren *Alcedo*-ren parean, Larramendik batzuetan ez dauka euskal ordain egokirik, eta orduan zehaztapen batez (eskuarki erdaraz eman beraz) konpontzen du auzia, gehienetan *bat*-ez (erd. *un(a)*-tik), ez gutxitan *mota* edo *mota bat*-ez (erd. *especie* edo *cierto/a*-tik) halakoak markatuaz, Percyvall-ek (1591), esate baterako, gaztelania-ingelesa hiztegian *a kind of* darabilen bezalaxe (Steiner 1970: 27). Ohartu gaztelaniazko azalpenaren itzulpena izan ohi dela:

Alfaneque, ave de rapiña, *egazti arrapari bat*.
Obsidiana, se llamaba una piedra negra (...), *arri beltz bat*.
Oca, una raíz dulce de el Perú, *Indietaco sustrai gozo bat*.
Ocal, pera, manzana ocal, *udare gozó bat*.
Sandaraca, especie de rejalgár, *arbotzoi mota bat*. (Cf. *arbotzoya* "rejalgár").

Cf. corpusean behin baino azaldu ez zaigun *mota*-ren beste adibide hauek:

Fildenetor, cierta tela de lana o lanilla, *oyile mota bat*.
Fixa, especie de gozne, *elgontza mota*.

Eta ordain zehazgabe *mota* berri zenbait:

Bigardo, *fraideai deitzen zayen irainá*.³⁹⁶
Orión, constelación, *orión deritzan izarquide bat, izarpilla bat*.
Pernigón, *Genovatic datorren aran gordacaitu bat*.³⁹⁷

8.3.2. Ordain errekurtsiboak

Honela deituko diegu, lehenik, eratorpen atzizki beraz edo berez eraturako sarreretan agertzen direnei. Honelako ordainek, agerian dago, *HH*-aren sorbideetara daraman ate baten giltza eskuetan jartzen digute.

Oso maiz, famili burua den hitzari egokitutako ordainak hartu, eta atzizki bat beraren ezarketaz osatu dira haren eratorrien sarrerak. Adibideak askotxo diren arren, denak ematea merezi du, nik uste, honen benetako eraginaz jabe gaitezen (taket artean ematen ditut oinarrizko sarrerak, nabarmenak direnean):

Alfaharero, *loiguillea, buztinguillea, eltzeguillea, topinaguillea*.

³⁹⁴ Cf. *DAut*: "Declarar el Sumo Pontífice que algún siervo de Dios está en su presencia, y goza de la bienaventuranza".

³⁹⁵ Aztertzeko dugun alderdia da, dena den; baieztapena nire inpresioan oinarritzen da, eta ez zait iruditu oro har ustekabekorik dagoenik.

³⁹⁶ Cf. *DAut*: "Nombre injurioso con que el vulgo malamente se burla y denuesta a los Religiosos, (...) equivocándolos con el de Begardos hereges antiguos, escandalosos y obscenos, que desmandados de su regla de terceros, obligaron al Papa Juan XXII a perseguirlos y extirparlos".

³⁹⁷ Cf. *DAut*: "Especie de ciruela redonda y tierna, que viene de Génova en dulce", eta *HH*: "(Hazer) conserva, conservar, *gordacaitu, gordacaya eguin*. Lat. Saccharo, aut melle condire".

Aleta, [a]la pequeña, *egaachoa, egoachoa, egalchoa*.

Cabezalejo, *burucochoa, aurdicochoa*.

[Cobardía, *anuá, bildurra*].

Cobarde, *anutia, bildurtia*.

Cobardear, *anutu, beldurtu*.

Cobardemente, *anutiró, beldurtiró*.

Cobranza, *cobranza, coberanza, escaterá*.

Cobrar, *cobratu, coberatu, escateratu*.

[Cobre, *cobrea, urraidá*].

(Cosa de) cobre, *cobrezco, urraidazcoa*.

Cochinilla, para teñir, *garausticaya, suteocaya*.

Cochura, *egosalda, errealdia*.

[Defender, *escudatu, gordoztzi*].

Defendedor, defendible, *escudagarria, escudaquizuna, gordozgarria*.

Defendimiento, defensa, *escudatzea, gordozte*.

Defensivo, va, adjetiv. *escudagaia, gordozcaya*.

Defensor, *escudataria, escudatzallea, gordoztaria, gordoztallea*.

Definitivo, va, *arpeztuna, erabacduna*.

Definitivamente, *arpezquiro, erabaquiro*.

[Degenerar, *etautsi, asturritu, asturrundu*].

Degeneración, *etaustea, asturrundea, asturritzea*.

Degolladero, parte de el cuello, *eztarrondoa, samondoa*.

Deidad, *Jaincodea, Jaincotasuna, Jencodea, Jencotasuna*.

[Embarcar, *embarcatu, itsasgoitu, onciratu*].

Embarcación, acto de embarcarse, *embarcatzea, itsasgoitea, onciratzea*.

Estupendo, *arrigarria, miragarria*.

Evacuar, *ustu, utsitu*.

Evacuación, *ustutzea, utsitutzea*.

Evaporar, *celaustu, quemearu*.

Evaporación, *celaustea, quemearutzea*.

Interposición, *parartea, ibinartea*.

Interponer, *parartetu, ibinartetu*.

Interpresa, *arrapartea, atzitarrea*.

Interprender, *arrapartetu, atzitarretu*.

Interpretar, *azaldu, arpeztu*.

Interpretativo, *azaldagarria, arpeztagarria*.

Intérprete, *azaldaria, arpeztaria*.

Interrogatorio, subst. *galdetaldia, itanaldia*.

Interrogatorio, adjet. *galdetaldicoa, itanaldicoa*.

Intervalo, *utsartea, erartea*.

Intimar, *besartu, sarpetu*.

Intimación, *besarta, sarpeta*.

Intolerable, *eramezgarria, eramezquizuna, erampezgarria, erampezquizuna*.

Intonso, *motzeza, moztueza*.

Intratable, *uquitezgarria, escutezgarria*.

(De) mar a mar, *oparo, naroro*.

[Maravillarse, *miretsi, marabillatu, mirabillatu*].

Maravillosamente, *miresquiro, marabillasquiro, mirabillasquiro*.

Maravilloso, *miragarria, mirezgarria, marabillagarria*.

Observatorio, *oarteguia, celatateguia*.

[Obstinación, *setá, burcoidea, hisia*].

Obstinadamente, *setaquiro, burcoiro, hisitiro*.

Obstinarse, *setartu, burcoitu, hisitu*.

Obstinado, *setartua, burcuya, burcoitua, hisitia, hisitua*.

[Pico de ave, *mocóa, aotzia*].

Picudo, *mocoduna, aotziduna, mocotía, aotzitía*.

[Rarefacerse, *arrotu, üanditu*].
 Rarefacción, *arrotzea, üanditzea*.
 Rareza, *arrogoa, üandigoa*.
 [Sanar, *sendatu, osatu, gueritu, erutsitu*].
 Sanable, *sendagarria, osagarria, guerigarria, eruscarria*.
 [Sanear, *sendaraci, caltaguetu*].
 Saneamiento, *sendarazta, caltagueta*.
 [Temblor, *lardazquia, icara*].
 Temblar, *lardazquitu, icaratu*.
 Temblón, *icaratía, bildurtía*.
 Temeroso, que causa miedo, *bildurgarria, icaragarria*.
 Templadura, *gogurritzea, goguirotzea, adintzea, nasarotzea*.
 [Verruga, *carecha, enora*].
 Verruguento, verrugoso, *careisduna, enorduna*.
 Versátil, *giracorra, aldacorra*.
 Vertibilidad, *aldacoidea, giracoidea*.
 Vertible, *aldacoya, giracoya*.
 Vespertino, *arratsaldeco, arrasteguicoa*.
 [Vexiga, *mascuria, bisiga*].
 Vexigazo, *mascuricada, bisigada*.

Eta, bigarrenik, halaxe deituko diegu oinarri berari balio bereko edo beretsuko atzizkiak ezarriz lortutakoei:

Abordo, *ertzatzea, ertzaera*.
 Assegurador, *segurutzallea, seguruguillea*.
 Cocimiento, *egosgoa, egosaldea*.
 Deformidad, *eracaizdea, eracaiztasuna*.
 Embarcamiento, *latuera, latugoa*.
 Estufa, *berocaya, berogueta*.
 Europeo, *Europarra, Europacoa*.
 Guerrero, *guerratía, guerranaya, guerrazalea*.
 Interposita persona, *hitzarteduna, hitzartecoa*.
 Intransitable, *iragoeciña, iragoezgarria*.
 Mañoso, *mañatsua, mañaduna, mañatía*.
 Mañero, el que tiene maña, *mañeru, mañaria*.
 Maraña, abundancia de maleza, *sasitea, sasidia*.
 Vestuario, donde se viste, *janciechea, jancilecua, jazteguia*.

Badirudi lehenengo orrialdeetan atzizkiak automatiko eta sistematikoki ezartzeari garrantzi gehiago eman ziola, hizkuntzaren baliabide ezberdinak erabiliz zerrenda benetan luzeak eratuaz:

Abundantemente, *ïoriró, ugariró, naroró; ïoriqui, ugariqui, naroqui; ltem ïori, ugarí, naró*.
 Acumular, (...) *pilatzea, pillacatzea, montoitzea, montoicatzea, pillaca, montoica, molsoca biltzea, batzea*.
 Administrador, *administratzallea, ecartaria, erabiltaria, ecartzallea, erabiltzallea, beguiralea, beguiratzalea*.
 Anticipación, *aurreera, aurreratzea, aitzinera, aitzinatzea, aitzindera, aitzindatzea, aitzindea, lenagoera, lenagotzea*.

Geroago ere antzekoren bat ikusten da, halere:

Revolcarse <Reval->, *irabiatu, pulumpatu, aztarriatu, iñalduritu, ichauscatu, buerdatu*. Item *irabiaca, iñaldurizca, aztarriaca, ichausca, buerdaca, iraulca, igorca egon, ibilli*.

Baina gainerakoetan, ordain posibleak gutxi ez izatera (baina batzuetan baita gutxi direnean ere), normalagoa da edo goian ikusi bezala, atzizki bakar bat hautatzea, edo atzizkiak eta oinarriak aldizkatzea, ondoko adibideotan bezala:

Alfahar, (...), *loyola, buztinola, loiquinteguia*.

[Defender, *escudatu, gordoztzi*].
 Defensa, *escudagoa, gordoizquera*.

[Definir, *arpeztu, arguipetu*].
 Definición, *arpetza, argipetza*.
 Definidor, *arpeztaria, arguipetzaldea*.

[Degradar, *eiderperatu, ohorejautsi, maillezpetu*].
 Degradación, *eiderperanza, ohorejaustea, maillezpea*.

[Embarcar, *embarcatu, itsasgoitu, onciratu*].
 Embarcador, *embarcalaria, ontziratzaldea, itsasgoitaria*.

Eternidad, *betiraundea, beticoera*.

[Interpretar, *azaldu, arpeztu*].
 Interpretación, *azaldea, arpetza, arpetzea*.

[Intrépido, *bildurbaguea, egotzia*].
 Intrépidamente, *bildurbaguero, egotziqero*.
 Intrepidez, *bildurbaguea, egotziera*.

[Mañoso, el que tiene maña (...), *trebea, cintzoá*].
 Mañosamente, *cintzoró, trebaqero*.

Moderadamente, *moderaro, moderaqero, gogurro*.

[Obstinación, *setá, burcoidea, hisia*].
 Obstinadamente, *setaqero, burcoiro, hisitiro*.

[Sangrar, abrir la vena, *sangratu, zancitu, odola atera*].
 Sangrador, *odolzalea, zancitaria, sangratzaldea*.

Edota, bestela, oinarri guztietatik batzuk bakarrik hautatzea:

[Abominable, (...), *nagatsa, nabatsa, nazcagarria, nagagarria*].
 Abominablemente, *nazcagarriro, nagagarriro, nagatsuró*.

[Aborrecer, *gorrotatu, gaitzetsi, higuindu, gorrotoa, gaitzeriscoa, gaitziriztea izan, iduqui*].
 Aborrecible, *gorrotagarria, gaitzetsigarria*.

[Aleve, (...), *aribea, bearia, etoa, etoya*].
 (Hazerse) *aleve, aribeatu, bearitu, etoit*.
 Alevosamente, (...) *etoiquiró, beariró*.
 Alevosía, *etoera, beariqueta, aribequeta*.

[Cobrar, *cobratu, coberatu, escateratu*].
 Cobrador, *cobratzaldea, escateratzaldea*.

[Defecto, *gabendá, utsaldia, itena, baia, faltá, escasá*].
 Defectuoso, *faltiarra, gabentsua, gabenduna, utsalditsua, itentia*.
 Defectuosamente, *faltiarqero, escas, escasqui, gabentsuro, utsaldir*.

[Degollar, *lepoá, iduná epaqui, ebaqui, quendu, lepobaguetu, idumbagatu*].
 Degollación, *lepoepaitza, idunepaitea, ebaitea*.
 Degollador, *lepo, idun epaillea, ebaillea*.

[Embarazo, (...). *Arazoa, eragozqueta, echiqadura, catibuera, debecandea, debecua, ecaira, ecaya, empachua, fachelua*].
 Embarazosamente, (...) *eragozqero, arazoro, catiburo, trabaqero*.
 Embarazoso, *arazogarria, catibugarria, ecaitsua*.

[Embarcar, *embarcatu, itsasgoitu, onciratu*].
 Embarcadero, *embarcategoia, itsasgoiteguia*.
 Embarco, *itsasgoitea, onciratzea*.

[Guiar[r], *guidatu, quidatu, irioitu*].
 Guiador, *guidatzaldea, quidatzaldea, quidaria*.

[Guijarro, (...), *arri leuna, arri boilla*].
 Guijarreño, *guijeño, arri leunezcoa*.

[Intrincar, *naspildu, catrambildu, catrambilatu*].
 Intrincable, *naspilgarria, catrambilagarria*.
 Intrincadamente, *naspilduro, catrambilqero*.

[Maquila, (...). *Lacá, moturca, mendea*].
 Maquiladero, *laconcia*.
 Maquilar, *lcatu, lca artu*.
 Maquiler, *maquilón, lacazaya*.

[Ocasión, *mugua, derechea, parada, mugaldia, goitaldia*].
 Ocasional, *mugaldicoa, goitaldicoa*.
 Ocasionalmente, *mugaldiro, goitaldiro*.
 [Rasar las medidas, (...) *arrasatu, arrasquindu, mucurozatu*].
 Rasadura de medidas, *arrasquindea, mucorozta*.
 Rasero, palo rollizo para igualar las medidas, *arrasquiña, mucorozquiña*.
 [Templar apetitos, &c. *gogurritu, goguirotu, templatu*].
 Templador de afectos, apetito, &c. *gogurritzallea, goguirotzallea*.
 [Vexiga, (...) *masculloa* <-uolloa>, *ugulloa*. (...). Item *bisiga* <-ija>].
 Vexigatorio <Vexij->, *bisigaguillea, masculloguillea*.

Inoiz, litezkeen ordainen laburketaz batera berriren bat ager daiteke, automatismoak beti jokatu ez duela erakutsiaz:

[Verso, *biursa, lototsa, versoa*].
 Versista, *biursaguillea, coplaguillea*.

8.3.3. Ordain errekurtsibo laburtuak

Egiatan, oso ordain mota garrantzitsua da: Larramendik, euskal morfologiaren zenbait lege buruan izanik, errepikapenak batzuetan alferrikakotzat jotzen ditu, irakurlea legeak bere kabuz ezartzera gonbidatuaz. Gonbidapen hau, "eta abar" adierazten duen &c. markaz egiten du beti.

A letraren hasieran —beti berezi— ausartago ageri da hiztegiilea alde honetatik, marka eratorpenean erabiliz, eta lot bitez hemengo adibideak gorago aipatu ditudan azkeneraino eramandako eratorpeneko adibideekin:

Abatido, *azpiratua, lurreratua, beeratua*. (...) Demasiadamente, *azpiratueguia, &c*.
 Abaxar, *beeratu, beetitu, jachi, erachi*. (...) Item *erautsi, jachierazo, &c*.
 Abollador, *abollatzallea, zacontzallea, zocontzallea, coscatzallea, maliatzallea*. Item *abollaria, zaconaria, &c*.
 Abonado assí, *cimaurtua, gorotzatua, iñaurquindua, basaratua, &c*.
 Abonador assí, *cimaurlea, cimaurtzallea, &c*.
 Acaecimiento, *suertaera, guertaera, jasó, jazoera, acercaera; suertapena, guertapena, &c*.
 Aceña, (...) *errotu, igara, bolua*.
 Aceñero, *errotaria, errotazaya, &c*.

Honelakoren bat berriz aurki daiteke corpusetik kanpo:

Purificador, *chautaria, icuztaria, garbitaria, chautzallea, &c*.

Baina ziurrenik ez maiztasun beraz. Gainerakoan, kasu bitan bakarrik kausitzen dugu nolabaiteko maiztasunaz: Lehenik, infinitiboaren ondo-ondoan doazen partizipioen itzulpenetan;³⁹⁸ corpusean honelako 14 sarrera ditugu;³⁹⁹ adib.:

Assessar, *senondú, zurtu, zuhurtu, zentzatu, zoritu*
 Assesado, *senondua, zurtua, &c*.
 Degollar, *lepoá, iduná epaqui, ebaqui, quendu, lepobaguetu, idumbagatu*.

³⁹⁸ Gogoratu partizipioak, *DAut*-en ondareaz, eskuarki infinitiboaren azpian agertzen direla (§§ 2.4.1.1 eta 2.4.7.2).

³⁹⁹ Ik. *abonado, embarazado, embadurnado, evacuado, guiado, internado, interpuesto, interpretado, intimado* eta *maravillado* ere.

Degollado, *lepobaguetua, lepo, idun epaquia, &c.*⁴⁰⁰

Rarefacerse, *arroto, üanditu.*

Rarefacto, *arrotoa, &c.*

Templar apetitos, &c. *gogurritu, goguirotu, templatu.*

Templado assí, *gogurritua, &c.*

Bigarrenik, aditz joko beste aldaketarik ez duten -se aditzetan edo haien baliokideetan; honelako bi sarrera daude:

Embarcar, *embarcatu, itsasgoitu, onciratu.*

Embarcarse, *embarcatu, itsasgoitu, &c.* con las terminaciones de el neutro.

Sanar, *sendatu, osatu, gueritu, erutsitu.*

Sanar, cobrar la salud, *sendatu, &c.* con las terminaciones de el neutro.

Salbuespen bakarria, bidalketa dei baten orde dagoela dirudi, hots, lekuri naturalena ez denez gero, Larramendik ordain bakar bat ezarri du gidari gisa:

Piedra, granizo, *chingorra, &c.*

Orotara, beraz, honela laburtutako 17 (%2,3) sarrera ditugu. Corpusean azaldu ez zaigun beste mota bat, ezaguna den morfologi sorta oso baten (gutziz izenordainen) eman beharra saihestu nahi duena da:

Adherido a él, a mí, a tí, &c. *arganatua, niganatua, zukanatua, &c.*

(De proprio) puño, *bere escuz, nere escuz, &c.*

8.3.4. Partizipio bakanduak

Dena dela, batzuetan infinitibopean eman aukerak bakandu egiten ditu partizipioan, besterik gabe; ohartu ordain perifrastikorik egotekotan, bera izan ohi dela kanpo geratua:

Aborrecer, *gorrotatu, gaitzetsi, higuindu, gorrotoa, gaitzeriscoa, gaitziriztea izan, iduqui.*

Aborrecido, *gorrotatua, gaitzesia, gaitzesitua.*

Assenderear, *bidescatu, bidesquetatic ibillaraci.*

Assendereado, *bidescatua.*

Rasar las medidas, (...) *arrasatu, arrasquindu, mucoroztatu.*

Rasado, *arrasatua, mucoroztatua.*

Sangrar, abrir la vena, *sangratu, zancitu, odola atera.*

Sangrado assí, *sangratua, zancitua.*

8.3.5. Ordain laburtuak

Informazioa errepikatu beharko litzatekeenean, Larramendik badaki beharrezkoa baino ez ematen:

Assegurar, (...), *segurutu, sendotu, seguru, sendo ifiñi.*

⁴⁰⁰ Adibide hau oso berezia da: gainerakoetan, infinitiboan eman lehen ordainaz, eta hartaz bakarrik (edo gehienera jota lehen biaz: cf. *assessado*), baliatzen da sarrera laburtua osatzeko: ohartu, dena dela, partizipioan ordain perifrastikoak ere eman nahi izan dituela, bestetan ez bezala. Bigarren adibide berezi bat dugu: *abonado* (gorago aipatua), aditzean eman baino oraindik ordain gehiago eskaintzen baitu. A letraren hasierakoa izaki, ordea, honek ez gaitu harritu behar.

Degollador, *lepo, idun epaillea, ebaillea*.
Evadir, evadirse, *iesi, iguesi joan, eguin, itzuri*.
(Dar o tomar) ocasión para algo, *bide eman edo artu*.
(Tienes gana de) rasco, *jostallua, jardunaya zaude*.
(Ponerse en) salvo, *izuquean, seguruan jarri, ifiñi*.
(A su) salvo, *bere erara, izuquera*.

Dakusgunez, esapideetan batez ere ditugu adibideak; alabaina, ordain perifrastikoen artean ere oso maiz gertatzen da; ekar ditzadan adibide zenbait:

Abonanzar el tiempo, *eguraldia ondu, ondotu, onguitu, malsotu*.
Alfaqueque, redemtor de cautivos, *catibu diranen eroslea, ateratzallea*.
Assentar, presuponer, *aurrena, lenena ezarri, ifiñi*.
Embalar, hazer fardos, *lopillatu, bilgotu, lopillac, loturac, bilgoac eguin*.

Honelakoen aldamenean, badira corpusean azaldu ez zaigun beste mota bateko laburpenak: oinarriak aldaera direnean, atzizkia bigarrenari bakarrik ezartzea, alegia; adib.:

Acrecentar más, *andi, aundiagotu, gueiagotu*; demasiado, *andi, aundieguitu, gueieguitu* [+ *andiagotu, andieguitu, beraz*].
Acriminator, *oben, hoguendatzalea, gaizquitzalea, deungarotzalea* [+ *obendatzalea*].
Adquisición, *ira, erabazte...* [+ *irabazte*].

Inoiz edo behin alderantzizkoa ere dakusgu, hots, oinarri berari atzizki forma ezberdinak ezartzea:

Pillage, *pilla, pillaera, lapurreta, lapurreria, quera...* [+ *lapurqueria*].

8.3.6. *Item*-ak

Tartean behin, sarreran *item* agertzen da, balio ezberdinekin. Erabilera arrunta honako hau da:

Acombadura, *zacóna, zoconá, macurrá*; item *zacónera, zociónera, macúrrera*.

Adibide gehiago aipatu ditut goian: *abundantemente, revolcarse* (§ 8.3.2) eta *abaxar, abollador* (§ 8.3.3). *Item* hauen zeregina, nabari denez, bi eratako ordainak bereiztea da. Adibiderik landuena honako hau da:

Acidia, vicio capital, pereza en el bien espiritual, *naguitasuna, alpertasuna, naguiqueria, alperqueria*.
Item *nagua, alperra, alferra*, que son también sustantivos. Item mejor *ajolacabea, arduracabea, ajolacabetasuna, arduracabetasuna*; y lo mismo es *ajolabaguea, ardurabaguea animari dagozcan gauzetan*.

Antzeko papera betetzen dute adibide sail ezberdinak bereizten dituzten *item*-ek:

Abominación, *nazca, naga*. Lat. abominatio (...). Es una grande abominación, *nazca aundi bat da, naga andi bat da* <dat>. Item *nazca aundi batecoa da, naga aundi batecoa da*.
Aborrecer (...). Me aborreces, te aborrezco, *gorrotatzen nazu, gorrotatzen zaitut; gaitzesten nazu, gaitzesten zaitut*. Item *górrotoa, gaitzerizcoa, gaitziriztea didazu, gorrotoa, gaitzerizcoa, gaitziriztea dizut*.

Bestetan, gramatikazko hitzen ordain ezberdinak bereizteko erabili dira:

Al cabo, al cabo de, lo mismo que después de, *buruan, ondoan*, pospuesto al genitivo precedente: al cabo de dos días, *egun biren buruan*. Item *ezquero*, con nominativo precedente: *egun bi ezquero*.
Lat. Post.

Alabaina, beste *item* batzuen xedea, kokapenak eta edukiak erakusten diguten bezala, sarrera osatu ondoko eranskinei bide ematea da:

Pié, tronco u árbol, *zutondoa*, *zucoitza*. Lat. Truncus, arbor. Item *ondoa*, pospuesto al nombre de el árbol, como *sagarrondoa*.

Piedra pómez, (...), *arrocarria*. Lat. Pumex, cis. Item *arbela*.

Vexiga, (...) *masculloa*, *ugulloa*. Lat. Vesicula. Item *bisiga*.

Honelakoak, inoiz, are bidalketa deiaren ostean ere ager daitezke; corpusetik kanpoko adibide hau dugu:

Puntas, encaxes, véase. Item *citarizca*.

Eransketen unea iluna da, inondik ere, nahiz azken zirriborroan edo argialetxean egindakoak direla esateko tentazioa izan dezakegun. Argiena izan zitekeena —azkena— ilunena da, apika ez baita —dirudien bezala— azken orduan ezagutu eta nolana ere erantsitakoa: cf. "Encaxe, encaxes, puntas de randas, *citarizcá*, *saramea*, *encaxea*, *dantelá*".

Bestalde, adibide guztiak 2. liburukikoak izatea kasualitate hutsa da; cf., adib.:

Embozarse, *igoza estali*. Lat. Faciem usque ad oculos tegere. Item *bicerna estali*.

Gallear, querer sobresalir, viene de el Bascuence *gallen*, *gallendu*, vencer, sobresalir, sobrepujar.

Lat. Se efferre. Item *ollartu*.

8.3.7. Aldaerak

Larramendiren asmoa zein-nahi euskalkitako hitzak batzea izaki, euskaldunek zeinek berea edota —behar edo nahi izatekotan— auzokoarena erabil zezaten,⁴⁰¹ sarrera beraren azpian aldaerak bat egitea espero izatekoa zen. Hitz beraren aldaera fonetikoak (inoiz grafikoak huts-hutsean) batzen dituzten sarrerak 36 dira gure corpusean; ikus ditzagun adibide batzuk:⁴⁰²

Aleve, (...) *aribea*, *bearia*, *etoa*, *etoya*.

Assessar, *senondú*, *zurtu*, *zuhurtu*, *zentzatu*, *zoritu*.

Asseverar, *osoró esan*, *erran*.

Cobrar, *cobratu*, *coberatu*, *escateratu*.

Cochino, cerdo, *cherria*, *cerria*, *urdea*, *charria*.

Deidad, *Jaincodea*, *Jaincotasuna*, *Jencodea*, *Jencotasuna*.

Esturar, *quiscaldu*, *chiscaldu*.

Guia[r], *guidatu*, *quidatu*, *irioitu*.

Internodio, *corapillarte*, *orapillarte*.

Intestino, tripas, *morá*, *esteá*, *ertzea*.

Mañana, el día siguiente, *biar*, *bigar*.

Mar, *itsasoa*, *ichasoa*.

Maravedí, *citá*, *cipá*, *marai*, *marabedia*.

Pié, *oña*, *oiña*.

(En) pié, de piés, *zutic*, *zutinic*, *chutic*, *chut*, *zut*.

Piel, *larrua*, *narrua*.

Temer, *bildur*, *beldur naiz*, *cera*, *da*.

Tempestad, tormenta, *ecaitza*, *ecacha*.

Vestir, *janci*, *jaunci*, *beztitu*.

⁴⁰¹ Hitzei dialekto marka ez ezartzeko zituen zioez mintzatzerakoan (§ 3.4.3) aipatu ditut xehetasunik jakingarrienak.

⁴⁰² Ik. *assentaderas*, *cabo de vela*, *cobranza*, *degollar*, *degollación*, *guía*, *ras*, *tempestuoso* eta *vestido* ere.

Haien artean aldaera fonetiko baino zertxobait gehiago diren batzuk ere baditugu:⁴⁰³

(No) obstante, (...) *ala ere, alambere.*
Assí, *alá, alán, alátán.*
Assí, de esta suerte, *alá, onelá, alan, onlá, onlatan.*

Bai eta erator oinarri ezberdinez eratutakoak ere:

Evacuar, *ustu, utsitu.*
Intrincar, *naspildu, catrambildu, catrambillatu.*
Guerreador, *guerratzallea, guerraria, guerreatzallea.*
Guerrear, *guerratu, guerreatu.*

Sarrera batzuetan oso nabarmena da hiru euskalkietako — gipuzkera, bizkaiera eta lapurterako— formak eskaini nahi izan zituela, baita hurrenkera horretxetan eskaini ere:

Clavo, *iltzea, ultzea, itzea.*
(En ningún) lugar, *iñon ere, iñon bere, nihon ere.*
(Es a) saber, conviene a saber, *esan nai det, gura dot, erran nai du.*

Hitzaurrean aipatu zuen adibidean ere (1745: xlv; ik. § 3.4.3) ordena gordetzen da, baina bi eransketa jakingarrirekin: lehen lekua bertan orokortzat jotzen duen formari uzten dio, eta bukaeran azaltzen ez dituen bi forma dakartza:

Cansar, *cansatu, necatu, aricatu, unatu, laatu, enoyatu.*

Beste batzuetan, bizkaiera bakarrik dago ordezkatuta gipuzkeraren aldean, eta badirudi euskalki honen xehetasunak ezagutzeko izan bide zuen aukera handiagoarekin lot daitekeela:

Por lo mal que lo hazes, *cerren gaizqui eguiten dezun, cerren deungaró eguiten dozun; eguiten dezun gaizquiagatic, &c.*
Querer, *nai, gura, det, dot, &c.*
Querer, amar, *nai, gura*, con los transitivos *díot, deusat, &c.*

8.3.8. Maileguak

Nahiz eta honetaz geroago (III, § 7) luzez mintzatu beharko naizen, euskal ordainen banaketari berari bakarrik begiratuta oso nabarmena da mailegatze lana egon badagoela Larramendiren hiztegian. Nabarmenena, 'mailegua + euskal hitza' (edo alderantziz) bikoteen proportzio handia dugu, nahiz batzuetan mailegua, Larramendiren ustetan, alderantzizkoa izan (azkenok, izarrak markatu ditut):

*Alférez (...), *alfereza, bander-eramallea.*
Cobre, *cobrea, urraida.*
Coche, *manurga, cochea.*
Embarcación, navío, *embarcacioa, oncia.*
Embate, de mar, *embatea, bajodea.*
Estudio, *articasdea, estudioa.*
*Guaya (...), *guaya, negarra.*
Ochava, la octava parte, *zortzigarren partea, ochava.*
*Rascadura, *arrascadura, atzaqueria.*
*Rasgo de letra (...), *arrasgoa, izquirillea.*
*Rasguear, formar rasgos, *arrasgueatu, izquiailetu.*

⁴⁰³ Ik. *assí assí, (aun) assí, etab. eta (sin) embargo* ere.

Salvarse, al Cielo, *salvatu, gozabetatu*.
Sandalia, calzado, *batzola, sandalia*.
Sangría, incisión en la vena, *sangría, zancia*.
Templar instrumentos, *adindu, templat*.
Templo, *Temploa, Eleizá*.

Hiru ordaindunetan ere inoiz antzerako adibideak aurkitzen dira, eta mailegua beti lehena edo azkena dugu:

*Cabida (...), *sárrera, adisquiura, cabida*.
Cobrar, *cobratu, coberatu, escateratu*.
Embarcar, *embarcatu, itsasgoitu, onciratu*.
Guayar, llorar (...), *guayatu, guay eguin, negar eguin*.
*Rasgón, *arrasgoya, etendura, urratura*.
Sangrar, abrir la vena, *sangratu, zancitu, odola atera*.
Templanza (...), *gogurria, goguiroa, templanzá*.
Templar apetitos, &c. *gogurritu, goguirotu, templat*.
Verso, *biursa, lototsa, versoa*.

8.3.9. Etimologietako ordainak

Etimologia azaltzen duten sarrerak oso bereziak dira eta, honegatik baino ez balitz, ataltxo bat merezi dute *HH*-aren antolakuntzari buruzko sarrera honetan; alabaina, bada arrazoi sendoagorik: beren interpretazioak sortzen dituen arazoak aipatu behar ditut, etimologia batzuen ondorenak zein diren ulertzeko ezinbestekoak dira eta.

Lehenik eta behin, komeni da jakitea gaingiroki hiru eratako etimologidun sarrerak daudela Larramendiren hiztegian:

1) Etimologidun hutsa: hitzaren etimologia bakarrik eskaintzen du, agirian euskal ordainik eman gabe, baita batzuetan latinezkorik ere gabe; adib.:

Gura, voz de la Germanía, Justicia, *gurapas*, galeras. Gura es voz Bascongada, y significa el querer, la voluntad. *Gurapea*, baxo de el querer, de la voluntad.
Pulla, viene de el Bascuence *pulla*, que significa coz de borrico y otras bestias, y de aquí, por lo que se ofenden, se tomó la analogía a los dichos. L[at]. Convitium obscaenum.⁴⁰⁴

2) Etimologidun-ordainduna: etimologiarekin batera euskal ordainak ematen ditu edo, bestela esanda, etimologi azalpena sarrera arruntean barneratuta ageri da, eskuarki sarrera-buruaren ondoren, oro har azalpenak txertatu ohi diren lekuan eta euskarazko eta latinezko ordainak baino lehenago; adib.:

Guacharo, el enfermizo, viene de el Bascuence *gacharó*, adverbio que significa enfermamente (y passe este adverbio), de *gacha*, que en otro dialecto es *gaiza*. *Erbala, gaisoa, eria*. Lat...
Guardía, el cuerpo de Soldados, es voz Bascongada, síncope de *guarda dia*, multitud de los que guardan, *goardia, zaidia, zaindia*. Lat...
Quedar, viene de el Bascuence *gueratu*, que significa lo mismo, de *gue, que*, posposición negativa, y *era*, modo, acción; *gueratu, guelditu, baratu*. Lat...

3) Etimologidun osagarria: aurrean edo sarrienik atzean beste lerrokada bat dago, eta bigarren honetan agertzen dira euskal ordainak, hots, sarrera arrunta eta etimologia lerrokada ezberdinetan banatu dira; adib.:

⁴⁰⁴ Jat. *obscaentum*, egileak zuzendua.

Alegrar, viene del Bascuence *alegueratu*, que significa lo mismo; y éste vino de *alaiguera*, estamos u somos alentados o despejados; y es lo que causa alegría.

Alegrar, *alegueratu*, *poztú*, *boztú*, *bozcariotú*, *atseguiñ eman*, *atseguiñez*, *pozéz beté*. Lat...

Almendra, es Bascuence, *almendra*, *almendrea*. Lat...

Almendra se dixo de *alic mendrea*, lo más delicado, y tiene mucho de esto el almendro.

Héroe, hombre famoso, de immortal fama, *humanta*. Lat...

Esta voz, que la usan Griegos y Latinos, viene de el Bascuence *eroa*, loco de atrevido, y en las hazañas de los héroes hubo mucho de esso.

Etimoa eta ordainak ongi bereizita daude 3. tankerako etimologietan, baina beste bietan irakurlearengan zalantza sor daiteke, irakurle gisa nire lekukotasunak balio baldin badu. Dena dela, hainbat sarreratan ez legoke arazorik zertan izan; halaxe gertatzen da etimoa berariak ordainen artean errepikatuta agertzen denean:

Aderezar, viene del Bascuence *adreztu*, que significa lo mismo: véase *aderezo*. *Adreztú*, *zucendú*, *onguitú*, *compondú*, *prestatú*, *maneatu*. Lat...

Alzar, viene de el Bascuence *altza*, *alchatu*, levantar, *altzatú*, *alchatú*. Lat...

Baita, itxura batean bederen, alderantzizko kasuan ere. Baina ez da beti hala. Aitzitik, badirudi etimoa oro har ordain argitzat har daitekeela —gainerako ordainen artean berragertu zein ez— berari buruz “que significa lo mismo” iruzkina egiten duenean, *DAut*-ek latinarekin egiten zuen modu berberean (§ 7.1.1):

Alholba, (...) puede venir del Bascuence *allorbea*, que significa lo mismo. Lat...

Ancora, pudo tomarse de el Bascuence *aingura*, *angura*, que significa lo mismo. Lat...

Andamio, viene de el Bascuence *aldamioa*, que significa lo mismo, y *aldamioa* en un dialecto significa también añadidura, y el andamio es el que se pone para ir añadiendo y aumentando la obra. Lat...

Arroz, viene de el Bascuence *arroza*, que significa lo mismo, y se compone [de] *arro otza*, hinchado y frío, y el arroz hincha, y por frío se digiere difícilmente. Lat...

Axedrea, yerba, viene de el Bascuence *acitraya*, que significa lo mismo. Lat...

Azaya, (...) es voz Bascongada, *azaya*, con la misma significación, y viene de *atza*, dedo, y *gaya*, oportuno; y la azaya suple oportunamente el trabajo que avían de tener los dedos en el devanar. Lat...

eta beste horrenbeste esango nuke “es voz bascongada” edo “viene del bascuence” esateaz gainera, euskal hitz delako hori ematen duenean:

Adala, en el navío, por donde sale el agua, que saca la bomba. Es voz Bascongada *adalá*, y se dixo de *adiala*, *andiala*, que salga o sale por allí; o de *odiola*, *odiala*, que significa lo mismo, y quiere dezir conducto, canal de madera, qual es la adala. Lat...

Aribar, aspar la lana en el aribo, viene de el Bascuence *aribatu*, *ari*, hilo, *batu*, recoger. Lat...

Arrecife, calzada empedrada, viene de el Bascuence *arrizpea*, suelo de piedras, como lo es la calzada. Lat...

Arrope, es voz de el Bascuence, *arropea*, y viene de *ardopea*, *ardope*, que significa cimient o fundamento de el vino. Lat...

Baita, azkenik, halaxe dela dakigunean:

Arienzo, carnero pequeño, viene de el Bascuence *aricho*. Lat...

Haba, viene de el Bascuence *babá*. Lat...

Uste hauek egiaztatzeko, batzuetan familiako hitzen laguntza dugu:

Ancorage, *aingura saria*.

Ancorar, *ainguratu*, *anguratu*, *aingurac bota*, *egotzi*.

Aribo, tornillo para hazer madexas, *aribatlea*.

Arrecife, suelo peñascoso de la costa de mar, *ondarizpea*...

Alderantziz, badirudi ordaingabeko sarreratzat har daitezkeela etimoak edozein aldetatik begiratuta esanahi ezberdina duenean (cf. halaber *gura* gorago):

Ajolio, voz usada en Aragón, viene de el Bascuence *azolío*, que significa las verzas cocidas con azeite.⁴⁰⁵

Zalantzazkoak dirudite, berriz, etimoaren esanahia aldez bakarrik ezberdina (adibidez, zehatzagoa) denean:

Alboroque, dádiva, agasajo u regalo por modo de gratitud, puede venir de el Bascuence *alboraquia*, el agasajo que se da a los que dan la *alborada*. Lat...

nahiz inoiz familiak zalantza erabat uxatzen duen:

Arrasar, viene de el Bascuence *arrasá*, *arrasatu*, que significa destruir. Lat...
Arrasado, *arrasatua*.

Zalantzazkoenak, inondik ere, etimoa huts-hutsean agertzen dutenak dira, zeren eta irakurlea, nik uste, maileguaren eta etimoaren artean zein hartu beharko lukeen jakin gabean uzten baitute:

Alicates, viene del Bascuence *aricatea*, que significa cadena de hilo, de *aria*, hilo y *catea*, cadena; y comúnmente sirven los alicates para encadenar alambre, y otras cosas delgadas. Lat...

Aresta, una tercera suerte que se saca de el lino después de la estopa, viene de el Bascuence, como si dixéramos *arresta*, de *arí ezta*, no para hilo ni para hilado. Lat...

Armiño, puede venir de el Bascuence *armiña*, *armiñoa*, de *ar*, *artu*, tomar, coger, y *miñá*, amargo; y aunque le es amargo, se dexa coger aquel animalito, por no ensuciarse. Lat...

Ataurique, voz antiquada, adorno de albañilería que se usaba por la parte exterior de las puertas. Es palabra Bascongada, como si dixera *ataurrequia*, de *aurrequia*, lo que está delante, y *ata*, *atea*, puerta. Lat...

Hala eta guztiz ere, bestelako gertakari zenbaitek erakusten digute Larramendiren jokabidea zein izango zen jakitea oso zaila dela; adibidez, *almario*-ren etimologia irakurrita, balirudike etimoa (*ormarioa*) eta ordaina (*armarioa*) aski ongi bereizita agertzen direla, eta *guilla*-renean *uztailla* etimotzat bakarrik eskaintzen dela:

Almario, armario, viene de el Bascuence *armarioa*, y se dixo de *ormarioa*, porque este modo de alhacenas se hacía en la pared, y dezimos *ormá* a la pared. Lat...

Guilla, cosecha abundante, es contracción de el Bascuence *uztailla*, que llamamos a Julio, y quiere dezir Mes de cosecha, de *uzta*, cosecha, y de *illa*, *ila*, mes. Lat...

Haatik, *HH*-ak berak gezurtatzen du, etimoak ere ordaingai direla argi eta garbi erakutsiaz:

Alacena, *ormarioa*, *armarioa*.
Guillote, cosechero, *uztaillaria*.

Halaber, *hacienda*-ren etimologia eusk. *azienda* zuritzeko egina dela, eta gainerakoak bitarteko urratsak baino ez direla pentsa genezakeen arren, gero *hacendar*-en *aciendoa*-rekin lotuta dagoen ordaina ere ematen du:

Hacendar, viene de el Bascuence, *acendatu*, *acenduatu*. Lat...

Hacienda, es de el Bascuence *acienda*, *aciendea*, *aciendoa*, y se dixo de *acien doa*, *doaya*, dote, prenda, regalo de semillas, y son las que fructificando hazen la hacienda. Lat...

Gure zalantza hauen erantzuna *EGH*-an aurkitzen dela uste badugu, jai dugu, orain artean ezarrita utzi uste ditudan ziurtasunak ere dardarazteko moduko datuak eskaintzen baititu batzuetan: esate baterako, honek badakar *atisbeatu* "atisbar" hitza, *HH*-ko sarrera ustez argiaren arabera ordain ez den arren:

⁴⁰⁵ Cf. *DAut*: "Salsa compuesta de ajos y azeite..."

Atisbar, viene de el Bascuence *atisbeatu*, de *beatu*...
Atisbar, *beguietsi*, *celatatu*.

Badirudi, beraz, ordain zer den eta zer ez den erabakitzeko egun izan ditzakegun zalantzak alferrikakoak direla, eta etimologian eskaintzen duena, etimoa eta abarrak, dena erabilgarri izan zitekeela. Halaxe ulertu bide zuen Lardizabalek ere, etimoa (*borda-urde*) erabili baitzuen (Urgell 1995: xlvi), Larramendik proposatutako *burdela* maileguaren ordeaz, adierazgarriago iritziaz nonbait:

Burdel, es voz Bascongada, síncope de *borda urde*, *bordurde*, que significa casa sucia, puerca.
Burdela. Lat...

8.4. Grafia

Euskara, Larramendiren aburuz, ortografi arazo berezirik gabeko hizkuntza da: “Escribese como se habla, y quanto se habla puede escribirse con facilidad” (1728: 88). Lehenengo lanaz geroztik errepikatu zuen ideia hau (cf. 1729: 337) ziurrenik hizkuntzaren perfektotasunarekin lotuago dago, euskal grafiaren egoeraren azterketa zehatzarekin baino. Nolanahi ere, badirudi gai honi buruzko nolabaiteko ardurakabetasunaz mintzo zaigula. Izan ere, praktikan ortografi tradizio ezberdinak eta, areago, puntuzko zenbait arazotan bateragabetasun nabarmena zegoen, eta bera ere —geroko urteetan euskaraz idatziko zuten hainbat bezalaxe— honetaz jakitun zegoen.⁴⁰⁶ Euskara noranahiko bihurtzeko saioaren oinarrietatik bat grafia egokitu eta arautzea izan zitekeen: alde honetatik *DAut*-en eredura joka zezakeen, hiztegiaren sistema trinko bat proposatu eta erabiliaz. Haatik, Larramendik iragaitzaz baino ez du ortografia aipatu ohi, eta badirudi, beraz, ez ziola akademikoek —eta guk— beste garrantzirik aitortzen halako gaiari, erdal grafian bezalaxe euskal grafian ere nolabaiteko araugabekotasuna —anarkia piska bat ere agian— egoteari ez zeritzala gaizki. “En esto cada Provincia guarde su estilo, como en el tonillo particular de la voz” (Larramendi 1729: 338) esaldiaren garrantzia behin eta berriz azpimarratu dut dagoeneko.

Hiztegiari begiratzen baldin badiogu, bertan agertzen diren grafi sistemak bat baino gehiago direla egiaztatu ahal dezakegu. Aldaerak —batez ere hiztegiaren hasieran, beharbada— elkarrekin agertzen dira ez gutxitan:⁴⁰⁷ *jayera* eta *jaiera* “aficionarse”, *ihes* eta *ïes* “afufar”, *ariña* eta *arina* “ágil”, *zainac* eta *zaiñac* “agitides”, *or* eta *hor* “ahí”, *cilleguitu* eta *cileguitu* “ahorrar”, *illarra* eta *ilarra* “alverja”, etab. etab., oro har hitzen aldaerekin hartu zuen bidea gogoraraziaz (ik. *supra* § 8.3.7).

Aztertu den neurrian, bestalde, Larramendi ez zen bereziki eraberritzailea grafiari dagokionez, eta ez zuen iraultzarik eragin geroko idazleengan. Hegoaldeko grafi sistema zaharraren barnean kokatu behar dugu, gaztelaniatik mailegatutako ohiturak (zein ere ziren desegokiak) ia-ia akritikoki onartu eta gaztelaniaren sistemak ongi ezin adieraz zitzakeen hots

⁴⁰⁶ Jakintzat emango ditut hemen 3.4.9, 3.4.10 eta 6. ataletan esanak.

⁴⁰⁷ Atal guztian, adibideak agertzen diren sarrera-burua bakarrik aipatzen dut, erreferentzia gisa, ez baliokide gisa. Normalean hitzeko agerraldi bakar bat emango dut, eta ez nahitaez familiako hitz guztiak, aukerak edota garrantziak besterik ez eskatzera behinik behin.

zenbaitetarako behin betiko ordain egokirik aurkitzen saiatu gabe (Urgell 1987a: 357-359). Bere sistemaren beste ezaugarri nagusi bat, nolabaiteko trinkotasun falta izan liteke: araez baino, askotan joerez gehiago mintza daiteke aztertuko ditugun hots askotxoren irudikapenean.

Arduragabetasun hau ez da erabatekoa, ostera. Zenbait puntu zalantzazko direla eta, bide egokia (baita besteren usadio zenbait) eztabaidatu egin zuen, eta aipatu tradizio ezberdinez —eta guztiz indartsuena zen idazle lapurtarrenaz— oso iritzi zehatzak zituen, “usan sin necesidad” bezalako epaiak emanik. Teorikoki egin zuen lana gorabehera (ik. 1729: 337-340, 1745: xxvii-xxx eta *Corografía* 296-298), gainera, grafi sistema aski bateratu eta hein batean berritzaile bat garatu zuen, Lakarrak (1985b) erakutsi bezala, bere idatziak inorenetik bereizteko adinakoa. Esan gabe doa, erabilera horrek eragin handia —nahiz oraino xeheki ikertu gabea—⁴⁰⁸ izan zuela geroko literaturan.

Bistan da sistema horren orain artekoa baino azterketa xeheago baten beharra: Lakarrak, aipatu lanean, XVIII. mende hasierako izenik gabeko idatzi baten egiletasuna frogatzeko modukoak zirenak bakarrik miatu zituen. Badituzke, ordea, bestelako betebeharrak Larramendiren grafiaren azterketa honek, eta hauetarako badirudi ezaugarri esanguratsuenak ez eze hain nabariak ez diren beste zenbait ere kontuan hartu beharko lirakekeela. Hitzak non eta zeren arabera kokatuta dauden jakin eta gero, nondik hartu edo nola eratu diren jakiteko ez eze hitzak eurak ongi ulertzeko eta interpretazio zalantzak uxatzeko, *HH*-an bizi diren grafi konbentzioak xeheki eta zehazki menperatzea ezinbesteko urratsa dugu.

Jadanik iradoki dut gertakari batzuk Iparraldeko grafiarekin lotuta egon daitezkeela, edo Larramendirena ez denen batekin behinik behin; beste batzuk gaztelaniazko grafiarekin, eta bestetuk oraindik hiztegiak *huntaz eta hartaz* zituen iritziekin. Alde batetik, beraz, iturri bilaketan oro har grafiak daukan frogagarritasuna eztabaidatzeko aukera eman diezaguke azterketa honek, *Erans*-ean lehenik eta *HH*-aren gorputzean gero, gordetako grafia “arrotzak” edota gaizki ulertutakoak iturria identifikatzeko baliabiderik ziurrenetakoak baitira, izan ere. Bestetik, Larramendik neologismoetan —mailegu zein hitz berrietan— hartu zituen erabaki batzuk ulertzen lagun diezaguke, baita hitz herrikoiak izatera, *HH*-ak zein forma zehatzetan jaso zituen erabakitzen; hots, oro har, hitzak nola irakurri behar diren bederen jakin ahalko dugu, askoren gainean honegatik jausi diren erabateko zalantza zein badaezpadako ezaxola uxatuaz. Nahitaez, beharrezkoa izango dugu *HH*-ko hitz zenbaiten inperpretazio lanean hastea, orain artean ikasitakoa —*DAut*-en azalpenek laguntza eskain dezaketela, adibidez— baliaraziaz.

Orain arteko interpretatzaileen aurka hiru aurriritzik jokatu dute: *HH*-ko grafi sistema bat bakarra delako ustea, Hegoaldeko euskara —agian gipuzkera— bakarrik islatzen duelakoa eta, are ezinbarkatuzkoagoa, letrek egun eta orduan balio berbera dutelakoa. Jadanik aipatu ditut <ch>k

⁴⁰⁸ Ustekabekoak agertzeko moduan dago oraindik: adibidez, duela oso gutxi arte Lardizabalen ezaugarri edo bitxikeriatzat jo izan den *-cquin* sozietibo pluralaren idazkera Larramendiri zor diola egiaztatu ahal izan da (Urgell 1995: xlvi).

OEH zein *EH*-an sortu dituen iratxoetatik batzuk, eta berehala ikusiko dugu grafema hau ez dela halako eragin txarra izan duen bakarra.

Hauen guztiengatik, badirudi bere adierazpenen eta euskal idatzien bitartez Larramendiren ohiko sistema mugatu beharko genukeela lehenik, eta gero sistema horren barruan ez dauden gertakariak bakartu eta azaldu. Asmo honekin, ezer baino lehenago Larramendiren idazlanak aztertu ditut, berriki argitaratutako bilduma (Altuna & Lakarra 1990) baliatuaz,⁴⁰⁹ Lakarrak (1985b) dagoenekozi miatutako alderdiak bermatu eta osatzeko; eta, bigarren, *HH*-ko gertakariekin erkatu ditut idatzien azterketan erdietsitako ondorioak.

Ez bedi azterketa bukatutzat eman; gure zereginerako aski izan daitekeen arren, testuak ez daude beti era fidagarrian argitaratuak⁴¹⁰ eta, beraz, noizbait norbaitek argitalpen fidagarri bat, berriro jatorrizko testuetara joaz, egin dezanean, xehekiago ikertu ahalko da alderdi hau. Nago, ordea, erdietsi datuak oro har fidagarriak direla, *HH*-ko datuekin erkatuaz ikusiko dugun bezala.

8.4.1. Bokal bikoitzak

Ezaguna denez, dela morfemen bategiteaz, dela tarteko kontsonante baten galeraz, dela ondo ezagutzen ez diren bestelako arrazoiez elkarrekin agertzen diren tinbre bereko bokalek bilakaera ezberdina izan dute hizkeren arabera (Mitxelena 1977a: 109-115). Larramendiren sisteman, nahiz batzuetan bilakaera ezberdin horien islapenak agertu, bokal bikoitzak oso usu agertzen dira:

1) Deklinabidean, *-e*-z hasten diren atzizkietan (leku kasuen eta genitiboaren pluralak), hala nola pareka daitezkeenetan (superlatiboa eta *-egi* atzizkia):

LET: *hizcundeen* (22), *hitzcundeetatic* (36), *echeetan* (37), *urteetan* (39), *atsecabeetan* (41), *doloreen* (47), *orreec* (47, 50), *nobleena* (36), *gaitzbageena* (48), *tristeena* (52).

HH: *ateetan* "a", *luceegüia* "agigantado", *aldeetaco* "aladares", *euleen* "alcalde alamin", *erregueena* "alcázar", *aldeetan* "alderredor", *deungueena* "(el mejor o peor que sea) possible", *maiteena* "telesgeto".

2) Kontsonante-galeraren ondorioz:

LET: *beeratuco* (22), *aalic* (31), *mee* (34), *naasi* (35), *naasiaz* (37), *beeregui* (41), *miia* (48).

HH: *beeragoacquin* "adozenarse", *beeratzea* "abatir". *meea* "agudo", *meedunac* "albillas", *meetu* "adelgazar", *meecho* "agnus". *naasi* "añascar" (baina *nastu*), *naasiro* "alborotadamente".

3) Hitz barruko bokal bikoitzak:⁴¹¹

⁴⁰⁹ Adibide guztiak *LET* laburdura eta bertako orrialde zenbakiaz lagunduta azalduko dira.

⁴¹⁰ "San Agustinen Doanditza"-k J.I. Arana lehenengo argitaratzailearen esku luzea pairatu du (Altuna-Lakarra 1990: 58); jakina, azterketa honetatik kanpo utzi dut. Erabiltzen ari naizen argitalpenean ere, ez dira falta —bildumaren asmoari begira txikikeriak izan arren— ikertzailearentzat estropozu diren oharkabeko aldaketak, gaurkotzeak (han-hemen <k>ren bat, <ge, gi> <gue, gui>ren ordez, etab.) gehien bat.

⁴¹¹ Ez dago argi fonologikoki bokal luze ala bokal bikoitzat hartu behar diren (Mitxelena 1977a: 111): beraz, "bokal bikoitzak" izena zentzurik grafikoenean erabiltzen dut, auzia erabakitzeke inolako asmorik gabe.

LET: *beraatia* (42), *beraa* (43, 50), *minberaatu* (52).

HH: *agaaca* "a", *agaaria* "apaleador". *beraa* "abalado", *beraatu* "ablandar", *aoberaatia* "blando de boca". *egaa* "abutarda", *egaada* "alazo", *egaatu* "alear", *egaaldata* "alear", *egaatsua* "aluda". *queetea* "ahumada", *queez betea* "ahumado" (baina *quea* "humo").

4) Eratorpenean, berriz ere -e-z hasten diren atzizkiekin, HH-an bakarrik lekukotu ahal izan dut:

artzeera "acogida", *adisquideera* "amistad", *aseezgarriro* "insaciablemente".

8.4.2. , <v>, <u>, <ü>

Larramendik gaztelaniaz indartzen zuela, eta <v>rik euskaraz ez zegoela uste zuela jakinik (§ 6.1.1), pentsatzekoa da euskal hitzetan ez eze euskal etimologidun hitzetan eta are mailegutan oro har nahiago zukeela. Idatzien arabera, oster, mailegutan <v> gorde ohi du, baita tradizionalki mailegutzat hartu izan den *bizi*-ren familian ere, azken honetan aren aldeko joera txiki bat badu ere:

LET: *vici* (14), *lendavicicoa* (17), *biciro*, *polvorac*, *viztu*, *valentiari* (18), *vizcorra* (22), *vici* (29), *devocioari* (33), *vicia*, *devocio*, *devocioaren* (34), *provehuric* (35), *salvacioari*, *Provincian* (36), *viciagatic*, *servitzaria* (37), *Virgiñari*, *salva*, *vici* (39), *bici* (41), *Virgiñarequico*, *vicioen*, *viciro* (42), *lascivia* (43), *vicitza* (45)...

HH-an ausartago izan zela dirudi, baina ez horregatik aren alde erabat egin:

1) Etimologietan oro har dago; A eta V letretakoak bakarrik kontuan hartuta:

bezatu "abezarse" (DAut *avezar*), *alcarobea* "alcaravea", *aribe* "aleve", *atrabesatu* "atravesar", *atrebitu* "atreverse", *abilanteza* "avilantez", *baoa* "vaho", *baliosa* "valioso", *bardasca* "vardasca", *baroquiac* "varones", *beda* "veda", *bega* "vega", *beemencia* "vehemencia", *bella* "vela", *belartea* "velarte", *viloa*, *biloa* "vello", *bellorea*, *billorea* "vellora", *belloria* "vellori", *belosquera* "velocidad", *belots* "veloz", *bera* "vera", *bireda* "vereda", *biregueta*, *bidegueta* "vericueto", *beta* "veta", etab.

Salbuespen gutxi batzuk badira, halaz ere:

averia "avería" (baina cf. "abería"), *provehatu* "aprovechar", *verdacho* "verdacho", *verga* "verga", *vergela* "vergel", *vitoria* "vitoria" (baina etimoa *bitorea* da).

2) Mailegutan, VA-VE zatia hartuaz, sarri aurkitzen dugu:

bacac "vacas", *bainilla* "vainica, vainilla", *balerosoa* "valeroso", *baliamentua* "valimiento", *baliza* "valiza", *balona* "valona", *bara* "vara de alcalde", *basoa* "vaso", *beleta* "veleta", *beloya* "velón", *bendabala* "vendabal", *bengala* "vengala", *beztitu* "vestir", *bisiga* "vexiga".

Alabaina, <v> idazten dituen hitz solteak eta are familia osoak ugariago dira:

vanagloria "vanagloria", *vanagloriosoa* "vanaglorioso". *vanoqui(ro)* "vanamente", *vanidatea* "vanidad", *vanoa* "vano". *vela* "vela", *velagea* "velage", *velaztatu*, *velairatu* "velejar", *velaria* "velero". *veintiquatro* "veintiquatro". *venda* "venda", *vendatu* "vendar". *venenoa* "veneno", *venenotsua* "venenoso". *venera* "venera", *venerablea* "venerable", *venerablequiro* "venerablemente", *veneracioa* "veneración", *veneratzallea* "venerador", *veneratu* "venerar". *venganza* "venganza". *veniala* "venial", *venialqui(ro)* "venialmente". *ventaja* "ventaja", *ventajosquiro*, *ventajotsuro* "ventajosamente", *ventajotsua* "ventajoso". *ventana* "ventana". *ventosa* "ventosa". *ventutzallea* "vencedor", *ventzutu* "vencer", *ventzugarría* "vencible", *ventzuera* "vencimiento". *venus* [sic] "Venus". *verbena* "verbena", *Verbo Divinoa* "Verbo Divino", *verdolaga* "verdolaga", *Veronica* "Verónica". *vecindatea* "vecindad", *vecinoa* "vecino".

Dena dela, familiek aren aldeko joeraren erakusgarriren bat izan dezakete:

valentia "valentia", *valientea* "valiente" baina *balenquiro* "valientemente". *velochoa* "velillo" baina *beloa* "velo". *verdarra* "verdál", *verdea* "verde", *verdaísa* "verdegai", *verdeitsasquia* "verdemar"..., *verdularia* "verdulera", *verdura* "verdura", baina *choaberdea* "verdecillo".

3) Euskal hitzetan ere familia bat bederen beti <v>z aurkitu dut:⁴¹²

navartu “variar”, *navardea*, *navarrera* “variedad de colores”, *navarra* “vario”.

4) Honezaz gainera, badirudi <u> kontsonantearen arrastoren bat ere badela *HH*-an (cf. *LET 45 euanjelioac*):

zauartzea “apoltronarse”, *zauarra*, *zauartua* “apoltronado”, *zauar jarri*, *zauartu* “arrellanarse”, baina *zabarra* “espacioso”, “lento”, “pelmazo”, “repantigado”, “tardío”, *zabartu* “repantigarse”.

Honetaz ohartzea garrantzitsua da, zeren eta bokalarteko <u> bokaletik bereizteko batzuetan bakarrik erabiltzen baitu <ü>, eta inoiz edo behin are <v> ere itzuri zaio:⁴¹³

LET: *üanditua* (21), *Gaztelaüen* (35).

HH: *aua* [‘ahoa] “abahar”. *aüena* “aullido”, *aüendu* “aullar”. *christaua* “christiano”, “farfán”, “mozárabe”, *christaüen* “doctrina christiana”. *laüoinca* “(andar a) gatas”, *lauoincoa* “cuadrúpedo”, *lavoincuna* “animal cuadrúpedo”. *chaüa* “claro”, “immaculado”, “limpio”, *cechaüa*, *chaüeza* “impuro”, *chaüera* “limpia”, *chauera*, *chaueta* “mondadura”. *üala* “correa”. *zamaüa*, *zabaua* “manteles”, *zamauac*, *zauauac* “alemanisco”.

Alde honetatik, *HH*-aren berezitasunetatik bat honelakoetan edozein posiziotan *b*-aren epentesia (inoiz <v>z ordezkaturia) gauzatzeko joera da:

aua “boca”. *aubena* “lamentación”. *lauba* “llano”. *chauba* “casto”, “immaculado”, “limpio”, *chauva* “genuino”, *chaubeza* “impuro”. *üala*, *uvala* “correa”. *zamauba*, *zabauba* “palia”.

8.4.3. <c>, <qu>

<k> zeharo alferrikakotzat jo zuen (§ 3.4.10) eta, hortaz, gaztelaniazko ohiko banaketari eutsi zion: <ca>, <co>, <cu>, <que>, <qui>. Ez dut salbuespenik aurkitu.

Alabaina, gaztelaniazko grafiari atxikita ere, ez zen arazoetatik zeharo libratu: izan ere, /kw/ adierazteko <qu> idazteko ohitura zeharo sartuta zegoen; Akademiak 1815 arte ez zuen <c> agindu halakoetan (Lapesa 1984: 423). Honetan ere gaztelaniaren erara jokatzen du:

<qu> *quadroa* “quadro”, *quarangoa* “quarango”, *quartilloa* “quartillo”, *quarto* “vellón”, *quartoya* “quartón”, *questorea* “questor”, *questura* “questura”, *quoquea* “quoque”, *veintiquatroa* “veintiquatro”.

<cu> *cuelloa* “cuello de eclesiásticos”, *cuerta* “cuerta”.

Euskal hitzetan, berriz, <cu> aurkitzen dugu:

cualdia “tiro”, *cuia* “calabaza”, *cuichoa* “calabacica”, *ucoa* “abnegación”, *zacia* “saco”, *zucua* “potage”.

Sistematik kanpo zeharo ditugu ondoko bi hitzok, non <qu>k /k/ adierazten baitu:

quaratsa “amargo”, *quarastasuna* “amargor”.

⁴¹² *nava*-ren (eta *Navarra*-ren) etimologiarekiko loturarengatik izan liteke (ik. III, § 11).

⁴¹³ Aditzean ere adibideak ugari dira —cf. *LET ceuan* (17), *devana*, *Etzevan* (18), *deuanic*, *deuan* (22), *euen* (27), *nauen* (42), *etzeuala* (44)—, baina <ü> sistematikoki ez markatzeagatik, baliteke hau ere idazkera etimologizalea izatea, hots, *deu* > *deuan*, etab.

Ez dago zertan atzeratu giltza: Harrieten hiztegitik hartutako hitzak dira (ik. III, § 10.3), grafiak salatzen duen bezala. Dena dela, erabakitzeko izango dugu Larramendik grafia ulertzen jakin zuen ala ez.

8.4.4. <g>, <gu>, <gü>

Antzeratsu gertatzen zaigu /g/ hotsarekin: *HH*-ko banaketa <ga>, <go>, <gu>, <gue>, <gui> izaten da, baina arazoak izan zituen /gw/ taldearekin; <güe>, <güi>z islatuta egon daiteke:

igüitu "tediar", *igüicarria* "tedioso".

baina baita <gue>, <gui>z ere:

eguenta "jueves", *eguerdia* "mediodía", *eguerdialdea* "sud", *ezaguera* "aprehensión", "botánica", "conocimiento", "noticia", "reconocimiento", *ezaguerazo* "noticiar", "notificar".

Aurkitu ditugun adibide hauen azalpena, baliteke etimologiatik etortzea, zeren *ezagun*, *ezagutu*... alde batetik, eta *egun*... bestetik nabarmenak izan behar baitziren. Honexegatik, halako azalbiderik gabe beti <gu> daraman ondoko familia, gaizki ulertu bide zuen:

iguindu "tediar", *iguintza* "tedio", *iguingarria* "tedioso".

8.4.5. <s>, <ss>

Gaztelaniaz oro har ereduaren banaketa gorde zuen, <ss> <s> bilakatzen duten aldaketa gutxi batzuk badira ere (§ 6.2.3). Euskaraz, banaketa honek berez funtsik ez izan arren, Larramendik bikoiztasuna gorde egin zuen hurrengo kasu hauetan:

a) Etimoetan (1), baita etimologiaz bermatutako maileguetan (2), salbuespenen batekin (3):

(1) *assalda* "assalto", *assayatu* "assayar", *asse*, *asseaz* "assaz", *assi*, *assitzea* "assisia".

(2) *assomatu* "assomar", *assomatua* "assomado", *maspassa* "passa".

(3) *asustatu* "assustar", *lasai*, *lasaitu* "lasso".

b) Maileguetan (1), salbuespen ugarirekin (2) eta zalantza batzuekin (3):

(1) *confessorea* "confessor", *hyssopoa* "hyssopo", *missioa* "misión", *missionista* "missionero", *passaportea* "passaporte", *possible* "(no es) possible".

(2) *mesana* "messana", *paseatu* "pasear", *paseatzallea* "passeante", *pasea* "paseo", *tasa* "tassa", *tasatuquiro* "tassadamente", *tasatzallea* "tassador", *tasatu* "tassar".

(3) *passa* "passa de aves", *licapassa* "passa, (...) un afeite de mugeres", *passada*, *passaera* "passada", *passagarria* "passadero", *passatu* "passar, activo", etab., etab. baina *pasaría* "passage", *pasatu* "passar de un lugar a otro", *pasatua* "passado", *pasalecua* "passo, por donde se passa", *pasarte* "passo, de Escritura". *passio* "passión de Christo" baina *pasiolorea* "passionaria".

c) Euskal hitzetan ere ager daiteke; esate baterako, *aserre*-ren familian ia beti <ss> dugu; *nahasi*-rean, berriz, <ss>koak gutxiengoan daude eta *asi*-rean salbuespen bat baino ez:

asserraldia "escarapela", "mano, reprehensión", *asserratu* "reñir", *asserre* "begín", "(ester) reñidos", *asserrecorra* "enojadizo", *asserrerazo*, *asserraraci* "enzarzar", *asserrati* "arisco", *asserretu* "enojar", "reñir", "reprehender", etab. baina *aserre* "bravo", "feroz".

nahassi “adulterar”, “alear”, “(meterlo todo a) barato”, *nahassia* “adulterado”, *nahassitzea* “adozenarse”, baina *nahasi* “desordenar”, desrizar”, “emmarañar”, “encartar”, *naasi* “aguar”, “añascar”, *naasia* “mixto”, etab.

assi eta *asi* “alear”, baina *asi* “abotonar”, “acabar”, “amanecer”, “maullar”, “principiar”, “rebotarse”, *asia* “comenzado”, “inchoado”, etab., etab.

8.4.6. <ts>

Grafema honek adierazten duen hotsaren adierazpena gorabeheratsua izan da testu zaharretan. Bizkaieraz berandu arte <s> aurki dezakegu (Urkizu, Barrutia), frikariak eta afrikariak bereizi gabez; tradizio berankorragokoa den gipuzkeraz, berriz, <ts> dugu Otxoa eta Iruzziaren (Lakarra 1985b: 243-244). Ezaguna denez, <ts> lehenengoz Leizarragak erabili zuen, Etxeparek <x> (*amexetan*, *axeguín...*, ap. Altuna 1979) zerabilen bitartean; alabaina, bi sistemak iraun zuten Iparraldean, testu batzuetan batera agertuaz (cf. *CatLav*-en *atseguín* eta maizago *axeguín*, esaterako; ap. Villasante 1985); alderdi honetan oraindik hirugarren grafema bat lehia sartu zen: <tx> (Martin Harriet, adibidez).

Gorabehera hauen ginetik, Lakarrak (*loc. cit.*) jadanik azpimarratu duen bezala, Larramendik <ts> orokortu zuen, eta ez dago salbuespenik, dakidalarik, *HH*-an. Gai honetan, Axularren izena bere alde aipatzen du: “Aprendan los nuevos traductores a escribir esta pronunciación *miretsi* como la trae Axular, desterrando de ella la *x* que importunamente añaden, *etsi*, *etsian*, *ardietsi*, *onetsi*, *gaitzetsi* y otros” (*Corografía* 298).

8.4.7. <c>, <z> eta <tz>

Ohiko banaketa <za>, <zo>, <zu>, <ce>, <ci> dugu frikarian. Orain normala —baina zaharra— baderitzagu ere, orduko euskaran erdi-berrikuntzat hartu behar dugu, betirako bazter batera geratu baitzen lehenagoko —Iparraldeko zein Hegoaldeko—liburuetako <ç>. *CatLav*-en (1733), adibidez, *gauça* edo *eguidaçu* idazten da, baina *berce* eta *obligacione*; Otxoaren, bestalde, *gauça*-ren bat aurkitzen da oraindik, *gauza* 1700-1745 bitarteko Hegoaldeko testuetan nagusi den arren (Lakarra 1984, s.v.). Arazoa oraindik pil-pil sentitzen zuen Larramendik: “también debe desterrarse la cedilla o la ç, que en España ha estado también en uso, y hacen su oficio la *c* y *z* con las vocales correspondientes” (*Corografía* 298). Gaztelaniaz *DAut*-ek bezalaxe (1726: lxxii t. hur.), esan daiteke <ç>-ri atea behin betikotz berak itxi ziola euskaraz. Honekin batera, <tce> <tci> eta guztiz <tçe> <tçi> ere baztertu zituen, testuinguru guztietan <tz> sartuaz (Lakarra 1985b: 243).

Badago bertan beste berezitasun bat: inoiz <ze> <zi> topatzen da euskal ordainetan, gaztelaniazko hitzetan bezala (§ 6.2.1). Haatik, euskaraz batzuetan bederen arrazoia etimologikoa dela dirudi: ez-etik ezetz ateratzen da, *batez*-etik *batezere*, etab.,⁴¹⁴ bai eta hitzak berezko *-a* duenean ere, gaztelaniarako *DAut*-ek (1726: lxxii t. hur.) eman arauan —hots, *paz* baina *paces*— ez bezala:

⁴¹⁴ Gauza bera Lardizabalengan behintzat (Urgell 1995: lix).

gauzen “admirador”, *gauzetan* “acidia”, *gauzeza* “inútil”. *goizean* “(esta) mañana”, *goizean goiz* “(muy de) mañana”, *goizetic* “(tan de) mañana”. *mezirurquia* “terno de missa”. *pozez* “aclamar”, *pozic* “alegremente”. *chanzerea* “eutrapelia” (< *chanza*).⁴¹⁵

Idatzietan ere beste horrenbeste somatzen da, gorabehera gehiagorekin bada ere: *bezela* eta *bezala* erabili ohi du, batetik; bestetik, ohartu Azkoitiko sermoiko *zeu*-ugariei.⁴¹⁶

LET: *bezela* (14), *contuzena*, *errazen*, *bezela* (34), *guzioc* (35), *baizic*, *batezere*, *gauzetan*, *jaquiñezen* (36), *batezere*, *Eleizetan* (37), *Guipuzetatic* (39), *zeure*, *zeu*, *atozea* (46), *zeuri* (49), *pozic* (52), *pozic* (55), *eleizen* (77).

8.4.8. <is>, <(i)sy>, <ch>, <x>, <g>, <j>

Jadanik esana utzi dut (§ 3.4.10) *HH*-an hiru sistema ezberdin elkarrekin bizi direla: Iparraldeko testuetako <ch>, Hegoaldeko zenbait testutako <x> eta Larramendik hauen ordeztaliatu ohi zituen <is> eta <(i)sy> berriak.

<ch>k abantaila nabarmen bat dauka hiztegiarearentzat: euskaldunek zeinek bere modura irakurtzen baldin badituzte, *choratu*, *chori*, *chucatu* zein *churi* bezalako idazkerak ahoskaperen askea dute: *xoratu* zein *txoratu*, *xori* zein *txori*, etab. irakur daitezke, ezer galdu gabe. Desabantaila nabarmenak ere baditu, batez ere gaurko interpretatzaileontzat, bietako zeinen lekukotasuna dugun erabakitzen ez baita beti erraza, guztiz hitz hasieran txistukariek jasan dituzten bilakaera ezberdinak direla eta. Alabaina, bistan da behinik behin ezin dugula *a priori* Hegoaldeko usadioa islatzen duela esan, Larramendik Iparraldeko liburu anitz —ia denak— ezagutu baitzituen; halako hitz errazetan bederen, biak islatzen dituela nago, baina lehenik Iparraldeko euskalkiak hainbestean ezagutzen zituela frogatu beharko nuke.

Ordu horretara iritsiak ez garenez gero, alderantziz saia gaitzke, ezinbestean gaurko <x> islatzen duten <ch> grafiadun hitzak seinatuaz. Honetarako, baina, onartu behar zait hanbatik hanbatean errazago dela /š/ suposatzea Iparraldean ongi lekukotutako formetan, ezen ez inoiz ez jasotako /č/-dun forma “berreraikitzea” edo, demagun, Nafarroako bazter batean bakarrik erabiltzen dena entzuteko aukera izan zuela sinistea. Hona nire hautagaiak, zerrenda osoa izatetik oraino urruti badago ere,⁴¹⁷ ohartu haietako batzuetan aldamenean grafia larramenditarra ere agertzen dela:

bachera, *baisera* “vaxilla” (*baxera* 1643). *dichida*, *disida* “desafio” (cf. *dixidatu* 1630, *dixidu* *XVII ea.). *fachelatu* “embarazar”, *fachelua* “embarazo”. *queicha* “angustia” (*kexa* 1627). *lachoa* “floxoso”, *laxo* 1545), *lachotasuna* “floxedad” (*laxotasun* 1627), *lachotu*, *lachatzea*, *lasyotu*, *lasyatzea* “afloxar” (*laxatu* 1545, *laxotu* *XVII ea.). *puchanta*, *puisyanta* “poderoso” (*puxant* 1627). *chaya* “bodega” (*xai* 1857). *chaüa* “claro” (*xahu* 1545), *chahutzea* “acrisolar” (*xahutu* 1545). *chedarria*

⁴¹⁵ Cf. *DAut*: “Virtud que modera el exceso y desenvoltura en las chanzas y juegos...”.

⁴¹⁶ Bildutako adibideak eskura dauden lehenagoko argitalpenetan egiaztatu ditut denak.

⁴¹⁷ Nire intuizioak *EH*-ak eskaintzen dituen datekin erkatu ditut, eta honek jasotzen ez dituen zenbait hitzetarako *OEH*-ra zein Azkueren hiztegiara jo dut; hitzen bat (*fachelatu*, *fachelua*, *chiloa* eta *chorrotz*-en familia) belarriz-edo epaiut behar izan dut, edo eskura nituen lexikoietara joaz (*chipitu*, *chirmendu*, *chotilla*). Bidenabar, Sarasolak gehienetan ez du Larramendiren lekukotasuna aintzakotzat hartzen (cf. *xai*), eta agertzen den bakanetan beti ere <tx> (cf. s.vv. *xilintxa*, *xirripa*) edo <s> irakurketaz (cf. s.v. *dixidu*). *OEH*-an, berriz, *laxatu* / *laxotu*-ren *lasy*-formak <lax-> baina *lach*-formak <latx-> letraldatuta daude. Zertxobait aldatu beharko dira gauzak alde honetatik, beraz.

“lindero”, “término, mojón” (*xedarri* 1712), *chedatua* “intencionado” (*xedatu* 1571), *chedea* “fin, motivo” (*xede* 1571). *cherloa* “cabellera” (*xerlo* 1635). *chilíncha* (*xilintxa* 1627). *chiloa* “hoyuelo”, “orificio”. *biotza chimicatzea* “compungirse”, *chimicoa* “disgusto, enfado” (*ximiko* 1571). *chipitu* “achicar” (*chipitu* 1571). *chirmendua* “sarmiento” (*chirmendu* 1571). *chirripa* “arroyo” (*xirripa* 1664). *choil* “muy” (*xoil* 1643, ap. Azkue). *chorrotza* “picante, en instrumentos agudos”, *chorrosquiro*, *chorroisqui* “agudamente”, *chorroistasuna* “agudeza”, *chorroistu* “afilarse”. *horta* “gota, de agua” (*xorta* 1627), *hortaca* “gota a gota” (*xortaka* 1664). *chotilla* “lindo” (cf. *chotiltua* 1545). *chumea* “pequeño” (*xume* 1664), *chumetu* “descrecer” (*xumetu* 1677). *chutic* “(en) pie” (*xutik* ~1620). *chuisen* “derechamente” (*xuxen* 1571).

Erakuskari txiki honek gauza bat erakutsi digu Larramendiren sistemari buruz: izan ere, *HH*-an ez dago <x>z hasten den euskal hitzik, *xagua* “xagua” eta *xea* “xea” maileguak izan ezik.⁴¹⁸ *bachera* <baisera> eta *puchanta* <puisyanta> ere letralda ditzakeen arren, ez da behin ere saiatzen hitz hasieran: **isedea* ‘xede’ nahasgarria izanik, dena dela, **syedea* eta *xedea* bezalakoei ihes egin zien. Gaztelaniazko ahoskera adierazteko arazorik gabe erabili zuen <#sy> grafemaren (§ 3.4.9) adibide bakarria gazt. *xea*-ren etimologian (*chea*, *syea* “que significa cosa menuda”) dago; gazt. *xetar*-enean, ordea, *cheatu* (“que significa desmenuzarse”) bakarrik darabil, adibidez, eta ordain modura beti *chea* eta *cheatu* idazten ditu. Erreparatu, gainera, *chorroisqui* ‘xorroxki’, *chorroistasuna* ‘xorroxtasuna’, *chorroistu* ‘xorroxtu’ eta *chuisen* ‘xuxen’ bitarikoei.

Nire ustez, <x>ren aurkako kanpaina egin zuen Larramendik —beregala ikusiko ditugu honen aldeko beste xehetasun zenbait— eta, beraz, hitz hasieran /š/ adierazteko zeukan grafema bakarria Iparraldeko <ch> zen. Erabakia azalgaitza da, baina ez azalezina. Kontuan har dezagun oso ondorio txikiak izan zitzakeela, Hegoaldean hitz hasierako /š/-aren bakantasanagatik (Mitxelena 1977a: 190-194). Bestalde, Larramendik Iparraldeko hitzak Hegoalderatu nahi zitzakeela eginik, ez zait iruditzen ausartegia denik bere herrikideek *chedea* idatzi eta *txedea* ahoskatzea —*txori* ahoskatzen zuten moduan— axola ez zitzaiola esatea, baldin eta *erabiltzera* bederen makurtzen baziren. Edota, agian hobe, litekeena da Ip. x- / Heg. tx- egokitasun normala gainerako hitzetara hedatzea, hots, Ip. *xedea*-ri Heg. *txedea* zegokiola pentsatzea, zeren bai baitirudi halaxe ez zeritzanean markatzen jakin zuela (*baisera*, *disida*, *queicha*,⁴¹⁹ *lasyotu*, *lasyatzea*, *puisyanta*).

Gatozen orain Larramendik honelakoez gainera erabili zuen sistemara. Jakin badakigu <is> eta <(i)sy> erabiltzen dituela bai hiztegian bai idazlanetan, eta <x> -xe indartzailean ia bakarrik (Mitxelena 1978b: 392; Lakarra 1985b: 247, 13. oh., Urgell 1987: 360-361). Halaz ere, ez dakigu biak berdin, hots, testuinguru beretan erabiltzen zituenentz, ez eta <is> beti /š/ denentz. Ikus ditzagun lehendabizi bakoitzaren adibide ziur zenbait:

<(i) ŷ> (= <isy>): *asyeria* “raposa”. *asyerre* “perrengue”. *asyetsua* “airoso”. *basyacoa* “musgaño”. *gaisyo* “acierto”, “acezar”, *gasyoa* “pobre hombre”, *gaisyotasunac* “achagues”, *gaisyoquirro* “achacosamente”, *gaisyotsua*, *gaisyotia* “achacoso”, *gaisyotu* “adolecer”. *goisyobiurrac* “torcidos, dulces”, *gosyorea* “tallarín”. *lasyotu*, *lasyatzea* “afloxar”. *mosyala* “bozal”. *musyica* [sic] “pérsigo”. *pisyá*, *chysya* [sic] “orina”, *pisyajario*, *chysyajarioa* [sic] “meón”, *pisyaldia* “meada”, *pisyeguín*, *chisyeguín* “orinar”. *puisyanta* “poderoso”. *usyatu* “ahuyentar”.

<i ŷ> (= <is>): *aisala* “cascarilla”, *aisaldarra* “somero”, *aisalmea* “farfara, telilla”. *aiseria* “zorro”. *aiserre* “perrengue”. *aisolduria* “cuidadoso”, *aisolduro* “cuidadosamente”. *baisera* “vaxilla”. *bisgoiso*

⁴¹⁸ Gaztelaniazko hitz hasierako <x>dun hitzetatik ateratako maileguen idazkeraz ik. § 8.4.12.

⁴¹⁹ Aurkitu dudak <ich>ren adibide bakarria da.

“bizcocho”. *buruisquea* [= *buruxka*] “cabezuela”. *eistua* “agua manil”. *eisurac* “acanthobola”. *gaisigoisosa* “agridulce”. *gueisancha* “babieca”. *goisosa* “dulcecito”, *goisa-biribillac* “peladillas”, *goisaroa* [sic]⁴²⁰ “fartes, fruta de massa llena de dulce”, *goiso biurrac* “retorcidos, dulces”, *goisopilla* “ramillete, piña de dulces”, *goisorea* “caramelo”, *goisoro* “dulcemente”, *goisochocha* “canelón”. *queisa* “queixa”.⁴²¹ *moisala* “rocín”. *moiscortu* “cargar delantero, embriagarse”. *moistu* “afeitar”. *muísica* “melocotón”. *muisturra* “hociquillo”. *neisca* “rapacilla”. *puisca* “cabito”. *chorroisqui* “agudamente”, *choroistu* [sic]⁴²² “acicalar”, “adelgazar”, *chorroistu* “afilarse”, “aguzar”.

Begibistan jotzen gaituen lehenengo kontua, bi idazkerak hitz berberetan ager daitezkeela da (*asyeria* / *aiseria*, *aiserre* / *asyerre*, *goisyobiurac* / *goisobiurac*, *gosyorea* / *goisorea*, *mosyala* / *moisala*, *musyca* / *muísica*). Eta bigarrena, inposiboan <is> bakarrik erabiltzen duela. Badakusgu, bestalde, Iparraldeko hitz zenbait zuzenean aldatu egin zituela (*aisolduria*), bertako grafia islatu gabe. Esan dezadan, bidenabar, -xe indartzailea ez dela nahitaez <x>z agertzen, pentsa genezakeen bezala; aitzitik, *HH*-an bederen bestelako grafien aldamenen gutxiengoan dago:

alaxe “(de esta) suerte”, *alasye* “almendrán”. *andisyec* “(de) allí”. *andiseagoa* “ampolla en la carne”. *araise* “allá ir”. *guesyago* “(algo) más”.

Lehenengo galdera, edo haren zati bat behinik behin, erantzunik dago. Bigarrena, berriz, arras zailagoa da erantzuten, ziurrenik gure begietan *gaisosa* bezalako gauza bat ezinezkoa ez delako. Lehenik eta behin, ezarrita utzi nahi nuke bokal artean <ch> daukaten oinarrietatik ateratako <is> inposiboek derrigor /š/ hotsa adierazten dutela; cf., adibidez:

aiscondoa “pezón, de el exe”, *aiscondarria* “pezonera” < *acha* “exe”.
ecaiztuna, *ecaisduna* “tempestuoso” < *ecaizta*, *ecacha* “tempestad”.
careisduna “verruquiento” < *carecha* “verruca”.
choisquillea “palillero” < *chocha* “palillo”.

Beste horrenbeste esan behar da logikak agintzen duenean. Adibidez, *cuiscurdura* “encogimiento”, *cuiscurquiro* “encogidamente”, *cuiscurra* “encogido”, *cuiscurtu* “encogerse”, “ovillarse” formak, *OEH*-ak (s.v. *kizkur*) badaezpada ez aipatuak, inolako zalantzarik gabe gaurko grafian *kuxkurdura*, *kuxkurkiro*, *kuxkurra* eta *kuxkurtu* dira, eta Larramendik hobeto ezagutzen zuen *kiskur*-en aldamenen (cf. 1745: cciv honen erabilera bat, eta s.vv. *aladares*, *rizo*, etab.) entzun ahal izan zituen. Aldaera hau bermatu ez eze bi mendez aurreratu egiten du (*kuxkurtu* V-gip, *kuxkur* s.v. *kizkur* 4 < Harriet < *HH*, ap. *OEH*; cf. *kuskurtu* And *AUzta* 135). Hona beste adibide batzuk:

beraaisca “papandujo” (< *beraa* “blando”, cf. lat. *Nimis blandus*). *goisgalea* “regosto”, *goispilla* “chocho, confitura” (< *goxo*). *joistallu* “(estar de) fiesta”, *joistallua* “mojarrilla, el que siempre está de chanza y fiesta”. *naisca*, *guraaisca*, *gogaisca* “veleidad” (< *nai*, *gura*, *gogo*). *oiscada* “velicación”, *oiscatu* “velicar” (cf. *ozka* “mordedura”)⁴²³. *olaisca* “ripiá, tabla delgada”. *poiscaria* “mojarrilla”, “ojialegre”. *poistarica* “aguzanieve”.⁴²⁴ *choisqueriac* “buxerías” (< *txotx*; cf. *txotxeria* “chuchería”).

⁴²⁰ Izan liteke *goisorea*, bestetan bezala, edo *goisarea* behinik behin.

⁴²¹ Etimologian azaltzen da eta, zehazkiago, hauxe dio: “...*queja*, *queisa*, en Bizcaya es fatiga y cansancio”.

⁴²² Bietan holaxe, *chorroistu*-ren orde; cf. “adelgazar más, *chorrochagotu*”.

⁴²³ Cf. *DAut*, s.v. *velicación*: “Mordicación de los humores que punzan alguna parte del cuerpo”; eta s.v. *velicar*: “Punzar los humores acres y mordaces alguna parte del cuerpo”.

⁴²⁴ Cf. “Posta, el que la corre, *posta*, *postaria* (...), y con este nombre significamos apresuración y correr mucho; y por esto al aguzanieves, que corre con rara velocidad, llamamos en un dialecto *postarica*, *poistarica*, y *postaca* [llamamos] el modo de ir corriendo”.

Larramendik, dakusgunez, bustidura adierazgarriak egiteko aparteko askatasuna zuen (*joxtailu, oxkada, poxkari...*). Bestalde, oro har ez dago zailtasunik <is> inplisiboan agertzen den guztietan /š/ hotsaren aurrean gaudela erabakitzeko; erreparatu, besteak beste, geroago berrartu beharko dugun *-xka* txikigarriari (III, § 2.1.1). Alabaina, bi formak zalantza zor dezakete oraindik: *pisca* eta *gaisto*-k, goikoek ez bezala biek berezko *i* dute eta. Testuinguru honetan <sy> ezinezkoa denez eta <x>rik ez dagoenez gero, <is> da *pixka* eta *gaixto* zein *gaxto* idazteko zeukan aukera bakarra; baina, zer idatzi nahi zuen? Berriro ere “zeinek bere erara” hura gogora dezakegu alde batetik; baina /š/ irakurketa ere aurreikusita ote zegoen? *Pisca*-ren kasuan baietzean nago, cf. “Pedacico, *puisca, pisca, puscachoa, zatichoa, amenchoa, zaticoa*” sarrera, non gainerako ordain guztiek txikigarri modu bat daramaten. Besterik da, ostera, *gaisto*-ri dagokionez: oso oker ez baldin banago, *gaizto* eta *gaisto* ez dira sekula elkarrekin agertzen *HH*-an; banaketa osagarrian daude, beraz, eta *gaisto* ugariago aurkitzen da bestea baino. Izan liteke, hortaz, honen idazkeran inplisiboan gertatutako txistukarien neutralitzeak bestek baino indar gehiago izatea (§ 8.4.18). Arazo berbera genuke *eistaria* “montero”-ren kasuan, esaterako.

Bokal artean, berriz, goiko adibideak nahikoa ugai daitezke hain nabariak ez diren, baina ziurtzat jo behar ditugun zenbait aipatuaz:

aisalcorra “esclirótica” (cf. *aisal* ~ *azal*). *aisurteguía* “aprisco” (< *axun*). *gaisea* “gage”. *gaisoa, gasyoa* “pobre hombre”. *goisacaria* “chulo”, *goisaqueta* “chulada” (cf. *esale goisoa* “chulo”). *queisaera* “violación”, *queisaria* “violador”, *queisatu* “violar”, *queisua* “violencia”. *loisencharia* “soflamero”. *luisalea* “escaramujo”.⁴²⁵ *muisa* “zabullida”, *muiseguín* “zabullirse”.⁴²⁶ *muisarmeá* “mirlo, afectada gravedad en el rostro”, *muisarma(tu)* “mirlarse”.⁴²⁷ *chaisaria* “chazador” (< gazt. *chaza*). *chuisaca* “chamiza”.⁴²⁸

Ohartu <is> guztiak bokal ostean agertzen direla gure adibideotan eta, gainera, *gaiso*-n izan ezik *i* ez dela etimologikoa. Zer gertatzen da, berriz, ondokoekin?

bisiga “vexiga”, *bisigada* “vexigazo”, *bisigaguillea* “vexigatorio”. *isildu* “callar”, *isilic* “calladamente”. *lisiva* “colada”, *lisiba, lisibea* “lexía”, *lisibontzia* “coladero”. *maisua* “maestro”. *misarra* “marmota”. *pisazaya* “guardamea”, *pisazapia, pisoyalac* “pañales”. *pisontzia* “orinal”. *chisa* “mea”, *chisaldia* “meada”, *chisontzia* “orinal”.

Nire ustetan, gorago <ch>az esan bezala, irakurketa askea ahalbidetzen duten grafiak dira: bitxia da *ixil* behin ere ez jasoa, hala nola *pixa* / *txixa* bikotean dauden grafi aldaketak, ziurrenik *gaisoa, gasyoa* “pobre hombre” bikotea bezain adierazgarriak.

Aitorkizun bat daukat: *ixil* behin ere ez jasoa gezurra da; izan ere, badira *HH*-an zehar agerraldi gutxi batzuk, zalantzagabeko baina beharbada esperoezineko den grafia batean, kasu guztietan <isil-> formen aldamenean:

igildu, igilaraci, igilerazo “acallar”, *igildu* “callar”, *igila, igildua* “callado”, *igilean* “calladamente”, *igildo* “mudamente”, *igilic* “cepos quedos”.

⁴²⁵ Cf. *lausarda* / *luxarda* “mostaza negra” (OEH, s.v. *lausarda*).

⁴²⁶ Cf. Azkue, s.v. *mux*: “3. (B-m), cabizbajo, meterse de cabeza en el agua. *Muxean* (B-m), nadar bajo el agua”.

⁴²⁷ Cf. “Mogicón, viene del Bascuence *musucona*, que significa lo mismo, y quiere dezir una *carada* o golpe bueno en la cara, de *musu*, cara, y *on*, buena, y *musuco*, golpe en la cara...” edo “Mogiganga, es de el Bascuence *musiganga*, que significa lo mismo, y viene de *musu*, cara...”.

⁴²⁸ Cf. Azkue, s.v. *txuxaka*: “1. (G-orin), haz de leña delgada”.

Ez dago esan beharrik, Materrek erabili eta Axularrek iruzkindu zuen haretxen aurrean gaudela:

Batac esquiribatcen du *chehero*, bertceac *gehero*. Batac *chedea*, bertceac *gedea*. Batac *ichilic*, bertceac *igilic*. Batac *lchoa*, bertceac *lajoa*. Batac *choil*, bertceac *joil*. Batac *quecho*, bertceac *quejo*. Batac *chuchen*, bertceac *jugen* (Axular 1643: 17-18).

Ziurrenik *quejoa* “desasosiego”, “inquietud” ere honen erakusgarri bat da.

Azkenik, *HH*-an <x>rekin zer gertatzen den azaltzeko dugu. Alde batetik, badakigu ez hitz hasieran ez inplosiboan agertzen dela; halaz ere, aitortu behar da hitz zenbaitetan —oso gutxitan— agertzen dela, baina gainera defektiboki, zeren eta hiru egoera hauetako batean bakarrik aurkitu ahal izan baitut: (1) ahoskaperari buruzko oharraz lagunduta; (2) bestelako grafia batez lagunduta; edota (3) <ix> moduan:

- (1) “Bizcocho (...) viene de el Bascuence *bisgoiso*, *bizgoxo*, pronunciada la x a la Latina, y significa, sea dulcecito”.
- (2) *muxicac* “abridero”, *muisica*, *muxica* “melocotón”.
- (3) *muix* “chapuz”, *muix sartu* “chapuzar” (cf. *muisa* “zabullida”, *muiseguín* “zabullirse”).

Gainerantzean, uste dut *quexa* “querella, quexa”, *oxala* “oxalá”, *oxte* “oxte” edo *fenixa* “fénix” bezalako gauzak /š/ irakurtzea, anakronismo hutsa izango litzatekeela: zeren eta, Larramendik irakurketa hori nahi izatera, hobeto markatuko baitzukeen, behar izan zuenean egin zuen bezala. Dena dela, gai honetaz beharaxeago (§ 8.4.12) eman ahalko dut argibide gehiago.

8.4.9. <id>, <y>, <ty>, <g>

Oñederrak (1992) esan bezala gainerako bustiduren berri ez ematea bitxia izan arren (§ 3.4.10), hona non diren, hiztegian sakabanatuta:

<id> *eiderra* “decoro, honor”, *eiderguea*, *deseidertea*, *eidercaitza* “desacatamiento”, *eiderto*, *eiderqui* “decorosamente”, *eiderperatu* “degradar”, *eidertsua* “decoroso”.

<y> *anyerea* “moña, figura de muger que sirve para modelo de el traje”, “muñeca de niñas”, “títere, figurilla de pasta, &c. bien vestida”, “soplado, demasiadamente pulido”. *anyerequeria* “Melindre, demasiada delicadeza”, *anyerequerjietan*, &c. *ibilli* “melindrear”. *anyerequeta* “adamamiento”, *anyeretia* “melindroso”, *anyeretzea* “adamarse”, *anyeretua* “afiligranado”, *anyerechoa* “damisela”. *galyurra* “acrotera”, “ápice”, “auge”, “caballete de el texado”, “capitel”, “cima”, “cupulino”, “penacho”, “pináculo”, “sumidad”, “tope”, *galyurtu* “campear”, *galyurtua* “acopado, árbol”, *galyurchoac* “repelar las yerbas”.

<ty> *muisturra*, *mutyur[r]a* “hociquillo”. *ontoa*, *ontyoa* “hongo”.

<ty> ongi ezagutzen dugun <sy>ren parekoa da, eta gure adibideen arabera edozein testuingurutan *t* bustia adierazteko balio du; <id> grafiak, berriz, <is>ren antzera, *d* bustia adierazten du bokal artean, *l* eta *n* ostean *d* bustia <y>z irudikatzen den bitartean. Azpimarra dezadan *galyur*-en kasua, zalantzazko bakarra izan daiteke eta: Larramendik hitzaren bestelako lekukotasunik ez dakarrenez, *OEH*-ak (s.v. *gailur*) <ly> *l* bustitzat hartu badu ere,⁴²⁹ <ny> argiarekiko paralelismo hertsia, leku horretan *d* daukaten formak erdialdeko euskalkietan —batez

⁴²⁹ Tesigile honek ere erruren bat du erabakian: *gailur*-tzat hartu dira *HH*-ko lekukotasun guztiak, eta Lardizabalen *galyur* ere zalantzazkotzat jo, grafia berezia markatu bada ere (s.vv. *gailur*, *gailurtu*, *gailurtxo*).

ere G eta GNn— oso ondo lekukotuta egoteak (ik. *OEH*, s.vv. *gailur* (*gaildur*, *galddur*, *gaildor*, *kaildur*, etab. aldaerak), *galdor*, *galdur* eta *gandor*; Larramendik berak *gandor* ere jaso zuen), agerraldi asko izan arren beti batera idatzita egoteak eta / bustia adierazi nahi izanez gero <ll> erabiliko zuelako ziurtasunak (§ 8.4.14) *galddur* ulerpenera egitera garamatzatela uste dut.

Zalantzarik gabe oraindik bustidura gehiago izkutatzen dira *HH*-aren orrietan. Aparteko kasu bat aurkitu ahal izan dut, Larramendiren sistematik kanpoko zeharo, eta honegatik bestela (iturriaz?) azaldu beharrekoa:

angerederra “cebellina, especie de comadreja”.

8.4.10. <ch>, <tch>

/š/ adierazten ez duen orotan, gehienetan alegia, <ch>k gaztelaniazko grafian daukan balioa du *HH*-an, lehenagoko eta beranduagoko Hegoaldeko testu guztietan legetxe. Halaz ere, oso bakanki antza denez, bada Iparraldeko <tch>aren arrastorik: *etcholac* “aduares”. Hortaz, badirudi gainerantzean <ch> aldatu zituzkeela Iparraldeko testuetan aurkitutakoak: cf., agian, *barach* “lentamente”, *borcha* “fuerza”, “violencia”, *borchaz* “violentamente”, *borchatu* “violar” edo *meachatu* “amenazar”.

8.4.11. <j>, <g>, <y>, <i>, <ï>

Badakigu Larramendik zer uste zuen <j>ren ahoskapanaz, eta hura irudikatzeko <y> baliatu zuela: “...inclinándose a *yauna*, *yan*, &c.” (§ 3.4.10). Halaz ere, grafia lehengoan utzi zuen. Nagusiki, hitz hasieran <j> aurkitzen dugu, baina ohartu gaztelaniaren banaketa —hots, <ge->, <gi->— gordetzen duela baita erdal etorkirik —nabarmenik behinik behin— ez daukatenetan ere; adibidez:

LET: *gendartecoac*, *gendalla* (36), *Igitucoen* (37), *Euangelioac* (52), *gelaz* (76). Salbuespena: *euanjelioac* (45).

HH: *jabea* “amo”, *janaria* “comida”, *jario* “manar”, *gela* “hielo”, *gendea* “gente”, *giganteen* “agigantado”, *gicotria* “treta”, *gira* “giro”, *giratu* “girar”, *jo* “pegar”, *joan* “ir”, *jocoa* “juego”, *josi* “coser”, *judua* “judío”.

Ohiko banaketaren aurkako adibide bakanak, badirudi tradizio ezberdin bati (*Jencotasuna* “deidad”) edota erdal grafiaren beraren eraginari (*jupoya*, *jipoea* “jubón”) egotz dakizkiokeela.

Leku honetan <y> ere aurki daiteke, baina oso bakanki, eta eskuarki bestelako arrazoiek azal dezaketen moduan: maileguak (*yaroa* “yaro”, *yuca* “yuca”), etimologiak, gaztelaniazko grafia agertu beharrez edota etimologietan beti informazio gehiago ematen duelako (*yan*, *jan* “yantar”, *jocoa*, *yocoa*, *jo*, *yo* “juego”, *yoa* “bermejo”, *jo*, *yoa* “látigo”, *yoman*, *yoeman* “imán”), beste tradizio bateko hitzak (*yagoitu* [sic] “jamás”, *yelosgoa* “emulación”), edo ahoskera berezi bat adierazi beharrak (*ia*, *ya* “junco”). Bikoteak, etimologietakoak kenduta, oso-oso gutxi dira: *jocatu*, *yocatu*

“jugar” eta *yotzia*, *jotzia* “repullo”. Honezaz gainera, bada interpretapen errazik ez bide duen hitz bat: *yotorria* “eco”.⁴³⁰

Halaber, hitz zenbaitetan <i> agertzen da lehen lekuan. Sistemak akatsen bat badu ere (cf. *ia*, *iuncia*), dena bitara laburtzen da: (1) hiatokak edo hiatotzakokak <i> daramate (gogoratu <ü>), eta eskuarki aldamenean hiatoa hautsitako formaren bat; (2) beste tradizio bateko formek <i> daramate, baita halaber /j/ ahoskera markatzea interesatu zitzaioneko adibideren batek (cf. bizkaierazkoa):

- (1) *i*, *ia* “juncada”, *ia* “izaga”, *ia* “junco”, *iya* “enjuncar”, *iaduna*, *iyatsua* “juncoso”, *iyamea* “bejuco”, *iyurdintsua* “paja de meca, (...) junco oloroso”. *ia* *igoitic* “nunca”. *igandea*, *ia* *andea* “domingo”. *igartu*, *ia* *artu* “ajar”. *iñoteriac*, *ia* *uteriac* “carnestolendas”. *iguesi*, *iesi joan*, *ieseguín*, *igueseguín* “huir”, *iesia*, *iguesia* “fuga”, *igues*, *ieslea* “desertor”. *ietzi* “enrasar, enrasarse algún vestido”, *ietzia*, *iyetzia* “usado, gastado”, *iyutzia* [sic] “(cosa muy) gastada”. *io*, *igo* “ascender”, *igo*, *io*, *io* “subir”. *iomena* “fama”. *iori* “abundante”, *ioria*, *iyoria* “abundancia”, *ioritasuna*, *iyoritasuna* “abundancia”. *iotua*, *igotua* “(dolor de) costado”, *iotua*, *igotua* “impertinente”, *iyotua*, *igotua* “sobrehueso, lo que molesta”. *iuncia* “escoba”, *iuncia* “sauce”, *iunciaga* “saucedal”. *iurtzuria* “trueno”, *iyurzuria* “relámpago”. *iñusturia*, *iusturia* “trueno”.
- (2) *ia* *igoiticotz* “(por los) siglos de los siglos”. *iardausi* “sacudir”. *ia* *uqui* “cometer algún delito”. *ia* *utsi* “agacharse”. *zulango guizonari deungaro iausten iaca* “(ser) ageno de, no cuadrar”. *jan*, *ian* “comer”. *jo*, *io* “acertar, tirando algo”.

Gogoratu behar dugu <i> grafemak /j/ hotsa adierazi izan duela Iparraldeko tradizioan eta, beraz, bertatik hartuak dirateke 2. taldeko hitz asko (cf., adibidez, Leiz. *ia* *igoiticotz*, *ian*, *ia* *uqui*, *ia* *utsi*, *io*). Osterantzean, itxura guztien arabera Larramendi zenbait hitz interpretatzera ausartu zen, bai goraxeago ikusi ditugun *yelosgoa* eta *yagoitu* delakoa (*yagoitic*-en ordeztu, dudarik gabe)⁴³¹, baita orain azaldu zaigun *iori* ere (areago *iyori*; cf. *LET* 37 *ioriena*, 75 *ioriagoric*); ez beti asmatu, ordea: *OEH*-ak (s.v. *jori*) dioenez, “...los textos parecen descartar una pronunciación como trísilabo”. Nolanahi ere den, *HH*-an hiatoa hausteko biderik usuena <iy> taldea da; aipatutako familiez gainera, *iyelso* “hyeso”-renean agertzen da, honetan beti, baita *miyan* bezalako kasuetan ere (*quioric ezteu miyan* “(no tiene) pepita en la lengua”). Larramendik eroso menperatzen zuen hizkera bateko ezaugarria dirudi, hortaz.

Bokal artean, <y> da grafia normala, eta beheranzko diptongoan, berriz, <i>:

LET: *goi* (17), *goi* (18), *sayetsetic*, *irurazayac* (21), *etsai*, *jayet-aldean*, *Esayoc*, *ayetatic* (22), *mayan*, *oyetan* (23), *garai* (25), *beargai* (26), *Ayena* (29), *ayec*, *ayentzat* (30), *zai* (31), *Gayari*, *ayenatzen* (33), *gaya*, *goi*, *oi*, *beargai*, *doaya*, *sayets*, *oyez*, *ayec*, *oyetaco*, *goi*, *gaya*, *gayac*, *sayoac* (34), *gueyenac*, *jayeterrico*, *nai*, *oi*, *ayentzat*, *oyec*, *Goyerrico* (35), *Ayenatu*, *oyec*, *oyec*, *ecucoi*, *gueyenac*, *ayetan*, *gai*, *Bizcayan* (36), *aroiqueriaz* (37), *ayetan* (41), *ayenatu* (43), *gaya* (46), *sustraya* (47), *errayetaco* (49), *sayetsa* (51), *ibayac* (52), *anayac*, *bai* (55).

HH: *auzijarraya* “abogado” vs *jarrai niri* “sígueme”. *buyatu* “abotagarse”. *escuyeronz* “acia la izquierda” vs *escui ta ezquer* “(a) diestro y siniestro”. *gueyegui* “abultar” vs *guei* “mucho, adverbio”. *gordacayac* “guarniciones” vs *gordacaiguillea* “guarnicionero”. *ibayari* “sangrar” vs *ibai* “(río) caudal”. *jayoa* “ábil”. *loya* “cieno” vs *loi* “(a) piedra y lodo”. *mandazaya* “acemilero”. *marai* “maravedí”. *naya* “apetencia” vs *nai* “absolutamente”. *oyala* “abatanar”. *puyata* “colada”. *sayea* “abestruz”. *sugoya* “éter” vs *sugoitarra* “etéreo”. *sustrayetic* “acercén” vs *sustrai* “oca, una raíz”. *zaldabayaren* “témpano” vs *zaldabaiquiña* “adufero”.

⁴³⁰ *OEH*-ak (s.v. *jotorri*) ez du ezer azaltzen, ez aske den beste lekukotasunik eskaintzen. Haatik, lehen begiratuan bigarren zatia -*arria*-ren ordeztu dagokeela deritzat (cf. *harri bizi*): *jo* + *arria*, beraz?

⁴³¹ Lhandek Hiribarrenen hiztegiko lekukotasuna aipatzeagatik errezeloa hartuta, antza denez, *OEH*-ak (s.v. *jagoitu*) *jagoitik*-erako dei batekin arazoa bukatutzat eman badu ere; alabaina, Hiribarren Larramendiren zordun ezaguna da eta, beraz, honelakoetan ez andoaindarra baino fidagarriagoa.

Alderantzizko adibideren bat ediren daiteke, halaz ere; idatzietan, gramatikan (*LET* 13-20) eta Andoaingo sermoian (*LET* 73-88) pilatzen dira batez ere:

LET: *goierria*, *goierritar*, *gueiago* (17), *arraio*, *goia* (18), *etsaiac* (20), *bay* (21), *aien*, *oiec* (25), *oiec*, *naiez*, *saietsetic* (26), *odeietara* (30), *gay* (34), *gueiago* (35), *gueiago*, *bay*, *Loiolan* (37), *geienac* (38), *geiagoraño*, *etsaiez* (39), *Loiolan* (40), *oietan* (41), *jaiera*, *beargaiac* (42), *hipuynac* (44), *jaiotza* (46), *ay* (47), *etsaien* (49), *aytari* (51), *Bay*, *gueiago* (52), *jaio* (53), *jaiera*, *loiaquin*, *anay*, *etsaien* (54), *jaioa* (73), *gaia* (74), *naiez* (75), *aienatzen*, *celai celaiean* (76), *oien* (77), *leialtadez* (78), *oiechec* (79), *aiurri*, *jaieterriac* (80).

HH: *bay* “abarcar”. *buiatua* “abuhado”. *deiartea* “interpelación”. *erlezaia* “abejero”. *gay* “ábil”, *gaytasuna* “abilidad”, *gayro* “ábilmente”. *gueiagotu* “abultar”...

Honezkero, baderitzat bokalarteko <j>ren ahoskera *HH*-an /x/ dela baieztatu daitekeela. *HH*-ak, bada, ederki lekukotzen ditu gipuzkeraz eta Gipuzkoako goinafarreraz gaur ohikoak diren zenbait aldaera (Mitxelena 1977a: 177 eta 194):

ajola “cuidado”. *frigitu* “freir”. *gajotu* “apestar”, *gaisotu*, *gajotu* “enfermar”.⁴³² *laja* “dejar”. *majadera* “pesebre”. *ojua* “aclamación”, *oiua*, *ojua* “alarido”. *tajua* “traza, modo”. *ujola* “avenida”.

Hitza ondo ezagutzen ez dugun oro, ostera, zalantzaren bat gera daiteke:

ajubetatu “majolar”.⁴³³ *ajuda* “ayuda, clyster”, *ayuda*, *ajuda*, *mascuria* “gaita, melecina”, “mangueta”.⁴³⁴ *ajutua* “ábil”, “capaz”.⁴³⁵ *zaldiz ejatu* “(correr) parejas”.⁴³⁶

8.4.12. <g>, <j>, <x>

Hiru grafema hauek etorkiz bi fonema ordezkatzeko zituzten gaztelaniaz: <x>k auresabaikari frikari ahoskabea /š/, eta <j>k —<g> e eta *i* aurrean— auresabaikari ahostuna /ž/. Bilakaera korapilotsu baten ondoren, XVII. mendearen lehen herenerako bikotea bakandu ez eze bere ondoren bakarria /x/ da (Lapesa 1984: 377-379). Alabaina, Akademiak ez zuen 1815 arte hirukoiztasuna erraztu, <x> /ks/ taldea adierazteko bakarrik utziaz (Lapesa, *ib.* 423). Beraz, bai *DAut*-en bai *HH*-an lehengo banaketa zaharrak dirau, Larramendik aldaketaño batzuk egin bazituen ere (§ 6.2.4).

Euskaraz <x>ren balioa ebazteko kontuan izan behar dugu Larramendik hiru tradizio ezberdin izan zituela begi aurrean: orduko gaztelaniazko /x/ ahoskera, zeharo alde batera utzi zuen Iparraldeko /č/ ahoskera (§ 8.4.6), eta euskal idatzi batzuetan eta Espainiako hitz “dialektal” zenbaitetan bakarrik (galegotik, asturianotik... hartutakoak; ik. § 3.4.9) aurkitzen zuen /š/ ahoskera,

⁴³² Cf. Otxoa 100: *Ery edo gajo arquitcen diranac*.

⁴³³ Mailegu antzekoa, baina ez gaztelaniatik, dakidalarik; geroago berrartu beharko dugu (III, § 12.2.10.1).

⁴³⁴ Larramendiren temak eta *ayuda* aldaerak iradokitzen dute /x/ dela; cf. *ajuria* (Etxba *Eib*, ap. *OEH*, s.v. *aiuda* 2).

⁴³⁵ Mogelek *adjutu*, *adiutu* idazten zuen (Mitxelena 1977a: 352, 13. oh.) eta *OEH*-ak (s.v. *adiutu*) iradokitzen duen bezala, idazkera bitxia da. Hiztegi honen *adiutu*-ren aldeko aukera, proposatzen duen etimologiaren menpe dago (< *adinon*) eta ez tradizioaren, zeren eta hau argi eta garbi Mogelen idazkerak behin betiko baldintzatu baitzuen, lekukotasun askerik eskaini gabe. Nabarmena iruditzen zait Mogelek hots berezi bat —bere hizkeran ezohikoa— adierazi nahi izan zuela, eta bururatzen zaidan hautagai bakarria /d'/ (**addutu*) da. Honek ez digu argitzen, ordea, zergatik Larramendik <j> idatzi zuen.

⁴³⁶ Bokalarteko <y>aren salbuespena dirudi: cf. *eyatu*, *eyaca joan* “correr”, *eya ta eya joan* “correr a todo correr”. Cf. *OEH* s.vv. *ea*, *eiaka* eta *eiatu*.

“a la latina”, berak zioenez. Ahoskera berezia azpimarratu behar honek, badirudi izan zela <x> /š/ balioaz ia erabat baztertzera eramane zuen zioa (§ 8.4.8). Izan ere, gaztelaniaz nola, euskaraz hala dugu mailegutan:

<g> *alfangea* “alfange”, *Egira* “Egira”, *evangelioa* “evangelio”, *giraldetea* “giraldete”, *giratu* “girar”, *magestadea* “magestad”, *Sexagesima* “Sexagésima Dominica”, *sugetoa* “sugeto”.
<je, ji> *jericotarra* “rosa de Jericó”, *sujetatu* “sujetar”.
<ja, jo, ju> *ajonjolia* “ajonjoli”, *ajustatu* “ajustarse”, *pujanza* “pujanza”, *puja* “puja”, *tajatu* “tajar”, *tajoa* “tajo”.
<x> *axedreza* “axedrez”, *caxa* “caxa”, *caxoya*, *caxoea* “caxón”, *exemploa* “ejemplo”, *exercito* “acampamento de el ejército”, *quixotada* “quixotada”, *quixotea* “quixote”, *xagua* “xagua”.

Araua hautsi zuen kasu bakanetan, gainera, ia beti <j>-ren alde egin zuen:

1) Mailegutan, batez ere euskaraz berezko ahoskera dutenetan —mailegu iruntsietan— edota euskal etimologidun hitzetan:

bajoya “baxón de música”, *bajoichoa* “baxoncillo”. *equersitu* “ejército”. *queja*, *queisa* “quexa” (etim.), *quejatu* “quexarse”.⁴³⁷ *quisyera* “quijera”, *quijera*, *quisyera* “quijero” (etim.).

2) <x> hitz hasierakoa denean:

a) gazt. <x> / eusk. <j> (edo <g> e,i aurrean):

jabequea “xabeque”, *jaboea* “xabón”, *jacara* “xácara”, *jacaroea* “xácara”, *jandaloea* “xándalo, sándalo” (baina cf. *menda samurra* “sándalo”), *jaquea* “xaque”, *jaqueta* “xaqueta”, *jarabea* “jarabe”, *jarcia* “xarcia”, *jaropatu* “xaropar”, *gicara* “xicara”, *jubetea* “xubete”, *juta* “xuta”.

b) gazt. <x> / eusk. <ch>

chalchalcotala “xalxaco[t]l”, *chametea* “xamete”, *chibia* “xibia” (etim.).

c) gazt. <x> / eusk. <s>

serga “xerga”, *siringa* “xeringa” (etim., *giringa* baten bitartez).

d) gazt. <x> / eusk. <g> (?):

galapa “xalapa, una raíz de Indias”.⁴³⁸

Beste horrenbestetsu esan behar dugu gazt. <x> = /ks/-ri buruz: idazkera berbera gordetzen du euskaraz (1), mailegu iruntsiak direnean izan ezik (2):

(1) *examina* “examen”, *examinatu* “examinar”. *excelencia* “excelencia”.

(2) *escumicatu* “excomulgar” (1733), *escumicua* “excomunió” (1627). *escusa* “excusa” (1545).

8.4.13. <h>

Larramendik hitz batzuk bakarrik idatzi ohi zituen <h>-az; berehala igerriko diogu:

LET: *hori* (30), *Hiri*, *Hiriac* (31), *Hiri* (32), *hori*, *hizcuntzari* (33), *hau*, *bihotzarequico*, *hori*, *Hitzetatic*, *hizcuntzari*, *hor*, *hizcundeen*, *hitzeguiteco*, *hizcuntza*, *hitzaren* (34), *hilen*, *hura*, *hori*, *hitz*, *hitzaren*, *hitzeguin*, *hizcunzan*, *hitzera*, *hizqueta* (35), *hizcuntza*, *hizjario*, *honragarriena*,

⁴³⁷ Ohartu, dena dela, gazt. <quexa> izan arren, lekua <j>-rena dela, eta hitzak euskal etimologia duela.

⁴³⁸ Amerikako hitzekin hartu ditu erabakirik ezberdinenak: *juta* “xuta, pájaro de las Indias”, *xagua* “xagua, fruta de Indias” eta *chalchacotala* “xalxacotl, árbol de Nueva España”, eta ez da harrigarria, hein batean bederen, *DAut*-ek ahoskapenari buruzko ezer ez dioenez.

hitzcundeetatic, hitz, horiec, hitzera, zuhur (36), hori, haren, harc (37), hizcuntzac (38), hiruroguei (39), Hau (40), hau (41), hizqueta, ohore (42), iheslecu (43), hipuynac, hume, hura (44), hori, hura, hume, hitzic (46), hizcunde, hitzeguin, holocaustoric (49), herituco (51), honragarria (52) hizcho, humildadez (53), honretan, deshonoragarri (56)...

Testuen artean ezberdintasunen bat dagoen arren, maileguak (*honra, holocausto...*), erakusleak eta hitz jakinen bat (*hitz, hume*) salbuespen gutxirekin <h>az idazten ditu beti. Maileguak oraingoz alde batera utzita, antzeratsu dabil *HH*-an, baina are salbuespen gutxiagorekin; erakusleetarako ematen dudan banaketa (*au / hori, hura / orren, aren...*) erabat zorrotz betetzen du:

humea "chico", *humealdia* "camada", *humbichia* "ahijado", *humequiña* "prolífico", *humequita* "procreación", *humequeria* "caduquez", *humequia* "feto", *humelqui* "parir", *humerría* "cabrita" / *umerria* "cordero", *humechoa* "cachorro", *humezurtza* "huérphano"...

hitza "palabra", *hitzaburra* "epilogo", *hitzaldaira* "hypérbaton", *hitzaldia* "plática", *hitzartea* "interlocución", *hitzaurrea* "prólogo", *hitzeguin* "hablar", *hitzontzia*, *hizjariora* "hablador", *hizqueta* "conversación", *hizquindea* "retórica", *hizcuntza* "lengua", *hiztarra* "verbal"...

au "éste", *ona* "acá", *onen* "(a) vista de esto".

hori "ésse", *orren* "respecto de esso".

hura "aquél", *aren* "su".

Halaz ere, *LET*-n batzuetan bezala (cf. *bihotzarequico, zuhur, ohore, iheslecu...*) *HH*-an badira <h>az idatzitako bestelako hitzak ere, Iparraldeko idazkerari batzuetan amore eman ziolako seinale. Adibide gutxi batzuk baino ez:

Bokal artean: *ahalquea* "confusión", *ahalcatu* "avergonzar", *ahanci* "desacordarse". *aharanza* "conversación". *behatu* "acechar". *ehortzi, ohortzi* "sepultar". *ihaquina* "remedo". *ihardtzi* "responder". *iharrosi* "sacudir". *lihoa* "lino". *nihola, niholaz* "(de ninguna) manera". *nihon* "(en ningún) lugar". *nihor* "ninguno". *ohatzea* "nido". *ohoratu* "honrar", *ohorea* "honor". *sehia* "doméstico". *uherritu* "menear". *uhiña* "ola". *zuhaina* "forrage". *zuhaitza* "árbol". *zuhirindu* "concomerse". *zurra, zuhurra* "prudente".

Hitz hasieran: *habea* "coluna". *haguna* "espuma". *halsarrac* "entrañas". *hastandu* "disgustar". *hatseman* "abahar". *hauzua* "lícito". *hebaina* "flaco". *hedea* "correa". *herra* "odio". *heuraguia* "verisimilitud". *heiagora* "alarido". *higatu* "gastar". *higuingarria* "desagradable". *hil* "fenecer, morir". *hildoa* "surco". *hobena* "crimen". *hoguena* "pecado". *hostatu* "(llenarse de) hoja". *hudígoa* "enemistad". *humoa* "maduro". *hunquitu* "acertar, tirando algo".

<h> egotea, beraz, Iparraldeko iturri baten aztarna izan daiteke. Salbuespen gutxirekin, ordea, hauek eta honelakoak aldizka bakarrik agertzen dira <h>az idatzita, eta baliteke Iparraldeko hitzen batzuk beti ere gabe agertzea, hala nola:

bearria "oreja". *beaztopa* "tropezón". *beeratzapena* "abatimiento". *erabea* "vergüenza". *erstura* "apuro". *leyatuqui* "aprisa". *meachatu* "amenaza". *noaroina* "mendigo".

Derradan, azkenik, *erhia* "dedo" eta *inhurria* "calambre" bakarrik aurkitu ditudala, besteren bat egotea litekeen arren, Iparraldeko testuetan aurki zitzakeen <h>dun kontsonante-talde zein digrafoetarik; cf. ordea:

burezurra "calavera". *matela* "carrillo". *oroitu* "acordarse". *unatu* "cansar". *cileguia* "permitido". *zocoa* "rincón"...

Bestalde, ez dirudi *HH*-an *hume* ezagunaz kanpora ahoskerari zor ez zaion <h>rik dagoenik oro har, *hurtatu* "regar"-en familian izan ezik. Bakan batzuetan, dena dela, lekuz kanpo edo soberan aurkitzen da, hiztegi gilearen zein inprimatzailearen erruz, baina oharkabean, nolana ere:

hasta maiza "alcandia" (cf. *astagarbanzua* "astrágalo", *astailarra* "aphaca", *astacañabera* "cañaheja", *astalbac* "albahaca silvestre"...).

hiaute "(domingo de) carnestolendas" (cf. *iauteriac* "carnestolendas").

Maileguei dagokienez, euskal etimologiaren eraginez <h>rik ez dutenak asko dira; hona HA-HE zatian aurkitu ditudanak:

aberia "habería". *acendatu* "hacendar", *aciendachoa* "hacendilla", *acienda* "hacienda". *abrolla* "hadrolla". *aiz* "haiz". *arpa* "harpa". *arpeoa* "harpeo". *arpillera* "harpillera". *arpoya* "harpón". *arpia* "harpya". *ebilla* "hebilla". *embra* "hembra". *eraldetarra*, *eraldearra* "heráldico", *eraldoa* "heraldo". *eritu* "herir". *errementaria* "herramental", *erremienta* "herramienta". *erbera* "hervero".

Hiru salbuespen aurkitu ditut, bi oso, haietako bat lapurteraren idazkeraren eraginez, eta bat erdizkakoa, eratorri guztiak <h> gabe agertzen dira eta:

hatua "hato" ("de el Bascuence Labortano").

hazaña, *azaña* "hazaña", *azañeria* "hazañería", *azañaria* "hazañero", *azañosquiro* "hazañosamente", *azañotsua* "hazañoso".

heregea "herege", *heregia* "heregia", *heregetzara* "herejote".

Egia esan, ia ez da etimologiarik ez daukan mailegurik *HH*-ko <h> letran; diren apurretan, dena dela, badirudi <h> galtzeko joera handia dela, letra honetatik kanpora bestela ager badaiteke ere:

abitua "hábito" baina *habitua* "mongil". *arre* "harre". *echura* "hechura". *olanda* "holanda", *olandilla* "holandilla". *orchata* "horchata".

Eta gorde, hitzik arraro edota jasoenetan bakarrik gorde dela (erreparatu kontsonate arteko <y>ren mantenketari ere):

halifa "halifa". *harmonia* "harmonía". *hebreoarra*, *hebreotarra* "hebraico". *Herculesarra* "hercúleo". *hyblatarra* "hybleo". *hiena* "hyena". *hyssopoa* "hyssopo".

8.4.14. <ll>, <il>, <ill>

Joera <ll> erabiltzea da, guztiz bokal artean, baina baita hitz hasierako kasu bakanetan, eta batzuetan hitz bukaeran ere:

LET: illunac (16), *illargui* (19), *otzaillaren* [sic] (19), *dabill* (21), *sail*, *isill*, *ibilli*, *naspillatic* (22), *billa*, *dabillenean* (24), *illun*, *nabillela* (25), *balleracoac*, *sallari*, *isillic* (26), *dedilla*, *milla*, *Erabilli* (29), *dollor* (30), *naspillac* (31), *cedilla*, *billatu* (32), *erabilliaz*, *llilluramenduac* (33), *erabilli*, *sail*, *naspillai* (34), *ereille*, *soilla*, *milla* (35), *erabilliaz*, *billatu*, *gendalla* (36), *sail*, *soilla* (39), *iraillean*, *ill* (44), *batallaren* (47), *gaitzguillea* (48), *dollorqueria*, *criatzallea* (49), *eralle* (50)...

Dena dela, bukaeran sarritan <l> besterik ez dakusgu:

LET: Hil (17), *nabil* (25), *mutil* (30), *dabil*, *nabil* (39).

Idazlanetako banaketa berbera idorotzen dugu *HH*-an, *sail* beti honela idazteko joera ere barne:

ballera "cofradía". *billa* "busca", *billatu* "buscar". *dabil* "corre, que" / *dabillena* "fugitivo". *dollorra* "bellaco". *erabilli* "menear" / *erabiltea* "coleo". *erallea* "assassino". *ereillea* "sembrador". *gendalla* "gentalla". *ibilli* "andar" / *ibiltea* "bamboleo". *illuna* "oscuro". *isil* "(punto en) boca", *isildu* "callar" / *isilla* "callado". *llillura* "fascinación", *llilluratu* "fascinar". *milla* "mil". *naspilla* "enredo" / *naspildu* "intrincar". *otsailla* "febrero". *sail* "almacigado", *saila* "tablar" / *saildu* "tablear". *soil*, *soilla* "sollozo" (etim.), *soill*, *soilla* "solo", *soillic* "sólo". *cedilla* "absolutamente".

Azpinarra daiteke <ill> grafia <ll>-ren ordean oso bakana dela hiztegian, eta beti ere jadanik ongi lekukotutako hitzetan agertzen dela; halaz ere, <ll> ere emateko joera agerian dago:

beilla “velación”, *beillan* “velar”, *beilla eguin* “velar a un difunto” / *bella eguin* “trasnochar”, *bella* “vela”, *bellan* “(en) vela” (*beilla* 1571). *paillarta* “fornicador” (*paillart* 1571). *tallua*, *taillua* “estatura” (*thaillu* 1571).

Salbuespen bat egin behar dugu: hitz elkartuak, non batzuetan behintzat lehenengo osagaiaren <-l> bukaera gorde egin duen, bokal artean geratu arren:

ileuna / *illoyala* “mortaja”, *ilezcorra* “immortal”, *hiloa* “féretro”. *isilaraci*, *isilerazo* “acallar”, *isileraguillea* “acallador”.

Gainerantzean, beraz, bokal artean <ll>rik ez dagoenean, bestelako ahoskapenaren (cf. *cincilica*, *LET* 32) edota bestelako tradizio idatzi baten aurrean gaudela ziurtzat eman dezakegu:

biloa “pelo”. *biloba* “biznieto”. *biluza* “desnudo”. *dilindaca* “colgar”. *dilista* “lenteja”. *ilintia* “tizón”, *ilíncha* “tizo”. *quilia*, *quilica*, *quilimela* “cosquillas”. *cila* “ombigo”. *cilatu* “agujerar”. *cileguia* “permitido”.

Batzuetan bi tradizioetako —bi ahoskeretako— formak elkarrekin bilduta aurkitzen ditugu, dena dela:

bilauna, *billaua* “villano”. *illarguia*, *ilarguia* “luna”. *illarra*, *ilarra* “alverja”. *ilea*, *ulea*, *illea* “vello”. *illuna*, *iluna* “lóbrego”.

8.4.15. <ñ>, <iñ>, <in>

Sudurkariaren kontua korapilotsuxeagoa da. Berez, bustidura markatzeko ohiko grafema <ñ> hutsa da, bokal artean beti eta hitz bukaeran zalantzaz (baina albokarian baino nahikoa maizago), hitz barruko inplosiboan markatzen ez den bitartean (cf. *ainbeste*, *jaquintsu*):⁴³⁹

LET: *carmiñez*, *jaquiñez*, *baña*, *urdiñ*, *ciquiñac* (14), *baño* (17), *Españarren*, *fiñ* (18), *Españan* (20), *latiñezco*, *aiñ*, *iñor*, *iñarrusi* (21), *iñon*, *baña*, *aiñ*, *oñen*, *beiñ*, *Españian* (22), *ciquiñ*, *berdiñ* (23), *baña*, *jaquiñezac* (25), *ain*, *ecin*, *Españian*, *españiar*, *min* (26), *iñori* (30), *iñoiz*, *baña*, *alabañan*, *miñena* (31), *baña*, *Madridaño*, *iñon*, *eguiñen* (32), *jaquiñ* (33), *baña*, *aiñ*, *ain*, *mingañari*, *baño*, *bezaiñ*, *bañan*, *equiñaz* (34), *baña*, *siñis*, *Alabañan*, *diña*, *eciñ*, *beiñ*, *Latiñera*, *beiñ* (35), *Españar*, *anciñacoen*, *fiñena*, *Latiñetic*, *baña*, *bezaiñ*, *baño*, *jaquiñac*, *jaquiñezen*, *jaquintsuac* (36), *jaquiñ*, *beiñ* (37), *anciñaco*, *Virgiñari* (38), *labaiña*, *ainbeste*, *eguin*, *gueiagoraño*, *ain* (39)...

Dirudienez, *aiñ* / *ain*, *beiñ* edo *bezaiñ* hitzetan ez bezala, *gain*, *orain* eta *cein*-en bederen zalantzak izaten ditu berezko *i* jaso ala ez:

LET: *gañean* (14), *gañeracoa* (18), *gañez*, *gañera* (34), *gaiñ* (35). *oraño* (20), *orañago* (31), *oraiñ* (34), *oraiñ* (37). *edoceñec* (14), *ceñaren* (18), *ceiñen* (31), *ceña* (32), *ceiñ*, *ceñean*, *ceñetan* (34), *ceñean* (35), *ceña*, *cein* (36), *ceñean* (37).

Hiztegiko grafia oraindik argiagoa da; honako hitz guztiotan <BñB> vs <n#> banaketa berresten da:

ainbeste “tanto como”. *baña* “pero”. *baño* “antes que”. *berdin* “igualmente” / *berdiña* “igual”. *virgiña* “virgen” / *virgintasuna* “virginidad”. *diña* “digno”. *equin* “exercer” / *equiña* “oficial”. *fiña* “fino”. *iñarrusi* “sacudir”. *jaquin* “saber” / *jaquiña* “sabido”. *latiña* “latín” / *latindu* “latinizar”. *ciquin* “puerco, sucio” / *ciquiña* “sucio”.

Eta ondokoetan, salbuespenen bat egon arren, agerraldi gehienak aipatu banaketaren alde daude; salbuespenetatik batzuk, gainera, sarrera berean agertzen dira, albokarian bezala:

⁴³⁹ Bada *ancinaco* bat (*LET* 18 = Larramendi 1729: 391) ohiko *anciña*-ren orde, baina baliteke denok erabiltzen dugun faksimilearen akatsa izatea: nire alean behinik behin, <n>aren gainean makiltxoaren aztarnatzat har daitekeen zikintxo bat dago. Jatorrizkoan egiaztatu beharko da, beraz.

anciña “antiguamente”, *anciña*, *ancina* “ancianidad” (etim.). *eguin* “hazer”, *eguiñ* “(hazer) figuras”, *eguiña* “hecho”. *ecin* “imposible”, *eciñ* “aguantar”, *eciña* “impotencia”. *iñor*, *inor* “nadie”. *jaquiñez* “ignorante”, *jaquinez* “lego”. *miñ*, *min* “doler”, *miña*, *samiña*, *mina*, *samina* “amargo”. *urdiña*, *urdina* “azul”, *urdiña* “canas”, *urdiñ* “acaparrosado”, *urdiñ* “lapislázuli”.

Beheranzko diptongoetan banaketa normala <BñB> vs <in#> edo <iñ#> da, hots, <i> inplosiboan bakarrik azalerazten da, eta salbuespenak oso-oso gutxi dira; gainera <in#>ren adibideak hitz guztietan gehiago izaten dira <#iñ>renak baino:

ain, *aiñ* “tan”. *bein* “(una) vez”, *beiñ* “(en fin, por) abreviar”. *bezain* “claro como el agua”. *labaña* “resbaladizo”, *labaiña* “soflamero”. *mingaña* “lengua” / *mingaingabea* “deslenguado”, *mingainchoa* “lengüecilla”. *oin* “(de) puntillas”, *oiñ* “(a pie) enxuto”, *oña* “pie”. *orain* “ahora”, *oraiñ* “acabar de venir”, *orañago* “poco ha”, *oraño* “hasta ahora”, *oraiño* “(hasta) aquí”.

Halaz ere, ustekaberen bat badugu: *carmina* “amargo” idazten du *HH*-an, eta *siñistu* “creer” eta eratorrien aldamenean (*siñisgarria* “creíble”, *siñisguea* “descreído”...), *sinistu* “persuadirse” eta eratorriak (*sinisezgarria* “apócrifos”, *sinisgarria* “credibilidad”, *sinisquizona* “creíble”, *siniscoya* “crédulo”, *sinistea* “creencia”...) gehiago dira.

Badirudi, beraz, albokarian bezala hemen ere beste tradizio baten —eta beste ahoskera baten— aztarnak daudela:

baña, *bañan*, *bainan* “pero”. *dañua*, *dainua* “daño”. *fuinac* “seso(s)”. *guinarreba* “suegro”. *queinatu* “amagar”. *leinua* “alcuña” vs *leñu* “cabeza de linage”. *mainada* “familia”. *maina*, *mahaina* “mesa”. *ninia* “niña”, *ninicatu* “brotar”. *soiña*, *soina* “hombro” vs *soñean* “acuestas”, *soñecoa* “vestido”.

Beste era bateko salbuespenak dira mailegu ez iruntsiak, noski: *quina* “quina” edo *pinua* “pino” bezalakoak.

8.4.16. <mp>, <mb>

1821 arte ez zen zalantzan jarri gaztelaniaz bezala euskaraz ere eta <p> aurrean nahitaez <m> idatzi behar zela (Urgell 1987a: 368-369). Larramendi, jakina, usadio horri zeharo atxikia dakusgu:

LET: *gambara*, *illumbean* (14), *aimbat*, *ceimbat* (17), *lembicico*, *aimbeste* (22), *Alambere* (24), *aimbeste*, *pimpilimpausa* (26), *lembicicoa* (27), *barrumbeari*, *cembat*, *lembicico*, *nombait* (34), *jaquimbidea* (35), *lembician* (36), *gaimburuco* (82).

HH: *aimbat*, *ambat*, *aimbeste*, *ambeste* “tanto, tanta”. *alambere* “obstante”. *barrumbea* “albergue”. *gaimparatu* “sobreponer”. *gambara* “desván”, “quarto de casa”. *illumbean* “(a) obscuras”. *lembician* “primeramente”, *lembicicoa* “primero”. *nombait* “(en algún) lugar”. *pimpoila* “grano”. *pimpaleta* “barrena”. *pimporta* “grano, en la cara”. *cembat* “quánto”.

Nahiz *HH*-ko agerraldi guztiak begiratu ez, ez eta gutxiagorik ere, <nb> pare bat aurkitu ahal izan dut; honek berresten ditu *LET*-eko salbuespenak, batzuk behinik behin, hasiera batean argitalpenaren akatsak zirelakoan banengoen ere:

LET: *minberacor* (34), *ainbeste* (39), *minberaatu* (52), *lenbician* (77), *ainbeste* (79).

HH: *jaquinbidea* “catecismo, libro”. *minberatu* “despearse” / *mimberatua* “dolorido”. Cf. *mimbiciaz* “encancerarse” vs *min bicia* “cáncer”, *min biciz* “canceroso”.

Bistan da inoiz edo behin Larramendik bestetan ere darabilen idazkera etimologizaleari amore eman diola honelakoetan.

8.4.17. <lz>, <nz>, <ltz>, <ntz>

Larramendik ozen ondoan frikaria jasotzeko halako joera bat dauka, idatzi batzuetan bestetan baino gehiago; zehazkiago, Mendibururi egindako gutunean (1747; *LET* 33-37. or.) ia beti frikaria ematen du; hein txikiagoan, halako zerbait antzematen da Azkoitiko sermoian ere (1737; *LET* 44-57).⁴⁴⁰ Salbuespen argi modura, *-tza* atzizkia bakarrik aipa daiteke:

LET: *cebiltzan* (14), *ausartzi* (18), *carsu*, *ausartziac* (20), *hizcuntza* (21), *hitzontziac*, *isiltzeco*, *hizcuntza*, *antza*, *hizcuntzetatic* (22), *hizcuntza*, *artzen* (26), *dabiltzan* (30), *dabiltzan*, *cebiltzan* (31), *biltzeco*, *biltzen*, *auciabarzac* (32), *zabiltzala*, *hizcuntzari* (33), *darabilzu*, *dabilzan*, *hizcuntza*, *Euscalerrientzat* (34), *hilcen*, *eztabilza*, *badabilza*, *ansi*, *enzunle*, *Euscaldunentzat*, *hizcunzan*, *hizcunza*, *enzule*, *bulzaca*, *ayentzat*, *minzoa* (35), *hizcuntza*, *galtzen*, *anciñacoen*, *aguertzeco*, *cintzo*, *jaquintsuac* (36), *darabilzun*, *mintzo*, *artzeco* (37), *anciñaco*, *hizcuntzac* (38), *Franciaco*, *Galtzeco*, *elzartu*, *ortz*, *antza* (39), *alabanza* (41), *arzaz*, *alabantzac* (42), *balanza* (44), *cecartzien*, *guentzan*, *Eranzungo* (45), *zabiltza* (46), *bostorzatu* (48), *anza* (49), *aranzetan*, *dacarciten* (50), *preciatuenzat* (74), *ancecoa* (76).

HH-an idatzietan hartutako hitz berak aztertuaz, lau talde egin daitezke: (1) beti afrikatua daukatenak; (2) afrikatua nagusi; (3) paretsuan; (4) beti frikaria; (5) frikaria nagusi:

- (1) *agertzen* "registro de las mercaderías". *auciabartza* "pendencia". *biltzea* "acceso", *biltzen* "(iglesia) cathólica". *bostortzatu* "arar con el bostortz". *dabiltza* "(están jugando a la) pelota", *dabiltzanac* "andante". *darabiltza*, *darabiltzi* "abusar", *darabiltzute* "qué hazeis, cathólicos?". *galtzea* "pérdida". *hitzontzia* "hablador". *hizcuntza* "lengua". *jaquintsua* "docto".
- (2) *artzecoa* "(tener que) aver", *arzen* "abortar". *ausartzia* "determinación", *ausarcia* "atrevimiento". *bultzaca* "(a) empujones", *bulzaca* "(a) empellones". *dacartzi* "administrar", *dacartzien* "clavera", *dacarzu* "(esto) apesta". *hiltzen* "apique está de", *hiltzer* "agonizar", *ilcer* "moribundo". *mintzoa* "habla", *minzoa* "acentuar en lo hablado". *ortza* "diente", *ortzatua* "dentado", *orzaz* "abocar". *cintzoa* "ábil", *cintzoro* "mañosamente", *cinzoro* "ábilmente".
- (3) *antza* "semejanza", *anza* "assimilar".
- (4) *alabanza* "alabanza". *anciña* "antiguamente". *aranza* "espiná". *arzaz* "(me) valgo de tí". *balanza* "balanza". *eranzun* "responder".
- (5) *ansia* "ansia", *antsia* "cuidado". *enzule* "abad", *enzun* "oir", *entzun* "escuchar", *entzunlea* "oyente".

Dakusgunez, joera nagusia afrikatuak jasotzea da, guztiz aditizenetan (*agertzen*, *biltzea*...) eta adizkietan (*dabiltza*...), hala nola atzizki jakinetan (*hizcuntza*, *jaquintsua*...). Hala eta guztiz ere, hitz batzuetan aurkako joera dugu, batzuetan etimologiadunak (*alabanza*, *anciña*, *ansia*) edo maileguak (*balanza*) besterik gabe direlako, edo atzizki jakinak (*arzaz*). Bestelako azalpena behar dute, agerian denez, *enzun* / *eranzun* ia sistematikoek.

8.4.18. <sk>

Larramendiren idatzietan, argitalpena fidagarria baldin bada, bi txistukariak bata bestearen truk ager daitezke inposiboan leherkari aurrean:

LET: *escutagai* (18), *eztali* (30), *estueta* (36), *Euzquerearen* (39), *gustioc* (40).

⁴⁴⁰ Ez dirudi data kontua denik: gramatikan (1729; 13-20. or.), hiztegiko hitzaurrean (1745; 21-24. or.), *Corografía*-n (1754; 25-27. or.) eta *Sobre los Fueros*...en (~1757) ia dena afrikatua da; paretsuan *dabiltza* frikari eta afrikatuak Gandararen gutunean (1763; 38-40. or.), etab.

HH-an ere joera horren adibideak kausitzen ditugu, baina esan behar da gehienetan agerraldi bakanak direla jatorrizko txistukaria jasota daukatenen aurrean; ezaxola pixka bat izan liteke, beraz, baina nagusiki <s> <z>ren ordeztu dago:

escontza “maridage”, *ezcontzaidetza*, *escontzazco* “afinidad”, *escontzaidetza* “afines assi”, *escontzen* “capital”. *escozuya* “hacha”, *escozuilea* “hachero” / *ezcozuicada* “hachazo”, *ezcozuichoa* “hacheta”. *espata* “(espada en) cinta”. *esta* [= ‘ez da’] “(esso no tiene...) hechura”, “salutación angélica”. *estarriz* “guturalmente”. *estena* “punzón”, *estichoa* “dulcecito”. *ezcuztatu* “tratar, tocar algo con las manos”, *ezcuztatua* “tratado”.

Alabaina, gehienetan hitzak “zuzen” jasota daude; cf., adibidez:

ezcalu “garapita”, *ezcalua* “bermejuela”, *ezcallu* “xaramugo”. *ezcata* “escama”. *ezquela* “bisojo”.

Aldaera zenbait elkarrekin edota pareko maiztasunez agertzea, beraz, belarria irmo izan zuelako seinale izan liteke:

ezcaratza “cocina”, *escaraza* “portal”, “zaguán”. *esquilla*, *ezquilla* “campana”.

Batzuetan aldaera “nagusia” agerraldi nagusiko familian agertzen da, eta bestea, berriz, gutxi-asko sakabanatuta:

ezpartzua “esparto”, *ezpartaria* “espartero”, *ezpartzuaga* “espartizal”... / *esparzua* “atocha, esparto”, *esparzuaga* “atochal”, *esparzuzco* “alpargata”, *espartuzco* “líá”...

Antzera gertatzen zaigu *esne* / *ezne* bikotearekin:

eznea “leche”, *ezne-saltzallea* “lechero”, *eznabelarra* “lechetrezna” / *esnezcoa* “lácteo”, *esnajaquiac* “lácteos”, *esnacraca* “lactumen”, *esnabidea* “Vía Láctea”.

8.5. Mugatzailea eta hitz bukaerako hiatok

Euskal zatia arakutzen hasi orduko nabaria izan zen mugatzailea eta hitz bukaerako hiatok arazotsu suerta zitezkeela, baina arazoaren benetako sakonera III. ataleko corpusa aztertu arte ez zen agertu. Izan ere, hitzez hitz aritzean batzuetan erraza zirudien forma mugagabea erabakitzeak, dela familiako beste hitzen, dela bestelako lekukotasunen laguntzaz; maizegi, ordea, datuek elkar geurtatzen zuten, edota ez zegoen euskarri argirik. Arazoa aurretiaz eta orokorrean konpondu ezean, hainbat hitzen forma mugagabea kolokan geratzen zen, baita haietatik ateratako elkartu-eratorrietako balizko hots-aldaketak ere.

Honegatik, bi gai hauek *HH*-ko euskararen aurkezpen honetan sartzea erabaki nuen, berez III. ataleko azterketaren ondorio izan arren, aldi berean han egingo diren baieztapen eta aterako diren ondorio askoren oinarrian baitaude. Alabaina, lanaren kronologiari egiten diodan iruzur ttiki honek nahitaez eskatzen du III. atalean bakarrik behar bezain egoki argudiatu ahalko ditudan hipotesi batzuk onartzea; hipotesi hauek bai orokorki *HH*-an erabili diren iturri edo sorbideei, baita hitz jakin zenbaiten etorki edo eraketari dagozkie. Bigarren motakoak bidalketa-deien bitartez nolabait konpon ditzakedan bitartean, zilegi bekit lehenengoak azaltzea, gaingiroki baino ez bada.

Lehenik eta behin, jakintzat emango dut Larramendik *HH*-an ahozko hitzak ere —eta ugari— jaso zituela, herrietan egin zituen galdeketen ondorioz (Larramendi 1745: lii-liiii; R. M.

Pagola 1992) eta, gainera, hitzok ez direla nahitaez gipuzkerazkoak, are gutxiago hiztegi-gilearen jaioterrikoak, hizkera eta euskalki ezberdinetakoak baizik (oro har, ik. III, § 12). Bigarrenik, jakintzat emango dut literatura iturri garrantzitsua izan zela, eta hiztegia osatzeko hitzaurrean aipatzen dituen liburuak oro hustu zituela, hitzak ez eze hitz berrietarako gaiak ere —oinarriak, atzizkiak zein elkarbideak— erdietsiaz (§ III, § 9). Hirugarrenik, jakintzat emango dut gertakari zenbait halabeharrezkoak direla —hots, Larramendik nola jaso hala transkribatutakoak—, baina beste zenbait sistematikoak, hau da, delako fenomeno bati eman zion interpretazio eta hedaduraren ondorio; bestela esanda, Larramendi batzuetan lekuko huts izango dugu, eta bestetan materiala lantzen ere jakin zuen hizkuntzalari modura azalduko zaigu (III, § 1). Ildo honetatik, eta laugarrenik, jakintzat emango dut elkartu-eratorri asko Larramendik eginak direla, euskarari buruz zekiena profitatuaz hizkuntza berez aberasteko asmoz, eta elkarbide zein eratorbidean jokarazi zituen arauak trinkoak direla, eta eskurakoiak (III, §§ 2 eta 3). Eta, azkenik, jakintzat emango dut euskarari buruzko berri bila toponimia-antroponomia ere aztertu zituela, eta azterketa haren ondorioz arlo hauetako hitzak, atzizkiak eta egiturak oro har bere egin zituela (III, § 8).

Premisa hauen gainean bakarrik uler daitezke alor honetan aurkituko ditugun gertakari ñabarrak. Arazoa ez litzateke hain larria izango, demagun, lapurtera hutsezko hiztegi baten aurrean bageunde, zeren eta ziurrenik hitz ezezagun gutxi batzuetan bakarrik izango baikenuke zalantzako motiborik. Baina, izan ere, euskalki bat baino gehiagotako eta hizkera bat baino gehiagotako informazioa biltzen duen hiztegi bat aztertzen ari gara: hitzek berezko -a galdu duten eta galdu ez duteneko hizkerak, eta hitz bukaerako hiatoei aterabide ezberdina eman dioten hizkerak islatuta daude *HH*-an.

Halaz ere, ez *HH*-ak gehienetan laguntzarik eskaintzen du, ez hiztegi-gileak bildutako datuak beti zuzen ulertu zituela esateko ziurtasunik ere dugu: maiztasun ezberdineko gertakari multzo bat baino ez. Nahiz kasu guztietan behin betiko aterabiderik emateko ahalbiderik izan ez, orokorrean gauzak nola dauden ikusi ahalko dugu, gero hartu beharreko erabakien lagungarri.

Esan gabe doa, bidenabar, grafia xeheki aztertu ondoren hemendik aurrera *HH*-ko euskal hitzak gaurko eran letraldatuko ditudala, behar den bezala, non eta alderantziz egiteko arrazoi berezirik ez dagoen.

8.5.1. Berezko -a?

HH-ak puntu bereziki ahul bat dauka: edonor zoratzeko moduko -a itsatsiarekiko nahaste-borraste izugarria. Espero ez dugun hitzetan agertzen da, eta espero dugunetan ez. Jakina, faktore ezagun bat baino gehiago zituen bere kontra: euskalkiz gipuzkoarra izatea (Mitxelena 1977a: 131-132)⁴⁴¹ eta ezagutzen ez zituen hitzetan asmatzen ibili beharra, bestek

⁴⁴¹ *HH* galeraren lehendabiziko lekukotasun handia bide dugu, zeren eta ez Otxoak ez Irazutak jasotzen baitute oro har; Lakarra 1984an, begirada arin batean, honakoak aurkitu ditut: *eleizaco* (Iraz 40), *eleiza santa* (OA 3), *gauzaric* (Iraz 6, OA 47), *inportantciaric* (OA 129), *justiciaco* (OA 137), *concientciaco* (OA 134), *legamia bagueco* (OA 45).

beste. Gauza guztiak ez daude behar bezain argi, gainera; cf., adibidez, Mitxelenak *aldia*-z esana:

Es un tanto desconcertante el empleo de *aldia*, por *aldi* 'vez, etc.' en autores guipuzcoanos, ya desde O. de Arin. Con todo, Ax[ular]. 63 tiene *aldia batez*, que puede no ser errata, ya que se repite en la 2ª ed., como acaba de señalar Villasante, *Gero*, Jakin, Arantzazu, 1976, p. 48. (Mitxelena 1977a: 500).

Honi erantsi behar zaio hitz askoren beste lekukotasun bakarria, Azkueren hiztegia, ez dela oso fidagarria, nik uste, egileak zalantzazko kasuetan *-a* kentzeko joera nabarmena baitauka; cf., adibidez, Ax. 215 *albenia* (*oihalaren albenia eta bazterra*) vs Azk. *albeni* (cf. gazt. *albenda*). Berberera jo du sarritan *OEH*-ak ere, nahiz honena alde barkagarriago izan, Larramendiren hitz batzuekin itsuka aritu beharra izan baitu, hala nola *arpetz* hautatzen duenean *-tza* atzizkiduna bada ere (cf. *arpetza* "declaración" edo *arpetze* "interpretación" < *arpeztu* "declarar", "interpretar"; xehetasunetarako, ik. III, § 2.1.12); baina sarri mailegu argietan ere huts egin du: *aberi* "avería", *angurri* "angurria", *arlanx* "lancha" eta *albeni* bera (alderantziz *alabea* "alabe"-n!), batzuetan lekukotasun berriagoei akritikoki jarraiki.⁴⁴²

Dakigunez, berez *HH*-ak forma mugatua bakarrik ematen du (§ 8.1.1), baina ordain perifrastikoeak, esapide edo adibideek hitz batzuen forma mugagabea eskaintzen dute eta, bestela, elkartu-eratorrietan aurki daitekeela dirudi, hasiera batean behinik behin. Halaz ere, hitz mordoska batean *HH*-ak ematen dizkigun datuak zalantzazkoak dira edo, are sarriago, elkarren aurka datoz:

a) *-ia*-z amaitzen diren hitz zenbaitetan *-i* mugagabea aurkitzea espero genezakeen (Mitxelena 1977a: 131): *abi(a)*-tik *abikaiztu*, *artegi(a)*-tik (< *egia*) *artegitu*, *azkai(a)*-tik (cf. *ezkabia*) *azkaitsu*. Bitariko eraginak aukezten dituzte, aldiz, *aitzaki(a)*-k (*aitzakiagarri*, *aitzakiatu* vs *aitzakiagarri*, *aitzakiezgarrri*), *antsi(a)*-k (*antsiarik*, *antsiakiro*, *antsiati*, etab. vs *ansidun*, *ansikabe*, *antsikaitz*, etab.) eta *ai(a)*-k (*aia mota bat* vs *ailoizoki*).

b) Berbera gertatzen da *-a* gabekoak izan litezkeen zenbait hitzekin: *aldi(a)*-tik *aldiz*, *alditsu*, etab. baina *aldia batean*, *aldiako*, *aldiadun*, etab.; *altsi(a)*-tik (Azk. *altsi*, baina cf. gorago esana) *altsiatu* baina *alsiki*; *abodi(a)*-tik (< *odi(a)*) *abodiatu*, *araldi(a)*-tik (< *aldi(a)*) *araldiaka* baina *araldizale*, *artzi(a)*-tik (cf. *hartzi* L, BN, S ap. Azk) *artziatu*, *azti(a)*-tik *aztiatu* (Azkuek jaso) eta *aztin(a)*-tik *aztinatu*.

c) *ahakoa* nola ulertu zuen jakiteko modurik ez dugu; cf., ostera, *aino(a)* 'lainoa'-tik *ainoatu* baina *arrazko(a)*-tik *arrazkoalari* vs *arrazkodun*.

d) Txistukari bukaerako hitzetan ez dugu ziurtasun handiagorik aurkitzen: *-a* ziurra dutenetatik *arraultza*-k *arraultza-kosko*, *arraultzatxo* baina *arraultz oliozartuak* edo *arraultz gisako* bezalako gauzak ditu; *aranza*-k *aranzadi*, *aranzatu*, etab. baina *aranzdun*.

⁴⁴² *aberi*-n Lardizabal hobetsi du, Larramendi eta Etxeberri Sarakoaren lekukotasun gutxienez zalantzazkoak aintzat hartu gabe; *angurri*-n XX. mendeko idazle pare bat (Bingen Amezaga eta Txillardeggi). Ezberdina da *ahi*-ren kasua, nahita (eta jakinaren gainean, espero dut) *-a* gabeko forma aukeratu baita euskara baturako. Ez da alferrik azpimarratuko zeinek eta Larramendik *aia mota bat* idatzi zuela.

e) -a gabekoetan alderantziz doaz kontuak batzuetan: *aitz*-etik *aizkorri*, *aiztxori* edo *aiztzar* dugu, baina baita *aitzadi* eta *aitzagaineko* ere; *arrotz*-etik *arrotzain* (< *zain*) baina *arrotzatu*; *artz*-tik *artzakume*; *atz*-etik *atzagiltza*, *atzakeria*, etab. baina *azka*, etab.; *antz*-etik *antzeko*, *anzdun* baina *anzako*, *anzaera*, *antzakabe*, etab. Nola ulertu, beraz, hitz berria den *arutsa*, *arutsaro* baina *arusdun*, *aruska*, etab. izanik?

f) Ozen bukaeradunetan, azkenik, bereizketa saio ez burutu zenbait aurkitzen ditugu (*adinako* “suficiente” < *adina* vs *adineko* < *adin*, baina *adindu* bietarako) eta burututako baina faltsuak diruditen beste zenbait (*a(h)uldu* < *ahul* “flaco” vs *aulatu*, *aularo*, etab. < *aula* “insulso”), betiko zalantzen aldamenean: *atzar*-etik *atzarpe* baina *atzarratu*, *atzapar*-etik *atzaparkatu* baina *atzaparratu*.

Gauzak honela, iturri ezberdinak izatea gertakari asko garbitzeko bidea izan daiteke. Alde batetik, iturri mota berean —literaturan, demagun— eta are iturri berean bi eratako jokabideak aurki zitzakeen (cf., adibidez, Leiz. edo Ax. *an(t)siarik* baina *an(t)sikabe*); bestetik, hizkera kontserbatzaileen arrastoekin batera (cf. Leiz. *atxakiatu*, edo iturri ezezaguneko *arraultza-kosko*), berritzaileena ere itsats edo itzur zekiokoen (*atxaki*, *arraultz gisako...*), eta susma dezakegu bai *aitzakia bat*, *arraultza bat*, bai *aitzaki bat*, *arraultz bat* bezalako gauzak entzuteko ez zukeela Loiolatik oso urruti joan behar. Eta, azkenik, *alsiki*, *aranzadi*, *aizkorri*, *azka*, *adineko* edo *a(h)uldu* zuzenak diren heinean, iturri jakin (nahiz ez beti ezagun) batzuetatik hartuak direla pentsa daiteke, haien aldameneko *altsiatu*, *aranzdun*, *aitzadi*, *atzakeria*, *adindu* edo *aulatu* horiek beste batetik-edo diren bitartean. Niketz, bigarren taldekoen iturririk egiantzekoena Larramendi bera da: hots, zalantza askoren eta arauaz kanpoko diruditen forma askoren azpian hiztegiaren beraren zalantzak edota badaezpadako erabakiak dautza; hau frogatzeko modua, aurkezten dituen zenbait joera azaleraztea dukegu:

1) Elkarketan, lehen osagaiaren azken bokala galtzeko joera indartsua lagun (III, § 3.2.3.1), -a guztiak —direnak eta ez direnak— desagertu ohi dira, zeinarengatik elkartuak ez diren alde honetatik lekukotasun fidagarriak; adibidez, -a itsatsi ziburra duen *arratza* hitzetik *arratzadun* / *arraz larru* familia dugu; honegatik *arraultza-kosko* bezalako salbuespen urriek entzunak edo irakurriak izan behar dutela deritzat.

2) Eratorpenean, ostera, oinarriaren azken bokala kentzeko joera txiki bat badago ere (III, § 2.2.5.3), eskuarki egonkorragoa da:

a) -*dun* atzizkia fidagarrienetakoa izan daiteke: gorago aipatu *arratzadun*-ez gainera, honen arabera Larramendiren ustetan -*a-dun*ak dira *aldia* (*aldiadun*) eta *arabia* (*arabiadun*) ere, eta -*a* gabekoak *aitz* (*aiztun*), *alosi* (*alositun*),⁴⁴³ *antz* (*anzdun*) eta *aruts* (*arusdun*); dena dela, hemen ere zalantza kasuren bat uzten du: *andezdun* (< *andeza* < -*eze*; ik. III, § 3.2.3.4).

⁴⁴³ Jakina, gainerakoetan ez bezala, honetan Larramendiren lekukotasuna badaezpadakoa dugu: ezaguna denez (Urquijo 1907: 82), hitza Etxeberri Sarakoarena da —edo izan liteke—, eta tradizionaliki *alosisia* dela egin izan da, nahiz ez dakidan erabakirako oinarri zurririk dagoen (cf. *OEH*, s.v.).

b) Aditzak, beste muturrean, zalantzazkoenak dira, *-a*-rik behar ez bide duten gehienek gorde baitute: *abodiatu*, *ainoatu*, *altsiatu*, *aribeatu* (“(hacerse) aleve” (< *aribe* “aleve”), *arrotzatu* (< *arrotz*), *atzatu* “ajar assí [i.e. manoseando]” (< *atz*), *atzarratu* “arañar” (< *atzar* “dedo(s) corvo(s)”), *aulatu*, *aztiatu* eta *aztinatu*-k gutxienez. Azalpen modura, bururatzen zait *trabes* / *atrabesatu* bezalako bikote mailegatuak aipa daitezkeela, ausaz: ezen euskaraz atzizki aditzgilea *-tu* den bitartean, gaztelaniaz *-ar* baita, bokal eta guzti.

c) Taiu berekoa da *-di* atzizkia ere (*aitzadi*, *astamaizadi*). Baderitzat kasu honetan azalpena toponimiatik zuzenean datorkigula, zeren eta oro har lehenengo osagaien mugatzailea daramaten leku-izen zein deiturak ugari baitira (*Atxaguren*, *Egiazabal*, *Larreategi*; Mitxelena 1955: § 1); honek bidenabar *aitzagaineko* ere azaltzeko balio lezake. Zehazkiago, *-di* atzizkiari dagokionez, balirudike bere kideko *-aga*-ren modura (III, § 2.1.6) honek ere mugatzailea eskatzen duela uste izan zuela.

8.5.2. Hiatoak

Mugagabearen arazoa nahasixeago bihurtzen da oraindik hiatoen bilakaera ezberdinak batzen baldin badizkiogu. Alabaina, horretara baino lehen zilegi bekit gaiari unetxo batez beste alde batetik begiratzea, eta filologoak harrapatzeko sare itxura *HH*-ari kentzea. Izan ere, Larramendik bere irekitasunean *buruia* “cabeza” bezalako zerbaiti sarrera eman zion hiztegian (§ 8.1.1), bidenabar ziurrenik Harrieten hiztegitik hartua (cf. “*buruia*, tête”). Are errazago izan zen *quioric ezteu miyan* “(no tiene) pepita en la lengua” entzun eta jasotzea, hala nola *ansiya* “pena, cuidado” edo *barrutiya* “palatinado” ere: hiatoak oro har era honetara hausten duen hizkera baten aztarnak ugari xamar kausitu ditugu dagoeneko grafia aztertzerakoan (§ 8.4.11), eta mugatzailearekin gehiago ez agertzea ziurrenik hiztegitagilearen erabakiari zor zaio. Hortxe daude, halaber, *auga* “boca”, *lauba* “llano”, *txauba* “limpio”, etab. (§ 8.4.2), testuinguru honetan *-iya*-dunak baino nahikoa ugariago. Azkenik, hiztegiari bukaera eman zionean bizi zen lekuan bizirik, ez da harrigarria, orobat, *a + a > -ea* bilakaeraren adibideak oso maiz agertzea. Ahaleginean non-nahiko eta nolana hiko euskarari lekua egin ziolako seinale argiak dira hauek guztiak. Haatik, bistan da denei ez ziela arreta berbera eskaini, dela hurbiltasuna edo dena delakoagatik.

Gure arazoetara itzulirik, bistan da, halaber, bilakaera guztiak ez direla arazotsuak: *buruia*, *barrutiya* zein *auga*-ren kasuetan aski ongi menpera dezakegu nondik nora sortu diren. Baina bestetan, bilakaeraren izaerarengatik, era mugagabea bera zalantzan dago. Orotara hiru oztopo nagusi aurkitu ditut A letrako corpusean: *-ea* bukaerak, hitz ezezagunetan batez ere, *-ia* bukaerak hitz gutxi batzuetan eta *-ua* bukaerak, maileguetan bereziki.

8.5.2.1. *-ea*, *-ia*

Larramendik behin bederen aipatzen duen ezaugarria da, oso leku zehatzari dagokiola:

En Azpeitia *ondo diala, bia ondo* (...). También *aitea, amea, damea, señoera*, por *aita, ama, dama, señora* (Corografía 301).

Ezaguna da ezaugarri hau Azpeitialedea baino hedadura zabalagokoa dela; beraz, Larramendiren aipamena gipuzkeraren barruan ulertu behar da, eta hartan ere tentuz, zeren eta eremu honetan bertan Goierri ere agertzen baita.⁴⁴⁴ Azkoitiko sermoian badira honen arrastoak, salbuespenak —ekialderagoko hiztun bati dagokionez— ugari izan arren (Lakarra 1985b: 250). Ezaugarri beraren arrastoak ugari dira, halaber, *HH*-an, eta lehenengo bulkada, errazena egiatan, Loiolaldeko hizkeraren eraginari egozte da;⁴⁴⁵ honen alde etor daiteke Gramatikan honi buruzko aipamenik ez eze honen aztarnarik ere ez somatzea, oso oker ez baldin banago. Nolanahi ere, hau dela eta oso gertakari ezberdinak biltzen dira hiztegian, ziurrenik ez denak ahozkoak: saia gaitezen, beraz, nondik nora doazen eta ezer argirik atera ote daitekeen ikusten.

Hasteko, bost hitz talde egin ditzakegu, *HH*-an noiz-nola agertzen diren eta horren arabera:

a) Agerraldi guztietan (sarritan bakarrean) *-ea* aurkezten duten hitzak:⁴⁴⁶

agorgea “gorga”, *allorbea* “alholba” (*allorba* V-gip, *allorbe* V-ple-gip, AN-larr-5vill), *akoskea* “tranquero de puertas y ventanas”, *alasea* “aparador” (ekiald. *alase*, AN-5vill *alasa*), *albokea* “albugue” (orok. *alboka*), *albondiguea* “albondiga”, *aldaperea* “declive”, *aldatserea* “declive”, *alegerea* “alegre” (orok. *alegera*), *algebra* “álgebra”, *andreerea* “señoría”, *anezkea* “lanzadera” (Azk. *anezka*), *arazea* “estante” (orok. *arasa* edo ?*araza*), *arikerea* “entresijo”, *arraskea* “rascador” (orok. *arraska*), *artxidukesea* “archiduquesa”, *artzea* “criba” (orok. *artza*), *asmea* “asma”, *aspirea* “artesa” (orok. *azpil*, V-ple *aspira*), *atapea* “escotilla” (Azk *atapa*), *atxerea* “guadapero”, “pera sailvestre”, “peruétano”, *aumea* “cabritillo” (bizk. *auma*), *azalkerea* “barbaria”, *azufaifea* “azufaiña”.

b) Agerraldi berean bata bestearen ondoan bi formak dauzkatenak, nahiz eta, bestetan agertzeraz, normalean *-a* forma erabiltzen duen:

abadesa, *abadesea* “abadesa”, *adarga*, *adargea* “adarga”, *aizkora*, *aizkorea* “hacha”, *alabarda*, *alabardea* “alabarda”, *alaga*, *alagea* “alaga”, *alaja*, *alajea* “alaja”, *alba*, *albea* “alba”, *alborada*, *alboradea* “alborada”, *almena*, *almenea* “almena”, *almendra*, *almendrea* “almendra”, *almendrada*, *almendradea* “almendrada”, *almilla*, *almillea* “almilla”, *arlatea*, *arlata* “latas”, *arpa*, *arpea* “harpa”, *arroba*, *arrobea* “arroba”, *artxa*, *artxea* “harpón”, *aska*, *askea* “artesón”, “cuezo”, *azienda*, *aziendea* “hacienda”, *azora*, *azorea* “azor”.⁴⁴⁷

c) Agerraldiren batean bakarrik *-ea* dutenak:

aice bunbadea “ventolera” (vs *a. bunbada* “torbellino”, “tremolina”), *atxurkinzea* “agricultura” (vs *atxurkintza* “(oficio de) cavadores”, “labranza”).

⁴⁴⁴ Jakina, ezaugarri hau hizkera gehiagorekin batera dauka: bizkaieraz gainera, Araba osoan, Burundan, Lanan, Ameskoan “...eta, beharbada, Allinen eta Ega ibarreko hizkera batzuetan ere” (Zuazo 1998a: 136). Ik. orain Hualde & Gaminde 1997.

⁴⁴⁵ Loiolaldeko hizkeren eragina argudiatu eta neurtzea beranduagoko atal baten zeregina izango da (III, § 12.2.8).

⁴⁴⁶ Daudenean, ahozko lekukotasunak bildu ditut; zehaztapen gehiagotarako, ik. 17. eranskina.

⁴⁴⁷ *OEH*-ak *azor* (< *azora*) eta *azore* (< *azorea*) aldaerak egozten dizkio Larramendiri. Zalantzarik gabe, eurak bakarrik aintzat hartuta interpretagaitzak dira bi formak; ez, nik uste, *HH*-aren testuinguru osoan begiraturata, ordea.

d) Agerraldiren batean bakarrik -a dutenak:

arraska, arraskea “canalón” vs *arraskea* “vaciadero” (*arraska* V, G, AN).

e) Berreraiketa analogikoak, bizkaierazko berregituraketa (*lora, laba, etab.*)
gogora dakartenak:

ahalkea, ahalka “confusión”, “corrimiento” (*ahalka*, bera bakarrik, “empacho”, “rubor” eta “vergüenza”). *aldea, alda* “lado”. *aizea, aiza* “viento”. *alerzea, alerza* “alerce”. *ata, atea* (s.vv. *ataurique, atrio, estrada*, etab., beti etimologietan). *atzalda, atzaldea* (*espalda*-ren etim.). *atzarpa, -ea* (*zarpa*-ren etim.). *aurka, aurkea* “cara”, *aurkea, aurka* “delantera”, “frente”.

Talde honen adibide bereziki korapilotsua dugu *adra / ad(e)rea* bikotea:

aderea, adra “aderezo” (etim.), *adra, adrea* “esquadra” (etim.), *adrea, adra* “regla”, *adrakaia* “reglamento”, *adrakaitza, adrebagea* “irregular”, *aderaskiña, adraskiña* “aderezo”, *adreztu, adraztu* “reglar, verbo”, *adreztu* “aderezar”, “arreglar”..., *adregokia* “reglar”, *adrez, adrezkiro* “regladamente”.

Eta hauekin bateratsu azter daiteke hurrengo ere:

arikea “brumamiento” vs *arika* “cansancio”, “fatiga” (< *arikatu*, noski).

Gertakari hauekin guztiekin lotuta egon daiteke zenbait atzizkiren bukaerako -e / -a zalantza, zehazkiago, *-kide / -kida* eta batez ere aditzizena: *-te / -ta* eta *-de / -da* (cf. III, §§ 4.1.6. eta 2.1.11, hurrenez hurren); baita batzuetan elkarren aldamenean agertzen diren *-tze / -tza* atzizkidunak, baina atzizki bion izaera iluna ere tartean,⁴⁴⁸ eta corpusean agerraldi bakarra duen *-zaka / -zake* ere:

argitza, argitzea “dilucidación” (*argitze* “alumbramiento”, “iluminación”, “lucimiento”), *arpetza, arpetzea* “interpretación” (*arpetza* “declaración”, “definición”).

artezaka “aviesso”, *artezake* “aviessamente”.

Dena dela, hitz batzuen -e forma mugatuak argiak dira, hitz ezezagunak izan edo mend. -a / ekiald. -e zalantza egon arren, Larramendik gehienetan ekialderagoxeko hizkerak islatzen dituelako seinale:

agure: agure zarra “anciano”, *agure aurtua* “caduco”, *aguretasun* “senectud”, *aguretu* “envejecer”...

albiste: albiste saria “albricias”.

altiste: altiste itsatsiak “fantasías”.

altare: altare-arria “ara consagrada”, *altareco* “frontal”...

andere: andere, anyeretzea “adamarse”, *anderetua* “adamado”, *anderetxoa* “madamisela”.

andre: andre monjen agintaria “abadesa”, *andre jainkotia* “beata”; *andra-zaitzallea* “guardamuger”, *andrakaiztegia* “casa pública”, *andraketa* “fornicación”, *andrakumea* “cría”, *andraminak* “andrómína”, *andratia* “gorrón”..., *andredia* “mugeriego”, *andregizona* “andrógeno”, *andretia* “deshonesto”...

anre: anraketa “deshonestidad”, *anrazale* “arrufianado”, *anreketan* “(andar) divertido”.

antxume: antxume eznetea [sic, -tia-ren orde] “choto”, *antxume argal* “chotuno”, *antxumekia* “cabrito”, *antxumetegi* “chibetero”.

anyere: anyerekeria “melindre”, *anyeretxoa* “damisela”.

arlote: arlote arbuia... (atsotitza) “arlote”.

arnase: arnase artu “respirar”.

artiste: artiste gorria “balax”, *artiste hirurtia* “calcedonia”... *artistadia* “pedrería”.

asnase —jadanik gramatikan (Larramendi 1729: 393)—: *asnase ematea* “abahar”, *asnase nekeza* “acezo”, *asnase artu* “alentar”...

⁴⁴⁸ Etorki berekoak izan daitezkeela iradoki zuen Mitxelenak (1977a: 111).

Beste horrenbeste gertatzen da beti era batera ematen dituen atzizkiekin (-*tzaile* / -*le*, -*gile*; ik. III, §§ 2.1.3 eta 2.1.4), hala nola -*bage*, -*ge*-rekin:

adrebagero “irregularmente”, *amodiobage* “desamoradamente”, *anzketu* “dessemejar”, *apaingetu* “desadornar”, *araudebagekoa* “extravagante”, *aurakero* “desconcertadamente”, *arauketu* “desconcertar”, *arazgetu* “retirarse de el bullicio”, *arazogero* “desembarazadamente”, *arazogetu* “desembarazar”, *ardurabagetu* “descuidar”, *argegarria* “eclipsable”, *argetu* “eclipsar”, *argigetu* “eclipsar”, *arimabagero*, *arimagero* “desalmadamente”, *arimabagetu*, *arimagetu* “desalmar”...

Bestetan, ordea, aldaerak argi eta garbi bi hizkera ezberdini dagozkio: *ate*, *ata* “abucasta”, “foxa” mugagabea, baina *atea*, *ataa* “ánade”, “pato” mugatuan.⁴⁴⁹

Bistan da gauza bat baino gehiagoren aurrean gaudela, eta gehienak Larramendiren euskararen irekitasunari —ziurrenik alde bilatua, alde zaharkabea jasoa— zor zaizkio. Nik uste, -*ea* / -*a* bikoteek gertakari honi antzerako besteri (cf. gorago aipatutako -*ija* kasu bakanak)⁴⁵⁰ baino garrantzi gehiago eman ziola adierazten dute —bide batez, Hegoaldean daukan zabalkundearekin ondo etorririk.

Baderitzat, bestalde, -*a* / -*e* bukaerarekiko oro har euskaraz aurkitu zituen gorabeherak (mend. -*a* / ekiald. -*e*, elkartu-eratorrietako -*e* > -*a* bihurketak, etab.) arau orokortzera eraman zutela, zenbait hiperzuzenketa edo, nahiago bada, zenbait ustezko berreraiketa eraginaz. (e) taldeko -*a* forma batzuk, argi eta garbi -*a*-z bukatzen diren gaztelaniazko hitzak hobeki azaldu beharrak eragin ditu; halaz ere, besteek erakusten digute etimologietan Larramendik ez zuela egin bestetan ere egitea zilegi ez zenik. Beraz, alderantziz azaldu beharko genuke: alegia, gazt. -*a* eta eusk. -*e* baliokidetzea zilegi da, eusk. -*e* zein -*a* biak posible direlako. Honen adibiderik onena *arika* / *arikea* bikotea dugu: inolaz ere, *arikatu*-tik Larramendik eratorritako izena dugu (atzeranzko eratorriez ik. III, § 5.1.1) eta, aditsoinean -*a* egonik, ezin erabaki izan zuen —edo ez zuen erabaki nahi izan— *arta* / *artatu* ala *aize* / *aizatu* erlazioa zegoen. Ez da txarra, halaber, *ad(e)rea* / *adra* bikotea, baldin eta —dirudien bezala— lp. *drezatu*-rekin lotuta badago (III, § 5.1.1).

Bestelako arazoa dugu -*ea* bukaera bakarrik agertzen duten hitzekin —eta honek *OEH*-an gorabehera handiak sortu ditu—, nahiz eta oro har uste dut ia denetan -*a* mugagabea proposa daitekeela:

⁴⁴⁹ Bide batez, gaurko euskararen Hualde & Gamindek (1997) *a + a > aa* ondorena “in a few localities on the western -*ea* / central -*a* isogloss (e.g. Zumaiá)” bakarrik seinatzen dute. Duela bi mende eta erdi haren eremua zabalagoa zein murriztagoa izan, berriz ere ez bide dago Loiolatik gehiegi zertan higitu, nahiz kasu honetan ezinbestean *ata* oinarria ere kontuan hartu beharra dugun.

⁴⁵⁰ Biak bakarrik (hots, agertzen diren sarreretan -*ia* formaren aldamenean ez daudela) azaltzen dira, aukeran eskainita dauden -*ea* forma asko ez bezala. Hiztegi osoko corpusa beharko genuke, osteraz, ezaugarri hau egiaztatzeko.

a) Jatorrizko *-a* daukaten mailegu zuzenetan (*agorrea*,⁴⁵¹ *albondigea*, *algebrea*, *arraskea*, *artxidukesea*, *asmea*, *atapea*,⁴⁵² *azufaifea*) ez dago zalantzarik, jakina:⁴⁵³ ezaugarri honetarako izan zuen estimuaren isla baino ez bide dira. Ezberdina izan liteke *allorbea*, lekukotasun askok *-e*-ren alde egiten baitute (cf. *OEH* s.v. *ailorbe*).

b) Jatorrizko *-e* bukaeradunetan (*albokea*, *alegera*) duda egin daiteke, baina nire ustez gainerako lekukotasunek *-a* mugagabea proposatzera eraman behar gaituzte.⁴⁵⁴

c) Beste horrenbeste gertatzen da gainerako lekukotasun guztietan *-a* daukaten hitzekin: *anezkea* (*anezka* V-m, *anazka* V-m, *ainezka* G ap. Azkue), *arazea* (*arasa* V, G, *agasa* G-azp), *aspirea* (*azpira* V, *aspire* (mug.)⁴⁵⁵ V-ple), Larramendiren ulerpena gorabehera (cf. *anezketxo* “espólín”, ziur asko berak eratu: ik. III, § 2.1.1). Eta, jakina, atzizki ezaguna dutenekin: *andreerea* “señoría”; cf., besteak beste, “*estuera*, *estu erea*, que significa modo de juntar y apretar” (*estera*-ren etim.).

d) Baita *-e*-dun lekukotasun bakarria zalantzazkoa (ziur asko azken batean *HH*-tikoa) denean: *artzea* (*artze* G ap. Azkue, *artza* V, G, AN); izan ere, *artzari* eta *artzatu*-ren aldamenean *artzelari* eta *artzetu* baditugu ere, lehena G-to [Andoain] (< Azkue, erabat susmagarria)⁴⁵⁶ da, eta bigarrena beste lekukotasunik gabekoa (cf. *OEH*).⁴⁵⁷

e) *aumea* *HH*-an *-e* bukaeraduna da, zalantzarik gabe, *aume eznetia* <-tea> “choto” agerraldiaren arabera, eta honen alde etor liteke, halaber, *aumia* “cabrita” aldaera ere; beraz, badirudi *HH*-aren lekukotasunak hitzaren zabalkundea berraztertzeraz garrantzizkoak.⁴⁵⁸ Haatik, nago beste aterabiderik badela: izan ere, ez dirudi ezinezkoa denik Larramendik *aumia* bakarrik entzun eta *aume* ulertzea, ez eta *aumia* hori *auma* + *-a* > *-ea* > *-ia* egiten zuen iturri bati zor

⁴⁵¹ Hitz honen azalpenerako ik. III, § 12.2.10.

⁴⁵² Hitz honen azalpenerako ik. III, § 12.2.10.

⁴⁵³ *OEH*-ak jakintzat ematen du *algebra* (s.v. *algebra*) eta *arraska* (s.v. 2 *arraska*), *-ea* forma aipatu ere gabe; aipatu egiten du *asmea* forma, baina etimologia moduan eta buruan *HH* jaso gabe; *atapea*-ren kasuan, berriz, ez du erantzukizunik hartu. Gainerako hitzek ez dute hiztegi honen arreta merezi izan.

⁴⁵⁴ *OEH*-ak jakintzat ematen du *alboka* (s.v.), baina *alegere*-ren alde erabakitzen du (s.v. *alegera*). Bigarreneko, antza denez, erabakitzailea izan da Kardaberatz, Iztueta, etabarrek *alegere* forma erabiltzea: haatik, arriskutsua iruditzen zait idazle gipuzkoar horien lekukotasunari hainbesteko garrantzia eskaintzea, eurek ere *HH*-ko aipamena bere kasa —eurentzat ohikoa zen modura— ulertzea oso egiantzekoa baita. Xehetasun gehiagotarako, ik. 17. eranskina.

⁴⁵⁵ Jakina, *a* + *a* > *ea* > *e* urratsak eman osteko forma mugatua.

⁴⁵⁶ Azkueren “G-and” laburdurak batzuetan behintzat *HH* ezkuta dezakeela iradoki izan da: xehetasunetarako, ik. III, § 12.1.2.

⁴⁵⁷ *OEH*-ak, osteraz, Azkueren lekukotasunari amore emanez, *artze*-ren alde erabakitzen du *HH*-rako (s.v. 1 *artza*).

⁴⁵⁸ Halaxe erabaki du *OEH*-ak, *aume* jakintzat emanez *HH*-rako (s.v. *auma*), nahiz eta Landucci eta Añibarroren kasuetan *-ea* mugatua lekukotzen dutela zehaztu. Aurreiritziak izugarritzko indarra dauka, dakusguez.

izatea.⁴⁵⁹ Honen antzekoa izan liteke *aboria* “negocio”, “ocupación”, beharbada *labore*-ren aldaera izan bailiteke (III, § 12.2.10.1).

f) *alasea*-ren kasuan, egiantzekoagoa iruditzen zait Iparraldeko iturri batetik (Etxeberriren hiztegitik?; ik. III, § 12.2.9) hartua eta, beraz, mugagab. *alase* izatea, ezen ez nekez eta urrutitxo (AN-5vill [Lesaka] ap. Azkue) lekukotuta dugun *alasa*, areago Azpirozek *alase* (nahiz beste adiera batean: ik. *OEH* s.v. *alasa* 2) jaso duela kontuan harturik.⁴⁶⁰

g) Bost hitz ezezagun geratzen zaizkigu: *akoskea* “tranquero”, *aldaperea* eta *aldatserea* “declive”, *arikerea* “entresijo” eta *azalkerea* “barbaria, barbarie”.⁴⁶¹ Bitan Larramendik -e ulerpena egin du (*arikerezain* “meseraicas”, *azalkeretsu* “bárbaro”), baina jadanik ikusi ditugu beti asmatu ez zuelako adibide batzuk. Izan ere, *arikerea*, lehen zatia identifikatu ez badut ere, argi eta garbi *eraa*, *erea* “molleja” (ik. *OEH* s.v. 1 *hera*) hitzaren elkartua da eta, beraz, **arikera* behar luke.⁴⁶² Halaber, oso egiantzekoa da *azalkerea* *azalkeria*-ren ordezkaria (III, § 12.2.10.3, 53. oh.), eta ondo datorke goraxeago *-ia* zuzen ulertzeko iradoki ditudan zailtasunekin. *aldaperea* eta *aldatserea* bikotean, postura egingo nuke bigarrena lehenaren analogiaz eraturitakoa dela; *aldaperea*, berriz, izan liteke ez *-era* atzizkia izatea, dirudien bezala (III, § 2.1.12); nolahi ere, ez dira azalpen errazeko hitzak, ez eta *akoskea* ere.

8.5.2.2. -ua

Inolako zalantzarik gabe, *HH*-ak oro har *o + a > oa* bilakaera daukaten hizkeren lekukoa da; hala adierazten digute *-txo* eta *-ko* atzizkiek (III, §§ 2.1.1 eta 2.1.17), adibidez, hala nola hainbat eta hainbat hitzek ere: *adaroa*, *aitasoa*, *alainzoa*, *albiñoa*, *aldaroa*, *altzoa*, *apoa*, *ardoa*, *artoa*, *astoa*, *auspoa*...

Batzuetan, bi bukaerak ondo lekukotzen ditu, dela aldaera modura, dela esanahi ezberdinekin:

akulloa, *akulua* “aguijada” (*akulo* V-arrig, AN-erro, B, Ae, *akulu* V, G, BN-baig, S, R ap. *OEH*, s.v. *akulo*). *amelo* “amelo” (cf. *OEH*, s.v. *amelo*), *amelua* “estopa” (V ap. *OEH*, s.v. *amelu*). *asmua* “acierto en hablar, curar, &c.”, *asmua* “pretexto” (cf. Ax. *asmua*).

⁴⁵⁹ Hualde & Gaminderen arabera (1997), XVIII. mendeko markineraz gainera, gaur egun gertakari hau Eibar, Lekeitio/Deba, Larrauri, Errezil eta Urdiainen bederen betetzen da, besteak beste. Berrito ere Loiola inguruko eremuan.

⁴⁶⁰ Beste kontu bat da zergatik *OEH*-ak eta *EH*-ak *alasa* hautatu duten, XX. mendeko gipuzkerazko idazle zenbaiten (Zaitegi *alaza*, Etxaide eta Txillardeggi) erabilerari atxikita: ba ote da jakintzat eman duten ahozko berme gehiago? Nolanahi ere den, orain artean ez bezala, honetan *OEH*-ak zalantzak azaltzen ditu (“*alasea* Lar (de *alase* o *alasa* + *a*?)”, s.v. *alasa*), nahiz filologi zorrotasun erakuskari honen azpian datzana, oso oker ez baldin banago, *alasa*-ren “hegoaldekotasuna” eta, beraz, Larramendik horixe jaso behar zukeelako ustea izan.

⁴⁶¹ *OEH*-ak ?*aldapere* forma jartzen du buruan, Hiribarrenen *aldapere* Larramendiren forma ulertzeko gidarizat harturik, mesfidantzaz bada ere; sei orri beranduago, berriz, *aldatsera* erabakitzen du, Lhandek dakarren *aldatsere* forma oker (eta ziurrenik Hiribarrenen bitartez) dela baieztatuz. *akoskea* eta *azalkerea* ez ditu jaso.

⁴⁶² Cf. *DAut*, s.v. *entresijo*: “Tela gruesa y llena de gordura, entretejida de nervios, venas y arterias, y con muchas landrecillas o *mollejas*” (azpimarra nirea da). Bide batez, *OEH*-ak (s.v. 1 *hera*) *ere* forma bat egotzen dio Larramendiri.

Gure arazoak maileguetan hasten dira; lehenik eta behin, esan behar da inolako dudarik gabe Larramendik *-oa / -ua* baliokideak izan zitezkeela bazekiela, baita gazt. *-o-ri* eusk. *-u* egoki dakiokela ere, etimologietan erakusten duen bezala:

Acero, es de el Bascuence *altzairua*, que pronunciado *altzairo*, quedó en acero.
Fárrago (...), de *arrago*, *arragua*, que es aquel grande hoyo, pozo ancho y horno abierto en que se cueze y quema primero la vena...
Fragua, viene de el Bascuence *arragua*, *arragoa*, que es aquel horno grande en que se cuece y prepara la vena para hazerse después la massa de el hierro...
Hato, rebaño, es de el Bascuence Labortano *hatua*, que significa lo mismo.

Bigarrenik, hurrengo adibidearen arabera, mailegu iruntsiak *-u* bukaera duten bitartean, mailegu berriek *-o* aurkezten dute oraindik, espero zitezkeen bezala:

obispoa, *apezpikua* "obispo".

Honexegatik, badira *HH*-an *-o* bukaera argia daukaten mailegu anitz; dena dela, gutxi batzuetan, berritasunak baino lehenagoko tradizioa egoteak garrantzi gehiago izan dezake (lehen agerraldiaren datarekin markatu ditut halakoak). Azpimarragarria da, halaber, euskal etimologia izateak ez duela *-o* gordetzea oztopatzen:

abaninoa "abanino", *abetoa* "abeto", *ablatiboa* "ablativo", *adulteroa* "adúltero" (1571), *agasajoa* "agasajo" (etim.), *aginaldoa* "aguinaldo" (etim.), *akolitoa* "acólito", *alabastroa* "alabastro" (etim.), *albokeroa* "alboquero", *alborotoa* "alboroto" (etim.), *alborozoa* "alborozo" (etim.), *amañoa* "amaños" (etim.), *amomoa* "amomo", *anakardoa* "anacardo", *animoa* "ánimo" (1562), *anparoa* "amparo" (1713), *antekristoa* "antechristo", *apostolikia* "sede apostólica", *argisaltua* "cabra saltante" (cf. *saltoa* "salto", "tranco"), *armiñoa* "armiño" (etim.), *arrasgoa* "rasgo" (etim.), *arrasoa* "raso", *arrastoa* "rastros" (1627), *arzedianoa* "arcediano", *astrosoa* (etim.) "zaparrastroso".

Bestetan, berriz, *-ua* bukaera dugu, nahiz orotara adibideak gutxienez izan. Haietako zenbaitetan *-u* argia da, dela zahar itxuragatik, dela bestelako lekukotasunengatik, edo dela *HH*-ak berak aztarna ematen digulako:

abisua "aviso", *abisu-ontzia* "(navío de) aviso". (*h*)*abitua* "hábito", "mongil" (1610). *adrailua*, *adriua* "ladrillo". *arrastelua* "bieldo", "vieldo". *astagarbanzua* "astrágalo", cf. *garbantzua* "garbanzo", *garbanzutegia*, *garbanzudia* "garbanzal". *hatua* "hato" (*VocBN*, ap. *OEH* s.v. *hatu* 2).

Eta oro har ez dut uste arazorik legokeenik ondokoetan ere *-u* ikusteko:

amitua "amito" (1656). *arrazoi usua* "uso de razón" (cf. *usu errazoakora*, VJ 4). *arrimua* "arrimo" (1715). *austrapua* "rodilla de cocina" (cf. *OEH*, HAUTS-TRAPU, s.v. *hauts*).

Alabaina, bada bederen *-oa / -ua* bikote bat:

arrojoa "arrojamiento" vs *arrojua* "arrojo".

Honen arabera, ez dakit nola ulertu behar diren ondokoak:

abrigua "abrigado lugar", *albertxigua* "albaricoque o albréchigo", *almendrua* "almendro", *ahorrua* "ahorro".

Arazo bera gutxienez euskal jatorriko hitz batean ere aurkitzen dugu: *aiztua* "cuchillo": *OEH*-ak eta *EH*-ak (s.v. *aizto*) *aiztu* interpretatu dute, gainerako lekukotasun guztiek (*Azkue*, *ContR*, *EAEL*) *aizto* ematen duten bitartean (ik. III, § 12.2.9). Ene uste apalean, *HH*-ak aldizka biltzen dituen eredu ezberdineko bilakaeren beste adibide bat baino ez da, oster.

8.6. Ondorioak

Atal honetan zehar euskal ordainek bere buruaren berri eman zezatela saiatu naiz, euren sarrerako batz besteko kopuruaren, gainerako ordainekiko kokapenaren, famili arteko erlazioen, euren itxura morfologiko eta grafikoaren, etabarren bitartez. Honela III. atalerako benetan baliotsuak izan daitezkeen anitz xehetasun bildu ahal izan ditugu, baita, ezinbestean, bertan azaldu beharko ditugun joeretatik batzuk sumatzen hasi.

Inoiz ez dut besterik egin, ezpada III. ataleko corpusak sortu dizkidan buruhaustek honetara ekarri, adibide multzo osoaren azterketan gertakari arazotsuen azalbidea aurkitzeko esperantzan; hauxe gertatu zait etimologietako ordainekin (§ 8.3.9) eta mugagabearen arazoarekin (§ 8.5).

Sarrerako ordainen batz besteko kopurua aztertuaz lehen baino argixeago nabaritu ahal izan dugu *HH*-ak izkutatzen duen aberastasuna. Aberastasun hau, atal honetako hainbat alderditan antzeman ahal izan dugunez, alde z Larramendik liburuetan zein herrietan egin zuen bilketa lanari zor zaio, alde hizkuntzaren baliabide ezberdinak erabiltzeari. Beharbada biek pareko garrantzia dukete hiztegian baina, oraingoz, hitzberrigintza lana oso aise begietaratu dugu: berez bezala dario egin dugun azterketa motari.

Nolanahi ere den, bilketa lanaren agerri ezin hobeak izan dira ordain jator eta oso itxura ezberdinekoek —inoiz argi eta garbi oso etorki ezberdinekoek ere (adib., *ulifarfalla* “mariposa”-k Axularrena izateko itxura osoa dauka)— osatutako sarrerak (§ 8.2), hala nola hitz ber baten aldaera grafiko, fonetiko zein morfologikoak biltzen dituzten sarrerak, haietako batzuk etorki nabarmenekoak (*zurtu*, *zuhurtu* “assessor”, *cherria*, *cerria*, *charria* “cochino” edo *ecaitza*, *ecacha* “tempestad” bezalakoak; § 8.3.7). Honezaz gainera, egiaztatu ahal izan dugu hiztegiilea hiru euskalki nagusien aldaerak batzen ahalegindu zela eta, honen barruan, bizkaierazko bertsioak emateko erraztasun gehixeago duela; hau euskalki honetako hizkerekiko hurbiltasun edota haien berri jakiteko erraztasun handiagoari egotzi behar zaio, noski.

Alabaina, esan bezala, lehenengo hurbilketa honetan hitzberrigintza ageri-agerian geratu da, batez ere Pouvreauren hiztegian antzematen den modu beretsuan (Lakarra 1995): izan ere, Larramendik hitz familiei —alfabetizazioan, adibidez— eman zien garrantzia, baita adierakako antolakuntzari ere emandakoa (§ 2.5) euskaraz familiakako eta adierakako eratorpena errazteko urrats nabari suertatu da, espero bezala: familia eta adiera bereko hitzek erator oinarri bereko ordainak dituzte ia beti. Lan hau bereziki nabaria da A letraren hasieran, non oinarri bakoitza balio bereko atzizki guztiei erantsi zaien, hiztegi guztian zehar aurkitu ditugun sarrerarik luzeenetakoetan (§ 8.2), edo bestela irakurlea eratorpen legeak bere kabuz ezartzera agerian gonbidatuta dagoen (§ 8.3.3). Hiztegiaren beste hainbat alderditan ikusi dugun bezala, Larramendik A letran aurrera joan ahala osotasun nahia alde batera utzi, eta oinarri ezberdinekin atzizki bakar bat erabiltzea, edo atzizkiak eta oinarriak aldizkatzea, edo oinarri guztietatik batzuk bakarrik hautatzea aski izaten du. Bistan da irakurle zolientzat honelako sarrera laburragoak hasierako sarrera oro-nahikoak bezain iradokitzaile direla; esan daiteke begiaurrean dugun *HH*-aren azpian askoz ordain gehiago

biltzen dituen hiztegi “birtual” bat dagoela: oinarriak eta atzizkiak elkarrekin truka daitezkeen aletxo modura aurkezten direnez gero, aurretiaz ezin jakin daiteke irakurle jakitun batek hartu lezakeen erabakia. Honek balio lezake, bidenabar, *HH*-an zuzenean agertzen ez diren baina “birtualki” aurreikusita dauden geroko idazle eta hiztegiileen hainbat forma azaltzeko (adibidez, Añibarroren *HH*-ko hitzen bizkaieratzeak: ik. Urgell 1997).

Aipatzea merezi duen beste berezitasun bat ordain errekursibo laburtuak (§ 8.3.3) eta ordain laburtuak (§ 8.3.5) dira. Hauek ere erakusten digute kontuz ibili behar dugula *HH*-ko ordainen kontu ematerakoan. Hauetako batzuetan, dena dela, partizipioak edo -se aditzak direla eta, erredundantzia ezabatzeko —edo behinik behin ematzeko— joera berragertzen zaigu (cf. gainera partizipio bakanduak, § 8.3.4).

Edonola ere, hala famili-buru diren sarreretan nola hauen eratorrietan halako maiztasun batez ordain bakartuak agertzen dira (§ 8.3.2): honelakoek *HH*-an dena automatismoa eta eratorri beharra izan ez zela egiaztatzen dute baina,aldi beretsuan, eransketa batzuk eratorpenean edo hitzaren zatikaketan aritzeko beranduegi iritsi zirela iradoki dezakete.

Ildo beretik ulertu behar dira *item*-etako batzuk ere (§ 8.3.6): euren zeregin nagusia ordain sail ezberdinak mugatzea dela ikusi dugu, baina batzuetan euskal ordain baten ezgaraiko eransketa ahalbidetzen duten dei hutsak dira. Zalantza geratu zaigu noizko eransketak diren, zirriborroan ala argitaletxean egindakoak, baina dena dela ez dago zalantzarik azken orduko iturri bat edo batzuk —edo iturri berankor bat edo batzuk bederen— egon zirela adierazten dutela.

HH-ko ordain gehienak bakunak —beste izenez “itzultzaileak” deituak— dira, hots, gaztelaniazko hitzen hitz bakarreko baliokideak (§ 8.3.1). Halaz ere, ordain perifrastikoak ugari xamar kausitu ditugu, batzuk hizkuntzaren izaerari ederki dagozkionak (*barrilean sartu* “embarrilar” bezalakoak); beste batzuk, ordea, gaztelaniazko hitzaren benetako definizioak dira (§ 8.3.1.1), eta hau bereziki azpimarratu behar da, gaur arte, dakidalarik, halako beste saiorik izan ez dela kontuan harturik. Nolanahi ere den, honelako definizioen metahizkuntza beti ere Larramendiren idazkera da. Oro har, bestalde, ordain perifrastiko anitz eta definizio guztiak, osoki edo zatika, eredutik jalgiak dira, dela *DAut*-en definizioen laburpenak, dela *HH*-ko gaztelaniazko azalpen zein zehaztapenen itzulpenak, edo dela latinezko ordainenak ere batzuetan. Inoiz edo behin antzeman ahal izan dugu, gainera, gaztelaniazko hitzaren kalkoa egin duela, erabatekoa zein gutxi gorabeherakoa (§ 8.3.1). *DAut*, eta gaztelania oro har (batzuetan latina ere), III. atalean behin ere alde batera utzi ezingo dugun iturria da.

Ordain zehazgabeak ere aurkitu ditugu, eta hiztegi zaharretan honelakoak ohikoak zirela egiaztatu (§ 8.3.1.2). Oro har, orduan orain baino dena *itzuli* beharra txikixeago zela dirudi, beraz; eta, Larramendiri dagokionez zehazkiago, “pié forzado” delakoak muga argiak izan zituela *HH*-an.

Eratorpenarekin batera, *HH*-ko ordainen kokapenak —kasu honetan sarrera barruko ordenak— erakutsi digun beste gauza bat, mailegatze lana egon badagoela da: ‘euskal hitza + mailegua’ bikoteen neurritz gainera ugariak salatu digu, areago euskal hitz direlakoak sarritan argi eta garbi hitz berriak direla kontuan izanik (§ 8.3.8): *bajodea* “embate”, *articasdea* “estudio”,

izquirillea “rasgo de letra”, *gozabetatu* “salvarse, ir al cielo”, *batzola* “sandalia”... Aurkitu zituen hutsuneen aurrean mailegua zein hitz berria, bi aukerak eskaini nahi izan zituela dirudi, hortaz.

Etimologietan Larramendik egiatan proposatzen dituen ordainak zein diren mugatzen saiatu naiz, III. ataleko corpusa eratzekoan gaiak buruhauste franko eman dit eta. Nahiz eta etimologi sarrera mota ezberdinetan ordain zer den eta zer ez den erabakitzeke arau argi batzuk aurkitu uste nuen, datu guztiak arakatu eta erkatuta, azkenean aukera nahikoa irekia dela erabaki behar izan dut. Nolabait, honek lehenago aipatu ditudan ordain eratorri “birtualen” kontua dakar gogora: ez dirudi Larramendik aukeran etimoak ordain gisa erabiltzeko oztoporik jarri nahi izan zuenik, ez eta (baina honi argiago iritziko diogu, ziurrenik) aukeran maileguak erabiltzeko. Nolanahi ere den, adibide zenbaiten azalezko azterketa honek argi eta garbi erakutsi digu maileguak “bataiatzea”, “zorrak hartzeko bihurtzea” (Mitxelena 1983a: 914-915) ez zela, ez eta hurrik eman ere, etimologiaren xede eta ondorio bakarra; honegatik, bistan da III. zatian atal oso bat eskaini beharko diogula etimologiaren bitartezko hitzberrigintzari.

Grafian bereziki luzatu behar izan gara, hainbat gai ikergabe edota oso korapilotsuak izaki, grafema bakoitzaren benetako balioaren (edo balioen) irudi ahalik eta oso eta xeheena izatea komeni baitzitzagun, hala nola fonema bakoitzaren irudikapen ohiko zein ezohikoena, III. atalera filologiak eskaini behar dituen gutxieneko bermeeekin iritsi nahi baldin bagenuen, behintzat: alegia, hitz bakoitzaren irakurketa zehatza zein den jakinik, den mailegu edo hitz berria, den euskal hitz ezagun zein ezezaguna. Zeinu bakoitza zuzen eta zalantzarik utzi gabe interpretatzeak esan nahi du, besteak beste, *HH* ziurtasunez erabili ahalko dela —orain artean ez bezala— bera lehen lekukotasuna —edo bakarra— deneko ondare zaharreko hainbat hitzetarako. Ez da ahuntzaren gauerdiko eztula, bada.

Jadanik ezagutzen genituen xehetasun askoren berrespenarekin batera, ustez ustekabekoren bat ere eman digu arlo honek eta, batez ere, grafema askoren interpretaziorako halako ziurtasun bat. Laburpen gisa, Larramendiren (zehazkiago, *HH*-aren) oinarritzko grafi sistema honako hau da, geroago egingo ditudan zehaztapenekin:

/b/ = , <v>
/s/ = <za>, <ce>, <ci>, <zo>, <zu>
/d'/ = <id> / B — B; <y> / l, n—
/g/ = <ga>, <gue>, <gui>, <go>, <gu>
/gw/ = <gü>
/i/ = <i> / B — B eta / # — B
/j/ = <ja>, <ge>, <gi>, <jo>, <ju> (/x/ ahoskera ere posible, baina gaitzetsia)
/x/ = <ja>, <ge>, <gi>, <jo>, <ju>, <x> (maileguetan bakarrik)
/k/ = <ca>, <que>, <qui>, <co>, <cu>
/kw/ = <qu> (maileguetan bakarrik)
/l'/ = <ll>
/n'/ = <n̄>
/š/ = <s>, <ss> / B — B
/š/ = <(i)sy>, <is> / B — B; <is> / — # ; <ch> / # —
/c/ = <tz>
/č/ = <ts>
/č'/ = <ch>
/t'/ = <ty>
/u/ = <ü> / B — B eta / # — B

Gainerantzean hiru eragin nabaritzen dira Larramendik hartzen dituen erabakietan, zein baino zein indartsuagoa dagokion arloan:

a) Gaztelaniazko grafiaren eragina: Bere idatzi guztietan ere nabarmena den arren, dudarik gabe gaztelania —haren hitzik ezohikoenak barne— beti aldamenen izateak, garrantzi bereziko ondorioak sortu dituela maileguen letraldatzean. Ezpairik gabe hau abantaila baino ez da filologoarentzat, hainbat arazotan aurrez aurre ikus baititzake abiapuntua eta ondorioa; honi esker, arazorik gabe erabaki ahal izan dugu maileguetan eusk. <x> zehatz-mehatz gazt. <x>i darraiola, hala /x/ nola /ks/ hotsak irudikatzen dituenen eta, arrazoi beragatik, <j> eta <g> /x/ (§ 8.4.12), eta <qu> /kw/ (§ 8.4.3) irakurri behar direla.

Bestetan, berriz, gaztelaniaren eragina haratago doa, euskaraz balio fonikorik ez duten bikoiztasunak maileguetan zein euskal hitzetan agertaraziaz. Hauetako zenbaitetan Larramendik gaztelaniazko bikoiztasuna arbuizatzeko joera dauka, halere, nahiz ez erabatekoa: kasurik nabariena maileguetan <h> ia erabat desagertzea da, hitz arraro edo jasoetan izan ezik (§ 8.4.13). Halaber, aski adierazgarria da ia salbuespenik gabe etimologietan erabiltzea, <v>-k bestelako maileguetan indartsu dirauen eta, oso bakanki bada ere, euskal hitzetan ere ager daitekeen bitartean (§ 8.4.2). Bestalde, etimologia eta maileguetan <ss> gorde ohi duen arren, <s> bihurtzeko joeratxo batekin, badaude, egon ere, beti <ss>-z idazten dituen euskal hitzak (§ 8.4.5). Azkenik, esan gabe doa <ja>, <jo>, <ju> / <ge>, <gi> bereizkuntza gorde duela, eta salbuespenetatik batzuk ere (*jipoea* “jubón” erakoak) gaztelaniari zor dakizkiokeela dirudi; hizkuntza honi zor zaizkio, orobat, hitz hasierako <y>ren agerraldi bakanetako zenbait (*yuca* “yuca” erakoak; § 8.4.11).

b) Iparraldeko grafiaren eragina, baita agian beste sistemaren batena ere. Egia esan, oro har Larramendiren grafi sistema nagusi da *HH*-an: oso gertakari arrotz gutxi itzuri zaizkio eta, beraz, egin dezakegu estali egin zuela ia erabat Hegoaldeko aurreko testuetan aurkitzen zirenak, ezaugarri nagusienetan bederen, areago haien grafiaz kexu agertu zela jakindik (Larramendi 1745: xxxv). Iparraldeko testuekin, ostera, salbuespen asko egin zituen, batzuk begibistakoak, nahiz eta grafi sistema haren ezaugarri nagusietako batzuk zeharo desagertarazi zituela somatzeko aztarna nahikoa izan.

Lehenik eta behin, Larramendik Iparraldeko testuak erabili zituela oraindik frogatu beharrik balego, <tch>, <nh> eta <rh>-ren arrastoak (§§ 8.4.10 eta 8.4.13) froga bikainak dira, hala nola Harrieti egotzi behar zaion <qu> = /k/ grafia (§ 8.4.3), eta Materre edo Axularrengandik zuzenean datorkion <g>, <j> = /š/ ere (§ 8.4.8). Hau bezain begibistakoa da hitz hasieran zein bokalartean <h> kokatzeko Larramendiren trebetasunak Iparraldeko tradizioaren ezagutza sakona —edo bertako iturri zehatzak, behintzat— eskatzen duela (§ 8.4.13). Froga modura indar gutxiagokoak izan arren, antzeko iturriei lepora dakizkieke, ikusiak ikusirik, hitz hasierako <iB> grafemaren adibideak eta ohiko <ge>ren <je> salbuespenen bat (§ 8.4.11). Halaber, ez da mezprezatzekoa gazt. <xK> = eusk. <xK> arauak dituen salbuespen bakanak, denak Iparraldeko testuetan ondo lekukotua egotea (*escumicatu* 1733, *escumicua* 1627, *escusa* 1545; § 8.4.12). <in> eta <il>-ren adibide batzuk orokorrak diren arren (*dilista*, *quillica*, *ninia*...), ezin zait ukatu beste askok (*biloa*, *ilarguia*, *bainan*, *mahaina*...) ekialdeko euskalkiek berezkoa duten ahoskera ez sabaikaria islatzen

dutela (§§ 8.4.14 eta 8.4.15), eta errazago izango dela honelakoa Iparraldeko testuei egozte, ezen ez Larramendik Nafarroako haranetan zehar egindako balizko bilketari. Neurri berean —edo handiagoan, beharbada— epaitu behar ditugu <ill> grafiak (adib. *beilla*), normalean <il> ez sabaikari den idazkeretan bustidura azpimarratzeko erabiliak (§ 8.4.14). Hitz hasierako <ch>aren maiztasunari dagokionez, uste dut nahikoa ebidentzia bildu ahal izan dudala Iparraldeko testuetatik datorrela, eta *HH*-an haren ordainez emateko moduko grafemarik ezagatik irauten duela frogatzeko (§ 8.4.8); batzuetan, hitz barruan, Larramendiren erarako letraldatze batez (<is> zein <(i)sy>z) lagunduta dator. Adibide bakarra dugun arren, azkenik, <ng> (= /nd'/) *angereder* hitzean Iparraldeko grafiatzat hartzera makurtuko nintzateke (§ 8.4.9; cf. III, § 12.2.9).

c) Larramendiren iritzien eragina. Lehenik, dagoeneko iradoki dudan zerbaiti berriz ekingo diot, zeren eta iturriak identifikatzerakoan, besteak beste, zeharo garrantzizkoa baita: Larramendiren sistema, eskura izan zituen beste sistemen bereizgarrien gainetik zapalgailu baten modura igaro zen. Zehazkiago, Iparraldeari dagokionez, bertako hitzak harrapaerrazagoak direnez gero, ziurtasun osoz esan dezakegu aldaketak eurrez egin zituela: <x>, <tx> (§ 8.4.6), <tch> (§ 8.4.10), <h>, <lh>, <nh>, eta <rh>, <cc> zein <kh>, <pp> zein <ph>, eta <th> (§ 8.4.13), eta <ch> bera ere, neurri ezberdinetan, arrastorik utzi gabe, edo arrasto txikiak utzita bakarrik desagertu dira *HH*-rako bidaian. Oro har, beste horrenbeste gertatu da <ç>, <tç> eta <tc>rekin (§ 8.4.7).

Bigarrenik, Larramendik idazkera etimologizaleetarako halako joera bat izan zuela adierazten duten datuak bildu ditugu: *deu* < *deuan* (§ 8.4.2), *lgw* = *lgu* (*eguerdia*, *ezaguera*..., § 8.4.4), <ze>, <zi> (*goizean*, *gauzetan*..., § 8.4.7), <nb> (*jaquinbidea*, *minbera*..., § 8.4.16). Ezaguna da, ordea, <tz#> eta <ts#> bezalakoak gaitzetsi zituela (1745: xxvii; ik. § 3.4.10).

Honekin nolabait lotuta dagoen kontu bat: Larramendik (bereziki zenbait idatzitan) ozen ostean frikari emateko daukan joera *HH*-an normalean muga zehatzen barnean geratzen da: afrikatua dago ia beti aditzizenetan, adizkietan eta hala dagokien atzizkietan, eta frikaria etimologietan, maileguetan eta berezko duten atzizkietan; aztertu ditugun adibideen artean *enzun*, *eranzun* bakarrik arrazoi ezberdinei egotzi behar zaizkiela dirudi (§ 8.4.17).

Oraindik argiago, jakinaren gainean eginga da /č/ > /š/ aldaketa inplosiboan (§ 8.4.8), zalantzarik gabe testuinguru bereko *tz* > *z* eta *ts* > *s* aldaketekin lotu beharrekoa (III, § 2.2.5.2), baina, dena dela, etorki horretako <is> guztien interpretapena ziurtatzeko bidea ematen digu.

Beharbada Ip. <ch> hitz hasieran gordetzea ere jakinaren gaineko aukera da, baldin eta Ip. /š/ = Heg. /č/ arauaren orokortzea bada (§ 8.4.8). Hotz-hotzean nekez sinestekoa dirudien arren, atal honetan bertan azaldu zaizkigu honen antzeko orokortze zenbait (zehazkiago, *-ea* / *-a* bikoteetan, § 8.5.2.1), eta are gehiago ikusi ahalko ditugu III. atalean.

HH eta *DAut*-en eduki osagarri ezberdinak erkatzerakoan (§ 3.7) hautemandakoarekin bat, ahoskapenaren arloan ere etimologietan beti informazio gehiago kausitu dugu.

Oso interesgarriak dira Ip. <#iB> letraldatzeko egin zituen ahaleginak, dela <y> dela <i> erabiliak, eta are interesgarriago batzuetan oker zitekeela (*iörn*) ohartu garetik, nahiz eta idatzietan baliatu zuen hitza izan (§ 8.4.11). Baliteke egokitze saioak zuzen edo zeharka lotuta

egotea Larramendiren ustetan hitzak etorkizuneko Hegoaldeko idazleen artean izan zezakeen erabilgarritasunarekin, hain zuzen.

Larramendiren ezaugarri aipagarrienetatik dugu irakurlearen jatorri eta ohituren arabera bi irakurkera eskaintzen aritu zelako posibilitatea: <ch> (/č/ zein /š/; § 8.4.8), <j> (/j/ zein /x/, azkena gaitzetsia, baina ez debekatua; § 8.4.11), <is> (/š/ zein <is>; § 8.4.8), jadanik ospetsu bilakatu uste dudana “En esto cada cual...” esaldiaren kariaz.

Ardurakabetasun pixka bat azpimarratuko nuke leherkari aurreko txistukaria idatziz jartzerakoan; Larramendiren hizkeraren (edo belarriaren) ezaugarri izatea, testuinguru berean txistukariak jasotzeko erakusten duen gaitasunak gezurtatzen du. Batzuetan, <z> eta <s> dun aldaerak sarrera berean, edo sarrera ezberdinetan esanahi ezberdinez agertzea aldi berean hitzen etorki ezberdinaren eta hiztegiaren belarri onaren seinale dira (§ 8.4.18).

Eta, azkenik, *HH*-an daukaten iraunkortasun edo garrantziagatik egileak bereziki ongi menperatzen zuen hizkera bateko (edo batzuetako) ezaugarriak direla diruditen batzuk aipatuko ditut: bokal bikoitzak (§ 8.4.1), bustidura adierazgarriak (§ 8.4.8), hiatoak hausteko eta <y>ren epentesia (§§ 8.4.2 eta 8.4.11), hitz barruan /j/ > /x/ bilakaeraren adibide ugariak (§ 8.4.11), *i* osteko /n/ eta //ren sabaikaritze erregularra bokal artean eta behearazko diptongoaren ondoren inplosiboan, eta, bestalde, mailegu (ziurrenik ez irunsi) zenbaiten ez sabaikaritzea (§§ 8.4.14 eta 8.4.15).

Corpusaren azterketan buruhauste handiak eman dizkidan beste gai bat hitz askoren forma mugagabea ezarri ezina izan da, berezko *-a* duten eta ez duten hitzak bereizteko zailtasunarengatik, eta *HH*-an hitz bukaerako hiatoen ondorio ezberdinengatik. Hemen egindako azterketari esker, uste dut argibide zenbait eskaintzeko paradan nagoela.

Berezko *-a*-ri dagokionez, ondokoak azpimarratuko nituzke (§ 8.5.1): (a) iturri ezberdinek ondorio ezberdinak eskaini dizkiote hiztegiari, *HH*-an eredu bat baino gehiago agertaraziaz; iturria identifikatzea, beraz, bide ona dateke zertaz ari garen jakiteko; (b) arauak kanpoko adibide nabarmen gehienak, badirudi Larramendiren gaizki-ulertuei egotz dakizkiokeela; eratorpen eta elkarketan ezarri zituen arauak aztertzeak arazoetatik batzuk konpontzen lagunduko digu: (c) zehazki, elkarketan ezin fida gaitzezkeela aurrera daiteke, azken bokala galarazteko joera indartsuarengatik; arrazoi honexegatik, elkarketan bokalak irautea zalantzarik gabe lekukotasun aske baten seinale da; (d) eratorrietan *-dun* atzizkia fidagarrienetakoa dela egiaztatu ahal izan dugu; (e) aditza, berriz, sarritan bereziki zalantzarik suertatzen da, *-a* zalantzarik edo ezinezkoa daukaten formen ugaria kontuan hartuz; (f) berbera gertatzen da *-di* atzizkiarekin: honek badirudi zehazkiago *-aga*-ren eragina pairatu duela, oinarrian mugatua baitarama, dakigunez (eta Larramendik ongi zekienez; ik. III, § 2.1.6).

Hiatoei dagokienez (§ 8.5.2), hemen ere iturri ezberdinak izan direla egiaztatu ahal izan dugu lehenik: iturri idatzizkoren bat eta batez ere ahozkoak, jakina, zeren eta gehienetan Hegoaldeko gertakariak baitira. Azpimarratzekoa da Larramendik alde honetatik izan zuen irekitasuna. Badirudi ongi ezagutzen zituen gertakariak —hurbileko gertakariak— direla *-iya* eta

bereziki *-uba*, eta oraindik hobeto $a + a > -ea$. Azken honek hiztegi lanetan gehien aritu zen urteetako inguruetatik datorrelako itxura osoa dauka: Loiolako inguruetatik eta, zehazkiago, Azpetialdeko azpieuskalkitik. Honetaz dena dela, oro har Larramendik *HH*-an ezaugarri honixe —gorago aipatutakoei ez bezala— eman zion garrantzia oso ondo dator mendebaldean daukan hedadurarekin, eta beharbada honi zor zaio azken finean.

Hiatoen bilakaera zenbaitek berekin ulerpen arazoak dakartzate, ez bakarrik guretzat, baizik eta baita Larramendirentzat ere ziurrenik: berak dakarren guztia ezin dugu besterik gabe sinistu, ez eta besterik gabe gipuzkera arrunt —literatur gipuzkera, Beterriko gipuzkera...— bailitzan epaitu, ez eta hurrik eman ere: hizkera bateko baino gehiagotako ezaugarriak daude *HH*-an, eta zeinen arabera interpretatu behar diren erabakitzea gure lana da. Adibiderik argiena *-ea* bukaera da, batzuetan *-ia* bukaera zenbaitekin batera: *HH*-an honen adibideek argi eta garbi gutxienez hiru iturburu ezberdin dituzte: (a) adibide “kanonikoak”, $a + a > -a$ eta *-ea* bikoteak: anitzetan Larramendik automatiko bihurtutako gertakari dirudi. Ederki menperatzen zuen eta nahi adina egin zezakeen zerbait da, dena dela (cf. Azkoitiko Sermoia); (b) *-ea* bilakaera bakarrik aurkezten duten hitzak, Larramendik iragaitzaz bezala jasoak eta berak ere batzuetan gaizki ulertuak, beharbada $a + a > ea > ia$ bilakaera jasan duten gauzak, eta beharbada $e + a > ia$ bilakaera jasan dutenak bezalaxe; eta (c) Larramendiren hiperzuzenketak, hots, *-e* bukaera duten hitzetan *-a* bukaera ere berreraikitzea (*aizea*, *aiza* erakoak); badirudi aztertu dugun $a + a > -ea$ bilakaeraz gainera bukaerako *-e / -a* bestelako gertakariak ere (hala nola mend. *-a / ekiald. -e* eta elkartu-eratorrietako *-e > a*) zerikusia izan dutela (bigarreneko, ik. III, §§ 2.2.5.2 eta 3.2.1.2).

Neurri txikiagoan bada ere, agerian jartzen saiatu naiz *-ua* zenbaiten interpretazioaren gaitza, eskuarki maileguetan baina baita euskal hitzen batean ere. Nolanahi ere, *HH*-ak oro har $o + a > oa$ bilakaeraren adibideak dakartza.

Dena dela, honelako hitzak elkarrekin eta banaka aztertzei ikasi dugu, ez itxura, ez aurreiritziak, ez geroagoko lekukotasunak —*HH*-aren zordun direnean — erabakitzailerak izan daitezkeela nahaspila honetan, eredu ezberdinak elkarren lehian egon daitezke eta.

Beharbada, atal honetatik atera dezakegun ondorioz garrantzizko eta erabatekoena hau da: euskal ordainetan aurkituko ditugun gauza batzuk Larramendik oharkabeen-edo jasoak direla, hots, iturri ezberdinei zor zaizkiela eta, hein berean, iturria sala lezaketela. Baina, aldi berean, beste gauza batzuk Larramendik hala nahita gertatzen dira, berak euskaraz zekiena baliaturik orokortu edo maiztu zituelako. Tartean behin Larramendi hizkuntz aztertzailearen itzala ikusi ahal izan dugu, beraz, baina baita Larramendi hitz biltzailearena ere. Gauza hauek, baina, denak III. atalean banaka frogatu beharko ditugu.

9. Ondorioak eta hauen gaineko aitzinamendu zenbait

Atal hau, orain artean ikututako gaien laburpena baino gehixeago izatea nahi nuke: *HH*-aren izaera, eredu eta antolakuntzaz bidera irten zaizkigun galdera nagusietarako erantzuna, hain zuzen. Haatik, erantzun puskak aldez aurreko ataletan barraiaturik, aldez oraindik ilun xamar eta, aldez, azterketaren ondoren bakarrik zentzua hartu duten Larramendiren beraren lekukotasunen bitartez hobetzeko moduan.

Hiru zati ditu, beraz: lehenean, ereduarekiko hartuemanak deskribatzen dira, ia huts-hutsean. Interpretazio lana handik aurrera hasten da: bigarreanean ereduarekiko aldaketa gehienak *HH*-aren funtsezko elebitasunari —euskara sartzeari, zehazkiago— zor zaizkiola aldeztuko dut, eta hiztegi barruko argudioen bitartez bilatutako irakurlea euskalduna zela frogatuko. Hirugarrenean, berriz, hiztegiaren historia berreraikitzen saiatuko naiz, Larramendik asmoa hartu zuen lehen unean hasi eta moldiztegitik atera zen arte, batez ere zergatik eta nola egin zuen ezagutzeko asmoz.

9.1. Ereduaren erabilera

XIX. mendearen bigarren zatian egingo ziren hiztegi handiak (Aizkibel, Harriet...) arte bederen, *HH* euskal hiztegirik handi eta aberatsena da, zalantzarik gabe, 40.000 sarrera baino gehiago —eta beste horrenbestetsu euskal hitz— biltzen ditu eta. Eta handitasun hau, oinarrian behinik behin, ereduari zor dio. *DAut* erraldoia berdintzeak sekulako ahalegina eskatzen du, noski —zer ote da buruko hitzak kopiatze hutsa?—, eta hiztegiilea, ia ezinbestean, bertan bermatzen da hainbat arlotan eredu gisara erabiliaz: ondorioz, *DAut*-en eragina oso handia da, hala forman nola edukian, euskal ordainak ere —baina ez espero zitekeen eran bakarrik— eragiterainokoa. Ereduarekiko erkaketak atal honetako ekarpenik jakingarrietakoak eskaini dizkigu, beraz.

Garai haietako hainbat bezalaxe, *HH* hiztegi elebidun bat hirueledun bihurtuaz eratutako hiztegia dugu, nahiz zehazkiago —eta eredu legetxe— sasi-hirueleduna baino ez

izan, latina bietan bigarren mailan baino ez baitago. Eredua bezala, orobat, hizkuntz hiztegi orokorra da, hots, hizkuntza nagusi bietako denetariko hitzak (baita hitz gramatikalak eta preposizioak edo atzizkiak bezalako zatiki ez askeak) batu eta erabiltzailearen hizkuntzari buruzko jakinmina ase nahi duena (von Gemmingen 1992: 27).

Izaeran elkarren antz handia izan arren, aurrean jarri baino ez, nabaria da oso hiztegi ezberdinak direla, bai tamainan bai aurkezpenean. Bien arteko alderik nabarmenenak —eta esanguratsuenak, ziurrenik— hiztegi elebakarra elebidun bihurtzetik datoz eta, jakina, hiztegiaren interesgunea gaztelaniatik euskarara aldatzetik.

Saia gaitezen, hortaz, *HH*-ak *DAut*-ekiko dituen zorrak eta aldeak laburbiltzen.

9.1.1. Aurkezpen grafikoa

Hemen dugu ezberdintasunik begibistakoena: *DAut*-en sarreraren egitura konplexuan ageri diren maila ezberdinak aski ongi ezaugarritzatu eta hierarkizatuta daude, letra mota ezberdinen erabilera bereziaren bitartez gehienbat. Larramendik, ordea, bi letra mota baino ez ditu erabiltzen, borobila eta etzana, nahiz eta ereduiko sarreraren egitura orokorra mantendu, hau da, lerrokada ezberdinetan antolatutako azpisarreraren banaketa. Beraz, *HH*-an sarreraren maila ezberdinak begi-kolpera bereiztezinak dira: maila berebean ezartzen ditu adierak, esapideak, errefrauak eta, aldizka, baita bestelako xehetasunak ere (etimologiak, oharrak...). Esan gabe doa goitik behera orrialdea begiratzerakoan sarritan esapideek-eta alfabeto hurrenkera hausten dutela.

9.1.2. Antolakuntza orokorra

Larramendiren hiztegia *DAut*-en gaztelaniazko nomenklaturari jarraiki eratutako hiztegia den heinean —hein handi batean, beraz— ereduari zor dio alfabetoaren arabera ordenatutako hiztegia izatea. Orobat, eredutik hartu du sarritan adiera ezberdinen, esapideen eta atsotitzen hurrenkera, hala nola partizipio aktibo eta pasiboak (*-ble* eta *-ado...* atzizkidunak) eta *-se* aditzak infinitiboaren ondoan emateko ohitura. Honekin batera *DAut*-en alfabeto hurrenkeraren aurkako huts gutxi batzuk ere isuri zaizkio.

Halaz ere, *HH*-ak orotara *DAut*-ek baino desbideratze gehiago ditu. Gehienak A letraren hasieran pilatzen dira, baina liburu guztian zehar taiu berekoak aurkitzen ditugu, neurri oso ezberdinean bada ere. *HH*-ak berezko dituen ezaugarrien artean etimologi familiak biltzeko joera dugu aipagarriena: *DAut*-en jadanik bazegoen joera indartuaz, aditza izaten da familiako beste hitzak erakartzen dituen; nolana ere, familia hauen barruko hurrenkera ez da beti bat, infinitiboaren ondoko lekua ia beti partizipioak hartzen badu ere. Familia barruan, adieren araberako azpifamiliak egin ohi ditu: erabaki honek adiera bakoitzaren ezaugarritzatze semantikoa (azalpena, zehaztapena...) errepikatu beharra saihesten laguntzen dio. Gainerantzean, desbideratze gehienak Larramendik egindako grafi aldaketei zor zaizkie, grafi eta leku aldaketak ez

doazelako beti bat. *HH*-aren beste ezaugarri bat, azkenik, sarrera errepikatu kopuru handia da, sistematikoki ortografiatzko zalantzei zor zaiena, eta ez sistematikoki bere kabuz erantsitako informazioari (etimologiei, ordain sorta berriei, etab.).

9.1.3. Sarrera barruko antolakuntza

HH-ko sarrera *DAut*-ekoa baino bakun eta laburragoa da, hiztegi eleaniztunari dagokionez: zehazkiago, oinarritzko egitura ondo dator hiztegi itzultzaile baten gutxieneko eskakizunekin: "gazelaniazko hitza + euskal ordaina(k) + latinezko ordaina(k)". Eskema hau honako eduki hauek barneratzeko zabaltzen da:

1) Gaztelaniazko hitzaren azalpen laburrak, eskuarki esanahikideak edo zehaztapenak. Hitza zein arlotakoa den jakinarazteko edota adieren arteko bereizketa egiteko beharrezkoa den informazioa baino ez du gorde, ereduaren azalpen sarritan oso luzeetatik, eta sarrera gehienek osoki galdu dute. Gramatika kategoriak eta hitzari buruzko informazio gehigarriak ia erabat ezabatu ditu; erabat autoritateen adibideak. Halako maiztasun batez gorde duen informazio bakarria diakronikoa da, "antiquado" adierazpen normaldura jotzeko joerarekin.

2) Gaztelaniazko hitzen euskal etimologiak. Bi hiztegietan etimologia informazio gehigarrien artean sartzen da, bietan ez sistematikoki baina *DAut*-en askoz sarriago *HH*-an baino, zeren eta honetan, ezaguna denez, etimologia jasotzen baita soilik eta baldin soilik euskararen bitartez azal daitezkeen hitzak badira. Iturriak (baleude) ez dira behin ere aipatzen, ereduan ez bezala; adierazpidea ez dago osoki normalduta eta etimologi azalpena sarrera arruntaren barnean zein beste lerrokada batean ager daiteke. *DAut*-en bezalaxe, ordea, etimologiak eragina izan dezake ortografian, batez ere <v> / eta <h> / ∅ bikoteen artean hautatzerakoan.

3) Euskarari buruzko gramatika edo semantikazko azalpenak. Alde batetik, euskal aditz trinkoen paradigma osoak —gramatikan baino maiz osoagoak, behinik behin— erantsi ditu. Bestetik, hitz gramatikal eta aurrizkietan (*des-*, etab.) gaztelaniazko nomenklatura errespetaturik, sarreraren edukia zeharo itxuraberritu du, euskal ordainak eta haien jokaera argitzeko, sarritan azalpen luze eta zehatz xamarrek emanaz. Eta, azkenik, euskal hitzen adiera bereziei zein erabilerari dagozkien oharrak aurki daitezke noizean behin (hiztegiaren hasieran baita adibideak ere), bereziki maiz aditzen jokoari dagokionez.

9.1.4. Nomenklaturako aldaketak

DAut-eko sarrerak, adierak, esapideak eta errefracuak bakandu samartuta agertzen dira *HH*-an, hurrenkera horretan zenbat eta aurrerago, hainbat eta bakanduago: sarrera gehienak nola edo hala berragertzen badira ere, beste muturrean esapide mordo bat eta ia errefracu guztiak desagertu dira.

Sarrereren desagerpena eskuarki hitzaren izaerarekin lotuta dago: Larramendik germaniako hitzak eta zaharkitu zenbait bakarrik kanpo utzi dituela esan arren, oro har ezohikotzat jo daitezkeen hainbat hitzek patu berbera pairatu dute, nahiz eta ez sistematikoki: gutxi erabilitakoak, hedadura gutxikoak, bitxiak edo oso berezituak, besteak beste. Eratorri gutxi batzuekin batera, bestalde, partizipioak ere maiztasun esanguratsu batekin desagertu dira.

Adiera kopurua murrizteko arrazoiak sarritan sarrereretarako eman ditudan berberak bide dira (hedadura, erabilpena...), baina badirudi are sarriago esanahi hedadurak baino ez izateagatik desagertu direla. Esapideen inausketa oso handia da: hiztegiak bestela aska zitzakeen sintagmez gainera ('izena + adjektiboa' egiturak, esaterako), Larramendi ohartu bide zen hizkuntza baten esapideak banan-banan itzuli beharraren alfertasunaz. *DAut*-en aldean, bestalde, Larramendik atsotitzekiko axola gutti dauka: gehienera jota baliokideren bat jaso eta besteren bat hitzez hitz-edo itzultzeraz mugatzen da. *HH*-ak, ereduak ez bezala, bidalketa-dei huts anitz dauzka: badirudi *DAut*-etiko ahalik eta informazio gehiena ahalik eta leku txikienean jaso nahi izan zuela. Eta, azkenik, arrazoi beragatik baina oro har hiztegiaren antolakuntzan eragin gutxiagorekin, sarrera zenbait berregituratu ditu, familia eta adiera bereko hitz bi batean bilduaz.

Bestalde, nomenklatura zertxobait hazi ere hazten da, *DAut*-ek jasotzen ez dituen zenbait hitz —batzuetan familia osoak— eta adiera berri agertuaz, hala nola esapide kopuru bereziki handi bat. Batzuetan eransketak itxurazkoak baino ez dira, ordea: grafi aldaeren kontu ematen duten hainbat sarrera erantsi ditu, guztiz A letran, eta inoiz *DAut*-ek bilduta ematen zituen adierak edo bertako definizio zein adibideetan harrapatutako esapideak edo erabilera bereziak atera eta euskal ordainez hornitu ditu.

9.1.5. *DAut*-en sarrera barruko eragina

Aurreratu dudanez, ereduak, nomenklatura zabala eta ordenatua gehiegi nekatu gabe lortzeko erabiltzeaz gainera, makila modura erabili du hiztegiak, sarrera barruko edukia bera eratzeko iturri gisara. Oro har, *DAut*-ek eskaini zion informazioaren egokitzapenak dira, beraz: gaztelaniatzko hitzen azalpen laburrak; latinezko ordainak; eta euskarazko definizioak, ordain perifrastiko eta zehazgabeak, eta kalkoak.

9.2. Hiztegia norentzat?

Gaiari lehendabizikoz heldu diodanean, Europako lexikografiaren historiak eskaini zitzakeen argudioak erabili ditut, Larramendiren hiztegia eraldunak zapuzteko (bakarrik) egina ez zela, eta batez ere euskaldunentzat egina zela frogatzeko. Orduan I. ataleko azterketan zehar ager zitezkeen hiztegi barruko argudioen zain utzi dut eztabaida, eta hauxe da erdietsitakoa balioetsi eta erabiltzeko unea.

Hasieratik has gaitzke, hiztegiak noren alde lan egin duen jakiteko, bere hitzak aintzakotzat hartzeaz gainera, hiztegiaren egitura eta edukiari begiratu ohi zaiola gogoratuaz.

Gaingiroki hurbiltzeko eredu bat aurkitu dut Steiner-ek (1970: 34) Percyvall-en gaztelania-ingelesa hiztegiaren xedea mugatzeko egin duen saioan. Eredu bera *HH*-ari egokituz, argi dago ez dela: (1) gaztelaniaz irakurri, idatzi edo hitz egin nahi luketen euskaldunentzat, euskara-gaztelania zatirik ez egoteaz gain, gaztelaniazko gramatikari buruzko informazioa hutsaren hurrengo baita; (2) ez eta euskaraz irakurri nahi luketen hiztun euskaldun zein gaztelaniadunentzat, euskara-gaztelania zatirik ez dagoelako. Hiztegiaren norabideak eta, besteak beste, euskal gramatikazko informazioaren aberatsak ezagutarazi nahi duen hizkuntza euskara dela frogatzen dute; honek, hasieran bederen, bi irakurle mota egon daitezkeela iradokitzen du: (1) euskara ezagutu nahi duten gaztelaniadunak; (2) gaztelaniatik euskarara itzuli nahi duten euskaldunak.

Deskribapen honek kanpoan uzten ditu, argi eta garbi, Larramendik zapuztu nahi omen zituen erdaldun etsaiak, arrazoi sendo bategatik: ez da munduan horretarako bakarrik egina den hiztegirik, are gutxiago 828 orrialdekorik. Honezaz gainera, gogora dezakegu ikerketan zehar eratu dugun erabiltzailearen argazkia: garai hartako hiztun neutro —dialektalismorik gabeko— eta jaso —baina ez jasoegi— bat: honelakoarentzat eginak dirateke sarrera kenketa gehienak (§ 4.6), ezohiko hitzen azalpenak (§ 5.4) eta grafi zalantzak konpontzeko sarrera errapikatuak (§ 6.3). Aurreratu dudan moduan, argazkia ezin da inondik ere Mayans jakitunarena izan, baina erraz isla dezake euskaldun letratu arrunta: euskaraz predikatu behar zuten apaiz eta erlijiosoak (Larramendi 1745: xliii, eta *Autobiografía* 29), besteak beste. Dena dela, Steiner-en laguntzak eta irakurlearen argazkiak lehengo berera ekarri gaituzte: euskaldunak ala erdaldunak?

Lehenik eta behin, hiztegia euskaldunentzat —batez ere euskaldunentzat— egina dela aldeztuko dudan arren, ez dut esango euskaldunentzat bakarrik egina denik. Ezin liteke halakorik defenda. Hizkuntz hiztegia da, dagoeneko azaldu bezala, eta honegatik interes linguistikoarekin hurbiltzen den irakurlea, dena dela, ase dezake. Berez honek ez du aurreuposatzen zein motatako irakurleari begira egina den. Areago, ezin uka daiteke zenbait ezaugarri —hizkuntzaren deskribaketa, adib.— anbiguoak direla; anbiguoetan anbiguoena etimologiak dira, jakina, eta naturala da erasotzaileak alde honetatik batez ere erasotzea.

Covarrubias bat —gaztelaniazko lehen hiztegi elebakarraren egilea— ez dago "bekatu" honetatik garbi, eta honexek erakuts diezaiguke kanpora begira egotea ere ez dela batere bitxia batez ere barrurako lan egiten zutenen buruan:

Y esta obra de la Etymologías ha de dar noticia a los extranjeros del lenguaje Español, y de su propiedad y elegancia, que es muy gran honor de la nación Española (Covarrubias 1611, ap. von Gemmingen 1992: 32).

Ezin saihestezakeen Larramendik hain alderdi nabarmena: hiztegiak, argitara bezain laster, sor zezakeen kanpoko oihartzuna, alegia. Ezinbestean halako argitalpen batek hautsak harrotu behar: euskara ia erabat ezezaguna zen, eta zenbat eta ezezagungago, misterioitsuago eta jakingarriago: ez dirudi ordutik hona gauzak gehiegi aldatu direnik. Gainera, hizkuntza ezagunegia ez bazen ere, egilea bazen, eta aurreneko lanekin nolabaiteko sona ongi irabazia

zeukan, ezpairik gabe. Larramendiri berari borroka hori ez zitzaion desgogara. Alabaina, azala baino ez da, nik uste.

Korapiloa askatzeko biderik onena, hiztegi elebidunen izaeratik beretik datorkigu. Oraingo hiztegi elebidunen hobekuntza-lanean ari diren hizkuntzalariak erabat sinistuta daude —zuzen, jakina— lan on bat egiteko lehenengo urratsa, hiztegia bi hizkuntzetatik zeinen hitzuntzat egiten den erabakitzea dela (Landau 1989: 9). Besteak beste, arrazoi praktiko batengatik: “It is clearly impossible to pay equal attention to both X-speakers and Y-speakers in one and the same work” (Harrell 1975: 51). Eta, uste horretan, erabiltzaile mota ezberdinek izan ditzaketen premiak azalerazten, eta hauek nola ase daitezkeen argitzen saiatu dira. Bada, gogoeta zuhur hauetatik atera diren ondorioak atzekoz aurrera jar ditzakegu, eta hiztegiaren ezaugarriak hiztegitilea nori zuzentzen zitzaion jakiteko erabili, buruan zer zeukan eta horren arabera, oharkabean baino ez bada, jokatu zuelakoan. Honako hiru ezaugarrietan arreta jarriko dut, beraz: (1) sarreren hautapena; (2) azalpenen hizkuntza; eta, batez ere, (3) hizkuntzen arteko asimetriak.

1) Hiztegitilearen erabakiak hiztegiko sarreren hautapena baldintzatu beharko luke (Harrell 1975: 52). Izan ere, badakigu alde honetatik Larramendik bi erabaki hartu zituela: lehenik eta behin, *DAut* aberatsa eredutzat hautatzea; eta, bigarrenik, eredu horren nomenklatura egokitzea.

Ereduaren hautapenak, hiztegitilea nabarmenki ohiko lexikoaz gaineko hitzak ere sartzeko asmoz aritu zela adierazten digu: hiztegia euskara ikasi nahi zuketan erdaldunentzat egin nahi izan baldin balu, bistan da askoz eredu apalago batekin aski eta sobera ere izango zukeela: erka dezagun *HH* Voltoireren lanarekin edo, muturreko adibideetara ez jotzeagatik, bere herritarrei latina irakatsi nahi zien Etxeberri Sarakoaren hiztegiarekin. Aitzitik, hitz jasoak eta “fakultatiboak” ere biltzen zituen ereduak, hitzok euskaraz jartzeko ahalegina eskatzen zuten, gehienak artean ordainik gabekoak izan arren edo, hobeto esanda, ordainik ez zeukatelako, hain zuzen. Lan honen hartzaileak, Larramendik berak agerian jarri zuenez, aurrerantzean kultura euskarara itzuli nahi zezaketenak baino ezin dira izan, nahiz eta euskaldun berriak ere —A. Bernardo Recio eta A. Manuel Porta bezala (Larramendi 1745: xxxix)— arlora ongi etorriak izan.

Xede horren barruan uler daitezke, halaber, Larramendik *DAut*-en nomenklaturan egin zituen murriztapenak, zeren eta, irizpideak beti koherenteki erabili ez arren, batez ere gaztelania estandar eta gaurkotutik kanpora geratzen ziren hitzak uxatu baitzituen, ez gaztelania osoa, baizik eta gaztelania erabilgarri bat eskaini eta euskararatzeko asmoz.

2) Hiztegitileak erabiltzaileen arabera aukeratu beharko luke azalpenen hizkuntza (Harrell 1975: 53). Badakigu Larramendik gaztelania hautatu zuela hiztegiko metahizkuntzatzat eta, beraz, erabiltzaileari, erdaldun zein euskalduna izan, gaztelaniaz zuzentzen zaiola. Arrazoi historiko eta soziologikoek nahikoa zuritzen duten erabakia da, noski, eta alde honetatik ez dukegu zer esan gehiago. Alabaina, badirudi Larramendik, erdaraz idatzi arren, beti euskaldunentzat —batez ere euskaldunentzat— idazten zuela: honela bakarrik azal daitezke

hainbat lanetan egiten dizkien aparteak, sarritan erdaldunentzat —zenbait erdaldunentzat— iraingarriak edota mingarriak. Honetaz dena dela, baina honen antzera, hiztegiko hainbat sarreratan argi eta garbi euskaldunei zuzentzen zaie, guztiz azalpena euskaraz bakarrik edo euskaraz batez ere daramaten sarreretan, baina baita oro har ordainaren ordeaz, edo hala-holako ordainaren (maileguaren zein hitz berriaren) aldamenean azalpena daramatenetan ere (§ 8.3.1).

3) Hiztegi-gintza elebidunaren buruhauskarri handienetako bat, hizkuntzen arteko asimetriak dira (Landau 1989: 9; Haas 1975; Harrell 1975; Tomaszczyk 1983): hizkuntza bakoitza berezko duen kulturaren bizienez eta espazio semantikoa bere erara lexikalizatzen duenez gero, bana-banako egokitasunak benetan urriak izaten dira, baita jatorriz hurbil dauden hizkuntzetan ere: X hizkuntzako hitz batek Y hizkuntzan hitz bat baino gehiagoren eremu semantikoa bete dezake, eta Y hizkuntzako hitz hauetako bakoitzak adiera berezi-berezia izan; edota X hizkuntzako hitzak Y hizkuntzan lexikalizatu gabe egotea gerta liteke, edo X hizkuntzan arrunta izatea eta Y hizkuntzan erabat ezohiko edo zail; edota X eta Yko hitzak esanahikideak izatea, baina joserik zeharo ezberdina edukitzea. Eta, jakina, X hiztunek beren hizkuntzako hitzez jakintzat ematen dituzten hainbat eta hainbat gauza, ez dira denak argiak edo nabarmenak Y hiztunentzat. Honelako gertakariak nahi adina ugai daitezke, baina eman dakiekeen aterabide lexikografikoa sarritan ez da batere erraza: X-Y ordenako hiztegi batean, definizioak, deskripzioak, parafraasiak, etabarretara jo daiteke, zeren eta, ordain egokirik eskaini ez arren, ulerpenera bederen ziurtatzen baita; alabaina, ezin dugu beste horrenbeste egin Y-X ordenan, edo ez hain errazki behintzat.

“Pie forzado”-aren arazoa aipatzen zutenak jakintzat ematen ari ziren gaztelania-euskara ordenak asimetriaren kontuan euskararen aurka jokatzen zuela, noski, baina agian ez ziren honen inplikazio guztiez ohartu: Asimetriaren artean *sincategoremático*-rena ez da esanguratsuenetakoa, zeren eta gaztelaniazko kultura eta euskal kultura hainbat arlotan elkarrengandik urruti zebiltzala adierazten badu ere, gaztelaniazkoa euskaldunek beretu behar zutela asumituz gero —Larramendik egin zuen bezala— *sincategoremático* maileguak zein *berezitizkidea* hitz berriak, geroago ederto ikasi dugun bezala, biek kalte berbera —hots, bat ez— egin baitziezaioketen euskarari.

Bestetik datozke kalteak, nabarmenki, gorago aipatu asimetria semantiko eta sintaktikoetatik, hain zuzen: hitzen eremu semantiko zehatza eta ohiko joserik zaintzen ez bada, gaztelania-euskara ordenan antolatutako hiztegiak oker handiak sor ditzake eta, ausaz, barraiatu. Haatik, honelako erorikoak oraingo hiztegi elebidunetan ere erraz xamar aurkitzen dira, eta ez bakarrik euskarazkoetan. Adibidez, tai-ingelesa gaurko hiztegi batean, ‘orro egin’ adieran ing. *to cry*-ren baliokidea den tai hitza azaltzeko bi orrialde bete dira, orro-edo egiten duen animalia-aren arabera ingelesez aditz ezberdinak erabili ohi dira eta. Honelako informazioa baliagarria da, zalantzarik gabe, tai hiztunarentzat, baina zeharo astuna jatorrizko hiztun ingelesarentzat. Are okerrago, ingelesari ezerk ez dio abisatzen tai hitza ezin duela inoiz *to cry* ‘negar egin’-en ordeaz erabili (Haas 1975: 47-48). Ez dut esango Larramendik horrelakorik egin

ez zuenik, eta gaztelaniazko ereduak nahi baino gehixeago euskal zatia zamatuz ez zuenik: III. atalean hau egiaztatzeko aukera izango dugu, beharbada. Dena dela, asimetriak gehienetan gaztelaniaren alde jokatu zuela jakintzat emanez, euskararen aldera itzultzeko edo gutxienez haren kaltetan izan ez zedin egin zituen ahaleginak are eta aipagarri eta adierazgarriagoak dira. Hauek dira azterketan zehar atera ahal izan ditugunak:

a) Larramendik bazuen asimetriaren berri, noski: aipatu ere aipatzen du, batzuetan ordain perifrastikoak eman beharra dagoela aldeztu duenean, eta argi eta garbi hartara makurtzen da, ordain perifrastikoak, definizioak eta ordain zehazgabeak ematera mugatzen denean (§ 8.6). Ikusi dugu garai haietako hiztegiek Y hizkuntzan ez lexikalizatutako X hizkuntzaren hitzetarako ordain perifrastikoak zein zehazgabeak ematea ohiko aterabidea zela. Berrikuntza bat egiten du Larramendik: latina bere alde erabiltzea, teoriarik biek gaztelaniazko hitzak trinkoki itzultzeko arazo beretsuak dituztela argudiatuz eta, praktikan, inoiz latinez eta euskaraz bata bestearen itzulpena izan daitezkeen ordain perifrastikoak emanaz (§ 7.9).

b) Euskal ordainak errepikatu beharra saihesteko egin zituen ahaleginak: adierak soiltzea, sarrera arrunten ordeko bidalketa-deiak ugaltzea eta esanahikide hurbilak sarrera bakar batean biltzea (§ 4.6). Multzo honetan sartu behar dira, arrazoi gehiagoz, partizipio eta -se aditzei dagozkien erabaki guztiak: infinitiboaren ondo-ondoan kokatuta izateak (§ 2.5) ordain errekursibo laburtuak edo besterik gabe ordain gutxiago emateko aukera zabaldu zion (§ 8.6); areago, noski, ezabatu egin dituenen (§ 4.6), erredundantzia erabat saihesten baita.

Nabarmena dirudi hauek guztiak hiztegielearen lana erraztu edo gutxitu bederen egiten dutela baina, oraindik nabarmenago, erabiltzailearen mesedetan hartutako erabakiak dira, hiztegia tamainaren aldetik erabilerrazago egiteaz gainera, gaztelaniazko hitz berberak euskal ordain berberekin behin eta berriz ikustearen astuntasuna ekiditen baitute.

c) Alferrikako euskal ordainak ez sartzeko egin zituen kenketak: hemen sartuko lirateke berriz sarrera mailan egin zuen bakanketa baina baita, eta batez ere, esapide anitzen desagerpena (§ 4.6).

d) Euskal hitzen adiera zehatzaz eta joskeraz egiten dituen oharrak, eta joskera erakutsiaz ematen dituen adibideak; gaztelaniazko hitz gramatikalen azpian, hauei buruzko informazioa ezabatuta, euskal baliokideei buruz erantsi zituen xehetasun guztiak eta, orobat, euskal aditz trinkoen paradigmatikak (§ 3.7).

e) Euskal ordain bereziak eman beharri edo euskal ordainak argi azaldu nahiarik zor zaizkion erabakiak: adierakako antolakuntza (§ 2.5), bikoiztutako adierak, *DAut*-en azalpen edo adibideetatik erauzitako adiera edo esapide berriak, joskerak baldintzatutako esanahia izateagatik esapide bihurtutako adierak eta, oro har, *DAut*-en aurkezpenari ez egoki iritzi dionean izaeraz aldatu dituen itemak (§ 4.6). Baita euskal ordainez bestelako adierak aditzera eman daitezkeenean egindakoak (“Mañoso, *mañatsua*, *mañaduna*, *mañatía*, significa en Bascuence al que tiene mañas e impertinencias”)

f) Euskararen eratorpen ahalbideak garatzea errazten duten erabakiak: familia eta adierakako antolakuntza batez ere, baina baita eratorri berriak ere (§§ 2.5 eta 8.6).

g) Euskal hitzen parafrasiak: Hauxe dugu, inolaz ere, asimetriak euskararen alde gainditzeko saiatu zelako agergarrikeria onena, zeren eta, aipatu dudana adibidera itzulirik, Y-X ordenako hiztegia izan arren eginak baitira: oro har, euskaraz era berezian esaten diren gauzak (*etzidamu* erakoak) adierazteko eta gaztelaniaz baliokide trinkorik ez daukaten hitzei lekua egiteko eratu dituen “esapide” berriak, gehienak zeharo *ad hoc*-ekoak (§ 4.6); hauen artean bereziki azpimarratzekoak dira eransketa sistematikoak: ‘*hacerse* + adjektiboa’, ‘*amigo de* + izena’, ‘*cosa de* + izena’ edo ‘*arboleda de* + zuhaitz izena’... parafrasiak azpisarrerara modura erantsi zituen, adjektiboa edo izenaren azpian, eusk. ‘izenondoa + *-tu*’, ‘izena + *-zale*’, ‘izena + *-zko*’ edo ‘zuhaitz izena + *-di, -aga...*’ egiturei sarbidea emateko. Baina oso interesgarriak dira erdal hitzek ez dituzten ñabardurak adierazteko egindako eransketak (“Asserrar con sierra o sobre sierra corva, *codeñatu, codeñeaz epaqui*” erakoak). Aipatu berri ditugun eratorri berriak ere honela uler daitezke, jakina, baita euskal ordainak badituelako erantsi dituen badaezpadako adierak, *erabea* “aborrecible” edo *oliozalea* “aceitero” motakoak (§ 4.6).

Kontu hauek guztiok argitzea beti mesedegarri da, Larramendiren asmoak, ideia on eta hutsak, intuizioak eta indarrak neurtzeko parada eman baitigute. Haatik, ene uste apaletan bere hizkuntzaren historiaz (eta bere buruaz ere, agian) pittin bat lotsatzen denari bakarrik burura dakiokkeen asmazio batek eginarazi dizkigu: alegia, pertsonak arrotzak zapuztea bezain hutsala den asmoaren gainean hainbat lan egin dezakeela. Dena beste era batera agertzen da, osterara, zeruaren azpian ezer berririk ez dagoela gogoratzen denean. Oro har hiztegi elebidunak aztertzerakoan hainbat sail ezberdin egin daitezke eta Larramendiren hiztegia, zehazkiago, literatur hizkuntza sortzaileen artean (Zgusta 1989ko sailkapenaren arabera) kokatzen da, inolako zalantzarik gabe. Izan ere, egile honek bere lanean dioena, balirudike propio *HH*-rako idatzia dagoela:

A bilingual dictionary of the 'cultural language' as the source language and the 'new' language as the target language is clearly unambiguously compiled for this purpose ['kultur-hizkuntzan' diren baina hizkuntza 'berrian' falta diren berbak sartzea]: it presupposes that there are or soon will be native speakers of the 'new' language who have received various types of education in the 'cultural language' and who will need the help of the dictionary in order to write in the 'new' language (Zgusta 1989: 71).

9.3. *HH*-aren historiaz

Nire jakinmina gehien pizten dituen gaietatik bat, *HH*-aren idazketari dagokiona da, hiztegia xeheki eta zehazki nola egin zen ezagutzea bere ezaugarri handi zein txiki asko hobeto ulertzeko biderik zuzenena izango bailitzateke; edo, beharbada, azterketan zehar gai honi buruz jakin ahal izan dudana gutxiagatik, hain zuzen. Zertzelada zenbait lortu ahal izan ditut, halere, eta nabarmena iruditzen zait puzzle bakar baten aleak direla. Orain puzzle hau taxutu nahi nuke, peitu ditugun aletxo ugariak Larramendiren esanekin, eta gaiaz dakigun edo soma dezakegunarekin ahaleginean osatuaz.

Larramendiren hiztegia, zein-nahi begiz eta zein-nahi asmoz begiratuta ere, euskararen historiaren gertakari garrantzitsuenetako bat da: argitara zen eta, beraz, askoren eskuetara iristeko gai izan zen lehen hiztegi osoa da, Harrieten gramatikako hiztegi "cortitos" horiek alde batera utzita. XVII-XVIII. mendeetako gainerakoak, zein inguruko ezaxolaz, zein diru faltaz, apaletan hautsa batzen egonak ditugu, eta gehienak (ezagutzen ditugunetan 9tik 6, bi herenak) azkenik galdu ere galdu egin dira. Gainera, eta ez da gutxi, lehenengoz Euskal Herriko erakunde ofizial batek bere gain hartu zuen euskarari buruzko lan baten argitalpena. Ohorea, Gipuzkoako Foru-Aldundiarena da. Batak eta besteak mito asko apurtu zituzten Hego Euskal Herrian, anitzen begiak ireki eta ez gutxiren lumak askatu.

Alde askotatik gailur bat da, beraz, baina ez egileak ez ondokoek ordoki baten bakardadean altxatzen den gailurtzat hartu zuten (Lakarra 1985: 17-21 eta 41-45): Larramendiren euskarari buruzko gainerako lanek sustatzen dute eta, hortaz, haiekin batera bakarrik ondo uler daitekeen zerbait da.

Eztabaidarako bere sena ezagututa, badirudi aski egin zukeela *De la Antigüedad...* idatziaz, aurreko hainbeste euskaltzalek-edo egin bezalaxe. Alabaina, Larramendi ez zen hitzerdika aritzeko ez eta lanerdika ibiltzeko gizona. Ondo xamar ezagutzen zituen inguruko hizkuntzen garaiko gorabeherak, hizkuntza klasikoekin aberastasun eta malgutasunean, denetarakotasunean —eta idazleen lumetan beste herritarren buruetan— berdintzeko egiten ari ziren ahaleginak:

Todas las Naciones andan muy solícitas en pulir sus Lenguas: cortan, añaden, mudan, con una faena mayor que la de un Astillero. La Italia tiene su Crusca; la Francia su Academia de París; la España su Academia de Madrid (Larramendi 1728: 7).

Eta euskararentzat berak bakarrik, "sin Academias, sin assambleas y de primera mano" (*ibid.*) zama hartzea erabaki zuen. Euskararen aurreko apologiekiko *De la Antigüedad*-en originaltasuna, hizkuntzaren defentsa eta deskribaketa egitasmo oso baten aurkezpena izatean datza. Honelatsukoak dira Europako gainerako hizkuntza ia guztietan eginak ziren edo egiten ari ziren lanak, apologia barne. Ikus bestela, *Diccionario de Autoridades*-en hitzaurrea buru-burutik nola hasten den:

El principal fin que tuvo la Real Academia Española para su formación, fue hacer un Diccionario copioso y exacto, en que se viesse la grandeza y poder de la Lengua, la hermosura y fecundidad de sus voces, y que ninguna otra excede en elegancia, frases y pureza: siendo capaz de expressarse en ella con la mayor energía todo lo que se pudiere hacer con las Lenguas más principales, en que han florecido las Ciencias y las Artes: pues entre las Lenguas vivas es la Española, sin la menor duda, una de las más compendiosas y expressivas, como se reconoce en los Poetas Cómicos y Lyricos, a cuya viveza no ha podido llegar Nación alguna: y en lo elegante y pura es una de las más primorosas de Europa, y tan fecunda, que se hallan en ella, entre otras obras de singular artificio, cinco Novelas de bastante cuerpo, compuestas con tal especialidad, que en cada una de ellas en todas las voces que en si contienen, falta una de las cinco vocales: lo que hasta ahora no hemos visto executado en otro Idioma (*DAut* 1726: i).

Apologia, beraz, ezinutzizko urratsa zen garai haietan; ez, ordea, azken xedea, eraikuntza guztiaren oinarria baizik: hizkuntza "jasoa" izatea, hau da, gramatika arauetara erakar daitekeena eta lexiko sorketan aberatsa, ezinbesteko baldintza zen kultura hartzaile eta igorle izan ahal izateko (Lakarra 1985: 20). Larramendik berak argi aski utzi zuen hau:

El impulso que me hizo empeñar en estudio tan espinoso, no fue sola la pasión de ennoblecer e ilustrar nuestra Lengua, y por este lado acreditar a la Patria. Fue otro mayor y más propio de mi carácter, y consiste en el gran bien y utilidad que espero se ha de seguir a todo el País del Bascuenze. Allí es necesaria esta Lengua, sirviendo muy poco el Romance... (*Imposible Vencido*-ren hitzaurrean).

Larramendiren begiez bakarrik ez begiratzeko, baliagarria izan daiteke Frai Bartholome de Galarza hiztegiaren onirizpengileak —ofizioko ez den batek— dioskuna ezagutzea:

Por fin el Reverendísimo Padre Maestro Larramendi es el primero y único (yo a lo menos no tengo noticia de otro) que venció imposible imaginado de los Estraños, de que nuestra Lengua Bascongada tuviese o pudiesse tener conjugaciones; lo que manifestó por obra en el Arte del Bascuenze que años hace dio a luz; y en que todo curioso avrá observado los varios modos (muchos más que el Castellano) que tiene de conjugar todo verbo activo y neutro el Bascuenze, y assimismo el método admirable de formar verbos y tiempos. Ora en esta última Obra suya del *Diccionario* descubrió el Author los fondos y quilates del Bascuenze, y acabó de vencer del todo el imposible expressado; por lo que es acreedor a que todos los Bascongados le demos muchas gracias, por haverse empleado en Obra de tanto útil para la Nación (ap. Larramendi 1745: [8]).

Larramendiren egitasmoa nola gauzatu zen ez eze, haren buruan nola garatu zen ere antzemateko ezinbestekoa dirudi gertakari eta haien data jakin batzuk ezartzeak. Ildo honetatik, badirudi hiztegi baten —1726tik aurrera ateratzen hasi zen Espainiako Akademiaren *DAut*-en— irakurketak, hain zuzen, bultzatu zuela euskararen gainean lan egitera eta are bestek ezinezkotzat zeukaten lana ("Si llaman imposible a una gran dificultad, la confieso desde luego" zioen *Imposible Vencido*-ren hitzaurrean) bere gain hartzera:

Apenas el año pasado salió el primer tomo de su Diccionario, quando le leí todo en pocas semanas a hecho, como dicen; venciendo por el cariño de mi Bascuenze un trabajo tan poco jugoso y tan desapacible, como lleva de suyo este linage de lectura (Larramendi 1728: 32).

Y si en este Tratadito estoy de mal humor con el Diccionario es solamente por el sentimiento justo que nos da a los Bascongados, en hazer tan poco caudal del Bascuenze... (*ib.* 2-3).

...más quieren emparentar sus voces Castellanas con Alarbes, Turcos, Moros y Judíos, que con los Bascongados (*ib.* 36).

Ezin ziurtatu 1726 baino lehenagoko urratsik eman gabekoa zela; egiatan, irakurketa "tan poco jugosa y tan desapacible" batean aritzeak berak Larramendiren interesa ohikoaz gainekoa zela adieraz lezake. Honetaz dena dela, interes horren lehen fruituak *De la Antigüedad y Universalidad del Bascuenze en España* (1728) eta *El Imposible Vencido. Arte de la Lengua Vascongada* (1729) ditugu, Akademiaren hiztegia ezagutzen hasi eta berehalakoan onduak. Urteak igaroko ziren, tartean Valladoliden irakasle (1728-1730), Baionan Mariana de Neoburgoren aitortzaile (1730-1733) eta azkenean Loiolan bere gogoz baztertua zela, hiztegiari bukaera ematera iristerako. Frai Bartholome de Galarza adiskide eta hiztegiaren onirizpengileak hauxe diosku:

Es Obra que le ha costado al laborioso Escritor mucho afán y trabajo, y a no estar libre de las tareas Scholasticas, retirado años ha en el Sagrado e Ilustre Santuario de Loyola, creo huviera desistido del empeño (1745: [9]).

Honela, beraz, apologia, gramatika eta hiztegia liriateke, hurrenez hurren, Larramendiren kezken emaitzak. Zentzuzkoa da, halaber, hasieratik eta lan laburrenatastik hastea. Gauzak ez ziren, ordea, horrela pentsatu eta horrela atera baziren, behar eta ahalei egokitzeko Larramendiren gaitasunari egotzi behar diogu. Izan ere, jakina da —berak esanda— apologi liburua gramatikaren ondoren idatzi zuela, bere burua azalpenak ematera behartuta ikusirik:

Estoi para dar a luz un Arte de la Lengua Bascongada; y porque preveo crisis y resultas, quiero prevenirlas con este escrito. Así será menor el volumen del Arte... (Larramendi 1728: 1).

Ezezaguna da, ordea, hiztegiarekikoa erabat. Egitasmoaren zati ezinutzizkoa zen hiztegia, *Imposible Vencido*-aren hitzaurrean iragarri zuen bezala:

Pero aviendo ya Arte con método y reglas fixas, y luego Diccionario, que siendo Dios servido se dará también a la luz pública...

Hiztegia egingo zuela ez eze nola egingo zuen ere bazekien, gutxi gorabehera behintzat, "Formación de los nombres substantivos y adjetivos" atalaren bukaeran dioenak adierazten digunez:

Dexo algunos otros modos de formación en los nombres verbales, que se pondrán en el Diccionario: pues para el fin de que conozcan todos cuán regular y oportunamente forma sus derivados el Bascuenze, bastan éstos (Larramendi 1729: 268).

Areago, *De la Antigüedad...*-en argi eta garbi aurkitzen ditugu bere hiztegi gintza lana gidatuko duten jarraibideak, bereziki "El Bascuenze es Lengua más rica y copiosa que otras muchas" atalean (117-125. or.) eta, jakina, "De las Etimologías de las voces castellanas" deituan, *DAut*-en etimologiak eztabaidatuaz egin zuen hiztegi etimologiko saio luze xamarrean (A-C letrak). Lan aitzindari hauen garrantzia III. atalean neurtu beharko dugu, noski.

Hiztegia kalera zeneko, egilea jadanik aski heldua zen (55 urte inguru), eta lan honetan urte luzeak emana: Gipuzkoari egin eskaintzan "fruto de un prolixo estudio y tarea de muchos años" izan zela diosku. 1745ean argitaratu bazen ere, 1743aren amaieran bukatuta zegoen, Galarzaren onirizpenak, urte hartako abenduaren 28an izenpetua, erakusten digun bezala; hitzaurrea, bestalde, 1742an idatzi bide zuen (cf. "...tiene de antigüedad casi los 1742 años en que estamos", 1745: lxiii). 1744ko apirilaren 16an iritsi zuen erregearen baimena, eta apiriletik irailera bitartean egilea Donostian aurkitzen dugu, argitalpen lanetan (*Autobiografía* 30, 33. oh.); ez zen makala izango hiztegi honek argitaratzaileari eskatu zion lana, batzaz beste urte betekoa, dirudienez: erregearen aginduz originala eta inprimatua erkatu behar izan zituen Zuzentzaile Orokorrak 1745eko uztailaren 15ean izenpetu zuen bere lana. Nolanahi ere den, pentsatzekoa da 1729-1743 tarteko hamalau urteak lan honetan eman zituela, ederki eman ere.

Hiztegiaren hitzaurrean berreraiki dugun historia honen bertsio beretsua, osoagoa ordea, eskaini zigun Larramendik, adierazgarriki "De la gran dificultad que he tenido en componer este Diccionario" (1745: li-liv) deitu zuen atalean, hiztegi nola iritsi zen eta nola prestatu zuen xehe-xehe kontatuaz.

Larramendiren lehen-lehengo asmoa hiztegi bat ontzea izan zen; ulertzekoa da erabat, euskarari buruzko bere lanen pizgarria beste hiztegi bat izan zela kontuan harturik. Asmo honekin, bere gaztelania aberasteari ekin zion eta, besteak beste, *DAut* osoa irakurtzeari, hitzez hitz eta astiro, haren edukiaz eta antolakuntzaz —alegia, hizkuntzaz ez eze hiztegi gintzaz ere— jabetzeko. Lan hau bukatuta, erdal hitzei euskal ordaina emateko garaia zetorren, baina ezin gaindituzko zeritzen oztopoekin aurkitu zen: ez libururik, ez hiztegirik, ez edonolako eskuizkriburik hiztegiarako gida edota gaia eskaini liezaiokeenik, ez eta euskal eskolarik ere zegoen. Autoritate hiztegi aberats

hark hitzik gabe utzi bide zuen une batez, hizkuntza ia erabat ez idatzi baten hiztegia egin nahi zuen ausarta.

Asmoa, beraz, gorde egin behar izan zuen. Ez horregatik desalaitu, berak esango zukeen bezala esanda. Lana goitik ezin bazen, behetik hasiko zuen: "...venciendo cien dificultades y repugnancias" (*ib.* lii), euskaraz bere burua janzten hasi zen, lehen gipuzkeraz, gero beste euskalkiez, gramatika ontzeko gai izan arte. Honi sekulako garrantzia ematen zion Larramendik: besterik ezean, hizkuntzaren egiturak, baliabideak, ezagutu gabe, nola egin hiztegia? Dakusgunez, ikasketa lan hartan tesi honen III. ataleko hainbat gairekin topoz topo egin zuen.

Hau guztiau, beraz, 1726-1728 tarte laburrean egin zuen, alegia, euskara (ber)ikasi, eta gramatika eta *De la Antigüedad...* idatzi. Demagun, beraz, halako batean hiztegiari, azkenik, ekin ahal izan ziola. Erka ditzagun data batzuk: Larramendi Valladoliden dugu lehen (1728-1730), Baionan gero (1730-1733), eta azkenik Loiolan (1734tik aurrera). *DAut* atalka atera zen: A-B (1726), C (1729), D-F (1732), G-Ñ (1734), O-R (1737) eta S-Z (1739). Hortaz, Valladoliden gehienera jota A-B-C letrak ezagut zitezkeen, Baionan D-F letrak, eta gainerakoa Loiolan iritsi zuen.

A letraren eta gainerakoaren artean antzeman dugun berezitasunak bi idaztaldi izan zirela iradokitzen du. Izan liteke, beraz, A letra Loiolara baino lehenagoko astialdietan egindakoa izatea, haren zati bat behintzat: orotara 122 orrialde ditu, eta alfabetatzean somatu ditugun aldeek (§ 2.5) oso posible egiten dute amaitu gabe ere egotea munduko lanek hiztegirako denbora kentzen zioten sasoi hartan; eta gainerakoa, berriz, behin Loiolara iritsi eta geroko urteetan egindako idazketa lan jarraiaren ondorio. Dena dela, jakin dakigun data ziur bakarra, *DAut*-ek eskaintzen dituen *post quem*-ekoez gainera, B eta C letrak 1739 baino lehen —ziurrenik nahikoa lehenago— eginak direla da (§ 6.3).

Egitasmo orokorrean bezala, hiztegi egitasmoan ere hasieran handinahi agertzen zaigu Larramendi, baina, aldi berean, hasierako handinahiaren eskakizunak durduzatu gabe eta atzera egin gabe murriz zitezkeen gizon modura. Izan ere, bi idaztaldi ez eze bi hiztegi mota biltzen ditu *HH*-ak bere azken itxuran: A letra eta B-tik aurrerakoa, gaingiroki esanda.

Lehen asmoko hiztegi hartan, hiztegiak *DAut* inspirazio iturri gisara bakarrik hartuko zukeen, bertako hitzak irakurrita burura zetorkion guztia bilduaz, hurrenkerari gehiegi begiratu gabe (§ 2.5), eta kupidarik gabe nahi adina kendu zein erantsiaz (§ 4.6).

Alfabeto hurrenkeraren azpiko antolakuntza nagusia familiakakoa izango zen, eta familiaren barruan adierakakoa, euskal ordainak errazkiago jartzeko moduan (§ 2.6). Eratorpen ahalbideak familia hauen barruan azken muturreraino eramango ziren, erator oinarri guztiak atzizki guztiekin konbinatuaz, euskarak eskain zitezkeen ordain guzti-guztiak jasotzeko asmoz; edota, bestela, osotasun horretara iristeko eman beharreko urratsak agerian jarriko ziren, egin daitezkeen konbinazio guztien adibideak emanaz, eta irakurlea gainerakoak betetzera "etabar"-en bitartez gonbidatuaz (§ 8.6).

Sarrera bakoitza, euskal ordainez gainera, hauen erabilera azal zezaketen edozein motatako argibideez osatuta egongo zen: gutxieneko kontuan adibideak eta, behar izatekotan, oharrak ere ugari (§ 3.7).

Azkenik, hiztegi hark grafia kontuetan *DAut* gaindituko zuen, edozein irakurleren zalantza ortografikoak konpontzeko moduko sarbideak (<h>rekin eta gabe, <v> zein rekin...) eskainiko baitzituzkeen (§ 6.3).

Dakusgunez, A letrak islatzen duen hiztegia erabat exhaustiboa eta erabat pedagogikoa da, eta halaxe jarraitzea ereduarekin zerikusi gutxi izango bide zuen hiztegia izango zen. Esan gabe doa, bide batez, ezberdintasunak noraino iristen diren eta orotara zertan dautzan xehekiago aztertzea merezi duela.

Geroko hiztegia nola atera zen gutxi gorabehera marraztuta utzi dut gorago, bigarren zatia —tamainaz baino ez bada— hastapenei nabarmenki gailentzen baitzaie, *HH*-aren izaera nagusia eratuaz. Orain, beraz, aldaketa nondik etorri zen eta nola gauzatu zen azal dezaketen datuak bakarrik bilduko ditut, gure hasierako galderari —hots, nola idatzi zuen— ahalik eta erantzunik zehatzena eman nahian.

Lehenik eta behin, seguraski ez zuen fitxarik erabili, orriak edo koadernoak baizik. Orrialde bakoitzaren buruan, bertan bilduko ziren gaztelaniazko hitzen lehenengo bi letrak (AB, AC...) agertuko ziren, eta bi letrako hauetako bakoitzak behar adina orrialde beteko zituen, *HH*-an bertan eta *EGH*-an bezalaxe (§ 1.3).

Bigarrenik, *DAut* arretaz eta hausnartuaz irakurri zuela —hitzaurrean dioenez— baieztatu behar dugu: euskaraz adierazpide berezia behar zuten adiera edo esapide berriak erdiesteko (§ 4.4.2), gaztelaniazko azalpen txikiak eta zehaztapenak aukeratzeko (§ 5.2) eta euskarazko definizioak edo ordain perifrastikoak idazteko (§ 8.3.1) *DAut*-en definizioak eta are adibideak ere baliatu zituela ikusi ahal izan dugu. Latinak ere beste horrenbeste ziurtatzen digu, zeren eta *DAut*-eko ordainen artean hautatzerakoan, azalpenean baino agertzen ez diren ordain etimologikoak sarritan erantsi eta are hobetsi baitzituen (§ 7.1.1).

B-tik aurrera *DAut*-en hurrenkerari ia erabat atxikita ziharduen, bertako desbideratzeak ere oharkabean mantenduaz. Honek esan nahi lezake aipatutako AB, AC... erako orrietan *DAut*-eko hitzak zeuden-zeudenean kopiatzen zituela. Honi *DAut*-en erabileraz esan berri duguna gaineratzen badiogu, orri haietan erdal hitza jasotzearekin batera, bertatik bertara, gaztelaniazko azalpen-zehaztapenak ere eratuko zituen. Eta euskal ordainez dakigunaren arabera, halaber izan liteke une hartan bertan *DAut*-ekin lotuago dauden ordainak behinik behin erantsia: definizioak, ordain perifrastikoak eta zehazgabeak, kalkoak, mailegu berriak... Mailegu berri hauekin batera, berriz, izan liteke euren ondoan proposatzen dituen hitz berriak ere (§ 8.6) orduantxe asmatu izana, baina azken puntu hau III. atalean aurki genezakeen berrespenaren zain utzi behar dut. Eta, azkenik, latina ere erraz sartuko zuen gainerako osagaiekin batera, noski.

Hiztegia honela hezurmamitu zuela eginez, ostera, iturriak noiz eta nola barneratu zituen jakin gabeen geratzen gara. Euskara arrunteko hitzak, eta Larramendik buruz zekizkienak ere erraz xamar barnera zitzakeen proposatu dudan sistemaren arabera: alegia, *casa* idatzi orduko *echea* ipiniaz. Baina, liburuetatik eta etengabeen herriaren ahotik jaso omen zituen hitzez den bezainbatean (“No salgo vez a estas cercanías que no vuelva con muchas voces que añadir...”, 1745: xlv), antzik ere ezin diet eman oraingoz: gai hau ere III. atalean iturrien sar ordenaz esan ahalko dugunaren menpe geratzen da.

Dena dela, dagoeneko badakigu *HH*-an eransketak daudela: *item* ondoko ordainak (§ 8.3.6), bata bestetik urruti zein bata bestearen aldamenean errepikatutako sarrerak (§ 4.5), ordain bakartuak (§ 8.6) edota bidalketa-deia izan arren euskal ordainen bat daramaten sarrerak (§ 4.3.1.1), denak halako zerbaitez mintzo dira. Garai ezberdinetakako eransketak izan daitezke, noski, baina gehienak, nire ustez, zirriborroan eginak dira. Hau ulertzeko, ordea, lan egiteko modura itzuli behar dugu.

B-tik aurrera *DAut*-i atxikiago lan egin zuela esan dut gorago. Zalantzarik gabe, honela jarduteak zer pentsatu gutxiago ematen du eta, beraz, azkarrago aurreratzeko bidea ere. Itxura guztien arabera, gainera, aurrera ahala aurrera aritu zen, atzera gehiegi begiratu gabe. Honek ederki azaltzen ditu sarrera errepikatu mota ezberdinak: alde batetik, bata bestetik urruti daudenei dagokienez, badirudi ez zuela hiztegia osoki berrirakurri, ez halakoak zuzentzeko moduan bederen. Bestetik, elkarren aldameneko errepikapenak, berriz, sarrera berrantolatzeko —hiztegia garbira pasatzeko?— lanik hartu nahi gabe azalduko lirateke: ordain bakar baten kontuan, *item* ezarri eta kito; eransketa luzea izatera, lerrokada oso bat erantsi bide zuen, ziurrenik orri ertzean, zeren eta halako batzuetan argitaratzaileak eransketaren lekua okertu bide zuela ikusi ahal izan baitugu (§§ 2.4.11 eta 4.5.4). Honezkero, bidalketa deietan balirudike ordain erdietsi berriak eranstekeo bertara joan eta, deia zela ohartzean, halaz ere bertan utzi zituela, denbora galdu gabe.

Azkar behar honetan grafi istiluak ere alde batera utzi zituen, multzoka —eta letra beraren barruan— aldatu ahal izan zituen gauzetan izan ezik. K letrarik ez sartzea erabaki zuenean, ez zuen ahaleginik egin bertako hitzak C-n barneratzeko (§ 2). B letran oraindik profitatu zituen *DAut*-eko V-rako dei urriak, hitzak han bertan egiteko, baina C letran jadanik somatu dugu honi ere utzi ziola (§ 6.3).

Eta, azkenik, euskal ordainetan ere osotasun nahia utzi behar izan zuen, edo agian hartaz aspertu. Adierakako antolakuntzari eutsi egin zion, eratorpen automatikoak hiztegi guztian funtzionatzen duela iradokiaz, baina lehen ez bezala, *DAut*-en (gaztelaniaren?) hutsuneak betetzeko gogo berezirik gabe gehienetan. Oinarriak eta atzizkiak aldizkatzera, edota oinarri batzuk bakarrik eratorzera mugatu zen, agerian dioena baino irakurle zuhurrarentzat egiatan askoz gehiago dioen hiztegi bat eratuaz (§ 8.6).

II

HIZTEGI HIRUKOITZA-REN ERANSKINA

0. Ikerketaren egoera eta xede berriak

Euskal lexikografian ezer gutxi dago Larramendiren *Erans*-ari pareka dakiokoenik. Hitz bereziak, bestetan ezezagunak edo bakanka baizik aurkitzen ez direnak, ekialdekoak zein mendebaldekoak, neurri ezohikoan batzen ditu bere txikian. Argitalpenean, zenbatu gabeko 8 orrialde baino ez ditu, 691 sarrera orotara,⁴⁶³ gaztelania-euskara ordenan antolatuak, latinik gabe eta alfabeto hurrenkera gorabeheratsu batean. Euskal hitz zein esapideak, berriz, 819 dira, eta haietatik 35 behin baino gehiagotan errepikatuta daude,⁴⁶⁴ normalean birritan:

amorantia (231, 291), *armora* (488, 631) *arrontera* (154, 471), *aurizquitu* (10, 296), *azquina* (123, 313), *barrendaria* (241, 346), *buthuna* (122, 255), *ecaira* (443, 556), *ecertu* (543, 665), *erra* (85, 466), *escolatu* (217, 239), *estalguna* (248, 596), *gardia* (176, 215), *garraita* (141, 455), *golpagogortu* (114, 462), *goratzapena* (225, 366), *gorgolla* (189, 458), *guertacuntza* (125, 619), *hisicatu* (232, 462) *irachoa* (220, 272), *irisca* (31, 676), *jolasturia* (226, 310), *marruscatu* (26, 264), *mendoza* (475, 640), *narrioa* (392, 629), *obua* (276, *obuan* 351), *oldozquera* (197, 508), *onbearra* (440, *ombearra* 422), *on(t)satu* (15, 153), *ozazt* (36, 535), *trisca* (90, 187), *urena* (123, 313), *urisca* (31, 676) eta *zafira* (477, 618),

hirutan errepikatzen den *arrantatu* (18, 155, 393) izan ezik. Bataz beste, azkenik 784 euskal hitz edo esapide izango dira gure ikergai.

Azkuek, *HH* oro har erabili ez bazuen ere, ataltxo honen garrantziaz jabetuta, nonbait, nasaike onartu zituen bertako hitzak, beste bide eta bidexketatik itzuri zitzaizkionak kontuan hartu gabe ere (Agud & Mitxelena 1958: 14).⁴⁶⁵ Azkueren erabilera hauxe da, hain zuzen,

⁴⁶³ Halaxe ageri da Mitxelenak eman zion zenbakuntzatik; ohi den bezala, zenbaki horiexek erabiliko ditut hemendik aurrera *Erans*-eko sarrerak izendatzeko.

⁴⁶⁴ Ez ditut sarrera beratzat jo, batzuetan agerrian hitz bera izan arren, adiera aski ezberdina duten —eta, beraz, iturri (edo agerleku) ezberdina eskatzen duten— agerraldiak (*behartu-beartua* 531 / 440, *erauci* 63 / 369, *croscas* 411 / 557, *trisca-triscac* 90, 187 / 126), are gutxiago elkarrengandik hurbil dauden aldaerak (*sasitu-sastu* 257, *huerriza-huarriza* 581 / 660). Lakarrari (1991: 252) 810 ateratzen zaizkio, eta 34 errepikatu; lehenengo zenbakian dugun ezberdintasuna gertatzen erraza den bezain zaila da azaltzen, baina ez bigarrenekoa: ez ditu antzeman edo aintzat hartu *amorantia*, *ecertu*, *golpagogortu*, *onbearra* eta *zafira* bikoteak, eta bai aldiz nik bereizi ditudan *trisca-triscac*, *behartu-beartua* eta *huerriza-huarriza*, eta errepikatutakotzat jotzen duen *arranta* ez dago behin baizik, oso oker ez banago. Nolanahi ere den, portzentaian alde a ñimiñoa da, eta geroago antzeman ahalko dira batera edo bestera jokatzeko izan ditugun arrazoiak.

⁴⁶⁵ Mitxelenak ez zuen zehaztu zein hitzetan, baina jakinaren gainean mintzatu zen, azterketa arin batek erakusten digun bezala: *Erans*-eko 18 hitz Azkueren hiztegian Larramendiren aipamenarekin agertzen

Mitxelenak bere lanaren abiapuntutzat ematen duen aitzakia, baina ez dago zalantzarik batez ere testuaren izaera bereziak eta azterketak aurkezten zituen erronkek erakarri zutela inoiz saiatu zuen iturri garbiketa lanik handiena egitera (Mitxelena 1970: 49-133). Izan ere, Landucciren argitalpenetik (Agud & Mitxelena 1958: 12-14) ohartu zen hiztegi zahar hura *Erans*-aren iturrietatik bat zela, nahiz egileak aitortu ez; tartean, halaber, ezagutzen dugun *RS*-ren alea (Darmstadt-eko *unicum*-a) eta Larramendirena ez zirela berdinak, eta hein batean bederen Larramendirena eta Oihenartena bat zetozela egiaztatzeko aukera izan zuen (Mitxelena 1961, 1964b, 1967).

Oinarri hauen gainean ekin zion azterketari, beraz; eta, hasiera batean behinik behin, oso azterketa bakuna izan behar zuen:⁴⁶⁶ *Erans*-eko hitz guztiak banan-banan hiru iturri ezagunetatik batean bederen aurkitzea, ahaleginean Larramendiren lekukotasuna —batzuetan ustela— ziurrago batez ordezkatzeko, *codex descriptus*-aren hertsapenaren arabera, jadanik azaldu dudanez (aurkezpenean, § 1.2). Alabaina, tankera honetako hurbilketari gogor egiten dio testuak; zalantzazko kasuetan iturri ezagunen lekukotasunaren alde jokaturik ere, orotara 507 hitzen berri bakarrik eman ahal izan zuen (%64,7), honelaxe banatuta:

Axularrengandik 287 (%36,6)
RS-tik 147 (%18,8)
Landuccirengandik 66 (%8,4)
Hautagai bat baino gehiagotik etor daitezkeenak 7 (%0,9)

Gainerantzean, iturri azterketa hertsia gainditu behar izan zuen, iturri ezezaguneko hitz anitzen historiari, euskalki-kokatzeari edota etorkiari buruzko xehetasun zein hipotesi jakingarriak eskainiaz, eskura zituen datuek eman zezaketen zehaztasun osoaz. Hondarrok, asko laburbilduaz, hiru zatitan bana ditzakegu:

RS-ren zati galdutik edo, gutxienez, bizkaierazko hitzak: 66 (%8,4)
Ekialdeko etorkia izan lezaketenak: 62 (%7,9)
Gipuzkeraren inguruko hitzak: 10 (%1,3)
Etorki zeharo ezezagunekoak: 139 (%17,7)

dira, gehienak "Lar. *Sup.D.T.*" laburdurapean (*kusuma, kusumatsu, ige, istinkari, istinkatu, itzagoz, leotz, lisko, minte, oillerea, onartu, osteleuri, ozatz* [sic], *putzaiki, urdabilaren aoa* eta *urru*) eta bi "Lar." hutsaren pean (*motzor* eta *olz*). Alabaina, Mitxelenak aurreratu bezala, ez dira *Erans*-aren hango aztarren bakarrak, ez eta hurrik eman ere; Urgell 2000a-n honen kontu zehatza emateko asmoa daukat.

⁴⁶⁶ Bakuna, baina ez erraza, eskura zituen tresna gutxi eta batzuetan eskasak kontuan harturik. *RS*-rako Gorostiagaren *Vocabulario del Refranero vizcaíno de 1596* (Salamanca, 1953) lanaren laguntza izan zuen (Mitxelena 1961: 365), bere akatsak gorabehera (ik. bere kritika, 1953: 409-410). Landuccirentzat, Agudekin batera berak prestatutako argitalpena (1958). Iturririk handi eta erabilgaitzari dagokionez, berriz, oraindik argitaragabe zegoen aita Villasanteren *Axular-en Hiztegia* (1973), eta beraz, bere kabuz aritu beharra izan zuen gehienean: "...baiña liburua gutxi edo gehiago ezagutzen dugularik geienok nekez arki genezake *Guero*-n ustegabeko itz miragarririk" zioen hasierako unean (1961: 365), eta honela, berriz, lana burutu eta urte gutxitara, Villasanteren lanaren erreseinan, hain zuzen: "...no me daba bien cuenta de lo que un estudio relativamente completo de esa lista [*Erans*] representa en tiempo y en trabajo. En particular, he pasado muchas horas en buscar, no sin la ayuda del padre Villasante, alguna palabra en las páginas del *Gero*. No lo considero esfuerzo perdido, ya que a ello debo el haber adquirido una cierta familiaridad con una obra fundamental. Cualquiera comprenderá, sin embargo, lo irritante que puede ser el rastreo interminable de una forma sin mayor interés, copiosamente atestiguada antes y después con el mismo valor, para terminar bastante a menudo por no dar con ella en las páginas del libro" (1974: 387-388).

Urte asko igaro ziren *Erans*-eko gauzak bere hartan utzirik, Lakarrak (1991, 1993, 1994a eta 1996a) saila berrireki zuen arte, laugarren iturri bat identifikatu eta ezagutzera emanaz, eta ez nolanhiko iturria, Landucciri hirugarren lekua askorekin kentzen diona baizik: Martin Harrieten gramatikako hiztegiak (1741).

Lehenago berri labur batean (Lakarra & Urgell 1988: 107-108), honetatik hartutako hitzak ehundik gora izan zitezkeela iragarri zen. Aurkikuntzaren oina, Lècluseren eta Harrieten hiztegien arteko erlazioa arakatu beharra izan zen, eta hitz oso berezi batzuk Larramendi eta Lèclusenetan ez eze Harrietenean ere agertzeak ireki zuen bidea; hitzok *lencatu* (533), *globac* (522), *globaria* (523), *ñaflatcea* (150), *toliatu* (75), *fidagaiztasuna* (196), *fidagaitza* (195) eta *aldecor* (487) izan ziren. Hauei, zerrenda labur bat erantsi zitzaaien adibide gisa: *malda* (5), *neitu* (8), *onartzea* (12), *onsatu* (15, 153), *irisca* (31), *ausartatu* (79), *arrastelua* (96), *galtzarra* (105), *guertacuntza* (125) eta *cunchoina*, *matelasa* (144). Hitz guztiok gauza batean bat zetozten: denak ziren Mitxelenak iturriak aurkitu ez zientakoak, eta gehienak berak ekialdeko zat joak. Bazirudien, beraz, etorki ezezaguneko talde eder batek aurkitua zuela bere jaioterria, ekialdeko itxura zeukaten baina Axularrengan azalpenik aurkitzen ez zuten haiek, hain zuzen ere.

Honen ondoren, Lakarrak sarritan ekin dio *Erans*-aren edukiari, lehen ia bakarrik Harrieten hitz seguruenak jasoaz (1991: 225), eta gero eta zehaztapen gehiago eskainiaz honen paperaz eta bestez. Hainbat hitzen banan-banako azterketaz gain, bi lan-hipotesi berri finkatu ditu: (1) Axularri lepora zekizkiokeen hitzetatik zenbait, zuzenean eta errazkiago Harrietengandik hartuak direla; eta (2) *RS*-ri dagokionez, Larramendik ezagut zitzakeen orrialdeak zein diren —eta zein ez— zehatz daitekeela, eta honen arabera hitz bakoitzaren harlekua ia ziurtasun osoz ezarri; Oihenart eta *Erans*-aren lekukotasunez baliatuz, guk ezagutzen ez ditugun *RS*-ko orrialde haiek zenbat izan zitezkeen ere finkatzen saiatu da.

Lakarraren azterketaren ondoren, auzia honelaxe geratu zen bere kalkuluen arabera (1991: 252):⁴⁶⁷

Axularri 243 hitz (%31,13)
RS-ri 161 hitz (%20,74)
Harrieti 129 hitz (%16,62)
Landucciri 67 hitz (%8,76)
Hautagai bat baino gehiagori 9 (%1,15)
RS galdutik 47 hitz (%6,05)
Etoriki zeharo ezezaguneko 118 hitz (%15,20)

Oro har, Lakarrak Mitxelenak azaldu gabe utzi hondakinaren erditsua murriztu du (1991: 223), eta bere orrazketaren ondorioz nabarmenena, Harrieten agerpenaz gain, jakina, Axularren jaitsiera da.⁴⁶⁸ Alabaina, Lakarraren ekarpenik berritzaileena ez dator, halako lotura bat antzeman badaiteke ere, alderdi filologiko hutsetik: aitzitik, Mitxelenak *Erans*-eko hitz bakoitzaren historia zuritu nahi zuen bitartean, Lakarrak interes gehiago ipini du Larramendiren jokabide lexikografikoan, hemen egingo dugun azterketari bide emanik.

⁴⁶⁷ Lehenago azaldu dudana bezala, hitz kopuru orokorretan ezberdintasunen bat dugu; halaz ere, aldeak aski adierazgarriak dira berez, hitzen baten gorabeherarekin.

⁴⁶⁸ *RS*-ren itxurazko ingoeraz, ik. § 0.2.

Erans-ari, beraz, beste edozein lan lexikografikori, baita beste edozein euskal testuri baino, bataz beste arreta eta tinta gehiago eskaini zaizkio. Hala eta guztiz ere, esan behar dut ez zaiola atera dakiokkeen etekin guztia atera, ez eta gutxiagorik ere. Lakarra gauzak bestelatsu aurkezten hasi zen artean, bazirudien *Erans*-ak, elkarrekin argitaratuaz beste loturarik ez zeukala *HH*-arekin. Ikerketa, hortaz, Larramendirekin ez eze testuarekin berarekin zeharka baizik zerikusirik ez zuten arrazoiek bideratu zuten. Izan ere, Mitxelenak lehen-lehenik Larramendi bildurgarria, hitz asmatzailea, uxatu zuen, *HH* eta *Erans*-aren arteko erabateko desberdintasuna azpimarratuaz: *DAut* berdintzeko xedea bete ondoan bildutakoa omen da eta, beraz, hitz berririk egiteko premiarik gabe egindakoa. Eta bigarrenik, Larramendi kopiatzailea ere ezabatzen saiatu zen, ahaleginean bigarren eskuko lekukotasun guztiak alde batera utzi eta lehen iturrira jo nahian: ikuspuntu honetatik begiratuta, *Erans* Azkueren eta besteren berrietatik atzera egiteko ezinbestean erabili behar dugun zubia baino ez da: behin honetara ezker, ezer ez.

Zalantzarik gabe, jarrera hau zilegi zaio hitzen historiaz bakarrik kezkatuta dagoenari, nahiz eta —ondoko ikerketan frogatzen saiatuko naizen bezala— arriskutsua izan daitekeen, guztiz lehen iturria kausitzerik edo ziurtatzerik ez dugunean. Baina, dena dela, halako azterketa batekin ezer gutxi ikasi dugu testuari buruz, ez testu den aldetik, ez eta, are gutxiago, hitz bilduma den aldetik.

Zer testu motaren aurrean gauden izango litzateke lehenengo galdera, beraz. Eta begibistan dagoenetik erantzuten has gaitzke: hiztegi handi baten eranskina da, izenak berak dioskunez, aurreko lanaren aldean xume-xumea. Aurreiritzirik gabe hurbilduko bagina, Larramendik honelaxe aurkezten duela egiaztatu ahalko genuke: hiztegiaren hitzaurrean liburuetatik eta ahozko euskaratik bildu ahal izan zituen hitzak hiztegian doazela esan ondoren, *Erans*-ean azken unean —*RS*-ren agerpenetik, Axularren berrirakurketatik eta etengabe herriaren ahotik— bildutakoak emendatu dituela zehazten du. Hortaz, arrazoi teknikoengatik fisikoki berezita agertu arren, *Erans*-ak *HH*-arekin erabateko lotura daukala dirudi. Areago, dagoeneko lotura honen bi ezagupide ditugu: Axular *HH*-rako eta *Erans*-erako birritan hustua, eta Harriet *HH*-aren lehen liburukian sartzan hasia eta gero *Erans*-ean bukatua: hauen argitara, nabaria da ez doazela asmakuntzak batetik eta aurkikuntzak bestetik; *HH* eta *Erans*, biak dira asmo beraren eta bilketa teknika beren ondorio eta isla. Hemendik bi ondorio garrantzitsu erdiesten dira: batetik, *HH* ere Larramendik bildu ahal izan zituen ahozko zein idatzizko berri guztiez osatuta dagoela, zehaztu beharko dugun neurriren batean; eta, bestetik, *Erans*-eko hitz guztien funtsezko izaera ez neologikoari buruzko zalantzarik zirrikitu bat bederen utzi behar zaiola.

Ikuspuntu berri honetatik *Erans*-ean oraindik zer aztertu handia dago, baldin eta, iturri bilaketa hutsean geratu beharrean, Larramendiren jokabideari begiratzen badiogu. Honelako azkerketa batek, Lakarrak zenbait puntutan agerian jarri duen bezala, Mitxelenak erantzun gabe utzitako galdera batzuei erantzun emateko gaitasuna izan beharko luke. Halaz ere, garrantzitsua izan arren, honek tesi-lan honen xedearekin zerikusi gutxi izango luke,

erabatekotzat jo behar dugun zerbaitegatik ez balitz: *HH* eta *Erans*-aren arteko lotura ezarri dugun une beretik Larramendi berragertu zaigu, hiztegitik eta kopiatazile modura, baita agian hitzberrigile modura ere, zena zen bezala. Eta hemendik dator *Erans*-ak *HH*-aren iturrien azterketan daukan interes berezia.

Filologoarentzat, *Erans*-ak hiru abantail nabarmen ditu *HH*-aren aldean: testu txikia izatea, iturri gehienak ezagutzea eta oso ondo aztertuta egotea. Bien arteko funtsezko lotura jakintzat emanez, abantaila hauek *HH*-aren azterketan sartu aurretik —eta itsuka sartu gabe— Larramendiren bilketa metodoak ezagutzeko erabil ditzakegu: alegia, ahozko zein idatzizko iturrien erabileraren nondik norakoa eta hiztegitikaren eskuhartzearen neurriak.

Lan hau behar beste bermekin egin ahal izateko, hasieratik hasteari beharrezkoa iritzi diot, zerotik abiatuta —egindako lan handiaren laguntzaz bada ere— Larramendik iturriekin izan zuen erlazioa goitik behera berreraikiatz.

Ezer baino lehenago, testua bera ezarri dut, Mitxelenaren argitalpena 1745ekoarekin erkatuaz. Bertatik ageri da Mitxelenarenak badituela zenbait huts, eta gehienetan ezerezak izan arren, inoiz edo behin —gero astiroago ikusiko dugunez— bere (eta ondoko Lakarraren) ikerlana baldintzatu dutela;⁴⁶⁹ Larramendiren jatorrizko testua eskura ez dutenentzat, hona hemen, erdarazko hitzetan <s> <ss>-ren ordeztu ezarri duenetako hutsalak albora lagata:⁴⁷⁰

18. <i>arruntatu</i>	irakur bedi	<i>arrontatu.</i>	222. <i>iriotu</i>	"	<i>irioitu.</i>
46. <i>egarberrea</i>	"	egarberaa.	223. <i>Afecto</i>	"	<i>Efecto.</i>
56. <i>Apropiarlo</i>	"	Apropiarlo.	307. <i>anzatzua</i>	"	<i>anzatsua.</i>
85. <i>erra</i>	"	<i>errá.</i>	338. <i>iztegia</i>	"	<i>izteguia.</i>
92. <i>sastamarrac</i>	"	<i>sastamarra.</i>	446. <i>oantzea</i>	"	<i>oántzea.</i>
94. <i>Bartolomé</i>	"	Bartholomé.	448. <i>seizaroa</i>	"	<i>seizároa.</i>
113. <i>calafatear</i>	"	calafatear.	465. <i>Ocuparse</i>	"	<i>Ocupar.</i>
119. <i>Cansarse</i>	"	Cansado.	493. <i>Peticion</i>	"	<i>Particion.</i>
136. <i>balimba</i>	"	balimba.	516. <i>oin hatza</i>	"	<i>oin-hatza.</i>
144. <i>cunchoina</i>	"	cunchoiña.	557. <i>crozca</i>	"	<i>crozca.</i>
161. <i>jarraiquia</i>	"	jarriquia.	664. <i>picardatua</i>	"	<i>picardatuac.</i>
189. <i>gargolla</i>	"	gorgolla.	667. <i>mendabala</i>	"	<i>mendebala.</i>
208. <i>Deshoras</i>	"	Deshora.	673. <i>oquelea</i>	"	<i>oquelia.</i>
211. <i>quisiera</i>	"	quisiere.			

Honen ondoko urratsa, 784 hitz edo esapideak banan-banan berraztertzea izan da, Mitxelenak eta Lakarrak bakoitzari buruz esana bilduaz, *OEH*-aren datuekin iruzkinak hornituaz eta ahal zitezkeen apurretan xehetasun zein iritzi berriak gehituaz. Iturri ezagunak berpasatzea ere emankor suertatu da zenbait kasutan; denetan Larramendik erabilitakoa —edo, besterik ezinean, hortik gertuen dagoena (gogoratu *RS*-rekin daukagun arazoa)— eskuratu dut:

⁴⁶⁹ *Erans*-eko euskarari dagozkionean, Mitxelenaren lanean zehar aski ongi bereizten dira inprenta hutsak eta kopia hutsak, iruzkinetan bigarrenak bakarrik islatzen direlako, islatzeko modukoak direnean. Kopia hutsak direla erabateko ziurtasunaz diot, hots, Mitxelenak egindako kopiakoak (gogoratu fotokopiarik gabeko munduaz ari naizela), beste azalbidea, hau da, *HH*-aren 2. argitalpenekoak izatea ezinezkoa delako: hutsak ez daude han, eta batez ere, hango *Erans* erabilezina da: hiru orrialde pasa kendu zaizkio, G letran zuzenean hasiaz.

⁴⁷⁰ Hauetaz gainera, Mitxelenaren idatzian berean beste zuzenkizun bat dago: 150. (bukaerako esaldia): "Pero encuentro testimonios más antiguos", irakur bedi "Pero no...". Zenbaki labainkorrekin egin zituen beste batzuk zein bere lekuan adierazita daude.

Landucciren eskuizkribua, Harrieten lehen argitalpena, *RS*-ren Darmstadtoko alearen faksimilea eta Axularren *Geroko gero*, hots, *Gero*-aren bigarren argitalpena. Esan gabe doa geroko argitalpenak, batez ere kritikoak diren heinean oso baliagarri izan zaizkidala. Halaz ere, azpimarratu nahi nuke jatorrizkora joaz *Erans*-eko zalantzazko irakurketa batzuk jadanik iturrian zirela egiaztatu ahal izan dudala, batez ere Axularren kasuan.

Azterketa honen ondorenak 5. eranskinean bilduta daude. Lan honetan oinarrituta, Larramendiren iturri ezaguneko jokaeraz esan daitezkeen guztia biltzen saiatu naiz: grafi eta morfologi egokitzapenak noiz, nola eta zergatik egin zituen (§§ 1.1 eta 1.2), iturrietako erdal itzulpenak nola baliatu zituen eta, itzulpenik ez izatera, zerekin jokatu zuen (§ 1.3), iturriak osorik ala zatika erabili zituen (§ 1.4), bilduma barruko eta sarrera barruko hurrenkeran iturri ezberdinetako hitzak zein ordenatan agertzen diren (§ 1.5) eta *Erans*-eko hitzak *HH*-an ere agertzen diren ala ez (§ 1.6).

Datuok bildu ondoren, zalantzazko kasuak haiek egin dezaketen argira berriro aztertzeari ekin diot, lehenik iturri berberaren barruan agerraldi bat baino gehiago dutenak (§ 2.1), gero iturri bat baino gehiagotan agertzen direnak (§ 2.2) eta zalantzazko iturria baino aurkitu ez zaienak (§ 2.3), iturri ezezagunekoekin amaitzeko (§ 2.4); azken hauen artean zenbait (ahozkoari, batik bat) aurreko ikerlariak baino, ustez behintzat, garrantzi gehiago emanez.

Geroko azterketan iturri zehatzei baino argudio orokorren indarrari leku gehiago eskainiko diodanez gero, badirudi interesgarria izango dela lehenik iturri guztiak, haien inguruan ditugun arazoak eta azken aurkikuntzak aurkeztea.

0.1. Axular

Axularren liburuak alde handiaz da *Erans*-eko iturrien artean garrantzitsuena kopuruaren aldetik. Lehenengo begiradan espero izatekoa dirudien arren (honen liburuaren tamainari oharreza baino ez dugu, besteen aldean) gogoeta interesgarri zenbaitetara eramaten gaituen gertakaria da.

Hiztegiarentzat ez dago hiztegiak baino iturri eroso, erabilgarri eta probetxuzkoagorik. Idazlanek, berriz, oso iturri oparoak izan daitezkeen arren, anitzez lan handiagoa eskatzen dute, hitza aurkitu eta zatitzeaz gain haren esanahia asmatu behar delako, eta gure kasuan behinik behin gaztelaniazko ordain egokia bilatu ere. Berpasa izan arren Axularren liburutik hartutako hitz mordoak, lehenik eta behin, lan itzel horri Larramendik gehiegizko beldurrik gabe ekin ziola erakusten digu eta, beraz, *HH*-an ere halako lana burutu zuelako ustea sendotzen gaitu.

Iturri honen ikerketari dagokionez, Mixelenak ia-ia buru eman zion, lehenengo arakatze hartan 283 hitz Axularri leporatuaz, ziurtasun maila ezberdinekin. Berriz, Villasanteren *Axularren Hiztegia*-ri egin zion erreseinan (1974: 388), iragaitzaz, hartan itzuri zitzaizkion bost hitz aitortu

zituen, kopuru orokorra 288taraino igoaraziaz. Lakarrak ez du Axularren ekarria bereziki ikutu bere lanetan, ez eta Mitxelenaren ondorioak eztabaidatu, Harrieti dagokion neurrian ez bada.

Orain ditugun baliabide berriekin Mitxelenaren zerrenda berpasatuaz, eta hau bere ohoretan doa, oso ekarri urria erdietsi dut: bi eransketa (*aztura* 171, *curea* 335) baino ez. Hau baino premiazkoagoa zen, dudarik gabe, lehendabizikoz benetako iturrira jotzea, Axularren bigarren argitalpena erabiliz; lan honen ondorioz, *Erans*-eko errata batzuk (*ahartara* 99, *itzulpide* 244) jadanik iturrian zirela agerian geratu da, bai eta aurreko ikertzaileek zalantzazkoak zeritzeten *edergailluz* (486) eta *orthusa* (194), bata bertako berrikuntza dela, eta bestea bertako irakurketa zehatza.

0.2. Refranes y Sentencias

Kopuruaren aldetik bigarren iturria, dirudien baino hurbilago dabilke Axularrengandik, baldin eta galdutako zatitik izan daitezkeen hitzak (§ 0.5) noizbait berresteko aukera etorriko balitz. Literatur lana izan arren, oso iturri erraza izan zen oro har Larramendirentzat, errefraciek itzulpena (eta euskal eta erdal hitzak lotzen dituen zenbakuntza zehatza) aldean daukatelako, ezaguna denez.

Mitxelenak ere ez zuen oztoporik izan ia, iturri honetatik jasotako hitzak antzemateko. Orotara 147 hitz egotzi zizkion,⁴⁷¹ ez beti ziurtasun beraz. Lakarraren lana aurrerapen handia izan da *RS*-ren azterketan oro har, baita guri interesatzen zaigun neurrian ere. Ekarpentik sendoena Larramendik ezagutu zuen alea mugatzen saiatzea izan da, bi ondorio zeharo interesgarri erdietsiaz: (1) hanbatik hanbatean, Larramendik ziurtasunez ezagutu zituen orrialdeak *Erans*-eko hitzen harlekutzat hobetsi behar ditugu, ezagutu ez zituenen aldean; (2) honen arabera, *RS*-ko hitzat jotako zenbait, Larramendik ezagutu ez bide zituen koadernotxoetan agertzen direnez gero, *RS*-ren zati galduan berriz agertzen zirela egin beharko genuke, eta bertatik —eta ez guk ezagutuzen ditugun errefracuetatik— hartu zituela; haien artean oso errazak diren zenbait, duda ere egin daiteke benetako iturria *RS* izan ote zen.

Nire aldetik, Mitxelena/Lakarra zerrendari ekarpen tiki zenbait baino ezin izan diot egin: *orca* (411) eta *guertza* (614) jadanik *RS*-n dauden erratak dira, *coipatu* (541) ziurrenik *RS*-n agertzen den *coipasu*-ren ordezkoko hutsa, eta *urtiguin* (644) *urtigui* (65)-ren ordezkoa. Kenketa bat ere bai: **oquelea* (673) Mitxelenaren kopia-huts bati zor zaio, eta benetako irakurketak —*oquelia*-k— benetako iturria berehalakoan agertarazi du: Harriet.

0.3. Harriet

Nahiz Historiaren legeetatik bat den, beti ere harrigarria izaten da une batez erpinean egondakoa, nola denboraren poderioz ia erabat ahaztua izatera irits daitezkeen. Hauxe da Harrieten gramatikarekin eta batez ere, guri dagokigunez, bere atzeko hiztegiekin gertatu izan

⁴⁷¹ Lakarrak (1991: 252) 161 hitz leporatzen dizkio iturri berari, baina Mitxelenaren lana ez eze beraren laburpena ere berpasatu arren ez naiz kopuru horretara iristeko gai izan.

dena. Garai batez, Larramendik, Añibarrok, Lèclusek... garaian garaiko hiztegiak kontuan hartu behar zuten iturria izan zen, Iparraldean argitaratu zen lehenengo gramatika eta, orobat, lehenengo hiztegiak ere zirenez gero. Geroko lanek, handiagoak ez eze hobeak ere zalantzarik gabe, zeharo ostendu zuten Harriet "zaharraren" ospea,⁴⁷² hainbestera non Mitxelena batek berak ere ez baitzuen aintzat hartu ezertan, nahiz eta —Lakarrak ohartu duenez— bibliografian aipatu.⁴⁷³

Ahantzura honetan, *Erans*-eko iturriei dagokienez, Larramendik berak zerikusiren bat izan zuen, hura osatzeko baliatu zituen iturrien artean aipatu gabe utzi zuen eta. Lakarraren azterlana ezagutu arte, nekez pentsa zitekeen *HH*-aren hitzaurrean, ezagutzen zituen euskal liburuen zerrendan Harrietez dioena kontuan hartuta, haren hiztegitxoaren eragina handia izan zitekeenik, are gutxiago *Erans*-eraino iritsi. Hona hemen pasartea:

Acaba de imprimirse una Gramática de Bascuence y Francés, por su autor Monsieur Harriet, con muchas curiosidades, y un Diccionario cortito del Bascuence y Francés, todo en octavo; cuyas voces, con otras que le faltan de su Dialecto, se hallarán en mi Diccionario (1745: xxxv)

Lakarrak 129 hitz egotzi zizkion hiztegi honi hasiera batean. Hiru talde nagusi egin behar ditugu: lehenean, eta handienenean (orotara 94 hitz), honetaz ohartu arte iturri ezezagunekoak ziren hitzak leudeke, edo oso azalpen badaezpadakoak baizik kausitu ez zituztenak; zalantza gutxi egin daiteke alde honetatik —asko nahiko bitxiak izanik—, eta etorki ezezaguneko hitzen kopurua guztiz murrizten du, batez ere jadanik Mitxelenak ekialdekotzat jo izan zituenen taldean. Alabaina, ohartu beharra dago Harrieten agerpenaz geroz gutxienez hirugarren Iparraldeko iturri bat proposatu beharko genukeela, Axular eta Harrieten artean hango etorkikoak diruditen hitz guztiak ez baititugu azaltzen (§ 0.6). Bestalde, Harrietek euskalki kontuan itxura engainagarria izan daitekeela erakutsi digu edo, hobeto esanda, hitz anitzen historiaz dakiguna herren gerta daitekeela: Mitxelenak, bestelako lekukotasunetan ongi finkaturik (ik. orain *OEH*, s.v.) mendebaldekotzat jotako *ibildauna* Harrieten hiztegitik hartutakoa da ziurtasun osoz, hala nola irakurketa txar bat dela medio *RS*-ren zati galdukotzat jota geneukan *oquelia* (673) ere; antzera gerta daiteke, apika, *ciorra* (662) hitzarekin.

Bigarren taldea, askotan zalantzezkoagoa, beste iturriren batean ere lekukotzen diren hitzena da. Arazorik larri eta interesgarriena Axularrekikoa da, hau Harrieten ere iturria izan baitzen (Lakarra 1991: 252-253), besteak beste. Lakarra, hiztegiak iturri errazagoak direla irizpide, ia beti Harrieten alde makurtu da. Esan gabe doa lan honetan zehar horretarako erabilitako argudioak eztabaidatzea zereginik premiazkoenetakoa izango dela.

⁴⁷² Adibide bat baino ez: Bilbaoren *Bibliographia*-n honi buruz agertzen den lan bakarra (Bozas Urrutia "De la literatura menor. La gramática vasca de Harriet y sus aprobaciones", *BAP* 1965 (XXI), 421-426), Maurice bere iloba omen denari, Harriet "berriari" alegia, egotzita dago.

⁴⁷³ *OEH*-aren I. liburukian —Mitxelenak hein batean bederen zuzendu ahal izan zuen bakarrean— gutxitan baizik ez da Harriet aipatzen, eta egiten denean ere, kronologia ahaztuta, Larramendiren ostean agertu ohi da. Argi dago ez zuela inondik ere susmatzen ezertarako balio izan zezakeenik.

Eta, bukatzeko, bada gainerako iturri ezagunetan beste azalpenik kausitzen ez duen hitz taldeño bat, Harrieten lekukotasuna erabiltzeak oraingoz konpondu ez diren arazoak baditu ere: *arrastelua* (96), *hauzu* (372), *acia* (251), *igea* (175) eta *patarra* (175).

Lakarraren zerrenda osatu nahian hondakin batzuk, gehienak besteri egotziak baina gutxienez eztabaidatu beharko genituzkeenak, aurkitu ahal izan ditut; ondoko sarrera hauek eragingo lituzkete:

bezala (152), *estalguna* (248, 596), *gardia* (176), *jarriquia* (161), *lapicoa* (468), *notha* (392), *oquelia* (673), *orcoya* (280), *turunta* (654), *cilhegui* (372), *ciorra* (662).

Lautan (*jarriquia*, *oquelia*, *turunta* eta *ciorra*) leporatze berriak lortu uste ditut: bata Axularri kenduaz eta bigarrena *RS*-ri, Mitxelenaren huts ttiki banak (*jarriquia* eta *oquela* kopiatuak) Lakarraren begietatik estali baitzituzten; hirugarren eta laugarrena, berriz, orain artean azalpenik ez zeukaten hitzak dira, eta nirea haren azalpen saio bat, besterik ez.

0.4. Landucci

Italiarraren hiztegia *Erans*-ak ekarri dizkigun ezusteetan lehena izan zen. Jakina denez, hau ez da iturrien artean aipatuta agertzen, hiztegiaren hitzaurrean baizik, Larramendik ezagutzen zituen euskal liburuen zerrenda eskaintzen duenean. Mitxelenak (1958: 14) ez aipatua jakinaren gainean egindakoa zela uste zuen, harentzat "aitorrezina" zela, hiztegi honetaz esan zituenak esan ondoren:

Pieza es por cierto muy despreciable, y que más se compuso para irrisión que para honor del Bascuence. Muy mal escrita en la Ortografía, llena de Barbarismos; le faltan interrumpidamente hasta la letra S muchas voces obvias; y desde la S todas, menos tres o quatro (Larramendi 1745: xxxv-xxxvi).

Pasarte jadanik ezagun honi beste bat erantsi behar zaio, hiztegiaren eskaintzan bertan dagoena, *HH* eta Landuccirena (aipatu gabe bada ere) kontrajarriaz:

...es obra original, y en que ha sido precisso dar principio a la fábrica por los cimientos: pues, aunque alguno avía intentado ponerlos no sé en qué tiempo, los puso con tanta impericia y con mano tan infeliz, que sólo servían a erigir un edificio informe y ruinoso, y fue necesario removerlos como embarazo.

Benetako zioa, eta hiztegiaren buru-buruan agertzen den aipamen honen zergatia, ordea, ez bide da hiztegitxoaren txarra eta eskasa, Mayansek hartaz egin zuen erabilpen okerra baizik (ik. Tovar 1980: 80-82). Landucciri interesen bat ezagutzea, etsaiari arrazoiren bat ezagutzea bezalaxe zen, nonbait. Alabaina, ez genuke ahaztu behar, txikia izatea beste akatsik ez zuen Harrieten ere ez zuela berriz aipatu: beragatik, eta orduan orain baino *copyright*-ekin kontu gutxiago zegoenez gero,⁴⁷⁴ Larramendi Landuccirekin azpajokoa aritu zela epaitzea,

⁴⁷⁴ Oso argigarriak izan daitezke alde honetatik Salaberri Muñoak (1999: 34-35) Axularri buruz idatzi dituen hitzok: "Erromantizismoaren izpirituarekin batera barreiaturiko ideia da originaltasunaren balioarena literaturari dagokionez. Eta obraren originaltasunarekin batera etorriko da autorearen prestigioaren ezagutza eta aitortpena. Honek, jakina, gaur egun ezagutzen dugun autorearekiko begirunean hedatuko zuen. Ez zen horrela gertatzen aurreko mendeetan, are gutxiago edertasun asmoen aurretik arlo pragmatiko-morala landu nahi bazen. Axularren obran bertan ikusten denez, garaikideak dira gutxien aipatzen diren autoreak, nahiz eta nabaria izan haiekiko zorra". Jadanik ikusi dugu, bestalde, hiztegi

larregizko epaia ez ote den nago. Kontuan hartu behar dugu, Larramendik Mayansi (1737: 347) esker izan zuela hiztegitxoaren berri —eta ez alderantziz, inoiz pentsatu izan denez (Agud & Mitxelena 1958: 9, 2. oh.)— eta, beraz, nahita bere begiz ikusi zuela, baita horretarako kopia bat egin edo eskatu ere, aurreiritzien gaineratik jokatzeko zekiela erakutsiaz.

Mitxelenak 66 hitz azaldu zituen Landucciren hiztegiaren bitartez, ziurtasun maila ezberdinekin. Lakarrak beste bi hitz erantsi dizkio zerrenda honi: *ertzea* (497) eta *urrua* (67). Mitxelenak hain eskura zituen bi hitz horiek ez aurkituak, Larramendiz zeukan iritziak eramanda Landucci ezinbestean baino erabili ez zuela erakusten digu. Adibiderik onena *ertzea* dugu: Leizarragarengan aurkitu zuenez gero, Iparraldeko iturriren batetik zela etsita jokatu zuen, hiztegitxoan badaezpada begiratu ere gabe.

Susmo honekin, bada, inoiz baino arrazoi gehiagoz Landucci goitik behera berpasatu beharra zegoela neritzan. Lakarraren azken ekarriekin bat etorririk (ik. adib. 1996a: 34-35, *opilla* eta *baya-z* dioena), uste dut honen papera gutxietsi egin dela, beraren bitartez erraz azal daitezkeen zenbait hitz besteez azaldu nahian ibili dela, azalpen zail eta korapilotsuagoa behar izanda ere. Miaketa xehe honek bi hitz ziur gehiago eskaini dizkigu: *sastu* (257) eta *triscac* (126), eta bietan berretsia ateratzen da nire susmoa: *sastu*-ri inork ez dio garrantzirik eman, *RS*-n *sasitu* bere sarrerakidea agertzen zenez gero; eta berdin *triscac*-i, *RS*-n *trisca* —nahiz beste adiera batean— lekukotuta zegoelako. Biak, oster, Larramendik eman erdal itzulpen berberen pean agertzen dira, edonoren bistan, Landucciren hiztegiaren.

Gauzak honela, etorki ezezagunekotzat ditugun lau hitzen iturlekua Landucci izan daitekeela proposatzera ausartuko naiz, hiruretan irakurketa txarrak edota erratak —aski larriak inoiz— egon direlako urratsa gaingitu behar bada ere, Landuccirengandiko hitzetan halako en portzentaia altuak sinesgarri xamar egiten dituelako: *hebroa* (312), *escueda* (480), *jocauidea* (348) eta *crompoa* (427). Handik ez izatekotan ere, lekukotasun horiek ezatabaidatzea ezinutzizkoa dela deritzat.

0.5. Refranes y Sentencias-en zati galdua

Mitxelenak (1961: 367) argudio indartsuak bildu zituen, agerian iturri ezagunik gabekoak diruditen hitz franko Larramendik erabili zuen alean bai baina gurean ez dauden erretrauetatik atereak direlako hipotesiari oinarri emateko.

Lehena, Larramendik *Erans*-ean sartu zituen atsotizetatik bat Axularrena (446) eta beste bi *RS*-koak (185 eta 459) izanik, laugarren bat badela itxura guztien arabera bilduma beretik hartua: *Seyacaz echun dina, ucuzcari jaigui da* (451). Behar dituen zuzenketak

zaharretan ere iturriak aitortzea ez zela ohikoena (aurkezpenean, § 2.4, 55. oh.); ordezka bitez, beraz, *literatura hiztegitzinta*-rekin eta *pragmatiko-morala praktikoa*-rekin, adibidez, eta Larramendiren egite hauen azalpena kausituko dugu: S. Agustin edo Platon ezinbestean aipatzekoak ziren, lana janzen baitzuten; beste horrenbeste esan daiteke gure testuinguruan Axular edo Leizarragarekin; baina Harriet edo Landucci bezalakoak, nahikoa egin bide zuen garaiko ohituretarako, hitzaurrean aipatzearekin.

gorabehera, hizkerak berak bizkaierazkoa ez eze bizkaiera zaharrekoa dela adierazten digu. Bertatik, gainera, *seyá* (450) eta *ucuz[c]a* (620) hartu bide zituen.

Bigarrena, Oihenarten lekukotasuna dugu, honek ere *RS*-ren ale ezberdin bat, aldez bederen osoagoa izan baitzuen esku artean, eta hein batean bederen Larramendirenarekin bat zetorren, zeren eta Oihenartek gorde zituen *RS*-ko hogei erretra berrietan, *Erans*-eko hiru hitzek (*hucha* 58, *uhuna* 356 eta *acizurria* 484) azalpena aurkitzen baitute.⁴⁷⁵

Honez gero, batzuetan agerian, bestetan zeharbidez, *Erans*-eko hainbat hitzen etorkia galdutako zatia izan daitekeela iradoki zuen Mitxelenak. Orotara, talde honetan 67 hitz sar zitezkeen, Mitxelenaren esanetatik atera dudan ustea Lakarrak laburpenean adierazten duenarekin erkatuaz. Zerrendak zer erantsi eta zer kendu dauka, noski, 1970ez geroz egindako aurrerapenen arabera. Honezaz gainera, Lakarra eta biok ez gatoz beti bat, arrazoi ezberdinengatik, Mitxelenaren hitzen interpretapenean edota, batzuetan bederen, ez gatoz beti bat Mitxelenak eman azalpenarekin.

Gorabehera hauek zeharo ulertzekoak dira, mugak oso labainkorak baitira. Alde batetik, bizkaierazkoa dirudien guztia ez da nahitaez bizkaierazkoa bakarrik, gure datu eskasiak hala aditzera ematen badu ere: Mitxelenak berak (1974: 388) *acotatu* zerrendatik kendu zuen, Leizarragarengan aurkitu eta agian Iparraldeko etorkia izan zezakeelakoan; eta *ibildauna* eta *oquelia*, uste guztien kontra, Harrietengandik datozela ikusi berri dugu. Bestalde, bizkaierazkoa izanik ere, ez da nahitaez *RS*-tikoa, *Erans*-aren ahozko osagaien orain artean baino fidantzia gehixeago jartzen baldin badugu behintzat.

Arrisku horiek ezagututa, badirudi euskalki kokapenari dagozkion argudioek baino, testu baten aurrean gaudenez gero, testu argudioek zer esan gehiago dutela, eta aztarna ziurragoak eskainiko dizkigutela: grafi eta morfologi berezitasunak, esanahi bitxitasunak... honelako zertzeladetan aurki genezake hitz bat halako ziurtasun batez *RS*-ren zati galdutik hartua izan zela esateko oina.

Ziurtasun mailaren arabera hitz hauekin talde bat baino gehiago egin daiteke, gainera, hasteko argudio ezberdinak gurutzatuaz *RS*-ko hitzat, ia zalantzarik batere gabe, jo daitezkeenak alde batean jarriaz. Esan nahi dudana argitzeko, *hucha* dugu adibide ezin hobea: grafiak (<hu->), hitzaren bestelako lekukotasunak (Poza) eta Oihenarten bildumak bermatzen dute. Talde honetan gaineratu beharko dira orain, Darmstadtteko alean agertu arren, Larramendik erabili hartan ez bide zeuden orrialdeetan agertzen diren gehienak.

⁴⁷⁵ Lehenengo biak jadanik 1961: 367n, eta hirugarrena 1964b: 175n. Beranduagoko lan batean (1967: 13), iragaitzaz, *Erans*-eko *hucha* eta *uhuna*, "así como bastantes palabras", denak guretzat galduak diren eta antza denez bai Oihenartek bai Larramendik ezagutu zituzten *RS*-ko orrialdeetatik atereak direla zioen.

0.6. Ekialdeko iturri ezezaguna

Aurreratu bezala, orain Harrietekin azaltzen ditugun hitzak kenduta ere, ziurtasun maila ezberdinekin hango etorkia izatea eskatzen duten hitz zenbait geratzen zaizkigu. Mitxelenak 67 hitz inguru etorki honetakotzat jo zituen hasiera batean, baina berehala 4 kendu zituen (*aratza*, *areago*, *bordoincatu* eta *manucorra*), kontatu dudan bezala, Axularrengan zeudela oharturik. Beste 36 ziurtasun osoz Harrieti egotzi behar dizkiogu, eta beste bat (*ertzea*) Landucciri. Hauek oro alde batera utzita, beraz, Mitxelenaren taldea 26 hitzetan geratzen da:

arrastelua (96), *hauzu* (372), *acholduria* (182), *beguilastoa* (130), *boqueta* (143), *desorena* (208), *dipidia* (468), *fisa* (549), *garcochiloa* (141), *igea* (175), *contrapuinta* (283), *corromiotu* (166), *lequedatu* (234), *liscoa* (7), *moquetac* (249), *patarra* (175), *peita* (129), *petralac* (559), *selarugaina* (206), *sentona* (190), *sontsitu* (207), *zarrapoa* (252), *zaulia* (374), *zaulitu* (375), *cehea* (479), *cehumea* (687).

Alabaina, *acholduria*, *lequedatu* eta *sentona* inolako zalantzarik gabe taldetik kanpo utzi behar dira, Axularrengan lekukotutako hitzetatik erauziak edo eratorriak direlako, baita ziurrenik *corromiotu* ere. Taldeño batekin, Lakarraren iritziz baina erabateko ziurtasunik gabe, gauza bera egin beharko litzateke, agian Harrietek eman diezaigukeelako azalpena: *arrastelua*, *hauzu*, *igea* eta *patarra*.

Nire kontuen arabera, honbestez gehienera jota 23 bat hitzek —eta gutxienera 18 bat— iraugo luke taldean. Badagoke hitzen bat erantsi beharra, dena dela, ditugun lekukotasunen arabera gipuzkeraz haratago ziurrenik bizi ziren/diren hitzak baitira: *acamelua* (688), *amañoa* (456), *ausina* (474), *erridoya* (167), *fresa* (107), *ibiretu* (54), *jazqui* (670), *canora* (280) eta *criselac* (495).

Gutxitxo izan arren, Iparraldeko etorkia dutela diruditen hitz hauekin arazo larri bat dugu: Mitxelenak sarritan beste idazle zaharren lekukotasunak eman arren, ez dago behin ere haietako bat *Erans*-ean erabili zuelako aztarren ziurrik; eta, halaz ere, grafiak inoiz hitz hauen azpian beste iturri idatzi bat egon daitekeela iradokitzen digu.

0.7. Larramendik eratu edo itxuraldatutako hitzak

Herabe xamar ekin zioten talde hau osatzeari gure aurrekoek, batez ere Mitxelenak, inoiz "no encuentro el adjetivo en Axular" bezalako iruzkinez adierazi baitzituen hemen sartuko ditugun hitzetatik zenbait. Lakarrak, berriz, adore gehixeagoz jorratu du arloa, eta bere laburpenean 16 hitz "LE" ("beharbada Larramendik eratua") markarekin agertzen dira (gurutzeaz markatzen ditut jadanik Mitxelenak iradokiak, eta galdera markaz Lakarrak halaxe dakartzanak):

urisca (31, 676), *triscaria* (89), + *ucuzcatu* (240), *arbina* (263), *mascurra* (288), *jasaitu* (367), *croscra* (411), *orca* (411), *orcatu* (412), *seizarotu* (449), *golpagogortu* (462)⁴⁷⁶, *edergailluz* ? (486), *malcortu* (530), + *oyutu* (585), + *denquia* (626), *toliacuntza* (648).

Alabaina, laburpen bat besterik ez izanik, Lakarraren marka horrek postula daitezkeen oso gertakari ezberdinak batzen ditu: (1) iturriren batean dauden hitzetatik eratorritako hitzak

⁴⁷⁶ Aurreko agerraldian (*Erans* 114) etorki ezezagunekotzat markatzen du.

(*triscaria, ucuzcatu, seizarotu, malcortu, toliacuntza*); (2) iturriren batean dauden hitzetatik erauzitako hitzak (*arbina, mascurra, crosca*); (3) iturriren batean dagoen hitz baten aldaera (*urisca*); (4) iturriren batean dagoen hitzaren "zuzenketa" gramatikala (*edergailluz*); (5) iturriren batean dagoen hitzaren interpretapen etimologikoa (*oyutu*); (6) iturri beretik (baina ziurrenik ez agerleku beretik) ateratako forma ezberdinak (*jasaitu* vs *jasan*); (7) iturri ezagunik gabeko eta zalantzazko itxurako hitzak (*orca, orcatu*); eta (8) Larramendik bere kasa era zitzakeen hitzak: hitz berriak, alegia (*denquia, golpagogortu*).

Fokatzea estutu behar dugula uste dut, eta garrantzi gehiago eman, ez bakarrik iturriko informazioa oker zezakeen Larramendi kopiatzaileari, baizik eta hitzak alde guztietatik —kanpo eta barne— ulertu nahi zituen gramatikalari eta euskararen baliabideak zukutu nahi zituen hiztegiei ere. Ikuspegi honetatik, itxura batean etorki ezezagunekoak diren zenbait hitzi eta iturri ezagunei —batzuetan zalantzaz— egotzitako beste zenbaiti azalpen trinkoa eman dakieke: Larramendiren jakinaren gaineko partehatzea, hain zuzen. Dagoeneko zehetasun berri zenbait erants dakieke goian aipatutako taldeei:

1) Larramendik aski eskuzabalki erabili zuen baliabidea da; Lakarrak aipatuei *orcatu* (412), *lequedatu* (234), *inesi* (328) eta ziurrenik *istincari* (112) / *istincatu* (113) bikotetik bat erantsi behar zaizkie.

2) Halaber, bide usua izan zen andoaindarrarentzat; erants bitez *acholduria* (182), *otz beraa* (286), *sentona* (190) eta agian *guezna* (416) ere.

3) Askoz irristakorragoa den arren, nago talde honetan nahikoa hitz gehiago sar daitekeela; haatik, baliteke hauetako gehienak 5. taldean sartzekoak izatea: *amarauna* (635), *aurrena* (540), *baimena* (371), *balimba* (136), *donarioa* (292), *iyac* (319), *jazcaya* (669), *ortoza* (194), *peita* (129), *zaulia* (374) eta *zaulitu* (375).

4) Lakarrak eman adibideak ez digu balio, *edergailluz* Axularren bigarren argitalpenaren berrikuntza delako, esan bezala. Halaz ere, badaude ekintza beretsuen adierazgarriak ugari *Erans*-ean: *egalatea* (417), *cusumatsua* (71) edo *manaiacorra* (394)-ren tankerakoak.

5) Ik. (3).

6) *jasaitu*-rekin bezala jokatu zuen *hitsi* (158)-rekin ere. Dena dela, partizipioak berreraikitzeke hauek baino arazo gehiago izan zituen: *achiquitu* (639), *guertaetu* (305), *iratioitu* (580), *irioitu* (222)...; denak batera aztertu beharko ditugu.

7) Atal hau ezabatu beharra dago, *orca* RS-n dagoen errata baten ondorena baita; *orcatu*, berriz, 1. atalean erantsi behar da.

8) Mitxelena etsita zegoen (1961: 364) *Erans*-ean Larramendik honelakorik ez zuela egin; alabaina, *denquia* (626) dela eta, aitortu behar dugu azalpen hoberik ez dagoela; *golpagogortu* oraingoz zalantzan utzi dezakegun bitartean, nire ustez talde honetarako hautagai egokiak dira *desorena* (208) —Axularren *ez-oren*-en eredura egina, ziurrenik—, *guertucatu* (305) eta *leotza* (111).

0.8. Ahozko iturria

Atal honi ez zaio batere garrantzirik eman orain artean, zuhurki ene ustez, filologoak ezer baino lehenago gauza ziurak ezarri behar baititu. Garaia izan daiteke, oster, talde honetaz zer esan daitekeen erabakitzen hasteko.

Larramendi oso argia izan zen alde honetatik: "He añadido también otras muchas voces que he oído en las conversaciones..." (*Erans-en buruan*), zeina *HH*-aren hasieran zioenarekin lot baitaiteke:

...sin salir deste dialecto de Guipúzcoa, cada día se ofrecen términos usuales y corrientes que apuntar, sobre los que ya tengo en el Diccionario, y los descubre, no la diligencia, sino la casualidad de hablar los puros Bascongados sobre diversas materias. No salgo vez a estas cercanías que no vuelva con muchas voces que añadir al Diccionario. Pues si esto me sucede en un Dialecto que tengo tan practicado, qué me sucedería si anduviesse con la misma observación los Países de los demás dialectos? Quedarán pues fuera del Diccionario muchísimas voces Bascongadas que algún otro laborioso puede recoger para aumentarlo (1745: xlv)

Hasiera batean, errazetik herritarren ahotik jaso zitzakeen hitzak G-tzat eman izan dira; honako hauetan markatu zuen Mitxelenak G (edota GN) etorkia, baita inoiz mendebaldeko etorkia (zehaztu gabekoa):

aurrena (540), *baimena* (371), *betizua* (331), *erbatza* (633), *mardula* (297), *osteleuria* (24), *parapardina* (426), *pincheatuena*, *pinchatuena* (515), *saralea* (627).

Talde honi, orain *OEH*-ak eskaintzen dizkigun datuez baliatuz, beste bi erants dakizkioke nire ustez: *albaldimbere* (136) eta *aozteguia* (478). Ez dira hitz gehiegi, hain oparoa izan omen zen iturria izateko. Azalbiderik gabe ditugun hitzen artean etorki honetako anitz egon daitezkeela sinets daiteke baina, nabarmena denez, oso zaila izango da frogarik aurkitzea. Gogoeta egin dezakegu, halere, nolabaiteko ziurtasunez bizkaierazkotzat jotzen ari garen hitzetan noraino irrista gaitezkeen kontuan izan dezagun.

Larramendiren hitzetatik atera daitekeen ondorioz zurrera, bestela ulertu diren arren, ahozko iturritik hartutako hitzak baldin badaude, denak edo gehienak Loiola inguruko hitzak izan behar direla da. Hasteko, *-ea* bukaera dela eta, Lakarrak behinola (1986: 670) "erdigipuzkera" deitu horren arabera epaitzen aritu garela deritzat, aipatu dugun ingurunean bukaera hori, nahiz bizkaieratik kanpo izan, ez baita ezezaguna, ongi dakigun bezala. Gainera, Loiola bi euskalkien arteko ia mugan egonik, nago ez ote den *RS*-ren zati galduaren eragina larregi baloratu, Larramendik bere bizilekutik oso gertu entzun zezakeen hizkera baten kaltetan. Izan ere, nolabaiteko tamainako talde bat, ditugun datuen arabera B-gip-tzat eman daiteke, eta beraz, inolako zailtasunik gabe, gehiegi ibili gabe, Larramendik entzuna izan liteke.

Laburbilduz, hautagaiak ondokoak izan daitezke, kontuan izanik ezin ditugula erabat bereizi Larramendiren euskaratik datozenak eta inguruko euskaldunengandik erdietsitakoak: lehenengoan artean nabarmenenak, nik uste, sarrera berean iturri ezaguneko familiakide, aldaera edo paronimo bat daukatenak dira, inolako dudarik gabe hartakotzat hartu behar dugun *bezala*-z gainera (hauek denak izarrak markatu ditut); kontuan har dezagun, halaber, baten bat *RS*-tik hartua izatea ere ez dela ezinezkoa:

*aldiac (385), arana (236), ? arrastelua (96), *aurrena (540), auznartu (584), azaroa (583), *baimen (371), baldoquia (425), beguibarrena (174), beguilastoa (130), becarria (357), betizua (331), betzuloa (174), *bezala (152), bidaguiroa (117), bicioa (384), egarberaa (46), erbatza (633), garchua (365), guezgara (434), irayo (110), istincaria (112), istincatu (113), *jazzcaya (669), quiriquioa (243), coya (609), coitiguia (131), cresala (23), mardula (297), meaca (321), ollaquea (554), orricac (638), osteleuria (24), parapardina (426), pincheatuena (515), pinchatuena (515), saralea (627), seldorra (121), zancabia (163), zapotza (632), zarba (11), zarraldoa (48), *zaulia (374), *zaulitu (375), cirarra (519).

1. Iturrien erabilera

1.1. Grafia

Badakigu dagoeneko Larramendik landu zuen grafi sistema *HH*-an nagusi dela eta, halaz ere, tartean behin beste sistema batzuetakoak izan daitezkeen gertakariak ere islatzen direla. *Erans*-aren lekukotasunak erakutsiko digu grafia bereziak iturrien ñabartasunari zor zaizkiola, hain zuzen ere, jadanik hori susmatzeko genituen aztarna txikiak zeharo berretsiaz.

Alabaina, Larramendik ez zuen beti era batera jokatu idatzizko iturriekin: hitz batzuk normaldu zituen, sisteman barneratuaz, eta beste batzuk ez; iturri batzuekin eskuzabala izan zen grafi kontuetan, eta beste batzuekin estua; aldaketa zenbaitetan bereari irmokiago eutsi zion, beti edo ia beti aldatuaz, eta bestetan noiz bai noiz ez ibili zen. Hauek eta antzeko beste gai batzuk zehaztuko ditut, bada, ondoko lerroetan.

1.1.1. <i>, <j>, <y>, <ï>

Larramendiren sisteman (I, § 8.4.11) <y> batez ere bokal artean agertzen da, baina batzuetan hitz bukaerako beheranzko diptongoan ere ager daiteke; <i>, berriz, bokalikoak da erabat. Hitz hasieran <j> itxaron dezakegu eta, hiatoa egonez gero, <ï>. *Erans*-ean antzeman daitezkeenaren arabera, Larramendik letra hauen arteko banaketa honi atxikimendu handia zion: sistema barnean zeudenak gorde, eta ez zeudenak egokitu egin zituen, den iturria dela, oso salbuespen gutxirekin. Eta hau are aipagarriagoa da iturrietako sistemak berearekiko eta elkarren artean aski ezberdinak direla kontuan harturik, zeren aldaketa asko eta batzuetan interpretazioak egin behar izan baitzituen.

a) <y> iturrietan lau lekutan ager daiteke: hitz hasieran (*yguitu*), bokal artean (*ayuibia*), beheranzko diptongoan (*pusçayquia*) eta kontsonante artean (*garagarylean*). Larramendik hitz hasierakoak, diptongoetakoak eta kontsonante artekoak <i> bihurtu ditu, eta bokal artekoak gorde:

Lcc: *yguitu* > *iguitu* (2), *ayuibia* > *ayubia* (28), *pusçayquia* > *putzaiquia* (84), *barçuyña* > *barcuina* (88), *yşçegoz-* > *itzagoz* (106), *yncarra* > *incarra* (132), *llobaydea* > *llobaideia* (539), *ynistrea* > *inistura* (567).

RS: *ysquilosay* > *isquilosac* (60), *yrolagaz* > *irola* (109), *ciya* > *ciya* (180), *emayona* > *emaya* (184), *yquedac* > *iquedac* (185), *yrachoen* > *irachoa* (220), *ezayric* > *ezaya* (273), *yndusca* > *induscatu* (325), *yñez* > *ines* (328), *jaybala* > *jaibala* (341), *garagarylean* > *garagarrila* (349), *ybarrac* > *ibarrac* (382), *ybar jaun* > *ibarjauna* (419), *seyzaroa* > *seizaroa* (448), *gogayeren* > *gogaya* (506), *çelayan* > *celaya* (520), *geydeari* > *gueidea* (547), *yzpiçazen* > *izpizatu* (573), *arrayo* > *arrayo* (607), *coycari* > *coicatia* (613), *yrunsi* > *irunsi* (650), *ydeco* > *ideco* (684).

Ax: *bicicayen* > *bicicayac* (35), *arbuyoac* > *arbuyoa* (202), *sagarroya* > *sagarroya* (243).

Lekukotzen den hitz bukaerako <y> bakarria mantendu egin zuen: *soslay* (Ax) > *soslay* (615).

b) <j> hitz hasieran bakarrik aurkitu zuenez gero, ez zuen batere arazorik izan:

RS: *jaibala* (341), *jarrequin* (314), *jarrugui* (235).

Ht: *jatxa* > *jatsa* (247).

c) Axularrengan bokal aurrean <i> dago hitz hasieran, eta berak <j> bilakatu du beti: *iautsapen* > *jautsapena* (91), *iasan* > *jasan* (367), *laincoac* > *Jaincoari* (558), *iaquiçu* > *jaquizu* (591).

d) Iparraldeko bi iturrietan bokal artean <i> (inoiz <i> dago), eta berak <y> ezarri ohi du, baita hitza mugatzeagatik hitz bukaerako testuingurutik bokalartekora igaroarazi duenean:

Ht: *atroiatcea* > *atroyatu* (156), *aïena* > *ayena* (481), *ukharaia* > *ucaraya* (551), *halaïoa* > *alayoa* (600), *letraia* > *letraya* (608).

Ax: *ardancoia* > *ardancoya* (104), *succoi* > *sucoya* (279), *orcoiera* > *orcoya* (280), *mintçaia* > *mintzaya* (309), *guiça-coiac* > *guizacoya* (554), *aierua* > *ayerua* (602).

Hiru salbuespen daude, eta hiruretan etimologiak zerikusia izan duela baieztatu dezakegu: *narraïoa* (629 < Ht) *narrïo* sarrerakideak baldintzatu du, eta *zalhüia* (374 < Ax) alboko *zaulia*-k zein ondoko *zalhüitu*-k; *bernaïea* (Ht) > *bernagea* (379) aldaketa, berriz, ziurrenik -age erdal atzizkia antzeman uste izanagatik gertatu da (§ 1.2.7.3).

e) Ustekabeko batek izan ditu ondoriorik bitxienak. Izan ere, RS-k letra larriz <l> dakar <J>ren ordean (Mitxelena 1979: 422), eta Larramendik, egokitasun horretaz ohartu gabe dirudienek, hitzak bere erara ulertu ditu:

laraunsi > *jaraunsi* (317), *lac* > *ïac*, *iyac* (319), *lusturiaren* > *iüsturia* (656), *lazquereac* > *jazquerea* (669).

Dakusgunez, bi kasutan <i> grafia diptongo hautsailea erabili, eta batean are aurrerago jo zuen, <iy> aukera oraindik gardenagoa aldamenean eskainiaz. Bide batez, lekukotasun honekin berretsita geratzen da, inolaz ere, HH-ko *ïori* / *iyori* bikoterako aurreratu dugun azalbidea, alegia, Larramendiren interpretazioa zela.

1.1.2. <v>, , <u>, <ü>

Honetan ere erabat atxiki zitzaion bere sistemari: <u> bokala baino ez da, hiatuetan <ü> idatzia; <v> maileguetan —edo aintzat jotakoetan— ager daiteke, eta gainerantzekoetan (I, § 8.4.2).

a) Bokala hitz hasieran <v> idazkeraz dago iturri batzuetan; esan gabe doa denak <u> bihurtu dituela:

Lcc: *vrur* > *urrua* (67), *vrdbilan* > *urdbilaren* (97), *vrdaula* > *urdabila* (260), *vfasta* > *ufasa* (572).

RS: *vzqur* > *uzcurtu* (20), *vrtaui* > *urtigui* (65), *vrgaçi* > *urgaci* (86), *vrenac* > *urena* (123), *vberen* > *ubera* (660).

Ax: *vrçuturic* > *urtsatu* (25), *vlitcen* > *ulitu* (47), *vrthatua* > *urthatua* (52), *vzcal* > *uzcaldu* (73), *vrgoitu* > *urgoitu* (383), *vrinzaturic* > *urrinzatua* (469), *vccaldi* > *ucaldia* (570).

b) Landuccik kontsonantea adierazteko <v> edozein etorkitako hitzetan erabiltzen du eta, balio ezberdinekin, bokal artean maiz <u>. Larramendik, ezberdintasunak alde batera utzirik, denak bilakatu ditu:

verarra > *bezarra* (11), *velaça* > *belaza* (87), *tastauia* > *taztabia* (93), *hucaua* > *ucaba* (140), *gabinetean* > *gabinetea* (173), *vrdaula* > *urdabila* (260), *gau enarea* > *gabenarea* (430).

Salbuespen bakarra dugu azkeneko taldean: *escusauac* (399), *HH*-ko *zamaüa*, *zabaua* “manteles”-en modura.

c) Axularrekin bestela jokatu zuen bokalarteko kokaguneari dagokionez: behin <ü> jatorrizko testutik gorde zuen (*miaüa* 501), eta bestean berak ezarri: *amaraua* > *amaraüa* (635), ziurrenik sarrerakideak (*amaraua*) hor bokala dagoela erakutsi ziolako. Ondorio bera agertzen da hitz hasieran, bokalarteko <h>aren galeraren medioz: *uhaletan* > *üala* (557). Beste adibide batean, berriz, mailegua igerririk dirudienez, <v> bilakatuta dakusgu: *auenicoa* > *avenicoa* (83); dagoen-dagoenean utzitako bat ere badugu, eta ez dago esan beharrik hitza lehendik ezagutzen zuela: *arauaz* (630). Talde honetan sartu behariko genituzke, azkenik, aldatu gabe utzi zituen beste hitz bi ere: *higuindu* eta Landuccirengandik hartutako *iguitu* ere (biak 2n), *HH*-ko *iguindu* “tediar”-en familiarako eman dudan azalbidea —ulertu gabez ez aldatua, alegia— berretsiaz (I, § 8.4.4).

1.1.3. <h>

Grafema honek oso zeregin mugatuak zituen Larramendiren sisteman (I, § 8.4.13). Iturri guztietan, nahiz arrazoi ezberdinengatik, ugari aurkitu zuen,⁴⁷⁷ eta jarrera ezberdinak hartu zituen iturriaren arabera, dirudienez.

Landucciri, baina adibide bakar batean, <h> kendu egin zion: *hucaua* > *ucaba* (140). Ingurune berean —eta zio beragatik— *RS*-n agertzen direnak, berriz, gorde egin zituen: *hurunic* > *huruna* (315), *hurenac* > *hurrena* (540), *hucha* > *hucha* (58), beharbada salbuespen batekin: *uhuna* (356) < **huhu*- (cf. Oihenart *Huhuñerean*). Testu honetan bertan bokal berdinen artean, adibidea ikusi berri dugu, mantendu zuen arren, bokal ezberdinen artean ezabatuta dago, eta horretarako baliatu ohi zuen <ü> grafemaz ordezkaturik: *parrahua* > *parraüa* (318).

Harrietek aukera gehiago eskaintzen zizkion eta gehienetan ezabatzerako jo zuen, bai hitz hasieran baita bokal artean ere:

⁴⁷⁷ Cf. Lakarra 1991: 241, grafema honen *Erans*-eko bilakaera aztertzeke lehen saio baterako.

hirisca > irisca (31), hobequñçac > obecuntzac (409), ohancea > oantzea (446), halaioa > alayoa (600), ehurciria > eurciria (656), biahorea > biaorea (657), hazcartasuna > azcartasuna (674), hazcarra > azcarra (675), ohitça > oitza (686).

Ezabaketa honen ondorioz, bokal berdinak batzeraino ere iritsi zen hitz familia batean: *lohenquñça [sic] > lencuntza (532), lehencatcea > lencatu (533).*

Testuinguru guztietako salbuespenak ditugu, dena dela:

hazbeguiac (266), chehea (428), haizugoa (510), ahurtara (552).

Axularrengandiko hitzetan nekezago ezabatu zituen <h>ak, orotara <h> gabeko adibideak gehixeago izan arren:

haz-ama > azama (38), herraric > erra (85), hanbatic hanbatean > ambatic ambatean (135), herratsuen > erratsua (145), hatz-guillea > atzguillea (151), nahi > nai (211), hautuac > autua (224), hotz beratcen > otz beratu (287), on-behar > ombearra (422), harmorac > armora (488), hautsailleac > autsaillea (555), uhaletan > üala (557), hondar > ondar (561), bihotz > biotzaren (570), bihurgune > biurgunea (682).

baina

higuindu (2), bohatu (62), halacatu (69), hunela (69), aihercundea (85), ahopaldiac (98), higatu (168), hitsi, histu (158), hobenduria (179), hisicatu (232, 462), habuina (252), hizmiztia (311), hezueria (327), aihertu (336), noharroina (414), herguidiqui (467), oin-hatza (516), behartu (531).

Ohargarria da bokal berdinen artean beti gorde izana:

ahartara (99), ahamena (100), mahats (561).

Honetaz gainera, Iturri ezezaguneko edo zalantzapeko hainbat hitzetan ere <h> dakusgu, eta esan gabe doa iturriko grafia gordeta dagoela:

hucha (58), hauzu (372), hueraguina (380), higuitu (413), hildumatu (432), cehea (479), huarriza (581), auhendu (624), auhena (625), huerriza (660), cehumea (687).

1.1.4. <ç>, <c>, <z>, <tç>, <tc>, <tz>

Larramendik <ç> grafema bere eta gero etorriko zirenen euskaratik uxatu zuen (I, § 8.4.7). Honegatik ez da harrizkoa hain garrantzi gutxiko kontuan zalantzarik egin gabe jokatzeari lau iturriekin, <ç> a, o eta u aurrean <z>, e, i aurrean <c> eta <tc>, <tç> guztiak <tz> bilakatuaz:

Lcc: *beaça > beaza (42), velaça > belaza (87), çu lampoa > zulampoa (359), çipia > cipia (525), çapallorra > zapallorra (562).*

RS: *vrgaçi > urgaci (86), çelayan > celaya (520), yzpiçazen > izpizatu (573), cêçun > cenzuna (604), lauçatua > lauzatua (634), çirola > cirola (689).*

Ht: *chiflatcea > chiflatzea (149), ñaflatcea > ñaflatzea (150), fidagaitça > fidagaitza (195), çagutquñça > zagutcuntza (401), lançaroa > lanzaroa (465), aiçugoa > haizugoa (510), motçorra > motzorra (655), ohitça > oitza (686).*

Ax: *erraçunic > erraizuna (210), goratçapen > goratzapena (225, 366), çopatua > zopatu (228), itçulpide > itzulpidea (244), centçatu > centzatu (245), ançatsuenac > anzatsua (307), ançatsutu > anzatsutu (308), heçueria > hezueria (327), çurrin > zurrina (342), çalhui > zalhuia (374), çalhuitcen > zalhuitu (375), çauri > zauri (381), midicuntça > midicuntza (408), aurquientça > aurquientza (490), lapitçaren > lapitza (514), oin-hatça > oin-hatza (516), çapatcea > zapatu (517), oin-çolac > oinzola (518), guiça-coiac > guizacoya (554), iaquiçu > jaquizu (591), tragaça > tragaza (592), sequientçac > sequientza (598), euçu > euzu (636), imprentçua > imprentzua (647).*

Bilakaera bera izan zuten Hegoaldeko testuetan inoiz agertzen diren <ze> <zi> grafiak ere:

gurrzila (Lcc) > *gurcila* (558). *ezertua* (RS) > *ecertu* (543).

1.1.5. <ss>

HH-an bakan batzuk kausitu baditugu ere (I, § 8.4.5), *Erans*-ean jatorrizko testuetan aurkitutakoak aldatu ohi ditu:

vřassa (Lcc) > *ufasa* (572). *řidagařztassuna* (Ht) > *řidagařztasuna* (196). *hřissicaturic* (Ax) > *hřisicatu* (232).

Iturri ezezaguneko *essé* (545) hapax interpretagaitza⁴⁷⁸ da iraun duen digrafoaren lekukotasun bakarra.

1.1.6. Txistukariak erabakitzen

Aurreneko ataletan txistukari zenbaiten grafema aldaketa hutsak jasota, oraingo honetan grafiaz gaineko aldaketen kontu eman nahiko nuke.

1.1.6.1. <l,n,r> osteko txistukariak

Larramendiren joera nagusia *Erans*-ean, ingurune honetan frikariak afrikatu bihurtzea da:

Lcc: *olřa* > *oltza* (488), *erřea* > *ertzea* (497).

RS: *zurřa* > *zurtza* (326), *guerřan* > *guertza* (614).

Ht: *onharřea* > *onartzea* (12), *onsatřea* > *onsatu* (153, baina *onsatu* 15), *galřarra* > *galtzarra* (105), *guerřařunřa* > *guertacuntza* (125), *bilřapenac* > *biltzapena* (169), *řařutřunřa* > *zagutcuntza* (401), *hobeřunřac* > *obecuntzac* (409), *ohancea* > *oantzea* (446), *ibilřunřa* > *ibilcuntza* (499), *lohenřunřa* > *lencuntza* (532), *asřuiřunřa* > *asřuicuntza* (616).

Batzuetan, halere, jatorrizko testuaren frikaria gorde egin du:

RS: *sutanřa* (43), *azarcunřa* (78), *jaraunři* (317), *cenzunřa* (604).

Ht: *escudencia* (370), *lanzaroa* (465), *eurciria* (656).

Ax: *garřeta* (141), *anzatsua* (307), *anzatsutu* (308), *parřela* (493), *parřelatu* (494), *oinřola* (518).

Dakusgunez, Axularrekin zeharo kontserbatzaile izan zen; are gehiago, behin bederen Axularren <ntc> <nc> bihurtu du, mailegu izaerak eramanik nonbait: *placencřa* > *placencia* (159).

1.1.6.2. <st> : <zt> aldaketa

Hainbat hitzetan Larramendik, diren arrazoiak direla, iturriko <st> <zt> baten ordezt dagoela erabaki zuen, gehienetan —erabakitzekeo gauza garen haietan hain zuzen— asmatuaz:

⁴⁷⁸ *OEH*-ak egiten duen ese interpretapena (s.v. 2 ese) gutxieneko kontuan zalantzazkoa da, abisatzen ez badu ere: iturria *RS* baldin balitz, proposatuko dudana bezala (§ 2.4.2.1), gaurko <s> zein <ts>-ren ordezt egon liteke.

Lcc: *orast* > *ozast* (36), *pistia* > *piztia* (82), *tastauia* > *taztabia* (93) vs *mestoa* (363), *dilistea* (364), *croscatu* (412).

Ht: *ustailac* > *uztailla* (169).

Behin *crozcan* (Ax) > *crozca* (557) gertatu da, beste esanahi batekin *crozca* (550) mantendu bazuen ere.

1.1.6.3. Landucciren <şç>

Larramendik, zuzen, <tz> ulertu zuen:

pusçayquia > *putzaiquia* (84). *ysçegoz*- > *itzagoz* (106).

behin izan ezik, eta honetan ere zuzen, nahiz eta ohartu afrikatua frikari bihurtzen duela, zalantzarik gabe elkartua izateagatik (§ 1.1.16.2): *masç maquia* > *masmaquia* (560).

1.1.6.4. Frikari ala afrikatuak RS-n?

RS-n txistukarien adierazpen sistema defektiboa da (Mitxelena 1979: 420-421): Larramendik —honetaz ohartuta, nonbait— handik hartu nahi izan zituen hitzetan bere burua frikari ala afrikatu baten aurrean ote zegoen erabaki beharrean ikusi zuen. <ç> grafema (§ 1.1.4ko adibideetan ikus daitekeen bezala) frikaria dela erabaki zuen, oso narbarmena zen adibide batean izan ezik: *tresnaçen* > *tresnatzen* (459).

<z> grafema, berriz, sarritan <tz> bilakatu zuen:

azaga > *atzaga* (277), *escarazean* > *escaratza* (324), *ezi* > *etzi* (400), *eziluma* > *etziluma* (400), *ezicaramu* > *etzicaramu* (400).

Ohartzekoa da, RS-n ikusi nahi izan den ç "frikaria" / z "afrikatua" oposaketaren (Mitxelena *ibid.*) lehen bermatzaile dela. Espairik gabe, ezagutzen zituen hitzak dira batzuk (*etzi* eta familia, *escaratza*; § 1.6); *azaga*, berriz, *atze*-rekin lotu zuela nabarmena da, nahiz okertu zen.

Jakinaren gainean ari zen —edo hartan saiatzen, bederen—, eta ez automatikoki, aldatu gabe utzi zituen hitzek (*azarria* 77, *azarcunza* 78, *ezaya* 273, *andizura* 322, *seyzaroa* 448 eta *matrazua* 677) erakusten diguten bezala: hauetako batzuk ere ezagunak bide zituen; bat edo batean, azkenik, baliteke ezezaguna badaezpadan ez aldatua izatea ere: halaxe gertatu zaio *baraz* (511) eta *urgaci* (86)-n behinik behin, non <tz> behar zuen. Bestalde, apikariarekin ere gauza bera gerta zitekeenik ez zuen sumatu: *sasitu* (257) zalantzarik gabe *satsitu* da.

1.1.6.5. <x> eta <tx>

Honelakoan ale gehienak Harrietengan ditugu, eta bi grafiak ongi ulertu zituen (espero genezakeen bezala; cf. I, § 8.4.6), bere sistemaren arabera <ts> bihurtuaz:

jatxa > *jatsa* (247), *erdixucoa* > *erdisucoa* (407), *asquiexia* > *asquietsia* (594), *pompaxua* > *pompatsua* (611), *asquitxu* > *asquitsua* (617).

Araua, dena dela, bestelako testuetara ere hedatu zuela dirudi: (1) *morcoxta* (Ax) > *morcosta* (560) aldaketa, **morcotsta* tarteko forma baten bitartez azaldu behar da (afrikatuen herskari aurreko frikatzeaz ik. § 1.1.16.2). (2) *exequi* (RS) > *etsequi* (233) aldaketa okerra: cf. *erajegui* (RS 519) eta oro har Mitxelenak (1979: 421-423) grafema horren balioaz esana;⁴⁷⁹ *equix* (16), berriz, bere hartan utzi zuen.

1.1.6.6. <ch> Iparraldeko testuetan

Erans-ean behin ere ez zuen aldatu, ez hitz hasieran ezta hitz barnean ere, *HH*-an somatu duguna alderdirik ahulenetik berretsiaz, hots, bertako hainbat <ch> Iparraldeko literaturari zor zaizkiola zalantza izpirik utzi gabe erakutsiaz (I, § 8.4.8):

Ht: *cunchoiña* (144), *chiflatcea* (149), *chiscua* (270), *lachoá* (370), *chedatu* (377), *chehea* (428), *erchatu* (460), *pochelatu* (465), *berech* (491).
Ax: *acholduritu* (183), *choria* (446), *arrochina* (578).

Itxura guztien arabera, etorki bera du *garcochiloa*-k (141), baina orduan iturri idatzi ezezagun bat proposatu beharko genuke (§ 2.4.3.1).

1.1.6.7. <tch> Iparraldeko testuetan

HH-an susmatu dugun bezala (I, § 8.4.10), ongi ezagutzen zuen eta, honegatik, erraz <ch> bihurtu ahal izan zituen Harrietengan aurkitutako guztiak:

bakhotchia > *bacochia* (452), *biritchia* > *birichia* (489), *atchiquitcea* > *achiquitu* (639), *itchindia* > *ichindia* (645).

Alabaina, Axularrek eskaini zion bakarrean gorde egin zuen: *etchalecua* (199), halabeharrez edo bestela, *HH*-an aurkitu dudan adibide bakarraren (*etcholac* “aduares”) oinarri berekoa.

1.1.6.8. Puntuzko aldaketak

Bakanka azaldu behar diren bestelako aldaketa zenbait ere egin zituen, denak, antza denez, Larramendik —zuzen edo oker— egindako suposizioetan oinarritutakoak:

onerechien (RS) > *oneretsia* (39). Cf. *onetsi* “amar” *HH*-an.
yñez (RS) > *ines* “huir” (328). Cf. *ieseguin*, *igueseguin* “huir” *HH*-an.
matelaça (Ht) > *matelasa* (144). Cf. fr. *matelas*.
vrtçuturic (Ax) > *urtsatu* (25): honen azalpenerako ik. §§ 1.1.16.2 eta 1.2.7.3.
errumez (Ax) > *errumesa* (414).

⁴⁷⁹ Eta orain ik. *OEH*, s.v. *izeki*, nahiz ez duen *Erans*-eko lekukotasuna jaso.

1.1.7. Bustidurak

Larramendik <ll> eta <ñ>z baliatzen zela ezagututa (I, §§ 8.4.14 eta 8.4.15), ez da harrizkoa honelako mantentzetak egina:

Lcc: *ollerea* (30), *zapallorra* (562), *errellea* (569).
RS: *oñatu* (118), *oñon* (301).
Ht: *billacatu* (66), *uztailla* (169), *liña* (373), *berña* (672).
Ax: *bitña* (108), *atzguillea* (151), *aillotsa* (558).

Are gutxiago honelako aldaketak ere egina:

Ax: *carsoil* > *carsoilla* (116), *gaiñac picaiñac* > *gaña ta picaña* (438), *eguiñen* > *eguiñen* (446), *sendagailla* > *sendagalla* (663).

Dena den, ez dirudi alderdi honi garrantzi berezirik ezagutzen zionik, <il>, <in> eta <ill>, <iñ> idazkerak ere erraztasun guztiaz onartu baitzuten:

Lcc: *saltorapina* (361), *orapina* (457), *soquila* (504), *bilia* (524), *gurcila* (588).
RS: *isquilosac* (60), *garagarrila* (349), *oparina* (439).
Ht: *cunchoiña* (144), *sacailla* (405), *sacaillatu* (405), *aurguina* (463).
Ax: *quirtaiña* (68), *caillutu* (114), *habuina* (252), *quidoín* > *quidoína* (304), *purpuilla* (358), *maradicinoá* (389), *noharroin* > *noharroína* (414), *succain* > *sucaína* (476), *edergailluz* (486), *oin-hatza* (516), *oinzola* (518), *morrointasuna* (548), *autsaillea* (555), *ozprina* (564), *emendaillua* (623), *suguina* (681).

Eta are alderantzizko aldaketaren bat ere aurki daiteke:

yñez (RS) > *ines* (328). *beregaiñ* (Ht) > *beregain* (491).

Hitz hasierako bustidurak ere errespetatu ditu:

llobaidea (539 < Lcc). *ñaflatzea* (150 < Ht).

Gorde ez duen <ll> bakar bat dugu: *elliric* > *elia* (565), ziurrenik hitza lehendik ezagutzen zuelako (§ 1.6).

1.1.8. <th>, <k(h)> eta <cc> Iparraldeko testuetan

HH-an hasperedunen grafiei dagokienez aurkitu dugun hutsuneari eman diodan interpretazioarekin bat etorririk (I, § 8.6), Harrieten <th> eta <k(h)> grafiak beti <t> eta <c> (edo <qu> ingurunearen arabera) bihurtu zituen:⁴⁸⁰

guerthaquñça > *guertacuntza* (125), *ikhea* > *iquea* (175), *bithoretcea* > *bitoretu* (352), *kharraca* > *carraca* (376), *sakailla* [sic] > *sacailla* (405), *sakhaillatcea* > *sacaillatu* (405), *bakhotchia* > *bacochia* (452), *thematcea* > *tematu* (527), *ukharaia* > *ucaraya* (551), *ikhuscatcea* > *icuscatu* (678).

Eta berbera egin zuen Axularren <cc> eta <kh> grafemekin ere:

iccatz bicien > *icazbicia* (72), *khailutcen* > *caillutu* (114), *etchaleccua* > *etchalecua* (199), *malccar* > *malcarra* (221), *succoi* > *sucoya* (279), *biccor* > *bicorra* (290), *ekhairic* > *ecaira* (443, 556), *succain* > *sucaína* (476), *malccorrac* > *malcorra* (529), *vccaldi* > *ucaldia* (570).

<th>rekin, berriz, noiz aldatu noiz gorde egin zuen:

⁴⁸⁰ Gogora dezagun: “¿No es más liso y llano escribir como nosotros *icusi* que no *ikhusi*?” (*Corografía* 298).

aurthiqui > *aurtiqui* (65), *guirthaiñic* > *guirtaiña* (68), *goithatu* > *goitatu* (537).
urthatua (52), *buthuna* (122, 255), *orthusa* (194), *muthiria* (205), *notha* (392).

1.1.9. <nh>, <lh> eta <rh> Iparraldeko testuetan

Harrietengan aurkitu zituen <nh>ak <n> eta <lh>ak <ll> bihurtu zituen:

onharcea > *onartzea* (12), *cilheguigoa* > *cilleguigoa* (510), *lanharteac* > *lanarteac* (659).

Axularrengandiko hitzetan, ostera, gehienetan zeuden-zeudenean utzi zituen:

alhatuic (119), *enhardatu* (213), *elhea* (265), *cilhegui* (372), *zalhuia* (374), *zalhuitu* (375),
lamhopea (447, errata tiki batekin), *elhaberriac* (453), *elhaberritia* (454), *alhadura* (576), *alhatu*
(577).

Aldaketa gutxi batzuk ere egin zituen, eta hauen artean <rh> : <rr> aldaketaren adibide bakarra (eta okerra, antza denez) kausitzen dugu:

solhasturi > *solasturia* (46), *alhapidetic* > *alapidea* (117), *garhaitan* > *garraita* (141), *bulharca* > *bularca* (500).

Ohartu behar da aldaketen ondorioak ezberdinak izan daitezkeela, eta hitzari buruz zekienaren arabera: cf. *HH*-an *cilleguia* "lícito", *solasa* "conversación", *garrondoa* "cogote"...

1.1.10. <qu>

Harrietek <qu> *a* aurrean, eta <q> *u* aurrean erabiltzen zuen gure <k>-ren balioaz, baita Larramendik ongi asmatu ere, beti <c> <z> ordezkatuaz:

billaquatcea > *billacatu* (66), *guerthaqunça* > *guertacuntza* (125), *çagutqunça* > *zagutcuntza*
(401), *hobequnçac* > *obecuntzac* (409), *aliaqua* > *aliaca* (496), *ibilqunça* > *ibilcuntza* (499),
lohenqunça [sic] > *lencuntza* (532), *asquiunça* > *asquicuntza* (616).

Honekin uxatu dugu *quaratsa*-k *HH*-an sortu digun zalantza (I, § 8.4.3). Behin bederen gauza bera gertatu zitzaion *RS*-n ere, ondorio berarekin: *vzqur* > *uzcurtu* (20).

1.1.11. <g> <gu>-ren ordezkariak

RS-n batzuetan <g> <gu>-ren ordezkariak agertzen da, eta Larramendik normalean ulertzen jakin zuen: *gestoa* > *gestoa* (387), *geydeari* > *gueidea* (547). Behin bederen, ostera, ez bide zen konturatu: *ogenic* > *ogena* (237).

Halaber, Landuccirengan zuzenketa bera egiten saiatu bide zen bakarrean, gaizki egin zuen: *bugesa* > *buguesa* (320).

1.1.12. <r> vs <rr>

Landucciren inplosibetako <rr>-ak <r> bihurtzen ditu: *errlateya* > *erlatera* (147), *gurrzila* > *gurcila* (588).

RS-n, <r> oker nabarmen bat zuzendu zuen (*garagarylean* > *garagarilla* 349), baina bigarren zuzenketa batean huts egin zuen: *hurenac* > *hurrena* (540).

1.1.13. <mp>, <mb>

Bere sistemarekin bat ez datorren oro aldatu egin zuen:

RS: *cinbota* > *cimbota* (204).

Ax: *hanbatic hanbatean* > *ambatic ambatean* (135), *baldinba* > *baldimba* (136), *on-behar* > *ombearra* (422, 440).

1.1.14. Kapelak kentzen

RS-ko hitzetan agertzen diren <ê>ak <en> zein bihurtu zituen, ohiko sistemaren arabera: *leurê batic* > *laurembata* (589), *cêçun* > *cezuna* (604).

1.1.15. <t> ozen eta herskariaren artean

Axularren liburuan, ezaguna denez, beti etimologikoki azaltzen ez den -t- bat agertu ohi da leku horretan; Larramendik ezabatu egin zuen: *cintqui eta fintqui* > *cinqui ta finqui* (209).

1.1.16. Elkartu eta eratorriak batzen

1.1.16.1. Lotura grafikoa

Iturrietan bitan banatuta agertzen diren elkartu-eratorriak bildu ohi zituen:

Lcc: *çu lampoa* > *zulampoa* (359), *salto orapina* > *saltorapina* (361), *buru urrealdea* > *bururraldea* (425), *gau enarea* > *gabenarea* (430), *masç maquia* > *masmaquia* (560).

RS: *ybar jaun* > *ibarjauna* (419), *laurê batic* > *laurembata* (589).

Ax: *haz-ama* > *azama* (38), *iccatz bicien* > *icazbicia* (72), *emanen buru* > *burueman* (139), *hatz-guillea* > *atzguillea* (151), *hitz mitzti* > *hizmitzia* (311), *ingrat-tasunaz* > *ingratasuna* (343), *begui-esteaz* > *beguietsi* (421), *on(-)behar* > *ombearra* (422), *elha-berriac* > *elhaberriac* (453), *elha berriti* > *elhaberritia* (454), *oin-çolac* > *oinzola* (518), *guiça-coiac* > *guizacoya* (554), *bir-loratcen* > *birloratu* (568).

Salbuespen guztiak Axularrengandiko hitzetan ditugu: *hotz beratcen* > *otz beratu* (287, eta *otz beraa* 286), *oin-hatza* (516).

Zehatz-mehatz hemengo kontu ez izan arren, honetan ere batzeko ohiturak zerikusia baitu, *berra nahi duena* > *berra naiduena* (211) aipatuko dut; cf. *HH-an esan naidu* (s.v. *querub*), *naidezun bezala* (s.v. (*como*) *quisieres*), etab.

1.1.16.2. Hots aldaketak

Bitan banatuta dauden hitzen batuketa baino anitzez interesgarriagoa da, inondik ere, batuketan arau batzuk betearazten dizkiela ohartzea, ez bakarrik iturrietako hitzak aldatzeko daukan lasaitasunarengatik, baita euskal erator eta elkarbideaz zekienari buruz datu ziur zenbait eskaintzen dizkigulako ere baizik:

1) Bokal berdinak bakuntzen dira: *buru urrealdea* (Lcc) > *bururrealdea* (425), *salto orapina* (Lcc) > *saltorapina* (361). Cf. *ataarte* (RS) > *atarte* (528) ere.

2) Elkargunean *u* > *a* aldaketa gertarazi zuen, Axularren bi adibidek erakusten diguten bezala: *vr̄çuturic* > *urtsatu* (25), *manaiucor* > *manaiacorra* (394). Alderantziz, jatorrizko bokala berreraiki zuen iturri bereko ondoko adibidean: *ahapaldiac* > *ahopaldiac* (98).

3) Bokal artean geratzen denean <*u*> <*b*> bilakatzen da: *gau enarea* (Lcc) > *gabenarea* (430).

4) Afrikatua frikari bihurtzen da herskari aurrean: *maşç maquia* (Lcc) > *masmaquia* (560), *iccatz bici* (Ax) > *icazbicia* (72), *hitz mitzti* (Ax) > *hizmitzia* (311) baina *hatz-guillea* (Ax) > *atzguillea* (151).

5) Kontsonante berdinak bat egiten dira: *ingrat-tasun* (Ax) > *ingratasuna* (343).

Aldaketa multzoa begi aurrean izateak bereziki (2) puntukoak ziurtatzeko oinarri ematen digu, banaka hartuta azalgaitzak —baita sineskaitzak ere, agian— izan litezkeen arren.

1.1.17. Aldaerak hautatzen edo gehitzen

Hitz loturak ez dira Larramendik halako askatasunaz erabili zituen ingurune bakarrak; aitzitik, inoiz edo behin iturriak eskainitako forma beste batez ordezkatu zuen, beti berarentzat ezagunago bide zena hautatuaz:

Lcc: *agua* > *aoa* (97).

Ax: *orai bereon* > *orain bereon* (53), *pordoincatceco* > *bordoincatu* (95), *eta* > *ta* (209), *solhasturi* > *jolasturia* (226, 310), *bertceren* > *besteren* (245), *-idequi* > *-idiqui* (467), *iguzquiz iguzqui* > *eguzquiz eguzqui* (612).

Behin bederen, iturrian lortutako hitzaren eredura, *HH*-an beti aldamenean joan ohi den oinarritik ateratako aldaera eratu du: *hirisca* (Ht) > *irisca*, *urisca* (31, 676).

1.1.18. Erratak eta irakurketa txarrak

Mitxelenak "*Suplemento*-aren utsak" izeneko atalean (1961: 371-372) 37 huts zerrendatu zituen; bere ustez (*ib.* 366) Larramendik "berandu ibilli zelako, dirudienez, etzuen probak ikusteko eta zuzentzeko egokierarik izan. Eta ortxetik jaio dira zortzi orrialde eskas orietan ugari bezain larri ageri diren utsak". Iradokizuna oso zentzuzkoa da, hutsen orrialdeko batz bestekoa oso altua delako (*ik.* Blecua 1983: 19).

Haatik, ondoko lerroetan gauzak bestela izan zirela erakutsi nahi nuke, hots, *Erans*-eko huts gehientsuak ezin zaizkiola argitaratzaileari egotzi; aitzitik, Larramendiren eskuzko originalekoak direlakoan nago, eta sarritan ez erratak, irakurketa txarrak (beraz, iturriaren interpretapenari dagozkionak) baizik.

Hasteko, inolako zalantzarik gabe halakoak direnak alde batera utzi behar ditugu, adiera hertsian erratak diren edo izan daitezkeenetara mugatzeko. Izan ere, Mitxelenak aipatu

lekuan "huts" zentzu zabalean erabili zuen, proba zuzenketak inolaz ere konponduko ez zituzkeen haiek ere (hemen morfologian aztertuko direnak, ik. § 1.2) halakotzat joaz.

Honezaz gainera, zerrendatik atera behar dira orain Larramendik nahita egindako aldaketak (*ahopaldiac*, *manaiacorra* eta *urtsatu*; § 1.1.16.2), iturri zeharo ezezagunekoak izateagatik iturriko irakurketak (hutsak zein aldakiak) izan litezkeenak (§ 1.1.18.3) eta, jakina, Harrietek azaldu berri dituenak (*aurguina*, *ezceria*, *jarriquia*). Nire kontuak zuzenak badira, beraz, oro har *Erans*-ak 29 errata ziur biltzen ditu; haietatik zazpi, ordea, jadanik iturrian zeuden eta, beraz, Larramendiren errua —honetan errurik baldin bada— kopiatzaile fidelegia izatea da:

RS: *orca* (411) < *orcac* (*orçac*-en ordez).
guertza (614) < *guerzan* (*guerizan*-en ordez).
nintegua (680) < *nintegua* (*mintegua*-ren ordez).⁴⁸¹
Ht *alayo* (600) < *halaio* (*halacoa*-ren ordez).
Ax: *ahartara* (99) < *ahartara* (GGero) < *ahatara* (Gero).
itzulpide (244) < *itçulpide* (GGero) < *itçurpide* (Gero).
sucaina (476) < *succain* (GGero) < *succaien* (Gero).

Dena dela, jatorrizko testua zuzentzen ere jakin izan zuen. Harrietengandiko hitzetan hiru akats konpondu zituen, baina denetan bazeukan iturrian bertan, goraxeago edo beheraxeago, zuzenkizuna ongi adierazten zioten lagungarriak:

chechea > *chehea* (428).
contracatcea > *contracartu* (470).
lohenqunça > *lencuntza* (532).

Laugarrenak aurrekoek baino lan gehixeago eskatu zion Larramendiri: *naritamendua* (Ax) > *narritamendua* (334); leku beretik hartutako *narritatu* (546) eta GGero-n zuzen agertzen den beste *narritamendua* lagungarri izan bide zituen.

1.1.18.1. Errata berriak

Orrialdeko hiru errata kopurua oraindik altuegia da. Halaz ere, ohartu behar da ez direla iturri guztietatik hitzetan neurri berean banatzen. Proportzioak honela ateratzen dira, *Erans*-i eskainitako hitzen gutxi gorabeherako kopurua hartuta:

Landucci 14/68 (% 20,6)
RS 3/147 (% 2)
Harriet 2/129 (% 1,6)
Axular 3/282 (% 1,1)

Bistan da Landuccik neurritz gaineko huts kopurua eragin ziola gainerako testuek ez bezala. RS eta Harrieten hitzekin egindako erratak, gainera, oso errazak dira, hots, kopia huts arruntak; atal berean sartu behar dugu Axularren hitz batean agertzen dena ere, bide batez argitaratzailearen huts izateko itxura gehiena daukana:

a) Letren ordena aldaketak:

⁴⁸¹ Mitxelenak (1970: 132) oraindik zalantzan jartzen bazuen ere, Lakarrak auzia erabakitza eman du paratu duen RS-ren argitalpen bikainean (1996c: 300).

 : <me> *maemana* (RS) > *mameana* (337).
<tç> : <zt> *erdiçapena* (Ht) > *erdiztapena* (497).

b) Letren ordezkapenak:

<r> : <t> *coycari* (RS) > *coicatia* (613).
<f> : <t> *tri f ean* [sic, *triscan*-en ordez] (RS) > *tritea* (704).
<f> : <f> *a f antua* (Ht) > *afantua* (436).
<n> : <m> *lanhopea* (Ax) > *lamhopea* (447).

Bigarren saileko *coicatia*, dena dela, hitzaren atzizkiari dagokion *lectio facillior* baten ondorioa dela uste dut (§ 1.2.7.3).

Axularrengandiko hitzetan gertatzen diren beste bi hutsak anitez azalgaitzagoak dira, ostera:

c) *epascoa* > *esparcoa* (329) aldaketak, ondokoaren oihartzunaz gehitutako fonema bat eskatzen du lehen (hots, **espascoa*; ik. Blecua 1983: 21), eta gero nolabait "disimilazioa" dei dezakeguna.

d) *herts-idequi* > *herguidiqui* (467) aldaketa azaltzea, berriz, ia ezinezkoa da. Zerbait proposatu behar eta bide bat —nahiz zeharo badaezpadakoa— bururatzen zait: Larramendik lehen unean hitza <herguidiqui> transkribatu baldin bazuen, batzuetan Axularri gorde izan zion <g> grafemaz (I, § 8.4.8; *idiqui*-rako ik. § 1.1.17), gero berak edo argitaratzaileak <g> : <gu> aldaketa egin zezaketen (§ 1.1.11). Alabaina, ez daukat azalpenaren lehen urratsa —<ts> : <g> = /š/— argudiatzeko motiborik.

Landuccirengandiko erratak azaltzeko, berriz, nahitaez teoria indartsuago baten beharrean gara. Lehen arrazoa, ezpairik gabe, denen artean eskuizkribu bakarra izatea dugu, inprentako letrek normalean zalantzarako anitez aukera gutxiago eskaintzen baitute (Mitxelena 1961: 371-372).

Bigarrenik, bitarteko batek sor zezakeen itxuraldaketa gaineratu behar diogu: izan ere, Larramendik kopia bat besterik ez zuen izan begi aurrean: "De Manuscritos ay un Vocabulario corto en la Biblioteca Real de Madrid, cuya copia tengo en mi poder" (1745: xxxv). Tamalez, ez zuen zehaztu kopia nork egin den; eskuizkribuari buruz eman zituen xehetasunek argi aski uzten dute, nik uste, jatorrizko testua bere begiz ikusi zuela eta, Leizarraga osorik eskuz kopiatzeko asmoa izan zuela jakinik (III, § 9.1.1.1), oso egiantzekoa da Landuccirena ere (beharbada euskarari zegokion zatia bakarrik) berak paratu izana, baina ezin liteke alde batera utzi Madrileko lagun bati esker irits zezakeela, garai hartan —1737 baino beranduago, dudarik gabe— Loiolan zegoenez gero. Honetaz dena dela, nabarmena da kopiak erratak areagotzeko maila berri bat gehitzen duela; areago, sarritan berak bakarrik argi lezake huts zenbaiten zergatia.

Oso maila ezberdinetako erratak dira:

e) Huts arruntak, agian argitaratzaileari ere egotz dakizkiokeenak:

<i> : Ø *ayuibia* > *ayubia* (28).

<e> : <a> ysçegoz- > itzagoz (106).

f) Errepikatutako hutsak; Larramendik (edo kopiatzaileak) originaleko letra batzuk ongi ulertzeko izandako zailtasunen berri ematen digute:

<r> : <z> verarra > bezarra (11).
 orast > ozazt (36).
<ç> : <c> barçuyyna > barcuina (88).
 çapelaria > capelaria (133).

g) Originaleko *crux* bat: benetako irakurketa (*cascola* ala *coscola*) ez da argia ez eta Landucciren argitaratzaileentzat ere (Agud & Mitxelena 1958: 80, 5. oh.):

<o>? : <e> + <c> : <t> *coscola* ? > *cestola* (124).

h) Originaleko haplografia bat (Agud & Mitxelena 1958: 151, 1. oh.): informanteak hutsa lerro artean konpondu bazuen ere, kopiatzailea ez zen horretaz ohartu: *escuçauauac* > *escusauac* (399).

i) Kopiaren bitartekotza eskatzen duten hutsak:

<y> : <i> : <r> *errlateya* > *erlatera* (147).
<r> : <v> : *ezcararra* > *ezcabarra* (300).

Honela azalduko nituzke: (1) Kopian <i> behar dugu, *Erans*-eko <r> azaltzeko; <y> : <r> aldaketa zuzena ezinezkoa da, oso letra ezberdinak izateaz gain Larramendik bokalarteko <y> mantendu ohi zuelako. (2) Kopian <v> behar dugu, *Erans*-erako bidean <v> : aldaketa normala (§ 1.1.2) gertatu zela suposatuz; <r> : aldaketa ezinezkoa da, baina ez <r> : <v>, originaleko <r>-ak ongi ulertzeko kopiatzaileak izan zituen arazoak ezagututa (cf. goian § f).

j) Larramendiren jakinaren gaineko lana eskatzen dutenen artean, nabarmenenak ondoko biak dira:

<vK> : <BBK> *vdamina* > *badamina* (115).
 vya > *biya* (512).

Testukritikan *emendatio ope ingenii* deitu ohi den operazioa egin zuela esan daiteke: alegia, bere ustez originaleko irakurketak txarrak izaki, oinarririk gabe (hots, bere irakurketei oinarri eman ziezaiokeen lekukotasunik gabe) zuzentzen saiatu zen.

k) Irakurketa txar baten ondorena (azalpenerako, ik. § 1.2.7.3):

<re> : <ur> *ynistrea* > *inistura* (567).

1.1.18.2. Errata proposamen berriak

Erans-ean azalgabe zeuden hitzak ohiko iturriekin berriro erkatuaz, goian aurkeztutakoei berri zenbait erants dakizkiela deritzat. Neronek dudan ziurtasun mailaren arabera aurkeztuko ditut ondoren:

a) *curea* "inclinación" (335) Zabalarengandik hasita *gura*-rekin lotu den hitza da; haatik, Ax. *curca*-k ederki azaltzen duelakoan nago: <c> : <e> hutsa errazenetakoa da. Esanahi okerrerako, ik. § 1.3.4.e.

b) *coipatu* "pringar" (541) *RS 225 coypa* (u "pringar"-ek ederki azal dezake. Itzulpena bietan bera izatea adierazgarria da baina, gainera, errefrauaren egiturak (*Herrebaga coypasu* "sin assar pringar") bertan bi aditz zeudela ulertzeko bide erraza ematen zuen. Nire ustez, beraz, Larramendik edo oharkabean <ɸ> <t> irakurri zuen, grafema ongi irakurtzeko izan ohi diren arazoak kontuan izanda (cf. orobat *RS*-tik datorren *tritea* (90) <triɸean, § 1.1.18.1.b), edo nahita zuzendu zuen, originaleko hutsa zelakoan.

c) *ciorra* (662) "vara" <Ht *FE 331 cihorra* "baguette".

Landucciren testuarekin egingo ditut proposamenik ausartenak, bertatik hartutako hitzetan dauden hutsen portzentaia altuaz gain, Larramendi —bere burutik zuzenketak egiteko gai agertzen zaigunez gero— originalaz gehiegi fidatzen ez zela etsita nagoelako. Ondoan aurkeztuko ditudan hiru proposamenak *Erans* eta iturria ez euskal hitzen bitartez, erdal itzulpenen bitartez erkatzearen ondorio dira:

d) *crompoa* "mona" (427) <"mona, *chimioa*" (Lcc 294r): berez hitzak nahikoa itxura txarra dauka, maileguak azal ezin zezakeen *muta cum liquida* taldeagatik, besteak beste. *Erans* eta Landuccik femeninoan daukaten adostasunak erakarri zuen nire arreta, ezerk baino lehenago: cf. *HH* "mono, *chimua*" vs "mona, *chimua*, *chimino emea*", non bigarrena termino markatua den. Errata berez ez zen oso-oso erraza, baina eskuizkribuak zalantzak uxatu zizkidan, zeren eta <c?rompoa> aise irakur baitaiteke: <h> ez da batere ongi ikusten, eta bigarren <i>-ak hanka luze bat dauka beherantz.

e) *jocaquidea* "juglar, compañero del juego" (348)-rako Landucci proposatzera naramana, erdal itzulpenaren arrarotasuna da: *juglar* eta *compañero del juego* sinonimo gisa agertzea, alegia.⁴⁸² Landuccirengan, berriz, ondoko bi sarrerok aurkitzen dira bata bestearen jarraian: "jugador, *jugadorea*, *joçaylea*" eta "juglar, o truhan" euskal ordainik gabe. Iturria hortxe dagoela erakusteko lau urrats behar ditut: (1) kopiazaileak bataren ordainak bestearen azpian kopiazailea ("homoioteleuton" deritzan hutsa, alegia); (2) *joçaylea* <jocaidea> irakurtzea, *joko-jokatu*-rekiko ustezko loturak erraz zezakeen <ç> : <c> aldaketaz (§ 1.1.18.1.f) eta <yl> : <id> aldaketa ez oso zailaz; (3) atzizkia "gaurkotzea" (> *jocaquidea*): hau jadanik Larramendiren jakinaren gaineko aldaketa izan liteke (§ 1.2.7.3); eta (4) "juglar"-en aldamenean *jocaquide*-ren hitzez hitzezko itzulpena eranstea.

f) *escueda* "palma de la mano" (480) zalantzarik gabeko baina etorki ezezaguneko hitzat jo zuen Mitxelenak, elkarteak argi eta garbi "extensión de la mano" adierazten du eta. Arrazoi osoa zuen, *escueda* Larramendiren hitz berria delako —ezpairik gabe, nire ustetan—,

⁴⁸² *DAut*-ek ematen dion adiera, denok ezagutzen duguna da, gutxi gorabehera: "El que entretiene con burlas y donaires, que más comúnmente se llama truhan o bufón".

eta berak azaldua dugu agertzen den *HH*-ko sarreran: "*arra* significa palmo, y toda la mano estendida" (s.v. *arra*).⁴⁸³ Beraz, *Erans*-eko agerraldirako bi azalpen ditugu: (1) *HH*-aren II. liburukian ez jasoa konpontzea, s.v. *palma* eta s.v. *palmo* agertzen ez denez gero; alabaina, zuzenean I. liburukiaren etorkikoa balitz, "palmo" itzulia agertzea esperoko genuke, eta hemendik bigarren hipotesia: (2) Landucciren sarrera batean hitza ikusi uste izana: "palma de la mano, *arra escucoa*", non *palmo*-rako berak eman zituen bi hitzak zeudela pentsa baitzezakeen, hala nola "açelga yerua, *açelguea verarra*" sarreran bi hitz —mailegua eta euskal hitza— zeudela ulertu zuen. Honetarako <coa> : <eda> aldaketa ez oso gogorra baino ez genuke behar, agian kopiatazaileak egindako okerren baten (<eo> adib.) laguntzaz.

g) *hebroa* "hado" (312) hitzaz orain artean etorki ezezagunekoa dela besterik ez da esan. *OEH*-ak orotara lau (*h*)*ebro* ezberdin jasotzen ditu, lehenengo biak ibaiaren izenaren erabilera bereziak, bigarrena 'hebreo' adierakoa, eta laugarrena gure hau, beste lekukotasunik gabe. Lehenik eta behin, <h>ak iturri idatzi bat egon dela iradokitzen digu. *OEH*-aren lekukotasunetatik ezagut zezakeen bakarra Gasteluzarrena da, baina agertzen den testuinguruan 'hebreo' eta 'hado' nekez nahas zitzakeen adierak dira: *Lehenbizirikian Hebroek bezala / Zerbitzatu zuen Axuri emea* (Gç 124). Landuccirengan "hado, lo que se hada, *hadua*" agertzen denez gero, <adu> Larramendik, edo kopiagileak, <ebru> irakur zezakeela bururatzten zait, eta gero *-ua* > *-oa* aldaketa egin (cf. *agua* > *aoa*, § 1.1.17).

1.1.18.3. Iturri ezezaguneko hitzetako erratez

Gorago alde batera utzi baditut ere, nolabaiteko ziurtasunez erratak izan daitezkeen iturri ezezaguneko hitzek ere badute zer eztabaidatua. Han esan bezala, baina, ezer baino lehenago kontuan hartu behar dugu iturriari zor dakizkiokela.

a) *isguilluac* "armas" (60): nahitaez *RS*-ren zati galdutik behar du izan; <qu> : <gu> errata erraza bezain argia da, sarrera bereko (eta iturri bereko) *isquillosac* eta Larramendik ezagutu ez zuen *RS*-ren zatiko *ysquilluac* frogatzen duten bezala. *isquillosac*-en lekukotasunak, bestalde, hutsa jadanik iturrikoa edo argitaratzaileak egindakoa izan daitekeela pentsarazten dit.

b) *zarraldoa* "andas de muerto" (48) errata zein aldakia izan daiteke. Hona hemen izan litezkeen bi azalpenak, *HH*-an *zerraldo* bera ere jaso ez zuela kontuan izanda: (1) dagoen-dagoenean entzuna izatea, aldakia ez baita ezezaguna: Azkuek emandako dialekto marken artetik benetan fidatzekoa dirudien bakarra *AN*-lez da, baina aldaera zabalduxeago egon zitezkeen, noski; (2) *RS*-ren zati galduan, *Erans*-eko irakurketa errazteko <ça> edo <ze> idatzia oraingoan, berriz agertzea.

c) *amasa* "resuello" (579) nahitaez errata da: Mitxelenak *arnasa* izateari ezinezkoa bazeritzan ere, badela etsita nago, ez baitauka <rn> : <m> nahasketa baino azalpen

⁴⁸³ Cf. "Arras de esposo (...). *Fedatzeco escuedac*".

errazagorik. Nolako errata den, ordea, hauxe dugu arazoa: (1) hitza entzuna balitz, hutsa argitaratzailearena izan liteke; alabaina, Mitxelenak alde berederen iradoki zuen bezala, zertarako *arnasa* berriz bildu? Arrazoa *HH*-an *arnase* aldaera bakarrik jaso izan liteke (I, § 8.5.2.1), baina agian hau ere ahulegia da. Honegatik, hain zuzen, bigarren azalbidea hobetsiko nuke: (2) irakurria balitz, *RS*-ren zati galduan agertzen zela proposatu beharko genuke, itzulpena eragiteko egokia den *arnasa galdu* edo *arnasarik gabe* bezalako testuinguru batean; eta baliteke hutsa jadanik originalean egotea, Larramendiren arreta are eta arrazoi gehiagoz erakartzeko moduan.

d) *zarampoa* "cesto" (134) azalpen gaitzeko hitza da. Hipotesirik errazena *RS*-ren zati galdukoa dela suposatzea da, *zaran* eta familiakoak (cf. Azkueren hiztegian eta eranskinean agertzen diren *zarasmel*, *zarankilo*, *belasaran*) bizkaierazkoak direlako. Haatik, testu honetan hainbat hapax dauden arren, egia esanda, itxura onik ez daukala aitortu behar da, *-po* bukaera bitxi —eta *n* ostean oraindik bitxiago— horregatik. Errata modura otu zaidan aterabide bakarra originalean **zarampoan* **zarampean*-en ordez egotea da, *Gizona gizon*, *otarrapean ere* erretrauz ezagunaren aldaera batean, adibidez (ik. Garate 1998: 5827. zb.), itzulpena "en el cesto" izanik, **zarampean* idatzita edota "bajo..." itzulita egotera, Larramendi nekez nahasiko zela egin baitezakegu.

e) *dipidia* "olla" (468) denek *dipina*-ren ordez dagoela onartu dute. Errata izan zedin, Iparraldeko beste iturri idatzi bat egon zela onartu beharko genuke eta (nahiz horretarako zantzuren bat egon; ik. § 2.4.3.1) oraingoz hipotesi garestiegia dela deritzat, <n> : <di> hutsa oso gaitza baita. Entzun uste zuena islatzen ote du, beraz?

f) *glostoa* "costo" (170) Larramendiren errata izan daitekeela nekez sinis daiteke, benetan *gostoa* entzun edo irakurri baldin bazuen, hain mailegu gardenean huts larri eta azalgaitz hori egitea ia-ia ezinezkoa delako.

1.2. Morfologia

Iturritzat erabilitako testuak Larramendik hobeki menperatzen eta eskuarki erabiltzen zuen euskalkiz bestelakoak dira, eta denak —neurri batean edo bestean— euskara zaharrago baten erakusgarri. Haien morfologi berezitasunak nola tratatu zituen —errespetatu ala aldatu zituen— eta nola ulertu zituen aztertzea izango da, beraz, atal honen zeregina.

1.2.1. -ea bizkaierazko izenetan

Larramendik oro har mendebaldeko iturrietan ageri diren *-ea*-k gorde egin zituen, *HH*-an gertakari honek daukan maiztasunarekin bat (I, § 8.5.2.1):

Lcc: *ollerea* (30), *dilistea* (364), *gabenarea* (430), *errellea* (569).
RS: *chircandea* (191), *jazquerea* (669).

Behin bakarrik aurkitu dut *-ea* > *-a* aldaketa: *azarcunzeac* (RS) > *azarcunza* (78)-n, zalantzarik gabe atzizkia ongi identifikatu zuelako.

1.2.2. Iturrietako pluralak

Sarritan, eta ez bakarrik hiztegietatik hartu hitzetan, mantendu zituen:

Lcc: *triscac* "castañuelas" (126), *escusauac* "manteles" (399), *sudera* "rabos" (559).
RS: *isquillosac* "armas" (60), *ibarrac* "llanos" (382), *meniac* "treguas" (653), *grisolac* "turmas" (658).
Ht: *hazbeguiac* "facciones" (266), *obecuntzac* "mejoras" (409), *globac* "poema" [sic, baita fr. "poème"] (522), *lanarteac* "vacaciones" (659).
Ax: *bicicayac* "alimentos" (35), *ahopaldiac* "bocanadas" (98), *elhaberriac* "novedades" (453), *ondar mondarrac* "racimos..." (561), *colore picardatuac* "variedad de colores" (664).

Bestetan, berriz, singular bilakatu zituen:

arbuyoac (Ax) > *arbuyoa* (202). *harmorac* (Ax) > *armora* (488). *aunac* (Lcc) > *auna* (355). *bearrac* (RS) > *bearra* (461). *nabardurac* (Ax) > *nabardura* (664). *orcac* (RS) > *orca* (411). *ustailac*, *bilçapenac* (Ht) > *uztailla*, *biltzapena* (169).

1.2.3. Iturrietako mugagabeak

Erans-ean agertzen diren mugagabe guztiak iturriari zor zaizkio:

Ht: *aldecor* (487).
Ax: *aisit* (267), *forogu* (238), *sori*, *cilhegui* (372).

nahiz honek ez duen esan nahi denak mugagabe mantendu dituenik:

asquitxu (Ht) > *asquitsua* (617). *azarri* (RS) > *azarria* (77). *erauqui* (Ax) > *erauquia* (666).

1.2.4. Erroa ateratzeko arazoak

Zenbaitetan Larramendik hitza gaizki biluzi zuen, guztiz ere atzizkiren batek edo haren formak nahasi zutenean. Nahaste gehienak testuetako hitzetan (Axularren eta batez ere *RS*-renetan) jasan ditu, normala den bezala:

a) Ustezko genitiboa: *andizuren* (RS) > *andizura* (322), *andrauren* (RS) > *andraura* (406).

b) Genitibo gaizki kendua: *gogayeren* (RS) > *gogaya* (506); cf. *ubereren* > *ubera* (660), adibidez.

c) *-rean* kasua ez ezagutua: *biraporean* (RS) > *birapora* (485). Cf., *ordea*, *arecha* (582) < *arecherean*, hitza ezagunagoa delako asmatua, antza denez.

d) *-tan* lokatibo mugagabea ez ezagutua, itzulpeneko singularrak ("en la siesta") nahastu duelako ziurrenik: *biaotan* (RS) > *biaota* (606).

e) Nahiz *RS*-ko *emayona* "buena dadiua"-tik *emaya* (184) ongi atera zuen, *aldionari* "buena sazón"-tik > *aldiona* "sazón" (595) dugu.

f) Partitiboaren marka *-ric* ala *-ic* ote zen erabakitzerakoan okerreko aukera egina: *ekhairic* (Ax) > *ecaira* (443)

g) *-(e)an* lokatiboaren anbigutasunak nahasia: *estalgunean* (Ax) > *estalguna* (248, 596), *garhaitean* (Ax) > *garraita* (329). Aukera ez da harrizkoa, bestetan *-a* ongi atera baitzuen (adibide guztiak *RS*-tikoak dira): *escarazean* > *escaratza* (324), *garagarylean* > *garagarrilla* (349), *sutanzean* > *sutanza* (43).

gauinetean (Lcc) > *gabinetea* (173) formak ere iruzkinen bat merezi du, honetan (Larramendik forma mugatua eskaintzen duela kontuan izanik) asmatu egin baitzuen: cf. iturri berean agertzen den "cuchillo, *ganibetea*".

h) Landucciren *egalateacoac* "mestruo de muger"-tik Larramendik esanahi bereko *egalatea* (417) erauzi zuen; bistan da benetako hitza desitxuratu duela.⁴⁸⁴

i) *RS*-tik hartutako *saruc* (459)-an ergatibo marka ez du kendu.

Kasu berezi bat daukagu, Larramendik somatu ez zuen 'izenondoa + izena' *RS*-ko ordena usua (Lakarra 1996c: 300-301): *geben lecuana* (*RS*) > *geben du* (665).

1.2.5. Partizipioa asmatzen

1.2.5.1. Jatorrizko *-du*

Mendebaldeko zenbait aditzetako partizipio marka hau Landuccirengan aurkitu zuen ale bakarrean aldatu egin zuen: *apucadu* > *apucatu* (9); *RS*-n, berriz, birritan (baina erretra beretik) gorde: *alogadu* (37), *palagadu* (536).

1.2.5.2. Aditzoinak partizipio bihurtzen

Bihurketa honetan ez zuen inolako arazorik izan. Ohartu *-n* eta *-l* amaieradun aditzoinetan *-du* erantsi zuela:

amora (Ax) > *amoratu* (229). *arricitea* (*RS*) > *arritu* (575). *geben lecuana* (*RS*) > *geben du* (665). *vzcal* (Ax) > *uzcaldu* (73). *vzcur baquio* (*RS*) > *uzcurtu* (20).

1.2.5.3. Aditzizenak partizipio bihurtzen

Alde honetatik hiru iturrik eman zioten lana: testuak (*RS* eta Axular) eta Harrieten hiztegia, azkenak erdal infinitiboak euskal aditzizenekin ordezkatzeko dituelako.⁴⁸⁵

⁴⁸⁴ *OEH*-ak honi inolako garrantzirik ematen ez badio ere, Larramendik bezala *egalatea* forma hobetsiaz. Behin *HH*-aren irakurketa hobetsiko, eta oker: hitz honetaz dugun lekukotasun fidagarri bakarraren arabera *egalateakoak* "menstruo" baldin bada, nork daki *egalatea* zer ote den?

⁴⁸⁵ Cf. Lakarra 1991: 250 eta 1994a: 53, bihurketa hau Harrietengandiko hitzetan (batez ere) aztertzeke lehen saio baterako.

a) Maizenik *-tze-* > *-tu* aldaketa egin behar izan zuen:

RS: *yzpiçazen* > *izpizatu* (573).

Ht: *neitcea* > *neitu* (8), *onsatcea* > *on(t)satu* (15, 153), *billaquatcea* > *billacatu* (66), *toliatcea* > *toliatu* (75), *ausartatcea* > *ausartatu* (79), *atroiatcea* > *atroyatu* (156), *eguincatcea* > *eguincatu* (259), *bithoretcea* > *bitoretu* (352), *chedatcea* > *chedatu* (377), *sakhaillatcea* > *sacaillatu* (405), *erchatcea* > *erchatu* (460), *estocatcea* > *estocatu* (462), *pochelatcea* > *pochelatu* (465), *ibilcatcea* > *ibilcatu* (498), *thematcea* > *tematu* (527), *lehencatcea* > *lencatu* (533), *balizcatcea* > *balizcatu* (622), *lancatcea* > *lancatu* (649), *ikhuscatcea* > *icuscatu* (678).

Ax: *vliicen* > *ulitu* (47), *bohatcen* > *bohatsu* (62), *halacatcetic* > *halacatu* (69), *permatceco* > *permatu* (95), *pordoincatceco* > *bordoincatu* (95), *khaillutcen* > *caillutu* (114), *acholduriccen* > *acholduritu* (183), *enhardatcen* > *enhardatu* (213), *marrantatcen* > *marrantatu* (242), *erlasten* > *erlastu* (242), *errazten* > *erraztu* (268), *lambotcen* > *lambotu* (278), *hotz beratcen* > *otz beratu* (287), *aihertzen* > *aihertu* (336), *çalhuitcen* > *zalhuitu* (375), *çapatcea* > *zapatu* (517), *elicatcecoric* > *elicatu* (542), *bir-loratcen* > *birloratu* (568).

Harrietengandik, hainbesteren artean, gutxi batzuetan *-tzea* bukaera gorde zuen: *onartzea* (12), *chiflatzea* (149), *ñaflatzea* (150).⁴⁸⁶

-t(z)e > *-tu* aldaketaren maiztasunak zenbaitetan huts eragin dio, baita Axularren pasarte ezberdinetatik esanahi bereko forma bi ateratzeraino; gure adibideen arabera, bai *-i* edo *-o* bukaerako aditzetan (*atxiki*, *aurizki*, *iratio*) bai *-ite* aditzizena duten *-n* bukaerakoetan (*irion*, *jasan*) erratu du:

atchiquitcea (Ht) > *achiquitu* (639). *aurizquitcea* (Ax) > *aurizquitu* (10). *iratioiccen* (Ax) > *iratioitu* (580). *irioitea* (Ax) > *irioitu* (222). *iasaiten* (Ax) > *jasaitu* (367; baina *iasan* > *jasan*, sarrera berean).

Ezpairik gabe, ezagutzen ez zituen aditzetan bakarrik gerta zekioketen; erka bitez goikoak asmatu zituen hurrengo hauekin: *erauzten* (Ax) > *erauci* (63), *autemaiten* (Ax) > *auteman* (250).

b) <l, n> bukaeradun aditzoinak sistematikoki *-du* markaz jantzi ditu:

arbinden (RS) > *arbindu* (262). *bipilcea* (Ht) > *bipildu* (502). *lerdentceco* (Ax) > *lerdendu* (17). *nabarbentcea* (Ax) > *nabarbendu* (198).

Behin bakarrik ez dio eutsi legeari, ziurrenik aldamenean zuen *sentontasun*-eko <nt>aren eraginez eta, beraz, atzizkien arabera arauaren eraginkortasunean dauden ezberdintasunez ohartu gabe: *sentontcea* (Ax) > *sentontu* (190).

c) Arazotsuagoa izan zitekeen *-estea* bukaera, baina eskuarki ongi askatzen jakin zuen, lehenean *asquiexia* partizipioaren laguntza bazuela egia bada ere: *asquiestea* (Ht) > *asquietsi* (593), *begui-esteez* (Ax) > *beguietsi* (421). Alabaina, Larramendirentzat araua *-estea* > *-etsi* baino, *-stea* > *-tsi* dela dirudi, ondoko adibidearen argitara: *histe* (Ax) > *hitsi* (158; baina *historic* > *histu*, sarrera berean).

d) Iturri ezezagunekoak izan arren, bi hitzetan Larramendik ondorio okerrak atera zituela agerian dago: **jagote-* > *jagotu* (302), **guertaetan* > *guertaetu* (305).

⁴⁸⁶ Nahasteren bat izan du Lakarrak (1994a: 53), *ertzea* "parto" (497) ere "oharkabeen mantendutako"-en artean sartzeko, iturriak eta hartzaileak emandako itzulpenak adierazten duen bezala izena baita, nahiz — bistan da— aditzetik eratorritakoa izan.

1.2.5.4. Trinkoa partizipio bihurtzen

Gehiagotan egin bazezakeen ere (ik. *egin-enak*, § 1.2.7.1.g), *ibilli* aditzarekin bakarrik gertatu den bihurteta da: *loca jabilt* (RS) > *loca ibilli* (413), *vrinztaturic... dabillan* (Ax) > *urrinztatua ibilli* (469).

1.2.6. Morfologi egokitzapen edo zuzenketak

Gutxi batzuetan iturrietako formak aldatzeko —inoiz zuzentzeko— lana hartu zuen, ezagunago edota zuzenagotzat zuen formarekin ordezkatuaz:

- Lcc: *urdabilan* > *urdabilaren* (97).
cusumoso > *cusumatsua* (71).
Ax: *bertceren gaiñean* > *besteren buruan* (245).
vrinztaturic... dabillan > *urrinztatua ibilli* (469).
laincoac ailliot > *Jaincoari ailliot* (558).
bihotz-vccaldi > *biotzaren ucaldia* (570).

Dakusgunez, honelako guztiak Landucci eta batez ere Axularrekin gertatzen dira. Oso itxura ezberdinetakoak dira, baina denetan hiztegi-gilearen jakinaren gaineko eskuhartzea dago, eta zenbait konturi buruz zer uste zuen jakiteko modua eskaintzen digute. Bestetan bezala, honetan ere itxurak erraz engaina zezakeen: *ailliot*-n ezpairik gabe *-io-* dugu aldaketaren eragilea.

1.2.7. Eratorpena eta elkarketa

Oro har, ohartzekoa da familia bereko hitzak eskuarki iturri beretik datozela:

- Ax: *aihercundea* (85) + *aihertu* (336). *alhadura* (576) + *alhatu* (577) + *bere buruari alhaturic* (119). *amorantia* (231, 291) + *amoratu* (229). *amurusac* (230) + *amurusia* (291). *anzatsua* (307) + *anzatsutu* (308). *azcarra* (675) + *azcartasuna* (674). *elhaberriac* (453) + *elhaberritia* (454). *erguela* (441) + *erguelqueria* (442). *erra* (85, 466) + *erratsua* (145). *erroa* (557) + *erroztatu* (61). *gaizcoatu* (390) + *zauri gaizcoatua* (381). *iraistura* (50) + *irachiqui* (51). *lamboa* (447) + *lambotu* (278). *manucorra* (394) + *manucortu* (395). *maradicatu* (388) + *maradicino* (389). *narritamendua* (334) + *narritatu* (546). *oin-hatza* (516) + *oinzola* (518). *ondicoa* (339) + *ondicozcoa* (340). *parcela* (493) + *parcelatu* (494). *sentontasuna* + *sentontu* (190). *zalhuia* (374) + *zalhuitu* (375).
Ht: *asquicuntza* (616) + *asquitsua* (617). *fidagaitza* (195) + *fidagaiztasuna* (196). *globac* (522) + *globaria* (523). *lanarteac* (651) + *lancatu* (649) + *lanzaroa* (465). *lencatu* (533) + *lencuntza* (532). *sacaila* + *sacailatu* (405).
RS: *azarcunza* (78) + *azarri* (77). *etzi* + *etziluma* + *etzcaramu* (400). *eusi* (354) + *eusia* (355). *gogaya* + *gogoa* (506). *ibarrac* (382) + *ibarjauna* (419). *seizaroa* (448) + *seya* (450).
Lcc: *orapina* (457) + *saltorapina* (361).

Ziurtasunez ezagutzen ditugun salbuespen bakarrak honako hauek dira:

- bearra* (461) < RS / *behartu* (531) < Ax
elicatu < Ax / *elicatura* < RS
ertzea < Lcc / *erdiztapena* < Ht
ibildauna (661) + *ibilcatu* (498) + *ibilcuntza* (499) < Ht / *ibilgunea* (49) < Ax

Hau hala izatea zeharo naturala den arren, gertakariaren maiztasunari begiratu behar diogu, honen gainean hipotesi oso interesgarri bi egin baitaitezke: (1) iturri ezezaguneko edo zalantzazko hitzak familia bereko hitz baten iturri beretik hartuak izan daitezke; honetaz

beranduago arituko gara (ik., adib., § 2.4.2.5); eta (2) 'oinarria + hitz eratorria' bikoteak ditugunean (bien itzulpena ildo beretik etorki), eta iturrian bietatik bat bakarrik agertzen zaigunean, bestea Larramendik erauzi edo eratorritakoa dela baieztatu dezakegu. Hauxe izango da, hain zuzen, hurrengo atalaren gaia.

1.2.7.1. Iturrietatik erauzi eta eratorritako formak

Erans osatzeko, Larramendi euskaraz zekienaz ere baliatzen zen, iturrietatik agerian zena baino gehiago ateratzeko:

a) Sarrienik aurkitzen dugun gertakaria, iturriko aditz baten oinarrian dagoen izena edo izenondoa erauzia da:

arbindu "estrechar" (262 < RS) > *arbina* "estrecho" (263). *acholduritu* "hacerse cuidadoso" (183 < Ax) > *acholduria* "cuidadoso" (182). *croscatu* "mellar" (412 < Lcc) > *croscá* "mella" (411). *mascurtu* "hacerse gafo" (289 > Ax) > *mascurra* "gafo de manos" (288). *otz beratu* "hacerse friolento" (287 < Ax) > *otz beraa* "friolento" (286).

b) Alderantziz ere egin zuen inoiz, izenkitik aditza eratorriaz:

RS: *orca* "mella" (410) > *orcatu* "mellar" (412), *seizaro* "niñada" (448) > *seizarotu* "niñear" (449), *ucuz[c]ja* "sucio" (620) > *ucuzcatu* "ensuciar" (240).

Ax: *lequeda* "cola de encolar" (142) > *lequedatu* "encolar" (234), *malcorra* "precipicio, despeñadero" (529) > *malcortu* "precipitar, despeñar" (530).

Aipatu adibide guztietan, biak agertzen dira *Erans*-ean, eta itzulpenak berak etorki bereko hitzak direla salatzen du. Honek abantaila nabarmen bat dauka RS-tik hartutako hitzei dagokionez: alegia, hainbatetarako ez dugula zati galduko agerraldi berririk asmatu beharrik.

c) Beste zenbaitetan, berriz, *Erans*-ean agertzen den sarrera bakarria nahitaez iturrian agertzen den atzizkidun formatik erauzia da: *isçezgozcoa* "cauallero a cauallo" (Lcc) > *itzagoz* "a caballo" (106), *parcelaca* (Ax) > *parcela* (493).

d) Alderantzizko bidea somatzen da RS-tik hartutako hitz batean, eta balirudike honetan, itzulpenak eramanda nonbait, ez zuela benetan dagoen aditzondoa ikusi: *yndusca* "hoçan" (RS) > *induscatu* "hozar" (325).

e) Eratorpena baliatu du *Erans*-eko sarrerak ugaltzeko:

trisca "baile" (90 < RS) > *triscaria* "bailador" (89).
toliatu "atormentar" (75 < Ht) > *toliacuntza* "tormento" (648).

f) Oso berezia da Larramendik *egin*-ez osatutako aditz elkartuekin izan zuen jarrera; izenarekin baino ez zen geratu batzuetan bederen:

beaçá eguin "amenazar" (Lcc) > *beaza* "amenaza" (42). *trancart eguin* "hagas falsía" (RS) > *trancarta* "falsía" (269). *vruru eguin* "arrullar" (Lcc) > *urrua* "arrullo" (67).

g) Bestetan, aditza jaso bazuen ere, *egin* aintzat hartu gabe, edo *-tu* aditz bihurtu zuen (1), edo *egin* gabe utzi zuen (2), aldameneko adizkia laguntzaile baino zerbait gehiago zela ohartu gabezi ziurrenik:

(1) *vfas eguin* "regoldar" (Lcc) > *ufastu* "regoldar" (571).

(2) *iñez begui* "haga huyda" (RS) > *ines* "huir" (328). *eusi dayan* "que no puede ladrar" (RS) > *eusi* "ladrar" (354).⁴⁸⁷

Egin-en desagerepenaren azken ale bat dugu, oso bestelakoa bada ere: *ideco eyten badira* "se hazen yguales" (RS) > *ideco dira* "son para en uno" (684).

Alabaina, behin birrezarri zuen errefracuak estaltzen zuena: *oñon* "gruñir" (RS) > *oñon eguin* "gruñir" (301).

1.2.7.2. Atzizki zenbaiten maiztasuna

Gertakari hau (-*kuntza*-n oinarrituta) oso deigarria izan zen jadanik Mitxelenarentzat. Lakarrak (1991: 241-243) -*kuntza* eta -*katu* atzizkien maiztasuna, Harrieten hiztegiaren eraginari dagokiola erakutsi du:

RS: *azarcunza* (78).

Ax: *midicunza* (408).

Ht: *guertacunza* (125, 619), *zagutcunza* (401), *obecuntzac* (409), *ibilcunza* (499), *lencunza* (532), *asquicunza* (616).

Honek sinistarazten digu *toliacunza* (648) Larramendik Harrietengandik hartu *toliatu* (75)-tik eta haren erara eratorritako hitza dela (Lakarra 1991: 242; ik. *supra* § 1.2.7.1.e).

RS: *induscatu* (325).

Ax: *bordoincatu* (95), *hisicatu* (232, 462).

Ht: *billacatu* (66), *eguincatu* (259), *estocatu* (462), *ibilcatu* (498), *lencatu* (533), *balizcatu* (622), *lancatu* (649), *icuscatu* (678).

Ax / Ht: *marruscatu* (26, 264).

? *guertucatu* (305).

Dakusgunez, -*katu*-dun hitzen etorkia ñabarxeagoa da, hemen ere Harrieten nagusitasuna oso nabarmena izanik ere. Maiztasunagatik beragatik, atzizkiaren erabilera ikas zezakeen Larramendik, -*kuntza*-n gertatu bezala, eta hedatu: litekeena da, beraz, "guisar, *guertaetu*, *guertucatu*" (305) sarreran, bigarren ordaina lehenetik abiatu era honetara sortua izatea.

Hona hemen *Erans*-ean lekukotuta dauden beste atzizkien zerrenda, aurrizki bakarraren (*des*-en) lekukotasunak ere erantsita:

-ARI / -LARI

Ht *globalari* (523)

Ax *barrendari* (241, 346), *erremusinari* (378), *goldelari* (57)

? *istincari* (112), *particari* (55), *uzulari* (492)

-BERA

Ax-Lar *otz beraa* (286 < Ax *hotz beratu*)

? *egarberaa* (46)

DES-

Ax *desarra* (223), *desgogara* (214), *despitatu* (4)

? *desoren* (208).

⁴⁸⁷ OEH-ak (s.v. *adausi*) *adausi* izena eta *adausi egin* aditza bereizita badakartza ere, funts handirik gabe RS-ren adibide hau izenaren azpian ematen du.

-DURA / -TURA

RS *elicatura* (398)
Ht *languiadura* (410)
Ax *alhadura* (576), *berretura* (566), *eraxtura*, *eraistura* (50), *nabardura* (664)
Ax/Ht *aztura* (171)
Lcc/Ht *iltura* (44)
? *gondura* (? 673)

-DURI

Ax *acholduri* (182), *jolasturi*, *solasturi* (46, 226, 310), *hobenduri* (179)

-ENTZA / -ENZIA

Ax *aurkientza* (490), *placencia* (159), *seguientza* (598)
Ht *escudencia* (370)

-GA / -KA

RS *deunga* (387), *ucuz[c]a* (620)
? *guiraquea* (344), *jazca* (670), *senguea* (256)

-GAI

Ax *bicicai* (35)
? *jazcai* (669)

-(G)AILU

Ax *edergaillu* (486), *emendaillu* (623)

-GAITZ

Ht *fidagaitz* (195)

-GARRI

RS *ergarri* (505)
Ax *erragarri* (3)
? *acomendagarri* (483)

-GILE

Ax *atzguille* (151)

-GIN / -KIN

RS *chiriboguin* (628)
? *alazaguin* (151), *azquin* (? 123), *hueraguin* (? 380)

-GOA / -KOA

Ht *haizugoa*, *cilleguigoa* (510)
Ax *avenicoa* (83), *esparcoa* (329)

-GUN(E)

Ax *biurgune* (682), *estalgun* (248, 596), *ibilgune* (49)

-KARI

? *pozcarri* (33)

-KERA

RS *jazquera* (669)
? *nauquera* (? 526), *oldozquera* (197, 508)

-KERIA

Ax *erguelqueria* (442)

-KI₁

Ax *deblauqui* (281), *cinqui ta finqui* (209)
Ax/Ht *ocenqui* (138)

-KI₂

Lcc *putzaiqui* (84)
? *denqui* (626)

-(K)IDE

RS	<i>burquide</i> (330)
Lcc	<i>llobaide</i> (539)
Lcc?	<i>jocaquide</i> (348)
-(K)IZUN	
Ax	<i>erraizun</i> (210)
-KOI	
Ax	<i>ardancoi</i> (104), <i>guizacoi</i> (554), <i>sucoi</i> (279)
-KOR	
Ht	<i>aldecor</i> (487)
Ax	<i>manaiacor</i> , <i>manucor</i> (394)
-KUNDE	
Ax	<i>aihercunde</i> (85)
-LE / -TZAILE	
Ax	<i>autsaille</i> (555), <i>bestale</i> (32)
-MEN/-PEN	
Ax	<i>ahamen</i> (100), <i>eracuspén</i> (218)
?	<i>baimen</i> (371)
-MENDU	
Ax	<i>baimendu</i> (371), <i>endelegamendu</i> (685), <i>narritamendu</i> (334)
-RO	
RS	<i>galduro</i> (386)
-TARA	
Ht	<i>ahurtara</i> (552)
Ax	<i>ahartara</i> (99)
-TASUN	
Ht	<i>azcartasun</i> (674), <i>fidagaiztasun</i> (196)
Ax	<i>ernetasun</i> (345), <i>ingratasun</i> (343), <i>morrointasun</i> (548), <i>sentontasun</i> (190)
-TEGI	
RS	<i>nintegui</i> (680)
Ax/Ht	<i>mindegui</i> (680)
?	<i>aoztegui</i> (478), <i>coitigui</i> (? 131)
-TI	
Ax	<i>elhaberriti</i> (454), <i>hizmizti</i> (311), <i>lamiti</i> (295)
-TSU	
Lar	<i>cusumatsu</i> (71 < Lcc -oso)
Ht	<i>asquitsu</i> (617), <i>erditsuco</i> (407), <i>pompatsu</i> (611)
Ax	<i>anzatsu</i> (307), <i>egartsu</i> (597), <i>eguitecotsu</i> (444), <i>erratsu</i> (145)
Ax/Ht	<i>gogoetatsu</i> (507)
-TZA ₁	
Ht	<i>oitza</i> (686)
Ax	<i>iragaitza</i> (192)
-TZA ₂	
Lcc	<i>oltza</i> (488)
-TZAPEN / -ZTAPEN	
Ht	<i>biltzapen</i> (169), <i>erdiztapen</i> (497 < -tzapen)
Ax	<i>goratzapen</i> (225, 366), <i>jautsapen</i> (91)
Ax/Ht	<i>galtzapen</i> (509)
-TZE / -TE	
Lcc	<i>ertze</i> (497), <i>mintte</i> (40)

1.2.7.3. Atzizkiak eta Larramendiren irakurketak

Etsita nago Larramendiren irakurketa txar (gehienetan *lectio facillior*-ak) edota nahita egindako aldaketa zenbait, identifikatu uste izan zuen atzizkiari zor zaizkiola:

a) Zalantzarik gabeko *lectio facillior* deritzat *coicatia* "sobrado, abundante" (613)-ri: *RS*-ko *coycari* "sobradissima"-n agertzen bide den *-kari* atzizkia Larramendik ziurrenik izen bizidungile gisa bakarrik ezagutzen zuen (III, § 2.1.3): honegatik, *-ti* izenondogile ezagunaz ordezkatu (edo hura ikusi uste) zuen.

b) Taiu bereko ordezkapena litzateke *RS*-ko *coipa* *íu* "pringar"-tik *coipatu* "pringar" (541)-era daramana (§ 1.1.18.2.b).

c) Axularren *urtçutu*-tik *urtsatu* (25)-ra igarotzeko, berriz, Larramendik *urtsu* oinarria antzeman uste zuen, zalantzarik gabe.

d) Egin dugun hipotesia egia bada (§ 1.1.18.2.e), Larramendik Landucciren ustezko *jocai* *de jocaquide* (348) bihurtu zuen, hobeki ezagutzen zuen atzizki forma ezarriaz.

e) *suguina* (681)-ren itzulpena ("volcán"), *-gin* atzizkia dagoelako ustean oinarrituta dago.

f) Landucciren *inistrea inistura* (567) irakurtzeko zioa, *-tura* atzizkia izan daiteke.

g) Geroago hobeki eztabaidatuko badut ere (§ 2.2.2), nire ustez *iltura* "amortecimiento" (44) Landucciren *lltua*-tik dator, beste arrazoi batzuen artean itzulpenak hor atzizki bat bazela (*-tura*, hain zuzen) iradoki baitziezaiokeen.

h) *eraitoqui* "sienes" (605) ezinezkoa ez bada ere (cf. *baldoki*, agian), iturri ezezaguneko hitz hau benetan *RS*-ren zati galdutik hartua balitz, orduan hemen ere irakurketa txarra proposa daitekeela uste dut, erraztasun handiz *erailoqui*-ren ordezkari jaso baitzezakeen, <l> : <t> aldaketa nimiñoaz, anitez ezagunago zuen *toki* ikusi uste izanagatik.

i) *bernagea* (379) "linage" < *bernaiea* "parent, allié" (Ht): grafi aldaketa ezohikoa da (§ 1.1.1), baita itzulpen aldaketa ere (§ 1.3.3), eta *Erans*-eko itzulpena *RS*-ko *narea*-rena da (§ 1.3.6). Azalpen bakarra, *-age* atzizkia dagoelako usteak eragindako aldaketak izatea da.

1.3. Esanahia

Esan gabe doa hiztegi elebidun batean aurkeztu nahi den hizkuntzaren hitzek adinako garrantzia dutela aurkezle papera egiten duen hizkuntzarenek. Larramendik, etorki ezaguneko hitzetara mugatuta, bi eratako iturriak izan ditu: batetik itzulpena beti eskaintzen ziotenak (Landucci, *RS* eta Harriet) eta, bestetik, berez itzulpenik gabekoa den testu bat (Axular). Lehengoekin oro har oso fidela izan da, iturriak eskaintzen zion itzulpena, oso salbuespen gutxirekin, bete-betean onartuaz. Honetan gailena Landucci da, erabilerrazena, hiztegia izateaz

gainera, *Erans* bezala gaztelania-euskara hiztegia baita. Antzeratsu ibili zen Harrietekin, frantsesa gaztelaniaz itzuli beharra beste ezberdintasunik gabe; honek, gainera, ez zion batere arazorik ekarri Larramendiri, frantsesez ongi moldatzen zen eta.⁴⁸⁸ *RS*-rekin, nahiz gehienetan aurrekoen modura erabili ahal izan zuen, bi hizkuntzetako egiturak zeharo bat ez datozenean edo iturriko itzulpena hiztegian jartzeko modukoa ez denean buruhauste gehixeago izan zituen; gehienetan, dena dela, zailtasunak ondo gainditu zituen.

Hauen aldamenen oso berezia da Axularren kasua, maizenik aliritzira jokatu behar izan baitzuen, testuinguruaz beste laguntzarik gabe. Laguntzak zirenean, oster, dela latinezko itzulpena, dela euskal sinonimoa, baliatu zituen. Batera zein bestera (latinezko itzulpenen salbuespenarekin) itzulpen arazo larriak izan zituen. Iturri hau da, hain zuzen, esanahiaren aldetiko huts gehien iturburua.

Iturri ezagunen azterketaren ondoren, zenbait gertakari berezi eskaintzen dira, hala nola erdal sinonimiak jokatu duen papera (§ 1.3.5) eta jadanik ezarritako itzulpenen indarra (§ 1.3.6).

1.3.1. Landucci

Fideltasun handiaz jokatu zuen Larramendik honetan. Landucciren hiztegitik ziurtasunez hartu zituen 64 hitzetatik 39tan itzulpen berbera gorde zuen, grafi aldaketak eta itxura modernotzeren bat gorabehera:

"aborrecer" 2, "acaecer" 9, "alarido" 28, "al presente" 36, "amargura" 40, "asco" 70, "asqueroso" 71, "ave" 82, "badiil" 88, "barreduras" 92, "barrena" 93, "boca de estómago" 97, "calentura" 115, "cáscara de huevo" 124, "colmena" 147, "cuchillo" 173, "estercolar" 257, "estómago" 260, "granizo" 300, "higa" 320, "ladrido" 355, "lamer" 360, "lazada" 361, "legumbre" 363, "levantar" 367, "manteles" 399, "mariposa" 402, "mellar" 412, "menstruo de muger" 417, "monge" 429, "morciélago" 430, "nudo" 457, "parto" 497, "pollo" 524, "ponzoña" 525, "primo" 539, "rana" 562, "recámara" 567, "regoldar" 571, "regueldo" 572.

Bestelako sarrera batetik zerbait erauzi zuenean ere iturrikoari lotu zitzaion:

"amenazar" > "amenaza" 42, "arrullar" > "arrullo" 67, "cauallero a cauallo" > "a caballo" 106.

Zenbaitetan, Landuccik ezarritako zehaztapena ezabatu egin zuen:

"açelga yerua" > "acelga" 11, "alcuza o azeitera" > "alcuza" 30, "castañuelas de dedos" > "castañuelas" 126, "centella de fuego" > "centella" 132, "cernicalo ave" > "cernicalo", "codo de braço" > "codo" 140, "laguna de agua" > "laguna" 359, "mexilla de cara" > "mexilla" 420, "molleja de aves" > "molleja" 424, "mollera de cabeza" > "mollera", "pella redonda" > "pella", "rabo de vestidura" > "rabos" 559, "razimo de uvas" > "racimo" 560.

Gutxi batzuetan berak erantsi zuen zehaztapena:

"açor" > "azor, ave" 87, "pez" > "pez, brea" 512.

Edo aldaketa txiki batekin mantendu:

⁴⁸⁸ Akatsik ez egiteaz gainera, geroago ikusiko dugun bezala, aipagarria da bere bibliotekako (Altuna 1984) frantses liburuen ugaria: lehenengo 40 itemetan, adibidez, 24 frantsesez daude agerrian edo egon litezke, izkribauak izenburua itzuli arren Parisen-eta argitaratuta daudelako, besteak beste.

"pezon de teta" > "pezón del pecho" 513, "reja de arar" > "reja de arado" 569, "rueda de carreta" > "rueda de carro" 588.

Ordena —eta agerlekua, beraz— baino ez zuen aldatu "derecha mano" > "mano derecha" (396)-en. "aumentadero" > "aventadera" (84) aldaketarako ez daukat azalpenik: *DAut*-ek (eta ondorioz *HH*-ak) dakarren kide bakarra *aventador* da; baliteke, beraz, beste errata bat baino ez izatea.

Benetako aldaketa bakarra "beça [sic, *beca*-ren orde] para el cuello" > "corbata" (164) da, jatorrizko hitza zaharkituta zegoelako (cf. *DAut*, s.v.) egina, antza denez.

1.3.2. Refranes y Sentencias

Hiztegia ez izan arren, aldamenean zenbakiz ondo markatutako itzulpena izatea laguntza handia izan zen Larramendirentzat, *RS*-ko itzulpenez ere fidelki baliatu baitzen. 148 hitz ziurretatik 73tan erabat bat dator *Erans*-ekoa:

"abril" 6, "de aquí adelante" 16, "amante" 39, "armas" 60, "atolladero" 74, "atrevido" 77, "atrevimiento" 78, "ayudar" 86, "caduco" 109, "como" 152, "contrahecho" 162, "costumbre" 171, "cuña" 180, "dádiva" 184, "darasme y darte he" 185, "dedo meñique" 191, "deseo" 201, "fantasma" 220, "engaño" 237, "estercolar" 257, "falsía" 269, "fama" 271, "fiador" 275, "galardón" 292, "gruñir" 301, "guerra" 303, "harina" 315, "hermitaño" 318, "honor" 322, "hogar" 324, "huérfano" 326, "infructuoso" 341, "jarro" 347, "julio" 349, "San Juan" 350, "ladrar" 354, "ladrido" 355, "linage" 379, "malamente" 386, "mancha" 392, "mantenimiento" 398, "mañana" 400, "después de mañana" 400, "mátale" 404, "mercado" 418, "morder" 431, "nada" 437, "necesidad" 439, "papo" 485, "pensamiento" 506, "plaza" 520, "pobre" 521, "portal" 528, "principal" 540, "provecho" 544,⁴⁸⁹ "próximo" 547, "raposo" 563, "rebaño" 565, "roble" 582, "rollo" 586, "sábado" 589, "sazón" 595, "siesta" 606, "tabernero" 628, "tejado" 634, "treguas" 653, "turmas" 658, "vado" 660, "vestido" 669, "virote" 677, "vitoria" 679, "vivero" 680, "zapatero" 689.

Alabaina, hiztegia ez izaki, egokitzapen zenbait egitera behartuta egon zen; usukoenak aditzak infinitiboan jarri beharri dagozkionak dira:

"acabado" > "acabarse" 8, "te agachas" > "agacharse" 20, "alquilada" > "alquilar" 37, "cansa" > "cansar" 118, "encendido" > "encender" 233, "encuentra" > "encontrar" 235, "escarmentado" > "escarmentar" 245, "estrecha" > "estrechar" 262, "alle" > "hallar" 314, "heredolo" > "heredar" 317, "hoçan" > "hozar" 325, "prestada" > "prestar" 536, "vedays" > "vedar" 543, "reniego" > "renegar" 573, "rineronse" > "reñir" 575, "ruegues" edo "rogado" > "rogar" 585, "traga" > "tragar" 650, "vedado" > "vedar" 665.

Hauekin batera, femenino batzuk maskulinoan eta plural batzuk singularrean eman zituen:

"desdichada" > "desdichado" 200, "espaldas" > "espalda" 251, "mellas" > "mella" 411, "obras" > "obra" 461, "pensamientos" > "pensamiento" 506, "pobres" > "pobre" (521, bi bider), "truenos" > "trueno" 656, "çapatos" > "zapato" 690.

Ondoko hauetan ere itzulpena berbera da, iturritzat aukera bat baino gehiago izanik zehazki agerlekua zein den guk ez jakin arren:

"alago" (iz.) edo "alagar" > "alagar" 27, "dañosa" edo "dañoso" > "dañoso" 188, "mal" edo "mala" > "malo" 387, "mala" edo "malos" > "malo" 387.

⁴⁸⁹ *gondua* "provecho" (544) dela eta, Larramendi zuzen ibili zen iturriko itzulpenari jarraiki hitz hau izentzat hartuaz. Alabaina, iturriko egitura (*gondu daquiala*) enganagarria izan zitekeen (eta Azkuerentzat izan zen), bertan *-du* partizipio bat egon zitekeela sinistaraziaz.

Lehenean balirudike bigarrena egokiagoa dela, baina hitza *leusindu* denez gero itzulpena gorabehera aditza zela begibistan zegokeen. Besteetan, ikusi dugunaren arabera, femeninoak maskulino eta pluralak singular bihurtzeko inolako oztoporik ez zuen izan eta, beraz, jatorrizko testuaren itzulpenak ezin lagun dezake iturri izan daitezkeen erretrauz ezberdinen artean hautatzen.

Landuccirenean bezala behin bederen zehaztapena zertxobait aldatu egin zuen ("amor del fuego" > "amor de la lumbre" 43), beste behin ordena aldatu zuen ("cosa fea" > "fea cosa" 273) eta batzuetan zehaztapen berriak erantsi behar izan zituen:

"hierle" > "hiérole, pégale" 319, "llanos" > "llanos, valles" 382, "merino" > "merino, juez, ministro" 419, "overo" > "obero, overo caballo" 459, "sendero" > "senda, sendero" 601, "seso" > "seso, juicio" 604.⁴⁹⁰

Alabaina, delako testuinguru batean eman daitekeen itzulpena ez datorkio beti ongi hiztegi-sarreran ahalik eta informaziorik zehatzena eman behar duen hiztegi-gileari. *RS*-tik hartutako hitz zenbaitek aldean hitz baten ordeztan sintagma oso bat zeukaten gaztelaniaz, eta Larramendi hiztegi bati dagokion itxuran azaltzen saiatu zen, agi denez:

"muger de buen recado" > "casera, hacendosa" 123, "darte he" > "darete" 186, "haga huida" > "huir" 328, "para igualarse con el" > "igual" 330, "señora de buen recado" > "matrona" 406, "temblante me anda" > "menearse" 413, "lo que eres obligado" > "obligación" 460, "sigue a la" > "siguele" 607.

Honexek eragin ditu *RS*-tik hartutako hitzetan dauden itzulpen txar edo eskas bakanak: "lo que no se le excusa de dar" > "inexcusable" 337, "causa (de) riña" > "pendenciero" 505.⁴⁹¹

Bestelako interpretapenak ere egin izan zituen, batzuetan ulerpen arazoak saihesteko, bestetan iturriko itzulpena zuzendu edo egokitu nahian:

"desperdiciada" > "desperdiciador" 204,⁴⁹² "postrimería" > "fin, postre" 277,⁴⁹³ "el niñear" > "niñada" 448,⁴⁹⁴ "sobradissima" > "sobrado, abundante" 613, "se hazen yguales" > "son para en uno" 684.

Birritan bestelako aukerak egin ditu:

"trabar", "trabaría" edo "apaña" > "agarrar" 21;⁴⁹⁵ "tirar" > "arrojar" 65.

⁴⁹⁰ "Llanos, valles" eta "seso, juicio"-ren bigarren hitzetarako bazituen oina eman ziezaioketen erretrauz, baina etsita nago Larramendik egindako eransketak direla (ik. § 2.1.5.2).

⁴⁹¹ *RS*-n agertzen den bietan (291, 443) *ergarri* gauzei dagokie (*egia*-ri, *etxe hutsa*-ri), eta "pendenciero" pertsonekin bakarrik erabiltzen da; cf., adibidez, *DAut*: "La persona ocasionada, y que mueve fácilmente riñas y questiones".

⁴⁹² Cf. *DAut*: "*Desperdiciado*. Se toma también por desperdiciador, y que gasta por hábito y costumbre".

⁴⁹³ Ziurrenik *postrimería* bestela ulertuko zelakoan: cf. *DAut*: "*Postrimerías*. Lo mismo que Novísimos", dakarren adiera bakarra.

⁴⁹⁴ Hau Larramendiren hutsa da, *seizaro*-ren osagaiek erakusten diguten bezala; "niñear" itzulpena berak eratorritako *seizarotu*-rako gorde zuen.

⁴⁹⁵ Cf. *DAut*: "*Trabar*. Vale también prender, agarrar o asir. Oy se usa en Andalucía y otras partes" eta "*Apañar*. Recoger y guardar cuidadosamente alguna cosa, teniéndola asida con los puños"; eta *HH*: "Trabar, agarrar, *eldu, itsats*" eta "Apañar, *escuaz batu, bildu*". Bata zein bestea iturria izan, argi dago irakurle askorentzat edo ezezagunak, edo gutxienez zalantzazkoak (biek adiera bat baino gehiago baitute) izan zitezkeela.

Eta, azkenik, bi hitzetan itzulpenik ez zegoenez gero, bere kasa ezarri behar izan zuen: *etziluma* "dos días después" eta *etzcaramu* "tres días después" (400).

1.3.3. Harriet

Sarritan frantsesik ere jakin gabe egin zitezkeen itzulpenak egin zituen, Harrietek eman frantsesezko hitzaren gaztelaniazko "lehengusua" eskainiaz:

"abri" > "abrigo" 5, "achever" > "acabarse" 8, "accepter" > "aceptar" 12, "accomoder" > "acomodar" 15, "village" > "village" 31, "ruiner" > "arruinar" 66, "tourmenter" > "atormentar" 75, "bras" > "brazo" 105, "manger par excés" > "comer demasiado" 149, "manger avec goût" > "comer con gusto" 150, "méfiant" > "desconfiado" 195, "méfiance" > "desconfianza" 196, "stipuler" > "estipular" 259, "justifier" > "justificar" 352, "moment" > "momento" 368, "liberté" > "libertad" 370, "lime" > "lima" 376, "limiter" > "limitar" 377, malice" > "malicia" 391, "meliorations" > "mejoras" 409, "melancolie" > "melancolía" 410, "misere" > "miseria" 423, "motif" > "motivo" 433, "mur" > "muro" 436, "nid" > "nido" 446, "obliger" > "obligar" 460, "obstiner" > "obstinarse" 462, "occasion" > "ocasión" 463, "occupation" > "ocupación" 465, "ocuper" > "ocupar" 465, "opposer" > "oponerse" 470, "opposition" > "oposición" 470, "partial" > "parcial" 487, "à part" > "aparte" 491, "passe-temps" > "passe-temps" 496, "peller" > "pelar" 502, "permission" > "permisión" 510, "poëme" > "poema" 522, "poëte" > "poeta" 523, "préférence" > "preferencia" 532, "préferer" > "preferir" 533, "satisfaire" > "satisfacer" 593, "satisfait" > "satisfecho" 594, "sillabe" > "sílabas" 608, "souverain" > "soberano" 610, "superbe" > "soberbio" 611, "suffisance" > "suficiencia" 616, "suffisant" > "suficiente" 617, "succés" > "suceso" 619, "suposer" > "suponer" 622, "tâche" > "tacha" 629, "tiran" > "tirano" 643, "tison" > "tizón" 645, "travailler" > "trabajar" 649, "tronc" > "tronco" 655, "tonnerre" > "trueno" 656, "tumulte" > "tumulato" 657, "vacances" > "vacaciones" 659, "vagabond" > "vagabundo" 661, "voyageur" > "viagero" 671, "vitre" > "vidrio" 672, "vigueur" > "vigor" 674, "vigoreux" > "vigoroso" 675, "visiter" > "visitar" 678, "usage" > "uso" 686.

Batzuk zehaztu egin zituen:

"marque" > "marca, señal" 401,⁴⁹⁶ "médiocre" > "mediano, mediocre" 407,⁴⁹⁷ "tenir" > "tener, assir" 639.⁴⁹⁸

Baina gainerakoan argi geratzen da Larramendi frantsesez ondo moldatzen zela,⁴⁹⁹ dela berez, dela hiztegi egoki baten bitartez, hain nabarmenak ez diren hitzak ongi itzuli zituelako, batetik, eta batzuetan itzulpen askeagoak egiten jakin izan zuelako, bestetik:

"oser" > "atreverse" 79, "matelas" > "colchón" 144, "avoüer" > "confessar" 156, "saisons" > "cosecha" 169, "pente" > "cuesta" 175, "obstacle" > "embarazo" 227, "balay" > "escoba" 247, "traits de visage" > "facciones" 266, "pochette" > "faltriquera" 270, "linge" > "lienzo" 373, "massacre" > "matanza" (eta "massacrer" > "hacerla") 405, "monoye" > "moneda", "impair" > "nones" 452, "pampre" > "pámpano" 481, "paire, pair" > "pares" 489, "accouchement" > "parto" 497, "se promener" > "pasear" 498, "la promenade" > "paseo" 499, "soutenir" > "porfiar" 527, "poing" > "puño" 551, "poignée" > "puñado" 552, "pareil, semblable" > "semejante" 600.

Oro har ez dago itzulpen txarrik. Horregatik, hain zuzen, nahiko harrigarria da *bernagea* "linage" (379) < *bernaiea* "parent, allié" egokitasuna, nahiz eta hitzaren bitxitasunak iturria

⁴⁹⁶ Harrieten sarrera honako hau da: "marque, *siñalea, çagutqunça*" (FE 383); agerian dago, beraz, Larramendiren eransketa lehenengo ordain mailegatuak eragin edota ahalbidetu duela.

⁴⁹⁷ Cf. *DAut*: "Mediocre. Lo mismo que Mediano. Es voz Latina *Mediocris*"; eta *HH*: "Mediocre, mediocridad, véase *mediano, medianía*".

⁴⁹⁸ Cf. *DAut*, zeinak adiera nagusizat ematen duen: "Tener. Asir o mantener asida alguna cosa".

⁴⁹⁹ Ez ditu, ez eta hurrik eman ere, Añibarrok Harrieten hiztegiekin izan zituen hutsak eta zalantzak (Urgell 1992b: 230-232).

ziurtzat ematera behartzen gaituen. Aterabidea atzizkiaren aldetik letorke, berriro ere: ohartu Larramendiren aldaketaren ostean euskal hitzak eta haren itzulpenak atzizki bera daramatela.⁵⁰⁰

Azkenik, behin itzulpena "fidelegia" izan zela esan dezakegu, kontuan izan gabe aurreko lerroan zeukan "libre, *lacho*":

lacho "libertad" (370) < "il est en liberté, *lachoan da*".

1.3.4. Axular

Oso bestelakoa da Axularren kasua, sarritan batere laguntzarik gabe aurkitu baitzuen bere burua. Ez beti, halere.

a) Lehenengo laguntza latinezko testuak dira; frantsesez hain ondo moldatu zela ikusiez gero, ezin genezake gutxiagorik espero latinez jakin behar ez eze liburuak latinez idazteko gai zen Larramendirengandik:

"nutrix" > *azama* "ama de criar" (38). "arator" > *goldelaria* "arador" (57). "arenam" > *sablea* "arena" (59). "calva" > *carsoilla, garbala* "calvo" (116). "caeteris paribus" > *ambatic ambatean* "caeteris paribus" (135). "reus" > *hobenduria* "culpado" (179). "sermo" edo "loquela" > *mintzaya* "habla" (309). "impugnatio" > *narritamendua* "impugnación" (334). "nugarum" > *erguelqueria* "necedad, bobería, simpleza" (442). "favus" > *berasca* "panal" (482). "cardine" > *erroa, ùala* "quicio" (557). "recomos [sic] vindimiae" > *mahats ondar mondarrac* "racimos que quedan, hecha la vendimia" (561). "resina" > *arrochina* "resina" (578). "sagittae" > *tragaza* "saeta" (592). "secreto" > *estalguna* "secreto" (596). "nutu" > *ayerua* "seña, amago" (602). "super erogationis" > *emendaillua* "supererogación" (623). "pardus varietates" > *nabardura, colore picardatuac* "variedad de colores" (664). "Aquilonem" > *mendebala* "vendabal" (667). "victoria" > *garaitia* "vitoria" (679).

Gutxi batzuetan bakarrik ez zuen latinezko itzulpena aintzat hartu.⁵⁰¹

"concupinas" / *amorateac* "enamorados" (230). "deformia" / *marquetsa* "fea cosa" (273).

b) Bigarren laguntza bestelakoa da: euskarazko testuak berak ematen diona, hain zuzen, Axularrek esanahikideak pilatzeko zeukan ohiturari esker. Batzuetan laguntza erabatekoa da (guztiz mailegua denean); besteetan, berriz, testuinguruak ere lagundu bide dio; gurutze batez markatzen ditut latinez ere bazirenak:

escu-toqui > *guirtaiña* "asa" (68). *lot, amarra* > *uzcaldu* "atar, amarrar" (73). *sumatu, berretu* > *gurendu* "aumentar" (80). *ardandegui* > *sotoa* "bodega" (102). *ahuntz-ume* > *bitiña* "cabrito" (108). + *motz, soil, ille gabe* > *carsoilla, garbala* "calvo" (116). *guibel aldean* > *garraitia, garceta* "cogote" (141). *cola, visca* > *lequeda* "cola de encolar" (142). *hondarrac* > *arbuyoa* "deshecho, sobras" (202). *escapatceco bide* > *itzulpidea* "escapatoria" (244). *erraz* > *aisit* "fácil" (267). *exemplo* > *elhea* "fábula, cuento" (265). *golosa* > *lamitia* "goloso" (295). *minzatzaille, ahazabal* > *hizmiztia* "hablador, parlón" (311). *ohoinqueria* > *esparcoa* "hurto" (329). *licencia* > *baimendua* "licencia" (371). *arin* > *zaluia* "ligero, ágil" (374). *escupera(tu)* > *manucortu* "manualizar" (395). *lan* > *ecairac* "quehaceres, ocupaciones" (443). *parte* > *endrecera, aurquientza* "parte" (490). *escale* > *miaña* "pedigüeña" (501). *prestatu* > *istalgaratu* "prevenirse" (537). *zuhur* > *goitatu* "prevenirse" (537). *egoitza* > *crozza* "punto, estado" (550). *nahastu* edo *irauli* > *iratiotu* "revolver" (580). *edateco desira* > *egartsua* "sed" (597). *flacatua eta iragana* > *amitua* "transido y pasado" (652). + *victoria* > *garaitia* "vitoria" (679). *adimendu* > *endelegamendua* "uso de razón" (685).

⁵⁰⁰ Azalpen osagarri baterako, ik. § 1.3.6.

⁵⁰¹ Azalpen baterako, ik. beheago (h) *amorateac*-i buruz, eta § 1.3.6 *marquetsa*-ri buruz.

Alabaina, bide honi jarraitu ziola ezerk baino hobeto, hau dela-eta egin zituen itzulpen txarrek —edo zehaztasunik gabekoek bederen— erakusten digute (marra ostean itzulpen zuzena ematen dut); adibide batean euskal lagunak latinak baino indar gehiago izan zuela ikus dezakegu, gainera:

bihotza hautsi eta beratu > *cantitu* "ablandarse" (1) / "inmutarse".
erreco > *despitatu* "abrasarse de ira" (4) / "enojarse".
sablea (+ lat. *arenam*) > *legarra* "arena" (59) / "grava".
bide > *alapidea* "camino libre" (117) / "lugar de pasto".
desequin > *higatu* "corromperse" (168) / "consumirse".
+ *itsusi* > *marquetsa* "fea cosa" (273) / "deforme", lat. *deformia corpora*.
ioitea > *aurizquitu* "golpear" (296) / "tropezar".
pacientcia > *tentua* "tesón" (641) / "juicio, razón".

c) Gutxi batzuetan, esaldiko hitz batek eragin du itzulpena, dela *Erans*-ean jakintzat ematen den hitza (subjektua edo osagarri zuzena gehienetan):

urdaia bohatcen > *bohatu* "arranciarse el tocino" (62). *erroetaric erauzten* > *erauci* "arrancar, desquiciar" (63); cf. *erroa* "quicio" (557). *maquillaren permatceco eta pordoincatceco* > *permatu*, *bordoincatu* "afirmarse en el bastón" (95). *beguiac lambotu* > *lambotu* "flaquear la vista" (278). *falso testimonioac erauci* > *erauci* "levantar testimonio" (369). *begui herts-idequi baten* > *herguidiqui bat* "ojos (abrir y cerrar dellos)" (467).

edo dela itzulkizunari nolabait kontrajartzen zaiola dirudien hitza:

ase / *elicatu* "probar gustando" (542).⁵⁰²
gizon emakoia, presuna putanera / *guizacoia* "puta" (554) / "mulier lubrica".⁵⁰³

Azken bide hau berau erabili bide du, oraingoan erabat zuzenki, *Erans*-eko bikote zenbait itzultzeko:

morcosta "racimo" (560) / *bicorra* "gajo de uvas" (290).
haurtasun / *morrointasuna* "pubertad" (548) / *gaztetasuna* / *zahartasuna* / *sentontasuna* "decrepitez" (190).

d) Hitzaren itxurak lagundu du inoiz; cf., adibidez *bularca* "a pechos"⁵⁰⁴ (500), baina bestetan huts eragin dio:

ahopaldiac "bocanadas" (98) / "injurias".
atzguillea "comezón" (151) / "lo que produce comezón".
quidoia "guía" (304) / "alferez, abanderado".⁵⁰⁵
zauri gaizcoatua "llaga mal curada" (381) / "llaga enconada".
gaizcoatu "malearse" (390) / "lacerar".
seguientza "seguimiento" (598) / "práctica".
itzalgaizca "sombra" (614) / "a escondidas".
suguina "volcán" (681) / "fogón".⁵⁰⁶
biurgunea "vuelta" (682) / "conversión".

⁵⁰² Itzulpena ez da erabat txarra, baina zehazkiago "comer lo justo, mantenerse" izango litzateke.

⁵⁰³ Hemen, dena den, hiztegitzuzarekin zerikusirik ez duten aurreriritziak ere tartean egon litezke.

⁵⁰⁴ Cf. *DAut*: "Echarse a pechos. Metaphóricamente vale intentar o tomar a su cargo, con empeño u actividad, alguna cosa, sin reparo de los inconvenientes o dificultades" edo "Tomar a pechos. Phrase que vale tomar alguna cosa con demasiada eficacia y empeño".

⁵⁰⁵ Itzulpena Mitxelenarena da (1974: 396).

⁵⁰⁶ *Pouvreauri* jarraiki itzuli dut, zeren eta Larramendi ez baita hitzaren esanahiarekin arazoak izan dituen bakarra: Azkuek "incendio" itzuli zuen, eta Villasantek (*AxH-n*), zalantza, "fragua". Ik. 1.2.7.3.e, Larramendiren hutsaren azalpen baterako.

e) Gainerakoetan, eta ezinbestean, testuinguruaz baliatu dela uste izan behar dugu; adibide argi bat emango dut:

beu "tenga" (637) < *Beu bethi dolore, eta doloreaz goço, eta çappore*.

Bide hau ere oso arriskutsua zen; aldamenen eskaintako itzulpen zuzenak zenbaitetan erakusten digute testuinguruak esanahian ez eze hitzaren gramatika kategorian ere huts egiteko parada eman ziola:

erragarri "aborrecible" (3) / "irritante, intolerable".
hitsi, histu "conseguir" (158) / "cumplir".
destatu "disponer" (216) / "apuntar".
desarra "efecto, acto" (223) / "disparo, descarga".
autua "elección" (224) / "escogido, selecto".
forogu "enojoso" (238) / "carga, molestia".
curea "inclinación" (335) / *curca* "trago".
jasan, jasaitu "levantar" (367) / "soportar".
lapitza "piedra" (514) / "terreno pedregoso".
malcorra "precipicio, despeñadero" (529) / "escarpado".
berretura "recaída" (566) / "agravamiento".
alhadura "reprehensión" (576) / "remordimiento".
alhatu "reprehender" (577) / "remorder".
bere arauaz "en tanto" (630) / "a su modo".
sendagalla "vanidad" (663) / "hazaña; jactancia".
erauquia "vencido" (666) / "me rindo".

f) Testuinguruak eragindakoa da erabat, *muthiria* (205)-ren "desvergonzada" itzulpena, nahiz Axularrek dakarren *ema-muthiria*-ri femeninozko marka kendu zion.

g) Hitzaren itxurak eta testuinguruak, biek nahasi dute: *amortu* "enamorar" (229) / "aplar".

h) Batzuetan, badirudi familiak izan duela garrantzirik handiena, alegia, behin familiako hitz bati eman itzulpena, gainerakoei egotzi diela, testuinguruaz ez beste ezertaz konturik izan gabe:

anzatsu "hábil" (307) — *anzatsutu* "habilitarse" (308).
zaluia "ligero, ágil" (374) — *zaluitu* "hacerse ligero, ágil" (375).
alhadura "reprehensión" (576) — *alhatu* "reprehender" (577).
amoranteac, amurusac "enamorados" (230), *amorantia* "enamoramiento" (231), *amortu* "enamorar" (229).

1.3.5. Erdal sinonimia *Erans*-ean

Sarrera guztiak ez daude iturritik zuzenean hartuak; aitzitik, sinonimiak *Erans*-aren hazkundera zerikusi ez oso handi baina nabarmen bat izan du. Kasurik argienetan, batean ematen den erdarazko bigarren hitza, esanahikidea, bestean buruan agertzen da (etorkia ezaguna denean, lehen jartzen dut, eta sarrera gurutzeaz markatzen):

marruscatu "ajar" (26), "estregar, ajar" (264).
erra "aversión, odio" (85), "odio" (466).
urena, azquina "casera, hacendosa" (123), "hacendosa" (313).
+ *guertacuntza* "sucesso" (619), "caso, sucesso" (125).
arrontera "común" (154), "ordinario, común" (471).
jolasturia "eloquente" (226), "hablador, eloquente" (310).
barrendaria "entremetido" (241), "introducido, entremetido" (346).

Esapidearen eta hitz nagusiaren arabera, bietara ordenatuta dago ondokoa:

+ *ozazi* "al presente" (36), "presente, al presente" (535).

Bestetan argi dago bi sarrerak esanahikideak edo ia direla:

buthuna "carta" 122, "esquela" 255.
ecaira "negocio" 443, "quehaceres, ocupaciones" 556.
escolatu "disciplinar" 217, "enseñar" 239.
+ *ecertu* "vedar" 665, "prohibir" 543.
estalguna "escondrijo" 248, "secreto" 596.⁵⁰⁷
garraita "cogote" 141, "nuca" 455.
goratzapena "elevación" 225, "levantamiento" 366.
gorgolla "degolladero" 189, "nuez de garganta" 458.
+ *irachoa* "fantasma" 272, "duende" 220.
+ *irisca, urisca* "village" 676, "aldea" 31.
hisicatu "encapricharse" 232, "obstinarse" 462.
narríoa "mancha" 392, "tacha" 629.
oldozquera "descuido" 197, *oldozqueran* "sin pensar" 508.
on(t)satu "acomodar" 15, "componer" 153.
ombearra "miserable, desdichado" 422, "necesitado" 440.
trisca "baile" 90, "danza" 187.
zafira "paciencia" 477, "sufrimiento" 618.

Berriz, nekez hartakotzat har daitezke ondoan aipatzen ditudanak:

amorantia "enamoramiento" 231, "galanteo" 291.
arrantatu "adocénar" 18, "hacer común" 155, "mancomunar" 393.
aurizquitu "acalcar" 10, "golpear" 196.
gardia "cuidado" 176, "dictamen" 215.
golpagogortu "callear" 114, "obstinarse" 462.
mendoza "otero" 475, "terrero" 640.

Hitzen etorkia ezagutzen dugun neurrian, lehenengo guztiak agerraldi bakar batek zurriz dituen bitartean, azken hauetarako nabarmenki bat baino gehiago behar dugu.

1.3.6. Itzulpenaren indarra

Mitxelena jadanik ohartu zen antzeko zerbait badela, Axularrengandiko *higuindu* "aborrecer" (2) iruzkintzerakoan: "...la traducción de Larramendi, basada como vemos en Land." (1970: 53). Baieztapen hau sarrera gehiagotara zabal daitekeelakoan nago, batez ere Axularren kasuan, non —ikus bezala— dena beharrean egon baitzen. Bestelako azalpenak (iturri bietan itzulpen bera agertzea, adib.) dituzten edo izan ditzaketen kasuak alde batera utzita, honako hauek izan daitezke esandakoari zentzua ematen dioten adibideak:

87. Azor, ave, *belaza* (Lcc), *aztoea* (Ax).
273. Fea cosa, *ezaya* (RS), *marquetsa* (Ax).
367. Levantar, *jasan* (Ax), *jasaitu* (Ax), *eregui* (Lcc).
379. Linage, *narea* (RS), *bernagea* (Ht).
392. Mancha, *orbana* (RS), *notha* (Ax), *narríoa* (Ax).
413. Menearse, *loca ibilli* (RS), *higuitu* (Ax/Ht).
488. Pared, *armora* (Ax), *oltza* (Lcc).
560. Racimo, *masmaquia* (Lcc), *morcosta* (Ax).
614. Sombra, *guertza* (RS), *itzalgaizca* (Ax).
629. Tacha, *narraioa* (Ht), *narríoa* (Ax).
679. Vitoria, *garaitia* (Ax), *gurenda* (RS).
680. Vivero, *nintegüia* (RS), *mindeguia* (Ax/Ht).

⁵⁰⁷ Cf. *DAut*, s.v. *secreto*: "Se llama también al parage o sitio oculto y escondido...".

Aipatutako guztietan, hitz baten iturrian agertzen den itzulpenaren pean ezarri dira bestelako iturrietan, guztiz ere Axularrengan, aurkitutako hitzak. Honela azal daitezke, neurri batean bederen, *marquetsa*-ren itzulpen eskasa (§ 1.3.4), iturriarekin bat ez datorren *bernagea*-rena (§ 1.3.3), eta batez ere *itzalgaizca*-ren itzulpen txarra.

Grafiari dagokionez, hasieran "vitoria" sarreran ere antzeko zerbait egon dela susmatu nuen, Axularrek bai latinez bai euskaraz *victoria* idazten baitu, eta *RS*-k *vitoria*, baina Larramendik *HH*-an *vitoria* forma hobesteak ("Victor, victoria, véase *vitor*") Larramendiren berriazko aldaketa izan daitekeela erakusten digu.

1.4. Iturriko agerlekua

Iturria osorik ala zatika erabili zuen izango da atal honetan erabiliko dugun gaia. Gogoratu behar da Larramendiren hitzen arabera, *Erans*-eko iturri ezagunak, haietaz zerbait esaten digun neurrian, edo iritsi berriak (*RS*: "Al acabarse la impresión del Diccionario, me embía el Padre Agustín de Cardaveraz, de nuestra Compañía, un Quaderno viejo..."), edo berriz irakurriak (Axular: "...que he buuelto a repassar con cuidado") direla.

Beste bi iturriak, Landucci eta Harriet, biak agertzen dira *HH*-aren hitzaurrean aipatuak, baina ez *Erans*-aren aurkezpenean, zeinagatik berez biak lehenagotik ezagutzen zituela uste izatekoa den. Harriet, testukritikak erakutsi digun bezala (Lakarra 1994a: 66-67), hiztegiaren gorputza eratzerakoan —denbora faltaz edo— ez agortutako iturria da. Landucci dela eta, oster, ezer gutxi dakigu, baina antza denez, hasiera-hasieratik ezagutzen bide zuen arren, gainbegirada batez arbuiatu ondoren, azken unean hitz interesgarri zenbait egon bazeudela ohartu eta *Erans*-ean —eta han bakarrik— gaineratu zituen.

1.4.1. Landucci

Erans-ean Landucciren hitzak ziurtasunez agertzen diren sarrerak honako hauek dira:

2, 9, 11, 28, 30, 36, 40, 42, 67, 70, 71, 82, 84, 87, 88, 92, 93, 97, 106, 115, 124, 126, 132, 133, 140, 147, 164, 173, 257, 260, 300, 320, 355, 359, 360, 361, 363, 364, 367, 396, 399, 402, 412, 417, 420, 424, 425, 429, 430, 457, 488, 497, 504, 512, 513, 524, 525, 539, 559, 560, 562, 567, 569, 571, 572, 588, 621.

Hitz bildumaren lehen erdialdean 32 hitz, bigarrean 35: parekotasun miragarria, areago kontuan izanik italiarrarena bukagabeko hiztegia dela; 588. sarreratik aurrera antzematen den hutsunea, iturrian *S* letratik aurrera dagoen euskal ordainen urriaren eta laster erabateko ezaren ondorio da, hain zuzen.

Honako hauek dira, berriz, Larramendik honetatik ziurtasunez hartutako hitzak iturrian agertzen direneko folioak (leku batetik baino gehiagotatik har zitzakeenak izarraz markatu ditut).⁵⁰⁸

227r, 227v, 228r, 228v, 230v, 231r, 232v, 233r(2), 233v, *234r, 236v(3), 238v, 239r, 239v(2), 240v, 241v, 242r, *243v, 244v, 246v(2), 247r, 247v, 248r, *252v, 255r, 255v, 258v, 273r, 273v, *275r, *275v, 278v, 281r, 281v, 285r(2), 285v(2), 286r(2), 286v, *290r, 290v, 291r, 292r, 292v, 293r, 294r(3), 294v, *296v, 297r, *299v, 301r(2), 302r, 302v, **304r(3), 305v, 307r, 309r, 309v, 310r(2), 311r(3), 314r.

Batean zein bestean, *Erans*-ean jasota dauden hitzak hiztegitxo hasi eta buka irakurtzetik ateratakoak direla ageri da. Haatik, deigarria da ezer eskaini ez zioten folioak tarteka aski maiz azaltzea, 258. folioa bezain emankorrek bakan-bakanak diren bitartean. Honek azalpen bat baino gehiago izan lezake, zein baino zein jakingarriagoa: Izan liteke, batetik, oso tentuz erabilia, hitzik garrantzizkoenak bakarrik hartuaz eta, jakina, biltzen duen mailegu mordotik berezi batzuk baino hartu gabe; azalpen hau ezin hobeto etorriko litzateke hiztegitxo honetaz egin zuen kritika gogorarekin. Oro har, gainera, Landucciren hitz garrantzitsu zenbaiten falta somatzen da (deigarriena, agian, hainbestetan agertzen den *errexal* ospetsua). Baina, bestalde, izan liteke bakantasuna honako hau bigarren irakurtaldi baten emaitza baino ez izateagatik gertatua, eta orduan, Landucciren gainerako hitzak —Axular eta Harrietenak bezalaxe— *HH*-an egongo liriteke.

Errepara diezaiokegu erdialdean 248v-tik 272v-ra (columna-esquileta) bitartean dagoen jauzi nabarmenari —*Erans*-ean 173. sarreratik 257.era (cuchillo-estercolar) dagoenarekin bat—, nondik bizpahiru hitz baino ez baitzituen hartu. Jauzi honetarako ez daukat azalpenik; bertan badira hitz interesgarriak, ez bestetan baino gutxiago; hona hemen haietatik zenbait:

ergunedia "comadreja" (248v), *juducumea* "confesso" (249v), *tortaria* "corredor" (251v), *torta eguin* "correr" (*ib.*), *abustua* "cosecha de mieses" (252r), *sugatea* "cozina do cuezen" (252v), *callatua* "cuajar" (253r), *goylarea* "cuchara" (253v), *vearra* "culpa" (*ib.*), *guya* "cuna" (254r), *chafayñoria* "çanaoria" (*ib.*), *guidala* "çanco" (*ib.*), *otasabela* "çaquiçami" (*ib.*), *begui ezpaña* "çejo sobre los ojos" (*ib.*), *austerrea* "çernada" (255v), *çaldanea* "çeuada" (*ib.*), *laternea* "cisterna" (256v), *chuchurripitea* "chapitel" (*ib.*), *madurea* "dehesa" (258r), *yramon* "derribar" (259r), *hilaraquiatic* "devanaderas" (263r), *esça jauna* "drasgo o duende" (265r), *beaztiro* "dulcemente", *carranquea* "elada o yelo" (265v), *oguendu* "encoruar" (267v), *ostu* "escondese" (271r), *iramon* "esparcir" (272v).

Jauzi honetan, *HH*-an sarrera beraren azpian agertzen direnak hauek dira:

ogui ta gaztaya "comadreja" (248v) / *oguigaztaya* "comadreja". *vepurua* "çejo sobre los ojos" (*ib.*) / *bepurua* "ceja". *ausçerrea* "çeniza" (255r) / *auts errea* "ceniza". *ocarana* "ciruelo" (256r) / *ocarana* "ciruela, ciruelo".

Bistan denez, gutxi eta ez esanguratsuegiak. Gorago aipatutetatik baina sarrera ezberdinetan, berriz, *gidalla* "pantorrilla" eta *juducumea* "judihuelo" baino ez ditut *HH*-an aurkitu. Mailegu gordinen zerrenda luzeek (*des-* aurrizkidunak [259r-263r] tartean daude, adibidez) orrialde hauek ohi baino azkarrago orraztera eraman zezaketelako susmoa baino ezin dut honen azalpenerako ekarri. Ohartu, dena dela, askoz hitz gehiagoren iturri izan zen Harrietengan ere antzeko jauzi bat (txikiagoa bada ere) antzeman dugula. Nolanahi ere den,

⁵⁰⁸ Gogoratu euskal hiztegiaren aurretik italierazkoa (2-112) eta frantsesezkoa (114-225) agertzen direla. Euskal hitzak, beraz, 227r foliotik 328r-ra arte kokatzen dira, baina 315etik aurrera apenas hitzik aurkitzen da euskal zutabearen.

lehendabiziko hurbilketa honen arabera ez dirudi arrazoirik dagoenik *HH*-an ere Landucciz baliatu zela uste izateko. Halaz ere, III. atalean eztabaidatuko dut xehetasun guztiekin.

1.4.2. *Refranes y Sentencias*

RS-tik hartutako hitz ziurren *Erans*-ean zeharko banaketa aski erregularra da, lehen erdialdean 64 bat sarreratan eta bigarreanean 71 inguruan agertzen direlarik; mugatzat —Lakarrak (1996a: 50) egin bezala— *HH*-aren bigarren liburukia hasten deneko I letra hartuta (330. sarrera), zenbakiak bata bestetik urruntzen zaizkigu (61/74), baina aldea oso handia ez izateaz gain, *RS*-ren zati galdutik datozkeen hitzek askotxo aldatuko lituzketela gogoratu behar da:

6, 8, 16, 20, 21, 27, 37, 39, 43, 58, 60(2), 64, 65, 74, 77, 78, 86, 90, 109, 118, 123, 152, 162, 171, 180, 184, 185, 186, 188, 191, 200, 201, 204, 220, 233, 235, 237, 245, 251, 257, 260, 269, 271, 272, 273, 275, 277, 292, 301, 303, 313, 314, 315, 317, 318, 319, 322, 324, 325, 326, 328, 330, 337, 341, 347, 349, 350, 354, 355, 356, 379, 382, 386, 387(2), 392, 398, 400, 404, 406, 411, 413, 418, 419, 431, 437, 439, 448, 450, 451, 459, 460, 461, 484, 485, 505, 506(2), 520, 521(3), 528, 536, 540, 543, 544, 547, 563, 565, 573, 575, 582, 585, 586, 589, 595, 601, 604, 606, 607, 613, 614, 620, 628, 634, 650, 653, 656, 658, 660, 665(2), 668, 677, 679, 680, 684, 689, 690.

Ez da beste horrenbeste gertatzen, ordea, *RS*-n zehar *Erans*-ean agertzen diren hitzen banaketarekin. Mitxelena jadanik ohartu zen *Erans*-eko hitzen agerleku izan zitezkeen *RS*-ko erretrau zenbait (ik. 1970: 59-60, adib.) Larramendik bestela nekez ezagut zitezkeen orrialdeetan agertzen zirela, bestelako hitz interesgarri anitz jasota ez baitzeuden. Lakarrak (1996a: 36 t. hur.) Mitxelenaren susmoan oinarrituta, Darmstadtoko alean zehar Larramendik izan zitezkeen harlekuak era orekatu batean banatzen ez direla grafikoki erakutsi du. Berak aurkeztutako taula gaurkotuaz,⁵⁰⁹ litezkeen harlekuak honako hauek dira koadernotxoka bilduta (izarraz markatu ditut leku bakarrean agertzen direnak⁵¹⁰ eta taketez zalantzezkoak direnak):

I: 2, 3, *7(2), *9, 10, *16, 21(2), *[32], 33(2), *[34], 37, 39, 51, 52, 55, 63, 64, *69, 75, 76, 78, *[79], 81, 82, 88, 102, 107, 115, 127.
II: 141, *149, 151, 156, *159, 164, *165(2), *166, 169, *171, **174(2), *175, 176, 180, *182, *183(2), *185, 188, *191, *192, 196, 197, 199, *201, 205, *207, *209, **210(2), 211, 214, *215, 217, *219, **220(2), 222, *[225], 228, 230, *233, *235, *236, *238(3), *239(2), *241, **242(2), *243(2), 244, 246, 247, 248, *249, *251, 253, 254, 255, *259, *260, 262, **265(2), *266, *268, ***272(3).
III: 275(2), *279(2), 280, *287, 288, 289, *290, 291, *295, 298, **299(2), *301, *302, *303, *305, *307, *308, *313, 314, *317, *319, *321, *323, 329, *331(2), *335, 337, **339(2), *341, *344(2), *349, *353, 361, 363, *365, *366, **367(2), *370, *371, *372(2), *373, *379, *380, *383(2), 385, 386, 387, **388(2), *392, *[393], *395, *397, *398(2), *399, *403, **404(2), *405, *407, 408, ****410(4).
IV: 413, 419, *[420], 422, 435, 437, 440, 443, 450, 454, 458, 466, 467, 468, 469(2), 481, 485, 493(2), *497, *507, *514, 521, 526, 527, *536.

127-141 artean muga argi bat dago, eta lehen koadernotxoaren bukaerarekin (138. erretrauarekin) bat dator, hain zuzen. Antzeko muga bat antzematen da 410-420. erretrauen inguruan, 3. koadernotxoaren bukaerarekin (412. erretrauarekin) bateratsu. Erretrauz erretrauko

⁵⁰⁹ Bion taulak gonbara litzanak aldea handiegia dela pentsa lezake. Niri dagokit, beraz, aldaketen kontu ematea, laburki bada ere: (a) 152, 168, 277, 402, 478, 487 eta 525. erretrauetan ez dago *Erans*-eko hitzik; (b) 25, 49, 94, 120, 179, 327, 381, 384 eta 436.ean daudenak esanahian ez datoz bat *Erans*-eko lekukotasunarekin (§ 1.3.2); (c) 144, 362, 416, 428, 495, 506 eta 523.ean daudenak formaz desegokiak dira (§ 2.1); (d) 196, 197, 291 eta 361.ari, *Erans*-eko hitza besteren batean ere agertzen denez gero, izarra kendu diet; (e) 81, 127, 164, 205, 222, 288, 337, 363, 387, 440, 454 eta 526. erretrauak erantsi behar izan ditut, bestetan agertzen diren hitzen lekukotasunak dituztelako; eta (f) 7, 32, 34, 182, 191, 225, 305, 371, 380, 392, 397 eta 507, *Erans*-eko lekukotasun bakarra dagoenez gero, izarraz jantzi ditut.

⁵¹⁰ Hitz bat baino gehiago dagoenean, hitzeko izar bat jarriko dut, hala dagokionean.

jauziak txikiagoak dira inondik ere bi muga horien barruan: ia orotan dugu lekukotasunen bat, sarritan bat baino gehiago; eta, batez ere, Darmstadtekoan lekukotasun bakarra dutenen kopurua ikarragarri altua da:

1. koadernotxo	7
2. k.	43
3. k.	53
4. k.	5

Are esanahitsuago izan liteke, 138. errefrauaren aurreko eta 412.aren ondoko hutsarteetan hitz bitxiak hamaika direla erreparatzea:

ebil oqui "mouediza" eta *uçatu* "espantadiza" (5), *hamquer* "cruel" (12), *labio* "rabicorta" (14), *balizco* "de si fuesse" (15), *mendela* "orillo" (20), *behse* "abarca" eta *guerena* "deshonra" (24), *astia* "vagaroso" (29), *anbiolaco supitac* "refranes del tiempo pasado" (32), *maurtu* "desierto" (36), *caden* "torçuelo" (37), *bernazaqui* "pantorrilla" (42), *loyça* "lodo" (44), *ustrall* "vasija" (46), *çitaldu* "ensuziar" (47), *farata* "vanagloria", *audiaca* "vendiendo autoridad" eta *jira* "regozijo" (48), *tilista* "lenteja" (50), *beçuza* "regala" (55), *quirola* "regozijo" (63, 116), *zozquerea* "la suerte" (67), *laçuna* "el muble" (72), *hendorea* "alcalde" (73), *auzquin* "pleytista" (75), *tamal* "lástima", *sorosi* "atiende" eta *opana* "necessidad" (78), *iradu* "apriessa" (83), *sendari* "gallardía" (87), *onçoeria* "logrero" (89), *erredicea* "mueble" (90), *dindica* "gota a gota" (94), *orbide* "andadura" (104), *arech* "bellota" (109), *umaguina* "paridera" (111), *hiñarchi* "imbidia" (112), *ertuna* "mala" eta *vidarienenic* "porte" (120), etab.

ecosaria "aua" (413), *huçen* "nombre" (414), *yguini* "lo entiende" (418), *essuro* "se vierte" (420), *ausso* "ten" (422), *azterrietan* "escarbando" eta *burrustu* "acometer" (424), *peco* "sospecha" (425), *loben baten* "un cornado" eta *biriac* "liuianos" (429), *ongo dot* "bien me será", *iopua* "criado" (435), *cayna* "niebla" (447), *osteyreu* [sic] "postrero" (448), *exardaye* "ararán" (452), *opaesi* "ofrezcas" (470), *ebiloqui* "andador" (471), etab.

Alderantziz, bi mugen arteko hutsarteetako hitz ez gramatikalak eskuarki inolako interesik gabekoak izan ohi dira. Honek, besteak beste, Larramendik erabilitako alea eta Darmstadtekoa aski ezberdinak zirela erakusten digu. Honenbestez, Lakarrak ederki ikusi bezala, dauzkagun datuez baliaturik bai Larramendirena, baita *RS* osoa —edo ezagutzen dugun baino osoagoa, bederen— tamainaren aldetik berreraikitze bidea irekita dugu.

Lakarraren azterketaren ondorioa, labur-labur adierazita, Larramendiren alea (60 orrialdekoa) Darmstadtekoaren bitartez ezagutzen ditugun lau koadernotxoetatik biz (2 eta 3.az) eta, oso zatika bada ere, Oihenarten bitartez berreraiki ditzakegun beste biez osatuta egon zitekeela da; beraz, *RS*-k —irits gaitezkeeneraino iritsita— 6 koadernotxo, 96 orrialde eta 759 bat errefrau izan bide zituen (Lakarra 1996a: 47). Argudiaketa bikaina da, baina kontuak ateratzerakoan huts egin duelakoan nago. Ondoko lerroetan berak eman urratsak berrematen saiatuko naiz, gehien interesatzen zaidan alderdia —hots, *Erans*-eko hitzen historia— bereziki zainduaz, baina aldi berean Lakarraren argudioetatik zeharo beste ondorio bat atera dezakegula, eta hura bestelako argudioez indar daitekeela erakusten saiatuaz.

1.4.2.1. Lehen koadernotxo

2. eta 3. koadernotxoak Larramendik zukutu egin zituela esan daiteke. 1. eta 4. arekin berbera ez gertatua azaltzeko dugun biderik onena, hauek ezagutu ez zituela iriztea da. Haatik, haietan bakarrik aurkitzen diren hitzak azaltzeke geratzen zaizkigu, eta *RS*-ren zati galduan

errepikatzen zirela edota herriaren ahotik entzundakoak izan litezkeela erabaki aurretik zertan oinarritzen garen —edo nolabaiteko oinarria ote daukagun— aztertu behar dugu ezinbestean.

1. koadernotxoa dela eta, Lakarrak, lau errefrau eta hitz bana (*baraz* 9, *itoguina* 16, *lapicoa* 69 eta *erigui* 79) erabiliz, "lehen kuadernotik eta ez beste inondik nahita nahiez hartu beharrezkorik ez da bat ere" (1996a: 38) erabaki du. Gauzak zertxobait korapilotsuago dira, oro har zeharo ados banago ere. Nire kontuen arabera, 7 errefrauak daramate izarra; horiek ordezkatzeko dituzten 7 hitzei (Lakarrak emandakoez gain *isguilluac* 7, *supita* 32 eta *zarampoa* 34) beste 3 erantsi behar zaizkie: bi errefrautan, baina biak 1. koadernotxokoak, agertzen den *grisolac* (39, 115), eta bina errefrautan baina 1. eta 4. koadernotxokoetan baino agertzen ez diren *luquia* (64, 437) eta *garbatu* (102, 521).

a) Erabat ahaztu behar gara 1. orrian (1-2 orrialdeak) diren errefrauez, Larramendik bere alean ez zegoela argi eta garbi esan baitzuen: 1-14 errefrauen artekoak denak agerleku gisa ezinezkoak dira, beraz: *isguilluac* (7) eta *baraz* (9) ezinbestean beste nondibait hartuak dira, ziurrenik ezagutzen ez dugun zatitik (§ 2.4.2). *Baraz*-en kasuan, gainera, itzulpenak horrelako zerbait eskatzen zuen lehendik ere; *isguilluac*-enean, berriz, agian ezagutzen ez dugun agerleku berriak azalduko zukeen *RS*-ko gainerako lekukotasunei (eta guztiz 9. errefrauokari) begira erratatzen jo behar dugun <gu> hori.

b) Halaber, Mitxelenak 1. koadernoko errefrauetan oinarritzen zituen irakurketa arazotsuak (*zarampoa* 34, *eregui* 79) eta esanahi zeharo ezberdinekoa den *supita* (32), izatekotan zati galdutik izango lirateke; *eregui*-n, gainera, badakigu iturri zehatza Landucci dela (Lcc *eregui* / *RS erigui*; § 2.2.1); dena dela, hitz honekin, beharaxeago ikusiko dugun bezala, 79. errefrauak ez dago zurituta.

c) *itoguina* (16) eta *lapicoa* (69) hitz arruntak edonondik har zitzakeen, agian. Bigarrena dela eta, iturrigai gehiago dauzkagunez gero (§ 2.2.4), *RS*-ko lekukotasuna lasai asko arbuia dezakegu. *Itoguina*-z, Lakarrak esan bezala (1996a: 38), baliteke "galdutako zatitik edo herritik, ahozko iturriren batetik eta ez idatzizkoetatik jasoa izatea".

d) Bi hitz erabat azalgabe geratzen zaizkigu: *grisolac* (39, 115) eta *Erans* 90eko *tritea*-ren jatorri ezin egokiagotzat aurkeztu dugun *trisean* (79). Lehenari dagokionez, zati galduan berriz agertzen zela esatea dugu; zailago deritzat, ostera, *trisean*-ek erratarako eskaintzen duen egokiera (§ 1.1.18.1.b) birritan gertatzea.

Bestela azaldu nahiko bagenitu, Lakarrak 4. koadernotxoko hitz zenbaitekin egin bezala (beherago ikusiko dugu) hauekin ere agertzen ziren orrialdeak (edo orrialde zatiak) Larramendik ezagutu zituzkeela argudia genezake. Horretarako, 9-16 orrialdeak (8 orotara), edo gutxienez *grisolac*-entzat 4-5 edo 13-14 eta *trisean*-entzat 9-10 (4 orotara) beharko lirateke. Bigarren aukera, merkeagoa, hartuta ere, ez da erraz azaltzen zergatik hitz gehiago ez zuen hartu; gorago eman dugu ez hartutako hitzen erakusgarri zabal xamar bat: ohar bekie 24-39, 67-82 eta 103-120. errefrauen artekoak.

1.4.2.2. Laugarren koadernotxoa

Lakarrak izarreztatatu lau erretrauei (420, 437, 497 eta 514), *luquia* (437) 1. koadernoan ere (*RS* 64) agertzen dela gogoraturik, bi erretrau erantsi behar dizkiegu: 507 (*andizura*) eta 536 (*arean*),⁵¹¹ 1. koadernoan ere bazegoen baina hemen azaltzeko esperantzan utzi dudana *garbatu* (102, 521) ahaztu gabe.

a) *çerraldo* (420)-k nekez baino nekezago azal lezake *Erans*-eko *zarraldo*; hobe beharrez, beraz, agerleku gisa ukatu behar dugu; jadanik Mitxelenak (1970: 59-60) markatu zuen orrialde hori erabiliaren gaitza, Larramendik hartu ez zituen beste hitz arraroen —arraroagoen— gatik.

b) *luquia* (64, 437) Lakarrak arraroa ez delako baztertzen du; itzulpenak ("raposo" bi erretrauetan eta *Erans*-ean, eta ez "raposa" (*HH*-an bezala) edota "zorro/a"), ziurrenik *RS*-tik hartua dela diosku, ostera.

c) *coicatia* (497) eta *gondu* (514) azalgaitzak dira. Honetan oinarrituta, Lakarrak, uzkur bada ere, honako proposamen hau egin du: hauek besarkatzen dituzten orrialdeak ("edo orrialde zati[ak]", gaineratzen du), hots, 59-62 (*RS* 491-522) Larramendik ezagutu zituela. Ideia kasu honetan benetan kontuan hartzekoa da, ezen hau hala balitz, bide batez *andizura* (507) eta *garbatu* (521) ere azalduta geratzen direla erantsi behar bailitzateke.

Oztopo nagusia, hots, orrialde beretan⁵¹² agertzen diren bestelako hitz interesgarriak ez hartua da. Lakarrak (1996a: 39) honela zuzitzen du: "...halabeharrari edota koadernotxo honetan Larramendik presagatik edo beste zioen bategatik lan arinagoa eginari zorko litzaioke". Nire ustez, Oihenartena Larramendik 4. koadernotxoaren zati bat bederen ezagutu zuelakoa indartzeko balio lezakeen lekukotasuna da. Baina horretarako Oihenart, Larramendi eta *RS*-n arteko erlazioa nolakoa datekeen zehatz-mehatz azaltzeari ekin beharko diogu.

1.4.2.3. Oihenarten alea

Oihenartek eman zizkigun erretrauak honako zenbaki hauek dira Darmstadtteko alean:

419, 430, 432, 434, 436, 440, 457, 460, 462, 468, 475, 483, 484, 489, 493, 509, 531, 532.

Ziurtasun osoz 49-60 eta 63-64. orrialdeak bederen ezagutu zituen; hortaz, 4. koadernotxoa osorik izan zuela esan daiteke. Honezkerok, Darmstadtteko alean agertzen ez diren erretrauak hurrengo koadernotxokoak, 5.ekoak alegia, zirela pentsatzekoa da (Lakarra 1996a: 28). Lakarraren kontuen arabera, 18 erretrau ezagunak 16 orrialdetatik atera zituenez gero, 20 ezezagunak lortzeko 17,7 orrialde beharko zituzkeen; hots, kontuak gehiegi bortxatu gabe, 16 orrialdetako koaderno berri bat baino ez genuke behar Oihenarten alea azaltzeko.

⁵¹¹ Azken hau Lakarrak (1996a: 39, 20. oh.) Oihenartek gorde digun 558.aren bitartez azaltzen du.

⁵¹² Are erretrau berean, Lakarrak ohartu bezala, 497ko *etsajaun* "duende", adibidez. Kasu zehatz honetan, gogora daiteke Landucciren "drasgo o duende, *esça jauna*" (265r) ere mesprezatu zuela: Larramendirentzat *etxajauna* "casero", "patrón", "señor, amo" zen *HH*-an.

1.4.2.4. Larramendiren alea

Larramendirena azaltzeko, Darmstadtekoatik 2 koaderno (32 orrialde) baino ezagutzen ez zituela onarturik, eta orotara 60 orrialde zituela —berak esana— jakinik, "logikoena bi koadernotxo gehiago (32 orrialde, 272 bat errefrau) zituela suposatzea litzateke" dio Lakarrak (1996a: 39). Eta honela jarraitzen:

Erans-ean bai eta Darmstadtekoan ez diren beste lekukotasunetan gordetzen ez diren 53 hitz *RS*-en zati galdutik baletoz Mitxelenak (1970)-en susmatu bezala, antzeko zifretara iritsiko ginateke: bigarren kuadernotxoko erabileraren arabera (gutxienez 35 errefrau 16 orrialdetan) 24,2 beharko liriteke horkoen iturriarentzat eta 3. kuadernotxoaren arabera (gutxienez 44 errefrau 16 orrialdetan) 19,2 orrialde.

Erans-eko hitz zenbait (*hucha*, *uhuna*, agian *arean*, eta batez ere *acizurriac*⁵¹³) Oihenarten bitartez eraiki dugun 5. koadernotxoan zeudela jakinik, Larramendik 5. koadernotxoa ere ezagutu zuela onartu beharko genuke (Lakarra 1996: 47). Honaino erabat ados. Alabaina, ondoren hauxe dio:

...Oihenartek eta Larramendik, partez bederen, *RS* galduaren zati berberak ezagutu zituztela edota, zehatzago, galdutako zati beraren arrastoak baino ez zizkigutela utzi. Datuon aurrean Larramendik eta Oihenartek, galdutako zatiaren 2 kuadernotxo, 32 bat orrialde, gehiagoren berri ematen digu (Larramendiren aleak zituen 60 orrialdetara iristeko Darmstadtekoaren 2. eta 3.az landa behar genuena, hain zuzen), Iruñeko orijinal osoak 96 orrialde eta 759 bat errefrau behintzat bazituelarik (*ibid.*).

Alabaina, Oihenartek eskaini bi koadernotxoak 4 eta 5.a zirela erabakia genuen, eta 4.a Darmstadtekoan *badago*. Beraz, Larramendik 2, 3 eta 5.a ezagutu zituela onarturik, bi aukera ditugu: edo 6. koaderno bat (baina Larramendiren lekukotasun hutsaz) bazela erabakitzea, edo 48 orrialde ziur haiei 12 bat gehiago, solteak nonbait eta, beraz, 1. eta 4. koadernotxokoak izan zitezkeenak eranstea. Azken honen alde, datu bat baino gehiago letorke:

a) "Las páginas legibles son 60 en 30 hojas" zioen Larramendik. Hemendik interpretapen ugari egin daiteke; demagun dena dela, aukerarik errazenak honako hauek direla: (1) 64 zirela (lau koadernotxo: 2, 3, 5 eta x), Lakarrak nahi bezala; (2) nahikoa gehiago zirela (2, 3, 5, eta 1 eta 4ko zatiak), neronek proposatuko dudana bezala, "las páginas legibles" horretan —hots, irakurtezinak edo irakurgaitzak ere bazirela— oinarri harturik.

b) 4. koadernotxoko 4 orrialde ia ezinbestean ezagutu behar zituela iradoki du Lakarrak, ikusi dugun bezala, gero azken kalkuluetan aintzat hartu ez baditu ere. Honetan oinarrituta, 1. koadernoan apika 4 orrialde behenera jota, eta 8 gehienara jota ezagut zitzakeela esatera ausartu naiz gorago. Bi hipotesiak berrartuta, eta zenbakirik aproposenak hartuaz, ia mirakuiluzki 60 orrialdeak ateratzen zaizkigu. Bistan da kalkulua *ad hoc* dela erabat; alabaina, gogoeta egiteko bide ematen dit: demagun zatikazko koadernotxo haietan zatika irakur zitezkeen orrialdeak bazirela; honekin hipotesiari eusteko geneukan arazoa konponduta geratuko litzateke, hots, inguruko hitz garrantzitsuak ez hartua, ez halabeharrari, ez presak jota egoteari, baizik eta orrialdeen egoera eskasari zorko litzaioke.

⁵¹³ Hau da, nik uste, denetan nekezenik berriz errepikatuta egon zitekeena.

c) Mitxelena-Lakarrak *RS*-ren zati galdutikotzat edo bizkaierazkotzat jotakoetatik zenbait arrazoi gutxi-asko pisuzkoengatik zerrendatik ken daitezkeelakoan nago (§ 2.4.4). Dena dela, Lakarrak demaigun kopurua (53 hitz) onartuta ere, koaderno berri bakar batekin (5.aren alegia) aski dugula deritzat, berak kontuan hartu ez dituen bi xehetasunetan oinarriturik: (1) osorik ezagutu zituen 2 eta 3. koadernoetan sarritan errefrau beretik hitz bat baino gehiago hartu zuen; guk ezagutzen ez d(it)ugune(ta)tik ere beste hainbeste egingo zuela pentsa dezakegu. II.lean halako 11 bat eta III.lean 12 bat ditugunez gero, 11-12 errefrau (hitz) gutxiagorekin (41-42 inguru) joka dezakegula dirudi, III.erako Lakarrak eman 44 errefrau erabiliren zenbakitik oso gertu, hain zuzen; (2) areago, Oihenarten bitartez ezagutu ditugun 5. koadernoko 18 errefrauetatik hiruzpalau hitz hartu zituela badakigu baina, koaderno osoa ezagutzen zuela eginez, bertatik har zitzakeen, 2 eta 3. koadernoetan erabili zuen bahe nasaia honetan ere erabili bazuen, kalkuluetan erabiltzen ari garen hitz guzti-guztiak.

Ondorioz, nire ustez, Larramendiren alea 2, 3 eta 5. koadernoek osatzen zuten, gehi zatika baino irakurtzen ez ziren 1 eta 4.ekoen zatiak. *RS*-ren zati galdutik hartuak direla uste ditugun hitzak, berriz, denak 5.ekoak dirateke, haren orrazketa xehe batetik atereak. Eta, bukatzeko, Iruñeko originalak —hobeto esanda, dauden datuetan oinarrituta atera daitekeen gutxieneko aleak— 80 orrialde (632 bat errefrau) izango lituzke, honaino egin ditudan oharpen guztiak aintzat hartzekoak balira.

1.4.3. Harriet

Harrietek ere zeresan handia dauka Larramendik erabili zuen moduaren aldetik. *Erans*-eko banaketa kontuan hartzen baldin badugu (beti ere hitz ziurrekin baino ez jokatuaz), lehen erdialdean 29 bat hitz hartu zituen bitartean, bigarreanean 74raino bederen iritsi zen:

5, 8, 12, 15, 31, 66, 75, 79, 99, 105, 125, 144(2), 149, 150, 153, 156, 161, 169(2), 175, 195, 196, 227, 247, 259, 266, 270(2), 352, 368, 370(2), 373, 376, 377, 379, 391, 401, 405(2), 407, 409, 410, 423, 428, 433, 436, 446, 452, 460, 462, 463, 465(2), 470(2), 481, 487, 489, 491(2), 496, 497, 498, 499, 502, 510(2), 522, 523, 527, 532, 533, 551, 552, 593, 594, 600, 608, 610, 611, 616, 617, 619, 622, 629, 639, 643, 645, 649, 655, 656, 657, 659, 661, 671, 672, 674, 675, 676, 678, 686.

Harrieten hiztegi-takako agerlekuen banaketa begiratuta, desoreka honen zioa gardena dela ikasten dugu. Hasteko, lehenengo hiztegitxoan (euskara-frantsesean, 268-323. or.) ziurtasunez Harrietengandik hartutako hitzen litezkeen harlekuak honako hauek dira (leku bat baino gehiagotatik litezkeenak izarraz markatu ditut):

*268, 271, **274(2), *276, **279(2), *293, 294, 299, *307, 311, *315, *318.

Dakusgunez, EF lau hitz azaltzeko baino ez dugu behar, izardunek beti ere FE-n baitute oihartzuna. Ikus dezagun orain 325-440. orrialdeen bitartean agertzen den FE hiztegia, hitz zurrak baino ez erabiliaz:

324, 325(4), *329, 331, 332, *349, 377, 379(2), 380(2), 382(3), 383(5), 384(5), 386, 387(2), 388, 389, 391(5), 392, 393(2), *394, *395(3), 396(2), 397(2), *399(2), 400(2), 404(2), 405(4), 407(2), 409(2), 419, 420(2), 421(2), 427(2), 428(4), 429(3), 430(2), *431, *432(4), 433, 434(2), 435(3), 437(4), 438, 439(2).

Agerian denez, 377. orrialdetik aurrera, demagun, jauziak laburragoak, sarri orri bakarrekoak dira, 409-419 bitartekoa izan ezik. Honekin batera, ingurune berean bi hitz baino

gehiago hartuta dutenen kopurua ere sarritzen da, lehenago 325.ean bakarrik gertatu den bitartean.

Iragaitzaz baino ez bada ere, geroago *HH*-aren hitzen iturrien azterketan (III, § 10.3) azalpena luzez emango baitut, orain aldaketa hau 325-374 bitarteko orrialdeak *HH*-aren gorputzari eransteke parada izanagatik gertatu dela esango dut, *Erans*-ean ez erabilitako orrialdeak (375tik aurrerakoak) eta erabilitatik itzuri hitz interesgarri zenbait (batez ere, ikusi dugunez, 325. orrialdekoak) jaso zituelarik (Lakarra 1991: 255-257, 1993: 270-281 eta 1994a: 64-67 eta 199).

1.4.4. Axular

Erans barruko Axularrengandiko hitz ziurren banaketa honako hau da:

1, 2, 3, 4, 10, 14, 17, 19, 22, 25, 32, 35, 38, 45, 46, 47, 49, 52, 53, 56, 57, 59(2), 61, 62, 63, 65, 68, 69(2), 72, 73, 80, 83, 85(2), 87, 91, 95(2), 98, 99, 100, 102, 104, 108, 114, 116(2), 117, 119, 120, 122, 129, 135, 136, 139, 141(2), 142, 145, 151, 158(2), 159, 168, 177, 179, 183, 190(2), 192, 193, 194, 198, 199, 202, 205, 209, 210, 211, 212, 213, 214, 216, 217, 218, 221, 222, 223, 225, 226, 227, 228, 229, 230, 231, 232, 238, 239, 241, 242(2), 243, 244, 245, 246, 248, 250, 252, 253, 255, 265, 267, 268, 273, 278, 279, 280, 281, 287, 289, 290, 291(2), 295, 296, 304, 306, 307, 308, 309, 310, 311, 316, 327, 329, 334, 335, 336, 339, 340, 342, 343, 345, 346, 353, 355, 358, 366, 367(2), 369, 371, 372(2), 374, 375, 378, 381, 383, 388, 389, 390, 392(2), 394(2), 395, 397, 403, 408, 414(2), 421, 422, 438, 440(2), 441, 442, 443, 444, 446, 447(2), 453, 454, 455, 462, 466, 467, 469, 473, 476, 482, 486, 488, 490(2), 493, 494, 500, 501, 514, 517, 518, 529, 531, 537(2), 542, 546, 548, 550, 553, 554, 555, 556, 557(3), 558, 560, 561, 564, 566, 568, 570, 576, 577, 578, 580, 591, 592, 596, 597, 598, 599, 602, 612, 614, 615, 618, 623, 629, 630, 631, 635, 636, 637, 641, 642, 647, 652, 663, 664(2), 666, 667, 679, 681, 682, 683, 685.

Erans-aren lehen erdialdeko 135 bat sarreratan, eta bigarreneko 108 bat sarreratan agertzen dira ziurtasunez Axularren liburutik hartutako hitzak. Kopuru batetik besterako desorekak bi azalbide ditu, bata bestearen osagarri: (1) bigarreanean batez ere agertzen da Harriet, eta arrazoi honegatik, kanpora utzitako hitz zalantzazko gehienak zati honetakoak dira; (2) Axularrengandik ezin espero daiteke hiztegi batetik hitzetan aurkitu ohi den oreka, literaturatik iritzira hartutako hitzen itzulpenek ez baitute hasierako letraren arabera halako eredu bat izango dutelako inolako bermerik. Desoreka halabeharrezkoa dela alderantzizko azterketak are hobeki erakutsiko digu.

Axularren harlekuak kontrolagaitzenak dira, liburuaren tamainaren, hartutako hitzen kopuruaren eta, batez ere, hitz bera leku batean baino gehiagotan agertzeko dagoen ezarraztagunarengatik. Harleku zehatzak erabakitzeko dauden frogak geroko utziaz (§ 2.1), hemen leku bakarrean (edo harlekua oso-oso ziuerra denean) agertzen diren hitzak soilik hartuko ditut kontuan:

3, 27, 35, 36, 40, 42(2), 45, 46, 50, 59, 63(2), 71, 75, 78(2), 79, 86, 88, 89, 90(2), 93(3), 97(3), 105, 113(2), 129, 137, 139(2), 140, 150, 153(4), 155, 172, 173(3), 178, 181(4), 182(3), 186, 192, 196, 200(2), 202, 211, 215, 216, 218, 224, 232, 233(2), 249, 259(2), 270, 271, 280(2), 282, 286, 291, 295, 301, 302, 311, 312, 318, 332, 335, 342(2), 351, 353, 355, 357, 358, 359, 360, 365, 366, 388, 392, 397(3), 403, 406, 407, 411, 414, 419, 420, 422, 423(2), 426(3), 431, 433, 439, 451, 452, 457, 458, 460, 466, 469, 470, 472, 477, 481, 483, 487, 491, 492, 499, 511, 513, 518, 529, 540(2), 542, 588, 589, 593(3), 594, 601, 605, 608.

Nahiz ziurrenak baizik ez hartu, agerian geratu da Larramendik benetan *G*Gero osoa, hasi eta buka, berpasatu zuela *Erans* osatzeko.

1.5. *Erans*-eko kokalekua

1.5.1. Sarrera barruko ordena (I): Iturrien ordena

Erans-aren aurrehistoria ezagutzeko, eta are ditugun iturri auzietarik zenbait erabakitzen laguntzeko oso jakingarria izango litzateke erabili iturrien hurrenez hurrengoak. Kanpoko datuetan oinarrituta ziur dakigun bakarra —Larramendik berak esana— *RS* hiztegiaren argitalpena bukatu orduko ezagutu zuela da; honegatik, balirudike honen hitz berezi-bereziak nolabait sartu beharrak piztu ziola *Erans* egiteko asmoa. Kontuak ez dira hain errazak, ordea. Hitzaurrean Harriet sartutakotzat jotzen du —"cuyas voces (...) se hallarán en mi Diccionario" (1745: xxxv)—, baina orain badakigu lehen liburukian soilik erantsi zituela, eta oro har azken orduko eransketa izan bide zela.

Esanak esan, beraz, Larramendik *Erans* egiteko asmoa 2. liburukiaren inprimaketa bukatu baino lehen hartu behar izan zuen, liburuki honetako Harrieten hitzak —denbora, diru edota tipologi arazoak saihestu nahirik— gutxienez eransteko, hain zuzen. Tartean, antza denez, Axular berriro irakurtzeko asmoa ere hartu zuen, baita (lehenengoz?) Landucciren hitz zenbaiten interesean erreparatu, herriaren ahotik etengabe iristen zitzaizkion hitzak ahaztu gabe.

Baimen eta onespeneen artean zaharretik (Galarzarena, 1743-XII-28koa) eta Zuzentzaile Orokorrek egindako bi liburukien zuzenketa (1745-VII-15koa) arte dauden hemeretzi hilabeteak aski eta sobera dira —Larramendi oso lanpetuta ibilita ere— *Erans*-ean bildutako hitz altxorra batzeko.

Kanpoko datuen bildumak gure kezka den benetako ordenaz funts handirik gabeko hipotesi zenbait egiteko baino beste aukerarik ematen ez digunez gero, *Erans*-ak berak zerbait argitzen ote digun begiratu beharko genuke. Izan ere, bitariko eta are inoiz hirutariko hitzez osatutako sarreren kopurua oso handia ez bada ere (114, %16,5), aski izan liteke, beharbada, sar ordenaz zerbait bederen berreskura dezagun. Hona hemen sarrera aniztunen osaketa:

2. Lcc / Ax	174. ? / ?	379. RS / Ht	508. ? / ?
8. RS / Ht	175. Ht? / Ht / Ht?	385. ? / Ax	510. Ht / Ht
11. ? / Lcc	190. Ax-Lar / Ax / Ax	387. RS / RS	515. ? / ?
16. ? / RS	194. Ax / ?	392. RS / Ax / Ax	521. RS / RS / RS
31. Ht / ?	227. Ax / Ht	394. Ax / Ax	537. Ax / Ax
46. Ax / ?	230. Ax / Ax	400. RS / RS / RS / RS	540. RS / ?
50. Ax? / Ax?	242. Ax / Ax	405. Ht / Ht	554. ? / Ax
59. Ax / Ax	243. Ax / ?	411. Lcc-Lar / RS	557. Ax / Ax / Ax
60. RS / RS	245. Ax / ? / RS	412. Lcc / RS-Lar	559. Lcc / ?
65. Ax / RS	251. RS / ?	413. RS / Ax	560. Lcc / Ax
69. Ax / Ax	252. Ax / ?	414. Ax / Ax	564. ? / Ax
85. Ax / Ax	257. RS / Lcc	420. ? / Lcc	585. RS / ?
87. Lcc / Ax	270. Ht / Ht	425. Lcc / ?	614. RS / Ax
90. RS / RS	273. RS / Ax	440. Ax / Ax	618. ? / Ax
95. Ax / Ax	280. Ax / ?	446. Ht / Ax	629. Ht / Ax
114. Ax / ?	291. Ax / Ax	447. Ax / Ax	635. ? / Ax
116. Ax / Ax	292. RS / ?	460. RS / Ht	645. ? / Ht
117. Ax / ?	305. ? / ?	462. Ax / ? / Ht	656. Ht / RS
122. ? / Ax	306. ? / Ax	465. Ht / Ht	660. RS / ?
123. RS / ?	313. RS / ?	468. ? / Lcc?	664. Ax / Ax
129. ? / Ax	319. RS / RS-Lar	470. Ht / Ht	665. RS / RS
136. Ax / ? / ?	328. RS / ?	471. Ax / Ax	669. RS / ?
141. Ax / Ax / ?	355. RS / Ax / Lcc	483. ? / ?	670. ? / ?
144. Ht / Ht	367. Ax / Ax / Lcc	488. Ax / Lcc	673. ? / Ht
151. ? / Ax	370. Ht / Ht	490. Ax / Ax	676. Ht / Lar
152. RS / RS / ?	371. ? / Ax	491. Ht / Ht	679. Ax / RS
158. Ax / Ax	372. Ax / Ax / ?	497. Lcc / Ht	680. RS / Ax?
169. Ht / Ht	374. ? / Ax	506. RS / RS	
171. RS / Ax	375. ? / Ax	507. ? / Ht?	

Sarrera hauen ikerketari ekin aurretik, badira gogoan hartu beharreko xehetasun zenbait. Oinarrizko hipotesia argitaletxera gaur dakusgun bezalaxe ordenatutako original bat iritsi zela da. Alabaina, original honetara iristeko aurreko urratsez gutxitxo dakigu. Bil ditzagun, beraz, ditugun datuak:

1) Bestetan, hitzak aukeratu ahala erdarazko itzulpenaren lehenengo bi letren arabera antolatutako orrialdeetan apuntatuaz joan zela badakigu (I, § 9.3). Oraingoan ere sistema berari —ohi zuenari— atxikiko zitzaiola pentsa daiteke; alfabetatzean antzemandako jauzi zenbaitek (§ 1.5.3) uste horretan sendotzen gaituzte, baina hasiera batean behintzat ez daukagu oinarririk *Erans*-eko iturri guztiak orri beretan ala zein bere aldetik zerrendatu zituen jakiteko, hots, azken original hura eratzerakoan lauzpabost zerrendarekin ala bakar batekin jokutzen ari ote zen. Dena dela, Harrietekiko jokabidearen arabera, balirudike testu bakoitzak oinarrizko zerrenda bat erarazi ziola, irakurri ahala hitzak apuntatzeko moduan. Honela balitz, argi denez, Larramendik askatasun handiagoa zuen nahi zuen zerrenda lehendabizi baliatzeko: hortaz, lehen lekuan erantsitako datuek ez dute lehen ezagututako testuarenak izan beharrik.

2) Goiko zerrendako lekukotasunak, hurren ikusiko dugun bezala, ez datoz beti bat. Hortaz, egiten dudan interpretapen saioa aintzat har daiteke soilik eta baldin soilik bestelako arrazoiak (itzulpenak batez ere, § 1.3.6) zerrendak edo zerrendek eskainitako hurrenkera baldintzatu zutela sinisten bada.

3) Alfabetatzeari buruzko atalean (§ 1.5.3) eskaintzen diren argudio osagarriak ere (iturri ezberdinei zor zaizkien sarrera errepikatuak eta alfabetozko jauziak) kontuan hartu beharko dira ondoko interpretapenaren sinesgarritasuna neurtzerakoan.

1.5.1.1. *Refranes y Sentencias*

Ezagututako azken testua izan bide zen arren, hauxe izan liteke *Erans*-aren balizko original horren lehen osagaia: 35 sarreratan agertzen da, eta haietatik 8tan osagai bakarra da; gainerontzeko 27etatik 22tan bera da lehen osagaia eta, dena dela, bera da gainerako iturri ezagunen aldamenean sarrienik eta erregularkienik agertzen dena. Hau ezin hobeki datorkio *Erans RS*-ren agerpenak bultzatuta eratzen hasi zelako hipotesiari. Ikus ditzagun gertakari ezberdinak banan-banan:

1) Iturri ezezaguneko hitz baten aurrean 9 bider agertzen da; atzean 2 bider. Haatik, 9etatik 4tan (123, 251, 313, 660) eta 2tatik 2tan (16, 245) laguna *RS*-ren zati galdukoa izan liteke, hau da, beste 6 sarreratan *RS* izan liteke osagai bakarra. 9etatik beste 5etan (292, 328, 540, 585, 669) agian Larramendik bere burutik erantsitako hitzak izan litezke (§ 2.4.1.2).

2) Axularren aurrean 7 bider; atzean 3. Aurrean agertzen deneko 2 bider (273, 614), Axularren hitzaren itzulpena okertu du.

3) Harrieten aurrean 3 bider; atzean behin. Aurrean agertzen deneko hiruretatik batean (379) Harrieten hitzaren itzulpena okertu du edo, bestela nahi bada, Larramendik Harrieten itzulpenaren aurrean *RS*-rena hobetsi zuen.

4) Landucciren aurrean 2 bider, eta berdin atzean. Aurrean agertzen denean, itzulpena bietan bera da; atzean agertzen denean, berriz, batean (412) itzulpena berea da eta aldameneko hitza ez Landuccirena, harengandik erauzia baizik; bestean alderantziz gertatzen da: itzulpena Landuccirena da, eta hitza *RS*-kotik eratorria.

Ondorioz, iturri ezezaguneko hitzen aurrean 12 aldiz agertzen den bitartean, 6 aldiz baino ez halakoen atzean. Gainera, Axular eta Harrieten hitz zenbaiten itzulpena "erakartzeko" edo eragiteko gauza izan da. Apaingarri gisa, hiru iturri ezagun batzen dituen sarrera bakarrean (355) lehena bera dela aipa daiteke.

1.5.1.2. *Landucci*

Honi buruz ezin ezer ziurrik esan, adibideak gutxiegi dira eta:

1) Iturri ezezaguneko hitzaren atzean 3 bider (haietatik bat (11) *RS*-ren zati galdutikoa izan liteke); aurrean 2.

2) Axularren aurrean 3 bider, atzean beste 3; 6etatik 5etan (aurrean 2, 87, 560; atzean 367, 488) itzulpena Landuccirena dela esan daiteke, eta 367.ean Axularrena gaizki itzulia dago.

3) Harrieten aurrean behin.

Esan daitekeen bakarra, beraz, Axularren itzulpenean lagundu eta behin bederen okertu egin duela da.

1.5.1.3. Axular

Erans-i hitz gehien eskaini dion iturria izan arren, *RS*-rekiko erlazio argian izan ezik, hau ere oso anbigua da:

- 1) 19 bider bera da osagarri bakarra.
- 2) 13 bider iturri ezezaguneko hitzaren aurrean; 12tan atzean.
- 3) 2 bider Harrieten aurrean, beste horrenbeste atzean.

Harrieten itzulpenekiko arazoez, kontu korapilotsua baita, geroago mintzatuko naiz (§ 2.2.4). Orain azpimarratzekoa da, ordea, iturri ezezagunekoekin Axularrek daukan erlazio berezia, nahiz eta geroago gaia berrartu beharko dudan (§ 2.4.1.2). Hasteko, beste ezein iturri baino sarriago agertzen da halakoekin batera; baina ez nolana hiko erlazioan: maizenik hitz zeharo ezezagun (46, 114, 117, 462) edota Iparraldekoak izan daitezkeen aurrean (141, 252, 280, 372) gertatzen da eta, berriz, maizenik aldaerak besterik ez diruditenen atzean (129, 371, 374, 375, 385, 635).

1.5.1.4. Harriet

Iturri oparoa izan arren, oso gutxitan agertzen da besteen aldean:

- 1) 10 bider bera bakarrik.
- 2) 2 bider etorki ezezaguneko hitzaren aurrean; 3 bider atzean.
- 3) Behin *RS*-ren aurrean, 3tan atzean.
- 4) 2tan Axularren aurrean, beste horrenbeste atzean.
- 5) Behin Landucciren atzean.

Orotara, 13 bider, haietatik 5 aurrean eta 8 atzean. Pisua, gutxigatik bada ere, Harriet azken iturria izan litekeelako aldera makurtzen da. Hurren (§ 1.5.3.1) ikusiko dugun bezala, badira bestelako arrazoiak hau hala izan dela sinisteko.

1.5.1.5. Iturri ezezaguneko hitzak

Honelakoez bakarrik osatutako sarrerak 6 baino ez dira. 4tan (305, 483, 508, 670) bi osagaietatik bat *RS*-ren zati galdukoa izan liteke, eta 3tan (305, 508, 515) Larramendiren burutik aterea.

1.5.2. Sarrera barruko ordena (II): Iturrietako ordena

Ez gutxitan, ikusi bezala, sarrera aniztunak iturri beretik osatu dira. Lehen originalaren osaketa nolakoa izan zen jakiteko —eta agian baita aukeran harleku bat baino gehiago dugun hitzetan erabakiak hartzeko ere— jatorrizko hurrenkera gordetzen duenentz aztertzea bide egokia izan liteke.

Orrialde ezberdinetan kokatutako hitzei buruz, hasteko, badirudi ezer ziurrik ezin esan daitekeela, corpora mugatuegia izateaz gain, sarritan erkaketarako ditugun hitzek iturriko agerleku aniztunak baitaizkate. Horregatik, iturria hiztegi-sarrera bakar bat edo elkarren aldameneko bi, edota errefrau edo esaldi bakar bat izan daitekeenean zer gertatzen den aztertzer mugatuko naiz.

Landuccirekin ez dago halakorik, eta RS-ren adibide bakar bat dugu: *biar, etzi, etziluma, etzicaramu* (400), zeharo errefrauaren hurrenkerari —hurrenkera logikoa, bestalde— jarraiturik.

Harrietek askoz adibide gehiago eskaintzen dizkigu, 9 orotara; zazpitan, Larramendik sarrerako edo sarreren arteko ordena errespetatu zuen (Harrieten bi sarrera aipatzen ditudanean, elkarren ondoan agertzen direla ulertu behar da; izarraz markatu ditut alderantzizko ordena dutenak):

Colchón, *cunchoiña, matelasa* (144) < *matelas, cunchoiña, matelaça*.
 Cosecha, *uztailla, biltzapena* (169) < *saisons, ustaillac, bilçapenac*.
 Faltriquera, *saquela, chiscua* (270) < *poche, saquela. pochette, chiscua*.
 *Libertad, *escudencia, lachoa* (370) < *il est en liberté, lachoa da. liberté, escudencia*.
 Matanza, *sacailla*. Hacerla, *sacaillatu* (405) < *massacre, sakailla. massacrer, sakhaillatcea*.
 *Ocupación, *lanzaroa*. Ocupar, *pochelatu* (465) < *occuper, pochelatcea. il occupe tout, gucia pochelatcen du. il est occupé, pochelatua da. occupation, lançaroa*.
 Oponerse, *contracartu*, oposición, *contracarra* (470) < *opposer, contracatcea. opposition, contracarra*.
 Aparte, *berech, beregain* (491) < *à part, berech, beregaiñ*.
 Permisión, *haizugoa, cilleguigoa* (510) < *permission, haizugoa, cilheguigoa*.

Axularrengan ere adibideak ez dira falta, baina oraingoz ziurrak baino ez ditut aipatuko. Iturriko ordena 8atik 7tan gordetzen da:

Arena, *sablea, legarra* (5) < *sablea, harea eta legarra*.
 Bastón (afirmarse en el), *permatu, bordoincatu* (95) < *permatceco eta pordoincatceco*.
 *Calvo, *carsoilla, garbala* (116) < *garbal, carsoil*.
 Cogote, *garraita, garceta* (141) < *garhaitean, garcetan*.
 Enronquecer, *marrantatu, erlastu* (242) < *marrantatcen edo erlasten*.
 Lícito, *sori, cilhegui* (372) < *etcen sori eta ez cilhegui*.
 Mendigo, *errumesa, noharroina* (414) < *errumez, noharroin*.
 Variedad de colores, *nabardura, colore picardatuac* (664) < *nabardurac, colore picardatuac*.

1.5.3. Alfabeto hurrenkera

HH-an bezala Erans-ean ere Larramendi ez zaio alfabeto hurrenkerari erabat atxikitzen. Hemen agertzen diren jauziak neurri batean bederen han aurkitu ditugun arrazoi berek azaltzen dituzte:

a) Familia barruko ordena:

Aditzak erakarritakoak: *Cansar-Cansado, Enamorar-Enamorado-Enamoramiento, Ten-Tenga-Tenazas*.
 Izenak erakarritakoak: *Asco-Asqueroso-Ascuca, Boca-Bocanadas-Bocanada-Bocado, Dádiva-Darasma-Darete-Danza, Mensagero-Mensaje, Pensamiento-Pensativo-Pensar, Puño-Puñado, Reprehensión-Reprehender, Semejanza-Semejante*.
 Izenondoak erakarritakoak: *Justo-Justificar, Necio-Necedad*.
 Aditzondoak erakarritakoak: *Malamente-Malo-Maldecir*.

HH-an somatu ez dugun eragin berri bat agertzen zaigu *Erans*-ean: behin bederen (baina cf. hurrengo atala) euskaraz familia bereko hitzak izateak eragin du jauzia:

Manejable, *manucorra*, *manaiacorra*.
Manualizar, *manucortu*.
Mano derecha...

b) Esapideak:

[Izenondoa] + [*hacer*(se) izenondoa]: *Común-Hacer común*, *Cuidadoso-Hacerse cuidadoso*, *Friolento-Hacerse friolento*, *Gafo de manos-Hacerse gafo*, *Ligero-Hacerse ligero*. Cf. *Partición-Hacerlas* ere.

[Izena] + [izenondoa + izena]: *Galardón-Mal galardón*, *Provecho-Buen provecho*.

[Izena] + [Preposizio Sintagma]: *Parte-Aparte*, *Vestido-A medio vestir*.

c) Grafia: *Texado [tejado-ren ordez]-Telaraña*; *Deveras-Decir [dezir-en ordez]-diga*.

d) Adierak: *HH*-an bezalaxe, adiera ezberdinek sarrera bana erdiesten dute:

Hablador, *eloquente-Hablador*, *parlón*.
Bocanadas-Bocanada, *sorbo*.
Cuidado-Cuidado, *escrúpulo*.

Haatik, aipatutako zenbaitetatik hitz ordenari bakarrik ez dagozkion ondorioak atera daitezke:

e) [Izenondoa] + [*hacerse* izenondoa] bikoteak, "común", "ligero" eta "partición" izan ezik, denak dira edo iturriko izenondotik Larramendik eratorritako aditzak, edo iturriko aditzetik Larramendik erauzitako izenondoak (§ 1.2.7.1). Hala ez direnean ere, biak iturri beretikoak dira.

f) Antzeko zerbait gertatzen zaigu familia barruko ordenak azaltzen dituen hitz batzuekin; maiz familia osoa iturri beretik hartua da: *asco* (Lcc), *dádiva* eta *malamente* (RS), *puño* (Ht), *reprehensión*, *neccio*, *enamorar* eta *ten* (Ax); cf. *manualizar* ere.

g) Baita adiera ezberdinetan ere: *hablador* eta *bocanada* (Ax). Alabaina, honetan gertaera berri bat dugu: *Atreverse* (RSgald)-*Atrevido* (RS)-*Atrevimiento* (RS)-*Atreverse* (Ht). Egitura *HH*-an sarri aurki daitekeen arren, honetan ez da adieraren aldeko bitan banatzerik gertatu, iturriaren aldekoa baizik: iturri batetik hartutako familia kopia du lehen, itxuraz, eta ondoren bestetik hartutakoa.

Honexek oina eman diezaiguke *HH*-an erabili ditugun arrazoiek ezin azal ditzaketen jauziak denak halabeharrari egotzi ordeztu, iturrien ordenaren bitartez, hain zuzen, azaltzen saiatzeko. Alabaina, alfabeto hurrenkerari buruzko jauziak bi iturriren artean zeinek eragin dituen erabakitzea sarritan ezinezkoa denez gero, erabakiak hartzen lagunduko digun tresna baten beharrean gaude, eta hura aurreko atalean iradoki dudana hipotesia —hots, RS lehen eta Harriet azken osagaiak izan litezkeela— izango da.

1.5.3.1. Harriet

Aipatu berri dugun *atreverse*-ren adibidean, balirudike Larramendik *Erans*-aren azken originalean RS lehen eta Harriet gero kopia zituela, sarrera errepikatzen ari zela ohartu gabe.

Honekin batera, badaukagu Harriet azken iturria izan litekeelako uste hori sendotzeko adinakoa dirudien beste xehetasun bat, alfabeto hurrenkerari buruzko desbideratze guztietan nabarmenena, hain zuzen: *Levantar-Momento-Levantar testimonio* (Ax-Ht-Ax) segida, non *momento* erabat lekuz kanpo (lehenengo letra ere errespetatu gabe) dagoen, eta iturri beretik ateratako aditz beraren bi adieraren artean.

Hau azaltzeko biderik errazena, nik uste, Harrieten hitza lehen ezarritako Axularren bi adieren artean erantsi zuela suposatzea da. Hipotesia onarturik, Harrieten hitzek azalgabe ditugun beste jauziak azal ote ditzaketen begiratuaz honako talde hau aurkitu dut (izarraz lekuz kanpoko hitza markatu dut):

parecer (Ax)-**parcial* (Ht)-*pared* (Ax, Lcc).
parrillas (?) - **passatiempo* (Ht)-*parto* (Lcc, Ht).
pérdida (Ax)-**permisión* (Ht)-*perezoso* (RSgald).
prevenirse (Ax)-**pretexto* (Ht)-*primo* (Lcc).
soslayo (Ax)-**suficiencia* (Ht)-**suficiente* (Ht)-**sufrimiento* (? , Ax)-*sucesso* (Ht)-*sucio* (RSgald)-*suelo* (Lcc)-**suponer* (Ht)-*supererogación* (Ax).
torno (Ax)-**tormento* (Ht-Lar)-*trabajar* (Ht)-*tragar* (RS).
vado (RS, RSgald)-*vagabundo* (Ht)-**vara* (Ht?)-*vanidad* (Ax).
vestido (RS, ?)-*a medio vestir* (? , ?)-*viagero* (Ht)-**vidrio* (Ht)-*vianda* (? , RS?).

Ohartu lehenean ere (*parecer*-ez hasten den segidan) Harrietena Axularren bi hitzen artean agertzen dela; *permisión* Axularren eta *RS*-ren artean eta *pretexto* Axular eta Landucciren artean; *soslayo*-z hasten den segidan, apika *sufrimiento*-k eragin du Harrieten bi hitzen desbideratzea, *sucesso* dagokion tokian dagoen bitartean. Beste batzuetan (*torno*, *vado* eta *vestido*-z hasten direnetan) Harrieten bi hitz, bata ondo eta bestea gaizki tartekatu direla dirudi.

1.5.3.2. Axular

Alabaina, Harriet ez da desbideratzeak eragin bide dituen iturri bakarra: gorago aipatutako *soslayo*-z hasten den segida korapilotsuan, Axular jauzi baten protagonista gisa azaldu zaigu. Badira halako gehiago, eta nabarmenena honako hau:

cuidado (RS?)-*cuidado*, *escrúpulo* (Ax)-*culo* (Lcc edo RS)-*culpado* (Ax)-*cuña* (RS)-*curiosa* (RSgald)-**cuidadoso* (Ax-Lar)-**hacerse cuidadoso* (Ax).

Adibide honetan, lehen ezarri *RS*-ren hitzei Axularrenak gaineratzerakoan gertatutako ordena-desbideratzeak direla dirudi, *RS Erans*-eko lehen osagaia izan litekeelakoarekin bat, hain zuzen. Iturri berari buruzko bestelako jauziak ere baditugu:

cansar (RS)-*cansado* (Ax)-**carnes* (Ax)-*carga* (RSgald?).
desconfianza (Ht)-*descuido* (RSgald?)-**descubrirse* (Ax)-**descanso* (Ax)-*desdichado* (RS).
diga (Ax)-**dislocar* (Ax)-**disgusto* (Ax)-*dictamen* (RS?)-*disponer* (Ax)-**disciplinar* (Ax)-*doctrina* (Ax).
engaño (RS)-*enajoso* (Ax)-*enseñar* (Ax)-*ensuciar* (RSgald-LE)-*entremetido* (Ax)-**enronquecer* (Ax)-*erizo* (Ax, ?).
ingle (RSgald?)-*infelicidad* (Ax)-*infeliz* (Ax)-*infructuoso* (RS)-**inflexible* (Ax)-*ingratitude* (Ax).
mellar (Lcc, RS-LE)-*menearse* (RS, Ax)-**mendigo* (Ax)-*mensajero* (?).
soberbio (Ht)-**sol* (Ax)-*sobrado* (RS).

Ohartu ia beti (*soberbio*-ren segidan izan ezik) gaizki tartekatutako hitza iturri bereko hitzen aldamenean agertzen dela, azken zerrendan Axularren hitzak denak batera erantsi zituela eta, hortaz, Axularren hitzekin lehenago zerrenda berezi bat osatu zuela iradokiaz.

Bestetan, Landucciren ordenari buruzko jauziak izan litezke, edo alderantziz:

assa (Ax)-**assí* (Ax)-*asco* (Lcc)-**asqueroso* (Lcc)-*ascua* (Ax)-*atar* (Ax).
calafetear (?)-**callecer* (Ax)-*calentura* (Lcc).

Dena dela, inoiz besteekiko ez eze Axularren hitzen beren arteko desordenak ere badira (cf. *desconfianza*, *diga* eta *enojoso*-z hasten direnak), argi eta garbi ondoko adibideotan gertatu den bezala:

arraigar (Ax)-**arranciarse* (Ax)-*arrancar* (Ax).
dedo meñique (RS)-*de paso* (Ax)-**de lo demás* (Ax)-*descalzo* (Ax, ?).
espalda (RS, RSgald?)-**espuma* (Ax, lp?)-*especialmente* (Ax).

Bukatzeko, ondoko bi adibideotan ez dago jakiterik Axularrek eragindako jauziak diren ala Iparraldeko iturri ezezagunak hobeki azal ditzakeen:

desperdiciador (RS)-**desvergonzada* (Ax)-*desván* (lp).
corbata (Lcc)-*cortijo* (RSgald?)-**corcomerse* (?)-*cortina* (lp?)-**corromperse* (Ax)- *cosecha* (Ht).

1.5.3.3. Landucci

Adibide gutxi batzuk baino ez ditu azaltzen, baina bitan (*casera* eta *mantenerse*-ren segidak) RS-ren hitzekiko desbideratzeak dira, argi eta garbi; azkenak, berriz, Axularren ostean erantsia izan zela iradoki lezake eta, hala izan balitz, gorago Axularri leporatutako beste bi desbideratzeak Landuccirentzat utzi beharko genituzke:

casera (RS)-**cáscara* (Lcc)-*caso* (Ht).
mantenerse (Ax)-*mantenimiento* (RS)-**manteles* (Lcc).
reflorecer (Ax)-*reja* (Lcc)-*remordimiento* (Ax)-**regoldar* (Lcc)-**regueldo* (Lcc)-*renegar* (RS).

1.5.3.4. Refranes y Sentencias

Hipotesiak dioten bezala RS lehen osagaia balitz, orduan berak eragin ditzakeen jauziak bere hitzen artekoak baino ezin litezke izan, ondokoak bezala:

honor (RS)-*hormiga* (RS edo Lcc)-**hogar* (RS).
juglar (Lcc?)-*julio* (RS)-**San Juan* (RS).

1.5.3.5. Iturri ezezagunekoak

Hauek ere jauziren baten partaide dira. Alabaina, ziurtasun osoz iturri bat baino gehiago direnez gero, bereizketarik oinarrizkoenak bederen egiten saiatuko naiz:

a) Mendebaldekoak (?):

colérico (Ax)-**colmo* (?)-*colmena* (Lcc).
dañoso (RS)-**degolladero* (?)-*decrépito* (Ax)-*dedo* (RS).

renegar (RS)-**rencor* (?)-*reñir* (RS).
esquela (Ax)-**estéril* (?)-*estercolar* (RS, Lcc).
inexcusable (RS)-**ingle* (?)-*infelicidad* (Ax)-*infeliz* (Ax)-*infructuoso* (RS)-**inflexible* (Ax).
molleja (Lcc)-*mollera* (Lcc, ?)-**molleja* (?).

Ohartu hauetako batzuk RS-ren zati galdutik izan litezkeela eta, hala balitz, erlazioak zenbaitetan aldatuko lirатеkeela: *colérico*-ren segidan, beti hipotesiaren arabera, Landucci izan liteke gaizki dagoena; *dañoso*, *renegar*, *esquela* eta *inexcusable*-n, berriz, RS-tiko hitzen arteko desordenak lirатеke.

Hipotesiak beste zerbaitetarako ere balio lezake: bigarren *molleja* RS-koa ez dela frogatzen laguntzen digu (§ 2.4.4), sar-ordena RS-Landucci izan bazen, dagoen errepikapena ezinezkoa begitantzen zaidalako.

b) Iparraldekoak (?):

corbata (Lcc)-*cortijo* (RSgald?)-**corcomerse* (?)-*cortina* (?)-**corromperse* (Ax)-*cosecha* (Ht).
desvergonzada (Ax)-**desván* (?)-**dessustanciarse* (?)-**deshora* (?)-*deveras* (Ax).
escondrijo (Ax)-**espabiladeras* (?)-*escudriñar* (Ax).
nuca (Ax)-**nudriza* (?)-*nudo* (Lcc).
parte (Ax)-*aparte* (Ht)-*partera* (?)-*partición* (Ax)-*hacerlas* (Ax)-**parrillas* (?)-**passatiempo* (Ht)-*parto* (Lcc, Ht).

Lehenengo biak Axularren atalean ere jarri ditut, zein zein baino lehenago den ez baitakigu. Halaz ere, ohartu bigarrena hobekien Iparraldeko iturri ezezagunak azal lezakeela, Axularren hitzen artean eta ausaz iturri beretik gaizki sartutako hirukotea baikenuke; lehen adibidean ere *corcomerse* eta *cortina* biak izan litezke aipatu iturri ezezagun beretik. Gainontzeko adibideetan ere, sarrienik Axular dugu hasieran edota bukaeran (bieten *escondrijo*-ren segidan). Beraz, adibideek, gutxi izanik ere (baina gogoratu balizko iturri honen hitzak eurak ere gutxi direla), Iparraldeko iturri ezezagun hau Axularren ondoren bederen sartu zela iradokitzen digute.

1.5.3.6. Ondorio zenbait

Erabilitako hipotesiak desbideratze guztiak azaltzeko gai izateaz gain, sar-ordenari buruzko gehiago jakitera eraman gaituela dirudi: jautziei jarraiki, ordena hori, xehekiago orain, honako hau izan liteke:

RS-Axular-Landucci-Iparraldeko ezezaguna-Harriet

Bestalde, iturri zein iturrigai guztiak jautziren bat eragin dutenez gero, badirudi azterketa honetatik atera daitekeen ondoriorik behinena Larramendik hurrenkerari gehiegi begiratu ez ziola dela. Iritzia sendotzeko, ateratako desbideratze kopuruak iturri bakoitzak *Erans*-ari eskaini dizkion hitzen kopuruarekin erkatu behar da:

Axularrek 16 desbideratze (%5,6 inguru).
Harrietek 9 desbideratze (%7 inguru).
Mendebaldeko ezezagunak 6 (%12,7 inguru).
Iparraldeko ezezagunak 5 (%16 inguru).
RS-k 3 (%2 inguru).
Landuccik 3 (%4,5 inguru).

RS-ren batz bestekoaren alde handia mendebaldekoak erantsita konpontzen da: orotara 8/9 jauzi eragina izango litzateke, hots, %5-6 inguru, besteen paretsuan. Honek, bide batez, Larramendik bere aletik ezagutzen ditugun baino hitz gehiago hartu zituela sinisteko lekukotasun aske bat eskaintzen digu.

1.6. HH-tik Erans-era

Erans-eko hitzak denak Larramendirentzat ezezagunak edo, hobeto esanda, ezagutu berriak zirela pentsa lezana oker legoke. Proportzio jakingarri batean (174/784, %22,3), hitzak bietan errepikatuta daude, nahiz egoera ezberdinetan:

a) Mitxelenak (1970: 96 eta 91-92) *garagarrilla* eta *gudua* zirela eta jadanik adierazi bezala, batzuetan Larramendiri interesatzen zaiona ez da hitza, ongi ezagutzen baitzuen, adiera baizik. Talde honetan honako hitz hauek sar daitezke:

arana (236) "endrina" / HH "ciruela".
escaratz (324) "hogar" / HH *escaraza* "portal", "zaguán".
garagarrilla (349) "julio" / HH "junio".
gudua (303) "guerra" / HH "combate", "pelea".
ibarra (382) "llanos" / HH "valle", "vega".

b) Esanahi ezberdinarekin jasotako hitzak askoz talde handiagoa eratzen duten arren, nahiago dut hain errazak ez direnak bereizi, hauetan HH-an jasotako esanahia buruan zuen ala ez jakiteko biderik ez dugu eta. Honen barruan bereziki azpimarratzekoak dira Axularren berrirakurketatik lortutakoak, ez gutxitan pasarte beretik adiera ezberdina atera duela baitirudi (izarra daramatenak, Axularrengan bakarrik aurki zitezkeen hitzak dira,⁵¹⁴ gurutzeaz ia ezinbestean beste iturri batetik hartuak izan behar dutenak markatu ditut):

ayerua (602) "seña, amago" / HH "guiñada, guiño".
alhatu (577) "reprehender" / HH "despecharse".
+*aldaca* (353) "lado" / HH "haz, manojo de trigo, leña, &".
+*amitua* (652) "transido y pasado" / HH "amito para dezir Missa".
**azama* (38) "ama de criar" / HH "madrasta".
**barrendaria* (241, 346) "entremetido", "introducido" / HH "penetrador".
beguietsi (421) "mirar" / HH "acechar", "atisbar".
**desarra* (223) "efecto, acto" / HH *besarra* [sic] "tiro".
+*bicorra* (290) "gajo de uvas" / HH "sebo".
+*bicicaya* (35) "alimentos" / HH "espíritu vital".
+*bularca* (500) "a pechos" / HH "buque de navío", "carena".
**deblauqui* (281) "franca y lisamente" / HH "absolutamente".
despitatu (4) "abrasarse de ira" / HH "irritar, enojar".
**destatu* (216) "disponer" / HH "assestar artillería".
+*edergailluz* (486) "parecer (por bien)" / HH *edergaillua* "adorno", "ínfulas", etab.
elicatu (542) "probar gustando" / HH "cocer en agua".
erauzi (63) "arrancar, desquiciar" / HH "conturbar".
erguela (441) "necio, simple" / HH "melindroso", etab.
erguelqueria (442) "necedad, bobería, simpleza" / HH "melindre".
gurendu (80) "aumentar" / HH "lozanear".
higatu (168) "corromperse" / HH "consumir, deshazer", "gastar".
irioitu (222) "echar" / HH "conducir, guiar", "desperdiciar", "llevar", "malbaratar, destruir".
+*jautsapena* (91) "bajada" / HH "sumisión".

⁵¹⁴ OEH-aren datuen arabera, eta MAJ- arte baino iritsi ez dela kontuan izanda. Handik aurrera EH-aren lehen datatzeak erabili ditut.

lapitza (514) "piedra" / *HH* "lápiz".
malcarra (221) "duro, áspero" / *HH* "falda de monte".
malcorra (529) "precipicio, despeñadero" / *HH* "áspero".
malcortu (530) "precipitar, despeñar" / *HH* "(hacerse) áspero".
marruscatu (26, 264) "ajar", "estregar" / *HH* "desmenuzar".
nabarbendu (198) "descubrirse" / "azorarse", "precipitarse".
 +*narríoa* (392, 629) "mancha", "tacha" / *HH* "achagues", "bascas".
pairua (618) "sufrimiento" / *HH* "moderación".
permatu (95) "afirmarse en el bastón" / "apresurar".
sendagalla (663) "vanidad" / "alborozo", "fortaleza", "medicamento", etab.
 +*sotoa* (102) "bodega" / "portal", "zaguán".

Harrietengandiko hitzetan:

amarrua (391) "malicia" / *HH* "astucia".
 +*beregain* (491) "aparte" / *HH* "señor de sí".
bernagea (379) "linage" / *HH* "(no somos) parientes, ni tenemos inclusión ni relación alguna, ez aide ta ez bernage guera".
 +*birichia* (489) "pares" / *HH* "Géminis".
 +*estocatu* (462) "obstinarse" / *HH* "estoquear".
 +*galtzarra* (105) "brazo" / *HH* "seno".
languiadura (410) "melancolía" / *HH* "languidez".
lchoa (370) "libertad" / *HH* "floxo, perezoso".
 +*sacailla* (405) "matanza" / *HH* "llaga".⁵¹⁵
ucaraya (551) "puño" / *HH* "muñeca".
 +*chedatu* (377) "limitar" / *HH* *chedatua* "intencionado".

RS-tikoak:

arecha (582) "roble" / *HH* "árbol".
elia (565) "rebaño" / *HH* "dula", "manada de ganado mayor", etab.
garbatu (64) "arrepentirse" / *HH* "assedar el cáñamo", etab.
guraria (201) "deseo" / *HH* "antojo".
landerra (521) "pobre" / *HH* "ruin", "villano".
hucha (58) "arca" / *HH* 'arca, cofre' (s.v. *ahuchar*).

Landuccirengandikoak:

iguitu (2) "aborrecer" / *HH* *igüitu* "ahitar", etab.
oltza (488) "pared" / *HH* "aparador".

Zalantzazko iturria dutenak:

auhena (625) "suspiro" / *HH* *aüena* eta *auhena* "aullido", "clamor", "lamentación", etab.
auhendu (624) "suspirar" / *aüendu* eta *auhendu* "aullar", "deplorar", etab.

Etorki ezezaguna dutenak:

acotatu (137) "citar" / *HH* "morder".
baldoquia (425) "mollera" / *HH* "sien".
escueda (480) "palma de la mano" / "arra", "arras de esposo".⁵¹⁶
meaca (321) "hijada" / *HH* "costado", "efecto u mancha que dexa la vena de el hierro a los que andan con ella" (s.v. *maca*).
petralac (559) "rabos" / *HH* "pretal".
huerriza (660) "vado" / *HH* *uherriza* "movimiento".
zarrapoa (253) "espuma" / *HH* "rana".

c) Hala eta guztiz ere, ez gutxitan sarrera beraren pean agertzen dira:

Axularrengandikoak:

⁵¹⁵ Aditzak ezberdinak dira: *Erans* 405 *sacaillatu* (< Ht) / *HH* *sacaildu* "llagar".

⁵¹⁶ Gogora dezagun, dena dela, Landucciren hiztegitik hartutakoa izan litekeela (§ 1.1.18.2).

habuina (252) "espuma" (*HH abuina*). *aihertu* (336) "inclinarse" (*HH ayertu* "inclinarse de propensión y afecto"). *albenia* (473) "orla". *amorantia* (231) "enamoramiento". *amorantia*, *amurusia* (291) "galanteo". *antsiatu* (19) "afligir" (*HH ansiatu*). *acholduria* (182) "cuidadoso" (*HH aisolduria*). *birloratu* (568) "reflorece". *bitiña* (108) "cabrito" (*HH "cabritillo, cabrito"*). *ecaira* (556) "quehaceres, ocupaciones" (*HH "ocupación", eta are ecairatu "ocupar" ere*). *elhea* (265) "fábula" (*HH elea*). *erauci* (369) "levantar testimonio" (*HH "levantar algún testimonio"*). *erlastu*, *marrantatu* (242) "enronquecer". *erra* (466) "odio" (*HH herra*). *erraztu* (268) "facilitar". *errumesa*, *noharroina* (414) "mendigo" (*HH noarroina*). *goratzapena* (225, 366) "elevación", "levantamiento". *higuindu* (2) "aborrecer". *jasan* (367) "levantar". *cafia* (446) "nido". *carsoilla* (116) "calvo". *quirastua* (316) "hediondo". *legarra* (59) "arena". *mutiria* (205) "desvergonzado". *oinzola* (518) "planta del pie". *sagarroya* (243) "erizo". *sainga* (355) "ladrido" (*HH "ladra, ladrido"*). *sentona* (190) "decrépito". *sori*, *cilhegui* (372) "lícito" (*HH soria, cilleguia*). *zapatu* (517) "pisar".

RS-tikoak:

atzaga (277) "fin, postre" (*HH "fin, remate, último", s.v. zaga*). *biar* (400) "mañana". *etzi* (400) "después de mañana" (*HH "(passado) mañana"*). *irunsi* (650) "tragar". *iusturia* (656) "trueno". *leguez* (152) "como". *ospea* (271) "fama". *ubera* (660) "vado". *zurtza* (326) "huérphano".

Harrietengandikoak:

ausartatu (79) "atreverse". *estacurua* (538) "pretexto".

Zalantzazko iturrikoak:

arrastelua (96) "bieldo" (*HH "vieldo"*). *hauzu* (372) "lícito" (*HH hauzua*). *bezala* (152) "como". *galtzapena* (509) "pérdida". *lapicoa* (468) "olla". *mingrana* (299) "granado, a" (*HH "granada", "granado, árbol"*). *ocenqui* (138) "claramente".

Iturri ezezagunekoak:

aldiac (385) "lunas" (*HH "(tener) lunas"*). *bicioa* (384) "lombriz". *desorena* (208) "deshora". *erbatza* (683) "tasco" (*HH "tascado de el lino"*). *gondura* (673) "vianda". *jazcaya* (669) "vestido". *quiriquioa* (243) "erizo". *coya* (609) "silla". *mardula* (297) "gordo, grassiento" (*HH "gordo, con una gordura dulce"*). *peita* (129) "cebo".

d) Bestetan, berriz, esanahikidearen edo oso hurbil dagoen adieraren azpian jasota zeuden *HH*-an:

Axularrengandikoak:

aratza (553) "puro" (*HH "limpio"*). *areago* (403) "mucho más" (*HH "además"*). *armora* (488) "pared" (*HH "pared maestra"*). *aurizquitu* (10) "acalcar" (*HH "pisar"*). *aurtiqui* (65) "arrojar" (*HH "lanzar"*). *aztura* (171) "costumbre" (*HH "hábito, costumbre"*). *bohatsu* (62) "arrancarse el tocino" (*HH "pudrir, pudrirse"*). *endrecera* (490) "parte" (*HH "lado"*). *gogara* (306) "a gusto" (*HH "acomodarse al gusto..."*). *higuitu* (413) "menearse" (*HH "mover", "rebullir"*). *iratiotu* (580) "revolver" (*HH "trastornar", "volver de un lado a otro"*). *istalgaratu* (537) "prevenirse" (*HH "disponerse con viveza"*). *oldartu* (14) "acometer" (*HH "arrojarse al riesgo", "precipitar", etab."*). *ondicoa* (339) "infelicidad" (*HH "calamidad", "castigo, pena", "desgracia"*). *zopatu* (28) "empapar" (*HH "ensopar"*).

RS-tikoak:

atartea (528) "portal" (*HH "atrio"*). *inurria* (323) "hormiga" (*HH "aluda, hormiga con alas"*). *cimbota* (204) "desperdiciador" (*HH "perdido"*).

Harrietengandikoak:

azcarra (675) "vigoroso" (*HH "fuerte"*). *liparra* (368) "momento" (*HH "instante"*). *chiscua* (270) "faltriquera" (*HH "bolsa", "cica"*).

Landuccirengandikoak:

bilía (524) "pollo" (*HH "gansarón"*). *croscatu* (412) "mellar" (*HH "descascarse"*). *soquila* (504) "pella" (*HH "terrón"*).

Zalantzazko iturrikoak:

eguzaria (274) "festividad" (*HH* "día de fiesta", "fiesta de guardar"). *opilla* (103) "bollo" (*HH* "bodigo"). *turunta* (654) "trompeta" (*HH* "clarín").

Iturri ezezagunekoak:

aurrena (540) "principal" (*HH* "caudillo", etab.). *baimena* (371) "licencia" (*HH* "permisión"). *albaldimbera* (136) "de cierto" (*HH* "(ya se) ve, claro está"). *canora* (280) "forma, manera" (*HH* "aparencia").

e) Amaitzeko, forma aldaketa txiki batekin, baina sarritan adiera berean edo beretsuan jasota daudenak ere badira:

Ax *erroztatu* (61) "arraigar" / *HH* *erroztatzea* "radicación".
itzulpidea (244) "escapatoria" / *HH* *itzurpidea*.
mintzaya (309) "habla" / *HH* *mintzaioa*.
narritatu (546) "provocar" / *HH* *narritzatu* "incitar".
orcuya (280) "forma, manera" / *HH* *orqueia* "forma, molde".
RS *arlota* (521) "pobre" / *HH* *arlotea* "arlote".
ezaya (273) "fea cosa" / *HH* *ezaña* "feo, fea".
osquia (690) "zapato" / *HH* *osquea*.
Lcc *dilistea* (364) "lenteja" / *HH* *dilista*.
? *becarria* (357) "lagaña" / *HH* *becarrea*.
garnua (472) "orina" / *HH* *garnura* [sic].
istincari, *istincatu* (112, 113) "calafate", "calafetar" / *HH* *istinga* "viscosidad",
istingatsua "viscoso".
nauquera (526) "porfia" / *HH* *auqueraren mauquera*, *atzenean oquerrá* "el que es
impertinente en sus elecciones, al cabo escoge lo peor" s.v. *elección*.
oquelia (673) "vianda" / *HH* *oquela* "carne".

Egin dugun azterketa honetatik oso ondorio ezberdinak atera daitezke, nik uste, *Erans*-eko hitzaren iturriaren arabera, batetik, eta *HH*-an jasota dagoen esanahi eta formaren arabera, bestetik.

Oro har, badirudi baieztatu daitekeela *Erans* osatzerakoan ez zela hitza *HH*-an jasota zegoen ala ez egiaztatzen ibili; hau oraindik nabarmenagoa da jadanik iturritzat erabilitako Axularren kasuan, bai hitza lehengo adieran, bai adiera berri batean jaso duenean. Geroko azterketarako oso kontuan izan beharko dugu literatur testuek oro har hiztegielearentzat suposatzen duten esanahi interpretapen askea, itzulpenaz hitz egiterakoan (§ 1.3.4) ohartu eta orain berretsi dugun bezala. Axularrekin amaitzeko, derradan Iparraldeko bestelako iturrien erabilerak azalduko dituela, neurri ez txikian, *Erans*-aren eta *HH*-aren artean dauden ezberdintasunetatik asko.

Harrieti ere azken esana oso ondo datorkio; bestalde, antzekotasun zenbait bederen *HH*-aren hasieran haren hiztegi sarrera ezberdinak erabiliak azal ditzake.

Bestelakoa da, berriz, Hegoaldeko iturrien kasua: dakigularik, ez bata, ez bestea *HH*-an erabili zituen eta, beraz, antzekotasunak zein ezberdintasunak Hegoaldeko beste iturriei —ahozkoei batik bat— egotzi behar zaizkiola dirudi. *HH*-ko lekukotasun zenbait, hortaz, oso garrantzitsuak dira, bestetan ia-ia lekukotu gabeko hitzen XVIII. mendeko bizitasunaz ideia bat eskaintzen digutelako: *osquea* / *osquia*, *bilia*, *oltza*, *dilista*, etab. *RS*-ko lekukotasun batzuek, dena dela, arazoak sortzen dizkigute, baina hauetaz beranduago (III, § 9.3.2) arituko gara.

Antzera gerta daiteke iturri ezezaguneko hitzekin, hau da, iturri ezberdinek ondorio berak ekarri izana. Alabaina, *HH*-aren lekukotasun berriak zalantzarik forma zenbaiten (cf.

canora) berrespena eta forma ezezagun edo ia ezezagun zenbaitetarako laguntza (*istinga* / *istinka*, ?*naukera* / *maukera*) ematen digu.

2. Azterketa berri baterako

Aurreneko atalean iturrien erabileraz nolabaiteko ziurtasunez dakiguna batu eta gero, bada garaia galdera markaz ditugun hitzei buruz ziur den zerbait —edo berri den zerbait behinik behin— esan ote daitekeen begiratzeko. Izan ere, orain artean batutakoak, Larramendiren sistemaren deskribapena izateaz gain, baduke zalantzen aurrean erabakiak hartzeko gaitasuna: badakigu, adibidez, grafia erabakigarritasun gutxiko tresna dela sarritan, iturritik *Erans*-era bidean daukan aldakortasunagatik, guztiz ere ondorioa Larramendiren sistemarekin bat datorrenean. Erdal itzulpena, aitzitik, eskuarki iturriarena izan ohi da, hots, nolabait grafiaren beste buruan dago, iturriarekiko lotura estuagoa mantenduaz. Nolanahi ere den, aztertu alderdi gehienetan eriden daitezke iturriaren arrastoak, dela sistemaz kanpoko grafietan, dela iturriko morfologiaren oihartzunetan, edo dena dela.

Lau atal egin ditut, hitzen egoeraren arabera, bakoitzak tratamendu ezberdina behar duelakoan: iturri jakineko baina agerraldi ezberdineko hitzetan, haien artean *Erans*-eko sarrera eskaintzeko aiposena zein den erabakitzen lagunduko diguten argudioak landuko ditugu (§ 2.1); daitezkeen iturriak bat baino gehiago direnean, argudio ezberdinak erkatuko ditugu, lehentasuna zeini eman behar zaion eztabaidatzeko asmoz (§ 2.2); *Erans*-eko iturri ezagunetarik batean dagokigun hitzaren antzeko zerbait dagoenean, alde eta kontrako argudioak neurtuaz ezer ziurrik esan ote daitekeen erabakitzen saiatuko gara (§ 2.3); eta iturri ezezaguneko hitzetan, eskaintzen dituzten beren jatorriari buruzko berriak bildu eta aztertuko ditugu (§ 2.4).

Bereziki interesgarria iruditu zait, den atalean dela, ziurtzat joko nituzkeenak ez eze, zalantza-zakoak eta are gero datu ziurragoren batek deuseztu dituen hipotesiak ere, denak aipatzea, argudiaketaren ahuleziak berak ere begibistan izan ditzagun.

2.1. Agerraldi bat baino gehiago

Behin iturria asmatu eta gero, harleku zehatza zein izan den jakitea hain premiazko kontua ez den arren, iturriekiko auzian irizpide zahar zenbait zorrozteko eta berri zenbait saiatzeko aukera ematen digun arloa da. Atal honetan, beraz, Mitxelenak eta Lakarrak harlekuak zehazteko erabilitako argudioak berpasatuko ditugu, haiek ez kokatutako hitz batzuk bide batez aztertuz.

2.1.1. Grafia

Oro har oso argudio ahula da, Larramendik iturrietako grafiak noiz aldatu noiz gorde ibili baitzen. Orain dagokigun kasuan, hots, hitza hartua izan den lekua zehazte lanean, grafia ia inoiz ez da erabakigarri:

- <i> : <y> aldaketaren arabera (§ 1.1.1), *ayerua* (602) Ax <ayeru> zein <aieru>tik etor daiteke.
- <h> ezabatu ohi zuenez gero (§ 1.1.3), *eurciria* (656) Ht <eurciria> zein <ehurciria>tik etor daiteke.
- <tç> : <tz> sistematikoa da *Erans*-ean (§ 1.1.4); beraz, *iragaitzaz* (192) Ax <iragaitçaz> zein <iragaitzaz>etik etor liteke, hala nola *itzalgaizca* (614) Ax <itçal gaizca> zein <itzalgaizca>tik.
- <ss> : <s> aldaketaren arabera (§ 1.1.5), *gaso* (188) RS <gaso> zein <gasso>tik, eta *leusindu* (27) RS <leusindu> zein <leussindu>tik etor daitezke.
- <ns> : <nts> aldaketaren maiztasunagatik (§ 1.1.6.1), *antsiatu* (19) Ax <ez-ansiatu>tik erraz etor liteke, baina baita *antsiatsu*-tik, baldin eta Mitxelenak bezala Larramendik ere <antsiatu> irakurri izan bazuen.
- Aldaketa frikaritik afrikatura gertatu ohi denez, *berceac berce* (193) arraroa da; *GGero*-n behin <berceac bertce> irakurtzen da, eta hauxe izan liteke aldaketaren oinarrian dagoen pasartea. Alabaina, alderantzizko aldaketa bakarra Axularren beste hitz batean gertatu da, hain zuzen; honegatik, berezko —eta ez iturriak eragindako— aldaketatzat ere jo liteke.
- <x> : <ts> eta, kontsonante aurrean, azkenik <s> aldaketa lekukotua dugu (§ 1.1.6.5); horregatik *gestoa* (387) RS <gesto> zein <g(u)exto> batetik etor liteke, nahiz lehenak, bistan da, errazagoa dirudien kasu honetan, testuko maiztasuna ere kontuan harturik.
- Beti egin ohi zuen <kh> : <c> aldaketari begiratuta (§ 1.1.8), *orcoya* (280) Ax <orcoiera> zein <ortkhoia>tik etor daiteke: <BiB> : <y> aldaketa sistematikoa dela ikusi berri dugu, eta Axularren 'sonante + t + herskaria' taldearen bakunketa behin ziurtasunez lekukotu (§ 1.1.15).

2.1.2. Erratak eta irakurketa txarrak

Oro har *Erans*-ak, Landucciren testuko hitzetan izan ezik, eskuarki iturriko erratak gordetzeaz beste akatsik ez du jasotzen. Alabaina, *GGero* akatsez josita dagoela jakinik, zentzuzkoa dirudi Larramendik —hitza asmatu duenean— hobeki hartuko zukeela zuzen dagoen tokitik, ezen ez erratadunetik. Honegatik, *halacatu* (69) <halacatcetic> eta ez <halocatu>tik, *euzu* (636) <euçu> eta ez <ençu>tik, *guirtaiña* (68) <guirthaiñic> eta ez <guirthanic>tik, *anzatsua* (307) <ançatsu> eta ez <antçasuenac>tik, eta *narritamendua* (334) <narritamenduari> eta ez <naritamendua>tik errazago har zitzakeela egingo genuke lehen begiratuan.

Haatik, irizpide hau tentuz erabili beharrekoa da: errazena dena ez da nahitaez izan dena. Gorago ikusi dugu Larramendi inoiz iturria zuzentzeko gauza izan zela; bada, *narritamendua* dela eta, baditugu argudio hau deuseztatzen duten arrazoi sendoak (ik. § 2.1.5.4). Ez genuke, beraz, hitzak diren bezala, eta ez dauden bezala, ezagutzeko Larramendiren gaitasuna gutxietsi behar.

Beste alde batetik, iturriko akatsen jasaile izan daitekeela ikusi dugu; beraz, *trancarta* (269) errazkienik *RS*-ko <trancart>etik, eta ez <trançart>etik etor daitekeela dirudi. Nahiz eta <c> : <ç> hutsak oso errazak izan edozein kopiatan, halaz ere *Erans*-ean, adibide ziurren arabera, Landucciren testukoetan izan ezik ez dago halakorik, *orça*-ren <orca> irakurketa (hau ere *RS*-koa) jadanik iturrian baitzegoen.

Axularren kasuan, bigarren argitalpenak batzuetan berrikuntzak (inoiz irakurketa *facilior*-ak) egiten ditu; Larramendik honetan bakarrik dauden bertsioak jasotzen dituenean asko errazten zaigu harlekua zehaztea: *edergailluz* (486) azaltzeko, orotara dauden lau *edergaillu*-etatik bakar batean dugu *edergailluz* berrikuntza *GGero*-n; *itzulpide* (244)-ren oinarrian hiru agerraldi egon daitezke, baina bitan bakarrik (biak oso hurbil, gainera) *GGero*-k *Gero*-ko *itçurpide* aldatu du.

Konpontzen erraza ez den istilu bat dugu *antsiatu* (19)-n, grafiari begira behintzat: Axularren liburuan behin agertzen den *antsiatsu*-ren ordezkoko hutsa izan liteke; Mitxelenak berak *antsiatu* irakurri eta agerleku ziurtzat eman zuenez gero, ez dirudi gaitzegia denik Larramendiri beste horrenbeste gertatu izana. Alabaina, sarri agertzen den *ez-antsiatu*-ren bat ere (§ 2.1.1) izan zitekeela ezin dugu *a priori* baztertu. Testuinguruak emango bide digu erantzuna (§ 2.1.6).

Astiroago begiratu behar dugu, ostera, *andrauren* hitzaren istorio korapilotsua, testu bereko hiru agerraldik *Erans*-eko sarrera bana eragin baitute: *andraura* (406), *urena* (123, 313) eta *hurrena* (540). Itzulpenak ere zerikusia du honetan (§ 2.1.5.2), baina hemen grafiaz bakarrik arituko gara. Hauxe da Mitxelenaren proposamena:

RS 210 andra vrenac > urena
RS 317 andra hurenac > hurrena
RS 527 andrauren en > andraura

Dakusgunez, hasiera batean *urena* <vrenac> zein <hurenac>tik etor liteke, nahiz *RS*-ko <hu-> grafiak gorde ohi dituen (§ 1.1.3); zalantzak *hurrena*-k uxatzen ditu, nahitaez <hurenac>tik baitator eta, beraz, baterako erabili agerraldia besterako ezinezkoa baita. *andraura*, berriz, batuta agertzen den bakarretik hartua dela nabarmena da.

2.1.3. Aldaerak

Testu berean inoiz hitz beraren aldaera ezberdinak jasotzen dira. Bistan da *Erans*-ekoari gehien hurbiltzen zaiona dela, hain zuzen, agerleku zehatza. Adibide bat baino ez: *parraüa* (318) *RS*-ko <parrahua>tik hartua da, eta ez <perrau>tik, itzulpena bietan bera izanik.

2.1.4. Morfologia

Hiztegigileak iturriko forma aldatu zein gorde duenean, bi kasuetan iturria —edo agerlekua— nolakoa den erabakitzekeo adinako aztarnak geratzen dira batzuetan:

Iturrietako *-ea* bukaerak beti (atzizki ezagun baten kasuan izan ezik) gorde egin zituela jakinik (§ 1.2.1), *deunga* (387)-rako *RS*-ko *deunga* bat proposatu behar dugula deritzat, ezen ez *deunguea*. Arrazoi beragatik, *arlota* (521)-rako agerraldirik onena *RS*-ko *arlot* da, eta ez bertako *arlotea*.

Eskuarki *Erans*-eko pluralak iturriari zor zaizkiola jakinik (§ 1.2.2), badirudi *elhaberriac* (453) errazkienik Axularren *elha-berriac*-tik datorkeela, eta ez *elha-berri... guztia*-tik, hala nola *ibarrac* (382) *RS*-ko *ybarrac*-tik, eta ez *ybar bacoric*-tik.

Izenkien erroak ateratzeko izan zituen arazoek (§ 1.2.4) behin bederen itzulpen bereko agerraldi biko hitz batean agerlekua erabakitzeko erabateko argudioa ematen digute: *biaota* (606)-k *RS*-ko *biaotan*-dik, eta ez *biao*-tik, behar du izan.

Partizipioak aditzizenetik berreraikitzeke izan zituen arazoak ere (§ 1.2.5.3) lagungarri izan daitezke ariketa honetan: *guertaetu* (305)-k Larramendik *-eta*-z osatutako aditzizenak ongi menperatzen ez zituela diosku; beraz, *oratu* (21) nekez atera zezakeen *RS*-ko *oraetan*-dik; beste bi aukerak (*ora* eta *oraçen*), berriz, biak onak dira, zeren aditzoinaz ez baitzuen inoiz arazorik izan (§ 1.2.5.2) eta *-(t)zen* > *-tu* aldaketa automatikoki egin ohi baitzuen. Halaber, *aspertu* (668) errazago atera zezakeen *aspertu* zein *asper*-tik, ezen ez *asperetan*-dik. *aurizquitu* (10, 296) eta *iriotu* (580) azaltzeko, Axularren testuko *aurizquitce*- eta *iriotce*- behar ditugu: ez *aurizqui*-k, ez *irioric*-ek balio digute, azken hauetatik partizipioa ondo aterako zukeen eta. *Achiquitu* (639) azaltzeko, berriz, Harrieten *EF*-ko lekukotasunak ez digu balio, aldamenean lagun ziezaiokeen *atchiquia* partizipioa daramalako: beraz, *FE*-ko *atchiquitcea* genuke iturria. Alderantziz, *aurtiqui* (65) izateko, ziurrenik *GGero*-ko *aurthiqui* bat baliatu du, eta ez *aurthiquitce*- bat. Berriz, *hitsi* / *histu* (158) eta *jasan* / *jasaitu* bikoteek nahitaez Axularren bina pasarte eskatzen dute: lehenean *histe* *gatic* eta *histic*, hurrenez hurren, eta bigarrean *iasan*-etatik bat eta *iasaite*-etatik bat.

Argudio berri bat, *Erans*-ean bertan hitzek daukaten itxura izango litzateke, hots, deklinatuta ala deklinatu gabe dauden, eta zein kasutan, lagunduta ala lagun gabe dauden, etab. Adibide on bat *men-menean* (683) dugu: Axularren liburuan behin *men menean* eta berriz *men menera* agertzen denez gero, ez da gaitza erabakitzen bietan zeinetatik hartu zuen. Hona beste batzuk:

cinqui ta finqui (209) < *GGero*-ko *cintqui* eta *fintqui* / *cintquienic* eta *fintquienic*.
desgogara (214) < *GGero*-ko *desgogara* / *desgogaracoequin*.
besteren buruan centzatu (245) < *GGero*-ko *bertceren gaiñean centçatu* / *haren baithan centçatu*.
zauri gaizcoatua (381) *GGero*-ko *çauri gaizcoatua* / *çauriaren gaizcoatcea* eta antzeko egiturak.
ideco dira (684) < *RS*-ko *ydeco eytenbadira* / *vere ydecoa*.

2.1.5. Itzulpena

Argudio hau da gure aitzindariak maizenik erabili dutenetakoa *Erans*-eko hitz baten harleku zehatza erabakitzerakoan, eta ez arrazoirik gabe, zeren eta edozeinek ikus baitezake bi aukeraren aurrean, *Erans*-ekoarekin hobekien datorrena —sarritan zeharo bat datorrena— dugula, inolako ezpairik gabe, Larramendiren sarreraren iturburua. Ondoren iturri ezagun guztietako adibideak bilduko ditut, gehienetan ura bezain gardenak eta, horregatik,

lekukotasunez beste iruzkinik gabe eskainiak. Ezpairen bat sortzen dutenak, berriz, atal bakoitzaren bukaeran eztabaidatuko ditut.

2.1.5.1. Landucci

ayubia (28) "alarido" < 230v "alarido" / 247r "clamor, gran voz", 288v "llanto".
erlatera (147) "colmena" < 248r "colmena" / 227r "abejera".
escubia (396) "mano derecha" < 258v "derecha mano" / 290v "mano diestra".
corrincoa (424) "molleja" < 294r "molleja" / 283r "yema de huebo".
croscatu (412) "mellar" < 292r "mellar" / 227r "abollar".
masmaquia (560) "racimo" < 310r "razimo de ubas" / 248r "colgajo de uvas".
mintea (40) "amargura" < 233r "amargura" / 262v "desabrimiento".
ollerea (30) "alcuza" < 231r "alcuza o azeitera" / 238v "azeytero".
oltza (488) "pared" < 301r "pared" / 306r "poste".
ozazt (36, 535) "al presente" < 232v "al presente" / 229v "agora", 234r "antaño".

2.1.5.2. Refranes y Sentencias

andizura (322) "honor" < RS 392 "honor" / RS 507 "principal".
arecha (582) "roble" < RS 279 "roble" / 37, 109 "bellota".
arlota (521) "pobre" < RS 329, 493 "pobre" / 25 "mendigo".
astoa (275) "fiador" < RS 249 "fiador" / RS 84, 116, 163, 346 "asno".
bearra (461) "obra" < RS 149 "obras" / RS 85, 124 "menester", 540 "necesidad".
deungá (387) "malo" < RS 222, 387, 440 "malo" / RS 207 "perverso".
elia (565) "rebaño" < RS 235 "rebaño" / RS 384 "ganado".
ertuna (200) "desdichado" < RS 408 "desdichado" / RS 120 "mala".
gasoa (188) "dañoso" < RS 141 "dañoso", 180 "dañosa" / 6, 303 "perversa", 54, 133 "malo", 425, 439 "mala" eta 231 "mal".
laso (152) "como" < RS 88, 344 "como" / RS 413 *ecosaria lasoa* "del tamaño del aua".
leusindu (27) "alagar" < RS 372 "alagar" / RS 205 "alago" (iz.).
murcoa (347) "jarro" < RS 191 "jarro" / RS 94 "cántaro".
oñon (301) "gruñir" < RS 305 "gruñir" / RS 19 "porfía" eta 179 "hablando".
oneretsia (39) "amante" < RS 242 "amante" / RS 327 "aficionado".
trancarta (269) "falsía" < RS 272 "falsía" / RS 49, 437 "engaño".
trisca-tritea (90) "baile", *trisca* 187 "danza" < RS 79 *trisean* "dançando" / RS 436 *trisqueea* "salto".
cenzuna (604) "seso, juicio" < RS 289 "seso", 481 "iuyzio" / RS 7 "entendimiento".

Ezin argiagoak diren hauen aldamenean, baditugu astiroago begiratzea merezi duten gertakariak:

eusi (354) "ladrar" eta *eusi* (355) "ladrido" ez datozke RS 380 edota 397tik; kontu tipia bada ere, lehena RS 380 "ladrar"-tik eta bigarrena RS 397 "ladrido"-tik datozela azpimarratu behar da.

andraura (406), *urena* (123, 313) eta *hurrena* (540)-n, aurreratu bezala, esanahiak ere badu bere partea, berriz ere *urena* eta *hurrena*-ren etorkien artean bereizten lagunduaz:

andraura "matrona" < "señora de buen recado".
urena "casera, hacendosa" < "de buen recado".
hurrena "principal" < "principal".

RS-tik datozen bi hitzetan *Erans*-ak sarrera beraren azpian bi esanahi ematen ditu, eta biek dute oihartzuna RS-ko errefrau banatan:

ibarrac (382) "llanos, valles" < RS 211 "llanos" edota RS 262 "valle".
cenzuna (604) "seso, juicio" < RS 289 "seso" edota RS 481 "iuyzio".

Erabakitzen errazena *cenazuna* da, bestelako argudioek (§ 2.1.7.1) bigarren erretraua ziurrenik ezagutu ez zuela erakusten baitigute eta, gainera, *HH*-ko sarrera ere "seso, juicio" baita. *Erans*-eko eransketa, zalantzarik gabe, "seso, sesos"-tik (cf. *HH*), hots, *garunetatik* bereizteko asmoz egina da.

ibarrac-i dagokionez, "llanos" eta "valles" ez dira hertsiki esanahikideak; alabaina, plurala (§ 2.1.4) eta lehen itzulpena *RS* 211ren alde datoz: ez dago dudarik, beraz, huraxe izan zela sarrera eragin zuen lehen agerraldia. Hitza lehendik —eta oso ondo (§ 1.6.a)— ezagutzen zuela jakinik, ez da ezinezkoa, nik uste, "valles" bere burutik eranstea, azalpen gisa, *RS* 262aren beharrik gabe.

2.1.5.3. Harriet

achiquitu (629) "tener, assir" < *EF* 274 edo *FE* 431 "tenir" / *FE* "retenir".
ausartatu (79) "atreverse" < *EF* 274 edo *FE* 394 "oser" / *FE* 353 "enhardir".
azcarra (675) "vigoroso" < *FE* 437 "vigoreux" / *FE* 363 "fort, en fait de force" eta 419 "robuste".
berech, beregain (491) "aparte" < *FE* 397 "à part" / *FE* 354 "à l'écart".
erchatu (460) "obligar" < *FE* 391 "obliger" / *EF* "contraindre".
galtzarra (105) "brazo" < *EF* 294 "bras" / *FE* 422 "sein".
ibilcatu (498) "passear" < *FE* 409 "se promener" / *FE* 357 "exercer".
ibilcuntza (499) "paseo" < *FE* 409 "la promenade" / *FE* 357 "exercice".
liparra (368) "momento" < *FE* 429 "suposons pour un moment" / *FE* 375 "instant".

Harrietengandikoetan interes teoriko gehien duen hitza *on(t)satu* da: *Erans* 15 "acomodar" *FE* 325 "accommoder"-tik datorrela bistan da; *Erans* 153 "componer", berriz, iturriko beste sarreratik, *FE* 408 "préparer"-tik etor litekeela pentsa daiteke, beraz, iturriko eta testu hartzaileko lekukotasunak bi-bitara jarriaz. Alabaina, "acomodar" eta "componer" esanahikideak izan daitezke adiera batean (cf. *HH* "acomodar, componer" sarrera) eta, dakigunez, "préparer"-tik "preparar" izango litzateke esperoko litzatekeen itzulpena. Hortaz, baliteke biak, *Erans* 15 eta 153, Harrietenganako sarrera ber batetik atereak izatea (sinonimoez, ik. § 1.3.5).

2.1.5.4. Axular

Berez itzulpenik gabeko testua izan arren, gorago Larramendik itzulpenerako bi laguntza izan zituela frogatzen saiatu naiz: latina eta euskal sinonimoak. Beste iturriez gertatu bezala, honetan ere halako zerbait agertzea agerleku zehatza erabakitzen laguntzeko adinakoa izan daitekeela uste dut:

a) LATINA: bide honetatik egindako itzulpen zenbait (cf. *emendaillua, estalguna, narritamendua*) literalegiak edota oso teknikoak dira; hauetan batez ere erabateko ziurtasunez latinezko itzulpena daraman agerraldia hobetsi behar dugula agerian dago.

ayerua (602) "seña, amago" < *GGero* 265 *çure hitz simpleari...*, eta are *kheinuari eta aieruari ere, sinheste guehiago eman lequidicaiola* "nutu" / 15, 22, 127, 287, 403.
emendaillua (623) "supererogación" < *GGero* 499 *obra emendailluzcoac* "Opera super erogationis" / 103.
estalguna (596) "secreto" < *GGero* 39 *cañaberaren estalgunean* "in secreto calami" / 434, 435.
notha (392) "mancha" < *GGero* 193 *ez beccatuaren notharic, eta ez cimurdururic* "non habentem maculam aut rugam" / 440, 614, 615.

hobenduria (179) "culpado" < GGer 435 *presuna hobenduria "reus" edo ib. 477 eguitenda hobenduri "reus" / 123, 140, 295.*⁵¹⁷
tragaça (592) "saeta" < GGer 292 *tragaça colpeca "sagittae" / 379.*

Behin bederen, latina latinari kontrajar dakiok:

narritamendua (334) "impugnación" < GGer 401 *beccatuaren accometamendua, naritamendua [sic], eta tentamendua "impugnatio peccati" / 271 "irritamentum".*

b) ESANAHIKIDEA: irizpide hau nabarmena da itzulpen txarrak eragin dituen batez ere (cf. *cantitu*; ik. § 1.3.4.b), baina batzuetan (cf. *aisit*, *aurizquitu* edo *elhea*, baita *cantitu* bera ere) irizpide beraren arabera beste itzulpen bat esperoko genuke arbuatutako adibideei jarraiki:

aisit (267) "fácil" < GGer 485 *aisit eta erraz* edo 492 *aisit, arin eta erraz / 500 leun, placent eta aisit "suave".*
aurizquitu (296) "golpear" < GGer 310 *incontru ioitea eta...aurizquitcea / 97 aurizquitcea, çapatcea eta 501 aurizqui eta çapatu.*
egartsua (597) "sed" < GGer 511 *egartsu idorra eta edateco desira handia / 389 egartsua iaunduric.*
elhea (265) "fábula, cuento" < GGer 467 *exemplo bat edo elhe bat / 601 elheac, ametsac edo gueçurrac.*
iriotu (580) "revolver" < GGer 204 *iriotcen eta iraultcen* edo 358 *saltsa nahasten eta iriotcen / 169 concientcia ongui iriatoric, eta examinaturic.*
cantitu (1) "ablandarse" < GGer 439 *...bihotcic gogorrenaren hautsteco eta beratceco; baina gureac etciren cantitu ere / 310 etçara bat ere assaldatcen, eta ez ceure sosegutic cantitcen.*
crozca (550) "punto, estado" < GGer 604 *bethi dago egoitça batean, crozca batean / 602 eztaude behin ere crozca batean.*

Ondokoan, hautaketak egiteko itzulpenaren argudioa *a contrario* erabili behar dugu, hots, ezinezko edo zailtzat ditugun inguruneak uxatzeko:

pairua (618) "sufrimiento" < GGer 286, 288 / 176 "temperantia", 314 eta 601 *pairu eta pacientcia, 386 iguriquitça eta pairu.*

2.1.6. Testuingurua

Honako hau aurreko irizpidearen osagarri da: izan ere, Axularrengandiko hitzetan Larramendik emandako esanahia azaltzeko testuinguru bat edo batzuk besteak baino aproposagoak izan daitezke edota, alderantziz, testuinguru batzuk ezinezkoak edo oso nekez balia zitzakeenak; aurrekoan bezalaxe, itzulpen txarrak (cf. *amratu*, *berretura*, *forogu*, *cantitu*) bereziki adierazgarriak dira, hala nola gramatika kategoria ezberdineko adibideak (cf. *lanboa*):

aihercundea (85) "aversión, odio" < GGer 278 / 393 *beguiratu behar du halaber emazte behatcetic...aihercunde gaixtoz.*
amratu (229) "enamorar" < GGer 350 / 141 *munduari barccatcera ecin deusec balacatu çuen, eta ez amratu.*
amurusia (291) "galanteo" < cf., askoren artean GGer 377 *Ceren neccaçaleac bere nequeaz...baitaduca contu, eta ez amuruziaz / 354 Venus amuruziaren patroiña.*
aurizquitu (10) "acalcar" < GGer 97 *lurraren aurizquitcea, çapatcea eta gogortcea* edo 501 *aurizqui eta çapatu naute naicen guztia / 310 itsuac incontru ioitea eta iragaitean aurizquitcea.*
berretura (566) "recaída" < GGer 469 *gaixto da eritasuna, baiña gaixto ago berretura / gainerako guztiak.*
beu 637 "tenga" < GGer 503 *beu bethi dolore / GGer 277 beguira beu bat bederac...sobera hasseretcetic.*

⁵¹⁷ Nik bezala *reus*-en itzulpenaz zalantzak izan ditzakeenarentzat, gogoan izan beza bai *DAut*-ek, bai *HH*-ak "culpado" / "culpable" bereizketa argi xamar bat egiten dutela, eta batez ere cf. *HH* "reo, culpado" sarrera.

deblauqui (281) "franca y lisamente" < GGero 345 *maliciaric edo enganamenduric ahal çatequeyenz gogora ere gabe, erran cioen deblauqui...deusetan ere dudatu gabe / 262 laincoaren icen saindua hain deblauqui, antsicabequi eta contu guti eguinic erabiltceco usantça.*

elicitu (542) "probar gustando"⁵¹⁸ < GGero 233 *ezpaitcioen bere mahay assetic, assetcecoric eman eta ez are elicatcecoric ere / gainerako guztiak.*

erauci (63) "arrancar, desquiciar" < GGero 354 *erroetaric erauzten eta atheratcen baitu / 358 crozcan erauzten*⁵¹⁹ *eta, batez ere, 309 colerac erauciric.*

forogu (238) "enojoso" < GGero 44 *bataren eta bertcearen carga eta forogu izaitea / adib. 410 foroguaren eguitera.*

higatu (168) "corromperse" < GGero 187 *gure gorputz haur... zahartceaz higatcen eta deseguiten bada ere / adib. 280 presuna hirosac...ez ohi du begui orde anhitz higatcen.*

jolasturia (226) "eloquente" eta (310) "hablador, eloquente" < GGero 327 *guztiequin behar da izan solhasturi amoltsu eta arronter eta 339 guztiequin adisquide, arronter eta solhasturi den bat / 44 (ik. solasturia).*

cantitu (1) "ablandarse" < GGero 439 / 310 *etçara bat ere assaldatcen, eta ez ceure sosegutic cantitcen.*

lanboa (447) "niebla" < GGero 289 *iraquin hartaric ilquitcen da khe bat, lambo bat / 589 argui lambo harequin.*

mantenatu (397) "mantenerse" < adib. GGero 37 *cer moldez behar duen mantenatu, gobernatu eta...trabailatu / adib. 31 mantenatcen çuen bethiere, bere herritic campoan, cenbait guerla.*

nabarbendu (198) "descubrirse" < GGero 528 *ahalquez eta bere buruaren ez nabarbentcea gatic edo 432 [ohoina] ihesi itçal gaizca abiatcen dela; eta handic nabarmenduric, gaizqui ere heltcen dela / 434 hobendun cela nabarbenduric.*

oldartu (14) "acometer" < adib. GGero 283 *artaldeari oldartceco / adib. 46 hegaldatcera appoderatcen eta oldartcen da.*

ondicoa (339) "infelicidad" < adib. GGero 595 *ifernuan daudenec duten miseria eta ondicoa / 5 bere arrencurac, eguitecoac, coaitac eta ondicoac conta.*

permatu (95) "bastón (afirmarse en él)" < GGero 259 *bere maquillaren permatceco eta pordoinatceco / adib. 47 lo datçanac, erdi iratçartcen denean, eguiten du cenbait muguida...baina nola ezpaita asco cinez permatcen, berriz lotara bihurtcen da.*

sendagalla (663) "vanidad" < adib. GGero 261 *sendagaillaz bezala eta ohore bailliz bezala, iruamentuac ibinzeintuzte brancan / 226-7 abiatu cen laincoa...erraiten çuela sendagaillaz edo 552 contatcen baiteraue bere hauçocoei bere sendagailla.*

solasturia (46) "amigo de conversación" < GGero 44 *alferrac choil dira solhasturi handi / gainerakoak (ik. gora jolasturi).*

urthatua (52) "añejo" < GGero 93 *arraçadura urthatua / 109-110 beccatutan urthatua dagoena.*

zapatu (517) "pisar" < GGero 97 *lurraren aurizquitcea eta çapatcea / 430 harc neccatcen du, harc çapatcen du, harc bere soñuaz...tristetcen eta penatcen du edo ene beccatuec...aurizqui eta çapatu naute naicen guztia (lat. "grauatae sunt super me").*

zurruna (342) "inflexible" < GGero 181 *gaztea çalhui eta manaiucor beçain, da çaharra gogor eta çurrin / 492 lehenbician hotzqui da, çurrû da, hotz eta nagui da.*

Istilu berezia da *antsiatu* (19) "afligir": lehenago adierazi dut (§§ 2.1.1 eta 2.1.2) aukeran *antsiatsu* (GGero 546) zein agertzen diren *ez-antsiatu*-etatik bat ditugula; lehenean, irakurketa txarra egon dela eginez, adierarekin ez dugu arazorik: *beccatorea, beccatu eguin berrian, veldur ago, senticor ago eta *antsiatu ago da*. Bigarrenarentzat, berriz, honako aukera hau eskain dezaket, non *ez-antsiatu* denik ere agian antzematen ez den: *behar duçu halaber, berriz cofesatcera bihurtu. Ceren halatan etçara hala beccatutan gogortuco, eta ez, ez ansiatuco (ib. 542).*

⁵¹⁸ *Erans*-eko itzulpenaren zentzua ulertzeko, cf. *HH* "probar, frogatu... Lat. Probare, experiri" / "probar, gustando, dastatu.... Lat. Delibare, degustare"; hots, zein *probar* den adierazteko baino ez du balio alboko *gustando*-k.

⁵¹⁹ Egia da biak, *erroa* eta *crozca*, *Erans* 557an "quicio" itzulita agertzen direla, baina badirudi "arrancar" itzulpenari "nondik" kasua hobeto datorkiola, "non" kasua baino.

2.1.7. Erabilitako orrialdeak

Irizpide honek ez du balio Axular eta Landuccirekin, biok, gorago ikusi bezala, hasi eta buka erabili zituela baitirudi; *RS* eta Harrietekin bai, berriz, lehenaren kasuan guretik ezberdina —eta aldez laburragoa— zen ale batez baliatu zelako, eta bigarreanean, *HH*-an sartu ez zuena baino ez baitzuen sartu *Erans*-ean.

2.1.7.1. Refranes y Sentencias

Hitz sail handi baten etorkia *RS*-n dagoela nabaria den arren, era anitzetako arazoekin topo egiten dugu hitz baten harleku zehatza zehazteko, hots, Larramendik erabili zuen errefracua zein den erabakitzeko. Bestelako argudioek (esanahiak, adibidez) laguntzen ez digutenean, eta baita hauek eskainitako laguntza bermatzeko, kokapen hutsa erabil daiteke, ziurtasunez ezagutu zituen orriak eta ziurrenik ezagutu ez zituenen artean ezberdintasuna eginaz (§ 1.4.2).

Era honetara, hots, 1. eta 4. koadernotxoetan dauden agerraldiak bazterrera utzita, lehen harleku bat baino gehiago izan zezaketen hitzek orain gehienetan batera murriztuta geratzen dira:

arritu 386 / 52. *elicitura* 246 / 76. *ergarria* 291 / 443. *escaratza* 238 / 469. *gogoa* 398 / 63, 413, 419, 458. *ines* 243 / 422. *irunsi* 214 / 37. *quibel* 239 / 466. *laso* 344 / 88, 413. *leguez* 195 / 127, 454. *matrazua* 228 / 51, 485. *oparina* 244 / 75. *ospea* 188 / 2, 107, 507, 542. *trancarta* 272 / 49, 437. *chiroa* 314 / 3, 78, 435, 467, 493. *ceja* 253 / 33, 82. *cenxuna* 289 / 481. *cirola* 275 / 21. *zurtza* 199 / 450.

Birritan orrazketaren ondoren agerleku bat baino gehiago geratzen zaizkigu aukeran:

deunga 207, 222, 387, 440 / 96.
gudua 165, 331, 383 / 7, 21.

2.1.7.2. Harriet

Erans osatzeko, salbuespen ziur gutxi batzuekin, *FE* hiztegitxoa bakarrik, eta hartatik ere 377. orrialdetik aurrera ia bakarrik baliatu zuen, 325. orrialdearen salbuespen azpimarragarriarekin (cf. infra *onartcea*; oro har, ik. § 1.4.3). Beraz, delako hitz bat bi hiztegiaren errepikatzen denean, guztiz *FE*-koa markatu dugun mugatik aurrerakoa denean, ia ziur ezar dezakegu azken hau dela agerlekua:

achiquitu (639) < *FE* 431 / *EF* 274. *ausartatu* (79) < *FE* 394 / *EF* 274. *bacochia* (452) < *FE* 395 / *EF* 276. *birichia* (489) < *FE* 395 / *EF* 279. *eurciria* (656) < *FE* 432 / *EF* 293. *ichindia* (645) < *FE* 432 / *EF* 307. *oantzea* (446) < *FE* 389 / *EF* 315. *onartcea* (12) < *FE* 325 / *EF* 268. *saquela* (270) < *FE* 404 / *EF* 318.

2.1.8. Erabilitako zatiak

Irizpide honen arabera, errazago dateke leku beretik bi hitz hartzea, bakoitza leku batetik baino, zeren eta orrialdearen zati batean begiak berariaz jartzen direnean, aldamenekoaz ohartzeko aukera gehiago baitago, noski. Alabaina, iturrien nolakoaren arabera,

irizpidea oso era ezberdinetara gauza daiteke: (1) *RS*-ri dagokionez, errefrau berean agertzea liteke; (2) hiztegien kasuan, berriz, hiztegi-sarrera berean edo elkarren aldamenean (eta normalean ahaideak direla) agertzea; eta (3) Axularrenean, ilara bereko esanahikide zein baliokideak edo esaldi bereko partaideak izatea.

2.1.8.1. *Refranes y Sentencias*

Maiztasun handiz errefrau beretik hitz bat baino gehiago hartu zuen:

174 *diada, orbana*
220 *jazquerea, parraüa*
265 *donaria, landerra*
299 *galendu, ubera*
339 *gueidea, urgaci*
341 *jaibala, jarrugui*
367 *luparia, cidorra*
388 *alogadu, palagadu*
404 *isquilosac, meniac*
410 *biar, etzi, etziluma, etzicaramu*

Taldea are handiagotzen zaigu, agerraldi bat baino gehiago duten hitzetan haien artean bat hautatzen lehenago erabilitako argudioren batek lagun diezaigukeenean (etzanetan dagoena errefrau horretan bakarrik aurkitzen da):

210 *urena, lauzatua* (§§ 2.1.2 eta 2.1.5.2).
238 *escaratza, atartea* (§ 2.1.7.1).
239 *quibel, aldiona* (*ib.*).
242 *oneretsia, ezaya* (§ 2.1.5.2).
243 *ogena, ines* (§ 2.1.7.1).
272 *iac, erac, trancarta* (§§ 2.1.2, 2.1.5.2 eta 2.1.7.1).
344 *laso, jarrequin* (§§ 2.1.5.2 eta 2.1.7.1).
372 *leusindu, esugui* (§ 2.1.5.2).
398 *loca ibilli, gogoa* (§ 2.1.7.1).

Ikusiak ikusirik, agerraldi bat baino gehiago dugunean, errazago dirudi —ez ezinbesteko, ordea— ziurtasunez erabilitako errefrau izatea *Erans*-eko hitzaren iturria. Hauek dira kasu honetan dauden hitzak (etzanetan dagoena errefrau horretan bakarrik agertzen da; izarra dagoenean, berriz, bertakoa dela bestelako argudioez erabaki dugu):

*275 *osquia, cirola* / 288 (§ 2.1.7.1).
*279 *arecha, ecandua* / 156 (§ 2.1.5.2).
560 *seya, ucuza* / 238.

Behin, argudioak ez digu ezer argitzen, bestelako argudioak erabili eta gero geratzen zaizkigun agerraldietan, hiruretan erabil baitaiteke:

165 *azarcunza, gudua*.
331 *equix, gudua*.
383 *azarri, gudua*.

2.1.8.2. *Axular*

Antzera gertatzen zaigu: hitz jakin baten esanahia harrapatzeko esaldi batean aurrera eta atzera ibili zela ziurtasunez dakigunean, errazago dateke bertatik (eta ez beste nonbaitetik)

hartua izatea bestetan ere agertzen den hitz bat, areago biak sarrera beraren azpian jaso direnean.

Pasarte bereko bikoteak, Larramendik esanahikidetzat hartuak, bereziki onak dira argudioaren indarra frogatzeko (agerraldi bakarreko hitza etzanetan dago; izarrak, lehen bezala, agerraldia hobestera garamatzaten argudio osagarriak badirela markatzen du):

59 *sablea*, *legarra* < GGero 113.
*85 *erra*, *aihercundea* < GGero 278 (§ 2.1.6).
95 *permatu*, *bordoincatu* < GGero 259.
116 *carsoilla*, *garbala* < GGero 153.
141 *garraita*, *garceta* < GGero 153.
242 *marrantatu*, *erlastu* < GGero 426.
372 *sori*, *cilhegui* < GGero 200.
392 *notha*, *narria* < GGero 440.
394 *endrecera*, *aurquientza* < GGero 97 eta 590.
414 *errumes*, *noharroina* < GGero 232.
557 *erroa*, *üala* < GGero 45-46.
664 *nabardura*, *colore picardatuac* < GGero 93.

Alderantziz, esanahikidetzat ez hartuak ziurrenik *zapatu* (517) "pisar" eta *aurizquitu* (10) "acalcar" pasarte ezberdinetatik hartu zituela esan nahi du, eta ez elkarrekin agertzen direnetatik (GGero 97 eta 501).

Familia bereko (erdaraz zein euskaraz) hitz taldeak; nabarmenena, inondik ere, lehenengoa da:

ecaira (443) "negocio" eta *eguitecotsua* (444) "negocioso" < GGero 202
madaricatu (388) "maldecir" eta *maradicinoa* (389) "maldición" < GGero 258

Irizpidea zailago da frogatzen, eta beraz ahulagoa, esaldi edota pasarte bereko hitzek elkarren arteko beste erlaziorik ez dutenean. Haatik, egoera honetan dauden agerraldi bakarreko hitzak ez dira gutxi, eta batzuetan pilaketa esanguratsuak ere aurkitzen ditugu:

ahartara (99), *curea* (335) < GGero 342.
amitua (652), *lamitia* (295) < GGero 593.
arbuyoa (202), *gaña ta picaña* (438), *autua* (224) < GGero 181.
hezueria (327), *otz beratu* (287) < GGero 182.
garraita (141, 455), *garceta* (141), *garbala* (116), *carsoila* (116) < GGero 153.
hizmitzia (311)⁵²⁰, *elhaberritia* (453) < GGero 540.
caillutu (114), *mascurtu* (289) < GGero 90.
mahats ondar mondarrac (561), *bicorra* (290), *morcosta* (560) < GGero 173.
morrointasuna (548), *sentontasuna* (190) < GGero 63.

Hauetan oinarri harturik, baliteke ondokootan ere agerraldi aniztuneko hitzen etorkia egotea:

urthatua (52), *narria* (629), *zauri gaizcoatua* (381), *midicuntza* (408) < GGero 93.
icazbicia (72), *oinzola* (518) < GGero 397.
croscia (557), *erauci* (63), *tentua* (641) < GGero 358.
ombearra (422), *ondicozcoa* (340) < GGero 231 edo 592.
sainga (355)⁵²¹, *alhatu* (577) < GGero 426.
zalhuia (374), *manaiacorra* (394), *zurruna* (342) < GGero 181.

⁵²⁰ Honek bi agerraldi ditu, baina bigarrena lerro batzuk beherago baino ez dago.

⁵²¹ Bi agerraldi dituen arren, biak orrialde berekoak dira, baita *alha(tu)*-ren adibideekin batera agertzen orobat.

2.1.8.3. Harriet

Harrieten kasuan ere nabarmena da leku beretik *Erans*-eko hitz bat baino gehiago hartua izan dela; jakina, halako erlazioan daudenek batak bestearen iturria sendotzen dute. Bertan aurkitzen ditugun ordain biko sarreretatik batek baino gehiagok halako etorkia dute, izan ere:

144 "colchón, *cunchoiña, matelasa*" < FE 383 "matelas, *cunchoiña, matelaça*".
169 "cosecha, *uztailla, biltzapena*" < FE 420 "saisons, *ustailac, bilçapenac*".
491 "aparte, *berech, beregain*" < FE 397 "à part, *berech, beregaiñ*".
510 "permisión, *haizugoa, cilleguigoa*" < FE 400 "permission, *haiçuhua, cilheguigoa*".

Familia bereko hitzez osatutako sarrera bikoitzetatik eta elkarren aldameneko sarrera bikoteetatik aniztetan orobat agertzen da:

"satisfacer, *asquiets*" (593), "satisfecho, *asquietsia*" (594) < FE 421 "satisfaire", "satisfait".
"vigor, *azcartasuna*" (674), "vigoroso, *azcarra*" (675) < FE 437 "vigueur", "vigoreux".
"desconfiado, *fidagaitza*" (195), "desconfianza, *fidagaiztasuna*" (196) < FE 384 "méfiant", "méfiance".
"poema, *globac*" (522), "poeta, *globaria*" (523) < FE 405 "poëme", "poète".
"passear, *ibilcatu*" (498), "paseo, *ibilcuntza*" (499) < FE 409 "se promener", "la promenade".
"preferencia, *lencuntza*" (532), "preferir, *lencatu*" (533) < FE 407 "préférence", "préferer".
"matanza, *sacailla. Hacerla, sacaillatu*" (405) < FE 383 "massacre", "massacrer".

Baita Harrieten hiztegian elkarren aldamenean agertzen diren eta nolabaiteko esanahi erlazioa duten hitzetan ere:

"comer demasiado, *chiflatzea*" (149), "comer con gusto, *ñaflatzea*" (150) < FE 382 "manger par excés", "manger avec goût".
"faltriquera, *saquela, chiscua*" < FE 404 "poche, *saquela*", "pochette, *chiscua*".
"libertad, *escudencia, lachoa*" < FE 379 "il est en liberté", "liberté".

Antzeko zerbait esan liteke bikote jakin bat osatzen duten ondoko hitzei buruz, elkarren aldamenean iturrian bakarrik agertzen badira ere (baina hauxe da, hain zuzen, irizpideari oinarri ematen dion ezaugarria):

"nones, *bacochia*" (452), "pares, *birichia*" < FE 395 "paire, pair", "impair".

2.1.8.4. Landucci

Landuccik egiatan oso aukera gutxi eskaintzen digu irizpidea frogatzeko; izan, bada halako bat, dena dela: *piztia* (82) "ave" hainbatetan agertzen da hiztegitxoan:

"cresta de aue, *pistian crestea*" (252v), "francolin aue, *francolina, pistia*" (275v), "molleja de aues, *corrinco pistiana*" (294r), "nidial de aues, *pistian afia*" (296v), "oxear aues, *pistiac oxeadu*" eta "oxeo de aues, *pistiâ osça*" (299v), "pico de aue, *pistian picoa*" (304r).

Berez denak egokiak direnez gero, lantzen ari garen irizpidea erabiliz esan liteke aukera gehien lukeena "molleja de aues" sarrera izango litzatekeela, bertatik "molleja, *corrincoa*" (424) hartu zuelako. Halaz ere, errealitatea burugogorra da: Agud & Mitxelena 1958ko argitalpenean, oharkabeen, 238. folioaren aurrealdea ez zen sartu (Knörr & Zuazo 1998: 15); bertan "aue, *pistia*" sarrera dugu, hiztegitiko lehen agerraldia eta, bere bakunean, agerleku erraz eta ziurrena, esan gabe doa.

2.2. Iturri bat baino gehiago

Erans-aren azterketaren zalantza-iturrietatik teorikoki interesgarrienetako bat dugu hau: 72 hitz iturri ezagunetatik bitan agertzen dira, eta are hiru eta lautan inoiz. Batzuetan, dena dela, benetako iturriari hain argia iritzi diote gure aitzindariak, non beste lekukotasunak begiratu edo eskaintzeko lana ere ez baitute hartu; bestetan, haien artean erkatu dituzte, irizpide ezberdinen arabera iturritasuna erabakiz; eta, azkenik, hondarretan, iturri gaien aldeko eta kontrakoak erakutsi ondoren, zalantzarekin jarraitzen dutela aitortu behar izan dute.

Argudioak, oro har, aurreko atalean erabili ditugun berberak dira, eta hirutan bana daitezke: formazko argudioak (hots, hitzaren itxura eratzen dutenak: grafia, morfologia, etab.), esanahizko argudioak eta hitzaren kokapenari (non eta zeren aldamenean agertzen den) dagozkionak.

Mitxelenak, oraindik hiru iturriekin baino jokutzen ez zuenez gero, lehen bi argudio motak baliatu zituen batez ere; ikus dezagun adibide bana:

huruna (315) "harina" < *RS 287 hurunic* "harina" / *Lcc uruna* "harina", hots, grafia vs itzulpena.
elicatu (542) "probar gustando" < *GGERO 233 elicatcecoric* (§ 2.1.6) / *RS 57 elicatuco* "mantener me he", hots, itzulpena vs forma.

Lakarrak ere, Harriet iturri berriarekin topo egin zuenean, ez zuen zalantzarik izan antzeko argudioen argitara haren alde erabaki zitezkeen hitzak bereizteko; adibidez:

escudencia (370) "libertad" < *Ht escudencia* / *Ax escudantcia*.
bipildu "pelar" (502) < *Ht bipildu* "peler" / *Ax bipiltce*- testuinguru ez argikoa.

Alabaina, Lakarraren aurkikuntzak lehen ziren auzien kopurua ikaragarri emendatu zuen, Harrietek beste bi iturriek —eta guztiz ere Axularrek— dakartzaten hitz asko bere baitan baititu. Honek eragin du —testuen arteko erlazioen kezka teorikoaz gainera— forma eta esanahi hutsezko argudioez bestelakoak saia ditzan.

Lehen argudio berria, goian aipatu kokapenarena da. Berak erakutsi digu nolako onuraz saia daitekeen, batez ere Harrieten iturritasunaren alde egiteko orduan; adibidez, *asquietsi* "satisfacer" (593) eta *asquietsia* "satisfecho" (594) elkarren aldamenean agertzen diren Harrieten "satisfaire, *asquiestea*" eta "satisfait, *asquiexia*" sarrerez azaldu ditu, Axularren *asqui estendu* (*GGERO 114*) agerraldi bakar eta, apika, iluna arbuatuaz.

Bigarren argudio berria, edo bederen lehenengoz orokorrean ezarria, esapideena da. Lakarrak (1991: 248) erakutsi bezala, Axularrek hainbat kasu argi eskaintzen dizkigu "ez hitz soilta baina esamoldea edo testuingurua ere, inoiz 'erran komun'en bat edo Harrieten hiztegieta ezin jaso zezakeen aditz formaren bat jasotzen duenean":

adisquide mamia (45), *orain bereon* (53), *bere buruari alhaturic* (119), *larru arras* (120), *ambatic ambatean* (135), *berceac berce direla* (193), *cinqui ta finqui* (209), *berra naiduena* (211), *ceneraque* (212), *gaña ta picaña* (438), *fin gaitz eguiñen duc choria*, *baldin gaztedanic ezipadaguic cafia* (446), *herguidiqui bat* (467), *urrinzatua ibilli* (469), *Jaincoari ailliotza*, *liren asco* (558), *mahats ondar mondarrac* (561), *biotzaren ucaldia* (570), *jaquizu* (591), *eguzquiz eguzqui* (612), *bere arauaz* (630), *nabardura*, *colore picardatuac* (664).

Berak bildutakoei besteren bat erants dakioke: *zauri gaizcoatua* (381), *euzu* (636) eta *beu* (637). Gainera, argudio bera erabil daiteke *RS*-n ere: *iquedac ta diqueada* (185), *diada* (186), *ïac* (319).

Hirugarren argudio berria, "hiztegien lehentasuna" dei dezakeguna da. Oro har, badakigu hiztegiak direla hiztegitileen iturririk gogarakoenak, hitzak txukunki ordenatuta, biluzik (atzizki eta bestelako behaztopagarririk gabe) eta hiztegi berrian azkar aski eransteko parada ematen duen itzulpenaz edo azalpenaz hornituta baitatoz. Lakarraren hitzetan:

badirudi hainbat eta aukera gehiago dukeela *Hiztegi Hirukoitz*-eko *Eranskin*-eko hitz batek ez testu batetik, *RS* zein Axularrengandik, hartua izateko —bestelako, hots, formazko edo semantikazko irizpiderik ez denean— zenbat eta Larramendik hura erabiltzeko behar, presa, edo beta gehiago izan. Alegia, bereizi egin behar da soilik behin, hiztegiatarik batean, adibide ez eratorririk gabe datorren Harrieten Hiztegiatako litekeen kide (ez-hapax) baten eta H-en bi hiztegiatan, sarrera bat baino gehiagotan, eta, oraindik hobe, Larramendik hitz horri eman dion gaztelerazko itzulpenaren frantsesezko kide formalean, erabilera adibide eta zenbait eratorriekin inguratua den beste baten artean. Nabarmena iruditzen zait honelakoetan hiztegi batek edozein testuren aitzinean duen azalpen boterea (Lakarra 1996a: 32).

Irizpide honen fruituen ale eder bat baino gehiago utzi digu; cf., adibidez, *billacatu* "arruinar" (66), inondik ere Harrieten "ruiner, *billaquatcea*" (*FE* 419) sarreratik hartua, hiztegi bien forma eta esanahizko kidetasunaren aldamenen deus gutxi baitira Axularren pasarteak. Azkeneko lanean (1996a: 42), irizpide bera Landuccirekin ere baliatu du;⁵²² esate baterako, *inurria* "hormiga" (323) azaltzeko, *RS* 183 eta 326ko lekukotasunek Landucciren "hormiga, *ynurria*" (281v)-ren aurrean "amore eman behar dutela" erabaki du.

"Hiztegien lehentasuna" irizpideak balio orokorra du, eta zeharo erabakigarria, hiztegi hiztegi kopiatetan, den hiztegia elebakarra, den eleaniztuna. Har dezagun *HH* bera adibidetzat. Hiztegi osoa izan nahi luke (hots, hizkuntzaren hitz guztiak-edo jaso), eta asmo horrekin *input* trinko bat (*DAut*) aukeratzen du, eta jarraitzen, era batera edo bestera gero xede-hizkuntzaren hitzez beteaz joateko. Edozeinek uler dezake hiztegitileen zorabioa, erdal hitzezko etenik gabeko zerrendak, eskuinaldea txuri-txuri dutela imajinatze hutsarekin. Larramendik izugarri eskertuko zukeen mahai gainean lehenagoko hiztegiaren bat izatea, ia automatikoki hainbat sarrera begi-kolpe hutsez beteta izango baitzituzkeen. Bide erraz horretara sarrera batzuk, asko edo gehienak (iturriaren luze-laburraren arabera) konponduta, bere esku zegokeen —bere xede edota zintzotasunaren gain— oro har hiztegia haboro osatzea ala txuri geratutako ordainen bila bakarrik abiatzea.

Baina irizpide hau ez da halako hiztegi handien kasuan bakarrik nahitaez erabiltzekoa. Hiztegi txikitxo bat egin nahi lukeenak ere, handiago baten sarreren artean aukeratu, esaterako, inork arbuatuko ez liokeen obra txukun bat era lezake. Antzerako zerbait esan daiteke, edozeinen eskura dagoen adibide bat ekarriaz, Añibarroren hiztegiari buruz: ahozko osagai aberatsa duela nabarmena den arren, hiztegiaren ardatza, argi eta garbi, *HH*-tik

⁵²² Antza denez, hasierako lanetan (cf. adibidez 1993: 93, 13. oh.) honen azalpen botereaz zeukan zalantzak uxatuaz.

hautatutako sarrerek osatzen dute eta inon baino lehenago bertan bilatu beharko da, beraz, hitzen etorkia (cf. Urgell 2000e).

Alabaina, zehatz mintzatuz, *Erans* ezin da hiztegitzat hartu: ez du hizkuntzaren hitzen erakusgarri (handi zein txiki, orokor zein berezitu) izan nahi. Ez du alde aurretik finkatutako betebeharririk. Aitzitik, egileak interesgarri zeritzen hitz bakan batzuk baino ez zituen bildu; izenik egokiena, beharbada, "glosario" izango litzateke, izen honen bitartez aliritzira aukeratutako hitz jakingarri batzuen azalpena baino eskaintzen ez duen zerrenda adieraziaz, hain zuzen.

Izenak izen, hitzak begiz jo ahala apuntatzea (eta itzultzen / azaltzen saiatzea) baino eskatzen ez duten era honetako lexikografi lanetan gutxienez, "hiztegien lehentasuna" irizpidea tentuz baino ezin da erabili eta, Lakarrak azpimarratu bezala, forma edo esanahizko irizpideek —oinarrizkoenak inolaz ere— zeresanik ez dutenean bakarrik. *Erans*-aren osaketaz dakigunagatik, herriaren ahotik entzundako hitz zenbait jasotzeaz gain, lau iturri idatzi ezberdin —agian bost— biluzi zituen. Esan gabe doa biluzketa banan-banan egin zuela, hots, ez zela iturrietara erdal hitz jakin batzuen bila joan, ez zuela *Erans*-ean agertuko zenari buruz aurreiritzirik: iturriak irakurri ahala, eta euskal hitz interesgarriak kausitu ahala ehotuaz joan zen *HH*-aren eranskina, ziurrenik bakoitzerako gero bildu eta ordenatuko zituen zerrenda ezberdinak eginez. Beraz, formaz eta esanahiaz gainteko argudio orokor baliagarri bakarra iturrien kronologia izango litzateke. Berpasa dezagun gorago erabilitako adibide bat: forman eta esanahian zeharo bat datozen Landucciren *ynurria* eta *RS*-ko *ynurria*-ren artean, bietan "hormiga" itzulpena datorrela, hautatzeko irizpidea ezin da "hiztegien lehentasuna" izan, zeren eta erabakigarri diren bi gertakari alde batera uzten baititu: kronologia eta itzulpena. Hiztegiak ez dira —ongi dakigu— *Erans*-aren iturrien artean itzulpena eskaintzen duten testu bakarrak, eta itzulpenaren aldetik ziurrik baldin bada *RS* da, hain zuzen. Hau lehenago irakurri bazuen, demagun, bertatik eta inolako oztoporik gabe har zezakeen "hormiga, *inurria*" sarrera, eta hala izan balitz, Landuccik bermatu baino ezin ziezakiokeen egin lehenengo iturriak eskainitako berria.

Beraz, asmatu ahalko bagenu zein izan zen iturriak biluzteko Larramendik jarraitutako ordena edo, hobeki esanda, *Erans* osatzeko jarraitutakoa, berdintasunezko kasuetan (*inurria*-n, adib.) edota oso zalantzazkoetan (hautagai bietarako alde eta kontrako argudioak ditugunean) honexek argudio erabakigarria eskainiko liguke. Egin dudan saioan (§ 1.5) antzemandako zantzu ttikiak egiazkoak balira, ordena hura 'RS-Axular-Landucci-(Iparraldeko iturri ezezaguna)-Harriet' izan liteke: *inurria*, beraz, *RS*-tik hartua izango litzateke, baita beste hitz asko ere Axularrengandik, eta ez Harrietengandik.

Dena dela, hain uzkur begiratu behar zaion saio hura, hain baldintza eskasetan, hain datu gutxi eta aldakorretan oinarritutako saioa, ez dut nik hemen argudiotzat erabiltzeko inolako asmorik. Zilegi izan bekit, ordea, Axular-Harriet hurrenkera kronologikoaren aldeko datu berri zenbait eskain daitezkeela —eta halaxe egingo dut beherago— uste dudala esatea.

Hiztegien irizpideak balio ez digula eta kronologiak ziurtasunik eskaintzen ez duela ikusita, hasiera-hasieran aipatutako irizpide ziurretara (forma, esanahia eta kokalekura)

bihurtuko gara ondoko azterketan argi bila; zeren eta bai baitirudi zenbait auzitan Lakarrak esanguratsu izan daitezkeen iturrigaien arteko ezberdintasunak “hiztegien lehentasunaren” izenean berdindu eta laundu dituela.

Argiena aipatzearen, zalantzazko kasuetan itzulpenaren irizpidea norabide batean bakarrik erabili du, *Erans*-etik iturrira, alegia: iturriak *Erans*-eko lekukotasunarekin bat ez datozenean, berdinketa dagoela erabakitzen du eta, esan gabe doa, hiztegiaren alde makurtzen. Alabaina, gogoan izan behar dugu Larramendik iturrietako itzulpen ageriak (gutziz Harriet eta Landuccirenak) fideltasunez gorde ohi zituela. Oso egoera berezian baino (nahasgarri izan zitekeenean, hain zuzen), ez zituen aldatu. Beraz, batetik, *Erans*-eko itzulpena iturrikoekin bat ez etortzea iturri itzulpendunaren kontra doa. Gogoan izan, halaber, Axularren hitzen itzulpenarekin arazo larriak izan zituela edo, bestela esanda, itzulpenik gabeko testuak aukera gehiago eman ziola ezinbestean, aldamenen zituen baliabideen bitartez (testuinguruaz, sinonimoez, etab.) hitza bere kasa interpretatzeko. Beraz, bestetik, *Erans*-eko itzulpena iturrikoekin bat ez etortzea, itzulpenik gabeko testuaren alde doa.

Gauzak honela, taula bat eratuko dut, zalantzazko hitzek iturrigai bakoitzean aurkezten duten itxura, itzulpena eta kokalekua alde (+) edo kontra (-) dagoen markatuaz, baita Lakarrak emandako epaia ere.⁵²³ Taulan era guztietako gertakariak sartu ditut, bai Mitxelenak hasieratik askatu eta denok onartzen ditugunak, baita orain artean oharkabean igaro diren edota arazotzat hartu izan ez direnak ere, ondoren taiu bereko gertakariak denak batera eta elkarrekin azaltzen saiatzeko. Beherago egingo dudan iruzkinaren arabera, izarraz markatzen ditut Lakarra eta biok ados gaudenekoak:

	forma		itzulpena		kokalekua		Lakarrak
<i>ayerua</i> (Ax/Ht)	+	+	+	-			Ax*
<i>aisia</i> (Ax/Ht)	+	+	+	-			Ht
<i>amoranteac</i> (Ax/Lcc)	+	+	-	-			Ax/Lcc
<i>ambatic ambatean</i> (Ax/Ht)	+	+	+	-			Ax*
<i>arbuyoa</i> (Ax/Ht)	+	+	+	-			Ax*
<i>arlota</i> (Ax/RS)	-	+	?	+			RS*
<i>arranta</i> (Ax/Ht)	+	?	-	?			Ht
<i>arrantatu</i> (Ax/Ht)	+	+	-	-			Ht
<i>arrontera</i> (Ax/Ht)	+	+	+	-			Ht
<i>asquietsi/-a</i> (Ax/Ht)	+	+	+	+		+	Ht*
<i>aspertu</i> (Ax/RS)	+	+	?	+			RS*
<i>auhena</i> (Ax/Ht)	+	+	?	+		+	Ht*
<i>auhendu</i> (Ax/Ht)	+	-	?	+		+	Ht*
<i>aztura</i> (Ax/Ht)	+	?	+	?			Ht
<i>baya</i> (Ax/RS/Lcc/Ht)	- - + -		+	+	+	+	Ht(Lcc?)*
<i>baraz</i> (Ax/RS)	-	+	-	-		-	RS*
<i>belarra</i> (Ax/Lcc/Ht)	? + +		? + +		+	+	Lcc/Ht*
<i>beregain</i> (Ax/Ht)	-	+	-	+		+	Ht*

⁵²³ 1993ko laburpena baliatu dut nagusiki; parentesi artean 1996a-ko zuzenketak adierazten ditut.

<i>bezala</i> (Ax/Ht)	+	+	+	+		-	?*
<i>biar</i> (Ax/RS)	+	+	+	+		+	RS*
<i>billacatu</i> (Ax/Ht)	+	+	?	+		+	Ht*
<i>bipildu</i> (Ax/Ht)	+	+	?	+		+	Ht*
<i>dilistea</i> (RS/Lcc)	-	+	+	+	-		Lcc*
<i>eguzaria</i> (Lcc/Ht)	+	+	?	?			Lcc/Ht(Ht?)
<i>elicatu</i> (Ax/RS)	+	+	?	-			Ax*
<i>eredua</i> (Ax/Ht)	+	+	+	-			Ht
<i>eregui</i> (RS/Lcc)	-	+	+	+	-		RS/Lcc(Lcc)*
<i>ernetasuna</i> (Ax/Ht)	+	+	+	-			Ax*
<i>escudencia</i> (Ax/Ht)	-	+	+	+		+	Ht*
<i>esleitu</i> (Ax/Ht)	+	+	+	-			Ht
<i>estacurua</i> (Ax/Ht)	+	+	+	+		+	Ht*
<i>estalguna</i> (Ax/Ht)	?	+	+	-			Ax*
<i>eciña</i> (Ax/Ht)	+	+	+	-			Ht
<i>ecindu</i> (Ax/Ht)	+	+	+	-			Ht
<i>ezceria</i> (Ax/Ht)	-	+	?	+		+	Ht*
<i>galtzapena</i> (Ax/Ht)	+	+	+	+	+	+	Ht
<i>gardia I</i> (RS/Ht)	+	?	-	+	+	+	Ht
<i>gardia II</i> (RS/Ht)	+	?	?	-	+	-	Ht*
<i>guertza</i> (Ax/RS)	-	+	?	+			RS*
<i>gogara</i> (Ax/Ht)	+	+	+	+		-	Ax*
<i>gogoa</i> (Ax/RS/Ht)	+++		- + -				?
<i>gogoetatsua</i> (Ax/Ht)	+	+	+	+		+	Ht
<i>gudua</i> (RS/Ax/Ht)	+++		+ - -				RS*
<i>higatu</i> (Ax/Ht)	+	+	+	-			Ax
<i>higuitu</i> (Ax/Ht)	+	+	+	-		+	Ht
<i>hildumatu</i> (Ax/Ht)	+	+	+	+		+	Ht
<i>iltura</i> (Lcc/Ht)	?	?	+	-		-	Ht
<i>inurria</i> (RS/Lcc)	+	+	+	+			RS/Lcc*
<i>ipirdia</i> (RS/Lcc)	+	+	+	+	?	+	RS/Lcc*
<i>istupa</i> (Ax/Ht)	+	+	+	+		-	Ht
<i>jarriquia</i> (Ax/Ht)	-	+	?	-			Ax
<i>contracarra</i> (Ax/Ht)	+	+	+	+		+	Ht*
<i>landerra</i> (RS/Ht)	+	+	+	+	+	+	RS*
<i>lapicoa</i> (RS/Lcc/Ht)	+++		+ ? +		- + +		RS/Lcc(Lcc)
<i>laoa</i> (Ax/Ht)	+	+	-	+		+	Ht*
<i>marruscatu</i> (Ax/Ht)	+	+	+	-		-	Ht
<i>mindeguia</i> (Ax/Ht)	+	+	+	+		+	Ht
<i>mingrana</i> (Ax/Lcc)	+	?	+	+			Ax/Lcc
<i>mintea</i> (RS/Lcc)	+	+	-	-			
<i>nabarbendu</i> (Ax/Lcc)	+	+	+	-			Lcc
<i>narrioa</i> (Ax/Ht)	+	-	+	-			Ax*
<i>notha</i> (Ax/Ht)	+	+	+	-			Ax*
<i>ogena</i> (RS/Ht)	+	?	+	-			RS*
<i>oin-hatza</i> (Ax/RS)	+	-	+	+			Ax*
<i>ondicoa</i> (Ax/Ht)	+	+	+	-			Ax*
<i>opilla</i> (Lcc/Ht)	?	+	+	-			Ht (Lcc?)*
<i>orcuya</i> (Ax/Ht)	+	-	+	+			Ax*
<i>ocenqui</i> (Ax/Ht)	?	+	+	?			Ht

<i>pedazatu</i> (Ax/Ht)	+	-	?	-			Ht
<i>segada</i> (Ax/Ht)	+	+	+	+		+	Ht?
<i>huruna</i> (RS/Lcc)	+	-	+	+			RS*
<i>uzcurtu</i> (RS/Ax)	+	+	+	-			RS*
<i>zapatu</i> (Ax/Ht)	+	+	+	-			Ax*
<i>cilhegui</i> (Ax/Ht)	+	+	+	+			Ax*

2.2.1. Forma erabakigarri

Esanahi berdintasuna dagoenean, formak du hitza. Honela, eta zalantzarik gabe, erabaki diren auziak honako hauek dira:

- arlot* (521) "pobre" < RS 329 *arlot* "pobres" / Ax 262 *arlot*.
baraz (511) "perezoso" < RS 9 *baraz* "espaciosamente" / Ax *baratz*. Nahiz kokalekua eta itzulpena RS-ren kontra doazen, grafiak (§ 1.1.6.4) erakusten digu ziurrenik galdutako zatian beste agerraldi bat bazela.
dilistea (364) "lenteja" < Lcc *dilistea* "lenteja" / RS 50 *tilista* "lenteja". Kokalekua ere kontrari leuak errefraua bildumak.⁵²⁴
eregui (367) "levantar" < Lcc *eregui* "leuantar" / RS 79 *erigui* "leuantar" (gainera, ezagutzen ez bide zuen orrialdea da).
guertza (614) "sombra" < RS 371 *guerza* "sombra" / Ax *guerça*. Huts bateratzailea da, beharbada iturritasuna ezartzeko eman daitekeen argudiorik indartsuena; bestalde, <rz> : <rtz> aldaketa normala da (§ 1.1.6.1).
oin-hatza (516) "pisada, vestigio" < Ax *oin-hatza* / RS *oñaça* "pisada".
orcoya (280) "forma, manera" < Ax *orcoiera*, *orkhoia* / Ht *orkheia* "forme".
huruna (315) "harina" < RS 287 *hurunic* / Lcc *vruna*.

Are nabarmenagoa da esanahia iturri batean xeheki aurkitzen denean:

- beregain* (491) "aparte" < Ht *beregaiñ* "à part" / Ax *beregainqui*.
escudencia (370) "libertad" < Ht *escudencia* "liberté" / Ax *escudantcia*.
ezceria (423) "miseria" < Ht *ezceria* "misere" / Ax *laceria*.

Irizpide beraren arabera erabaki beharko lirateke, nik uste, honako hauek ere:

- baya* (534) "prenda" < Lcc *vaya* "prenda" / RS 523 *bayla* "prenda muerta", Ax *bahi* eta Ht *bahia* "gage"; <v> : aldaketa normala den bitartean (§ 1.1.2), ez dugu <BhiB> : <y> aldaketaren lekukotasunik (§ 1.1.1). Kokalekua, bide batez, bai RS bai Harrieten kontra doa.
mingrana (299) "granado, a" < Ax *mingrana* / Lcc *mingrana*, iturrietako -ea bukaera gordetzeko zeukan ohiturarengatik (§ 1.2.1).

Badira, bukatzeko, ene aitzindariak era batera erabaki eta nik, irizpide hau dela eta, bestera egingo nituzkeen pare bat hitz:

- jarriquia* (161) "continuo" < Ht *jarriquia* "assidu" eta "diligent" / Ax *iarraiqui*. Forma Harrieten dela ez dago zalantzarik; itzulpen ezberdintasunerako, cf. *HH* "assíduo, continuo, véase". Gauzak honela, kokalekua ezohikoa izateak ez luke oztopo izan behar.
pedazatu (203) "despedazar" < Ax *pedaçatua* / Ht 402 *pedechatcea* "rapiecer". Axularren testuko hitzen esanahiaren beste interpretapen txar baten aurrean gaude.

2.2.2. Esanahia erabakigarri

Forma berdintasunaren aurrean, nabarmena da itzulpenak duela erabakitzeko gaitasuna. Halaxe epaitu dira ondoko kasuak:

⁵²⁴ Halaz ere, gogoratu behar da osorik ongi irakurtzen ez den *dilist[.]ia* dagoela Oihenartek gordetako RS 543an.

ayerua (602) "seña, amago" < Ax *aierua* eta *ayerua* / Ht *aierua* "sopçon".
ambatic ambatean (135) "caeteris paribus" < Ax *hanbatic hanbatean* "caeteris paribus" / Ht *EF*
 300 *hambatic hambatean* "tant pour tant".
arbuyoa (202) "deshecho, sobras" < Ax 181 *arbuyoac* / Ht *arbuyoia* "mépris".
auhena (625) "suspiro" < Ht *auhena* "sourir" / Ax *auhena*, interpretapen anbiguokoa.
billacatu (66) "arruinar" < Ht *billaquatcea* "ruiner" / Ax *bilhacatu*, interpretapen anbiguokoa.
bipildu (502) "pelar" < Ht *bipilcea* "peler" / Ax *bippiltce*- (bestelako itzulpena eragingo zukeen).
elicatu (542) "probar gustando" < Ax 233 *elicatcecoric* / RS 57 *elicatu* "mantener", gainera
 kokapen ezinezkoa.
ermetasuna (345) "inspiración" < Ax 105 *ermetasun* / Ht *ermetassuna* "vigilance".
gogoa (506) "pensamiento" < RS 398 *gogoa* "pensamiento" / Ax *gogoa* eta Ht *gogoa*
 "délibération", "volonté".
gudua (303) "guerra" < RS *gudu*- "guerra" / Ax eta Ht *gudua* "combat".
higatu (168) "corromperse" < Ax 187 *zahartceaz higatcen eta deseguiten* / Ht *higatcea* "user".
lacho (370) "libertad" < Ht *lachoan* "en liberté" / Ax *lacho* (izenondoa).
mintea (40) "amargura" < Lcc *mintea* "amargura" / RS 169 *mintea* "la peste".
nabarbendu (198) "descubrirse" < Ax *nabarbendu* / Lcc *navarbêdu* "publicar".
notha (392) "mancha" < Ax *notha* "macula" / Ht *notha* "tâche".
ondicoa (339) "infelicidad" < Ax *ondicoa* / Ht *ondico gogorra* "misere".
opilla (103) "bollo" < Lcc *ogui opila* "bollo de pan" (<il> : <ill> aldaketaz ik. § 1.1.7) / Ht *opilla*
 "masse", *odol opilla* "masse de sang" (biak jarraian).
uzcurtu (20) "agacharse" < RS 251 *uzcur* "agachas" / Ax *uzcur* "curva".
zapatu (517) "pisar" < Ax *çapatce*- / Ht *çapatcea* "presser entre les mains".

Adibideen ugariak zilegi egiten du, nik uste, irizpide berari jarraiki Lakarrak
 Harrietengandikotzat hartu dituen hainbat hitz benetan Axularrenak direla egiteko. Kasurik
 argienak ondoko hauei deritzet, denetan Harrieten itzulpenek ez baitute *Erans*-ekoarekin erlazio
 zuzenik eta bai aldiz *GGero*-ko latinak, euskal kideak edota testuinguruak:

aisia (464) "ociosidad" < Ax 42 *aisia* "otium" / Ht 417 *aisia* "repos".
esleitu (603) "separar" < Ax 242 *esleituric* "bereciric" / Ht *esleitcea* "indiquer", "instituer",
 "ordonner".
higuitu (413) "menearse" < Ax adib. *ohean higuítcen da* / Ht *higuitcea* "mouvoir".
marruscatu (26) "ajar", (264) "estregar, ajar" < Ax 41 *baldin* [hasuiña]...*balacuz beçala hazcatcen*,
ferecatcen eta erabiltçen baduçu, erreco çaitu: baiña ez nabasiçui eta ausarçui hersten eta
marruscatcen baduçu / Ht *marrusquatcea* "froter".

Ondoko hitzak, berriz, esanahia ere garrantzitsua delarik, *Erans*-eko formaz geure
 buruei galde diezaiegula eskatzen du:

eredua (157) "conformidad" < Ax adib. 596 *manamendu sainduen arauaz, eta ereduz mantena*
rendilla / Ht *eredura* "selon, suivant".

Izan ere, *Erans*-eko esanahia *GGero*-ko testuinguruarekin ezin hobeki datorrela argia
 izateaz gain ("en conformidad con..."), ohartu beharko genuke hitza, atzizkiz biluztekotan,
 errazago egingo zukeela testutik, ezen ez argi eta garbi postposizio modura aurkezten eta
 itzultzen duen hiztegitik.

Taiu bereko auzia eskaintzen eta, nire ustez, taiu bereko askapena eskatzen duten bi
 hitz familia aztertu behar ditugu orain:⁵²⁵

arranta (471) "ordinario, común", *arrantatu* (18) "adocenar", (155) "hacer común", (393)
 "mancomunar", *arrantera* (154) "común", (471) "ordinario, común" < Ax *arrant* "muy", *arrantatu*
 "segar" eta *arrantera* "común, ordinario" / Ht *arronqui* 424 "simplement", "sobrement",
arrantassuna "sobrieté", 414 *arrantatcea* "razer" eta *arrantera* "laïque", 424 "simple", "sobre".
eciña (332) "impotencia, inhabilidad", (333) *ecindu* "impotente, inhâbil" < Ax *ecina* "impotencia",
ecindu "imposibilitado" / Ht *eciña* "impossible", *ecindua* "incapable".

⁵²⁵ Frogatu nahi dudana argiago ipintzeko, Axularren hitzetarako Villasantek *AxH*-an eskainitako
 itzulpenaz baliatzen naiz bi familietan.

Lehenengoari dagokionez, Harrieten kontra dudana betikoa da, hots, ez duela behin ere *Erans*-eko itzulpena iradokitzen; Axularrengan, berriz, *arrontera*-rena oso adibide argian kausi dezakegu (GGero 417 *Erregue vezti bedi oihalic hoberenaz: aitonen semea erdicoaz, eta neccaçalea arronteraz*); baliteke, beraz, bestetan bezala (§ 1.3.4.h) familia guztia kide baten arabera itzuli izana.

Bigarrena oraindik argiagoa iruditzen zait: Harrietek ez du *eciña* azaltzeko gaitasunik; *ecindu*-ren izena, bere hiztegian, *ecindura* "incapacité" da, eta biak elkarrekin azaltzen dira, *eciña* aurreko orrialdean, hitz asko tartean dituztela, agertzen den bitartean; Axularrek, berriz, pasarte luze bezain argi batean (GGero 176-178) eskaintzen dizkigu bi hitzak; ikus dezagun adibide bana: *Çahartasuneco pairua eta pairatcea, ecina da, eta ez pairua* (176) eta *çahar ecindua* (178).

Amaitzeko, forma iturri guztietan ezberdina, baina esanahia argi eta garbi bakar baten alde mintzo den kasua ikusi behar dugu:

iltura (44) "amortecimiento" < Lcc *iltua* "amorteçimiento" / Ht *hildura* "appesantissement" (<h> desagertzea normala da, baina <ld> : <lt> bihurtzea, ia ezinezkoa; ik., erreferentzia gisa, § 1.2.5.3.b).

Landucciren alde formazko argudioa ere erabil daiteke, dena dela: testu honekin egindako huts anitzen artean honek beste makilatxo bat baino eskatzen ez duen errata erraza izateaz gainera, gazt. *-miento*-k eusk. *-tura* atzizkia bazegoela ikusarazi ziezaiokeen, edo egon behar zuelakoan berariaz zuzendarazi (§ 1.2.7.3).

2.2.3. Forma eta esanahia iturri baten alde

Balirudike sail honetan koka daitezkeen hitzek ez liguketela inolako arazorik eman behar. Ikus dezagun adibide bat:

ogena (237) "engaño" < RS 243 *ogenic* "engaño" / Ht *hoguena* "crime".

Aitzitik, bada zer eztabaidatu, Lakarrak egin interpretapenarekiko bederen:

aztura (171) "costumbre" < Ax 396 *aztura* "mores" / Ht *haztura* "usage", *hazdura* "coûtume".
gardia (215) "dictamen" < RS 393 *gardia* "pareçer" (cf. *HH* "parecer, dictamen"; aldaketak aditzarekin ez nahasteko egina dirudi) / Ht *gardiacorra* "fidèle pour tenir le secret", "sérieux", *gardiacorqui* "sérieusement".

Bigarrenak ez du iruzkin gehiago merezi, nik uste. Lehenari dagokionez, ohartu "usage" sarreratik Larramendik *oitza* (686) "uso" hartu zuela; balirudike, beraz, elkarrekin agertzea argudio ona izango litzatekeen bezala, ez agertzea, hain zuzen, Harrieten iturritasunaren kontrako argudio sendoa dela. *hazdura* > *aztura* aldaketa agian ez litzateke ezinezkoa izango, baina inondik ere hitza Axularrengandik hartu zuela suposatzea baino askoz garestiagoa.

2.2.4. Berdinketak

Forma eta esanahia bi iturrietan berak direnean, bataren alde ebaztea oso zaila da. Alabaina, hauxe da hain zuzen kokapenaren irizpide apalak bere betebeharrak erakuts dezakeen unea; honako hauetan ez dago inolako eztabaidarik:

asquietsi (593) "satisfacer", *asquietsia* (594) "satisfecho" < Ht *asquiestea* "satisfaire", *asquiexia* "satisfait" (elkarren aldameneko sarrerak) / Ax *asqui esten*.
biar (400) "mañana" (*etzi*, *etziluma* eta *etzicaramu*-z lagunduta) < RS 410 *biar*, *ezi*, *eziluma*, *ezicaramu* / Ax eta Ht *bihar* "demain".
contracarra (470) "oposición" (eta *contracartu* "oponerse") < Ht *contraca[r]tcea* "opposer", *contracarra* "opposition" (elkarren aldameneko sarrerak) / Ax *contra-carra* eta *contra carrean*.
landerra (521) "pobre" (*chiroa* eta *arlotaz*-z lagundurik) < RS 265 *landerrari* "al pobre" (beste biak ere RS-tikoak dira) / Ht *landerra* "pauvre" (*erremesa* eta *escalea*-z lagundurik).

Ondoko hauetan irizpidea saiatu gabe dago:

galtzapena (509) "pérdida" < Ax 233-234 *galtçapen* eta *goratzapen* (*Erans* 225 eta 366) / Ht *galçapena* "perte". Lakarrak, berriz, "hiztegien lehentasuna" aplikatzen dio.
mindeguia (680) "vivero" < Ax 409 *mindeguia* "seminarium" eta *birloratu* (*Erans* 568) / Ht *mindeguia* "pepiniere"

Behin edo behin, grafiak ere lagun diezaiguke:

cilhegui (372) "lícito" (*sori*-z lagundurik) < Ax 200 *sori* eta *cilhegui* / Ht 400 *cilhegui* "permis" (eta *haiçu*), cf. *cilleguigoa* (510) < Ht 400 *cilheguigoa* (§ 1.1.9).

Beste batzuetan, iturri itzulpendunak duke lehentasuna, interpretapen gaitzeko testuinguru baten aurrean:

aspertu (668) "vengarse" < RS 361 *asper çaquidaz* "uêgaosme" / Ax 115 *aspertuco natçaye*.

Gainerakoetan, ezerk ez digu laguntzen. Esan dugunaren arabera, Lakarrak, "hiztegien lehentasuna" irizpidez baliatuaz, beti hiztegiaren alde makurtzen da halakoetan. Alabaina, itzulpena bi testuetan dagoenean, irizpideak indarra galtzen du, eta kronologiak bakarrik erabaki zitezkeen auziak ditugu:

estacurua (538) "pretexto" < Ax *estacurua* "atchaquia" (cf. *HH estacurua*, *achaquia* "pretexto") edo Ht *estacurua* "pretexte".
hildumatu (432) "mortificar" < Ax 543 *obra hilduac*, *hildumatuac* "opera mortificata" edo Ht *hildumatcea* "mortifier".
inurria (323) "hormiga" < RS 183 *ynurriari* "a la hormiga" (bere alde *arrayo* ere bertatik hartua izatea leukake) edo Lcc *ynurria* "hormiga".
ipirdia (178) "culo" < RS 247 *ypirdira* "al culo", 385 *ypirdian* "en el culo" edo Lcc *ypirdia* "rabo por culo".
segada (362) "lazo" < Ax 60 *segadac* "laqueo", 340-341 *segadez* "laqueo" edo Ht *segada* "lacet".

Onartzeko prest nengoke halakorik ez denean, baina ohartu kasu gehienetan Axularren testuinguruak (edo hitzaren gardentasunak) hemen ere kronologiak zer esana leukakeela dioskula:

gogoetsua (507) "pensativo" < Ht *gogoetaxua* "pensif" edo Ax 58 *cein gogoetsu iartcen den*.
istupa (261) "estopa" < Ht *istupa* "étoupe" (baina EF-eko hitza da!) edo Ax 400 *sua eta istupa beçala baitira*.

Hurrengo adibidea, berriz, eztabaidatzeke dago:

gogara (306) "a gusto" < Ax *gogara* (beti genitiboarekin) / Ht *FE* 346 *gogara* "de gré à gré".

Oso ezberdina da ondoko kasua:

bezala (152) "como" < Ax *beçala* edo Ht *beçala* "comme". Lakarrak iturri ezezagunekotzat jotzen du behingoz, eta ados nago bi iturrietako lekukotasunak alfer direla, hitza Larramendik *aita* bezain ondo ezagutzen baitzuen: *laso*, *leguez* sarrerako aurreko ordainak hornitzeko ezarria dateke, besterik gabe (§ 2.4.1.2).

Iturriak hiru direnean, era ezberdinetako gauzak gertatzen dira:

belarra (284) "frente" < Lcc *velarra* "frente" edo Ht *belarra* "front" / Ax *belarrean*. Honetan "hiztegien lehentasuna"-k indarra dauka. Bi hiztegien artean erabakitzerakoan, Harrieten kontra harlekua eta kronologia izango genituzke.

lapicoa (468) "olla" < Lcc *lapicoa* "ola [sic] del agua" (erratak garestitzen du, baina baliteke hitza lehendik ezagutzea, eta Lcc-rena berariaz zuzendu nahi izatea) edo Ht *lapicoa* "pot à faire la soupe" (agerlekua ona da; zehaztasuna kentzea ez litzateke ezinezkoa izango: cf. § 1.3.1) / RS 69 *lapico* "olla", ez erabilitako orrialdean.

Berdinketa beste era batzuetara ere gerta daiteke; formak egokiak izan daitezke iturriak guztietan, eta esanahiak desagokiak edo zalantzazkoak:

amoranteac (230) "enamorados" < Ax *amorante* "concubinas" edo Lcc *amorantea* "mançeba o amiga". Familiako beste hitz guztiak Axularrengandikoak direnez gero (eta plurala honetan bakarrik aurkitzen) honen alde makurtuko nintzateke.

eguzaria (274) "festividad" < Lcc *eguzaria* "feria o fiesta" edo Ht *eguzaria* "fête". Itzulpena batez ere Landucciren kontra doake; kokalekua, berriz, Harrieten kontra, *EF*-ko hitza delako. Lakarrak aipatzen duen *eguzari euchayteco* ez hartuak, azkenik, ez du zertan Lcc-ren kontra joan behar, biak ez baitaude elkarrekin.

Bestetan, forma bataren alde eta esanahia bestearen alde egon daitezke:

auhendu (624) "suspirar" < Ax *auhendu* (itzulpen anbiguokoa) edo Ht *auhendatu* "soupirer" (eta cf. *auhena*, ezpairik gabe Ht-gandik hartua).

estalguna (248) "escondrijo", (596) "secreto" < Ax 39 *estalgunean* "secreto", 434 *estalgunea*, 435 *estalgunerik* / Ht *estalgunan* "à l'abri".

gardia (176) "cuidado" < RS 393 *gardia* "pareçer" / Ht *goardia* "soin".

ocenqui (138) "claramente, con voz clara" < Ax 102 *ocentqui eta bortitzqui deitzen* (<nqu> : <nqu> aldaketaz ik. § 1.1.15) / Ht *ocenqui* "clairement" ("con voz clara" Ax-en adibideak bakarrik iradoki zezakeen; kokalekua ere Ht-en kontra doake).

Auhendu-k iradokizun interesgarri bat egiten digu: izan ere, forma argi eta garbi Axularrena den arren, esanahia era berean Harrieten bano ezin da izan. Baliteke, beraz, Axularrengandik hartu zenbait hitz, ziurrago iruditu bide zitzaizkion Harrieten itzulpenez hornitu izana; antzeko erlazioak somatzen dira ondoko kasuetan ere: (1) *narraioa*, *narrioa* "tacha" (629)-n itzulpena eta lehen forma Harrietenak dira, eta bigarrena Axularrena; badirudi etimologikoki —paronimiaz, nahiago bada— lotu zituela; (2) *orcoya* "forma, manera" (280): cf. *orkheia* "forme" (*FE* 363); (3) *estalguna* (248, 596) Axularren *estalgunean*-dik gaizki biluzitakoa izan daiteke, noski, besterik gabe (§ 1.2.4.g); alabaina, Harrietek ere *estalgunan* (*FE* 325) ekartzea halabeharrezkoa ote?

2.3. Zalantzazko iturria

Ulergarria da, zeharo, lau iturri ezagun aski ñabar izanik, *Erans*-eko ahalik eta hitz gehienak haien bitartez azaltzen saiatzea, baita leporaketak zalantza sortzen digunean ere. Alabaina, teorikoki oso interesgarria izan daiteke, leporaketaren alde eta kontra ditugun argudioak zein diren begiratzea, eta ea landu ditugun irizpideek zalantzak uxa ditzaketen ala ez egiaztatzea. Ez genuke ahaztu behar, nolana ere, Harriet agertu aurretik Mitxelenak, zalantzaz bada ere sarrienik, Axularren bitartez hala-hola azaldu hainbat hitzek (*escudencia*

370 eta *ezceria* 423, adibidez) gero azalpen gardena kausitu dutela; areago, gogora dezakegu iturri bereko *oquelia*-rako *RS*-ren bitartezko azalpenean tematu izan ginela, forma eta esanahia hipotesiaren aurka geneuzkan arren. Iturri ezezagunak, euren iratxotasunarengatik, oso zailak dira frogaketan erabiltzen; alabaina, zalantzapean ditugun hitzetatik batzuen iturburua izan litezkeela ez genuke inoz ere zeharo alde batera utzi behar.

Lehen sail batean sartuko ditut inoiz zalantza sortu duten arren, gaur iturri ezagunetarik bati egozten zaizkionak; gehienak Axularren argitalpen egokia edota adibide egokia kausitzean dautza; pare bat (*manaiacorra* eta *urtsatu*) Larramendiren jokabideari ez begiratzean; eta azkena (*triscac*), Landucci aintzat ez hartzean:

- ahartara* (99) "bocanada, sorbo" < *GGero* 342 *ahartara* / *Gero* 342 *ahatara*.
edergailluz (486) "parecer (por bien)" < *GGero* 335 *edergailluz* / *Gero* 335 *edergaillu*.
emendaillua (623) "supererogación" < *GGero* 499 *Opera super erogationis, obra emendailluzcoac* (adibide egokia aurkitzea falta zen).
manaiacorra (394) "manejable" < *GGero* 181 *manaiucor* (*u > a* aldaketaz ik. § 1.1.16.2).
oquelia (673) "vianda" < Ht *okhelia* "viande" / *RS* 176, 468 *oquelea* "tajada" (Mitxelenaren <oquelea> transkribapenak eragin zuen leporaketa txarra; -ea bukaerak eragindako aurreiritziek zerikusiren bat izan bide dute hitz honetarako Harriet ez aztertzean).
orthusa (194) "descalzo, mal vestido" < *GGero* 224 *orthus* / *Gero* 224 *orthuz* (are Mitxelenak *ortuz* transkribatua).
triscac (126) "castañuelas" < *Lcc triscac* "castañuelas de dedos" / *RS* 436 *trisquee* "salto", 79 *trisean* [sic] "dançando" (hitza *RS*-n aurkituta gero, *Lcc* begiratu ere ez bide zen egin).
urtsatu (25) "aguar" < *GGero* 406 *vrtçuturic* (*u > a* aldaketaz cf. supra *manaiacorra*; *tç > ts* aldaketa oinarrian *urtsu* dagoelako usteari zor bide zaio: § 1.2.7.3.c).

Hurren doazenak, berriz, ezagutzen ditugun iturriak erabilia azalpen gaitzeko hitzak dira, nahiz eta ez denak ziurtasun maila berean egon; oztoporik larriena forma izaten da, baina inoiz edo behin esanahia bera ere arazotsua gerta daiteke:

- aldarteac* (385) "lunas (...), lúcidos intervalos": Ax 462 *Ceren laincoa baithan ezta, ez-orenic, eta ez aldarte gaitcic, munduco iendetan ohi den beçala*. Arazoak: (1) plurala eskuarki iturriari zor zaio (§ 1.2.2); halaz ere, *aldiac*-en eredura egin izan liteke; (2) itzulpena, eta batez ere zehaztapena: nola *aldarte gaitz*-etik "lúcidos intervalos"-era (ia-ia kontrakora) igaro da?
arrastelua (96) "bieldo": Ht 413 *arrestellua* "rateau". Azalpen hoberik ez dugu, baina ohartu forma aldaketari; *arrastelua* jadanik *HH*-an jasota zeukan (s.v. *vieldo*): Larramendiren "zuzenketa" ote?
arri iraztua (564) "rayo": *Lcc çeruco yrastua* "rayo del cielo". Grafikoki ez dago arazorik (<#y> : <i>-rako ik. § 1.1.1, eta <st> : <zt>-rako § 1.1.6.2), baina *arri* azaltzeko modu errazik ez dugu. Azalbide bat izan liteke Larramendik partizipiotzat hartzea eta, horren arabera, izena berreraikitzea.
autu (224) "elección" < Ax 181 *Gaiñac picaiñac, eta hautuac bertceren, hondarrac eta arbuoac laincoaren*. Axularren agerraldiak aski erraz izena dela iradoki dezake, izenez inguratuta dago eta; gainera, *gaña ta picaña* eta *arbuio* ere bertatik hartu zituen.
aunartu (584) "roer": Ax 600 *hausnaur eguiten, 622-623 eguiçu...hasnaur*. Ondoko urrats hauek guztiak behar dira egozketa onartzeko: (1) <h> kentzea (§ 1.1.3); (2) *ausnaur* zein *asnaur > ausnar*; (3) <sn> : <zn>; eta (4) *auznar eguin > aunartu* (§ 1.2.7.1.g). Larregi, agian. Deigarria da, gainera *ausina* (474)-n onartu ez diren urratsak (Ax *hasuina > asuina > ausina*) hemen onartzea, eta batez ere Axularren pasarteei *Erans*-eko itzulpena zein gaizki datorkien ez igartzea.
hauzu (372) "lícito": Ht *haiçu* "permis" (errataz edo). Baina *hauzu* hitz ezaguna da, *HH*-an (s.v. "lícito") jadanik jasoa. Mugagabea Ht-ren alde letorke eta, beraz, Larramendik zuzendu zuela pentsa liteke, baina orduan zergatik ez *haizugoa* (510)?
acia (251) "espalda": Ht *FE* 347 *atcea* "permis". <tc> : <c> hutsa eta <ea> <ia> aldaketa beharko lirake, eta gainera Larramendik ongi ezagutu behar zuen hitz batean. Aukera hobea iruditzen zait *RS*, non <c> (edo hobeto <ç>) afrikatua ordezkatzeko normala den (cf. 201 *açean*, 202 *açera*): *RS*-n normala ez den bigarren aldaketa baino ez genuke behar.
becarria (357) "lagaña": *Lcc vecarra* "pauesada de candela". Ez forma ez esanahia datoz Landucciren alde; cf. *HH*-ko *becarreá* "lagaña".
bernagea (379) "linage": Ht *bernaiea* "parent, allié". Ziurra dirudi; -age erdal atzizkiak zerikusia izan bide du bai grafi bai esanahi aldaketan (§ 1.2.7.3.i).

erachtura: ik. *iraistura*.

igea (175) "cuesta": Ht *ikhea* "pente". <ikhea> : <iquea> : <igüea> : <igea> ez da ezinezkoa, baina *iquea* sarrera beraren pean dator.

iraistura (50) eta *erachtura* "añadidura": Ax 72 *iratchetura*. Esanahia egokia da; forma ulertzeko, Larramendik <iratchtura> irakurri zuela suposatzea baino ez dugu (*HH*-ko <is> = gure <x>rako ik. I, § 8.4.8). *erachtura*-k <iratchtura> irakurketa bermatuko luke, eta Larramendik erantsitako aldaera (§ 2.4.1.2) izan liteke: cf. *HH*-ko *erachi* "acoplar".

irachiqui (51) "añadir": Ax 72 *iratchequi*. Agian gainerako *i*-ek eragindako aldaketa ttiki bat baino ez dugu behar, baina, dena dela, cf. *HH*-ko *erachiqui* "pegar una cosa con otra"; aldaketa berariazkoa ere izan liteke, beraz.

hisicatu (232) "encapricharse", (462) "obstinarse": Ax 295 *hi handi ni handi hissicaturic egoiteac*. Agerraldi bakar batetik bi esanahi aski ezberdin hartu ditueneko hitz bakarra izango litzateke. Testuinguruak badirudi bigarren itzulpena bakarrik iradokitzen duela.

malcorra (529) "precipicio, despeñadero": Ax 216 *Bertce guztiac dira bidexcac, bide chidorrac, hertsicac, meharrac, malccorrac eta perilez betheac*. Iturrian izenondoa da, baina beharbada Larramendik pasarteko izenekin lotu zuen (cf. *autu* goraxeago).

patarra (175) "cuesta": Ht *petarra* "coline" edo *pectarra* [sic] "montagne". Ez esanahia, ez forma datoz bat *Erans*-ekoarekin.

turunta (654) "trompeta": Ht *tuhunta* "trompette". Esanahia Harrieten alde mintzo da. Forma Larramendiren berreraiketa izan liteke (cf. *HH*-ko *turunta* "clarín").

urtiguin (644) "tirar": cf. *urtigui* RS 405 "tirar" > *Erans* 65 "arrojar", ezohiko itzulpen aldaketaz. Agian etorki bera dute, eta sinonimiak (§ 1.3.5) eragin du 65ko sarrera. Honela balitz, esan gabe doa *urtiguin* hustzat eman beharko genukeela.

zarramoa (134) "cesto": RS 34 *zaran* "cesto". Kokalekua okerra da, eta ez du ustelketa azaltzeko ziorik eskaintzen.

zarraldea (48) "andas de muerto": RS 420 *çerraldo* "andas". Aldaketa ttikia da, baina kokalekua okerra.

Bada, azkenik, zalantzapetik atera beharko genukeen hitz bat:

corromiotu (166) "corcomerse" < Ax 279 *hasserretasunac, mendecatu nahiac, barreneco heguigoac, iraquidurac, hudigoac, gorrotuac, corromioac...*

Zalantzarako ziorik handiena, iturrian izena bakarrik agertzeaz gainera, Larramendik iturriko forma mezprezatuta berak eratorritakoa bakarrik jasotzean datza, bestetan biak jaso zituenetz gero (§ 1.2.7.1). Alabaina, ez dugu Axular baino azalpen hoberik: egin dezagun kontu, euskal eta erdal hitzak ikusi baino ez etimologikoki lotu zituela, hau da, *corromio*-k *corcomerse* burura ekarri ziola: honela izan bazen, argi dago ez dela erraza taiu bereko gaztelaniazko itzulpenik izenerako ematea.

2.4. Iturri ezezagunekoak

Ifernuetarako jaitsieraren azken mailara iritsi gara. Atal honetan sartzen dira oraingoz — eta ziurrenik zati bateko— gure jakinahia asebetetzen ez duten hitzak, osorik ezagutzen ez dugun iturrikoak (*RS*-koak), akaso identifikatu ez ditugun iturrietakoak, edo herriaren ahotik jasoak izan daitezkeelako. Halaz ere, ikersailik erakargarriena izan daiteke "ad experiendum"-eko filologia maite dutenentzat.

Iturri ezezaguneko hitzen taldea, nolana ere den, ez da larre dagoen arloa; aitzitik, aspaldixko Mitxelenak egin zituen bertan, bai Larramendiren hitzetatik bai *Erans*-aren beraren ikerketatik ateratzen dena erabiliaz, aldaketa batzuekin bada ere egun bere hartan dirauten hiru ildo ziur: (1) *RS*-ren zati galdua; (2) Iparraldeko iturri bat, Harrieten agerpenak asko murriztuta ere oraindik ale jakingarriak eskaintzen dituena; eta (3) Larramendiren "He añadido también otras muchas voces que he oído en las conversaciones y notado en los libros" esanetik atera daitekeen osagaia, ziurrenik inguruko euskaratik lortua.

Etsita nago, batz beste hirurotarik bakoitzari egotz dakizkiokeen hitzen kopuruarengatik, Harrieten moduko iturri handi gehiago ez dela inoiz agertuko, nahiz ezin daitekeen baztertu hitz oso gutxitarako eta are baterako bakarrik ezusteko iturriren bat egotea. Adibide ona izango litzateke *mendoza* (475, 640), egiataan Garibaik azalduko balu: hala balitz ere, Larramendik ez zukeen harengandik beste ezer hartu, *Erans*-erako behinik behin. Dena dela, teorikoki zein praktikoki oraingoz halako noizbehinkako iturri txikirik egon denentz frogatzea ezinezkoa denez gero, hiru iturri ezezagun nagusien hipotesiarekin jokatu dut hemendik aurrera.

Nire aitzinekoek hitza talde batean edo bestean kokatzeko baliatu dituzten argudioak bi eratakoak izan dira: (1) hitzak bere itxuran eskaintzen dituen zantzuak (grafia, morfologia...); eta (2) hitzaren euskalki kokapena.

Lehenengo argudioaren indarraz eta ahuleziez jabetzeko aukera izan dugu aurreko ataletan, azalpen hobea duten hitzekin. Bigarrena zeharo berria da, ostera, ezinbestean hemen erabili beharrekoa, hiru iturrigaiak, itxuraz bederen, euskalki kokapen aski ezberdina eskatzen dutelako, hain zuzen ere: (1) bizkaierazko hitzak; (2) Iparraldeko hitzak; eta (3) gipuzkerazko (bakarrik?) hitzak.

Banaketa hori egiazkoa balitz, bigarren argudio hau zeharo erabakigarri gertatuko litzatekeela agerian dago. Alabaina, baditu berekin berezkoak ez diren akats zenbait. Begibistakoena, Harriet ustekabeen agertzeak agerian jarri zuen: *ibildauna* eta *oquelia* (eta ia-ia *hazbeguiac*) zeuden datuen arabera epaituta, bizkaierazkotzat jo behar izan zituen Mitxelenak. Kontua da hitz asko eta asko hain gaizki ezagutzen ditugula, ezen bil daitezkeen datu guztiek norabide bakar batera daramatenean ere, ezpaitugu %100eko ziurtasunik. Dena dela, bistan da ez dakigunaz ezin garela mintzatu; beraz, ezinbestean halaxe jokatu beharra dugu hemen ere, dakigunaren laguntzaz aurreratzen saiatuaz.

Nire asmoa hiru iturrigaietatik batean nolabaiteko ziurtasunez sailka daitezkeen hitzak aztertzea da, erabilitako irizpideak ahalik eta gehiena azaleratuaz. Lehenago, ostera, mugatu nahi nuke aztergai geratzen zaizkigun hitzen taldea, batez ere haietako batzuk iturri berririk bilatu gabe azaltzen lagun diezaiguketen bi hipotesi berri aurkeztuaz.

2.4.1. Proposamen berri zenbait

2.4.1.1. Erauzi eta eratorriak

Larramendi ber hitzetik bi sarrera ateratzeko gai dela ikusi dugu, iturrikoa eratorria denean haren oinarria islatuz eta oinarria izan daitekeenean eskuarki aditz bihurtuz (§ 1.2.7.1). Halaber, gogora dezagun deklinabide atzizkiak kentzea hiztegiaren ariketa normala den arren, zenbaitetan kenketak benetako ez den zerbait eragin duela: cf. *egalatea* (417) "menstruo de muger" (§ 1.2.4) eta *eredua* (157) "conformidad" (§ 2.2.2), adibidez.

Azalgabe geratzen zaizkigun hitzetatik taldeño bat familia bereko bikoteez osatuta dago:

istincaria (112) "calafate" eta *istincatu* (113) "calafetear".
oldozquera (197) "descuido", *oldozqueran* (508) "sin pensar" eta *oldoztu* (508) "pensar".
obua (276) "fiel, equilibrio" eta *obuan* (351) "al justo".
guezna (416) "mensaje" eta *gueznazaya* (415) "mensagero".

Biak iturrian izatea ezin alde batera utz daitekeen posibilitatea izan arren, Larramendiren ohiturek bide ematen digute hipotesi merkeagoa egiteko: biak azaltzeko bat aski dela, alegia. Adibiderik argiena, nire ustez, *obua*-k eskaintzen digu: hitzaren mende honetako bizitzaz dakigunagatik (§ 2.4.2.6), *obuan* dateke iturrian (ziurrenik *RS*-ren zati galduan) legokeen lekukotasuna, eta *obua*, berriz, Larramendik bertatik erauzitako —eta aliritzira itzulitako— hitza.

Antzeratsu, iturrian *gueznazaya* irakurri bide zuen, nondik (*zaya* atzizkia errazki antzemanek, noski) *guezna* erauziko zukeen:⁵²⁶ ohartu *Erans*-ean alfabeto hurrenkera hautsita dagoela, ustezko eratorria aurretik doalarik, hain zuzen. Jakina, honek Mitxelenaren hasierako teoria, hots, *guezna* <mezua>ren ordezkio irakurketa txarra izan litekeela, zeharo deuseztuko luke.

Gaitzagoa da, inondik ere, *istincaria* ala *istincatu*, bietatik Larramendik "asmatur" zein ote den ebaztea: *-ari* atzizkia oso ondo ezagutzen zuen, jakina, eta nolabaiteko ziurtasunez *Erans*-ean behin gutxienez (*triscaria* < *trisca*) eratorri bat eragin du. Dena den, hautatu behar izatekotan, errazago da *istincaria*-tik aditza sortzea: batetik, aditzetik oinarria (**istinca*) ateratzea esperoko genuke (§ 1.2.7.1.a); bestetik, oinarri ezberdinetatik ateratako *Erans*-eko aditzen kopurua kontuan har dezakegu (§ 1.2.7.1.b) eta, zehazkiago, egile-izenetik aditza izatea, ziurrenik, burura lehenik datorrena.

Hondarreko bikote edo hirukoteari buruzko iruzkina da erreparorik handienaz kaleratuko dudana, Mitxelenak (1970: 79 eta 1978a: 363-366) *oldoztu* eta *oldozquera*-ren arteko erlazioari eskainitako hausnarketa mamitsuak direla eta. Testuan (ziurrenik *RS*-ren zati galduan) *oldozqueran* "sin pensar" bakarrik zegokeen, ene ustez, nondik erraz baino errazago ("sin pensar" = "al descuido") *oldozquera* "descuido" atera zukeen, *obuan*-dik *obua* atera bezalaxe, hain zuzen. Honainokoari eztabaida ezina deritzat. Ondoren, *-kera* aditzei eransten zaien atzizkia izanik (cf. *Erans*-ean bertan *jazquera*, iturri beretik hartua), ez da ezinezkoa *oldoztu* Larramendik eratua izatea, eta honek —Larramendiren partehartze zuzenak— ezerk baino aiseago azal lezake itzulpenetan dagoen kontraesana. Hau zeharo bat dator Mitxelenak egin lehendabiziko hipotesiarekin, baina ez du bigarrena erabat ukatzen: zeren eta etorkiz *oldozqueran*-en *-ka* atzizkia balego ere, Larramendik —Mitxelenak berak lehenera bezala— *-kera* bakarrik antzeman baitzezakeen. Alabaina, Mitxelenak *Erans*-eko hitzen funtsezko

⁵²⁶ Bestalde, ez dirudi Larramendik halako esanahiko *-zai*-dun hitza egingo zuenik; cf. "Zaya y zaina vienen comúnmente en composición y pospuestos, como *mastizaya*, *mastizaina*, guarda viñas, *irurazaya*, guarda riberas, y por esso al pastor, que es guarda de el ganado, *arzaya*, al arriero *mandazaya*, &c." (*HH*, s.v. *guarda*).

benetakotasunaren gainean jokatzeko zuen, eta arnasa hartu bide zuen *oldoztu* "salbatzeko" modua aurkitutakoan. Ostera, gehienera jota familiaren bi agerraldi espero genezake jatorrizko testuan (*oldozqueran* eta *oldoztu*): ez dago, beraz, birritan ukapena agertzeari Mitxelenak eman balioa ematerik; bigarrenik, nik neuk ez dut uste Mitxelenaren lehen etimologiak (*olde* + (*h*)*otz*) hain itxura txarra duenik, *-ka* + *-era*-ren beste agerraldirik aurkitzeari oso zaila deritzadan bitartean. Postura egingo nuke *oldoztu* Larramendik eratu zuela: gutxieneko kontuan, zalantzan utziko nuke, badaezpada.

2.4.1.2. Aldaerak eta

Harrieten *hirisca*-tik bai *irisca* bai *urisca* lortu zituen moduan (§ 1.1.17), batetik, eta *RS*-ko *laso* eta *leguez*-i berarentzat egunerokoa zen *bezala* erantsi bide zien moduan (§ 2.2.4), bestetik, baliteke *Erans*-ean azalgabe ditugun hitzetatik zenbait Larramendik bere burutik, zekien euskaratik-edo, erantsitako aldaerak izatea, nolabait konparabidetzat eskainiak. Hori seinatu dute nire aurrekoek, hain zuzen, *RS*-tik hartutako *otu* (585) "rogar"-en ondoan agertzen den *oyutu*-rako, Larramendiren interpretapen "etimologizantea" izan litekeelakoan.

Jadanik azpimarratu dut (§ 1.5.1.3), Axulargandik lortutako hitz multzo bat iturri ezezaguneko aldaeren aldamenean agertzen dela:

peita (129) + Ax *beita*
balimba (136) + Ax *baldimba*
ortoza (194) + Ax *orthosa*
baimena (371) + Ax *baimendua*
zaulia (374) + Ax *zaluia*
zaulitu (375) + Ax *zalhuitu*
amarauna (635) + Ax *amaraüa*

Talde berean sar liteke, agian, familiakide bikote hau ere:

aldiac (385) + Ax? *aldarteac*

Gauza bera gertatzen zaigu *RS*-tik hartutako batzuekin:

aurrena (540) + RS *hurrena*
donarioa (292) + RS *donaria*
iyac (319) + RS *iac*
inesi (328) + RS *ines*
jazcaya (669) + RS *jazquerea*

Aipatu hamar adibideetatik bost (*aldiac*, *aurrena*, *baimena*, *jazcaya* eta *peita*) jadanik *HH*-an jasoak zeuden adiera berean edo oso antzekoan (§ 1.6.c eta d) eta ia denak Larramendik, bizi zen lekutik gehiegi higitu gabe, herriaren ahotan entzun zitzakeen (§ 2.4.4). Batzuetan, atzizki aldaketa (*baimena*, *jazcaya*) edo eransketa (*inesi*) baten aurrean baino ez gaude. *Balimba*-z den bezainbatean, ziur egon gaitezke Larramendik *baldin* = *balin* ekuazioa ondo menperatzen zuela. Aldaerak aldaera aski erraz ekar diezaiokeen burura, baldin noizbait entzundako eta batzuetan are lehenago apuntatutako hitzak badira.

Dena dela, aipatutako hitzen artean hiru talde argi egin daitezke: (1) eredu jakin bati jarraitzen diotenak (*balimba*, *inesi*, *jazcaya*); (2) benetako aldaerak; denak Axularren hitzen

aldamenean agertzen dira eta, antza denez, haiek baino mendebalderagokoak dira (*amarauna, baimena, ortoza, peita, zaulia, zaulitu*); eta (3) *oyutu* bezalaxe Larramendiren interpretapentzat edota paronimiaz lotutako hitzat baizik ezin eman daitezkeenak (*aurrena, donarioa, iyac*); hauek guztiak *RS*-ren hitzen aldamenean agertu zaizkigu.

Hauen argitara, baliteke *RS*-tik hartua den *guertaetu*-ren aldamenean agertzen den *guertucatu* (305) "guisar" ere taiu bereko hitza izatea: Larramendik entzuna edo, errazago beharbada, Harrieten eredura (*-katu* atzizkiaz, alegia) eratutakoa.

2.4.1.3. Larramendiren hitz berriak?

Erans HH osatzeko egina den neurrian, ez dago inolako oztoporik Larramendik bertan ere bidenabar bururatutako hitz berriak erantsi zituela uste izateko. Dagoeneko hiru hautagai eman daitezke:

denquia (626) "sustancia, fundamento": *den* + *ki*. Ziurra dirudi.
golpagogortu (114) "callecer", (462) "obstinarse". Oso zalantzazkoa iruditzen zait.
leotza (111) "calabozo". Cf. *HH*-an *lecotza* "calabozo" (dudarik gabe *leku* + *otz*).⁵²⁷

2.4.1.4. Mugagabe eta pluralak

Ziurtasun handiz esan dezakegu iturrian ere plurala egongo zela iturri ezezaguneko ondoko hitzetan ere:

ezteguac (101), *moquetac* (249), *acomendagarriac*, *seilac* (483), *criselac* (495), *petralac* (559), *orricac* (638).

Honegatik, mugagabe agertzen zaizkigun besteak ere iturrian halaxe zirela uste izan dezakegu: *hauzu* (372),⁵²⁸ *baraz* (511).

2.4.2. *RS*-ren zati galdua

Atal honetan, eskubide osoz baina baita beste anitz baino ziurtasun handiagoaz sartzen dira Oihenarten aleak gorde dizkigun errefrauetan agertzen diren hitzak, ziurrenik errefrau beretik hartuak:

acizurria (484) "papera" < *RS* 546 *azcurriac* [sic].
uhuna (356) "ladrón" < *RS* 544 *huhuñerean*.
hucha (58) "arca" < *RS* 541 *huchan*.

Baita, jakina, Larramendik berak gordetako errefrau osoa eta bertatik ateratako sarrerak:

⁵²⁷ Cf. *DAut*, s.v.: "Lugar subterráneo y fuerte, donde se encierran los presos por delitos graves, a fin de que estén más asegurados y mortificados; por lo qual se hacen oscuros y fríos". Bertan daude *lekoz*-en bi osagaiak: *lugar* eta *frío*. Aurkikuntza *OEH*-arena da (ik. s.v. *leotz*).

⁵²⁸ Hitz honen bermerik onena *HH* *auzua* "lícito" da, non mugaturik jartzea hiztegi gilearen erabakia izan den, dudarik gabe.

Seyacaz echun dina, ucuzca]rĭ jaigui d[o]a (451) "Quien con niños se acuesta, sucio se levanta" + *ucuz[c]a* (620) "sucio" eta honen eratorria den *ucuzcatu* (240) "ensuciar".

Halaber, koadernotxo ezagunen eta ezezagunen arteko bereizketa egin dugunean, ezagunetatik kanpo geratu zaizkigun hitzak, nahiz hauen zerrenda egitea (koaderno ezezagunetatik zati zenbait esku artean izan zituela uste izanik) nahiko arazotsua den. Dena dela, *RS*-ren zati galduan, 5. koadernoan, *Erans*-eko sarrera zuritzeko beste agerraldi bat ia ezinbestean behar dutenak honako hauek dira:

baraz (511) "perezoso" / *RS* 9 *baraz* "espaciosamente", gainera Larramendik ezagutu ez zuen 1. orrialdekoa. Ohartu agerraldi berrian ere mugagabeen behar duela, baina itzulpen ezberdinaz, ziurrenik.

isguilluac (60) "armas" / *RS* 7 *ysquilluac* "armas", 1. orrialdekoa. Errata agian iturrian bertan egon zitekeen.

supita (645) "tizón" / *RS* 32 *supitac* "refranes"; esanahi ezberdintasuna azaltzen zaila izan arren, cf. Azkueren lekukotasuna: *supita* (B-mur) "pieza de junco o materia semejante sobre la cual se colocan las calderas y herradas en la cocina".

trisca (90) "baile", (187) "danza" / *RS* 436 *trisqueea* "salto" (esanahiarengatik eta -ea mantenduko zukeelako) eta 79 *trisean* [sic] "dançando". *RS* 79k <tritean> irakurketa —nondik *Erans* 90 *tritea*— eragin ziola onartzen badugu (§ 1.4.2.1.d); bestela *tritea*-k berak beharko luke agerraldi berri bat).

2.4.2.1. Grafia

Honelako argudioen artean grafia da, *RS*-koaren berezitasunengatik, etekin handiena ateratzen uzten digun arloa, Mitxelenak jadanik erakutsi zigun bezala. Gertakarika, ohi dugunez, honako hauek izango liriateke bertatik hartuak litezkeen hitzak:

a) Hitz hasierako <hu>k *RS* salatzen du (§ 1.1.3): *huarriza* (581), *huerriza* (660), *hueraguina* (380).

b) <z>, <ç> eta <s> frikari zein afrikatuak izan daitezke *RS*-n (§ 1.1.6.4); etorki honetakoak dirudite, beraz, *baraz* (511), *gortaisa* (258), *cicoza* (181) eta agian *acia* (251)-k (§ 2.3).

c) <r> <rr>-ren ordezkari egoteak ere etorki bera sala lezake (§ 1.1.12): *abarescu* (587); beharbada talde berean sar liteke *urachi* (13) "acercarse" ere, baldin eta oinarrian *ur* 'hurbil' baleuka.

d) <j> grafema batzuetan gaur egungo <x>-ren lekuan agertzen da (Mitxelena 1979: 421-422): *lejarra* (285).

Honaino ziurrenak. Pare bat gehiago bururatzen zaizkit, ordea:

e) Testuinguruak ez eragindako <ch>, apikaria esperoko litzatekeen lekuan, mendebaldeko hizkera baten lekuko izan liteke (Mitxelena 1977a: 192): *siracha* (445) eta, agian, *urachi* (13).

f) *essé* "buen provecho" (545) hapaxeko <ss> nahitaez iturrikoa denez gero (§ 1.1.5), iturri idatzi bat proposatu behar zaio; areago, Larramendik bertako txistukarien grafiak ondo menperatuko ez litzatekeen iturri bat. Egiantzekoa dirudi, hortaz, *RS*-ko hitza izatea eta, hala

balitz, <ss> bai frikariaren (*assabaoy* 225, *assi* 171, *essan* 231) bai afrikatuaren (*aberassoc* 3, *asso* 356, *essea* 469) lekuan egon daiteke.

Grafi irizpide ziur xamar edota zalantzazko hauen aldamenean, Mitxelenak pare bat bider erabat anbiguo direnak erabili zituen: (1) *meaca* (321) Hegoaldekotzat jo zuen, besteak beste <h> gabekoa delako; orain badakigu <meha-> batetik etortzeko aukera beretsua lukeela (§ 1.1.3); eta (2) *ollaquea* (554) Iparraldekoa izatea, -ea-z gain, grafiaz (<ll> eta ez <ill> daukalako) arbuiatu zuen, baina azken honetaz dakigunaren arabera (§ 1.1.7), aldaketa ez litzateke harrizkoa izango.

Berak erabilitakoetatik oso itxura ona duen beste bat, berriz, agian berrikusi beharko genuke: *quiriquioa* (243) *RS*-ren zati galdukotzat jo zuen, grafikoki markatu gabeko bokal sudurkari bat zegokeela eginez (cf. bizk. *kirikino*); alabaina, dagoen-dagoenean *HH*-an agertzen da (s.v. *erizo*), eta honek ahozko euskararen sudurkaria zeharo galdutako ala Larramendik halakoa bazela ezin antzemateko moduan ahoskatutako aldaera bat bazela, orain ere baden bezala, erakusten digu (hitz honen benetako zabalkundeaz ik. § 2.4.4).

2.4.2.2. Morfologia

Morfologiak ere irizpide ziur xamar batzuk eskaintzen dizkigu, delako hitz bat gutxienez bizkaierazkoa dela sinistu ahal izateko. Hasteko, badakigu eskuarki *Erans*-eko -ea bukaerak iturriari zor zaizkiola (§ 1.2.1). Uste izatekoa da, beraz, -ea bukaera agertzen den beste kasuetan ere forma iturrikoa dela: *balbea* (435), *guiraquea* (344), *lequea* (122), *ollaquea* (554). Alabaina, argudioa ez da erabatekoa, *HH*-an nahitaez bizkaierazko etorkirik izan behar ez duten eta, jakina, *RS*-tik hartuak ez diren -ea bukaeradun hitz asko eta asko agertzen baitira (I, § 8.5.2.1); gauza zehatzagoetara joaz, *ollaquea*-k daukan dokumentazio guztia oso ekialdekoa denez gero (§ 2.4.3.5), Harrietengandik hartua bide den *ciorra* (662) dakarkit gogora. Azkenik, *egarbera* (46) ahaztu behar dugu, *egarbera*-ren ordezkotzat Mitxelenaren kopia hutsa delako.

Itzulpeneko femeninoak *cicoza* "curiosa" (181)-k iturri idatzi itzulpendun bat eskatzen duela egin zuen Mitxelenak. Bestelako argudioek hitza *RS*-ren zati galdukotzat jotzera bagaramatzate ere (§§ 2.4.2.1 eta 2.4.2.6), zehaztu beharra dago jatorrizko itzulpena ez dela halakoa eragin duen bakarra: Axularrengandiko *muthiria* (205) "desvergonzada" eta *miaüa* (501) "pedigüeña", testuinguruak eragindakoak dira. Egoera berean dago *azquina* "casera, hacendosa" (123) eta "hacendosa" (313).

Aditzei gagozkielarik, *guertaetu* (305)-k nahitaez **guertaeta*- batetik gaizki ateratako partizipioa da; *jagotu* (302) **jagote*- batetik. Kasu hauetan testua hobestekoa da, bai baitakigu iturri idatzietako aditzizenetatik partizipioak ateratzeko arazo anitz izan zituela *Erans*-ean (§ 1.2.5.3).

Atzizkiek ere badute bizkaierazko etorkia, eta hein bateraino baita *RS*-tikoa, iradokitze indarra:

- ga / -ka (cf. RS-tiko *ucuzca*): *guiraquea* (344, ziurrenik *geraka* ulertu behar), *jazca* (670; alabaina, cf. §§ 2.4.4 eta 2.4.4.2), *senguea* (256).
- en (cf. RS 120 *vidarien*): *emayenac* (29) "albricias".
- kera (cf. RS-tiko *jazquera*): *oldozquera* (197, 508).
- kin (testuinguruak eragindako -gin-en aldaera) (cf. RS 75 *auzquin* "pleitista"): *azquina* (123, 313) "casera, hacendosa".

Kasu berezi bat izango litzateke RS-tiko *gurenda* "vitoria" (679)-rekin lot daitekeen *galenda* (503) "peligro": lotura ongi ezarria balego, esan gabe doa hemen ere *galen da...* kopularekin ulertu beharko genukeela.

2.4.2.3. Itzulpena

Itzulpenaren bereziarengatik (hitzaren itxura ere agian lagun dudala) RS-tik hartutako hitzen artean sartuko nuke *trasumena* (293) "mal galardón" hapaxa, iturrian ez zegoen itzulpena dela nekez sinis baitaiteke: cf. *donari* "galardón" (RS 265 eta *Erans* 292) eta, itzulkeraz, *gorroto* "la mal querencia" (RS 71).

2.4.2.4. Erratak

amasa (579) eta *eraitoquia* (605), dirudien bezala *arnasa* eta *erailoquia*-ren ordezko hutsak badira (§§ 1.1.18.3.c eta 1.2.7.3.h, hurrenez hurren), ziurrago dateke inondik ere testu idatzi batetik (kasu honetan nahitaez mendebaldeko eta ziurrenik bizkaierazko batetik, hots, RS-ren zati galdutik) hartuak izatea.

Etorki bera —eta azalpen bera— proposatzen du Lakarrak *beriertua* (507) "pensativo" eta *inertu* (245) "escarmentar"-erako: <hulertua> eta <ulertua> leudeke balizko iturrian; hipotesia, nire ustez, formaren aldetik interesgarria da, argitaratu batekin jokatzeko ari garela eta, beraz, usteldura ia ezinbestean bertakoa izan beharko litzatekeela gogoratzen baldin bada. Esanahiaren aldetik, berriz, arazotsua izan daiteke: gaztelania iturriarena izatea —edo iturriak iradokitzea, behinik behin— espero dezakegu eta, ezagutzen dugun RS-ren zatian beti "entender" itzulia agertzen denez gero, ezagutzen ez dugunean bi itzulpen ezberdin edo bi ulerkera ezberdin aurkitzeak gaitza dirudi.

Azkenik, *nauquera* (526) "porfía", dirudien bezala *mauquera*-ren ordezko hutsa bada, RS-koa izan daiteke, Isastirengan agertzen zen (eta Larramendik *HH*-an jaso zuen) erretraua bilduma honetan errepikatzea ez baita ezinezkoa, jakina. <m>ren ordezko <n> errata ez da oso zaila, baina kasu honetan iturriarena dela emango luke (Larramendik hitza ezagutzen baitzuen), *nintegua* (680) < RS 207 legetxe.

2.4.2.5. Hitz familiak

Irizpide honen barruan sar ditzakegun gertakari zenbait islatuta ditugu iturri ezaguniek gabeko hitzetan:

- azartu* (76) "atreverse": cf. RS-tiko *azarria* (77) "atrevido" eta *azarcunza* (78) "atrevimiento".
- done Matro* (94), *done bereci* (127), *done Franci* (282): cf. RS-tik hartutako *Doneane* (350), eta oro har, bilduma berean, *Done Viçen* (RS 318) eta *Done Meterii Celedon* (RS 330).

emayenac (29) "albricias": cf. *RS*-tik hartutako *emaya* (184) "dádiva".
galenda (503) "peligro": cf. *RS*-tik hartutako *galendu* (245) "escarmentado".
coitiguia (131) "cena": cf. *RS*-tik hartutako *coicatia* [sic, *coicaria*-ren ordezt] "sobrado, abundante" (613) / adib. *goitigi* (B-arr) "desván" (§ 2.4.2.6) eta *Lcc goycari* "demasiado".
nagustu (172) "crecer": cf. *RS 27 andi* "grande" / *nagusi* "mayor" // *Ax nabusitu*.
pozcarria (33): cf. *RS 443 pozcarri* "regozijo" / *Ax bozcario*.
seillac (483) "pañales": cf. *RS*-tik hartutako *seya* (450) "niño".

2.4.2.6. Bizkaierazko hitzak

Dauzkagun datuen arabera bizkaierazkotzat eta hartakotzat bakarrik jo daitezkeen hitzak ez dira gutxi. Ziurrenak, agian, gainerako euskalkietan aldaera ezberdinak dituztenak izan daitezke, baina beti ere *gomburua* eta *zarba*-ren kasuetan gipuzkerazko berririk ez izateak uzten digun zalantza kontuan hartuaz:

ezteguac (101) / gainerakoek *eztei*.
garnua (472) / gainerakoek *gernu*.
gomburua (146) / GN, L, BN, Z *mukuru* edo *mukuru*.
lejarra (285) / gainerakoek *leizar*, *lizar*.
zapotza (632) / B-õñ, Gc... *zipotz*.
zarba (11) / GN, L, BN, Z *zerba*.
cirarra (519) / gainerakoek *zilar*.

Talde honexetan sar daiteke, beharbada, okerrago ezagutzen dugun *zayoa* (254) (cf. *aio* GN-ond eta Z gutxienez), bai eta *achiti* (16) "adelante" ere, baldin eta *antxiti* aldaera (*HH*-an jaso; ik. III, § 12) balitz gipuzkerazkoa, uste dudana bezala.

Bizkaierazko lekukotasunak soilik dituzten hitzak, berriz, honako hauek dira:⁵²⁹

azaro (583) "rocío" eta antzeko adieretan. *azartu* (76). *balbea* (435). *baldoquia* (425) "mollera" adieran. *betzuloa* (174). *bicioa* (384). *done Matro* (94). *erago* (160). *eraitoquia* (605), *erailoki*-ren aldaera edo errata. *guiraquea* (344), *geraka*-ren aldaera edo errata. *gorgoilla* (189, 458) "degolladero" eta "nuez de la garganta" adieretan. *gorta* (165). *gortaisa* (258). *izteguia* (338). *jagotu* (302) ezparririk gabe bizk. *jagon*-en ordezt. *coitiguia* (131), cf. *goitegi* (B-ger) eta *goitigi* (B-arr). *cresala* (23). *larua* (41). *obuan* (351). *orricac* (638). *ortoza* (194), baina cf. goian (§ 2.4.1.2) esana. *pozcarria* (33). *saralea* (627) "comida de animales" adieran. *siracha* (445). *zancabia* (163): cf. *zankabe* (B-g-i-mond). *cicoza* (181), "curioso", hots, "aseado, etab." adieran.

Ohartu orain artekoan *-ea* > *-ia* aldaketaren bi lekukotasun izan ditzakegula: *zancabia* (163) eta *acia* (251).

Lekukotuta ez egon arren, Mitxelenak arrazoi ezberdinengatik bizkaierazkotzat emandako beste hitz zenbait:

gurdichapa (646) "toalla": cf. bizk. *igordi*, *igurdi* 'frotado, restregado'.
millistu (148) "comedirse": cf. bizk. *milika* "melindroso", "delicado".

Badira hitzen batzuk, bizkaierazkoak ez eze ekialdekoak ere izan litezkeenak:

canora (280) "forma, manera": cf. bizk. *ganora* eta lab. *k(h)anore*. *HH*-an ere (s.v. *apariencia*) itxura bereberean agertzen da, baina ez dirudi nahitaez ziurtzat eman behar denik, *canorean* bezalako agerraldi batetik Larramendik *canora* atera baitzezakeen (§ 1.2.4.g).
meaca (321) "hijada": B-a-g-i-mu-o-tx, BN-gar-s.
fistia (590) "sabandija": *piztia*-ren aldaera, Bizkaiko mendebaldean edo EH-ko ekialdean (GN-ren zati bat bederen barne) espero izatekoa (cf. Mitxelena 1977a : 262 eta 266), nahiz agian lehengo aukera hobestekoa den.

⁵²⁹ MAJ arte *OEH*-aren datuez baliatu naiz; handik aurrera Azkue eta Lhande (aske den gutxietan) izan dira nire iturriak.

2.4.2.7. Maileguak

Mitxelenak *Erans*-eko hitz bestetan ezezagun batzuk maileguak izan daitezkeela erakutsi zuen eta zenbaitetan mailegu izaera hori mendebaldeko euskalkiekin, eta zehazkiago *RS*-k islatzen duenarekin lotu:

abarescu (587) < gazt. eta port. *a barrisco*.
acomendagarriac (483) < ? gazt. zah. *acomendar* "babestu".
enquina (574) < gazt. *inquina*, *enquina*.
gondura (673) < ? errom. *gordura*.
gorrotellua (651) < ? errom. *garrote*-ren txikigarria.

Ondoko hitza gainera dakiekeela uste dut:

amamerua (34) "alguacil": Azkuek jasotako *almamerua* (G) aldaera, eta balizko *-ero* bukaera direla eta.

2.4.2.8. *Erans*-eko kokalekua

Behin ezaugarririk ziurrenak eztabaidatu eta gero, *RS*-ren zati galdukotzat jo daitezkeen hitzak sarrera konplexuetan zeren aldamenean eta harekiko zein ordenatan agertzen diren begira dezakegu, irizpide honek egin dezakeen laguntza txikia profitatzeko.

Gogoratu behar dugu *RS* normalean gainerako iturrien aurrean agertzen dela, salbuespenen bat badago ere (§ 1.5.1.1). Honen arabera, bertatik hartuak izatea egiantzekoa da ondoko hitzetan:

beriertua (507), *gogoetatsua* (Ax).
betzuloa (174), *beguibarrena* (ahozkoa?).
guertaetu (305), *guertucatu* (Lar?).
gondura (673), *oquelia* (Ht).
isgulluac (60), *isquillosac* (RS).
lequea (122), *buthuna* (Ax).
ollaquea (554), *guizacoya* (Ax).
supita (645), *ichindia* (Ht).
trisca (90), *tritea* (RS).
zarba (11), *bezarra* (Lcc).

Eta ez logoke arazorik, *RS*-ren beste hitzen ostean agertzen direnean:

quibela (RS), *acia* (251).
ubera (RS), *huerriza* (660).
urena (RS), *azquina* (123, 313).

Gainerako iturri ezagunen ostean agertzen direnean, ordea, agian errazago izan liteke ahozko iturritik hartuak izatea:

sagarroya (Ax), *quiriquioa* (243).
solasturia (Ax), *egarberaa* (46).
jazqui (ahoz?, Ip?), *jazca* (670).
garaitia (Ax), *gurenda* (679).
bururaldea (Lcc), *baldoquia* (425).
orthusa (Ax), *ortoza* (194).
orcoya (Ax), *canora* (280).

Salbuespena egin dezakegu "escarmentar, *besteren buruan centzatu* [Ax]. *Inertu, galendu* [RS]" sarreran, Axularren ondoren agertu arren, RS-ko hitz baten aurrean eta Axularrenetik puntuaz berezita agertzen den *inertu*-rekin, RS-ko bi hitzak azken unean —sarrera errepikatu batetik— bertara eraman izan bailituen.

2.4.3. Iparraldeko iturri ezezaguna

2.4.3.1. Grafia

<h> gabeko formak zalantzazkoak diren bitartean, <h>dunek jatorrizko testuan zegoena mantentzen dute (§ 1.1.3): cf. *cehea* (479), *cehumea* (687).

<ch> Iparraldeko etorkiaren alde erabil daiteke (§ 1.1.6.6.): *garcochiloa* (141).

fisa (549) "pulido"-ren azalbidearen lehen zatia jatorrizko testuan <ch> egotea izan liteke, Larramendik <is> aldatua (§ I, 8.4.8). Nahiz <ch> ia beti gorde zuen (§ 1.1.6.6), *iraistura* (50) gogora dezakegu (§ 2.3).

Lau hitzen lekukotasuna baino ez bada ere, badirudi iturri idatzi bat bederen beharrezkoa dugula; areago, oro har Iparraldekotzat joko ditugun hitzak gutxitxo izanik, badirudi denak edo gehienak balizko iturri idatzi horri berorri egotzi beharko genizkiokeela.

2.4.3.2. Erratak

dipidia (468) "olla"-rako, cf. *dipiña* (BN-am). Haatik, balizko iturri idatziari buruzko bere lekukotasuna zalantzazkoa da: <ina> (edo, nahi bada, <inia>) : <idia> aldaketa ez da ezezkoa, agian, baina ez eta oso normala ere; horregatik, jatorrizko testuan zegoen zerbait edo, oraindik errazago, (gaizki) entzundako zerbait dela proposatuko nuke.

Bestalde, *fisa* (549) osoki azaldu ahal izateko, grafi aldaketaz gainera <-oa>ren ordezkotza hutsa —agian iturrikoa— beharko genuke, esanahiaren aldetik Ip. *fixo*-rekin ongi lot baitaiteke.

2.4.3.3. Maileguak

Lehenago lekukotuta ez ditugun eta Galiako erromantzetik mailegatutako hitzak izan daitezke honako hauek:

fresa (107): cf. fr. *fraise* (gazt. *fresa* ez da XX. mendera arte lekukotzen).
contrapuinta (283): cf. fr. *courtepointe*, etab., zah. *coitepointe*, etab.

2.4.3.4. Itzulpena

Itzultzeko aukera bat baino gehiago eskaintzen zuen iturri idatzi bat iradokitzen duen itzulpen bat kausitu dut:

sontsitu (207) "dessustanciarse, desvirtuarse, demolido y cansado".

Biak dira *suntsitu*-ren adiera ezagunak, baina baterako behar dugun testuingurua Mitxelenak eskaini bezalakoa (Xurio I, 23, 40 *guiçonaren bicia suncitcen da itçala beçala*) izango litzatekeen bitartean, bigarreneko izenondo gisa erabilitako eta pertsona bati zegokiokeen partizipio bat beharko genuke.

2.4.3.5. Iparraldeko hitzak

Mitxelenak Iparraldeko etorkikotzat markatu eta Harrietek —edota gainerako iturri ezagunetan egindako aurkikuntza berriek— konpondu ez dituenak honako hauek dira:

boqueta (143) "colada": L-côte, *bokata* GN-5vill, L, BN, Z / *gobada* (G-goi), *bogada* (V-arr-ger-arrig-och), *gobara* (G-to-bet, GN-gip).
desorena (208) "deshora".
garcochiloa (141) "cogote": *garkho-xilo* BN (Dv).
moquetac (249) "espabiladeras": *muketa* BN "despabiladeras" (SalabBN ap. Azkue).
selarugaina (206) "desván": *sel(h)aru* (L), cf. Ht FE 355 eta 420 *selarua*.
cehea (479) "palmo": *zehe* (L, BN, Z) / *zee* (Bazt), *ze* (R).
cehumea (687) "xeme": *xehume* (BN), *xehüme* (Z), *xeun* (L-ain), *xehune* (Z), eta cf. *zehume* (L-ain-s, BN) "palmo" ere.

Hauei ondoko hauek erantsi behar zaizkielakoan nago:

acamelua (688) "yezgo": SP *akamaillu* / G *andura* (HH-an jasoa, s.v.).
ausina "ortiga" (474): L-sar-ain.
amañoa (456) "nudriza": L, BN-baig, Zar, Z.
erridoya (167) "cortina": cf. *errideu* (Z), *erridau* (L), etab.
ibiretu (54) "aplacar": cf. *ibiri* [sic] "gué" (SP), *ibide* (L), *ipidia* (SP) "vado" / *ibitu* (B-ger-m) "aplacar".
criselac (495) "parrillas": *grisella* (EZ, SP), *gresilla* (Z), etab.
liscoa (7) "abundoso". Cf. *lisko* (AN-5vill, L-ain, B) eta *lisku* (G, AN) 'brote, renuevo, vástago': kategoria aldaketa, ala Larramendiren ulerpen txarra?

Mitxelenak markatutakoen eta, oro har, erants daitezkeen artean zalantzak sor ditzaketan hitzak:

acotatu (137) "citar": Lç (baina cf. § 2.4.3.6).
ollaquea (554) "puta": *ollaca* BN-ezp, R-uzt "celo de la perra", BN-s, Z "perra" (cf. -ea bukaeraz gorago esana).
peita (129) "cebo": EZ *Man* II 154, *Aramb* 57 (baina Azkuek: G-bet, L-get...).
petralac (559) "rabos": Hm 211 (baina Azkuek: G, GN...).
sontsitu (207): *suntsitu* bakarrik dago lekukotua, baina -o / -u-k agian mendebaldeko (GN-ko?) etorki bat iradokitzen du (cf. Mitxelena 1977a: 54-55). Cf. gorago *moquetac* vs BN *muketa*.
zaulia (374) "ligero, ágil", *zaulitu* (375) "hacerse ligero, ágil": SP, EZ *Man* II 134, baina Azkue "ligero" (G-als, GN-b-lez-oy, L-ain), "ágil" (GN-b).
zarrapoa (252) "espuma": *arrapo* (L), baina *zarrapo*?

2.4.3.6. Iparraldeko idazleak

Iturri idatzi bat izan dezakegula eginik, eta Mitxelenak hainbat hitzetan Iparraldeko idazle ezberdinak aipatzen dituela (ezer zehatzik erabaki ezinik, ordea) gogoan izanik, geure buruari galde diezaiokegu ea ezagutzen ditugunen artean *Erans*-eko iturritzat hartzeko lain eskaitzen digunik ba ote den.

Lehenengo arazoa, Tartas dugu: *desorena* erabiltzen duen zahar bakarra denez gero, iturria izateko aukera ttiki bat bederen aitortu behar diogu. Alabaina, ez dugu Larramendik

ezagutzen zuelako batere berririk (III, § 9) eta, batez ere, ezin du beste inolako hitzik azaldu. Altunaren glosarioetan (1995, 1996a) *Erans*-ean agertzen diren hitzetatik honako ale hauek aurkitzen dira:

ONTSA: *artiki, desoren, hautu* "aukera", *higatu, mende* "denbora".
ARIMA: *estakhuru, opil*.

Ohartu 7 hitzetatik 5 oso ondo azalduta ditugula dagoeneko, tartean *Arima*-n kausitutako biak. *Ontsa*-n, berriz, *autua* (224)-rako azalpen hobea aurkitu dugu; haatik, irakurtzen nahi bezain zaila izanik ere, kostata baino ezin sinits daikete Larramendik *Ontsa* osorik irakurrita, *desorena* eta *hautua*-z beste hitzik lortzeko gai ez zenik izan. Nire ustez, *desorena*-ren auzia suntsitzeko erarik erraz eta merkeena, Larramendik Axularren *ez-oren*-tik bere erara moldatutako hitza dela uste izatea da.⁵³⁰

Tartasen antzera epai daitezke Arambillaga eta Harizmendiren kasuak, Larramendik ez ezagutzeaz gain, hurrenez hurren *peita* (129) eta *petralac* (559) baino ez bailituzkete azalduko.

Zalantzapean ditugun hitzetarako Mitxelenak aipatzen dituen gainerako idazleak,⁵³¹ berriz, Larramendik ezagutzen zituen, eta *a priori* ezin daiteke alde batera utzi haietako bat edo batzuk *Erans*-ean erabiltzea edo Axularrekin egin bezala hartarako berpasatzea. Adibidez, nahiz Iparraldekoa ez den, orain artean *mendoza* (475, 640) "otero", "terrero"-rako idoro dugun azalbiderik onena Garibai da; azalpenak ez nau asebetetzen, itzulpenaren aldetik batez ere (Mitxelenak aipatu pasarteetan "cuesta pequeña" eta "montaña fría" ematen baitu)⁵³², baina hitzaren berezitasuna kontuan izanda, benetako azalpena hortik ez oso urruti ibiliko dela deritzat.

Hauek dira haien aipamenak agertzen direneko hitzak:

Etxeberri Ziburukoa: *neitu* (8), *laquetu* (22), *irachiqui* (51), *particaria* (55), *ausartatu* (79), *irayo* (110), *peita* (129), *jarriquia* (161), *uztailla* (169), *iquea* (175), *patarra* (175), *sontsitu* (207), *autua* (224), *hisicatu* (232), *zarrapoa* (252), *hazbeguiac* (266), *meaca* (321), *curea* (335), *liparra* (368), *zaulia* (374), *zauri gaizcoatua* (381), *urgoitu* (383), *oantzea* (446), *erchatu* (460), *pochelatu* (465), *ayena* (481), *oltza* (488), *globalaria* (523), *fisa* (549), *aratza* (553), *petralac* (559), *achiquitu* (639), *ichindia* (645).

Haranburu: *malda* (5), *particaria* (55), *billacatu* (66), *avenicoa* (83), *acholduria* (182), *fidagaitza* (195), *etsequi* (233).

Xurio: *laquetu* (22), *particaria* (55), *jarriquia* (161), *sontsitu* (207), *elhea* (265), *erchatu* (460), *sucaina* (476), *bideranta* (671).

Leizarraga: *irachiqui* (51), *sotoa* (102), *bitiña* (108), *coitiguia* (131), *acotatu* (137), *uztailla* (169), *iquea* (175), *cicoza* (181), *pedazatu* (203), *sontsitu* (207), *irioitu* (222), *elhea* (265), *aisit* (267), *hauzu* (372), *chedatu* (377), *languiadura* (410), *oantzea* (446), *birichia* (489), *ertzeta* (497), *fisa* (549), *letraya* (608), *achiquitu* (639), *bideranta* (671), *beraña* (672).

Gasteluzar: *baimendua* (371), *languiadura* (410), *pompatsua* (611).

⁵³⁰ Cf. *des-* atzizkia (§ 1.2.7.2), zeinaren iturri bakarra *Erans*-ean Axular den, eta batez ere cf. Larramendi 1745: I, horretaz hiztegiileak zeukan uste eta egin zuen erabilerari buruz.

⁵³¹ Pouvreau, Etxepare eta Belapeire inolako zalantzarik gabe kanpo utzi behar dira. Etxeberri Sarakoaren hiztegia ezagutu bazuen ere (Larramendi 1745: xxxvi), ez dago inolako arrazoirik berriz erabiltzeko paradarik izan zuenik sinisteko.

⁵³² Erantsi beharko litzateke "montaña fría" itzulpena Isastik ere (c. 1620: 179) eman zuela, eta lehenago Etxabek (1607: 31v) "monte frío" itzuli.

Haatik, gehienetan *Erans*-eko hitzen aldaerak, eratorriak edo esanahikideak diren lekukotasunak ekartzeko baino ez ditu aipatzen. Mitxelenaren lana, azken batean, Azkueren iturriak aztertzea zen, *Erans*-aren azterketa hutsa bainoago; sarrera askotan, gero *OEH* izango zenaren —edo, hobeto esanda, Mitxelenak berak egiterik izan balu, izan zitekeenaren— zantzuak dakuskigu, hitz bakoitzaren gorabeheraz zekiena (bere fitxa aberatsetan jasoa) eskaini baitzuen. Goian aipatutako anitz, hortaz, guri dagokigun arlo meharrean ezertan ez hartzekoak dira. Metodologikoki, gainera, dagoeneko inolako aitzakiarik gabe ondo azalduta ditugun hitzen lekukotasun zuzenak ere alde batera utzi behar ditugula uste dut, eta azalgabe ditugunekin hasi. Aintzat hartzea merezi duten lekukotasunei bakarrik begiratuta, eztabaida bi izenetan geratzen da: Etxeberri Ziburukoa (*irayo*, *peita*, *patarra*, *zaulia*, *fisa*) eta Leizarraga (*acotatu*, *hauzu*):

acotatu Leizarragarengan behin bakarrik (*Ins G 6r*), *Erans*-eko itzulpena eragiteko oso zaila den pasartearen eta, batez ere, Larramendik ezagutu ez bide zuen atal batean agertzen da (ik. III, § 9). Nire ustez, lekukotasuna iturritzat erabat arbuiatzekoa da.

hauzu-ren lekukotasuna egokia da, baina ziurrenik bera da *HH*-ko agerraldiaren eragilea eta, nolani ere gutxitxo dirudi Leizarraga berpasatu baldin bazuen. Azalpenik merkeena, besterik ez dugun bitartean, *sori*-k eta *cilhegui*-k lehenago jasotako hitza burura ekarri ziotela izan daiteke (§ 2.4.1.2).

irayo (110) "hacer caer"-ek *HH*-an agertzen den *erayo*-ren aldaera dirudi (*OEH*-ak dioen bezala); Etxeberriren lekukotasuna *lur iriico* da (itzulpena, beraz, ez ezinezkoa; cf. § 1.3.4.c), baina forma zailtasunez gainera, liburua Larramendik ezagutu ez zuen *Eliçara* da.

peita-rako lekukotasun egokia da: *arrain peita çalea* (*Man II 154*).

patarra (175) "cuesta" ezin da Etxeberri azaldu: berarengandik daukagun lekukotasun bakarra, *Pouvreauk* (haren hiztegi galdutik) gordetako "*patarra*, *coline*" da, itzulpenaren aldetik desegokia eta Larramendirentzat zeharo ezezaguna.

zaulia ere egokia da: *longoicoa*, *iguzquitçu* / *arren erhi çauliac* (*Man II 134*).

fisa (549) "pulido" eragiteko, Etxeberriren agerraldi bakarra desegokia da zeharo: *Hala nola armadetan soldaduac fichoric*, / *passaiatcen baitirade ordenantçan bilduric* (*Man II 53*). Mitxelenak honen eta besteren *ficho*, *fisa* zer izan ote daitekeen asmatzen laguntzeko konparabidetzat baino ez zuen ekarri.

Hortaz, Leizarraga ez, zuzenean behintzat, erabateko ziurtasunez; Etxeberri itxura hobe luke (eta guztiz bere *Man II*-k), baina cf. gorago *peita* eta *zaulia*-rako emandako azalpen osagarriak (§§ 2.4.1.2 eta 2.4.3.5). Zalantzarik handienak, nolani ere, hain hitz gutxi izateak sortzen ditu, berriz ere, eta azalgabe ditugun Iparraldeko hitzetarik pare bat baino ez konpontzeak.

2.4.3.7. *Erans*-eko kokalekua

Egitan, irizpide honek laguntza gutxi egin dezake, atal honetan sartu ditugun hitz gehienak bakarrik agertzen dira eta. Halaz ere, hurrenkera '*RS-Ax-Lcc-lp-Ht*' izan bazen (§ 1.5.3.6), ondoko hitzetan ez geneukake alde honetatik inolako arazorik:

habuina (Ax), *zarrapoa* (252).
dipidia (468), *lapicoa* (iturria Ht edo Lar balitz).
garraita (Ax), *garçeta* (Ax), *garcochiloa* (141).
suderac (Lcc), *petralac* (559).

Beste hauetan, berriz, agian beste azalpen bat hobestekoa izango litzateke; zehazkiago, paronimiak gogoratutako aldaerak izatea (§ 2.4.1.2):

peita (129), *beita* (Ax).
zaulia (374), *zaluia* (Ax).
zaulitu (375), *zaluitu* (Ax).

2.4.4. Gipuzkoaldeko hitzak

Gogoratu Larramendiren esana: "He añadido también muchas voces que he oído en las conversaciones...". Dakusgunez, ahozko euskara ere *Erans*-aren iturri izan zen, baina hitz horiek —agerian bederen— ez digute nongo hizkerakoak edo hizkeretakoak izan litezkeen argitzen. Horregatik, esan ez zuelako alegia, Mitxelenak, halako etorkia agerriz proposatu zuen hitz gutxietan, Larramendiren beraren euskalkikoak, gipuzkerazko hitzak zirela egin zuen; errepara ditzagun bere iruzkinak:

pintxeatu, *pintxatu* (515): "Esta nota procede, al parecer, de la propia minerva de Larramendi, basada posiblemente en el habla guipuzcoana de su tiempo".⁵³³
aurrena (540): "La documentación antigua de *aurren*, guip. y alto-nav. por lo menos, 'primero, delantero', no parece ser muy abundante".
baimena (371): "...es popular hoy en día, en Guipúzcoa por ejemplo".
betizua (331): "Según Azkue, *betizu* 'huraño, esquivo' es alto-nav. y guip. Exactamente en Lezo y Rentería llamábamos así (*betixua*) a las vaquillas bravas que vivían en el monte Jaizkibel. Lo mismo ocurría con las vacas (*behi basa batzu*) del monte Larrun, llamadas *betizoac*...".
donarioa (292): "En autores guipuzcoanos del siglo XIX, *donario* es 'sosiego, calma, tranquilidad', por ejemplo en Iztueta...".
mardula (297): "Voz occidental, cuya fuente desconozco, si no es palabra oída por Larramendi".

Oso hitz zuhurrak oro har, gaiaren zalantzazkoak eskatu bezala. Lehenik eta behin, berak emandako sei hauetatik hiruk (*aurrena*, *baimena* eta *donarioa*) gorago (§ 2.4.1.2) iradoki dut sarrera berean agertzen diren oso antzeko hitzek (aldaerak edo ia homofonoak) eragindakoak diruditela. Bi argudioak bat dira: Larramendik inoiz entzun edota betidanik ezagutzen zituen hitzak dira, ia ezpairik gabe.

Alabaina, Mitxelenak hala bilduak gutxiegi dira, azalgabe ditugun hitzen kopuru handia kontuan hartuta. Iduri luke hauei erantsi behar zaizkiela Mitxelenak Mendibururen lekukotasun bakarrarekin azaldutako hitzak, nahiz hau Larramendiren hiztegiaren ondoren idazten ari zela denontzat nabaria izan, bai baitauzkagu euskalki kokatze horren aldeko aztarna gehiago:

albaldimbera (136) "de cierto": *HH*-an ere agertzeaz gain, Larramendik berak *baldin bere!* erabili zuen (*Corografía* 183), gainera erdaraz idazten ari zela (bere irakurle euskaldunentzat oso ezaguna zela iradokitzen du).
bidagiroa (117): *bidagiro* (G-to, *bidegiro* L-ain) "tiempo bueno para andar", (AN-gip) "estado del piso".

Baita, agian, ingurune berean lekukotuta dauden hauek ere:

⁵³³ Gogoratu sarrera hau *Erans*-ean etimologia daraman bakarra dela.

zarraldoa (48): AN-lez.
beguibarrena (174): G-nav.

Orain arteko hitzek, dena dela, G-GN mugarantz eraman gaituzte, Larramendiren jaioterrirantz, eta gogoratu behar da Loiolan (B-G mugan, beraz) bizi zela hiztegia azkentzeari ekin zionean; horregatik, nago *RS*-ren zati galdukotzat jotako hitz zenbait zalantzan jarri behar ditugula, ea ez ote zituen berak entzun. Talderik deigarriena, gure mendean B-gip-en bakarrik edo B-gip-en bereziki ondo lekukotu ahal izan ditugun hitzek osatzen dute, ene usteko:

egarberaa (46): Iz *ArOñ*, *Elexp Berg*.
parapardina (426): *parapardi* B-oñ, *parapardoya* (*HH*).
seldorra (121): cf. *sendor* B-gip.

Areago muga hura igarotzen dutenak:

amarauna (635): B-elor (*A Apend*) + *msOñ* 208 + *Etxba Eib* + *ameraun* (Iz *ArOñ*, G ap. Azkue).
Gogoratu hau Axularrengandiko *amarau*-k iradokitako aldaeratzat izan dezakegula.
aozteguia (478): cf. *a(h)otz* B-gip, GN-larr.
arana (236) "endrina": cf. *OEH*: "Significa 'endrina' en el área vizcaína y en guip. de Navarra, donde para 'ciruela' lo más general es *okaran*, ya en Lcc (cf. alav. *aran* 'fruto del endrino')".
Beraz, mendebaldeko⁵³⁴ hizkera guztiak edo ia guztiak hartuko lituzke.
erbatza (633): B, G (eta *HH*-an jasoa); kasu honetan (cf. *OEH*) bizkaierazko lekukotasunak ditugu batez ere.
garchua (365): B, G-goi.
quiriquioa (243): *kirikiño* (B-a-o), *kirikio* (B-oñ-urd), *kirikirio* (B-l, G-azp-beiz).

Are nabarmenagoa iruditzen zait gipuzkeraz bai eta bizkaieraz lekukotu gabe dugun hitza denean, nahiz Mitxelenak (arrazoiz, baina iturritzat testuen ziurtasuna —nahiz testua balizkakoa izan— nahiago izanik) "La palabra recogida en el Goyerri guipuzcoano pudo muy bien haber sido usada en zona de habla vizcaína" esan:

osteleuria (24): *ostaleuri* (Zerain), *ostalebi* (Ormaiztegi), *ostelebi* (Legazpia, Mutiloa, Segura, Zerain), *ostraebi* (Urrestilla), *ostalebi* (Ormaiztegi).

Ahozko iturrian sartuko nituzke, datu hoberik izan ezean, ondoko hauek ere:

guezlara (434) "muela, piedra": oso hedadura handikoa bada ere (cf. *OEH*, s.v. *geztera*), aldaera honen beste lekukotasunik ez dugu.
irayo (110) "hacer caer": *HH*-an agertzen den *erayo* "estrellar"-en modura, inguruko ahazko euskaratik hartua dela egingo nuke.
istincari (112) "calafate" eta *istincatu* (113) "calafetear": cf. *HH*-ko *istingá* "viscosidad" eta *istinga* (B-a-o-oñ-tx, G) "pantano, cenagal".

Azkenik, proposamentxo bat egin nahi nuke orain artean batere arretarik erakarri ez duen *jazqui* (670) "a medio vestir" argitzeko. *RS*-ren zati galdutik izan litekeen *jazca*-ren aldamenean agertzen denez gero, balirudike nire aitzindariak honen ustelketa moduren bat dela ulertu dutela, eta honexegatik alde batera utzi.⁵³⁵ Haatik, oso forma interesgarria da, gehienera jota *jazquea* esperoko genukeelako; mugagabeen dator, ostera. Ohartu, gainera, berak eragin zezakeela itzulpena, aurren agertzen da eta. Izan liteke, beraz, *jazca* ere berak Larramendiri iradokitzea, atzizkia ongi ezagutzen zuenez gero, ulerpen txar bat dela medio. Baina, honetaz

⁵³⁴ "Mendebalde" hitza gure dialektologiak azken urte hauetan zabaldutako duen adieran ulertuta: bizkaiera + Urola + Goierri + Arabako euskara + Burunda, ezaugarri zenbaitetarako behinik behin (cf. Zuazo 1998b: 203).

⁵³⁵ *OEH*-ak (s.v. 2 *janzki*) *jazqui* berez kokatu du; ez du inolako iruzkinik eskaintzen, ostera.

dena dela, *jazqui* ez ote da *ibilki*-ren sailekoa, hots, azken honi Lhandek ematen dion itzulpenaz baliatuz, "en train de" esanahikoa?⁵³⁶

2.4.4.1. Hitz familiak

Beste taldeekin erabili ditugun gainerako irizpideetatik hauxe izan liteke laguntzaren bat egin diezaigukeen bakarra, ez grafiak (ahozko berriak direlako) ez morfologiak halakorik eskaintzen digunetez gero.

Bada talde txiki bat, gai jakin bati buruzko galdeketa baten ondorio izan litekeena,⁵³⁷ denak buruko zatiak baitira; nabarmenena, begien zatien izenak:

beguibarrena (174) "cuenca de los ojos". *beguilastoa* (130) "ceja". *becarria* (357) "lagaña". *betzuloa* (174) "cuenca de los ojos". *baldoquia* (425) "mollera". *eraitoquia* (605) "sienes". *gorgoilla* (189, 458) "degolladero", "nuez de la garganta". *maguita* (420) "mexilla".

Antzerako beste talde bat egin liteke kostaldeko hitzak izan daitezkeenekin:

istincari (112) "calafate", *istincatu* (113) "calafetear". *cresala* (23) "agua salada". *osteleuria* (24) "agua de tempestad".

2.4.4.2. Erans-eko kokalekua

Ez dugu orain artean etorki honetako hitzetarako hipotesirik egin, *Erans*-eko hitz guztien artean hauek bereizgaitzenak suertatu direlako. Halaz ere, badirudi irizpide hau dagoeneko erabiltzen has gaitzkeela:

1) *RS*-ren hitzen ondoan agertzen dira:

hurrena (RS), *aurrena* (540).
donaria (RS), *donarioa* (292).
betzuloa (RSgald?), *beguibarrena* (174).

Honegatik hurrengoari zalantzakoa iritzi behar diogu, guztiz *jazca*-ri dagokionez:

jazqui (670), *jazca* (RSgald??).

2) Landuccirekin ere beste horrenbeste gerta zitekeen:

bururaldea (Lcc), *baldoquia* (425).

⁵³⁶ Ondorio honetara Iñigo, Salaberri & Zubiri 1995 lana irakurri baino lehen iritsi nintzen, nabarmena denez. Gaietik egin dudana miaketan ez dut bertan *ja(n)zki*-ren alerik aurkitu eta, beraz, alde honetatik baliteke proposamena ausartegia izatea. Dena dela, egileek ematen dituzten hehetasunen arabera hitza, nonbait izatekotan, Gipuzkoako goinafarreraren hasi eta ekialderanzko hizkeraren batean entzun behar izan zuen, ziurrenik erabilera aberaskienik dabilen hizkeretako batean; hau ez da erabateko oztopoa, Iparraldeko hitzen artean besterik ezinean kokatu behar izan ditudan hitz zenbaitek iturrietatik bat nafarra izan litekeela iradokitzen dute eta (§ 2.4.3.5). Badirudi, bestalde, atzizkiaren erabilera arruntak ez datozela ongi Lhanderen "en train de" itzulpenarekin: halaz ere, erabiltzen duten hitzunik *-ki* gerundiotzat ez jotzeak ez du esan nahi arrotzek zenbait testuingurutan hartakotzat ezin har dezaketenik —ezjakintasanak eragindako okerrak egileek berek ongi ezagutzen dituzte—, eta Larramendik, dakigularik, *-ki* atzizkia berez ez bide zuen ezagutzen.

⁵³⁷ Badakigu *HH*-rako bederen halaxe galdezka ibili zela (Larramendi 1745: lii-liiii).

Hau egia balitz, orduan are eta arrazoi gehiago izango genuke *maguita* RS galdutik hartua dela sinesteko:

maguita (420), *mocaldea* (Lcc).

3) Axularrekin halako banaketa bat soma daiteke; alde batetik, aldaera hutsak aurrean agertzen dira (cf. § 2.4.3.7.ean bildutako gainerako adibideak):

baimena (371), *baimendua* (Ax).
amarauna (635), *amaraña* (Ax).

Esanahikideak edo sarrera bereko hitz ezberdinak, ostera, ondoan:

baldimba (Ax), *balimba* (Lar?), *albaldimbere* (136).
alapidea "camino libre". *bidaguiroa* (117) "temple de camino".
sagarroya (Ax), *quiriquioa* (243).
solasturia "amigo de conversación". *egarberaa* (46) "[amigo] de beber".

Laburbilduz, badirudi ahozko iturria RS, Landucci eta Axularren ostean ezarri zuela, bere kabuz erantsitako aldaerak-eta Axularren aurrean —sarrera modura— erantsi ohi zituen bitartean.

2.4.5. Erans-eko hapaxak

Ahaleginak eginda ere, oro har haien etorkiaz ezer gutxi —edo ezer ez— dakigun hitzak honako hauek dira:

alazaguiña (151) "comezón": *-gin* atzizkiduna?
ebaea (306) "gusto".
endea (81) "ausencia": cf. *indea*.
gueznazaya (415) "mensajero".
glostoa (170) "costo".
gurrandu (128) "cautivar".
indea (219) "duelo": cf. *endea*. Badirudi batuk bestea bermatzen dutela.
izorundu (691) "zurrar cueros, &c.": *ondu*-rekiko elkartua?
maguita (420) "mexilla".
nortu (294) "gastarse".
uzularia (492) "partera": *-lari* atzizkiduna?
zafira (477, 618) "paciencia", "sufrimiento": mailegua delako itxura dauka; aurkitzen dudan antzeko bakarra gazt. *zaherir* (*facerir*-en metatesia) da.

Kokalekuari begira, ohartzekoa da hauetako zenbait (*alazaguina*, *ebaea*, *zafira*) Axularren aurrean agertzen direla; baliteke, bada, RS-ren zati galdukoak izatea, hala nola Landucciren aurrean agertzen den *maguita* ere.

3. Ondorioak

Erans-aren azterketari tesi-lanaren alderdi oso bati oinarri ematen dion hipotesi zehatz baten gainean ekin diot, alegia, *HH*-an aurki daitezkeen hainbat berezitasun bere iturrien ñabartasunari zor zaizkiolakoan: ezohiko idazkerak, forma zalantzazkoak, hitz aldaerak, adiera ezberdinak... denak iturri bat baino gehiago erabiltzetik, eta hauek euskalki eta garai ezberdinetakoak izatetik zuzenean datozke, beraz. Hipotesi honen barruan, iturriekiko hiztegiaren jokabidea aztertzeko *Erans*-ak aski ongi menpera dezakegun iturri eta datu mikrokosmos bat eskaintzen digu eta, hortaz, *HH*-aren eranskin xumea alde honetatik iturria erabakitzeko erabil ditzakegun argudio ezberdinen frogagarritasuna neurtzeko alor bikain bilakatzen da.

Hain corpus mugatua izan arren, *Erans* eta bere iturrien arteko erlazioa oso korapilotsua dela egiaztatu ahal izan dugu, eta honek antzeko ikerketa bat *HH*-an egitea zeinen gaitza izango den ondo baino hobeto erakutsi digu. Iturrien identifikazioan aurkitu dugun distortsio elementurik garrantzitsuena hiztegiaren bera da, hiztegi formatoan ezarri beharrak hartaratu egin dituen aldaketetatik hasi eta berak bere kabuz hartu dituen erabakietaraino. Ildo honetatik, tiau bereko iturrietan bakarrik —Harrieten hiztegian, adibidez— agertzen zaigu kopiatzaile huts gisa, eta hauetan ere ez beti. Aitzitik, gehienetan iturrietako datuak kritikoki ebatzi zituen: grafia interpretatu, normaldu edota zuzentzera, hitzak morfologikoki analizatzera eta esanahia asmatzera behartuta aurkitu ez zenean, bere burua berak behartu zuen.

Honela jokatzek, abantaila askorekin batera, esan gabe doa hainbat arrisku dakartzala berekin: arrazoi ezberdinengatik batzuetan iturriak gailendu zaizkio, letren, morfologiaren zein esanahiaren interpretazioan okerrak eraginez. Gorabehera hauetan, hala iturriaren izaerak nola hartaz Larramendik egin zuen balioespenak zerikusi handia izan dute. Espero zitezkeen bezala, errata gehienak Landucciren eskuizkribuaren irakurketa zailak eragin ditu, eta esanahizko hutsik handienak eskuarki itzulpenik aldean ez daukan Axularren testuak. Bestalde, argi geratu da iturri batzuk —Axular, batez ere— tentu edo begiramen gehiagoz erabili zituela, beste batzuk —Landucci nagusiki— mesfidantza edo askatasun gehiagoz erabili zituen bitartean.

Argudioak eta haien balioa berpasatzerakoan konprobatu ahalko dugu, dena dela, lexikografoak hartu ohi zituen erabaki motak eta haien zioak menperatzea lortu dugun heinean, bere eskusartzeek ez digutela nahitaez iturria erabakitzea oztopatuko: hitzez hitzeko baino ikuspegi zabalagoa eskatzen dute, besterik ez.

3.1. Erratak eta irakurketa txarrak

Aspaldiko partez Filologiak ondo daki huts bateratzaileak berez direla testukritikan aurkez daitezkeen frogarik sendoenetakoak; beraz, alde honetatik *Erans*-ean honelako batzuk aurkitu izana alaiagarri dugu, *HH*-an gehiago izateko probabilitatearen arabera bertako iturriak ere oinarritzko ziurtasun batekin iturri izan zituela erakusteko lehen urratsa izan daiteke eta.

Larramendi, zuzenketa gutxi-asko erraz batzuekin batera, oro har jatorrizko testuaren letraz letrako irakurketaren sareetan erori egin zela egiaztatu ahal izan dugu (§ 1.1.18). Alabaina, alderantzizko kasuetan, hots, forma zuzen baten iturritzat erratadun pasarte bat bakarrik eman daitekeenean, ez genuke gutxietsi behar zuzentzeko Larramendiren gaitasuna.

Hutsa Larramendirena edota argitaratzailearena dela dirudienean, erratek lagundu beharrean zalantza eragin dezakete. Ezer baino lehenago, forma benetakoa izateko inolako probabilitaterik ez dagoela ziurtatu beharko genuke eta, beraz, azalpen konplexuagoetara —ahozko iturrira, adibidez— jo beharrik ez dagoela. Probabilitate hau, *Erans*-eko hitz batzuetan zeharo saihestu ezin izan dugunez gero (§ 1.1.18.3), *HH*-an oraindik arrazoi gehiagoz hartu beharko dugu kontuan, iturriak —eta, beraz, arazoak— askoz ugariago baitira.

Halaz ere, beti aurkituko ditugu argitaratzaileari lepora dakizkiokeen huts erraz eta argiak, edo egileari bakarrik lepora dakizkiokeenak, edo gaizki ulertutako iturri idatzia nahitaez eskatzen dutenak; areago, batzuk baliteke iturri zehatzaren salatzaile izatea: demagun, <f> edo <t> iturriari baten <f>-ren ordez, beste iturriari batean <s> dagoen bitartean.

3.2. Grafiak eta hotsak

Larramendik batzuetan jatorrizko testuaren grafia gorde zuenez gero, grafiak, bere nabarmentasunagatik, iturri idatzi bat izan dela bertatik bertara baieztatzeko bidea eman dezake, baita inoiz iturri mota (Iparraldekoa, demagun) edo iturri zehatza erabakitzeko ere. Haatik, grafi aldaketen maiztasuna ikusirik, argi geratu da grafiak nekez eskain dezakeela ezezko argudio sendorik: hots, iturri bat zein iturriko pasarte bat ezin daiteke *a priori* baztertera utzi, *Erans*-ean agertzen den itxura grafikoan agertzen delako, baldin eta Larramendik egin ohi zituen —edo egin zitzakeen— aldaketek azaltzen badute.

Erans-ean behinik behin, Larramendik ez ditu iturri guztiak era berera tratatu alde honetatik: Axularrekin askoz salbuespen gehiago egin zituen grafi aldaketan Harrietekin baino, eta biokin orotara aldaketa gutxiago egin zituen, eta garrantzi gutxiagokoak, itxura guztien arabera irakurgaitza eta, horretaz gainera, hizkuntzaren islapenaren aldetik zalantzazkoa

gertatzen zitzaion Landucciren hiztegiarekin baino. Bestalde, nabari da aldaketa guztiei ez ziela garrantzi bera eman: bere sisteman normal baina defektiboak diren idazkerak —<h> eta <v>, adibidez— edota irakurketa bikoitza zilegiztatzen dutenak —<ch> edo <in>, <il>— errazago onartu zituen, gaizki ulertzeko modua eman dezaketenak —<j>, <i>, <i> banaketa, adibidez— edo benetan arrotz zaizkionak baino: <tch>, <th>, <kh>, etab., edota elkartu-eratorrien osagaiak bereizita idaztea, esaterako. Grafi mota bakar batean beti berdin jokatu du: <ç>, <tç> eta <tc>ren ordezkapenean.

Bereziki garrantzitsua da gogoratzea, baliokideen arteko aldaketa mekanikoekin batera —nahiz hauek interpretazio maila bat bederen eskatu, hala nola <rh> : <rr> bezalakoak—, iturri guztietan hotsen interpretaziotzat eman daitezkeen aldaketak ere egin zituela, batez ere txistukarien arloan (§ 1.1.6). Lanbide honetan, etimologiak zerikusi handia izan du; bestela esanda, iturrietan aurkitutako hitzen grafiak ulertzeko hitzari buruz ezagut zezakeen informazio guztia erabili zuen, noski: aldaerak (*amaraüa* / *amaurauna* erakoak), atzizkiak (*bernagea*) edo mailegu izaera (*avenicoa*, *matelasa*).

Alabaina, hiztegiaren eskuhartzea oraindik handiagoa izan daiteke, inoren hitzak berak ezagunago zuten modura “itzultzen” dituenen (§ 1.1.17), erdal atzizkia euskal atzizkiak edo atzizki forma zaharra berriaz ordezkatzeko dituenen (*cusumoso* > *cusumatsua*, § 1.2.6; **jocaidea* > *jocaquidea*, § 1.2.7.3), eta, batez ere, hitzak elkarketa eta eratorpenaren legeetara erakartzen dituenen (§ 1.1.16.2). Honetatik guztitik gutxienez hiru ondorio atera ditzakegu: (1) zalantzazko edo bereizmen gutxiko grafiek estaltzen zuten hitzen itxura zuzena berreraikitzen saiatu zela; (2) erdialdeko euskalkietan oinarritutako estandar bat ezartzeko nolabaiteko ardura —txikia, inolaz ere— izan zuela; (3) elkarketak eta eratorpenak euskaraz dauzkaten jokabide eta arauz iritzi aski trinkoak —beharbada oso trinkoak— izan zituela.

3.3. Morfologia

Morfologiak oso irakasbide aberatsak eskaini dizkigu. Alde batetik, norberaren intuizioarekin bakarrik jokatzen denean, hiztegian hitzak era jakin batean ipini beharrak sortzen dituen zailtasunak aintzat hartu behar izan ditugu: izenkiak atzizkirik gabe eta aditzak partizipioan jartzeak arazo handiak ekar ditzakeen interpretazio maila bat eskatzen du, iturrian hiztegiarentzat ezezagunak edo anbiguoak diren atzizkiak aurkitzen direnean. Kasuan kasuko aterabide zuzen zein okerren kasuistikaz gainera, joera zenbait somatu ditugu Larramendirengan: *a + a > ea* bukaera eskuarki gorde zuten (§ 1.2.1), *HH*-an antzemandako bukaera honen maiztasunarekin bat; *n* edo *l* bukaerako aditzoinetan beti *-du* partizipioa berreraiki zuten (§ 1.2.5.3.b); *etsi* bigarren osagaien daukaten aditz elkartuak ongi menperatzen zituen eta, beraz, *-este > -etsi* berreraiketa arazorik gabe egin ohi zuten (§ 1.2.5.3.c); *-eta* erako aditzizenak ezezagun zituen, zeinarengatik *-etu* aditzak berreraiki zituen (§ 1.2.5.3.d); *-n* bukaerako partizipio zaharren *-(i)te* partizipioetatik, aditza ezagutu ezean, *-(i)tu* berreraiki zuten (*jasaitu*, *jagotu*; § 1.2.5.3.a); eta, azkenik, *-tze* aditzizenen aurrean beti, zuzen zein oker, *-tu* partizipioaren alde makurtu zen,

aldamenean kontrakoa erakusten zion datu argirik izan ezean behintzat (*ibid.*); bide batez, partizipioaren ordezeko aditzizen batzuk iturriari zor zaizkiola ikasi dugu (cf. I, § 8.1.2). Esan gabe doa, Larramendik forma okerra eskaintzen baldin badu, okerra eragin duen pasartea aurkitzen saiatu behar dugula; aitzitik, forma zuzena eskaintzen badu, badirudi zalantzazko pasarteak alde batera utzi beharko genituzkeela.

Bestetik, iturrietako hitzak kopiatzeaz gain, sarritan morfologikoki zuketzen ere zituen: eratorriak izatera, Larramendik oinarria erauzi ohi zuen, eta oinarriak halako maiztasun batez eratorri ere egin zituen, batez ere eratorri bakunena —aditza— erdiesteko (§ 1.2.7.1). Susma dezakegu *HH*-an are maiztasun eta behar gehiagoz egin zukeela, zeren eta nahi adina denbora ez eze, *DAut*-en aberastasuna berdintzeko oinarri jakin baten familia osoa berreraiki beharra baitzeukan, *Erans*-ean ez bezala.

Morfologi analisi honek Larramendi eta iturrien arteko erlazioa goitik behera markatzen duela dirudi. Hemendik dator atzizkiei hainbat hutsen ulerpenean eman diegan garrantzia (§ 1.2.7.3): jakintzat eman dut, haren arabera, Larramendiren ustetan hitzaren analisiaren maila oso garrantzitsu bat hitzaren osagaiak asmatzea zela; eta, honegatik, oinarri erauzpenak ez eze, atzizkiaren edo atzizkitzakoaren arabera hitzak ulertzea ere ez dela ezohikoa bere jokabidean.

Jokabide honen beste alderdi garrantzitsu bat, I. atalean ikasitakoarengatik jadanik ongi dakigunez, hitz familiak dira. Hala, bada, *Erans*-ak erakutsi digu familia bereko hitzak etorki berekoak direla sarritan, bi aldetatik: (1) ulerkeraren errazenean, oro har familia bereko hitzak aurkitutakoan egin dezakegun hipotesirik merkeena, iturri beretik hartutakoak izatea da; (2) indartsuenean, hitz bikote batean bietako batek iturri zehatza izango du, eta ezagutzen ditugunen artekoa bada, azkenean identifikatu ere ahal izango dugu; bestea, berriz, Larramendik eratorpenaz edo erauzpenak erdietsitakoa izango da. Azken hau bereziki argia dateke 'oinarria + hitz eratorria' bikoteetan.

3.4. Esanahia

Bereizkuntzarik esanguratsuen itzulpendun testuak diren ala ez jakitean datza (§ 1.3). Itzulpendun testuetan, jatorrizko itzulpena gordetzeko joera izan zuen Larramendik, eta egokitzapenen bat egin beharrean aurkitu zenean —erdarazko itzulpenaren forma hiztegirako desegokia edo anbigua izan zitekeenean— bakarrik urrunduz bertatik. Honek esan nahi du, lehenik eta behin, Larramendik nahita egindako eskusartzeak, ia denak morfologiara mugatzen direla: esanahiari dagokionez, behinik behin, ezinbestean baizik ez zuen hausnarketan ibiltzeko gogorik agertu eta, hanbatik hanbatean, argi dago buruhausterik ematen ez duten testuak nahiago zituela, beste edozein hiztegiarekin bezala.

Bestela doaz kontuak berez itzulpenik ez duten testuetan, nahiz hauetan ere ahalik eta ahaleginik txikiena egiten saiatu zen, eta gehienetan zuhurki, testuak berak eskaintako laguntzak —latinezko pasarteak, aldameneko euskal esanahikideak— aintzat hartuaz. Haatik, sarritan testuingurua bakarrik izan zuen lagungarri eta, jakina, oso lagungarri traidore suertatu zen:

esanahikide diruditen gauzak ez dira nahitaez beti esanahikide, eta testuinguruak —batez ere hala-hola menperatzen den hizkera batean— gaizki ulertzeko aukera handia ematen du.

Hau guztiau kontuan hartuta, esan gabe doa *Erans*-eko erdal sarrera testu baten itzulpenarekin bat baldin badator, honen alde makurtu behar garela, hitzak itzulpenik gabeko testuetan agerraldi gehiago izan arren. Aitzitik, oso ezberdina baldin bada, itzulpenik gabeko testuak ditu aukera guztiak, itzulpendun testutik balitz erdarazko zatia berdina edo zeharo baliokidea izatea espero dugulako; hari beretik, ahozko iturrietara jo behar dugu ezinbestean, ezagutzen dugun iturriari bakarria itzulpenaren aldetik ezinezkoa denean (cf. *becarria*). Honezaz gainera, hautagai guztiak itzulpenik gabekoak direnean, testuingurua lagungarri handia izan daiteke guretzat: testuinguru batzuk besteak baino egokiagoak dira Larramendik hitzari demaion itzulpena eragiteko edota, alderantziz, batzuk ezinezkoak izango dira.

Dena dela, badirudi batzuetan itzulpenik gabeko testuek ematen zizkieten arazoak konpontzeko bidexka bat erdietsi zuela itzulpendun testuetan: Axularren hitz batzuk beste iturriek emandako itzulpenen azpian agertzen dira, ez beti zuzen (§ 1.3.6), eta badirudi inoiz Harrietenekin erkatu zituela, haren formak hobetsiaz baina honen itzulpenak erabiliaz (§ 2.2.4).

Gaztelaniazko itzulpenetan ere aurkitu ditugu hitz familien garrantziaren arrastoak: hiztegitagilearen joera orokorra, itzulpenik gabeko testuetan, familia guztia era batera itzultzea da, bere osagaietako batzuk aurkitu ditueneko testuinguruari gehiegi begiratu gabe (§ 1.3.4.h).

Esanahian agertu zaigun faktore berri bat erdal sinonimia da (§ 1.3.5): *Erans HH*-aren eranskin ttiki bat baino ez izan arren, sarrera kopurua handitzeko batzuetan sinonimiara jo zuela ikusi dugu, alegia, iturriak eskainitako itzulpenaren arabera ez eze, haren sinonimo baten pean ere jaso zuela hitza. Hemen bakanka baizik egin ez zuena, susma dezakegu *HH* erraldoian askoz gehiagotan —sistematikoki?— egin zukeela.

Esan gabe doa, bestalde, itzulpen ezberdinek nahitaez bakoitza azal dezaketen iturri (edo agerleku) ezberdinak eskatzen dituztela.

Azkenik, batzuetan itzulpenak iturriaren arrastoak gordetzen dituela antzeman dugu, hala nola femeninoak (§ 2.4.2.2), mugagabe eta pluralak (§ 2.4.1.4) edo iturriari bakarrik agertzen diren zehaztapenak (*bohatu* “arranciarse el tocino” erakoak; § 1.3.4.c).

3.5. Harlekua

Lehenik eta behin, Larramendik erabili duen iturri zehatza identifikatzea ezinbestekotzat jo behar dugu, nahiz eta jakin —baita ondo jakin ere— batzuetan identifikatzea bera oso zaila eta aurkitzea ezinezkoa izan daitekeela. *Geroko gero*-ak irakatsi digu egozpenen fidagarritasunean okerreko argitalpena erabiltzeak daukan eragina; Landuccirenak, berriz, jatorrizko eskuizkribua —eta ez argitalpena— erabiliaz gauzak zeinen ezberdin ikusten diren. Dena dela, aparato kritikorik gabeko argitalpen modernoak saihestu beharko genituzke, zeren eta iturritasuna ezartzerakoan

erabatekoak izan litezkeen ezaugarriak (hutsak, grafia ezberdinak, etab.) ezabatzeko joera baitute —batzuetan oharkabean, gainera.

Bigarrenik, hiztezigileak iturria osorik ala zatika ezagutu edota erabili zuen erabaki behar dugu ahalik eta zehatzenik, hala barruko nola kanpoko datuetan oinarri harturik (§ 1.4). Zatika ezagutu edo erabiltzera, honek zeharo mugatzen du, jakina, delako hitz bat bertatik hartua izateko probabilitatea. Zehazkiago, dagoeneko badakigu Harriet *Erans*-ean zatika bakarrik erabili zuela eta, bestalde, gainerakoa *HH*-an aurkituko bide dugula. Alderantziz, Axular, Landucci eta *RS* osorik irakurri eta hustu zituen *Erans*-erako. *RS*-ren kasuan, irizpide honek ezagutu ez zituen zatietan dauden hitzak bakarrik eragiten ditu, eta ondorioz, hitz batzuk guk ezagutzen ez dugun zatikoak izan daitezkeelako hipotesia berekin dakar. Gainerantzean, susma dezakegu bai *RS* bai Landucci *Erans*-ean bakarrik erabili zituela, bata beranduegi iritsi zuelako, eta bestea, agian ez erabiliaz beranduegi damutu zelako; hala eta guztiz ere, Axular birritan osorik hustu zuela eta Harriet bietan banatua dagoela jakinik, III. atalean eztabaidatu beharko dugun zalantza izpi bat bederen geratzen da.

Bada, azkenik, harlekuarekin zerikusia duen beste irizpide bat: *Erans*-eko bi hitz edo gehiago iturrian lotuta aurkitzen ditugunean, iturri beretik —eta are pasarte beretik— hartuak izateko probabilitate handia dago (§ 2.1.8). Irizpide hau kasuistika zabal batean barraiatzen da: argienetatik hasita, hiztegi sarrera bereko esanahikideak, sarrera hurbiletako familiakideak, edo hurbiltasun fisiko zein semantikozko bestelako erlazioak (antonimoak, adib.); maila honetan antolakuntza gutxiago duten testuen kasuan —literatur testuetan, oro har— irizpidea berdintsu erabil daiteke, jakintzat ematen baldin badugu bestelako arrazoiengatik jadanik geldiarazi duen errefracu edo esaldi bateko hitzez ohartzea errazagoa dela, bakoitza pasarte ezberdinetik hartzea baino. Bereziki argia da esapide eta kolokazioen kasua —Axularrengan hainbat adibide bildu ahal izan ditugu, esaterako—, zeren iturrian dagoen-dagoenean agertzea espero baitezakegu.

3.6. Iturrien sar-ordena eta lan egiteko forma

Tesi-lan honen I. ataletik aldeztan ari naizen bezala, gertakari azalgaitz asko ulertzeko izan genezakeen tresnarik indartsuenetakoa hiztezigilearen lan egiteko forma ezagutzea izango litzateke eta, kasu zehatz honetan, iturrietako datuak *Erans*-ean zein ordenatan sartu zituen. II. atalean zehar irizpide hau “hiztegien lehentasuna”ren irizpidea baino garrantzizkoagoa dela erakusten saiatu naiz (§ 2.2): “hiztegien lehentasuna” argudio erabat lexikografikoa da, eta beraren arabera edozein hiztezigilek beste hiztegi-tako datu eskuraerazak testuetako datu eskuragaitz eta arriskutsuak baino nahiago ditu; bere izaeragatik beragatik, bistan da ez daukala frogagarritasunik ezer baino lehenago aintzat hartu behar ditugun ohiko argudio filologikoen aurrean.

Aztertutako testuaren historiatik eta haren barneko egituratik atera ahal izan ditugun xehetasunen arabera, gainera, “hiztegien lehentasuna” argudioak ezin izan du operatu bere ahal guztiaz *Erans*-ean, eta neurri txiki batean bakarrik islatzen da: Landucci eta Harrieten

hiztegi zori zaitzen itzulpenen azpian itzulpengabeko testuaren hitzak agertzean, Axularren pare bat forma Harrieten hiztegi antzeko formen itzulpenarekin ematean, eta batez ere Harrieten itzulpenak —vs Axularren itzulpenik gabeko pasarteak— *Erans*-ekoekin bat datozenean. Oro har, ordea, Harriet erabilitako azken iturria dela ziur xamarra dirudi, eta baliteke Landucci bera ere Axular baino lehenagokoa ez izatea.

Horren ordez, beraz, bi argudio berri erabili ditut: etorki ezberdineko hitzek sarreran daukaten ordena (§ 1.5.1), eta testu zenbaiten hitzak denak bateratsu sartzegatik eginda diruditen alfabeto hurrenkeraren aurkako desbideratzeak (§ 1.5.3). Dagoeneko esan dezakegu bigarren argudioak zeregin gutxi izango duela *HH*-an, bertako hurrenkera gehienez *DAut*-ek emana baitator, baina lehenak —sarrera barruko hitz ordenak, alegia— baliteke aztarnaren bat eskaintzea, zeren eta ez baitirudi han kontuak oso ezberdinak izango direnik, bertan Harriet azken iturria-edo izan zela, ziurrenik Landucci erabili ez zuela eta horrezaz gainera erabil zezakeen hiztegi bakarra Etxeberrirena dela kontuan harturik.

Zehaztu ahal izan dugu, hipotesi modura, Larramendik ziurrenik zerrenda ezberdinak osatu zituela iturri bakoitzarekin. Bere lan egiteko formaz jadanik dakiguna honetara ekarririk (I, § 9.3), nik neuk behintzat honelaxe azalduko nuke prozesua: testu bat husteko, hitzak aurkitu ahala apuntatu egin zituen zerrenda batean, bertan agerpena beste hurrenkerarik gorde gabe ziurrenik, eta bertatik aldamenean itzulpena ere —testukoa bera edo testuinguruak iradokia— idatziaz. Gero zerrenda ezberdin hauetatik azken zerrenda bakat bat —*Erans* bera, alegia— atera zuen, dagoeneko ordenatuaz, baina alfabeto hurrenkera zehatzik erdietsi gabe. Azken hau ederki azaltzen da, nire ustez, letraka eta zerrendaz zerrenda aritu zela suposatuz: ezen honela Axularren zerrendan, demagun, aurkitutako A letrako hitzak, guztiz konbinazio hurbilekoak (AB, AC, AD...) jarraian kopia baitzitezkeen, beste iturrietakoak lekuz kanpo geratzen ziren gehiegi begiratu gabe.

Honek oina eman diezaguke *HH*-an ere honelatsu jokatu zuela sinesteko, alegia, *HH*-an *DAut*-i dagozkion alderdiak eratu ondoren, euskal iturrietatik erdietsitako zerrenda ezberdinak banaka erantsi zituzkeela. Sar-ordenaren ondorioz, beraz, baliteke iturri batzuk besteak baino lehenago edo atzerago agertzea *HH*-ko sarreretan, nahiz eta *Erans*-ean bertan ageri honetan ere halako aldakortasun maila bat kontuan hartu behar dugula. Gogora bitez, gainera, *HH*-an aurkitu ditugun azken muturreko *item*-ak eta ordain ezberdinak biltzen dituzten sarrera errepikatuak, honekin zerikusia izan baitezakete, jadanik iradoki dudanez.

Ikasi dugun beste gauza garrantzitsu bat, hitzak *Erans*-ean eta *HH*-an, bietan eta esanahi berberarekin ager daitezkeela da. Honek adierazten digu *Erans* osatzeko interesgarri iruditu zitzaion guztia baliatu zuela, jadanik *HH*-an bilduta zegoen ala ez egiaztatu gabe. Honekin, gainera, lehenago antzeman dugun Larramendiren ezaugarri bat sendotuta ateratzen da: alegia, ez zela egindako lana berrikuszale, aurrera egitea edozeren ginetiko xede izan bide zuela.

Ilido beretsutik doa Axularrekikoa, hots, iturri honetatik ateratako hitzak batean eta bestean inoiz esanahi ezberdinekin agertzea. Jakina, sarritan azalpena *HH*-an beste iturri bat erabili izana da. Haatik, halako ziurtasun batez esan dezakegu badirela bertan bakarrik topa zitzakeen hainbat hitz, eta honelakoetan ere antzeko gertakariak kausitu ditugu. Honen azalpena erraza da: testuinguruak eragindako itzulpenak direnez gero, irakurtaldi batean batera eta bestean bestera ulertzea ez dirudi batere harrigarria denik.

3.7. Iturri ezezagunak

Orain arteko guztia eskuzta dezakegun iturri mota bati buruzkoa da ia erabat, hots, idatzizkoari buruzkoa, den hiztegia edo literatur testua. *Erans*-ean —baita dudarik gabe *HH*-an ere— Larramendik bildu zuen materialaren zati bat bakarrik osatzen dute iturri ezagun edo ezagungarri hauek. Beste zati bat, *Erans*-ean nahikoa garrantzizkoa eta, aurreikus daitekeen neurrian, are handiagoa *HH*-an, erabat ezezagun dugu eta hein handi batean ezingo da sekula aieruz baizik kokatu. Ahozko osagaiari nagokio batik bat, jakina.

Ezin da zeharo alde batera utzi, ez eta *Erans*-erako ere, hitz gutxi batzuk azal litzakeen beste iturri idatziren baten agerpena; bertako hautagairik garbienak, nik uste, Garibaik ongi azaltzen ez duen *mendoza*, eta iturri idatzia eskatzen duela dirudien *garcochilo* izango lirateke. Dena den, bertatik asumitu behar dugu, nik uste, *Erans*-eko eta bereziki *HH*-ko hitz askok metodo filologiko egokiekin eman diezaiekegunaz beste azalpenik ez dutela aurkituko.

Iturri ezezaguneko hitzekin hiru azalbide saiatu ditut *Erans*-ean: batetik, kanpoko iturrietara jo gabe arazo zenbait testuaren barruan bertan konpontzea; bestetik, hitzek eurek beren baitan etorkiari buruz gordetzen dituzten aztarnak azaleraztea; eta, azkenik, hitz baten etorkirantz hurbiltzeko, haren historiaz eta euskalki hedaduraz dakiguna biltzea.

Barruko aterabideak iturriekiko Larramendiren jokabideaz ikasi dugunak eskaintzen dizkigu: morfologiaren aldetik egin zitzakeen gauzak eta oro har euskaraz zekienak iradoki ziezaizkiokeenak. Lehenengo kasuan, hiru urratseko bidaia egin dezakegu batzuetan: lehenik, esan dezakegu halako ziurtasun batez familia bereko eta era bateko itzulpendun bi hitz iturri beretik datozela; bigarrenik, iturritik zuzenean bietako bat bakarrik datorrela susma dezakegu, bestea Larramendiren eratorria edo erauzia den bitartean. Zailxeagoa da hirugarren urratsa, hau da, jatorrizkoa zein den erabakitzea; halaz ere, aldeko eta kontrako posibilitateak neurtzeko saioen bat bederen egin ahal izan dut *Erans*-eko bikoteekin (§ 2.4.1.1).

Bigarren barruko argudioa jatorriz Mitxelenaren iradokizun batetik dator: *otu* + *oyutu* bezalako bikote bat azaltzeko modu bakarra, bigarrena Larramendiren ulerpen etimologikoa dela esatea da (§ 2.4.1.2). Hitzgintzari buruz hiztegiak zeukan interes sakona dagoenez ongi xamar ezaguturik, ez gaitu harritu behar arlo honetan ere saiatu izanak. Halaz ere, bada adibide argiagorik: *bezala* *Erans*-ean agertzea, Larramendik batzuetan berak ezagutzen zuen aldaera edo esanahikidea buruz erantsi zuela eginez bakarrik azal daitekeela deritzat. Honek bereziki ongi azaltzen ditu aldaera hurbileko bikoteak (*amarauna* / *amaraua* erakoak), eta

gogora dezakegu sarrienik honelakoak Axularren hitzetan gertatzen direla; badirudi Larramendik irakurleari biak begi aurrean jarri nahi izan zizkiola, hain ezberdinak ez direla edota bata zein bestea erabil daitezkeela erakusteko.

Hitzek bere buruaz esan dezaketinari dagokionez, grafiatik hasteak zentzuzkoena dirudi: oso ongi baliatu ahal dezakegu batzuetan *RS*-ren zati galdutiko etorkia susmatzeko, edota Iparraldeko azalpen bat saiartzeko, jadanik aipatu dudan *garcochilo*-ren kasuan bezala. Grafiak, ostera, ez digu ezer esango ahozko etorkiko hitzei buruz, ziurrenik Larramendik ohiko sistemaren arabera letraldatu baitzituen. Hotsen aldetiko ezaugarri zenbait, ostera, lagungarri izan daitezke euskalki etorkia ezartzeko, edo posibilitate zenbait ezabatzeko behinik behin.

Hitzen itxuraren bestelako ezaugarri zenbaitek ere euskarri gisa balio dezakete: maileguen artean, adibidez, ekialdeko itxura nabarmena daukaten batzuk aurkitu ditugu, Hegoaldekoa dutenen aurrean.

Gaztelaniazko itzulpenak ere laguntza eskain dezake: izan ere, *RS*-en zati galdutik dirudien itzulpen bat antzeman uste dut, adibidez (§ 2.4.2.3); *sontsitu*-ren kasuan, bestalde, gaztelaniazko sarrerak elkarren artean hain ezberdinak diren adierak jasotzen ditu, non bere etorkiaz hausnarketa egiteko bide ematen digun (§ 2.4.3.4).

Hurbilketa hauek guztiak sendo daitezke —eta ahaleginean sendotu behar dira—, azkenik, hitzaren euskalki hedaduraz esan dezakegun guztiarekin. Egia da inoiz jokoz kanpo gera daitekeela baita filologorik zuhurrena ere: Harrieten agerpenak birritan (*ibildauna* eta *oquelia*) gezurtatu du Mitxelena, izan zezakeen informazio guztia esku artean izanda, ezinbestean mendebaldekoak eta ia-ia ziurtasun osoz bizkaierazkoak zirela esatera behartuta egon baitzen. Halaz ere, ezin dugu egin hau beti honela izango denik, noski, akatsen arriskuaren gainetik ezagutzan aurrera egin dezakegula sinisten baldin badugu, behintzat: egia da batzuetan datu ziurrek ondorio okerrak eskaintzen dituztela, baina egia da, halaber, batzuek beste ondorioak onak izango direla: adibidearekin jarraituz, Mitxelenak ehuneko gora batean Iparraldekotzat jo zituen gero Harrietek azalduko zituen hitzak.

Alde honetatik ondorio onik erdietsi ahal izateko, lehenik eta behin bertan behera utzi behar dugu *Erans*-ean —eta *HH*-an— dagoen ahozko osagaia nahitaez gipuzkerazkoa delako aurreiritzia, are gehiago Andoaingoa edota Hernanikoa delakoa. Berriro gogoratuko dut hiztegiaren zatirik handiena ondu zuenean Larramendi Loiolan bizi zela, zeinarengatik objektiboki Urolako bailarako hizkera —agian baita Gipuzkoako bizkaiera ere— jaioterriko euskara bezain etorki onak diren, eta ziurrenik hobeak. Honezaz gainera, aurreratutako egingo dut balitekeela bizikideen artean etorki ezberdineko berriemaileak izatea, nahiz eta honi buruzko daturik ez dudala aitortu beharrean nagoen. *Erans*-eko hitzen gutxi gorabeherako euskalki kokagunea da, sarritan, haietaz daukagun datu bakarra; ez dago zalantzarik kopuruek gorantz egingo dutela *HH*-an eta, nork daki, beharbada etorkizunean Larramendik *in situ* edo inor erabiliaz galdekatu ahal izan zituen alderdien inguruan puntu sare bat ezartzea ahalbidetuko digute. Nolanahi ere den, honelako hitzetarako Larramendiren lekukotasuna, oraingoz etorkizko

hizkera zalantzan utzi beharrean bagaude ere, ia beti lehena eta askotan bakanetakoa da, eta berez egiaztatu egiten du XVIII. mendean zeukaten bizitasuna.

Ezin ondorio hauek itxi, *Erans*-ean oraindik ahalegin guztien gaintik euren etorkiaz inolako aztarnarik ematen ez duten hitz batzuk geratzen direla esan gabe, eta ziurrenik *HH*-an are gehiago aurkituko ditugula. Nik uste, bi jarrera har daitezke honelakoei buruz: Mitxelenarekin batera fidatuki sinetsi Larramendik ez zuela *Erans*-ean hitz berririk egin beharrik eta, beraz, bertako lekukotasuna —hanbatik hanbatean bestez ordezkatzeara (edo sendotzeara) nahiago bagenuke ere— ziurra dela egin. Azterketan zehar jarrera hau funtsean okerra dela egiaztatzen nahikoa frogatzen ditut: Larramendi agian lehenago baino zertxobait erlaxatuago baina hiztegia osatze aldera oraindik ere bilketa hutsaz gaintik lana egiteko prest zegoen. Nire aburuz, beraz, jarrera zuzena tentuz irekia izango litzateke, hots, *Erans* txikian —eta arrazoi gehiagorik *HH* handian— hapax kopuru bat badela sinestea: XVIII. mendean bizirik zeuden baina arrazoi ezberdinengatik bestelako bildumetan (oraindik?) jaso ez diren zenbait hitz, alegia. Alabaina, aldi berean, Larramendik erabili zituen hitzberrigintza moduak menperatzen ez ditugun bitartean, gogoratu nahi nuke zuhurra izango litzatekeela halako hitzen gainean arreta mantentzea, aterabide hoberen begira.

III

HIZTEGI HIRUKOITZA-REN ITURRIEN AZTERKETARAKO OINARRIAK

1. Euskal hitza zer den edo hitzberrigintzaren oinarri teorikoak

Aintzat har daitezkeen alderdi nagusi ia guztietan, Lakarrak (1993 bereziki) ezarrita utzi du *HH*-aren ikerketa izan litekeena edo, hobeto esanda, izan beharko lukeena. Alde batetik, 1741 arteko —Harriet arteko— hiztegi eta hitz bilduma zahar guztietara hurbilketa berritzaile bat eginez, lexikografiaren historian, gramatika ideienean eta, hala zegokionean, baita testuinguru historiko zabalago batean ere guztiak kokatu ditu. Bestetik, *Erans*-aren azterketari *HH*-rako sarbide modura ekinez, batean eta bestean aurki ditzakegun Harrietengandiko hitzek Larramendik iturriekin egin zuen erabileraz dioskutenari garrantzi berezia eman dio, eta hitzberrigintza antzemateko bide ziur gisa bere gogoko atzizkiak aztertu beharko liratekeela iradoki. Eta, azkenik, Larramendiren egitasmo orokorrerako sarrera historiko-teorikoa —beste hizkuntza askotako paraleloekin aberastua— egin du, egilearen gainerako lanen testuinguruan *HH* jarriaz eta maileguei eta hitz berriei buruz izan zituen iritziak azaleratuaz. Lakarraren lana hizkuntzaren betegintzarreei buruzko, hizkuntza beteginari buruzko eta materia eta formaren arteko bereizkuntzari buruzko Larramendiren gogoeta batzuekin amaitzen da.

Tesi honetan orain artean oinarritzko eskema honi atxiki gataizkio, Larramendik zer egin nahi ote zezakeen eztabaidatzea alde batera utzita, hein batean bederen, zer egin zuen ahalik eta xehekiena aztertzeko asmoz, lehenik alderdi lexikografiko hertsitik —eredutik abiatuta *HH* nola eraiki zuen—, eta gero jadanik testukritikaren alorrean sarturik, euskal iturriak —guztiz idatziak— nola erabili zituen. III. atal hau Lakarrak bere lana utzi zuen puntu berebanean hasten da, alegia, Larramendik hizkuntzaren bizitzaz eta hizkuntza beteginaren ezaugarriez uste zuena berpasatuaz. Zeren eta aldeztuko baitut bi teoria hauek direla, izan ere, *HH*-an garatu zuen praktika lexikografikoa oso eta oro azaltzen dutenak.

Lakarrak ongi ezarrita utzi du *HH*-an, hitzberrigintza osagai ukaezinarekin batera, ahozko eta idatzizko iturriek garrantzi berezia dutela; bere ustez, ziurrenik hitzberrigintzari aitortu ohi zaiona baino nahikoa handiagoa (Lakarra 1993: 341-342). Ildo honetatik, aurreneko ataletan indartuta atera da *HH*-aren iturri ia bakarra egilearen Minerva ez delako ideia. Zalantzarik gabe, *Erans*-ak, *HH*-aren zati ezinbereizizkoa den heinean, oraindik ere ezerk baino bermatzenago du Larramendik helmenean izan zituen testuak oro goitik behera irakurri eta hitz anitz apuntatu egin zituela; baina dagoeneko ez da hartaz dugun berme bakarra: zehazkiago,

kontuan hartzekoa da Harriet eta Axular bederen bietan erabilia (II, § 1.6), hala nola grafian kausitu ditugun Iparraldeko literaturaren arrastoak (I, § 8.4), besteak beste. Ahozko iturria, bestalde, batez ere *HH*-ko sarrera batzuen sinonimo eta aldaera aberastasunean (I, §§ 8.2 eta 8.3.7) soma daiteke, baita *Erans*-eko iturri ezezaguneko ekarpen batzuetan (II, § 2.4) eta *HH*-an eta *Erans*-ean aldaera ezberdinak egotean ere (II, § 1.6); egilearen hizkuntz gaitasunak neurri batean bakarrik eman lezake honen guztiaren kontu. Sormenari dagokionez, egiaztatu ahal izan dugu hitz familia eta hitz berrien arteko erlazio zuzena dagoela (I, § 8.3.2), espero zitekeen bezala, baina honekin batera, esperoezina ez bazen ere, gutxienez orain artean aintzat hartu gabeko beste faktore bat azaldu zaigu, hots, hizkuntz analisia, hitz berriak egitea baino askoz aurrerago doana: *Erans*-aren azterketan ikusi ahal izan dugu Larramendik ebaki, analizatu, interpretatu eta berreraikitzen zituela iturrietatik erdietsitako materialak —erroak, atzizkiak eta elkarmoduak— (II, § 3.3), literaturatik edo ahozkotik lortutakoan ere eskusartzeak eginez, beraz.

Honek gauzak zertxobait zailtzen dizkigu. Hiru osagai horiek bereizteko argudio argiak aurkitzea, badirudi edozein euskalariren ametsa izan litekeela: bigarren eskuko datuak eta asmakuntzak alde batera utziaz, XVIII. mendeko euskararen isla denarekin gera gintezke, euskararen historian aurrera —eta adierarik hertsienean, atzera— egiteko parada egokia aurkituz (Lakarra 1993: 341); edo Larramendiren berrikuntzek gerora izango zuten benetako eragina muga genezake (Sarasola 1986: 206-207), edota Iparraldeko literaturak Hegoaldeko literatur euskalkien eraikuntzan izan zuen garrantzian sakondu (Urgell 1992a: 236-246).

Lanari gogoeta hauen azpian ekin niola aitortu behar dut, hots, lehenengoz *HH* filologiaren lupapean jartzeak —ia-ia ukitu gabe zegoela kontuan harturik—, beharbada arazo guztiak konponduko ez bazituen ere, gutxienez antzeko bereizkuntza bat ezartzeko oinarriak eskainiko lituzkeelakoan. Zalantzarik gabe, honelako zerbait aurkitu ahalko da ondoko ataletan barrena, ezinbestean hiru alderdi haien araberrako azterketak, metodologikoki bata bestetik oso ezberdinak, egin behar izan ditudalako. Alabaina, orain erabat etsita nago jarrera teoriko modura gaiari alderdika begiratzeak —“hitz berriak nola egin zituen?”, “Leizarragarengandik zer hartu zuen?” erako galderei erantzun nahi izateak— ez duela zatika baizik Larramendiren hiztegi gintza argituko.

Hiztegiaren osagai ezberdinak ez dira beregainak, lan bakarrean Larramendik halabeharrez bilduak. *HH*-ari begi berriz begiratzen ikasi dugunetik, jakintzat eman bide dugu gaztelaniazko hitzen aldamenean lehenik euskal ordain jatorrak (bere euskaratik, irakurketetatik eta ahozko bilketetatik erdietsitakoak) jarri zituela, eta gero hutsuneak hitz berriekin bete. Alegia, zintzo jokatu zuela erabaki dugunez, bere jokabidea gure zintzotasun parametroen arabera berreraikitzen hasi gara. Datuen azterketak argi erakusten du, nik uste, ez dela halakorik, baizik eta funtsean hiztegia idaztaldi jarrai baten (egiatan, dakigunez, biren) ondorioa dela, eta idaztaldian zehar osagai ezberdinak buruak eman ahala eta irispidean jartzen zitzaizkion heinean ehotu zituela. Osagaiak gaur nahaste eta ia bereiztezin ageri badira, ez da susmatu ohi ditugun arrazoiengatik: ez Larramendik egindako lana estali nahi izan zuelako,

“erdaldunak harritu beharrez” (Mitxelena 1961: 364), ibartarrek esan ziguten bezala; ez eta oraintsu artean ikerketa ez ezik, ikertzeko gogoia bera ere peitu dugulako (Lakarra 1993: 341-342) bakarrik. Aitzitik, osagaien artean bereizteko gaiztasuna ez da anekdotikoa, funtsezkoa baizik: hizkuntzaren etorki, historia eta izaerari buruzko teoria esplizituek osagaiok zein izango diren erabaki dute, eurek eratu dituzte, euren menpe daude, eta hiztegiaren iragazki gutxi-asko estu baina iraunkorretik igaro dira denak.

Honegatik, ondoko kapituluetan, orainago esan bezala, osotasuna eratzen duten alderdiei ezinbestean zatika heldu beharko badiegu ere, orduan azalduko zaizkigun milaka zertzeladei zentzua eman dakiekeen sarrera teoriko bat egitea baitezpadakoa da, Lakarra 1993an jorratututako ideia nagusietara itzuli eta, zatikako hurbilketek begi aurrean ipini diguten norabidean aurrera eginik, Larramendiren pentsamoldearen berrirakurketa bat proposatuaz.

1.1. Apologia eta hizkuntzaren defentsa

Errenazimenduaz gero Europa guztian hizkuntza “arruntei” buruzko kezka bizia sortzen da, lehenik eta behin Erdi Aro guztian zehar kultura eta irakaskuntzaren hizkuntza, zientzia, filosofia eta zuzenbidearena, baita gramatikaren hizkuntza eta xede izan zen latinari aitziki. Kezka berri honek ez du latinak Mendebaldeko kultur munduan zeukan lekua goitik behera aldatzen, jakina, baina bai erdigunetik gero eta estatus mugatuago batera pixkanaka aldaratzen.⁵³⁸ Estatu feudalaren hondamenetik sortutako estatu modernoek hizkuntza bizi bat behar zuten, barruan herritarren arteko lotura sendotu eta munduaren aurrean ordezkia zitzan; merkatariek harremanetan dauden herrien hizkuntzak ezagutu behar dituzte⁵³⁹ eta latina, teorian oraindik nazioarteko harremanen hizkuntza bada ere, praktikan ziurrenik traba baino ez zen aspalditik.

Hizkuntza “arrunten” ospe hartzearen eta apologiaren arteko lotura erabatekoa da. Bata bestearen hurren agertzen dira hizkuntza askoren apologiak, ofizial diren eta ez direnenak, ingurugiro berri hartan beren buruarentzako lekutxo bat lortu nahian. Adibidez, Lope Blanch-ek (1990: 75) João de Barros-en *Diálogo em louvor da nossa linguagem* (1540), Ambrosio de Morales-en *Discurso de la lengua castellana*, J. du Bellay-ren *Défence et illustration de la langue françoise* (1549) eta Martin de Viziana-ren *Libro de alabanças de las lenguas hebrea, griega, latina, castellana y valenciana* (1574) aipatzen ditu, eta hau esaten (*loc. cit.*, 11. oh.): “En todos estos tratados se procura probar que las lenguas vulgares son, por sí mismas, tan dignas y bellas como las lenguas clásicas, y que si, en realidad, desmerecen ante el griego o el

⁵³⁸ Baditugu guk ere latina gai batzuetarako eta hizkuntza arrunta bestetarako erabili izanaren adibide gardenak (Lakarra 1993: 310): Oihenartek olerkiak eta herri-errefrauek euskaraz eman zituen bitartean, *Notitia* latinez idatzi zuen (*Déclaration historique...*, berriz, izenburuaren arabera, frantsesez; cf. Mitxelena 1960: 75, 31. oh.); halaber Ubillosek dotrinatxoak euskaraz, baina latinez filosofiazko hiru liburu mardulak (cf. Villasante 1979: 154). Larramendik berak, lan akademiko hutsa eta oso goiztiarra izan arren, *Pallium Thomisticum seu Larvae Jansenianae* (c. 1720) latinezko idatzi dotorea —dakienak dioskunez— utzi digu (Tellechea-Idigoras 1990). Espainian XVIII. mendean zehar latina unibertsitateetan —eta, beraz, jakintza arloetan— gaztelaniarekin ordezkatzeko izan ziren gorabeheretarako, ik. Lázaro Carreter (1985: 163-182).

⁵³⁹ Honen ondorio lexikografiko zuzena hizkuntz eskuliburuaren tradizioa da, gure artean Mikoleta eta Voltaire-renetan islatua (ik. Lakarra 1993: 36-70).

latín, no es por deficiencia propia, sino por falta de cultivo y estudio. De ahí que todo buen humanista deba sentirse obligado a cuidar y ennoblecer su propia lengua”.

Alabaina, latinari aitzitik bakarrik ari zirela esatea, gauzak zeharo sinplifikatzea baino ez da: egiatan, Europako hizkuntzak —Europako estatuak bezala— elkarren aitzitik aritu ziren, norgehiagokan; baita, noski, estatu hizkuntzak estatuko gainerako dialekto eta hizkuntzen aitzitik.

Bahner-ek (1966: 9-15) ederki ulertarazi du zatikatutako baina bere tradizio komuna gogoan zeukan Italia batean humanistek sortu zuten hizkuntz ideologiak —hizkuntza arruntaren balioeste berri honek— izan zuten garrantzia XVI-XVIII. mendeetako Europako estaturik nagusienetan, Frantzia eta Espainia: izan ere, berehala ohartu ziren hizkuntza bat eta batua izateko abantailez, barrura begira herritarren arteko kidesuna sor eta kanpora begira arrotzekiko ezberdintasuna marka baitzezakeen. Lanbide honetan bi joeraren kontra borrokatu behar izan zuten “nazio hizkuntzaren” aldeze eta apologiagileek: latinaren neurritz gaineko balioespenaren kontra, hizkuntza ofizial eta zientifikoan berak beste balioa zuela erakutsiaz; eta —Bahner-ek hala dio— dialektoen kontra, nazio hizkuntzari bidea zabal zekion atzera egin beharrekoak baitziren. Ez da Frantzisko I. Frantziakoaren Villers-Cotterets-eko ordenantza (1539) baino adibide argi eta zuzenagorik, zeren eta agerrian latinari hizkuntza ofizialaren lekua kendu zion, baina inplizituki jakintzat ematen da aurrerantzean ‘la langue du roi’ dela ahaleginean erabili behar dena, eta ez probintzietako beste edozein hizkera edo hizkuntza (Cohen 1987: 159-160).

Honekin batera, batasun eta ezberdintasun sentimentuak historia komun batean oinarritu beharrekoak ziren:⁵⁴⁰ nazio irudi historikoa lortu beharra zegoen, ez bakarrik nork bere historia ezagutu eta ulertzeko, baita gainerantzeko nazioen artean norberaren estatuak zeukan garrantziaz eta paperaz jabetzeko ere. Nazioen arteko norgehiagokari bide ematen zaio honela, lehenetsun politiko eta intelektuala —ziurrenik batez ere zeinek bere buruaren aurrean— erdietsi edo frogatu beharrez. Lehiaketaren argudioak funtsean historikoak eta historiko-linguistikoak dira: zeinek bereganatu duen hobeto antzinako tradizioa, zeinek duen etorkirik nobleena, zeinek duen hizkuntza klasikoekin pareka daitekeen moduko hizkuntzarik, etab. Labur bilduz, hizkuntzari dagokionez kontua zen nork berea Babelgo dorretik ahalik eta hurbilena ezartzea, dela haraino eramanez, dela gutxienez hizkuntza klasiko baten alabarik zintzoena eginez.

⁵⁴⁰ Cf. Maragall (1986: 400, ap. Juaristi 1992: 4-5): “El nuevo sentimiento patriótico desarrollado en las sociedades del occidente europeo durante el siglo XVI lleva a que los hombres cultos de estos pueblos traten de trasplantar el papel que correspondería a la Antigüedad grecolatina, dentro del humanismo italianizante, a su propia antigüedad (...) y se manifiesta en una doble consecuencia: primero, gusto por los productos primitivos de la historia de cada pueblo, viendo en ellos, no los datos de un estado de barbarie, sino la primitiva imagen del grupo a que se pertenece, esto es, una imagen de lo que a cada comunidad le es propio y, por tanto, algo en que coparticipa con cada uno de sus individuos; segundo, un interés por lo antiguo de cada país, es decir, por su historia, de cuyo conocimiento, lo más depurado y extenso posible, depende el conocimiento de su estado presente y su honor y gloria entre los pueblos actuales”.

Egoera soziopolitiko honek egundoko eragina izan zuen hizkuntz filosofian eta historian, baita hizkuntza doitze lanei —gramatika deskribapenari, lexikografiaren lehen urratsei— aurre egin zitzaizen moduan ere: mende hauetan, Babelgo 72 hizkuntzetakoa ez denak ez du merezi arakatzerik ere, zeren eta orduan, ezinbestean, beranduagoko nahasketen fruitua baino ez baita (López Madera, ap. Bahner 1966: 111).

Zeinek froga zezakeen halakorik? Bada, hizkuntzaren etorki eta bilakaerari buruzko eta hizkuntzen arteko ahaidetasunari buruzko gaiak zeuden egoeran zeudela, funtsean hartan tematzen zen edozeinek. Jadanik ezagutzen dugu Giambullarik (1546) toskanera etruskoarekin eta, azken buruan, arameoarekin lotu zuela, baina ez da salbuespen zoroa, araua baizik: gaztelania, hurrenez hurren, latinaren alaba (iritzirik zabalduena; cf. Lope Blanch 1990: 92), grekoarena (Covarrubias), hebreoarena (Quevedo; cf. Lope Blanch, *op. cit.* 93) zein, berez Babelgo ama-hizkuntzetatik bat, zuzenean Hispaniara ekarria (López Madera, Gonzalo de Correas...) izan daiteke; frantsesa hebreotik dator, edo grekotik, edo latinetik (Lepinette 1989: 277; Leroy-Turcan 1991: 15); Goropius Becanus-ek (1569) antzinako hizkuntza flandesera izan zela frogatzen du, flandestarrak Babelgo eraikuntzan egon ez zirenez gero, *confusio linguarum*-ak ez baitzituen jo (Zumthor 1997: 95-96); eta alemana *heroum lingua, lingua Teutonum victrix* dugu (Stieler 1691, ap. Jones 1991: 136):

It is a cardinal language or 'Hauptsprache', brought to Europe from Babel by Ascenas or Ashkenaz, great-grandson of Noah (Gen 10, 3) —a 3.000-year-old quasi-scriptural pedigree which cunningly places German genetically on a par with Greek, occasionally makes Latin a secondary hybrid of them both, and thus relegates to tertiary status the bastards French, Spanish and Italian (Jones, *ib.* 136-137).⁵⁴¹

Hizkuntza arrunt guztiak zalantzan jarrita daude; sendoenek ere euren balioa frogatu beharra izan zuten: une batez genealogi kontuak alde batera utzita, "Todos cuantos hazen cuenta de las lenguas y de su autoridad dicen, que la perfección y valor de la lengua se deue tomar y deducir de poder ser reducida a arte. Y por esto dicen todos, que las lenguas Hebrea, Griega y Latina son de más perfección" (Villalón 1558, ap. Lope Blanch 1990: 59). Honela azaltzen da, hein batean, Nebrixarengandik (1492) hasita,⁵⁴² hizkuntza arruntan gramatikak elkarren gaina agertzea mende hauetan. Eta, halaz ere, gramatika egina izateak berak ere ez zuen zertan zalantzak zeharo uxatu behar: hasiera batean, Villalónek argitu digunez, latina eta grekoa (eta hebreoa)⁵⁴³ bakarrik hartzen dira aho batez gramatikaduntzat, aldagabeak eta

⁵⁴¹ Alemanak ere badu gutxienez beste bertsio bat, noski: "Los alemanes se jactaban de descender de Tuisto, nieto de Noé según los mitógrafos renacentistas, a quien Tácito había señalado en su *Germania* como antepasado común de las tribus de dicho país (antepasado epónimo, pues *Tuisch* tiene una semejanza evidente con *Deutsch*, 'pueblo')" (Juaristi 1992: 21).

⁵⁴² Nebrixarena baino lehentxeago egin ziren hasikin zenbaitetarako eta ondorengo lehen gramatika frantses, portuges, aleman, ingeles eta italianoetarako, ik. Lope Blanch (1990: 53, 8. oh.). Xehetasun gehiago (hizkuntza zeltiko, germaniko, eskandinaviar eta finougriarrak barne) eta hizkuntza arruntei buruzko gogoeta gramatikak guztiak aintzat hartzen dituen ikuspuntu irekiago bat aurki daiteke Ahlquist (arg.) 1987an.

⁵⁴³ Askoren ustetan Jainkoak emanikako lehen hizkuntza izanik, nolabait beste era bateko gramatikatasuna zukeen hebreoak: ez jakintsuek asmatutakoa latin-grekoek bezala (cf. Bahner 1966: 54, adib.), Jainkoak emana baizik. Honegatik edo, hizkuntza arruntan gramatika kontuetan latina eta grekoa

araupekoak baitira; hizkuntza arruntak, erabileraren pean, aldaketa historikoen pean egoteagatik, ez dira gramatikadunak Valdés-en ustez, ez eta bere hizkuntza bera ere:

Ya sabeis que las lenguas vulgares de ninguna manera se pueden reducir a reglas de tal suerte que por ellas se puedan aprender; y siendo la castellana mezclada de tantas otras, podéis pensar si puede ninguno ser bastante a reducirla a reglas (Valdés 1535: 49, ap. Lope Blanch 1990: 57).

ez eta Nebrixaren lana ezagutu arren ere; eta, halaz ere, Nebrixa hain justu alderantzizkoa frogatzen saiatu zen:

Esta [el castellano] hasta nuestra edad anduvo suelta y fuera de regla, y a esta causa a recibido en pocos siglos muchas mudanças; por que si la queremos cotejar con la de oi a quinientos años, hallaremos tanta diferencia y diversidad cuanta puede ser maior entre dos lenguas (...). acordé ante todas las otras cosas reducir en artificio este nuestro lenguaje castellano, para que lo que agora y de aquí adelante en él se escriviere pueda quedar en un tenor, y estender se en toda la duración de los tiempos que están por venir, como vemos que se ha hecho en la lengua griega y latina, las cuales por aver estado debaxo de arte, aun que sobre ellas an pasado muchos siglos, toda vía quedan en una uniformidad (Nebrixa 1492: 112-113).

Honela ulertu behar dela dirudi:

...partió [Nebrixa] de que la lengua latina fue decayendo paralelamente a la decadencia del Imperio romano y finalmente fue corrompida de forma definitiva por la invasión goda, de donde partió la posterior formación del castellano. Por otra parte afirma Nebrixa que la lengua latina fue fijada de una forma exacta por los gramáticos en su época floreciente, con lo que dejó de estar expuesta a las modificaciones históricas. Nebrixa no precisa más su pensamiento ni relaciona nunca ambos hechos entre sí. Pero ello nos indica que aceptaba dos lenguas latinas: por un lado la lengua literaria clásica y por otro la coloquial, es decir, por un lado la lengua fijada por la gramática, inmovible ante los cambios históricos, y por otro la lengua sometida a las variaciones históricas, no basada en el "arte", sino en el "uso" (Bahner 1966: 54).

Orain artean hainbat aldiz jarraitu dudan Bahner-en aurkezpen dotoreak alde batera uzten ditu eskualde ez erromantzeetako hizkuntzak, erromantzeetan eta bereziki gaztelanian ikusmira jarrita, nahiz eta haiek ere, alemanaz ikusi ahal izan dugunez, borroka berebearn murgilduta egon. Baina bada arazo handiagorik: ahaztu egiten zaio aipatzea "nazio hizkuntza" berriek ez zutela dialektoen kontra bakarrik borrokatu behar, baita —ziurrenik nagusiki— estatu berriek beren baitan zituzten bestelako hizkuntzen kontra ere. Eta ez da ahaztu txikia, ez barkagarria, Frantziatz (alsaziera, bretoiera, flandesera, okzitanera; cf. Cohen 1987: 78) eta Espainiaz (euskara, galegoa, katalana) mintzo denean. Une hartan pairatzen dute beheraldirik gogorrena Erdi Aroan tradizio ezin aberatsagoa zuten okzitanerak eta katalanak. Une hartan esan dezake Mariana batek euskara "lenguaje grosero y bárbaro, y que no recibe elegancia" dela edo, agian Aljubarrotako bataila (1385) oraindik ahantzi ezinik, portugesa frantsesa eta gaztelaniaren nahastetik sortua dela, nahiz eta, bestalde, "gustosa para el oído y elegante" izan (1592: I, 5); López Madera batek "la lengua Vizcayna jamas ha sido capaz de escriuirse" (1625 [1611], ap. Bahner 1966: 104, 5. oh.) aldarrikatzen du, zeharo etsita, edota katalana eta portugesa bigarren mailako hizkuntzak direla (ap. *ib.* 111); eta Ledesma batek, Pozaren liburuaren aurka jaikita, euskaldunak "advenediços y forasteros retirados en la fragosidad y aspereça de aquellas montañas" (1626; ap. Bahner 1966: 96-97) ondorioztatzen du. Badakigu orain zer esan nahi zuten zehazki.

—eredu hurbilagoak edo, bestela esanda giza ereduak— aipatu ohi dira; beranduago ikusi ahalko dugu gramatikatasunaz gainera hebreoa jantzen duen beste ezaugarri garrantzitsu bat: filosofikotasuna, alegia.

Testuinguru honetan ulertu behar dira, beraz, katalanaren apologiak, hizkuntza “aspre, incult y escàs” deitu zutenen kontra (I. Ferreres, ap. Lakarra 1993: 318-319), baita euskararen apologia goiztiarrak ere (Zaldibia, Garibai, Poza...; cf. Zubiaur 1990); hau da, denak dira nork bere hizkuntza goraiatzeko joera orokorraren ondorio, baina baita hizkuntza hurbilegi eta boteretsuegien erasoen aurkako defentsa beharraren.

Zubiaurrek (1990: 337) argudiatu du bigarren xehetasun honi, hots, hizkuntza ofizial ez izateari, hizkuntza gutxitua izateari —gaztelaniaren presio soziopolitikoari, esan dezakegu guk— egotzi behar zaiola gure artean apologiak izan zuen iraupen luzea; gainera, azpimarratu du (*ib.* 72), arrazoiz inondik ere, López Madera, etabarren “jatorrizko gaztelaniaren teoria” mendeetan zehar hainbatek —euskaldunak eta erdaldunak⁵⁴⁴— aldeztu zuten “jatorrizko euskararen teoriaren” kontra zuzenean jaio zela (cf., halaber, Bahner 1966: 88; teoriaren azalpena *ib.* 101-117n).

Egiatan, jatorrizko euskararen teoria ez da batzuek (Tovar 1980 bereziki) kontatu nahi izan diguten antzinako ipuina; aitzitik, erasoaren arabera erabaki behar dugu teoria indartsua zela, erasotzaileak ez baitziren kikildu gaztelania eta latinaren arteko lotura⁵⁴⁵ hautsi beharragatik, nahiz eta teoria hau —egiazkoa izatea gutxienekoa da une hartan— aski eta sobera izan gaztelania beharrezko zuen loriaz janzteko, euskararen arazo “txikiagatik” izan ez balitz.

Zalantzarik gabe, azkenik, gaztelaniaren aldeze batzuk hainbestearino kezkatuak zeuden bitartean, bistan da euskaldunak ere, besteak beste, ez zeudela oso lasai, ziurrenik hizkuntzari baino, euren instituzioen iraupenari zegokionez (Juaristi 1987; Lakarra 1993: 316; Mitxelena 1980: 921) edota Gorteko lanpostuak bereganatu beharrez (Juaristi 1992; Zuazo 1995: 11) areago.

Nolanahi ere, euren helburua ez “hizkuntzan bertan, hizkuntzaren atzean edota —gehienentzat— gainean baino” ez zetzala (Lakarra 1993: 317) jakintzat emanda ere, apologiagileen testuetan hizkuntz ideien historiak bakarrik mintzatzeko adina gai badugu. Izan ere, hizkuntza arruntek, hein batean bederen jadanik ikusi dugunez, bi akats nagusi dituzte: adigarritasunik gabekoak, hots, hiztegi txirokoak; eta aldakorak, hots, gramatika araurik

⁵⁴⁴ *Legenda pendolata*-ren (c. 1073) pasarte bat da, dakigularik, siniste horren lehen bertsioa (Juaristi 1992: 183). XV. mendetik aurrera aipuak ugaltzen dira, sarritan haren kontra agertzeko baino ez bada ere: Enrique de Villena (c. 1427), Alonso de Madrigal (1506-1507), Juan de Valdés (1535), Lucio Marineo Siculo (1539), Antón Beuter (1604), Ambrosio de Morales (1573), Mariana (1592), etab. (Zubiaur 1990: 68-72).

⁵⁴⁵ Errenazimenduaz gero hauze zen iritzirik zabalduena (Lázaro Carreter 1985: 183; Lope Blanch 1990: 92), eta esan gabe doa literatur hizkuntzaren bilakaeran, besteak beste, honek eragin handia izan zuela: cf., adib., Juan de Mena (Bahner 1966: 34-35). Adierazgarriak dira, halaber, Valdés-en hitz hauek: “si los vocablos que la lengua castellana tiene tomados de la latina los escribiesse y pronunciasse enteramente, apenas avría latino que no entendiesse cualquier libro escrito en castellano, y apenas avría castellano que no entendiesse lo más de cualquier libro latino” (1535: 102, ap. Lope Blanch, *op. cit.* 93). Gaztelania ama-hizkuntza eta Iberiako antzinako hizkuntza zela aldeztu zutenetarako ik. Lope Blanch (*ib.* 63, 40. oh.); aipatzen duen azken aldezlea 1672koa da.

gabekoak izatea (Lakarra 1993: 311). Bada, Garibaik egin zuen alde honetatiko lehen defentsa, euskararen gramatikatasunarena, alegia:

...es lengua que con menos preceptos que para la latina se podía hazer gramática de enseñar fácilmente. Sin essto es fácil de deprender continuándola, como la esperiencia cada día lo enseña (Garibai 1571: I, III. lib., IIII. kap., 78. or., ap. Zubiaur 1990: 132).

Eta, ezaguna denez, Oihenartek berretsi egin zuen Garibairen esana, bere aldetik “in gratiam φλογωλώτων, specimen aliquod illius linguae” emanaz *Notitia*-ren I. liburuko XIV. atal ospetsuan. Euskal lexikoaren defentsa izan zitekeenaren hasikinak ere Garibairengan aurkitzen dira, euskararen antzintasuna haur hizkuntzaren bitartez frogatuaz (1571: I, 77b), baina Poza dugu arlo honetan Larramendiren teoriari oinarria jarri ziona, euskara “no es menos substancial y filosófica que las más elegantes de Europa” frogatzera bere liburuko kapitulu oso bat eskainiaz (ik. Juaristi 1992: 81-82), berezko eta hitzarmenezko esanahien arteko bereizkuntzatik abiatutik:

Tienese por lengua excelente, la que en los mismos nombres enseña assí la causa dellos como la naturaleza y definición de la cosa que se nombra, de la qual consideración resultó la disputa de Platón en Cratilo, sobre si los nombres eran puestos a caso, o divinamente, porque en las leguas que se pueden dezir elegantes, substanciales y filosóficas, hallaremos no sólo la demostración, más también el sentido y definición de la cosa. Pero en las que no son tales, sino mestizas e imperfectas, no hallaremos más de sólo los nombres sin tener más mysterio de que la tal cosa fue llamada assí: En el qual caso podremos dezir, que tal lengua fue y es casual del todo (Poza 1587: 29r-30v).

Baina saiotxo herabe hauek gutxiegi dira, Iparraldean Claveriak bertsoan eta Hegoaldean Larramendik hitz lauz salatu bezala:

Garibay ya dixo, que [el Bascuence] era Lengua methódica, y que podía tener Arte, Oyenarto descubrió algo de sus perfecciones, Moret hizo lo mismo, castigando la censura desabrida de Mariana; pero se contentaron con poco, y dexaron al Bascuence en su antiguo abandono (Larramendi 1745: lv).

Izan ere, ez da harritzekoa López Maderak euskaraz sekula idatzi ez zela itsumustuan sinistea, ez eta Mayansek (1737: 350), berri hobek izanik, Leizarragarenaz ia besterik ez zegoela baieztatzea (“si no me engaño, el primero i casi único libro...” dio, zehazkiago). Euskaldunek eurek ongi dakite inork ez duela haiengandik euskaraz idaztea espero, Etxepare (1545: 253) lekuko, eta gogora bedi Villers-Cotterets-eko ordenantzaren sei urte beranduago kalera zela liburua: “Berze jendek uste zuten / ezin skriba zaiteien; / orai dute phorogatu / enganatu zirela”.

Tradiziorik ezagatik, besteak beste, Leizarraga (1571: *vi^v), atzean kalbinismoaren indar eragilea badu ere, ez da batere ziur agertzen: “guti falta cedin non ezpainendin choil guibelera, nacussanean hambatez ene empresa handiago, cembatez nic scribatu dudan lengoage motá baita, sterilenetatic eta diuersenetatic: eta oraino, trâslationetâ behinçat, vsatu gabea”. Lakarrak (1993: 309-310) azpimarratu bezala, Leizarragaren adierazpena Caxton-ek ingelesez argitaratu lehen liburuan (*Recueyll of the historyes of Troye*, c. 1475) “symple and rude english”-ez aritzeaz bere burua zuritu beharreakin erka daiteke, eta ez da zaila bestetan erkagaiak aurkitzea: adibidez, Juan de Mena poeta espainiarra (1411-1456) gaztelaniari “rudo y desierto romance” deritza, edota “humilde y baja lengua del romance”-z mintzo da (Bahner 1966: 34), nahiz ez zen honegatik —Bahner-ek dioenez— hura utzi eta latinez idazten jarri: bistan da

euskara, ingelesa zein gaztelania ekinaren ekinez bestelakatuko direlako esperantzan ari direla hirurak. Esperantza berean, Etxeberri Sarakoa bezalako apologiagile batek, Iparraldeko literatura ongi ezagutu arren, kanpotarren adibidea ekarri behar du bere herritarren aurrera, euren hizkuntzaz zerbait idazteko (edo gutxienez itzultzeko) asmoa har dezaten:

Ecen cembat ere liburu isquiribatcen baitituzte, hetaric guehienac dacusquigu isquiribatcen tuztela ceinec bere herrico hitzcuntçan; hau da gauça bat egun guztiaz ikusten dena. Eta oraino hetaric hainitcec daquitçatelaric hainitz hitzcuntça arrotz hequien herricoa baino lekhu eta erresuma guehiagotara hedatcen direnac; guztiarequin ere bere herrico hitzcuntçarentçaco amodioa dela causa eta bere herriaren ohoratceagatic eta progotcharazteagatic bere hitzcuntçan isquiribatu tuzte bere liburuac eta oraino bertce alde, bereac hala isquiribatcea ez asqui etsiz, bertce hitzcuntcetan isquiribaturic daudecinac gambiatcen eta itçultcen tuzte bere herrico hitzcuntcetara.

Miretsteco gauça da eta oraino nihori guti gogoratcen çayoena: mundu guztian eztelariç escualduna baino gendaqui edo leinu nobleagoric, odol hobeagotacoric, adimendu çorrotz eta biciago duenic, cein nahi den gaucetan antçatsuagoric, (...) egun guztiaz ikusten dugun gauça da escualdunac gauça guztietan bere burua eçagutçera eman arazten duela, nahiz dohan Franciara edo Espainiara (...). Hauc guztiac hunela ikhusiric ecin nagoque erran gabe cein achola guti eta artha appurra içatu duten escualdunec bere escuaraz, eta deusez ere baldin eguin ahal badaquie erantçuquiric da gauça hunetaz (Etxeberri 1712: 398-399, ap. Lakarra 1993: 311).

XVII. mendeko Iparraldeko literaturaren gorakada, ezaguna denez, hango egoera soziopolitiko eta ekonomikoari zor zaio: Lapurdiko burgesiak zehazki erresuma bakar baten menpean ez egonik, halako beregaintasun maila bat erdiesteaz gainera, hizkuntza gordetzeko aukera handiagoa izan zuen (Zuazo 1995: 11-12). Alderdi ekonomikoan behinik behin, beste horrenbestetsu esan daiteke Bizkaiaz eta Gipuzkoaz garai beretsu eta ondokoetan (Zuazo 1995: 10; Trask 1997: 18-19), eta honen fruitu dira, zalantzarik ez, Bilbon euskara lantzeak izan zuen garrantziaren aztarna txikiak (Lakarra 1996c: 136-140). Baina ahalegin horiek ez ziren azkenik ezer iraunkorretan mamitu. XVIII. mendearen hasieran euskarak apologiaren lehen besteko beharra zuen, tartean mendeak galdu izanaren *handicap*-a barne. Eta ez dago honetaz hobeto ohar zitekeenik, Iparraldeko literatura ongi ezagutzen zuen Larramendi baino; honegatik, egitamu handi batean sartzen da, zeinetan apologiazko lanek, gramatikak eta hiztegiak multzo trinko bat osatzen duten, hurrenez hurren aurkeztuak eta zein bere xede jakinaz eginak (Lakarra 1993: 319): hizkuntzaren defentsa lehenik (apologia), haren erregelatzea bigarren (gramatika), eta janzteaz azkenik (hiztegia), beharrak eta ohiturak eskatu bezalaxe.

Larramendik orduko hizkuntzalaritza konparatiboaren lorpenik onenak (Aldrete, adibidez) —*avant la lettre* ari naiz, noski— profitatu ahal izan zituen gaztelania latinetik datorrela jakintzat emateko, jatorrizko gaztelaniaren teoria zentzugabea erraz saihesturik; baina, dena dela, ez dauka euskararentzat baliabide hoberik, tradizioari atxikita Babelgo hizkuntza eta Penintsulan lehena izan zela aldeztzen jarraitzea baizik, gaztelaniaren aldeko gero eta jarrera indartsuagoen aurrean euskarari hizkuntzen artean halako maila bat aitor zekion (Lakarra 1993: 309-318). Euskara Babelgo dorrean bertan sortu zen hizkuntza dela frogatzeko bi arma on dituzte eskura gure apologiagileek oro har: euskararen berezia eta ezezaguna, alde batetik, eta Tubalismoaren tradizio ez eztabaidatua, bestetik. Ez dira eurak Tubalek ekarritako hizkuntza euskara izan daitekeela aldarrikatuko duten lehenak (cf. Juaristi 1987: 51-52), baina atzeek baino argudio hobeez erakutsi ahalko dute antzinako leku-izenak euskararekin lotuta

daudela. Eta ez da irtenbide txarra Larramendirentzat: lehenago bezala orduan ere, Bahner-ek (1966: 88-89) dioenez, “una lengua de tales características debía ser reconocida inmediatamente como privilegiada”. Bestalde, gaztelania, frantsesa, italiara, latina eta grekoa bezalako hizkuntza jasoak euskararen zordun bilakatzen zituztenez gero, zalantzarik gabe ildo berberetik ulertu behar ditugu bere etimologiak ere.

Babelgo nahastetik sortutako jatorrizko hizkuntzetako bat bada, barbaroa dela diotenak oker daude, Jainkoak zuzenean emana izanik ezinbestean araupekoa baita, gramatikaduna; oker daude, halaber, arlotea dela diotenak, arrazoi beragatik bere baitan baitu aberastasuna edota hura erdiesteko ahala eta, hortaz, kultur hizkuntza bilakatzeko eskubidea ezin zaio inolaz ere ukatu:

La 1ª objeción era decirnos que el Bascuence es una Lengua bárbara, incapaz de cultura, irreducible a método y Arte, y que era Lengua áspera y desabrida. Esta objeción que antes se hacía, pues ahora nadie se atreve a hacerla (1745: liv).

Etxeberri Sarakoarengan bezala (cf. Lakarra 1993: 313 eta 317-318) eta garaiko beste hainbat idazlerengan bezala, Larramendirengan apologia azken buruan eraikuntzaren oinarria baino ez da, beste biei atea irekitzen diena:

Assí será mejor el volumen del Arte, y le vindicaré de objeciones, y calumnias con más despejo y liberalidad (1728: 1).

Haren benetako zutabeak, berriz, gramatika eta hiztegia dira, orduan hiztegia gramatikaren eranskina edo hedapena zela gogoan harturik: bata hizkuntzaren arima —nola funtzionatzen duen— agerian ipintzen du, eta besteak haren gorputza janzten,⁵⁴⁶ etorkizuneko euskaldunek —idazleek, itzultzaileek, sermolariek— beren hizkuntza erroitik ikasteko eta egoki erabiltzeko behar dituzten gaiak eskura izan ditzaten:

Esta bella alma ya he procurado darla a conocer en mi Arte de la Lengua Bascongada: y poniendo ahora su cuerpo a la vista de todos en la colección de sus vocablos, tengo la honrada vanidad de ser el primero que la hace gozar en cuerpo y alma de aquella gloria que se halla en la claridad de la luz pública; gloria mui debida a sus méritos, pero dilatada por no se qué fatal destino (1745: [3]).

Funtsean ikuspuntu honetatik abiatuz, “apologia” deitu teoria multzoaren eta hiztegiaren garatzen duen lexikografi praktikaren artean lotura handiagoa dela, eta Larramendiren egitama, bai eusten dioten teorien, baita sortzen diren ondorioengatik konplexuagoa dela erakutsi nahi nuke, iturri argi bezain ahanzi bat erabiliaz: hiztegiaren hitzaurrea bera eta, zehazkiago, lehen zatia, non “Descubre las perfecciones del Bascuence” (1745: i-lvii), hiztegiaren benetako hitzaurrea, apika. Zati hau, neurri batean *De la Antigüedad*-eko atal zenbaiten hitzez hitzeko kopia aitortua denez gero,⁵⁴⁷ hasiera batean eman lezake —eta

⁵⁴⁶ Metaforizazioak hizkuntzalaritzaren garapenean izan duen garrantziaz, ik. Swigger (1990: 26): bertan aurki daiteke bibliografia ugariagoa.

⁵⁴⁷ “En la previa Demonstración al Arte, están recogidas varias perfecciones de el Bascuence, y ventajas particulares que haze a otras Lenguas; y porque son grande ornamento de nuestra Lengua, ni aquel cotejo ha tenido impugnación alguna, quiero trasladarlas aquí, para que en cuerpo mayor mejor se conserven, y añadiré después otras” (1745: i). Atalak “El Bascuence es lengua más perfecta en la Propiedad de sus voces” (1728: 92-97, 1745: i-iii), “El Bascuence es lengua de más distinción y puntualidad que otras en los modos y fórmulas de hablar” (1728: 97-100, 1745: iii-iv), “El Bascuence es lengua más cortés y discreta que otras muchas” (1728: 100-104, 1745: iv-v), “El Bascuence es lengua de

honegatik baztertu da, noski— egilearen euskarari buruzko teoria ezagunen beste garapen bat baino ez dela, baina haren aurkezpeneko iragarkiak (1745: i) —“euskalkien, gramatikaren eta hiztegiaren egoeraz” ere kontu emango duela, alegia— besterik ere badela adierazten du.

Egia da hitzaurrea berriro irakurtzen hasi garela, dela Larramendiren egitasmo orokorra, dela haren xehetasun zenbait hobeki ulertzeko gaia aurkiturik. Guztiarekin ere, ez dut uste osoki ustiatu denik: euskal lexikoa berriro eta osatzeko egin zuen saioaren euskarri teorikoak bertan —argi eta behin baino gehiagotan errepikatuak— daude. Areago: bai 1728an bai 1745ean, zatirik apologetikoenean deskriptiboenean bezala, argudio berberak erabiltzen eta teoria berberak garatzen ditu. Nahiz hautatutako estiloa apologia den, izan ere, Larramendi itxura horren azpian hiztegia egin baino lehen, egiterakoan eta egin ondoren buruan izan zuena puntuz puntu aipatuz doa, bere iturri eta baliabideen, bere zalantza eta ziurtasunen, egin zituen lan eta aurkikuntzen berri emanez. Egia da, halaber, ondorio honetara hiztegiaren mamia aztertu ondoren bakarrik iritsi naizela, espero ez nituen eta, ostera, hitzaurreak aurreikusten zituen osagarri anitz bazirela ohartu ondoren. Asmoa xeheki hura ez bazen ere, lana induktiboeago izan da, deduktiboa baino, dudarik gabe gai honi buruz bizkar gainean oraindik daramagun aurreiritzi zama handiarengatik. Dena dela, ondoko ikerketari emango diodan ikuspuntu orokorra ulertzeko komeni da, inondik ere, hasiera honetatik hastea, hots, Larramendiren pentsamoldean hitzberrirentzaren osagaiak zein diren eta elkarrekin nola lotzen diren zehaztea.

Azpimarra dezadan ezer baino lehenago, *De la Antigüedad*-eko zatiak berriro hiztegiaren atarian agertzeak, eta haietan gero prestatutako ataletan errepikatzen dituen ideiak jadanik egoteak, ez hiztegia egiteko asmoa bakarrik (lehenago iradoki bezala: I, § 9.3), baina baita haren egitamua bera ere 1728rako Larramendiren buruan zela adierazten dutela. Orduko hitzek, gero 1745eko argitalpenerako ondutakoek bezala, euskararen eguneratze orokorrak ez eze hiztegiaren aberaspide zehatzak eskatzen zuten zuritze teorikoa eskaintzen digute.

1.2. Euskara ikasi beharrez

Kontua, beraz, euskara kultur hizkuntza bilakaraztea da, ez bakarrik jendaurrean bere interesak aldeztuaz, baizik eta nagusiki zein-nahi arlotan behar lituzkeen adierazpideak

más concierto y consecuencia que otras muchas” (1728: 107-112, 1745: v-vii), “El Bascuence es lengua de más armonía que otras muchas” (1728: 112-117, 1745: vii-ix) eta “El Bascuence es lengua más rica y copiosa que otras muchas” (1728: 117-125, 1745: ix-xii) dira, azkenaren bukaeran “Hasta aquí la Demonstración previa” abisua ipini zuelarik. Bi bertsioak erkatuaz, garrantzi gabeko aldaketa (eta huts) txiki zenbaitez gainera, euskal hitz batzuen etimologiaren azalpenaren ondoren “Esto en el dialecto de España” (1745: iii) erantsi du, eta *berori, berorréc* “en este dialecto Guipuzcoano” erabiltzen dela zehaztu (1745: iii). *De la Antigüedad*-en zegoen “El Bascuence es Lengua de más concierto en sus reglas que otras muchas” (1728: 104-107) tarteko atala burutik buru desagertu da, ziurrenik ondokoaren gai eta argudioen aurrerapen bat besterik ez baita, baina bide batez latina eta bere alabek —euskarak ez bezala— salbuespenik gabeko araurik ez dutelako salaketa ezabaturik. Ohartu behar dut, azkenik, jauzi handitxo bat dagoela: “Qué lengua tiene siete u ocho modos de [conjugar cada verbo neutro, correspondientes a los siete u ocho modos de] acción verbal...” (1728: 119, 1745: x).

hiztegiaren bitartez helmenean jarriaz ere (Lakarra 1993: 321). Honetarako, Larramendik guda-zelai bakar bat aukeratzen du, gaztelania, (Hegoaldeko) euskaldunen kultura honekiko menpekotasuna ezagutu eta aitorturik:⁵⁴⁸

...ay mucho escrito en Castellano en las más de las Artes y Ciencias, especialmente en lo Doctrinal y moral. Para entender estos Libros, y traducirlos al Bascuence en todo o en parte, sólo puede servir, como es claro, un Diccionario en que vayan antes las voces Castellanas, y se sigan las Bascongadas, que de otra suerte no se sabrán sino por casualidad (1745: xliii).

Azken finean, ezagutzen dituen ereduak halaxe egin zuten, latinak grekozko kultura⁵⁴⁹ eta gaztelaniak latinezkoa zeinek bere aldian berenganatu behar izan zutelarik:

Nunca estuvo el Latín en estado más florido, que en tiempo de Cicerón: no obstante se quexa en varios lugares de sus Obras Filosóficas de la penuria de su Lengua Latina para hablar en ellas. Lo mismo diría si quisera hablar en cosas Matemáticas, Médicas, Anatómicas y otras muchas. Y de hecho la Lengua Latina apenas tiene vocablo propio suyo en esas Artes y Ciencias, pues los más de los vocablos son Griegos. Y de qué nace esto? De que entre los Griegos se enseñaron primero esas Artes y Ciencias; y por esso inventaron [también] las voces necesarias y oportunas. Estudiáronlas los Latinos en Griego, como oy día los Españoles y otros en Latín: quisieron después enseñarlas en Latín: halláronse sin voces; y como ya las tenían en Griego, las ingirieron en Latín, o por ahorrar el trabajo de inventar voces nuevas, o por no introducir novedades. No siempre hizieron esso, porque algunas vezes formaron voces nuevas para explicar las Griegas, como se ve en Cicerón y otros: y si en todas huvieran practicado lo mismo, estuviera sin duda más puro el Latín. Esto tiene más fuerza en las Lenguas que son hijas del Latín, como el Romance, Francés, Italiano (1728: 123-124; 1745: xi).

Jadanik azpimarratu dudanez (I, § 9.2),⁵⁵⁰ eredutzat gaztelaniazko hiztegiak berri eta oso beteena hartzea hortik dator, hots, euskararentzat gaztelaniak zituen adierazpide guzti-guztiak erdiesteko asmotik, hain zuzen ere. Alabaina, eta Larramendik agudo ikasi zuen, egitekoa erraldoia zen:

Con facilidad, o a lo menos sin tanto afán, pudiera aver desempeñado mi palabra, dando un Diccionario corto, y correspondiente al Thesauro que llaman, y es común en los Estudios de Gramática. No han faltado quienes me aconsejassen esto; la menor dificultad de la empresa me servía de gravíssima tentación para seguir el consejo; el pensamiento de que la primera vez no salían completas estas obras, y que avría después otros que las quisiessen perficionar, casi me tuvo reducido a sacar un Diccionario menor. Pero sin embargo, otras razones pudieron más conmigo, y me determinaron al trabajo más ímprobo que en este género de escritura pudiera tener en mi vida (1745: xliiv).

Gaztelaniazko kultura euskaratzeko, ez halako edo holako arloaren, baizik eta hizkuntza osoaren lexikoa eguneratuta aurkeztu behar zuen, baina ez zegoen haren lana arin zezakeen laguntzarik:

El siguiente [trabajo] de dar a las voces Castellanas las correspondientes Bascongadas, es el que ya se me hacía insoportable. Este camino aún no estaba sendereado, ni abierto. No hai Libros impresos desta Lengua, sino los pocos que llevo citados, y ninguno absolutamente con las correspondientes Castellanas. No hai tampoco Libros Manuscritos, papeles ni processos en Bascuence, porque todo se actúa y escribe en Romance. Hasta en las escuelas de niños se aprende a leer y escribir en Castellano, y nada en Bascuence (...). Y si con el socorro de otros Diccionarios

⁵⁴⁸ Irekiagoa da Baldiri Rexach katalanaren jarrera (1749, *Instruccions per la ensenyansa de minyons*), “molts llibres estrangers” itzuli beharko liratekeela aldeztuaz; dena dela, hau ez egina ez ezik, baita gaztelaniaz (edo latinez) “alguns llibres molt bons” argitaratu dituzten katalanei euren hizkuntzan ez idatzia aurpegiatzen die, “com si la Nació Cathalana no meresqués, o no tingués la necessitat de ser tant instruhida, com quiscuna de les demés” (ap. Lakarra 1993: 319).

⁵⁴⁹ Hau topikoa da; cf. Lakarra 1993: 340, 50. oh.

⁵⁵⁰ Cf. bertan aipatutako paralelo katalanak; horiek baino gehixeago aurki daitezke oraindik Lakarra 1992b: 287n.

(...) no es pequeño triunfo disponer su Diccionario entre tantos hábiles y eruditísimos hombres [*DAut*-ez ari da, jakina], qué será disponer un Diccionario del Bascuence por uno solo, y ésse destituido de aquellos socorros, alivios y conveniencias? (1745: lii).

Eta honela jarraitzen du:

Para salir con este intento, lo segundo a que me dediqué fue a aprender el Bascuence...

Altunak (1992b) pasarte honen irakurketa posible, baina azalekoa egin duela uste dut, ama hizkuntza galdu zuela ondorioztatuaz. Baliteke hau hala izatea neurriren batean edo bestean, nahiz honek ez lukeen ilunduko —ez eta Altunaren asmoetan ere, antza denez— edo ez luke ilundu behar euskaldun —zahar, berri zein berritu—, euskal idazle eta gramatikari gisa Larramendik merezi duen epaia. Alabaina, Larramendik ez zion ekin euskara ikasteari *hau mahaia da* esaten ikasteko —edo ez horretarako bakarrik, behintzat—, baizik eta lehenik eta behin halaxe zergatik esaten den jakiteko, hau da, hizkuntzaren egiturez ongi jabetzeko.⁵⁵¹ Justus Georg Schottelius-en (1612-1676) ustetan ere, “Cultivation of a deeper understanding of the principles and foundations of the language is a prerequisite to any amelioration of this sorry condition” (Seiffert 1990: 247). Geroago ikusi ahalko dugu ez dela jakintsu aleman honekin daukan batetortze bakarra.

Beraz, honegatik ekin zion lehenik gramatikari, urteetan hiztegia alde batera utzirik, jadanik dakigunez (I, § 9.3). Hala eta guztiz ere, gramatikan tradiziozko gaiak ukitzen dira, paradigmak gehienbat (deklinabidea, aditz jokia, etab.), eratorpena bezalako gaiak aipamen txiki bat baino ez duten bitartean, hiztegirako esplizituki utzita:

Dexo algunos otros modos de formación en los nombres verbales que se pondrán en el Diccionario: pues para el fin de que conozcan todos, quán regular y oportunamente forma sus derivados el Bascuence, bastan éstos (Larramendi 1729: 268).

Honek esan nahi du ezinbestean aldi berean euskal sorbideen azterketa ere egin zuela eta, nahiz gai honek bere idazlanetan ia islapen espliziturik izan ez, *HH*-an bildutako lexiko guztiaren —batez ere, jakina, hitz berrien— azpian inplizituki kokaturik dagoela. Honetan, Lakarrak (1993: 402) agerian jarri duenez, bat dator Nebrixarekin eta Port-Royal-eko gramatikaren egileekin:

Otros [nombres denominativos] salen en otras muchas determinaciones; mas el que escribe preceptos del arte abasta que ponga en el camino al lector, la prudencia del cual, por semejança de una cosa a de buscar otra (Nebrixa 1492: 184).

AVERTISSEMENT. On n'a point parlé dans cette Grammaire des mots dérivez ny des composez, dont il y auroit encore beaucoup de choses tres curieuses à dire: parce que cela regarde plûtost l'ouvrage du Dictionnaire general, que de la [grammaire] generale (1660: 133, ap. Lakarra, *loc. cit.*).

Baita, noski, Pouvreau, Urte eta Harrieten jokabidearekin ere.⁵⁵² Orokorkiago mintzatuaz, berriz, honek esan nahi du aipatutako guztientzat —Larramendi barne— hiztegia

⁵⁵¹ Azken batean, balirudike bera dela hizkuntzaren irudia, hizkuntzari gertatu zaiona eta gertatu behar zaiona berarengan gorpuzten dela.

⁵⁵² Ildo honetatik ulerturik, Pouvrearen hiztegi aurreko gramatikazko oharrez ik. Lakarra (1993: 118-121; 1995a: 27-30); Urteren gramatika eta gramatikako hiztegitxoez, Lakarra (1994c: 880) eta Harrietenez, Lakarra (1993: 175-180 eta 1994a: 39-47).

“gramatikaren morroi” dela (Lakarra 1993: 397), baina gai garrantzitsu honetaz aurreraxeago jardungo dugu.

Lan erraldoi hura nolabaiteko arrakastaz burutu ahal izateko, euskararen indar guztien premian zegoela antzeman zuen, beraz, eta ahalik eta hitz iturririk ñabar eta jorienak baliatu behar zituela, izan ere euskara alde guztietatik “hustua” baitzen. Begibistakoa da hala liburuei eta euskal herrietan egindako galdeketei atera zien etekina, nola morfologi azterketaren ondorioz burutik jaulki zitzaion guztia sartzen dela hemen. Jatorri ezberdineko osagai hauen arteko mugaren lausoa, Larramendiren sistemak berekin dakarren ezaugarria da. Prozesua osorik berreraikitze bide bakarra, hortaz, sistema bera ezagutzea da.

Gakoa hain zuzen “euskal hitza zer den” buruko galderan datza: definizio horren barruan zer sartzen den eta nola eskura daitekeen jakiteak, zer bilatu beharko dugun erakutsiko digu.

Apologiatik bi ideia nagusi erreskatatu behar ditugu: batetik, euskarak Babeldik hona aldagabe iraun duela eta, bestetik, haren hitzak definitzen dituen ezaugarri aipagarriena izendatzen duten zerarekiko berezko lotura gordetzea dela. Lehenengo ideiarekin kariaz, jaso behar dituen hitzak non-nahikoak eta noiznahikoak direla ondorioztatzen du (Mitxelena 1983b: 957); bigarrenetik, berriz, hitz berriak egiteko eredu erdiesten du. Hara nola.

1.3. Hizkuntza aldagabea, edo ustelketaren aurkako borroka

Mayansek euskara lantze eta ikasketa faltaz usteldurik zegoela salatu zuen:

...pudiéndose asegurar que la mayor parte del vascuence, si se observan bien las raíces de sus vocablos, tiene origen del latín, como lo he observado en el vocabulario manuscrito que se compuso en el año MDXXXII, el qual se halla en esta Real Bibliotheca. I aunque es verdad que el autor de dicho vocabulario muchas veces no puso las palabras puramente vascongadas correspondientes a las voces españolas, también es cierto que el vascuence ha recibido de otras lenguas los vocablos de las artes, de sus instrumentos i hechuras, i los de las ciencias i muchos de sus obgetos, que son innumerables, los de la religión, empleos i cosas estrañas del país, como árboles, yervas, animales, piedras, trages; cosas propias de la vanidad, totalmente ajenas de la esterilidad i pobreza de su país, i las que son propias de la ingeniosa gula de estos tiempos (...). Que es lo mismo que decir que si uno toma en las manos los diccionarios más copiosos de las lenguas de hoi, no hallará en el vascuence voces correspondientes a muchísimas otras; i las que hallará, si se observan sus raíces, unas serán latinas, otras españolas, otras francesas, otras de otras lenguas i poquísimas puramente vascongadas. Si esta lengua tuviera impresso algún diccionario, que lo deseo mucho, me parece que si fuera cumplido combinándole con otros, se avía de observar i ver lo que digo. Ni puede ser de otra suerte, porque el vascuence no se sabe que aya tenido libros, los quales es cierto que son los únicos conservadores de la mayor parte del language. Por esto no usan hoi de muchas palabras de que usaron antiguamente... (Mayans 1737: 347-348).

Salaketa erabatekoa ez izan arren, arlo honetan Larramendik ezin zezakeen amore eman, eta ez bakarrik Mayansen epaia hiztegi bakar eta txiro batean oinarritzen zela jakiteagatik. Ez zitzaion inolaz ere komeni hizkuntza garbi eta usteldutakoen arteko ezberdintasunean sakontzea —orain uler dezakegu zergatik—, eta honegatik hizkuntza biziak eta hilak erkatzea nahiago du, dudarik gabe arrazoiz. Hebreoa, grekoa (klasikoa, jakina) eta

latina, nahi bezain jakintsu eta beteginak izanik ere, hil dira, gaurkotzeko gaitasuna betirako galduaz.⁵⁵³

El Hebreo, Griego y Latín entre otras muchas Lenguas, tuvieron la desgracia de morir, y quedaron sepultados en los Libros. No ay Nación que hable essas Lenguas, como suyas y como vernáculos y maternas, y esto es lo que queremos decir al llamarlas Lenguas muertas. Murieron, no porque mucha parte de su cuerpo, o de sus vocablos, no vivan en las Lenguas vivas que oy se hablan; sino porque aun essa parte de vocablos perdió toda su alma y armonía, que son sus reglas y Syntaxis, (...). Murieron, y por esso no pueden hacer suyas, ni adquirir voces nuevas y necessarias para explicar nuevos objetos y nuevas invenciones. Quando vivían, tenían fuerza y derecho de fabricar voces nuevas, y de adoptar otras de diferentes Lenguas, y enriquecerse con ellas, saliendo de diminutas y pobres. Murieron, y por su muerte les faltó aquella virtud y derecho: y ya no pueden formar una voz, ni adoptarla de otras Lenguas, sin que sea barbarismo (1745: xxxiii).

Ez zaio beste horrenbeste gertatu euskarari, zeren eta etorkinen indarrari nolabait eusten jakin izan baitu:

sin que tantos Siglos, guerras, desolaciones, trastornos de Imperios y Religiones, que acabaron con otras Lenguas, hayan bastado a quitarle su vida preciosa, y menos a sepultarla en el olvido de los hombres. Vive desde el principio como Lengua vernácula y materna de los Españoles, antes universal y estendidissima por toda España, después más ceñida, y últimamente reducida al Sagrado destes montes, en que logra una vida y salud robusta, nada expuesta a la caducidad de las demás Lenguas. No han podido extinguirla Moros, Godos, Alanos, suecos, Romanos, Carthagineses, Griegos, Fenicios y otras Naciones, pues sólo lograron desterrarla del resto de España: pero encastillada entre estas rocas, a pesar del tiempo y sus estragos, ha sabido mantener su alma y cuerpo vivientes en un estado tan vigoroso y fuerte, que va a remozarse y aspira a la immortalidad (1745: xxxiii).

Oso argudio garrantzitsua dugu hau, ziur aski oinarrizkoena. Larramendiren garaian, baita askoz lehenagotik ere, hizkuntzek aldaketak jasotzen dituztela ezaguna zen, eta hau ustelketaren teoriaren bitartez —hizkuntzak aldaketa berezkoa duela uste izatetik oraindik urruti— azaltzen zen (Bahner 1966: 73-83). Adibiderik onena (eta landuena), noski, latinaren ustelketaz sortu ziren erromantzeetan aurkitzen zuten, eta Larramendik oso ondo ezagutu zuen, batez ere Aldreteri esker. Jakitun honen ustetan —baita, hein batean bederen, Nebrixaren ustetan ere (cf. Bahner, *ib.* 54)—, ustelketa bai kanpoko, bai barruko arrazoiei zor zaie: barruko arrazoa Inperioaren hedapena bera izan zen, aldi berean hizkuntzaren hedapena eta hura baturik gordetzeko ezintasuna ekarri baitzuen; godoen inbasioa dugu kanpoko arrazoa, astiro baina ezinbestean Inperioa ez eze, hizkuntza bera ere haustea eragin baitzuen (Nieto 1975: 177 t. hur.).

⁵⁵³ Ideia berbera aurkitzen da *DAut*-en hitzaurrean, akademikoak hizkuntzaren aldaketez ari direla: “Estas transformaciones son naturales, y aun precisas en nuestra Lengua, por ser viva. Es bien sabido de todos que las Lenguas se dividen en muertas y vivas. Lengua muerta se llama la que como la Latina, Hebrea y antigua Griega, son inmutables, porque no hablándose, ni usándose comúnmente, permanecen en su inmutable ser, sin que el que las usa tenga libertad de inventar o mudar, no solo Voz, pero ni aun caso o tiempo, sin el riesgo de incurrir en la vergonzosa nota de cometer barbarismo o solecismo, por salir de aquellos rigurosos preceptos en que las tiene, o aprisionadas u defendidas la exacta observación de los Gramáticos. La Lengua viva es aquella que se nutre aumentándose con nuevas Voces, suavizando o perfeccionando las que posee, se purga olvidando algunas menos expressivas, y limpiando algunas durezas y barbaridades, con que como de corta edad obligaba a que fuessen balbucientes a los que las usaban: y últimamente tiene también su vejez en que caduca, perdiendo su esplendor: propiedades todas, que por serlo de los vivientes le conceden con expresión mui propia el atributo de vivas” (*DAut* 1726: liv). Lázaro Carreter (1985: 167) ez bide da honetaz ohartu, Campos-i (1804) oso antzeko gauzak aldezteagatik halako originaltasun bat ezagutzen baitio. Nolanahi ere, latina hila zelakoa zeharo lotuta dago, dakusgunez, haren gramatikatasun trinkoarekin; eta bi ideia hauek, zalantzarik gabe, Errenazimenduan hedatu ziren, Erdi Aroko latinaren kontra eta latin klasikoaren alde egin zen gurutzadaren ondorioz (cf. Robins 1980: 113).

Garai haietako egile askoren aburuz, bi hizkuntzak elkarrekin topo egiteak beti dakar bietako baten ustelketa (Bahner 1966: 38). Zer esan ote daiteke, hortaz, hainbat mendetan herri indartsuen erasoak pairatu duen hizkuntza batez? Mayansek begibistako erantzuna ematen dio: hein handi batean usteldu egin da. Larramendik irmoki gezurtatzen du, berriz: euskara ez da usteldu (“...nada expuesta a la caducidad...”), beti bat da, eta erasoei atzeraka egite hutsaz erantzun die; egia da bere antzinako eremua ia erabat galdu duela, baina gorde den eskualdeetan —“reducida al Sagrado de estos montes”, eta ohartu hautatutako esapidearen inplikazioei— aldaezin iraun du.⁵⁵⁴

Badaki euskarak latin eta gaztelaniatik hartu izan duela (Lakarra 1993: 380), noski. “El Latín tiene voces de el Bascuence “ atalean (1745: xvii-xix) oso bereizkuntza interesgarria egiten du, agian behar besteko garrantzirik eman izan ez zaiona, bata bestearen zordun eginaz eta maileguen norabidea hitzak arruntak ala fakultatiboak diren eta horren arabera erabakiaz; Mayansen hitzen oihartzuna (“el vascuence ha recibido de otras lenguas los vocablos de las artes...”) argi somatzen da.⁵⁵⁵

Ni esto quiere decir que el Latín no dio muchas voces al Bascuence, que sí se las dio; lo que quiere decir es que las que son de el lenguaje vulgar y de objetos usuales y comunes, son del Bascuence en propiedad, y de el Latín por comunicación (1745: xviii).

Halaber, hiztegiaren edukia azaltzerakoan maileguak izan badirela aitortu beharrean aurkitzen da (1745: xlvii-xlviii), eta esan gabe doa euskaldun txarren aldrebeskeriak aipatzerakoan lelo nagusia erdarakadak (lexiko nahiz gramatikakoak)⁵⁵⁶ direla. Dena dela, Etxeberri Sarakoarengan ere aurkitzen dugun oharpen oso interesgarri bat egiten du, hau da,

⁵⁵⁴ Ideia hau jadanik Lucio Marineo Siculorengan dago: “Porque quien quiera que haya sido el que primero vino a España después de la edificación de la torre de Babylonia, esse a la verdad truxo una manera de hablar (...). La qual manera de hablar como por la venida de gentes estrangeras en España se haya mudado o corrompido, q(ueda)ndo solamente en los Vizcaínos y sus comarcas sin mudança ninguna, por la soledad de aquellas regiones y el poco trato y conversación con los estrangeros” (1539, fol. xxviii^v, ap. Tovar 1980: 26-27) edo, latinez: “...qui tot saeculis & temporum varietatibus, neque linguam, neque mores, neque corporis cultus unquam mutauere” (*De rebus...*, IV. lib., 328. or., ap. Bahner 1966: 91). Berdin Garibairengan: “La qual desde el Patriarca Tubal hasta nuestros días se ha conseruado en esta tierra, sin que jamás se aya podido introducir otra, ni mezclarse con naciones estrañas fuera de su ley, agora sea por la fortaleza de las tierras, agora por la de las gentes, agora por lo uno y lo otro” (1571: I, 77b) eta, ustelketaren teoriaren kontra zuzenean: “...está verificado ser la lengua Cántabra, pura y perfecta, y que con la de Armenia, a la qual llaman Aramea, frisa algo, pero no tiene mezcla con la latina, ni con la griega, y muy menos con la Hebrea, y no con la Chaldea, ni con la Francesa, y la Flamenca, Borgoñesa, Inglesa, Tudesca, Vngara, ni Turquesa, ni Arabe, sino que es lengua pura sin mezcla de otras...” (*ib.* 78, ap. Zubiaur 1990: 127). López Maderak ere bere “jatorrizko gaztelania” aldezteko, latinaren ustelketaren teoriaren kontra indar berberaz aritu zen, ezinbestean, baina gaztelaniak aldaketa anitz pairatu izana onartu behar izan zuen (Bahner 1966: 101-117).

⁵⁵⁵ Antzerako gogoetak kausitzen dira Etxeberri Sarakoarengan ere (1712: 128, ap. Lakarra 1993: 383), baina bere ustetan ezberdintasuna zeharo materiala da: Italian ez diren gauzen izenak hartzen dituzte erromatarrek; euskaldunek, berriz, erromatarrek ekarritako eta Euskal Herrian ez diren gauza berrien izenak: “Erromarrei ere gauça bera guerthatcen citçajen, ceren hainitz gauça causitcen baitçuten herri hautan Italian etcenic eta hargatic ciren obligatuac escuaratic icenen hartcera, edo berriroqui asmatuic ecartcera”.

⁵⁵⁶ Cf., adib., beheraxeago aipatzen dudan 1745: xlv-ko pasarteak, eta sermolari txarrei —eta itzulpen egokiaren arauak— eskaintzen diena (*ib.* xl-xli). Lakarrak (1993: 388) azpimarratu duenez, honetan ikasle sotila dugu Ubillos.

mailegu onartuak hizkuntzen arauen azpian jarri direla, hizkuntza aldatu (uler bedi “usteldu”) gabe.⁵⁵⁷

Si algunos vocablos forasteros se han introducido en el bascuence, sólo es en la forma y ritualidad con que tal vez algunas personas extranjeras obtienen naturaleza en esta provincia, probando hidalguía y sujetándose a las leyes del país en un todo: al modo en que en otro tiempo los romanos dieron naturaleza a varios nombres griegos y de otras naciones, sujetándolos a la inflexión latina y enriqueciendo su lengua sin mudarla (Larramendi 1745: eskaintza).

Bada guisa berean [erromarrek bezala] escualdunac ere causitcen tuenean Escual-herrian eztiren gauçac non ere causituco baitituque eta han obligatua dateque hango icenen hartcera, eta hec escuararen erreguelen arauera moldaturic hetaz valiatcera; ordea, hargatican ecin erran diteque guisa hunetaco hitçac asqui direla hizcuntçari ethorquiaren eta içaitearen emaiteco, ceren lehenbico hatsapenac guelditcen baitira bere içaite ossoan, ceinec eguiten baitute hitzcuntçaren içaite eta gora behera guztia (Etxeberri 1712: 128, ap. Lakarra 1993: 383).

Hala eta guztiz ere, euskararen bizitzaren teoriak mintzatzerakoan kontuz saihesten duen gaia da. Bistan da euskara aldagabea aldezteko ez zitzaiola erdaren eraginari denboraren aldetiko dimentsio zehatzegirik ematea komeni eta, honegatik, latinaren eta euskararen arteko antzinako hitz harremanetara mugatuta geratzen da ia osoki. Onartu egiten du, dena dela, denboraren iragaiteak berezko hitz anitz ahantzarazi behar izan duela:

Porque no se puede decir que el tiempo ha sido más benigno con el Bascuence que con otras Lenguas: y por consiguiente avrá borrado de la memoria de los Bascongados muchísimos vocablos, como de la memoria de los otros.

Diránme por ventura lo que notaron muchos Historiadores, y lo resumen de nuevo los Académicos, y es que solos los Bascongados han conservado *tenaces* su Lengua: como quien los exceptúa de aquella sujeción vergonzosa a que otras Naciones se entregaron, perdiendo sus Lenguas propias, por hablar las extranjeras dominantes. Pero yo les respondo, que essa *tenacidad* prueba únicamente en los Bascongados más punto y honra, y más afecto y voluntad a su Lengua: pero no prueba que el tiempo no aya hecho los mismos estragos en la memoria de los Bascongados que en la memoria de otras Naciones. Por qué? porque los tiempos no tienen jurisdicción en lo libre de un cariño, pero sí en la fragilidad de una potencia necesaria, qual es la memoria (1745: x-xi).

Baina, egungo egoerari dagokionez, euskaldunei eurei egozten die erru guztia, lehentxeagokoei, zeukatena galtzen edota barraiatzen utzi baitzuten, eta behar zuten berriaz batere kezkatu ez baitziren; oraingoei, ezer jasorik adierazteko gauza ez delakoan euren hizkuntza utzi edota gutxien baitute, haren arima zaindu eta haren gorputza aberastu beharrean errazkeriara ematen baitira. Honegatik Lakarraren hitzak (1993: 321) testuinguruz aldatzerakoan zertxobait osatu behar dira, apologia herrikideentzat ere bazela azpimarratuaz. Bere herritarrekiko erabiltzen dituen hitzak inoiz benetan mingarriak dira:

...si Dios no muda en adelante el temple de ánimo y mente de los Bascongados. No tienen inteligencia, ni la quieren tener, de las perfecciones de su Lengua, de la formación de sus verbos y nombres, y de sus terminaciones, de la correspondencia mayor o menor a la Castellana u otras Lenguas, en fin de toda el alma del Bascuence. Por otra parte es cortísima la noticia que tienen del cuerpo de la Lengua, esto es, de la multitud de voces, no sólo propias a los demás dialectos, sino al suyo en que hablan. Con la aprehensión de la poca utilidad deste estudio, y con el horror al trabajo, están tan bien hallados en su desidia, que los más dellos se quedarán aun sin leer el Diccionario, como se quedaron sin leer el Arte (1745: xlv).

Baina, honela zein bestela, gai hau hitzaurreko *leit-motiv-etatik* bat da; agertzen den pasarte batzuetako hitz zehatzek bere iturria Axular izan zatekeela iradokitzen badute ere,⁵⁵⁸

⁵⁵⁷ Larramendi, Etxeberri eta Harrieten garbizaletasunaz, ik. § 7.

⁵⁵⁸ Cf. Urgell 1992: 240, non Axularren pasarte (Gero 19) Larramendiren hiru pasarterekin (HH xxvi, xxvii eta xl) erkatzen baita. Etxeberri Sarakoak ere badu honen oihartzun bat: “Eta hala eztute ez cer Escuara

egiatan garaiko egile askorengan aurkitzen den topikoa da. Gogora ditzagun, lehenik eta behin, goraxeago aipatu ditugun Lope Blanch-en hitzak: hizkuntz arruntak, ordukoen ustez, grekoaren edo latinaren aurrean galduan ateratzen badira, “no es por deficiencia propia, sino por falta de cultivo y estudio”. Esaterako, Richar Sherryk 1550ean ingelesari buruz hauxe idatzi zuen:

It is not unknown that our language for the barbarousness and lack of eloquence hath been complained of, and yet not truly, for any default in the tongue it selfe, but rather for slackness of our countrymen, which have always set light by searching out the elegance and proper speeches that be full many in it (ap. Starnes & Noyes 1946: 7).

Illo berean dugu Villalón, bere gaztelaniazko gramatikaren hitzaurrean:

Todos cuantos hazen cuenta de las lenguas y de su autoridad dicen, que la perfeccion y valor de la lengua se debe tomar y deducir de poder ser reducida a arte. Y por esto dicen todos, que las lenguas Hebrea, Griega y Latina son de más perfeccion. Lo cual me lastimo tanto que de afrenta enmudeçi: maravillando me de tanto varon cuerdo y sabio que ha criado esta Castilla, con su lengua natural no huiesen intentado restituirla en su honrra satisfaciendola con sus ingenios de aquella injuria que sele ha hecho hasta aqui. Y principalmente quando vine a considerar que la falta no estaua en nuestra lengua pues de su parte y copiosidad tiene todo lo que otra para acomodarse a aquella regla a orden de genero y pronunçiaçion que la quieran dar (1558, ap. Bahner 1966: 150).

Hau honela den heinean, hiztegiileak ustelketaren kontrako borrokan esku hartzea zilegi ez eze beharrezkoa ere da.⁵⁵⁹ Honela zioen, bere hiztegiaren hitzaurrean, Samuel Johnsonek, XVIII. mendeko hiztegiile ingelesik ospetsu eta eraginkorrenak:⁵⁶⁰

Tongues, like governments, have a natural tendency to degeneration; we have long preserved our constitution, let us make some struggles for our language (1755, ap. Osselton 1983: 13).

Ustea zeharo zabaldua zegoen: zaindu ezean, landu ezean, hizkuntzek txirotzeko joera dute.

1.4. Hizkuntzaren ezaugarriak

Larramendik, nork bere hizkuntza laudatzen eta hobesten duela jakintzat emanik (1728: 90), betegintzarre guztiez jantzita dagokeen hizkuntza baten (*arrazoiaren hizkuntza*; 1728: 91) ezaugarriak mugatu nahi ditu, jaiduraren eragina alde batera utzita, besteen gainetik arrazoiaren argitara bikain agertzeko gai. Hainbat ezaugarri ematen ditu,⁵⁶¹ baina oroz gainetik

hobenduri eta faltaduri eguin, baina bai bere buruac, ceren diren hain laçoac, eta artha appurretacoac, sortceac emaniccaco hitzcuntçaren ikhasteco” (167).

⁵⁵⁹ 1800-1880 bezalako data berankor bati buruz, finlandieraz ari dela, honela dio Sauvageot (1973: 342): “Car il en faut pas s’y tromper, dans l’esprit de la plupart de ces néologistes, il s’agissait moins d’innover que de restaurer. On était à la recherche de la pureté ancienne et de la perfection originelle. On concevait l’évolution parcourue par les différents parlens comme une sorte de détérioration plus ou moins détestable”.

⁵⁶⁰ Villalón ere ondorio berera iritsi zen (barka bekit ingelesezko itzulpena bakarrik eskura izatea): “The language which God and nature have given us should not be less pleasant to us nor less honoured than Latin, Greek and Hebrew, to which I believe our language would not be in any way inferior if we praised it, took care of it, and adorned it with the same elegance and ornament as the Greeks and the rest have lavished on their own languages” (c. 1540, *El Scholastico*, ap. Padley 1988: 181, Menéndez y Pelayoren arg. tik, Madrid, 1911, 15. or.).

⁵⁶¹ Hitzen egokitasuna, esapideen adierazgarritasuna, adeitsutasun eta zuhurtzia, arau trinkotasuna eta salbuespenik eza, ahoskerako harmonia eta hiztegi aberastasuna (1728: 92). Hauetako bakoitza euskarari aurkitzen ditu, noski. Ik. 10. oh. *De la Universalidad...* en eta *HH*-an errepikatzen diren atal hauen kokapenerako.

hiruk daukakete balio orokorra orduko edozein hizkuntzalarirentzat (cf. Lakarra 1993: 394-396, Etxeberriren antzeko aipuekin): ahoskera harmoniatsua, adierazlearen eta adieraziaren aparteko egokitasuna eta morfologia eta sintasia araupekoak (salbuespenik gabekoak) izatea.

1.4.1. Aberastasun motak

Larramendik eman ezaugarri guztietatik, dena den, bi dira hiztegiari zuzen dagozkionak: aberastasuna eta egokitasuna. Feijook (1726: 216) hiru neurri ematen ditu frantsesa eta gaztelaniaren arteko erkaketa egiteko:⁵⁶² *copia* 'aberastasuna', *propiedad* 'egokitasuna' eta *harmonía*. Alabaina, arbitrariotasunaren aldekoa zenez gero, alde batera uzten du bigarrena (*ib.* 216-217); baita hirugarrena ere, zeren eta "A todos suena bien el idioma nativo y mal el forastero hasta que el largo uso le hace propio"; hortaz, edo hizkuntza guztiak berdinak dira, edo ez dago abantaila erabaki dezakeen epailerik (*ib.* 219). Honegatik, hitzen aberastasuna da, beti Feijooen ustetan, egiatan hizkuntzen arteko norgehiagoka erabaki dezakeen ezaugarri bakarra (*ib.* 221 t. hur.).

Hau, esan gabe doa, oso erabaki latza da euskara bezala gutxi landu izan diren hizkuntzetarako: "Demos en primer lugar, que sea pobre el Bascuence" (Larramendi 1745: ix). Jadanik gogoratu dut egun balioztatzen hasi dela kultur kontaktu egoerek gramatikari buruzko hausnarketetan izan zuten eragina garai haietan, Larramendi lekuko (Aurkezpena, § 2.2). Orain are nabariagoa den zerbait esatea dugu: garrantzizkoa denaz, soberan ez duena inor baino errazago ohar daitekeela. Izan ere, Larramendik bi aberastasun mota bereizten ditu:⁵⁶³

...qué riqueza y copia es la más apreciable en una Lengua? Es en dos maneras la riqueza de las Lenguas, y quiero explicarme con términos de Escuela: una es la riqueza formal, y *per se*; otra es material, y *per accidens*. La riqueza formal consiste en la variedad de preceptos, en la seguridad de las reglas, en la hermosura y armonía de la Syntaxis, y en otros atributos que son efectos de la idea, de la inventiva, de la comprensión del Inventor de las Lenguas. (...)

La riqueza material y *per accidens* de una Lengua, consiste en la multitud de vocablos sueltos, sean *synónimos* o no lo sean (1728: 117-119 eta 1745: ix-x).

Hala euskararen aberastasuna neurtzeko nola hiztegia nola osatu zuen erakusteko (1745: xi eta xlv-li), Larramendik bi hitz mota bereizten ditu lehenik eta behin: arruntak eta "fakultatiboak" edo Zientzia, Arte eta Fakultateei dagozkienak. Lehenak euskalkietan sakabanatuta dauden hitzak bilduaz erdietsiko dira:

⁵⁶² Ik. Lázaro Carreter (1985: 80) aitzindari zenbaitetarako.

⁵⁶³ Cf. Lázaro Carreter 1985: 126-129; Brea Claramonte 1985: 14; eta Lakarra 1993: 403-405. Lehenak markatu zuen Larramendiren pasartearen garrantzia, eta antzerako ideiak lehenago Armestoren *Theatro anticrítico universal*-en (1735: II, 179-180, ap. Lázaro Carreter, *loc. cit.*) aurkitzen direla; ideia hauen urrutiko iturria logika tradizionalak perpausean egiten zuen materia / forma bereizkuntza da (*ibid.*). Lakarrak agerian jarri du, ordea, lehentasuna Larramendiri aitortu behar zaiola, ezberdintasuna *De la Antigüedad*...en jadanik dago eta. Dakigunez (cf. 10. oh.), egiatan honi buruzko *HH*-ko pasartea 1728koaren kopia baino ez da. Dena dela, baliteke uste izan den baino orduan ideia zabalduago egotea; cf. López Madera (*Excelencias*, fol. 105-106, ap. Bahner 1966: 108, 13. oh.): "No se definen las lenguas diuersas por los vocablos y significaciones dellos, sino por la frasis, la trauazon y figura de los mismos, y con solo conuertirlos a su modo, los hazê suyos... Así afirmo, que la mayor parte de la lengua Castellana es conuertida de la Latina, por tener della infinitos vocablos, como los Latinos de los Griegos: pero que nunca fue la Latina, ni formada de la corrupción del Latín, sino lengua propia que conuertió a su modo todos los vocablos que recibía agenos".

Hablado del segundo género de voces, que son usuales y comunes aun al vulgo, digo lo segundo, que el Bascuence es Lengua más rica y abundante, y quien la supiere en sus tres dialectos, hallará una multitud admirable de vocablos (1745: xii).

La Lengua Castellana, sin salir de Castilla, y aun sin salir de Madrid o de algún otro Lugar populoso, halla sus voces juntas en lo hablado y en lo escrito; pero el Bascuence no se halla junto en Bizcaya, ni en Guipúzcoa, sino que está derramado en estas dos Provincias, y en otras de España y Francia. Para saber sus voces, no hai recurso a los Libros, sino a los pocos que he citado, y esos en un solo Dialecto, y se hizo preciso el recurrir a todas las Provincias, y adquirirlas preguntando de viva voz (1745: lii).

Euskalkietan somatzen duen hitz ezberdintasuna antzinako euskarara joaz konpontzen du: bere ustez, euskalkiek barraiatuta gorde dute antzinako euskarak zeukan hitz altxorraren zati handi bat:⁵⁶⁴

...oy día el Bascuence en Guipúzcoa, Bizcaya, Alava, Navarra alta y baxa, Labort y otros Países de Francia en que se habla, mantienen tanta multitud de vocablos, que aun en el número material puede igualarse con qualquiera Lengua de el mundo, como se verá en el Diccionario (1745: x).

El Bascuence está derramado y esparcido en las Provincias arriba nombradas. No hablo del alma del Bascuence, que toda está en Guipúzcoa, toda en Bizcaya, y toda en cada uno de los dialectos: ni ay más alma y armonía en todos juntos que en solo uno dellos. Hablo del cuerpo que informa esta alma, que es la multitud de voces Bascongadas. No todas están en Guipúzcoa, no todas en Bizcaya, &c. una parte está en Bizcaya, otra en Guipúzcoa, otra en Navarra, otra en Labort, otra en Alaba. (...). Este derramamiento del cuerpo Bascongado ha sido la ocasión de publicar Lengua pobre al Bascuence (1745: xlv).

Honegatik beragatik, euskal hitzak, lehenik, nonahiko euskaran kausi daitezkeenak dira. Hiztegiaren lana izango da liburuaren eta galdeketearen bitartez ahalik eta gehienak jaso eta batuta aurkeztea, euskararen antzinako aberastasuna berreskuratu nahian. Honetan Larramendi zeharo berritzailea izan zen, Etxeberrirekin dituen kidesunak —eta, beraz, giro zabalago baten erakusgarri den heinean— ahaztu gabe: Leizarraga eta Axularrek, bi jarrera ezberdinen ordezkari harturik (cf. Zuazo 1988: 180-187), biek daukate euskalkien eta are hizkeren arteko ezberdintasunen berri: bata ahalik eta irakurlerik gehienetara iritsi nahian idazten du (“lengoageaz den becembatean ahalic guehiena guciey adi eraciteari iarrei qui çan gaitzaitza, eta ez choil edochein leku iaquineco lengoage bereciri”; 1571, “Heuscalduney”) eta besteak bere hizkeraren aldeko aukera egiten du (“Baifia ceren comunzqui, hala esquiribatcea, nola minçatcea, nori berea iduritzen baitçaica hoherenic eta ederrenic: eta ene haur ezpaita çurea beçala: ez othoi hargatic arbuya eta ez gaitz erran”; 1643: 18-19), biek euren liburuak ulertzeko mugak buruan izanik.

Dialekto zatikaketaren kezka ez da gurea bakarrik izan, jakina, eraikitze bidean egon den edozein literatur hizkuntzarena baizik; adibidez, XV. mendearen bukaeran Caxton-ek

⁵⁶⁴ Iritzi berekoa dugu Etxeberri (1712: 399): “baldin bertce hitzcuntcetana beçala çan balira lehenagotic liburuac escuaraz isquiribatuac, hetan beguiratuac eta altchatuac egonen ciren gaucen icenac eta mintçatceco hitz eta manera escuarazcoac; eta guisa hunetan baliatu guinaquean hetaz mintçatceco. Bainan nola çan baitira hain appurac eta gutiac escuaraz arguitarat ilki diren liburuac, hargatic alde batetacoac ecin jaquin cetçaquen bertce alderdico hitz guztiac eta gaucen icenac: eta hala demborarequin edochein lekutan joan çan dira hitçac eta gaucen icenac appur bana emequi-emequi bertce gauça guztiac beçala truccatuz, eroriz eta ahantciz” (1712: 399, ap. Lakarra 1993: 341). Baina honen aipamenik zaharrena Oihenartena (1657: 67, ap. Zuazo 1988: 88) dukegu: “Le peu de communication que les trois Prouinces du país de Basques, qui sont deça les Monts Pyrenées (...) ont entre-elles, dautant qu’elles dépendent de diuers Gouvernemens, & de diuers ressorts de lustice; est cause de ce que plusieurs mots anciens *Basques*, qui se sont conseruez en chacune de ces Prouinces, ne sont pas entendus en l’autre (...)”.

(lehen ingeles inprimatzailea eta, aldi berean, itzultzaile saiatua) bere buruari galdetzen dio “if any, particular dialect he should employ, and what words he should use to make the printed books intelligible to the greatest number of readers” (Starnes & Noyes 1946: 6). Larramendik, ostera, zeharo beste ikuspuntu batetik heltzen dio arazoari: hiztegiaren antolaketak salatzen eta berak aitortzen duen bezala, ez du irakurleengan pentsatzen, idazleengan —erdal jakituria oro euskararatuko dutenengan— baizik. Eta idazleek hitzak, hitz egoki eta apainak, behar dituzte. Berez, eurek egin behar luketen lana da:

quien la supiere en sus tres dialectos, hallará una multitud admirable de vocablos. Parece aun a muchos Bascongados, que su lengua es pobre; pero es porque no la saben, no sólo en toda su extensión, pero ni aun en la que tiene cada dialecto en su País: y esto prueba, no pobreza de la Lengua, sino pobreza de ingenio, curiosidad y aplicación (1745: xii).

Haatik, *HH*-aren xedea haietako gehienak haien eskura jartzea izanik eta nagusi dabilen ezjakintasuna ezagaturik, etorkia estaltzea erabakitzen du, herritarrek —gai honetan oso minberak, dioenez— euskalki arrotzetiko hitza mailegua baino lehenago erabil dezaten amoreagatik (xehetasun gehiagotarako, ik. I, § 3.4.3).

1.4.2. Hizkuntza filosofikoa eta hiztegi sortzailea

Hitz “fakultatibo” direlakoei dagokienez, euskarak, beste edozein hizkuntza bizik bezala, bi baliabide ditu: mailegutzat onartzea edota berezko ordainak sortzea (eta ohar bekio berriz zati apologetikoa eta zati praktikoaren arteko loturari):

...en las voces facultativas, que no son comunes, ni públicas, somos superiores los Bascongados, o a lo menos iguales. Pruébola. Estas voces, o son las mismas que se inventaron en el País donde se inventó y floreció alguna Ciencia [y] Facultad. o son voces nuevas y distintas? Si son las mismas, todas las demás Lenguas las tomaron prestadas de el lenguaje de aquel País, y también puede el Bascuence tomarlas de el mismo modo. Si son voces nuevas, no tienen las demás Lenguas más derecho de fabricarlas que el Bascuence, y éste lo puede hazer con suma facilidad (1728: 123; 1745: xi).

...el Bascuence ha conservado la virtud de fabricar voces nuevas, compuestas de sus fecundísimas raíces, y el derecho de apropiarse y adoptar como suyas otras muchas de diferentes Lenguas, para significar nuevos objetos, y ser riquísima entre todas (1745: xxxiii).

Aukera honen aurrean, Larramendik bigarren bidea hobesten du, Ciceron gidari eta haren hitzak erabiliaz:⁵⁶⁵

...*qualitates* deitu diet grekoz ποιότητας deritzenei, zeina grekoz filosofoen hitza baita, ez herrikoia. Berbera gertatzen da beste anitzetan: dialektikoek, adibidez, ez dute hitz arruntik erabiltzen, berezkoak baizik; eta halaxe esan daiteke ia zientzia guztiez ere. Izan ere, gauza berriak izendatzeko, hitz berriak sortu behar dira edo zaharren adiera aldatu. Duela hainbat mende gauza hauetaz kezkatzen diren filosofo grekoek honela egiten badute, zenbat arrazoizkoago ez ote da izango guri eskubide bera ematea, haietaz lehenengoz mintzatzen saiatzen ari garenez gero? (1745: xi; ik. 1728: 122-123 ere; itzulpena nirea da).

Honetan ere aski berritzailea izan zen. Aurrean zeuzkan ereduek (Leizarraga eta Axular, demagun)⁵⁶⁶ euskararen ahalbideak nahikoa baliatu bazituzten ere (Lakarra 1993: 332-

⁵⁶⁵ Lakarra (1993: 338-339) erakutsi bezala, Zizeron eredu genuen “hemen eta landa”. Bestalde, honetan ere Etxeberrirekiko kidetasuna erabat nabarmena da (ik. Lakarra 1993: 331).

⁵⁶⁶ Oihenart ere hitzberrigile izan genuen, hitz berriak ez eze, aditz sintetikoak ere sortu zituelarik (Lakarra 1993: 363, 68. oh.).

333), erdara (latina zein erromantzea) lagungarri eta hitz iturri oparo izan zuten.⁵⁶⁷ Leizarragaren kasuari helduz, ezaguna da erdara (latina gehienbat) hautatu zuela bere idazkerari (bere gaiari, oro har) zor zitzaien jasotasuna lortzeko: hainbatetan aipatu den bezala, Testamentuko *columba*, *flamma*, *flore*, *fluui* eta *regue*-ek agerrian jartzen duten zerbait da.⁵⁶⁸ Beranduago aukera izango dugu Leizarragagandik Axulargana eta honengandik *HH*-ra dagoen mailegu jaitsiera ikuskatzeko (§ 7.2.3.4), hala nola euskararen bitartez azal ezin zitezkeen atzizkien erabileran (*-mendu*, adibidez) dauden ezberdintasunak neurtzeko (§ 2.2). Larramendi ez da honetan bazterzalea; euskararen ahalbideak ustiatu nahiago izan zituen, maileguei uko egin gabe baina errazegi ere ez onartuaz: etxekotuta daudenak edota gauza berriak izendatzeko behar direnak —benetan euskal hitzak direla erabaki ez duenean— gorde daitezkeela, are gorde behar direla ere, azpimarratzen du (§ 7); alabaina, erdararen halako erabileraren aurka zegoen, Donostiako hizkera kritikatzekoan adierazten duen bezala:

Bien se ríen desto los demás Provincianos, como de su *primerocoa*, y otros Castellanos que, sin necesidad alguna y por parecer cultos, introducen en el Bascuence (1745: xxx).

Behar berrietarako hitzak, jakintsu emateko ez eze izateko euskaldunek behar dutenak, ez luke nahi denak kanpotik etortzea, eta euskararen baliabideak landu nahi ditu, sasoiari dagoenez gero euskal kultur hizkuntza ahalik eta aberatsena gera dadin, eta beraz euskara ahalik eta gutxiena kaltetuaz (ustelduaz, apika) egin dadin:

o es defecto en el Latín y sus hijas tomar prestadas las voces facultativas de el Griego, o no? Si no es defecto, tampoco lo sería en el Bascuence. Si es defecto, como no se puede negar, es por ser pobres essas Lenguas, y rica la Griega, y será defecto transcendental, y no más del Bascuence que dessoras Lenguas. Y aun en esto ay gran diferencia; porque esse defecto en las otras Lenguas no es ya remediable, y en el Bascuence sí. Por qué? Porque las otras Lenguas han adoptado ya essas voces por suyas, incurriendo en la flaqueza o negligencia de formar voces propias y distintas. El Bascuence aún no ha llegado a tratar dessas cosas, y los Sabios que quisieren tratarlas en Bascuence, tienen derecho a lo que dize Cicerón, o a tomar voces de otras Lenguas, o a formar otras nuevas con discreción; porque como en sus principios no tuvo el Griego las voces facultativas, y las inventó después, quando successivamente iba tratando de las Artes y Ciencias, assí puede suceder a los Sabios Bascongados. De lo qual se sigue, que no sólo somos iguales en la riqueza o pobreza de las voces facultativas, sino que también estamos en estado de ser superiores y más ricos (1728: 124-125; 1745: xi-xii).

En tiempo deste Príncipe de la elocuencia [Ciceron] se puso el Latín en el mismo estado; no tenía voces facultativas, y era pobre; tenía entonces derecho y necesidad de buscarlas, fuessen agenas, fuessen propias. Inventó algunas Cicerón y otros; pero aterrados del trabajo, se valieron de las voces Griegas, y dexaron al Latín en su pobreza nativa.

No quiero que al Bascuence suceda esta desgracia; y pues en lo demás es una Lengua de tanta armonía y belleza, y se presenta ocasión oportuna, quiero hacerla rica, no de voces agenas, sino de las suyas propias sin dexarme vencer del trabajo ímprobo que me espera (1745: xlviii).

Honezkero, bistan da hitzberrigintzan eskura dituen baliabide guztiak jokuan ipiniko dituela; euskara eratorri eta elkartuetan aberatsa izanik:⁵⁶⁹

⁵⁶⁷ Gaia aztertzeko dago zeharo. Halaz ere, interesgarria da gogoratzea Echeniquek (1997: 162), garai hauetaz ari dela, “bigarren latinizatzeko” garai batez mintzatu dela.

⁵⁶⁸ Bukaeran azaltzen dituen “hitz eta minzatzeko manera difizil bakoitz batzu” haien artean maileguen portzentaiari begiratzea baino ez dago.

⁵⁶⁹ Gogora dezagun, adibidez, Etxeberriren galdera: “cilhegui bada erraitea gueçurtatzea cergatic ezta erranen eguiatzatzea?” (1712: 102, ap. Lakarra 1993: 331). Halaber, Voltoirek aitortu zuen bere hiztegiari egunero sortzen ziren edota sor zitezkeen hitzak oro biltzeko ezintasuna (Lakarra, *ib.* 333).

Es propio carácter suyo formar voces compuestas de las simples, y tan usado y corriente, que hasta los meros Bascongados sin reflexión alguna las fabrican y entienden a cada passo en las conversaciones, y lo puede observar qualquiera en las voces vulgares que pongo en el Diccionario, y son por la mayor parte compuestas (1745: xlix).

batez ere bi baliabide hauek garatu zituela baieztatzea ez da hutsala, praktikan bederen, norbaitek oraindik pentsa bailezake hitzak bere gogara —ezeri begiratu gabe— egin zituela. Alabaina, teorikoki baieztapen horrek ez digu izotza uraz egiten dela esateak baino informazio gehiago ematen Larramendiren egitasmoaz eta haren garapenaz. Alde batetik, hitzak aurkitzea lanik errazena omen da:

Pues quién no sabe que lo más fácil de una Lengua es buscar y encontrar voces sueltas, nuevas o antiguas; y que lo dificultoso es la solfa de ponerlas en orden y concierto de reglas? (1745: x).

baina lana erraldoia da, tentuz egitekoa. Esaldi labur honetan, iragaitzaz bezala (cf. “ponerlas en orden y concierto de reglas”), bere ustetan lexikoa gramatikaren morroi baino ez dela berresten digu Larramendik, lehenago bestela somatu dugunez.⁵⁷⁰

Mende hauetako gizakiak miraz daude beren hizkuntzetan aurkitzen duten aberastasunaz (abertasun formala, *per se*-koa, Larramendiren terminologian). Azterketaren aitzindariak dira eta, beraz, intuitiboki hitzunak egiten duena buruz eta adimenez menperatzen duten lehenak. Eta berehala antzematen dute aurkikuntza honi atera dakioken etekin handia. Atera ohi dena, jarraipen naturalez, hiztegi-gintza da, baina ez tradizio sendo batean oinarritu ohi den hiztegi-gintza biltzailea (*DAut* dateke honen adibide argia), ez eta tradizioz ezean imitatzaile izatera mugatzen dena (ereduko hitzak intuitiboki itzuli edota kalkatzen dituenak), jakinaren gainean eta harro sortzaile den hiztegi-gintza bat baizik. Larramendirentzat ez eze, honelako hiztegi-gile guztientzat ere, nor bere berezitasunez, erabil —eta hiztegi-gian jaso— daitezkeen hitzak ez dira direnak, daitezkeenak eta litezkeenak (baita ausaz noizbait izan zirenak) ere baizik, hizkuntzaren baliabideak ahaleginean azken muturreraino eramanez. Hitz gutxitan esanda, hiztegia gramatikaren morroi dugu (Lakarra 1993: 397).

Lakarrak (1994b, 1995a) frogatu du talde berekoak ditugula Euskal Herrian oraintsu arte hiztegi-gile “zintzotzat” jota geneuzkan Pouvreau eta Urte. Halaber, berak ekarri du erkaketara XVI-XVIII. mendeetako hiztegi-gile alemanen lekukotasuna (Lakarra 1993: 398-399), Jones-en (1991) lan bikainean oinarri hartuta. Merezki du, nik uste, berriz aipatzea, zeren eta Larramendiren jokabidearen alderdi inplizitu batzuk ulertzen lagun baitiezaguke.

Lexikografia aleman modernoa Petrus Dasypodius-en latina-alemana hiztegi-giarekin (1535) hasten da, hots, latina irakasteko tresna gisa pentsatuta dagoen hiztegi batekin (gogora Etxeberri). Bertan bilduta dauden alemanezko 12.000 hitzetatik, %30 lehen lekukotasunak dira: latinaren ordainak peitu zituen bakoitzean elkarketa eta eratorpena jo zuela nabarmen baino nabarmenago da. Jonesek dioenez:

⁵⁷⁰ Etxeberri Sarakoak ere euskarari hitz berriak egiteko eskubidea aitortzen dio, “noiz-eta-ere halaco hitçac eta icenac baitirateque berenez escuarazcoac, eta escuararen erreguelen eredura moldatuac” (1712: 331, ap. Lakarra 1993: 331).

Whatever the degree of Dasypodius's own intention, it is clear that a popular dictionary of this kind will stand in a two-way relationship with the speech-community, not just reflecting the vocabulary as it stands, but also helping to fix and promote new and less familiar words. The teaching of Latin becomes simultaneously a service to the mother tongue (Jones 1991: 134-135).

Batez ere XVII. mendean igartzen da Alemanian herria eta hizkuntza, biak elkarrekin goraiatu beharra: "...as if to compensate for national fragmentation and subjugation, German is seen, by many continuators of sixteenth-century traditions of thought, as outshining its powerful European neighbours French, Italian, and even Latin" (Jones, *ib.* 136), hots, jadanik ezagutzen dugun *lingua Teutonum victrix* bera.

Garai hartako alemanari buruz mintzatzerakoan aipatu beharreko izen bat dugu: Justus Georg Schottelius (1612-1676), jurista eta gramatikalaria, eta Pouvreauren garaikide, bidenabar. Larramendirekiko kidesuna sendotzeko, erantsi behar da bere *Teutsche Sprachkunst* (1641) eta *Ausführliche Arbeit von der Teutschen HauptSprache* (1663) baino lehen, *Lamentatio Germaniae Exspirantis* (1640) deritzana argitaratu zuela (Seiffert 1990).

Schotteliusek, egiazko hiztegirik burutzera iritsi ez bazen ere, lexikografiari gramatika kodifikazioaren aldean bigarren mailako iritzirik (Jones, *ib.* 138), arlo hartan sartzen denean (1663), 4.884 erroz osatutako zerrenda alfabetiko bat, elkarketa eta eratorpenari buruzko tratatu luze bat eta sarrera idealari buruzko 20 zehaztasun eskaintzen ditu.

Schotteliusengan dagoen kontzepturik garrantzitsuena *Stammwort* dugu, hots, erro zatiezina. Oinarrizko forma hauetatik abiatuta, ongi definitutako konbinaketa prozesuen bitartez (Larramendiren "orden y concierto de reglas" hura), ez dago alemanaren hitz altxorra nahi adina hazteko eragozpenik, latin eta grekoarena berdindu zein gainditzeko moduan: zeren eta, bere ustez, alemana baita neurrigabeki emankorra, latina eta grekoa erraz azpira litzakeena, eta eguneroko erabilera defektiboak mugatu beharko ez lukeena. Emankortasunari jar dakizkiokeen muga bakarrak, liburu onak irakurtzea, hizkuntz hatsarreak begiratzea eta hizkuntzarekiko enpatia intuitiboa (sena, alegia) dira (Jones, *ib.* 139-140).

Schotteliusena Kaspar Stieler-en hiztegiaren (1691) aurrean teorikoa izan zen: 68.000 buru-hitz biltzen dituen hiztegi bat, lexikografia alemanaren harkantoina (Jones, *ib.* 140). Larramendirekiko kidesun aipagarriak ditu: latina da hiztegiaren metahizkuntza, ikusmira nabarmenki alemanean jarrita badago ere; ez da dialekto jakin batean oinarritzen eta ezin da esan garbizale amorratua denik (Jones *ib.* 140-142), besteak beste. Nolanai ere, Stieler-en hiztegiak, alfabeto hurrenkera hertsia araberan antolatuta, oinarrizko formen azpian elkarteratorriak biltzen ditu: bere iritzian, lexiko alemana berez ugal daiteke mugarik gabe, "by this organic process of lexical layering" (Jones, *ib.* 142), eta hiztegia horren erakusgarri baino ez da, agerrian. Garaikide "prosaiko" zenbaitek eta ondorengoek bere hiztegia asmatutako hitzez betea deitoratu bazuten ere, Stieler-ek bere burua aurrez defendatua zuen "...by arguing (i) that he was also a poet, (ii) that he was simply operating mechanisms and resources for development which already there in the morphology, and (iii) that in some cases he was restoring words which had been lost" (Jones 1991: 142).

Larramendi aleman hauen oinarrizko teoria eta jokabideekin bat dator, hainbat eta hainbat gauzatan, ikusten ari garen eta oraindik ikusi behar dugun bezala: hizkuntza zatikatua —nahiz eta, egia, askoz ugariagoa den literatura batekin—, lexikografia sendotu beharra, hizkuntzaren emankortasunaren aurkikuntza eta honen erabilera lexikografikoa. Hauek buruan harturik, bada, orain saia gaitezke Larramendik berak teoriaren aldetik *copia*-ren arazoa nola askatzen duen ulertzen.

Hitzaurreko hainbat pasartetan, haietakoren bat jadanik ikusi dugu, “hizkuntz asmatzaileen” egokitasunaz mintzo da:

Porque aunque las voces signifiquen y los verbos se conjuguen *ad placitum*, a placer y gusto de los Inventores; pero ellos pueden mostrar en esso más o menos juicio, malo y buen gusto, más o menos ingenio (1745: v-vi).⁵⁷¹

Ikusiak ikusirik, ez da harrizkoa hizkuntza filosofikoaren hitzetan aurki daitekeen egokitasun modua bera izatea ezaugarri hori hain ondo gordetzen duen euskararen hitz berrietan gorde nahi lukeena; alde honetatik ezin adierazgarriagoa da Platonen *Cratilo*-ko pasarte berbera hitzaurreko bi lekutan aipatzea, behin hasieran, euskararen betegintzarreak erakusterakoan (1745: ii) eta gero aurrerago, hiztegiko hitz berriak nolakoak izango diren azaltzerakoan; bigarreanean, gainera, *euskarara* itzultzen du, “denek uler dezaten”:

...me ciño a las condiciones rigurosas, a que según Platón va ligada esta licencia; porque busco voces simples oportunas que explican sus objetos simplemente, o compuestas que declaran su naturaleza y propiedades, y passo luego a formar los nombres facultativos que explican naturalmente sus objetos, en el sentido del mismo Platón (...). Quisiera que todos entendieran esta sentencia de Platón, y la tuvieran presente para no hablar impertinencias, y para esto quiero traducirla puntualmente al Bascuence. *Beraz, Hermogenes, icenac ifintea, ezta iñolaz ere, zuc uste dezun bezala, gauza ariña edo chiquia, ez eta guizon char ta chatarren laná. Eta alaric eguia dio Cratylac, dionean, berez ta bere izatez dagozcala gauzai icenac, eta edocein guizon ezatala icenguillea, ezpada araco, gaucen jatorria azaltzeco ta aguertzeco bereisquiro gai dan icenari dagocana* (1745: I).

Pasarte honetan azaltzen ditu, ongi bereizirik, bere hiztegitzaren oinarriak: lehenik hitz bakun egokiak eta beren izaera eta ezaugarriak *agerian aitortzen* dituzten elkartuak⁵⁷² (adiera zabalean uler bedi) *bilatzen ditu*, eta gero gauzak berez adierazten dituzten hitz fakultatiboak *eratzera* igarotzen da. Hiru aldiko lana dugu —bilketa, analisisa eta eraketa—: hitz bilketa eta analisisa dira, beraz, hitzberrigintzaren oinarriak.

⁵⁷¹ Oso antzerako adierazpena aurkitzen bide da Armestorengan (1735), Lázaro Carreter-ek (1985: 72-73) dakarren pasarte honen arabera (kakotx artean ez badago ere): “bien pudo haber unos inventores que se acercasen más que otros a la naturaleza y propiedades de las cosas”. Cf., halaber, Mayans (1737: 379): “...las etimologías de los nombres que impusieron los inventores de las cosas, o los autores que primero hicieron mención de ellas, deben averiguarse con diligencia, porque de ordinario suelen manifestar alguna propiedad de la cosa que significan, siendo el nombre una imagen de su significado, en cuya mayor o menor expresión se ve la mayor o menor sabiduría de quien le inventó”.

⁵⁷² Bereizkuntza honetarako, cf. Larramendi (1728: 93-94; 1745: i-ii): “...una Lengua tiene voces simples y compuestas; nativas, como dize Cicerón; y derivadas. Oygamos esta distinción de la eloquencia de Quintiliano [Lib. 8 cap. 7]: *nam cum sint eorum alia ut dicit Cicero, nativa, id est, quae significata sunt primo sensu; alia reperta, quae ex his facta sunt: ut jam nobis ponere aliqua, quae illi rudes homines, primique fecerunt, fas non fit; at derivare, flectere, conjungere, quod natis postea concessum est, quando desiit licere?*”.

Larramendik, dakusgunez, hasierako *onomatourgos*-aren lekua hartzen du eta beronek jadanik erakusten digu euskara asmatu zutenen (edo zuen Haren) haritik ari nahi lukeela.⁵⁷³ Euskararen etorki babelarraren bigarren ondorioa da, zalantzarik gabe, herriko euskararen bilketak betetzen ez dituen zuloak nola eta zergatik beteko dituen erabakitzen duena, hau da, funtsean nola sortuko dituen Ciceronek aldeztu erara euskaraz lehenengoz zientziez eta arteez mintzatzeko beharrezko diren hitzak.

Ikusi dugu Platonen *Cratilo* dakarrela hizpidera, Socrates, Cratilonen alde eginaz, Hermogenesi kontra egiten dionetako pasarte bat, hain zuzen ere. Garaikoen artean hizkuntzaren beraren izaera oso gai eztabaidatsua zen. Hizkuntza Jainkoak sortua —eta ez gizakien arteko hitzarmenez eratua— dela onaturik, gehientsuek zentzuzkoa zeritzen izenek adierazten duten gauzarekin loturaren bat izateari. Etimologiari buruzko atalean (§ 6.2) eztabaidaren azalpen xeheagoa egingo dugunez gero, aski izan daiteke oraingoz Larramendi hitzen izaera berezkoaren, ez arbitrarioaren aldeze dela eta, beraz, gauza bakoitzaren izenaren barruan esanahi gutxi-asko izkutu bat badela (edo, hobeto esanda, gauzak behar bezala eginez gero, egon beharko litzatekeela) sinisten duela jakitea.⁵⁷⁴ Hau —euskara hizkuntza filosofikoa edo, beste izenez, arrazoiaren hizkuntza dela— da euskara babeldar hizkuntza dela frogatzeko erabiltzen dituen argudio nagusienetakoa, ezaguna denez:

...el Bascuence es Lengua más perfecta en la propiedad de sus voces que otras muchísimas Lenguas. Dexo aora aparte la Onomatopeya, que es más frecuente en el Bascuence que en otros Idiomas. No hablo tampoco de las voces simples y nativas, sino de las compuestas y derivadas. La propiedad de las voces, que tanto se pondera en la Lengua Hebrea, consiste en que explica sus

⁵⁷³ Honegatik ez du onartzen hitzun landugabearen iritzia hitz berrien epailatzat (cf. 1745: xlv eta xlix). Lakarrak (1993: 334-335) bigarren pasarte "hitzun arrunt eta landugabearen usadioa" epailatzat onartzen ez duela interpretatu du, arrazoiz noski; alabaina, azpimarratu nahi nuke batean eta bestean Larramendiren erausi gogorren xedea ez dela hitzun arrunta, berak bilatzen zuen irakurleriaren zati bat baizik: erdaraz ongi jantzita, euskaraz motel zebiltzanak, alegia; halako batzuen "bachillería presuntuosa" (1745: xlv) izan zen sutan jarri zuena, zeren eta "aunque hablan el Bascuence, no tienen la más leve tintura destes principios" (*ib.* xlix), hots, "no saben siquier Gramática alguna, ni lo que significa el Arte de una lengua, y con solo preguntarles, v. gr. el relativo en Bascuence, se hallan atascados (...). Es cosa averiguada que no saben escribir, ni atinan a leer un renglón del Bascuence; que no saben acia donde caen sus conjugaciones, su Syntaxis, y las reglas de su particular construcción; que no tienen noticia de los dialectos de la Lengua, y de su diferencia; que saben poquísimo aun de aquél en que nacieron" (*ib.* xlv). Bistan da ez dela baserritarrez ari. Larramendiren hitzetatik oso hurbil, honela zioen Sewel itzultzaile eta ingelesa-neerlandera hiztegi onenetako baten egileak itzulpenaren tankerari buruz (1690, neerlanderatik itzulia, ap. Osselson 1973: 121-122): "Lovers of the Dutch language wish to see a pure Germanic style. Others (who I hardly imagine to be in a minority) say that such a style is too stiff, lacking in smoothness, or indeed is incomprehensible; whereas frequently the real occasion of their criticism is the fact that they themselves lack the ability to write good and pure Dutch, and hence are not competent to judge of the subtleties or the elegance of the language".

⁵⁷⁴ Jadanik badakigu cratilismo kutsu berberaz euskara hizkuntza filosofikoa dela aldeztu zuen lehena Poza izan zela; hari darraio, beraz, Larramendi. Kutsu berbera kausi daiteke, bestalde, Etxeberri Sarakoarengan ere: "...halaco guisaz non baitut uste oraico hitçuntça berri eta arduraco dabilçanec errespeturequin çure çuhurtciari agur eguinen diotela, eta boz batez aithortuco çure bicitasunaren indarra eta edertasuna paregabecoac direla; eta aiticic lehen deiçaitetzuela Aingueruen hitçuntça, ecen ez guionena, ceren çure hitz bakhotchta baita misterioz eta çuhurtciac bethea; hala nola *laungoicoa*, non ediren liteque hitz bat misteriotsuagoa, eta gure mintçatzeco maneran Jaincotasunaren aditcerat emaiteco gauçagoa? ecen *laungoicoa* icen hau da bi hitcetatic moldaturicacoa beçala, jaquiteco, *launa* eta *goicoa*, gainecoa edo goiticoa, erran nahi baitu, *laun gainecoa*, edo goiticoa, edo *laun ceruetacoa*" (1712: 87-88). Euskal hitz gehiagorekin *cratilizatzen* du, Pozaz gero Larramendiren aitzindari gehiagok bezala (ik. § 11.2).

significados por algún atributo, condición o propiedad,⁵⁷⁵ pues las essencias no las conocemos como son en si mismas: y esto se llama significar filosóficamente los objetos. Pues en esta excelencia excede el Bascuence a las [otras] Lenguas, y no cede aun a la Hebrea (1728: 95; 1745: ii).

El Bascuence en sus vocablos es Lengua Filosófica, porque explica los objetos por alguno de sus atributos y propiedades, y es cada vocablo una definición o descripción de su significado, sin que haya ninguno (hablo de los compuestos), que no tenga este carácter. De suerte que si se conociese la composición de todos los vocablos Bascongados, como se conoce la de muchísimos, el que hablase con inteligencia el Bascuence, supiera y enseñara los atributos y propiedades de todos sus objetos, cuya erudición contiene sus vocablos (1745: xxxiii).

“Euskal hitz guztien eraketa ezagutuko balitz...”: hemen dago kokka, zeren eta, aldi berean, agerriki bere hizkuntza aberasteko erabiltzen duen baliabidea baita, ez *ad placitum*, arbitrarioki, haren arimaren arabera baizik:

He aquí voces Bascongadas oportunas para explicar en las Artes y Ciencias: son nuevas en quanto a su composición, pero antiguas en quanto a sus raíces, y sin recurrir fuera, halla el Bascuence en si mismo el caudal suficiente para todo. Son nuevas, como lo fueron las Griegas al principio, quando se inventaron; y como éstas con el tiempo se hicieron antiguas, assí con el tiempo se harán antiguas las Bascongadas. Son nuevas, pero oportunas, y en que se da razón de su objeto y significado, que es grandíssima ventaja. Son nuevas, pero no *ad placitum*, ni a mi solo placer y regalado gusto, sino naturalísimas al significado de las voces simples de que se componen, cuya análisis está descubriendo su oportunidad. Son nuevas, no para el Bascuence, sino para el Bascongado, que no ha querido, o no ha podido descubrir, ni registrar los tesoros que encierra su fecundíssima Lengua. Y si a los Griegos, decía Cicerón, les es permitido, no sólo al principio, sino también después de siglos, el formar voces compuestas, quanto más nos es permitido esto a nosotros, que empezamos aora a tratar destes objetos? Permitido es sin duda, y aun necessario, con tal que en la composición de las voces se guarde la oportunidad que prescribía Platón, atendiendo al aire y carácter del Bascuence, y a la significación oportuna de las voces simples (1745: xlix).

Ohar bedi, bide batez, Larramendiren cratilismoa morfologikoa dela, geroago Astarloarena fonologikoa izango zen bitartean (cf. Genette 1972-1973, cratilista fonologikoez). Badirudi, beraz, zein bere garaiko joeren arabera ari zirela, XVIII. mendean oraindik morfologia baitzen hizkuntzari buruzko ikasketetan gailena, XIX.ean hotsek gero eta garrantzi gehiago hartuko zuten bitartean.

1.5. Hitz berriak egiteko bideak

Larramendik hitz berriak egiteko bi bide zehatz baliatu ohi ditu, biak hizkuntzaren berezko izaerarekin zeharo lotuak: bata zuzena, cratilikoa, eta bestea zeharkakoa, konplexuagoa, etimologi azterketaren aurretiko lana eskatzen duena. Bietatik, lehena da, inolaz ere, *HH*-an usukoena, batez ere praktikoak diren arrazoi askogatik. Halaz ere, bigarrenean gehixeago geratuko gara, zeren eta ager daitekeen itxura ia guztietan ezezaguna baita; antzemangaitzera ere bada, noski, eta baliteke berau izatea aurrerantzean arreta gehien mereziko duena.

⁵⁷⁵ Cf. Armesto (1735, ap. Lázaro Carreter 1985: 73; ez du orrialde zenbakia ematen): “[el hebreo] no tiene voz que no signifique naturalmente su objeto”. Zalantzarik gabe, oso sineste hedatua izango zen orduan.

1.5.1. Hitz filosofikoak (edo cratolikoak)

Iragarri bezala, sorbiderik zuzen eta usuena hizkuntzaren izaera filosofikoa buruz behera jartzea da, hitzak cratilikoki eratuaz.

Zeregin honetan nagusiki *DAut*-ek hitzari buruz dioena erabiltzen du, definizioa edo etimologia, adibideak edo latinezko ordainak: edozerk balio lezake hitz berriaren osagaiak (gauzaren izaera edo ezaugarriekin zerikusia izan behar dutenak, dakigunez) eskaintzeko eta, beraz, hitz berria “naturalki” eratzeko.

Hitz eratorrien berezko izaera nabarmena izanik, hitz elkartuen sorreran inon baino argiago antzemango dugu cratilismoaren eragina: gauza berri bati euskaraz izena emateko, haren ezaugarri zenbait (eskuarki *DAut*-en definiziokoetatik) aukeratu ohi ditu (§ 3.3). Bidenabar, etimologi azalpenetan ere eragina du honek (§ 6.4), espero zitekeen bezala.

Hitzak berak bere buruaz dioena ere garrantzizkoa izan daiteke, nolana ere: erdal hitza elkartu edo eratorria izateak erlazio zuzena izan ohi du euskaraz eman zaion ordainarekin. Zehazki mintzatuaz, honek esan nahi du oso maiz erdal eratorriak ez eze, elkartuak ere itzuli edo kalkatzen dituela (§ 3.3.1.3).

Nolana ere, cratilismotik kanpora baina ildo beretik, ikertzekoa dugu ea hitzen itxura fonikoak garrantzia izan duenentz zenbait maileguren onarpenean, dirudien bezala; izan ere, ez du zalantzarik etimologietan bederen egundokoa izan duela (cf. “Me suena a palabra bascongada”, s.v. *alhurreca*, onartutako mailegua, bide batez).

1.5.2. Etimologi azterketaren ondorenak

Euskara beti bat dela erabakita gero, euskal hitzak, bigarrenik, noiznahiko euskararen izan direnak ere badira.⁵⁷⁶ Jadanik ikusi dugu Steiler-ek aintzat hartzen zuen posibilitatea dela. Beraz, argi berri honetara begiratuta, hitzaurrean euskararen antzinatasunari buruz sartzan duen guztiak badu zerikusia —eta ez zeharkakoa— hiztegian gauzatzen denarekin: premisa onartuaz gero, antzinako hizkuntzatik gorde diren edota aztertzaileak harrapa ditzakeen arrasto guztiak euskararenak dira, eta hiztegiaren esku dago gaur erabiltzea komeni den ala ez erabakitzea. Siniste honen erakusgarri argiak dira, jadanik markatu den bezala (Mitxelena 1983a: 914-915 eta 1984: 14; Lakarra 1985a: 38 eta 1993: 380) etimologiaren bitartez “bataiatutako” maileguak. Halakoak, ostera, garrantzitsuak izanik ere, gainazaleko gertakariak dira.

⁵⁷⁶ Alde honetatik, Azkueren aitzindari argitzat —sari alderantziz, Azkue Larramendiren epigonotzat— hartu behar dugu. Parekotasunak aski argiak dira eta Azkueren aldetik azterketa eske daude: zenbait testuren (guztiz *Refranes y Sentencias*-en) arkaismoak berreskuratzeaz gainera (cf. Azkue 1934-1935: 115-130 eta 1935: 90-110, batez ere), biak aritzen dira euskal hitzen etimologiaren bila (cf., adib., Azkue 1905-1906, s.v. *ausnar* eta *burpil*), bai eta toponimian aurkitzen diren zenbait hitz dagoeneko ihartutakoren jatorrizko balioa agerian jartzen (ik. § 8), besteak beste.

Garai haietakoentzat, etimologia eta morfologia lotuta zeuden; areago, *etimologia* zen orduko izen arrunta *morfologia*-rako (Lakarra 1993: 402-403; Malkiel 1996: 16-17; Padley 1988: 200).⁵⁷⁷ Gure begiz begiratuta bederen, norabide biko ariketa zen: etimologiak osagaiak azaleraztan dituen bitartean, morfologiak berriro lotzen ditu, euren arteko erlazioaren arauak agerian jarriaz. Larramendirentzat (garaiko nornahirentzat bezalaxe) *alabanza* edo *artillería* zein *ahaldun*, *abarizketa* edo *abarrosbile* azpian zer datzan miaztea, bi kasuetan etimologia egitea da. Etimologian arituaz, euskal erroak eta atzizkiak —non-nahiko eta noiznahiko baliabideak oro har— eta elkarrekin nola lotu ohi diren aztertzailearen begi aurrean agertzen hasten dira eta, are garrantzitsuago, edozein euskal hitzen lehengaiak honela berreskuratuta, konbinazio berriz lotzea zilegi da.

Larramendiren ustetan, gorago ikusi dugunez, hizkuntzaren muina, arima, gramatika da, haren arauak eta joskera. Gorputza, hiztegia alegia, oso gai aldakorra da, ahazturaz, maileguen eraginez, axolagabekeriak, ezjakintasunak, etab. aldatuz doana.⁵⁷⁸ Hitz berriak egiten dituenean, ez du uste zehatz-mehatz neologismo egiten ari denik: arauen arabera ari denez gero, egiatan euskarari bere duena bihurtzen ari zaiola sinistuta dago (gogoratu “Son nuevas, no para el Bascuence, sino para el Bascongado” hura).⁵⁷⁹ Hiztegiak, euskaldun on orok egin beharko lukeen bezala, egiten duen lehenengo gauza euskara ikastea da, bere euskalkikoa eta besteetakoa (1745: lii). Ikasketa hauen xede bakarra —ez eta nagusia ere— ez da inolaz ere hitzak bilatzea, haren ariman barrena sakontzea baizik: bildu eta aztertzen du, perfekzioak, erregularitasun eta irregularitasunak, hitz sorbideak, erro ahaztuak deskubrituaz. Hizkuntza ondo ezagutuaz, haren arima menperatuaz haren baliabideak eta elkarrekin nola lotzen diren ikasi eta gero, prest dugu hiztegia osatzeko lanari ekiteko.

Ondorioz, liburuetatik zein herriaren ahotik erreskatatu dituen hitz jatorrak eta etimologiak zein bere aldetik aztertzea bide antzua da, Larramendik batzuk eta besteak berdintsu tratatu baitzituen: hitz jatorretan, euskal hitz gehienek berezko esanahia dutela sinistuta, zatiak (erro ezberdinak, atzizkiak) bakartzen saiatzen da, zuzen edo oker, osagaiokin hitz berriak egiteko. Etimologiarekin beste horrenbeste egiten du, bada.

Hau da hitz berriak egiteko baliatzen duen bigarren bidea, bestea baino konplexuagoa, baina aski emankorra: etimologiak hitzen esanahi izkutuak agertzeaz gainera, haien osagaiak

⁵⁷⁷ Oso argigarria da Buridant-ek (1998b: 19) eratu duen eskema, Erdi Aroko etimologigintzaren barruan “zone philologique” eta “zone ontologique” bereiziaz. Lehenean eratorpena (adiera zabalean) sartzen da; bigarrean, berriz, “etimologia” = “interpretazioa”.

⁵⁷⁸ Cf. Aldrete (1606: 176): “en ciento o doscientos años se trueca de tal manera [la lengua], que muchas palabras della no se entienden, como si fueran vocablos de lengua peregrina o estrangera”.

⁵⁷⁹ Eta Larramendi ez da, noski, sineste honetan zegoen bakarra XVIII. mendean: “Tous les mots que l’on ressuscite appartiennent au génie de la langue française ou par étymologie, ou par analogie” (Mercier, *Néologie*, hitzaurrea, ap. Brunot VI, 1153). Brunotek honela jarraitzen du: «Ce qui intéresse et occupe principalement la néologie rationnelle du dix-huitième siècle, c’est la création ou l’extension des “familles de mots” (...). “Agrandissons le plus qu’il est possible les familles de mots” dit Domergue [1791, III, 375]. Ce sera l’une des grandes pensées du “comité de nomenclature” de la Société des Amis de la langue française: “examiner si la famille des mots régnants ne pourrait pas s’étendre”».

azalerazten ditu. Erdal hitz batek etimologia duela —euskal osagaiak dituela— erakutsiez gero, bertan idorotzen du sarritan hura ordezkatzeko modurik onena.

Elkartu eta eratorriez bezala (1745: xviii-l), prozedura honen adibideak franko utzi zituen hitzaurrean, guztiz grekozko etimologiei eskaini zien atalean (1745: xiv-xvii), eta hango batzuk erabiliko ditut orain kontua nola den adierazteko. Grekoak etimologia zuzenak eskaintzen ditu, hitzez hitzekoak (hala nola gr. *Hydor* < eusk. (*h*)*idor*), baina gehienetan euskal osagaietan bana daitezkeenak aurkezten ditu: gr. *Artocreas* < eusk. *Artoorea*, *artozco orea*. Grekoa aztertzea ez da euskararen antzinasuna berresteko bidea bakarrik, baita euskal hitzak berreskuratze bidea ere: gr. *eremus* eusk. *eremua* hitzetik —*erri* + *muga* azalpenaren bitartez (cf. *Ermua* toponimoa)— datorrela, orduan *eremutarra* “ermitaño, el que vive en soledad” eta *eremucoa* “eremítico” ordainak berez bezala datoz. Halaber,

Acribea en griego es certidumbre, y es del Bascuence *agribea*, que significa lo mismo, y viene de *bea*, *beatu*, que en un dialecto es mirar, y de *aguiiri* aparecer, verse; y la certidumbre pide todo esso (1745: xvi)

etimologiatik, baina hiztegiaren gorputzean aipatu gabe, *agripea* “certeza”, etab. ateratzen du. *Elephante* hitzaren etimologiak azaltzen ditu *elefandiarena*, *elefandicoa* “elephantino” ordainak, eta *erotico*-renak *erogarria* “erótico” eta “erotismo”.

Beraz, etimologiak ez dira joko bat, erroak eta morfoak, eta elkarrekin nola lotzen diren/ziren erakusten digun bidea baizik, ondorioak hitz berriak egiteko era ezberdinetara baliatzen dituelarik. Larramendiren etimologiak —eta areago bere aitzindariak— aztertu gabe daude, batez ere haien hizkuntz alderditik. Nolanahi ere den, ezaguna da Etimologia klasikoa ez dela azterketa historiko bat, zentzu modernoan, bilaketa filosofiko bat baizik: zuzenean hasieretara —hitzaren *jaiotza* edo *sortze*-ra, Larramendik “etimologia” hitza itzuli zuen hitz adierazgarriez esanda—, Jainkoak isuritako lehen esanahira ahalik eta hurbilena iritsi nahi luke. Hots-aldaketekin baino, semantika eta morfologiarekin zerikusi gehiago dauka, hitz barruko esanahi ezkutuak aurkitzea baitu xede (cf. § 6). Larramendiren ekarpena, beraz, etimologigintzari eman zion zentzua da, hizkuntzaren erabilera zurrizteko ez eze, hizkuntzaren aberaspide gisa ere erabiliaz.

Beraz, oro har hitz berriak nola egin zituen ulertzeko, bai bere hizkuntz gaitasuna eta jakintza (entzun edota irakurri zuena), bai euskal gramatikaz dakiena, biak aintzat hartu behar ditugu. Euskaraz dakienetik nagusiki hitz solteak —hitz “bakunak” edo “berezkoak” bere hitzetan (1745: ii)— erdietsi bide zituen, baina baita hitz “eratorriak” osatzeko ereduak ere. Bigarren honetan literaturaren garrantzia azpimarratu behar da, eratorbidean irakatsi handiak hartu behar izan baitzituen bertatik (§ 9). Halaz ere, ez genuke gutxietsi behar handik kanpora ikasi zuena, zeren eta, bere hitzen arabera, “...aunque las voces simples tuviessen una significación totalmente arbitraria y sin acomodación a los objetos (lo qual no siempre es verdadero)...” (1745: ii), honela bukatzeko: “no ay voz del Bascuence que no signifique con la misma excelencia [que en la Lengua Hebrea]” (*ib.* iii).

Orokorki, azterketak teoria orokorraren hainbat erabilera ezezagun agertarazi ditu: (1) ariketa etimologikoaren bitartez berreskuratutako erroak ez dira beti guk orain “mailegu” deituko genituzkeen motakoak, ez eta ageriko etimologietan geratzen bagara ere: badira euskal erroak ere ugari, eta batzuk eta besteak berdin tratatzen ditu, hitzberrigintzan baliatuaz edo ez baliatuaz, beharraren eta gustuaren arabera (§ 6.5.1); (2) etimologiaren ondorenak ez dira “mailegu bataiatuak” bakarrik, haien bitartez berreskuratutako “euskal” erroen eratorri berriak ere baizik (§ 6.5.2); (3) sail berezi bat osatzen dute toponimo / antroponimoek, lehenagoko historialari-apologisten ildotik Larramendik ere aintzat hartu eta erro-atzizki berriak eskuratzeko ez eze, euskal hitz osoak berrerabiltzeko moduan ipintzeko erabili zituenak (§ 8); (4) edozein motatako etimologietan atzizkiak (biziak zein ihartuak, benetakoak zein hartakotzat hartuak) ere bakartu eta erabilgarri bilakatzen dira. Halako guztiei —erakusten saiatuko naizen bezala— lekua egin zien Larramendik hiztegian.

1.6. Sarturre gisa

Ondokoan hiru atal nagusi egin ditut, izenburuetan adierazten denez: Larramendiren sorbideak agertaraztera zuzentzen da lehena, iturri idatzien ekarpena mugatzera bigarrena, eta ahozko osagaia agerian jartzera hirugarrena. Lehenean, beraz, Larramendiren eskuhartze orokorrak eratorpenean (§ 2), elkarketan (§ 3), erdal aurrizkien itzulpenetan (§ 4), bestelako hitz sorbideetan (§ 5), etimologietan (§ 6), maileguetan (§ 7) eta toponimia-antroponimian (§ 8) nondik joan ziren aztertuko dut, baita nondik ez ziren joan: alegia, zer duen berezko eta zer tradizioko. Bigarrenean, liburuak noraino, nola eta zertarako erabili zituen, euskal liburuak (§ 9), hiztegiak (§ 10) eta erdal liburuak (§ 11) zein bere aldetik miatuaz. Eta hirugarrenean (§ 12), ahozko osagaia egon badagoela eta etorki bakarrekoa ez dela erakusten saiatuko naiz, *HH*-ko hapax batzuen herrikoitasuna frogatzeko argudioak biltzeaz gainera.

2. Larramendiren sorbideen bila (I): Eratorpena

Erakargarri bezain lan labaina da hiztegi batean, Larramendirenean zein beste edozeinetan, eratorpenean hitzberrigintzari zer zor zaion mugatzea, eta zer ahozko hizkuntzan zein literaturan egindako hitz bilketari. Hasteko, euskal hitzen historiari buruzko xehetasun gutxi ditugu hainbatetan —gaitz erdi, gehienak dagoeneko *OEH*-an bilduta baitaude—, eta gutxi horiek ere sarritan berankor, zatikako, zalantzako edota susmagarri eta, nolana ere, ia beti kritikaren bahetik igarogabeak. Are garrantzitsuago dagokigun arloan: euskal atzizkiei buruzko azterketa historikoa ia erabat peitzen dugu. Beraz, *prima facie* nekez mintza daiteke berrikuntzaz edo tradizioaz 1745 bezain data goiztar baterako.

Gogora dezagun eratorpena hitz-sorkuntzaren atal bizia den heinean emankortasunaren erresuma dela eta, beraz, daitezkeen gauzak lehenengoz idatziz erabiltzea —edo lehenengoz hiztegi batean jasotzea— xehetasun jakingarria dela, noski, baina sarritan (eta ezinbestean) azpian ahozko hizkuntzaren lehentasuna izkutatuta dagoela. Adibidez, Landucciren hiztegiari, itxurazko errumestetasunaren azpian, *-ari* (*albeitari, bekatari, berbari, burrekari, kabestrari, danzari...*), *-dui* (*sagastu*), *-gin* (*argin, langin, jozkin, urragin...*), *-ka* (*besaka, irastuka, gutika gutika, lasterka...*), *-ko* (*astoko*), *-ki* (*agin garbitzaiki, agin frikaiki, itsuski, hilaraki...*), *-ro* (*andiro, beaztiro, esturo, firmero...*), *-toro* (*erraztoro, gogortoro, gaistotoro, galantoro...*), *-ti* (*beldurti, guzurti...*), *-tsu* (*kakatsu, gozotsu...*), eta beste atzizki batzuk (*-kide, -tzaile / -le, -mentu, -tasun...*) aurki daitezke arazorik gabe. Antzerako zerbait antzeman daiteke, muturreko beste adibide bat aipatzearen, hiltzear dagoen Elosu, Nafarrate eta Urrunagako euskaraz berriki argitaratu den lan batean (Gaminde 1999) *ipinkidxe, isuskidxe, laukotxa* 'aitzur mota', *opilkoa, sartzeidxerie*⁵⁸⁰ 'sarrera', *urteidxerie* 'irteera' bezalako hitzak irakurtzerakoan.

Hala eta guztiz ere, nabarmena da, bestalde, euskaraz idazkera jaso bat landu nahi izan den bakoitzean ezinbestean hitz eratorrien kopuruak gorantz egin duela (Sarasola 1986: 206; Lakarra 1993: 345 t. hur.). Hegoaldeari dagokionez, ez dago inolako zalantzarik:

⁵⁸⁰ Jat. *sartziedxerie*, ezinezkoa.

lehenengoz eta sistematikoki Larramendik, inguruko hizkeretatik eta liburuetatik ahal beste hitz jasotzeaz gainera, atzizki askoren erabilera oinarri gehiagotara hedatze hutsaz milaka hitz berri egin zituen, hots, maiz eratorbidea hitzen kopuruan baizik berritu gabe; aurreiritziek estali dute haietako asko tradizio dagoeneko luze xamar baten bitartez guganaino iritsi direla, iritsi ere (Sarasola, *ib.* 207). Honetan Larramendi ez da alderatzen lehenagoko idazlerik onenek eta hiztegiekileek egin zutenetik (Lakarra 1993: 332-334), hitz eratorriak nahitaezkoak baitira herriko umeentzat egindako dotrinaz gainerako edozer idatzi nahi duenarentzat.

Hau dela eta, Lakarrak (*op. cit.* 345-346) ezinutzizko iradokizun bat egin du: “ez izaki atzizki bakoitzaren zedarriztapen tinkoegirik, usadio bereziak aurki daitezke egileen artean bai atzizki hautapenari eta baita atzizki bakoitzaren balioari doakionez. Honela bada idazleen artean, areago haien zabaltzaile nagusi diren hiztegiekileenean. Eginkizun emankor dugu atzizkiak arrasto edo astarna gisa erabiliaz ondutako euskal hiztegien azterketa historikoa”. Atal honetan eutsi egin diot iradokizunari, eta Larramendik bere hitzei erantsitako ezaugarri bereziak harrapatzeri jo dut. Haatik, zehatz-mehatz ez dakigu zer den arrunta XVIII. mendeko euskaraz, are gutxiago Hegoaldekoaz; honegatik, nahitaez azterketa orokor bat egin behar izan dut, gainerako lekukotasun zaharren laguntzaz arrunta eta ezohikoa —baita ezinezkoa ere, nahi bada— neronek ahaleginean bereziaz. Honela, *HH*-aren ez eze, badirudi aurrerapenen bat egin daitekeela euskal atzizkien historiaren ezagupenean ere.

Gainerantzean, erabili dudan metodoa aski bakuna da: lehenik, egiunezko sailkapen baten bidez⁵⁸¹ atzizkien hurrenkera antolatuta, bakoitzaren corpuseko agerraldi guztiak bildu ditut 6. eranskinean, lehen lekukotasunaren data (*HH* bera ez den orotan) erantsiaz. Ondoren, ezer baino lehen atzizki atzizki Larramendik eman informazioa, atzizkiaren aldaerak noiz eta nola agertzen diren, *DAut*-en ereduarekiko aldentzeak, atzizkia zein oinarri eransten zaion, zein adiera eransten duen, nolako hots-aldaketak eragiten dituen eta nolako atzizki-kateak osatzeko gai den⁵⁸² aztertu dira (§ 2.1). Atalka egindako azterketa honek agerian jarri ditu Larramendiren jokabidearen hamaika xehetasun, gehienak zeharo ezezagunak; haien artean esanguratsuenak hautaturik, *HH*-ko eratorbidez atera daitezkeen ezaugarri orokorrak batu ditut hurren: aberastasunaren aldetik Urterekin erkatu dut konparabide gisa (§ 2.2), eta gero emankorrak diren atzizkiak eta ez direnak (§ 2.2.1), alomorfoen etorkia eta banaketa (§ 2.2.2), oinarrien kategorian (§ 2.2.3) eta eratorrien adieran (§ 2.2.4) antzeman daitezkeen berezitasunak, hots-aldaketa ihartu, zahar eta berriak (§ 2.2.5) eta atzizki-kate lekukotuak, zilegi

⁵⁸¹ Neurri handi batean —garrantzitsua den orotan— Azkarate 1991 lan berritzailea izan da nire oinarria eta sarritan arnasemaile argia, nahiz berak antolatu duen euskal eratorpenaren sailkapen orokorra Larramendiren berezitasunei egokitu diegan. Egilearen eskuzabaltasun eta atsegintasunari zor diot hura, argitaragabe den arren, erabiltzeko baimena. Sailkapenak, Azkue eta Villasanteren saioen aldamenean, berrikuntza metodologiko oso interesgarriez gain, erabilgarritasun eta argitasuna ditu bere alde. Esan gabe doa okerrak oro niri egotzi behar zaizkidala, baldin eta Azkarateren esanak ondo ulertu ez baditut.

⁵⁸² Azkaratek (1991: 23) “atzizki-metaketa” izena erabiltzen badu ere, “atzizki-katea” —cf. “cadenas sufijales” (Miranda 1994: 105)— hobetsi dut, erraz eta adierazgarriagoa delakoan. Bestalde, lana behar baino gehiago ez luzateko asmoz, atzizkiaren aurrean agertzen direnak bakarrik jaso ditut, hots, atzizkiak oinarrian onartzen dituenak.

baina lekukotugabeak eta ausartak (§ 2.2.6), gai hauek guztiak zein bere aldetik jorratu ditut, ondorio orokorreari (§ 2.3) bide emateko.

2.1. Atzizkiak banan-banan

2.1.1. Atzizki adierazkorrak

-TXO	orotara 95	lehenagoko lekukotasunak 9
------	------------	----------------------------

Larramendik “nota de diminutivo”⁵⁸³ deitzen zuen atzizki hau erdal txikigarrien ordain arrunta da *HH*-an, zeregin berezi zenbaitetarako erabili zuen *-xka* / *-ska* atzizkia kenduta, agertzen diren gainerako txikigarrien (*-sko*, *-skote*, *-to*) lekukotasunak zeharka jasoak eta ia-ia ezerezak diren bitartean.

Agerraldi kopuru handia zuzenean lotuta dago *DAut*-ek halakoak jasotzeko daukan joera handiarekin:⁵⁸⁴ izan ere, bildutako hitz ia guztiak euskaraz automatikoki era daitezkeen arren, dakusgunez gehientsuak jaso gabe zeuden; derradan, bidenabar, 9 lekukotasun zaharrago horietatik lauren (*animaliatxo*, *anpoilatxo*, *antzartxo*, *artatxo*) lekuko bakarra beste hiztegi elebidun handi bat (Urterena) dela.

HH-aren nomenklatura aztertzerakoan (I, § 4.1.1.3) txikigarriak, batez ere kenketak eginez, bere eredutik maiz xamar aldentzen deneko kategoria dela ikusi dugu. Corpusaren arabera, bakanketa lanaren norabide nagusia oinarri bereko erdal txikigarri ezberdinak batera ekartzea izan da (salbuespena: *aotxo* “boquilla” eta “boquita”), eskuarki sarrera beraren azpian denak batuaz,⁵⁸⁵ ondoko adibideetan bezala:

Aldegüela, aldeilla < ALDEGUELA + ALDEILLA.
Bolsilla, bolsica, bolsillo, bolsico < BOLSICA + BOLSILLA + BOLSICO + BOLSILLO.
Corderillo, corderito < CORDERILLO + CORDERITO.
Granico, granillo < GRANICO + GRANILLO.
Portalico, portalejo < PORTALEJO + PORTALICO.

Euskaraz ordain berberak eman beharragatik ekonomiaren alde hartutako erabakia izan zen, inondik ere.

Eransketen aldetik, berriz, bi eratako gertakariak antzeman ditut: (1) sarrera berriek eragindako ordainak (*ageritxo*, *agertutxo* “assomadita”, *alkontxo* “niño regordete, quieto y

⁵⁸³ Jadanik *De la Antigüedad...*-en (1728: 72, s.vv. *capucho* eta *cartucho*); ik. halaber 1745, s.vv. *capucho*, *cartucho*, *ducho*, *montón* eta *muchacho*.

⁵⁸⁴ Ezaguna denez, Akademiak bere oraingo hiztegian ez ditu txikigarri automatikoak jasotzen, adiera berezia izan ezik (Miranda 1994: 118, 44. oh.). *DAut*-ek ere antzeko asmoa dauka: “Es fecundísima esta Lengua en los diminutivos y aumentativos, cuyas derivaciones son varias en *ito*, en *illo*, en *ote*, en *azo*; (...) y de este género se pueden sacar diminutivos y aumentativos de casi todas las voces, como igualmente los superlativos, porque en esto es la Lengua mui voluntaria, cuya expresión sería sumamente difusa y penosa, y en este Diccionario se ponen sólo los más usados, y que se hallan autorizados por los Escritores escogidos” (*DAut* 1726: vi).

⁵⁸⁵ Beste segida batzuk *DAut*-enak dira; adib. “Cuernecico, cillo, zuelo” < CUERNECICO, CUERNECILLO o CUERNEZUELO.

suave”),⁵⁸⁶ (2) etimologiaren azalpenetan bakarrik agertzen direnak, maiz gazt. *-cho* bukaerak iradokiak (*akeztxo* “gacho”, *anditxo* “ancho”, *aritxo* “ariento”).

Oinarriak: (1) gehienak izenak dira, izen konkretu bizidun (*aberetxo*, *aguretxo*...) zein bizigabeak (*adartxo*, *adrilutxo*...);⁵⁸⁷ izen abstraktuak⁵⁸⁸ sarrera bakar batean aurkitzen dira: *ajolatxo*, *antsiatxo*, *arduratxo*, *artatxo* “cuidadito” (cf. Urte *arthatçhoa* “aerumnula”); (2) bereziak dira izen balioa duten partizipioak (*ageritxo* eta *agertutxo*, eurak jasotzeko erantsi duen “assomadita” sarrera berrian) eta ekintza izenak⁵⁸⁹ (*arastetxo*, *arealdiatxo*); cf., erdaraz txikigarririk agertzen ez delarik, *agertutxo bat*, *ikusitxo bat egin* “(dar una) vista” eta *arealdiatxo bat lurrari eman* “arregar, aricar los sembrados”, egitura herrikoi baten aurrean gaudelako seinale; (3) izenondoak hiru baino ez dira, eta egoera ezberdin bezain berezietan ageri zaizkigu: *anditxo ancho*-ren etimologian; *adinontxo* erdal txikigarriaren parean (“razonablejo”); eta, azkenik, *arretxo* “(peras) mosqueruelas”-en euskal azalpenean (*madari arretxo goxo batzuek*), baina kontuan izan dezagun halako madariak txikiak direla eta (“...son de la magnitud de un huevo” dio *DAut*-ek), *mosqueruelas* (eta cf. lat. *Pyra moschatula*) atzizki adierazgarriduna dela; (4) aditzondoak (*arin-arintxo*, *arintxo*), berriz, erdal aditzondo arruntan (*ligeramente*, etab.en) itzulpen gisa agertzen dira; (5) zenbatzaile zehaztugabeak (*ainbatxo*, *ainbestetxo*), biak gazt. *tantico*-pean; (6) oinarri iluneko hitz bat baino gehiago dugu: *alkontxo* (birritan jasoa, eta bietan *DAut*-ek zerikusirik ez duela) da interesgarriena, beste lekukotasunik ez duen eta Larramendiren sisteman azalpenik ez bide duen hitza baita (ik. § 12.2.10.2); *arrakotxo* “rajadillo” eta *azukroretxo* “pellizco de monja”, berriz, Larramendiren hitzak dira, hurren azalduko dudanez.

Ondorioak txikigarriak izan ohi dira, balio afektibo gehiago edo gutxiagorekin; alabaina, ez dira falta gaztelaniar hain ugari diren lexikalizazioen (Miranda 1994: 120-124) kalkoak:

alkandoratxo, *atorratxo* “camiseta”: cf. *DAut* “La camisa corta y con mangas anchas”.
anezketxo “espolín” (< *anezkea* “lanzadera”): cf. *DAut* “Lanzadera pequeña con que se texen aparte las flores que se entretexen y mezclan en las telas de seda, oro u plata”.
arrakotxo “rajadillo” (*arraca* “raja” eta *arrakatu* “rajar”-ekin lotua):⁵⁹⁰ cf. *DAut* “Confitura que se hace de almendras rajadas y bañadas de azúcar”.
azkenaitxo “codicilo” (< *azkenai* “testamento”), latinezko txikigarria kalkatuaz.
azpilduratxo “dobladillo”: cf. *DAut* “...llaman las costureras una especie de borde que se hace a la ropa...”.

ez eta euskal lexikalizazioak, lehena herrikoia, agian, baina bigarrena dudarik gabe Larramendik —erdal hitzaren adiera kontuan izanik— proposatutakoa:

⁵⁸⁶ Ez ditut aintzat hartzen “Ovejita, ovejuela” (*DAut* OVEJUELA bakarrik) bezalakoak, bere gaztelaniar gaitasuna baino ez baitute frogatzen.

⁵⁸⁷ Azkuek (1923-1925: § 319) “diminutivo de nombres” deritza, beste zehaztasunik gabe. Miranda-k (1994: 119-120) gaztelaniar alde honetatik dituen murriztapenak aipatzen ditu; euskaraz, dakidalarik, aztertu gabeko kontua da.

⁵⁸⁸ Gaztelaniar abstraktuek (batez ere hartakotzat atzizkiz markatutakoak) nekez txikigarria jaso dezakete (Miranda, *loc. cit.*).

⁵⁸⁹ Gaztelaniar, oro har, ezinezkoak, salbuespen zenbaitekin (Miranda, *loc. cit.*).

⁵⁹⁰ Forma ez da erabat argia; litezkeen azalpenetarako, ik. § 5.4.2.

akertxo “orejera de arado” (cf. *aker* “palo que en el remate detiene el cabrío”): cf. *DAut* “...son dos cuñas que tiene a uno y otro lado, al principio de la cama, para abrir el surco”.
azukroretxo “pellizco de monja”: cf. *DAut* “Unas porciones de massa de azúcar mui delicada...”.

Hauen aldamenean, lexikalizaziotzat baino zuzenkiago itzulpen ez zehaztat —gutxi gorabeherako itzulpentzat— eman daitezkeen zenbait badira:

apaingarritxo “miriñaque”: cf. *DAut* “Alhajueta de no mucho valor, que sirve para adorno u diversión”.

apaztxo “colodra de pastores” (< *apatx* “colodra de los que venden vino”, “cuevo mayor”): cf. *DAut*, s.v. *colodra*: “Cierta género de vasija como barreño, de que usan los pastores para ordeñar...” vs “...vaso mui grande de madera (...) en el qual tienen prevenido el vino que se ha de ir midiendo”.

Hots-aldaketak: (1) afrikatua > frikari (*aldastxo*, *apaztxo*, *arrauztxo*, *aunztxo*, *austxo*, *aztxo*); (2) *t + t > t* (*ainbatxo*); (3) *o > ø* (*arkakustxo*).

-TZAR	orotara 26	lehenagoko lek. 3
--------------	------------	-------------------

Larramendik “terminación aumentativa” izena ematen dio (1745, s.v. *hogaza*). Adibide ia guztiak ereduak agertarazi ditu: batzuk, gehien eta nabarmenenak, erdal handigarrien (-*ón*, -*azo*, -*ote*, -*orrio*) erantzun gisa; behin bederen, “muy grande” bezalako adierazpenen haritik (*aunditzar* “descomedido, muy grande”); azalpen zuzenik ez duten bakarrak *aberetzar* “alarbe, bárbaro, bestial” (baina “animalón” ere) eta *alatzar* “tafurca” dira. Lehenago lekukotutako bakanak (*aberetzar*, *alpertzar*, *astotzar*) hiztegi agerraldiak dira denak (Urterenak, berriz ere).

Oinarriak: (1) gehienbat izen konkretu bizidun (*aberetzar*, *aguretzar*...) zein bizigabeak (*aiztzar*, *aldeatzar*...); (2) ohartzekoa da izen zenbakaitzarekin egindako bakarra (*aragitzar* “carnaza, mucha carne”); (3) izenondoak bataz beste aski ondo ordezkaturata daude (*alaitzar*, *alpertzar*, *anditzar*, *aunditzar*).

Adieraren aldetik, -*tzar*-i egotzi ohi zaion gaitzespen kutsua⁵⁹¹ dute askok (adib. *aguretzar* “vejancón”, *azeritzar* “zorraztrón”), baina ez dira falta handigarri hutsak ere (adib. *alkandoratzar* “camisón”, *arpoitzar* “grapón”).

Hots aldaketak: (1) afrikatua > frikari (*aiztzar*, *arkaiztzar*); (2) *i > ø* (*artzar*).

-TXAR	orotara 4	lehenagoko lek. 0
--------------	-----------	-------------------

Adibide zenbaitetan atzizki eginda agertzen zaigun forma honek oso esanahi zehatza zeukan Larramendirentzat: “Ruín, pequeño, desmedrado, *charra*, *chatarra*, *mascarra*, *santarra*”. Cf. gainera: “Lapachar, pantano, viene de el Bascuence *lupetzchar*, y significa pantano u lodazal ruín y pequeño, de *lupetz* y *char*”.

⁵⁹¹ Azkue (1923-1925: § 274), nahiz gero bitariko adibideak ematen dituen (adib. *mailutzar* “gran martillo” baina *neskatzar* “muchacha de mala conducta”, *ib.* 275).

Adibide guztietan, gazt. *-illo* atzizkia itzultzen du.⁵⁹² Corpusean, oinarriak beti izen konkretu bizidunak dira (*abadetxar, akertxar, apaiztxar, atezaitxar*).

-XKA, -SKA	orotara 6	lehenagoko lek. 0
-------------------	-----------	-------------------

Txikigarria da eta, Azkuek (1923-1925: § 308), gehiago zehaztu gabe, euskalki guztietan —batzuetan besteetan baino gehiago— erabiltzen dela dio. Formaren aldetik, <amorraisca> eta <arteisca> idazkerak argi eta garbi *-xka* formarenak diren bitartean, <aizurisca> eta <atiska> interpretapen gaitzekoak dira,⁵⁹³ eta <antulasca> eta <atasca>, berriz, inondik ere *-ska*-renak.

Adibide gehienek ereduari erantzuten diote era batera edo bestera: (1) *artexka* eta *ataska* zentzuaren araberrako itzulpenak dira: cf. *DAut* “...especie de encina pequeña...” eta “especie de puerta pequeña”, hurrenez hurren; (2) *aizuriska* “ventisca”, *amorraxka* “rabieta” eta *atiska* “válvula”-k gaztelaniatzko hitzen txikigarriak kalkatzen dituzte, lehenaren kasuan kalkatu ez eze kopiatu ere egiten duelarik; (3) ez dut honelako azalpenik *antulaska* “baladronada”-rako.

Oinarriak: (1) argiak izen konkretu bizigabeak dira (*artexka* < *arte*, *ataska* < *ate*); (2) *amorraxka* eta *antulaska*-renak atzerantzko eratorriak bide dira (§ 5.4.2); (3) *aizuriska* eta *atiska*-renak, berriz, elkartuak (§ 3.1.7).

Hots aldaketak: *e > a* (*ataska*, baina *artexka*).

-TO	orotara 1	lehenagoko lek. 1
------------	-----------	-------------------

Corpuseko adibide bakarra (*azauto* “haz”) Leizarragarengan irakurri zuen (§ 9.2.4.1); txikigarria antzemateko gauza izan ez zela dirudien arren (cf. *azaoa* sarrera berean), atzizkia ezagutu ezagutzen zuen: cf. “...*toa* o *choa*, nota de diminutivo” (1745, s.v. *montón*). Hiztegian zehar, ziurrenik, adibide gehiago aurkitu ahalko dira (cf., adibidez, *igeltoa* “renacuajo”), baina ez zuen emankor bilakatu eta, beraz, halako bakanek ekialdeko iturria izango dutela espero genezake, gehienetan behintzat.⁵⁹⁴

⁵⁹² Larramendiren interpretapena interesgarria izan liteke honen adieraz kezkatuta dauden hispanistentzat (cf. Miranda 1994: 122).

⁵⁹³ Inplosiboan agertzen den <is>-ri buruz, dena dela, lehenago arrazoiak bildu ditugu beti edo ia beti /š/ adierazten duela sinisteko (I, § 8.4.8).

⁵⁹⁴ Cf. *neskato* “criada”, agian Landucciren hiztegitik hartua (§ 10.2), *EH*-ak lehenengo datatzat 1571 eta azalpentzat “Batez ere ipar. eta naf.” ematen badiu ere. Cf. aipatutako Elosu, Nafarrate eta Urrunagako euskaran (Gaminde 1999) oraindik *neskátoa*, Landuccik ere jasotzen duen beste adieran (“moçuela”).

-SKO	orotara 1	lehenagoko lek. 0
-------------	-----------	-------------------

Adibide bakarrean eta hura etimologia batean (*arinsko*, *arisco*-renean) agertzen zaigun atzizki hau ere txikigarria da eta, dirudenez, oinarrian izenondoa izatea ohikoa da: cf. *belusko* (B-urd), *beransko* (BN, S), *berosko* (L, S), *gaztesko* (B-ar-i), *meesko* (GN-b), etab. (Azkue 1923-1925: § 310) eta *urrunsko* “assez loin” (Lafitte 1962: 335).

-SKOTE	orotara 2	lehenagoko lek. 0
---------------	-----------	-------------------

Aurrekoaren egoera eskas beretsuan (*arinskote* eta *arriskote*, *arisco*-ren etimologian), hau ere txikigarria da: cf. *andiskote* “grandecito”, *gorskote* “algo sordo” (Azkue 1923-1925: § 311, biak Mendibururengandik). Zalantzarik gabe izenlaguna (*arrisko*, hots, *arrizko*) oinarri berria dugu, etimologiarako *ad hoc* eratua. Dena dela, ziurrenik atzizkiaren lehenengo adibidetakoak izango dira; ohartu *arisco* azaltzeko ez zuela *-skote*-dun formaren beharrik.

-XAR	orotara 1	lehenagoko lek. 0
-------------	-----------	-------------------

Gorago azaldu zaigun *-txar*-en aldaera, ekialderagokoa, oker ez baldin banago, *agurexar* “vejete”-n baino ez da agertzen, <aguresyarra> idazkeraz.

2.1.2. Izen abstraktugileak

Larramendik izen abstraktuak sortzeko bi atzizkiren kontu baino ez du ematen gramatikan, eta biak baliokidetzat ematen:

...de los [sustantivos y adjetivos] concretos se forman los abstractos de dos modos: el 1. añadiendo al nombre concreto esta terminación *tasún* o *tasúna*, como en los ejemplos puestos [de *guizón* hombre, *guizatásuna*, *guizontasuna* humanidad; de *Jaincó* Dios, *Jaincotasúna* divinidad; de *gazté* joven, *gaztetasúna* juventud; de *aundí* grande, *aunditasúna* grandeza]; el 2. añadiendo *querí* o *quería*, v.g. *eró* loco, *eroquería* locura; *itzontzí* hablador, *itzontziquería*, bachillería; *liquits* puerco, *liquisquería* porquería. Donde se conoce que el Romance aprendió del Bascuenze las finales destes sus nombres abstractos. Adviertese que qualquiera terminación de las dos es adaptable a qualquier nombre, y assí igualmente se dice *erotasuna* que *eroquería* (Larramendi 1729: 265-266).

Alabaina, *HH*-aren hitzaurrean baliokidetasuna ezeztatu zuen, bide batez ohiko oinarria (izenondoa) zehaztuaz:⁵⁹⁵

Entre otros varios, dos son los modos más comunes con que el Bascuenze forma substantivos de los adjetivos, y son las terminaciones *tasuna*, *quería*, pero con esta distinción. De aquellos adjetivos en que la forma denominante y concreta significa defecto, falta, imperfección, hace substantivos con la terminación *quería*, *ería*; y en los que la forma denominante no es falta, ni imperfección, sino algún bien físico o moral, los hace con la terminación *tasuna*. Assí, decimos *ciquinquería*, suciedad, y no *ciquintasuna*; *dollorquería*, ruindad, y no *dollortasuna*; *itsusquería*, fealdad, y no *itsustasuna*. Al contrario, decimos *garbitasuna*, limpieza, y no *garbiquería*; *prestutasuna*, que en Romance no tiene correspondiente simple, y es el Francés *probité*, y no *prestuquería*, aunque sí con la negación, *prestuezquería*; *edertasuna*, hermosura, y no

⁵⁹⁵ Ohar bedi euskaldun hutsei, erdararik ez zekitenei galdetu ziela. Berri hau zeharo bat dator bere galdeketez idatzi zuenarekin (§ 12), baina alderdi ezezagun batetik osatzen du hartaz izan genezakeen irudia.

ederqueria. Esta observación la he hecho con cuidado entre los que sin saber Romance hablan bien el Bascuence, y por ella corrijo lo que puse en el Arte, haciendo indiferentes a ambas terminaciones *tasuna* y *queria* (1745: cxlix).

-TASUN, -dasun	orotara 31	lehenagoko lek. 17
-----------------------	------------	--------------------

Deigarria da atzizki honen urritasuna: Urteren hiztegian, adibidez, A letrak dauzkan 1250 inguru hitzetatik 26 (%2,1) *-tasun*-ez hornituta agertzen dira eta *HH*-an, berriz, 4867tik %0,6 bakarrik. Honekin batera, erdiak baino gehiago lehenago lekukotutako hitzak dira. Ez dirudi, beraz, atzizki hau hiztegiileari emankorregia suertatu zitzaionik. Berehala ikusiko ditugu izen abstraktuak sortzeko Larramendik lehentasunez erabili zituen baliabideak.

Formaren aldetik, *-n* ostean *-dasun* ager daiteke —*astundasun* (1745) baina *arintasun* (1571), eta ohartu data esanguratsuei—, baina ez gainerako ozenen ondoan (*agortasun*, *alfer-/alpertasun*, *argaltasun*, *aurtasun*).

Oinarriak: (1) gehienak izenondoak dira, ohi denez; (2) [+gizakia] tasundun izenak ere ez dira falta (*adiskidetasun*, *aguretasun*, *aidetasun*, *aitatasun*, etab.), gehienak oso ondo lekukotuak; (3) izen bizigabea (*albotasun*, *aldetasun*); (4) aditzondoa (*anzinatasun*); (5) *abrestasun* ziurrenik *abrastasun*-en (1571) ordezeko hutsa —edo nahita egindako zuzenketa— da (ik. § 9.2.7.3).

Ondorioak beti izen abstraktuak dira, salbuespen bakar batekin: *anditasun* “amplificación”, inondik ere ‘ekintza / ondorio’ adieraduna.⁵⁹⁶

Hots-aldaketak: afrikatua > frikari (*aberastasun*, *araztasun*).

Atzizki kateak: (1) *-(k)ide* + *-tasun* (*adiskidetasun*, *aidetasun*); (2) *-kabe* + *-tasun* (*ajolakabetasun*, *ardurakabetasun*); (3) *-garri* + *-tasun* (*amagarritasun*).

-KERIA, -eria	orotara 22	lehenagoko lek. 9
----------------------	------------	-------------------

Adibide gutxitxo batzen ditu atzizki honek, *-tasun*-en antzera, eta ia erdiek lekukotasun zaharragoak dituzte.

-keria da atzizkiaren ohiko forma edo, hobeto esanda, *-keri*, gramatikako pasartean Larramendik agerian jarri bezala. Halere, badira *-eri(a)*-ren adibide zenbait ere; bi formak bat zirela ulertu zuen, *lapurreria*, *keria* segidak (s.v. *pillage*), adibidez, erakusten duenez (halaber, cf. “la terminación *queria*, *eria*” hitzaurreko pasartean). Baina badugu hau baino lekukotasun garrantzikoagorik. Izan ere, Larramendi eusk. *-keria* eta gazt. *-ería*-ren arteko formazko eta esanahizko adostasunaz ohartu zen —nahiz eta, ohi bezala, alderantzizko erlazioa ezarri—, eta

⁵⁹⁶ Geroago ikusi ahalko dugu izen abstraktuak eta ekintza-izenen arteko nahasketa beste atzizki batzuetan askoz nabarmen eta eraginkorragoa izan dela.

jatorrizko forma *-eria* dela asmatu zuen (cf. Mitxelena 1977a: 247-248), *k* atzizkiaren masa fonikoa indartzeko eranskina baino ez dela baieztatuz.⁵⁹⁷

La terminación *eria* en Bascuence es comunísima, y una de las que sirven a formar nombres substantivos, *eroqueria, choraqueria, ordiqueria, urdaqueria, liquisqueria, ciquinqueria, aurqueria, humequeria, seinqueria, dollorqueria, &c.* En que se conoce que del *queria*, que es la terminación Bascongada, se pegó al Castellano solamente el *eria*.

Bien creo, que assí el *queria* como el *eria* son una misma terminación, y que se le añade a los más de los nombres la *q* para la pronunciación más llena. Fuera de composición la voz *eria* es significativa de enfermedad, enfermo, indisposición, indispuesto, siendo al mismo tiempo nombre substantivo y adjetivo, como sucede con frecuencia en nuestra Lengua. Decimos *heri andi batec eman dio*, dióle una grave enfermedad; *eri da, eri dago*, está malo, indispuesto, aunque hai también *eritasuna* por enfermedad. De aquí *eritu*, enfermar, *erioa*, la muerte *active*, y la que se pinta, *eriotza*, la muerte *passivè*. Siendo esto assí, también creo que las terminaciones *queria, eria* serían en lo antiguo significativas en los nombres Bascongados, y que *urdaqueria*, v. gr., querría decir achaque o indisposición del que es puerco. Pero hoi se toman por puras terminaciones, menos en los nombres que significan enfermedad, v. gr. *nafarrera*, lo mismo que *baztanga*, viruelas.

(...)

El Castellano usa de la terminación *queria* en los nombres en *co*, v. g. *puerco, bellaco, borrico*, porquería, bellaquería, borriquería, y en los demás de el *eria*. Y desta terminación se vale para formar sustantivos de sustantivos, v. gr. de *seda, lienzo, espada*, sedería, lencería, espadería; y también sustantivos de adjetivos, como *porquería, bellaquería*. Y aunque ya discierno una cierta distinción en el uso desta terminación, y que también se funda en el Bascuence, no me detengo a explicarla: y dándola por pura terminación no significativa, me contento con assegurar que el Castellano la tomó del Bascuence, y no de otra Lengua (1745: cxlviii-cxlix).

Honen arabera, *-eria* formako hitzak bildu (*arrauberia* 1571), mailegatu (*azañeria*) edo sortu zituen (*alfereria, ? amorreria, atziperia*) inolako zailtasunik gabe.

Oinarriak: (1) ondo lekukotutakoak —hau da, adibide zaharragoak dituztenak— izenondoa (*aidurkeria, alferkeria...*), izen biziduna (*ab(e)rekeria, agurekeria, astakeria...*) eta, askoz neurri txikiagoan, aditzoina (*amorreria, arrapakeria, arrauberia, atziperia*) dira; (2) ezohikoa da, berriz, izen bizigabea: *aiozkeria, atzakeria* (< *atz(a)* "(gana de) rascar"); ikusiko dugunez, oinarri honetako hitzen adiera ere ezohikoa da.

Ondoriorik normalena izen abstraktua da. Adibideek atzizkiari buruz dakiguna bermatzen dute, alegia, ez dela gramatikan Larramendik esana —hots, *-tasun*-en baliokidea—, ez eta hitzaurrean esana —hots, *-keria*-k 'akatsa' eta *-tasun*-ek 'ona' adierazten dutela—, zeren eta *-keria*-k beti erabilera gaitzesgarria iradokitzen, eta bikote zenbaitetan *-keria* eta *-tasun*-en arteko ezberdintasuna igartzen den arren (*aguretasun, atsotasun* "senectud" / *agurekeria, atsokeria* "vejez, impertinencia de viejo/ja"), ez baitira *-tasun*-en markagabetasuna erakusten duten bikoteak falta: *aberekeria, aberetasun* "bestialidad, "brutalidad", *alferkeria, alfertasun* "pereza", *aurkeria, aurtasuna* "puerilidad".

Gogoeta egin behar dugu, bestalde, bigarren zatian *-(k)eria* atzizkia ala *eri* 'gaixotasuna' izan lezaketen hitzei buruz. Gauzak nahasita daude alde honetatik euskal hitzen historian, zenbait hitzi ematen zaien *-a* gabeko forma lekuko (cf. *EH*-an *amorreria* baina *birikeri, nafarri*). Haatik, badirudi nahasketa Larramendiri zor diogula: *OEH*-aren arabera (s.v. *eri* 2) *eri* 'gaixotasuna' soilik Larramendi eta haren ondoko Hegoaldeko zenbait idazleren kontu da, eta gorago ikusi dugunez,

⁵⁹⁷ Adierazpen laburrago bat irakurri ahal izan dugu goraxeago, 1729ko aipamenean.

berak lotu zuen atzizkiarekin; cf. *alferecía*-ren etimologia ere: “...viene de el Bascuence *alfer*, *alper*, perezoso, inútil, y *eria*, enfermo, enfermedad...”.

Eta, azkenik, *-keria*-k inguru berezi batzuetan ‘ekintza / ondorioa’ adiera izan dezakeela nabarmena bada ere (adib. *ez tontakeriarik egin*), adieraren aldetik arras bitxiak suertatzen dira *aiozkeria* “cuchillada” eta *atzakeria* “rascadura”, halaber oinarri ezohikoaren gainean eratuak.

Hots-aldaketak: (1) afrikatua > frikari (*askeria*); (2) *o > a* (*astakeria*, baina *atsokeria*); (3) *a + e > e* (*amorreria*); (4) *-a* itsatsia baillitza (*atzakeria*).

-GO, -ko	orotara 35	lehenagoko lek. 5
-----------------	------------	-------------------

Ziurtasun osoaz, hau bada Larramendik hitz berriak eratzeko baliatu zuen atzizkia, lehenagoko lekukotasun urriek, oinarrien kategoriek eta hitzen adierek frogatzen duten bezala. Nahiz inon zehazten ez duen, dakidalarik, atzizkiaren forma *-go* bide da Larramendiren ustetan:⁵⁹⁸ *-ko(a)*-dun hitzak denak lehenago lekukotuta daude (*ahakoa* 1571, *ahaikoa* 1627), eta azkena gaizki (“pariente”) itzuli zuen: zeinagatik atzizki bera zenik ere antzeman ez zuela egin dezakegun.

Atzizkia, dakigunez, Iparraldekoa da izatez, eta batez ere hango idazleengandik ikasi zuela pentsatu behar dugu. Lehenagoko lekukotasunek erakusten digutenez, erabilera tradizioaletatik hiru jaso zituen: (1) izena [+gizakia] ‘lanbidea, kargua’ (*apaizgo*, *apezgo*, *apezpikugo*), nahiz gure adibideen arabera oso eremu mugatuan aplikatu; (2) izena [+gizakia] ‘izaera’, ia beti *-(k)ide* atzizkiaren ostean erabilia (*aidago*, *aitakidago*, *anaikidago*, *arartekidago*);⁵⁹⁹ salbuespena ez dabil oso urruti: *anizkidargo* “comunidad” (< *anizkida* “común” + *-ar*); (3) izenondoa ‘nolakotasuna’ (*alaigo*, *andigo*, *arimandigo*, *arrog*, *aundigo*).

Hauen aldamenen badira sekula, dakidalarik, lekukotu gabeko oinarriak: aditzoina (*aitorgo*, *arazigo*, *arkidago*, *asigo*, *aturdigo*, *autorgo*, *autsigo*, *azalgo*),⁶⁰⁰ izen bizigabea (*aragigo*, *arrengo*, *aurkego*), zenbatzailea, izenordaina, aditzondoa eta beste (*aldizgo*, *alkargo*, *askogo*, *aurrengo*), eta ondo identifika ezin daitezkeen zenbait (*aldekigo*, *asmaengo*).

⁵⁹⁸ Ez dago arrazoirik *-goa* zela pentsatu zuenik sinisteko: cf. *andigoti* “presumido”, *aitorgotegi* “confessionario”, etab.

⁵⁹⁹ Honek kolokan jar lezake goraxeago baieztatu dudana, alegia, *ahakoa* eta *ahaikoa*-n atzizkia antzemateko gai ez izana, ongi itzuli zuen *ahakoa* ilunagoari dagokionez, gainera: zeren *cognación* sarrera beraren azpian agertzen baitira *aidagoa*, *ahacoa*, eurak bakarrik eta ordena honetan, *Erans*-eko sarrera batzuetan Axularren hitzekin egin —hots, aldamenen haien aldaera edo interpretapenak ematea (II, §§ 2.4.1.2 eta 2.4.4.2)— gogoraraziaz (*ahakoa* Leizarragarengandik hartu zuen; ik. § 9.2.4.1). Eta hauxe dateke, azken batean, *-(k)idago* atzizki kate emankorraren eredu gisa proposa dezakegun hautagairik onena.

⁶⁰⁰ Lau forma oso berezi ditugu: *atsedago* “descanso” *atseden* “descansar” aditzari dagokio, eta *azaldago* “comentario” *azaldu* “comentar”-i (cf. *azaldari* “comentador”); pare batean (*adorgo*, *amatigo*) *-gatu* aditzetik *-go* berreraiki duela dirudi. Gertakari hauetarako, ik. § 5.4.1.

Oinarrien ugaltzearekin bateratsu, *-go*-k adieren aldetik aldaketa garrantzitsu bat pairatzen du *HH*-an: kargu-izenen eta izen abstraktuekin batera, eta normalean oinarri berrikoetan, 'ekintza / ondorioa' adiera agertzen da, guztiz aditzoina oinarritzat daukatenetan nabaria. Dena dela, edozein oinarriarekin ia izen abstraktuak eta ekintza-izenak, biak ager daitezke. Atzizki honetan kausitzen ditugu oro har *HH*-an somatzen den izen abstraktuen eta ekintza-izenen arteko muga ez garbiaren lehen zantzoak.

Hots-aldaketak: (1) *e > a* (*aidago, aitakidago, anaikidago, arartekidago, atsedago, azaldago*); (2) *n > ø + e > a* (*atsedago*).

Atzizki kateak: (1) *-(k)ide + -go* (lehenago esan bezala); (2) *-ki + -go* (*aldekigo*); (3) *-en + -go* (*asmaengo*); (4) *-kida + -ar + -go* (*anizkidargo*).

-TZA₁	orotara 7	lehenagoko lek. 2
-------------------------	-----------	-------------------

Oinarriak: (1) izena [+gizakia] 'lanbidea' (*artzaitza, arzantza*); talde honetan sartu behar da, ondorioarengatik, *arran(t)za* ere; (2) izena [+gizakia] (*alarguntza*), lehenago lekukotua; (3) ez dira aurrekotik oso ezberdinak oinarritzat izenondoa daukatenak (*haindurtza, andientza, aurduntza*), baina lehen biak bederen Larramendik eratuak dira: lehena Harrietengandik (§ 10.3.1.2) ikasitako *haindurra* izenondoarekin; bigarrena berak aitortzen du: "En bascuence mayor en grandeza es *andiena*, y esta mayoría o grandeza, *andientza*" (1745, s.v. *majestad*).

Adierak bi dira: 'lanbide-izena' (1. oinarriari dagokiona) eta 'izaera, nolakotasuna' (2 eta 3. oinarriari dagokiena).

Atzizki kateak: (1) *-zai(n) + -tza* (*artzaitza, arzantza*); (2) *-dun + -tza* (*aurduntza*).

-DADE	orotara 2	lehenagoko lek. 1
--------------	-----------	-------------------

Mailegu ezagun batean (*abilidade*) agertzeaz gain, euskal etorkiko hitz batean ere (*argaldade*) dakusgu, itxura bereberan.⁶⁰¹

-KINTZA, -gintza, -intza	orotara 14	lehenagoko lek. 2
---------------------------------	------------	-------------------

Larramendik atzizki honen balioa hiztegiko sarrera berezi batean azaldu zuen:

Fábrica, acción de fabricar algo, *equintza*; y en composición es *quintza* pospuesto, v.g. Fábrica de carbón, *icazquintza*, fábrica de vidrio, *beiraquintza*, &c.

Ongi ikusten da *ikazkintza* bezalako hitzetatik abiatuaz, ingurune fonetikoari erreparatu gabe eta *ekintza* jatorritzat emanaz, *-kintza* aldaera nagusitzat hartu zuela; salbuespen bakarra *argintza* "cantería, arte de canteros" zaharra da (XVII ea.), eta ondoan Larramendiren eredu

⁶⁰¹ Badirudi atzizkiaren forma normalduta dagoela, beste aldaera ezagunen kaltetan; alabaina, bi adibide gutxiegi dira eta, zalantzarik gabe, hiztegi osoko miaketa egin behar genuke azken hitza esan ahal izateko.

arrikintza darama. Eredutik zertxobait kanpo geratzen da, bestalde, *atxurkinzea* (*atxurkintza*-ren aldamenean). Behin, eufoniaz agian, *-intza* kontsonante gabeko aldaera ezezaguna ageri da: *astelarintza* (< *astelari* “semanero”).

Oinarriak: (1) izen konkretua, eskuarki zer egiten den eta horren izena; hauen artekoak dira, hain zuzen, lehenago lekukotutakoak; bereizi behar dira Larramendik atzizki honi emandako bizitasunaren adibiderik argienak: *anbakintza* (< *anbate* “cuenta”) eta *atxorrokintza* (< *atxorro* “guante”); (2) izena [+gizakia] ‘lanbidea’ (*arozkintza*), Larramendik *-kintza* automatikoki erantsi zuelako adibide argia (**arozkin* + *-tza*); (3) aditzoina (*antzeskintza*), zeharo ezohikoa, dakidalarik.

Adiera nagusia ‘egitea’ da, baina zenbait kasutan oso zaila da ‘lanbidea’ adieratik bereiztea, noski.

Hots-aldaketak: (1) afrikatua > frikari (*arozkintza*); (2) *i* > \emptyset (*argintza* vs *arrikintza*); (3) *e* > \emptyset eta *t + k* > *k* (*anbakintza* < *anbate*), baina ziurrenik atzizkitzako (*-te*) kenketa baino ez da.

Atzizki kateak: *-lari* + *-intza* (*astelarintza*).

-KIDA	orotara 15	lehenagoko lek. 0
--------------	------------	-------------------

Atzizki hau gazt. *con-* aurrizkiaren itzulpenarekin lotuta dagoenez gero, beranduago (§ 4.1.6) berrartu beharko dugu, familiako beste atzizkiekin batera (*-kide*, *-kidatu*...). Alabaina, corpuseko adibideek erakusten digute ez dela beti hala; honegatik, eta *-kida*-ren beregaintasunaren froga zenbait ditugulako, komeni da hemen aurkeztea, han bere etorkia eta erabilera gehiago zehaztu ahalko badugu ere.

Azkaratek (1992: 212) *-kidatu*-tik erauzitakotzat jo du; corpuseko adibide gehienek hala bermatzen dute:

agerkida “comparición” < *agerkidatu* “comparecer”, *agurkida* “resalutación” < *agurkidatu* “resaludar”, *alaikida* “confortación” < *alaikidatu* “confortar”, *alkarkida* (eta *elkarkida*) “conspiración” < *elkarkidatu* “conspirar”, *anbatkida* “contribución” < *anbatkidatu* “contribuir”, *anizkida* “común” < *anizkidatu* “comunicar”, *araukida* “concordancia” < *araukidatu* “concordar”, *arazkida* “constreñimiento” < *arazkidatu* “constreñir”, *aurkakida* “confrontación” < *aurkakidatu* “confrontar”.

Alabaina, prozedura etorki hori ez daukaten hitzetara zabaldu zuen, izenari *-kida* erantsiaz: *abisukida*, *aitabixkida*, *aitapontekida*, *argizaikida*, *atakida* (< *ate*).⁶⁰²

Ondorioak gehienetan gazt. *con-* aurrizkiaren ordainak badira ere, gutxi batzuk esanahiaren —eta ez formaren— araberakoak dira: *agurkida* “resalutación” (cf. *DAut*: “Correspondencia a la cortesía o salutación que otro hace”), *aitabixkida*, *aitapontekida* “padrinazgo”, *anizkida* “común, lo que es de muchos” eta *argizaikida* “(paje de) hacha” (cf. *DAut*: “El que va delante de otro alumbrando con el hacha”). Honezaz gainera, era askotakoak

⁶⁰² *atsekida* “consuelo” (< *atsegin*) bere sarrerakide *pozkada*-ren eredura (< *pozkidatu* “consolar”) egina dela dirudi (ik. § 5.3).

ditugu: (1) 'ekintza / ondorioa' adierakoak dira gehienak, zehazkiago aditzetik erauzitako guztiak (*anizkida* salbu), eta *abisukida* "commonitorio";⁶⁰³ (2) izen abstraktua: *aitabixkida*, *aitapontekida*, *araukida* "concordia"; (3) objektua (*atakida* "compuerta"); (4) izena [+gizakia] (*argizaikida*); eta (5) izenondoa (*anizkida*). Ziurrenik (4) eta (5)eko adibideak azaltzeko *-a / -ea* betiko zalantza kontuan izan behar genuke, hots, eskuarki *-kide-z* adierazten duena adierazten dutela.

Hots-aldaketak: (1) *e > a* (*atakida*); (2) haplologia (*aitapontekida < aitaponteko*); honelatsu azal liteke *atsekida* (< *atsegin*; ik. § 5.4.2). Gainerako jazoeretarako, ik. § 4.1.6.

Atzizki kateak: *-zai + -kida* (*argizaikida*).

-(T)ZIA	orotara 1	lehenagoko lek. 1
----------------	-----------	-------------------

Larramendik Iparraldeko idazleengan (*ausartzia*, 1617) ikasi eta, antza denez, oinarri gehiagotara hedatu ez zuen atzizkia.

2.1.3. 'Egilea' adierako izengileak

Larramendik hiru atzizki (*-tzaille*, *-le* eta *-ari*) ematen ditu beti elkarrekin, 'egilea' adiera duten izenak direla eta:⁶⁰⁴

Hablando de los verbales del activo, los que en Romance y Latín comúnmente se terminan en *or*, v.g. *doctor*, *lector*, *auditor*, en Bascuenze se forman de tres modos. El 1. es con la terminación *tzalle* añadida al infinitivo sin la última letra, *eracastzalle*, *iracurtzálle*, *aditzálle*; el 2. con la terminación *le*, *eracásle*, *iracúrle*, *adíle*; el 3. con la terminación *taria* o *aria*, *eracastaria*, *iracurtaria*, *aditaria*. Estos tres modos de formación son comunes a todos tres dialectos, aunque no como aplicada a todos los verbales; porque en un dialecto es más frecuente el *tzalle*; en otro el *le*, especialmente en los refranes, v.g. *esále enzúnle*, el decidor debe ser oidor, esto es *donde las dan las toman*, y en los verbales más frecuentes *edále* bebedor, *jále* comedor, *emále* dador, &c. y en todos los dialectos es menos usado el *taria*, *ibiltaria* andador, correo, *danzaria* danzador, *cantaria* cantor, *pillotaria* jugador de pelota (1729: 266-267).

...*ale*, *aria*, *tzallea*, terminaciones que significan acción (1745, s.v. *ralea*).

Izan ere, zeregin beretsuetarako erabili zituen, eta sarritan sarrera beraren pean bi aukerak —*tzaille* edota *-le* (eskuarki bietako bat soilik), eta *-ari*— aurkitzen dira:

ahaikari, *ahaikatzaile* "provocador", *aboilatzaille*, *aboilari* "abollador", *agerle*, *agertari* "manifestador", "revelador", *agintari*, *agintzaille* "ofrecedor", *agurtari*, *agurtzaille* "saludador", *aitzurlari*, *aitzurlle* "cavador", *akordatzaille*, *akordari* "acordador", *alabari*, *alabatzaile* "laudatorio", *arauzle*, *arauztari* "delincuente", *astindari*, *astinle*, *astintzaille* "sacudidor", etab.

Lehen begiratuan desberdin ditzakeen zerbait, *-tzaille*-k berekin daraman aditz iragankorraren subjektu izan beharra da; hemendik *alogerari*, *alokari* "jornalero" vs

⁶⁰³ Cf. *DAut*: "Memoria, resumen y noticia de algunas cosas, y lo mismo que Aviso...".

⁶⁰⁴ Ezin naiteke bat etorri Azkaratek (1992: 216) *-gile* ere taldean sartuaz egiten duen analiarekin, askotan beren artean bereizketarik ez dagoelakoan. Egia da hirukoteren bat aurki daitekeela, baina bere hitzek aditzera ematen duten baino askoz bakanago: berak bildu dituen "bereizketarik ez" horren adibideen artean nolabait aintzat har daitekeen bakarra *laztanaria*, *laztanguillea*, *laztan emallea* "abrazador" da, gainerako guztietan (*isileraguillea*, *odieguillea*, *contraeguillea*) ez baitago *-gile*, bistan denez, *-le* baizik (*egile*, *eragile*). Nire ustez, eta halaxe erakusten saiatuko naiz, bi talde aski ezberdin osatzen dituzte *-ari*, *-tzaille* eta *-le*-k alde batetik, eta *-gile* eta *-kin*-ek bestetik.

alogeratzaile, *alokatzaile* “alquilador” esanahi bereizkuntza, esaterako. Azterketan zehar ezberdintasun gehiago badirela ikusiko dugu, batzuk oso ezagunak (-*ari*-k oinarria hautatzeko daukan askatasun handiagoa, adibidez); berrien artean deigarriena, aipatu gabe geratzen zaidan bikote bakarrak ordezkari dezake: *askari* “solvente” (izond.) / *askatzaile* “soltador” (iz.), hots, -*ari* (eta neurri txikiagoan -*le*) gauzarik berezienak itzultzeko erabili zuela, -*tzaile* oso bereziki [+gizakia] tasundun hitzetarako gordez.

-ARI, -tari, -dari, -lari, -kari	orotara 153	lehenagoko lek. 9
---	-------------	-------------------

Gramatikan euskalki guztietan besteak baino gutxiago erabiltzen dela esan arren (edo horrexegatik, agian), *HH*-an haren indarra oso handia da eta, beraz, inolaz ere hitz berriak egiteko baliatu zuela erabaki behar dugu: corpuseko adibideen %5,9 bakarrik aurkitzen da lehenagoko idatzietan. Bestalde, honek ere gazt. -*dor* atzizkiaren itzulpenean parte hartzen duelarik, adibide batzuk (*aboilari*, *akordari*) ez zaizkio erdal ereduari zor; haatik, atzizki honetan bederen eragin gutxi du gertakari honek, eta A letraren hasieran bakarrik (AB, AC) igartzen da.

Atzizki honi buruzko *HH*-ko datuak ohiko moduan sailkatzerakoan inoiz baino argiago agertzen zaigu azterketa historiko baten falta, gutxienez bi arazo gairatu behar baititugu. Lehena, eta orokorra, oinarriari dagokio: Azkuez geroz bederen (1923-1925: § 86) oinarri arrunta —berak “siempre” dio — izena dela jakintzat ematen da; alabaina, datu bilketa zehatzago batek (Azkarate 1991: 41) -*ka* aditzondoa⁶⁰⁵ eta aditzoina ere hitz zenbaiten oinarri argiak direla agertarazi du. Dena dela, aditzoina berrikuntzat jotzen da —arrazoiz, inondik ere—, atzizki hau -*tzaile* / -*le* atzizkiaren eremuan sartu delakoan. Noizko berrikuntza den ez dakigu, ostera. *HH*-an adibide argiak aurkitu izan dira dagoeneko (Azkarate 1992: 216), baina zehaztu nahi nuke aditzoinaren gainean eraturako hitzak lehendik ere ezagunak zirela eta, beraz, berrikuntza izatekotan ez dela zehazki Larramendirena, bere Iparraldeko iturri zenbaitetan jadanik ongi lekukotuta baitago: cf., adibidez, *harrapari* ezaguna (1571, *HH*-an jaso) edo *sendari* (EZ *Man* II, 109; cf. *HH*-an *begisendaria* “oculista”).

Bigarren arazoa atzizkiaren formari dagokio. Azkuek azaldu zuen bezala (*loc. cit.*), gainerako atzizkiek baino kontsonante epentetiko gehiago har ditzake, buruan ezarri dudana alomorfo taldea lekuko. Mitxelena (1977a: 247-248) -(*k*)*eria*-rako eman azalbideak —alegia, -*keria* eredu erromantzeak oker zatikatetik datorkeela— gutxi gorabehera honetarako ere balio lezake, euskal ereduak oker zatikatu direla eginez beste gabe; -*tari*-ren kasuan behintzat, badirudi aditzizenak eraginen bat izan zezakeela (cf. Mitxelena, *ib.* 249-250): honela ulertu du Azkaratek (1991: 40-41), inplizituki *agintari aginte*-tik datorrela eta esplizituki *esatari esate*-tik datorkeela aditzera emanez. Esan gabe doa azalbide hau indartuta ateratzen dela atzizkiaren ohiko oinarria izena izateagatik. Haatik, gramatikako pasartean antzeman dezakegu

⁶⁰⁵ Azkuek ere (*loc. cit.*) aintzat hartu zuen, baina atzizkiaren forma azterterakoan bakarrik, *k* epentetikoa “...acaso en varios derivados sea residuo del sufijo adverbial *ka*” esanez.

Larramendik kontua bestela ulertu zuela: adierazgarriki, izenetik ateratako eratorri guztiek *-ari* forma daramate (*danzari, kantari, pillotari*) eta aditzetik ateratakoek *-tari* (*erakastari, irakurtari, aditari, ibiltari*), haien artean aditzizena azalpen modura onar ez dezakeen adibide argi bat (**adite*) baitago.

Hau guztiau ezarrita utzi eta gero, lasaitasun gehixeagoz ekin diezaiokegu *HH*-ko gertakariak deskribatzeari. Hiztegian atzizki honek bi oinarri nagusi izan ditzake, espero genezakeen bezala: (1) izena (cf. *abailari* eta *auzilari* ondo lekukotutakoak); (2) aditzoina (*akordari, antolari, arrapari*, etab.): zalantzarik gabe, Larramendik berariaz emendatu zuen saila dugu. Alabaina, bada 'izena + -z' oinarriko dirudien hitz bat (*auzkari* < *auz* 'ahoz'), eta adizki trinko batetik (Leiz. *arreit*; ik. § 9.2.4.1) eratorritakoa da *arreitari*. Atzizki ordezkapenez mintzatu behar dugu *arbotari* "arbotante" eta *artilari* "artillero"-ren kasuan, etimologia bitarte delarik.

Gramatikan bi forma (*-ari* eta *-tari*) baino ez ditu aipatzen, eta badirudi *-tari*-ri garrantzi gehixeago ematen diola. *HH*-an, ostera, ezagutzen ditugun guztiak agertzen dira, eta haien artean *-ari* da gailena, alde handiaz (90 adibide, *-tari*-k 24, *-dari*-k 13, *-lari*-k 13 eta *-kari*-k 11); beraz, nolnahi ere *-lari* nagusitzen hasi (cf. Azkarate 1991: 40) baino lehenagoko garai batez ari gara. Zein gehiago zein gutxiago, denak agertzen dira banaketa aski finko bati darraizkiola:

1) *-ari* batez ere (61/90, %67,8) *-a-z* amaitzen diren izenekin (*abailari, alabardari, algarari, algebrari*, etab.), *-a(tu)* aditsoinekin (*aboari, aboilari, akordari, alabari*, etab.) eta *-ka* atzizkiaren ondoren (*adarkari, agakari, agirakari*, etab.) agertzen da. Hona hemen gainerako oinarriak: (a) *-u* bukaerako izenak (*adrilari, arkuari*), haien artean *-atu* aditza aldamenean duten zenbait (*aipari, arnegari*); (b) *-e* bukaerakoak: *agintari* (< *aginte*), *amartari* (< *amarte* "decuria"), *anbatari* (< *anbate* "cuenta"), *antustari* "blasonador" (< *antustetu* "blasonar", cf. *antuste* "arrogancia"), *arauztari* (< *arauzte* "delinquimiento"), *artzari* (< *artze* "zaranda"), *atzipari* (cf. *atzipe* "engaño", *atzipetu* "engañar"); (c) kontsonante bukaerakoak: alde batetik, *aitorrari, aitzurrari, alamenari, almenari, amesari, arlankaitzari, arrari* (< *ar* "macho, varón", *ralea*-ren etim.), *arraunari, arrotzari, aspilari* (< *aspil* "pilón"), *atabalari, ahuenari, autorrari*; bestetik, *anbalari* (< *anbaldu* "venerar"), *araulari* (< *arauli* "trabucar"), *artezari* (< *arteztu* "dirigir"); eta, azkenik, *arreitari* (< *arreit*), *aintzitari* (< *aintzatu* "motejar" < *aintzat*, noski); (d) *-o* bukaeraduna: *argoari* "gatillo de escopeta".

Aipamen berezia merezi dute, gorago esandakoaren arabera, *-ari* forma hartu duten aditsoin ugariak: argi dago Larramendik gramatikatik hiztegiara bitartean ikuspegia zabaldu zuela, eta agian literaturak (gogoratu *harrapari* eta *sendari*) zerikusia izan zuen aldaketan. Halaber, azpimarra dezadan *-te* > *-tari* adibide garbien multzoa (*amartari, anbatari, antustari, arauztari*), denak berak sortutako hitzetatik jaulkiak; bestela eman lezakeen arren, honek ez du gezurtatzen gramatikaren banaketarako eman dudana azalpena, *-teta-* bezalako silaba segidak —eta guztiz lehen zatia atzizkia edo atzizkitzakoa denean— saihestu ohi baitzituen (ik. § 2.2.5.4).

2) *-tari*-k gehienetan (16/24) *-tu* partizipiodun aditsoinak izaten ditu oinarri, batzuetan agerriki eta bestetan inplizituki:

agertari, *agurtari*, *akuilatari*, *alakoztari* (< *alakoztu* "calificar"), *anzazari* (< *anzaztu* "gobernar"), *aratar* (< *aratu* "apurar"), *arautari* (< *arautu* "concertar"), *arpeztari* (< *arpeztu* "declarar"), *arrendetari* (< *arrendetu* "convidar"), *arteztari* (< *arteztu* "enderezar"), *asmekotari* (< *asmekotu* "pronosticar"), *atzapartari* (< *atzapartu* "arrebahar"), *aukeztari* (< *aukeztu* "despreciar"), *aurkeztari*, *autsikitari* (< *autsikitu* "morder"), *aztiatari* (< *aztiatu* "pronosticar").

Hau ondo dator gramatikako adibideekin, baina ohartu behar da *HH*-an ez dagoela *aditari* "auditor", *aditzaile* bakarrik baizik. Bestalde, birritan ozenez amaitzen diren aditzoinak ditu oinarrian: *ariltari* (< *arildu* "devanar"), *aurbentari* (< *aurbeni* "exponer"); eta gainerakoetan izenak: *aiztari* (< *aize*), *alakairutari* (< *alakairu* "jornal"), *alordetari* (< *alorde* "poder que se da"), *amenbeartari* (< *amenbear* "porción"), *arrauztari* (< *arrautz*), *auziabartari* (< *auziabartza* "pendencia").

3) *-dari* nagusiki (10/13) *-du* partizipiodun aditzoinei erantsi zaie eta, halaber, *-du* partizipioetatik ia beti *-dari* ateratzen da (goian aipatutako *anbalari* eta *ariltari* izan ezik): *abrildari* (< *abrildu*), *adindari* (< *adindu*), *agindari*, *aitzindari*, *astindari*, *autindari* (< *autindu*), *azaldari* (< *azaldu*), *azalendari* (< *azalendu*); oinarrian izena daukaten aditzetan, *-dari* / *-ari* bikoteak daude: *alamendari* / *alamenari*, *arraundari* / *arraunari*. Oso antzekoak dira *arguimendari* (< *arguimendu*) eta *arrandari* (cf. *arrandegi*). Behin bakarrik testuinguruak ez du *-dari*-ren agerpena azaltzen: *al dedari* (< *alde*), ziurrenik **aldari aldatu*-rekin errazago lotuko zelakoan eginga.

4) *-lari* izenari erantsita agertu ohi da (11/13); ingurunerik ziurrena lekukotasun zaharrak dituen bakarra da, hots, *-i* bukaera: *aotzilari* (< *aotzi* "pico"), *atzenailari*, *auzilari* (1627), *azilari* (< *azi* "semilla"). Bukaera hori gabeko oinarrietan, *-lari* / *-ari* zalantza adierazten duten bikoteak ditugu (*aitzurlari* / *aitzurrari*, *antustelari* / *antustari*, *artzelari* / *artzari*, *atzipelari* / *atzipari*), nahiz ez beti (*arrazkoalari*, *astelari*). Behin, aditzoinari erantsi zaio (*atseslari* < *atsestu* "sofocar") eta beste batean (*antulari*) partizipioari, dirudienez.

5) *-kari* txistukariz amaitzen diren oinarri zenbaitekin gertatzen da: *amuruskari* (< *amurustu* "enamorar"), *apaldizkari* (cf. *apaldiz* "maldición", *apaldiztu* "maldecir"),⁶⁰⁶ *arteskari* (< *artetsi* "lograr"), *atauskari* (< *ate* + *autsi*), *atiskari* (< *ate* + *itxi*), *auskari* (< *autsi*), *txakur auzkari* "perro de prensa" (< *auz* 'ahoz'). Eta ozen (ez *-n*) bukaerakoekin: *ari biurkari*, *ausboilkari* (*boilkari* "remolino" < *boila* "redondo"). Halako azalpenik ez daukaten bakarrak *abekari* "cabalgadura" (< *abere*; cf. *zamari*) eta *argikari* "lumbrera" dira.

Azkenik, badira zalantza baino ezin azal ditzakedan bi hitz: (1) *antxitari* "rodrigón"-ek bi etorki izan ditzake, nahiz lehenari egiantzekoago deritzadan: *antxiti* "guía de danzas, juegos, &c.", etab. edo *antxitu* "alcanzar al que se escapa"; (2) *arraitzari*-k nahitaez *arraiztu* "abrazar"-tik eratorria behar du; hutsa bada eta ez bada, agian *arraitzaile*-rekin kutsatua, ondorio normalak, ikusiak ikusirik, **arraitzari* zein **arraizkari* izango lirakeke.

Atziki honen adiera ezaguna, lehenago lekukotutako hitzek erakutsia, oinarria zein den eta 'hartan aritzen dena' da, [+gizakia] gehienetan, nahiz animaliak ere izan daitezkeen: cf. *otso*

⁶⁰⁶ Alabaina, baliteke *apaldizkari* izatea Larramendik erdietsi zuen familiako lehen hitza (§ 5.4.1).

harrapari (Leizarraga, Mt 7, 15), kasurako, edo *zamari* ezaguna;⁶⁰⁷ honelakoak dira corpusean aurkitu ditugun adibide gehienak. Lekukotasun beren artean egun hain normala den —eta hainbeste hedatu dugun— ‘lanbidea’ adiera nekez aurkitzen da, baina *HH*-an jadanik horren lehen adibide mordoxka bat dugu: *aitzurrari* “gastador”, *alabardari* “alabardero”, *algebrari* “algebrista”, *alkabalarari* “alcabalero”, *alortari* “frutera”, *amartari* “decurión”, *antolari* “compositor, en Música”, *arlankaitzari* “mampostero”, *arrandari* “pescadero”, etab.

Bada berriagorik, ostera: (1) ‘animalia izena’ (cf. gorago *harrapari*-z esana): *adiakari* “autillo”, *aotzilari* “pico, ave”, *atameaukari* “meauca, ave”, *azurtxeari* “quebrantahuesos, ave”; (2) ‘lanabesa, tresna’: gaztelaniaz *-ari*-z itzuli ohi dituen atzizki berek (*-dor*, *-ero*, *-ente*) adiera hau ere badutela da burura datorren lehen azalpena; haatik, adibideei begiratuta, horrek uste baino eragin txikiagoa izan du: *aopikari* “coscojo(s), en el freno”, *arbotari* “arbotante”, *argolari* “gatillo”, *ari biurkari* “torcedor”, *arrikari* “petraria”, *atauskari* “petardo”, *atiskari* “falleba”. Ordezkapena gehienetan ez da automatikoa izan, beraz, esanahiaren araberakoa baizik. Azpimarratzekoak dira *arbotari*, atzizki ordezkapenez sortua, esan bezala; eta *arrikari*, latinezko atzizkia gordeaz egina; (3) hauekin lotu behar da *ausboilkari* “tolvanera” ere, [-biziduna] eta *-ero* / *-era* erdal atzizkiaren itzulpena, ‘tresna’ ez den arren; (4) [± biziduna] dira, eta gehienak [-biziduna], *DAut*-ek (eta inoiz Larramendik berak ere) “el que”, “la persona que”-z azaldu beharrean, “lo que”-z egiten duen hitz talde handi xamar bat: *aizeztari* “soplador”, *amilkari* “rodador”, *araulari* “trabucante”, *arrapari* “arreatador”, *arrastakari* “rastrero, lo que va arrastrando”, *asmari* “présago”, *asmekotari* eta *aztiatari* “pronosticador”, *atseslari* “sufocador, sufocante”; badira bietarako balio dutenak ere, hala nola *alaikidari* “confortante” (*DAut* “La persona o cosa que conforta”) eta *aspilari* “pilonero” (*DAut* “Se aplica a las noticias vulgares, o al que las publica”); (5) bai gaztelaniaz, bai euskaraz, honelako hitzak izen ondoko lekuan ager daitezke,⁶⁰⁸ aipatu berri zenbait bezala; erdaraz behintzat, izenondo garbiak dira, aldiz, ondoko guztiak: *akotari* eta *autsikitari* “mordaz”, *alabari* “laudatorio”, *almenari* “potente”, *andizkari* “ponderativo”, *arkedari* “resplandeciente”, *askari* “solvente” (ohar bekie *-ente* ugariei); (6) corpuseko adibiderik bitxiena *arrari* “ralea” da, erdal hitzean *-le* atzizkia ikusi uste izanaz sortua, baina adieraren aldetik ezinezkoa; (7) atzizkiaren formaren aldaketak inoiz esanahi aldaketa dakar berekin: *agindari* “prometedor” / *agintari* “superior” eta “ofrecedor”, *aitzurlari* “cavador” / *aitzurrari* “gastador”, *artezari* “director” / *arteztari* “enderezador”; baina gehienetan ez da horrela: *agaari* eta *agakari* “apaleador”, *alamenari* “detractor” eta *alamendari* “murmurador”, *alarari* eta *alarakari* “cacareador”, *antustari* “blasonador” eta *antustelari* “vanaglorioso”, *arraunari* (s.v. *galeote*, etab.) eta *arraundari* “remero”, *artzari* eta *artzelari* “zarandador”.

Hots-aldaketak: (1) afrikatua > frikari (*arrauztari* < *arrautz*); (2) *-u* + *-ari* > *-ari* (*adrilari*, baina cf. *arkuari*, *arka*-tik letorkeen **arkari*-tik bereizi nahiz, antza denez); (3) *-e* + *-ari* > *-ari* (*agintari*, *amartari*, *anbatari*, *antustari*, *arauztari*, *artzari*); (4) *i* > \emptyset (*araulari* < *arauli*, baita agian

⁶⁰⁷ *HH*-ko adibideak: *adarkari*, *alarakari*, *alarari* eta (*txakur*) *auzkari*.

⁶⁰⁸ Gertakariari ematen zaion interpretapena gorabehera: elkarketaren bitartez azaldu du Azkaratek (1991: 41 eta 117).

antxitari < *antxiti* ere); (5) *e > ø / — -tari* (*aiztari*); (6) haplologia (*arguimendari* < *arguimendu*) edo azken silabaren desagerpena (dismilazioz?) (*abekari* < *abere*); (7) *amesari* (< *amets*); (8) atzizkiaren ezabaketa: *auziabartari* (< *auziabartza*).

Atzizki kateak: (1) *-ka + -ari* gorago ikusi dugu. Gainerantzean, izenak egiteko balio duten atzizkien ondoan agertzen da: (2) *-men(du) + -(d)ari* (*alamenari, almenari, arguimendari*); (3) *-keta + -ari* (*andraketari*); (4) *-tza + -ari* (*arranzari*).

-TZAILE, -LE, -tzale, -zale, -aile, -daile, -taile	orotara 150	lehenagoko lek. 22
---	-------------	--------------------

la aditz bakoitzak bere *-tzaile* duela esan liteke: batez ere atzizki honetan igartzen da *DAut*-ek ez dakartzan *-dor* atzizkidunak eransteke Larramendiren joera, nahiz eraginik handiena A letran —eta guztiz honen hasieran (AB, AC, AD)— izan: *abatidor, abollador, abultador, acerador, acogedor, acordador, adelantador, adornador, amarrador* eta *reparador* ('observador' adieran) ez daude *DAut*-en. Ondorio berera, hots, hiztegi gilearentzat oso atzizki emankorra izan zela sinisterra garamatzate lekukotasunek: %14,7 bakarrik aurkitzen da Larramendiren aurreko lekukoetan, eta haietatik gehienak aurreko hiztegietan bakarrik.

Atzizki honen aldaeren banaketak ere Larramendiren eskua jartzen du agerian eta, aldi berean, hartaz zekiena eta ez zekiena. Gramatikako pasarteetan *-tzaile* eta *-le* atzizki ezberdin eta baliokidetzat aurkezten ditu, baina *HH*-an bata bestea baino askoz ugariago agertzen da (*-tzaile* 87 / *-le* 54),⁶⁰⁹ *-tzaile* gehiago erabiltzen omen zuen euskalkiaren erabileratik (berearenetik, inondik ere) hurbilago.⁶¹⁰ Oro har, haien arteko banaketa gehienbat oinarrian den aditzaren nolakoak erabakitzen du, honela: (1) *-tzaile* nagusiki *-tu / -du* partizipiodun aditzekin agertzen da, ia beti *-i*-dunekin (*aginidokitzaile, amarazitzaile, artaltzaile* (< *artali*), *asitzaile, aurbentzaile* (< *aurbeni*), *autsi[t]zaile, azitzaile*) eta *-l*-dun adibide bakarrarekin (*anai hiltzaile, aurriltzaile*); (2) *-le*, ohi bezala, txistukariz amaitzen diren aditzoiekin agertzen da (cf. gramatikan *erakasle*): *abrebasle, adierazle, amesle, ardiesle, asle, aunzedosle, ausle, etab.*, baina cf. gorago aipatutako salbuespenak. Bestelako oinarriekin ere beste horrenbeste gertatzen da: *ardazle*; (3) ohiko ingurunea da, halaber, *-n* bukaera, Larramendik gramatikan ederki ezaugarritzatu zuena ("los verbales más frecuentes", adibidetzat *edale, jale* eta *emale* emanez): *alderagile, atsegile, askijakile, atzemale* eta, han ez bezala, *emaile, epaile* eta *eraile*⁶¹¹ forma zaharragoak; (4) prozedura *-n* bukaeradun aditzoina daukaten zenbaitetara hedatu du, hauek *-n* galdu ez arren (*aitzinle, apainle, arraunle, astinle*),⁶¹² baita bestelako

⁶⁰⁹ Gutxi xeago, baldin elkartuetan errepikatzen diren zenbait (guztiz *emale*, 8 bider) kentzen baditugu.

⁶¹⁰ *-le* gehiago erabiltzen omen zuen euskalkia, ziurrenik bizkaiera da. Oharra oso garrantzitsua da, atzizki honen historiarako ez eze, baita atsotitzarenerako ere, *esalea, enzula* (RS 446) errefracaren bigarren agerraldia baita.

⁶¹¹ *aginde-emaile, aize-emaile, aizemaile, alogeraemaile, arazo emaile, argiemaile, atsemaile* eta *auziemaile*-n; *aratepaile* eta *arraiepaile*-n; eta *anai eraile* eta *aurreraile*-n, hurrenez hurren.

⁶¹² Gutxiengoan daude, edonola ere, *agintzaile, apaiz laguntzaile, aubentzaile, autakintzaile, etab.* en aldean.

oinarria denean ere (*ardanle*); cf., bestalde, *enzunle* gramatikako pasartean; (5) gramatikan *-r* bukaeradun adibide argi bat aipatzen zuen: *erakurle*; ildo berekoak dira *aitezarle* eta *agerle* (< *agern*), baita ziurrenik *aizurle*, *atxurle* (cf. Pouvreau *ainzurle*); prozeduraren hedapenak dira *arle*, *atsarle* (< *ats* + *artu*) eta, agian, *ausmarle*; (6) hirugarren ozenak ere adibide bat eskaintzen du: *ardauble*, *ardobile*, *arnobile* (< *bildu*); (7) *-o*-rekin *-tzaille* zein *-le* dugu: *adierazotzaille*, *arazotzaille* baina *autzaiole*, eztabaidatuko ez geniokeen banaketan; baita agian *-a*-rekin ere: *aginatoratzaille*, *ateratzaille* (*ateratu* ere badu) baina *arbotale*; (8) *-tu* partizipioetatik gramatikan *adile* aipatu zuen, baina ez dago *HH*-an; antzeko bakarra *argile* da, agian (*e*)*gile*-rekiko analogiaz, zeren eta nolabaiteko maiztasunaz hemen *-le*-k hartzen dituen bakarrak *-atu* partizipioa dutenak baitira, lehenago lekukotutako bakarra (*begirale* 1617) bezalakoak, alegia: *aginsakale*, *aipale*, *aitorkidale*, *auziabartzale*; bitxiena *aribatle* dugu, nahiz ohartu *batu*-ren aditzoina zuzen jasota dagoela.

Atziki ezberdinak direlako ustean egindako bikoteak badira ere (*apainle* eta *apaintzaille* “adornador”, *astinle* eta *astintzaille* “sacudidor”), gehienetan ez dute adiera bera ordezkaten: *adierazotzaille* “amonestador” / *adierazle* “significativo”, *agertzaille* “descubridor” / *agerle* “manifestador”, “revelador”, *amarazitaille* “enamorador” / *amarazle* “amartelado”, *argitzaille* “alumbrador”, “iluminador”, “revelador” / *argile* “revelador”. Honekin lotuta daude *-le*-ren adibideen artean antzematen diren berezitasun bi:

1) Adieraren aldetik, *-tzaille*-dun hitzak [+gizakia] tasundun izenak izan ohi dira; birritan baino ez ditut aurkitu izenondoaren itzulpen gisa (*alabatzaile* “laudatorio”, *ahorrazaille* “ahorrativo”); *-le*-dunak, berriz, inoiz ere *-ari* atzikiaren aldaberatasunera iritsi gabe, izenondoak (*adierazle* “significativo”, *amarazle* eta *amerazle* “amartelado”), tresna edo baliabideak (*aize-emaile* “abanico”, *arbotale* “catapulta”, *argiemaile* “dilucidario”,⁶¹³ *aribatle* “aribo”), harri-izenak (*arakausle* “sarcófagos”), txori-izenak (*aunzedosle* “chotacabras”) eta latinezko atzikia kalkatzen duen bertute baten izena (*argedaile* “retentiva, virtud retentrix”) izan daitezke, *-le* eta *-tzaille*-ren artean zereginik berezienak *-le*-rako gorde zituela iradokiaz, adiera banaketa erabatekoa ez den arren.

2) Oinarriaren aldetik, *le*-k, eta berak bakarrik, birritan izena du oinarri: *ardanle*, *ardazle*.

Emaille etabarren eredura eginak dirudite *argedaile* (< *argedatu* “retener”) eta *azaldaile*-k (< *azaldu*); talde berean sartzekoa izan liteke *arpeztaille* (< *arpeztu*) ere, bestela *z* + *tz* kontsonante taldea mantentzeko zailtasunetik jaiotzen den *-taile* ekialdeko aldaeraren lekuko bakarra bailitzateke hemen (vs *arteztaille*).

Interes berezia dute *-tzale* eta *-zale* ekialdeko aldaerek (*aitzinatzaile*, *akopilatzaile*, *amatigatzaile*, *amorratzaile*, *arrailatzaile*, *hartzarazale*, *aurizkizale*), oker ez banago (eta Etxeberri Sarakoaren hiztegia ezagutu gaberik; ik. § 10.1) lehenago lekukotu gabeko hitzak baitira, baina —jakin daitekeen heinean— beti ere Iparraldetik hartutako aditzen gainean eraikiak. Honek

⁶¹³ Cf. DAut “El escrito con que se declara o explica más otra obra”.

esan nahi lezake Iparraldeko hitzei nahita Iparraldeko itxura eman izan ziela. Bikote bakarra *akopilatzaile* / *-tzaile*-k osatzen dute. Alabaina, balirudike inoiz *-zale* honen oinarrian izena ere jarri zuela, *alakairuzale* “premiador” ez baita berak ezagutzen zuen *-zale* atzizkiaz (ik. beherago, § 2.1.15) erraz azaltzen; taiu berekoa izan liteke *arneguzale* “blasphemador” ere.

Hots-aldaketak: (1) txistukari + *-i* aditzetan azken bokala kentzea, “sin la última letra”, gramatikan adierazi bezala (*abrebasle*, *adierazle*, *agerrerazle*, etab.), gutxi batzuetan gorde badu ere (*amarazitzaile*, *asitzaile*, *azitzaile*); dakusgunez, atzizkiaren formak erabakitzen du kenduko den ala ez; (2) ozena + *-i* aditzetan badirudi beti kentzen duela, baita *-tzaile* atzizkiarekin ere (*aitezarle*, *aurbentzaile*); (3) afrikatua > frikari (*ardazle*, eta *-tsi* bukaeradun aditz guztiak: *abrebasle*, *ardiesle*, *ausle*, etab.).

2.1.4. ‘Langile’ izenak

Larramendik oso ondo ezagutzen ditu halakoak, haien etorkia, aldaerak, ezartzen direneko gramatika-kategoriak, etab.:

...se pueden contar entre los nombres verbales y también no verbales, todos aquellos que corresponden en Romance a los nombres de oficios, y a los otros de semejante analogía, y se acaban en *ero*, y tal vez en *or*. La razón es, por que se componen de dos nombres syncopados y verbales que nacen del activo *eguín* hazer, y son *guillea* y *quiña* o *guiña* (la *a* final es artículo, como en los antecedentes). La significación dellos es *factor*, *hazedor*, *hechor*, aunque esta última voz solo tiene lugar en *bienhechór*, *malhechór*, que el Bascuenze traduce *onguille*, *gaizquille*. Esta formación pues se haze añadiendo al nombre el pospuesto *guille* o *guiña*; v.g. *bizarguille* barbero, *osaguille* médico, *burniguille* herrero, que otros dicen *errementari*, *gaztaguille* quesero, *cillarguille* platero. Item *oguiquiñá*, *oquiñá* panadero, *arriguiña*, *arguiña* cantero, *sorguiñá* hechizero brujo, de *sorá* hechizo, maleficio, y *guiñá* hazedor (Larramendi 1729: 267).

HH-an ere sarrera berezi batean aipatzen ditu, nola erabili behar diren —eta, jakina, nola erabili dituen— erakutsiaz:

Fabricante, en composicion es *quiña*, *guillea*, v.g. Fabricante de paños, *oyalquiña*, *oyalguillea*.

Biak balio berekotzat jotzen ditu eta, izan ere, badira bikote zenbait: *aizekin*, *aizegile* “abanico”, *albendakin*, *albendagile* “albendera”, *altzairugin*, *altzairugile* “fabricador de acero” eta *ameskin*, *amesgile* “soñador”. Gainerakoan, *-gile* gehixeago erabili zuen, eta adiera aberastasun handiagoaz.

-KIN, -gin	orotara 20	lehenagoko lek. 1
-------------------	------------	-------------------

Gramatikan bi aldaerak jaso eta, agi denez, *-gin* nagusizat eman bazuen ere, Larramendik *-kin* hobetsi zuen (cf. gorago agerian, s.v. *fabricante*), *okin* edo *ikazkin* bezalakoetan ikasita,⁶¹⁴ baina testuinguruari ohartu gabe, *-kintza*-n bezalaxe eta, bistan denez, elkarri dagozkiola. *-gin* oso hitz gutxitan (corpusean *altzairugin*,⁶¹⁵ *argin* eta *asgin*-en bakarrik;

⁶¹⁴ Hauek dira, hain zuzen, honako etimologia honetan bere alde ematen dituen adibideak: “...*quina*, *quiña*, que es terminación significativa de el ejercicio y acción de el determinado, como en *oquiña*, *icazquiña*, &c.” (s.v. *esquina*).

⁶¹⁵ Harrigarria da aldamenean *altzairukintza* bakarrik izatea: bietako bat errataduna izatekotan, *altzairugin* izango litzateke, noski.

3/20, %10,5) agertzen da eta, adibideen arabera, haren agerpena baldintza argirik gabekoa da, hitza herrikoia ez denean bederen (cf. *argin* 1366).

Oinarriak: (1) izen bizigabea: *aisakondairakin* (< *aisakondaira* “novela”), *aizekin*, *ameskin*, *arropakin*, *asgin* “festejo” (< *ats*),⁶¹⁶ *atsekabekin*, *atzenaikin* (< *atzenai* “testamento”), etab.; (2) aditzoina: *adikin*, *amarazkin*, *antzesakin* (< **antzesan*; cf. *antzesandar* “parabólico”), *antzeskin* (< *antzestu* “pintar”), *autakin*. Hau, atzizkiaren etorki eta izaerarengatik Larramendiren berrikuntza argia da (Azkarate 1992: 216); (3) onomatopeia: *arraskin* “rasero” (< *arras* “ruido que hace el rasero”, *rasar*-en etim.); (4) *artizkin artizkinde* “orthographía”-tik atera da (§ 5.4.1); (5) *ad(e)raskin* (EGH 149an *ad(e)razkin* zuzendua) ‘izena + -z’ oinarrikoa bide da.

Ondorioak hiru erakoak dira: (1) ‘egilea’ [+gizakia], erabat tradizionalak (gramatikan honelakoak bakarrik dakartza); (2) ‘baliabidea, tresna’ (*aizekin* “abanico”, *aizkin* “aventador”, *amarazkin* “filtro”, *arraskin* “rasero”); talde honetan sar daitezke, nik uste, *asgin* (‘hats egiteko balio duena’, adiera fig.) eta *ad(e)raskin* “aderezo” ere (‘aderaz [= ‘en orden’] jartzeko balio duena’; cf. *DAut*: “La acción y trabajo de componer o poner de mejor uso alguna cosa”); (3) ‘ahalmena’ (*adikin* “entendimiento”, *autakin* “albedrío”);⁶¹⁷ lehentxeago ikusi dugu antzeko atzizki bat (*argedaile* “retentiva”) baliatu duela zeregin beretsurako.

Hots-aldaketak: (1) afrikatua > frikari (*ameskin*, *asgin*); (2) *e* > \emptyset (*aizkin*, vs *aizekin*); (3) aditzoinetan *n* > \emptyset (*antzesakin*); (4) aditzoinetan *i* > \emptyset (*amarazkin*).

Atzizki kateak: beti izengileen ondoan agertzen da: (1) *-aira* + *-kin* (*aisakondairakin*); (2) *-kabe* + *-kin* (*atsekabekin*).

-GILE	orotara 27	lehenagoko lek. 3
--------------	------------	-------------------

Atzizkiaren forma beti *-gile* da, baita *-kile* eragiteko ingurunea egokia izan zitekeenean ere (*arrauzgile*, *abarrosgile*); dena dela, etorki argiaren eraginak oro har pisu handia izan du atzizkiaren forman: cf. Axular (eta *Erans*) *hatzgille*. Ditugun adibide guztietan erdarari zor ez zaion bakarria *altzairugile* da, *acero*-pean (“fabricador de...”) Larramendik erantsia.

Oinarriak: (1) izen bizigabea (*abarrosgile*, *adiagile*, *aizegile*, *alabendagile*, etab.); hauen artean, *egin*-ekiko aditzak egin ohi dituztenak azpimarratu behar dira: *agurgile*, *amesgile* eta, agian, *arrauzgile* (cf. *arraultza egiten dago* “está poniendo el huevo”, s.v. *aovar*); (2) aditzoina (*aldagile*, *arazigile*, *arlangile*); *-kin*-en esandakoa errepikatu beharko nuke hemen bigarren oinarri honen berritasunaz; (3) izenondoa: *artezgile*; (4) izen biziduna: *aitagiletu*.

⁶¹⁶ Cf. *atsaldi* “tregua” eta *atsedago* “descanso”.

⁶¹⁷ Honen eraketa ohar berezi baten bitartez azaltzen du: “El albedrío es la potencia que haze elección de las cosas; elegir dezimos *autatu*, y a la potencia de esta elección, *autaqiña*”. Cf., corpusekoetz gainera, *irudiquiña* “fantasía” ere bederen.

Adiera nagusia 'egilea' [+gizakia] da, jakina; gainera, corpusean nabarmenki *-kin*-ek baino adibide gehiago batzen ditu honek; adibiderik berezienak *arrauzgile* eta *aitagiletu* dira, besteak beste animalei baitagozkie; bigarrena, gainera, oso zentzu bitxian baizik ez da sartzen 'oinarria = zer egiten den' egokitasunean (cf. *DAut*: "...hablando de los animales padres del ganado, tener fecundidad en la generación"). Beste adiera batzuk: (1) 'baliabidea, tresna': *aizegile* "abanico", *astalgile* "pantorrillera" (*DAut* "Un género de calceta gruesa que se pone para abultar las pantorrillas"); (2) izenondoa 'zerbaitetarako balio duena' [-biziduna]: *aldagile* "(año) climatérico", *amodiogile* "amatorio" (*DAut* "...que tiene virtud para atraer y conciliar amor"), *aragigile* "encarnativo" (*DAut* "Dícese del medicamento que se aplica para limpiar las materias en las llagas, a fin de que (...) puedan criar carne"), *arakile* "sarcótico", *arazigile* "coactivo" (*DAut* "Lo que tiene fuerza de apremiar u obligar").

Hots-aldaketak: (1) afrikatua > frikari (*abarrosbile*, *amesgile*, *arrauzgile*); (2) *-g(i) + -gile* > *-kile* (*arakile* vs *aragigile*).

2.1.5. [+gizakia] tasuneko bestelako izengileak

-KO₁	orotara 11	lehenagoko lek. 4
------------------------	------------	-------------------

Deklinabide atzizki hau daramaten hitz zenbait, ezaguna denez, lexikalizatu egin dira, esanahi ezberdinekin; hemen aztertu behar ditugunak [+gizakia] tasuna daukatenak dira. Corpuseko adibideek, beste atzizkien aldean, ia denek lehenagoko lekukotasunak dituztela esan daiteke. Azpimarra dezakegu *amairualdiko* "trece, en la Caballería de Santiago",⁶¹⁸ 'zenbatzailea + izena + *-ko*' egitura ezagunekoa.

Ez da, beraz, bereziki berritzaile ageri Larramendi honi dagokionez.

-KIDE, -ide	orotara 17	lehenagoko lek. 2
--------------------	------------	-------------------

Larramendik, hitzaurrean aitortzen dituen berrikuntzen artean, gazt. *con-* aurrizkiaz hasten diren hitzak aipatzen ditu bereziki, honela zurutuaz:

En las voces correspondientes a las castellanas compuestas de la preposición *con*, me valgo de *quidatu* para los verbos; *quida* y *quidea* para los nombres; ni esto debe parecer nuevo, porque las voces *quidea*, *quida* significan en Bascuence al que con otro concurre a alguna acción, y son iguales en tiempo, en calidad, o en alguna otra cosa: *ideac dira*, *quideac dira*, decimos de los que son iguales de un tiempo, &c. De aquí decimos *aitaquidea*, *aitaide*, al compadre, *amaquidea*, *amaide* a la comadre. De aquí a los amigos *adisquideac*, porque igualmente se entienden y mutuamente se comunican. Por esto también en el Nuevo Testamento se dice *servitzariquidea* al consiervo, siendo esto así y que son voces tan oportunas, se las restitujo al Bascuence, que las ha ido perdiendo por incuria y poca inteligencia de los naturales, y a poca repetición quedarán usuales y corrientes (Larramendi 1745: l).

Eta hiztegi barruan:

⁶¹⁸ Cf. *DAut*: "...el Caballero Diputado y nombrado por el Maestro y demás Caballeros para algún Capítulo general. Díósele este nombre, porque siempre eligien trece Caballeros a este fin".

Esta preposición *con* haze parte de muchas voces compuestas, y sus simples quedan puestas hasta aquí y se pondrán en otras letras. En esa composición la voz *con* significa por lo común junta, simultad con otro en la acción, calidad y oficio, &c. Esta simultad la explica el Bascuence con las voces pospuestas *quideá, quida*, v.g. *aitaquidea*, compadre, *amaquidea*, comadre; *aitaquidatu*, hazerse compadre; y así en las demás voces (1745, s.v. *con*).

Pasarte batetik bestera aldaketa azpimarragarri bat dago: hitzaurrean argi adierazten du *-ide* aldaera ere ongi menperatzen zuela, baina hiztegi barruan *-kide* bakarrik aipatzen du. Izan ere, corpusean aldaera nagusia *-kide* da, eta *-ide* hitz zahar batean (*aide* 1564, cf. *ahaide* 1545) baizik ez da agertzen. Hautapena ereduarenarekin (Leizarragarekin, hain zuzen) lotuta dagoke, hein batean bederen, eta erabatekoa da: ohartu *aide* oinarri iluneko hitza bide zela berarentzat,⁶¹⁹ hiztegian *aitaide*, *amaide* argiak saihestu zituen bitartean (baita s.vv. *comadre* eta *compadre* ere).

Oinarriak: (1) izena, “usadiozko erabilera jatorrari erantzuten diona” (Azkarate 1992: 212): *adinkide*, *afespikukide*, *albokide*, *aldekide*, *anaikide*, *apaizkide*, *araukide*, etab.; (2) aditzoina:⁶²⁰ *agerkide*, *auzbakide* (*bakide* “conjunto”-ren elkartua); (3) zenbatzaile zehaztugabea: *anbatkide*; (4) *arimegokide* *arimegokida*-tik (*arimegoki* + *-da*; § 2.1.11) eratutako forma analogikoa bide da (§ 5.3).

Ondorioak ia beti *co(n)*- aurrizkia daramaten hitzen ordainak dira, salbuespen aipagarri batekin: lehenago lekukotutakoak (*adiskide* 1545, *aide* 1564), hain zuzen. Honetaz gainera, (1) gehienak [+gizakia] tasundun izenak dira, *adiskide* eta *aide*-ren tankerakoak, beraz; (2) izenondoak [+gizakia]: *adinkide* “coetáneo”, *arimegokide* “longánimo”; (3) izenondoak [-gizakia]: *agerkide* “conspicuo”, *araukide* “conforme”.

Hots-aldaketak: (1) *i > ø*: *asberkide* (< *asiberni*); (2) haplologia: *arartekide* (< *ararteko*).

-ZAI, -zain	orotara 30	lehenagoko lek. 6
--------------------	------------	-------------------

Larramendik oso ondo identifikatu zuen atzizki hau hainbat hitz zaharretan:

Zaya y *zaina* vienen comúnmente en composición y pospuestos, como *mastizaya*, *mastizaina*, guarda viñas, *irurazaya*, guarda riberas, y por esso al pastor, que es guarda de el ganado, *arzaya*, al arriero *mandazaya*, &c. Pero *zaitzallea* y *beguiralea* vienen también fuera de composición (1745, s.v. *guarda*, “nota”).⁶²¹

Eskuarki *-zai* aldaera hobesten du, *-zain* bikoteetan (*ar(t)zai* / *arzain*, *atezai(n)*, *auntzai(n)*, *azokazai(n)*) eta forma bakarreko 23 hitzetatik 2tan (*arkazain*, *arrotzain*) baizik ez dagoen bitartean.

Oinarria beti izena da, zer zaintzen den eta horren izena.

⁶¹⁹ Ziurrenik **anai-(k)ide* ‘cohermano’ (Vinson, ap. Mitxelena 1977a: 306, 12. oh.).

⁶²⁰ Azkaratek (*loc. cit.*) oinarri bera daukan *ezkontide* (1657) zaharra aipatzen du, baina halaber ondorioa ezberdina dela gogoratzen, “[+gizakia] motako izena da-eta”, *agerkide* “conspicuo”, etab. izenondoak diren bitartean.

⁶²¹ Cf. “...zaya, zaina, guarda” (s.v. *cenzaya*) ere.

Adiera ‘zaitzailea’ izan ohi da; berrikuntzen artean aipatzekoak dira zehatzago ‘karguduna’ adiera dutenak (*adarzai, agapuruzai, alortzai, andrazai, armazai, aturrezai, atazai*). Ohiko eredutik kanpora, *arageizai* “sensual” (< *aragei* “lascivia”, “lujuria”) izenondoa da, *arageitar* eta *arageizale*-ren esanahikidetzat emana.

Hots-aldaketak: (1) *e > a* (*atazai* vs *atezai*, esanahi bereizkuntzaz) eta *o > a* (*astazai*); (2) *tz + z > tz* (*arrotzain, auntzai*); (3) *-d(i) > t* (*artzai, etab.*, baina *ardizai*).

Atzizki kateak, beti izenak egiteko balio duten atzizkiekin gertatzen dira, hots, bere ohiko oinarriarekin: (1) *-tegi + -zai* (*altegizai, arrotztegizai*); (2) *-ari + -zai* (*arraunarizai*).

2.1.6. Multzokariak

Talde honetan sartzen diren atzizki nagusiak (*-di, -eta* eta *-aga*, baina baita urriago ordezkaturako *-tza* eta *-zu* ere) toponimian oso usu aurkitzen dira eta gutxi-asko ihartuta egon zitezkeen jadanik XVIII. mendean (cf. Mitxelena 1971). Honelako eta antzeko zenbait gertakariak aipamen berezia izango dute aurrerago (§ 8), atal honetan sinkronikoki arituko naizen bitartean.

Larramendik hirurak elkarrekin aipatzen ditu —beranduago ikusiko dugun *-egi* (*-tegi*)-ren aldamenean— *gazeta*-ren etimologian, “nota de frecuencia y multitud” deituaz. Esanahikidetzat hartzen ditu, bikoteak erraz jasoaz:

aitzaga, aitzadi “peñascal”, *alkaparraga, alkaparreta* “alcaparral”, *amezketa, amezti* “quexigal”, *amezketa, amezaga* “carvallar”, *aranzaga, aranzadi* “espinar”, *arbidí, arbitza, arbizu* “nabal”, *astigardi, astigarraga* “(arboleda de) tilos”.

Hauetako franko (batez ere *-aga-z* eraturakoak) gaztelaniazko ereduaren ordainik ez duten euskal zuhaitz-izen multzokariak jasotzeko asmoz Larramendik eraturako sarrera edo azpisarrera berrietan agertzen dira.

Alabaina, haien artean badira ezberdintasun batzuk: *-di* maizago agertzen da (34 adibide, *-aga-k* 17, *-eta-k* 9, *-tza-k* 3, *-zu-k* 1), bai tradiziozkoak diren landare izenetan, baita bestelakoetan ere; *-di* honek, oinarri berriekin ‘multzoa’ adiera huts-hutsean adierazten du, hitz sorta handi xamar bat sortaraziz, egoera berean (baina askoz ordezkari gutxiagorekin) *-eta-k* ‘plurala’ eta *-aga-k* ‘lekua’ adierazi ohi duten bitartean. Ezin esan gabe utzi *-eta*-ren berezitasun hori gaurko interpretapenetik zeinen hurbil dagoen (ik. Mitxelena 1977a: 238, 28. oh. eta 247-248).

-DI, -ti, -ri	orotara 34	lehenagoko lek. 5
----------------------	------------	-------------------

Dagoeneko ezaguna denez (I. Pagola 1988), XX. mendearen hasieran (*Euzkadi, Euskaltzaindi, gaztedi*, etab. sortuz) atzizki honi eman zioten bizitasuna zuzen edo zeharka Larramendik lehenago egindakoan oinarritzen da hein handi batean; hona hemen bere azalpena:

Multitud, *dia*, y se pospone al nombre quando viene con él, *mutildia*, multitud de muchachos, &c. Pero se antepone a sólo el adjetivo, *dia andi bat*, una gran multitud, *dia eder bat*, una multitud hermosa.⁶²²

Garai beretsuan, baina bere aldetik, honela azaltzen zuen Harrietek, adibide gisa bestelako lekukotasunik nekez duten hitzak aipatuaz:⁶²³

Par mot *dia*.

Ondia, quantité de bons.

guiçondia, quantité d'hommes.

harridia, quantité de pierre, &c. (Harriet 1741: 471).

Larramendik, antza denez, atzizkia *-dia* zelakoan zegoen (cf. *aldia*, bestalde; I, § 8.5.1), nahiz hemen, erraztasunari amore emanaz, kontuan hartu ez. Dena dela, atzizki zahar honek dituen aldaera ezberdinetatik (*-doi*, *-dui*), *-di* da (erdialdekoa, beraz) gehienetan jasotzen duena, corpusetik kanpo *ezkurdui* “robledal” bezalako zenbait egon badaude ere; *-ti* aldaera txistukari ostean agertzen da hitz zaharretan (*amezti*, *arizti* vs *artelazdi*, *arkaizdi*), eta ingurune egokirik gabe berri bakar batean (*arkoskati* vs *arkoskadi* esanahikidea). Banaketa hotsez bestelakoa zelakoan zegoen:

Dia llamamos a la multitud, *hurá dia*, qué multitud, y es voz que se pospone en la composición con otros nombres, v. gr. *gende-dia*, *guiza-dia*, *izardia*, multitud de gente, de hombres, de estrellas, y se muda en *tia* final en los nombres que significan junta de muchos árboles, plantas, &c., aunque también se queda el *dia* sin inmutación alguna, *sagastia*, *sagardia*, manzanal; *mastia*, *masdia*, viña; *inchaustia*, *inchaurdia*, nogales, &c. (1745: xvi-xvii).

Eta, azkenik, nahiz inon aipatu ez, *-ri* aldaera baten pare bat ordezkari (*aldaskari*, *almendrarri*) ere jasotzen ditu.⁶²⁴

Atzizki honekin eratutako hitz batzuek *DAut*-ek ez dakartzan sarrera berriak eragin dituzte (I, § 4.4.3.1), hiztegiilea erdaraz izenik ez daukan multzokaria jartzeko gai izan den bakoitzean: corpusean *astigardi* “arboleda de ellos” (s.v. *tilo*) aurkitzen dugu. Gainerakoek, “sitio donde hay muchos” edo “poblado de” (*almendradi*, *amezti*, *aranzadi*, *arkoskadi*, *arkoskati*, etab.) eta “el conjunto de” (*agadi*, *agaidi*, *aizapidi*, *andredi*, *artistadi*, *arzaidi*, etab.) eredu azalpeni erantzun ohi diete.

Oinarriak: (1) izena ‘landarea’: talde honetan kokatzen dira ezagun guztiak; bada berezi bat: *artezardi* “encinar viejo” (iz. + izond.);⁶²⁵ (2) izena [+ biziduna] (*aberedi*, *andredi*, *arzaidi*); cf. Harrietenean *gizondi*, jadanik Etxeberri Ziburukoak erabilia (*Man* II, 103); (3) izen bizigabea; honek osatzen du talderik handiena; hona hemen azalpena behar duketen zenbait: *aizapidi* (< *aizapi* “vela”), *albendi* (*albenda*-ren etim.: “de *albenia* se formó *albendia*, que puramente

⁶²² Cf. halaber “...*dia*, junta, multitud...” (s.v. *osadía*); “...*dia*, nombre, es multitud, conjunto” (s.v. *sobervia*); “...y *dia*, multitud” (s.v. *sentir*).

⁶²³ Lehenago lekukotutako bakarra *gizondi* da (EZ *Man* II, 103 eta SP, ap. *OEH*, s.v.); *harridi* jaso gabe dago *OEH*-an, *harridoi* (Hual, etab.) sarrera egon arren; eta *ondi*, *OEH*-aren ondorioak ezagutzeko zertxobait itxaron beharko badugu ere, inolaz ere hiruretan bitxiena da. Baliteke Etxeberri izatea, hain zuzen, Larramendiren eredu, Harrieten lana beranduegi ezagutu zuenez gero.

⁶²⁴ Ezaugarri hau —*d* > *r* bilakaera, alegia— Gipuzkoa osokoa da (Zuazo 1998b: 217-218).

⁶²⁵ Adibidea Mitxelenak (1971: 143-144) ezarri eskematik —alegia, ‘iz. + izond. + *-aga* / *-eta*’ vs ‘[iz. + *-di*, etab.] + izond.’— kanpo geratzen da (cf. lan berean *Arrigorriaga* edo *Lurgorrieta* vs *Pagadigorria*).

significa muchedumbre y junta de albendas”), *arkoskadi* eta *arkoskati* (< *arkoska* “cascajo”), *arpaindi* (< *arpain* “cornija”), *arsundi* (< *arsune* “traste”), *artistadi* (< *artiste* “piedra preciosa”), *atxoldi* (< *atxol* “tecla”).

Ondorioak beti izen multzokariak dira, baina adibide zaharrak (eta berri asko) ‘lekua’ ñabartasuna dute; ez, ostera, *aberedi*, *agadi*, *agaidi*, *aizapidi*, *albendi*, *andredi*, *argikaidi*, *arpaindi*, *arraundi*, *arsundi*, *artistadi*, *arzaidi*, *atxoldi*, *azurdi*, denak (2) eta (3) oinarrikoak eta, are ziurrago orain, denak berriak.

Hots-aldaketak: (1) afrikatua > frikari (*amezti*, *arizti*, *arkaizdi*, *artelazdi*); (2) e > a (*etxadi*, *artistadi*, baina *andredi*) eta o > a (*artadi*); (3) i > ø (*albendi*) eta e > ø (*arsundi*); (4) ohartzekoa da zenbaitetan mugatzaileak iraun duela: *astamaizadi*, *aitzadi*.

-AGA, -ga	orotara 17	lehenagoko lek. 10
------------------	------------	--------------------

Larramendik jadanik *De la Antigüedad...*-en aipatzen du atzizki hau:

...la nota de frecuencia y sitio *ága* (1728: 66, s.v. *briga*).

Eta *HH*-ko hainbat etimologiatan ere halatsu azaltzen du:

El *ga*, terminación que significa frecuencia y multitud (s.v. *betarraga*).

...la terminación *ga*, nota de sitio, que con el artículo de el nombre a que se pospone, comúnmente es *aga* (s.v. *briga*).

...la terminación de frecuencia *aga*, como en *arizaga*, *arteaga* (s.v. *izaga*).

...*aga* nota de frecuencia y multitud (s.v. *paga*).

Alabaina, pasarte luze eta zehatzena hitzaurrean dago:

Compónese esta voz [*Uriga*] de *uri*, población, y de la *ga*, nota de multitud, junta, frecuencia (...). Esta terminación *ga*, que es nota de frecuencia y junta, una vez se añade al nombre con su artículo *a*, y entonces suena *aga*, v. gr. *Arizaga*, *Zabalaga*, *Goenaga*; otras se añade al nombre sin su artículo *a*, v. gr. *Ezquioga*, *Artiga*, *Sastiga* (1745: cxii).

Esanahiaz *gainera*, hasierako bokala mugatzailearekin (ongi) identifikatu zuen; pasarteak, *gainera*, *-ga* forma (*arauga*-n, adib.) azaltzen digu, gehienetan *-aga*-z (adib. *atunaga* edo *atxorroaga*) baliatu bazen ere.

DAut-ek ez dakartzan asko (denak zuhaitz multzokariak) dira atal honetan, gehienak zuhaitz izenaren azpian jasoak, etimologia baten azalpenean agertzen den *arizaga* izan ezik. Eskuarki, erdarak ez dio euskal hiztegiileari multzokaririk eskaintzen, eta orduan “lugar donde hay” edo “arboleda de” azpisarrera berriak (*aginaga*, *astigarraga*, *atxereaga*) eratzen ditu; *atzaga* eta *amezaga*-n, ostera, *DAut*-ek ez dakartzan *alysal* eta *carvallar* multzokariak erantsi ditu zuhaitz-izenaren pean. Esan gabe doa gaztelaniatzko multzokari forma ezberdinak sarrera bakarrean batu ohi dituela (ESPINAL eta ESPINAR, etab.). Ohartzekoa da jadanik lekukotutako hitzen batzuetan besteko handia: *-di*-rekin baino hitz berri gutxiago egin zituen, dudarik gabe.

Oinarria izen konkretu bizigabea da, *atunaga*-ren salbuespenarekin. Alabaina, hitz ezagunetan (*aginaga*, *aitzaga*, *altzaga*, *amezaga*, *aretxaga*, *arizaga*, *arriaga*, *arteaga*, *astigarraga*, *atxaga*) ‘landarea’ adiera gailentzen da, *arri*, *aitz* / *atx* oinarriekin batera; oinarri hori

berragertzen da *alkaparraga*, *aranzaga*, *arraianaga* eta *atxereaga*-n (baina ohartu zahar ziurretan leku basak —eta ez ereindakoak— izan ohi direla); ezohikoak dira erabat *atxorroaga* (< *atxorro* “guante”) eta *arauga* “arte, libro en que están las reglas” (< *arau* “regla”).

Ondorioak multzokariak dira, ‘lekua’ ñabardura oso nabarmenarekin; nabarmenagotzen da *atunaga* (*DAut* “El lugar donde se pescan los atunes, y la oficina donde se encierran los instrumentos para la pesca...”) eta *atxorroaga*-n (*DAut* “La tienda u oficina donde se hacen o venden los guantes”). Berriro ere salbuespenen artean sartzekoa da, halaber, *arauga* (cf. gaurko *araudi* eta *arautegi*, esanahi berekoak).

Hots-aldaketak: ohartu *tz > z / —* bokal (*amezaga*, *arizaga*), gardenki toponimia-antroponimien erabileraz mintzo dena (cf. hitzurreko pasartean *Arizaga*).

-ETA, -keta, -deta	orotara 9	lehenagoko lek. 4
---------------------------	-----------	-------------------

Atzizkiaren forma nagusia *-eta* da, eta eransten dituen esanahiak ‘maiztasuna, ugaritasuna’, ‘lekua’-ri gaineratuta, bi etimologia hauetan erakusten duen bezala:

...*eta*, que es nota de frecuencia y multitud junta como *egui*, *di*, *aga* (1745, s.v. *gazeta*).

...*eta* nota de el sitio o sujeto en que se hallan (1745, s.v. *gineta*).

Izan ere, hitz zahar zenbaitek bakarrik (*abarizketa*, *amezketa*) daukate *-keta* aldaera,⁶²⁶ vs *arrieta*, adibidez. *-deta* aldaera *atsegindeta* “plácemes”-en azaltzen da gardenkienik, ezin baitugu adieraren aldetik *atseginde* “bureo, holgura, diversión”-tik eratorri; *naideta* sarrerakidea bezala, analogikoa dirudi, beste atzizki batzuetan ere eransten duen bitarteko *-d-* horrekin. Honegatik, nahiz *arindeta* “estadio, donde se corre” *arinde* “presteza”-tik etortzea ezinezkoa ez izan, *arin* + *-deta* eraikuntza analogikoa hobetsiko nuke.

DAut-ek ez eragindako bakarra *amezketa* “carvallar” da.

Oinarriak: (1) izen konkretu bizigabea (‘zuhaitza’ edo ‘harria’) dago hitz zaharren oinarrian; antzerakoak dira *alkaparreta* eta, urutiago bada ere, *apaindileta* (< *apaindile* “tocado de mujer”); (2) bestelako izenetan dute oinarria ondoko hitzok: *adiereta* (< *adiera* “alusión”, cf. *EGH* 150 “alusión, significación”) eta *atsegindeta* (< *atsegín*); (3) izenondoa (*arindeta*).

Ondorioak: (1) multzokariak, batez ere izen zaharretan; (2) ‘lekua’ adiera hutsa (*apaindileta* “tocador”, *arindeta* “estadio”); (3) ‘plurala’: *atsegindeta* “plácemes” dugu argiena, baina halaxe uler daiteke *adiereta* “anagogia”⁶²⁷ ere.

Hots-aldaketak: (1) afrikatua > frikari (*abarizketa*,⁶²⁸ *amezketa*); (2) *a + e > e* (*adiereta*, *alkaparreta*).

⁶²⁶ Beti txistukari ondoren, Mitxelenak (1971: 144-145) azpimarratu bezala.

⁶²⁷ Cf. *DAut*: “Sentido mystico o misterioso de la Sagrada Escritura, que se encamina a significar la bienaventuranza, o la felicidad de los gozos eternos”.

-TZA₂	orotara 3	lehenagoko lek. 2
-------------------------	-----------	-------------------

Oinarria izena izaten da, eta ondorioa multzokaria, beti ere 'lekua' ñabartasuna aldean (*amiltza*, *arbitza*, *ardantza*). Hots-aldaketa: *o > ø* (*ardantza*), Larramendik ezagutzen ez zuen —ezin ezagut zezakeen— oinarritik abiatuta. Nire ustez, entzun edo irakurritako hitzek bakarrik osatzen dute talde hau (ik. § 8.2).

-TE₁	orotara 4	lehenagoko lek. 1
------------------------	-----------	-------------------

Atzikia balio honekin deskribatu gabe⁶²⁹ eta adibideak oso gutxi izan arren, badirudi esanahikide bikoteetatik (*aintziradi* eta *aintzirate*, *aranzadi* eta *aranzate*, *arkaizdi* eta *arkaizte*) atera beharrekoa dela. Oinarria izen konkretu bizigabea da, behin zenbatzailea (*amarte*); eta ondorioak 'multzoa' adierakoak.

-ZU	orotara 1	lehenagoko lek. 1
------------	-----------	-------------------

-tsu izenondogilearen forma zahar honen (Mitzelena 1955: § 622 eta 1971: 147-148) lekukotasun bakarra kausitzen dugu corpusean: *arbizu*. Ezpairik gabe, zegoeneko zaharkituta zegoen Larramendiren euskaran (honen etorkiaz, ik. § 8.2).

-ADA₁	orotara 1	lehenagoko lek. 0
-------------------------	-----------	-------------------

Hegoaldean *-kada* eta Iparraldean *-tara* itxuretan (Azkue 1923-1925: §§ 102 eta 103) ezagunago den atziki honen forma *HH*-an, corpuseko adibide bakarraren arabera (*atzada*), *-ada* da, oro har balio ezberdineko *-(k)ada* atzikiari eman ohi dion tratamenduekin bat. Oinarria izen konkretu bizigabea da, eta ondorioak 'kantitatea' adierazten du (cf. *DAut* "La porción que se puede tomar con el dedo...").

2.1.7. 'Tresna' edo 'baliabidea' adierako izengileak

Adiera honetako adibide zenbait ikusi ditugu lehenago, 'egile' eta 'langile' atzizkiez eratutakoen artean.

Sail honetan esanahikide bikote gutxi batzuk aurkitzen dira (*apaingarri* eta *apaingai* "adorno", *azalgarri* eta *azalkai* "lema"), baita haien arteko esanahi bereizkuntza zenbait (*agergarri* "manifiesto" vs *agerkai* "escritura", *aldagarri* "vestido" vs *aldakai* "muda"). Izan ere, denen oinarriak antzerakoak badira ere (aditzoina eta, neurri txikiagoan, izena), *-garri-k*

⁶²⁸ Larramendiren azalpena egiazkoa bada: ik. § 8.2.

⁶²⁹ Azkuek (1923-1925: § 165) eta Villasantek (1981: 128) 'denboraldia' adierakoak baino ez dute jasotzen.

'baliabidea' bakarrik adierazi ohi du eta, beste muturrean, tresna gehienak *-kai* atzizkiaren bitartez eratutakoak izan ohi dira *HH*-an.

-GARRI₁, -karri	orotara 15	lehenagoko lek. 4
-----------------------------------	------------	-------------------

Forma nagusia *-garri* da; *-karri* ondo lekukotutako *azkarri* "levadura"-n (§ 12.2.8) agertzen da, txistukariak eraginda; Larramendik ez du eredu hedatu (*arpezgarri*), eta gainera itxurazko bikote bat (cf. *azgarri* "carácter, señal" < *atz* "huella") eratu du.

Oinarriak: (1) aditzoina da nagusi; hona zailenak: *adigarri* (< *aditu* "entender"), *arpezgarri* (< *arpeztu* "manifestar"),⁶³⁰ (2) izena (*azgarri*).

Ondorioa 'baliabidea' ('tresna' sekula ez) adierazten duen izena izan ohi da. Ñabardura bereziak: *absolbigarri* "absolvederas, manga ancha en un confesor" eta *adigarri* "sentido de algún dicho".

Hots aldaketak: (1) afrikatua > frikari (*azgarri*); (2) atzizki kenketa (*adigarri*).

- KI₁	orotara 9	lehenagoko lek. 1
-------------------------	-----------	-------------------

Larramendik etimologia batean jasotzen du, nahiko adierazgarriki, atzizki honen esanahia:

Casaca, viene de el Bascuence *jasaquia*, que significa lo mismo; y *jasaquia* se dixo de *jasá*, que vale tempestad (...) y de *quia*, nota de oportunidad para algo, y la casaca es oportuna para defender de el agua (s.v. *casaca*).

Ohiko oinarria aditzoina da:⁶³¹ *adobaki*, *estalki* (*aulki-estalki* eta *ankestalki*-n), *artezki*.⁶³²

Beste oinarri zenbait: (1) izena (*akaski*); (3) bigarren osagaian aditza duen elkartua: *arirrazki* (< *ari* + *orraztu*), *aoteski* (< *ao* + *estu*); (4) ez dakit zein den *alkoizki* "pulidor"-ren oinarria.⁶³³

Ondorioak 'baliabidea, tresna' adierakoak dira beti; *artezki*-ren bigarren esanahia ("mira, intención") besteren hedadura baizik ez bide da.

Hots-aldaketak: (1) afrikatua > frikari (*akaski*); (2) oinarri laburpena: *adiraki* (~ *adieragin*, *adierazo*... "denotar", etab.).

⁶³⁰ *adigarri* ezinbestean *adirakitu*-tik eratorri behar dugu: cf. "Notar, señalar, marcar, *senatu*, *martu*, *margotu*, *irazagutu*, *adiraquitu*" eta "Notable, *senagarria*, *margarria*, *irazagugarria*, *adigarria*" artean dagoen bana-banako egokitasuna.

⁶³¹ Halakoak dira Azkuek (1923-1925: § 133) jasotzen dituen adibide gehienak; haatik, oinarrian izena daukan hitz bat bederen badela aitortzen du: *lakazki* "acial o tenaza de madera, que sirve para abrir el *lakatz* erizo de la castaña".

⁶³² Talde honetan sartu behar da, agian, *adiraki* "nota, marca, señal" ere, ziurrenik *adierazo* eta familiarekin lotua (cf. § 5.4.2).

⁶³³ *igoizkin* sarrerakidearen arabera, badateke hor *-koiz-* / *-goiz-* zati bat bederen.

-KAI₁, -gai	orotara 28	lehenagoko lek. 2
-------------------------------	------------	-------------------

Beste atzizki zenbaitetan bezala, Larramendik ahoskabetan aldaera hobetsi zuen, baina oraingoan ez bide da harrizkoa, *arilkai* eta *astalkai* ondo lekukotutakoen argitara (ik. Azkue 1923-1925: § 131c); *-gai*-ren aleak gutxi dira *HH*-an: *apaingai* ezaguna (vs *adinkai*, *azalenkai* inondik ere berriak) eta *alagai*.

Oinarriak: (1) *-gari*-n bezala, aditzoina da oinarri arrunta; cf., adib., *aburikai* (< *aburikatu* “tropezar”), *adinkai* (< *adindu* “templar instrumentos”), *agerkai*, *aginatorakai*, *aldakai*, *antzeskai* (< *antzestu* “pintar”), *apaingai*, *arkai* (< *artu*), *arradakai* (< *arradatu* “raer”, “rallar”), *arrazkai* (< **arrazkatu* “rascar”), *arregakai*, *arrendekai* (< *arrendetu* “convidar”), *astikai* (< *astitu* “azotar”), *azalenkai* (< *azalendu* “imprimar”); (2) izena: *adrakai* (< *adra* “regla”), *alagai* (< *ala* “barca”), *arbelokai* (< *arbelot* “bodoque”), *argikai* eta *arkai* “vela de cera” (< *argi*), *askai* “festejo” (< *ats* “aliento”, adiera fig.); (3) oinarri konplexua: *argi biurkai* “torcida”.

Ondorioak oro har ‘baliabidea, tresna’ adierakoak dira: (1) ‘zertzeko tresna edo baliabidea’ da oinarrian aditza dutenen adiera zehatza; (2) ‘x zertzeko tresna edo baliabidea’ da, berriz, izen oinarriaren (x = izena); cf., adibidez, *adrakai* (*DAut* “La instrucción por escrito”), *agakai* (*DAut* “palo o varal que usan los barqueros para hacer fuerza con ellos en la arena y echar fuera el barco que está encallado”).

Hots-aldaketak: (1) afrikatua > frikari (*askai*); (2) *a > ø + t > ø / —k* (*arbelokai* < *arbelota*); (3) *-g(i) > ø* (*arkai* vs *argikai*); (4) haplologia: *aburikai*, *aginidokai* (< *idoki*), *aginsakai* (< *sakatu*), *arrazkai*.

2.1.8. ‘Objektua’ edo ‘produktua’ adierako izenen sortzaileak

Batzuk, oso gutxi, lehenagoko ataletan, lantzean behin azaldu izan zaizkigu.

-KI₂	orotara 45	lehenagoko lek. 3
------------------------	------------	-------------------

Oinarriak: (1) izena ‘animalia’ edo ‘gorputz atala’: *aldeki*, *alsarki* (< *halsar* “entraña”), *antxumeki*, *arexki* (< *aretxe* “ternero”), *ariki*, *aunzki*; atal honetan sartu behar da *arrauki* ere (< *arrau* “hueva de pescado”); (2) izena [\pm biziduna]: hauxe da hitz gehienek daukatena; hona zailenak: *abetxalki* (< *abe* + *zalki* “cabestro” < *zaldi*), *ailoizoki* (*ai(a)* + *loizoki* “emplasto”), *akaraki* (< *akara* “nardo”), *alortaki* (< *alorta* “fruto”), *alsiki* (< *altsi(a)* “hilacha”), *argizki* (< *argizagi*), *artelazki* (< *artelat* “alcornoque”); atal honetan sar daitezke oinarri elkartua daukaten hitzak: *abiurki* (< *ari* + *biurtu*), *aitizki* (< *aita* + *itz*), *antarauki* (< *andi* + *arau*), *aruski* (< *aragi* + *uts*), *asizenki* (< *asi* + *izen*), *astorki* (< *asto* + *orro*), *auskeztiki* (< *auts* + *ezt*); (3) izena + *-z*: *alabezki* (< *alabe* “paleta del rodezno”), *aozki*, baita agian honen aldaera baino ez den *aoski* ere; oinarri elkartua + *-z* dauka *arurrezki*-k (< *ari* + *urrez*); (4) izenondoa (*arinki*, *atzenki*, *azkenki*); (5) aditzoina: *aseki*, *ateraki* eta, agian, *azalki*.

Ondorioak: (1) lehenengo oinarriari dagokion ondorioa, 'jakia' adierakoa da beti, aldez behintzat Larramendik hurrengo etimologian azaldua:

...la terminación *quia*, que muchas veces es nota de cosa muerta, v.g. *ariquia*, *ollaquia*, &c. (s.v. *lethargo*).

(2) *-ki* honen paper nagusia, dena dela, oinarria izen konkretu —'gauza', 'zera'— bihurtzea dela dirudi,⁶³⁴ Larramendik berak dioenez:

...y significa lo mismo que *ostuquia* cosa hurtada... (s.v. *ostugo*).

Argienik, *-ki* gabe ezer ez diren oinarri elkartuetan antzeman dezakegu (§ 3.1.7). Alabaina, oinarriaren eta atzizkiaren arteko erlazioa era ezberdinetara gauza daiteke: (a) 'x-z egindako gauza', guztiz 3. oinarrian, baina baita *abiurki* (DAut "Cordoncillo hecho de varias hebras torcidas"), *akaraki* (DAut "azeite o ungüento hechos de la flor del nardo"), *alsiki*, *artelazki* eta *auskeztiki*-n (DAut "Especie de electuario, compuesto de diferentes ingredientes (...) las cuales hechas polvos se mezclan con tres partes de miel"); nekez baina, sail honetan sar daiteke *alortaki* ere; (b) 'noizko edo nongo zera': *aboztuki*, *agorrilki*, *ataurki*, *ataurreki*, *atzalki* (DAut "El callo (...) que nace a raíz de la uña"), *atzeki*, *argintzaki*, *aurreki*, *atzenki* eta *azkenki* (DAut "Lámense así por ser los sucesos últimos de la vida del hombre, u del fin de ella"); (c) 'x-en zatia': *argizki* 'argizagi zatia' eta, nolabait, *arraianki* "murtón, fruta del arrayán"; (d) 'sail horretako bat': *adaki*, *andiki*,⁶³⁵ *aragiki*, *arinki* "perfunctorio" (erdaraz behintzat izenondoa), *arroki*, *azoteki*; (e) 'zertutako gauza': *ateraki* "resalte"; antzerakoa da, baina 'zertzearen ondorioa' zehatzago, *aseki* "embargo de estómago".

Hots-aldaketak: (1) afrikatua > frikari (*aitizki*, *artelazki*, *aunzki*, *aruskí*); (2) *e* > \emptyset (*arexki*, *ataurki*, vs *ataurreki*), *o* > \emptyset (*astorki*); (3) *r* > \emptyset (*adaki*); (4) haplologia (*argizki*).

Atzizki kateak: *-gintza* + *-ki* (*argintzaki*).

-KAI₂	orotara 5	lehenagoko lek. 0
-------------------------	-----------	-------------------

Larramendik honela azaltzen du atzizki hau:⁶³⁶

Materia de que algo se haze, habla, &c. *gaya*, *caya*. Materia, asunto de el sermón, *sermoigaya*. Materia de conversación, *jolascaya*.

⁶³⁴ Azkuek (1923-1925: § 148) honela deskribatzen du: "Con nombres (...) denota 'objeto material, fragmento' del ser indicado por el tema o tal vez más exactamente según algunos 'especie, clase". Ikusiko dugunez, aski ongi moldatzen zaio Larramendik jasotzen duenari. Atzizki honen eta *-ki₃*-ren artean izan litekeen erlaziorako, ik. De Rijk 1995: 62-65.

⁶³⁵ De Rijk-ek (1995: 63, 8. oh.) iradoki du *handiki* Larramendik sortutako hitza izan daitekeela, lehen lekukotasunak bereak izateaz gainera, *handi* izen modura lekukotu gabe dagoelakoan. *Corografía*-ko agerraldiak —ez hainbeste euskarazkoak (152. or.), nola erdarazkoak ("...algunos *andiquis* de Guipúzcoa...", *ib.* 153)— berarentzat ez eze bere irakurleentzat ere hitz arrunta zela aditzera eman dezake, ostera. Gehiegi ez izan arren, XX. mendean gutxienez ahozko lekukotasun bi bildu dira, zehazkiago 'zerbait direnen ondoren ibilzalea' adieran (ik. 17. eranskina). Eta, bestalde, cf. *handi-mandi*, *handi-mendi* ezagunak (ik. *OEH*, s.vv.).

⁶³⁶ Bere azalpena ondo dator Azkuek (1923-1925: § 131b) eman zuenarekin.

Atzizkiak oso adibide gutxi eskaintzen ditu gure corpusean eta, hala eta guztiz ere, ia-ia zenbat adibide hainbat gauza ezberdinen ordain ditugu. Oinarriak denak izenak dira; koxka, nonbait, ondorioen adieretan dago: (1) ‘sail horretako bat’: *adakai* “rama” (*adaki* bezalaxe);⁶³⁷ (2) ‘x-z egindakoa’: *arakai*, *arkai* “cecina”; (3) ‘gaia, motiboa’: *auzikai* “litigioso, sobre lo que hay pleito”; (4) *ardikai* “calderilla, moneda de cobre” (< *ardit* “ochavo”) beharbada ‘x-en zatia’ izan liteke.

Hots-aldaketak: (1) $r > \emptyset$ (*adakai*) eta $t > \emptyset$ (*ardikai*); (2) $-g(i) > \emptyset$ (*arakai*).

-KO₂	orotara 7	lehenagoko lek. 1
------------------------	-----------	-------------------

Deklinabide atzizki honekin lexikalizatutako beste hitz batzuk izen konkretu bizigabeak dira. Oinarria izena da, eskuarki ‘gorputz-atala’, eta honen ondorioetan bi adiera antzematen dira: ‘kolpea’ (*autzeko*) eta ‘jazki zatia’ (*azpiko*) (Azkarate 1991: 54). Nabarmena da Larramendi ez dela honainokoa berritzaile izan.

Berri antz gehiago dauka, ezpairik gabe, *arbizuko* “nabería”-k (cf. *DAut*: “Conjunto o potage de nabos”), baina ez adieraz, formaz baizik: agian *eltzeko* edota *lapikoko* hitz ezagunen analogiaz eraturia,⁶³⁸ ez dirudi ordurako oinarria bizirik egon zitekeenik (§ 2.1.6).

Badugu bereziagorik, ostera: (1) ‘zenbatzailea + izena + -ko’ egituraz (jadanik ikusi dugu halako bat -ko₁ atzizkipean) ‘figura geometrikoa’ adierazten dutenak: *amaikaldeko* “undecágono”, *amaikaurkeko* “endecágono”,⁶³⁹ (2) ‘x (izena) + -z + -ko’ egituraz ‘x-z egindako zera’ adierakoa: *aletistezko* “diamargaritón, composición medicinal” (< *altiste* “perla”,⁶⁴⁰ cf. *DAut*: “...se hace de diversos ingredientes, que el principal de ellos es las perlas”) eta, erabat gauza bera ez den arren, *amabizko* “docena”.

-ADA₂, -kada, -tada, -da	orotara 31	lehenagoko lek. 0
--	------------	-------------------

HH-an *-ada* da nagusi; *-kada* guztiak, Larramendik azaltzen duen bezala, *-ka* + *-ada* atzizki katearen adibideak baino ez dira; ohartu, bide batez, atzizkiaren forma *-da* dela bere ustetan:

Destos adverbios [-ka atzizkidunak] se forman otros substantivos añadiendo *da*, v.g. *arricadá* pedrada, *osticadá* patada, *orzcadá* dentellada, &c. donde es fácil de advertir que el Romance aprendió del Bascuenze esta formación con sus finales en *ada* (1729: 265).

⁶³⁷ Uste dut aztertu gabe dagoela *-kai* (-*kari*) eta *-ki*-ren arteko erlazioa, oso nabarmena adiera batean edo bestean jasotzen diren bikoteetan; cf. goikoaz gainera *arradaki* (Azkue 1905-1906) / *arradakai* (*HH*).

⁶³⁸ Bietatik bat ere ez da *HH*-an agertzen, baina honek ez du nahitaez esan nahi ezagutzen ez zituenik, noski.

⁶³⁹ Ez dirudi figura guztien izenak honelaxe eratu zituenik, baina, dena dela, *aurka* / *aurke* bederen nahikoa sarri errepikatzen da halako izenetan (ik. § 3.3.2.3).

⁶⁴⁰ Hutsa izan daiteke (*altistezko*-ren ordez), baina ez da erabat ziurra, zeren eta *aletiste* < *ale* (§ 3.2.3.1).

Dena dela, bikoteak ez dira falta: *adrilada / adrilkada, agada / agakada, aitzurkada / aitzurrada, atxurkada / atxurrada, atzaparkada / atzaparrada*. *-tada* aldaera *aurketada*-n bakarrik aurkitzen dugu; eta *-da* bilusik *antzeskaida*-n.⁶⁴¹

Oinarriak bi eratakoak dira: (1) *-ka* aditzondoak; (2) izen konkretu bizigabea. Hona zail zenbait: *aiozada* (< *aioz* “xifero, cuchillo de matar reses”), *antzeskaida* (< *antzeskai* “pincel”), *aokarukada* (< *aokaruka* “a dentelladas”), *aotzikada* (< *aotzika* “picoteando”), *arbelotada* (< *arbelota* “bodoque”), *arlantxada* (< *arlantxa* “lancha, piedra”), *aurketada* (< *aurke* “cara”), *atagaikada* (< *atagai* “tranca”).

Ondorioa ‘kolpea’ izaten da, Larramendik berak hainbatetan ohartu bezala. Batzuetan ‘tiroa’ ere izan daiteke: *abailada, alkabuzada* (cf. *DAut* “Golpe o herida que hace el arcabuz disparando”).

Hots-aldaketak: (1) *-u + -ada > -ada* (*adrilada, adrilkada*) eta *e + -ada > -ada* (*alfanjada*).

Atzizki kateak: (1) *-ka + -ada* jadanik aipatua; (2) *-kai + -(a)da* (*antzeskaida*).

-ARI₂, -kari	orotara 5	lehenagoko lek. 4
--------------------------------	-----------	-------------------

Ez dirudi *-ari* honi Larramendik bizitasunik eman dionik, adibide guztiak funtsean zaharrak (*edari, afari, askari...*) dira eta.

2.1.9. ‘Lekua’ adierako izengileak

-TEGI, -degi, -egi	orotara 56	lehenagoko lek. 7
---------------------------	------------	-------------------

Larramendik oso ondo bereizten ditu *leku* eta *toki*-z egindako elkartuak *-tegi*-z egindako eratorrietatik:

Lugar, quando viene con otro nombre, como lugar de páxaros, &c. entonces se pospone *lecu*, *toquia*, *chori lecu*, *choritoquia*, *chorien lecu*, *toquia*; o se pospone el nombre pospositivo *teguia*, que siempre viene en composición, de que se componen nombres sin número (1745: II, 57).

Nagusiki *-tegi* erabiltzen du; *-n* ostean *-degi* (*amarrendegi, ardandegi, argindegi, arrandegi, autindegi*, baina *aitorkuntegi, arozkintegi, arrikintegi, atsedentegi, atuntegi*); *-egi* forma *-dí, -aga*, etab. atzizkiekin batera aipatzen zuela ikusi dugu: izan ere, ziurtasunez [+landarea] bi oinarriekin bakarrik (*almendregi, arraianegi*) agertzen da; *aitegi* eta *anbategi*-ren kasua, ikusiko dugunez, bestelakoa da.

⁶⁴¹ Antzeko ingurunean (hots, behearanzko diptongoan) ezabatu du *-aga*-koa ere *arauga*-n.

Oinarriak: (1) izena [±biziduna], ondo lekukotutako hitzetan antzematen den bezala; berezia da *arropazartegi* (gogoratu *artezardi* “encinar viejo”); (2) aditzoina: *adorategi*, *araxtegi* (< *aratxi* “encarcelar”), *aurbenitegi* (< *aurbeni* “exponer”, “(niño) expósito”).

Ondorioek ‘lekua’ adiera dute beti, *arrastegi* adibide (ziurtasunez herrikoi) bakarrean izan ezik.⁶⁴²

Hots-aldaketak: (1) afrikatua > frikari: *andrakaiztegi*, *argustegi* (< *arguts* “eclipse”), *aristegi*, *arkaiztegi*, *arroztegi*, *aunztegi*, *austegi*; (2) *-r(i) > l* (*afalategi*); (3) *a + e > e* (*almendregi*); (4) *a > ø* (*alkapartegi*), *e > ø* (*alategi*), *o > ø* (*ardandegi*), *i > ø* (*atxurtegi*, *axurtegi*, *azartegi*, baina *aurbenitegi*); (5) haplologia: *aitegi*, *anbategi* (< *anbate*).

Atzizki kateak: (1) *-kin + -tegi* (*argindegi*, *arozkintegi*, *arrikintegi*); *-kintza*-ren eredura eratuta dago, dudarik gabe:

Oficina, quando se añade de lo que es, se hazen bien con *ola* y *quinteguia* pospuestos, oficina de alfahareros, *loyola*; de canteros, *arriola*; de herreros, *burdinola*; de carpinteros, *egurrola*, *zuola*, &c. Y también *loiquinteguia*, *arriquinteguia* (1745, s.v.).

(2) gainerako kate gehienetan lehen begia ‘ekintza’ izengilea izaten da: *-unde + -tegi* (*adiundetegi*), *-go + -tegi* (*aitorgotegi*), *-kun + -tegi* (*aitorkuntegi*); (3) *-tza + -tegi* (*arranzategi*); (4) *-ari + -tegi* (*afalategi*); (5) *-ki + -tegi* (*aoskitegi*).

2.1.10. ‘Denbora’ adierakoak

-TE₂	orotara 3	lehenagoko lek. 1
------------------------	-----------	-------------------

Oinarria izen bizigabea dela esan daiteke (*anzina*-ren berezitasuna alde batera utzita), baina eguraldiarekin zerikusia duten zenbait izenondo ere (cf. *agorte* corpusean, jadanik lekukotua) arruntak dira: Azkuek (1923-1925: § 165) *asete*, *bustite*, *idorte* eta *legorte* aipatzen ditu. Ondorioak ‘denboraldia’ adierazten du.

-ALDI	orotara 22	lehenagoko lek. 2
--------------	------------	-------------------

Lehenagoko lekukotasunen urriak eta zenbait oinarrik ez dute zalantzarik uzten Larramendi honetaz baliatu egin zela, nahiz inoiz baino hertsikiago atxiki zitzaion tradiziozko erabilerari, ziur aski atzizkitzako honen izaera eta egoera berezi eta esanahi argiarengatik.

Oinarriak: (1) izena: *agintaldi*, *aitzurraldi*, *altzoaldi*, *ametsaldi*, *arakaldi*, *ardatzaldi*, etab.; (2) aditzoina: *alda-aldi*, *aldaldi*, *arikaldi*, etab.; (3) partizipioa: *artualdi*; (4) zenbatzailea: *amairualdi*; (5) *aboaldi* < *abo*, gzt. *vaho*-ren etimoa (ik. § 6.5).

⁶⁴² Azkuek (1923-1925: § 697) *arrasti* mendebaldean, egun ekialdean bakarrik gordetzen den *arrastiri*-ren ondorentzat ematen duen bezala, baliteke *arrastegi* ere (herri etimologiaz?) halakoa izatea. Cf., bestalde, *gatzetegi* “mocedad” (RS 396).

Ondorioak: *aldi*-k esanahia gordetzen du eskuarki, baina multzo ezberdin zenbait, eta bitxikeriaren bat, bereiz ditzakegu: (1) 'ekintzaldia': *aboardi*, *aitzurraldi*, *aizaldi*, *ametsaldi*, etab.; (2) 'x-k kabi dezakeen kantitatea': *altzaldi* (cf. *DAut* "Lo que cabe en la halda"), *ardatzaldi* (cf. *DAut*: "La porción de lino (...) que cabe en el huso"), *atzaldi* (cf. *DAut* "La porción que se puede tomar con el dedo..."); (3) Azkuek (1923-1925: § 161) gaztelaniaz "acceso" deitzen duen eta *aldi*-k bere-berea duen adierari dagozkio lekukotasun zaharrak (*aserr(e)aldi*), beste argi xamar batzuk bezala, hala nola *aurraldi* "chochez" ere; bide honetatik azal daiteke, nik uste, *arakaldi* "carnalidad, lujuria" (< *aragi*), hots, 'haragiaren aldia'; (4) 'kargua' adiera du *agintaldi* eta *amairualdi*-n, esanahi hedaduraz.

Hots-aldaketak: (1) *e + a > a* (*agintaldi*); (2) *-g(i) > k* (*arakaldi*).

Atziki kateak: *-te + -aldi* (*agintaldi*).

2.1.11. Aditzizena eta haren ondorenak

-TZE, -TE, -DE, -ta, -da, -nde, -lde	orotara 223	lehenagoko lek. 8
---	-------------	-------------------

norbaitek esan omen du hizkuntza landuetan (barka, *kulto* / *kultu*-etan) *-te*, *-tze* bezalako gramatika-atziki arunt batek ordezkari hoberik eta berezirik izan ohi duela.

Tira, ingelesa aski landua eta ikasia da eta *-ing* ez dabil hain urruti gure atzizkitik. Halaz guztiz, ordea, barra-barra erabiltzen dute *-ing* (Mitxelena 1984: 22).

Mitxelenak bazuen aspaldiko iritzikide bat honetan, erabili ez zuen —edo, beharbada, erabil ezin zezakeen— arren: Larramendi. Entzutea denez (norbaitek idatzi ere egingo zuen, noski), Iparraldekoak dira baliabide honi nolabaiteko indarra eman dioten bakarrak (eta aski da beheko lekukotasun zaharrei begiratzea), Hegoaldekoak *-keta* etabarrekin ari ziren bitartean. Larramendik ere, dudarik gabe, Iparraldekoen erabileratik zer edo zer ikasiko zuen,⁶⁴³ baina osterantzeko baliokideen gaineratik inoiz inork eman ez dion zabaltasuna, automatizazioa eta botere sortzailea erantsi zion eta, gainera, morfofonetikazko arauak hedatuz forma berri zenbait (*-de* eta *-ta* / *-da*) saiatu zituen, izen-marka orokortzat hartu zuen morfo talde honen betebeharrak ugaltzeko, itxura denez. Forma berrietatik *-de* bakarrik iristen da tradiziozkoen mailara: *tze*-k 76 adibide ditu, *-de*-k 68, *-te*-k 65, *-ta*-k 10 eta *-da*-k 4.

Tradiziozko formak bi baino ez dira: *-tze* eta *-te*. Larramendik gramatikan aipatzen dituen bakarrak hauexek dira, banaketa eta eransteke modua xehe-xehe azalduaz:

Si el infinitivo se acaba en consonante, la muda en *tea*, v.g. *jan játea*, *edán edátea*, *emán emátea*, *jóan*, *joátea*, *egón egótea*. Si el infinitivo se acaba en vocal, le forma de dos maneras, el 1. es seguido y regular, el 2. sincopado e irregular: el regular y seguido añade al infinitivo esta dicción *tzea*, v.g. *ecarrí ecarrítzea*, *icusí icusítzea*, *eserí eserítzea*, *beguiratú beguiratutzea*. El sincopado e irregular pierde la última sílaba, y la muda en esta dicción *tzea*, *artú ártzea*, *uquitú uquitzea*, *aguindú aguíntzea*. Es verdad que en este modo irregular se muda tal vez la última sílaba en *tea*, especialmente si el consonante que precede a la última vocal es *z* o *s* o *ts*, *azí áztea*, *icusí*, *icústea*,

⁶⁴³ Ez genuke ahaztu behar Landuccik ere sarri xamar dakarrela (ik. § 10.2); gogoratu *ertzea* "parto" (*Erans* 497). Atzizkiaren Mendebaldeko emankortasunari dagokionez, Landucciren lekukotasun garrantzizkoari berri bat erantsi behar zaio: Loiolako dotrina (F. Altuna 1995), non *escace* (14) eta *izaite* (33) bezalako izenak ageri diren.

onetsí onéstea, y assí de otros: los cuales siempre dexan libre la formación regular (Larramendi 1729: 53-54).

Ongi xamar deskribatu zuen bezala, *-tze* eta *-te* partizipioaren izaeraren araberako alomorfoak dira; haatik, banaketa ez da zeharo bat, ez diakronikoki, ez dialektalki. Hasteko, berak “erregular” zeritzan modua berriagoa, jakina, eta erdialdeko hizkera batzuei bakarrik dagokiena da: hiztegian oso bakanki baizik ez ditu honela eraturako formak jasotzen eta, salbuespen bakar batekin (*arraundutze*), diren erregular urriak “irregularren” aldamenean agertzen dira: *artutze* eta *artze*, *autsitze* eta *auste*. Badirudi, beraz, eredu orokorragoari —agian literaturan jasotakoari esan beharko— atxiki nahiago izan ziola, haren “irregularitasuna” gorabehera.

Alomorfoen banaketa dela eta, *-tze* —ohi denez— *-tu* (*-du*) bukaerako partizipioei eransten zaie. *-te-z* den bezainbatean, gramatikako azalpenaren arabera kontsonantez amaitzen diren aditzetan (adibide guztiak *-n* bukaerakoak dira) eta, aukeran, txistukariz (*-s*, *-z* eta *-ts*) amaitzen diren aditzoinetan ager daiteke. Hiztegian sudurkari (*izate*, *aldeeragite*, *aurgite*, etab.) eta txistukariekin (*aboezte*, *adierazte*, *adrakaizte*, *agerrerazte*, *aizezte*, *ajolauste*, *amarazte*, etab.)⁶⁴⁴ betetzen den araua da, baina han adierazi baino hagitzez hedadura handiagokoa dugu, ziurrenik mendebaldeko hizkeren eraginez (cf. Azkue 1923-1925: § 76). Halaxe: (1) bokalez (ia beti *a-z* edo *i-z*) amaitzen diren zenbait aditzoinek ere hartzen dute (*agaitze*, *agate*, *altxate*, *andigoite*, etab.); honelakoetan, aurrerago argudiatuko dudanez (§ 8.2), *alzate* eta *arrasate* bezalako toponimiako formen eragina nabarmena da; (2) *r-z* eta behin *l-z* amaitzen diren batzuek (*agerte*, *agorte*, *aurrilte*, *azisurte*, *azkorte*) ere bai.

Ingurune fonetikoaren aldetik begiratuta, hiztegiko banaketa ez da beti trinkoa, beraz, eta honek forma bikoiztasun zenbait eragiten ditu: *agertze* / *agerte*, *altxatze* / *altxate*, *altzatze* / *alzate*, *arageitze* / *arageite* eta *arpetze* / *arpezte*. Trinkotasunik ez hau beraz erabil dezaket familiako beste kideak aurkezteko: *adintze*-ren aldamenean *adinde* dugu, *agintze*-renean *aginde* eta *arageitze*-renean *arageita*; *araute*-ren aldamenean *araude* dugu, *arkite*-renean *arkide* eta *adierazte*-renean *adierazta*. Zerrenda nahi adina luza daiteke, baina adibide gutxi hauek aski dira, nik uste, lau formen arteko erlazioa oso estua dela erakusteko.

-de, lehenengo begiratuan, hitzaurrean (1745: xlvi) aipatzen duen *jakinde* formak azalduko luke, baina hitz hau Larramendi baino lehenago lekukotzen ez denez gero, ziurrenik bera ere berria da. Bestelako azalpenik egon daitekeela zeharo ukatu gabe,⁶⁴⁵ nire ustez, *-te-k* ozen ostean hartzen duen itxura da. Kopuruak ezin adierazgarriagoak dira: ozenaz bukatzen diren oinarriak 52 dira (haietatik 44 *n-z*, 7 *l-z* eta 1 *r-z*), bestelako bukaerak dituzten 21en

⁶⁴⁴ Ohartu *-i* zein *-tu* partizipioekin betetzen dela, nahiz *azitu*-tik *azite* daukan. Salbuespen bakarra gorago aipatutako *autsitze* “erregularra” da.

⁶⁴⁵ Honetaz, dakidalarik, ohartu den bakarra (Azkarate 1992: 215), “Azkue, Villasante edo Lafitteren sailkapenetan ageri ez dena eta gaurko euskaldunoi ezezagun zaiguna” dela esatera mugatzen da. Gure ohiko jakituri iturrietatik ez den arren, bestalde, komeni da jakitea Novia de Salcedok ere guk egin dugun ulerpen bera egin zuela: “...con la terminación *dea*, *tea*, que eleva a los nombres a la calidad de abstractos” (s.v. *aboaidea*). Bere ustetan, gainera, forma aldaketa eufonikoa izan daiteke: “...cambiada la *tz* en *d*, para la suavidad de la pronunciación” (s.v. *abrildea*).

aldamenean. Alabaina, forma honen izaera behar bezala ulertarazteko bi zehaztapen egin behar ditut: (1) *aldeeraginde* edo *antzesande* bezalako hitzetan, *-te*-ren lekua beretu du (cf. *aldeeragite*); eta (2) *-n* bukaera duten 43etatik 12 (*agerinde*, *aldande*, *andiande*, *anizkidande*, *anzinande*, *apezaitande*, *arboilande*, *asmande*, *atrebinde*, *aukerande*, *aurkande* eta *aurrande*) analogikoak dira, ez baitago haien oinarrian sudurkariaren agerpena zuri lezakeenik;⁶⁴⁶ analogikoa izan liteke, halaber, *aboalde* “confesión” (< *aboatu*), berezko *-l* bukaeradunak askoz urriagoak diren arren.

Gainerakoan, *-te* bezala bokal ostean ere ager daiteke, baina antza denez hura baino askatasun gehiagoz, bokal guztiak nasaiki onartuaz (v.g. *aizpade*, *alaide*, *araude*, *astirode*, *atzede*); inoiz txistukari ostean (*alarazde*, *arrizde*, *artezde*) ere bai. Oinarrien aldetik, beraz, tradiziozko formen lehiakidea da, zeinarengatik etorkiz Larramendik ozen ostean eraturako aldaera izan badaiteke ere, fonetikaz kanpoko arrazoiak aurkitu beharko baitira honen hedadura azaltzeko.

-ta / *-da* batuz beste askoz gutxiagotan agertzen da eta, horregatik, zailagoa da definitzen, nahiz bistan denez *-te* / *-de* bikotearen aldaera izan behar duen; nolana ere, badira gutxienez haren eraketan eragina izan lezaketen hiru gertakari: (1) atzeranzko eratorpenaz ateratako aditzondoko izenetan *-a* bukaerak (*-atu* aditzetatik sortua, jakina) daukan maiztasuna (§ 5.4.1); (2) elkartuetan bigarren osagaiak *e > a* aldaketa jaso ahal izatea, *arnasta* (< *naste*) bezalako formak eraginez (§ 3.2.3.4); eta, orokorki, (3) betiko *-ea* / *-a* zalantza (I, § 8.5.2.1).

Ezartzen zaion hitzaren kategoriak argi gehiago egingo du aldaera hauen banaketan: (1) *-tze* da osoki eta erabat bere aditzizentasunari eusten dion bakarra; (2) *-te* nagusiki aditzizena da, baina badira izenetik (*arageite* < *aragei*) eta izenondotik (*ainaldaste* < *ainaldatsu*) ateratako zenbait; neurri txikian bada ere, *-te*-ri Larramendik izen-marka paper orokorrigo bat egotzi ziola adieraz dezakete honelakoek; (3) beste horrenbeste esan daiteke *-de*-ri buruz, oinarrian izena (*alorta zaide*), izenondoa (*adinonde*, *aldakoide*) eta adizlaguna (*agoande*, *arrizde*) izan baititzake.

Haatik, bada xehetasun bat oraindik argiagoa: deigarria da *-tze*-ren aldean *-te*, *-de* eta *-ta* / *-da*-k biltzen duten hitz elkartu proportzioa: *-te*-ren kasuan halakoetan aurkitzen dira “arauz kanpoko” dei ditzakegun zenbait forma (*arlante*, *aurrilte*),⁶⁴⁷ eta halakoekin bat daitezke *-da*-ren eta batez ere *-de*-ren adibide batzuk: batetik *arlanda*, eta bestetik *abrilde* (< *il*), *aitezarde* (< *ezarri*), *ankestalde* (< *estali*), *aruskainde* (< *eskaini*), *artikasde* (< *ikasi*), *aurbende* (< *ibeni*), etab. Halakoak *aozabaltze*, *aritaditze*, *arauzte* edo *azisurte* normalekin (edo normalagoekin) erkatzen baditugu, nabarmena da, nik uste, bukaerako aditzaren izena zein izan behar den begiratu gabe egindako hitzak direla, ziurrenik nahita. Are esanguratsuagoa da *-te*, *-ta* / *-da* eta

⁶⁴⁶ OEH-ak (s.v. *agerinde*) *-(k)inde* atzizkia aipatzen du, baina Larramendik *-kinde* jakintza izenetan bakarrik baliatzen du, eta beti kontsonanteaz, dakidalarik.

⁶⁴⁷ Esan gabe doa gainerantzean *lantze* (cf. “*lantzea*, *landu*, *trabajar*” s.v. *balance*) eta (*h*)*iltze* (cf. “*Deicidio*, *Christo gure jauna eralletzea*, *hiltzea*”) erabiltzen duela.

bereziki *-de*, izenak direlako markatzaile gisa elkartu parasintetikoetan (§ 3.1.7) agertzea: *abreunde, adizkonde, aldizenda, antzesande, argeita, arimegokida*, etab.

Berbera esan daiteke sortzen den hitzaren adierari buruz: (1) berriro *-tze* usadioari atxikitzen zaio, 'ekintza / ondorioa' adierari, alegia (eranskinean antzeman daiteke zeinen sarri "acción de" azalpenaz lagunduta datorren); (2) *-te* gehienak, hala nola *-de* ez gutxi eta *-ta / -da* batzuk ere adiera berekoak dira; haatik, (3) laukote honek sarritan izen abstraktuak eratzeko balio du:⁶⁴⁸ *adrakaizte* "irregularidad", *adinonde* "medianía, moderación", *aierta* "pasión" eta *arimegokida* "longanimidad", esate baterako, denak abstraktuak dira; adibide gehienak, hala behar ere, *-de*-renak dira: ez dugu ahaztu behar, bestalde, *jakinde* talde honetakoa dela, eta bertatik atera zituela (*ja*)*kinde* bigarren osagaien daukaten izenak (§ 3.1.6.2); (4) halaber, 'objektua' adieran (inoiz 'tresna' zehazkiago) lauren adibideak daude: *ateste* "bisagra", *ankestalde* "gualdrapa", *antzesta* "pintura" eta *arlanda* "piedra sillar", adibidez; (5) *-de*-ren adibide zenbait 'kargua' adierazten dutela dirudi: *alorta zaide* "frutería, en Palacio", *anzinande* "decanato", *apezaitande* "curato", *atzenaikinde* "albaceazgo".

Hauxe izan daiteke unerik egokiena "verbal" hitzaren esanahia eztabaidatzeko. Azkaratek (1992: 217) eratorriaren adiera bereizteko balioko lukeen marka dela diosku: bere ustez, "verbal" = 'ekintza', gainerakoa 'ondorioa' izango litzatekeen bitartean. Ikus ditzagun bildu ahal izan ditudan adibideak:

Abolladura, *abollantza, zacona, zocona, cosca*. Item *abollatzea, zacontzea, zocontzea, coscatzea, maliatzea, mallatzea*, nominales.
Absolución, *absolvitzea, ascatzea, deslotzea*, verbales, *absolvicioa, ascatura, deslotura*.
Aburrimento, *gogaicioa, gogaitzea*, verbal, *gogaipena*.
Acceso, acto carnal, *aragui/tz biltzea*, verbales.
Adelantamiento, *aurreratzea, aurratzea, aitzinatzea*, declinables, *aurrerapena, aurrapena, aitzinapena, aitzindapena*.
Adelgazamiento, *meetze, meaztze, meartzea, &c.* verbales; *meecuna, meazcuna, mearcuna, zorrozcuna, chorroiscuna; meequera, meazquera, mearquera, &c.*
Adivinación, *asmatzea, astinanza, iguerte, iguertzea*, verbales, *asmoa, iguermena*.
Admiración, *mirestea, arritza* verbales, *miraria, mirescuna, arrizcuna*.
Admisión, *etarza, etartzea, artzea, artutzea*, verbales.
La acción de agarrar, *arrapatzea, itsastea, ichequitzea, elzea, atzematea, lotzea*, verbales.
Agasajo, *ondo artzea, gozoro tratatzea, agasajatzea*, verbales, *agasajoa*.
Aliño, *apaindea, apaintzea, edertzea, maneateza*, verbales.
Allanamiento así, *escuperatzea, meneratzea, azpiratzea*, verbales.

Orotara hiru izen ezberdin ("verbal", "nominal" eta "declinable") erabili zituen itxuraz sail ber batean kokatu behar ditugun izenetarako: *-tze* atzizkia da denetan dagoena, harekin batera *-anza, -de, -te* eta *-(t)za* ere agertzen direlarik. Honek, bide batez, *-de*-rentzat proposatu dugun azalpena (*-te*-ren alomorfoa baino ez dela, alegia) berretsiko luke. Ohartu "nominal" eta "declinable" izenak *-tze* formekin bakarrik agertzen direla (*abolladura* eta *adelantamiento*-n, hurrenez hurren): nire ustez, Larramendiren ustetan aditzarekiko lotura gehien daukan *-tze* atzizki hau "izena" eta "joka daitekeena" ere badela azpimarratzeko egindako oharrak dira. "Verbal"-en kasua zeharo ezberdina da, oster, eta garaiko gramatiketan oso esanahi zehatza dauka. Ikus dezagun lehenik Nebrixa askoren maisuak honetaz dioena:

⁶⁴⁸ Azkarate (1992: 215) jadanik ohartu zen *-de*-ren erabilera honetaz.

Verbales se llaman aquellos nombres que manifiestamente vienen de algunos verbos; τ salen en diversas maneras: por que unos se acaban en *ança*, como de esperar, *esperança*; de estar, *estança*; de alabar, *alabança*; de enseñar, *enseñança*... (Nebrixa 1492: 185).

Eta orain Larramendik gramatikan egiten duen erabilera:

los nombres verbales se forman de muchos modos, dexando a parte el infinitivo primero y segundo, que son declinables con los artículos comunes, v.g. *janá, jateá, janarén, jatearén*, &c. Hablando de los verbales del activo, los que en Romance y Latin comúnmente se terminan en *or*, v.g. *doctor, lector, auditor*... (Larramendi 1729: 266).

Larramendik, beraz, *aditzetik eratoritzen den edozeini* ematen dio “verbal” izena gramatikan (artean *-tzaille, -le, -ari, -gile, -kin, -kor* eta *-koi* direla), ohiko dotrinarekin bat. Hiztegiko erabilera, ostera, bistan da murriztagoa dela, ez baitagokie era berean aditzetik eratorritakoak diren *-kera, -pen, -tura, -zio* eta antzekoei; *-anza-ri* ere (s.v. *adivinación*) dagokionentz zalantzazkoa iruditzen zait, gainera, “verbales”-en aurreko *iguertea, iguertzea-ri* bakarrik egotz baitakieke, agian. Dena dela, markak “aditzetik eratorritako izena” baino ez du esan nahi, eta haren erabilera murrizta “nominal” eta “declinable”-ri egotzi diedan berbera dateke: edozein euskaldunek lehen begiratuan izentzat hartuko lituzkeen *lotura* edo *aurrerapena* ez bezala, *-tze / -te-z* —“infinitivo segundo”az— eraturakoek zalantza zor zezaketen, guztiz Iparraldeko hiztegiileen usadioa (hots, infinitiboa aditzizenaz ordezkatzeara) ezaguturik. Nire ustez, beraz, ez dago hemendik aurreragoko ulerpenik egiterik, hitzaren tradizioaren eta Larramendiren erabilera arruntaren kontra joatea izango bailitzateke.

Orain artekoa laburbilduz, *-tze-k HH*-an aditzizenaren paper nagusia bilduko luke bere baitan, gainerako formak, aditzizenak ere izanik, izen-marka orokorrago gisa erabiliak diren bitartean. Adibidetegian dauden bikote eta are hirukote anitzetan lau formen arteko erlazioak zehazten saia gaitezke orain:

a) argiena *-tze* eta *-ta / -da*-ren artekoa da, diren bi bikoteak esanahikideak baitira:

Preposteración, *araulida, araulitzea*. Cf. Prepostero, *araulia, araulitua*.
Prostitución, *aragueita, aragueitzea*. Cf. Prostituir, *aragueitu, aragueitatu*.

Esandakoaren arabera, nolabait *araulida* eta *arageita* “izenago” dirateke, besteak beste *araulitze* eta *arageitze-k* aditzaren betebeharrak sintaktikoak ere egin ditzaketelako, haiek ez bezala.

b) Berbera esan behar da *-tze* eta *-de*-ren artekoaz: esanahikideak dira gorago aipatu “aliño” sarreran, eta nabarmenki bata bestearen lekuan jar daitezke ondokoan:

Degeneración, *etaustea, asturrundea, asturritzea*. Cf. Degenerar, *etautsi, asturritu, asturrundu*.

Hipotesia bermatua geratzen da, bestalde, *arindu* aditzaren ondorengo ezberdinak erkatzen ditugunean: *onzia arintzea* “alijo” (cf. “Alijar la nave, aligerarla, *onzia arindu*”) vs *arinde* “levedad” (*arintasun*-en esanahikidea), “presteza”, non *arintze*-ren adiztasuna *arinde*-ren abstraktutasunari kontrajarria agertzen den.

Zenbaitetan *-tze* zeregin arruntenerako eta *-de* berezitu edo arraragoetarako erabiltzen direla dirudi: *aldatze* “muda”, “mudanza” vs *aldande* “alteración”, “immutación”, *asmatze* “adivinación” vs *asmande* “quiromancia”, *azaltze* “enfundadura” vs *azalde*

“explicación”. Haatik, gehienetan zein non agertuko den aski ausazkoa dela esango nuke: adibidez, *argitze* jaun eta jabe da, *argide esclarecimiento*-pean bakarrik agertzen den bitartean, baina biak *argiera*-rekin batean agertzen dira (lehena s.v. *alumbramiento*), eta *lucimiento*-pean *argitze argitasun*-en esanahikidea da. Alderantziz, *aginde* da gehienetan kausitzen duguna, eta *agintze*-ren agerpena *eskeintze* sarrerakideari zor zaio, ziurrenik. Gonbara ditzagun, azkenik, *adindu I eta II*-ren (< *adin* eta *adina*, hurrenez hurren) ondorenak:

Tanteo, *adindea*, *becaindea* (cf. “Tantear, apuntar los tantos en el juego, *adindu*, *becaindu*”).

Templadura, *gogurriztea*, *goguirotzea*, *adintzea*, *nasarotzea* (cf. “Templar apetitos, &c. *gogurritu*, *goguirotu*, *templatu*” eta “Templar, moderar, *moderatu*, *adindu*”).

c) *-de* eta *-ta* / *-da* ez datoz bat behin ere: balirudike, hortaz, izengile berezi hauek banaketa osagarrian daudela *HH*-an.

d) *-te* eta *-ta* / *-da* ere elkarrekin egon daitezke (cf. “Pintura, en tabla, en lienzo, &c. *pintura*, *antzesta*, *antzestea*”), edota aditzaren esanahien artean ausazki sakabanatuak: *adierazte* “demonstración, señal, prueba”, “insinuación, de deseo, &c.”, “significación” (+ *senaera*, *senatzea*, *señaera*, *señatzea*) / *adierazta* “indicación” (+*eseicuntza*); *aldegite* “desvío” / *aldegita* “remoción”, “removimiento”, “separación” (+*paraguea*, *paraguetzea*, *partaguea*, *paraguetzea*, *berecigoa*, *bereiztea*). Behin bakarrik erabateko esanahi bereizkuntza egiten da: *arlante* “obra de cantería” vs *arlanda* “piedra sillar” (+ *arlandua*), zeinaren arabera, nolabait esanda, *-ta* / *-da* “objektuago” baita, eta *-te* “abstraktuago”.

e) *-te* eta *-de*-ren arteko erlazioaz beste horrenbeste esan daiteke: nahiz sarrera berean gutxitan izan (“Enderezamiento, *zucentzea*, *zucendea*, *arteztea*, *artezdea*”; gainerakoetan *artezte* bakarrik), zeharo esanahikideak direnetan sarri xamar aurkitzen ditugu: *arkite* “encuentro, en que se halla algo” (+ *idoropen*) eta *arkide* “hallazgo” (+ *idorogo*), *artzonte* “cortesanía”, “urbanidad” eta *artzonde* “civilidad”, *askite* “muchedumbre” eta *askide* “multitud”; benetako ordain gisa *araude* bakarrik agertzen da, baina *faraute*-ren etimologian *araute* eta biak esanahikidetzat jota daude. Nik ez dut aurkakotasun aipagarriarik antzematen, bestalde, *agerte* “descobertura”, “descubrimiento”, “manifestación” eta *agerinde* “aparecimiento” edota *alderagite* “propulsa, propulsión” eta *alderaginde* “apartamento” bikoteen artean, *-te* betebeharrak berezitu edo arraragoetarako erabili dela ez bada.

f) *-tze* eta *-te* tradiziozko formen artekoa gelditzen zaigu. Nire ustetan, oinarrizko bereizketa fonetikazkoa da, *-te*-ren oinarri eta adiera askatasun handiagoa maila apalagoan arituko litzatekeen bitartean; bikoteek honen aldeko ebidentzia eskaintzen dutela dirudi: berez, *-atu* eta *-itu* partizipioei dagokien forma *-tze* izanik, ez da harritzekoa *altxatze* “alzada”, “levantamiento” vs *altxate* “erección” eta *altzatze* “alzada” vs *alzate* “empino” bikoteak aurkitzea, non *-tze*-k betebeharrak arruntak eta *-te*-k bereziak egiten dituzten; antzerakoa da *arageitze* “prostitución” vs *arageite* “carosidad” bikotea, non lehena *prostituir*-en ordainetiki zuzenean datorren, bigarrena bakartuta dagoen bitartean. Honi jarraiki, Larramendiren sisteman *-rtu* aditzei berez dagokien forma *-te* da: erka bitez *agerte* “descobertura”, “descubrimiento”, “manifestación” eta *agertze* “epifanía” (< *CatLav*, ik. § 9.2.4.5), “registro”.

Laburbilduz, *-tze*, *-te*, *-de* eta *-ta / -da* aditzizenaren alomorfoak dira etorkiz, baina *-tze* paper horretan berezituta dagoen bitartean, *-te*-k nolabaiteko askatasuna erdietsi du, izenmarka orokorragoa izateko aukera baitauka; prozesu berbera pairatu dute *-te*-tik sortutako aldaerek (ahostuntzeaz sortutako *-de* eta *-ea / -a* zalantzatik sortutako *-ta / -da*). Hortaz, oinarria [-aditza] denean, ezinbestean *-tze* ez den zerbait aurkituko dugu, dela *-te* edota *-de*, dela *-te* edota *-ta / -da*, baina inoiz ez *-de* eta *-ta / -da* batera. Aitzitik, oinarria aditza denean, lauretatik edozein aurki dezakegu, baina (1) *-tze* eta *-te*-ren arteko banaketa fonetikoa dela eta, ez dira oinarri berarekin elkarrekin agertu ohi, inoiz edo behin sarrera ezberdinetan ez bada, halakoetan eskuarki Larramendiren sisteman bitxiagoa den formaren ahulezia ageri delarik; (2) *-tze* eta *-te*, zein bere aldetik, *-de* edo *-ta / -da*-rekin ager daitezke, dela sarrera berean, dela esanahi bereko edo beretsuko sarreretan: berez, baliokideak dira, eta hiztegi-gilearen erabakia izaten da bi forma ala bakar bat emango duen, eta haietatik zein, hautaketan gainerako ordainen izaerak (denak berdinak ala atzizkiak aldizkatuta) eragina izan dezakeela, baina gainerakoan banaketak aski ausazkoa dirudiela; aldaerak bakartuta agertzen direneko erdal sarrerak “normala” vs “arraroa” edota “berezitua” parametroen arabera neurtzeko egin ditudan saioak (zeintzuen arabera *-tze -de* baino “arruntago” eta *-de -te* bainoago direla dirudien) behin-behinekoak iruditzen zaizkit erabat, eta corpus zabalago batean sakontzea eskatzen dutela.

Hots-aldaketak: Gorago aipatu ditugunez gainerakoak hauek dira: (1) *u > ø + afrikatua > frikari* (*ainaldaste < ainaldatsu*); (2) haplologia (*arguimende < arguimendutu*); (3) *auskorride*-n *i* bat tartekatu da, eufonia arrazoiez apika.

Atzizki kateak: Hemen ere *-tze* eta gainerako formen arteko betiko aldea somatzen dugu, baina *-de*-ren berezitasuna inoizko nabarien agertzen da: (1) *-tze* ez da inoiz aditzak lehenbizi osatu dituen kateetatik kanpo agertzen: *adakaitze < adakaitu*, *aldiakatze < aldiakatu*, *atzaparkatze < atzaparkatu*; (2) *-te* bai batzuetan: *-kaitz + -te = adrakaizte* (cf. *anzokaizte < anzokaiztu*) eta ez (ukapena) *+ -te = ajolezte, ardurezte, arretezte* (cf. *aboezte < aboeztu*); (3) *-de*-k katea ausartagoak onartzen ditu: *-ari (aldedaride)*, *-zai (alorta zaide)*, *-kida (anizkidande < anizkidatu)*, *-kin (arraskinde < arraskindu)*, *-ro (astirode)*, *-kin ‘-gilea’ (atzenaikinde)*, *-dun (aurdunde)* eta *-kor (auskorride)*.

2.1.12. ‘Ekintza / ondorioa’ adierako gainerako atzizkiak

-ERA, -kera, -dera, -tera	orotara 65	lehenagoko lek. 2
----------------------------------	------------	-------------------

Atzizkiaren forma nagusia *-era* da, baina batzuetan *-kera* itxura ezagun eta *-dera* eta *-tera* ezezagunak hartzen ditu. Ez da erraza erabakitzen *-kera* noiz azalduko den: (1) herrikoia dirudi *azkera*-k, txistukari osteko testuingurua egokia dela ezaguna baita (Azkarate 1991: 63); errepara diezaiogun *-i*-ren galerari, *asier*a-n (1713) eta *azier*a erabateko esanahikidean ez gertatua; (2) bi adibidetan, *k* aditzoinarena da: *aldiakera < aldiakatu* eta *arrakera < arrakatu*; (3) *arraikera*-n, aldiz, testuingurutik zeharo aske erabilita dago, *i* ondoren *-era* oso sarri dago eta (*adiera, alai*era, *apaizgai*era, etab.). *-dera* *n* eta *r*-ren ostean agertzen da: *aitzindera*,

alargundera, arindera, aurdera (baina cf. *aitziner*a, *apainer*a, *atzen*era, *azken*era), eta badirudi, beraz, *-du* partizipio eta *-de* aditzizen markekin nolabait lotuta dagoela. *-tera*, azkenik, *aurtera*-n (*aurdera*-ren esanahikidean) bakarrik aurkitzen dugu, eta baliteke *r* osteko testuinguruaren zalantzazkotasunaren beste erakusgarri bat izatea.

Hiztegian hiru lekutan eman zuen Larramendik atzizki honen berri; lehena, garrantzitsuena, *acción* sarrerapean idorotzen dugu:

Item, se dize posponiendo al verbo el nombre *era*, que significa modo, y la acción en este sentido es modo de hazer u hazerse algo, acción de quemar, de andar, de sentarse, *erreera, ibillera, jarrera, &c.* y es más significativo y elegante (1745, s.v. *acción*).

Bigarrena, gazt. *era*-ren etimologian:

Era, posponiendolo a los verbales, significa el modo de acción, *ibillera* modo de andar, *sarrera* modo de entrar, o andanza, entrada, &c. (1745, s.v. *era*).⁶⁴⁹

Hirugarrena hitzaurrean, gaztelaniazkoa euskal atzizkitik datorrela aldezteko:

Lo mismo digo de la terminación *era* de otros nombres Castellanos, *zorrera, cansera, dentera, &c.* que la tomaron del Bascuence, y de su terminación verbal en *era*, v. g. de *etorri, sartu, ibilli, etorrera, sarrera, ibillera*, venida, entrada, andanza, o modo de venir, entrar, andar (1745: cxlix).

Deskribapena oso zehatza eta erabat ortodoxoa da, aditzoinari erantsita 'ekintza-modua' edo 'ekintza' huts-hutsean adierazten duen atzizkia baita (Azkue 1923-1925: § 12z; Azkarate 1991: 64), lehenago lekukotutako *akabera* eta *asiera*-n bezala (biak Otxoarengan; ik. § 9.3.1.2). Honelakoak dira corpuseko adibide anitz; cf., askoren artean, *adiera* (< *aditu* "entender"), *aitzindera* (< *aitzindu* "anticipar"), *aldiakera* (< *aldiakatu* "alternar"), *anbalera* (< *anbaldu* "venerar"), *apaizgaiera* (< *apaizgaitu* "tonsurar"), *aritadiera* (< *aritaditu* "raciocinar"), *arradaera* (< *arradatu* "rapar"), *aurpeera* (< *aurpetu* "rendir(se)") eta *aztaera* (< *aztatu* "tocar").

Alabaina, aditzizenean antzeman ditugunen moduko desbideratzeak daude atzizki honen erabileran ere: (1) gutxienez hiru —*andreera* "señoría, tratamiento para las señoras", *anzoera* "aplicación, cotejo" eta *artzeera* "acogida"— ezinbestean izenetik atereak dira: lehena eta azkena argiak dira; bigarrenari dagokion aditza beraren eratorria (*an(t)zoeratu*) denez gero, *anzo*-tik egina dela erabaki behar dugu; (2) bigarren osagaia aditzaren eratorria bada ere, *aobozaera*-k adiera abstraktua dauka ("mudez"), nahiz beste batean ("tapaboca", *aotapaera* bezala) kolpe-modu baten izena izan (cf. lat. "ictus in os impactus"); (3) hitz mordo bat gazt. *-dad / -tud* atzizki izen abstraktugileen ordain gisa agertzen da: *adiskideera, alargundera, alboera, alde(e)ra, anzinaera, arindera, arraikera, arrotzera* "importunidad", *astiera, atzen*era eta *azken*era; haietako batzuek (goragoko *aobozaera*-k bezala) 'ekintza' eta 'nolakotasuna' bi adierak dituzte: *aitziner*a, *argier*a eta *aurreera*. Hauen oinarria zein den zehatz-mehatz esaten ez naiz gauza: argiki izena dugu *alboera* edo *aldeera* bezalakoetan, eta aditzoina ez bada, gutxienez egilearen buruan ibili dela esango nuke *-dera* aldaera dutenetan (*alargundera, arindera*); gainerakoei dagokienez, adierak eskatzen du izenkia izan dadila. Talde berean sartu behar ditugu bestelako erdal abstraktuen ordaintzat agertzen direnak: *aisaera* (cf. *aisa*

⁶⁴⁹ Cf. s.v. *quedar* "...era, modo, acción".

“holgadamente”), *aitaide(e)ra* (< *aitaide* “(pariente por) agnación”), *aitakidaera* (cf. *aitakide* “compadre”), *alaiera*, *amaera*, *arrotzera*, *atzeera*, *atzerriera*, *aurdera* eta *aurtera*, eta hauen artean bik (*aitakidaera* eta *amaera*-k) oinarrian aditza dutela dirudi, nahiz *amar*-en etimologiak (*ama*-tik, hain zuzen) bigarrenarena izena ere izan litekeelakoan uzten gaituen; (4) orain *sarrera* / *irteera* bikotean ongi ezagutzen dugun garapenezko ‘lekua’ adiera *asiera* “boca de calle...”-n kausitu dugu; (5) *aldapera* eta *aldatsera* antzeratsu uler daitezke, baina *HH*-an agertzen diren *aldaperea* eta *aldatserea* mugatuetaetik egin dudan interpretapenak direla aitortu behar dut. Bistan da, lehenik, analogiaz bata bestearen etorkian egon daitezkeela; nabaria iruditzen zait, bestetik, bietatik bat —*aldaperea* ziurrenik— herrikoia dela; nire zalantza, hortaz, bukaerarako bestelako azalpenik egon litekeelakoan (*-behere?*) datza;⁶⁵⁰ (6) beste gertakari ezagun bat dugu: *aurpegieraz* “adivino... por las señas de la cara” azalpenaren azpian agertzen da; (7) *azalkerea* “barbarie” bitxia da alde askotatik; nire ustetan, baliteke *azalkeria*-ren ordeztu egotea (§ 12.2.10.2, 38. oh.).

Hots-aldaketak: (1) *a* + *e*-ren ondorio normala *ae* da (*aipaera*, *aisaera*, *aitakidaera*, *akusaera*, etab.), baina lehenago lekukotutako *akabera*-k erakusten duen *a* + *e* > *e*-ren adibide gehiago ditugu corpusean: ? *aldapera* (< *aldapa*), *aldiakera* (< *aldiakatu*), *arrakera* (< *arrakatu*), *arrastera* (< *arrastatu*) eta *aterera* (< *ateratu*); (2) *e* + *e*-rena, halaber, *ee* izan ohi da (*adiskideera*, *andreera*, *artzeera*, *aurpeera*, *atzeera*, *aurreera*), baina *aserrera* dago, eta bai *aitaidera* / *aitaideera* eta *aldera* / *aldeera* zalantzak ere; (3) azalpen teorikoetan jasotzen dituen *ibilera* eta *jarrera* gorabehera, corpuseko adibideek txistukari bukaeradun aditsoinek *-i* galtzen ez dutela erakusten digute: *asiera* (lehenago lekukotua), *aziera* eta *autsiera*; salbuespen bakarra, jadanik azpimarratua, *azkera* da; (4) *z* > \emptyset (*anzaera* < *anzaztu* “gobernar”).

Atzizki kateak: (1) *-tze* + *-era* (*artzeera*); katea bitxia den arren, ‘hartzeko modua’ (“acogida”) dela gogoratu behar dugu; (2) *-(k)ide* + *-era* (*adiskideera*, *aitaide(e)ra*).

-PEN, -MEN, -mendu, -mentu	orotara 28	lehenagoko lek. 10
-----------------------------------	------------	--------------------

Adibideen arabera, Larramendik bestetan baino literaturan-eta laguntza gehiago aurkitu zuen atzizki talde honen eratorriak biltzeko: aurretiaz lekukotutako adibideen batzuetakoak hauek dira: *-pen* (3/13), *-men* (4/10), *-mendu* (2/4) eta *-mentu* (1/1). Alderantziz ere adieraz dezakegu: ez dirudi atzizki forma hauekin hitz berri gehiegi egin zuenik, bereziki *-mendu* / *-mentu* bikotearekin; areago, ziurrenik *-mentu* ez da emankorra *HH*-an, eta *-mendu* baliteke oso neurri txikian baino ez izatea: *arguimendu* dateke adibiderik argiena, *arguitu*-tik zuzenean jaulkia (vs *argumentu* 1571, *HH*-an ez jaso) eta *arguimen*-en aldamenen ezarria.⁶⁵¹

⁶⁵⁰ Cf. Corominasen etimologi proposamena *aldapa*-rako: *alde* + *-be*, *-pe* (*MDEL V*, s.v. *aldapa*).

⁶⁵¹ Hau ezin hobeto dator Lakarrak (1993: 344) antzeman duen gertakari batekin: Harrietengandiko hitzetan badirudi Larramendik *-mendu* zenbait beste atzizki batzuek ordezkatu zituela edo, gutxienez, beste atzizkidunak bilduta izanik, ez zituela aintzat hartu; hona bere adibideak: *beeratzapena* “abatimiento” ~ Ht *beheramendua* “abaissement”; *segurundea* “aseguración” ~ Ht *seguramendua* “assurance”. Argi dago, bestalde, literaturan irakurritako hainbat *-mendu* alde batera utzi zituela: cf.

Zalantzarik gabe, une batetik aurrera atzizki hau pittin bat zokorarazi duen arrotz usainak (De Rijk 1991: 726) eragina izan du honetan. *HH*-an atzizki ordezkapenik izan den ala ez jakiteko, A letra baino corpus zabalagoaren gainean lan egin beharko da; gure corpusaren arabera, izan litezkeen adibide bakarrak bi dira, eta bietan *-pen* dago *-mendu*-ren orde: *agerpen* (cf. Harb *agermendu*) eta, batez ere, *aitzinapen* (Ax, Ch, ES *aitzinamendu*). Erdizkako saioa dateke *aurizkimen(du)*.⁶⁵²

Oinarri-ondorioak ohikoak dira (cf. De Rijk, *op. cit.*): (1) izena + *-men* > iz. ‘edukiera’ (*amen, aomen, ahumen*);⁶⁵³ (2) aditzoina + *-men, -mentu* ‘ahalmena, gaitasuna’ (*adimentu* 1621, *almen*); (3) aditzoina + *-pen, -men, -mendu* ‘ekintza / ondorioa’ (*agerpen, aipamen, antolamendu, etab.*). Eskema honetatik at dagoen adibide bakarra —*aierupen* “indicio”— ez da Larramendirena, ezpairik gabe Etxeberri Sarakoaren hiztegitik hartua baizik (ik. § 10.1.4.2).

-men eta *-pen*-en arteko auziari buruz, gogoratu behar dugu, ezer baino lehenago, zentzurik hertsienean *HH* dela Hegoaldean jasotzen dituen lehen testua (De Rijk, *op. cit.* 734).⁶⁵⁴ Baliteke, beraz, egun euskalki hauetan maila jasokoak diren moduan (*ib.* 724), orduko hitzun gipuzkoar eta bizkaitar gehienentzat ezezagunak izatea; nolana ere, argi dago De Rijk-ek bildutako lekukotasunen arabera euskara jasoko bihurtu zuena *HH*-az geroko erabilera izan zela. Gauzak honela, baliteke, halaber, Larramendik ezer gutxi edo ezer ez jakitea hauetaz, Iparraldeko testuetan ikasi zuenaz gainera eta, hortaz, bertatik atera zituen iritziak izatea *HH*-ko erabilera eratu zutenak.

Erabilera honi buruzko zertzelada zenbait bederen jadanik eman daitezke, De Rijk-en hipotesia funtsean ontzat emanaz: (1) *-men* ‘ahalmena’ atzizkiari dagokionez, *almen* bera bakarrik kausitu dut corpusean; ahalmenak —adierarik hertsienean— izendatzeko bestelako baliabideak erabili zituen, guztiz *-kin* atzizkia (§ 2.1.4): cf. “Pensamiento, entendimiento,

aitzinamendu, akusamendu, akometamendu (Ax) edo *akotamendu, adbenimendu, adbertimendu, aitzinaramendu, apointkamendu, arnegamendu, abanzamendu* (Lç), *-men* eta *-pen* urriak denak jasota dituen bitartean (Ax *aipamen, ahamen, hats-beherapen*; Lç *aipamen*).

⁶⁵² Erabakia lotuta egon daiteke aditzaren zabalkundearekin; alegia, *aurizkimendu*-k *-mendu* hartu edo gorde zezakeen *aurizkitu* Iparraldeko hitza —eta han ere ez oso erabilia— den heinean, *agertu*-ren orokortasun eta *aitzinatu*-ren zabalkunde handiagoaren aldean.

⁶⁵³ Azken batean, hitz bakar bati buruz ari gara, *a(ha)men*-ez, alegia: *ahumen* “bocado” ziurrenik errata dugu —iturrikoa? ik. 9.2.7.3—; *aomen* sarrerakidea haren ulerpen etimologikoa; eta *amen* “parte”, “pedazo”, Hegoalderagoko hizkeraren batean entzundako hitza (§ 12.2.5).

⁶⁵⁴ De Rijk-ek zehazten du Kardaberatzen *Cristavaren vicitza* (1744) dela egiazki lehena, baina argitalpen ezberdinen kolazioa egin gabe izateaz gain (berak 1850ekoa erabili du), dagoeneko *HH* inprentan zen, dakigunez (I, § 9.3); egiantzekoa da, bestalde, Kardaberatzen erabilera eta *HH*-koa lotuta egotea, dela Larramendiren eragin zuzenez, edo dela Iparraldeko literaturaren bitartekotasunez. Nolanahi ere, bidenabar baino ez bada, merezi du Karaberatzen lan honekiko dagoen data-dantza behin betikoz argitzea: izan ere, Larramendiren lekukotasuna (*Escritos breves* 136) ezin zalantzan jar daiteke: 1744an argitaratua da lehenengoz, ondoko lerro batean “el año pasado de 1747” dioenez gero, ezinezkoa baita 1760koa (*Kardaberatzen OO. CC.*, 25-26) edo 1774koa (Villasante 1979: 146) lehenengoa izatea. Beraz, aurreiritzi guztiek atzeratu badute ere, Kardaberatz dugu —baita Aita Manuelen hitzetan ere— iraultzaren lehen ezkutaria, eta ez Mendiburu.

adimentua, pensamentua, ustequiña, gogaquiña.⁶⁵⁵ (2) *-pen* atzizkiaren adibide gehienak forma nagusiari dagozkio: lehenago lekukotu gabekoak bakarrik aintzat harturik, *-pen*-ek 9 adibide ditu, eta *-men* aldaerak 3 baino ez, haietako bat *-mendu*-z lagundua eta, hortaz, berak baldintzatua (*aurizkimen, aurizkimendu*). (3) *-men* aldaerak ederki zurrizten dira De Rijk-en (*op. cit.* 718-721) sistemaren barruan: *apartamen*, dela (3a) edo dela (2b) arauaren arabera; *arrapamen* (3a = 3b) arauaren arabera.

Hots-aldaketak: afrikatua > frikari (*auspen*).

-KETA, -geta	orotara 23	lehenagoko lek. 0
---------------------	------------	-------------------

Atzizkiaren forma nagusia *-keta* da, baina *l* eta *r* ostean *-geta* ahostuna ager daiteke (*biurgeta, azalgeta, arbilgeta*), nahiz gutxitan betetzen den araua izan (cf. *agerketa, aizkolketa*, etab.); badirudi ez betetzeko arrazoiatarik bat —nagusiena, agian— herrikoitasuna izan zela: honek azalduko luke, besteak beste, zergatik *-n*-ak (Larramendiren sisteman ahostuntzea errazkien eragiten duen ozena) ez duen adibiderik eskaini (cf. *apainketa*).

Oro har, *HH*-an lekukotzen den eran erabilita, atzizkia Mendebaldekoa da, ustez behintzat, eta honela azal liteke corpusean behin ere lehenagoko agerraldirik ez izatea.⁶⁵⁶ Egun ezagutzen dugun moduan,⁶⁵⁷ *NON* kasuan erabiltzen da batipat, eta *HH*-an erabilera honen adibideak badira (*anreketan* “(andar) divertido”, *ardazketan egon, egin* “hilar”, etab.). Ikus dezagun etimologia batean nola deskribatzen duen:

...la terminacion de movimiento *queta, jostaqueta, ardazqueta, &c.* (1745, s.v. *raqueta*).

Oinarriak bi dira, hain ohar laburrean ongi adierazten duen bezala: (1) aditzoina: *abalzizketa* ((*h*)*izketa*-ren elkartua), *adobaketa, agerketa, anyereketa* (< *anyeretu* “adamarse”), *apainketa, arbilgeta* (*bilgeta* < *bildu*), *argi biurgeta, argiketa, aribeaketa* (< *aribeatu* “(hacerse) aleve”), *arradaketa* (< *arradatu* “rapar”), *arriketa* (< *arritu* “pasmarr”), *arteketa* (< *artetu* “terciar”), *azalgeta* eta *anzinaketa* (< *anzinatu* “antiquado”); (2) izena: *aizkolketa, andraketa, anraketa* (<

⁶⁵⁵ Derradan, bide batez, hauxe dela De Rijken lanetik argi geratu ez zaidan kontu nagusia: nola azal daiteke ematen dituen *-men* atzizkiaren adibide ia guztiak Larramendiren ostekoak (Ubillosen ostekoak zehazkiago, agian) eta Hegoaldekoak izatea? Cf. *EH*-an gora eta behera ibiliaz erdietsi ditudan data hauek: *adimen* (1800, *adimendu* 1545), *asmamen* (1905), *dastamen* (1957, *tastamen* 1918), *entzumen* (1785), *hautamen* (1956), *ikusmen* (1785), *irudimen* (1897, *irudimendu* 1808), *ukimen* (1919, *ukimendu* 1782), *ulermen* (1955) eta *usaimen* (1918). Nire ustetan, adiera berezitasun honen erabilera XIX. mendetik aurrera goraka joan den berrikuntza bat izatea oso egiantzekoa da.

⁶⁵⁶ Cf., dena dela, eta adibide modura *apainketan* aditz forma (*TAV* 3.1.5) eta *elheketan, gosalketan, hitzketan* eta *gogoeta* (Axular), baita Azkaratek (1994: 56) bildu Oihenarten *elhaketan, pensaketan* ere.

⁶⁵⁷ Oro har gaizki deskribatuta dagoela uste dut, baita *-(k)eta*-ren gainerako erabilerekin dituen loturak ere. Cf. Azkue 1923-1925: §§ 106 eta 155. *OEH*-ak egiten dituen interpretazio zenbait (*-ketan*-etik erauzitako izenak izan daitezkeela, alegia; cf. s.v. *andraketa*, adib.) oso interesgarriak izanik ere, gehiago zehaztu beharko da, denak halakoak ala alderantzizko kasuak ere ba ote diren jakiteko.

anre ‘emakumea’), *ardazketa*, *ardiketa*,⁶⁵⁸ *arkakusoketa*, *artzaiketa*, *atxalketa* (< *atza*) eta *azaoketa*.

Badirudi adostasuna dagoela atzizki hau ez perfektibotzat jotzerakoan (cf., adibidez, De Rijk 1991: 718); alderdi honen ondorio normalak dira, beraz, hurrengo hauek: (1) ‘ekintza’ (*agerketa*, *aizkolketa*, *apainketa*, *arkakusoketa*, etab.); (2) ‘-ketan aritzearen ondorioa’ (*adobaketa* “embón”, *azaoketa* “tramojo”). Hauetako batzuek, bilakaera logikoaz, adiera berezia hartzen dute gaztelaniari begiratzen badiogu: (3) ‘-ketan aritzearen artea’ (*ardazketa* “(arte de) hilar”) eta (4) izen abstraktua: *andraketa* “rufianería” (cf. *andraketa* *ibili* “rufianar”), *anraketa* “deshonestidad”, *aribeaketa* “alevosía”. Ondorio bitxiak dira, berriz, ondokoak: (5) *anzinaketa* “antigualla”, oinarriaren arabera ‘antzinatu dena’ da; eta (6) *artzaiketa* “idylio”, *ad sensum*-eko ordain argia,⁶⁵⁹ eta *abalzizketa* “melodrama”-rekin batera aztertu beharrekoa.⁶⁶⁰

Hots-aldaketak: (1) afrikatua > frikari (*ardazketa*); (2) *-r(a) > l* (*aizkolketa*); (3) *e > a* (*andraketa*, *anraketa*); (4) oinarri barruko txistukariaren aldaketa: *atxalketa* (< *atza*).

-DURA, -tura, -ura	orotara 15	lehenagoko lek. 4
---------------------------	------------	-------------------

Atzizkiaren forma nagusia *-dura* da; *-tura* testuinguruaren araberako aldaera izan ohi da (txistukari ostekoa *ahantzura* eta *aztura*-n, *-t* ostekoa *antura* eta *lotura*-n), baina behin (*askatura*) arrazoirik gabekoa: gainerako laurek lekukotasun zaharragoak dituztela⁶⁶¹ jakinik, aise ondoriozta daiteke *askatura* Larramendiren hitza dela eta, hortaz, ez zuela aldaeraren benetako izaera menperatu. Azkenik, kontsonante gabeko *-ura* bi hitzetan (*adiskiura* eta *arregura*-n) kausitzen dugu.

-dura aditzoinari eransten zaio, eta ‘ekintza / ondorioa’ adiera demaio, adibide gehienek, zaharrak barne, erakusten duten bezala; hona zailenak: *algaindura* (< *algaindu* “coser”), *antzadura* (< *antzatu* “manejar”), *atzekidura* (< *atzekitu* “rabosear”). Bi adibide ez dira deskribapen honetan erraz sartzen: *adiskiura* “cabida, amistad” eta *aurdura* “barriga, preñez”, ziurrenik izenaren gainean eratuak, besteak beste.

Hots-aldaketak: (1) afrikatua > frikari (*ahantzura*, *aztura*); (2) *-a + -ura > ura* (*arregura*); (3) haplogia + disimilaziozko desagerpena (?) *adiskide + -(d)ura > adiskiura*.

⁶⁵⁸ Etimologiara jo behar dugu zein izen den eta zergatik ulertzeko (§ 6.5).

⁶⁵⁹ Cf. *DAut*: “Poema corto y festivo, con narraciones y representaciones de sucesos alegres o poesías pastoriles”.

⁶⁶⁰ Azken hitz honen etorkirako, ik. § 8.1.

⁶⁶¹ Ez dut lortu *ahantzura*-ren iturria zehaztea, baina begibistako arrazoiek Iparraldeko iturri idatzi bat (Etxeberri Sarakoaren hiztegia, ziurrenik) izan zuela sinestarazten digute (ik. § 12.2.9).

-TZA₃	orotara 18	lehenagoko lek. 2
-------------------------	------------	-------------------

Salbuespenik gabe, aditzoinari *-tza* erantsiz ‘ekintza / ondorioa’ adierako eratorriak lortzen dira. Deigarria da elkartuen bigarren osagaien honelako hitzen maiztasuna, batzuetan zertxobait desitxuratuta badaude ere:⁶⁶² *ahaikobatza* eta *aidebatza* (< *batu*), *adipaitza* (< *adipaki*), *aldimaitza* (< *eman*), *araujakintza*, *artukitza* (< *ukitu*), *asbiurtza* (< *biurtu*). Ene ustetan, *-tze* atzikiaren alomorfotzat hartu zuen Larramendik, *-te* / *-ta* bikotearen antzera, eta honexek azal ditzake *-tza*-ren erabileran antzemandako berezitasunak; cf. *argitza*, *argitzea* “dilucidación” edo *arpetza*, *arpetzea* “interpretación” bikote argiak (I, § 8.5.2.1).⁶⁶³

Hots-aldaketak: (1) *-n* bukaerako aditzetan *i*-dun forma zaharra ageri da: *aldimaitza* (*emaitza*); cf., bestalde, *adipaitza* (< *adipaki*); (2) *z + tz > tz* (*arpetza* < *arpeztu*).

-AIRA, -kaira, -aida	orotara 13	lehenagoko lek. 0
-----------------------------	------------	-------------------

Corpuseko adibide guztiak berriak dira. Itxura denez, *mintzaira* (1712) bezalako hitzetatik erauzi eta bestetara hedatu zuen atzizki hau. Bi aldaera aurkitu ditut: *-kaira* (*akerkaira*), ziurrenik oinarriaren *-r* bukaera saihesteko erabilia; eta *-aida* (*atzeraida*), seguraski disimilazioz.

Oinarria aditzoina izaten da: v.g. *alogaira* < *alogatu* “remendar”, *arkedaira* < *arkedatu* “resplandecer”, *aztiaira* < *aztiatu* “pronosticar”; *artepaira epaira* “taja, cortadura”-z (< *epaitu*) eta *aisakondaira kondaira* “narración”-ez (< *kondatu*) osatuta daude. Izena da, berriz, *akerkaira* “cabronada” eta *aldaira* “immediación”-en (< *alde*). Adieraren aldetik ez dago ezer berezirik.

-ZIO	orotara 5	lehenagoko lek. 2
-------------	-----------	-------------------

Gutxi batzuetan (*akusazio*, *azkenunzio*) mailegua onartu bazuen ere, deigarria da *-zio*-ren *HH*-ko erabilera, urria baina ez topikoa: corpusaren arabera, euskararen barruan egindako eratorriak gehiengoan daude: *asmazio*, *aukerazio* eta, oinarria mailegatua izan arren, *absolbizio*, *absolbitu*-ren eratorria, zeharo tradizioz kanpokoa, lehenago lat. *absolutio*-tik edo haren ondorio erromantzeetatik mailegatutako formak (Leizarragaren *absoluzione* lekuko; ik. *OEH*) erabiltzen ziren bitartean. Denek aditzoina dute oinarrian, eta ‘ekintza / ondorioa’ adiera.

⁶⁶² Elkartuen bigarren osagaiaren aldaketek ik. § 3.2.3.3.

⁶⁶³ *EGH*-aren azterketan (I, § 1.3) adibide eder bat aurkitu dugu: *aokitzea* “bocanada” (*HH*) > *aokitza* (*EGH*).

-KUN(T)ZA	orotara 3	lehenagoko lek. 3
------------------	-----------	-------------------

Corpusaren arabera, Larramendik tradizioan (idatzian batez ere) aurkitutako adibideak jasotzeaz beste lanik ez zuen egin atzizki honetaz.⁶⁶⁴

-KUN, -unde	orotara 7	lehenagoko lek. 0
--------------------	-----------	-------------------

-kunde atzizkiaren *HH*-ko ordezkariak aski bitxi eta urriak dira eta, nolnahi ere, orain forma nagusitzat hartzen dugunaren gailentzea baino lehenagokoak. Alde batetik, nolabaiteko maiztasunaz *-kun* itxuran⁶⁶⁵ aurkitzen da: zalantzarik gabe Mendebaldean ezaguna den *-kune* alomorfoaren *-kun(a)* aldaera herrikoi bat jaso zuen Larramendik eta, neurri txikian bada ere, emankor bihurtu. Bestetik, *-unde* hasierako kontsonante gabeko aldaeraren bi lekukotasun eskaini zizkigun; forma lehendik ezaguna zen (cf. *jakiunde*, c. 1678);⁶⁶⁶ dena dela, *adiunde* bezalako hitz “fakultatiboak” Larramendiren burutik jalgitakoak direla dirudi.⁶⁶⁷

Ohiko oinarria aditza da, eta eratorria ‘ekintza / ondorioa’ adierakoa. Salbuespen bi: (1) *arrizkun*, *arriz* adizlagunetik eratorria; eta (2) *adiskiunde* “amistad” izen abstraktua. Alabaina, azkenak ez luke salbuespen izan behar, Iparraldeko idazle zaharren erabilera (Azkarate 1991: 67) eta gipuzkera zaharrean ondo lekukotutako *jakiunde*-k (1713; *HH*-an “sabiduría”) erakusten diguten bezala.

Hots-aldaketak: (1) afrikatua > frikari (*ardieskun*, *arteskun*); (2) *adiskide*-k *-de* galtzen du (*adiskiunde*; cf. *adiskiura* ere).

-ADA₃	orotara 4	lehenagoko lek. 0
-------------------------	-----------	-------------------

Hona Larramendik eskaintzen digun deskribapena:

...la terminación *da*, y significa el modo de la acción (1745, s.v. *algarada*).

Oinarria onomatopeia izaten da (*bunbada*) edo *-ka*-dun eratorria (*andizkada* < *andizkatu* “encarecer, exagerar”, *aztarkada* < **aztarka* vs *aztarriaka* (*ibili*) “revolcarse”); bestalde, *HH*-an ez dago *askarrada* “daño”, “ruina”-ren oinarria zein den jakiteko aztarnarik. Sortzen diren hitzek ‘ondorioa’ adierazten dute eskuarki, nahiz *HH*-ko adibide zenbaitetan ‘ekintza / ondorioa’ adiera soma daitekeen.

⁶⁶⁴ Gogoratu *Erans*-aren azterketan atzizki honi buruz esandakoa (II, § 1.2.7.2).

⁶⁶⁵ Larramendirentzat *-kun* zela sinisteko bi argibide ditugu: *aitorkuntegi* eta, batez ere, *arteskunean*.

⁶⁶⁶ *OEH* eta *EH*-ak 1713 (Otxoa) dakarte lehen agerraldizat, *CatAnz*-en lekukotasun garrantzizkoa (cf. Arejita 1985) ahazturik.

⁶⁶⁷ Azpimarratzekoa da corpusean ageri ez den *-gun* aldaera baten hainbat adibide daudela gramatikan: *onesgun* ‘amor’, *izigun* ‘susto’, *hilgun* ‘desmayo’, *bostgun* ‘lustru’ (Lakarra 1993: 351). Ikertzaile berak, gehiegi zehaztu gabe, *HH*-an aipatutako itzulpenaren azpian berragertzen direla zioen. Orain gehixeago zehatz dezakegu: denak daude, *izigun* izan ezik, dakidalarik, eta *bostgun*-en ordez *boskun* agertzen da.

-AN(T)ZA, -anzia, -enzia	orotara 16	lehenagoko lek. 7
--------------------------	------------	-------------------

Badirudi oro har atzizki honen lekua bazterrekoa izan dela euskaraz, maileguzko hitz anitzekin batera sartua, corpusean *HH* baino lehenagoko agerraldiak dituzten hitz gehienak lekuko (*abstinenzia, akaban(t)za, alabanza, arroganzia, atrebenzia, (arzai)-bitanza*): berez, euskaraz emankorra izan ez den eta erromantzeko forma ezberdinak (*-anza, -ancia, -encia*) gorde dituen heinean, nekez esan daiteke euskal atzizkia denik. Salbuespen gisa aipatu behar dira, beraz, forma bakar bat (*-an(t)za*, gehienetan frikariaz) hautatuta eta euskal oinarriak erabilia *HH*-an ugari aurkitzen diren eratorriak.

Larramendi *-an(t)za* (beste zenbait atzizki bezalaxe) euskal etorkikoa zela sinistuta zegoen. Kasu honetan, eusk. *an(t)za* hitzarekin zuzenean lotu zuen, *alabanza*-ren etimologian ikus daitekeen bezala: "Alabanza, es voz Bascongada: sin añadir ni quitar letra significa semejanza de hija". Hau da hitzaurrean eman zuen azalpena:

Las terminaciones *anza, ance, ancea, anzo, anzoa* en Bascuence son voces significativas, aunque no son terminaciones, y según los varios dialectos significan *similitud, semejanza, aire, apariencia*, y también guardan essa significación en composición. *Anza badu*, ya se parece, ya tiene semejanza, y lo mismo es *ancea, anzoa badu*. *Guizanzic, guizon-anzic eztu*, no tiene apariencia de hombre. Y de aquí no será muy extraño el creer que aun en la composición Castellana, *esperanza, andanza, bonanza, matanza, mudanza, &c.* guardaría en lo antiguo la misma significación, aunque hoy la aya perdido (1745: cxlviii).

Ohiko oinarria aditza da, eta eratorria 'ekintza / ondorioa' adierakoa. Bizpahiru adibidetan, aldiz, oinarria izenkia-edo da eta ondorioa izen abstraktua: *aisantz* "holganza" (cf. *aisa* "holgadamente"), *apaidinanz* "padrinazgo" (< *apaidin* "padrino") eta *aurrenanz* "adelantamiento, dignidad" (< *aurren* "adelantado, dignidad"). Abstraktua da, halaber, *askantz*-k "soltura, agilidad"-en hartzen duen adiera.

2.1.13. 'Ugaritasuna' edo 'maiztasuna' adierako izenondogileak

Deskribapen klasikoen arabera,⁶⁶⁸ sail honetako bi atzizkiak izenei eransten zaizkie, baina *-ti*-k batez ere 'maiztasuna' adiera ezartzen duen bitartean, *-tsu*-k 'ugaritasuna' adierazi ohi du.

HH-an, oinarri berri gutxi batzuek gainera,⁶⁶⁹ bi atzizkien arteko nolabaiteko ezberdintasun eza somatzen da: atzizki bateko eta besteko hitzak sarrera berean agertzen dira (*agindet* eta *agindetsu, alait* eta *alaitsu, anzit* eta *anzitsu, araut* eta *arautsu, aserret* eta *aserrets, azalt* eta *azaltsu*), edota, ezberdinetan agertu arren, badirudi hautapena ausazkoa dela (*arretati* "atentado" / *arretatsu* "aplicado", *austi* "polvoroso" / *autsu* "cenizoso").

⁶⁶⁸ Ik. Azkue 1923-1925: §§ 172 eta 173, eta Villasante 1981: 130-132.

⁶⁶⁹ Usuenik izenondoa, nahiz oso adibide gutxitan (eta *-tsu*-ri dagokionez, ikusiko dugun bezala, lehenagoko adibideren bat badago); kasu hauetan, bistan denez, oharkabea edo bestela, marka pleonastikoa da.

Ezberdintasuna, halako bikoteetan, *-ti-ri* egotzi ohi zaion gaitzespen kutsuak azal lezake *adasti* “greñudo” / *adatsu* “melenudo”-n; *arageiti* “deshonesto” / *arageitsu* “venéreo” eta *arroti* “arrogante” / *arrotsu* “esponjoso” bikoteek, ostera, [+gizakia] tasuna batez ere *-ti-ri* dagokiola erakusten digute.

-TI, -i	orotara 53	lehenagoko lek. 3
----------------	------------	-------------------

Lekukotu eta lekukotu gabeko hitzen arteko proportzioak berehalakoan erakusten digu Larramendik eratorbidean erabili zituen atzizkietatik bat dela.

Forma nagusia beti bat den arren, adibide argi batean kontsonante gabeko aldaera ezezaguna (*aieri* vs *aieriti*) agertzen zaigu.

Oinarriak: (1) izen bizigabea: hemen kokatzen dira adibide zahar guztiak; hona zailenen azalpena, eta ohartu gehienak izen abstraktuetatik atereak direla: *andigoiti* (< *andigo* “magnificencia”), *andigoti* (< *andigo* “presunción”), *antusti* (< *antuste* “presunción”), *anuti* (< *anu* “cobardía”), *anziti* (< *anzia* “vigor”), *arkusti* (< *arkusi* “lustre”), *artukizti* (< *artukitza* “escrúpulo”), *artzonti* (< *artzonte* “cortesanía”, “urbanidad”), *aspesati* (< *aspesa* “duda”), *astirodeti* (< *astirode* “prolijidad”), *audiati* (< *audia* “altivez”), *autakinti* (< *autakin* “libertad”); (2) izen biziduna: *abereti*, *andratí*, *andreti*, *anyereti*; (3) izenondoa: *arroti*,⁶⁷⁰ *aurrenti*; (3) izenordaina: *alkarti*; (4) *aurkizuti*-k oinarri elkartua dauka (§ 3.1.7).

Ondorio arrunta izenondoa [+gizakia] da, baina corpusean badira tasun hori ez daukaten adibideak: (1) animaliei egokituta: *alorti* “(cuervo) merendero”; (2) [-biziduna]: *araudeti*, *arauti*, *arkaizti*, *arrati*, *arti*, *austi*, *azalti*, *azarti*. Areago, *aurrenti* “gerarcha” gaztelaniazko izen baten itzulpen gisa agertzen da.

Hots-aldaketak: (1) afrikatua > frikari (*adasti*, *arkaizti*, *artukizti*, *austi*); (2) *e > a*: *ahalkati* (vs *ahalketi*), *aserrati* (vs *aserreti*); (3) haplologia: *antusti* (vs *antusteti*), *artzonti*; (4) *a > ø* (*artukizti*), *i > ø* (*arkusti*); (5) mugatzailea kendu gabe: *arrati* (vs *arti*).⁶⁷¹

Atzizki kateak: (1) *-de + -ti* (*agindetí*, *araudetí*, *astirodetí*); (2) *-tza + -ti* (*artukizti*); (3) *-kin + -ti* (*autakinti*).

-TSU	orotara 60	lehenagoko lek. 15
-------------	------------	--------------------

Lekukotutako hitzen maiztasunak (%25) atzizkia oso bizirik zegoela erakustez gain, Larramendik gehiena egina aurkitu zuela adierazten du.

⁶⁷⁰ Berarekin batera aztertu behar da, ezinbestean, *arruti* paronimo eta esanahikidea, baina honen etorkiaz, ik. § 8.2.

⁶⁷¹ Kasu honetan *-a*-rekin eta gabe emateko arrazoi sendoak dauzka: ik. § 8.2.

Oinarriak: (1) izena, emankorrena; hona zenbaiten azalpena: *ainaldatsu* (< *ainalda* “precio”), *antetsu* (< *ante* “ardid”), *aputiotsu* (< *aputio* “ultraje”), *asmegokitsu* (< *asmegoki* “prenuncio, presagio”), *autokatsu* (< *autoka* “deseo”), *azalkeretsu* (< *azalkerea* “barbarie”); (2) izenondoa: *andientsu*, *arraitsu*, *arrotsu*; (3) *azañotsu*-n atzizki ordezkapena baino ez dago, oinarria erdal hitzarena delarik; (4) *amurutsu*, *amurustu*-ren familiarik erauzia, analogikoa da, antza denez; (5) eta *amutsu* ziurrenik *amulsu*-ren ordezeko hutsa (ik. § 9.2.7.3).

Ondorioak: (1) ‘x (asko / handia) daukana’ adierakoak izaten dira; (2) berezienak *aitatsu* “paternal” eta *astatsu* “borriqueño” dira, biak erlazio-izenondoen itzulpen gisa eskainiak.

Hots-aldaketak: (1) *-ts + tsu > -tsu* (*adatsu*, *autsu*); (2) *o > a* (*astatsu*); (3) *r > ø* (*adatsu*); (4) *t > ø* (*arretsua* vs *arretatsu*); (4) mugatzailea gordea (*atzatsu*).

Atzizki kateak: beti izengileen ondoan agertzen da: (1) *-era + -tsu* (*adieratsu*); (2) *-de + -tsu* (*agindetsu*); (3) *-men + -tsu* (*almentsu*).

2.1.14. ‘Jatorria’ adierako izenondogileak

-(T)AR, -dar	orotara 55	lehenagoko lek. 3
---------------------	------------	-------------------

Honela aurkezten du Larramendik *-(t)ar* atzizkia:

...otro adverbio pospositivo, y es *tarra* o *arra*, v.g. *Bizcaitarra* Bizcaíno, *Españarra* Español, *Gaztelarra* Castellano, *Erritarra* paysano, &c. (1729: 328).
 ...*tarra*, nota de pertenecer una cosa a otra (1745, s.v. *cimitarra*).
arra terminación pospuesta, es nota de possession, vecindad, habitación (1745, s.v. *guitarra*).⁶⁷²
 ...y *arra* terminación que denota *al que es de* (1745: lxxiii).

-ar alomorfoa eskuarki *-a-z* amaitzen diren hitzetan agertzen da (*afrikar*, *aintzizar*, *aitar*, *aldear*, etab.), nahiz zalantza adierazten duten bikoteak izan (*aldear / aldeatar*, *asiar / asiatar*) eta ez beti-beti bete (*amatar*, *arabiatar*). Beste horrenbeste esan daiteke *-o* bukaeraz ere: *aldizgoar*, *astoar* baina *astotar*.

-dar ozen ondoko inguruneak eragin ohi du: *aitalendar*, *antzesandar*, *artzikindar*, *arzaingar*, *askijakindar*, *asteaskendar* (baina *adimentar*, *adimentu*-gatik ezpairik gabe), *axaldar*, *lonbardar* (baina *argidortar*). Salbuespena *aosdar* da.

Gainerakoan, *-tar* beste ingurune guztietan nagusi agertzen da; salbuespenak oso gutxi dira, eta gehienek *-ar*-ekiko zalantza adierazten dute: (1) *-e* ondoan: *abrear* (baina *aberetar*), *azitetxear*; (2) *-i* ondoan: *ardiar*, *auzkiar*, *aziar*; (3) *-u* ondoan: *apostoluar*. Badirudi *-ar* erabiltzeko joera bi silabadunetan areagotzen dela.

Oinarriak: (1) izen berezi bizigabea: *afrikar*, *arabar*, *arabiatar*, *asiar*, *asiatar*, *asturiar*, *lonbardar*; (2) izen arrunta, gainerako hitzetan.

⁶⁷² Etimologia gehiagotan agertzen da: “...*arra*, terminacion indicativa de possession, lugar, vezindad” (s.v. *herrada*), “...la terminación *arra*, *tarra*, que significa acción, ejercicio, posesión de lo precedente, como en *goiztarra*, *gautarra*” (s.v. *socarrón*).

Ondorioak: (1) izen bereziko oinarriekin beti 'jatorria' adierazten du; talde berean sartu behar dira oinarrian izen arrunta daukaten zenbait hitz ere: *aintzirar*, *aitzaditar*, *aldear*, *aldeatar*, *aldiritar*, *artekaizetar*, *aurketar*, *aurretar*, *auzkiar*, *azitetxear*. Alabaina, Larramendirentzat [+gizakia] tasuna (hots, 'nongotarra' adiera zehatza), atzizki honen ezaugarri nagusia, ez da ezinbestekoa: izen bereziaren gainean eraturakoetatik zenbait (*arabar*, *lonbardar*) agerrian gauzei egotzi dizkie; beste horrenbeste esan daiteke izen arrunteko zenbaitez, guztiz *aintzirar*, *aurketar*, *aurretar* eta *auzkiar*-i buruz; (2) *auzkiar* "superficial" bezalakoetatik abiatuta, antza denez, gainerako adibideek 'x-i dagokiona' adiera daukate eta, azken finean, gehienak erdal erlazio izenondoan (bereziki *-al* atzizkiaren)⁶⁷³ itzulpen gisa agertzen dira,⁶⁷⁴ jadanik Azkaratek (1992: 211-212) aurreratu zuen legez.

Hots-aldaketak: (1) afrikatua > frikari (*aosdar*, *aunztar*); (2) *e > ø* (*argidortar*); (3) haplologia: *adimentar* (< *adimentu*); (4) *-de* atzizkidun oinarriko hitzetan, haplologiaz edo bestela, *-dar*-ek *-de*-ren lekua hartu du: *antzesandar* (< *antzesande* "parábola"; cf. *antzesandeko* sarrerakidea), *artizkindar* (< *artizkinde* "orthographía"), *askijakindar* (< *askijakinde* "filología"); era berean, *ainbate* "identidad"-etik *ainbatar* ateratzen da.

Atzizki kateak: izen abstraktugileak bakarrik agertzen dira atzizki honen aurrean: aipatutako *-te* / *-de*-z gain, *-go* + *-ar* (*aldizgoar*).

2.1.15. 'Joera / zaletasuna' adierakoak

Larramendik sail honetako atzizki nagusiak (*-koi* eta *-kor*) balio eta ia oinarri berekoak bailiran aurkeztu zituen gramatikan (Azkarate 1992: 211):

Los verbales del neutro y passivo se forman con las terminaciones *cor* y *coi*, que con el artículo se dicen comúnmente *corra* y *coia*, cuya fuerza es significar lo dispuesto, inclinado y fácil para algo, v.g. de *ibilí* andar, *ibilcorra* andariago; de *iragán* o *iragó* passar, *iragancorra* fácil de passarse o transitorio; de *emán* o *emón* dar, *emacorra* fácil y dispuesto a darse; y también *ibilcoi*, *iragancoi*, *emacoi*. Esta formación se estiende también a varios nombres, *barrencoi*, intrínseco, interior y retirado; *campocoi*, extrínseco, superficial y amigo de bulla (1729: 267-268).

Hitzegian iritzi horri atxiki zitzaion, sarritan bikoteak eginaz: *aldakor* eta *aldakoi*, *amuruskor* eta *amuruskoi*, *arakor* eta *arakoi*, *ardunkor* eta *ardunkoi*, *arkor* eta *arkoi*, *askakor* eta *askakoi*, *aurrerakor* eta *aurrerakoi*. Alabaina, *-kor* gehiago jaso zuen, beharbada menperatzen zuen tradizioan (Leizarraga, Axular) hobeto lekukotuta dagoelako. Bestalde, gramatikan jadanik antzeman daitekeen bezala, izen oinarriko eratorriak denak *-koi*-rekin eginak dira, baina oinarri horretarako *-zale* nahiago du. Hirukote bakarra *arkor*, *arkoi* eta *artuzale*-k osatzen dute.

⁶⁷³ Beharbada ez genuke alde batera utzi behar hotsen aldetik bi atzizkiak, beren txikian, hain antzekoak izateak zerikusiren bat izan lezakeela.

⁶⁷⁴ Itxuraz definizio honetan sartzan ez den *hermanable*-rako, cf. *DAut*: "Lo que toca o pertenece al hermano...".

-KOR	orotara 29	lehenagoko lek. 3
-------------	------------	-------------------

-tze aditzizenen edo -tzaile 'egilea' adierako izenen emankortasunera iristen ez bada ere, nabarmena da -kor eratorpen errazeko atzizkia izan zela Larramendirentzat, eta A letraren hasieran bederen euskal familia etimologikoak DAut-ek ez dakartzan sarrerak erantsiaz osatzeko baliatu zuela; hala bada, dagokien aditzaren azpian, "amigo de adelantarse" (*aitzinakor*, *aurrakor*, *aurrerakor*) eta "fácil de agusanarse" (*harabarkor*, *ardunkor*, *arreztakor*) gehitu zituen.

Oinarria aditzoina izaten da; hona zenbaiten azalpena: *aakalkor* (< *aakaldu* "anhelar"), *harabarkor* (< *harabartu*), *arakor* "portatil" (< **aratu*), *argedakor* (< *argedatu* "retener"), *arkidakor* (< *arkidatu* "inducir"), *arreztakor* (< *arreztatu* "agusanarse"), *atsalkor* (< *atsaldu* "anhelar"), *atzipekor* (< *atzipetu* "engañar"); birritan (*autsikor* vs *auskor*, *aztukor* vs *azkor*) partizipioa dago oinarrian.

Ondorioak: (1) 'erraz -tzen dena' da gehienetan (sarrienik DAut-ek definizioan zehaztua; adib.: "ENAMORADIZO. El que fácilmente se enamora", "FLACO DE MEMORIA. El que con facilidad se olvida de las cosas"), eskuarki NOR aditzoinekin, baina *arkor* 'erraz hartzen duena' da; (2) 'eragilea': *adierazkor* "indicativo" (cf. DAut: "Lo que indica o es capaz de indicar..."), *arkidakor* "inductivo" (cf. DAut: "Lo que tiene eficacia para inducir, o que induce"), *argedakor* "retenedor" (cf. lat. *tenax*).

Hots-aldaketetan azpimarra dezakegun gertakari bakarra $i > \emptyset$ da: *ahanzkor*, *amarazkor*, *anzkor*, *auskor* (baina *autsikor*).⁶⁷⁵

-KOI	orotara 16	lehenagoko lek. 1
-------------	------------	-------------------

Oinarriak: (1) izen konkretua [\pm biziduna]: hau da atzizkiaren tradiziozko oinarria eta lehenagoko lekukotasun bakarrean dagoena: *agintarikoi*, *aldeko*, *aldiakoi*, *ameskoi*, *aragikoi* (1741); (2) -kor-ekiko kutsaduraz, itxura denez, aditzoina aski sarri hartzen du, baina garrantzitsua da askotan -kor-ik ez den sarreretan agertzen dela ohartzea: *aldakoi* "tornadizo", "tornillero", etab., *amilkoi*, *anizkidakoi* (< *anizkidatu* "comunicar"), *arregakoi*, *artekoi* (< *artetu* "entremeter").

Ondorioak: (1) lekukotutako formak adierazten duenez, -koi-ren adiera 'zalea' izan ohi da (*aragikoi* "carnal, lujurioso" 1741), baina 'joera' ere izan daiteke: *agintarikoi* (cf. DAut: "Lo que manda u domina eficazmente"), *aldiakoi* "maniático", *anizkidakoi* (cf. DAut: "Lo que (...) tiene aptitud o inclinación a comunicarse"), baita agian *arregakoi* ere (cf. DAut: "Lo que se riega"); (2) -kor-en eraginez, 'erraz -tzen dena' adiera nagusi dabil, ostera: *aldakoi* "mudable", *amilkoi*

⁶⁷⁵ Era berera azaldu beharko da *adierazkor* "indicativo" ere, baina ohartzekoa da *adierazi* ezagutzen bazuen ere, s.v. *indicar adierazo* eta *adiarazi* bakarrik daudela jasota.

“rodadero, lo que rueda fácilmente”, *amurusko* “enamorado”, etab.; (3) *aldeko* izena da, izenondoa eta izenaren arteko lerraduraz (§ 5.2.1), antza denez.

-ZALE	orotara 17	lehenagoko lek. 3
--------------	------------	-------------------

Oinarriak: (1) izena, lehenago oso ondo lekukotua: *andrazale*, *antustezale*, *arageizale*, *aragizale*, etab. etab.; (2) partizipioa: *artuzale*.

Ondorioak izena / izenondoa [+gizakia] eta, Larramendik itzultzen duen bezala, “amigo, aficionado a algo” adierakoak dira.⁶⁷⁶

Hots-aldaketak: atzizki kenketa: *auziabartzale* (< *auziabartza*);⁶⁷⁷ baliteke, dena dela, atzizki galduak azken forman eragina izatea: erka bedi *aurzale*-rekin.

-TIAR	orotara 1	lehenagoko lek. 0
--------------	-----------	-------------------

Ekialdeko atzizki honek⁶⁷⁸ agerraldi bakarra du gure corpusean (*aizetiar*); honegatik, badirudi ezagutzen ez dugun iturriren batetik erdietsi zuela.

2.1.16. ‘Gaitasuna’ adierakoak

Bi atzizki batzen dituen saila da: *-gari* eta *-kizun*. Larramendik lehena askoz gehiago eta adiera gehiagotan erabiltzen du baina, dena dela, badira bikote zenbait, ‘daitekeena’ adieran esanahikidetzat hartzen zituelako erakusgarri gisa: *adigarri* eta *adikizun* “inteligible”, *apartagarri* eta *apartakizun* “separable”, *argari* eta *arkizun* “acceptable”, *askagarri* eta *askakizun* “soluble”, *asmagarri* eta *asmakizun* “acertable”.

-GARRI₂	orotara 56	lehenagoko lek. 5
---------------------------	------------	-------------------

Nahiz hainbeste agerraldi izan, Larramendik behin bakarrik aurkezten du atzizki hau, eta ez oso zehatz:

...de *gal*, *galdu* y la terminación verbal *garría*, con que se significa perdición, destrucción (1745, s.v. *galga*).

Oinarria beti aditzoina da, partizipioa daukan *artugarri*-n izan ezik.

Ondorioak: (1) lekukotasun zaharretan (*ahalkagarri* eta *arrigarri*, XVII ea.) ‘eragilea’ adierazten du (izenak egiteko balio duen *-gari*-tik oso gertu, noski), hala nola Larramendik

⁶⁷⁶ *Arageizale*-rako, cf. *DAut*: “...[el] que se dexa llevar de los deleites y gustos...”.

⁶⁷⁷ Baliteke, dena dela, atzizki galduak azken forman eragina izatea: erka bedi *aurzale*-rekin, non txistukari afrikatua —edonola ere aski normala leku horretan *HH*-an— arazorik gabe gorde den.

⁶⁷⁸ Ik. Azkue 1923-1925: § 211, Villasante 1981: 121, eta berriki Irigoien 1996.

lehendabizikoz jasotzen dituen hainbatetan: *ahaikagarri*, *adierazgarri*, *alaigarri*, *argigarri*, *arikagarri*, *askagarri*, etab.; gogora ditzagun *RS*-ko itzulpenak, ezin adierazgarriagoak: *RS 11 aberasgarri* “aparejo para enriquecer”, 254 eta 280 *galzaigarri* “causa de perdición”; (2) lekukotasun batek (*adoragarri* 1684) ‘-tzea merezi duena’ adiera islatzen du; oro har gazt. *-ble* askoren kideak eratzeko balio du eta *HH*-ko adibideak ere ez dira gutxi: *alabagarri* “loable”, *arretagarri* “reparable, digno de observación”, *aubengarri* “lamentable”, *aukezarri* “despreciable”, etab.; (3) Urteren hiztegian bakarrik jasotzen diren *argarri* (I, 73) eta *autagarri*-n (I, 220) erabilera berriago, eta gerora egundoko gorakada izan zuen baten lehen oihartzuna dugu.⁶⁷⁹ *-garri* atzizkia ‘daitekeena’ adierako eta orokorki lat. *-bilis* eta haren ondoren erromantzeen (fr. eta gazt. *-ble*) itzulpen bilakatu duena. Honelako adibideak ugari aurkitzen dira hemen, eta ziurrenik *HH*-ak ere zerikusiren bat dauka aldaketaren hedakuntzan: *adigarri* “inteligible”, *aitzakiagarri* “disculpable”, *akomodagarri* “acomodable”, *aldongarri* “convertible”, *anizkidagarri* “comunicable”, *anzundegarri* “comparable”, etab., etab. (4) *arrigarri* “pasma” eta *atsesgarri* “sufocación, ahogo”, izenak diren arren, ezin dira ‘baliabidea’ adierako *-garri* izengilearen barruan kokatu, ‘ekintza’ adierazten baitute (cf. etimologiako *galgarri* “perdición, destrucción”), *-garri* izenondogilearen ‘eragilea’ adierarekin lotuta: badirudi, beraz, izenondo eta izenaren arteko muga labankorraren beste bi adibide baino ez direla (§ 5.2.1).

Hots aldaketak: (1) $i > \emptyset$ (*autesgarri*, baina *asigarri*, *autsigarri*); (2) $n > \emptyset$ (*atsegigarri*); (3) $a > \emptyset$ (*aitzakigarri* vs *aitzakiagarri*).

Atzizki kateak: *-ezgarri*-rako, ik. § 4.1.14.

-KIZUN, -izun	orotara 9	lehenagoko lek. 1
----------------------	-----------	-------------------

Oinarriak ohikoak dira (Mitxelena 1977a: 245): aditzoina eta izena. Aurretiaz lekukotutako bakarra (*amaizun* XVII h.) izen oinarriko bakarra da aldi berean.

Ondorioak: (1) ‘daitekeena’, adibide ia guztietan; (2) ‘-tzeke dagoena’: *andikizun*, *azikizun* “crecedero” (cf. *DAut*: “Lo que está en aptitud para crecer”).

Hots aldaketak: *-i* gordea (*azikizun*).

Atzizki kateak: *-ezkizun*-i buruz ik. § 4.1.14.

2.1.17. ‘Jabetza’ adierakoak

-DUN, -tun	orotara 65	lehenagoko lek. 9
-------------------	------------	-------------------

Larramendik honela deskribatu zuen etimologia batean:

...viene de *sortuna*, *sortzeduna*, el de los sucesos, nacimientos (1745, s.v. *fortuna*).

⁶⁷⁹ Azkaratek (1992: 216-217) jadanik, Urteren bestelako adibideak erabiliz, azpimarratu bezala.

Lehenago lekukotutako hitzetan *-dun* formak bakarrik badaude ere (*ahaldun* XVII ea., *adardun* 1596, *arthadun* 1715, etab.), *-tun* alomorfo ezagunaren adibideak ez dira gutxi *HH*-an, sarrienik txistukariaren ondoren (*aiztun*, *alkabuztun*, *artikastun*, *austun*, etab.); salbuespenak bi erakoak dira: (1) ingurune egokirik gabeko *ahaltun* / *altun* bikotea, ziurrenik antroponimiak azal dezakeena (§ 8.2); eta (2) ingurune egokia izan arren, *-dun* daukatenak (*aldasdun*, *andezdun*, *anzdun*, *aranzdun*, *arusdun*).

Oinarriei dagokienez, etimologian erabiltzen duen badaezpadakoa gorabehera, atzizki honen jatorriak eskatzen duen osagarri zuzena izan daitekeen edozein egitura posible bada ere, *HH*-an —oro har euskaraz bezala— izen sintagma nagusi da, (1) ia beti izena bera, adibide zahar guztietan bezala; hona ezezagunenak: *adieragoidun* (< *adieragoi* “alegoría”), *aldimaitzadun* (< *aldimaitza* “comisión”), *alegokidun* (< *alegoki* “potencialidad”), *alikeztun* (< *alikez* “impotencia”), *andezdun* (< *andeza* “edema”), *antusidun* (< *antusi* “ambición”), *arpeztun* (< *arpetza* “definición”), *artukiztun* (< *artukitza* “escrúpulo”), *arusdun* (< *aruts* “pausa”); (2) ‘izena + izenondoa’: *ezpata andidun*, *likurta arritudun*; (3) [izena + *anza* / *anzo*] moduko elkartea: *loro anzadun*, *arrano anzodun* (ik. § 3.1.6.2); (4) zenbatzailea: *amalaudun*, *amardun*; (5) oinarri elkartua: *adialdun* (< *adi(tu)* + *a(ha)l*). Esan gabe doa (2)-tik gorakoak direla berriak izateko aukera gehien dutenak, baina ondorioetan aurkituko dugu oinarria baino froga indartsuagorik.

Dena dela, badira tradizioa apur dezaketen hiru adibide, azalpenaren zailagatik, besteak beste, inolako zalantzarik gabe berriztat jo beharrak: *alpedun* “apoderado”-ren aldamenean *alpetu* “apoderarse”, *artikastun* “estudioso”-renean *artikasi* “estudiar” eta *arikadun* “bulle bulle”-renean *arika* “fatiga” eta *arikatu* “afanar” baino ez ditugu. *Ikastun* bera < *ikaste* + *-dun* izanik (Azkarate 1991: 79), benetako oinarria izena dela egin dezakegun arren, praktikan bistan da Larramendik aditza bakarrik kontuan hartuaz —eta, agian, *jostun* bezalakoen oihartzunez— egindako hitza dela. Beste horrenbeste esan behar dugu *alpetu*-z eta, ziurrenik, *arikadun*-ez ere.

Berez, atzizki honen ondorioak —benetako edo ustezko jatorriak baldintzatuta⁶⁸⁰— ‘x duena’ adierako izenondoak dira, [+biziduna] eta, oso oker ez banago, [+gizakia] tasunekoak beti edo ia beti, haietatik gutxi batzuk izen gisa lexikalizatuak; tradiziozko adibideak bakarrik erabiliat, alde batetik izenondoak (*ahaldun*, *adardun*, *arthadun*, etab.) eta bestetik izenak (*artzedun* eta *artzekodun*) genituzke. Xehetasunetara jaisten garen bezain laster Larramendik berrikuntzak —eta aski sistematikoak, gainera— egin zituela ageri da: (1) *-dun*-ek bere eremutik atera gabe erdal erlazio-izenondo zenbaiten euskal ordainak eskaintzen ditu, hala nola *antustedun* “altivo”, *arretadun* “reflexivo” edo *asmadun* “asmático”, baina analogiak bakarrik azal ditzake *-al*, *-ico* eta *-ivo*-ren [-biziduna] tasuneko ordainak, ‘x duen zera’ adierakoak: *adialdun*

⁶⁸⁰ Cf. Azkarate (1991: 79): “Jatorriari dagokionez garbi dago *duen*-en laburduratik sortua dela, honen ondorioak oinarriaren kategorian argi ikusten direlarik”. Alabaina, baliteke jatorria garbiegia izatea egiazkoa izateko edo, bestela esanda, herri-etimologiak kutsatuta egotea. Alde honetatik, adierazgarria izan liteke jadanik Axularrek *hartceco duna* (243) zein *hartceco duena* (244), biak erabiltzea, ez bere hizkeran, ez eta hizkera gehienetan ere *duna* erlatibozko forma normala ez den arren. Bestalde, dakidalarik azaldu gabe dago bere erlazioa *-duri* / *-duru*-rekin.

“intelectivo”, *adieragoidun* “alegórico”, *agindedun* “preceptivo”, *alegokidun* “potencial”, *arpeztun* “definitivo”; (2) halaber, inoiz *-dun* gazt. *-oso*-ren baliokidea izan daiteke, *ahaldun* “poderoso” bezala; *HH*-ko hainbat adibidetan, *-oso*-k [+ugari] edota *-dun*-ek [+biziduna] tasunak galdu dituzte: *aiztun* “peñascoso”, *alositun* “armonioso”, *andezdun* “edematoso”, *aranzdun* “espinoso”, *arzulodun* “cavernoso”, *austun* “cenizoso”; (3) antzera esan daiteke gazt. *-udo* atzizkiaz eta [+handia] tasunaz: *astaldun* “pantorrilludo” (cf. *DAut*: “El que tiene las pantorrillas mui gordas”), *azaldun* “cascarudo” (cf. *DAut*: “Cosa que tiene grande y gruesa la cáscara”); (4) [-biziduna] tasuneko beste zenbait adibide: *aldapadun*, *aldasdun*, *amizkledun*, *ansidun*, *loro anzadun*, *arrano anzodun*, *araudun*,⁶⁸¹ *argidun*, *arkaiztun*, *likurta arritudun*; (5) izenen sorta aski hedatu zuen Larramendik, batez ere gazt. *-ero* atzizkidunak itzultzeko baliatuaz: *aldimaitzadun* “comisionario”, *alpedun* “apoderado”, *amarrendun* “diezmero”, *ezpata andidun* “montantero”, *anodun* “porcionista”, *arratzadun* eta *arrazkodun* “atabalero”, denak ez badira gehienak berak eratutako ordainak dirateke; (6) izenen aldetik berrikuntzarik nabariena *amalaudun* eta *amardun*-en dago, [-biziduna] tasunaz gainera, zenbakiekin *-ko* itzarongo baikenuke (cf. *biko*, *hamarreko*, etab.).

Hots-aldaketak: (1) *a* > \emptyset (*andezdun* < *andeza*); (2) afrikatua > frikari: *aiztun*, *aldasdun*, *arkaiztun*, *arusdun* (< *aruts*), *austun*; (3) *a* > \emptyset + afrikatua > frikari: *arpeztun* (< *arpetza*), *artukiztun* (< *artukitza*), baina *aldimaitzadun*.

Atzizki kateak: beti atzizki izengileak agertzen dira: (1) *-tze* + *-dun*; (2) *-ko* + *-dun* (*artzekodun*); (3) *-de* + *-dun* (*agindedun*); (4) *-tza* + *-dun* (*aldimaitzadun*, *arpeztun*, *artukiztun*); (5) *-men* + *-dun* (*almendun*).

-DURI	orotara 1	lehenagoko lek. 1
--------------	-----------	-------------------

Iparraldeko atzizki hau (Azkue 1923-1925: § 217) ez da emankorra *HH*-an, corpusaren arabera liburuetatik erdietsia baizik: *axolduri* (1635).

-KO₃, -go	orotara 86	lehenagoko lek. 12
-----------------------------	------------	--------------------

Deklinabide atzizki hau dela eta, ‘lekua’ eta ‘denbora’ adierazten dutenak alde batera utzita, eratorbidean ‘eutea’ adieraren inguruko izenlagunak aztertzen ari dira, *-dun*-ekin lehian dabiltzalako (Azkarate 1991: 80), ziurrenik elkarren arteko mugak definitu beharrez. Honezaz gainera, erabakian zerikusiren bat dauka, nik uste, lehenek (Hegoaldean bederen) plurala ez onartzeak ere (*begi urdineko* vs *begi urdinetako*). Legez jokatuta, ostera, ziurrenik *-ko* atzizkiaz

⁶⁸¹ *OEH*-aren arabera, Larramendiren aurreko lekukotasun bakarra eskaintzen duen *Pouvreauk* “conueniens” itzulpena demaio, latinarengatik agian Etxeberri Ziburukoaren hiztegitik hartua. Latinezko hitzak bi adiera, bata [+gizakia] eta bestea [-biziduna], dauzkan arren, badirudi Iparraldeko lekukotasun hau *-dun*-i bestetan ere bideak irekitzen ari zitzaizkiolako lekuko ona dela.

egindako izenak, guztiak lexikalizaziotzat —eta ez eratorritzat— hartu beharko genituzke, eta izenlagunak, berriz, gehienak ez lirateke ezta maila horretara ere iritsiko. Orain artean alde honetatik lasai jokatu baldin badut, esan gabe doa orain ez naizela estuago arituko; aitzitik, azalpenak zergatik ohi baino lasaiago jokatu dudan zurrizko balio dezake: zeren eta erdarareuskarara hiztegi bat aztertzen ari garenez gero, bai baitirudi *-dun / -ko* lehia bezain interesgarriak izan daitezkeela bestelakoak (*-ko* eta *-tar*-en artekoa, adibidez), deklinabidearen eta eratorbidearen arteko muga teorikoak gorabehera.

Oinarrien aldetik, ez dirudi arazorik dagoenik: (1) gehienak izenak dira: *adimentuko*, *adindeko* “preciso” (< *adinde* “precisión”), *adineko*, *aditzako* “mental” (< *aditza* “entendimiento”), *agindeko*...; (2) sintagma konplexuagorik ere aurkitzen da inoiz: ‘izena + izenondoa’ (*arimandiko*, *aztinanza gaiztoko*) eta, beti *-tako* forman, ‘izena + zenbatzailea’ (*aldebitako*, *aldeguzitako*); (3) oso oinarri garrantzitsua da instrumentala (*abarrazko*, *adarrezko*, *adimentuzko*...); (4) aintzat hartzekoak dira, halaber, zenbait hitz gramatikal (*adinako*, *aintzatako*, *anbateko*, *aronzko*); (5) aditzondoa birritan aurkitu dut, segida arruntean (*aldizkako*) eta ezohikoan (*arteroko* < *artero*, baina cf. *eguneroko* bezalakoak); (6) *-kiko* (*anbatekiko* “talión, pena”); eta (7) *-tako*, goikoez gainera, “común, ordinario” sarrerapean bakarrik, zenbatzaile zehaztugabeekin (*anitzetako*, *askitako*, *askotako*).

Adieraren aldetik, Larramendik han-hemen ematen dituen xehetasunok bildu ahal izan ditut:

...o de *ats*, *atsa* y la partícula *co*, y juntas significan cosa de porquería (s.v. *asco*).
 ...la terminación *coa*, que es determinativa de lugar y acción (s.v. *juego*).
 ...*coa*, terminación que fija el nombre al lugar, tiempo u materia, como en *barcoá*, *gaurcoa*, *echecoa*, *angoa* (s.v. *largo*).

Ondorioak: (1) ‘lekua’ adierakoak (*aitzadiko* “serrano”, *albokideko* eta *aldekideko* “colateral”, *alboko* eta *aldeko* “cercano”, *aldameneko* “lateral”, *aldiriko* “comarcano”, *aoko* “bocal”, *aronzko* “ulterior”, *arteriako* “arterial”...) eta metaforikoak (*altzoko* “faldero”); (2) ‘denbora’ adierakoak (*arrastegiko* eta *arratsaldeko* “vespertino”); (3) bietakoak (*asierako* “inicial”, *aurreko* eta *aitzineko* “delantero”, “previo”). Honainokoak espero izatekoak dira, baina badute guretzat esanguratsua den ezaugarri bat: salbuespenik gabe, aipatutako sarreretan ordain guztiak *-ko*-dunak dira, salbu eta ‘jatorria’ adierazten dutenetan (*aitzadiko* eta *aitzaditar*, *aldiriko* eta *aldiritar*). Maila honetan ez dago, beraz, *-ko* eta *-tar*-en arteko inolako nahasterik.

Interesa dakigukeen lehenengo muga *-dun* eta *-ko* bereizten dituen da: (1) [±biziduna] tasuna jokoan dagoenean, bereizketa argia da: *amarrendun* “diezmero” vs *amarrenge* “decimal, de diezmos”; beste horrenbeste gertatzen da Larramendik bi adiera ezberdin islatu behar dituenean: (2) *-dun*-erako ‘eutea’ eta *-ko*-rako ‘lekua’ edo ‘denbora’ aukeratzen ditu: *altzodun* “haldudo” vs *altzoko* “faldero”, *araudun* “ajustado, conforme” vs *arauko* “puntual”; (3) edo *-dun*-erako ‘eutea’ eta *-zko*-rako ‘zerezkoa’: *aranzdun* “espinoso” (Cf. *DAut*: “Lo que tiene o está lleno de espinas”) vs *aranzezko* “espíneo” (cf. *DAut*: “Cosa hecha de espinas...”). Larramendiren belarriaz mintzo zaigu sarritan lehena erdal izenondo baten orde eta bigarrena euskal ordain perifrastikoetan agertzea: *argidun* “luciente” vs *argizko ingurua* “aureola”, *utsarte argizkoak*

“(lúcidos) intervalos”, *austun* “cenizoso” vs *autsezko loizokia* “cernada de albeitares”; (4) beste bereizketa batzuk baliteke ausazkoak izatea, baina ez oharkabekoak, ziurrenik: *agindedun* “preceptivo” (cf. *DAut*: “Lo que incluye o encierra en sí precepto”) vs *agindeko* “promisorio” (cf. *DAut*: “Lo que encierra o incluye en sí promessa”). (5) corpusean bikote bi soilik harrapatu ditut: *arrotzerako*, *arrotzeradun* “importuno” eta *anzdun*, *antzeko* “semejante”; bigarrenenako, cf. *loro anzadun* “apapagayado” eta *arrano anzodun / arrano antzako* “aguileño”; derradan, dena dela, *gisako* eta *erako*-rekin egiten dituen antzeko egiturek berdinketa hausten dutela (ik. § 3.1.6.2).

Bigarren bereizketa *-ko* eta *-zko*-ren artekoa da. Garrantzitsuena jadanik somatu dugu: *-zko*-k ‘zerezkoa’ adierazten du normalean, espero zitekeen bezala:

El Romance tiene unos casos que parecen del genitivo de posesión, y son en Latín, o del ablativo o son adjetivos, v.g. cabeza de oro, mano de plata, hombre de madera; y estas locuciones en Bascuense no son del genitivo, sino del adjetivo, v.g. *urrezcó buruá*, *cillarrezcó escuá*, *zurezcó guizoná*, como también en Latín *caput aureum*, *manus argentea*, *homo ligneus*. Y la razón es, porque los substantivos que significan la materia de que se compone algo, forman adjetivos en *ezcó*, como en Latín en *eus*, *urré*, *cillár*, *zur*, *aurum*, *argentum*, *lignum*, *urrezcó*, *cillarrezcó*, *zurezcó*, *aureus*, *argenteus*, *ligneus* (Larramendi 1729: 263).

Honelako hitzak gehienetan ez dira berez ordainak, ordain perifrastikoen osagaiak baizik: goikoez gainera, *adarrezko* (s.vv. *aliara* eta *cuerna*), *adriluzko* (s.v. *frogar*), *albornozko* (s.v. *albornoz*), *amodiozko* (s.vv. *acto de amor* eta *prenda de amor*), *amorezko* (s.v. *serafín*), *anakardozko* (s.v. *anacardina*), *argizagizko* (s.vv. *agnus* eta *bujía*), *arizko* (s.v. *albendolo*), *arlandazko* (s.v. *sillería*), *arraultz irinezko* (s.v. *albardilla*) eta *azukrezko* (s.v. *alcorza*, etab.) bildu ditugu. Ez da harritzekoa: honelakoek nekez daukate sarrera berezirik erdaraz; jadanik ikusi dugu (I, § 4.4.3.1) hau dela eta “cosa de...” tankerako esapideak erantsi behar izan zituela Larramendik: corpusean *adarrezko* “(cosa de) cuerno” daukagu. Halaz ere, badira ordain arruntak ere (*abarrazko* “carrasqueño”, *aragizko* “carnal, cosa de carne”, *arrizko* “lapídeo”, *arrokazko* “roquero, de roca”, etab.). Bereziagoak dira *adituazko testigua* “testigo de oídas” formaz, eta batez ere *aurkegoitzazko* “presencial” adieraz, zeren eta ‘x-i dagokiona’ peto-petoan adierazten duen erlazio izenondo baten ordain gisa agertzen den *-zko* bakarria baita; dena dela, sarrerako ordain guztiak honelakoak dira (*presenziazko*, *betandezko*, *bertandezko*).

Gauza guztiak ez dira hain gardenak, ostera: otoitza zer da, *adimentuzkoa* ala *adimentukoa*? Badirudi Larramendi bigarrenaren alde dagoela: *aoko otoitza* (s.v. *bocal*) eta *adimentuko* “mental”, baina *adimentuzko otoitza* (s.v. *oración*) jaso zuen Leizarragarengandik (§ 9.2.4.1). Alabaina, horrekin batera *agindeko* eta *agindezko* “promisorio”-n bakarrik bat datoz bi formak.

Amaitzeko, Azkaratek (1992: 211) jadanik iragarri zuen, iragaitzaz, *-ko* atzizkia gaztelaniazko erlazio-izenondoen ordain izan daitekeela *HH*-an, *-(t)ar* atzizkiarekin batera. Batetortzeren bat bada ere (*antzesandeko* eta *antzesandar* “parabólico”, *anziako* eta *anziar* “genial”, *ainbateko* eta *ainbatar* “idéntico”), eskuarki zein bere aldetik dabilta: (1) *-tar* atzizkiak [+biziduna] oinarria beretzat gorde du, salbuespenik gabe; (2) gainerako oinarriekin, berriz, *-ko* gehixeago aurkitzen dugu; (3) adieraren aldetik bereizkuntzaren bat soma daiteke, hala nola ondorioaren [±gizakia] tasuna: *aragizko* “carnal, cosa de carne” / *aragitar* “carnal, lujurioso”,

arauko “puntual” / *arautar* “regular, el religioso” + “regular, ajustado”; (4) baina sarritan banaketak ausazkoa dirudi: *adimentuko* “mental” / *adimentar* “intelectual”.

Hots-aldaketak: (1) deklinabidean bezala, kontsonante bukaera eta atzizkiaren artean e tarteka daiteke (*ainbastuneko, alagozeko, aldameneko, antzeko, etab.*), baina ez da nahitaezkoa (*artelazko*).

2.1.18. Aditz sortzaileak

-TU, -du	orotara 350	lehenagoko lek. 64
----------	-------------	--------------------

Gure corpusean aditzak ehundaka daude: ia edozein oinarriekin eta *-tu* atzizkia ezartze hutsaz euskaraz aditz berriak egitea oso erraza da, dakigunez; eta, *Erans*-ean somatu ahal izan dugun bezala, esan gabe doa Larramendik sarri ibili zuen bidea dela.

Formaren aldetik, erabatekoa da (eta tradiziozkoa, jakina) *-tu* eta *-du*-ren arteko bereizkuntza: *-du* aldaera soilik *-n* (*apaindu, ardundu...*) eta *-l* (*anbaldu, argaldu...*) ondoan agertzen da, eta testuinguru hauetan beti. Corpuseko salbuespen bakarra (*h*)*antu* (1571) zaharra da, *-d(i) > t* bilakaerak sortua (Mitxelena 1977a: 361).

Corpuseko aditzetan oinarririk ohikoena izena da, alde handiaz: orotara 210 adibide bildu ditut, izenondoak 32 bakarrik dituen bitartean. Alde hau, dudarik gabe, Larramendiren eskuhartze zuzenari zor zaio hein handi batean: zahar / berri bataz bestekoa izenondoan (14/32, %43,8) oso urrun dago izenarenetik (41/209, %19,6).

Oinarrian izenondoa duten *HH*-ko aditzen berezitasun bat, automatikoki sortutako konparatibo-superlatiboak halako maiztasun batez jasotzea da. Euskarazko A letra osoa erabili arren, adibideak ez dira gaztelaniazko AG segidaraino baizik iristen, automatikoki honen hedaduraz jadanik geneukan inpresioa berretsiaz (I, § 4.4.3.1): azken adibideak *astunagotu* “agravar más”, *astunegitu* “agravar demasiado” dira. Erants dezakegu *HH* baino lehen tradizioz gabeko baliabidea zela, dakidalarik; Larramendi ohartu bide zen lehenengoz posibilitate honetaz, eta harrezkero gutxi batzuek (ik. *OEH*, s.v. *handiagotu* eta *argiagotu*, adib.) halako arrakasta bat —ez oso handia, dena dela— izan dute.

Hauetaz gainera, ezohiko (baina ez ezinezko) oinarriak dira zenbatzailea (cf. *batu* 1545, *aniztu* 1635), adizlaguna (cf. *aitzinatu* 1627, *haizeztatu* 1715) eta izenlaguna (adibide bakar bat: *alangotu* “calificar”). Haatik, Larramendiren erabileraz zehaztapen zenbait egin daitezke: (1) zenbaitzaileei dagokienez, corpuseko adibide guztiak lehen lekukotasunak izateaz gainera, adieraz (cf. *agiztu* “arreciar” < *agitz* “recio”), eraketaz (*ainbandu* “escotar” < **ainbana*,⁶⁸² *ainbatetu* “equivalar”, “identificar” < *ainbat*, *hirutan anbatetu*, *anbestetu* “triplicar”) eta batez ere oinarriaz (denak zenbatzaile zehaztugabeak dira) susmagarri dira. (2) Lehenagoko

⁶⁸² *OEH*-an (s.v.) XX. mendeko lekukotasunen bat (Azkue, Orixé) bada.

lekukotasunekin bat etorririk (cf., adib., *alderatu* 1643, *aizeztatu* 1715), adizlagun gehienak NORA / NORENGANA (orotara 14 adibide) eta ZERTAZ (orotara 30) kasukoak dira.

Azkenean zertxobait geratzea merezi du, *-ztu* / *-ztatu* eta *-tatu* bukaerei buruz (azkenaz, ik. Mitxelena 1977b: 319) *HH*-ak dioskuna iruzkintzeko. Lehenik eta behin, lekukotasun zaharrak *-ztatu* formakoak dira (*altzairuztatu*, *altzei*- Pouvreauren hiztegian; *aizeztatu* eta *ariztatu*, Urterenean). Bestalde, ezaguna da Axularrengan, adibidez, *-(z)tatu* bukaerak daukan maiztasuna (cf. Villasante 1981: 127-128). Uste dut denok ados egongo garela 1745 arte bederen honelako aditzak Iparraldeko kontu direla. Honek azal dezake, besterik gabe, zergatik Larramendik noiz *-ztu* noiz *-ztatu* ematen duen, baita batzuetan bi aukerak eman ere (*aizeztu*, *aizeztatu* “ventilarse”, *ariztu*, *ariztatu* “enhilar”, *autseztu* / *autseztatu* “entraparse, llenarse de polvo”): *-ztu* berezkoa bide da, buruak ematen ziona, eta *-ztatu* Iparraldeko idazleengan ikasitakoa edota haien eredura egindakoa. *-tatu*-ren adibideak corpusean, berriz, hutsaren hurrengo dira: *ausartatu* (1630) zaharraz gainera, aukera bakarrak —biak hitz berriak, ezpairik gabe— *arageitatu* “prostituir” eta *aitzindatu* “preferir” dira. Alabaina, biak halabeharrez eraketa ilunekoak dira. Alde batetik, izenetik atera direla egin dezakegu: *aragei* “deshonestidad”-tik *arageita* “prostitución”, *-ta* ‘ekintza’ atzizkiaz, eta handik *arageitatu*; berdin, *aitzindea* “preferencia”, *-de* izen abstraktugileaz, eta handik *aitzindatu*, *aitzindari* (1571) ezaguna ere hor nonbait dabilela. Bestela, bi kasuetan Larramendik *-tu* kenduta izena eratu duela egin beharko genuke, *-ta* / *-da* bukaerak antzeko atzizkiekin lotuaz (§ 5.4). Batera zein bestera, ezin daiteke zeharo baztertu lp. *-tatu* aditzen ereduak eraginik izatea.

Adizlagunarekin egindako aditzen saila ezin da itxi *-kidatu* bukaerako aditzak aipatu gabe, baina, gehienetan gazt. *con-* aurizkiaren ordainak eratzeko baliatu zuenez gero, kontua geroko (§ 4.1.6) utziko dut.

Honetaz gainera, aipagarria da *-katu* atzizki katearekin egindako taldeñoa (orotara 18). Ez dago haien artean, nik uste, *-tatu*-ren parekotzat jo daitekeenik, hots, *ikuskatu*-ren (1747) tankerakorik. Lehenago lekukotutako bakarra *aldizkatu* bada ere, ahozko etorkia izan dezakete haietako batzuek behinik behin eta, nolnahi ere, askok gerora tradizioa erraz erdietsiko zuten (cf. *arrikatu*, adibidez; ik. Mitxelena 1977b: 319). Halaz ere, Larramendik prozedura hedatu zuen, dudarik ez: nire ustetan, hautagairik egokienak *abarroskatu* “triscar” eta, inolako zalantzarik gabe, aditzaren gainean egindako bakarra (*asikatu* “decentar, empezar, probar algo”) dira.

Eta, azkenik, bitxikeriatzat baizik ezin jo daitezkeen zenbait: *aintzatu* “motejar” (< *aintza*), *aronzatu* “(hacerse) acia allí” (< *aronz*), *aidatu*, *aiotu* “harrear los bueyes” (< *aida*, *aio*), *antxinatu*, *antzinatu* “antiquado” eta *aspalditu* “inveterado”.

Hots-aldaketak: (1) afrikatua > frikari: *aberastu*, *araztu*, etab., salbuespenik gabe; (2) e > a: *askatu*, *ahalkatu* (baina *ahalketu*), *ainazatu* (< *ainaze*), *aizatu* (baina *aizetu*), *aldatu*, *aledistatu* (< *alediste*; cf. *artistetu* < *artiste*), *antzatu* (< *antze*), *artzatu* (baina *artzetu*), *aserratu* (baina *aserretu*), vs *adiskidetu*, *aidetu*, etab.; (3) o edo u > a:⁶⁸³ *adrilatu*, *aipatu*, *akuilatu*,

⁶⁸³ Zalantzazko adibideak (*aburiko* / *aburikatu*, *adorgo* / *adorgatu*, *amatigo* / *amatigatu*) beranduago (§ 5.4.1) eztabaidatuko ditut.

alokairatu (< *alokairu*), *arnegatu*, *asmatu* (baina *asmutu*, esanahi ezberdinaz), baina *altzairutu*, *apezpikutu*; (3) *-a* gorde ez gorde zalantza (I, § 8.5.1): (a) berezko *-a* galdu dutenak: *ainbandu*, *ainzurtu* (XVII ea.), *aizurtu* (1571), *albenitu*, *anaitu*, *arlaufu*, *arrauztu*; (b) berezko *-a*-dunak: *aizakiatu*, *alagozatu*, *almidoatu*, *an(t)siatu*, *aranzatu*, *areatu*, *arradizatu*, *arraiatu*, *arrantzatu*, *arrosatu*; (c) *-a* berez ez dutenak: *arrotzatu* (< *arrotz*), *ainoatu*, *alkabuzatu*, *aronzatu*;⁶⁸⁴ (4) *-e* tarteka daiteke, deklinabidean bezala: *anbatetu*;⁶⁸⁵ (5) *e > ø* hirusilabadunean (*asnastu*).

Atzizki-kateak: (1) izenondogileekin: *adintsutu*, *ardundu*, *arrutitu*; (2) izengileekin igartzen da batez ere Larramendiren ausardia, lehenago lekukotutako gutxi batzuekin batera (*adiskidetu*, *afaldu*, *aidetu*), hainbat berri, sarritan berak egindako izenen gainean eraikiak, sartu baitzituen; azpimarra ditzadan euren bitxitasunarengatik 'ekintza / ondorio' izengileekin egindako ugariak, 'aditzoina + atzizkia + *-tu*' egitura ezohikoa dutenak:⁶⁸⁶ *adipaitzatu*, *aierupendu*, *alamendu*, *argieratu*, *arguimendutu*, *aranzatu*. Ezohikoak dira zeharo, halaber, 'egilea' adierako izena oinarrian dutenak, besteak beste: *aldedaritu*. Egitura nahi adina zail daiteke: *aldedaridetu* "parcializar"-ek '*alde + -dari + (tu) + -de + -tu*' egitura korapilotsua dauka, hots, *aldedari* "parcial" > *aldedaritu* "(tomar) partido" > *aldedaride* "parcialidad" > *aldedaridetu* "parcializar".

2.1.19. Aditzondo sortzaileak

-ka alde batera utzita, sail honetan Euskal Herrian oso hedadura ezberdina daukaten atzizki esanahi eta funtzioakide taldeño bat dugu, Larramendik gazt. *-mente* atzizkiari eskaintzen dion sarreran azaldu bezalatsu:

Mente, terminación de los adverbios de modo, *qui*, *quiro*, *to*, *ro*, según los diferentes dialectos, aunque el *to* no es muy usado sino en los siguientes: *edertó*, *galantó*, *polító* y *ederqui*, *ederquiro*, &c. (1745: II, 84).

Zehazkiago, izenondotik aditzondoa ateratzeko bideak dira. Gai honetan De Rijk irakasleak (1995) egin duen sarraldi interesgarria profita dezakegu berak marraztutako testuinguruan *HH* kokatzeko. Labur bilduz, De Rijk-ek gaurko egoera —non modu-aditzondoa izateko izenondoek markaren bat ia beti beharrezkoa duten, baita arruntenek ere (*on*, *txar*, *eder*...)— garapen moderno bati zor zaiola proposatzen du, ziurrenik erromantzeekiko auzotasunarengatik, euskararen aurrehistorian antzeko marka formalik ez zegokeen bitartean.⁶⁸⁷ Bere tesia aldezteko bi argudio mota erabiltzen ditu: atzizkien etimologia eta, jakina, testuen lekukotasuna. Lehenean egiten dituen hipotesien arabera, atzizki aditzondogile hauek guztiak betebeharrak berrirako berrerabilitako itemak lirarteke. Testuei dagokionez, eta *-ki*

⁶⁸⁴ Bada beste adibide bat: *anbatatu* "empatar" (< *anbat*), baina etimologiak azaltzen du (ik. § 6.5).

⁶⁸⁵ *anbateco*-rekiko lotura zuzena dauka, *ainbate* "equivalencia", "identidad", *ainbateko* "equivalente", "idéntico", *ainbatetu* "equivaler", "identificar" familian argiago antzeman daitekeen bezala (§ 5.4.1).

⁶⁸⁶ Egungo euskara jasoan *egituratu* (EH 1977) eta *hizketatu* (EH 1912) bezalako bakan batzuk baino ez daude, oso oker ez banago.

⁶⁸⁷ Izenondo eta aditzondoaren arteko mugaz, oro har, ik. § 5.2.2.

atzizkiaren egungo nagusitasunetik abiatuta, frogatuta uzten du Iparraldeko euskalkietan garapena zaharragoa dela, 1545ean jadanik *-ki* emankorra baitzen; erants daiteke literaturak joera hori indartu baino ez duela egin. Aitzitik, zalantzan jartzen du *-ki*-ren bizitasuna Hegoaldeko euskalkietan, hegoaldeko goinafarrera barne (Berriain, Lizarraga). Bere tesiari hobekienik erantzuten dion euskalkia bizkaiera da, ez bakarrik *-ki* ezezaguna edo ia ezezaguna izateagatik —ongi dakigunez—, baita (eta nagusiki) *-to*-ren emankortasun erabat mugatuarengatik ere. Gipuzkera Ubillos, Gerriko eta Iztuetarengan aztertuz, aterabide ezberdinak aurkitzen —zeina berez oso argudio ona izan daitekeen—, baita *-(ki)ro*-ren lehentasun argia azaleratzen ere, eta azken honetan gipuzkoarrak Berriain eta Lizarragarekin bat datozke.

HH-aren azterketak De Rijk-en datak zertxobait aurreratzeko bide ematen digu eta, oro har, bere tesia bermatzeko ere, baina aurkezten dituen datuen interpretapenari pare bat zuzenketa eginik. Izan ere, gaztelania-euskara hiztegi bat aditzondo atzizkidunen saila —bere ahozko bizitasuna gorabehera— hedatzeko leku egokia da, *-mente* automatikoki itzultzen den heinean. Haatik, Larramendi ez da, inolaz ere, erabateko automatasonera iristen, bestelako bideak ere jasotzen baititu,⁶⁸⁸ eta guztiz 'izena + -z' egitura.⁶⁸⁹ Dena dela, zalantzarik gabe saila ederki hedatu zuen bere aldetik, baita berri ere, oinarri arruntaz gaineko oinarriak erabiliz, besteak beste.

HH-an ia-ia ezagutzen ditugun atzizki guztiak lekukotzen dira, *-roki* izan ezik, corpusean behinik behin. Baina gaurkoaz oso bestelakoa den egoera bat islatzen du eta, bestalde, atzizki bakoitzaren maiztasunaren aldetik hiztegiak hautapenak egin zituela nabarmena da. *HH*-aren ezaugarri ezagunetatik bat *-kiro*-z eratutako aditzondoak dira; alabaina, gaurko estandarrean hitz bakan batzuetan baino gordetzen ez dugun *-ro* atzizkia da nagusi, *-kiro* ere emankor, eta *-ki* eta batez ere *-to* oso bakanak diren bitartean; baliteke, beraz, *-ki*-ren agerraldi urriak Larramendik erabilitako Iparraldeko iturriei leporatu ahal izatea. Jakina, sarrera berean bateko eta besteko ordainak eskaintzen ditu nahiko sarri: *andigoiro* eta *andigoikiro* "regiamente", *argiro* eta *argikiro* "lucidamente", *arraiki* eta *arraikiro* "afablemente", etab. baina eskuarki atzizkiok zein bere kasa dabilta, beti ere beste baten aldamenean agertzen den *-to* izan ezik.

Eta hemen egin behar ditugu alde aurretik iragarritako zuzenketa: De Rijk-ek idazle gipuzkoarrengan (eta Lizarragarengan) antzeman duen *-(ki)ro* formen nagusitasuna, ondoko

⁶⁸⁸ Adibide batzuk baino ez: *ahalkagabe* eta *lotsarik bage* "descaradamente", *adiskideen gisa* "amistosamente", *agerian* "descubiertamente", *ciertu ciertu* "ciertamente", *laster* "aceleradamente", *arin* "ligeramente".

⁶⁸⁹ Gure corpusean ehundaka dira honelakoak; hona adibide zenbait: *abegorraz* "arreatadamente", *adieraz* eta *adimentuz* "intelectualmente", *aditzaz* "mentalmente", *aieraz* "propensamente", *amodioz* "afectuosamente", *arauaz* eta *araudez* "regladamente".

lexikoan *HH*-ak izan zituen eraginetako bat baino ez bide da, orain artean, inplizituki bederen, garai hartaz kezkatu diren filologoen jakintzat eman izan duten bezala.⁶⁹⁰ Areago, *-kiro*-ren erabilera idazle baten filiazio larramenditarraren agerkari ziurtzat joko genuke.

Bada oraindik zuzenketa garrantzizkoago bat: ziurtasun osoz esan dezakegu *-kiro* atzizkia ez zela Larramendiren mintzairaren ezaugarri (eta, beraz, ez eta gainerakoena ere), bere hautapen kultural bat baizik, zeren eta agerrian Iparraldeko atzizkitzat aurkeztu baitzuen:

Los adverbios más comúnmente los acaban en *qui*, como *obequi*, *sainduqui*, *lazqui*, *gogorqui*, y más de una vez en *quiro*, v. gr. *obequiró*, *lazquiró* (1745: xxviii).

Halaz ere, dakidalarik, ez dago 1745 arteko Iparraldeko literaturan *-kiro* erabili duenik. Nondik dator, beraz, atzizki hau? Erantzuna De Rijk-ek berak bildutako datuen artean aurkitzen da: Larramendik gogokoen izan zuen liburu bati —Beriainen dotrinari— bakarrik lepora dakioko *-kiro*-ren erabilera: cf. *prinzipalkiro* (99r), *segurokiro* (101r), *kunplitukiro* (108v), *klarokiro* (112v), *fazilkiro* (123r).⁶⁹¹

Gogoratu behar dugu liburu hau “De los libros en Bascuence” atalean 3. lekuan aipatu zuela, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan argitaratutako “varios Cathecismos” taldetik berariaz alderatua eta Iparraldeko liburuen laguntzan (1745: xxxiv-xxxv; ik. § 9.1.11). Bistan da Beriainen lan xumeari gutxiri bezalako garrantzia eman ziola, Hegoaldean aintzat hartzea merezi zuen idazlan bakarra zelako uste osoan. Baldin eta *-kiro* honengandik badator, baderitzat zentzuzkoa dela *-ro* atzizkiaren hautapenak ere Beriainekin zerikusi gehiago dukeela ondorioztatzea,⁶⁹² Larramendiren mintzairan (nekez) izan zezakeen garrantziarekin baino, zeren Utergako erretorearentzat *-ro* ere argi eta garbi emankorra baita:⁶⁹³ cf. *banoro* (88v), *dignoro* (94r), *bidero* (109r).

Honetatik guztitik, gorago esan bezala, gehienez eta garrantzizkoenez De Rijk ziurrenik zuzen dabilela eratoritzen da: Larramendik ez zeukakeen eskumenean ahozko eredu irmorik, eta honek literatur eredu bat hautatzera darama; Ubillos Iparraldera gehixeago makurtzen da,⁶⁹⁴ Iztueta erabat *HH*-ko eredura⁶⁹⁵ eta beharbada Gerriko dukegu, bere

⁶⁹⁰ Bi adibide baino ez: Agirre Asteasukoa (F. Altuna 1999: xciii) eta Lardizabali (Urgell 1995: xlv-xlvi).

⁶⁹¹ *-kiro*-ren lehen lekukotasuna ere (*lealkiro* 1536) Belaskoangoa izatea (De Rijk 1995: 68) ez bide da kasualitate hutsa. Oso egiantzekoa da nafarreraren hegoaldeko mugako hizkera haietako ezaugarri bat baino ez izatea, beraz.

⁶⁹² Dena dela, Landucci ere ez bide da alde batera uztekoa, ez eta *-toro*-rako ere (honen iturritasunaz, ik. § 10.2): cf. *andiro* “magnificamente”, *beaztiro* “dulcemente”, *esturó* “estrechamente”, *firmero* “firmemente”, *garuiro* “puramente” eta, bestalde, *erraztoro* “façilmente”, *gogorrtoro* “duramente”, *gaystotoro* “mal o malamente”, *galantoro* “galantemente”, *garuitoro* “limpiamente” eta *osçtoro* “friamente”.

⁶⁹³ De Rijk-ek (1995: 61) bestela aditzera ematen badu ere, *bano* eta *digno* ere maillegu berriztat hartu behar ditugu. Dena dela, argia da, baita Larramendik ezagutu ez zuen *Tratado*-an ere, *-kiro*-ren emankortasun handiagoa.

⁶⁹⁴ Hau frogatzeko aski izan daiteke De Rijk-ek (1995: 60) emandako zerrendari datak eranstea: *bereziki* (EH 1571), *egiazki* (EH 1545), *emeki* (EH 1571), *firmeki* (OEH 1785 = Ub), *gogorki* (EH 1571), *humilki* (EH 1617), *laburki* (EH 1571), *santuki* (EH *sainduki* 1571). Bakar batean berritzen du saila Ubillosek, beraz.

⁶⁹⁵ Bere aldetik eratorriak egiten jakin izan bazuen ere. De Rijk-en zerrendatik (1995: 70) *HH*-an agertzen ez diren bakarrak honako hauek dira (orotara 7/34, % 20,6): *abezekiro*, *aizebelaskiro*, *bidebagekiro*, *guriro*, *lotsabagekiro* (*HH* *lotsabagero*), *maitaro* (*HH* *maitakiro*), *zearo*. Esan dezadan, bidenabar, *garbiro*,

txirotasunean, errealtatearen islarik zuzenena, hots, aditzondo-markarik eza, edo ia, *-mentedun* aditzondoak zuzenean mailegatzearainokoa.⁶⁹⁶ Dena dela, gogoratu nahi nuke *HH* baino atzerago ere joan gaitezkeela, eta joan ere behar dugula, Otxoa eta Irazusta, Elizalde, etabarretan zer dagoen aztertuz.

-RO	orotara 117	lehenagoko lek. 3
-----	-------------	-------------------

Oinarriak: (1) izenondoa;⁶⁹⁷ bereiz aipatzekoak dira izenlagunak: *araukoro* (< *arauko* "puntual"), *artekoro* (< *arteko* "mediato"); eta partizipioak:⁶⁹⁸ *alarazi* (< *alarazi* "empeñado"), *apainduro*, *arauliro* (< *arauli* "prepostero"), *argituro* (< *argitu* "esclarecido"), *arpezturo* (< *arpeztu* "explícito"), *artukituro* (< *artukitu* "escrupuloso"), *askaturo*, *autaturo* (< *autatu* "escogido"), *azalduro* (< *azaldu* "explícito");⁶⁹⁹ (2) izena;⁷⁰⁰ hona zailenetakoak: *adieragoiro* (< *adieragoi* "alegoría"), *agirudiro* (< *agirudi* "exterioridad"), *agripero* (< *agripe* "certeza"), *alegokiro* (< *alegoki* "potencialidad"), *aragigoro* (< *aragigo* "carnalidad"), *arakaldiro* (< *arakaldi* "carnalidad"), *auzbakidero* (< *auzbakide* "consistorio"); (3) aditzoina, partizipioa baino gehiago erabilia eta batez ere izena eta aditzoina berdinak direnean agertzen zaiguna: *aitzakiaro* "disculpablemente" (< *aitzakiatu* "disculpado"), *anzinero* "inveteradamente" (< *anzinatu* "inveterado"), *araukero* "desconcertadamente" (< *arauketu* "desconcertado"), *asmaro* "acertadamente", etab.; (4) ez dut ezagutzen *andartaro* "despacio"-ren oinarria.

Hots-aldaketak: (1) haplologia (*axolduro* < *axolduri*); (2) *-tsu + -ro > -(t)soro* (*aldunsoro*, *almen(t)soro*, baina cf. *infra* (2) betetzen ez dutenarako); (3) *-kor + -ro > -koro* (*auskoro*) eta *-tar + -ro > -taro* (*argidortaro*).⁷⁰¹

ziertoro, etab. izenondo modura erabilia inoiz herrikoiak izan direla sinestea (De Rijk, *op. cit.* 70-71), lztueta berritzaile ezagunaren lekukotasun erabat bakartuetan fidantzia larregi jartzea dela, nik uste.

⁶⁹⁶ Ezaguna da, bestalde, Hegoaldeko zenbait hizkeratan *-mente* eta guzti mailegatu direla erdal aditzondoak (*seguramente...*), eta baten batean *-mentean* (*tontamentean...*) forma hartu dutela.

⁶⁹⁷ Hona ulergaitz gerta daitezkeen zenbait: *andigoiro* (< *andigo* "magnífico", "regio"), *anizkidaro* (< *anizkida* "común"), *arimandiro* (< *arimandi* "magnánimo"), *artekoiro* (< *artekoi* "entremetido"), *arutsaro* (< *arutsa* "pausado"), *arzaigokiro* (< *arzaigoki* "pastoral"), *aulariro* (< *aulari* "común"), *aularo* (< *aul(a)* "insulso").

⁶⁹⁸ Iparraldean partizipioa *-ki*-ren ohiko oinarri da jadanik Leizarragarengandik: *afekzionatuki*, *ohoratuki*, *seinalatuki* (ap. De Rijk 1995: 57), eta Haranbururen 1635eko argitalpenean beste horrenbeste kausitzen da *-ro* atzizkiak: *deliberaturo*, *lehiaturo* (ap. *ib.* 68-69).

⁶⁹⁹ Baita agian *agoranduro* ere (cf. § 9.2.7.3).

⁷⁰⁰ De Rijk-ek azpimarratu du oinarri hau erabat ezohikoa dela; berak aipatzen dituen adibideei data eransten badiegu, are argiago antzeman dezakegu berritasuna: *adiskideki* (*EH* 1872), *anaiki* (*OEH* 1949, *anaikiro* 1934), *gizonki* (*OEH* 1757, *gizonkiro* 1802), *maisuki* (1977).

⁷⁰¹ De Rijk-ek (1995: 66) erakutsi duenaren ildotik, badirudi 1745 baino lehenago lekukotutako *-ro* atzizkidun formen arabera (cf. *berriro* 1626, *biziro* 1657, *emero* 1643, *eztiro* 1712, *garbiro* 1562, *gozoro* 1609, *handiro* 1562, *luzaro* 1626 edo *maitaro* 1643, ap. *EH*) atzizki hau bokalez amaitzen diren oinarriekin bakarrik bil daitezkeela. Azalpena argia da, noski: ez dago euskaraz *r-* bigunaz hasten den beste hitz edo atzizkirik (egun nagusitzen ari den *NORA* kasuaren *-ra* formak e epentetikoa eskatzen du) eta, oro har, ondare zaharreko hitzetan ez dago *-nr-*, *-sr-*, etab. erako bilkurarik. Honek azaltzen ditu Laramendiren aldaketak *HH*-ko salbuespen urrietan, oro har kontsonante ostean *-kiro* nahiago bazuen ere (cf. *adrezkiro*,

Atzizki kateak: usukoenak izenondogileez osatutakoak dira: (1) *-garri + -ro* (*ahalkagarriro, adiragarriro, adiskidegarriro*, etab.); (2) *-tsu + -ro* (*aldunsoro, almen(t)soro, amultsuro*, etab.); (3) *-(ba)ge, -kabe + -ro* (*adrebagero, ajolakabero, arazogero*, etab.); (4) *-ti + -ro* (*adustetiro, agindetiro*, etab.), talde honetan sar liteke *astiro* ezaguna ere; (5) *-ari + -ro* (*akotariro, autsikitariro*); (6) *-koi + -ro* (*artekoiro*); (8) *-kor + -ro* (*auskoro*); (9) *-tar + -ro* (*argidortaro*); (10) *-duri + -ro* (*axolduro*). Izengileekin, ostera, bakoitzaren adibideak bakanagoak izan ohi dira: (1) *-de + -ro* (*alaidero, anzundero, apaindero, astirodero, azaldero*); (2) *-era + -ero* (*anaieraro, arrotzeraro*); (3) *-kida + -ro* (*anizkidaro, araukidaro*); (4) *-aira + -ro* (*aldairaro*); (5) *-go + -ro* (*aragigoro*); (6) *-aldi + -ro* (*arakaldi*); (7) *-kabe + -ro* (*atsekabero*); (8) *-te + -ro* (*arteztero*); (9) *-keri(a) + -ro* (*aurkeriro*); (10) *-antza + -ro* (*askantzaro*).

-KIRO	orotara 68	lehenagoko lek. 0
--------------	------------	-------------------

-kiro ere, nahiz *-ro*-ren heinera iritsi gabe, euskal hiztegia aberasteko erabili zuen atzizkia dugu. Testuinguru honetan, deigarria da lehenagoko —sarritan berak ondo ezagututako— lekukoetan *-ki* daramaten hainbat hitzek *HH*-an *-kiro* eramatea:

aberatskiro (*aberatski* 1665), *amuruskiro* (*amuruski* 1715), *andizkiro* (*handizki* XVII e.a.), *arinkiro* (*arinki* 1627), *arraikiro* (*arraiki* 1627), *artezkiro* (*artezki* 1571), *artoskiro* (*artoski* 1712), *ausarkiro* (*ausarki* 1686), *ausartkiro* (*ausartki* 1571).

Ohar bekio *ausarkiro / ausartkiro* bikoteari, tradiziozko idazkera ezberdin bi islatzen baititu, eta batez ere *aberatskiro*-ren <ts>ari, Larramendiren sisteman zeharo ezohikoa eta, honexegatik, ezer baino adierazgarriagoa. Ez dago dudarik, nik uste, bata bestiaz ordezkatzeko joerari amore eman ziola.

Oinarriak: (1) izenondoa oso ondo ordezkaturata dago; bereiz ditzadan partizipioak (*amorratukiro,artetukiro* (< *artetu* “mediato”), *autatukiro, atsedenkiro*) eta ezezagunenak: *abramakiro* (< *abrama* “tolondro”), *anbalkiro* (< *anbal* “venerable”), *andigoikiro* (< *andigoi* “regio”), *anziakiro* (< *anzia* “genio”), *arraukiro* (< *arrau* “común”), *aruskiro* (< *aruts* “pausado”), *aulakiro* (< *aula* “insulso”), *autsiezbearkiro* (< *autsiezbear* “inviolable”); (2) izena: *animokiro, antustekiro, arrabiakiro, arretakiro, asmegikiro* (< *asmegi* “profecía”), *audiantakiro* (< *audianta* “pompa”), *azarkiro*, etab.; (3) izena / izenondoa + *-z*: *andizkiro* eta, agian, *adrezkiro*;⁷⁰² (4) aditzoina: *adikiro, agerkiro, agripekiro* (< *agripetu* “certificado”), *ainbatekiro* (< *ainbatetu* “equivaler”), *amuruskiro* (< *amurustu* “enamorado”), *antsiakiro* (< *antsiatu* “congojado”), *aobozakiro* (< *aobozatu* “mudo”), *apartakiro, arazkiro* (< *arazi* “precisar”), *argikaizkiro* (< *argikaiztu* “desalumbrado”), *arpezkiro* (< *arpeztu* “declarado”), *arrapakiro, atrebikiro*.

agerkiro, ainaldaskiro, anbalkiro). Eta, bide batez, argudio indartsu bat izan daiteke atzizkiaren etorkiaz De Rijk-ek (*ib.* 71-73) egin duen hipotesirako.

⁷⁰² Prozedura ezaguna da: cf. *bidezki* (1571), *dolorezki* (1545), *egiazki* (1545), *handizki* (XVII ea.), *laburzki* (1617, *laburski* 1571), *ohorezki* (1545). (Adibideak De Rijk 1995: 57tik hartu ditut, eta datak *EH*-tik.)

Hots-aldaketak: (1) afrikatua > frikari (*adrakaizkiro, arimakaizkiro, artukizkiro, aruskiro, baina aberatskiro*); (2) *a* > \emptyset (*artukizkiro* < *artukitza*) eta *e* > \emptyset (*argidorki* < *argidore*); (3) *t* > \emptyset (*ausarki*); (4) *-ts(u)* > *s* (*ainaldaski*o, *azañoski*o).

Atzizki kateak: beti izenondogileekin batzen da: (1) *-tsu* + *-kiro* (*ainaldaski*o, *amodiotsuki*o, *azañoski*o); (2) *-tar* + *-kiro* (*anaitarki*o, *arzaindarki*o, *auzkiarki*o); (3) *-kor* + *-kiro* (*aldakorki*o, *auskorki*o); (4) *-kaitz* + *-kiro* (*adrakaizki*o, *arimakaizki*o); (5) *-tza* + *-kiro* (*artukizki*o).

-KI₃, -gi, -i	orotara 13	lehenagoko lek. 6
---------------------------------	------------	-------------------

Egungo estandarrean nagusi dabilen atzizki hau oso urri ordezkaturata dago *HH*-an: adibideak gutxi izateaz gainera, erdiak ia lehenago aurkitzen dira, eskuarki Larramendik ongi ezagutu zituen testuetan. Alabaina, honekin ere hitz berriren bat egin zuela baieztatzeko arrazoi argiak daude: nagusia, aurreko atzizkietan azaldu diren oinarri berriak, neurri txikiagoan izan arren, hemen ere azaltzea da.

Forma nagusia *-ki* da; *-gi* behin bakarrik azaltzen da (*adinongi* baina *arinki*), *ongi*-rekiko lotura zuzenagatik,⁷⁰³ eta *-i* aldaera ezezaguna *aberatsi*-n (vs *aberatsqui*o).

Oinarriak: (1) izenondoa; (2) izena: *amarruki* (1741),⁷⁰⁴ *arauki*; (3) aditzoina: *auteski* (< *autetsi*).

Hots-aldaketak: (1) afrikatua > frikari (*auteski*); (2) *t* > \emptyset (*ausarki*, baina *arretki*).

Atzizki kateak: beti izenondogileekin: (1) *-gabe* + *-ki* (*ahalkagabeki*); (2) *-tsu* + *-ki* (*amodiotsuki*); (3) *-garri* + *-ki* (*arrigarriki*).

-TO, -do	orotara 5	lehenagoko lek. 0
-----------------	-----------	-------------------

Gaur bizkaieraz ia bakarrik ezaguna den atzizki honen eratorriak gutxi badira ere,⁷⁰⁵ gorago aipatu dudan adierazpenarekin (“el *to* no es muy usado...”) bat etorririk, nabarmena da Larramendik haren balioa ezagutu ez eze, eratorri berriak egiteko baliatu ere egin zuela, ez bakarrik adibide guztiak lehen lekukotasunak (eta are inoiz *HH*-an bakarrik aurkitzen diren hitzen eratorriak) direlako, baina baita, gainerakoetan ez bezala, denak beste atzizkietatik batez —edo biz— eraturako esanahikideen aldamenean agertzen direlako: *adinondo* eta *adinongi*,

⁷⁰³ Corpusean behinik behin, ez dago, beraz, Leizarragaren *chekengui, chuchengui, mingui, ocengui* bezalakorik (cf. Mitxelena 1977a: 353 eta De Rijk 1995: 55, 4. oh.).

⁷⁰⁴ Ohartu oinarri berri delako hau jadanik lehentxeago azaltzen dela; Harrietengandik hartutako hitza da (§ 10.3.1.7) eta, ezer baino gehiago, Harrietek ere berrikuntzak egin izan zituela adieraz lezake.

⁷⁰⁵ Cf. De Rijk 1995: 73-74, eta bertan aipatutako bibliografia. Ohartxo bat berak egindako bildumari: *adinondo, adinon* ezagunaren eratorri argia, ezin daiteke P. Mujikaren hiztegiarekin zuritu; berria da, inondik ere, baina ez Mogelen *okerto* edo *urvento* baino berriagoa (ziurrenik), zalantzarik gabe *HH*-ko neologismoetako bat baita, *adinongi* bezalaxe. *OEH*-ak ez jaso izanak azaltzen bide du irristalditxo.

argikaizto eta *argikaizkiro*, *arindo* eta *arinki*, *arpezto* eta *arpezkiro*, *ausarto* eta *ausarki*, *ausarkiro*.

Atzikiaren forma *-to* da; *-do -n* ostean agertzen da (*adinondo*, *arindo*).

Oinarriak: (1) izenondoa; (2) aditzoina (*argikaizto*, *arpezto*).

-DORO	orotara 1	lehenagoko lek. 0
--------------	-----------	-------------------

Adibide bakarra (*astundoro* “pesadamente”)⁷⁰⁶ bere erabateko kidea den *astunkiro*-ren sarrera berean agertzen da. Izan ere, *-kiro*-ren eredura, baina mendebaldeko *-to-z* osatutakotzat jo izan da oraintsu artean,⁷⁰⁷ eta *osotoro* bederen egun ere ezaguna da.⁷⁰⁸ Larramendik *-n* ostean *-doro* erabili du, hots, *-to -do* bihurtzen den ingurune berean.

-KA	orotara 47	lehenagoko lek. 12
------------	------------	--------------------

Bai gramatikan bai hiztegian honi buruzko aipamenak ugari eta zehatzak dira:

de los nombres substantivos se hace una especie de formación, cuya final es *ca*, y corresponde a aquellos nombres del Romance que nacen de otros substantivos y vienen precedidos del *a*, v.g. a pedradas *arríca*, a dentelladas, *orzca*, a patadas *osticóca*, a empellones *bultzáca*, a cachetes *ucabilca*. Esta formación hace a los nombres del Bascuenze adverbiales en su modo de significar (1729: 264-265).

A. Tal vez significa el modo de alguna acción, y entonces es *ca*; a pedradas, a garrotazos, *arríca*, *agaáca*...

...la terminación *ca*, que es nota de acción o modo afijo al nombre que le precede, como en *arri*, *escu*, *arríca*, *escuca*, &c. (s.v. *marca*).⁷⁰⁹

Corpuseko adibideen laurdena inguru lehenago lekukotuta dago, atzikia bizi-bizirik zegoela eta Larramendik beharbada hemen berrikuntza gehiegi egin ez zuela adieraziz. Honen alde dator oinarriak, ohi ez bezala, zein bere neurrian denak tradiziozkoak izatea.

Oinarri nagusia, bai lekukotasun zaharren aldetik, baita *HH*-ak islatzen duenagatik, izena da —Larramendik behin eta berriz aipatu bezala—, izen konkretua zehazkiago; nahiz batzuk *HH*-ko hitzak izan (*aotzi* da argiena), gure adibideen artean bakar bat nabarmentzen da,

⁷⁰⁶ Novia de Salcedok (s.v.) *astundero* (< *astunde* “pesadez”) zuzentzea proposatu bazuen ere, ez dut uste zuzenketa bidezkoa denik, ez oinarriagatik, ez eta sarreraren egituragatik ere (“Pesadamente, *astundoró*, *astunquiró*”).

⁷⁰⁷ Haatik, agian itxura baino ez da: Larramendik (*EGH*, s.v. *osoro*) dakarren *oso ta oro*, *osotoro*-ren idazkera etimologikoa izan daiteke, izan ere, eta hauxe bide da atzikiaren jatorria (De Rijk 1995: 74-75).

⁷⁰⁸ De Rijk-en lanean (1995: 60 eta 74-75) Ubillos eta Iztuetaren adibide zenbait ikus daitezke; Landuccirenak lehenago (113. oh.) bildu ditut.

⁷⁰⁹ Badira askoz gehiago: “...la terminación *ca*, *musuca*” (s.v. *buscar*), “...la terminación *ca*” (s.v. *machaca*), “...la terminación *ca*, que es nota de acción y movimiento afijo al nombre, como si dixera a rezagos, a residuos, de la misma forma que *arríca* a pedradas, *agaca* a palos, &c.” (s.v. *resaca*), “...la terminación *ca*, que significa acción y ejercicio” (s.v. *ronca*).

izen abstraktuaren gainean eraturakoa baita: *antusteka* (< *antuste* “vanagloria”). Gainerako oinarri motak denak ezagunak dira: (1) [IS-z]:⁷¹⁰ *aldazpizka, aldizka, andizka, ahozpezka, arrazka, auzpezka*; (2) [IS-ra]:⁷¹¹ *aurraka, aurreraka*; (3) aditzoina (Azkue 1923-1925: § 367; Villasante 1981: 88): *amilka, anbilka, aozabalka, arrastaka, atajoka, atejoka*; (4) izenondoa: *arinka*; (5) zenbatzailea (Azkue 1923-1925: § 394): *hamabika*; (6) *aokaruka*-ren oinarria baliteke *aokadura* “dentadura” izatea (ik. § 2.2.5.4).

Hots-aldaketak: afrikatua > frikari (*aruska, aska, azka*).

2.2. Datuen analisia

HH-ko atzizkiak aztertzerakoan ateratzen den lehen inpresioa aberastasuna da, bai atzizki ezberdinen kopuru erraldoiagatik, baita atzizki batzuen eratorri ugariengatik ere. Gogoan izan behar dugu ezagutzen dugun lehen euskal hiztegi handi osoa dela, tamainaz eta asmoz euskal lexikoaren jasotze eta aberaste lanean parerik ez duena XIX. mendearen bigarren zatira arte. Tamainak, ostera, bigarren aberastasun mota bakarrik azaltzen du zuzenean, eta esan gabe doa neurri handi batean hitz-sorkuntzarekin lotuta dagoela: jadanik azpimarratu ditudan hasierako sarrera batzuetako garapenak eta atzizki-aldizkatzeak (I, § 8.3.2) hortaz mintzo dira goraki.

Lehenengo aberastasun mota, atzizki ezberdinei dagokiena, objektiboki neur daiteke: *HH*-ari pareka diezaiokegun hiztegi zahar bakarra Urterena da, osotasunean ez bada, bai inolaz ere eginda dagoen heinean sarreraren aniztasun eta betetasunean. Bada, era berean A letra aintzat hartuaz, Urtek Larramendiri 5 atzizki bakarrik (*-ño, -tto* eta *-ko* txikigarriak, *-kizun₁* izengilea eta *-bera* izenondogilea) kentzen dizkio, Larramendik berari sail guztietako 25 atzizki kentzen dizkion bitartean. Ondoko taulan jasota daude bien arteko aldeak bai atzizkietan, baita haien erabilera kopuruetan ere:

	Lar	Urte		Lar	Urte
-TXO	95	46	-KO ₂	7	1
-TZAR	26	3	-ADA ₂	31	0
-TXAR	4	0	-ARI ₂ , -KARI	5	3
-XKA, -SKA	6	0	-TEGI	56	17
-TO	1	1	-TE ₂	3	1
-SKO	1	8	-ALDI	22	0
-SKOTE	1	0	-TZE, -TE	224	6
-XAR	1	0	-ERA	66	0
-ÑO	0	3	-PEN, -MENDU	28	12
-KO (txik.)	0	2	-KETA	22	6
-TTO	0	5	-DURA	15	4
-TASUN	31	39	-TZA ₃	18	3
-KERIA	22	14	-AIRA	13	0
-GO	35	2	-ZIO	5	21
-TZA ₁	7	2	-KUNTZA	3	0
-DADE	2	5	-KUN(DE)	7	0
-KINTZA	14	0	-ADA ₃	4	3
-KIDA	15	0	-ANTZA, -ANTZIA	16	12

⁷¹⁰ Villasantek (1981: 88) adibideen artean *gainezka* ezaguna aipatzen du.

⁷¹¹ Ez dut honi buruzko lanetan honen aipurik aurkitzen; hala eta guztiz ere, zenbait hizkeratan (*OEH*-aren datuen arabera, Hegoaldean bakarrik) *aurreraka, atzeraka, goraka* eta *beheraka* bederen arruntak dira.

-(T)ZIA	1	1	-TI	53	1
-ARI ₁	153	29	-TSU	60	17
-TZAILE	150	70	-(T)AR	55	6
-GIN	20	4	-BERA	0	1
-GILE	27	16	-KOR	29	1
-KO ₁	11	1	-KOI	16	0
-KIDE	17	2	-ZALE	17	8
-ZAI(N)	30	9	-TIAR	1	0
-DI	34	6	-GARRI ₂	56	36
-AGA	17	0	-KIZUN ₂	9	0
-ETA	9	0	-DUN	65	19
-TZA ₂	3	0	-DURI	1	0
-TE ₁	4	0	-KO ₃	86	11
-ZU	1	0	-TU	350	81
-ADA ₁	1	0	-RO	117	1
-GARRI ₁	15	2	-KIRO	68	0
-KIZUN ₁	0	1	-KI ₃	13	45
-KI ₁	9	2	-TO	5	0
-GAI ₁	28	3	-DORO	1	0
-KI ₂	45	32	-KA	47	3
-KA ₂	5	1			
orotara	841	309	orotara	1594	319

Atzizkiak hiztegiaren alde aurretiko lanaren eta hiztegi hizkuntza jasoren neurri baldin badira, esan behar dugu Larramendik eta Urtek alde honetatik neurri bera ematen dutela: bien hiztegien A letraren %50, hain zuzen ere, hitz eratorriez osatuta dago. Alabaina, esaten ari nintzen bezala, ez datoz bat atzizki ezberdinen kopuruan eta, kasu honetan, tamainaz baino, inondik ere Larramendiren jakituriaz eta bilketa lanaz gehiago hitz egin behar dugu: ordura arte Iparraldean bakarrik ezagunak ziren atzizkiek (*-go* eta *-pen* dira aipagarrienak) edota Hegoaldeko literatura eskasak inoiz ez islatutakoek (*-keta*, adib.) edo bakanki jasoek (*-era*, adib.) egin zuen azterketa lanaren berri demaigute; atzizki edo alomorfo bakartuak (*-to*, *-sko*, *-tiar*, *-zu...*), bestalde, bere iturrien ñabartasunari egotzi behar zaizkio.

Alabaina, bada bien artean beste ezberdintasun garrantzitsu bat: zerrendan ondo nabaritzen da Urtek Larramendik baino atzizki mailegatu gardenak (*-dade*, *-zio*, *-antzia*) erabiltzeko joera handiagoa duela; erants bekio *-pen* / *-mendu* atzizkiaren adibide ia guztiak *-mendu*-renak direla. Inpresio hau berrets daiteke bien hiztegiaren diren atzizki mailegatuen adibideak erkatuz,⁷¹² bai mailegu zuzenetan ageri direnak, baita nolabait euskal erroa daramaten arren, erdal atzizkia gorde dutenak. Larramendik hauen adibideak baino ez ditu:

-ARIO: *abecedario* "abecedario". -ERO₁, -ERA₁ 'lanbidea, ariketa': *adultero* "adúltero" (1571), *albokero* "alboguero", *arraskera* "fregona". -ERA₂ 'tresna': *arratera* "ratonera". -ESA: *abadesa* "abadesa" (1562), *alabesa* "alavesa", *artxidukesa* "archidukesa" (1715). -IBO: *ablatibo* "ablativo". -IKO: *apostoliko* (s.v. *sede apostólica*). -ISTA: *arpista* "harpista".

Urtek, berriz, hauek eskaintzen ditu, nahiz hainbat⁷¹³ jaso gabe utzi ditudan:

-AL: *aberbial*, *aktual*. -ALE: *armofiziale*, *artifiziale*. -ANO: *afrikano*, *arimetiziano*. -ARIO: *abersario*, *abecedario*, *animalario*, *arrosario*. -BLE: *admirable*, *amirable*. -ER: *adulter*, *aguazer*. -ERO₁: *amoinero*. -ESA: *abadesa*, *artxidukesa*. -IBO: *ablatibo*, *akusatibo*, *apelatibo*, *atantibo*, *atentibo*. -IKA, -IKO: *akrostiko*, *anjelika*, *apostoliko*. -ISTA: *antagonista*. -OS: *abantailos*, *abarizios*, *airos*. -OSO: *abarizioso*, *anbizioso*, *artifizioso*.

⁷¹² Alde batera utziko ditut hemen Larramendik euskaratik gaztelaniarako maileguak direla uste zuenekoak (ik. § 2.2.4.5).

⁷¹³ Buruan ditut *-logia* eta *-logia* behinik behin, Larramendik (*ja*)kinde eta (*ja*)kin-ekin ordezkatu ohi dituenak, ezaguna denez. Xehetasun gehiagotarako, ik. §§ 3.1.6.2 eta 5.4.1.

Urte bera garbizale xamarra izanik, bertatik ageri da Larramendi garbizalexeago zela —atzizki kontuetan bederen— edo, orobat, kontu gehiagoz begiratu zituela. Ildo honetatik gogora daiteke *Erans 71 kusumatsu < Lcc kusumoso*, adibidez (II, § 1.2.6). Esan gabe doa honek euskararen baliabideak ez eze gaztelaniarenak ere ongi ezagutzea eskatzen duela.

Bestelako ustea bide dugun arren, Larramendi ez da inoiz *ex nihilo* ari, eta arlo honetan horrek esan nahi du aurkitu ditugun desbideratzeek (atzizki edo alomorfo berriak, gehiegizko erabilerak) azalpen logikoa —edo trinkoa, behinik behin— izan behar dutela. Eratorpenean ez eze, Larramendiren sorbideen bila kurritu behar ditugun beste alorretan ere hartu dudan eskarmentua, zenbat eta adibide gehiago arakatu hainbat eta gertakari azalgaitz baten agerraldi gehiago kausitzen direla da, hau da, kontuan hartutako laginaren arabera lehen begiratu bitxikeriak arau ez bada joera bederen bihur daitezkeela; hortaz, corpusaren izaera mugatuari zor dakioke inoiz itxurako azalpenik ez aurkitua.

Bestalde, eratorpenean inon baino Larramendik alde aurretik emandako informazio gehiago idorotzen dugu, dela gramatikan, dela hiztegian bertan, eta gertakari askoren lehenengo deskribapenak izanik, oro har aski zuzen eta oso zehatzak izan ohi direla nabarmendu nahi nuke, atzizkiaren aldaerak, adiera eta inoiz oinarriaren kategoria ere zehazten baititu.

Gramatikan aurkezten duen egoera, funtsean hiztegiko berbera da, baina han, izenkien eraketaz ari dela, atal labur bat besterik ez dio eskaintzen gure gaiari, eratorpena hiztegirako utzi zuen eta, berak dioenez:

Dexo algunos otros modos de formación en los nombres verbales que se pondrán en el Diccionario: pues para el fin de que conozcan todos, quán regular y oportunamente forma sus derivados el Bascuenze, bastan éstos (Larramendi 1729: 268).

Artean atzizki berriak biltzeko parada izateaz gain, hiztegiko sarrerak osatu beharrak berrikuntzak egitera eta atzizki zenbaiten maiztasuna areagotzera eraman zuen. Haietako batzuk, hiru zehazkiago, “De las voces facultativas, y de la licencia que me tomo en la formación de algunos vocablos” atalean (1745: xviii-l, § XXVI) bereziki aipatu zituen: *jakinde*-tik erauzi zuen *-kinde* “uzkurtua” delako atzizki berria⁷¹⁴ eta gazt. *des-* eta *con-* aurrizkiak ordezkatzeko erabili zituen eusk. *des-* aurrizkia eta *-kide*, *-kida*, *-kidatu* familia.⁷¹⁵ Pasartea Azkaratek (1992) hustu du. Haatik, ez da hori hiztegiak honetaz dakarren informazio bakarra, ez eta hurrik eman ere: gehiena sakabanatuta dator erdal aurrizki batzuei eskaini zizkien sarreretan edota, bereziki, zeharo gutxietsi den beste leku batean: etimologietan, hain zuzen. Esan gabe doa sakabanaketak ez diola lagundu: atzizki baten baino gehiagoren azalpena peitu dugu arrazoi horregatik eta, gerora begira, gramatikan iragarritakoa praktika lexikografikoan bakarrik gauzatu zelako —eta nolabait azpijokozko— halako itxura bat eman izan dio, ziurrenik.

⁷¹⁴ Hemen elkarketan (§ 3.1.6.2) aztertua, *jakinde*-z egindako hitzekin batera.

⁷¹⁵ Gaztelaniazko aurrizkien ordainek atal berezi bat dute (§ 4).

2.2.1. Atzizki bakartuak vs emankorrek

Larramendik egin zituen gauzak aipatzen hasi baino lehen, konpli da egin ez zituen zenbait ager ditzadala, euskal hitzak oro irabiatu zituelako ustea muga egokiagoetara eramateko.

Bistan da erabili dudan corpus zabal xamarrean behin baizik agertzen ez diren atzizkiak (-to, -sko eta -skote txikigarriak, -xar adierazkorra, -dui eta -zu multzokariak, edo -tiar, -duri eta -doro) ez daudela hainbat adibide eman dituzten beste zenbaiten maila berean. Larramendik atzizkitzat identifikatu gabekoak izan daitezke batzuk eta, edozein modutan, euskal atzizki ezagunak —nahiz gutxi-asko zabalduak— izanik, iturri jakin bat izan behar dute guztiek, agerraldi bakantasuna zuri litzakeen iturriren bat, izan ere: -zu-ren kasuan toponimia dela aldeztuko dut (§ 8.2), -to eta -duri-renean Iparraldeko idazleak,⁷¹⁶ nabarmena iruditzen zait, bestalde, -tiar eta -xar-en iturriak ere ekialdekoa eta -dui-renak mendebaldekoa izan behar dutela, -sko eta -skote-ren euskalki banaketaz datu ziurrik ez dudan bitartean.

Ezinbestean, iturri idatzirik ez dugunean ahozkoa proposatu behar dugu. Atzizki bakartuek, hortaz, hitza entzuna edo irakurria izan dela baieztatzeko nolabaiteko ziurtasuna ematen digute. Dena dela, gorago esan dudanaren arabera, ezer ziurrik esan ahal izateko hiztegi osoaren gaineko azterketa eskatuko lukete hauek, guztiz literaturak edo toponimiak ezin azal ditzaketenek. Esate baterako, -doro-k Larramendik berezko duen ezaugarri bat —morfoaren hasierako kontsonantearen ahostuntzea (ik. § 2.2.2)— aurkezten duenez gero, aurrez esan daiteke *HH*-an zehar -toro aldaera nagusiaren adibideak aurkituko direla eta, corpusean agerraldi bakarra izan arren, neurriren batean atzizkia hiztegiarentzat emankor izan zela. Adibide honek erakusten digu corpusean adibide bakar bat izatea hiztegiarean aukerei zor dakiokela: gazt. -mente ordezkatzeko nagusiki -ro eta -kiri atzizkiak hautatu zituen, inoiz edo behin bestelako bideei —haien artean -toro-ri— lekua egin zien arren.

Bigarren mailan ditugu adibide gutxi eta denak zaharrak —hots, lehenago lekukotutakoak— dituzten atzizkiak (-kuntza, -(k)ari, -mentu): gure corpusaren arabera *HH*-an emankorrek suertatu ez badira ere, nabarmena da literaturan edota ahozko hizkuntzan biziak zirela eta —diren arrazoiak direla— hiztegiarek (1) ez zituen identifikatu, baina ezinbestean ale zenbait itzuri zitzaizkion; edo, are ziurrago, (2) ez zuen haien erabilera hedatu, dela haien lekua “betea” zeukalako (-toro-z esan bezala), dela atzizkiak har dezakeen alor semantikoa berez mugatua delako (eta azken hau da, inolaz ere, -(k)ari-ren kasua, *gosari*, *afari*, etabarretan baizik agertzen ez baita).

Hirugarren mailan kokatuko nituzke gehiegi garatu ez zituen atzizkiak; hauetarako azalpena goiko bigarrena izaten da, batez ere baliokide bat edo batzuk hobetsi izana. Adibidez, -kizun-ek 8 bat agerraldi biltzen ditu corpusean, denak lehendabiziko lekukotasunak: itxura

⁷¹⁶ Corpuseko adibideetarako, zehazkiago, Leizarraga (*azauto*; ik. § 9.2.4.1) eta Axular (*axolduri*; ik. § 9.2.4.2), hurrenez hurren.

guztien arabera berarekin eratorriak egiten jakin bazuen ere, hanbatik hanbatean *-garr*i erabili nahiago izan zuen.

Ezustekoren bat ere badugu maila honetan: *-tasun* garapen laburreko atzizkia da *HH-*an, izen abstraktuak egiteko bestelako atzizkiak hobetsi zituelako, hain zuzen (ik. § 2.2.4.2). Antzera jokatu zuen, bestalde, Iparraldeko tradizioan indarrez zebiltzan *-mendu* eta *-ki₃* atzizkiekin: hitz berriren bat badago ere, bietan argi xamar geratu da batzuetan bere gogoko atzizkiekin ordezkatu zituela iturrietan aurkitutako hitzetan.

Laugarrenean, azkenik, bereziki emankorrek izan direnak: *-go*, *-tze / -te* eta *-era* izen abstraktuak eta ekintza-izenak egiteko erabiliak, *-ki* 'gauza' adierako izengilea, *-tzaille* eta *-ari* 'egilea' adierako izengileak, *-garr*i eta *-kor* izenondogileak, *-tu* adizgilea eta *-kiro* eta *-ro* aditzondogileak izan daitezke aipagarrienak, lexikoa aberasteko garatu behar zituen gramatika kategoriak eta are paper semantikoak zeinek bere ordezkariak dituztelarik. Ohartu maila goren honetan ere lekua betea izateak garrantzia izan bide duela: badirudi Iparraldeko tradizio indartsuaren aurka aditzondogileak *-kiro* eta *-ro-z* egitea *-ki-ri* eman zion beste betebeharrarekin lotuta egon daitekeela, hein batean bederen. Edonola ere, denak dira *HH-*aren iragarle: gerora bere hartan jarraitu dutenak, lehenengo lekukotasun guztiak edo gehienak bertakoak direlako; aldatu edo bertan behera geratu direnak, hitz baten etorkia —eta, ondorioz, idazle baten filiazioa— ezagutzeko bide ezin ziurragoak direlako. Honelako zenbaitetan, gainera, gaur begi aurrean dauzkagun zenbait gertakariren azken arrazoia aurki dezakegu: esaterako, *HH-*koa ezagututa ez da harritzekoa ekialdeko atzizki guztietarik hain zuzen *-go* izatea —ongi ala gaizki— Hegoaldean erabiltzen dugun bakarra,⁷¹⁷ ez eta oraindik ere —Larramendi baino lehentxeago Urteri gertatu bezala— arazoak izatea bana-banakoa ez den gazt. *-ble* eta eusk. *-garr*i-ren arteko egokitasunarekin.

2.2.2. Alomorfoak

Hala nola atzizki baten agerraldi bakantasuna hitz bat entzuna edo irakurria izan dela baieztatzeko argudio indartsua izan daitekeen, badira kontrakoa —hau da, hitz baten berritasuna— erabakitzen lagunduko diguten zenbait ezaugarri oso argi. Lehena alomorfoez egiten duen erabilera da, hain zuzen.

Ezer baino lehenago, kontuan izan behar dugu batzuetan alde handia dagoela teorian esaten duenaren eta hiztegian aurkitzen dugunaren artean: hainbat kasutan argi geratu da Larramendik atzizki zenbaiten alomorfoak ongi ezagutzen zituela (cf. *-kide / -ide*, *-gin / -kin*, *-tze / -te*), baina hiztegian hautapen erabateko edo ia erabatekoak (*-kide*, *-kin*) egin zituen batzuetan, eta bestetan aldaera gehiago sortu (*-de*, *-ta*, *-da*). Beraz, gramatikariak hiztegitale

⁷¹⁷ Halaz ere, Hegoaldeko erabilera okerraren erruduna ez da Larramendi, ikusi ahal izan dugunez, beranduagoko (XX. mendeko) norbait baizik, eta egingo nuke ezaguna dela.

bihurtzerakoan noiz irekiago noiz estuago jokatzeko izan zituen arrazoiak edo bideak aurkitu beharko genituzke.

Derradan aurretik, azalpena errazteko asmoz “arau” hitza erabiliko badut ere, kontzeptua bera Larramendirentzat arrotza zela:⁷¹⁸ “arauez” baino askozaz egokiago “joerez” hitz egitea izango litzateke, oraindik gure hitzak erabiliaz, eta Larramendiren pentsamoldera benetan hurbilduta, “analogiaz”: analogiak —eta ez arauak menperatzeak— sortarazten dizkio entzun edo irakurritako hitzen eredura egindako hitzak. Honek azaltzen du geroko lerroetan “betetakotzat” joko ditudan arau direlakoek gehienetan salbuespen nabariak izatea.

Alomorfoak direla eta, alde batetik, Larramendi batzuetan ez zen haien banaketa agintzen duten arauz ohartu; bestetik, euskaraz ohiko (baina ez nahitaez orokor) diren zenbait arau betearazi zien; eta, azkenik, alomorfo multzo ezagunen ezaugarri zenbait forma bakarrekoei erantsi zizkien. Lehenengoaren ondorioz, alomorfoak ausazki banatuta eta, areago, bigarren mailako aldaera zenbait gailenduta ager daitezke *HH*-an; bigarren eta hirugarrenaren ondorioz, ordura arte sekula ez lekukotutako aldaerak sortzen dira. Honen inguruan, zehazkiago, hurrengo gertakari motak antzeman ahal dira:

1) Testuinguruari zor zaion aldaera hobetsi du, morfoaren itxura neutroaren kaltetan: *-kai*, *-kaitz*, *-kin* eta *-kintza* *-gai*, *-gaitz*, *-gin* eta *-gintza* baino biziki maizago agertzen dira; testuinguru egokirik gabe lehenengo aldaera-multzoaz egindako eratorriak, gehienak berriak (Larramendik eratuak) izan daitezke, beraz; bigarren multzoaz egindakoak, aldiz, eskuarki tradiziozko erabileraren hondarrak, bat edo beste hiztegigileak hartu zuen kasuan kasuko erabakiaren fruituak badirateke ere.

2) Beti ahoskabea hautatu izana ez da halabeharrezkoa, bi arrazoi argik, biak batera ziurrenik, azal dezaketena baizik: *k-k* euskal erator-atzizkien hasieran duen maiztasuna,⁷¹⁹ eta ahoskabetzeak alomorfo zenbaiten agerpenean daukan paperaz ez jabetu izana. Bigarren hau orokor eta eraginkorragoa da, *HH*-an aldaera nagusitzat ahostuna daukaten atzizki zenbaitetan ere haren aldeko frogak kausitzen dira eta. Har ditzagun lehenik *-go* / *-ko* eta *-gari* / *-kari* bikoteak, itxuraz salbuespenak. Bietan aldaera ahoskabearen adibideak bereziki urriak dira (*-ko-k* 2/35 eta *-kari-k* 1/15, *-gari*, bakarrik kontuan hartuta), baina duda izpirik gabe ziurrak: *ahaikoa* eta *ahakoa*, biak Iparraldeko literaturatik hartuak, eta *azkarri* ‘legamia’ ahozko lekukotasunek B-gip eta G-azp-goi ingurunean bermatua. Argi dago Larramendi ez zela aldaerok eragin dituzten arau zaharrez jabetu, errazena izan zitekeen *azkarri*-ren aldamenean *arpezgari* eta *azgari* bera (< (*h*)atz) baitakar. Areago, baliteke *-go* eta *-gari*-ren aldaerak zirenik ere ohartu gabe jasoak izatea: honek azalduko luke prozedura bestelako oinarrietara

⁷¹⁸ Kontuan izan bedi, adibidez, latinetik gaztelaniarako hots-aldaketa multzo aipagarri bat biltzeko gai izan zen Aldrete aitzindariaz mintzatzerakoan (ik. Nieto 1975: 214 t. hur.), “arau fonetiko” izena kontuz saihesten dela, haren lana, garaiari dagokion bezala, analogian oinarrituta baitago. Honetaz guztiaz, ik. Bahner 1966: 128-133.

⁷¹⁹ Halaxe da Larramendik ezagutu zuen euskaran nahiz, ezaguna denez, euskal atzizki gehienek galduaz joan diren hasierako kontsonante gabeko aldaera zaharragoak izan dituzten (Mitxelena 1977a: 247-251).

hedatu ez izana eta, batez ere, *ahaikoa* gaizki ulertua (“pariente” itzuli zuen, *auzoko* bezalako hitzetan dagoen *-ko* atzizkia zelakoan, antza).⁷²⁰ Alabaina, prozedura ez hedatzea Larramendiren jakinaren gaineko erabakia izan daiteke; ez genuke bere begi-zorroztasuna gutxietsi behar: “cognación, *aidagoa*, *ahacoa*” sarreran badirudi hitz klasikoa eta egokitzapen berria biltzen direla, *ahakoa* behintzat ongi ulertu zuela iradokiaz.⁷²¹

Horzkari hasierako bikoteen (*-di / -ti* eta *-dura / -tura*) egoera alde ezberdina da, bai baitirudi bi aldaerak gauza bera zirela antzematera iritsi zela: *-ko-z* eta *-karri-z* ez bezala, *-ti* eta *-tura-z* hitz berriak egin zituen baina, eta honetan datza gakoa, beren burua salatzen dute: testuinguru egokia aurkezten duten hitz guztiak (*amezti*, *arizti* eta *ahantzura*, *antura*, *aztura*, (*aragi*)*lotura*) zaharrak dira,⁷²² testuinguru berean *-di* daukaten hitzak (*artelazdi*, *arkaizdi*) eta handik kanpora *-ti* eta *-tura* dutenak (*arkoskati*⁷²³ eta *askatura*) lehenago lekukotu gabekoak diren bitartean. Kasu honetan, gainera, Larramendiren lekukotasuna dugu, jakingabeen gauzak zein oker uler daitezkeen jakiteko: bere ustetan, *-ti* alomorfoa landare-izenei bakarrik ezartzen zaie.

Hirugarren bikote batean (*-dun / -tun*) orain artean esandakoaren salbuespen bakarra aurkitzen dugu: lehenago lekukotutako hitzetan *-dun*-en aleak bakarrik eduki eta berrietan legea aldizka bete ez zuen arren (*andezdun*, *anzdun*, *aranzdun*, *aldasdun* eta *arusedun* lekuko), ‘txistukaria + *-tun*’ adibideen ugariak (*aiztun*, *alikeztun*, *alkabuztun*, *arkaiztun*, *arpeztun*, *artikastun*, *artukiztun*, *austun*) eta salbuespenen ezerezak —*altun*, antroponimiak azaldua (§ 8.2), eta haren garapena den *ahaltun*— kasu honetan testuinguru egokia asmatu zuela erakusten digute.

3) Ahoskabetzeaz jabetu ez zen bitartean, ozenek ahostuntzeko daukaten gaitasuna ondo ezagutzen zuen. Haatik, haren indarra oso ahula da eratorpenean, histori garaian behinik behin, *-du* partizipio marka, *-dari* ‘egilea’, *-dar* ‘nongoa’ eta *-degi* ‘lekua’ salbuespen nabariak direla, eta *-dasun*, *-gi*, *-do* eta *-gunde*-ren adibide bakanen bat gorabehera.⁷²⁴ Larramendiren jokaera ez da beti bat, baina orokorki esan daiteke ahostuntzeari ohi baino garrantzi gehiago eman ziola, guztiz *-n* osteko testuinguruan.

Honen ondorioak hiru puntutan bil daitezke: (a) aldaera ahostun ezaguna daukaten atzizkietan, bi aldaeren arteko banaketa ona (nahiz ez erabat sistematikoa, *-du*-n izan ezik) izan ohi da *n* ostean; *l* eta *r* ostean *-tegi* agertzen da beti, adibide zaharretan bezala (cf. *afaltegi* eta

⁷²⁰ Jakina, eragileen artean iturriko testuingurua ere aipatu behar da: ik. § 9.2.5.

⁷²¹ Ik. 20. oharra *Erans*-eko gertakari batzuekin izan dezakeen loturaz; cf., bestalde, “cantería, arte de canteros, *arguintza*, *arriquintza*” sarrera argia, non hurrenez hurren hitz zaharra (XVII ea.) eta Larramendiren sistemaren barruan eraturako aldaera berria agertzen diren.

⁷²² *Ahantzura* ez da ziurra, jadanik azaldu bezala (ik. 80. oh.), baina, dena dela, ez lituzke gauzak gehiegi aldatuko.

⁷²³ Zalantzas eratua: cf. *arkoskadi* esanahikidea.

⁷²⁴ Cf. *ondasun* (1596), Axularren *iakindasun / iakintasun* zalantza (*AxH*), Kapanagaren *sorgindasun* eta *zitaldasun*, Otxoaren *mortal dasun*; *ongi* (1415) eta Leizarragaren adibide ugariak (ik. 120. oh.); *estalgi* (RS 69, 111); *ondo* (XV e.a.); eta *ongunde* (1643). Adibide gehienak Mitxelena (1977a: 353) bilduak dira.

artegi, biak Leizarragarengan); *-dari*-ren kasuan aditzaren partizipioa erabakigarri izan ohi da: *-du*-k *-dari* eskatzen du (*azaldari*) eta *-tu*-k *-tari* (*agertari*, *agurtari*, etab.); erregela berberak azal lezake *adimentar* (< *adimentu*), *-dar*-ek bai *l* (*axaldar*) bai *r* (*lonbardar*) osteko ingurunean agertzeko gaitasuna duelarik;⁷²⁵ (b) bazterreko adibideetan baizik idorotzen ez den aldaera ahostuna daukatenetan ere antzeko joera antzematen da, beti *n* ostean: *astundasun* (vs *argaltasun*, *alfertasun*), *adinondo*, *arindo* (vs *ausarto*); eta (c) espero ez genezakeen atzizkietan ere aldaera ahostunak agertzen dira; halaxe sortu bide dira *-de* (< *-te*), *-geta* (< *-keta*) eta *-doro* (< *-toro*) alomorfo berriak.

4) Larramendi atzizki batzuek kontsonantedun eta gabeko aldaerak dituztela ohartu zen, nonbait,⁷²⁶ eta hala zeritzanean —eufonia lortu nahiz, ziurrenik— bere alde baliatu zituen, inoiz ez lekukotutako kontsonante gabeko aldaerak (ber)sortuaz: *-intza* (< *-kintza*), *-i* (< *-ti* izenondogilea), *-ura* (< *-dura*), *-i* (< *-ki₃*). Orain arte esandakoa *HH*-an kontsonantedun atzizki nabarmenak direnei bakarrik dagokie: *-unde* itxuran bakarrik aurkitu dudak *-kunde*-az besterik pentsa liteke oraingoz (hots, herrikoia dela) hiztegi osoko azterketaren zain (cf., dena dela, *jakiunde*, 1713).

5) Alderantzizkoa egiten ere jakin zuen: *aurketada* (*-tada* < *-ada*), *aitzindera*, *alargundera*, *arindera* eta *aurdera* / *aurtera* (*-dera* / *-tera* < *-era*),⁷²⁷ *akerkaira* (*-kaira* < *-aira*), *atsegindeta*, *naideta* (*-deta* < *-eta*). Azpimarratzekoa da erantsitako kontsonanteak beti *k* edo *t* (eta *d* aldaera modura) izatea, gainerako atzizkietan nagusi dabiltzanak errespetatuaz.

6) Analogiaz, *emaile* bezalako hitzetan ikusten zuen **-aile* hura *-tu* / *-du* partizipio zenbaitetara hedatu zuen: *argedaille* (< *argedatu*), *azaldaille* (< *azaldu*). Bigarren forman, gainera, kontsonantedun atzizki (*-daille*) bilakatuta dakusgu. Agian *arpeztaille* ere honelaxe azal daiteke, ekialdean aski ezaguna den *-taille*-ren bitartez baino errazago bederen.

7) *n* ostean *-de* (< *te*) daukaten hitz anitzen analogiaz, halaber, *-nde* hartzen dute hainbatek (*agerinde*, *aldande*, *andiande*, *anizkidande*, *aninande*, etab.), eta batek bederen *-lde* (*aboalde* “confesión” < *aboatu*).

8) *-kida* atzizkia *-kidatu*-tik atzeranzko eratorpenez erauzia dela eta *-ta* / *-da* bikoteak (*-te* aditzizenaren aldaera berriak) *-atu* partizipioetatik ateratako *-a* bukaerako izenekin loturaren bat duela dirudi (§ 5.4.1). Elkarketan ikusiko dugunez (§ 3.2.3.4), bestalde, bide ezberdinez eratutako hainbat elkartuk *-a* bukaera (eskuarki *-e*-etik datorrena, hain zuzen) daukate. Azkenik, Larramendik izen mugatuetan batzuetan aurkezten duen *-ea* / *-a* bikoiztasuna —mugagabeetan eragin handia izan zuena (ik. I, § 8.5.1)— ere aipatu behar da, guztiz *-ta* / *-da*-ren sorreran, baina baita *-tza₃* eta *-tze* atzizkien artean antzeman dugun muga lausoa azaltzeko.

⁷²⁵ Esan gabe doa *-dar* eta *-dari*-ren salbuespenak (*aosdar*, *aldedari*) eta *-tar* eta *-tari*-renak (*argidortar*, *ariltari*) badirela.

⁷²⁶ Nasaikien erabiltzen dituenak eta, hortaz, hobeki ezagutzen bide zituenak *-tar* / *-ar* eta *-tari* / *-ari* dira, baina *-kide* / *-ide* eta *-keria* / *-eria*-z ere ohartu zen, ikusi dugunez.

⁷²⁷ Cf. ahostuntzeaz gorago esana eta erreparatu *r* ondoko testuinguruaren zalantzazkotasunari.

9) Corpuseko adibideen arabera, beheranzko diptongoaren ostean *a-z* hasten diren atzizkietan (*-ada* eta *-aga-n*) bokala desagertaraz dezake: *antzeskaida*, *arauga*.

10) Bokalarteko *d / r*-ren nahasketaren (Mitxelena 1977a: 227-229) ale zenbait itzuri zaizkio hiztegiileari: *aldaskari*, *almendrari* (*-ri < -di*) eta *atzeraida* (*-aida < -aira*). Hiru kasuak disimilazioz azal daitezke, baina ohartu *atzeraida* behinik behin hitz berria dela eta, beraz, Larramendik hartutako erabakiaren (erabakien?) aurrean gaudela.

11) Larramendik Iparraldetik mailegatu zituen atzizkien artean sartu behar ditugu *-tzale* eta *-zale*, *-zaille*-ren aldaerak. Esanguratsuki, Iparraldeko literaturan bakarrik erabiliak ziren aditzei erantsita agertzen dira beti (*aitzinatzaile*, *amatigazale*...): Etxeberri Sarakoaren hiztegiak zerikusiren bat izan lezakeela zeharo baztertu gabe, baderitzat berariazko erabaki baten ondorioak direla, berak ezagutu zituen testuetan lekukotutako *-(t)zale*-ak —denak orokorrago diren aditzei erantsita (*aditzale*, *administrazale*, *adorazale*)— *-zaille* gisan agertzen baitira *HH*-an. Antzerako egoeran dagoke *-mendu* atzizkia ere: cf. *aurizkimendu*, lehenago lekukotugabea.

2.2.3. Oinarriak

Lan handia eman digun kontua da, atzizki gehienen oinarrien saila *HH*-an aski ñabarra, batzuetan erabat tradizioz gabekoa eta, hortaz, aski nahasia ageri delako. Gogoan har dezagun ezer baino lehenago duela ez gehiegi arte arlo ezezagun xamar edota landugabea izan dela morfologian; euskarari dagokionez, zehazkiago, Azkarateren lanak arte (1991, 1992) ez zegoen honi buruzko inolako kezka sistematikorik, eta sailkapen garrantzitsuenetakoak (Azkue 1923-1925; Lafitte 1944) hitz berriaren gramatika kategoriari, atzizkiak zer sortzen duen eta hari begira egindakoak dira (Azkarate 1991: 25). Beraz, balirudike alferrikako lana dela XVIII. mendeko gizon batengan hitz berriak egiterakoan tradiziozko oinarriak eta eurak bakarrik erabiltzeko asmorik aurkitu nahi izatea.

Halaz ere, Larramendi ustezko erruez —zeharo anakronikoak badira ere— garbitzea, arazoari oker heltzeko modua da. Atzizkien erabileraz egin zituen deskribapenetan haien oinarriak, agerriki edota adibideen bitartez, ongi zehaztuta ohi daude eta, halaz ere, *HH*-ko eratorrien ezaugarrietatik bat, oinarriko kategoriak hautatzeko bere buruari aitortu zion askatasuna da. Errua ezin egotz diezaiokegu ezjakintasunak eman ohi duen ausardiari, beraz: ziurrenik ez da erabat oharkabean egindakoa, atzean eragile ezagun eta indartsua —analogia— daukan erabakia baizik. Egun ere halako eskubide bat aitortzen zaio analogiari, *arrazakeria* bezalako oinarri berriko eratorriei atea isten ez zaizkienean, adibidez.⁷²⁸ Baina garai haietan analogia ez zen zenbait gertakari azal zitzakeen zerbait, morfologia egiteko bidea baizik, jadanik azpimarratu dudanez.

⁷²⁸ Azkarate, *LEF* Batzordea (Leioa, 1994, 10, 5).

Bistan da, beraz, oinarriak Larramendiren hitzak ezagutzeko bide erraz xamarra direla, tradiziozkoak zehaztuta dauden heinean.⁷²⁹ Ondo ezarritako tradizioak hausten ditu batzuetan, esate baterako *-go* atzikia aditzoinari erasten dionean (*asigo*, *aturdigo*, etab.), edo *-le* izenaren ostean agertzen denean (*ardanle*, *ardazle*). Halaz ere, *HH*-an nabarmenki emankor diren zenbait atzizki (*-kor* eta *-garri* izenondogileak, adib.) betiko oinarriari eta hari bakarrik atxikitzen zaizkio.

Edozein kasutan, *HH* aztertzerakoan ez guke inoiz ahaztu behar literatur iturri ezagunak izan zituela eta, beraz, teoriar legez kanpokoak edo ezohikoak diren zenbait gertakari haien ereduari jarraituz —batzuetan pittin bat aurrerago joanez ere— egindakoak direla, hala nola oinarrian aditzoina daukaten *-ari* atzizkidun formak (cf. *harrapari* 1571, *sendari* 1627). Partizipioa + *-ki* tradiziozko egituraren arabera (cf. *afekzionatuki*, *ohoratuki*, *seinalatuki* 1571) part. + *-ro*, *-kiro* egiturako hitz berri batzuk daude *HH*-an, baina aditzoina + *-ro*, *-kiro* (gutxiagotan baita *-ki* eta *-to* ere) kideko egiturako hitzak are gehiago dira; aldaketa txikia bada ere, komeni da azaltzea tradiziozkoa dudarik gabe erromantzeetako part. + *-ment(e)* egituraren kalkoa baino ez dela, eta gainerantzean —Larramendik erraz antzeman zezakeen bezala— euskaraz salbuespena dela, aditzoina baita erator-atzizkiek eskatu ohi dutena.

Hala eta guztiz ere, elkarren artean lotura zuzenik ez daukaten tiau bereko edo beretsuko berrikuntza zenbait aurkitu ahal izan ditugu. Esan gabe doa hizkuntzak aberaspide kopuru mugatua daukala; honegatik, antzeko premietarako antzeko aterabideak aurkitzea espero genezakeen zerbait da: Harrietek eta Larramendik, biek jakinaren gainean ateratzen dute *-di* atzikia toponimiaren eremu ihartutik, nahiz bietarako, beharbada, Ziburuko Etxeberriren eredia kontuan hartzekoa den (ik. 44. oh.). *-kide* atzizkiaren erabilera ugaltzeko Larramendik jarraitu zion eredia ongi ezagutzen dugu: Leizarraga; halaz ere, honek ez bezala, aditzoina erabili zuen batzuetan oinarrian (*agerkide*, *auzbakide* < *bakide* “conjunto”). *HH*-koak ez dira, ordea, era honetako lehen hitzak, zeren eta ia ehun urte lehenago Oihenartek *ezkontide* eta *bilhakaide* baitakartza (ap. Azkarate 1994: 57). Eta, dena dela, ez dukete hauek *HH*-koek baino zaharrak izateko aukera gehiago: 1745 arteko adibide bakarrak izatea aski ez balitz, Oihenartek “hitz bekanen adigarrian” *ezkontide* azaldu beharra sentitzea ere (“c’est ce qu’on dit en latin *conjux*, le marie, ou la femme”, ap. Orpustan (arg.) 1992: 102) aski adierazgarritzat joko nuke.⁷³⁰

Dena dela, orotara berrikuntza asko antzeman ditugu *HH*-an. Ikus ditzagun gertakari mota batzuk: (1) atzizki indartsu batek gutxi gorabehera betebeharrak berekoa den beste bat kutsa

⁷²⁹ Gogoan izan behar da baliatzen ari naizen Azkarateren lana (1991) lehenengo hurbilketa dela. Zenbait puntutan, Larramendiren iturrirei esker gehienbat, berak jasotzen ez dituen oinarri batzuk ezezagunak ez zirela frogatu ahal izan dut, baina, dena dela, 1745 aurreko eratorpenaren azterketa historikoa peitzeak nahi baino gehiagotan hitzik gabe utzi nau.

⁷³⁰ Azkaratek (1994) Oihenarten lexiko-sorkuntzari eskaini dion lanean, ez du ondorio argirik atera alderdi honetatik, hitz berriren bat badela aitorturik bada ere, “...lehen aldiz neurtitz hauetan agertu izanak ez du esan nahi xuberotar poetak asmatuak direnik; izan daitezke herriko hizkeratik hartuak” (*op. cit.* 50) baitiosku. Kontua ez da erraza, noski, baina baderitzat datuak bildu eta sailkatzeaz gainera honelako gaietan benetan historia egin nahi baldin badugu, gehixeago arriska gaitzkeela.

dezake, berezko duen oinarria harraraziaz; adibidez, *-ko-*k izenaz gainera bere kide *-kor-*i berezko zaion aditzoina ere hartzen du; (2) alomorfo multzo batean, bat hobeki atxikitzen zaio tradiziozko oinarriari, gainerakoak askeago dabilzan bitartean (*-tze* vs *-te* eta haren aldaerak, edo *-tzaile* vs *-le*, adib.); honen barruan koka dezakegu elkartuen bigarren osagaian agertzea ere (cf. *aurrilte* vs *iltze*, edo *arbotale* vs *botatzaile*); (3) ezusteko oinarri mota berri bat aurkitu dugu: ‘gauza, zera’ adierazten duen *-ki* atzizkiak inoiz oinarrian instrumentala dauka (*alabezki*, *aozki*); *-zko* ezagunarekiko analogia dabil hemen, eta bigarren mailan baita Iparraldeko tradizioan arruntak diren *-zki* aditzondoak, agian. Dena dela, beste atzizki batzuekin ere oinarri bera erabili zuen: cf. *auzkari*, *aderazkin*, *arizde* eta *arizkun*. Azpimarratzekoa da aldaketa garrantzitsuenek ez dutela nahitaez gramatika kategoria eragiten: ezaguna denez, atzizki batzuek murriztapen semantikoak badituzte, eta hauetako zenbait ere gainditzeko gai izan zen Larramendi, beti analogia lagun: (4) paper tematikoen aldetiko murriztapena, hala nola *-kin*, *-gile* eta *-kintza* atzizkiak ‘egitearen xedea’-ren ordean oinarrian ‘egilea’ (*arozkintza*) edo ‘egitea’ bera, aditzoina alegia (*aldagile*, *amarazkin*, *antzeskintza*...), daramatenean; (5) tasunen aldetiko murriztapena, berez ‘landarea’ edo asko jota ‘harria’ eskatzen zuten *-aga* eta *-di* atzizkiak halako tasunik gabeko izen konkretuei eranstean dizkienean (*atxorroaga* ‘eskularrutegia’, *artistadi* ‘perleria’).

Orain artean aipatutakoez gainera, badira Larramendiren sistema orokorrari —euskar hitza zer den galderaren erantzunari— zuzenean egotzi behar zaizkion oinarri batzuk, zehazkiago, erdarazko hitzen etimologiak (cf. § 6) eta toponimiaren erabilerak (cf. § 8); adibide argi bana baino ez: *ardiketa* “ardid” (“...puede venir de el Bascuence *ardi*, *ardiz*, oveja, de oveja”) eta *abalzizketa* “melodrama, diálogo en música” (*abalia* “melodía” + *hizketa* “diálogo” berranalizatua). Eta, azkenik, azpimarra daitezke han-hemen agertu zaizkigun oinarri elkartuak, atzizkirik gabe ezer ez direnak. Larramendik berezko —baina ez berea bakarrik— duen sorbidea da. Honelako hitzen zatirik bereziena oinarria denez gero, atal bat eskainiko diet elkarketaren barruan (§ 3.1.7).

2.2.4. Eratorrien adiera

Euskarak kultur lexiko osoa bereganatu zezan Larramendik bitarteko hizkuntza bat, gaztelania, eta haren ispilutzat zegoen hiztegirik handiena hautatu zuen. *DAut* aurrean zuela eta euskararen arimaz eta gorputzaz —berak esango zukeen bezala— zekiena beste laguntzarik gabe, mendeek landu eta leundutako hizkuntza hura hitzez hitz itzultzeko lanari ekin zion. Egitasmoaren handinahi eta gogorra gauza bakar batek leundu zukeen: euskarak bere baitan horretarako eta gehiagotarako ahalmenak badituela osotoro sinistuta egoteak.

Itzulpen edota hiztegegintzan ari direnek ondo dakite inoiz euskaratu gabeko arlorik ttipiena eta ezerezena euskaraz ipintzeko ezin dela hizkuntza lehen zegoen bezalaxe utzi: maileguak sartu, eratorri edo elkartuak eratu, hitzen adierak zabaldu... mila aukera zail egin behar dira, ezinbestean, eduki berriari adierazlea emateko. Larramendi, jakina, egoera

honexetan zegoen eta, eratorpenari dagokionez, jadanik ikusi dugu atzizki anitzi hautsa kendu eta hitz berriak erdiesteko baliatu zituela, haien berritasunak durduzatu ez zuelarik:

...importa poco que no se entiendan al principio, porque con el tiempo y la repetición se entenderán fácilmente (Larramendi 1745: xlix).⁷³¹

Xedea denetarako euskal ordainak izatea da, jakina, eta legeztatzen dituen gauza bakarra, premiaz gainera, euskararen arimaren araberakoak izatea da: ez dago araurik, ez arauemailerik; beste mundu batean ari gara, analogiaren munduan, eta analogiak “gauzak honela badira honelatsu ere izan ahal dira” dio.

Bi premisa hauek onartuta, hau da, euskara gaurkotzeko eginahal guztia egin behar dela eta analogiak bidea erakusten duela, ez da harritzekoa euskal atzizki zenbaitek *HH*-an jasaten duten betebeharren ugaltzea. Esate baterako, bistan da tresna izen pila lehenengoz itzuli behar izan zuela: horretarako diren *-ki* (adib. *artezki* “mira, en escopetas”) eta batez ere *-kai* (adib. *adinkai* “templador de arpa”) atzizkiez gain, ‘egile’ izenak egiteko balio duten atzizkiak ere (*-tzaille* alde batera utzita, esan bezala) lanean ipini zituen: adib. *atiskari* “falleba”, *arbotale* “catapulta” edo *aizekin*, *aizegile* “abanico”; zenbait harri eta txori-izen *-ari* eta *-le*-ren bitartez erdietsi zituen: *adiakari* “autillo”, *arakausle* “sarcófagos”, *aunzedosle* “chotacabras”, *azurtxeari* “quebrantahuesos”, etab.; eta ‘ahalmenak’ adierazteko nagusiki *-kin* atzizkiak baliatu zen: *adikin* “entendimiento”, *autakin* “albedrío”.

Atzizkiz atzizkiko azterketan bakoitzaren zereginen ugaltzea norainokoa den somatu ahal izan dugu, baina hemen bost gertakari jaso nahi nituzke bereziki: gaztelania eta euskararen arteko bana-banako egokitasunak (§ 2.2.4.1), izen abstraktuen eta ekintza-izenen arteko nahasketa (§ 2.2.4.2), erdal erlazio-izenondoak itzultzeko baliabideak (§ 2.2.4.3), betebeharren ugaltzean *DAut*-ek daukan papera (§ 2.2.4.4) eta sail bereko atzizkien artean egin zituen bereizkuntzak (§ 2.2.4.5).

2.2.4.1. Bana-banako egokitasunak

Hizkuntza biren baliabideak azaletik erkatzen direnean, baliokideak berehala agertzen dira. Esan gabe doa Larramendi behin baino gehiagotan azterketaren azaleko maila honetan geratu zela, gaztelaniazko eta euskarazko atzizkien artean bana-banako egokitasunak ezarriaz. Honen ondorioak arinak izan daitezke: adibidez, gaztelaniazko txikigarri markak sistematikoki euskal txikigarri batez (eskuarki *-txo-z*) ordezkatu zituenez gero, hizkuntza horretan oso ugari diren lexikalizazioek ere *-txo* daramate euskaraz (*azpilduratxo* “dobladillo”, adib.).

Haatik, inoiz astunak izan daitezke, hizkuntza hartzailearen sistema desoreka baitezakete. Hau dela eta baitezpadakoa da *-garr*-ren *HH*-ko gorabeherak aipatzea: gazt. *-ble* eta eusk. *-garr*-ren arteko egokitasunak batzuetan bakarrik funtzionatzen du lekukotasun

⁷³¹ Berbera esan zion Mendibururi Nafarroako hitzei buruz: “Cerren lembizian, ta batbatetan aditzen ezpadira, aurqui adituco dira, ta gueyenac dagoaneco aditzen ere badira: ta ala Eusquera bide batez edertzen ta ugaritzen da” (Larramendi, Altuna & Lakarra (arg.) 1990: 36).

zaharren arabera: ‘x-tua izatea merezi duena’ adierazten dutenean (*adoragarri* “adorable” bezalakoetan), hain zuzen (Azkarate 1991: 78). Gainerakoan, egokitasuna *-ble* eta *-kor*-en artekoa da (*aldakor* “variable”), *-garr*-k berez ‘eragilea’ adiera baitauka (*ahalkagarri* “vergonzoso, que da vergüenza”). Eman ditudan adibide guztiak *HH*-koak dira, baina Larramendik, iturri ezberdinen bitartez, *-garr*i eta *-kor*-en berezko balioaren halako ale zenbait bildu ahal izan zituen arren, hitz-sortzaile gisa bi egokitasun baliarazi zituen batez ere: *-kor* eta *-izo* / *-oso*-ren artekoa (*arradakor* “raedizo”, *amillkor* “precipitoso”, adib.) eta *-garr*i eta *-ble*-ren artekoa (*aldongarr*i “convertible”, *apaingarr*i “adornable”, etab. etab.). Beraz, eusk. *-kor* eta *-garr*i-ren artean zegoen muga *-kor*-en aldera higitzen da, beraren eremua nahikotxo janez. Ezin esan gabe utzi, dena dela, inoiz nahasketa bestalderantz ere aritu zela, *-kor* ‘eragilea’ adieraz erabilaraziz, corpusaren arabera gazt. *-ivo* atzizkiarekin bakarrik: cf. *adierazkor* “indicativo”, *arkidakor* “inductivo” eta *argedakor* “retenedor, retentivo”, *ahaikagarri* “provocativo”, *alaigarri* “roborativo”, *argigarri* “iluminativo”... ugarixeagoen aldamenean.

Dena dela, berrikuntza ez da zeharo Larramendirena, garaitsuan bestetan ere —Urteren hiztegiari, zehazkiari— soma baitaiteke. Gaiak azterketa lasaiagoa eskatu arren, badirudi, beraz, latin zein erromantzeetatik itzultzen aritu beharrak eragindakoa dela eta, *HH*-aren eragina gorabehera, ziurrenik oharkabean hedatutakoa.

2.2.4.2. Izen abstraktuak eta ekintza-izenak

-tasun atzizkiak duen eta izan duen emankortasuna begibistakoa da: esan liteke atzizkirik ezagun eta erabilerrazena dela, eta erabateko adostasuna erdietsi duen gutxietako bat. Horregatik, doi bat harrিতa gera gaitzek atzizki honek *HH*-an biltzen dituen adibideen urria ezagutzerakoan: ozta-ozta gailentzen zaio *-keria* beti bakanagoari. Kontua da Larramendik bestelako baliabideak erabili nahiago izan zituela, arrazoi ilunengatik.

Hasteko, Iparraldeko testuetan ikasi zuen *-go*-z baliatu zen batzuetan izen abstraktuak egiteko: *andigo* “presunción” zaharraren aldamenean *arrog*o “raridad” eta, analogia haratago eramanez, *arimandigo* “magnanimidad”, *askogo* “multitud” edo *aragigo* “carnalidad, luxuria” bezalako hitz berriak eratu zituen. Haatik, *-tasun* eta *-go*-ren artean ez dute *HH*-ko abstraktu guztien kontu ematen, ez eta hurrik eman ere. Zer gertatu den antzematen hasteko bidea adibide gutxi batzuek erakutsiko ditugute: *adiakaizte* “irregularidad”, *araude* “puntualidad”, *aitzinera* “anterioridad”, *anraketa* “deshonestidad” eta *askantza* “soltura, agilidad”. Honenbestez bistan da ekintza-izenak egiteko erabili ohi diren atzizkietatik zenbaitek abstraktuak egiteko betebeharra ere beren gain hartzen dutela *HH*-an.

Gakoa, eta azalpenaren zati bat behinik behin, Larramendi izen abstraktuen eta ekintza-izenen arteko muga argirik ezartzeko gauza ez izatea da. Euskarak batzuen eta besteen arteko bereizketa zorrotza egin ohi duen bitartean, gaztelaniak (eta latinak ere) muga anitzez lausoagoa izateak (cf. *presunción* bikoitza edo *gordura* abstraktua vs *torcedura* ekintza-izena) zerikusiren bat izan bide du horretan. Gauzak honelatsu izan direlako erakusgarririk

onena, gorago aipatutakoak baino askoz bitxiagoak (ene ustetan, bederen) diren *aiozkeria* “cuchillada” eta *atzakeria* “rascadura” izenak izan daitezke, hala nola *anditasun* “amplificación” edo *argitasun* “lucimiento” itzulpenak ere. Gaizkixeari menperatzen zuen *-go* atzizkiarekin halako adibideak gehiago dira ezinbestean: *aitorgo* “confesión”, *andigo* “acrecentamiento”, *arazigo* “coacción”, etab.

2.2.4.3. Erdal erlazio-izenondoak

Gaurko euskara estandarren oztupo larrienetako bat, erdal erlazio-izenondoak —gure inguruko hizkuntzek atzizkien bitartez hain eroso adieraziak— era batera itzultzeko zailtasuna da. *HH*-an alde honetatik mailegu bakar bat ez dagoenez gero,⁷³² pentsatzekoa da Larramendik bideren bat aurkitu zuela, eta halaxe da, izan ere: izenondoak egiteko balio duten atzizkietatik batzuk zeregin horretan ipintzea, hain zuzen. Nagusiki bi atzizkiz (*-ko* eta *-(t)ar*) baliatu zen, hirugarren batek (*-tsu*) adibideren bat biltzen badu ere:⁷³³ (1) aitzindari nabarmenak zituen orain ere onartuko genukeen *-ko*-ren erabilera alde honetatik hedatzeko: *adimentuzko* “mental” (1571 *adimenduzko*), *aragizko* “carnal” (1571) eta *aranzezko* “espíneo” (1617) bezalako irtenbideak aurreko literaturan aurki zitezkeen; *aldameneko* “lateral” edo *aoko* “bocal” bezalakoek, eguneroko hizkuntzari arreta ipintzeaz beste lanik eskatzen ez zuten. Hortik eta *antzesteko* “pintoresco” edo *azgarriko* “característico”-ra, urrats tiki bat baino ez dago; (2) arrotzago egiten zaigu *-(t)ar*-en erabilera, baina *auzkiar* “superficial” edo *asiatar* “asiático”-k erakusten digute analogiaren lana nondik ibili zen, ‘x-koa’ adieratik ‘x-ri dagokiona’ adierara ia oharkabean igarotzeko; (3) *-ko*-ren aldamenean *-(t)ar* erabiltzeko premia

adibide batek erakus diezaguke: “carnal, cosa de carne, *araguzcoa*” vs “carnal, luxurioso, *araguiçoa*, *araguitarra*”, hau da, hanbatik hanbatean, *-(t)ar*-ek [+biziduna] (gehienetan [+gizakia]) adierakoak bereganatzen ditu. Berbera gertatzen da oinarria [+biziduna] denean, *-ko*-k onartzen ez baitu: *anaitar* “fraternal”, *apaiztar* “clerical”, etab.; (4) hemen sartzen da corpusean bi adibide baino ez dituen *-tsu*: *aitar* eta *aitatsu* “paternal”, *astoar* eta *astatsu* “borriqueño”.

2.2.4.4. DAut-en erdua eratorpenean

Atal honen hasieran esan dudanak *DAut*-en ereduak Larramendik *HH*-an jarri dituen euskal ordainen nolakoan eragina izan duela iradoki nahi zuen. Eguneroko lexikotik kanpoko hitzak itzultzerakoan, haien itxura eta Akademiak ematen zien azalpena hausnartu behar izan

⁷³² Hau ez da zeharo egia, bat bederen baitago: *apostoliko*. Ohartu, ostera, “Sede apostólica” sarrera pean itzuri zaiola, “apostólico”-pean aurkitzen dena *apostoluar* den bitartean.

⁷³³ Elkarketari buruzko atalean ikusiko dugunez (§ 3.1.6.2), alde batetik *egoki* hitza ere —erlazio-izenondoen ‘dagokiona’ adiera aintzat hartuaz— batzuetan elkartuaren bigarren osagaien baliatu zuen, *-goki* itxuran ia-ia atzizki bihurtuta; eta, bestetik, ‘izena + *gisako*, *erako anzako*’ modukoak (adib. *adibidegisako* “bestial”).

zituen, euskal ordain egokiak idoro ahal izateko.⁷³⁴ Bi arlo horiek —hitzaren itxurak eta definizioak— eragin handia izan dutela erakus diezaguketen zenbait gertakari bildu ditut ondoren, lehen puntuari definizioari eta bigarren eta hirugarrenean hitzaren itxurari dagozkionak emanez:

1) Definizioak euskal elkartuen eraketan garrantzi handia izan zuela ikusiko dugu beranduago (§ 3.3.2). Eratorpenean haren frogak aurkitzea anitzez gaitzagoa da: atzizkiren batean (ik. *-ari*, § 2.1.3, adibidez), iragaitzaz bezala, *DAut*-eko azalpen moduaren eta *HH*-ko ordainen artean erlazio zuzen eta sakonagorik egon daitekeela agerian uzten saiatu banaiz ere, gaiak hemen ezin egin dezakedan azterketa xehe bat mereziko luke. Gaiaren garrantzia azpimarratzeko, dena dela, zilegi bekit aurkitu dudan adibiderik argiena erabiltzea: *artexka* “coscoja” eta *ataska* “compuerta” horrela ordaineztatzeko arrazoa, *DAut*-en azalpenean bilatu behar da, *coscoja* “especie de encina pequeña” eta *compuerta* “especie de puerta pequeña” dira eta.

2) Kalkoak: jadanik aipatu dudan *azpilduratxo* “dobladillo”-ren modura, badira erdal hitzaren egitura, esanahia gorabehera, kalkatzen duten beste zenbait: *amorraxka* “rabieta”, *argedaille* “(virtud) retentrix” edo *azkenaitxo* “codicilo” bezalakoak. Ohartu latinak ere eraginen bat izan duela: *-trix* eta *-ilo* horiek *-aile* ‘-tzaile’ eta *-txo*-z haren berri duenak bakarrik itzul ditzake.

3) Atzizki ordezkapena: etimologiak hitz bat euskal etorkikoa dela erabaki duenean⁷³⁵ haren familiako zenbaitek atzizki ordezkapen hutsaren bidez erdiesten dute euskal ordaina: *arbotari* “arbotante”, *artilari* “artillero”, *azañotsu* “hazañoso”. Azken adibidean dakusgunez, ez dago euskarari arrotz zaion oinarria erabiltzeko oztoporik, nahiz eta edozein ikuspuntutatik **azañatsu* izan beharko zukeen.

2.2.4.5. Gaztelaniak euskarari zor dizkion atzizkien berreskuratzea

Ezaguna denez, euskaraz bizi-bizirik dauden atzizkietatik mordoxka bat latinari edota haren ondorengoei zor zaie; gordetzen duten betebeharrak eta itxura antzekotasunak hain dira nabariak non Larramendi jadanik lotura antzemateko gauza izan baitzen batzuetan, *-(k)eria*, *-ada*, *-era* eta *-antza* atzizkietan ikusi dugun bezala.

Zorra alderantzizkoa dela sinistuta, Larramendik ez du inolako oztoporik, eta bai aldiz joera nabaria, erdal hitzaren atzizkia gordetzeko, batzuetan nolabait euskaraz arrunt izango

⁷³⁴ Gogora ditzagun bere hitzak: “Entré luego a leer con reflexión el Diccionario de la Real Academia Española, y leí sus seis grandes volúmenes, y en cada uno todas sus voces sin dexar ninguna” (Larramendi 1745: lii).

⁷³⁵ Xehetasun gehiagotarako, ik. § 7.4.1.

litzatekeen eran, baina bestetan ez, honegatik ez balitz azalpenik ez lukeen hitz taldeño bat lekuko. Ikus dezagun atzizkiz atzizki:⁷³⁶

-ADA:

-ada₁: *atzada* “dedada”.

-ada₂: *adarkada* “cornada”, *agapurukada* “mazada”, *aiozada* “xiferada”, *aitzurkada* “azadonada”, *antzeskaida* “pincelada”, *aokarukada* “dentellada”, *aotzikada* “picotada”, *arbelotada* “bodocada”, *arrikada* “pedrada”, *atzaparkada* “garfada”, *atzarrada* “gatada”, *aurketada* I “tromptada”.

Gaztelaniak azaltzen dituen hitzak (oinarri edo atzizki-forma bitxikoak): *aokada* “bocanada”, *astada* “borricada”, *atzalada* “uñada, señal, impresión con la uña”, *aurketada* II “portada”.

Mailegu zuzenak: *akatxada* “acachada”, *alborada* “alborada”, *algarada* “algarada”, *almendrada* “almendrada”, *arrakada* “arracada(s)”.

-ANTZA:

Gaztelaniak azaltzen dituen hitzak: *adieranza* “significanza”, *aisantza* “holganza”.

Mailegu zuzenak: *alabanza* “alabanza”.

-DURA:

Gaztelaniak azaltzen dituenak: *algaindura* “costura”, *aokadura* “dentadura”, *atzekidura* “raboseada, raboseadura”.

Mailegu zuzenak: *altzadura* “alzado”, *armadura* “armadura” (1571), *arraskadura* “rascadura” (XVII ea.), *asmadura* “asmadura”.

-ERA:

Gaztelaniak azaltzen dituenak: *arbelotera* “bodoquera”, *arikaera* “cansera”, *azaldera* “explicaderas”.

-(K)ERIA:

Espero izatekoak: *azerikeria* “zorrería”.

Gaztelaniak azaltzen dituenak: *atziperia* “superchería”.

Mailegu zuzenak: *alegeria* “alegría”, *azañeria* “hazañería”.

Atzizkiak euskaraz eta gaztelaniaz antzeko betebeharrak izateak adibide asko halabeharrezko bihurtzen ditu (cf. *-kada*₂ batez ere). Halaz ere, gaztelaniazko hitza aldamenean egoteak bakarrik azal ditzakeen anitz ere bildu ditugu, halakoetan funtzioari baino itxurari gehiago begiratu ziola erakutsiaz. Kasurik interesgarrienak *aurketada* “portada” eta *azaldera* “explicaderas” dira, gaztelaniak atzizkia ez eze atzizkiaren forma ere eragin baitu.

2.2.4.6. Sail bereko atzizkien arteko ezberdintasunak

Euskarak garai historikoan erator-atzizki anitz daukan hizkuntza da: etorki ezberdineko hizkiak —latinetikoa (*-ada*, *-ari*, *-dura*, *-keria*, *-men(du)*...) zein berezkoak (*-garri*, *-gin*, *-ki*, *-tasun*...)— bildu izan ditu, ziurrenik abiadura eta ahozko hedadura ezberdinez, gaur egun ezagutzen dugun sistema korapilotsua osatu arte.

Larramendik, artean ez bezalako sakontasunez euskara aztertutik, bazekien gauza bera edo beretsua adierazteko atzizki bat baino gehiago dagoela, eta batzuetan bat edo bestearen aldeko aukerak edo joerak hizkera mailakoak direla (cf. §§ 2.1.3 *-tzaille* / *-le* / *-ari-z*

⁷³⁶ Lotura etimologiko argiko atzizki hauetaz gainera, ondoko adibideak ere bederen aurkitu ahal izan ditut: *aizuriska* “ventisca” (non eusk. *-ska* = gatz. *-isca*) eta *arrikari* “petraria”, baina oraingoz bakarturik daude.

eta 2.1.4 *-gile / -gin-ez*). Non-nahiko euskara jaso beharrez ari zenez gero, ez dirudi ezagutu zituen edonongo atzizkiei muzin egin zienik, nahiz —berak ere aukerak egin behar— batzuk bakarrik emankor bilakatu zituen (cf. Iparraldeko *-go vs -duri*, adibidez). Berak egin zuen aukera orokorrean, atzizki emankor eta antzuean, gorago mintzatu gara, halere. Hemen interesatzen zaiguna, berez balio bereko edo beretsuko atzizki emankorren artean egiten jakin zituen bereizkuntzak dira.

Hainbat kasu aztertu ditugu lehenago, zein bere lekuan, eta denak bat datoz ezaugarri nagusietan: funtzioakideen artean Larramendik beti bat hautatzen du —edo, agian zehatzago, hobeto ezagutzen duen euskarak hautatuta demaio— behar arruntenak betetzeko (cf. *-tzaille*, *-tze*, *-di* eta *-tsu*); honelakoak morfoaren tasunik ohikoenez jantzita ageri zaizkigu ia salbuespenik gabe adibide zahar zein berrietan. Gainerakoei, ostera, agerriki eremua zabaltzen zaie (cf., goikoen parean eta hurrenez hurren, *-le* eta *-ari*, *-te*, *-de* eta *-tza₂*, *-aga* eta *-eta*, eta *-ti*), adiera berriak eta batzuetan baita oinarri ezohikoak ere hartzeko parada erdietsita.

Oso baliabide ezaguna da, bestalde, bazterreko formak edo zahakitutakoak hutsuneak betetzeko erabiltzea, batzuetan lehen zehazki ez zeukaten baina urruti ez dauden betebeharretan jartzea. Euskaratik ilki eta luzaro aztarrika ibili gabe, gogora daitezke *anker*, *iskilu* edo *oldoztu*, garai jakin batean, arrazoi jakinengatik eta nolabaiteko arrakastaz maileguren ordez proposatu ziren *RS*-ko hapaxak, edota *aizto* eta *arnari*, biak Erronkarikoak omen. Bide beretik datoz gaur egungo (Hegoaldeko) euskara jasoan Iparraldeko tradizioa bazterrekotzat —edo jasotzat, nahiago bada⁷³⁷— harturik egin diren zenbait berrikuntza, hala nola *-go* atzizkia ‘kolektiboa’ adieran hartzea, edota *hastapen* lehen (badirudi aitzindaria Villasante izan dela; ik. *OEH*, s.v.) eta *hatsarre* gero hartzen ari diren adiera berezituak, Hegoaldean tradiziozkoa den *hasiera*-k zeregin arruntetan dirauen bitartean.

2.2.5. Hots-aldaketak

Ikusi ditugun hitzetatik askok ezagunak egiten zaizkigun hots-aldaketa zenbait aurkezten dituzte, baina badira, proposatutako ulerpenaren arabera ez eze nolabait hitza nola eratuta dagoen ulertzeko itxaropenaz jokatuz hots aldaketa handiak, erabat ezohikoak eta azaltzen nahikoa zailak diruditenak. Batzuk besteetatik erabat bereiztea oso zaila da, ostera, bai sarritan elkarrekin lotuta ageri direlako, bai tradiziozko aldaketak oro har diakronikoki aztertu gabe —eta haietako batzuk azaletik baino ez— daudelako ere. Halaz ere, bereizketa saio bat egingo dut, dakigunaren arabera ez eze *HH*-ak eskaintzen duen argipean ere. Mailaka joango naiz zeregin honetan, *HH*-an bakarturik agertzen diren forma zaharretatik hasita, gero aski garatuta daudenak ikusi eta, azkenik,

⁷³⁷ Iparraldeko tradizioari “bazterreko” deitzea haundi irudituko zaio askori; alabaina, gauzei berez dagokien izena ematea ez da txarra izango: begiak dituen edozeinen bistan dago azken urtetotan maiz bertako gauzak “bitxikeriatzat” hartu izan direla, nahiz “jasotasun” estalki goxo batez estali, eta goian adierazi dudan zentzuan erabiltzen ari direla, Iparraldeko euskara XVII. mendeko liburuetan izoztuta bailegoan. Ez dagokit niri jokabide honen ona edo txarra epaitzea; Euskaltzaindiak garbi adierazi du *-go* atzizkiari dagokionez zein den bere jarrera (73. araua, 1997).

aldaketa berriztat-edo eman ditzakegunak aztertzeraino. Honela antzina ohikoak ziren aldaketetatik nolako berri zeukan Larramendik, noraino bizirik zeuden edota menperatzen zituen azter dezakegu lehenik, geroago aldaketa ezezagunago edota handiagoak zein diren, eta nahierara eginak diren ala sistemaren bat duten finkatzen saiatzeko.

2.2.5.1. Zaharkituak

Euskara zaharrean ongi lekukotuta dauden zenbait aldaketak arrastoak baino ez dituzte utzi Larramendik ezagutu ahal izan zituen hizkeretan; zeharo ihartuta bide zeuden, hortaz, XVIII. mendearen hasieran, eta Larramendi alde honetatik eskuarki notario fidela baino ez da, aldaketen nondik norakoa ezin antzemanik.

a) Hirusilabako hitzetan azken bokala $> \emptyset$, eta antzinako n -aren mantenketa (Mitxelena 1977a: 127):

ARDAN- 'ardoa': *ardandegi* (1643), *ardantza* (1164), *ardanle* 'vinatero'.
ARRAN- 'arraina': *arrandari* "pescadero", *arran(t)za* "pesca" (1627), *arrandegi* "pescadería".

Elkarketan (§ 3.2.1.1.a) arau honen adibide gehiago aurki daitezke, eta han bezalaxe hitz berri analogiko zenbait egiten ere jakin zuen Larramendik: *arrandari* dateke adibiderik onena, *arrandegi*-ren eredura egina baita, ziurrenik; *ardanle* zalantzazkoagoa da: halaz ere, erratak ezinezkoa ez dirudien arren, **ardaule*-ri —berez konponbiderik errazena— zaila deritzat, ez baita *ardau*- bakarrik dakarren sarrerarik, beti ere *ardo*- edota *arno*-ren aldamenean baizik.

b) $i > \emptyset + d > t$ (Mitxelena 1977a: 237):

ART- 'ardia': *artegi* (1571) vs *arditegi* (1715); *ar(t)zai* (1183), *arzain* (1545) vs *ardizai* (1745).

Argudio hobeez elkarketan defendatuko dudan bezala (§ 3.2.1.1), Larramendik ez zuen araua antzeman; aitzitik, *ar*- hasierak *ari* "carnero"-rekin lotu zituen zuzenean: cf. hemen ere *artzai* "carnerero" vs *ardizai* "ovejero".

c) $i > \emptyset + g > t$

ART- ala ARK- 'argia?': *arkai* (vs *argikai*).
ARAT- ala ARAK- 'haragia?': *arakile* "sarcótico" (vs *aragigile* "encarnativo"), *arakai*, *arakaldi*.

Elkarketan adibide hobeak eskaintzen ditu arau honek (§ 3.2.1.1.c). Honako hauek, berriz, erabat zalantzazkoak dira eta, denak lekukotu gabekoak direnez gero, errazago lot daitezke, ene ustetan, Larramendiren berrikuntza batekin, hots, ' $i > \emptyset + g > k$ ' arauarekin (§ 3.2.2.c): *arakaldi* (*aragi* + *aldi*) argia da, adibidez.

d) $i > \emptyset + r > l$ (Mitxelena 1977a: 317-319):

AFAL- 'afaria', APAL- 'aparia': *afaldu* (1571), *afaltegi* (1715), *apaldu*.
AIZKOL- 'aizkora': *aizkolketa* vs *aizkoratxo*,⁷³⁸ *aizkorada*.
ASKAL- 'askaria': *askaldu* "desayunarse" (XVII ea., "merendar" 1596).

⁷³⁸ Mitxelenak (*loc. cit.*) *aizkoltxo* aipatzen du, baina ez dago OEH-an jasota; cf., ostera, *aizkolta* eta s.v. *aizkol*- ematen diren elkartuak.

Adibideak urri eta gehienetan zaharrak direnez gero, gehienak arlo semantiko berekoak izateaz gainera, ez dirudi Larramendik hedatu zuenik eta, beraz, *aizkolketa HH*-an arkaismoa bide da, Larramendik oharkabean jasoa.

e) *r > ø / — K* (Mitxelena 1977a: 337-338):

ADA- 'adar': *adakai, adaki* (XVII ea.), *adatsu* "cornudo", "melenudo", "ramoso" (vs *adartsu* "cornudo", "ramoso") // *adartxo, adarkari, adarkada, adardun*

Familia bakar batean agertzen denez gero, badirudi lasai esan daitekeela ezen taldeko hitzak oro herrikoiak direla. Ohartu, bide batez, *adatsu* "melenudo"-ri, homofonia baino askoz gehiago adierazten baitu.⁷³⁹

f) *-ite-*, *-tzaitte-* (Lakarra 1996c: 264-265 eta 295):

adipaitza, aldimitza.

Zalantzarik gabe, Euskal Herriaren bi bazterretan hobeki eta luzaroenik gorde diren artizki forma hauek arrotzak ziren Larramendirentzat, eta leku jakinetan baizik ez zituen jasoa, zenbait izen fosildutan (guztiz *-aile*, *-aitza* itxurakoetan) batez ere.

Gaia agortzeko asmorik gabe, zenbait aditzetan honen arrastoak aurkitzen saiatu naiz, corpusaren emaitzak urriegiak baitira. Ez dago *artu*, *atseden*, *ediren / ideren*, *irten / urten* eta *jai*o aditzetan honen alerik. Aurkitutakoak honako hauek dira:

EBAGI: *inguruco ebaite* "circuncisión", *idunebaite* "degollación", *bustan ebaitea* "derrabadura".

EGON: *egoitza* (1571).

EMAN: *emaile* (1571), *emaitza* (1571), *esquerr-emaitea* "eucharistia".

EMON: *emoitza* "dádiva".

ERO: *anai eraile* "fratricida", *aurreraile* "infanticida", *gizeraile* "homicida" (1571).

IZAN: *izaite* (eta *izate*) "essencia" (1617; cf. *OEH*, s.v. *izate*), *izaitza* (eta *izantz*a) "ser, el ser de una cosa" (cf. *OEH*, s.v. *izantz*a).

Baten batean hedapena egon litekeen arren, gainerantzean ongi lekukotutako formez ari gara. Ezberdina da, aldiz, *epak*i-ren kasua, honetan ez baitago dudarik hedatu egin zuela, agian *epa(g)*i-ren ondorioekin batera (cf. *epagitza* "sección").⁷⁴⁰

EPAKI: *epaira, epaiketa, epaide* "incisión", *epaigo* "cortadura", *epaile* "carnicero", *epai, epaialdi, epaira, epairaldi* "corta, de árboles", *baso baten epaya, epaita* "tala", *guraizeen epaitea* "tjijeretada", *epaitu* "sajar", *epaitza* "corta, lo que queda de un árbol cortado", etab.

2.2.5.2. Ongi lekukotutako edota hedatutako formak

Nahiz oro har itxuraz atzera egiteko puntuan dauden (salbuespenak hainbat edo gehiago izaten dira), forma batzuen adibideetan Larramendik araua gutxi-asko somatu eta hedatzeko gauza izan zela antzematen da:

⁷³⁹ Ofizialki, *adats adar*-en eratorritzat Uhlenbeckek eman zuen lehendabizikoz (Mitxelena 1969c: 400), baina, dakusgunez, edo Larramendi ere ondorio berera iritsi zen, edo hipotesi horren alde datorkeen datu berri bat eskaintzen du. Esan gabe doa Mitxelenak etimologia uzkuratuz aipatzeko (eta 1977a-n ez aipatzeko) zeukan ziorik handiena *-ts* atzizki delakoaren kontua dela.

⁷⁴⁰ Oso kontuan hartzekoa da, dena dela, *epaite*- aditzizena Axular eta Etxeberri Sarakoarengan lekukotuta egotea (cf. *OEH*, s.v. *ebaki*).

a) $i > \emptyset$, bisilabadunetan (Mitxelena 1977a: 125):

AR- 'harria': *argintza* (XVII ea., vs *arrikintza*), *artzar* "cantazo" (vs *arritxo*) vs *arrika*, *arrikintegi*, *arritsu*, etab.

Elkarketan (§ 3.2.1.1.a) *arri*-ren adibide ugari ez eze beste hitz batzuenak ere bilduta daude.

b) $i > \emptyset + d > t$ eta, hala dagokionean, ondoko herskariaren ahoskabetzea (Mitxelena 1977a: 345 eta 361):

*AHA(I)T 'ahaidea': *ahako* (1571), *ahaiko* (1627) vs *aidetasun* (1653), *aidebatza*, *aidetu* (*ahaidetu* XVII ea.).

ANT- 'handia': *antura* "hinchazón, soberbia" (XVII ea.), (*h*)*antu* "ahuecarse" (1571).

ahaide-ren eratorriei dagokienez, jadanik adierazi dut atzizkia bera antzemanekin ibili bide zela Larramendi; *ant*-ekin, berriz, elkarketan ziurrenik hitz berriak erantsi zituela ikusiko dugu (§ 3.2.1.2.b).

c) $o > a$ bisilabadunetan, hala dagokionean $a + a > a$ ondorioarekin (Mitxelena 1977a: 126-127):

ARTA- 'artoa': *artadi* "maizal" vs *artogile*.

ASMA- 'asmoa': *asmatu* vs *asmutu*.

ASTA- 'astoa': *astakeria* (1715), *astatsu* "borriqueño", *astazai* (1652) vs *astoar* "jumental", *astotar* "asnal", *astokiro* "asnalmente", *astotxo* "asnillo", *astotzar* "asnazo".

Eratorpenean araua beretzen duten adibideak batzaz beste gutxiago izan arren, elkarketan (§ 3.2.1.2.c) osasuntsu dabil.

d) $e > a$ bisilabadunetan, hala dagokionean $a + a > a$ ondorioarekin:

AIZA- 'haizea': *aizaldi* "oreo", *aizatu* "orear" (XVII ea.) vs *aizetxo* (1715), *aizekin*, *aizegile*, *aizetsu*, *aizetiar*, *aizetu* "airearse".

ALDA- 'aldea': *aldatu* (1596).

ANDRA-, ANRA- 'andrea', 'anrea': *andraketa*, *andraketari*, *andrati* "gorrón" (vs *andreti* "deshonesto"), *andrazai*, *andrazaitzaile*, *andrazale* "rufián" (vs *andrezale* "deshonesto"), *arraketa* vs *andredi*, *andreera*.

ANTZA- 'antzea': *antzatu* (1657).

ARTZA- 'artzea': *artzatu* "acribar", "zarandar" vs *artzetu* "cribar".

ASKA- 'askea': *askatu* (1596).

ATA- 'atea': *atajoka* "llamando a la puerta" (vs *atejoka*), *atakida* "compuerta", *ataska* "compuerta", *atazai* "uxier, oficio de Palacio" (vs *atezai*, *atezain* "ostiaro", "portero", etab.).

ETXA- 'etxea': *ait-etxadi*.

Hauxe izan daiteke corpusean sendoenik islatzen den araua, ongi lekukotutako forma hauetaz gain, inondik ere haren hedapen zenbait —ez denak Larramendirenak, oster— aurkitzen ditugu eta:

AHALKA- 'ahalkea': *ahalkati* (vs *ahalketi* 1627), *ahalkatu* (1635; vs *ahalketu* 1571), *ahalkagabeki* (1617 *ahalkagabeki*).

AIDA- 'ahaidea': *aidago* vs *aidetu* (XVII ea. *ahaidetu*), *aidetasun* (1653).

AINAZA- 'ainazea': *ainazatu*.

ALEDISTA- 'aledistea': *aledistatu*.

ARTISTA- 'artistea': *artistadi* vs *artistetu*.

ASERRA- 'haserre': *aserraldi* (1664; vs *aserraldi* 1636), *aserratu* (1562; vs *aserratu* 1571), *aserrati* (vs *aserrati*) vs *aserretsu* (1664), *aserrekor* (1643), *aserrero*.

-DA (-de): *atsedago*, *azaldago* (ik. § 5.4.1).

-(K)IDAGO < -(k)ide + -go: *aidago, aitakidago, anaikidago, arartekidago*.

Gertakari ezberdinak batzen dira emandako adibideetan; gauza bakar batean datoz bat: denak bi silabatik goragoak dira: (1) *aserre- / aserra-* lehiaketa aztertzeko dago, baina *HH*-az kanpoko da: zegoen-zegoenean jaso zuen Larramendik, gehienetan bikoiztasuna errespetatuaz; (2) *ahalke- / ahalka-*rena ere, neurri batean, zaharra dugu, baina nabarmena da honetan *ahalka*-ren alde parte hartu zuela, eratorri guztiak araupera eraman baitzituen, dela bikoiztasunak gordeaz (*ahalkatu / ahalketu*), berriak sortuz (*ahalkati / ahalketi*) edo dela forma berriak eskainiaz (*ahalkagabeki*); (3) gainerako adibideetarako (*ainaza-* izan ezik), ohar bedi guztietan *-te > -ta* eta *-de > -da* dugula, aditzizenaren formetan bezalaxe.

e) Txistukari afrikatua > frikari, Larramendik zehaztu zuen hots-aldaketa orokor bakarra:

...muchas veces se forman verbos de aquellas voces que tienen la *tz* y la *ts*; pero siguiéndose otra simple *t*, se pierde la *t* de la *tz* y de la *ts*: v.g. de *gatzá* sal, *gaztú* salar; de *otzá* frio, *oztú* enfriar; de *utzí* dexar, *ezdit uzten* no me dexa. Item de *utsá* vacio, *ustú* vaciar, &c. Lo mismo es en otros nombres compuestos, v.g. de *hitzá* palabra o dicción, *hizteguia* diccionario; de *gatzá* sal, *gazteguia* salina (Larramendi 1729: 330).

la salbuespenik gabe betetzen du (gogora dezagun Iparraldeko grafia etimologizaleen etsai agertu zela: I, § 2.4.10); beraz, adibide gutxi batzuk aski erakusgarri izan daitezke:

aldastxo, aitzar, aberastasun, askeria, arozkintza, ardazle, amesgin, abarrosbile, amezti, amezketa, azgarri (< atz), akaski, askai (< ats), aunzki, andrakaiztegi, auspen, ardazketa, ahantzura, ardieskun, adasti, aosdar, arkaiztun, arimakaizkiro, auteski, azka...

Salbuespen bakarra, corpus guztian zehar, *aberatskiro* da (cf. *aberatski* 1665), ziurrenik oharkabean itzuria.

Arauaren indarrak atzizkiko *-a* galdu ondoko adibideak ere harrapatzen ditu:

arpeztun (< arpetza), artukizti, artukiztun (< artukitza).

f) Oinarrian aditzoina (eta ez partizipioa) baliatzea: Zuazok (1998b: 218-219) “mendebaleko eta erdialdeko ezaugarrien” artean sartzen du aditzoinik eza, fosildutako zenbait forma alde batera utzita (*or konpon* aipatzen du berak), aditzoinaren betebehara ia guztiak eragin duen berrikuntza, ezaguna denez. Galeraren historia testuetan jasota dago, eta esan daiteke bereizkuntza galtzeaz zela —zeharo galdua ziurrenik hizkera batzuetan— XVIII. mendearen hasieran (Lakarra 1985d eta 1996c: 185-188).⁷⁴¹ Ez daukat daturik galera honek eratorpenean pairatu duen hedapenez eta, honegatik, badirudi zeharo interesgarria izan daitekeela *HH*-ak islatzen duen egoera ikuskatzea.

• *-TU* markako partizipioei dagokienez, esango nuke hedadura gutxiko eta beranduagoko kontua dela *artutze-*, *artute-* eta areago *artutzaile* bezalako formak aurkitzea. Kontua anitzez gaitzago bilakatzen da, honelako gertakarien berri xehea —hizka baino ez bada

⁷⁴¹ Larramendik ezinutzizko aipu bat dakar alde honetatik (jadanik Zuazo 1988: 89n aipatua): “Quando [en el dialecto navarro y labortano] anteponen a los verbos acabados en vocal, como *artu, ebasi, quendu*, dexan con frecuencia la última syllaba, diciendo, *eztezazula har, ez ebas, ez quen*, y nosotros *eztezazula* o *eztaguizula artu, ez ebasi, ez quendu*. Es verdad que también nosotros hacemos lo mismo quando anteponemos el verbo a la terminación, *arbeza, arrezac, &c.*” (Larramendi 1745: xxviii).

ere— emateko paradan daudenek ez badiote arretarik jartzen: Adibidez, *OEH*-an (s.v. 1 *hartu*) “los vizcaínos emplean tbn. [*artzaite*-z gain] *artute*-, *artze*” adierazpen zehazgabea irakurri ondoren, ez naiz gauza izan bertako adibideetan Urkizuren (1737) *artuteko* bat baizik idoroteko XX. mendera arte; alabaina, Lardizabal batek *-tutzen* egin ohi du sistematikoki (Urgell 1995: lxviii), gipuzkerako zenbait hizkeratan gauzak bestela egon zirelako —eta daudelako— seinale, bestalde belarriz ongi xamar dakigunez.

Aditzizenetik kanpo, berriz, honako adibide hauek aurkitu ahal izan ditut *hartu* ondoko sarreretan bakarrik ikustalditxo bat eginez: *artubide* (Lard, 1855), *artuera* (Añ, ~1800), *artukizun* (f. Bart, 1819), denak —harrigarriki— *harpide*, *harrera* eta *harkizun* sarreretatik bereziak. Ez da *artutze* izena jasotzen, ez s.v. *artze* ez inon, nahiz eta lekukotuta egon (segidan ikusiko dugunez).

Erabateko datugabetasun honen aurrean, *HH*-ko egoerak argi pixka bat egin dezake, ezpairik gabe, hizkeraz ez bada denboraz 1737tik 1800etik baino arras gertuago dagoela kontuan harturik. Bada, *HH*-an eratorriak ia beti aditzoina daramate oinarrian;⁷⁴² *ia beti* honetan dago kokka, ostera:

antulari (< *antu*), *artualdi*, *artugarri* (eta *argari*) “acceptable”, *artutze* (eta *artze*) “admisión”, *artuzale*, *aztukor* (eta *azkor*) “olvidadizo”.

Dakusgunez, inolako dudarik gabe Larramendik XVIII. mendearen lehen zatian aditzoinaren galera eratorrietara hedatzeko joera —joera behinik behin, baina silaba biko aditzetan (*antu*, *artu*, *aztu*) aski indartsua— zeukan hizkeraren bat ezagutu zuen. Gogora dezagun, bestalde, *-tutze* formak gramatikan “erregulartzat” jo zituela, nahiz gero *HH*-an “irregularrak” nagusi izan.

• -I markadun partizipioei buruz egoera are ezezagunagoa dela uste dut, aditzean bertan aztertu gabe egoteaz gain, dakidalarik, testuinguruak zerikusia izan dezakeelako. Dena dela, ez dirudi *-tu*-rako deskribatu denetik oso ezberdina izan daitekeenik; burura etorri ahala Lakarra 1984an zenbait aditz begiratuta, honako ondorio hauek atera ditut: 1700-1745 tartean Urkizu da beti aditzoina darabilen bakarra. Gainerakoetan, gehiago edo gutxiago, partizipiodun formaren bat agertzen da, eta badirudi txistukari ondoko testuinguruak berrikuntza errazago onartu zuela ozen ondokoak baino; txistukari ondokoetan ere inolako dudarik gabe bi silabako aditzek luzeagoek baino erraztasun gehiago dute.⁷⁴³ Larramendik honetan ere eratorpenean behintzat aditzoina dauka nagusiki; bi silaba baino gehiagokoetan salbuespenak bakanak dira (*aurbenitegi* < *aurbeni*, vs *aurbende*, *aurbentari*, *aurbentzaile*; *amarazitzaile*, vs *amarazkin*,

⁷⁴² Ez ditut kontuan hartu Iparraldeko tradizioan ere oinarrian partizipioa duten aditzondoak (ik. 115. oh.), ez eta izen bihurtu ondoren txikigarria hartu duen *ageritutxo* ere, jakina.

⁷⁴³ Hona hemen adibideak idazlez idazle: Otxoa, 1713 (*asitze*, *au(t)sitze*-, *azitze*-, *jaitxitze*- baina *erorte*-, *etorte*-, *ifente*-, *irakurte*- eta batez ere *ikaste*-, *ikuste* “vista”, *irakaste*-), Lasarteko Bertsoak, 1716 (*ipintze*-) *SermAN*, 1729 (*erabazite*- baina *erabiltze*-, *erortze*-), Arzadun, 1758 [1731] (*asite*-, *azite*- baina *ifinte*-, *jauste*-), Elizalde, 1735 (*asitze*- baina *auste*-, *erakaste*-, *erortze*-, *etortze*-, *ibiltze*-, *ikaste*-, *ikuste* “vista”, *imintze*-), Urkizu, 1737 (*aste*-, *ifente*- / *ifinte*-, *ikaste*-, *irabazte*-, *irakurte*-, *jauste*-; eta cf. *irakurla*, *jazteko* “arropa”), Irazusta, 1739 (*autsitze*-, *asitze*-, *jauzitze*- baina *erorte*-, *etortze*-, *ipinte*-) eta Barrutia (*jarte*).

amarazte, amarazkor);⁷⁴⁴ silaba bakarreko errodunetan, eta batez ere *asi, azi* eta *autsi* aditz jakinetan agertzen dira gehienak: *asiera* (1713; cf. *hasera* 1960 ondoan), *asigarri, asigo, asitzaille* (eta *asle*), *autsiera, autsigarri, autsigo, autsikide, autsikor* (eta *auskor* 1643), *autsitze* (eta *auste* 1571), *azikizun* (cf. *azkizun* 1914), *aziara* (eta *azkera*), *azikizun, azite, azitzaille* (cf. 1696 *hatzale*, 1715 *hartzaille*).

2.2.5.3. Arau edo joera berriak

Izenburuan “berri” hitza harro-harro ageri arren, ez dira denak berriak izango, edo ez ziurtasun osoaz behintzat: benetan berrizat eman daitezkeen zenbaitekin batera, ordea, ondo azterturik ez dauden beste zenbait ere jasoko ditut, Larramendi non kokatzen den jakiteko konparabide errazik ez dudanez gero.

a) Oinarriaren azken bokalaren desagertzea:

Araua berez bi silaba baino gehiago dituzten oinarriei dagokie (Mitzelena 1977a: 127), eta halakoak dira bildutako adibide gehienak; ostera, badirudi testuinguruak garrantzia izan duela bilakabidean:

- Sarrienik inposiboan ager daitezkeen kontsonante aurrean desagertzen da:

adrilkada, albendi, alkapartegi, andezdun (< *andeza*), *arexki, argidorkiro, argidortar* (< *argidore*), *arkakustxo* (cf. *kukustxo*), *arkusti* (< *arkusi*), *arpeztun* (< *arpetza*), *arsundi, artukizti, artukiztun, artukizkiro* (< *artukitza*), *asberkide* (< *asi berri*), *astorki, ataurki* (vs *ataurreki*), *atxurtegi, axurtegi, aztartegi*.

Kasu berezia: *arretsu* (< *arreta*).

- Nolabaiteko maiztasunaz, *a + e* topaketan, guztiz *-ari* atzizkiarekin:

adiereta (< *adiera*), *agintaldi, alkaparreta, almendregi // agintari, amartari, anbatari, antustari...*

- Gainerako kasuak bakanak dira:

e + a: alfanjada

a + u: arregura (< *arregatu*).

u + a: adrailada, adrilada, adrilari.

- Bi silabadunetan ere zenbait adibide aurki daitezke, baina esangura ezberdinekoak, nik uste:

aizkin “aventador” (vs *aizekin*): dakidalarik, *aize-* oinarriko eratorrietan zein lehen osagaiko elkartuetan adibide bakarra da. Hutsa izan liteke, *aizequin* (ik. s.v. *abanico* eta *abano*) idazten duela kontuan izanik.

aiztari: *eiztari*-rekiko analogiaz eratutako hitza (§ 5.3)

altegi (< *ale*): hainbat adibide daude elkarketan (ik. § 3.2.3.1.a).

- Inoiz edo behin *-a*-ren galera mugatzailearen gorabeherek eragin dezakete; hona adibide argi bat: *aitzakigarri* vs *aitzakiagarri*.

⁷⁴⁴ Zalantzaren bat sor dezakete *arauli* “trabucar” / *araulitu* “trastornar” forma biko aditzetik eratorriek, zeinek bereak baitituzte (*araulida, arauligarri, araulitzaille, araulitze* baina *araulari, araulde, araultze*).

• Oso berezia da *-era* atzikiaren egoera, oro har bi bokalak gordetzeko joera baitago, salbuespenekin bada ere:

a + e > ae / e: aipaera, aisaera, aitakidaera, akusaera... vs akabera (1713), aldapera...
e + e > ee / e: adiskideera, andreera, arteera, aurpeera... vs aserrera, aitaide(e)ra, alde(e)ra.

b) *-a* mugatzailea kendu gabe:

aitzadi (vs *aitzar*, *aiztun*) eta *atzatsu* (vs *azgarr*): elkarketan adibide anitz daude (§ 3.2.3.1.b).
arrati (vs *arti*): Toponimiak azal dezakeen forma (§ 8.2).
astamaizadi (cf. *maizadi* "maizal").

Aitzitik, berezko *-a* galdu duten zenbait hitz ageri dira:

ANAI: *anaitasun* (1571 *anaietasun*, 1643 *anaiatasun*), *anaitu* (1545 *anaietu*), *anaide*, *anaikide*, *anaitar...*
ANTZAR: *antzaratxo* (1715 *antzaratxo*).

Eta galdu-gordean dabilen berezko *-a*-ren bat:

AN(T)SIA: *antsiatxo*, *antsiati*, *antsiakiro*, *an(t)siatu* (XVII ea.) vs *ansidun*.
AREA 'hondarra': *areatsu* (1715), cf. elkarketan (§ 3.2.3.1.b).
ARRAU(L)TZA: *arraultzatxo*, *arraultzatu* "rebozar" vs *arrautzxo*, *arrautzari*, *arrauzgile*, *arrauztu* "huevar".

c) *n > ø*

antzesakin, *atsegigarri*.

Galera hau izenean ongi xamar ezagutzen dugun bitartean (ik. Mitxelena 1977a: 309-310), ez dago ezer aditzetakoari buruz, dakidalarik. Halere, aditizenez gainera (*egiten*, *egile*), gutxi-asko ezaguna da zenbait atzikiarekin ere desagertzen dela edo desagertu daitekeela: cf., adibidez:

egikizun (Mg, 1803) / *eginkizun* (Oih, 1657), *erantzukizun* (1959) / *erantzunkizun* (1963), *eroapen* / *eroanpen* (biak Añ, ~1800), *esaera* (1745), *esakera* (Mg, ~1802) / *esamera*, *esankera* (biak Añ, ~1800), *esaka* (Añ, ~1800) / *esanka* (1956), *esakizun* (1745) / *esankizun* (Mb, ~1760), *esakune* (Mg, ~1802) / *esangune* (1963).

Adibideok ez dira guztiak, ez eta hurrik eman ere, baina, hauen arabera epaitu behar baldin badugu, balirudike Hegoaldeko kontua dela, zenbait formaren hedapenean Larramendik zerikusia izan zuela eta, agian, mendebaldean normalxeagoa dela erdialdean baino.

d) Leherkari topaketak (gogora bedi Axularren alderantzizko ohitura, azalpen etimologikorik gabeko taldeak jasotzeraino: ik. Mitxelena 1977a: 345, 4. oh.):

• *t + k > k*

anbakintza (< *anbate*), *arbelokai* (< *arbelota*), *ardikai* (< *ardit*), *ausarkiro*, *ausarki*.
Salbuespena: *arretki* (< *arreta*).

• *t + t > t*

ainbatxo, *arretsu* (vs *arretatsu*).

e) Txistukariak:

• txistukari afrikatua > frikari / B—B

Oso gertakari bakana *HH*-an, badirudi azalpen bereziak aurkitu beharreko adibideak direla:

amesari (vs *ametsaldi*): *ames* forma ezagutzen bazuen ere (ik. *amesnador*-en etim.), baliteke hutsa izatea, agian sarrerakideek eragindakoa (§ 5.3): *ameslea*, *amescoya*, *amesguillea*, *amesquiña* "soñador".

amezaga eta *arizaga*: toponimiak azalduko ditu (§ 8.2).

- $tz + z > tz$; $ts + ts > ts$

arpetza (< *arpeztu*), *arrotzain*, *auntzai*.
adatsu, *autsu*.

Ez ostera $-z + tz$ -n: *aiztzar*, *arkaiztzar*, *arteztzaile*.

- Oinarri barruko txistukariaren aldaketa (adibide gehiago elkarketan, § 3.2.3.5):

atxalketa (< *atzal*).

f) Ozen + txistukari taldeak: Arazorik gabe gorde zuen txistukari frikaria (*aurzale*), baina, gainera, elkarketan hauek erabiltzeko joera zuela antzeman daiteke (§ 3.2.3.2.c).

g) *i* tartekatua: corpusean adibide bakarreko aldaketa da (*auskorride* < *auskor*) eta, gehiago aurkitu artean, badirudi eufoniari egotzi behar zaiola.

2.2.5.4. Morfofonologiako gertakari bereziak

Corpusean aurkitu ditugun hainbat gertakari ezin dira zehatz-mehatz azaldu ohiko zein ezohiko hots-aldaketen bitartez:

a) Haietako zenbait atzeranzko eratorpenak azaltzen dituela argudiatuko dut aurrerago (§ 5.4).

b) Analogia hutsak ere eragina izan du zenbait eratorriren eraketan (§ 5.3).

c) Badirudi, bestalde, haplologiak azal ditzakeela antzeman ditugun oinarriko azken silabaren desagerpen asko. Kontsonante bereko silaba bilkurak gertatzen direnean, Larramendik haietako bat, oinarrikoa, kentzeko joera handia dauka:

aburikai (< *aburikatu*), *aginidadokai* (< *idoki*), *aginsakai* (< *sakatu*), *arrazkai* (< **arrazkatu*), *aitegi* (< *aita*), *axolduro* (< *axolduri*).

Aztertu gabe badago ere, dakidalarik, badirudi bilkura hauetako batzuk saihesteko joera hizkuntzarena dela: cf. *eraikuntza* (**eraikikuntza*), *iradokizun* (**iradokikizun*)...⁷⁴⁵ Bestalde, beharbada honelatsu azal daitezke adibide zail batzuk ere, alegia, haplologia antzeko fenomeno batek beste silaba bat tartean dela ere eragina izan dezakeela eginaz: *abekari* (< *abere*), *argizki* (< *argizagi*).

⁷⁴⁵ De Rijk-ek (1995: 304) "the inevitable Basque haplology" deitzen dio: beraz, badirudi lehenagotik ezaguna eta zeharo nabarmena dela. Mereziko luke, nik uste, baldintzak aztertzea. Bide batez, goian eman ditudanak baino adibide hobeak izan daiteke *Hiztegi Batuan estutasun* forman hobetsita agertzen den hitza (cf. *OEH*, s.v.), *estuasun* eta *esturasun* aldaerak (baita *estusun* G-azp ere) lehiari egotea askoz adierazgarriagoa baita.

Alabaina, sarritan kendutakoa atzizkia edo atzizkitzat har daitekeen zerbait da, eta inoiz aterabideak adibide multzo handi bat eragiten du (cf. *-de + -dar*).⁷⁴⁶

-DE / -TE: *ainbatar* (< *ainbate*), *anbategi* (< *anbate*), *antusti* (< *antuste*; vs *antusteti*), *antzesandar* (< *antzesande*), *artizkindar* (< *artizkinde*), *artzonti* (< *artzonte*), *askijakindar* (< *askijakinde*).
-KO: *aitapontekida* (< *aitaponteko*), *arartekide* (< *ararteko*).
-TU / -DU: *adimentar* (< *adimentu*), *arguimendari* (< *arguimendu*), *arguimende* (< *arguimendutu*).
Kasu berezi bat: *adiskiura* (< *adiskide*).
Muga-mugako kasuak: *antustari* (< *antustetu*, cf. *antuste*).

Are gehiago, inoiz atzizki edo atzizkitzakoaren galera testuinguruaren laguntzarik gabe gertatu da. Elkarketan ere (§ 3.2.3.1.f) aurkituko ditugu tiau bereko adibide gutxi batzuk:

-DE, -TE: *anbakintza* (< *anbate*), *adiskiunde* (< *adiskide*).
-GIN: *atsekida* (< *atsegin*).
-KI: *adiragarri* (< *adirakitu* < *adiraki*).
-TZA: *auziabartari* (< *auziabartza*).

Eta, azkenik, desagertutakoa deklinabide atzizkia ere izan daiteke: *anzaera* “gobierno” (< *anzastu* “gobernar”).

Gauzak honela, baliteke *-te + -ari > -tari* azalpena eman diegun hitzak ere tiau beretsukoak izatea Larramendiren ustetan. Argi xamar dago, honelako guztietan atzerantzko eratorpen eta analogia fenomenoek ere zerikusia izan dutela.

d) Atzizki batzuk desagertu beharrean mozorrotuta agertzen dira:

-DURA + atzizkia > -RU > *aokaruka*, *aokarutu* (< *aokadura*).
-TSU + -RO > -(T)SORO: *aldunsoro*, *almen(t)soro* (vs *amultsuro*...).
-TSU + konts. hasierako atzizkia > -S: *ainaldaskiro*, *ainaldaste* (< *ainaldatsu*), *azañoskiro*.
-KOR + -RO > -KORO: *auskoro*.
-TAR + -RO > -TARO: *argidortaro*.
-TZA + konts. hasierako atzizkia > -Z: *arpeztun*, *artukiztun* (vs *aldimaitzadun*), *artukizkiro*.

e) Oinarri laburpena: elkarketan (§§ 3.2.3.1.e eta f, eta 3.2.3.3) usuago aurkituko dugun honen adibideak bi baizik ez dira eratorpenean: *asberkide* (< *asiberr*) eta *adiraki* (< *adierazo* eta familia).

2.2.5.5. Ordain azaltzaileak

Gogora ditzagun *Erans*-ean (II, § 2.4.1.2) aurkitu ditugun ordain berezi haiak, iturrian lekukotutako formaren aldaerak edo azalpen etimologikoak izan daitezkeenak. Haien bila berariaz ibili ez arren, halako batzuk ageri zaizkigu azterketan zehar:

aidagoa, *ahacoa* (1571) “cognación”.
aomena, *ahumena* [sic, *ahamena* (1571)-ren orde] “bocado”.

⁷⁴⁶ Ohartzekoa da desagertutako atzizkiak bestearen forma eragin dezakeela: cf. *adimentar* (< *adimentu*). Eta beharbada honela errazago azal daitezke *-te + -ari > -tari* adibideak ere (ik. § 2.1.3).

argintza (XVII ea.), *arrikintza* “cantería”.

2.2.6. Atzizki kateak

Eratorkpena berez baliabide errekurtsiboa izan arren, baditu bere mugak, bai morfologikoak, bai sintaktikoak, baita semantikoak ere. Alde batetik, delako atzizki batek onartzen duen oinarriaren gramatika kategoria gordetzen da, hots, halako gramatika kategoria sortzeko balio duten atzizkiak bakarrik onartzen ditu oinarrian; adibidez, **euritsugile* ezinezkoa da, *-gile* atzizkiak oinarrian izena egotea eskatzen baitu. Bestetik, azpikategorizazioari dagozkion ezaugarriek ere muga ezar dezakete: esate baterako, **irteketa* ezinezkoa da, atzizki honek oinarrian nor-nork aditzoina baitarama. Eta, azkenik, semantikaren aldetik, **euritsutasun* ezinezkoa da, ‘ugaritasuna’ eta ‘kualitate abstraktua’ elkarrezinak baitira (Azkarate 1991: 23).

HH-an nabaria da eratorpenaren errekurtsibitatea ere profitatu dela euskararen hiztegia aberasteko. Honek ez du esan nahi, ostera, edozein atzizki kateak egin ditzakeenik, ez eta edozein kate zilegi denik. Izan ere, adibiderik eskaintzen ez duten atzizki ugarien aldamenean, askok *HH*-an ez eze euskararen oro har arunt diren oinarriak baino ez dituzte hartzen. Honen kontu emateko, *HH*-ko kateak handik kanpoko adibideen aldamenean —lehenago lekukotutakoak, ahal dela— ezarri ditut:

- kide* + *-tasun*: *adiskidetasun* (1571) // *adiskidetasun*, *aidetasun* (1745).
- kabe* + *-tasun*: *dohakabetasun* (1571) // *ajolakabetasun*, *ardurakabetasun* (1745).
- (*k*)*ide* + *-go(a)*: *ahaikoa* (1643) // *aidago*, *aitakidago*, *anaikidago*... (1745).
- zai(n)* + *-tza*: *artzantza* (1745, herr.).
- ka* + *-ari*: *nahastekari* (1643) // *adarkari*, *adiakari*, *agakari*, *agirakari*... (1745).
- keta* + *-ari*: *gizonketari* (herr.) // *andraketari* (1745).
- tza* + *-ari*: *arrantzari* (1745, herr.).
- ka* + *-ada*: *harrikada* (1745, herr.) // *adarkada*, *atzaparkada*... (1745).
- ari* + *-tegi*: *afaltegi* (1715, 1745).
- men(du)* + *-tsu*: *adimendutsu* (1643) // *almentsu* (1745).
- ko* + *-dun*: *hartzekodun* (1643, 1745).
- tsu* + *-ki*: *dohatsuki* (1643) // *ainaldaskiro* (< *ainaldatsu*), *amodiotsukiro*, *azañoskiro* (< *azañotsu*) (1745).

Jadanik lekukotuta zeuden kateen artean, bereiz aipatu behar da hiztegi gileengan bakarrik, dakidalarik, lekukotzen den *-garritasun* katea, bai baitirudi —Azkaratek (1991: 31) iradoki bezala— honen ugaltzea hein handi batean lotuta dagoela ‘*-ble* = *-garr*’ egokitasun berriaren ondorioz ireki zen ‘*-bilidad* = *-garritasun*’ egokitasunarekin. Lehenengo agerraldiak Pouvreuren idazlanetan (*harrigarritasun*, *iustugarritasun*, *miragarritasun*, *saindugarritasun*),⁷⁴⁷ Urte (*agradagarritasun*, *miragarritasun*) zein Larramendiren hiztegietan (*amagarritasun*) aurkitzen dira eta, dakusgunez, hainbat dagokie *-garr*-ren adiera aktiboari nola pasiboari.

Antzeratsu esan daiteke *-garriki* (eta *HH*-ko *-garriro*) kateari buruz, inondik ere *-ki* atzizkiaren hedapenaren ispilu: ez dut arrastorik aurkitu Leizarragarengan, eta Axular eta *CatLav*-en *izigarriki* baino ez; alabaina, cf. hiztegi gileenganako adibideok:

⁷⁴⁷ Adibideak Lakarra 1995tik hartuak dira.

Pouvreau: *miragarriki* (*Imitationea*), *harrigarriki*, *irrigarriki* (hizt.).
Urte: *agradagarriki*, *arbuigarriki*, *desagradagarriki*, *fastikagarriki*...
Larramendi: *ahalkagarriro*, *adiragarriro*, *adiskidegarriro*, *aditezgarriro*, *alabagarriro*...; *arrigarriki*.

Gauzatu gabe bide zeuden kate zilegien adibide zenbait eskaini zizkigun Larramendik; alboan kideko kateak jarri ditut, aurretiaz lekukotuta zeuden heinean:

- izena [-biziduna] + *-kin* (cf. Azkarate 1991: 42): *aisakondairakin*, *atsekabekin*.
- izena + *-zai*: cf. *athal-zain* (1643), *borthalzain* (1571), *mahasti-zain* (1571). *altegizai*, *arroztegizai*, *arraunarizai*.
- izena [+konkretua, -biziduna] (cf. Azkarate, *ib.* 54): *antzeskaida* "pincelada".
- izena [+arrunta, +konkretua, ±biziduna] (cf. Azkarate, *ib.* 58): *aoskitegi* "vocabulario"; bereziki aipatzekoa da *-gindegi* / *-kindegi* kate emankorra (*argindegi*, *arozkintegi*, *arrikintegi*).
- izena + *-aldi*: *agintaldi* "pretura, pretoria".
- izena [-biziduna], maiz [+abstraktua] + *-ti*: *autakinti* "libre" (< *autakin* "albedrio").

Eta, azkenik, badira normaltzat nekez har daitezkeenak, goiko mugetako zenbait gainditzen dituzte eta (kanpora utzi ditut dagoeneko oinarriak berak salatu dituen kate berriak):

a) Oinarri arrunta edozein dela, ekintza-izenek ez dute oro har atzizkirik atzean onartzen (Azkarate 1991: 63); salbuespen zahar bat badugu ere (*adimendutsu* 1643), ohargarria da *HH*-an honek daukan maiztasuna, ezohikoa inolaz ere:

-men(du) + *-ari* kate emankorra (*alamenari*, *almenari*, *arguimendar*).
adiundetegi, *aitorgotegi*, *aitorkuntegi*.
aurgintzaki "feto nacido".
agindet "imperioso", *araudet* "exemplar", *astirodet* "prolijo"; *artukizti* "escrupuloso".
agindetsu "imperioso".

b) Oraindik bereziagoak dira *-te* eta batez ere *-de* (baina ez *-tze*) aditzizengileek aurretik onartzen dituztenak (aditza aldamenean duten adibideak alde batera utzita):

-TE: *adrakaizte*, *ajolezte*, *ardurezte*, *arretezte* (artizki modura erabilitako ez-i buruz, ik. § 4.1.14).
-DE: *aldedaride*, *alorta zaide*, *astirode*, *atzenaikinde*, *ardunde*, *auskorride*.

c) izena + *-go(a)*: cf. *mandatalgoa* (1571), *merkatalgoa* (1571). Itxura guztien arabera, izenak gutxienez [+gizakia] izan behar du (Azkarate 1991: 36): *aldekigo* "libelo de repudio" eta *asmaengo* "agüero", hortaz, berrikuntzak dirateke.

d) izenondoa + *-go(a)* (cf. goragoko adibideak): Hasteko, hiruko katea dugu: *anizkidargo* "comunidad" (*-kida* + *-ar* + *-go*); eta, gainera, *-go(a)*-k 'nolakotasuna' edota 'neurria' adierazten duten izenondoak eskatzen dituela dirudi (Azkarate, *loc. cit.*), *-ar* atzizkiak normalean izaten ez duen ondorioa, alegia.

2.3. Ondorioak

Ezagutzen dugun hiztegi zahar aberatsenarekin —Urterekin— *HH* erkatuaz (§ 2.2) hobeto antzeman dezakegu eratorpenean daukan berebiziko aberastasuna, bai hitzen kopuru orokorrean (bataz beste biak berdintsu badabiltza ere, hiztegiko hitzen %50ean, hain zuzen), baita atzizki ezberdinen kopuruan ere. Aberastasun hau *HH*-an biltzen diren bi ezaugarriren izenbesteko ondorioa da: tradizioa eta berritasuna.

Alde batetik, hainbat zertzeladatan egiaztatu ahal izan dugu Larramendi berritzaile izan zela. Alderdi hau ezaguna zen —ezagunegia, nonbait—, baina orain halaxe jokatzeari ezinbesteko bihurtu zuen testuinguru historikoaz jabetu gara: gaztelaniazko kultur hitzak oro itzultzeko, euskaraz aisa eratorpena jotzea dugu, orduan orain nola, eta bestalde, ez dago bide honetatik hitz familia osoak eratzeko hiztegia baino leku egokiagorik. Premia baldin bada, beraz, eta ez jokoa, *nola* berritu zuen jakin nahi izateak lehenengoz zentzua hartzen du, zeren espero baitezakegu euskal hitz batzuen ez ezik, eratorbidearen historiarako ere xehetasun interesgarriak erdietsiko ditugula batean —eta ziurrenik bestean ere— hain garrantzitsua izan zen hiztegi honetan.

Bestetik, eratorpenean kausitu ditugu Larramendik hitz-bilketari bere lanean eman zion garrantziaren lehen aztarnak: atzizki ezberdinak hainbat izatea bera aski ez balitz ere, erants bekizkio anarteraino Iparraldeko tradizioan bakarrik jasotako atzizkiak (*-go*, *-men* / *-pen...*), eta 1745 arte lekukotu ez zirenak (*-skote* eta agian *-ada*), edota Hegoaldeko literatura urrian ozta ageri zirenak (*-keta*, *-era...*; oro har, ik. § 2.2.1). Ahozko euskarak *HH*-an izan zuen garrantziari dagokionez, hitz bakan batzuk (*azkarri* ‘legamia’, esaterako) berrestez beste aurrerapenik ez dut orain artean egin: gaia zintzilik utzi nahiago izan dut, honelako etorkia daukaten edo izan dezaketen hitz mota guztiak elkarrekin aztertzeko (ik. § 12).

Beste horrenbestetsu gertatzen da, neurri batean behinik behin, literaturatik datozkeen hitzekin (ik. § 9). Alabaina, maiz ondorioak aurreratu ditut, azalerrazak diren gertakari anitz ulergaitz ez bilakarazteko. Besteak beste, honek bide eman digu *HH*-an euskal liburu eta hiztegiek, betebeharrak anekdotikoak gainera (hitz gehiago edo gutxiago eskaintzea, alegia), Larramendik hartu zituen erabaki orokorretan eragina izan zutela somatzen hasteko: *-kide* atzizkia emankor bihurtzeko Leizarraga bere alde dakarren moduan (§ 2.1.5), antzeko gertakari gehiago egon izan zirela iradoki dut azterketan zehar: *-di* eta Etxeberri Ziburukoa (ik. 44. oh), *-kiro* eta Beriain, *-ro* eta Beriain edota Landucci (§ 2.1.19)..., baita agian *-era* eta Otxoa ere (§ 2.1.11), adibidez. Zertzeladetan aurkitu ditugun batetortzeak —ongi lekukotutako hotsaldaketak (§ 2.2.5.2) eta atzizki-kateak (§ 2.2.6), adibidez— ezinkontatuzkoak dira. Alderdi hau ezezaguna zen erabat, eta pertsona ezaugarri bakar batez —berritzaile gisa, adibidez— definitzea errazkeria ez eze, huts larria ere izan daitekeela erakusten digu.

Zilegi izan bekit Larramendiren jokabidearen disekzio moduko bat egitea, metodologikoki beharrezkoa, nik uste, nahitaez batera edo bateratsu funtzionatu arren, noski, funtsean betebeharrak eta ondorio ezberdinak izan zituzten ekintzak errazago aurkeztu eta aurrerantzean lan-hipotesi modura erabili ahal izateko.

HH-ko eratorpena ulertzeko, berrikuntzatik ez, tradiziotik hasi behar dugu, hain zuzen: alegia, lehenik jakintzat eman Larramendik eskura izan zituen iturri guztietatik hitzak biltzeari ekin ziola, hots, oinarrizko lanetik hasi zela. Lan honen ondorio zuzenez, *HH*-an bakartuta dauden edo ia eraginik gabekoak diren atzizki batzuk aurkitu ditugu (§ 2.2.1): agian Larramendik ez zituen somatu, edo agian —ziurrenik zuzenago— halakoak erabiltzea ez zitzaion komeni; hauen aleak sakabanatuta daude *HH*-an zehar, sarrienik ez dago

emankortasun edo berrikuntza usaineko ezer euren eratorrietan, eta batzuetan bide batez baizik ez dira agertzen. Beste hainbeste gertatzen da arkaismo modura baino agertzen ez diren zenbait hots-aldaketarekin (§ 2.2.5.1). Honelako guztietan, kontrakoa sinesteko zio handirik ez izatera, zentzuzkoena hitza entzun edo irakurri zuela egitea izango da, zegoen-zegoenean jaso zuela, eskuhartzerik gabe.

Bigarrenik, jakintzat eman behar dugu Larramendik euskararen baliabideak sakon aztertu zituela, berez zekien edo bildu ahal izan zuen hitz altxorrean oinarri harturik, hitz bakoitzean bere eraketaren zantzuak (atzizkiak, kasu honetan) aurkitzeko. Azterketa honen fruiturik nabarmenenak atzizkiei buruz egin zituen deskribapenak dira (§ 2.2): jadanik gramatikan baina, berak hala nahita, batez ere *HH*-an tankera honetako informazio asko dago eta, nahi genukeen guztia ez bada ere, argi geratu da oro har zuzena eta zehatza izan ohi dela, atzizkia bai erabilpen maiztasun eta hedaduraren, baita erabileraren aldetik (oinarria, esanahia, batzuetan hots-aldaketak ere) maiz lehenengoz eta, nolana ere, ongi ezaugarritatuaz. Maila honetan azpimarratzekoa da atzizki batzuek beren gaztelaniazko kideekin daukaten lotura zuzena asmatu izana, bere ohiko teoriaren arabera norabidea okertu bazuen ere (§ 2.2.4.5).

Honaino iristen da hitz-biltzaile eta gramatikalariaren lana (agian hobe litzateke etimologoarena esatea, orain artean hitz hau erabili ohi den baino adiera zehatz eta interesgarriago batean) amaitzen da, eta hiztegi gile berritzailearena hasten. Lexikografo modura, Larramendik *HH*-an bildutako lexikoaren jitea —guztiz bere alderdirik nabarienetan— goitik behera eragin zuten erabaki garrantzitsu sorta oso bat hartu zuen. Haietako lehena berehala igarri ahal izan dugu, sarrera barruko antolamendua eta familia bereko sarreraren arteko erlazioak aztertzen hasi orduko (I, § 8.3.2): Larramendik euskararen eratorbideak osorik ustiatzea erabaki zuen, ahaleginean oinarri bakoitza atzizki bakoitzarekin bilduaz, horretarako batzuetan *DAut*-en nomenklatura berez erraldoiari eransketak egin behar izateraino (I, §§ 4.4.3.1 eta 9.2). Dakigunez, hauxe izan zen hasierako asmoa, baina hiztegian aurrera ahala eskakizunak murriztu egin behar izan zituen, sarrienik aukeretako batzuk bakarrik emanaz (I, § 9.3).

Honek zuzenean garamatza bere bigarren erabaki garrantzizkora: azterketaren bitartez, Larramendik ikasi zuen atzizki baliokide taldeak eskumenean zituela eta —dela aukera faltaz, dela bere zaletasunen arabera— hitz berrietan lehentasunez erabiliko zituenak hautatu zituen. Hautapen hau ez da behin ere erabatekoa: aitzitik, *HH*-an beren baliokideekiko lehiaketan galduan atzeratzen diren atzizki askok hitz berriak egiteko balio izan dutela dudarik ez dago. Jar dezadan adibide bereziki argi bat: gure corpusean *-skote* txikigarria etimologia baten azalpenean bakarrik agertzen da (§ 2.1.1); nekez asma daiteke leku bazterrekoagorik, itxuraz bederen. Atzizkia bestelako (dakidalarik, beti beranduagoko) iturrien bitartez ezaguna da, Larramendik ongi ezagutzen zuen (*arinskote* “ligero”), baina apaingarri gisa bakarrik erabilia dago, *arinsko* etimoa —hau ere ongi eratua— aski baita gazt. *arisco* azaltzeko. Halaz ere, ez zuen arazorik izan zeharo arauz kanpokoa den beste etimogai bat (*arriskote* < *arrizko*) eratzeko.

Larramendiren azterketaren sakontasuna ezagutzeko, ez bide dago *ahakoa* “cognación” hitza baino adibide argiagorik (§ 2.1.1): Leizarragaren liburuan irakurri zuen (§ 9.2.4.1), eta bestelako arazoiez pentsa dezakegu bertan dagoen *-goa* atzizkiaren aldaera antzemateko arazoak izan zituela (§ 2.2.2). Hala eta guztiz ere, sarreran ezpairik gabe haren azalpen etimologikoa edota, aldi berean agian, *HH*-ko ohiko sistemaren barruko forma ageri da: *aidagoa*. *Erans*-ean ere bilduak genituen honelako gertakari batzuk. Kontua ez da txantxetakoa, bestalde, orotara *-kidago* atzizki katea daukaten hitz berriak ugari aurkitu baititugu corpusean.

Hautapen prozesuan batzuetan jakinaren gainean ahozko zein idatzizko tradizioetik alderatzen da. Harrigarria da —agian egungo euskaldunontzat harrigarriago— *-tasun*-ez egindako eratorrien urritasuna, gramatikan izen abstraktugile nagusi gisa —halaxe baitagokio, noski— aurkeztua bada ere (§ 2.1.1). Beste muturrean *-ari* atzizkia aipa dezakegu: Larramendik euskalki guztietan besteak (*-tzaille*, *-le*) baino gutxiago erabiltzen dela esan arren, *HH*-ko eratorpenaren giltzarrietako bat da (§ 2.1.3). Bi muturrak elkartuaz, pentsa genezake, hein batean bederen, aukerak egiterakoan atzizki ezezagunago batzuk landu nahiago izan zituela, irakurleak ezagunenak erraz erabil zitzaizkela jakintzat emanaz. Honek berretsiko luke, bestalde, *HH* gaitasun hiztegia delako inpresioa, ez bakarrik hiztegiak egin ahal izan zuenagatik, baita etorkizuneko erabiltzaile zuhurrek egin zezaketenagatik ere (I, § 9.3).

Jakinaren gainean hartu zuen beste erabaki bat, erator-oinarrien gainean tradizioak ezartzen dituen mugak gainditzea izan zen (§ 2.2.3). Ez dut uste ezjakintasunari leporatzea bidezkoa denik. Bere deskribapen zuzenen eta *HH*-ko erabileraren artean dagoen aldea oso argia da alde honetatik. Erabaki honen oinarrian, batez ere aditzari dagokionez, euskal erroaz izan zuen ikusmoldea kokatu behar dugu: gai honetaz zer edo zer esan ahalko dugu aurreraxeago, *HH*-ko atzeranzko eratorpenaz mintzatzerakoan (§ 5.4), baina noizbait astiroago aztertu beharko den kontua dugu. Berrikuntza nabariko gainerako kasuetarako, premia berriei egokitze hutsaz hitz egin beharko genuke, besterik gabe; batzuetan premia berak sentitu eta aterabide beretsuak asmatu zituzten idazleak eta hiztegiak aurkitu ditugu. Eta, ezpairik gabe, askatasun osoz lanean aritu izana ere ezin dezakegu alde batera utzi: bere buruari ezarritakoez beste estuasunik gabe, aitzindaria zela eta aintzat hartzeko moduko aurkaririk gabe —“tontotzarren erausiak” baino ez, bere ustetan — ari zela jakiteak bakarrik eman dezakeen lasaitasunaz, alegia.

Adierari dagokionez, esanahi hedaturari berea ematea espero izatekoa zen: tresnak eta baliabideak *-le* edo *-ari* atzizkidun ordainak jasotzea, edota atzizki hauek berak gaztelaniazko izenondoan itzulpen gisa agertzea (§ 2.1.3), kasu. Zeharo interesgarria da, aldiz, almorfoen edota atzizki baliokideen artean egin zuen betebeharrak banaketa, haietako bat zeregin arruntetan utzita, bestea edo besteak bereziki berrietarako erabiliaz (§ 2.2.4.6).

Xehekiago aztertzeko utzi behar izan dut hitz berrietan gaztelaniazko izenak eragin zuzena; kalko garden zenbait, baita gaztelaniazko atzizki batzuen eta euren kideko euskarazkoen artean dagokeen erlazio zuzenaren zantzu batzuk ere bildu dira, halere. Beharbada antzeman dugun gertakaririk nabari eta eraginkorrena, askoren artean, izen

abstraktuen eta ekintza-izenen arteko mugarik eza izan daiteke (§ 2.2.4.6), gaztelaniaren (eta latinaren) ezaugarri, baina ez euskararen.

HH-ko hitzei itxura berezia ezartzen diete, azkenik, pairatu dituzten hots-aldaketek. Alde batetik, atzizki batzuetarako alomorfo ezezagun bat edo batzuk aurkitu ditugu; nabarmenki, arau ezagunak hedatuaz eratutako formak dira, hala nola ozen ondoan herskaria ahostunduaz, bokal hasierako atzizkiari kontsonantea (*t* edo *k*) erantsiaz, edo kontsonante hasierakoaren aldean aingabeko aldaera erabiliaz, besteak beste (§ 2.2.2). Bestetik, batzuetan Larramendik nagusi bilakatu zituen testuinguruaren araberrako alomorfoak (*-kai*, *-kin*, *-kintza*), eta oro har honelako aldaeren banaketa —batez ere txistukari ondoko testuinguruari dagokionez— gaizki ulertu zuen; ondorioz, hitz berrietan arau jakinik gabe ezarri zituen sarri, eufoniaren arabera, ziurrenik. Ezaugarri hauen berritasuna baieztatu dezakegun neurrian, hona non dugun *HH*-an hitz berriak antzemateko adierazle ziurra.

Bestalde, oinarrian gertatzen diren aldaketez mintzatu behar dugu. Ongi ezagutzen ditugun batzuk, ziurrenik gehienak zegoeneko arkaismoak baino ez izan arren, Larramendik igarri eta hitz berrietan erabili zituen, haietako batzuen ezarpenean egindako hiperzuzenketak lekuko (§ 2.2.5.2). Esan gabe doa arau hauen iraupena datatzeko ezin jakingarriagoa dela. Honezaz gainera, ezohiko aldaketak —baina gehienetan gutxi-asko sistematikoak— ere badaude *HH*-an, Larramendik beregain egindakoak, eredu jakinik gabe (§§ 2.2.5.3 eta 2.2.5.4). Gai honi ere arreta berezia jarri beharko litzaioke aurrerantzean, zeren eta, bere erabakiek oro har oinarri jakina dutela uste baldin badugu, aurrez esan baitezakegu ezen, okerrago ezagutzen ditugun arloetako batean —etimologian edo toponimian, adibidez— aurkitu bide zituela Larramendik bere jokabidea zuri lezaketan antzeko kasuak.

Azken gogoeta hauek balio bezate orain artean esandako guztiaren azken hitz gisa: *HH*-ko berrikuntzez mintzatzerakoan, lehenik euren oinarriez eta zioez jabetzen saiatu beharra dago. Zalantzarik gabe, bada sistemaren bat Larramendiren erasunean.

3. Larramendiren sorbideen bila (II): Hitz elkartuak

Eratorpenean ia ezerezetik hasi beharrez hasi gara, eta beste horrenbeste edo gehiago espero dezakegu elkarketan, arlo honetan ez baitu *HH*-ak patu hoberik izan: bertako hitz elkartuen izaerari buruz ezagutzen dudan aipamen bakarra Azkarate irakaslearena da, eta eratorpenaren hainbat alderdiri lan hartan eskaintzen zaien formazko azterketa zehatzaren aldean elkarketari buruzkoa bidenabar egindakoa baino ez izan arren, dena dela, gaian barneratzen hasteko hona ekartzea baliagarria izan daiteke, bere txikian oso mamitsua delako. Honela dio, bada:

Hitz elkartu ugari aurki dezakegu *Diccionario Trilingüe*-an eta euskara-gaztelera hiztegiñoan [*EGH*-an]; hitz eratorri asko ez bezala, ongi eratuak daudenak. Egia da ez direla hitz eratorriak bezain ugariak. Agian Larramendi atal honetan ez zen hain sortzaile izan; entzun edo irakurri zituen hitz elkartuak bildu zituen. Edo agian hitz-elkarketaren sena indartsuagoa zuen. Nolanahi ere ez dago etenik ordurarteko erabilerarekin (ez eta gaurkoarekin ere) (Azkarate 1992: 218).

Azkaratek bi hipotesi —agian bata bestearen osagarri ere izan daitezkeenak— plazaratu ditu, beraz: Larramendik batez ere (ia bakarrik?) eratorpenean berritu zuela izango litzateke bata; bestea, berriz, elkarketan ere hitz berririk egin baldin bazuen, eratorpenean baino sen handiagoaz aritu zela. Hipotesion bi zutabeak eratorrien aldean elkartuen urritasuna eta tradizioko elkarbidearekin etenik ez izatea dira.

Hasiera-hasieratik aitortuko dut bai hipotesiei, baita haien oinarrietako baieztapenei arazo handiak aurkitzen dizkiedala. Corpuseko hitz elkartuak bilduta (ik. 7. eranskina) gutxi izan litezkeelakoa erabat gezurtatzeko paradan gaude, 1.000 baino gehiago baitira, corpusaren bostena inguru: hiztegi osora hedatzen badugu,⁷⁴⁸ baliteke orotara 8.500 elkartu baino gehiago izatea.

Larramendi arlo honetan sortzaile izan ez zelakoa, bestalde, Azkaratek berak ematen dituen adibideekin gezurta daiteke: entresaka eginez *maitaedaría* “bebedizo”, *guizajarraya* “aura

⁷⁴⁸ Proiekzioarako lehenago *HH*-ko sarrera kopurua kalkulatzeko erabili dudan berbera darabilt, alegia, Azkueren hiztegiak A letrarako ematen duen %11,6koa (I, § 1.1).

popular”, *dostirudia* “comedia”, *urrijalea* “abstinente”, *guizarudia* “arnequin, manequi” eta *emaizpa* “cuñada del marido” gutxienez, erabat zalantzagabekoak iruditzen zaizkit, eta dela haien itxuragatik beragatik, edo dela ordezkatu behar duten erdal hitzarengatik, begibistakoak. Areago, oso oker ez baldin banago, garai larramenditarretako idatziren bat aztertu edota argitaratu behar izan dutenentzat elkartuak dira, izan ere, zenbait atzizki bereziz osatutakoekin batera, Larramendirenak direlako antz handiena daukaten hitzak, edozein testu aztertzerakoan begietan errazkienik jotzen gaituztenak: *abredari* ospetsua datorkit burura, adibidez, goiko *maitaedaría*-ren kidekoa. Gogora bedi, gainera, Larramendik aitortzen dituen hiru hitz arrunt berriak —*sutumpa* “cañón de artillería”, *godaría* “chocolate” eta *surrautsa* “polvo de tabaco” (1745: xlvi)— eta fakultatiboetatik batzuk —*Jaincoquindea* “Theología”, *Izarquindea* “Astrología”, etab. (1745: xlix)— denak elkartuak direla; baita hala behar ere, ezen, gorago adierazi moduan (§ 1), euskararen filosofikotasuna dela eta, bai baitirudi hitz berriak egiteko modurik naturalenetakoa elkarketa dela.

Dena dela, Azkarateren inpresio hura, nik uste, *HH*-an oso nabaria den zerbaitek eragin du: alegia, itxura arrunta —zeharo jatorra, bestela esanda— daukaten edota tradizioko elkarbideari zeharo atxikitzen zaizkion ehundakako elkartuek. Zalantzarik gabe, neurri handi batean Larramendiren hiztegiak elkartuen garai hartako egoeraren ispilu —ispilu ona, gainera— dateke (haien ugaritasunari begiratzea baino ez dugu) eta, hortaz, azken urteetan gaiari buruz egin diren lanak (Euskaltzaindia 1987 eta 1991, Azkarate 1990) diakroniaren aldetik osatzeko modua ere. Baina horretarako, lehenik tradiziokoa dena eta ez dena bereizten, behintzat, ikasi beharko genuke.

Larramendiren elkartuen herrikoitasuna edo berritasuna ebazteko, tamalez, ohiko lekukotasunetan euskarri gutxi ditugu, bestetan baino gutxiago ziurrenik. Gure corpuseko hitzetatik *OEH*-an jasota daudenak lehenago lekukotutakoekin —edota XX. mendeko ahozko iturrietan bermatutakoekin— erkatzea aski da honetaz ohartzeko. Badirudi elkartuak bestelako hitzak baino oraindik txarrago lekukotuta daudela, eta honetan, ziur aski, era askotako gertakariak esku hartu dute. Alde batetik, badirudi —baina ez dut uste ikertua izan denik— euskaraz fosilduta dauden hitzez gainerakoei dagokienez, elkarbidea maiz unean-unekoa izan litekeela, alegia, hitzunek egoerari egokitutako elkartu berriak eratzeko zailtasunik ez dutela, guztiz bereziki emankorrek diren ‘izena + izena’ menpekotasun elkarrekin. Honegatik ere, izan liteke ahozko bilduma askotan haietako asko ez jaso, oso gauza berezia ez izatera, bildumagileak zerrenda alferrik luzatzea iritzita. Dena dela, gogoeta hauek egokiak izan daitezke Larramendik gaurko edozein euskaldunek beste gaitasuna izan zukeela gogoan hartzeko eta, ezpairik gabe, eurek baino askoz motibo gehiago izan zituela.

Gure literatura zaharrean, bestalde, maizenik gauzak (bizidun zein bizigabeak) adierazten dituzten elkarrekin, sarritan nozio abstraktuak adierazten dituzten hitz eratorriak baino urriago ordezkaturik daudela ematen du, ziurrenik haren gai eta edukien izaera ezagun eta mugatuarengatik: erlijiozko liburuetan, zeharo ahazten ez bada ere, bistan da mundu fisikoak bestelako hainbat literatur lanetan baino leku txikiagoa hartzen duela, eta nagusitasuna

ideien munduak daukala. Honek euskal lexikoaren garapenean izan dituen ondorioak orokorrakoak diren arren, nabaria denez, nago hitz elkartuen saila bereziki kaltetua atera dela. Inor neurtzen saiatu ez bada ere, dakidalarik, ziurtasun osoz txit garatuta egon behar zuten baserri edota burdinoleta lexikoak, esaterako, oso neurri laburrean baino ez daude jasota XVI-XVII. mendeetako liburuetan, Duvoisin *Laborantzako liburua*-rekin (1858), demagun, erkatzen baditugu;⁷⁴⁹ lekuko hobea dugu, alde guztiz, Villareal de Berriz-en (1736) burdinolei buruzko gaztelaniazko liburua: bertan bil daitezkeen 30-35 euskal hitzetatik 11 (herena!) hitz elkartuak dira: *ondazubi, ielmai, cear-ola, guzur-asca, onda-asca, bergamazo, barterrolak, cortaosoa, cortaerdia, auts-arria, aldabarra*. Honezaz gainera, adibideetarako kanpoko eredueta jo ohi zuten gure idazleek, maiz lehoiak (*1562, 1762; *lehoin* 1571, *lehoñ* 1627, ap. *EH*) eta elefanteak (*1562, 1653; *elefant* 1630, ap. *EH*) aisago aipatzen dituzte, adibidez, Euskal Herriko animaliak baino: *igaraba*, esaterako, Larramendiren hiztegiara arte ez da jasotzen; akaso berbera gertatzen da *arrano nabar* eta *arrano urdin*-ekin, eta are ziurrago, ikusiko dugunez, *arrangorri*-rekin.

Lan honetan ez daukat arazoari erabateko erantzunik emateko esperantzarik, eta ziur aski ez dagoke egiterik ere. *HH*-an tradizioko elkarbidearen ohiko arauz kanpo egindako hainbat elkartu badirela frogatu ahalko dugu, eta bai beste hainbat, arauen arabekoak izan arren, gaztelaniazko hitzen *ad hoc*-eko itzulpena direla ere. Halaz ere, ez bata, ez bestea, ez dira nahikoa berme izango beti hitz baten berritasuna ebazteko, entzun edo irakurritako hitzak bere moduko arauetara ekarri baitzituen batzuetan edo, besteetan, *ad hoc*-tasuna itxurazkoa bakarrik baita. Lehenengo baieztapenaren frogagarri bikaina aurreko literatura dugu: *aobozatu* “emmudecer” tradizioz lekora egindako elkartua izan liteke, beharbada, geroago eztabaidatu dugunez. Halaz ere, nola iritziko diogu, ideia Leizarragaren hainbat pasartetatik (*ahoa boza(tu)* Mt 22, 12, Tit 1, 10, etab.) hartua dela jakin eta gero?

Bigarren baieztapena frogatzen oraindik errazagoa da. Adibidez, *arrangorri* “Piscis ruber” da latinez, eta *DAut*-ek “la carne es colorada” zehazten du; *ad hoc* itxurakoa izan arren, Ondarrun eta Bermeon behintzat ondo ezagutzen da arrain izen hau; honetan *arran* lehen osagaiaren berezitasunak herriaren aldera makurtarazten gaitu, baina, zer esan gorago aipatu arrano motei buruz, lekukotasun aski eta aski fidagarriarik ez dutenez gero? Erantzuna, *HH*-aren tankerako beste hiztegi batek emango digu: Larramendi “angélica, planta” *aingeru belar*, “etites, piedra del águila” *arrano-arri*, “pelote” *auntzile* eta “cornicabra, árbol” *aunzadar*, eta Urte “angelica” *aingeru-belhar*, “aetites” *arranohárria*, “cilicinus” *ahuntz illezko* eta “aegoceros” *ahuntzadar* itzultzerakoan bat datoz, baina azpian datzan arrazoia ez bide da herrikoitasuna —edo ez beti, behinik behin—, euskaldun sena baizik: egoera berean berdin erantzuteko zer hori. Edozein euskaldunek beste horrenbeste egingo zukeen.

⁷⁴⁹ Adibidez, “Ogi bihi motez” eta “Ogi eta hazi hobeenez” (37-47) atalean honako elkartu hauek jaso ahal izan ditut: *ogi bihi, baratze-lur, landa-lur, bihi mota, lasto barne, ogi-buru, ogi espal, hazi aldatze, hazi mota* eta *lur mota*.

Beraz, muga zeharo lauso hauekin borrokatu baino, nahiago izan dut *HH*-ak islatzen duen elkarketa sistema deskribatu, eta tradizioko elkarbideaz dakigunarekin erkatu, ondorioak berez —piskanaka bada ere— atereaz joango direlakoan. Larramendiren egitasmoak haietako anitz berriki eraturakoak izatea eskatzen eta alde zurratik iragartzen du, zalantzarik gabe, baina berri izateko modu asko daude, ez bakarrik tradizioa hautsiaz.

Dena dela, iruzkindu ditudan Azkarateren adibideen artean hutsune bat sentitu dut: ez dago *ainalda* “precio”, *aokitu* “boquear” edo *atserio* “garrote” bezalakorik ezer, ez eta, esate baterako, *garrantzi* itxuran gaurko euskararaino iritsi den *garransia* “importancia” ezaguna bera ere; alegia, ez dago *HH*-ko hitzik xebleen ordezkaririk. Ezpairik gabe honelako hitzez mintzo zen Mitxelena, “Mordoiloak omen dira hitzok, itxuragabeki eratuak eta, hori dela medio, ilunak eta zatigaitzak” idatzi zuenean (1984: 17), *megopea* eta *txaberama* aipaturik, jarraian geroago sortu ziren beste batzuk baino hobek ez direla gogoratzeko idatzi bazuen ere: hitzok, esan beharrik ez, lehenagoko tradiziorik gabekoak, berri-berriak dira denak, baina ez du zalantzarik euskal hitzak elkartuaz erdietsitakoak direla, osagaiak eta haien arteko erlazio formal zein semantikoa ezagugaitza bada ere.

Euskal hitzak Larramendiren ustetan, goraxeago gogoratu dudak bezala, ez dira arbitrarioki sortu, bere baitan adierazten dutenaren zantzuak gordez baizik, eta uste honetaz etimologigintzan aritzeko ez eze, elkartuak osatzeko ere baliatu zen. Halere, honek ez du esan nahi elkartuko osagaiei fideltasuna gorde behar zaienik, hots, hitzak agerriki eta lañoki bere etorkia erakutsi behar duenik. Etimologigintzan aritzerakoan, hitzek ez zioten begi-kolpean esaten zertaz osatuta zeuden: osagaiak *ope ingenii* berreraiki behar zituen. Beraz, hitz berrietan ere hotsekin jokatzeari, elkarrunean zenbait aldaketa egitea zilegi zen, ziurrenik gehienetan itxura hobea (laburragoa?, eufonikoagoa?) lortzeko asmoz. Baliteke, halaber, euskal erro zenbaitez guk ez bezalako iritziak izatea. Ondorioz, nahita edo nahigabe, begiak zorroztera kondenatu gaitu, eta bertatik esan dezaket ni neu behintzat ez naizela hitz zenbaiten osagaiak zein diren ziurtasunez esateko gauza: batzuetan zati bat bakarrik antzeman dut, bestetan bi posibilitate otu zaizkit, eta bestetan oraindik jakin badakit zerbait dagoela, baino ez zer den. Eranskinean behar beste galdera markekin adierazi ditut ene zalantzak. Hitzak banaka hartuta azalgaitzak izaten dira, baina eraketa edota aldaketa bera daukatenak zenbat eta gehiago izan, taldeko partaide bakoitzaren azalpena bermatzenago da. Honegatik, hemen nire azalpen saioak denak egiantz berekoak bailiran hartu ditut gehienetan, elkar sendotzen edo gezurtatzen utziaz, eta eskema bateratu bat —dena barruan har dezakeen eskema bat— erdiesteko asmoz.

HH-ko hitzik ilunenen azalpenean laguntzaile bat izan dut, halere, berankorra eta ez beti eraginkorra izan arren: Novia de Salcedoren hiztegia. Hiztegi hau da, jadanik esan dudanez, *HH*-arekin batera liburu ahaztuen ganbarara den haietako bat. Inoiz begiztatua nuen, eta orduan iritzi nion egiantz kondena ongi merezi zuela, *HH*-ko hitzez bestelakorik behin ere jasotzen ez zuenez gero. Orduan akats iritzi niona halako batean bertute bilakatu zen: ez al zen, bada, hiztegi etimologikoa? *HH*-ko hitz guztiak azaldu behar zituen, beraz. Ez dut esango

lehengo iritzia zeharo aldarazi didanik: Novia de Salcedo etimologo —eta are beharbada euskaldun— eskasa izan zela agerian uzten du hiztegia irakurtzeak, baina gutxi bezain ongi ezagutu zuen *HH*, eta hauxe da bertako hitzen etorkia asmatzeko egon daitekeen bitartekorik onenetakoa. Etimologia zoro askorekin —eta inoiz ezjakintasun gorriarekin— batera, nire azalpen saio anitz bermatu egiten ditu Noviak; eta hiru hitzetan aitortu behar dut azalpena —azalpen ona, dudarik gabe— berari zor diodala: *abailirpiza*, *arraunpeka* eta *atzula*.

Azterketak hiru atal ditu: *HH*-ko elkartuen sailkapena (§ 3.1), non gaurko ezagutzaren arabera tradizioko elkarbideen eta arauz kanpokoen arteko muga ezartzen saiatuko naizen; hots-aldaketen deskribapena (§ 3.2), zaharkitu, mantendu zein hedatu eta berriztatutakoen artean bereizteko ahalegina eginez; eta elkarte zenbaiten jatorri hurbila —gaztelaniazko hitzak, *HH*-ko azalpenak, *DAut*-eko informazioa...— erakusteko saioa (§ 3.3); eta ondorio orokorrak (§ 3.4).

3.1. *HH*-ko hitz elkartuen sailkapena

Azkarate 1991ko sailkapenari atxiki natzaio, *HH*-ko elkartuak deskribatzeko baliagarria den heinean, han jasotzen ez diren gertakari berezi zenbaitetarako konplexu eta aberatsagoa den Azkarate 1990era joaz. Bi lanotan aurkeztu diren arazo teoriko eta metodologikoak ahaleginean alde batera utzi ditut, hezurdura hutsarekin geratzeko.

Sailkapenak elkartu osoaren gramatika kategorია, osagaien arteko erlazioa eta osagai bakoitzaren kategorია hartzen ditu kontuan hurrenez hurren; beraz, *HH*-an dagoen aberastasuna islatu ahalko dugu eta, aldi berean, hiru maila hauetan dauden berrikuntzak ere. Haatik, *godaria* —baita *Jainkokindea* ere, Larramendik azaldu ez baligu— gogoan hartu bezain laster, adibidez, *HH*-ko elkartuak osagaien aldetik ilunak izan daitezkeela ageri da, erabat ezohikoak —baita oraingoz ezezagunak— diren itxura-aldaketa batzuk pairatu dituzte eta. Esan gabe doa sailkapena eratu ahal izateko, lehenik halako arazoak askatu behar izan direla, edo hartan saiatu behinik behin, baina honako hau sailka-lan hutsa da, hots-aldaketak —berrikuntzak barne— jakintzat emanegindakoa.

Eredu eta erreferentzia gisa erabili dudan sailkapena aski corpus zabalaren gainean eraikita eta, hortaz, fidagarria den arren, arreta handiz zaindu dut lanaren ikuspegi historikoa, aurretiaz lekukotutako hitzak datarekin markatuaz eta geroago (§ 12) herrikoitzat joko ditudan hitzei “AHOZ” laburdura ipiniaz, ahal izan dudan neurrian nire aldetik berresteko. Berrespen lan honek garrantzi handia du, berez duenez gainera, zeren eta Larramendik elkartu berriak sortzeko erabili zituen ereduak ezagutaraz baitiezazkiguke, eratorpenean bezalatsu (§ 2.3): geroxeago aldeztuko dut, hots-aldaketen atalean (§ 3.2) eta batez ere analogiari eskainiko diodanean (§ 5.3), hitz ezagunek hitz berriak —eta are inoiz sail osoak— egiteko eredu izan zituela.

Aztertu beharreko corpora hautatzea ez da lanbide erraza izan; zehazkiago, hitz elkartu nabarien eta ez nabarien arteko muga ezartzea, maileguei buruz onuraz erabili ohi den

terminologia erabilia. Maileguetan bezalaxe hemen ere, nik uste, ez genuke gutxietsi behar hitz zaharrei buruzko inferentziak egiteko Larramendiren gaitasuna, haien osagaiak egun ez ezik XVIII. mendean ere ilun edota antzuak izan arren. Esate baterako, antzinako *-bel* (cf. § 3.1.6.2.f) bakartzen eta *beltz*-ekin lotzen jakin zuen, baita hitz berriren bat egiteko erabili ere (*aurkabel* "cariacotecido", adib.); eta, are harrigarriago, *arilko* < *aril* < *aribil* berreraiketa egiteko gai izan zen (ik. § 6.5). Dena dela, aztertzailearen sena baino tresna eraginkorragorik ez dago, dirudienez, arlo honetan, zein ere den subjektiboa; beraz, oinarrizko gertakariei buruz halako ezagutza bat daukan hiztun gisa nik neuk hitz elkartutzat joko nituzkeenak —osagai gutxi-asko ezaguterrazak dauzkatenak— bakarrik sartu ditut corpusean. Arrazoi beragatik, osagaiak zehazterakoan ere irakurketarik errazena egin dut (sarritan *MDEL V*-aren laguntzaz), batzuetan herri-etimologia izateko arriskua dagokeen arren, Larramendik berak bestela jokatu ez zukeela etsita.

3.1.1. Izen elkarteak

3.1.1.1. Kopulatiboak

a) Dvandvak

- 'izena + izena'

arraultz irin (*arraultz iriñezco estalquia*, *azalá* "albardilla, rebozo de huevos y harina", *arraultz irin taloa*, *opillá* "alpistoela, torta de huevos, harina y ajónjoli"). *ate leioak* (*ate leyoac ifinteco zur bat* "alfargía, madero para fundar puertas y ventanas").

- 'aditza + aditza'

arremán "comercio", "permuta" (singularrean emana beti) (1686). *arreraman* "tomar y llevar" (*garrama*-ren etimologian). *artu emanac* "dares y tomares" (1571).

- 'adintzondoa' + 'adintzondoa'

harauna "balanza" (1741).

b) Koordinazio elkarteak

- 'X eta Yren umea', ezohikoa

arauntz "musmón, hijo de cabra y carnero". *auntzorein* "tragelafó".

- 'X eta Yz egindakoa', ezohikoa

arkoskarea "hormigón, argamassa de piedra menuda, cal y betún" (< *arkoska* "cascajo" + *karea*). *arrosti* "rodomet, zumo de rosas con miel" (< *arrosa* + *ezi*).

c) Atributu elkarteak

aingeru begirale "ángel de la guarda" (1617). *aingeru zaitzaille* "(ángel de la guarda". *aitagiarraba* "suegro" (1562), *aitagiarraoa* "suegro". *aitaginarreba* "suegro" (XVII ea.). *amagiarraba* "suegra" (1562). *amainude* "ama que cría" (*amhunide* 1715). *amalgun* "madrina de boda". *arrateme* "rata, hembra de ratón". *artz eme* "ossa" (1562). *astaeme* "asna, pollina" (*asteme* 1562, *asto eme* 1571). *ataeme* "pata, hembra de el pato". *azeri eme* "zorra".

- alderantzizko ordenan, ezohikoa

arari "morueco, el carnero padre" (< *ar* "macho" + *ari* "carnero").

d) Aposizioak

apezaita "cura, párrocho", "párrocho".

e) Tautologiak

(ez dut aurkitu).

f) "Subsumptive" elkarteak

• -(k)ume mugakizunean

andrakume "muger". *antxume* "cabritillo, cabrito". *antzarkume* "gansarón" (XVII ea. *antzarakume*). *arkume* "cordero" (1620). *artzakume* "ossesno". *astakume* "pollinejo" (*asto ume* 1571, *astokume* 1664). *atakume*, *atekume* "patico". *atunkume* "pelamide".

• 'espeziea' + 'generoa'

alegeria belar "alegría, planta". *antxarrai* "cabrilla, cabra, pescado". *arakarri* "sardio, piedra preciosa" (< *aragi*), *arrokarri* "piedra pómez" (< *arrok*). *artzizar* (*artzizar andi*, *artzizar txiki* "ossa mayor, ossa menor").

• Alderaketa

andregizon "andrógeno, andrógyno, hermaphrodita" (AHOZ).

3.1.1.2. Menpekotasunezkoak

a) 'izena + izena'

• Lehenago lekukotutakoak:

abarrots "ruido de cosa que se quiebra, y es desapacible" (1571). *aize-buhunba* "torbellino" (1571). *aizerrota* "molino de viento" (1677). *amuarraín* "trucha" (XVII ea.). *aosapai* "paladar" (*aha sabai* 1636). *apaltoki* "triclinio, cenador" (*afaltoki* 1715). *arepila* "duna(s)" (*harea pilla* 1677). *argi-alba* "alba" (1658). *argi-izpi* "fáculas de el Sol" (1660). *armora* "pared maestra" (1643). *arresi* "cerca de piedra" (1564). *arrobi* "cantera" (1259). *arroin* "coluna de piedra" (1617). *artalde* "carnerada" (1562). *artizar* "lucero" (1545). *arzejolas* "égloga" (*artzain solas* 1715). *astegun* "día de labor" (1571). *atseginsari* "(lo que se da de) guantes" (1643). *atzerri* "destierro" (1596). *auntzile* "pelote" (*ahuntzile* 1715). *aunzadar* "cornicabra" (*ahuntzadar* 1715). *aur denbora* "niñez" (*haur denbora* 1712). *aurmin* "dolores de parto" (1657). *autsari* "piedra cenizal" (1736). *azakoba* "repollo" (XVII ea.). *azaro* "noviembre" (1502). *azkagal* "uña" (~1600).

• Ahoz lekukotutakoak:

aizapelota, *aizapilota* "pelota de viento". *aiztxori* "bahari". *amurrai* "trucha". *andramin* "andromina". *ankaegur* "cadera". *aomin* "ubrera". *arbillitxa* "nabiza". *ardinarra* "baldrés". *arizpi* "fibra(s)". *arkoskor* "canto". *arlata* "lata". *arratsalde-gosari* "merienda". *arraultza kosko* "casarón de huevo". *arrikatz* "hornaguera, carbón de piedra". *arsaldo* "carnerada". *artaburu* "mazorca de maíz con grano". *artakoskor* "mazorca de maíz desgranada". *artale* "panizo". *artzanor* "mastín". *arzub* "puente de piedra". *aseridanza* "bayle de zorras" (*geringonza*-ren etim.). *aspigun* "riñones". *ataburu* "lintel". *atagaia* (mug.) "tranca, de puerta". *atalburu* "umbral". *atzagal* "uña". *aurlagun* "placenta". *aurroial* "mantillas de niños". *austontzi* "cernadero". *auzalan* "trabajo común de todos los vezinos". *azaro* "sementera, el tiempo de la siembra". *azgale* "comezón".

• Beste adibide zenbait:

aberretresna "aparejo de bestias". *abisu-ontzi* "(navío de) aviso". *adarrazpi* (*urculloac ifiñi adarrazpietan* "ahorquillar árboles para que no se desgajen las ramas"). *agindepe* (*bere aguindepean gendatzaren bat quidatu...* "acaudillar"). *aidemaila* "grado(s) de parentesco". *aingura sari* "anchorage". *airepisu* (*airepisuaren neurria* "barómetro"). *akulu-burnia* "arrajada". *albiste-sari* "albricias, regalo por buenas noticias". *aize-bunbada* "torbellino". *altare-ari* "ara consagrada". *antxutalde* "borregada". *apaizgela* "pastophorio". *apaiz lagun* "acólito". *arbiazi* "nabina". *ardan-upel* (*ardan-upel edo zaguiac neurritu* "aforar, tassar el vino"). *ardilarra* (*ardilarruz jancia* "enzamarrado"). *ardo-upel* (*ardo-upelen*

edo zaguien neurritzea "aforo". *argi-errainu* "destello de luz". *arilarru* "baldrés". *arzaikanta* "pastorela". *arzain txirola* "zampoña". *astotalde* "borricada". *atsedentoki* "descansadero". *atxedenleku* (*atxedenlekua* *artzea* "alojarse"). *atxuri talde* "borregada". *aurkontu* "juego de niños". *azerizulo* "zorrera". *azukre-ontzi* "azucarero". *azur mami* "caña de vaca, cañada".

Hizkuntzan bezala *HH*-an ere honelakoek sailik handiena osatzen dute: orotara 338 (%31,6). Azpimarratu nahi nuke aipatuak bezalako adibideez —hots, osagai arruntez osatutako eta ohiko erlazioen arabera eraturakoez— beteta dagoela hiztegia. Anitzetan *HH*-ko elkartuak bitxi egiten dituen ez da osagaien arteko erlazioa, haien itxura baizik, dela hots-aldaketek ilundu dituztelako, edo dela bietako bat bere aldetik *HH*-an bakarrik aurkitzen den hitza delako. Honek lan pixka bat eskatzen du, noski, osagai ezezaguna hiztegian aurkitu edo osagai iluna zein den asmatu beharrez; adibide gutxi batzuek erakutsiko ditugute, ostera, behin berreraiketa lana eginez gero, osagaien arteko erlazio semantikoa arruntzat ematen direnetakoa dela (cf. Azkarate 1991: 120):

'iturburua': *arbotzoi* ('harriak ematen duen pozoia').
 'lekua': *aldarri* ('aldeko harria'), *aldasare* ('aldeko sarea'), *aldol* ('aldeko ohola'), *ankurdai* ('hanketako urdaia'), *ankuztai* ('hanketako uztaia'), *atoltxa* ('ateko oholtzoa').
 'helburua': *agikur* (= 'haginetarako kurrika'), *ankoial* ('hanketarako oihala'), *antobi* ('handientzako hobia'), *arbetun* ('harrietarako betuna'), *ardaspil* ('ardorako aspila'), *ardasuila* ('ardorako suila'), *argimotairu* ('argizagirako motairua'), *arkodi* ('argirako hodia'), *arraunpeka* ('arraunerako espeka'), *atxorro I* ('hatzetarako zorroa'), *atxorro II* ('atxarako zorroa'), *atzula* ('hatserako zuloa').
 'gaia': *aranbruztai* ('aranbrezko uztaia'), *arkirudi* ('argizko irudia'), *arruztai* ('harrizko uztaia').
 'baliabidea': *aobolina* ('ahoz jotzen den bolina'), *atxol* "tecla" (= 'hatzez eragiten den ohola').
 'osotasuna eta zatia': *abailirpiza* ('habiliaren zirpiza'), *abodi* ('habearen hodia'), *abroin* (= 'aberearen oina'), *arraz erro* ('arrazaren erroa'), *arraz larru* ('arrazaren larrua'), *arulle* ('ahariaren ulea'), *atale* ('atearen alea'), *atorri* ('atorraren orria').
 'jabetza': *altisoi* ('altistearen ohea'), *altistama* ('altistearen ama'), *arbiskazi* ('arbisen hazia').

Halaz ere, erlazio zeharo ezohiko edo zeharo ilunekoak ere badira batzuk, osagaiak agerian egon zein ez:

abredari "bregage" (≠ 'abereen edaria', etab.). *adarbide* (*adarve*-ren etim; ≠ 'adarretako bidea', etab.). *adarturunta* "corneta" (≠ 'adarrezko turunta', etab.), *aldimaitza* "comisión" (= 'aldiko emaitza?'), *alegurintxa* "lechecillas" (= 'ale moduko gurintxak?'), *alezarri* "gargantilla" (= 'eztarrian jartzen den alezko zera'), *alzati* (≠ 'ale zatia'), *alzi* "pepita" (= 'zi formako alea?'), *anpuru* "ostentación" (= 'nork bere burua handi egitea?'), *antzol* "retablo" (= 'oholean egindako antza'), *anziñadin* "ancianidad" ('anzina jaio zenaren adina?'), *aralika* "encarnación para esculturas" (≠ 'haragiz egiten den lika'), *arbelota* "bodoque" (= 'aran tamainako pelota'), *arbiska* "insecto" (= *har pixka* = 'zizare txikia'), *armagia* "sexo" ('harraren magina'),⁷⁵⁰ *arrazi* "xantoline" ('harren, zizaren kontrako hazia'), *atsal* "anhélito" (≠ 'hats hartzeko ahala'), *atserio* "garrote" (= 'hatsa galaraziz egindako heriotza'), *autxulunta* "sisón, ave, especie de francolín" (= 'hauts koloreko txulunta [= "francolín"]'), *azukre ezkurra* "azúcar de pila" (= 'ezkur antzeko pilatan egiten den azukrea'), *azuntz* "epimedio" (= 'untzaren antzeko hostoak dituen aza').

Honelako hitzak gehienetan hiru erataraz azal daitezke: etimologiaren bitartez (adib. *adarturunta* < *adar* = *cuerno* > *corneta*), metaforaren bitartez (adib. *arbiska* 'zizare txikia') eta alderaketaren bitartez (adib. *arbelota* 'aran tamainako pelota'). Geroago (§ 3.3) ikusi dugu oro har honelakoak —eta ondoko ataletan aurkituko diren antzerakoak— nola dauden eratuta eta zerk eragin dituen.

b) 'aditzoina + izena'

• 'aditza + -n adizlaguna'

⁷⁵⁰ Novia de Salcedok harriduraz adierazten duen bezala, honela emearen sexoa bakarrik adierazten da. Baina ez dago zalantzarik alde honetatik.

alaleku "dehesa". *apaingela* "tocador". *aterrune* "escampada" (AHOZ). *azitetxe* "seminario".

- 'aditza + -z adizlaguna'

aitorrarau "confessionario, confessional, en que se trata de el modo de confessarse".

- 'aditza + NORK' (cf. Azkarate 1990: 266)

azaita "padrastra" (1627). *azama* "madrastra" (1643 "nodriza").

- 'aditza + ZER', ezohikoa

aldaitz "tropo, figura" (< *aldatu* + *hitz*). *apaindile* "tocado de muger" (< *apaindu* + *ile*). *arradauts* "ralladura" (< *arradatu* + *auts*). *asmegi* "profecía" (< *asmatu* + *egia*).

- erlazio ilunak

adititz, *aditz* "verbo, en la filosofía" (< *aditu* + *hitz*). *agerbial* "patente, despacho, cédula" (< *ageri* "patente" + *bial* "passe", "salvoconducto"). *altzapremia* "alzaprima" (etim.; *altzatu* + *premia*). *artueralde* "cargo, en las cuentas" (< *artu* "aceptar" + *eralde* "razón"). *arturgi* "diamante" (*artu* + *argi*).

- c) 'aditzizena ('ekintza') + izena'

agapuru "clava, porra" (< *agate* "paliza"). *agintizkira* "rescripto, orden, mandato de el Príncipe" (< *aginte*). *auker-ontzi* "vaso de elección". *artzuko* "recusación" (< *artze*).

- d) 'izena + aditzizena' (sintetikoak)

Honako joera hauek antzematen dira: (1) 'egilea' adieran, ia denak *-le* / *-tzaille* atzizkiak egindakoak dira; (2) adibide gutxi batzuetan, ondorioa ezohikoa da, [- biziduna] tasunekoa; (3) 'ekintza / ondorioa' adierakoetan (izen abstraktuekin nahaste, cf. § 2.2.4.2), denetarik atzizkiak aurkitzen dira, baina (4) *-tze* / *-te* bereziki sarri; eta (5) 'izena + partizipio izendua' egituraren bat idoroten da, 'ekintza / ondorioa' adierarekin:

- (1) *abrebasle* "quatrero". *aginatoratzaille* "sacamuélas". *aginde-emaile* "preceptista". *aginidadokitzaille* "sacamuélas". *aize-emaile* "soplador". *alogaemaile* "premiador". *anai eraile*, *anai hiltzaille* "fratricida". *andrazaitzaille* "guardamuger". *apaiz laguntzaille* "acólito". *aratepaile* "abacero, por carnicero" (AHOZ). *arausle* "facinoroso" (< *ausle*). *ardaubile*, *ardobile*, *arnobile* "cosechero". *ardoneurtzaille* "mojonero, medidor de vino". *arraiepaile* "abacero, por pescadero". *arrai-saltzaille* "pescadero" (*arrai*-s. XVII ea.). *arraz saltzaille* "huevero". *arretartzaille* "reparador". *arteistari* "parancero". *aurreiraile*, *aurritzaille* "infanticida". *auziemaile* "pleiteador". *azasaltzaille* "bercero".
- (2) *arazo-emaile* "lo que da embarazo y ruido" (*faramalla*-ren etim.). *ausboilkari* "tolvanera".
- (3) *arbilgeta* "albóndiga". *arimaldaera* "metempsichosis". *artepaira* "tomá". *asberapen* "suspiro" (*hatsbeherapen* 1617). *atedanbada* "portazo". *auzjoaita* "processo" (< *joaita* "procedimiento").
- (4) *aitzin izate*, *aurke izate*, *aurre izate* "antelación, preferencia". *amaizate* "maternidad". *aozabaltze* "bostezo" (*aozabalte* XVII m.). *araste* "pinos, pinicos de niños" (< *aste*). *aratuste*, *aratuzte* "carnestolendas" (*aratizte* 1562). *arkaste* "arranque, de arcos" (< *aste*). *asgite* "aspiración" (< *egite*). *askaste* "análisis" (< *aste*). *aurgite* "parto" (*haur egite* 1664). *aurrilte* "infanticida". *azisurte* "polución".
- (5) *autseraiki* "polvareda".

HH-an 'baliabidea' eta batez ere 'tresna' adierako elkartuak, *-kai*, *-ari*, *-le* eta *-te* atzizkien bitartez eratutakoak (ik. §§ 2.1.7 eta 2.1.3), maiztasun aipagarriaz agertzen dira:

aginatorakai, *aginidadokai*, *aginsakai* "sacamuélas, el instrumento". *aize-emaile* "abanico", "soplador". *aizemaile* (*aicemallearen sendagarria* "guardas de abanico"). *aopikari* "coscojos en el freno". *arbotale* "catapulta". *arbotari* "arbotante". *ari biurkari* "torcedor, huso grande de torcer la hilaza". *atauskari* "petardo, para poner fuego a las puertas". *ateste* "bisagra". *atiskari* "falleba". *azurauste* "catasta, especie de potro para atormentar".

Animali edo harri izenetarako, ik. § 3.1.6.5.f; *-(ja)kinde*-rako, § 3.1.6.2.n.

- e) 'aditzondoa + izena', ezohikoa

arinkore "prestiños" (< *arin*).

3.1.1.3. Justaposizioak

- 'izena + izenondoa'⁷⁵¹

aitabitxi "padrino de el bautizado" (1475). *aitanagusi* "abuelo". *aita santu* "Papa" (XV h.). *aitona* "abuelo" (1715). *aizkorri* "peña desnuda y sin plantas" (*zancarrón*-en etim.). *alababitxi* "ahijado, hijo de pila" (XVII ea.). *alkiluze* "banco". *amabitxi* "madrina de bautizo" (1741). *amagutxi* "madrina de bautizo" (AHOZ). *amanagusi* "abuela". *ameskaitz* "pesadilla". *anai motz* "lego". *andeza* "edema" (< *andi(tsu)* + *eze*). *andrakaitz* "casa pública". *apaindona* "ornamento(s) de iglesia". *apal done* "credencia". *apeznagusi* "canónigo". *ardabeltx* "tintillo". *ardau gorri*, *ardo gorri*, *arno gorri* "aloque" (*ardao gorri* XV). *argitxuri* "claro en la pintura". *aribil* "ovillo".⁷⁵² *arkaitz* "peña" (AHOZ). *arnezt* "mosto". *arpain* "cornija". *arribizi* "eco" (AHOZ). *arropa txuri* "ropa blanca". *artanzu* "oveja que ya no pare" (AHOZ). *artegarai* "capitolio". *artzainagusi* "mayoral". *askordin* "sabañón" (AHOZ). *aste nagusi* "Semana Santa". *aste santu* "Semana Santa" (*aste saindu* 1630). *atezkutu* "surtida" (< *ate* + *ezkutu*). *atxandi* "peñón". *atz lodi* "dedo pulgar" (AHOZ). *atz loi* "dedo de en medio". *atz txiker* "dedo meñique" (1562). *aurkartez* "rectángulo". *autzandi* "carrilludo" (AHOZ). *axalkor* "esclerótica" (< *gogor*). *axalme* "farfara". *azukre arro* "azúcar rosado". *azurruts* "esqueleto" (*hezur huts* XVI ea.).

- 'izena + partizipioa'

abril "hostia" (< *ab(e)re* + *il*). *agurten* "varadero" (< *aga* + *urten*). *arlandu* "silla, piedra sillar" (AHOZ). *auts erre* "ceniza" (1562). *auzi-eseki* "litispendencia".

- 'izena + aditzoina', ezohikoa

akirin "castrón" (< *irindu*).

- Animalia izenetarako, ik. § 3.1.6.5.

3.1.1.4. 'izena + -ko / -en + izena'

- 'izlag. + izena' hurrenkeran:

aakal "anhélito" (< *aoko*). *aitaonen seme* (*aitaonen sémeen alcateá* "alcalde de hijosdalgo"). *aitonen seme* "hidalgo" (1620). *aitoren seme* "gentilhombre" (1656). *alboko ezur* "costillas". *alboko min* "(dolor de) costado", "pleuresía". *aldiskaize* "ethesios, vientos" (< *aldizko*). *ankako min* "ciática". *argiaren begi* "alba" (1571). *artekaize* "aquilón, viento, cierzo o norte" (< *arteko*). *artekiste* "carena, reparo de navíos" (< *arteko*).

- 'izena + izlag.' hurrenkeran:

aingeru guardako "ángel de la guarda" (1656). *aita gure* "Padre nuestro, oración" (1612). *aitaponteko* "padrino de el bautizado" (1562). *alaba ponteko* "ahijado, hijo de pila". *amaponteko* "madrina de bautizo" (1562). *atz erdiko* "dedo de en medio". *atz erraztuneko* "dedo anular".

3.1.1.5. Onomatopeiak

akuilu-makuiluak "zanco, zancos de palo".

⁷⁵¹ Lexikalizazio maila ezberdinetakoz gauzak bildu ditut, muga non dagoen zehatz-mehatz esaterik ez dudanez gero.

⁷⁵² Hemen kokatu dut, hoberik ezean, oraingoz *-bil* osagai argi horren izaera zehazki ezagutzen ez bada ere; Larramendik behintzat zalantza egin zuen izenondo ("redondo") eta izenaren ("globo") artean. Oro har *-bil*-i buruz, eta *aribil* hitza *HH*-an zein egoeratan eta zergatik agertzen den ulertzeko, ik. § 6.5.

3.1.1.6. 'mugakizuna + mugatzailea' ordena

Azkaratek (1991: 117) ordena hau atributu elkarteetan bakarrik (§ 3.1.1.1.c) aurkitu du bere corpusean, "Subsumptive motakoetan ohikoa den espeziea-generoa erlazioa alderantzizko ordenan emanaz"; gurean, aldiz, halako batzuekin batera, 'izena + izena' menpekotasunezko elkarteetan ohiko ordena hausten duten bost adibide argi ditugu; haietako bik, eta ez da gutxi, Leizarraga atzean daukate edo izan dezakete (§ 9.2.4.1):

aitadiape, *ait-etxadi* "(padre de) familias" (cf. *aitafamilia* 1571). *aoputzu* "brocal de pozo". *aozato* "brocal de bota". *arkantoin* "angular, piedra" (1571). *armenasta* "marquisita, piedra metálica". *arraianre* "pexemuller". *arraizpata* "espada, pez". *arrangaro* "garo, pez". *arrano gaintza* "(águila) caudal o real". *arriman* "imán" (etim.; *arri imana* 1562).

Animali eta harri izenak geroago (§ 3.1.6.5.h) berrartuko ditugu.

3.1.1.7. 'x + [aditza ken -tu] > izena (izenondoa)'

Erabat ezezaguna dugu elkarbide hau, baina *HH*-an oso emankorra, dakusgunez. Geroago (§ 3.2.3.7.2) aztertuko dut, antzerako beste gertakari batzuekin batera:

abrasma "tolondro", *apaindasmak* "plateresco" (< *asmatu*). *aderna* "pitón, cuerno que empieza a salir" (< *erne*). *agintopo* "quixada", *aiertopa* "tope" (< *topatu*). *ainalda* "precio" (< *aldatu*). *anbasal* "monopolio" (< *saldu*). *alediste* "aljofar, perla menos fina y desigual" (< *distiatu*). *alorta* "fruta", "fruto" (< *sortu*). *antagiri* "perspectiva" (< *agiri*). *aotoles* "puchericos de niño" (< *tolestu*). *apainanzi* "pretexta" (< *jantzi*). *argusi* "viso, visos", *arkusi* "lustre, viso luziente" (< *ikus*). *arnasta* "calabriada" (< *nastu*). *artiste* "piedra preciosa" (< *tistiatu*). *arutzi* "renuncia" (< *utzi*). *asuki* "salva, prueba de la comida o bebida" (< *ukitu*). *atzengeldi* "paradero" (< *gelditu*). *autsasi* "resentimiento" (< *asi*). *autzaio* "bocina", "cerbatana", "corneta" (< *jo*).

3.1.2. Izenondo elkarteak

3.1.2.1. Dvandvak

alpergaizto "maleante". *andilodi* "gordal".

Hurrengo kasuan, sailkapen errazekoa ez baita, bigarren osagaiak argi eta garbi lehenengoaren esanahia indartzen du:

alperpotz "perezoso" (*alferzotz* AHOZ).

3.1.2.2. Menpekotasunezkoak

a) 'aditzoina + izenondoa'⁷⁵³

adítezin "ininteligible". *askatezin* "inextricable".

b) 'izena + [aditzoina + -garr]

(ez dut aurkitu).

⁷⁵³ Cf. Azkarate 1990: 418, ezin-ez, eta *in-* aurrizkiak ik. § 4.1.14.

c) 'izena + partizipioa', non izena = ZER

agaisartua "empalado". *aobozatua* "mudo". *aidikia* "boquiabierto". *aokaldua* "embotado". *aokastua*, *aomeilatua* "mellado, el que le falta un diente o más". *atsestua* "sufocado". *atzekiepakia* "rabón". *aurkanditua* "cariampollado". *autsbanatua* "polvoreado".

• 'aditzondoa + partizipioa'

askojakin "peixe, hombre astuto".

d) 'partizipioa + -berri' (cf. Azkarate 1990: 418-419)

asiberri "principiante", "incipiente". *aldondu-berri* "neóphyto".

e) 'izena + izena', ezohikoa

argigiro "cuerpo diáphano". *arransudur* "cariaguileño".

f) 'izena + partizipioa', ezohiko erlazioan

adipaki "preciso, por el entendimiento" (< *adi* "intelección" + *epaki* "preciso").

3.1.2.3. 'izena + izenondoa' (Bahuvrīhiak)

adarbakotx "unicornio" (*aberé adár bacocho* "abada o rinoceronte", "monocerote, monoceronte". *arrai adar bacocho* "narval, pescado terrible con un cuerno que parece al de el unicornio") (AHOZ). *adarraketx* "gacho, toro" (AHOZ). *adartxabal* (*oreñ adartxabala* "paleta, el gamo de hastas anchas") *adinandi* "anciano". *adinon* "mediano", "razonable" (XVI b.). *ankaluze* (*egazti ankaluzea* "flamenco"). *aobaltz*, *aobeltz* "boquinegro". *aoker* "boquituerto". *aoleor* "boquiseco". *aosamur* "boquimuelle". *aotxabal* "boquiancho", "papanatas". *aotxakon* "boquihundido". *aotximur* "boquifruncido". *aozabal* "boquiancho" (XI-XII). *arimandi* "magnánimo". *arpegibete* "carilleno". *arpegizabal* "cariancho". *astalandi* "pantorrilludo". *atzekilabur* "rubicorto". *atzeki luze* "rabilargo". *auoker* "boquituerto". *aurkabel* "cariacotecido". *aurkabete* "carigordo". *aurkaboba* "caribobo". *aurkaluze* "carilargo". *aurkamin* "cariacedo". *aurkazabal* "cariancho". *aurkazur* "caricuerdo". *autzandi* "carrilludo".

• Ezohiko erlazioan

arizkar "roblizo" (< *aritz* + *azkar*, hots, ~ 'haritza bezain azkarra').

• 'izena + partizipioa', exozentrikoak

aoreki "bausán, bobo". *atorrajario* "pañalón" (AHOZ).

3.1.3. Aditz elkarteak

a) 'izena + aditza'

Honelako egiturak zehatz-mehatz aztertu gabe daude euskaraz; are okerrago, honetaz dauden hurbilketa bakanez (Mitzelena 1977b; Azkarate 1990 eta 1991) badirudi ez dutela zerikusirik elkarrekin. Adibide bat baino ez: Mitxelena aditz iragangorren gainean egindako elkarteez mintzo da, parentesi artean "y no parece haber otros" zehaztuaz; Azkaratek, aldiz, agerian dio "nor-motako" aditzak direla, "ia guztiak behintzat" (1991: 126). Adibidea ez da nolanhikoa: edo ikertzaile biotako batek huts egin du, edo eskuztatu dituzten datuak funtsean ezberdinak dira.

HH-ko adibideak Azkaratek proposatutako azalbidearekin azaltzetik hasiko naiz, arrazoi bigatik: esplicituagoa da —eta, beraz, erosoagoa—, eta bereziki ongi egokitzen zaie, zehaztapen

batzuekin bada ere. Ikertzaile honen arabera, bada, aditzak ia ezinbestean NOR motakoa (edo hartakotzat erabilia) denez gero, izena adizlagun baten parekoa dateke, eta gehienetan NON eta ZERTAZ adieraziko. Alabaina, NON adizlagunaren tradiziokotasuna ez da oso garbi ageri ematen diren adibideetan; aitzitik, *aurrezari* (1922), *biotzukitu* (1745), *gurutziltzatu* (1745)-ren arabera, batzuk mende honetakoak (Orixe-Lizardinerak, Azkaratek dioenez), eta besteak *HH*-koak genituzke. Corpusean aurkitu dudana adibide bakarra —*aurbeni* "exponer" (= 'aurrean ibeni')— tankera berekoa da (*aurre*-z ik. § 3.1.6.2.a).

Bestalde, ZERTAZ adizlagunak absolututzat ere jo daitezke, eta orduan "esan daiteke nor-nori motako perpausetan, absolutua eta aditza elkar daitezkeela, zenbaitetan elkartu direla bederen, nor motako aditza osatzeko" (Azkarate 1990: 302). Honen arabera, tradizioz kanpokoak dira *burumoztu* edo *bizarmoztu* (Azkarate 1991: 126), baina ez *eraberritu*, *gurutziltzatu*, *itxuraldatu* edo *odolustu* (Azkarate *ibid.* eta 1990: 301-302). Beraz, corpuseko adibideen artean honelako banaketa bat egin daiteke:

- ZERTAZ edo NOR-NORI irakurketa ahalbidetzen dutenak:

aobozatu "emmudecer". *aokaldu* "embotar filos, puntas". *asberatu* "suspirar" (XVII ea.). *atsestu* "sufocar". *azarrakatu* "abrirse el erizo con su castaña o la corteza con la nuez" (*azala* + *arrakatu*).

- Ezinbestean irakurketa iragankorra eskatzen dutenak:

agaisartu "empalar". *arauli* "trabucar" (*arau* + *irauli*). *arautzi* "delinquir" (*arau* + *utzi*). *arkedatu* "resplandecer" (< *argi* + *edatu*). *astendatu* "sompesar" (< *astun* + *tentatu*). *atsedatu* "abahar". *autsbanatu* "polvorear".

Ondoko guztiak, ostera, berrikuntza argitzat jo behar dira, nik uste:

- ZERTAZ irakurketa bakarrik onartzen dutenak, ezohikoak:

aratxi "encarcelar" (*arauz* + *itxi*). *araskaini* "estipular" (*arauz* + *eskaini*). *artali* "empedrar" (*arraz* + *estali*). *artukitu* "escrupulizar" (*artaz* + *ukitu*). Cf. *altzairin* (< *altzairuz* + *egina* "hecha de acero", *jacerina*-ren etim.).

- NONDIK eskatzen dutenak, zeharo ezohikoak:

andiraitzi "recudir, resaltando" (< *andik*). *asturritu*, *asturrundu* "degenerar" (< *astetik?*).

• 'izena + aditza' motako aditzak askoz gehiago dira, baina ez da beti erraza haien osagaien arteko erlazioa asmatzea:

ajolautsi "escarmentar" (*ajola* + *autsi*). *arbazkatu* "encarnizarse" (*aragi* + *bazkatu*). *argibeatu* "columbrar" (*argi* + *beatu*). *artikasi* "estudiar" (*arte* + *ikasi*).

Azalbide honi esker, inolako zalantzarik gabe berritzat eman behar diren aditz elkartu zenbait bereizi ditugu, baita 'NON + aditza' egiturakoak —geroko bizitza gorabehera— berriak izan daitezkeela iradoki ere. Saia gaitezen orain Mitxelenaren azalpenarekin, baina lehenik, aitor dezadan ez dudala gai honen alderdi teknikoiez aurrerapenik egiteko asmorik —ez eta gaitasunik ere—, historikotik bakarrik baizik.

Gorago datu ezberdinez ari zitezkeela iradoki dut, eta halaxe da, baina hein batean bakarrik. Egiatan, Azkaratek ongi ezagutzen du Mitxelenaren lana, noski, baina "aditz esapideak" deritzan atalean soilik aipatzen (Azkarate 1990: 407-415), hau da, 'izena + *egin*, *eman*, *hartu*'

egiturak direla eta. Eta honek garrantzi handia dauka; ikus dezagun: Mitxelenak, elkartuetara baino lehen, aditz elkartuen eta gaur “aditz esapideak” deritzegunen artean bereizi beharraz dihardu, bigarrenen ezaugarri modura bi irizpide ezarriaz: esaldian izenaren lekua aditzarekiko aldakorra izatea (adib. *demogula lekhu, demogula amore hirari*, Ax 291) eta partitiboa onartu ahal izatea (adib. *eta ez behin ere amorerik eman*, ib. 292). Egoera hau ez da aldaezina: aitzitik, kasuen, garaien eta lekuen arabera, bere hitzetan, bi osagaien arteko lotura handiagoa edo txikiagoa da, edo izan da.

Bereizketa hau ezarri ondoren, euskal aditz elkartuak bi motatan uzten ditu: ‘ergatiboa + aditza’, *lo(a)kartu* ezaguna hizpide, eta ‘objektua + aditza’, bigarrenen artean *atseden* (1596), *atsegin* (1785), *hatsartu* (1545), *atzeman* (1621, *hatzaman* 1571), *hauteman* (1617), *gogo eman* (1571), *gogo egin* (1571), *gogo hartu* (1643), *iharrausi* (*iharrosi* 1571), *hotseman* (1657?), *hotsegin* (1562)... batetik, eta *itxuraldatu* (1859), *lumaberritu* (1905), *zaintiratu* (gaur iz., 1931) bestetik emanek. Datak, nik erantsiak, garrantzizkoak dira oro har desadostasuna ulertzeko.

Irizpide beren gainean oinarriturik, besteak beste, Azkaratek ‘x + egin, eman, hartu’ egitura *guztiak* aditz esapideak direla ondorioztatu du, *aldegin* bezalakoak ihartutzat jo (baina nondik edo nola ihartuak?) eta alde batera utzirik. Erabaki honek ondorio nabarmena dauka: orotara bildu duen aditz elkartu corpusa zeharo murriztuta geratzen da, ez bakarrik kopuruaren aldetik, baita —eta batez ere— denboraren aldetik ere. Aipa dezakeen garai beretsuko adibide bakarra *odolustu* (1643) da, eta hau argi eta garbi aditz iragankorra dugu (*barberak... odol hutsten du*, Ax 277).

Areago, aditz esapideei buruzko atalean, hondarretan, adibide zahar mordoxka bat biltzen du, ‘izen mugagabea + aditza’ egituratzat hartuta. Ezin naiteke hemen analisi honen eztabaidan sartu, luzegi joko luke eta. Derradan bakarrik adibide hauek eta Mitxelenak emandakoak aditz elkartuetan aztertu dituenak baino alde handiaz zaharragoak izanik, edozein azalpen diakronikoren abiadako puntuan egon beharko litzatekeela.

Gure gaira itzulirik, aditz elkartu zaharretarako —‘objektua + aditza’ erakoak nagusiki— Mitxelenak eman azalpena eta elkartu modernoetarako —behin ere ez 1745 baino lehenagokoak, orain dakigunez — Azkaratek emana bilduaz, hurrengo ondorio hauetara irits gaitetzke: *HH*-an bi eratako aditz elkartuak daude, ‘objektua + aditza’ eta ‘x + aditza’ motakoak. Lehenen artean badira aditz zahar zenbait: *asberatu*, adibidez, baina baita beheraxeago bildu ditudan ‘x + egin, eman, hartu’ egiturakoetatik batzuk behintzat,⁷⁵⁴ eta aditz berri zenbait, egitura gordez Larramendik eginak; hauetako batzuk ezaguterrazak dira, euren itxuragatik (cf. *arkedatu* < *argi*) edota egileak erabilitako osagai bereziengatik (cf. *astendatu* < *astun*). Bigarrenen artean, aldiz, denak berriak dira, zeren eta itxuraz ia beti ohiko egiturarekin bat etorri arren, azpiegitura zeharo ezberdina baita. Berrikuntza, dirudienez, deklinabide-atzizkiaren berriazko ezabaketan datza, aditz arrunten tankera lortu beharrez, hain zuzen.

b) ‘izenondoa + etsi’

⁷⁵⁴ Kontuan izan bedi Azkarate 1990ko sailkapenari atxiki natzaiola.

autetsi "elegir" (1627).

c) aditz esapideak

- 'izena + egin, eman, hartu'

adieman "dar a entender" (*ademán* eta *desmán*-en etim). *agur egin* "saludar" (1627). *aieru egin* "guiñar". *aizegin* "aventar", "soplar". *aizeman* "aventar", "soplar" (*haize eman* 1643). *akatsegin* "desportillar". *alde egin* "(hazer) campo, lugar". *aldegín* "apartarse" (*alde egin* 1627). *ametsegin* "soñar" (1571). *antzeman* "parecer, parecerse". *apa egin* "besar en el rostro". *apa eman* "besar en el rostro". *argi egin* "lucir", "alumbrar" (1545). *argi eman* "lucir", "alumbrar" (1715). *arrauzia egin* "bostezar" (*arrausia egina* 1562). *asartu* "desfrutar", "gozar" (< *ats*). *asnase artu* "respirar". *asnase egin* "aspirar", "respirar". *asnase eman* "ababar". *atsartu* "carlear", "resollar" (1545). *ats egin* "respirar" (1715). *atsegin artu* "holgar, alegrarse" (1537). *atsegin eman* "alegrar" (1660). (*h*)*atseman* "soplar" (1571). *atsemon* "apagar" (AHOZ). *atzegin* "rascar la sarna u otra cosa que pica" (1562). *auhenegin* "clamar". *aurregín* "parir". *autsegin* "triturar" (XVII ea.).

arraultza egin, ifini (*arraultza eguiten, ifinten* "está poniendo el huevo").

- iz. / izond. + egin, etab. 'x bihurtu'

alper egin "abribonarse, hazerse bribón". *arin egin* "aligerar", "aliviar". *asto egin, asto egon* "aburrado". *astun egin* "agravar". *aurregín* "amuchachado".

- 'x + izan'

aier izan "aceptar personas" (1571). *ajola izan* "aflijirse, dársele poco o mucho por algún suceso". *antsia izan* "convenir, importar" (1643). *ansi izan* "importar". *antza izan* "asemejarse". *aski izan* "basta" (1627). *asko izan* "basta" (1562). *astun izan* "pesar, tener peso". *atsegin izan* (*atseguin det* "(me) huelgo de, me huelgo que") (1627).

d) 'aditza + aditza', ezohikoa (cf. Azkarate 1990: 303):

apaingoratu "lisonjear" (*apaindu + goratu*). *argedatu* "retener" (*artu + geratu*).⁷⁵⁵ *arituditu* "raciocinar" (*aritu + aditu*). *arpilatu* "saquear" (*artu + pilatu*). *arturatu* "encargar" (*artu + arduratu*). *asidoro* "concebir" (*asi + idoro*). *askabiatu* "eximir", "librar de algún mal" (*askatu + abiatu*). *askurtu* "desleír" (*askatu + urtu*). *astiyo* "verberar" (*asti* "azotar"+ *jo*). *asurundu* "bastardear", "envilecerse" (*asi + urrundu*). *azkendukitu* "retocar, lo que ya está acabado" (*azkendu + ukitu*).

3.1.4. Aditzondo elkarteak

a) Dvandvak

(ez dut aurkitu).

b) Sintetikoak

aozabalka (*aozabalca dago* "(está) bostezando"). *atajoka, atejoka* (*atejoca, atajoca egon* "(estar llamando a la) puerta"). *atedanbaka* (*atedambaca ibilli* "portear, dar golpes las puertas").

c) Onomatopeiak

arret zarret "(a tuertas, o a) derechas", "(a) diestro y a siniestro".

d) Errepikapenak

arin arin "levemente".

⁷⁵⁵ Hau ez da azalbide bakarra: ik. § 3.2.3.7.3.

3.1.5. Bi osagai baino gehiagoko elkarteak

Adibide gehienek 'izen elkartua + izena' menpekotasun elkarteak (§ 3.1.1.2.a) osatzen dute, nahiz mugatzaile elkartuak era ezberdinetakoak izan:

- 'izen elkartu kopulatiboa + izena'

apezait orde "cura ecónomo". *arkume talde* "borregada". *arraultz irin talo* "alpistoela, torta de huevos, harina y ajónjoli".

- 'menpekotasunezko izen elkartua + izena'

arbiskazi "cresa, simiente de insectos". *arratsalde-gosari* "merienda". *arrezpainpe* "architrabe". *arrobi-zulo* "hornacho, hornachuela". *arroinpe* "pilastra". *aurgitondo* "sobrepardo".

- 'justaposizioa + izena'

arbelauts "tastaz, polvo de crisoles viejos". *arkaitzerra* "sierra de montes". *arkaitz gaztelu* "castillo roquero". *arkaitzune* "berrueco". *arpaindarte* "friso".

- '[x + (aditza ken -tu)] + izena'

artiskinde "Lapidaria".

Halaz ere, badira bestelako erlazioak ere:

- 'menpekotasunezko izen elkartua + izena' kopulatiboa

artzanoreme "mastina".

- 'justaposizioa + izond.' justaposizioa

arlankaitz "mampostería", "mampuesto".

- 'aditz elkartua + izena'

aurbenetxe "inclusa".

Birritan 'iz. + iz. elkartua > menpekotasunezko iz. elkartua' mota aurkitu dut:

arzaineurrots "madrigal". *autxulonzi* "salvadera" ('auts + [zulo-ontzi]', ~ 'zuloak dituen hauts-ontzia').

Dena dela, erlazio guztiak ez dira zuzen edota argiak:

artetorme "mediastino" (= 'arte + etorri + me' ~ 'artean datorren gauza mehea'). *auntzileo* "picote, tela áspera" (= '[auntz-ile] + eo' edo 'auntz + [ile eo]').

3.1.6. Elkarketaren inguruko sail berezi zenbait

3.1.6.1. Lehen osagai bereziko izen elkarteak

Kontuan har bedi euskarazko A letra bakarrik aztertzen ari garela; alde honetatik, hurrengo zerrenda motzegia da, noski, baina balio dezake gertakarien nolakoa eta maiztasuna behinik behin somatzen hasteko.

a) Posposizioak⁷⁵⁶

AITZIN 'aitzinekoa': *aitzin-ezurak* "aguja, costillas delanteras de el animal". *aitzinkidari* "conductor, (...) el que guía" (*aitzingidari* 1630).

ALDE

- 'aldekoa': *aldarri* "guardalado, de puente". *aldasare* "filarete". *aldol* "témpanos de cuba".
- 'aldea': *alduarke* "hypotenusa". *aldazpi* "reverso", "revés". *aldegain* "haz, faz" (AHOZ). *aldoste* "respaldo".
- *alderrri* "región": cf. *aldiri* "comarca" (1571) (ik. § 5.3).

ARTE

- 'entre-', 'inter-': *artatzitu* "entrecoger", *artautsi* "interrumpir", *artepaki* "entrecortar" (ik. §§ 4.1.9 eta 4.1.16).
- *artetorme* "mediastino".
- *arturren* "mediato".

ATZE: *atzaurrez*, *atzaurreaz* "apospelo, al revés". *atzesku* "el último, que la cierra [la danza]".

AURKA / AURKE

- 'aurpegia': *aurkabela* "cariacontecido". *aurkabete* "carigordo". *aurkaboba* "caribobo". *aurka boila* "cariredondo". *aurkaluze* "carilargo". *aurkamin* "cariacedo". *aurkanditu* "cariampollado". *aurkatiste* "carilucio". *aurkazabal* "cariancho". *aurkazur* "caricuerdo".
- 'aurrean / aurreko': *aurkegoitza* "presencia". *aurkegorri* "corredor, corredores de la campaña". *aurkizkira* "rótulo". *aurkol* "talanquera".
- Geometrian: *aurkartez* "rectángulo". *aurkelauoi* "tetraedro".

AURRE: *aurbeni* "exponer". *aurresku* "(hablando de las) danzas bascongadas, el primero que la saca y guía" (AHOZ).

AZPI: *azpizun* "solomo" (XVII ea.). *azpoial* "manteo".

Antzeko zenbait aurki daitezke Urteren hiztegian ere:

AI(N)TZIN: *aitzinalde*, *aitzinerran*, *aitzinerrate*, *aitzingidari*, *aitzinguardia*, *aitzinjoaile*, *aitzinparte* eta *aitzinkar*.

ALDE: *aldetxe*, *aldarrotza*.

BEHERA/E: *beherestimatzaille*, *beherofiziale* (+ *baxofiziale*).

b) Adizlaguna / aditzondoa. Zehazki *aozbildu* eta *arraunean egin* bezalakoak ez dira elkartuak, gehienera jota aditz esapideak baizik; alabaina, hemen bildu baldin badituz, euren ondorengatik izan da: *aragiz biltze* eta *arrika aritze* adibideek aditz esapideetatik ere izenak ateratzen jakin zuela adierazten dute eta:

atzerinkatu "(hazer) corvetas" (< *atzera*). *aozbildu* "abocardado". *aragiz biltze* "acceso, acto carnal". *arraunean egin* "remar". *arraunean egite* "remadura". *arrika aritze* "pedrea".

c) ABRE 'aberea': deigarria da Iparraldeko aldaera honen maiztasuna *HH*-ko elkartu berrien lehen osagaien; zalantzarik gabe, hitzen luze-laburrekin zerikusia dauka:

abrasma "tolondro", *abrebasle* "quatrero", *abredari* "bregage", *abreunde* "hecatombe", *abril* "hostia", *abroila* "hadrolla" (etim.), *abroin* "pata", *abrume* "ganado menor".

Salbuespenak bi baino ez dira; ohartu lehena ez dela goikoak bezain "elkartua", honela esan baldin badezaket, eta bigarrean *muta cum liquida* talde biren agerpena saihestu dela: *aberegisako* "bestial". *aberetresna* "aparejo".

d) AGI "apariencia" (honen etorkiaz, ik. § 5.4.1)

agama "ama que cría". *ageder* "especioso en apariencia". *agirudi* "exterioridad".

e) ALKAR: Larramendiren erabilera gaurko arazoetatik urrun badago ere (Azkarate 1990: 421-422), gogora dezakegu joskeraz *OEH*-ak (s.v.) hauxe dioela: "En los textos meridionales se

⁷⁵⁶ Ik. Azkarate 1990: 312-314, hauen atzizkitze-prozesuaz eta bestez; eta § 4.2 *HH*-an honelakoak gaztelaniazko aurrizkien ordeztu erabiltzeko joeraz.

observa, cuando menos desde Larramendi, una tendencia a emplear *elkar* como indeclinable, es decir, en proceso de fosilización". Bildutako adibideak ere bide horretatik doaz, *alkar elkarrekin*-en lekuan (*alkalaur*, *alkarrez*) zein *elkarren*-ean (*alkargun*) ageri baita:

alkalaur "quadriga" (*alkar* + *laur*). *alkargun* "compañero" (*alkar* + *lagun*). *alkarrez* "adversario" (*alkar* + *ez*).

Halaz ere, elkartuen lehen osagaian atzizkia edo atzizkitzakoa galtzen duen hitz bakarra ez da (ik. § 3.2.3.7.2).

f) ANDI:

'(persona) handia': *andigura*, *andina* "ambición", "ambicioso", *andipeko* "sufragáneo", *anduste* "endiosamiento", *anpuru* "ostentación", *antobi* "mausoleo", *antusi* "ambición".

'(gauza) handia': *andurri* "tapinosis", *antagiri* "perspectiva".

g) ARAU:

'araua': *araugoki* "reglar", *araujarraidea*, *araujakintza*, *araujaquindea* "jurisprudencia", *arauli* "trabucar", "trabucación", *arausle* "facinoroso", *araututs* "solecismo", *arautzi* "delinquir".

'arauz': *aratxi* "encarcelar", *araskaini* "estipular".

h) ASTA- 'basa-' gazt. 'silvestre'

astabortusai "alhargama, ruda silvestre". *astagarbanzu* "astrágalo, garvanzo silvestre". *astaien* "algalaba, vid silvestre". *astailar* "aphaca, planta" (AHOZ). *astakainabera* "cañaheja, planta". *astalbaka* "albahaca silvestre". *astalmendra* "alozo, almendro silvestre". *astamadari* "guadapero, peral silvestre". *hasta maiz* "alcandía, maíz bastardo, silvestre". *astamats* "chirle, uba de vid silvestre" (*astomahats* 1715). *astamenda* "hierba buena silvestre" (AHOZ). *astapalma* "palmito, palma silvestre". *astatipula* "albarrana, cebolla silvestre". *astaurraza* "cerraja, planta". *astaza* "lampsana, planta". *astazafrai* "alazor, planta de azafrán salvaje". *astoregana* "tragorigano, orégano cabruno".

Corpusari zor zaio *asta*- bakarrik ageri izana: cf. *basaudarea* "guadapero", *basa-azafraia* "alazor", *basa-mastia* "parriza", *basa-oliboa* "acebuche", *basakardabera* "ajongera", *basakipula* "albarrana", *basalmendra* "alozo", etab. Hauxe da, bide batez, Urtek maizenik dakarrena (*basabaratzuri*, *basafiko*, *basaharbi*, etab.), baina baditu *astomahats* eta *astomahasti* ere.

i) ATZEN, AZKEN: izen sintagma egitura duten hitzak osatzen dituzte (ik. Azkarate 1990: 420-422):

atzenai "testamento". *atzengeldi* "paradero". *atzenordu* "completas". *azkenai* "(última) voluntad". *azkenunzio* "extrema-unción". Cf. halaber *atzengeldi* ere (ik. § 3.1.1.7).

3.1.6.2. Bigarren osagai bereziko izen elkarteak

Ezaguna denez, badira euskaraz inoiz hitz askeak izan ziren atzizkiak, baita, oraindik aske bizi badira ere, elkartuen bigarren osagaian halako maiztasunez agertzeagatik gramatikagileek batzuetan atzizkitzat hartu izan dituzten hitzak ere (*aldi*, *aro*, etab.), ihartze maila ezberdinetan (Azkarate 1990: 380-392 eta 1991: 104-107). Hauen modura, *HH*-ko hitzetan esanguratsuki errepikatzen diren zenbait osagai antzematen dira, maiz hiztegi biltzailearen proposamen berriak edo oso leku jakinetatik eremu zabalagoetara eramanez, behinik behin. Hona hemen gure corpuseko aipagarrienak:

a) Posposizioak (ik. Azkarate 1990: 392-401): prozedura hain da arrunta, non zenbait euskalarik haietako batzuk bederen atzizkien artean sartu dituzten.⁷⁵⁷

AITZIN, AURKA/AURKE, AURRE

- 'x-en aurreko zera': *ataurka* "mampara de puerta". *apalaurre* "merienda". *ar(t)zaurre* "obispo". *ataurre* "antepuerta", "cancel". *ateaitzin* "antepuerta". (*ante-* aurrizkiaz, ik. § 4.1.1).
- *aurka/aurke* "aurpegia, aldea": *aldaurke* "hypotenusa". Ik. § 3.3.2.3 honen adibide gehiagotarako.
- *atzaurkez*, *atzaurreaz* "apospelo, al revés".

ALBO: *aizalbo* "barlovento". *ankalbo* "ijada".

ALDE, ALDEKO: *abaldeko* "asnas de el texado, costaneras". *aizalde* "barlovento" (Arig SM). *arratsalde* "tarde" (1545).

ARTE, ARTEKO

- oro har gazt. *entre-*, *inter-* aurrizkiak ordezkatzeko *HH*-an daukan paperaz, ik. §§ 4.1.9 eta 4.1.16.
- *abarte* "claro en la Arquitectura". *arazarte* "(la) vaca de la boda". *argarte* "claro, en los edificios". *arpaindarte* "friso, en la Arquitectura". *araparte* "interpresa". *atarte* "portal" (*ate arte* XV h., *ataarte* 1596, *atarte* 1653). *atzarte* "higa". *atzitarte* "interpresa".
- *arrarteko* "(pescado) saxátil". *azkazalarteko* "entrepalmadura, enfermedad de bestias".

AZPI: *aldazpi* "reverso", "revés" (cf. *aldegain* AHOZ).

GAIN, GAINEKO, GAINETU

- gazt. *sobre*, *super-* aurrizkien ordezkapenerako ik. § 4.1.30.
- *aldegain* "haz, faz" (AHOZ). *alkigain* "alquicel, cubierta de banco". *arropagain* "sobreropa".
- *aitzagaineko lur* "bancal, pedazo de tierra sobre peñas".
- *aizagainetu* "barloventear el navío". *arrigainetu* "arrimarse así, mejor se dize con el verbo *gañetu*, pospuesto al nombre de la cosa sobre que se arrima, v.g. *arriaren gañetu*, *arrigañetu*, arrimarse sobre la piedra".

ONDO

- 'denbora': *afalondoan* "(al) acabarse la comida, la cena" (1571). *aurgitondo* "sobreparto".
- 'atzeko partea': *atzonda* "hiema de el dedo".

ORDE

- 'vice' (ik. § 4.1.35): *almirantorde* "vice-almiranta", "vice-almirante".
- 'sustituto de': *aita orde* "(en) lugar de padre, madre, &c." (1665). *aitorde* "padrastra" (AHOZ). *alorde* "poder que se da para algo", "poderhabiente". *ama orde* "(en) lugar de (...) madre". *amorde* "madrastra" (AHOZ). *apezait orde* "cura ecónomo". *atxorde* "tenedor, para comer".
- *antzordez* "verbigracia".

OSTE: *aldoste* "respaldo". *at-ostean* "tras la puerta" (*ataostean* 1596).

PE, PEKO, PETU

- gazt. *sub-* aurrizkiaren ordezkapenerako ik. § 4.1.28.
- *aizape* "sotavento" (AHOZ). *aldarope* (*arapo*-ren etim.) *apaizurrenpe* "subdiácono", "subdiaconato". *ardope* "cimiento o fundamento de el vino" (*arropo*-ren etim.). *arrezpainpe* "architrabe". *arropinpe* "pilastra". *atarbe* "albergue" (1571). *atzalpe* "coxín". *atzenpe* "subjuntivo".
- *andipeko* "sufragáneo". *atzenpeko* "subjuntivo". *azalpeko* "escarza, herida en el casco de las caballerías".
- *ahalpetu*, *alpetu* "apoderarse". *argipetu* "definir". *arrazpetu* "sujetarlo y meterlo baxo de las garras" (*rapar*-en etim.). *atzipetu* "engañar" (AHOZ). *aurpetu* "rendir, sujetar". *auzpetu* "postrarse".

Corpusean behintzat, ez dago *-be*-ren alerik (*atarbe* zaharra izan ezik); cf., adibidez, *aizape* "sotavento", *aizabe* eta antzeko aldaeratan ongi lekukotua (§ 12.2.8). Hauxe da Larramendiren azalpena:⁷⁵⁸

Bea, quando lo baxo no se contrahe a alguna cosa; *pea*, quando viene contrahido y se pospone (s.v. *baxio*).

Posposizioez, oro har, Urteren jokabidea ezberdina da: *ahutzbarne* "bucca" izan ezik, adibideek aski arruntak dirudite (*afalondo*, *aitzinalde*, *arratsalde*, *atalondo*).

⁷⁵⁷ Villasante 1981: 160ko zerrendan *-arte* (*tarte*), *-gibel* (*-kibel*) eta *-ondo* aintzat hartzen dira, adibidez.

⁷⁵⁸ Honek azal lezake, ziurrenik, zergatik *agripe* (gr. *acribea*) azkenean *agripe* bilakatu zen ia beti *HH*-an, nahiz eta *-be* *beatu*-tik aterea izan (ik. § 6.5.1).

b) AL (cf. Azkarate 1990: 418)

- 'gaitasuna': *arautal* "jurisdicción, facultad de decidir".
- ulerpen gaitzekoak: *aakal*, *atsal* "anhélito", *anbal* "venerable".⁷⁵⁹

Cf. *eginahal* (1627).

c) AURREN, LEN... ezohiko ordenan (honetarako eta hurrengorako, cf. Azkarate 1990: 421; berak gogoratzen dizkigu *udaurren*, *udazken* bezalakoak):

aitaurren "patriarcha". *apaiz aurren* "arcipreste".
aitalen "patriarcha". *azalen* "imprimación".
aitansiti "patriarcha" (< *antxiti*, cf. *erenegun antxiti* "ante anteayer").

d) AZKEN, ezohiko ordenan (cf. *azken hatsa*, Iparraldeko literaturan arrunta: ik. § 9.2.7.1):
atsazken "expiración, último aliento".

e) BAKOTX: *adarkakotx* "unicornio", etab. Hurrengo atalean (§§ 4.1.18 eta 4.1.34) ikusi ahalko dugu egiatan gazt. *mono-* eta *uni-* aurrizkiei eman zien aterabidea izan zela.

f) -BEL: zenbait elkarte zaharren osagai (Mitxelena 1977a: 63; cf. *HH*-an bertan *arbel* "piedra pómez", "talque", *orbel* "hojarasca", *ospel* "sabañón"), badirudi Larramendi isolatu eta haren erabilera hedatzeko gauza izan zela: *aurkabel* "cariacontecido".

g) BOILA '(gauza) borobila', BOILANDE 'gauza borobila'

arboila "morrillo", "tejo, para jugar", *arboilak* "peladillas de arroyo". *ariboilla* "ovillo". *armoila* "roel, en los escudos de armas". *artoila* "tuerca".
arboilande "cubo de muralla".

h) BURU

- 'gainekoa' edo 'azpikoa': *ataburu* "lintel" (AHOZ), *atalburu* "umbral" (AHOZ), *auspuru* "aljofifa", "cernadero".
- 'buru antzekoa': *agapuru* "clava", "maza", *arpuru* "can(es), en los edificios", *artaburu* "mazorca" (AHOZ).
- 'bere burua': *anpuru* "ostentación".

i) izena + (E)GOKI > erlazio izond. 'dagokiona' / erlazio izond.tik eratorritako izen abstraktua (cf. § 2.2.4.3); egiatan, *-goki* dugu adibide ia guztietan (ik. § 3.2.3.3.a):

adregoki "reglar". *aidegoki* "parentesco". *aitagoki* "paternidad". *alegoki* "potencialidad". *araugoki* "reglar". *argoki* "masculino". *arzaigoki* "pastoral". *asmegoki* "prenuncio". *auregoki* "pueril". *azerigoki* "raposuno", "zorruno". *azigoki* "espermático", "seminal".

j) ERDI (cf. Azkarate 1990: 403)

alderdiak "cuartos, miembros" (XVII ea.), *anoerdi* "(media) ración", *aterdi* "postigos".

k) GEIEGI, LARREGI, -GEI, -LAR⁷⁶⁰

aragei "deshonestidad", "lascivia", "luxuria". *atarar* "alcaraván, ave".
ardogeiegi, *ardaularregi* "vinolencia".

⁷⁵⁹ Azkena *balio*-rekin ere lot daiteke, agian (ik. § 3.2.3.7.3).

⁷⁶⁰ Forma berak gazt. *re-* eta *sobre-* aurrizkiak adiera batzuetan ordezkatzeko erabili zituen (§§ 4.1.25 eta 4.1.30), baina aurrizki modura.

l) GISA, ERA, ANTZA (cf. Azkarate 1990: 403-406)

- izena + *gisa* > aditzondoa

anaigisa "hermanablemente". *antularigisa* "(a lo) xácaro". *apaizgisa* "clericalmente". *astogisa* "asnalmente". *aurgisa* "puerilmente".

- izena + *gisako, erako, anzako* > erlazio izenondoa

aberegisako "bestial". *agurerako* "senil". *akergisako* "acabronado". *arigisako* "carneruno". *arrano anzako* "aguileño". *arraultz gisako* "aovado". *arrautzerako* "oval, ovalado". *arrotzerako* "importuno, fuera de propósito". *atsoerako* "senil". *auspo gisako* (*galtza cimur auspo guisacoac* "follados"). *autsanzako, autserako* "ceniciento".

m) GOI

- 'zeraren gainean dagoena' (lekua): *abegoi* "zapata de pilar o coluna". *a[ta]goi* (?) "lintel". *aurkelaugoi* "tetraedro".
- 'lehenagokoa' edo 'nagusia' (familiar): *aitagoi* "abuelo". *amagoi* "abuela".
- ziurrenik 'gorena': *adieragoi* "alegoría, figura retórica". *andigoi* "magnífico", "regio".

n) JAKINDE, -KINDE, JAKINTZA, JARRAIDE (cf. Larramendi 1745: xlix):

araujakinde, araujakintza, araujarraide "jurisprudencia". *artiskinde* "lapidaria". *artizkinde* "orthographía". *askijakinde* "filología". *azurjakinde* "osteología".

ñ) -KAITZ: Antzerako atzizkien modura (-*kai*, -*kin*...) tratatzen du, hasiera ahoskabea bakarrik erabiliaz, bai testuinguru egokia dagoenean (*ameskaitz*), baita ez dagoenean ere (*arlankaitz*):⁷⁶¹

ameskaitz "pesadilla", *arkaitz* "risco", *arlankaitz* "mampostería".

o) NAGUSI

- (familiar): *aitanagusi* "abuelo", *amanagusi* "abuela".
- (lanean): *apeznagusi* "canónigo". *arzainagusi* "mayoral".

p) 'iz. / izond. + NAI / GURA / GALE edo USTE (cf. Azkarate 1990: 319 eta 416-417)

aduste "concepto", "concebir, entender". *andinaí* "ambicioso" (1664), "ambición". *anduste* "endiosamiento, presunción". *andigura* "ambicioso", "ambición". *antuste* "altivez", "arrogancia". *argiuste* "alumbamiento, ilusión, engaño". *artuste* "discernimiento".
aita usteko "padre putativo".
aitagaletu "padrear los animales".

q) ODI 'canal' edo 'conducto'

abodiak "canales en la arquitectura", "estrias". *arkodi* "tragaluz, tronera para que entre la luz". *atsodi* "(áspera) arteria", "gañón, gañote en las fauces", *atsodiak* "bronchiales, término de Anatomía", "bronchios, cañas de el pulmón".

r) OLA (honen esanahirako *HH*-an, ik. § 8.2)

adrailola, adrilola "ladrallal, ladrillar". *arriola* "(oficina de) canteros".

s) URREN 'hurrengo', 'azpiko hurrena'

andiurren "índice, dedo". *apaizurren* "diácono". *arturren* "mediato". *atzenurren* "penúltimo". *atz lodi urren* "dedo índice". *azken urren antxiti* "antepenúltimo".

⁷⁶¹ *arkaitz*-ek arazo bereziak aurkezten ditu, haren erabilera zeharo hedatu delako, Hegoaldean batez ere (ik. *OEH*, s.v.), baina, ikusiak ikusirik, lekukotasunak berraztertu beharko dira.

Cf. Urte *aitasurren* (< *aitaso*) s.v. *abpatruus* (I, 37).

t) URRI 'eskasa', 'umila'-edo, URRITU 'eskastu'

alaiturri "pusilánime", "pusilanimidad". *andurri* "tapinoso, figura retórica". *askurri* "medianía, moderación". *asturritu* "degenerar". *aturri* "falaris, especie de ánade".

u) -USI (?)

Nolabaiteko ziurtasunez ebatz daitezkeenak:

-*usi* = *ikus*: *argusi* "viso, visos". *arkusi* "lustre, viso luziente".
-*uts* = *uts* 'falta': *arguts* "eclipse" (> *argustu*, *argutsitu* "eclipsar").
-*uts* = *uts* 'soila': *azurruts* "esqueleto".
-*uts* = *uts* 'akatsa': *araututs* "solecismo".

Zalantzazko ulerpenekoak:

afarusi "colación en días de ayuno". *antusi* "ambición" (< *andi*).
arusitu "pausar". *aruts(a)* "pausa", "pausado".

v) ZI 'punta': elkartuari 'zorrotza' esangura eransten dio (etorkiaz, ik. § 11.7.1):

alzi "pepita". *aotzi* "pico de ave". *arzi* "pico de canteros".

3.1.6.3. Aditz arazleak

Honela deskribatzen ditu gramatika eta hiztegian:

Sólo ay dos verbos de especiales propiedades, que es preciso conocerlas, y son *erazo*, *erazi*. Ambos son verbos activos y regulares, así en los modos del infinitivo como en las terminaciones de que componen sus tiempos. Ellos nunca vienen en la oración por sí solos, sino acompañando a otros verbos, y siempre vienen pospuestos. Igualmente se acompañan con el verbo neutro que con el activo. Su significación es precisar y obligar, hazerle a uno hazer alguna cosa, el *faire faire* del Francés, v.g. *jan-erazo*, *jan-arazi* hazerle comer, *arrerazo*, *artuerazo*, *arrarazi*, *artuarazi*, hazerle tomar, *ibillarazi*, *ibillerazo*, hazerle andar (1729: 303-304).

Obligar a hazer algo, *eraguin*, *arazo*, *araci*, pospuestos (1745, s.v.).

HH-an forma guztien adibideak daude, baina ez denak maiztasun berarekin erabiliak: nagusia *erazo* da; Iparraldeko *arazi*-ren⁷⁶² agerraldiak ere ez dira gutxi; eta hauen aldean *eragin* eta bereziki *erazi* aldaera oso bakan baizik ez dira agertzen:

ERAZO: *adierazo* "dar a entender", "avisar" (1737?), *aituerazo*, *akaberazo* "(hazerle a uno) acabar". *akorderazo* "acordar así [traérselo a la memoria]". *alaierazo* "enfervorizar". *alaterazo* "despechar". *amerazo* "amartelar, enamorar". *andusterazo* "ensoberbecer". *argierazo* "dilucidar". "esclarecer, iluminar". *arrabierazo* "despechar". *arrerazo* (*edícuzcaya arrerazo* "purgar al enfermo") (*har arazi* 1630). *arreteazo* "advertir a otro". *aserrerazo* "(sacarle a uno de sus) casillas", "enzarzar, poniendo dissensiones". *astuerazo* "desenseñar".

ARAZI: *ahanziarazi* "desenseñar" (1643 *ahantzarazi*), *adiarazi* "denotar", "hacer entender" (1635), *agertarazi* "publicar un libro". *akabarazi* "(hazerle a uno) acabar" (1715). *akordarazi* "acordar así [traérselo a la memoria]". *alarazi* "empeñarse, obligarse a algo". *alarazi* "pacer", "repastar" (XVII ea.). *amarazi* "enamorar". *antuarazi* "ensoberbecer". *aserrarazi* "enzarzar, poniendo dissensiones".

ERAZI: *adierazi* "dar a entender" (1571). *agerrerazi* "manifestar" (1696). *arreterazi* "advertir a otro".

⁷⁶² Cf. Larramendi (1745: xxviii): "Usan [en el dialecto navarro y labortano] mucho del verbo pospositivo *araci*, que el Francés dice *faire faire*, *maitaraci*, *besarcaraci*, que en España es *erazo*, *eraguin*, *maiterazo*, *besarcaerazo*, hacerlo amar, hacerlo abrazar".

ERAGIN: *adieragin* "denotar", "hacer entender" (1715). *alde eragin* "separar". *alderagin* "apartar". *arreteragin* "advertir a otro". *aserreragin* "(sacarle a uno de sus) casillas".

3.1.6.4. Esaldi hitzak

aditueztan "inaudito". *alperdan* "albardán". *aurreziana* "antecesor".

Cf. Urte (II, 319) "in arithmetiis non exercitatus, *arimetican* (...) *ezaquiena*, *aditçen eztuena*, *adituaeztena*..." eta "in arithmetiis exercitatus, *condatcen daquiena*". Toponimian bide honek izan duen erabilera, ik. Mitxelena 1985 eta Segurola 1987.

3.1.6.5. Animalia, harri, izar... izenak

a) izena + *arrai*, *arri*, *belar*...

aingeru-belar, *-bedar* "angélica, planta" (AHOZ). *amodio zuaitz* "árbol de el amor". *antxarrai* "cabrilla, cabra, pescado". *arakarri* "sardio, piedra preciosa". *ardibelar* "zaragatona, zargatona, yerba". *argibelar* "lucémula, planta". *ariizar* "Aries, signo de el zodiaco". *armiarma-arrai* "araña, pescado". *arraizar* "Piscis, signo". *arrano-arri* "etites, piedra de el águila" (1715). *arrautsi bedar* "salsafrás, salsifrás, yerva". *arrokarri* "piedra pómez". *artarra* "escaro, pez". *atzbelar* "escabiosa, yerba".

b) *arrai*, *arri*... + izenondoa

egazi ancalucea "flamenco, ave mayor que cigüeña". *arbaltx*, *arbeltx* "azabache". *arbel* "piedra pómez", "talque". *argorri I* "pórfido, especie de mármol" (AHOZ). *arrangorri* "escarcho, pez" (AHOZ). *arri muger* "pedernal" (1643).

c) landare, harri... izena + izenondoa

arakar gorri "sardonix, piedra preciosa". *arangorri* (*arangorri andiac* "diaprea, especie de ciruela"). *arbi biribil* "naba". *arbi txiki* "ruiponce". *argorri II* "alchermes, gusano que sirve para teñir de grana". *arrano kanpis* "aguilucho, águila bastarda". *arrano nabar* "planga, especie de águila". *arrano urdin* "gerifalte, especie de halcón" (AHOZ). *artatxiki* "mijo" (AHOZ). *artelatx* "alcornoque". *atabeltx* "negreta, especie de ánade". *atabeltz* "fusca, especie de ánade". *atuntxiki* "bonito, bonitalo". *aturri* "falaris, especie de ánade". *aza lonbardar* "lombarda". *aza loretsu* "coliflor".

• Berezia (*ale* + izond.): *aleltx* "siligo". *algorri* "majuela, frutilla colorada".

d) 'izena + izenondoa' metaforikoak

anjereder "cebellina" (XVII ea.). *apolatz* "mustela, pescado" (AHOZ). *arz txiki* "bocina, constelación".

e) izena + izena

akarerro "espicanardi" (*akara* "nardo" + *erro* "raíz"). *akelargi* "Capricornio, signo de el Zodiaco" (< *aker* + *argi*). *aranzerrri* "espín, puerco espín" (< *aranza* + *zerrri*). *arauntz* "musmón" (*ari* + *auntz*). *argiamarra* "Cáncer, signo de Zodiaco" (< *amarra* "cangrejo"). *arkaitzauntz* "rupicabra". *artzizar andi*, *artzizar txiki* "ossa mayor, ossa menor". *atxario* "camedros, yerba" (< *atx* "peña" + *ario* "laureola"). *auntzorein* "tragelafó, animal". *auntzuga* "saltacabras, especie de serpiente" (< *auntz* + *suga*). *autxulunta* "sisón, ave" (< *auts* "ceniza" + *txulunta* "francolín"). *azari mats* "uva de raposa". *azuntz* "epimedio, yerba" (< *aza* "col" + *untz* "hiedra").

f) izena + aditzizena

aizeartzaile "ventor, perro de caza". *arakausle* "sarcófagos, piedra". *aunzedosle* "chotacabras, ave nocturna". *azurtxeari* "quebrantahuessos, ave".

g) aditzoina + izena

autsarri "calafraja, yerba" (< *auts*).

h) *arrai, arri...* + izena (cf. § 3.1.1.6):

armenasta "marquisita". *arraianre* "pexemuller". *arraizpata* "espada, pez". *arrangaro* "garo, pez". *arrano gaintza* "(águila) caudal o real". *arriman* "imán" (etim.; *arri imana* 1562).

Konparabide bat izan dezagun, Urteren hiztegian euskarazko A letran agertzen diren ia guztiak (a) motakoak dira. (b), (c), (e) eta (g) motakoak, berriz, oso urri dira, eta ez dut aurkitu gainerantzeko adibiderik; (e)-koen urritasuna, itxura guztien arabera, 'izena + izena + *belar...*' egitura nahiago izateari zor zaio (e₁):

- (a) *adarbelar, adonislore, agarperretxiku, ahalkabelar, aingerubelar, akularrain, albelorri, albularrain, alnarbola, altzaibelar, amamabelar, amarbelar, amudiolore, etab. etab.*
- (b,c) *abrelarri, aranxuri, arraineder.*
- (e) *abreuli, ahuntzbeigi, andremantu, antzaroin, arboletsai, arnoglosa (?)*.
- (e₁) *abrebuztanbelar, astoetsaixori, astokolorearrain, ahuntzadarbelar.*
- (g) *antzarazbelar, arrapharri, arraparrain, arrapatxori, arrapegastin, arrapuntza.*

Edonola ere, Larramendi baino ausartago ageri da arlo honetan, hiru osagaiko elkarteak erraz onartzen ditu eta; (e₁)-ekoez gainera, honako mota hauek aurkitu ditut:

- izena + aditzoina + izena: *abrasendabelar, adarikarabre, amamiduribelar.*
- (izena + izena) + izenondoa: *azosto zabal.*
- izena + (izena + izenondoa): *abrebelaunflako.*

3.1.6.6. Zenbatzaileak

a) Zenbakiak era askotara ager daitezke *HH*-ko elkartuetan, eta gehienak ez dirudi tradiziokoak direnik: dagokien lekuan zein lekuz kanpo, hitz elkartuaren erdian, adibidez; izan ohi duten esanahiarekin (cf. Azkarate 1990: 327), edo gazt. *bi(s)*- aurrizkiaren ordez (ik. § 4.1.4); izena lagun, ala aditzoinarekin (*aipabi*). Ez dago zalantzarik, beraz, arlo honetan Larramendik berritzeari ekin ziola.

- *bi* atzean erantsia

aipabi "dilema, argumento cornuto". *amonabi* "bisabuela". *arditbi* "quarto, moneda".

- *amar* aurrean erantsia

amaroin "tornadura, medida de diez pies". *amarraz* "cangrejo" (AHOZ). *amar-urte* "decenio".

- Zenbakiak erdian

aitabisaba "bisabuelo". *ama bigoi, amabisaba* "bisabuela". *aurkelaugoi* "tetraedro".

- Zenbakidun sintagma

alkalaur "quadriga" (~ *alkar(rekin) laur*).

- b) Ordinalak, ezohiko lekuan⁷⁶³

⁷⁶³ Corpusaren mugetatik dator *erenaitona, erenasaba* "rebisabuelo" eta *erenaurla, erenaurlasaba, erenloiba* "rebiznieto" ez jasotzea (ik. *OEH*, s.v. *heren*). Ordena honetan Pouvreaux *herenkusin* jaso zuen, eta *herengusu*-k ("primo tercero" *HH*-an) ahozko lekukotasunak ditu (ik. *OEH*, s.vv.).

aitona-eren, asaba eren "tataravuelo".

c) Beste zenbatzailearen bat ere aurki daiteke, ohi ez den bezala, elkartuetan

A(l)NBAT: *anbapider* "quociente". *ainbastun* "equilibrio".

3.1.7. Parasintesia

Gaztelaniazko gramatika tradizioan ohikoa den berba batez baliatu naiz, nahiz eta bertan ere eztabaidatua dela jakin (Miranda 1994: 67-78), hoberik ezean *HH*-ko zenbait gertakari bildu eta izendatzeko egokia izan daitekeelako. Izenak izen eta gaztelaniaz (zein frantsesez) dena dela, Larramendiren zenbait elkarturen ezaugarria da berez eta biluzik inon ez agertzea, atzizki batez lagundurik baizik.

Parasintesi modu guztietatik, beraz, [[hitz elkartua] + atzizkia] erakoari nagokio, hots, atzizkia elkarte osoari ezarri zaioneko kasuei soilik. Handik kanpo geratzen dira, jakina, atzizkia osagaietako bati atxikia daukaten *aizemaile* gisakoak. Kanpora utzi nahi ditut, orobat, hizkuntzan bizirik dagoen edo egon daitekeen oinarri elkartua daukatenak ere, baldin eta atzizkiak elkartearen gramatika-kategoria edota azpikategoriazioa aldatzen baditu: honen arabera, *adaburutsu* "ramoso", *andrakaiztegi* "casa pública", *asberkide* "connovicio" edo *atzoztu* "quebrar" bezalakoak alde batera utziko dira, nahitaez *adaburu* 'rama' (AHOZ), **andrakaitz* 'muger pública' (*HH*-an ez gauzatua), *asiberri* "novicio" (*HH*) eta *atze otz* (cf. *atze otz gelditu dira* "(ya han) quebrado") oinarri finkoak eta esanahi funtsean ezberdinekoak eskatzen baitituzte.

Zehatz-mehatz *HH*-ko parasintesia, atzizkiak mugatzen duenaz beste baliorik ez duen oinarri elkartuekin —tradizioko zein, usuenik, ez tradiziokoekin— hitzak sortzean datza. Tradiziokoak diren elkartuen kasuan, atzizkiak azpimarratu egiten du balioa eta, hortaz, hiperkategoriazioaz mintza daitekeela dirudi, oinarri bakuneko *haserretasun* (1571), *beldurtasun* (1571), *idurikortsu* (1643) edo *iluntsu* (AG) modukoetan bezalaxe.⁷⁶⁴ Tradiziokoak ez direnetan, berriz, atzizkiak —eta berak bakarrik— azpikategorizatzen du elkartea. Hasiera batean Larramendiren erabateko berrikuntza dirudien arren, bila ez nenbilela, egia esan, parasintesiaren adibide eder batzuk (denak *-ki* atzizkiaz) aurkitu ditut, halabeharrez, Urteren hiztegian. Beraz, gerora ezin interesgarriagoa izan liteke prozedura honen etorkia eta nondik norakoa xehekiago aztertzea; nire aldetik, kasu batean —*astorki*-n— hitzaren azken etorkia Toponimia-Antroponimietan (§ 8) jarri behar dela erants dezaket xehetasun jakingarri eta azalbide proposamen modura.

Honainokoa euskaraz, dakidalarik, sekula deskribatu gabeko baina *HH*-tik landa ere aurki daitekeen zerbaitez mintzo izan naiz; Larramendiren berrikuntza, zalantzarik gabe prozedura hedatzeaz gainera, ezohiko oinarri elkartuekin ere egitean datza, batetik, eta honelakoetan atzizkia aukera bat besterik ez izatean, bestetik, bai baitira atzizkirik gabe

⁷⁶⁴ Adibideak Azkarate 1991: 29 eta 71tik hartu ditut, baina interpretazioa nirea da.

eraturako antzeko elkartuak, eta behin bederen atzizkidun eta gabeko formak kausitu ditut (*arauli / araulitu*).

Ikus ditzagun, bada, corpusak eskaini dizkigun adibideak:

a) *-ki* atzizkiaz baliatzen da elkartuari 'gauza' marka ezartzeko:

abiurki "torzal" < *ari* "hilo" + *biur(tu)* + *-ki*. Cf. *DAut*: "Cordoncillo hecho de varias hebras torcidas...".

aitizki "patronymico" < *aita* + *itz / izen* + *-ki*.

antarauki "máxima de estado" < *andi* + *arau* + *-ki*.

aoteski "rienda" < *ao* + *-t* + *es(tu)* "apretar" + *-ki*.

arirrazki "broca, rodajueta en que los bordadores tienen recogidos los hilos" < *ari* "hilo" + *orraz(tu)* + *-ki*.

arurrezki "filigrana" < *ari* "hilo" + *urrez* + *-ki*. Cf. *DAut*: "La obra formada de hilitos de oro...".

aruski "piltrafa, piltraca" < *aragi* + *uts* "inútil" + *-ki*. Cf. *DAut*: "La parte de carne flaca, que casi no tiene más que pellejo, inútil y asquerosa".

asizenki "acróstico" < *asi* + *izen* + *ki*.

astorki "onobryche, planta" < *asto* + *orro* + *-ki*. Cf. *DAut*: "Es voz Griega, que vale Asno y grito, porque dicen que grita el asno si come de ella".

atauski "sideritis, sideritide, yerba" < *ate* + *us(tu)* + *-ki*. Cf. *DAut*-en adibidea: "Las Anades y Ansares, y aves de agua (se purgan) con la hierba *Siderite*".

auskeztiki "girapliega" < *auts* + *-k* + *ezi* + *-ki*. Cf. *DAut*: "Especie de electuario, compuesto de diferentes ingredientes, (...) las cuales hechas polvo se mezclan con tres partes de miel...".

Urtek landare-izenetan bakarrik erabiltzen du, oker ez banago, *belharra*-rekin aldizkatuta (ik. § 3.1.6.5), nahiz ez ezinbestean oinarri elkartuarekin (cf. *juntabelharra*, *juntaquiija* "alum"); adibidez:

amam iduriquiija, *amam iduribelharra* "amomis" (II, 53), *ahalquegorriquia*, *ahalcabelharra*, *billostobelharra*, *billostoquia* "aschynomene" (II, 389), *lurgaçiquiija*, *hertsgaçiquiija* "alumen", *arrokgaçiquiija* "alumen liquidum" (I, 550).

b) *-de*, *-da*, *-ta* alomorfoez 'izena', guztiz 'ekintza-izena' edo 'izen abstraktua' egiteko; *-te* behin bakarrik agertzen da, eta hartan *-de*-rekin lehiatzen:

abreunde "hecatombe" < *abre* + *eun* + *-de*.

adizkonde "pubertad" < *adin* + *ezkon(du)* + *-de*.

aldizenda "metonymia" < *alda(tu)* + *izen* + *-da*.

antzesande "parábola" < *antz* + *esan* + *-de*.

argeita "mohatra, trato fingido en compras y ventas" < *ar(tu)* + *gei(egi)* + *-ta*.

arimegokida "longanimidad" < *arima* + *egoki* + *-da* (gehienetan (*e*)*goki* bakarrik: ik. § 3.1.6.2.i).

artezgita "rectificación" < *artez* + *egin* + *-ta*.

artzonde "civilidad" / *artzonte* "cortesanía", "urbanidad" < *artze* "acogida" + *on* + *-de* / *-te*.

asbukade "hypermetría, figura retórica o poética" < *asi* + *buka(tu)* + *-de*.

c) *-tu*-k aditzak egiten ditu, noski:

aldondu "convertir (infieles...)" < *aldata* + *on* + *-du*.⁷⁶⁵

aokitu "boquear" < *ao* + *idiki* + *-tu*.

araulitu (baina *arauli* ere bai) "trabucar", "trastornar", "trastrocar" < *arau* + *irauli* + *-tu*.

argidoratu "ilustrar" < *argi* + *idoro* + *-tu*.

argiskatu "clarearse, entreverse algo" < *argi* + *piska* + *-tu*.

arkueratu "arquear, poner en figura de arco" < *arku* + *era* + *-tu*.

arlaukitu "mazonado, en el Blasón" < *arri* + *lauki* "cuadrado" + *-tu*.

d) *-kai* atzizkiaz 'baliabidea' adierazten du:

argi biurkai "torcida" < *argi* + *biur(tu)* + *-kai* (cf. *biurkai* "torcedero"). Cf. *DAut* "La mecha de algodón o trapo torcido que se pone en los velones o candiles".

⁷⁶⁵ Ez da esanahi honetako *ondu*-rik Larramendiren hiztegian.

e) *-ari* atzizkiak 'egilea' [-biziduna]:

argoari "gatillo, de escopeta" < *argi* + *jo* + *-ari*.

f) *-kin-ek* 'egilea' [+biziduna]:

antzesakin "parabolano, parabolero" < *antz* + *esan* + *-kin*.

g) *-ro* atzizkiak aditzondoak:

anaieraro "hermanablemente" < *anai* + *era* + *-ro*.

h) *-dun* atzizkiak erlazio izenondoak:

adialdun "intelectivo" < *adi(tu)* + *al* + *-dun*.

h) *-ti* atzizkiak izenondoak:

aoberaati "blando de boca" < *ao* + *beraa* "blando" + *-ti*.

aurkizuti "carantamula" < *aurke* "cara" + *izu* + *-ti* ('izugarria' da, ez **izutia*).

i) *-ska* txikigarria kalkoei zor zaie, dagoeneko dakigun bezala:

atiska "válvula" < *ate* + *itxi* + *-ska*; cf. *DAut* "...la compuertecilla...".

aizuriska "ventisca" < *aize* + *euri* + *-ska*.

3.2. Hots aldaketak

Eratorpenean bezala, hemen ere aldaketa zaharkituak, Larramendik hedatuak eta berak berriki-edo proposatutakoak bereizten saiatuko naiz. Dena dela, oro har euskaraz bezala —hala dirudi behintzat— *HH*-an ere hots-aldaketa gehiago —eta direnak indartsuago— dago elkarketan eratorpenean baino, eta Larramendik egin zituen elkartu bereziek kontua larriago bilakatu baino ez dute egiten.⁷⁶⁶

3.2.1. Tradiziokoak

Gehienak egun ihartuta dauden eta —testuetan igarri daitekeenaren arabera— XVII-XVIII. mendeetan bederen gehienak galtzen hasiak ziren arren,⁷⁶⁷ elkartu-eratorriek, besteak beste, pairatu ohi zituzten hots aldaketa nagusiak nahikoa ondo ezagutzen ditugu. Larramendik menpera zezakeen XVIII. mendeko euskaraz aldaketok zer-nolako indarra zeukaten, alde batetik, eta berak noraino igarri, ulertu eta erabili zituen, bestetik, bi gai hauek aztertu nahiko nituzke eraturako corpusaren laguntzaz.

⁷⁶⁶ Jakintzat emango ditut aldaketei buruz eratorpenean emandako erreferentzia bibliografikoak; bertara bidaltzen dut, beraz, irakurlea.

⁷⁶⁷ Cf. begirada arin batean *OEH*-an kausitu ditudan ondoko adibide esanguratsuok, Larramendiren aurrekoak edo garaikideak, aukera dagoenean itxura zaharragoko aldaerarekin erkatuak: *arno edale* (Ax), *ardi ile* (SP; *artile* 1802), *ardi saldo* (Mst; *arsaldo* testuan), *ardiantxa* eta *ardiantxu* (EZ; *artantzu* testuan), *argi-alba* (Hm, SP...), *argi-ekzila* (EZ), *argi izpi* (SP), *argi-haste* (He; *arthatse* Lç eta EZ), *argi izar* (Gç).

3.2.1.1. Forma zaharkituak

Eratorpenean jadanik aurkitu ditugu *aizkolketa* bezalako gauzak: bakanka jaso arren, inolako zalantzarik gabe Larramendik hedatu ez zituen eta, beraz, ziurrenik ongi antzeman ez zituen formak. Elkartuen artean ere bada halakorik:

a) Hirusilabako hitzetan azken bokala > \emptyset , eta antzinako *-n*-aren mantenketa:

ARDAN-: *ardan-upel* (*ardan-upel edo zaguiac neurritu, neurtu* "aforar, tassar el vino"). Cf., oster, *ardo-upel* (*ardo-upelen edo zaguien neurritzea, neurtzea* "aforo").

ARRAN-: *arrangorri* "escarcho, pez" (AHOZ), *arrangaro* "garo, pez, especie de langosta".

ARTZAN-: *artzanor* "mastín" (AHOZ).

b) $i > \emptyset + d > t$

ART- 'ardia': *arkume* "cordero" (1620). *artanzu* "oveja que ya no pare" (AHOZ). *artalde* (1562), *arsaldo* (AHOZ) "carnerada".

c) $i > \emptyset + g > t$

ART- 'argia': **arthats* "alba" (1571). *artizar* "lucero" (1545).

ARAT- 'aragia': *aratepaille* "abacero, por carnicero" (AHOZ). *aratuste, aratuzte* "carnestolendas" (*aratizte* 1562).

d) $i > \emptyset + r > l$

AFAL- 'afaria', APAL- 'aparia': *afalondoan* "(al) acabarse (...) la cena", "(de) sobremesa" (1571). *apalaurre* "merienda". *apaltoki* "triclinio, cenador" (*afaltoki* 1715).

ATAL- 'ataria': *atalburu* "umbral".

Adibideen urritasuna ez da izan, noski, forma hauek Larramendiren hizkeran zaharkituztat ematera bultzatu nauen zio bakarra: aitzitik, badira gutxienez beste bi. Alde batetik, aipatutako hitzek sarritan bestelako ondorioak —zeharo berriak edo berriagoak bederen— dituzte *HH*-an, beheaxeago ikusiko dugun bezala. Eta, bestetik, badirudi haietako zenbaiten —zailenen— benetako izaera ezagutu ez zuela baieztatu daitekeela: *art*- 'ardia' *artalde* eta *arsaldo*-n *ari* 'aharia'-rekin lotu zuen, antza denez.⁷⁶⁸ *art*- 'argia' eta *arat*- 'haragia'-ri buruz, Larramendik ongi ulertuta ere (cf. *arraiepaille* analogikoa, § 5.3), goian bildutako hitz guztiak zaharrak dira, gainerakoek beti *ark*- eta *arak*- bilakaera ezezagunak dauzkaten bitartean (§ 3.2.2). Bada adibide bereziki interesgarri bat, nahiz eta, tamalez, forma baten zuzenketan oinarritu beharrekoa den: *HH*-ko sarreran, *artizar* "lucero" zaharraren ondoan agertzen den *arkizar*-en lehen osagaia azalezina da, nik uste, *arkizar*-en ordeko hutsa dela eginez ez bada. Beraz, zuzenketa onartzen bazait, *artizar* / *arkizar* ez dateke 'ongi lekukotutako hitza + Larramendiren interpretazioa edota haren sistemaren barruko forma' bikoiztasunetako bat baizik, *Erans*-ean lehenengoz antzeman (II, § 2.4.1.2) eta berriki eratorpenean (§ 2.2.5.5) aurkitu ditugunen modukoa.

Talde honetan bildu ditugun hitzetan azpimarragarria da anitz lehenagoko testuetan lekukotuta egotea, baina areago ez egotea, argi eta garbi Larramendik lehendabizikoz jaso zituen

⁷⁶⁸ Cf. eratorpeneko adibideak (§ 2.2.5.1.b). Novia de Salcedok bederen halaxe ulertu zituen: *arsaldo* "ari-saldoa, rebaño, manada de carneros" eta *artalde* "aria-talde [sic], agregado, manada, rebaño de carneros".

euskal hitz zahar zenbaiten aurrean gaude eta (cf. *aratepaile*, *arrangorri*, *arsaldo*, *artanzu* eta *artzanor*, batez ere).

Badira uzkurtasunez hartu behar ditugun forma bi, ostera: *arrangaro* "garo" eta, batez ere, *akelargi* "Capricornio". Lehena Larramendik prozedura hedatetik sortua da, ziurrenik (ik. § 3.3.1.3.d); baina, bidenabar, ez erabat hanka-bururik gabekoa: "langosta" dela eta, gogoratu euskal izena *otarraina* dela, honek ere *arrain* osagaia duelarik. *Akelargi*-rako, ezinbestean, "Akelar, donde se juntan las brujas" (*EGH* 158; ez dago *HH*-an) datorkigu buruan. Halaz ere, bien arteko benetako erlazio fonetikoa eta (d) arauarekin

biek dutena, hutsaren hurrengo dira: hasteko, *akelargi*-k berez ez dauka hitz zaharra izateko itxurarik, gainerako zodiakoko zeinuak bezalaxe (cf. *ariizarra* "Aries", *arraizarra* "Piscis", *saietizarra* "Sagitario", *zezenizarra* "Tauro", *Birjiñizarra* "Virgo", *izar libra* "Libra", *izarleoia* "Leo"); *akelar(re) rl > r* bihurtetaren adibidea da (Mitxelena 1955: § 25 eta 1977a: 366); *akelargi*, aldiz, harekiko analogia hutsaz sortutako forma,⁷⁶⁹ ez baitago, dakidalarik, antzeko gertakaririk bestetan: *-r > -l* aldaketa —edo *-l* zaharraren berreraiketa, benetakoa zein analogikoa— *r* bigunarekin bakarrik gertatu da, ezinbestean, aspaldixko Mitxelenak (1977a: 317-319) xeheki azaldu zituen arrazoiengatik.

3.2.1.2. Ongi lekukotutako edota hedatutako formak

a) *i > ∅*

AR- 'harria': *arbaltx*, *arbeltx* "azabache". *arbel* "piedra pómez", "talque". *arbetun* "lithocola". *arboila* "morrillo". *arboilande* "cubo de muralla". *arbotale* "catapulta". *arbotzoi* "rejalgar". *arburu* "canes". *argorri* "pórfido". *arkaitz* "peña". *arkanta* "canto". *arkantoin* "angular, piedra" (1571). *arkoska* "cascajo". *arkoskor* "canto". *arkoxka* "chinilla". *arlandu* "silla, piedra sillar". *arlantxa* "lancha". *arlata* "lata(s)". *arlaukitu* "mazonado". *arlauza* "losa". *armenasta* "marquisita". *armora* "pared maestra" (1643). *arnaslika* "lithocola". *arpain* "cornija". *arrarteko* "(pescado) saxátil" (cf. *harrartetan* 1627). *arrautsi bedar* "salsafrás". *arresi* "cerca de piedra" (1564). *arrezpainpe* "architrabe". *arrobi* "cantera" (1259). *arroin* "coluna de piedra" (1617). *arruztai* "arco, en la Arquitectura". *artiste* "piedra preciosa". *arzi* "pico de canteros". *arzubi* "puente de piedra". *arzulo* "caverna".

AR- 'aharia': gorago ikusi dugu honela interpretatu zituela *arsaldo* eta *artalde*, eta ziurrenik horregatik *armoni* ere "menudo de el carnero" da. Ezpairik gabe berak eginak dira, berriz *arauntz* eta *arulle*.

AUZ- 'auzia': *auzbakide* "audiencia, tribunal", "consistorio" (baina *auzibakide* "chancillería"). *auztepai* "transacción".

b) *i > ∅ + d > t*

ANT- 'handia': *anpuru* "ostentación". *antagiri* "perspectiva". *antarauki* "máxima de estado". *antobi* "mausoleo". *antusi* "ambición". *antuste* "arrogancia".

Larramendik *ardi* hitzean antzematen jakin ez zuen hura bera *andi*-n ongi bereizi zuen; bildu ditugun sei adibideok, denak hitz berriak dira, ezpairik gabe. *OEH*-aren arabera, *HH* baino lehenago lekukotutako (*h*)*ant*-dun hitz bakarrak *hantu* (1571) eta *hantura* (1664), *hantureria* (~1660) haren eratorriak dira. Azkaratek ere (1990: 149) antzerako inpresioa ateratzen du bere corpusetik.

c) *o > a* bisilabadunetan, hala dagokionean *a + a > a* ondorioarekin

⁷⁶⁹ Ohartu zodiakoko zeinu guztien artean *argi izar*-en ordezkarako bakarria dela: badirudi *akelar*-en eragina erabatekoa izan zela, *akel*-etik aurrerakoa ere, alegia.

AIZA- 'haizea': *aizabolu* "molino de viento". *aizagainetu* "barloventear". *aizalbo*, *aizalde* "barlovento". *aizape* "sotavento". *aizapelota*, *aizapilota* "pelota de viento". *aizaro* "noche de Jueves Santo".
 ARTA- 'artoa': *artaburu* "mazorca de maíz con grano". *artakoskor* "mazorca de maíz desgranada". *artale* "panizo". *artardo* "chicha, vino de maíz". *artatalo* "tortica hecha de pan de maíz" (*artalete*-ren etim.). *artatxiki* "mijo".
 ASTA- 'astoa': *astaeme* "asna" (*asteme* 1562, *asto eme* 1571). *astakume* "pollinejo" (*asto ume* 1571, *astokume* 1664). Erants bekizkie *asta*- 'basa-' adibide ugariak (ik. § 3.1.6.1.h).
 AUZA- 'auzoa': *auzalan* "trabajo común de todos los vecinos de una República" (*auzo*-z osatutako elkarte bakarra).

d) *e* > *a* bisilabadunetan, hala dagokionean *a + a* > *a* ondorioarekin

ALDA- 'aldea': *aldarri* "guardalado". *aldasare* "filarete". *alaurke* "hypotenusa". *aldazpi* "revés".
 ANDRA- 'andrea': *andrakume* "muger". *andramin* "andromina". *andrazaitzaille* "guardamuger"; salbuespena: *andregizon* "andrógeno" (menpekotasun elkarte ez den bakarra, bide batez).
 ARTA- 'arte': *artarrai* "escaro". *artatzitu* "entrecoger". *artautsi* "interrumpir".
 ATA- 'ahatea': *atabeltx* "negreta". *atabeltz* "fusca". *ataeme* "pata". *atakume* "patico". *atar* "alcaraván". *atameaukari* "meauca". *ataoju* "parpar".
 ATA- 'atea': *ataburdina*, *ataburnia* "aldaba". *ataburu* "lintel". *atagaia* (mug.) "tranca". *atilara* "mangueta". *atajoka* (*atajoca egon* "estar llamando a la puerta"). *atale* "botón". *atarte* "portal" (cf. *ate arte* XV h., *ataarte* 1596, *atarte* 1653). *ataurka* "mampara". *ataurre* "antepuerta". *atauskari* "petardo".

e) Lehen osagaian aditzoina (eta ez partizipioa) baliatzea

- -TU > \emptyset : *adialdun*, *aduste* (< *aditu*), *agerbial* (< *agertu*), *aipabi* (< *aipatu*), *aitorrrau* (< *aitortu*), *aldaitz*, *aldondu* (< *aldatu*), *arradauts* (< *arradatu*), *arraparte* (< *arrapatu*), *arutzi* (< *artu*), *askaste*, *askurtu* (< *askatu*), *asmegi*, *asmegoki* (< *asmatu*). *atzitarte* (< *atzitu*).
- -I > \emptyset : *asuki*, *asurundu* (< *asi*).

Berbera gertatzen da hiru osagaiko elkarteetan:

arlankaitz (< *arlandu*), *arnaslika* (< *nastu*), *artetorme* (< *etorri*), *arzainurrots* (< *neurtu*), *atiska* (< *itxi*).

Salbuespen bi aurkitu ditut (-*t*-aren mantentzetaz ik. *infra* § 3.2.3.2.e): *artueralde* "cargo" (*artu* + *eralde*), *arturgi* "diamante" (*artu* + *argi*).

3.2.2. Oker ezarritako arauak

Larramendi, ikusi bezala, gauza izan zen zenbait hots-aldaketa igarri eta hitz berrietara hedatzeko. Honek arriskua zeukan behar ez den tokian edo behar ez den eran araua ezartzea:

a) *o* > *a*

ARDA- 'ardoa': *ardabeltx* "tintillo". *ardaspilla*, *ardasuila* "colodra de los que venden vino".
 ARNA- 'arno': *arnage* "chacolí".

b) *i* > \emptyset

AFAR- 'afari': *afarusi* "colación en días de ayuno".
 ARG- 'argia': *argarte* "claro, en los edificios". *argusi* "viso". *arguts* "eclipse".

c) *i* > \emptyset + *g* > *k*

ARAK- 'aragia': *arakaro* "encarnadura". *arakarri* "sardio, piedra preciosa". *arakausle* "sarcófagos, piedra".

ARK- 'argia': *arkedatu* "resplandecer". *arkirudi* "tornasol". *arkizar* "lucero" (ik. § 3.2.1.1). *arkodi* "tragaluz".. Baita agian *arkisuri* "transcender" eta *arkusi* "lustre" ere.⁷⁷⁰

d) Diptongoaren bigarren osagaiaren galera; berez, ondoko silabaren bokalarekiko disimilazioaz gertatzen da (Mitzelena 1977a: 90-93), baina adibideetako batean analogiaz hedatu dela dirudi:

ANTX- (< *auntz*): *antxume* "cabritillo" vs *antxarrai* "cabrilla, cabra, pescado".

3.2.3. Arau edo joera berriak

Eratorpenean bezala (§ 2.2.5.3), berri-berriak diren aldaketa zenbaitekin batera, ondo azterturik ez dauden zenbait ere jaso ditut atal honetan. Adibidez, gorago ikusi izan dugu *HH*-an *astaeme* dagoela, Landuccik *asteme* dakarren bitartean: badirudi, beraz, -a + e- > e bihurtzen zela azkenak jasotzen duen hizkeran, baina ez daukat fenomenoaren hedaduraz eta kronologiaz inolako aztarnarik; are gutxiago *a + i, o* zein *u*-ren bilakaeraz. Honegatik, Larramendiren gertakariak ia beti huts-hutsean agertuko dira hemen, elkarguneko hots-aldaketak hobeto aztertuko dituztenen zain eta, nik uste, lagungarri.

3.2.3.1. Lehen osagaiaren bukaeran edota elkargunean

a) Azken bokalaren galera: 'o, e > a' aldaketa baino askoz eragileagoa, agian antzeko gertakari zenbait estaltzen ditu. Bokalak berdinak direnean, batu egiten dira, normala denez:

abrebasle (*abre + ebasle*), *adregoki* (*adre + egoki*), *agate* (*aga + ate*), *agurerako* (*agure + erako*), *aidegoki* (*aide + egoki*), *aitaide* (*aita + aide*), *aitansiti* (*aita + antxiti*), *aitaurren* (*aita + aurren*), *aizegin* (< *aize*), *aizeman* (< *aize*), *aizemaile* (*aize + emaile*), *aizerrota* (*aize + errota*) (*haize errota* 1677), *aizetorki* (*aize + etorki*), *aldegin* (*alde + egin*), *alderagin* (*alde + eragin*), *alderdi* (*alde + erdi*) (XVII ea.), *alderri* (*alde + erri*), *aleztarri* (*ale + eztarri*), *ankalbo* (*anka + albo*), *anzinadin* (*anzina + adin*), *aoker* (*ao + oker*), *arautzi* (*arau + utzi*), *arbiskazi* (*arbiska + azi*), *ardonzi* (*ardo + onzi*), *arginguru* (*argi + inguru*), *argonzi* (**argo + onzi*; cf. § 3.3.1.3.d), *arimaldaera* (*arima + aldaera*), *arimandi* (*arima + andi*), *arizpi* (*ari + izpi*), *arraizar* (*arrai + izar*), *arretartzaille* (*arreta + artzaille*), *arrikatz* (*arri + ikatz*), *arriaman* (*arri + iman*), *arteistari* (*arte + eistari*), *artepaki* (*arte + epaki*), *artetorme* (*arte + etor*), *artore* (*arto + ore*), *astegun* (*aste + egun*, 1571), *astorro* (*asto + orro*), *aterdi* (*ate + erdi*), *atezkutu* (*ate + ezkutu*), *atzerri* (*atze + erri*, 1596), *atzesku* (*atze + esku*), *auntzileo* (*auntzile + eo*), *aurkegorri* (*aurke + egorri*), *azisurte* (*azi + izurte*).

baita aditsoinarekin ere:

aditz (*adi(tu) + itz*), *arradauts* (< *arrada(tu) + auts*), *askaste* (*aska(tu) + aste*).

Salbuespenak eta bikoiztasunak badira, ordea:

aginde-emaile, *aize-emaile*, *alde egin*, *alde eragin*, *ariizar*, *etab*.

Bigarren osagaia bokal ezberdinaz hasten bada, lehenaren bokala galdu egiten da ia-ia beti eta, antza denez, arauak bokal guztietarako balio du:

abaldeko, *abodi* (< *abe*). *abrasma*, *abril*, *abroin*, *abrume* (< *abre*). *adrailola* (< *adrailu*). *adrilola* (< *adrilu*). *agama*, *ageder* (< *agi*). *agintizkira* (< *aginte*). *agots*, *agurten* (< *aga*). *ait-etxadi*, *aitezarri*,

⁷⁷⁰ Baita OK- 'ogia' ere gutxienez: *okoila* "tuercia" (< *ogi*, cf. *artoila* esanahikidea < *arto*) eta *okorea* "empanada", "pastel".

aitizki, aitona (1715), *aitorde* (< *aita*). *aitorgume* (< *aitorgo*). *aizigara* (< *aize*). *akarerro* (< *akara*). *albakonzi* (< *albaka*). *aldol, aldoste* (< *alde*). *almirantorde* "vice-almiranta" (< *almiranta*). *almirantorde* "vice-almirante" (< *almirante*). *alístama* (< *alístete*). *amizkuntza, amorde* (< *ama*). *andurri, anduste* (< *andi*). *ankestalki, ankezur, ankoial, ankurdai, ankuztai* (< *anka*). *apezait orde* (< *apezaita*). *aranbruztai* (< *aranbre*). *arazarte* (< *arazo*). *arkaste* (< *arku*). *arnezi* (< *arno*). *arrazerro* (< *arraz*). *arrokarri* (< *arroki*). *artikasi, artitoi, arturren* (< *arte*). *artzuko* (< *artze*). *askurri* (< *asko* edo *aski*). *astoregana* (< *asta*-). *atiskari* (< *ate*). *at-ostean* (< *ate, ataostean* 1596). *aturri* (< *ate*). *atzaurreaz, atzaurrez* (< *atze*). *auger-ontzi* (< *augera*). *aurgitondo* (< *aurgite*). *aurkizkira, aurkol* (< *aurke*). *axkondarri* (< *axkondo*). *azolio* (< *aza*). *azpoial* (< *azpi*). *azukroretxo* (< *azukre*). *azuntz* (< *aza*).

Arau honek, bide batez, *k* epentetikoak (§ 3.2.3.2.e) baino hobeto azal ditzake, agian, hurrengo adibide hauek:

aakal (< *aoko*). *aldískaize* (< *aldizko*). *artekaize, artekiste* (< *arteko*).

Galera berbera aurkitzen dugu *-tu* partizipioko aditzoinetan ere, noski:

aduste (< *aditu*). *aldondu* (< *aldata*). *askurtu* (< *askatu*). *asmegi, asmegoki* (< *asmatu*).

Salbuespen eta bikoiztasun zenbait: *aita orde, aldaitz* (< *aldata*), *alogaemaile, ankaezur*. Bereiz aipatzekoak dira, araua betetzen ez dutenez gero, bigarren osagaien *eme* daukaten elkartuak (*astaeme, ataeme*; cf. *asteme* 1562).⁷⁷¹

Honainokoa normal xamarra bide da, Urterekin konparatzen baldin badugu behintzat, zeren eta bai bokal berdinak (*abreuli, albularrain*), baita ezberdinak direnean ere (*afrikerrauts, aitasurren, aitirabraso, alabastruntzi, alegeroihu...*) Larramendik bezalaxe jokutzen baitu, honek ere salbuespen batzuekin: *abreadardun, adieraemaile...*

Baina, bestalde, galera bigarren osagaia kontsonantez hasita ere gerta daiteke:

alístete (baina *alediste*), *alzati, alzi* (< *ale*). *arakar gorri* (< *arakarri*). *arransudur* (< *arrano*). *arrosti* (< *arrosa*). *aurbeni* (< *aurre*).

Agian txundigarriena beste zerbait artean galdu arren (lehen osagaiaren azken kontsonantea edo bigarrenaren lehena, eskuarki) ezabaketa zilegi izatea da:

Bokal berdinak: *ainbastun* (*ainbat* + *astun*), *andiraitzi* (*andik* + *iraitzi*), *artzaurre* (*artzai* + *aurre*).

Bokal ezberdinak: *abroila* (*abre* + *boila*), *alorta* (*ale* + *sortu*), *armoila* (< *arma* + *boila*).

Kontsonante aurrean: *arbelota* (< *aran*).

b) *-a* kendu gabe: Nahiz aurreko puntuan ikusiagatik, besteak beste, elkartuak izan *-a* zalantzazko zein zurrak errazenik —ia beti— desagertzen direneko egoera bat, badugu salbuespenik:

- *adia* "endecha": *adiabiursa* "endecha, metro".
- *aitza* "peña": *aitzagaineko* (*aitzagañeco lurrá* "bancal, pedazo de tierra sobre peñas") baina *aizkorri* (toponimoa gogoratuaz, noski), *aiztxori* (AHOZ).
- *artza* "oso": *artzakume* "osceso" baina *artzulo* "ossera".
- *atsa* "respiración": *atsame* "cercera de cuevas y bodegas subterráneas", baina *asberapen, asbida, asgite, etab.*
- *atza* "dedo" zeharo aldakaitza da *HH*-an: *atzagiltza* "nudillo", *atzakosketa* "capón"; vs *atz* "sarna", nondik *atzebelar* "escabiosa"; beraz, salbuespenak (*azgale, adibidez*) edo hitz herrikoiak dira, edo hitz herrikoiren baten analogikoak.
- *autza* "carrillo": *autzaio* "bocina", "cerbatana", "corneta".

⁷⁷¹ *arrateme* "rata" ez da salbuespena, bikotea *arratoi / arrateme* baita (gazt. *rata* < eusk. *arratoi*, Larramendiren arabera; ik. § 6.5).

Bokal pilaketak atzeratu egin du, noski:

aldiots (< *aldia* "plañido") vs *aldiagile* "plañidera", *aldiakatu* "endechar".

Hauen aldean badira berezko -a galdutzat zeukalako adibide zenbait:

antzarkume "gansarón" (*antzarakume* XVII ea.). *anaigisa* "hermanablemente" eta *anai motz* "lego".
ansi izan "importar" (vs *antsia izan* 1643, *HH*-an ere jaso), *arepila* (*harea pilla* 1677).

Eta galdu aurreko egoeraren arrasto zenbait:

arraultza kosko "cascarón" vs *arraultz-ari* "huevos hilados", *arraultz gisako* "aovado", etab., *arrautz saltzaile* "huevero", *arrauztalo* "tortilla".

c) Forma zaharkituen ordezkiko ondorio berriak :

- *aragi*-ren bilakaera ezberdinak (cf. gorago § 3.2.2.c, *arak-ez*):

ARAI-: *arai palaku* "sensualidad".

ARA-: *aralika* "encarnación para esculturas".

AR-: *arbazkatu* "encarnizarse". *arbilgeta* "albóndiga". *aruski* "piltrafa".

- *ardo* > *ar*- (cf. gorago § 3.2.2.a, *arna-z*):

Adibide ziurra: *arlatx* "vinagre" (bere osagaien jatorriaz, ik. § 3.3.2.2).

Zalantza-koak: *arnasta* "calabriada" (ordain bakarra). *arneurtzaile* "mojonero" (+*ardoneurtzaile*).

Baliteke *ardo*-tik zein *arno*-tik etortzea; *arno*-tik balira, orduan haplologiak azalduko lituzke (ik. beherago § 3.2.3.2.d).

d) -e / -a zalantza *a* formakoaren alde:

ATA- 'ahatea': gorago (§ 3.2.1.2.d) ikusi ditugu adibide guztiak. Gogora dezagun *HH*-an mugagabea *ate* zein *ata*, eta mugatua *atea* zein *ataa* direla (I, § 8.5.2.1).

AURKA-: *aurkabela*, *aurkabeto*, *aurka boila*, *aurkaluze*, *aurkamin*, *aurkanditu*, *aurkatiste*, *aurkazabal*, *aurkazur* (baina *aurkegoitza*, *aurkegorri*, ziurrenik bigarren osagaiaren bokalak baldintzatuak).

e) Azken kontsonantearen galera:

adizkonde (< *adin*). *agikur* (< *agin*). *alkalaur* (< *alkar*). *anbasal* (< *anbat*). *arbelota* (< *aran*). *azarrakatu* (< *azal*).

f) Azken silabaren desagertzea: adibide guztiek ezabaketa hutsa baino azalpen indartsuagoa izan dezakete (ik. *infra* § 3.2.3.7.2).

g) Afrikatua frikari; eratorpenean bezalaxe, hemen ere indar handiko aldaketa da:

aiztxori (< *aitz*). *arizkar* (< *aritz*). *arrauztalo* (< *arrautz*). *arraz larru* (< *arraz(a)*). *asberapen*, *asberatu*, *asbida*, *asgite*, *aspide* (< *ats*). *ausbaia* (mug.), *ausboilkari*, *auspuru*, *austrapu* (< *auts*). *axkondo* (< *atx(a)*). *azgale* (< *atz*).

Salbuespenak: *atzbelar*, *autsbanatu*.

h) *tz* > *tx*

atxol (*atz* + *ol*). *atxorde* (*atz* + *orde*).

Ziurrenik *antxume* (< *auntz*) ezagunarekin lotu beharrekoa (ik. § 3.2.2.d).

i) *ts* > *s* / — bokal

asarikea, *asartu* (< *ats*).

Ertorpenen ere (§ 2.2.5.3) antzerako adibide gutxi batzuk aurkitu ditugu; cf., bestalde, *ntz* > *nz* aldaketa testuinguru berean (§ 3.2.3.2.c).

j) -R zalantzia:

AMAR 'hamar': *amaroin* "tornadura, medida de diez pies" (vs *amarraz*).

AR 'arra': *arari* "morueco".

AR 'hartu': *arutzi* "renuncia" (vs *arreman*, *arreraman*, *arrerazo*)

AZUR 'hezurra': *azurauste* "catasta" (vs *azurrobi*, *azurruts*).

3.2.3.2. Elkargunean

a) Leherkariak

• *b > p* leherkari ahoskabearen edo txistukariaren ondoren:

agapuru (*agate* + *buru*). *anbapider* (*anbat* + *bider*), *anpuru* (*andi* + *buru*), *aspide* (*ats* + *bide*), *auspuru* (*auts* + *buru*). Cf., *ordea*, *asbida* "laringe", *arditbi* "cuarto", *etab*.

Hauen aldamenean *aizkorri* aipatu beharko litzateke, baina ingurune honetan corpuseko adibide bakarra izateaz gainera, toponimiak (§ 8) azaltzen du, noski. Gainerantzean, ez dirudi Larramendik prozedura hedatu zuenik: cf. *apaizgaitu*, *apaizgela*, *apaizgisa* eta *azgale*. Izan ere, eratorpenari esker (§ 2.2.2) jadanik ezagutzen ditugu testuinguru hauetan belareekin izan zituen gorabeherak. Han bezala, hemen ere forma egokia izatea hitza herrikoia delako seinale bide da: cf. *askordin* "sabañón" ezaguna. Alabaina, bertako hertsapen berbera ezarri behar dugu hemen ere bigarren osagai bereko hitz multzoetarako, alegia, ahoskabea —testuingurua gorabehera— oinarritzko formatzat hartu izana: *ameskaitz*, adibidez (beti *-kaitz* corpusean: ik. § 3.1.6.2.ñ). Aurreraxeago (§ 3.2.3.3.e) testuingururik gabeko *g > k* ahoskabetzeaz mintzatuko gara.

• *p > b / r*—

arbelota "bodoque" (< *pelota*), *arbiska* "insecto" (< *piska*), *arbotzoi* "rejalgar" (< *pozo*).

b) Txistukariak

• *tz*, *ts* + *z*, *s* > *tz*

arkaitzerra (*arkaitz* + *zerra*), *atzula* (*ats* + *zulo*), *auntzuga* (*auntz* + *suge*).

• *ts* + *tx* > *tx*

autxulunta (*auts* + *txulunta*).

• *tx*, *tz*, *ts* + *z* > *tx*

atxorro "guante" (*atz* + *zorro*), *atxorro* "palomilla" (*atx(a)* + *zorro*), *autxulonzi* (*auts* + *zulo*).

c) Sonante + txistukari taldeak

• *ntz* > *nz* / — bokal

anzundu (< *antz*). *aunzadar*, *aunzedosle* (< *auntz*).

• *rz* vs *rtz* etorkiaren arabera

artzulo "ossera" (< *artz* + *zulo*) vs *arzulo* "caverna", "gruta" (< *arri* + *zulo*).

d) Haplologia

aderna “pitón” (AR-ER *adar* + *erne*). *agirudi* “exterioridad” (IR-IR *agir(i)* + *irudi*). *aindurin* (UR-URR *aindur(a)* + *urrin*). *aizapi* “vela” (ZA-ZA *aiza-* + *zapi*). *akirin* (ER-IR *aker* + *irin*), *aragei* “deshonestidad” (GI-GEI *aragi* + *gei*). *aranzerrri* “(puerco) espín” (ZA-ZE *aranza* + *zerrri*). *arauli* “trabucar” (RAU-RAU *arau* + (*i*)*raul*). *arausle* “facinoroso” (AU-AU *arau* + *ausle*). *arizkar* (IZ-AZ *ari(t)z* + *azkar*) *arkoskarea* “hormigón” (KA-KA *arkoska* + *karea*). *artizkinde* “orthographía” (EZ-IZ *artez* + *itz*). *askitatu* “satisfacer” (KI-KI *aski* + *kitatu*). *astendatu* (TUN-TEN *astun* + *tendatu*). *atorri* (ORRA-ORRI *atorra* + *orri*). Cf. *arnasta* “calabriada” eta *arneurtzaille* “mojonero” ere (§ 3.2.3.1.c).

Dakusgunez, silaba egituraz gainekoa har dezake (*atorri*), eta batez ere silaba baino gutxiagokoa (*aderna*, *agirudi*...); berdin edo antzerakoak liritekeen hots-errepikapenak ekiditea du xede bakartzat, hortaz.

e) I. Pagolak (1984: 60) bidenabar ohartu bezala, *t* epentetikoaren adibideak daude *HH*-an. Esan gabe doa bil daitezkeen guztiak ez direla argiak. Batzuetan badirudi *t* (eta *d*) partizipioari egotz dakiokela; ahostun eta ahoskabearen banaketak hipotesia berma lezake, hasieran batean bederen:

aditezin, *adititz* (vs *aditz*; < *aditu*). *alaiturri* (< *alaitu*). *apaindasma*, *apaindile* (< *apaindu*). *arautal* (< *arautu*). *aritaditu* (< *aritu*). *artepaira* (< *artu*). *askatezin* (< *askatu*). *atzitarte* (< *atzitu*). *azitetxe* (< *azitu*). *azkendukitu* (< *azkendu*).

Edo aditizenerari (bietarako, cf. Mitxelena 1977a: 249-251):

asturritu, *asturrundu* “degenerar” (< *aste*?) (cf. *asurundu* “bastardear” < *asi*).

Baina bestetan ez dago azalpenik (Pagolaren adibidea *eskutitz da*), edo ez da hain ziurra behinik behin, eta hauetan ere *n* ondoan *d* agertzen zaigu:

aoteski (< *ao* + *estu*), *araututs* (< *arau* edo *arautu* + *uts*), *argitol* (< *argi* edo *argitu* + *ol*), *arpaindarte* (< *arpain* + *arte*), *aurtaro* (*aur* + *aro*), *auztepai* (*auzi* + *epai*).

Dakusgunez, ia beti bokal artean gertatzen da, maizago egin ohi zituen bokal bakanketen orde; halere, badugu txistukari ondoko testuinguruaren adibide bat (*auztepai*). Honelakoa da aurkitu dudana *k* epentetikoaren adibide ziur bakarria ere: *auskeztiki* (< *auts* + *ezti*); ohartu era honetara bata bestearen ondoko silabetan kontsonante bera agertzea (**-tezti-*) saihestu dela. Beste bi hautagai on baditugu: *arinkore* (< *arin* + *ore*)⁷⁷² eta *arkol* (< *arri* + *ol*).

f) $n + n > n$, $l + l > l$

atzenai “testamento” (< *atzen* + *nai*), *azalen* “imprimación” (*azal* + *len*), *azkenai* “(última) voluntad” (< *azken* + *nai*).

g) Konbinaketa (ing. *blend*) dugu, berriz, *arkazore* (< *are* + *kare* + *-z* + *ore*), hots, morfotan ezin analiza daitezkeen hitz zatiez osatutako hitza (Bauer 1983: 234). Bigarren osagaiaren hasieran eta bukaeran (ik. *infra* §§ 3.2.3.3 eta 3.2.3.4) gertatzen diren zenbait kenketa ere, *blending* fenomeno osoak izatera iritsi gabe, oso antzerakoak dira.

3.2.3.3. Bigarren osagaiaren hasieran

Egia esan, aztertzen ari garen elkartuetatik anitzi buruz, Larramendik elkartu baino gehiago batu egin zituela esan daiteke, osagaien arteko lotura ohi baino sarritan estuagoa

⁷⁷² Novia de Salcedok (s.v.) *arinki* + *ore* analizatzen du; haatik, ezinezkoa ez bada ere (*arinka* erabiltzea ere badukegu), *-ki* atzizkiari buruz dakigunagatik (§ 2. 1.19) ez eze, erdal familiarteko erlazioei begira ere, badirudi *arin* hautabide hobea dela: cf. *arinkore* “prestiños” ~ *ariña* “presto, diligente”, *arindea* “presteza”. Ohartu, bestalde, **arinore*-k gazt. *harina* ‘irina’ bururatzeko arriskua izan zezakeela.

baita, eta hau batez ere bigarren osagaiak pairatzen dituen aldaketetan igartzen da, ahostuntze / ahoskabetze fenomenoak alde batera utzita, honek bere hartan iraun ohi duenez gero.

a) Lehen bokalaren galera:

adipaki (< *epaki*). *adizkonde* (< *ezkonde*). *aitagoki*, *araugoki*, *argoki*, *arzaigoki*, *azerigoki*, *azigoki* (< *egoki*). *aldimaitza* (< *emaitza*). *aokastu* (< *akastu*). *aoreki* (< *ireki*). *aratoitz* (< *otoitz*). *aratxi* (< *itxi*). *araskaini* (< *eskaini*). *arirrazki* (< *orraztu*). *aritsune* (< *utsune*). *arraizpata* (< *ezpata*). *arritxari* (< *etxari*). *artezgita* (< *egin*). *arturgi* (< *argi*). *asgite*, *aurgite* (< *egite*; cf. *haur egite* 1664). *aurbeni* (< *ibeni*).

-e batez ere, eta batez ere aditzetan. Esan gabe doa *-gile*, edo bere ustetan *ekintza*-tik zetorren *-kintza* bezalakoetan erraz har zezakeela oinarri; izan ere, hauetako batzuk atzizkiak bailiran —"uzkurtuak", *jakinde*-tik atera zuen *-kinde*-z berak zioenez (§ 2.2) erabiltzen ditu: cf. bereziki *-goki*, ia sistematikoa (ik. § 3.1.6.2.i), baita corpus zabalago batean aztertu beharko diren *-gite* eta *-gi* (< *egin*) ere, agian. Azpimarratzekoa da, dena dela, gertakari hauek bat datozela, neurriren batean, *e-* (*i-*) atzizkiaren gaurko hipotesiarekin (cf. Mitxelena 1977a: 156-157).

b) Lehen kontsonantearen galera:

*abailirpitz*a (< *zirpitz*a). *abroila*, *armoila*, *artoila* (< *boila*). *ainalda* (< *saldu*). *aleltx* (< *beltz*). *alorta* (< *sortu*). *apainanzi* (< *janzi*). *argiskatu* (< *piska*). *argoari* (< *argi* + *jo*). *atzal* (< *atza* (sic, cf. § 3.2.3.1) + *azal*, vs *atzazal* herrikoa: cf. § 12.2.7).⁷⁷³ *atzale* (< *gale*, vs *azgale*). *atzerinkatu* (< *tinkatu*).

c) Lehen silabaren galera:

alkargun (< *lagun*), *arrosti* (< *ezti*), *arraunpeka* (< *espeka*), *artali* (< *estali*), *artizkinde* "orthographía" (< *jakinde*; eta, beraz, honelaxe sortu dira *-kinde* guztiak), *axalkor* (< *gogor*).

Azken adibidea bereziki interesgarria da; lehen osagaiaren kategoria (iz.) eta ondorioa (iz.) ezberdinak izan arren, ezinbestean gogora dakarkigu bigarren osagai bereko *egoskor* izenondo herrikoa (cf. *OEH*, s.v. *egoskogor*).

d) Lehen bokala + lehen silabaren desagertzea:

aokitu (< *idiki*).

e) Lehen kontsonantearen ahoskabetzea:

aokaldu (< *galdu*). *axalkor* (< *gogor*).

g > k aldaketari buruzko arazoak (§ 3.2.3.2.a) ezagututa, espero izatekoa zen elkarbidean ere testuinguru egokirik gabe gertatzea. Dena dela, *axalkor*-ek (eta bera bezalako beste batzuek ere, agian: cf. *okor* "rebanada", adib.) azalpen zuzena izan lezake corpusetik kanpoan dagokeen araupeko *-kor* batean, nahiz bururatzen zaidan bakarra (aipatutako *egoskor*) *HH*-an agertu ez.

f) *z > tx* biurketa, *z / tx* aldaeren artean bigarrena aukeratzeko joerak lagunduta:

abetxalki (< *zalki*). *adartxabal*, *aotxabal* (< *zabal*). *aotxakon* (< *zakon*). *aotximur* (< *zimur*). *argitxuri* (< *zuri / txuri*).

Antzeko kasua dugu, baina *tz* ondorioaz, *aotzi* (*ao* + *zi*).

⁷⁷³ Zalantzarik gabe, 'hitz jatorra + Larramendiren erako aldaera' beste bikote bat; *artizar* / *arkizar*-erako, ik. § 3.2.1.1.

3.2.3.4. Bigarren osagaiaren bukaeran

a) *e, o, u > a*, bisilabadunetan:

aderna (< *erne*), *ainalda* (< *saldu*), *alorta* (< *sortu*), *andeza* (< *eze*), *apaindona* (< *done*), *arnasta* (< *nastu*), *arri-loka* (< lat. *locus*; ik. § 3.3.2.2), *asbida* (< *bide*), *atoltxa* (< *oltxo*), *atzula* (< *zulo*), *atzonda* (< *ondo*), *aurkaboba* (< *bobo*).

Berez lehen osagaiari bakarrik dagokion araua (§ 3.2.1.2.c eta d) bigarrenari ezarri dio. Ondorenak nahitaez erkatzeoak dira, bestalde, bigarren osagaia aditza denean erdiesten direnekin (§ 3.2.3.7.2), itxuragatik baino ez bada.

b) *tz > tx*, lehen osagaiaren bukaeran (§ 3.2.3.1.h) eta bigarren osagaiaren hasieran (§ 3.2.3.3.f) antzeman dugun joerarekin bat:

aleltx, arbeltx, ardabeltx, atabeltx (baina *atabeltz*; < *beltz*). *arbaltx* (< *baltz*). *arlatx* (< *latz*).

c) Azken zatiaren desagerpena (*-ka* atzizkitzakoagatik? cf. § 3.2.3.7.2):

agikur (< *kurrika*).

Zer pentsatua eman dezake *aitizki* "patronymico"-k, formaz berdin *hitz* zein *izen*-etik etor baitaiteke, esanahiak *izen* eskatzen duela badirudi ere; baina, dena dela, Larramendik berak ez ote zukeen somatuko *iz-* batetortzearen gainean egin zitekeen jokoa, edota are etimologia ere?

3.2.3.5. Osagaiak pairatzen dituzten itxura aldaketa bereziak

a) Jadanik osagaien hasiera-bukaeretan txistukariak aldakorrek direla ikusi dugu elkarbidean. Aldaketa batzuk, ostera, osagaiaren barruan gertatzen dira:

aitansiti "patriarcha" (< *antxiti*). *arbotzoi* "rejalgar" (< *pozoi*). *arteistari* "parancero, el que caza con lazos" (< *eiztari*). *atzalpe* (< *azal*).

Herskari aurreko testuingurua zalantzarazkoa izan badaiteke ere (cf. *arteistari*), adibide guztiak azaltzeko elkartuen osagaiak itxura aldatzeko eskubidea zutela aitortu beharrean gaude; ohartu, gainera, *eistari* ziurrenik gaur *extari* idatzi beharko genukeela (*artextari*, beraz), salbuespen delakoa adibide on bilakatuz.

b) Txistukariak ez bide dira alda daitezkeen kontsonante bakarrak; lehen adibidean osagaiak aske dabilenean betetzen ez duen sudurkari osteko ahostuntzea betetzen du elkartuan:

astendatu "sompesar, levantar algo para probar el peso que tiene" (< *tentatu* "tentar, probar").

Eta bigarrenean, *d > r* disimilaziozko aldaketa egon liteke (*d / r* nahasketarako, ik. § 2.2.2; formaren eztabaidarako, ik. § 3.2.3.7.3):

argedatu "retener" (< *geratu*).

3.2.3.6. Hots jokoak

Hitz batzuetan Larramendik paronimia bere alde erabiltzen du, inoiz hitzek esanahi ezkutu bikoitzak dauzkatela agerrian ipiniaz; honek eragina izan du hitz berri batzuek hartu duten itxuran:

- *arauli* (*arau* + *irauli*): haplologiak azaltzen duen elkarte honek aditzaren neurria (eta oihartzuna, noski) erdietsi du.
- *arte bitarte* (*arte bitarteric ezte* "arte ni parte"): gaztelaniazko hitz jokoaren itzulpena.
- *arturatu* (*artu* + *arduratu*): bi osagaiak behingoan gogora ekartzen ditu.
- *atorri* "pañal de camisa" < *atorra* + *orri* "pañó".
- *aurbeni* (< *aurre*): berez "exponer" da, hots, 'aurrean ibeni', baina "expósito" ere adierazten du *aurre* / (*h*)*aur*-ekin jolastuaz.

3.2.3.7. Morfofonetikako gertakari zenbait

Atal honetan hiru arazo izango ditugu mintzagai: lehenik, bigarren osagaien hitz eratorri bat daukaten elkartuen berezitasunak; bigarrenik, fonetikan oinarritutako (ohiko) azalpenetik ihes egiten duten aldaketa zenbait; eta, hirugarrenik, hitz elkartu familikideen arteko erlazioak, familiako lehengaia zein den nola jakin daitekeen galderaren inguruan.

Lehen gaiak lotura handia dauka eratorpenarekin, zeren eta bigarren osagaiko hitz eratorrian agertzen diren atzizkiak halako maiztasun batez bereziak baitira, hitza beregain dabilenean bainoagoak. Jadanik eratorbideari buruzko atalean (§ 2.2.4.6) somatu dugu, baina orain denak batera aztertzeko aukera datorkigu.

Hurrengo bi gaiak itxura batean ezberdin xamarrek izan arren, euren oinarrian arazo bat eta bera dugu, baita eratorpenean aurkitu ditugun antzeko arazoaren azpian ere: zehazki, delako hitz baten osagaiaren edo osagaien gramatika kategoria zehazteko zailtasuna, den hitza eratorria, edo den elkartua.

Atrebiderik errazena errua hitzberrigilearen lepora botatzea da, hala moduz jokatu zuela eginez. Haatik, badakigu ez garela ezjakin batez ari: gogora dezagun eratorbideari dagokionez behinik behin Larramendik oso deskribapen zuzenak egin ohi zituela, eta halaz ere gero praktikan gainditu (§ 2.2.3). Honelako pertsona batek okerrak egiten dituenean, badirudi aberasgarriago izango dela zerk okerrarazi dion somatzen saiatzea, okertu dela esatea bakarrik baino. Oraindaino aztertu dugun corpus zatian fenomeno hauek daukaten maiztasun eta hedadurak halaxe jokatzera gonbidatzen gaitu. Egiantzekoena, noski, berak jakintzat eman zuen eta guk emango ez genukeen zerbait artean egotea dugu eta, zehazkiago, baliteke arazo guztion azpian euskal hitzaren erroaz Larramendik zeukan ikusmoldea izkutatuta egotea, jadanik eratorbidean iradoki dudanez (§ 2.3). Eta, bertan esan bezala, atzeranzko eratorpenari buruzko ataltxoan (§ 5.4) helduko diot zuzenean gaiari.

Hipotesi horretara iristeko, ordea, lehenik hainbat urrats eman izan ditut, eta haien artean sartzen dira orain aurkeztuko ditudanak. Maila honetan, elkarbidean dauden datu bereziak bildu eta gure ohiko parametroen arabera sailkatzera mugatu naiz, azal ditzaketen arauak aurkitzen saiatuaz, noski.

3.2.3.7.1. Bigarren osagai eratorria

Normala denez, bildu ditugun hitzetatik askok bigarren osagaien hitz eratorria daukate, guztiz 'izena + aditzizena' edo 'x + aditza' menpekotasun elkarteetan. Espero zitekeen bezala,

delako eratorria eskuarki aske agertzen da *HH*-an, Larramendik elkarketa arrunta gauzatu duela erakutsiaz. *ebasle*, *edari*, *emaile*, *emaitza*, *izkuntza*, *laguntzaile*, *zaitzaile* eta beste hainbeste hitz arruntez gainerakoekin gerta daiteke, batzuetan osoki, hots, esanahia zeharo bat datorrela, eta bestetan gutxi gorabehera:

ait-etxadi "(padre de) familias" (< *etxadi* "familia"). *aizetorki* "clima" (< *etorki* "condición"). *aopikari* "coscojos en el freno" (< *pikari* "picante"). *apaizbatune* "clero" (< *batune* "gremio, clase"). *arboilande* "cubo de muralla" (< *boilande* "corona"). *arbotari* "arbotante" (< *botari* "empujador"). *artekiste* "carena, reparo de navíos" (< *iste* "cerradura, el cerrar"). *artepaira* "toma, tomadero, en el cauce o azequia, es la abertura para tomar agua" (< *epaira* "taja, cortadura"). *atauskari* "petardo, para poner fuego a las puertas" (< *auskari* "quebrantante"), etab.

Alabaina, bestetan ez da hala gertatzen, eta *HH*-ak dagokion sarreran (1) ez dakar, (2) bestelako aukerak edo (3) atzizki-aldaerak eskaintzen ditu; ikus ditzagun bakoitzaren adibide zenbait:

- (1) *atameaukari* "meauca, ave parecida a la ánade" (< **meaukari*).
- (2) *ahaikobatza*, *aidebatza* "parentela" (*batunea* "gremio, clase", *batzea* "allegamiento"...).⁷⁷⁴ *arbilgeta* "albóndiga" (vs *bilgoa* "fardo", *biltze* "agregación"...). *ari biurkari* "torcedor, huso grande de torcer la hilaza" (vs *biurtzaile* "torcedor, el que tuerce"). *arimaldaera* "metempsichosis, transmigración de las almas" (vs *aldaira*, *aldatze* "mudanza"...).
- (3) *arbotale* "catapulta" (vs *botatzaile* "echador"). *ardauble*, *ardobile*, *arnobile* "cosechero" (vs *biltzaile* "cogedor", "colector", "recogedor", etab.). *argi biurgeta* "reflexo de luz" (vs *biurketa* "reflexión"). *arritxari* "echacantos" (vs *etxatari* "echador").

Lehenengo kasuan daudenak, bistan da (adibidea ere ez da nolana hikoia; haren sorreraz, ik. § 3.3.1.3.d) apropos eta preseski elkaturako eraturako hitzak direla. Bigarren eta hirugarren taldekoei dagokienez, azalpen bat buruz aritu izana izan liteke: *arbilgeta* edo *arbotale* bezalako adibideak honela azal daitezke, baina ez *ari biurkari*, *ardauble* edo *argi biurgeta* bezalakoak, familia bereko edo beretsuko sarrerak baitira aintzat hartu ditugunak. Honek, dena dela, eragin bat izan zezakeela ukatu gabe, baderitzat azalpen orokorragoa bilatu behar dela, eta hura elkarketarako nahita eratorpenerako baino forma bitxiagoa baliatu duela izan litekeela: honela ederki azalduko genituzke *-tzaile*-ren ordezkoko *-le*-ak (*ardauble...*, *aginsakale*), adibidez, baita eratorpen atzizki zenbaiten forma bereziak (*-geta*, adibidez) ere. Gainera, azalpen hau bat dator eratorpenean egin dugun hipotesiarekin (§ 2.2.4.6), hots, alomorfo jakin batzuk (*-tzaile...*) nagusiki betebeharruntetarako, eta euren kideak ezohikoetarako hobetsi zituelakoarekin.

3.2.3.7.2. Osagaien egokitzeak

Elkartuen sailkapena eratzerakoan arazoak izan ditut osagaietako bat, batez ere bigarrena, zehazki zer den, zein gramatika kategoriatakoa den erabakitzeke, ezen formak batera eta esanahiak bestera eramaten baininduen. Zer esanik ez dago, arazoa garrantzitsua da, elkarte gehienetan berak markatzen baitu —edo markatu beharko bailuke— elkarte osoaren gramatika kategoria. Sarrienik idoro dudan zailtasuna, aditzarekin lotutako formetan egon da, zenbait hitz aditzaz, ala haren oinarrian dagoen edo haren oinarririk jalgi den izenaz osatuta dauden ebatzi ezinik.

⁷⁷⁴ Bestek ipiniko zuten geroago boladan (ik. *OEH*, s.v.).

Azalpenaren bila hasteko, aski ongi ezarrita utzi dugun gertakari batean oinarritu naiz: alegia, atzizkiek —edo hartaz hartutakoek— garrantzi handia izan dutela Larramendiren erabakietan, jadanik *Erans*-ean (II, § 3.3) somatu dugun joera indartsua lekuko. Jakintzat eman dut, beraz, fonetikaz gaindiko zerbaitez ari garela eta, zehazkiago, hots-aldaketa hutsek —haplogiak, bereziki— gertakari guztiak ezin azal ditzaketela. Hemendik abiatuta, ondoko gertakariak kausitu ditut:

a) Lehen osagaian

- erator-atzizkia kenduta:

aipabi "dilema" (< *aipatu*). *andeza* "edema, tumor aquoso" (< *andi* < *anditsu* "tumor"). *aukez* "desprecio" (< *aukera* + *ez*).

- atzizkitzakoa kendua:

abiurki "torzal" (< *ari* "hilo"). *altiso* "nácar" (< *altiste* "perla"). *artiskinde* "lapidaria" (< *artiste* "piedra preciosa").

- deklinabide atzizkia kenduta:

anbasal "monopolio" (< *anbatean*). *andiraitzi* "recudir" (< *andik*). *aratxi* "encarcelar", *aruskaini* "estipular" (< *arauz*). *artali* "empedrar" (< *arriz*). *artizkinde* "ortografía", *artuste* "discernimiento" (< *artez*). *artukitu* "escrupulizar" (< *artaz*). *asturritu*, *asturrundu* "degenerar" (< *astetik*). *autzaio* "bocina" (< *autzez*). *auzparri* "pretil", *auzpetu* "postrarse" (< *auzpez*).

Azken multzoan sartzen dira, bestelako hitz batzuekin batera, 'izena + aditza' tankerako aditz elkartu ezohikoetatik anitz (§ 3.1.3.a), hauetan azpimarratu dugun berrikuntza orokorragoa dela agerian jarritz. Bestalde, corpusean ZERTAZ kasua dugu desagerberena, NON eta NONDIKen adibide zenbait ere agertu arren.

- azken errorainoko bilusketa:

ainalda "precio" (< *ainbat* edo *ainbeste* "tanto"). *argimotrailu* "morterete de cera" (< *argizagi* edo *argikai* "cera").

b) Bigarren osagaian: adibide guztietan aditzarekin lotutako forma bat ageri da (gehienak § 3.1.1.7n bilduta daude sailkapenean):

- Aditzoinak, huts-hutsean, izenkitzat balio du:

abrasma, *apaindasma* (< *asmatu*), *aiertopa* (< *topatu*), *akirin* (< *irindu*), *anbasal* (< *saldu*), *aoteles* (< *tolestu*), *asuki* (< *ukitu*), *atzengeldi* (< *gelditu*). *autzaio* (< *jo*).

Ezinbestean, *-tu* atzizkiak hiperkategorizatutako aditzekin (§ 3.1.7) lotu behar.

- *-i* partizipio marka, ordea, eskuarki ez da galtzen taiu bereko elkartuetan:

antagiri (< *agiri*). *apainanzi* (< *jantzi*). *argusi*, *arkusi* (< *ikus*). *arutzi* (< *utzi*). *autsasi* (< *asi*).

- Aditzoinak ohiko izenaren forma har dezake batzuetan:

agintopo (< *topatu*).

- edo aldatuta dago (cf. § 3.2.3.4), ondorioa (guretzat) ezezagun batekin:

aderna (< *erne*).

- Bukaera analogikoak: azkenean bezala osagaia aldatuta dago, baina hemen aldaketak norabide argia dauka, izenkitzat erraz jo daitekeen bukaera bat berrezartzea, alegia; *-da / -ta / -te* atzizki izengilearen adibideak dira denak (ohartu analogiak indar handia daukala, *aurkatiste* izenondoa da eta):

ainalda (< *saldu*). *alediste* (< *distiatu* "brillar", cf. *distia* "brillo"). *alorta* (< *sortu*). *altiste*, *artiste* eta *aurkatiste* (< *tistiatu* "brillar"). *arnasta* (< *nastu*).

3.2.3.7.3. Hitz elkartuen eratorriak

Sailkapenerako izan dudan bigarren zalantza, hitz familia batean burua zein den, eta zein handik eratorritakoak erabakitzea izan da. Arrazoi praktiko batek eragindako zalantza zen: eranskinean familiako hitz bakarra jaso beharra zegoen, zeren eta elkartu guztien eratorri guztiak jaso eta gero, elkarketaren eraginak den baino askoz handiagoa eman baitzezakeen, zenbakietara joaz. Baina, funtsean, ez da zenbaki kontu hutsa: aitzitik, azpian Larramendiren egitemodua ezagutu nahia dago, hots, elkartuak egiterakoan nondik abiatu zen, eta nola: zalantzarako motiboak egoteak berak erakusten digu guretzat ohikoa den bidetik abiatu ez zela.

Elkartuak beren aldetik erator daitezkeela gertakari ezaguna da, baita euskaraz ere (ik. Azkarate 1990: 130 t. hur.), eta Larramendik ez du bere hizkuntzaren ahalmenak honela ere garatzeko aukera galdu. Ikus ditzagun adibide argi zenbait:

aitezarri "empadronar" > *aitezarde* "empadronamiento", *aitezarle* "empadronador".
aizapi "vela" > *aizapidi* "velage, conjunto de velas", *aizapiztatu* "velejar, usar de las velas".
aldondu "convertir así [infielos, pecadores, vida]" > *aldonde* "conversión de infieles, de pecadores, de vida", *aldonezgarri* "inconvertible", *aldongarri* "convertible".
alorde "poder que se da para algo" > *alordetari* "poderhabiente".

Arazoa bi lekutan agertzen da: batetik, aditzaren eta izenaren artean erabaki beharra dagoenean, beti bezala; eta, bestetik, oinarri elkartua *HH*-an agertzen ez denean, dauden eratorrietatik lehena zein den erakabitzerakoan.

a) Eratorri ezberdinak:

- Atzizkiei buruz dakizkigunek asko lagun diezaigukete erabakitzen zein den atzizki nagusia eta zein haren menpekoa. Adibideko familian *-da* 'izen abstraktua' (§ 2.1.11) dateke lehena; *-kida* halabeharrezko bukaera profitatuaz, eta *-kida* [+izena] dela ere, itxuraz *-kide* [+izenondoa] bukaerakoa eratu du:

arimegokida "longanimidad", *arimegokide* "longánimo".

- Hitzei buruz dakizkigunek ere paper bera bete dezakete; ondoko familian *ankestalki* (< *estalki*) da nagusia, eta bestea atzeranzko eratorpenaz (**ankestali* berreraikiaz) eta berriro eratorriaz (+ *-de* atzizki izengilea) lortu da:

ankestalde (*ankestaldea ezarri* "engualdrapar"), *ankestalki* "gualdrapa".

Hurrengo, hasiera batean partizipio izendutzat —dirudien bezala— hartu eta *eraio* "acarrearle algún mal" (*HH*) edo *iraio* "(hacer) caer" (*Erans* 110) bezalako formekin lotu badezakegu ere, egiatan *erio*-ren ordezkotako hutsa baino ez da:

anai eraile "fratricida", *anai eraio* [sic, *erio*-ren ordez] "fratricidio".

Cf. *aurreraile* "infanticida" + *aurrerio* "infanticidio", *gizeraile* "homicida" + *gizerio* "homicidio", *aitaren iltzalea* "parricida" + *aitaren iltzea*, *erioa* "parricidio". Gainerakoan, *eraile-erio* elkarte bikote hauen hurrenkerak ez du dudarik: *gizerhaile* Leizarragarena da (ik. *OEH*, s.v. *gizeraile*)⁷⁷⁵ eta Larramendik, hitza hartzeaz eta *x-eraile* familia oso bat eratzeaz gainera, *eraile* etimologikoki *erio*-rekin lotuaz taxutu ditu ekintza-izenak.

b) Izena ala aditza lehen?

Hauxe da ugari eta zailena, ezpairik gabe atzeranzko eratorpen eta hiperkategorizazio fenomenoekin nahasita datorkigulako. Halaz ere, batera edo bestera badirudi beti aurki daitekeela erabakia hartzeko biderik, batzuetan argudio sendoez, bestetan adibide argiek zalantza-izenen gainean egin dezaketean argitasunari esker:

• 'oinarria = izena', non 'aditza = izena + -tu' eta aditza aske ezezaguna den. 'x + aditza' elkartuak izatera, aditza -tu markaz hiperkategorizatuta egongo litzateke, baina badirudi egiatan elkartu osoak jaso duela marka:

aakaldu "anhelar" < *aakal* "anhélito" < *al* 'ahal' vs **aldu*.
abrildu "immolar" < *abril* "hostia" < *il* 'hil' vs **ildu*.
aledistatu "aljoferar" < *alediste* "aljofer" < *distiatu* 'dizdiratu' vs **distatu*.
altisoitu "nacarado" < *altiso* "nácar" < *oi* 'ohea' vs **oitu*.
andustetu, *antustetu* "endiosarse" < *anduste*, *antuste* "endiosamiento" eta *artustetu* "discernir" < *artuste* "discernimiento" < *uste* vs **ustetu*.
arutzitu "renunciar", "resignar" < *arutzi* "renuncia", "resigna" < *utzi* vs **utzitu*.

• 'oinarria = aditza', non 'izenkia = aditza ken -tu':

andiken "escorzado" (izena) < *andikendu* "escorzar" < *kendu*.

• 'oinarria = izenkia', non izenkiak azalpen trinkoa duen:

agribe "seguridad, certeza" (Cf. 1745: xvi: "*Acribea* en Griego es certidumbre, y es del Bascuence *agribea*, que significa lo mismo, y viene de *bea*, *beatu*, que en un dialecto es mirar, y de *aguirri*, aparecer, verse; y la certidumbre pide todo eso, prescindiendo aora de la Fe".), *agribe* "certeza" > *agripetu* "certificar".⁷⁷⁶

anpurutu "ostentar" < *anpuru* "ostentación" < *andi* + *buru* vs *burutu*.

aralikatu "encarnar, dar de encarnación" < *aralika* "encarnación para esculturas", "pringue" < *lika* "humor pegajoso" (*liga* eta *ligar*-ren etim.; ik. azalpen are zehatz eta luzeagoa *licor*-en etim.), "viscosidad" vs *likatu* "derretirse", *eztiz likatua* "untada con miel" (s.v. *xeto*). Cf. *DAut*, s.v. *encarnación*: "Tinta de albayalde roxo y azeite grasso de linaza u de nueces, de color de carne...".
arkiruditu "tornasolado" < *arkirudi* "tornasol, viso de luz en algunas telas" < *irudi* "viso".

• 'oinarria = aditza', non aditzak azalpen trinkoa duen:

apaingora "lisonja" < *apaingoratu* "lisonjear" < *goratu* "elevar", "encumbrar", etab. vs *gora* (izond.) "caro", (adond.) "arriba".

arpilo "saqueo" < *arpilatu* "saquear" < *pilatu* "pillar, robar", cf. *pilla*, *pillaera* "pillage" (eta gazt. *pilla* 'pillaje'-ren etim., eusk. *pilla*-tik) vs **pilo* (*HH*-an, jakina).

⁷⁷⁵ Leizarragaren zuzen zein zeharkako eraginaz, ik. § 9. Edonola ere, *eraile* oso ondo lekukotuta dago testu zaharretan, bai Iparraldekoan (Leizarragaz gainera, Axular, Oihenart, Tartas...), baita bizkaieraz ere (*RS*, Mikoleta...), eta adibideen artean *gizon erhaile* (*FPrS*) eta *giza eralla* (*BBizk*) ditugu (cf. *OEH*, s.v.).

⁷⁷⁶ -be > -pe aldaketaren zioa izan litekeena lehenago (11. oh.) azaldu dut.

askito "satisfacción, acción de satisfacer" < *askitatu* "satisfacer, pagar enteramente" < *kitatu* "librarse de la obligación de pagar" (*quitar*-en etim.) vs *kito* "libre" (izond.), *kito gaude* "(estamos en) paz, en el juego".

atseda "inspiración, soplo", *atsede* "respiración" < *atsedatu* "ababar" < *edatu* "extender".⁷⁷⁷
azkenduki "retoque" < *azkendukitu* "retocar, lo que ya está acabado" < *ukitu*.

arpilo eta *askito*-k argi dezakete hurrengo zalantzazkoa, hemen ere aditzetik dagokion izenera igaro dela iradokiaz:

artzukatu "recusar" < *ukatu* "negarse" = *artzuko* "recusación" < *uko* "negación".

Hauek denak (eta goragoko *andiken*) erabat lotuta daude, noski, aditzoina izenki modura erabilia eratu diren elkarrekin (§ 3.2.3.7.2).

• 'oinarria = izenki', non aditza gaztelaniaz eratorria den eta, beraz, euskaraz ere halakoa eratu duela susma daitekeen. Bestelako argudioek bermea eskain dezakete; gure adibideetan, zehazkiago, izena herrikoia izatea (*aizape*) eta *HH*-an aditza baino maizago agertzea (*aldazpi*):

aizapetu "sotaventar" < *aizape* "sotavento" (AHOZ).

aldazpitu "respaldar, notar, escribir a la buelta" < *aldazpi* "respaldo de el papel o escrito", "reverso", "revés".

• 'oinarria = izenki', non izenkiak bigarren osagai emankorra duen:

adieragoitu "alegorizar" < *adieragoi* "alegoría" eta *andigoitu* "magnificar" < *andigo* "magnífico" (-*goi* bukaeraz ik. § 3.1.6.2.m).

• 'oinarria = aditza', non aditzak bigarren osagai emankorra duen:

aurpe "rendimiento, submisión" < *aurpetu* "rendir, sujetar" (-*petu* bukaeraz ik. § 3.1.6.2.a).

• Beti ez dago halako ziurtasunik; hurrengo familia *ainbat* "tamañamente" eta *astun* "pesado" hitzen bilkutatik sortua da, dudarik ez, baina intuitiboki badirudi errazago sor litekeela **ainbat astundu* sintagma, izen kategoriako **ainbat astun* baino; korapiloa askatzeko bidea, honelakoetan izenkiak paper neutroa jokatu duela uste izatea dateke:

ainbastundu "equilibrar" (cf. *astundu* "agravar") < *ainbastun* "equilibrio".

• Bigarren osagai ezezagun edo zalantzazkoa dutenekin ditugun arazoak hemen inon baino argiago ageri dira, zeren eta hura ezagutu gabeen nekez asma baitezakegu zein zeinetik datorren:

anbal "venerable", *anbaldu* "venerar": *al* 'ahal'-ekin lot daiteke, baina baita *balio*-rekin ere (cf. euskal etim. s.v. *valioso*), agian. Bi aukeretatik bat izatera, bistan da *anbal* izango litzatekeela oinarria, eta *anbaldu* eratorria.

arusitu "pausar", *aruts* "pausa" (cf. gorago -*usi* / -*uts* bukaeraz egindako hausnarketak, § 3.1.6.2.u).

• Eta, azkenik, hitzaren etorkia bera zalantzan egon daiteke; hurrengo adibidean, itxurak aditza hobestera garamatza, baina benetako azalpena agian izenean dago:

argeda "retención", *argedatu* "retener" < *Arguedas* toponimoa (§ 8.2), nahiz eta, itxuraz, azalpenik errazena *ar(tu)* + *geratu* "detener", "retener" den (§ 3.1.3.d), *r* > *d* disimilaziozko aldatetaz (§ 3.2.3.5).

⁷⁷⁷ Halaz ere, familia honen etorkia konplexuagoa izan liteke (ik. § 5.4.1).

3.3. *HH*-ko elkartu zenbaiten etorkia

Atarikoan (§ 1) Larramendiren pentsamolde eta jokabideaz eratu dudan irudiak ondorio nabarmena dakar berekin: *HH*-an dena denarekin lotuta dago —edo egon liteke—, Larramendiren begi-gogoak nondik ibili ziren eta horren arabera. Aztertu ditugun hitz elkartuetatik zenbait osoki edo zatika etimologiak baldintzatuta daude; cf., adibidez:

ABREDARI “babbage, antes *berebage*, bebida que se da a las bestias, viene de el Bascuence *aberé*, *abereá*, bestia, ganado”.

eta beste batzuk, berriz, toponimiara joaz bakarrik azal daitezke behar bezala, lehen begiratuan elkarbidean bertan azalpena daukatela eman arren:

ABALZIZKETA “melodrama, diálogo en música” < *abalia* “melodía”⁷⁷⁸ + *izketa* “diálogo”, baina *abalz*-eko azken kontsonantea?

Eratorpenean ere (§ 2.2.3) antzerako gertakariak nabarmendu ditut, eta denak elkarrekin dagozkien ataletan aztertuko dira (§§ 6 eta 8). Hemen etorki hurbilago batez mintzatuko gara, Larramendik begibistan zuen inspirazio iturri nagusiaz; erdarez ari naiz, dela *HH*-an bertan (gaztelaniazko buru-hitzak eta azalpenak, latinezko kideak), dela eremuan (*DAut*-en azalpenak, etimologiak edota adibideak) zituenez.

Larramendiren hiztegia bere ereduarekin erkatu bitartean (I, § 5.2), ohartu gara zenbaitetan —ez gutxitan— Larramendik gaztelaniazko azalpena edo haren zatitxo bat itzuli egin zuela, euskal ordain perifrastiko bat emanez, hitzak hizkuntza batetik bestera zuzenean eta hitz bakar batez itzultzeko modurik ez dagoelako batzuetan, berak azaldu bezala. Alabaina, ez da hau ereduari atera zion mozkin bakarra, euskal ordainak taxutzeari dagokionez: *DAut*-eko erdarazko materiala —gaztelania zein latina, eta are inoiz grekoa— eta bertan oinarrituta *HH*-rako eratu zuena, biak erabili zituen hitz berriak egiteko, eta hau elkarbidean nabarmenago —ziurrenik antzemanerrazago baino ez⁷⁷⁹— da inon baino.

Erdaren eragina batzuetan erabat linguistikoa izan zen, analogiaz, Larramendik zatiz zati itzuli edo kalkatu zuen eredu eskainiaz.⁷⁸⁰ Haatik, gehienetan gaztelaniazko hitzei buruzko informazio osagarri ezberdinak, elkartu berria eratzeko gaiak gordetzen dituen biltegi baten antzera erabili zuen. Bigarren eragin mota hau zuzenean dator euskara hizkuntza filosofikotzat jotzetik, eta honela eratutako hitz elkartuek zeraren esanahia adierazi nahi lukete, beraz.

Aurkeztuko ditudan adibideak, asko izanik ere, nabarmen iruditu zaizkidanak bakarrik izango dira: elkarte ilunen azalpen bila nenbilela aurkitu ditudan antzekotasunak edo, alderantziz esanda, azalpena ikusarazi didatenak. Adibideen ugaritasunak berak agerian jartzen du hitzberrigintza —senaz zein ez— indarrez ibili dela hitz elkartuen arloan. Bide batez, zenbait hitz Larramendirenak direla, eta ez herrikoiak, frogatzeko biderik ziurrenetakoa da: adibidez, *arnasta*

⁷⁷⁸ *Abalia* bera ere ziurrenik toponimoaren interpretazioa (*ab*- ‘ahoa’ + ?) baino ez da (ik. § 8.2)

⁷⁷⁹ Eratorbidean ere (§ 2.2.4.4) saiatu naiz erdararen eta euskal ordainen arteko lotura zenbait azalera baina, bertan azaldu bezala, hemen eman niezaiokeen baino arreta gehiago eskatzen du gaiak.

⁷⁸⁰ Euskararen barruan bertan ere antzeko gertakari zenbait aurki daitezke, baina beranduago (§ 5.3) aztertuko ditut, hizkuntzaren barruan hitz berriak eratzeko gainerako beste zenbait baliabiderekina batera.

“calabriada”-ri lehen begiratuan jadanik berak egina delako zantzua har diezaiokegu; ez, nik uste, *azuntz* “epimedio, hierba” ederrari. Ostera, *DAut*-en azalpenak irakurri ondoren, bai bata (< *ardo* + *naste*) eta bai bestea (*aza* + *untz*) *HH*-ko hitz berriak direla erabaki beharrean gaude. Dena dela, ez genuke ahaztu behar inoiz edo behin halabeharrez gertatutako batetortzeak egon daitezkeela, hasieran aipatu dudan *arrangorri* bezalaxe, edota *aizapelota* / *aizapilota* “pelota de viento” bikotea, herrikoa dela ustekabean jakin arte (ik. § 12.2.8) ezpairik gabe Larramendik eraturakotzat jotzen nuena.

3.3.1. Analogiak eragindako elkarteak

3.3.1.1. Latinez

Euskal ordaina lortzeko bide bat, latinezkoaren itzulpena eskaintzea da; ondokoak dira nire arreta erakarri zuten lehenengo adibideak:

KATUARRAI "pimpido, pescado", lat. *felis marini species*.

OILO GIZEN "pavada", lat. *gallina crassa*.

Eta hona corpusean aurtitutako aleak:

ABARTE (*abe* + *arte*) “claro en la Arquitectura”, lat. *intercolumnium*.

ARAKARO (*aragi* + *aro*) “encarnadura”, lat. *carnis temperies*.

ARANGORRI ANDIAK "diaprea, especie de ciruela", lat. *prunum rubicundum grandius*.

ARBAZKATU (*aragi* + *bazkatu*) “encarnizarse”, lat. *carnes vorare*.

ARTUERALDE (*artu* "acceptar" + *eralde* "razón") "cargo, en las cuentas", lat. *ratio accepti*.

ARZAINURROTS "madrugal, composición poética", lat. *carmen pastorale*.

ATEZKUTU "surtida", lat. *exitus occultus*.

Bestetan, latinak hitzaren zati bat bakarrik azaltzen du:

ALEGURINTXA (< *gurintxa* “glándula”) “lehecillas de cabrito, carnero, &c.”, lat. *glandulae lacteae*.

ARTIRI (< *arto*) "enea, hierba con unas pajas como juncos", lat. *panicula*.

AURKEGORRI (< *aurke*- 'aitzin-'), "corredor", lat. *antecursor* (bigarren zatia *DAut*-en azalpenak argitzen du: “El soldado o soldados que se envían...”).

3.3.1.2. Grekeraz

Inoiz *DAut*-en etimologia grekoak ere baliatu ditu euskal hitz berria eratzeko:

ALDIZENDA "metonymia" < *DAut* "Es voz Griega, que vale Mudanza de nombre".

ASTORRO "onocrótalo, ave" < *DAut* "Su grito o graznido es semejante al rebuzno del asno, y por esso le llamaron *Onocrótalo* en Griego, de *ones*, asno, y *crotalos*, grito o ruido".

3.3.1.3. Gaztelaniaz

Bere ardurarik handiena gaztelaniazko hitzak euskaraz ipintzea zenez gero, ikusiak ikusirik espero izatekoa genuen hizkuntza honek latin-grekoek baino askoz aukera gehiago izatea jorratzen ari garen honetan. Bildu ditudan adibide ugariak formaren aldetik sailkatzen saiatuko naiz:

a) Kalkoak. Gaztelaniazko hitza (edo hitza eta zehaztapena) dagoen-dagoenean (ordenan eta osagaietan) euskarara itzuli du:

akirin "cabrón castrado" (*aker* + *irindu* "castrado"). *argi iges* "lucífugo". *arraianre* "pexemuller". *arraizpata* "espada, pez" (gazt. *pez espada* buruan zuela jakintzat emanaz, behintzat). *arriolio* "petróleo". *arropa txuri* "ropa blanca". *artatzitu* "entrecoger" (*arte* "entre" + *atzitu* "coger"). *artautsi* "interrumpir". *artepaki* "entrecortar". *azkenai* "(última) voluntad".

Sail berezia osatzen dute erdaraz eta euskaraz 'izena + izenondoa' egitura elkartua daukatenek:

aobaltz, aobeltz "boquinegro". *aoidiki* "boquiabierto". *aoker* "boquituerto". *aoleor* "boquiseco". *aozabal* "boquiancho". *arpegibete* "carilleno". *arpegizabal* "cariancho". *atekilabur* "rabicorto". *atzeki luze* "rabilargo". *auoker* "boquituerto". *aurkaluze* "carilargo". *aurkamin* "cariacedo". *aurkazabal* "cariancho". *aurkazur* "caricuero".

b) Itzulpenak. Kalkoaren antzekoak, baina euskal ordena ezarriaz:

adabakotx "unicornio". *aizeartzaille* "ventor". *alboko min* "(dolor de) costado". *altistama* "madreperla" (< *altiste* "perla"). *andrazaitzaille* "guardamuger". *andre hitz* "palabrimuger". *aotapa* "tapaboca". *aranzerri* "(puerco) espin" (*aranza* + *zerri*). *arritxari* "echacantos". *arropagain* "sobreropa". *ataurre* "antepuerta". *ateaitzin* "antepuerta". *azurtxeari* "quebrantahuesos".

Elkarbidea oso egokia da, jakina, gaztelaniazko *de* preposiziodun izenlagunak euskaraz hitzean barneratzeko; ohartu batzuk kolokazioak direla, baina beste batzuk zehaztapenak baino ez.⁷⁸¹

abisu-ontzi "(navío de) aviso". *aien mentu* "codadura de vid" (*aien* "vid" + *mentu* "púa de injertar"). *amodio zuaitz* "árbol del amor". *argi-armiarma* "araña de luzes". *argimotirairu* "morterete de cera" (*argizagi* edo *argikai* "cera" + *motirairu* "mortero"). *arrazoi usu* "uso de razón". *arulle* "vellón de carnero" (*ari* + *ulle*). *auker-ontzi* "vaso de elección". *auntzoin* "pata de cabra". *azari mats* "uva de raposa".

Aipatutako guztietatik nabarmenenetan, elkarbarearen osagaien bildumak ez du ezer adierazten hitz osoaren esanahiari buruz, *HH*-ko azalpenetik eraketak erakusten digun bezala:

aizeartzaille "perro de caza". *andrazaitzaille* "criada de la Reyna". *auntzoin* "se llama el embarazo que sobreviene en algún negocio".

edo haren osagaien arteko erlazioak ez dauka azalpenik euskaraz; hurrengo adibidean 'izena + izena > izenondoa' egitura ezinezkoa sortzen da:

andre hitz "palabrimuger, hombre que habla como muger".

Itzulpenak inoiz egitura aldaketa ekar dezake, esanahia ongi jasotzeko:

arraultz-ari "huevos hilados".

Baita itzulpen bereziak eragin gaztelaniazko hitzaren esanahien arabera:

aginsakale, aginateratzaille, aginidokitzaille "sacamuelas" vs *aginsakai, aginidokai, aginaterakai* "sacamuelas, el instrumento".

c) Ordain etimologikoak. Larramendik gaztelaniazko hitzaren osagaietako bat itzuli du, etimologia kontuan hartuta eta esanahiari gehiegi begiratu gabe:

aitezarri "empadronar" (< *aita* = *padre*). *adarturunta* "corneta" (< *adar* = *cuerno*). *arinkore* "prestiños" (< *arin* = *presto*). *arizkar* "roblizo" (< *aritz* = *roble*).

⁷⁸¹ Ezberdina da *arzubi* "puente de piedra"-ren kasua, Larramendik euskal hitza sartzeko *DAut*-en nomenklaturari egindako eransketa da eta.

Osagai etimologikoa elkartearen lehen lekuan agertzen da beti, azalpen edo apaingarri modura, bigarrenak (*ezarri*, *turunta*, *orea*, *azkarra*) esanahia zehazteko zeregina betetzen duen bitartean. Hau ez da beti honela, dena den; hurrengo kasuan zati bat etimologikoa da, eta bestea *DAut*-en azalpenak argitzen du:

atzengeldi "paradero" < *atzen* "último" (< *DAut* "Metaphóricamente se toma por el fin o término de alguna cosa") + *gelditu* "parar".

d) Oihartzunak. Gaztelaniazko hitza edo haren zati bat gorde du, (1) batzuetan arrazoirik gabe, itxuraz behintzat, baina (2) bestetan, gehienetan, mailegua *HH*-an dagoela (etimologia lagun zein ordain arrunten artean) profitatuaz:

- (1) *argonzi* "argonave". *arrangaro* "garo, pez, especie de langosta". *atameaukari* "meauca, ave parecida a la ánade" (cf. *DAut*: "Llamóse Meauca por la figura onomatopeya del sonido de su canto").
- (2) *aiertopa* "tope" (cf. *topatu* "topar"). *aoboa* "boato en la voz" (cf. *vaho*-ren etim.). *aomeilatu* "mellado" (cf. *meilatu* "mellar"). *arlantxa* "lancha, piedra ancha no gruesa" (etim.; honetan azalpenak ere lekua izan du). *armapila* "armadura" (cf. *arma* "arma"). *artitoi* "gota artética" (cf. *artejo*-ren etim.). *aurkaboba* "caribobo" (cf. *boboa* "bobo").

e) Itzulpen egokitua. Osagaietako bat —bigarrena, adibideen arabera— gaztelaniazkoaren itzulpena da, eta bestea esanahia zehazten dion mugatzailea:

aleztarri "gargantilla" (*ale* "abalorio" + *eztarri*). *arri-orratz* "aguja, obelisco, pirámide".

3.3.2. Esanahiak eragindako elkarreak

3.3.2.1. *HH*-ko azalpenen eragina

HH-ko azalpen gehienak *DAut*-etik hartuak dira (I, § 5.2); beraz, nolabait hemen ere, itzalpean baino ez bada, ereduaren eragina somatzen da. Halaz ere, sarritan erabateko lotura agertzen zaigu, zeharo esanguratsuki, *HH*-rako Larramendik hautatu duen azalpeneko hitzen eta euskaraz ipini duen ordainaren artean eta, honexegatik, badirudi bitartekotza honi garrantzi berezia aitortu behar diogula, azalpena *DAut*-etik datorren ala ez begiratu gabe ere.

a) Azalpena —osorik edo haren zati esanguratsu bat— eta euskal ordain elkartua hitzez hitz elkarri dagozkio:

abrebasle "ladrón de bestias". *abroin* "el pie de los animales". *aderna* "cuerno que empieza a salir" (*adar* + *erne*). *agate* "puerta de palos". *agots* "palos para hazer ruido". *aitzagaineko lur* "pedazo de tierra sobre peñas". *alboko min* "dolor de costado". *alkiluze* "assiento largo". *amaroin* "medida de diez pies". *anbasal* "vender a tanto" (*anbat* + *saldu*). *andeza* "tumor acuoso" (< *anditsu* "tumor" + *eze*). *aobolina* "instrumentos de boca" (cf. *bolina* "instrumento músico"). *aoreki* "de boca abierta". *arbi biribil* "nabo redondo". *arbiskazi* "simiente de insectos" (< *arbiska* "insecto"). *ardau*, *ardo*, *arno gorri* "vino roxo". *ardoneurtzaille* "medidor de vino". *arilarru* "cuero de carnero". *arkirudi* "viso de luz" (< *argi* + *irudi* "viso"). *armenasta* "piedra metálica" (< *arri* + *menasta* "metal"). *arrano-arri* "piedra de el águila". *arrano kanpis* "águila bastarda" (< *kanpis* "bastardo"). *arrokarri* "piedra esponja" (< *arrok* "esponja" + *arri*). *artardo* "vino de maíz". *arteistari* "el que caza con lazos" (< *arte* "lazo" + *eiztari*). *artepaira* "la abertura para tomar agua" (< *artu* "tomar" + *epaira* "taja, cortadura"). *astabortusai* "ruda silvestre" (< *bortusai* "ruda"). *astagarbanzu* "garvanzo silvestre". *astaien* "vid silvestre". *astalmendra* "almendro silvestre". *astamadari* "peral silvestre", "pera silvestre". *astapalma* "palma silvestre". *astatipula* "cebolla silvestre". *astaurraza* "es semejante a la lechuga silvestre". *astazafrai* "azafrán salvaje". *aurreziana* "el que precedió en algo". *ausboilkari* "remolino de polvo" (< *boilkari* "remolino"). *autsasi* "principio de quebrarse alguna cosa" (*autsi* + *asi*). *azarrakatu* "abrirse el erizo con su castaña o la corteza con la nuez" (*azal* + *arakatu* "abrirse, por henderse").

Atal honetako hitz guztiek ez dute nahitaez berri izan behar (nahiz gehienetan izan badiren, noski): cf. *ardo gorri* eta aldaerak (*ardao gorri XV*), adibidez. Gure adibideak itzultzen duen hitzean (gazt. *aloque*) erreparatzen baldin badugu, berehala soma dezakegu sistema honek batzuetan gaztelaniazko hitzik xelebreenak erraz eta egoki itzultzeko bidea eman ziola.

b) Azalpeneko bi hitzek osatzen dute elkartua:

arauntz "hijo de cabra y carnero". *argorri* "gusano que sirve para teñir de grana, es muy encarnado". *arkoskarea* "argamassa de piedra menuda, cal y betún" (*arkoska* "cascajo" + *karea* "cal"). *arraultz irin talo* "torta de huevos, harina y ajónjolí". *arrazi* "semilla que viene de Persia, y es contra los gusanos" (*ar* "gusano" + *azi* "semilla"). *arrosti* "zumo de rosas con miel" (*arrosa* + *ezti*). *askaste* "resolución de una cosa a sus principios" (*aska(tu)* "resolver" + *aste* "comienzo, principio"). *astamats* "uba de vid silvestre". *astendatu* "levantar algo para probar el peso" (*astun* + *tentatu* "tentar, probar").

c) Osagai bat azalpenak edo zehaztapenak argitzen du, eta bestea gaztelaniazko buru-hitzak:

argidoain "claridad, dote de gloria". *armiarma-arrai* "araña, pescado". *auntzuge* "saltacabras, especie de serpiente". *atorri* "pañal de camisa" (< *orri* "pañó"). *antxarrai* "cabrilla, cabra, pescado" (*auntz* + *arrai*). *aza lonbardar* "lombarda, cierta berza". *azizorro* "sementero, el costal del grano". *azkendukitu* "retocar, lo que ya está acabado".

d) Osagai bat gaztelaniazko hitzaren adiera nagusiak erabaki du, eta bestea azalpenak:

adipaki "preciso, por el entendimiento" (*adi* "intelección" + *epaki* "preciso"). *agerbial* "patente, despacho, cédula" (*ageri* "patente" + *bial* "passaporte", "passe", "salvoconducto").

3.3.2.2. DAut-en informaziotik eratorritako hitzak

DAut-en informazioa, ordain perifrastikoak ez eze, oso maiz euskal ordain trinkoagoak erdiesteko ere baliatu du Larramendik. Badira ereduko definiziotik edota informazio entziklopedikotik ezaugarriak garrantzitsuenak hartuta egindako hitzak:

ANDIRAITZI (*andi(k)* + *iraitzi*) "recudir" (+ *jobotatu*) < DAut "Resaltar o arrojar de una parte a otra".
ARRAUTSI BEDAR (*arri* + *autsi*) "salsafrás, salsifrás, yerva" < DAut "...se les dió este nombre (...) por la virtud que tienen de deshacer y quebrantar la piedra que suele formarse en los riñones". (gazt. *calafraga*, *belar berbera*, *autsarri da*, *berriz*).
ATABURDINA, ATABURNIA "aldaba" < DAut "La pieza de hierro o bronce que se pone a las puertas para llamar...".
AUNTZILEO: "picote" < DAut "Tela áspera y basta que se fabrica de pelos de cabra".
AUNTZOREIN: "tragelafo" < DAut s.v. *tragelapho*: "Animal que es de naturaleza media entre ciervo y cabra, porque resulta por generación de los dos".

Batzuetan, honekin batera, sarrera berean DAut-ek aipatzen dituen esanahikideek ere zerikusia daukate:

ARAKARRI (*aragi* + *arri*) "sardio, piedra preciosa" < DAut "Es ordinariamente de color de carne (por lo qual se llama también carnalina...)".
ARZ TXIKI "bocina, constelación" < DAut "...los astrónomos la conocen por la Ossa menor" (cf., *ordea*, *artzizar andia*, *artzizar txikia* "ossa mayor, ossa menor").
AZUKRE ARRO "azúcar rosado" < DAut "El que se hace artificialmente, esponjado (...). En algunas partes le dan diferentes nombres, como esponjado, volados, &c.".
ARDIBELAR "zaragatona, zargatona, yerba" < DAut "...cuya simiente es negra, semejante a una pulga, por lo qual la llaman también Pulguera".

Orain artean emandako adibide ia guztien (*andiraitzi* izan ezik) ezaugarria da, DAut-i jarraiki egindako hitza sarrerako euskal ordain bakarria izatea; *ardibelar*-en kasuan biak (bestea *kukusbelar* baita) jarraitzen zaizkio. Oso xehetasun jakingarria da, noski, eta hemendik aurrera

ordain bakarra denean adierazi egingo dut, baita beste ordainek definizioarekin zerikusirik duten ala ez.

Oso sarri, ordaina *DAut*-eko lehen hitzak (edo haietako batzuk) hartuaz eratu da, informazio hori zehatza edo orokorra den begiratu gabe:

- ALDASARE (*alde* 'costado' + *sare*) "filarete" (ordain bakarra) < *DAut* "La red que se echa y corre por los costados del navío...".
- ALELTX (*ale* + *beltz*) "siligo" (ordain bakarra) < *DAut* "Simiente negra que...".
- ALZATI (*ale* + *zati*) "tazmia" (ordain bakarra) < *DAut* "La porción de granos que...".
- AOKITU (*ao* + *idiki*) "boquear" (ordain bakarra) < *DAut* "Abrir la boca como para...".
- ARBI TXIKI: "ruiponce" (ordain bakarra) < *DAut* "Especie de nabo pequeño...".
- ARNASTA (*ardo* + *nastu*) "calabriada" (ordain bakarra) < *DAut* "Mezcla de dos o más vinos...".
- ASTAZA: "lampsana, planta" (ordain bakarra) < *DAut* "Especie de berza silvestre...".
- ATAURKA (*ate* + *aurka* 'aitzin') "mampara de puerta" (+ *garapara* [sic])⁷⁸² < *DAut* "Cierta género de antepuerta...".
- ATZENORDU "completas" (+ *completac*) < *DAut* "La última con que se terminan las horas...".
- AUNTZILE "pelote" (ordain bakarra) < *DAut* "El pelo de cabra...".
- AURKOL (*aurka* / *aurke* "frente" + *ol*) "talanquera" (ordain bakarra) < *DAut* "El artificio de tablas, puestas de frente...".
- AURSARE "pollera, para andar los niños" (+ *seinsarea*) < *DAut* "Cierta artificio hecho de mimbres que se pone a los niños...". *sare*-ren balioaz, cf., adibidez, "cañizo, estera de cañas, *cañaberazco* (...) *sarea*".
- AUZI-ESEKI (cf. *esekita dagoana* "pendiente") "litispendencia" (ordain bakarra) < *DAut* "El pleito pendiente...".
- AZUKRELIKA (*azukre* + *lika* "humor aún no fluído del todo, sino que se pega...") "almíbar" (+*urazucra*) < *DAut* "El azúcar liquidada...".
- AZUKRORETXO (*azukre* + *oretxo*) *azukroretxoak* "pellizcos de monjas" (ordain bakarra) < *DAut*: "Unas porciones de masa de azúcar, mui delicada...".

Ostera, maiztasun beretsuarekin azalpeneko zenbait osagai, nahitaez esanguratsuenak izan beharrik gabe, hautatu ditu ordaina eratzeko:

- AILOIZOKI (*aia* "puches" + *loizoki* "emplasto") "puchada" (ordain bakarra) < *DAut* "El emplasto que se hace con harina desleída a modo de puches".
- AITZUGARTE "isleo" (ordain bakarra) < *DAut* "Parte de isla o manera de isla que por lo regular es de peñascos...".
- AIZAGAINETU "barloventear el navío" (ordain bakarra) < *DAut* "Puntear o dar bordos el navío (...) a fin de ponerse sobre el viento...".
- ALDARRI (*alde* + *arri*) "guardalado, de puente" (ordain bakarra) < *DAut* "El antepecho de piedras que hai a los lados de las puentes...".
- ALDAURKE (*alde* + *aurke* "frente") "hypotenusas, en la Geometría" (ordain bakarra) < *DAut* "Es en los triángulos rectángulos (...) el lado opuesto al ángulo recto...".
- ALDOL "témpanos de cuba" (ordain bakarra) < *DAut* "...en las cubas el círculo de tablas que las cierra por los lados".
- AOLATZ "mustela, pescado" (ordain bakarra) < *DAut* "...tiene la boca mui áspera".
- AOPUTZU "brocal de pozo" (+ *putzucu arresia*) < *DAut* "El antepecho colocado al rededor del pozo (...) que le sirve como de boca...".
- ARAKAR GORRI (*arakarri* "sardio" + *gorri*) "sardonix, piedra preciosa" (ordain bakarra) < *DAut* "Piedra preciosa que imita (...) el color encendido del sardo [edo *sardio*]".
- ARBELOTA (*aran* + *pelota*) "bodoque" (ordain bakarra) < *DAut* "Una pelota o bola de barro hecha en turquesa y endurecida al aire, del tamaño de la ciruela pequeña...".
- ARBETUN "lithocola" (+ *arnaslika*) < *DAut* "Betún (...) que sirve para unir y conglutinar las piedras".
- ARKAITZAUNTZ "rupicabra" < *DAut* "Cabra sylvestre o montés, de suma ligereza, para saltar (...) de un risco a otro".
- ARRAINLO "coca, yerba" (ordain bakarra) < *DAut* "Usan de ella los pescadores echándola mezclada con cal en los ríos, para emborrachar y adormecer los pescados...".
- ARTARRAI (*arte* "entre" + *arrai*) "escaro, pez" (ordain bakarra) < *DAut*: "Pez exquisito y delicado, que de ordinario anda entre escollos...".

⁷⁸² *OEH*-ak dagoen-dagoenean jaso badu ere, usteldura da: gazt. *mamparar* eusk. *garampatu* etimoarekin azaldu zuen Larramendik, baina hutsen zuzenbidean *gamparatu* zuzendu zuen, etimologiarekin (*gan, ganean* + *paratu*) bat etorririk. Beraz, badirudi *gara[m]para* irakurri behar dugula *mampara*-ren ordaina.

ARTELATZ (*arte* "encina" + *latz* "áspero") "alcornoque" (ordain bakarra) < *DAut* "Arbol semejante a la encina. (...) Su fruto es bellota, como el de la encina, pero más pequeña, y cubierta del cascarón o capullo, que es mui áspero".

ATXOL (*atz* "dedo" + *ol* "tabla") "tecla" (+ *tekla*) < *DAut* "Una tablita de palo u marfil en que se afirman los dedos...".

AUTXULONTZI (*auts* + *zulo* + *ontzi*) "salvadera" (+ *salvadera*) < *DAut* "Vaso (...) con unos pequeños agujeros por la parte de arriba, en que se tienen los polvos para echar sobre lo que se escribe...".

AUTXULUNTA (*auts* "ceniza" + *txulunta* "francolín") "sisón, ave, especie de francolín" (ordain bakarra) < *DAut* "...especie de francolín, sólo que su color es ceniciento".

AZITRAILORA (*azitrai* "axedrea" + *lora*) "epithymbra" (ordain bakarra) < *DAut* "La flor purpúrea que nace sobre la Thymbra, que en España se llama Axedrea".

AZUKRE EZKUR "azúcar de pila" (ordain bakarra) < *DAut* "El que se hace en unos piloncitos, como bellotas grandes".

AZUNTZ (*aza* + *untz*) "epimedio, yerba" (ordain bakarra) < *DAut* "Hierba o especie de col, (...) y tiene diez u doce hojas semejantes a la de la hiedra".

Inoiz *DAut*-en hitz elkartuaren osagai bakar baten azalpena idorotzen dugu, gainerakoa egilearen asmamenaren araberakoa den bitartean:

ARGITOL (< *ol*) "luna de espejo": cf. *DAut* "Se llama también a la tabla de vidrio cristalino...".

HH-ko euskal ordainaren eta *DAut*-eko azalpenaren arteko lotura are nabarmenagoa da ordainak erdal izenaren "zuzenketa" jasotzen duenean:

AKARERRO (*akara* "nardo" + *erro*) "espicanardi" (ordain bakarra) < *DAut* "Una de las especies de la planta o mata llamado Nardo (...). Llámase así porque parece espiga, aunque verdaderamente es raíz".

Hurrengo adibidean, berriz, euskal ordainetako bat arrunta da, eta bestea haren hedapena, *DAut*-eko azalpeneko hitz bat ordain arruntari erantsiaz lortua:

ASKURTU (*askatu* "desatar" + *urtu*) "desleír, urtu, ascurtu" < *DAut* "Separar u desatar las partes de algún cuerpo con algún liquor".

Gutxiagotan bada ere, *DAut*-eko etimologiak ere zerikusi zuzena izan dezake euskal ordainaren itxuran:

AJOLAUTSI (< *ajola* "cuidado"; cf. *HH* "cargo, cuidado") "escarmentar" < *DAut* "...la [etimología] mas verisimil es que es compuesto de los nombres Cargo y Mente, y que Escarmentar vale lo mismo que hacer cargo a la mente, para que advierta y reconozca los daños y yerros antecedentes, y los huya y evite".

ARGIBELAR "lucérnula, planta" < *DAut* "Despide de si de noche un género de luz o claridad, con que alumbra a los caminantes, por cuya razón se le dio este nombre".

ARLATX (*ardo* + *latz* "agrio") "vinagre" (+ *ozpiña*, *vinagrea*) < *DAut* "Es compuesto de las dos voces, Vino y Agrio".

ARTIZKINDE (< *artez* "recto") "orthographía" < *DAut* "Es voz griega, que significa recta escritura".

ATZBELAR (*atz* "sarna" + *belar*) "escabiosa, yerba" (ordain bakarra) < *DAut* "El zumo que se saca de ella es mui saludable contra la sarna y roña, de donde parece tomó el nombre del Latino *Scabies*, que significa la Sarna".

AUNZADAR "cornicabra, árbol" (ordain bakarra) < *DAut* "Es compuesto de las voces Cuerno y Cabra".

AUNZEDOSLE "chotacabras, ave nocturna" (ordain bakarra) < *DAut* "...así dicha porque de noche mama y chupa a las cabras la leche...".

Baita inoiz adibideek eurek ere; gure kasuan, adibideak etimologia azaltzen du eta, alde honetatik, ez da goikoetatik gehiegi bereizten; haatik, Larramendik sarrera osorik eta arretaz irakurri zuela erakusten digu:

AXALKOR (< *gogor*) "esclirótica, túnica córnea de los ojos" < *DAut* "y fue llamada *esclirótica*, que quiere decir Dura".

Ezpairik gabe, *DAut*-en azalpen-iruzkinen laguntzarik gabe hainbat hitzek ilun iraungo lukete, nitaz den bezainbatean behinik behin. Bi adibide gorde ditut hau agerian jartzeko; lehenean hitzaren osagaiak dexente desgisatuta daude:

AGIKUR (*agin* + *kurrika* "tenaza") "gatillo, sacamuelas" (ordain bakarra) < *DAut*: "...cierto instrumento a modo de tenaza, con que se sacan las muelas y dientes".

Bigarrean, *DAut*-en etimologi azalpena irakurri gabe, nekez antzeman nezakeen bigarren osagaia (*loka*) nondik sortu den, esanahiaren aldetik ezin izan baitezake eusk. *loka* hitz ezagunarekin inolako zerikusirik:

ARRILOKA "lucillo" (ordain bakarra): cf. *DAut*: "La caja de piedra, dentro de la qual sepultan los cuerpos de los nobles. Covarr. dice se llamó así quasi *Loculi*, del latino *Locus* (...). Lat. *Loculus feralis*".

3.3.2.3. Larramendiren irudimena

Aurreneko ataletan eman ditugun adibideek, badirudi adierazten dutela ezen Larramendi betaurrean zeukan informazioaz bakarrik baliatu zela. Aitzitik, hitz elkartu askoren oinarrian *DAut*-eko sarrera irakurtzerakoan bururatu zitzaiona, berak delako zeraz zekiena edo imajinatu zuen metafora, eta ez irakurritakoa bera:

ALTISOI "nácar" (*altiste* "perla" + *oi* "cama"). Cf. *DAut*: "La concha en que se cría la perla".

AOKANOI "cerbatana" (*ao* + *kanoi* "cañón").

ARAUSLE "facinoroso", "reo, culpado" (*arau* + *ausle*).

ARBILGETA "albóndiga, albondiguilla, guisado conocido" (*aragi* + *bilgeta*)

ARNEZTI "mosto" (*arno* + *ezti*).

ATSERIO "garrote, castigo de muerte" (*ats* "respiración" + *erio*).

ATXORDE "tenedor, para comer" (*atz* "dedo" + *orde*).

AUTZAI "bocina", "cerbatana", "corneta de música" (*autza* "carrillo" + *jo*).

AZURAUSTE "catasta, especie de potro para atormentar"; cf. *DAut*: "En los dos extremos de arriba avía unos huecos o agujeros, en donde estaban encaxadas unas garruchas con unas cuerdas, las cuales atadas a las muñecas del reo (o Martyr) y atados al mismo tiempo los tobillos a los extremos de abaxo con otras cuerdas, le estiraban todo el cuerpo hasta descoyuntarle los miembros".

Inoiz, ideia-kateak bitxiak izan daitezke:

ARTOILA (*arto* "maíz" + *boila* "redondo") "tuerca" (+ *ocoilla* < *ogi*); cf. *DAut* "El hueco con muescas y abierto en espiras donde entra y juega la espiga del tornillo", nondik *espiga* > *trigo* > *pan* > *ogia* eta *artoa*.

Eta bestetan elkartearen itxura gaztelaniazko hitzaren edo haren definizioaren eta Larramendiren ohituren artean erabakia dator. Adibidez, figura geometrikoen izenak *aurka* / *aurke*-ren inguruan eratu ohi ditu (cf. §§ 3.1.6.1 eta 3.1.6.2), eta honi gero bestelako osagaiak eransten dizkio:

AURKARTEZ "rectángulo" (< *artez* "recto"). Eta cf. *zortziaruka* "octágono", *diarkeko* "polygono", *hiraureka* "triángulo", etab.

AURKELAUGOI "tetraedro": Cf. *DAut*: "Es una pirámide terminada por quatro triángulos equiláteros", nondik *lau* eta *goi* (~ "terminada", cf. *abego*-ri buruz *DAut* "...el pedazo de madera que ponen sobre...").

Era berean, gazt. *palo* eusk. *aga* izaten da (cf. *agapuru*, *agate*, *agots*, *agurten*), esaterako, eta 'conducto' / 'canal' adierakoei beti *odi* dagokie (*abodi*, *arkodi*, *atsodi*; § 3.1.6.2.q) edota txiki-eskasei beti *urri* (*alaiturri*, *andurri*, *askurri*, *aturri*; § 3.1.6.2.t).

3.4. Ondorioak

HH-ko hitz elkartuen miaketarik azalekoenak ere aberastasun handia dagoela erakusten du: Larramendik, batzuetan inork baino lehenago, hainbat elkartu herrikoi jaso ahal izan zituen bere hiztegia osatzeko. Alabaina, entzun edo irakurritakoak ezpairik gabe urriegi gertatu zitzaizkion erdal nomenklaturari erantzun emateko. Aztertutako hitzen artean harri, landare eta animalia izenak ugari aurkitu ditugu, bai bete-betean “fakultatibo” dei daitezkeen hitz aski, baita tresna eta kultur objektu anitz ere. Hauetako askoren izenik euskaraz idoro ezinik, maiz tradizioko elkarbideari, hots, ezagutzen zituenen moduko hitzak eratzeari ekin zion, sailak hitz berri egokiz osatuaz.

Aldi berean, azterketak argi utzi du tradizioaz lekora kokatzen diren elkarreak ere badirela. Ez dago arrazoirik, nik uste, hau tradizioa hautsi nahian gertatu denik sinisteko: aitzitik, badirudi gehienetan analogia behar ez den bidetik ibili dela, formalki elkarre arruntak osatuaz, baina sakonki aztertuz euren arteko erlazio sintaktiko zein logikoa erabat ezohikoa —ezinezkoa ere izan daiteke batzuetan— dutela erakusten dutenak. Bestetan, berriz, lokeran osagaiak pairatutako aldaketek desitxuratu dituzte *HH*-ko hitzak: arau zahar gaizki ulertuak dira batzuk agerriki, eta beste batzuk etimologietan aurkitu uste izandako laburtzapenen modukoak izan litezke, edota hitz ezagunetan gaizki interpretatutako ustezko aldaketak, agian. Bi gertakariok batzen dira Larramendik hizkuntzari buruz zituen uste eta ezagutzak aintzat hartuaz: zer egin daitekeen, eta nola. Bere hitz elkartuen anomaliak aztertzerakoan, delako gertakari bati buruz berak zuen pertzepzioa eta gurea bat ez direla agerian geratu da.

Hots-aldaketen arloan, ihartutako aldaketa batzuekin batera, analogiaz —ondo edo gaizki— hedatutako aldaketa zaharrak eta zeharo berriztat eman behar ditugunak ere agertu zaizkigu, eratorpenean bezalaxe, baina maiztasun handiagoz. Oro har bertan esandakoek balio bera dute hemen ere.

Eranskin garrantzizko bat egin behar zaio orain, halere, eratorpenean bakanka baizik somatu ez dugun —edo irizpide argirik izan ezean gehiagotan somatzerik izan ez dugun— ezaugarri garrantzitsu bat garden ageri baita elkarketan, fonetikan hots desagerpen edo aldaketa modura islatua, baina honen mugak gainditu eta morfologiazko fenomenoekin lotu beharrekoa: Larramendiren berranalisian atzizkiek daukaten garrantzi bereziaz ari naiz, *Erans-*ean antzemandakoa berretsiaz (II, § 3.3). Batetik, elkarre askotan atzizkiak —baita atzizkitzakoak eta etimologiak agerian jar ditzakeen bestelako osagaiak ere— desagerkizun dira, morfo zehazgabe bati —erroari?— lekua eginez (§ 3.2.3.7.2). Bestetik, elkartuak hiperkategoriza ditzakete, edo bestela gramatika kategoriaren aldetik anbiguo gerta zitezkeen ezohiko elkartuen kategorizatzaile gisa agertu (§ 3.1.7). Eta, biak lotuta, izen-aditzak bata bestearen iturrian egon daitezke, atzizki jartze edo kentze hutsaz. Honelako gauzez beranduago (§ 5.4) hitz egin beharko dugu.

Osagaien arteko erlazio semantikoari dagokionez, bitxikeria gehienak —baita erabat normal diruditen hainbat elkarte ere, bide batez— hiztegia osatzeko erabili zuen sistemari zor zaizkio. Jadanik iradoki dut (I, § 9.3), *DAut*-eko azalpenen eta euskal ordain perifrastikoen arteko loturan oinarrituta, hiztegiaren idazketaren lehen unean Larramendik *DAut*-en irakurketatik zuzenean datozen euskal ordainak erantsi zituela. Hala bada, aurrean gaztelaniazko hitzak eurak zituenez gero, sarri euren osagaiak kalkatu edo itzuli zituen, baita lantzean behin latinezko ordainak, hitz grekoen etimologiak (§ 3.3.1) eta batez ere *HH*-rako hautatu zituen azalpenak (§ 3.3.2.1). Bestetan, berriz, *DAut*-ek ematen duen definizioaz edo bestelako azalpenez (etimologia barne) baliatu zen hitz elkartuaren osagaiak hautatzeko. Interesgarria da azpimarratzea honelako ordainak bakarrak izan ohi direla sarreran, edo antzeko batez bakarrik lagunduta egon.

Askatasunez jokatu zuen honetan, baina ez da batere harrigarria, berez hitz elkartuak euskara bezalako hizkuntza “filosofiko” batek izan ditzakeen hitzik “filosofikoenak” baitira, gauzaren eta adierazlearen arteko lotura filosofikoa —semantikoa, hein batean— hobeki eta argienik erakusten dutenak.

4. Larramendiren sorbideen bila (III): Gaztelaniazko aurrizkien euskal ordainak

Gaztelania, ezaguna denez, oso aurrizki sistema aberatseko hizkuntza da, latinetiko garapen jarraiaz erdietsitakoez gainera, bide kultotik bai latinaren bai grekoaren aurrizki mordoa berreskuratu baitu (ik. Alvar & Pottier 1983: 345-360). Ezaugarri hau are nabarmenagoa da euskararekin erkatzen baldin badugu, garai historikoan bederen ia aurrizkirik gabeko hizkuntza baita.

Gaztelania erreferentetzat harturik egindako normalizazio saio guztien —eta, beraz, gaztelania-euskara ordenan antolatutako hiztegi askoren— erronka izan da haren aurrizkientzako ordain egokiak euskaraz idorotzea eta, jakina, beste horrenbestetsu esan ahal daiteke frantsesari zein latinari dagokionez.

Gaztelaniazko aurrizkien *HH*-ko euskal ordainez behar bezala hitz egiteak saio hauek guztiak ezagutzea eskatzen du, baita hiztegietatik at euskara idatzian arazoari eman zaizkion aterabideak ere, Larramendik aurkitu zuen egoeran ongi kokatzeko eta gerora auziak hartuko zuen norabidean bere inplikazioa ulertzeko. Haatik, dakidalarik, orain artean egin izan diren hurbilketa guztiak arau-emaile edo aholku-emaileago dira, deskriptiboak baino eta, nolana ere, ikerketa historikoak dituen gutxieneko eskakizunei erantzun gabe egindakoak.⁷⁸³

Gaiak eskatzen duen ikerketa historikoa hemen egiterik ez egon arren, lehenaldian arreta gehiago jarriaz baliteke Larramendi zertan izan zen berritzaile —eta zertan hedatzaile huts— mugatzen hasteko oinarrizko euskarriak bederen aurkitzea.

Abia gaitzen, bada, geure aurreiritzien iturburutik, hots, gertuko historiatik. Kultur

⁷⁸³ Amurizak (1974) bere burutik jalgitako adibideak bakarrik erabiltzen ditu. Mujikak (1978) Azkueren hiztegia baliatu du nagusiki —itxura denez— baina badakartza Bera, Larramendi eta Aizkibelen hiztegietatiko adibideak inoiz edo behin, bere iritzia azpimarratzeko; Larramendiri dagokionez, *inter-* (39), *ber-* (78), *des-* (92), *sobre-* (122) eta *contra-* (153)-ren adibideak eskaintzen ditu. Deskriptiboagoak dira Villasante (1981) eta Azkarate (1992: 212-216), baina lehenaldia (Axular eta Larramendi, hurrenez hurren) eta orainaldia beste bitartekorik gabe aurrez aurre ipintzen dituzte. Azkaraterena da, dena dela, *HH*-az ezagutzen dudana hurbilketa saio sistematiko bakarra, bertako proposamen zenbait (eusk. *bir-* / *ber-*, gazt. *-con*, *des-*, *in-*, *pre-* eta *sobre-*, *super-*, *supra-*) aztertuz.

hizkuntza gisako euskararen bilakaeraren geldoak —mende honetan garbizaletasunik bazterrekoenetik maileguzaletasun bazterrekoenera egin den osterak lagunduta— oraindik erabaki gabeko auzia izan dadila eragin du.⁷⁸⁴ Mende hasierako kontrakar garbizaleak aurrizkien bidezko eratorpena arrotza delako ustea erein zuen euskaldun jantzien buruetan. Azkuek —garbizaleetan lasaienetakoa, apika, baina inolaz ere gerora eragin gehien izan duena— honela zioen, linguistikarik modernoaren lorpenak egituren *berezko* balioari buruzko tankera idealistako aurreiritziekin nahasiaz:

Son escasos los [prefijos] de nuestra lengua, y es posible que antiguamente no tuviese ninguno, como se dice que tampoco los tuvo el indoeuropeo (...). Por lo que hace a nuestra lengua, aunque no tengamos documentos de su estructura antigua, parece que su genio permite hacernos vislumbrar la razón de su escasez en estos elementos temáticos. Lo más importante, lo más noble se coloca a la cabeza de lo que los modernos lingüistas llaman un sintagma (...). De esta tendencia a colocar a la cabeza el elemento más importante parece venir nuestra querencia al sufijo, nuestra aversión a los prefijos. ¿Pues qué prefijo, no siendo los que se refieren al ser o no ser (confirmación o negación), puede haber más importante que la cosa o la acción de que se trata? (Azkue 1923-1925: § 36).

Ondorioz, “sufijos [sic] alienígenas” direlakoen artean sartzen duen *arra-z* gain, hiru baino ez ditu aintzat hartzen: *ber-* / *bir-*, *ez-* eta *len-* (*ib.* § 38). Inausketarako oinarriak lehendik ipiniak zituen, hiztegia hain zuzen: adibidez, *kontra-* aurrizkiak ez du sarrerarik merezi, eta *des-* aurrizkiari eskaintzen diona ezin adierazgarriagoa da:

Larramendi, en su Diccionario, acogió este afijo dándole carta de naturaleza; y aunque es de uso general alguna palabra que le contiene (como *desbardin*, *desberdin* ‘desigual’, *desejin* ‘deshacer’), no se puede sostener su carácter indígena. (...) Un Vascongado ilustre, que tuvo la paciencia de invertir todo el Diccionario de Larramendi, expone en su trabajo nada menos que ochocientos cuarenta y tres palabras derivadas de este extraño prefijo [sic, *prefijo extraño*-ren orde]. Afortunadamente esta enorme invasión de bárbaras palabras no ha traspasado el papel de los diccionarios y de alguna que otra obra traducida, digásmolo así, *in petto*; no ha llegado a cuajar. Como esta obra no tiene otro objeto que fotografiar en toda la fidelidad posible el lenguaje del pueblo, no ha podido acoger lo que éste no ha sancionado, a pesar del gran respeto que a su autor merece el ilustre Larramendi. Las poquísimas palabras así derivadas que sean de uso corriente, aparecerán a continuación, seguidas, como cualquiera otra palabra dudosa o de extraño origen [sic, *berriz*], de uno o dos signos de interrogación (Azkue 1905-1906, s.v. *des-*).

Azkueren (eta besteren) jarreraren ondorioz, aspalditik maila jasoan edota herrikoian zabalduta zeuden aurrizki bakanen estatusa kolokan geratu zen baina, aldi berean, ez zitzaion arazoari erabateko konponbiderik eman. Azkuek —eta berarekin batera Euskaltzaindiak— ez zuen deskriptibotasunetik normalizaziorako azken urratsa emateko betarik edo, agian, adorerik izan.⁷⁸⁵ Gerraondoko kontrakar maileguzaleari zor diogu, berriz, bere baliabide hutsekin euskarak aurrizkien erabilera oro —batez ere Mendebaldeko kulturaren ondare diren haiek— ezin adieraz ditzakeelakoa.⁷⁸⁶

⁷⁸⁴ Mitxelenak (1968: 980) honela zioen Arantzazuko biltzarrean: “Badu euskerak hitz-sorbide ugari, baina baita ere huts nabarmen bat bederen aldameneko hizkuntzen ondoan. Ez dugu (*des-* eta horren antzekoren bat edo beste kenduz geroz) aurrizkirik, latinezko *ad-*, *ab-*, *co(n)-*, *de-*, *dis-* *ex-*, eta gainerakoen indarra bihur dezakeenik. Erremedio bat baino gehiago izan dezake huts horrek, baina ongi pentsatu behar litzake gerora gabe nola joka”.

⁷⁸⁵ Islapenik onena, *in absentia*, Azkueren gaztelania-euskara hiztegi bukatugabearen istorioa da (ik. Villasante 1979: 385-386).

⁷⁸⁶ Oso adierazgarria da, adibidez, L.M. Mujikaren liburuaren izena: *La prefijación, clave del euskara técnico y urbano* (1978). Adierazgarriak dira, halaber, hitzetan eta hitzazpietan iradokitzen duenagatik,

Larramendirena ezagutzen dugun lehen saio orokorra da, eta horregatik ez eze, gerora izan zukeen eraginagatik ere badirudi arreta berezia eskaini behar zaiola. Halaz ere, bera ez zen inondik inora arazoarekin topoz topo egin zuen lehen euskalaria izan, ez eta gutxiagorik ere. Hiztegieleekin hasirik, gorago jadanik adierazi dut erdara-euskara ordenan antolatutako hiztegieta nabariarik ager daitekeela kontua. Izan ere, ez dirudi Pouvreauren hiztegiak inolako argirik egin dezakeenik, bakanka baino ez bada, bere idazlanetan hartu zituen bideen erakusgarriak badaude ere:

iaquingabea, fermugabetasuna, fede-dudagabeko, bihotzgabetasun, devocionegabeco, ecin icusizco, hildumatugabe, esquergabetasun, bidegabeztatu (*Imitacionea*), berregindura, berregintasun, berreginkeria, neurrigainezco, creatugabea, ecin hillezco, mudagabeko, neurrigabeco, ezhiltzekotasun, ezgaltzekotasun, hobengabetasun, hobengabe, ohizkanpoko, nothagabeko (*Petits oeuvres*), infinituki, iakingabetasun (*Gurist. dotrina*).⁷⁸⁷

Urtek, ordea, borrokan egin behar izan zuen latinezko zenbaitekin, eta badirudi aterabide trinko zenbait lortzen ere ahalegindu zela:

ANTI-: *dactilcontraco ogra* "antidactylus", *lurcontralurrac* "antichthones", *contrerrátea* "antiphrosis".

ARCHI-: *diacono naussia* "archidiaconus", *lphizpicu naussia* "archiepiscopus", *aphez nausia* "archiereus", *oficioco secretario naussia* "archigrammateus".

BI-: *bi adarretacoa* "bicornis", *bi gorphutçetacoa* "bicorpor", *bi hortçetacoa* "bidens".

CIRCUM-: *inguru inguru ebaquitcea* "circumcidere", *inguru inguru herstea* "circumcludere", *inguru inguru guidatcea* "circumducere".

Arrastoren batzuk aurki daitezke, halaber, Harrieten frantses-euskara hiztegi txikian (baina ez euskara-frantsesean):

IN-: *ecinhillia* "immortel", *ecin siñexia* "incroyable", *eciñ onexia* "insuportable".

RE: *be[r]riz billatcea* "rechercher", *berriz erorcea* "récidiver", *berriz ero[r]cea* "retomber", *berriz salcea* "revendre".

Alabaina, aurreneko saio hauek Larramendirentzat ezezagunak —Pouvreau, Urte—, beranduegi ezagutuak —Harriet (§ 10.3)— edo guretzat ezezagunak —Etxeberri Sarakoa (§ 10.2)— direnez gero, ezinbestean euskarari buruz ezagutzen zuenari —aurreko literatura barne— eman behar diogu garrantzirik handiena eratu zuen sisteman. Aterabideak nahikoa ñabarrak izanik —aurrizkiak zein atzizkiak eta perifrasiak, nagusiki—, oso zaila da aurrelanik gabe lehenagoko literaturan zein ahozko lekukotasunetan dauden datuak biltzea. Honegatik, han-hemen kausitu ditudanak gorabehera, batez ere hiru erreferente erabiliko ditut erkaketarako, hirurak literaturatikoak: Leizarraga, Axular eta *CatLav*. Larramendik hirurak ongi ezagutzeaz gainera, egin daiteke lehenengo biak —zein baino zein gehiago (§ 9.2)— ezagutu zituen liburuetan eragingarrienak izan zirela. Dena dela, gainerako Iparraldeko liburuen ordezkari gisa erabili ditut, haien aberastasunean fidatuta eta lexikoiak eskura daudela (Aresti 1980, Villasante 1973 eta 1985, hurrenez hurren) profitatuaz.

Amurizaren (1974: 9) hasierako hitzok (etzana nirea da): "Gauza jakina da euskerak apenas dadukala, edo ez zaiola edukitzen utzi, aurritzirik, atzizkiekin ahal bezala moldaturik. Inguratzen gaituzten hizkuntz nagusi guztietan, ordea, garrantzia berdintsua dute atzizkiek eta aurritziek (...). Teoriaz, gabineteko linguistikaz, pentsa liteke euskera bere baliakizun propioez moldatzea, edo bere aurrizki propioak asmatzea. Praktikan, ordea, honek ez luke zentzurik. Anitz aurrizki arrotz baina beste hizkuntzetan komun onartu beharra hain gauza agiria eta begien bistakoa da non ez baitu arrazoiketan hasterik ere merezi".

⁷⁸⁷ Adibideak Lakarra 1995: 13-16tik hartuak dira.

Aurrizkiez aritzeko, ohiko corpusetik atera naiz, jakina. Ahalik eta gehienei Larramendik eman zizkien ordainak zein diren, eta ordaineztatzea nolakoa izan den neurtzen saiatu naiz.⁷⁸⁸ Azterketaren egitura hauxe da: aurrizkiz aurrizkiko azterketa, alfabetoaren arabera antolatua; oinarriaren kategoria, eta ondorioaren kategoria eta adiera kontutan hartu dira (§ 4.1); antzeman ditudan joera orokorren deskribapena (§ 4.2); Larramendiren lan sistemaz eta hiztegiaren egituraz aurrizkien azterketak eskaintzen dituen datu jakingarrien aurkezpena (§ 4.3); eta ondorio orokorrak (§ 4.4).

4.1. Erdal aurrizkiak banan-banan

4.1.1. ante-

a) izena ('denbora' zein 'lekua') = izena / aditzoina + *-urre*, *-aitzin*, (*-aurke*)

Antecámara, *guelaurrea*, *salaurrea*, *guelaitzina*, *salaitzina*. Antecedente de enthymema, *joaiáurrea*, *doaitziná*.⁷⁸⁹ Antechoro, *coruaurrea*, *coruaitzina*. Ante-iglesia, *Eleyzaurrea*, *eleyzáurquea*. Antemural, *murrallaurrea*, *murrallaitzina*. Antepecho, *bularráurrea*. Antepuerta, *atáurrea*, *ateaitzina*. Antevíspera, *egu[r]jcoaurrea*.⁷⁹⁰ Antipara, *paraaurrea*.

Cf. *barazkal-aitzin*, *Bazko-aitzin*, *borthaitzin*, *untzi-aitzin* (Lç), *afal aitzin* (Ax).

b) adjektiboa = *-urreko*, *-aitzineko*

Antecedente, *joiaurrecoa*, *doaitzinecoa*.

Cf. *itsu-aitzineko* (Lç).

c) aditza 'lekua' = *aurrera* (*aitzina*) + aditza

Anteceder, preceder, *aurreratú*, *aitzindu*. Mejor se hazen con *aurrera joan*, *aitzina* gan. Antecoger, *aurrera batú*, *bildú*.

d) aditza 'denbora' = *len-* + aditza (ik. *pre-*, § 4.1.21)

Antever, *lenicusi*.

4.1.2. anti-

a) "contradicción, contrariedad de" + izena = izena + *-ba(y)ez*

Antilogia, contradicción de palabras, *hizbaezá*. Antinomia, contrariedad de leyes, *leguebayeza*.

b) "oposición de" + izena = izena + *aurkera* (< *aurkatu* "oponerse")

Antithesis, *hitzaurquera*. Cf. *DAut*: "Figura Rhetórica que consiste en la oposición de conceptos u de palabras".

⁷⁸⁸ Zerrenda osatzeko eta haien nondik norakoak hobeki ulertzeko, Alvar & Pottier (1983) eta Miranda (1994: 79-100)-z baliatu naiz nagusiki, hauek aurrizkitzat hartzeko azpimarratzen dituzten ezaugarrien ginetik *HH*-an islatzen den egoera ezarriaz bada ere. Hortaz, aurrizki zenbait peituko dira: aintzat hartzeko, aski den corpus bat ediren izana izan da erabili dudana irizpide bakarra.

⁷⁸⁹ Cf. *DAut*: "Es la primera proposición de un Enthymema". Oinarriak *joai-* (< *joan*) eta *doa* direla dirudi.

⁷⁹⁰ Cf. "Víspera, *vezpera*, *egurcoa*".

c) “lo que substituye a” + izena = izena + *orde* (ik. *vice-*, § 4.1.35)

Antitypo, *figuraordea*. Cf. *DAut*: “...lo que substituye en lugar de un typo o figura”.

d) “concurrente con” + izena = izena + *-kide*

Antipapa, *Aita santuaren quidea*, *aiten aita quidea*. Cf. *DAut* “El concurrente con el Papa...”.

4.1.3. archi-

a) Mailegu zuzena

Archiduque, *archiduquea*. Archiduquesa, *archiduquesea*.

b) izena ‘tamainoa’ = izena + *aundi*

Archilaud, *soñari aundia*.

c) izena ‘nagusitasuna’

Archimandrita, *Greciatarren goyendea*, *esan naidu taldearen áurrena*.⁷⁹¹

4.1.4. bi(s)-, biz-, di-

a) izena = izena + *bi* (leku ezberdinetan erantsia)

+ *-bi*: Biennio, *urtebia*. Bimestre, *ilbia*, *illabetebia*. Bisabuela, *amonabia*. Dilema, *aipabia*.⁷⁹²

+ *-bi-*: Bisabuela, *amabisaba*. Bisabuelo, *aitabisaba*.⁷⁹³

+ *bi-*: Biznieto, *biloba*, *biaurbasoa*.⁷⁹⁴ Diéresis, *bigueibechia* (< *geibetxi* “sílaba”).⁷⁹⁵ Diphtongo, *bibechaoa* (< *betxao* “vocal”). Diploma, *bitezarra* (cf. *DAut*: “Es voz griega que vale Doble o Duplicado”).

-*t-* ezartzen du *bi-* eta bokalaz hasten den oinarriaren artean (*bitezarra* < *ezarri*).

b) adjektiboa = izena + *-biko*, *-bidun*

Biforme, *erabicoa*. Bifronte, *becoqui bicoa*, *copeta biduna*.

c) izena ‘ekintza’ = *bigarren* + izena

Bigamia, *bigarren ezcontza*. Cf. *DAut*: “El segundo matrimonio...”.

⁷⁹¹ Cf. *DAut*: “Es voz Griega compuesta de *Archos*, que significa Principe, y de *Mandra*, que significa rebaño”. Larramendik etimologiaren itzulpena egiten du, bada: *archos* = *aurrena* “caudillo”, etab.

⁷⁹² Cf. *DAut*: “Es voz Griega, compuesta de la preposición *Dis*, que significa dos veces, y *Lemma*, proposición, asunto o thema”.

⁷⁹³ Cf. *amasaba* “abuela” eta *aitasaba* “abuelo”.

⁷⁹⁴ *Biloba* herrikoia da (ik. *OEH*, s.v. *biloba*), baina *biaurbaso*-z Larramendiren lekukotasuna bakarrik daukagu (ik. *OEH*, s.v.). *OEH*-ak, bestalde, ez du *urbaso* sarrerarik; baina hauxe da, izan ere, *urbaso*-rako proposatu den etimoa (Mitxelena 1969: 504-505). Ez dut esan beharrik etimoaren beraren lekukotasun bat izatea —zeharka eta, itxura guztien arabera, *aur* = ‘haur’ berdinketa engainagarriagatik gaizki ulertua— zeinen garrantzitsua den.

⁷⁹⁵ Cf. *DAut*: “...por la qual una sylaba se desata, y se hace que valga dos...”.

4.1.5. circum-

a) izena = izena + *inguru*

Circunlocución, circunloquio, *hitzingurua*.

b) aditza = *boilajiran, inguruan* + aditza

Circuncidar, *bollagiran epaqui, inguruan ebaqui*.

c) *boila* “redondo”, *boilesia, boilajira, inguru* “círculo” edota *icherza* “circunferencia”-ren eratorriak

Circundar, *bollagiratu, inguratu*. Circunscribir, *bollesitu, bollartetu* (cf. DAut: “Disponer una figura que contengan otra dentro de sí”). Circunvalar, *bollesitu* [sic], *icherzatu, ingurutu*. Circunvecino, *bollesiondocoa, icherzaondocoa*.

4.1.6. co(n)-

Eratorpenari buruzko atalean jadanik ikusi dugu *-kide* atzizki ezagunaz (§ 2.1.5) eta haren familiako *-kida* berriaz (§ 2.1.2) sistematikoki baliatu zela gazt. *co(n)-* aurrizkia daukaten hitzei ordainak emateko. Orain, atzizki familia guztiari begirada orokor bat eman diezaiokegu, zein zertarako erabili zuen adibide gehiagoz —eta, beraz, ziurtasun handiagoz— erakutsiaz.⁷⁹⁶

a) izena / adjektiboa [+gizakia] (DAut “la persona que”, “el que”) = izena / izenondoa / aditzoina + *-kide* (behin *-kida*):

Coadjutor, *lagunquidea*. Coepiscopo, *ipizticuquidea, afespicuquidea*. Coeterno, *beticoquidea, betiraunquidea*. Cofrade, *anaiquidea*. Coheredero, *primuquidea*. Colactáneo, *edosquidea*. Comadre, *amaquidea*. Commilitón, *guerrariquidea*. Compadre, *aitaquidea*. Compañero, *soinquidea*. Compatriota, *erritarquidea*. Compatrón, *compatrono, arartequidea*. Cómplice, *gaistaquidea*. Compresbytero, *apaizquidea*. Concapitivo, *cativuquidea*. Conciudadano, *iritarquidea, uritarquidea*. Concolega, *daquizcoquidea, colegialquidea*. Concubina, *oaquidea*. Condescendiente, *jaisquidea*. Condiscípulo, *icaslequidea*.

Itzulpenak bitarikoak izaten dira: (1) etimologikoak —kalkoak, azken finean—: *co-madre* = *ama-kide* bezalako errazez gainera, *co-frade* = *anai-kide*, *con-descendiente* = *jais-* (< *jatxi*) - *kide*, etab.; edo (2) esanahiaren araberakoak: *colactáneo* = *edoskide*, *cómplice* = *gaistakide* (DAut “El compañero en el delito”), etab.

Honetan dagoke familiaren hasiera: oinarri tradizionalei —izena eta, agian, aditzoinari⁷⁹⁷—, jadanik kategoria berriak (izenlaguna *betikokide-n*), eratorriak (*gerrarikide, erritarkide, arartekide* (< *ararteko*), *iritarkide, uritarkide*) eta mailegatuak (*colegialkide* da nabarmenena) erantsi dizkie.

⁷⁹⁶ Ondoko lerroetan erabiliko ditudan adibideak, diren guztiak dira *congratulatorio* hitzeraino; handik aurrerakoak, berezitasunak erakusteko edota adibide gutxiago duten atalak sendotzeko baino ez ditut kontuan hartu.

⁷⁹⁷ Lehenago (§ 2.2.3) zalantzan jarri ditut Oihenarten lekukotasunak eurak: baliteke, noski, Larramendi ez izatea oinarriak berritu dituen zahar bakarra.

Alabaina, ikusiko dugun bezala, *-kidatu* aditzak ez dira *-kide* izenen eratorriak, gehienetan aske sortuak baizik; batzuen eta besteen arteko erlazioak hitz gutxi batzuetan (*lagunkide* eta *jaiskide*) bakarrik agertzen dira, hauen benetako etorkia aditza (*lagunkidatu* eta *jaiskidatu*) dela —eta ez alderantziz— erakutsiaz.

-kide-ren erabilerak hedakuntza garrantzitsu bat pairatzen du, bestalde: izenondoa [±biziduna] (*DAut* “lo que”) itzultzeko erabiltzea, oinarri berberekin:

Coetáneo, *adinquidea*. Commonitorio, *avisuquida*, *mezuquida*. Común, lo que es de muchos, *baquida*, *anizquida*. Concorpóreo, *gorputzquidea*. Concurrente, *baquidea*, *bilquidea*. Condigno, *diñaquidea*, *dogaidequidea*. Confinante, confin, *mugaquidea*, *marraquidea*. Conforme, *eraquidea*, *arauquidea*.

b) aditza = *-kidatu*:

Itxuraz, *-kidatu -kide + -tu* baizik ez den arren, egiatan *-kidatu-z* egindako aditzak ez datoz *-kide* formatetik, beheiago markatuko dudan salbuespenen batekin; haien benetako egitura ‘aditzoina + *-kidatu*’ da. Aditzoina hautatzeko, bide ezberdinak erabili ditu: batzuetan, itzulpen etimologikoa egin du, *co(n)-* gabeko aditzak itzultzeko erabili ditueni (edo haietako batzuei) *-kida-* artizki modura erantsiaz:

Cohabitar, *vizquidatu < bicitu* “habitar”. Coincidir, *jauzquidatu < jautsi* “incidir”. Commemorar, *oroiquidatu < oroitu* “acordarse” (cf. “memorar, acordarse, véase”). Commensurar, *neurquidatu < neurtu* “medir” (cf. “mensura, mensurar, véase medida, medir”). Commoover, *muguiquidatu, iguinquidatu < muguitu, iguindu* “mover”. Commutar, *gambiaquidatu < gambiatu* “mudar”. Compadecer, *pairaquidatu < pairatu* “padecer”. Componer, *parquidatu < paratu* “poner”. Comprobar, *frogaquidatu < frogatu* “probar”. Compurgar, *garbiquidatu < garbitu* “purgar”. Condensar, *ciaquidatu < ciatu* “densar”. Condescender, *jaisquidatu < jachi* “descender”.

Esanahiaren araberako itzulpena egin duenean, ostera, batzuetan *DAut*-ek ematen duen definizioko osagairen bat baliatu duela edo, are nabarmenago, berak hautatutako definizioko esanahikidea itzuli duela soma dezakegu:

Coadjuvar, *lagunquidatu < lagundu* “ayudar” (*DAut* “contribuir, asistir y ayudar...”). Comminar, *meachaquidatu < meachatu* “amenazar” (*DAut* “apercebir con amenaza...”). Compartir, *berezquidatu < berezi* “dividir” (*DAut* “dividir, ordenar y distribuir...”). Complicar, *contraquidatu, etsaiquidatu* (*DAut* “Juntar extremos opuestos, o entre si tan diversos y encontrados, que con suma dificultad se pueden conformar”). Comprometer, *utziquidatu < utzi* (*DAut* “poner de común acuerdo en manos de un tercero...”). Computar, *contaquidatu < contatu* “contar” (*DAut* “numerar, contar o calcular...”). Concorrar, *arauquidatu < arautu* “concertar, componiendo” (*DAut* “acordar, conformar y componer...”). Concurrir, *baquidatu, bilquidatu < batu, bildu* (*DAut* “Juntarse, llegar a un mismo lugar...”). Concurrir los bienes, *ondasunac largaquidatu < largatu* (*DAut* “Poner, depositar, entregar alguna persona sus bienes en manos (...) de la justicia”). Condecorar, hermozeando, *ederquidatu < edertu*. Condonar, *barcaquidatu < barcatu* (*DAut* “perdonar y remitir”). Conducir, llevar, *eramaquidatu, eroaquidatu < eraman, eroan*. Conducir, guiar, *aitzinquidatu,⁷⁹⁸ irionquidatu < irioitu* “guiar”/ *irion* “enviar”.⁷⁹⁹ Confabular, *hizquidatu < hitz* (egin). Conferir, dar, *emaquidatu, emoquidatu < eman, emon*. Confiscar, *ongabequidatu < *on gabetu* (*DAut* “privar de sus bienes...”). Confortar, *alaiquidatu, indarquidatu < alaitu, indartu* (*DAut* “dar

⁷⁹⁸ Aditz honen etorki konplexuaz, cf. aurreraxeago *aitzinkidari-z* diodana.

⁷⁹⁹ Inolako zalantzarik gabe *irion* / *irioitu* bikotea Iparraldeko literaturan ikasi zuen; *irion* forma zuzena (gehi *iriondu* partizipio markaduna, Larramendik erantsia) Leizarragaren hainbat pasarte argitatik atera zezakeen (cf., adibidez, *irion ditzan* Mt 9, 38, *irioinen zaituztet* Act 7, 43); *irioitu* okerra lortzeko, bai Leizarragaren (*irioiten duena* Mt 7, 13) bai Axularren (*irioitea* 86) pasarteak ditugu (xehetasunak ap. *OEH*, s.v. *irion*). Azpimarragarria da, beraz, *irionkidatu* forma, bien arteko loturaz ongi ohartu zela erakusten baitigu, gainerantzean *HH*-an behin ere elkarrekin ez agertu arren.

vigor, espíritu y fuerzas...”). Confundir, mezclando, *nasquidatu* < *nastu*. Conglutinar, pegar con cola, &c. *litsaquidatu* < *litsaquitu* “encolar”.

baina oso maiz bere burutik egin duela dirudi, batzuetan nabarmenki buruz.⁸⁰⁰

Comparecer, *aguerquidatu*, *betaquidatu* < *agertu*, *betatu* “cargar(se)”. Competir, *escaquidatu*, *naiquidatu* < *escatu*, *nai izan*. Complacer, *pozquidatu* < *poztu*. Completar, *betaquidatu* < *betatu* edo *bete*. Comprender, abrazar, incluir, *isquidatu*, *ersquidatu* < *itxi*, *ertsi* “cerrar”. Conceder, *utziquidatu*, *emaquidatu* < *utzi*, *eman*. Conciliar, ganar voluntades, *ecarquidatu* < *ecarri*. Concitar, *lasterquidatu*. Concluir, arguyendo, *loquidatu*. Condolerse, *erruquidatu*, *urriquidatu*, *damuquidatu*. Confeccionar, *eguiquidatu* < *eguin*. Conferir, deliberando, *hitzeraquidatu* < **hitzeraagin*.⁸⁰¹ Confesar, oír de confesión, *aitorquidatu*, *autorquidatu* vs *aitortu*, *autortu* “confesar”. Confiar, esperar, *ustaquidatu* < *uste izan*. Confinar, *mugaquidatu*, *marraquidatu* < *mugatu*, *marratu* “amojonar”, “demarcar”. Confirmar, *ontzaquidatu*, *quemenquidatu* < *ontzatu* “aprobar”, *kemendu* “reforzar”. Confundirse, humillarse, *beequidatu*, *ezezquidatu*. Confutar, *egozquidatu* < *egotzi*. Congelar, *ciaquidatu*, *gelaquidatu*, *izozquidatu* < *ziatu* “densar”, “cuajar” (DAut “endurecer y solidar lo que es líquido”), *gelatu* ‘helar’ (cf. *gela* “hielo” eta *gelatua* “glacial”), *izoztu* “helar”. Congratularse, *pozerazquidatu* < **pozerazo*.

‘izena + *-kidatu*’ egitura ere ez da ezinezkoa, batzuetan etimologiari jarraiki:

Condecorar, honrando, *ohorequidatu* < *ohore* (vs *ohoratu*). Confederarse, *bilgumaquidatu*, *balleraquidatu* < *bilguma*, *ballera*. Configurar, *irudiquidatu* < *irudi* “figura”. Conformar, conformarse, *eraquidatu* < *era* “forma”. Confrontar, *aurcaquidatu*, *betaquidatu* < *aurke* edo *aurka*, *beta* (cf. *aurkez aurke*, *aurkaz aurka*, *betaz beta* “frente a frente”). Conglobarse, *boillaquidatu* < *boilla* “globo”. Congraciar, congraciarse, ganar la gracia de otro lisonjeandole, *balacuquidatu* < *balaku* “halago” (vs *balakatu*).

c) izena [-biziduna] = *-kida*:

Jadanik esan bezala (§ 2.1.2), *-kida* izenak maiz *-kidatu* aditzei aditz-marka kentzetik datoz. Adibideak pilatzeak, berriz, ehuneko oso altuan horren ondorioak gazt. *co(n)-...ción* aditzizenak itzultzeko baliatu zituela hobeki erakusten digu:

Combinación, *biñaqueidea*, *binaqueidea*. Commemoración, *oroiquida*. Commensuración, *neurquida*. Comminación, *meachaquida*. Commiseración, *cupidaqueidea*, *erruquiquida*. Commoción, *mugidaqueidea*, *iguintzaquida*. Commutación, *gambiaquida*. Comparición, comparencia, *aguerquida*, *betaquida*. Compassión, *pairaquida*. Complicación, *contraquida*, *etsaiquida*. Composición, *parquida*. Comprensión, *isquida*, *ersquida*. Comprobación, *frogaquida*. Compurgación, *garbiquida*. Cómputo, computación, *contaquida*. Concessión, *utziquida*, *emaquida*. Concitación, *lasterquida*. Conclusión, en sylogismo, *loquidá*. Conducción, *eramaquida*, *eroaquida*. Confabulación, *hizquida*. Confección, *eguiquida*. Confederación, *bilgumaquida*, *balleraquida*. Configuración, *irudiquida*. Confirmación, *ontzaquida*, *quemenquida*. Confiscación, *ongabequida*. Conformación, *eraquida*. Conformidad, *eraquida*, *arauquida*. Confortación, *alaiquida*, *indarquida*. Confrontación, *aurcaquida*, *betaquida*. Confusión, *nasquida*. Confutación, *egosquida*. Congelación, *ciaquida*, *gelaquida*, *izozquida*. Conglobación, *boillaquida*. Conglutinación, *litsaquida*. Congratulación, *pozerazquida*.

Baditugu, nahiz urrikiago, bestelako aditzizenak ere:

Compartimiento, *berezquida* (DAut “la distribución...”). Congraciamiento, *balacuquida*.

Alabaina, ezin esan daiteke ‘ekintza-izena = *-kidatu* aditza ken *-tu*’ ekuazioa erabat egokia denik; egiatan, *-kida*-k aditzaren aldean agertzen den edozein izen itzultzeko balio du, [-

⁸⁰⁰ Hau azaltzeko proposatzen dudana, ik. beheago (§ 4.3).

⁸⁰¹ *hitzeratu* “acentuar” ezinezkoa da.

biziduna] izateko (hots, *-kide* hartzeko gai ez izateko) baldintzapean; horregatik izen abstraktuak ere, besteak beste, halako itzulpena jasotzen dute.⁸⁰²

Competencia, *escaquida*, *naiquida* (< *escaquidatu*, *naiquidatu* "competir"). Complacencia, *pozquida* (< *pozquidatu* "complacer"). Compromiso, *utziquida* (< *utziquidatu* "comprometer"). Concurrencia, *bilquida* (< *bilquidatu* "concurrir"). Concurso, concursamiento de bienes, *largaquida* (< *largaquidatu* "concurrir (los bienes)"). Concurso, de gente, *bilquida* (< *bilquidatu* "concurrir"). Condescendencia, *jaisquida* (< *jaisquidatu* "condescender"). Conferencia, *hitzeraquida* (< *hitzeraquidatu* "conferir, deliberando"). Confianza, *ustaquida* (< *ustaquidatu* "confiar"). Confín, *mugaquida*, *marraquida* (< *mugaquidatu*, *marraquidatu* "confinar").

Halaber, itzulpen berbera jasotzen dute erdaraz aldamenean aditzik ez daukaten [-biziduna] tasuneko izenak:

Coloquio, *hitzequidá*. Compañía, *lagunquida*, *soinquida*. Concento, canto harmonioso, *otsanquida*, *cantaquida*. Concubinato, *oaquida*. Condignidad, *diñaquida*, *dogaidequida*. Congenie, *diaquida*.

Hala nola 'objektua' edo 'produktua' adierazten dutenak ere:

Compás, instrumento, *oinquida*, *ciaquida* (DAut "Covarr. dice que se le dio este nombre como si se dixera Compes, porque las puntas [= *zia*] son a manera de piernas [≈ *oin*]..."). Compuerta, *ataquida* (< *ate*). Compuesto (subs.), *parquida* (< *parquidatu* "componer").

Beraz, orain artean marraztu dugun familia osatuaz, honako hau geneukake: (1) aditza = *-kidatu*; (2) izen [+biziduna] edo izenondo [±biziduna] = *-kide*; eta (3) izen [-biziduna] *-kida*. Osagai guztiak aurkezten dituzten familiak bakanak dira; hona aurkitutako zenbait:

Condescendencia, *jaisquida*. Condescender, *jaisquidatu*. Condescendiente, *jaisquidea*. Concurrencia, *bilquida*. Concurrente, *bilquidea*. Concurrir, *bilquidatu*. Confín, *mugaquida*, *marraquida*. Confinante, confín, *mugaquidea*, *marraquidea*. Confinar, *mugaquidatu*, *marraquidatu*. Congregación, *biltzarquida*, *batzarquida*. Congregante, *biltzarquidea*, *batzarquidea*. Congregar, *biltzarquidatu*, *batzarquidatu*.

Erlazio triangeluar honen bitartez azaltzen dira, nabarmenki, *-kida*-tik eratu diren *-kidatu* aditz gutxiak:

Compassar, *oinquidatu*, *ciaquidatu* (DAut "Es formado del nombre Compás") < *oinquida*, *ciaquida* "compás". Comunicar, *baquidatu*, *anizquidatu* < *baquida*, *anizquida* "común, lo que es de muchos".

Baita erdaraz ez datozen aditzak ere:

(Hablar en) coloquio, *hitzequidatu*. (Tener) commiseración, *cupidaquidatu*, *erruquidatu*.

Elkarren aldameneko *-kida* / *-kide* bikoteak ere nahiko maiz aurki daitezke:

Compañero, *soinquidea*. Compañía, *soinquida*. Concubina, *oaquidea*. Concubinato, *oaquida*. Condignidad, *diñaquida*, *dogaidequida*. Condigno, *diñaquidea*, *dogaidequidea*. Conforme, *eraquidea*, *arauquidea*. Conformidad, *eraquida*, *arauquida*.

Alabaina, bai *-kide*-n bai *-kida*-n ikusi ahal izan ditugu alderantzizko marka daramaten adibideak, ez gutxitan aldameneko sinonimoek egokia daramatelarik:

⁸⁰² Aditz baten aldamenean halako bi izen agertzen direnean, gauzak nahasten dira: Concordancia, *arauquidea* (< *arauquidatu* "concordar"). Concordia, *arauquida*, *ustequida* (cf. *ustakida* "confianza"). Ohartu *-kide* / *-kida* bereizkuntzari ere.

avisuquida, mezuquida “commonitorio”. *baquida, anizquida* “común”. *daquizcoquida* baina *colegialquidea* “concolega”.
biña- eta *binakidea* “combinación”. *cupidaquidea* baina *erruquiquida* “commiseración”.

Oro har, esan liteke *-a / -ea* bukaerekin *HH* guztian zehar ditugun gorabeheren beste adibide batzuk baizik ez direla, baina baudaude xehetasun zenbait honetan bederen bestelatsu saiatu zela antzemateko. Hasteko, nahasketa ez da gertatzen, goraxeagoko adibideetan ikus daitekeen bezala, *-kide* eta *-kida* biak familia berean eta zein bere esanahiarekin agertzen direnean; gainera, badirudi *con-*en aurrera joan ahala kasuak bakantzen edo, agian, desagertzen direla (ohartu adibide gehienak *com-* zatikoak direla), *-kide / -kida* bereizketaren alde.

d) izena [-biziduna] = *-kidande, -kidatze, -kidago, -kidaera*:

Coadjutoria, *lagunquidandea*. Cohabitación, *vizquidandea*. Coincidencia, *jauzquidandea*.
Comunicación, *baquidandea, anizquidandea*.
Condecoración, de adorno, *ederquidatzea*. Condecoración, de honra, *ohorequidatzea*.
Cofradía, *anaiquidagoa*. Compadrazgo, *aitaquidaera, aitaqui[da]goa*. Compaternidad, *aitaquidagoa*.
Compatronato, *arartequidagoa*. Compromisso, *utziquida, utziquidagoa*.
Concubinato, *oaquida, oaquidagoa*. Concurrencia, *baquidagoa, bilquida*. Concurso, de gente, *gendedia, bilquida, baquidagoa*.

Izen bizigabeak ez dira nahitaez markagabeak izan behar; halere, *-kida* hutsaren aldean adibideak urri eta gehienak laginaren hasieran (*co-com* zatian) pilatuta daudenez gero, badirudi pixkanaka *-kida-k* (*-da-*rekin lot zezakeena, § 2.1.11) gero eta leku gehiago irabazi zuela, hitz trinkoagoak egiteko aukera ematen baitzion.

Nolanahi ere, erabili duenean izen marka, *-nde* analogikoak (§ 2.1.11) eta *-tze, -go* eta *-era* atzizkiek emana dator, atzizki katea bereziak osatuaz: (1) *-kidande* beti bere aldetik agertzen da, eta eskuarki —nahiz ez beti— aditzizenak itzultzeko balio du, *-de* atzizkiaren etorkia ezagututa espero zitekeen bezala; ohar bedi *-de-*ren forma analogikoa kakofonia (**-kidade*) saihestu beharrak hautarazi ziola; (2) *-kidatze* aurkitutako bietan *con-...-ción* itzultzeko erabilia dago, *-tze-*ri dagokionez; (3) *-kidaera -kidago-*ren esanahikidetzat eta behin bakarrik agertzen zaigu; izen abstraktuak egitea, dena dela, ez zaio arrotz atzizki honi *HH-*an (§ 2.1.12); (4) interesgarriena *-kidago* da, gehienetan izen abstraktuak egiteko erabilia (*-go-z*, ik. § 2.1.2), ia beti *-kide* izenen aldamenean (*lagunkide* “coadjutor”, *anaikide* “cofrade”, *aitakide* “compadre”, *arartekide* “compatrón”...). Adibide gehien eskaintzen dituen eta iraupen handiena duen atzizkia *dugu* (*conc-* arte); honegatik, agian, jadanik nagusitzen ari zen *-kida-*rekin lehian agertzen zaigu, batzuetan oinarri berearekin (*utzikida(go), oakida(go)*), bestetan ordainetatik batean bakarrik (*baquidagoa / bilquida*).

e) izenondoa [±biziduna] = *-kideko, -kida(z)ko*:

Honelakoek ere marka berezia eraman dezakete:

- familiarik gabekoak *-kideko* hartzen dute:

Colateral, *aldequidecoa, alboquidecoa*. Commensal, *maiquidecoa, mainqui]n[decoa*.

- izenetik eratorritakoak, berriz, *-(z)ko*:

Concluyente, *loquidazcoa* (< *loquida* "conclusión, en sylogismo"). Concomitante, *lagunquidazcoa* (cf. *lagunquida* "compañía"). Confirmatorio, *ontzaquidazcoa* (< *ontzaquida* "confirmación"). Congratulatorio, *pozerasquidacoa* [sic] (< *pozerazquida* "congratulación"). Conveniente, *etorquidazcoa*, *elquidazcoa* (< *etorquida*, *elquida* "conveniencia").

Hona hemen *-kide* eta *-kidazko*-ren arteko lotura erakusten duen adibide bat:

Continente, adjet. templado, *euquidea*, *euquidazcoa*.

f) izen [±biziduna] 'egilea' = *-kidari*, *-kidale*

Coloquor, *hitzequidaria*. Commutativo, *gambiaquidaria* (DAut "cosa de trueque, cambio o permuta"). Competidor, *escaquidaria*, *naiquidaria*. Comprensor, *isquidalea*, *ersquidalea*. Compromissario, *utziquidaria*. Computista, computador, *contaquidaria*. Conciliador, que atrahe y gana, *ecarquidaria*. Concitador, *lasterquidaria*. Concubinario, *oaquidaria* (DAut "el hombre que tiene una manceba..."). Conductor, el que lleva, *eramaquidaria*, el que guía, *aitzinquidaria*. Confeccionador, *eguiquidaria*. Confessor, *aitorquidalea*. Confirmador, *ontzaquidalea*, *quemenuidalea*. Confortante, confortativo, confort, *alaiquidaria*, *indarquidaria* (DAut "la persona o cosa que conforta"). Congraciador, *balacuquidaria*.

-kide-ren neurri baterainoko sinonimoa da (cf. *lagunkide* "coadjutor"), baina egiletasunaren marka berekin daramanez gero, *co(n)-...-dor*-en itzulpenik usukoena da. *-kide* eta *-kidari*-ren arteko oposaketa ondoko familia honetan antzeman daiteke:

Connotado (subst.), *ecarquidea*. Connotador, *ecarquidaria*.

Adibideen artean bada bereizi behar den bat: *aitzinkidari*, *-kida*- itxuraz baino ez baitauka (cf. *aitzingidari* 1630); ziurrenik errata edo irakurketa txarra izateaz gainera (<qu> <gu>ren orde; § 9.2.4.3), Larramendiren *a posteriori*-ko ulerkeratzat jo behar dugu, gainerako *-kidari* formako hitzen eredu dela sinesten ez badugu, behintzat.

g) aditzondoa = *-kidaro*

Comúnmente, *baquidaro*, *anizquidaro*. Concluyentemente, *loquidaró*. Concordemente, *arauquidaro*. Condiganemente, *diñaquidaro*, *dogaiquidaro*. Confiadamente, *ustaquidaro*. Conformemente, *eraquidaro*, *arauquidaro*. Confusamente, *nasquidaro*. Connaturalmente, *sorquidaró*. Constantemente, *egoquidaro*. Continentemente, *euquidaro*. Corrompidamente, corruptamente, *galquidaro*, *gaizquidaro*.

Eratorpenari buruzko atalean ikusi dugunez (§ 2.1.19), *-kidaro* guztiak *-kida* aditzoinaren gainean edota (aditzik ez denean) izenaren gainean eraikita daude. *-kidero* daraman salbuespen bakarra *-kide* izenaren gainean eratuta dago, berriz:

Consistorialmente, *auzbaquidero* (< *auzbaquide* "consistorio" vs *auzbaquideco* "consistorial").

h) Bestelako kateak: *-kida* bukaeradun aditsoinek gainerakoek har dezaketen eratorpen atzizkiak hartzen dituzte, atzizki kate berriak osatuaz:

• gzt. *-ble* = *-kidagarri*, *-kidakizun*

Commensurable, *neurquidagarria*. Commutable, *gambiaquidagarria*. Comprehensible, *isquidagarria*, *isquidaquizuna*. Comunicable, *baquidagarria*, *anizquidagarria*.

• 'joera' = *-kidakor*, *-kidakoi*:

Comunicativo, *baquidacorra*, *baquidacoya*, *anizquidacoya*. Contentadizo, *naiquidacorra*.

• 'baliabidea' = *-kidakai*, *-kidagarri*

Conclusiones, *loquidacayac*. Convocatoria, *deiquidagarria*, *osquidagarria* (DAut "la carta u despacho que se da para...").

- gazt. -oso = -kidatsu:

Conglutinoso, *litsaquadatsua*.

4.1.7. contra-

HH-an *kontra* euskal hitza ez eze euskal etorkikoa da, noski (cf. “Contra, *contra*, y pide genitivo pospuesto” eta *contrario*-ren etimologia); beraz, Larramendik aurrizkia gorde zuen, gainerakoa mailegatuaz edo itzuliaz. Halaz ere, bereizkuntza garrantzitsu bat egin zuen, izen-aditzetan aurrizki modura eta aditzondoetan atzean erantsiaz, aurreko literaturan ere bezalaxe: cf. *kontradikziona*, *kontradizale* (Lç), *kontrapozoin* (Ax) vs *haize-kontra*, *natura-kontra* (Lç); eta cf., halaber, *kontradezitu* (Lcc), *kontraerraila* (SP), *kontrapisu* (SP, Urt), *kontraerrate*, *kontraparte*, *kontrapasio* (Urt), *kontramastru* (Deen), *kontrasakela* (G-bet ap. A Apend), etab. (denak ap. *OEH*, s.vv.).

a) izena / aditza = *kontra*- (behin *kontrako*) + izena / aditza

Contra-ataques, *contralezoyac*, *contracolezoyac*. Contrabando, *contrabandoa*, *contragoyaquindea*. Contrabateria, *contrabateria*, *contrasutumpadia*. Contracambio, *contragambioa*. Contracedula, *contrachartella*. Contracifra, *contracistalia*. Contracosta, *contraubazterra*. Contraculto, *contra apaindua*. Contradanza, *contradanza*. Contradecir, *contraesan*, *contra erran*, *ezeztu*, *ezeztatu*, *cedali*. Contradique, *contraeusquiña*. Contraescarpa, *contrazupaldatsa*. Contraescritura, *contraescritura*, *contraeciabezgoa*. Contrafosso, *contramurrobia*. Contrahierva, *contrabelarra*, *contrabedarra*. Contramangas, *contramaucac*. Contramaestre, *contramaisua*. Contramandar, *contra aguindu*, *contramanatu*. Contramarcha, *contrajoaira*. Contramarchar, *contrajoan*, *atzeratu*, *guibelatu*. Contramina, *contralupobia*. Contramura, *contramurrua*. Contraorden, *contra aguindea*, *contramanua*, etab.

b) aditzondoak = izena + *-kontra*:

Contrapelo, *illecontra*, *ulecontra*.

4.1.8. de(s)-, dis-

Larramendik hiztegiko jokabidea *des*- aurrizkiari eskaintzen dizkion hiru sarreretan aurkezten du xeheki:

Des, preposición que comúnmente niega, y no viene si no es en composición. Entra también en el Bascuence en muchos nombres y verbos, y con la misma fuerza de negar; y por esso el Romance la tomaría de el Bascuence.

Des, en los nombres puede ser *des* antepuesto; y *guea*, *caitza*, *bagea*, *gabea*, *baga*, pospuestos.

Des, en los verbos, comúnmente, *guetu*, *caitzu*, *baguetu*, pospuestos, significan privar; y también el *des*.

Aurrizki hau daramaten sarreretan, ondorioz, Larramendiren gogara erro ezberdinak ordezkabide guztiekin edo zenbaitekin elkartuta aurki ditzakegu:

Derogar, *indarcaitzu*, *indarbagnetu*. Desabastecer, *desornitu*, *orniguetu*, *ornicaitzu*, *ornibaguetu*. Desabondo, *desontzatea*, *oncaitza*. Desabrigar, *beroguetu*, *berocaitzu*, *desberotu*. Desabrigo, *beroguea*, *berocaitza*, *berobaguea*. Desabrimiento, *gozacaitza*, *gozaguea*. Desabrirse, *gozacaitzu*, *gozaguetu*. Desabrochar, *deslotamutu*, *lotamuguetu*, *lotamucaitzu*. Desacalorarse, *desuquindu*, *suquinguetu*. Desacatamiento, *eiderguea*, *deseidertea*, *eidercaitza*, *desohorea*, *ohorecaitza*. Desacatar, *eiderguetu*, *deseidertu*, *desohoratu*, *ohorecaitzu*. Desacertar, *artezguetu*, *desarteztu*, *zuzencaitzu*, *somacaitzu*. Desacierto, *artezguea*, *desarteza*, *zuzencaitza*, *somacaitza*.

Anitzez bakanagoak dira baliabide bakar bat daramatenak; goikoen aldean, *des-desad-* zatian honako hauek bakarrik aurkitu ditut:

Deformar, *eracaiztu*. Deforme, *eracaitza*. Degollar, *lepobaguetu*, *idumbagatu*. Derrabar, *buztancaiztu*. Desabrochase con alguno, *norbaitequin desertsitu*.

Baliabideen maiztasuna ere aski ezberdina da: orotara, zati berean eta aditzak bakarrik begiratuta, *-getu* 21 sarreratan agertzen da, *des-* 17tan, *-kaiztu* 14tan eta *-bagetu* 5etan. Hasieran denak edo ia denak ezartzeko joera badago ere (cf. goian *desabastecer*, *desabrigar*, *desabrochar*, etab.), zatiaren bukaerarantz usuenik sarrerek *-getu* eta *des-*, edo *-getu* eta *-kaiztu* bakarrik daramate, honako hauetan bezala:

Desacomodar, *eraguetu*, *eracaiztu*, *zucenbidecaiztu*. Desaderezar, *desonguitu*, *desapaindu*, *onguiguetu*, *apainguetu*. Desadorar, *gurguetu*, *gurcaiztu*. Desadornar, *ederguetu*, *apainguetu*, *desedertu*, *desapaindu*.

Dena dela, itzulpena ez da beti automatikoa: ‘-tik atera’ adieran perifrasiak baliatzen badaki, esanahi bereko beste aurrizkietan (cf. § 4.1.11) bezala:

Desabarrancar, *epaizulotic*, *centernatic ateratu*. Desacorralar, *urubetic camporatu*, *ateratu*.

Edota ohikoekin batera ‘x *kendu*’ jartzen, esanahiak zilegi egiten duenean:

Desacotar, *mugacaiztu*, *mugaguetu*, *mugarriac quendu*.

Ordainak, azken batean, sarrienik *de(s)-* gabeko sarreretan aurkitzen zituenei —edo haietako batzuei— aurrizkiren ordezkio baliabideak erantsiaz lortuak dira:

Desabastecer, *desornitu*, *orniguetu*, *ornicaiztu*, *ornibaguetu* < Abastecer, proveer de bastimento, *janariz ornitu*. Desacalorarse, *desuquindu*, *suquinguetu* < Acalorar, dar calor, *berotu*, *suquindu*. Desacreditar, *desmenandetu*, *menandeguetu*, *omendabaguetu* < Acreditar, *menandetu*, *icen onecoa*, *omen andicoa eguin*; *icendatu*, *omendatu*. Desadorno, *edergaigüea*, *apaingaugüea*, *desedergaya*, *desapaingaya* < Adorno, *apaingarri*, *edergarri*, *galantgarri*, *edergallua*, *edergaia* [sic], *apaingaya*, *galantgaya*.

Zenbaitetan, halere, bide ezberdinetatik doaz; cf., adibidez:

Desacertar, *artezguetu*, *desarteztu*, *zucencaiztu*, *somacaiztu*, *utsandetu* // Acertar, en lo que se duda, *asmatu*, *somatu*.

Hau maizenik aditzondoekin gertatzen dela dirudi, gorabehera askorekin baizik ez baitira bi aldeetan agertzen eta, honegatik, badirudi gehienetan *des-* zatiko familiari jarraiki dabiltzala; cf., esate baterako:

Desacatadamente, *eidergüero*, *deseiderto*, *deseiderqui*, *deseiderquiro*, *desohorero*, *desohorequiro* < Desacatar, *eiderguetu*, *deseidertu*, *desohoratu*, *ohorecaiztu*.

Ikusiak ikusirik, ia ez dago esan beharrik oinarriei dagokionez ordezkabide guztiak berdintsu —hots, oso aske— dabiltzala, askeegi nonbait (Azkarate 1992: 213). Haatik, baderitzat askatasun horren zergatiak bilatzen saiatzea bere “okerra” salatzea baino aberasgarriagoa izan daitekeela.

Des- aurrizkia den bezainbatean, ikertu gabe dago, dakidalarik, zein den aurreko literaturan ez eze ahozko euskarari izan duen lekua eta, beraz, ez dakigu zehazki zeri eransten zitzaion, hitzaren kategoria aldatzen ez duela aurrera badaiteke ere. Aurrizkia izateak gure alde jokatzen du, ostera, *OEH*-an neke handirik gabe *HH* baino lehen lekukotuta zeuden bideak

ikuskatzeko; mailegu zuzen-zuzenak alde batera utzita, honako oinarri hauek aurkitu ahal izan ditut:

- izen bakuna: *desabantail* (SP), *desarrazoi* (Ax), *desemendio* (Lç).
- izen eratorria 'ekintza': *desegindura* (SP), *desegintza* (SP), *desegite* (Lç), *desnaturalezatze* (Harb 1635), *desohoratze* (Lç).
- izen abstraktu eratorria: *desoneskeria* (Ax, CatLav).
- izen eratorria 'egilea': *desegile* (Lç), *desfamatzaille* (Lç), *desohoratzaille* (SP, Urt).
- aditza: *desaboatu* (Lç), *desbistatu* (Mat, EZ...), *desegin* (Lç...), *desgisatu* (Lç), *desohoratu* (Lç, Ax...).
- izenondo bakuna: *desleial* (Lç).
- izenondoa (-garr): *desesperagarri* (EZ), *desgogaragarri* (SP), *desgustagarri* (Ch), *desmoldagarri* (SP), *desohoragarri* (Ax), *desplazergarri* (SP).
- izenlaguna: *desgogarako* (Ax, Ch).
- aditzondoa (-ki): *deskorteski* (SP, Urt), *desoneski* (Etx, Mat...), *desohoratuki* (EZ), *desohorezki* (Ax), *desordenatuki* (Lç).
- adizlaguna: *desgogara* (Ax, Ch...).

Dakusgunez, Iparraldeko tradizioak oro har eredu anitz eskaintzen zizkion. Dударik gabe, halakoek eman zioten oina *des*-en euskal jatorria defendatzeko eta, hori ezarriez gero, haren erabilera ugaltzeko. Beste horrenbeste egin zuen, bide batez, Larramendirengandik hurbilen egon daitekeen XVIII. mendeko beste hiztegiak, goian —nahita— oso bakan baizik aipatu ez dudana: Urte, alegia. Biek antzeratsu euskararen posibilitateak zukutzen aritu zirela jakingo ez bagenu, batak bestearen lana ezagutu zuela esanez baizik ia-ia ezingo genituzte azaldu ondoko batetortzeak:

desirudintsu "dessemejante" (Lar) / *desidurikor* "absimilis" (Urt I, 46). *desigoldea* "desigualdad" (Lar) / *desigoaltasun* "anomalía" (Urt II, 124). *deskoloretu* "descolorar" (Lar) / *deskoloratu* "colorari" (Urt V, 379). *deskorapilatu* "desanudar" (Lar) / "abnodare" (Urte I, 33). *desloratu* "desflorar" (Lar) / "adulterat[a], adulterio stuprata" (Urt I, 270). *desprimuztatu* "desheredar" (Lar) / *desprimutu* "abdicare" (Urt I, 18). *deszuaiztu* "desarbolar" (Lar) / *desarbolatu* [untzia...] "exuere nauem arboribus" (Urt II, 243).

Batetortzeak ez dira, noski, hitz honetara edo hartara mugatzen; esate baterako, -garr izenondoak eta -ki / -(ki)ro aditzondoak ere biek arras ugaltu zituzten (lehenengo lekukotasunak bakarrik jasotzen ditut):

Urte: *desagradagarri*, *desagradagarriki*, *desaltagarri*, *desaproposki*, *desarrazoinki*, *desegarrigarri*, *desegingarri*, *deskantsagarri*, *deskantsaki*, *deskantsuki*, *deskargagarri*, *desloialki*, *desordenuki*, *despropiki*.

Larramendi: *desadindero*, *desalai(ki)ro*, *desalpekiro*, *desamagarri*, *desaragozkiro*, *desarauero*, *desaraukiro*, *desarazoro*, *desargiro*, *desaroro*, *desarretaro*, *desartezkiro*, *desartzontiro*, *desbataro*, *desbilgarri*, *desbilgoro*, *desdiñagarria*, *desdiñakiro*...

Egiantan, behar beretsuei bide beretsuez erantzutea baino ez da, bistan denez, xeheetasunetan zeinek bere modura egin bazuten ere. Honegatik, besteak beste, Azkarateren epaia:

...*des*- aurrizkiaz sortzen dituen izen eta izenondoak ere ezin esan egokiak direnik: *deslotsati* / *lotsabaguea* 'desvergonzado', *deslotsa* / *deslotsaera* 'desvergüenza', etab. esateko euskarak izan ditu eta ditu bideak. Guzti horiek ez dira, ondorioz, ondorengo urte eta mendeetako euskararen jaso (Azkarate 1992: 213).

beltzegia delakoan nago. Hitzberrigilearen lana ez da huts irtendako saioengatik bakarrik neurtzen, zuzenak izan nahi baldin badugu, baita aurrera egin dutenengatik ere. Ikuspuntu honetatik, Larramendiri berea itzuli beharko genioke, gaur oso arruntak edo bederen ezagunak

diren hainbat hitz berak lehenengoz jaso —eta ziurrenik eratu— baitzituen. *EH*-ak hauetan guztietan *HH* lehen lekukotasuntzat ematen du.⁸⁰³

*desagertu, desalaitu, desanparatu, *desberdindu, desbide, *desbideratu, *desegoki, *desengainatu, *desengainu, *deserri, *deserriitu, *deserrotu, *desestali, *desitsatsi, *desitxuratu, *deslai, *desleialtasun, *desloratu, *deslotu, desmaiatu, *desneke, *desobeditu, *desordu.

-ge eta -bage aldaerei eta haien eratorriei (*-(ba)getu*, *-(ba)gekeria*, *-(ba)getasun*, etab.)⁸⁰⁴ dagokienez, Azkaratek azaltzen du oinarrian izena eskatzen dutela eta, hortaz, oinarria “izenondoa edo aditzoina bada, bide honek ez du balio” (1992: 213). Halere, Larramendik partizipio oinarridun zenbait eredu aurki zitzakeen lehenagoko literaturan, *ezagungabe* “desconocido”, *usatugabe* “inusitado” (Lç) eta *jakin gabe* “ignorancia” (Ax) bezalakoak. Bestalde, *bagetu*, etabarretarako, cf. *ezagutze-gabetu* eta *fruktu-gabetu* (Lç), *ahalke gabeki*, *bidegabeki* (Ax), *ezagutzagabetasun*, *hobengabetasun* (Ax) eta *ahalkegabetasun* (*CatLav*).⁸⁰⁵

Azkenik, -*kaitz*-i buruz, *gozakaitz* bezalako forma herrikoietatik (ik. *OEH*, s.v.; *HH* “desapacible”...) aldaera ahoskabea hautetsi zuen, hainbat atzizkitan bezala (§

2.2.2). Azkaratek (1992: 213) dioenez, atzizkitzako honek “aditzoinari erantsirik ‘zailtasun handia, ezintasuna’ adierazten duten izenondoak sortzen ditu. Adieraren aldetik beraz, ez da egokia ‘kontrakoa’ nahiz ‘gabezia’ adieraz dezakeen *des-* itzultzeko”. Alabaina, baliteke Larramendik nahi gabe eta ez-arian bere ohiko paperetik atera izana.

Egia da hiztegian *gaitz* hitz askea “difícil” esanahiaz jasotzen duela; haatik, atzizkitzako beste bide batetik ulertu zuen, *kaiztu* “privar”-ek erakusten digun bezala. Errepara diezaiegun aurreko literaturan eredu gisa izan zitzakeen hitzei: *hezgaitz* “indómito” (EZ, Ax), *gozagaitz* “déplaisant” (EZ) eta *gozogaitz* “agriar, volver desagradable” (Ax) bezalakoan alboan, *dohain-gaitz* “malaventurado” (Lç) eta *zori-gaitz* “mala ventura” (Ax, *CatLav*) bezalakoak zituen. Larramendik ezpairik gabe talde berekotzat hartu zituen, hitz berrien oinarrian aditzoina, izenondoa zein izena jartzen baititu; cf., ziurtasun gehiagorako, *hezikaitz* “cimarrón, indómito”, *doakaitz* “desdicha”, “(mal)aventurado” eta *zorikaitz* “desdicha” (*zorigaitz* “desastre” ere jaso zuen). Bada, guztiek ‘des-’ itzulpena ondo baino hobeto har dezakete edo, berebat dena, *gozogabe* (1643), *dohaingabe* (cf. *dohakabe* 1571) edo *zorigabe* (1745) bezalako esanahikideak izan ditzakete. Badirudi, beraz, erduei —kasu honetan pittin bat oker— atxikitzea -*kaitz* eta *des-* baliokidetzat jo eta erabiltzera bultzatu zuen zioa izan zela.

⁸⁰³ Izarraz markatu ditut Elhuyar 1996an ere, euskara-gaztelania zatian, agertzen direnak, gaurko hiztegi “normal” baten lekukotasuna jasotzeko. Azterketa lasaiago batek kopurua igoko luke, zalantzarik gabe, baldin ondorengo urte eta mendeetan erabilitako guztiak jasoko bagenitu. Dena dela, zerrendan deigarriena aditzen ugaritasuna da: hobeto miatu beharko litzatekeen arren, badirudi bereziki irunsterraz suertatu direla gerokoentzat.

⁸⁰⁴ Honi buruz gehiago mintzatuko naiz *i(n)*- atzizkiaren azpian (§ 4.1.14).

⁸⁰⁵ Izen eta izenondoaren arteko muga lausoaz bai *HH*-an baita aurreneko literaturan ere, ik. § 5.2.1.

4.1.9. entre-

Bi adiera nagusi bereizten dira *HH*-an:

1) 'artean' adiera, *inter-* aurritzia itzultzeko baliatzen dituen modu berberetz ordaineztatua (ik. § 4.1.16)

a) *arte* —atzizkiarekin edo gabe— elkartuaren bigarren osagaitzat jarriaz

- izena = izena / aditzoina + *-arte* (gutxiagotan *-arteko*)

Entrecejo, *becintartea* (< *bezinta* "ceja"). Entrecubiertas, entrepuentes, *zubartear*, *oldurartear* (< *oldura* "entablado"). Entredicho (subst.), *esartea* (< *esan*). Entremés, *pozizartea* (< *poz* + *itz*). Entrepalmadura, enfermedad de bestias, *azcazartear*. Entrepiernas, *istartea*. Entrepiernas, en los calzones, *istartear*. Entresaca, de árboles en los montes, *meatsunea*, *bacantartea*, *sacartea*. Entretalladura, *otallartea* (< *otallu* "talla"). Entretela, *josartea*, *josartear* (< *josi*). Entretenimiento, dilación, *gueldartea*, *guerartea*. Entretiempo, *erartea* (< *era* "tiempo").

Cf. *aldarte*, *bitarte*, *iend-arte* (Ax).

- izenondoa = izena / izenondoa + *-arteko*

Entredoble, *bisetartear* (< *biseta* "doble"). Entrefino, *fiñartear*. Entreordinario, *begoartear* (< *be* + *goi*; cf. *DAut* "medio entre bueno y baxo...").

Cf. *ararteko*, *bitarteko* (Ax).

- aditza = aditzoina / izena + *-artetu* (behin *-tartetu*)

Entredezir, vedar, *debecatu*, *esartetu*⁸⁰⁶ (< *esan*). Entrejuntar, *ondartetu* [< *ondo(an)*], *juntartetu*. Entrelazar, *ichecartetu* (< *itxeki*). Entremeter, *artetu*, *bitartetu*, *sarrartetu*. Entremezclar, *nasartetu*. Entreparecerse, *icusartetu*.⁸⁰⁷ Entresacar, en los montes, *meatsunetu*, *bacandu*, *bacantartetu*, *sacartetu*. Entretallar, *otallartetu*. Entretelar, *josartetu*. Entretener, dilatando, deteniendo, *gueldartetu*, *guerartetu*. Entretener, divirtiendo, *pozartetu*. Entretexer, *eartetu* (< *eo(tu)* "tejer"). Entrevenarse, *zaiñartetu* (< *zain*). Entreverar, *nasartetu*.

b) aditza = *arte-* + aditza

Entrecoger, *artatzitu* (< *atzitu* "coger"). Entrecortar, *artepaqui* (< *epaki* "cortar").

2) 'erdizka' adiera, aditza / izenondoa = *erdi-* + aditza (ik. *semi-*, § 4.1.27)

Entreabrir, *erdidiqui* (cf. *DAut* "dexarle medio abierto"). Entrecano, *erdiurdindua* (cf. *DAut* "cabello u barba medio negra, castaña o rubia y medio blanca o cana"). Entrelucir, *erdiarguitu* (cf. *DAut* "como medio lucir").

3) Sarrera bakar batean bietako aterabideak aurkitzen dira:

Entreoir, *erdiaditu*, *erdienzun*, *aditartetu*, *enzunartetu*.

4.1.10. ex-

Adibideak gehiegi ez izanik ere, hiru joera antzeman ditzakegu:

⁸⁰⁶ Jat. *esertatu*, gero zuzendua.

⁸⁰⁷ Jat. *insartetu*; cf. lat. *Obscure videre* eta *DAut*-en azalpena: "Traslucirse, divisarse y como aparecerse no bien distinta y claramente alguna cosa".

a) aditza (eta eratorriak) = aditza + *atera(tu)* (eta eratorriak)

Exacción, de rentas, &c. *escaterá* (< *eska(tu)* + *atera*). Exactor, de rentas, &c. *escateratzallea*. Exprimidera, *estateracaya*, *ersateracaya* (< *estu*, *erts*). Exprimir, sacar zumo, &c. *estateratu*, *ersateratu*.

estateratu eta familiakoetan partizipioko *-t* gorde du, ziurrenik *esa(n)*-en familiatik bereizi beharrez.

b) adjektiboa = izena + *-kanpoko*

Excéntrico, *erdiyocampocoa*, *erteguicampocoa* (< *erdiyo*, *ertegui* “centro”).

c) ‘ukapena’ edo ‘gabetasuna’ adieran, *ze-* edo *-bage / -kabe* (ik. *i(n)-*, § 4.1.14)

Excomulgar, *escumicatu*, *cebaldernatu*. Excomunió, *escumicua*, *cebalderna* (< *balderna* “communió”). Exención, *locabea*, *ascabia*, *cepeda*.⁸⁰⁸ Extemporal, *erabaguea*, *betabaguea*.

4.1.11. ex- + extra-

Bi erdal atzizkioi, ‘-tik atera’ adiera daukatenean, irtenbide bera eman die, hots, *-titu* bukaera (< *-ti(k)* + *-tu*), nahiz batzuetan aldamenean perifrasiare ere eskaini:

Exterminar, *mugatitu* (cf. *DAut* “Echar, excluir fuera de los términos”). Extirpar, *errotitu*, *sustraititu*. Extravenarse, *zañetitu*, *zeñetatic irten*, *isuri*. Extraviar, *bidetitu*, *bidetic atera*.

4.1.12. extra-

a) adjektiboa / adberbioa = izena + *-z kanpoko / -z kanpora*

Extrajudicial, *araudez campocoa*. Extrajudicialmente, *araudez campora*. Extra-muros, *murruz campora*.

Cf. *ezkontzaz kanpoan* (Mat, Ax), *sakramenduaz kanpoan* (Gç), *arrazoinaz kanpoko* (Ax), *herriz kanpoko* (ES), *justiziaz kanpora* (OA)...

b) bestelakoa da hurrengo familiari emandako aterabidea; arrazoia iturrian datza —Harrieti zor dio—⁸⁰⁹, gero bizkaierazko bertsioan ere eskaini badu ere:

Extraordinariamente, *oiez bezala*, *oiez leguez*. Extraordinario, *oiez bezalacoa*, *oiezlacoa*.

4.1.13. hemi-

izena + *-erdi* (ik. *semi-*, § 4.1.27)

Hemispherio, *boillerdia* (< *boilla* “bola”).
Hemistichio, *biurserdia* (< *biursa* “verso”).

⁸⁰⁸ *askabia* < *askabiatu* = *askatu* + *abiatu* (§ 3.1.3.d); *zepeda*-k, berriz, *ze-* + *-pe* + *-da* izen markaz osatuta dagoela dirudi.

⁸⁰⁹ Ht *VocGr* 358 “extraordinaire, *ohiezbeçalacoa*”, “une chose bien extraordinaire, *gauça bat ohiezbeçalacoa*”, “extraordinairement, *ohiezbeçalacu*” (§ 10.3). Dakusgunez, aditzondoan Larramendik Harrietek baino bide arruntagoa hautatu du.

4.1.14. i(n)-

Azkaratek (1992: 213-215) gainerako aurrizkiei baino arreta gehiago ipini dio honako honi, gaurko euskara estandarrean dauden zenbait arazo larriz Larramendik emandako aterabideen argitara hausnarketa egiteko bidea erdietsita. Tesi-lan honen ikuspuntua bestelakoa izanik, Larramendiren jokabidea ulertzeko eta baliabide zenbaiten historia hobeto ezagutzeko egoki izan daitezkeen puntuak bakarrik eztabaidatuko ditut hemen:⁸¹⁰

1) izenondoa = *-ez*, *-bage*, *ze-* *-(r)ik bage*, *ez-*, *-kabe*, *eztana*, *-gabe*, *-ge*, *-ez-*, *eztuena*:

HH-ko zerrenda amaigabetik *i*-n hasi eta *indeclinable* arteko sarrera guztiak (58 izenondo orotara) aztertuta, uste baino ordezkapen modu ezberdin gehiago direla ageri da, nahiz gehientsuek oso eragin gutxi izan kopuru orokorrean, hala nola *-ez-* artizkia (*jaquineznaya* "incurioso"), *-gabe* (*zoritugabe* "immaduro", *arretagabe* "inadvertido"), *-ge* (*prestage* "impróvido", *gorpuzge* "incorporal"), *-kabe* (*doakabe* "imbeato", *lokabe* "immune", *ustekabe* "impensado", *oarkabe*, *senkabe* "inadvertido", *oarkabe* "inaplicado"), *eztuena* (*marrik eztuena* "ilimitado") eta *eztana* (*aldeztana* "imparcial", *aditueztana* "ináudito", *zorretztana* "indebido"). Hauen aldean, *-ez* atzizkitzakoak 35 agerraldi ditu, *-bage*-k 32, *ze*-k 13 (*inafectado*-tik aurrera bat ez), *-rik bage*-k 6 (*inaplicado*-tik aurrera bat ez) eta *ez-* aurrizkiak 6 (denak *impropio*-tik aurrera).

Kopuru orokorrak gutxi gorabehera bat datoz sarreraka antzematen denarekin: oinarri berarekin zein oinarri ezberdinekin dela, (1) *-bage* bera bakarrik 11 sarreratan agertzen da (%19); (2) *-ez*, 9tan (%15,5); (3) *-bage* eta *-ez*, 9tan (%15,5); (4) *ze-* eta *-ez*, 6tan (%10,3). Denen artean, beraz, corpusaren %60,3 osatzen dute, eta gainerakoa sarrienik baliabide bat baino gehiagoko segida ezberdinak dira.

Baliabideen izaerari dagokionez, bitarikoak dira Azkaratek azpimarratu dituen arazoak: lehena, hautatutako oinarrietatik batzuk euskaraz ezinezkoak direla, guztiz *-ez* atzizkiarekin agertzen direnak; bigarrena, *ze-* aurrizkiaren izaerari berari dagokio. Has gaitezen bigarrenetik; honela azaltzen digu Larramendik *ze-* aurrizkia *ceaquia* "ídolo" hitz berria dela eta:

Ceaquia se dixo de *ce*, partícula negativa, y *aguia*, apariencia, semejanza, representación.

Oro har, dagoeneko ziurtasun guztiaz esan dezakegu ez dagoela Larramendik asmatzen duen "partikularik"; eta honi dagokionez, zehazkiago, egia da eratorbidean ez dela inon ageri, Azkaratek dioenez, baina Larramendik bazekien zenbait hizkeratan⁸¹¹ ukapenak ze

⁸¹⁰ Izenei eskaintzen dien atalean (Azkarate 1992: 215) ematen dituen ezaugarri gehienak *i(n)*- aurrizkiari baino gehiago *HH*-ko izenari orokorrean dagozkio: izenondo eta izenaren arteko mugarik ezaz ik. § 5.2.1; *-de* atzizkiak, ik. § 2.1.11.

⁸¹¹ Bizkaiera zaharrean, behinik behin, eta indikatiboaz landako aditz forma jokatueta bakarrik. *Refranes y Sentencias*-en Lakarrak (1996c: 222) orotara 16 agerraldi bildu ditu; ikus bedi gaiak egiten duen oharra (*ib.* 260, 36. errefrauan). Larramendiren lekukotasunak bereziki interesgarriak dira, askoz beranduago berak ohartzeko moduan bizirik zegoela adierazten baitute; gogora bedi *RS* oso berandu ezagutu zuela, beranduegi ezpairik gabe *ze-* aurrizkiak egin zuen erabilera handia zurrizteko.

itxura —< *eze, ez bera bezala (Mitxelena 1977a: 422)— hartzen zuela; antza denez, haren erabilera eratorbidera hedatzera mugatu zen, beraz.

Oinarriak diren bezainbatean, *-bage* nagusiki izenaren ondoan (28 bider) agertzen da, eta 3 bider partizipioaren gainean, biak oinarri arruntak —bata bestea bainoago, noski— direlarik:

izena: *adimendu gabe*, *altxagarri gabe*, *arima gabe*, *emazte gabe*, *fruktu gabe*, *gorputz gabe*, *letragabe* (Lç), *adimendu gabe*, *gozogabe*, *paregabe*, *zentsugabe* (Ax), *ahalkegabe* (CatLav).
partizipioa: *ezagun gabe* “desconocido”, *usatu gabe* “inusitado” (Lç).

behin bakarrik oinarria aditzoina da (*prestabaguea* “impróvido”).⁸¹²

Hizki modura dabilenean, *ez-i* buruz —eta *ze-ri* berdin dagokio, inolaz ere, Larramendiren sistematan—, aurreko literaturatik atera daitezkeen ondorioen arabera hauxe esan daiteke: (1) ez dago *diru(rik) eza*, *gogo(rik) eza* moduko erabilerarik behin ere;⁸¹³ lehenengo agerraldia 1800ekoa da (Mogel *Confesio...*), 1850 arte Markinako eskolakoe (Uriarte barne) bakarrik erabiltzen dute eta geroko adibide guzti-guztiak Hegoaldekoak dira (ik. *OEH*, s.v. *ez*, II, 2); (2) *ez-* aurrizkia ongi ordezkatuta dago, izenondoaren —*ez-ezagun* (Lç), *ez-plenario* (CatLav)—, izenaren —*ez-deus*⁸¹⁴ (Lç, Ax, CatLav), *ezoren* (Ax), *eztheustasun* (Ax)— eta partizipioaren —*ez-antsiatu* (EZ, Ax), *ez-deusetaratu* (Lç), *ez-deustu* (Lç), *ez jakin* (EZ), *eztheustu* (Ax)— aurrean; eskuarki ez du hitzaren kategoria aldatzen, dakusgunez, baina behin bederen —*ez antsia* “despreocupado” (Ax)— aldaketa lekukotuta dago; (3) *-ez* atzizki modura behin bakarrik agertzen da (Ax *doiez*), izenondoaren atzean eta kategoria aldatu gabe.

Larramendik ezagutzen zuen tradizio horri lotuta ageri da gehienbat: (1) *ez-* beti izenondo zein partizipioaren aurrean agertzen da, izenondoak sortuaz:

ezegoki “improprio”, *ezaditu* “ináudito”, *ezegokide* “inconstante”, *ezeukide* “incontinente”, *ezodoltsu* “incruento”, *ezgaizkitatu* “inculpado”.

(2) *ze-* *ez-* en erabateko kidea da:

zelegar “ilegal”, “ilegítimo”, *zelegaratu* “ilegítimo”, *zekaltetua* “ileso”, *zezilegi* “ilícito”, *zebukatu* “ilimitado”, *zemoldesti* “immodesto”, *zegarbi* “immundo”, *zebetandua* “imperfecto”, *zetxau* “impuro”, *zegiruditua* “infectado”.

behin bakarrik izen oinarriko hitza eratu du, ondorioa denetan bezala izenondo bada ere: *zekai* “immaterial” < *ekai* “material (subst.)”; (3) *-ez* atzizkia erabiltzeko izan zezakeen eredu (niretzat ezagun) bakarra Axularren *doiez* da; haren eredura eginak dira adibide anitz, hots, izenondoa oinarrian daukaten guztiak.⁸¹⁵

⁸¹² Jat. *prestabaguea*, baina cf. *prestabaguero* “improvidamente”.

⁸¹³ Hau da Azkaratek (1992: 215) aintzakotzat hartzen duen bakarra, gero Axularren *doiez* ere aipatzen badu ere.

⁸¹⁴ Zuzen jokatzuz, izena baino zerbait gehiago da, jakina, eta bere ondorioak ere bereziagoak.

⁸¹⁵ Salbuespena dirudien adibide bat badugu: *gogozez* “inclemente” vs *gogozati* “clemente”; alabaina, atzizki gabeko oinarria erabili du eratorri berrian.

zoriez “immaduro”, *modestez* “immodesto”, *garbiez* “immundo”, *idez* “impar, desigual”, *zurrez* eta *zoglez* “imprudente”, *txaubez*, *txauez* eta *garbiez* “impuro”, *txaukinez* “incasto” (< *txaukin* “casto”), *ziertoez* “incierto”.

Talde berean sar daitezke, hasiera batean, oinarrian aditza dutenak ere:

elduez “immaduro”, *neurtez* “immenso”, *pairez*, *osartez* “impaciente” (< *pairatu*, *osartu* “padecer”), *egokez* “improprio”, *arimatez*, *animategaz* “inanimado”, *oguzitez* “inarticulado” (< *oguzitu* “articular”), *enzunez* “ináudito”, *bollesitez*, *bollartetez* “incircunscripto” (< *bollesitu*, *bollartetu* “circunscripto”), *jakinez*, *ezagunez* “incógnito”, *erretez* “incombusto”, *galkidez* “incorrupto” (< *galkidatu* “corrompido”), *ekinez*, *sortuez* “increado”, *landuez* “inculto”, *debedez* “indeciso” (< *debeditu* “decidir”).

Honekin multzoa askotxo handitzen da, baina baita arazoak ere: *elduez* edo *jakinez*-etik *erretez* edo are *debedez*-era dagoen jautzia Larramendik egina da: partizipio anitzek Larramendik egin ohi dituen hots-aldaketak pairatu dituzte, gehienetan atzizkia bokalez hasteak eragindakoak: (1) *-u* sarritan desagertu da (cf. jadanik izenondoen artean *modestez* < *modestu*), eta hortik datoz *-tez* bukaera usuak,⁸¹⁶ (2) baita *-i* ere (*egokez*); (3) partizipioaren ordezkaria (benetako atzizkien oinarri arrunta) erabiltzeko joera dauka (cf. *pairez*, *galkidez*, *debedez*), oinarrian partizipioa eskatzen duten atzizkietan antzemandakoarekin bat (§ 2.2.3). Honekin batera, izen oinarriko adibideak gehixeago dira hemen:

gaiez “immaterial”, *manaurkez* “immodesto” (< *manaurka* “modestia”), *ikaldez* “incierto” (< *ikalde* “certeza”), *etorgoez* “incongruente” (< *etorgo* “congruencia”).

2) *in...-ble* izenondoak: *-ezgarrri*, *ezin-*, *-ezkizun*, *ezin-*, *ze...-garrri*, *ez...-garrri*, *-ezbideko*, *ez...-kor*, *ze...-koi*, *-ezkor*, *ezkai*, *-ezgai*:

Azkaratek ohartarazi digu gaur nagusiki ‘aditzoina + *ezin* / *gaitz*’ elkarteez ordezkatu ohi ditugun erdal izenondo hauek Larramendik “baztertua geratu” den *-ezgarrri-z* (‘aditzoina + *-ez* + *-garrri*’) egin zituela, “bi atzizkiok eskatzen duten oinarriaren kategoria kontutan hartu gabe” (Azkarate 1992: 215). Hortaz, balirudike ‘*-ble* = *-garrri*’ egokitasunaren aldamenen ‘*i(n)...*-*ble* = *-ezgarrri*’ egokitasun are berriagoa ezarri zuela, kontua erraz —baina beharbada ez oso txukun— garbituaz. Egiatan, oster, zertxobait konplexuagoa da, eta ordezkabideak ugariagoak.

Gehienetan izenondoetarako erabili ohi dituen *-ez*, *ez-* eta *ze-* aldaerak aldizkatzen dira, *-garrri* beti azken lekuan eta oinarria aditzoina delarik. Adibide gutxi batzuk aski izan daitezke ordain hauen nolakoa antzeman dezagun:

Immanejeable, *ezescugarrri*, *ceescugarrria*, *cemanaigarrria*. Immarcessible, *ceusialgarrria*, *uchalezgarrria*. Immemorial, memorable, *oroitezgarrria*, *comutezgarrria*. Immensurable, *neurtezgarrria*.

Denen artean *-ezgarrri* da gailen, orotara 58tik 49 sarreratan agertuaz, 29tan (erdietan, beraz) bera bakarrik; *ez...-garrri* corpus berean behin eta *ze...-garrri* 3tan baino ez daude. Baina bada bestelakorik: ‘aditzoina + *ezin*’ —Azkaratek adibideetan jaso baino iruzkintzen ez duena— 16 bider agertzen da, ‘aditzoina + *ezkizun*’ 5 bider eta ‘*ezin-* + partizipioa’, *ez...-kor*, *ze...-koi*, *-ezkor*, *-ezgai* eta *-ezkai-* adibide bana dute. Aldakortasun honen arrazoa, neurri

⁸¹⁶ *erretez* izan ezik: ohartu **errez*-ek beste ulerkera bat izan zezakeela.

batean, *i(n)*- gabeko sarreretan aurkitzen dugu, *-gai*, *-kai*, *-kor* eta *-kizun* bukaeradunak maiz berek azaltzen dituzte eta:

Inalterable, *ezaldacorra*, *cealdacoya* // Alterable, *aldacorra*.⁸¹⁷
Incasable, *ezconeciña*, *ezconezcaya*, *ezconezgarria* // Casadero, *ezcongaya*.
Incorruptibilidad, incorruptible, *galquideciña*, *galquidezcorra* // Corruptible, *galquidacorra*, *goastacorra*.
Indecible, *esaezgarria*, *erranezgarria*, *esaezquizuna* // Decible, *esaquizuna*, *esagarria*, *erranquizuna*.
Indeclinable, en la Gramática, *mailezgaya* // Declinable, en la Gramática, *mailegaya*.

Antzeratsu azaltzen da hurrengoa, *-bilidad* sarreratik datorrena, eta ez alderantziz, ohi bezala:

Improbable, *billaezbidecoa*, *frogaetzbidecoa* < Improbabilidad, *billaezbidea*, *frogaetzbidea*.

Interesgarriago dira *ezin*- ez egindako ordainak; ikus ditzagun batzuk:

Immóvil, *imobil*, *inmóvil*, *ecinmugitua*. Incobrable, *cobraeciña*, *cobraezgarria*, *coberaezgarria*, *escaterezegarria*. Incognoscible, *jaquiñezgarria*, *ezagutezegarria*, *ezaguteeciña*. Incombustible, *erreezquizuna*, *erreeciña*. Incomerciable, *salerozeciña*. Incommutable, *gambiaquidezegarria*, *gambieciña*, *gambiezegarria*. Incomparable, *becaleeciña*, *becalezegarria*, *anzundezgarria*. Incomunicable, *baquidezegarria*, *baquideeciña*.

ezinmugitua adibide bakarra da gure laginean; *-ezin* atzena daramaten adibideak, ostera, *-ezgarri*-ren maiztasunera iritsi gabe, nahiko sarri aurkitzen ditugu eta haren 16 agerraldietatik 11 *incomerciable-incurable* artean daude, erabilera goraka doala iradokiaz.

Itzul gaitzen hasierako esanetara. Larramendik ezin zuen 'aditzoina + *-gaitz*' egitura erabili, itxura guztien arabera ezagutzen ez baitzuen.⁸¹⁸ 'Aditzoina + *-ezin*' egitura, berriz, oso ondo ezagutzen zuen eta, nahiz orokortu ez, adibide franko eskaini zituen. Alabaina, gaur prozedura arrunta izateak ez du ezertxo ere esan nahi, haren erabileraren historia zeharo ezezaguna da eta.⁸¹⁹ Larramendik bildutakoetatik zenbaitek (*salerozezin*-ek, adibidez) ez dute arrastorik utzi gaurko euskarari, baina gainerakoak bildu eta *EH*-arekin erkatuta, denak bizi-bizirik daudela eta, are garrantzitsuago, denetan lehen agerraldia *HH*-koa dela ohartzen gara:⁸²⁰

kobraezin "incobrable",⁸²¹ *ezagutezin* "incognoscible", *sendaezin* "incurable", *sinestezin* "increíble", *irakurrezin* "inlegible", *ukatezin* (gaur *ukaezin*) "innegable", *ikusezin* "invisible".

⁸¹⁷ Dakigunez, *-kor* eta *-koi* esanakide eta funtziokidetzat jotzen zituen (§ 2.1.15); beraz, *-koi*-dun adibidea, nahiz etorkizko sarreran agertu ez, arauaren berrezarpenari baino ez zaio zor.

⁸¹⁸ Atzizki honetatik egin zuen erabilera azaltzeko egin dudana hipotesiaz, ik. § 4.1.8.

⁸¹⁹ *OEH*-an begirada arin bat boteaz *ezi(n)egin* (*R*'s eta *EZ*) bakarrik aurkitu dut Larramendi baino lehenago; esan gabe doa *-ezin* itxurakoak bilatzen saiatu ere ez naizela egin. Ez dut ezer aurkitu Azkueren *Morfología*-an (1923-1925), eta hiztegian *eziñekuri* "(R), inquieto" bakarrik jaso zuen. Villasantek (1981: 53) *ezin ikusi* (1. lekukotasuna *Corografía*-n, ap. *OEH*, s.v.) eta *ikusi ezin* "odio, envidia" (1800), *ezin etorri* "imposibilidad de acudir" (1953?) eta *ezin hutsegín* "infalibilidad, indefectibilidad" (?) aipatzen ditu, iturririk aitortu gabe. Mitxelenak honela dio, Villasanteri (*loc. cit.*, 2. oh.) egindako "apostilla" haietako batean: "*Ezin* se ha empleado también para la formación de adjetivos: *ezin ikusi* 'invisible', en concurrencia con *ikusi ezin* y con *ezin ikusizko*", gehiago zehaztu gabe.

⁸²⁰ Behin baino gehiagotan, Larramendirena Sarasolak eman lehen lekukotasuna baino mende luzez lehenagokoa da.

⁸²¹ Sarasolak ez du bildu, baina Elhuyar-en hiztegian, esaterako, euskara-gaztelania zatian agertzen da, oso esanguratsuki.

4.1.15. infra-

a) izena = izena + *-pe* (cf. *so-*, *sub-*, § 4.1.28)

Infraoctava, *zortziurrenpea* (< *zortziurren* “octava”).

b) izenondoa (part.) = *bean* + part.

Infrascripto, *bean iscribatua*.

4.1.16. inter-

1) Joera nagusia (*entre-n* bezalaxe, ik. § 4.1.9) *-arte* bigarren osagaien daukaten hitz elkartuak osatzea da, kategoriari dagokion atzizkia erantsiaz, izenetan —(d)-n batu ditudan aditzizenez kanpo— izan ezik:

a) izena = izena / aditzoina + *-arte*

Intercolumio, *colomartea* (< *coloma* “coluna”). Interjección, *ezartea* (< *ez*).⁸²² Interlocución, *hitzartea*. Interlunio, *illarguiartea*. Intermedio, *erdiartea*. Internodio, *corapillartea*, *orapillartea*. Interpelación, *deiartea*. Interposición, *parartea*, *ibinartea*. Interpresa, *arrapartea*, *atzitartea*. Interregno, *erregueric eztaneco erartea*. Intersección, *ebacartea* (< *ebaki*). Intersticio, *egoitzartea* (< *egoitza* “estado”). Intervalo, *utsartea*, *erartea*. Intervención, *etorartea* (< *etorri*).

b) adjektiboa = izena / aditzoina + *-arteko* (*-artedun* [+biziduna])

Intercalar (adj.), *parartecoa*, *ibinartecoa*. Intercostal, *sayetsartecoa*. Intercutáneo, *larrartecoa*, *narrartecoa* (< *larru*, *narru*). Interlineal, *marrartecoa* (< *marra*). Interposita persona, *hitzarteduna*, *hitzartecoa*.

c) aditza = aditzoina + *-artetu*

Intercalar, verbo, *parartetu*, *ibinartetu*. Interceptar, *atzartetu* (< *atzitu*). Interpelar, *deartetu*. Interpolar, *parartetu*. Interponer, *parartetu*, *ibinartetu*. Interpretar, *arrapartetu*, *atzartetu*. Intervenir, *etorartetu*.

d) aditzizena = aditzoina + *-artetze* (*-arte*)

Intercalación, *parartetzea*, *ibinartetzea*. Interpolación, *parartea*, *parartetzea*.

2) izena [+biziduna] = izena + *bitarteko*

Internuncio, *mandatari bitartecoa*.

3) aditza / aditzizena = *arte* + aditza / aditzizena

Interrumpir, *artautsi*. Interrupción, *artaustea*.

4.1.17. micro-

a) izena = izena + *txiki*

⁸²² Hitza *DAut*-eko adibidean oinarri harturik eratu du: “La *interjección* no es parte de la oración, propia ni reducida...” (Paton, *Eloq.* f. 167).

Microcosmos, mundo abreviado, (...) *munduchiquia*.

b) izena = *urri-* + izena

Microscopio, que avulta las cosas pequeñas, *urricuscaya*.⁸²³

4.1.18. mono-

izena = izena + *-bakotx*

Monocerote, monoceronte, *abere adar bacocha*. Monoculo, *beguibacocha*. Monomachia, desafío de uno a uno, *gudabachoa* [sic, *gudabacocha*-ren ordez]. Monostrophe, *bereisbacocha* (< *bereista* "estancia, en los versos"; cf. *DAut*: "Canción de una sola estancia"). Monosylabo, *gueibechei bacocha* (< *geibetxi* "sílabo").

Cf. *begi-bakoitzdun*, *esku-bakoitzdun* (Lç), eta toponimian aurkitutakoak (§ 8.2).

4.1.19. multi-

izena = izena + *askotako*

Multiforme, *era ascotacoa*. Multilatero, *alde ascotacoa*.

4.1.20. pos(t)-

a) izena = izena / aditzoina + *-ondo*, *-ondore*, *-oste*

Posdata, *bucondoa*, *bucondorea*. Postliminio, *marrostea*.

Cf. *afal-ondo*, *garhondo* (Lç), *bil ondo* "rebusca", *gaitzondo* "resentimiento" (Ax).

b) erlazio izenondoa = izena + *-ondoko*, *-osteko*

Postmeridiano, *eguerdiondocoa*, *eguerdiostecoa*.

c) aditza = izena + *ostetu*

Postergar, *atzeratu*, *ostetu*, *atzostetu*.

4.1.21. pre-

Azkaratek (1992: 215) ohararazi digu *len-* 'lehen' aurrizki modura jarriaz edo *lendani-* ekiko parafrafiar ordezkatuta agertzen dela *HH*-an, baita behin bederen *-aurre*-rekin (*hitzaurre*).

Azter dezagun astiroago:

a) aditza eta eratorriak = *le(n)-* + izena / aditza eta eratorriak:

Precaución, *beaquiña*, *lemirá*. Precautelar, *beaquiñdu*, *lemiratu* (< *miratu*). Precocidad, *letzoria*. Precoz, *letzoria* [< *zori* "maduro"], *goiz eldua*, *zoritua*. Predefinición, *lenaidarra* (< *naidar* "decreto", cf. *DAut*: "El decreto u determinación de Dios"). Predefinitivo, *lenaidarcoa*. Predefinir, *lenaidartu*. Predestinación, anticipada destinación, *leseñalpenea* (< *señalpenea* "destinación").

⁸²³ Cf. *urri-*z elkarketan esandakoa (§ 3.1.6.2.t).

Predestinar, destinar anticipadamente, *leseñalpenetu*. Predeterminación, *lequenegobia* (< *desegobia* “determinación”).⁸²⁴ Predeterminar, *lequenegobitu*. Preexistencia, *lenizatea*, *lenizaira*. Preexistir, *lenizan*, *lenizatu*. Preexistente, *lendana* (cf. “existente, *dana*, *dena*”). Preexistido, *lenizandacoa*. Preferencia, *legoizta* [< *egoizta* “posición”], *aitzindea*. Preferir, *legoizatu*, *aitzindatu*. Prefigurar, *lenirudetu*, *lecanzatu* (< *irudetu*, *ekanzatu* “figurar”). Prefijar, *lenzulcatu* (< *zulkatu* “fijar”). Premisa, en el silogismo, *lenaipua*. Preocupación, *lesarartzea*. Preocupar, *lesarartu* (< *sarartu* “ocupar”). Preordinación, *lebidacaidea* (*bidaikaide* “ordenación”). Preposición, *leipintza*. Preservación, *legarda*. Preservador, *legardaria*, *legardatzallea*. Preservar, *legardatu*.⁸²⁵ Preservativo, *legarda*. Presupuesto, *lipentzatu* (< *ipentzatu* “supuesto”). Presupuesto, presuposición, *ipentza*, *lipentza*. Previsto, *len icusia*.

Cf. *lehen-gusu*, *lehen-bizi* (Lç); Azkuek ere (1923-1925: § 128) *le(he)n* aurizkitzat jo zuen, *lenabendu*, *lenarri*, *lenbizi(ko)*, *lengau* “primeras horas de la noche”, *lengusu* eta *lenseme* adibideak emanez.

Aurizkitzakoak maizenik *le-* itxura hartzen du: *len-* bokalez hasten den erroarekin agertzen da (*lenizan*, *lenirudetu*, *lenaipu*, etab.), baina ez hitzean beste sudurkari inposibo bat hurbil dagoenean (*leipintza*, *lipentza*), ez eta aditza *e-z* hasten denean ere (*legoizta*, *lekanzatu*). Bokal arteko testuinguruan *-n-* desagertzen denean, dakusgunez, bokal bakarria uzteko joera dauka. Kontsonante aurrean, *lendana* eta *lenzulkatu*-n bakarrik gorde da osorik. Azkenik, *letzori*-k elkarketan somatu dugun elkarguneko ‘txistukari frikaria > afrikatua’ aldaketa pairatu du (ik. § 3.2.3.3.f).

b) aditza eta eratorriak = *lendanic* (*lenagotik*, *atzinetik* eta *lenik* / *aurrera*, *aitzinat*) + aditza eta eratorriak:

Preconceder, *lendanic*, *lenagotic ezagutzallea*, *asmatzallea*, *iguerlea*. Preconocer, *lendanic ezagutu*. Predecir, *lendanic esan*, *aitzinetik erran*, *asmatu*, *somatu*. Predicción, *lendanic esatea*, *asmatzea*. Premeditación, *lendanic gogartea*, *gogartatzea*. Premeditar, *lendanic gogartatu*. Prever, *lendanic icusi*. Precursor, *aurrera bialdua*, *aitzinat egorria*.

c) aurizkia eta perifrasi, bietakoak:

Predestinar Dios a los escogidos, *lendautatu*, *lendanic autatu*. Preordinar, *lebidacaitu*, *lendanic bidacaitu*. Presciencia, *lejaquindea*, *lendanic jaquindea*, *jaquitea*. Presentimiento, *lezomá*,⁸²⁶ *lendísoma*. Presentir, *lezomatu*, *lendisomatu*. Presuponer, *lendanic ipintzatu*, *lipentzatu*. Previsión, *lenic*, *lendanic icustea*, *lenicusquera*.

d) aditzizena = *lend-* (< *lendanic*)⁸²⁷ + aditzizena

Predeterminación de los escogidos y santos, *lendauquerá*. Prenoción, *lendezagutza*.

e) izena = izena / aditzoina + *-aurre*, *-aste*, *-len(go)* (ik. *pro-*, § 4.1.22):

Preambulo, *sartaurrea*, *hitzastea*. Predecessor, *lenendaria*, *equilengoa*. Prefacio, prefación, *hitzaurrea*. Preliminar, *sartaurrea*, *equilena*.

g) *ze-* edo *-bage* (ik. *i(n)-*, § 4.1.14):

⁸²⁴ *des-* eta *len-* aurizkiak batu behar zituzenez gero, *des-* kendu eta haren ordez *ken(du)* ipini zuen, dirudienez.

⁸²⁵ Inondik ere *goardatu*-rekin lotu beharrekoa; cf. *DAut*: “Guardar y conservar...”. Cf. agian *gardia* “cuidado” (*Erans* 176) < ? Ht *FE* 425 *goardia* “soin”.

⁸²⁶ Hona hemen beste txistukari aldaketa mota bat, oker ez banago orain artean lehenengoa: *s* > *z*. Esanahikideak erakusten digu ez dela oharkabea izan.

⁸²⁷ Azalpena askoz errazagoa izango litzateke *lendik* aintzat hartuko bagenu, jadanik ikusi baitugu Larramendi *-tik* atzizkiari *-ik* kentzen; alabaina, *HH*-an *lenik* baizik ez dago jasota.

Prematuro, *celdua*, *eldubaguea*.

4.1.22. pro-

1) 'aurreko' adieran (ik. *pre-*, § 4.1.21)

a) izena = izena / aditzoina + *-aurre*, *-len*, *-aste*, *-aitzin*

Proemio, *sartaurrea*, *equilena*. Progimnasma, *equiñastea* (cf. *DAut*: "Principio o ensayo de algún ejercicio u acción"). Prolegómeno, *izcribaurrea*. Prólogo, *hitzaurrea*, *mitaitzina*.⁸²⁸

b) izena = aditzoina + *aurrera*

Procurrente, *luzaurrera* (cf. *DAut*: "gran pedazo de tierra metida y avanzada dentro del mar").

c) adjektiboa = aditzoina + *-aurreko*, *-lengo*

Proemial, *sartaurrecoa*, *equilengoa*.

2) 'ordeko' adieran, izena = izena + *-orde*; adjektiboa = izena + *-ordeko*

Procónsul, proconsulado, *bacarquidordea* (< *bakarkide* "cónsul", *bakarkida* "consulado"). Proconsular, *bacarquidordecoa*.

4.1.23. proto-

a) izena = *le(n)-* + izena (ik. *pre-*, § 4.1.21)

Protomartyr, *lenqueriola* (< *onqueriola* "martyr"). Protomedicato, *lesendaquieta* (cf. *DAut* "El Tribunal en que asisten y concurren los Protomédicos y Examinadores..."). Protomédico, *lesendaquiña* (< *sendaquiña* "médico"). Protonotario, *lenotarioa*. Prototipo, *learaudea* (< *araudea* "exemplar").

b) *-buru*

Protocolo, *izquiraburua*.

Cf. *monstra-buru* "ejemplo" (Lç).

4.1.24. quad(r)-, quatr-

a) izenondoa = *lau(r)* + izena + *-ko*

Quadrienal, *lau urtecoa*. Quadrisilabo, *laubechicoa* (< *(gei)betxi* "vocal"). Quadrupedo, *lauoincoa*, *lauoincoa*. Quatriduano, *lauregunecoa*.

Cf. *laur-oindun* (Lç), *laur kantoinetako* (Ax).

b) izena = *lau(r)* + izena (gehienak *-ko* izenlagunetik erauziak bailiran)

Quadrienio, *lau urte*. Quadrilátero, *lauraurquea*. Quadrillas, en torneos, cañas, &c., *laurpilla*. Quadrimestre, *laurillabete*, *lau ill*. Quadriple, *laubiderra*. Quadrivio, *laubideta*. Quadro, *laurca*.

⁸²⁸ Honen erroa zein den ez dakit, nahiz *mi* "lengua" edo *mintza(tu)*-rekin zerikusia duela agerian izan; *hitz*-ekin batera, *mintza* eta *mintzoa* dakartza *HH*-ak s.v. *palabra*, baina hauetakoren bat izatera prozedura erabat arraroa izango litzateke: hots, lehenbizi kontsonante guztiak desagertarazita, *-t-* tartekatzea. Honegatik, *mi* hutsaren alde makurtuko nintzateke (ik. § 5.4.2).

Quadruplo, *laubiderra*. Quatralbo, *laboinchuria*.⁸²⁹ Quatralbo, cabo de quatro galeras, *lauquidaria*.
Quatrinca, *laurpuilla*.

b) izena = x + *laur*

Quadriga, *alcalaura*.

4.1.25. re-

Azkarate (1992: 212) *bir-* / *ber-* aurritzien bidezko ordainetara mugatu da, gaingiroki eta labur-labur, haietatik "sortutako aditz mordoska ematen digu[la]" zehaztuaz. Alabaina, egiatan Larramendik *re-* itzultzeko hori baino baliabide gehiago ditu, baita hala behar ere batzuetan, aurritzien adiera ezberdinak ongi islatzeko.

1) 'berriz' adieran aditza / aditzizena = *ber-* / *bir-* edota *erre-* + aditza / aditzizena; *berriz* + aditza.⁸³⁰

Reasumir, *berrartu*, *berriz artu*. Reasunción, *berrartztea*. Reaventar el trigo, *berrazatu*, *berriz aizatu*. Rebaptizar, *berbateatu*, *berriz batayatu*. Rebotadura, *errebotaera*, *berbotaera*. Rebotar, (...) *errebotatu*, *berbotatu*. Rebote, *errebota*, *errebotea*, *berbotea*. Rebramar, *berriz orroatu*. Re caer, volver a caer, *berterori*, *berriz erori*, *jautsi*. Re caer en alguna enfermedad, *berteritu*, *bercaisotu*, *berriz eritu*, *gaisotu*. Recaída, caída segunda, *berterorte*, *berriz erorte*, *jaustea*. Recaída en enfermedad, *berteripena*, *bercaisoera*. Recalzo, recalzón de rueda, *birmacola*. Recambiar, hazer segundo cambio, (...) *birgambiatu*. Recambio, *birgambioa*. Recarga, *errecarga*. Recargar, *errecargatu*, *berriz cargatu*. Recargo, *errecargua*. Recata, segunda cata, *birdastá*. Recatar, catar, probar segunda vez, *birdastatu*, *berriz dastatu*. Recavar, *birtaitzurtu*, *berriz aitzurtu*. Recobrar, volver a cobrar, *bircobratu*, *berriz cobratu*, *coberatu*. Recobro, *bircobera*, *bircobrua*. Recocer, *birtegori*, *bertegosi*. Recondición, segundo arrendamiento, *birtalocaira*. Reconfessar, *birtaitortu*, *bertautortu*, *berriz aitortu*, *confesatu*. Recontar, *bircontatu*. Reconvaler, *berriz sendaquidatu*. Recorrer, registrando, *birtaratu*. Recorrer, *birtiracurri*, *birleatu*. Recortar, *birtebaqui*. Recoser, *berjosi*. Recuento, *bircontaera*. Redecir, *berterran*, *berriz esan*. Redención, acción de redimir, *berterosgoa*, *berriz eroste*. Rediezmo, *birtamarrena*. Redimir, comprar, cobrar lo que se avía vendido u dado, *berterosi*. Redistribución, *birtemasquida*. Redoblar, volver a plegar, *birtolestu*, *bertolestatu*. Reduplicación, *birreztatzea*. Reduplicar, *birreztatu*. Reedificación, *birtequida*. Reedificar, *birtequidatu*. Reembolsar, *berbolsaratu*. Reembolso, *berbolsatea*.

Cf. *bir-ikhusi*, *bir-landatu*, *birloratu* (Ax).

Cf. *erredoblatsu*, *errekeritu*, *errepartitu*, etab. (Ax), *erreberritu*, *errekonpensatu*, *erreparatu*, *errepausu*, etab. (CatLav).

Aditzetan, espero genezakeen bezala, denetarik ordain multzoak dakuskigu; haatik, ez dira denak maiztasun beraz agertzen, ez eta corpusean zehar berdin hedatzen: (1) usuenik, *bir-* edo *ber-* bakarrik daukaten ordainak daude (10 sarreratan), eta aurrera ahala gero eta maiztasun gehiagoz (*redimir-reembolsar* zatian ez dago besterik); hauei gaineratu behar zaizkie *ber-* eta *bir-* ordainak dituztenak (*recocer* eta *redoblar*); (2) *ber-* edo *bir-* aurritziduna eta *berriz-* ekiko perifrasi eskaintzen dituztenak ere ez dira gutxi, 9 orotara; gainera bekie *bir-* eta *ber-* aurritzidunak gehi perifrasi dakartzan sarrera bakarra (*reconfessar*); (3) *berriz-* ekiko perifrasi bakarrik bitan dugu (*rebramar* eta *reconvaler*); (6) bi adibidetan agertzen da *erre-* aurritzia, *rebotar*-en *ber-*ekin batera eta *recargar*-en *berriz-*en perifrasiak lagunduta; ohartu aurritzia hau ez dela emankorra *HH*-an, Axularrengan ez bezala, adibidez: maileguarekin batera bakarrik

⁸²⁹ Hiru bokalen topaketa saihesteko bide honen lehen agerraldia *HH*-an, dakidalarik.

⁸³⁰ Adibideak *reembolso* arteko guztiak dira.

agertzen da (*rebotar*-ek etimologia dauka), baina honetan ere ez da nahitaezkoa (cf. *birgambiatu*, *bircobratu*...).

Aditzizenetan, ordea, kontuak aldatzen dira: usuenik aurrizkidun formak bakarrik aurkitzen ditugu, aditzetako perifrasiak desagertu ohi dira eta (cf. *reasunción*, *recaída en enfermedad*, *recata* eta *recobro bir-* / *ber*-erako; *recarga* eta *recargo erre*-rako). *erre*- eta *ber*-aukeran dauzkan aditz bakarretik, oster, biak gorde dira izenetan (*rebotadura* eta *rebote*). Perifrasia bi izenetan baino ez da agertzen: *recaída* “caída segunda” eta *redención*-en, bigarreanean aditzak halakorik ez zuen arren.

Aurrizkiaren itxurari dagokionez, erabiltzen ari garen corpus mugatuan *ber-* 10 sarreratan, *bir-* beste hainbestetan, eta biak batera 3tan agertzen dira.⁸³¹ Ohar gakizkio banaketari, aditz bakoitzari zenbaki bat emanaz:

ber- 1-2-3-4-5-6-17-18-19-22
bir- 7-8-9-10-13-14-15-16-20-21
ber- / *bir-* 11-12-20

Itsas-uhinen modura dabilta, biak batera agertzen diren geldiene zenbaitekin; nik uste, tradizioari egotz dakizkiokeenak gorabehera, bien alde egin nahi zuen, noiz bata noiz bestea erabiliz, ez baitago testuinguruak azal dezakeen erabilerarik.

Bi formek *-t* hartzen dute oinarria bokalez hasten denean: *berterori*, *berteritu*, *birtaitzurtu*, *birtegori*, *bertegosi*, *birtalocaira*... Salbuespenak hasiera aldera pilatzen direla dirudi: *berrartu* “reasumir”, *berraizatu* “reaventar”. Bestalde, *bercaisotu*-n elkarketan jadanik antzeman dugun bigarren osagaiaren lehen kontsonantearen ahoskabetzea gertatzen da (ik. § 3.2.3.3.e).

2) ‘gehiago’, ‘gehiegi’ adieretan aditza eta eratorriak = *gei-* + aditza, *geiegi* + aditza (ik. *super-*, *sobre-*, § 4.1.30)

Realzar, *gueitalchatu*. Recocho, *gueitegosia*, *gueyegui egosia*. Recreecer, *gueitaci*, *gueitu*, *anditu*. Recrecimiento, *gueitaciera*. Réditos de algún censo, &c. *erredituac*, *guei ganác*. Redituar, *eman*, *gueigandu*, *gueiganatu*. Redoblar, *gueitambatetu*, *gueitambestetu*. Redoble, *gueiraberria*, *erredoblea*. Redundancia, *gañeztea*, *gueitarioa*, *gueitugaria*. Redundar, *gañeztu*, *gañeztatu*, *gueitario*, *gueitariotu*, *gueitugaritu*. Redundante, *gañeztaria*, *gueitarioa*, *gueitugaria*.

Perifrasia behin baino ez da agertzen corpusean. Aditz trinkoa ere oinarri izan daiteke (*geitario*, *geitariotu*), bestetan bezala. Eta bokal aurrean *geit-* agertzen da, hainbat aurrizkitzakotan bezala.

3) ‘oso’ adieran: izenondoa / aditzondoa = *txit* + izenondoa / aditzondoa; izenondoaren errepikapena

Rebién, muy bien, *chit ondó*. Rebueno, *onona*, *chit ona*.

⁸³¹ Cf. Azkue (1923-1925: § 119): “Muchos son los vocablos a que da origen el primero [*bir-*]. Sólo cuatro o cinco con sus variantes conozco formados por *ber*: *berregin* rehacer, siendo más usual *birregin*; *berrerosi* que dijo Duvoisin (no sé que lo diga el pueblo) por redimir; *berreun* doscientos, con sus variantes (...); *berrogei* cuarenta y *bergizen* cierta enfermedad de manzanas y castañas”.

4) 'gainetik' adieran: *gain-*, *go(i)-*

Realce, *gai[n]lora*, *golorea*. Realzar, ilustrar con realces, *gainloratu*, *goloreztatu*. Recamar, bordar de realce, *gainloratu*, *goloreztatu*. Recamo, bordadura de realce, *gainlora*, *golorea*.

5) izena 'senitartekoa' = *eren-*

Rebisavuelo, *erenaitona*, *erenasaba*. Rebiznieto, *erenloiba*, *erenaurla*, *eren aurbasoa*.

Cf. *herengusu* (AN-5vill-, B; "primo tercero" Lar), *eraingusu* (G-goi) eta *herenkusin* (SP) (denak ap. OEH, s.vv.).

6) leku-izena ('atzekoa'): izena + *-oste*, *-atze* (ik. *trans-*, § 4.1.31)

Rebotica, *boticostea*, *boticatzea*. Recámara, el aposento después de la cámara, (...) *gambara*, *gambarostea*.

7) *-bi*:

Recodo, *zocobia*, *zocalondoa*.⁸³²

8) 'bigarrena' adieran: *big-* (< *bigarren*)

Rebotín, segunda oja de la morera, *biguerná*.

4.1.26. retro-

aditza / aditzizena = *atzera* (*gibelat*) + aditza / aditzizena

Retroceder, *atzeratu*, *atzera biurtu*, *guibelatu*, *guibelat etorri*. Retrocesión, retroceso, *atzeraida*, *atzera biurtzea*, *guibelat etortea*. Retrovender, *atzera saldu*. Retrovención, *atzera saltzea*.

4.1.27. semi-

Cf. "Semi, es voz latina, de que se componen otras, *erdi*".

a) izena / adjektiboa = *erdi-* + izena / izenondoa / partizipioa

Semibreve, en la música, *erdilasterra*. Semicabrón, semicabro, *erdiaquerra*. Semicorchea, *erdi zarpicocia* (< *zarpikozia* "corchea"). Semidifunto, *erdi illa*. Semidormido, *erdi loacartua*. Semidragón, *erdi sugulna* (< *suglna* "dragón"). Semigola, en la fortificación, *erdi gordeztarria* (< *gordeztarria* "gola"). Semínima, en la música, *erdi chiquiena*. Semioctava, *erdi zortziduna* (cf. *zortzigarrena* "octava, en la Música" vs *zortziduna* "octava, composición poética"). Semiplena, *erdi betea*, *erdi osoa*. Semipútrido, *erdi ustela*. Semiracional, *erdi eraldearra* [< *eraldearra* "racional"], *guicerdia*. Semirecto, *erdi zucena*, *erdi artea*. Semitono, *erdi ocasta* (< *okasta* "tono"). Semivibración, *erdi dardara*. Semivivo, *erdi bicia*. Semivocal, *erdi bechaoa*. Semivulpa, animal de Indias, *erdiaceria*.

Cf. *erdi hil*, *erdi iragan* (Lç).

b) izena = izena + *-erdi*

Semicírculo, *boillerdia*. Semideo, semidiós, *Jainquerdia*. Semidoble, *doblerdia*. Semihombre, *guizerdia*. Semilunio, *illerdia*, *illaren*, *illabetearen erdia*.

Cf. *eguerdi* (Lç, Ax), *gau-herdi* (Lç).

4.1.28. so-, sub-

a) izena = izena / aditzoina + *-pe*, (*-peko*)

⁸³² Azken hau, egiatan *ukalondo*-aren analogiaz egina dirudi; cf. *DAut*: "Dicesse assí, porque la vuelta que toma es en figura del brazo doblado".

Socava, *zulapea*. Socavón, *zulapea*. Sofrenada, *bridape]d[a, bridapecoa*. Soliviadura, *jasopea*. Soportal, *atarbea, portalepea*. Sotechado, *leorpea, echapea*. Subdelegación, *ordegoepa*. Subjuntivo, *atzempea, atzempecoa* (< *atzen*; cf. *DAut*: “Díxose así porque regularmente se rige de otra oración”). Subordinación, *manupea*. Subrepción, *isilpea*. Suscripción, *izcribapea, escribapea*. Substancia, término filosófico, *egoepa*.

Cf. *lupe* (Lç, Ax), *ohape* (Lç), *eskupe, lanhope* (Ax).

b) adjektiboa = izena + *-peko, -azpiko*

Soterráneo, soterraño, *lurpecoa*. Subcinericio, pan, *taloa, auspecoa*. Sublunar, *illarguiepecoa*. Subpolar, *eucachazpicoa, eucaispecoa* (uler bedi *eukax-* < *eukatxa* “polo”).

Cf. *zubi azpiko* (Ax).

c) aditza = aditza + *-petu (-peratu)*

Sojuzgar, *memperatu*. Someter, *sarpetu*. Soterrar, *lurpetu, lupetu*. Substraher, *ebaspetu* [< *ebats]*, *quendu, ateratu*.

d) ‘norbaiten azpikoa’ adieran, izena = izena + *urren(pe)* (cf. *sota-*, § 4.1.29)

Subbrigadier, *brigadari-urrena*. Subdiaconado, subdiaconato, *apaizurrenpea, subdiaconatoa*. Subdiácono, *apaizurrenpea* [< *apaizurren* “diácono”], *subdiaconoa*.

e) ‘berriz’ adieran, izena / aditza = *ber-* + aditza / izena; *berriz* + aditza (cf. *re-*, § 4.1.25)

Subdividir, *bertucitu* [< *uzitu* “dividir”], *berriz ucitu, bereci*. Subsistencia, permanencia, *bertiraundea*.

f) ‘aldekoa’ adieran, adjektiboa = izena + *aldeko*

Suburbano, *uritaldecoa* (cf. *DAut*: “terreno o campo que está cerca de la ciudad”).

g) ‘zerbaiten ondoan’ adieran, aditza = izena + *ondotu*

Sobrasar, poner brasas al pie de la olla, *brasondotu* (cf. *DAut*: “Poner brasas al pie de la olla... Es compuesto de las voces So y brasa”).⁸³³

4.1.29. *sota-*

a) izena = *x-en urren* (ik. *vice-*, § 4.1.35)

Sotacaballerizo, *zalditeguizayaren urrena* (cf. “caballerizo, *zalditegiaren zaya*”). Sotacomitre, *arraunarizayaren urrena* (< “comitre de galera, *arraunarizaya*”). Sotaministro, *ministroaren urrena*. Sotamontero, *eistarizayen urrena* (cf. *mendico eistaria* “montero”).

Beraz, *x-zayaren (x-zayen)* zatia ere, ahal dela, formularen barruan sartzen da.

b) izena = *x bigarren*

Sotacohero, *manurgari bigarrena* (cf. lat. *rhedarius secundus*, eta “cohero, *manurgaria*”).

4.1.30. *super-, sobre-*

Jadanik Azkaratek (1992: 215-216) ezarri duen bezala, Larramendik aurrizki hauen bi adiera nagusiak (‘gainean’ eta ‘gehiegi’) modu ezberdinetara itzuli zituen, bakoitzari berea

⁸³³ Cf. *HH* “(A) pie de un roble, &c. *aritz ondoan*”.

emanen. Xehetasun gehiagoz begiratuta, oraindik esanahi bereizkuntza gehiago egin zituela ageri da:

1) 'gainean' adieran:

a) izena / adjektiboa = izena + *-ga(i)n(eko)*, *-garai*, *-goiti*

Sobrecama, *oegaña*, *oeganecoa*. Sobrecaña, un tumorcillo en la caña de la mano del caballo, *bernagañecoa*. Sobrecarta, cubierta de carta, *cartagaña*, *cartestalquia*. Sobrecarta, segunda provisión o despacho, *naidargaña* <uai-> [< *naidar* "provisión, despacho"], *cartagaña*. Sobrecebadera, en el navío, *cebaderagaña*. Sobrecruces, en las azuas, *gurutzegaña*. Sobrediente, *orzgaña*. Sobrehumano, *umangaña*, *umangaraya*. Sobremesa, *maiganquia*. (...) Item, *mancalá*, *maigana*. Sobremesana en el navío, *mesanagaña*. Sobrenatural, *icetagarai*, *sortizgaraya*. Sobrenombre, *icengoitia*, *icengaña*. Sobrepaño, *oyalgaña*. Sobrepelliz, *sobrepelliza*, *mechurigaña*. Sobrequilla, *quillagaña*, *quillagañeco mandio lucea*. Sobreropa, *arropagaña*. Sobresuelo, *chompegaña*, *echompegaña*. Sobretudo, para defender del agua, *lezoa*, *soingaña*, *gucigaña*. Superhumeral, *soingaña*.

Cf. *itsas-gain*, *ur-gain* eta *izen-goiti* (Lç).

b) aditza = aditzona + *-gaindu*

Sobresanar, *osagaindu*.

c) izena / adjektiboa / aditza = *ga(i)n-* + izena / aditza; inoiz *gainean* + aditza

Sobrecoger, coger de repente, *ganatzitu*. Sobredorar, disculpando, *urreztatu*, *ganchuritu*, *gainchurizcatu*. Sobrescribir, *ganizcribatu*, *gañean izcribatu*. Sobrefaz, sobrehaz, *ganauzquia*, *aisala*, *gaincusa*. Sobrehuesso, tumor sobre los huessos, *ganazurquia*. Sobrelecho, en las piedras, *ganauzquipea*. Sobrenadar, *gañean igueri*. Sobreponer, *gaimparatu*, *gaintibeni*, *gaintifiñi*. Sobresello, *gainciguillua*. Sobresolar, los zapatos, *gainzolatatu*, *gainzolzatzatu*. Sobresuelo, *gainsaria*. Sobrevénir, suceder, acaecer, *gaintorri*, *guertatu*. Superabundancia, *ganugaria*, *ugari andia*, *ïori chitezcoa*. Supererogación, *gaintemana*. Supersustancia[1], *gainsustanciarra*.

Cf. *gainalde* (Ax).

Ohartu *gan-*ek bere hartan dirauela bokal aurrean (*ganatzitu*, *ganizcribatu*...), testuinguru berean *gaint-* dugun bitartean (*gaintibeni*, *gaintifiñi*, *gaintemana*).

2) 'gehiegi' adieran: izena / adjektiboa / aditza = *gei(t)-*, *lar-* + izena / izenondoa / aditza; inoiz *geiegi*, *larregi*, *larri* + aditza

Sobreabundante, *gueitiori*, *gueitugari*, *gueitoparo*, *gueinaroro*. Sobrealzar, *gueitalchatu*. Sobreañadir, *gueiteransi*. Sobreassar, *gueiterre*. Sobrebeber, *gueitedan*, *larredan*, *gueyegui*, *larregui edan*. Sobrecarga, *sobrecarga*, *gueicarga*. Sobrelleno, *gueibetea*. Sobrellevar, *gueiteraman*, *gueiteroan*. Sobrepujanza, *gueipujanza*. Sobresalir, *bitore izan*, *gueitaguri*, *larri izan*.

3) Bi aterabideak batera sarrera bakar batean kausitu ditut:

Sobrecincho, *gueicincha*, *cinchagaña*.

4) Adiera batean zein bestean, inoiz *sobre-* gorde du, bestelako aukeren aldamenean:

Sobrecarga, *sobrecarga*, *gueicarga*. Sobrepelliz, *sobrepelliza*, *mechurigaña*.

5) 'berriz, bigarren' adieran: izena / aditza = *bir-* + izena / aditza, *berriz* + aditza (ik. *re-*, § 4.1.25)

Sobrecubierta, *birstestalquia*. Sobresembrar, *birtereiñ*, *berriz ereiñ*.

6) 'gero, ondoan' adieran: izena = izena + *-ondo*

Sobreparto, *aurguitondoa, erditondoa, seinguitondoa*.

7) 'nagusi' adieran: izena = izena + *nagusi*

Superintendencia, *benaita nagusia*. Superintendente, *benaitari nagusia*.

4.1.31. tra(n)s-

Atzizki honek ez du era bateko erantzunik *HH*-an, eta ez da harrizkoa, bere adiera ñabartasuna kontuan izanik (ik. Alvar & Pottier 1983: 352-353). Sarrienik, hitzaren esanahiari lotutako euskal ordainak eman zaizkio; hona adibide gutxi zenbait:

Transcender, *passar de una parte a otra, igaro*. Transcender, exhalar un olor muy vivo, *usai andia banatu*. Transflorear, dar color verde sobre oro u plata, *urregañean verdeztatu*. Transfundir, *isuri*. Trastumbar, *bultzatu*.

Dena dela, joera batzuk antzematen dira:

1) 'lekua' adieran:

a) 'detrás de, al otro lado de' adieran, izena 'lekua' = izena + *-oste, -atze*

Trascoro, en la iglesia, *coruostea, coruatzea*. Trascorral, *escortatzea, escortostea, espillatzea, espillostea, urubatzea, urubostea*. Traspuerta, lo que está detrás de lo principal de la casa, *echostea*. Trastienda, *dendostea*.

Bakar batean, *-osta* dugu bigarren osagaian, izenetan *-a* bukaera ezartzeko joerari jarraiki (ik. § 3.2.3.4); ohartu esanahia ez dela zehazki goiko adibideetakoa:

Trasmallo, red rala que tiene detrás otra más menuda, *sare larria, mallosta*.

b) adjektiboa = izena + *-ostekoa*

Transmarino, *itsasostecoa*.

c) aditza = izena + *-atzetu, -ostetu*

Trascartarse, quedarse una carta detrás de otra, *cartatzetu, cartostetu*.

2) *beste*-rekiko ordainak:

a) ordain perifrastiko zenbaitetan *beste* agertzen da

Transalpino, *Alpesen beste aldecoa*. Trasmatar, *besteac lenago ilustea*. Trasponer, *eraldatu, beste lecuari ifiñi*.

b) aditza / adjektiboa = *batetik bestera* + aditza / partizipioa

Transfixo, *batetic bestera zulatua*. Transportar, *batetic bestera eraman*.

c) aditza = *beste-, berze-* + izena / aditzoina + *-tu*

Transfigurarse, *bestiruditu, berciruditu, bestirudia artu*. Transformar, *besteratu, berceratu, eraldaitu* [sic]. Transmitir, *bestiragotu*. Transsubstanciar, *bestegopetu*. Traspasar, ceder el derecho, *bestiragotu*.

d) aditza = izena + *bestetu, bestatu*

Trashumar, pasar el ganado de unas dehesas a otras, *larbestetu*. Trasladar, *eralditu, erabestatu*.

3) aditza = izena / aditzoina + *aldata*

Transmigrar, *erraldatu* (< *err*). Transmutar, *eraldatu*. Trasegar, mudar el vino de una vasija en otra, *isuldatu* [< *isuri*], *ardo* *aldata*. Traseñalar, mudar la marca, *senaldatu*. Trasojado, con ojeras, *localdatua*. Traspasar, de un lugar a otro, *erraldatu*. Trasponer, *eraldatu*, *beste lecu*an *ifiri*. Travolar, *egaldatu*.

Esan gabe doa *egaldatu* (1571) “volar” ere badela *HH*-an.

4.1.32. tri-, tres-

a) Izenkien ordainik usukoena, lehen osagaitzat *hiru(r)* daukan elkarte da; birritan (“trinidad” eta “trino”-n), bigarren zatia atzizkia da. Ikus ditzagun adibide guztiak iruzkindu aurretik.⁸³⁴

Tresañejo, *hirurtecoa*. Triángulo, *hiraucá*. Tribaquoio, pié de tres sílabas breves, *hirontía*. Tricorne, *hiruadarrecoa*. Tridente, *hirortza*. Triennial, *hirurtecoa*. Triennio, *hirurta*, *hirurtaldía*. Trifauce, *hiru eztarricoa*. Triforme, *hirutirudía*, *hiruteracoa*. Triglifio, *hiricoea* (cf. *icoea* “surco”). Trigono, *hiraucá*. Trilingüe, *hiruzcundarra*. Trimestre, *hiru illabete* [sic]. Trinidad, *trinidad*, *hirurquidea*, *hirurtasuna*. Trino, *hirurquida*, *hiruquia*. Trinomio, *hirurambaquia*. Tripastos, garrucha de tres rodajas, *hiruchirrita* (< *chirrita* “garrucha, polea”). Triptongo, *hirubechaoa* (< *bechaoa* “(letra) vocal”). Triplice, *hirurambatecoa*. Trípede, *hirutoinga*. Trisulco, *hirurcia*. Trisylabo, *hirugueibechia* (< *gueibechia* “sílaba”). Tritono, en la música, *hirutotsa*. Trivio, *hirurbidea*.

Bi ordain edo gehiagoko sarrera gutxi daukagu: hirutan (“trienio”, “triforme” eta “trinidad”⁸³⁵), aldatzen dena bigarren zatia da; batean (“trino”-n), ordea, atzizkiarekin batera *hiru-* / *hirur-* oinarria aldizkatzen da.

Bokal topaketa gertatzen denean, (a) bokal berdinak batzen dira (*hirurtecoa*, *hirurta*, *hirurtaldía*); (b) bokal ezberdinak gordetzen dira (*hiruadarrecoa*, *hiru eztarricoa*, *hiru illabete*) eta honelakoak bereizita idazteko joera dauka; (c) *hiru*-k azken bokala galtzen du (*hiraurca*, *hirontía*, *hirortza*, *hiricoea*); (d) bigarren osagaiak galtzen du hasierako bokala (*hiruzcundarra*); edota (e) bi osagaien artean -t- tartekatzen da (*hirutirudía*, *hiruteracoa*, *hirutoinga*, *hirutotsa*).

hirur Iparraldeko aldaera daukaten hitzetatik batek bakarrik (*hirurtasuna*-k) tradizio ezaguna dauka; cf. Larramendik berak hitzaurrean, Etxeberriren *Noelak* liburuaren iruzkinean (1745: xxxv): “...la SS. Trinidad, a quien llama, y bien, *Hirurtasuna*”. Itxura denez, *hirur* forma ez du testuinguruaren arabera sartzen, bitan (*hirurambaquia*, *hirurambatecoa*) a- aurrean eta beste bitan (*hirurcia* eta *hirurbidea*) kontsonante aurrean agertzen da eta. Nire ustez, bi formak erabiltzeko eta erabilazteko gogoari baino ezin zor dakizkioke (bere kide *laur*-ez ik. § 4.1.24).

b) Adizkietan “*hirutan* + aditza” egitura nahiago izaten du, hau eta *hiru*-z osatutako elkartua eskaintzen duen sarrera bakar baten (“triplicar”) salbuespenarekin:

Tresdoblar, *hirutan bidertu*, *bambestetu*, *doblatu*. Trifido, *hirutan arracatua*. Tripartir, *hirutan ucitu*, *zatitu*. Triplicar, *hirutan ambatetu*, *ambestetu*, *hirubidertu*. Trisecar, *hirutan epaqui*.

⁸³⁴ Erdaraz eta euskaraz eratorriak dituzten hitzetan, famili burua bakarrik aipatzen dut, hau da, adibidez, *hiraurca* “triángulo” bai, baina *hiraurcatua* “triángulo” eta *hiraurcarra* “triangular” ez, gertakari ezberdinen proportzioak ez lardaskatzeko.

⁸³⁵ Hauxe da *hiru(r)*-ez osatutako hitzen aldamenean beste ezer daukan sarrera bakarra; beste ezer hori, gainera, mailegua da, baina mailegu zaharra (*trinitate* 1571, *trinidad* 1656, ap. *EH*), dakigunez.

c) Badira “*hirutan + x*” egituraz ordezkaten diren bi izenki ere, nahiz lehenean ohiko ordain modua ere baduen:

Tresdoble, *hirutan ambat*,⁸³⁶ *hirubiderra*. Trisagio, *hirutan santua*.

4.1.33. ultra-

Hiru adibide baino ez ditugu, baina hiruretan Larramendik bide beretatik jotzen du, bi aukera emanez: (1) bigarren osagaiari *aronz(ko)* daukan elkarte; edo (2) *-tik aronz(ko)* egitura.

Bi kategoria ezberdinekin jokatu du, izena (*-aronz* hartzen duena) eta izenlaguna (*-aronzko* hartzen duena). Izenlagunetan, elkarten lehen osagaiaren bukaeran dirudienez *-tik* atzizkiaren arrastoa den *-t* bat ageri da (cf. § 4.1.11); ez izenean, ordea:

Ultramar, *itsasotic aronz*, *itsas-aronz*. Ultramarino, *itsastaronzcoa*, *itsasotic aronzcoa*.
Ultrapuertos, *mendit-aronzcoa*, *portutic aronzcoa*.

4.1.34. uni-

a) izena / izenondoa / aditza = *bat-* + *x*

Unigenito, *seme baquia* [*< bat + -ki*], *bacarra*. Unison, unisono, *batoscoa*. Unisonancia, *batotsa*. Univocación, *baperaquida* (*< erakida* “conformidad”, cf. *DAut*: “la conformidad o conveniencia de las cosas...”).⁸³⁷ Univocarse, *baperaquidatu*. Unívoco, *baperaquidea*.

b) *-bakotx* (ik. *mono-*, § 4.1.18)

Unicornio, animal, *adarbacocha*.

4.1.35. vice-

a) izena = izena + *-orde*

almirantordea “vice-almirante”, *cancillerordea* “vice-canciller”, *Jaincordea*, *Jainco-ordea* “vice-Dios”, *prepositordea* “vice-prepósito”, *provinciordea* “vice-provincia”, *provincialordea* “vice-provincial” (*< provinciala* “provincial”), *erretoreordea* “vicerector”.
Cf. *begi orde* (Ax).

b) izena = *x-en urren* (ik. *sota-*, § 4.1.29)

almirantordea, *almirantaren urrena* “vice-almiranta”.

4.2. Aurrizkidun hitzen ordezkapeneko joera orokorrak

Larramendik badaki erdal hitza aurrizkiari dagokion marka berezirik gabe itzultzen, euskarak ordain ezaguna edota egokia duenean:

⁸³⁶ Honetarako eredua Leizarragarengan aurkitu zuen (§ 9.2.4.1).

⁸³⁷ Agertzen den *-p-* hori *bapere*-ren ereduari zor bide zaio; cf. halaber *bapestantza* “sinédoque”, *bapilde* “convento”, etab.

erenegun “anteayer”, *berdanzat* “anteanoche”, *onona*, *chit ona* “rebueno”, *isuri* “transfundir”, *bultzatu* “trastumbar”.

Halaber, halako markarik gabe agertzen dira itxurari baino esanahiari gehiago begiratzu ezarritako ordainak ere:

banderaduna “antesignano, el que lleva la bandera”.

Dena dela, gehienetan aurrizkiari berea eman beharrean aurkitzen da. Eskuarki, ez zaio ordezkapen mota bakar bati atxikitzen. Atzizkien erabileran ohartu bezala, hemen ere helmenean dituen euskararen adierazpide guztiak zukutu nahi dituela ageri da, euskalki ezberdinetakoak (*gelaurre* eta *gelaitzin* “antecámara”, *oiez bezala*, *oiez legez* “extraordinariamente”, *eguerdiondoko*, *eguerdiosteko* “postmeridiano”, *hirurkida*, *hiruki* “trino”) zein gutxi-asko orokor direnak (*botoigetu*, *botoikaiztu*, *botoibagetu*, *desbotoitu* “desabotonar”, *errebotatu*, *berbotatu* “rebotar”), ordezkapen zuzenak ahaztu gabe (*cecilegi*, *zoriez* “ilícito” baina baita *debekatu*a ere). Hala ere, ez ditu nahitaez sarreraro den-denak ipintzen: “Desabollar, *desabollatu*, &c.” bezalako sarrera batek irakurlearen eskuetan jartzen du *des*-i buruzko teoria aplikatzea. Izan ere, aurrizki batzuek (*con*-, *des*-, *semi*-) sarrera berezia daukate hiztegian, ikusi dugun bezala, ordezkapen modua nolakoa izango den azaltzeko. *HH*-an baliokide ezberdin gehien daukan *des*- aurrizkia oso adibide onak eskaintzen ditu alde honetatik: “Desacatar, *eiderguetu*, *deseidertu*, *desohoratu*, *ohorecaiztu*” edo “Desacierto, *artezguea*, *desarteza*, *zuzencaitza*, *somacaitza*” bezalakoetan, jadanik (I, § 8.3.2) somatu dugun atzizkiak (edota aurrizkiak, dakusgunez) eta erroak aldizkatzeko joera berraurkitzen dugu.

Aurrizkia perfrasiar, atzizkiar edo aurrizkiar ordezkari dezake, dituen baliabideen arabera: *co(n)*- beti *-kide* eta familiakoek itzultzen dute; *contra*-, ostera, ia-ia beti *kontra*-aurrizkiak. Usuenik, ostera, atzizki berean era bat baino gehiago aurkitzen dugu: gazt. *des*-i eusk. *des*- aurrizkia eta *-kaitz*, *-bage* eta *-ge* atzizkiak (edo hauen eratorriak) dagozkio; *pre*-ri, ordea, *le(n)*- aurrizkia edo *lendanik*-ekiko perfrasia (“preordinar, *lebidaicatu*, *lendanic bidaicatu*”), hala nola *re*-ri *ber*- / *bir*- aurrizkia edo *berriz*-ekiko perfrasia (“reasumir, *berrartu*, *berriz artu*”).

Aldakortasuna ez zaio beti ordezkabideen baliokidetasunari zor; aitzitik, aurrizkiaren ordainak kasuan kasuko esanahiari oso lotuak daude sarritan. Adibidez, *ante*- aurrizkidun aditzak perfrasiar ordezkatzeko dira ‘lekua’ adierazten dutenean (*aurrera joan* “anteceder”, *aurrera batu* “antecoger”) baina *len*- aurrizkiar ‘denbora’ adierazten dutenean (*lenikusi* “antever”); *so*- eta *sub*- aurrizkiek, biak batera, oso ordain ezberdinak erdiesten dituzte ‘azpikoa’ (*auspeko* “subcinericio”, *etxape* “sotechado”), ‘norbaiten azpikoa’ (*brigadari-urren* “subbrigadier”), ‘berriz’ (*bertucitu*, *berriz uzitu* “subdividir”) edota ‘aldekoa’ (*uritaldeko* “suburbano”) adieren arabera; *ex*- zein *pre*- aurrizkiak, ‘ukapena’ edo ‘gabetasuna’ adiera hartzen dutenean *ze*- aurrizkiar edo *-bage*-z itzultzen dira (*cebaldernatu* “excomulgar”, *erabage* “extemporal”, *zeldua*, *eldubagea* “premature”), adiera berberak dituen *i(n)*- aurrizkia bezalaxe.

Azken hau oso garrantzitsua da: adiera bereko erdal aurrizkiei euskal ordezkapen berbera emateko joera handia dago *HH*-an. Aipatutako *ex*- eta *i(n)*-en kidetasunaren antzera, *ante*- ‘denbora’ adierakoak *pre*-k hartu ohi duen *len*- aurrizkia darama euskaraz, goraxeago

ikusi dugun bezala, eta baita *proto*-k ere gehienetan (*lesendakin* “protomédico”); *entre*- eta *inter*- era beretsuan tratatzen ditu (*bezintarte* “entrecejo”, *kolomarte* “intercolumnio”), *entre*- eta *semi*- ‘erdizka’ adieran (*erdidiki* “entreabrir”, *erdi bizia* “semivivo”), *ex*- eta *extra*- ‘-tik atera’ adieran (*mugatitu* “exterminar”, *bidetitu* “extraviar”), *hemi*- eta *semi*- (*biurserdi* “hemistichio”, *gizerdi* “semihombre”), *re*- eta *sobre*- (*geitaltxatu* “realzar”, *geiteransi* “sobreañadir”) edota *trans*- (*botikoste*, *botikatze* “rebotica”, *koruoste*, *koruatze* “trascoro”), *so*- eta *sub*- (*zulape* “socavón”, *atzenpe* “subjuntivo”) eta *sobre*- eta *super*- (*umangain* “sobrehumano”, *soingain* “superhumeral”) edota *re*- (*birterein* “sobresembrar”, *biraitzurtu* “recavar”) bezala.

Ziurrenik bestelako ustea badabil ere, proposamen gehienak ez dira berriak; lehengo aldean bakoitzaren adibideak izugarri ugaltzea izaten da askotan Larramendiren ekarpena: gogora dezakegu hemen Azkuek —zeharo asaldatuta— Larramendiren *des*-en 843 adibideei buruz zioena;⁸³⁸ beste hainbeste esan daiteke bestez, guztiz *ber*- / *bir*- edo *-bage*-z eraturakoez.

Gaiak azterketa zehatzagoa beharko duen arren, marra zenbait bederen jar daitezke dagoeneko. Leizarraga ageriko eredutzat aurkezten zueneko *-kide* atzizkiaz gainera, Iparraldeko literaturan *bir*-, *des*-, *erdi*-, *erre*- *ez*- eta *kontra*- aurrizkietarako eta *-gabe* (*-bage*, *-kabe*) atzizkirako eredu onak zituela ikusi izan dugu. Talde beretsuan sartu ahal da, nik uste, lehenago hitz oso jakinetan baino agertzen ez zen *lehen*- (*len*-) aurrizkia, *lehen-gusu* bezalako hitz batetik (cf. *HH* s.v. *primo*: “En general en bascuence es *gusua*”) erraz atera baitzezakeen.

Oso ariketa erraza izan bide zen sarritan izen biluziaren ondoan agertzen diren leku-posposizioak (*aitzin*, *arte*, *aurre*, *atze*, *azpi*, *erdi*, *gain*, *ondo*, *oste*, etab.) atzizki bilakaraztea, baita esanahiaren aldetik inolako zailtasunik gabe gaztelaniazko leku-aurrizkien ordeztu eta haien lekuan ezartzea. Aurrizkirik gabeko bestelako hizkuntzetan ere antzerako gertakariak aurkitzen dira,⁸³⁹ Iparraldeko literaturan edota eguneroko hizkuntzan halako erabileraren eredu zenbait bazituen (cf., adibidez, *borthaitzin*, *eguerdi*, *afalondo*, *iendarte* edo *bil-ondo* atzizkitzakoetarako, eta *aitzinalde*, *aitzingidari*, *gainalde* eta *inguru-estali* aurrizkietarako) eta esan gabe doa gaurko euskarari halako anitz osasuntsu xamar dabiltzala.⁸⁴⁰

Eztabaidagarriagoa da *-gaitz*-ez egin zuen erabilera (§ 4.1.8) baina, erakusten saiatu naizenez, ziurrenik atzizkiaz zituen datuak gaizki interpretatetik sortutakoa da.

Bada berrikuntza ausartago zenbait: *-aronz* atzizki gisa *ultra*- ordezkatzeko (*itsas-aronz* “ultramar”), *bat* aurrizki gisa *uni*- itzultzeko (*batots* “unisonancia”, *baperakide* “unívoco”), *-ti(k)*

⁸³⁸ Mujikak (1978: 92) Aizkibelengan 1.280 aurkitu dituela gaineratzen du.

⁸³⁹ Hungarieran, adibidez: “Or les novateurs ont réussi à introduire des préfixes et à leur donner une grande extension. Le plus souvent, ils ont utilisé dans cette fonction des mots qui, par leur signification, s’y prêtaient particulièrement: postpositions et vocables à sens spatial déterminé” (Sauvageot 1971: 258). 1866-1880 bitartean bildu zen *Finsk-svensk lexicon* hiztegiaren, bestelako hitz berri pilaren artean iragaitzaz aipatzen du (1973: 337), bestalde, finlanderan “-kin” esanahia daukan hitza, *kerä*, *kontsonante* hitza kalkatzeko baliatu zela.

⁸⁴⁰ Azkaratek, Larramendiren jokabidea epaitzerakoan, *hitzaurre* “gaurko bidetik” doala dioenean (1992: 215), hitza berari zor diogula ahazten ari da.

deklinabide atzizkia *-tu* partizipio markari eranstea *ex-* eta *extra-* ‘-tik atera’ adierako aditzak euskaraz emateko eta *big-* (< *bigarren*) eta *gei-* (< *geiegi*) *re-*-ren balio zenbait euskaratzeko (*bigerna* “rebotín, segunda oja de la morera”, *geitegosi* “recocho”) erabiltzea.

Ordezkapena kalkoaren bitartez egin ohi du, hau da, erdal hitza —ahal dela— bi zati (aurrizki eta erroa) eginik, eta zein bere aldetik itzuliaz, hitz osoaren esanahiari gehiegi begiratu gabe: *bularraurre* “antepecho”, *hitzinguru* “circunlocución”, *primukide* “coheredero”, *kontraesan* “contradecir”, *erdienezun*, *enzunartetu* “entreoir”, *etorartetu* “intervenir”, *lenizan* “preexistir”, *atzera saldu* “retrovender”, etab.

Eskuarki esanahi bereko hitz batez itzultzen du, adibideetan ikus daitekeen bezala, baina ez beti: zenbaitetan erroa mailega dezake, aurritziaz hartutako erabakia gorabehera (*koruaurre* “antechoro”, *paraaurre* “antipara”, *binakidatu* “combinar”, *turbakidatu* “conturbar”, *kontrabando* “contrabando”, *kontraeskritura* “contraescritura”, *finarteko* “entrefino”, *sakartetu* “entresacar”, *modestez* “immodesto”, *lenotario* “protonotario”, etab.). Jakina, erabaki honetan eragin handia daukate maileguez oro har eta haien norabideaz dituen ideiek: cf. *korua* “coro”, *fin* “fino”, *turbatu* “turbar”, *bando* “bando”, *notario* “notario” eta *parar*, *escribir*, *sacar* eta *modestia*-ren etimologiak. Dena dela, pentsatu behar dugu badirela unean uneko erabaki batzuk, emandako adibideetan *binakidatu*-k frogatzen duen bezala.⁸⁴¹

Erro guztiak hain nabarmenak ez direnez gero (beste arrazoi batzuen artean),⁸⁴² beste ataletan ikusi dugunaren antzera,⁸⁴³ *DAut*-en informazioa balia dezake era ezberdinetara, sarrienik definizioko zerbait; adibidez:

salaurre “antecámara” < “La sala que está...”
hitzaurkera “antithesis” < “Figura Rethórica que consiste en la oposición de conceptos u de palabras”.
figuraorde “antitypo” < “...lo que substituye en lugar de un typo o figura”.
bigarren ezkontza “bigamia” < “El segundo matrimonio...”.

baina baita haren etimologia ere:

“archimandrita, *Greciatarren goyendea, esan naidu taldearen aurrena*” < “Es voz Griega compuesta de *Archos*, que significa Príncipe, y de *Mandra*, que significa rebaño”.

Bestetan, ordea, zuzenean berak hautatutako definizio modukoa erabiltzen du:

hizbaezá “antilogia, contradicción de palabras”, *leguebayeza* “antinomia, contrariedad de leyes”, *anizkida* “común, lo que es de muchos”.

Bakan batzuetan aurrizki eta guzti mailegatu ditu erdal hitzak (adib. *artxiduke*, *sobrepelliza*).

Perifrasirako joeraren bat, batez ere aditzetan (cf. “mejor se hacen con *aurea joan...*” s.v. *anteceder*), badu Larramendik. Salbuespenak atzizki bidez ordezkatu

dituen aurritzikiak dira, erraz *-tu* har baitezakete (*-artetu*, *-kidatu*, *-kaiztu*) eta *le(n)*- aurritzikiarekin egiten dituen zenbait, gehienetan perifrasiaz lagunduta. Azken hau orokorragoa da, eta oso

⁸⁴¹ Edozein modutan, *bina(ka)*-rekin lot zezakeen, agerriki.

⁸⁴² Portaera honen beste arrazoi bat lan egiteko forma dela argudiatuko dut beheago (§ 4.3).

⁸⁴³ Ik. bereziki hitz elkartuetan *DAut*-en azalpenek izan zuten eragina, § 3.3.2.2.

azpimarratzekoa: berez kategoría jakin zenbait baino eskaintzen ez dituzten baliabideetan, eratorbidea nasaiki erabiltzen du, atzizkia atzizkiaren gain pilatuta hala behar denean. Izenondoak, adibidez, erdal aurrizkiaren ohiko ordezkapenei *-ko* erantsiaz erdiesten dira:

joaiurreko "antecedente", *bollesiondoko* "circunvecino", *aldekideko* "colateral", *bisetarteko* "entredoble", *erdiyokanpoko* "excéntrico", *araudez kanpoko* "extrajudicial", *saietsareko* "intercostal", *era askotako* "multiforme", *eguerdiondoko* "postmeridiano", etab.

baina adiera berezia daukatenean, bestelako atzizki kateak agertzen dira:

bakidakor "comunicativo", *galkidezkor* "incorruptible", *neurkidagarri* "commensurable", *komutezgarri* "immemorial", *hitzartear* "interlocutorio", *eramezkizun* "intolerable", etab.

Bereziki interesgarria izan daiteke zenbakiekikoa, lehenago esan dugunaren ildotik (§ 2.1.17): normalean *-ko* hautatzen du (*bekoki biko* "bifronte", *lau urteko* "quadriena", *hirurteko* "tresañejo"), baina badu *-dun*-en adibide bat bederen (*kopeta bidun* "bifronte"); honetan ere bazuen aitzinekorik: cf. *laur oindun* (Lç Act 10, 12).

Izenek, halaber, izen marka ezberdinak har ditzakete:

anaikidago "cofradía", *lotsabagekeria*, *lotsabagetasun* "desvergüenza", *gaiezte* "inutilidad", *icusezinde* "invisibilidad", *estalgetzaille* "descubridor", *parartetze* "intercalación", *hitzartegile* "interlocutor", etab.

edo atzeranzko eratorpenaz aditzetik zuzenean jaio (§ 5.4.1); izenondoak sortu ohi dituzten atzizkietan, berriz, izenondoa eta izena bat egiteko joera indartsua dago *HH*-an (ik. § 5.2.1).

Aditzondoek, azkenik, ohiko markak hartu ohi dituzte:

ajolakabero "descuidadamente", *doakaizkiro* "desdichadamente", *berdinezkiro* "desigualmente".

Euskararentzat proposatzen duen aurrizkiaren eta euskal erroaren artean atzizki bidezko eratorpenean eta, batez ere, hitz elkarketan somatzen diren hots-aldaketa berberak gertatzen dira, indar gehiago edo gutxiagorekin:

a) Bokal berdinak batu egiten dira:

gelaurre, *gelaitzin* "antecámara" (baina *paraurre* "antipara"), *oldurartek* "entrecubiertas" (< *oldura* "entablado"), *erarte* "entretiempo", *artepaki* "entrecortar" (*arte* + *epaki*), *escatera* "exacción de rentas" (< *eska(tu)* + *atera*), *colomarte* "intercolumnio", *urrikuskai* "microscopio".

b) Lehen osagaiko azken bokala > ∅ bokal aurrean:

ataurre "antepuerta" (baina *ateaitzin* "antepuerta", *koruaurre* "antechoro", *figuraorde* "antitypo", etab.), *artatzitu* "entrecoger" (< *arte* + *atzitu*), *zubartek* "entrecubiertas", *otallarte* "entretalladura" (< *otallu* "talla"), *korapilarte*, *orapilarte* "internodio", *larrarteko*, *narrarteko* "intercutáneo", *bukondo*, *bukondore* "posdata" (< *bukatu*), *marroste* "postliminio" (baina *eguerdiondoko*, *eguerdiosteko*), *botikoste* "rebotica", *ganbaroste* "recámara", *brasondotu* "sobrasar", *cartestalki* "sobrecarta".

Gehienez oso orokorrak diren (a) eta (b) aldaketak onartzeko uzkur xamar daude zenbait aurrizki-atzizki: *kontra*-k ez ditu betetzen (*kontra apaindua* "contraculto", *kontraubazter* "contracosta", *kontraesan* "contradecir", etab.); *erdi*-k, ostera, (a) bai baina (b) ez (*erdidiki* "entreabrir", baina *erdiurdindua* "entrecano", *erdiargitu* "entrelucir", *erdiaditu*, *erdienzun* "entreoir"); haatik, *-erdi* atzizkiak bai: *biurserdi* "hemistichio" (< *biursa* "verso"), *jainkerdi* "semidiós", *gizerdi* "semihombre"; *-arte* = *entre*-n (b)-ren adibiderik bada ere, *-arte* = *inter*-en ez da gertatzen *-o*-arekin baizik (ik. goian adibideak): *ilargiarde* "interlunio", *erdiarte* "intermedio". Oro har, *-i* bukaera izenetan egonkorragoa da, aditzetan baino (beheraxeago ikusiko dugun bezala).

c) -e eta -o > a kontsonante aurrean: arau zahar honen arrasto zenbait aurkitzen dira:

gaistakide “cómplice”, *oakide* “concupina”, *ustakidatu* “confiar”.

d) Lehen osagaiko aditzoinaren azken bokala (guztiz -i) > ∅ kontsonante aurrean:

berezkidatu “compartir”, *bizkidatu* “cohabitar”, *parkidatu* “componer” (< *paratu* “poner”), *erskidatu* “comprehender” (< *erts*) (baina *utzikidatu* “comprometer”), *josarte* “entretela”, *geldarte* “entretenimiento”, *itxekartetu* “entrelazar” (< *itxeki*), *ibinarte* “interposición”, *etorarte* “intervención”, *atzartetu* “interceptar” (< *atzitu*).

e) Aditzoinaren -n > ∅:

eramakidatu, *eroakidatu* “conducir, llevar”, *emakidatu*, *emokidatu* “conferir”, *emakidatu* “conceder”, *egikidatu* “confeccionar” (baina *irionkidatu* “conducir, guiar”), *esarte* “entredicho”, *ekilen* “proemio”, *egope* “substancia”.

Arau honexegatik, agian, galtzen du *len-* aurrizkiak berea zenbait hitzetan.

f) Aditzoinak hasierako bokala gal dezake bigarren osagaien dagoenean:

gainkusa “sobrefaz” (< *ikusi*, ziurrenik), *gaintorri* “sobreenir”.

Alabaina, araua indartsuagoa da (jadanik elkarketan somatu ditugu zantzu zenbait; ik. §

3.2.3.3), aurrizkitzakoaren alomorfo kontsonantegabea hautatzerainokoa:

legoizta “preferencia” (< *len* + *egoizta*), *lekanzatu* “prefigurar” (< *len* + *ekanzatu* “figurar”).

g) Afrikatua > frikari kontsonante aurrean:

hizbaeza “antilogia”, *anizkida* “común”, *hizkidatu* “cxonfabular”, *erskidatu* “comprehender”, *egozkidatu* “confutar” (< *egotzi*), *etab.*, *orzgain* “sobrediente”, *sortizgarai* “sobrenatural” (< *sortitza*).

h) Lehen osagaiaren bukaeran *tx* > *is* (x gaurko grafian):

jaiskide “condescendiente” (< *jatxi*), *iskidatu* “comprehender” (< *itxi*), *eucaispeko* “subpolar” (< *eukatxa* “polo”).

i) Bi osagaien erdian -t- ager daiteke, baldin bigarrena bokalez hasten bada:

bitezarra “diploma”, *bakantarte* “entresaca” (< *bakandu*), *aditartetu* “entreoír”, *estateratu* “exprimir” (< *estu*), *atzitarte* “interpresa” (< *atzitu*), *geitaltxatu* “realzar”, *berterori* “recaer”, *birtaitzurtu* “recavar”, *uritaldeko* “suburbano”, *gaintibeni*, *gaintifiñi* “sobreponer”, *gainteman* “supererogación”, *geitugari* “sobreabundante”, *aurgitondo*, *erditondo*, *seingitondo* “sobreparto”, *hiruterako* “triforme”, *hirutotsa* “trítono”.

Testuinguruak hauek izaten dira: (1) Sarritan bokal biren topaketa apurtzeko erabiltzen du, bestetako lehen bokalaren ezabaketaren ordean (cf. *atzartetu* vs *atzitarte*, biak *atzitu*-tik); honek azaltzen du bestela ezagutezin gerta zitekeen *gei-* aurrizkian (ik. *re-*, § 4.1.25) *gei-* itxurako formek daukaten nagusitasuna. Erabilera honen oinarria, beharbada, *arte* / *tarte* bikotean (cf. *bitarte*, adibidez) egon daiteke; (2) aditzoina edota partizipioa oinarritzat har dezaketen atzizkietan, sarritan -t- gordetzen da: *sartaurre* “prólogo”, *neurtez* “inmenso”, *arimatez* “inanimado”, *ezagutezin* “incognoscible”; hauetako hitz batzuk aski ezagunak ditugun arren, bakoitzaren historia hobeto ezagutu arte bederen, ez genuke alde batera utzi behar Larramendiren berrikuntza izan daitekeela; *erretez*, ostera, nabarmenki analogikoa da; (3) bereziki ugaria da *ber-* / *bir-* aurrizkiekin, dakigularik *HH* baino lehenagoko tradizioarik ez badu

ere;⁸⁴⁴ badirudi *rr* ipini beharrak zalantza sortzen ziola (cf. *Ax bir-ikus*); baldintza bakarra erroa bokalez hastea da eta, dakidalarik, araua beti betetzen da, *berrartu* eta *berraizatu*-n izan ezik; (4) *gaint-* itxurako zenbait hitz agertzen dira (*gaintibeni*, *gaintifini* “sobreponer”, *gainteman* “supererogación”). Adibideen arabera, *gain-* kontsonante aurrean agertzen da beti (*gainparatu* “sobreponer”, adib.) eta bokal aurrean gehienetan *gan-* (*ganizkribatu* “sobrescrivir”, adib.); hortaz, *gaint-* Larramendiren erabakiz bokal aurrean *gain-*ek hartzen duen forma —analogikoa, inolaz ere— da, besterik gabe.

Antzerakoa da *baperakida* “univocación”-ren kasua, baina honetan *bapere*-rekiko analogiak funtzionatu duela dirudi.

j) Txistukari-aldaketak oinarriaren hasieran:

- s > z: *lezomatu* (< *somatu*).
- z > tz: *letzori* (< *zori*).

k) Haplologia:

edoskide “colactáneo”. *arartekide* “compatrón” (< *ararteko*). *istartea* “entrepiermas” (< *ister* “pierna”, “muslo”). *laurca* “quadro” (< *lau(r)* + *aurka*). *lenkeriola* “protomartyr” < *onkeriola* “martyr”. *litsakidatu* “conglutinar” (< *litsakitu* “encolar”).

l) Lehen osagaiak azken silaba galdu, bereziki atzizkia denean edo hartakotzat har daitekeenean (aurreko ataleko batzuk honela ere azal daitezke, noski):

bereisbakotx “monostrophe” (< *bereista* “estancia, en los versos”; Cf. *DAut*: “Canción de una sola estancia...”).

m) Izan liteke aldaketa zenbait hitza laburtzearen eginak izatea:

erdi eraldearra “semiracional” < *eraldetarra* “racional”.
itsastaronzko “ultramarino” < *itsaso*.

Egokitzapen morfofonetiko zenbait ere egin izan ditu, elkarketan ikusitako en tankerakoak (§ 3.2.3.7.2):

a) Erroraino jotzen du oinarria ezartzeko:

hizkidatu “confabular” (< *hitz egin*, *hizketa* edo *hizkuntza*-n bezalaxe).

Antzerakoak izan litezke ondokoak ere:

hitzerakidatu “conferir, deliberando” < **hitzeragin* (?).

b) Ildo beretik, atzizkiak edo atzizkitzakoak kentzen ditu:

gogozez “inclemente” < *gogozati* “clemente”.
mitaitzina “prólogo” < *mi(n)* “lengua” < *mintza*, *mintzo* “palabra”; cf. *hitzaurre* “prólogo” < *hitz* “palabra”.

c) Eta aurrizkiak edo aurrizkitzakoak:

laubetxiko “quadrisilabo” < (*gei*)*betxi* “vocal”.

Ordezkapena da, ordea, ondokoan duguna:

⁸⁴⁴ L.M. Mujikak (1978: 78) salatu bezala.

lekenegobi “predeterminación” < *desegobia* “determinación” (- *des-*, + *ken(du)*).

d) Honegatik, ondokoa bezalako kasuetan ez dago esaterik zein den oinarrian dagoen hitza: bere ustetan familiaren erroa dena erabili bide du, besterik gabe:

aipabi “dilema” (cf. *aipu* eta *aipamen* “proposición”; cf. Cf. *DAut*: “Es voz Griega, compuesta de la preposición *Dis*, que significa dos veces, y *Lemma*, proposición, asunto o thema”.)

e) Eta, azkenik, bigarren osagaian aditza izaknik ondorioa izena denean, izenkitzat aditzoina darabil, elkarketan bezalaxe: *bitezarra* “diploma”.

4.3. Larramendiren lan sistimaren agerriak aurrizkidun hitzetan

Ustez-uste gabe, erdal aurrizkidun hitzen ordainen azterketak lagungarri bat eskaini digu Larramendik *HH* nola osatu zuen jakiteko. Gorago ikusi bezala, Larramendik sarrienik kalkoaz baliatzen da aurrizkidun hitzen itzulpena lortzeko, gehienetan erroa zuzenean euskarara itzuliaz. Espero genezakeen bezala, aurrizki gabeko hitzarentzat hautatu dituen euskal ordainak —edo haietako zenbait— erabiltzen ditu honetarako:⁸⁴⁵

Conciudadano, *iritarquidea*, *uritarquidea* < Ciudadano, *iritarra*, *uritarra*.
Concolega, *daquizcoquida*, *colegialquidea* ~ Colegial, *colega*, *colegiala*, *daquireguitarra*.
Contra-ataques, *contralezoyac*, *contracolezoyac* < Ataques, de un sitio de plaza, *lurrepairac*, *lezoyac*.
Contrabatería, *contrabateria*, *contrasutumpadia* < Batería, *bateria*, *sutumpadia*.
Contracifra, *contracistalia* < Cifra, modo de escribir, ininteligible sin clave, *cistalia*.
Desabrochar, *deslotamutu*, *lotamuguetu*, *lotamucaiztu* < Abrochar, *jacá* edo *beste soñecoric botoitu*, *lotamutu*, *ertsi*, *estutu*, *lotu*.
Entrecejo, *becintartea* < Ceja, *becinta*, *bepurua*.
Entredoble, *bisetartecoa* < Doble, otro tanto, *bitan ambat*, *bambestea*, *biderbia*, *bisetá*.
Excéntrico, *erdiyocampocoo*, *erteguicampocoo* < Centro, *centroa*, *erdiyoo*, *erteguia*.
Inacabable, *bucatezgarria*, *aitutezgarria*, *azquendezgarria* < Acabar, *bucatu*, *acabatu*, *aitu*, *azquendu*.
Intercolumnio, *colomartea* < Coluna, *coloma*, *habea*, *abea*.
Premeditación, *lendanic gogartea*, *gogartatzea* < Meditación, *gogartea*, *gogartatzea*.
Predestinar, *leseñalpenetu* < Destinar, *señalpenetu*.
Procónsul, proconsulado, *bacarquidordea* < Cónsul, *bacarquidea*. Consulado, *bacarquida*.
Repurga, *errepurga*, *bigarren icuzgarria* < Purga, *purga*, *icuzgarria*, *edicuzcaya*.
Semidragón, *erdi sugulna* < Dragón, *sugulna*.
Semiracional, *erdi eraldearra*, *guicerdia* < Racional, *eraldetarra*.
Subpolar, *eucachazpicoa*, *eucaispecoa* < Polo, *eucacha*.
Sobreponer, *gaimparatu*, *gaintibeni*, *gaintifiñi* < Poner, *paratu*, *ifiñi*, *ipiñi*, *ibeni*, *ereñi*.
Transubstanciar, *bestegopetu* < Substancia, término filosófico, *egopea*.

Adibideok aliritzira eta itsu-itsuan aukeratu ditut, baldintza bakar batekin: aurrizkidun hitzaren erroa jasotzen duen sarrera, aurrizkidun sarrera baino lehenagokoa izatea. Beraz, adibide hauekin Larramendik aurrizkidun hitza baino lehenagoko sarrerak begiratu eta sarrienik oso hertsiki jarraitzen zituela frogatu dugu.

Aukera itsu berbera alfabetoaren arabera beranduago agertzen diren erroekin eginez honako datu hauek erdiesten ditugu, ostera:

Antecámara, *guelaurrea*, *salaurrea*, *guelaitzina*, *salaitzina* — Cámara, *gambara* — “La sala que está antes...” (*DAut*).

⁸⁴⁵ Sarrerak bakundu ditut inoiz edo behin, erdarazko informazioa behar ez zen guztietan.

Archilaud, *soñari aundia* — Laud, *lauda* — “Instrumento músico, especie de laud, y mayor que él” (DAut).
 Biznieto, *biloiba*, *biaurbasoa* — Nieto, *illoba*, *loiba*.
 Condigno, *diñaqueidea*, *dogaidequidea* — Digno, *diña*, *dogaya*.
 Condensar, *ciaquidatu* — Densar, en líquido, *loditu*, *ciatu*, *gatzatú*.
 Contraescritura, *contraescritura*, *contraciabezgoa* — Escritura, acción de escribir, *escribatzea*, *izcribatzea*. Escritura, ante escribano, *aguercaya*, *escritura* — “Instrumento o escritura que se otorga para protestar otra que se ha hecho anteriormente” (DAut). Cf. *ziabezgarri* “borrador”, *ziabezta* “apuntamiento”, “asiento, anotación”, etab.
 Entreordinario, *begoartecoa* — Ordinario, común, frecuente, *sarricoa*, *sarritacoa*, *maizcoa*, *maizetacoa*, *betaldicoa*. Ordinario, vulgar, de poca estima, *beratarra* — “Medio entre bueno y baxo u de baxa ley” (DAut).
 Imperceptible, *aditezgarria*, *bidadizgarria* — Perceptible, *bidadigarria*, *bidadicaya*.
 Impersonal, *izapebaguea* — Personal, *personarena*, *personari dagocana*, *izapecoa*.
 Interponer, *parartetu*, *ibinartetu* — Poner, *paratu*, *ifiñi*, *ipiñi*, *ibeni*, *ereñi*.
 Presuponer, *lendanic ipintzatu*, *lipentzatu* — Suponer, *ipentzatu*.
 Reteñir, *berriz gambusi*, *gambusitu* — Teñir, *gambusi*, *gambusitu*, *coransitu*.
 Semitono, *erdi ocasta* — Tono, *ocasta*, *tonua*, *tonada*.

Uste dut adibideak ezin argiagoak direla: lehen liburukian, ez bakarrik 2. liburukiko hitzak (*laud*, *nieto*, *ordinario*) baina are bertakoak (A-n *cámara*, C-n *escritura*) ez zituen ezagutzen, nahiz hurbilagokoak bai (C-n *densar*, *digno*). Honek DAut-en azalpenaz eta bestez baliatzera eraman zuen ordaina emateko.

Lehen liburukian azkenetariko aurrizki bat, *entre-*, xehekiago aztertuta, *entrejuntar*-en hasi eta ondoko sarrera guztietan behin ere ez dago egokitasunik — nabarmenez gainera eta *otallu*-ren familiaren salbuespenarekin— hemengo ordainak osatzeko erabili eta *entre*-gabeko sarreretan aurkezten dituen ordainen artean.

Bestelakoa da, berriz, bigarren liburukiko egoera: nahiz aldaketaren bat aurki daitekeen (*ibeni* “poner” vs *ibin(i)* “interponer”, eta erka bedi goiko taldean aipatu “sobreponer”-ekin), oro har aurrizkidun sarrerak osatzeko aurrizki gabekoak erabili zituela nabarmena da. Hobeto zehaztu behar den arren, lehen liburukian —edo haren lehengo zatian—, aurrera ahala aurrera aritu zela dirudi, eta ez zuen inoiz egin familia bereko hitzen arteko halako desegokitasunik ezaba zitzakeen berrikusketarik. Bigarreanean, ostera, beharbada aurrizkidun sarrerak geroko utziaz, ia erabateko egokitasuna erdietsi zuen.

4.4. Ondorioak

Larramendiren hitzberrigintzaren ezaugarriak aurretiaz aztertu ditugunez gero, aurrizkien ordezkabideei begira bakarrik aritu izan bagina baino aisago bakartu ahal izan ditugu arlo honetan erabili zituen prozedurak, baita aurreko saioetan zegoenarekin erkatzen hasi ere. Honela erdietsitako irudia zeharo berria delakoan nago.

Larramendiren proposamenetan antzeman ditugun konstanteak, hitzez hitzeko itzulpena ez, sistemaz sistemakoa baizik egiteko asmoa izan zuela erakusteko adina badira. Honek hizkuntzari buruzko hausnarketa sakona eskatzen du, gaztelaniaz aurrizkiek izan ditzaketan adiera ezberdinez jabetu eta euskaraz bakoitzerako aurki zitezkeen aterabideak bilatzearren. Izan ere, ez du zalantzarik lan handia egin behar izan zuela, oso gutxitan baino ez

baitu mailegu zuzenera jotzen, eta beti halako edo holako hitza den bezala onartzeko, sekula ez aurrizkiari baliabide gisa bidea irekitzeko.

Gainerakoan, Larramendiren baliabide asko txit ezagunak ditugu, berezitasunak alde batera utzita: oinarriak berak bestela —elkarketaz, gehienbat— erdietsitako edota elkargunean orokortu zituen arauak itxuraldatutako hitzak dira sarritan; eratorpenean bezala, hemen ere atzizki-aurrizkiek oinarrian eskatu ohi duten gramatika kategoriaren aldetik lasai xamar jokatu zuten; eta, elkarketan bezala, kalkorako joeraren eta *DAut*-en azalpenen eragina oso nabarmena da eratu zituen hitzen osagaietan. Behin azal hau kendurik, inferentzia interesgarriak egin daitezke baliabideen historiari buruz.

Lehenik, erdal aurrizkiak ordezkatu beharrez han-hemen barraiatuta zeuden baliabide anitz berreskuratu zituen ahozko euskaratik zein idatzitik. Ahozkoa oraingoz neurgaitza bada ere, aurreko idazleen zordun argia dugu, guztiz bere eredu nagusiak izan bide ziren Leizarraga eta Axularren (ik. § 9): euren aterabide zehatzak jaso ez eze, emankor ere bihurtu zituen hainbatetan. Ez dut alferrik azpimarratuko euskal baliabideen artean sartu behar direla tradizio sendoa zeukaten *des*- eta *kontra*- aurrizkiak ere, berak *horregatik* euskarazkotzat joak.

Bigarrenik, ez da gehiegi alderatzen hiztegitale zaharretan dauden hasikinetatik: hauetan ikusi dugunaren arabera, ahaleginean arazoak euskararen barruan konpontzea, arazo berari aterabide bera behin eta berriz egokitzea edota zatika baizik ustiatu gabe zeuden baliabideak (hala nola leku-posposizioak aurrizki modura erabiltzea) orokortzea espero izatekoa zen. Baliabideen hedaduraz eta agerpen-maiztasunaz harri gaitzke —pareko adibideak gaurko hiztegitan bakarrik aurki litezke, nik uste—, baina ez hartutako erabakien nolakoaz.

Proposamen berriren bat ere badago, jakina, hainbaten artean: perifrasiari uko egin ez bazion ere, badirudi aurrizki zein atzizki bidezko ordezkapenari erosoago zeritzala eta, honegatik, tradiziorik ez aurkitutakoan bide berriak urratzen saiatu zela; dena dela, dagoeneko aitor dezakegu berri-berrizat jo daitezkeenak bestetan ezagun direnak baino gutxiago direla, baita *HH*-aren osotasunean pisu gutxiagokoak ere oro har: zenbakiak (*uni*-, *tri*-, *quatr*-) edo esanahi oso bereziko aurrizkiak (*ultra*-...) biltzen dituzte baliabiderik ausartenak.

Honek hirugarren puntura narama zuzenean: zer da egiatan berria *HH*-an, eta zer zaharra? Esan gabe doa gaurko ohitura neurgailu traketsa dela: guk erabiltzea eta antzinakoa izatea ez doaz beti bat, noski, etaaldi berean susma dezakegu baliabide zahar zenbait atzendu ditugula. Zenbait aurrizkiren ordezkapenak aztertzerakoan (ik. bereziki *des*- eta *i(n)*-, §§ 4.1.8 eta 4.1.14) nabaritu dugu Larramendik lehenengoz bildu (sortu?) zituen hitz anitz gaur bizi-bizirik daudela, baita eurak eratzeko erabilitako baliabideak ere. Honetan itxuraz erabatekoak izan diren etenek hautsi ez duten tradizio baten barruan kokatzen gara, dudarik gabe. Bestalde, ohartu gara egun jakintzat ematen ditugun erabilera batzuk (*-rik ez(a)*, adib.) orduan oraindik ezezagunak (idatziz jaso gabeak?) zirela eta, beraz, tradizio berriago bati atxiki gatzazkiola.

Iragana ñabarra da, ezpairik gabe: antzinako adierazpideekin batera, Iparraldeko idazleek egin bide zituzten berrikuntzak kontuan hartu behar ditugu *HH*-ko aterabide askoren

sustrai gisa; baliabide zahar hauen hedaturari Larramendiren berrikuntzak gehitu behar zaizkio *HH*-aren edukiaren kontu emateko; mendeetako tradizioaz bertako hainbat gauza guganaino bizirik eta emankor iritsi dira, eta baliteke ez hitz solteak bakarrik, sistemak berak ere batzuetan *HH*-ko berrikuntzak izatea. Arloren batean, aldiz, bertako proposamenetik ez eze, Iparraldeko literaturan bertan dagoenetik bereizi izan gara, geroagoko berrikuntzak edota, gehienera jota, erabilera oso murrizteko baliabideen hedapenak geure eginez. Honezkero, uste baino premiazkoagoa da honelako guztien historia berreraikitzea.

Azkenik, aurrizkiek ustekabeen Larramendiren lan egiteko formaz berri gehiago eskaini dizkigute: hauen arabera, lehen liburukia hasi eta buka idatzita dago, aurrizkidun hitzen oinarrien euskal ordainak aurkitzeko atzera eginez, baina geroko letretan agertzeko zirenak kontuan hartu gabe. Bigarren liburukian, aldiz, badirudi gehiago zaindu zuela aurrizkidun eta gabeko hitzen arteko lotura.

5. Larramendiren sorbideen bila (IV): Hitzberrigintzako gertakari orokor zenbait

Atal honetan hitzberrigintzan parte har dezaketen fenomeno orokor zenbait batu ditut. Elkarketa eta eratorpena baino ezezagunagoak dira eta, ausaz, ez hain sistematikoak, baina ez horregatik nahitaez eragin gutxiagokoak. Erator eta elkarbiderearen gaineratik dauden eta biok ez eze lexikoaren beste arloak ere berdin eragin ditzaketen hizkuntzaren ahalbideak dira: esanahi hedadura (§ 5.1), gramatika-kategoria aldaketak (§ 5.2) , analogia (§ 5.3) eta atzeranzko eratorpena (§ 5.4). Bakoitzari buruz erdietsitako ondorioak bukaeran aurkeztuko dira (§ 5.5).

Euskaraz ez dago ezer honelakoei buruz, ez diakronikoki ez sinkronikoki, ohar solteez besterik. Beste hizkuntza batzuetan (zehazkiago ingelesez eta gaztelaniaz) egin diren deskribapenen laguntzaz baliatu beharra izan dut, beraz, azterketan aurrera abiatzeko, baina arazoari nagusiki bai Larramendiren pentsamoldearen barruan baita gertakarien diakroniaz dakizkigun apurren argitara heltzen saiatu naiz.

5.1. Esanahi hedadura

Polisemia hizkuntzaren oinarriko ezaugarrietako bat denez gero (Ullmann 1964: 331), hitzen adierak ugaltzea hiztegia aberasteko biderik erraz eta ixilenetakoa bide da. Esaterako, Elhuyar-en *Hiztegi Entziklopedikoa*-n (1993) *zubi* hitzera jotzen duen irakurleak orotara zazpi adiera aurkitzen ditu; hona, zertxobait laburbildurik:

1. Ibai, trenbide, errepide, etab.en gaineratik igarotzeko eraikuntza.
2. Hainbat euskal dantzatan, dantzariak (...) osatzen duten irudia.
3. (Heg.) (hed.) Bi jaiegunen artean gertatzen den eta jai hartzen den laneguna.
4. ITSAS. Untzi baten egiturarik gorena, aginte-gela kokatuta dagoeneko.
5. KIR. Gimnasiako posizioa.
6. MED. Berezko hortzak euskarri moduan erabiliz, hortz artifizialak finkatzeko funtzioa duen mekanismoa.
7. MUS. Hari-instrumentuetan, hariak giderritik altxaturik egonarazten dituen zurezko pieza.

Filologo maltzurak berehala *EH*-ko baliokidearekin erkatuko du eta, espero bezalatsu, 1977 arteko literaturan haietako bi bakarrik lekukotuta daudela egiaztatuko:

1. Ibai baten edo beste zernahi eragozpenen gaineratik igarotzeko eraikuntza.

2. Itsasontzi batean, egitura garaiena, aginteak emateko erabiltzen dena.

Bistan da gainerako adierak metaforaz erdietsitakoak direla (denetan zubiaren formak eta funtzioak zerikusia izan du), baina zer esan handia legoke euren benetako zabalkunde eta etorkiari buruz. Aitorturik ala gabe, hori ez dagokigu orain, euskal hitzen adierak ugaltzea, sarri inguruko erdaretakoak kalkatuaz, egungo hiztegieleek —eta ez eurek bakarrik, noski— halako maiztasun batez aintzat hartzen duten lexikoa eraberritzeko baliabidea da.

Larramendik ere beste horrenbeste egin zuela susma dezakegu. *DAut-etik HH-ra* gertatu den adiera murrizketa handiaren arrazoietako bat hauxe izan litekeela iradoki dut lehenago (I, § 4.3.2), zenbaitetan gaztelaniazko hitzaren adieren eta euskarazko ordainen artean hiztegieleak alderik ez zegoela, edo ez zela izan beharrik jakintzat emana, alegia. Orduan eman ditudan bi adibide esplizituak berriz aipatuko ditut, osoki oraingoan:

Ala, *egoa, egaa, egala*.

Ala de el pescado, *isatsa*.

Ala de tejado, *tellatuaren egala, leorpiña*.

Ala, en todas las demás significaciones, *egalá*.

Caer, *erori, jauçi, jautsi*.

Caer, tiene otras significaciones, y en las más es *erori, jauçi*.

Atal berean agerian jarri dut Larramendik hizkuntzaren mekanismo honen berri bazuela, berriz ekarriko dudan pasarte honek bermatzen duenez:

...si los Bascongados se toman, como pueden, la licencia de usar la analogía y metáfora, será el Bascuence incomparablemente Lengua más fecunda que las otras: las quales, con especialidad el Romance, si cercenan essas locuciones figuradas, perderán más de la mitad de lo que llaman afluencia (Larramendi 1745: xii).

Ez dut uste corpuseko hitz guztien adiera guztiak aztertzea merezi duenik, sarrera modura behinik behin, gehienetan euskal hitza agertzen deneko gaztelaniazko hitz ezberdinen sinonimia hertsia edo zabaletik datozkeen esanahi aldaketak ia antzemanezinak baitira. Dena dela, bidenabar baino ez bada, azpimarratu behar da honek beronek eskatu zuen lan handi eta neketsua; honen erakusgarri zenbait ikusi ahalko dira Iparraldeko literaturatik hartutako hitzak aztertzerakoan (§ 9.2.8.2).

Gure lanbidea adiera esanguratsuetara bakarrik mugaturik, bada, lehenik eta behin ohartu behar da *HH*-an ahozko euskaran edota literaturan garatutako adiera ezberdinak jasotzen direla batzuetan, jakina:

adar “cuerno” (1545) eta “rama” (1571), *hagun* “espuma” eta “espumajo, espumarajo” (biak 1571), *alokairu* “acostamiento, sueldo” eta “alquiler” (biak 1571), *altzo* “seno, regazo” (1630), “regazo, enfaldo de la saya” (1630) eta “gremio de la Iglesia” (1664), *ao* “boca” (XI-XII), “filo” (1571) eta “boca de [gauza]” (1562), *aranza* “espina” (1600) eta “púa” (*arantze* 1643), *arin* “ágil” (1571), “leve” (1571) eta “venial” (1627), *arritu* “absortar, pasmar” (1545) eta “petrificar” (1643?),⁸⁴⁶ *asto* “asno” (1562) eta “majadero” (1653), *auste* “rompimiento” (1571) eta “infracción”

⁸⁴⁶ *OEH*-ak ez ditu bi adierak bereizten; *EH*-ak bai, baina ez du ‘harri bihurtu, harri bezalako bihurtu’ adierarako datarik ematen, lehen lekuan Axularren adibide bat (*Gero* 616) ematen badu ere. Honen azpian jartzen duen azpiadiera (‘harri bihurtu, fosildu’) da zehazki *HH*-ak jasotzen duena (cf. *licurta arritua* “ámbar”), baina adibide zahar guztiak pertsoneri (edo bihotzari...) dagozkie. Gauza bati buruzko lehenengo adibidea *OEH*-an, oker ez banago, Duvoisinena da (*Zeren erditarik moztua den adarra harrizzen baita*. *Dv Lab* 361).

(1635), *autsi* "romper" (1545) eta "quebrantar, violar" (1571), *azi* "semilla" (1545) eta "esperma" (1571).

Bestetan, halako ziurtasun batez esan dezakegu ahozko euskaran bizirik zeuden baina literaturak anarteraino jaso gabe zituenak *HH*-an lehenengoz islatzen direla (datarik gabeko adieretarako, ik. 17. eranskina):

adats "cabellera" (1571) eta *baratzurien adatsa* "ristra de ajos", *aker* "cabrón" (1074) eta "(palo que en el remate detiene el) cabrío", *aldamio* "andamio" eta "añadidura", *ale* "grano" eta "abalorio, cuenta", *alogera* "jornal" (1596) eta "alquiler" (cf. *alogadua* "alquilada" RS 388), *andere* "damisela" (1085) eta "muñeca" (*andrajo*-ren etim.), *antxume* "cabritillo" eta "cabra, cabrilla en las piernas", *apartatu* "apartar" (1545) eta "separar, escogiendo", *arradiza* "cicatriz" eta "indicio", *aska* "arteson" (XVII) eta *asketatik irten* "(salir de) madre", *asketan iduki* "(tener a) raya", *azaro* "noviembre" (1501) eta "sementera, el tiempo de la siembra".

Larramendik egindakoak izan litezkeen adibideak oso gutxi dira; esanguratsuki, zeren gorago aipatutako pasartearen arabera berak bide irekitzat jotzen baitzuen, alde honetatik lan gehiena egiteko zegoela iradokiaz. Nolanahi ere den, zertxobait egin zuela dirudi, dela jadanik bizi ziren hitzetan, dela berak sortutakoetan. Azter ditzagun, beraz, bildutako adibideak, adiera berrien sorbideari begira:⁸⁴⁷

1) Antzekotasun erlazioak (metaforak):

adiakari "gemidor" eta "autillo, ave nocturna" (cf. bertako azalpena: *adiaca ta negarrez bezala dagoan gauchori bat*), *aotxabal* "boquiancho" eta "papanatas", *ataska* "compuerta" eta "cataratas de el cielo, copiosas lluvias", *atsaldi* "vaharada" eta "tregua", *aurdikotxo* "cabezalejo" eta "acerico, almoadica pequeña", *axal* "cascarilla" eta "superficie".

2) Tabuak:

atzekoalde "(parte) posterior" eta "culo".

3) Espezializazioa:

astun "pesado" (1652) eta "grave" (cf. gorago *arin*).

4) Oinarriaren esanahi ezberdinetatik sortutakoak; bereziki interesatzen zaizkigu jadanik lexikalizatuta zeuden adierei egindako eransketak:

agintari "xefe" (1627) eta "ofrecedor", *aize-emaile*, *aizegile* "abanico" eta "soplador", *aldeko* "cercano" (1562) eta "lateral", *alderatu* "acercarse" (1643) eta "ladear", *alogeratu* "alquilar" eta "assalariar", *alogeratzaille* "alquilador", "destajero" eta "premiador" (< *alogera* "alquiler", "jornal" eta "premio"), *aotu* "mascar" eta "afilado", *autseztu* "encenizar" eta "polvorear", *azaldu* "explicar" eta "bañar, cubrir una cosa con otra líquida".

3) Atzikiaren esanahi ezberdinetatik sortutakoak:

altxagarri "levadura" (1571) eta *idunaren altxagarria* "alzacuello", *askagarri* "resolutivo, que tiene la virtud de resolver" eta "soluble".

4) Etimologiak bide emandakoak:

anbatetu "contar" eta "empatar" (etim.), *anzinako* "antiguo" eta "anciano" (etim.), *arazo* "faena, con mucho afán y ruido" eta "embarazo" (etim.).

4) Bestelako euskal hitzekiko analogiaz:

atsemon "apagar" (V-m ap. Azkue) eta "aspirar" (cf. *atseman* 1571).

⁸⁴⁷ Ullmann-en lanean (1964: 331-346) aurkitu dut sorbideak sailkatzeko modua, *HH*-aren berezitasunei zertxobait egokitu behar izan badiet ere.

5) Gaztelaniatiko mailegu semantikoak:

agaitu “apalear” eta “palado, en el blasón”, *aize* “viento” (1545) eta “ventosidad”, “flato”, *aize-buhunba* “ventolera, viento recio y poco durable” (1571) eta “ventolera, vanidad, soberbia”, *alkanzatu* “alcanzar” (*alkanzadu* 1656) eta “alcanzado, adeudado, pobre”, *anyerusa* “nympha” eta “nympho, hombre afeminado”, *arautar* “regular, ajustado, conforme” eta “regular, el religioso”, *azgarri* “carácter, señal” eta “carácter, letra”.

5.2. Katgoria aldaketa

Euskaraz ezer gutxi dakigun gai nagusietako bat dugu hau, baina interes handia piztu du hizkuntzalarien artean, eratorpen mota berezia den ala ezeko eztabaida dela eta. Eratorpenak maizenik azpian hartzen dituen hitzen katgoria aldatzen du, aldatu ere, baina orain katgoria aldaketa berezi batez mintzatu behar dugu: hitzaren forma eragiten ez duenaz, hain zuzen. Honegatik ere, batzuetan *sufijación nula* edo *zero-derivation* bezalako izenak jasotzen ditu, azken finean \emptyset atzizki bat badelako ustean.⁸⁴⁸

Nolanahi ere, hizkuntza bakoitzean aldaketa mota hau era ezberdinetan gauzatzen da, eragin ditzakeen katgorietan eta elkarren artean aldakor direnetan alde handia izaten denez gero. Adibide modura hautatu ditudan bi hizkuntzak katearen bi muturretan daudela esan daiteke: gaztelaniaz aditza erraz xamar bihur daiteke izen (*el atardecer, el morir*), baita —bakanxeago, nik uste— adjektiboa izen (*un dulce, un rojo*); ingelesez (Bauer 1983: 226-230), ostera, hitzberrigintzarako bide oso emankorra da: ez dirudi oro har ezein hitz mota (bakunak, eratorriak, elkartuak, etab.) haren pean erortzeko hertsapenik dagoenik eta, gainera, badirudi era guztietako katgoriak eman ditzakeela, guztiz “irekiak” deritzenetakoak (izena, aditza, adjektiboa, adberbioa). Katgoria aldaketa nagusiak ‘izena > aditza’ (*to bottle, to bridge*), ‘aditza > izena’ (*a call, a spy*), ‘adjektiboa > aditza’ (*to better, to dirty*) eta ‘adjektiboa > izena’ (*the poor*) dira, baina *to up* bezalako bitxikeriak ere ez dira ezinezkoak. Interesgarri izan daitekeen beste parametro bat, honela eraturako hitzen portaera da, hots, delako katgoria bat hartu eta gero, katgoriako gainerako hitzen modura dabilen ala ez: esate baterako, ingelesez ‘adjektiboa > izena’ aldaketak, bakanagoa izateaz gain, baditu hertsapen batzuk: *the poor* ezin daiteke pluralean jarri (**the poors*), ez eta bestelako determinatzaileekin erabili.

Euskaraz, esan bezala, gai honek ez du beharko lukeen arreta guztia erakarri oraingoz⁸⁴⁹ eta, gainera, oraino ere hainbat hitz eta hitz sailen katgoria bera zehazteko dugu.⁸⁵⁰ Haatik, intuitiboki jokatzuz, denok dakigu badirela bata bestetik hurbil xamar dauden

⁸⁴⁸ Arazo teorikoaren planteamendua Spencer 1991: 20-n ikus daiteke; gaztelaniaren eta ingelesaren portaerari buruzko berriak eta adibideak Miranda 1994: 149 eta Bauer 1983: 32-33tik atera ditut, hurrenez hurren, lehenari buruz inoiz edo behin nire gaitasunaz baliatu banaiz ere.

⁸⁴⁹ Azkuek (1923-1925: §§ 616-620) izenondoa jatorri zein ondorio duten asko bildu zituen; zehazkiago, ‘izena > izenondoa’, ‘izenondoa > izena’, ‘adizlaguna > izenondoa’ eta ‘izenondoa > aditzondoa’, gehi nondik nora doan zehaztu gabe utzi zuen ‘izena \leftrightarrow aditzondoa’ (*egun, goiz*).

⁸⁵⁰ Alde honetatik, Zabala & Odriozola 1994, adjektibo eta adberbio katgorietan sartu ohi direnak elkarren artean bereizteko eta sintaktikoki ezaugarritzatzeko oso saio interesgarria dugu. Gainerantzean, biziki adierazgarria da, adibidez, *EH*-aren aurkezpenean (Sarasola 1996: xix), gramatika katgoriak direla eta, egiten den iruzkina: “Euskal gramatika azterketen egungo egoeran, badirudi hainbat hitzen gramatika

zenbait kategoria. Gehiegi hausnartu gabe, ziurtzat eman daiteke aditza, histori garaian behintzat, oso nekez izango dela kategori aldaketaren ondorio, ezinbestean eta agerian daraman atzizkia dela kausa: aspaldiko partez aditz berri guztiak oinarriari *-tu* atzizkia erantsiaz erdiesten dira. Alderantziz, 'izenondoa > izena', 'izenondoa > aditzondoa' eta 'partizipioa > izena' motak behingoan datoz burura. Hizkuntzalariek halako gertakarietan "kategoria aldaketa" fenomeno honen adibideak ala beste ezer dagoen erabaki bitartean, aintzakotzat hartuko ditut, eta haietatik abiatuko *HH*-an agertzen zaizkigunez aritzeko.

5.2.1. Izenondoa eta izena

Euskara zaharrean, itxura guztien arabera, izen eta izenondoaren arteko mugak orain baino askoz nasaiagoak bide ziren (Mitxelena 1964a: 56 eta 1977a: 512),⁸⁵¹ geratu zaizkigun hamaika "behar biko" itemak —berriki De Rijk-ek (1995: 77) erabili duen berba euskaratuaz— lekuko. Azkuek (1923-1925: § 618) euskal hitz zenbaitek "berez" izen-izenondo balioak dituztela adierazi zuen, adibidetzat *argi, bero, itzal, otz* eta *atsegin* emanik. Alabaina, euskalari beraren iritziz (*op. cit.* § 616) izenondo batzuk izen bihurtu dira (1), eta izen batzuk izenondo (2):

- (1) *ongarri* "abono", *erregarri* "combustible", *negargarri* "catástrofe", *on-gaitzak* "los bienes y males", *zuzen* "recto, derecho, justo" > "derecho, facultad, prerrogativa", *makur* "inclinado, encorvado" > "aje, achaque" eta *txerri* "cochino", gehi *satsu* (Lç) 'deabrua'.
- (2) *asti* "calma, ocio" > "ocioso, calmoso", *eme* "hembra" > "suave", *ezti* "miel" > "(cosa o persona) dulce", *kardai* "marrajo (un pez)" > "marrajo, marrullero", *koipe* "grasa" > "(persona) lisonjera", *leizar* "fresno" > "lisonjero", *mando* "macho" > "enorme", *oilo* "gallina" > "cobarde", *sats* "estiercol" > "vil", *taket* "estaca" > "majadero", *tutu* "trompeta" > *etxe tutu* "casa pequeña", *ugar* "roña" > "sucio", *zorri* "piojo" > "menudo, diminuto".

Azkueren sailkapenari oso eztabaidagarria deritzat, baina horregatik beragatik interesgarri, gaiaz nolabaiteko luzeraz aritu den bakarra izateaz gainera. Interesgarria da, izan ere, kontu honetan dagokeen nahaste-borrastea behingoan begietaratzen digulako. 'izena > izenondoa' multzoan sartzan dituen adibideetan berak "bilakaera metaforikoa" (*op. cit.* § 617) deritzonoko hainbat adibide argi badira, guztiz animalia izena pertsona ezaugarritzatzeko darabiltenak (baita *koipe* ere, adibidez). Aitzitik, ez dut uste *asti* eta *ezti*-rekin, esaterako, kontuak hain garbiak direnik, bukaeran *-ti* susmagarria dutenez gero.⁸⁵²

Sailkapena bat-batean hobetzeko inolako asmorik gabe, beraz, saia gaitzke *HH*-an diren izen-izenondoen nolakoa pixkanaka ebazten aurreko eta ahozko lekukotasunen

sailkatzeari buruz ez direla eskas arazoak eta duda-mudak. Hortaz, egokiago iruditu zait delako hitzen definizioan erabilerari buruzko behar adina ohar egitea eta argibide ematea, neure kabuzko sailkapen berriak egiten hastea baino".

⁸⁵¹ Lakarra (1995b: 192, 2. oh.) aitzinago ere iritsi da, aitzin-euskararen morfologikoki bereiz zitekeen 'izenondo' kategoriarik ez zegoela argudiatuaz, Amerika, Afrika eta Australiako hainbat hizkuntzatan bezalaxe.

⁸⁵² *ezti*-rako Mitxelenak (1977a: 366) *ez- oinarria proposatu zuen, zalantzaz, aldi berean *ezko* 'argizagia' eta *erle* azal ditzakeelako ustean. *asti*-rako, berriz, *MDELV*-ak bi aterabide eskaintzen ditu: euskararen barruko *ats-ti* eratorpena, eta Corominasek proposatzen duen lat. *fastidium* > okzit. zah. eta kat. zah. *fastig*, mendebaldeko ald. *fasti* ~ gask. *hasti* (izarrik gabe?) > eusk. *asti*.

laguntzaz, Larramendik honetan berritu ote zuen ala ez, eta berritu baldin bazuen nondik nora egin zuen jakiteagatik.

Hartara baino lehen, dena dela, komeni da gogoratzea 'izena > izenondoa' bilakaera lexikoarekin batera badela ondorio beretsua duen egitura sintaktiko bat. Larramendik bazuen gertakari honen berri:

...quando el adjetivo entra en la oración substantivamente, *aitarén itsusia*, lo feo del Padre, *nagusiarén gogorrá*, lo duro del amo o del señor (1729: 264).

Corpuseko hitzetan, honako talde hauek egin ditzakegu:⁸⁵³

a) "Behar biko" erabilera zaharra edo oso zaharra duten hitzak:

argi "luz" (1545) / "claro" (1571).
ats "respiración" (1627) / "puerco, sucio" (1643).
atsegin "alegría" (1415) / "festivo, alegre" (1643).

b) Izenondo bilakaera metaforikoa jasan dutenak; adibideak urri eta zaharrak dira denak:

abre "res, cabeza de ganado" (1571), "bestia", "bruto" (1571) > "alarbe, bárbaro, bestial" (1643).
asto "asno", "borrico" (1562) > "majadero, necio" (1653).

c) 'izena > izenondoa'

anyere "muñeca" (1745; *anddere* AN-gip ap. *OEH*, s.v.) / "soplado, demasiadamente pulido" (*1745; BN-haz *Oi ze zaldi andderea!* ¡qué elegante caballo!, ap. Azkue, s.v. *andere*).
akats "mella", "portillo" (1745; V, G, *akets* V-m, G-to-nav ap. *OEH*) > "falto, faltoso", *akats egon* "faltar algo para llenarse, cumplirse, &c."; cf. *OEH*: "Lo que falta o sobra en una cantidad. Kontu jakin bat (diruz edo bestela) osatzen ez denean esaten da: *emen akatsa zegok, ez dek osatzen.* / *Akatseko ori* [= akatsa dagoen tokia, a. duen kontua] *osatu al zaik?* (G-azp)".
aldapa, *aldats* "cuesta" (biak 1596) > "costanero, ra" (biak 1745).

Ez dirudi Larramendik sail honetan berritu zuenik; aitzitik, adibideak oso gutxi izateaz gainera, haietako bi ongi lekukotuta daude (*anyere*, *akats*). Bestalde, gaurko lekukotasunen arabera, Larramendik gaizki ulertu edo, zehatzago agian, gaizki ulertarazi zuen *akats*-en erabilera, ez baita izenondo bihurtzen, testuinguru batzuetan erdal adjektiboaz itzul badaiteke ere: *akats egon* 'estar falto(so)', demagun. Baliteke *aldapa* eta *aldats* ere bide honetatik azaldu ahal izatea.⁸⁵⁴

d) 'izenondoa > izena'

• izenondo bakuna

alai "denodado", "espiritoso, animoso" (1745) > "aliento, vigor, esfuerzo", "ánimo" (1745).
alfer "perezoso" (1571) > "acidia" (*1745).
alper "holgazán", "perezoso" (1745 b.l.) > "acidia" (*1745).
astun "aplomado, pesado" (1652) > "peso" (1745, V-arr-gip ap. *OEH*, s.v. *astun* 5).
aul "insulso" (1745; V-ger-oroz-gip ap. Azkue) > "insipidez" (1745).
eri "enfermo" (1545) > "enfermedad" (1745).

⁸⁵³ Beti bezala, datak *EH* edo *OEH*-tik erdietsi ditut; izarra daramatenak, berriz, nik jarri ditut, bestelako informaziorik ezean.

⁸⁵⁴ Ik. *OEH*, s.v. *aldats*, "uso adj." eta ALDATS EGIN atalen azpiko adibideak, ia denak XIX. mendekoak badira ere (f. Bartolome, Astarloa, Lardizabal...).

• [izena + *bage*]_{izenondoa}

adrebage "irregular" (*1745), "irregularidad" (*1745).
airge "tenebroso" (1745), "tenebrosidad", "tinieblas" (1745).
ajolakabe "acidia" (1745, *OEH* s.v. *axolagabe* 2).
alikabe "impotente" (*1745), "impotencia" (*1745).
ansikabe "descuidado y floxo" (s.v. *ansia*) (1571), "descuido" (*1745).
antzakabe "tosco" (1627), "tosquedad" (*1745).
anzke "desemejante" (*1745), "desemejanza" (*1745).
araubage "irregular" (1745, *araugabe* XVII ea.), "irregularidad" (1745).
arazge "recoleta" (*1745), "desembarazo", "recogimiento" (*1745).
ardurabage, *ardurakabe* "acidia" (biak *1745, cf. *OEH* s.v. *arduragabe*).
argige "eclipse" (*1745; cf. *OEH*, s.v. *argigabe* 2).
arimabage, *arimage* "(hombre) desalmado" (biak *1745), "desalmamiento" (biak *1745).
arretabage "negligente" (1745), "inaplicación, inaplicado", "inadvertencia" (*1745).
atsekabe "adversidad" (1571, ase- 1562).

• izenondo eratorria

adigarri "inteligible" (1745), "oíble" (*1715), "sentido de algún dicho, proposición, &c." (1657).
aldaezgarri "inmutable" (1745), "inmutabilidad" (1745).
aldagarri "mueble, lat. *mobilis*" (1745), "vestido" (1636).
apaingarri "adornable" (1745), "adorno" (1627).
argigarri "iluminativo" (1745), "emblema, simbolo" (1745).
arrigarri "admirable", "pasmoso" (XVII ea.), "hechizo, atractivo", "pasma" (1745).
atsesgarri "sufocación, ahogo" (*1745).
aldaezkizun "inmutable" (1745), "inmutabilidad" (1745).
aldeko "circunstancia" (1745).
arimakaitz "(hombre) desalmado" (*1745), "desalmamiento" (*1745).
astunez "leve", "ligero" (*1745), "levedad", "ligereza" (*1745).

• izenondo elkartua

alaiturri "pusilánime" (*1745), "pusilanimidad" (*1745).
andigoi "magnífico", "regio" (1745), "magnificencia", "realeza" (1745).
andigura "ambicioso" (1745), "ambición" (1745).
andinai "ambicioso" (1664), "ambición" (1745).
aruts "pausado" (*1745), "pausa" (*1745).

Adibideon arabera, *HH*-an izenondo eta izenaren arteko muga ireki xamarra da, behar biko itemak ugari aurkitu ditugu eta. Guztiak Larramendirenak diren ala ez ebatzi aurretik, zehaztapen zenbait egin behar dira atal bakoitzeko:

1) Izenondo bakunei dagokionez, lekukotasunak ia beti izenondoaren aldera makurtzen dira, baina *astun*, adibidez, badirudi izen gisa ondo lekukotuta dagoela zenbait hizkeratan. Ohartu izenak beti abstraktuak direla, eta *HH*-ko hedadura gorago aipatu dugun *gizonaren alferra* bezalako egituretatik sortua edo indartua dagokeela.

2) Bigarren osagaien *bage* edo *aldaerak* dituzten hitzetan, berriz, corpuseko lekukotasun zaharrak erdibituta daude: *ansikabe* eta *antzakabe* izenondoak dira, baina *atsekabe* izena. Aspaldiko partez (noiztik aztertzeke dugu) *-gabe* izenak egiteko emankor ez den arren, *atsekabe*-z gainera, *bidebage* / *bidegabe* (1571; biak *HH*-an "agravio"...), *eskergabe* (1733; *HH*-an "ingratitude"), *nahigabe* (*1733; *HH*-an "tribulación"...), *hobengabe* (1643, *bere*

hobengabea egituran) eta *iakin gabe* (1643) bezalako hitzek honelakoetan ere izenondo eta izenaren arteko mugak noizbait lausoak izan zirela argi erakusten dute.⁸⁵⁵

Egia da garai berean *-gabetasun* izen markadunak ez direla ezezagunak (cf. *ahalkegabetasun* 1636, *dohakabetasun* 1571, *ezagutzagabetasun* 1643, *hobengabetasun* 1643), baina *bidegabetasun* (*-bagetasun* 1821) eta *nahigabetasun* (1903) bezalakoak datak eta *atsekabetasun* (XVII ea.), *eskergabetasun* (1617) eta *jakingabetasun* (1664) bezalakoak agertzen diren testuak (Pouvreau nagusiki zaharretan)⁸⁵⁶ hiperkarakterizazio batez mintzo direla dirudi, hizkuntzaren beste arlo batzuetan gertatu bide den bezala (cf. § 2.1.19 *-ki*-ren hedapenaz).

Larramendi '*-gabe* = izond. / *-gabetasun* = iz.' bereizketa osoki ezarri aurreko egoera batean aurkitzen dugu: irakurri zituen liburuetan —baita bere hizkeran ere, agian⁸⁵⁷— *-gabe*-k izenak zein izenondoak sor zitzaizkeen; ordurako hitz batzuk izen edo izenondo modura zeharo lexikalizatuta egon bazitezkeen ere, behar biko item zenbait idorotzen dira oraindik: cf. *eskergabe* izond. (1617) / iz. (1733), *jakingabe* izond. (1617) / iz. (1643). Honegatik, ez da harritzekoa aukera biak batera baliatuaz *HH*-an honelako hitzak aldi berean izenondoa eta hari dagokion izen abstraktua izatea,⁸⁵⁸ nahiz izen abstraktu hutsen bat ere sortzen jakin zuen (cf. *ajolakabe*, *ardurabage*, *ardurakabe*). Zalantzarik gabe, Larramendik prozedura hedatu eta neurri batean sistematiko bihurtu zuen: argiak dira, alde honetatik, *ansikabe* eta *antzakabe*, biak Iparraldeko literaturatik hartuak (§ 9.2.4) eta *HH*-an izen bilakatuak.

Aztertutako *-gabe*-dun izen ugarien aldamenean, corpusean *ajolakabetasun* (1745, *OEH* s.v. *axolagabetasun*) eta *ardurakabetasun* (1745, *OEH* s.v. *arduragabetasun*) bakarrik aurkitu ditut, biak elkarrekin, dena azaldu beharreko A letrako sarrera horietako batean (I, § 9.3):

Acidia, vicio capital, pereza en el bien espiritual, *naguitasuna*, *alpertasuna*, *naguiqueria*, *alperqueria*. Item *nagua*, *alperra*, *alferra*, (...). Item mejor *ajolacabea*, *arduracabea*, *ajolacabetasuna*, *arduracabetasuna*; y lo mismo es *ajolabaguea*, *ardurabaguea animari dagozcan gauzetan*.

⁸⁵⁵ Ez dirudi honetaz ohartu denik Azkarate (1992: 214-215), *caltebaguea* "indemne, indemnidad" kategoriak ez errespetatuz egindako hitzen artean sartzen duenean; jakina, honekin batera sartzen dituen gainerako adibideak —*izquidezgarria*, *izquidezquizuna*, *izquideciña* "incomprehensibilidad, incomprehensible", *alderezgarria*, *urrerezgarria* "inaccessibilidad, inaccessible" eta *barnezgarria* "impenetrabilidad, impenetrable"— bide beretsutik doaz, hurren ikusiko dugun bezala.

⁸⁵⁶ Lakarrak (1995: 13-14 eta 9. oh.) honako adibide hauek bildu ditu Pouvrearen idazlanetan zehar egin duen gain-gainetiko miaketan: *fermugabetasun*, *ansigabetasun*, *bihotzgabetasun*, *eskergabetasun* (*Imitacionea*), *hobengabetasun* (*Petits oeuvres*) eta *iakingabetasun* (*Guirist. dotrina*).

⁸⁵⁷ Oraingoz daturik ez izan arren, suposa dezakegu garapena ez zela aditzondo atzizkidunetarako eratu dugunetik oso ezberdina izan: hots, kode idatzia —Iparraldeko literaturatik hasita— indartuaz joan zela ahozkoan neurri batean edo bestean bizirik egon zitezkeen bereizkuntzarako joerak.

⁸⁵⁸ Ohargarria da euskal ordain berberak jaso behar zituztenez gero, inoiz biak sarrera berean bilduta agertzea (cf. goian *arretabage*, adib.). Beherago ikusiko ditugun adibideen arabera, badirudi hau batez ere *in-* aurrizkidun hitzen sailean gertatzen dela, izen-izenondo bikote amaitezinak ahalik eta lekurik txikienean eman beharrez, antza denez.

Orain artean emandako azalpenetik argi eta garbi ihes egiten duen adibide bakarra *argige* “eclipse” dugu, gainerakoak ez bezala ekintza-izena baita eta, beraz, ziurrenik *argigetu* “eclipsar” aditzetik erauzia (cf. § 5.4.1).

3) Izenondo eratorri eta elkartuetan ez dago, oro har, aldaketa handirik: elkartu guztiek eta eratorrietako askok ‘izond. + dagokion iz. abstraktua’ bikoteak osatzen dituzte. Alabaina, prozedura bi kasutan nabarmenki hedatu egin da, aurreneko bi ataletan oinarri harturik, dudarik gabe ordurako halako hitz konplexuak azpian harrapatzeko atzeraegi zebilkeen eta.

Corpusean adibide gutxi izan arren, *-(ez)kizun*, *-kaitz* eta *-ez* izen-izenondoak eta antzekoak ugari xamar dira *HH*-an: cf., adibidez, *izquidezquizuna*, *izquideciña* “incomprehensibilidad, incomprehensible”, *tolesezcorra*, *biurrezcorra* “inflexibilidad, inflexible”, eta *umaneza* “inhumanidad, inhumano”.

-garri-ren adiera zaharra dela eta, ostera, hobeto lekukotuta ditugu izenak (*adigarri*, *aldagarri*, *apaingarri*) izenondoak baino, eta oso egiantzekoa da hauen aldamenen diren izenondoak, adiera ez aktibokoak direnez gero, *HH*-an behinik behin (baina baita oro har hizkuntzan ere) bigarren mailakoak izatea, hots, ‘eusk. *-garri* = gazt. *-ble*’ ekuazioaren arabekoak (§ 2.1.16). *-garri* izen hauek, gainera, ez dira abstraktuak, *-garri*₁ gisa (§ 2.1.7) aztertu dugun mota zaharrekoak baizik; inolaz ere, talde (zahar) berekoa dugu *argigarri*, bai izen gisa, baita izenondo aktibo gisa ere.

Ezezagunak dira, aldiz, *-garri* ekintza-izenak (*arrigarri*, *atsegarri*; cf. § 2.1.16), ziurrenik izen abstraktuen eta ekintza-izenen arteko betiko nahasketatik sortuak (§ 2.2.4.2); baita, esan gabe doa, *aldeko* bitxia ere (§ 2.1.15).

5.2.2. Izenondoa eta aditzondoa

Jakintzat eman ohi da euskaraz edozein adjektibo aditzondo gisa erabil daitekeela (ik., adib., Sarasola 1996: xviii).⁸⁵⁹ Alabaina, baieztapen honek gaizki ezagutzen ditugun —baina ezagutzen hasiak garen— hertsapenak ditu.⁸⁶⁰ Esaterako, berehalakoan dator burura erlazio izenondo mailegatuak salbuespen argiak direla:

Lege diakronikoak.
Diakronikoki sailkatuko ditugu.
*Diakroniko sailkatuko ditugu.

⁸⁵⁹ Azkuek (1923-1925: § 620), ostera, “varios adjetivos” direla bakarrik dio; honako hauek aipatzen ditu: *baratz*, *bizkor*, *geldi*, *gogor*, *guri*, *latz*, *lodi*, *meatz*, *muker*, *sendo* eta *zuzen*, beste sail batean sartuko nituzkeen *agitz* eta oso-rekin batera.

⁸⁶⁰ De Rijk-ek (1995: 76) dioenez, oraingoz ez dago honela joka daitezkeen izenondoak semantikoki ezaugarritzatzerik. Saio modura, ‘kantitatea’ adierazten duten izenondo guztiak (*eskas*, *urri*, *jori*, *naro*, *oparo*, *ugari*) behar biko itemak direla aurreratzen du. Ohar bekio, ordea, *naro* eta *oparo*-ren bukaerari: itxura guztien arabera, izenondo bilakatu diren aditzondo markadunak ditugu (*nahi* + *-ro?* *opa* + *-ro*), eta ez alderantziz.

Osterantzean, izenondo mota ezberdinek —baita mailegu zenbaitek ere— bikoiztasun hori dutela nabarmena da:

Letra argiz idatzi du.
Argi idatzi du.

...badakit zeratela / koplari bapoak (Muj PAm 54, ap. OEH, s.v.).
Bapo jan eta edanda.

Jadanik aipatu dugun izen-izenondoei buruzko Mitxelenaren hipotesiari (1964a: 56) indar eta zabalkunde gehiago emateko moduan, De Rijk-ek (1995: 77) argudiatu du euskara zaharrean izenondo eta modu-aditzondoan arteko bereizketa formalik ez zegoela baina, inguruko erromantzeen eraginez apika, azkeneko mila urteetan —edo oraindik gertuago— aditzondoak nolabait kategorizatzeko premia agertu zela, berez bestetarako ziren zenbait morfema (-ki, -ro..) aditzondogile bilakatuaz. Prozesu hau, argi eta garbi, Iparraldean hasi zen eta bertan dihardu indartsuenik, lehenengo testuetatik soma daitekeen bezala, oraindik, Hegoaldean batez ere, lehenengo egoeraren arrasto tinko garbiak egon arren.

Bestalde, Zabala & Odriozolak (1994: 538-539) ez dute kausitu halako hitzak beti izenondo direla ez esateko inolako arrazoirik,⁸⁶¹ mugatzailerik gabeko erabilera testuinguruak eragiten duela etsita.

HH-an, De Rijk-en lana ezagutu eta gero espero zitekeen bezala, aditzondo modura ere agertzen diren izenondoak badira, baina azpimarratu behar da, halaber, etengabean gazt. -*mente* atzizkidun hitzak itzuli behararengatik agian, nolabaiteko atzizkia dutenak (§ 2.1.19) baino nahikoa gutxiago direla:

ahalkagabe “descarado” (1745, *ahalkagabe* 1630), “descaradamente” (*1745).
alper “perezoso” (1745 b.l., *alfer* 1571), “(en) balde” (1745, *alfer* 1571).
amodiobage “desamorado” (*1745, *amorio gabe* 1643), “desamoradamente” (*1745).
argal “flaco” (1226), “flacamente” (*1745).
arin “ágil” (1571), “ágilmente” (1737).
arretabage “negligente” (1745), “negligentemente” (*1745).
artez “derecho” (1562), “derechamente” (1643).⁸⁶²

Ustezko kategoria aldaketa hau dela eta, beraz, badirudi Larramendik jadanik erabiltzen ari zena baino askoz gehiago ez zuela jaso, beharbada *-bage*-z osatutakoetan izan ezik, baina hauetan nabarmena da *bage* posposizioak berak kategorizatzen dituela.

Alderantziz, aditzondo edo predikatibo modura soilik erabiltzen diren zenbait hitz, denak ekialdekoak adibideen arabera, izenondotzat bakarrik edo izenondotzat ere hartu zituen; badirudi, beraz, markagabeko hitzak —kasuan kasuko erabilera gorabehera— berez izenondo zirela bere ustetan:

agitiz “recio, reciamente” (1571) > *agitiz* “recio” (1745).
aisa “fácilmente” (*aise* 1643) > “fácil”, “holgado, ancho” (1745).

⁸⁶¹ Honetan Azkuerekin (1923-1925: § 675) bat datoz, zeren eta izenondoak *aditzondo bailiran* erabiltzen ditugula esaten baitu. Dena dela, beren ondorioaren eztabaida baterako, ik. De Rijk (1995: 54).

⁸⁶² *artez* hemen jaso dut, De Rijk-ek bezalaxe, baina aurrerago (§ 6.3.1.1, 37. oh.) eztabaidatuko dut instrumentalaz eratuta izan litekeelako posibilitatea: honela balitz, bistan da adizlaguna izenondoa baino lehenagokoa genukeela, baina bihurtetak ez luke Larramendirekin zerikusirik, jakina.

auzu "lícito" (1571; Larramendik *auzua* dakar).

5.2.3. Partizipioa eta izena

Partizipioa izen bilaka daiteke, eta izenari dagozkion lagunak hartu.⁸⁶³

Ukitu pare bat baino ez zaio falta amaitzeko.
Emaiozu begiratu bat honi.
Aurtengo irabaziak uste baino handiagoak izan dira.
Zauritu guztiak ospitalera eraman dituzte.

Hauetako zenbait nahikoa lexikalizatuta eta —euskara estandarrean behintzat— nahikoa zabaldua dauden arren, kategoria aldaketa mota honen hedadura kronologiko eta dialektala batere zehaztu gabe daukagu, hala nola eragiten dituen aditzen nolakoa eta sortzen dituen izenen ezaugarri semantikoak.

HH-an adibideak ugari dira, baina ez denak taiu berekoak:

adieman "ademán", *adierazi* 'esanahia' ("adverbio, *ala deitzen diogu verboari darraican eraiscun bati, eta aren adieracia nolatzen duenari*"), *ageri* "aparecimiento", "assomada" (cf. *ageritxo* "assomadita"), *agerri* "publicidad, lugar descubierto, frecuentado", "descampado", *agertu* "aparecimiento", "assomada" (cf. *aguertu bat eguitea* "(dar una) vuelta", *agertutxo* "assomadita", *agertutxo bat egin* "(dar una) vista"), *agindu* "manda, legado" (1562), *agiri* "hidalguía", "limpieza de sangre" // "publicidad, lugar descubierto, frecuentado", *arauli* "trabucación", *arazi* "precisión, necesidad", *ateri* (1643) eta *aterri* "serenidad de tiempo, sin lluvia", *aurdigi* "tirada, acción de tirar", "tiro, acción de tirar" (*aurtiki* 1664), *autsi* "quiebra, hendedura", *autsiki* "mordedura", "remordimiento" (1643), *aztu* "olvido" (*ahatze* 1696).

Testuek, geroko ahozko lekukotasunek (*agertu*, *aterri*⁸⁶⁴ eta *autsi*-rako, ik. 17. eranskina) edota *HH*-ko erabilerak berak (*agertutxo*-rako, ik. § 12.2.10.2) bermatzen dute talderik argi eta garrantzizkoena: honetan izen berria beti ere 'ekintza / ondorioa' adierakoa da, gorago aipatu *ukitu*, *begiratu* eta *irabazi* bezalaxe. Beraz, ezar dezakegu erabilera hau Larramendik ezagutu zuen euskaran arrunta zela eta, Landucci, Axular eta Belapeiregan bederen egonik, Euskal Herri osokoa dela edo izan dela.

Bigarren tankera bat aipatu beharra dago gutxienez: goragoko adibide modernoetan *zauritu*-k 'partizipioa > izenondo' + 'izenondua > izen' bilakaera ordezkatzeko du, eta berehala dator burura *damnatu* (1545) ere, adibidez, baina daturik gabe gaude honelako gertakarien kronologia eta hedaturari buruz. Bilakaera berbera, baina semantikoki ondorio ezberdina ('zertua izan dena (NOR)' vs 'zertzen duena (ZER)') izan du *adierazi*-k, eta ohartu Larramendik erabili egiten duela, ez ordain gisa eskaintzen. Erants dakioke antzerako azalpena ('zertzen duena (ZERK)') izan lezakeen *agiri* "hidalguía", "limpieza de sangre": *HH*-an metonimizazioa.

⁸⁶³ Adibideak Zubiri & Zubiri 1995: 517tik hartuak dira.

⁸⁶⁴ *ateri* / *aterri*-rako, cf. *OEH*-aren iruzkina (s.v. *ateri* 4): "Para su posible empleo antiguo o residual como participio, sólo hay algunos testimonios —no seguros— de lexicógrafos". *MDELV*-ak ez du ezer argitzen, ziurrenik bertan biltzen den baieztapenik zentzuzkoena haren jatorrizko adiztasuna (-i markagatik) azpimarratzen duen Corominasena delarik. Hala balitz, gorago erdietsitako euskalki hedaturari denboraren aldetikoa erantsi ahalko genioke, zeren eta kategoria aldaketa pairatutako partizipio zaharrek (vs *artertu*) izen gisa lexikalizatzeko gaitasuna —eta denbora— izan dutelako adibidea izango bailitzateke; erants bekizkio, zalantza maila beretsuan, *zauri* (Mitxelena 1977a: 318), *izari*, *neurri* eta *orrazi* behinik behin.

erdietsitako adieran soilik agertzen bada ere, gerora erabilera idatzi sendoa jasoko zuen hitz bati buruz ari gara (cf. *OEH*, s.v.). Larramendik berak gaurko adiera hertsiagoan erabili zuen, baina odol garbitasun kontuei buruz ari zela, hain zuzen (ik. *Corografía* 152).

Ondokoak, aldiz, baliteke denak berri-berriak izatea: (1) *ageri* beharbada *agertu*-rekiko analogikoa izan daiteke, adiera berberetan azaltzen baita, baina hura baino herabaxeago esapideen aldetik; *agerri* eta *agiri*, berriz, “publicidad, lugar descubierto”, “descampado” adieretan *agerrian*, *agirian* adizlagunetatik erazitakoak dira, nik uste (§ 5.1.1.e); (2) *adieman* (cf. *ademán*-en etim.; ik. § 6.5) eta *arauli* (ik. § 3.1.3) Larramendik era batera edo bestera eratutako hitzak dira, bestalde biak ‘ekintza’ adiera badute ere; (3) *arazi*-ren erabilera beregainaren beste lekukotasunik ez dagoenez (cf. *OEH*, s.v. *erazo*), badirudi areago izena hiztegiekileak prozeduraren hedaduraz sortutakoa izan daitekeela.

5.2.4. Partizipioa eta izenondoa

Partizipioa “aditz-adjektibo” izenaz ere ezagutzen denez gero, ez da batere harrigarria izenondo betebeharrean aurkitzea, nahiz eta euskaraz erabilera hau ekialdean mendebaldean baino askoz arruntagoa izan. Nolanahi ere den, bistan da kategori aldaketa baino, bere izatetik datorkion erabilera berezia dela, eta besterik ez. Alabaina, gertakari honen definizioa zertxobait ilunduta geratzen da euskaraz, defektiboki izenondo modura bakarrik erabiltzen diren *-n* eta batez ere *-i* markadun partizipio zaharrak kontuan hartzen ditugun bezain laster, hots, diakroniari berea itzuliaz: alde batetik, *gorri*, *zuri*, *hori* kolore-izenak aipatu ohi dira (Azkue 1923-1925: § 41; Lakarra 1995b: 195; Trask 1995: 218 eta 1997: 212-214), aipa litezkeen hainbat izenondoren artean; honelakoak azterketa honetatik urrutiegi geratzen badira ere, gogora ditzakegu, bestetik, histori garaian predikatu-osagarrian (*izan*-ekin, zehazkiago) edota izenondo modura bakarrik erabiltzen direnak: *ageri* / *agiri* (vs *agertu*), *ateri* / *aterri* (vs *atertu*), *bihurri* (vs *bihurtu*), *ezagun* (vs *ezagutu*), *nabari* (Mitxelena 1955: § 464), etab.

Larramendiren jokabideak datu jakingarriak eskain ditzake XVIII. mendean honelakoek zeukaten estatusari buruz. Haietako batzuk oraindik aditzat hartzera jotzen du: *ageri* “aparecer” (cf. *ortzak ageri* “endentecer”), *agiri* “mostrarse”, “parecer, aparecer”, baina sekula ez *agerri*, beti izenondo modura agertzen baita. Halaz ere, aipatu beharrean erabili egiten dituenean, *agiri*-ren kasuan behintzat argi xamar azaltzen da erabilera defektiboa: *Eguzquian aguiri diran argui-izpi batzuec* “fáculas de el Sol”, *aguiri da* “(ya se) ve”, gaztelaniazko ordainaldiaren eraginak ere aldaraz ez dezakeena: *oraindic ezta aguiri* “aún no parece”, *urrutitic aguiri da* “(a) legua se conoce esto”. Honen argitara, ia ziurtzat eman daiteke ez zela besterik gertatzen *ateri*, *aterri* “escampar” bikotearekin, erabilera bakarra *ateri dala*, *ta arriari daraunsa* “(ya escampa, y) llueven guijarros” hipotesiaren aurka ez doalarik.

Eman ditugun gainerako adibideek oraindik urrunago harrapatzen dute hiztegiekilea —*nabari* agertu ere ez da egiten, esaterako—, eta honegatik denak izenondo modura bakarrik agertzen dira: *ezagun* “conocido” (cf., are argiago, *hori ezaguna da* “claro está” eta *ezagutua*

“conocido, partic.” vs *ezaguna* “conocido”), *bihurri* “perverso”.⁸⁶⁵ Areago, berak ezezagun bide zituen erabilera defektibokoak automatikoki izenondotzat jotzen zituen, jadanik dakigunez (§ 5.2.2): *sori* eta *zilegi* —Iparraldeko liburuetan ikasiak, ziurrenik— izenondo arruntak bailiran jasotzen ditu ia beti (*cilleguia*, *soria* “lícito”, *cilleguia* “permitido”, “adjudicar”, *trampa cilleguia* “trampa legal” vs *meneratu cioten cilegui zana*; *escupean paratu cioten sori cirudiena* “(le) adjudicaron lo que parecía justo”).

Bestalde, gerora behintzat nahikoa lexikalizatu diren partizipio batzuk ere jasotzen ditu:

aditu “entendido, sabio” (1571). *amorratu* “rabioso” (cf. *chacur amorratuen guisa* “caninamente”). *autatu* “electo”, “escogido”, “eximio” (1617).

Adierazgarriak dira, halaber, gaztelaniazko partizipioek ez eragindakoak edo, bestela esanda, gaztelaniazko izenondo arruntan ordain gisa agertzen direnak:

arribiatu “rabioso”, *arritua* “immobible, inmóvil, immobile”.

5.2.5. -ka aditzondoa eta izena

Azkue (1923-1925: § 368) ohartu zen lehenengoz, dakidalarik, *-ka* atzizkiaz eratutako hitzak izen bilaka daitezkeela, Añibarroren lekukotasunen laguntzaz.⁸⁶⁶ Ez dirudi harrezkero gaiak arreta berezirik erakarri duenik⁸⁶⁷ eta, beraz, itsuka aritu beharko dut honen kontu emateko. Corpusean bi adibide baino ez ditut idoro:

atzerinka “corveta en los caballos” (cf. *atzerinka ibili* “(hazer) corvetas”).
audiaka “jactancia” (cf. *audiaka* “altivamente”, “vanagloriosamente”).

Bigarren adibidea ezinaitzakiatuzkoa da, aditzondoa *RS 48n* lekukotuta dago eta; halaz ere, izenari dagokionez, *audiakatu* “jactarse” aditzaren atzeranzko eratorria izan liteke, zeren eta *audiaka* aditzondoari *HH*-an dagokion izena —hau ere atzerantz eratorria— *audia* “altivez”, “vanagloria” baita.

Lehenengoa korapilotsuagoa bide da: *atzerinkatu* “(hazer) corvetas” hitz elkartua eta familiaren oinarria bada (< *atzero* + *tinkatu*; § 3.2.3.3.b), orduan *atzerinka* izena atzeranzko eratorri hutsa dateke, eta *atzerinka ibili* esapidea ustezko atzizkia baliaraztetik sortua. Azalpen honen alde dator etimologiak zilegiztatutako ondoko adibidea:

alaraka (*alaraka dagoena* “alaraquiento”) < *alaraka* “alaraca”.

⁸⁶⁵ Lehena izan liteke interesgarriena, datu gehiago ditugunez gero: cf. *Saiak pikua ezaun ez* (RG B 25), *Ezaun aragiak bere aragia* (RS 369), *ezagun dezaten* (Ber *Trat* 76v), *ezagun zezan* (Ax 524), *ezagun zezaten* (Mb *IArg* I 393), etab. (denak ap. *OEH*, s.v. *ezagun izan*). Cf., dena dela, *ezagun du* “ya se le conoce” (*EGH* 223, ap. *ibid.*).

⁸⁶⁶ Antzerako batzuk aurkitu ditu F. Altunak (1999: xcii) Agirre Asteasukoarengan ere.

⁸⁶⁷ Villasantek (1981: 88) ez du deus berririk esaten eta Azkarate 1991n ez dago honi buruzko ezer, oso oker ez baldin banago.

Corpus handiagoa miatu beharko litzatekeen arren, ez dut uste, hortaz, '-ka aditzondoa > izena' egiazko aldaketarik dagoenik *HH*-an. Aitzitik, ezer egotekotan, edozein etorkitako -ka bukaera aditzondo gisa berrinterpretatzeko joera dago.

5.2.6. Kasu berezi zenbait

Sailkagaitzago edo bakanago diren zenbait adibide kausitu ditut corpusean:

1) interjekzioa > izena

agur "salutación" (1617) (cf. *agurric bague* "(sin dezir) oxte, ni moxte", *sutumpagurra* "salva de artillería") // "Salve, oración de la Salve".

arren "ruego". Cf. *OEH* (s.v. *arren* 3): "Extendido por influencia de Azkue y, sobre todo, de AG".

2) adizlaguna > izenondoa

anziñena, *anziñagoa* "decano" < *anziña* "antiguamente", gazt. *ancianidad*-en etimologiaren eraginez (§ 6.5); cf. *anciñacoa* "anciano".

antxiti "caudillo", "(hablando de las) danzas bascongadas, el primero que la saca y guía", "guía de danzas, juegos, &c." < *antxiti* (*erenegun antxiti* "ante anteayer", *berdanzat antxiti* "ante antenoche", *azken urren antxitia* "antepenúltimo").⁸⁶⁸

3) 'aditza + aditza' izen elkartua > aditza⁸⁶⁹

arreman "comerciar", "permutar" < *arreman* "comercio", "permuta".

4) aditzondoa > izena

aspaldi "diuturnidad", "siglo, tiempo larguísimo", "tiempo pasado bastantemente largo" (XVII ea. = SP "le longtemps") < *aspaldi* (*aspaldi da* "días ha"). *aspaldian*, etab. leku-kasuetatik erauzia ere izan liteke (ik. *supra* § 5.1.1.e).

5) izenordaina > izena

alkar ("adjetivo, nombre, *besteri dichecán icená*, *besterén ondoren datorrená*, (...) *eta hij[t]z batean esateco*, *elcarrá*, *alcarrá besterenezcoa*") < *alkar* "auna", "(de) consuno". Cf. *OEH*, s.v. *elkar* 2.⁸⁷⁰

5.3. Analogiazko eraketak

Analogia zentzu zahar eta orokor batean har daiteke, Larramendik ezagutu ahal izan zituen euskarazko gauzetatik antzekoak atera zituela nabarmentzeko. Adierarik ahulenean, analogiaz sortuak dira eratorri berri guztiak, jakina; adiera sendoago batean, berriz, elkarte baten bi osagaietatik baten saila nahi edo behar adina zabal zitzakeen: adibidez, euskalki ezberdintasunak gogoan hartuta, demagun, *aizerrota* "molino de viento"-ri *aizabolua* eta *aizigara* erantsi bide

⁸⁶⁸ *antxiti* hitzak azaldu beharra dauka oraindik, eta *OEH*-ak egiten dituen aurkezpen batzuetan okerrak (ik. § 12.3) ez du gehiegi laguntzen. Gerrikoren adibideetatik bakarrik epaituaz ezinbestean leku-atzizkiekin erabiltzen zela, larregi esatea ez ote den nago. Larramendiren adibideen arabera, osterá, badirudi NONDIK kasua dugula: *erenegun antxiti* 'herenegun aurretik', alegia; cf. halaber *antxiti doa* (Aq 470, ap. *OEH*, bigarren adieran jasoa) eta *antxiti* "adelante" (Aq 885, 1. adieran jasoa). Gainera, argi xamar dago formaz ez eze, esanahiaz ere *antxina*-rekin (NORA kasua, noski) lotu beharrekoa dela.

⁸⁶⁹ Honelakoetan egon liteke 'aditza + aditza' motako aditz elkartueterako oinarria *HH*-an (ik. § 3.1.3.d).

⁸⁷⁰ Cf. *EGH* 153: "*alcarra*, adjetivo, compañero, el que se junta a otro".

zizkion, edota Leizarragaren *aize-buhunba* “torbellino”-ri Hegoaldeko itxura handiagoa duen *aize-bunbada*; bestalde, euskararen premiak behartuta, *astailar*, *astamats* edota *astamenda*-k *astabortusai*, *astagarbanzu*, *astaien*, etab. eratzeko eredia eskaini bide zioten, hala nola Leizarragaren *gizeraile* “homicida”-k *anai eraile* “fratricida” eta *aurreraile* “infanticida”; *aizalde* “barlovento” ezagunaren aldean ziurrenik analogikoa baino ez den *aizalbo* aurkitzen dugu; sarrera berean (“abacero”), *arakin* eta *aratepaile*-rekin batera *arraikin* eta *arraiepaile* agertzen dira. Itxura guztien arabera, hau ez da elkarbidera mugatzen: cf. *aitzinerakoan* “en adelante” ezezaguna, dakidalarik, Heg. *aurrerakoan*-en eredura eratu.

Honelako gauzak egin zituela nabarmena iruditzen zait, nahiz eta hitz herrikoiei dagokienez daukagun baino informazio hobea beharko genukeen halakoak noraino zabaltzen diren jakiteko; aurreko literaturari dagokionez, berriz, ahalegintxo bat egingo dut beranduago, dagokion atalean (§ 9.2.8.2).

Ez da orain analogia mota hau zehazki interesatzen zaidana, Larramendirentzat bereiztezinak ziratekeen arren, ezpada egungo zentzuan, hots, inolako arauri jarraiki gabe, halako edo holako lexemaren arabera, edo antzekoak izan arren elkarrekin morfologikoki loturarik ez duten lexema talde baten arabera eta horren arabera bakarrik eraturako hitzei dagokiena (Bauer 1983: 96; Miranda 1994: 126-127, 62. oh.; Camus 1996: 70).

Hiru eratako eraginak bereiz daitezke *HH*-an: (1) sarrera barruko analogiak; (2) hitz jakin batekiko analogiak; eta (3) sail jakin batekiko analogiak:

1) Halako maiztasun batez sarrera bateko hitz bat azaltzeko dagoen bide bakarra, edo biderik errazena behintzat, eraketa normala izan duen sarrerako beste hitz baten arabera egina izatea dugu:

amesari “soñador” = *ameslea*, *ameskoia*, *amesgillea*, *ameskiña*.
arikea “brumamiento” (vs *arika* “cansancio”, “fatiga”) = *nekea* (-a / -ea bikoteetarako, cf. I, § 8.5.2.1).
arkakustxo “pulguilla” = *kukustxo* (cf. *arkakuso* baina *kususa* “pulga”).
arkola “citola de molino” = *zitola* (*ola* “tabla” profitatuaz: cf. *DAut*: “...tablita delgada de madera...”).
arretakabero “bárbaramente, con temeridad” = *oarkabero*.
atsekida “consuelo” = *pozkida* < *pozkidatu* “consolar” (§ 4.1.6).
atzeztun “anillo” < *atz* ~ *erraztun*.⁸⁷¹

Bide honi jarraiki, gainera, forma ulergaitza zuzentzeko oinarria aurki dezakegu:

alkitxoña <-ona> “banqueta, de zapateros y otros oficiales” = *hiruroña*.

2) Bestetan, azalgaitza den hitza denok ezagutzen dugun beste hitz batek azal lezake errazki, bi modutara:

- Osagaietako bat hitz jakin batean daukan itxuran agertzen da, baina hartan eragin zuten arrazoien aztarnarik gabe. Gure corpusean, zehatzago, hitz berria (1) arau zaharra gaizki aplikatuaz sortu da, (2) hitz zahar bat kalkatzen du, morfoen arteko muga gaindituaz (*arrand*-, -*gile*), edo (3) etimologi analisiaren ondorio zuzena da:

⁸⁷¹ Azalpena onartzekotan, Larramendik etimologia zail bat eratu zuela ere onartu beharko genuke: gutxi gorabehera *eri* + *estu* (+ *-dun?*), geroago egin izan diren proposamenetatik ez urruti, eta batzuk baino zentzuzkoagoa (cf. *MDELV*, s.v. *eraztun*).

- (1) *antxarrai* “cabrilla, cabra, pescado” ~ *antxume* “cabritillo” (cf. § 3.2.2).
 (2) *arrandari* “pescadero” ~ *arrandegi* (cf. § 2.2.5.1).
argile “revelador” < *argitu* “revelar” ~ *egile*.
 (3) *arrateme* “rata” ~ *arratoi* (rata-ren etimoa, *arrat* + *oi* ‘ohea’ zatitua; ik. § 6.5).

• Batzuetan analogiak hitz osoa eragin du, berariaz hitz berria eredutzat hartutako hitzaren oihartzun bilakatuaz (gogora ditzagun elkarketako hots jokoak, § 3.2.3.6). Usuenik, honela eraturako hitzek ereduaren silaba kopurua eta ahalik eta masa foniko gehiena gordetzen dituzte; bestela esanda, esanahi berria ematen duen osagaia silaba kopuru berebean eranstekeo beharrezkoa dena kenduta, gainerakoa mantendu da, sarritan paronimia baliatuaz eta morfologi analisiaren gainetik hots antzekotasunak aintzat hartuaz:

aiztari “ventor, perro de caza” < *aize* ~ *eiztari*.
alkargun “compañero” < *alkar* + *lagun* ~ *alargun*.
azkutai “dedal” < *atz* ~ *ezkutai* “embrazadera”.
zokalongoa “recodo” < *zoko* ~ *ukalongoa* “codo”.

Inoiz ereduko hitza osorik gorde da hitz berrian, ixilik bada ere. Bakarka harturik, *akelargi* “capricornio” *akel* + *argi* modura analiza daiteke, *akelar* “donde se juntan las brujas” (EGH 158; § 3.2.1.1) eman duen araua oker ezarri dela eginez. Alabaina, hala izan balitz, *HH*-an zodiakoko zeinuak ‘izena + *izar*’ erako elkartuez (*Ariizarra* “Aries”, *Arriizarra* “Piscis”, etab.) itzulita daudenez gero, **akelizar* itxarongo genuke; badirudi, beraz, analogiak berriz ere morfema muga gaindituta, *akelar* osoak —eransketa txiki bat egite hutsaz— iradoki ziola hiztegiileari ordaina.

Orain artekoaren arabera, *HH*-an hotsek lehentasuna izan dute analogiaren eremuan. Dena dela, ikusi dugu *arratoi*-n etimologiaren bitartez *arrat*- osagai bat bakartu eta emankor bihurtu zuela Larramendik, eta baliteke *HH* osoa aztertuaz goiko adibideetan bakar litezkeen morfoetako batzuk bederen (-*gun* edo -*kutai*, adib.) emankorrak izatea. Morfologi analisi okerraren beste adibide argi bat dugu hurrengoan —gaztelaniaz *de libro* deritzenetakoa—, non Larramendik ulerpenik errazena egin duen aspaldi bestela ulergaitza bide zen forma batean:

alderi “región” ~ *aldiri* (1571) “comarca”.

3) Adibide multzo batean, hitz batez baino gehiago hitz sail batez hitz egin behar dugu:

arbizuko “nabería” (cf. *DAut*: “Conjunto o potage de nabos”) < *arbizu* “nabal” + -*ko* ~ *eltzeko*, *lapikoko*... (tamalez, burura etorri zaizkidanak ez daude *HH*-an; halakoak hor nonbait ibili direla nabarmena da, dena den).
argedaille “retentiva, virtud retentrix” < *argedatu* “retener” ~ *emaile*, etab. (ik. § 2.2.2).
arimegokide (< *arimegokida* < *arimegoki* + -*da*; § 2.1.11): -*kida* ‘iz. abstraktua’ edo ‘ekintza / ondorioa’ vs -*kide* ‘iz. [+gizakia]’ edota ‘izenondoa’ eskemari jarraituz: cf. *agerkida* “comparecencia” / *agerkide* “conspicuo”, *anbatkida* “contribución” / *anbatkide* “contribuyente”, *araukida* “conformidad” / *araukide* “conforme” (ik. § 4.1.6).

5.4. Atzeranzko eratorpena

HH-ko hitz sorkuntzaren deskribapena herren geratuko litzateke atzeranzko eratorpenak daukan paper garrantzitsua aipatu gabe. Orokorki atzeranzko eratorpena⁸⁷² (ing. *back-derivation* edo *back-formation*, gazt. *derivación regresiva*) hiztunek eratorpenaren (baita, ikusiko dugunez, bestelako morfologi prozesuen) arauak atzeraka ezarriz edo —zehatzago, agian— benetako edo ustezko atzizki (zein aurrizki) kenketaren bitartez erdiesten diren hitzen sorbideari deritza. Bestela esanda, hiztunek badakite delako hitz bat eratorpen erregularrekoa bailitzan berranalizatzen, baita oinarria aurretiaz izan ez arren ere (Spencer 1991: 20, 16. oh.).

Ingelesa bezalako hizkuntza batean, non aditzak ez duen atzizki bereizgarririk izaten, ulertzekoa da atzeranzko eratorri gehienak aditzak izatea, kategoria honek besteek baino eratorri mota gehiago baititu inguruan (Bauer 1983: 230). Hona adibide klasiko zenbait:

self-destruct (vs *destroy*) < *self-destruction* (cf. *construct-construction* bikotea).
baby-sit < *baby-sitter*.

Gertakari hauek ongi xamar aztertuak dituen hizkuntza honek frogatzen duenez, atzeranzko eratorpena eratorpenetik kanpo ere gerta daiteke, hiztunek nolabaiteko morfologi marka bat antzeman uste duten bakoitzean, hain zuzen: adibidez, pluralizat hartutako singularrek singular berriak eragin dituzte: *pea* 'ilarra' < *pease* (sing. zenbakaitza), *cherry* 'gerezia' < fr. *cerise*, *alm* 'limosna' < *alms* (sing. eta pl.) (Bauer, *op. cit.* 231).

Gaztelaniaz oso azaleko hurbilketa bat baino ez dut ezagutzen (Miranda 1994: 148): honen arabera, hizkuntza honetan atzeranzko eratorri guztiak-edo aditzetiko izenak dira. Honela eratu dira, adibidez, gazt. *pelea* (< *pelear*), *arranque* (< *arrancar*), *agobio* (< *agobiar*) edo *bombardeo* (< *bombardear*). Haatik, ziur da ustezko txikigarriak eragin bera izan duela zenbait kasutan: *monago* < *monaguillo*, *pobo* < *populus* (*alamo*), *romero* < **romerino* < *ros marinus* (Menéndez Pidal 1980: 227).

Latin arruntean, hizkuntza erromantzeetako ondorioetan eragina izateko moduan edo erromantzeen hasieran hainbat adibide kausitu dira (Väänänen 1967: 152); sarrienik aditzetik atzerantz eratorritako izenak dira (*lucta* < *luctari*, *dolus* < *dolere*, *rogus* < *rogare*), baina badira era berean erdietsitako izenondoak (*anhelus* < *anhelari*, *inclinus* < *inclinare*), txikigarriaren kenketaz eratutako forma berriak (*auca* < *aucella*, *avicella*, *avis*-en txikigarria; *retina* < *retinaculum* < *retinere*).

Euskaraz atzizkien bitartez oinarri ezberdineko izenondoak, aditzak zein aditzondoak sor daitezke, (1) adibidean ikus daitekeen bezala:

- (1) a. alfer (izond.) + -tasun > alfertasun (iz.)
ama (iz.) + -tasun > amatasun (iz.)
b. negar (iz.) + -ti > negarti (izond.)

⁸⁷² "Eratorpena" deituko diot, izana argi edukiez gero izena gutxienekoa delakoan, hau aski erosoia baita eta ez baitirudi euskaraz eratorbidez kanpoko gertakaririk dagoenik. Dena dela, eztabaidarako ik. Bauer 1983: 230-231, *back-formation* izenaren alde.

gal(du) (adoin.) + -kor > galkor (izond.)

c. alfer (izond.) + -ki > alferki (adond.)
harri (iz.) + -ka > harrika (adond.)

Oinarriak, aditzondo zenbaitek eskaintzen dituzten salbuespen bakanak —denak *maiztasun* (EH 1918) bezain berriak, dakidalarik— alde batera utzita, hiru baino ez dira izan ohi euskaraz: izena, izenondoa eta aditza. Alabaina, aditza bera —hobeto esanda, aditzaren hiru formatatik bi— eratorria izaten da euskaraz edo, oinarria ezagugaitza denean, atzizki ezagun bezain antzemanerrazak izaten ditu, gutxienez. Honegatik edo, euskaraz izan daitezkeen oinarrien artean, zehatzago mintzatuaz, aditzoina bakarrik sar dezakegu,⁸⁷³ atzizki adizgilea (-*tu* gehienetan, baina baita *fase sparita*-n dauden -*i* eta -*n* ere) kenduaz, hain zuzen, (2)-n bezala:

- (2) a. asmatu + -tzaile > asmatzaile
asmatu + -kizun > asmakizun
b. hezi + -le > hezle
hezi + -kizun > hezkizun
c. erantzun + -le > erantzule
erantzun + -kizun > erantzukizun

-*i* eta -*n* bukaeradun partizipioek, diakronikoki zaharragoak eta histori garaian gutxi eta gaizki ezagunak, salbuespen ugari eskaitzen dituzte, dela aditzoin eta partizipioaren funtzioak berdindu diren hizkeretan -*i* galtzen ez delako (3a), dela -*i* kendu ezina delako (3b), edo dela -*n* desagertu baiezean dagoelako, itxuraz berrikuntza baten bidez (3c):

- (3) a. hazi + -le/-tzaile > hazle, hazitzaile
hezi + -keta > heziketa, *hezketa
b. ebaki + -tzaile > ebakitzaile, *ebaktzaile
iduri + -kor > idurikor, *idurkor
c. egin + -kizun > egikizun, eginkizun
eman + -kor > emankor, *emakor

Partizipio marka zaharrak oraingoz alde batera utzita, hobekixe ezagutzen ditugun -*tu* partizipiodun aditzen azterketa saio bati ekin diezaiokegu, zein baldintzatan sortzen diren eta honek gure garaiarekin zein lotura duen agertzeko.

-*tu* partizipioa (< lat. -ATUM...) historikoki oso emankor suertatu da euskaraz, ia beste edozein kategoria oinarri gisa onartuaz, baina ziurrenik lehen eta nagusiki izen-izenondoak:

- (4) kezka (iz.) + -tu > kezkatu (EH 1760)
alfer (izond.) + -tu > alfertu (EH 1571)
maiz (adond.) + -tu > maiztu (EH XVII ea.)

Partizipio marka honexekin irentsi dira hamaika mailegu berri, bai euskararen barruan 'oinarria + -tu' berranaliza daitezkeenetatik (5a), baita halako analisisirik ezinezkoa dutenetatik ere (5b):

- (5) a. armatu (EH 1545) arma (EH 1545) + -tu
burlatu (EH 1545) burla (EH 1562) + -tu

⁸⁷³ Hizkera berritzaile zenbaitetan partizipioa erabiltzen ari dela esan beharra badago ere (ik. § 2.2.5.2.f).

b. partitu (EH 1545) *parti + -tu
analizatu (EH 1905) *analiza + -tu

Euskal jatorriko hitzak zein maileguak izan, Mitxelenak (1972: 337-340 eta 1977a: 318) jadanik iragarri zuen zenbait izen ziurrenik horrelako berranalisien (atzeranzko eratorpenaren) bidez sortuak direla. Zehazkiago, halako etorkia proposatu zuen *aipu* (< *aipatu* < *aitatu* < *aita*) eta *amai* (< *amaitu* < (*h*)*amabitu* < (*h*)*amabi*) hitzetarako. Zerrenda, batez ere maileguen kasuan, nahikotxo luza daitekeela dirudi, *asmo-asmu* / *asmatu* (Echenique 1997: 205), *argudio* / *argudiatu*, *espero* / *esperatu*, *eskapu* / *eskapatu*, *estim* / *estimatu*, *fio* / *fiatu* eta *ordenu* / *ordenatu* bezalako bikoteak aintzat harturik. Maileguek, dena dela, euskal hitzek ez bezalako ziurtasunaz aritzea zilegi egiten dute, bai baitakigu aditzaren aldamenean erdaretan dagoen izena zein den, nahiz batzuetarako Pirinioetako erromantzeak ezagutzea ezinbestekoa izan (cf. *arbuio* / *arbuiatu* edo *garraio* / *garraiatu*).

Edonola ere, aipatutako adibideek erakusten digute euskaraz gertatutako atzeranzko eratorpena hobeto ezagutzeko, nahitaez aipatu behar direla antzina eratorpenean oro har (baita hitz-elkarketan ere gutxienez) bizirik zeuden zenbait arau morfofonetiko, guztiz oinarriaren azken bokalean eragina zutenak:

- (6) o > a joko > jokatu
 e > a lore > loratu
 u > a ezkutu > ezkutatu

Arauok, beraz, irauliak izan daitezke, gure adibideen arabera batez ere -o / -u bukaerei dagokienez:⁸⁷⁴

- (7) -atu > -o arbuiatu > arbuio
 -atu > -u aipatu > aipu

Atzeranzko eratorpenak hitz berriak eragiten baditu ere, hiztunen gaitasuna oso era berezian agertzen zaigu bertan, “legez kanpoko” era batean, nolabait esateko, eta honegatik ziur naiz inork ez lukeela *a priori* sartuko hitzberrigile baten baliabideen zerrendan. Halaz ere, adibideek ez dute zalantzarik: Larramendik, lexiko berrikuntzan ari, ez bakarrik hitz bakunetatik elkartu-eratoriak, baita hitz konplexuetatik bakunak ere sortu zituen, atzeranzko eratorpena eginez.

Jadanik *Erans*-ean (II, § 3.2.7.1) somatu dugu iturrietako hitz atzizkidunetatik oinarriak ateratzeko joera handia zuela, aditzetatik izen-izenondoak batik bat (*croscatu* “mellar”-tik *crosc* “mella”, *arbindu* “estrechar”-tik *arbina* “estrecho”), baina baita bestelakoak ere (*isçegozcoa* “caballero”-tik *itzagoz* [sic] “a caballo”, *parcelaca*-tik *parcela*). Kontua, *Erans* oso ondo azterturik bazegoen ere, ia oharkabean igaro da, ez bakarrik iturrien arakatze osoa egin gabe zegoelako, baizik eta intuitiboki ondorioak hain nabarmenak bide direlako, non ez baitzegokeen zalantzapean ezartzerik. Jadanik azpimarratu dudana bezala, *Erans*-eko dena “benetakoa” zelako aurreiritzia nagusi zebilen. Alabaina, halako guztiak Larramendiren inferentziak izanik, ez

⁸⁷⁴ -e bukaeraren berrezarketaren adibide ziurrik ez dugu, baina baliteke *eske* halakoa izatea, baldin *eskatu esku*-tik etorriko balitz, *eskaini* bezala (Mitxelena 1977a: 69).

bereak izateagatik, inferentziak izateagatik baizik, kritika-lana jaso beharrean daude: *axolduri* (1635) eta *kroska* (O-SP, ik. *OEH*, s.v. 1 *kroska*)⁸⁷⁵ bezalakoek erraz gainditzen dute iragazkia, lehenago lekukotuta baitaude. *maskur* “gafo de manos” (*Erans* 288), ostera, zalantzazkoa baino gehiago dela esan behar dugu: hurrengo lekukotasuna (Azkueren hiztegia, *EH*-aren arabera) ‘azalaren loditzeagatik eskuetan egiten den gogorgunea’ da; cf. hiztegiak berak etorki ezberdinetatik bildu zituen *maskor*, *maxkur* “concha” eta *maskuri*, *maxkuru*, *maskuillu*, *mazkulu*, *mazkuri*, *mazkurio*... ‘baba, pusla’ aldaerak. Hau jakinez gero, Larramendik *maskurtu* “(hacerse) gafo”-ren (*Erans* 289) iturri gisa erabili zuen Axularren pasartera bihurturik, Azkueren ulerkeraren bermea aurkitzen dugu: *eskuak maskurtzen, ikhorzirinak egiten*... (*GGero* 90). Beraz, Larramendik kasu honetan oker hautatu zuen, nahiz zeharo ulertzekoa izan: aditzetik atera zuenez gero, %50eko posibilitatea zuen oinarria izen edo izenondo izatea.

Han bertan, bestalde, atzizki bat ikusi uste izanak hitzaren forman edota esanahian zenbait oker eragin zizkiola azpimarratu dut (II, § 1.2.7.3), baita honetan oinarri harturik, hiztegiak testuetatik erdietsitako hitzak morfologikoki analizatzen saiatzen zela, eta analisi horren lehen urratsetakoa atzizkiak identifikatzea izan bide zela iradoki ere. Batera zein bestera, axola gutxiko kontua zen horrela lortutako hitzak euskara bizian ziren ala ez jakitea, hizkuntzaren analisiak —goragoko instantzia batek, beraz— eskainitakoak zirenez gero: berreraiketak, orain esango genukeenez.

Analisiaren ondorenak badaezpadakoak diren neurrian, *de facto* Larramendi atzeranzko eratorpena egiten ari zela aldeztuko dut, honetarako deitura honen ohiko mugak zertxobait gainditu beharko baditut ere. Bi gertakari mota somatu ditut: 1) erator zein deklinabide atzizkiak kenduaz erdietsitako hitzak eskaintzen dituen atzeranzko eratorpena; eta 2) erator-oinarriak eta elkartuetarako osagaiak eskaintzen dituenak.

5.4.1. Atzeranzko eratorpena eratorbide eta deklinabidean

HH-ak *Erans*-ekoak bezalako adibide gehiago eskainiko dizkigu iturri idatzien atalean, baina hemen are nabarmenagoak diren zenbait gertakari aztertu nahi nituzke, benetan eta zalantzarik gabe hitz berri-berriak dakartzan atzeranzko eratorbidekoak.

a) Sarrienik, atzeranzko eratorpenaren bidez Larramendik aditzondoko izenak lortzen ditu, aditzoina den bezalaxe erauziaz; ugarienak *-atu* partizipioetatik *-a* amaieradun izenak ditugu, eta aurretiaz *e*, *o*, *u* bukaeradun izenak —ia beti berak ongi ezagutzen dituenak— aldamenen egoteak ez dio ezertan eragozten:

⁸⁷⁵ *OEH*-ak Landucci ere iturrien artean aipatzen du, honek *kroskatu* “mellar” bakarrik dakarren arren, dakigunez.

ahalka “vergüenza” (< *ahalkatu*, vs *ahalke* ‘id.’), *akota* “mordedura” (< *akotatu*),⁸⁷⁶ *akuila* “incitamiento” (< *akuilatu*, vs *akuilo* “aguijada”), *alda* “lado” (< *aldata*, vs *alde* ‘id.’), *alokaira* “alquiler” (< *alokairatu*, vs *alokairu* ‘id.’), *anpara* “amparo” (< *anparatu*, vs *anparo* ‘id.’), *arbuia* “reprobación” (< *arbuiatu*, vs *arbuio* 1636, *HH*-an ez jasoa), *arika* “cansancio” (< *arikatu*), *arraka* “raja, hendedura” (< *arrakatu*), *arrapa* “arrebatiña” (< *arrapatu*), *arrasa* “estrago” (< *arrasatu*), *artzara* “veda” (< *hartzaratu*, vs *hartzaru* “prohibición”), *asalda* “alboroto” (< *asaldatu*), *aurkara* “oposición” (< *aurkaratu*).

Hauen nabarmentasuna, Larramendik *-tu* aditzen formazio araua atzerantz ezartzerakoan egiten duen arau morfofonetikoaren sinplifikazioan datza, hain zuzen. Hau ikusita, *ahalke*, *akuilo* edo *alokairu* bezalako izenen eraketaz zer uste zuen jakitea ez da lanbide erraza, baina alderantzizkoa bederen ziurtzat eman dezakegu: bere ustetan *-a* forma hauek dira aditzaren benetako oinarriak; hara *alde*-ren familiaz, *alda* oinarriaren alde, dioena:

Alda, es voz puramente Bascongada, y significa *lado*, y se forman *aldata*, *aldapa*, *aldamena*, &c. (1745, s.v.).

Honela sortu da, halaber, *-kida* atzizki berria, *-kidatu* aditzetik erauzia, dakigunez (§ 2.1.2).

Nolanahi ere, honela eratutako izenak —beste era bateko izenen aldean agertzen direnak (*ahalka*, *alda*) izan ezik—, denak ‘ekintza / ondorioa’ adierakoak dira, eta hau ere Larramendiren berrikuntza da erabat. Berezitasun honek, besteak beste, bide ematen digu bestelakoetan prozedura bera erabili dela antzemateko. Argienak kontsonante bukaeradun aditzoinak dira, corpusean bakanak badira ere; ohartu bereziki txistukariaren esperoezineko bilakaerari:

andiken “escorzado, en la pintura” (iz.) (< *andikendu* “escorzar”), *astin* “sacudimiento” (< *astindu*), *autes* “elección” (< *autetsi*).

Baliteke bokal bukaeradun kasu gehiago egotea, baina hots-aldaketarik eragiten ez dutenez, antzemangaitz suertatzen dira. Hiru adibide ziur bakarrik eskain ditzaket oraingoz, dela hizkuntzaz, dela Larramendiren sistemaz dakigunak bermatuak:

adi “intelección” < *aditu* “entender”.
argige “eclipse” < *argigetu* “eclipsar” (azalpenerako, ik. § 5.1.1).
azkenduki “retoque” < *azkendukitu* “retocar”.

b) *-atu* partizipioen ondorenak ez bide dira denak tiau berekoak; aitzitik, zenbaitetan badirudi izena aditzoinaren azken bokala aldatuaz eraturia izan dela:

adorgo “enfado” (< *adorgatu* “enfadar”), *amatigo* “serenidad, sosiego” (< *amatigatu* (1571) “apaciguar”, “serenado el mar tempestuoso”), *asidore* “concepción” (< *asidoro* “concebir”).

Tamalez, adibideak ez dira erabat ziurrak, edo ez denak behintzat: (1) *asidore* eta *asidoro*, biak Larramendik egindakoak dira, dudarik gabe, eta haien erlazioaren norabidea ezinbestean aditzetik izenera doa, bigarren osagaian *idoro* baitauka (§ 3.1.3.d). (2) *amatigatu* (1571) mailegu gardenaren izena (cf. bearn. *amatigà*, ap. *MDELV*, s.v.) berez atzerantzko eratorria da, lehenago ikusi ditugun *garraio* eta *arbuio*-ren tankerakoa. Familia Iparraldekoa denez gero, ez da ezinezkoa Larramendik ezagutzen ez dugun iturriren batean aurkitu izana; dena dela, bestelako lekukotasunik ez egonik —*OEH*-ak, s.v., zuhurki azpimarratu bezala—

⁸⁷⁶ <akotatu>ren irakurketa txarretik datorren iratxo honen etorkiaz ik. § 9.2.4.2.

erakargarri izan daiteke Larramendiri egozte, honek ustezko -go atzizkia berreraiki zuela eginaz. Zalantza uxatzeko biderik onena, honelako bikote gehiago aurkitzea izango litzateke, noski, baina *adorgo* / *adorgatu*-n, ez aditza, ez izena nondik datozen edo nola egin diren asmatu ahal izan dut. Aipatu beharrekoa da, halaber, *aburikatu* / *aburiko* bikotea, bietatik bestetan lekukotutako forma bakarra aditza baita (§ 12.2.9).

Zalantzazko forma bilduma hau bermatzeko laguntza, elkarketan somatu ditugun gertakari zenbait ekar ditzakegu; aurreraxeago (§ 5.4.2) bigarren osagaien aditzoina daramaten elkartuez arituko gara, baina honako atal honi zuzenean dagozkio 'x + aditza' elkartuetatik atzerantz eratorriaz ohiko izenkiaren forma berreskuratu dutenak (cf. § 3.2.3.7.2): *arpilo* (< *arpilatu*), *askito* (< *askitatu*).

c) -ztu aditzak egiten jakin zuenez gero (§ 2.1.18), ez gaitu harrituko -ztu bukaerako aditzetik, partizipio eta (ustezko) instrumental markak kenduaz, izena atera izanak:

adre "regla" < *adreztu* "arreglar", "reglar", dudarik gabe *adrezatu*-rekin (OEH 1715, EH 1733)⁸⁷⁷ lotu beharrekoa (xehetasun gehiagotarako, ik. § 6.5).

d) Aditza ez da, ostera, atzeranzko eratorpenaren eremu bakarra: histori garaian adizlagun gisa bakarrik ibili ohi diren hitzetatik ere izenak atera ohi ditu:

agerri "publicidad, lugar descubierto, frecuentado", "descampado" (< *agerrian* "descubiertamente", "públicamente").

agi "apariencia", "assimilación", "hechura, forma, figura", "semblante, apariencia exterior de el rostro" (< *agian*).

agiri "publicidad, lugar descubierto, frecuentado" (< *agirian* "públicamente").

aresti "rato de tiempo", "tiempo que pasó poco ha, poco antes" (< *arestian*).

arte "derechura", "rectitud, derechura", "rectitud, justicia" (< *artez*; xehetasunetarako, ik. § 6.3.1.1).

aspaldi "diuturnidad", "siglo, tiempo larguísimo", "tiempo pasado bastantemente largo" (< *aspaldian*, etab.).

aurka "cara, frontispicio, frente de una cosa", "delantera", "frente, fachada" (< *aurka* posposizioa, Leizarragak beti leku-kasuetan erabilia, cf. Elizalde (94) *aurcas* ere).

Hauxe da, hain zuzen, berritasunaren seinalerik argiena: ez zuen izena besterik atera, partizipioa (*agerri*) edo litezkeen atzizkiak (*aspaldi*, *aresti* edo *aurka*-n)⁸⁷⁸ ikusi ahal edo nahi gabez.

e) Beste horrenbeste egiten du -ka aditzondo itxuran bakarrik edo ia bakarrik ezagutzen diren hitzekin:

agira "baladronada" < *agirakatu* "baladronear"; cf. *agira egin* "reprender" (1656).

audia "altivez", "vanagloria", "vanidad, soberbia" < *audiaka* (1596) "altivamente", "vanagloriosamente".

Eta bestelako atzizkidunekin ere, inoiz ulerpen oker nabarmenak eginez:

adia "endecha(s)", "llanto sobre muertos", "plañido, lamento" < *adiagile* (c. 1620, Isasti) "plañidera".

**apaldiz* "maldición" < *apaldizkari* "maldiciente", dudarik gabe *ahapaldi*-ren eratorria (§ 12.2.10.1).

asti "espacio, lentitud, flema", "lentitud" < *astiro* "despacio", "lentamente".

⁸⁷⁷ Egiatan, biek alde batera utzi dute hitzaren historiarako (baita, *agian*, *HH*-koa azaltzeko ere) garrantzitsuena den lekukotasuna: *adreachadu* "aparar" Landuccirengan agertzen da (1562), orain Mtz. de Madina 1998n erraz egiazta daitekeenez.

⁸⁷⁸ Bide batez, ez dut asebetetzeko moduko azalpenik aurkitu *MDEL*-n hiru hitz hauetarako.

f) Emankor suertatu zen beste eredu bat, atzizkia-edo kenduaz atzizki itxurako bukaera bat erdiestea izan zen:

- Izenlagunetik, *-ko* erantziatz, *-te* / *-ta* eta *-era* bukaerak:

ainbate "equivalencia", "identidad" (< *ainbateko* "equivalente", "idéntico").
aldebita "problema" (< *aldebitako* "problemático").
arautzera "óvalo" (< *arautzerako* "oval, ovalado").

- (*ja*)*kinde* hainbat elkarturen bigarren osagaiari *-de* izen marka kenduaz, *-kin* 'egilea' adierako izena:

araujakin "jurisconsulto, jurisperito" (< *araujakinde* "jurisprudencia"), *artisjakin* "lapidario" (< *artiskinde* "lapidaria"),⁸⁷⁹ *artizkin* "orthógrapho" (< *artizkinde* "ortografía").

- Aditz arazletik, *-zi* edo *-zo* kenduaz, *-era* bukaerako izena:

adiera "alusión" (< *adierazo* edo *adierazi* "aludir"). Badago beste *adiera* bat, "entendimiento" itzultzeko eskainia, dudarik gabe *aditu* "entender"-tik zuzenean lortua.

- Hurrengo familiaren azalbidea berbera izan liteke, zeren alderantzizko bidea suposatuz gero (*-ta* > *-tar*) corpus osoko [+gizakia] tasundun *-ta* atzizkiaren adibide bakarra zuritu beharko baikenuke (§ 2.1.11), besteak beste:

aiturita "patricio" < *aituritar* "patricio, lo que pertenece a los patricios" (< *aita* + *uritar*).

- Halaber, antzekoa izango litzateke ondokoa, non aditza *sui generis* egin ondoren, honen formak *-te* atzizkia azalerazteko aukera ematen dion:

anbate "cantidad", "cuenta" < *anbatetu* "contar" < *anbat* "tanto" (cf. *anbatEko*...).

- Zailxeagoak dira azaltzen *atseden* "respirar"-en familian agertzen diren formak, ongi lekukotutako bakarra berau dela kontuan izanik; gaztelaniazko hitz familiei begira, honelako erlazioak ezar daitezke:

atseden "respirar" > *atsede* "respiración".
atseden "inspirar, soplar" > *atseda* "inspiración, soplo".
atseden "descansar" (1596) > *atsedago* "descanso".
atsedatu "ababar" < ?

Denak azaltzeko, *atseden*-tik *atsede* / *atseda* oinarri bat atera zuela egin behar dugu (betiko *-e* / *-a* bukaerako zalantzaz, *-de* / *-da* atzizkiekin ere lotu beharrekoa kasu honetan),⁸⁸⁰ eta oinarri horretatik abiatuz sortuak direla *atsedago* eta *atsedatu*. Politena, inondik ere, *atsedatu* zailtasunik gabe *ats* + *hedatu* elkartu gisa berranalizatu ahal izatea da (§ 3.1.3), familiaren esanahi ezkutua berreskuraturik.

- Honelatsuko familia bat osatu du *azaldu* aditzak ere; forma zenbait (*azalde*, *azaldari*...) berez osa bazitezkeen ere, denak batera azaltzeko **azalda* oinarria eman behar dugu; beste

⁸⁷⁹ Ohartu honetan, oharkabeen edo, *-kinde* / *-jakin* dagoela.

⁸⁸⁰ Esan gabe doa hau egiaztatzea oso garrantzizkoa izango litzatekeela, *-n* partizipio marka ere bakartzen jakin zuela adieraziko bailuke.

abantaila batzuen artean, azalpen honek *azaldaile* eta *azaldera* hitzen atzizki forma ezohikoak ere, hein batean bederen, argitu ahal izatea da.⁸⁸¹

azaldagarri “declaratorio”, *azaldaile* “declarador”, *azalde* “declaración” < *azaldu* “declarar”.
azaldagarri “interpretativo” < *azaldu* “interpretar”.
azaldago “comentario”, *azaldari* “comentador” < *azaldu* “comentar”.
azaldera “explicaderas” < *azaldu* “explicar”.

5.4.2. Atzeranzko eratorpena hitz berrien osagaietan

Azkeneko adibideetan ikusi ahal izan dugu batzuetan eratorpen edo elkarketa gertakariak baino lehenago atzeranzko eratorpen urrats bat eman behar dugula. Honela azal daitezkeen adibideak ugari aurkitu ditugu gai bi horiei buruzko ataletan, erator-atzizkia, deklinabide atzizkia edo azken silaba homonimo bat —batzuetan haplogia ere tartean egon zitekeela— kendu izan dela esan dugun bakoitzean. Denak bilduta, batera miazteko unea iritsi da.

Maizenik benetako zein ustezko atzizkiaren edo atzizkitzakoaren ezabaketaren ondorioz eratorriaren oinarrian edo elkartuaren osagaietako batean item lexiko berezi bat agertzen da, sarritan ezezaguna edo ezagugaitza bederen; ohargarria da hauetako batzuk elkarren artean zuzenean loturik ez dauden hitzetan berragertzea.

Deklinabideko adibideak gutxi dira, baina aski argiak, batez ere instrumentalari dagozkionak, hitz batean baino gehiagotan berretsiak:

anzaera (*anza-* < *anzatu* < *anza*). *artizkinde*, *artuste* (*art-* < *artez*). *autzaio* (*autza-* < *autzaz*).
auzparri, *auzpetu* (*auzp(e)-* < *auzpez*).

NON eta NONDIK kasuen bilakabidea ondoko hitzetan antzeman daiteke:

NON: *anbasal* (*anba-* < *anbategi*), *ondartetu* (*ond-* < *ondoan*).
NONDIK: *andiraitzi* (*and(i)-* < *andik*), *-titu* (< *-tik* + *-tu*; § 4.1.11), *lend-* < *lendarik* (§ 4.1.21).

Erator-atzizkietan adibideak askoz gehiago dira:

-DE / -TE: *adiskiunde*, *adiskiura* (*adiski-* < *adiskide*), *ainbatar* (*ainba(t)-* < *ainbate*), *altisoi* (*altis-* < *altiste*), *anbakintza*, *anbategi* (*anba(t)-* < *anbate*), *antustari*, *antusti* (*antus(t)-* < *antuste*), *antzesandar* (*antzesan-* < *antzesande*), *artizkinde* (*artis-* < *artiste*), *artizkindar* (*artiz-* < *artizkinde*), *artzonti* (*artzon-* < *artzonte*), *askijakindar* (*askijakin-* < *askijakinde*).⁸⁸²
-ERA: *aukez* (*auk-* < *aukera* + *ez*).
-GIN: *atsekida* (*atse-* < *atsegin*).
-KA: *agikur* < (*kur-* < *kurrika*).
-KI: *adiragarri* (*adira-* < *adirakitu*).
-KO: *aitapontekida* (*aitaponte-* < *aitaponteko*), *arartekide* (*ararte-* < *ararteko*).
-TSU: *andeza* (< *andi-* < *anditsu*).
-TU / -DU: *adimentar* (*adimen-* < *adimentu*), *arguimendari*, *arguimende* (< *arguimen-* < *arguimendu*).
-TZA: *auziabartari*, *auziabartzale* (*auziabar-* < *auziabartza*).

⁸⁸¹ Zatikazko azalpenak eman izan ditut lehenago: ik. §§ 2.2.2 eta 2.2.4.5.

⁸⁸² Gogora dezadan interpretapen bera proposa daitekeela lehen begiratuan *-te* + *-ari* azalpena eman dakiekeen hitzetarako (§ 2.2.5.4).

Aipamen berezia merezi dute aditzek, zeren eta dagoeneko bai baitakigu aditzetik atzerantz eratorritako izenak ugari daudela *HH*-an. Bi gertakariak lotzen baditugu, eta alde guztietatik badirudi halaxe egin beharra dugula, 'x + aditzoina' ezohiko elkartuak (§§ 3.1.1.7 eta 3.2.3.7.2), besteak beste, gaizki ulertu eta sailkatu ditugula aitortu behar dugu, egiatan bigarren osagaien taidu bereko aditzondoko izenkiak baitaramatzate. Gauzak honela, gogora dezagun ezen, honelaxe eraturako izen bakunetan bezala (§ 5.4.1), sarritan izena *-tu* ezabatze hutsaz erdiesten dela:

abrasma, *apaindasma* (< *asmatu*), *aiertopa* (< *topatu*), *ainalda* (< *aldatu*), *akirin* (< *irindu*), *anbasal* (< *saldu*), *aotoles* (< *tolestu*), *asuki* (< *ukitu*), *atzengeldi* (< *gelditu*).

nahiz gutxi batzuetan *e > a* edo *o > a* arauak atzerantz ezarri diren:

aderna (< *erne*), *agintopo* (< *topatu*).

Halaz ere, baten batean Larramendik bukaera analogikoa eratu du, izen atzizkidunak bailiran, dela erroaren zati bat, edo dela *-tu* bera hartarako egokituaz:

alediste (< *distiatu*), *alorta* (< *sortu*), *arnasta* (< *nastu*), *artiste* (< *tistiatu*).

-tu gabeko aditzetan, aldiz, partizipioak berak izenki gisa balio du, jadanik ezagutzen dugun 'partizipioa > izen' kategorian bezala (§ 5.2.3).⁸⁸³

antagiri (< *agiri*), *apainanzi* (< *jantzi*), *argusi*, *arkusi* (< *ikus*), *arutzi* (< *utzi*), *autsasi* (< *asi*), *autzaio* (< *jo*).

Terra incognita-n halako bidexkak urratu eta gero, honelatsu azal ditzakegun hitzak nahikoa ugaltzen dira. Batzuetan, familia bereko hitzak elkarren artean lotzeko ezinbestean 'atzerantzko eratorpena + eratorpena' prozesua gertatu dela egin behar dugu, oinarri berezia nondik sortu den ulertzeko; inoiz (cf. *amorraxka*) lekukotugabeko forma markatzen duen izarra jarri beharrik ere ez dugu:

amandu "acabar" < *amanda* "acabamiento", "fin" < *aman* (?) + *-da* (*amanda*-ren etorkiaz, ik. § 9.2.4.5).

amorraxka "rabieta" < *amorra* (cf. *mazamorra*-ren etim.: "de az-amorra, y significa berza rabiosa o que haze rabiar") < *amorratu* "rabiari".

ankestalde (*anquestaldea ezarri* "engualdrapar") < **ankestali* < *ankestalki* "gualdrapa" < *anka* + *estalki*.

antulaska "baladronada" < **antula* + *-ska* < *antulari* "baladrón"; eta gero *antulastu* "baladronear" < **antulas* < *antulaska*.

arrakotxo "rajadillo": hitza ez da erabat argia, agian *arrakotxo*-ren ordezkotik hutsa izan daiteke; dena dela, *arraka* "raja" eta *arrakatu* "rajar"-en familiakoa: edo bestela *arrakatu*-tik erauzitako **arrako* oinarritik + *-txo*.

Inoiz kendutako zatiak ez du gure begietan zehazki atzizki itxurarik, baina susma dezakegu Larramendik halako zerbait aditu zuela (*egin*-en erroarekin lotuaz? cf. *atsekida* < *atsegin* gorago): *arpeko* "manifiesto" < *arpegi* + *-ko*.

⁸⁸³ Ohartu gehienak egiatan *-i* markadun partizipioak direla: ziurrenik honek ez du esan nahi markatzat ezagutu ez zuenik (badakigu eta aditzoina ondo erdietsi ohi zuela; ik. § 2.2.5.2), bokal bukaerak hobesten zituela baizik.

Bakartuta egon arren, oso adibide interesgarria da. Orain artean batez ere atzizkiekin lotutako kasuak aurkeztu ditut, ezaguterrazena —baita itxuraz ugariena— diruditelako. Alabaina, *HH*-ko hitz batzuk ongi azaltzeko beharrezko diren atzeranzko eratorpen fenomenoak, atzizki kentzea baino haratago doazke, eta sarritan atzeranzko eratorriaren jatorri zuzena asmatzea ezinezkoa da. Halaz ere, badirudi garrantzirik ere ez daukala, jatorrian familia osoa baitagoke, eta esango nuke Larramendik familiaren azken erroraino iritsi dela, gainerako forma guztiak azaltzen dituen hartara. Bestela esanda, halako hitzetan agerian daude, ziurrenik, Larramendik somatu baina sekula agerian jarri ez zituen euskal hitz zenbaiten etimologiak:

adiraki “nota, marca, señal” < **adira* ~ *adieragin*, *adierazo*.... “denotar”, etab. (ik. § 2.1.7).
adipaki “preciso, por el entendimiento” < *adi* ~ *aditza*, *adimentua*, *adiera*, *adikiña*, *adiaira* “entendimiento”; cf. *adi* “intelección”.
aitizki “patronymico” < *aita* + *-iz-* + *-ki*, non *-iz-* formaz *hitz*-etik etor litekeen, baina esanahiz *izen*-etik etorri behar duen; orduan baliteke *izen* < *hitz* etimologia azpian egotea. Honen berrespen bat izan genezake, *hitz* > *iz-*i dagokionez, *apaldiz* “maldición”-en (§ 5.4.1), ausaz Larramendik ‘x + *hitz*’ berranalizatua.
argimotairu “morterete de certa” < *argi* < *argizagi*, *argikai* “cera”.
mitaitzina “prólogo” < *mi* “lengua” < *mintza*, *mintzoa* “palabra”; cf. *hitzaurrea* “prólogo” < *hitz*.

5.5. Ondorioak

Tesian ateak irekita geratu den atalik baldin bada, hauxe da nabariena: bildutako ikersailen ñabarrak, aurrelanen urriak eta inoiz Larramendiren berrikuntzek eurek ezinbestean maiz azalean atxiki naute. Dena dela, *HH*-ko gertakariak aitzakia eder suertatu dira zenbait arlotan ildo mehar batzuk behinik behin egiteko.

Hizkuntzaren aberaspide goxoenetako, baina baita ixilenetako bat hizpide izan dugu: esanahiak ugaltzea (§ 5.1). Datazioen eta bestelako lekukotasunen bitartez antzeman ahal izan dugu sarritan Larramendik hizkuntzan bizirik zegoen polisemia jaso zuela, baina honekin batera bere aldetik esanahi berriak erantsi ere erantsi zizkiela euskal hitzei. Azterketa oraino azalekoa izan arren, badirudi garrantzi gehien izan zuten norabideak hiru izan zirela: gaztelaniazko mailegu semantikoak, antzekotasun erlazioak eta oinarriaren esanahi ezberdinetatik sortutakoak.

Lehenengo bideari ekitea espero izatekoa zen, ziurrenik hiztegi elebiduna baita ezarian ezarian halakoak barneratzeko lekurik egokiena. Halaz ere, azpimarratzekoa da mailegu semantikoak —nabari-nabariak behinik behin— gutxitxo direla corpusean, hiztegiilea errazkerian nekez erori zelako seinale.

Beste bi baliabideak norberaren hizkuntzaren barrukoak direnez gero, hiztegiileen jakinaren gaineko partehartze handiagoa eskatzen dute eta honegatik interesgarriagoak ere izan daitezke. Antzekotasun erlazioei dagokienez, bakartu ditudan adibideetatik asko Larramendiren hitzak izatea azpimarratuko nuke, *HH*-ko neologismoak ez arbitrarioak, ez eta jostailuzkoak ere direla berresten baitu, besteak beste. Oinarriaren esanahi ezberdinetatik sortutakoak, berriz, Larramendik egindako euskal hitzen berranalisi sistematikoaren ondorioetako bat baino ez dira: *agindu*-k “mandar” eta “ofrecer” esanahiak biltzen baditu,

orduan ezinbestean *agintari* ez da “xefe” bakarrik —tradizioak halaxe badio ere—, “ofrecedor” ere baizik.

Maila honetan, dena dela, lan handia dago oraindik: euskal ordainak sarreraz sarrera nola igaro diren, eta hartan esanahi lerradurarik egon den xehekiago miatu beharko da; baita, halaber, lexikalizatutako hitzen kontrako jokabideak bakan ala sistematikoak diren ere.

Gramatika-kategoria aldaketak direla eta (§ 5.2), euskaraz izan litezkeen zenbait aurkeztera mugatu naiz gehienbat, haietaz esan izan dena ahaleginean bilduaz. Ondoren *HH*-ko adibideak eztabaidatu ditut, zaharrekin edo zaharragoekin erkatuaz. Honela, Larramendiren jokabideaz ez eze, gertakarien historiaz eman daitezkeen datu esanguratsu zenbaitez ere jabetu ahal izan gara bide batez.

HH-an joerarik indartsuena ‘izenondoa > izena’ bihurteta da (§ 5.2.1), batez ere izen berria izenondoari dagokion abstraktua denean. Egiaztatu dugu bi sailen arteko bereizkuntzarik eza izenondo arruntetan eta *-gabe-z* eratutako hitzetan, eta aurrehistoriarako proposatu izan den egoeraren iraupen berankor gisa aurkeztu. Larramendik indartu eta sistematizatu baino ez zuen egin, beraz, hizkuntzan nola edo hala bizirik somatu ahal izan zuena.

HH-an gainerako bihurteten eragina txikia izan arren, ezaugarri zenbait berreraikitze bide eman digute: (1) Izenondo eta aditzondoaren arteko erlazioan (§ 5.2.2), Larramendik, hainbat izenondoren aditzondo gisako erabilera ezaguna jaso bazuen ere, badirudi markagabetasuna intuitiboki izenondoaren berezko izaerarekin lotzen zuela, menperatzen ez zituen aditzondo eta predikatiboak (*aisa, auzu...*) izenondotzat jo ohi baitzituen. Egiaztapen hau oso baliotsua izan daiteke De Rijk-ek (1995) aditzondo markadunen bilakaeraz eratu duen irudia beste alderdi batetik osatzeko (ik. § 2.1.19). (2) Partizipioak nagusiki ekintza-izen bilakatu izan dira, euskalki askotako adibide zaharrekin egiaztatu ahal izan dugunez (§ 5.2.3); inolaz ere, Larramendik berak ere ondo ezagutu zuen prozedura hau, hein batean emankor bilakatu baitzuen hiztegian; aztertzeko geratzen dira, aldiz, ‘partizipioa > izenondo’ + ‘izenondoa > izen’ motakoak, eta aurrera daiteke jakintzat ematen ditugunak (adibide klasiko bat *damnatuak* izan daiteke) ez bide direla horren ondorio bakarrak: *HH*-an horrelatsu azaltzekoak diren *adierazia* ‘esanahia’ eta *agiria* jaso ditugu. (3) Partizipio eta izenondoaren arteko erlazioan (§ 5.2.4), lexikalizazio ezagun zenbait jasotzeaz gainera, *HH*-an partizipio zaharkitu gutxi batzuk (*ageri* eta *agiri, ateri* eta *aterri*) oraindik —defektiboki bada ere— aditzat joak direla ikusi ahal izan dugu. (4) izen bihurtutako *-ka* aditzondoei dagokienez (§ 5.2.5), izan liteke geroagoko berrikuntza izatea; gutxienez, ez dirudi Larramendik halakorik ezagutu zuenik: alderantziz, izenetako *-ka* bukaerak *-ka* atzizkitzat berranalizatzeko joera izan zuen.

Corpuseko hitz zenbait lehenagoko formen analogiaz azaldu ditugu (§ 5.3). Bildutako adibideen arabera, analogia batez ere hots mailan aritu da —analogia hutsa dugu, beraz—, hitz ezagunen oihartzunak baino ez diren hitz berriaz sortaraziz. Nolanahi ere, bada morfologi analisi okerraren adibideren bat, herri etimologiaz (*alderri* < *aldiri*) edo erdal hitzen euskal etimologiaren eraginez (*arrateme* < **arrata* < *arratoi* < x + *oi* ‘ohea’).

Geratzen zaidan gaiaren —atzeranzko eratorpenaren (§ 5.4)— axalaren axala baino oraindik ikutu ez dudala etsita nago. Eskuztatutako adibideetatik eta emandako behin-behineko azalpenetatik ateratzen den ondorioa hauxe da: Larramendik, orainokoa bestelako adibideen bitartez hainbatetan aldeztu dudan bezala, maiz hitzak morfologikoki zatikatu zituen. Morfologia —eta etimologia, orobat— egiteko, beharrezkoa da izan ditzakeen eranskin guztietatik hitza askatzea; euskaraz, sarrienik atzizkiak kendu beharra agertuko zaigu, jakina. Operazio honek bi arrisku ditu: bata atzizkia ez dena kentzea (eta honi deritzo “atzeranzko eratorpena”), eta bestea, atzizkia kenduta geratzen dena ez izatea benetako oinarria, eratorpena egiterakoan gertatutako aldaketak direla eta. Honela, oharkabea, *HH*-an atzeranzko eratorri mordoari sarbide eman zion, dela forma bakun modura, dela eratorrien oinarri zein elkartuen osagai modura.

Hideki Yukawa Fisika Nobel saridunak gutxi gorabehera esan bezala (ap. Wilson 1999: 322), ulertzen ez dugun zerbait ongi ulertzen dugun zerbaiten antzekoa baldin bada, baliteke biak erkatuz gero lehena ulertzeko bideak aurkitzea. Hauxe da, hain zuzen, atal honetan egin izan dudana. Azalpen gisa atzeranzko eratorpena joaz, ahozko euskal adibide zenbait biltzeko aukera izateaz gainera —gaia alde batera utzita baitugu—, corpuseko hainbat forma azalgaitz nola sortu diren ulertu ahal izan dugu. Baina ez zergatik. Zilegi bekit, beraz, emango niokeen azalpen orokorra orain eratzeari, dena honen argitara berraztertu beharra dakarrela aitorturik bada ere.

HH-ko hitz berrien arazo nagusia ez dira atzeranzko eratorritako osagaiak, zatikagaitz bilakatzen dituzten arren. Benetako kinka, irizpiderik izan gabe bazterrean geratu bada ere, erator-oinarrien eta elkartuen osagaien gramatika kategorien analisi modernoek eskatzen duten zehaztasunaz mugatzea izan da. Egiazki, badirudi desadostasun handia dagoela eratorbidea eta elkarbidea azaltzeko gaur erabiltzen ditugun tresnen eta *HH*-an aurkitzen ditugun datuen artean. Baliteke, hortaz, gure analisiak nahi gabe ezkutatzea Larramendiren sistemaren ezaugarri garrantziko bat: euskal erroaz zeukan ikusmoldea, alegia.

Dagoeneko jakintzat eman dezakegu Larramendik bildu zituen hitzak (euskarazkoak zein euskal etimologidun erdarazkoak) ahaleginean azken bururaino analizatu zituela, esanahi ezkutua aurkitzeko ez ezik, baita osagaiak (erro-atzizkiak) berreskuratzeko ere. Azterketa honen fruituetako bat, ohiko osagaiez edo ohiko moduan erabilitako osagai berriez eraturiko ehunka hitz dira. Honainokoa gaurko hizkuntzalariaren zein hizkuntz historialariaren parametroen barruan sartzen da.

Gainerakoaz den bezainbatean, erabaki dezakegu, esate baterako, Larramendi batzuetan zuzen eta bestetan oker ibili zela, diren arrazoiak direla (zabarkeriaz? axolakabeaz?) hitz berriak egiterakoan. Haatik, azalpen honekin gehienera jota oker / zuzen proportzioak atera genitzake eta, nork bere erara, zuzenak —orain artean zeharo gutxietsiak— azpimarratu edota okerrak deitoratu. Azalpen hau erraxegia ez ote den nago, begibistan dena asumitzen baitu, hain agerian ez dagoena ahantzia, agian: une honetan berriz azpimarratu behar dut deskribapen zuzenen eta praktikaren arteko desadostasunak berez daukan garrantzia (§ 2.2.3).

Demagun *HH* osatu bitartean ondorio ezberdin batera iritsi zela, lehenagoko miaketa guztiak besarkatzen —eta, beraz, bigarren mailan uzten— dituen eta zuzen-okerrak berdin azal ditzakeen ondorio batera. Aurrehipotesi bat baino ezin dezaket aurkeztu, aurreko ataletako (§§ 2, 3 eta 4, bereziki) datuen berrazterketak egiazta edo gezurta lezakeena.

Larramendik ezagutu zuen euskaran —baita gurean ere, noski, hein handi batean— markagabeko hitz bakarrak, euskal erro gisa argi eta garbi aurkez daitezkeen hitz bakarrak izenkiak dira. Badakigu, adibidez, aditzondo eta predikatibo markagabeak berez izenondoak zirela jakintzat eman ohi zuela (§ 5.2.2). Badakigu, bestalde, *-tu* eta *-i* partizipio markak ongi menperatzen zituela; eta *-n* bera nolabait ezagutu zuela susmatzeko aztarnaren bat ere bildu ahal izan dugu, hala nola *-n > ø* hots-aldaketak (§ 2.2.5.3.c) eta *atseden > atseda...* (§ 5.4.1). Laburbilduz, hitz batean osagai argi bat —eskuarki atzizkia— bakartu orduko, horrezaz biluziez gero geratzen zaiguna erroa da: gure ikuspegitik morfo zehazgabe bat, agian, baina hipotesiaren alderdi indartsuenetik, dudarik gabe izenki bat bederen, normalean izen bat.

Hortaz, kasurik nabariena aipatzearen, gure ustetan eratorri baten oinarrian edo elkartu baten osagaietako batean aditzoina dagoenean, egiatan badirudi berak aditza aztertuaz berreskuratutako izenkia —morfo ezertarako hura— erabili uste zuela. Honek aditza eragiten du gehien, zeren eta, ia ezinbestean *-tu* salatzailera eramateaz gainera, maiz atzizki kenketa hutsez ezin baita beti berreskuratu egiazko erroa (guretzako azalpena), eta elkartu-eratorri jatorretan nekez agertzen baita (Larramendiren zioa?). Azken azalpen hau jadanik aurreratu dut ‘aditzoina + *-ro*, etab.’ erako eratorrietarako (§ 2.2.3).

Ikuspegia osatzeko, azpimarratu nahi nuke erroa erabiltzeko erabakia ez bide zela morfologikoa bakarrik izan, zehazkiago morf fonetikoak baizik, zeren eta morfologikoa bakarrik izatera, eragina hitz gehiagok —guztiek, beharbada— pairatzea esperoko baikenuke. Badakigu, bestalde, hitz berrien eufonia lortzeko ahalegina egin zuela, atzizki-kateak mozorrotuaz (§ 2.2.5.4.d), elkartuetan gertatzen ziren bokal taldeak bakunduaz (§ 3.2.3.1.a) edo *t / k* epentetikoak erantsiaz (§ 3.2.3.2.e), edo haplogiaren bitartez antzeko hots-taldeen errepikapena saihestuaz, adibidez. Neurri garrantzizkoenetako bat —kakofoniarekin batera, jakina— hitzen luzera izan dela dirudi, eta hau berau erro hutsak erabiltzeko gonbite argia da.

Zaila da esaten noraino jokatu zuen kasualitate hutsarekin (adibidez, atzizkiak zirenentz axolatu gabe silaba homonimoak ezabatuaz), baina eskema berberen errepikapena, eta batez ere honela bakartu ditugun erro zenbait Larramendik agerian emandako etimologiekin (cf. *artez*, *arrabia...*) zeharo bat etortzea analisiaren alde daude, ez jokoaren. Bildu ditugun adibiderik interesgarrienak (*aitizki < (h)itz < izen; mitaintzina < mi < mintza, mintzoa*) Larramendik erdietsi ahal izan zuen analisi mailaren neurri ona izan daitezke.

6. Larramendiren sorbideen bila (V): Etimologiak

Malkielek (1996: 17) dioen bezala, "...hasta hace muy poco apenas se entendió el tipo de saber etimológico cultivado entre alrededor de 1500 y 1800 en diversos países avanzados de Europa". Inori baino hobeki, agian, Larramendiri dagokioke esan hau, zeren eta, ikusiko dugunez, XX. mendeko balorazio guztiak bat baitatoz nolabait bera eta bere asmoak —direnak direla haien arabera— salbatzean, hain buru argiko gizonak halako txatxukeriak jostaketan bakarrik —edota maltzurki— egin zitzakeelako ustean.

Ez dut nik esango ez zenik jostatu. Larramendiri hitzez hitz egoki dakioken moduan Covarrubiasi buruz Secok (1987: 100) hauxe dio:

Para él, aunque no lo declare, como para sus predecesores y para muchos de sus herederos, la etimología es cuestión de ingenio; es, como dirá Quevedo años más tarde, "cosa más entretenida que demostrada".⁸⁸⁴

Alabaina, ariketa bat azkartasun eta gatz norgehiagoka izateak, dibertigarria izateak eta are bere ondorioez barre egiteak —eta hemen aipatu behar da "Confieso que me retoza la risa..." Larramendiren esaldi ezaguna⁸⁸⁵— ez du nahitaez esan nahi txantxetan hartu behar

⁸⁸⁴ Quevedoren aipamena *Cuento de cuentos* [1626]-tik egina da. Osorik honela dio: "En el origen della [*i.e.* la habla castellana] han hablado algunos linajudos de vocablos, que desentierran los huesos a las voces, cosa más entretenida que demostrada, y dicen que averiguan lo que inventan" (P. Jaural de Pouren arg., *Obras festivas*, Castalia, Madrid, 1981, 150. or.). Gutxi gorabehera berbera esaten du Malkielek (1996: 18), baina begi zientifikoagoez begiratuta hobeto uler daitekeen moduan: "...esos primeros etimólogos no consideraban aconsejable ni obligatorio contrastar sus propuestas o cualquier conjetura previa de la que tuvieran conocimiento con ningún conjunto de reglas, leyes o correspondencias expresadas fonéticamente...". Leroy-Turcan-ek (1991: 10), Ménage-ren etimologiak direla eta, gogoratzen digu XVII. mendean Frantziako maila bateko jendeen artean etimologiak egitea denborapasa estimatua zela, eta zaletasun hau garai bereko literaturan islatzen dela.

⁸⁸⁵ Mitxelenak (1959a: 906-907) pasarte hori erabili zuen, oso esplizituzat joaz, bere iritzia bermatzeko, alegia: "No creo pues que sea temerario afirmar que estaba lejos de prestar fe ciega a los productos de su fantasía, que no eran a menudo más que medios para salir mejor o peor del paso, como tampoco creo que nos apartemos mucho de la verdad si pensamos que al escribir algunas de sus estupendas etimologías no le faltaba mucho para reirse a cuenta de los crédulos lectores, presentes o futuros". Haatik, Larramendiren barregura ez dator etimologiaren izaeratik, Diaristak ateka txarrean sartu uste dituelako

duzenik, ez egileak, ezta irakurleek ere. Etimologigintza zaharra oso ariketa serio eta onuragarria izan zen, izan ere, nahiz eta ez beti gaur “linguistika” deitzen dugun horretarako onuragarri, eta nahiz eta gaur harrigarri —barregarri ere— deritzegun arau eta egitemoduak bazituen.

Lan honen xedea Larramendi Euskal Herriko eta kanpoko bere aitzindari-ondorengoak baino seriotasun gutxiagorekin ibili ez zela, eta bere etimologiak, guregan sortzen duten ezinegona gorabehera, benazkoak direla frogatzea da, zinez eta benetan egin eta erabilitakoak. Asmo horrekin, bi argudio nagusi erabiliko ditut: batetik, epistemologi eredu eta etimologigintza tradizio ezagunetan oinarritutakoak izatea; eta, bestetik, hitzberrigintzan eta lexikoaren finkapenean daukaten garrantzia, nahiz tesi-lan honen xedeari begira bigarreanean enfasi gehiago jarriko dudana.

Aurreko hurbilketen akatsa, ene ustez, etimologiak atal berezi eta bere baitarik azter daitekeena baillitza legetxe hartzea izan da. Egia esanda “hurbilketa” baino “urrutiraketa” izena hobeki dagokio ikuspuntutik zabalduenari, haren arabera euskal etimologo zahar —eta txar— guztiak eta haien lanak denak zaku berean sartuta ahalik eta zokorik ilunenean gorde behar baikenituzke, gaixotasuna kutsagarria omen da eta.⁸⁸⁶ Haatik, horrela —sasi-letraduen saioak ez eteteaz gain, jakina— lehengo mendeetako

euskarari (eta, oro har, hizkuntzari) buruzko gogoeten historia egiteko daukagun iturririk aberatsenetako bat isilaraztea besterik ez da lortu.⁸⁸⁷ Horixe da, hain zuzen, Lakaren (1989) Astarloari buruzko lan aitzindariak eta berrikiago Zubiaurrenak (1990), besteak beste, azkenik zabaldu duten atea. Larramendiren arlora etorrita, Mitxelenak (1983a, 1984) zirrikitu bat ireki zuen, *HH*-ko etimologiaren eta maileguen arteko loturaren bat dagokeela iradokiaz, eta berehalako oihartzuna erdietsi du gaiaren inguruan ari direnen artean, maileguak direla eta Larramendiren proposamenarekin (Lakarra 1985a: 38-39) eta ondokoen erabilerarekin (I. Pagola 1984: 55) ondo datorrela erakutsi delarik. Ildo beretik, Lakarrak (1985a: 14-21; 1993: 309-319) apologiaren premia eta honen barruan etimologiek jokatzen zuten papera azpimarratu du.

baizik, berak hurren azaltzen duenez, “porque, si se empeñan en buscar la falta de naturalidad de nuestras etimologías con los nombres, se meten, sin querer, en lo que aborrecen, que es dar otras que no sean violentas, sino naturales...”. Pasartearen hizkera zirrikatzailearen azalpena Mitxelenak berak (*op. cit.* 905) lehentxeago jasotzen duen Berthier-i egindako gutunean (1748) aurkitzen da, baita bide batez asmoak huts irten ziolako aitortpena ere: “Y aunque he solicitado que se responda al cotejo que hago del vascuence con otras muchas lenguas, dando sobre todas ellas mucha ventaja a la nuestra, no ha habido ninguno que me dé este gusto; siendo así que en la *Demostración* observé un lenguaje burlón e insultante, que pudiera provocarles al desquite”.

⁸⁸⁶ *Opinio communis*-aren biltzaile izan ohi den neurrian Villasanteren hitzak (1979: 136) ekarriko ditut hona: “La desgracia del P. Larramendi estuvo en que sus propios compatriotas le tomaron en serio, y así vino a ser el iniciador y ejemplar de esa plaga de etimologistas estrambóticos, plaga que ha perdurado hasta nuestros días”.

⁸⁸⁷ Cf. Malkiel 1996: 20: “los antiguos tratados etimológicos no han de ser descartados precipitadamente. De vez en cuando contienen minúsculas porciones de información útil o moléculas de ideas que se prestan a un cauto aprovechamiento”.

Haatik, Larramendiren etimologiaren alderdi praktikoa —ez alferra— aitortuta ere, ni behintzat ez naiz asebetarik geratzen: dela atzerritar etsaiak zapuzteko, edo dela herritar lagunak maileguak erabiltzera bultzatzeko arma eragingarriak izan zitezen, nolabait sinetsiak izango zirelako esperoan eta, hortaz, jostatzeko gogoia baino oinarri sendagoaren gainean egin zituela pentsatu behar genuke. Iritzi batetik besterako aldea, etimologigintza zaharraren baldintzak eta lorpen mugak gutxiestean eta, berriz, Larramendiren gaitasun eta ahalbideak larrestean datza. Hemen proposatuko dudana ikuspuntutik begiratuta, *HH*-ko etimologiak hiztegi honek islatzen duen egitasmo orokorraren zutabeetatik bat izango dira. Ez dezagun ahaztu hiztegia egitera bultzatu zuen akuilu mingarria hain zuzen *DAut*-en etimologiak eurak izan zirela.

Hipotesiak hemen eskain diezaiokean baino leku eta beta hoberik beharko luke,⁸⁸⁸ baina erabiltzen ari naizen material mugatutik gehiegi atera gabe marra nagusiak bederen zirriborra daitezke, zenbait ikerbide berri jorratzen hasiaz: (§ 6.1) Larramendiren heziketaz —linguistikoz bereziki— ditugun datuak biltzea, etimologiak “bestela” egin zitzakeelako ustea uxatzeko; (§ 6.2) etimologigintza zaharraren oinarri kontzeptualak zein diren eta garaiko etimologigintzaren aurrerapenak zein neurritaraino ezagut zitzakeen zehaztea; (§ 6.3) *HH*-ko etimologiak eurak eduki eta formaren aldetik

aztertzeak, denak taiu berekoak ez direla erakutsiko digu: (§ 6.3.1) batzuk, tradiziozko etimologigintzaren barru-barruan daudela ikusiko digu, eta aztarna horri jarraiki Larramendik hizkuntzaz oro har zituen aburuei buruz mintzatu ahalko gara; (§ 6.3.2) besteak, berriz, tankera berriagokoak dira: halakoen azalpena, halaber, haren ereduetan aurkitzen dela argudiatuko dut; (§ 6.4) etimologia anitz eratzeko Larramendik inspirazioa *DAut*-en sarreraren osagaietan kausitu zuela ikusiko digu; eta (§ 6.5) azterketak agertarazten dituen etimologia era ezberdinen eta lexiko sorkuntzaren artean dauden loturak arakatuko ditugu, esanahian oinarritutako etimologiei garrantzi berezia emanez, eta etimologiek lexikoaren berrikuntzan maileguez kanpoko eragina izan dutela frogatuko.

6.1. Larramendiren heziketa dela eta

Zalantzarik gabe, garaian ofizialki lor zitekeen gramatikazko heziketarik onena izan zuen Larramendik,⁸⁸⁹ josulagunek euren kolegioetan ematen zutena,⁸⁹⁰ hain zuzen; haatik, ezaguna denez, *ratio*-aren alderdi hau latinezko gramatikan hasi eta bukatzen zen eta, ziurrenik, Nebrixaren *Introductiones Latinae* (1481) gramatikaren ehundaka argitalpenetatik bat

⁸⁸⁸ *HH*-ko etimologiak oro bilduta dauzkat eta haien azterketa aski aurreratua. Alabaina, tamaina irizpideek atala tesi-lan honetatik kanpo uztera eraman gaituzte. Hemen emango dudana, lan horrek izango dituen lerro nagusien laburpena baino ezin da izan.

⁸⁸⁹ Larramendiren ikasketen berri konplutua Altuna (1992a: 7-12)-n aurki daiteke.

⁸⁹⁰ 1550-1767 bitartean ia monopolioa izan zuten (Bartolomé 1995a: 635 eta 1995b: 955; Alvarez de Morales 1985: 56; Kagan 1981: 64 eta 94-104).

(edo haren hamaika egokitzapen, laburpen edo bermoldatzeren bat edo batzuk)⁸⁹¹ izan bide zen haren eskuliburua; aldi berean, latinezko hiztegia aberasteko eta itzulpen edo idazketan laguntzeko erabiltzen ziren thesaurus edo “calepino” deitu hiztegi txikietatik bat edo batzuk ere aldean izango zituen.⁸⁹² Zeharo klasikoa zen heziketa hura, eta mendeetan aldagabea.⁸⁹³ Alde honetatik oraindik okerrago zebilen Unibertsitateak ezer gutxi eskain diezaiokeen, gaztelaniaren gramatika galarazia eta greko eta hebreozko katedrak kolokan, hutsik edo diruz hornitu gabe baitzeuden (Alvarez de Morales 1985: 13-14).

Gainerantzean, Larramendiren heziketa, laburbilduz, teologiaz gain historiaz⁸⁹⁴ ere kezkatzen den filosofo batena izan zela dirudi, baina filosofo horrek halako batean bere hizkuntzarekiko zorra kitatzeko eginbidea bere gain hartzen du, hura arakatzera, deskribatzera eta lexiko modernoaz hornitzera eraman baitzuen; halere, ez da hizkuntzalaritzan —hitz hau erabil badaiteke— bere burua janzteaz gehiegi kezkatzen, antza denez:⁸⁹⁵ historialari eta antzekoak irakurri nahiago ditu, gramatikoak-eta baino, bere biblioteka⁸⁹⁶ eta aipamenetatik⁸⁹⁷

⁸⁹¹ Josulagunenak batez ere: A. Manuel Alvarez (*De Institutione Grammatica*, 1575etik aurrera) edota A. Juan de la Cerda-rena bezalakoak. Oro har, gai honetaz ik. Bartolomé 1995a: 668-669, eta Nebrixak Brocensearen ginetik izan zuen erabateko nagusitasunaz Lázaro Carreter 1985: 154-155. Cf. garaiko lekukotasun bat: “Los doctísimos Jesuitas enseñan gran parte de la mocedad en varias partes de Europa, y no queriendo apartarse de su Manuel Alvarez, despreciaron las nuevas gramáticas (...). La mayor parte cuida poco de esto, y van viviendo como sus Maestros les enseñaron. No tienen noticia de los mejores autores que hay en la materia; creen que en el mundo no hay otra Gramática que la del padre Alvarez” (L. Verney “el Barbadiño” 1760, ap. Lázaro Carreter 1985: 155).

⁸⁹² Bartolomé 1995a: 669. Josulagunen kolegioetan, hala behar ere, eurek egindakoak izan ziren erabilienak: A. Nizolio (Palauk jasotzen duen bakarra Bravok berregindakoa da: *Compendium Marii Nizolii, sivi Thesauri Marci Tullii Ciceronis... Addi tum Dictionarium... collectae sunt Authore Bartholomaeo Bravo...*, Madrid, 1668), A. Bravo (*Thesaurus verborum ac phrasium...*, Iruñea, 1590etik aurrera) eta jadanik aipatu ditudan A. Salas-enak (ik. I, § 7), hurrenez hurren, denak argitalpen anitzekin eta bata bestearen zordun (Bartolomé 1995b: 956; berri bibliografikoak Palau 1948-1977tik erdietsi ditu).

⁸⁹³ XVII. mendean zenaz, ik. Felipo 1987: 127-140. Josulagunen atzerriratzearekin bat, Ilustrazioko pertsonaia nagusi zenbaitek —Mayans barne— haien heziketaren kalitatea biziki gaitzetsi zuten (ik. Alvarez de Morales 1985: 57, 63. oh.).

⁸⁹⁴ Bere bibliotekan histori liburuen ugaritasuna deigarria da oso, jadanik Tellecheak, berak argitaratutako liburu zerrendaz (1966a: 354) ari zela, azpimarratu bezala: gehiegi arakatu gabe, hil ondoko liburuen artean (Altuna 1984) hiztegi historiko bat (2. zb.), Bearneko historia (3. zb.), Japonekoa (11. zb.), Erromakoa (25. zb.), Hego Amerikakoa (81. zb.), Espaniakoa (83. zb.), egiptio, kartagines, etabarrei buruzkoa (9. zb.), Elizaren historiazko hainbat (13, 14, 19 eta 56. zb.) eta pertsonaia historikoen biografia batzuk (31 eta 41. zb.) kausitzen dira.

⁸⁹⁵ Hitzaurrean (1745: lii) oso aipamen labur eta zehazgabea baizik ez du egiten: “Para empezarlo a disponer [*i.e.* hiztegia], mi primer estudio fue imponerme en la Lengua Castellana, repasando lo que antes sabía, assí por la práctica de hablarla en tantos años, como por la lección curiosa de los mejores Autores della”. Bere hizkuntzazko iritzien euskarriak klasikoak bakarrik izan ohi dira, eta denak —latindarrak zein grekoak izan— latinez aipatu ohi ditu.

⁸⁹⁶ Bibliotekan, halere, badira Pomey-ren *Universo abreviado donde están contenidos en diversas listas casi todos los nombres de las obras de la naturaleza de todas las ciencias y de todas las artes con sus principales términos*, P. Crocet-en itzulpena (Pedro Valedai, Leon, 1705), *Compendio en que se explican todos los principios de oraciones...* izengabea (baina Avelio-rena; Impr. de la Buena Muerte, Valladolid, 1752) eta Juan Gaudin-en *Principes de la grammaire de rudiments nouveudux* [sic] (Impr. Labotière, Burdeos, 1732) (Altuna 1984: 42, 157 eta 182. zb.), aztertu beharko direnak. Dena dela, Gaudin eta Avelio gramatika egin baino beranduago erdietsitako lanak dira; *Universo*-a da dagokion lana baino lehenago (kasu honetan hiztegia baino lehenago) argitaratutako bakarra. Honen erabilera esanguratsua izan daiteke: Pomey frantses josulagun humanista bat dugu, eta haren lan ugarien artean *Indiculus universalis, ou L'Univers en abrégé* (Lyon, 1667) zabalkunde gehien izan zutenetakoa da, gaztelaniaz ez eze, portugés, italiara, aleman, ingeles eta flamenkoz ere itzulia izan zelarik.

dakigunaren arabera. Lexikografo gisa dituen ezaugarriak —ateorikoa, eredu bakarrari atxikia eta, handik urrutiratzen denean, ez eraberritzen eta hobetzen, baizik eta ereduaren hobekuntza teknikoak lausotzen edo are aintzat hartzen ez dituen— prestakuntza tekniko ahul xamar horren islapen modu bat izan daiteke.

Berdintsu uler daiteke, halaber, haren gramatikagintzaz berriki esan izan dena oro har, hau da, teorizazio urria⁸⁹⁸ eta oso salbuespen bakanekin eredu grekolatindarra kostarik kostea euskarari egokitu beharra (Oyharçabal 1989: 61, 4. oh., Gómez 1992 *passim*).⁸⁹⁹ Are esanguratsua go deritzet Oihenartekiko gonbaraketatik atera daitezkeen ondorioei (Gómez 1992: 193-194, Oyharçabal 1994),⁹⁰⁰ ez baitirudi zuberotarrak euskararen deskribaketan erdietsi zituen aurrerakuntza gehienak bere egiteko edo, nahiago bada, haietaz interesatzeko gauza izan zenik. Dena dela, hauen esanek Nebrixaren tradizioan —eta ez Brocensearenean, jakina— sartua zegoela adierazten digute (Lázaro Carreter 1985, Padley 1988), oso salbuespen bakan bezain gailenekin ihartutzat eman zitezkeen Espainiako gramatikagintzan. Azken finean, “gure” Larramendi “bere” Covarrubias kokatzeko Secok (1987: 100) erabili dituen hitz berberak eta neutrotasun beraz erabil ditzakegu, haren lorpenak (eta akatsak berebat) benetan dagokien tokian —ez gorago, ez beherago— ezarri nahi baditugu, behinik behin: “En el terreno lingüístico, su base científica no es, pues, ni muy moderna ni muy sólida para su tiempo”.

Ezin pentsa liteke, beraz, etimologigintzan Larramendik klasikorik klasikoenak (Platon, S. Isidoro),⁹⁰¹ aitzindari argiak (Garibai, Poza, Oihenart...)⁹⁰² eta aurrean zeukan eredia (hots, *DAut*) baino maisu hoberik izan zuenik.⁹⁰³ Honek esan nahi du, besteak beste, lehenagoko

⁸⁹⁷ Ez du gramatika bat ere bere izenez aipatzen; hiztegiez den bezainbatean, Nebrixa eta Salas-enak aipatzen ditu (1745: li), eta gutxiesten, eta italierazko etimologietarako “un diccionario italiano” erabili duela dio (1745: xxii); grekorako erabili iturria (iturria bada; ertzean honela dio: “Vid. in Baron Appê. ad tom. II. et ibi. dis. Humbert. s.R.E. Card. adversus Schismat. Graec. ubi de etymol nomin.”) ezin izan dut asmatu. Bibliotekan, dena dela, bada *Lexicon graecolatinum* bat (Basilea, impr. Juan Valderi, 1537), hau ere aurrerantzean kontuan hartzekoa.

⁸⁹⁸ Gómezek (1992: 195) teorizazioaren urria misiolarien gramatiketan “hizkuntz irakasbide izateak eragindakoa” dela azpimarratzen du. Ez da alferrik gogoratuko hemen, Larramendirena ez dela zehazki hori eta, beraz, haienak zurrizteko balio dezakeen argudioa indargabea dela, edo ia, *Imposible Vencido*-z ari garenean.

⁸⁹⁹ Gómezek (1997: 375) honen argi laburbiltzen du kontua: “Izan ere, oso gutxitan agertzen zaigu Larramendi eredu klasikoaren gaintetik, euskal gramatikaren alderdi bat beregain azaltzeko; oster, gehienetan ereduarekiko atxikimendu itsua dela-eta euskal gramatikaren zenbait ezaugarri era desegoki batean emango ditu (edo ez ditu emango)”.

⁹⁰⁰ Dena dela, lekukotasun hau zalantzapean dugu. Oyharçabalek (*op. cit.*, 2. oh. bereziki) horretan, hain zuzen, oinarritzen du Larramendik gramatika egin orduko *Notitia* ezagutzen ez zuelako bere iritzia. Haatik, *De la Antigüedad*-eko eta *Notitia*-ko etimologiaren eraketak ezagutzen (eta nahi zuenean erabiltzen ere) zuela zalantza izpirik gabe erakusten du (ik. § 11.1.3). Bestela azaldu beharko dira, beraz, bien arteko gramatikazko ezadostasunak, beharbada bi argitalpenen arteko ezberdintasunez.

⁹⁰¹ Biak aipatzen ditu hitzaurrean, baina batez ere Platon, jakina, aurrerago ikusiko dugun bezala. S. Isidoro, zehazkiago, latinak eta grekoak batera dituzten zenbait hitzen adibidea gogoratzeko dakar (1745: cxlvii).

⁹⁰² Aitzindari hauei buruz eta *HH*-ko etimologietan daukaten eraginaz ik. § 11.

⁹⁰³ Larramendik berak, bere etimologiaren oinarrian dagoen teoriaren eta etimologiaren euren defentsan erabili zituen argudioen artean (XXI eta XII. kapituluak, 1745: cxxxvii-cxlvii), etimologiak bortxatuak direla baieztatu

etimologia moduen semea dugula eta, horren parean, garaiko aurrerakuntzak edota tradiziozko etimologigintzari egindako kritikak hein txiki batean baizik ezin menperatu (eta are gutxiago gainditu) zitzakeela. Etimologigintza zaharraren eragin zuzena edo haren arrastoak hiru maisu multzoetan kausi zitzakeen, neurri batean edo bestean; berriagoaren kimu zenbait ezagutzeko aukera, berriz, Oihenartek eta, batez ere, *DAut*-ek bakarrik eman ziezaioketen. Arrazoi sendoak ditugu Larramendik bi alderdi hauetatik erabilera sinkretikoa egin zuela uste izateko, Oihenarten modura eta *DAut*-ek eskaintzen zion eredutik ez oso urruti. Baina, dena dela, honek astiroago joatea merezi du.

6.2. Tradiziozko etimologigintzaren oinarri kontzeptualak

Malkielek aipatu ulergaitzasunak erro sakonak ditu gure artean: Larramendiren jarrerara hurbiltzeko gure ustetan ezinutzizkoak diren zenbait ideia alde batera utzi behar ditugu, oso bestelakoak diren hizkuntzaren jaiotza eta izaerari, munduaren historiari eta etimologiaren betebeharrari buruzko sinisteetan oinarritu zelako.⁹⁰⁴ Idorotzen dugun lehenengo zailtasuna, “etimologia” hitzaren beraren balioa da:⁹⁰⁵ historiaz —denboraz— dugun iritziak goitik behera baldintzatzen du gaur hartakotzat hartzen dugun ariketa; hitz baten mendez mendeko eta hizkuntzaz hizkuntzako bilakaera (hotsen zein adieren aldetik) aztergaia dauka gure etimologigintzak, eta azken bi mende hauetan hizkuntzen historiaz (familia zein auzotasun erlazioez) ikasi dugun guztia darama bizkarrean.

Bestalde, Platon eta Aristotelesgan hasi, Errenazimenduko filosofo eta zientzi gizonengan mamitu eta Saussurengandik aurrera axioma bihurtu den ideia baten seme-alabak gara: hitzak adierazle eta adierazia —izenak ez dira gehiegi aldatu— batzen ditu bere barnean, eta adierazlea arbitrarioa da.⁹⁰⁶ Kultur historiagileek —Focault-*ez geroz bederen*— aldaketa hau orokorrago den zerbaitekin lotzen dute: XVIII. mendetik aurrera, Natura eta Kulturaren arteko hesia gero eta gotorragoa da; ondorio zuzenez hitzak eta gauzak erabat bereizten dira, eta hitzak, zeinu huts bihurturik, bere sakratutasuna galtzen du (Juaristi 1976: 59).

dezaketenei hauxe erantzuten die: “Lo primero, yo los provoco confiadamente al tribunal de quantos han hablado y sacado etymologías, v. gr. a Platón, S. Isidoro, Varrón, Aldrete, Bochart, Covarrubias, la Academia Española (...). Si quieren responder algo, yo estoy seguro que nada opondrán contra nuestras etymologías, que con igual fuerza no impugne las de Platón, S. Isidoro, y demás Autores” (1745: cxliv) eta aurreraxeago: “Nuestras etymologías están fundadas en las reglas que admiten los Etymológicos más moderados y juiciosos” (*ib.* cxlv).

⁹⁰⁴ Gaia oso korapilotsua da, hizkuntzalaritzan ez eze, filosofian eta kulturaren historian ere bederen inplikazioak ditu eta. Ikuspuntu ezberdinak batzen saiatu naiz eta, bakoitzean aitortzerik izan ez badut ere, nagusiki Eco 1994, Genette 1976, Juaristi 1992, Lázaro Carreter 1985, Vickers 1990 eta Zamboni 1988 izan dira nire gidariak.

⁹⁰⁵ Ik. Malkiel 1996: 13-15 eta Zamboni 1988: 17-21; azken honek “etimologia” hitzaren historia eskaintzen du.

⁹⁰⁶ “Arbitrario” hitzak eta bere baliokideek Antzinateetik Saussureganaino Hizkuntzalaritzan eta Hizkuntz Filosofian izan dituzten adiera zehatzetarako, ik. Coseriu 1977b. Jarrera honen azalpen argigarri baterako, zientzia esperimentalekin zerikusia izan zuten filosofoen ideiez bereziki, ik. Vickers 1990.

Alabaina, Europako pentsamoldean —noiz ixilik, noiz agerian— beste iritzi bat paretsuan ibili da:⁹⁰⁷ orokorki esanda, zeruazpiko edozerk munduarekiko lotura ontologikoa (jarreraren arabera, izatezko edo jainkozkoa) dauka eta, ondorioz, gauzek —eta haien izenek, bidenabar— beren izate edo jainkotasuna nolabait islatzen dutelakoa. Guri dagokigunez, adierazlea eta adieraziaren, hitza eta gauzaren arteko lotura (etorkizkoa edo jainkozkoa) aldeztu du. Bigarren honek ere Platonengan oinarritzen dela aldarrikatu du, eta erpina jo zuen Larramendiren maisutzat aipatu ditudan izen gehienak koka daitezkeen garaian: Errenazimenduan, hain zuzen.

Kultur historiagileen artean “cratilisismo neoplatoniko” izena eraman ohi du, Platonen *Cratilo* solasean bere zuzenestea aurkitu nahi izan zuelako. Baina, mende kristauetz ari baikara, ezin da zeharo ulertu kristau pentsamoldean dituen oinarriak lehenik aipatu gabe. Hizkuntzaren hasieraz zeukaten (eta onar zezaketen) iturri bakarra Biblia zen, noski. Errenazimenduan, lehenago eta geroago bezala, hizkuntza Jainkoak emanikakoa dela (Gen 2, 19 t. hur.) eta hizkuntzen aniztasuna Babelgo gertakariak (Gen 11) azaltzen dutela ez dira usteak, fedezko axiomak baizik.

Baziren, halere, bi puntu eztabaidagarri (eta biziki eztabaidatu). Bata da Babel inguruko gertakariari dagokiena: lehenago jadanik hizkuntza bat baino gehiago ote zen; bat bazen, hebreoa ala beste zerbait ote zen; Babelez geroz zenbat izan ziren; norberarena eta auzokoak hari buruz non kokatzen diren, etab. Eta bestea, hizkuntzaren izaerari dagokiona: oro har, Genesiko pasarteak anbiguoak dira hitzen arbitrariotasun edo beharrezkotasunari dagokienez (Eco 1994: 19-20; Lázaro Carreter 1985: 49-50). Adanek aberei *beren izena* eman ziela dioenean, hizkuntzaz kanpoko arrazoiez zegokiena edo berak sortutako hitzarmenez dagokiena eman ziela uler daiteke. Haatik, badira ulerpen ez arbitrarioaren aldeko pasarte argiak (Gen 2, 23 edo 3, 20 bezalakoak). Eta hementxe kokatu behar da Platon-en *Cratilo* solasa: hiru solaskideetatik batek, Hermogenes, hitzaren eta gauzaren arteko lotura hitzarmenezkoa dela baieztatzen du eta bigarrena, Cratilo, izaerazkoa delakoaren alde agertzen. Kritiko guztien arabera, Socratesek (eta haren ahotik Platonek, noski), bataren argudioak bestearenez eztabaidatu ondoren, jarrera ezberdin bat aurkezten du: lotura beharrezkoa gauzaren adigaiaren eta hitzaren adieraziaren artekoa da, ez adigaiaren eta zeinu linguistikoko osoaren artekoa, adierazlea gizaki batengandik bestearengana eta hizkuntza batetik bestera aldatzen baita.⁹⁰⁸ Hau guztiau alde batera utziaz —eta, diotenez, Platonen ohiko ironia uler gabea⁹⁰⁹— Errenazimenduko letra-gizonak (Pico de la Mirandola da aipatuena)⁹¹⁰ nagusiki hitzaren interpretazio ez arbitrarioaren aldera makurtzen dira.⁹¹¹

⁹⁰⁷ Esan gabe doa hainbat kulturatan ere haren arrastoak edo erabateko nagusitasuna aurkitzen direla.

⁹⁰⁸ Erabili dudana adierazpena Zamboni 1988: 32koa da.

⁹⁰⁹ R.T. Wallis, *Neoplatonism* (London, 1972, 19. or.), ap. Vickers 1990: 68, 5. oh.

⁹¹⁰ Gaia, esan bezala, azaletik baizik ezin dut azaldu: Picorengan cratilisismoaren eta Kabalaren artean egin zen loturak izugarriko garrantzia izan zuen (ik. Vickers 1990: 77-78). Pozak ere tradizio horrekiko lotura

Etimologigintza zaharrear, berez eta huts-hutsean hartuta, ez da historiari buruzko interesik antzematen: etimologoaren lana hitzaren eta bere etorkiaren arteko lotura sinbolikoa —filosofikoa, nahi bada— aurkitzea da. Tradizioa, lehenago esan dudanez, ez da garai hartan jaiotzen, indartzen baizik, S. Isidororen kasuak —besteen gainetik ezagunena— erakusten digunez.⁹¹² Tradizio klasiko honi eta haren iraupenari buruz, hurbilketa modura aski izan daitezke, berriro Covarrubiasekiko erkaketara joaz, Secoren esan hauek:

Como dice Díaz y Díaz [1982: 188], para San Isidoro “la historia de una palabra y la del objeto que designa son notas que subyacen en ellos, no una perspectiva en que considerarlos”. La etimología es, por tanto, una *interpretación*: es la explicación de la palabra, encaminada a descubrir la causa del nombre y, con ello, dar a conocer la realidad de la cosa designada. Este concepto de los antiguos todavía está vigente en la época de Covarrubias, y cuando él, o algún contemporáneo suyo, habla del “origen” de una palabra, esto tiene poco que ver con la actitud histórica y científica que adoptan (o aspiran a adoptar) los etimologistas de nuestro tiempo. En la etimología de cada vocablo —dice Covarrubias— “está encerrado el ser de la cosa, sus cualidades, su uso, su materia, su forma, y de algunas dellas toma nombre” (s.v. *etimología*) (Seco 1987: 114).

Apologiaren arloan, honen ondorioa zen hizkuntza batek zenbat eta jainkozko etorkitik hurbilago, hainbat eta hitz esanguratsu —barruko esangura harekin— gehiago erakutsi ahalko lukeela, eta alderantziz. Etimologigintza, beraz, gauzen izenen esanahi ezkutua (berezko eta etorkizkoa) aurkitzera bideratutako ariketa da: “...los neoplatónicos renacentistas sostienen que las palabras no sólo expresan la naturaleza de las cosas, sino que contienen de algún modo su propia esencia” (Vickers 1990: 76). Honela ulertuta, bistan denez, etimologigintza filosofikoago da linguistikoa baino. Juaristik (1992: 31) dioenez, hitzari buruzko adigai neoplatonikoak filologia hermeneutika bilaka dadila eskatzen du.

Hain sartu eta hedatuta zegoen pentsamolde honek izugarrizko eragina izan zuen garai haietako hizkuntzalaritzan. Esan gabe doa testuinguru honetan egindako etimologiak ezin kontatuzkoak direla. Ezagunak dira, halaber, halaxe hizkuntza perfektuaren asmora iritsi zirenak,⁹¹³ eta haren itzala gramatiketaraino ere iritsi zen,⁹¹⁴ baina, dakidalarik, ez da inoiz halakorik aurkitu hizkuntza eraberritze eta gaurkotze saio baten oinarrian, eta honelakoa da, izan ere, hemen aurkeztu nahi dudana, Larramendirena alegia, funtsean cratilismoa baita haren etimologigintzaren azpian ez eze, haren hitzberrigintzarenean ere datzan filosofia.⁹¹⁵ Norabide

duela aldeztu du Juaristik (1988), baina, dakidalarik, ez dago halakorik, ez eta aztarrenik ere, Larramendirenean.

⁹¹¹ Adibidetzat balio dezake Frai Luis de Leon-en *De los Nombres de Cristo*-ko azalpena (1583: 33): “...Adam, inspirado por Dios, puso a cada cosa su nombre, y que lo que él las nombró, esse es el nombre de cada una? Esto ez dezir que a cada una les venía como nascido aquel nombre, y que era assí suyo por alguna razón particular y secreta, que si se pusiera a otra cosa no le viniera ni cuadrara tan bien”. Ikus dezagun, halaber, Garibairen ustea: “...para que le obedeciesen todas las cosas, a las quales según las propiedades de cada una dellas puso y distinguió sus nombres” (1571: II, 2, 35).

⁹¹² Lehenagokoetarako ik. Zamboni 1988: 22-46.

⁹¹³ Comenius *Pansophiae*-n (1639-1640), adibidez. Ik. Vickers 1990: 80 eta, batez ere, Eco 1994: 181-182.

⁹¹⁴ Juaristik (1992: 30) Ramus-ena aipatzen du, adibidez.

⁹¹⁵ Juaristik (1976: 65-66) bataren eta bestearen arteko lotura aurreikusi zuen, apologistek (Etxabek eta Etxeberrik, zehazkiago) “programaren helburuak definitu” zituztela erakutsiaz, baina haren betetzea ikusteko “Aranari iguriki beharko” zaiola esanda, hain lan goiztiar hartan urrats garrantzitsu baten —Larramendiren— gainetik jauzi eginez bada ere.

bikoitzeko araua da: hitza ezagututa, haren barruan dagoen esanahi ezkutua harrapa daitekeen bezalaxe, eta berriz Covarrubiasen hitzak nire eginik, gauzaren “ezaugarriak, erabilera, gaia eta forma” aztertuta, “haietatik batzuk” erabiliz —eta ohartu indefinizioari, Larramendiren sisteman ere hain nabaria— haren izena (berr)eraiki dezake hiztegiak.⁹¹⁶

6.3. Larramendiren etimologiak

Larramendiren etimologia guztiak —ia-ia guztiak— txarrak dira, denok dakigunez, arrazoi bakar bezain sendo bategatik: norabidea zeharo okertu zuelako, hain zuzen. Urteak franko joan dira dagoeneko ondorio honetara iristeko gauza izan ginenetik, eta esan gabe doa horrela jarraituta ez goazela inora. Artean etimologigintza zaharra aztertzeko eta haren alderdi txuri-beltzak bereizteko urrats garrantzitsuak egin dira, Larramendi ere “bestela” ikertzeko zioak ez eze, baliabideak ere eskainiaz.

Hasieratik hasita, Larramendiren etimologia guztiak taitu berekoak ez direla azpimarratu behar da. Orokorki, formaren aldetik bi talde nagusi egin daitezke: erdal hitza (1) euskal zati ulergarrietan zatikatzen duenekoa; eta (2) euskal etimo ezagun batekin lotzen duenekoa. Hasierako bereizkuntza hau oso eraginkorra da, zeren eta Larramendiren etimologiak multzoan hartzeko ohitura badago ere, egiatan bi etimologigintza modu ezberdin batzen —eta, ikusiko dugun bezala, gurutzatzen— direla erakusten baitigu. Lehena da ezagunena —beti aipatzen diren *alabanza* “semejanza de hija” eta *estandarte* “hasta reventar” lekuko— *HH*-an eragin gehien daukana eta, guri dagokigunez, hitzberrigintzarekin lotuenik dagoena: honela egindako etimologiei eskubide osoz “etimologia cratilotarrak” izena eman dakieke, euskararen filosofikotasunean oinarriturik, honen lehentasuna hitzaren esanahi ezkutua agerrian jarriaz frogatzen baita. Bigarrenei, berriz, zilegi bekit “etimologia modernoak” deitzea, funtsean bi hizkuntzatako hitzak konparatzen baitira, adierazle-adierazietan aurkitutako antzekotasunak argudiotzat erabiliz eta adierazleetan eta, batez ere, adierazietan aurkitutako ezberdintasunak azaldu nahirik. Bigarren multzo honetan, beraz, konparaketa oraindik oso baldar eta gorabeheratsu baten lehen zantzuak —hots eta semantika aldaketak ateorikoki eta asistematikoki erabiliak— antzeman ditzakegu.

Egia da etimologia cratilotarrak nagusi dabilzala *HH*-an: etimologia modernoetarik huts-hutsean gutxitxo idorotzen dugu, maiz etimologia berean bigarren urratsa cratilotarra izaten da eta, Larramendiren asmoa, ahal izan zuen guztietan, esanahi ezkuturaino iristea izan zela erakutsiaz. Alabaina, aldi berean etimologia cratilotarretan hots-aldaketekiko kezka ttantta bat soma daiteke, bi etimologigintzek elkar eragin zutela iradokiaz. Dena dela, zeinek bere oinarri kontzeptual, baliabide, xede eta ondorioak dauzkatenez gero, konpli da bakoitza berez azter ditzagun.

⁹¹⁶ Honen aldeko aipamenak ugariak dira hitzaurrean, lehenago (§ 1) ikusi ahal izan dugun bezala.

6.3.1. Etimologia cratilotarrak

Azpiko filosofia cratilotarraren erakusgarri tipiko bat (Genette 1976: 19) hitz ber baterako etimologia bat baino gehiago, eta denak egiantz beretsuarekin aurkeztea da. Honelaxe ulertu behar dira, hortaz, Larramendik maiz xamar egiten dituen proposamen bikoitz zein hirukoitzak:

Arda, animalejo conocido, vivíssimo, ligeríssimo: viene de el Bascuence, o de *ari da*, sincopado en *arda*, y significa, siempre se mueve y anda; o de *arin da*, que significa que es muy ligero.

Arisco, viene de el Bascuence, o de *arinsco*, *arinscotea*, ligero, fugaz, o de *arisco*, *ariscotea*, duro como piedra; y son propiedades de un arisco.

Arrogancia, el Latín y Romance tomaron de el Bascuence esta voz, que viene de *arró jancia*, vestido esponjoso, hinchado y vano; o de *arro antzia*, *antzea*, *antza*, semejanza de hinchado y vano.

Gainerantzean, etimologia cratilotarrak euren izaerarengatik dira ezagun. Socratesek *Cratilo*-an erabiltzen dituen azalpen motak gaingiroki aztertuaz, Genettek (1976: 19-21) bere lan argigarrian, guretzat oso interesgarriak izango diren zenbait xehetasunez gain, haren etimologiaren oinarrian batez ere morfologi analisia eta paronimia daudela diosku, oso sail ñabarra dena nolabait errazturik. Ez dut estali nahi gai honetaz behar bezain sakon hitz egiteko, bien bitartean dagoen mendeetako tradizio luze eta aberatsa eta guztiz tradizio kristaua —haren alegoria etimologizante eta Kabalatik mailegatutako akrostikoetarako zaletasuna, besteak beste— berpasatu beharko nukeela. Haatik, ez dut hemen Larramendiren etimologigintzaren sustraiak berreraikitze asmorik, ezpada zehazki zer egiten duen erakusteko, gure benetako gaira —hitzberrigintzara— iristeko bitarteko gisa, hain zuzen, eta honetarako aski dira, nik uste, gorago ezarritako marra nagusi haiek. Beraz, Genetten oharpenetan oinarri harturik, harekiko erlazio zehatzago bat ezartzen saiatuko naiz.

6.3.1.1. Azterketa morfologikoa

Hitzek barruan esanahi ezkutua daukatela pentsaturik, berez bezala datorren azterketa modua hitza zatikatzea da, esanahi hura argituko diguten osagaien bila, hain zuzen. Hau bi modutara egiten zen, gaurko ikuspegitik behinik behin: legez, hizkuntzaren elkarketa eta eratorpen legez gutxi gorabehera gordeaz, ala legez kanpo, osagaiak nolani bilduaz.

Lehenengo moduaren *Cratilo*-ko adibide klasikoa *aletheia* 'egia' da (421b), zehatz-mehatz elkartu baten modura aztertua: *alè théia* 'jainkozko lasterketa':

Eta *alèthéia* (egia) besteak bezalakoa da; badirudi unibertsoaren jainkozko mugimenduagatik hala deritzala, *alèthéia*, zeren jainkozko lasterketa (*théia alè*) baita.⁹¹⁷

Bigarrenak bistan da etimologigilearen eskuak erabat aske uzten dituela nahi adina osagarri, edozein ordenatan eta behar beste letra kendu edo jarriaz deskonposaketa modu bat egiteko: operazio hauen guztion ondorioa, hitzaren esanahi ezkutua, sarritan haren glosa

⁹¹⁷ Itzulpena nirea da, hala nola ondoren egingo ditudan leku beretiko aipamen guztiak. H.N. Fowler-en ingelesezko itzulpena baliatu dut, Harvard University Press, Cambridge, 1970.

moduko zerbait izan daitekeena, ediretea da. Esate baterako, *Dionysos* jainkoaren izena *didous oinon* 'ardo emalea'-tik datorkeela proposatzen du Socratesek (*Cratilo* 406 C).⁹¹⁸

Larramendiren etimologia gehienak, esan bezala, sail honetan sar ditzakegu, dela zuzenean erdal hitza euskal zatitan deskonposatzen duelako:

Albardán, hombre holgazán, viene de el Bascuence *alberdan* o *alperdan*, que significa el que es ocioso y holgazán.

edo dela haren etimo gisa aurkezten duen euskal hitzarekin beste horrenbeste egiten duelako:

Alcalde, puede venir con toda propiedad de el Bascuence *alcatea*, que significa poder de cadena, de *al*, *alá*, poder, y *catea*, cadena.

Honela erdietsitako zatiak eskuarki benetako euskal hitz beregainak dira, Larramendik *ad hoc* batuak eta azaldu nahi duen erdal hitzera hurbiltzeko esanahi berezi batez jantziak, gehienetan, ezaguna denez, irudimen —edo, nahiago bada, inozotasun— handia erakutsiaz.

Etimologiari oinarri emateko erabiltzen dituen hitz multzoak oso izaera ezberdinekoak izan daitezke, baina ondoko sailak egin ditzakegu, dauden azpisail guzti-guztiak islatzeko asmorik gabe:

a) Euskaraz arruntak diren elkarte motak:

• 'izena + izena' menpekotasunezkoak:

HITZA	ETIMOA	AZALPENA
ADARVE	<i>adarbe</i>	lo que esta baxo de las almenas
	<i>adarbide</i>	camino de las almenas
ANDROMINA	<i>andraminac</i>	achagues o males de muger
ALICATES	<i>aricatea</i>	cadena de hilo
ARTALETE	<i>artatalo</i>	tortica hecha de pan de maíz
ARTESA	<i>artesia</i>	vallado para hazer pan
ARZON	<i>arzoya, arzoea</i>	cama para assirse
ASARABACARA	<i>basacara</i>	nardo silvestre
ATAURIQUE	<i>ataurrequia < ata, atea + aurrequia</i>	lo que está delante de la puerta

• 'izena + izena' elkarte kopulatiboak:

ARDALEAR, quedar ralos los racimos y con pocos granos	<i>mardalear < mardo + alea</i>	
ARTIMAÑA	<i>arte + maña</i>	
CHAMPURRAR	<i>chea + apurra</i>	menudencias y migajas

⁹¹⁸ Cf. Isidoroz Díaz y Díaz-ek (1982: 188, 63. oh.) egiten duen iruzkina: "...la interpretación lingüística, en que se incluye la derivación verbal o nominal (en el sentido en que usamos este concepto actualmente) y la relación con el griego (...) no siempre coincide con los criterios modernos: derivación, por ejemplo, puede también significar un procedimiento arbitrario de supuesta composición, que a veces no está muy lejos de una fantasía popular; parece significativa la etimología de *amicus* (X, 4-5): «Amicus, per derivationem, quasi animi custos... amicus ab hamo ['amua'], id est, a catena caritatis ['karitatearen katea']".

HAZAÑA	<i>ats + zaña</i>	aliento y nervio
HURAÑO	<i>ur + aña</i>	niebla y agua

• aditza + izena:

ALZAPRIMA	<i>altza + premia</i>	precisión y necesidad de alzar
PICARO	<i>picaroa</i>	temple y sazón para picar

• izena (edo iz. sintagma) + aditza, non izena = adizlaguna:⁹¹⁹

AMESNADOR	<i>ames + esna(tu)</i>	el amesnador era el que despertaba al Rey, si fatigado de pesadillas no dormía con sosiego
AÑASCAR	<i>mañascar < maña + asca(tu)</i>	lo que necesita de maña para desatarse
ARLOTE	<i>ari lotzea</i>	atado con hilos
ATISBAR	<i>atisbeatu < ateis, ateich + beatu</i>	mirar por la puerta cerrada
BASQUIÑA	<i>baso + quiña</i>	hecha en los montes

• izena + aditza, non izena = osagarri zuzena:

ARIBAR, aspar la lana en el aribo	<i>aribatu < ari + batu</i>	
--------------------------------------	--------------------------------	--

• 'aditza + aditza' elkarte kopulatiboak:

ARRESTAR	<i>ar-estu, arr-estu, artu estutu</i>	tomar, cogerlo apretado, cogerlo y apretarlo
GARRAMA	<i>arreraman</i>	tomar y llevar

• aditzondoa + aditza:

GAZAPA	<i>gaitzaipa</i>	mencionar, dezir mal
--------	------------------	----------------------

• 'izenondoa + izenondoa' elkarte kopulatiboak:

ARROZ	<i>arroza < arro + otza</i>	hinchado y frío
MANTO	<i>meantua</i>	delgado, engrandecido, soberbio

b) Ezohiko elkarteak:

• 'izena + izena' menpekotasun elkarteak, 'mugakizuna + mugatzailea' ordenan:

ADALA	<i>odiola, odiala</i>	conducto, canal de madera
ALCALDE	<i>alcate</i>	poder de cadena
ARTERIA	<i>arte + eria</i>	intermedio por donde se comunica al cuerpo la enfermedad
MAZORRAL	<i>mazorrala < zorro alea</i>	saco para granos

⁹¹⁹ Honelako elkarteak ez dira, berez, ohikoak euskaraz; halaz ere, dakigunez (§ 3.1.3) Larramendik aintzat hartu zitiuen.

- aditza + izenondoa:

ARMIÑO	<i>armiña, armiñoa < ar(tu) + miña</i>	aunque le es amargo, se dexa coger
--------	---	------------------------------------

- aditza + izena, non izena = adizlaguna

ALEVE	<i>aribe</i>	el que anda por debaxo
-------	--------------	------------------------

c) Sintagmak berezko ordenan:

- izena + izenondoa (edo partizipioa):

ALAMBRE	<i>arimear, arimea, aramear, aramea</i>	hilo delgado
ALAMIN	<i>alamin</i>	potestad amarga
ANDRAJO	<i>anderejo</i>	muñeca de niñas, que se hazen de trapos, hechas pedazos y rotas
AÑAGAZA	<i>aña gaza</i>	nodriza insulsa
	<i>añagoza, añagozoa</i>	nodriza dulce, afable, suave
AÑAZEAS	<i>mañacheac</i>	mañas menudas, mañuelas
ALBOROZO	<i>arazo gozo</i>	bullicio dulce
ASMA	<i>asmea < ats + mea</i>	respiración delicada

- izenlaguna + izena:

ANGOSTAR	<i>ango estua</i>	apretura de allí
BARANDA	<i>barrengo, barruco anda</i>	corredor de dentro
HACIENDA	<i>acien doa, doaya</i>	dote, prenda, regalo de semillas

- izena + zenbatzailea edo zenbatzailea + izena:

ANASCOTE	<i>cana asco</i>	muchas varas
ASCUA	<i>asco sua</i>	mucho fuego
PEÑASCO	<i>peñasco</i>	muchas peñas

- erakuslea + zenbatzaile orokorra:

AGUCIA	<i>au gucia</i>	esto todo
	<i>a gucia</i>	aquello todo

d) Sintagma ezohikoak edo alderantzizko ordenan antolatua:

- izenondoa + izena:

ARROGANCIA	<i>arro jancia</i>	vestido esponjoso, hinchado y vano
GIGANTE	<i>goiantea < goiantia</i>	alta o superior soberbia
PERINOLA	<i>arinola</i>	tabla ligera

- erakuslea + izena:

AGUCIA	<i>au gosea</i>	esta hambre
AVERIA	<i>au eria</i>	esta enfermedad

- izenondoa + maila-adberbioa:

ASTROSO	<i>atsoso < ats + oso</i>	totalmente puerco
---------	------------------------------	-------------------

HENCHIR	<i>andichit</i>	muy grande
<ul style="list-style-type: none"> • erdal izenondoa + euskal izena 		
MALATIA, malaltia	<i>mal + aldia</i>	mala disposición
e) Perpausak edo esapideak:		
<ul style="list-style-type: none"> • Perpaus laburrak, aditz laguntzaile eta guzti: 		
AGUINALDO	<i>aguin(du) + aldet, aldedana, aldot, aldodana</i>	aquel regalo que cada uno ofrece según su posibilidad
ALABARDA	<i>alabarda < ala bearda</i>	así es menester, assi conviene
ALBARDAN	<i>alberdan o alperdan</i>	el que es ocioso y holgazán
ALEGRAR	<i>alegueratu < alaiguera</i>	estamos u somos alentados o despejados
ANGRA	<i>an gara, guera</i>	allí somos
ARDA	<i>ari da</i>	siempre se mueve
	<i>arin da</i>	es muy ligero
ARESTA	<i>ariesta, ariezta</i>	no para hilo
ATARAZANA	<i>atera, atara + zana</i>	sacar lo que huvo
AVILANTEZ	<i>abil antustez, abil antuz</i>	anda con arrogancia
<ul style="list-style-type: none"> • Perpaus zatiak edo esapideak: 		
ALBRICIAS	<i>albiristea, albistea < al iristea</i>	alcanzar lo que se puede
ALCARAVEA	<i>alcarobea</i>	juntos mejor
ALFEREZ	<i>alfer ez, alfereza</i>	no perezoso, ni poltrón
AMAGO	<i>ama jo</i>	pegar la madre
ANCON	<i>ancheon</i>	allí bien, estamos allí bien
ANGARO	<i>an garra</i>	allí llama de fuego
ARROJAR, ARROJO	<i>arro jo</i>	pegar + sobervio
CONTRARIAR	<i>contra ari</i>	andar u estar haziendo en contra
<ul style="list-style-type: none"> • Perpaus edo esapide oso laburtuak: 		
ADALA	<i>adala < adiala, andiduala</i>	que salga o sale por allí
ADEMAN	<i>adieman, aditzera eman</i>	dar a entender
ALGARABIA	<i>algara + abia(tu) como si dixera algaraz abia</i>	empezar un modo de hablar descompassado e ininteligible
ALGAZARA	<i>algaraz ara</i>	con algaras y gritos a ellos
ALMENDRA	<i>alic mendrea</i>	lo más delicado
ARLEQUIN	<i>arnequin < ari-enequin</i>	andar conmigo
ARZON	<i>atze on</i>	bueno es assirse
	<i>jartze on</i>	bueno para sentarse
f) Hitz eratorriak:		
ADARGA	<i>adarca</i>	a golpes de cuerno o de rama
	<i>adarguea</i>	sin ramas ni esquinas
ALARACA	<i>alara + -ca</i>	
ALBOROQUE	<i>alboraquia</i>	el agasajo que se da a los que dan la <i>alborada</i>

ALGARADA	<i>algara + -da</i>	
ANCHO	<i>andicho</i>	grandecito
ARISCO	<i>arinsco, arinscotea</i>	ligero, fugaz
	<i>arrisco, arriscotea</i>	duro como piedra
ARTEJO	<i>arteco</i>	intermedio
AURRAGADO	<i>aurraca, aurreraca</i>	a empujones, a saltos
RALEA	<i>arralea</i>	lo que va de varón en varón

g) Atzeranzko eratorpena: *Cratilo*-ko adibidea *hōrai* ‘urtaroak’ (410 C) da:

hōrai neguak eta udak eta haizeak eta lurreko fruituak mugatzeko dira; eta mugatzen dutenez gero (*horizein*), benetan *hōrai* deituak izan daitezke.

Ezin esan dezakegu ziurtasun osoz Larramendi zenbat bider baliatu zen honetaz, nahiz eta halakoak egiteko haren gaitasun eta joera jadanik ezagutu (§ 5.4). Eskura dauzkadan adibiderik argienak, zalantzagabekoak nire ustez, lau dira:

- Euskarazkotzat jotzen duen *ardit*-etik (ik. s.v. *ardite*) eratortzen duen *dita*:

Dita, seguridad que se da de que se pagará lo que se toma comprado o prestado, es voz Bascongada *ditá*; y por esso a la moneda, que es la seguridad pronta de lo que se compra, llamamos *arditá*, que significa toma la seguridad, de *ar*, *artu*, tomar, y *dita*, esta seguridad.

- *artez* ‘zuzen’-tik ateratzen duen *arte*.⁹²⁰

Arte, facultad que enseña a hazer rectamente las cosas, viene de el Bascuence *arte*, *artea*, que en un dialecto significa rectitud, derecha, y assí dezimos *banoa artez artez*, voime en derecha, derechamente, y a los caminantes dirigimos con la misma voz *zoaz artez artez*.

- gazt. *aderezar*-en *adreztu* etimotik (cf. § 5.4.1.c) erauzten duen *ad(e)re/a* erroa:

Aderezo, viene de el Bascuence *aderea*, *adra*, que significa regla, orden.

- *arilko* ezagunetik eratortzen duen *arilla*:

Ovillo, viene de el Bascuence *arilla*, que significa lo mismo, y es síncope de *aribilla*, *ariboilla*, redondo, globo de hilo, o de *aripilla*, junta, montón, colección de hilo.⁹²¹

Hala eta guztiz ere, badira bestelako lekukotasunik ezagatik antzeko asmakuntzak diruditen bi hitz: *akara*⁹²² “nardo” eta *alara* “cacareo”.⁹²³ Tamalez, oso zaila dateke etimologiak hitza eragin duen, ala hitzak etimologia, datu positiboek (hots, nonbait erabiltzen direlako

⁹²⁰ *MDELV*-ko etimologiari (*arte* + *-ez* ukapena, ‘no artero, justo, recto’, s.v.) ezinezkoa deritzat; Larramendiren interpretapenak du, ene ustez, egiantzik handiena.

⁹²¹ Halabeharrez, *aribil* lekukotuta dago (Aq 432 (AN), ap. *OEH*, s.v.) eta, dena dela, oso posible da benetako etimologia izatea (cf. *MDELV*, s.v. *haribil*): *-bil* osagaiaz ik. Mitxelena 1955: § 162 eta 1969a: 108. Azpimarratu behar da, dena dela, Larramendik aieruz proposatu zuela, bazenik ere jakin gabe, orain izarrarekin markatuko genituzkeen formen antzera, alegia.

⁹²² Hauxe dateke *akara*-ren jatorria: “Asarabacara, o asaro, yerba olorosa que llaman nardo silvestre, se tomó de el Bascuence *basacara*, que significa nardo silvestre, de *acara*, nardo, y *basa* o *basacoa*, silvestre”. *OEH* ere (s.v.) iritzi honen aldeko agertzen da: “Consideraciones como las de Louis Deroy, Liège, *Glotta* 1956, 188, carecen de valor, ya que *akara* parece ser una creación de Lar. Sin embargo en *VocNav* s.v. *acara* [sic] se dice que es nombre vulgar del nardo en todas sus variedades, poniendo como testimonio el valle de Bertizarana. Pero Lcq [Lakoizketa], natural de él, escribe *akara* y lo atribuye a Larramendi”.

⁹²³ Atzeranzko eratorria balitz, bi sarrerotan genuke jatorria: “Alaraca, voces, gritos, es voz Bascongada, compuesta de *alará*, cacareo de gallina, y la terminación *ca* pospositiva (...); y para dezir que está cacareando la gallina, dezimos *alaraca dago*, *cacarezca dago*” eta “Alarido, viene de el Bascuence *alara*, cacareo”.

egiaztapenak) bakarrik zalantza uxatuko bailukete, baina, hautatzekotan, eratorri modura ziurragotzat emango nuke *akara, alara* gutxienez esapide batez (“dezimos”) lagunduta baitator.⁹²⁴

h) Hitz deklinatuak:

ALEDAÑO	<i>aldedaño, alderaño</i>	hasta las vezindades
ALMENARA	<i>almenara</i>	a la almena
ARDID	<i>ardi, ardiz</i>	oveja, de oveja
ASSAZ	<i>asse, asseaz</i>	con hartura, satisfacción, demasía
ATRAS	<i>atzeraz</i>	

6.3.1.2. Paronimia

Socratesek paronimia eta homonimiari etekin handia atera zien: “*gunè* (emakumea) iruditzen zait *gonè* (sorkuntza)” (414a), “*boulè*-k (asmo) *bolè* (tiro) adierazten du” (420c), “*hèmèra* (eguna) *himérô*-k (desiratu) azaltzen du” (418c) edo *sôma* ‘gorputza’-ren etimologia ospetsua:

Batzuek diote arimaren hilobia (*sêma*) dela, bertan lurpetuta bezala baitago bizitza honetan; bestek, berriz, beraren bitartez arimak adierazten duen guztia adierazten duenez gero, “zeinua” (*sêma*) izena ongi dagokiola diote. Baina, nire iritziz, Orfikoak asmatu zuten izena, arimak bere hutsak ordaintzen dituela eta, beraz, gorputzean presondegian bezala gordeta (*sôzêta*) dagoela uste izanik. Gorputzak, izenak adierazten duen bezala, arimaren gordetzaila (*sôma*) da, zorra kitatzen duen arte, eta honela ez dago letrarik aldatu beharrik ere (400c).

Bistan da halako loturak ezinbestean errazagoak izan litezkeela hizkuntza beraren barruan ari beharrean, baldin eta bi hizkuntzaren artekoa egiten bada, gure kasuan bezala. Honegatik, erabat espero izatekoa den bezala, hots-antzekotasunak izugarriko garrantzia dauka *HH*-ko etimologietan. Alde batetik, hemendik sartzen dira etimologia modernoak cratilismoaren munduan, Larramendirentzat oraindik hots-mailako azterketa esanahi gutxiko kontua baitzen, izan ere. Bestetik, esan gabe doa “morfologikoki” aztertutako hitzak beti ere zati homonimo edo paronimotan banatu zituela edo, hitz lauz esanda, erdal hitza ikusita burura etorri zitzaizkion hots bereko edo beretsuko hitzak haren konposaketan nola erabili eta semantikoki nola zuri zitzakeen ahalegindu zela. Eta bestetik, azkenik, eta hauxe da orain bereizi nahi nukeen saila, paronimiak berak, beste laguntzarik gabe, iradokitako hainbat eta hainbat etimologia kausitzen dugu, era ezberdinetara. Ikus ditzagun adibide batzuk:

1) Homonimoak:

AL	<i>al</i>	poder
ALDA	<i>alda</i>	lado
ALDEA	<i>aldea</i>	cerca, cercanía, al rededor y al lado
AMA	<i>amá</i>	madre
ARANA	<i>arana</i>	ciruela (“y no sé cómo o por qué se aplicó en Castellano a significar la trampa”).

⁹²⁴ Dena dela, aipagarria da Azkuek bildutako esanahikide guztietarik (eta hogoetik gora jaso zituen *AHA*-ren arabera), batek ere ez duela ez eta antzik ere aztertzen ari garenarekin. Esan gabe doa *msLond*-en bitartez jaso zuen *alaratu* (G) “cacarear”-ek, azken finean ez duela *HH* baino beste bermerik.

ARRA	<i>arra</i>	palmo, toda la mano estendida / gusano / varón, macho contrapuesto a la hembra
ASCO	<i>asco, asqui</i>	mucho
HANZO	<i>antzoa, antza</i>	parecer, semejanza, semblante
HAZA	<i>aza</i>	berza

2) Paronimoak:

AGASAJO	<i>guizagajo</i>	hombre digno de lástima
AGREGAR	<i>gueregar, guregar < gueregatu, gueregatzea, guereganatzea</i>	juntar para nosotros
AJOLIO	<i>azolio</i>	las verzas cocidas con azeite
ALBA	<i>alboa</i>	vezindad y cercanía
ALBENDA	<i>albenia</i>	orilla, estremidad
ARGÜIR	<i>arguia edo arguitu</i>	luz / dar luz, alumbrar
ARIENZO	<i>aricho</i>	carnero pequeño
ARROBA	<i>arrobia</i>	cantera
ARRONZAR	<i>aronza(tu), arronza(tu)</i>	hazerse más allá
ASIR	<i>atzi(tu)</i>	coger, agarrar lo que se escapa
ASPA	<i>aispa, aizpa</i>	hermana de hermana
ASSISIA	<i>assi, assitzea</i>	empezar
ATACAR, atar los calzones	<i>estecatu</i>	atar
ATERIR	<i>ateri</i>	cielo y ambiente despejado de nubes y lluvias
ATRIO	<i>ataria</i>	atrio, portal, zaguán y delantera de la casa
AZUCENA	<i>zucena</i>	derecha
BASTO	<i>asto</i>	borrico
HAZA	<i>azaoa</i>	haz
	<i>acia</i>	semilla
MAULA	<i>aula</i>	insulso, insípido
RAYA, cierto pescado	<i>arraya, arraina</i>	pescado

3) Paronimo eratorriak, hots, etimotzat erroa edo errotzakoa aurkezten dutenak:

• Izenetik eratorritako aditzak:

ABARCAR	<i>abarca</i>	
ABAHAR	<i>aboa, aua, aoa</i>	boca
AGARRAR	<i>garra</i>	llama
AHOGAR	<i>ahoa, aoa</i>	boca
AHORRAR, dar libertad al esclavo	<i>ahaurra</i>	hijo
AHORRAR, reservar lo que se avía de gastar	<i>ahorra, ahurra</i>	mano medio cerrada
ALEAR	<i>alea</i>	grano
AMAR	<i>ama</i>	madre
AMARRAR	<i>marra</i>	raya o término
	<i>amarra</i>	cangrejo

ANDAR	<i>anda</i>	un género de literilla, y también un corredor oportuno para andar
AÑUSGAR	<i>añusca</i>	tragadera
ATACAR	<i>ataca</i>	resguardo de maderas que defiende a las heredades de las bestias

• Erdal atzizkia hartu duten izenak:

AMESNADOR	<i>amets</i>	sueño (“añadiendo la formación latina o castellana”).
ANCIANIDAD	<i>anciña, ancina, anchina</i>	en tiempos antiguos
ARRACADAS	<i>arraca</i>	hendedura
BASCOSIDAD	<i>ba- + ascoats</i>	mucha porquería (“añadida la terminación castellana”).
BREBAGE	<i>abere</i>	bestia, ganado

• Azalpenik gabeko zatidunak:

ABREVAR	<i>aberevar < abere</i>	ganado
ADEREZO	<i>aderea, adra</i>	regla, orden
ADOBAR	<i>adoba(tu) < oba(tu), obe(tu)</i>	mejorar
AGUANTAR	<i>agoan</i>	levantarse e incorporarse
ALBOROTO	<i>bero(tu)</i>	calor, calentarse
ALERTA	<i>artá</i>	cuidado
ALMARIO	<i>armarioa < ormarioa < orma</i>	pared
ALQUICEL	<i>alquia</i>	banco
ALQUILAR	<i>alquia</i>	banco
ANDEN	<i>anda</i>	un género de literilla y corredor
ARRAYAN	<i>array</i>	apariencia y semblante agradable

6.3.1.3. Beste ezaugarri zenbait

Etimologigintza cratilotarraren ezaugarri nagusi bat, gaurko ikuspegitik begiratuta, hotsak nahierara erantsi, kendu zein aldatzeko eskaintzen duen eskubidea da: eskuarki etimologoak ez du hitza eta etimoaren artean dagoen aldearen zergatia eman beharrik duenik sentitzen. Hurrengo atalean gutxi-asko arrazoitutako aldaketei buruz mintzatuko garenez gero, komeni da lehenik azpimarra dezagun halakoak gutxiengoan daudela *HH*-an, normala ere den bezala, eta adibide gutxi batzuk mia ditzagun:

• Desagerpenak:

ASARABACARA	<i>basacara < basa + acara</i>
OQUEDAD	<i>otaquedea < ota, otea + -quea, guea</i>
ORCA	quasi <i>orzca</i> ⁹²⁵
OREGANO	<i>oregana < moregana</i>

⁹²⁵ Larramendik *DAut*-en ikasitako adierazpidea da *quasi* hau, gehienetan Covarrubias azpian dagoela: cf. s.vv. *birlo* (“Bolos con que se juega, según Covarrubias; y el Brocense, citado por él, dice se llamó así quasi pirlos”), *biznaga* (“En lo antiguo se decía Bisnaga, y Covarr. dice se llamó así quasi Bisnata, porque la misma corona que hace con toda la maceta, hace con cada uno de sus palillos; pero después el uso común ha mudado la s en z”), *botarga* (“Pudo decirse quasi Bota larga, por ser toda de una pieza que empezaba en la cintura y llegaba hasta el tobillo”), etab.

• Letra aldaketak:

AMAGO	<i>ama jo</i>
ANCON	<i>ancheon</i>
ORDEÑAR	<i>ordaña</i>
PEBETE	<i>pebetea < quebetea < que + betea</i>
RECOVECO	<i>goicobeco < goico + beco</i>

• Agerpenak:

ALQUILAR	<i>alquia</i>
ARTOCREAS (gr., s.v. <i>pastel</i>)	<i>artorea < arto + orea</i>
EMBARAZO	<i>arazoa</i>
PICAÑO	<i>picañoa < picaña</i>

Alabaina, ezpairik gabe ezaugarri nagusia esanahiari eskaintzen zaion erabateko arreta da.⁹²⁶ Behin forma antzekotasuna somatu eta gero, edota aldi berean, etimologia borobilak egiteko ezinbestekoa zen adierazleak semantikaren aldetik hurbiltzea, nahiz batzuetan elkarrengandik oso urruti egon. Honetan datza tankera

honetako etimologiaren ahultasunik handiena, dagoeneko garaiko hainbat aditu (gorago Quevedo eta Diaristak aipatu ditugu, adibidez) ohartu ziren bezala, baina, halaber, bertan zegoen jokoaren gakoa, orduko —eta batzuetan gaurko— jendea katibatzen zuena: “izan liteke” hori, iradokimenez betea, norberak asmatuko ez lituzkeen lotura harrigarriak begietaratzea jomugatzat daukan artea. Aldartearen arabera etimologoak batzuetan aise, bestetan hari-harian dabilta, gorabehera hauengatik gehiegi kezkatu gabe, eta logikoa ere bada, ezen bai baitirudi *onomatourgos*-aren benetako asmoa bete-betea asmatzea, Jainkoaren helburuak ezagutzea bezain gaitza zatekeela.

Beraz, era askotako azalpenak kausitzen ditugu *HH*-ko etimologiaren artean: lotura erraza eta euskaraz esanahi egoki xamarra dauzkaten hitzetatik hasita (*peñasco*) azalpen luzea eskatzen dutenetaraino (*porzelana*); fonetikak behartutakoetatik (*ganzúa*) ohiturak jasotzen (*gerigonza*) zein irakaspen moralak ematen dituztenetaraino (*gobernar*); esanahi ezkutu aski poetikoa daukatenetatik (*garrocha*, *orobias*), erabat badaezpadakoa (*gañán*, *gorra*) daukatenetaraino:

- Ganzúa, es voz Bascongada, síncope de *gacoitsua*, que quiere decir llave ciega...
- Gañán de Pastores, viene de el Bascuence *gañean*, encima, y el Gañán tiene como encima y sobre si a los demás Pastores y Mayorales a quien sirve.
- Garrocha, es voz puramente Bascongada, y significa fuego u llama fría; pues aunque lo está el hierro, en picando al toro, lo enciende como si fuera llama.
- Gerigonza, acción ridícula y estraña, es de el Bascuence *serigonza*, y viene de *aseridanza*, que significa bayle de zorras, y se practica en muchos lugares de el Bascuence, con mudanzas y acciones tan ridículas y estrañas, que a todo lo disparatado y ridículo dezimos que parece *aseridanza*...
- Gobernar (...). Latín y Castellano vienen de el Bascuence *gubernatu*, y díxose assí, o de *gu-ernatu*, o de *guci-ernatu*, y quiere dezir hazernos a todos vigilantes y despiertos, como lo debe el que gobierna a los otros...
- Gorra, gorro, es voz Bascongada *gorra*, y significa sordo; y porque la gorra, siendo grande, cubre las orejas y ensordece entre tanto, se le dio el nombre.

⁹²⁶ Ezaugarri berbera azpimarratu du Leroy-Tucanek (1991: 55-60) Ménage-ren etimologietan (1694).

Orobias, incienso de los más finos, *orobia*, de donde se tomó, y quiere dezir todo se va y consume, como sucede a esta especie de incienso...

Peñasco, voz Bascongada, *peñascoa*, que significa muchas peñas...

Porcelana, voz Bascongada, que la tomó el Castellano y Francés. A ciertos vasos que se hacían en lo antiguo de unas conchas blancas enlazadas entre sí, llamaron porcelanas, y al pescado que daba aquellas conchas también. Compónese de *lana*, que es trabaxo, y *porcela*, y en otras partes *brocela* significa aquel carro que se haze de mimbres enlazadas entre sí: y porque la fábrica de aquellos vasos se parecía en el trabajo y modo al con que se hacían estos carros, se le dio el nombre de *porcelana*; y de aquí por semejanza.

6.3.2. Sistemaren berrikuntzak

XVIII. mendeko etimologia ez da inondik ere arrazoiaren mundua: urteak beharko ziren oraindik Hizkuntzalaritza Konparatua eta Historikoa jaiotzeko. Alde askotatik, baina batez ere germanikoarekiko erlazioan egindako aurrerapausuengatik, besterik esan daiteke 1755 baino lehenagoko ingeles hiztegietan aurkitu ohi den etimologi informazioaz, adibidez; eta, halaz ere, honako hitzokin aurkezten dute haren egoera Starnes eta Noyes-ek:⁹²⁷

It was not the fault of the eighteenth-century lexicographer that the science of etymology was slow to develop and that he was therefore committed to much guesswork and error (Starnes & Noyes 1946: 195).

Nolanahi, garai haietan egin ziren hizkuntzen arteko konparaketaren lehenengo urratsak; Malkielek (1996: 19) orduko etimologoen maileguak aurkitzeko zeukaten talentu handia azpimarratzen du eta, bestalde, ezaguna da lotura nabarmenen bat zeukaten hizkuntzen artean (Larramendik hobekien ezagutzen zuen munduan, latina eta gaztelaniaren artean, demagun) hots-egokitasun zenbait —*avant la lettre*, jakina— bazirela ohartzera ere iritsi zirela.⁹²⁸ Nolabait esateko, etimologigintza zaharrak altzoan zeuzkan gerokoaren haziak. Adibidez, S. Isidorok jadanik etimologia *ex causa* (“zer den”) eta *ex origine* (“nondik datorren”) moduen artean berezten jakin zuen (Díaz y Díaz 1982: 87). Garibaik (1571: I, 83-84), *briga*-ren esanahia zehazteko, al. *-burg*, ing. *-lant*, fr. *-dunum*, it. *-encia* eta gr. *-polis*-en lekukotasunak aipatzen ditu. Dena dela, halako aurrerapenak tradiziozko pentsamoldearen barruan —edo gehiegi atera gabe— egin ziren neurri handi batean.

Ez genuke, horraitio, etimologia modernoaren *HH*-ko ekarria orain artean bezainbeste gutxietsi behar. Tovar-ek (1980: 71) jadanik esan zuen Larramendiren etimologietako zenbait onak (gazt. *achicar* < eusk. *txiki*), oraindik ez gairituak (gazt. *asco* < eusk. *asko*) edo eztabaidagai dirautenak (gazt. *bizarría* eta *bruces*) direla.⁹²⁹ Haatik, Larramendik etimologo gisa dauzkan ekarpenik interesgarrienak, ezpairik gabe, bestetan dautza: lehenengo eta behin, bi hizkuntzen arteko erlazioa —ia beti lehenbizikoz (ik. § 11 salbuespenetarako)— neurtzen

⁹²⁷ Itxuraz etimologiez hain zuhur mintzo zen Quevedo bera, gazt. *arca*, *mar*, *ala*, *ventre*, etab. hebreetik zuzenean eratorri zituen, latinezko etimoak alde batera utzita (Lope Blanch 1990: 157, 21. oh.).

⁹²⁸ Aldrete da, inondik ere, izenik gailena Espainiari dagokionez: ik. Nieto 1975.

⁹²⁹ Benetan harrizkoa da itxuraz euskararen apologista guztiak arakatu zituen ikerketa honetan, aintzat hartzekotzat eman zituen etimologia hauek guztiak azken finean Oihenartenak direla ez ohartzea (ik. § 11), honen etimologiak ere aipatu arren (Tovar 1980: 56-57).

hasteko bikote mordo bat —batzuk nabariak, baina besteak ez— biltzea, erlazioaren norabidea gorabehera. Kultismoak alde batera utzita, honako hauek aipa daitezke A letran bakarrik:

aberats eta *abere* (gazt. *haber*), *abiatu* “empezar” (gazt. *abiar*), *adobatu* “remendar” (gazt. *adobar*), *ailorbe* (gazt. *alholba*), *aingira* (gazt. *anguila*, lat. *anguilla*), *aingura/angura* (gazt. *ancora*, lat. *anchora*), *aitzakia/atxakia* (gazt. *achaque*), *alberdania* (gazt. *albardania*), *albriste/albiste* (gazt. *albricias*), *aldamio* (gazt. *andamio*), *alkandora* (gazt. *alcandora*), *alkate* (gazt. *alcalde*), *aloza* (gazt. *alforza*), *alxatu* (gazt. *alzar*), *altzairu* (gazt. *acero*), *anka* (gazt. *anca*), *anpulu* (gazt. *ampolla*, lat. *ampulla*), *antzar* (lat. *anser* > gazt. *ganso*), *area* (gazt. eta lat. *arena*), *aroi* (gazt. *harón*),⁹³⁰ *arpoi* (gazt. *harpón*), *araka* (gazt. *raja*), *arrapatu* (gazt. *atrapar*), *arras* (gazt. *ras*), *arrastatu* (gazt. *arrastrar*), *arroka* (gazt. *roca*), *arropa* (gazt. *ropa*), *arzo/arzoi* (gazt. *arzón*), *asmatu* (gazt. zah. *asmar*), *atzaga* (gazt. *zaga*), *autatu* (gazt. *optar*, lat. *optare*), *azenia* (gazt. *aceña*) eta *azerta(d)u* (gazt. *acertar* “suceder”).

Nolanahi ere, begiak gehiago edo gutxiago zorrozteaz beste lanik eskatzen ez zuten lotura hauetaz gain, badira Larramendiren etimologigintzan txit azpimarragarriak eta hizkuntzaren filosofikotasunaz kanpoko kezken adierazle diren zenbait ezaugarri. Alde honetatik, jadanik aipatu ditut cratilismoari ezertxo ere zor ez dioten etimologia zuzenak, hitz zatikatze gabekoak; beste horrenbeste esan dezakegu han-hemen ematen duen euskarari buruzko informazioaz (atzizkien balioak, familiako hitzak, euskalki aldaerak, esapideak, etab.) eta noizik behin hots ezberdintasunari eskaintzen dion arretaz. Azken hau dela eta, nahiz gehienetan, ezer esatekotan, *contracción* eta *síncope* Larramendirentzat bederen esanahikideez (ik. adibidez *almea*, *arlequín*, *asco*, *ganso*, *imán*, *obra* edo *ovillo*) eta *trastocadas las letras* edo *trastocadas las sílabas* bezalako iruzkin cratilotarrez (ik. *vaho* eta *mastranzo* hurrenez hurren) baliatzen den, ez gutxitan bitarteko urratsak proposatzen ditu⁹³¹ eta gutxi batzuetan joerak aipatzen.

Ezin naiteke gehiegi luzatu azterketa berezi bat eskatuko lukeen gai honetatik. Halaz ere, gorago esan bezala, Larramendik gauzak “bestela” egiteko eredurik izatekotan, *DAut*-en eta Oihenartengan batez ere aurki zitzakeen eta, beraz, alderdi honi begiradatxo bat emango diogu hurren.

6.3.2.1. *DAut*-en eredia

DAut, ziurrenik, etimologiaz joera modernoek eman zezaketenaren islapen ona da, batez ere erakusten duen neurritasunarengatik: “Quando se hallare venir la Voz de otra Lengua, no averiguarle de más arriba su Etymología” (1726: xvi) da egitamuan agertzen den puntuetarik bat. Halarik ere, eta alde tradiziozko pentsamoldearen arrasto argiengatik,⁹³² alde

⁹³⁰ Erlazio hau ez da *MDEL V*-n agertzen.

⁹³¹ Cf., esate baterako, “Acero, es de el Bascuence *altzairua*, que pronunciado *altzairo*, quedó en acero” edo “Perinola, es voz Bascongada *perinola*, y se dixo de *arinola* (...) y añadida la afirmación *ba* se dixo *barinola*, y después *perinola*”.

⁹³² “Discurso proemial sobre las Etymologías”-eko hasiera (1726: xlvi) ekartzea aski izango da, arbitrariotasunaren eta hitzarmenaren alde agertzen bada ere, ez baitu adierazia eta adierazlearen arteko lotura ukatzen: “La Etymología de una Voz es el origen o principio que tuvo para su formación o significado: y así el estudio de las Etymologías es procurar saber y descubrir el verdadero origen o principio de cada Voz: pues si bien éstas se definen rigurosamente, que son significativas al arbitrio y común consentimiento de los hombres, a éstos los debemos suponer racionales, y que al tiempo de

bere iturrien ñabartasunarengatik,⁹³³ tradiziozko etimologigintzaren isla nabariak daude, eta Larramendik bezala begiak hartara eginak zituenari ez bide zitzaizkion oharkabea igaroko; gaurkoetatik gertu-gertu dauden hainbat azalpenen aldamenean, honelako pitxiak —ez gutxi, baina ez bakarrik, Covarrubiasi jarraiki— jasotzen ditu:

Dícese Enojo, porque assí como qualquiera cosa que nos lastima en los ojos la sentimos mucho, de la misma suerte los afectos fuertes de ira, cólera y otros que causan inquietud y pena, salen a los ojos, y se echan de ver en lo que los encienden, inflaman y conmueven; y aun quando alguna cosa nos da enojo decimos que apartamos los ojos de ella, como cosa que aborrecemos (s.v. *enojo*).

Covarr. dice se dixo a *Serpendo*, porque va cundiendo, y que pudo tomarse del Hebreo *Seraph*, que vale fuego inflamado, que quema (s.v. *sarampión*).

Dena dela, “Discurso proemial sobre las Etymologías” deritzan hitzaurreko pasartean (1726: xlvi-lx), etimologiaren zailtasunak eta altxatzen dituen mesfidantzak garbitzen saiatu ondoren, benetan gaiaren mamian sartzen dira, gaztelaniaren jaiotza nola dakusten azalduaz. Besteak beste, atal honetan nabarmenena hotsei eskaintzen dieten garrantzia da; arabeaz honela mintzo dira:

...la irrupción de los Arabes, de quienes nos ha quedado el freqüente uso de la J, el pronunciar como ella la X en algunas palabras, y el general sonido de la G gutural en las vocales E y I (1726: lv).

HH-aren etimologietan eta etimologigintzan orohar DAut-ek izan duen eragina alderen alde eta behar bezala ezagutzeak, nire helmenetik kanpo dagoen etimologiaz etimologiako azterketa eskatzen du. Oraingoan, beraz, aipatutako atalean zehazten dituzten etimologia ziurretarako arauak —aholkuak, egiatan— Larramendiren jokabidearekin erkatzen saiatuko naiz:

(1 eta 2) Hitzaren esanahiari begiratzea: “...no hai mayor seña de la filiación que el común significado, aunque se diferencien en mucho las letras” (*ib.* lvi); eta itxurari kasu gehiegi ez egitea (“Sean exemplo *Hijo* de *Filius*, *Páxaro* de *Paser*, *Apremiar* de *Premere*...” *ib.* lvii). Lehenengo bi aholkuak, esan gabe doa Larramendirengan oihartzun argiak dituztela.

(3) Liburu zaharrei begiratzea, haietan etorkizkotik hurbilago dauden aldaerak —gure erara esanda— idorotzen direlako (“Sea exemplo la Voz *Consejo*, que en lo antiguo del *Consilium* latino se usó mui freqüente *Conseillo*” *ibid.*). Cf. HH-an *malatía* (ant. *malaltia* < gazt. *mal* + eusk. *aldia*).

(4 eta 5) Hitzen bukaerei —atzizkiei— ez arretarik ipintzea, hauek hizkuntzak bere bereak dituen osagaiak direlako (“El exemplo está claro en los adverbios de modo, los cuales en nuestro Idioma se acaban en *mente*: como *Claramente*, cuya terminación separada, queda el adverbio Latino *Clarè*...” *ibid.*). Eta hizkuntza biziek hitz berriak sortzen dituztela gogoratzea (“Esto se ve claro en los Nombres substantivos acabados en *ento*: como *Conocimiento* de *Conocer*...” *ibid.*). Cf. HH-an jadanik aipatu ditugun paronimo eratorriak (§ 6.3.1.2).

formar las Voces, más se movieron por razón, que por capricho: y el fundamento de esta razón es lo que se llama Etymología, por ser la raíz y principio que tuvo la Voz, o que tuvo su significación”.

⁹³³ DAut-en sinkretismoa, horrela dei baldin badakioke, badirudi irizpide finkorik gabe erabilitako iturri ezberdinei zor zaiela, oso ondorio ezberdinetara iristen baita Covarrubias, Nebrixa ala Alcalá erabili.

(6) Latinetik gaztelaniara zuzenean datozen izenetarako, gaztelaniazko pluralari eta latinezko akusatibo pluralari eta gerundioari begiratzea, sarritan han erabateko berdintasuna aurkitzen delako. Honek ez du interesik guretzat.

(7) Letra-aldaketei ohartzea: "...porque con el uso y la mayor facilidad de pronunciar unas por otras, o con el deseo de suavizar las Voces, se han commutado unas letra por otras, de donde se han desfigurado las Voces" (*ib.* lviii). Hogeita bat arautaraino iristen dira alde honetatik, nahiz bukaeran azalpen orokorrik gabeko hainbat aurkituko direla aitortzen duten (*ib.* § 59). Aztertutako corpusean islatzen direnak honako hauek dira:

AU > O: *ahorrar* (< eusk. *ahaurra*), *optar* (< eusk. *autatu* "con la frecuente mutación de el *au* en *o*"), *ostra* (< eusk. *austerea* "con la mutación frecuente de la *au* en *o*") eta *obra* (< eusk. *aubra*).
 I > E: *arrecife* (< eusk. *arrizpe*), *pella* (< *pella* < *pilla*), *pelota* (< *pillota* < *pilla lotua*), *rebato* (< *errebatoa* < *erribatua*).
 B > P: *empatar* (< eusk. *ambatatu*), *perinola* (eusk. *barinola*), *pildora* (< *pildora*, *pildorea* < *bil* + *ora*, *orea*).
 C = G: *adarga* (eusk. *adarca*), *ancora* (eusk. *a(i)ngura*), *aurragado* (eusk. *aurraca*), *castigar* (eusk. *gaztigatu*), *enxugar* (eusk. *chucatu*).
 G > Ø: *arrimo* (< eusk. *arrimuga*).
 L = R: *aleve* (eusk. *aribe*), *alicates* (eusk. *aricatea*).
 N erantsia edo kendua: *arrancar* (< eusk. *arraca*).
 NN, NEa, MN, NIa > Ñ: *aceña* (< eusk. *acenia*).
 T = D: *assalto* (< eusk. *assalda*), *mala(l)tia* (< eusk. *aldia*).

(8) "Partículas compositivas" (adibideen arabera aurrizkiak dira denak) errotik bereizi behar direla gororatzea: zerrendan *a-*, *al-* arabigoa, *co(n)-*, *des-* (*dis-*, *de-*), *in-*, *ex-* eta *pro-*, *pre-* eta *re-* aipatzen eta adibidez hornitzen dituzte. Adibide onak izan daitezke *rescatar* < eusk. *escatu*, *escuratu* edo *ascatu* "y el *re* antepuesto", eta *garroba* < eusk. *garroba* "...y añadiendo los Arabes su artículo *al* hizieron *algarroba* y *algarrobo*, pero ha quedado sin el artículo en las dos Castillas, y en otras Provincias".

(9 eta 10) Hitz batzuk sortu zituen pasadizoak bakarrik azal ditzakeela gogoratzea (adibidetzat *bisoño* ematen dute, eta historia egiazkoa da *DELC*-n ikus daitekeen bezala); eta erabateko arbitrariotasunez sortutako hitzak direla kontuan hartzea: "Esta regla nos la dictó S. Isidoro, quien después de las que dió para inquirir las Etymologías, concluye: *Algunas Voces se engendraron, no según su calidad; si solo por el arbitrio libre de los hombres, y no se les conoce otra raíz*" (*ib.* lx).

Alderdi batetik behintzat erabat ziurra da *DAut* aurrean izatea etimologia finagoak egiteko laguntza izan zela, gaztelaniazko aldaeren artean euskal etorkitik hurbilago dagokeena erabakitzeko —edo, eszeptikokiago begirata, euskal etorkia emateko errazena hautatzeko— beta eman baitzion:

DAut	HH
ALAMBRE... antiguamente arambre: de cuya voz, por la fácil y frecuente conversión de la <i>r</i> en <i>l</i> , se vino a pronunciar Alambre, y en el Reino de Murcia, la Mancha y otras partes conserva oy su antiguo uso, llamándole Arambre.	Alambre, se decía antiguamente, y oy en muchas partes, <i>arambre</i> , y significaba al cobre. Viene de el Bascuence <i>arimear</i> , <i>arimeá</i> , <i>aramear</i> , <i>arameá</i> , hilo delgado, adelgazado; y porque se dexa labrar el cobre tan delicadamente se le dió el nombre <i>aramé</i> , <i>aramear</i> , y de ahí con el tiempo <i>arambre</i> .

<p>ALCARAVEA... Es voz Arabe según el P. Alcalá, de <i>Caravia</i>, añadido el artículo Al, con la pequeña corrupción de mudar la <i>i</i> en <i>e</i>. Algunos la llaman Alcarovea.</p>	<p>Alcaravea, planta que tiene la simiente de dos en dos granos juntos, y de aquí se llamó <i>alcarobea</i>, como aún oy la llaman otros, y <i>alcarobea</i> es puramente voz Bascongada, que significa juntos mejor, de <i>alcar</i> o <i>elcar</i>, y de <i>obe</i>. Lat. Carum, i.</p>
<p>MALATIA... En lo antiguo se decía Malaltía.</p>	<p>Malatía, en lo antiguo <i>malaltía</i>, mala disposición de el cuerpo, es voz compuesta de la voz <i>mal</i> Castellana y de la Bascongada <i>aldia</i>...</p>

6.3.2.2. Oihenarten eredua

DAut oso eredu argia da, ez bakarrik gaztelaniaren barruko gertakari asko gardenki azaltzen dizkiolako Larramendiri, baita, beherago ikusiko dugunez, etimologigintzarako gaiak ugari eskaini zizkiolako ere. Haatik, ez da bakarra: izan zituen maisu euskaldun guztietatik batek garrantzi berezia hartzen du, gaztelania eta euskararen arteko, eta euskara barruko gertakari fonetiko zenbait begi aurrean ipini zizkiolako, hain zuzen ere: Oihenarten saioak ahulak dira —*naives* esan liteke—, baina gehienetan zuzenak:⁹³⁴

1) “*l & r in hac linguâ sunt cognatae litterae*” (1656: 46) dio s.v. *alcahuete* (eusk. *arcabot*), gero s.v. *clueca* (eusk. *croca*) errepikatua, eta *ilia / iria* dela eta, “*liquida tamen L in R mutata quod ei etiam in plerisque aliis vocibus familiare est*” dio (*ib.* 55-56), *Alaua / Araba*, *angelo / añgueru* eta *celu / ceru* adibideekin. Bi letra hauen aldakortasuna *DAut*-en ere aurkitu dugu, eta bertan *HH*-ko adibide zenbait eskaini.

2) “*A & E apud Vascones sunt cognatae vocales & saepè inuicem commutantur*” (*ib.* 47) dio s.v. *ayna* (eusk. *ehiña*), eta s.v. *barragán* (eusk. *berreguin*) errepikatzen. Cf. *HH*-an, esate baterako, *empatar* (eusk. *ambatatu*), *enxugar* (eusk. *antzutu*), *espalda* (eusk. *atzalda*), *henchir* (eusk. *andichit*), *perinola* (eusk. *(b)arinola*), *sarracina* (eusk. *aserrecina*).

3) “*sunt autem B & M in Vasconicis nominibus cognate litterae & saepè inuicem commutantur*” (*ib.* 50) s.v. *buz* (< eusk. *musu*). Cf. *HH*-an, esate baterako, *beatilla* (< eusk. *meatilla*), *bocado* (< eusk. *mocadua*), *bozal* (< eusk. *moisal*, *mosyala*), *merma* (< eusk. *beramea*), *mostaza* (< eusk. *bostoñaza*).

4) “*omissa littera C*” (*ib.* 50, s.v. *cara*, < eusk. *ara*): cf. *HH*-an *caber* (< eusk. *cabitu* < *(c)abia*), *contera* (< eusk. *(c)ondoera*).

5) “*vocalem O, ab Hispanis in diphthongum at ue mutari, mox docebimus*” (*ib.* 50-51) s.v. *clueca* (eusk. *croca*) eta “*solemne est Hispanis presertim initio dictionum vocalem O in diphthongum ue vel oe mutare, ut a sonus sueno, a somnus sueño: sic pro coçar dixere coeçar & inde coechar*” (*ib.* 51) s.v. *coechar* (eusk. *coçaze*). Cf. *HH*-an *cuento (de lanza)* (< eusk. *condoa*), *duelo* (< eusk. *dolua*), etab.

⁹³⁴ Gainerako euskal etimologigileen testuinguruan (§ 11) aztertuko dugu Larramendiren etimologia zehatzetan honek izan zuen eragina: esan daiteke, inolako zalantzarik gabe, euskaldunen artean Oihenart dela kasu gehien egin ziona. Bertan (§ 11.5) antzeman ahalko dugu hobekienik, halaber, hizkuntz etimologiaren eta toponimoen etimologiaren arteko bereizkuntzaren aldetik Oihenartek egin zion ekarpena.

6) "sunt enim in hac lingua c & g cognatae litterae" (*ib.* 51) s.v. *cureña* (eusk. *greña* vel *griña*). Gorago ikusi dugu, *DAut*-en iradokizunen artean.

7) "mutatur enim saepè in lingua Iberica T in CH" (*ib.* 53) s.v. *chocho* (eusk. *tocho*). Cf. *HH*-an *tala* (*juego de*) (< eusk. *chala*), *tanda* (< eusk. *chanda*).

8) "...quia media G, consonanti S, posposita, in tenuem C transibat in ea lingua [Hispanica], quod etiam hodie seruatur in Vasconica. Sit in exemplum, vox *gara*, quae est prima persona pluralis verbi substantiui, haec, quando cum particula negatiua es componitur, G in C vel K mutat" (*ib.* 55). Cf. *HH*-an *añusgar* (eusk. *añusca*).

9) "solent enim Hispani verbis à nominibus deriuatis vocalem A praefigere, vt in his, *arrugar*, *arruynar*, *auentar*, quae à ruga, ruina & vento deducuntur" (*ib.* 45) s.v. *ahilarse* (eusk. *hila*). Cf. *HH*-an *amarrar* (< eusk. *marra*), *agarrar* (< *garra*), *atreverse* (< *trebe*).

6.3.2.3. Larramendiren bestelako lorpenak

Ezin daiteke erraz laburbildu *DAut*-etik Larramendik ikasitako guztia, itxura guztien arabera bera izan baitzuen maisu nagusi. Nolanahi ere den, Larramendiren etimologia moderno asko edota bere etimologietako ezaugarri moderno asko *DAut*-i (edo Oihenarti) bezainbat edo gehiago, berak hizkuntzaz egin zuen hausnarketari zor zaizkio, eta ez besteri. Bete-betean hemen sartzen da, oro har, euskarari buruz etimologietan eskaintzen duen informazio aberatsa.⁹³⁵

Alabaina, etimologiak era guztietako berrietan aberatsak izatea ez da kasualitatea, ez eta Larramendiren bitxikeria bat; alderantziz, honek erakusten digu euskaraz ikasi ahal izan zuena baliatzen jakin zuela etimologia hobeak, osoagoak egiteko ere. Bi adibide jar daitezke, besteren artean, hau zertan datzan erakusteko. Alde batetik, hitzak euskaraz nola eratu diren aztertuz, ez zituen hitz berriak egiteko moduak bakarrik ikasi, baita aldi berean gaztelaniatik euskarara egon zitezkeen ezberdintasun zenbait azaltzeko bidea ere, hala nola etimologietan elkartu-eratorrien ohiko aldaketak ezarri zituenean; adibidez:

-O > A: *osadía* < *oso* + *-dia*.

-l > ø: *otacusta* < *ota*, *otea* + *ikus(i)* + *-ta*; *pachorra* < *batz(i)* + *orra*; *recancanilla* < *errenka* + *ibill(i)*.

Bestetik, oso interesgarria da zenbait etimologia nola sustatzen dituen ezagutzen dituen euskal hitzekin; adibidez:

Peca (...). Parece voz Bascongada, de la qual tenemos *pecachu*, *becachua*, orzuelo u escorzuelo.

Honek inoiz lagundu egin dio *DAut*-ek baino aukera hobeak egiten; erka bitez ondoko hitzen etimologiak bietan:

ABEZARSE: "Viene de el Bascuence [*bezatu*], que significa avecindarse, parroquianarse, y *beceroa* parroquiano" (*HH*, s.v.) vs "La etymología de este verbo viene del nombre *Ve*, respecto de que la costumbre se ocasiona de repetir una cosa muchas veces. Hállase escrito en algunos autores con *b*,

⁹³⁵ Informazio mota ezberdinez ik. I, § 3.4; euskal atzizkiei buruzkoaz, § 2.

diciendo Abezar, derivándose del nombre Bezo, y así lo dice Covarrubias; pero Juan Lopez de Velasco, en su Orthographía, y otros, concuerdan en que sale de Vez" (*DAut*, s.v. *avezar*).⁹³⁶

ACORDAR: "Acordar, traerselo a la memoria, viene de el Bascuence *cordea*, que significa sentido, y *cordetú*, *corderatú*, bolver en sí, en su sentir; y el que así acuerda, le haze sentido en la memoria lo que antes no sentía" (*HH*, s.v.) vs "Significa también hacer memoria de alguna cosa que uno tenía olvidada (...). En este sentido viene este verbo del Latino *Recordar*" (*DAut*, s.v.).⁹³⁷

6.4. *DAut* etimologien eredu gisa

Aurreratu dugun hipotesia, hau da, alderdi batean baino gehiagotan etimologigintza eta hitzberrigintza ariketa paraleloak direla frogatzen hasteko garaia iritsi da. Esan bezala, eta Covarrubias euskarara itzuliz, "hitzaren etimologiaren barruan gauzaren izaera, ezaugarriak, gaia, forma izkutatuta daude, eta haietako batzuetatik hartzen du izena". Erdal hitza euskal zati ulerkorretan zatikatuaz azaltzen dituen etimologiak siniste honek sortutakoak dira denak. Gehienak euskal hitz bilkuraz —elkarte modukoez, edo elkarte peto-petoez— azaltzen ditu eta, elkarte arruntetan bezalaxe, beraz, haien nolakoa lotuta dago gauzaren nolakotasunarekin. Bada halako lotura semantikoak eraikitzeko baliatu ohi duen informazioa —elkarteetan bezalaxe— sarrienik *DAut*-ek eskainitakoa da, nagusiki (a) definizioaren bitartez, edo (b) etimologiaren bitartez:

HH	DAut
<p>(a) Alcaravea, planta que tiene la simiente de dos en dos granos juntos, y de aquí se llamó <i>alcarobe</i>, como aún oy la llaman otros, y <i>alcarobe</i> es puramente voz Bascongada, que significa juntos mejor, de <i>alcar</i> o <i>elcar</i>, y de <i>obe</i>.</p> <p>Almena, puede venir de el Bascuence <i>mena</i>, <i>menea</i>, señorío y poder, y desde las almenas se señorea el campo.</p> <p>(b) Este nombre de <i>alabastrites</i> es Griego; pero creo que lo tomó del Bascuence; porque se le dió esse nombre especialmente al alabastro, especie de vaso, por lo liso y resbaladizo que era. Pues al lugar resbaladizo dezimos en un dialecto <i>labasturia</i>, y <i>labaná</i> a una cosa que por lisa, es resbaladiza; y el <i>lambano</i> Griego se acerca al <i>labaná</i>.</p> <p>Albayaalde, polvo blanquísimo que se saca del plomo, puede venir del Bascuence <i>bayalde</i>, lo que se acerca o está cerca del cedazo: y el albayaalde se las apuesta y gana a la harina del cedazo en la blancura.</p>	<p>...y llegadas a cerrar hacen unas cabezas pomposas, y dentro de ellas nace el fruto o simiente de dos en dos granos juntos, de el tamaño de los del comino, planos por la parte que se unen, y convexos por la exterior.</p> <p>...y desde donde pueden señorear el campo y defenderse de el enemigo estando a cubierto</p> <p>Especie de vaso (...). Hacíanse de la piedra que llamaban <i>Onyx</i>, a la qual después por este uso se le dio el nombre de Alabastro, que es el proprio de estos vasos, y no significa otra cosa que resbaladizo, o sin asas. Es voz Griega...</p> <p>Es voz Árábiga, compuesta del artículo Al, y de la palabra <i>Baiaad</i>, que significa cosa que sobresale en blancura.</p>

⁹³⁶ Covarrubiasek zioen bezalaxe da, akademikoak uzkur agertu arren, eta *bezo* < lat. *vitium*; badago gazt. *bezar* ere (*DCECH*), baina hau eta batez ere *bezo* ahaztuxe zeuden *DAut*-en garairako (ik. bertan *vezar* eta *vezo*). Beraz, Larramendik lotura asmatu zuen (*bezatu* eta *bezero*-rekikoa, alegia), bidea alderantzizkoa bazen ere: argi eta garbi, garai erromantzean euskarak mailegatutako familia da (Mitxelena 1949: 92 eta 1964a: 52).

⁹³⁷ Cf. *BDEL*: "Sacado de *acordado* 'cuerdo, prudente', h. 1140, el cual viene del lat. *cordatus* íd., deriv. de *cor*, *cordis* 'corazón'. DERIV. De *cordatus* saldría **cordado*, y de éste se sacaría *cuerdo*, como hay *colmo* junto a *colmado*, *pago* junto a *pagado*".

Albórbola, arbolbola, vozería y ruido: tomóse de el Bascuence *borbora*, que se tomó por onomatopeya de el ruido que van haciendo las cosas que hierven, y otras, y así dezimos, *an dago borbor cerbait dorausquiola*.

Algunos dicen que es voz inventada y formada a semejanza del sonido y bullicio que hace el agua quando hierve, o quando halla embarazo su natural curso en alguna corriente.

6.5. Etimologiak eta euskal ordainak

6.5.1. Etimologiak eta maileguak

Mitxelenak etimologien eta euskal ordainen artean erlazioen bat bazela antzeman zuen, nahiz maileguen eremu hertsira mugatu zuen:

Larramendik bazekien, eta idazten ari ziren imitatzaileek hobeki, zerbait eta zerbait baino gehiago gorde (eta are hartu) behar genuela aldameneko hizkuntzetarik. Prest zeuden, aspaldidanik fidatuei eusteaz gainera, zor berriak ere egiteko mailegu bitartez, beharraren beharrez eta hoberik asmatzeko sormena ernatzeko modurik aurkitzen ez zenean behinik behin. Horrelako okerrak zuzentzeko tankera egokia Larramendik gehitu eta zabaldua zuen, ez aitzindaririk gabe: zorrak hartzeko bihurtzea. *Artilleria* erabiltzen genuen eta erabileraren zuzena honelaxe erakusten zaigu: “viene de el Bascuence *arte*, *rectitud*, y de *illeria*, enfermedad y golpe de muerte”, “*artilleria*, *sutumpa*, *sutumpadia*” (Mitxelena 1983a: 914-915).

Ez dago zalantzarik Mitxelenak arrazoi zuela, hein batean bederen. Adibide gutxi batzuk aski izan daitezke hau erakusteko:⁹³⁸ Lehenengo adibide multzoan, etimologiak zuritutako maileguak tradizio idatzian ezagunak ziren; zehazkiago, *atrebitu* orokorrean (Etxeberri Ziburukoa, Beriain, Pouvreau, *INav*, Xurio eta Barrutia), *arraza* Iparraldekoan (Leizarraga, Axular, Oihenart, Pouvreau, Gasteluzar eta Etxeberri Sarakoa) eta *alkanzatu* Hegoaldekoan (Kapanaga, *Viva Jesus*, Otxoa, Arzadun, Elizalde, Urkizu eta Irazusta):⁹³⁹

Alcanzar, viene del Bascuence *gainzatu*, sobreponerse, *alcanzatu*, *irichi*, *erdietsi*, *ardietsi*.
Atreverse, viene de el Bascuence *atrebi*, *atrebitzea*, y éste de el nombre *trebé*, que significa diestro y ábil para emprender qualquiera cosa. *Atrebitu*, *ausartatú*, *venturatú*.
Raza, casta, viene del Bascuence *arraca*, *arraza*, que significa lo mismo, y vienen de *arrá* varón, macho.

Bigarreanean, lehenago sekula ez lekukotutako (eta ziurrenik berri-berriak diren) mailegu bi zilegiztatzten ditu bide beraz:

Alear, mezclar o fundir plata u oro de diferentes leyes, viene de el Bascuence *alea*, grano; y se haze esta operación por granos o pedacitos, más o menos. *Aleatu*, *cillarra edo urrea nastu*, *nahassi*.
Arronzar, levarse la nao, es voz Bascongada, de *aronza*, *arronza*, azia allá, *aronzatu*, *arronzatu*, hazerse más allá, y es el fin con que se levan las ancoras, *arronzatu*.

Hirugarrenean, azkenik, etimoa euskal hitz ezaguna (mailegu zaharra) da, esanahi hurbil baina ez berekoa; ondorioz, ordainetan mailegu berria jasotzen du:

Ampolla, viene de el Bascuence *ampulua*, que en un dialecto significa gota redonda. *Ampollá*.

⁹³⁸ Maileguen eta etimologien arteko erlazioaren hedadura eta mugak lehenei zuzenean eskainitako atalean (§ 7) xehekiago aztertuko dut.

⁹³⁹ Datuak *OEH* -koak dira (s.vv.).

Alabaina, dena ez da era honetako. Etimologia batzuk argi eta garbi inolako balio praktikorik gabe (ari garen zentzuan ulertuta) egindakoak dira: etimologiaren eta mailegatzearen arteko lotura, beraz, hautazkoa da, behar edo nahi duenean bakarrik baliarazten duena. Hurrengo adibideok baieztapen honen hiru gauzabide ezberdin erakutsiko dizkigute: (1) hitzak, ziurrenik bere interes praktiko urriarreatatik, ez du ordainik jasotzen, eta eskuarki beste hitz baterako deia darama:

Alhorre, en lo antiguo era ahorro o carta de libertad, y así viene de el Bascuence, véase *ahorrar*. Assisia, voz antigua de Aragón, viene del el Bascuence *assi*, *assitzea*, que significa *empezar*, y es el significado primitivo de *assisia*.⁹⁴⁰
Assurar, quemar, viene de el Bascuence *sua*, fuego, véase *quemar*.

Bestalde, etimoa ez da ordainen artean jasotzen (2) euskaraz beste esanahi bat duen hitza delako; honek gorago *anpulu*a-z esandakoa bermatzen du, noski:

Abiar, proveer a alguno para hazer viage. Otros escriben *aviar*, y le dan otras significaciones, a mi ver importunas. Viene de el Bascuence *abia*, *abiatu*, que significa empezar alguna acción, y los viages se han de empezar por un buen abío.
Abiar, *norbait norabait ornituric bialdu*, *egorri*.
Abiado, *bideraco ornitua*. Le han embiado muy mal abiado, *chit gaizqui ornitua bialdu deüe*. Siempre camina bien abiado, *beti dabil ondo ornitua*.
Abiar, otras vezes significa simplemente encaminar u embiar, *bialdu*, *bidaldu*, *egorri*. Le embiaron a Indias, *Indietara bialdu zuten*.
Amorrar, viene de el Bascuence *amorratu*, que significa *rabiar*, especialmente el perro, y entonces más que nunca calla, y amorra. *Zaputzú*, *zaputzez isildú*.
Amorrado, *zaputzua*, *zaputzéz isildua*.

edo (3) bestelako ordainak badituelako, besterik gabe:

Abahar, avahar, viene del Bascuence *aboá*, *auá*, *aoá*, que significa boca; y *ahabar* [sic] es echar el aliento o vao lentamente y como reteniéndole, y es lo que haze la boca.
Abahar, *asnasé ematea*, *hatseman*, *atsedatu*.
Abarrancarse el ganado, meterse en parajes difíciles y barrancos: *abéreac lur epaqui zulodúnetan sártzea*, *epaizulotú*, *centernatú*. (...) Viene de *barranco*, y éste es Bascongado. Véase.
Abatanar, batanar, viene de *batán*, y es nombre de el Bascuence. Véase.
Abatanar, golpear los paños en el batán, para que se tupan y limpien de el azeyte, *bollatú*, *oyalac túmpaca garbitu*, *ta trincatu*.
Abortar, viene de el Bascuence *borta*, que significa bastardo espurio; y el Latín lo tomó también de el Bascuence.
Abortar, *bertiztu*, con las terminaciones de el neutro, *bertitzá eguin*, *bertitzaz erditzea*, *mugaitzean erditzea*, *aurra*, *seiña eguitea*, *humea botatzea*. (...) Ha abortado muchas vezes, *ascotan humea bota du*. Toma bebidas para abortar, *edariac arzen ditu humea botatzeco*, *gaizqui erditzeco*, *bertizteco*.
Abortivo, *bertitzá*, *mugaitzean jaioa*, *sortua*, *hume botatua*.
Aborto, mal parto, antes de tiempo, *bertitzá*, *erditze gaitza*, *hume botatzea*.

Aztertzen ari garen (H)A corpusean, etimologia izan arren, ordainen artean mailegua agertzen ez duten hitzak hainbat dira; oraingoz, ikus ditzagun oro har etimologiarekin inolako zerikusirik ez duten ordainak dauzkatenak:

⁹⁴⁰ Oso azpimarragarria da Aragoiko hitzek etimologietan daukaten maiztasuna: ik. *aclocarse*, *ajolio*, *ampara*, *aribar*, *arrapar*, *artica*, *assayar*, *baga*, *bahurero*, *baile*, *baque*, *baste*, *cambra*, *chapelete*, *falordia*, *garba*, *haberías*, *pavorde*, *xetar* eta *xixallo*, gutxienez; denak DAut-ek hangotzat jotzen ditu. Honek azal lezake jadanik azpimarratu den halako hitzak eredutik gordetzeko daukan joera (ik. I, § 3.4.3). Nolabait esan liteke Pirinioetako mintzairen arteko erlazioaz ohartu zela baina, aldi berean, Larramendiren hiztegiaren alderdi hau astiroago aztertzerakoan kontuan izan beharko dugu akademikoek bertako hitzak bestetakoak baino nasaikiago jaso zituztela, hizkuntzarekin erlaziorik ez daukaten gertakariengatik (Lázaro Carreter 1981: 90-91).

HITZA	ETIMOA	ORDAINAK
ABAHAR	<i>aboa</i>	<i>asnase ematea, hatseman, atsedatu</i>
ACEÑA	<i>acenia</i>	<i>errota, igara, bolua</i>
ACHAQUES de el cuerpo	<i>aitzaquia, achaquia</i>	<i>eritasunac, erbaltasunac, narriac, narriac, gaisyotasunac</i>
AGREGAR	<i>gueregatu, gueregatzea, guereganatzea</i>	<i>bildu, batu, biribillatu</i>
AHOGAR	<i>ahoa, aoa</i>	<i>ito</i>
AHORRAR	<i>ahaurra</i>	<i>cilleguitu, cileguitu, bere escuco eguin</i>
ALARIDO	<i>alara</i>	<i>oiua, deadarra, ojuá, heiagora</i>
ALBOREAR	<i>alboa</i>	<i>egunsentia asitzea</i>
ALBOROZAR	<i>berotu edo arazoa</i>	<i>poztu, bozcariotu, pozez, bozcarioz, atseguñez bete</i>
ALEDAÑO	<i>aldedaño, alderaño</i>	<i>muga, mugarria</i>
AMAGO	<i>ama jo</i>	<i>queina</i>
ANCHO	<i>andicho</i>	<i>zabala</i>
ANDAR	<i>anda</i>	<i>ibilli</i>
ANDRAJO	<i>anderejo</i>	<i>zatarra</i>
AÑASCAR	<i>maña + ascatu</i>	<i>nastu, naasi</i>
ARDALEAR	<i>mardo + alea edo ardo + alea</i>	<i>bacandu</i>
ARISCO	<i>arinsco(te), arrisco(te)</i>	<i>latza, gogorra, asserratia</i>
ARRA	<i>arra</i>	<i>escueda</i>
ARRAS de esposo	<i>arra</i>	<i>fedatzeco escuedac</i>
ARTEJO	<i>arteco</i>	<i>coratza, atzaren corapilloa</i>
ARTESA	<i>artesia</i>	<i>maira, aspirea, oramaya</i>
ASCO	<i>ats jo edo ats + -co edo asco</i>	<i>nasca, naga, narda, goragalea, goronzcoa</i>
ASCUA	<i>asco sua</i>	<i>icaz camborra, chamborra, icacioa</i>
ASOBARCAR	<i>besoarcatu</i>	<i>jaso, alchatu, goratu</i>
ASPA	<i>aispa, aizpa</i>	<i>matazura, icorosquia, astalcaya</i>
ASSALTO	<i>assalda</i>	<i>erasoa, eraunsia, acopilatzea</i>
ASSAZ	<i>asse, asseaz</i>	<i>chit ondo, chit asco, asqui</i>
ATAJAR	<i>ataca</i>	<i>bidechigorretic joan, bidechigorra artu</i>
		<i>laburtu, chiquiagotu</i>
		<i>etab.</i>
ATERIR	<i>ateri</i>	<i>otzac illa, gogortua, sortua egon</i>
ATISBAR	<i>atisbeatu</i>	<i>beguietsi, celatatu</i>
AURRAGADO	<i>aurraca, aurreraca</i>	<i>gaizqui goldeatua, presaca landua</i>
AZADA	<i>aza da</i>	<i>aitzurra, ainzurra, achurra</i>
HACINA	<i>acia</i>	<i>gabilla, pilla</i>
HARBAR	<i>aribatu</i>	<i>lasterca, urdurica eguin</i>

Izan ere, sarrera batzuetan agerriki jokatzen du etimologiaztatutako hitza euskaraz erabiltzearen alde:

Añagaza, el señuelo para engañar y coger las aves. Son dos voces Bascongadas, *aña* y *gaza* (...). Y así viene a ser Bascongada la voz *añagaza*.

Añazeas, voz antigua, ferias, puede venir de el Bascuence *mañacheac*, mañas menudas, mañuelas, y son corrientes en las ferias para las compras y ventas: y así dexaremos al Bascuence esta voz, *añaceac*.

eta beste batzuetan, aldiz, euskarak beharrik ez duenez gero, gauzak dauden-daudenean uztearen alde:

Cabildo, puede venir de el Bascuence *cabildua*, que significa colección o junta de las cabezas, de *bildu*, juntar, recoger; y de *capu*, que en Bascuence antiguo es cabeza, a quien ahora llamamos solamente *buru*. *Cabildua*.

Largo, esta voz y el Latín *largus* pueden venir de el Bascuence *larboa*, que significa va, se estiende demasiado, y es el significado de largo; o de *largoa*, *larcoa*, cosa que pertenece a la demasia y al exceso, de *lar*, *larr*, que queda explicado, y *coa*, terminación que fija el nombre al lugar, tiempo u materia, como en *barcoá*, *gaurcoa*, *echecoa*, *angoa*. Y no obstante por *largo* dezimos *lucea*.

6.5.2. Etimologiak eta hitz berriak

Orain artean, Mitxelenaren hipotesia indartsuegia dela frogatu uste dut, etimologiak ez baitu mailegua nahitaez ekartzen. Ondoko lerroetan, berriz, bestalde ahulegia dela erakutsi nahi nuke, etimologiak oro har *HH*-an jasota dagoen lexikoan eragin handia izan arren, maileguaren mugak arras gaintzen baititu, guztiz hitzberrigintzaren arloan sartzeko. Mailegu zenbait etimologiaren bitartez “bataiatu” izana, etimologiez egin duen erabileraren ondorioetatik bat baino ez da. Ez dezagun ahaztu maileguei ez diegula gure begiz begiratu behar, zorra sarritan alderantzizkoa zela uste zuen Larramendirenez baizik: etimologiaren bitartez erdararen eta euskararen artean zubi moduko zerbait eratzen da, euskal lexikoa finkatu edo aberasteko gaia haren eskuetan ipintzen duena. Gai horren erabilera nolakoa izango den —baita erabiliko den ala ez— kasuan kasuko egoeraren arabera erabakitzen du, hitza euskararentzat gordeaz (gure “maileguak”) edo haren gainean hitz berriak eginez, besteak beste.

Frogaketan hasi baino lehen, dena dela, gogoratu nahi nuke etimologia batzuetan ez dela erraza ordainik dagoen ala ez, eta zein diren asmatzea (I, § 8.3.9). Larramendiren buruan zer zegoen⁹⁴¹ eta *HH*-aren erabiltzaileek zer uler zezaketen asmatzeari ezinezkoa deritzadalarik, nik neuk hartu ditudan erabakiak azalduta daude dagoeneko eta, hortaz, hemendik aurrerako adibide guztiak ene aburuz ordain argiak direnetatik bakarrik hartuko dira.

Euskal hitzez azaldutako etimologiaren sortzailetasunaren alderdirik nabariena, azalpenerako *ad hoc* eratu duen etimoa ordain bilakatzen dueneko da, mailegua ere onartu zein ez; hona corpuseko adibide guztiak, aldamenean *EGH*-ko lekukotasunaren bermea ere eskaintzen dudalarik:

HITZA	ETIMOA	ORDAINAK	EGH
ADEMAN	<i>adieman, aditzera eman</i>	<i>ademana, adiemana, siñuz ta queñuz aditzera ematen dana</i>	<i>ademana</i> (149)
ALBARDAN	<i>alberdan, alperdan</i>	=	= (153)
ALBENDA	<i>albenia > albedia</i>	<i>albedia, albenda</i>	= (153)
ALBOROZO	<i>arazo gozo</i>	<i>alborozoa, arazo gozoa</i>	
ALEVE	<i>aribe</i>	<i>aribea, bearia</i>	= (160, 179)
ALZAPRIMA	<i>altza + premia</i>	<i>alzapremia</i>	= (154)
ANDROMINA	<i>andraminac</i>	<i>andraminac</i>	= (157)
ANGRA	<i>an gara, guera</i>	<i>angara</i>	= (157)

⁹⁴¹ *EGH*-aren lekukotasuna, alde honetatik erabakigarria izan daiteke, baina gogoratu behar dugu hasikinetan baino ez dagoen hiztegia dela: beraz, egotea erabakigarri izan daitekeen arren, ez egotea ezin daiteke erabatekotzat har.

ARRECIFE	<i>arrizpea</i>	=	= (165)
ARRESTAR	<i>ar-estu, arr-estu, artu + estutu</i>	<i>arrestu, arrestutu, arrestatu</i>	<i>arrestu, arrestatu</i> (165)
CACHADA	<i>acachada</i>	=	= (149)
CACHARRO	<i>acats, acach + `charro</i>	<i>acacharroa</i>	= (149)
CARLEAR	<i>atsarlea</i>	<i>atsartu, carleatu</i>	<i>atsartu</i> (167)
EMPATAR	<i>ambatatu, ambatetu</i>	berak	
HACIENDA	<i>aciendea, aciendea, aciendoa < acien doa, doaya</i>	berak	
HACENDAR	cf. <i>hacienda</i>	<i>acendatu, acenduatu</i>	
PASTEL (gr. <i>artocreas</i>)	<i>artorea</i>	<i>ocorea, artorea, pastela</i>	

Berezitasunak: (1) *ademan*-en, etimoarekin erlazionatutako perifrasiak; (2) *aleve*-n, etimoaren osagaiak alderantziz ezarriaz egindako ordain berria; (3) *carlear*-en, etimoko izenetik berreraikitako aditza; (4) *empatar* dela eta, etimologiak erantsitako esanahiaz gainera, bada *HH*-an *anbat* hitz ezagunetik hasita euskararen barruan garatu den familia oso bat (*anbate* “cantidad”, *anbatetu* “contar”, *anbatari* “contador”, etab.); eta (5) *pastel*-en, etimoaren analogiaz ateratako *ocorea* (*ogi + ore*a).⁹⁴²

Neologismo guztiak ez dira hain nabarmenak. Izan ere, halako maiztasun batez etimoa euskal hitz arrunta denez gero, naturaltasun guztiaz berragertzen da ordainen artean. Alabaina, erne ibili beharra dago, inoiz etimologiak esanahi hedadura eragiten baitu, dela arina (*abarra* “barda”),⁹⁴³ dela astuna (*antzutu* “enxugar”):

BARDA	<i>abar da</i>	<i>barda, abarra</i>
ENXUGAR	<i>chucatu</i> edo <i>antzutu</i>	<i>chucatu, antzutu</i>

Bestalde, etimologiak hitzaren zati bat bakarrik azaltzen duenean, zati horren gainean eraikitzen dira ordainak, mailegua onartu zein ez:

ADEREZO	<i>aderea, adra</i>	<i>aderasquiña, adrasquiña</i>
AGUANTAR	<i>agoan</i>	<i>agoantatu</i>
ALCARRAZA	<i>garratza</i>	<i>alcarraza, alcarratza</i>
ALERTA	<i>arta</i>	<i>egon alerta, artaz egon</i>
ALQUICEL	<i>alquia</i>	<i>alqui estalquia, alquigaiña</i>
ANCIANIDAD	<i>anciña, ancina, anchina</i>	<i>anciñaera, anciñadina, anciñatasuna</i>
BREBAGE	<i>abere</i>	<i>brebagea, abredaria</i>
EMBARAZO	<i>arazoa</i>	<i>arazoa</i>

Berezitasunak: (1) *aguantar*-en, etimotik hurbilago dagoen mailegua onartu du; (2) *alcarratza* etimotik hurbilago dagoen maileguaren aldaera baizik ez dela esan dezakegu; (3) *ancianidad*-en, etimologiak zilegiztatutako euskal ordainak onak dira, baina ez horratik lotura,

⁹⁴² Cf. “Artalete, especie de empanadilla (...) viene de el Bascuence *artataloa* (...). Aora las llamamos *otaloa, otalochoa*”.

⁹⁴³ Cf. *DAut* (s.v. *barda*): “Cubierta o resguardo hecho de sarmientos, paja, espinos o broza que se pone sobre las tapias de los corrales, huertas y heredades para su conservación, asegurado con barro o piedras”. *EGH*-an ere jasota dago *abarra* “barda” (149), bide batez.

dakidalarik;⁹⁴⁴ (4) *brebage*-n, bertan aipatzen ez duen baina hitz-elkarketan oso maiz baliatzen duen *abre* aldaera (§ 3.1.6.1.c) erabili du eta, gainera, “bebida que se da a las bestias”-en itzulpena (cf. *DAut*: “Covarr. dice que es la bebida que se da a las bestias...”) eratu; eta (5) *embarazo*-n etimoa bera, euskal hitz ezaguna izaki, ematen du ordaintzat.

Alderantziz ere gerta daiteke, hau da, etimoko zati bat bakarrik baliatzea:

ADOBAR	<i>adobatu < obatu, obetu</i>	<i>obatu</i>
AGUCIA	<i>au gosea; au gucia, a gucia</i>	<i>zalea, ansia, larria, gosea</i>
ANGARO	<i>an garra</i>	<i>garmendia</i>
ARROGANCIA	<i>arro jancia edo arro antzia</i>	<i>arrogancia, arrotasuna</i>
GACHO	<i>aquezcho</i>	<i>adarraquetza</i>
MALATIA	<i>malaltia < mal + aldia</i>	<i>gaitzaldia</i>

edo etimok hitz osoa azaltzen duelarik, haren gainean hitz luzeagoak edo perifrasiak egitea:

ALGARA	<i>algara</i>	<i>zaldun algaradunac</i>
ALGAREAR	<i>algara</i>	<i>algaraz, ojuca, deadarca egon</i>
AMA	<i>ama</i>	<i>amaiñudea, agama</i>
ARDID	<i>ardi, ardiz</i>	<i>ardiqueta</i>
ARENGA	<i>aurrengo</i>	<i>hitzaurrea</i>
ARTE	<i>arte</i>	<i>equiñartea</i>
RADA	<i>arrada</i>	<i>ugarrada</i>

Bestetan, mailegua nola edo hala eransten duen elkartu berri bat osatu du:⁹⁴⁵

ARDA	<i>ari da edo arin da</i>	<i>catardea</i>
CANTO	cf. <i>Cantabria, arri cantala</i>	<i>arcanta</i>

Eta bestetan, berriz, atzizkia itzuli (bi adieretan) egin du:

ALGARERO	<i>algara</i>	<i>algararia, algaraguillea</i>
ARBOTANTE	<i>arri botaria</i>	<i>arbotaria</i>

Era batera edo bestera, beraz, etimologiak harrobi modura erabili zituen Larramendik, etimologiaztatutako erdal hitzaren euskal ordainak —sarritan bakarrak— eratzeko. Haatik, etimologiaren eragina ez da etimologidun hitzetara bakarrik mugatzen. Bide honetatik erdietsitako ordainek familia osoak osa ditzakete euskaraz:

ADOBAR	ADOBADO	<i>obatua</i>
	ADOBO	<i>obatzeta</i>
AGOANTAR	AGOANTE	<i>agoandea</i>
ALDEA	ALDEANO	<i>aldearra, aldeatarra</i>

⁹⁴⁴ Ez dakit lotura hau beste inork egin duen: *MDELV*-n, saiatu arren, hamaika aldiz aipatzen den *ai(n)tzin* sarrera iratxoia ez naiz aurkitzeko gauza izan. Esan gabe doa *antzina* oro har eusk. *aizti*-rekin lotuta dagoela; halaz ere, merezi du kontuan hartzea gazt. *anciano*-ren etimologia (*BDELC*, s.v.): “Deriv. del antiguo adverbio romance *anzi* ‘antes’, procedente del lat. ANTE íd., hoy it. *anzi*, cat. y oc. *ans*, fr. ant. *ainz*”.

⁹⁴⁵ Lehenago (§ 3.3.2.2) adibide bitxiago bat aipatu dugu: *arriloka* “lucillo”, zeinaren bigarren osagaia zuzenean datorren *DAut*-eko etimologiatik (lat. *loculi < locus*). Gazt. *lucillo*-k bere aldetik euskal etimologia izatea izan liteke horrela jokatzeko zioa: “Lucillo, es voz Bascongada, *luciloo*, *lucilloo*, que en otro dialecto es *luzuloo*, (...) de *cilloo*, *ciloo*, *zuloo*, cueva, hueco, agujero, y de *lurr*, tierra, que en composición es *lú*”.

	ALDEGUELA	<i>aldeachoa</i>
	ALDEORRIO	<i>aldeatzarra</i>
ALEVE	Hazerse ALEVE	<i>aribeatu, bearitu</i>
	ALEVOSIA	<i>beariqueta, aribeaqueta</i>
ANCIANIDAD	ANCIANO	<i>anciñacoa</i>
ARDID	ARDIDOSO	<i>ardiqueratsua (sic)</i>
ARIBAR	ARIBO	<i>aribatle</i>
ARRECIFE, calzada empedrada	ARRECIFE, suelo peñascoso de la costa	<i>ondarrizpea</i>
EMPATAR	EMPATADO	<i>ambatata, ambatetua</i>
	EMPATE	<i>ambatea</i>
BARDA	BARDAR	<i>abarreztu</i>
PASTEL	PASTELERIA, tienda	<i>ocoreteguia, artoreteguia</i>
	PASTELERIA, oficio	<i>ocorequintza</i>
	PASTELERO	<i>ocorequiña</i>
	PASTELILLO	<i>ocorechoa</i>
	PASTELON	<i>ocoretzarra, artoretzarra</i>

Larramendiren jokaera nahikoa ezagutzen dugu dagoeneko honelako zerbaitekin harritzeko, dena dela. Jakingarriagoa da, inondik ere, etimologiek erro emankor inplizitu zein esplizituak eskain ditzaketela. Erro hauek inoiz familiako hitzetan berragertzen dira: gazt. *rata* < eusk. *arratoi, erratoi* < x + *oi* 'ohea' bezalako etimologia baten ondorioa *arrat-* erro inplizitua da: cf. *arrateme* "rata, hembra de ratón". Bestetan agerrian ordain modura agertzen dira dagokien lekuan, eta hitz-familiburu emankor ere bilaka daitezke; adibiderik onena *ad(e)re/a* "regla, orden" gazt. *aderezo*-ren etimoa dukegu, *adreztu*-tik atzerantz eratorria (§ 6.3.1.1.g): *aderezo*-ren ordainak *aderaskin, adraskin* izateaz gainera, gero *adra, adrea* "regla" eta, ondorioz, *adrakai* "reglamento", *adrakaitz* "iregular", *adrastu* "reglar", *adrebage* "irregular(idad)", *adregoki* "reglar", *adrezkiro* "regladamente", etab. biltzen dira.

Etimologiaren bidez berreskuratutako erro hauek behin eta berriz, elkarrengandik urruti dauden eta haien artean familia loturarik ez daukaten hitzetan ere berrager daitezke, eskuarki etimo (edo etimo zati) diren hitzaren ordezkari modura:

LAR- (*largo*-ren etim.; ik. § 6.5.1): *atalarra* "alcaraván, ave" < *ata-* (*ate*) + *lar*. Cf. *DAut*: "Tiene las piernas muy largas, (...) el cuello y el pico también largos...". Cf. *larredan* "sobrebeber" ere (§ 4.1.30).

ME- (*membranas*-en etim.):⁹⁴⁶ *artetormea* "mediastino" < *arte* 'bitartea' + *etor(ri)* + *me*. Cf. *DAut*: "Es una continuación de la membrana llamada pleura, que haciendo un doblez en el medio del pecho, le divide de alto abaxo en parte izquierda y derecha, desde el hueso del pecho, hasta el cuerpo de las vértebras, y se extiende desde las clavículas hasta el diafragma".

ABO- (*vaho*-ren etim.):⁹⁴⁷ *aboaldia* "vaharada, el vaho que se arroja de una vez", *aboezte* "dissipar, evaporando", *aboeztu* "resolverse, dissiparse, evaporarse".

ABOAZ- (*voz*-en etim.):⁹⁴⁸ *aboaztu* "vocear, publicar, aplaudir".

⁹⁴⁶ Hauxe da etimologia: "Membranas, esta voz, que es Latina, viene, con poca variedad, de el Bascuence *mebarnac*, y significa lo interior, sutil y delicado, de *me, mea*, sutil, delgado, *barna* interior...".

⁹⁴⁷ "...es voz Bascongada *baoa*, y se dize trastocadas las letras de *aboa, aoa*, boca, por que con ella se alienta y echa el vaho, y a su semejanza el que arrojan otras cosas".

⁹⁴⁸ "El Latín y Romance vienen de el Bascuence *boza*, cuya raíz es *aboaz*, que significa con la boca, y es la que forma la voz propriamente, a diferencia de los demás sonidos".

6.5.3. Grekozko etimologiak eta hitz berriak

Gorago ikusi ahal izan dugu gr. *artocreas*-erako proposatzen duen euskal etimoa, *artorea*, ordainen artean sartu duela, baita harekin zenbait eratorri osatu ere. Hau ez da *HH*-ko etimologidun sarreretan askoz gehiagotan gertatzen, baina ale zenbait bil daitezke, hizkuntza klasiko honek ere euskal lexikoaren hedakuntzan zerikusia izan zuela erakusteko:

Dysuria, dificultad de orinar, viene de el Bascuence *usuria*, con que entre otros nombres significamos la orina, y *usuria* es síncope de *u-isuria*, *ur-isuria*, agua vertida, derramada [cf. *beherago estangurria*].

Elephante, el mayor de los animales cuadrúpedos, *elefandía*, de donde pudieran tomar esta voz el Griego y Latín, y quiere dezir el grande entre los ganados o animales mayaros, de *ele*, *elea*, animal o ganado mayor, y *andía*, grande.

Elephantino, *elefandiarena*, *elefandicoa*.

Ermita, tiene origen Bascongado, de *eremua*, *ermua*, soledad muy desierta, de donde el Griego. *Eleizacho*, *eleizchoa*.

Ermitaño, el que vive en soledad, *eremutarra*, *mortuarra*, *bacartarra*.

Erótico, perteneciente al amor, *erogarria*, *zoragarria*, *choragarria*.

Erotismo, pasión fuerte de amor, vienen estas dos voces, con la griega *heros*, de el Bascuence *ero*, *erotu*, perder el juicio, que también dezimos *zoratu*, y es lo que haze el amor. *Erogarria*, *zoragarria*.

Estangurria, esta voz es Bascongada, y assí la tomó de el Bascuence el Griego y Latín, como también la voz *dysuria*, que significa lo mismo. Viene de *estuan urria*, y quiere dezir lo poco y escaso está en aprieto, de *urria*, poco y escaso, y *estuan*, en aprieto, y assí sucede en los que padecen dificultad en la orina. También llamamos *angurria* a la sandía o melón de agua, que remeda la vegiga, y por esta analogía *estangurria* es apretura de la vegiga.

Estangurria, *estangurria*, *urisuria*.

Lethargo, viene de el Bascuence *lotarquia*, que significa lo mismo, y corresponde mejor el *lethargia* de el Latino y Griego: *lotarquia* quiere dezir el que está como muerto, tomado de el sueño, de *loac artu*, tomado de el sueño, y la terminación *quia*, que muchas vezes es nota de cosa muerta (...). Puede también venir de *lotarguia*, y significa adormecimiento de la luz, y lo es el letargo de la razón, &c.

Uretera, el cuello de la vexiga, es voz Bascongada, *uretera*, que significa sacar y salir el agua, de *ur*, *ura*, agua, y *etera*, que más comúnmente se dize *aterá*, salir y sacar.

Hiztegiaren gorputzean baino, hitzaurrean, gaiaz xeheki kezkatzen den atalean ("El griego tiene voces de el Bascuence", 1745: xiv-xvii) askoz grezierazko etimologia gehiago daude: hantxe dira gorago aipatutakoak eta baita beste zenbait ere, 22 orotara. Erkaketak berehala erakusten du iragarri gabe ere grezierazko etimologiek eragina izan dutela, eta batzuetan ez txikia:

- (1) *Acribea* en Griego es certidumbre, y es del Bascuence *agribea*, que significa lo mismo, y viene de *bea*, *beatu*, que en un dialecto es mirar, y de *aguri*, aparecer, verse; y la certidumbre pide todo esso, prescindiendo aora de la Fe (1745: xvi).

Certeza, *agripea*, *icaldea*.

Certidumbre, lo mismo.

Certificación, *agripea*, *agripetzea*, *icaldea*, *icaldatzea*.

Certificadamente, *agripequiró*, *icaldaquiró*.

Certificador, *agripetzaldea*, *icaldatzaldea*.

Certificar, *agripetu*, *icaldatu*, *ciertotu*.

Certificado, *agripetua*, *icaldatua*, *ciertotua*.

Certísimamente, *chit ciertoró*, *agripequiro*, *icaldaquiro*.

Certísimo, *chit ciertoa*, *icalá*, *agripecoa*.

Ciertamente, *ciertoro*, *icalquiró*, *agriperó*, *segurquiro*, *ciertu ciertu*.

Positivamente, *agripero*, *agripequiro*.

Positivo, cierto, efectivo, *agripecoa*.

(De) positivo, *agripez*, *agriperó*.

Postulados, principios ciertos, *escari agripeac*.

Seguridad, certeza, *segurantza*, *agribea*.

- (2) *Achras*, peruétano, pera silvestre, es de el Bascuence *acherea*, *acharea*, que significa lo mismo, y es contracción de *achudarea*, pera de peñascos o entre peñascos (*ibid.*).

Guadapero, peral silvestre, *acherea*, *macatza*, *basaudarea*, *astamadaria*.

Pera silvestre, *acherea*.

Peruétano, pera silvestre, *macatza*, *acherea*, *achudarea*, *basaudarea*, *astamadaria*.

Lugar donde ay muchos árboles de éstos, *macaztia*, *achereaga*.

- (3) *Dinasta*, príncipe, gran señor, es voz Bascongada, cuyo uso se ha olvidado y debe renovarse. *Dinasta* se dixo de *dia* y *nasta*, *dia naasia*, y quiere decir multitud mezclada y confusa.

Turba, muchedumbre confusa, *dinastá*, *dinasiá*.

Kopurua oso altua ez izan arren (nahiz eta baden Larramendiren grezierazko ezagutzari apika eta, edonola ere, grekoa eta euskararen artean ezar zitezkeen erlazio urrutikoei dagokiena), etimologia eta hitzberrigintzaren artean *HH*-an dagoen erlazio sarritan estuaren alderdi bereizi eta, gaztelania eta latinaren erabileraren aldean, are harrigarriagoztat jo dezakegu.

6.6. Ondorioak

Larramendiren etimologiak alderdi guztietatik orain artean eskaini zaien baino askoz arreta gehiago merezi dute, ezpairik gabe. Hizkuntzalaritzaren historiaren aldetik, tradiziozko etimologigintzaren adibide ona dira, zertxobait berankorrek, baina ez zeharo anakronikoak: eredu guztietan aurkitu ahal izan zituen halakoak eta, beraz, Larramendiren errua —honetan errurik bada— bere garaiari aurreratzen ez jakitean datza. Kontuan har dezagun, halaber, *DAut*-en aurrerakuntza gehienak besteren lanari zor zaizkiola, latinaren eta gaztelaniaren artean dagoen erlazioa jadanik ongi ezarrita baitzegoen, besteak beste, euskaldunak ia ezerezetik hasi behar izan zuen bitartean.

Euskalaritzaren aldetik, berriz, etimologiak bere lanaren beste atal batzuk baino oraindik argigarriagoak izan daitezke Larramendik euskarari buruz zekiena eta ez zekiena mugatzeko, bere hizkuntzaren lehentasuna frogatu beharrean zegoenez gero, halakoetan bestetan baino azalpen zehatzagoak egin zituen eta. Aldi berean, zenbait etimologiaren azpian dautzan aldaketak eta bestelako eragiketak horrexen isla ixila dira, eta azterketa xehe batek bakarrik atera ahalko ditu argitara.

Euskal lexikoaren historiaren aldetik, azkenik, etimologiek laguntza ederra eskain diezaigukete *HH*-ko zenbait hitz nola eratu diren jakiteko, zeren eta maileguak ez baitira etimologiaren ondorio bakarra, anitzetako bat baizik: arakatzen hasi baino ez, eta etimoko zatien loturaz eratutako hitz berriak, etimoaren pusketatik ateratako eratorriak, etimologiak zilegiztatutako esanahi berriak, eta beste hainbeste gertakari ezberdin aurkitu ditugu.

7. Larramendiren sorbideen bila (VI): Maileguak

Larramendiren iritziz, jadanik ongi dakigunez, maileguez hizkuntza aberastu beharrean txirotu egiten dute, bere ahalmen sortzailea garatzeko aukera —berez eta bere kasa aberasteko aukera— galarazten baitiote: hitz gutxitan esanda, mailegaketa hitzun alfer, ezjakin edota koldarren kontua da.

Kezka garbizale hau Europako hizkuntzen garai hartako —Errenazimenduaz geroko— norgehiagokan kokatu behar dugu⁹⁴⁹ eta, Lakarrak erakutsi bezala (1985a: 37-41), XVIII. mendearen hasieran gainerako euskal gramatika-hiztegiengan agertzen zaigun berbera da. Etxeberri Sarakoa (1712: 167 t. hur.) luzez mintzo da “hitz bat Latinez, bertcea francesez, bertcea Gastelaniaz, edo Italianoaz” hitz egiten duten —eta horrela “haltoquienic eta ederquienic” ari direla uste duten— euskaldunei buruz, eta azkenean hau esaten:

...esperantça içanen dut, hitz arrotz hortic eta hemendic ebatsiric Escuarari juntatcen diotçatenac, vtcico tuztela, eta escuarazcoac bilhatuco eta hau da bat-bederaren eguinbidea. *Aliena concupiscere noli, ait Cato, id est tuo contentus esto.* Dio Caton çuhurrac: Etçaren bertceren gauçen gutcios, ceurez contenta çaita (op. cit. 171).

Halaber, Martin Harrietek, labur baina zalantzagabeki, “escualdunec berce hitzcuncetaric hartuac dituzten hitcen khenceco” xedeaz ondutako gehigarri bat ateratzeko asmoa adierazten du (1741: 507),⁹⁵⁰ eta lan hura zer izan zitekeen aski ongi erakusten digu

⁹⁴⁹ Eta esan gabe doa garai berean Europa guztian antzerako adierazpen eta eztabaidak aurki daitezkeela. Adibide pare bat baino ez: XVIII. mendeko neerlandean “bastaard woord” direlakoak —latinismo eta galizismoak gehienbat— eztabaidapean zeuden oraindik, berandu arte hiztegiaren jasotzeko uzkur xamar egon ziren hiztegiak, eta batzuetan haien ordez hitz berriak proposatu zituzten (ik. Osselton 1973, batez ere 96-97. or.). Justus-Georgius Schottelius (1612-1676) gure artean hitzberrigintzagatik ezagun egin bada ere (cf. Lakarra 1995a), ez da Larramendirengandik gehiegi bereizten maileguei buruzko jarreraren ere: “Of course whenever Schottelius takes the opportunity to comment on the contemporary state of his ancient heroic mother-tongue, he animadverts particularly against any all too ready recourse to words of foreign origin” (Seiffert 1990: 245).

⁹⁵⁰ Frantsesezko bertsioan bigarren gehigarria hiztegi bat izango zela zehaztu zuen (Harriet 1741: 504).

euskara-frantsesa hiztegitxotik frantsesa-euskarakora egin zuen hautapen eta garbiketa lanak (Lakarra 1993: 147-180).

Hirurek etsai bera —ezjakintasuna— daukate, eta sendagarri bera —hizkuntzaren ezagutza— proposatzen dute; hirurek hizkuntzaren ahalmen sortzailean sinisten dute, eta hirurek hiztegiaren egiteko latzari ekiten diote, ezjakintasunaren kontrapozoia izango delakoan. Urrun xamar daude, hortaz, Leizarraga baten latinaletasunetik,⁹⁵¹ esate baterako, ezen honek baino oraindik indar gehiagoz uste baitute euskarak berak bere burua jantzi behar duela; baina euren garbizaletasuna oraindik urrunago dago, teorian eta praktikan, XX. mendean euskararen erroak berak ikaratuko zituen hartatik (Lakarra 1985a: 34 t. hur., 1993: 364 t. hur.), zeren eta, besteak beste, ez baitaukate erdal itxura daukan edozeren kontrako tema hura: ez ditu itxurak kezkatzen, hizkuntzaren garapenak baizik.

XVIII. mendeko garbizaletasuna, hitzak nahierara jarri edo kentzeko berez tokirik egoki eta errazena den hiztegi batean nola hezuramitu zen jakiteko daukagun adibiderik onena Larramendiren hiztegia da,⁹⁵² bere kideen saioek, antza denez, fin gaizto egin baitzuten inor haietaz interesatu baino arras lehenago.

Mitxelenak, Larramendiz idatzi zituen azken iruzkinetan (1984: 13-17) bi ohar garrantzitsu egin zituen haren maileguei buruzko jarrera definituaz: batetik, “erabiltzen ziren erdaratikakoak hartu zituela bere obran; ez zuela gehiagorik erabili ez besteri erabilerazi”; eta, bestetik, egin zien harrera eskuzabala “etorkiaren norabidea irauliz” zuritu zuela.⁹⁵³ Ikuspegi hau, erakusten saiatuko naizen bezala, josulagunaren (ustezko) amarruzaletasunak eta XX. mendeko gehiegikeriek larregi zamatuta dago oraindik baina, dena dela, izugarritzko aldaketa izan zen, ez bakarrik lehenengoz garai larramenditarretako maileguen erabilera dela-eta narraskeriaz bestelako arrazoiak aipatu baitzituen, baita *HH*-ko (eta, bide batez, XVIII-XIX. mendeetako literatura hobereneko) maileguak nondik nora dabiltzan ezagutzeko bi gai nagusi plazaratu baitzituen: mailegu zenbaiten bizitzan etimologiak izan zuen eragina eta garai haietan mailegaketari jakinaren gainean ezarri nahi izan zitzaizkion mugak, alegia.

Lakarrak (*ibid.*), funtsean Mitxelenarekin bat etorritik, lehenengoz Larramendiren beraren hitzak baliatu zituen, haren egitasmoa euskara erdibidean —maileguei atek zeharo itxi eta zeharo ireki gabe— jartzea izan zela erakusteko. Izan ere, jarrera honetan irmo aurkitzen dugu bere ustez euskal idazleek jarraitu beharko luketen bidez ari:

⁹⁵¹ Arrazoi guztiaz baieztatu du Echeniquek (1997: 163) Etxeparek ez zuela latinetik mailegatzeko premia objektiborik —antzeran esan daiteke Leizarragaz eta bestez ere, noski—, gastelaniaz Berceo, Mena eta Góngorak ez zuten bezalaxe: euren hizkuntza aberasteko erabiltzen dute. Echeniquek dioenez: “En época clásica una lengua era considerada tanto más digna de ser apreciada cuanto más se pareciera al latín” (*ibid.*).

⁹⁵² Interesgarria izan daiteke, bestalde, *HH*-tik *EGH*-ra Larramendik jarrera aldatu ala mantendu zuen jakitea. Eranskinean bertako lekukotasuna erantsi dut konparabide modura baina, hiztegi osagabea izanik, hemen erabiltzen den corpusa txikiagi geratzen da ezer garbirik ateratzeko. Halaz ere, batzuetan bertako lekukotasuna ezinbestekoa izango da *HH*-ko gertakari ilun zenbait argitzeko.

⁹⁵³ Bigarren iritzi hau, ikusi dugun bezala (§ 6.5), jadanik 1983an aurreratu zuen.

Pero ni tanto ni tan poco para nuestro vascuence. Ni tanto como los ingleses, pues eso es hacer poco aprecio de su lengua y abrir camino al olvido de las voces propias; ni tan poco como los franceses, porque eso es tener cautivo el entendimiento, que por penuria de voces desvirtúa cien pensamientos brillantes. Se debe guardar el medio que hemos propuesto (*Corografía* 294).⁹⁵⁴

Alde honetatik, oso adierazgarriak dira Mendibururen dotrinari egin zizkion zuzenketatik asko,⁹⁵⁵ sarrienik maileguaren ordeaz euskal etorkiko hitza (edo mailegu ezagugaitza) jarri zuen, baita inoiz *edo*-ren bitartez ezarritako maileguzko laguntza ezabatu ere:

Ave Maria > *Agur Maria* (4.20), *Catholicoa* > *Guciaquicoa* (5.20-21), *deseatzea* > *guticiatzea* (7.12), *Amen, edo ala biz* > *ala biz* (7.13), *erosi edo erredimitu* > *erosi* (10.12-14), *erregutu* > *escatu* (13.3-5), *erreguac* > *escabideac* (13.13), *berri banaa edo noticia distintoa emateco* > *berri ta ezaguera banaro emateco* (15.11-12), etab.

Horrekin batera, bestetan —gutxiagotan, antza denez— mailegua hobetsi edo, gutxienez, laguntza modura ezarri zuen:

sinismena > *Credoa* (5.1), *eguitez* > *obraz* (5.8), *onestea* > *edo amatzea* (6.21), etab.

Urte batzuk igarota eta idazkeraz ari zela egindako adierazpenek, ordea, ez dute nahitaez *HH*-an egin zuenarekin bat etorri behar, hiztegian idazlanetan baino “garbiketa” egitea beti ere errazagoa dela jakinik. Halaz ere, “De las voces del language vulgar que contiene el diccionario” hitzaurreko atalpean maileguez mintzo den pasarte luzean gaiari antzera heltzeaz gain, maileguak onartzeko edo ez onartzeko erdibide hura non dagoen xehe-xehe argituta utzi zuen:

Entre las voces vulgares del Bascuence, pongo muchas que en propiedad no son bascongadas, ni de origen suyo, pero que las ha hecho propias suyas por el uso y por la virtud que como Lengua viva tiene de apropiárselas y adoptarlas. Entre estas ay unas introducidas sin necesidad, y aun con perjuicio del Bascuence, cuyas voces nativas se van por esta razón olvidando, v.gr. *santua*, *santidadea*, que en Bascuence propio es *donea*, *doneera*, y se han conservado en el dialecto Labortano, y aun en Guipúzcoa en parte, pues a San Sebastián, San Juan de Luz, San Esteban, tres pueblos del Bascuence, llamamos *Donostia*, *Done Joane*, *Don Estebe*. Así son las voces *consuelo*, *tristeza*, *pena*, *dolor*, &c. que se usan en Bascuence, aunque tiene voces suyas correspondientes. Y no obstante las pongo, porque además de averlas hecho suyas la Lengua y ser usuales y corrientes, su significado se entienden todos tan bien y aún más fácilmente que el de las voces propias Bascongadas. Hay otras que se han introducido por necesidad, como en otras lenguas, y son de objetos que nuevamente se han descubierto, y no ha auido Bascongado que fabrique voces propias y acomodadas al carácter de su lengua: y éstas necesariamente se avian de poner en el Diccionario. En fin ay otras que están en uso entre los Bascongados que saben Castellano y Francés, y comúnmente saben poco Bascuence: y estas las destierro del Diccionario, así porque no son necesarias, como porque su significado no es entendida de los diestros y puros Bascongados. Destas voces están llenos los Sermones que oy se predicán en Bascuence (1745: xlvii-xlviii).

Teorian behintzat, bere garbizaletasunaren lehenengo mugarría hitzak fakultatiboak ala arruntak diren eta honen araberakoa da. Gogora dezagun erabateko garbizaletasuna fakultatiboetan —jakintzetako berbetan— bakarrik praktikatzeko asmoa zuela (1745: xlviii-l), maileguen kontua hizkera arrunteko hitzak (oso zentzu zabalean) direla eta eztabaidatzeko utzi zuen bitartean, dakusgunez. Honen azpian, berriz, bereizkuntza teoriko interesgarriago bat ezkututzen da: jakintzat ematen ari da euskaraz inoiz izenik izan ez duten zer bakarrak

⁹⁵⁴ Ik. *Autobiografía* 279ko pasarte garrantzitsua ere. Azken hau jadanik Ibarrek aipatu zuen, Larramendiren beraren irizpidea “objetivo, absolutamente cuerdo” zela azpimarratzeko (1935: 122), nahiz oro har “contribuyó a despertar en nuestros espíritus cultivados el vanidoso prurito de la «diferenciación a todo trance»” (*ib.* 121-122). Honetaz ik. Urgell 1992a.

⁹⁵⁵ Lakarraren argitalpena (1986a) baliatzen dut, eta bertako oharretako zenbakuntza errepikatzen. Xehetasunetarako, ik. halaber Altuna 1982.

jakintzetako kontzeptuak direla, hizkera arruntekoak denek izena —euskarazkoa ala mailegua edo, zehatzago, euskarazkoa edota mailegua— daukaten bitartean; hortaz, hiztegiak ez du mailegurik egiten, jadanik eginak direnen artean hautatzen baizik, Mitxelenaren lehenengo intuizioarekin bat.

Euskaraz aurki zitezkeen mailegu horietan, berriz, hiru mota bereizi zituen: (1) *arbuigarriak*: euskaldun txar erdaldunduek bakarrik erabiliak, euskaldun petoentzat ulertezinezkoak eta, hortaz, *HH*-tik kanpo utziak; (2) *behargabekoak*: ordain jatorrak ahantzazantzen dituztenez gero kaltegarriak, baina bestalde euskarak beretuak, ohikoak eta ulergarriak, eta honengatik *HH*-an onartuak; eta (3) *beharrezkoak*:⁹⁵⁶ edozein hizkuntzak daukan eskubide berberaz —eta euskal izenik eman gabez— euskarak gauza berriak izendatzeko bere egin dituenak, *HH*-an derrigorrez sartu beharrekoak.

Larramendiren jarrera teorikoa, beraz, ez da batere gogorra maileguekiko: ez ditu bat-batean euskaratik erauzi nahi, atalka baizik, alferrikakoetatik abiatuta. Testuinguru honetan askoz hobeto ulertzen dira Mendibururi idatzi zizkion hitzok:

Lajatuco ditugu erbesteco hitz horiec, nai badegu, gure eusquerarenac, piscabana usatuaz ta erabiliaz, escucoi ta jaquiñac eguingo diradenean (*Autobiografía* 279).⁹⁵⁷

Ez da gogorra, hortaz, ez maileguak ederresten dituelako, baizik eta ez duelako tradizioarekin zein euskara biziarekin behingoan hautsi nahi: mailegu behargabekoen ordain jatorrak eta mailegu beharrezkoen ordain berriak —hartara jarriko diren euskaldunek noizbait eratuko dituzten hitz egokiak— *piskabana* erabiliaz, azkenik *eskukoi eta jakinak* egingo dira, eta orduan, *nahi badugu*, maileguak utzi ahalko ditugu; tartean, ostera, lasaiago jokatu beharra dago, *HH*-an sarbidea izango duten ala ez erabaki aurretik haien premia, ohikotasun eta ulergarritasuna kontuz hausnartuaz.

Teoria hau praktikan nola gauzatzen den ahalik eta hobekienik zehaztea izango da, bada, gure xedea: Larramendik arbuigarri, behargabeko edo beharrezkotzat jo zituen maileguak zein diren eta nola baliatu zituen aztertu beharreko gai nagusiak izango dira. Honetara iristeko, ordea, lehenengo zeregina corpuseko maileguak bakartu eta haien zerrenda mugatzea da, ahal den heinean hiztegiak jakinaren gainean sartu zituenak soilik aintzat hartzeko. Lanbide honetan malguki jokatu behar dela deritzat, bai ikuspuntu historiko zorrotza baita “sabindar” dei daitekeen hura alde batera utziaz, Larramendik ez baitzeuzkan gaurko filologoaren tresna eta ezagutzak, ez eta garbizale amorratuek izan zezaketen maileguak harrapatu eta salatze gogo bizia. Euskarri teoriko gisara, mailegu nabari eta ez nabarien

⁹⁵⁶ Feijoo-ren irizpidea oso antzerakoa da: “...para escribir en todas materias, basta por sí solo nuestro idioma, sin los subsidios del ajeno, exceptuando, empero, algunas voces facultativas, cuyo empréstito es indispensable de unas naciones a otras” (*Paralelo*, § 5, ap. Lázaro Carreter 1985: 260-261); eta, areago, “La tendencia utilitaria de esta época hace surgir ya en Feijoo el concepto de *neologismo necesario*: sólo deben admitirse aquellas palabras que no tengan equivalente castellano y cuyo uso sea imprescindible, en virtud de las nuevas necesidades” (Lázaro Carreter, *op. cit.* 263). Bidenabar, Larramendik Feijoo-ren lana ezagutu ez eze, liburutegian zeukan (Altuna 1984: 98. zb.), baina argitalpen berankor batean (1749; 9 liburukiak 1726-1740 artean argitaratu ziren; cf. Fernández González 1980: 52-53).

⁹⁵⁷ Pasarte honen interpretapen arazoetarako ik. I, § 3.4.3, 24. oh.

arteko bereizketa (Pratt 1980: 116 t. hur.; Miranda 1994: 173) hobetsi dut, gure kasuari zertxobait egokituta.

Funtsean, mailegu ez nabariak, etorkiaz ohartu gabe, norberaren hizkuntzakoak bailiran erabiltzen diren hitzak dira; eta mailegu nabariak, ordea, atzeak direla gogoan izanik erabiltzen direnak. Nabariak dira, izan ere, interesatzen zaizkigunak, hots, hiztun normal batek hartakotzat joko lituzkeenak, eta ez beren zahartasun itxuragatik —jasotako aldaketengatik— euskarari hain ongi egokitu zaizkionak ezen adituek bakarrik identifika baititzakete. Hautapena egiterakoan, aldez bederen, neure intuizioan oinarritu behar izan dut; dena dela, zalantzazko kasu askotan Larramendik berak ezarri du muga, zeren gure ikergaia ez baita hiztun normal bat, lotura somagaitz zenbait atzitu eta, bestalde, gaztelania zein frantsesa ongi ezagutzen zituena baizik. Hitz bat mailegu nabarizat hartzeko hartu ditudan neurriak, beraz, bi dira: etorkiarekiko hurbiltasuna (antzekotasuna) eta erlazioa antzemateko Larramendiren gaitasuna. Erabakia ez da beti erraza izan baina, aldea kopuru orokorrak gehiegi aldatuko ez lituzketen hitz gutxi batzuen gorabeheran datzanez gero, zalantzazkoak sartu egin ditut, Larramendiren begizorroztasunean fidatuta,⁹⁵⁸ hain zuzen. Azkenik, ez dut *abarka* bezalako hitzak —hau da, egiatan gaztelaniak euskaratik edo substratu aurrerrromantzetik hartutakoak— azterketatik at uzteko arrazoirik ikusi,⁹⁵⁹ gure oraingo irizpideak ez baitauka ezein interesik auzi honetan.

Bestalde, Larramendiren pentsamoldeari zorrozki atxikita, egiatan ez genituzke etimologiadun hitzak mailegutzat hartu behar, zeren eta bere ustetan, aurreneko atalean ikusi bezala, etorkiz eta berezko eskubidez euskal hitzak baitira, ez adopzioz, ez maileguz. Erabateko atxikimendua ezinezkoa da, ostera, hitz horiek *HH*-ra sartzeko deretxa erdiesteko pairatu dituzten iragazki ezberdinak ezagutu eta, zehazkiago, haien onarpenean etimologiek izan duten eragina neurtu nahi genukeelako. Salbuespen argi bat egingo dut, halere: etimologiaren azalpenaren bitartez eratu dituen mailegu itxurakoak (*akatxarro* “cacharro”, *alperdan* “albardán” eta *altzapremia* “alzaprima” bezalakoak), egiatan hitz berriak (ik. § 6.5), azterketa honetatik kanpo utziaz.

Orotara ezarritako baldintzak betetzen dituzten 364 mailegu bildu ditut (8. eranskina), haien euskal eratorri eta elkartuak sartu gabe. Kopurua, 5000 hitz inguruko corpus batean, ez da batere handia (%7, gutxi gorabehera).

7.1. Maileguak egin edo gordetzeko arrazoi nagusiak

Mitxelenaren intuizio biak bat egiten dira *HH*-an aurkitu beharko genituzkeen mailegu motei begira. Batasun hori ulertzeko era bat, lehendik erabiltzen ari ziren maileguei —euskarak nolabait barneratuta zituenei— etimologia emanez, haien erabilera zilegiztatzen zuela izan

⁹⁵⁸ Adibide bat ipiniko dut: *apiril* sartu ez sartu nenbilela, hitzaurreko pasarte batean (1745: xix) hauxe irakurri nuen: “Aquella terminación en los meses, *Aprilis*, *Quintilis*, *Sextilis*, es del Bascuence *il*, *illá*, mes”.

⁹⁵⁹ Oker ez baldin banago, bera da aztertutako corpusean bakarra: ezaguna denez, kasu zehatz honetan Larramendik asmatu zuela esan daiteke, edo ia (cf. *BDELC* eta *MDCLV*, s.v.).

liteke: Larramendi, “taktika maltzur bezain eraginkor batez” (Lakarra 1985a: 38) euskaldunak konbentzitzen —edota atzipetzen, zer jarrera hartzen dugun— saiaturko zatekeen, euskarak jada bere zituen hitz beharrezko zenbait alferrik arbuia ez zitzaten. Ikuspuntu honek garrantzi berezia dauka, lehenengoz etimologiak balio praktikoaz —eta ez etsaiak zapuzteko asmo huts eta hutsalaz— eginak izan daitezkeela baieztatzen baitu.

Haatik, corpusean bereizita agertzen dira, haien artean ebakidura aipagarriak badaude ere: lehenago inoiz lekukotuta dauden maileguak 169 dira (%46,4), eta aldean etimologia daramatenak 200 (%54,9), baina bi baldintzak betetzen dituztenak 86 baino ez (%23,6). Onartu behar dugu lekukotasunen urriak aldea areagotu egin duela, baina halaz ere, handiegia da hortik ondorio zuzenik ez ateratzeko: *HH*-an onartutako maileguak eskuarki edo lehenago erabiliak, edota etimologiadunak dira, bi multzoen artean gehienak (283, %77,7) zuri ditzakegularik, corpusaren laurdena baino zertxobait gutxiago soilik (oraingoz) azalgabe utzita.

Araozari zuzen heltzeko bidea, beraz, bestelakoa da, baita hala behar ere. Gure begietan ondorioak beti bat (maileguak) izan arren, egiatan bi teoria oso ezberdinez ari gara, zeinek bere arau eta mugekin. Larramendik, maileguen mundu lainotsuan batzuk euskararenak eta beste batzuk erdararenak direla erabaki zuen. Antzinasunaren teoriaren arabera euskararentzat erreklamatu zituen besteren ustez gaztelaniazkoak (edo latinezkoak, edo...) ziren hainbat hitz, orokorki teoriari eusteko balio zutenak eta zehazki, banan-banan hartuta, batzuetan euskal lexikoa osatzeko baliatu zituenak, dela etimologi azalpenetik hitz berriak atereaz edo dela zeuden-zeudenean onartuaz, etimologiei buruzko atalean ikusi dugun bezala. Mailegu “bataiatuak”, hortaz, teoria honen ondorioetatik bat baino ez dira, eta ez, nik hala uste behintzat, Larramendiren maltzurkeria bat. Teoria hau, maileguei dagokienez, indartsuegia da, behar ez zirenak ere (gogora *capu* “cabeza”, *mar...*) inoiz euskal hitzak izan zirela frogatzen baitu; bestela esanda, teoriaren xedea maileguak “bataiatzea” izan balitz, etimologiaren ezinbesteko ondorioa mailegua izango zen, eta ez da hala. Baina aldi berean ahulegia da, etimologigintzari muga jakinak ezarri baitzizkion —bere ustetan zintzoki jokatu izan behar zituen mugak, hain zuzen—; bestela esanda, maileguak bereganatzeko hain bide erraza aurkiturik, egin beharreko mailegu guztiei etimologia eman zekiekeen, eta ez zuen hala egin. Hemen sartzan da bigarren teoria, egiazko maileguak —erdaratik hartutakoak— bahetu behar zituena, iruntsitakoei eta beharrezkoei bakarrik sarbidea emanaz. Honetan guztian maltzurkeria ikusteko, Larramendik bere etimologietan antzera jokatu zuten etimologoek baino sinesmen gutxiago zuela egin beharko genuke: bere lanaren ulerpenean atzerapauso argi bat, nire ustetan.

Etimologiaren bitartez berreskuratutako maileguak bistan da ezin direla benetan hartakotzat hartu zituenei ezarri nahi izan zizkien onarpen-arau zorrotzen arabera neurtu: euskaraz erabiltzen ari zirenetakoak zein antzina galdu eta ahaztu omen zirenetakoak izan litezke, teoriak berak berez frogatzen baitu honelakoak euskal hitz zaharrak direla; hots, antzinasunaren teoriak ohiko mailegu batzuekin batera hainbat berri egiteko bidea eman zion hiztegiileari, antzinako ondarea kobratzen ari zelakoan.

Gure ikerketaren xedea, beraz, bikoitza izango da: alde batetik, mailegu arruntak nola, zergatik eta noraino onartu zituen aztertuko dugu, Larramendiren baldintzak gogoan izaki. Bestetik, etimologiak maileguetan izan zuen eragina erabatekoa izan ote zen, ala bestelako ezaugarriek ere (hala nola erabilerak edo maileguaren zahartasunak) pisua izan zuten. Xede honekin, lehenik bi multzoetan batera azter daitezkeen zenbait ezaugarri (arloan semantikoak, gramatika-kategoriak eta lehenagoko erabilerak) gainbegirada bat emango diet, bigarren urrats batean zein bere aldetik hiztegia nola eta zertarako sartu izan den miazteko asmoz.

7.2. Maileguen izaera orokorra

7.2.1. Arloan semantikoak

A letrako corpusa bakarrik erabiltzeak desorekaren bat sor lezakeela ezin da ahaztu: letra jakin batzuen aldean (P dateke nabariena) maileguen batzuetan bestekoa txikiagoa da, noski, baina *a/* artikulua eransketagatik arabetikoak pila daitezke, adibidez, arloan batzuetan (gerla, nekazaritza...; cf. Lapesa 1984: 133-140) ohi baino hitz gehiago agerraraziaz. Hau kontuan harturik, dena dela, maileguen semantikazko nolakotasuna gaingiroki definitzen saia gaitzke.

Haien artean, burura lehen-lehenik datorren erlijioari buruzko lexikoak⁹⁶⁰ bere lekua dauka, baina agian uste genezakeen baino neurri laburragoan: eskuzabal jokatuta ere, 29 bat hitz (%8) baino ez. Larramendik, hitzaurreko pasarteetan, bi arloan aipatzen ditu bereziki: *consuelo*, *tristeza*, *pena* eta *dolor* hitzekin ordezkatzeko dituen hitz abstraktuak eta berriki aurkitu/asmatu diren zerak: lehenengo sailean, 33 bat mailegu (%9,1) sar genitzake: *abilantez*, *abilidade*, *admiratu*, *agradatu*, *alegeratu*, *angustia*, *animo*, *arabia*, *arrazoi* eta *arroganzia* bezalakoak, alegia.

Bigarrena zabalena dugu, inondik ere: badira teknikarekin (*ainazme*, *alabe*, *alanbre* edo *aranbre*, *albornia*, *argana*, *azaia*, *azenia*, etab.), janzkera edo modarekin (*abanino*, *alaja*, *alamar*, *albenda*, *albornoz*, *almila*, *aloza*, *amizkle*, *anaskote*, etab.), itsasoarekin (*adala*, *aingura*, *angara*, *ankon*, *atarazana*, *atarraia*, *azabra*, etab.), komertzioarekin (*abroila*, *adeala*, *aduanak*, *alkabala*, *almoneda*, *ahorrua*, etab.), janari-edariekin (*albondiga*, *alboronia*, *almendrada*, (*ardo*) *arrazio*, *azitroi*), medikuntzarekin (*ajuda*, *alferezia*, *alhurrika*, *arteria*, *asma*) eta musikarekin (*albokea*, *albokero*, *arpa*, *arpista*, *atabal*) lotutako izenak, neurri (*adarme*, *anega*, *arroba*), harri (*agata*, *alabastro*) eta animalia izenak (*aingira*, *alkatraz*, *armiño*, *arratoi*, *atun*, etab.), eta bakanago ordezkaturik dauden beste hainbat arloan, hala nola gramatika (*ablatibo*, *adberbio*), albaitaritza (*adiba*), etxegintza (*adrailu* edo *adrilu*, *aldamio*) edo jokua (*ajedrez*, *araketa*). Iragarri bezala, bereziki ugariak dira gerlari buruzkoak (*adarbe*, *adarga*, *alabarda*, *alabesa*, *alarde*, *alerta*, *alfanje*, *alferez*, *alkabuz*, etab.; orotara 23, %6,3) eta

⁹⁶⁰ Besteak beste, Larramendik berak bereizi egin zuen Mendibururi egindako gutunean: "Ta bearbada noiz edo berriz obeco da onelacoac usatzea, Eusqueracoac baño: batez ere Eliz-gauzetan, ta gure arimen salvacioari dagozten eguicarietan" (*Autobiografia* 279).

landare-fruituen izenak (*abeto, ailorbe, ajonjoli, akazia, alaga, albaka, albertxigua, alegustre, alerze, alkanfor, alkaparra*, etab.; orotara 34, %9,4). Ez dira falta, azkenik, *halifa* edo *atxiote* bezalako hitz benetan atzeak.⁹⁶¹

7.2.2. Gramatika-kategoriak

Erabatekoa da, eta txit adierazgarria, izenen nagusitasuna: orotara 275 izen (%75,5), 81 aditz (%22,3), 4 izenondo eta 4 aditzondo (bien artean %2,2). Esan gabe doa izenaz gainerako kategoriak maizenik euskararen barruan, eratorpenaz, erdietsi zituela: cf., adibidez, *abadetar* “clerical”, *adargaztatu* “adargarse”, *ainguratu* “ancorar”, *aldear*, *aldeatar* “aldeano”, *alegeraro* “alegremente” edo *animatez* “inanimado”.

7.2.3. Lehenago lekukotutako maileguak

Larramendiren adierazpena, alegia, mailegu erabilien artean ohikoak eta denek ulertzeko modukoak bakarrik onartu dituela frogatzea oso zaila da, lekukotasunen laguntza laburra (are sarritan nabarmenki eskasa) baita: nolabaiteko ziurtasunaz aritzeko, lekukotasun idatziek nola edo hala ahozkoaren islapena ematen digutela asumitu behar dugu, nahiz hasiera-hasieratik jakin elkarrengandik zeinen urruti dauden. Esperientziak diosku menderen mende euskaraz bizi izan diren hainbat hitzek oso berandu arte idatziz jaso gabe iraun dutela, eta gauzak dauden egoeran daudela, inoiz jaso gabe daudenak ere oraindik egotea litekeena da. Alde honetatik *HH* mugari garrantzitsu bat izan zen, Hegoaldeko (bederen, baina ziurrenik eremu zabalago bateko)⁹⁶² euskal lexikoa samaldan jasotzeko lehen saioa baita. Testu zaharrek utzitako hutsuneak lekukotasun dialektal modernoan laguntzaz bete ditzakegu, neurri batean bederen; arlo honetan, ostera, bi gertakarik gutxienez lainotzen dute kontua: alde batetik, maileguak —guztiz mailegu gordinak edo aintzat hartutakoak— jasotzeko izan den uzurtasuna eta, bestetik, euskararen legeei egokitzeko arazorik izan ez dutenen zahartasuna neurtzeko ezina, edo ia.

Hau guztiau buruan izanik, lehenagoko lekukotasun idatziak dituztenetara mugatuko naiz. Dena dela, benetan mugatzea denik ezin esan daiteke, eremu berri bat alderen alde irekitzen baitzaigu: aurreko literaturak (eta hiztegiek, apika) maileguen onarpenean jokatu duen papera, hain zuzen. Eremu honetan, hasiera batean bederen, ez dirudi maila berean ezar

⁹⁶¹ Amerikanismoak ez ei dira oso ugari *DAut*-en (150 bat; Lapesa 1984: 558); dena dela, *atxiote*-ren modura, badirudi Larramendik maiz arazorik gabe onartu zituela (erreferentzi modura, besterik ezean, Covarrubiasen amerikanismo zerrenda erabili dut, ap. Lope Blanch 1990: 161, , zeinari *chocolate*, *HH*-an ospetsua, erantsi diodan): cf. *cacique* (+ *jauna*), *cano* (+ *zubatontzia*), *chocolate* (+ *godaria*), *huracán* eta *maíz* (biak euskal etimologiadunak; *maiza*-rekin batera *artoa* ere aipatzen du), *pita* edo *tuna* (+ *indiapicoa*). Egia da bestetan hitz berria bakarrik jasotzen duela (*edoscortia* “coca”). Agian interesgarrienak, azaldu bakarrik egiten dituenak izan daitezke: *urlurreco abere bat*, *musquertzar andi baten guisacoa* “caimán”, *Mechoacango sustrai bat* “mechoacán”, *ichas-otso mota bat* “tiburón”.

⁹⁶² Arazo honetaz, eta oro har hemen aipatzen direnez, ik. § 12.

daitezkeenik mutur batean Larramendi baino lehenagoko liburu guztietan agertzen den hitza eta, bestean, Landucciren hiztegian bakarrik agertzen dena.

7.2.3.1. Tradizio sendoko hitzak

Tradizio idatzi sendoa daukaten hitzak bete-betean ohiko eta denek ulertzeko moduko sailean eskubide osoaz sar zitzakeen Larramendik, eta halaxe egin zuen, agi denez, 1745 baino lehenagoko ia edozein idazlerengan aurki daitezkeen ondoko maleguokin:

adoratu, agradatu, aingeru, akabatu, akordatu, akusatu, amodio, amore, amorio, animatu, animo, an(t)sia, apartatu, apostolu, arbola, arima, arma, arrimatu, azienda, azotatu, azote.

Hegoaldeko tradizioa oro har —eta ez arrazoirik gabe— gutxiesten zuen arren, hemengo liburuetan nolabaiteko maiztasunaz irakurri ahal izan zituen gutxi batzuk ere (zehazkiago *alabanza*, *alabatu*, *alba* (apaizarena), *alkanzatu*, *amatu* eta *anparo*) jasota daude *HH*-an, hala nola gipuzkerazkoa bakarrik izan den *anima* ere. Esan gabe doa Iparraldeko tradizioak halako gehiago eskaini ahal izan zizkiola; nahiz batzuetan hedadura handiagokoak izan zitezkeela dakigun —edo susmatu, behinik behin—, han bakarrik lekukotzen diren eta bertan orokorrak edo aski orokorrak ziren mailegu mordoxka bat igaro da *HH*-ra:⁹⁶³

abade “abad”, abiatu, abilamendu, abisatu, abisu, abstinenzia, adulterio, aire, aitzakia / atxakia, alba “aurora”, alegeratu, altxatu, altzairu, amarra, amarratu, animalia, apart, apiril, area, arka, armatu, arrapatu, arraza, arrazoin, arroka, arropa, arrosa, arte “lazo”, asmatu, atrapatu, autatu.

Lekukotasun gutxiago —eta eskuarki sakabanatuak— dauzkaten arren, literaturatikoak edota literaturak bermatuak bide dira, halaber, *admiratu* (Arg, Gç, Arz),⁹⁶⁴ *adobatu*, *anis* eta *arpa* (Lç, Lcc), *harmonia* (EZ, Gç), *arrasatu* (Lç, ES), *arrasto* (EZ), *arroganzia* (Lç, Ch), *atakatu* (EZ, Arg) eta *atrebitu* (Lcc, EZ, Ber, Ch).

Formaren aldetik, behin bederen Hegoaldeko tradizioaren (egiatan txikia) kontra jokatzeko du nabarmenki, *alegratu* baino *alegeratu* hobetsiaz. Iparraldearen aurka erabakitzen ere badaki, nahiz hala jokatzeko arrazoiak agian mugaren arazoaz bestelakoak izan: (1) *abendu* dakar bakarrik, Ip. *abendo* orokorraren kaltetan, hango liburuetan bakarrik lekukotzen den “adviento” adieran ere jaso arren (*HH*-ko *-oa* / *-ua* bukaeretakako, ik. I, § 8.5.2.2); (2) Leizarraga eta Axularren *absolbatu*-ren kaltetan *absolbitu* aukeratu badu ere, ohar bedi Kapanaga, Otxoa edo Arzadunez kanpo Etxeberri Ziburukoak eta Gasteluzarrek ere erabilitako forma dela.

⁹⁶³ Kontua errazteko asmoz, Beriainen lekukotasuna Iparraldeko tradizioaren barruan kontatu dut, Hegoaldeko bakarra bera denean. Bestalde, hitzaren benetakako hedadura ezagutzeko ezinutzizkoak diren arren, alde batera utzi ditut hemen Hegoaldeko lekukotasun bakartuak: *abstinenzia* bezalako hitz bat, Materre, Etxeberri Ziburukoa, Axular, Xurio edo *CatLav*-ez gainera Kapanagak ere erabili zuela, edo *amarratu* Mikoletak ere jaso zuela jakiteak ez du, nire ustez, inolako pisurik, Iparraldeko erabilera sendoaren, eta honek Larramendirengan sor zezakeen inpresioaren aldean. Kontu hauek astiroago ikuskatuko dira aurrerago (§ 9).

⁹⁶⁴ Erosotasunagatik *OEH*-aren laburdurak baliatuko ditut; esan gabe doa datuak ere bertatik atereak direla.

Absolbitu-k galdera berri bat sortzen digu, alegia, forma orokorrenen aldeko —batasunaren aldeko— aukera egin ote zuen. Erantzun zuzena, jarraian erakusten saiatuko naizen bezala, baiezkoa eta ezezkoa da aldi berean, baina esan gabe doa batzuetan behintzat baiezkoa izateak daukan garrantzia, hots, 1745 bezain data goiztiar batean jakinaren gainean alferrikako bikoiztasun zenbait uxatu nahi izatea.

HH-ak nasai xamar elkarrekin jasotzen ditu hedadura handiko edota tradizio garrantzitsuko aldaera batzuk (*abre / abere*, *aingura / angura*, *aitzakia / atxakia*, *aldare / altare*, *amodio / amorio*), baita bata euskalki bakar bateko tradiziokoa denean (*arima / anima*). Hauen aldamenean, batzuetan tradizio sendoko (Iparraldeko) aldaerekin batera sekula jaso gabekoak edota bakan-bakan baizik ez jasotakoak biltzen ditu: *altzatu* (vs *altxatu*), *aparte* (vs *apart*), *arrazoe* eta *arrazoi* (vs *arrazoin*). Dena dela, eskuarki ezberdin tratatzen ditu, *aingura*, *aitzakia*, *altare*, *amodio*, *arima*,⁹⁶⁵ *altxatu* eta *arrazoi* sarrera ezberdinetan eta guztiz eratorriak egiterakoan euren kideak baino maizago erabiliaz,⁹⁶⁶ ohar bedi, gainera, *angura*, *atxakia*, *amorio* eta *altzatu* ezin jaso gabe utzi zitzakeela, *áncora*, *achaque*, *amorío* eta *alzar*-en etimologiaren bitartekorik onenak dira eta.

Gainerantzean, ostera, ez dirudi aldaerazaleegia izan zenik maileguetan: aitzitik, tradizio nahasia zeukaten hitzetan, badirudi forma bakarraren —eta beti ere orokorrenaren— alde egiteko joera izan zuela, berarentzat ezagunena ere bazatekeela ukatu gabe: *apostolu* (Lç, Mat, Ber, EZ, Ax, Cap, OA, Iraz, etab.) dakar, eta ez *apostu* (Cap, Urq), *apostulu* (Lç) edo *apostolo* (El); *aingeru* (Lç, Mat, Ber, EZ, OA, Urq, etab.) dakar, eta ez *angeru* (Lcc, Cap, Urq) edo *ainguru* (Ber, Ax, ES); *animalia* (Ax, Gç, ES, *CatLav*), eta ez *animal* (Lç, EZ) edo *animale* (Ber); *apiril* (Harb, Ch, *CatLav*), eta ez *april* (Lç, Urq); *arropa* (Lç, EZ, Ax, Gç, ES, etab.), eta ez *erropa* (Cap, Urq); eta, nolana ere, aldaera zenbait hobetsi egin zituela: *amodio* eta *amorio*, baina ez *amudio* (EZ, Cap, Arg, Gç, Ch, Urq); *aingura* eta *angura*, baina ez *ankora* (Lcc).

Tradizioaz ari garenez gero, zeharo aipagarria da tradizio erabat zalantzati bat bederen apurtzen ere jakin zuela: *alegeria* inoiz jaso gabekoak *alegranza* (Lç, Gç), *alegranzia* (Lç, Arg), *alegriantza* (Mat, Harb, Ax), *alegeranzia* (EZ) eta *alegria* (Ber, Urq) zeharo ordezkatzeko dituzten *HH*-an.

7.2.3.2. Bakanki lekukotutako maileguak

Iturri bakar batean agertzen diren maileguak eztabaidagarriagoak dira, lehen begiratuan bederen: iturria Larramendik ezaguna bada, zail xamarra izan liteke hartatik ala bere burutik atera duen frogatzea; ezezaguna bada, berriz, pentsa genezake halabehar hutsak bildu dituela egiatan erabiltzen ez zen mailegu irunsi gabeko baten bi lekukotasun. Hala ere, Larramendiren

⁹⁶⁵ *OEH*-ak jadanik markatzen du ezen “En guipuzcoano, la forma predominante en toda la tradición es *anima*, aunque Larramendi (y tbn. Iztueta) se decantó por *arima* en sus escritos” (s.v. *arima*).

⁹⁶⁶ Benetako salbuespen bakarra *abere / abre* bikotea da, paretsuan baitabilza, elkartuetan sarritan *abre* hobesten duelarik: ik. § 3.1.6.1.c.

esanak sinistu behar baditugu, hau da, ohiko eta arruntak bakarrik jaso nahi zituela, irakurri izanak pisu berezia izan zezakeen bai-zezeko kontuetan. Uste honen lagungarri, badira arrazoi bategatik edo bestegatik —eskuarki hitzaren berezitasunarengatik— ia zalantzarik gabe tradizio idatziaren bitartez eskuratutako mailegutzat har ditzakegunak: *aberia* (Etxeberri Sarakoa), *angura* (Leizarraga), *asaiatu* (Gasteluzar) edo *azuzena* (Oihenart)⁹⁶⁷ dirateke ziurrenak. Beste horrenbeste esan dezakegu “en un dialecto” moduko adierazpenak lapurterari dagozkionean: *arras* (Axular). Ohartu, bide batez, bostak etimologiadunak direla.

Leizarragak are adibide interesgarriagoak eskaintzen dizkigu, mailegu askoren lekuko bakarra bera baita. Ezin ahantz dezakegu Bibliaren itzulpenarekin izan ziren gorabeherak: 1576an Eliz batzarraren Bilkurak “...decide que no se cambie absolutamente nada en contra de la edición de la Vulgata: ni un período, ni una cláusula, ni una frase, ni una palabra, ni una sílaba, ni un signo” (ap. Alonso & Zurro 1977: 325). Xehetasun batek baino gehiagok Leizarragaren itzulpena Larramendik oso kontuan hartu zuen iturria izan zela adierazten digutelarik, ez bide zen izan txikienetakoa Jainkoaren Hitza euskaraz begi aurrean izatea, Bibliak bakarrik eskatzen zuen *ad verbum*-eko (Trento osteko adierazpen haren arabera, *ad signum*-erainoko) fideltasunaren tradizioaren zamapean. Esan gabe doa Leizarragaren mailegukiko eskuzabaltasunaren arrastoak bakanak direla *HH*-an, baina izan badira: ezin zaio halabeharrari egotzi *adulteratu*, *adulterio* eta *adultero* familia osoa berarengan bakarrik lekukotuta, Larramendik hirurak ekartzea *HH*-an, ohi bezala egile izen gisa **adulteriogile* edo **adulteratzaile* bezalako zerbaiten orde. ⁹⁶⁸ Antzeratsu gertatzen da Leiz. *administratu-administratzale* eta Lar. *adiministratu-administratzale* familiarekin. ⁹⁶⁹ Argudietarekin jarraituz, baina alderantziz begiratuta, ez zait iruditzen *ardit* eta *arregatu* —baita agian *anis*, *armadura* edo *arpa* ere— bezalako hitzak hiztegian izateko zio hoberik idoro daitekeenik, Leizarragak erabili izana baino.

Bestalde, Larramendik ez ezagututako lekukotasun bakar batek hitzaren euskararen barruko bizitza berma dezake: hala gertatzen da, adibidez, Oihenarten atsotitz batean bakarrik (*PrASJU* 286) aurkitzen dugun *adiba*-rekin.

7.2.3.3. Hiztegietako maileguak

Oso bestelako esangura daukate lehenago hiztegietan bakarrik —Pouvreau eta Urtez ari naiz oraingoz— lekukotuta dauden hitzek: elkarrengandik aske diren lekukotasunak direnez gero, ahozketasunaren aldetik berez susmagarriak izan arren, hauetarik bat edo biak Larramendirekin bat etortzea bistan da erabileraren ez bada, sakonki sentitzen zen behar baten isla ziurra bederen izan daitekeela.

⁹⁶⁷ Xehetasunetarako ik. § 9, eta *azuzena*-rako § 11.

⁹⁶⁸ *-ero* erdal atzizkiaren agerraldi urriez ik. § 2.2, eta *-tzaile* atzizkiaren nonahikotasunaz, berriz, § 2.1.3.

⁹⁶⁹ Geroago (§ 9.2.7) eztabaidatuko dut iturrietako atzizkiak aldatu zitzakeelako hipotesia.

Gauzak nondik nora doazen jabe gaitzen, errepara dezakegu kopuru jakingarri batean (corpusaren %10,2) hirurek mailegu berberak onartzen dituztela, Pouvreaurena, euskara-erdara delako, hain zuzen, besteen aldean erdal hitz askoren ordainak peit ditzakeen arren; hona hemen:

abadesa, abisatu, abisu, adoratu, aingura, aire, akabatu, akusatu, alabatu, alba, aldare, alegeratu, altxatu, anega, animalia, animo, an(t)sia, apart, apartatu, apiril, apostolu, arbola, area, arlote, arma, armario, armatu, arrapatu, arrazoin, arropa, arrosa, atabal, atrebitu, atun, autatu, azotatu, azote.

Gutxi batzuk hiru hiztegiotan bakarrik (*anega*, *atun*) edota hiztegiotan bakarrik (*abadesa* [+ Landucci, Mikoleta]; *armario* eta *atabal* [+ Landucci]) lekukotzen dira. Haien artean erlaziorik ez izanik, lekukotasunean bat datozen hiztegien kopurua zenbat eta gehiago igo, hainbat eta hitza bermatuago dugu. Eskuarki, hitzok hiztegietatik kanpo ez agertzea, aurreko literaturaren gai muga hertsiek azaltzen dute ezerk baino hobeki.⁹⁷⁰

Bestalde, Larramendi eta Urte (beraz, tamaina bateko erdara-euskara hiztegien egile biak) bat datoz zenbait hitz oso markatu —kultur hitzak denak— adierazteko mailegua onartzean: *abeze*, *abecedario*, *ablatibo*, *adberbio*, *akazia*, *alabarda*, *amelo*, *anbrosia*, *artemisia*, *arteria*, *artxiduke* eta *artxidukesa*.

Landucciren kasua alde berdina da, Hegoaldean gutxi-asko erabilitako zenbait maileguren berme izan baitaiteke, eta alde ezberdina, zuzenean Larramendiren iturria izan zitekeelako zalantza dela kausa. Izan ere, kopuru oso jakingarri batean (21 hitzetan, %5,8) biek bakarrik jasotzen dituzten edo Larramendik ezagutzen ez zituen iturrietan baizik agertzen ez diren maileguak aurkitzen ditugu corpusean:

abadia, adarga, adarme, akusazio [+ Urte], alfezez, almena, almendra, angarila, armario [+ SP, Urte], arrendatu, arropa, arroz, artilleria [+ Urte], artista, arzediano, asma [+ Urte], atabal [+ SP, Urte], atapatu, azafrai [cf. *azefrae* Mikoleta], azeituna [Mikoletaren testua; cf. SP *azitun*], azoge.

Interpretapen bat baino gehiago eman dakioko bat etortze honi, Landuccik *HH*-aren gorputzaren barruan eraginik izan zuen ala ez erabakitzen ez dugun bitartean. Bestelako lekukotasunak dituzten hitzak —ziurrenik herrikoiak, bistan denez— alde batera utzita, gainerakoak sarritan kultur hitzak dira, eta ez nolana hikoak. Maileguk, niketz, *HH*-an ere erabili zuela sinisten hasteko bidea ematen dute, hiztegiak ustiatzeko hiztegiileen joera ezagututa, bietan bat datozenak gehitxo dira eta. Hipotesi honen barruan, Landuccirengandik, zaborra alde batera utzita, “ohiko eta arruntak” edota beharrezkoak ziren maileguak bakarrik hartuko zituen, bide batez haietako askori etimologia aurkituaz eta, beraz, bere ustetan Landuccik euskarari egiten zion kaltea hein batean behintzat ezeztatuaz.⁹⁷¹

⁹⁷⁰ Honetaz lehenago (§ 3) mintzatu naiz luzeki.

⁹⁷¹ Argudio sendoagoak aurki daitezke Landucciren hiztegiari eskainitako atalean (§ 10.2).

7.2.3.4. Alde batera utzitako maileguez

Larramendik alde batera utzi zituen maileguak, mailegu arbuigarriak, ezin inolaz ere zenbat edo neur ditzakegu, arrazoi nabariengatik. Halaz ere, zer izan zitekeen soma dezakegu Leizarraga eta Axularren lexikoien (Aresti 1973 eta Villasante 1973, hurrenez hurren) laguntzaz. A letran honako hauek dira idazle garrantzitsu hauengan agertzen diren eta *HH*-ak jasotzen ez dituenak:

LEIZARRAGA: abandonatu, abanzamendu, abanzatu, abarizia, abarizioso, abastant, abatitu, abaxatu, abertitu, abhorritu, abismatu, abisme, abismo, abolitu, abominable, abominazione, abundant, abondatu, abondos, abrebbiazione, absent, absenzia, abundant, abundanzia, abundatu, abundos, abundoso, aburtoin, abusatu, abusione, abusu, adbenimendu, adbersario, adbersitate, adbertimendu, adbertitu, adbokat, adbokatu, adiuratu, administratione, admonestatu, admonizione, adoptatu, adopzione, adorazione, adultera, afektatu, afekzionatu, afekzione, afirmatu, affikzione, aflijitu, aiutatu, akablatu, akilone, akkiszio, akkisitu, akkitatu, akometatu, akometitu, akord, akordu, akotamendu, akotatu, akotratu, akte, akuarius, akzentu, akzes, alegranza, alegranzia, alianza, alienatu, alogeatu, aloes, amusatu, anathema, anoblitu, anotazione, anplifikazione, antikitate, anunziazione, anziano, apazegatu, aparailu, aparent, aparenzia, aparizione, apartenitu, apelatu, apertenezia, apertenitu, apetitu, aplikatu, apointamendu, apointatu, aprendiz, aprestatu, aprobatu, apropiatu, arbitre, ardent, argumentu, arker, aromate, aromatiko, arrestatu "llevado a cabo", arrebeztitu, arribatu, arrogant, artikul, aseguranza, aseguratu, asignatu, asistitu, asuietitu, asunzione, aszensione, atento, atestazione, atribuitu, audazioso, audiencia, augmentazione, augmentatu, aumoina, aurikular, autentico, author, autoritate, azeptatu, azeptione (OROTARA 132).

AXULAR: abarizia, abarizios, abenitu, adio, akometatu, akordu, akort, alegatu, alegriantza, amainatu, anbar, aparailu, apelatu, apetitos, apetitu, apoderatu, aprendiz, arku, artikul, arrotatu, arroda, arroxina, atriaka, atrizione, audientzia (OROTARA 25).

Ondorioak zeharo interesgarriak dira, eta ez bakarrik *HH*-rako: Lehenik, lagin honen arabera, Leizarragaren liburuaren tamaina eta gai ugaritasuna aitortuta ere, balirudike hirurogeitamarren bat urtean euskal idazle onenen sentimena mailegukerik asko aldatu zela, gero XVIII. mendean agertuko zen garbizaletasun lasai hura iragarriaz: Leizarragagandik Axulargana askozaz alde handiagoa dagoke, beraz, honengandik Larramendigana baino, mailegukerik dagokienez.

Bigarrenik, bi idazleak *abarizia*, *akometatu*, *aparailu*, *apelatu*, *apetitu*, *aprendiz*, *artikul* eta *audientzia* maileguketan bat etorri arren, *HH*-ak ez du haien arrastorik ere; beraz, zehaztu behar den neurriren batean Larramendik esan baino garbiketa handiagoa egin zuen; ohartu *HH*-an daramatzaten ordainen arabera haietako batzuk behargabekotzat joko zituzkeela Larramendik —euskal ordain arruntak daramatzatenak, hain zuzen—, eta besteak beharrezkotzat —ageriko hitz berriak daramatzatenak, jakina—:

Acometer, *eraso*, *eraunsi*, *acopilatzea*.
Aparejos, instrumentos, *lanabesac*.
Apelar, *gandeitu*, *godeitu*, *gorasi*, *gorastu*.
Apetencia, apetito, *gogoa*, *naya*, *ganá*, *zalea*, *trempea*, *jambidea*.
Aprendiz, *icasaria*, *icasjarduna*.
Artículo de el nombre, *osichecá* // Artículo en los libros, *berecindea* // Artículo de la Fe, *sinistamena*.
Audiencia, el acto de escuchar, oír, *aditza* // Audiencia, que dan los Príncipes, *adiundea*, *entzundea* // Audiencia, tribunal, *adiundea*, *entzundea*, *auzbaquidea* // Audiencia, lugar, *adiundetegua*, *entzunde lecu*.
Avaricia, *cicoznaya*, *cequenaya*, *guticia*, *irritzá*, *cequentasuna*, *lucurarigoa*.

Eta, hirugarrenik, badirudi mailegu bat onartzetik ez datorrela nahitaez familia osoa onartzea: aitzitik, *administrazione*, *adorazione*, *akordu* eta *arrogant*-en ordez *HH*-ak *beguiranza*,

gurtea, cordea eta *arrotia* dakartza, adibidez, *administratu, adoratu, akordatu* eta *arroganzia* jasota badaude ere.

7.3. “Benetako” maileguen erabilera

Hitzaurreko pasartearen arabera, etimologiadunak alde batera, bi mailegu mota bakarrik aurkitu beharko genituzke *HH*-an: beharrezkoak eta behargabekoak. Behargabekoak euskal esanahikideak baino erabiliago eta are ulergarriagoak izateagatik sartu dira baina, Larramendiren egitasmo osoa ezagututa, esanahikide ahaztu edo erdi-ahaztuen —sarritan, dakigunez, euskalki ezberdinetan sakabanatuen— alboan agertuko direla espero izatekoa da. Beharrezkoak, berriz, euskaraz izenik erdietsi ez duten zer berrien ordaintzat onartu dira; berez, hitz arruntak izanik, *surrautsa, sutunpa* eta *godaria* baino beste hitz berririk egin ez zuela dioskunez, beharrezko guztiek erdal hitzaren ordain bakarrak izan beharko lukete baina, bestalde, pasarte berean “no ha avido Bascongado que fabrique voces propias y acomodadas al carácter de su lengua” dioenez, zalantzan jarri beharko genuke, hasiera batean behintzat, hitz berri gehiago egiteko tentazioari benetan uko egin zionentz.

Corpusean ere bi mailegu modu nagusi —oso era ezberdinean tratatuak— bakar daitezke, goiko bi kategorietatik bereizteko “ezinbestekoak” eta “behin-behinekoak” deituko ditudanak. Ondoko lerroen zeregina, bi mota hauen ezaugarriak, eta teorikoki ezarritako goiko baldintzekin nola datozen aztertzea izango da.

7.3.1. Ezinbesteko maileguak

Euskal kide hoberik aurkitu ezean eta “adimena katibu” izan nahi gabez ezinbesteko mailegutzat jo bide zituen, lehenik eta behin, *HH*-ko sarreran bakar-bakarrik agertzen diren haiek:⁹⁷²

**abade* “abad”, **abadia, abanino, abeto, *abeze, *abezedario, *abitu, *ablatibo, *adarme, ados, agata, *aingeru, *aire, ajedrez, ajonjoli, *akazia, alaja, *alba* “alba de sacerdote”, *albaka, albertxigua, *albokea, albokero, *aldare / *altare, alegustre, alerzea, alfanje, *alkabuz, alkanfor, alkanforatu, alkaparra, alkatraz, almez, almidoi / amirun, almila, almoneda, *amelo, *amitu, *anbrosia, *anega, *anis, antxoba, *arma, *armatu, (ardo) arranzio, *artxiduke, *artxidukesa, *arzediano, *atun, atxiote, *azafraj, azerola, *azukre.*

Beste horrenbeste esan daiteke (1) aldamenean ordain baliorik ez duen definizio orokorra, edo (2) ordainaren ordeztu definizioa (mailegua barne duela) eta, agian, (3) aldamenean ordain perifrastiko luzea daramatenez:

- (1) *alboronia* (+*baratzako jaki nastea*), *amomo* (+ *belar bat*), *anakardo* (+*Indiako zuaitz baten frutua*), *azor(e)* (+*egazti arrapari bat*).
- (2) **adberbio* (*ala deitzen diogu berboari da*][*irraikan eraiskun bati, eta aren adierazia nolutzen duenari: egin, orra berboa; gaizki, ondo, ederki, itsuski, orra adberbioak, berboaren adierazia nolutzen dutenak*), **aleluia* (*alá deriste Larunbat Santuan botatzen diraden paperezko bitxeletak, lendabiziko*

⁹⁷² Jakina, ordain bakartzat hartu ditut *-a / -ea* bikoteak. Ik. honetaz I, § 8.5.2.1.

aleluia esatean), *apostolu (*ainbat da nola bialdua, egorria, mandataria; baña bereziki ala deitzen dira amabi Apostoluek*).

- (3) **abadesa (+andre monjen agintaria, lenena), almiranta (+almirantearen onzia), *almirante (+itsasoan agintari dana, agindea duena)*.

nahiz inoiz perifrastikoak iradokitzen duen bidearen alde egiten duen:

alajatu (+ gauza ederrez ta valiosaz apaindu baina "alajado, alajatu, apaindu").

Azkenik, talde honetan sartuko nuke *armadura* ere, corpusean bakana izan arren, hiru arrazoigatik: *-dura* Larramendiren ustez euskal atzizkia da; *arma* eta *armatu* ezinbesteko maileguak dira eta, gainera, aldamenen daraman esanahikidea (*armapila*) familia bereko elkartua (berria, jakina) dugu.

Etimologiak azaltzen ez dituen 133 maileguetatik⁹⁷³ 66 honelakoak dira (%49,6), eta haien artean 34 (%51,5) lehenago lekukotuta daude (goian izarrak markatuak). Halaz ere, gogora dezagun beharrezkoen taldeko partaide izateko ez dela nahitaez mailegu zaharra izan beharrik. Semantikoki, denak koka daitezke Larramendik beharrezkotzat jo zituen maileguen taldean: landare-fruituek izugarritzko sarrera dute (orotara 17), gehienak atzeak (jatorriz ekialdekoak, amerikarrak edota Mediterraneokoak) eta, Larramendik esan bezalaxe, euskal etorkiko izenik gabekoak.⁹⁷⁴ Atzetik erlijioarekin lotutako izenak (11) doaz; gainerakoan, gerla (4), gramatika, moda eta animaliak (3na), neurriak, jokoa, musika, jan-edariak eta noble-titulua (2na), komertzioa, harriak eta elementuak (bana), naturatiko gai kimikoak (bat eta dagokion partizipioa), hots, oso gai ezberdinak ordezkaturak daude.

Zehaztu behar da mailegua ez duela nahitaez erdal hitzaren adiera guztietarako onartzen: cf., esate baterako, *aire* "aire, elemento" vs *egurasa* "aires que se toman para la salud y oreo", *aize* "aire, viento", *era* "aire, bueno o mal modo", *eskutura*, *anza*, *anza* "aire, forma, modales en el andar, hablar, &c."; *ambrosia* "ambrosía, planta" vs *Jaincoen edaria* "ambrosía, bebida de los Dioses".

Talde honetako hitz asko bakartuta agertzen dira hiztegian, baina bestela, gainerako euskal hitzak bezalaxe familia egiteko gai dira eta, jakina, bestelako sarreretan ere agertzen dira aukera dagoenean:

ados (*adosatu* "(ponerse a) dos"), *aingeru* (*aingeru belar* "angélica", *aingerutar* "angelical", *aingerutxo* "angelito", *aingerutu* "angelizarse", *aingerutzar* "angelote"), *aire* (*airepisuaren neurria* "barómetro"), *alaja* (*alajatxo* "alajuela"), *albaka* (*albakonzi* "albahaquero", *astalbaka* "albahaca silvestre"), *aldare* (*aldare nagusia* "altar mayor", *aldaretxo* "altarico"), *alfanje* (*alfanjada* "alfanjazo"), *alkabuz* (*alkabuzada* "arcabuzazo", *alkabuzatu* "arcabucear", *alkabuzgile* "arcabucero", *gerrari alkabuztunak* "arcabucería"), *alkaparra* (*alkaparraga*, *alkaparreta*, *alkapartegi* "alcaparral", *alkaparra andiagoa* "alcaparrón"), *almirante* (*almirantearen onzia* "almiranta", *almirantearen zuzenpidea* "almirantazgo", *almirantorde* "vice-almirante"), *almoneda* (*almonedan saltzea* "almonedear"), *altare* (*altare-arri* "ara consagrada", *altaregile* "altarero"), *amirun* (*amirundu* "almidonar"), *anakardo* (*anakardozko maneanza bat* "anacardina"), *anega* (*anegaka* "(a) fanegadas"), *apostolu* (*apostoluen batzarrea* "apostolado"),

⁹⁷³ 200 mailegu etimologidunei euren familiako gainerakoak (31 orotara) erantsi behar zaizkie: azken hauek ere, geroago ikusiko dugun bezala, etimologiaren bitartez azaldu beharrekoak dira.

⁹⁷⁴ *Abeto*-ren ordezkari erabiltzen ari garen *izai* eta haren aldaerak, denak Goi-Nafarroan hasi eta ekialdekoak dira; *azerola*-rako, hiztegietan *maspil* (fruitua) eta *maspil-elorri* topatu dut (Elhuyar 1996): dagokion *OEH*-aren alearen zai, esan dezakedan gauza bakarra da *EH*-ak *mazpil* dakarrela, eta *Sorbus* generokotzat jotzen duela, *azerola* ere errosazeoen familiakoa bada ere, *Crataegus*-ekoa den bitartean.

apostoluen erara “apostólicamente”, *apostoluar* “apostólico”), *arma* (*armagile* “armero”, *armategi* “armería”, *etxarmak* “armas en el escudo”, *suarma* “arma de fuego”, etab.), *armatu* (*anziñako ballestak armatzeko lanabesa* “armatoste”), *artxikude* (*artxidukearen goiendea ta barrutia* “archiducado”), *arzediano* (*arzedianoaren goiendea* “arcedianato”), *atun* (*atunaga, atuntegi* “atunara”), *azafrai* (*azafrategi* “azafranal”, *azafraitu* “azafrantar”), *azukre* (*azukretu* “azucara”, *azukre-ontzi* “azucarero”, etab.).

7.3.2. Behin-behineko maileguak

Talde honetan sartu behar dira, dudarik gabe, honako ezaugarri hauek dauzkatenak:

1) Aldamenean hitz bakarreko euskal ordainak izatea:

**abade* “cura” (+*apaiz, apez*), **abendu* (+*lotazil*), **abilamendu* (+*soñeko, jazkai*, etab.), **abilidade* (+*gaitasun, zintzotasun*), **abisatu* (+*mezutu, gaztigatu*), **abisu* (+*mezu, gaztigu*), **aboztu / aboztu* (+*agorri / uzta, uzta biltze*), **absolbitu* (+*askatu, deslotu*, etab.), **abstinentzia* (+*urrijaldura, urrijalpen*), *adeala* (+*obaria, obaroa*), **adiba* (+*sametxi*), **admiratu* (+*miretsarazi*, etab.), **adoratu* (+*gurtu, gur egin*), *adrailu / adrilu* (+*buztinerra*), *adua* (+*peajeleku, kostomaga*), **adulteratu* (+*iaukitea, besterenganatzea*, etab.), **adultero* (+*bestereganari*, etab.), **agradatu* (+*oniritzi*), *ailegatu* (+*eldu, etorri*), *ajuda* (+*siringa*), **ajustatu* (+*ongundetu*, etab.), *akolito* (+*apaiz laguna*, etab.), *akomodatu* (+*erarratu*, etab.), **akusatu* (+*salatu, gaizgertu*), **akusazio* (+*salaketa, gaizgertamen*, etab.), *akzidente* (+*min*, etab.), *alabesa* (+*lanza arabarra*), *alamar* (+*aribeguiac*, etab.), *alarbe* (+*aberea, basatia*, etab.), *alarde* (+*erregiña*),⁹⁷⁵ *albondiga* (+*arbilgeta*), *alimaña* (+*abere*), *alkoba* (+*geloi*, etab.), *almidoatu* (+*enpesatu*, etab.), *alpirtxa* (+*zakuto, maleta*), *amaszena* (+*damaskoar*), *amizkle* (+*zornurrin*), **animalia* (+*abere*), **animatu* (+*bizarazi*, etab.), *anime* (+*likurrin*), **animo* (+*alaira*, etab.), *apostatu* (+*paramenatu*, etab.), *apresatu* (+*arrapatu*), **arbola* (+*aretx*, etab.), **armada* (+*onzidi*, etab.), **harmonia* (+*alosa*, etab.), **arrazoe / arrazo(n)* (+*eralde*), **arrendatu* (+*ondakari*), **artemisía* (+*belar mina*), **atabal* (+*arratza*, etab.), **azeituna* (+*oliogai*), **azoge* (+*zilar bizi*), **azotatu* (+*zealdu*, etab.), **azote* (+*zeal*, etab.), *azufaiña* (+*kerexanza*).

2) Baita, ziurrenik, ordain perifrastiko ez oso luzeak:

**abendu* (+*Kristoren etorrera*), **adulterio* (+*besterenaz aragi-bekatua*; cf. goian *adulteratu* eta *adultero*), *agnus* (+*argizagizko bildotx bedekatua*), *algebra* (+*contuen zuzen bidea*), *halifa* (+*agintari ondorengoa* = “sucesor en el ministerio”), *amirez* (+*menastazco motairua*; cf. “(mano de) almirez, motrailluaren, motrailluaren quirtena”), **antekristo* (+*christoren etsaya, arerioa*), *azitroi* (+*zidra azukretua* = “la cidra hecha dulce”).

Ordain luzexego hauen erabilgarritasuna A letraren hasierako adibideetan⁹⁷⁶ ederto erakutsia dauka Larramendik:

aboztu (“Agosto, cosecha de mieses, *uztá, uzta biltzea, aboztua*. Bravo agosto les espera, *uztá ederra dagokie, dagokio*. Hemos hecho nuestro agosto, *geren uztá bildu degu*”), **administratu* (“Administrar, tratar o cuidar haciendas, rentas, repúblicas, &c. *bere contura ecarri, erabilli, arthaz beguiratu. Administratu*. Administra las rentas de el tabaco, *surrautsaren errentac bere contura dacartzi, darabiltzi*”).

2) Eta, azkenik, bestetan erabili arren, sarrerapean agertzen ez direnak:⁹⁷⁷

**apostolico* (cf. “Apostólico, *apostoluarra*”).

Gertakari hauek zuzenean lotu behar dira maileguak *piskabana* ordezkatzeko Larramendiren asmoarekin: aukerak hortxe daude, alde-aldean, eta etorkizuneko erabiltzaileen esku geratzen da batera edo bestera jotzea. Baina, zein mailegu mota dira? Teorian, behin-behineko 68 mailegu hauek (etimologiak azaltzen ez dituenen %51,1) Larramendik

⁹⁷⁵ Egiantan, hauxe da hasieran jarritako ordain bakarra: *alarde* “item” ondokoa da.

⁹⁷⁶ *HH*-an adibideok daukaten banaketa eta betebeharrak ik. I, § 3.5.

⁹⁷⁷ Adibidea ez da txantxetakoa: oker ez banago, maileguz hartutako erdal erlazio izenondo bakarra da corpusean. Ik. honetaz § 2.2.4.3.

“behargabekoak” deituak balira, neurriren batean euskaraz ohiko bilakatuak lirateke, ordain jatorragorik egon arren. Lehen baldintza ez da gaizki betetzen: gure lekukotasun urrien arabera haietatik 36 (%52,9) lehenago lekukotuta daude. Alabaina, bigarrenarekin arazo gehiago dukegu, ezen *apaiz*, *soineko*, *agorri*, *obari*, *miretsarazi* edo *gurtu* bezalako ordainak ugari badira ere, bildutako zenbaitenak —*urrijaldura*, *sametxi*, *buztinerra*...— argi eta garbi hitz berriak baitira. Badirudi, beraz, *abstinentzia*, *adiba* edo *adrailu* bezalako maileguak beharrezkoetakoak zirela, baina Larramendik egokiera profintatu zuela proposamen berriak egiteko, “no ha avido bascongado que fabrique voces propias y acomodadas al carácter de su lengua” bere esana gezurtatzen hasiaz.

Bestalde, ez ditu denak berdin erabiltzen *HH*-an; antza denez, piskabana ordezkatzean abiadura ezberdinak egon zitezkeela aurreikusi bide zuen, beharbada mailegu ohikoenei edota ordezkatzan zailenei erauzkaitz iritzirik:

1) Astiro ordezkatzekoak bide dira (eta *nahi badegu* iruzkina hobekien dagokienak, ziur aski) sarrera gehiagotan berragertzen direnak, sarritan elkartu-eratorri familia osoak eratuaz:

abade “clérigo”, “cura”, “presbítero” (*abadetar* “clerical”, *abadetu* “(hazerse) clérigo”, *abadetxar* “cleriguillo”), *abisatu* / *abisu* (*abisukida* “commonitorio”, *abisu-ontzi* “(navío de) aviso”), *aboztu* (*aboztuki* “agostizo”), *absolbitu* (*absolbigarri* “absolvederas”, *absolbitze*, *absolbizio* “absolución”), *adoratu* (*adoragarri* “adorable”, *adorategi* “adoratorios”, *adoratzaile* “adorador”), *adrailu* (*adrailada* “ladrillazo”, *adrailola* “ladrallal”), *adrilu* (*adrilada*, *adrilkada* “ladrillazo”, *adrilari* “enladrillador”, *adrilatu* “enladrillar”, *adrilola* “ladrallal”, *adrilukintza* “froga”, *adrilutxo* “ladrillejo”), *aduan* (*aduanazai* “aduanero”), *ajuda* (*ajuda maskuria* “gaita”, “mangueta”), *akusatu* (*akusaera* “acusación”, *akusatzaile* “acusador”), *algebra* (*algebraria* “algebrista”), *alkoba* (*alkobatxo* “alcobilla”), *amizkle* (*amizkledun* “almizcleño”), *animalia* (*animaliatxo* “animalejo”, *animaliatzar* “animalón”), *animatu* / *animo* (*animokiro* “animosamente”, *animotsu* “animoso”), *arrazoi* (*arrazoi gerezterra* “razón natural”, *arrazoiez* “(con) razón”, *erakari arrazoien batzuek* “alegar”, *arrazoibage* “desenazonado”, “irracional”, *arrazoibagero* “irracionalmente”, *arrazoi-usu* “uso de razón”), *arrendatu* (*arrendaera* “arrendamiento”, *arrendatzaile* “arrendador”, “publicano”), *azotatu* / *azote* (*azotaldi* “azotina”, “(una vuelta de) azotes”, *azotatz* “vapulamiento”, *azoteki* “azote, golpe”).

Talde honetan aurkitzen ditugu mailegurik ohikoenetako asko, jakina.

2) Izan zezaketen baino familia gutxiago dutenak, berriz, ordezkaerazagotzat jo bide zituen:

administratu (*administratzaile* “administrador” vs *beguiranza*, *bere contuan ecartea*, *erabiltea*, *beguiratzea* “administración” < *bere contura ecarri*, *erabilli*, *arthaz beguiratu* “administrar”), *akomodatu* (*akomodagarri* “acomodable” vs *zucenbidea*, *éraz*, *erara jártea* “acomodamiento” ~ *eraratu*, *norbaiti bere zucenbidea ematea*; *bere erara ifintea*, *paratzea*, *norbait zucenbidetzea* “acomodar”), *arbola* (*arboladi* “arboleda” vs *amodio zuaizta* “árbol del amor”, *paradis* *zuaizta* “árbol paraíso”, *zuaiztaina* “arbolista”), *atabal* “atabal”, “tambor” (*atabalari* “tambor, el que le toca” vs *arrazaduna*, *arrazcoduna* “atabalero”), *azoge* (*cillar biciz*, *azogeaz estali* “azogar” vs *cillar biciaz estalia* “azogado”).

Hauetako zenbait bereziak dira, gainera, zeren eta familia izatea ez baita zehazki hiztegi-gilearen erabakia izan, hots, ez du nahita familia hedatu: *administratzaile*, *administrazole* itxuran, jadanik esan bezala, Leizarragak dakar; *arboladi*, berriz, Etxeberri Ziburukoak.

3) Familiako sarreretan agertzen ez direnak, esan daiteke Larramendi jada *HH*-aren bitartez ordezkatzan hasi zela:

abilamendu (*janci, jaunci, beztitu* "vestir", *jancialdia, jazcai* osoa "vestuario, vestidos", *janciechea, jancilecua, jazteguia* "vestuario, donde se viste"), *abilidade* (*gay, ajutuá, cintzoa, entregú* "abil", *cintzotu, gay eguin* "abilitar", *gayró, cinzoró, cintzoqui* "abilmente"),⁹⁷⁸ *abstinentzia* (*pecatutic, jocotic, ardotic gordetzea, beguiratzea* "abstenerse", *urrijalea, urrijaria, guichi jaten deuaná* "abstistente"), *admiratu* (*miragarria, arrigarria* "admirable", *miragarrero, arrigarrero*, etab. "admirablemente", *mirestea, arritzea, miraria, mirescuna, arrizcuna* "admiración", *mireslea, mirarizlea* "admirador"), *agradatu* (*otzana, onirizgarria, emaguria, naicaria* "agradable", *emaguriró, onirizgarriró* "agradablemente", *emaguria, gracia oná, aurpegui gozoa, beguitarte arraya* "agrado"), *ailegatu* (*eldera, etorrera, llegada* "llegada"),⁹⁷⁹ *ajustatu* (*ongondea, ongundea, eguiunea* "ajuste"), *akzidente* (*eritua, miñac artua, miñez dagoana* "accidentado"), *apostatu* (*temá, paramena* "apuesta"), *harmonia* (*alositsua, alosiduna, bozaroquitsua* "harmonioso"), *azeituna* (cf. *oliboa, oligaya* "azeituno").

Behin-behineko maileguei buruz Larramendik zeukan iritzaren ez eze, bere asmoari laguntzeko erabili zuen arretaren lekuko ezin hobekak dira A letraren hasierako hitz askotan aurkitzen ditugun adibideak zein oharrak; gorago jadanik ikusi ditugu ordain perifrastikoa, luze xamarra izan arren, nola erabili behar den erakusten duten zenbait; alde honetatik ere ez du era batera jokatzeko mailegu guztiekin:

1) Adibideen artean mailegua ere agertzen da:

Acomodan bien a sus hijos, ondo acomodatzan dituzte beren humeac; zucan bide ona ematen die beren semeai, ondo zucan bidetzen dituzte (s.v. *acomodar*).

Acúsome de todos mis pecados, salatzen ditut nere pecatu guciac, acusatzen naiz nere pecatu guziezaz (s.v. *acusar*).

2) Adibide edo oharrean mailegu ez dena bakarrik azaltzen da (cf. gorago *aboztu* eta *administratu*-ren adibideak):

Agradar, oniritzi, agradatu...

NOTA. Este verbo *oniritzi* tiene su construcción particular con el irregular del verbo *iritzi*. *On derizquidac, derizquidan, derizquidazu*, tú me agradas (...). Véase la palabra *iritzi* en la palabra *parecer*.

Apostar, apostatú, paramenatu, ispichoñatu, paramena, tema, ispichoña eguin...

Qué quieres apostar? *Ceren paramena eguin nai dec? Cer naic temá?* Quanto quieres apostar? *Cembaten paramena eguin nai dec?* Yo quiero apostar cien pesos, *eun ezcuturen paramena eguin nai det, eun ezcutú dijoa tema*.

Puede apostárselas a cualquiera, *edoceñequin paramena dezaque*.

3) Adibidean mailegua agertzen da, baina ohar berezia eskaintzen zaio mailegua ez denari:

Adorar, adoratú, gurtu, gur eguin (...). A solo Dios hemos de adorar: *Jaincoari bacarric gurtu bear gatzazca; Jaincoa bacarric adoratu bear degu, beaugu; Jainco bacarrari gur bear diogu, gur eguin bear zayo* (...). NOTA. *Gurtu* y *gurcartu*, que significan adorar y vienen de *gur, cur*, reverencia, inclinación, tienen distintas terminaciones. *Gurtu* pide las transitivas de el neutro: Yo adoro a Dios, *gurtzen natzayo Jangoicoari*; tú le adoras, *gurtzen zaitzaiza*; aquél le adora, *gurtzen zayo*, &c. Pero *gurcartu* activo, pide las terminaciones transitivas de el activo, *gurcartzen zaitut*, te adoro, *gurcartzen det*, yo le adoro, *gurcartu du*, le ha adorado.

⁹⁷⁸ *Hábil*-en familia, *HH*-an grafia dela eta errepikatuta daudenetakoa da (cf. I, § 4.5.1) eta *abilidade* <h> gabeko agerraldian bakarrik agertzen da: "Hábil, *gai, cintzoa, entregú*", "Habilidad, *gaiquera, cintzoera, entregudea*", etab. Gainerakoan, ikus daitekeenez, oinarritzko ordainak berak dira, *ajutu* izan ezik.

⁹⁷⁹ Ez dakit nola interpretatu behar den *llegada* maileguaren agerpena.

7.4. Etimologidun maileguak

7.4.1. Etimologidun maileguen familia

Zalantzarik gabe, etimologia mailegu bermatzaile handia da, berak bakarrik, beste gabe, corpusaren erdia baino gehiago azal baitezake. Haren eragina, dena dela, zenbaki hutsek adieraz dezaketen baino handiagoa izan da. Hasteko, etimologiduntzat hartu ditugun hitzak ez dira denak item bakartuak; aitzitik, maiztasun aipagarriaz familia bereko hitz bat baino gehiago, bi eskuarki, etimologia berak zilegiztatzen ditu:

abarkatu (< abarka), agasajatu (< agasajo), aitzakiatu (< aitzakia), alabatu (~ alabanza), alborada, alborakia (~ alba), algarabia, algarada (< algara), alkanzatu (~ alkanze), altzadura (~ altzatu), anden (< anda), arrakada, arrankatu (< arraka), arrasatu (< arras), arrasgo (~ arrasgatu), arrasteatu (< arrasto), arropa (< arropatu), asmadura (< asmatu), atxakiatu (< atxakia), azendatu (~ azienda).

Hau egiteko bide ezberdinak baliatu ditu hiztegiak, dela bat bestetik eratorriaz:

Abarcar, viene de el Bascuence *abarcá*...

Agasajar, de *agasajo*, y esta voz de el antiguo Castellano *gasajo*, cuyo origen puede ser de el Bascuence...

Algarabía (...) es voz puramente Bascongada, compuesta de *algara*...

Algarada, (...) es vor puramente Bascongada, de *algara*...

dela batetik besterako bidalketaz:

Achacar, viene del Bascuence, como se verá en la palabra siguiente [i.e. *achaque*].

Alba, cercanía de el día y de el Sol, viene de el Bascuence *alboa* (...) y se conoce mejor en la palabra *alborada*, que tiene la misma raíz.

dela etimotzat euskarazko familiakideak emanez:

Alcance, puede venir del Bascuence *gaintze*...

Alcanzar, viene del Bascuence *gainzatu*...

edo dela ebidentzia asumituaz:

Alabar, es del Bascuence.

Hacendar, viene de el Bascuence.

Horrez guztiaz, ez du beti agerian azpimarratzen itxura guztien arabera aski maiz erabili duen bidezior hau; izan ere, parentesi artean doan familiburuaren etimologia da inondik ere corpuseko beste 29 mailegu, denak ageriko etimologia gabeak, zuritzen dituen argudio nagusia:

abrigo (abrigatu), alegere, alegeria (alegeratu), alkiler (alkilatu), almendrada, almendrua (almendra), amarra (amarratu), amore (amorio), angustiatu (angustia), anparo (anparatu), ahorrua (ahorratu), apart, aparte (apartatu), arpista (arpa), arrabiatu, arrabieta (arrabia), arraiatu (arraia), arrasgeatu, arrasgoi (arrasgatu ~ arrasgo), arrasila, arraso (arras), arraskadura (arraskatu), arrimatu (arrimua), arrokaila (aroka), arropaje, arropila, arropoi (arropa), artista (arte), azañeria (azaña).

Jakina, arrazoi gehiago ere aipa daitezke hitz hauetako onarpena azaltzeko. Ugarietak eta hartzen goxoenak *-ar* > *-atu* aditzak dira, eta ziurrenik Larramendik berak —batzuetan agerriki adierazten duen bezala— “mailegutzat” baino euskararen barruan sortutakotzat izan zituen, *-e*, *-o* eta *-u* > *a* egiten bazekien eta. Atzeranzko eratorpenaz ikusiak ikusirik, bestalde, behin aditzari etimologia emanez gero haren oinarria ere aintzat hartzea espero zitekeen (*abrigo*, *alegere*, *amarra*, *anparo*, *ahorrua*, *apart* / *aparte*). Gainerakoetatik batzuk (*alabanza*, *alegeria*, *algarada*, *almendrada*, *altzadura*, *arrakada*, *arraskadura*, *asmadura* eta *azañeria*) jadanik ikusiak ditugu (§ 2.2.4.5), atzizkia ere euskarazkoa delakoan osorik hartu dituen hitzen

artean; beste batzuk, azkenik, familiako oinarriaren sasi-elkartuak dira (*alborada, algarabia*). Hala ere, denak ez dira halakoak, eta are zenbaitek euskarak azal ezin ditzakeen atzizki nabarmenak (*arpista, arrabieta, arrasgoi, arrasila, arrokaila, arropaje, arropila, arropoi, artista*) edo hots-txandakatzeak (*alkiler / alkilatu, almendra / almendrua, anden / anda*,⁹⁸⁰ *arrasgeatu / arrasgatu, arraso / arras, arrasteatu / arrasto, azendatu / azienda*) aurkezten dituzte.

7.4.2. Etimologidun maileguen izaera

Gorago aldeztu dudan bezala, etimologidun maileguek, Larramendiren sisteman maileguak ez direlako, hain zuzen ere, ez lukete hauek onartzeko ezarri zituen baldintzen pean egon behar; halaz ere, ezin uka daiteke etimologiari esker jadanik lekukotuta zeuden mailegu talde handi xamar baten jabetza (%47) euskarari bihurtu ziola, haien euskaltasuna bermatuaz.

Kopurua ez da txantxetakoa: etimoak hautatzerakoan iruzur gutxi —uste ohi den baino gutxiago, behinik behin— egin zuela adieraz dezake baina, eta hau da ataltxo honen xedea, ehuneko ehuna aztertzea eskatzen du, etimologiaren bitartez bermatu zituen eta, nahi gabe bada ere, berriki sartu zituen maileguen arteko muga non dagoen ezagutzeko.

Euskarak jadanik beretua zuen hitz taldearen lehen mailan, oinarritzkoenean, gaztelaniaz eta euskaraz esanahi ezberdina daukaten maileguak kokatu behar ditugu:

abere “animal”, *abia* “jaula”,⁹⁸¹ *abiatu* “comenzar”, *adobatu* “remendar”, *algara* “carcajada”, *amorratu* “rabiari”, *anpulu* “gota”, *arras* “cerca”, *azenia* “rodete de molino”.

Honelakoak, gaztelaniazko hitzen etimologian erabili arren, ez ditu inoiz haien ordaintzat hartzen.⁹⁸² Etimologia eta maileguak, beraz, ez doaz nahitaez batera: bistan da hain mailegu iruntsiak —mailegutzat izan balitu— ez zituzkeela arbuiatuko, baina, eta hauxe da interesgarriena, esanahi aldaketak etimologiaztatutako hitzaren ordaintzat hartzea zeharo oztopatu du. Gehienera jota, kasu bakar batean dakusgunez, ordain gisa mailegu berria (lehenago ez lekukotutakoa eta, nolana ere, etimoa baino berriagoa) agertzen da:

Ampolla, viene de el Bascuence *ampulua*, que en un dialecto significa gota redonda. *Ampollá*.

Bigarren mailan koka genitzake ahaideak izateaz gain elkarren ordainak direlarik, euskaraz sustraituta daudenak edo, gorago erabilitako hitzak errepikaturik, euskarak beretuak, ohikoak eta ulerkorak. Honelakoak zein diren zehazki mugatzeko ditugun baliabideak eta arazoak jadanik aipatu ditut. 1745 baino lehenagoko lekukotasun idatzirik ez duten baina lekukotasun dialektal modernoek bermatzen dituztenen artean ondokoak azpimarratuko nituzke:⁹⁸³

⁹⁸⁰ Ez eta erdarak ere: *BDEL*C-aren arabera, etorki ezberdineko hitzak dira.

⁹⁸¹ Larramendiren nahastea bide da.

⁹⁸² Gaur egun, dakidalarik, ezaguna ez den arren, badirudi talde honetan sartu behar dela *artxa* “harpón” ere, zeren eta gazt. *archa*-ren euskal ordaina *archariaren aizcora* baita, *archero archari* bada ere.

⁹⁸³ Datuak eta laburdurak *OEH*-koak dira, beti bezala. Ondoren aipatu diren hitzak astiroago aztertuko dira aurrerago (§ 12).

ailorbe (Iz ArOñ, Etxba *Eib*, Asp *Leiz*), *aldamio* (Azk, LzG), *aloza* (Azk, Iz ArOñ), *amorratu* (Azk, Iz ArOñ), *anpulu* (Azk), *aroi* (Azk), *arrakatu* (Azk, Asp *Leiz*), *arratoi* (*El*, Etxba *Eib*, etab.), *asensio* (Azk), *hatu* (Azk), *azenia* (Azk).

Nolanahi ere dela, esan behar da Larramendik etimo gisa erabilitako guztietarako ez dugula bestelako bermerik erraz erdiesten. Adibidez, *amirez*-en kasuan, baliagarria izan daiteke *amizkle*-k ere erakusten duen *m* aurreko *l*-aren galera, hitzak itxura ezberdinetan (ik. *OEH*, s.v. *almeriz*) izan duen zabalkundea ahaztu gabe. Bigarren argudio honek lagun diezaguke *alborakia* “alboroque” kokatzen: lekukotasun ezberdinek hitza Bizkai-Gipuzkoa-Nafarroetan ezaguna dela edo izan dela dioskute (*OEH*, s.v. *alboroke*), nahiz beti jatorrizko *-o-* gordeaz (*alboroke*, etab.); Larramendik etimologian *-ki* atzizkia dagoela aditzera ematen badu ere,⁹⁸⁴ egiantz handiaz esan dezakegu berak gaizki interpretatu zuen *-ea > -ia* baten aurrean gaudela. Itxurak bermatzen du, azkenik, *azitrai*, ezin baita zuzenean gazt. *ajedrea*-rekin lotu, hurbilago dauden okzit. *sadreja* edo cat. dial. *sadoriya*-rekin baizik (cf. *MDELV*, s.v.). Gauzak honela, zer esan dezakegu itxura berezia daukaten baina inolako ere beste bermerik ez duten *abroila* “ambrolla”, “hadrolla”, *agorgea* “gorga” edo *ainuskatu* “añusgar”-i buruz? Hona Larramendik ematen dizkigun bermeak:

Ambrolla, es de el Bascuence *abrolla*, que significa engaño en comprar y vender, y véase su origen en la palabra *hadrolla*.

Gorga, comida de las aves de cetrería, es voz contrahída de el Bascuence *agorguea*, que significa lo mismo; aunque oy se llama *agorguea* en muchas partes a aquella comida con que ceban por fuerza y a la mano a los capones y otras aves.

Añusgar, añosgarse, atragantarse, viene de el Bascuence *añusca*, tragadera.

Hirugarren mailan, berriz, benetan etimologiak zilegiztatu dituen maileguak bildu beharko genituzke, hots, etimologia izateagatik onartu dituen berriak edota gutxi erabilitakoak. Adibiderik argiena *alhurreka* da, “me suena a palabra bascongada” esate hutsaz ordainen artean agertzeko gaitasuna erdiesten baitu. Hemendik aurrera oso zaila da ohikoak eta ezohikoak ziren maileguen artean bereizketa argiak egitea; dena dela, *abilantez*, *añagaza*, *añaze*, *añazme*, *alaraka*, *aleatu*, *algarabia*, *alkaizeria*, *amaño*, *anaskote*, *andurrial*, *ankon*, *argana*, *arguitu*, *aribatu* edo *atarazana* bezalakoak

nekez sinets daiteke erabilerak zuri ditzakeenik. Are gutxiago etimologi azalpenaren bitartez itxura jakin batean hartu dituen maileguak: *angara* “angra” (< *an gara*), *atisbeatu* “atisbar” (< *atis* [*< ateis < ate ichi*] + *beatu*).

7.4.3. Etimologidun maileguen erabilera

Behin baino gehiagotan markatu dut dagoeneko etimologia izateak ez duela nahitaez erabilera ziurtatzen; nolanahi ere den, Larramendik erabili zituenetatik anitz (90 orotara, ia erdiak) sarrerako euskal ordain bakarra dira, hots, mailegu beharrezkoen pare-parean koka ditzakegu baina, etorkiz euskarazkoak izanik, sekula ordezeko jatorragorik bilatu edo asmatu beharko ez zaielako abantailarekin:

⁹⁸⁴ Atzizkiak edonon harrapatzeko jadanik azpimarratu dugun joeraz.

abarka, adala, adarbe, adarga, agorgea, ailorbe, añagaza, añaze, añazme, aingira, aingura / angura, alabarda, alabastro, alabe, alaga,⁹⁸⁵ alanbre / aranbre, alaraka, alberdania, albriste / albiste, alborada, alborakia, albornia, albornoz, aldamió, aldea, alferesia, algarabia, algarada, alkaizeria, alkandora, alkarabea, alkarra(t)za, alkate, almea, almena, almendra, aloza, alpiste, altxatu / altzatu, altzairu, amaño, amodio / amorio, anaskote, anda, anden, angarila, ankon, anpoila, ardit, argana, arguitu, aribatu, arlekin, arlote, armario, armiño, arpa, arpeo, arpia, arpillera, arraian, arraketa, arralea, arrasatu, arropa, arroka, arronzatu, arrope, arrosa / larrosa, arroz, arteria, artimaña, arzoí, asensio, asma, asmadura, asmatu, atakatu, atrakatu, hatu, azabra, azagaia, azaia, azitrai, azuzena.

Hauekin batera aipatu behar dira etimologiarekin lotutako ordainak baizik ez daramatzaten sarrerak, eskuarki mailegua eta etimoa edo etimoarekin lotuago dagoen forma bat:

alkarraza, alkarrazta (< *garratza*); an(t)zerra, an(t)zarra (< *aoanzerra*); arrestu, arrestutu, arrestatu (< *ar(tu) + estu(tu)*); arrotzatu, arrotzitu (< *arro + otz*); azendatu, azenduatu (cf. *aziendoa* "hacienda"); azienda, aziendea, aziendoa (< *azien doa* edo *doaña*); azuga, atzura, azura (< *atzi(tu) + ura*).

Esan gabe doa, etimologiak erdal familiakide zenbait hartzeko bidea emateaz gainera, honela berreskuratutako hitzek elkartu-eratorriak izateko aukera daukatela *HH*-an:

adarga (*adargaztatu* "adargarse"), *añaze* (*añazatu* "feriar"), *aingura* (*aingura sari* "anchorage", *ainguratu* "anclar"), *alabarda* (*alabardada* "alabardazo", *alabardari* "alabardero"), *albiste* (*albiste-sari* "albricias, regalo"), *albornoz* (*albornozko capa* "albornoz, capote"), *alkandora* (*alkandoratxo* "camiseta", *alkandoratzar* "camisón"), *almendra* (*almendradi*, *almendregi* "almendral", *almendrari*, *almendrategi* "alozar"), *altxatu* (*altxakizun* "levadizo", *altxari* "levantador", *altxate* "erección", etab.), *altzatu* (*altzaera*, *altzate* "aladura", etab.), *altzairu* (*altzairugile*, *altzairugin* "(fabricador de) acero", *altzairukintza* "(el) oficio de fabricar acero", *altzairutu* "acerar", etab.), *angura* (*anguratu* "anclar"), *aranbre* (*aranbruztai* "guarda infante", "tontillo"), *arrosa* (*arrosatu* "enrosar", *arrosti* "rodomet"), *azitrai* (*azitrailora* "epithymbra"), etab.

Etimologiek bermatutako maileguen ordaintasuna sendotua ateratzen da, bestalde, sarrera ezberdinetan agertzen direnean; batzuetan —aukeraren arabera— oso nabaria da ez direla txantxetako ordainak (cf. *aitzakia*, *aitzakiatu*, *akabatu*, *alabatu*, *altxatu*, *angurria*, *antsia* eta *ardit*, adibidez), oso kontuan hartzekoak baizik:

abarka (+ "alborja"), *aberia* (+ "gasto"), *adreztu* (+ "arreglar", "reglar"), *añaze* (+ "feria"), *añazme* (+ "manilla"), *aitzakia* (+ "callejuela", "color", "disculpa", "excusa", "pretexto"), *aitzakiatu* (+ "disculpar", "excusar", "pretextar"), *akabatu* (+ "concluir", "terminar"), *alabanza* (+ "elogio"), *alabatu* (+ "elogiar", "laudar", "loar"), *almendra* (+ "alozar"), *alozar* (+ "tomado"), *altxatu* (+ "elevar", "empinar", "encaramar", "erigir", "levantar", "subir el precio"), *altzatu* (+ "enarbolar", "levantar"), *amatu* (+ *txit amatura* "carísimo"), *amodio* (+ "afición", "amor"), *amorio* (+ "amor"), *andana* (+ "hilara"), *angurria* (+ "badea", "sandia"), *anparatu* (+ "apadrinar"), *antsia* (+ "aflicción", "agucia", "ahogo", "angustia", "congoja", "cuidado", etab.), *antzar* (+ "ansar"), *apartatu* (+ "separar"), *ardit* (+ "óbolo", "ochavo"), *argana* (+ "argano"), *arguitu* (+ "argumentar", *bidurrezcoz arguitu* "silogizar"), *arribatu* (+ "harbar"), *armario* ("alacena"), *aroi* (+ "haragán", "ocioso"), *arpoi* (+ "abrazaderas", "cantonera", "grapa", "manija"), *arraia* (+ "chaza", "venero"), *arrika* (+ "abertura", "hendedura", "portillo de muralla", "quebra", "resquebradura", etab.), *arripatu* (+ "agarrar", "arrebatar", "engarrar", "gafar", "garrafiñar", etab.), *arrosatu* (+ "demoler", "destruir", "estrugar"), *arresto* (+ "assomo", "xazilla"), *asmadura* (+ "asmamiento"), *asmatu* (+ "acertar", "adivinar", "atinar", "bruxulear", "calar", etab.), *atrebitu* (+ "osar"), *atxakia* (+ "excusa", "pretexto"), *autatu* (+ "elegir", "escoger", "señalar"), *azabra* (+ "fragata"), *azagaia* ("arma arrojadiza", "arrojadizo", "dardo"), (*h)azaña* (+ "proeza"), *azenia* (+ *azenia ugueitatu* "reboñar"), *azertadu* (+ "acontecer", "suceder").

Dena dela, euskal hitz zaharra izateak ez du kentzen artean bestelako esanahikideak ere egotea, noski. Larramendik aukeran eskaintzen ditu, dagokien bezala:

abarkatu (+ *gauz asco eguitea*, *artzea*), *abere* / *abre* (+ *animalia* "animal", + *atzienda* "bestia", + *elea*, *elia* "ganado mayor", + *zamari* "jumento", etab.), *aberia* (+ *calte*), *abiatu* (+ *asi* "comenzar"), *abilantez* (+ *osadia*, *atrebencia*), *aboiatu* (+ *zacondu*, *zocondu*, *mallatu*, *maliatu*, *coscatu*), *adobatu* (+ *onguitu*,

⁹⁸⁵ Aldamenean *gari mota bat* (= "especie de trigo") azalpena baino ez darama.

antolatu, *alogatu* “remendar”), *akordatu* (+oroitu, *comutatu*), *alabanza* (+*doandigoa*, *laudorioa*), *alabar* (+*doanditu*, *laudatu*, *laudariotu*), *alba* (+*eguanzá*, *egunsentiá*, *eguaireá*, *arthatsá*, *arguiaren beguia*), *apiril* (+*jorrailla*), *area* (+*ondarra*, *legarra*), *azertadu* (+*suertatu*, *guertatu*), etab.

Eta euren erabilera elkartu-eratorrietan sustatzen:

abere (*aberedi* “atajo de ganado”, *aberegisako* “bestial”, *aberekeria* “bestialidad”, “brutalidad”, *aberekiro* “bestialmente”, “brutamente”, etab.), *abre* (*abrear* “bestial”, *abrebasle* “quatrero”, *abredari* “bregage”, *abrekeria* “bestialidad”, “brutalidad”, etab.), *aboilatu* (*abollantza*, *abollatze* “abolladura”, *abollari*, *abollatzalle* “abollador”), *adobatu* (*adobaketa* “embón”, *adobaki* “remiendo”, *adobatzaile* “remendón”), etab.

Inoiz, baita adibide, atsoitz edo bestelako sarreretan ere:

abarkatu (“Quien mucho abarca, poco aprieta, asco *abarcatzea*, *da guichi estutzea*”), *akordatu* (“Acuérdame, *oroit nazazu*, *comuta eguidazu*, *acorda zadazu*”), *alabanza* (“*alabanza guicien diña da*, es digno de todas las alabanzas”, s.v. *digno*), *alabatu* (“Hasta los enemigos le alaban, *are etsayac*, *etsayac ere*, *arerioac bere alabatzen deue*, *daue*, *dute*”, s.v. *hasta*; “Aleluya, *eleizan dioguna*, *esan nai du*, *alaba ezazue Jauná*”), *albenda* (“Albendera, texedora de albandas, *albendaquiña*, *albendaguilleá*, *albenden eulea*”), *apiril* (“Por abril aguas mil, *Apirillean euri betear*”), *azertadu* (“Acertó a pasar por allí, *suertatu*, *acertadu zan andic igarotzea*”).

Hasiera batean behintzat, etimologiek bermatutako hitzak gainerako euskal hitzak bezalaxe dabilta *HH*-an, hiztegiaren gogara —edo bere oroimenaren arabera— agerraldi gehiago edo gutxiago erdietsiaz esanahikideetan. Halaz ere, lau gertakari berezi atxeman dituz azterketan eta, beharbada euren esangura osoa adierazten jakingo ez badut ere, baderitzat komeni dela astiro begiztatzea, nahiz eta *HH* osoaren gainean bakarrik neurtu ahalko den, nik uste, zer-nolako eragina daukaten oro har etimologiek bermatutako hitzetan.

1) Eskuarki alderantziz gertatzen den arren, gorago ikusi bezala, badira familiakideetan Larramendik erabiltzen ez dituen zenbait hitz:

ALBOROTO: *alborotoa*, *arazoa*, *asalda*, *cegarrega*, *autsi abartza* “alboroto” vs *arazoz*, *cegarregaz*, *naasiro* “alborotadamente”, *nascaria*, *autsi abartzallea* “alborotador”, *arazotu*, *asaldatu*, *autsi abartzatu* “alborotar”.

ALBOROZO: *alborozoa*, *arazo gozoa*, *poza*, *pozaldia*, *bozcario andia*, *sendagalla* “alborozo” vs *poztu*, *bozcariotu*, *pozez*, *bozcarioz*, *atseguñez bete* “alborozar”.

ALERTA: *egon alerta*, *artaz egon*, *contuan egon*, *esnatua*, *irazarria*, *ernaya*, *ernari egon* “alerta, estar alerta, estar con cuidado y vigilancia” vs *artatsua*, *esnatua*, *ernaya*, *ernaria*, *irazarria* “alerto, cuidadoso, vigilante”.

ARROJO: *oldarria*, *arrojua*, *atrevindea*, *aurtiquiera* “arrojo”, *atrevindea*, *errua*, *aurtiquiera*, *arrojoa* “arrojamiento” eta “Arrojar, viene de *arrojo*, y esta voz es puramente Bascongada...” vs *bota*, *egotzi*, *iraitzi*, *aurtiquitu* “arrojar”, *atreviquiro*, *erruquiro*, *atrevindez*, *erruz* “arrojadamente”.

ASOMATU: *assomatu*, *aguertu* “assomar”, *assomatua*, *aguertua* “assomado” vs *agueria*, *aguertua* “assomada”, *aguericho*, *aguertucho* “assomadita”.

Betiko interpretapena —alegia, noizbait euskal hitza izanak ez duela esan nahi gaurko euskararen premietarako nahitaez erabili beharrekoa denik— eman dakioken arren, halaz ere, aipatzekoa da *alborozo* eta *alboroto* izan ezik hitzok *EGH*-an berragertzen direla: hauei dagokienez behinik behin, ziur egon gaitzke, beraz, erabiltzeko eta erabilarazteko prest egon zela Larramendi.

Bigarren azalbidea, euskal ordainen ugaria izan liteke, hots, sarrerak gehiegi ez luzatzeko aukeraketa zenbait egin behar eta etimologiadun hitza, besteak beste, galduan atera zela. Baliteke baina ez dirudi *EGH* eta *HH* beti irizpide berari atxikitzen zaizkionik: hau hobeto aztertu beharko bada ere, kontua da batzuetan euskara-erdara hiztegiak ez dituela hitz batzuk jasotzen (*abadia*, *abanino*, *abarkatu*, *abrigatu*, *abroila*, *agasajatu*, etab.), baina itxuraz jaso

beharko ez lukeenen bat badakar, ostera, hala nola *atisbeatu* etimoa, *HH*-ko ordainen artean ageri ez dena:

“Atisbar, viene de el Bascuence, *atisbeatu*...” vs “Atisbar, *beguietsi, celatatu*”, “Atisbado, *beguietsia, celatata*”, “Atisbador, *beguieslea, celataria*”.

2) Honelako hitzak ordain bakarrak ez direnean, maiz —maizegi, agian, aintzat ez hartzeko— ordain perifrastikoak dira aldamenekoak:

abarkatu (+*gauz asko egitea, artzea*), *ademan* (+*adiemana* [etimoa], *siñuz ta queñuz aditzera ematen dana*), *ainuskatu* (+*ecin iretsiric guelditu*), *alabastro* (+*marmolen motaco arri churi bat*), *alaga* (+*gari mota bat* ~ “especie de trigo”), *albenda* (+*albandia* [etimoa], *eunezco, ari, sarezco oa jancia*), *aleatu* (+*cillarra edo urrea nahastu, nahassi* ~ “mezclar o fundir Plata u Oro...”), *alferez* (+*bander-eramallea* ~ “el Cabo que lleva la vanderá”), *alkabala* (+*gauza salduetatic pagatzen dana vs alcabaletaco liburua* “alcabalatorio”, *alcabalaria, alcabalen zaia* “alcabaletero”), *arratoi* (+*erratoya, sagu andia* ~ “ratón muy grande”), *arropatu* (+*arropaz estali, estaldu; arropatua, arropaz estalia* “arropado”).

Haietako batzuk nabarmenki ordaintzat baino definiziotzat errazago har daitezke (cf. *alaga*-ren zehazgabetasuna eta *ademan, alabastro* edo *alkabala*-ren luzetasuna); uste horretan sendotzen gaitu, gainera, anitzetan ordaina delakoa gaztelaniazko azalpenaren itzulpena izatea (*alaga, aleatu, alferez, arratoi*). Honek bi esangura ezberdin dauzka: alde batetik, aukera bakartzat eskaintzen diren honelako hitzen portzentaia zertxobait igotzen du; bestetik, Larramendik euskal definizioak (ik. I, § 5) batzuetan behintzat oso zeregin zehatzarekin baliatu zituela erakusten digu: berak euskarazkoak direla uste izan arren, bere herritarrek erabat ahaztu dituzten hitzak eurek ulertzeko moduan azaltzeko, hain zuzen.

Euskal lexikografiaren historiaren aldetik, zilegi bekit berriz esatea halako definizioek daukaten garrantzia, ez baitagoke antzekorik XX. mendera arte. Eta *HH*-aren ikerketaren aldetik, berriz, Larramendik egindako mailegu berriak seinatzen laguntzen digute, apika.

Dena dela, bistan da bildutako adibideen artean askotariko gauzak daudela: *bander-eramallea*, esaterako, azalpenaren itzulpena izan arren ordain egokia izan liteke, jakina. Luzexeago eta korapilotsuago diren besten zenbait ere Larramendik adierazita utzi zuen nola erabil daitezkeen eta, hurren jarriko dudan adibidean argi antzeman daitekeen bezala, sarritan euskaraz ohikoagoak diren aditz perifrasierei nagokie batez ere:

norbait ondo artzea, gozoro tratatzea, agasajatzea “agasajar”.
ondo artua, gozoro tratatua, agasajatua “agasajado”.
chitez ondo artu ninduten, guciz gozoro tratatu ninduan “agasajome muy mucho”.
ondo artzallea, gozoro tratatzallea, agasajatzallea “agasajador”.
ondo artzea, gozoro tratatzea, agasajatzea, verbales, agasajoa “agasajo”.

3) Honelako hitzen alboan batzuetan hitz berriak aurkitzen ditugu; aztertugabeko letretakoak izan ohi direnez gero, kontuz jokatu dut, nabarienak bakarrik jasoaz:

abrigatu (+*nozgetu*), *aberia* (+*oncalda*), *aitzakiatu* (+*obenquetu* “disculpar”), *alabanza* (+*doandigoa*), *alabatu* (+*doanditu*), *arrasgoa* (+*izquirillea*), *arregatu* (+*ugaindu*), *artilleria* (+*sutumpa, sutumpadia*), *atarazana* (+*ontziquinteguiá*), *azenia* (+*uboillaya* “rodete”).

Beraz, kontua ez da bakarrik euskal hitz zaharrak izateak ez duela nahitaez esan nahi berriro erabili behar direnik, baizik eta, areago, ez duela nahitaez hitzberrigintza eragozten: badirudi Larramendik ez zuela, ez eta honelakoetan ere, burura etorri zitzaizkion hitzak aukeran eskaintzeko egokiera galdu nahi izan. Gertakari hau, ezpairik gabe, testuinguru zabalagoan

bakarrik uler daiteke: hizkuntzaren posibilitateak zukutzeke bere buruari aitortu zion eskubidearen arabera, alegia.

4) *HH*-an badira etimologia hutsa jasotzen duten hainbat sarrera, bestelako osagarririk gabe. Halako batzuk nabarmenki bigarren mailako sarrerak edota bigarren mailako etimologiak dira, hots, bidalketa-dei modura funtzionatzen dute, eta ez da erraz jakiten —*EGH*-aren laguntzarik gabe bederen— bertan agertzen den etimoa ordaintzat proposatzen ari den ala ez. Ikus ondoko adibideok:

Assayar, intentar, voz antiquada de Aragón, es Bascongada, *assayatu*, que en algunas partes se conserva así, y en otras se dize *sayatu*.

Ensayar, viene de el Bascuence *sayatu*, que significa probar, examinar, ensayar.

Ensayado, *sayatua*.

Intentar, *nai izan, benaitu, ecaitu*.

Atapar, véase *tapar*. Viene de el Bascuence *atapatu*, de *atepetu*.

Tapar, es de el Bascuence *tapatu*, que significa lo mismo, *estali, bozatu*.

Tapado, *tapatua, &c.*

Itxura batean, etimologia hutsak dira, eta barruko euskal hitzak etimoak bakarrik. Alabaina, badirudi hiztegiak sarreraren arteko harremanak ongi konprobatu ez izanari egotzi behar zaizkiola, zeren eta bitik bitan *EGH*-ak jasotzen baititu, bai *asaiatu*, baita *atapatu* ere.

7.5. Ondorioak

Larramendi, bere garaian aski normala zenez, ez zen izan maileguzaleegia; aitzitik, bazeritzan maileguek hizkuntza janzteko baino txirotzeko gehiago balio dutela eta, honen arabera, hiztegiak bahiketa egingo zuela zioen, hizkuntzan barneratuta zeudenak bakarrik jasotzeko asmoz, bai euskal kiderik izan arren eurak baino hobeto ulertzen zirenak, baita gauza berriak izendatzeko euskal izenik sortu gabe maileguaz beste adierazlerik ez zutenak ere.

Izan ere, hiztegiak maileguen azterketak bi mota daudela erakusten digu, baina aldez bakarrik datoz bat Larramendik hitzaurrean deskribatutakoekin. Sarreraren ordain bakar gisa agertzen direnak bereizi ditugu lehenik, ezinbesteko ordainak baitira: hiztegiak ez du kide hobetik idoro eta, gainera, pentsa liteke hainbatetarako beharrik ere ez zuela somatzen: eusk. *atxioite*, gazt. *achioite* eta are lat. *achiotus* deritzan Ameriketako zuhaitza, demagun. Bigarrenik, alboan euskal kideak daramatzatenak azterkatu ditugu, Larramendik pixkanaka ordezkatu nahi zituenak hauexek direlakoan. Badirudi hauen artean ere bizpahiru mota bereiz daitezkeela: arruntak, defektiboak eta lekukotasun hutsak, nolabait esateko. Ordain arruntak esanahikideetan agertzeko eta familiako sarrerak eratorriez-eta hornitzeko gai dira: ez dira ezertan bereizten hiztegiak gainerako hitzetatik eta, beraz, pentsa dezakegu Larramendik ez zuela uste hauek ordezkatzeko erraza edota beharrezkoa izango zenik. Defektiboak erdibidean daude: arrazoi ezberdinengatik hiztegiak zehar hedapenen bat badute ere, eskuarki beste ordainen bat irabazian ateratzen da haiekiko, Larramendik proposatutako ordezkapena agerrian jarriaz. Eta, azkenik, "lekukotasun hutsak" direlakoak *HH*-an *de facto* ordezkatzeko hasiak ditugu: hiztegiak haien berri ematen du, baina iragaitzaz bezala, egiatan esanahikide, eratorri, etabarretarako besterik erabiliaz.

Orain artean aipatu ditugun maileguak zeharo bereizi behar dira etimologiek bermatutakoetatik. Larramendiren lana ulertzeko buruan izan behar dugu bigarrenak ez direla maileguak, *de iure*-ko euskal hitzak baizik. Egia da eskuztatu ditugun zenbakien arabera jadanik erabiltzen ari zen mailegu mordoxka bat era honetara bermatu ahal izan zuela, baina alde honetatik ez zeukan inolako eragozpenik inoiz entzun edo irakurri ez zituen hitzak, behin etimologia aurkituz gero, eskubide osoaz euskararatzeko. Etimologia guztiak ez dira mailegu bermatzaile, ez eta hurrik eman ere, baina esan daiteke *HH*-an agertzen diren mailegu berri asko —gehienak, agian— etimologiek bertaratu dituztela; hauen artean bereziki aipatzekoak dira etimologiadun hitzen erdal eratorriak, dozenaka sartu baitira, sartu ere, etimologia dela kausa. Gainerantzean, dagokien bezala, ordain arruntak dira zeharo *HH*-an.

Aztertzekeo geratzen den punturik garrantzitsuena, nik uste, bateko eta besteko maileguek *EGH*-an izan duten patua da: alde batetik, euskara-erdara hiztegia izanik badirudi “benetako” maileguetan bahiketa zorrotzagoa izan litekeela *HH*-an baino; bestetik, etimologiei dagokienez, *HH*-an batzuetan ilun xamar ageri diren mailegu, etimo eta ordainen arteko mugak azkenean zertan geratu ziren erabakitzen lagundu digu *EGH*-ak, osatuta dagoen neurrian bederen.

8. Larramendiren sorbideen bila (VII): Toponimia eta antroponimia

Aizkibelek honela azaldu zuen halako edukiari bere hiztegian —batez ere eranskinean— egin zion harrera zabala:⁹⁸⁶

...como en el transcurso de tantos siglos en que ha estado la Euskera sin fijarse por medio de la escritura, se han perdido muchísimas voces, de las cuales algunas radicales solo están en uso en los nombres de ríos, montes, caseríos, ciudades, apellidos, etc., en composición con otras conocidas, me ha parecido conveniente colocar estos nombres en el sitio correspondiente al orden alfabético, bien sea con su significación en castellano, o sin ella cuando no esté bien seguro de conocerla (Aizkibel 1883: iii).

Ohitura honen —eta, funtsean, euskarri ematen dion ustearen— arrastoak Azkuerengan aurkitzen dira oraindik; hona adibide zenbait:

Arratia (...). 2º nombre de un valle de Bizkaya.

Atxuri (...). 2º (B), un barrio de Bilbao.

Elemendi (B-*arb*), nombre de un monte en Bizkaya (V. *Ele*, 1º).

Elorrio (...). 2º villa de Bizkaya.

Orio (...). 2º río y pueblo de Guipuzcoa.

Gure herritarrek ariketa (erlatiboki) erraz honetarako izan duten eta duten zaletasuna azaldu beharrik ez dagoela, euskal lexikografiaren historian izan duen eragin iraunkorra, berriz, aski ezezaguna da. Axaletik begiratzeko baldin badiogu, Aizkibel eta Azkue zaletasun horren adibide garaiak baino ez lirake eta toponimiaren⁹⁸⁷ erabilera lexikografikoa, anekdotikoa baino ez. *HH*-aren azkerketak, ostera, gertakari zenbaiten giltza eskainiaz, azalbide hori gezurtatuko digu. Mutur batean, Larramendi baino lehenagoko historialari / apologiagile guztietan jakin-min horren lehenengo erakusgarriak —zaletasunaz gaineko xede ezagunekoak— dozenaka

⁹⁸⁶ Esan gabe doa ez dela garaiko lekukotasun bakarra; Campomanesek Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteari egin zion hiztegi egitasmoan, hauxe zioen: “5.º Los nombres Geográficos de ríos, montes, pueblos y sitios forman otra de las fuentes más importantes del Diccionario” eta “6.º Los apellidos tomados de la Geografía, de la situación de las casas solariegas, de los patronímicos y de las virtudes o vicios del ánimo o disposición del cuerpo son otras partes del idioma, y de que debe hacerse igualmente colección” (1773, ap. Echenique 1997: 190-191).

⁹⁸⁷ Erosotasunaren bila, hemendik aurrera maizenik “toponimia” eta “toponimo” hitzak bakarrik erabiliko ditut, ezaguna denez, euskal deitura gehienek toponimian (handian zein txikian) etorkia daukatelako aukeraz baliatuz (Mitxelena 1955: 23). Hautaketa estilistikoa da eta, beraz, ez du aurreuposatzen Larramendi batez ere toponimian oinarritu zenik.

aurkitzen ditugu.⁹⁸⁸ Beste muturrean, euskara-erdara ordenan antolatutako hiztegiek (Aizkibel eta Azkuerenak, kasu) hitz arrunten eta toponimoen arteko erlazioen edota toponimoen euren azalpena egiteko aukera ematen diete haien biltzaileei. Bada, Garibai edo Isasti historialariak eta Aizkibel edo Azkue hiztegiek, Larramendiren lanetik igarotzen den kate bat beraren begiak direla erakutsi nahi nuke ondoko lerroetan.

HH ezagutzen duena harrituko da: izan ere, haren nomenklaturan ez dago izen berezien arrastorik ia. XVI-XVII. mendeetako hiztegiek leku eta pertsona-izenez haien lanak hornitzea hiztegia aberasteko —eta, jakina, hiztegi erabiltzailea bere irakurketetan eta hezkuntzan laguntzeko— bidetzat hartzen zuten.⁹⁸⁹ Alabaina, *DAut* lekuko,⁹⁹⁰ une batetik aurrera hizkuntz hiztegi hutsak (edo ia hutsak) egiteko joerak indarra hartu zuen eta, ereduari honetan ere hertsiki jarraiki, Larramendik ez die lekurik egingo. Baina azaleko gertakari honek ez gaitu engainatu behar: Larramendi ez zen berritzaile izan hiztegia garatzeko baliatu zituen tresna lexikografikoetan, lan honen lehen ataletan antzeman ahal izan dugun bezala. Haren berritasuna euskararen auziari eman zizkion aterabideetan datza beti, eta hain zuzen arlo honetan kausitzen dugu toponimoek *HH*-an jokatu duten papera.

Berriro ere haren aitzindariengana jo behar dugu katearen begiak hurrenkera ulergarri batean ezartzeko. Larramendi baino lehen euskarari buruz idatzi zutenengan toponimia euskarak irabazi behar zuen gudu baten zelaia zen tubalismo edo kantabrismoaren eztabaidei zegokienez; euskara goraiatu behar zuten heinean, berriz, haren botere azaltzailea, haren filosofikotasuna neurtzeko lursail bigun bezain oparoa. Larramendik, ez dago esan beharrik ere, ez zien lan bati ez besteari uko egin, baina liskarraren oihartzunak hiztegiaren ateetaraino —hitzaurreraino, zehazkiago— baino ez dira iristen. Inor ez zen gehiegi harrituko bere argudiaketaren frogabiderik argienetako bati amore emanez, *HH* ehundaka toponimoz osatu izan balu, zein bere azalpen etimologikoarekin, hitz arruntekin egin legez. Ez daukat zalantzarik *DAut*-en ereduari atxikitzea dela batzuk bai eta besteak ez barneratzeko arrazoia. Ereduaren zamak, oster, ez zuen lortu hain baliabide aberatsa erabat kanpoan geratzea:

...pues todos los nombres Bascongados tienen alguna significación, especialmente de Países, montes y ríos (Larramendi 1745: lxxii).

Passo a otro argumento semejante, pero mas claro. Tómole de los apellidos Bascongados, que son de nombres compuestos, y significativos en nuestra Lengua (*ib.* lxxiii).

⁹⁸⁸ Balioespen interesgarria egin zuen Mitxelenak (1980) Tovar 1980ri eskainitako erreseinan. Banaka batzuk ikertuta daude: Zaldibia eta Garibai (Zubiaur 1990), Poza (Coseriu 1972, Gorrochategui 1987, Zubiaur 1990 eta Juaristi 1992). *HH*-ko erdal iturriei buruzko atalean (§ 11) toponimiazko alderdi zenbait, eta batez ere euren arteko erlazioen zantzuak ala nola Larramendiren hiztegian izan zuten eraginaren erakusgarriak ugari aurkituko dira. Bide batez, bertan antzeman ahalko da, jadanik jakina ez balitz, toponimiaren interpretapenerako zaletasuna ez dela inoiz euskaldunena, ez eta euskarari buruzkoa bakarrik izan.

⁹⁸⁹ Ik. adibidez Starnes 1954: 72-73. Frantsesezko hiztegietan, berriz, izen bereziak —erabilera figuratua— edo ez izatera— sartzeko uzurtasun handia egon zen Trevoux-en hiztegiaren 1721eko berrargitalpena arte (Quemada 1967: 310-319).

⁹⁹⁰ "...han quedado excluidas del Diccionario todas las voces y nombres propios de personas y lugares, que pertenecen a la Historia y a la Geografía" (*DAut* 1726: vi).

Ereduak hain garbiki bereiztarazten dizkion bi arloak ezin egon zitezkeen egiazki bereizita Larramendiren egitasmoan, batean zein bestean etimologia —euskararen etimologia— egiten ari baitzen eta, hortaz, euskararen ezagutzan aurreratzen. Erdarazko hitzen etimologiak —ikusi berri dugu— sorketa lanaren iturrietatik bat dira, biltzailea bete behar dituen zuloetarako erro berriz (zahar-berrituz, haren ustetan) hornituz. Aldi berean, eta lehenengoz, toponimiaren etimologi azterketaren etekinak lexikografian erabili zituen, noiz azalpen lagungarri, noiz hitz hornitzaile gisara. Esan gabe doa honen asmoa eta Aizkibelena bat direla, hots, denboraren eraginez galdutako euskal hitzak —erroak eta, Larramendiren kasuan, baita atzizkiak ere— berreskuratzea, zeina baita jadanik marraztu dudan lehengo eta gaurko, non-nahiko eta noiznahiko euskararen funtsezko batasunaren teoriatik berez eratortzen diren ondorioetatik bat. Ezin esan gabe utzi ahalbide honen lehen agerriko aipamena Oihenartena dela:

Sunt etiam quaedam alia nomina vetera Hispanica, ab hac litterâ incipientia, quorum usus licet iam in familiari sermone Vasconum obsoleuerit, olim tamen inualuisse conicimus, ex eo quod eadem adhuc durant in nominibus propriis locorum quorundam aut familiarum Vasconiae, talia sunt *Atahona*, nomen vici in ceteriore Navarra, *Arroz*, pagus quidam in Hospita valle *Ataharraz* vicus in Vicecomitatu Solensi (Oihenart 1656: 47-48).

HH-an honen frogak aurkitzea aski lan erraza da. Adibidez, Gipuzkoako herrien izenak gaingiroki baino ez ezagututa ere, ondoko emaitzak berez mintzo direla dirudi:

ABALZIZKETA “Melodrama, diálogo en música, *abalcizqueta, otseztizqueta*”.
 ADUNA “Trigo nuevo, *aduna*”.
 AMEZKETA “Carvallar, *amezqueta, amezaga*”. “Quexigal, *amezqueta, ameztia*”.
 ARRASATE “Demolición, *arrasatea, barraiadura, deseigoa, deseguindea, lurreratzea*”.
 ASTIGARRAGA “Arboleda de ellos [tilos], *astigarraga, astigardia*”.
 BERASTEGI: “Baxada, *jachiera, beerastea, berasteguia, jauspidea*”.
 GAINZA: “Alteza, soberanía, superioridad, *gaindea, gaintza, garaitza*”. “Eminencia, altura, elevación, *gaintza, gaindea, garaitza*”, etab.
 GATZAGA: “Salina, salinas, *gatzaga, gazquinteguia*”.
 GETARIA: “Fumante, *queeztaria, guetaria, queguillea*”.
 IKAZTEGIETA: “Carbonera, *icazteguia, iqueztoquia*”.
 IZIAR: “Tamujo, arbusto espinoso, *erratz latza, iñuncilatza, iciarra*”.
 LASARTE: “Lastre, especie de piedra tosca, es voz Bascongada, *lastrea, lasta*, síncope de *latsarte, lasarte*, entre arroyos u riachuelos, que es donde se encuentran tales piedras”.
 LEZO: “Fielto, *lezoa*”. “Fielto, sobretudoo para defensa de el agua, *lezoa*”. “Sobretudo, para defender de el agua, *lezoa, soingaña, gucigaña*”.
 LIZAUR: “Monacillo, monago, monaguillo, *lizaurrea*”.
 MENDARO: “Almoradux, mayorana, yerba, *mendaroa*”. “Mayorana, yerba, la misma que almoradux, *mendaroa*”. “Serranía, *mendaroa, aitzadia, mendarte*”.
 ORIO: “Oportunidad, *mugoná, orioa, parada, carazá*”. Cf. “Oportunamente, *mugonez, mugonquiro, orioró, carazcoró*”. “Oportuno, *mugontia, mugonduna, oriozcoa, carazcoa*”.
 ORMAETXEA, ORMAIZTEGI:⁹⁹¹ “Horma, es voz Bascongada, *orma*, que en su primera significación quiere dezir pared o tapia hecha ajustadamente, y por esso *ormaechea* a la casa fabricada de tales paredes y tapias, y *ormaiztegui*, contracción de *ormaechetegui*, parage de casas fabricadas de tales tapias y paredes”.
 ORMAISTEGI: “(Lugar donde se) empareda, *ormaistegi*”. Cf. “Emparedamiento, *ormaistea, ormestea*”.
 ZUMARRAGA: “(Alameda de) negrillos o álamos negros, *zumardia, zumarraga, zumarreta*”.

Gipuzkoatik kanpora ere ateratzen jakin zuen, nahiz —azterketan zehar agerriko zaigun eta espero izatekoa den bezala— inguruko toponimoak (Bizkai-Gipuzkoetakoak batez ere) gainerantzekoak baino hobeki ordezkatuta dauden:

⁹⁹¹ Etimologia hau Etxaberi zor dio (§ 11.3), baina *Ormaiztegui*-ren azalpena berak erantsi du.

BAIONA: "Bahía, es voz enteramente Bascongada, y significa puerto; y llamamos *bayona* al buen puerto, y aquella deprecación frecuente en labortano *bayonean eltzea*, de que lleguen felizmente al puerto".⁹⁹² "Puerto, *baiya, bayona, portua*". "Surgidero, *baya, bayoná, caya*".

ELEMENDI: "(Monte, en que anda la) dula, *elemendia*". "(Monte de pastos para) ganado, *elemendia*".⁹⁹³

ELORRIAGA, ELORRIETA: "Espinar, de espinos, *elorrieta, elorriaga <-ega>*" (s.v. *espino*).

EREÑO: "Sementera, la obra de sembrar, *ereitea, ereintzea, ereiñoa*".

GARMENDIA: "Ahumada, en las atalayas, *garmendia, queetea*". "Angaro, ahumada para avisar, puede venir de el Bascuence *an garrá*, allí llama de fuego. *Garmendia*".

GETXO: "Humillo, *quecho, guechoa*".

LAKUNTZA: "Acompañamiento, *laguntza, lacuntza*". "Ayuda, socorro, *laguntza, lacuntza*". "Concurso, ayuda, *lacuntza*". Cf. "Lacayo, es voz Bascongada *lacayoa*, que significa lo mismo, y se compone de *lacun* o *lagun*, compañía y ayuda...".

LARRABEZUA: "Pasturage, *larre guciaquicoa, larrabezua*".

LARRAÑAGA: "Eras, *larrañaga*".

MAÑARIA: "Mañero, el que tiene maña, *mañeru, mañaria*".

MARKINA: "Margen, esta voz y la Latina *margo, marginis*, son de el Bascuence *marguina, marquina*, que significa lo mismo, y se compone de *marr, marra*, raya, límite, *guina, quina*, el que le haze y pone, y a la margen pone raya o límites <-er> a lo que se contiene dentro de las márgenes. *Marguina, ertza, bazterra*". Cf. "Margenar, marginar, *marquindu, marquindu, ertzatu, baztertu*". "Marginal, *marginarra, marquindarra, ertzecoa, bazterrecoa*".

OROZKO: "Público, *otsandequia, ochandiquia, aguerria, aguiria, jaquiña, orozcoa*". "(Muger) pública, *emacume orozcoa*".

OSINAGA: "Ahozinarsen, estrechase con profundidad el río. Viene de el Bascuence *osiná*, que significa profundidad en los ríos, y *osinaga* los parages profundos y frecuentes de el río". "Hocino, angostura honda en los ríos, es voz Bascongada *osina*, como se dixo en la voz *ahocinarsen*, y significa esso mismo, y donde ay muchos hocinos, *osinaga*".

Antroponimo hutsak edota antroponimo gisa askoz ezagunago direnak ere badira; cf.,
bestek beste:

MUNITA: "Alcor, voz antiquada, lo mismo que cerro, *mendisca, munita*".
UNTZETA "Hiedral, *untzeta, untzaga*".

Hurbilketa modura, zerrendotan bildutako adibideek balio frogatzaile handia dute, gehienek euren etorkia ozenki salatzen baitute: Larramendik egiten duen interpretapena —zuzen zein okerra— begibistakoa da. Adibidez, zailenetako bat hartuta, nabarmena da *Larrabezua*-ren azalpen/itzulpena batez ere haren lehenengo osagaiari zor zaiola; bigarrena, agian, *bezoa* "costumbre"-rekin⁹⁹⁴ lotuta dago. Toponimiaren eragina badela frogatzea erraza da, beraz, baina jadanik aitor daiteke haren mugak noraino hedatzen diren erabakitzea zaila izango dela. Toponimo eta, aldi berean, hitz arruntak izan litezkeen arazo (*ikaztegi*, adib.) geroko utzirik, errepara diezaiegun *lezo* eta *orio*-ren kasuei: Toponimiaz kanpo beste lekukotasunik ez dutenez gero, badirudi ondorio gisa interpretapen errazik ez daukaten toponimo zenbait ere hiztegia hitzez hornitzeko baliatu zituela erabaki daitekeela, halakoei adiera arbitrario bat —nork daki zerk eraginda— emanaz. Alabaina, orain artean zerbait agerian utzi uste badut, Larramendiren hitz berriak etimologi/morfologi ariketa bikoitzaren bitartez

⁹⁹² Baionaren izenaren etimologiaz hainbat aritu baziren ere, zehazki etimologia hau Oihenartena da (§ 11.4.1.2).

⁹⁹³ Gogoan izan dezagun Baionako egotaldian Domingo de Elemendi izeneko lagun jesuita bat izan zuela (*Autobiografía* 21, 20. oh.).

⁹⁹⁴ Ik. haren etimologia s.vv. *abezarse* eta *bezo*.

erdietsitakoak direla da: halako askatasuna hartzea, hortaz, sistemaz kanpoko gertakaria izango litzateke.⁹⁹⁵

Dena dela, demagun hala egin zuela: zergatik orduan *Orio* eta *Lezo*, eta ez *Andoain?* zergatik muga eta marrarik gabeko altxorra Karrantzan hasi eta Atarratzen

buka ez hustu? Orduko ahozko euskararen lexikoaz daukagun informazioaren urriak tentuz ibiltzera gonbidatzen gaitu, ez ote ditugun azalpenik errazenaren laguntzaz hain zuzen hura ezagutzeko daukagun iturririk oparoenetakoaren berriak kolpe batez baliogabetuko. Esate baterako, *lezo* eta *orio* horiek funtsean herri-izenak balira ere, ez da ezinezkoa halakoek herri mailan toponimiaz kanpoko erabilera izatea: *orio*-rako *HH*-ak lekukotzen duen esanahiak *elorrío*-ren kasua gogorarazten dit, “penalidad, tribulación” adieran ezaguna baita herriaren inguruko euskaraz (V-ple-ger-m-gip, G-azp, ap. *OEH*, s.v. 1 *elorrío*); *lezo*-rako, berriz, soingaineko berezi batzuk han egiten zirela, han batez ere erabiliak zirela edo antzeko azalpenen bat kausi liteke.⁹⁹⁶

Edozein kasutan, zalantzagabeko adibideetatik zenbait ezaugarri orokor ateratzen has gaitzke, gero xehekiago jorratu behar dugun A letrako corpusari oinarri hobez ekin diezaiozun:

a) Etimologietan erabiltzen baditu ere (*baiona*, *lakuntza*,⁹⁹⁷ *lasarte*, *markina*, *ormaetxea*, *osinaga*), ez dirudi toponimoak zirela azpimarratzea garrantzizkoa edo interesgarria irudituz zitaionik. Hirutan bakarrik aurkitu ahal izan dut toponimia edota antroponimiazko argudioa etimologia baten sustengatzaile:

Artica, artiga, tierra desmontada para sembrarla: es voz de el Bascuence, en que ay apellidos de Artica, y una jurisdicción en San Sebastián que se llama de Artiga.

Otañez, jocosamente se llama así al que acompaña a una Señora, especialmente si es anciano, es voz Bascongada, de que ay también apellido *otañez*.

Tarbea, sala grande, es voz Bascongada, de que tenemos también apellido...

Hau, beharbada, euskalki ezberdinetakoa hitzak nongoak ziren ez aitortzeko egin zuen aukerarekin lot daiteke, eta euskal hitz arruntzat hartzea nahi zituen toponimoak isilgordean sarrarazteko saio gisara har.⁹⁹⁸

b) Batzuk (*ormaetxea*, *osinaga*) etimologiak finkatzeko bakarrik agertu arren, sarritan toponimoak ordain finkoak dira agerriki, aukera dutenean leku batean baino gehiagotan agertzen baitira (*baiona*, *elemendi*, *garmendia*, *lakuntza*, etab.) eta, are jakingarriago, eratorrien oinarritzat erabil baitaitezke (*markindu*, *markindar*, *ormaiste*).

⁹⁹⁵ Oso adierazgarria da, adibidez, *Corografía*-n (28. or.), *Deba* ibaia dela eta, egiten duen adierazpena: “No puede darse etimología oportuna a este nombre, aunque por capricho se le pudieran dar algunas”.

⁹⁹⁶ Adibidez, Covarrubiasek ere uste zuen *fieltro*-ren etimologia toponimiarekin lotuta zegoela: “Covarr. le da la etymología de Feltre o Feltria, Ciudad de la Rhecía, donde dice se inventó este género de tela”.

⁹⁹⁷ Hau da interesgarriena, *lakuntza* aipatu gabe ere *lakun* erabiltzeko gauza baita *lac-* azaldu behar duenean.

⁹⁹⁸ Bestalde, hitz arrunten eta toponimoen etimologia zein bere aldetik egitearen alde azaldu zen, praktikan, gai hauetaz kezkatu ziren bere aitzindarien etimologiez egin zuen erabilerak erakusten duen bezala (ik. § 11.5).

c) Erabileraren malgutasuna interpretapen bikoitzekoak —homofonoak, nahi bada— onartzean antzematen da: *mendaro menda* zein *mendi*-rekin lotuta dakusgu.

d) Halakoei lekua egiteko, sarrera berriak osatu behar izan ditu batzuetan, erdal ereduak eskaintzen ez dituen edukien adierazle baitira: *elemendi* ('monte...'), *larraña*ga ("eras"),⁹⁹⁹ *ormaistegi* ('lugar donde se...'), *zumarraga* ('alameda de...').

e) Atzizkiei garrantzi handia eman die: toponimiari dagozkion bukaera arruntez (-*aga*, -*arte*, -*eta*, -*tegi*) gain, honako hauek ere ikusi uste izan ditu: -*ari* (*getari*, *mañari*), -*kin* (*markina*), -*te* aditz-izengilea (*arrasate*), -*txo* (*getxo*), -*tza* aditz-izengilea (*lakuntza*, *gaintza*) eta -*zko* (*orozko*).

f) Antzekotasun fonetikoak erabakigarria izan da zenbaiten azalpenean: *ge* eta *ke* (*getxo*, *getari*), *lakuntza* eta *laguntza*, *liza* eta *eliza* (*lizaur*), *las* eta *lats* (*lasarte*).

g) Behin erroa identifikatuz gero, zati ulergaitzei ez die kasu handirik egin (*berastegi*, *ereño*, *mendaro*). Alabaina, *munita* ~ *munoa* lotura hain da nabaria (cf. gero *munoa* "cerro"), ezen, sarrerako beste ordaina *mendisca* dela kontuan harturik, bai baitirudi -*ita* hori gaztelaniazko txikigarriarekin lotu zukeela, ixilka bada ere.¹⁰⁰⁰

Gainbegirada honen ondoren, sakontzen saia gaitezke, corpusean toponimoen eraginaren handi-txiki azalpena izan lezaketen hitz guzti-guztiak —zalantzazkoak eta azkenean taldetik ezabatzea erabakiko ditudanak barne— bildu ditut, orotara 54 hitzeko zerrenda bat lortuz (9. eranskina).¹⁰⁰¹

8.1. Diren eta ez direnen artean bereizteko irizpideak

Zerrendan bildutako hitzetan hiru talde egin daitezke nire ustez, inoiz hiztegi osoko azterketa egingo bada bereizketarako zenbait irizpide argi xamar bederen bakoitzari egokituaz:

1) Inolako zalantzarik gabe toponimotik edo toponimoa bera erabiliz sortutakoak. Talde honetan sartzen dira toponimo eta antroponimo huts begibistakoak (*Abalzizketa*, *Aizkorri*, *Alzate*, *Antia*, *Arantzia*, *Aranzate*, *Aranzibia*, etab.) eta beren atzizki nabarmenki ihartuagatik hartakotzat har ditzakegunak (*Arbitza*, *Arbizu*, -*aga* eta -(*k*)*eta*-dun guztiak eta, geroago xehekiago eztabaidatuko dudan arren, baita oraingoz -*di* atzizkia daramatenak ere).

2) Zalantzazkoak, bi azpitalde eginik: (a) Atzizki bizi bat (adibide guztiak -*tegi*-renak dira) edo toponimian ohikoa den bigarren osagai bat (*ola*) daramatenak. Neurtu gabe dago halakoek tokian tokiko toponimian jasan duten ihartze prozesua eta, beraz, ezin ziur egon

⁹⁹⁹ Bide batez, pluralaz itzultzea interpretapen zeharo modernoa da.

¹⁰⁰⁰ Antroponimo honen gaurko interpretapena, *Munio* pertsona-izen berezia + -*eta* da (Mitxelena 1955: §§ 235 eta 457).

¹⁰⁰¹ Halere, herabeki jokatu dut zenbaitetan, nire hau lehenengo hurbilketa bat baino ez dela buruan izanik. Adibiderik argiena, erakusgarri modura sartu ditudan zenbait gorabehera, maileguak —guztik euskal etimologia dutenak— dira (*Akorda* aipa daiteke, esaterako).

gaitezke Larramendik halako edo holako hitza zein egoeratan ezagutu zuen; adibide bat jarriko dut: *Apeztegia* hitza norbaiten deituratik, hala deritzan (baina zegoeneko apaizekin zerikusirik ez zeukan) etxe baten izenetik ala lekuari (“presbiterio”-ari) honela deitzen zioten euskaldunen ahotik ezagut zezakeen. (b) Elkartuak (*abodi*, *aribe*, *arburu*, *astorki*): Larramendiren elkarbidearen arabera arazorik gabe azaltzen direnez gero, agian kasualitate hutsak direla pentsatzeak uzkuratunerako gaia eman dezake.

3) Hitz arruntak. Bi hautagai argi ditut hemen, eta biak, nahiz bakoitza arrazoi ezberdinengatik, zerrendatik erauziko nituzke: (a) *alba*, toponimoa gorabehera, ziurtasun osoz Iparraldeko tradizioan erabilia izateari zor zaio batik bat (§ 9.2.7.5); (b) *aduna*-k, *lezo* eta *orio*-ren kasutik ez oso urruti, ez du “trigo nuevo” nola izan litekeen jakiteko biderik ematen, zeinagatik baserritarren artean egindako galdeketei zor zaiela (§ 12.2.10.3) uste baitut.¹⁰⁰² Laburbilduz, honelako kasuetan erlazioa, izatekotan, alderantzizkoa dateke: hitzak toponimoa azalduko lioke Larramendiri, eta ez toponimoak hitza eragingo.

8.2. Toponimoen erabilera

1) Lagina handitu arren, toponimoek etimologietan daukaten partehartzea ez da gorantz joan: etimologiaren azalpenetan bakarrik agertzen direnak 4 dira (*aizkorri*, *antia*, *arizaga* eta *artola*), eta etimologia eta ordainetan 3 (*aribe*, *arteaga* eta *arzeilu*). Orotara, 7 (%13). Esan gabe doa behin ere ez duela haien toponimotasuna aitortzen.

2) Gainerakoak beti erdal hitzen ordain gisa agertzen dira, ordain finko gisa, sarrera batean baino gehiagotan agertzeak (*abodia*, *altuna*, *amezketa*, *arboila*, *argindegi*, *arrati*, *arriola*, *arruti*, *atxaga*) edota eratorriak egiteko gaitasuna izateak (*abodia*, *argeda*, *aribe*, *arkaia*, *arroki*, *arruti*, *arzeilu*) adierazten duten bezala. Zalantza zenbait —edo, agian hobeto, araurik gabeko banaketak— antzematen dira oinarri bereko eta atzizki ezberdineko eratorrien artean: *arriaga* “guijarral” / *arrieta* “pedregal”, *aizaga* “peñascal” / *aizeta* “breñas” / *atxaga* “peñascal”, “breñas”, *amezaga* “carvallar” / *amezketa* “carvallar”, “quexigal” / *amezti* “quexigal”, *arratia* “agusanado”, “gusaniento” / *artia* “gusaniento”. Halako kopuru bat eskaintzen diguten leku-atzizkien artean, ostera, ez da igartzen bataren baino bestearen aldeko joera handiago. Delako toponimo batekin familiartasun gehiago izateko posibilitateaz gainera, Larramendik atzizkiak aldizkatzeko daukan ohitura gogoratu behar da hemen.

3) Berezi-berezia da *arkaia*-ren kasua, toponimo baten azpian egon litezkeen esanahi guztiak ateratzeko gure corpuseko adibide bakarra baita (baina gogora *Mendaro*): noiz *aragi*-tik

¹⁰⁰² Kasu honetan, *DAut*-ek ez dakarren sarrera bati buruz ari garela jakitea oso esanguratsua izan daiteke.

("cecina"), noiz *argi*-tik ("vela"),¹⁰⁰³ noiz *artu*-tik ("puño"). *Artadi*-ri, berriz, esanahi bakarria ematen dio, nahiz *arte* "encina" ere erabil zezakeen.¹⁰⁰⁴

4) Sarrera berriak eragin dituzten euskal ordain motak, denak zuhaitz multzokariak dira (*aginaga* "donde los ay", *astigarraga* "arboleda de ellos").

5) Atzizkiek paper nagusia jokatu dute Larramendiren lanean: 54 hitzetatik 40k (%74) atzizkiren bat dute edo badutela ulertu du. Toponimiazko atzizkiak dira maizenik:

- AGA: *aginaga, aitzaga, altzaga, amezaga, aretxaga, arizaga, arriaga, arteaga, astigarraga, atxaga.*
- TEGI: *abarrategi, apaiztegi, apeztegi, argindegi, aristegi, aunztegi, austegi.*
- (K)ETA: *abarizketa, aitzeta, amezketa, arrieta.*
- DI / -TI: *amezti, aranzadi, arizti, artadi.*
- TZA: *arbitza.*
- ZU: *arbizu.*
- TE: *aranzate.*

baina bestelako eratorpen atzizki askok ordezkariak dituzte, eta batzuek bat baino gehiago:

- TE / -DA aditz-izengilea (§ 2.1.11): *alzate, argeda, arrasate.*
- TI / -I izenondogilea (§ 2.1.13): *antia,¹⁰⁰⁵ arantzia, arratia, arruti, artia.*
- KETA aditz-izengilea: *abalzizketa.*
- DUN: *altuna.*
- KAI: *arkaia.*
- KI: *arroki.*

Hau, hasierako adibideetan aurkitu ditugun *-ari, -kin, -txo, -tza* eta *-zko*-ren adibideekin batera, ezin hobeki ezkontzen da bai etimologietan (§ 6.3.1.1.f), baita *Erans*-erako erabili zituen iturri idatzietan aurkitutako hitz ulergaitzetan (II, § 1.2.7.3) izan zuen joera orokorrarekin.

6) Gure zerrendan leku-atzizki zenbaitek daukaten agerraldi kopurua xeheki lotuta dago oro har *HH*-an gertatzen denarekin: *-aga, -tegi, -(k)eta* eta *-di* emankorrak dira hiztegian, eta honen arrazoia toponimian daukaten maiztasunean bilatu behar dugu (*-tegi*-rako, ik. *infra* 13. zb.). Toponimiaren etimologi azterketaren bitartez, bestela esanda, ihartuta bide ziren atzizki taldeño bat berreskuratu eta biziarazi ahal izan zuen. Alderantziz, hemen adibide banatan baino agertzen ez direnen kasuan (*arbitza, arbizu, aranzate*) Larramendi atzizkia erauzteko —eta, beraz, emankor bilakatzeko— gauza izan ez zela dirudi: ziur aski, landare izena aurrean izateak berak bakarrik eman zion itzulpenerako bide, azken zatia ulertzen ez diren beste zenbait zatiren modura (cf. goian *ereño*) alde batera utzita.

7) Antzekotasun fonetikoa: *a(ha)dun / altun, antia / andia, arro(ti) / arruti.*

8) Atzeranzko eratorpena egiten ere jakin zuen: haren bidez *abalia* eta *abalzizketa* elkarrekin lotu zituen¹⁰⁰⁶ eta *abarizketa*-tik (nahiz *EGH*-an (148) bakarrik) *abaritz* "carrasco"

¹⁰⁰³ Eta bi interpretapen hauek lotuta daude, inolaz ere, *aragi* eta *argi*-ren elkartu-eratorriei ematen dien tratamenduarekin (§§ 2.2.5.1 eta 3.2.2).

¹⁰⁰⁴ *Arte, arto* eta *ardi*-ren eratorrien nahasketaz ik. Mitxelena 1955: § 95.

¹⁰⁰⁵ *Andi* eta *anti* baliokidetzat emanez (s.v. *osadía*), Larramendi hitza zatikagarria dela eta bigarren osagaia beste izenondoetan aurki daitekeen *-ti* atzizkia dela iradokitzen ari da. Ondoko azalpen saio gehienek, ostera, horzkaria ere errokoa dela jakintzat eman dute (ik. *MDELV*, s.v.).

atera. *Arboila*-k Andoaingo *Arboilleta* parajearen (edo antzeko baten) izenetik sortua bada, dirudien bezala, Larramendik atzizkia kendu eta oinarria atera egin zuelako corpuseko adibide bakarra da (cf. gorago *ikaztegi(eta)*, dena dela); haren garapena aurrerago ere joan zen, ziur aski hemen oinarritu behar baitugu hainbeste hitz eta etimologiatan erabili zuen *boila* (iz.) “bola”, “globo”, (izond.) “redondo” ezezaguna (§ 3.1.6.2.g). Gaurko informatzaile batek lekuan harri zuri eta borobil ugari dagoela zehaztu du, etimologia *arr(i) + bo(r)o(b)il + eta* dela iradokiaz (Usabiaga 1993).

9) Forma analogikoak: *altuna*-tik (eta *ahaldun*-en eredura) *ahaltun* sortu zuen; *arruti*-tik *arroti* izenondo hiperkategorizatua; *abalizqueta*-ren arabera *otseztizqueta*; *aitzaga*, *achaga*-renera *peñaga*¹⁰⁰⁷ eta *aranzadi*-renera *larradi*.¹⁰⁰⁸ Eragina ziurrenik handiagoa da, sarreraren mugak gainditu eta eratorpen eredu orokorrak eskainiaz: cf. *arastegi* “cárcel”, *ormaistegi* “lugar donde se empareda”-ren eredura egina.

10) Toponimian aurkitutako fonetismo bereziak eskuarki gorde egin ditu: (a) *-te* aditz-izengilea (*alzate*, *arrasate*) bakarrik aurkitu uste du toponimian, hizkuntzan maizago agertzen den *-tze*-ren orde; agian honek azal lezake oro har eratorbidean forma honek daukan maiztasun berezia (§ 2.1.11); antzerako erlazio bat ezarri behar dugu *-da* bukerako aditz-izenetarako (*argeda*) eta *-ti* formaren orde *-i* (*arantzia*) daukaten izenondoetarako (§ 2.1.13); (b) bokal arteko kontsonante frikaria (*amezaga*, *arizaga*); (c) kontsonante aurreko *s/z* nahasketa (*aristegi*).¹⁰⁰⁹ Hau da, inondik ere, corpuseko hitz bat toponimotzat hartzeko daukagun argudiorik indartsuenetakoa.

11) *Lezo*, *orio* eta *aduna*-rekin erabili dudan zatiezintasunaren argudioak, ordainez, toponimiatik ateratako hitzek zatituak izateko ahalmena izan behar dutela eskatzen du. Batzuen azalpena begibistakoa da eta beste batzuen (*aribe*, *artola*) Larramendik eskaini digu. Benetako zein ustezko atzizkidun hitzek ere jadanik azalpena (erdizkakoa bederen) dutelarik, konpli da orain bestelako zatiak —ilunak edo ilunagoak— argitzen saia gaitezen, erroa identifika badaiteke bukaerak nahitaez Larramendiren ustetan esanahia zertan izanik ez duela gogoratuta: *abalia* \cong *abo-* ‘ahoa’; *abalizketa* \cong *abali(a) + (h)izketa*; *aranzibia* \cong *aranza + zi* ‘punta, ziria’.¹⁰¹⁰ *Arzelli*-rako, agian *ar(tu)*-n pentsatu beharko genuke.

¹⁰⁰⁶ Jadanik Aizkibelek, honetaz ohartuta, *Abalizketa* “zuzendu” zuen.

¹⁰⁰⁷ *Peña*-k, jakina, euskal etimologia dauka (ik. *HH*, s.v.).

¹⁰⁰⁸ Forma kanonikoa *lardi* izango litzateke (ik. *EH*, s.v. *lahardi* eta cf. *Lardizabal*, Mitxelena 1955: § 381, adibidez). Dena dela, *-di* atzizkia aztertzerakoan oinarria mugaturik aurkezten duten hitz gehiago (*astamaizadi*, *aitzadi*) aurkitu ahal izan ditugu (§ 2.1.6).

¹⁰⁰⁹ Bestelako hitzetan ere aurkitu dugun arren (I, § 8.4.18), bistan da *aritz*-ekiko lotura beste asko baino gorde errazagoa zela.

¹⁰¹⁰ *DAut*-en (s.v. *oxyacantha*) azalpen etimologikoarekin hitzez hitz lotuta, bestalde: “Es voz Griega que significa Espina aguda”.

12) Paradoxa eman lezakeen arren, argudio berak —hau da, hitza zatitzeko zailtasuna¹⁰¹¹— *argeda*-rako toponimiazko azalpena hobestera narama: ustezko pluralaren galera (top. *Arguedas*) argiago den *arzellus*-enarekin pareka daiteke, besteak beste.

13) *-tegi* atzizkidun hitzen zalantzazkotasuna dela eta, *abarrategi* toponimiaren aldeko argiena iruditzen zait, *abarra* oinarriak, dakidalarik, azalpenik ez duelako (cf. *abártei*, Izagirre 1970: 41). Bigarren lekuan *apaiztegi* / *apeztegi* bikotea jarriko nuke, etxe-izenak eta haietatik sortutako deiturak aski zabalduak dauden bitartean, “presbiterio” itzulpena tradizio horren kontra joateaz gainera, kultismoa —Larramendiri egotz dakiokoen interpretapena, beraz— delako. Halaber, *OEH*-ak (s.v.) islatzen duen erabateko lekukotasun faltak, ene usteko, aski goraki mintzo da *argindegi*-ren ihartasunaz. *Aunztegi* eta *austegi*, berriz, hitz herrikoi eta biziak izateko aukera gehien daukatenak direlakoan nago, ez bakarrik antroponimoen urriagatik, baita adierazten duten zerak zeharo arruntak —XVIII. mendean orain bainoago, noski— izateagatik ere.

14) Bigarren osagaian *-ola* daukaten hitzei, biei toponimo argi deritzet: *arriola*-k *argindegi*-ren azalpen berbera dauka, eta berak bezalakoxeko maiztasuna toponimian; *artola*-k, ordea, Larramendik eman dion adieran berak bakarrik (etimologiak eraginda) jasotzen du. Izan ere, badirudi Larramendiren interpretapena (hots, “fábrica de...”) zeharo berria dela, lehenagokoa *Ola*- zein *-ola* toponimoak burdinola zaharren izenak zirela baitzen: halaxe diosku Etxabek:

...tantos sitios, y lugares que en mi language nombramos en estas Prouincias con *Olea*. Que es herrería, como *Olaçaua*, *Olauerria*, *Çuazola*, *Gauiola*, *Mendiola*, *Egurrola*, *Balçola* y *Loiola*, con otros infinitos que sería cansancio referirlos, todos los más de los quales fueron casas de fundición, donde a mano se labraua el hierro... (Etxabe 1607: 57r).¹⁰¹²

eta berresten du Villareal de Berriz-ek:

...ponían sus Fábricas en Montañas, y qualquier parage que fuesse acomodado para carbón; de que oy ay vestigios, assí de nombres de Montes, y Caserías, llamándose *Olaerriaga*, *Olacorta*, *Olave*, y otras, que quieren decir en lengua Vizcayna, *Herrería quemada*, *Herrería en sel*, debaxo de *Herrería* (Villareal de Berriz 1736: 43).

HH-an, berriz, *egurrola* “(oficina de) carpinteros” eta *loiola* “alfahar, oficina de barros” dira. Hona Larramendiren azalpena:

Estas [las herrerías] han sido y son en Guipúzcoa las oficinas principales y más estimadas y practicadas de todas, y se han levantado con el nombre general de oficinas: en la lengua del país, *ola*, *olea*, significa *oficina* en general, y se especifican las oficinas particulares por adjetivos de la materia particular y lugar en que se labra: *arriola*, oficina de cantería; *loyola*, oficina de alfarería; *ibarrola*, oficina de ribera o valle; *barrenola*, oficina de tierra adentro, y así de otras. Pero nuestras herrerías por antonomasia se han levantado con el nombre común, de manera que diciéndose *ola*, *olea*, sin aditamento alguno, se entiende la herrería, no de herreros, sino de ferrones oficiales de herrerías grandes (*Corografía* 64).

15) Elkartu ez nabarmenetan (*abodi*, *aribe*), aldiz, ez dut pisuzko arrazoirik ikusten toponimiaren ez elkarbidearen alde egiteko. Akaso *abodia*-k *HH*-an berezko *-a* argia izateak (cf.

¹⁰¹¹ Azalpen saio bat egin dut lehenago (§ 3.2.3.7.3), baina baliteke hori —edo antzeko zerbait— Larramendiren toponimoaren berranalisi baina ez izatea, noski.

¹⁰¹² Eta ia hitzez hitz Isastik (c. 1620: 236) ere.

abodiātu) bigarren hipotesia berma lezake, baina (*h*)abe + (*h*)odi dela eta (*h*)odi-k HH-an sistematikoki berezko -a daukala (cf. *odiātu* “encanalar”) gogoan izan beharko da erabakia hartzerakoan. Halako gertakarien maiztasuna —hemen egin baino corpus handiagoa erabiltzea, beraz— izan liteke toponimoak diren ala ez erabakitzeke argudio ona.

16) Andoain eta Azpeitiako datuak inongoak baino arreta gehiagoz jaso ditut, haietako toponimia (handi zein txikia) eta antroponimia bestetan baino patxada handiagoz ezagutzeko parada izan zuela dirudielako. Beste zenbait herriren ekarpena (Azpeitialekoetan pentsatzen ari naiz bereziki) ikertzeko gelditzen den bitartean,¹⁰¹³ nago bi hauena marraztuta bederen utz dezakegula dagoeneko: Andoainek ustekabeen *arboila*-ren etorkia izan litekeena erakutsi digu, baina zerikusi zuzena izan lezake biltzailearen buruan haurtzarotik gordeta zeuden *Aizkorri*, *Amezti*, *Apeztegi*, *Argindegi*, *Arizti*, *Arratia*, *Arriaga*, *Arrieta*, *Artia* eta, oso bereziki, *Aranzibia*, *Arbitza* eta *Arizaga* toponimoen erabileran. Azpeitialedea Loiolatik kanpora egin zitzakeen ostera gehienen xedea izango zela zer esanik ez dago; zehazkiago, Azpeitiako toponimia-antroponimiak lagungarri izan dira, guztiz, ohikoegiak ez diren zenbaiten azalbidean (*Abalia*, *Abarrategi*, *Aitzaga*, *Aitzeta*, *Apaitzegi*, *Arbizu*, *Arizaga*). Nolanahi ere, ahozko ekarpenaren atalean saiatuko naiz Loiola inguruko euskararen eragina nolabaitekoa izan dela frogatzen (§ 12.2.8).

Bada corpusean antzematen ez den xehetasun bat oso jakingarria: Azpeitiako toponimian *Arkabakotxa* (pagadia) eta *Askabakotxa* (lursail eta otadia, 1810) aurkitzen dira, Larramendiren *-bakotxa* elkartuak (§§ 4.1.18 eta 4.1.34) gogora dakartzatenak.

8.3. Geroko euskararako inplikazio zenbait

Aztertzeke dagoen atala izaki, lan hipotesi zenbait baino ezin egin ditzaket:

1) Bereziki interesgarri deritzet toponimiazko atzizkien historiaz —“historia” zentzurik hertsienean hartuta— egin daitezkeen inferentziei: Azkuek (1923-1925: § 26-28, “Ojeada sobre los fósiles de la Toponimia” deritzan atalean) herriaren ahoan ihartuta daudela dioen atzizkiak, itxura guztien arabera halaxe zeuden baita Larramendiren garaian ere. Larramendik toponimiaren adibideak gorde eta euskal hiztegia aberasteko erabiltzeaz gain, atzizki batzuk bederen bukaera bereko toponimoen erkaketaz erroetatik erauzi, aski ongi definitu eta azaldu, eta hitz berrietan biziarazi zituen. Jauzi bat egin dezagun XX. menderaino: Azkueren hiztegian bezala gerokoetan ere, zuhaitz-multzokariak eta antzerakoak nagusiki *-di* atzizkiak adierazita agertzen dira: gure corpuseko *-aga* guztiak zeharo desagertu dira (Azkuerengan bakarrik agertzen den *alzaga* izan ezik), eta *-(k)eta*-k aldamenen tradiziozko *-di* atzizkidunik ez daukaten hitzetan (*abarizketa*, *harrieta*) bakarrik iraun du. Joera gorantz joan daitekeelako

¹⁰¹³ Geroago (§ 12.2.8) egingo ditudan gogoeten arabera, hutsunerik handiena Hernaniko datuetan egon liteke, dena dela.

adibide gisa, Elhuyar 1993an *abarizketa*-ren ordez *abarizti* “abaritzez osatutako baso edo sastrakadia” berri-berria agertzen da, inolaz ere *harizti*-rekiko analogian oinarriturik.

Murrizketaren arrazoiak bat baino gehiago direla iruditzen zait, nahiz batzuk besteak baino eraginkorrago izan bide diren; arrazoi txikien artean, *-di* atzizkidunak Larramendi baino lehenagoko hiztegietan lekukotzen diren bakarrak izatea (cf. *amezti* eta *arizti*), eta *-aga* eta *-keta* —*-di* ez bezala— toponimia handian halako maiztasunaz agertzea (*Aginaga*, *Amezqueta*, etab.) aipa daitezke.¹⁰¹⁴ Arrazoi nagusia, nik uste, Azkuerengan berarengan aurkitu behar da, haren hiztegiak ezarri zuen ereduari bezala haren iritzi eta erabakiei zeharo lotuta ari garelako adibide berri modura. Alde batetik, ezaguna da mende hasieran *-di*-k bizitasun berria erdietsi zuela; berak aitortzen du (*loc. cit.*): “El derivativo toponímico *di* (...) lo hemos introducido en neologismos como *gaztedi* juventud y el nombre de nuestra Corporación”. Honen aldamenean —hau baino lehenago, hobeki esanda— hiztegian *-di* da multzokari zereginetarako ezaugarritu eta adibideztatua agertzen den bakarra: “derivativo local que denota abundancia. *Arantzadi*, *elordi*, espinal. *Miilludi*, hinojal. Uriarte emplea la palabra *ontzidi*, ‘escuadra, multitud de buques’ (*Maiatz*. 72)”; *-aga*, berriz, hildakotzat ematen du (“sufijo muerto que denota lugar. *Arriaga*, *harriaga*, pedregal. *Elizaga*, lugar de la iglesia”), eta *-tza* zein *-tzu*-n halako erabilera denik ere ez du aipatzen.

2) Zenbait hitzen lexikografi jaiotza eta iraupenaz datu berri jakingarriak erdietsi ditugu azterketaren bitartez. Jakina, Larramendiren gauza gehienak bezala, *abalía*-k edo *aranzibia*-k ez dute ondoren izan, eta XX. mendeko hiztegietatik erabat desagertu dira. Badira, haatik, zuzenean edo zeharka guganaino iritsi diren zenbait gauza: (a) Azkueren hiztegian sarrera izan zuten, baina geroagoko kritika-lanak uxatu dituen hitzak: *arratia* (Aizkibelen bitartez sartua), *arkai(a)* (Iturriagaren bitartez) eta *arriola* (Astarloaren bitartez); (b) egoera berean, *-di*-ren aldeko joerak ezabatu dituenak: *alzaga* (Azkueren iturria aztertzeko dago); (c) Azkuek Larramendirena dela iradoki bazuen ere, artean nolabaiteko erabilera (Lizarraga Elkanokoa, Lardizabal) izatearren hiztegi berrietan sarrera erdietsi du (*h*)*arroki*-k, baina beti ere *belaki* hobeto lekukotutakora dei eginez;¹⁰¹⁵ (d) Azkueren hiztegian, batzuetan entzunak izan direlako itxuran, agertzeagatik ondoko hiztegietara igaro direnak: *abarrategi*, (*h*)*aizalde*, (*h*)*ariztegi*, *artadi*, *a(h)unztegi* (Arakistainen bitartez); esan gabe doa, hauetarako Azkuek izan zuen iturria zehaztea garrantzitsu izan litekeela; (e) geroago berreskuratu direnak (*aran(t)zadi*, (*h*)*argindegi*, (*h*)*arrieta*).

Adibiderik interesgarri eta argiena, *abaritz*-ek eskaintzen digu, Larramendiren hitz berrietatik irautea lortu duten bakanetakoa (eta ezezaguna, oker ez baldin banago): esan bezala, *HH*-an *abarizketa* bakarrik jasotzen da, *abaritz EGH*-an Larramendik egiten duen

¹⁰¹⁴ Bide batez, honelako gertakariak iradokitzen dute *-aga* / *-eta* eta *-di*-ren ihartze prozesuak ez zirela aldi berekoak izan.

¹⁰¹⁵ Bien lekukotasunetarako, ik. *OEH*, s.vv.

eransketa den bitartean.¹⁰¹⁶ Hemen egin dugun interpretapenaren arabera, *abarizketa* toponimo argia eta, ondorioz, *abaritz* hiztegi-gilearen suposizio bat besterik ez dira.¹⁰¹⁷ “Erruduna”, oraingo honetan, hainbaten sarbide izan zen Lakoizketaren ustezko autoritatea da.

8.4. Ondorioak

Larramendik, aitortu gabe bada ere, zenbait euskal toponimo eta antroponimoren azalpena —gehienetan berria, ez gutxitan ona edota onartua— eskaini zuen hiztegian, hemen eta kanpoan oso indartsua zen tradizio bati jarraiki. Aztertzekeo dugu haren interpretapenek izan duten iraupena eta eraginkortasuna.

Alabaina, hau ez zen haren xedea izan, toponimia euskararen aberaspide bilakatzea baizik, bai arlo ihartu honetan bakarrik aurkitzen ziren hitz andana bat lexiko arruntean barneratuaz, baita, batez ere, bertan bakartu ahal izan zituen erroak, atzizkiak eta elkarmoduak (adierarik zabalenean) hitz berrietan berrerabiliaz. Toponimia-antroponimia, beraz, Larramendik euskararen sorbideak ikasteko erabili zituen oinarritzko materialetako bat, iturri nagusietako bat dugu.

Azkenik, azpimarratuko nuke ezen, agi denez, toponimiatik zuzenean berreskuratutako hitzek sarbide errazagoa izan dutela XX. mendeko lexikografian, *HH*-aren iragazkia izan zen Azkuerentzat ezinbestean ezagugaitzago (edota, ziurrenik, onargarriago) gertatu zirelako, hain zuzen ere.

¹⁰¹⁶ Hau aztertzekeo dago, baina adibideak gero eta gehiago dira, *EGH HH*-aren bihurteta hutsa delako ustea zeharo deusezteko modukoak.

¹⁰¹⁷ Azalpen ezberdin baterako, ik. Mitxelena 1955: § 373.

9. Iturri idatziak (I): Euskal liburuak

Larramendi beti berritzaile gisa aurkeztu izan da. Mitxelenak (1961: 364) arazoa ikusi moduan, liburuen (Axular, *RS*) eta hiztegien (Landucci, Harriet) erabilera, jadanik erdal buruhauskarri guztiak itzuli eta gero egindako saioa dateke, nolabait lana betez geroko aisialdiaren fruitua: anekdota, ez legea. Gauzak honela ez direla eta, zehazkiago, egitismo orokorraren zati ezinutzizko diren gainerako iturri guztiak (etimologia, toponimia, ahozko hizkuntza...) bezala, *HH*-aren gorputz barruan ere liburuak eta hiztegiak erabili zituela erakustea, beraz, ez da axola gutxiko kontua, *HH*-aren egileaz genuen irudia goitik behera aldarazteko lain baizik.

Larramendik hiztegia egiterakoan gehien peitu zuen lagungarria euskal liburu gehiago ez izana dugu; hartaz egiten duen behin eta berrizko aipua da, inondik ere, ezagutu zituen liburu gutxi haiek erabili zituelako seinalerik argiena:

Los libros de una Lengua, siendo muchos y de varias materias, son de un gran socorro en semejantes obras [hiztegiatan]. En ellos no sólo se encuentra la copia de voces que se busca, sino también su ortographía, su propiedad, su mejor uso, sus varios sentidos, sus mutuas relaciones: y todo recomendado con la autoridad de sugetos hábiles, que escriben de pensado y con delecto. Mas este socorro me faltó casi enteramente, por ser mui poco lo que se halla escrito en nuestra Lengua, conservada hasta aquí más en la memoria y amor de los Bascongados, que en hojas de papel o en láminas de bronce (1745, eskaintzan).

No tiene el Bascuence libros ningunos impressos ni manuscritos, sino de dos siglos acá. (...). Los pocos libros que he visto impressos en Bascuence, son los siguientes (1745: xxxiv).

No hai libros impressos desta Lengua, sino los pocos que llevo citados... (1745: lii).

Besterik beharko bagenu, baina, hona bere lekukotasuna:

...no pongo ninguna [voz] que, o no aya leído en los libros impressos, u oído en alguno de los dialectos del Bascuence, apuntándolas de antemano con toda prolixidad, para que no se me olvidassen (1745: xlvii).

...he leído con toda reflexión los libros bascongados que llevo citados, apuntando con prolixidad todas las voces bascongadas y sus significaciones, para ponerlas después en el Diccionario (1745: liii).

Akademiaren hiztegi ederra aurrean izaki eta haren bekaitzez beharbada, liburuen —autoritateen— laguntzak izan ditzakeen onurak¹⁰¹⁸ inoizko argien ageri ziren haren begietan. Larramendi berritzailea izan zela inork uka ezin dezakeen egia borobila da, berak aitortua eta harrotasunez bere gain hartua; haatik, haren adierazpenak irakurrita, *malgré lui* izan zelako susmoa geratzen zaigu: ez dago esan beharrik bere hizkuntza gaztelaniaren pare jarria eta bere hiztegia ontzeko ibili behar izan zituen bide malkartsuak bestek ireki, laundu eta apainduak ikusi nahiago zituzkeela. Egoera oso bestelakoa izanagatik, ostera, hazia ereinda zegoen hiztegiaren buruan: “los libros de una lengua... son de un gran socorro...”. Ez dago azalpen hoberik hitzaurrean ezagutzen dituen apurrez egindako deskribapen (eta sarritan balorapen) zehatzetarako —nahiz, agi denez, ezagutzera emateko gogoak ere hartara bide zuen¹⁰¹⁹—, eta ildo beretik doa, ziurrenik, 1745 ondoko euskal literaturari jarri zion arreta, *Corografía*-ko aipamenak eta bere bibliotekako liburuek erakusten diguten bezala.¹⁰²⁰

Testuen erabileraren aldeko argudio teoriko hauen argitara, eta axaleko miaketa batean bakarrik, orainago haren froga zuzenak erdietsi dira. Zenbait ohar solte baizik ez izan arren,¹⁰²¹ beren urritasunean arlo honetan zereginik badela egiaztatzea baino gehiago egin dute: *HH* eta bere iturrien arteko loturak oraindik aurkitu ez baldin badira, bilatu egin ez direlako —eta ez beste ezergatik— izan dela frogatzea, alegia.

Hala ere, gauzak dauden bezala, oso urruti gaude oraindik halako gertakariak *HH*-an izan dezaketan hedadura edo garrantziaz ezer garbirik jakitetik; are gutxiago *HH*-ko literatur iturrien bilaketa lan erraza izango dela baieztatu ahal izatetik. Honetara dator, hain zuzen, *Erans*-ari egotzi diodan probatoki gisako balioa: bere izatez hitz-sormena ia erabat alde batera uzten duenez eta, bestalde, bere iturriak *grosso modo* aski ezagun eta elkarren artean aski

¹⁰¹⁸ Gai honetan Akademiaren aitzindari eta ereduak, Croscaren hiztegia —nagusiki, Cremonesi-k (1959: 336-339) aldeztu duenez—, baina baita honi jarraiki aritu ziren Richelet frantsesa eta Ayala Manrique eta Sobrino espainarrak izan bide ziren (Lázaro Carreter 1981: 103). Literatur aipamenek garai hartan izan zuten ospeaz, oso adierazgarria da, adibidez, Frantziako Akademiak bide honi uko egin zion arren, frantsesezko hiztegiaren haien gorakako erabilerari begirada bat ematea (ik. Quemada 1967: 543-547). Jakina da aspalditik literatura eredutzat hartua izan dela hitzen finkatze, erabilera eta mailakatzeari (jasoa / arrunta) dagokionez (cf., esaterako, Baum 1989: 31). Adibide bat baino ez, alemanierazko hiztegiaren zaharretik hartua: Schottelius-ek (1612-1676) hizkuntzaren emankortasun mugagabekorako aurreikusten zituen muga bakarren artean, liburu onen irakurketa dago (Jones 1991: 140).

¹⁰¹⁹ Azterketa lexikografikorako izan dezakeen garrantziaz gainera, ziurrenik izugarria izan zuen geroko idazle, irakurle, hiztegiaren eta are bibliografoek bertako liburu-eskuizkribuen berri izan zezaten. Etxeberri Sarakoaren eta Landucciren hiztegi eskuizkribatuen berrien transmisioan —Humboldt tartean dela— jokatu zuen paper nagusia antzeman daiteke Urgell 1997n.

¹⁰²⁰ 1745az gero argitaratutako hiru liburu berri aipatzen ditu (*Corografía* 295), eta haietatik bi agertzen dira bere liburutegiko liburuen artean: 1748ko *Othoïce eta cantica espiritualac, Zubero herrico batzuk* (Altuna 1984: 77, 190. zb.; ik. Vinson 1891-1898: 178, 56b zb.), “la *Introducción a la vida devota de Sales*”, hots, 1749ko Haranederren *Philotea* (Altuna *op. cit.* 75, 51. zb.; ik. Vinson *op. cit.* 195-196, 77a zb.) eta idazle beraren 1750eko *Gudu izpirituala* (Vinson *op. cit.* 196-197, 78a zb.). Ez ditu aipatzen, baina bibliotekan egon badaude, Kardaberatzen (ik. Altuna, *op. cit.* 49, 50, 169, 201, 294), Mendibururen (*ib.* 178, 179) eta Peñafloredaren (*ib.* 285) lanak. Azkena 1764koa dela azpimarra daiteke.

¹⁰²¹ Ik. Urgell 1992a: 235, non hiztegiaren eta eraskinean jasotzen diren Axularren hitz batzuk eta *HH*-an kausi daitezkeen Leizarraga eta Xurioren beste batzuk iruzkintzen diren. Esan gabe doa Harriet ere hiztegi barruan erabilia izan dela frogatzeak (Lakarra 1991: 255-257, 1993: 270-281 eta 1994a: 64-67 eta 199) hipotesiaren alde jokatzeko duela.

ezberdinak direnez gero, sarritan identifikazio gotorrak ahalbidetzen ditu. Hortaz, halako ziurtasunik ez iritsitakoan, irakatsi handiak atera ditugu hitz zenbait iturri honi edo hari leporatzeko idoro ditugun zailtasunetatik, halako korapiloetarako askabideak bildu, zorroztu eta zenbaitetan berriak aurkitzera behartuta egon baikara, beti ere zelai murriz batean jokatu. Baina, denen gainetik, *Erans*-ari esker Larramendiren *modus operandi* delakoa gertu-gertutik eta zalantza gutxirekin ikuskatzeko aukera izan dugu: iturriko hitzen grafia aldatzen eta mantentzen ikusi ahal izan dugu, haien forma gordetzen edo bestelakutzen, hitzak ongi eta gaizki zatitzen, batzuetan haien esanahia arazorik gabe ulertzen eta bestetan —testuinguruagatik edota bere aurreiritziengatik— zeharo okertzen. Horrezaz gainera, *hitz-sormena ia erabat alde batera uzten du* hartara itzulita, gogora dezagun bere datuak etimologikoki aztertzen ere ikusi dugula, atzizkiak kenduaz erroak ateratzen edota erro ezagutu berriak eratortzen.

HH-an halako gauzak frogatzea askoz gaitzagoa izango dela aurreikusi behar dugu: aski da hiztegiaren tamainari (nahiz lagin bat bakarrik erabili) eta iturri-gaien kopuruari begiratzea. Ataka honetan, *Erans*-aren eta *HH*-aren artean *continuum* bat badelako hipotesia, alegia, atzeko atal txiki hura *HH*-ari arrotz zaion —xede eta baliabide ezberdinez egindako— zerbaiten modura ulertu beharrean, eranskin soiltzat jo izana, usu erabakiak hartzerakoan izan dezakegun euskarri ziur bakarra izan liteke.

Hala eta guztiz ere, *Erans*-ean saiaturako metodoak ahulduxe geratzen dira batzuetan, han azaletik baino eutsi behar izan ez diegun arazoak —hitzberrigintza, ahozko ekarria— hemen ia-ia gailentzen baitira. Horregatik, lehenengo hurbilketa honetan xede xume zenbait bakarrik ezarri dizkiot ene buruari, honekin bideak erdi-irekita aurkituko dituzten ondoko azterketak aitzinago heldu ahal izango direlakoan.

Lehen urrats modura, Larramendik aipatzen dituen liburuak oro bildu eta erabili zuen argitalpena zein den ebazten saiatu naiz (§ 9.1). Axularren *Geroko Gero*-ak erakutsi digu iturritasuna baiezteko urratsik premiazkoena dela, zeren eta edozein argitalpenek, edo ia, balio bailezake antzekotasunak idorotzeko, baina datu erabakigarriak —huts bateratzaileak, bereziki— erabilitako hartantxe bakarrik egotea izan liteke: jokutzen ari garen iturri kopuru handiarekin esan gabe doa kontu (itxuraz) nimiño hauen garrantziak goraka egiten duela neurri ikaragarrian. Hau buruan izan arren, halere, sarritan ez da erraza izan, gure testuetako askok bizitza katramilatsua izateaz gainera, Larramendiren datuak ez baitira beti nahi genukeen bezain zehatzak eta, batez ere, Vinson eta Urquijoz gero ezer gutxi aurreratu baita argitalpen ezberdinen identifikazio eta aurkikuntzan, eta are gutxiago haien kolazioan.¹⁰²²

¹⁰²² Cf. Blecua 1991: 74: “Hay que decir que, frente a otros países, con otra historia intelectual más normal, ahora se está llevando a cabo [en España] lo que se debería haber hecho ya en el siglo XIX, comenzando por la catalogación de los fondos de las bibliotecas y acabando por la edición de los mismos”. Egoera honek berak euskal liburuak ere eragiten dituela ahaztu gabe, pasarteak euskaraz jarrita ezin hobeki deskribatuko luke Euskal Herriaren egoera bibliografía eta argitalpenari dagokionez. Salbuespen garrantzitsu bat egin behar dut, zorionez, Atutxak (1999) atera berri baitu Etxeberriren *Noelac-*

Argitalpenen kontua gutxi-asko argitu ondoren, *OEH*-ak eskainitako datuetatik abiatu naiz, A letrako hitzen aurreko lekukotasunik Larramendik ezagutu zituen idazlanetan ote zegoen egiaztatzeko. Erkaketa honen emaitzak 11. eranskinean jasota daude. Oro har, Mitxelenaren hiztegia gida ezin hobea izan da, gertakari asko eta asko lehen begiratuan begien bistan jartzen baititu, batez ere hasiera-hasieratik eta sistematikoki jasotzen dituen testuez den bezainbatean; alabaina, aldizka baino jasotzen ez dituen testuek (*Debocino escuarra*-ren 1690eko argitalpena, *Exercicio spirituala*), argitaratzaile modernoaren lexikoiari jarraiki aipatzen dituenek (Laveuxvilleren dotrina), une batetik aurrera bakarrik sistematikoki jasotzen hasitakoek (Leizarraga,¹⁰²³ Etxeberriren *Manual*-aren bigarren zatia,¹⁰²⁴ Hegoaldeko dotrina zaharrak)¹⁰²⁵ eta zatika menperatzen dituenek (Xurio)¹⁰²⁶ —alde batera utzitakoak (*CatLav* txikia) oraindik nabarmenago— esan gabe doa oso ordezkapen gorabeheratsua dutela han eta, beraz, ahaleginean neure kabuz osatu behar izan dudala.

Argitalpen ezberdinen arazoan ondorio sendo batera iritsi ahal izan dudan bakoitzean, Larramendik baliatu zuena bera aurkitzen eta erabiltzen saiatu naiz. Halaz ere, zenbaitetan ezinezkoa izan da, eta honek ezpairik gabe eraginen bat izango du ondorioetan, nahiz eta, ikusiko dugun bezala, ziurrenik ez erabatekoak. Bestela, eskura nituen argitalpenak izan dira nire lanabesak, beti ere jatorrizko bertsiok (mikrofilm, faksimil eta antzerakoak) argitalpen modernoan gaintetik hobetsiaz, baina hauen laguntzak (oharrak, hiztegiak, etab.) baztertu gabe. Liburu bakoitzaren aurkezpenean zehaztuko ditut nire iturriak, aurkitzen errazak ez diren ale zaharrak nondik lortu ditudan azaltzeko arreta berezia ipiniaz.

Lan honetako atalik handiena (§ 9.2) Iparraldeko literaturari eskaini zaio, eta ezin zitekeen bestela izan, Larramendik haiei jarri zien arreta eta egin zizkien laudorioak, baina baita Hegoaldekoen aldean testu hauen tamaina eta aberastasuna kontuan hartuta. Aurkezpen gisa, Larramendiren hiztegian ez eze haren egitasmo orokorrean —uler bedi, hortaz, Hegoaldeko literatur hizkuntzaren jaiotzan— azterketa honen emaitzak izan dezakeen garrantzia nabarmentzen saiatu naiz (§ 9.2.1). Azterketara baino lehen, ostera, ezinbestekoa da bere mugak zehaztea (§ 9.2.2) eta, berezi-bereziki, aztergai bakoitzaren iturritasuna frogatzeko posibilitateetan dauden erabateko ezberdintasunak (§ 9.2.3).

Azterketak berak bost atal ditu: Lehenean (§ 9.2.4) ahalik eta adibiderik argienekin aipatu zituen liburuak, banan-banan hartuta, egiazki erabili zituela frogatzeari ekin diot. Bigarrean (§ 9.2.5), Iparraldeko idazle bati baino gehiagori egotz dakizkiokeen hitzak bildu

en argitalpenen arteko erkaketa; espero dut tesirako egin zuen gainerako lana, Ziburukoaren argitaratu guztiak arakatuaz, aurki kalean egotea.

¹⁰²³ “Relación de textos despojados exhaustivamente”-n ikus daitekeen bezala, I. liburukian (A-Ama) haren liburua ez da agertzen, hiztegi barruan aldizkako aipamenak dauden arren, baina bai II.etik aurrera. Ik. De Rijk 1988, hutsune hau (eta bestelakoak) deitoratuaz.

¹⁰²⁴ Ez da agertzen aipatutako “Relación” delakoan IV. liburukira arte (Bar-Berp).

¹⁰²⁵ Lehen liburukia ezagutzen duenarentzat, beste akats aitortu eta ez aitortuen artean, hauei eskainitako arreta aldakorra oso nabarmena da.

¹⁰²⁶ “Relación” delakoan zehazten denez, I eta III. atalak bakarrik hustu dira.

dira, eta idazle anitzek —sarritan denek— erabilitakoak *HH*-an bildu izanak daukan esangura azpimarratu. Orain artekoak ezarri eta gero, labainkorrago baina baita interesgarriago ere izan daitezkeen gai batzuetara igarotzen da, hala nola izan litezkeen iturrien artean jakin baten alde edo kontrako argudioak ematera (§ 9.2.6), edo literaturatiko ekarriaren eta ahozkoaren zein hitz-sormenaren arteko mugak ezartzera (§ 9.2.7): azken hau dela eta, euren izaeragatik zalantzapean jar daitezkeen hainbat hitz (Hegoaldean ere kausi daitezkeenak, hitz eratorriak eta maileguak, batez ere) irabiatu ditut, Larramendiren jokabideaz —eta hitzen etorkiaz ere, beraz— zerbait ikasi ote dezakegun begiratzeko asmoz. Eta, azkenik (§ 9.2.8), iturria ziurtasunez ezarri ahal izandako hitzak erabiltzen dira, lau gaitan aitzina joatearren: Leizarragaren hitzen *HH*-ko itzulpenen iturria (§ 9.2.8.1); Iparraldeko hitzen egiazko eragina *HH*-an, hots, esanahikideetara iristeko zein familiakideak sortarazteko gaitasuna (§ 9.2.8.2); iturrien sar-ordena (§ 9.2.8.3) eta erabilera, hau da, osorik ala zatika hustu zituen (§ 9.2.8.4).

Hegoaldeko dotrinei dagokienez (§ 9.3), arazorik handiena zein erabili zuen eta zein ez jakitea da; eta bigarrena, behin lehena nola edo hala gainditu eta gero, benetan erabili zituen ala ez erabakitzea edo, hobeto esanda, erabili zituela nola froga daitekeen jakitea, zeren eta kasu honetan Iparraldekoetan mugaz bestaldeko hitzak izateak ematen digun bermea zeharo peitzen baitugu, bistan denez. Ahalegina egin dut, zenbait testuren erabileraren aldeko frogak ekarriaz, baina, dena dela, gai honetan inoiz baino argiago ageri da corpus handiago baten beharra, gutxienez, noizbait deus ziurrik jakingo badugu.

Atalaren bukaeran (§ 9.3.2), *Refranes y Sentencias* Harrieten hiztegitxoak bezala *HH*-aren iturri ere izan ote zen eztabaidatuko dut, *Erans*-aren azterketan aurkitutako zenbait gertakaritatik abiatutik.

9.1. Larramendiren liburuak

Zerrenda nagusia Larramendik berak hiztegian “De los libros en Bascuence” atalean (1745: xxxiv-xxxvi) eskaini zigun. Haren balio bibliografikoa gorabehera, iturri idatziak bilatu eta aztertzekeo lagungarri bikaina da, Iparraldeko liburuei dagokienez bederen itsuka aritu beharra uxatzen duelako. Hurrenez hurren, *Laveuxvillen catechima* handia eta txikia, Xurio, Beriainen dotrina, Etxeberri Ziburukoaren *Noelac* eta *Manual Devotionezcoa*, *Exercicio spiritual* batzuk, Argaignaratsen *Avisu...*, Gasteluzar, Materre, Axular, Harrieten gramatika, Bizkai-Nafarroa-Gipuzkoetan argitaratutako zenbat dotrina (gehiago zehaztu gabe), Landucci eta Etxeberri Sarakoaren hiztegi eskuizkribatuak eta Leizarragaren Testamentua aipatzen ditu.

Hauei erantsi behar zaie, *Imposible Vencido*-ko euskal poesiari buruzko atalak, Etxeberriren lanekin batera, eskaintzen digun liburu berria: “Fr. Juan de Aramburu, en su librito *devocino Escuarra, Mirailla, eta Oracinoteguia*” (Larramendi 1729: 379). Garrantzi handikoa izan da, bestalde, *Corografía*-ko “De los dialectos del Vascuence y del particular de Guipúzcoa” atala (295-302. or.), zeren eta hiztegiak geroko (eta, beraz, guretzat interes zuzenik gabeko) argitalpen

mordoxka batekin eta lehendik ezagutzen genituen Xurio, Axular eta Beriainekin batera, hiztegian euren izenez ematen ez dituen Hegoaldeko dotrina bi aipatzen baititu: Arzadun eta Elizalde.

Larramendiren idatzietan bildutako berriak bere liburutegiaren edukiaz ditugunez osatu ditut, atzenik: alde batetik, bere eskuz egin zuen liburu zerrenda (Tellechea-Idigoras 1966a) eta, bestetik, Juan Bautista Landa eskribauak bera hil ondotxoan —josulagunek Loiolatik aldegin eta gero— egindakoa (Altuna 1984, Iturriaga 1992); biak oso baliagarriak izan dira, lehenik Larramendik emandako datuak batzuetan —batez ere eskribauaren zehaztapenez— egiaztatu edota ugaltzeko bidea eman baitidate eta, bigarrenik, hirugarren Hegoaldeko dotrina baten aztarna jasotzen dutelako: Irazustarena, alegia.

9.1.1. Leizarraga

Leizarragaren *Jesus Christ gure launaren Testamentu Berria*-k (Erroxela, 1571) liburua eragin zuen dotrinak baino patu hobexea izan du —eta dauka— gure artean, ez bakarrik kanpotik hura sustatu nahi zuten protestanteen eta liburu hartan euskara ezagutzeko bide aurkitu zuten jakintsu eta jakinahien eraginez, baina baita barrendik, lege zorrotzei aitzitik eginez aleak surtatik gorde zituzten ausartei eta, azpiko gatazkari gehiegi begiratu gabe, irakurri eta irakurtzeko gogoia piztu zuten euskaltzale —*avant la lettre*— apurrei esker ere.¹⁰²⁷ Batzuk eta besteak bilduko lituzkeen zerrenda, egin daitekeen neurrian egin gabe duguna, ezin itxi daiteke Larramendiren izena aipatu eta haren alde honetatiko irekitasuna goraiatu gabe.

Leizarragaren lana *HH*-aren iturri izan zela jakiteak jadanik ez gaitu ustekabeen harrapatzen, zeren eta, besteak beste,¹⁰²⁸ honen osagai ezberdinen kontu ematerakoan (I, § 3.5) hiztegi sarrera batean bere izenaz aipatua ageri den euskal liburu bakarra dela jabetzeko aukera izan baitugu:

Placa, moneda antigua de España de muy poco valor, creo que es la misma que el Bascuence llamaba *pelata*, y para significar su poco valor, dezimos *pelapat eztu balio*, no vale un pito, una *pelata*, y es locución en que esta voz se nos ha quedado, aunque en el Nuevo Testamento Bascongado se pone por moneda de poco precio.

¹⁰²⁷ Leizarragaren iraupenaren inguruko gertakariak azterketa orokor bat merezi dute, dudarik gabe, baina oraingoz datu gehienak han-hemen sakabanatuta daude. Fontainebleuko ediktuaren (1685) ondorioetako bat —arinenetakoa, bestalde— protestanteen idatziak suntsitzea izan zen, jakina (ik. Olaizola 1993: 254). Urkizuk (1989: 53) kaputxinoen Baionako eta Olorongo komentueta ziren Leizarragaren ale desagertuez mintzo da, adibidez, baina zenbat horrelako? Pentsatzekoa da Europan zehar (Espainiatik Holandaraino eta Ingalaterratik Italiaraino) barriatuta dauden aleetatik asko ihesi abiatu zirenek atereak izan zirela (Olaizolak, *ib.* 184, Vinsonek eta Dodgsonen haien kokapenez emandako berriak laburbiltzen ditu). Europako hizkuntzalari eta hizkuntzazaleek Leizarragaren lanaz egin zuten erabilerari buruz (ezpairik gabe arlorik ezagunena) ik. Urkizu 1986 eta 1989: 53-66. Bestalde, Testamentuaren geroko itzultzaileek —Haraneder, Harriet eta Duvoisin, bederen— denek erabili zuten (Ruiz Arzalluz 1987), baita 1828ko *Testamentu Berria*-ren itzultzaileak ere (Schuchardt 1900: 134).

¹⁰²⁸ Lehenagoko lan batean (Urgell 1992a: 235) *HH*-ko *barazbelarra* “hortaliza” < *baratze belhar* (Lç Lc 11, 42), *basa-oliboa* “acebuche” < *ib.* (Rom 11, 17), *barnadanic* “dentro, salir de” < *ib.* (Mc 8, 12) eta *emendiotan*, *desemendiotan* “(a) mejor, a peor” < *ceren ezpaitzarete emendiotan biltzen*, *baina desemendiotan* (1 Cor 11, 17) aipatu nituen.

Lehen begiratuan harrigarriagoa izan daiteke, beharbada, itzulpen zahar hura Larramendiren iturririk oparoenetako bat, oparoena agian, izan zela ohartzea eta, nolana ere, *Erans*-aren erregetzat aurkeztu dugun Axular baino askoz antzemaneraz eta nabariagoa. Jakina, alde batetik, Leizarragaren hizkuntza, bere bakardadean, inorena baino berezkoago suertatzen da Iparraldeko idazle zaharren artean. Bestetik, *Erans*-aren azterketan ikusi ahal izan dugu hiztegien ondoan iturririk erabilgarri eta ziurrenak, hiztegiileari hitzen esanahia lortzeko euskarriren bat eskaintzen diotenak direla eta, alde honetatik, Larramendik hitz bila irakurri zituen euskal liburuetan goxoenetakoa izan bide zen, haren edukiaz ez eze haren hitzez hitzeko esan beharraz zeukan konfiantza nabarmenak lagunduta.

Gure lanaren lagungarri, bestetan ez ditugun kanpoko xehetasunak aurkez daitezke, gainera, Larramendik eskuztatu zuen alea nolakoa zen eta, beraz, Leizarraga zenbateraino ezagutu zuen finkatzerakoan.¹⁰²⁹

9.1.1.1. Larramendiren alea

Larramendiren paperen artean Leizarragaren Testamentuaren zati baten (Mt 25, 26 arte) kopia eskuizkribatua gordetzen da. Honi berak bere eskuz ezarri zion oharrari esker (Tellechea-Idigoras 1966b: 175-176), badakigu Gaztanbide izeneko Baionako kanonigo baten alea luzaro esku artean izan zuela. Baionatik Loiolara zenean (1734) aldean eraman zuen eta kopiatzen hasi baina, halako batean, Gaztanbide eskatu, eta lana bukatu gabe itzuli behar izan zion. Ezagunegia ez bide den ohar hori kopiatuko dut hurren Tellechea-Idigorasen argitalpenetik:¹⁰³⁰

Esta copia del Nuevo Testamento la empecé con ánimo de llevarla hasta el cabo, por ser una pieza mui rara y que ya apenas se encuentra. Tuve algunos años en mi poder el Testamento Nuevo en bascuence, impreso, de que doi cuenta por extenso en el Prólogo del Diccionario. Era su dueño Mr. de Gaztambide, canónigo de Baiona, a quien se lo saqué por medio de un su amigo, para algún tiempo. Y como vi que no se acordaba de pedírselo, vine con él a Loiola y comencé a copiarlo, pensando tener tiempo para acabarlo.

Pero acordóse, en fin, el canónigo de su libro y se lo pidió a su amigo y éste a mí, con tanta prisa y rigor, que diciéndole que le había empezado a copiar, no quiso darme tiempo para acabarlo, y se lo volví. Y quedáronme estos cartapacios que llegan hasta el Cap. 25 del Evangelio de S. Matheo y su vers. 26. Y aunque sea así, es pieza digna de guardarse en la Librería o en otro paraje seguro. Para inteligencia de su dialecto, léase lo que tengo dicho en el otro Prólogo del Diccionario.

Loiola maio 5 de 1761

Berria ez da nolana hiko: Leizarraga hiztegirako gaiak biltzen zebilen garaian eduki zuen, Baionako egotaldian lortua, ziurrenik gainerako Iparraldeko liburu gehienak bezala,¹⁰³¹

¹⁰²⁹ Ez nuke saihestu nahi Leizarragaren aleen arteko ezberdintasunaren auzia (Schuchardt 1900: 134, Lacombe 1907, Dodgson 1907, Vinson 1907, Lafon 1944: 49). Gai honek mende hasieratik hona pairatu duen ixiltasuna dela eta (aipamen labur bat aurki daiteke Olaizola 1993: 183-184n), ez da hemen ezer berririk idoroko baina, edozein modutan, aukera baliatu nahi nuke ikerbidea zabalik dagoela gogoratzeko.

¹⁰³⁰ Argitaratzailearen oharrak hauxe dio: "Fajo en 8º, a lápiz letra D. Dice *El Testamento nuevo en Bascuence empezado. Obras del P. Larramendi*. Siguen 50 fol. con la traducción vasca copiada *Iesus Christen Evangelio Saindua S. Matheren araura*. Todo ello se encuentra en la Real Academia de la Historia, Jesuítas, leg. 62". Orditik hona hain lekukotasun interesgarriak ez du argia ikusterik izan: espero dezagun aurki gauzak aldatzea.

Vinsonek zioenez (1891-1898: 19, 3a zb.). Dena dela, Testamentuaren aurkikuntza ez zen ustekabekoa izan, zeren bila ari zen bazekienarena baizik; honela kontatzen digu *HH*-aren hitzaurrean eskaini zion atalean —"Del Nuevo Testamento en Bascuence" (1745: xxxvi-xxxviii)— aurkitzaileak berak:

Don Nicolás Antonio dixo en su Bibliotheca Española aver visto el Nuevo Testamento en Bascuence en Roma en la Librería del Cardenal Barberino. He oído hablar a muchos de Biblia Bascongada, y que la han visto en Roma éstos y los otros; pero es cierto que no ay más que el Nuevo Testamento que cita Don Nicolás Antonio. Después de muchos años de solicitud y diligencia, le he avido a las manos; y porque es pieza rara, quiero dar della alguna mayor noticia en gracia de los curiosos (Larramendi 1745: xxxvi).¹⁰³²

Hitz hauen ostean aurkitzen dugu, hain zuzen, kopiaren oharrean aipatu zuen alearen deskribapena, guretzat ezinutzizkoa, aztertu beharko dugun testuaren nondik norakoak xehe xehe agertzen baititu, inolako zalantzarik gabe oraindik begi aurrean zuela.¹⁰³³ Ikus ditzagun, bada, Larramendik eskainitako zehaztasunak:

1) Izenburua, etab. dakarren orrialdea eta eskaintza falta zitzaizkion, baina eskuz osatuta zeuden. Xehetasun gehiagotara ere iristen da: izenburuan erreginaren ezkutua zegoen, eta ematen duen ezkutu azpiko leienda ongi jasota dago, grafiazko aldaketa zenbait gorabehera:

Haur da ene Seme maitea, ceinetan neure atseguin ona hartzen baitut, huni beha çaquizquote (Leiz.).

Haur da ene seme maitea, ceinetan neure atseguin ona hartzen baitut, huni beazaquizquote (Lar.).

Halaber, leku beretik "Está impresso en la Rochela según el M.S. año de 1571, en la Imprenta de Pierre Hautin" ateratzen du; cf. jatorrizkoa:

Rochellan.
Pierre Hautin, Imprimaçale.
1571.

Eskaintzak, biak gordetzen zituen aleak, frantsesezkoa eta euskarazkoa; hona hemen Leizarragaren eta Larramendiren bertsiok, elkarren parean jarrita:

Leizarraga	Larramendi
A TRESILLUSTRE Dame leanne d'Albret, Roine de Nauarre, Dame souueraine de Bearn, &c. son treshumble & tresobeissant seruiteur lean de Liçarrague de Briscous desire grace & paix en Iesus Christ.	à très-Illustre Dame Jeanne d'Albret, Reine de Navarre, Dame Souveraine du Bearn, &c. son très-humble, & très-obéissant Serviteur Jean de Lizarraga de Briscous, désire grace, & paix en Jesus-Christ.

¹⁰³¹ Baina ez denak: *Imposible Vencido*-ren garaian Etxeberriren *Manual*-a eta *Noelak* eta Haranbururen *Miraila* behinik behin ezagutzen zituen, gorago esan bezala.

¹⁰³² Testamentuaren alea 1730-1733 bitartean lortu zuenez gero, berekin zeukan Mayansen liburua ezagutzerako; halaz ere, hitzaurreko pasartea idazterakoan baliteke haren berriak ere kontuan izatea; Nicolás Antonioren aipua behintzat (Landuccirena bezalaxe) hari zor diola dirudi; erka bitez Larramendiren hitzak haren *Orígenes*-ekoekin (1737: 350): "...aviendo sido, si no me engaño, el primero i casi único libro que se ha impresso en ella [euskaraz] la *Traducción del Testamento Nuevo*, que salió a luz año MDLXXII i atestigua don Nicolás Antonio que estava en la librería del cardenal Francisco Barberino".

¹⁰³³ Zehaztasunak berak horixe adierazten du, baina gainera, ohar bedi hurren aipatzen dituen adibideak ez direla denak Mateorenak: beraz, hitzaurrea idatzi orduko (c. 1742) oraindik alea gordetzen zuela nabarmena da. Honek iradokitzen du *HH* ontzerakoan osoki hustu ahal izan zuela, baina geroago (§ 9.2.8.4) egiaztatu beharko dugu.

Gucizco Andre noble Ioanna Albrete Naffarroaco Reguina Bearnoco Andre guehién &c., denari, bere cerbitzari gucizco chipiac eta gucizco obedientac, Ioanne Leizarraga Berascoizcoac, Iesus Christen gratiá eta baquea desiratzen.

Gucizco André Noble Joana Albrete Naffarroaco Erreguina, Bearneco André guehien denari, bere servitzari gucizco chipiac, eta gucizco obedientac, Joanes Lizarraga Berascoisacoac Iesus-Christen gracia, eta baquea desiratzen.

2) Testamentua osorik zegoen: "Los quatro Evangelios. Los Actos de los Apostoles. Las catorce Epistolas de San Pablo. La Epistola Canónica de Santiago, Las dos Epistolas de San Pedro. Las tres de San Juan. La Epistola Canónica de San Judas. Y el Apocalipsis de San Joan" (*ibid.*).

3) "y al fin pone los nombres propios del Hebreo y Griego, que se hallan en el Nuevo Testamento, y su significación en Bascuence" (*ibid.*). Hots, Apokalipsiaren ondo-ondoan datorren "TESTAMENTV BERRIAN diraden icen propri Hebraico eta Greco batzuen declarationea"; adibide gisa, zerrendako 1, 3 eta 4. sarrerak eransten ditu:

Leizarraga	Larramendi
Aaron, <i>mendia</i> , edo <i>mendico guizona</i> .	Aaron, <i>mendia</i> .
Abraham, <i>anhitzen aita</i> .	Abraham, <i>anitzen aita</i> .
Adam, <i>guizona</i> , edo <i>lurrezcoa</i> , edo <i>canaberá</i> .	Adam, <i>guizoná</i> , edo <i>lurrezcoa</i> , edo <i>canabera</i> .

Ez ditu gauza zenbait aipatzen eta, hain deskribapen zehatzaren ondoren, pentsatzekoa da egon ere ez zeudela:

"BATBEDERAC IAQVITECO, eta maiz iracurtzeko duen Aduertimendua nola Iesus Christ den laincoaren Leguearen fina, eta gure saluatzeko moien bakoitza", 19 orrialdetako, Testamentuaren testuaren aurrekoa. Egingo nuke alea nahita moztua izan zela, atal hau dela kausa hain zuzen, dotrina heretikoak zeuzkakeelakoan, eta muina —Testamentua euskaraz— salbatu nahirik.

"TESTAMENTV ÇAHARRAC eta berriac iracasten draucuten guciaren sommaria", 6 or., hau ere Testamentu aurrekoa, lehengoarekin batera erazua, antza denez.

"TESTAMENV BERRICO hitz eta minçatzeko manera difficil bakoitz batzu bere declarationéquin", aipatu izen-hiztegiaren ostean. 13 or.

"ÇUBEROACO HERRIAN usañatan eztiraden hitz bakoitz batzu hango añçora itzuliac", aurrekoaren ondoren; orrialde eta herena inguru.

"TESTAMENTU BERRICO materien erideiteco Taulá", aurrekoaren ondoren; 48 or.

Vinsonek (1891-1898: 6, 3a zb.) Leizarragaren ale batzuek bukaeran dotrina, Erregeari aldarrikapena eta fedezko aitopena daukatela diosku. Ez dirudi, esanak esan, antzekorik zegoenik gurean, Larramendik ezagutu orduko, behinik behin. Eta, amaitzeko, bistan da Larramendik ez zuela beste liburuaren (*Kalendrerá* eta *ABC* batzen dituenaren)¹⁰³⁴ inolako berririk izan.

9.1.1.2. Leizarraga HH-ko hitzaurrean

Aurkezpenak berak salatzen du Larramendik izan zion istimua, gainerakoei lerro apur batzuk eskaini zizkien bitartean honako honi atal osoa egin baitzion, "porque es pieza rara".

¹⁰³⁴ Vinsonek dioenez (1891-1898: 43, 4. zb.), honen aleak Testamentu Berriarenak baino amorru handiagoak txikituak izan bide ziren Luis XIII.aren garaiko kontrakarrean.

Testamentua osorik itzulita izatea —hainbat literatur hizkuntzaren oinarri,¹⁰³⁵ berak ongi bide zekienez— ezin gutxi izan zitekeen josulagun euskaltzale batentzat baina, gainera, argi dago bere hitzetan, liburuaren hizkuntzazko aberastasunek eurek ere erakarri zutela.

Hasteko, egon zitezkeen erreparuak uxatzeko, edo ematzeko bederen, egilea kalbindarra izan arren itzulpena zuzena dela —orduan ez zen huskeria, dakigunez¹⁰³⁶— aldarrikatzen du:¹⁰³⁷

Por lo demás, no se puede conocer que sea calvinista el traductor, que está a mi entender muy ajustado en su traducción (Larramendi 1745: xxxviii).

Bigarren, Mateoren Testamentuaren lehen atalaren aurkibidea eskaintzen du, antza denez Vulgataren munduan bizi zirenentzat honelakoak ezezagunak ziren eta:

Leizarraga	Larramendi
IESVS CHRISTEN EVANGELIO SAINDVA S. MATHEVEN ARAVRA.	Jesus-Christen Evangelio Saindua S. Matheuen araurá.
1. Iesus Christen burhasso eta haraguiaren araeuzco aitzinecoac.	1. Jesus-Christen burhaso, eta araguiaren araeuzco aitzinecoac.
18. Nola hura Spiritu sainduaganic concebituric, Maria virgina Iosephen emazteaganic iayo içan den.	18. Nola hura Spiritu Sainduaganic concebituric, Maria Virgina Josephen emazteaganic jayo izan den.
21. Cergatic icen eman çayón Iesus.	20. Cergatic icen eman zayon Jesus.
23. Emmanuel.	23. Eta Emmanuel.

Formazko ezaugarri honetaz gainera bada deigarria iruditu zitzaion beste bat: are ertzetako oharrak ere euskaraz itzulita egotea, alegia.

Gainerantzean, batez ere hizkuntzazko berezitasunez mintzo da, lanbide honetan begi zorrotzak zituela eta, gainera, euskalkien arteko ezberdintasunez asko zekiela agerian jarriaz; honako ezaugarri hauek banan-banan —adibideak emanez— aipatzen ditu:

1) Bai Kristok Apostolu eta gainerakoei, bai Apostoluek Kristori hika hitz egiten diete. Honek harritu behar izan zuen arren, asaldatu gabe esaten du, ez alde ez kontra agerturik, eta ondoko pasarteak adibide gisa aipatzen:

Leizarraga

Larramendi

¹⁰³⁵ Ezagutzen dudan honi buruzko azken oharra, gure artean, Ruiz Arzalluzena (1987: 709) da; bertan aurki daitezke oinarri-oinarrizko bibliografi erreferentzia zenbait.

¹⁰³⁶ Pio IV. aita sainduak, Trentoko Batzarra bukatu eta berehala, “Liburu debekatuen zerrendaren” arauak jasotzen zituen bulda bat atera zuen; laugarren arauak honela zioen: “Eskarmentua hartu dugu, hizkuntza arruntaz itzultako Biblia zilegi izatetik on baino gaitz gehiago datorrela, giza ahultasuna dela kausa. Arlo honetan apezpikuaren eta inkisidorearen iritzia begiratu behar da; apaizari edo aitortzaileari galdetuta, eurek eman dezakete *egile katolikoek* itzultako Biblia irakurtzeko baimena, baldin uste badute halako irakurketatik ez dela kalterik etorriko, sinismenaren eta pietatearen hazkuntza baizik...” (ap. Buzzetti 1986: 97-98; itzulpena eta etzanak nireak dira). Buzzettiren liburuaren itzultzaileak (98. or., 9. oh.) arau hau Espainiako Inkisizioaren Zerrendaren 5.a izan zela diosku, baina argi eta gogorragoa Erromakoa baino.

¹⁰³⁷ Oso bestelako iritzikoa izan genuen Haraneder, zeinak bere itzulpen eskuizkribatuaren *Aitcin-Solhas*-ean, Leizarraga “guiçon etsai eta dohacabe” eta “Calviñen (...) heresia poçoatuaz cutsatua” dela dioen —Ruiz Arzalluzek (1987: 712) begi zoliaz bakandutako hitz berberak errepikatuta—, hurren bere itzulpenerako erabiltzen duen arren, filologo berak (*ib.* 716-717) frogatu bezala. Zer ez ote zuten jaulkiko Larramendiren mihi-luma azkarrek, pasarte hau irakurtzerik izan balu, *Corografía*-n (297. or.) egiten dion aipamen ez oso aldekoaren ordez?

Erraguc, noiz gauça hauc ičanen dirade? (Mt 24, 3).

Hi aiz Iuduén Reguea? Iesusec erran cieçón, Hic dioc (Mt 27, 11).

...cergatic nigarrez ago? noren bilha abila? Harc ustez ecen baratze-çaina cela, diotsa, launa, baldin hic eraman baduc hura, erradac non eçarri duán: eta nic kenduren diat (Io 20, 15).

erraguc, noiz gauza hauc izanen dirade? (Math. 24).

hi aiz Juduen Reguea? (...) hic dioc (Math. 27).

cergatic negarrez ago? noren billa abil? harc ustez ecen baratze-zaina cela diotsa, Jauna, hic eraman baduc hura, erradac, non ezarri duan, eta nic quenduren diat (Joan. 29 [sic]).

2) *ukan izan*-en ordez sarritan agertzen da: hau itzultzailearen euskalkiari (BN-ari) egozten dio, Nafarroa Garaian ere aurkitzen den berezitasuna dela erantsiaz.

3) Geroaldian *-(r)en* marka aurkitzen du, behin ere ez *-ko* edo *-go*. Bide batez, *-en / -ren* banaketa zehazten du, azkena bokalez amaitzen diren aditzetan (*arturen, ecarriren*) agertzen dela esanez. Areago, geroaldi mota hau Lapurdin eta Nafarroan ere baliatzen dela diosku, baina hauetan aditz bakan batzuetan (*emanen, izanen*) bakarrik gauzatzen dela, gainerakoetan *-ko* (*artuco, ecarrico*) erabiltzen duten bitartean. Honako hau da adibide modura dakarren pasarte:

Ecen duen guciari emanen çayó, eta hambat guehiago vkanen du: baina deus eztuenari, duena-ere edequiren çayó (Mt 25, 29).

ecen duen guciari emanen zayo, eta ambat gueyago uca[n]en du; baina deus eztuenari, duena ere edequiren zayo (Math. 25, 29).

4) Subjuntiboa indikatibozko iraganaldi burutuaren ordez erabilia dago: adibidez, *icusi cituen*-en ordez *icusi citzan*; *deitu zuen*-en ordez, *deitu cezan*; *igan* edo *igo zan*-en ordez, *igan cedin*, etab.

5) *r-z* hasten diren maileguak halaxe idatzita dauden arren (*rendatu, recibitu, reguea*), ahoskapena *err-* dela ulertzen du Larramendik, “porque no ay voz en nuestra lengua que empiece con r”. Bestetan (hitz erdian eta bukaeran) ohi baino *r* bikoitz gehiago aurkitzen ditu, ordea.¹⁰³⁸

6) Gramatikazko atalari bukaera emateko “diestríssimo bascongado” deitzen dio, hikaren erabilera zehatza —“assí en los verbos regulares como en los irregulares”, hots, hala aditz perifrastiko nola trinkoetan— goraiatuaz eta ondoko lerrokada luzea erakusgarri modura kopiatuaz:

Ençun vkan duçue ecen erran ičan dela, On eritziren draucac eure hurcoari, eta gaitz eritziren draucac eure etsayari.

Baina nic erraiten drauçuet, Onhets itzaçue çuen etsayac, benedicaitzaçue maradicatzen çaituztenac, vngui eguiçue gaitz daritzuëney: eta othoitz eguiçue oldartzen çaiçquienacgatic, eta persecutatzen çaituztenacgatic.

enzún ucán duzue ecen errán izán déla, on eritziren¹⁰³⁹ dráucac euré hurcoarí, eta gaitz eritziren dráucac euré etsayarí. Bainá nic erráiten dráuzuet, onhets itzázue zuen etsayac, benedicá itzázue maradicátzen zaitúztenac, ongui eguiézue gaitz daritzúnei, eta othóitz eguizue oldártzen zaizquitúenacgatic, eta persecutátzen

¹⁰³⁸ Adibiderik ematen ez duenez gero, asmatu egin beharko genuke zeri dagokion, baina egia esan, ez dakit zer den: Schuchardtek (1900: 177) <r>-ren ordez dauden <rr> batzuk seinlatu zituen (*batetarra* ‘batetara’, *error* ‘eror’, *erroriren* ‘eroriren’, *eurrorrec* ‘eurrorrek’, *itsassorraco* ‘itsasorako’, *lekorrerat* ‘lekorerat’) eta, hauetaz gainera, *fierretaco*, non *rr* ahoskatu egiten zen. Ez dirudi, ostera, hain errata nabarmenek Larramendiren iruzkina eragin zezaketenik. Gainerantzean, Leizarragak *-# / -rrB* banaketa fidelki gorde ohi du, dakidalarik.

¹⁰³⁹ Jat. *oritziren*.

Çuen Aita ceruëtan denaren haour çaretençat: (...).
Ecen baldin çuey on daritzueney on badarizteçue,
cer sari vkanen duçue? (Mt 5, 43-46).

zaitúztenacgatic, zuen aità céruetan
dénaren haour záretentzat... Ecén baldin
zuei on daritzúenei on badariztezue, cer sari
ucanen duzue? (Math. 5, 43 t. hur.).

Atal oso bat merezi dute, berriz, Leizarragaren hitzei hitzaurrean zehar egin zizkien aipamenek, beti ere garatzen ari den teoria zabalagoen adibidetzat emanak:

Leizarragak latinezko hitz bat beti berdin itzultzen ez duela frogatzeko, lat. *corpus* testuinguru berean agertzen deneko bi pasarteok dakartza:

Ecen non-ere *içanen* baita sarrasquia, hara bilduren dirade arranoac-ere (Mt 24, 28).

ecen non ere izánen baitá sarrasquia, hará bilduren dirade arranoac ere (Math 24, 28).

Non-ere *içanen baita* gorputza, hara bilduren dirade arranoac-ere (Lc 17, 37).

non ere izánen baitá gorputza, hará bilduren dirade arranoac ere (Lc).

Honen haritik, *sarraski* hitzaz zekien guztia —ez soilik Leizarragagan ikasia— biltzen du, eta ez da gutxi: ohartu liburuetako eta herrietako lekukotasun bildumari:

En el primer lugar [Mt 24, 28] *sarrasquia* esta puesto en el sentido de *cadáver*, y es la voz que ponen muchos Intérpretes, y Santos, y aun la Escritura misma en Job, a cuyo lugar se hace alusión; porque a él se arrojan las águilas como a presa suya, que arrebatan, y en que se acaban. La voz *sarrasquia*, de que usan también Argaignarats y Gazteluzar, y es muy corriente en Oyarzun y otros Lugares, significa qualquiera cosa que se quisiere arrebatat, y qualquiera que se dexa ò arroja entre muchos, para que la arrebaten: y esto es lo que quadra bien al *cadáver* respeto de las águilas y otras aves de rapiña (Larramendi 1745: xxxviii).

Hiztegián, bidenabar, bi adierak jasota daude:¹⁰⁴⁰

Arrebatiña, lo que se arroja ò dà à muchos, para que lo arrebaten, *sarrasquia*.
Cuerpo muerto, *illotzá, sarrasquia*.

Bigarren aipamena askoz garrantzitsuagoa da euskal lexikoaren historiarako, Leizarraga eratorbide baten adibide eta eredutzat hartzen baitu, jadanik ezagutzen dugun *-kide*, *-kida*, *-kidatu*-ren erabilera zuritzeko hartan (§ 2.1.5), hain zuzen:

Por esto tambien en el Nuevo Testamento se dice *servitzariquidea* al consiervo (1745: I)

Eta, jakina, hitza ezin peit zitekeen hiztegi barruan:

Consiervo, *servitzariquidea*.

9.1.1.3. Leizarraga transkribatzen

Aurkezpen hau gauzatzeko Larramendik Leizarragaren testutik kopiatutako zenbait pasarte labur ekarri ditut eta jatorrizkoekin erkatu. Adierazi bezala, funtsean fidela izanik ere, baditu aldaketa txiki batzuk. *Erans*-ean ikusitakoak kontuan izanik, pentsa dezakegu aldaketok (gutxi gorabehera, behinik behin) hiztegián nola tratatu zuen erakuts diezaguketela. Eta, izan ere, gehienak jadanik ezagutzen ditugun ohiko grafi egokitzapenak (II, § 1.1) —gehi formaren hegoalderatze ttikiren bat (II, § 1.1.17)— dira eta, *Erans*-ean bezalaxe, ez beti sistematikoak:

- ç > z: *guiçona* > *guizona*, *içan* > *izan*, *çayon* > *zayon*, *gauça* > *gauza*, etab.
- k > c, qu: *kenduren* > *quenduren*, *ukan* > *ucan*.

¹⁰⁴⁰ Gertakaria oso azpimarragarria da: *HH*-ko hitz baten adiera ezberdinak nahitaez iturri beretik hartuak izan beharrik ez dagoela erakusten digu.

- Hitz hasierako eta bokal aurreko i > j: *Ioanna* > *Joana*, *Ioannes* > *Joanes*, *Jesus* > *Jesus*, *Josephen* > *Josephen*, *iayo* > *jayo*, *luduen* > *Juduen*, etab.
- h-aren desagertzea: *haraguiaren* > *araguiaren*, *hambat* > *ambat*, baina *hauc*, *hurcoari*, *haour*, *hara*, etab.
- v maileguetan: *cerbitzari* > *servitzari*.
- nn, ff, ss > n, f, s: *Ioanna* > *Joana*, *Ioannes* > *Joanes*, *Naffarroaco* > *Nafarroaco*, *burhasso* > *burhaso*.
- nh > n, lh > ll: *anhitzen* > *anitzen*, *bilha* > *billa* baina *onhets*, *othoitz*.
- ti etimologikoa > ci: *gratia* > *gracia*.
- Hitz hasierako r > err (cf. gorago esana): *Reguina* > *Erreguina* baina *Reguea*
- Txistukariaren "zuzenketa": *cerbitzari* > *serbitzari*.
- -zK > s: *Berascoizcoac* > *Berascoisacoac*.
- By# > i: *daritzueney* > *daritzuenei*, *çuey* > *zuei*.
- nç > ntz: *çaretença* > *zaretentzat* baina *ençun* > *enzun*.
- BhiB > y: *guehiago* > *gueyago* baina *guehien*.
- Aditz nagusia eta laguntzailea bereiztea: *benedicaitzaçue* > *benedicá itzázue*.
- Aldaketa batzuek Leizarragaren hizkuntza mendebalderagoko ezaugarriez janzten dute: *nigarrez* > *negarrez*, *abila* > *abil*, *vngui* > *ongui*, *çaiçquiçuenacgatic* > *zaiçquitzenacgatic*.
- Bestetan, berak hobeto ezagut zezakeen formaren alde egin duela dirudi: *Bearnoco* > *Bearneco*.

9.1.2. Axular

Ezagutu zuenetik, Larramendirentzat euskal idazleen eredu bilakatu zen,¹⁰⁴¹ hona hemen euskal liburuen zerrendan egiten dion ohorezko aipamena:

Síguese un tomo en octavo del célebre Don Pedro de Axular, rector de Sara, cuyo título es *Guerocó guero*, y su asunto de *non procrastinanda Paenitentia*, y tiene 60 capítulos. El bascuence es elegante, propio, puro, abundantísimo, el asunto tratado por principios, probado por la Sagrada Escritura, Padres de la Iglesia, exemplos y semejanzas muy oportunas. Los vicios pintados al natural, y convenientísimos sus remedios. Anda en manos de muchos, y debiera en las de todos los bascongados: y oxalá hubiera dado a luz la segunda parte que ofrece al principio al lector. Está impreso en Bourdeaux, año 1642, como consta de las aprobaciones y licencias (Larramendi 1745: xxxv).

Are euskaldun on eta txarrak —zehatzago, euskaraz letradun eta gabeak— bereizteko neurri gisa ezarri zuen beste pasarte batean:

...sin trabajo ni aplicación, y sin una onza de talento en estas materias, de repente se levanten en críticos de todo esto unos Bascongados ignorantes, que no saben Latín, que hablan mal Romance y peor su Bascuence. Pónganse a escribir una carta en su Lengua, no aciertan; abran a Axular para leerlo, se atascan; léanlo, y les parece Griego (*ib.* xlvii).

Horregatik inor ez bide zen harritu *Erans*-aren iturrietatik bat, iturririk garrantzikoena, izan zela egiaztatu zenean, baina axolakabekeriaz edo bestela, bertako aurkezpenean "he repasado con mucho cuidado..." Larramendiren esanari eta haren ondorio nabarmenei ez ikusiarena egin izan zaie orain artean. Axularrengandiko hitzetan *Erans*-aren eta *HH*-aren artean aurkitu ditugun batetortze ugariak (II, § 1.6) ziurrenik izozmendiaren tontorra baino ez dira.

¹⁰⁴¹ Gai honetaz, oro har, ik. Urgell 1992a.

9.1.2.1. Larramendiren alea

Hiztegiaren hitzaurrean emandako datuetan oinarrituta, Vinsonek (1891-1898: 87, 22b zb.), arrazoi osoz, Larramendik bigarren argitalpena lehenengotzat hartu zuela erabaki zuen. *Erans*-aren azterketan ikusi dugu egiaztapen hau zeinen garrantzitsua den hitz baten etorkia erabaki behar denean. Ez da oso zaila frogatzen, bestalde, *GGero* argitalpen narrasaren erabilerak eragin dituen hutsak badirela *HH*-an; adibidez:

*CHEITU: *GGero* 215 *cheiten* vs *Gero* ib. *ehaiten* > *HH* "Tejer, eó, eotu, eaitu, cheitu". "Tejedor, eulea, eaillea, cheilea".

Larramendi, dirudienez, *GGero*-aren bi ale biltzera iritsi zen: "Axular, duplicado *Guero-co-guero*" dio bere eskuz osatu zuen zerrendan (Tellechea-Idigoras 1966a: 356, 70. zb.); ezpairik gabe, hiltzerakoan utzi zituen liburuetatik erakargarriena izan zen, zeren eta denbora laburrik artean Landa eskribauak egin zuen zerrendan ez baitago haren arrastorik jada: Altunak (1984: 71) iradoki bezala, haietako bat katalogo berean Kardaberatzen gelan aurkitzen duguna da, ziurrenik.

Esan gabe doa azterketarako *GGero* honen ale bat baliatu dudala.¹⁰⁴² Ziur aski aldi berean *Gero*-arekin ere jokatzeari —*Erans*-ean egin bezalaxe— oso aberasgarria izango litzateke, bi argitalpenen arteko gorabeheren munduan aurrerapausuak egiteko parada emango bailiguke, baina antzeman ditudan zailtasun handiek ahalik errazenera jotzera eramanez, xedea begibistatik galaraz diezaguketen kontuetan sartu gabe.¹⁰⁴³

9.1.2.2. Axular transkribatzen

Zenbait urte beranduago bada ere, Axular bere eskuetatik igaro ondoren nola gera zitekeen —eta, beraz, hiztegian nola edo nolatsu barnera zezakeen— ezagutzeko parada eman zigun *Corografía*-n, lapurteraren erakusgarritzat haren pasarte labur bat aukeratu zuenean:

Axular (*GGero* 36-37)

Bada chinhaurriaren gouernuaz çuhurtciáz, (...) horniçoiñáz, eta viltcen duen mantenuaz, norc cer erranendu? Norc eztu miretsico, etagogeta eguinen? Spiritu Sainduac berac igortcen gaitu animalia ttipitto hunen gana, cer eguin behar dugun iccaterac, erraiten duela. Vade ad formicam (...). Çoaz naguia chinhaurria gana, eta consideraitçatçu haren bideac eta bidescac, ioan-ethorriac etaitçul-inguruac, nequeac eta

Larramendi (*Corografía* 297-298)

Bada chinhaurriaren gouernuaz zuhurtziáz, hornizoinaz, eta biltzen duen mantenuaz, norc cer erranen du? Norc eztu miretsico, ta gogoeta eguinen? Spiritu Sainduac berac igortzen gaitu animalia ttipitto onen gana, cer eguin behar dugun icastera, erraiten duela: Vade ad formicam, etc. Zoaz, naguia, chinhaurriagana, eta considera itzatzu haren bideac eta bidescac, joan-etorriac eta itzul-inguruac, nequeac eta

¹⁰⁴² Gasteizko Filologi Fakultatean gordetzen den mikrofilmea, Eusko Legebiltzarraren Liburutegiko alearen kopia (*Bibliografi Erroldea* I: 65. zb.), alegia.

¹⁰⁴³ Axularren argitalpenen kontua aztertzeke dago. Lehen eta bigarrenaren arteko kolazioa bukatuta badut ere, bildur naiz ondorioak ez direla erabatekoak izango Euskaltzaindiak argitara duen faksimileaz bestelako alerik ikusteko parada hartzen ez dudana bitartean. Izan ere, argitalpen honetan eskuz egindako hainbat zuzenketa eta eransketa aurkitzen dira, ertzetan eta testuaren gain-gainean. Frogatzen erraza den bezala, gehienak 2. argitalpena aurrean izanik egindakoak dira. Derradan, bidenabar, gehienetan bat datozela Villasantek bere argitalpen ezagunean egin zituen aukerekin: erabiltzen ari garen argitalpen modernoa —oso goraiagarria, edozein kasutan ere— egiatan bertsio faktizioa dela, besteak beste, esan nahi du honek.

trabailuac, eta iccassico duçu çuere nola beharduçon aitcinerat eta bethiere bici, ibili etagouernatu. Harc eracusleric eta quidariric gabe, berac bere buruz viltcen du vdan, neguaren iragaiteco behar duen mantenua, bazca eta bihia. Eta bihi hura gordetcentu lurrean barrena, berac eguinicaco gambaretan, eta bihi-teguietan. Eta hainda çuhur eta goithatu, ecen campohan deus ecin içanez, bere vilduetara, vildu behar duenean, lehenic hozitu behar duen burutic hasten baitçaica bihiari: ceren bertcela sorliteque bihi hura, buztan liteque, belhar bihur liteque: eta guero handic harat, alfer-lan gaertha lequidicayo, bere leheneco çuhurtcia guztia.

trabailuac, eta icasico duzu zuc ere nola bear duzun aitzinerat eta betiere bici, ibili eta gobernatu. Harc eracusleric eta guidariric gabe, berac bere buruz biltcen du udan, neguaren iragaiteco bear duen mantenua, bazca eta bihia. Eta bihi hura gordetzen du lurrean barrena, berac eguinicaco gambaraetan, eta bihiteguietan. Eta hain da zuhur eta goithatu, ecen campoan ecin deus izanez, bere bilduetara, bildu bear duenean, lehenic hozitu bear duen burutic hasten batzaica bihiari: ceren bertcela sor liteque bihi hura, buztan liteque, be[]ar bihur liteque: eta guero handic harat, alfer-lan guertha lequidicaio, bere leheneco zuhurtzia gucia.

Aldaketak, gutxi gorabehera, Leizarragarengan aurkitu ditugun berberak dira:

- ç > z: çuhurtciáz > zuhurtziáz, horniçoiñáz > hornizoináz, Çoaz > Zoaz, duçu > duzu, duçon > duzun, çuhur > zuhur, içanez > izanez, çuhurtcia > zuhurtzia.
- Baina jatorrizko zi bakarra gorde du: hozitu > hozitu.
- tc edo tç > tz: çuhurtciáz > zuhurtziáz, viltcen > biltzen, igortcen > igortzen, itçatçu > itzatzu, itçul-inguruac > itzul-inguruac, aitcinerat > aitzinerat, gordetcen > gordetzen, baitçaica > batzaica, çuhurtcia > zuhurtzia.
- #ß > j: ioan-ethorriac > joan-etorriac.
- ByB > i: lequidicayo > lequidicaio.
- h-aren desagerpena: behar > bear, campohan > campoan.
- cc, ss > c, s: iccasterac > icastera, iccassico > icasico.
- th, lh > t, l: ioan-ethorriac > joan-etorriac, bethiere > betiere, belhar > belar.
- v edo u > b: gouernuaz > gobernuaz, viltcen > biltzen, gouernatu > gobernatu, vilduetara > bilduetara, vildu > bildu.
- Aditza eta laguntzailea bereiztea: erranendu > erranen du, consideraitçatçu > considera itzatzu, etab.
- Marratxoaz lotutako atzizkia biltzea: bihi-teguietan > bihiteguietan.
- rc > r: bertcela > bertcela.
- Zuzenketak: iccasterac > icastera (1643 icastera), çuere > zuc ere (1643 çuc ere), gaertha > guertha.
- Irakurketa txarrak edo sasi-zuzenketak: quidariric > guidariric, gambaretan > gambaraetan, deus ecin > ecin deus, baitçaica > batzaica.
- Aldaera aldaketak: eta > ta, hunen > onen, guztia > gucia.

9.1.3. Etxeberri Ziburukoa

Haranbururekin batera Etxeberri da Larramendik aipatu zuen lehenengo euskal idazlea. Hau, ezaguna denez, "Apendiz de la poesía bascongada" deritzan *Imposible Vencido*-ko atalean gertatzen da, eta honela aurkezten digu:

Hállanse exemplares [de este segundo modo de versos] en el dialecto labortano, en que han sido más curiosos y aplicados, y por esso tienen algunos libros impressos en prosa y verso. Entre los demás se aplicó especialmente el doctissimo Juan de Echeberri, Doctor Theólogo, que tuvo numen particular para componer en verso bascongado, como se reconoce assí en el librito intitulado *Noelac, eta bercé cantá espiritual berríac*, como en el otro, que es de mayor volumen y se intitula *Manual devocionezcoa, edó ezperén orén oró escúetan erabiltzeco liburuchoá, Escárazco versután eguiñá, eta guztíá bi partetán bereciá* (Larramendi 1729: 374-375).

HH-aren hitzaurrean ere bi liburuen berri ematen du:

Otro librito en 12. impresso en Bayona Año de 1630, aunque con muchas erratas. Su autor Joanes de Echeberri, Doctor Theologo. Contiene 250 pag. y está todo él en verso. Su título *Noelac, eta berce canta Espiritual berríac*. El asunto es la Vida de Christo y sus principales misterios, especialmente su Nacimiento, alabanzas de la SS. Trinidad a quien llama, y bien, *Hirurtasuna*, y de otros Santos. De su bascuence dice con razón uno de los Aprobantes:

Escaldunac hel bequizquit

Haren ohoratzerá,
Ceren escara eman duen
Erdararen ganerá.

El mismo autor tiene otro volumen mayor, también en verso, de asuntos muy útiles, de que hago mención en el Arte del Bascuence. El exemplar que yo leí está en la Librería del Colegio mayor de Cuenca en Salamanca.

Bietatik bat ere ez da agertzen Larramendiren eskuzko liburu zerrendan, baina *Manual Devotionezcoa* behintzat bai Landa eskribauak egindakoan (Altuna 1984: 75, 69. zb., Iturriaga 1992: 158), hurrengo ohar honen pean izkutatuta, Altunak (*op. cit.* 72) ederki ikusi bezala:¹⁰⁴⁴

It. otro libro de bascuence en pasta de octavo, intitulado: Manual de Devociones. Sin autor. Impreso en Burdeos por Mongiron Milagez, el año de 1669.

9.1.3.1. Larramendiren *Noelak*

Larri ibiliko gara Larramendik liburu honen zein argitalpen erabili zuen jakiteko. Lehenik, ezagutzen dugun lehenengo argitalpena 1645ekoa da, baina Vinsonen (1891-1898: 67, 15a zb.), eliz baimenak 1630ekoak direla kontuan izanik, urte hartan bertan edo hurrengoan —ziurrenik Millanges, Etxeberriren lehen argitalpenen ohiko inprimatzailearenean— kaleratutako bat egon zela egin zuen, hamabost urtez argitaragabe irauteari ezinezkoa baitzeritzan. Bigarrenik, argitalpen asko ditu (zortzi ziur, Vinsonen arabera), 1645ean hasi eta zehaztu gabe dagoen XVIII. mendeko dataren batera arte:¹⁰⁴⁵ bukaera non jartzen dugun eta denak edo gehienak Larramendik ezagutzeko modukoak izan daitezke, beraz. Vinsonen (*op. cit.* 73, 15i zb.), gramatikako oharrean oinarriturik eta hango testua berak ezagutzen zituenekin erkatuturik, 1699ko Maffre-ren argitalpena¹⁰⁴⁶ (= 15d) erabili zuela iradoki zuen.

Dena dela, Vinsonen hipotesia *HH*-ko xehetasunekin konparatzen dugun bezain laster, gauzak zailxeagoak izan daitezkeela ohartzen gara: Larramendiren arabera, eskuztatu zuen alea Baionan 1630ean ateratako 250 orrialdeko eta *Noelac...* izeneko *in-12* bat zen. Izan ere, alde batetik, birritan (gramatikan eta hiztegian) errepikatzen duen izenburua denez gero, *Noela...* deritzen 15g, h eta i argitalpenak zeharo alde batera uztekoak dira. Bestetik, orrialde kopuru bera 15f-n bakarrik (eta, gehienera jota, 251 dituen 15b-n) aurkitzen da, 15c, d eta e-k 240 edo 241 dituzten bitartean. Bestetik oraindik, *in-12* bakarria 15g da, eta gainerako guztiak *in-8*. Eta, azkenik, Baionan atera ez zen bakarria Bordeleko 15b da. Dakusgunez, datuek aldez bederen elkar ezeztatzen dute argitalpen bakar bat seinalatu beharrean.

Dataren arazoa nahita akabantzarako utzi dut: nekez pentsa daiteke Larramendik ezagutzen ez dugun lehen argitalpen hipotetiko hura ezagutu zuenik; aitzitik, sinetsi behar dugu

¹⁰⁴⁴ Badirudi, beraz, Salamancaz erabilitakoaren ondoren beste ale bat erdietsi zuela, baina berandu apika. Ez dago honen arrastorik Loiolako Bibliotekan (Iturriaga 1992).

¹⁰⁴⁵ Ik. xehetasunak (Fauvet inprimatzaile familiaren gorabeheretan oinarrituta) Vinsonen 15i zenbakian. Beraren ustez, Etxeberriren *Noelac* “ont cessé san doute d’être réimprimés après la publication des *Cantico spiritualac*”.

¹⁰⁴⁶ Vinsonen zehaztu bezala (1891-1898: 15i), hau liburusaltzailea da, ez argitaratzailea; Akesolori (1970: 12) “Maffre-ren inprimerian” itzuri zitzaion, osterara.

datagabeetatik bat izanik, Vinson bezala baimenetan oinarritu zela liburuaren data emateko.¹⁰⁴⁷ Eta hau badateke argudio indartsu bat Vinsonen hipotesia, alegia 1699koa (15d) erabili zuela, deusezteko, zeren eta datagabe bakarrak 15f, g, h eta i baitira.

Laburbil dezagun goiko erkaketa anitzetatik atera daitekeena: tamainaren (*in-12*) datu garrantzitsuarekin bat datorren bakarra 15g bada ere, ezinezkoa da izenburua (*Noela...*), orrialde kopurua (204 or.) eta datarengatik.¹⁰⁴⁸ Izenburuak eta orrialde kopuruak, berriz, 15f hautagai on bilakatzen dute, nahiz tamaina (*in-8*) desegokia izan. Ondorioz, 15f bera ez bada (Larramendik tamainan huts egin zuela suposatuz)¹⁰⁴⁹ Vinsonek bildu ez zuen —eta ziurrenik Paul Fauveten eskutik ateratako— argitalpen bat izan zela pentsatu behar genuke. Zalantza hauek behin betiko uxatzea oso garrantzitsua izan daiteke, Larramendik liburuak huts asko zituela esan baitzuen, besteak beste.¹⁰⁵⁰

Artean, 15f argitalpena erabili dut.¹⁰⁵¹ Hona hemen *Imposible Vencido*-n eskaintzen dituen bertsoak, hartakoekin erkatuta:

¹⁰⁴⁷ Gogoratu Axularrekin gauza bera egin zuela. Ez nator bat, beraz, Atutxarekin (1999: 305), batez ere berak aurkezten duen ziurtasunarekin.

¹⁰⁴⁸ Vinsonen arabera, argitaratzailea (Jean Fauvet) 1731-1760 artean aritu zen lanean, eta esan gabe doa Larramendik gramatikan aipatzeko 1729 baino lehenagoko bat behar dugula: Paul Fauvet, berriz, 15f-ren egilea, 1700ean hasi zen inprimatzen.

¹⁰⁴⁹ Oso hipotesi egiantzekoa da: ohartu *in-12* bakarra (15g, Vinsonek ezagutu zuen argitalpenik handiena: 58 x 112 mm) 204 orrialdetakoa eta *in-8*-ko guztiak (41'5-45 x 95-98 mm) 240-250 orrialdetakoak direla, tamaina eta orrialde kopurua elkarri egokituta; Larramendik ezagutu zuen aleak, oster, tamainaz handiagoa izan arren (*in-12*), txikien orrialde kopuru bera (250) dauka.

¹⁰⁵⁰ Edozein moduz, Akesoloren arabera (1970: 12) "...ateraldi guztiak daude utsez josirik".

¹⁰⁵¹ Urquijoren alea (JU 1796 C.F. 72, Koldo Mitxelena Kulturunea, Donostia). Bat dator zeharo Vinsonek eman ezaugarri guztietan —salbu eta "12 pour 122", gurean 128 (eskuz ziurrenik: 121ak 1aren gainean 7 duela dirudi), "8 pour 208", gurean 08, eta "118 pour 218", gurean 18— berak ikusi alearekin. Halaz ere, hasierako orrialde zenbait (17-24) lekuz kanpo daude, liburuaren hasieran baina ongi zenbatuta; gainerantzean ez du ezer falta, aurreko argitalpenetan ez dagoen zatitik 241-242 orria izan ezik. *OEH*-ak Akesoloren argitalpena (1970) erabiltzen du: ale zahar ezberdin zenbait erkatuaz —eta grafia bateratu eta gaurkotuaz— egindakoa da eta horregatik, besteak beste, ezberdintasun handi-txikiak kausitzen dira 15f eta honen artean. Dena dela, laguntza modura aipamen guztietan, 15f-ren orrialde zenbakiaz gainera, argitalpen modernoarena jarriko dut, "Akes" laburdurarekin, 15f-n lehendabizikoz agertzen diren eta Akesolok berean sartu ez dituen hiru kantetan izan ezik: "Verbum caro" (241-245. or.), "Claritates guçia..." (245-246. or.) eta "Jesus Hautcho larru..." (249-250. or.).

Innocenten Amen dolorearen gañean. Noëla.

Innocénten Amen dolorearén gañeán Noela.

Innocenten Ama onac
Guztiz ciren harritu,
Soldaduac cirenean
Bethleena hurbilldu.

Innocénten Ama ónac
Guztiz ciren arritú,
Soldaduac cireneán
Bethleená hurbildú.

Ici aldura ethorri
Citçaien bi]t[hotcera,
Nigarra beguira, eta
Ikhara gorputcera.

Icí aldurá ethorrí
Citzaïen bihotzera,
Nigarra beguirá, eta
Icará gorputzerá.

O Haurchoac(errañçutê),
Çuec bada hain sarri
Galdu behar çaituztegu,
Bihotcen hiragarri?

O háurchoac (errán zúten)
Zúec badá hain sarri
Galdú behar zaituztégu
Bihotzen hiragarri?

Madarica dadillala
Herodes Tyrannoa,
Ceñac hambat altaratcen
Baitu gure¹⁰⁵² goçoa.

Madaricá dadillála
Herodes tyranoá,
Ceñac hambát altarátzen
Baitú guré gozoá.

Nola batçuc hurrequin ihessi auiatu ciren.

Nolá bätzuc hurrequin ihessi aviatú cirén.

Batçuc auiatu ciren
Hurrequien ihessi,
Laster ordean cituzten
Burreuet [sic] ardiatsi.

Bätzuc aviatú cirén
Hurrequien ihessi,
Lastér ordéan citúzten
Burréuc ardietsí.

Bere hala bere harmac
Atheratu cituzten,
Eta haurtchoei lehonac
Leguez iauci citçaitzen.

Berealá beré hármac
Ateratú cituztén,
Eta háurchoei lehónac
Leguéz iaucí citaistén.

Besoak cedutçatela
Aairean [sic] altchatuac,
Amec ekartcen cituzten
Aitciñera escuac.

Bessoac cedutzatelá
Aireán alchatuác,
Amec ecártzen citúzten
Aitziñerá escuác.

O Burreu curelac,¹⁰⁵³ andre
Nigartsuet [sic] diuste,
Gure haur gachoc cui [sic]
Cer eguin darotçue?

O burréu cruélac, andré
Nigartsúec diusté,
Guré haur gaisóec Zuei
Cer eguín darotzue?

Baldin hutsic bada, dituc
Guztiac gure aldetic,
Eta ez eçagutçaric
Eztuten haurrenetic.

Baldín hutsic badá, dítuc
Guztiac guré aldetic,
Eta ez ezagutzaric
Eztutén haurretatic.

Guri iguzquigutçue
Heriozco colpeac,
Eta utz biciric gure
Iaio berri umeac.

Gurí iguzquigutzúe
Heriozcó colpeác,
Etá utz biciric guré
Jaió berrí humeác.

Bañan hargatic etciren
Batere guibelatu,
Aitcitic escua çuten
Haurretara hedatu.

Bañán hargatic etzïren
Bátère guibelatú,
Aitziitíc escua zuten
Háurretara hedatú.

Batac thira, berceac thira,
Hari ciren guduan:
Soldadua garaitcen da
Ordean azken buruan.

Bátac thira, bérceac thíra,
Hari círen guduán:
Soldadúa garaitzén-da
Ordean azquén buruán.

¹⁰⁵² Akcsolorenak (1970: 75) *bere* dio.

¹⁰⁵³ Akesolok (1970: 75) *kruelak* irakurtzen du. Halaz ere, 15f-ko irakurketa ziurra da, zeren eta lehentxeago (84. or.) *Cureltassun* baitakar, berriro ere Akesolok (*ib.* 74) *krueltasun* irakurria, eta hemen berton, behe-rago, *Curelqui* irakurtzen da (Akesolok *kruelki*).

Bere harma sa[r]tzen dio
Cruelqui gorputcean,
Eta haur gachoa uzten
Hedatua lurrean.

Caurietaric [sic] cerion
Issurica odola,
Ithurrici [sic] ur garbia
Corrotetaric [sic] nola.

Bere harmá sartzén dio
Cruelqui gorputzeán,
Eta haur gaisoá uzten
Hedatua lurreán.

Zaurietaric Cerión
Issurrica odolá,
Iturrián ur garbia
Chorroetaric nola.

9.1.3.2. Larramendiren *Manuala*

Ez da samurragoa *Manual*-arekikoa. Hasteko, Larramendik bi ale ezberdin eskuztatu zituen: lehena, gramatikan erabili eta hiztegian aipatzen duen Salamancako Cuencako Kolegio Nagusiaren bibliotekakoa, eta bigarrena bere liburutegiko liburuen artean Altunak (1984: 72; ik. Iturriaga 1992: 158 ere) identifikatu zuena:

Ytt. otro libro de Bascuenze empasta de octauo, Yntitulado: Manual de Deuociones. Sin Autor. Ympreso en Burdeos por Mongiron Milagez, el año de 1669.

Loiolan zegoen ale hura,¹⁰⁵⁴ bigarren argitalpenekoa (Vinson 14b),¹⁰⁵⁵ argi eta garbi ez da *HH*-an baliatu zuena, eta ziurrenik beranduago erdietsitakoa izan zen.¹⁰⁵⁶ Salamancakoa erabili zuen, beraz, baina hartaz ez digu ez gramatikan, ez hiztegian berri zehatzik ematen, kasu honetan ezertarako ez den izenburu osoa izan ezik, zeinagatik 1627koa (Vinson 14a) ala 1669koa (14b) ote zen ez baitakigu,¹⁰⁵⁷ nahiz hau ere bigarrenekoa izatea egiantzekoagoa dirudien.

Dena dela, hona *Imposible Vencido*-n (Larramendi 1729: 378) aipatzen dituen bertsoak eta bigarren argitalpenekoak (1669: I, 12)¹⁰⁵⁸ aurrez aurre ezarriak:

1669

Çure legueac hautchec dire, Sinaico Mendian,
Berce orduz Moiseri, emanac Arabian.
longoicobat onhetz eçac, eta adora deuotqui,
Eta haren icenaz ez ciñic eguin vanoqui.
Guehiago beguira çac igandea saiñduqui,
Eta burassoac ondra, bici adin lucequi.
Nihor hill ezteçaquela, ez bihotcez gaitcetsi,
Ecen vengantcen laincoa, ni behar nauc sinhetsi.
Paillardiza higuinari eguioquec ihessa,
Gutziz ere ez desira lagunaren espossa.
Bercceren ona hain guti, beharco duc iduqui,
Gutziz ere hauçoaren ontassuna ez vqui.
Fiñean mihiari emoc guardia, ezten gueçurti,
Eta aicen falseria irauztera beldurti.

1729

Zure leguéac háuchec dire, Sinaico mendian
Berce ordúz Moisen emanac Arabian.
Jainco bat onéts-ezác, eta adóra devotqui,
Etá arén icenaz ez ciñic eguin vanoqui.
Gueiágo beguirázac igandeá sainduquí,
Eta burasóac ondrá, bici-adín lucequi.
Nihór hill eztezaquelá, ez bihótzez gaitzetsi,
Ecén vengántzen Jaincoá ni behár nauc sinetsí.
Paillardiza iguinari eguioquec ihesá,
Gutzíz ere ez desirá lagunaren Esposá.
Berccerén oná hain guttí beharco-dúc iduquí,
Gutziz ere hauzoarén ontasuna ez uqui.
Fiñeán mihiari emoc guardiá, ezten gueçurtí,

¹⁰⁵⁴ Orain, Iturriaga 1992ren arabera, ez dago.

¹⁰⁵⁵ Oker dabil, beraz, Atutxa (1999: 237, 7. zb.), Larramendik “zein argitarapenez mintzo den” jartzen ez duela diotenean; okerrago, bidenabar, Larramendi denboraren aldetik Egiategiren ondotik ipintzen duenean (*ib.* 236), “liburu honen [*Manual*-aren] berri dakarren lehena” izateko ohorea zuberotarrari emanetz, eta huts bera egiten du *Noelac*-i dagokionez (*ib.* 242).

¹⁰⁵⁶ Oker ez banago, ez da agertzen Larramendiren zerrendan (Tellechea-Idigoras 1966a).

¹⁰⁵⁷ Vinson bera ere (1891-1898: 67, 14b zb.) ez da ezer esatera aurreratzen.

¹⁰⁵⁸ Eskura ditudan bi iturriak, Hordagoren faksimila (1978) eta Altunaren argitalpena (1981) bertatik eginak dira biak.

Bi manu Principalenac.

Hauc bi manamendutara biltcen dituc laburqui,
Ceñac gogoan har ahal baitetçaquec errachqui.
longoicobat onhetz eçac gauça guztien gaiñetic,
Eta Christau laguna ez heronez beheretic.

Eta aicén, falseria irauztera, beldurtí.

Hauc bi manamendutara biltzen dituc laburquí,
Ceñac gogoan har ahal baitatzaquec errazquí.
Jainco bat onets-ezac gauzá guztien gaiñetic,
Eta Christau laguna ez heronéz beheretic.

9.1.3.3. Etxeberri transkribatzen

Erkaketa honetatik, funtsean ezaugarri berberak aurkitu arren, aurrekoetatik baino informazio gehiago erdiesten dugu, guztiz *Noelak* liburutik, zeren eta huts aski dituenetz, ohiko aldaketez gain zenbait testu zuzenketa ere ikusteko parada ematen baitigu. Kontuan izan bedi, dena den, bi testuak Gramatikakoak direla eta, horregatik, *HH*-ko eta *Corografía*-ko grafi sistemarekin ezberdintasunen bat izango dela:

- ç > z: çuec > zuec, çaituztegu > zaituztegu, çure > zure, eçac > ezac, çac > zac, ezteçaquea > eztezaquea, paillardiča > paillardiza, hauçoaren > hauzoaren, gueçurti > guezurti, etab.
- tc eta tç > tz: citçaien > citzaien, bihotcera > bihotzera, batçuc > batzuc, bihotcez > bihotzez, gaitçetsi > gaitzetsi, vengantcen > vengantzen, biltcen > biltzen, etab.
- tch > ch: hurtchoei > haurchoei, altchatuac > alchatuac, autcheç > hauchec.
- ch > is: gachoc > gaisoc, gachoa > gaisoa.¹⁰⁵⁹
- #iB > j: laincoa > Jaincoa, laio > Jaio, baina iauci.
- iñ > inK eta ñB, illK > il: saiñduqui > sainduqui, ceñac > ceñac, gaiñetic > gaiñetic; hurbilldu > hurbildu.
- h-aren desagertzea: bere hala > bereala, haren > aren, guehiago > gueiago, higuinari > iguinari, baina hurbildu, bihotzera, behar, hiragarri, ihessi, etab. (*Noelak*-en oso sarri). Cf., ostera, umeac > humeac, Hegoaldeko ohiturari atxikita.
- nh > n, th > t, k(h) > c, qu: onhetz > onets (bi bider), sinhetsi > sinetsi; atheratu > ateratu baina ethorri, thira; ikhara > icara, ekartcen > ecartzen, azken > azquen.
- ss > s: burassoac > burasoac, ihessa > ihesa, esposa > esposa, ontassuna > ontasuna, baina ihessi, issurica (*Noelak*-en).
- v eta u-ren erabilera normaltzea:¹⁰⁶⁰ auiatu > aviatu, deuotqui > devotqui, vqui > uqui.
- Aginterazko laguntzailea biltzea: beguira çac > beguirazac.
- Txistukarien "zuzenketa": citçaitzen > citzaitzen, onhetz > onets (bi bider).
- Argitalpenen erratak edo irakurketa txarrak: bithotcera > bihotzera, burreuet > burreüec, Airean > Airean, Nigartsuet > Nigartsuec, cuei > Zuei, haurrenetic > haurrenetic, satcen > sartzen, Caurietaric > Zaurietaric, Issurica > Issurica, ithurrici [ithurrica-ren ordez] > iturrian, corrotetaric [sic, ç-ren ordez] > chorroetaric (*Noelak*-en). Moiseri > Moisen, baitetçaquec > baitatzaquec (*Manual*-ean).
- Aldaera aldaketak: ardiatsi > ardietsi, curelac > cruelac, curelqui > cruelqui (*Noelak*-en). longoico > Jainco (bi bider, cf. artean lainco 1669koan ere), guti > gutti, errachqui > errazqui (*Manual*-ean).

9.1.4. Materre

Honako hau da bere bildumako euskaldun berri bakarrari eskaini zion laudorio estimagarria:

Otro volumen del mismo tamaño, que contiene la Doctrina Christiana, muchas oraciones y uno como Directorio de Marineros en Bascuence hermoso, cual es el de Sara en Labort, y tanto más estimable cuanto su autor, no siendo bascongado, aprendió la lengua con toda perfección. Llámase el R.P. Esteban Materre de la Seráfica Orden de N.P.S. Francisco de la Observancia, guardián que fue del

¹⁰⁵⁹ <is> zalantzazkoen bermea dukegu honelako aldaketetan (ik. I, § 8.4.8).

¹⁰⁶⁰ Hemen igartzen da, besteak beste, 1729tik 1745ra dagoen aldea: ez ditu <v>ak bihurtzen.

Convento de Avela:¹⁰⁶¹ y entre sus aprobadores, uno es P. de Axular, de quien hablaremos luego. Al principio está una adición de otro autor no de tan lindo bascuence.¹⁰⁶² Es del año 1616, y está impreso en Bayona (1745: xxxv).

Liburua ez da agertzen Larramendiren bibliotekaz ditugun zerrendetan eta, hortaz, *HH*-ko datuon arabera bakarrik ezagutzen saiatu behar gara. Materreren liburuak, agi denez, bi argitalpen izan zituen: lehena Bordelen Petri de la Court-ek egina dateke 1617an, eta bigarrena, Vinsonek ezagutu zuen bakarra (1891-1898: 51-54, 11. zb.), 1623an Bordelen Jacques Millanges-ek egina. Bion artean, Vinsonek (*ib.* 51, 11a zb.) ez du zalantzarik: "Larramendi, qui avait probablement sous les yeux un exemplaire sans titre, s'en sera rapporté aux dates des approbations ecclésiastiques. Il n'y avait d'imprimeur à Bayonne ni en 1616 ni en 1617"; honen alde eman daitekeen arrazoirik indartsuena, Larramendik aipatutako "uno como Directorio de marineros" hura "ad calcem sui Catechismi in hac secunda editione" —baimen egile berrietatik batek (1623: 179-180) dioenez— egindako hirugarren zatikoa izatea da.

Erkaketarako, beraz, 1623koaren ale baten kopia mikrofilmata erabili dut.¹⁰⁶³

9.1.5. Haranburu

Gramatikan (Larramendi 1729: 279), Etxeberrirekin batera "Fr. Juan de Aramburu, en su librito *devocino Escuarra, Miraila eta Oracinotegua*" aipatzen badu ere, ez dago gero —gutziz *HH*-aren hitzurreko liburu zerrendan— liburu honen beste inolako aipurik. Dena dela, pentsatzekoa da noizbait eskuartean izan zuenez gero, agian hiztegirako ere baliatu zuela.

Vinsonen arabera (1891-1898: 73-75, 16. zb. eta 540-541) liburua lehenengoz 1735ean "Bordelen, P. de la Court erregueren ardataco [sic] imprimatçaillea baithan" argitara zen. Ondoren, beharbada lau berrargitalpen izan zituen: bata 1641 edo 1642an, bigarrena 1660 inguruan Harizmendik zuzendua, hirugarrena 1690ean eta laugarrena (ziurrenik aurrekoaren "contrefaçon" bat) urte berean, baina bibliografoak azken biak baino ez zituen ezagutzen eta, gainera, eskuztatu ahal izan zituen ale guztiek hasiera falta zuten. Berak adierazi bezala (*op. cit.* 74, 16a zb.), dena dela, Larramendik lehen argitalpenean aurkitzen ez den *Te Deum laudamus*-aren euskal itzulpenaren lehen bi bertsoak aipatzen ditu. Itzulpena, *Devocino escuarra*-ren hirugarren argitalpenaren prestakuntza —"arrimo hobean" jarria, berregileak hitzurrean dioenez— bezala, Larramendik bestela pentsatu arren Harizmendirena da inolako zalantzarik gabe, lehendabizikoz honen liburuan (1658: 73 t. hur.) argitaratua, eta horregatik

¹⁰⁶¹ Sic, P. de Guilantenak "Reuleco Gardiana" dio.

¹⁰⁶² Cf. Vinson (1891-1898: 53): "Je ne sais ce que peut être l'addition 'd'un autre auteur', dont parle Larramendi".

¹⁰⁶³ Oxfordeko Bodleian Library-ko alea (8°.M.30.Th.SELD) da, *OEH*-ak erabiltzen duen berbera, alegia.

nahitaez 1660 baino lehenagoko argitalpenak bederen erabat alde batera utzi behar ditugu hemen.¹⁰⁶⁴

Erkaketarako, 1690eko argitalpenaren kopia mikrofilmata baliatu dut, baina ale honek orrialde asko falta ditu.¹⁰⁶⁵ Oraingoz, erkagai hoberik aurkitu ez eta Larramendik aipatutako bertsoak Harizmendiren *Virginaren officioa*-ko bertsoarekin erkatuko ditut:

Harizmendi	Larramendi
laungoicoa, çu caitugu	Jaungoicoá zu zaitúgu
Bihotz ossoz laudatcen:	Bihótz osóz laudatzén,
Çu çaitugu gueure launçat.	Zu, záitugu gueuré Jáuntzat
Ahalaz defendatcen.	Ahalaz defendatzén.
Aita bethierecoa,	Aitá bethierecoá
Ceren baitçara segur,	Ceren baitzará segur,
Handic emaiten darotçu,	Andic emaiten darótzu
Lurrac ohorez agur.	Lurrác ohoréz agür, &c.

Aldaketak ohikoak dira: ç > z, tc eta tç > tz, ss > s (ossoz > osoz), hitz hasierako ia > ja, h-aren desagertzea (*Handic* > *Andic*) eta nç > ntz (*launçat* > *Jauntzat*).

9.1.6. Argainarats

Liburu honetaz ezagutzen ditugun xehetasun gutxietarik batzuk behintzat Larramendiri zor dizkiogu (ik. Vinson 1891-1898: 84, 21. zb.):

Otro volumen en 12. de 572 pag. que contiene en doce capítulos admirables y muy eficaces desengaños. Su autor, Pedro de Argainarats, sacerdote y predicador ordinario de Ciburu. Imprimiose en Bourdeaux, año 1641.

Izena osorik, Vinsonek dakarrenez, *Avisu eta exortacionea* [sic] *probetchosac bekhatorearentçat, nola artha principalena beharduen bere arimaz, eta ez bere gorputçaz, contricionearen eguiteco, eta manamendua gaiñean* [sic, *manamenduen gaiñean-en ordeç*] *conscienciaren examinatceco artearequin, P. de Argainarats, aphez eta Ciburuco predicari ordinarioac equinac* da eta, oraingoz, egile beraren beste lana (*Devoten breviarioa*, Baiona, 1665) soilik daukagu HH-an haren hizkuntzak aztarnaren bat utzi ote zuen asmatzen saiatzeko. Lanbide gaitza, inolaz ere.

¹⁰⁶⁴ Erkaketa, Vinsonek egindakoaz gainerakoa, egin gabe dago, baina Kerejetak (1991: 867, 8. oh.) ohar interesgarri zenbait eskaini dizkigu.

¹⁰⁶⁵ Jatorrizko alea Lazkaoko beneditarren komentuan gordetzen da. Honako orrialde hauek falta ditu: 59-60, 83-96, 137-144, 161-168, 185-194, 305-338, 351-352 eta 480tik aurrera (485raino-edo). Gainerantzean, badirudi Vinsonek aipatzen duen 16e argitalpena dela, zeren eta, berak ematen dituen erkagaietarik, honek bezala *habea eta* (26. or., 9-10. l.), *Ceruan* (ib., 12. l.), *Eztugu* (ib., 14. l.) irakurtzen baititu, eta ez 16d-k bezala *hastea eta* (26. or., 17. l.), *Cervan* (ib., 19. l.) eta *Extugu* (ib. 21. l.), eta ez dakar *Te Deum Laudamus* aipatua 199. orrialdean, 16d-k bezala; 16e izatera, 188. orrialdean egon beharko luke, baina peitu dugu, esan bezala. Alabaina, 16d-k bezala *laudacen eta* (29. or., 14. l.) irakurtzen du, eta ez *landaco eta* (29. or., 9. l.) 16e-k bezala; eta ez *hirur* (26. or., 21. l.) 16d-k bezala, ez *hitur* (27. or., 4. l.) 16e-k bezala, *hirurec* (27. or., 4. l.) baizik. Vinsonen hutsa ez baldin bada (alegia, datuak trukatu zituela), hirugarren argitalpen bati buruz mintzatu beharko genuke, 16e-tik oso gertu dagoen baina honek baino huts gutxiago daukan batez, hain zuzen. Erkaketa honetako datuak Amaia Olabarriaren (OEH) laguntza ordainezinari zor dizkiot.

9.1.7. Gasteluzar

Euskara txit ederreko liburutzat izan zuen Larramendik:

Otro volumen en 12. de 479 pag. que contiene seis partes, y en ellas muchas oraciones y prácticas cristianas, las más en verso: trata de los novísimos, de los Sacramentos y Mandamientos, muchos Hymnos, Salmos, especialmente los penitenciales, y una Doctrina Christiana muy breve, todo en bellissimo bascuence. Su Autor es el Padre Bernardo de Gasteluzar de la Compañía de Jesús. Está impreso en Pau año de 1686.

Vinsonen arabera (1891-1898: 134-135, 39. zb.), argitalpen bakarreako da eta berak ematen dituen datuak ondo datoz *HH*-koekin. Erkaketarako Bonaparteren alearen mikrofilma erabili dut.¹⁰⁶⁶

9.1.8. Xurio

Larramendik erabili zuen Iparraldeko libururik berrienetakoa da:

El Kempis o *Contemptus mundi* traducido por M. Chourio, Rector de San Juan de Luz, impresso Año 1720.

HH-an balorapenik egiten ez duen arren, beranduago, Iparraldeko idazle berrien artean Haraneder baino Xurio nahiago zuela esan zuen:

Por demasiada puntualidad en querer escribir distinguiendo los verbos de sus terminaciones con sus barritas en medio, embarazan al lector, como se ve en la reciente traducción del *Combate espiritual* y de la *Introducción a la Vida devota* de Sales; y por eso, sin esas nimiedades, se lee más corriente a Chourio en la traducción del *Contemptus mundi* y otras obras en este dialecto (*Corografía* 297).

Hitzaurreko datuak, hasieran bederen, bat datoz Xurioren lehen argitalpenarekin (Vinson 49a), baina baita Vinsonek 1720-1750 artean kokatzen duen eta azalez berdina den bigarrenarekin (Vinson 49b). Jasota agertzen da bai Larramendiren zerrendan (Tellechea-Idigoras 1966a: 356, 71. zb.), bai Landarenean (Altuna 1984: 74, 43. zb.; Iturriaga 1992: 156); hauxe da azken honen oharra:

It. otro libro de a octavo en pasta en bascuence. Intitulado: Imitac[i]ón de Jesuchristo por el Mro. Chourio, Ror. del lugar de Done Juan. Impreso en Burdeos por Guillaume Boude Boe el año de 1720.

Iturriagak (1992: 41-42) egindako Loiolako Bibliotekako edukiarekiko erkaketan, jadanik 1750 eta 1788ko argitalpenak bakarrik aurkitzen dira. Halaz ere, eskribauaren ohar zehatzari esker, benetako lehen argitalpena dela ziur dakigu, *in 8* baita, eta ez *in 12*, haren faltsifikazioa bezala.

Eskura dugun faksimilea (Hordago, Donostia, 1978) 1788ko argitalpenarena da (Vinson 49e); azterketarako erabili dudana¹⁰⁶⁷ askoz lehenagokoa da, ezpairik gabe; halaz ere,

¹⁰⁶⁶ EHUko Filologi Fakultatea, Gasteiz (erref. 13311). Ale osoa da, salbu eta hasierako orri bat, hots, jai aldakorren Bazkotik aurrerako zatia (iii. or.) eta egutegiaren lehenengo orrialdea (iv. or.; hurrengo urtarrilaren 27an hasten da). Argitalpen moderno bakarra (Akesolo 1983) filologoentzat baliogabekoa da: alde batetik, "...egutegia kanpoan utzi da. Orrez gaiñera, latin utsezko puska batzu ere bai" (*op. cit.* 20); bestetik, jatorrizko testuaren hutsak zein diren abisatu gabe zuzendu egin ditu, eta "Letraren bat itz berean bi eratara jarri duenean ere, berdintzen saiatu gara: *promes*, ez *promez*" (*ib.* 21). Eta, azkenik baina ez mendreenik, arta gabeko argitalpena da, hutsez blai kaleratua, izenetik beretik hasita. Halaz ere, *OEH*-ak baliatu duena denez gero, iruditu zait lagungarri izan daitekeela bertako orrialdea "Akes" laburdurarekin ematea, jatorrizkoaren ondoan.

princeps-aren eta ondoko faltsifikazioaren artean bereizteko Vinsonek bildu ezberdintasunetarik batzuetan bakarrik dator bat¹⁰⁶⁸ eta, beraz, badirudi berak uste baino gutxienez beste argitaldi ezberdin bat gehiago artean egon zela. Istitutxo hau dakitenek erabakitzen duten bitartean, hartara mugatu naiz, aldaketak oso txikiak izango direlako esperoan.

9.1.9. Lavieuxvilleren dotrinak

Honela aurkezten ditu Larramendik:

Dos Cathecismos, uno breve, que contiene sólo el texto, y otro más largo, que contiene la explicación de las quatro partes del texto: de la primera 26. lecciones; de la segunda 24; de la tercera 33; de la quarta 27; y además, muchas prácticas santas, exemplos e historias, que se citan de los Sagrados Libros. Es cosa muy selecta: hizólos imprimir en Bayona el Ilustrísimo Señor don Pedro Guillermo de Lavieuvre, Obispo de aquella ciudad, cuya virtud, celo y prudencia singular no puedo alabar bastantemente. Imprimiéronse Año de 1733 (1745: xxxiv).

Liburu biak jasota agertzen dira Larramendiren zerrendan (Tellechea 1966a: 356, 29. zb.) eta Landarenean (Altuna 1984: 74, 46. zb. eta 78, 204. zb.). Eskribauaren oharrak, Larramendirenak baino zehatzagoak, hauek dira, Iturriagak (1992: 156 eta 171) egin transkripzioaren arabera:

It. otro libro en bascuence en pasta de a octavo, intitulado: Aquellos que se preparan a hacer la primera Comunión en la segunda cuaresma, Diócesis de Baiona. Su autor el Padre Guillaume de Lavieuvre [sic]. Impreso en Baiona por Faumet el año de 1733.

It. otro de a octavo con cubierta de lo mismo en bascuence, intitulado: Breve Doctrina para buenos christianos. Su autor Dn. Pedro Lavieuvre. Impreso en Baiona por Jaubet, el año de 1731.

CatLav txikia dela eta, Vinsonek (1891-1898: 171 ta hur., 54. zb.) ikusterik izan ez zuen lehen argitalpena 1732 edo 1733an datatu zuen, apezpikuaren agindua 1731ko ekainaren 20koa da eta. Larramendiren lekukotasuna ziur aski aintzatago hartzekoa da berak egin zuen baino, oraindik Baionan baitzegoen —eta, beraz, zuzenean lor baitzezakeen— kalera orduko. Dena dela, ez dago zalantzarik lehenengo argitalpena eskuetan izan zuela, Vinsonek zenbatzen duen bigarrena 1749koa baita. Halaz ere, ez dut bigarren hori baino argitalpen zaharragorik erdiesterik izan.¹⁰⁶⁹

CatLav handiari dagokionez, Vinsonek (1891-1898: 176-177, 55. zb.) hiru argitalpen jasotzen ditu, hirurak urte eta etxe berean eginak eta, dirudienez, elkarren artean txikikerietan baino aldentzen ez direnak. Hiruren arteko erkaketa egitea ezinezkoa nuenez gero, Villasanterena (1985) baliatu dut; hau “Donostian, Urquijoren liburutegian dagoen alea” erabiliz egin dela dio argitaratzaileak (1985: 15), Urquijok ale bat baino gehiago (argitalpen ezberdinetakoak) dituela erreparatu gabe. Dena dela, Villasantek *P. Guillaume* irakurketa egiten

¹⁰⁶⁷ Eusko Legebiltzarraren Liburutegian (*Bibliografi Erroldea* I, 87-88, 237. zb.) gordetako alearen mikrofilma, *OEH*-ak erabiltzen duen berbera.

¹⁰⁶⁸ Inpresio honetan zeharo bat nator Legebiltzarreko Liburutegiko berezilariekin (*loc. cit.*). Gehiago zehatz daiteke, ordea: *Princeps*-ean bezala, 151. or.ko 1. lerroa “eta enga-“z bukatzen da, baina faltsifikazioan bezala 401. or.ko 1. lerroa “ô guiçonon”-ez hasten da eta “erre|que-“z bukatzen, orrialde bereko azken lerroa “ça notha gabel!” da, 426. or.ko azken lerroa “tuzcoac.” eta zenbatu gabeko bukaerako x. or.ko 5. lerroan “LVII. E çaicula bihotça” irakurtzen da, *t* letra faltan.

¹⁰⁶⁹ Erabiliko dudana Urquijorena da (JU 3993a, Koldo Mitxelena Kulturunea, Donostia).

du 15a-rekin batera (eta ez *Piarres-Guillaume*, 15b eta c-k bezala): badirudi, beraz, Vinsonek lehen lekuan ipinitakoa dela.

9.1.10. *Exercicio Spirituala*

Biziki goraiatzan duen liburu honen aurkezpena itxuraz oso eskasa da:

Otro librito impresso en Bayona, sin nombre de autor y sin el año de la impresión, contiene Ejercicios Espirituales y Oraciones en prosa y verso; y al último la Pasión del Señor por San Matheo y San Juan, todo muy bien hablado.

Halaz ere, ez dago dudarik gutxienez 1844 arte *Exercicio Spirituala* izena eraman ohi zuen eta 1851 arte-edo beti Baionan argitaratu ohi zen liburua dela (Vinson 1891-1898: 147-158, 46. zb.; ik. halaber Urquijo 1907c). Larramendiren oharra aski ondo osa dezakegu, liburua Landaren zerrendan agertzen baita (Altuna 1984: 75, 59. zb.; Iturriaga 1992: 158), Altunak (*ib.* 72) ongi identifikatu bezala, honela deskribatuta:

It. otro libro en bascuence en pasta manual, intitulado: ejercicio espiritual. Sin autor. Impreso en Baiona p[o]r feuiueten sin su año de su impresión.

Liburu honen lehen argitalpenen historia aski nahasi eta ezezaguna da, tamalez, Larramendik erabilitako alea ziurtasun osoz finkatu ahal izateko. Dena dela, ditugun xehetasun apurrak aski eta sobera dira Vinson 46a (1716) eta 46b (“M. Roquemaurel liburu saltçaillea baitan Apumayouco carrican 1718”) kanpoan uzteko eta, hasiera batean bederen, 46c aintzat hartzeko, Vinsonek egin bezala, data (berez datagabea; bibliografoak 1741 ezartzen dio zalantzaz, “tableau de comput ecclésiastique” delakoa 1742-1764 artekoa baita), lekua eta inprimatzailearen izena (“Paul Fauvet, Erregueren inprimatçaillea baitan”) egokiak dira eta. Ez dago erabateko ziurtasunik ordea: alde batetik, Vinsonek berak aitortzen du 1718-1742 bitartean gehiago egon zitezkeela, nahiz funtsean berdinak:

L'*exercicio espirituala* est le livre basque le plus répandu et el plus commun; c'est celui qui a été le plus souvent et le plus diversement réédité, contrefait, refait, remanié, etc. Les éditions dont le tableau de comput commence à 1742 et 1755 portent tous deux, comme la précédente de 1718 (contrefaçón de Roquemaurel), la rubrique: “deuxième édition”. Il est probable que de 1718 à 1742, il y a eu plusieurs réimpressions portant toutes la même rubrique et en différant les unes des autres que par le tableau au verso du titre (Vinson 1891-1898: 149, 46d zb.).

Bestetik, beti Vinsonen deskribapenaren arabera, ez dakigu 46c-k Larramendik aipatzen duen “la Pasión del Señor por San Matheo y San Juan” atala duen ala ez, inolako zalantzarik gabe beranduagokoa (1754 edo 1755ekoa) den 46d-k baduena.¹⁰⁷⁰ Bestetik, oraindik, 1741-42ko data berankorregia izan liteke, apika, Harrieten gramatikarekin alderatuta. Eta, azkenik, Landaren oharra “feuiueten” dioenez gero —beti bezala euskal testua erdipurdi jasoaz— Larramendik izan alean inprimatzailearen izena genitiboaz emana zegoela dirudi (cf., adib., *P. Fauveten Imprimerian* Etxeberriren *Noelac*-en 15f argitalpenean). Azterketa bibliografiko zehatzago baten zain, beraz, eskura izan dudana (Vinson 46c-ren oso

¹⁰⁷⁰ Dena dela, biek orrialde kopuru bera (371 or.) dutenez gero, badirudi edukian ere berdinak izan behar zutela; 46d-n Mateoren pasioa 342-357. orrialdeetan agertzen da, eta Juanena 357-371.etan.

antzekoa)¹⁰⁷¹ erabili dut konparabide gisara, Vinsonen iradokizunean —arteko denak, “tableau” izan ezik gainerako guztia berdina izan bide zutela, alegia— fidaturik.

9.1.11. Beriain

Iparraldekoak ez diren liburuen artean bat bakarrik bereizi eta izenez eta izanaz aipatu zuen Larramendik hiztegiko zerrendan, atxikitzen zaion tradizioaz eta hizkuntzaren alderdi zenbaitez¹⁰⁷² haien aldamenean ezar daitekeen eta, ezpairik gabe, hiztegitik aurreratu Hegoaldeko dotrina zahar guztietatik haiekin gehiegi galduan atera gabe pareka daitekeen bakarra, hain zuzen:

Un librito en 12. con la Doctrina Christiana primero en Castellano seguido en 83 ojas, y después en Bascuence también seguido casi en otras tantas: una y otra bien sólidamente escritas. Imprimióse en Pamplona Año de 1626, con licencia y aprobación de su Prelado, el Ilustrissimo Señor Don Francisco de Mendoza. Su autor es el Licenciado Don Juan de Beriain, abad de la Parroquial de Uterga (Larramendi 1745: xxxv).

Orain ongi dakigunez, Larramendik asmatu egin zuen, ez bakarrik epaian, baina gaur galdu-gordean dagoen hizkera baten lekuko zahar bakanetatik garrantzizkoena baita. Are Larramendiren aipuak, beharbada, nafarrerazko beste zenbait dotrina zaharren patu gaiztoa ekiditen lagundu zion, hari-harian egon bada ere.

Beriainen dotrinak ez digu argitalpenen aldetik batere buruhausterik emango, bakarrekoa izan baitzen, dakigularik (Vinson 1891-1898: 63-64, 13. zb. eta 538-539, 12bis zb.).¹⁰⁷³ Liburua jasota agertzen da Landaren zerrendan (Altuna 1984: 77, 187. zb.; Iturriaga 1992: 169), nahiz Larramendik bere oharra idazteko erabili baino, itxuraz xehetasun gutxiago daukan:

It. otro mui usado de lo mismo en castellano y bascuence, intito.: Doctrina Christiana, compuesta por el Licdo. Dn. Juan de Beriain, sin que conste por falta de hojas su impresión y año.

Honen arabera, baliteke Larramendik argitara-urtea eta lekua baimenetatik ateratzea, bestetan bezala.

Goinafarreraren barruko ezberdintasunak agerian jartzeko, Larramendik *Corografía*-n (299. or.) Beriainen eta Elizalderen Kredoaren bertsioen zatitxo bat erkatu zuen. Gauza bera egingo dut hemen orduko transkripzio horren eta nik erabiliko dudanaren artean (R. M. Pagola 1995):

¹⁰⁷¹ Ik. Eusko Legebiltzarra, *Bibliografi Erroldea* I, 69, 188. zb. Bertako berezituaren arabera, dena dela, 1766 inguruan koka liteke: hau hala balitz, esan gabe doa Larramendirekiko erkaketa osoa burutuko denean zaharragorik aurkitzea mereziko lukeela.

¹⁰⁷² Cf. *Corografía* 299: “El dialecto navarro coincide mucho con el labortano, pero se diferencia también en muchas cosas”.

¹⁰⁷³ Vinsonek Larramendiren berriak bakarrik ezagutu zituen. Urquijok (ikus Arocena eta bien oharrak, *loc. cit.* 63-64. or.) Angel Irigairairen ale ezosoa (eta ezagun bakarra) izan zuen luzaro bere liburuen artean. Bertan “voy a poner aquí algunos datos acerca de mi ejemplar” idatzi baina egin gabe utzi zuen, tamalez.

Beriain

çeyn concebitu baytçen Espiritu Sanduaren obras, eta jayo-çen Virgina Mariaren baytatic: passatu-çuen Passio doloroscoa, Poncio Pilato juezaren azpian crucificatu yçandu-çen yll-cen, eta orci-çuten: jautssi-cen...

Aldaketak:

- ç > c edo z, tç > tz: çeyn > cein, baytçen > baitzen, çen > cen, çuen > zuen, etab.
- ByK eta #yK > i: baytçen > baitzen, baytatic > baitatic, yçandu > izandu, yll > ill.
- ByB > BiB: jayo > jaiio.
- ss > s, tss > ts: passatu > pasatu, jautssi > jautsi.
- Txistukarien "zuzenketa": obras > obraz, doloroscoa > dolorezcoa.
- Aditz nagusia eta laguntzailea bereiztea: jayo-çen > jaiio cen, etab.
- Aldaera aldaketak: Sanduaren > Santuaren, doloroscoa > dolorezcoa, eta > ta.

Larramendi

Cein concebitu baitzen Espiritu Santuaren obraz: Jaiio cen Virgina Mariaren baitatic: pasatu zuen pasio dolorezcoa Poncio Pilato Juezaren azpian: Crucificatu izandu zen ill zen, ta orci zuten: Jautsi cen, etc.

9.1.12. Hegoaldeko dotrinak

Dotrina multzo bat eskuartean izan zuela besterik ez dakigu:¹⁰⁷⁴

Fuera destes libros, se han impreso varios cathecismos, así en Bizcaya como en Guipúzcoa y Navarra; pero con poca atención a la pureza del bascuence y a su ortografía (Larramendi 1745: xxxv).

Dakusgunez, euren euskara baldresagatik aipamen labur hau baino gehiago zehaztetik atzeratu zen, baina honek ez du inondik inora esan nahi erabili ez zituenik, Landucciren kasuak erakusten digun bezala. Frogatu egin behar, hortaz, baina Hegoaldekoak izanik, hain zuzen, filologoaren lana inoiz zailenik gertatzen da, hainbat kasutan hitzak irakurriak baino entzunak errazago izan baitaitezke, nabarmena denez.

Lehenengo arazoa, anitzen artean, multzoan zein sartzen ziren eta zein ez zehaztea dugu, eta nori ez zaizkio buruko ileak lastuko gaur izenez (Elso...) edo zatika bakarrik ezagutzen ditugun dotrinak¹⁰⁷⁵ edota, areago, ezagutzen ez dugunen bat Larramendik ezagut zitzakeela pentsatze hutsaz? Jakingabean geratu gara, ordea, baita betirako geratu ere, eta, amets egitea bezain erakargarri ez bada ere, ausaz, ikerketaren argipean jar daitezkeen errealitate fisikoekin bakarrik jokatu behar dugu. Aukeran ditugun liburuak ez dira gehiegi, zortzi orotara: bizkaieraz¹⁰⁷⁶ Betolaza (1596), *Viva Jesus* (XVII. mendekoa),¹⁰⁷⁷ Kapanaga (1656), Arzadun (1731) eta Urkizu (1737); gipuzkeraz Otxoa de Arin (1713) eta Irazusta (1739); eta nafarreraz Elizalde (1735).

¹⁰⁷⁴ Halaber, bere eskuz osatu zuen liburu zerrendan honako ohar ilun hau, hiztegiokoaren parekoa, baino ez dugu aurkitzen: "Algunos librillos en bascuence y otros papeles sueltos" (Tellechea-Idigoras 1966a: 356, 80. zb.).

¹⁰⁷⁵ Ik. TAV 3.2.10 (Zubiaren bizkaierazko eta Etxaberen gipuzkerazko *Agur Maria*-k), *ib.* 3.2.11 (1614ko *Symbolum Apostolorum*-eko *Kredoa*), *ib.* 3.2.12 (Isastiren *Salvea*), *ib.* 3.2.14 (Zubiaren *Aita Gurea*) eta *ConTAV* 5.2.8 (117-123. or., goinafarrerazko dotrina baten apurrak).

¹⁰⁷⁶ Larramendik hartakotzat hartuko litzukeenez ari naiz, noski: ezaguna da, bestalde, Betolatza azken urteotan Arabako euskararen lekukotzat hartu izan dela (Knör 1986, Zuazo 1998c).

¹⁰⁷⁷ Urtegabeko honen hizkuntzaz eman diren iritziak laburbilduta aurki daitezke Lakarra 1984: 176-177n.

Esanak esan, begibistakoa dirudi ezen, oro har, zenbat eta berriago, hainbat eta Larramendik ezagutzeko posibilitate gehiago dagoela; bestela esanda, hiztegia prestatzen ari zen garaian erne ibili bide zenez gero, orduan argitaratutakoak ozta itzuriko zitzaizkion, guztiz 1734an Loiolara zenetik aurrerakoak. Ildo honetatik, ezin zaio halabeharrari egotzi, ezagutzen zituela zeharka jakin ahal izan dugun bakarrak hain zuzen 30. hamarkadakoak izatea denak: Arzadun, Elizalde eta Irazusta.¹⁰⁷⁸

Ikerketaren une honetan, ziur xamar diren hiru iturri hauen aurkezpena mugatuko naiz, nahiz *HH*-ko hitzekiko erkaketan aipatutako guztiak aintzat hartu ditudan, besteren bat ere multzoan sartu behar ote den egiaztatzeko. Dena dela, ezin esan gabe utzi, zeharkako iturriek azalarazi dituzten hiru dotrinekin Larramendik eman ezaugarri bakarra, alegia Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroakoak zirela beteta dagoela, ziurrenik hirukote honi “varios catecismos” deitzea gehitxo den arren; gainera, bizkaieraz bederen gehiago ezagutu zituen, ezagutu ere, hiztegiaren hitzaurrean (“Del dialecto de Bizcaya” atalean, xxviii. or.) “...como se puede ver en algunos Cathecismos impressos deste dialecto” eta *Corografía*-n, hurren ikusiko dugun bezala, Arzadun bizkaierazko “zenbait dotrinaren” artetik adibidetzat jarriko duela baitio.

9.1.12.1. Arzadun

Bizkaiera ordezkatzeko aukeratu zuen:

No he visto libro ni tratado en este dialecto sino algunos catecismos. Pondré un ejemplar del que imprimió el año de 1731 don Martín de Arzadun, beneficiado y grave eclesiástico de Durango (*Corografía* 298).

Arzadunen *Doctrina christianeen explicacinoa* Gasteizen argitaratu zen lehenengoz (Vinson 1891-1898: 166-167, 52. zb.), Larramendik aipatutako urtean, hain zuzen. Urquijok (1907b) erdietsi zuen gordetzen den ale bakarra, dakigularik,¹⁰⁷⁹ eta lan honetarako Lakarrak *Thesaurus*-erako (1984) maneatu zuen kopia makinaratua erabili dut. Hona Larramendiren transkripzioa 1731koarekin erkatuta:

Arzadun	Larramendi
Izanic christiauen señalea Curuce Santea,	Izanic christinauen señalea Curutze Santea,

¹⁰⁷⁸ Larramendiren gelan (Altuna 1984: 81) Mikelestorenaren 1744ko argitalpen baten ale bat aurkitu zuen eskribauak, “de la Nobena del Corazón de Jesús”. Guretzat ez bada ere (*HH*-rako ozta-ozta erabil zezakeen eta), bibliografoentzat bederen xehetasun interesgarria izan daiteke. Idazle horri ezagutzen diogun liburu bakarra *Cerura nai duenac ar dezaquean vide erraza* da, baina badu barruan “neuvaine au coeur de Jésus” bat, Vinsonek (1891-1898: 198-199, 82. zb.) zehaztu zuenez, eta agian honek eragin zuen Landaren izenburu delakoa. Vinsonek, ordea, 1751ko argitalpena bakarrik ezagutu zuen; Larramendirenaz gainera, bada bederen beste argitalpen bat, urtegabekoa baina itxuraz berriagoa, “Iruñean: Longas Echean” egina (Eusko Legebiltzarra, *Bibliografi Erroldea* I, 109. or., 289. zb.); honen atal banaketa alde ezberdina da: “Ongui vicitzeco modu labur errazac”, 3-39; “Meza entzuteco modua”, 39-64; “Calvarioco estacioac”, 65-87; “Acto fedeco, esperantzaco eta Caridadecoac”, 88-92; aipatu bederatziruena ez da inon ageri.

¹⁰⁷⁹ Berak erakutsi zuen bigarrena (Iruñean Martin Joseph de Radak egin 1758koa) hutsez eta aldaketez josita dagoela. Aldaketak, bestalde, oso interesgarriak dira, Lakarrak (1984: xvi-xviii) erakutsi bezala, batzuk Larramendiren iraultzaren ondoriotzat eman baitaitezke.

dalaco Christo Crucificaduen figurea, ceinetan erredimidu guinduzan bere odol preciobacoagaz, beardau jaquin eguiten señalear, zeñatutendala da santiguetandala ondo. (...). Cerda zeñatutea? Eguitea Iru Curuze escumaco escuco orcoroagaz, da vrrengo azagaz ifiniric Curuzez, beste iru azac geldietan diriala artez. Nun eingodiraz iru curuceoc, da ce verbagaz? Leleengoa becoquiganeric sur puntara, da becoquien ezquerreco alderic escumacora, esatendala; *Curuze Santeen señalearagaiti*: bigarrena sur puntaric ococera, da ahoen ezquerreco alderic escumacora, esatendala, *gueure arerioetatic libradugaguizuz*: da irugarrena ococeric bularrera, da ezquerreco solbardaric escumacora, esatendala: *gueure Jauna da Jaungoicoa*. (...). Cer da Santiguetea? Eguitea Curuce bat escumaco escuco bost azacaz, ifintendiriala artez. Nun eingoda Curuce au da ce verbagaz? Becoquiric bularrera, da ezquerreco solbardaric escumacora, esatendala: becoquian, *Aitien*: bularrean, *da Semien* da ezquerreco solbardaric escumacora *da Espiritu Santuen icenean*.

dalaco Christo Crucificaduen figurea, ceinetan erredimidu guinduzan bere odol preciobacoagaz, beardau jaquin eguiten señalear, ceñatuten dala da santiguetan dala ondo. Cer da Ceñatutea? Eguitea Iru Curutze escumaco escuco orcoroagaz, da urrengo atzagaz ifiniric Curutzez, beste iru atzac gueldietan direala artez. Nun eingo diraz iru curutzeoc, da ce verbagaz? Leleengoa becoqui ganeric sur puntara, da becoquien ezquerreco alderic escumacora, esaten dala: *Curutze Santeen señalearagaiti*: bigarrena sur puntaric ocotzera, da aoen ezquerreco alderic escumacora, esaten, dala, *gueure arerioetatic libradu gaguizuz*: da irugarrena ocotzeric bularrera, da ezquerreco solbardaric escumacora, esaten dala: *gueure Jauna da Jaungoicoa*. Cer da Santiguetea? Eguitea Curutze bat escumaco escuco bost atzacaz, ifinten direala artez. Nun eingo da Curutze au da ce verbagaz? Becoquiric bularrera, da ezquerreco solbardaric escumacora, esaten dala: becoquian, *Aitien*: bularrean, *da Semien* da ezquerreco solbardaric escumacora *da Espiritu Santuen icenean*.

Grafi aldaketa hutsek baino interes gehiago izan dezaketenak hauek dira:

- Txistukari afrikatuak ongi markatzea: *curuce / curuze > curutze, azagaz > atzagaz, azac > atzac, ococera > ocotzera, etab.*
- *ia > ea: diriala > direala* (bi bider).
- Aldaera aldaketak: *ce > cer.*

9.1.12.2. Elizalde

Nafarreraren barneko ezberdintasunak agerian jartzeko, Beriainen aurkez aurke jarri zuen Larramendik:

Y el Padre Eleizalde en su doctrina del año 1735 pone ese mismo sentido así... (*Corografía* 299).

Elizalderen *Apezendaco doctrina christiana uscaras* "Iruñan, Alfonso Burguete Alargunaren echean" atera zen, behin bakarrik, dakigularik (Vinson 1891-1898: 178, 57. zb.), Larramendik adierazi urtean, hain zuzen. Faksimilea (Salaberri Zaratiegi 1994) erabili dut. Larramendi eta Elizalderen bertsioak erkatuta:

Elizalde

Cein concebitubaize Espiritu Sanduaren obras. Jayoce Andre Maria Virginaren ganic. Padecituzue Poncio Pilatoren manuaren azpian: gurucificatuzute, ilzute, orzizute: jausice...

Larramendi

Cein concebitu baice Espiritu Santuaren obraz: jaio ce Andre Maria Virginaren ganic: padecitu zue Poncio Pilatoren manuaren azpian: guretificatu zute: il zute: jautsi ce, etc.

Aldaketak:

- *ze > ce: baize > baice.*
- Txistukarien "zuzenketa": *obras > obraz, jausi > jautsi.*
- Aditz nagusia eta laguntzailea bereiztea: *concebitubaize > concebitu baice, jayoce > jaio ce, etab.*
- Aldaera aldaketak: *Sanduaren > Santuaren, gurucificatu > guretificatu [sic].*

9.1.12.3. Irazusta

Esan bezala, Irazustaren *Doctrina christiana* jasota agertzen da Landaren zerrendan (Altuna 1984: 77, 192. zb.; Iturriaga 1992: 170):

It. otra pregunta o cartilla de Doctrina Christiana en bascuence del Pe. Astete, traducida por Dn. Juan de Yrazusta. Impresa en Pamplona el año de 1759.

Ziurrenik, 1759ko data eskribauaren hutsa da, dakidalarik ez baitago urte horretako argitalpenik; lehena 1739koa izanik, gainera, ez dirudi 3 eta 5 nahastea zaila izan zitekeenik. Iturriagak dioenez (1992: 19), lehen argitalpena Loiolako Bibliotekan gordetzen da; hau Larramendiren hura balitz, bide batez, haren iturri izan ziren euskal liburuetatik Loiolan gordetzen den bakarra izango litzateke.

Ezagutzen den hurrengoa 1742koa da (Vinsonek lehenengotzat emana: ik. 1891-1898: 183, 62a zb.; Lakarra 1984: xxvii), baina XVIII. mendean hainbat bider berrargitaratua izan zen. Edonola ere, Lakarrak (1984) Loiolako aletik ateratako kopia baliatu dut erkaketarako.

9.2. Iparraldeko tradizioa *HH*-an

9.2.1. Iparraldeko tradizioaren garrantzia

Gaiari heltzeko aukera izan zuen bakoitzean, Larramendi oso argia izan zen alde honetatik: aintzat hartzea merezi zuen literatur ekoizpen bakarra lapurterazkoa (zabalki uler bedi) zen, Hegoaldean “euskararen garbitasun eta ortografiari arreta gutxi” jartzen zioten dotrina txiki multzo garrantzi gabeko bat baino ez zegoen bitartean. Ortografian Iparraldeko usadioari egin zizkion zuzenketak gorabehera (I, § 3.4.10), begibistakoa da hango literatura eredutzat proposatzen ari zela, eta halaxe ulertu zuten ondokoek, euren literatur hizkuntza aberastu eta antzatzeko Iparraldeko liburuak itzuliaz (Añibarroren *Geroko gero*, Mogelen *Kristinaubaren Ikasbidea*),¹⁰⁸⁰ antzerako liburuak idazterakoan haiek begi aurrean izanaz (Ubillos, Añibarro, Etxeberri Luzaidekoa,¹⁰⁸¹ Lardizabal)¹⁰⁸² edota euren hiztegiak osatzeko gaiak haietatik atereaz (Añibarro,¹⁰⁸³ Iztueta,¹⁰⁸⁴ Aizkibel,¹⁰⁸⁵ etab.), besteak beste.

Halaz ere, gaia ia ixilpean igaro da XX. mendean zehar, J. I. Aranak marraztu, Ibarrek gotortu eta gerraosteko euskal literaturaren historia ez eze, sarritan baita filologi azterketak ere zeharo baldintzatu dituen teoria jakin bat dela kausa: alegia, Iparraldeko eta Hegoaldeko literaturak zein bere bidetik ibili direlakoan. Teoria delako horren izenean, ostera, gutxietsi dira

¹⁰⁸⁰ Hauetaz, eta ondoan aipatuko ditudan gehienez, ik. Urgell 1992a: 236-244.

¹⁰⁸¹ Ik. Segurola 1985, bereziki 187-188.

¹⁰⁸² Cf. Urgell 1995: xxxv-xliii eta I-li.

¹⁰⁸³ Cf. Urgell 1992b, Harrieten hiztegitxoetatik atera zituen oharrez.

¹⁰⁸⁴ Urkizuk (1996: 13) Axular aipatzen duela diosku, nahiz non zehaztu gabe, tamalez.

¹⁰⁸⁵ Bere hiztegiaren laburduren zerrendan Aramburu, Axular, Goyeneche, Edición Harriet (HeH?), Leclusse, Larregui, Lizarrague, Oihenarte eta Silvain Pouvreau agertzen dira.

—estali ez direnean— azken urteotan bildu ahal izan diren hainbat eta hainbat ebidentzia,¹⁰⁸⁶ XVIII-XIX. mendeetan halako maila batean ari nahi zuten Hegoaldeko zein Iparraldeko idazleen aldetik.

Lexikoaren arloa ez da salbuespena izan, nahiz honetan hiztegi zenbaiti buruzko aurreiritziek arazoa larriagotu duten. *HH*-ari dagokionez, ia-ia aipatu ere ez da egiten Larramendik Iparraldeko liburu asko ezagutu zituela eta, zer esanik ez, are gutxiago iturritzat erabili zituela agerriki zioela.¹⁰⁸⁷ Beste horrenbeste gertatzen da, dena dela, berak baino Azkueren iragazkia errazago igaro zuen Aizkibelen hiztegiarekin.¹⁰⁸⁸ Izan ere, funtsezko erlaziorik izan ez delakoan, halakoak txikikeriak baino ez dira eta, beraz, aipatzea zein ez aipatzea orobat. Aitzitik, erlazioa izan delako ikuspuntutik behatuta, lexikoa ikergai garrantzitsu bilakatzen da, zeren eta hizkuntzaren arloetatik aldakorrena izanik, beste asko baino, agian, tradizio batetik bestera isurtzen eta, nolana ere, ziurrenik guretzat antzematen errazagoa izan baitaiteke.

Larramendiren liburu zerrenda txundigarria da: peit daitezkeen garrantzitsuenen artean, Beriainen *Tratado* eta Etxeberriren *Eliçara*-rekin batera, Etxepare, Voltaire, Oihenart, Pouvreau eta, oro har, ekialderagoko idazleen argitalpenak (Tartas, Belapeyre) sartuko nituzke.¹⁰⁸⁹ Hutsune hauek gorabehera, 1571-1745 arteko Iparraldeko literatura oso ondo ezagutzera iritsi zela aitortu behar dugu, bere garaian Hegoaldeko beste inork ez bezala, ezpairik gabe, eta agian baita “Hegoaldeko” kenduta ere. Esaterako, ia-ia lehen euskal autoritate hiztegitzat jo izan den Pouvreaurenean (cf. Lakarra 1995a), Etxeberri Ziburukoaren hiztegi galdua —eta Larramendik ezin ezagutua— alde batera utzita, honen *Manuala*, Axular, Leizarraga, Oihenart eta Harizmendik egindako Haranbururen bermoldaketa —bai eta agian idazle beraren *Offizioa* ere— bakarrik identifikatu dira (Kerejeta 1991: 866-868): hiztegi hau bukatutzat eman daitezkeen 1665 arte Larramendik hiru iturri (Materre, Etxeberriren *Noelak* eta Argaignarats) kentzen dizkio, eta Pouvreaux berari bakar bat (Oihenarten euskal idazlanak). Askok da, artean zenbat urte igaro diren kontuan harturik.

¹⁰⁸⁶ Lakarra 1985a: 31-34 eta 1985c: *passim*, Sarasola 1986: 203-204, Urkizu 1992: *passim*, Urgell 1996: 277, etab.

¹⁰⁸⁷ Mitxelenak (1960: 98) iruzkin labur hau eskaintzen dio: “...para escribir el *Diccionario* tuvo Larramendi que recoger muchas noticias (...) de las obras impresas que buscó con afán, dándonos un primer esbozo del pasado de la literatura vasca”; taiu beretsukoa da Onaindiaren (1972: 195) aipua: “Era bitako itzak dauzka: 1) Eskuan zitun liburuetatik eta erriaren agotik jasoriko[a]k, eta 2) egilleak berak asmatutakoak”. Ez dago horri buruzko ezer Villasanterenean (1979), adibidez.

¹⁰⁸⁸ Villasante (1979: 265) hau esatera mugatzen da: “Si en vez de seguir a Larramendi, hubiera confeccionado su catálogo de palabras vascas a base de los vocablos que hallaba en su rica colección de libros vascos, su obra hubiera tenido un valor más positivo y permanente”. Onaindiak (1973: 267-270) erabat banandurik aipatzen ditu Aizkibelen liburuzaletasuna eta hiztegiari dagokiona, haren iturriez —Larramendi izan ezik, jakina!— ezer esan gabe.

¹⁰⁸⁹ Etxeparearen izena, behinik behin, ezagutu behar izan zuen, Isastik (c. 1620: 165-166) aipatu baitzuen, baita haren lau bertso kopiatzen ere (Larramendik ezagutu zuen Isastiren aleaz, ik. § 11.1.1). Halaz ere, ez honetaz, ez honekin batera agertzen den “el Licenciado Elso navarro de bascos, que ha cien años escribió un libro de la doctrina cristiana en romance y bascuence”-z (*ib.* 164) ezer esaten du Larramendik. Honek hiztegiko liburu zerrendaren garrantzia —eta esanahia— azpimarratzen du, zeren eta ezagutu ez zuenik aipatzeari uko egin baitzion, agi denez.

Iparraldeko idazleen lexikoari bere hiztegia osatzerakoan eman zion garrantziaren lekukotasunik erabatekoena, “Del dialecto Navarro y Labortano” atalaren bukaeran ezarri zuen ondoko honi deritzat:

y no digo nada de los nombres y verbos, porque estos deben hacerse comunes a todos los Dialectos, como lo procuro en el Diccionario (Larramendi 1745: xxviii).

Hitz hauek bi erataratu uler daitezke: irakurketa zabalaren arabera, lapurterazko izen-aditzek —beste edozein euskalkitakoek bezala— lekua dute Larramendik eratu eta bultzatu nahi izan zuen (literatur) euskara komunaren barnean; alabaina, oharra atal horretan, hain zuzen, agertzeak irakurketa hertsia egitea zilegi ez eze beharrezkoa egiten du: alegia, besteen artean lapurterazkoak bereziki noranahi hedatzekoak zirela, zeren eta Leizarraga, Axular eta besteek erdietsitako hiztegi maila bikaina, hainbat eta hainbat kultur adierazitarako aurkitu (usu eratu) zituzten euskal adierazle egokiak ez baitziren erraz bestetan aurkituko.

Hau nola eta noraino egin zuen galderari erantzuten hasiko gara laster; lortu zuen ala ez, berriz, ikertzeko geratzen den gaia dugu: haatik, *OEH*-aren orrietan zehar ostera batzuk egitea aski izan daiteke, Hegoaldeko tradizio berria Iparraldeko tradizio zaharrarekin zuzenean lotzen duten hitzak *adina* (cf. Sarasola 1997: xx) baino askoz gehiago direla ohartzeko.

9.2.2. Azterketaren mugak

Larramendik hiztegiaren hitzaurrean eta bestetan eskaintzen dion arretarekin ezin hobeto etorririk, lehenago Iparraldeko tradizioan —eta han bakarrik— lekukotuta zeuden *HH*-ko hitzak asko dira, letra bakar bat aztertuta ere. Kopurua bera aski berme fidagarria da artean zerbait gertatu dela sinisteko eta, areago, zerbait hori ez dela halabehar hutsa, testuen nolabaiteko hustuketaren ondorioa baizik; xehetasunek (lekukotasun bakarrak, huts bateratzaileak, etab.) eskainiko digute geroxeago oraindik berme sendoagorik.

Hala eta guztiz ere, gauza bat da liburuak iturritzat erabili zituela orokorki antzematea, eta zeharo beste bat, banan-banan, hizka alegia, nondik hartuak diren zehazki esatea. Bi erako arazo nagusiak kausitzen dira ariketa horretan hasi orduko: lehenak literatur iturriaren izaera eta egoerarekin lotuta daude, hala nola Iparraldeko idazleek lexikoan daukaten funtsezko batasuna edota iturri batzuk gaur egun ezezagunak izatea; eta bigarrenak, berriz, hurbilketa honen xedearekin: zer lortu nahi dugun, eta nola.

Iparraldeko tradizioari “tradizioa” deitzen diogun unetik, jakintzat ematen ari gara idazle guztiek hainbat alderditan berdin edo berdintsu jokatu zutela eta, guri dagokigunez, alde beren jatorriagatik beragatik, alde tradizioaren kariaz, komun bilakatuz joan zen lexiko ondare baten erabiltzaileak izan zirela: mutur batean *haur* ‘hau’ edota *ahalke*, eta bestean *aingeru begirale* edo *akabantza* bezalako hitzen iturri zuzena zein izan zen testu-agerraldien erkaketaren bitartez erabakitzen aritzea, nekoso xamarra izateaz gainera, teoriaren aldetik inora ere ez garamatzen ariketa da, nire iritziz. Halako hitzen bitartez ikasten dugu *HH*-an ez idazle baten edo batzuen, baizik eta tradizio oso baten isla jasotzen dela; eta ez da ikasketa makala, batez

ere *HH*-ko hitzak asmatuak ez direnean gipuzkerazkoak direla uste izan dutenentzat.¹⁰⁹⁰ Gogora dezagun Larramendik euskalki guztietako hitzak bildu eta denen eskura jarri nahi zituela (I, § 3.4.3); aipatutako hitzak eta haien antzerakoak ezinbestekoak ziren, beraz, lapurteraz eta lapurtar tradizioaz zekien baino gutxiago jakin izan balu ere. Azterketak, ostera, ez du nahitaez muga horretan geratu beharrik: Larramendiren jokabidea ulertzeko oso interesgarria izan daiteke, halaber, zergatik *ahalke* jaso zuen, eta ez *ahatge*, adibidez.

Bestalde, bada corpusean ezpairik gabe Iparraldetik hartua den baina iturri ezagunik ez duen hitz mordoia:¹⁰⁹¹ honek gogorarazten digu, alde batetik, Larramendik aitortutako bi iturri —Etxeberriren hiztegia eta Argaignaratsen *Avisu*— ez ditugula ezagutzen eta, bestetik, *Erans*-ean bezala *HH*-an ere Iparraldeko ahozko iturriren bat izatea oso posible dela.

Hiruretatik hitz gehien eskaini ziona Etxeberrirena dateke, hiztegia —eta, hortaz, erabilerrazagoa— izateaz gainera, aski goiz erabili baitzuen (c. 1730, hiztegiaren hasieretan), eta hitz asko bertatik hartuaz, berak dioenez (1745: xxxvi). Gai honetaz aurrerago arituko gara, lehenik Etxeberrirenaren bermoldaketa izan litekeen Sbarbi-Urquijo hiztegiaren auzia eztabaidatzeko (§ 10.1) eta gero, ahozko iturrien artean, ezinbestean idatzizkoa dirudiena gainerakotik bereizten saiatuaz (§ 12.2.9). Argaignaratsi dagokionez, bere beste liburua —*Devoten breviariora* (1665)— erabili baino besterik ezin dezakegu egin; kontuan izan bedi, dena dela, ezagutzen ez dugunak 572 or. zituela, ezagutzen dugunaren 264 orrialde gordeen aldamenean: badirudi, beraz, alde honetatik oso motz geratuko garela, nahiz desgogara izan. Ahozko iturriaz edo iturriez, azkenik, egon zitekeelako posibilitatearekin jokatu beharra daukagu, nahitaez, ez bakarrik Iparraldean Larramendik eman zituen lau urteengatik, baita *Erans*-eko lekukotasunak hango hizkerarekin harremanen bat gorde zuela baitiosku. Hiru iturri “iratxo” hauen itzalak azterketa guztian zehar lagunduko badigu ere, gainerantzean, bestelako lekukotasun onak ditugun bakoitzean alde batera utziko ditut, ezinbestean.

Orain artean azaldutako mugak iraunkorrak dira: gauzak honela daude eta, mirariren bat ez gertatzera —iturri galduak edota *“(Voces bascongadas sacadas del Diccionario del Doctor Don Juan de Echeberria” izeneko hitz zerrenda¹⁰⁹² (Larramendiren eskuz egindakoa, noski) aurkitzeari benetan mirari dei baitakioke—, honela egongo dira aurrerantzean ere. Bukaerarako utzi dudana, ostera, aldakorra da, baina ez nahitaez aldaeraza. Galdera hauxe da: zerk froga lezake, hanbatik hanbatean, delako hitz baten iturria idatzizkoa izan dela, edo entzun egin duela, edo berak asmatu duela?

¹⁰⁹⁰ Aurreiritzi honen adibide garden batzuk, Añibarro eta Azkuerenak zehazkiago, beheraxeago ikus daitezke (§ 12.1.1).

¹⁰⁹¹ Halakoak ezin ziren honako eraturako eranskinean sartu eta, horregatik, ikuspegi orokor bat emateko asmoz, azken atalerako bilduta (17. eranskinean) eta bertan (§ 12.2.9) iruzkinduta aurki daitezke.

¹⁰⁹² Añibarrorengan pentsatzen ari naiz, jakina, eta zehazkiago bere “Voces bascongadas Labortanas sacadas de la Gramática bascongada y francesa de Harriet en su Arte” (ik. Urgell 1992b).

Hurbilketa honetarako, ikuspegi neutro bati atxiki natzaio ahaleginean, zerotik hasteko asmoz, ez Larramendi hitz asmatzaile, ez Larramendi herriz herriko inkestatzaile, ez eta Larramendi liburuetatik fitxa-egile batean pentsatuaz itsutu nahi

gabe edo, egia osoa esanik, hiruretatik zertxobait badela sinistuta. Baderitzat ikuspegi gisara onena dela, azterketan zehar ageri diren datuei zeinek bere lekua aurkitzeko parada ematen baitzaie, baina, bestalde, ezin esan daiteke jarrera eroso denik, askotan hiru iturri motek —idatzizkoa, ahozkoa eta hitzberrigintza— benetakoa izateko aukera bera dutela erabaki beharrean jartzen bainau.

Iparraldeko hitzei dagokienez, bi kasutan aurkituko gara arazo honekin: alde batetik, hitz talde nahiko handi bati buruz ezin ziurtasunez esan dezakegu Iparraldetik ekarria denik, nahiz *HH*-koa Hegoaldeko lehen lekukotasuna izan, ahozko lekukotasunek bertan entzunak izan daitezkeela erakusten digute eta; bestetik, hurbilketa neutro batek ezin erabaki dezake *a priori*, jakina, *HH*-an diren eratorri eta maileguekin zer gertatu den, Iparraldeko idazleengan lekukotasunak idoro arren, oso egiantzekoa baita —Larramendiren ospea kontuan izanda, are eta gehiago— berak eratorriak eta berak mailegatuak izatea; alegia, beharbada ez zuen inolako libururen beharrik *adoratu* mailegatzeko, ez eta bertatik *adoragarri* ateratzeko ere, adibidez; baina beharbada bai. Honetan dago kokka.

Honelako arazo bat ezin da hizka erabaki: aitzitik, erantzun orokorrak behar ditu, hitz multzo osoak azaltzeko balio dezaketen hipotesi handiak, kasuistikaren zingiradietan galdu nahi ez baldin badugu, behintzat. Baina, hasiera-hasieran gaudenez gero, bestalde, komeni da datuetan pixka bat murgiltzea, xehetasun esanguratsuak, alde batera edo bestera erabakitzen lagunduko diguten gertakariak bildu ahal izateko, bai corpusean bertan baita iturrigaiekiko konparaketan, bietan.

Azken ohar bat. Ez da pentsatu behar Iparraldeko pitxikeria segida bat ikergai izango dugunik: alderantziz, eranskinari begirada arin bat botatzea aski da, egunero —ahotan ez bada ere lumetan behinik behin— erabiltzen eta oso normaltzat jotzen ditugun hainbat hitz tartean daudela somatzeko. Goraxeago iradoki dut *HH*-aren eraginetako bat, iraunkorrena, honetan egon daitekeela, eta ez *garrantzi* bezalako apurretan. Susmo hau egia zein gezurra izan, gure betebeharra hitzok ahal dugun heinean aurreiritzirik gabe tratatzea da, eta Hegoaldeko euskara idatzian lortu duten estatusarekin batera itsatsi zaien familiartasuna, agian engainagarria, saihestea.

9.2.3. Iturritasuna frogatzeko posibilitateez

Larramendik aipatzen dituen hamahiru liburuak, denak *HH*-ko iturri izan zirela frogatzea ez da eginkizun samurra. Hainbeste izaki eta, bestalde, atal honetan analizatu behar dugun corpora ere bet-betan menperatzeko hazitxoegia, izan liteke gertakari jakingarriren bat edo beste oharkabean itzurtzea, baina ikertzailearen begiek erruren bat izan badezakete ere, zailtasuna bestetik dator: iturrigaien funtsezko homogeneotasun lexikotik, hain zuzen.

Esan beharrik ez dago: zenbat eta testu batek besteekiko hitz ezberdin gehiago eduki, hainbat eta ezagutzen errazagoa izango da. Mitxelenak *Erans*-aren azterketari ekin zionean, hizkuntzaz elkarren artean aski ezberdinak diren hiru testurekin aritu behar izan zuen: lapurterazkoa (Axular), ipar-mendebalekoa izan daitekeen eta ezaugarri askotan oso arkaikoa den bizkaierazkoa (*RS*)¹⁰⁹³ eta XVI. mende bukaerako Gasteiz inguruko euskara islatzen duena (Landucci); berdintasunen bat aurkitu arren (cf. *amorante* Axular eta Landuccirengan, adib.), gehienetan ez zuen hitzen etorkia ezagutzeko —eta are aurretiaz asmatzeko— inolako zalantzarik izan.

HH-an Lakarrak Harrietekin topo egiterakoan aurkitu zituen honen eta Axularren artean bereizteko arazo berberak izango ditugu: gure hamahiru liburuak oso gertuko hizkeretakoak —ia beti batekoak— izateaz gainera, mende luze batez gutxitxo aldatu zen idazkera berekoak dira.¹⁰⁹⁴ Leizarragarengan hasi eta *CatLav*-en buka, guztiek aitzinekoen liburuak ezagutzea eta haien lorpenak erabiltzea izan zuten neurri handi edo txikiagoan. Gaiak ere garrantzia dauka: Axular, Landucci eta *RS*-k hitz berberak jasotzeko aukera gutxiago dute, oinarritzko hiztegian ez bada, orain aztertu behar dugun erlijiozko liburu sortak baino. Eta bada, azkenik, testu bat bereiz dezakeen hirugarren parametro bat: lexiko berrikuntza maila, alegia. *Pouvreuren Imitazioa*, adibidez, iturrigaien artean izango bagenu, ziur naiz berehalakoan azalduko liratekeela hartakotzat jotzeko nabaritasunak: *hitzguille*, *minçacor*, *guthiciadura*, *laincotiartasun*, *fermugabetasun*, *solhasqueria*, *vanaloriazale*, *besarcatzaille* edo *bidegabeztatu* bezalako hitzak¹⁰⁹⁵ ez dira beste inoren testuetan erraz aurkituko, ez eta Xurioren *Imitazioa*-n bertan ere.

Gutxi gorabehera zer itxaron dezakegun jakiteko asmoz, lagin bat eratu dut *EH*-ko F eta G letrekin (10. eranskina), hamahiru testuen —baita, bide batez, bestela ezagutzen ez dugun Etxeberri Sarakoaren— lehen lekukotasunak neurtuz: honen bitartez, iturri antzemanerrazak izateko gai diren idazleak eta Larramendik irakurri zituen arren berri gutxi eskaini bide ziotenak badirela erakusten saiatuko naiz.

Laginak muga argiak ditu arrazoi ezberdinengatik: Sarasolaren hautaketak, bere izatez, kanpo utzi bide ditu hitzik berezienak; esate baterako, lagin berean Harrietek bi hitzetan bakarrik (*fidakaitz* eta *fidakaiztasun*) lortzen du lehenengotza, nahiz eta hainbat eta hainbat hitz bereizgarri izan, dakigunez. Sarasolaren datazioekiko zehaztasunaz beranduago mintzatzeko parada izango dugu (§ 12.3), baina oro har esan daiteke *OEH*-rako aipatu ditugun arazo berak dituela, hots, osorik eta zatika hustutako liburuen arteko aldeak, gehi ez erabiltako liburu edo argitalpenak. Baina hauek baino muga garrantzitsuago bat aitortu beharra dago: berak neur dezakeena eta guk jakin nahi duguna ez dira erabat berdinak, elkarren arteko hainbat gauza

¹⁰⁹³ *RS*-ren jatorriaz ik. Lakarra 1996c: 117-146.

¹⁰⁹⁴ Pikabeak (1993) grafia, morfologia eta joskerazko ezaugarriak aztertu ditu batez ere, eta jadanik zenbait aldaketa antzeman XVIII. mendeko idazleengan; tikiak dira oraindik, eta funtsean ez dut uste goiko baieztapena ezeztatzeko adinakoak direnik; are gutxiago berak aztertu ez duen lexikoaren alorrean, ikusiko dugun bezala.

¹⁰⁹⁵ Adibideak Lakarra 1995a: 13-14tik hartuak dira.

izan arren; esate baterako, Leizarragak datagatik beragatik inork baino lehen lekukotasun gehiago izan behar ditu, baina haietako asko geroko idazle batzuegan, anitzetan edo guztietan idoro litezke eta, hortaz, inolako bereizgarritasunik gabekoak izan. Dena dela, denboran aurreratu ahala lagina fidagarriagoa da: testua 1745etik zenbat eta gertuago egon, lehenengo lekukotasunek eta hitz bereizgarriek bat izateko joera hartzen dute, nabaria denez. Azken finean, joera horregatik ez eze hasieretako testu zenbaiten berezkotasunagatik (Leizarraga, Etxeberri Ziburukoa, Axular), laginetik lortzen ditugun emaitzak ez bide dira gehiegi alderatuko egiatan bakoitzaren iturritasuna frogatzeko izango dugun erraztasun edo zailtasun mailatik.

Ikus ditzagun, beraz, laginak eskaintzen dituen emaitzak, iturrigaiak euren emankortasunaren arabera sailkatuz:

1. Leizarraga = 165 hitz (%42,2).
2. Etxeberri Ziburukoa (1627) = 68 h. (%17,4).
3. Axular = 58 h. (%14,8).
4. Etxeberri Sarakoa = 21 h. (%5,4).
5. Materre = 19 h. (%4,9).
6. Etxeberri Ziburukoa (1630) = 17 h. (%4,3).
7. Xurio = 12 h. (%3,1).
8. Haranburu (1635) = 10 h. (%2,6).
9. Beriain (1621) = 9 h. (%2,3).
10. Gasteluzar = 8 h. (%2).
11. *CatLav* handia = 3 h. (%0,8).
12. Argaignarats = 1 h. (%0,3).

Aldez bakarrik espero genezakeenarekin bat datozen ondorioak atera ditzakegu:

1) Leizarragaren erabateko nagusitasuna eragiten duten aldagaiak aztertu beharko dira, baina jadanik lehenengotza, liburuaren tamaina, besteen aldean gaien ñabartasuna eta euskalki ezberdintasuna aurrera daitezkeela deritzat. Edonola ere, nabarmena da Leizarragaren *HH*-ko ekarpena islatzen erraza izango dela.

2) Bigarren mailan (%15-20 artean) bi idazle garrantzitsu ditugu: Etxeberri Ziburukoa eta Axular; gure azterketa betidanik ezagutu izan zaien garrantzi hori lexikoaren aldetik bermatzera dator, aurretiaz inork ez erabilitako hitzak hein handi batean erantsi baitzituzten beren idatzietan. Beraz, baliteke hauek ere zeri heldu erraz xamar eskaintzea.

3) Hirugarren mailan (%5 inguruan) oso idazle ezberdinak biltzen zaizkigu: Materre eta Etxeberri Sarakoa. Txiro ospean ibili den Materreren liburuko hitz-berrikuntza, dakusgunez, ez da baxuenetakoa;¹⁰⁹⁶ hitz sortzaile sona daukan Etxeberri, berriz, idatzietan beharbada espero baino aurrekoek ez erabilitako hitz gutxiago baliatzen ditu, eta hauek neurri handian gai ezberdintasunari (guztiz gramatikazko hitzei, erabilitako corpusaren arabera) zor zaizkio.

4) Laugarrenean (%2-3 inguruan) Haranburu, Gasteluzar, Xurio eta Beriain geratzen dira; oso adierazgarria da, idazle berrikuntza maila ulertzeko, Etxeberri Ziburukoaren 2. liburua, goitik bada ere, oso urruti ez dabilela ohartzea: orokorki, antzeko gaiez ari den idazle

¹⁰⁹⁶ Ik. orain Oyharçabal 1996, idazle honen hitz eratorrien azterketa. Bideabar, harrigarria iruditzen zait —baina ez ulertezina— Materrek ere hitzak eratzeari ekin ziola azaltzeko / estaltzeko ikertzaileak egiten duen ahalegina (*op. cit.* 61; cf. Lakarra 1997: 496-497, 89. oh.eko iruzkin laburra ere). Geroago, Materreri eskaintako atalean (§ 9.2.4.4) hala jotzea ezinbestekoa zuela ulertzeko arrazoiak azalduko ditut.

baten berritasuna liburuz liburu beherantz joateak normala dirudi. Nahiz zeharo ikertu gabe egon, ez dago zalantzarik —eta ikerketa honek berak agerian jarriko du neurri batean— Iparraldeko tradizioaren bigarren labekadako idazleek, gaiak gutxitxo aldatu zituztenez gero, lexikoan lan gutxi egin behar izan zutela beren aitzinekoen aldean. Guri dagokigunez, honek esan nahi du Gasteluzar bezalako idazle bat Larramendik erabili zuela frogatzea oso lan gaitza izango dela, iturri nagusietan —Leizarraga eta Axularrengan, batez ere— agertzen ez den hitzik, edota oro har Iparraldeko tradizioko liburu guztietan edo gehienetan agertzen ez denik gutxi edireten da eta. Kontua areagotu daiteke Beriainekin: laginaren arabera bere lehenengo lekukotasunak oso hitz orokorrak (*fite, gerr*) edo aldaketarik gabeko maileguak (*firme, fraile, ganado, grillo*) baitira gehienak.

5) Bukaeran ia ezer (%0-1 artean) berritzen ez duten idazle bi daude: Argaignarats eta *CatLav*. Halakoen ale ziurrik *HH*-an bilatzeak ia-ia ezinezkoa ematen du aurretiaz, areago lehenaren kasuan, Larramendik ezagutu zuen liburua ez baitugu guk ezagutzen.

9.2.4. Iparraldeko hitzak idazlez idazle

Atal honen xedea ez da idazle bakoitzetik Larramendik hartu zituen corpuseko hitz guztiak biltzea, haina iturritzat erabili zuela frogatzea baizik; honetarako, geroago eztabaidatuko ditudan arrazoiengatik erabat ziurrak iruditzen zaizkidan hitzak bakarrik zerrendatu ditut; zalantzazkoak, berriz, ondoko ataletan astiroago ikuskatu ahalko ditugu.

Bildu ahal izan ditudan datuen arabera, buruko idazlearengan bakarrik irakur eta, beraz, harengandik bakarrik har zitzakeen hitz edo esapideak honako hauek dira, beti ere aldamenean ezartzen dudan adierari (edo adierei) bakarrik nagokiola ulerturik:

9.2.4.1. Leizarraga

AHAKOA [ahacoa] “cognación. Lat. cognatio”, “parentesco. Lat. consanguinitas, cognatio” < *Iosephec erekar ceçâ bere aita iacob, eta bere ahacoa gucia* “et omnem cognationem suam” (Act 7, 14).

ABILAMENDU [abillamendua] “vestido. Lat. vestis, vestitus” < *Ioannes hunec bada çuen bere abillamendua camellu biloz* “vestimentum” (Mt 3, 4), *Orduan Sacrificadore subiranoac erdira citzan bere abillamenduiac* “vestimenta” (Mt 26, 65), *Baldin haren abillamenduiac hunqui baditzat ber, sendaturen naiz* “vestimentum” (Mc 5, 28), etab.

ADIMENTUZ “mentalmente. Lat. mente” < *othoitz eguinen dut spirituz, baina othoitz eguinen dut adimenduz-ere* “mente” (1 Cor 14, 15), etab. Agerraldi gehiago dituen arren,¹⁰⁹⁷ hauxe da Larramendiren itzulpena eragiteko aproposena: ohartu, gainera, *adimentuzko othoitz* ezinbestean atal beraren titulutik atera zuela.

ADIMENTUZKO OTOITZ “oración mental” < *Spirituzco eta adimenduzco othoitzá* (1 Cor 14, 15, tit.).

ADITZAILA [aditzallea] “inteligente. Lat. intelligens” < *etzaretela çuhurtzia gabe, baina aditzale ceric den launaren vorondatea* “intelligentes quae sit voluntas Dei” (Eph 5, 17).

AGITZAGO “más recio” < *Baina harc vnguz haguitzago erraitê çuen* “amplius” (Mc 14, 31).¹⁰⁹⁸

¹⁰⁹⁷ Beste agerraldiak: Act 11, 5 “in excessu mentis”, 1 Cor 14, 19 “sensu meo”, 1 Cor 14, 20 “sensibus”, 2 Cor 5, 13 “mente excedimus”, Eph 4, 18 “intellectum”, Col 2, 18 “sensu”, 2 Thess 2, 2 “a vestro senso”, 1 Tim 6, 5 “hominum mente corruptorum”, 2 Tim 3, 8 “corrupti mente”.

¹⁰⁹⁸ Bada beste adibide bat: *Halacotz bada luduac hura hil nahiz haguitzago çabiltzan* (Io 5, 18).

AGITZ ERSI “atorar, apretar con fuerza. Lat. stringere, premere” < *has cequitzon Scribác eta Phariseuac haguitz hersten* “graviter insistere, et os eius opprimere de multis” (Lc 11, 53).¹⁰⁹⁹

HAGUN “espuma. Lat. spuma”, “espumajo, espumarajo. Lat. spumatus, us” < *haguna darioc* “spumat” (Mc 9, 18), *lurrera eroriric iraulzcatzen cen haguna lariola* “spumans” (*ib.* 20), *haguna dariola* (Lc 9, 39), *Itsassoco бага dorpeac, bere vileniéz hagun eguiten dutela* “despumantes” (Iuda 13).

AIHEN “vid. Lat. vitis” < *eztudala edanen hemendic harát aihen fructu hunetario* “genimine vitis” (Mt 26, 29), *aihenaren fructutic* (Mc 14, 25 eta Lc 22, 18), *Ni naiz aihen eguiazcoa* (Io 15, 1), *Ni naiz aihena, çuec chirmenduac* (*ib.* 5), *Ala ficotze batec oliuaric ekar ahal deçaque, edo aihenac ficoric?* (Iac 3, 12).

HAITSA “bajar”, *haisa adi ortic* “baxa de ahí. Lat. descende isthic” < *Zaccheo, haisa lehiatuqui* “festinans descende” (Lc 19, 5).

AITZINETIK ERRAN [aitzinetik] “predecir. Lat. praedicere” < *Huná, aitzinetic erran drauçuet* “praedixi” (Mt 24, 25), etab.¹¹⁰⁰

AITZINXETIK [aitzinchetic] “poco ha. Lat. dudum, modo, paulo ante” < *cein aitzinchetic ethorri baitzén Italiatic* “nuper” (Act 18, 2).

AIZE-BUHUNBA [aice buhumba] “ráfaga. Lat. venti vehementis impetus”, “torbellino. Lat. turbo”, “tremolina de el aire. Lat. aeris, & venti impetus”, “ventolera. Lat. ventus vehemens, & inconstans” < *Orduan altcha cedin haice buhumba handibat* “procella magna venti” (Mc 4, 37), *Ecen etzarete ethorri escuz hunqui ahal daitequeen mêdi batetara, ez erratzen den sura, ez haice buhûbara* “turbinem” (Hebr 12, 18), *hodey haice buhumbaz erabiliac* “turbinibus” (2 Petr 2, 17).

AIZINA [aicina] “tiempo, espacio, lugar”, *aicinaric ez tet* “(no tengo) tiempo. Lat. non mihi vacat” < *Eta gueroztic aicina bilha çabilan* “opportunitatem” (Mt 26, 16), *eta iateco aicinaric-ere etzutén* “spatium” (Mc 6, 31), *eta aicinaric dudanean dei thuren aut* “tempore opportuno” (Act 24, 25).

ALA NON “(de) forma que. Lat. ita, ut”, “(de tal) manera que. Lat. adeo, ut”, “(de tal) suerte que. Lat. ita ut” < *Eta spanta citecen guciac, hala non bere artean galdez baitzeuden, cioitela* “ita ut” (Mc 1, 27), etab., etab.¹¹⁰¹

ALAKA NON [alaca non] “(de tal) manera que. Lat. adeo, ut” < *Eta haren abillamenduac argui citecen, eta haguitz churrit elhurra beçala, halaca non bolaçalec lurraren gaineâ ecin hain churi eguin baileçaque* “qualia” (Mc 9, 3).

ALDIRI “comarca. Lat. confinium” < *Bethlehem eta haren aldiri gucietan* “omnibus finibus” (Mt 2, 16), etab.¹¹⁰²

ALOKAIRU [alocairu] “alquiler. Lat. locatio, nis” < *Mahastí alocairutan emanaren comparationea* (Mt 21, 33, tit.).

ALOKATU [alocatu] “alquilar. Lat. loco, as” < *fructuac renda dietzoyoten berce laborariri bere mahastia alocaturen* “locabit” (Mt 21, 41), etab.

ALOKAZER [alocacera] “jornalero. Lat. mercenarius” < *Cembat alocacer diraden ene aitaren etchean oguiá franco dutenic, eta ni gossez hiltzen bainaiz!* “mercenarii” (Lc 15, 17), eta *ib.* 19.

HALSAR [halsarrac] “entrañas. Lat. viscera, praecordia, exta” < *eta vrratu içan dirade haren halsar guciac* “viscera” (Act 1, 18), etab.¹¹⁰³

ALTXAGARRI [alchagarria] “levadura. Lat. fermentum” < *Comparatu da ceruétaco resumá altchagarriarequin, cein emazte batec harturic hirur neurri irinen barnean gorde vkan baitu* “fermento” (Mt 13, 33), etab.¹¹⁰⁴

AMATIGATU “apaciguar. Lat. sedare, pacem reddere, dissidentes placare” < *nequez amatiga citzaten gendetzeac sacrificia ezliecén* “sedararunt” (Act 14, 18), etab.¹¹⁰⁵

¹⁰⁹⁹ Cf., adieraz oso ezberdina: *Oraino baçuten Erromarrec bertce leguebat bere artean haguitz hertsia* (ES 140).

¹¹⁰⁰ Adibideak asko dira; hona hemen Vulgatak *praedicere*-z itzultzen dituenak: Mc 13, 23, Act 1, 16, 2 Cor 13, 2 eta Gal 5, 21.

¹¹⁰¹ Ik. Mt 15, 31, Mt 27, 14, Mc 1, 27, etab., ia 40 agerralditaraino.

¹¹⁰² Ik. Mt 14, 35, Mt 15, 22, Mc 10, 1, Lc 1, 65, Lc 8, 37, Rom 15, 19 eta Iuda 7; *bortha aldiricé* (Lc 2, 2) behintzat alde batera uztekoa da.

¹¹⁰³ Ik. 2 Cor 6, 12, Col 3, 12, Phil 1, 7, *ib.* 12, *ib.* 20 eta 1 Io 3, 17 ere.

¹¹⁰⁴ Ik. Mt 16, 6, *ib.* 11, *ib.* 12, Mt 26, 17, etab. 21 agerralditaraino.

¹¹⁰⁵ Ik. Hebr 8, 12 ere; *amatiga aquit* (Lc 18, 13) eta *amatiga citecen* (Act 11, 18) ez dira hain egokiak, aditz jokoarengatik batez ere.

(EUNETAN) HANBAT [hambat] "ciendoblo. Lat. centuplum" < *Eta norc-ere vtzi baituque etcheric, edo anayeric, (...) edo landaric ene icenaren causaz, ehunetan hambat recebituren duela* "centuplum" (Mt 19, 29), etab.¹¹⁰⁶

ANGURA "ancora. Lat. anchora, ae" < *laur angura vnci guibeletic egotziric* "anchors" (Act 27, 29), etab.¹¹⁰⁷

ANZORA *anzora egin* "asemejar. Lat. similem facere" < *nola ordenatu baitzuen Moyses i erran ceraucanac, hura eguin leçan ikussi çuen formaren ançora* "secundum formam quam viderat" (Act 7, 44), *Ez guthiciataco affectionerequin, Gentil laincoa eçagutzen eztutenen ançora* "sicut et gentes, quae ignorant Deum" (1 Thess 4, 5), etab.¹¹⁰⁸

ANTZOKO "semejante, semejable. Lat. similis" < *suaren ançoco mihi partituaç* "linguae tanquam ignis" (Act 2, 3), etab.¹¹⁰⁹

ANZIA [ancia] "genio. Lat. genius", "natural, genio, índole. Lat. indoles, ingenium", "talento, talentos, habilidad, prendas. Lat. ingenium" < *batbederari bere anciaren araura* "secundum propriam virtutem" (Mt 25, 15).

AOBOZATU "emmudecer. Lat. mutescere, obmutescere", *aobozatua* "mudo. Lat. mutus" < *Eta ahoa boça cequiön* "At ille obmutuit" (Mt 22, 12), *haey ahoa boçatu behar ciayec* "konp" (Tit 1, 10) eta *guiçön erhoën ignorantiari ahoa boça dieçoçuen* "obmutescere" (1 Petr 2, 15).

HARABARTU "agusanarse. Lat. vermino, as" < *eta harabarturic hil cedin* "consumptus a vermibus" (Act 12, 23).

HARAITZINADANIK [haraitzinadanic] "(desde tiempos) antiguos, desde la antigüedad. Lat. ab antiquis diebus" < *çuec badaquiçue ecen haraitzinadanic laincoac gure artean elegitu vkan nauela* "ab antiquis diebus" (Act 15, 7).¹¹¹⁰

ARAKINTZA "xifería, ejercicio de matar las reses y desollarlas. Lat. laniena" < *estimatu içan gaituc haraquinçaco ardién pare* "sicut oves occisionis" (Rom 8, 35) vs *Haraquinçán saltzê den orotaric* "in macello" (1 Cor 10, 25).¹¹¹¹

ARDIETSI "entender. Lat. intelligere" < *Eztute guciéc ardiesten hitz haur* "capiunt" (Mt 19, 11).

(DOBLAZ) AREAGO "doblado más" < *eta eguin denean, gehennaco seme eguiten duçue dobláz ceuroc baino areago* (Mt 23, 15).

ARENKAZ [aréncaç] "arreo, successivamente. Lat. continenter, continuo" < *Eta iar citecen arencaç, ehuná, eta berroguey eta hamarná* "Et discubuerunt in partes" (Mc 6, 40).

ARGIAREN BEGI [arguiaren beguia] "alba. Lat. aurora, ae", "aurora. Lat. aurora", *argiaren begian* "(al) reir del alba. Lat. aurora irradiante" < *cein ilki içan baita arguiaren beguian lâguile alocatzera bere mahasticotzat* "diluculo" (Mt 20, 1), *Eta arguiaren beguian berriz ethor cedin templera* "primo mane" (Io 8, 2).

ARKANTOIN [arcantoina] "(piedra) angular. Lat. lapis angularis" < *ceinen har cantoin principala baita Iesus Christ bera* "angulari lapide" (Eph 2, 20), etab.¹¹¹²

ARRADATU "rapar el pelo. Lat. radere" < *buruá arradaturic Cençhren* "totonderat... caput" (Act 18, 18), etab.¹¹¹³

ARRAPAKERIA [arrapaqueria] "rapiña. Lat. rapina" < *baina çuen barnean dena, bethea da harrapaqueriaz eta gaichtaqueriaz* "rapina" (Lc 11, 39).

ARRAPARI "agarrador", "arrebador", "rapaz, amigo de hurtar", "rampante, en el blasón", egazti *arraparia* "ave de rapiña", etab. < *cein ethorten baitirade çuetara ardi abiturequin: baina barnean otso harrapari dirade* (Mt 7, 15), *ceren eçpainaiz berce guiçon harrapariac, iniustoac, adulteroac beçala* (Lc 18, 11), eta 1 Cor 5, 10, *ib.* 11 eta 6, 10.

ARRAUBERIA "arrebatiña. Lat. rapina", "rapiña. Lat. rapina" < *baina barnetic dirade arrauberiaz, eta eccessez betheac* "rapina" (Mt 23, 25).

ARREGATU "regar. Lat. irrigo, rigo, aquam deduco" < *haren oinén nigar vriz arregatzen* "rigare" (Lc 7, 38), etab.¹¹¹⁴

¹¹⁰⁶ Ik. Mc 10, 30 eta Lc 8, 8 ere.

¹¹⁰⁷ Ik. Act 27, 30, *ib.* 40 eta Hebr 6, 19 ere.

¹¹⁰⁸ *ançora* oso sarri agertzen da Leizarragarengan, nahiz beti ere bestelako aditzekin: ik. Mc 4, 26, Lc 22, 31, Lc 24, 4, Act 2, 2, 223, Rom 6, 19, Gal 3, 15, Phil 2, 15, Hebr 1, 12, 1 Petr 2, 2 eta *ib.* 11.

¹¹⁰⁹ Ik. Act 22, 6 eta 1 Cor 15, 8 ere.

¹¹¹⁰ Bada beste agerraldi bat oso gertu: Act 15, 21 "a temporibus antiquis".

¹¹¹¹ *OEH*-ak ez dio ezberdintasun honi igerri, eta horregatik Larramendiren lekukotasuna, Leizarragarenekin zerikusirik izango ez bailuen, bigarren adieran "carnicería, matanza" —eta bigarren adieraren jatorritzat— eskaintzen du.

¹¹¹² Ik. Mt 21, 42 (tit.) eta 1 Petr 2, 6 ere; grafia beti bera da, erabiltzen ari garen alean bederen.

¹¹¹³ Ik. Act 21, 24 eta 1 Cor 11, 5 eta *ib.* 6 ere.

ARREIT NIRI "sigueme. Lat. sequere me, sequimini" < *eta athor, arreit niri* "sequere me" (Mt 19, 21), etab.¹¹¹⁵

ARRENBERRITU "renovar. Lat. renovare, instaurare" < *Spirituzco arreberritzea* (Rom 7, 6, tit.).¹¹¹⁶

*ARTHATS "alba. Lat. aurora, ae", "aurora. Lat. aurora", *arthatsean* "(al) amanecer. Lat. sub lucis ortu" < *sar citecen arthatsean templean* "diluculo" (Act 5, 21).

(H)ARTZARATU *hartzaratu* "prohibir", *artzaratu* "vedar" < *Baina Zentenerak Paul enparatu nahiz, harzara zitzan konseillu hartarik* "prohibuit fieri" (Act 27, 43; He, Dv *debekatu*).

HARTZEDUN "acrededor, el que tiene qué haber. Lat. creditor, oris" < *Hartzedun batec citián bi çordun* "foeneratori" (Lc 7, 41).

ASMATZE "adivinación. Lat. divinatio, nis; vaticinium, ij" < *ceinec irabaci hâdia emaiten baitzerauen bere nabussiey, asmatzez* "divinando" (Act 16, 16).

ATARBE "albergue, cubierto, resguardo de casa, venta, &c Lat. tectum, i; diversorium, ii.", "cubierto, que se da en casa. Lat. tectum, i", "soportal. Lat. porticus", "techo, techado. Lat. tectum", *atarbea eman, atarbean artu, sartu* "albergar, hospedar, acoger. Lat. hospitio, tecto excipere aliquem" < *launa, ez nauk digne ene atharbean sar adin* "sub tectum meum" (Mt 8, 8), *ecen eznauc digne ene atharbe pean sar adin* "sub tectum meum" (Lc 7, 6).

ATARBEAN SARTU ik. ATARBE.

(H)ATSEMAN *hatseman* "ababar. Lat. halo, as", *atseman* "aspirar. Lat. spirare", "soplar. Lat. flare; con fuelles, follicare" < *hats eman cieçén eta erran, Recebi eçaçue Spiritu saindua* "insufflavit" (Io 20, 22).

AUK, AUN, AUZU(E) BIOTZ ON "(ten buen) ánimo, *auc biotz on, auzu alay*. Lat. sta animo. Tened buen ánimo, *auzue biotz on, auzue alay*. Lat. state animis", "buen ánimo, modo de exhortar, *auc biotz on, auzu biotz on*", "ten buen ánimo, en un dialecto se dize *auc, aun, auzu biotz on*. Tened, *auzue*. Téngalo, *biu*", "(ea) valor, ten valor, *auc biotzon, auzu biotzon*" < *Auc bihotz on, semé, barkatu çaiçquic eure bekatuac* "Confide fili" (Mt 9, 2; ik. Act 23, 11 "Constans esto" ere), *Aun bihotz on, alabá* "Confide filia" (Mt 9, 22; ik. Lc 8, 48 ere), *baina auçue bihotz on* "confidite" (Io 16, 33).

AURDIGI(TU) *aurdigui, aurdiguitu* "tirar, arrojar. Lat. jacere, jaculari" < *bekatu gabe denac, lehenic horren contra harria aurdigui beça* "mittat" (Io 8, 7).

AURKAN [aurcan] "delante. Lat. ante, coram" < *iarríac sepulchre aurkán* "contra sepulchrum" (Mt 27, 61), *çuen aurkán den burgura* "contra vos" (Mc 11, 2), etab.¹¹¹⁷

AURKAZ AURKA [aurcaz aurca] "frente a frente. Lat. facie ad faciem", *aurkaz aurka jarri, ifiñi, paratu* "afrontarse, ponerse frente a frente. Lat. se se coram objcere" < *Guero tira ceçaten Gadarenoen comarcarát, cein baita Galilearen aurkaz aurk* "contra Galilaeam" (Lc 8, 26).

AURKAKO [aurcaco] "(el de) delante. Lat. qui ante aliquem est, praecedit" < *Çoazte çuen aurkaco burgura* "quod contra vos est" (Mt 21, 2), *Çoazte çuen aurkaco burgura* "in castellum quod contra est" (Lc 19, 30).

AUSLE "infractor. Lat. infractor", "quebrador. Lat. effractorius, ruptor", "quebrantante. Lat. frangens, effringens" < *legearen hautsle bahaiz* "praevaricatur legis" (Rom 2, 25), etab.¹¹¹⁸

HAUZU "lícito. Lat. licitus" < *Hauçu naiz hirequin minçatzera?* "Si licet mihi loqui aliquid ad te?" (Act 21, 37), etab.¹¹¹⁹

AZAUTO "haz, manojo de trigo, leña, &c. Lat. fascis" < *Bil eçaçue lehenic hiracá, eta hers eçaçue açautoz erratzecotzat* "in fasciculos" (Mt 13, 30).

(H)AZTATU *haztatu* "palpar. Lat. palpare, attractare", *aztatu* "tocar palpando o sin asir. Lat. tangere, palpare" < *ecen hura bera naiz ni, hazta neçaçue, eta mira* "palpate" (Lc 24, 39), *aguiã haztatuz hura eridé lezaquetenez* "quarere Deum si forte attractent eum" (Act 17, 27).

Orotara 60 hitz edo esapide bildu ahal izan ditut, eta haietatik asko —herena inguru— behin bakarrik agertzen dira Testamentuan. Irakurketa lasai baten fruituak dira, nonbait. Emaitzok

¹¹¹⁴ Ik. Lc 7, 44, 1 Cor 3, 6, *ib.* 7 eta *ib.* 8.

¹¹¹⁵ Ik. Mt 8, 22, Mt 9, 9, Mc 2, 14, Mc 10, 21, Lc 5, 27, etab.

¹¹¹⁶ Schuchardt-en "Índice de términos vascos" (1900: 219-240) delakoari sinistu behar baldin badiot, filologo austriarrari huts hau itzuri zitzaion: gainerako agerraldi guztietan (Rom 12, 2, 2 Cor 4, 16, Eph 4, 23, Col 3, 10, 2 Tim 2, 14, Tit 3, 5, Hebr 6, 6 eta Hebr 10, 3) *arram-* erabiltzen du, ezaguna denez. Gezurra badiurdi ere, Leizarragak behin *arrem-* oharkabeen izango, eta hura hartu zuen Larramendik. Pentsatzekoa da arrazoiren bategatik hobetsiko zuela.

¹¹¹⁷ Ik. Mc 12, 41, Mc 13, 3, Act 2, 10, Act 27, 5 eta *ib.* 7 ere.

¹¹¹⁸ Ik. Rom 1, 31 eta Rom 2, 27 ere.

¹¹¹⁹ Ik. Act 22, 25, 1 Cor 6, 1 eta Phil 1, 14 ere.

hiztegi osora proiektatzen baldin baditugu,¹¹²⁰ Leizarragarengandik 520ren bat espero genitzake orotara, bi iturri edo gehiagoren artean erabaki zain daudenak kontatu gabe, noski.

Uztaren nolakoari begiratuta, 26 izenak dira, 12 aditzak eta bat —Larramendiren ustez bederen— izenondoa (*hauzu*). Gainerakoak oso ñabarrak dira, eta zeharo azpimarratzekoa deritzat hainbeste esapide eta hain ezberdinak agertzeari: badira izenlagunak (*antzoko*, *aurkako*), ‘izenlaguna + izena’ egiturak (*adimentuzko otoitz*), adizlagunak (*adimentuz*, *aitzinxetik*, *anzora*, *haraitzinadanik*, *arenkaz*, *aurkan*, *aurkaz aurka*), ‘adizlaguna + aditza’ egiturak (*agitz ersi*, *aitzinetik erran*, *atarbean sartu*), adizkiak (*haitsa*) eta haiekiko esapideak (*arreit niri*, *auk biotz on*), konparatiboak (*agitzago*), menperagailuak (*ala non*, *alaka non*) eta bestelakoak (*eunetan hanbat*, *doblaz areago*). Argi antzematen da Larramendi ez zebilela hitz ehizan, gauzak esateko formen bila baizik; praktika hau bat dator berak jaulgitako teoriarekin (I, § 8.3.1), alegia, hitz bat hitz bakar batez ordezkatzeari sarritan ezinezkoa dela. Baina are xehekiago dator Leizarraga irakurtzerakoan sentitu bide zuenarekin: gogora dezagun hikaren erabilera ederraz egin zuen iruzkina, besteak beste, hemen hiru ale (*haitsa*, *arreit* eta *auk/aun*) dituenak.

Izenetan egin zuen uzta ere ez da nolana hiko: erdiak hitz eratorriak edo elkartuak dira:

-ARI (*arrapari*), -DUN (*hartzedun*), -GARRI (*altxagarr*), -GINTZA (*arakintza*), -(K)ERIA (*arrapakeria*, *arrauberia*), -KOA (*ahakoa*), -MENDU (*abilamendu*), -TZAILE (*aditzaile*), -TZE (*asmatze*).
‘izena + izena’ (*aize-buhunba*, *arkantoin*), ‘-ren + izena’ (*argiaren begi*).

9.2.4.2. Axular

ABUIN “espuma” < *nola ahotic habuina darion* (GGero 280).

AIERTU “inclinarse de propensión y afecto” < *Baina guztiarequin ere aihertcen naiz erraitera, eta erraiten dut, parabisuco bidea errazago, plaunago eta placentago dela, ifernukoa baino* (GGero 483-484).

AIERU “guiñada, guiño” < *hasi ceizquidan niri neroni aditceira [sic] emaiten, lehenbician kheinuz eta ayerus, eta guero azquenean, clarqui eta aguerriz* (GGero 15), *haren promesetan, kheinuetan eta are ayeruetan ere, fidantzia handia daducaçu* (*ib.* 127) eta *çure hitz simpleari eta bakhunari, eta ere [sic] kheinuari eta aieruari ere, sinheste guehiago eman lequidicaiola “solo nutu”* (*ib.* 265).¹¹²¹

AITATASUN “paternidad”: *bere aitatasunac, semeac [sic] gana ceducan amorio naturalac guibelatcen çuen* (GGero 346-347).¹¹²²

(EZ) AITZINAGO “non plus ultra” < *badala [sic] beccatuetan neurri bat, badela ez aicinago iragaiteco marra bat* (GGero 117); cf. *eta eztu nahi hartaric aicinago iragan gaitecin* (*ib.* 113).

*AKOTATU “morder” < *bere concientciac berac, bere baithan barrena acotatcendu [sic, aço-ren orde], autsiquitcendu...* (GGero 431).¹¹²³

¹¹²⁰ Proiekzioarako lehenago (I, § 1.1) *HH*-ko sarrera kopurua kalkulatzeko erabili dudana berbera erabili dut, alegia, Azkueren hiztegiak A letrarako ematen duen %11,6koa.

¹¹²¹ Gainerako agerraldietan (*ib.* 22 orduan *ezpaitcen beccaturic, eta ez beccatuaren ayeruric, 287 den occasinorik ttipiena, aieruric gutiena gorrotatceco eta muthurtua iartceco asco dudala* eta 403 *Ceren aieru hec, itçal gaizca ibiltce hec, baitira frogantçarik asco*) ez da *keinu* agertzen, besteak beste: beraz, Larramendik jasotako adiera nekezago uler zezakeen.

¹¹²² Maurice Harrietek dakarren EZ *Man*-eko beste lekukotasuna (ap. *OEH*, s.v.) arbuia behar dugu, aipamena funtsezkoenean aldaturik baitago, hiztegi-gile horren ohitura barkaezinaren arabera; egiatan Etxeberri *OEH*-ak XIX. mende bukaera arte (Dv eta Darric) kausitu ez duen *aitasun* aldaera baino ez dakar: *Hargatic esquer diogu çure Aitassunari* (EZ *Man* II, 159).

¹¹²³ Cf. *OEH* (s.v. 1 *akotatu*): “...Larramendi, seguido por Harriet, ha leído mal *açotatzen* en Ax 431 (V 280), que hasta en la 3.^a ed. ez *azotatzen*”. Gehiegizko baieztapena, beraz, ez baita Larramendiren

- ALATU "despechase (...). Con el verbo *alatu* se hazen las inflexiones assí. *Alatzen zait, zatzu, zayo, &c.*, me despecho, te despechas, se despecha. *alatu citzatan, citzayon, &c.*, me despeché, se despechó, &c.". < *eta beccatu hartçaz orhoitcen çara arratsean, alhatcen çaitçu ceure concientcia* (Ax GGERo 106), *den gaixtoenari ere, noizic behin bederen alhatcen çaiça bere concientcia* (ib. 426) *eta orduan berean orhoitcen da bere beccatuez, orduan berean alhatcen çaiça bere concientcia* (ib. 432) vs *iccaratcen da, minberatcen da, senticortcen da eta bere buruari alhaturic, ethorquicunaz gogoetan iartcen da* (ib. 97-98). Cf. *Erans-ean, berriz, "reprehender, alhatu"*.
- ALBENIA "borde", "orilla", "orillo, en el paño", "orla", "ruedo, orla" < *Nolaco baita cheiten [sic] den ehuna eta oihala, halaco içanen da oihalaren albenia eta bazterra ere* (GGERo 215).
- ALBIRISTE "albricias, buenas nuevas, noticias" < *Ea iende penatuac, indaçue albiriste, berri on bat eman nahi deratçuet* (GGERo 606).
- AMETSETAKO "soñado" < *Bertce ioco guztiaç ametsetacoac beçala dira, vtquitcea da iratçarriricoa, fina eta segura* (GGERo 418).
- AMORANTIA "enamoramiento", "galanteo", *amorantian ibilli "galantear"* < *Cer esquer uste duçu içanen duela edo irabaci eguinen duela çahar ecinduac (...). Amorantiara gaztean beçala ez ioaiteaz?* (GGERo 177), *Amorantian, ohoinquerian, iocoan, gau egunac aise eta guti sentituric iragaiteintuçu* (ib. 519).
- AMORIOBAGE "desamorado" < *amorio desordenatuac eguiten duen laurgarren caltea, baquezcoen guerlati, eta bihotz beren eta amoltsuen omorio [sic] gabe eta bihots gogor eguiteare [sic] eta errendatcea* (GGERo 356).
- AMURUSIA "galanteo", *amurussian ibilli "galantear"* < *Eztagoca çahartasunari amurusia, eta ez comunzqui gatzetasunari auaricia* (GGERo 178), etab. vs *Venus amurusiaren patroia* (Gero 354).
- AMURUSTU "enamorar", "enamorarse" < *bere ama propioaz amuruztu [sic] cela* (GGERo 350).
- ANDINAI "ambición" < *Han urguillua, handi nahia, desohorezqui oinen azpian erabilico eta osticatuco da* (GGERo 593).
- ANU "cobardía" < *ethortcen gara egin behar ditugun orenara [sic], ordea han ixtitcen eta guibelatcen gara, han anu eta ukho eguiten dugu* (GGERo 47).
- ARANZA "púa, cosa aguda que remata en punta" < *Ceren nola [sagarroia] larruan baita latz, eta gatzaina carloa beçala, puntaz eta arantceç bethea (...). ume hec erdi behar duenean bere arantceç eta carloez min eguiten diote* (GGERo 78-79).
- ARDANDEGI "bayuca", "taberna" < *Leheneco bihiteguiac, ardandeguiac, sotoac, salac eta gambarac handitucoit, eduquitceco leccua franco eguinen dut* (GGERo 75).
- ARMORA "pared maestra" < *eta hesiac, hersteguiac eta harmorac ere, eroriac eta deseguinac "& materia lapidum destructa est"* (GGERo 40).
- ARRAS "cerca, adverbio", "ras con ras", "ras con ras, junto, pegante" < *Cilicio bat, cerdazco guerrico bat larru arras bethi ere erabil ceneçala* (GGERo 57), *ceren iuramentua, laincoa bera bere presunan vtquitcen du, baiña bertce beccatu hauc, eztiote hain arras emaiten, etçaitça hala hurbiltcen* (ib. 254), *larru arras cilicio bat, cerdazco guerrico bat harturic* (ib. 483).
- ARRAZATU "herir (...) lastimando algo", "lastimar hiriendo", "percutir" < *alde guztiz galdua, narriatua, arraçatua eta erroac eguinic, beccatuz eta aztura gaiztoz bethea baitago* (GGERo 109), *Nola gure lehenbico aita harc, gure naturaleça haur, bere beccatuz narriatu, arraçatu eta eritoquitu baitçuen* (ib. 250), *Çur-guinac çura lantcen eta appaintcen deunean [sic], aurquitu agatic gain aldea, açalari datchecana arraçatua eta pipizatua* (ib. 441).
- ARRENKURA "coxijo", "querella, quexa", "quexa", "resentimiento, quexa" < *Çuri bere arrencurac, eguitecoac, coaitac eta ondicoac conta* (GGERo 5), *Hango cantuac, leloac eta bozcarioac içanen dira ayac, hatsbetherapenac [sic], incirinac, nigar-chopinac eta arrencurac* (ib. 588).
- ARRENKURATU "quexarse", "vituperar" < *ecen gure salbatçaillea arrencuratu ezbacen ere bere heriotce penatuaz eta desohorezcoaz, arrencuratu eta senticortu baitcen bide gabe hunetçaz* (GGERo 136), *Aita gaixtoaz errençuratcen [sic] dira semeac, ceren hura dela causa baitira desohorezco seme bastartac* (ib. 360), *laincoa gatic, den penaric ttipiena errecibitcen duçunean, berehala arrencuratcen çara; baina Deabrua gatic, gau-aireac, hotçac eta beroac ere ichil pairatceintuçu* (ib. 517), *Senharraren colpe ttipiaz arrencuratcen da, eta ez omorantearen [sic] handiaz* (ibid.), *arraçoinequin arrencura ahal diteque, eta guereilla iguzquia beccatoreaz* (ib. 569), etab.¹¹²⁴
- ARRI MUGER "pedernal" < *Harri muguerraren pare dira, barrenean dute sua, asco dute vquitcea* (GGERo 290) vs *laincoa[c] hequen premia iccusiric, eman baitcerauen, harri-muguer batetaric atheraric, ithur-vr fresco bat* (ib. 511).
- ARTZEKODUEN "acreedor, el que tiene qué aver" < *Ceren çure gogoaz eta aithorraz ere probetchu guti du hartzeço duenac, pagamenduric eztenean* (GGERo 244).

irakurketa txarra, bi testuak lotzen dituen huts bateratzailea baizik, baina aztarna ezin hobea hitz zail honen iturria asmatzeko.

¹¹²⁴ Cf. ib. 182, 283, 430, 507, 565; 26.ean *arnancuratcera* irakurtzen da GGERo-n.

ASALDATU “alborotar” < *San Crisostomoc berac, aiticinetic auisaturic eztadilla nehor hargatic assalda, erraiten du: Nemo his verbis turbetur* (GGero 228), etab.

ASMU “pretexto” < *Gaixto batec hil deratçu ceure aita, cerorri ere eguin deratçu milla pensu, asmu falso eta malicia* (GGero 273) vs *eguin çuen Piramide batçuen eguiteco gogoeta, asmua eta pensua* (ib. 26), *orduan Emperadore çorçojac, ahal ciren asmuac eta enseiuac balacatceco eta baquetceco eguiten cituen* (ib. 228).

ASPERTU “empalagar” < *iragan behar dut guticia hura: appur bat asse behar dut, aspertu behar dut, dichiritu behar dut: eta guero orduan, asse, asper, dichiri eta nekha nadinean, vianda higuintcen has daquidanean* (GGero 51), *naquion behin, berriz bihurtceco desiraric eztuquedan beçala, asse eta asper* (ib. 174), *Are orduan ere etcenduten placer ossoric hartu, etcineten aspertu, eta ex[sic] asse* (ib. 383).

ATXAKIA “achaque”, “excusa”, “pretexto” < *hala edireiten ditugu bada guc ere occasinoac, desencusac, estacuruac, atchaquiac eta itçulpideac, beccatutan egoiteco* (GGero 51), etab.

AUHENDU “deplorar”, “lamentarse” < *Presentecoa goça deçaquegu, ethorquiçunecoa desira, eta iragana lauda edo auhen eta deithora* (GGero 155), *hasico dira bere ondico handiaren deithoratcen eta auhentcen* (ib. 609).

AUSKOR “caedizo, frágil”, “endebler”, “feble, débil”, “frágil, quebradizo”, “quebradizo” < *beiraquiaren pare gara eta are beiraquia baiño perilos eta hautscorrigo* (GGero 60), *Cer da beirazco vntcia baiño gauça samurragoric eta hautscorragic? “fragilius”* (ib. 61). Ik. ib. 288 ere.

AUSTE “infracción”, “traspaso de alguna ley” < *Comunaren othoitçac, eta semea ganaco amorioac anhitz gogoeta eraguin ceraucaten, baiña guehiago legu[e]jaren hautstea[c]* (GGero 346).

AUTSIKI *tarantulac autsiquia* “atarantado, mordido de la tarántula” < ik. *beherago autsikitu, eta bereziki, cf. Erleac nehor autsiquitcen duenean autsiquitcenago du bere burua (...). Hala gerthatcen çaitçu bada çuri ere, etsaiari autsiqui eguiten dioçunean* (GGero 332-333), non agian *egiten* indartzaile gisa uler zezakeen.

———— “remorder” < *Harra da, concientcian barrena dagoen beccatua, eta harrac beçala, gau eta egun, autsiquitcen du, iaten du, larrutcen du* (GGero 423).

———— “mordedura” < *Oraren autsiquia* (GGero 572).

———— “remordimiento” < *hartara bulccatcen çuten bere ama sainduaren nigarrec, concientciaren autsiquiec eta iaincoaren manamenduec* (GGero 52), *concientcia gaixtoaren autsiquiac, autsiqui minac, liscarrac liscar garratçac, eta colpeac ere, colpe bortitçac direla* (ib. 441), *concientciaren accusamendua, autsiquia, alhadura, chimicoa, erançutea* (ib. 596).

*AUTSIKITU “morder” < *Hortceç mihia autsiquitcen dutenean, norc hargatic atheratceintu hortçac?* (GGero 315), *bere concientciac berac, bere baithan barrena acotatcendu [sic, açoren ordeç], autsiquitcendu* (ib. 431).

AXOLDURI “cuidadoso” < *Hala guerlequin, etsaiequin eta contrastequin ernatcen, iratçartcen eta acholduricen da [ertzean ajoldur]* (GGero 27).

AZKATU “ajar”, “manosear”, “palpar” < *escuetaco larrua hazcatcen eta ferecatcen cioela* (GGero 32), *Hasuinac significatcen du naguitasuna: baldin malguqui, leunqui, emequi, naguiqui eta balacuz beçala hazcatcen, ferecatcen eta eratbiltcen [sic] baduçu, erreco çaitu, baiña ez nabasiqui eta ausartqui hersten eta marruscatcen baduçu* (ib. 41), *borzgarren censu corporalari, cein baita Tactus, vçuitcea, escuztatcea eta hazcatcea* (ib. 417).

Axularrek 39 hitz, adiera edo esapidetarako azalpena eskaini digu; hiztegi osoko kopurua, beraz, 330en bat izan liteke. Ez dira asko, ez gutxi, Leizarragarekin erkatzen badugu, behintzat, baina ezin ahantz daiteke *Erans*-ean berriro hustea —ia 250 hitz gehiago lortuaz— lehenengo begiradan asebeteta geratu ez zelako seinale argia dela. *Geroko gero* trabatu gabe irakurtzea euskaldun onek gainditu beharko luketen “atariko proba” moduan aurkeztu zuenean, agian bere lehenengo irakurtsaioan pentsatzen ari zen, zer ote den halako zerbait inolako laguntzarik gabe ulertzen saiatzea, eta zeinen ezberdina, ostera, Iparraldeko literaturan trebatu ondoren berriro egitea.

A letraren datuen arabera, GGero batez ere izen (20) eta aditz (13) hornitzaile izan zen, izenondo (*amoriobage, auskor, axolduri*), izenlagun (*ametsetako*), aditzondo (*arras*) eta esapideren bat (*ez aitzinago*) ere eskaini bazizkion ere. Leizarragarekiko aldea honetan datza, batez ere, eta testu bakoitzarekiko izan zuen konfiantza maila ezberdinaren adierazgarri oso ona dugu. Ohartu, gainera, elkartu-eratorriak falta ez badira ere, ez direla Testamentuaren proportziora iristen:

-TASUN (*aitatasun*), -TEGI (*ardandegi*), -DUEN (*artzekoduen*), -KOR (*auskor*), -TE (*auste*), -DURI (*axolduri*).

'izena + izena' (*armora*), 'izena + -bage' (*amoriobage*), 'izenondoa + nahi' (*andina*), 'izena + izenondoa' (*arri mugen*).

9.2.4.3. Etxeberri Ziburukoa

AHALKETI "vergonzante. Lat. pudens" < *Andre ahalketia* (*Man* II 198, "Ama Virginaren hirugarren Litanian"). AIPU "proposición" < *Bethiereco baquea, ezta guerlen aiphuric, / Ecen charitatez daude bihotçac gurenduric* (*Man* I, 133).

AITZINKIDARI "conductor (...), el que guía" < *Erregueec ere sarri / Behar dute ethorri: / Içar berri bat dutela / Bere aitzinguidari* (*Noel* 54, *Akes* 56) vs "precursor" (*Noel* 214 (*Akes* 161), *CatLav* 423 (V 201)) edo "superior, jefe" (*Xurio* III, 13, 1; *ES* 168). Ohartu <gu> : <qu> aldaketari, agian ez oharkabekoa (cf. *kidari* Ax).

ALMAKA "costado" < *Bentçuturic herioa berce garratçagoaz, / Eta almaca idequiric liçarrezco dardoaz* (*Man* II, 16).

ANDIGO "magnitud" < cf., adibidez, *Ceure aberatztassun eta handigoa considera çaçü, eta halaber ene gabetassun eta ezteustassuna* (*Man* II, 170), *Banquet handiac dituzte / Erregueek eguiten, / Bere handigoak hetan / Dituste eracusten* (*Noel* 159, *Akes* 123).

—— "presunción, vanidad" < *Etsaiaren haldu [sic] çaio Belcebut idurian, / handigoaz ifiñiric bi escuac guerrian* (*Man* I, 107), *Bere superbiac çuen / Allabañan erretcen, / Handigoaz berce deusic / [ez] baitçuen pensatcen* (*Noel* 79, *Akes* 72).

ANTZAKABE "tosco" < *launa, ene bekhatuen declarationea, / Ontçat errecibi çaçü othoi antça cabea* (*Man* II, 84), *O lainco herio eta biciaren iabea, / Othoi adičaçü ene othoitç antçacabea* (*ib.* 159).

ARBOLADI "arboleda" < *Animale etchatiar, bai larrean haciac, / Bai halaber arboladi behera eta goitiac* (*Man* I, 80), *O longoico arboladiz desertuac bethea* (*Man* II, 124).

(ILLEAK) ATZAPARKA ATERA "repelar" < *Ama gachoec cioten / Eman dehadarrari, / Eta atcaparca athera / Illeac buruari* (*Noel* 89, *Akes* 76).

AUTZEKO "bofetada", "cachete, golpe de puño cerrado", "pescozón", "torniscón" < *Annassi ceren eguia / Ihardatsi cioen, / Sehi lausengari batec / Ahutcecoz io çuen* (*Noel* 113, *Akes* 95).

Corpusean 10 hitz eta hiztegi osoan, beharbada, 86. Hemen kausitzen dugu *HH*-ko iturri nagusien (Leizarraga, Axular) eta gainerakoen arteko muga: Etxeberriren arrastoak ez dira zailak aurkitzen, baina erabilerarik nabarmenena —hemen jasotzen ari garena, hain zuzen— aski jaitsi da. Dena dela, idazle honen bi liburuak iturritzat erabili zituela baieztatzeko datuak aurkitu dugu, eta ez da gutxi.

Zazpi izen, bi izenondo eta esapide bat bildu ditugu, eta haien artean eratorriak nagusi: -ARI (*aitzinkidari*), -DI (*arboladi*), -GO (*andigo*), -KA (*atzaparka*), -KO (*autzeko*), -TI (*ahalketi*). Bidenabar, esan daiteke Etxeberri izan zela, ziurrenik, Larramendik -*di* atzizkia —baita ziurrenik -*go* ere— nola eta noraino erabil zitekeen ikasteko izan zuen irakaslerik onena, Harriet baino lehen: cf., *arboladi*-z gainera, *alcifredi* (*Man* II, 18), *arraindi* (*ib.* 153) eta *gizondi* (*ib.* 103), adibidez.

9.2.4.4. Materre

Iturritasuna frogatzeko bide argirik aurkitu ez dudan lehen idazlea da. Arrazoia nabarmena da, edo hala behar luke, behintzat: "Sarako eskola" delakoaren lehen liburua, edo hobeki, "Lapurdiko idazketa eskolaren hatsarrea" (Oyharçabal 1996: 38) izaki,¹¹²⁵ berak baliatutako hitz

¹¹²⁵ Halaz ere, badira oraindik partaide arruntzat hartzen dutenak. Pikabeak (1993: 287) Materre —eta Ziburuko Etxeberri!— literatur hizkuntza mamitzerakoan "Axularrekin bat" etorri zirenen artean aipatu du. Dena dela, egile berak Oihenart literatur lapurteran, Garibai literatur gipuzkeran, Gamiz eta *RS* literatur bizkaieran eta Tartas zubereraren kokatu ditu beste lan batean (cf. Lakarra 1997: 460, 26. oh.), oro har kronologiarekin —baita "literatur euskalki" kontzeptuarekin berarekin ere— arazo larriak dituela adieraziaz.

guztiek edo gehienek sarrera erdiesten baitute “tradizioa” deitu dudan horretan, eta harrezkero haren liburua besteen artean alde honi begira ezagugaitza bilakatu izan bide da.

Zeharo ikertzeke dagoen kontua izanik, har ditzagun adibide gisara Oyharçabalek (1996: 50-51 eta 53-56) bildu *-mendu* eta *-tasun* atzizkidun hitzak, *OEH*-ak lagun diezagukeen MAJ hurrenkerainokoak bakarrik:

aberatstasun (EZ?, Ax, *CatLav*, *aberastasun* Gç, ES, Ch; *HH aberastasun* “riqueza”), *adimendu* (Lç, EZ *Man*, Harb, Ax, Arg, Gç, ES, Ch, *CatLav*, *adimentu* Ber; *HH adimentu* “entendimiento”, etab.), *adiskidetasun* (Lç, Ber, Ax, Ch, *CatLav*; *HH adiskidetasun* “amistad”), *amatasun* (Arg, Harb; *HH amatasun* “maternidad”), *handirasun* (Lç, Ax), *handitasun* (Lç, EZ *Man*, Ax, Gç, ES, Ch, *handidasun* Arg; *HH anditasun* “grandeza”, etab.), *arartekotasun* (Ax, *Exlzp*, Ch, Harb, *CatLav*), *haserretasun* (Lç, Ax, *asarretasun* Ch), *baliotasun* (Harb), *bark(h)amendu* (E, Lç, EZ *Man*, Ax, Arg, Gç, ES, Ch, *barkamentu* Ber; *HH barkamendu* osoa “indulgencia plenaria”), *batasun* (Lç, Harb, EZ *Eliç*, Gç, ES, Ch, *CatLav*; *HH batasun* “unidad”), *beldurtasun* (Lç, EZ *Man*, Harb, Ax, Hm, Arg, ES, Ch, *CatLav*), *berotasun* (Harb, Ax, ES, Ch, *CatLav*; *HH berotasun* “calor”, etab.), *biluzgorritasun* (Lç), *birjintasun* (Harb, Hm, *CatLav*; *HH birjintasun* “virginidad”), *borthitztasun* (EZ *Man*, Harb, Ax, *CatLav*), *deliberamendu* (Harb, Ax), *desiramendu*, *dohatsutasun* (EZ *Eliç*, Harb, Arg, Gç, ES, Ch, *CatLav*; *HH doatsutasun* “prosperidad”), *emakhoitasun* (Harb, *emakhoi* Ax), *emetasun* (Lç, EZ *Man*, Harb; *HH emetasun* “blandura”, “suavidad”), *enganamendu* (Harb, Ax, Ch), *epeltasun* (Ch; *HH epeltasun* “tibiaza”), *eritasun* (Lç, Ber, EZ *Man*, Harb, Ax, Hm, Gç, ES, Ch; *HH eritasun* “enfermedad”, etab.), *errepertimendu* (EZ *Man*), *eskergabetasun* (*HH eskerbagetasun* “ingratitude”), *etsaitasun* (Lç, Ax; *HH etsaitasun* “enemistad”), *eztitasun* (EZ *Man*, Harb, Ax, ES, *CatLav*; *HH ezttitasun* “dulzura”, “suavidad”), *fermutasun* (Lç, Gç, ES, Ch; *HH fermutasun* “firmeza”), *flakotasun* (Lç, EZ *Man*, Harb, Ax, Gç, Ch, *CatLav*; cf. *flakotasunezko bekhata* Mat 173, *huts flakotasunezkoak* EZ *Eliç* 96, [bekhatu] *flakotasunezkoa* Ax 100; *HH flakotasun* “flaqueza”), *gaixotasun* (*HH gaixotasunak* “achagues”), *garbitasun* (Ber, Harb, Ax, Gç, *CatLav*; *HH garbitasun* “limpieza”, “pureza”, etab.), *gathibutasun* (Lç, Harb, Ax, ES, Ch, *gathibotasun* Gç, Ch, *CatLav*), *gidamendu* (Lç), *girstinotasun* (Lç, Ax, Harb, *CatLav*), *goratasun* (Lç, EZ *Man*, Ch), *iainkotasun* (EZ *Noel*, Harb, Ax, Hm, Arg, Gç, ES, Ch, *CatLav*; *HH jainkotasun* “divinidad”, etab.), *iakintasun* (EZ *Man*, Harb, Ax, ES, Ch, *CatLav*; *HH jakintasun* “sabiduría”), *hiltasun*, *ilhuntasun* (EZ *Man*, Harb, Arg, ES, Ch; *HH illuntasun* “obscuridad”, etab.), *indignetasun* (EZ *Man*, Harb), *itsusitasun* (*itsustasun* EZ *Man*, Ax; *HH itsustasun* “fealdad”, “torpeza”, etab.), *jeneralitasun*, *konplimendu* (E, Lç, Harb, EZ *Eliç*, Ax, Arg), *konsentimendu* (Lç), *konsolamendu* (EZ, Harb, Ax, Hm, Arg, Ch, ES), *kontentamendu* (Lç, EZ *Man*, Harb, Ax, Arg, Gç, Ch, ES), *liberalitasun* (EZ *Man*, Ax; *HH liberalitasun* “liberalidad”), *lizuntasun* (EZ *Man*, Ax, Ch).

Zazpi hitzez gainerako guztiek ondorenak izan dituzte geroko idazleengan; beraz, Larramendik idazle tradizio honen lexikoa aski ongi islatzen badu ere (24 hitz / 50; asko, *-tasun* eta *-mendu* oso gogokoak ez zituela kontuan izanik), aurreratu dugun hipotesia zeharo bermatuta geratzen da, *eskergabetasun* (*HH eskerbagetasun*) hitz soilaren salbuespenarekin. Ondorioz, ikerketa xehe eta zabalagoa beharko dugu, beraz, Materrearen eragin zuzenik somatu nahi izanez gero.

Azterketatxo honetan, bide batez, hainbat testuren arteko erlazioaren frogak aurkitu ahal izan ditugu:

1) Leizarraga / Materre:¹¹²⁶ hainbat batetortze kausitu ditut, gehienak halabeharrari erraz ezin egotz dakizkikeenak, hala nola ‘oinarri mailegatua + euskal atzizkia’ egiturak (*fermutasun*, *flakotasun*, *gathibutasun*, *girstinotasun*), edo ‘iz. abstraktua + *-tasun*’ eratorriak (*haserretasun*,

¹¹²⁶ Berriki Salaberri Muñoak (1999: 36-43), Materrearena iradokitzeaz gainera, Axularrek ere Leizarraga ezagutu zuela baieztatzeko kidetasun zenbait aurkeztu ditu, guztiz “Gomendiozko karta” eta “Irakurtzaileari” atalen egitura eta edukiari dagozkienak. Berak aipatutakoak baino are nabariagoak badaudela uste dut orain, Axularren Testamentuko aipuen eta Leizarragaren kideko pasartearen artean, hain zuzen (Urgell 1999).

beldurtasun), edota lekukotasun urriko eta ezohiko formako hitz zenbait (*biluzgorritasun*, *gidamendu*).

2) Materre / Haranburu: dudagabeko erlazioa da; erka bitez ondoko bi zatiok: ¹¹²⁷

Materre 217

Beha diaçoçu, Aita cerucoa, pietatezco obra handi huni, beha diaçoçu hunen baliotasunari: beha eçaçu cer eta cembat çure aiticinean mereci duten hain pena eta dolore handiec, cer mereci duen heriotce dolozco harc (...). Haur da ahal datequeyen offerendaric baliossena, eta bai çure gogaracoena ere.

Haranburu 313

beha diaçoçu pietatezco obra handi huni: beha diaçoçu hunen baliotasunari: beha eçaçu cer eta cenbat mereci duen çure aiticinean dolozco heriotce harc. Haur da ahal datequeien offerendaric baliossena eta bai çure gogaracoena ere.

9.2.4.5. Gainerako idazleak

Materreren antzera, Larramendik aipatu zituen gainerako idazleak *HH*-rako erabili zituela frogatzea ez da lanbide erraza, aurreikusi dudan baino eurek bakarrik azal ditzaketen hitz edo esapideak askoz bakanago baitira corpusean. Dena dela, gehienetan aztarnaren bat bederen aurkitu ahal izan dut, Argaignaratsen kasuan izan ezik: nire ustetan, *Avisu* agertu ezean, *HH* osoa ikertu arren nekez izango dugu frogabiderik, zeren eta, dirudienez, *DevB* txikian bederen gehienbat tradizioak ezarritako mugen artean murgildu baitzen, bere burua ezagutarazteko lorratzik utzi gabe. Gainerantzekoei dagokienez, berriz, itxaropena ez ezik, ziurtasuna ere daukat *HH* osoan zehar euren arrastoak aurkitzera zuzendutako ikerketak, noiz gehiago, noiz gutxiago, orotara emaitza interesgarriak eskainiko dituela, *OEH*-an zehar, batere sistemarik gabe, egin izan ditudan osteretan dagoenekozi ziurtzat eman daitezkeen filiazio zenbait erdietsi ditut eta.

Alde honetatik argiena Xurio suertatu da, halabeharrez beharbada. Izan ere, corpusean dudarik gabe berari egotzi beharreko hitzak bi baino ez izan arren, handik kanpo beste zazpi aurkez ditzaket, zalantzarik gabe bere iturritasunaren irudi zehatzagoa emanez:

ARRAIZIA “abrazo. Lat. amplexus” < *eciñ goça baititeque çure arraiciez* “nec jucundis fruar amplexibus” (III, 21, 3).

ART(H)AGABE *arthagabea da* “(no es) aplicado”, *gizon artagabea* “(hombre inadvertido, sin) advertencia” < *mundu huntaco arthen erdian artha gabe içatea, ez tontotasunezco indiferencia batez* (III, 26, 1).

BARRENKOI “abstrahido, recogido, retirado”, “(el que es dado a las cosas) interiores y secretas”: *presuna barrencoi eta Jaincoaren spirituaren arabera bici direnetan* (I, 6, 2), *guiçon barrencoi eta spiritualaren libertatea* (III, 53, 2).

DESKUSTU, HIGUINTZA *higuintza, descustua* “disgusto, enfado”: *Erraintcentu çure spirituan gogoeta gaichtoac çuri descustu eta higuintça emateco* (III, 6, 4).

ERORKA *erorca ibilli* “(andar de pie) quebrado”: *bethi erorca hari çare, berehala çare garaitua* (III, 4, 3).

ESKER-EMAILE “agradecido”: *içan gaitecentçat esquer emaille, humill, Jaincotiar* (III, 8, 3).

ESKUKO *escuco dana* “libre”, *ez naiz nere escuco* “(no tengo) albedrío”: *Badire batçuec bere escuco içan nahi dutenac* (III, 32, 1).

FALTAR “defectuoso”: *Ecen deusetan ere faltiar neure burua causitcen estudalaric* (III, 46, 5).

Hobeto aztertu beharko diren bi hitzetan baliteke *CatLav* eta bien artean egotea giltza:

¹¹²⁷ Lotura otoitz guztira hedatzen da: ik. Materre 212-222 eta Haranburu 310-316.

HERSITASUN “estrechez”, ERTSITASUN “angostura”, “apretura”: *Eliçac... hersitasun hartaric gutitu du bere umen flacotasuna urricalduric (CatLav 155, V 78), Galdeguiten tugu bertceentçat errequelamendu hertsiaç, baiñan guretçat ezdugu nahi hertsitasun garabic (Xurio I, 16,3).*

FAZEGATU “mitigar”: *abandonatu cen os[o]qui Jaincoaren borondatera, eta facegatu ciren haren khechagune guciac (I, 25, 2), phacegatcen du gure passionen bicitasuna (CatLav 243, V 123).*

CatLav handia bera ere, corpusean lekukotasun ziur bakarra —oso teknikoa eta, beraz, oso ziurra— eman duen arren, aski aise kausi daiteke handik kanpora:

AGERTZE “Epiphania” < *Epiphania da hitz bat, zeinak erran nahi baitu agertzea (372, V 180).*

EGINDURA “acción, algún hecho”: *Ecen instruccionea gabe berce çuen eguindura guciac alfer eta fruituric gabe guelditcen dire (A 2v, V 3), Hari placer eguiteco chedean eguin bear tugu gure accione edo eguindura guciac (110, V 61).*

ESKERBAGE “ingratitude”: *ingratasuna edo esquergabea (281, V 140).*

Gasteluzar esapide baten iturri eztabaidea da eta, honezaz gainera, baliteke adizlagun batena ere izatea:

(ELKAR) ADITURIK “(de) mancomún” < *Biec elkhar*¹¹²⁸ *adituric, / Lehenic amudioac, / Guero lainco haur beraren / Indar handi dibinoac (125, Akes 77).*

ARROKAZKO “roquero, de roca” < *Badidurite arroquec / Direla haraguizcoac; / Eta halaber guiçonec / Direla arrocazcoac (109, Akes 72).*

Bide batez, filiazio arazo interesgarri bat sortzen du, ezen bada *facati* zeharo zalantzazko bat, O-SP 228an “fastueux, plein de fast” eta HH-an “arrogante”, “presumido” itzulia. OEH-ak (s.v.) dioenez, ziurrenik *façati*-ren ordezeko hutsa da.¹¹²⁹ O-SP eta HH-ko lekukotasunak, biak iturri bakar batek azaldu beharko lituzke, zeren eta, bestalde, O-SP 228an *fazati* “glorieux, vain, leste” ere agertzen baita (OEH, s.v.), baina ezagutzen dugun lekukotasun bakarrak (Gç 446, Akes 204) argi eta garbi <ç> irakurketa eskaintzen du.

Haranburu eta *Exlzp*-i dagokienez, argitalpena identifikatzeko ditugun arazo handiak eta lehenaren kasuan erabili ahal izan dudana ale eskasaren egoerak zirrikitu gutxi uzten dute egozpen onik egiteko. Halaz ere, ordain oso susmagarri baten etorkia Haranbururenean egon daiteke:

*HARA “destierro”: cf. *nigarresco hara hunetan (3)*, Salvean: egia da bitxia dela hain otoitz ezaguneko itzulpenean Larramendik huts egitea; halaz ere, hau ez baldin bada, antzeko bat izan beharko litzateke, zeren eta, non aurkituko dugu “destierro” itzulpena, hurbiltasunaz baino ez bada, eragin zezakeen beste ezer?

Eta, antzeratsu, baliteke *Exlzp* ere, agerrian bederen, HH-ko itzulpen txar baten azaltzaile izateagatik bakarrik ezagutu ahal izatea:

AMANDA “acabamiento, fin”, “fin, término” < *eguiteco erreparacione eta amanda honorablea (Exlzp 160), gaizki ulertua, vs Hirur mila liberako amanda bat (CatLav V 1).*

Ziurrenik HH-an Berianek izan zuen eraginik handiena jadanik iruzkindu dugu, -ro eta -kiro atzizkiek HH-an hartu zuten garrantzia (§ 2.1.19), alegia. Honezaz gainera, aurreikusi moduan, Beriainen dotrinan hainbatetan errepikatzen den esapide bat baino ezin dut eman liburu honetatik ziurtasunez hartutakotzat:

ALA DELA “amén”: cf. 84r, adibidez.

¹¹²⁸ Akesolok *elgar* dakar.

¹¹²⁹ Kerejetak (1991: 883, 93. oh.) zehazten du *facati* Oihenartek idatzia dela, eta bi alditan idatzia gainera, Pouvreauk *façati* zuzentzen duen bitartean.

9.2.5. Erabakiezineko hitzak

Alde batetik, iturri batzuk frogatzeko oztopoak aurkitzen dira eta bestetik, ezinbestean, hitz batzuen iturri zehatza asmatzekoak: gertakari beraren bi aldeak baino ez dira. Larramendik ezagutu zuen Iparraldeko tradizioaren lexiko batasuna aski ongi erakusten du bere hiztegiak, dozenaka hitz ia edozein liburutan aurki baitaitezke, *HH*-ak jasotzen duen adiera berean edo hura azaltzeko aukera berarekin; esate baterako:

AHAIKO "pariente": Etxeberri Ziburukoak zein Axularrek, biek dituzte itzulpen okerra eragin zezaketen pasarteak, bereziki *ahaikoa* eta (*h*)*urkoa* elkarren aldamenean agertzen direnetakoak; cf., adibidez: *Ezbaitzarete urkoetz gehiago orhoitzen / eta ahaikoagatik laguntzera khexatzen (Man I 122) eta Haraguiaren amorio desordenatuac (...) ezuela den ahaicoaric hurcoenJefaz ere conturic eguiten (GGero 349), ...halaco amoria [sic] duenac ezpaitu batçutan ahaicoaz ere conturic eguiten (ibid.)*.

AHAL "potencia", etab.: cf., adib., *Onhetsiren duc bada eure lainco launa, eure bihotz guciaz, eta eure arima guciaz, eta eure pensamendu guciaz, eta eure ahal guciaz (Lç Mc 12, 30), Hunat hunat emaçue colpe ahal guztiaz (EZ Man I, 112), halatan Deabruac ere accabatce hartan escuey eraguiten deraue; orduan bere artea, antcea, maiña eta ahal guztia emplegatcen du (Ax GGero 176), eta Mat 344, Arg DevB 202, Gç 44, Exlzp 128, ES 95, Xurio III, 10, 4 edo CatLav 40 (V 28)*.

AHALKAGARRI "afrentosa cosa", "vergonzoso, que da vergüenza": cf., adib., *zein itsusi, eta ahalkagarrri den sort-herriko hitzkuntzaren ez jakitea (ES 168), gogoeta lohi eta ahalcagarriac (Xurio III, 20, 2) eta heriotce bat hain cruela eta hain ahalcagarria (CatLav 51, V 33)*.

AHALKATU "avergonzar", "avergonzarse", etab.: cf., adib., *Niri gaitz desiratzen darotaten gustiak ahalkaturik desohora beite bere xede gustietan (Gç 54), Ikhus bezate bada enperadore hau nola ahalkatzen zen, bere arrebaren mintzatzeko astrugaitzkeriaz (ES 168), Ahalca çaitte beraz cerbitçari lacho eta errencuratia (Xurio III, 3, 4) eta Guiristinoec ahalcatu behar luquete bere Besta egun sainduetan, consideraturic Juduec cein artha handiarequin beguiratcen çuten larunbata (CatLav 149s, V 76)*.

AHALKE "confusión, vergüenza", etab.: cf., adib., *ezteçaçuela conuersa harequin, ahalque duençát (Lç 2 Thess 3, 14), Nescatoen ahalqueaz eguiquec probetchua (EZ Man I, 137), ahalquea, ohorea eta prestutasun guztia galduric (Ax GGero 96), eta ES 400 edo CatLav 289 (V 144)*.

AHALKE IZAN "avergonzarse": cf., adib., *ahalque içanen baita niçaz eta ene hitzéz (Lç Mc 8, 38), Hartcen duçu Deabrua ceure nabusi, eta ahalque çara, haren muthil çarela erraitera (Ax GGero 547), eta Mat 223, Gç 67, Xurio I, 7, 1 edo CatLav 289 (V 144)*.

AHALKETU "avergonzar": cf., adib., *ene cadenáz eztuc ahalquetu içan (Lç 2 Tim 1, 16) edo eta halatan aguian, ahalqueturic bedere, gueure eguin bidearen eguitera eta trabailatcera ernatuco eta erduco garela (Ax GGero 35)*.

AHANZI "desacordarse, olvidarse", *ahanzten* "(echarlo al) carnero, olvidarlo, azurrobira bota, au esaten da, aztutzen, ahanzten gueranean gauzaren batez". a) *ahanci*: cf., adib., *Eta ahānci çaiçue exhortationea (Lç He 12, 5), bertcela eguin banu, miretsi behar çatequeyela, eta erran ahanci citçaitala neure eguinbidea (Mat ix-x), eta Arg DevB 168, Exlzp 93-94 edo Harriet (EF 270 "ahancia, oublié")*. b) *ahanzten*: cf. *guibeleitic diraden gauçac ahanzten ditudala (Lç Phil 3, 14) edo Bañan berehala ditugu / Ahanzten zure bisitak (Gç 217)*.

AHANZTU "olvidar, aztu, anci, ahanztu": cf. *gorago ahanzi eta ahanzten*, Iparraldeko liburuetatik atereak. Ziurrenik *ahanzte*- batetik aterea (cf. *ahanzten* Lç Phil 3, 14 eta Gç 217, *ahanzteco* CatLav V 17), edo beranduago Harrieten "oublier, ahanzte" (FE 394) lasterka eta bakarka (cf. EF 270 "ahancia, oublié") aintzat hartua. *HH*-an azken lekuan egotea honen alde dator, baina *FE*-ko lekukotasuna O letrakoa izatea, berri, aurka.

ABRE a) "bestia", "bruto": cf. *eta naturalqui abre brutalec beçala eçagutzen dituzten gauça gucietan corrupitzen dirade (Lç lud 10), Eta abreec dituzte largaturen leceac (EZ Man I, 80), eta Ax GGero 342, Oih Notitia 57 "brutum", ES 381 edo Harriet FE 333 ("bête, abrea, atcienda")*. b) "ganado mayor". "res, cabeza de ganado", etab.: cf. *eta berac hunetaric edan baitu, eta haren haourréç, eta haren abréç? (Lç lo 4, 12), etab., baina ezin gara erabat fidatu, HH-an abere-rekin batera agertzen baita: Iparraldeko tradizioari dagokionez, adierarik garrantzikoena aurrena da*. c) "alarbe, bárbaro, bestial": cf. *Baina hordia, ardancoia, abre da, ezta giuçon (Ax GGero 407), baina aurrekoan azaldu zalantza berberekin*.

ADIARAZI "denotar", "(hazer) entender", "imbuir", "indicar", "insinuar, dar a entender", "significar": cf., adib., *Xoilki gure Eskualdun hauk eztakite adiarazten, nor eta nongoak diren (ES 168), Hec ematen dute letraren achala; baiñan çuc aguertcen duçu eta adiarasten sensua (Xurio III, 2, 2) eta Haurrec gogoz daquizcatenean lehen eguin çaitzen galdeac, ensejatu behar da gogoz daquizcatenac hei ungui concebi araztera eta adi araztera (CatLav, hitzaur., V 8); Harriet (FE 328 "anoncer, adiaraztea") alde batera utzi behar da*.

ADIMENTUBAGE "mentecato. Lat. stolidus, mente captus": cf. *Oraino çuec-ere adimendu gabe çarete?* "sine intellectu" (Lç Mt 15, 16), *Horrela çuec-ere adimendu gabe çarete?* "imprudentes" (ib. Mc 7, 18), *Adimendu gabeaç, campocoa eguin duenac eztu barnecoa-ere eguin?* "stulti" (ib. Lc 11, 40), *O adimendu gabeac "stulti"* (ib. Lc 24, 25) edo ...*deitzen cituela adimendu gabeac eta sinhets gogorrac* (Ax GGERO 276), *Ha ene galdua, ene çoro adimendu gabea* (ib. 596, Gero 594).

ADIN "edad", etab.: *Christen adin perfecteco neurrira "aetatis"* (Lç Eph 4, 13), *Hogoi eta hamairur vrtheco adiñean*, / *Guztiac iaiquico dire bere oñen gañean* (EZ Man I, 81), *ceren nola çahartcea baita azquen adina, eta bicitcearen bazterra eta hondarra* (Ax GGERO 191), eta Arg DevB 153, Gç 207, ES 94, CatLav 155 (V 79), Eliz 64 edo Harriet (EF 268 "adiña, age" eta FE 326 "âge, adiña"), nahiz azkena, lehenago hainbat eta hain onak izanik, beranduegi iritsi bide zen.

ADITU "entendido, sabio. Lat. sapiens, doctus": cf. *ceren estali baitrauztec gauça hauc hauc çuhurréy eta adituey "sapientibus"* (Lç Mt 11, 25) edo *Hain escola sainduan sarri / eguin ciñen iaquintsun*, / *Ceren baitcinduen dotor / Adituena entçun* (EZ Noel 192, Akes 147).

(ELKAR) ADITU *elkar adituko gera* "(yo me) avendré con ellos": gorago *elkar aditurik* "(de) mancomún" Gasteluzarri egotzi badiot ere, honako honetarako Etxeberri Sarakoa kontuan hartzekoa da, bere idatzietan hainbat erabiltzen duen esapidea baita. Etxeberriengan iragankorra da, jakina, baina gogoratu euskara-erdara hiztegi batez ari garela eta, dena dela, Gasteluzarren adibidea ere erabat ambigua da.¹¹³⁰ Etxeberriren aurka esan daiteke, dena dela, batez ere 'elkarren mintzoa ulertu' adierarik hertsienean erabiltzen zuela, OEH-ak (ELKAR ADITU, s.v. *elkar*) aipatzen dituen adibideen arabera.

ADORAGARRI "adorable": Cf., adib., *Sahaskan datza etzanik / Haur bat adoragarria!* (Gasteluzar 74) edo *Aldareco sacramendu adoragarriaz* (Xurio IV, 348. or.), baita *Exlzp* (53, 87) ere.

AHERIA "canción", "melodía": cf. *Musicaç[c]jo eguiçue çerurat aheria* (Etxeberri Man II, 18), *Molda dietçagutçue / Arren gueure mihiac*, / *Cuetçaz digne daitecen / Aurkhi gure aheriac* (Noel 4, Akes19), edo *Itsasoa mintza zaite dakizun aheriaz* (Arg [?], DRA-ren arabera, ap. OEH).

*AFAINDU "componer", *afaintzea* "afeitar, poner afeites": cf. *Eliçac eta Aldareac propiçui aphainduac içan daitecinçat* (CatLav 241, V 122), *Banitatez betheric aphainduac diren nescatchac* (ib. 247, V 125); halaz ere, bada *apaindu* adiera horretan bakarrik ezagutuko lukeenarentzat ondorio bera eman lezakeen beste adibiderik: cf., adib., *Ea beraz, arima leiala, aphain dioçocu çure bihotça espos diuino hari* (Xurio II, 1, 2).

AGOAN *agoan jarri* "incorporarse en la cama", *agoan dago*, *agoan cegoan* "está, estaba incorporado" (s.v. *aguantar*, etimologian): EZ, Harb, Arg, Gç eta Xurio. Ez dut haiengan *jarri*-ren adibiderik aurkitu, baina bai *egon*-ekin; Etxeberriren adibide hau, esaterako, bereziki aproposa izango litzateke: *Erhassunac duenean azpiratu Eria*, / *Ecin hagoan egonez oherat eroria* (Man I 49); baina cf., besteren artean, ...*ene flacotasunean escasten baitçait hagoan egoteco behar dudan gracia* (Xurio III, 55, 3).

AGORTE "seca, tiempo de seca, leortea, agortea, idortea, secatea": cf. *othoitz eguitera guretçat, gure familiençat, eta Eliçaren behar guciençat, bereciçui goseteco denboran, agortetan, &*. (CatLav 327, V 161) eta Harriet (FE 422 "secheresse, agortea, idortea").

HAINA "aquél, aquella, *haiña*, aquellos, *haiñec*": iturri gehienetan agertzen da (Lç, EZ, Ax, Arg, *Exlzp*, ES, Xurio eta CatLav); cf. sing. + plurala *haiña eta haiñac* (Ax GGERO 43) eta *hainari eta hainei* (ib. 346), baina *haiñec* Xuriorengan bakarrik (III, 20, 5, etab.) aurkitzen dut; cf., ordea, *hainac* (ES 116, etab.) eta *hainec* (ib. 102, etab.).

AINGERU BEGIRALE "Angel de la Guarda": cf., adib., *Aingueru beguiraleari eguitemo othoitz* (Mat 292), eta Harb 13, edo CatLav 437 (V 207), vs *aingeru begiraile* (EZ, *Exlzp*), *aingiru begiraile* (Ax), *aingeru beiraile* (Gç), *aingiru begirale* (ES).

AIPAMEN "mención, *icenguilla, aitamena, aipaera, aipamena, oroitza*", "proposición, *aipua, aipamena, goguibena*". a) "mención": cf., adib., *Seculaco doloreec ezaute espantacen*, / *Eta bihotça eztaroc aiphamenac harritcen* (EZ Man I, 115), *Baiña certaco sartcen naiz ni (...)* çure laudorioen aipamenean? (Ax GGERO 9), edo ES 116. b) "proposición": Harrietena izan liteke (FE 410 "proposition, aipamena"), baina lekua ez da egokia.

AITOR "confesión": cf., adib., *Martharê aithorra* (Lç Io 11, 21, tit.), *Ceren çure gogoaz eta aithorraz ere probetchu guti du hartceco duenac, pagamenduric eztenean* (Ax GGERO 244), eta ES 156 edo Xurio III, 6, 4.

AITOREN SEME "gentilhombre, el noble": cf. Oih *Notitia* 54 "hidalgo", *Ordenaco aitoren seme, eta erreguerren Conseillari famatuari* (Ax GGERO 3; Gero ib. *aitonen seme*), eta Gç 170 edo Harriet (EF 270 "aitorensemea, gentilhomme", FE 340 "chevalier, aitorensemea", ib. 367 "gentil homme, aitorensemea").

AITZINATU "adelantar", "adelantarse", "alargarse, *lucetu, luzatu, aurreratu, aitzinatu, aurratu*, con las terminaciones de el neutro", "anticipar", "avanzar, adelantar", "prevenir, anticiparse", etab.: cf., adib., *Eta combat ohi baitu aitiçiatu ephea*, / *Hambat sari ematen du, edo pena dorpea* (EZ Man I, 52), *Guiristino onac vrthe bathes [sic] aicitinatcen dira, baiña çu nola aicitinatuco çaren ecen guibelatcen çara* (Ax GGERO 153), eta Gç 56, ES 402, Xurio I, 25, tit., CatLav 261 (V 132) edo Harriet (FE 330 "avancer, aitiçiatcea").

¹¹³⁰ Larramendik *elkar* aditzondo gisa erabiltzeko joera dauka, hots, aditz laguntzaile iragangaitzekin (cf. OEH, s.v. *elkar*).

AITZINDARI "adalid", "caudillo", "guía", "guía, de danzas, juegos, &c.", etab. a) orokorrean cf., adib., *Non Iesus aitzindari guregatic sarthu ičan baita* "praecursor" (Lç He 6, 20), *Gurutcearen bandera aitzindari harturic* (EZ Man II 53), *Ainguiru guztien lehena, aitzindaria eta aguintaria* (Ax GGERO 139), edo ES 141, Xurio III, 32, 2, *CatLav 55* (V 36) eta Harriet (FE 337 "capitaine, aitzindaria, capitaiña"). b) "guía": cf. *Ceren ezta munduan halaco aitzindariric, guidariric, argui-eguilleric eta ez eracusleric, nola baita arraçooin naturala* (Axr GGERO 420), *Gauza guztietan behar dela aitzindari edo gidari on bat* (ES 141) eta *Hura ičanen da gure laguntçaille, guidari, aitzindari* (Xurio III, 56, 6).

AITZINDU "adelantar", "anteceder, preceder", "anteponer", "anticipar", "prevenir, anticiparse". a) "adelantar", etab: cf., adib., *resuscita nadinean aitzinduren natzaiçue Galileara* "praecedam" (Lç Mc 14, 28), *hobenduri cerori baçara, orduan çu çara obligatu aiticintcera* (Ax GGERO 295) edo *CatLav 68* (V 42). b) "prevenir": cf. *launaren aduenimenduan ezgaitzaitzela aitzinduren lo daunçateney* "non praeveniemus" (Lç 1 Thess 4, 15), *hartaracotçat, aiticinduric beçala, ordenatcen du legueac, egotz ahal deçaqueçula obra berria* (Ax GGERO 79).

Gauza bera gertatzen zaigu ondoko hitz edo esapide guztiekin ere:

ahal izan "poder", *ageri* "aparecer" eta "patente", *agerri* "manifiesto", *agerrian* "públicamente", *agit* "recio", "reciamente", *aitzin* "delantera", *aitzinat* "adelante", *aitzinean* "delante", *aitzineko* "previo", *aitzinetik* "(de) antemano", *akaban(t)za, ala bada, alaber, hala biz, alako maneraz non, alako moldez non, alarik ere, alatan, aldaratu, (anitz) aldiz, (asko) aldiz, alegeratu, alfertasun, amaborz, amalaur, amatasun, ameka, amultsu, anbat* "tanto, tanta", (zenbatenaz...) *anbatenaz, anda* "literilla", *andredena, andre dona, animotsu, anizetan, ansikabe, (h)antu, antze* "modo", *a(h)ozpez, apez, apezpiku, aragitsu, aragizko, aragizko bekatu, aranzezko, ararteko, arat, arauaz, arauera, araura, arbuiaitu, ardi errebelatu, ardietsi* "conseguir", *are geiago, argi-alba, arin* "venial", *arinki* "ágilmente", *arnegari, arnegatu, arnegu, arno, arrai, arraiki, arraitsu, arrastu* "anochecer", *arrazoin, arroin, art(h)a, art(h)atsu, arte* "espacio", *arte* "red", *arteraino* "hasta", *arterainoko, asaiatu, asberapen* "suspiro", *askeria, aski izan, astelegun, ats* "respiración" eta "soplo", *ats* "asqueroso", *atzaman, atzari, atzeman, au(h)en, aurtiki, ausarki, ausart, ausartatu, ausar(t)zia, auste* "fracción", *auta* "elección", *autatu* "elegir" eta "elegido", *autetsi, azaita, azkuntza, azpiratu, aztandu*.

9.2.6. Eztabaidatzeko hitzak

Gutxi batzuetan, berriz, iturrietatik baten aldeko argudioak kausi daitezke, era batekoak edo bestekoak:

a) Grafia, jadanik badakigu *HH*-an oso argudio ahula izan ohi dela; halaz ere, neurri batean bederen formazko argudioak oro har osagarri modura erabil daitezke beti, eta batzuetan erabakitzaile izan ere:

ABOATU: Lç *aboatu* vs EZ *auoatu*.

APART <appart>: Lç vs gainerako guztiak.

HARAINZINA "antiguamente" < *haraiñcina* "anciennement" (Ht FE 327) vs *araitçiña* (EZ Man I, 44, etab.).

b) Esanahia, beti bezala, erabil dezakegun argudiorik ziurrenetakoa da:

ADATS "cabellera, pelo largo" eta "melena" < adib., *Orduan Mariac (...) vncta citzan Iesusen oinac, eta ichuca citzan bere adatsaz* (Lç Io 12, 3) vs *Ecín icenda açaquet lastu gabe adatsa* (EZ Man I, 32) edo *buruco adaxa eta viçarra* (Harb 112), 'pelo' baino ezin burura ekar zezaketanak, cf., halaber, *adatsa izur eta kroskoilla* (ES 188).

ADINTSU "anciano" < Ht FE 327 "ancien, çaharra, adinxua" vs *Haur ttipittoak bezala, presuna adintsuak* (EZ Man I, 128), nondik esanahi orokorrago bat ("de edad"-edo) aterako zukeen.

AGORTASUN "secura" < adib., *berthutean lachatu gabe çure bihotceco agortasun eta nahastura gucion gatic* (Xurio III, 7, 1) vs Ht FE 427 "sterilité, agortassuna".

ARALDE "acompañamiento grande", "comitiva", "séquito, acompañamiento", "seguimiento", "serie, orden de cosas", *araldeak geratu, gelditu* "(hacer) alto": 1) "acompañamiento grande", "comitiva", etab. < *ceini lagund baitzequiön guiçon araldebat, laur ehunetarano* "cui consensit numerus virorum" (Lç Act 5, 36); 2) "serie": < *Itsassoco biayetaco othoitcen araldea* (EZ Man II, 127); 3) Etxeberri Sarakoarengan, ostera, 'tropa' (*tropa eta aralde* 142) edo 'talde, multzo' (*Egun kausitzen da arbuiatua eta mesprezatu bi jende araldez. Batzuek dira...* 163) izaten da.

ARATZ "limpio" < *aratz eta garbi gelditzeko eta egoiteko* (Ax GGERO 366) vs *Andre tatxa gabea. Andre aratza* (EZ Man II, 198), ziurrenik 'puro' itzulpena eragingo zukeena.

ARRAILATU <arrallatu> “hender” < *harriac harraillatu ciren* (Exlzp 344) vs *halaber ethortzen naiz / Beldurrez arrailatua* (Gç 122) edo *Bai ifernuko kharrak / Gustia nau arraillatzen* (ib. 104); baina, dena dela, cf. *Pareta zahar, arrallatu eta hirrituak* (ES 97), eta ohartu grafiazko berdintasunari, nahiz hala-holako argudioa izan.

ARTOS “cuidadoso” > *Içan çaitte erne eta arthos Jaincoaren cerbitçuan* <-uau> (Xurio I, 25, 1), etab. vs Ht FE 329 “attentif, arthosa”.

c) Esanahiak aurkako papera ere joka dezake, iturrigaiak alde batera utzita aukera berriak bilatzera behartuaz:

AIER *ayerra* (mug.) “inclinación, afecto, devoción”, *ayera* (mug.) “propensión”: Lehenago adibide bakanak baino ez ditugu: *Celatan ceudela, eta cerbait harê ahotic hatzaman aiherez çabiltzala, accusa leçatençat* (Lç Lc 11, 54) eta *Berari cioten begui / Ceiharrez beguiratcen, / Asqui ciotela bere / Aiherra er]rfacusten* (Noel 108, Akas 91), baina aurkako adiera adierazten dute, argi eta garbi.¹¹³¹

Aukeran, badirudi errazago dela *aiher izan*-en adibideetatik aterea izatea: cf. *Ayher ciraden bada haren hatzamaitera, baina populuaren beldur ciraden* (Lç Mc 12, 12), *portu itsas adar çuen bati ohart cequizquión, hartara, equin albalute, vncia egotzi aihher ciraden* (ib. Act 27, 39) eta *Ceren* [erleak] *eztari, nola baita gogo* [sic, *goço*-ren orde], *eta icena duen beçala, ezti, anhitz baitarraica, eta baitçaiça aihher* (Ax GGer 35). Dena dela, oraindik errazago deritzat *aiertu* “inclinarse de propensión y afecto” (< Ax) aditzetik jaulkia edo, nahiago bada, haren arabera itzulia izateari. Kontuan izan bitez -R bukaerarekiko zalantzak, eta aditz honi Larramendik eman zion garrantzia, *Erans*-ean berriro (“inclinarse” itzulita) jaso baitzuen.

ALDAGARRI “vestido”: cf. Ht EF 271 “*aldagarria, habit*” eta FE 436 “*vêtement, aldagarria*”. Lehenak nekez azal dezake *HH*-ko sarrera, eta bigarrena *Erans*-erako erabili zuen zatian oso aurrera dago. Hitza, adiera orokor honetan, lapurterazko liburuetan aurkitzen da (cf. *OEH*, s.v.), baina Harrietz gainera *EZ*-ren *Eliçara* liburuan bakarrik lekukotzen, dakidalarik.

ARRAIA “raya”, etab.: cf. “*ligne, lerroa, arraia*” (Ht FE 380); ez itzulpenak, ez lekuak laguntzen dute.

ARREMAN “comercio”, “permuta”: cf. *Iracurtcen hari nauc bethi* [ni, merkataria] / *Eta bethi escritcen: / Helas! ordean har, emanic / Nic ez Cerucotç caussitcen* (Gç 447, Akas 204) eta “*commerce, tratu, haremana* [sic]” (Ht FE 341). Bigarrena, hutsa gorabehera, aski izan liteke *HH*-ko lehenengo adiera azaltzeko; ez bigarreneko, ordea. Gasteluzarren adibidea, berriz, ez da batera argigarria, nik uste, hitzaren esanahi zehatza ezagutzeko.

Bide batez, *aiher*-ekin lotuta daude hurrengo hitzok ere:

? AIERA (mug.) “lado”: Litekeena da *aiher* bera izatea, interpretapen txar edo askeago baten bitartez.

AIER IZAN “aceptar personas, *berdin diranen artean batari ayer-ago besteari baño izatea*”: berriro ere -R bukaerarekiko zalantza; adibide berezi honek uste baino Larramendik *aiher izan* esapidea hobeto ezagutzen zuela erakusten du, era arruntean jasotzen ez badu ere, harekin esaldi bat egitera ez eze konparatiboan erabiltzera ere ausartzen baita. Dakidalarik, adiera honetan datiboarekin erabili zuen bakarra Axular da, gorago aipatu adibidean, hain zuzen.¹¹³²

d) Esanahiari baino, pasartea itzultzeko eta, beraz, hitza ongi ulertzeko erraztasunari begira erabaki daitezke hurrengoak, areago Leizarragaren testuak Testamentua ongi ezagutzen duen irakurlearen interpretapen lan gutxi eskatzen duela kontuan izanik:

AHANZKOR “olvidadizo. Lat. *obliviosus*” < *ceren ezpaitate ençule ahanzcor içan, baina obraren eguille “obliviosus”* (Lç Iac 1, 25) vs *Halacotz launa delaric gaztigura berantcor, / Eztuc ceren enganatu alleguia ahantzcor* (EZ Man I, 91).

ABOATU “confesar. Lat. *confiteri*” < *Bada norc-ere aboaturen bainau guiçonén aitzinean, aboaturen dut nic-ere hura ene Aita ceruëtan denaren aitzinean “confitebitur”* (Lç Mt 10, 32) vs *Pena particularentçat hau behar duc notatu, / Cein ohi baitute çuhur guztieç auoatu* (EZ Man I, 106).

HATZ “huella. Lat. *vestigium*”, “vestigio. Lat. *vestigium*” < *gure aita Abrahamen fede preputioan çuenaren hatzari darreizconen-ere “vestigia”* (Lç Rom 4, 12), *ezgara hatz ber-batez ebili içan? “vestigis”* (ib., 2 Cor 12, 18) vs *Halaber da eçagutcen beretic herioa, / Ecen lastima-garria vtztendu hatz ondoa* (EZ Man I 43), *Sala urrezco horretan / Passaiatcen denean, / Lehenac çuec çarete / Bethi haren hatcean* (Noel 205, Akas 154).

¹¹³¹ *OEH*-ak Etxeberrirena “propensión, inclinación; deseo” adierapean sartu badu ere.

¹¹³² *OEH*-ak (s.v. *aiher*) dioenez: “Ya desde Leizarraga se diferencian los significados ‘inclinarse, tender a’ y ‘odiar’, este último siempre con complemento en dativo”.

e) Forma eta kokalekua:

ALOKAIRU “acostamiento, voz antigua, sueldo” < *Dei itzac languileac, eta paga iecéc alocairuä* “mercedem” (Lç Mt 20, 8), etab.¹¹³³ vs *iorral* <iot-> *eta alocairu* (Ax Gero 169), nondik “jornal” esperoko genukeen; gainera, <alacairu> irakurtzen da bigarren argitalpenean (*ibid.*): *HH*-ko *allacairu*-z ik. § 9.2.7.3.

f) Sarrerakideak:

ANTZE “maña” [+ *maña*]: cf. *orduan* [Deabruak] *bere artea, antcea, maiña, eta ahal guztia emplegatcen du* (Ax GGero 176). Beste adiera batean (“modo”) bi adibide argiok aurkitu ahal izan ditut: *irakats diezadaten zure ohoratzeko antzea* (Gç 118) eta *Ikhasaçu çure pasioneen hesteco antcea* (Xurio III, 43, 1).

g) Esanahia ez eze, testuaren lehentasuna:

ASERREKOR “enojadizo”: cf. *Coleraren iraunguiteco* [sic] *lehenbizico erremed[io]a da, bat bederac, bere condicino hasserrecorra eçaguturic, hari beguiaren eduquitcea* (Ax GGero 285) vs “facheur, haserrecorra” (Ht FE 359).

h) Formaren erraztasunaz gainera, esanahi ezberdinak lortzeko aukera ere:

*AURIZKITU a) “atropellar” < *Eta itsuac incontru ioitea, eta iragaitean aurizquitcea ezta miretsteco, etçara hargatic hasserretu behar* (Ax GGero 310); b) “pisar, calcatu, zapatu, oindicatu, aurizquitu, oñeztatu” < *Hala dabillanac, eguiten duen irabaci guztia da, lurraren aurizquitcea, çapatcea eta gogortcea* (Ax GGero 97). Siniste honetan sendotzen naute *Erans*-ean ere bi agerraldi —“acalcar” eta “golpear”— izatea, berriro ere pasarte bakoitzari adiera ezberdina antzeman ziolako seinale. Hauen aurrean, Leizarragaren agerraldi ugariak ezer gutxi esan dezakete, nik uste; gainera, honek sarritan partizipioa *aurizki* dela jakiteko bide ematen du (*aurizki izan* Lc 8, 5, *aurizkia* Lc 21, 24, *aurizkiren* Apoc 19, 15).

i) Kokalekua Etxeberri Sarakoaren eta Harrieten arteko lehia desegiteko interesgarria izan daiteke hurrengoan, lehenaren hiztegikoa hasierako lekuetan espero genezakeelako, eta bigarrenekoa, berriz, dagoen lekuan, hain zuzen:

AZKAR “fuerte, fuertea, indartsua, indartia, erscona, sendoa, portitza, azcarra” < Ht FE 362 “fort, en fait de force, sendoa, hazcarra”.

j) *Erans*-en arabera erabakiko dut ondokoa:

AN(T)SIATU “afligir”, etab.: cf. *antsiatu* “afligir” (*Erans*) < Ax GGero 458.

k) Hitz batean Axular Landucciren lehiakide dugu eta, azkenari eskainiko diodan atalean (§ 10.2) argudio gehiagoz frogatzen saiatuko naizen bezala, uste dut italiarra garaitzat eman beharra dugula, forma ez ezik esanahikideagatik ere:

(USAI) ADITU “oler, percibir” [+ *usaieguin*] < “oler, vsay aditu, edo egui” (Lcc 298v) vs *vsaina adituric* (...) *gardeguin* [sic] *çuen. Norc du hemen emazte urrina?* (Ax GGero 414).

9.2.7. Zalantzapeko hitzak

Lehenengo begiradan bestela eman lezakeen arren, hauxe da ikasgarri gehien eskaintzen duen atala, *HH*-ko zirrikitu guztiak ezagutu, Leizarragarengandik hartutako beste hitz bat aurkitu baino nahiago duenarentzat, behintzat.

¹¹³³ Ik. Act 1, 18, Rom 4, 4, Col 3, 24, Iac 5, 4, Iuda 11 eta Apoc 22, 12 ere.

9.2.7.1. Literatura ala ez

Eragiten dituen hitzen kopuruagatik azaltzen zaigun arazorik handiena, Iparraldeko iturrietan bakarrik lekukotzen diren eta, halaz ere, arrazoi ezberdinengatik benetako iturria zalantzan utzi edo balizko iturria ukatu behar diegun hitzak dira.

Egoera honetan aurkitzen dira, lehenik, aurkitu dugun lekukotasun bakarrak *HH*-ko agerraldia forma edota esanahiaren aldetik osoki azaltzen ez dueneko hitzak; dudarik gabe, Etxeberriren hiztegia ez ezagutzeak zerikusia izan du honetan, baina badira bestelako gertakariak ere, ziurrenik iturri galduekin baino Larramendiren euskararekin edota euskararen gainean egin zituen inferentziekin ikuskizun gehiagokoak:

ALDIA (mugagabea) *aldia onetan* "(en la) estación presente": cf. *Hala dio San Agustinec guerthatcen ceicala aldia batez berari ere* (Ax GGer 47). Cf. *OEH* (s.v. *aldia*): "Algunos autores en G y V (Larramendi, fray Bartolomé, Iztueta...), emplean *aldia* en vez de *aldi*, forma que se extiende a los derivados. Aunque quizá tenga base popular, es más reciente que *aldi*, por el testimonio de los textos y por criterios geográficos". Goian aipatutako Axularren pasartekoari, berriz, "sic" jartzen diote, besterik gabe. Jakina, Axularren lekukotasuna bakarra da (cf. *aldi gaitzean* 433, *aldi hartakotz* 245, 347, *aldirik* 44, *alditan* 131, etab.); bestalde, Larramendik arazo larriak izan zituen, dakigunez, berezko *-a* duten eta ez duten hitzekin (I, § 8.5.1) eta, bide batez, *-di* atzizkia *-a*-duna zelakoan zegoen (§ 2.1.6): alabaina, horregatik hain zuzen Axularrenak bere ustean berma zezakeen.

ALEGIA "(con el) pretexto de", *alegia eri dela, dala, eztu nai etorri* "con el pretexto de hallarse enfermo": Iparraldeko adieratzat dugun honen aurreko lekukotasun bakarrak Leizarraga eta Etxeberri Zib. dirateke; haatik, biek aditz laguntzailerik gabe erabiltzen dute: cf., adib. *marinerac vncitic ihes eguin nahiz çabiltzala, batela itsassora erautsiric, aleguia hec angurác vnci aitzinetic hedaturen* (Lç Act 27, 30) edo *Halacotz launa delaric gatzigura berantcor, / Eztuc ceren enganatu alleguia ahantzcor* (EZ Man I, 91).

ALOGATU "remendar": cf. *Bere odolaz hemen darot / Alogatu edaria, / Eta haragui divinoaz / Preparatu affaria* (Gç 244, Akes 121); bigarren honen esanahia —"preparar(se)"— da arruntena, *OEH*-aren arabera (s.v. 2 *alogatu*). Bistan da Larramendiren adiera eskaini edo iradoki zezakeen beste iturri bat behar dugula.

ANTURA "hinchazón, soberbia" [+ *goitura*]: cf. "enfleure, *hantura*" (Harriet FE 352): ala Larramendik *antu*-ren arabera egindako aldaera da? Cf. *hauntura* adiera honetan Xuriorengan (III, 43, 3).

AN(T)ZO "aire, forma, modales en el andar, hablar, &c.", "asimilación", "semejanza", etab.: forma honen iturriak bakarrik Leizarraga da (Axularrek *antzu* erabiltzen du),¹¹³⁴ eta berari, hain zuzen, egotzi dizkiot *antzoko* eta *antzora*-ren *HH*-ko agerraldiak. Haatik, Leizarragak beti aditzondo modura darabil (cf., adib., *norc-ere ezpaitu recebituren laincoarê resumá haourtcho anço, ezta hartan sarthuren*, Mc 10, 15). Nabaria iruditzen zait Larramendik *antzora* eta *antzoko*-tik izena erauzi eta hoskidetasunagatik *an(t)za*-rekin lotzeko inolako arazorik ez zuela izan behar, Leizarragaren erabilera —bere ustetan bitxia edo irregularra, apika— alde batera utzirik.

APEZGO "presbiterado", "clericato": oraingo honetan iturriak bakarrik Etxeberri dugu; cf. *Bañan agradata bahaiz Apezcoza sainduaz, / Iphizpicuac beztitu beharco au graduaz* (Man I, 19), edo *Apezcoaz deitzen duçu guizon aaldarera, / Cerbitçu particulara [sic] çuri errendatcera* (ib. 20). Halaz ere, formak ez du bereziki laguntzen: alde batetik, atzizkia "normaldu" zuela pentsa dezakegu (beherago honen adibide zenbait eztabaidatuko ditut), baina bestetik, ez gaude ziur *-koa* aldaeraz Larramendi noraino jabetu zen (§ 2.1.2). Halaberharrezkoa ez bada ere, egiantzekoa bederen iruditzen zait beste iturriren batean (Sarakoaren hiztegiaren?) pentsatzea.

ATREBENZIA "atrevimiento", "avilanteza": cf. "(il a pris la) liberté, *atrebencia hartu du*" (Ht FE 379); sarrera *HH*-rako erabili zuen zatitik kanpo dago eta, hau ziurrenik ezin gaindituzko oztopoa ez bada ere, *Erans*-ean aurreko lerroa —"(il a pris la) liberté, *escudencia hartu du*"— "libertad, *escudencia*" itxuran jasota agertzen da, agertu ere, *HH*-koa eta *Erans*-ekoa iturri ezberdinekoak direla erakutsiaz. Hitzaren geroko bizitzari begira, gainera, Iparraldeko literaturakoa (Larregi, Mihura, Duhalde, etab.) izateaz landa, bertsolarien (Udarregi, Txirrita) hizkuntzako hitza ere bada eta, oso oker ez baldin banago, herrikoia behar du izan gipuzkeraz —eta handik kanpora ere—, nahiz *OEH*-aren arabera ahozko lekukotasunak bakanak izan (*atrebintzi* GN-larr ap. Asp *Gehi*).

¹¹³⁴ Bada *antzo* (izena, gainera) Etxeberriren *Eliçara* liburuan, Duvoisinen arabera (ap. *OEH*, s.v., aital berezi batean), baina ez gainerakoetan, dakidalarik.

ATSARTU "carlear, jadear el perro cansado y falto de aliento", "resollar": cf., adib., *Bañan cerbitçu saindua ichillca çokholutan*, / *Christaüec eguinen dute hats hartceco ordutan* (EZ Man I, 67) edo *leihoric eta atheric gabea, hats hartceco, eta arguiren edo haiceren sartceco bideric ere iñanen ezтуena* (Ax GGer0 589).¹¹³⁵

ATSEGIN-SARI "(lo que se da de) guantes": cf. *Deabruac ere emaiten dio beccatuari cenbait atseguin eta placer, cenbait bazca eta goçotasun, ez eman nahiz, ez atseguin sari, baina ceren bertcela ecin engana baiteçaque beccatorea* (Ax GGer0 512). Añibarrok (s.v. *derechos*), ematen duen azalpen zehatzarekin, bermatzen du hitza Hegoaldean Larramendik ematen dion esanahian ezaguna zela: "En las ferrerías llaman a lo que se estipula que se ha de dar después del ajuste de tanto por quintal".

AURKA "cara, frontispicio", "delantera", "frente, fachada": Leizarragak leku kasuetan (*aurkhan, aurkhara*) bakarrik erabiltzen duen formatik erauzitakoa da, zalantzarik gabe; cf. *aurkako, aurkan* eta *aurkaz aurka*, jadanik iturri beretik hartutakotzat emanak.

Hauen artean esangura berezia dute Harrietek azal litzakeen baina, itxura guztien arabera, bera ezagutu baino lehenago hiztegiratutako hitzek; izan ere, batetortzeek handiak diruditen arren, beranduegi ezagutu zuen bertatik hartutako hitzak esanahikideetara hedatzeko, eta are gehiago haiekin sarrera osagarriak ("desjarretar", etab.) eratzeko (ik. § 10.3):

ARGITSU "luciente", "lucífero", "luminoso", *gorputz argitsua* "cuerpo luminoso": cf. FE 381 "luisant, *arguitxua*".

AZTAL "pierna", "jarrete", "pantorrilla", *aztalak ebaki* "desjarretar", *aztaleko antzumea* "cabra, cabrilla en las piernas", *aztaletik eldu* "apernar": cf. Harriet EF 273 "*aztala, jambe*", *ib.* "*aztala, jarret*" eta FE 372 "*jambe, azpia, aztala*".

Kasuren batean, mendebalderagoko (bizkaierazko?) erabileraren lehen lekukotasuna dela dirudi:

ARIKETA: "Hasta que venga, *datorren artean*, hasta que muera, *ildedin artean*. Y se anteponen comúnmente, *aliqueta, ariqueta, ahaliqueta*". Beriainengan (*Trat* 87r) eta, beraz, Hegoaldean jadanik lekukotuta egon arren (nahiz berak ezagutzeko moduan ez), ez dut uste Etxeberri Ziburukoak bakarrik erakutsi ziezaiokeen *harik eta* (*Noel* 217, Akes 162: *Virginia Ama egotu cen / Cure amaren aldean*, / *Haric eta çutçaz / Erdi cedin artean*) formaren transkripzioa denik, Iparraldeko formatzat *ahaliketa* (bere berreraiketa, *alikota*-tik abiatuaz) ematen ari delako, besteak beste.

Are argiagoak dira, ene ustez, Larramendik balizko iturriak baino zeraren ezagutza zehatzagoa erakusten duenekoak; batzuetan definizioaren xehetasunek ikusitakoaz ari dela dioskute (cf. *are, ataka*); bestetan, bateko eta besteko erabileraz (cf. *atar*), *sarraski* hitzari buruz egin bezalaxe; eta bestetan, ongi ezagutzen eta, beraz, zirti-zarta definitzen duenaz, iturrigaiak laguntza gehiegi eman ez arren (cf. *aiotz*):

AIOTZ "hocino, instrumento para cortar ramas, &c.", "podón", "podadera": cf. *heriotcearen sega, onen eta gaixtoen arrontatceco haiotça çorrotztua eta prestatua dagoela* (Axular GGer0 574).¹¹³⁶

ARE "arado cuadrado y plano, que tiene muchos más dientes y sirve para quitar la broza y igualar la tierra", "grada, llaman en Galicia a lo que en Bascuence *area*, que es un instrumento cuadrado para allanar la tierra arada, con púas de hierro, aunque en Galicia son de palo": cf. *golde nabarren eta arhen ere haritcea* (Axular GGer0 470), baina areago *Corografía* 56: "...para sepultar el grano y deshacer los terrones usan primero del instrumento que llaman *area*; y es un plano de tablas gruesas y unidas con treinta clavos o dientes gruesos y largos que, tirado de bueyes, desmenuza las zoyas y esconde el grano...".

¹¹³⁵ OEH-ak eskaintzen duen beste agerraldi batean (*Gero* 128) *hats* falta da GGer0-n.

¹¹³⁶ Pasartearen iluntasunaren berri Villasanteren atzera-aurrerek ematen digute hobekienik: AxH-n (s.v.) "guadaña" itzuli zuen eta argitalpenean, berriz, "machete", bestea agerrian zuzenduaz (Villasante 1976: 644, 173. oh.). Alabaina, *heriotzak* matxetea erabiltzea, oso oker ez baldin banago, Europako tradizio guztiaren kontra doa (cf. Cirlot 1985: 230, s.v. *guadaña*, ezinbestean makotua izateko arrazoieiz). Hau Larramendik ba bide zekien, jakina, baina ez ezagutzera, Villasantek lehenengora bezala, *sega*-ren arabera itzuliko zukeen.

ARLOTE "arlote", "arlote arbuya, zarpa laztan, es un refrán que de otro modo se dize *arlote igüi, zarpa laztan*, y se aplica a los que de palabra hazen ascos de andrajosos, y de obra son recogedores hasta de los andrajos" (s.v. *arlote*) vs *Erregue eta arloteec hala ditec frogatcen, / Ecen hi aute naussi beretçat eçagutcen* (EZ Man I, 44) edo *arlote, errumes eta bertce iende suerte guztiey* (Ax GGERO 262). *Erans-ean arlota* "pobre" jaso zuen (< RS).

AROTZ "herrero, el oficial principal en las herrerías grandes, *arotza*, que también se llama macero; y ahora *chiquitzallea*", "tirador, en las herrerías grandes, *arotza*, en las pequeñas, *chiquitzallea*" + *Corografía 72*: "El otro, que es el principal, disponiéndose a la faena de *iyele* en su ausencia, y en presencia a dirigir a todos tres cada uno en su ministerio al sacar la *agoa* de la fragua: llámase *arotza* en las *cearrolas*, herrerías grandes, y *chiquitzalle* en las *tiraderas* o herrerías menores, achicador y macero" vs *Alexâdre cobre-arotzac* (Lç 2 Tim 4, 14) edo *Errementaldeguian, harotçaren suteguian, hauscoac haice emaitetic guelditcen direnean, badirudi eztela suric* (Ax GGERO 325).

ATAKA "reparo o resguardo de maderas o palos que defienden a las heredades de las bestias y dexan lugar para que passe la gente" (*atacar*-en etim.): cf. *Herioa hurbiltcen çaitçunean, nola athaca hertsian eta pausu gaitcean iragan behar baituçu* (Ax GGERO 238).

ATARI "calle", "portada", "zagúan", "atrio, de casa", *atarian dago* "(está) a las puertas" + "...de el Bascuence *ataria*, que significa lo mismo, y también portal, zagúan y delantera de la casa..." (*atrio*-ren etim.) + *ataria* "en un dialecto significa la entrada o zagúan de la casa, y en otro la parte de la calle que está en frente de la casa" (1745: xix): cf. *Ea Guiristinoac, chahu / Tçatçue athariac, / Eta carricara etcha / Arrossa, eta liliac* (EZ Noel 156, Akes 122).

Eratorpen errazeko eta *HH*-an oinarriak daukan esanahiarekin iturrigaiarekin baino hobeto moldatzen direnak ere ez dira ilunago, nik uste:

AGIZTU "arreciar" (+ *pizkortu, indartu, azkortu*): cf. *Hark agitzen du bihotza* "c'est elle (la grâce) qui rend le courage (le coeur) fort et solide" (Xurio, ap. Maurice Harriet). Harrieten lekukotasunak, orde, ez dira erabat fidagarriak izaten bere iturriekiko, dakigunez; Larramendik *agitiz* "recio"-tik zuzenean eratorria ere izan liteke, beraz.

ARAZTASUN "limpieza": cf. *Guri bada mintçatceco beharda humilltassuna, / Bai halaber arimetan handi araztassuna* (EZ Man II, 6), "pureza"-edo iradoki zezakeena; cf., oster, *HH arazt* "limpio".

ARRAITU "(hacerse) afable": cf. *Harc etsaiari bihotça hautsten eta arrobatcen dio, harc beguia arraitcen dio* (Axular GGERO 295); cf., oster, *HH arrai* "afable".

Sarrerakideak taiu berekoak direnean, eta hitza ez oso-osoa usua, orduan ere azalpen hori hobetsi behar genuke, agian:

AUHENEGIN "clamar" [+ *deadarregin, ojuegin, ozengitu, eiagoratu*]: cf. "clamar, *deadarra, oju, eiagora, ozengia, auhena, deitore*" baina, bestalde, *Utz naçaçu aphur bat ene atsecabean, auhen eta nigar eguiterat* (Xurio III, 52, 3).

Baita adiera (eta forma) berezi batean agertzen denean, gainerako agerraldien iturria argia izan badaiteke ere:

AUENDU "aullar": cf. *auena* "aullido" vs *auhena* "clamar", "lamentación", "llanto", "lloro" eta *auhendu* "deplorar", "lamentarse" (azkenok < Axular).

Honelako gertakariak ez dira eratorrietan bakarrik antzematen; aitzitik, sail bereko oinarriak ere bata bestetik analogiaz sortuak (*aitaso*) edo bata bestearen arabera analogiaz itzuliak (*azama*) izan daitezke; bigarrena da dugun adibiderik argiena:

AITASO "abuelo", AMASO "abuela": *amaso* Leizarragarengan lor zezakeen (2 Tim 1, 5); eta biak Harrieten hiztegian (*EF 270 "aitaso, ayeul"* eta *FE 331 "ayeul, aitaso"*, *ib. 331 "ayeule, am[a]so"* eta *ib. 385 "grand mere, amaso"*), baina honezkerok ez dago zer esanik *amaso*-tik *aitaso* ateratzeko gai ere bazela. Ala akaso Etxeberriren hiztegian aurkitu zituen?

AZAMA "madrastra": cf. *Naguitasuna da necesitatearen eta probeciaren vnhidea eta haz-ama* (Ax GGERO 42 eta, ia hitzez hitz, ES 183), non *unhidea*-ren esanahikidea den. *HH*-ko itzulpena ulertzeko *azaita*-ra jo behar dugu, "padrastra" esanahiarekin (eskuarki San Joseri buruz) Etxeberri Ziburukoa eta Gasteluzarrengan ongi lekukotua. *Erans-ean* jaso zuen itzulpen zuzena ("ama de cría" < Ax).

Oraindik gertakari txundigarriagorik aurkez daiteke; izan ere, hurrengo hitzak *HH*-an bestela agertzen ez den Leizarragaren *aitafamilia*-ren (Mt 20, 1, etab.) ereduaren gainean eratu dira, agi denez:

AITETXADI, AITADIAPE “(padre de) familias”, ‘mugakizuna + mugatzailea’ ezohiko ordenan; cf. “familia, familia, echadia, diapea, mainada”, aurreko sarrera, hain zuzen.

Kasualitateak ote hurrengoak ere?

ADINANDI “anciano”: cf. *cein baitzén ia adin handitacoa* (Lç Lc 2, 36).

AZERIZULO “zorrera, cueva de la zorra”: cf. *Aceriec çulhoac citié* (Lç Mt 8, 20).

Iturrigaiak kontuz miatu beharko genituzke, halaber, Larramendik aztertzen ari garen hitzaren beste aldaera bat askoz usuago erabiltzen duenean, zeren eta, ezpairik gabe, gutxiengoan dagoen formaren agerraldietako batzuk buruz eginak baitira:

ADIERAZI “aludir”, “amonestar”, “dar a entender”, denetan *adierazo*-ren aldamenean; azken hau da, hain zuzen, *HH*-ko aldaera arrunta (cf. s.vv. *avisar, denotar, (hacer) entender, imbuir, indicar, etab.*); cf., gainera, *adiarazi* (s.vv. *denotar, (hacer) entender, imbuir, indicar, etab.*), Iparraldeko aldaera arrunta (Harb 1635, SP, ES, Xurio eta *CatLav*); *adierazi*-ren lekukotasun bakarra 1745 arte Leizarraga da¹¹³⁷ eta, beraz, hari zor bide dio, adieraren bat, apika, *adierazo*-rekiko analogiak eragin zezakeen arren.

ALFER “perezoso”, “albardán”, denetan *alper*-en aldamenean; hauxe da, izan ere, *HH*-ko aldaera arrunta (cf. s.vv. *apoltronado, baldío, cantonero, desidioso, etab.*); *alfer*, berriz, berak ezagutzen zituen Iparraldeko liburuetan aurki zezakeen aldaera bakarra da. Beste horrenbeste esan daiteke *alferkeria* / *alperkeria* bikoteaz (lehena s.v. *pereza* bakarrik; bigarrena s.vv. *acidia, desidia, follonería, gallofa, etab.*, + *alperkerian* “ociosamente”, etab.).¹¹³⁸

Alderantziz erabil daiteke argudioa: demagun, esapide bat hainbat aldaeratan jasotzen da literaturan, baina *HH*-an nagusi den aldaeraz bakarrik jasota dago:

AMODIOZ “afectuosamente”: cf. *OEH*: “Parece que esta expresión es sólo propia del Norte”. *amorioz* (Ax *GGero* 203, etab.), *amudioz* (Gç 466, Akes 214), *amodioz* (ES 109).

AMODIOZKO *amodiozko egintza* “acto de amor”, *amodiozko prenda* “prenda de amor”: cf. *izen amoriozko* (Mat 272), *amoriozko haserrea* (Ax *GGero* 278), *amudiozko sua* (Arg *DevB* 30), *amudiozko Hostia* (Gç 110), *amoriozko aktoa* (OA 53), *amudiozko ithurburu* (Xurio III, 10, 2), *amodiozko Aktak* (*CatLav* 111, V 61).

Tradizioa alde batera uzten duen forma analogikoren bat (*aitzinako*) edo “Iparralderatzeren” bat ere kausi daitezke *HH*-an, hainbatetan buruz ari zela berriz erakutsiaz:

AITZINAKO *aitzinakoak* “antepassados”: cf. *anziñakoak, antxinakoak* sarrera berean vs *aitzineko(ak)* Lç, Ax, ES eta Xurio.

AITZINERAT *joanen naz aren aitzinerat* “(a su) presencia”: cf. *joango naiz aren aurrera*. Bi euskalkitako esapidea bildu nahi izan zuen eta badirudi buruz egin zuela, ezen liburuetan *aitzinerat* ‘hemendik aurrera’ izaten baita (cf. Ax *GGero* 16, ES 185), genitiboarekin adibideren bat edo beste badago ere (cf. Gç 88); klasikoa *-(r)en aitzinera* izango litzateke: cf., adib., *launaren aitzinera* (Lç 1 Thess 4, 17), *bere aitzinera* (EZ *Man* I, 120), *bere aitzinera* (Ax *GGero* 32), *zure beguien aitzinera* (Gç 217) edo *sakramentu sainduaren aitzinera* (*CatLav* 209, V 106).

AITZINETIK “acatamiento, presencia, y se usa en ablativo comúnmente: *aurrean, aurretic, aitzinean, aitzinetic* <-t>”, “(Dios) delante, *Jaincoa aurretic, aitzinetic*”: klasikoa *aitzinetik* ‘aurretiaz’ da, *HH*-an ere jaso.

HAUR *berce haur* “estoto” [+ *beste au*], *salbu haur edo hori* “excepto, exceptuando esto o lo otro” [+ *ezauta au edo hori, lekat au edo ori*]: alperrik saiatuko gara testuetan bilatzen, nik uste.

Tradizioa alde batera uzten du, halaber, zenbait hitzi ematen dien esanahian, beti ere adiera horretan lehen lekukotasuna eskainiaz:

¹¹³⁷ Añibarrok, eta haren ondoren Azkuek, aldaera gipuzkerazkoa dela esan eta, horregatik besteak beste, euskara batuan *-arazi-z* egindako aditzen salbuespen bakarra izan arren. Irri onik eginik izango dugu Larramendi, dagoen lekuan dagoela.

¹¹³⁸ Aitzitik, *alfertasun* / *alpertasun* bikotea bestela azaldu behar delakoan nago, eta honegatik Iparraldeko literaturari oro har zor zaizkion hitzen artean jaso dut *alfertasuna*: izan ere, agerraldien aldetik paretsuan dabilta (lehena s.v. *pereza*, bigarrena s.vv. *acidia* eta *pereza*) eta, adibidez, Axularrek zenbat darabilen kontuan izanik, baderitzat *alpertasun* Iparraldeko literaturan ikasi zuen hitzaren aldaera automatikoa baino ez dela.

ARIMABAGE “desalmado”: cf. “inanimado, sin alma” Lç, EZ eta ES.

ARINTASUN “agilidad”, etab.: cf. “frivolidad” Lç eta Xurio.

Hauetako batzuetan, osagaien esanahiari tradizioa baino atxikiago agertzen da eta, beraz, “esanahi etimologikoa” praktikan aurkitzen zuena baino nahiago izan zuela dirudi, edo halaxe ulertu zuela —inoiz adibideren batek hartaratua, agian:

AURTASUN “puerilidad”: cf. “infancia” Lç, Ax eta Gç.

AZKENDU “acabar”, etab: cf. “permanecer, quedar; quedar en último lugar” Lç, Mat, EZ, Harb, “rezagarse, perderse” Ax.

Eta, azkenik, inoiz tradizioa forman uzten du alde batera:

ATSAZKEN “espiración, último aliento”, *atsazkena eman* “espirar, morir”: cf. *azken hatsa* EZ (*Man I*, 57), Ax (*GGero* 196) eta Harb (67).

Bakanak dira, ostera, alde batera edo bestera erabaki ahal izan ditugun hitzak. Zalantzapean jarri behar ditugun hitzen artean talderik handiena, Hegoaldean (ere) herrikoiki diren hitzak dira, zeren eta nekez asma baitaiteke entzuteak ala irakurtzeak, zeinek izan duen eragin gehiago eta, areago, ziurrenik gehienetan (baina cf. gorago *are*, *ataka* eta *atar*) jakiterik ere ez baitago. Halakoekin, beraz, iturrigai idatziak badirela agertzeaz gainera, egin dezakedan bakarria entzun ere egin zezakeela azpimarratzea da, *sarraski* hitzaren modura.¹¹³⁹

Halako hitzekin baderitzat bi talde nagusi egin daitezkeela, eta bakoitza ikuspegi ezberdin batetik hartu, ondoko ikerketa zehatzago baterako gida modura. Lehen taldean, iturrigai bakar bat —sarritan agerraldi bakarrekoa— daukatenak kokatuko nituzke: halakoa izateak argitasun gehiago egin dezakeela dirudi, konparabide bakarria izanik, hain zuzen, bai iturritasuna bermatzeko, baita ukatzeko ere gehienetan aukera hobe eta ziurragoak eskaintzen baitizkigu, goragoko adibide ia guztiek erakusten duten bezala. Bigarrenean, berriz, batetik gorako iturrigaiak dituztenak sartuko liriateke, eta hauen artean Iparraldeko tradizioan orokorrak diren hitzei —liburu guztietan, edo ia, agertzen direnei— tentu gehiagoz begiratuko nieke, honelakoetan literaturaren eragina oro har gainerakoetan baino egiazkoa izateko aukera gehiago dagoela nabarmena iruditzen baitzait. Dena dela, hona hemen direnak:

abaila “honda”, *abarrots* “ruido”, *abiatu* “comenzar”, *adiskidetu* “reconciliar” eta “(hazerse) amigo”, *afalandoan* “(al) acabarse la cena”, *agerian* “patentemente”, *agian* “acaso”, *agintari* “superior, el que manda”, *agor* “seco”, *agortu* “secar”, *aia* “papilla”, *aingura* “áncora”, *ain(t)zira* “laguna”, *aipatu* “mencionar”, *aitabitxi* “padrino”, *aitortu* “confessar”, *aitzakia* “excusa”, *aitzurtu* “cavar”, *aizeman* “soplar”, *aizetsu* “airoso, de mucho viento”, *ala ere* “(sin) embargo”, *alargundu* “enviudar”, *alarguntza* “viudedad”, *alde* “(a) favor”, *aldean* “para lo que, en comparación”, *alderatu* “acercarse”, *aldizka* “(a) veces”, *alor* “sembrado”¹¹⁴⁰, *al(t)zo* “seno, regazo”, *anditsu* “divieso”, *ao* “filo”, *apaingarri* “adorno”, *apartean* “separadamente”, *apo* “sapo”, *apurka* “(a) migajadas”, *ara an* “he allí”, *ardantz* “viña”,¹¹⁴¹ *are* “aún”, *argaldu* “enflaquecer”, “extenuar”, *arindu* “aligerar”, “aliviar”, *arrantxo* “pececillo”,

¹¹³⁹ Hegoaldeko lehendabiziko agerraldiei dagokienez, aurrerago (§ 12.2.2) azterkatuko ditugu haietako askoren euskalki hedadura eta bestelakoak.

¹¹⁴⁰ *OEH*-ak, euskalki marketan “gral. (no V, Sal, R)” jartzen badu ere, geroago iruzkin argigarri bat egiten du: “General al Norte y en Navarra. Poco usado por los autores guipuzcoanos hasta bien entrado el s. XX, en el que se extiende a las obras de este dialecto (por influencia de Orixe?); posteriormente tbn. se encuentra en textos vizcaínos”. “Poco usado”-k Mendiburu eta Iztueta bakarrik esan nahi du.

¹¹⁴¹ Halaz ere, esan behar da Ax. *ardantzetik* formatik *HH ardantz*-ra igarotzeko ez dagoela inolako arazorik.

arran(t)zale “pescador”, *arrasto* “rastrot”,¹¹⁴² *artera*, *artegi* “redil”,¹¹⁴³ *artizar* “lucero”,¹¹⁴⁴ *arzain* “pastor”, *artzekoa izan* “(tener qué) aver”, *artzekodun* “acreedor, el que tiene qué aver”, *aspil* “arteson”, “gamella”, *asti* “tiempo”, *atsegin* “festivo, alegre”, *aurregin* “parir”, *aurtxo* “chicuelo”, *austerri* “(miércoles de) ceniza”, *autz* “carrillo”, *auzilari* “pleiteador”, *auzoko* “vecino”, *auzpez eta auspez* “boca abajo”, *axaletik* “superficialmente”, *azil* “noviembre”, *aztia* “adivino”.

Nolanahi ere dela, halako egoeran dauden zenbaitetan erdietsi ahal izan ditut egiatan Iparraldeko literaturatik (osoki edo zatika) hartuak direla frogatzeko zenbait xehetasun:

(H)ABE *abeac* “apeos, puntales”, *habea*, *abea* “coluna”, *abea* “fuga, en los edificios”, “macho, machón”, “poste, pilar”, “viga, que sustenta otras”, etab. “sostén, sustentáculo” (*suave*-ren etimologian). Gainerakoez dena dela, *habe* “coluna” Iparraldeko tradizioetik hartua da (vs *abe* “coluna”: cf. Kap 134 *koluna edo abeari*), zehazkiago Leizarragarengandik, dirudienez (cf., adib., *habe* “columnae” Gal 2, 9); beste horrenbeste esan daiteke *abe* “sostén, sustentáculo” adierari buruz, Etxeparegandik ezaguna: cf. bereziki *habea eta sostengua* (Lç 1 Tim 3, 15), *habeac, sostenguac* (Ax GGero 365), *habea eta sostengua* (ib. 455), etab.

APUR BAT “nonada”: cf. (*igurikazu*) *apur bat* “(aguarda un) poco” < *iguricaçu bertce appur bat* (Ax GGero 53), *Iguricaçue appurbat* (ib. 120), *Iguricaçu oraiño appurbat* (ib. 239), *iguricaçu aphur bat* (Xurio III, 47, 1) vs *Iduricaçu [sic] aphur bat* (ib. 16, 1).

ARTEZ “perpendicularmente” vs “directamente”, etab., behe-rago ikusiko dugun bezala, oso ondo lekukotua Hegoaldeko literaturan; lehenerako, ostera, cf. *Ceren [iguzqui]ac eguerdian gaindic behera, artez, eta arratz aldean saihetsetic, soslay emaiten baitu* (Ax GGero 192). Leku beretik *soslay* “(a) soslayo” atera zuen Erans-erako.

ATZAPAR “garra”, etab., ATZAPARCA *atzaparka batu, bildu* “arrebainar”, (*illeak*) *atzaparca atera* “repelar”, ATZAPARCATU “arañar”: cf. *Ecen haren penatceco burreu ordenatuac / Iratchaquitcen diotça atçapar çorroztuac* (EZ Man I, 94), *nori gogora citçacaion Daniel beçalacoa, lehoin gose-minduac bere menean eta atçaparren artean eduquiz güero, desequin gabe eta iretsi gabe vtcico çutela?* (Ax GGero 131), *hasico dira bere buruen maradicatcen, beguitartén larrutcen eta atçaparcacen* (ib. 609). Ez dira adibide txarrak, baina ez digute ziurtasunik eskaintzen; bai, ostera, hurrengo honek: *Ama gachoc eciten / Eman dehadarrari, / Eta atcaparca athera / Illeac buruari* (Noel 89, Akes 76).

Batzuetan, ostera, susmoa baino ezin aurkez dezaket:

AIREAN “(en) volandas”: cf. *airean gora altxatu* (EZ Man I, 93, Mat 190, Arg DevB 178).

ALTZAIRU “acero”: hitz honek euskaraz dituen aldaera guztien artean hauxe bakarrik agertzea oso adierazgarria iruditzen zait, EZ (Man I, 46) eta Axularrengan (GGero 608) —baita ziurrenik ES-ren hiztegian, idatzietan agertzen denez gero— irakur zezakeela kontuan izanik.¹¹⁴⁵

ARAXE “allá ir, ara, arat, araise”: OEH-an ez dagoenez gero (ez s.v., ez eta *hara* azpian ere), batetortzea agerian jarri baino ezin dut egin: cf. *lar çaitzte hemen, harache ioanic othoitç daididan* (Lç Mt 26, 36).

? ATXURI <achuri> “borrego”, “cordero”, “recental”: formarik zabalduena *axuri* denez gero, egiantz handiz esan daiteke, nik uste, horren ordez dagoela eta, beraz, Iparraldeko idatzi batetik erdietsi zukeela. Dakidalarik, Gasteluzarrrengan (*Achuri emea*, Gç 253, Akes 124) bakarrik irakur zezakeen.

ATZE “exótico”, “extranjero”: cf. OEH (s.v.) “Entre los meridionales parece significar sólo ‘extraño a la familia’. Azkue recoge ejemplos orales vizcaínos y guipuzcoanos, pero en los textos es sumamente raro: lo que se emplea es *arrotz* y *atzerritar*”. Cf., hortaz, *erdara atze batean* (Xurio i), adib.

Susmoa baino gehiago izan dezakegu *adimentu* hitzaz den bezainbatean: jadanik ikusi dugu HH-ko agerraldi zenbait (*adimentuz, adimentuzko otoitz*) zuzenean Leizarragarengandik hartuak direla, *-mendu > -mentu* aldaketa soilarekin. Oro har HH-an hainbat bider agertzen den

¹¹⁴² Etxeberrik behin eta berriz *arrastotik jarraitu* esapidea erabiltzen du (cf. Man I, 54, 79, 86), HH-ak ez jasoa. Aitzitik, Irazustak *rastrot* erabili zuela ere kontuan hartu behar da.

¹¹⁴³ Cf., gainera, Landucci *artei* “aprisco de ovejas”; baina, dena dela, *redil* hitzak gaztelaniaz Bibliarekin daukan erlazioa ere kontuan hartu beharko litzateke, iturria Leizarraga izan litekeelakoa eztabaidatzerakoan.

¹¹⁴⁴ Liburuetan ikasi bazuen, aski goiz egin zuen, zeren eta jadanik gramatikako bertsoetan erabili baitzuen (1729: 393 *artizar* “lucero”).

¹¹⁴⁵ Adibidez, Añibarrok, kontu hauetaz ez-antsiatuago apika, jadanik *kaltzaidua, galtzaidua* (biak bizk.) erantsi zituen.

adimentu hitza Iparraldeko literaturako *adimendu*-ren isla baino ez dela erabaki behar dugu; arrazoa bat eta bakarra da: ordura arteko Hegoaldeko literaturan *entendimentu* (Bet 23, Kap 17, OA 99, Iraz 45, Arz 53) zein *entendamentu* nafarrerazkoan (Ber *Trat* 59v, *SermAN* 2, Eliz 15) formak bakarrik erabili izana.

Bereiz aipatzekoak dira *agur*, *agur egin* eta *Agur Maria*: aski ezaguna da XVIII-XIX. mendeetan Hegoaldeen hau zela eta eliz idazleen artean sortu zen iskanbila (Larramendi bera, Añibarro, etab.);¹¹⁴⁶ egin zituzten gauza gehien aitzindariak Iparraldeko literaturan aurkitzen dira:

AGUR "salutación": adiera honetan ordura arte EZ (*Man I*, 133) eta Arg (*DevB* 51) bakarrik.

AGUR EGIN "saludar": adiera honetan ordura arte EZ (*Man I*, 59), Ax (*GGero* 295) eta Gç (69) bakarrik.

AGUR MARIA "Ave María", cf. "Esta eusqueraz esan bear *Jaincoac salva zaitzala*, ezpada *agur Maria*" (s.v. *salutación*): hau da, batez ere, iraultza: *Agur Maria* Mat (2), EZ (*Noel* 33, Akes 42), Gç (37), ES (274). Ideia nondik hartu zuen, Larramendik berak kontatuta utzi zigun, Gandarari egin zion gutunean: "Agur eder hau da latiñezco *Ave*, *Salve*, *Vale* oiei dagotena, eta euskaldun geienak eztazautena (...) *Ave gratia plena*, agur graziaz bete, gure beco errietan esaten dan bezala, eta Franciaco euskaldunetan ere bai": *sarraski* bezala, berriro ere.

Eta azkenik, hitz batzuk ondo xamar lekukotuta daude bai Iparraldeko literaturan, baita Hegoaldeko apurretan ere:

adobatu (Lcc, Lç), *aitonen seme* (Isasti, Etxabe, EZ, Ax, ES), *aldegin* (EZ, Ax, OA), *amarren* "diezmo" (Lcc, Lç, Bet, Mat, Ber, Kap, VJ, Gç, *SermAN*, Eliz, Ht), *anditasun* "grandeza", etab. (Lç, Mat, EZ, Ax, Kap, Gç, ES, OA, Xurio, *CatLav*, Iraz), *andiro* "grandemente", etab. (Garibairen erref., Lcc, EZ, OA), *apur* "migaja" (Lcc, Lç), *arerio* "adversario", "antagonista", "contrario", "enemigo", etab. (Bet, EZ, Kap, VJ, Arz, Urkz), *arotz* "carpintero" (RS, EZ), *arrats* "noche" [ezaguna denez, 'iluntzea, ilunabarra' izaten da eta, honegatik, Hegoaldeko testu askotan "tarde" itzulpena kausitzen da]¹¹⁴⁷ (Lç, RS 538 "tarde", RG B48 "tarde", Mat, *Rls* 41, EZ, Ax, Kap, etab.), *arren* (TAV 3.1.5, EZ, Ax, Gç, ES, Xurio), *arrigarri* "admirable" (Arg, Gç, OA, Xurio), *artez* "derecho" (Lcc, Ax, Arz), "directamente" (Ax, Kap, Arz eta Urkz), *artuemanak* "dares y tomares" (Mat, Isastiren erref., Ax), *astiro* "despacio", etab. (Kap, Mik, Gç eta Urkz), *atzegin* "rascar" (Lcc, Ax, Mik), *auzitan ari*, *ibilli* "pleitear" (Lcc, Ax, *CatLav*), *azienda* "hacienda" (EZ, Ax, Harb, Kap, OA, Arz, Urkz eta Eliz), *azkeneko* "postrer", etab. (Mat, Ber, EZ, Ax, Arg, Gç, ES, Xurio, *CatLav*, Eliz, Iraz), *aztura* "hábito", "habitación", *astura* "costumbre" (Garibai eta Isastiren erref., Ax, ES, Xurio, Ht).

Alderantziz, orain artekoak ikusirik, ondokoa ahozkoa delakoan nago:

AMEN "parte, porción", "pedazo": Iparraldeko tradizioan *ahamen* "bocado" (Lç, EZ, Ax), baina azken hau *aho*-rekin lotu eta gordeko (edo berreraiketaren bitartez aldatuko) zukeela uste dut: eta, izan ere, *HH*-an bada *aoimen* "bocado", beste lekukotasunik ez duena eta, beraz, ekintza horri egiantz handiz egotz dakiokena, zehazkiago **ahumen* sarrerakidearen berranalisiari (ik. § 9.2.7.3).

9.2.7.2. Eratorriak noraino?

Aurreko atalean *araztasun* eta *arraitu*-z esanak aukera ematen digu eratorrietan iturriek jokatu duten papera eztabaidatzeko. Dagoeneko zenbait hitz eratorri (Lç *aditzaile* "inteligente", *arrapakeria* "rapiña", *asmatze* "adivinación", Ax *auskor* "frágil", *auste* "infracción", EZ *ahalketi*

¹¹⁴⁶ Larramendiren lekukotasunak bilduta daude (ik. Lakarra 1985b: 262-263). Añibarro (*ME* 123) honela dio: "Eusquera uts garbian esan bear liteque *Agur Maria*, Nafarroaco cartilla eusquerazcoan [bere nafarrerazko dotrina, noski] dagoan leguez: bada *Ave* latiñari quendua da: ta onegaiti erdeldunac bere lecuán ifinten dabe *Jangoicoac salva zaizala Maria*". Etabarren artean oso bereziki sartu behar da Larramendiren bibliotekan (Altuna 1984: 79, 249. zb.) agertzen den hurrengo eskuizkribua, gaur egun, dakidalarik, ezezaguna: Juan Bautista Argote, *Primera parte del Agur del vascuence vindicado contra el Adió del romance malentendido* (gaztelaniaz, urtegabea).

¹¹⁴⁷ Dena dela, *arrats itxia baino illunago* (Lar *SAGust* 8) bezalako adibide bat, ordura artean —idatziz bederen— jasota ez dagoen adiera baten lekuko da.

“vergonzante” edo *CatLav agertze* “epiphanía”, adib.) ziurtzat jo ditut, batez ere euren esanahi berezi eta iturriko agerraldien zalantzagabekotasunean oinarrituta. Beste horrenbeste egin dut, gainera, aldaketaxoren bat aurkezten duten zenbaitekin (*HH adimentuz* “mentalmente” eta *adimentuzko otoitz* “oración mental” vs Leiz. *adimenduz* eta *adimenduzko otoitz*, *HH amoriobage* “desamorado” vs *Ax amoriogabe*), arrazoi berberengatik, noski.

Araztasun eta *arraitu*-ren adibideek begibistan jartzen digute inoiz ahaztu behar ez den *HH*-aren beste alderdi bat: edonondik erdietsitako oinarriak bere kasa eratortzeko joera, iturrien erabilera hein batean bederen mugarazten diguna kasu haietan eta, gutxienez eztabaidatzera beste batzuetan:

AHALKAGABE “descarado”, etab., *ahalkagabeki* “desvergonzadamente”, etab., *ahalkagabetu* “descararse”, etab., *ahalkati* “vergonzoso”, etab.: Iparraldeko tradizioan zegoen *ahalketu* (Lç, Ax) / *ahalkatu* (Gç, ES, Xurio, *CatLav*) bikoiztasuna jasotzeaz gainera, *ahalketi* (EZ) bakarrik onartzen du era horretara; gainerako guztiak, berriz, *ahalka*-oinarriaz agertzen dira: cf. *ahalkagarri* “vergonzoso”, etab. (EZ, Xurio, *CatLav*) baina *ahalkegabe* (EZ, Ax, *CatLav*), *ahalkegabeki* (Mat, EZ, Ax), *ahalkegabetu* (Ax). Kontuan izan bitez *ahalkagarri* (EZ, Xurio, *CatLav*) eta, batez ere, *HH ahalkea*, *ahalka* “confusión”, “corrimiento” baina *ahalka*, bera bakarrik, “empacho”, “rubor” eta “vergüenza” (I, § 8.5.2).

Datu guztiok bilduta gero, nabaria iruditzen zait Larramendik *-a* bukaeraren alde egin zuela, batzuetan iturrietako eratorrien bokala behingoan aldatuaz, eta besteetan (*ahalkati*) kide berria ere jasoaz; lehenak bereizteko modua, Larramendik erabili ohi ez dituen formak dituztela ohartzea da: *-gabe* [vs *-bage*, cf. *amoriobage* oraintsu aipatua] (*ahalkagabe*, *ahalkagabeki*, *ahalkagabetu*), *-ki* (*ahalkagabeki*); bigarrenari dagokionez, berriz, *ahalketi* behin bakarrik agertzen den bitartean, *ahalkati*-k hiru agerraldi ditu, zeinen alde zebilen argi aski utzita.

Multzoan eztabaidatu beharko dira, berriz, *-kiro* edo *-ro* atzizkidun hitzak:

AGERIRO “patentemente”: cf. *ageriki* (Xurio).

AGERRIRO “expressamente”, etab.: cf. *agerriki* (EZ).

ALEGERARO “alegremente”: cf. *alegeraki* (Lç, Ax).

ANDIZKIRO “encarecidamente”, “grandemente”, “magnificamente”, “vehementemente”: cf. *handizki* (Gç, Xurio).

ARTEZKIRO “rectamente”, etab: cf. *artezki* (Lç, ES).

ARTOSKIRO “cuidadosamente”: cf. *arthoski* (ES, Xurio, Ht).

AUSARTKIRO “denodadamente”: cf. *ausartki* (Lç, EZ, Ax, ES).

Denetatik argigarriena *andizki(ro)* da, ezpairik gabe, gainerakoak ez bezala ezin automatikoki erator baitaiteke oinarri jakinetik edo, zuzenago esanda, *handizki* ezagututa bakarrik era baitaiteke; bigarren *ausartki* ipiniko nuke, Larramendik saihestu ohi duen kontsonante taldea gordetzeagatik (II, § 1.1.15). Beraz, *andizkiro* eta *ausartkiro* bere gogoko atzizkia ezarriz tradiziozko hitzen bermoldaketak baldin badira, zalantza gutxi gera daitezke gainerakoak ere —denak edo gehienak— halaxe eraturtako hitzak direla, are gutxiago *gabe* > *bage*, *-mendu* > *-mentu* eta antzerako beste zenbait aldaketa egiteko inolako lotsarik izan ez zuela kontuan izanik.

Beste era bateko arazoa da *-tze* / *-te* atzizkiak aurkezten duena: dagoeneko esan dut (§ 2.1.11) ziurrenik hurbilenetik ezagutzen zituen hizkeren ezaugarri ez bazen ere, aditzetik eratorritako izenak egiteko haren balio eta malgutasunaz ohartuta Larramendik atzizki honen erabilera hedatzeari ekin ziola. Jakin dezakegun heinean, bi maisu izan zitzakeen aukera

hartan: Landucciren hiztegia, ausaz,¹¹⁴⁸ eta Iparraldeko tradizioa, hain zuzen. Alabaina, eratorbide hau hain da erraza, eta hain ugari baliatu zuen, non bai baitirudi muga nonbait jarri beharko genukeela, iturrietatik hartua eta zuzenean aditzetik berak sortua bereizi ahal izateko.

Jadanik aipatutako kasuak (*agertze* “epiphanía”, *auste* “fracción”, “infracción”) oso argiak dira; honako utzi ditudanek, berriz, muga nondik nora joan daitekeen antzemateko balioko dute orain:

ALDATZE “muda, mutación”, “mudanza”: cf. *daquigularic hobe liçatequeyela darabilagun vsantçaren vztea eta hautstea, ezugu guztiarequin ere vtzen, eta ez hautsten, ceren aldatce hura, hautsteco eta vtzteco berritasun hura, gaitzi baitçaicu* “mutatio” (Ax GGer0 92).

ANDITZE “engrandecimiento”: cf. *Nic landatu ukan dut, Apolloc arregatu: baina laincoac eman du handitzea* “incrementum” (Lç 1 Cor 3, 6).

ARDIESTE “alcance”: cf. *Obra meritosan dire hirur gauça: 1. Merecia. 2. Ardieste. 3. Satifacionea* (Harb 10).

ARRAPATZE “(la acción de) agarrar”: cf. *Ceinec laincoaren formán celaric ezpaitu estimatu harrapatze laincoaren bardin içatea* “rapinam” (Lç Phil 2, 6).

ASTE “comienzo, principio”: Cf. *haste eta fin gabeco* (Mat 56), *Hasteac gaitzac direla errana duc comunqui* (EZ Man 1, 4), *hanbat calteren eta damuren haste eta pitzgarri den alfertasuna* (Ax GGer0 24), etab.

Gauzak erraz xamar ipini dizkigute testuek: *aste*-tik hasita, behar bezala, gure ikergai guztietan ia agertzen da (Leizarragak *hatse* darabil, baina), eta Larramendik nahi gabe ere ikasi behar izan zuen hitza dugu, beraz; *aldatze* Axularri egotzi behar diogu, ager zitekeen *HH*-ko sarrera guztietatik (cf. *aldata* “enquillotrarse” eta “remudar”) lat. *mutatio*-ri dagozkionetan agertzen baita, hain zuzen; *anditze* eta *ardieste* ere aski ongi egokitzen zaizkie esanahiaren aldetik iturriagai,¹¹⁴⁹ irakurri ahala burura etorritako lehenengo hitzaz itzuli zituela egiten baldin badugu.¹¹⁵⁰ Zalantzan geratzen den hitz bakarra *arrapatze* da, iturri beretik ongi jaso zituen *arrapakera* eta *arrauberia*-ren esanahikide behar zukeena, baina *HH*-an nahikoa sarrera orokorrean zokoratua dagoena: ohar gaitezen sarrera hori Larramendik euskararen baliabideak hedatzeko *DAut*-en nomenklaturari erantsi zizkionetakoa dela (“la acción de...”): alde honetatik begiratuta, hitzak Leizarragarekin zerikusi zuzenik ez duela egingo nuke, eta berak automatikoki eratorri zuela.

Bada *-tze*-ri baino oraindik uzurtasun gehiagorekin begiratzen diodan beste atzizki bat: *-tzaille*, hain zuzen. Aurrekoa bezalaxe hau ere ezpairik gabe Larramendik asko ugaltu zuen atzizkia da, baina aldi berean *-tasun*-ekin bateratsu berez euskal atzizkirik ezagun eta emankorrenetakoa ere bada. Esan gabe doa halabeharrak lan handia egin zezakeela arlo honetan, Larramendik automatikoki eta arazorik gabe eratutako edo kale-baserrietan egunero entzundako hainbat *-tzaille* iturrietan ere egotea laboratuaz. Beraz, baten orde z hiru askabide erraz eta eroso izateak gehienetan atzeratu nau halako hitzak iturri idatziei ziur egotzetik.

Alabaina, *HH*-ak aurkezten dituen korapiloekin bateratsu haien giltza aurkitzeko aztarnaren batzuk ere eskaini ohi ditu. Hariari tiraka hasteko, inolako zalantzarik gabe esan

¹¹⁴⁸ Hiztegi hau *HH*-an ere erabili zuen ala ez geroago (§ 10.2) eztabaidatuko dut.

¹¹⁴⁹ Cf. *HH* “Incremento, lo mismo que *aumento*” bidalketa-dei hutsa, bestalde.

¹¹⁵⁰ Beheraxeago (§ 9.2.8.6) Leizarragaren itzulpenak egiteko Vulgataz ez zela baliatu argudiatuko dut.

daiteke, honaino bermatu ditugun iturritasunetan fidaturik, aztertzen ari garen iturrietako hainbat aditzetatik *-tzaille*-rekiko eratorriak egin zituela, eta bi arrazoigatik: iturrian *-tzaille* formarik ez dagoelako eta, gainera, 1745 baino lehenago lekukotu gabeko hitzak direlako (“Ipar.” laburduraz batean baino gehiagotan aurkitzen direla adierazi nahi dut):

amatigatzale “apaciguador” < *amatigatu* “apaciguar” < Lç.
ardiesle “alcanzador” < *ardietsi* “alcanzar” < Ipar.
arneguzale “blasfemador” < *arnegu* “blasfemia” < Ipar.
arraitatzale “hendedor” < *arraitatu* “hender” < Exlzp.
hartzarazale “prohibitivo” < *hartzaratu* “prohibir” < Lç.
atsemaile “soplador” < *atseman* “soplar” < Lç.
aurdigitzaille “tirador” < *aurdigi(tu)* “tirar” < Lç.
aurizkizale “pisador” < *aurizkitu* “pisar” < Ax.
autesle “elector” < *autetsi* “elegir” < Ipar.
azpiratzaile “abatidor” < *azpiratu* “abatir” < Ipar.

Interes handikoak dira, bestalde, hauen artean baitaude *-(t)zale* formaz corpusean aurkitu ditugun hamar adibideen erdiak, eta honek egindako hipotesia —Iparaldekotzat jotzen zituen hitzekin Iparaldeko atzizki formak erabiltzen zituela, alegia (§ 2.1.3)— aski berresten du eta, bide batez, halakoak ezagutzen ez dugun iturri batean (Etxeberri Sarakoaren hiztegian, esaterako) agertzen zirelako oso garesti bilakarazten.

Hipotesia osoki zuzena baldin bada, orduan haren bigarren parte gogoratu behar dugu, hau da, iturriko *-(t)zale -tzaille* bihurtzen zuela, hitza orokortzat jotzen zuen oro eta, beraz, *administratzaile* “administrador” Lç *administraçale*-ren bermoldaketa dela onar dezakegu.¹¹⁵¹ Bide erdian geratzen da, berriz, *aitzinatzaile* “adelantador”, “anticipador” < Ax *aitzinatzaile*, are iturrietan aurkitutako hitzak ere “Iparaldeko” erabakia hartu zuela egin beharko baikenuke, eta ez dakit gogorregia ez ote den.¹¹⁵² Adibide bat gutxiegi da, edonondik begiratuta ere, eta hiztegi osoa miatu beharko da, ezinbestean, kontu honen zoko-moko guztiak hemen egin dezakegun baino ziurtasun gehiagoz ezartzeko.

Honenbestez, frogatutzat eman ditudanetara itzul gaitzke: *aditzaile* “inteligente”, *ausle* “infractor” (vs *autsitzaile* “quebrador”) eta, jakina, (*aingeru*) *begirale*. Oso bakanak dira eta, aldi berean, formaren edo esanahiarengatik oso nabarmenak. Baina, dena dela, ez dago ondokoak ere iturri idatzietatik jaso zituela ukatzeko arrazoirik, are kontuan izanik gehienak erlijio hiztegioko hitzak direla:

ADITZAILE “auditor”, “oyente”, etab.: cf. *Cilhegui da medisenciaren aditcea, eta hartan axeguin harcea? Ez, ecen maiz aditçaileac eguiten du, hala minço denac eguiten duen bekhatu bera* (CatLav V 68), “auditeur, *aditçailla*” (Ht FE 330).

ADORATZAILE “adorador”: cf. *adoraçale* (Lç lo 4, 23) eta *adoratçaile* (CatLav V 58).

AKUSATZAILE “acusador”: cf. *accusaçale* (Lç lo 8, 10), *accusatçaile* (Ax GGer 437) eta *acusatçaile* (ES 135).

ARGITZAILE “alumbrador”, “iluminador”, “revelador”: cf., adib., *adimenduaren argitzailea* (Mat 293), *arimaren zuzi argitzailea* (EZ Man I, 39), eta Gç (183) edo Xurio (III, 59, 3).

¹¹⁵¹ Beheraxeago arituko naiz maileguen arazoaz.

¹¹⁵² Horrezaz gainera, hitza “automatikoki” itzuli zuela egin beharko genuke: Villasantek (AxH, s.v.) “promotor” itzultzen du lehen agerraldia (GGer 6) eta “atizador” bigarrena (ib. 568).

Atzizki honek baino “normaltasun” ospe gehiago dauka *-tasun* atzizkiak oraindik, izan ere, erabiliena izan ohi baita edozein euskal testutan, baita txiroenetan ere. Halaz ere, *HH* ez da euskal testu arrunt bat alde honetatik, zeren eta, jadanik ikusi bezala, ez baita bereziki hedatutako baliabidea. Atal honetan aztertzen ari garen corpusarekin triangulu bat osa dezakegu: mutur batean, *araztasun*, ziurrenik arazorik gabe *aratz*-etik eratorria; bestean, *abrestasun*, Leizarragaren *abrestasun*-en ordeztuko hutsa edo *abre*-ren araberako berrinterpretapena; eta, hirugarrenean, *anditasun*, ordura arteko testu guztietan ia (baita Hegoaldekoetan ere) oso ongi lekukotua. Esanahiaren aldetiko berrinterpretapenak izan litezke, goraxeago esan bezala, *arintasun* eta *aurtasun*; *agortasun*, *aitatasun*, *alfertasun* eta *amatasun*, aldiz, ez dira Iparraldeko tradizioan (eta hartan bakarrik, dakigularik) aurki zezakeenetik pittin bat ere urruntzen. Berrar ditzagun *aitatasun* eta *amatasun* hitzak: ez dira hitz teologikoak zehazki, baina ezin esan daiteke garai hartan eta euskaraz izaera horretatik oso urruti egon zitezkeenik; honexegatik, *anaitasun* “fraternidad” ziurrenik *anaietasun* (Lç) zein *anaietasun* (Ax) formen egokitzapena baino ez bide dugu.

Azkenik, egiantzekoa da lekukotasunik erdietsi ez diegun hainbat hitz adiera ezaguneko, Larramendik eratorriak izatea:

ABREKERIA “bestialidad”, “brutalidad”: cf. *abre* “bestia”, “bruto”, eta *aberekeria* bi agerraldietan. Ez dut uste Harriet (*FE* 333 “bètise, *abrequeria*”) argitaratu arte itxaron beharrik izan zuenik.

ABRETU “embrutecerse”: beste horrenbeste.

ARAZTU “limpiar”: cf. *aratz* “limpio” eta *araztasun*-ez gorago esana.

ARRIGARRIKI “admirablemente”: cf. *arrigarri* “admirable” eta sarrerako eraketa: *miragarriri*, *arrigarri*, *miragarriki*, *arrigarriki*, *miragarritz*, *arrigarritz*.

ARTATU “encargar”: cf. *arta* “cargo”.

ARTHADUN “aplicado” [+ *arretaduna*, *oartuna*]: cf. *artha* “aplicación” [+ *arreta*, *oarkera*].

ARTHATU “aplicarse” [+ *arretatu*, *oartu*], “dedicarse a, aplicarse” [+ *artatzea*, *arretatzea*]: ibid.

ASBERATU “suspirar”: cf. *asberapen* “suspiro” (< Mat, Ax, etab.); beste lekukotasun aske bakarria Pouvreauren hiztegia da, eta honek ere bazekien halako gauzak egiten.

ATXAKIATU “achacar”: apenas Leizarraga (*Ins* G 3r) ezinbestekoa zuen, *atxaki(a)* forma gazt. *achaque*-ren etimologiaren zutabea denez gero; *aitzakiatu* “achacar”, “disculpar”, “excusar”, “pretextar”, lekukotasunik gabekoa, oraindik argiagoa dateke.

Honelako kontuetan ere, badirudi Larramendik hitzak “Iparraldeko erara” egiten bazekiela:

AHANZIARAZI “desenseñar”: cf. *HH* *ahanzi* (< Ipar.) eta Ax, Gç, Xurio eta *CatLav* *ahantzarazi*, Larramendik osagaiak bai, baina nola elkartzen ziren menperatzen ez zuelako seinale.

Hori ikusita, ziurrenik ondokoaren iturritasuna ere zalantzan bederen ipini beharko da:

AKABARAZI “(hazerle a uno) acabar” (+ *bukarazi* vs *bukaerazo*, *akaberazo*, *aituerazo*): cf. *Eliça* ez *dutela behinere akhabaracico edo destruituco* (*CatLav* 57, V 37).

9.2.7.3. Iratxo eta bestez

HH-ko adiera zenbait bitxiak izan arren, Iparraldeko literaturan agerraldi egokiak aurki daitezke Larramendiren ulerpena zuzitzeko:

AGINTZA “oferta”, “ofrecimiento”: Iparraldean bakarrik XX. mendera arte (*OEH*-ak dioenez, 1. adieran) ‘promesa’ esanahiarekin oso ezaguna da: EZ eta Xuriorengan aurki zezakeen. Haien adibideetatik batzuk erraz Larramendik ematen dion itzulpenarekin itzul litezke; cf., adib., *Agintça*.

Hauc offrendaturic banu moyan handiagoo, / Presenta nieçaqueçu dohain guehiagoo (EZ Man II 19) edo ezute *haiña etsaiaren agintzek enganaten* (Xurio III, 6, 1).

ALEN "cepa de vid, *mascepa, mascepea, ayená*". Cf. *chirmenduac berac fructuric bereganic ecin ekar deçaqueen beçala, baldin aihenean ezpadago* (Lç Io 15, 4).

AREAGO "además": cf. *Orhoitu behar duçu parabissuaz, eta hango placer handiez: baina are ago, ifernuaz, eta hango pena icigarriez* (Ax GGer 575). Honen gainerako adibideetan (*ib.* 159 eta 230) konparazioa erabat nabarmena da; Leizarragak (*doblaz areago eskaini ziona, gorago ikusi bezala*) ia beti *anitez areago* edo *zenbatez areago* esapideak erabiltzen ditu, eta salbuespena (2 Cor 11, 23) konparazio nabarmeneko da. Cf. *Erans* "(mucho) más, *areago*" (< Ax).

ARRENKURATU [+ *asserretu*] "reñir, reprehender", "reprehender". Cf. *etcen bat ere hasserretu eta ez arrencuratu ohoinen contra* (Ax GGer 304).

Formari dagokionez, azterketa honen bitartez iratxo batzuk (*akotatu* "morder", *hara* "destierro") nondik eta nola sortu ziren ikusi ahal izan bada ere, argi eta garbi taiu beretsukoak diren beste zenbait lekukotasunetarako ez dut halako zoririk izan, agian argitaratzailearen hutsa edota Larramendiren huts edo "zuzenketa" izateagatik batzuetan, edo argitalpen zehatza erabiltzerik edo pasarte zehatza aurkitzerik izan ez dudalako; hona diren guztiak:

?AHAIKATU "provocar": Cf. Azkue (s.v. *ahaiko*): "No he podido comprobar la existencia de *ahaika* 'provocación' y sus derivados, que suponen Iztueta y Aizkibel". Beharbada Azkuek ez zukeen *ahaika* oinarritzat hain erraz hartu behar, *ahaikatu* aditzetik eratorritako erroztat jo baitaiteke, hainbatetan bezala (§ 5.4.1). Dena dela, itxurak ezinbestean Iparraldera garamatza, eta azalpenik errazena errata moduren bat izango litzateke, nahiz aldamenen eskaintzen duen esanahikideak —*ataikatu-k*— kontua ilundu besterik ez egin. Errata balitz, ez dago hautagai gehiegi, ordea. Hoberena, nire ustez, Axularrengan behin azaltzen den *ahacartcea* da (GGer 17: *Batac liscartcea bertceac ahacartcea*),¹¹⁵³ *ahacaitcea* bezalako irakurketa txarra oso aise gerta baitzitekeen. Honen kontra dagoen oztopoa begi-bistakoa da: *liskar* eta familiakoak esanahikidetzat ez hartzea, agerraldia euskalkien arteko ezberdintasunak agertzen dituen pasartea baita, izan ere; halere, ez da erabatekoa, datu positiboak bakarrik frogagarritzat erabil baitaitezke. Beste bide bat, *ahaka* 'eztabaida' izango litzateke (*Jesus Semea, Templuan Doctorequin ahacan aurkitua*, EZ Man II, 176), baina agerraldia argiegia da —areago apaiz batentzat— esanahia okertzeko.

*ABAINTAILLA "ventaja": cf. *abaitailac* (Xurio IV, 4, tit.).

? ABRESTASUN "riqueza": cf. *abrastason* (Lç eta Eliz): hutsa ez bada, baliteke Larramendik *abre*-ren arabera zuzendua.

*AFESPIKUKIDE "coepíscopo": Hitza zalantzarik gabe Larramendik eratorria da, baina oinarriak interes berezia dauka, zeren eta, *afaindu*-n bezala, <ph>-ren ordezkio hutsa izan baitaiteke (cf. *aphezpicu* Xurio, *Exlzp* eta *CatLav*), baina huts arrunta ere izan liteke (cf. *apezpicua* "obispo").

*AITSIA "facilidad": cf. *aisia* "comodidad; ociosidad" (Ax, ES, Xurio). Gogoratu *aisia* "ociosidad" (< Ax) *Erans*-ean eta cf. *aisa* "fácil", zeinarekin lotu bide zuen. Errata eragin zuen pasarte zehatza aurkitu ezean, Axularren hurrengoa —"Nola parabisuco bidea den erraz" deitzen den atalekoa, *erraz* eta *aise-z* bete — iruditzen zait egokiena, hutsa ez bada behintzat, ulerpen txarra erraz eragiteko: *cein aisia handian ibenico dituzten bere buruac, cein content eta bere gogara bicico diren: eta cein placent, aisit eta erraz idurutuco çayen laincoaren cerbitçatcea* (GGer 485).

*ALAKAIRU <allacairua> "jornal", "premio": inolako zalantzarik gabe iratxo honen lehen jatorria Axularren liburuaren 2. argitalpeneko pasarte ustel batean dago (*iotnal eta alacairu*, GGer 169),¹¹⁵⁴ alabaina, Axularrengandik hutsa kopiatzeaz gainera <ll> grafia —*HH*-an ezohikoa— jarri zuen bitarteko baten beharrean gaude, eta baliteke hura Etxeberri Sarakoaren hiztegia izatea:¹¹⁵⁵ cf. <appalla>, grafia berarekin, iturri berari egotziko diodana (§ 12.2.9).

*AMUTSU "amoroso", "cariñoso": ziurrenik gaizki irakurritako *amulsu* batetik (<ts> <ls>-ren orde) dator, besterik gabe; honela balitz, aukerak bi dira, dakidalarik: EZ eta Gç; cf., adib., *O longoico*

¹¹⁵³ Badago *ahacar* ere (GGer 277: *...eguiten diren liscarrac, ahacarrac, mehatchuac eta erançuteac ere estimatu eta parte onera hartu*), baina honek ez du irakurketa txarra zuzitzeko deus balio.

¹¹⁵⁴ Forma errataduna Azkueren hiztegian bermatuta agertzen da, (L) laburduraz, eta lehendabiziko argitalpenari egotzen badio ere, honetan argi eta garbi <alocairu> irakurtzen da. *OEH*-an ere (s.v. *alokairu*), Azkuerenaren berri ematen ez bada ere, *HH*-ko forma aldaeren artean jasota agertzen da, eztabaidarik gabe.

¹¹⁵⁵ Berri hau oso garrantzizkoa izan daiteke, Etxeberri ere *Geroko Gero* —eta ez *Gero*— erabili zuela frogatuko bailuke.

amulsua (EZ *Man* I, 39) eta *Çure guissa eguiñ naçaçu / Patient, humil, amulsu* (Gç 117). Behin *Amusua* irakurtzen da (EZ *Noel* 249), baina <s> bakarra izanik, zaila dirudi hemendik izateak.

?ARDETSI "impetrar": cf. *ardietsi* Lç, Mat, ES, Xurio, *CatLav* eta Ht.

?ARRAKA "alçuña, prosapia", "ascendencia", "casta", "linage, estirpe", "raza", etab.: Cf. *OEH*: "El testimonio de Larramendi tendrá igualmente su origen en una mala lectura de *arraça* (o en alguna errata del tipo de *arraca*).

*AHUMEN "bocado": *ahamen*-en ordeaz: Axular (*GGERO* 492) ez denez gero, *HH*-ko hutsa ez bada, Etxeberriren (*Man* I, 16, 26 edo 42) argitalpen baten hutsa izatea da geratzen zaigun aterabide erraz bakarra; bide batez, Larramendik erabilitakoa ezagutzeko kontuan hartzekoa.

Hurrengo hitzean, berriz, formak Iparraldeko literaturan ongi lekukotuta dagoen familia batera garamatzala dirudi, baina ez dut aurkitu esanahia azal lezakeen adibiderik:

AGORANDURO "hinchadamente, soberbiamente": *agorande* "hinchazón, soberbia"-az kanpora (eta hauxe Larramendiren eratorri argia da) forma bakartua dugu *HH*-an; *hagorandu* "turbar, angustiar" da (*OEH*, s.v.),¹¹⁵⁶ eta aurkitu ditudan adibideetarik bat ere ez zait hain aurkakoa den adiera eragiteko egokia iruditzen: *Eztuquete ene penec bada niozbait mugaric, / Hemen [Ifernuan] egon beharco dut bethi hagoranduric* (EZ *Man* I, 100), *Hunen absentiac guztiz / Ninduen hagorandu, / Ikhusteac berriz darot / Bihotça allegueratu* (*Noel* 93, Akes 79) edo *haiñ gare flacoac eta hagoranduac non bicia ere nekhagarri]ç[baitçaicu* (Xurio I, 18, 6).

Halaber, ez ditut inon aurkitu —ziurrenik nire erruz— hitz interesgarri zenbait, arrazoi ezberdinengatik iturriren batean egotea susma badezakegu ere:

AKUILATU <accullatu> "incitar": Iparraldeko grafia da, cf. *berariaz accullatcea da mortal* (Harb 1635, 162). Kontuan izan bedi erabili dudana Haranburu 1690eko alean hainbat orrialde falta direla

ANBILDU "rodar": M. Harrietek Harizmendik erabili zuela dioenez eta honen liburuan aurkitzen ez denez gero, jakintzat eman liteke Larramendik Haranbururen liburuaren berregokitzapenean aurkitu zuela, baina nire aleak dituen orrialdeetan ez dut ikusi.

AZKA "(a) tiento": Cf. *Hazkak, musuak (...) mortal dira borondate gaixtoa dela kausa* (Harb 1635, 177). Badirudi antzeko pasarte batetik izan daitekeela; izena aditzondo bihurtzea ez litzateke batere arraroa (§ 5.2.5); hitza ezaguna da Hegoaldean, baina "rascándose" adieran batez ere, antza denez.

Antzeratsu, ez dago hurrengo adiera ondo azal dezakeen adibiderik, ziurtasunez behintzat:

ATSBERAPEN "aliento, respiración": cf., ostera, *asberapen* "suspiro". Ezagutzen ditudan adibide guztiak aski argiak dira (*Zuregana gaude hatsbeherapenez bezalako pasarte ezagunekoak* edo testuinguru gardenekoak), eta azkar irakurrita nolabait adiera hori burura ekar zezaketen zenbait *hasb*-grafiakoak dira (cf., adib., Xurio III, 49, 3), inolaz ere Larramendik mantenduko zukeena.

Halaber, ez nago ziur ondokoan Etxeberri konpon dezakeen ausia —esanahiz egokia baita, baina ulergaitza, apika— ala oharkabean itzuri zaidan beste agerraldiren bati zor ote zaion:

(BEGITARTE) ARRAI "agrado": cf. *Arren erreçibiçaçu arrai begui tarteaz, / Gauça chipi escañia, ona vorondateaz* (EZ *Man* I, 7) vs *çure presenciaren arguiac consola naçaqueen arteraiño, eta çure beguitarte arraiac libertatean eman naçan arteraiño* (Xurio III, 21, 4).

9.2.7.4. Iturri berririk?

Beste era bateko iratxoez ere mintza gaitzke, gordeka dabilzanez eta itxuraz ezin litezkeen baina agian badirenez: Oihenarten euskal liburuak eta Leizarragaren *Catechisme*-z ari naiz, zehazkiago.

¹¹⁵⁶ Gaztelaniazko partizipioaz itzultzen badu ere, ohi ez bezala.

Teorian, *Notitia* bakarrik ezagutu zuen (§ 11.1.3), eta egiatan zeharo bitxia izango litzateke besterik ezagutu eta ez aipatzea. Haatik, zalantza ez da alferrikakoa, *HH*-ko bi hitz aski berezik ernatua baita, baina oraingoz galdera marka handi batekin baino ezin ditzaket aurkeztu:

ABERATSI “ricamente, preciosamente”: Oihenartengan bakarrik aurkitzen den beste *aberatsi* hura (*Pr* 681: *Aberatsi nahi zena* "Celui qui voulait devenir riche") dakar gogora, nekez izenondotzat har badaiteke ere.

ADIGARRI “sentido de algún dicho”: Cf. *Neurtitz hautako hitz beharren adigarria* (Oih *Po* 67).

Leizarragarena korapilotsuago da, inolaz ere: Larramendiren alean, bere deskribapenaren arabera, beste askorekin batera atal hori falta zen, eta jadanik iradoki dut dotrina heretikoak zirela eta, ez dela batere arraroa Euskal Herrian iraun zuten aleetan halako gauzak erazutita egotea.¹¹⁵⁷

Alabaina, bada Testamentua baino gehixeago ezagutu zukeela pentsatzeko xehetasun bat, eta nahiz bakarra izan (oraingoz bederen) nahikoa adierazgarria, nire ustetan:

BAI AITZITIK “antes bien”: *aitzitik* oso ondo lekukotzen den bitartean (cf., adib., *Mat* 2; *EZ Man* I, 71; *Ax G*ero 149), *bai aitzitik* Leizarragarengan bakarrik kausitu ahal izan dut, baina beti ere dotrinako galde-erantzunetan: *Cerua eta lurra erraiten duanean, ezituc berce goitico creaturac-ere aditzen? Bay-aitzitic (Ins C 1v), Bada iracasten çaicun doctrinaren ençutera eta ikastera ezugu diligentiariac eçarteco? Bay aitzitic (ib. E 8v).*

9.2.7.5. Maileguen kontua

Maileguak ere zalantzazkoak dirateke, lehen begiratuan bederen, maizenik dela gaztelaniako buru-hitzak berak, dela Hegoaldeko euskarak behartuak izan baitaitezke, besterik gabe. Alabaina, Larramendiren asmoa erabiliak bakarrik sartzea izan zenez gero (§ 7), literaturak hautaketan zerikusi handia izan zuela erabaki behar dugu, berak ez eze, gairako beste edonork literatura ona zein-nahi neurriren gainetik hobetsiko baitzukeen. Hitz batean bederen agerian utzi zuen bere iturria zein den, orokorki bada ere:

Atrapar, coger; el Francés y el Español vienen de el Bascuence Labortano *atrapa, atrapatu...*

Ez dago dudarik mailegu hau arrotz zuela, baina Iparraldeko idazlerik garrantzizkoenetan (*Lç, Mat, EZ eta Ax*) aurkitzeak oina eman zion etimologia egiteko. Hona hemen hainbat gehiago:

abade “abad” (*EZ, Ax, Gç, ES*), *abisatu* “avisar” (*Lç, Mat, EZ, Ax, Gç, Xurio, CatLav, Ht*), *abisu* “aviso” (*Lç, Ber, EZ, Ax, Arg, Gç, Harb, ES, Xurio, CatLav, Ht*), *adulterio* (*Lç, Ax, Gç, Harb, CatLav*), *aire* “aire, elemento” (*Lç, Mat, EZ, Ax, Gç, Arg, ES, Xurio, Ht*), *alba* “alba” (*EZ, Arg, Gç, Xurio*), *amarra* “amarra” (*Arg, Gç, Exlzp, Xurio*), *amarratu* (*Ax, Gç, Exlzp, Xurio, Ht*), *antekristo* “antechristo” (*EZ, antekrist Lç eta EZ*), *aparte, apart* (*aparte Ber, apart Lç, etab.*), *arka* “arca” (*Lç, Mat, EZ, Ax, Gç, Exlzp, ES, CatLav*), *armatu* “armar” (*Lç, EZ, Ax, Gç, Exlzp, ES, Xurio*), *harmonia* “harmonía” (*EZ, Gç*), *arpa* “harpa” (*Lç, Xurio*), *arrapatu* “agarrar” (*Lç, EZ, Ax, Gç, CatLav*), *arrasatu* “arrasar”, “demoler” (*Lç, ES*), *arraza* (*Lç, Ax, Gç, ES, Ht*), *arroganzia* (*Lç, Xurio*), *arroka* (*Lç, EZ, Gç*), *atakatu* (*EZ, Arg*).

Ondoko hitzak, Hegoaldeko testuek ere bermatzen dituzte, baina esan gabe doa zeinek pisu gehiago daukan:

abstinenzia (*Mat, EZ, Ax, Arg, Kap, Exlzp, OA, Xurio, CatLav*), *admiratu* (*Arg, Gç, Exlzp, Arz*), *adoratu* (*Lç, Mat, EZ, Ber, Ax, Kap, VJ, Arg, Gç, ES, OA, Arz, CatLav, Eliz, Iraz*), *agradatu* (*EZ, Arg, Harb, Exlzp, ES, OA, Urk, CatLav, Ht*), *akabatu* (*Lç, Ber, EZ, Ax, Kap, VJ, Arg, Gç, ES, CatLav*,

¹¹⁵⁷ Gogora dezagun ale batzuek *Catechisma*, besteak beste, atzean erantsita zeramatela (cf. Vinson 1891-1898: 6).

Urzk), *akusazio* (Lcc, *akusazione* Lç), *akusatu* (Lç, Mat, EZ, Ax, Kap, Gç, OA, Xurio, *CatLav*, Iraz, Ht), *akzidente* (VJ, Kap, OA, *Exlzp*, Eliz, Iraz; *akzident* Mat, Gç),¹¹⁵⁸ *alxatu* (Lç, EZ, Arg, Gç, ES, OA, Xurio, *CatLav*, Ht), *amore* (TAV 3.1.15, etab., Mik, Xurio, Eliz, Urzk; cf., *gainera*, *amore(a)katik* / *-gatik* Lç, Mat, Ber, EZ, Ax, Gç, Harb, Xurio, *CatLav*), *amorio* (Lç, Mat, Ber, Ax, Gç, Harb, OA, Iraz), *animalia* (Ax, Kap, Gç, ES, *CatLav*), *animatu* (Gç, ES, Harb, *Exlzp*, Xurio, *CatLav*, Urzk), *animo* (Lcc, Ber, Kap, ES, OA, Xurio, *CatLav*, Iraz), *arma* (Lç, EZ, Ax, Kap, Gç, Harb, ES, OA, Xurio, Urzk), *atrebitu* (Ber, EZ, Xurio, Urzk, Ht), *azotatu* (Lç, Mat, Ber, EZ, Ax, Kap, Arg, Gç, Harb, *Exlzp*, Urzk, Ht), *azote* (Lç, EZ, Ax, Kap, Arg, Gç, Harb, *CatLav*, Ht).

Goikoak baino bereziago diren hitz batzuetan, aukeran Iparraldeko eta Hegoaldeko iturriak izan ditzakegu:

ADOBATU “remendar. Lat. *refarcire*” < Lç Mt 4, 21 *bere sarén adobatzen ari ciradela* “reficientes retia sua”, Mc 1, 19 *bere sareac adobatzen cituztela* “componentes retia” / Landucci “remendar”.

Batzuetan, dena dela, ausart gaitezke hautua egitera:

ANIS “anís” + *kuminoa* “comino” (cf. *OEH*, s.v.) < Lç Mt 23, 23 *menta eta anisa eta cuminoa* “anethum” / Landucci “anís”.

9.2.8. Iparraldeko idazleen hitzen patua

Erans-aren azterketan Larramendik iturri idatzien lekukotasunetan egin ohi zituen aldaketak ezarritzat utzita gero, ez dut uste berriz zerrendatzea merezi duenik. Grafi aldaketei —adiera zabalean— dagokienez, erabili zituen testuen zatiak letraldatzerakoan *Erans*-eko jokabide berari atxiki zitzaioa bermatu ahal izan dugu gorago. Kasuistika ugaltzea baino ez genuke lortuko, halaber, morfologiari dagozkion ohiko aldaketak eta bertatik sortu zitzaizkion arazo ezagunak, edota testuinguruaren arabera jokatuaz hitzen esanahia erabakitzeke izan zituenak berraiatuaz.

Aldaketarik esanguratsuenak —aldaera hautapenak, esanahi etimologikoak— aurreneko ataletan eztabaidatu ditut. Ez dut ukatuko, dena dela, alor honetan zeregina dagoela, baina xedeari begira, atal hau neurrigabe luzatu ezean, hanbatik hanbatean askoz gehiago interesatzen zaigu hiztegia mamitzerakoan iturri idatziek nolako papera jokatu zuten aztertzea. Labur bada ere, salbuespen bat egingo dut Leizarragaren hitzen adierarekin (§ 9.2.8.1), iturririk garrantzikoena bada ere, Larramendik nola erabili zuen ia-ia ez baitugu ezagutzen, *Erans*-ean astiro aztertu ahal izan dugun Axular ez bezala. Gainerakoan, bereziki bi galderatan jarriko ditut begiak, biak elkarrekin oso lotuta daudela ulerturik: iturri idatziek hiztegiaren edukian nolako eragina daukaten (§ 9.2.8.2) eta idazketaren zein unetan sartu zituen (§ 9.2.8.3). Azkenik, ahal diren iturriekin osorik ala zatika erabili zituen erabakitzen saiatuko naiz (§ 9.2.8.4).

¹¹⁵⁸ Alabaina, denek —*Viva Jesus* eta *Exlzp* izan ezik— adiera teologikoan jasotzen dute (vs *substantzia*, Gç 11, adib.), Larramendik ez bezala.

9.2.8.1. Leizarragaren itzulpenak

Nahiz, esan bezala, berez buruhausterik gabe erabil zezakeen testua izan, ezin saihestezakegun auzia da Leizarragaren itzulpenak ez diola hiztegiak buruan zeukan originalari jarraitzen, frantsesezko bertsiok kalbindarren bati baizik.¹¹⁵⁹ Egia esan, aztertutako corpusean ez dut alde honetatik azpimarragarri izan daitekeen ezer eriden, baina beti ere kontuan izan beharko dugun hipotesia da, inoiz Leizarragaren azterketa osoa burutuko bada.

Alderantziz, Vulgatako eta *HH*-ko latinak —baita inoiz azken honetako gaztelania ere— maiz bat datoz gutxienez hitza agertzen den pasarteetatik batean, hasieran bederen esanguratsua eman dezakeen moduan:

	Vulgata	latina	gazt.
ahakoa	cognitionem	cognatio	cognación
adimentuz	mente	mente	mentalmente
aditzaile	intelligentes	intelligens	inteligente
aihen	vitis	vitis	vid
haitsa	descende	descende	baja
aitzinetik erran	praedicere	praedicere	predecir
aizina	spatium	---	tiempo, espacio
ala non	ita ut	ita, ut	
alokazer	mercenarii	mercenarius	
halsar	viscera	viscera,...	
altxagarri	fermento	fermentum	
amatigatu	sedarerunt	sedare,...	
eunetan hanbat	centuplum	centuplum	ciendoblo
angura	anchors	anchora	ancora
aobozatu	obmutuit	obmutescere	
haraitzinadanik	ab antiquis diebus	ab antiquis diebus	
arrapakaria	rapina	rapina	rapiña
arrauberia	rapina	rapina	rapiña,...
arregatu	rigare	rigo, ...	regar
arreit niri	sequere me	sequere me,...	
arrenberritu	renovari	renovare	renovar
atarbe	tectum	tectum,...	techo,...
haztatu	palpate / attrectent	palpare, attrectare	palpar

Alabaina, egiatan kidesunok esanguratsua izango lirateke soilik eta baldin soilik Larramendiren latinezko ereduarekiko —*DAut*-eko latinezko itzulpenak eskuarki, dakigunez— desbideratzeak balira. Bada, izan ere, aipatutako 23 adibideetatik lautan bakarrik betetzen da ezarritako baldintza eta, salbuespen bakarrarekin, denetan *DAut*-ek ez dakarren sarrera da: *eunetan hanbat* “ciendoblo”, *haraitzinadanik* “poco ha” eta *arreit niri* “sígueme”; inolaz ere, Leizarragaren hitzek eragindako sarrerak dira. Laugarren kasuari (*arregatu* Lar “irriego, rigo, aquam deduco” vs *DAut* “irrigare, irriguas aquas conducere, deducere”), berriz, esangura gutxikoa deritzat.

¹¹⁵⁹ Ruiz Arzalluzek (1991) oso argi utzi du, ene usteko, hauxe dela hipotesirik merkeena eta, beraz, eredu greko baten alde daudenak —haren lan zorrotza irakurrita halakorik geratuko balitz— eurak direla eztabaidara frogak ekarri beharko lituzketenak.

Areago, ordea: *DAut*-ek ez dakarren beste sarrera batean (*aitzinxetik* jasotzen duen “poco ha”), Larramendiren latinezko itzulpena (“dudum, modo, paulo ante”) eta Vulgatarena (“nuper”) ez datoz bat.

Larramendik ezinbestean askok baino Vulgatarekiko familiartasun handiagoa izango zuela eginik, eta zalantzazko kasu zenbaitetan bertara jo zezakeela ukatu gabe, nire ustez gehienetan buruz aritu zen. Gertakari batzuek hala erakusten digutela iruditzen zait, bederen: *aldiri* “comarca” ziurrenik Leizarragak berak sarri testuinguru berean darabilen *comarca*-k eraginda itzuli zuen,¹¹⁶⁰ Arestik —honetaz ohartu gabe, antza denez— “contorno, lugar” itzultzen duen bitartean. Are esanguratsua: nahiz Vulgatak *adats*-en lekuan beti “capillis” dakarren, Larramendik “cabellera”, “melena” itzultzen du, Magdalenaren irudia gogoan izanik, bistan denez.

9.2.8.2. Hiztegia osatuaz

Iparraldeko testuetatik ateratako hitzak hiztegian zehar nola sakabanatzen diren aztertuz, hiztegian funtsean daukaten garrantziaz jabe gaitzke. Alde batetik, honek erabilpen uneari buruzko berri eman diezaguke, zeren eta halako maiztasun batez esanahikide batean baino gehiagotan agertzera, adibidez, ezinbestean Larramendik testuok astiro eta lasaitasunez erabiltzeko parada izan zuela adieraziko bailuke. Are garrantzitsuagoa izango litzateke, dena dela, haiekiko izan zuen jarrerari dagokionez, ez apaingarri modura, hiztegia osatzeko altxor gisa erabili zituela jakingo genuke eta.

Orokorki Iparraldeko literaturari egotz dakizkioken hitzen artean ez dago dudarik patxadaz jokatu zuela; ikus ditzagun adibide batzuk:

ahalkatu "avergonzar", "avergonzarse", "confundir, avergonzando", "correr a uno", "empacharse, avergonzarse". *aheria* "canción", "melodía". *aingeru begirale* "ángel de la guarda", "(ángel de la) guarda". *aitzinatu* "adelantar", "adelantarse", "alargarse", "anticipar", "avanzar, adelantar", "prevenir, anticiparse". *aitzindari* "adali", "caudillo", "guía". *aitzindu* "adelantar", "anteceder, preceder", "anteponer", "anticipar", "prevenir, anticiparse". *akaban(t)za* "acabamiento, fin", "terminación". *alamen* "detracción", "murmuración". *(h)antu* "ahuecarse, entonarse, envanecerse", "endiosarse, erquirse", "ensoberbecerse", "envanecer". *a(h)ozpez* "boca abajo", "bruces o bruzas, la postura de echarse cabeza abaxo". *ararteko* "abogada, mediadora", "intercessor", "paracleto, paraclito, lo mismo que defensor y por esso mismo consolador", "patrón, abogado", "rogador". *araura* "(a) fuero, al fuero de", "ajustadamente, en este sentido [a la razón]", "conforme, adverbio, según", "según, preposición". *arbuia* "rebatir, rechazar", "rechazar", "reprobar". *ardietsi* "alcanzar", "conseguir", "recabar, conseguir". *arnegari* "blasphemo", "renegado, maldiciente, blasfemo", etab.

Zehazki jatorri ezaguneko hitzetan begiak ipinita, beste horrenbeste dugu iturri nagusietarako, sarrera esanahikide bat baino gehiagotan, are inoiz lauzpabostetan, eta sarritan hiztegiaren bi liburukietan agertzen diren hitz asko baitaude:

Lç: *ahakoa* "cognación", "parentesco". *aize-buhunba* "ráfaga, batida de viento repentina y pasajera", "torbellino", "tremolina de el ayre", "ventolera, viento recio y poco durable". *an(t)zo* "aire, forma, modales en el andar, hablar", "assimilación", "semejanza". *anzia* "genio", "natural, substantivo, genio, índole", "talento, talentos, habilidad, prendas". *aralde* "acompañamiento grande", "comitiva", "séquito, acompañamiento", "seguimiento". *argiaren begi* "alba", "aurora". *arrapari* "agarrador", "arreatador", "rapaz, amigo de hurtar", "rampante, en el blasón". *arrauberia*

¹¹⁶⁰ Cf., adib., *ethor cedin ludeaco aldirietara* (Mc 10, 1) baina *ioan cedin Tyreco eta Sidongo comarquetarát* (Mc 7, 24).

“arrebatiña”, “rapiña”. (*h*)*artzaratu* “prohibir”, “vedar”. *atarbe* “albergue, cubierto, resguardo de casa, venta, &c.”, “cubierto, que se da en casa”, “soportal”, “techo, techado”. (*h*)*atseman* “abahar”, “aspirar”, “soplar”. *auk*, *aun*, *auzu(e) biotz on* “(ten buen) ánimo”, “buen ánimo, modo de exhortar”, “ten buen ánimo”, “(ea) valor, ten valor”, etab.

Ax: *albenia* “borde”, “orilla”, “orillo, en el paño”, “orla”, “ruedo, orla”. *amorantia* “enamoramiento”, “galanteo”. *ardandegi* “bayuca”, “taberna”. *arras* “cerca, adverbio”, “ras con ras”, “ras con ras, junto, pegante”. *arrazatu* “herir (...) lastimando algo”, “lastimar hiriendo”, “percutir”. *arrenkura* “coxijo”, “querella, quexa”, “quexa”, “resentimiento, quexa”. *arrenkuratu* “quexarse”, “vituperar”. *auskor* “caedizo, frágil”, “endeble”, “feble, débil”, “frágil, quebradizo”, “quebradizo”. *azkatu* “ajar”, “manosear”, “palpar”, etab.

Alabaina, esanahikidez esanahikide eramatea erabilera lexikoaren alderdi bat baino ez da; beste alderdi bat, oso nabarmena, testuetan aurkitutako hitzekin elkartu-eratorriak egiteko aukera profitatzea da, eta honetan inon baino argiago antzeman dezakegu Iparraldeko literaturak eskainitako laguntza. Izan ere, haiekin maiz familia osoak eratu zituen, elkarketaren eta, batez ere, eratorpenaren bidez:

Leizarraga: AIHEN “vid” + *ayen mentu* “codadura de vid”. ALDIRI “comarca” + *aldiriko*, *aldiritar* “comarcano”. ALOKATU “alquilar” + *alokatzaille* “alquilador”. HALSAR “entrañas” + *halsargabetu* “desentrañar”, *alsarki* “assadura”. AMATIGATU “apaciguar” + *amatigatzale* “apaciguador”. ANGURA “ancora” + *anguratu* “ancorar”. ABOZATU “emmudecer” + *aobozaera* “mudez”, *aobozakiro* “mudamente”. HARABARTU “agusanarse” + *harabarkor* “(fácil de) agusanarse”. ARRADATU “rapar el pelo” + *arradaera*, *arradaketa* “rapadura”, *arradari* “rapista, barbero”. ARREGATU “regar” + *arregakai* “regadera”, *arregakoi* “regadizo”, *arregura* “regadío, regadura”. ARREIT “sígueme” + *arreitari* “assecla”. ATARBE “techo” + *atarbetu* “techar”. ATSEMAN “soplar” + *atsemaile* “soplador”. AURDIGI(TU) “tirar” + *aurdigitzaille* “tirador”. (H)AZTATU “palpar”, “tocar palpando” + *aztaera* “tocamiento”, *haztagarri* “palpable”, (*h*)*aztatze* “palpadura”, “tocamiento”.

Axular: AIERU “guiñada, guiño” + *aieru egin* “guiñar”. *AKOTATU “morder” + *akotari* “mordaz”, *akotariro* “mordazmente”. ALATU “despecharse” + *alaterazo* “despechar”. ALBENIA “orla” + *albenitu*, *albenizatu* “orlar”. AMURUSTU “enamorar” + *amuruskari* “enamorador”, *amuruskiro* “enamoradoamente”, *amuruskoi*, *amuruskor* “enamoradoizo”, *amuruste* “enamoramiento”. ANU “cobardía” + *anuti* “cobarde”, *anutiro* “cobardemente”, *anutu* “cobardear”. ASALDATU “alborotar” + *asaldaira* “rompido, en la danza española”. ASMU “pretexto” + *asmutu* “pretextar”. ASPERTU “empalagar” + *aspertze* “empalago”. AUHENDU “deplorar”, “lamentarse” + *auhengarri* “deplorable”, “lamentable”. AUSKOR “frágil” + *auskorkiro*, *auskoro* “frágilmente”, *auskorride* “fragilidad”. AUTSIKITU “morder” + *autsikide* “mordacidad”, *autsikitari* “mordaz”, *autsikitariro* “mordazmente”. AXOLDURI “cuidadoso” + *axolduro* “cuidadosamente”. AZKATU “manosear”, “palpar” + *azkatze* “manoseo”, “palpadura”.

Etxeberri Zib.: AITZINKIDARI “conductor” + *aitzinkidatu* “conducir”. ANDIGO “presunción, vanidad” + *andigoti* “presumido, presuntuoso”. ANTZAKABE “tosco” + *antzakabero* “toscamente”.

Xurio: ARRAIZIA “abrazo” + *arraiztu* “abrazar”, *arraitzaille*, *arraitzari* “abrazador”. BARRENKOI “entrañable” + *barrenkoro* “entrañablemente”. DESKUSTU “disgusto” + *deskustatu* “disgustar”. ESKUKO “libre” + *eskukoera* “albedrío”, *eskukogille* “libertador”, *eskukotu* “libertar”, *eskukotze* “libramiento”. FALTIAR “defectuoso” + *faltiarikoro* “defectuosamente”.

Leizarraga eta Axular aurrez aurre ditugula, balirudike bigarrenaren hitzekin batz beste gauza gehiago egin zituela Larramendik. Alabaina, gogoratu behar dugu lehenik, hitz/esapide eta hitz bakun/erotorri proportzioak oso ezberdinak direla bakoitzetik hartutako itemen artean, eta honen ondorioz Axularrek batz beste oinarri gehiago eskaini ziola. Bigarrenik, eta garrantzizkoenik, ezin ahanztu dezakegu erotorri edo elkartzea ez dela inoren hitzekin egiten zekien gauza bakarra; eta Leizarragak, iturri nagusia izanik, besteak baino erabilpen modu gehiago eskaintzen dizkigu:

a) Bikote etimologikoak, hots, iturriko hitzaren alboan Larramendiren berranalisiaren ondorioa ere agertzea (II, § 2.4.1.2). Hauxe da gehien azpimarratu nahi nukeen erabilera, hitzak nola ulertzen zituen jakiteko parada emateaz gainera, ziurrenik Larramendik erabiliaren erabiliaz kamustuta —“ustelduta” izango litzateke orduko berba— zeuden hitzei antzinako

gardentasuna itzultzeko ahalegina egin zuela adieraz baitezake. Adibidea jadanik ezagutzen dugu (*aidagoa*, *ahacoa* (Lç) “cognación”), eta gogoratu nahi nuke *-kidago* atzizki-kate emankorraren eredia haxe izan daitekeela (ik. § 2.1.2, 20. oh.).

b) Hegoalderatzeak, hots, iturriko hitza Hegoaldeko euskalkien jokabideari oro har, edo zehatzago euskalki jakin bati hobeto egokitzen zaion itxurara “itzultzea”:

aize buhunba (Lç), *aize bunbada* “torbellino”, *aicebumbada*, *buhumba* “tremolina”, *aice-buhumba*, *aice bumbadea* “ventolera”.
ez aurrerago, *ez aitzinago* (Ax) “non plus ultra”.
atseman (Lç), *atsemon* “aspirar”.
aztucorra, *ahanzcorra* (Lç), *anzcorra* “olvidadizo”.

c) Atzeranzko eratorriak (§ 5.4.1). Usukoena, hots, aditzetik erroko izena ateratzea, ongi ordezkatuta dugu corpusean:

amatigo “serenidad” < *amatigatu* (Lç).
akota “mordedura” < **akotatu*, *asalda* “alboroto” < *asaldatu* (Ax).

Baina baita iturriak adizlagun edo aditzondo gisa bakarrik erabiltzen duen hitzetik izena aterea, gorago (§ 9.2.7.1) aztertu ditugun *an(t)zo* “aire, forma, modales en el andar, hablar, &c.”, “semejanza” eta *aurka* “cara, frontispicio, frente de una cosa”, “delantera”, “frente, fachada” bezala (biak < Lç). Hurrengoan, adibideak ez dira oso onak edota oso ziurak, eta agian hau ere atzeranzko eratorpenari zor zaio:

ARAU “justicia, derecho”, “regla”, “reglamento”. Cf. *OEH* (s.v.): “Manera, regla, conformidad. (Casi siempre en expresiones del tipo *arau honetara*, *horretan*...)”.

Eta, jakina, honelakoetatik ere Larramendik elkartu-eratorriak atera zituen:

AN(T)ZO: *anzoera* “comparación”, *an(t)zoeratu* “cotejar”, *anzokaiste* “dessemejanza”, *anzokaiztu* “dessemejante”, *anzokaiztu* “dessemejar”.

AURKA: *aurkabela* “cariacontecido”, *aurkabete* “carigordo”, *aurkaboba* “caribobo”, *aurka boila* “cariredondo”, *aurkakida* “confrontación”, *aurkakidatu* “confrontar”, *aurkaluze* “carilargo”, *aurkamin* “cariacedo”, *aurkande* “confrontación”, *aurkandetu* “confrontar”, *aurkanditu* “cariampollado”, *aurkatiste* “carilucio”, *aurkatu* “abocarse”, *aurkazabal* “cariancho”, *aurkazur* “caricuerdo”.

d) Berranalisi etimologikoaren ondorenak, hots, hitz berriek Larramendik hitz jakin bati emandako interpretapen orokorra erakusten dutenean:

alderri “región” < *aldiri* “comarca” (Lç) (hots, *-iri* = *-erri*).
anai erio “fratricidio”, *aurerio* “infanticidio”, *gizerio* “homicidio”, *aitaren iltzea*, *erioa* “parricidio” < *gizeraile* “homicida” (Lç) (hots, *eraile* ~ *erio*).

e) Esanahi hedadura: adibide ezin argiago bat dugu:

aize-buhunba (Lç) “ventolera, viento recio y poco durable” > “ventolera, vanidad, soberbia”.

f) Sail osorako hedadura, hau da, sail semantiko zehatz bateko hitz bakar bati iturriak egokitzen dion hura sail osoari hedatzea:

eunetan hanbat (Lç) “ciendoblo” + *bitan anbat* “doble”, *birretan anbat* “duplo”, *hirutan anbat* “tresdoble”, *lauretan anbat* “quatrotanto”, *bostetan anbat* “quintuplo” eta *zazpitan anbat* “séptuplo”.
gizeraile “homicida” (Lç) + *anai eraile* “fratricida”, *aurreraile* “infanticida” (§ 3.2.3.7.3).

g) Kategoria aldaketak ere aurkitzen dira noizean behin:

aurdigi “tirar” (Lç) + “tirada, acción de tirar”, “tiro, acción de tirar”.
antzakabe “tosco” (EZ) + “tosquedad”.

h) Eta deklinabideaz edo joskeraz garatutako erabilerak:

amorantia, amurusia (biak Ax): *amorantian, amurussian ibilli* “galantear”.
arrapari (Lç) + *egazti arrapariak artez eraman* “manjolar las aves”, *egazti arraparien zardaia* “alcándara”, etab.
atarbe (Lç) + *atarbea eman, atarbean artu, sartu* “albergar”.
aurkaz aurka (Lç) + *aurkaz aurka jarri, ifini, paratu* “afrontarse, ponerse frente a frente”.

9.2.8.3. Hiztegiko kokalekua

Baliteke, *Erans*-aren azterketan iradoki bezala, delako iturri baten hitzak *HH*-ko sarreraren barruan zein lekutan agertu ohi diren zehaztu ahal izatea, besteekiko sar-ordena ezagutzeko eta, ondorioz, iturritasun auzietan eusteko berri bat izateko lagungarri. Edonola ere, honi buruzko datuak biltzen hasteari, iturrien sar-ordena bera besterik gabe ezagutzeko baliagarri den neurrian, ezin interesgarriago deritzat. Eta, honezaz gainera, oro har iturri idatziak noiz —hiztegiaren idazketaren zein unetan— baliatu zituen jakitea Larramendiren lan egiteko formari buruz bildu ahal izan ditugun zertzeladak osatzeko ezinutzizkoa izango da.

Leizarragaren hitzak oso bakanki agertzen dira bakarrik (*aldiri, arakintza, arkantoin* eta *arrauberia + arrapakeria*), inoiz eurek eragindako sarrera berrietan (*eunetan hanbat, auk* (etab.) *biotz on*). Aitzitik, oso nabarmena da azken lekuan agertzeko daukaten joera, dela aldioro:

ahakoa (2/2, 3/3), *abilamendu* (6/6), *agitzi ersi* (2/2), *hagun* (5/5, 2/2), *aihen* (3/3), *haitsa* (4/4, 2/2), *aitzinetik* (item), *aizina* (5/5), *alokairu* (4/4), *alokatu* (3/3), *angura* (2/2), *anzora* (3/3), *antzoko* (3/3), *ardietsi* (3/3), *arrenberitu* (4/4), (*h*)*artzaratu* (3/3, 4/4), *hartzedun* (3/3), *hatz* (3/3, 3/3), *aurdigi(tu)* (3/3), *aurkan* (4/4), *aurkako* (4/4).

edo dela agerraldi batean, gutxienez:

aize-buhunba (2/2, 3/4, 2/2, 1/2), *amatigatu* (7/7, 1/5), *argiaren begi* (5/6, 5/5, 2/3), *arrauberia* (1/2, 2/2), *arthats* (4/6, 4/5), 3/3), *atarbe* (2/2, 1/2, 1/2, 2/4), (*h*)*aztatu* (2/4, 5/5).

Talde beretsuan sar daitezke, agian, lautik gorako ordaindun sarreretan bukaera aldera agertzen diren haiek ere:

ala non (8/11), *alaka non* (10/11), *altxagarri* (4/7), *harabartu* (3/4), *arenkaz* (3/5), *hauzu* (5/7), *azauto* (4/6).

Orotara 35 hitz (%58) azken aldera agertzen dira, beraz. Hauek dira, berriz, lehen edo bigarren lekuan (edo sarrera luzean erdigunea baino lehenago) agertzen diren hitzak:

adimentuz (2/3), *adimentuzko otoitz* (1/2), *aditzaile* (1/2), *aitzinetik erran* (2/4), *alokazer* (2/5), *halsar* (2/3), *anzia* (2/4, 2/3, 1/2), *aobozatu* (1/3), *haraitzinadanik* (1/2), *doblaz areago* (1/2), *arradatu* (2/4, 1/2), *arrapari* (1/7, 1/2, etab.), *arregatu* (2/4), *arreit niri* (1/2), *asmatze* (1/4), (*h*)*atseman* (2/3, 2/4, 3/6), *aurkaz aurka* (2/5, 2/3), *ausle* (1/2, 1/4).

Salbuespenak gutxitxo dira eta, gainera, haietako batzuek ez dute lehenagokoa ezertan ere gezurtatzen: ohartu hauen artean ditugula *DAut*-ek ez dakarren —eta, beraz, itxuraz Leizarragak eragin dituen— sarreretan agertzen diren zenbait hitz (*adimentuzko otoitz, haraitzinadanik, doblaz areago, arreit niri*): hauen ondoan agertzen den ordaina —beti bakarra baita (*hizbagekoa, anziñatik, birretan geiago* eta *jarrai niri*, hurrenez hurren)— inolako zalantzarik gabe Larramendiren burutik jalgia da, hots, berak nola esango zukeen adierazten du, *Erans*-ean Axularren hainbat hitzekin gertatu zaigun bezalaxe (II, §§ 2.4.1.2 eta 2.4.4.2).

Oraindainenokoa ikusi dugunaren arabera, Leizarraga hiztegiko sarrerak —batzuk behintzat— aski landuta zituela barneratu zuen. Dena den, badugu hitzen bat sar-ordena hautsiaz txertatu zuelako adibide argi bat corpusean; erka bitez hurrengo sarrerak, non Leizarragaren hitza (letra larritan jarria) den oinarrizkoan parerik ez daukan bakarra:

Jornal, aloguera, allacairua, lacondoa.
Jornalero, alogueraria, ALOCACERA, allacairutaria, lacondaria.

Axularren hitzekin beste horrenbestetsu gertatzen zaigu; sarritan azken lekuan agertzen dira, agerraldi batean behinik behin:

aiertu (7/7), aieru (3/3), aitasun (2/2), ez aitzinago (2/2), alatu (2/2), albenia (3/3, 2/4, 2/3, 2/2, 2/2), amoriobage (5/5), amurusia (4/4), aranza (2/2), arrazatu (3/3, 2/2), arrenkura (1/2, 2/2, 4/4, 1/3), arrenkuratu (2/2, 2/3), aspertu (3/3), axolduri (6/6).

Edo sarrera luzeen azken aldera:

abuin (4/5), akotatu (3/5; egiatan 3/3, "item" ondoko ordainak alde batera utzita), amorantia (1/3, 3/4), arras (5/6, 1/2, 1/1), asmu (3/5), autsiki (1/3, 2/4, 3/4, 2/4).

Orotara 20 hitz (%54), Leizarragak erdietsitako ehunekoa berdinduaz. Gainerakoan, Axularrek iturri batetik ateratako hitzak elkarrekin agertu ohi direla uste izateko adibide bi eskaintzen dizkigu:

Morder, utsiquitu, autsiquitu (Ax), acotatu (Ax). Item, ozcatu, ozca eguin.
Pretexto, aitzaquia, achaquia (Ax), asmua (Ax), estacurua, apucoa.

Etxeberrri Ziburukoaren agerraldiak gutxiegi eta ahulegiak dira ezer ziurrik esateko, hurren ikus daitekeen bezala, eta ez digute ezer berezirik esaten haren bi liburuez:

ahalketi (3/3, Man), aipu (1/3, Man), aitzinkidari (3/3, Noel), almaka (2/5, Man), andigo (2/2, 3/4), antzakabe (2/2, Man), arboladi (1/5, Man), illeak atzaparka atera (2/2, Noel), autzeko (4/8, 1/3, 1/4, 1/1, Noel).

Landu dugun corpusa txikia ez izan arren, motz xamar suertatzen da, ezinbestean, Iparraldeko iturrien arteko sar-ordena erabakitzeke. Hala eta guztiz ere, Axular eta Leizarragaren hitzak elkarrekin agertzen diren hiru sarrera kausitu ahal izan ditut, eta hiruretan Leizarraga beranduago agertzen da:

Espuma, aparra, bitsa, pitsa, abuina (Ax), haguna (Lç).
Orillo, en el paño, ertza, albenia (Ax), ezpaina (Lç).¹¹⁶¹
Acreedor, el que tiene que aver, artzeceduna, artzeceduena (Ax), hartzeduna (Lç).

Eta, bestalde, sarrera bakar batean bada ere, Harriet Leizarraga baino beranduago agertzen da, espero bezala:

Genio, manua, ancia (Lç), ancea (Ht), etorquia.

Azterketa xume honen ondorenak oraindik erabatekoak izatetik urruti badaude ere, azpimarratu nahi nuke ez dutela gezurtatzen —eta bai, aldiz, neurri batean berresten— Larramendiren lan egiteko formaz jarduterakoan (I, § 9.3) euskal ordainez egin dudana hipotesia: alegia, hiztegiko sarreretan *DAut* irakurtzearekin batera bururatutakoa sartu ondoren eta, beraz,

¹¹⁶¹ Cf. ...*guibelethic ethorriric hunqui ceçan haren abillamendu ezpaina* (Mt 9, 20) eta *OEH*, s.v. *ezpain 2*.

hainbat hitz ezagun zein berri sartu ondoren bakarrik ekin ziola liburuetan hitzak biltzeari edo, gutxienez, liburuetan bildua hiztegian barneratzeari.

9.2.8.4. Iturriko agerlekua

Iturri guztien erabilera interesgarria bada ere, corpusarekin Leizarraga eta Axularrena bakarrik zehazteko moduan gaude.

Azterketari ekin baino lehenago, ea Leizarraga osorik —alea osoa zen heinean— baliatu ote zuen eta, osorik ez egitekotan, ea eskuzko kopian bakarrik gorde zuen Mateoren ebanjelioa ala zertxobait gehiago izan ote zen bezalako galderak buruan bueltaka izan genitzakeen. Jadanik aurreratu dut hitzaurrea idatzi orduko (c. 1742) oraindik jatorrizkoa eskuetan zeukala (§ 9.1.1.1, 15. oh.); azterketaren emaitzek bermatu baino ez dute egiten hiztegirako Testamentu osoa fitxatu zuela. Hona hemen iturriko leku bakar batean agertzen diren hitzak, Testamentuaren atalen arabera antolatuta:

Mt – *alokairu, aobozatu, ardietsi, arrauberia, azauto.*
Mc - *alaka non, arenkaz.*
Lc - *agitz ersi, haitsa, alokazer, arrapakaria, hartzedun, aurkaz aurka.*
Io - *aurdigi(tu).*
Act - *ahakoa, aitzinxetik, angura, harabartu, arthats.*
1 Cor – *adimentuz, adimentuzko otoitz.*
Eph - *aditzaile.*
Iuda - *hagun* “espuma”.

Dakusgunez, hasi eta buka erabili zuen iturria. Egia da ebanjelioak (guztiz Mateo eta Lukasenak) eta Apostoluen Eginak besteak baino hobeto ordezkaturik daudela eta Apokalipsia, berriz, —testu luze xamarra eta bukaerakoa— behin ere ez zaigula ageri; alabaina, oro har lekukotasunen sakabanatzeak adierazten duen bezala, gure corpusak, bere txikian, dituen mugak baino ez bide dira.

Axularri dagokionez, berari zor zaizkion itemak gehiegi ez izan arren, agerraldi bakar batean azalpena kausitzen dutenak liburu osoa irakurri zuela frogatzeko adina barraiatuta daude GGero-aren orrietan zehar:

axolduri (27), armora (40), anu (47), ardandegia (75), aranza (78), ez aitzinago (113 edo 117), albenia (215), artzekoduen (244), asmu (273), abuin (280), arri muger (290), aitatasun (346), auste (346), amurustu (350), amoribage (356), ametsetako (418), autsiki “remorder” (423), akotatu (431), aiertu (483), autsiki “moderdura” (572), andinai (593), albiriste (606).

9.3. Hegoaldeko testuak

9.3.1. Hegoaldeko dotrinak

Jadanik aurreratu dudana bezala, ia erabat gaindiezinak dira Hegoaldeko dotrinen ekarria neurtzeko edo halakorik egon zela bederen egiaztatu zein ezeztatzeko dauzkagun oztopoak. Hiztegi mailan oso arlosteak dira, dakigunez, eta alde honetatik, badirudi Larramendik hiztegian onartu zituen zenbait mailegu aski zabalduren oinarrian egon daitezkeela (§ 7.2.3.1), hala nola *alabatu, amatu* eta antzekoak. Bestalde, tamainak eta gaiak berek muga estuak

ezartzen dizkietelarik, euren herrialdetako euskara biziaren ordezkariak izan daitezkeen neurrian, eskaintzen dituzten hitzak hein handi batean Larramendik berez, beste bitartekorik gabe, ongi ezagut zitzakeela pentsatzeko arrazoi sendoak ditugu: laster (§ 9.3.2) ikusi ahalko dugu aberats eta ñabarrago den *RS*-rekin nolako batetortze harrigarri bezain faltsuak gertatzen diren.

Azterkizun genituen dotrina guztietarik Betolaza eta *Viva Jesus*-ek ez dute argudio bakar bat ere eskaintzen ezagutu zituen ala ez jakin dezagun, eta Urkizu irakurri zuela susmatzeko corpusean dagokeen bakarra *angustia* mailegua da: deus ez, alegia. Ziurtasunez ezagutu zituenetatik, berriz, Arzadunek eta Irazustak ere zalantzan uzten gaituzte, zenbait hitzen iturrigairen artekoak direla baino ezer gehiago ezin izan baitut zehaztu. Hasiera batean, behintzat, balirudike hain testu laburrak epaitzeko corpus motzegia erabiltzen ari garela. Kanpoko xehetasunez bermatu dugun iturrigai batekin (Elizalde) eta hipotesi gisa baino miatu ez dugun beste batekin (Otxoa) ikustera goaz zerbait dagoenean, A letra aski eta sobera dela lehen aztarrenak bederen harrapatzeko; Kapanagarekin, berriz, batetortzeak batzuetan zeharo halabeharrezkoak izan daitezkeela erakusten saiatuko naiz.

9.3.1.1. Elizalde

1745 baino lehen aitagureari “aitagurea” deritzen bakarrak *SermAN* eta Elizalde dira, Iparraldeko liburuetan *Pater* edo *Jainkoaren othoitza* bezalako izenak daramatzan bitartean (*OEH*, s.v.). Lehen testua oraintsu arte argitaragabe egon denez gero (Ondarra 1981), hauxe da Elizalde ezagutzeaz gainera *HH*-rako erabili zuela sinesteko bide eman diezagukeen arrazoi bakarra; cf. *Paternosterra edo aitagurea* (Eliz 5), *Aitagurea errateareki* (*ib.* 17) eta *HH* “Padre nuestro, oración, *aita gurea*”. Hitz bakarra izan arren, esan gabe doa ezin interesgarriagoa dela, Larramendiren bitartez eta berehala Hegoaldeko literaturan beste edozein deiturari lekua kendu baitzion, *OEH*-ko sarreran ikus daitekeenez. *Agur Maria*-ren kasuarekin lotzekoa dugu, noski, Larramendiren erabakiak bietan oinarri bera —aurreko literaturan aurkitutako aterabiderik onena, alegia— eta ondorio arrakastatsu bera baitaizka.

9.3.1.2. Otxoa

Otxoaren dotrina gipuzkerazko lehen argitaratua izanik, harrigarria izango litzateke, guztiz, Larramendik ez ezagutzea. Uste honetatik abiatu naiz azterketan aurrera, baina ezin ahantz daiteke Goierriko euskara berak gehien menperatu zituen hizkeren artean beharbada sartzen ez bada ere, guri dagokigun hiztegiaren arloan maiz ez dela bi testuen artean erlaziorik frogatzeko modurik, Otxoak delako hitz baten lehen lekukotasuna eta Larramendik bigarrena eskaintzea gehienetan euren euskararen funtsezko berdintasunari egotzi behar baitzaio, hala nola biek *adina* “tanto como”, *aintzat* “por tal” edo *arraultza* bezalako hitzak (aldaerak, azkenaren kasuan) lehenengoz jasotzen dituztenean. Beheko zerrendan bildu ditut hiru hitz

hautaz gainerako batetortzeak, hitz eratorri, mailegu eta esapide zein aldaera bereziei iturritasuna frogatzen hasteko halako gaitasun bat aitorturik, hasiera batean bederen:

- AIDETASUN "parentesco": *Bigarren belaunean, edo graduan, aidetasuna debanarequin* (OA 79).
ALLEGATU "llegar": *Baldin arraizquero ecin allegatu bacitean beste lecuren batera* (OA 151; ik. 153, 163 eta 165 ere).
AITATU "chistar", "mencionar", "mentar": *Ez degu examina onetan aitatcen* (OA 162) vs RS 515 "nombrar".
AJUSTATU "ajustarse": *Ajustadu ziraden azquero soldatan* (OA 165; ik. 132 ere).
AKABERA "conclusión, fin": *Ez deu principioric, asieraric, eta finic edo acabararic batera* (OA 30; ik. 41 ere) vs *acabeerarican* (ib. 20) eta *acabaera* (Iraz 19).
ALDE ESKUI "estribord": *Jaungoico Aita guziz poderosoaren alde escuietic* (OA 3; ik. 16, 36... ere).
GORPUTZ ETA ANIMA "(en) cuerpo y en alma": *Onac juango dirade corputz ta anima cerura* (OA 38) vs *arima eta gorputz* (CatLav, V 42).
ANPARO "amparo": *Gueure defensaraco eta amparoraco* (OA 14).
ARRABIA "rabia": *Vengatceco deseo, edo arrabiaren contra, paciencia* (OA 98).
ASIERA "boca de calle, de puente", "cabeza de processo, testamento", "cabeza, principio de alguna cosa", "comienzo, principio", "origen", "principio": *Principioric edo asieraric ez debana* (OA 20; ik. 27 eta 29 ere).
ASKOADINA "(buen) recado, mucho, bastante", "(de) sobra, sobradamente", "suficiente, bastante", "suficientemente", "avía un año, *urte bat bazan, bacen*; avía bastantes, *asco adiña baciran*": *Orrembeste eranzutea da vastante edo asco adina zureztat* (OA 26).
AUBA "boca": *Leenengo crutcea becoquian, bigarrena auban* (OA 12; ik. *auban* 13, *auvan* 15 ere).
EMENDIK AURRERA "(de) oy más, de oy en adelante": *Eracutsico degu emendic aurrera* (OA 129) vs *oneric aurra* (Arz 63), *oneric aurrera* (Urkz 77).
AURRERAGO "Adelante (...). Passó adelante, más adelante, *aurrera, aurrerago irago zan*": *Haciendearen porporciotic aurrerago passatcen danic* (OA 164).
AURDUN "(estar en) cinta, *izorra egon, aurdun, seindun izatea*", "preñada muger": *Virgina Maria aurdun guertatu zalarican* (OA 28; cf. *aurdun guertatu* eta *guelditu* 161).

Lehenengo hurbilketa hau ez da erabat alferrikakoa izan, batetortzeen kopuruak erakusten duen bezala. Alabaina, kopuruak ez du ezer erabakitzen, datuen ziurtasuna neurtzeko oinarriak aurkitu ezean; eta datu guztiek ez dute beti ondorio berera eramaten. Adibidez, *alde eskui* "estribord" zerrendatik ezabatu beharrekoa dela uste dut, gaztelaniak argi eta garbi beste etorki bat iradokitzen baitu; *eskui* da, bestalde, Larramendiri burura lehen datorkion hitza gazt. *derecha*-ren euskal ordainak ematerakoan. Beste muturrean, *asiera* / *akabera* bikotea dugu, atzizki honen historia Otxoarekin hasten dela oso kontuan hartu beharrekoa izanik:¹¹⁶² ez dirudi Larramendik harengan eta halako hitzetan begiak jarri eta gero bere kabuz erabilera hedatzeari ekin ziola esatea baino azalpen merkeagorik dukegunik; ohartu, gainera, *akabera*-n dagoen *a + e > e* ondorioari, *HH*-an ohikoena *ae* den bitartean (§ 2.1.12). Ez dira txarrak *aidetasun* eratorria ("parentesto" sarrerako Larramendiren proposamena *aidegokia* da, *-tasun* nekez erabili zuen bitartean, dakigunez), *gorputz eta anima* eta *askoadina* esapideak, ez eta *auga* aldaera ere, agian; eta, azkenik, halabeharrezkoa ote *passó más adelante* adibidea hautatu izana, OA *aurrerago passatcen* ezaguturik?

¹¹⁶² Baieztapena zertxobait leundu behar da, agian: Loiolako dotrinan (F. Altuna 1995) —tamalez datagabea baina inolaz ere XVIII. mendearen erdialdekoa, argitaratzaileak frogatu duenez— *asiera* (7) azaltzen da, hitza uste genuen baino ezagunagoa zela aditzera emanez.

9.3.1.3. Kapanaga

Larramendik bizkaiera zuzenean ezagutu zuela etsita nago (ik. § 12.2.7); honexegatik, hain zuzen, batetortze argiagorik agertu ezean, alde batera utzi behar dugu Kapanaga erabili zuelako posibilitatea, aurkitu ditudanen kopurua gorabehera, ez baitago haien artean erabakigarri izan litekeenik bakar bat ere:

ADINON "(bastante) bueno, entre bueno y ruin", "mediano, -na", "passadero, mediano", "razonable, mediano": *Artudin moduan ona, edo adinona, edo ez deüqueena* "A lo menos no lo peor" (Kap 59) eta "lo acomodado" (RS 30), "acomodado" (RS 31), "acomodadas" (RS 108).

AGINDUA "manda, legado": *ea echieban cumpliçaga difuntuen aguinduric aleguiala* "mandas" (Kap 114) eta Lcc "manda de testamento, *testamentuan emona, agindua*".

AINGERU GUARDAKO "ángel de la guarda", "(ángel de la) guarda": *Angueru goardacoa* (Kap 130).

ALAN ZELAN "assí como", "(como se) vive se muere, *nola bici ala il, celan bicitza, alan eriotza*": *eta celan nagoçun esque, alan daucat confiançea...* (Kap 119).

ALPERRIK "balde, en alde", "(en) vano": *Ez alperric juramenturic eguitea* (Kap 93); cf. Lcc *asperric* [sic] "de alde", "en vano".

———— "ociosamente", "perezosamente": *Alperric ez egoteac* (Kap 51).

AMITUA "amito para dezir Missa": *Amituac (cein da pañu bat leelengo Sacerdoteac bururean lepora ifinten dabena)* (Kap 137).

APA "beso en el rostro": *Ceimbat bider equin deusteeçan andray laztanac, apaac edo vquieta eçainacaz* "besos" (Kap 104) eta *apea* "beso" (RS 205).

ARDURAZ "cuidadosamente": *Diligenciau arduraz equinagaz* (Kap 91).

ARTEZTU "dirigir", "emendar la vida, costumbres, &c.", "encarrilar", "enderezar", "rectificar": *Aguira equin eta arteztuten dituçala veti gauça onera* "encaminándoles en bien" (Kap 98); cf. Lcc *vlea arteztu* "espeluzarse".

ATZERATU "atrasar", "postergar", "retardar, diferir": *Ez cumpliçtea edo azereetea* "No cumplirlos o dilatarlas" (Kap 96).

9.3.2. Refranes y Sentencias

Kardaberatzek "al acabarse la impresión del Diccionario" RS-ren ale zahar, hondatu eta, dakigunez, osagabe bat bidali ziola kontatzen digu Larramendik *Erans*-aren aurkezpenean. Berri honek, erabileran jauzirik ez aurkitzearekin batera, RS *Erans*-eko iturria bakarrik dela uste izatera eraman gaitu, hots, irakurketa eta datu bilketa bakarra pairatu zuela, Axular eta Harrietek ez bezala. RS-ren aldetik, *Erans* eta *HH*-aren artean dauden batetortzeak, ahozko iturriek azal ditzaketela proposatu dut (II, § 1.6), orain Hegoaldeko dotrinak ere kontuan hartu beharko ditugula erantsirik, oro har ez baitirudi testu honetan diren pitxietarik agertzen denik Larramendiren hiztegian, ez behintzat iturri berri bat proposatzeko heinean.

Alabaina, bizpahiru datuk kolokan jar dezakete hartaz daukagun ziurtasuna, eta ezin alde batera utzi haietaz zertxobait esan gabe. Kontua da *HH*-an RS-ko bi hapax (*atzaga* eta *cimbotá*) agertzen direla, eta biak II. liburukian:

(Es un) perdido, *galdari bat da*. Lat. Prodigus est. Item *galgarria, eriatzallea, cimbotá*. Zaga, detrás, dixose del Bascuence *atzaga*, fin, remate, último, *atzean, ostean*. Lat. Post.

HH-ko *cimbotá* azaltzeko bi bide ditugu, agerian denez: (1) *HH*-ko lekukotasun berriaren bidez bere hapaxtasuna ukatzea, Larramendik RS-n irakurtzeaz gain noizbait nonbait entzun ere egin zuela suposatuz; eta (2) *Erans*-etik erantsitako hitza dela egitea. Lehen hipotesiaren alde, hala gertatzeko dagoen probabilitatea erabat neurtezina izanik, *Erans*-ean "desperdiador" sarreran (< RS 259 "desperdiada") agertzen dela eman dezakegu hasiera

batean. Bigarrenak, berriz, gutxienez xehetasun bat dauka bere alde: sarrerari egindako eranskinean (*Item*-ean), eta han ere azken-azken lekuan agertzea, hain berandu iritsitako testu bati dagokionez.

Atzaga-ren kasua ezberdina da, aldez bederen, ez baita ordain gisa, etimo gisa baizik agertzen. Adierazgarria izan daiteke hitzurreko etimologia zerrendak (1745: cxxxiv) eskaintzen digun lekukotasuna. Zerrenda honetan iragarrita agertzen diren etimologiak eta gero *HH*-an agertzen direnen arteko erlazioa ez da bana-banakoa: zerrendatik hiztegrainoko bidean batzuez damutu edota, edozein norabidetan, batzuez ahantzi egin zela dirudi. Bada, izan ere, *zaga*-ren etimologia han iragarrita daudenetarikoa da, eta honek azken unean erantsitakoa izan zelako posibilitatea ezinezkoa bilakatzen du. Honen ostean, bi azalpen bururatzen zaizkit: (1) Larramendik aldez aurretik asmatutako etimoa beste bat izatea, eta *RS*-koa ezagututa hura kendu eta berria ezartzea; eta (2) Larramendik asmatutako etimoa nolabait bat etortzea *RS*-n ikusi uste izan zuen formarekin; azken kasuan, *zaga*-ren etimologiaz zeukan usteak (hau da, *atze*-rekin lotu behar zela) baldintzatuko zukeen *RS* 302ko *azaga*-ren irakurketa, eta ez alderantziz.

Cimbota-ren erdal itzulpenaren kontua berrartzen baldin badugu, bi hitzok bederen azaltzeko bide bat erdiets dezakegu, beharbada. “Desperdiciador” (*Erans*) eta “perdido” (*HH*) erabat esanahikideak izanik, hasiera batean halabeharrari eskaini diodan lekua oso murrizta dela esan behar da. Ohartu *Erans*-eko sarrera berez *HH*-aren I. liburukiari dagokiola. Egin dezagun kontu “al acabarse la impresión del Diccionario”-k ez duela “bukatu eta gero” esan nahi, “bukatzeko ari zenean” baizik: azken finean, *Erans* bigarren liburukiaren bukaeran erantsi zen. Harrieten azterketak bi liburukiak *Erans* dela eta neurri handi batean zein bere aldetik ibili zirela erakutsi digu, hots, zehazkiago, Harriet *Erans*-ean agertzea batez ere 2. liburukian sartu ezin izan zituen hitzei zor zaiela. Demagun, beraz, *Erans* egiteko asmoa 2. liburukia inprentan zegoenean hartu zuela, Harrieten I letratik aurrerako hitzak probetan eransteko neke eta lanak saihesteaz gain, Axular berpasatsetik, Landucci apika lehenengoz astiro irakurtzetik, iritsi berri zuen *RS* hustetik eta herriarengandik lortutako azken orduko oharrek eransteko parada bere buruari eskaintzen ziolarik. Arte hartan, ez litzateke erabat ezinezkoa *RS*-n aurkitutako pitxi deigarri zenbait —oso-oso gutxi, baina— hitzegia “itxi” baino lehenago bertaratzeko aukera izatea.

Erans-aren azterketak eskaini dizkigun bi posibilitate horiek aintzat hartuta, atal honetan garatzen ari garen A letrarenean hipotesiari lagun ziezaiokeen ezer gehiago aurkitu ahal ote genezakeen begiratzea ezin saihestuzkoa zen. Lehenik, ostera, errepasa dezagun han bildutako bat etortzeak, eta ez dezagun alde batera utzi orain ere 2. liburukiaren nagusitasuna, 6 hitzetatik 4tan:

irunsi: *Erans* 650 “tragar”, *HH* “tragar, iretsi, irunsi, erberatu, tragatu”.

iusturia: *Erans* 656 “trueno”, *HH* “trueno, turmoya, ostotsa, odotsa, ostiya, iurtzuria, igorciria, iñusturia, iusturia, calerna”.

osquia: *Erans* 690 “zapato”, *HH* “zapato, (...) zapatá, osquea”.

ospea: *Erans* 271 “fama”, *HH* “fama, fama, famea, omena, iomena, ospea”.

ubera: *Erans* 660 “vado”, *HH* “vado, vadera, ondajoa, uberá”.

zurtza: Erans 326 "huérphano", HH "huérphano, *zurtza*, *emazurtza*, *humezurtza*".

A letraren azterketa Erans-ean ez dauden hitzetara zuzendu behar da. Hona hemen egindako aurkikuntzarik interesgarrienak:

adiuntza: RS 332 *adiunça onean* "en buena sazón", HH "sazón, ocasión, coyuntura, *mugua*, *adiuntza*, *adiuntza* [sic]", "(a la) sazón se hallaba allí, &c., *adiuntza artan cegoan an*, *mugu artan*", "a deshora, *desorduan*, *mugaitzean*, *adiuntza gaitzean*, *desorenean*".

arrankari: RS 229 *arrancaria* "la trucha", HH "trucha, *amurraya*, *amuarraina*, *arrancaria*".

audiaka: RS 48 *audiaca ebilten dira* "suelen andar vendiendo autoridad", HH "altivamente, *gotustez*, *audiaca*, *antustez*", "vanagloriosamente, *audiaca*, *antusteca*".

OEH-aren datuen arabera, RS-ko hiru hapax-edo bildu uste banuen ere, *arrankari* bizkaieraz zeharo arruntzat eman behar dugu¹¹⁶³ eta, beraz, ziurrenik ahozko iturriei egotzi. *Audiaka*-k hasiera batean aukera gehiago duen arren, alde batetik goiko hipotesia ezeztatuko luke, "altivamente" sarrera lehen liburukikoa baita; bestetik, Moglek "disputa, camorra" adierarekin izen gisa erabilia jasotzen baitu (*PAbVoc*, ap. OEH, s.v. 2 *audiaka*),¹¹⁶⁴ Larramendik menpera zezakeen alderdi baten hizkerakoa (cf. § 12) dela edo zela erakutsiaz; eta, azkenik, RS 48 Larramendik ezagutu ez zuen lehen kuadernotxo baita: ezagutzen ez ditugun erretrauen artean berriz errepikatzea ezinezkoa ez izan arren, bistan da *audiaka*-ren balio frogatzailea emandako hiru arrazoiengatik oso ahulduta, ia-ia ezereztuta geratu dela. Honez gero, *adiuntza*-rako Azkuek jasotzen duen *adinuntza* (B) aldaerak, Añibarroren hiztegiko eta Mogelen (*PAbVoc* eta *Nom-eko*) *adiuntzaz*-en lekukotasunek, etabarrek RS-koak baino Larramendirena azaltzeko balio gehiago dutela esango nuke.

Etsi gabe, ostera zenbait egin nituen OEH-ko B, D eta E letretan, *eisar* "arar" (cf. RS 452 *exar daie* "ararán") baino datu hoberik aurkitu gabe, nahiz zati honetan ere RS lehenengo eta HH bigarren lekukotasuna duten hitzak hamaikatxo izan (hala nola *bagil*, *dontsu*, *ekatx*, *errierta* edo *esale*).

Labur bilduz, RS-ren gauza zenbait HH-an agertzen direlako hipotesia egia balitz ere, oso gauza gutxitara mugatu beharko genuke. Aitzitik, bildu ahal izan ditugun datu urriak begiak doi bat lausotzeko gauza izan arren, etsi behar dugulakoan nago, eta RS Erans-eko iturria bakarrik izan zela erabaki. Ezinbestean testuz testu ibili behar izaten dugularik, ohitura gure begietan ia lege bihurtuta, RS-ren iturritasuna frogatzea ziurrenik irabazi handitzat izango genuke filologok: alabaina, euskararen historiarako zalantzarik gabe irabazi handiagoa da, RS-k lehendabizikoz eta sarritan berak bakarrik jasotzen dituen hitz asko Larramendik berriz —mende eta erdi beranduago, RS-ren datari eta ez erretrauenari begiratuta, noski— herriaren ahoan entzun eta apuntatzeko aukera izan zuela egiaztatzea.

¹¹⁶³ Lakarra irakasleak adierazi didanez (B-ger ziburra, behintzat); gero, Azkuek bizkaiera orokorrekoztat jotzen duela egiaztatzen ahal izan dut, OEH-ak honen lekukotasuna jasotzen ez badu ere.

¹¹⁶⁴ Azkueren lekukotasuna (B-m) Mogelengandik zuzenean datorrela egingo nuke. OEH-ak bi *audiaka* bereizten baditu ere, ez da zaila aditzondoaren esanahitik izenarenera nola igaro den asmatzen.

9.4. Ondorioak

Azterketa filologiko arrunt —eta oraingoz ez *Erans*-ena bezain sakon— batek, Larramendik eskura izan zituen euskal liburuak *HH*-ko edukiaren hartzekodun handiak direla frogatzeko lain eskaini digu, Larramendiren hitzak goitik behera egiaztatuz. Ezin zitekeen besterik espero, askok ezikusiarrena egin arren, liburuak hizkuntza onaren ispilu eta eredu diren kultura batean murgiltzen zen hiztegi-gile batengandik, are gutxiago autoritate hiztegi bat, hain zuzen, egokitzen ari zelarik.

Ondorio hau, bera bakarrik, XX. mendean itsu-itsuan jakintzat eman izan diren euskal literaturaren historiari buruzko iritzi askoren buztinezko oinak behingoan deuseztatzeko adina dugu, azken urteotan zabaltzen ari den ikuspegi berria, halaxe izan zela aurreikusten zuen heinean, indartzen duen bitartean. Ikuspuntu orokorrago batetik, berriz, datuak ezagutu (nahi) gabe espekulatzearen hutsalderiaz ez ezik, datuen interpretazioa aberatsagoa izan dadin teoria sendo batek daukan garrantziaz irakatsi handiak eskaintzen dizkigu.

Larramendik, ezpairik gabe, ez zituen eskumenean izandako liburu guztiak berdin erabili. Iparraldeko ei arreta gehiago eskaini zien, hala behar ere, lexiko zaindu eta aberatsagoaren jabe baitziren. Aspaldi barraiatutako sentipen bat osoki gezurtatuaz, XVIII-XIXetako euskal literaturaren lexikoa —lexikoa behinik behin—, Larramendiren hiztegian oinarritu zen neurrian, jadanik aski ezarrita zegoen Iparraldekoaren haritik jaio zen, haren lorpen eta irakatsi asko profitatuaz. Hau ezaguturik, Hegoaldeko literatur hizkuntzan arrunt bilakatu diren hainbat eta hainbat hitzen etorkiaren aztarnari jarraitu beharko litzaioke, bai baitirudi Iparraldeko literaturaren eraginez sartu izan zirela, sarritan zuzenean *HH*-aren bitartez, bestetan Larramendiren ondoko idazleen irakurketen bitartez, eskuarki ekialderagoko formatzat edota Iparraldeko idazleek eratu eta hedatutakotzat jo daitezkeen hitz anitz.

Azterketak XVI-XVIII. mendeetako Iparraldeko idazleen lexiko batasuna oso handia dela erakutsi digu (§ 9.2.3), eta honek nahikoa zaildu ditu egin genitzakeen egozpenak: Leizarraga, Axular eta Etxeberri Ziburukoa aise identifikatu ditugu *HH*-ko iturrien artean, baina gainerakoak nekez baino nekezago. Dena dela, egozpen zehatzak baino garrantzizkoagoa da erdietsi dugun ikuspegi orokorra: *HH*-ko hitz anitz Iparraldeko literaturari zor zaizkio, ez halakok edo holakok erabili dituztelako, denek edo ia denek erabili dituztelako baizik: literatur tradizio oso baten ondare lexikoa jasota dago, beraz, *HH*-an, Larramendiren eginahal eta lehentasunez beste mugarik gabe (§ 9.2.5). Ez da garrantzi gutxiagokoa hainbat maileguren onarpenean honek izan zuen eragina (§ 9.2.7.5). Larramendik gutxi bezain ondo ezagutu zuen literatur lapurtera, eta honegatik ez da harrizkera *HH*-ko lekukotasun zenbait ez bene-benetakoak, testuetatik erdietsitakoak, berak behar ahala eratutakoak baizik izatea (§ 9.2.7.1).

Gure datuen arabera, Iparraldetik hartutako hitzak *HH*-ko euskal ordainen artean azken aldera agertzen dira, sarrerak lehenbizi buruz osatu zituelako hipotesia berretsiaz (§ 9.2.8.3). Halere, honek ez du esan nahi apaingarri gisa daudenik: aitzitik, argi eta garbi hiztegia mamitzeko erabili zituen lehengaien artean kokatu behar ditugu, gaztelaniazko esanahikideetan zein familiakideetan euren aztarna utzi dute eta (§ 9.2.8.2).

Nolanahi ere, Larramendi ez zaio beti eta ezinbestean literaturari atxikitzen: batzuetan lexikalizatutako esanahia baino etimologikoa nahiago du, eta *HH*-ko hitz askok azalpen zabalagoa —gehienbat ezagutza zuzena edo, berebat dena, ahozko iturria— eskatzen dute, edota *HH*-ko eratorbide eskemen ondorioetako bat baino ez dira (§ 9.2.7.1): testuetan lekukotasun solteak aurkitzea, hortaz, kasualitate izan daiteke behin baino gehiagotan.

Sinesteak ere oraindik lanak dauzkan arren, ez dut esan gabe utziko balitekeela Larramendik aitortzen ez dituen bi iturri erabiltzea: Leizarragaren *Catechisme*a eta Oihenarten euskal idatziak (§ 9.2.7.4).

Azterketa honen lorpen berrienetako bat, Leizarragaren garrantzia azaleraztea izan da. *Erans*-aren ikerketaren ondoren, Axular leku gailenean jarrita geneukan Larramendik izan zituen eraginen artean, bera baita bertan berrirakurria izateko ohorea merezi izan zuen iturri bakarra —agerian behinik behin— eta, nolanahi ere, bertako iturri nagusia. Alabaina, *HH*-ak gauzak nagusiki beste era batera izan zirela erakutsi digu.

Alde batetik, baliteke *GGero*-aren berrirakurketa ziurtasunik ezarekin ohorearekin baino lotuago egotea: lehenengo irakurketarekin asebeteta geratu ez eta, artean lapurtera idatziarekin familiartasun handiagoa erdietsirik, etekin hobe atera zekiokelakoan berrirakurri bide zuen (§ 9.2.4.2). Badirudi Axular Larramendiren lehen lorpenetakoa izan zela: zenbait sarreratan Leizarragaren aurrean agertzen dela egiaztatu ahal izan dugu, bederen (§ 9.2.8.3).

Bestetik, *HH*-aren iturririk emankorrena, Iparraldeko idazleen artean, Leizarragaren Testamentua da, ez bakarrik hitzetan, baina are esapide, etabarretan ere (§ 9.2.4.1). Badirudi Biblia euskaraz —eta poliki— itzulita ikusteak bereziki hunkitu zuela eta, Europako beste literatura askotan gertatu bezalaxe, bertatik abiatu zela nagusiki haren literatur hizkuntza egitasmoari oinarri emateko, bien artean zeuden alde handiak eroso gaindituaz. Frogatu ahal izan dut, bestalde, *HH*-ko itzulpenak ez zaizkiola Vulgatari zor (§ 9.2.8.1); honek esan nahi lezake gehienetan Larramendi buruz aritu zela Leizarragaren testuaren ulerpenean.

Larramendiren jokabideari buruz, lehen-lehenik azpimarratu behar da bildutako datu guztiek berresten dutela ezen, iturri idatziei dagokienez, *HH*-an *Erans*-ean bezalaxe jokatu zuela eta, beraz, egiatan *Erans* *HH*-aren isatsa besterik ez dela, eta ez erpina edo zatirik interesgarriena. *RS*-ko pitxiek, besteak beste, hain berezi bilakatzea, hortaz, halabeharrez gertatu zen, ez nahita. Aipatu beharreko ezberdintasun bakarra, *HH*-an idatziz aurkitutako gaiak garatzeko beta gehiago izana da, gaztelaniazko hitzen sinonimo ezberdinetan euskal hitzak berkokatuaz, adibide eta esapide berriak haiekin eratuaz eta, jakina, euren erroetan zein ordezkutzen dituzten paradigmatan oinarrituta, hitz berriak sortuaz. Haatik, ezberdintasun honek berretsi baino ez du egiten *HH*-ko oinarri lexikoan literaturak izan zuen garrantzia, azkar beharrez egindako eranskinarena honen aldean nahikoa jaisten den bitartean.

Oro har, liburuetatik hartutako hitzak *HH*-ra sartzeko *Erans*-erako pairatu izan zituzten aldaketa berberak pairatu dituzte forman eta esanahian. Areago, behin baino gehiagotan (§§ 9.1.1.3, 9.1.2.2, etab.) egiaztatu ahal izan dugu Larramendik hitzak ez ezik, testu zatiak ere

aldatuta —gutziz grafiaren aldetik, baina batzuetan aldaketa edo zuzenketa handiagoekin ere— aipatu ohi zituela, bere grafi sistemarantz —baita inoiz bere hizkerarantz— gehiago edo gutxiago eramanez. *HH*-ak aldaketen izaeran sakontzeko aukera ematen digu, adibideak askoz gehiago eta ñabarragoak dira eta.

Iturri idatzien azterketa, ezer baino lehenago zehatza izan behar da, hiztegiak erabilitako jatorrizko testuetara joaz, iturritasuna frogatzeko daturik onenak (huts bateratzaileak, besteak beste) bertan bakarrik ediren baitaitezke maiz. Euskal bibliografia dagoen egoeran dagoela, honek azterketa izugarri oztopatu du, bibliografi zertzeladetan luzaro —eta sarritan erabateko ondorioak lortu gabe— aritu beharrendaren kariaz (§ 9.1), baina oinarrizko lana ahaleginean egin gabe nekez aurkez genezakeen ondorio sendorik. Bide batez baino ez bada, kalean diren zenbait argitalpen (ustez) fidagarri eta kritikoren baliogabea agerian geratu da, baita *OEH*-ak hauek iturri bakartzat erabiliaz bere buruari egin dion kaltea ere.

Baina, zehatzaz gainera, azterketak irekia eta irudimentsua ere izan behar du: ezin da *HH*-an bildutako Iparraldeko hitzak zerrendatzera mugatu; aitzitik, hain begibistakoak ez diren, baina garrantzi berekoak edo agian gehiagokoak diren eraginak ardura bereziaz agerian jartzera ere zuzenduta egon behar du. Grafiako egokitzapenez gainera, formaren aldetik zenbait “Hegoalderatze” antzeman ahal izan ditugu, baita oro har *HH*-ko ohiko sistemari egokitzeko saioak baino ez direnak ere (§ 9.2.7.1), Larramendik kopia hutsa baino zerbait gehiago egin nahi izan zuela adieraziaz: zer den hori bestelako ikerketek erakutsi beharko digute baina, dena dela, badirudi ordura arteko euskara idatziaren eta ezagutzen zuen ahozko euskararen artean orekaren bat lortzen saiatu zela, arrazoiren bategatik hobetsi zituen ezaugarriak *HH*-an jaso nahi zuen euskararen ezaugarri orokor bilakatuaz.

Nolanahi ere, etimologi ariketak dauka, berriro ere, garrantzi gehiena literaturatiko hitzei aterata zizkien artean: hitzak ziren bezala kopiatzearekin bateratsu, Larramendik banan-banan aztertu eta haien zatiak era batera edo bestera profitatu zituen (§ 9.2.8): erroak erauzi eta berriz eratorriaz, egiturak kalkatu edo era ezberdinetara maiztuaz, etab. Ariketa honen indarrez, sarritan *Pouvreauk* edo *Urtek*, zeinek bere aldetik, erdietsitako ondorio berberetara iristea lortzen du (cf., adib., *abrekeria*, *abretu* edo *asberatu* eranskinean), Larramendik haiek bezala ez eze, haiek Larramendik bezala jokatu zutela antzemateko aukera berriak eskainiaz.

Hitz gutxi eskain dakizkieke Hegoaldeko liburuei, berriz. Txiroegiak ziren —Larramendik berak esan bezala— emaitza interesgarriak lortzeko eta, beraz, bertatik ezer hartu baldin bazuen, jadanik berez bazekien asko eta inolaz ere onartuko ez zukeen asko alde batera utziaz izan bide zen. Txirotasunaz gainera, haien izenak berak ez ezagutzeko arazoarekin topo egin dugu, eta honek lotura ziurrik ezartzeko ia biderik gabe utzi gaitu. Dena dela, badirudi haien lorpen gutxiak ateratzen jakin zuela eta, beraz, *HH*-an badirela bide honetatik eskuratutako zenbait hitz, Elizalde eta Otxoarenak bederen (§ 9.3.1): lorpen paradigmaticoek puntuzkoek baino Larramendik erdietsi nahi zuena hobeto ordezkatzeko dutelakoan, azpimarra ditzadan batoren *Aita gurea*, otoitzaren izena, Iparraldeko *Agur Maria*-rekin batera Hegoaldeko literatur euskararen barneratua; eta bestearen *-era* atzizkia, *HH*-an emankor bilakatua, dakigunez.

Azkenik, *RS* hiztegi barruan ere erabili zuenentz eztabaidatu dut (§ 9.3.2). Bertako hapaxtzat jota ditugun pare bat hitz, besteak beste, *HH*-an agertu arren, azalpenik errazena —orain arteko aurreiritziek aurka egiten badiote ere— Larramendik oraindik entzun ahal izan zituela egitea da, nik uste, euren ustezko hapaxtasuna kolokan utziaz eta euskal lexikoaren osagai zenbaiten historiari buruz ezinutzizko berriak eskainiaz.

10. Iturri idatziak (II): Hiztegiak

Larramendiren ez eze edozein hiztegitilaren iturririk preziatuena hiztegiak dira, hainbatetan errepikatu dugun bezala, eta hauxe peitu zuen batez ere josulagunak bere lanari ekiterakoan. Hala eta guztiz ere, *HH*-aren ontzeak eskatu zizkion urte luzeetan zehar, zein lehenago zein beranduago, azkenik zenbaiten laguntza lortu zuen, zehazkiago Etxeberri Sarakoaren eta Landucciren hiztegi eskuizkribatuak eta Harrieten gramatikako bi hiztegitxoak. Laguntza eskasa izan bide zen, benetan, hirurak txikiak (*HH*-aren aldean txikiegiak, inolaz ere) eta Landuccirena, dakigunez, zaborrez betea erabili behar zukeen hiztegitilearen beraren begietan.

Hiru hiztegiotarik bakoitzak oso arazo filologiko ezberdinak aurkezten ditu eta, hortaz, haien araberakoak izango dira eskainiko dizkiedan azterketak:

1) Etxeberrirena ezagutu ezean, Sbarbi-Urquijo deitu hiztegia —haren kopia emendatua edo haren berregitea izan litekeena— hartuko dut abiapuntutzat. Azken xedea beste iturri ezagunik ez duten *HH*-ko zenbait hitz ea berak azal ditzakeen egiaztatzea izango litzateke, baina aurretiaz eta ezinbestean Sbarbi-Urquijoren izaera bera eztabaidatu beharko da. Zehazkiago, orain artean batere arretarik lortu ez duen alderdi bati helduko diot: *HH*-ak, haren iturri garrantzitsu bat izaki, izaera hori hobeto ezagutzeko eskain dezakeen laguntzari, alegia.

2) Landucciren hiztegia *Erans*-aren iturri gisa ezagutzen dugu; haatik, Axular eta Harrietekin gertatu bezala, baliteke hau ere bietan, gorputzean eta eranskinean erabilia izatea: hau sinisteko zein ukatzeko dauden argudioak miatuko ditugu, beraz.

3) *Erans*-ean Harrieten hiztegitxoak esanguratsuki orrialde batetik aurrera bakarrik hustuta egonik, ez dago zalantzarik gainerakoa gorputzean sartu egin zuela (II, § 1.4.3): Larramendi, eranskina osatu aurreko lehen une hartan zer hartu zuen eta nola antzematen saiatuko naiz, betiko aztergaiei (grafia, morfologia, etab.) itxuraz berandu xamar erantsi zuen iturri honen hitzen patua (ea eratorriak eragiteko edota esanahikideetara hedatzeko gai izan ziren) erantsirik.

10.1. Etxeberri Sarakoaren hiztegi galdua

Pasarte hau oso ezaguna da, bestela nekez ezagutuko genukeen lan baten berri demaigulako, eman ere:¹¹⁶⁵

El doctor don Juan de Echeberría, natural de Sara en Labort, oy médico de la Villa de Azcoitia, muy docto y amante de su lengua, tiene años ha compuesto un diccionario quadrilingüe de Bascuence, Castellano, Francés y Latín, que impresso pudiera servir para entender los pocos libros que ay en Bascuence, aunque no con toda extensión. Avrá diez o doze años, que estando de passo en Azcoitia, me le fió por dos días, y entresaqué muchas voces del dialecto labortano, para ponerlas después en las correspondientes del Castellano. Harto me huviera alegrado que huviera precedido la impresión deste diccionario, para valerme del trabajo ageno sin ofensión de su autor, en quanto dixesse bien con la idea del mío (1745: xxxvi).

Larramendik aipatzen duen eskuizkribu hura agian galdutzat eman behar genuke baina, ezaguna denez, bada haren ordezeko gisa aurkeztu den hiztegi eskuizkribatu bat, Sbarbi-Urquijo izenaz ezaguna, oraindik argitara eta ondo aztertu gabe dirauena, Urquijo (1907a: 81-83), Mitxelena (1970: 29-31) eta, berriki, Etxebarria (1990: xx), Bilbao (1991: 766-767) eta Lakarraren (1993: 76-88) arreta erakarri badu ere. Izan ere, Euskal Filologiak askatu gabe duen erronkarik korapilotsuenetakoa dugu. Haren azterketa orokorra erdiesten dugun bitartean,¹¹⁶⁶ Larramendiren iturrien bila haren orrialdeetan zehar egin ditudan osteren ondoren atera dudan inpresioa —alegia, hiztegi hori Larramendik Etxeberriren hiztegiak egin zuen erabilera antzemateko bide antzua dela, hasteko, eta hortik Sbarbi-Urquijoren beraren izaeraz erator daitezkeen zenbait ezaugarri— azaltzen eta datuen bitartez oinarritzen saiatuko naiz.

10.1.1. Arazoaren egoera

Aurkitzailea —José María Sbarbi liburuzale madrildarra— Etxeberriren eskuzkoa bera zela etsita zegoen. Urquijok, begi irekixeagoz begiratu eta hainbeste baieztatu nahi gabe, Larramendik emandako berri baliotsuekin erkatu eta haren hiztegia izan daitekeela erabaki zuen, ondoko datuotan oinarrituz (Urquijo 1907a: 82-83): batetik, XVIII. mendekoa da, laukoitza, tamaina egokikoa (202 orrialde baino ez) eta haren egilea lapurtarra; bestetik, Etxeberriren hitz zenbait, berak bakarrik erabili zituenak, jasotzen ditu.

Datu guztiotarik batzuen eztabaidagarritasunean oraingoz sartu gabe, bik bederen Urquijoren hipotesiari nolabait atxikita mantendu ditu orain arteko ikertzaileak, eta guztiz beren errezeloak agerian jarri dituzten Mitxelena eta Lakarra irakasleak. Lehena, orokorragoa, hiztegiaren egiturari dagokiona da (Lakarra 1993: 81): laukoitza izatea, alegia. Hizkuntzen arteko ordena aldaketa txikia —Etxeberriek “eskuaraz, latinez, frantzesez eta espainolez” (1712: 400) dela dio, eta

¹¹⁶⁵ Identifikazioa kostata baino ez zen lortu: Humboldt (1817: 111) Ziburukoarekin nahastu zuen, nahiz Aizkibelek (1883: iii-iv) geroxeago okerra konpondu, Larramendiren eta Oihenart-Pouvreuren xehetasunak erkatuz. Vinsonek (1891-1898: 158-158, 47. zb.), berriz, Sarakoa Ziburukoaren iloba edo iloba txikia izan eta Larramendiri utzitako eskuizkribua osabarengandik jasotakoa izan litekeela iradoki zuen; hipotesia Urquijok (1907a: 18) deuseztatu zuen, Etxeberriren beraren hitzez.

¹¹⁶⁶ Bilbao eta Lakarra irakasleek aginduta daukate (Lakarra 1993: 82).

Sbarbi-Urquijo (hemendik aurrera SbUrq) euskara-latina-gaztelania-frantsesa da— ez da gaintitu ezin daitekeen oztopoa.¹¹⁶⁷

Bigarrena inolaz ere indartsuagoa da filologo batentzat: SbUrq-en badira Etxeberrik bakarrik erabilitako edota berak bakarrik adiera zehatz batean erabilitako zenbait hitz: *alosis* “harmonia”, *artha* “studium, cura”¹¹⁶⁸, *bocantça* “eloquentia” (Urquijo 1907a: 82), *antcecaitça* “inconcinnis” (sic)¹¹⁶⁹, *communztadura* “conventio”, *estrosada* “proelium”, *urmariatua* “liquefactus” eta *yendaquia* “natio” (Mitxelena 1970: 30).

Mitxelenaren uzurtasuna, Urquijok ikusi ez zuen edo bere argudiaketa askitto iluntzen zuelako ikusi nahi izan ez zuen SbUrq-en ezaugarri oso garrantzitsu batek sortu zuen:

...el manuscrito está en grave deuda con el *Diccionario Trilingüe*, de donde ha tomado a manos llenas. Ahí están todas las rarezas del *Suplemento* y muchísimas otras que proceden del cuerpo del diccionario (Mitxelena 1970: 30).

Aterabidea, Etxeberrik Larramendirena ezagutu eta gero berea berregin zuela izan liteke, nahiz 1749an hil zenez gero, Mitxelenak (*ibid.*) “se haría necesario suponer que pudiera consultarlo en manuscrito” zioen. Azken suposaketa honi Lakarrak (1993: 80) pisuzko eragozpen bat ezarri dio: *HH* jadanik inprimategian zela osatutako *Erans*-eko hitz nabarmenak (esate baterako, *bezarra* hutsa edo *asacatu RS*-ko hapaxa) barneratuak —eta ez azken orduan erantsiak— izateak aditzera ematen du ezinbestean 1745 ondoren egindako lana dela.¹¹⁷⁰

SbUrq Etxeberriren hiztegia dela esateko bigarren oztopoa —berau Urquijo Etxeberriren argitaratzaileak ondo ezagutu behar baina isildu zuena— Bilbaok (1991: 767) agertarazi du, Etxeberrik berak (1712: 400) hiztegiari gramatikari baino lehen ekin ziola baitiosku. Lakarrak (1993: 80) laburtu bezala, SbUrq ez da, beraz, ez 1712 baino lehen Etxeberrik egin zuen hiztegi saio hura, ez eta —ezberdina balitz— 1730-1735 inguruan Larramendiren eskuetan bi egunez jarri zuen hura. Gainerako posibilitateen egiaztapena noraino eta nondik nora joan litekeen eztabaidatu ondoren, Lakarraren hipotesia 1745 ondoren Hegoaldean egindako Etxeberriren hiztegiaren bermoldaketa dela da (1993: 81-82), “bermoldaketa honetan bestelako iturririk, L[arramendi]-ren hiztegia esaterako, erabili zuelarik moldatzaileak (Etxeberri zein beste delarik hau)”.

¹¹⁶⁷ Gogora dezagun Larramendik euskara-gaztelania-frantsesa-latina ordena aipatzen duela, baina hau buruz aritu beharrenez ondorioa bide da, ziurrenik.

¹¹⁶⁸ Egiatan, Urquijok erlazioan jarri zituen —oso zuhurki, bestalde— Etxeberriren idatzietan agertzen den *arthaduri* “studioosum” eta SbUrq-eko *artha* hitzaren itzulpena.

¹¹⁶⁹ Ez dakit Mitxelenak hitz hau nondik lortu zuen: ez dago AN zatian, bederen, dagokion bezala.

¹¹⁷⁰ Bidenabar, lau urteko epea aski eta sobera dela iruditzen zait SbUrq bezalako hiztegi bat egiteko, batez ere lana bi iturri erabiliz bat egitea izan balitz. Gauza bera esango nuke Etxeberriren adin handiaz (80 urte inguru), ez baitirudi adina hiztegi bat egiteko oztopotzat eman daitekeenik, batzuetan behintzat, noski.

10.1.2. SbUrq eta HH: lehen hurbilketa

Mitxelena, SbUrq-en egilea Larramendiren zordun dela erakusteko zenbait adibide oso on eskaini zituen,¹¹⁷¹ baina egiatan ez dago berak erabili zuen finezia filologikoaren beharrik bi hiztegien arteko kidetasun harrigarria frogatzeko. SbUrq-en lehen orrialdeko lehen zutabeko (AB atal osoko), FA osoko eta Urquijok (1907a: 83) eskaini MAko lehen sarrerak HH-ko kideekin erkatuta honako hau ateratzen zaigu:

SbUrq	Lar
A, substantivus postpositum, indicat Articulus el, la, lo in Lingua Castellana, et le, la, le in Lingua Francesa.	_____
<i>Aalgaizuna</i> . Pudor, L. Pudor, C. Pudeur, Fr.	_____
<i>Abaintalla</i> Praestantia, L. <i>Abantaldea</i> Ventaja, C. Avantage, Fr.	Ventaja, <i>gaindia</i> , <i>gueidia</i> , <i>ventaja</i> , <i>abaintalla</i> . Lat. Praestantia, excellentia.
<i>Abalia</i> . Melodia, L. Melodia, C. Mélodie, Fr.	Melodía, <i>abalia</i> , <i>aheria</i> , <i>otseztia</i> . Lat. Melos, cantus suavitas.
<i>Aba</i> . Oba. Ah! Oh!	_____
<i>Aballa</i> . Funda, L. Honda, C. Fronde, Fr.	Honda de tirar piedras, <i>ubalarria</i> , <i>aballá</i> . Lat. Funda.
<i>Abarasca</i> . Favus mellis, L. Pañal, C. Raion de miel, Fr.	Panal, <i>abarascá</i> , <i>eztiorracea</i> . Lat. Favus.
<i>Abarca</i> . Sandalium, L. Sandalia, Abarca, C. Sandalie des montagnards, Fr.	Abarcas, <i>abarcac</i> . Lat. Pero, onis.
<i>Abaresca</i> . Confusion, L. Roso y belloso, C. Sans distinction, sans dessus dessous, Fr.	(<i>Erans</i>) Roso y belloso, <i>abarescu</i> .
<i>Abarotsa</i> . Fragor, Strepitus, L. Ruido, C. Eclat, Bruit du tonnerre, Fr.	Ruido de cosa que se quiebra, y es desapacible, <i>abarrotsa</i> . Lat. Fragor.
<i>Abarra</i> . Ilex, L. Carrasca, C. Chêne vert, Fr.	Carrasco, carrasca (...). <i>Abarra</i> , <i>tartacá</i> , <i>zarbazta</i> . Lat. Ilex, cis, prinus.
<i>Abarrac</i> . Ramalia pro furno, L. Hornija, C. Fagots, Fr.	Hornija, <i>arbaztac</i> , <i>abarrac</i> . Lat. Furnaria ligna, ramalia pro furno.
<i>Abasorra</i> . In fugam versus, L. Oxeado, C. Effarouché, Fr.	_____
<i>Abazuza</i> . Grando, L. Granizo, C. Grêle, Fr.	Granizo, <i>abazuza</i> , <i>chingorra</i> , <i>iñatacia</i> , <i>babazuca</i> , <i>cizarcora</i> . Lat. Grando, nis.
<i>Abatza</i> . Monton, Aceruus Felicis, L. Montón de helecho, C. Tas de fougere, Fr.	_____
<i>Abea</i> . Fulcrum, Trabium, L. Viga que sustenta, C. Etay, Fr.	Viga que sustenta otras, <i>abea</i> . Lat. Trabium fulcrum.
<i>Abegorra</i> . Labor strepitosus, L. Faena, C. Tapage, Fr.	Faena con mucho afán y ruido, <i>arazoa</i> , <i>abegorra</i> . Lat. Labor strepitu plenus.

¹¹⁷¹ Onena, huts komuna delako, *afantu*-rena da (Mitxelena 1970: 105). Ik. hemen II, § 1.1.18.1.

<i>Abegortcea</i> <i>Abegortu</i>	Instigare, L. Azomar, C. Exciter, Pousser l'un contre l'autre, Fr.	Azomar, azuzar al perro, <i>urribatu</i> , <i>abegortu</i> . Lat. Instigare, irritare.
<i>Abendua</i> . December mensis, L. Diciembre, C. Décembre, Fr.		Diciembre, <i>abendua</i> , <i>lotacilla</i> . Lat. December.
<i>Aberastea</i> <i>Aberastu</i>	Diues fieri, L. Enriquecer, C. Enrichir, Fr.	Enriquecer, <i>ondiatu</i> , <i>aberastu</i> , <i>ondasquitu</i> . Lat. Ditare, locupletare.
<i>Aberatsa</i> . Diues, L. Rico, C. Riche, Fr.		Rico, adinerado, hazendado, <i>aberatsa</i> , <i>ondiatsua</i> , <i>dirutia</i> . Lat. Dives, locuples, pecuniosus.
<i>Aberea</i> . Animal, Brutum, L. Bruto, C. Animal, Brute, Bétail, troupeau.		Bruto, <i>aberea</i> , <i>abrea</i> . Lat. Brutum animal.
<i>Abetoa</i> . Abies, L. Abeto, C. Sapin, Fr.		Abeto, árbol, <i>abetoa</i> . Lat. Abies, tis.
<i>Abia</i> . Nidus, L. Nido, C. Nid, Fr.		Nido, <i>cabia</i> , <i>abia</i> , <i>cafia</i> , <i>ohatzea</i> . Lat. Nidus.
<i>Abiadura</i> . Cursus, L. Curso, C. Cours, Fr.		—————
<i>Abiatcea</i> <i>Abiatu</i>	Inchoare, L. Empezar, C. Commencer, Fr.	Comenzar, <i>asi</i> , <i>abia</i> , <i>abiatu</i> . Lat. Incipere, inchoare.
id. Ire ad, L. Ir, C. Aller vers... Fr. Pencher, Fr.		—————
<i>Aboatcea</i> <i>Aboaztu</i>	Acclamare, L. Vocear, C. Proclamer, Applaudir, Fr.	Vocear, publicar, aplaudir, <i>aboaztu</i> . Lat. Acclamare.
<i>Abodiatcea</i> <i>Abodiatu</i>	Striare, L. Estriar, C. Canneler, Fr.	Estriar, <i>boillustu</i> , <i>abodiatu</i> . Lat. Striare.
<i>Aboeztea</i> . Dissiare, L. Dissipar, C. Dissiper, Fr.		Dissipar, evaporando, <i>aboeztea</i> . Lat. Dissipare.
<i>Abuztua</i> ¹¹⁷² . Augustus mensis, L. Agosto, C. Aoust, Fr.		Agosto, mes, <i>agorrilla</i> , <i>aboztua</i> , <i>abuztua</i> .
<i>Abrasma</i> . Temerarius, L. Temerario, C. Téméraire, Fr.		Tolondro, tolondrón, desatinado, desatento, <i>abrasma</i> . Lat. Temerarius.
<i>Abrequerria</i> . Stoliditas, L. Tontería, C. Bêtise, sottise, Fr.		Bestialidad, <i>aberequeria</i> , <i>abrequeria</i> , <i>aberetasuna</i> . Lat. Bestialitas. / Brutalidad, <i>aberequeria</i> , <i>abrequeria</i> , <i>aberetasuna</i> . Lat. Bruta immanitas.
<i>Abreundea</i> . Hecatombus, L. Hecatombo, C. Hécatombe, Fr.		Hecatombre, sacrificio de cien bueyes, <i>abreundea</i> . Lat. Hecatombe.
<i>Abrilcea</i> <i>Abrildu</i>	Immolare, L. Imolar, C. Immoler, Fr.	Immolar, matar en sacrificio alguna res, <i>abrildú</i> . Lat. Immolare.
<i>Abrolla</i> . Fraus, L. Engaño en vender, C. Trainperie, Fr.		<i>abrolla</i> , engaño en comprar y vender (<i>ambrolla</i> -ren etimologi azalpenean).
<i>Abroña</i> . Ungula, Pes animalium, L. Pata, C. Patte, Pied, Fr.		Pata, el pie de los animales, <i>abroña</i> , <i>oña</i> . Lat. Ungula, pes.
<i>Abudoa</i> . Dexter, L. Diestro, C. Adroit, Fr.		—————

¹¹⁷² Ala *abustua*? Orban batek ez dit uzten letra hori ikusten.

<i>Abuleta</i> . Resticulus, L. Cordón, C. Cordon, Laçet, Fr.	_____	
<i>Aburicatcea</i> Cespitare, L. <i>Aburicatu</i> Tropezar, C. Broncher, Fr.	_____	Tropezar, <i>beaztopa</i> , <i>beaztopatu</i> , <i>aburicatu</i> , <i>estropezatu</i> . Lat. Offendere, cespitare.
<i>Aburdeatua</i> . Cogitabundus, L. Pensativo, C. Pensif, Réveur, Fr.	_____	
<i>Fa</i> . Apage, L. Fa, C. Fa, Fi, Fr.	_____	
<i>Faborea</i> . Favor, L. Favor, C. Faveur, Fr.	_____	Favor, <i>ontartea</i> , <i>faborea</i> , <i>fagorea</i> . Lat. Favor.
<i>Façà</i> . Fastus, L. Pompa, C. Solemnité; it. Morgue, Fr.	_____	
<i>Facegatcea</i> . Emollire, L. Amalgar, C. Appaiser quelqu'un, Fr.	_____	Mitigar, suavizar, <i>ematu</i> , <i>facegatu</i> , <i>gozatu</i> , <i>beraatu</i> . Lat. Mitigare, lenire.
<i>Fachelatsua</i> . Molestus, L. Molesto, C. Incommode, Facheux, Fr.	_____	
<i>Facegoa</i> . Mansuetudo, L. Moderación, C. Tranquillité, Fr.	_____	Quietud, <i>pausa</i> , <i>guediera</i> , <i>gueditasuna</i> , <i>facegua</i> , quietud. Lat. Quies, tranquillitas.
<i>Faderra</i> . Monachus, L. Monge, C. Moine, Fr.	_____	(<i>Erans</i>) Monge, <i>faderra</i> .
<i>Fagoa</i> . Fagus, L. Haya, C. Hêtre, Fr.	_____	Haya, árbol, <i>pagoa</i> , <i>fagoa</i> , y de aquí el Latino <i>fagus</i> .
<i>Fagorea</i> . Favor, L. Favor, C. Faveur, Fr.	_____	Favor, <i>ontartea</i> , <i>faborea</i> , <i>fagorea</i> . Lat. Favor.
<i>Faintza</i> . Tunica, L. Pellicula, C. Pellicule, Fr.	_____	Túnica, la telilla o película, <i>mebraná</i> , <i>faintza</i> , <i>metartea</i> . Lat. Tunica.
<i>Falta</i> . Culpa, Defectus, L. Falta, C. Faute, Deffaut, Besoin, Fr.	_____	Defecto, <i>gabendá</i> , <i>utsaldia</i> , <i>itena</i> , <i>baia</i> , <i>faltá</i> , <i>escasá</i> . Lat. Vitium, defectus, erratum.
<i>Faltatcea</i> . Deficere, L. Faltar, C. Manquer, Fr.	_____	Faltar, <i>faltatu</i> , <i>paltatu</i> , <i>aqutu</i> . Lat. Deesse, deficere.
<i>Faltsoa</i> . Falsus, L. Falso, C. Faux, Fr.	_____	Falso, <i>falsoa</i> , <i>palsoa</i> . Lat. Falso.
<i>Faltsoqueria</i> . Falsitas, L. Falsia, C. Fausseté, Falsification, Fr.	_____	
<i>Fama</i> . Fama, L. Reputation, C. Renomé, Fr.	_____	Fama, <i>fama</i> , <i>famea</i> , <i>omena</i> , <i>iomena</i> , <i>ospea</i> . Lat. Fama, nomen.
<i>Famatcea</i> . Famamdare, L. Hacer famoso, C. Exalter, Fr.	_____	Afamar, hazer a otro famoso, <i>famatú</i> , <i>omendu</i> , <i>omen aundia eman</i> , <i>omen andicoa eguin</i> . Lat. Famosum, illustrem reddere.
<i>Fantza</i> . Apparentia, L. Aparencia, C. Apparence, Ressemblance, Fr.	_____	Retrato, <i>erretrotoa</i> , <i>eranza</i> , <i>ecanza</i> , <i>fanza</i> . Lat. Effigies, imago.
<i>Farda</i> . Excrementum, L. Excremento, C. Excrément, Fr.	_____	
<i>Farfa ematea</i> . Objurgare, L. Reprehender, C. Donner une semonce, Fr.	_____	
<i>Farfulla</i> . Vanus, L. Vano, C. Vain, Fat, Badin, Fr.	_____	Vano, soberbio, <i>vanoa</i> , <i>lergoa</i> , <i>bardaila</i> , <i>farfulla</i> . Lat. Vanus, levis.
<i>Farfullera</i> . Stoliditas, L. Bobada, C. Fatuité, Platitude, Fr.	_____	Bobada, <i>bobada</i> , <i>bardailara</i> , <i>farfullera</i> , <i>funsicabea</i> , <i>modurria</i> . Lat. Fatuitas, stoliditas.
<i>Farnesia</i> . Paralysisia, L. Paralisisa, C. Paralysisie, Fr.	_____	
<i>Faroa</i> . Torques, L. Collare, C. Collier, Fr.	_____	Argolla, <i>faroá</i> . Lat. Torques, is; collare, is.
id. Pharus, L. Faro, C. Pharre, Vigie, Fr.	_____	

<i>Farra</i> . Risus, L. Risa, C. Rire, Fr.		Risa, <i>farrá, barrea, hirria</i> . Lat. Risus.
<i>Farragarria</i> . Res ridicula, L. Ridiculez, C. Qui prête a rire, Fr.		Ridiculez, ridículo, <i>farragarria, barregarria</i> . Lat. Res ridicula, ridiculus.
<i>Farrasta</i> . Rapidus, L. Rapido, C. Rapide, Fr.		Rápido, <i>farrasta, lasterra</i> . Lat. Rapidus.
<i>Farrastadura</i> . Frictio, L. Flotadura, C. Frottement avec le pied, Fr.		_____
<i>Farreguin</i> <i>Farreguitea</i>	Ridere, L. Reir, C. Rire, [Fr.].	Reir a carcajadas, <i>algaraz farreguin, algarac eguin</i> . Lat. Cachinnari, cachinos tollere.
<i>Fartza</i> . Lens, L. Liendre, C. Lente, Fr.		Liendre, <i>partza, fartza</i> . Lat. Lens, dis.
<i>Fasticatcea</i> . Molestare, L. Enfandar, C. Fatiguer, Ennuier, Fr.		_____
<i>Fasticua</i> . Molestia, L. Enfando, C. Ennui, Dégout, Fr.		_____
<i>Fartcidura</i> . Farcimen, L. Rellenado, C. Farce, Ragout, Fr.		_____
<i>Fatsa</i> . Vinacea, L. Boruco, C. Marre de raisin, Fr.		_____
<i>Faua</i> <i>Fauna</i>	Sterilis, L. Esteril, C. Stérile, Fr.	Estéril, <i>soilla, faüa, fauna</i> , estéril. Lat. Sterilis.
id. Vanus, L. Vano, C. Vain, Vuide de sens, Fr.		Vano, falto, hueco, <i>fauná, utsa, vanoa</i> . Lat. Vanus.
<i>Fauntasuna</i> . Sterititas, L. Esterilidad, C. Stérilité, Fr.		Esterilidad, <i>soiltasuna, fautasuna, fauntasuna</i> . Lat. Sterilitas.
id. Segnities, L. Cobardía, C. Lâcheté, Fr.		_____
<i>Faza</i> . Fastus, L. Pompa, C. Faste, Morgue, Fr.		_____
<i>Maatsa</i> . Uva, L. Uba, C. Raisin, Vigne, Fr.		_____
<i>Maats-guistena</i> [sic]. Racemus, L. Racemo, C. Grappe, Raffle, Fr.		_____
<i>Macarela</i> . Alecha, G. Maquereau, Fr.		_____
<i>Macarra</i> . Lippitudo, L. Lagaña, C. Chassie, Fr.		Lagaña (...). <i>Macarrá, becarreá, pistá, beteria</i> . Lat. Lippitudo.
<i>Macatu</i> . Corrupti, L. Empezar a pudrirse, C. Se gâter, Fr.		Macarse, empezar a pudrirse, viene de <i>maca</i> , cuyo origen es bascongado, <i>macatu, usteltzera eguin, asi</i> . Lat. Corrupti, putrescere.
<i>Macatza</i> . Non insertus, L. No ingerto, C. Sauvageon, Fr.		Arbol no ingerto, <i>macatzá</i> ; ingerto, <i>chertatua</i> .
<i>Macela</i> . Mala, Gena, L. Carillo, C. Joüe, Fr.		_____
<i>Maceta</i> . Ligneus malleus, L. Mazo, C. Maillet, Fr.		_____
<i>Machacatcea</i> <i>Machacatu</i>	Conterere, L. Machacar, C. Piler, Fr.	Machacar, es de el bascuence <i>machacatu, ceatu, zapaldu</i> . Lat. Conterere, contundere.
<i>Machatcea</i> <i>Machatu</i>	Retundere, L. Remachar, C. River, Emousser, Fr.	Remachar, tiene origen bascongado, véase <i>machar, machacar, bermachatu, machatu</i> . Lat. Retundere.
<i>Machichualdea</i> . Focarius, L. Trashoguero, C. Ami du coin du feu, Fr.		Trashoguero, perezoso, <i>machichualde, sutondozailea</i> . Lat. Focarius.

<i>Machisalta</i> . Locustae genus, L. Caballeta, C. Sauterelle noire, Fr.	Caballeta, insecto como langosta, que no haze daño, <i>machisalto</i> . Lat. Locustae saltatricis & innoxiae genus.
<i>Macoa</i> . Uncus, L. Gancho, C. Crocq, Crochet, Fr.	Gancho, de hierro, &c., <i>cocoa</i> , <i>gacoa</i> , <i>macoa</i> . Lat. Uncus, vncinus.
<i>Macolac</i> . Pinnae rotae, L. Ruedas de pino, C. Roües de pin, Fr.	Pinas de rueda, <i>macolac</i> . L[at]. Pinnae rotae.
<i>Macota</i> . Virgula, L. Virgula, C. Virgule, Fr.	—————
<i>Macurgoa</i> . Curvatura, L. Corbatura, C. Courbature, Fr.	Corvadura, <i>macurgoa</i> , <i>macurrera</i> , <i>gubia</i> . Lat. Curvatura.
<i>Macurra</i> . Manibus captus, L. Gafo, C. Estropié des mains, Fr.	Gafo de pies y manos, <i>elbarria</i> , <i>macurra</i> . Lat. Manibus ac pedibus captus.
<i>Macurtu</i> . Curvare, L. Corbar, C. Courber, Fr.	Corvar, <i>gubiatu</i> , <i>macurtu</i> . Lat. Curvare.
<i>Madalcoa</i> . Pyrus, L. Peral, C. Poirier sauvage, Fr.	—————
<i>Madaria</i> . Pyrum, L. Pera, C. Poire, Fr.	Pera, <i>udarea</i> , <i>madaria</i> . Lat. Pyrum.

102 hitz edota hitz-adiera ezberdin dira, sarrera berean bilduta ematen dituen hitzak (*abaintaila*, *abantaldea*) eta aldaerak (*fauna*, *faua*) ere kontuan sarturik. Haietatik ia heren batek (32, hots, %31,4) ez dauka inolako zerikusirik *HH*-ko edukiarekin. Letraka begiratuta, portzentaia egonkor xamar mantentzen da: A letran 42tik 11 (%26,2), F-n 40tik 15 (%37,5) eta M-n 20tik 7 (%35). Gainerako gehienetan berdintasuna —euskaraz zein latinez eta gaztelaniaz— begibistakoa da, gutxi batzuetan azaldu beharko diren formazko eta batez ere esanahizko ezberdintasunak agertzen diren arren.

Oraingoz gehiagotara gabe, kopiatutako erakuskari txikiak oso ongi balio diezaguke SbUrq-en zenbait ezaugarri eta haren egile edo berregilearen zenbait usadio ezagutzera emateko.

10.1.3. SbUrq-en ezaugarri zenbait

10.1.3.1. Antolakuntza

Alfabeto hurrenkeraren arabera —baina ez oso hertsiki— antolatuta dago eta lehenengo bi letren araberako atalak (AB, AC, etab.) bereizten ditu, normala zen bezala (I, § 8). Esanahi bereko eta ez oso urrutiko hitzak (*abaintalla* eta *abantaldea*, *faua* eta *fauna*) giltzaz¹¹⁷³ lotuta eta lat.-eusk.-fr.-ezko itzulpen berarekin ematen ditu.¹¹⁷⁴

Izenkiak mugatuta agertzen dira, eta aditzak aditzizenaz ordezkaturik, inoiz edo behin partizipio mugagabeaz eta aditzizenaz (hauek ere elkarren gainean eta giltzaz lotuta) jasota badaude ere. Aditzaren ordezkapen modu honek Harrietena dakar gogora (nahiz honek

¹¹⁷³ Nik hemen marra batez ordezkatu baditut ere.

¹¹⁷⁴ Osselton-ek (1989a: 167-169) giltzaz modu berean darabiltzaten XVII eta XVIII. mendeetako hiztegi-gele asko aipatzen ditu.

partizipio mugatua jartzen duen) eta, oro har, egilea Iparraldeko etorkikoa delako hipotesiarekin ondo dator.

10.1.3.2. Grafiazko gogoetak

Urquijok, Etxeberriren idatzien aurkezpenean (1907a: 52), adierazgarriki “Desorden ortográfico” deritzan atalean haren grafi sistimaren atal batzuk oso aldakorak direla erakutsi zuen: <x>, <ch> eta <ss>, <tz> eta <tç>, <í> eta <s>, <ce> eta <ze>, <u> eta <v> bokalak, <u>, <v> eta kontsonanteak, <i> eta <j> bokal artean eta hitz hasieran, <ezb-> eta <ezp->, <mb> eta <nb>. ¹¹⁷⁵

SbUrq-en islatzen den grafi sistema —sistema bakar batez mintzo baldin badaiteke— Urquijok deskribatutakoa baino are korapilotsuagoa da. Funtsean, ezin esan daiteke Etxeberrirena denik, nahiz antzeko gauza zenbait egon badauden, alde berriagoa, inoiz harrigarria eta ezaugarri batean baino gehiagotan Larramendirenarekin bat datorrena baizik. Hitz lauz esanda, SbUrq-en grafia saski-naski bat da. Ikus ditzagun adibide batzuk, Urquijok aintzat hartu grafemak gidari ditugula:

- 1) <ss> bokal arteko <s>ren ordeaz erabili ohi du (*assea*, *assentatcea*, *asserradura*, etab.), nahiz ez beti (*ase*, *asensioa*, *aserrea*, etab.).
- 2) <ch>aren papera *HH*-an bezain zalantzazkoa da; hitzen batean (*acha* “rupes”, *achaquia* “praetextum”, *achiquitcea* “manu prehendere”, etab.) argi eta garbi gaurko <tx>ren lekuan dago.
- 3) <x>, Iparraldean ohikoa izan denez, gaurko <ts> izaten da: *axechebea* [sic] “infortunium”, *axeguina* “delectatio”. Bada oraindik beste bide bat: *asha* “halitus; respiración; respiration” hitzean aurkitzen dugun <sh> digrafoa, erabat ziurra, AS atalean agertzen baita. ¹¹⁷⁶
- 4) Zer erabiltzen du, orduan, gaurko <x> adierazteko? Inoiz <ch>, jakina (adib. *acheria* “vulpes”, *achola* “cura”), baina baita <ss> ere (*hassa* “axis”). Larramendiren sistemaren arrasto argiak dira, berriz, han-hemengo <is> zenbait (*aisala* “superficies”, *aiseria* “vulpes”).
- 5) <tc> eta <tz> bereizkuntza zaharra gordetzen du hitz solteetan: *abegortcea*, *abiatcea*, *aboaatcea*, etab. (aditzizen guztietan) eta *fartcida*, baina *abatza*, *faintza*, *fantza*, *fartza*, *macatza*, nahiz araua apurtzen duen adibideren bat atzeman ahal izan dudana (adib. *achurtzea*). Ilaran dauden hitzetan, berriz, <tz> hobesten du (*atzaman... atzean*, *atzeoa... atzicarra*, *atziperia... atzo... atzula*), sistema berriari atxikita. Ez da ahaztu behar azken hau Larramendik hedaturikako grafia dela (I, § 8.4.7). Dena dela,

¹¹⁷⁵ <s> eta <ch> ere aldizkatzen direla esan arren (*soil* eta *choil*), bistan da grafiaz gairikoa dela.

¹¹⁷⁶ Digrafo honetaz (baina gaurko <x>ren ordeaz erabiltakoa), ik. Urgell 1987a: 360-365.

han-hemen, <ç>ren bat dago: *haiotça* "falx putatoria", sistema are zaharragoaren ordezkari.

6) Ez dut <ř>rik aurkitu, beharbada nire erruz.

7) <ç> eta <z> elkarren lehian aurkitzen dira: *aça* "caulis" eta *aza* "brassica", *faça* eta *faza* "fastus"; <ce> motakoak gehiago direla ematen duen arren, ez da falta <ze>rik (*acendatu* baina *azeria*) *HH*-an bezala.

8) Egingo nuke /u/ beti <u> dela, bokal artean <ü>: *aüena*, *aüendu*.

9) Bokal artean <y> dago (*agayatcea*, *agoya*, *aya*, *ayena*, etab.). AJ atalean aurkitzen ditugun hitz gutxiak, bi sistema ezberdinen aurrean jartzen gaituzte berriro ere: *ajola*, *ajolagabetcea* vs *ajuta*.

SbUrq Etxeberriren hiztegiaren bermoldaketa baldin balitz, beraz, grafiaren aldetik nahikoa desitxuratuta izango genuke, *HH*-aren ezaugarriez gainera ziurrenik berrikuntza zenbait ere erantsi baitzituen haren egileak. Eskuizkribu zaharraren arrastoak izan litezke, berriz, <hassa> (gaur <haxa>) edo <haiotça> bezalako formak.

10.1.3.3. SbUrq-en (berr)egilearen hizkuntz gaitasunez

Egilearen frantsesezko gaitasuna ez eze, hizkuntza horrekiko interes berezia ere nabarmenak dira: azken lekuan badago ere, berak biltzen ditu ordain gehienak: latinak 7 bider bi ordain erdiesten ditu (s.vv. *abarotsa*, *abatza*, *abea*, *aberea*, *abroña*, *falta* eta *macela*), gaztelaniak behin bakarrik (s.v. *abarca*) eta frantsesak, berriz, 22 aldiz eta are hiru bitan (s.vv. *falta*, *farfulla*) eta lau batean (s.v. *aberea*), frantsesez beste hizkuntzetan baino zehatzago izan nahi edota ahal zuelako seinale. Halaber, *hachea* hitzean frantsesezko atalaz besteak osatu gabe daude.

Hizkuntza honetako ordainak, gainera, zehatzagoak izan ohi dira, azalgarriagoak, eta perifrasiari beste hizkuntzetan baino leku handiagoa egiten zaio:

facegatcea "appaier quelqu'un" (vs "emollire" eta "amalgar"), *farfa ematea* "donner une semonce" (vs "objurgare" eta "reprehender"), *farragarria* "qui prête a rire" (vs "res ridicula" eta "ridiculez"), *fatsa* "marre [sic] de raisin" (vs "vinacea" eta "boruco"), *faua* "vain, viude de sens" (vs "vanus" eta "vano"), *machichualdea* "ami du coin du feu" (vs "focarius" eta "trashoguero").

Beraz, badirudi frantsesez erraz eta eroso murgiltzen zela. Are inoiz frantsesak beste bi hizkuntzetan jasotzen ez den informazioa eskaintzen du:

abarca "sandalie des montagnards" (vs "sandalium" eta "sandalia, abarca"), *abarotsa* "eclat, bruit du tonnerre" (vs "fragor, strepitus" eta "ruido"), *aberea* "animal, brute, bétail, troupeau" (vs "animal, brutum" eta "bruto"), *farrastadura* "frottement avec le pied" (vs "frictio" eta "flotadura"), *madalcoa* "poirier sauvage" (vs "pyrus" eta "peral").

Halere, huts bat bederen aurkitu uste dut gure corpus txikian: *fatsa* "marre de raisin", non *marre marc*-en ordezkari dagoen.

Latina metahizkuntza gisa agertzen den arren (cf. *a sarrera*), egiatan eskuizkribu honen egilea ez da hartan oso trebatua. Mitxelenak (1970: 30) jadanik ohartu zuen: "...el autor, sea

quien fuere, emplea a veces palabras latinas muy poco clásicas: así piensa, al parecer, que *succedere* es el equivalente normal de *apucatcea*, *acaezer*, *survenir*, *arriver*". Badira, ordea, hori baino huts larriagoak: kopia hutsa izan litekeen *sterittas* "fauntasuna" (lat. *sterilitas*)-en hasi, *cometa* "arcabela" zalantzazkotik igaro, eta *monton*¹¹⁷⁷ "abatza", *hecatumbus* "abreundea" (lat. *hecatombe*) eta *paralysia* "farnesia" (lat. *paralysis*) bezalako sasi-latinezko ordainetan buka.

Mitxelenak oso ongi frogatuta utzi zuen, bestalde, gaztelania gaizki ulertuak eragindako hutsak ere badirela:

Señac, por ejemplo, se traduce por "favus, pañales, raion de miel": se trata, en realidad, de *pañales*, que se entendieron *panal(es)*. Cf. *lapa* "cadillo, conchae genus, lapa, poisson à coquille": aquí no sólo se entendió mal *cadillo*, sino también su equivalente latino, que es naturalmente *lappa* en Larramendi (Mitxelena 1970: 30).

Erants bekio *abarasca* "favus mellis, pañal, raion de miel" itzulita agertzen dela, hots, egileak *pañal* beti "panal" ulertzen bide zuela. Berbera gertatzen zaigu *fasticatcea* "enfandar", *fasticua* "enfando" eta are *haserratcea* "enfandarse"-rekin. Arazoa orokorragoa da, beraz: egileak gaztelaniazko hitz batzuk sistematikoki, itxura denez, oker jasotzen ditu. Honek iradokitzen du beharbada gaztelaniaz bazekiela uste zuen arren, hizkuntza honetan hala-hola moldatzen zen norbait zela.

Honelaxe azaltzen dira gaztelaniaz ematen dituen hainbat hitzen itxura bereziak, sarritan latinari behar baino atxikiagoak: *abendua* "diciembre" (lat. "december"), *abreundea* "hecatombo" (lat. "hecatombus"), *fama* "reputation", *fantza* "apparence" (lat. "apparentia"), *farnesia* "paralysia" (lat. "paralysis"), *faroa* "collare", *farrastadura* "flotadura", *fauntasuna* "esterilidad", *maats-guistena* [sic] "racemo" (lat. "racemus"), *macela* "carillo",¹¹⁷⁸ *macurgoa* "corbatura"; baita euskal *a* artikularen gazt. ordainak *el*, *la*, *lo* direlako baieztapena ere.

Gaztelaniazko ordain bitxiak, ezagugaitzak edo desgisatuak, ez dira falta: *facegatcea* "amalgam" (?; cf. lat. "emollire", fr. "appaier quelqu'un"), *fatsa* "boruco" (hau da, *borujo* "orujo"), *macarela* "alecha" (hau da, (*h*)*aleche*). Oso adierazgarriak dira, hirurak erabat aske diren hitz gutxien artekoak baitira: ziurrenik ez dira erratak, ez bederen asmatu ahal izan ditugunak; guztiz *boruco*-k gaztelaniak hain berezkoa duen hots bat ahoskatzeko arazoak iradoki litzake.¹¹⁷⁹

abegorra "faena" (vs lat. "labor strepitus", fr. "tapage") adibideari erreparatzen baldin badiogu, gaztelaniazko ordaina labor geratzen dela ohartzen gara; arrazoia, zalantza izpirik gabe, *HH*-ko sarrera ("faena con mucho afán y ruido", cf. lat. "labor strepitu plenus") osorik ez kopiatzean datza, eta nolabait SbUrq-en egilea gaztelaniazko zehaztasunaz doi bat axolagabe agertzen zaigu.

¹¹⁷⁷ Gazt. *montón* (1104) lat. *mons*, *montis*-en eratorria da (*DCECH*, s.v. *monte*).

¹¹⁷⁸ <r> eta <rr> bereizteko arazoak orokorragoak dira: cf. fr. *pharre* "faro", eusk. *abarotsa* eta *abrequerria*.

¹¹⁷⁹ Gazt. /x/ euskaraz (eta katalanez, besteak beste) [k]-z egokitzea ez da batere ezezaguna; Echeniquek (1997: 87-88, 2. oh.) bildu ditu gaiari buruz dauden hainbat lekukotasun.

Frantsesari eta gaztelaniari buruz erdietsitako datuak, orokorki ongi datozkio azken egilea Etxeberri delako hipotesiari. Alabaina, frantsesez ere hutsak (nahiz beharbada oso gutxi) izanik, bigarren pertsonaia bat (kopiatazaila bat?) bederen kontuan hartzeko atexka bat irekita utzi beharko genukeela deritzat.

Etxeberriren latina ikertu beharko da, berriz, hizkuntza honi buruzkoak balioztatu ahal izateko, baina, hasieran behintzat, azaldu zaizkigun hutsetarik batzuek larregi dirudite latina bere herritarrei irakasteko asmoa zeukan batek eginak izateko.

10.1.4. Etxeberri ala Larramendi?

SbUrq-en azterketan aitzinatu zaizkidanen lanetan, *HH*-aren eragina epifenomeno gisa agertzen da. Haatik, gertakari hau funtsezkoa izan daiteke auzia erabakitzeke, baldin eta alderantziz heltzen baldin badiogu.

Demagun Etxeberriren hiztegiak deusik ez dakigula. Gorago egin dugun erkaketaren argitara, baldintza berri hauetan, SbUrq XIX. mendean loraldia ezagutu zuen tradizio ezagun baten —*HH*-aren ondorengoenaren— ale berri eta aski goiztiar baten aurrean gaude: honela begiratuta Larramendiren hiztegiak hitz sorta handi xamar bat euskara-erdara ordenan jarria eta frantsesa erantsia, huts askoren eta Iparraldeko iturri baten zenbait ekarpen nabariekin baino ez litzateke izango SbUrq ospetsua. Aldeak alde, Añibarro, Lécluse, Aizkibel edo Fabrekin batera aztertu beharko genuke.

Alabaina, gauzak bestela daude filologoentzat: SbUrq-en oinarrizko iturrietatik bat Etxeberriren hiztegia izan dela jakintzat ematen badugu, orduan *HH*-an eta bietan agertzen diren hitzen aitatasuna (Etxeberri ala Larramendi) erabakitzeke argudioak aurkitu behar ditugu.

A-F-M letretan agertu zaizkigun berdintasunetara itzuliaz, badugu bere burua salatzen duen hitz talde bat, *Erans*-eko hitzek (Lakarra 1993: 80), Larramendiren elkartu nabarmenek (*abasma*, *abroña*, etab.), Hegoaldeko grafia daukatenek (*aballa*, *abarotsa*, *abea*, etab.), izatez Hegoaldekoek (*abazuza*, *farra*, etab.), *HH*-ak azal ditzakeen hutsek (*abaresca*, *machisalta*)¹¹⁸⁰ eta bestelako argudioez (*DAut*-eko latinezko ordainak erabiliz, esaterako)¹¹⁸¹ bereiz daitezkeen gainerako apurrek osatua: nire kalkuluen arabera, 22ren bat hitz (%31,4) —hots, heren bat inguru— zuzen eta erraz Larramendiren aldera ekartzera irits gaitzke. Gogoratu jadanik beste heren bat zeharo asketzat jo izan dugula hasieran (§ 10.1.2). Gainerantzean, denak Etxeberrirenak, denak Larramendirenak edo —asma ahal daitezkeen proportzio guztietan— batzuk batarenak eta besteak bestearenak izan litezke. Haatik, ez hainbeste datu zehatzetara,

¹¹⁸⁰ Bien arrazoia bat da: Larramendik, ohi ez bezala, hitza mugagabea (*abarescu*, *machisalto*) ematea.

¹¹⁸¹ Honako adibide argi hauek antzeman ahal izan ditut: *abaintalla* (*DAut* “Praestantia, excellentia” > *HH* ib. > Sb-Urq “Praestantia”), *aboaztu* (*DAut* “Vocear. Vale también *publicar* o manifestar con voces alguna cosa” + “Vocear. Vale también *aplaudir* o aclamar con voces. Lat. *Acclamare*” > *HH* “Vocear, publicar, aplaudir. Lat. *Acclamare*” > Sb-Urq “*Acclamare*, L. *Vocear*, C. *Proclamer*, *Applaudir*, Fr.”; etzanak nireak dira), *abroña* (*DAut* “Lat. Ungula. Pes” > *HH* ib. > Sb-Urq “Ungula, Pes animalium”).

nola hipotesirik indartsuenaren argudiora joaz, ondoko lerroetan denak edo gehienak Larramendirenak direla erabakitzeke ebidentzia zenbait ekarriko ditut.

10.1.4.1. <h> dela eta

SbUrq eta *HH*-aren arteko gonbaraketak oso emaitza ezberdinak ematen ditu baldin H letraren atala hartzen badugu; egin dezagun saio bat HA-ren lehen zutabearekin:

<i>Ha</i> . Interjection. Ah, Heu, L. Ah, C...	_____
<i>Habailla</i> . Funda, L. Funda, C...	<i>aballa</i> , honda de tirar piedras.
<i>Habarratsoa</i> [sic]. Strepitus, Stridor, L. ESTRUENDO, C...	<i>abarrotsa</i> , ruido de una cosa que se quiebra, y es desapacible.
id. Famosus, L. Famoso, C...	_____
<i>Habea</i> . Columna, L. Coluna, C...	<i>habea</i> , columna.
id. Oestrum, L. Tabano, C...	<i>habea</i> , tábano.
<i>Habuina</i> . Spuma, L. Espuma, C...	<i>abuina</i> , espuma.
<i>Habia</i> . Nidus, L. Nido, C...	<i>abia</i> , nido.
<i>Haburicadura</i> . Collisio, L. Tope, C...	_____
<i>Haburicatcen</i> <i>içatea</i> . Offendere, L. Tropezar, C...	<i>aburicatu</i> , tropezar.
<i>Hacania</i> . Gradarius gressus, L. Portante, C...	_____
<i>Haceria</i> Vulpes, L. Zorra, Zorro, <i>azeria</i> , <i>aiseria</i> , <i>azaria</i> . <i>Hacheria</i> C...	
<i>Hachea</i> . Chargé, Fr.	_____
<i>Haci</i> . Nutrire lacte puerum, L. Nutrir, C...	<i>aci</i> , criar, nutrir.
<i>Hacia</i> . Nutritus, L. Nutrido, C...	<i>acia</i> , criado así.
id. Semen, L. Sembra, C...	<i>acia</i> , semilla.
<i>Hacienda</i> . Grex, L. Ganado, C...	_____
<i>Hacilla</i> . November mensis, L. Noviembre, C...	<i>acilla</i> , noviembre.
<i>Hacimbelleria</i> . Sarcinae, L. Equipage, C...	_____
<i>Haga</i> . Bajulator, L. Portador, C...	_____
id. Persica, L. Pertica, C...	_____
<i>Hagoa</i> . Agonia, L. Agonia, C...	_____
id. Fusio, L., Funditio, C...	<i>agoa</i> , massa en la fundición de hierro.
<i>Hagoan</i> <i>egotea</i> . Laborans vivere, L. Vivir con trabajo, C...	<i>agoan jarri</i> , incorporarse en la cama.
<i>Hagoatcea</i> . Cudere, L. Fraguar, C...	_____
<i>Hagoatua</i> Languescens, L. <i>agorande</i> , hinchazón, soberbia. <i>Hagorandua</i> Languido, C...	<i>agoranduro</i> , hinchadamente, soberbiamente.
<i>Hago nigarrez</i> . Lacrymaris, L. Lloras, C...	_____

<i>Haigaina</i> . Dens molaris, L. Muela, C...	<i>aguña, aguina</i> , muela.
<i>Hagua</i> . Fagus, L. Haya, C...	_____
<i>Haguitz</i> . Multum, L. Mui, C...	_____
<i>Hañcadura</i> . Divulgatio, L. Divulgacion, C...	_____
<i>Haicea</i> . Ventus, L. Viento, C...	<i>aicea</i> , viento.
<i>Haicetsua</i> . Evaporatus, L. Evaporado, C (...) Ventosus, Ventoso...	<i>aicetsua</i> , ventoso.
<i>Haigua</i> . Licitus, L. Permittido, C...	_____
<i>Haidurra</i> . Malevolus, L. Malqueriente, C...	<i>aidurra</i> , maligno.
<i>Haiguitz</i> . Plurimi, L. Muchos, C...	_____
id. Violenter, L. Con violencia, C...	_____
<i>Hain</i> . Tantum, L. Tanto, C...	_____
<i>Haina</i> . Tantum, L. Tanto, C...	_____
id. Quidam, L. Un tal, C...	<i>haina</i> , aquél, aquella.
<i>Hain-aina</i> . Extremum, L. Extremidad, C...	_____
<i>Hain-bercez</i> . Tantum, L. Tanto, C...	_____
<i>Hainchurra</i> . Forceps, L. Tenaza, C...	_____
<i>Haíndia</i> . Ultra, L. Mas alla, C...	_____

Ez dago zenbakietara jo beharrik, orain *HH* eta *SbUrq* bata bestetik oso urruti daudela konturatzeko: Larramendik ez dakartza hitz gehienak; dakartzanak ere, edo arruntegiak (*azeria*, *aguina*, *aicea*...), edo aldez edo moldez ezberdinak dira (*abarrotsa*, *agoan*, *agorandu*, *aidurra*), eta eskuarki bestelako iturririk proposa daiteke, geroago aztertuko ditugun *habea* “tábano” eta *aburikatu* “tropezar”-erako izan ezik.

Hau Etxeberriren hiztegia balitz, eta A-F-M letretako kidetasun gehienak bereak balira, ez litzateke ulertuko zergatik Larramendik H letratik, hain zuzen, hain gutxi hartu zion. Inondik ere, A-F-Mko kidetasunen ugaria eta Hkoen urria *SbUrq HH* erabiliz egindako bermoldaketa delako iritziaren alde mintzo da, hau da, *HH SbUrq*-en iturri nagusi bat dela frogatzen du eta, beraz, berdintasun gehienak egiantz handiaz honixe zor dakizkiokeela.

Bestalde, H letra hain hitz bereziz hornitua ikusteak aztertzen ari garen hiztegiak Iparraldeko iturri jantzi bat izan duela egiaztatzen du, dela Etxeberri edo dela beste norbait. Arrazoi beragatik, berriz, <h>rik gabe agertzen diren ehundaka hitz (*aballa*, *abarotsa*, *abea*, *abia*, *aci*, *acia*, *aciera*, *acilla*, etab.) Larramendiri egotzi behar zaizkiola esan gabe doa. Azalpen zailagoa dute, ostera, *HH*-ak ez dakartzan hitzek (corpuseko *aalgaizuna*, *maatsa* eta *maatsguistena*), zein bere lekuan, hots, <aa>ri (eta ez <aha>ri) dagokionean agertzen dira eta; ohartu, dena dela, *guistena guirtena*-ren ordezkio hutsa izanik, honelakoak ere idatzi batetik kopiatuak izan daitezkeela.

10.1.4.2. Bietan diren Etxeberriren hitzak

SbUrq nolabait, zuzenean nahiz zeharka, Larramendik ikusi eta erabili zuen Etxeberrirenaren islapen bat bederen dela sinisteko daukagun ziorik sendoena, Etxeberriren idatzietan bakarrik aurkitu ahal daitezkeen hitzak dira, hain zuzen ere. Hau hala izanik, gutxienez bermoldaketaren hipotesia mantendu behar dugu, aldamenean Larramendiren ekarpena nahi bezain handia postulatu arren.

Alderdi hau, dena dela, zirriborratuta baino ez dago. Halakoak bildu zituztenek ez zuten zer gertatzen zen orokorki erakustez beste asmorik eta, beraz, itxuraz gehiegi nekatu gabe, gorago aurkeztu dudana hitz mordoxka bildu ahal izan zuten. Orain artean jarraitzen ari garen biderei atxikita, gera gaitzen apur batez hiru testuetan batera agertzen diren hiru hitzetan:

SbUrq	HH	ES
<i>Alosia.</i> Harmonia, L. Harmonia, C. Harmonie, Fr.	Harmonía, <i>alosis</i> , <i>bozaroquia</i> , <i>harmonia</i> . Lat. Harmonia.	<i>Hauc dira ceruco alosiaren iduria edo imagiña eçagutcera emaiten darocun chirribica, edo suntsuna</i> (1712: 187).
<i>Bocantza.</i> Eloquentia, L. Eloquencia, C. Eloquence, Fr.	Eloquencia, <i>hiztundea</i> , <i>bocanza</i> . Lat. Eloquentia.	<i>Baldin hau badio hain boccantça eta Saindutasun handitaco Dotor hunec appez baten laudorioez mintçatceracoan...</i> “Si hoc ait vir tantae eloquentiae...” (ib. 123).
<i>Uzcuya.</i> Divisio, L. División, C. Division, Fr.	División, <i>uzcuyá</i> , <i>uzcoá</i> , <i>uzcurá</i> , <i>berezdea</i> . Lat. Divisio.	<i>choilqui erran diteque, hau dela alferqueric bere haurrei, eta cerbitçariei emaiten derauen, emaitça, huzcuja, edo primeça</i> “porción, parte que toca a cada uno en un reparto, partija” ¹¹⁸² (ib. 183).

Dakusgunez, esanahizko kidetasun orokorraz gain, *HH* eta *SbUrq* bat datoz latinezko ordainetan, baita Etxeberri ere xehetasun hori eskura daukagun hitz bakarrean (*boccantça* “eloquentia”). Bada, ordea, Mitxelenak saihestu zuen galdera garrantzitsu bat: nola azal daiteke *SbUrq*-en hirurak Larramendik jasotako esanahi zehatzarekin bakarrik (cf. “Musa. *Alosia*” eta “Musae. *Alosiac*”, Etxeberri 1712: 205) eta batez ere bere grafiarekin agertzea (*bocantza* vs *boccantça*, *uzcuya* vs *huzcuja*), *SbUrq*-en egileak Larramendiri kopiatu ziola —eta ez alderantziz— eginez ez bada?

Egia da, bestalde, Mitxelenak (1970: 30) *uzcuya*-n fenomeno zabalago baten arrastoak ikusi zituela: “formaciones en *-cuya* faltan en el *Trilingüe*, pero se repiten en el manuscrito (*berreçua* “relapsus, recaída, rechûte”, *bilçua* “unio, societas”)”. Hau bederen oraingoz eztabaidatzerik ez dudana argudioa da.

Mitxelena, *uzcuya*-ren aurkikuntza egiteko, ziurrenik Urquijok (1907a: 58-62) bildu Etxeberriren hitz berezien zerrendaz baliatu zen. Zerrenda oso fidagarria ez bada ere (Urquijok

¹¹⁸² Itzulpena Orixerena da, eta Mitxelenak (1970: 29) hobesten du Urquijoren “donación”-en ordez.

konparabidetzat Azkueren hiztegia baino ez zuen izan),¹¹⁸³ saia gaitzke Etxeberri eta *HH* zuzenean lotzen, bietan diren hitz berezi edo berandu lekukotutako zenbait erkaketara ekarriaz:

ES	<i>HH</i>	SbUrq
HITZTEGI ¹¹⁸⁴ <i>Escuaraz, Latinez, Francesez eta Espainolez hitztegui baten moldatcen</i> (1712: 400).	Diccionario, <i>hizteguia, esatoquia</i> . Lat. Lexicum, i; vocabulorum index.	_____
KUKUILO <i>Theologiaren capetanic haltoenera, eta guizonaren adimendua dohaqueen cucuilloric gorenera</i> (ib. 192).	Apice, lo alto, la cumbre, <i>galyurra, goyarea; gana, gaña, tontorra, coquilloa, erpiña, cucuilloa</i> . Lat. Apex, fastigium. Cumbre, <i>tontorrá, erpiña, ganá, cucuilloa, coquilloa, copeta</i> . Lat. Culmen, vertex.	<i>Cucuilloa</i> . Fastigium, L. Cima, C. Sommet, Fr.
MAHAINZAIN <i>Egarto Erregueren mahainçaina edo despensaria</i> (ib. 114).	Architriclino, <i>mayenzaya, maizaina</i> . Lat. Architriclinus. Maestresala, <i>maimaistrea, maizaya</i> . Lat. Mensae structor. Refitolero, <i>maizaya, mainzaya</i> . Lat. Architriclinus.	_____
SARBASKI “matanza, carnicería” (Urq).	Matanza, <i>sarbasquia, ilquintza, erioquintza</i> . Lat. Internectio strages, caedes. Matar, <i>il, eriotu, eriocatu, sarbasquitu</i> . Lat. Neccare, occidere. Despedazar, <i>matando, sarbasquitu</i> . Lat. Discerpendo occidere.	<i>Sarbasquitcea. Sarbasquitu</i> . Discerpere, L. Despedazar, C. Dépiécer, Fr.
(UR)-LANGOA “lago” (Urq). ¹¹⁸⁵	Balsa (...). <i>Balsa, basá, aintzira, langoa</i> . Lat. Palus, stagnum. Estanque, <i>aintzira, langoa, ugoitza</i> . Lat. Stagnum.	<i>Langoa</i> . Stagnus, L. Estanque, C. Etang, Fr.
XIRRIPA “arroyo” (Urq) ¹¹⁸⁶ .	Arroyo, <i>errecá, chirripá</i> . Lat. Rivus.	<i>Chirrispa. Chirripa</i> [gainean erantsia]. Rivulus, L. Riajuelo, C. Ruisseau, Fr.
ZENTERNA <i>bestela beguirautçu centernara eror etçaitecin, Thaes ustecabean erre cara beçala</i> (Etxeberri 1712: 171).	Barranco (...), <i>zulepaquia, centerná</i> . Lat. Anfractus, hiatus.	<i>Centerna</i> . Locus obscurus, L. Lugar de tinieblas, C. Abyme, Fr.

¹¹⁸³ Zerrendan agertzen den *artezki* Leizarragak ere erabili zuen (*OEH*, s.v. 1 *artezki*); *beheratzapen*-en iturri nagusia, berriz, Axular da. Gainerako hitzak, ia denak itsuka aukeratu behar izan ditut, *OEH*-ak oraindik jaso ez baititu eta gehienetan *EH*-ak jasotzen ez baititu. Dena dela, *EH*-an ez agertzea bera ziurrenik haien ezohikotasunaren seinale izan daiteke.

¹¹⁸⁴ Lehenengo agerraldia Pouvreauren hiztegiakoa da, baina ez dago beste lekukotasunik Larramendi arte. Birritan hitz bera asmatzea ezinezkoa ez bada ere, badirudi hain hitz tekniko baterako tradizio txo bat eraikitzea ez dela inondik ere zorakeria.

¹¹⁸⁵ *OEH*-ak (s.v. *lango*) EZ *Eliç*-eko lekukotasuna bakarrik jasotzen du *HH* baino lehenago; dakigunez, oster, Larramendik ez zuen liburu hori ezagutzerik izan.

¹¹⁸⁶ *EH*-ak *XVII ea. eta 1664 ematen ditu lehen datatzat, hots, Pouvreauren hiztegia eta *Philotea*, hurrenez hurren.

Bi hitz (*hiztegi* eta *mahainzain*) zeharo peitu ditugu SbUrq-en. Hiru hitzetan (*kukuilo*, *xirripa* eta *zenterna*) SbUrq eta *HH* zein bere aldetik dabilta, bai erdal ordainetan, baita inoiz euskal hitzaren forman bertan ere (cf. *xirripa*). Orain arte ikusi dugunaren arabera, *HH* iturria izatera berdintasun handiagoa espero genuke; baina, bestalde, hiztegi bien azken iturritzat Etxeberri jotzeak ere ez ditu ezberdintasunak azalerrazago bilakatzen. Azkenik, nolabaiteko berdintasuna bi hitzetan bakarrik (*sarbaskitu* eta *langoa*) egonik, garrantzi handia eman behar zaio, nik uste, lehenak eskaintzen digun ziurtasunari: *HH*-ko informazio aberatsaren aldamenean, SbUrq-ek aditza bakarrik jasotzen du, eta erdal ordainek (batez ere fr. “*dépiecer*”) sarrera hau *HH*-tik, baina esanahi zehatzaz erreparatu gabe hartutakoa dela erakusten digute.

Hirugarren saio bat egin daiteke ohiko corpusaren laguntzaz.¹¹⁸⁷ Bertan badira litezkeen iturrietatik Etxeberrirengan bakarrik lekukotzen diren zenbait hitz, eta denak ez balira ere, esanguratsuenak bederen SbUrq-en ere izatea espero genezake.¹¹⁸⁸ Ondorioak, ikustera goazen bezala, ez dira urruntzen orain artean lortu ditugunetatik:

ES	<i>HH</i>	SbUrq
ABERIA <i>Progotchua nahi tuenac</i> [sic] <i>behartu aberiac, travailluac eta ekhajac</i> (1712: 196).	Gasto, <i>gastua, goastua, oncalda, higagoa, aberia</i> . Lat. <i>Sumptus, impendium</i> . Avería, es palabra bascongada, y en el dialecto labortano significa gasto...	—————
AIERUPEN <i>lehen erran neçaque, Escualdunen eta Escual-herrico berriric jaquin-gabez, eta bertetaric entçun ahal cituzquen ajerupenezco contairei sobera fede emanic aiticinatche iragan cela</i> (ib. 120).	Indicio, <i>arradiza, ayerupena, aztarna, sená</i> . Lat. <i>Indicium</i> . Indiciar (...) <i>arradizatu, ayerupendu, aztarnatu</i> . Lat. <i>Inditia prebere</i> . Indiciado, <i>arradizatua, ayerupendua, aztarnatua</i> . Lat. <i>Indicis suspectus, notatus</i> .	<i>Ayerupendua</i> [sic]. <i>Indicium</i> , L. <i>Indicio</i> , C. <i>Indice</i> , Fr.
HAIN-HAINEAN <i>Cantabresac</i> (...) <i>hain ciren curaja handitacoac, non erortceco hain hainean ciren periletaric escapatceagatic...</i> “quelque peril eminent” (ib. 111).	(Está en un) <i>tris, ananean dago</i> . Lat. <i>Minimum ab est, quin</i> .	—————

¹¹⁸⁷ Azterketa hau egiteko, Gidor Bilbao irakasleak prestatu duen Etxeberriren idazlanen corpus zerrendatuaren A eta HA zatiak ere erabili ahal izan ditut, egilearen eskuzabaltasunari esker.

¹¹⁸⁸ Hitz hauei buruz, eta oro har *HH*-an diren iturri ezezaguneko Iparraldeko hitzei buruz, ik. § 12.2.9, non euskalki kokapena zehazten den eta haietako batzuk bederen argudio ezberdinez idatziatik (Etxeberriren hiztegitik, beraz) hartuak direla frogatzen.

<p>ALAMEN <i>Orai nahi dut minçatu ene contraco alhamenez eta erranquiçunez, ceinac oraidanic entçuten baititut, campo alde horietaric erraiten dutelaric ecen, complituco dudan baino guehiago prometatu dudala (ib. 196).</i></p>	<p>Detracción, <i>alamena, gaizqui esaera, esabezta.</i> Lat. Detractio. Murmuración, <i>gaizquiesaca, belchitea, murmuratzea, alamena, juzcua.</i> Lat. Murmuratio. Detractar, infamar, <i>alamendu, esabeztu, gaizqui esan.</i> Lat. Detrahere. Murmurar contra alguno, <i>gaizqui esan, belchitu, murmuratu, alamendu, jainguin.</i> Lat. Detrahere, murmurare.</p>	<p><i>Alamendu.</i> Detrectare [sic], L. Infamar, D. Diffamer, Murmurer, Fr.</p>
<p>HALATAN BADA <i>Halatan bada nahi dut eracutsi, Escualduna letretaco eguinbidetan ere eztela harmetan baino merecimendu gutiagocoa (ib. 119). Halatan bada nic ere isquiribatcen dut Latinez eta Escuaraz (ib. 193), etab.</i></p>	<p>(De) manera, <i>ala bada, alaric bada, alatan, alan bada.</i> Lat. Itaque, igitur.</p>	<p>_____</p>
<p>ANTZATU <i>Hoberen hura ceren çokhoan dagoen, antçatu faltaz herdoilac jana, guztia khamustua causi litequela (ib. 102). Gauça bera erran diteque vssaya faltaz eta antçatu gabez çokhorat aurthiquiac beçala daduzcagun hitz hetaz ere (ib. 102). Egundaino batere antçatua içan eztelarican, halarican ere munduan diren etsairic borthitcenen contra, mantenatu eta mantenatcen baita (ib. 190).</i></p>	<p>Manejar, tratar con las manos, <i>escuztatu, antzatu, manaiatu.</i> Lat. Tractare, versare.</p>	<p><i>Antzacea.</i> <i>Antzatu.</i> Tractare, L. Manejar, C. Manier, Fr. <i>Antzatua.</i> Tractatus, L. Manejado, C. Manié, Fr.</p>
<p>APPALLA <i>nahiz Noblea, Emperadorea, edo Erregueren umea, edo haren leinucoa; nahiz ethorquiric appallenetic, edo ttipienetic heldu dena (ib. 391).</i></p>	<p>Baxeza, hecho vil, <i>apallá, itsusquiña.</i> Lat. Dedecus, probrum. Bellacada, <i>citalqueria, apallá.</i> Lat. Dedecus, probrum.</p>	<p><i>Apalla.</i> Dedecus, Probrum, L. Baxeza, C. Abaissement, Bassesse, Fr. <i>Aphala.</i> Infimus, L. Infimo, C. Bas, Humble, Humilié, Fr.</p>
<p>HAUR DENBORA <i>Ceina ez baita choilqui isquiribu hec eguin ciren demboracoa, baina bai, hec bere haur demboran ikhasiricacoa (ib. 100).</i></p>	<p>Niñez, edad de los niños, <i>aurtera, seintera, humetera, aur, sein, hume dembora.</i> Lat. Pueritia.</p>	<p>_____</p>
<p>AHURCA <i>Ordea indarrez escas causitcen nuen neure burua escumenca edo ahurca landa çabal hetan eppaiten haritzeco, halatan bada contentatu naiz buruca biltcen ibiltceaz (ib. 193).</i></p>	<p>(A) puñados, <i>ahurca, escualdizca, escubetezca.</i> Lat. Plenis manibus. (...). Item <i>escumenea</i> [sic].</p>	<p>_____</p>

Xehetasunik garrantzitsuena, inolaz ere, gehienak SbUrq-en ez egotea da, batez ere *aberia*, Larramendik agerriki lapurterazkotzat joa. Daudenetan, berriz, ez dirudi SbUrq-en lehenetasunaren aldeko ezer dagoenik, *HH*-aren aldeko argudioak aski onak diren bitartean: 1) SbUrq *aierupendua* “indicium”, *HH* iturritzat joaz bakarrik azal daitekeen huts nabarmena da; 2) Etxeberri eta *HH alamen* vs *HH* eta SbUrq *alamendu* desoreka, nik uste, azkena Larramendik

—bere iturriekin egin ohi duen bezala— Etxeberrik erabilitako izenetik eratorritakoa dela eginez azaltzen da errazkienik; 3) SbUrq eta *HH apalla* “dedecus, probrum” vs SbUrq *aphala* “infimus” bikoiztasuna, itxura guztien arabera SbUrq-en iturri ezberdin biri zor zaio eta, zehazkiago, lehena Larramendiri, latina *DAut*-ena da eta; eta 4) *antzatu*-ren iturria ere nahitaez *HH* da, SbUrq-en gaztelaniarekiko desaxolaren beste adibide bat baita: SbUrq lat. “tractare”, gazt. “manejar” vs *HH* lat. “tractare”, gazt. “manejar, tratar con las manos”.

10.1.4.3. Iturri ezezaguneko Iparraldeko hitzak

Aurreratu bezala, corpusean badira Larramendik erabil zitzakeen gainerako iturri idatzietan lekukotzen ez diren zenbait hitz, bestalde Iparraldekotzat jo behar ditugunak haien zabalkundeaz dakiguna kontuan harturik. Hipotesirik merkeena denak edo gehienak bederen Etxeberriren hiztegitik hartutakoak direla izanik, SbUrq izango litzateke, haren nolabaiteko ondorengoa balitz, haien iturria bermatzeko dagokeen bide bakarra. Erka ditzagun berriz ere bi hiztegietakoa informazioa, bildutako hitz nabarmenenak soilik erabiliaz:

	<i>HH</i>	SbUrq
AHANZTURA	Olvido, <i>aztua</i> , <i>ahantzura</i> , <i>ancidea</i> .	_____
HABE	Abispón, tábano, <i>belzuntza</i> , <i>habea</i> , <i>eulitzarrá</i> . Lat. Asilus, i, aestrum, i. Tábano, <i>belzuntza</i> , <i>habea</i> , <i>eultzarra</i> . Lat. Tabanus, asylus, aestrum.	<i>Habea</i> . Oestrum, L. Tabano, C. Taon, Fr.
ABURIKATU	Tropezar, <i>beaztopa</i> , <i>beaztopatu</i> , <i>aburicatu</i> , <i>estropezatu</i> . Lat. Offendere, cespitare.	<i>Aburicatcea</i> . <i>Aburicatu</i> . Cespitare, L. Tropezar, C. Broncher, Fr.
ABURIKO	Tropezón, <i>beaztopa</i> , <i>aburicoa</i> , <i>tropiezoa</i> , <i>estropezua</i> . Offensio pedis.	<i>Haburicadura</i> . Collisio, L. Tope, C. Heurt, Achoppement, Fr. <i>Haburicatcen içatea</i> . Offendere, L. Tropezar, C. Broncher, Fr.
ADARO	Barredero de horno, <i>adaroá</i> . Horno (...). Con que se limpia y barre, <i>adaroa</i> .	_____
AIERUKOR	Sospechoso, suspicaz, <i>ayerucorra</i> , <i>suspichacorra</i> , <i>gogaleicorra</i> . Lat. Suspiciosus, suspicacis ingenii.	_____
AILIS	Levadura, <i>legamia</i> , <i>oranza</i> , <i>ailisa</i> , <i>alchagarria</i> , <i>beranzaquia</i> , <i>azcarria</i> , <i>chanchadurea</i> .	_____
AIZTUA	Cuchillo, <i>canibeta</i> , <i>aiztua</i> . Lat. Culter.	<i>Aiztua</i> . Culter, L. Cuchillo, C. Couteau, F.
AIZTUR	Tijeras, <i>guraiceac</i> , <i>artaciac</i> , <i>aizturac</i> . Lat. Forfices, cum.	<i>Aizturac</i> . Forfices, L. Tijeras, C. Ciseaux, Fr.
AKABAILA	Acabamiento, fin, <i>acabantzá</i> , <i>acaballá</i> , <i>bucaera</i> , <i>amandá</i> . etab.	_____
ALARAZI	Pacer, <i>bazcatu</i> , <i>jan</i> , <i>alaraci</i> . Lat. Pasci.	<i>Alharatcea</i> . <i>Alharatu</i> . Ad pastum ducere, L. Faire paitre, Faire venir veau au moulin, Fr.
ALASEA	Aparador, <i>apala</i> , <i>oltza</i> , <i>alasea</i> . Lat. Abacus, ci.	<i>Alasea</i> . Gradus, L. Grado, C. Degré, Marche, Fr. <i>Alhasca</i> [?]. Tabella, L. Tablilla, C. Tablette, Fr.
ALDAIRA	Muda, mutación, <i>aldairá</i> , <i>aldatzea</i> . etab.	_____

AMI	Hambre, <i>gosea</i> , <i>amia</i> ; hambre canina, <i>janiza</i> , <i>gose amorratua</i> . Lat. Fames, dira fames.	<i>Amia</i> . Fames, L. Hambre, C. Faim, Fr.
AMIRUN	Almidón, <i>amiruna</i> , <i>almidoya</i> . Lat. Amylum, i.	<i>Amiracia</i> . <i>Amiruna</i> . Amylum, L. Almidón, C. Amidon, Empoy, Fr.
HAMABIKA	Adozenas, <i>hamabica</i> , vide <i>dozena</i> .	_____
AMOKO	Estopilla, lino fino dispuesto para hilarse, <i>amucoa</i> , <i>amocoa</i> .	_____
AMORRAZALE	Saludador de el mal de rabia, <i>amorrazailea</i> .	_____
ANBILKA	(Ir) rodando, venir rodando, <i>amilca</i> , <i>ambilca</i> , <i>iboilca joan</i> , <i>etorri</i> .	<i>Anbilcatcea</i> . Volvere, L. Rodar, C. Rouler, Fr. <i>Anbilcatua</i> . Rídica, L. Rodrigón, C. Pieu, Echallas, Fr.
ANDOILA	Chorizo, <i>andoillá</i> . Lat. Botulus, Tucetum.	<i>Andoilla</i> . Tucetum, Botullus, L. Chorizo, C. Andouille, Fr.
ANJEREDER	Cebellina, especie de comadreja, <i>angerederrá</i> . Lat. Ictis adorata.	<i>Anjerederra</i> . Vulpecula, L. Raposa, C. Foiüne, Fr.
ANYERE	Soplado, demasiadamente pulido, <i>anyerea</i> .	_____
ARGIZAITA	Luna, <i>illarguia</i> , <i>ilarguia</i> , <i>arguizaita</i> .	_____
ARKANBELE	Cuento, fábula, <i>hipuiña</i> , <i>arcambelea</i> . Lat. Fabula. Fábula, <i>ipuña</i> , <i>ipuya</i> , <i>arcambelea</i> , <i>elea</i> . Lat. Fabula.	<i>Arcambela</i> . Fabula, L. Fabula, C. Fable, Fr. id. Cometa, L. Cometa, C. Cerf-volant, Fr.
ARRADIZA	Cicatriz, <i>arradizá</i> . Lat. Cicatrix, cis.	<i>Arradiza</i> . Indicium, L. Indicio, C. Indice, Fr.
ARRADIZATU	Indicio, <i>arradiza</i> , <i>ayerupena</i> , <i>aztarna</i> , <i>sená</i> . Lat. Indicium. Señal (...). <i>Señalea</i> , <i>sena</i> , <i>señá</i> , <i>aztarná</i> , <i>arradiza</i> , <i>azgarria</i> . Lat. Signum. Item, <i>margoá</i> . Véase <i>signo</i> , <i>significación</i> . Cicatrizar, <i>arradizatú</i> . Lat. Cicatricem induere. Indiciar, véase indicar, <i>arradizatu</i> , <i>ayerupendu</i> , <i>aztarnatu</i> . etab.	id. Cicatrix, L. Cicatrix, C. Cicatrice, Fr.
ARRANPA	Calambre, <i>arpá</i> , <i>arrampa</i> , <i>inhurria</i> .	_____
ARRO	Arbol dañado, <i>arroá</i> , <i>arrác joa</i> .	_____
ARTHADUN	(Es muy) aplicado, <i>arretaduna da</i> , <i>arretatsua da</i> , <i>oartuna</i> , <i>oartsua da</i> , <i>arthaduna</i> , <i>arthatsua da</i> .	<i>Arthatcea</i> . <i>Arthatu</i> . Curare, L. Cuidar, C. Soigner, Prende soin, Fr.
ARTHATU	Aplicarse, <i>arretatu</i> , <i>oartu</i> , <i>arthatu</i> . Lat. Alicui rei operam dare. Dedicarse a, aplicarse, <i>artha</i> , <i>artatzea</i> , <i>arretatzea</i> . Lat. Navare operam. etab.	
ASTALKAI	Aspa, para hazer madexas (...). <i>Matazura</i> , <i>icorosquia</i> , <i>astalcaya</i> . Lat. Decussatum lignum.	<i>Astalcaya</i> . Decussorium lignum, L. Aspa, C. Dévidoir, Fr.
ATALAPIST(E)	Tranco, el umbral batiente de la puerta, <i>atalapistea</i> . Lat. Limen inferum. Umbral, <i>atalburua</i> , <i>atalapistea</i> . Lat. Limen.	<i>Atalaburua</i> [sic]. <i>Atalapistea</i> . Limen, L. Umbral, C. Seuil de la porte, Fr.
HATU	Hato, rebaño, es de el Bascuence Labortano <i>hatua</i> , que significa lo mismo, véase <i>grey</i> .	<i>Hatua</i> . Grex, L. Rebaño, C. Troupeau, Fr.
ATZ	Comezón, <i>atza</i> , <i>azgalea</i> , <i>atzalea</i> . Lat. Prurigo, vredo, nis. Picazón de cuerpo, <i>atza</i> . Lat. Prurigo. (Gana de) rascarse assí [la sarna u otra cosa que pica], <i>atzá</i> , <i>azgalea</i> . Lat. Prurigo, pruritus.	<i>Atza</i> . Prurigo, L. Gana de rascar, C. Démangeaison, Fr. <i>Hatza</i> . Pruritus, L. Comezón, C. Démangeaison, Fr.

ATZIPE	Dolo, engaño, <i>atzipeta</i> . Lat. Dolus. Doloso, <i>atzipetia</i> . Lat. Dolosus. Engaño (...). <i>Engañua, enganioa, gainta, atzipeta, bairá, ciliboca</i> . Lat. Fallacia, dolus. Superchería, engaño, fraude, <i>supercheria, atziperia</i> . etab.	<i>Atziperia</i> . Dolus, L. Fraude, C. Supercherie, Fr. <i>Atzipetia</i> . Dolosus, L. Doloso, C. Fourbe, Insidieux, Fr.
AHUL	Flaco, <i>flacoa, flacua, argala, erbala, masqueia, mascarra, santarra, erquitua, ahula, hebaina</i> . Lat. Macer, gracilis. Magro, <i>flaco, enxuto</i> , véanse <i>ahula</i> .	<i>Ahuldua</i> . Crines evellere, L. Tirar los cabellos, C. Arracher les cheveux, Fr. <i>Ahulcea</i> . Magrescere, L. Magrescer, C. Maigrir, Fr.
AUTIN	Sarmiento (...). <i>Sarmentua, chirmendua, autiña, ayená</i> .	—————
AXA	Exe, <i>achá</i> , de la rueda, <i>errodacha</i> .	<i>Hassa</i> . Axis, L. Exe, C. Essieu, Fr.
AZAKOBA	Repollo, <i>errepolloa, azacoba</i> . Lat. Brassica apiana.	<i>Azacoba</i> . Brassica apiana, L. Repollo, C. Choux pommé, Fr.
AZUN	Preñada, bestia, <i>azuna</i> . Lat. Gravidia.	<i>Azundu</i> . Gravidari, L. Ser preñada, C. Etre pleine, Fr.
AZUNDU	Hazerse preñada la bestia, <i>azundu</i> . Lat. Gravidari, gravidam fieri.	<i>Azundua</i> . Gravidia, L. Preñada, C. Grosse, Pleine, Fr. <i>Azuntcea</i> . Gravidari, xxx, L. Estar preñada, C. Etre pleine, Fr.

Berriro ere, SbUrq Etxeberriren hiztegia edo haren bermoldaketa balitz uste izan genezakeen baino emaitza eskasagoak lortu ditugu. Haatik, baliteke hau ez izatea oraingoan SbUrq arbuizatzeko erabateko argudioa, ez baitakigu egiatan Larramendik Etxeberriri zenbat hitz hartu zizkion, nahiz eta, bere hitzei jarraiki (“entresaqué muchas voces del dialecto labortano”), proposatutako taldea —orotara 37 hitz familia (H)A zatian— gehiegizkoa ez izan. Dena dela, SbUrq-en aurkitu ditugun 23 hitzen azalpena ere ez da gutxi, agian. Baina azter ditzagun hurbilagotik:

1) *alasea*-rako SbUrq-eko bi lekukotasunetatik (*alasea* eta *alhasca*) onena bigarrena da, <-sca> bermoldatzailearen errata dela eginez, adieragatik ez eze Iparraldeko ahoskera islatzen duelako (cf. Pouvreau *alhasea*); dena den, gazt. SbUrq “tablilla” vs *HH* “aparador” egokitasunak ezinezkoa bilakatzen du, nire ustetan, Etxeberri hitz honetarako bi hiztegioren iturria izan litekeelakoa.

2) Argudio beretsua erabil dezakegu beste hitz zenbaiten iturritasuna arbuizatzeko: *anjerederra* SbUrq gazt. “raposa”, lat. “vulpecula” vs *HH* gazt. “cebellina”, lat. “ictis adorata”; *arthatu* SbUrq gazt. “cuidar”, lat. “curare” vs *HH* gazt. “aplicarse” edo “dedicarse a”, lat. “alicui rei operam dare” edo “navare operam”.

3) Grafiak oztopo bat gaineratzen dio SbUrq *anjerederra* vs *HH* *angerederra* bikoteari: Larramendiren grafiak, ezohikoa adierazi behar duen hotserako, *HH* oraingoan lekuko fidela dela diosku; beraz, Etxeberri bien iturria izateko, SbUrq-en egileak jatorrizko grafia aldatu duela suposatu beharko genuke.

4) Larramendirentzat, dakigunez, iturriaren hitzak hitz sorburu izan ohi dira, erdal familia osoen ordainak eratzeko lehengaiak: halaz ere, zalantzakoa bederen iruditzen zait hainbat kasutan dagoen SbUrq-eko eta *HH*-ko familien arteko desoreka, Larramendi iturriko hainbat gauza alde batera utzita bere kasa aritu dela aitortzea izango bailitzateke: SbUrq *haburicadura*,

haburicatcen vs HH aburicatu, aburico; SbUrq anbilcatcea, anbilcatua vs HH anbilca; SbUrq ahulcea vs HH ahula.

5) Larramendik SbUrq-ek baino informazio gehiago edo zehatzagoa izatea zeharo erabakitzaile da: *azun(du)* SbUrq “gravidari”, “ser preñada”, etab. vs *HH* “preñada, bestia”, etab.

6) SbUrq *alharatcea, alharatu* *HH alaraci*-rekin lotu dut, nolabaiteko lotura egon badagoelako, baina SbUrq-en lekukotasunak —“Faire paitre, Faire venir veau au moulin (!?)”— okerra dirudi, zehazkiago *HH*-koaren (“Pacer”) eta beste zerbaiten (cf. O-SP “*errota alharaztea, c’est faire travailler le moulin*”) arteko nahastea.

Inausketa honen ondoren, 23tik zalantzagabeko berdintasunak 15 baino ez dira. Ba ote dira hauek, beraz, Larramendik Etxeberriri (H)A zatitik hartu zizkion hitz bakarrak? Ezezkotan nago, eta are gehiagotan erlazioa alderantzizkoa edo ezinezkoa dela frogatzen saiatuko naiz:

1) *atalapistea*-ren bukaera zalantzazkoa denez gero (cf. Urte *athalapust*), iturrian lekukasuren bat zegoela pentsa zitekeen; horregatik, doi bat harrigarria da SbUrq-ek ere *HH*-ko forma bera ematea; honi *HH atalburua, atalapistea* “umbral” vs SbUrq *atalaburua* (sic), *atalapistea* “umbral” batetortzea eransten baldin badiogu, iturria *HH* dela esateko argudio nahikoa aurkitu dugula uste dut.

2) *HH arcambelea* vs SbUrq *arcambela* ezberdintasuna gutxienez bitxia da: lehenik, *OEH*-aren datuen arabera (s.v. 1 eta 2 *arkanbele*) bi bukaerak ongi lekukotuta daude; eta, bigarrenik, SbUrq-en beste iturriak hitza hobeto ezagutzen zuen, “cerf-volant” adiera ere ematen baitu.¹¹⁸⁹

3) *hassa* idazkera Etxeberriren arrastoa balitz, iradoki dudan bezala, Larramendik hortik <acha> ateratzea oso zaila iruditzen zait, ziurrenik <(h)asa> irakurriko bailuke.

4) *atzipe*-ren familian susmagarria da *supercheria, atziperia* “superchería” *HH*-ko sarrera, bigarren ordainak maileguaren analogiaz eratua baitirudi, Larramendiren erara (§ 2.2.4.5).

5) *Ami* “hambre” dela eta, egingo nuke Iparraldean *hami* beharko lukeela, gask. *hami* dela kontuan hartuta.

6) *DAut*-eko latinak ere zeresanik izan dezake auzi honetan: *azakoba* hiru hiztegiatan “*brassica apiana*” itzulita egotea, adibidez, ia ezinbestean *DAut* > *HH* > SbUrq igarobideari egotzi behar zaio.

¹¹⁸⁹ Hori da *OEH*-ak (s.v. 2 *arkanbele*) jasotzen duen “Cometa [?]” bitxikeria, ez ulertua eta zeharo lekuz kanpo jarria, ziurrenik Mitxelenaren fitxa ez oso zehatz bati jarraiki. Bide batez, bestelako lekukotasunek bermatzen dute *cerf-volant* intsektua —“*Lucanus cervus*”, alegia— dela, baina Sb-Urq-ek sasi-latinez eta gaztelaniaz “cometa” itzulpena demaio (*cometa* jostailuaren izena gaztelaniaz XVIII. mendekoa da, *BDEL*C-ren arabera), fr. *cerf-volant*-en beste adieran pentsatuaz, eta baliteke hau —*arkanbela* ‘kometa’, alegia— bere kasa egindako interpretapena baino ez izatea.

7) Gaztelaniak ere argiren bat egin dezake: cf. *DAut tixera vs HH* eta *SbUrq tijeras*, baina hiruretan *exe*.

Etxeberriren hiztegia ezagutu ezean, esan gabe doa eman ditudan argudioetatik batzuk zalantzazkoak direla. Alabaina, kontuan izan bedi zenbat eta hitz zalantzagabeko gutxiago geratu, *SbUrq* Larramendik ezagutu zuen Etxeberriren hiztegiarekin erlaziorik izateko posibilitatea ere beherantz doala: argudio guztiak onartzen bazaizkit, orotara hamar bat hitzetan geratzen zaigu, *SbUrq*-en arabera, Etxeberririk *HH*-ari egin zion ekarpena. A letrarik handienetakoa izanik, gutxiegi, inondik ere, “muchas voces” esan ahal izateko.

Aitor dezadan, dena dela, hitz gutxi horietan zer pentsatua ematen duten aztarna zenbait badirela:

1) *abispón* (eusk. *habea*) sarrera ez dator *DAut*-en, ez eta bertan eta *tábano*-n *HH*-ak ematen duen lat. “aestrum” itzulpena ere: cf. *SbUrq* lat. “oestrum”.

2) *astalkai*-ren *HH*-ko lat. “decussatum lignum” hurbilago dago *SbUrq* “decussorium lignum”-etik, *DAut* “machinula decussata ad fila evolvenda ex fuso”-tik baino.

10.2. Landucci

Axular eta Harrietekin Larramendik izan zuen jokaera ikusita, ezin saihesta daiteke Landucci ere hiztegiaren gorputzeko iturria izan litekeela, nahiz *Erans*-aren azterketan ezezkoaren aldeko arrazoi sendoak bildu ditugun: alde batetik, hitzen eskuizkribuko banaketaren arabera, *Erans*-erako osorik irakurri zuen eta, beraz, ez dago Harrieten hiztegian antzemandako zatikazko erabileraren antzekorik hemen; bestetik, *Erans*-ean hain nabarmenak ziren Landucciren hitzek ez dute *HH*-an arrasto ikusgarririk utzi, hau da, ez dugu, lehen begiradan bederen, Landucci *HH*-ko ere iturria izan zela postulatu beharrik.

Alabaina, baderitzat hala izan zen ala ez egiaztatzea merezi duela, ustekabekoren bat itzuri ez dakigun. Zeren eta, ezinezkoa ez izan arren, bitxia da *Erans*-ean bakarrik erabili izana, *RS* baino eta ziurrenik baita Harriet bera baino lehenago ezagutu baitzuen, 1737 ondotsuan, azaldu dudana bezala (II, § 0.4). Bestalde, aski argia da hiztegi honen aurkako Larramendiren hitz garratzak Mayansen euskarari buruzko baieztapenak indargabetzeko idatziak direla, eta ez hiztegiak berak eragindakoak, haren kopia batez jabetzeko eta haren edukitik interesgarriena behinik behin *Erans*-ean jasotzeko egin zituen lanak lekuko. Eta, azkenik, deigarria da *Erans*-ean oso azaletik baizik hustuta ez egotea: 5.000 sarrera inguru euskaraz osaturik daudela kalkula dezakegu¹¹⁹⁰ eta haietatik Larramendik, *Erans*-ean bakarrik erabili baldin bazuen, 70 bat euskal hitz erdietsi zituen; Landucci, izan ere, ezagutzen ditugun bertako iturrietatik hitz gutxien eskaini duena da. Emankortasun txiki hau Landucciren hiztegiaren izaerari zor

¹¹⁹⁰ Lakarrak (1993: 91) 6.000 inguru kalkulatu ditu gaztelaniako nomenklaturari begira, baina “gehienak hutsik S-tik aurrera”.

dakiokeela uste izatea, ostera, uste okerra da, oraindik bai baitira bertan edozein euskal hiztegitan sartzeko moduko hainbat eta hainbat hitz.

Zalantzok uxatzeko, hasi eta buka erkatu ditut Landucci eta *HH*, harrapatu ahal izan ditudan antzekotasun guztiak bilduaz (12. eranskina). Orotara 243 hitz berdin, oso antzeko edota Larramendiren ordainak azaltzeko gai zenbatu ditut, baina bi salbuespen garrantzitsu egin ditut: 1) oinarri-oinarrizko hitzak, ezarri ditudan mugak aski subjektiboak direla aitortuaz; eta 2) mailegu zuzenak, inolako aldaketarik gabekoak, bi hiztegitan $a + a > ea$ araua betetzen dutenak izan ezik.

Hortxe dago, beraz, Landucciren gainerakoa. Kopurua erraldoia da, *Erans*-eko iturririk emankorrenak, Axularrek, 287 bat azaltzen dituela eta *HH*-rako egin ditudan proiektzioen arabera (§ 9.2.4) Leizarragak 520, Axularrek 330 eta Etxeberri Ziburukoak 86 bat hitz eman zitzaketela kontuan izanik, eta neronek ere ez dut adierazi nahi denak ezinbestean Landuccirengandik hartuak direnik. Halako baieztapen bat egiten funtsezko arazo batek atzeratu behar gaitu: beharbada kidetasunok Larramendik Landuccik islatzen duen hizkuntz motatik oso gertuko batekin harremanak izan zituela baino ez dute adierazten; hain zuzen, batez ere bizkaiera eta gipuzkeraren arteko mugan murgildu zela frogatzen saiatuko naiz geroxeago (§ 12.2.8).

Alabaina, bildutako hitzen artean badira ezinbestean ez bada egiantz handiaz behinik behin Landucci iturria izatea eskatzen duten zenbait:

1) Oso sarritan *Lcc* -*ea* vs *HH* -*a* aurkitzen dugu:¹¹⁹¹

bastea / *basta* "albarda", *ondo gurea* "bien querença" / *ondogura* "benevolencia", *mingranea* / *mingrana* "granado", "granada", *dilistea* / *dilista* "lenteja", *mauquea* / *mauca* "manga", *chixea* / *chisya* "orina", *ollandea* / *ollanda* "polla", *viurquetea* / *biurqueta* "restitución" eta "retorcedura", *erderea* / *erdara* "romançe".

Gutxi batzuetan Larramendik -*a*-ren berreraiketa oker egin duela dirudi: *corchetea* / *corcheta* "corchete", *hirtetea* / *irteta* "salida".

Bi hauek onartzen bazaizkit, orduan goikoetako zenbait ere bederen Landuccirengandik hartuak izan daitezke eta, beraz, hiztegiaren gorputzean -*ea* bukaerarekiko *Erans*-ean baino askeago jokatu zuela erabaki beharko genuke, han gehienetan gordetzera egin baitzuen (II, § 1.2.1). Nolanahi ere, azpimarragarria da *HH*-an -*ea* bukaera daramaten maileguetatik askok azalpena izan dezaketela Landucciren hiztegian:

abbadesea / *abadesa*, *abadesea* "abadesa", *adarguea* / *adarga*, *adarguea* "adarga", *almenea* / *almena*, *almenea* "almena", *almendrea* / *almendra*, *almendrea* "almendra", *arrobea* / *arroba*, *arrobea* "arroba", *asmea* / *asmea* "asma", *colchea* / *colcha*, *colchea* "colcha", *condesea* / *condesa*, *condesea* "condesa", *chapea* / *chapa*, *chapea* "chapa".

2) -*tze* / -*te* atzizkiak mintzatzerakoan (§ 2.1.11) gogoratu dugu Iparraldeko idazleez gainera Larramendik aitzindari bat izan zuela Hegoaldean: Landucci, hain zuzen. Ondoko adibideen argitara, baliteke aitzindari baino zerbait gehiago izatea:

¹¹⁹¹ Ondoko adibide guztietan Landucciren lekukotasuna ezker eta *HH*-koa eskuin agertzen dira, erabat berdinak direnean izan ezik.

joatea “ida”, *yçorraytea* / *izorratea* “preñez”, *hirtetea* / *irteta* “salida”.

3) Landucciren lekuko nagusia ez da oso zehatza izan ohi euskarazko itzulpenetan, eta sarritan gutxi gorabeherako euskal ordainak eskaintzen ditu; haietako zenbait *HH*-an berragertzen dira, Landucciren iturritasuna ez nahitaezko, baina bai oso egiantzeko eginez:

gogorra “áspero”, *luzatu* “crecer”, *negarra* “lágrima”.

4) *DAut*-ek, beti bezala, argudio zenbait eskain ditzake Landucciren alde:

besten gauçea / *besterena* “agena cosa” bietan, vs *DAut* “ajeno”.
queez betea “ahumado” / *queez betea* “ahumado, lleno de humo”, *DAut*-ek ez dakarren adiera.
ez bata ta ez bestea “ni uno ni otro” bietan: ez dator *DAut*-en.
çayac “saluados” / *yaya*, *zayac* “salvado, salvados”: *DAut*-ek ez du sarrera-buruan pluralik ematen, nahiz eta erabilera honen adibideak jaso.

5) Deigarria iruditzen zait aditz esapideetan dagoen batetortze kopuru handia:¹¹⁹²

argui eguin / *arguieguin* “alumbrar”, *velaurico jarri* “arrodillar” / *belaurico jarri* “arrodillarse”, *burua erabli* “cabeçear, mouer” / *burua erabilli* “cabecear, mover la cabeza”, *ez euqui* “carecer”, *buztayña erabildu* / *bustana erabilli* “colear, mover la cola”, *zorriac quendu* “despiojar”, *deadarr eguin* / *deadarreguin* “gritar”, *que eguin* / *quea eguin* “humear”, *guçurr esan* / *guzurra esan* “mentir”, *aucitan ibili* “pleitear”, *asç eguin* / *atzequin* “rascar”, *odol atera* / *odola atera* “sangrar”.

Talde berean sar daiteke besterik ere:

vsay gayxtoa “hedor” / *usai gaistoa* “hedentina, hedor” (*HH quiratsa*, *querua*, *quindua*-ren aldean).

6) Landucciren testua ongi irakurtzeko izan zituen arazoak edota bertako berriak berrinterpretatzeko erabili ohi zuen askatasuna *HH*-ko ordain bitxi zenbait azaltzeko bide egokiak izan daitezke:

arguiçaya / *arguicaya* “cera”: <ç>ren buztana ez antzemanik eta ziurrenik *-kai* aitzizkia somatu uste izanik, hainbatetan bezala (ik. II, §§ 1.1.18 grafiarako eta 1.2.7.3 atzizkietarako).¹¹⁹³
velaçiquea / *belachiquia* “grajo”: *lectio facillior* baten bitartez?¹¹⁹⁴
andra eguiçalea “hazedora” / *eguinzallee* “hacedor”: *-zalle* forma erabat ezohikoa da *HH*-an (§ 2.1.3).
gaystotoro “mal o malamente” / *gaiztoro* “malamente”: nahita edo nahigabe egindako haplografiaz?¹¹⁹⁵

Eskuizkribuko pasarte ilunek beste ordain bat azaltzeko aukera ematen digute:

çorr??? eguin / *zorrac eguin* “adeudarse”: argitaratzaileek testuan *çorr eguin* ematen dute, baina oharrean lehenago *çorratu* idatzi dela diote.

7) *Erans*-eko gertakariak bereziki lagungarriak izan daitezke pare bat hitzen kontua argitzeko: *egin*-ekiko aditz esapideetatik izena erauzi eta bera bakarrik jasotzen du sarritan (*beaça eguin* “amenazar” > *beaza* “amenaza”, *urru eguin* “arrullar” > *urrua* “arrullo”, etab.; ik. II, § 1.2.7.1), eta behin aditza lortzeko esapidea alde batera utzi eta izenari *-tu* erantsi dio (*ufas eguin* > *ufastu* “regoldar”). Hauek kontuan hartuta bestela begira dakieke ondokoei:

¹¹⁹² Aditz esapideak ez eze, elkartuak oro har Larramendik lotuta jasotzeko ohitura izan zuen (II, § 1.1.16.1).

¹¹⁹³ *OEH*-an (s.v. *argizagi*) litekeen iturri bakarra Landucci dela ageri da; ziurrenik okerra den Larramendiren forma, berriz, ez du inon jasotzen.

¹¹⁹⁴ Forma honetarako *OEH*-ak (s.v. *belatxiki*) eskaintzen duen informazio guztia zuzen edo zeharka Larramendirenaren zordun da; *belazika*-ren aldaerak, ostera, ahoz oso ongi lekukotuta daude (cf. *OEH*, s.v. *belatxinga*, non, bide batez, Landucciren lekukotasuna peitu dugun).

¹¹⁹⁵ *OEH*-ak alde batetik *HH* eta haren hartzekodunen bat (Maurice Harriet, zehazkiago) jasotzen du (s.v. *gaiztoro*) eta, bestetik, Landucci (s.v. *gaiztotoro*).

cacaraza “cacareo” eta *cacaraztu* “cacarear” < Lcc *ollarrac cacaraça eguin* “cacarear el gallo”?¹¹⁹⁶
besterendu “enajenar” < Lcc *vesteren eguin* “enagenar”?¹¹⁹⁷
puyata “colada” < Lcc *puyata eguin* “colar paños”, *oyalan puyatea* “colada de paños”?

8) Hitz familien garrantzia maiz azpimarratu dugu iturri auzietan; hona kidetasun deigarri zenbait:

mutila “criado”, *neskatoa* “criada”.
vsayn eguin / *usaiñ eguin* “estornudar”, *vsayna* / *usaiña* “estornudo”.
mando emea / *manda-emea* “mula”, *mandarra* “mulo”.¹¹⁹⁸
surra “nariz”, *surrandia* “narigudo”.

9) Beste horrenbeste esan daiteke sarrera bereko ordainei buruz, areago ezohikoak direnean:

vsay aditu, *edo egui* > *usaieguin*, *usai aditu* “oler”.¹¹⁹⁹

10) Landucci eta *HH* lekukotasun bakarrak izatea ere ez bide da argudio txarra:

esturo “estrechamente”. *jaquinez* “adrede”.¹²⁰⁰

11) Hala nola erdal sarreran edota euskarazko ordainaren forman dauden zenbait batetortze ez nahitaezko:

nassaytu / *nasaitu* “afloxar”, *leundu* “bruñir”, *batu* “coger”, *ausçerrea* “çeniza” / *auts errea* “ceniza”, *goratu* “encarecer”, *estaldu* “encubrir”, *balçitu* “ennegreçerse” / *balzitu* “ennegrecer”, *almuada açala* “funda de almohada” / *azala* “funda”, *caçua* “garauato” / *cacoa* “garabato”, *labaçaya* / *labazaya* “hornero”, *egurr bat* “leño, uno solo” / *egurra* “leño”, *ledania* “letanía”, *çura* / *zura* “madero”, *aguindua* “manda de testamento” / “manda, legado”, *obatu* “mejorar”, *cacasçua* / *cacatsua* “merdoso”, *apurra* “migaja”, *errotaria* “molinero”, *odolestea* “morçilla” / “morcilla”, *barriro* “nuebamente” / “nuevamente”, *vzcarra* / *uzcarra* “pedo”, *larrea* “prado de yerba” / “prado”, *labayndu* / *labaindu* “resbalar”, *biurquetea* “buelta”, “restitución”, “retorçedura” / *biurqueta* “restitución”, “retorcimiento, retorcadura”, “vuelta”.

12) Elkarrekin erlazionatu ditugun sarreren %57an Landucciren hitza euskal ordainen aurrena edo sarrerako ordain bakarra da, halako hitzak hiztegiaren hasieran lortutakoak direla iradokiaz; esan gabe doa azken xehetasun hau ongi datorrela Landucciren hiztegiak dakigunarekin.

Honezkero, bi azalbide ezberdin ditugula iruditzen zait: Landucci *Erans*-ean bakarrik erabili zuelako ustearekin jarraitu, batetortzeak halabeharrari egotzita, ala bietan erabili zuela pentsatzen hasi, batetortzeetatik batzuk bederen Landucciri zor dizkiola sinistuta. Bigarren honi atxikitzen bagatzaizkio, zalantza bada ere, orduan asmatu beharko genuke nolatan batean eta bestean hain erabilera ezberdina egin zuen, *HH*-an hitz arrunt xamarrek eta *Erans*-ean bitxikeriak ia bakarrik jasoaz.

Lehenik eta behin, *Erans*-ean erabiltzeko izan zuen zio berbera izan zezakeen hiztegirako ere: esku artean zeukan hiztegi bakarra izaki, errazena Mendebaldeko hitzen

¹¹⁹⁶ *OEH*-aren arabera (s.vv. *kakaraza* eta *kakarazka*), V-gip eta G-goi-to ingurunean ondo lekukotuta dago: beraz, ez da ezinezkoa Larramendik entzuna izatea (cf. § 12.2.8); ez du *kakaraztu* aditza jasotzen.

¹¹⁹⁷ *HH*-ko beste ordaina, *bercerendu*, Harrietengandik hartua izan litekeen arren (cf. *OEH*, s.v. *besterendu*, eta ik. hemen § 10.3), egozketa ez da erabat ezinezkoa, Harriet oso berandu lortu zuenez gero.

¹¹⁹⁸ *Erans*-ean birritan lekukotu dugu *u* > *a* aldaketa Axularren hitzetan (II, § 1.1.16.2).

¹¹⁹⁹ Axularren *usaiña adituric* (*GGero* 414) baino hautagai hobea, ezpairik gabe.

¹²⁰⁰ *OEH*-ak (*JAKINEZ*, s.v. 1 *jakin*) Landucciren “a sabiendas” sarrera bakarrik jasotzen du.

oinarrizko iturritzat erabiltzea zen; hiztegiile honetaz jadanik dakizkigunek ez diote ezetzari bereziki laguntzen, nire usteko. Bigarrenik, gogoratu behar dugu *Erans*-ean bildu zituen honengandiko hitzetan somatu dugun irakurgaiztasun berezia, eskuizkribua begiz jo duenak berrets dezakeena eta Larramendiri hainbat huts eragin zizkiona. Pentsa liteke, hortaz, bi irakurraldi nagusi egin zituela, lehenean hitzik ezagun edo irakurterrazenak *HH*-rako bilduaz eta bigarrenean zailak berreskuratzen saiatuaz. Azalpen honek, bide batez, hiztegiaren hitzaurrean bakarrik aipatua —Harriet bezala— zurituko luke, eta gogora daiteke, bestalde, antzerako arrazoiak proposatu ditudala Axularren berrirakurketarako (§ 9.4).

Gauza hauek guztiok kontuan harturik, berrartu nahi nuke orain gorago egin dudan salbuespen nagusia, maileguak alegia: Landucciren hiztegian diren maileguetatik *HH*-ak onartzen dituenen kopurua oso handia da, aldamenen bestelako ordainik eskaini zein ez;¹²⁰¹ haietatik mordo batek, gainera, etimologia darama aldean. Mayansen irainak ez ote zuen hain zuzen uste genuenaren aurkakoa eragin Larramendirengan, hau da, ez ote zion Landucciren maileguak zuritu beharra eragin —“zorrak hartzeko” bihurtarazi (Mitzelena 1983a: 915)—, haren hiztegia arbuiatu eta errekarra bota beharrean?

10.3. Harrieten gramatikako hiztegitxoak

Erans-aren azterketak —Lakarra berehala ohartu zen desoreka honetaz— Harrieten frantsesa-euskara hiztegia erdialdetik aurrera bakarrik hustuta dagoela erakusten du. Honek esan nahi zezakeen —eta halaxe da, ikusiko dugunez— lehen zatia *HH*-aren gorputzean baliatzeko parada izan zuela.

Egiatan, Larramendiren hitzaurreko hitzek hiztegi barruko erabilera, hain zuzen, ematen dute aditzera:

Acaba de imprimirse una Gramática de Bascuence y Francés, por su autor Monsieur Harriet, con muchas curiosidades, y un diccionario cortito del Bascuence y Francés, todo en octavo, cuyas voces, con otras que le faltan de su dialecto, se hallarán en mi diccionario (1745: xxxv).¹²⁰²

Harrieten argitalpena eta hitzaurrearen idazketa ia garaikideak diren arren (I, § 9.3), biltzailea garaiz ibili zen lehen liburukiari-edo dagozkion hitzak eransteke, baina halako batean, ziurrenik *RS*-ren agerpenak bultzatuta,¹²⁰³ eranskina egiteko asmoa hartu eta handik aurrerakoak —arin beharrez, ziur aski— bertan agertzen dira.

Gauzak honela, arrazoi sendoak ditugu Harriet *HH*-aren gorputzeko azken iturria izan zela eta, beraz, besteetan ere aurki zitezkeen hainbat hitz bera ezagutu orduko jadanik hiztegian zeudela uste izateko; Larramendik esan bezala, gutxi gorabehera, “lapurterazko” hitzetarako iturri osagarri bat izan zen. Honek esan nahi du, agerian denez, iturri batean baino gehiagotan aurkitzen

¹²⁰¹ A letrako adibideak § 7.2.3.3.ean ikus daitezke.

¹²⁰² Ale bat izan zuen (Tellechea-Idigoras 1966a: 30. zb.), baina Juan Bautista Landa eskribauaren zerrendan A. Atanasio Ezterriparen gelan aurkitzen dugu (Altuna 1984: 71).

¹²⁰³ Honi buruzko zertzelada gehiagotarako, ik. II, § 1.5.1.

diren hitzetarako gainerako Iparraldeko lekukotasunek lehentasuna dutela —kontrakoa egiaztatzeko arrazoiak bilatzen ez ditugun bitartean, behintzat— Harrietekiko.

Dena dela, alde batetik, Harrieten hizkuntzak baditu bere hitzak nolabaiteko ziurtasunez bereizi ahal izateko aski ezaugarri eta, bestetik, beti bezala harengandiko ekarria behin betiko mugatzea baino interesgarriago iruditzen zait bereak bakarrik izan daitezkeen hitzak aurkitzeko argudioak erdiestea, *Erans*-ean ikasitakoaren ildotik. Honetarako, ohiko corpusean aurkitutako hitzez gain, ondoko letretan ere aintzat hartzekoak diruditenak ere batu ditut (13. eranskina), hiztegitxoek tamainak eta izaerak berak ematen digun erraztasuna profintatuaz, baina irakurleak kontuan hartu beharko du *OEH*-aren laguntzarik gabe ari naizen letretan itsuka edo ia ari naizela: har bedi, hortaz, *ad experiendum*.

10.3.1. Harrieten hitzak ezagutzeko argudioak

10.3.1.1. Huts bateratzaileak

Dakigunez, frogarik indartsuenetakoa izan daiteke bi testuren arteko erlazioa erabakitzerakoan:

- <n>ren ordez <u>:

hautoca “désir” (cf. *hantocatcea* “désirer” eta egilearen zuzenketa) > *autoca* “deseo”.

- <gl> <lg>ren ordez:¹²⁰⁴

endeglatcea “comprendre” > *endeglatu* “comprehender”.

- <c>ren ordez <e>:

chirehilqueric “bagatelles” > *chireilqueria* “bagatela”.

10.3.1.2. Grafia bereziak

- /k/ balioko <qu> digrafoa:

quaraxa “amer” > *quaratsa* “amargo”. *quaraxtasuna* “amertume” > *quarastasuna* “amargor”.

- Txistukari afrikatua frikariaren ordez:

atcienda “bête” > *atzienda* “bestia”. *queritçatcea* “dissimuler” > *queritzatu* “dissimilar”.

- Aintzat har daiteke <h> eta batez ere <nh> bezalako grafemen agerpena ere:

ainhara “hirondelle” > *ainhara* “golondrina”. *haindurra* “austere” > *haindurrá* “austero”. *haraiñcina* “anciennement” > *haraincina* “antiguamente”. *higuincea*, *hastancea* “dégouter” > *higuindu*, *hastandu* “disgustar”. *hildura* “appesantissement” > *hildura* “adormecimiento”. *horratcea* “doubler” > *horratzea* “doblar”. *sehia* “domestique” > *sehia* “doméstico, el de la familia”.

- <ch> gorde du, haren balio ezberdina gorabehera, ondoko hitzetan:

¹²⁰⁴ Ez da ezinezkoa *endeglatu*-ren aldaera izatea, baina Harriet dugu honen lekukotasun aske bakarra (cf. *OEH*, s.v. *endeglatu*, nahiz eta Harriet jaso ez).

chilíncha "clochette" > *chilíncha* "campanilla". *chirehilqueriac* "bagatelles" > *chireilqueria* "bagatela". *chirritu* "exact" > *chirritua* "exacto". *chirrituqui* "exactement" > *chirrituqui* "exactamente". *chochoa* "dard" > *chochoa* "dardo". *fechoa* "brave" > *fechoa* "bravo".¹²⁰⁵ *forchetta* "fourchette" > *forcheta* "tenedor para comer".

- Bokal arteko <i>, HH-an ohikoa den <y>ren ordezt:

haraguicoia "charnel" > *araguicoia* "carnal". *barraiatcea* "démolir", *barraiadura* "démolition" > *barraiatu* "demoler", *barraiadura* "demolición". *furfuiatxua* "arrogant" > *furfuiatsua* "arrogante". *lehiáz*, *lehiáca* "(a la) hâte" > *leiacá*, *leiaz* "(a) priesa". *lehiátcea* "hâter" > *leiatzea* "(dar) priesa". *manaiamendua* "gouvernement" > *manaiamendua* "gobierno". *manaiatcea* "gouverner" > *manaiatu* "gobernar".

- Kontsonante aurreko afrikatua, ezohikoa HH-an:

gaitzbidea "scandale" > *gaitzbidea* "escándalo".

- <nz> (cf. beherago -*cunza* guztiak):

cençatcea "corriger" > *cenzatu* "corregir".

- <ñi> grafia:

sañiacorra "inconstant", *sañiaqundea* "inconstance" > *sañiacorra* "inconstante", *sañiacundea* "inconstancia".

10.3.1.3. Harrietek azal ditzakeen hutsak

- <o> <c>ren ordezt:

minçaica [sic, ziurrenik *mintzaira*-ren ordezt] "langue, langage" > **mintzaioa* "habla, language".

- <l> <t>ren ordezt:

ahatea "canard" > **ahalea* "ánade".

- <|> ulertu eta <s> idatzi, egiatan <|> zena:

esleitcea "indiquer" > **eseitu* "indicar".¹²⁰⁶

- <z> <tç>ren ordezt:

citoitça "goutiere" > **citoiza* "gotera".¹²⁰⁷

- <choc> <hokh>en ordezt:

ohokhoa "berceau" > **ochocoa* "cuna".

10.3.1.4. Aldaera bereziak

Larramendik ezagut zezakeen beste lekukotasunik ez duten hitz edo aldaerak:

haboro "plus" > *aboro* "más". *berastemia* "honteux" > *berastemia* "vergonzoso".¹²⁰⁸ *buluztea* "dépouiller" > *bulustu* "despojar".¹²⁰⁹ *burreba* "bourreau" > *burreba* "verdugo".¹²¹⁰ *burtiñac* "rideaux" > *burtina* "cortina".¹²¹¹

¹²⁰⁵ *OEH*-ak (s.v. *fetxo*) *fetxo* emango balute bezala jasotzen ditu biak (!?).

¹²⁰⁶ Iratxo hau sarrera normal gisa agertzen da *OEH*-an, Larramendi eta Añibarroren lekukotasunarekin. Cf., ostera, *esleitu* "separar" *HH*-an.

¹²⁰⁷ *EH*-ak 1741 (= Harriet) ematen du lehen agerraldizat.

¹²⁰⁸ Cf. *bereztemio* (O-SP, SP), *berestimu* (Urt) bakarrik lehenago (*OEH*, s.v. *bereztemio*).

¹²⁰⁹ Cf. *OEH* (s.v. *biluzi*): "*Bul(h)uz*- lo emplean sobre todo autores bajo-navarros, ya desde Dechepare".

OEH-aren datuen zain, badirudi hurrengoak ere halakoxeak direla:

cualdia "jet" (cf. "(un) jet de pierre, *harri cualdi bat*") > *cualdia* "tiro".¹²¹² *orkheia* "forme" > *orqueia* "forma".¹²¹³ *urruric* "gratis" > *urruric* "gratis".¹²¹⁴ *urthorez* "annuellement" > *urtorez* "annualmente".¹²¹⁵ *urtustea* "déchausser" > *urtustu* "descalzar".

10.3.1.5. Morfologiako berezitasunak

- Hitzak mugagabeen agertzea:

arbaso "bis-ayeul" > *arbaso* "bisabuelo". *arbaso* "bis-ayeule" > *arbaso* "bisabuela". *arrau* "commun" > *arrau* "común".

- Plurala gordetzea:

maillarrac "haricots" > *maillarrac* "alubias, judías, frejoles". *urcoroillac*, *emaiçac* "etraînes" > *urcoroillac*, *emaitzac* "estrena, estrenas".

- Aditzizen gordeak:

lehiatcea "hâter" > *leiatzea* "(dar) priesa". *horratzea* "doblar" < *horratcea* "doubler".

- Aditzizenetik gaizki berreraikitako partizipioak:

ehoitea "digerer" > **ehoitu* "digerir la comida".¹²¹⁶ *ieitea* "arriver" > **jeitu* "arribar, llegar".¹²¹⁷

- Izena + (e)gin aditz esapidetik izena ateratzea edo alderantziz:

ispichoña "gage, parie" > *ispichoña eguin* "apostar".¹²¹⁸ *urcinzguitea* "eternuer" > *urcinzá* "estornudo".

- Izenetik gaizki eratorritako partizipioa:

urcinzguitea "eternuer" > *urcinzá* "estornudo", **urcindu* "estornudar".¹²¹⁹

- Harrieten bereizgarri diren atzizkiak:

-KATU: *bardincatu* "comparar" < *bardinquatcea* "comparer", *berezcatu* "distinguir" < *berezcatcea* "distinguer", *ibilcatu* "exercer" < *ibilcatcea* "exercer", *irudicatu* "imitar" < *iduricatcea* "imiter".
-KUNZA: *autacunza* "elección" < *hautaqunça* "election", *bardincunza* "comparación" < *bardinqunça* "comparaison", *gaizcunza* "corrompimiento, corrupción" < *gaitzqunça* "corruption", *jauscunza* "descendimiento" < *jautxqunça* "décente", *sarcunza* "entrada" < *sarqunça* "entrée".

¹²¹⁰ Cf. OEH (s.v. *borrero*): Etxeberri Ziburukoak, Argaignaratsek eta Gasteluzarrek *burreua* idazten dute, eta *burreba* Pouvreau eta Urteren hiztegieta bakarrik lekukotzen da lehenago.

¹²¹¹ Cf. OEH (s.v. *burtina*): ez dago beste lekukotasunik 1745 baino lehenago.

¹²¹² OEH-ak s.v. *ukaldi* azalduko duela dio.

¹²¹³ Gogoratu *Erans*-eko *orcoya* "forma, manera" Axularrengandik hartua dela.

¹²¹⁴ Cf. EH *urririk* (1852).

¹²¹⁵ Cf. EH *ortuts* (1777), *orthus* (1864), *orthuz* (1643 = Ax) eta *ortutsik* (1630 = EZ), *orthusik* (1643).

¹²¹⁶ OEH-ak berezita ematen ditu Harrieten (s.v. *eho*) eta Larramendiren (s.v. *ehotu*) lekukotasunak.

¹²¹⁷ Cf. OEH, s.v. *?jeitu*: "Probablemente deducido de *ieitea*, sust. vbal. de *jen*, que figura en Ht VocGr 436". Galdera markaren ordez iratxoak markatzeko erabiltzen duen gurutzea egokiagoa zen, inondik ere.

¹²¹⁸ Cf. OEH, s.v. *ixpixo*.

¹²¹⁹ Ziurrenik -za bukaeran atzizkia identifikatu uste izan zuen Larramendik, ohi bezala.

- Larramendiren sistematik kanpoko atzizkiak:

-GIA: *sarrilguia* "entrada" < *sarrilguia* "entrée".
 -KARA: *eguiñcara* "fácil" < *eguiñcara* "facile".
 -KI: *higuigarriqui* "desagradablemente" < "désagréablement".
 -KOI: *araguicoia* "carnal, luxurioso" < *haraguicoia* "charnel".¹²²⁰
 -MENDU (cf. § 2.1.12): *antolamendua* "composición" < *antolamendua* "composition", *manaiamendua* "gobierno" < *manaiamendua* "gouvernement", *ornimendua* "guarnición" < *hornimendua* "garnison".

10.3.1.6. Sarrera bereko hitzak

aharança, goiea "conversation" > *aharanza, goyea* "conversación". *arrau, aularie* "commun" > *arrau, aularia* "común, ordinario, vulgar". **burepea, nausitassuna* "autorité" > *burupea, nausitasuna* "autoridad". *deithatua, ospexua* "fameux" > *deitatua, ospetsua* "famoso". *gordetcea, cuculcea* "disparôître" > *cuculdú, gorde* "desaparecer". *dorpea, haindurra* "austere" > *haindurrá, dorpeá* "austero". *higuincea, hastancea* "dégouter" > *higuindu, hastandu* "disgustar". *manuguiña, ethorcorra* "humble" > *manuguiña, etorcorra* "humilde". *onsaqui, onguiqui* "bonnement" > *onsaqui, onguiqui* "buenamente". *ordongua, fechoa* "brave" > *fechoa, ordongua* "bravo". *sarrilguia, sarqunça, sarbidea* "entrée" > *sarcunza, sarbidea, sarrilguia* "entrada". *urcoroillac, emaiçac* "etraïnes" > *urcoroillac, emaitzac* "estrena, estrenas". *hurrana, hestura* "extrémité" > *urrana, estura* "extremidad, extremo".

Alabaina, kontuan hartu behar dugu argudio hau oso zalantzazkoa dela hitz arruntagoei dagokienez; cf., adibidez:

solasa, aharaça, goiea "conversation" > *solasa, jolasa, hizqueta, aharanza, goyea* "conversación".
manuguiña, umilla, ethorcorra "humble" > *umilla, manuguiña, etorcorra* "humilde".

Harrieten kasuan bederen, beheraxeago ikusi ahalko dugu familiakideen sarreretan ordain bakoitzak izan duen bilakabidearen arabera aski ongi erabaki daitekeela halako hitz arruntetatik zein zegoen *HH*-an bereak sartzen hasi aurretik.

10.3.1.7. Familia bereko hitzak

Esanahian (cf. hurrengo atala) bat etortzeaz gain, sarritan Harrietengan idorotako familiakideak, denak kopiaitu ditu:

hainçurra "bêche, pioche", *hainçurcea* "bêcher, piocher" > *ainzurra* "azada", *ainzurtu* "(cavar con) azada". *amarruxua* "fin, rusé", *amarruqui* "finement" > *amarrutsua* "astuto", *amarruqui* "astutamente", *antolamendua* "composition", *antolatcea* "composer" > *antolamendua* "composición", *antolatu* "componer". *bardinquatcea* "comparer", *bardinquça* "comparaison" > *bardincatu* "comparar", *bardincunza* "comparación". *barraiatcea* "démolir", *barraiadura* "démolition" > *barraiatu* "demoler", *barraiadura* "demolición". *bihotzgorra* "cruel", *bihotzgartassuna* "cruauté", *bihotzgorqui* "cruellement" > *biozgorra* "cruel", *biozgartasuna* "crueldad", *biozgorqui* "cruelísimamente, crudelísimamente, cruelmente". *burcoitassuna* "caprice", *burcoixua* "capricieux" > *burcoitasuna* "capricho", *burcoitsua* "caprichoso". *chirritu* "exact", *chirrituqui* "exactement" > *chirritua* "exacto", *chirrituqui* "exactamente". *dorpea* "austere",¹²²¹ *dorpetassuna* "austerité"¹²²² > *dorpea* "austero", *dorpetasuna* "austeridad".¹²²³ *ecindua* "incapable", *ecindura* "incapacité" > *ecindura, ecindua* "incapacidad, ineptitud, incapaz".¹²²³

¹²²⁰ Arrazoi bigatik batez ere: *araguitarra* sarrerakidea normala da *HH*-an gazt. *-al* atzizkidunaren ordain gisa, *-koi* ez bezala; eta, bestalde, ziurtasunez Larramendik eratutakotzat oinarrian aditzoina dutenak bakarrik eman ditzakegu (§ 2.1.15).

¹²²¹ *OEH*-ak (s.v.) gure bi ikergaien lekukotasun erabat bakartuak lehenengo adieran ("pesado; penoso; duro, cruel") hainbaten artean galduta dakartza, biak bat datozela igartzeko biderik eman gabe.

¹²²² *Dorpe*-z esana errepika daiteke hemen *OEH*-aren jokabideaz, artean Pouvreau eta Urteren hiztegiez bestelako lekukotasunik ez dagoela erantsirik.

¹²²³ Gogoratu halako izen-izenondoak Larramendik sarritan batu ohi dituela (§ 5.2.1, 13. oh.).

gaitzquincea "corrompre", *gaitzqunça* "corruption" > *gaizquindu* "corromper", *gaizcunza* "corrompimiento, corrupción". *higungarria* [sic] "désagréable", *higuingarriqui* "désagréablement" > *higuingarria* "desagradable", *higuingarriqui* "desagradablemente". *higuincea* "dégouter", *higuiñça* "dégout" > *higuindu* "disgustar", *higuintza* "disgusto". *ihicia* "chasse", *ihiztarria* "chasseur", *ihizatzea* "chasser" > *ihicia* "caza", *ihiztarria* "cazador", *ihiztatu* "cazar".¹²²⁴ *laidoa* "deshonneur", *laidoztatzea* "deshonorer" > *laidoa* "deshonor, deshonra", *laidoztatu* "deshonrar, deshonrar". *lehiáz*, *lehiaca* "(a la) hâte", *lehiatzea* "hâter" > *leiacá*, *leiaz* "(a) priesa", *leiatzea* "(dar) priesa". *lukhuraria* "avare", *lukhararigoa* [sic] "avarice" > *lucuraria* "avariento", *lucurarigoa* "avaricia". *maiñatzea* "baigner", *maiñhua* "bain" > *maiñatu* "bañar", *maiñua* "baño, acto de lavarse". *manaiamendua* "gouvernement", *manaiatzea* "gouverner" > *manaiamendua* "gobierno", *manaiatu* "gobernar". *narraiotsasuna* "incommodité", *narraiotea* "incommoder" > *narraiotsasuna* "incomodidad", *narraiotu* "incomodar". *quaratxa* "amer", *quaraxtasuna* "amertume" > *quaratsa* "amargo", *quarastasuna* "amargor, amargura". *sañiacorra* "inconstant", *sañiaqundea* "inconstance" > *sañiacorra* "inconstante", *sañiacundea* "inconstancia".¹²²⁵ *superra* "fier", *supertassuna* "fierté" > *superra* "fiero", *supertasuna* "fiereza". *urcoroillac* "etraînes", *urcoroillatzea* "etraîner" > *urcoroillac* "estrena, estrenas", *urcoroillatu* "estrenar". *çorrotcicatzea* "compenser", *çorrotcicca* "compensation" > *zorrotzicatu* "compensar", *zorrotzica* "compensación". *çurguiña* "charpentier", *çurlana* "charpenterie" > *zurguina* "carpintero", *zurlana* "carpintería, el oficio".

Honen maiztasunak, ondoko familiak ere, nahiz aldaketatxo batzuk egon, Harrietengandik hartuak direla pentsatzera garamatza; *sinetsi*-renean kontuan izan behar da lehenengo hiru sarrerak Harrietengan bata bestearen segidan agertzen direla:

khechatzea "inquieter", *khechua* "inquiet", *khechaqundea* "inquiétude" > *quejatu* "inquieter", *quejoa* "inquiétude".
siñexcorra "crédule", *siñexgorra* "incrédule", *siñexberatassuna* "crédulité", *siñestea* "croire", *siñexia* "crû" > *siniscorra* "crédulo", *siñisgorra* "incrédulo", *siñesberatasuna* "credulidad", *siñetsi* "creer", *sinetsiá* "creído".

Hala hartutako familiak ugal daitezke zenbaitetan, baldin eta erdarazko familia osoa, euskal ordainak gorabehera, aintzat hartzen badugu:

amarruxua "fin, rusé", *amarruqui* "finement", *iocotria* "finesse" > *amarrutsua* "astuto", *amarruqui* "astutamente", *jocotria* "astucia".
lukhuraria "avare", *lukhararigoa* [sic] "avarice", *iaramana* "avaricieux" > *lucuraria* "avariento", *lucurarigoa* "avaricia", *jaramana* "avaro".

Ez da argudio txarra, beharbada, erdaraz bakarrik familiakideak direnetarako ere:

adinxua "ancien", *haraiñcina* "anciennement" > *adintsua* "anciano", *haraincina* "antiguamente".
baiaduna "injuste", *bidegabea* "injustice" > *baiaduna* "injusto", *bidebagea* "injustamente".

10.3.1.8. Esanahia

Larramendik, frantsesez ongi moldatzen zenez gero, ez zuen arazo berezirik izan behar Harrieten hitzak bere hiztegian sartzeko. Normala denez, gehienetan frantseseko hitzaren gaztelaniazko lehengusua jarri du, eta hau aski izan daiteke lehenagoko —eta, bereziki, beste inolako— lekukotasunik ez duten hitzak edo aldaerak handik hartu zituela baieztatzeko.¹²²⁶

aditzallea "auditor" < "auditeur". *haindurra* "austero" < "austere". *alporchac* "bizazas" < "befaces". *amaizuna* "madrasta" < "marâtre". *araguicoia* "carnal, luxurioso" < "chamel". *harauná* "balanza" < "balance". *arrau*, *aularia* "común, ordinario, vulgar" < "commun". *autacunza* "elección" < "election". *baiaduna* "injusto" < "injuste". *behartsua* "indigente" < "indigent". *berezcatu* "distinguir" < "distinguer".

¹²²⁴ Hau da *ihizia* eta *ihiztarria* iturri honetatik hartu dituela baieztatzeko daukagun argudiorik onena: gainerantzean, zein bere aldetik, *ihizia* EZ, Ax, Gç eta ESrengan erdiets zezakeen, eta *ihiztari* EZ, Ax eta Gç-rengan; ez *ihiztatu*, ordea (cf. *OEH*, s.vv. *ehiza*, *ehizatu* eta *ehiztar*).

¹²²⁵ *EH*-ak 1838 ematen du *sanjakor*-en lehen agerraldizat.

¹²²⁶ Besterik adierazten ez dudana bitartean, *OEH*-ak forma bereko sarreran jasotzen du hitza eta, beraz, hartara bidaltzen dut.

bermatu "esforzar" < "efforcer".¹²²⁷ *eguincara* "fácil" < "facile". *eguicundea* "efecto" < *eguiñqundea* "effet".¹²²⁸ *ecarguiña* "generoso" < "genereux". *encorgatua* "constipado" < "constipé".¹²²⁹ *endeglatcea* "comprender" > *endeglatu* "comprender, con el entendimiento". *erranza* "dicción" < "diction". *erranza* "expression, explicación" < "expression". *furfuiatsua* "arrogante" < "arrogant".¹²³⁰ *gaitzbidea* "escándalo" < "scandale".¹²³¹ *golostu* "desear" < *goloxtea* "désirer". *goyea* "conversación" < "conversation".¹²³² *guertacaria* "aventura" < "aventure". *ibilcatu* "exerker" < "exerker".¹²³³ *higuidura* "gesto, gesticulación" < *higuidurac* "gestes". *inguiña* "ingenioso" < "ingenieux". *iduricatcea* "imitar" > *irudicatu* "imitar".¹²³⁴ *istuna* "canal" < "canal". *ichulingurua* "circunferencia" < *itçulingurua* "circonference".¹²³⁵ *jambidea* "apetencia, apetito" < "appetit". *jaramana* "avaro, lo mismo que avariento" < "avaricieux".¹²³⁶ *jatequeta* "banquete" < "banquet". *lentasuna* "antigüedad" < "antiquité".¹²³⁷ *liparra* "instante" < "instant". *maillarrac* "alubias, judías, frejoles" < "haricots". *mallegua* "crédito contra algún deudor" < "crédit".

Baita, bestetan agertu arren, Harrieten erdarak, bere berezitasunarengatik, zuzen, erraz eta hobekienik azal ditzakeenean:

aharanza "conversación" < "conversation".¹²³⁸ *adintsua* "anciano" < "ancien".¹²³⁹ *ancea* "genio" <

"genie".¹²⁴⁰ *aquitu* "faltar" < "faillir".¹²⁴¹ *arritua* "immobible, inmóvil, immobile" < "immobile".¹²⁴² *hastandu* "disgustar" < "dégouter".¹²⁴³ *bermea*, *bermegoa* "caución, seguridad" < *bermea* "caution", *bermegoa* "cautionnement".¹²⁴⁴ *dastatu* "gustar, sentir el sabor" < "gouter".¹²⁴⁵ *heiña* "estado" <

¹²²⁷ EZ-ak eta Ax-ek *permatu* erabiltzen dute adiera honetan (cf. *OEH*, s.v., 2. adieran).

¹²²⁸ Ik. *OEH*, s.v. *egikunde*, 2. adieran.

¹²²⁹ Cf. *OEH*, s.v. *engorgatu*; ez du Harriet jasotzen.

¹²³⁰ Ik. *OEH*, s.v. *burfudiatsu*.

¹²³¹ Ik. *OEH*, s.v. *gaizpide*.

¹²³² Ik. *OEH*, s.v. *goiea* (det.).

¹²³³ *OEH*-ak ez du adiera hau jasotzen.

¹²³⁴ Ik. *OEH*, s.vv. *idurikatu* eta *irudikatu*: *iduri-irudi* eta haien eratorriak bereiz emateak halako gertakari garrantzizkoak (bi aldeetako tradizioen jarraipena, alegia) estaltzen ditu.

¹²³⁵ Ik. *OEH*, s.v. *itzulinguru*, atal berezi batean.

¹²³⁶ *avaricioso* sarrerarik ez dago *HH*-an.

¹²³⁷ Ik. *OEH*, s.v. *lehentasun*, 2. adieran.

¹²³⁸ Larramendik ezagutu zuen beste lekukotasun bakarrean 'hizkuntza' (EZ *Man* I, 7) edo 'ahotsa' (*ib.* 74, *Man* II, 17) da (datuak *OEH*-tik, s.v.).

¹²³⁹ EZ-ak (*Man* I, 128) erabilia.

¹²⁴⁰ <ancea> Materrerengan bakarrik aurkitzen da (*OEH*, s.v. *antze*). Bide batez, *OEH*-ak egiten duen *antze* / *antzi(a)* sarrera bereizkuntza (nahiz batetik besterako deiak izan) ez dela beharrezkoa, Harriet-Larramendiren lekukotasunak erakusten digu, *genio* eta *genie*-k —eta *antze* / *antzi(a)*-k, hortaz— bi adierak batzen baititu beregan.

¹²⁴¹ *OEH*-ak (s.v., 2. adieran) Larramendiren lekukotasuna galduta ematen du gainerakoan normala den "agotar(se), acabar(se)" adieraren barruan; Harrietena ez du jasotzen.

¹²⁴² Adieraren berezitasunak ez du iruzkinik eskatzen, nik uste. *OEH*-ak (s.v. *harritu*) ez du jasotzen, ez eta Harrieten lekukotasuna ere.

¹²⁴³ *OEH*-ak (s.v., atal berezi batean) Harriet eta Larramendiren lekukotasun erabat bakartuak "apartar, repudiar, rechazar" adierapean jasotzen ditu, nahiz, nabarmena denez, 'degouter' / 'disgustar'-en jasalea eta 'repudiar'-ena guztiz kontrakoak izan. Iparraldeko tradizioan arrunta zen adiera ("apartar(se), alejar(se)" *OEH*-aren itzulpenaz baliaturik), Larramendik *aztandu* itxurapean jasotzen du.

¹²⁴⁴ *Bermegoa*-rako ez dago Larramendik ezagut zezakeen beste ezer; *berme*-rako, berriz, ES bakarrik aipa daiteke Harrietez gainera (ik. *OEH*, s.vv.).

"etat".¹²⁴⁶ *erasi* "(hablar en) furia, *erasi*, y los irregulares *badarasa*, *badarasate*, &c. que se pueden ver en la voz *hablar*".¹²⁴⁷ < "gronder, *erastea*", "il gronde, *badarasa*".¹²⁴⁸ *estura* "extremidad, extremo" < "extrémité".¹²⁴⁹ *etorcorra* "humilde" < "humble".¹²⁵⁰ *fechoa* "bravo, valiente" < "brave".¹²⁵¹ *froganza* "experiencia" < *frogança* "experience".¹²⁵² *gorputzilla* "cadaver" < *gorpuzhilla* "cadavre".¹²⁵³ *icartu* "examinar" < "examiner".¹²⁵⁴ *higuindu* "disgustar" < "dégouter".¹²⁵⁵ *higuingarria* "horrible" < "horrible".¹²⁵⁶ *iraupena* "perseverancia" < "persevération".¹²⁵⁷ *irritsa* "ambición" < "ambition".¹²⁵⁸ *quejatu* "inquietar" < *khechatcea* "inquieter".¹²⁵⁹ *larrutua* "escorchado" < "ecorché".¹²⁶⁰

Argudio ona izan daiteke oraindik haien tradizioa zehazki ezagutzerik ez dugun hitzetarako:

macaldua "estropeado" < "estropié".¹²⁶¹ *manuguiña* "humilde" < "humble". *marfonditu* "arromadizarse" < "enrhumer".¹²⁶² *mellatu* "emprender" < "entreprendre". *miserac* "antojos, anteojos" < "lunettes". *naicaria* "agradable" < "agreable".¹²⁶³ *naicundea* "amor" < "amour".¹²⁶⁴ *oiez bezalacoa* "extraordinario" < "extraordinaire". *oldea* "fantasia" < "fantaisie".¹²⁶⁵ *ordongoa* "espesso" < "epais".

¹²⁴⁵ Oso ondo lekukotua Iparraldeko tradizioan (Lç, Mat, EZ, Ax, etab.; ik. *OEH*, s.v.); erdal hitzen kidetasunak bakarrik egin dezake Harrieten iturritasunaren alde.

¹²⁴⁶ *OEH*-aren arabera (s.v.) 1745 arteko beste lekukotasun bakarra gure itzulpena inolako ezin eragin zezakeen Leizarragarena (*Cal* a 1v) da. Zalantza uzten gaitu, dena dela, iruzkinean *heinean* dela baitio, gero *heineko* bakarrik jasotzen badu ere.

¹²⁴⁷ Jakina, *DAut*-ek ez dakarren sarrera da.

¹²⁴⁸ Harriet eta Larramendiren lekukotasunak bereizita agertzen dira *OEH*-an (s.v. 1 *erasi*), bigarrena buruan, eta lehena atal berezi batean, Axular (426 *erasten du*) eta Maurice Harrietez bakarrik lagunduta.

¹²⁴⁹ *OEH*-aren datuen arabera (s.v.) Argainaratsek (*DevB* 154) eta Etxeberri Sarakoak (111) adiera hori bera eragin zezaketen adibideak dituzte, baina iturrigai iratxo hauen egoerak ez du ezertan laguntzen.

¹²⁵⁰ *OEH*-ak berak Harrieten iturritasuna aitortzen du. Lehiakideak Axular (68) eta Etxeberri Sarakoa izango lirake; bigarrenaz, balio beza aurreko oharrean emandako argudioak; lehenaz, aski dateke testuinguruak laguntzarik batere ematen ez duela esatea. Ziurrenik Harrietez bertatik eta gutxi gorabehera itzuli zuen: Villasantek (hobeki, inondik ere) "condescendiente" (*AxH*, s.v.) itzuli du, ostera.

¹²⁵¹ Pouvreau eta Urteren hiztegiez eta Pouvreau beraren testuez at, denak Larramendirentzat ezezagunak, Xurioren lekukotasuna bakarrik erabil zezakeen (*OEH*, s.v. *fetxo*).

¹²⁵² *OEH*-aren arabera, gainerako iturrigaiak (Ax, ES, Xurio) *frogantza* erabiltzen dute.

¹²⁵³ *Gorputz hil* Lç (*Decl* ã 4v), EZ (*Man* II, 96) eta Gç-ek (88) erabili dute.

¹²⁵⁴ Larramendiren iturria izan litekeen bakarra Leizarraga da (*OEH*, s.v. *ikertu*).

¹²⁵⁵ *OEH*-ak (s.v.) oso adibide gutxi, eta denak zaharrak, jasotzen ditu adiera honetan; haren aukeraketaren arabera, ez dago argiki Larramendiren itzulpena eragin zezakeen ezer.

¹²⁵⁶ Etxeberri biek eta Xuriok erabili bazuten ere, erdal itzulpena berez mintzo dela deritzat; bide batez, *OEH*-ak *higungarri* forma buruan ematen du, hutsa dela ohartu gabe.

¹²⁵⁷ *OEH*-ak (s.v.) ematen dituen adibideen artean ez dago halako itzulpena eragin zezakeen besterik.

¹²⁵⁸ Larramendik ezagutzeko moduan Xuriok bakarrik erabilia, baina "deseo, anhelo" adiera eragiteko moduan (*OEH*, s.v. *irritsa*).

¹²⁵⁹ *OEH*-ak (s.v. *kexatu*, 2. adieran) elkarrekin ematen ditu *HH*-ko <queja-> eta <queicha-> formak; baliteke grafi ezberdintasun hauek bi iturri ezberdinekin lotu ahal izatea.

¹²⁶⁰ Gaztelaniazko ordainaren bitxia aski frogagarria da, nahiz bestelako erabiltzailerik baden (ik. *OEH*, s.v.).

¹²⁶¹ *EH*-ak (s.v. *makaldu*) 1745 ematen du lehen datatzat.

¹²⁶² *mafrunditu* 1955, *marfunditu* 1934 eta *marfondi* 1692, *marfundi* 1749, *mafrundi* 1745, *mafrondi* 1873 (*EH*, s.vv. *mafrundi* eta *mafrunditu*).

¹²⁶³ Izen gisa 1545 'nahi izatea' eta 1657 'begikotasuna' (*EH*, s.v. *nahikari*).

¹²⁶⁴ 1643 'nahi izatea, nahikaria' (*EH*, s.v. *nahikunde*).

¹²⁶⁵ *EH*-ak ez du adiera hau jasotzen.

ordongoa "grande" < "grand". *ordongua* "bravo, valiente" < "brave". *ornimendua* "guarnición de plaza, vestido, espada" < "garnison". *orqueia* "forma, molde" < "forme".¹²⁶⁶ *ostotsua* "hojoso" < "feuilleux".¹²⁶⁷ *ozguna* "frescura, frescor" < "fraicheur". *premiatzuiro* "necesariamente" < *premiatzui* "necessairement". *sehia* "doméstico, el de la familia" < "domestique".¹²⁶⁸ *soinquidea* "compañero" < "compagnon". *suberriac* "fuegos por fiestas"¹²⁶⁹ < *suberria* "feu de joye". *trebesia* "dificultad" < *trebesiac* "difficultés".¹²⁷⁰ *trencatu* "decidir" < "décider".¹²⁷¹ *chochoa* "dardo" < "dard". *cenztatu* "corregir" < "corriger".¹²⁷² *zucenguiña* "director" < *chuchenguiña* "directeur".

Beste horrenbeste esan daiteke, lehengusurik izan ezean ongi itzulita agertzen diren eta (gorago adierazitako baldintzetan) bestelako lekukotasunik ez duten hitz edo aldaerez:

amarrutsua "astuto" < "fin, rusé".¹²⁷³ *haraincina* "antiguamente" < "anciennement".¹²⁷⁴ *barla* "corral" < "basse-court". *barnatu* "profundar" < "enfoncer". *berastemia* "vergonzoso" < "honteux".¹²⁷⁵ *bercerendu* "enajenar" < "aliener".¹²⁷⁶ *erbalquiro* "débilmente" < *herbalqui* "foiblement".¹²⁷⁷ *floca* "ramillete" < "bouquet". *forcheta* "tenedor para comer" < "fourchette".¹²⁷⁸ *hildura* "adormecimiento de brazo, pierna, &c." < "appesantissement".¹²⁷⁹ *ispichoñatu* "apostar" < "gager, parier".¹²⁸⁰ *calaca* "cítola de molino" < "tranquet de moulin". *cillar bicia* "azogue" < "argent vif".¹²⁸¹

Harrieten azalpen xuhurrak arazotsuak izan dira batzuetan gure hiztegi-gilearentzat, adiera ezberdinen artean hautatu beharra izan baitu, eta ez beti asmatu; argi eta garbi, hiztegi batek bakarrik eragin zezakeen zerbait da:

lerdena "derecho, acción" < "droit, *lerdena*, *çucena*".¹²⁸²
horratzea "doblar, hazer otro tanto" < "doubler".
trebesia "dificultad" < *trebesiac* "difficultés".¹²⁸³

¹²⁶⁶ Gogoratu Axularren *orkoi*-ri buruzko iruzkina *Erans*-aren azterketan (II, § 2.2.4).

¹²⁶⁷ 1745 (*EH*, s.v.).

¹²⁶⁸ 1635 (*EH*, s.v.).

¹²⁶⁹ Agerriki Harrieten frantsesaren hitzez hitzeko itzulpena da; esan gabe doa *DAut*-ek (s.v. *fuego*) ez dakarrela ez hau, ez eta antzekorik ere.

¹²⁷⁰ 1636 'ezbeharra, zorigaitza' (*EH*, s.v.).

¹²⁷¹ 1571 'hautsi, ebaki' eta datarik gabe 'erabaki, ebatzi' (*EH*, s.v.).

¹²⁷² 1545 (*EH*, s.v. *zentzatu*).

¹²⁷³ *OEH*-ak (s.v.) jasotzen ez badu ere, Harriet hitz honen lehenengo lekukotasun erabatekoa dugu.

¹²⁷⁴ Cf. *EZ araitzina* (*OEH*, *HARAITZINA*, s.v. *haraitzin*-). Leizarragarengandik, ostera, *haraitzinadanik* jaso zuen, jadanik ikusi dugun bezala (§ 9.2.4.1).

¹²⁷⁵ Ik. *OEH*, s.v. *bereztemio*.

¹²⁷⁶ Ik. *OEH*, s.v. *besterendu*.

¹²⁷⁷ Ik. *OEH*, s.v. *herbalki*.

¹²⁷⁸ Ik. *OEH*, s.v. *furtxeta* (beti bezala, *HH*-ko <ch> gaurko <tx> ulertuta).

¹²⁷⁹ *OEH*-aren datuak ikusita, Azkuek Añibarrorengandik eta honek *HH*-tik hartu zuten: Larramendi da, beraz, lekukotasun bakarra eta, ziurrenik, Harrieten sarreraren interpretapen aske bati zor zaio. Bestalde, ez dago, nik uste, *HH* "austeridad, mortificación" sarrerarekin lotzerik, Lakarrak (1993: 275) egin bezala.

¹²⁸⁰ Ik. *OEH*, s.v. *ixpixatu*.

¹²⁸¹ 1745 (*EH*, s.v.).

¹²⁸² Larramendik, itxura denez, ez zuen *lerden* hitza ezagutzen: ez du beste inon jasotzen, eta cf. *lerdendu* "adelgazar" *Erans*-ean (< Ax).

¹²⁸³ Cf. *EH* 'ezbeharra, zorigaitza' eta 'trabesatzea, iragaitza'. Cf. *HH* "Dificultar, poner dificultades, errazqueac, *trebesiac ifiñi*", nahiz eta itxura guztien arabera (*OEH*-an ikusi beharko) *trebesiak igaro* edo *pairatu* egiten dira, ez *ifiñi*.

Esanahiaren aldetik izan dezakegun argudiorik onenetakoa, azkenik, *HH*-ko agerraldi guztiak Harrietek ematen dituen adierenak soilik izatea dugu, are batzuetan formak ere (cf. *ordongoa / ordongua*) lagungarri direlarik:

errança "diction" > *erranza* "dicción".
errança "expression" > *erranza* "expresión".
ordongua "brave" > *ordongua* "bravo, valiente".
ordongoa "épais" > *ordongoa* "espesso".
ordongoa "grand" > *ordongoa* "grande".

10.3.1.9. Esapideak

"Grincer les dents, *horçac hirriquatcea*" > "(Apretar los) dientes, *ortzac irricatu, irricatzea*".
"Extraordinaire, *ohiezbeçalacoa*" > "Extraordinario, *oiez bezalacoa, oiezlacoa*".

10.3.1.10. Lekua

Zati on bat *Erans*-ean sartu zuela jakinik, pentsatzekoa da Harrieten hitzak sarrera bukaeran aurkitu beharko genituzkeela, azken unean, inprentan ia edo inprentan bertan (lehen probetan), erantsitakoak izan baitziren. Izan ere, ziurtzat emandako hainbat hitz halaxe agertzen dira:

aharanza, *goyea* "conversación" (4 eta 5/5), *ainhara* "golondrina" (3/3), *amarruqui* "astutamente" (2/2), *amarrutsua* "astuto" (2/2), *aquitu* "faltar" (3/3), *atzienda* "bestia" (3/3), *berastemia* "vergonzoso" (4/4), *berezcatu* "distinguir" (3/3), *burreba* "verdugo" (3/3), *chilíncha* "campanilla" (4/4), *chireilqueria* "bagatela" (3/3), *chirritua* "exacto" (4/4), *chirrituqui* "exactamente" (4/4), *chochoa* "dardo" (3/3), *ecarguiña* "generoso" (2/2), *ehoitu* "digerir" (4/4), *erranza* "dicción" (3/3), *floca* "ramillete" (3/3), *froganza* "experiencia" (2/2), *manuguiña*, *etorcorra* "humilde" (2 eta 3/3), *harauna* "balanza" (2/2), *heiña* "estado" (2/2), *higuingarria* "desagradable" (3/3), *higuingarriqui* "desagradablemente" (3/3), *hildura* "adormecimiento" (4/4), *ibilcatu* "exercer" (3/3), *ichulingurua* "circunferencia" (3/3), *iraupena* "perseverancia" (4/4), *irritsa* "ambición" (5/5), *jambidea* "apetencia" (6/6), *jauscunza* "descendimiento" (3/3), *jeitu* "arribar" (3/3), *jocotria* "astucia" (4/4), *laidoa* "deshonor" (4/4), *laidoztatu* "deshonorar" (4/4), *lentasuna* "antigüedad" (5/5), *lucurarigoa* "avaricia" (6/6), *lucuraria* "avariento" (5/5), *naicaria* "agradable" (4/4), *ochocoa* "cuna" (4/4), *ornimendua* "guarnición" (3/3), *panyerua* "caldera" (5/5), *quarastasuna* "amargor" (8/8), *quaratsa* "amargo" (6/6), *sañiacorra* "inconstante" (3/3), *sañiacundea* "inconstancia" (2/2), *soinquidea* "compañero" (4/4), *trencatu* "decidir" (5/5), *zorrotzica* "compensación" (3/3), *zorrotzicatu* "compensar" (2/2), *zurguina* "carpintero" (3/3), *zurlana* "carpintería" (3/3).

Era berean uler ditzakegu bidalketa deietan edo bestela zentzurik ez luketen sarreretan agertzen direnak:

Avaro, lo mismo que avariento, *jaramaná*.
Injusto, los mismos [i.e. "injusticia, injusto" sarrerepean emandakoak], y también *baiaduna*.

Halaz ere, ezaugarri hau ezin erabil daiteke hitz bat Harrieten den edo ez erabakitzeko argudio nagusizat, agian lagungarri bada ere, zeren eta ezein zalantzarik gabe bertatik hartuak diren eta, halaz ere, gainerako ordainen artean agertzen diren hainbat ere bai baititugu:

ancea "genio" (2/4), *arbaso* "bisabuela" (2/5), *arbaso* "bisabuelo" (2/3), *arrau*, *aularia* "común" (1 eta 2/5), *arritua* "immobible" (1/2), *autacunza* "elección" (3/5), *autoca* "deseo" (3/6), *bardincatu* "comparar" (3/5), *bardincunza* "comparación" (2/4), *barla* "corral" (2/5), *barraiadura* "demolición" (2/5), *barraiatu* "demoler" (2/5), *bermatu* "esforzar" (4/5), *burcoitasuna* "capricho" (3/4), *burcoitsua* "caprichoso" (2/4), *burtina* "cortina" (2/3), *deitatu* "famoso" (3/6), *dorpetasuna* "austeridad" (3/6), *eguinca* "fácil" (2/3), *encorgatua* "constipado" (1/2), *endeglatu* "comprehender" (1/3), *fechoa*, *ordongua* "bravo" (2 eta 3/4), *furfuiatsua* "arrogante" (3/5), *gaizquindu* "corromper" (3/4), *gaizcunza* "corrompimiento" (1/4), *golostu* "desear" (2/3), *haraincina* "antiguamente" (4/6), *higuindu*, *hastandu* "disgustar" (1 eta 2/5), *icartu* "examinar" (4/5), *higuidura* "gesto" (2/4), *inguiña* "ingenioso" (1/3), *jatequeta* "banquete" (1/4), *orqueña*

“forma” (1/2), *queritzatu* “dissimular” (1/3), *trebesia* “dificultad” (1/4), *urrana, estura* “extremidad” (1 eta 2/3), *urtorez* “anualmente” (1/2).

Hau ikusita, eskuzko originalean zein inprentako probetan lerro gaineko eransketak egin zituela ondorioztatu behar dugu, batzuetan lekukotasunen erabilera-ordena kronologikoa irabiatu. Honen alde dator zenbait familiatan Harrieten hitzen lekua aldakorra izatea:

haindurra, dorpea “austero” (3 eta 4/4) baina *dorpetasuna* “austeridad” (3/6).
biozgorra “cruel” (3/3), *biozgortasuna* “crueldad” (3/3) baina *biozgorqui* “cruelísimamente” (2/3).
ihicia “caza” (2/2), *ihiztaria* “cazador” (2/2) baina *ihiztatu* “cazar” (2/4).
leia, leiaz “(a) priesa” (5 eta 6/7), *leiatzea* “(dar) priesa” (2/2).

Baliteke oro har eskura zuen hutsunerik aproposenaz baliatzea, besterik gabe. Haatik, adibide batzuetan Larramendik ordainen arteko ordena bilatzen zuela argi eta garbi antzematen da, lehenik bakunak eta ondoren perifrastikoak, besteak beste, ezarriz. Hona honexegatik tartekatut diren Harrietengandiko zenbait hitz (letra larriz markatuko ditut), haien artean *ihiztatu*-ren azalpena aurkitzen dugularik:

Antiguamente, *anciña, anchina, aunciña, HARAINCINA, lengó, lenagoco eran*.
Apostar, *apostatú, paramentatu, ISPICHOÑATU, paramena, tema, ispichoña eguin*.
Cazar, *eizatu, IHIZTATU, eizean ibilli, eizean atzitu*.
Comprehender, con el entendimiento, *ENDEGLATÚ, adimentuaz, ezagueraz isquidatu, ersquidatu*.

Badirudi bigarren eragile bat, kideko beste formaren bat jasota izatea dela:

Capricho, *hisia, burutacinoa, BURCOITASUNA, burjaira*.
Caprichoso, *hisitia, BURCOITSUA, burutia, burujairra*.
Corromper, *galquidatu, gaizquidatu, GAIZQUINDU, goastatu*.
Genio, manua, ancia, ANCEA, etorquia.
Elección, *auta, autesa, AUTACUNZA, auquera, iracurtza*.

Eta hirugarrena, baliteke mailegua bukaeran uzteko gogoa izatea:

Cortina, *errecela, BURTINA, cortina*.
Desear, *opatu, GOLOSTU, deseatu*.
Deseo, *opa, golosquia, AUTOCA, GUTICIA, deseoa, desira*.
Examinar, *billersi, billersitu, billaquinu, ICARTU, examinatu*.

Ohartu, bestalde, ondoko sarreretan nola Harrietengandiko hitzek lehen zeuden erro-atzizkien aldizkatzeak etendu dituzten:

Austeridad, *laztasuna, lazquera, DORPETASUNA, HAINDURTza, garratzasuna, garrazquera*.
Comparar, *becaldu, becaldetu, BARDINCATU, anzundu, anzundet*.

Harrigarriago da, inondik ere, sarreraren batek Harrietek eta haren ondorenak bakarrik osatuta dirudielako ikustea:¹²⁸⁴

domar, *ecitu, cebatu* < dompter, *heztea, cebatcea*.
enajenar, *besterendu, bercerendu* < aliener, *bercerencea*.
enfermizo, *ericorra, gaisocorra, ericoya, &. erbala* < maladif, *ericorra, erbala*.
expresión, explicación, *esanza, erranza* < expression, *errança*.

Batzuetan baliteke ordainak iturri ezberdinetatik erdietsia: azalpen hau eman izan dut *besterendu*-rako (< Lcc?), adibidez. Halaz ere, *expresión*-en behintzat, *DAut*-ek ez dakarren —eta, beraz, Harrietek eragin duen— adiera batez ari gara. Honek bide ematen digu alde zibileren zalantzazkoagoa izan zitekeen esapide bat ere Harrietengandikoa dela suposatzeko,

¹²⁸⁴ Hegoaldeko itxura daukaten aldaerentarako, ziurrenik analogiaz sortuak, ik. behegaro (§ 10.3.2.5).

haren zantzu zenbait (grafian eta, batez ere, itzulpenean) izateaz gain, *DAut*-ek ez dakarren sarrera osatzen duelako:

autant, *bercehaiñberce* > otro tanto, *berce aimberce*, *beste aimbeste*.

10.3.1.11. Noraino iritsi zen

Erans-aren azterketak Harrieten bi hiztegietatik Larramendik han batez ere 377. orrialdetik aurrerakoa baliatu zuela erakutsi digu (II, § 1.4.3). Honek esan nahi du, zehazkiago, frantses-euskara hiztegiako I/J letratik aurrerakoa izan zela *Erans* osatzeko hustu zuen zatia. Ondorioz, pentsatzekoa da *HH*-an I/J aurrekoa izango dugula nagusi, baina bi zalantza, gutxienez, geratzen zaizkit: alegia, euskara-frantsesaren arrastorik egongo denentz eta J ondoko ezer hartu zuenentz.

Egin dugun azterketa *Erans*-ena bezain zorrotza ez izan arren, erdietsitako datuekin joka dezakegu gutxi gorabehera nondik ibili zen jakiteko. Honako hauek dira Harrietengandik hartutakotzat eman ditugun hitzen agerlekuak:

326 (2), 327 (6), 328 (4), 329 (3), 330 (4), 331 (7), 332 (2), 333 (5), 334 (1), 335 (2), 336 (4), 337 (3), 338 (3), 339 (4), 340 (2), 341 (9), 342 (5), 343 (5), 344 (5), 345 (2), 346 (2), 347 (5), 348 (4), 349 (5), 350 (4), 351 (3), 352 (3), 353 (4), 354 (1), 355 (3), 356 (3), 357 (4), 358 (4), 359 (4), 360 (0), 361 (5), 362 (1), 363 (1), 364 (1), 365 (2), 366 (3), 367 (3), 368 (5), 369 (1), 370 (1), 371 (3), 372 (0), 373 (3), 374 (7), 375 (2), 378 (1), 381 (1), 382 (1), 401 (1), 404 (1), 418 (1), 421 (1), 433 (1).

Honen arabera, eta azterketa zehatzago baten zain, *Erans*-ak iradokitakoa betetzen dela dakusgu, oraindik I/J letran (372-377. or.) hitz hartuak ugari diren bitartean, handik aurrera erabilera erabat jaisten —ia-ia desagertzen— baita. Honek esan nahi du, beraz, *HH*-aren bigarren liburukian lanean hasi zela, hasi ere, baina berehalakoan bertako lana eten zuela *Erans*-ean jarraitzeko. Ez dut aurkitu, bestalde, bere azalpenerako euskara-frantsesa hiztegiaren beharra duen hitzik batere.

Zati honetako hitzen erabileraz den bezainbatean, azpimarratu behar da hiztegi osoa osatzeko asmoz aritu zela une hartan, *leia*, *leia* “(a) priesa”, *leiatzea* “(dar) priesa”, *barnatu* “profundar”, *floca* “ramillete”, *forcheta* “tenedor”, *cualdia* “tiro”, *burreba* “verdugo” eta *berastemia* “vergonzoso”-k aditzera ematen duten bezala. Alabaina, ziurrenik ezinbestean baino ez zuen egin, eta honek azal dezake nolatan fr. *ecorché* arrunt xamarra gazt. *escorchado* berba berezituarekin ordezkatu zuen;¹²⁸⁵ halaber, **mintzaioa* s.v. *habla* eta ez s.v. *lengua* (Harriet “langue”)¹²⁸⁶ sartzeko arrazoa izan liteke.

Gauzak honela, berpentsatu beharko genuke zati horretatik aurrera agertzen diren hitzen kontua. Arrazoi ezberdinengatik haratago jotzea ez da inondik inora ere ezinezkoa: adibidez, *gaitzbidea* “escándalo”-k gazt. es- fr. s- hasieran bilatu beharraz ohartu zela adieraz dezake eta, nolana ere, **mintzaioa*-k —Harrietek errazki azaldua— L letraraino sarraldiren bat bederen egin zuela erakusten digu. Halaz ere, esan gabe doa zenbat eta I/J letratik urrunago izan, hanbat eta eragozpen gehiago dugula oro har, delako hitz bat Harrietengandik hartu zuela baieztatzeko. Ez

¹²⁸⁵ Cf. *DAut*: “Term. del Blasón. Se dice del lobo, del color de gules, que es el que dan a estos animales, quando se representa como si estuviera desollado”.

¹²⁸⁶ Cf. *HH* “Lengua, idioma, *hizcuntza*, *mintzoa*” sarrera.

dezagun ahaztu Iparraldeko hitz askotarako Etxeberri Sarakoaren hiztegiari lehentasuna aitortu behar diogula. Honegatik, garrantzitsua da ahal den heinean berme berririk aurkitzea; hona eskain ditzakedanak:

ABORO "más" < *haboro* "plus": *OEH*-ak 1745 baino lehenago (*h*)*oboro* Etxepare, Oihenart eta Zalgizengan, eta *haboro* Tartas eta Belapeirerengan jasotzen ditu (Harriet peitu du); beraz, ziurrenik ekialdekoegia da Etxeberriren hiztegiaren agertzeko.

AMAIZUN "madrasta" < "marâtre": Lekukotasunen arabera, batez ere ekialdeko hitza da: *amaizun* (Oihenart, Zalgiz, Egiategi, Arxu, Xalbador), BN-ciz "padrastra de dedos", *amaxun* S, R, *amizun* BN-arb (*OEH*, s.v.). Harriet aukera hobea da, beraz, Etxeberri baino.

BURTINA "cortina" < "rideaux": Gasteluzar eta Urtek *erridau* jasotzen dute (*OEH*, s.v.), Lapurdiko kostaldean bederen besterik zebilela erakutsiaz.

10.3.2. Harrieten hitzen patua

10.3.2.1. Grafia¹²⁸⁷

Balio frogatzaile gutxiko kontuak izaten dira:

- <h>aren desagerpena; kenduak gordeak baino askoz gehiago izan dira:

haboro "plus" > *aboro* "más", *haraguicoia* "charnel" > *araguicoia* "carnal", *hautoca* "désir" > *autoca* "deseo", *harrítua* "immobile" > *arritua* "immobible", *bihotzgorqui* "cruellement" > *biozgorqui* "cruellissimamente", *bihotzgorra* "cruel" > *biozgorra* "cruel", *bihotzgartassuna* "cruauté" > *biozgartasuna* "crueldad", *chirehilqueriac* "bagatelles" > *chireilqueria* "bagatela", *gorpuzhilla* "cadavre" > *gorputzilla* "cadáver", *lehentasuna* "antiquité" > *lentasuna* "antigüedad", *maiñhua* "bain" > *maiñua* "baño, acto de lavarse", *hornimendua* "garnison" > *ornimendua* "guarnición", *horçac hirriquatcea* "grincer les dents" > *ortzac irricatu, irricatzea* "(apretar los) dientes", *hotzguna* "fraicheur" > *ozguna* "frescura", *hurrana, hestura* "extrémité" > *urrana, estura* "extremidad, extremo".

- Hasperendun grafien kenketa; oker ez banago, ziren guztiak ezabatu ditu:

akhitcea "faillir" > *aquitu* "faltar", *deithatua* "fameux" > *deitatu* "famoso", *ekharguiña* "genereux" > *ecarguiña* "generoso", *ethorcorra* "humble" > *etorcorra* "humilde", *ikharcea* "examiner" > *icartu* "examinar", *quejatu* "inquiéter" < *khechatcea* "inquieter", *lukhurarria* "avare", *lukhararigoa* [sic] "avarice" > *lucuraria* "avariento", *lucurarigoa* "avaricia", *makhaldua* "estropié" > *macaldua* "estropeado", *orkheia* "forme" > *orqueia* "forma", *urthorez* "annuellement" > *urtorez* "annualmente".

- <x> eta <tx> ongi letraldatzea; *Erans*-ean jadanik ikusi dugu arlo hau menperatzen zuela:

amarruxua "fin, rusé" > *amarrutsua* "astuto", *burcoixua* "capricieux" > *burcoitsua* "caprichoso", *furfuiatxua* "arrogant" > *furfuiatsua* "arrogante", *irritxa* "ambition" > *irritsa* "ambición", *jautxqunça* "décente" > *jauscunza* "descendimiento", *hostoxua* "feuilleux" > *ostotsua* "hojoso", *quaratxa* "amer" > *quaratsa* "amargo", *quaraxtasuna* "amertume" > *quarastasuna* "amargor, amargura".

- Kontsonante aurreko txistukari afrikatuak frikari bihurtzea:

bihotzgorqui "cruellement" > *biozgorqui* "cruellissimamente", *bihotzgorra* "cruel" > *biozgorra* "cruel", *bihotzgartassuna* "cruauté" > *biozgartasuna* "crueldad", *gaitzquincea* "corrompre" > *gaizquindu* "corromper", *gaitzqunça* "corruption" > *gaizcunza* "corrompimiento", *goloxtea* "désirer" > *golostu* "desear" (cf. *goloxa* "gourmand", "sensuel"), *hotzguna* "fraicheur" > *ozguna* "frescura".

- Txistukari afrikatua adierazten duen grafema bokalarteko testuinguruan berrezartzea:

emaïçac "etraïnes" > *emaitzac* "estrena, estrenas", *gorpuzhilla* "cadavre" > *gorputzilla* "cadáver".

- Ozen ondoko frikaria afrikatu bihurtzea:

¹²⁸⁷ Ez ditut kontuan hartu beti-beti aldatzen dituen grafemak (<ç> eta <tç>), ez eta tartean behin eransten dituen azentuak ere.

beharsua "indigent" > *behartsua* "indigente", *higuinça* "dégout" > *higuintza* "disgusto", *horçac hirriquatcea* "grincer les dents" > *ortzac irricatu, irricatzea* "(apretar los) dientes".

- Herskari aurreko <z> <s> bihurtzea:

buluztea "dépouiller" > *bulustu* "despojar".

- <itz> <ich>z aldatzea:

itçulingurua "circonference" > *ichulingurua* "circunferencia".

- Bustidura gabeko forma berreraikitzea:

chuchenguiña "directeur" > *zucenguiña* "director".

- Hitz hasierako <i> <j> bihurtzea:

ïaramana "avaricieux" > *jaramaná* "avaro, lo mismo que avariento", *iatequeta* "banquet" > *jatequeta* "banquete", *ïeitea* "arriver" > *jeitu* "arribar, llegar", *iocotria* "finesse" > *jocotria* "astucia".

- Bokal arteko <i> <y> bihurketa:

goïea "conversation" > *goyea* "conversación".

- <qu> <c> bihurketa; gorago ikusi dugu pare bat hitzetan itzuri zitzaiola:

hautaqunça "election" > *autacunza* "elección", *bardinquatcea* "comparer" > *bardincatu* "comparar", *bardinqunça* "comparaison" > *bardincunza* "comparación", *qalauqua* "tranquet de moulin" > *calaca* "cítola de molino", *gaitzqunça* "corruption" > *gaizcunza* "corrompimiento", *horçac hirriquatcea* "grincer les dents" > *ortzac irricatu, irricatzea* "(apretar los) dientes", *jautxqunça* "décente" > *jauscunza* "descendimiento", *trenquatcea* "décider" > *trencatu* "decidir".

- <ñ> edo ez:

haraiñcina "anciennement" > *haraincina* "antiguamente", *burtiñac* "rideaux" > *burtina* "cortina", *eguñcara* "facile" > *eguincara* "fácil".

- <nb> <mb> bihurtzea:

janbidea "appetit" > *jambidea* "apetencia".

10.3.2.2. Zuzenketak-edo

Gertatutako aldaketen artean badira ziurrenik Larramendiren zuzenketatzat jo behar ditugun zenbait; beste kontu bat da denak (zer da *aularie*?) zuzenak diren ala ez:

aularie "commun" > *aularia* "común": *OEH*-ak *aulari* forma hautatu du bururako, eta Harrieten erratatatzat jo, behingoz Larramendirekin (eta ondoko tradizio laburrarekin) bat eginez; zuzenketa ez zait hain argia iruditzen, Harriet lekukotasun bakarra eta *aularie* mugagabearen doan *arrau*-ren eta *nahasteca* anbiguoaren artean agertzen dela kontuan izanik.

burepea "autorité" > *burupea* "autoridad". Cf. *burupe* *EZ Man* II, 13, Ax 10, Hm 48, ES 158, Ch III, 34, 2, etab. (ap. *OEH*, s.v. 1 *burupe*; honek ere Harrieten erratatatzat jotzen du, noski).

eguiñqundea "effet" > *eguicundea* "efecto": oharkabearen egindakoa izan liteke, noski, baina ez dezagun ahaztu Larramendik *-n-z* amaitzen diren aditzetan kontsonantez hasten diren atzizkien aurrean bera galtzeko joera ere izan zuela (§ 2.2.5.3).

lukhararigoa "avarice" > *lucurarigoa* "avaricia". Cf. *lukhuraria* "avare".

10.3.2.3. Aldaera aldaketak

Azkenik, badira "hegoalderatsetzat" har ditzakegun zenbait aldaketa, Harrieten oinarriaren ordeztu Larramendirentzat ezagunago zen aldaera erabiliz erdietsitakoak:

iduricatcea "imiter" > *irudicatu* "imitar".¹²⁸⁸
quejatu "inquietar" < *khechatcea* "inquieter" eta, honekin batera, agian, *quejoa* "inquietud" < *khechua* "inquiet".

10.3.2.4. Morfologia

Balio frogatzailerik gabeko gertakariak:

- Plurala singular bihurtu, eta alderantziz:

chirehilqueric "bagatelles" > *chireilqueria* "bagatela", *higuidurac* "gestes" > *higuidura* "gesto", *suberria* "feu de joye" > *suberriac* "fuegos por fiestas", *trebesiac* "difficultés" > *trebesia* "dificultad".

- Mugagabea mugatu:

chirritu "exact" > *chirritua* "exacto".

- Aditzizenetik partizipioa ondo berreraikitzea (adibide batzuk baino ez):

akhitcea "faillir" > *aquitu* "faltar", *antolatcea* "composer" > *antolatu* "componer", *hastancea* "dégouter" > *hastandu* "disgustar", *bardinquatcea* "comparer" > *bardincatu* "comparar", *bercerencea* "aliener" > *bercerendu* "enajenar", *berezcatcea* "distinguer" > *berezcatu* "distinguir", *endeglatcea* "comprendre" > *endeglatu* "comprehender", *gaitzquincea* "corrompre" > *gaizquindu* "corromper", *goloxtea* "désirer" > *golostú* "desear", *gordetcea*, *cuculcea* "disparôître" > *cuculdú*, *gorde* "desaparecer", *ibilcatcea* "exercer" > *ibilcatu* "exercer", *higuincea* "dégouter" > *higuindu* "disgustar", *ikharcea* "examiner" > *icartu* "examinar", *laidoztatcea* "deshonorer" > *laidoztatu* "deshonorar, deshonrar", *urcoroillatcea* "entraîner" > *urcoroillatu* "estrenar".

Halaz ere, zalantzaren bat geratzen da:

buluztea "dépouiller" > *bulustu* "despojar": Harrieten hiztegietan partizipioa *buluzi* (OEH-ak baieztatu bezala, s.v. *buluzi*) ala *buluztu* (Larramendik ulertu bezala) den jakiteko modurik ez dago. Halaz ere, 1745 arteko adibide argi guztiak (eta ez dira gutxi) *buluzi*-renak direnez gero, badirudi Larramendi okertu zela pentsatzea arrazoizkoena dela.

- Atzizkia *HH*-ko usadioari "egokitzea":

erbalquiro "débilmement" < *herbalqui* "foiblement", *premiatzquiro* "nécessairement" < *premiatzqui* "nécessairement".

10.3.2.5. Hitz berriak egiten

Dakigunez, Larramendik inon topatzen dituen hitzez eurei dagokien sarrera ez eze familiakideenak ere osatzeko joera handia dauka, bai *Erans*-ean, baita *HH*-an bertan ere. Frogatutzat utzi ditugun hitzen ondorenak honako hauek dira:

a) Eratorriak:

**ahale* "ánade" > *ahalechoa* "anadón". *adintsua* "anciano" > *adintsutu* "(hazerse) anciano". *aindurra* "austero" > *haindurtza* "austeridad". *amarruqui* "astutamente", *amarrutsua* "astuto" > *amarruztatu* "(hazerse) astuto". *antolatu* "componer" > *antolaria* "componedor". *aularia* "común" > *aulariro* <alau->

¹²⁸⁸ Gogora dezagun, dena dela, Larramendik *irudi* forma zaharrena zelakoan zegoela (1745: II, 144, jadanik I, § 3.3.3.3n aipatua).

“comúnmente”. *autoca “deseo” > autocatsua “deseoso”. arrau “común” > arrauquiro “comúnmente”. bardincatu “comparar” > bardincarria “comparable”. bermatu “esforzar” > bermanza “esfuerzo”. bercerendu “enajenar” > bercerengarria¹²⁸⁹ “enajenable”, bercerentzea “enajenación”. dastatu “gustar” > dastaira “gustadura”, dastairachoa “gustillo”. ecarguiña “generoso” > ecarguinza “generosidad”. endeglatu “comprehender” > endeglagarria “comprehensible”, endeglera “comprehensión”, endeglazalea “comprehensor”. *ehoitu “digerir” > ehoitza “digestión”, ehoicarria “digestivo”. encorgatua “constipado” > encorganza “constipación”. *eseitu “indicar” > eseicuntza “indicación”, eseicaria “indicante”. gaitzbidea “escándalo” > gaizbidaria, gaizbidetia “escandalizador”, gaitzbidatu “escandalizar”, gaitzbidetiro “escandalosamente”, gaitzbidetia “escandaloso”.¹²⁹⁰ golostu “desear” > golosgarria “deseable”, goloscaria “deseador”, golosquia “deseo”, golosquitsua “deseoso”. ibilcatu “exercer” > ibilcaira “ejercicio”. higuingarria “horrible” > higuingarrero “horriblemente”. icartu “examinar” > icartza “examen”, icartzalea “examinador”.¹²⁹¹ irritsa “ambición” > irritsaria “ambicioso”. irudicatu “imitar” > irudicagarria “imitable”, irudicantza “imitación”, irudicaria “imitador”. quejatu “inquietar” > quejalea “inquietador”, quejaquiro “inquietamente”. narraiotasuna “incomodidad”, narraiotu “incomodar” > narraioquiro “incómodamente”. oldea “fantasía” > oldequia “fantasma de la imaginación”. quaratsa “amargo” > quarastu “amargarse”. queritzatu “dissimular” > queritzatia “dissimulado”. superra “fiero” > superquiro¹²⁹² “fieramente”. zurguina “carpintero” > zurguintegua “(oficina de) carpinteros”. zurlana “carpintería” > zurlantzea “carpintear”.

b) Atzeranzko eratorriak (cf. § 5.4):

- Iturriko eratorrietatik ateratako oinarriak:

amarruqui “astutamente”, amarrutsua “astuto” > amarrua “astucia”. oiez bezalacoa “extraordinario” > oiez bezala “extraordinariamente”.¹²⁹³ siñesberatasuna “credulidad” > siñesberaá “crédulo”.

- Benetako atzeranzko eratorpena:

berezcatu “distinguir” > berezca “distinción”.

- -kide ‘iz. [+gizakia]’ > -kida ‘izen abstraktua’ (§ 4.1.6):

soinquidea “compañero” > soinquida “compañía”.

c) Katetoria aldaketak (cf. § 5.2):

aboro “más” > aboro “(de) más a más”. buluztea “dépouiller” > bulustu “despojar” eta bulustea “despojo”. eguincara “fácil” > eguincara “facilidad”.

- Partizipio mugatua (erdaraz part.) > part. mugagabea (erdaraz infinitiboa):

encorgatua “constipado” > encorgatu “constipar”. macaldua “estropeado” > macaldu “estropear”.

d) Deklinabideaz edo joskeraz:

ecarguiña “generoso” > ecarguiñez “generosamente”. eguicundea “efecto” > eguicundez “efectivamente”. gorputzilla “cadáver” > gorputzilla dirudiena “cadavérico”. jatequeta “banquete” > jatequetan ibilli “banquetear”. miserac “antojos” > misera urrutiracoa “antojo de larga vista”. trebesia “dificultad” > trebesiac ifiñi “dificultar”. urcinza “estornudo” > urcinzaz dago “está estornudando”. cillar bicia “azogue” > cillar biciz, azoguez estali “azogar”, cillar biciaz estalia “azogado”.

e) Kalkoak (“Hegoalderatze” zuzenatarako, ik. goraxeago, § 10.3.2.3):

¹²⁸⁹ Jat. barcerengarria.

¹²⁹⁰ Ordea, ez ditu Harrietenak (gaitzbidecorra “scandaleux” eta gaitzbidecatcea “scandaliser”) jasotzen.

¹²⁹¹ Larramendik Iparraldeko hitz edo aldaerei Iparraldeko atzizki formak eransteo ohitura izan zuela frogatzeko aurkitu dudana adibiderik argienetako bat: -tzale-z ik. §§ 2.1.3 eta 9.2.7.2.

¹²⁹² Jat. superquiro.

¹²⁹³ Harrieten ohiezbeçalaqui alde batera utzi du.

erranča "expression" > *esanza*, *erranza* "expresión".
ohiezbeçalacoa "extraordinaire" > *oiez bezalacoa*, *oiezlacoa* "extraordinario".

10.3.2.6. Familiakideak

Honelakoak argudiotzat erabiliko ditut, Larramendik tartekatu zituen Harrieten hitzak azken orduan erantsi zituela ohartarazteko; ondoko adibideetan, urrutiko familiakideak oinarritzko sarreraren osagai guztiak dakartza —ordain bakun/perifrastiko ohiko segidari amore emateaz beste aldaketarik gabe— Harrieten (edo Harrietenetik eratorria) salbu:¹²⁹⁴

Capricho, *hisia*, *burutacinoa*, *BURCOITASUNA*, *burujaira*.
Encapricharse, *hisitu*, *burujairatu*, *burutaciñoa artu*.

Comparable, *becalgarria*, *BARDINCARRIA*, *anzundegarria*.
Incomparable, *becaleciña*, *becalezgarria*, *anzundezgarria*.

Distinción, *banaita*, *BEREZCA*.
Indistinción, *banaiteza*.

Honek esan nahi du *encapricharse*, *incomparable* eta *indistinción* sarrerak inolako zalantzarik gabe *capricho*, *comparable* eta *distinción* jadanik eginik baina Harrietenik gabe zeudela osatu zituela.

Are garrantzitsuago, berbera gertatzen da hurbilago dauden zenbait familiakiderekin, hau da, Harrietek eskainitako ordainak dira, gainerakoen artean betetzen duten lekua gorabehera, falta diren bakarrak,¹²⁹⁵ aldizka familiako sarreraren batean izan ezik (cf. *haindurtza* "austeridad", *queritzatia* "dissimulado", *eguincara* "facilidad" eta *higuingarriqui* "horriblemente"):

Apostar, *apostatu*, *paramenatu*, *ISPICHOÑATU*, *paramena*, *tema*, *ISPICHOÑA equin*.
Apuesta, *tema*, *paramena*.

Arrogancia (...) *arrogancia*, *arrotasuna*, *facu*, *antustea*.
Arrogante, *arrota*, *arrutia*, *FURFUIATSUA*, *facatia*, *antusteduna*.
Arrogantemente, *arrotilo*, *arrutiro*, *facatiro*, *antustequiro*.

Austeramente, *lazqui*, *lazquiro*, *garrazqui*, *garrazquiro*.
Austeridad, *laztasuna*, *lazquera*, *DORPETASUNA*, *haindurtza*, *garraztasuna*, *garrazquera*.
Austero, *latza*, *garratza*, *HAINDURRA*, *DORPEA*.

Autoridad, *jabetasuna*, *menandea*, *mendera*, *menea*, *BURUPEA*, *NAUSITASUNA*.
Autorizadamente, *jabetasunez*, *menandez*, *menderaz*, *meneaz*.
Autorizar, aprobar y engrandecer, *menandetu*, *menderatu*.
Hombre autorizado, respetable, *menandezcoa*, *menderazcoa*, *jabetasun andicoa*.

Bestia, *aberea*, *abrea*, *ATZIENDA*.
Bestial, *aberearena*, *abrearra*.
Bestial hombre, *guizon aberetia*, *abrearra*, *aberequisacoa*.
etab.

Compensable, *ordaingarria*.
Compensación, *ordaiña*, *ordaindea*, *ZORROTZICA*.
Compensar, *ordaindu*, *ZORROTZICATU*.

Conversación, *solasa*, *jolasa*, *hizqueta*, *AHARANZA*, *GOYEA*.
Conversar, *solasean*, *jolasean*, *hizquetan egon*.

¹²⁹⁴ Kasu batean, ez dakit zergatik, Harrieten ez agertzeaz gain, jatorrizkoa desitxuratuta agertzen da: "Comprehensible, *endeglagarria*, *isquidagarria*, *isquidaquizuna*" > "Incomprehensibilidad, *incomprehensible*, *izquidezgarria*, *izquidezquizuna*, *izquideciña*".

¹²⁹⁵ Salbuespenak "arribar", "aventura", "esforzar", "golondrina", "instante" eta "priesa", non Harrietenaz gain besterik ere familatik kanpo geratzen den.

Corrección, *ocarteztea, utzendea*.
 Correctivo, *ocartezlea, utzendaria*.
 Corrector, *ocartezlea, utzendaria*.
 Corregible, corregibilidad, *ocartezgarria, utzendagarria*.
 Corregir, *ocarteztu, utzendu, CENZATU*.
 Corromper, *galquidatu, gaizquidatu, GAIZQUINDU, goastatu*.
 Corrompedor, *galquidaria, gaizquidatzalea, goatzatzalea*.
 Corrompidamente, corruptamente, *galquidaro, gaizquidaro, goastaqui*.
 Corrompimiento, corrupción, corruptela, *GAIZCUNZA, galquida, gaizquida, goastagoa*.
 Decidir, *debedi, debeditu, erabaqui, erabaquitu, TRENCATU*.
 Decisión, *debedea, erabacdea*.
 Derecho, acción, *zucena, LERDENEA, margoa, derechoa*'.
 No tienes derecho alguno a esto, *eztezu margoric, ez zucenic onetaraco*.
 Derechura, *zucendea, zucentasuna, artea, margodea*.
 En derechura, *zucen, artez, margoz*.
 Desaparecer, *desaguertu, CUCULDU, GORDE*.
 Desaparecimiento, *desaguiria, desaguerria*.
 Descalcez, *oñutseta*.
 Descalzar, *oñustu, oñutsitu, URTUSTU*.
 Descalzo, *oñustua, oñutsitua*.
 etab.
 Dicción, *hitza, esaquia, ERRANZA*.
 Diccionario, *hiztegia, esatoquia*.
 Dissimulación, *dissimulo, desencusa, ezteracia*.
 Dissimuladamente, *desencusaro, ezteraciro*.
 Dissimular, *QUERITZATU, desencusatu, ezteraci*.
 Dissimulado, astuto, *queritzatia, ezterazlea*.
 Dobladamente, *bambestero, biderbiro*.
 Doblar, hazer otro tanto, *bambestetu, biderbitu, HORRATZEA*.
 Doble, otro tanto, *bitan ambat, bambestea, biderbia, biseta*.
 etab.
 Efecto, *ecarraya, EGUICUNDEA, econdea*.
 Efectuar, *ecarraitu, econdetu*.
 Emprender, *MELLATU, equigotu*.
 Empresa, *equigoa*.
 Espesar, *galcairatu, loditu*.
 Espeso, *galcaira, ORDONGOA, lodia*.
 Espesor, *espessura, galcaira, loditasuna*.
 Exactamente, *equinairo, bearguiro, arauqui, CHIRRITUQUI*.
 Exactitud, exacción, *equinaya, bearguiroa, araudea*.
 Exacto, equinaya, *bearguiroa, araudetia, CHIRRITUA*.
 Fácil, *erraza, EGUINCARA, aisa*.
 Facilidad, *erraztura, aitsia, eguincara*.
 Facilimo, facilísimo, *chit erraza, aisa*.
 Facilimamente, facilísimamente, *chitez erraz, chit aisa*.
 Facilitar, *erraztu, aisatu*.
 Famosamente, *famatiro, otsandiro, omentiro*.
 Famoso, *famatia, famatsua, DEITATUA, OSPETSUA, otsandiduna, omenduna*.
 Genial, *anciarra, anciacoa, etorquiarra, etorquicoa*.
 Genialmente, *anciaqui, etorqui*.
 Genio, *manua, ANCEA, ancia, etorquia*.
 Tiénelo de genio, *anciaz du, etorquiz deu, dacar*.
 Gestear, hazer gestos, *queñuca egon, siñuac eguin, eguiramutu*.
 Gestero, *queñularia, queñuguillea, siñuguillea, eguiramutaria*.
 Gesto, gesticulación, *queñua, HIGUIDURA, siñua, eguiramua*.
 Gobernador, *erondaria, anzaztaria, governaria*.
 Gobernar, *erendu, MANAIATU, anzaztu, gobernatu, gubernatu*.
 Gobernado, *erondua*¹²⁹⁶, *anzaztua, gubernatua*.

¹²⁹⁶ Jat. *errondua*.

Gobierno, gobernación, *erondea, anzaera, MANAIAMENDUA, gobernua, gubernua.*

Grande, *andia, aundia, larria, esquerguea, ORDONGOA.*

Grandemente, *andiro, andízquiro, aundiro, larriro, esquerguero.*

Gratis, *doan, doaric, URRURIC.*

Gratuito, *doangoa, doaricacoa.*

Horrible, *lardazquigarria, higuingarria.*

Horriblemente, *higuingarrero, lardazquigarrero.*

Horror, *lardazquia.*

Humildad, *humiltasuna.*

Humilde (...). *Umilla, MANUGUIÑA, ETORCORRA.*

Humildemente, humildemente, *humilqui, humilquiro.*

Humillación, *humillatzea.*

Humilladero, *humillateguia.*

etab.

Inconstancia, *ezezoquida, SAÑIACUNDEA.*

Inconstante, *ezezoquidea, edoquidabaguea, SAÑIACORRA.*

Inconstantemente, *ezezoquidaro, egoquidabaguero, aldacorquiro.*

Ondorioa nabarmena da: Harriekin, Leizarraga edo Axularrekin ez bezala (§ 9.2.8.2) presaka aritu zen Larramendi, haren oinarriari atera zekiekeen etekina atera gabe. Bide batez, argudio indartsu bat erdietsi dugu hitz arruntagoetan Harrieten iturritasuna bermatu edo ukatzeko:

1) *burupe-nausitasuna, deitatu-ospetsua* eta *cuculdu-gorde* bikoteetan, biak iturri beretik atera direla baieztatu dezakegu, biak berdin eta gainerako ordainak ez bezala tratatzen dituelako, hain zuzen.

2) *abrea-atzienda, solasa-aharanza-goyea, zucena-lerdena, lodia-ordongoa* eta *umilla-manuguiña-etorcorra*-n, aldiz, zeharo ezeztatu behar da, familiakoetan lehena bakarrik erabiltzen baitu. Bidenabar, hauetako ia guztietan antzematen da Harrieten hitzak *HH*-an kokatzeko erabili zuen beste irizpide bat: esanahikide arrunta ez dago Harrietengandiko hitzen aldamenean bertatik hartua izateagatik, Larramendik bilduta zeukan esanahikidearen aldamenean Harrieten gainerako hitzak jartzeagatik baizik.

3) Aurrerago joanik, *manua* “genio” bitxia —*ancea*-rekin batera familian ez erabilia— Harrietek sarrera berean dakarren *maña*-ren irakurketa txarra izan liteke.

Gure teoriak, dena dela, ezin du den-dena azaldu; *autoca-guticia* bikoterako, adibidez, ez du balio, Harrietengandiko hitz zurrak ondorenak baititu eta zalantzazkoak, berriz, ez:

Deseo, *opa, golosquia, autoca, guticia, deseoa, desira.*

Deseoso, *golosquitsua, autocatsua, desatia, desiraduna.*

Erka bedi hurrengoarekin, non aldea iturrian dagoen:

Estrena, estrenas, *URCOROILLAC, EMAITZAC, pozdoaya*, véase *aguinaldo* < *étraines, urcoroillac, emaiçac.*

Estrena, estreno, principio, primer uso de algo, *lengusua.*

Estrenar, *lengusatu, URCOROILLATU* < *étrainer, urcoroillatcea.*

10.3.2.7. Esanahikideak

Familiakoetan dituen gorabeherak bat datoz oro har hiztegian Harrieten hitzak daukaten zabalkundearekin, hau da, esanahi bereko edo beretsuko sarreretan agertzeko daukaten posibilitateekin. Ziurtzat eman ditugunetatik berriro agertzen direnak hiru motatakoak dira:

1) Esanahi erabat ezberdinekoak:

bermatu “mermar”, *eiña* “fácilmente”, *leyatu* “helar”, *mellatu* “mellar”, *orratu* “libertar”, “manumitir”, *chochoa* “chocho”.

2) Adiera ezberdinekoak:

antolatu “remendar”; *antze* “maña”, “modo”; *astandu* “arredrar”; *barrayatu* “esparcir”; *burupea* “pretensión”; *burcoitasuna* “tema, porfía”, “terquedad”, “testerada” (cf. *burcoi* “contumaz”, “obstinado”, “temático”, “terco”, “testarudo”); *emaitza* “dádiva”, “don”, etab.; *estura* “apretura”; *gaizquindu* “endemoniar”, “espiritarse”, “hechizar”; *gorde* “guardar”, etab.; *higuindu* “aborrecer”, “desagradar”, *iguindu* “escamonearse, rehusando hazer algo”, “tediar”; *iguingarria* “tedioso”; *iguintza* “tedio”; *hildura* “amortiguamiento”, “austeridad, mortificación”, “mortificación”; *iraupena* “dura, duración”, “estabilidad”; *quejatu* “enojar”, “quejarse”; *larrutua* “desollado”; *leyatu* “altercar, contender”, “cerrarse en hazer o no hazer”, “contender”, “debatir”, etab.; *lucraria* “logrero”, “usuario”, “usurero” (cf. *lucrua* “usura”); *manaiatu* “manejar” (cf. *manaiua* “manejo”); *oldea* “voluntad”; *ornimendua* “surtimiento” (cf. *ornitu* “surtir”); *sarbidea* “portaló, en el navío”; *trencatu* “cortar”; *zentzatu* “assessar”.

3) Esanahikideak:

alporcha “alforja”; *antolatu* “aliñar, componer”; *arritua* “pasmado”, etab.; *barnatu* “internar”, “penetrar”, etab.; *biozgorra* “inclemencia”, “inclemente”; *dastatu* “catar”, “decentar, empezar, probar algo”, “encentar, decentar”, “libar, probar chupando”, “probar, gustando”, etab.; *ezindua* “imposibilitado”; *gaitzbidea* “desedificación, mal exemplo”; *quejatu* “desasosegar”; *quejoa* “desasosiego”; *laidoa* “afrenta”, “baldón”, “desdoro”, “ignominia”, “oprobio”; *laidoztatu* “desdorar”; *leyaca* “(a pendón) herido”; *leyatu* “apresurar”; *maillarrac* “frisoles, frexoles, judías”, “judías”; *onsaqui* “bonicamente”; *ohocoa* “brizo, cuna”, *ohocooan erabilli* “brizar, mecer”; *ostotsua* “frondoso”; *seya* “criado”; *chillincha* “esquila”.

Lehen taldekoek ez dute azalpen beharrik, nahitaez iturri ezberdina eskatzen dute eta; beste horrenbeste gertatzen da bigarrenekoekin, aski esanguratsuki grafiazko zenbait ezberdintasun (*antze* vs *ance*, *astandu* vs *hastandu*, *barrayatu* vs *barraiatu*, *zentzatu* vs *zenzatu*, denak *HH*-ko arauaren aldekoak) aurkezten dituztela erantsirik.

Harrieten hitzak esanahikideetara hedatzeko astirik izan ez zuela batzuetan oso nabarmena denez gero (cf., adibidez, *mallegua* “crédito” baina *mailleba* “empréstito” < *maillebatu* “prestar”), hirugarren taldeko hitzen iturritasuna berpasatu beharko genukeela dirudi. Izan ere, *dastatu* eta *laidoa-laidoztatu* bezalako hitzek, ager zitezkeen sarrera esanahikide guztietan agertzen direnez gero, ez dirudi Harrieten lekukotasunaren behar berezirik dutenik. Halaz ere, familiakideekin gertatu zaigun bezalaxe, hemen ere oso egiantzekoa da hitz batzuek bakarrik —egokiera izan zuelako edota bereziki interesgarriak iruditu zitzaizkiolako— ondorenak izatea *HH*-ko gainerako sarreretan, eta talde honetan sartuko nituzke goian aipatutako gehienak, areago agerraldi berriak ia denak A-I letren arteko zatikoak direla kontuan hartuta. Halaxe sinistarazi behar digute lehen agerraldiek (*alporcha*, *barnatu*, *biozgorra*, *gaitzbidea*, *maillarrac*, *ostotsua*) eta batetortze bereziek (cf. *quejatu* “desasosegar” lat. *inquietare*), zeinen artean hurrengoak azalpen berezia merezi duen:

OHOCOA: Berehala “cuna”-ko agerraldiarekin lotu dudan arren, *brizo* da, izan ere, fr. *berceau*-tik abiatuta iristen den lehenengo sarrera¹²⁹⁷ (cf. gorago *escorchado*-ri buruz esana). Honek esan nahi du *ochocoa* hutsa erabat oharkabekoa (inprentakoa?) izan zela.

Dena dela, azpimarratu behar da batzuk nabarmenki bestelako iturrietatik erraz erdiets zitezkeen bitartean, Harrieti agerraldi jakin bat egozteko daukagun zioa, erdal hitzaren adiera berezia (*arritua* “immobile”) edota iturrian ere familia osatzea (*antolatu-antolamendua*) dela.

10.4. Ondorioak

Etxeberriren hiztegia (§ 10.1), itxura guztien arabera, zuzenean ezagutzerik ez dugunez gero, *HH*-ko hitz zenbaiten iturria ezartzeko SbUrq-ek —haren bermoldaketa bederen izan litekeena— laguntzaren bat egin zezakeelako esperantzan abiatu naiz azterketan. Honetarako, orain artean baino bi hiztegien arteko erkaketa askoz zehatzagoa behar genuen, ez han-hemen idorotako batetortze esanguratsu gutxi batzuetan oinarritutakoa, irizpide jakinekin egindakoa baizik: lehen hurbilketa modura, SbUrq-eko sarrera segida luzexkak (§ 10.1.2), eta gero bi hiztegieta agertzen diren Etxeberriren hitzak (§ 10.1.4.2) eta *HH*-an diren etorki ezezaguneko Iparraldeko hitzak (§ 10.1.4.3) erabili ditut, beraz, xede horrekin. Emaitzak, neurri handi batean, guztiz alderantzizkoak izan dira: SbUrq-ek ez du *HH*-an aurrerapenik egiteko balio, baina *HH*-arekiko erkaketa arlo ona da SbUrq hobeto ezagutzeko.

Izan ere, SbUrq-en egile, bermoldatzaile edo kopiatzaileari buruz, argi geratu da frantsesez (eta euskaraz) hobeki moldatzen zela, gaztelaniaz eta latinez baino (§ 10.1.3.3). Beraz, Iparraldeko euskaldun bat izan liteke, baina ziurrenik nekez Etxeberri bera, latinari dagokionez behinik behin. Bakanka aurkitu ditugun frantsesezko eta euskarazko hutsek, berriz, kopia lana egin duela iradokitzen dute.

Bestalde, eskuizkribuaren grafia oso aldakorra da (§ 10.1.3.2) eta Etxeberriren eskutik itxaron genezakeenez bestelakoa hainbat ezaugarritan: modernoagoa batzuetan, Hegoaldekoa besteetan, eta ez gutxitan *HH*-koa, besterik gabe.

HH-arekiko erkaketa ezberdinek, azkenik, hau SbUrq-en iturri nagusietako bat izan zela erakutsi digute. Iparraldeko iturri garrantzitsu batez ere mintzatu behar da, ezpairik gabe, *HH*-ak ez dakartzan hainbat hitz etorki horretakoak direnez gero; dena dela, badirudi hirugarren iturri bat izan zela, agian bermoldatzailearen ekarpena: bokal bikoitzak tarteko hasperenketarik gabe gordetzen dituena, alegia (§ 10.1.4.1).

HH-ari dagokionez, eraketetan ez dut ediren bi hiztegiek iturri komun bat izan dutela frogatzeko deus argirik, lehen ziurtzat genituen zenbaiten (*alosis* ospetsua, esaterako) aurkako argudio sendoak bildu ditudan bitartean: oro har, nolabaiteko egiantzaz Etxeberriren hiztegiakotzat jo daitezkeen *HH*-ko hitzak, edo ez dira SbUrq-en aurkitzen, edo nabarmenki lehenago Larramendiren eskuetatik igaroak dira, guztiz Sarakoaren idatzietan era batera eta

¹²⁹⁷ Gazt. *brizo* zalantzazko etorkikoa da, ziurrenik zeltikoa, eta gall. *berce*, *berzo*, kat. eta okz. *bres*, *bressol*, fr. zah. *berz* eta fr. *berceau*-rekin, besteak beste, lotuta dago (*DCECH*, s.v.).

hiztegi bietan bestera agertzen direnak. Ene usteko, alferrikakoak izango dira alde honetatik egin daitezkeen miaketa guztiak.

Esan gabe doa auzi honetan Etxeberriren idazlanek baduketela oraindik zeresan handia. Honegatik, ez naiz ausartuko SbUrq eta Etxeberriren hiztegiaren artean lotura zuzenik ez dagoela esatera; azken finean, azalgabe geratzen zaizkit bietan (baina ez *HH*-an) lekukotzen diren hitz berezi haiek (§ 10.1.1) eta Mitxelenak argudiatu *-kuia* atzizkiaren maiztasuna (§ 10.1.4.2), gutxienez. *HH*-arekiko erkaketaren arabera esan dezakedana hauxe da: azpian Etxeberriren hiztegia baldin bada, berregileak aldaketa asko eta handiak egin ditu, *HH* zapalgailu baten modura gaineratik igaro eta jatorrizko hitzak, haien itxura grafikoa eta, agian, esanahia ere alderen alde aldatuaz, besteak beste.

Landucciren hiztegiari dagokionez (§ 10.2), deigarria da eskuizkribuaren kopia Madrilen egin edo eragiteko lanak hartuta, *HH*-aren hitzaurrean aipatu baina *Erans*-ean bakarrik erabiltzea. Honetan oinarritu naiz, italiarraren hiztegiaren aurkako aurreiritziak ez eze, baita *Erans*-ean (II, § 1.4.1) haren erabilerari buruz ateratako ondorioak alde batera utzirik, *HH*-an bere arrastoen bila abiatzeko.

Landuccik ordezkatzeko duen euskaratik oso gertuko hizkerak Larramendik ongi ezagutu ahal izan zituela jakintzat emanez, hizkuntz argudio hutsek (hitzen euskalki hedadura, adib.) argi gutxi egin zezaketelakoan, batez ere filologi irizpideak baliatu ditut: *-ea* > *-a* berreraiketa okerrak, *a + a* > *-ea* bukaeraren maiztasuna, izen gisa erabilitako *-te* aditzizenak, gaztelaniaz bi hiztegiek (vs *DAut*) dituzten batetortzeak, *HH*-ko irakurketa zalantzazko zenbaiten iturria Landucci izan litekeelako posibilitatea... honelako argudioak erabiliaz, batetortze kopuru esanguratsua erdietsi dudala deritzat, Landucciren hiztegia *HH*-ko iturri ere izan zela baieztatzen adinakoa.

Bi aurrekari garrantzitsu (Axular eta Harriet) izateaz gainera, testu bakoitzean bildutako hitz mota ezberdinek lagun diezagukete birritan erabiltzeko zioa ulertzen: *Erans*-eko hitz bitxi eta irakurketa txarren batzuetan arabera, balirudike lehen irakurraldian errazena bakarrik hustu zuela, eta hartan alde batera utzitako forma zail edo irakurgaitzak bigarreanean berreskuratu zituela; antzeko azalpena proposatu dut Axularrentzat ere (§ 9.4).

Hartaz dakigunarekin bat etorririk, gainera, baliteke Larramendik erabili zituen lehen iturrietakoa izatea, bertako hitzak maiztasun aipagarriaz bakarrik edo sarrerako aurrean lekuan agertzen dira eta.

Harrieten hiztegia ere hizpide izan dugu, azkenik (§ 10.3). Aurrekoetan ez bezala, oinarri ziurren gainean hasi gara, lehendik bai baikenekien *HH*-ko iturri izan zela. Ohiko corpusaren ordeztasun, hiztegi osoa aztertzerako ausartu naiz, beraz, *OEH*-aren laguntza MAJ arte bakarrik izan arren, iturritasuna frogatzeko *Erans*-ean saiatutako argudioak hiztegi (txiki) baterako gehienetan aski eta sobera direla eginez (§ 10.3.1): huts bateratzaileak, grafia bereziak, azal ditzakeen hutsak, aldaera bereziak, morfologi berezitasunak, sarrera bereko hitzak, hitz familiak, erdal itzulpena, esapideak eta hiztegioko kokalekua, alegia.

Azterketa honetan oinarri harturik, Harrieten hitzek *HH*-rako bidean pairatu dituzten aldaketak (grafiazkoak, zuzenketak, hegoalderatzeak, egokitzenak...) zerrendatu eta *HH*-aren euskal edukia mamitzeko izan duten garrantzia (eratorriak...) neurtu dut (§ 10.3.2). Bigarren gaiari dagokionez, azken iturria-edo izanik espero genezakeen bezala, familiakideetan (§ 10.3.2.6) eta batez ere esanahikideetan (§ 10.3.2.7) Larramendik Harrieti atera ahal izan zion etekina gainerako Iparraldeko iturriena baino askoz txikiagoa izan zela egiaztatu dugu.

Larramendik Harrieten hitzak ziurrenik *HH*-aren lehen probetan sartzen hasi zuela eginez, jakintzat eman genezakeen sarrerako azken lekuetan agertuko zirela, eta halaxe da, izan ere, gehienetan (§ 10.3.1.10). Halaz ere, batzuetan tartekatuta daudela nabaria da, beste ezaugarri zenbaiten artean familiakideen sarreretan oihartzunik ez duten bakarrak eurak dira eta. Honek Larramendiren lan egiteko formaz gehixeago ikasteko aukera eman digu; zehazkiago, euskal ordainak ordenatzeko izan zituen irizpideetako batzuk: ordain bakunak lehen eta perifrastikoak gero ematea, aldaerak eta erro bereko hitzak biltzea eta iturri berekoak elkarrekin jartzea; azken hau dela eta, Harrieten hitzak tartekatzeo, berak dakartzan esanahikideetako bat lehendik jasoa izatea erabakitzaile izan da.

HH-ko eta *Erans*-eko erabilerak bata bestearen osagarri direla egiaztatu dugu, salbuespen gutxirekin muga frantsesa-euskara hiztegi I/J letran dagoelarik (§ 10.3.1.11). Edonola ere, Larramendik ez dirudi euskara-frantsesa hiztegiari arreta handirik jarri zionik, *HH*-an ez baitago haren beharrik duen hitzik. Hau lotu behar da bi hiztegitxoeren tankera ezberdinarekin, eta zehatzago frantsesa-euskara hiztegitxoa aberats eta garbiagoa izatearekin.

Azterketa lasaiago batek noizbait —gutziz *OEH* osoa eskuartean dukegunean— emaitzak zorrotzu eta ugalduko ditu ezpairik gabe, baina ez dugu inoiz jakingo, apika, benebenetan Harrietengandik zenbat hitz hartu zituen, haren frantses-euskara hiztegia, txikia izanik ere, zenbait berezitasun aipagarriekin batera Iparraldeko oinarritzko lexikoaren bilduma aski osoa baita, sarritan Larramendiri bere irakurketetan ez antzeman edo ez ulertutako hainbat hitz berreskuratzeko eta jadanik hartuei ikuspegi berri batetik heltzeko bide erraza eskaini ziolarik. Frogatutzat utzi uste dut, dena dela, oso gauza gutxi utzi zuela, dela jadanik bazituelako, edo dela orduan hartu zituelako: hiztegi batez espero zitekeen bezala, ia-ia hustu zuela esan daiteke.

11. Iturri idatziak (III): Erdal liburuak

Lo mismo he hecho [irakurri eta euskal hitzak apuntatu] con aquellos libros que, aunque escritos en otra lengua, hablan del Bascuence y traen muchas voces suyas, como Oyenarte, Moret, Poza, Echave y otros (1745: liii).

Larramendiren erdal iturriak, berak eman adibideen arabera, badirudi historiari eta euskarari buruz irakurri zituen berberak direla, eta agian besterik ez: ez du ematen, adibidez, Villareal de Berriz (1736) bezalako liburu teknikoak irakurtzeko astirik hartu zuenik.¹²⁹⁸ Xehetasun honek zein diren mugatzen eta haietatik zer iritsi zuen ulertzen lagunduko digu.

Lehenengo galderari erantzuteko, bere idatzietan han-hemen sakabanatuta dauden izenak —Oihenart, Moret, Poza eta Etxabez gainerakoak— bildu beharko genituzke aurrenik. Lana ez da erraza, ez eta txikia ere, *HH*-aren hitzaurre luzean zehar inoren aipua ugari idorotzen baitira. Alde honetatik bertan dagokeen zerrendarik osoena “El Bascuence fue lengua universal de España. Autores que defienden esta opinión, y su firme creencia” ataletik (1745: lxxxiv-lxxxvii) atera daiteke:¹²⁹⁹ Fco. Javier Huerta-ren *España primitiva* (1738),¹³⁰⁰ *Diario de los literatos de España* (1740),¹³⁰¹ Francisco Xavier de Garma-ren *Theatro universal de España* (1738),¹³⁰² Peralta Barnuevo-ren *Historia de España vindicada* (1730),¹³⁰³ Gabriel de Henao-ren *Averiguaciones de las antigüedades de Cantabria* (1689-1691), Joseph de Moret-en *Investigaciones históricas* (1665) eta *Annales del Reyno de Navarra* (1684), Arnaldo Oihenartoren *Noticia [sic] utriusque Vasconiae* (1656), Juan Cortés Ossorio-ren *Tratado de la Constancia*

¹²⁹⁸ Orotara 30 bat euskal hitz zenbatu ditut honen liburuan, baina gehienak ez dira *HH*-an agertzen: cf., adibidez, *aldabarra* (1736: 163), *barterrolaq* (120), *drao* (58), *carrama* (49), *maco* (61), *nardaca* (97, 109), *ondazubi* (41), *poto* (49, 96) edo *txinbo* (60).

¹²⁹⁹ Egile eta liburuen izenak eta argitalpen datak Larramendik ematen dituenak dira. Denak Palauren (1948-1977) datuekin erkatu eta, ezer berezirik egotekotan, oharretan iruzkindu ditut.

¹³⁰⁰ Larramendiren bibliotekan zegoen (Tellechea-Idigoras 1966a: 357, 44. zb.; Altuna 1984: 77, 162. zb.).

¹³⁰¹ Larramendiren bibliotekan (Tellechea-Idigoras 1966a: 357, 45. zb.; Altuna 1984: 77, 148. zb.).

¹³⁰² Honi buruz hauxe zehazten du: “...cuyo extracto solamente he visto en los Diaristas” (1745: lxxxv).

¹³⁰³ Larramendiren bibliotekan (Tellechea-Idigoras 1966a: 357, 56. zb.; Altuna 1984: 75, 83. zb.).

de la Fe (1684),¹³⁰⁴ Bernardo de Aldrete-ren *Del origen y principio de la lengua castellana* (1606), Andres de Pozaren *De la antigua lengua, poblaciones y comarcas de las Españas* (1587), Balthasar de Echaberen *Discursos de la antigüedad de la lengua cantábrica vascongada* (1607), Antonio Navarao [sic, Navarro-ren ordez] Larrategui-ren *Epítome de los Señores de Bizcaya* (1620),¹³⁰⁵ Pedro Salazar de Mendoza-ren *Crónica del Gran Cardenal de España* (1603),¹³⁰⁶ Rodrigo Mendez Sylva-ren *Población general de España* (1645),¹³⁰⁷ Juan de Mariana-ren *Historia general de España* (1592), Esteban de Garibayren *Compendio historial* (1571), Pero Antón Beuter-en *Primera parte de la Crónica general de toda España, y especialmente del Reyno de Valencia* (Valencia, 1604), Josepho Escaligeroren *Tratado de las Lenguas de Europa* (1540), Pedro Medina-ren *Libro de las Grandezas de España* (Sevilla, 1548),¹³⁰⁸ Lucio Marineo Siculo-ren *Cosas memorables de España* (1530),¹³⁰⁹ Luis de Ariz-en *Libro de las Grandezas de Avila* (1607)¹³¹⁰ eta Valdés-en *Diálogo de la Lengua* (1535)¹³¹¹ aipatzen ditu han. Zerrendatik batzuk kendu beharko dira, ziurrenik, euskarari buruzko adierazpenaz beste jakingarririk ez bide dutelako, baina baita beste batzuk erantsi ere, neurri batean behintzat ikusiko dugun bezala.

Denak astiro begiratzea zeregin interesgarria izan liteke, guztiz Larramendiren eredu teorikoak aztertzerakoan.¹³¹² Lehen hurbilketa honetan, hiztegiaren euskal edukiaren iturritzat argienik har daitezkeenetan geldituko naiz, hots, batez ere Euskal Herriko gaiez aritu ziren euskotarrengan: Garibai, Poza, Etxabe, Oihenart, Moret, Henao, zerrendatik kanpo geratu zaizkigun Isasti eta Perotxegi eta, euskaraz idatzi bazuen ere, hainbat gaitan hauekin batera aztertu behar den Etxeberri Sarakoa. Bestelakorik ere baliatu dut, halere: Marineo Siculo, Mariana, Aldrete eta, zerrendatik kanpora, Covarrubias, Mayans¹³¹³ eta Pierre de Marca. Hain zerrenda luzeari alderatuta, hautaketa laburra da, baina bertan daude, ikusiko dugun bezala,

¹³⁰⁴ Izenburu osoa *Constancia de la fee y aliento de la nobleza española*, Madrid, Roman, 1684 (ap. Palau).

¹³⁰⁵ Palauk 1702ko beste argitalpen bat ere aipatzen du.

¹³⁰⁶ *Chronica de el Cardenal don Iuan de Tauera*, Toledo, 1603 (ap. Palau).

¹³⁰⁷ Madrid, Diego Díaz de la Carrera, 1645; bada beste argitalpen bat 1675ean (ap. Palau).

¹³⁰⁸ Tovar-ek (1980: 207) geroagoko bat baino ez du aipatzen: *Primera y segunda parte de las grandezas y cosas notables de España* "corregida y muy ampliada por Diego Pérez de Mesa", Alcalá de Henares, 1595.

¹³⁰⁹ Larramendik emandako data *princeps*-arekin dator bat (cf. Palau).

¹³¹⁰ *Historia de la grandezas de la Ciudad de Avila*, Alcalá de Henares, Luys Martinez Grande, 1607 (ap. Palau).

¹³¹¹ Lehenengo argitalpena Mayansek egin zuen, bere *Orígenes de la Lengua Española*-n (1737), egilearen izena ezagutu gabe, Palauk kontatzen duenez (ik., halaber, argitaratzailearen iruzkina in Mayans 1737: 315). Egilearen izena ezezaguna edo zalantzazkoa izan zen XIX. mendera arte (Barbolani 1990: 95 eta, batez ere, Lope Blanch 1990: 74, 9. oh.). Larramendik ez zekien honetaz Mayansek baino gehiago, noski: aipatzen duen Valdés deitura *Diálogo*-ko pertsonaia nagusiari dagokio, eta ez besteri.

¹³¹² Baina agian ez horretarako bakarrik: antza denez, *lauburu* euskal etimoa erromatarren *labarua* azaltzeko Juan Cortés Ossorioren liburuan (1684, III. lib., v. kap., ap. Tovar 1980: 64) agertzen da lehenengoz.

¹³¹³ Honen liburua Larramendiren bibliotekan agertzen da (Tellechea-Idigoras 1966^a: 358, 86. zb.; Altuna 1984: 77, 163. zb.).

Larramendiren iturri nagusiak behinik behin: Oihenart batez ere, baina baita Etxabe, Isasti eta Moret, hizkuntza kontuez gehixeago axolatu zirenak, hain zuzen. Haiek izan ziren, ezinbestean, laguntza handiena egin ahal izan ziotenak, nahiz —eskuarki adeitasunez erabiltzen baditu ere— haien laburtasunaz zerbait esan besterik ezin zuen egin:

Garibay ya dixo, que [el Bascuence] era Lengua methodica, y que podía tener Arte, Oyenarto descubrió algo de sus perfecciones, Moret hizo lo mismo, castigando la censura desabrida de Mariana; pero se contentaron con poco, y dexaron al Bascuence en su antiguo abandono (Larramendi 1745: lv).

Erabilerari dagokionez, funtsean erdal liburuak etimologia —edo, ia berebat dena, etimologigai— hornitzaile izan ziren Larramendirentzat, haietan den gainerakoari (hitz solteez gainera, atsotiz, kantu zahar eta bestelako euskal zati luzeago zenbait) arreta bereziz begiratu zionik ez dirudien bitartean. Azterketak erakusten digu gureez bestelako begiz hurbildu zela idazle hauengana: antzinako hizkuntzaz daukaten informazioa berreskuratu nahian, hain zuzen. Haren pentsamolde eta egitasmoaren barruan, jadanik aipatu dudan bezala (§ 1), denboraz galdu edo ilundutako euskal hitzek bizirik daudenen pareko garrantzia daukate eta, ondorioz, etimologiaren papera ez da inondik inora bigarren mailakoa; aitzitik, euskal hiztegia ugaltzeko erabili zituen bide nagusietatik bat dira, dela maileguak (§ 7), dela erro-atzizki zaharrak (§ 6) euskararentzat berreskuratzen lagunduaz.

Batez ere etimologiez arituko naiz, beraz, atal honetan. Aurretiaz esan behar dut haien balioztatzea lanaren helburuetatik at geratzen dela, nahiz eta ekarpen interesgarriak dituzten bai erromantzea eta euskararen arteko konparaketan, baita euskararen barrukoan bertan ere.¹³¹⁴ Honen ordean, iturrien identifikazioan eta erabilpenean arituko gara nagusiki. Haatik, etimologia bat (edo hura egiteko ideia) nondik hartu zuen zehaztea ez da beti erraza izango, sarritan topiko berak honela edo hala azalduak aurkitzen baititugu idazle bat baino gehiagorengan. Nolanahi ere den, ez Larramendiren, ez bere aurrekoen etimologigintza behar bezala ikertuta ez dagoenez gero, asebestarik geratuko naiz Larramendik aurreratu zitzaion tradizioa erabili zuela, batetik, eta halaz ere ez zuela akritikoki erabili (hau da, eskaintzen zion guztia eta eskaintzen zion moduan erabiliz) erakustez.

Datozen orrietan, iturri hauetako zenbaiti buruzko xehetasunak bildu dira, guztiz erabili zituen ala ezeko zalantza zor lezaketenez (§ 11.1); tradizio trinko eta luzea izateagatik korapilotsuenak diren gaiak banaka miatu dira, hots, euskal hitzen esanahi ezkutua (§ 11.2) eta antzinako hizkuntzaren hitzak (§ 11.3); *HH*-ko etimologia arruntetan izan zuten eragina neurtu da eta haien erabilera aztertu (§ 11.4), berdintasunetan ez eze ezberdintasunetan ere begiak jarriaz; Larramendi (Oihenarten eraginez, batez ere) paradigma berri batean ari dela erakusten saiatu naiz (§ 11.5) eta, azkenik, *HH*-ko ordainetan iturri mota honen ekarpena balioztatzen (§ 11.6).

¹³¹⁴ Bietarako adibidea izan daiteke gazt. *haberes* eta eusk. *abere*-ren artekoa, alde batetik, eta eusk. *abere* eta *aberats*-en artekoa, bestetik, jadanik Etxabek (1607) formulatua. Oihenarten etimologiaren balioztatzea Ramos 1994: 108-109n aurki daiteke; Larramendirenaz, cf. Urgell 2000b.

11.1. Zenbait iturriri buruzko xehetasunak

11.1.1. Isasti

Nahiz eta Isastiren lana 1850 arte argitaratu ez, badakigu, berak esanda, Larramendik ezagutu zuela:

De las cosas de Guipúzcoa, dejando ahora los más antiguos, escribió copiosamente el doctor Isasti, sacerdote de Lezo, que trabajó muchísimo en instruirse y lo da a conocer en el libro que escribió con el título de *Compendio Historial*, que anda manuscrito, aunque estuvo ya para imprimirse y con su aprobación y lo demás, y se dejó de imprimir por reparos políticos, que yo sé, y no es necesario decirlos (*Corografía* 14).¹³¹⁵

Ezagutu ez ezik, itxura guztien arabera izan ziren eskuizkribuetatik baten jabe izan zen, ziurrenik Landa eskribauaren zerrendan hurrengo ohar zehazgabearen pean izkutatzen den liburua baita (Altuna 1984: 80, 309. zb.; Iturriaga 1992: 179).¹³¹⁶

It. otro libro de a fol. manuscrito con cubierta de pergamino, intitulado Compendio Guipuzcoano.

Isastiren liburutik, batez ere XIII. kapitulua, “De la lengua Cántabra bascongada, de su antigüedad y elegancia” izenekoa (Isasti, c. 1620: 160-182) baliatu zuen Larramendik *HH*-ko iturri gisa, ikusiko dugun bezala.

11.1.2. Pierre de Marca

Goiko zerrendan agertu ez arren, Larramendik behin baino gehiagotan aipatzen duen¹³¹⁷ eta liburutegian zeukan¹³¹⁸ Marcaren *Histoire de Bearn* liburuaren izenburu osoa honako hau da:

Histoire de Bearn, contenant l'origine des Rois de Navarre, des Ducs de Gascogne, Marquis de Gothie, Princes de Bearn, Comtes de Carcassonne, de Foix, & de Bigorre. (...) Par M^e Pierre de Marca, Conseiller du Roi en ses Conseils d'Etat, & Priué, & President en sa Cour de Parlement de Navarre, Paris 1640.

Guri dagokigunez, Marcak aski ongi ezagutzen zituen Espainiako iturriak (Isidoro de Sevilla, Ximenez de Rada, Garibai, Mariana, Sandoval, etab.), baita gutxienez Oihenart ere. Bere kontaeraren harira, batzuetan aurrekoen interpretapen etimologikoak aipatzen ditu, batzuk onartuaz, hala nola *Baiona* edo *Lapurdi*-rena:

¹³¹⁵ *Corografía*-n, aipamen honetaz gainera beste zortzi zenbatu ditu argitaratzaileak (“Índice de nombres” atalean, 318. or.), baina batek ere ez du erlaziorik hemen kezkatzen gaituen gaiarekin. Bada beste aipamen bat bederen *Sobre los Fueros*-en (298), hau ere Isastiren lana ez argitaratzeko izan ziren arrazoiez, nahiz eta honetan Isasti izenaz transkribatua egon.

¹³¹⁶ Altunak (1984: 73) litezkeen posibilitateen artean aurrena aipatzen du, baina Larramendiren beraren *Historia de Guipúzcoa* galdua edo *Corografía*-ren bigarren partea ere izan litezkeelakoan, “no es posible saberlo” erabakitzen du, uzkurregi, ene ustez.

¹³¹⁷ *Corografía*-n (13. or.) “otros autores instruidos, puntuales y naturales de países vascongados”-en artean aipatua agertzen da. Ik. Larramendi 1745: lxxi ere, bederen.

¹³¹⁸ Bai Larramendik (Tellechea 1966a: 356, 3. zb.), bai Landa eskribauak (Altuna 1984: 74, 3. zb.) halaxe bermatzen dute; bigarrenaren deskripzioa erabat dagokio lehenengo argitalpenari: “It. otro libro de a fol. también de pasta intitulado: Historia de Bearn que contiene el origen de los Países de Navarra, su autor Pedro de Marca. Impreso en París el año de 1640” (Iturriaga 1992: 152). Nire aldetik, Urquijoren alea (Koldo Mitxelena Kulturunea, Donostia) erabili dut.

...son origine [Baionne-rena] de la langue Basque, signifiant Bonne Baie, ou Bon port, Baia ona, Baia, c'est a dire port en langue de marine, & Ona, Bon (Marca 1640: 30).

Cette diction de Labour est aussi Basq. Lapurra signifiant un País desert, exposé aux voleurs, comme disent ceux qui entendent miex les secrets de cette langue (*ib.* 31).

Baina sarritan oso kritiko agertzen da honelakoei buruz, arrazoi ezberdinengatik. Adibidez, Radaren *Abarka* izengoitiari buruzko azalpena kontatu ondoren, eta Mariana eta Sandoval aipatuaz, honela mintzo da: "Mais cette fable s'évanoüit en presence de la verité..." (*ib.* 179). Garibaik *arisco*-rekin hala-hola lotuaz azaldu zuen *Arista* izengoitiari¹³¹⁹ gaskoierazko azalpena eman nahi dio:

De sorte que ie me persuaderois facilement que le vrai surnom d'Eneco estoit celui d'Ariscat en langage Gascon, comme qui diroit Eneco le Hardi; lequel lui avoit esté donné par les Gascons avant sa promotion à la Royauté, & qui depuis a esté facilement corrompu en celui d'Arista; y ayant assés de peine de distinguer dans les livres manuscrits la letre C de la letre T (*ib.* 164).

Halaber, ez du aipatu ere egiten *Medarra* izengoitiaren euskal azalpena,¹³²⁰ arabetikoa bakarrik baizik:

...il fut surnommé par les Sarasins *Medarra* en langage Arabique, qui signifie Ruine & Degast (...). Sance *Medarra*, corrompu en celui de *Mitarra*, pour signifier qu'il estoit le Fleau, la Ruine, & la Desolation des Sarasins (*ib.* 202).

Kritikotasun hori are hobeto uler daiteke, nik uste, Hierome Blanca-k aipatutako Michel du Moulinen *baron*-en etimologiari "impertinente & ridicule" deritzola (*ib.* 544) jakinez.

Ez dirudi, edonola ere, Larramendik zuzenean ezagutzen zituen inoren etimologietan Marcaren iritziak garrantzia izan zuenik. Hemen agertzea merezi badu, ez da haien transmisioan izan zuen paperagatik, ez eta agian beste mota bateko azterketak ateraraz litzakeen historiari buruzko adostasunengatik, *HH*-ko hitz bakar baten iturri zuzena izateagatik baizik, aurrerago ikusiko dugun bezala (§ 11.6.2.2).

11.1.3. Oihenart

Oraingoz ez dago Larramendik Oihenarten euskal lanak ezagutu zituela sinisteko froga sendorik;¹³²¹ beraz, eraginik aurkitu nahi bada, honen *Notitia utriusque Vasconiae, tum ibericae, tum aquitanicae* (Paris, 1638 eta 1656)¹³²² lanera jo behar da ezinbestean.

Garaiko halako liburu gehienek bezalaxe, Oihenartenak baditu, han-hemen barriatuta, euskal hitz zenbait. Alabaina, gehienak euskarari eskaintzen dizkion I. liburuko ataletan (XI-XIV) biltzen dira, eta guztiz "Auctoris sententia de veteri Hispanorum linguâ" deituriko XIII.ean, non

¹³¹⁹ Ik. III.10. eranskina, s.v. *arisco*.

¹³²⁰ Ik., adibidez, Moret 1684: II, 133.

¹³²¹ Dakigunez, aipatu behintzat ez zituen behin ere aipatu; haatik, posibilitateari bide ematen dioten zenbait aztarna bildu ditut lehenago (§ 9.2.7.4).

¹³²² Eusko Legebiltzarrak eragin duen 1656ko argitalpenaren faksimilea (Gasteiz, 1992), J. Gorosterratzuren itzulpena (lehenengoz *RIEV* 1926-1927an argitaratua) eta R. Cierbideren aurkezpenarekin argitaratua erabili dut.

euskaratik gaztelaniarako maileguen adibide zerrenda (1656: 45-54) jasotzen den.¹³²³ Gogora dezagun zerrenda hark lehenengo hiru letretako (<ç> eta <ch> barne) hitz zenbait baino ez dituela biltzen. Zerrendak, frogatzera noan bezala, eragina izan zuen Larramendik *De la Antigüedad...*-eko “De las etymologías de las voces castellanas”-en (1728: 40-79),¹³²⁴ letra berak hautatuaz,¹³²⁵ egin zuen lehenengo hurbilketan, eta gordeko zuen bai *HH*-aren hitzaurreko “Las voces castellanas cuyas etymologías son del Bascuence” ataleko zerrendan (1745: cxxv-cxxxiv), baita hiztegiaren gorputzeko etimologietan ere. Erabilera hau susmaraz lezakeen laudoriozko aipamen bat egin zion, gainera, *HH*-aren hitzaurrean:

Fuera de que ya Oihenarto avia hecho una inducción bien convincente en las tres primeras Letras del Alfabeto, de que la Lengua Castellana tenía muchas voces de la Bascongada (Larramendi 1745: cxxx).

Oihenarten eraginaren azterketa herren geratuko da alderdi batean: *Notitia*-ren bi argitalpenetatik zein erabili zuen ez dakit, nahiz eta, alde batetik, bigarrena erabiltzea egiantzekoena izan eta, bestetik, neurri handi batean ezjakintasun honen errua 1638koa gure artean ia erabat ezezaguna izateari egotz diezaiokedan, neure burua zuritu beharrez. Halaz ere, honek ez bide dio zuzen-zuzenean azterketari eragiten, beharrik, baldin eta Larre-k (1992) egin duen erkaketatik atera daitezkeen kontuak ongi aterata baleude, behinik behin: alegia, aldaketa garrantzitsuak kausitu ditu euskarari buruzko ataletan, baina zehazkiago soilik XII. eta XIV. ean (zeina “...a été entièrement remanié et considérablement augmenté pour l'édition de 1656”, *op. cit.* 17); hortaz, *ex silentio*, guri dagokigun XIII. atala argitalpen batetik bestera ukitu aipagarririk gabe igaro zela dirudi, eta Larramendik erabilitakoa zehaztea —beti jakingarria izanik ere— bigarren mailako arazo bilakatzen dela. Halaz ere, Oihenartek eskaintzen dituen lekukotasunei dagokienez, kontuan izan bedi hala balitz, beherago egingo ditudan datatze zenbait (§ 11.6.1) 18 urteko aldeaz aipatu beharko lirakeela.

11.1.4. Perotxegi kapitaina

Liburuxka hau, orain oso aipatua ez bada ere,¹³²⁶ aski eskura daukagu, duela urte batzuk Larramendiren *De la Antigüedad*-ekin batera berrargitaratua izan zelako.¹³²⁷ Nahiz,

¹³²³ Ondoko lerroetan beti ere latinezko originala erabili dut. Gorosterratzuk “Suprimo las declaraciones que el autor da en latín, para explicar el sentido de las palabras castellanas” dio (1992: 147, 4. oh.) eta argitalpen berriaren begiraleak “J. Gorosterratzu no siempre respeta la ortografía de la edición latina de A. d’Oihenart, por lo cual remitimos al lector [a] dicho texto” (*ibid.*); azken honen laudoriotan esan behar dut euskal hitzetako errata asko zuzendu dituela baina, dena dela, itzultzailearen testua ez da batere fidagarria, Oihenarten edukia bere erara —eta ez beti era berera— antolatu duelako. Xehetasun gehiagotarako, ik. Larrañaga 1995.

¹³²⁴ Honek, bide batez, behin betikoz itxita uzten du, nik uste, Oyharçabalek (1994: 28, 2. oh.) bere buruari egiten galdera, hots, Larramendik gramatika egin orduko Oihenarten lana ezagutzen zuen ala ez. Bistan da Larramendiren hitzei bestelako interpretapena aurkitu beharko zaiela.

¹³²⁵ Hautaketa bete-betean Oihenarten hiztegiño honek eragin zuela dirudi; *DAut*-en alderdia —1726tik aurrera epeka argitaratu baitzen— beste lan batean (ik. Urgell 2000g) eztabaidatzeko asmoa daukat.

¹³²⁶ Vinsonen (1891-1898: 167-171, 53. zb.) berriez gainera, ik. Urquijo 1935, alderdi bibliografiko gehiagoz.

dakidalarik, Larramendik aipatu ez, *HH*-an etimologiarekin agertzen diren zenbait hitz Perotxegiren lanean ere (*abarca* 18, *Cantabria* 33, *zapato* 45, *gabacho* 49) iruzkinduta egoteaz gainera, haietako baten —*abarka*-ren— bien etimologiaren antzekotasunak artean loturaren bat zela erakutsi zidan:

Larramendi

Abarca, calzado de cuero. Es del bascuence: díxose así por la semejanza que tiene con la barca, *au barca*, y *barca* es Bascuence. Véase allí.

Barca, es voz bascongada, o de *üarca*, que significa arca de el agua...

Perotxegi

...*Abarca*, que está sincopado de *Au-arca*, que en castellano se debe decir: esta es la Arca (1978: 18)

Alabaina, liburuak argitalpen bat baino gehiago izan zituen eta bibliografoek bi talde egin zituzten haiekin (Vinson 1891-1898: 167-171, 53. zb., Urquijoren ohar askorekin): 1731 eta 1738, alde batetik, eta gainerakoak (1760koa barne) bestetik, zeren batzuetatik besteetara aldaketa nabarmenak baitaude eta, guri dagokigunez, edukizkoak aski ugari eta garrantzitsuak baitira.

1738koan¹³²⁸ *abarka*-rena ez eze, *zapato* eta *gabacho*-ren etimologiak ere peitzen dira: ez du zalantzarik, beraz, Perotxegik liburua berregiteko *HH*, besteak beste, erabili zuela; aski normala, bestalde, aurreneko argitalpenean jadanik *Imposible vencido* (1738: 45) aipatzen zuela jakinik.

Nolanahi ere, Perotxegiren lehen argitalpena jasota agertzen da Larramendiren liburuen artean (Altuna 1984: 80, 300. zb.; Iturriaga 1992: 179):

It. otro del mismo tamaño [octavo] y cubierta de papel pintado, intitulado: origen y Antigüedad de la lengua vascongada y de la Nobleza de Cantabria sacada a luz por el Capitán Dn. Juan de Perochegui. Impreso en Barcelona p[or] Jph. Thegido, el año de 1731.

Aipu bakar honen bitartez noiz lortu zuen ezin jakin arren, *HH* egin zuen garaian ezagutzen zuela baieztatzeko paradan gaude, bai baita Perotxegiren eragina salatzen duen etimologia bat gutxienez: *modestia*-rena (ik. § 11.4.1.1).

11.2. Euskal hitzen esanahi ezkutua

Utz diezaiogun Larramendiri arazo honen azalpena egiten:

Dexo aora aparte la Onomatopeya, que es más frecuente en el Bascuence que en otros idiomas. No hablo tampoco de las voces simples y nativas, sino de las compuestas y derivadas. La propiedad de las voces, que tanto se pondera en la Lengua Hebrea, consiste en que explica sus significados por algún atributo, condición o propiedad, pues las essencias no las conocemos como son en sí mismas: y esto se llama significar filosóficamente los objetos. Pues en esta excelencia excede el Bascuence a las otras Lenguas, y no cede aun a la Hebrea (Larramendi 1728: 95 eta 1745: ii).

¹³²⁷ 1978an, zehazkiago. Azaltxoan “Segunda Impresión (...). En Pamplona, en la Imprenta de los Heredros [sic] de Martínez. Año 1760” dioen faksimilea badakar ere, ondoko testua haren transkribaketa (akats askorekin) baino ez da.

¹³²⁸ Urquijoren alea erabili dut (Koldo Mitxelena Kulturunea, Donostia).

Hau frogatzeko, hamaika euskal hitz, denak oinarri-oinarrizkoak —baina filosofikoki begiratuta ez edonolakoak— erabili zituen *De la Antigüedad...*-en (“El Bascuenze es Lengua más perfecta en la propiedad de sus voces” atalean, Larramendi 1728: 95-96) eta, hitzez hitz kopia-tuta, *HH*-aren hitzaurrean (1745: ii-iii): *Jainkoa*, *jauna*, *eguzkia*, *ilargia*, *eguna*, *gaba*, *eriotza*, *gizona*, *andrea*, *emakumea* eta *emaztea*. Bada, hauetatik gehienak (azkeneko biak salbu) aurrekoengan halatsu azalduta kausitzen ditugu (ik. 14. eranskina).

Nahita ireki nahi izan dut erdal iturrien arloa gai honekin, zeren eta bost iritzik baino argiago uzten baitu Larramendi legetxe bere aitzindariak ere —zein gehiago, zein nabarmenki gutxiago— ez zebiltzala mundu osoko toponimian eta hizkuntzetan euskararen aztarnak aurkitu nahian bakarrik, euskararen hitz arruntak eurak aztertuz haren ezagutzan sakondu nahian ere baizik, Isasti¹³²⁹ eta Etxeberriren¹³³⁰ zerrenda askozaz luzeagoek erakusten duten bezala.

Pozak erabili zuen lehenengoz filosofikotasunaren argudioa, ezaguna denez,¹³³¹ “En que se muestra cómo la lengua vascongada no es menos sustancial y filosófica que las más elegantes¹³³² de Europa” izeneko atalean (1587: 30v-35r). Berea da, halaber, asmo horrekin Jainkoaren izena (baina *Jeun* darabil, besteek ez bezala),¹³³³ *eguzkia*, *ilargia* eta *eriotza* frogatzat erabiltzeko ideia-aren aitzindaria, *Jaungoikoa* (eta haren azalpen tradizionala, oso nabarmena) jadanik Garibaik argitu zuen arren.

Larramendiren iturri nagusia, ostera, ez da Poza, Etxabe baizik: berarengandik erdietsi zituen beste inork landu ez zituen *jauna*, *eguna*, *gaua* eta *andrea*-ren azalpenak, hala nola *gizona*-rako ematen dituen aukeretatik bigarrena:

launa es compuesto de *laue* *Ona*, que es lo mismo que buen dueño: porque *lauea* es dueño, y *Ona* bueno (Etxabe).

Jauná llama al Señor, esto es, *Javé-ona*, y significa buen dueño... (Larramendi).

Eguna obra del Sol (Etxabe).

Eguná llama al día, esto es, *Eguzqui-laná*, y significa obra y efecto de el Sol (Larramendi).

Gaua ausencia del día (Etxabe).

...*gabá* o *gaubá*, esto es *gabetua*, y significa defecto, falta y destitución, se entiende de el día y de la luz (Larramendi).

¹³²⁹ Aipatuez gainera, *eliza*, *onenzaro*, *gavon*, *beguiac*, *gurasoac*, *agurea*, *zalduna*, *aberatsa*, *ichea* / *etsea* ‘etxea’, *aramburu*, *gaztelua*, *izotza*, *aunzumea*, *gamtamera*, *amuarraia*, *iguela*, *zoraburu* “columpio” eta *zumea* (Isasti, c. 1620: 166-168); *aberatsa* eta *gaztelua*-ren etimologiez beherago (§ 11.4) mintzatuko gara.

¹³³⁰ Aipatuez gainera, *eguberri*, *ilherria*, *dohaina*, *urthumea*, *ičotça*, *ilhuna*, *galtcerdia* eta *presundegua* (Etxeberri 1712: 88).

¹³³¹ Tovar 1980: 52. Lehentasunaren aitopren honetaz gainera aurreiritzi asko eta jakingarri gutxi aurkitzen da lan honetan Pozari buruz; ik. orain Gorrotxategi 1987 eta Juaristi 1992.

¹³³² Juaristik (1992: 83) azpimarratu bezala, “*Elegancia* tiene en Poza el sentido de *propiedad* lingüística”; ikusi berri dugun bezala, Larramendik testuinguru berean *propiedad* hitza erabiltzen du, hain zuzen.

¹³³³ Juaristik (1992: 84-86) frogatu du, zalantzarik utzi gabe, hautaketa ezinbestean Cabalaren argitara egin daitezkeen interpretapenekin lotu behar dela. Pozaren hitzean bokal bat peitzen duen irakurlearentzat, komeni da gogoratzea berak (1587: 33r) “en una sílaba sincopadamente pronunciando todas las vocales” eta “las cinco vocales” zehazten duela. Bestalde, Juaristiren argudioa, nire ustez, indartuta ateratzen da baldin Poza honela Garibaik hasi eta gainerakoek jarraitu zioten tradizioa hausten ari zela gogoratzen bada; Etxabek eta Larramendik *jauna* hitzaz egiten duten erabilera (ik. beherago, s.v.) erabat tolesgabea da, ordea.

Bien entendereis que el nombre común de la muger en nuestro language es *Andrea*, como generalmente está recebido; y no es assí, porque *Andrea* es lo mismo que en romance Señora, y es tomado de *Anderea*, que significa dama (Etxabe).

A la muger llama *andrea*; pero es cortesía, porque esse nombre significa propriamente *señora*, y es como un redoble sobre el nombre de *andré*, que es syncope de *an-deré*, y ésta significa a la dama (Larramendi).

guiçona de *gaiz* y *ona* el que es malo y bueno juntamente (Etxabe).

...o de *gaitzoná*, que significa bueno y malo (Larramendi).

Bigarren iturri ziurra Moret dugu (honen “De la antigüedad de la lengua de los Vascones, y si fue en España la primitiva, y común a ella” ataletik, Moret 1665: 116), argi eta garbi *gizona*-rako ematen duen lehenengo aukera berari zor baitio:

...por corrupción de *Gauzòn*, que suena cosa buena, que es una viva y elegante antonomasia (Moret).

...o de *gauzoná*, que significa *antonomasticé* cosa buena (Larramendi).

eta, bestalde, ziurrenik *Jaungoikoa*-ren adierazpen zehatza ere, hurrengo erkaketak aditzera ematen duenez:

Señor de arriba (Garibai).

el señor del alto (Etxabe).

Señor del alto (Isasti).¹³³⁴

Señor de lo alto (Moret eta Larramendi).

Bietatik edozeinena izan liteke *eguzkia*-ren azalpena, inolaz ere Moretek Etxaberi koptiatua, eta gainerantzekoekin zerikusi zuzenik gabekoa:

mirad, atended el principio, fundamento, obra, llamamiento o principio del día (Poza).¹³³⁵

causador o hazedor del día (Etxabe).

del día guía (Isasti).

hacedor del día (Moret).

hazedor de el día (Larramendi).

Gainerako bi hitzetan zaila da iturri zuzena asmatzen, nik uste: *ilargia*-ren etimologia Pozaz geroko guztiek aipatu zuten eta Etxabez gerokoek (*h)il* = ‘mes’ identifikazioa erabili; hurbilenak Isasti eta Moret dira, dena dela, eta ziurrenik bigarrenak aukera gehiago du, ez bakarrik jadanik iturritzat jota dugulako, baizik eta are Larramendiren adierazpenak bere latinezkoaren itzulpen fidela dirudielako:

lumbre muerta, luz y claridad prestada (Poza).

el que muere y el que resplandece y el que alumbrá los meses (Etxabe).

muerta luz o de mes luz (Isasti).

luz de mes, y como si dixera el Latino *Lux menstrua* (Moret).

hilabetheco arguia, edo hila eta arguiric gabecoa delarik, arguia, argui hila edo argui ilhuna (Etxeberri).

luz de cada mes, expresión de sus crecientes y menguantes (Larramendi).

¹³³⁴ Azpimarragarria da Isasti Etxaberekin bat etortzea: aurrerago ikusi ahalko dugu haren liburua ezagutzen zuela, baina honako gai honetarako Poza bakarrik aipatzen du, zehazkiago *Dios, sol, luna* eta *muerte*-renak haren liburuan irakurri dituela esanez (Isasti, c. 1620: 167): bokalen esangurari eta Jainkoaren Hirutasunari buruzko Pozaren gogoetek ez bide zuten asebate, edota haien irristakortasunaz bildurtu zen, edota ulergabeen geratu; nolahi ere, Isasti ez bide zitekeen *Jauna* = *Dios* identifikazioa ontzat ematera etorri.

¹³³⁵ Pozaren interpretapena, *eguzguia*, *egusgueya* formetan oinarritua, ulergaitza bide zen ondoko guztientzat, euskalkiz ekialderagokoak (ik. orain Gorrotxategi 1987: 672-673-n, xeheki —eta ederki— azaldua); honek ematen digu, besteak beste, Isastiren azalpen ezberdinaren arrazoa, aurreko oharrean esandakoaren hari beretik.

Azkenik, *eriotza*-ren iturria baliteke Poza izatea:

golpe, herida o accidente frío (Poza).
herida o accidente frío (Isasti).
enfermedad fría (Moret).
eriaren hoztea (Etxeberri).
herida y golpe frío (Larramendi).

Hortaz, honaino Etxabe, Moret eta, agian, Poza ageri izan dira Larramendiren etimologiaren iturri gisa, Garibai, Isasti eta Etxeberrirenak ezagutu zituela sinistarazten duen ezer aurkitu ez dugun bitartean.¹³³⁶

11.3. Antzinako hizkuntzaren hitzak

Euskara Iberiako antzinako hizkuntza (bakarra) den ala ez izan zen eztabaidan, teoriaren aldetik punturik interesgarrienetakoa Ambrosio de Morales jakitunak plazaratu zuen.¹³³⁷ Izan ere, euskararen antzinasunaren aldekoak zein kontrakoak izan, oro har Iberiako hizkuntz egoera zaharraz kezkatua zeuden guztien mesedetan, idazle klasikoengan barraiatuta dauden Hispaniako hitzak edo hartakotzakakoak biltzeari ekin zion, 20-30 bat lortuaz Larramendiren arabera (1728: 15), eta ondoko urteetan besteren batzuk erantsiko zaizkie. Hitz hauen inguruan jira-bira ibiliko dira ondoko mendeetako pentsalariak, zeren eta, guri dagokigunez, Estrabonen lekukotasunarekin batera, hauxe baitzen euskararen antzinako orokortasuna ukatzeko izan zuten aurgudiorik sendoena:

Y de lo dicho resulta entenderse cómo no tienen buen fundamento los que quieren decir que la lengua que los vizcaínos agora tienen y llaman vascuence fue la común antigua de toda España (Morales 1574: 222v, ap. Tovar 1980: 32).

...de las cuales dicciones todas no se halla rastro alguno en la lengua vizcaína; lo cual muestra que la lengua vizcaína no fué la que usaba comúnmente España (Mariana 1592: I, § 5).

El no permanecer hoy estas voces en el vascuence es una de las pruebas más fuertes de no aver sido lengua general en España (Mayans 1737: 364).

Euskaldunek, beren aldetik, ahaleginak egin zituzten eragozpenari gogor egiten: orduko euskararen halakorik ez zelako baieztapenari, hitzak hizkuntzetatik galdu egiten direlako erantzuna eman zioten (Oihenart 1656: 38 eta 41; Moret 1665: 112-113), hitz haietako batzuk nabarmenki atzeak direla erantsiaz (Oihenart 1656: 39-41; Moret 1665: 110-111); baina, bestalde, beste hizkuntzen bidez ezin azal zitezkeen zenbait hitzek euskaraz azalpen erraza dutela gaineratu zuten.

¹³³⁶ Cf. Zubiaur (1990: 258), euskal hitzen esanahi ezkontuaz diharduela: "Pero no nombra entonces Larramendi a nuestro Licenciado [Poza] —a quien creemos debe éstos y otros argumentos de su obra". Bere aldetik, Ramos-ek (1994: 104, 7. oh.) erlazioan jartzen ditu Oihenart eta Etxabe. Gauzak zeuden bezala, halako loturak bazirela ohartzea garrantzi gutxiko kontua ez bazen ere, argi geratu bide da dagoeneko, Larramendiri dagokionez behintzat, Zubiaurrek uste baino bilakaera korapilotsuagoa izan dutela Pozaren argudioek.

¹³³⁷ Moralesi buruz ik. Tovar 1980: 31-32.

Larramendik bai *De la Antigüedad*-en ("El bascuence fue Lengua universal de España", 1728: 15-19), bai *HH*-aren hitzaurrean aipatzen du kontua, eta honetan bi aldiz: "De las voces antiguas españolas que no se hallan hoi en el Bascuence. Desatase el argumento que desto nos hacen" (1745: cliii-clvi) eta "Por qué el Bascuence no usa de algunas voces antiguas? Quán diverso es el Bascuence de hoi del antiguo? Fútiles pruebas de Mayans sobre estas questiones" (*ib.* clxxxix-cxcii).

Artean, bildutako hitzetatik zenbait zerrendatik erauzten hasiak ziren, ez gorabeherarik gabe; konparabide bat izan dezagun, bereziki zehatz eta zolia izan zen Aldrete jakitunak (1606: 168-173) bildutako 23 hitzak honako hauek dira:¹³³⁸

aspalato, bacha, briga, bubaciones, *buteo, canthus, cataspisis, celia o ceria, cetra, cocolobis, cusculium, dureta, falarica, gurdus, *lancea, laurices, leberides,¹³³⁹ *melancrenas, Neton/Necy, *salpugas, sparto, vipio, zeus.

Ondokoak, berriz, etsita zegoen latinetik zetozela eta, Hispaniako antzinako hizkuntzaren baten aztarnak izan beharrean, bertako ahozko latinaren berezitasunak zirela (Aldrete 1606: 107-113; ik. halaber Nieto 1975: 260-270):

aautardas, baluce, barbas, canalicio, cavaticos, conejo, corrugos, evocatos, formaças, palacras, palacranas, solifugas, strigilis, virias.

Larramendik ere onartzen du, nahiz agerriki bestelako arrazoiez, euskarak ez dituela zerrendako hitz asko azaldu beharrik, bestelako etorkikoak edo ezinbestean ahaztutakoak direlako, eta Moreten autoritatearen babespean jartzten da, haren epaiak bere eginez:¹³⁴⁰

*Aves tardas, cavaticas, viriles,*¹³⁴¹ *cuniculos,*¹³⁴² *salpugas, aspalatos* son de la Lengua Latina. *Buteones, Vipiones*¹³⁴³ eran nombres de Mallorca y Menorca, en que desde el principio habitaron Griegos y Cartagineses, de quienes pudieron tomarse; y no se hace paridad a la Lengua que se hablaría dentro de España. *Bubbaciones* no era nombre Español. *Cetra* era Africano. *Falarica* Hetrusco. *Palacras, baluces, strigiles* son nombres que se olvidaron, por aver faltado el beneficio de las minas de oro (Larramendi 1745: cliii-cliv).

Alabaina, bada azaldu beharrean geratzen den hondakin bat, gehiena Moretek berak (*loc. cit.*) euskarazkotzat emana:¹³⁴⁴

Fuera destos nombres traen otros de la antigua Lengua de España, y son *cusculium, cocolobis, formaceos, celia, ceria, gurdos, briga, lancea, dureta, vepio* [?], *necy* (*ibid.*).

¹³³⁸ Izarrak, berak beste etorkikotzat —eskuarki latin edo grekozkotzat— dituela adierazten du. Denen banan-banako iruzkina, gaurko ezagutzaren arabera, Nieto 1975: 157-170n ikus daiteke.

¹³³⁹ Nietok (1975: 166) *conejo*-ren ordeaz dagoela uste du.

¹³⁴⁰ Moret *Investig.* lib. I, cap. 5, § 4 [= 1665: 110-112].

¹³⁴¹ Aldretek *virias* itxuran aipatua: cf. Moret (*loc. cit.*): "*Virias* entre los celtas, *Viriles* entre los celtibéricos dice Plinio se llamaban".

¹³⁴² Aldreteren bigarren zerrendan *conejo* itxuran aipatua, jakina.

¹³⁴³ *Buteones* eta *Vipiones*, hurrenez hurren, Aldretek *buteo* eta *vipio* itxuran aipatutako berberak dira.

¹³⁴⁴ Larramendik Moretez atetik iturriren bat izan du, Aldrete bera beharbada, haren zerrendari *briga, vepio* (*vipio*-ren ordeaz eta jadanik aipatua zuela ohartu gabe, agian?) eta *necy* hitzak eransten baitizkio, eta Moreten *hormazos formaceos* (hots, Pliniok ematen duena) bihurtzen. Honetaz gainera, *celia* eta *ceria* bi hitz ezberdin bailiran aipatzen ditu.

Guretzat oso adierazgarria da, ostera, gaiaz hainbat eta hain luzez aritu ondoren, onartzen dituen etimologiak ez hitzaurrean ematea, hiztegiaren gorputzean baizik:

Pero los más destos son del Bascuence, y duran hoi en esta Lengua, como lo demuestra el mismo Moret, y se pueden ver en el Diccionario (*ibid.*).

Gorago argudiatu dudan bezala (§ 6), etimologiak oro har —eta haien barruan antzinako euskararenak, noski— euskararen lexikoa finkatzeko Larramendiren egitasmoan garrantzi handiko atala ziren, eta honela ulertu behar da haien kokapenaz egiten duen aukera argia.

Dena den, aukeraren azpian bigarren mailako beste arrazoi bat ere badago, praktikotasuna, agian. Hitzaurrean dioenak eta hiztegian aurkituko dugunak xehetasunetan elkarren arteko erlazio gutxi dute, berehala ikusiko dugun bezala, eta honek pentsarazten dit sarreretan esandakoa berriz biltzen hasteko inolako gogorik gabe, Moreten adierazpenak laburtzea askitatzat jo zuela gaiari buruzko bere ikuspuntu orokorraren azalpena adibideez hornitzeko.

Hogeitaka hitz haietatik Larramendik orotara hamaikaren euskal etorkia azaldu zuen azkenik (ik. 15. eranskina), eta haietatik sei bakarrik agertzen dira hitzaurrean azalgaitzat jo zituenen artean; beste bi aipatu egiten ditu soilik:

Celia, era una bebida, que se hazía de trigo, y se usaba antiguamente en España, *gari*az *eguinicaco edaria*. Lat. Caelia.

Cocolobis, voz antigua Española, cierto vidueño de cepas, que ya no se sabe.

azalpena emateari uko eginez, Moretek bata *cecalea*-rekin eta bestea *coroa*-rekin¹³⁴⁵ euskararen bitartez azaldu bazituen ere. Beste hirurak —*ceria* (*celia*-ren aldaera), *vepio* zalantzazkoa eta *Necy* jainko izena— ez dira agertzen. Baina hitzaurrea eta hiztegiaren

arteko alderik handiena, gainerako bost hitzetan datza: hitzaurrean aipatu gabeko *esparto* eta *canto*, *palacra* ahaztua eta, are esanguratsuago, atzetzat jotako *cetra* eta *falarica* hitzak, hara non *HH*-an euskal etimologiarekin agertzen diren.

Honezkero, bistan da Moret ez dela gai honetan Larramendik izan duen iturri bakarra, ez eta nagusia ere. Lehenik eta behin, hiztegiaren gorputzean aurkitzen diren antzinako hizkuntzaren hitzak beti *DAut*-en esku daude, nomenklaturaren eredia den aldetik: *HH*-an daudenak han daude lehenago, eta ez daudenak, esan gabe doa han ere ez daudela. Gorabehera handiagoko kontua da *DAut*-en nola aipatzen diren, eta horrek *HH*-an eraginik izan duen ala ez erabakitzea: hitzaurrean eta hiztegian agertzen diren sei hitzetatik bost —*horma* (~*formaceos*) salbu, hitz arrunta *DAut*-en— “antiquísimas” dira denak akademikoen ustetan;¹³⁴⁶ gainerakoetatik hiru

¹³⁴⁵ “*Coroa* llaman en las Comarcas de Pamplona un género de vides más altas, de uba blanca, y muy dulce, y grano largo, qual la describe Plinio” (Moret 1665: 112). Ez dago *OEH*-an bilduta, ez eta antzeko ezer ere; bestalde, *DAut*-ek eta Moliner-ek bederen ez dute gazt. *corona* hitzean erabilera horrekin lotuta egon daitekeen deusik.

¹³⁴⁶ Ik. *DAut*, s.vv. *briga*, *celia*, *cocolobis*, *cusculia*, *dureta*, *gurdo* eta *lanza*.

zahartzat jotzen dira, nahiz adierazpen ezberdinez,¹³⁴⁷ eta beste biak (*esparto* eta *canto*) hitz arruntak dira Akademiaren hiztegian.

Bigarrenik, beraz, Moretez gainerako iturrigaiak ere kontuan hartu behar ditugu, *DAut*-en bitartez azaldu ezin daitezkeen aldeak hauek argitu ote ditzaketen. Larramendik euskal etimologiaz hornitutako hamaika hitzetatik zazpi jadanik bere aitzindariak iruzkinduta zeuden, eta lau berak egiten ditu lehenengoz. Azken hauetako bat (*esparto*) halaberrez agertzen da euskal etimologiaz, ez baitirudi Larramendi hitz honen “espainartasuna” Aldretek aldeztu zuela ohartu zenik; Covarrubiasi bakarrik jarraitu zion *DAut*-en erruz, besteak beste. Gainerako hiruretan (*cetra*, *falarica* eta *palacra*) dagoke, hortaz, *DAut*-en zuzeneko eragina, Larramendik, bere kasa eta Moreten erabakiari entzungor, haien zahartasunaren aipamena ikusita eratu baitzuen euskal etimologia.

Dena dela, erraz froga daiteke Larramendiren etimologietan ere Moreten pasarte beraren eragina izan badela, nahiz eta *cusculia*-rean bakarrik ageri: Pozak azalpenik gabe euskarazkotzat jo zuen, Etxabek *cascavilloa* “cascabel”-ekin lotu eta Isastik —jadanik *HH*-kotik aski hurbil— *coscolloa* “toda cáscara redonda”-rekin; Larramendiren etimoetatik bata (*coscolla*) berea da, baina bestea Moretena, inolako zalantzarik gabe:

Y [llaman] *cusculia* en Tierra de Vascos a la mata de la hierva, que quema los panes, y da la flor como retama (Moret).

...*cusculia* en Labort, *coscollá* nosotros (Larramendi 1728: 19).

...es Bascongada, que en un dialecto se ha conservado sin inmutación, y en otro decimos *coscolla*, de donde se toma la voz *coscoja* (*ib.* 79).

Halaz ere, erreferentzia *HH*-an desagertu da:

Coscoja, viene de el Bascuence *coscollá*, que significa lo mismo (1745).

Honetan dago kokka: alegia, Moreten pasarte behin irakurri bide zuen *De la Antigüedad...*-eko etimologiak eratzeko, eta bigarrenez *HH*-ko hitzaurrea osatzeko, eta bien bitartean hiztegiaren gorputzeko etimologiak, batzuk jadanik 1728an zirriboratuak, harekin berriro kontatu gabe finkatu bide zituen.¹³⁴⁸

Bestalde, jadanik aurreko atalean gogoko iturri gisa agertu zaigun Etxabe, oraingo honetan ezpairik gabe *briga* (< *uriga* < *uriaga*), *dureta* (cf. *Ureta* eta *Daura* toponimoen azalpena vs Moret *Zureta*) eta *lancea* (< *lan* + *cia*) hitzen etimologiaren azpian datza,¹³⁴⁹ baita ziurrenik —baina Isastik antzeratsu azaltzen ditu— *canto* (Pozarengandik *Cantabria* toponimoarekin lotua, baina *canta uria* azalpena Etxaberena da)¹³⁵⁰ eta *forma* (cf. Etxabe *Ormaychia*, Isasti *Ormaichea*,

¹³⁴⁷ Cf. *DAut* s.vv. *cetra* (“Es voz antigua Española, de quien la tomaron los Romanos”, *falarica* “Es voz de las primitivas Españolas según el P. Mariana”) eta *palacra* (agerian gabe, honen antzinatasuna Morales eta Plinioren adibideekin adierazita dago).

¹³⁴⁸ 1728 eta 1745eko bertsioen artean dagoen loturaz eta ezberdintasunez geroago (§ 11.4) arituko gara.

¹³⁴⁹ Ohargarria da 1728an Etxaberen azalpenetik (“*lancia*, que es hasta con que se obra”) aski urruntzen dela (“del Bascuence *lanciá*, esto es, *lanecocia*, arma que cuesta trabajo en manejarla”), baina 1745ean, azalpena gordetzen badu ere, haren etimora itzultzen dela (“se compone de *lan* trabajo, y *cia* punta aguda, y se le dio el nombre por el trabajo que cuesta el manejarla”).

¹³⁵⁰ Zeinarengandik Isastik hartu zuen, aitortu ere egin zuen bezala (c. 1620: 178).

Larramendi *Ormaechea*) hitzenez ere. Moret ez bezala, Oikiakoa 1728 eta 1745eko lanetan erabili zuen, agerian denez.

Tradiziodun hitzetatik Larramendik bere kasa azaldu zuen bakarra *gurdo* da, 1728an *gurdi*-rekin lotuaz eta 1745ean lau azalbide ezberdin (*gordoa*, *gurdoa*, *goridoa* eta *guridoa*) proposatuaz; aurrekoen etimoak —Pozaren *gordo*, Etxaberen *gurduria* (> Isasti *gurdaria*, argitaratuaren arabera gaizki irakurria), Oihenarten *gurdus* zein Moreten *gurdo* soilak— gutxiegitzat joaz, nonbait.¹³⁵¹

11.4. Han-hemengo etimologiaiak

Orotara 124 etimologiatan aurkitu izan dut Larramendirentzako aitzindariarik (ik. 16. eranskina), hau da, *HH*-an agertzen diren euskara-gaztelania etimologia guztien %5 inguru;¹³⁵² *HH*-ko etimologia asko bigarren mailakoak direla kontuan izanik, hots, beste etimologia batetik eratorriak, zenbakia agian %10era-edo igo daiteke.

Nolanahi ere, erdietsi dugun kopuruak bi irakurketa ditu: Larramendiren aldetik, bistan da euskararen lehentasuna frogatzeko zeuden etimologiaren kopurua ikaragarri emendatu zuela, aurrekoen lanak ia ezerezean utziaz eta berea hurrengo saioen erreferentzi puntu bakarra ezinbestean bihurtu zedin lortuaz.

Askoz interesgarriagoa deritzat bigarren irakurketari, hau da, XVI-XVIII. mendeetan euskara-gaztelania etimologiaren tradizio bat izan zela egiaztatzeari, Garibairen etimologia apurretatik (edo, atzerago joanda, Ximenez de Radarengandik bederen) Larramendiren saio handira daramana, hain zuzen. Bai honen, baita aitzindariaren etimologiak, ostera, positibismorik gogorrenaren atzaparretan erori dira eta, gaurko jakinduriarekin edo hor nonbait lortzen ari ziren aurrerapenekin erkatuz, haien okertasuna —eta are barregarritasuna— agerian jarri baino askoz gehiago ez dugu lortu artean. Honek azaltzen du, inolako zalantzarik gabe, nolatan ez diren orain artean hain nabarmenak diren lotura zenbait igarri.¹³⁵³

¹³⁵¹ Aurrerago azalduko dudana bezala (§ 11.4.1.3), sarritan etimo hutsak baino bere baitan esanahia daukatenak nahiago izaten zituen Larramendik.

¹³⁵² *De la Antigüedad...*, *HH*-ko hitzaurreko zerrenda eta *HH*-aren gorputzeko hitz etimologiadunak bilduta daukat: orotara 2.211 item zenbatu ditut, nahiz ez diren guzti-guztiak bereziki interesatzen zaigun *HH*-aren barruan azalduta agertzen. Gogoratu Larramendik *DAut*-ek jasotako gaztelaniazko hitzetatik 1.951k euskarazko etimologia dutela dioela (1745: cxxv).

¹³⁵³ Jadanik Mitxelena (1959a: 905, 13. oh.) ohartu zen Larramendiren *azucena*-ren etimologia Oihenartengandik zetorrela. Ez zuen honek, ostera, inolako jakinminik sortu, antza denez, ez esalearen ez irakurleengan. Azkenotan haizearen norabidea, beharrik, aldaturik dugu, aurreko ohar batean (36.ean) aipatu ditudan Zubiaur 1990 eta Ramos 1994 lanak lekuko. Bigarrenak ederki eutsi dio arloari, Etxabek iruzkindutako hitzak Oihenartekin bat datozela (*op. cit.* 109) eta, bereziki, Oihenartek Larramendiren etimologietan eragina izan zuela erakutsiaz. Ramosen hitzak transkribatzekoak dira: "...Larramendi, a quien se le ha acusado con excesiva crudeza de etimologías fantásticas y de haber equivocado la dirección, al llevar sus etimologías del vasco al castellano y no al revés, había seguido el método de Oihenart, pues en varias acepciones de su *Diccionario trilingüe*, Larramendi sigue, a veces literalmente, al suletino" (*ib.* 110). Ramos-ek *azucena*, *ahajar*, *ahorrar*, *ancho*, *atreverse*(se), *behetrías*, *berro*, *bahía*, *buscar*, *zahurda*, *zanahoria* eta *charco*-renak eskaintzen ditu antzekotasunak erakusteko (*ib.* 111-112), onenariakoak, zalantzarik gabe. Liburu berean R. M. Pagolak (1994: 128, 36. oh.) haietatik batzuk (*azucena*, *ahorrar*, *atreverse*, *behetría*) aipatzen ditu bien arteko erlazioa erakusteko, nahiz eta alde

Alde batetik, Larramendi bere aitzindariekin banan-banan lotzea dugu: aipatutako 124 etimologietatik lehen adierazpena eta Larramendiren aitzindari bakarra zein den begiratuta, honako hau erdiesten dugu:

1) 67tan Oihenart:

achaque, achocarse, aclocarse, acuerdo, ahilarse, ahorrar, aina, ajar, alboroto, albricias, alcalde, alcarria, alquilar, amago, amontonar, ancho, andas, ansia, argana, asco, ascua, atapar, atreverse, ayo, azcona, azucena, baldar, baratar, barragán, barrena, barruntar, baza, behetrías, berro, borde, bruces, bucha, burujo, buscar, buz, caracol, carrasco, cecina, celada, cencerro, cerrión, cerro, charca, chia, chicha, chico, chirriar, chocarrería, chochea, chorro, choza, coscorrón, cuita, sucio, zahurda, zamarra, zanahoria, zaque, zaragüelles, zarza, zurra, zurrón.

2) Seitán Etxabe (*guardar, laya, sago/saya, sarna, teta eta verde*).

3) Hirunatan Isasti (*bogada, galduda, maquila*) eta Moret (*otear, vera, zatiquero*).

4) Binatan Garibai (*caca, don*) eta Poza (*abrigo, silo*).

5) Banatan Moret (*zatiquero*) eta Perotxegi (*modestia*).

Bestetik, hitz batzuetan tradizioa luzeagoa da; hona hemen era ditzakegun kateak, maiztasunaren arabera kokatuak:

1) 16tan Etxabe-Isasti-Larramendi:

abere/aberats, assaz, becoquin, cabo, capisayo, escudo, estrada, gañivete, garza, guardia, honesto, izquierdo, maxmordón, motilar, moza/mozo, sago.

2) Hirutan Etxabe-Isasti-Oihenart-Larramendi (*aldea, asmar, bizarría*).¹³⁵⁴

3) Binatan Poza-Isasti-Larramendi (*cigarra*,¹³⁵⁵ *hucha*), Poza-Oihenart-Larramendi (*ahuchar, balsa*), Isasti-Oihenart-Larramendi (*alcandora, zapato*), Oihenart-Moret-Larramendi (*zanca, zubia*) eta Etxabe-Isasti-Oihenart-Moret-Larramendi (*ribera, zatico*).

4) Banatan Garibai-Etxabe-Isasti-Oihenart-Perotxegi-Larramendi (*bahía*), Garibai-Oihenart-Moret-Larramendi (*nava*), Garibai-Oihenart-Larramendi (*arisco*), Poza-Etxabe-Isasti-Oihenart-Larramendi (*ama/amo*), Poza-Etxabe-Isasti-Perotxegi-Larramendi (*español*), Poza-Etxabe-Moret-Larramendi (*ibero*), Etxabe-Isasti-Moret-Larramendi (*ribera*), Etxabe-Isasti-Perotxegi-Larramendi (*castillo*), Etxabe-Oihenart-Moret-Perotxegi-Larramendi (*bascuence*), Etxabe-Oihenart-Larramendi (*casta*) eta Isasti-Perotxegi-Larramendi (*escuderear*).

5) Bereziki aipatzekoa da *abarca* hitza, askoz lehenagotik (Rodrigo Ximenez de Radagandik, gutxienez) baitator.

honetatik bere lanaren ikuspuntua (adibidez, harritzen da Larramendik Oihenarten “etimologiez ez duelako ezer esaten”; ik. goian § 11.1.3, hau gezurtatzeko) eta ondorioak (alegia, Oihenart ezin daitekeela “etimologotzat har, ez ontzat ez txartzat, ez bait da bere xedea etimologia egitea”, *op. cit.* 129; cf., batez ere, § 11.5) eztabaidagarriak izan, ene usteko. Azken baieztapena, Oihenart “besteena” taldetik ateratzeko ahalegin laudagarria baino ez bide da, baina, izan ere, Oihenart etimologo dugu, xedeak xede, logikak huts egiten ez baldin badit, behintzat.

¹³⁵⁴ Isastik (c. 1620: 175) hitz honetan Etxaberi jarraitzen diola aitortzen du.

¹³⁵⁵ Isastik (c. 1620: 178) agerian jartzen du Pozari jarraitzen diola.

“Katea” esan dut, baina hobeto azaldu behar nuke hau zertaz den: izan ere, benetako tradizioaz hitz egiten ari gara, behin eta berriz gaztelaniazko hitz berberak hartuak baitira hizpidean (cf. *bahía*-ren kasu aparta), nahiz bi modutara: euskarazko etimo bera beti erabiliaz (*aldea* eta *alde*, *asmar* eta *asmatu*, *bizarro* eta *bizar*, etab.) edo nor bere azalpena emanaz (*bahía*, *ibero*, etab.). Azterketak, beraz, Larramendi eta bere iturrien arteko loturak ez eze, berauen artekoak ere agertaraz ditzake.

Lehenik eta behin, azpimarratu behar da hitz askoren izaera ez arruntak berak, beste gabe, Larramendik haien etimologia eratzeko ideia, behinik behin, aipatutako idazleengandik hartu zuela adierazten duela gehienetan. Beste kontu bat da aitzindarien azalpen-saioak nola erabili zituen eta, hitz baten inguruko tradizioa dagoenean, zeinena hartu zuen erabakitzea, jakina. Oihenart erabiliena izateak, bestalde, ez gintuzke harritu behar, euskara-gaztelania etimologigintzan aurreko saio sistematiko bakarra eta inolaz ere luzeena baita.¹³⁵⁶

Azkenik, zehaztu nahi nuke ez dituela iturrietan kausitutako etimologigai guztiak bildu: Oihenartek iruzkindu 138 hitzetatik, adibidez, 1728an 51 (%37) jaso zituen, *HH*-aren hitzaurreko zerrendan 77 (%55,8)¹³⁵⁷ eta hiztegiaren gorputzean 81 (%58,7). Honen zergatia beherago (§ 11.4.1.7) eztabaidatuko dut.

11.4.1. Aitzindarien erabilera

Delako hitz batek etimologia eskatzen zuelako ideia bederen aurreko bat edo batzuegandik hartu zuela erabakita gero, konpli da orain begira dezagun xehekiago horien lana nola baliatu zuen, baliatu baldin bazuen.

Lehenengo xehetasun interesgarria da 124 etimologia hauetatik 58 jadanik Larramendi 1728n bazeudela, hots, A-B-C letretakoak izateagatik egon zitezkeen 79etatik %75 gutxi gorabehera; beraz, iturri gehienak (guztiz Oihenart) ordurako ezagutzen zituen eta, are interesgarriagoa, hiztegia osatzeko hurrengo urteetan berriro haietako zenbaitetara jo bide zuen, gehienetan —baina ez bakarrik (cf. *abrigo*, *alboroto*, *alcalde*, etab.)— lehenbiziko hartan ez zeuden letrak osatzearen.

Aurrenik Larramendik ezinbestean erabili zituen iturriak zein diren (§ 11.4.1.1) eta tradizioko hitzetan noren bertsioari atxikitzen zaion (§ 11.4.1.2) erabakitzen saiatuko naiz, eta behin hori lortu eta gero aztertuko ditugu Larramendik bere aurrekoen azalpenetan egin zituen formazko (§ 11.4.1.3) eta esanahizko (§ 11.4.1.4) aldaketak, erabat aldatutako etimologiei

¹³⁵⁶ Azalgaitza da Tovarrek (1980: 54) Etxaberen zerrenda txikia bakarrik ematea Larramendirenaren aurrekaritzat, hurrengo atalean (*ib.* 54-57) Oihenartez mintzo bada ere; dena dela, hartaz ere “prefigurando en pequeño la labor de Larramendi” soilik dio, ez iturri izan zenik.

¹³⁵⁷ Ramos-i (1994: 111) Oihenarten 135 hitzetatik 75en bat ateratzen zaizkio hitzaurreko zerrendarako; nabarmenki, lehen kopuruan ez ditu toponimoak (*Atahona*, *Arroz* eta *Ataharaze*; Oihenart 1656: 48) kontuan hartu.

buruzko zenbait gogoeta eginez (§ 11.4.1.5), baita bestelako eraginak (§ 11.4.1.6), baztertutako etimologiak (§ 11.4.1.7) eta euskalki markak ere (§ 11.4.1.8).

11.4.1.1. Larramendiren iturriak

Aurreneko ataletan (§§ 11.2 eta 3), aintzat hartzen ari garen iturrigaietatik hiru bakarrik —Oihenart, Etxabe eta Moret— zenbait etimologiaren iturri zuzen eta ezinbesteko gisara bermatu ahal izan ditugu. Oraingo corpusa nahikoa handiagoa izanik, errazagoa izango da denen partehartzea frogatzea, ikusi berri dugun bezala guztietarako aurkitzen baita berak bakarrik azal lezakeen etimologiaren bat edo beste. Halaz ere, azpimarra dezagun Oihenartek (67 batetortze) denen gainetik burua agertzen duela, oro har Larramendiren etimologiaren iturrien artean paper nagusia jokatu duela erakutsiaz. Errazenetatik hasita, beraz, hara hor Oihenarten eta Larramendiren arteko batetortze deigarrienetako zenbait, haren iturritasuna frogatzeko ez eze, 1728an bezala 1745ean ere erabilia izan zela erakusteko lain:

A-çucena, hoc rectum vel res recta, lilium autem omnium maximè scapum rectum & oblongum emittit (Oihenart).

del Bascuenze *zucená*, que significa derecho, derecha, siendo la flor que más derecha sube? (1728). de el Bascuence *zucena*, que significa derecha, y es la flor que más derecha sube (1745).

Behetrias sunt vrbes quedam siu iuris in regione Castellae, quae sibi dominos suo arbitrio eligeabant, à Vasconico *Bere-tiriác*, id est suae vrbes, vel sui iuris verbes, aut à *Behet-Iriác*, id est vrbes inferiores, vel in locis demissis sitae, quia hae feré vrbes in conuallibus conditae erant & extra aspera & praeupta montium, quae non oppidis aut vrbibus, sed Castellis munita erant, vnde etiam Castellae nomen plerique deducunt (Oihenart).

En lo antiguo *behetrías* significaban pueblos que a su arbitrio elegían señor; y en esse sentido viene de *berét-iríac*, *berét-erriác*, que se interpretan villas y tierras de su arbitrio, *sui iuris*. En lo moderno *behetrías* son lugares que no admiten nobles e hidalgos; y en este sentido viene de *behét-iríac*, *behét-erriác*, que se interpretan tierras y villas baxas, inferiores (1728).

En lo antiguo *behetrías* significaban pueblos que a su arbitrio elegían señor; y en esse sentido viene de *beret-iriác*, *beret-erriác*, que se interpretan villas y tierras de su arbitrio. En lo moderno *behetrías* son lugares que no admiten nobles e hidalgos; y en este sentido viene de *behét-iriác*, *behét-erriác*, y significa tierras y villas baxas, inferiores (1745).

Çahurda H. hara, vel suile, à Vasconico *Sar*, id est ingredi, & *vrde*, id est porcus vel sus (Oihenart). Es voz bascongada, de *sar*, entrar, y *urdea*, puerco (1745).

Çana-horia H. radix Pastinacae, quae plerumque lutei est coloris; V. *Çan-horia*, radix lutea (Oihenart). Zanahoria, raíz muy conocida, es voz bascongada, y significa raíz amarilla, qual es regularmente esta raíz (1745).

Iturri txikiagoen artean, berriz, Etxabe dukegu argiena, 6 batetortzerekin. 1728an erabili zuela jadanik egiaztatu dugu *briga*, *dureta* eta *lancea* hitzekin; 1745ean ere haren lanera itzuli zela ikusarazteko elkarrekin lotuta dauden *sago* eta *saya*-ren etimologiak, Larramendi eta biengan bakarrik lekukotuak, argudiorik onenetakoa ditugu, bien etimoak zertxobait ezberdinak izan arren:¹³⁵⁸

...su modo de vestido, que no era más que un sayo con que se cubrían: a que llamaron *Soingua* o *saghia*, y los escritores antiguos llaman *Sago*, y agora la nombramos comúnmente *Capusaya*, porque permanece todavía en las caserías de nuestras montañas, (...) y porque se vea quan mío es el origen de este Sago que fue universal en toda España de los naturales de ella junto con mi lenguaje, es su dependencia y etimología tomada de *Soingua*, que traducido en romance, aunque no con la propiedad que suena en el nuestro, quiere dezir ornato que se trae a cuestras o sobre los

¹³⁵⁸ Aurreraxeago (§ 11.4.1.3) ikusiko dugu hau hainbatetan gertatzen dela.

hombros, y este mismo sentido se guarda hasta agora entre nuestros hijos en mi language, en lo que dize y significa el vestido: y así es muy común dezir por el vestido *Soñecoa*, y por el vestir y calçar, *Soñean eta oñean* (Etxabe).

Sago, lo mismo que *sayo*, véase. Es de el Bascuence (1745).

Saya, voz de el Bascuence, que se ha conservado en los Bascos de Francia, *gona*, *saya*. Lat. Stola, tunica muliebris. *Saya* es contracción de *soingaya*, y quiere dezir materia, tela para vestirse: y por esso *saya* significa tela, como se verá en las voces siguientes (1745).

1728an *cusculia* / *coscoja*-ren etimologian Moretengandik zuzenean hartutako informazioa kausitu dugu; 1745eko *otear*-en etimologiak, Larramendi eta biek bakarrik aipatua, erakutsiko digu *HH*-an ere baliatu zuela, nahiz eta euskal etimoaren adiera batetik bestera aldatua izan:¹³⁵⁹

Y la [deducción] de *Otear*, y *Otero*, que toman del griego *Opterno* por mirar, siendo tan natural la derivación de la palabra Vascónica *Otèa* por la altura, ò eminencia (Moret).

Otear, registrar desde los lugares elevados, viene de el Bascuence *otea*, *ota*, que significa la argoma que nace en los altos y montañas, y nunca en lugares inferiores, y assí por elevados como por oportunos para ocultar al hombre son los argomales para registrar y espiar (1745).

Poza *eriotza*-ren etimologiaren iturria izan daitekeela esan eta gero, zalantza geratu zaigu beraren liburua Larramendik zuzenean ezagutu zuen, ala berarekin daukan batetortze ttikia halabeharrezkoa den; haatik, *abrigo*-ren etimologia zalantzak uxatzeko modukoa dela deritzat:¹³⁶⁰

Cantabria, como si dixésemos *Cantabriga*, es compuesto de los dos vocablos *Brigo* y *cant*, de los quales el primer vocablo significa abrigo y compañía, y de aquí los Castellanos usan del vocablo *abrigar*; y se puede colegir que si los antiguos llamaron *Brigas* a las poblaciones cercadas, fue por el abrigo que ellas prestan a los que viven en ellas. Por lo cual diremos que *Cantabria*, *Cantabriga*, significa en la antigua lengua Española Vascongada abrigo, refugio o reparo de los que viven en la aspereza de los riscos, cantos y sierras desta provincia, a diferencia de las otras poblaciones que están sitas en los llanos de las otras provincias destes reynos (Poza).

Abrigarse, recogerse o retirarse a lugar seguro y defendido, viene de la voz *briga*, y ésta del Bascuence. Véase (1745).

Perotxegiren ekarpena etimologia bakar batera mugatzen da, esan bezala, baina honetan oso nabarmenki:

...qué ethimología le darán a la palabra *modestia* en Español, y *modestie* en Francés? Sino la de *modu-estia* o *Moda-estia*, que en Bascuence significa moda dulce, suave, cortés, &c. (Perotxegi).

Díxose *modestia* de *moda*, *modu*, *molde*, forma y modo, y *estia*, de *eztia*, dulce, afable... (1745).

Garibairi dagokionez, ez dago *don*-en etimologia gogoan hartzea baino frogagarri argiagorik:

Si entre los Romanos el agnomento de Don era tan alto, muy mucho más lo fue entre los Cántabros, que a solos los santos y bienaventurados atribuhian este nombre Don o Done, que todo es uno. Esto dura hasta nuestros tiempos constantemente, diziendo por el Señor san Pedro laun done Petri o Peri, que siendo una mesma cosa, quiere dezir el Señor san Pedro, y al señor san luan, laun Done loane, y al Señor san Miguel, laun done Miguel, y al Señor San Martin, laun Done Martie, y a la Virgen María, Andra Done Maria, y a otros de la manera y forma (Garibai).

Don, título honorífico que empezó a darse antiguamente a los que por su dignidad avían de ser venerables y santos, y assí no viene de el *Dominus* Latino, sino de el *don*, *doné* Bascongado, que oy

¹³⁵⁹ Etimoaren formazko aldaketak bezala, esanahizkoak ere ohikoak dira Larramendi eta bere iturrien artean (ik. § 11.4.1.4).

¹³⁶⁰ Covarrubiasek (s.v. *abrigo*; ik. eranskina) Pozaren azalpena onartzen badu ere, bere adierazpena hain da ezberdina, eta Poza eta Larramendirenak hain antzekoak, non uste baitut azken biok zuzenean elkarren artean lotzeaz beste azalpenik ez dagoela.

ha quedado en la significación de Santo, *Donostia*, San Sebastián, *Done Juane*, San Juan, &c. *Dona Maria* o *Dena Maria*, Santa María. Lat. Dominus (1745).

Isastiren partehartzea, azkenik, ondokoaren bitartez antzeman dezakegu:

Maquilla, en bascuence quiere decir palo: y en Aragón y Asturias llaman una medida sellada, que es el derecho que se maquila para el molinero, y es vocablo de bascuence (Isasti).

Maquila, lo que se da al molinero, es voz puramente Bascongada, *maquila*, *maquilla*, y significa el palo, y *maquilatu*, *maquillatu*, apalea; y porque aquella medida que se da al molinero se arrasa con el palo, se le dio el nombre de *maquila* (1745).

11.4.1.2. Iturrien arteko auziak

Larramendiren aurreko etimologigileak maiz ez dira batere esplizituak etimologiaren azalpenari dagokionez eta, bestalde, berak behin baino gehiagotan aitzindariak eman baino azalpen hobea aurkitu uste du. Horregatik sarritan Larramendi tradizio luze edo laburrago bati atxiki zaiola baieztatu dezakegu, baina ez zehazki tradizioko partaideetatik zeini.

Bestetan, berriz, *HH*-ko eta tradizioko azalpenak bat datoz oro har, iturri zuzena zein izan den asmatzeko bide emanek, nahiz eta hauetan ere batzuetan berdintasunak berak iturri zuzenaren aurkikuntza ilundu edo ezinezkoa egin dezakeen. Bi hegi hauen artean murgildu behar gara, beraz, baldin eta ahalik eta etimologia gehienak nondik hartu zituen jakin nahi badugu.

Hautagaien artean Perotxegi bakarrik utziko nuke alde batera, oso nabarmena baita ia beti bere bidetik —tradiziotik lekora— dabilela eta, honekin bateratsu, Larramendik ez diola jaramonik egin ohi (ik. *bahía*, *bascuence*, *castillo*, *escuderear*). Gainerantzean, iturritik geratutako aztarnak, dela etimoaren forman edo dela adierazpenean, batzuetan oso nabarmenak, bestetan ttiki-ttikiak, bilatuaz etimologia idazterakoan zeinen bertsioari jarraiki dabilen erabaki daiteke batzuetan:

1) Oihenart:

ALCANDORA: Cf. Oihenart “pro indusio virili, muliebre enim aliter vocant”, Larramendi 1728 “camisa de hombre, porque la de muger se llama *atórra*” eta 1745 “camisa de hombre, *atorra* a la de muger” vs Isasti “camisa”.

BAHIA Cf. Oihenart “inde illa apud Vascones voti formula, *Bai onian helzea*, pro eo quod Latini optatum portum consequi dicunt”, Larramendi 1728 “aquella deprecación *baionean éltzea*, de que lleguen felizmente al puerto” eta 1745 “y aquella deprecación frecuente en Labortano *bayonean eltzea*, de que lleguen felizmente al puerto” vs Garibai “Bayona significa buena prenda, aunque soy yo de parecer que primero se dixo Ybayona, que quiere dezir río bueno”, Etxabe “buen río”, Isasti “prenda buena o río bueno”, Perotxegi “sí bueno o buena cosa”.

ZANCA: Cf. Oihenart *çanco*, Larramendi 1745 *zancoa* vs Moret *zango*.

ZAPATO: Cf. Oihenart “*Çapato* H. calceus; V. *Çapata*, idem” eta Larramendi 1745 “Zapato, es de el Bascuence *zapatá*, que significa lo mismo” vs Isasti (“Vocablos de bascuence en Gallego y Asturiano” atalean) “*Zapata*, zapato de muger”.

2) Etxabe:

BIZARRIA: Cf. Etxabe “También usamos llamar del mismo nombre a los gallardos y dispuestos” eta Larramendi 1745 “Por esso llamamos a un hombre garboso y denodado, *ha bizarra*” vs Isasti “porque *bizarra* en bascuence es barba”, Oihenart “conuenit autem hoc epitheton iis praesertim adolescentibus, quibus prima barbae lanugo oritur”.

ESCUDO: Cf. Etxabe *ezcutua* “el que esconde o encubre” eta Larramendi 1745 *ezcutua* “lo que encubre y defiende” vs Isasti *ezcutuan* “estar en escondido y reparado”.

3) Poza:

AMA: Cf. Poza "Porque por la madre (cuyo officio hace el ama) dizen en vascuence *ama*", Larramendi 1728 "y las amas hazen officios de madres" eta 1745 "y las que crían hazen este officio de madre" vs Etxabe "que quiere dezir madre", Isasti "*Aita, ama*. Padre, madre, son las primeras palabras que pronuncia un niño en Castilla", Oihenart "mater".

4) Isasti:

ABERE: Cf. Isasti "de donde también el latino dió nombre a la moneda *pecunia*", Larramendi 1728 eta 1745 "como en Latín *pecuniosos* de *pecus*", Etxaberengan parekorik ez duena.

CAPISAYO: Cf. Isasti eta Larramendi 1728 *capusaia* vs Etxabe *capusaya*.

CASTILLO: Cf. Isasti "*gaiztela loa*, que es malo allá dormir" > 1745 "*gatzeloa*, síncope de *gaiztela lo*, que es difícil el sueño," vs Etxabe "*Gaizteloa*, que quiere dezir lugar de vigilia y donde no es bueno el dormirse".

ESTRADA: Cf. Etxabe *estratea* eta Larramendi 1745 *estrata, estratea* vs Isasti *estrata baina*, bestalde, cf. Isasti "camino o sendero cerrado de ambas partes" eta Larramendi 1745 "camino entre vallados", Etxaberengan parekorik ez duena.

5) Moret:

ZATICO: Moret "*Zatico* es palabra manifiestamente Vascongada, y vale pedazillo, y es derivada de *Zati*, pedazo, y *Zatico* diminutivo, assimismo Vascongado, pedazillo" eta Larramendi 1745 "de el Bascuence *zaticho*, que en otro dialecto es *zatico*, pedazito, de *zattia*, pedazo, y *zaticu*, hazer pedazos" [+ *zaticuero*-ren etimologia bietan] vs Etxabe "el *çatico* es en Bascuence: y quiere dezir porción", Isasti "*zatico*, que quiere decir pedacito o porción", Oihenart "V. idem, vnde etiam verbum *Çaticaze* pro lacerare vel dissecare in varias porciones".

6) *bascuence*-ren etimologia Etxabe eta Oihenarten azalpenen arteko konbinaketa da, baina aurretiaz Moretekin egina eta, beraz, honengandik hartua:

BASCUENCE: Cf. Etxabe "*Bascoyen*, que quiere dezir población sobre montes o selvas, por quien se llamaron aquellas partes y todas las Provincias de Navarra Bascones; y mi language *Bascuence*", Oihenart "ab *Ence*, vel *Ance*, id est modus, forma, & à nomine *Vasco*", Moret "Vascuence es composición de *Vasco*, y *ence*, que vale tanto, como modo, ò forma del Vascón" eta "Y de la palabra *vaso*, que significa monte, y el caso del nombre pospuesto a la usanza, se dedujo *vasoco*, que suena del monte", eta Larramendi 1728 "de *basó*, *basocó*, de la selva, del monte, y de *anzé* y *anzá*, forma, semejanza y modo" vs Perotxegi "Bascos deriva de las palabras *Bayasco*, que en la propia lengua quiere dezir son bastantes o somos bastantes".

7) Zalantzaz egotziko nioke *ahuchar* Oihenarti:

AHUCHAR: Cf. Oihenart *hucha*, Larramendi 1728 "*huchá* en un dialecto, *cuchá* en otro" eta 1745 "*hucha* o *cucha*" vs Poza *ucha*.

8) *maxmordón* eta *moza/mozo* Isastiri:

MAXMORDON: Cf. Isasti "racimo de uba" eta Larramendi 1745 "racimo de ubas" vs Etxabe "razimo floxo y desgajado".

MOZA/MOZO: Cf. Isasti "*Motza* en bascuence es lo mismo que trasquilada, porque las de Vizcaya y Guipúzcoa andan trasquiladas los cabellos; o motillados, de *motilla*, que es muchacho" eta Larramendi 1745 "de el Bascuence *motza*, pelado, y porque solían rapar y pelar a los muchachos y gente moza, que aun oy es frecuente, se les dió esse nombre, como el *motil*, *mutil* de el Bascuence" vs Etxabe "son míos *Moço* y *Moça*, que en mi language es uno mismo; que es cosa sin cauello: como lo an usado andar en esta Cantabria, los moços y moças".

9) Eta *español* Pozari:

ESPAÑOL: Cf. Poza "...el vocablo *España* es más allegado al Bascuence que no al Griego: porque *España*, *Esbana*..." eta Larramendi 1745 "como [los Griegos] de *Ezpaña*, *España*, dixerón *Spania*" vs Etxabe "Yspan Labio", Isasti "algunos bascongados interpretan labio porque lo es de toda Europa", Perotxegi "de *Espaina*".

10) *asmar* eta *ribera*, berriz, Etxabe zein Isastirenak izan daitezke, baina ez lehena Oihenartena, ez bigarrena Oihenart edo Moretena:

ASMAR: Cf. Etxabe “pensar y adivinar” eta Isasti “pensar y adivinar”, Larramendi 1728 “pensar, prevenir, adivinar” eta 1745 “adivinar y acertar lo que es dudoso” vs Oihenart “suspiciari, existimare”.

RIBERA: Cf. Etxabe “tierra baxa y blanda”, Isasti “tierra baja y blanda” eta Larramendi 1745 *erribera* “tierra baxa y blanda” vs Oihenart *Erribeera* “id est regio infera seu demissa”, Moret *Erri-vera* “tierra baxa”.

Bide batez, Moreten *vera*-ren etimologia ere haien azalpenaz kutsatuta dago:

VERA: Cf. Etxabe eta Isasti *ribera* “tierra baja y blanda” eta Larramendi 1745 “se aplica a la tierra baja y blanda, *erribera*: *berá* es bajo, a bajo, *beraa* blando” vs Moret “*Vera* en Idioma Vascónico es *Baxa*”.

11) *Nava*-ren etimologia Garibai eta Oihenarten artean eratutakoa izan daiteke:

NAVA: Cf. Garibai “tierra llana”, Oihenart “Inde & manus vola seu concaua pars apud eamdem Gentem, *Escu-naua* nomen habet” > Larramendi 1745 “Nava, tierra llana, es voz Bascongada, y de aquí a la palma de la mano, *navescua*” vs Oihenart “planitiem aliquam montibus proximè succedentem” eta Moret “llanura rodeada de montaña”.

12) Eta, azkenik, batean 1728an Pozari darraio, eta 1745ean Oihenarti-edo:

BALSA: Cf. Poza “cosa negra” eta Larramendi 1728 “de *baltzá*; porque los charcos y balsas de aguas detenidas representan un color negro”; Oihenart “H. stagnum, aqua reses, V. idem” eta Larramendi 1745 “es voz Bascongada, cuya primera significación es *junta*, y *balsatu*, juntarse, adozenarse: *balsan gueundela*, estando nosotros juntos y en conversación: y la *balsa* es junta de aguas”.

Aldaketa hau bereziki garrantzitsua da, 1728-1745 tartean Larramendi Iparraldeko idatzietan trebatu eta etimo gisa han bakarrik agertzen den adiera bat bere alde erabiltzeko gauza izatera iritsi zela erakusten baitigu.

Gainerako hitzetan iturrien adierazpenak berdintsuak dira edota Larramendi bere kasa aritu zen, lehenago iruzkindutako hitzetarako azalpen berriak lortuz.

11.4.1.3. Formazko aldaketak

Oihenartekin batera dakartzan 71 etimologietatik 43tan haren azalpena —edo hura gogoratzen duen zerbait— erabili du Larramendik, eta antzeratsu jokatu du gainerako iturriekin. Zeharo jakingarria izan daiteke, beraz, haietaz egin duen erabilera gehiago zehaztea.

Etimoaren formari gagozkiola, honako aldaketa hauek antzematen dira iturritik Larramendirengana eta are inoiz honen bi bertsioren artean:

1) Etimoa ez da iturriarena, haren aldaera bat baizik:

ACHAQUE: *achequia* (Oih) > *achaqui* o *aitzaqui* (1728) > *aitzaquia*, *achaquia* (1745).

ALBRICIAS: *albristeac* (Oih) > *albiristea*, *albistea* (1745).

AMONTONAR: *montoa* (Oih) > *montoya* (1745).

BOGADA: lo mismo (Isasti) > *gobada* (1728 eta 1745).

BORDE: *bord* (Oih) > *borta* (1745).

CUITA: *cuita*, *coeita* (Oih) > *coita* (1745).

CENCERRO: *cinçarri* (Oih) > *cinzerri* (1728) > *cincerria* (1745).

CHORRO: *churru* (Oih) > *chorroa* (1728 eta 1745).

MAXMORDON: *mats mordon* (Isasti) > *masmordoa* (1745).

MOTILAR: *motilla*, que es muchacho (Isasti) > *mutil*, *mutilla* significa muchacho (1745).

2) *HH*-ko etimoa iturrikoarekin nolabaiteko zerikusia duen zerbait besterik ez da, dela bide argiago bat aukeratu duelako:

BRUCES: *abrusca* (< *buruzes* < *buru*) (Oih) > *buruz* (> *bruz*) (1728 eta 1745).

CHARCO: *ucharco* (< *ur* + *charco*) (Oih) > *charcoa* (1728 eta 1745).
OTEAR: *otea* "la altura o eminencia" (Moret) > *otea*, *ota* "argoma" (1745).
SAGO/SAYA: *soingua* "ornato que se trae a cuestras o sobre los hombros" (Etxabe) > *soingaya* "materia, tela para vestirse" (1745).

dela erdal hitzaren esanahiarekin hobeto datorren zerbait aurkitu duelako:

ALCARRIA ("comarca poblada de lugares pequeños"): *alcar-erria* "vbi raree sunt domus" (Oih) > *alcarric* "pareados y juntos" (1728).
COSCORRON: *cosca* "quod leuem baculi ictum denotat, cuicumque parti corporis infligatur (Oih) > *coscoa* "la parte superior de la cabeza".

3) Poza, Etxabe edo Isasti bezalako iturriekin, etimoa esplizitatu beharra izan du behin baino gehiagotan:

ASMAR: quiere dezir en mi language pensar y adivinar (Etxabe), tomado del bascuence (Isasti) > es Bascuence, y frequentísimo: significa pensar, prevenir, adivinar (1728) > propiamente significa adivinar y acertar lo que es dudoso y oculto, *asmatu* (1745).
BALSA: *Balsa* (top.) "cosa negra" (Poza) > es voz puramente Bascongada, y se dixo de *baltzá*; porque los charcos y balsas de aguas detenidas representan un color negro, y ésse en un dialecto se dize *baltzá*, en otro *beltzá* (1728).
HONESTO: significa lo mismo que bondad (Etxabe eta Isasti) > *onestea*, que es infinitivo declinable de *onetsi*, significa el amar y ser amado (1745, bigarren aukera), *oniriztea*, y significa parecer bien por lo agradable (*ib.* 3. aukera).¹³⁶¹
VERA: *ribera* "tierra baxa y blanda" (Etxabe eta Isasti) > *berá* es bajo, a bajo, *beraa* blando (1745).

4) Grafiaren aldetik, jadanik beste iturrietan antzeman ditugun joerak somatzen dira hemen ere, azpimarragarriak diren 1728-1745 arteko ezberdintasun batzuekin:

•<h> dela eta berdin jokutzen du bi bertsioetan: mantendu ohi duen arren, gutxi batzuetan ezabatu du, eta ez dirudi inguruneak eraginik duenik:

AHORRAR: *ahurra*, *ahorra* (Oih, 1728 eta 1745). AHILARSE: *hila* (id.). AHUCHAR: *hucha* (id.). BEHETRIAS: *behet-iriac* (id.). AINA: *ehiña* (Oih) > *eiña* (id.). BAHIA: *helzea* (Oih) > *eltzea* (id.).

•<v> 1728an gorde eta 1745ean aldatu egin du:

ATREVER: *atrevice*, *treve* (Oih) > *atrevi*, *atrevitzea*, *treve* (1728) > *atrebi*, *atrebitzea*, *trebe* (1745)

• Hitz hasierako bokal aurreko <i> bere sistemaren arabera <j> bihurtu du:

BURUJO(N): *io* (Oih) > *jo* (1728 eta 1745)

•<in>: <iñ>

CECINA: *idem* (Oih) > *ceciña* (1728 eta 1745)

•<ç> beti <c> edo <z> bihurtu du, sistema zaharraren arabera gehienetan:

AZUCENA: *çucena* (Oih) > *zucena* (1728 eta 1745). BIZARRO: *viçarra* (Etxabe) edo *biçarr* (Oih) > *bizarra* (id.). GARZA: *coarça* (Etxabe), *coarza* (Isasti) > *coarza* (1745). ZANCA: *çanco* (Oih) > *zancoa* (1745). ZARZA: *çarci* (Oih) > *zartzi* (1745). ZAPATO: *çapata* (Oih) > *zapata* (1745). ZARAGUELLES: *çaragollac* (Oih) > *zaragollac* (1745).

Dena dela, <ze> 1728an 1745ean baino errazago onartzen duela dirudi, nahiz azkenean ere berriren bat sartu duen:

BASCUENCE: *ance* (Oih. eta Moret) > *anze* (1728).¹³⁶² CECINA: *cezeiña* (1745). CENCERRO: *cinçarri* (Oih) > *cinzerri* (1728) > *cincerria* (1745).

¹³⁶¹ Ez da erraza Etxabe zehazki zertan pentsatzen ari zen asmatzea, baina badirudi antzeko zerbait izan litekeela.

- Kontsonante aurreko <s> ez etimologikoa gorde du:

ARISCO: *arrisco* (Oih, 1728 eta 1745).

Ondokoan, berriz, gorde arren gero forma “zuzena” ere aipatzen du:

MODESTIA: *estia* (Perotxegi) > *estia*, de *eztia* (1745).

- <s> <ss> bilakatu du, gaztelaniazkoarekin bat:

ASSAZ: Asez (Etxabe), *atsez* [sic] (Isasti) > *asse*, *asseaz* (1728 eta 1745).

- <rz> <rtz> bilakatu du:

ZARZA: *çarci* (Oih) > *zartzi* (1745)

- 1728an bokalarteko <i> gorde arren, 1745ean <y> bihurtzeko bere joerari eutsi dio:

AYO: *aio* (Oih. eta 1728) (Oih) > *ayo* (1745, s.v. *lacayo*).

BAHIA: idem [*baia*], *Bai onian* (Oih) > *baia*, *baiona*, *baionean* (1728) > *bayona*, *bayonean* (1745).

CAPISAYO: *capusaia* (Isasti) > *capusaia* (1728) > *capusaya* (1745).

5) Morfologiaren aldetik:

- Oihenarten aditzizen mugagabeak —<tz>-z ongi transkribaturik—,¹³⁶³ normalean aldatu egin ditu. Adibideak gutxiegi dira aldaketaz beste araurik aurkitu ahal izateko: batean aditzoina eta aditzizen mugatua aukeratu ditu,¹³⁶⁴ bestean (baina 1728koan) iturrikoa mantendu duen bitartean:

ATREVER: *atreuize* (Oih) > *atrevi*, *atrevitza* (1728) > *atrebi*, *atrebitza* (1745).

BARATAR: *barataze* (Oih) > *baratatze* (1728); cf. *baratatza* “baratar” (1745).

- Oihenarten izenkiak, maizenik mugagabeak, Larramendik, bere azturari jarraiki, mugatu ohi ditu; halaber, 1745ean mugagaberen batek oraindik badirau ere, nabarmena da 1728an mantendu zituenak honetan mugatu bihurtzeko joera ere:

ALCALDE: *alcate* (Oih) > *alcatea* (1745). ACHAQUE: *achequia* (Oih) > *achaqui*, *aitzaqui* (1728) > *aitzaquia*, *achaquia*¹³⁶⁵ (1745). BARRAGAN: *berreguin* (Oih., 1728 eta 1745). ZAHURDA: *urde* (Oih) > *urdea* (1745). ZANCA: *çanco* (Oih) > *zancoa* (1745). ZARZA: *çarci* (Oih) > *zartzi* (1745). CENCERRO: *cinçarri* (Oih) > *cinzerri* (1728) > *cincerria* (1745). CHARCO: *charco* (Oih) > *charcoa* (1728 eta 1745). CHICHA: *chichi* (Oih) > *chichia* (id.). CHICO: *chiqui* (Oih) > *chiquia* (id.). CHORRO: *churru* (Oih) > *chorroa* (id.).

- Inoiz -a, -ea bukaera bikoitz ezaguna ere sartu du (I, § 8.5.2.1):

CASTA: idem (Oih) > *casta*, *castea* (1745).

- Pluralean dugun bakarra, singularrean ezarri du Larramendik, agian etimologiaren azalpena errazteko:

¹³⁶² Gogoratu, bestalde, erdaraz *bascuenze* erabiltzen ari dela, 1745ean ez bezala.

¹³⁶³ Vinsonen (1891-1898: 82, 20b zb.) “C’est dans l’intervalle de 1638 à 1656, comme le montre la comparaison des deux textes du chapitre XIV, qu’il inventa le système orthographique dont il s’est servi pour ses *Proverbes eta Poésies* publiés en 1657”. Baliteke, beraz, argitalpenen arteko zerbait izatea.

¹³⁶⁴ Lehenago (I, § 8.1.2), etimologietan halako maiztasun batez aditzoina + partizipioa agertu ohi direla ikusi dugu. Bertan aurreratu bezala, bestalde, *HH*-an diren partizipioaren ordeko aditzizenetatik batzuk iturrikoak dira, ikusi dugunez.

¹³⁶⁵ Jakina, Oihenartentzat -a itsatsiduna da, baina 1728ko lekukotasunak Larramendientzat ez zela erakusten digu; kasu berbera dugu *ansia* (Oih.) vs *ansi*, *ansia* (1728 eta 1745).

ALBRICIAS: *albristeac* (Oih) > *albristea*, *albistea* (1745).

- Behin *-ian* > *-ean* bihurtu du:

BAHIA: *Bai onian* (Oih) > *baionean* (1728) > *bayonean* (1745).

6) Ordenaren aldetik, bi etimoren artean erdal hitzaren antz handiagoa duena aurreratu ohi du, batez ere 1745eko bertsioan:

AHORRAR: *ahorra* vel *ahurra* (Oih) > *ahurra* o *ahorra* (1728) > *ahorra* u *ahurra* (1745).

BUSCAR: *pusca* vel *busca* (Oih) > *buscá*, *puscá* (1728 eta 1745).

baina bada salbuespen bat, nahiz honetan Oihenartek parterik ez duen:

ACHAQUE: *achequia* (Oih) > *achahui* o *aitzaqui* (1728) > *aitzaquia*, *achaquia* (1745).

7) Edukiaren aldetik:

- Alde batera utzi ditu, bi bertsioetan, Oihenartek bildu etimo edota familiakide zenbait:

AINA: *ehiña*, *ehinqui*, *einara* (Oih) > *eiña*.¹³⁶⁶

CELADA: *celata*, *celatari* (Oih) > *celata*, *celatan egon*, *celatatu*.

CHICO: *chiqui*, *chipi* (Oih) > *chiquia*.

- Inoiz, ostera, berak erantsi ditu:

CASTA: *Castaon* "que es de buena casta" (Etxabe), idem (Oihenart) > es voz Bascongada, *castá*, *castea*, que significa lo mismo, y es síncope de *guerasta*, *guerastea*, y quiere dezir nuestro origen y principio (1745).

ESCUDO: con arta propiedad de su oficio, llamo yo *Ezcutua*, que quiere dezir el que esconde o encubre (Etxabe) > de el Bascuence *ezcuta*, *ezcutatu*, cubierta, cubrir, encubrir, y *ezcutua* lo que encubre y defiende, como lo haze el escudo (1745).

ZATICO: el *çatico* es en Bascuence: y quiere dezir porción (Etxabe), que quiere decir pedacito o porción (Isasti), vnde etiam verbum *Çaticaze* por lacerare vel dissecare in varias portiones (Oihenart), derivada de *Zati*, pedazo, y *Zatico* diminutivo, assimismo Vascongado, pedazillo (Moret) > de el Bascuence *zaticho*, que en otro dialecto es *zatico*, pedazito, de *zattia*, pedazo, y *zaitu*, hazer pedazos (Larramendi 1745, s.v.).

- Etimo edota aldaera berriak erantsi ditu:

AHUCHAR: *hucha* (Oih) > + *cucha* (1728 eta 1745). Cf. Isasti "que se pronuncia con C en bascuence".

BEHETRIAS: *beret-iriac*, *behet-iriac* (Oih) > + *beret-erriac*, *behet-erriac* (1728 eta 1745).

CABO: *Cabo*, que en romance significa remate y fin de alguna cosa, es de mi language (Etxabe), *Cabo*, remate o fin de alguna cosa, es vocablo de bascuence (Isasti) > + *buca*, trastocadas las sílabas (1745).

CECINA: idem (Oih) > *ceciña* (1728) > *ceciña*, *cezeiña* (1745).

TETA: *titia* (Etxabe) > *titia*, *ditia* (1745).

ZANCA: *zanco* (Oih) > + *zanca*, y esta última es la que entra en composición (1745).

ZARZA: *çarci* vel *sassi* (Oih) > *zartzi*, *sartzi*, *sasia* (1745).

Hiru talde egin daitezke: *zanca*, *zarza* eta *cecina*-n, tarteko formak eskainiaz erdal hitza eta etimoaren arteko lotura indartu nahi izan duela dirudi; *ahuchar*, *behetriás* eta *cabo*-n, ostera, azalpenik begibistakoena, etimologiari egiantz handiagoa emateko asmoz berarentzat —eta ausaz bere irakurle askorentzat ere— ezagunago zen aldaera ekarri izana dateke;¹³⁶⁷ *teta*-n, azkenik, ekialderagoko aldaera dela eginik (cf. Azkue, s.v.), halako arrazoi berezirik gabeko eransketa bide da: aldaera (ordain) berri bat, besterik gabe.

¹³⁶⁶ Kasu honetan ongi ezagutzen dugu beste biak alde batera uzteko arrazoia: *eiña* "fácilmente" itzuli zuen Larramendik, beti bezala etimoaren eta erdal hitzaren arteko esanahizko kidetasuna hobetu nahian.

¹³⁶⁷ Bigarrenaren kasuan, *Beterri*-n pentsatzen ari zen, ziurrenik.

- Inoiz, ordea, eransketak iturrikoarekin zerikusirik ez duten aukera berriak dira:

ASCO: V. *Asco*, multum, nimium (Oihenart) > de dos modos, 1. de *atsá*, cosa puerca (...). 2. *ascó* significa mucho y sobra, y porque en comiendo mucho y sobradamente provoca a vómito, por esso *asco* aquel movimiento (1728) > ...viene de el bascuence, 1. o de *ats*, *atsa*, cosa puerca, y de *jo*, pegar, (...); 2. o de *ats*, *atsa* y la partícula *co* (...). 3. o de *ascó*, *asqui*, mucho y sobra; y comiendo mucho y sobradamente nos da *asco* (1745).

GARZA: *coarça* (Etxabe), *coarza* (Isasti) > *gartza* “eslabón” edo *coarza* “garza” (1745).

MODESTIA: *modu-estia* o *moda-estia* (Perotxegi) > *moda*, *modu*, *molde* + *estia* edo *estua*, *ersia* (1745).

Azkenik, erdal hitzaren forma bera ere alda dezake (cf. Oih. *chirriar* vs 1728 *cherriar*, 1745 *chirriar*, *cherriar*) baldin eta gaztelaniazko aldaera bat etimotik hurbilago badago, jadanik ezagutzen dugun bezala (§ 6.3.2.1). Honekin zeharo lotuta dago inoiz egiten duen femeninoaren erabilera ere (cf. Oih. *çuzio* vs 1745 *sucio*, *sucia* < *zuciá*).

11.4.1.4. Esanahi aldaketak

Larramendiren azalpenak oro har Oihenartenak baino askoz luzeagoak direla begietan jotzen duen gertakaria da. Zuberotarra, salbuespen markagarri zenbaitekin, oso zehatza izan ohi da, sarritan gutxieneko informazioa —inoiz informazio gutxiegi, agian— baino ez jasoaz. Etimoa euskal hitz oso eta bakar bat izan ohi da: nekez zatikatzen du erdal hitza (salbuespenak: *Alcarria*, *baldío*, *bascuence*, *behetriás*, *burujo*, *zahurda* eta *zanahoria*) eta nekezago euskal hitza (salb.: *arisco*, *atrever* eta *charco*).

Larramendi ez da horrekin erraz asebetetzen: bere etimologi azalpenen ezaugarri nagusi bi aipatu behar badira, hitzaren eta etimoaren arteko kidetasun semantikoa ahalik xehekiena finkatzea eta bataren zein bestearen deskonposaketa azkeneraino eramatea lirateke alde honetatik berehala jaulkiko nituzkeenak.¹³⁶⁸

Ondorioz, Oihenartek azalpen luze edota zehatzagoak eskaintzen dizkionean, Larramendik gogoz erabili ohi ditu, gehienetan ia-ia hitzez hitzeko itzulpena eginaz (ikus bitez *azucena*, *ahorrar*, *alcandora*, *arisco*, *achocar*, *atrever*, *barragán*, *behetriás*, *berro*, *bahía*, *buscar*, *zahurda* eta *zanahoria*).

Gainerako iturriekin ere antzerako gorabeherak izan zituen: aitzindariak batzuetan etengabeko azalpenetan luzatzen dira, bestetan motzegi geratzen diren bitartean. Ezinbestean ia, bere ohiko moldeari (eta hiztegiaren izaerari) egokitu behar izan dizkio inorenetik hartutako etimologiak. Batzuk osatu egin ditu, edo iturriak aipatu baino egiten ez zuen zerbait erantsiaz:

ALCANDORA: *muliebre enim aliter vocant* (Oih) > *la de mujer se llama atorra* (1728) > *atorra* *la de mujer* (1745).

edo iturriak zeukan jauzi logikoa osatuaz:

¹³⁶⁸ Honetaz eta beste ezaugarri zenbaitez ik. Urgell 2000b; dena dela, egiten ditudan baieztapen hauen ale ederrak kausituko dira hurrengo lerroetan.

BAHIA: idem, inde illa apud Vascones voti formula, *Bai onian helzea*, pro eo quod Latini optatum portum consequi dicunt (Oih) > + significando *baía* seno o cóncabo orbicular, por la semejanza se llamó *baía* a la ensenada del mar. Por eso llamamos *baiona* al buen puerto (1728) > significa puerto; y llamamos *bayona* al buen puerto (1745).

MAQUILA: palo (Isasti) > + y porque aquella medida que se da al molinero se arrasa con el palo, se le dio el nombre de *maquila* (1745).

MOTILAR: y el *motilar* que usa el romance es de mi language, que quiere dezir remoçar, rapar y tresquilar (Etxabe), porque las de Vizcaya y Guipúzcoa andan trasquiladas los cabellos; o motillados, de *motilla*, que es muchacho (Isasti) > de el Bascuence *motildu*, *mutildu*, que significa pelar, desplumar, &c. y también hazerse muchacho y criado, porque *mutil*, *mutilla* significa muchacho, y en un dialecto también mozo, criado; y porque estos antiguamente andaban rapados, por eso al rapar llamaron *motilar* (1745).

edo parekotasun semantikoa aurrerago eramanaz:

BUSCAR: *pusca*, quod tenues ligni vel stramenti particulas significat (Oih) > pedacitos menudos de cualquiera materia que cuesta trabajo y proloxidad el recogerlos (1728) > pedazo u pedacito menudo que cuesta trabajo el hallarlo (1745).

Hirugarren motako adibide gehiago aurkitzen ditugu, ezinbestean, iturriak etimo soila edo etimoa eta itzulpena bakarrik eman dituen haietan:

AHILARSE (“padecer desmayo”): *hila*, mortuus (Oih) > + se aplica también a un desfallecido (1728 eta 1745).

ASCO: *asco*, multum, nimium (Oih) > significa mucho y sobra, y porque en comiendo mucho y sobradamente provoca a vómito, por eso *asco* aquel movimiento (1728) > mucho y sobra; y comiendo mucho y sobradamente nos da *asco* (1745).

CABO: *Cabo*, que en romance significa remate y fin de alguna cosa, es de mi language (Etxabe) > *Cabo*, remate o fin de alguna cosa, es vocablo de bascuence (Isasti) > de el Bascuence *cabua*, que significa lo mismo; y *cabu* se dixo de *buca*, trastocadas las sílabas; y *buca* significa el fin, remate, el acabarse, y es lo que conviene al *cabo* (1745).

CHICHA: *chichi*, idem (Oih) > *chichia*, que significa lo mismo (1728) > + que significa carne echa pedacitos que puedan darse a los niños (1745).

CHORRO: *churru* item *churre*, *chorretar*, fluere; V. *churriaze* vel *churretaze* (Oih) > significa el caño por donde sale el agua en las fuentes, y se formó por onomatopeya (1728).

ZUBI: pons (Oih) > y porque éstos suelen estar donde hay mucha agua, se le dio a ésta el nombre de *zubia* (1745).

Beste bide bat, aurrekoarekin batera ager daitekeena, etimoa esanahizko lotura indartzen duten zatitan deskonposatzea da; ohartu halako gehienak 1745ekoak direla:

ALBOROTO: idem (Oih) > + puede venir del bascuence *bero*, *berotu*, calor, calentarse y encenderse, que es causa u efecto del alboroto (1745).

ALBRICIAS: *Albristeac*, idem (Oih) > + de *al* y de *iristea*, alcanzar lo que se puede (1745).

ALCALDE: *Alcate*, idem (Oih) > + que significa poder de cadena, de *al*, *alá*, poder, y *catea*, cadena; y el alcalde tiene esa potestad (1745).

ASMAR: vocablo antiguo en Castilla, quiere dezir en mi language pensar y adivinar (Etxabe), pensar y adivinar: language antiguo de Castilla tomado del bascuence (Isasti) > es Bascuence, y frequentísimo: significa pensar, prevenir, adivinar (1728) > + y *asmatu* viene de *asmoa*, que significa ya acierto en lo dudoso, ya el primer ofrecimiento o pensamiento (1745).

AZCONA: idem (Oih) > + *azco-ona*, buena para los dedos (1728) > *azco-ona*, apta y a propósito para manejarse con los dedos (1745).

BIZARRIA: se usa llamar a un hombre baronil y de hecho *Viçarra* (Etxabe), à nomine *Biçarr*, id est barba (Oih) > *bizarra*, esto es, *biz arrá*, y significa esto vir, esto masculus, sea varonil, sea másculo (1728) > *bizarra*, *biz-arra*, esto es, sea varonil, sea masculino, esto vir, esto masculus (1745).

BOGADA: “lo mismo” (Isasti) > *gobada* (1728) > + “de *gopata*, colisión, encuentro, golpe mútuo, y así se limpia la colada a golpes mútuos de la piedra y de lo que se limpia y sacude en ella, y *gopata* de *jo* y *batetan*” (1745).

CARRASCA: idem (Oih) > + de *car* o *gar*, llama, y *asco*, mucha; y el carrasco levanta mucha llama (1728) > *carrasco*, *garrasco*, significa mucha llama, y el carrasco es oportuno para eso (1745).

CASTA: idem (Oih) > es síncope de *guerasta*, *guerastea*, y quiere decir nuestro origen y principio (1745).

CECINA: idem (Oih) > + *ceciña*, síncope de *cecen illá*, toro muerto (1745).

CHICHA: *chichi*, idem (Oih) > + de *chitchea*, muy menudito (1745).

CHORRO: *churru* item *churre*, *chorretar*, fluere; V. *churriaze* vel *churretaze* (Oih) > + viene de *zorrotz*, *chorrotz*, que significa aguzada y en punta: y *chorro* se llama el golpe de agua estrechada y como aguzada (1745).

ESTRADA: quiere decir calle, y particularmente la que hazen los setos de las heredades (Etxabe eta Isasti) > que en varios dialectos significa calle, camino, y camino entre vallados. Su primera significación es camino entre vallados, a que se entra por una puerta, de *es*, *esía*, vallado, y *ata*, *atea*, puerta. Lat. *Strata via* (Larramendi 1745, s.v.).

GUARDIA: *Guardar* se tomó de mi language, *Guardián* y *acauamiento*, aunque están algo romanceados (Etxabe), *Guardián*, el que está guardando, como el Guardián de San Francisco (Isasti) > síncope de *guarda día*, multitud de los que guardan (1745).

HONESTO: significa lo mismo que bondad (Etxabe eta Isasti) > de el Bascuence *onestoa*, que significa lo mismo, y sale, o de *oneustea*, o de *onestea*. si de *oneustea*, quiere dezir que es bueno tenerla, tomarla y assirse de ella, y quadra esto grandemente a la honestidad, de *on*, bueno, y *eutsi*, *eustea*, tener, tomar, assir. Si de *onestea*, que es infinitivo declinable de *onetsi*, significa el amar y ser amado, y la honestidad es amable y se haze amar. (...). Puede también ser síncope de *oniriztea*, y significa parecer bien por lo agradable, y nada parece mejor, ni es más agradable que la honestidad (1745).

MAXMORDON: *Mats mordon*, racimo de uba (Isasti) > *masmordoa*, que significa racimo de ubas, de *mats*, uba, y *mordoa*, racimo, y llamamos por desprecio con esse nombre a los ruines y necios, y también a los vellacos (1745).

ZAMARRA: idem (Oih) > es contracción de *zamanarra*, *zamalarrua*, pellejo de cargas, porque sirven de cubrirlas (1745).

ZAPATO: *çapata*, idem (Oih) > + de *atzapata*, *atzapeata*, que quiere decir para los dedos inferiores, que son los del pié (1745).

ZARZA: *Çarci* vel *sassi*, dumentum (Oih) > se compone de *ci*, *cia*, punta aguda, y de *sar*, *sartu*, entrar, o de *zar*, *zartu*, envejecer, romper; y ambas cosas cuadran a la zarza (1745).

Eta azkena, euskarazko erabilera eranstea, beti ere hain garrantzitsua deritzan lotura semantikoa zainduaz:

ANSIA: cura, sollicitudo > + *eztá ansi*, no es cosa de cuidado, no importa nada; *cer da ansi?* qué importa? *ansicabea*, descuidado y flojo (1728 eta 1745).

BALSA: idem > es junta, y *balsatu*, juntarse, adocenarse; *balsan gueundela*, estando nosotros juntos y en conversación; y la *balsa* es junta de aguas (1745).

CELADA: *celata*, idem, inde *celatari*, id est, insidiator > + *celatan egon*, estar acechando y de centinela, y de aquí decimos *celatatu*, acechar (1728 eta, aldaketa zenbaitekin, 1745).

CERRO: V. *cerra*, idem (Oih) > + y decimos *cerrautsean*, en cerro (1745).

Arrazoi beragatik —baina baita, batzuetan bederen, ezagutzen zuen euskaragatik— “zuzendu” egin ditu iturrien itzulpen eta azalpen zenbait; hauek gehienez jadanik 1728ko bertsiotan formulatuta daude:

ANCHO: *anditxo* = *magnus* > grandecito (1728 eta 1745).

ALDEA: *alde* = que significa vezina (Etxabe), cosa que está cerca (Isasti), *locum vicinum seu conterminum* (Oih) > cerca, cercanía y también alrededor y en el circuito. Y las aldeas son lugarcitos cercanos de las ciudades y villas grandes (1728) > cerca, cercanía, alrededor y al lado. Y las aldeas son lugarcitos cercanos de las ciudades y villas grandes (1745).

AINA: *ehiña* = *facilis* / *ehinqui*, *einara* = *facillimè* > *eiña* “lo mismo” (1728 eta 1745).¹³⁶⁹

ASSAZ: Y Asez es artura o abundancia (Etxabe), *atsez* es hartura (Isasti) > *asse*, *asseaz*, con hartura, satisfacción, demasía (1728 eta 1745).

BARRENAR: *barren* = *profundus* > *barrena* = dentro, a dentro, y el instrumento es para que entren dentro los clavos con más facilidad (1728 eta, aldaketa txikiekin, 1745).

BURUJO(N): *buru-io*, *caput laesum* > de *burú*, cabeza, y *jo*, cascar; y porque de eso se levantan hinchazones en la cabeza... (1728 eta, aldaketa txikiekin, 1745).

CASTILLO: *gaiztela loa*, que es malo allá dormir (Isasti) > que es difícil el sueño, y se significa la vigilancia que ha de aver en los castillos (1745).

GALDUDA: es lo mismo que perdida (Isasti) > son dos voces Bascongadas, *galdu* y *da*, que significan se ha perdido (1745).

IZQUIERDO: *Hizquierdo* y *hezquedar*, bocablo antiguo, es de mi language; quiere dezir ceñir a la siniestra (Etxabe) > de el Bascuence *ezquerdo*, *ezquerrá*, que significa lo mismo (1745).

¹³⁶⁹ *eiña*, gainera, gero s.v. *fácilmente* jasotzen du Larramendik.

Oso gutxitan aurkitzen dugu Larramendirengan azalpen labur zuzenik, nahiz egon badauden, eta batzuk iturriak eragindakoak:

- AMONTONAR: V. *Montoa*, cumulus, aceruus (Oih) > del bascuence *montoya*, montón (1745).
BARATAR: V. *Barataze*, idem (Oih) > *Baratátze* es vocablo bascongado que en dialecto labortano significa lo mismo que *baratar* (1728) > es palabra bascongada, que en labortano significa lo mismo (1745).
CUITA: V. *Cuita* vel *Coeita*, idem (Oih) > de el bascuence *coitá*, que significa lo mismo (1745).
CENCERRO: V. *Cinçarri*, idem (Oih) > del bascuence *cinzerri*, que significa lo mismo (1728) > de el bascuence *cincerría*, que significa lo mismo (1745).
IZQUIERDO: *Hizquierdo* y *hezquerdar*, bocablo antiguo, es de mi language; quiere dezir ceñir a la siniestra (Etxabe), *Ezquerdar*, ceñir a la izquierda (Isasti) > de el Bascuence *ezquerdo*, *ezquerrá*, que significa lo mismo (1745).
RIBERA: quiere dezir tierra baxa y blanda (Etxabe), tierra baja y blanda (Isasti) > de el Bascuence *erribera*, que significa tierra baxa y blanda (1745).

Areago, inoiz etimologia jakintzat eman du azalpenik gabe, batez ere 1745ean:

- CACA: que assi llaman en esta lengua al estiercol del hombre (Garibai) > viene de el Bascuence *cacá* (1745).
CHICO: V. *Chiqui*, item *Chipi*, idem (Oih) > del bascuence *chiquiá*, cosa pequeña y menuda (1728) > es voz bascongada (1745).
ESPAÑOL: porque *España*, *Esbana*, en Bascuence significa tierra de buena labia y lengua, como si por vía de excelencia de sus elegantes y agudos conceptos con que esta nación habla, por ello uviesse heredado el nombre que le corresponde (Poza), etab. > Tiene origen Bascongado (1745).
GANIVETE: de mí tiene su origen, y dize filo cortante (Etxabe), el cuchillo filo cortante (Isasti) > es voz Bascongada (1745).
IBERO: *Ibero* quiere dezir tú azia baxo, tú abochornado, tú caliente, todas las quales propiedades concurren en él, porque el río Ebro nace en las más altas vertientes de Castilla, y corre derecho a las baxas de medio día. Y otrosí por todo el se producen muchas nieblinas (Poza), ...llamaron al río *ubero* y también *ybaiuero*, que quiere dezir río caliente (Etxabe), > es voz Bascongada, *Ibero*, que es el nombre que se dio al Ebro, y de allí a todo el país (1745).
SARNA: dize calor brotada (Etxabe) > es voz Bascongada (1745).

Batzuetan erdal hitzaren adiera bera (inoiz formazko aldaeraren batez lagundurik) ezberdina da eta, dena dela, iturria eta *HH*-aren artean erlazioa dagoela egin behar dugu, zeren eta etimoa mantentzeak (cf. *cerro* < *cerra*, *leya* / *laya* < *laya*)

edota Oihenarten formaren badaezpadakotasuna bi hitz azaltzeko baliatzeak (cf. *buche* eta *bucha*) argi eta garbi uzten baitigu gainerakoetan dagoen batetortzea ez dela halabeharrezkoa, Larramendiren erabaki baten ondorio baizik:

- BAZA: "color fuscus" (Oih) > "junta de algunos naypes que uno gana" eta "principio y fundamento" (1728 eta 1745) vs "bazo, color", etimologiarik gabekoa.
BUCHA: "ventriculus animalis seu ingluuies auis" (Oih) > *bucha* "hucha" + *buche* (1745).
CERRO: "collis" (Oih) > "espinazo, lomo" (1745) vs "cerro, *mendisca*, *munoa*", etimologiarik gabekoa.
LAYA: *laya* = *leya* (Etxabe) > *laya* "calidad, grado, condición" (1745); *leya*-rik ez dago *HH*-an.
ZURRA: *zurrar* "dissoluere, corrumpere" (Oih) > *zurra* "castigo" (1745) vs "zurrar, lo mismo que *curtir*, véase", etimologiarik gabekoa.

Bide beretik doa "etimoen berziklaketa" dei dezakeguna, alegia, iturriak delako hitz baterako proposatutako etimoa aldatu, baina beste baterako erabiltzea:

- CHOZA: < *choch* "schidia seu assulae" vs *echola*, *echotza* (1728 eta 1745).
CHOCHEAR < *tocho* (Oih) vs *chocha* "palito menudo" (1728 eta 1745).

11.4.1.5. Zeharo aldatutako etimologiez

Aitzindarien eragina neurtzerakoan garrantzi gehiena Larramendirengan itxura batean edo bestean dirauten etimologiei aitortu behar bazaie ere, ez dago zalantzarik alde batera utzi

dituen azalpen etimologikoen taldea ere oso esanguratsua dela, guztiz Oihenartengandiko 24ak.

Oihenarten aldetik, argi eta garbi, ez dute kasualitatez etimologia lortu, haren zerrendan bazutelako baizik, kopuruak berak adierazten duen bezala. Beraz, haren eragina neurtzerakoan, hauek ere kontuan sartu beharrekoak izango dira.

Larramendiren aldetik, berriz, 1728ko eta 1745eko bertsioen artean gertatzen diren aldaketak bermetzat har ditzakegu, hasieratik bertatik Larramendik bere iturrien proposamenak bahetik igaro zituela sinisteko. Eta berritu zituen etimologia hauek —hartu ez zituenez esan daitekeen bezalaxe— Larramendi arlo honetan hobe beharrez ari zela erakusten digute: xedea etimologiak pilatzea izan balitz, Oihenarti jarraitzea zeukan, burua hautsi beharrik gabe.

11.4.1.6. *DAut*-en eragina

Aztertzen ari garen etimologietatik gutxi batzuetan, baina nabarmenki, hiztegiko gainerako alderdi askotan bezala *DAut*-en itzala ere kontuan hartu beharrekoa da.

Hurrengo hitzean, bera ere euskal hitzat ezagutzera prest dago; *HH*-ko etimologia, azken finean, ez Oihenartena, ez *DAut*-ena da, Larramendirena baizik:

AZCONA: H. genus teli; V. idem (Oihenart), ...pero lo más natural es que se llama así de la palabra vascongada *gascona*, por ser arma que usaban los gascones, y oy la llaman así en Navarra y en Gasuña, y el mismo Covarr. en esta voz escrita con *h* es de este mismo sentir (*DAut*), ...es voz bascongada, *azco-oná*, apta y a propósito para manejarse con los dedos (1745).

Halaz ere, *DAut*-ek euskal etimologia aipatzea oso gertakari bakana da, jakina.¹³⁷⁰ Aitzitik, Larramendik euskal hitzari eman dion esanahian zerikusia izatea, eta are sarritan bertako etimologia esanahiaren aldetik berdintzeko ahalegina egitea —bere etimologigintzaren ezaugarrietatik bat (§ 6.4)— sarritan antzeman daiteke, eta hauxe da, izan ere, aitzindarien etimologiak aldatzeko izaten zituen zioetatik bat:

ASMAR: pensar y adivinar (Etxabe), pensar y adivinar (Isasti) / pensar, prevenir, adivinar (1728) / significa adivinar y acertar lo que es dudoso y oculto (1745) / *Asmamiento*. El acto de juzgar atenta y prudentemente las cosas que son dudosas o inciertas (*DAut*).

BALSA: voz Bascongada, cuya primera significación es *junta*, y *balsatu*, juntarse, adozenarse: *balsan gueundela*, estando nosotros juntos y en conversación: y la *balsa* es junta de aguas. *Balsa*, *basá*, *aintzira*, *langoa* (1745) / La raíz de esta voz parece viene del Hebreo *Balas*, que significa juntar, invertidas las dos últimas letras (*DAut*, s.v.).

BECOQUIN: cosa con que se ciñe la frente (Etxabe eta Isasti) / de el Bascuence *becoquia*, frente, hasta la qual cubre el *becoquín* (1745) / Tráhela Covarr. en la palabra Beca, y dice que en Toscano llamaron así a la beca, porque cubría el rostro (*DAut*).

¹³⁷⁰ Larramendik sei zenbatu zituen, denak Z lettran (1745: cxix-cxxiv), baina orotara zortzi dira: *azcona*, *bizarro*, *zahurda*, *zanahoria*, *zanca*, *zaragüelles*, *zarza* eta *zubia* (gai honetaz, cf. Urgell 2000g).

11.4.1.7. Baztertutako etimologiak

Behin eta berriz Larramendik eman baino are etimologia gehiago erraz erants zezakeela aldarrikatu zuen:¹³⁷¹

Dexo también aquí otras muchas voces, a las quales me sería fácil dar etymología propia en el bascuence: pero, ni tengo tiempo, ni quiero avultar demasiado este escrito (1728 : 80).

Aún digo más, que otras muchas voces he dexado del romance, a quienes pudiera sin mucha dificultad dar etymologías en el bascuence, y las hallará otro que quisiere trabajar en esto (1745 : cxxxv).

Honek esan nahi du, besteak beste, ziurrenik argi eta errazenak —edota hobeto zeritzenak, besterik gabe— aukeratu zituenez gero, ez genukeela gehiegi nekatu behar alde batera utzitakoen arrazoiaren eske. Alde honetatik kontuan hartzekoa da 1728ko bertsiotik 1745ekora gertatzen diren aldaketen artean batzuk etimologiak desagertzea dela, hain zuzen (cf. *bascuence*). Edonola ere, batek daki Oihenartengan aurkeratu ditudan hurrengo etimologia aski itxurosoak —Larramendiren sistemaren barnean, jakina— zergatik ez dituen jaso:

ARGAMASA: H. genus parietis lapide & terra quadam tenaci confecti; V. idem, ab *Arri*, id est lapis, & *gamassa*, terrae genere.

CACHORRO: H. catulus; V. vnicâ transpositâ litterâ *chacorr* vel *chacurr*, idem.

CORRERSE: H. verecundari, erubescere prae pudore; V. *Corrize* vel *gorrize*, erubescere, rubore suffundi.

Dena dela, badira aise antzeman daitezkeen arrazoi —edo eragozpide— zenbait; Oihenartengandikoetara mugatuko naiz honetan:

1) *HH*-an agertzen ez diren sarrerak izatea: *acezar* “secernere, cribare”, *arriate*, *arrajaque*, *Ataharraz* (top.), *Atocha* (top.), *barrena* “genus lancis rusticae & pastoritiae cauae & profundae”, *burjaca*, *buzos*, *churrulero*. Halaxe desagertu da 1728an bazegoen *Alcarria*-ren etimologia ere.

2) Mailegua eta etimoa formaz berdinak izaki, azalpen lagungarririk ez egotea: *acequia* (idem), *atalaya* (idem), *bohordo* (idem), *borrar* (*borraze*, idem), *burlar* (*burlaze*, idem), *cansar* (*cansaze*, idem), *casca* (idem), *cascar* (*cascaze*, idem), *cecear* (idem), *chamuscar* (*chamuscaze*, idem), *chupar* (*chupaze*, idem), *zurrapa* (ez du V[asconice] jartzen). Arrazoi beragatik aldatu bide ditu *baça* (*baza* “pro eodem aut pro quolibet colore”), *caracol* (idem > *baraculloa*) edo *chocho* (*tocho* > *chocha*)-ren etimoak ere.

3) Formaz antzekotasunik egon arren, semantikoki azaltzerik ez dagoenean: *cazo* (*caxa*, idem), *cazurra* (*guezurra*, mendacium), *cureña* (*greña* vel *griña*) eta, beharbada, *carcajada* (*carcaza*, idem; Larramendirentzat *karkaxa* “gargajo” da, jakina). Arrazoi berak behartu bide zuen *chocho* (*tocho*; cf. Lar. “tocho”)-ren etimoa aldatzera.

¹³⁷¹ Ideia jadanik Oihenartengan dago (1656: 40): “Podría repasar también las otras letras del Alfabeto, y anotar en cada una muchas palabras hispánico-vascas; ni tampoco sería difícil añadir a éstas las que arriba inserté, sacadas casi sólo del idioma de los vascos aquitanos, sobre todo las que son comunes entre los vascos iberos con los habitantes españoles; mas como busco la brevedad, me es forzoso dejar para que otros las investiguen”.

11.4.1.8. Euskalki markak

Erdal iturrien azterketak *HH*-an dauden dialektoko marka bakanetatik batzuen eragilea zein den erakutsi digu:

1) Oihenart dugu nagusiena: lau hitz (*anda* “andas”, *baratatu* “baratar”, *berregin* “barragán” eta *berro* “berro”) “labortano”-tzat jotzen ditu bi bertsioetan; 1728tik 1745era “labortano” zenbait “un dialecto” bilakatuta agertzen dira (*ahurra* “ahorrar”, *eiña* “aina”), euskal hitzak orokortzeko asmoaren alde (I, § 3.4.3). Alderantziz, *baionean eltzea* “bahía” lapurteratzat jorik agertzen da 1745ean, nahiz 1728an ez zuen ezer markatzen. 1728an bakarrik agertzen den *aio* “ayo” ere euskalki beraren barruan kokatzen du;¹³⁷² bertsio berean *hila* (“ahilarse”) “en un dialecto” bere <h>arengatik berezia agertzen da (baina ez 1745ean) eta, 1745eko etimologia berrien artean, *borta* lapurteratzat (baina Oihenartek *bord* zekarren) eta *zartzi* “en Zuberoa” marka are bakanagoarekin —baliteke agerraldi bakarra izatea— dakusgu.

2) Moret da *cusculia* “en Labort” (1728: 19) adierazpenaren iturria, bertan (*ib.* 79) “en un dialecto” bihurtua eta 1745ean desagertua.

3) Adierazpen zehazgabea (“en varios dialectos”, “en un dialecto... en otro...”), hain nabarmena ez den kasuetan, zeri dagokion asma dezakegu iturrien laguntzaz:

AHUCHAR: *hucha* (Oih) > *huchá* en un dialecto, *cuchá* en otro (1728) > de el Bascuence *hucha* o *cucha* (1745).

BALSA: cosa negra (Poza) > en un dialecto se dize *baltzá*, en otro *beltzá* (1728).

ESTRADA: quiere decir calle, y particularmente la que hazen los setos de las heredades (Etxabe eta Isasti) > que en varios dialectos significa calle, camino, y camino entre vallados (1745).

HUCHA: *ucha* (Poza), *ucha...* que se pronuncia con C en bascuence (Isasti) > en un dialecto ha quedado *ucha*, y en otro dezimos *cucha* (1745).

Hirugarren adibidean “gipuzkera-eta” gutxienez ulertu behar dugu. Laugarrenean, berriz, “bizkaieraz..., gipuzkeraz...”; ohartu, gainera, *dezimos*-ari, argi eta garbi bere burua ere sartzen baitu, Isastiren lekukotasunarekin bat eginez. Dena dela, erabateko zehazgabetasuna deigarria da: “en un dialecto”-k ziurrenik ez du “hiruretatik bakar batean” esan nahi, *baltza* / *beltza* adibideak erakusten duen bezala.

4) Behin bederen ziur aski “en un dialecto” adierazpena ez dagokio Oihenarti, lehenengo begiradan halaxe badirudi ere: *barrena* “dentro, a dentro” (1728 eta 1745) vs Oih. *barren* “profundus”; ene ustez, *barrena* Beterriko ezaugarritzat jotzen dueneko pasartearekin (*Corografía* 301) lotu behar da zehazkiago eta, gainera, jadanik 1728koa denez gero, Larramendirentzat oso ezaguna izan behar zela ahaztu gabe.

11.5. Etimologigintza berria

Oihenarten eragina Larramendiri eskaini zizkion etimologiaren kopuru handiaren arabera bakarrik neurtzea, bien artean dagoen erlazioaren alderdirik garrantzitsuenak estaltzea da. Etimologiak egiteko eran Poza eta Etxaberengandik Oihenartengana dagoen jauzia alde

¹³⁷² 1745ean s.v. *lacayo* agertzen da, baina euskalkia markatu gabe.

askotatik izugarria da, eta Larramendik jite berri horren abantailak antzematen ez eze, bere kabuz erabiltzen ere jakin zuen.

Etimologietan izan zuen eragina bezain garrantzitsua edo areagokoa izan daiteke Larramendik Oihenartengan etimologiei oinarri emateko ikasi zituen hots-aldaketa motak,¹³⁷³ eta oro har hotsen arloari honi eman ahal izan zion garrantziaren bultzadarik handienetakoa, zeren eta idatziz jaso zein ez, hainbat etimologia baldintzatu baitzituen, batez ere (eta hau da interesgarriena, inondik ere) berarengandik hartu ez zituenak, jadanik lehenago (§ 6.3.2.2) ikusi dugun bezala.

Gainerako aitzindariak alde batera eta Oihenart / Larramendi bestera ezartzera behartzen gaituen bigarren ezaugarria toponimiaren erabilera da. Izan ere, Oihenartek ez zion toponimiazko azterketari baliorik ukatu, alderantziz baizik, A letraz hasten diren hitzen zerrendaren amaieran ezarri zuen lerrokada honek erakusten duen bezala:

Sunt etiam quaedam alia nomina vetera Hispanica, ab hac littera [A letra, alegia] incipientia, quorum usus licet iam in familiari sermone Vasconum obsoleuerit, olim tamen inualuisse coniciimus, ex eo quod eadem adhuc durant in nominibus propriis locorum quorundam aut familiarum Vasconiae, talia sunt *Atahona*, nomen vici in citeriore Nauarra, *Arroz*, pagus quidam in Hospita valle *Ataharraz* vicus in Vicecomitatu Solensi (Oihenart 1656: 47-48).

Halaz ere, zerrenda bera, hasi eta buka, hitz arruntez osatua dago, eta ez dago sarrera bakar batean ere hitz baten euskaltasuna aldezteko toponimiaren aipamenik. Labur bilduz esan daiteke nolabait Oihenartek bi azterketa etimologiko mota hauek zein bere aldetik aztertzeo lehendabiziko saio orokorra egin zuela.¹³⁷⁴ *Bahía* hitz arruntari eta *Bayona* izen bereziari eman zizkion etimologia ezberdinak —Garibaik ez bezala, esate baterako— joera berri horren adibide ezin hobeak ditugu:

H. portus seu statio nauium; V. idem, inde illa apud Vascones voti formula, *Bai onian helzea*, pro eo quod Latini optatum portum consequi dicunt (Oihenart 1656: 49).

Huius nominis origo è Vascâ linguâ petenda est, non tamen à *baï ona*, id est bonum pignus, vt visum est Stephanum Garibaio, sed à *Baia-une*, quae vox locum vel regionem portus significat (*ib.* 540).

Larramendi alde honetatik Oihenartekin zeharo pareka dezakegu, iturrietan aurkitzen dituen argudio toponimikoak saihestu ohi baititu:

Cigarra, población, fue junto al río Xúcar, y significa un arador (Poza), *Cigarra*, fue población junto al río Xúcar, significa arador del cuerpo (Isasti < Poza) > Dic. de *cig, cig*, sonido suyo. Cris. es Bascuenze, y véase en la palabra *chicharra* (1728) > *Cigarra*, lo mismo que *chicharra*; y véase allí su etimología Bascongada: al arador llamamos nosotros *cigarra* (1745).

Ezla, Estola, río, significa ribera de poca mata, falta de tabla (Poza) > *Estola*, es voz Bascongada, de quien la tomó el Griego *stole*, y el Latín *stola*, y tiene en Bascuence la razón de su significado. Es compuesta de *estu* y *tolea*, y significa dobladura, plegadura apretada. *Tolea* dezimos a la dobladura, y también *tolesa, tolesta*, y de aquí *tolestu, tolestatu*, doblar, y *bestolea*, la sangradura de el brazo

¹³⁷³ Ramos-ek (1994: 106), lehenago Caro Barojak eta Mitxelena bezala, azpimarratu izan du Oihenartek hizkuntza kontuetan oso ideia aurreratuak zituela. Bestalde, ik. R. M. Pagola 1994: 129-130, hots aldaketei buruzko Oihenarten informazioaz.

¹³⁷⁴ Cf., ildo beretik ia, "Oihenart sigue también este método etimológico, pero ofrece algo diferente en su visión de la lengua, primero un esbozo de diccionario o de léxico etimológico, muy rudimentario e incompleto, eso sí, pero ya rompiendo con la tradición de etimologías de nombres de lugar para dar nombres comunes..." (Ramos 1994: 107). Lan berean (*ib.* 108-109) Oihenarten kontu on eta txarren miaketa aurki daiteke, oraingo ezagutzarekin erkatuta.

por donde se dobla. *Estu, estutua* es apretado. Y con el nombre de *estola* se significa generalmente el vestido que se aprieta y dobla en varias maneras (1745).

Gordeya que es donde el Arca de Noe quedó, que significa el que guarda o a quien está encomendada la guarda (Etxabe) > de el Bascuence *gorde*, que significa esconder guardando; y de aquí se extendió el verbo guardar a las otras significaciones que tienen semejanza; y de aquí el nombre *guarda* en todas las suyas (1745).

Siloria, Silores, fueron naciones del lado Septentrional de las Españas, desde Asturias hasta el río Gallego, en Aragón, comprendiendo lo incluso de las montañas a la mar y a los montes Pyreneos, y es su significación de retraída, refugio al agujero, a lo seguro, cual lo es su sitio (Poza) > Silo, lugar subterráneo donde se guarda el trigo, es voz Bascongada *siloa*, y más comúnmente *ciloa*, que en otro dialecto es *zuloa*, y significa cualquier hueco y agujero (1745).

Joera 1745eko bertsioan indartzen dela dirudi:

Balda, cosa inútil, de poco valor, y precio: en este sentido no tiene uso alguno. Tiénele en quanto se toma por ociosidad, y descuydo. Dic. no le da origen. Cris. yo se le daré en Bascuence, y en ambos sentidos, porque no se puede negar ser voz Bascongada, teniendo esse mismo apellido la ilustríssima Casa de Balda en Azcoitia. Puede ser lo 1. syncope de *bai-alda*, y esto respuesta de *alper alda*, si por ventura es ocioso y descuydado? *bai-alda*. Y qué cosa de menos valor y precio que un ocioso? Lo 2. en ambos sentidos puede venir de la siguiente etymología de *baldar*, que haze inútil al miembro baldado, y por consiguiente, ocioso (1728) > Balda, ociosidad, descuido, inacción, viene de el Bascuence *baldan, baldana*, ocioso, floxo, descuidado; y *baldanqueria*, floxedad, descuido (1745).

Espero zitekeen bezala, lehengo joeraren arrastoren batek irauten du azkeneko bertsioraino; salbuespen bakarria aurkitu dut, ordea:¹³⁷⁵

Canto, piedra, creo que es de el Español antiguo o de el Bascuence, de que se formó *Cantabria*, de *Cantauria*, antes de que viniessen acá los Arabes. Aun oy el Bascuence llama a la esquina de una piedra *arri cantala*, y los cantos se llaman las esquinas cortadas y caidas de la sierra (1745).

Aldaketa, bestalde, ez datza toponimia eta hizkuntza bereizi beharrean bakarrik, baizik eta oro har hizkuntza eta beste edozer, dena dela; adibidez, *abarka* hitzaren euskal etimologia indartzeko, behin ere ez du aipatzen Nafarroako erregearen izengoitia, ordura arteko guztietan ezinbestekoa. Areago, 1728tik 1745era Etxabek erabili zuen argudio etnografikoa —honela dei baidaiteke— galdu egiten da:

...el calçado tan propio que llaman *abarcas*, que hasta oy permanece y se usa en las caserías: las cuales se inventaron primeramente en las Montañas de los Pirineos y en una población de las más muy antigua, que ay en ellos a la parte de los Bascos de Francia, que al presente ay pocas casas en ella, llamada por los escriptores *Basconcio* y por los naturales *Bascuyen*, que quiere dezir población sobre montes o selvas, por quien se llamaron aquellas partes y todas las Provincias de Navarra *Bascones*; y mi language *Bascuence*. En la misma región usan hasta oy otro género de calçado muy semejante a las abarcas, sino que son de palo (Etxabe).

Crisis. Al trocado: el verbo viene de aquel nombre; y éste es Bascongado sin controversia; pues siempre entre nosotros fue el calzado de cuero muy usado y llamado con este nombre. Díxose assí por la semejanza que tiene con la barca, *au barca*, y *barca* es Bascuence, como se dirá en su lugar (1728).

Abarca, calzado de cuero. Es del Bascuence: díxose assí por la semejanza que tiene con la barca, *au barca*, y *barca* es Bascuence. Véase allí (1745).

Toponimiak ere etimologi azterketaren argitara hizkuntzari buruzko xehetasun jakingarriak eskain ditzakeela ukatu gabe (cf. § 8), beraz, bilakaera honetan somatzen da hizkuntzaren hitz arruntei dagokionez hizkuntzari berari —haren barneko azterketari— bakarrik botere azaltzailea aitortzeko joera sendoa.

¹³⁷⁵ Badago beste bat (*ibero = Ebro*), baina honetan lotura erabat arrazoizkoa izateaz gainera, kontuan har dezagun *DAut*-ek berak ere halaxe azaldu zuela.

11.6. Iturriotatik hartutako ordainak

Etimologiak, oro har, Larramendirentzat ordain berrietarako mintegi ezin hobea izan zirela (§ 6.5) eta, bestalde, erdal liburuak arlo honetan bakarrik ia baliatu zituela jakinik, hauek eskaintzen diguten corpus mugatua profita dezakegu ordainetan etimologiek izan zuten garrantzia lehen baino xehekiago neurtzeko (§ 11.6.1). Honekin batera, iturri mota honetan etimologiaz kanpora erdietsitako ordainik ote den eta nolakoak ere aztertuko dugu (§ 11.6.2).

11.6.1. Ordain etimologikoak

Etimologia kopuru mugatu honetan hobekixe nabari dezakegu arlo honek *HH*-an izan duen garrantzia, inoren etimologiaren bitartez erdietsitako edo eratutako ordainak —maileguak, hitz berriak zein euskal hitzen adiera berriak— bereiziaz:

a) Maileguak, mailegu eratorriak eta haien euskal eratorriak (maileguaren norabidean sartu gabe;¹³⁷⁶ “etim.” marka ezarri diet etimologia osagarria daramaten eratorriei; izarrak etimologiaren inguruaz bestelako sarreretan, adiera berean edo beretsuan, berragertzen dela adierazten du):

ABARCA: *abarka* “abarca”, *abarkatu* “abarcar” (etim.).

ABRIGO: *abrigua* “abrigado lugar”, *abrigatu* “abrigarse”.

*ACHAQUE: *aitzakia*, *atxakia* (EH *atxaikia* 1562, *atxakia* 1571, *aitzakia* 1627) “achaque”, “excusa”, etab., *aitzakiatu*, *atxakiatu* “achacar” (etim.), *atxakidun* “achaquiento”, *aitzakiagarri* “disculpable”, etab.

ACUERDO: *cordea* (EH 1713) “acuerdo, sentido”, *acordatu* (EH 1571) “acordar” (etim.), “acordarse”, *acordatzalea*, *acordaria* “acordador”.

AHORRAR: *ahorratua* “ahorrado”, *ahorratzailea* “ahorrativo”, *ahorrua* “ahorro”.

ALBOROTO: *alborotoa* “alboroto”.

ALBRICIAS: *albristea* (EH 1635), *albistea* (EH 1745) “albricias”, *albiste saria* “albricias, regalo”.

*ALCALDE: *alkatea* “alcalde”.

*ALCANDORA: *alkandora* “alcandora”, “camisa”, *alkandoraxoa* “camiseta”, *alkandoratzarra* “camisón”.

ALDEA: *aldea* “aldea”, *aldearra*, *aldeatarra* “aldeano”, *aldeatxoa* “aldegüela”, *aldeatzarra* “aldeorrio”.

ALQUILAR: *alkilatu* “alquilar”, *alkilatzalea* “alquilador”, *alkilera* “alquiler”, *alkilagarri* “alquilón”.

*AMONTONAR: *montoitu* (EH 1745), *montoiak egin* “amontonar”, *montoitzalea* “amontonador”, *montoiera* “amontonamiento”, *montoica* “amontones”, *montoia* (EH 1562) “montón” (etim.).

*ANDAS: *andak* (EH 1562) “andas”, *andena* “andén” (etim.), *baranda* (EH 1745) “baranda” (etim.).

*ANSIA: [antsia EH 1545] *ansiaz nai* “ansiar”, *ansiaz* “ansiosamente”.

ARGANA: *argana* “argana”, “argano, otro instrumento semejante”.

*ASMAR: *asmatu* (EH XV ea.) “asmar”, *asmaera* “asmamiento”, *asmadura* “asmadura” (etim.), “asmamiento”.

*ATAPAR: *atapatu* “atapar”, *tapa*, *tapea* (XVII ea.) “tapa” (etim.), *aotapa*, *aotapaera* “tapaboca”, *tapalaria* “tapador”, *tapafunda* “tapafunda”, *tapatu* (EH 1627) “tapar” (etim.).

*ATREVERSE: *atrebitu* (1621, *atrebidu* 1562; EH 1627) “atreverse”, “osar”, *atrebiro* (1745) “atrevidamente”, *atrebikiro* (1745) “atrevidamente”, “arrojadamente”, *atrebenzia* (1741; EH 1745) “atrevimiento”, “avilantez”.

AYO: *ayoa* (1562) “ayo”.

AZCONA: *azkona* (EH 1538) “azcona”.

¹³⁷⁶ Uste dut honetan, Larramendiren jokabidea behar bezala ulertzeko, bere testuinguruan jokatu behar dugula, orain dakiguna (edo susmatzen duguna) erabili gabe, bai baitira aztertutako hitzen artean egiatan euskaratik gaztelaniarako maileguak direnak, baita ondare aurreerromatarretik bi hizkuntzetan bizirik iraundakoak ere.

AZUCENA: *azuzena* (EH XVII ea.) "azucena".
 *BAHIA: *baia* (EH 1677) "escala, puerto", "puerto", "surgidero".
 BALDA: *baldankeria* (EH 1745) "balda".
 BALDAR: *baldatu* (EH XVII ea.) "baldar".
 *BALSA: *balsa* (EH 1720) "balsa", "rebalsa" (etim.), *balsa eguin*, *balsatu* "rebalsar", *balsatu* "embalsar" (etim.).
 *BARATAR: *baratatzea* "baratar", *barata* "barata" (etim.), *barataria* "chalán", *barateria*, *baratasuna* "baratería" (etim.).
 BARRUNTAR: *barruntatu* "barruntar" (EH 1745), *barruntea* "barrunto".
 BAZA: *baza* (EH 1745) "baza".
 BECOQUIN: *bekokina* "becoquín".
 BERRO: *berroa* "berro" (EH 1562), *berroeta* "lugar donde nacen berros".
 *BIZARRIA: *bizarria* (EH 1729) "bizarría", *bizarroa* "bizarro", *bizarroa* "bizarramente".
 *BOGADA: *gobada* (EH 1745) "bogada", "colada", etab., *gobadatu* "enxebrar", *gobadontzia* "coladero".
 *BORDE: *borta* (EH 1562) "borde", "bastardo", etab.
 BURUJO: *burujoa* "burujo".
 BUSCAR: *muskatu* "buscar", *muskaria* "buscón".
 BUZ: *buza*, *buzada* "buz".
 *CABO: *kabua* (EH 1713), *buka* "cabo", *bukatu*, *kabutu* "acabar" (etim.), etab.
 *CAPISAYO: *capusaia* (EH 1638) "capisayo", "gallaruga".
 *CASTA: *kasta* (EH 1627) "casta", *kastiza*, *kasta onekoa* "castizo"; cf. *kastanastea* "atravesado, de razas diversas".
 *CASTILLO: *gaztelua* (EH XV ea.) "castillo", *gazteljuzaida* "castellanía", *gazteluzia* (EH 1745, *gazteluzain* XVII ea.) "castellano, alcayde", *gaztelania* (EH 1712) "castellano, lengua castellana", *gaztelaua* (EH 1745, *gaztelau* 1596), *gaztelarra* (EH 1745) "castellano, hombre", *gaztelutxo* (EH 1855) "castilluelo", *gaztelutu* "encastillarse" (etim.).
 *CECINA: *zeziña* (EH 1745) "cecina", *atunaren zeziña* "mojama", *zeziñatu* (EH 1745) "acecinar" (etim.).
 *CELADA: *zelata* (EH 1571) "celada", "zelo" (etim.), *zelataria* (EH 1627) "zelador" (etim.), "zelante", *zelatatu* (EH 1643), *zelategin*, *zelatan egon* "zelar" (etim.).
 CENCERRO *zinzerria* "cencerro", *zinzerrada*, *zinzerraldia* "cencerrada", *zinzerriduna* "cencerruno", "encencerrado" (etim.).
 CERRO: *zerra* "cerro".
 CHOCARRERIA: *txokarrera* "chocarrería", *txokarero*, *txokarraria* "chocarrero".
 CHOCHEAR: *txotxeatu* "chochear" (EH *txotxatu* eta *txotxotu* 1905), *txotxeria* (EH *txotxakeria* 1816) "chochez", *txotxo* "chocho".
 *CHORRO: *txorroa* (EH 1562) "chorro", *txorroka jario* "chorrear", *txorretada* "chorrera", *txorrotxo* "chorrillo".
 COSCOJA: *koskolla*, *kuskulla* "coscoja", *coscolladia*, *cusculleta* "coscojar".
 CUITA: *koita* "cuita", *koitadua* (EH 1745) "cuitado", *koitadutxo* "cuitadillo", *koitadu eguitea* "acuitarse".
 DON: *doña*, *dona* "doña" (etim.).
 *DURETA: *daureta* "taburete" (etim.), "silleta".
 ESCUDEREAR: *eskuderatu*, *eskudereatu* "escuderear", *eskuderea* "escudera", *escudaria* "escudero, de señoras".
 ESPAÑOL: *españarra* (EH 1729) "español".
 *ESPARTO: *ezpartzua* (EH 1745, *espartu* 1562) "esparto", *esparzua* "atocha, esparto", etab., *ezpartzuko* "espartenero", *espartoña* "esparteña" (etim.), *ezpartaritegia* "espartería", *ezpartaria*, *ezpartzukiña* "espartero", *ezpartzuegia*, *ezpartzuegia* "espartizal", *esparzuegia*, *esparzuegia* "atochal", etab.
 ESTOLA: *estola* (EH 1621) "estola".
 *ESTRADA: *estrata* (EH 1745) "estrada", "calle".
 GARZA: *koarza* (EH 1745) "garza", *koarzaria* "garcerro", *koarzatxo* "garceta" (etim.), *koarzota* "garzota".
 *GUARDAR: *gorde* (EH 1545) "guardar", *gordetzallea* (EH 1715, *gordatzaille* 1745; *gordazale* 1676 'kentzaillea') "guardador, el que esconde".
 *GUARDIA: *goardia* "guardia" (EH *guardia* 1630, *goardia* 1571 "zaintzea"; 1630 "zaintzailea"), *goardatu* (EH *goardatu* eta *goardatu* 1545, *goardadu* ~1520) "guardar, las fiestas, las leyes...", *goardatzallea* "guardador de leyes...", *goardatzea* "guarda, observancia".
 *HONESTO: *onestoa* (EH 1562), *onestea* "honesto", *oneski* (EH 1782), *onesto*, *oneskiro* "honestamente", *oneskitu*, *onestatu* "honestar", *honestasuna* (EH 1636) "honestidad", *onesteza* "inhonesto".
 *HORMA: *horma* "horma de zapatero", "tapia", etab., *ormagilea* "hormero", "tapiador", *ormaistea*, *ormestea* "emparedamiento", *ormetxi*, *ormetxitu*, *ormersi* "emparedar", *ormastegi* "(lugar donde se) empareda", *ormatza* "tapias muchas" (s.v. *tapia*), *ormola*, *ormakaia* "tapial", *ormaztu*, *ormeztatu*, *lutormaz itxi* "tapiar", *ormatza*, *ormadia* "tapiería", etab.

IBERO: *ibero* "ibero".

*IZQUIERDO: *ezkerdatu* "ezquerrear", *ezkerdo* (EH XVII ea.) "izquiero", "zurdo".

*LANZA: *lanza* (EH 1627), *lanzia* "lanza", *lanzatxoak* "lances" (etim.), *lanzategia* "lancera", *lanzaria* "lancero", *lanzeta* (EH XVII ea.) "lanceta", *lanzetada* "lancetada", *lanztzoxa* "lancilla", *lanzagudak egin* "(correr) lanzas", *lanzada* "lanzada", *lanzatu* "lanzar" (etim.), *lantzarra* "lanzón", *lanzeatu*, *lanziatu* "alancear" (etim.), *lanzia etsaiaganonz jaso* "enristrar".

MODESTIA: *modestia* (1571) "modestia", *modestua*, *modestitsua* "modesto", *modesteza* "immodestia" (etim.), "immodesto".

*NAVA: *naba* "nava" (EH ~1665, *nabe* 1627), *nabescua* "palma de la mano" (s.v. *nava* ere aipatua), *nabatzarra* "navazo".

OTEAR, OTERO: *oteatu* "otear", *oteataria* "oteador", *otakusta* "otacusta" (etim.), *otadia* "otero".

PALACRA: *palakra* "palacra".

*RIBERA: *erribera* (XVII ea., *arri*- ~1620) "ribera", *erriberatarra* "ribereño".

SAYA: *saia* "saya", *saialesko* "sayalescoa" (etim.), *saiala* (*saihal* EH 1858) "sayal" (etim.), *saialaria*, *saial eulea* "sayalero", *saialtxoa*, *saialmea* "sayalete", *saiazarra* "sayaza", *saiotzarra* "sayazo", *saioa* "sayo" (etim.), *saiosoa*, *saioboboa* "sayo bobo", *unaisaioa* "sayo baquero", *saiotxoa* "sayete", "sayuelo".

*SARNA: *sarna* (EH 1562) "sarna", *sarnotsua* "sarnoso" ¹³⁷⁷.

*ZAMARRA: *zamarra* (EH *zamar* 1643, *¿zamarra* 1562, 1596) "zamarra", *zamarreatu* "zamarrear", *zamarroa* "zamarro", *zamartxoa* "zamarrico", "zamarrilla", *zamartzar[r]a* "zamarrón".

*ZANCA: *zankoa* (EH 1562), *zanka*- ("en composición") "zanca", *zankada* "zancada" (etim.), *zangartea*, *zankartea* (EH *zangarte* 1617, *zankarte* 1745) "zancadilla", *zankamallea* "zancajera", *zankaztatu* "zancajear", *zankarroia* "zancarrón" (etim.), *zurezko zankoak* "zancos" (etim.), *zankolaria* "(el que anda y baila sobre) zancos", *zankatia*, *zankatsua*, *zankaluze* (EH ~1760, *zangaluze* 1905, etab.) "zancudo", *zankalaria* "zanqueador", *zankaluze* "zanquilargo", *zankokerra* "zanquituerto", *zankutsa* "zanquivano".

*ZAPATO: *zapata* (EH 1562) "zapato", *zapatada* "zapatazo", *zapatazlaria* "zapateador", *zapateatu*, *zapataztu* "zapatear", *zapatarikia* "(azeytuna) zapatera", *zapateria*, *zapategia* "zapatería, tienda", *zapataria*, *zapatakintza* (EH *zapatagintza* 1905) "zapatería, oficio", *zapataria* (EH 1562), *zapatagilea* (EH 1745, *zapatagin* 1643) "zapatero", *zapateta* "zapateta", *zapatatxoa* (EH 1865) "zapatico", *zapatatzarra* "zapatón", *zapatanditsua* "zapatudo".

*ZIGARRA: *zigarra* "arador" (s.v. *cigarra* ere jaso).

ZARAGÜELLES: *zaragollak* (EH 1745) "zaragüelles".

ZURRA: *zurra* (EH 1745) "zurra", *zurratu* (EH 1745, *zurra(d)u* 1562) "zurrar".

b) Etimologiari zor zaizkion adierak: ¹³⁷⁸

ACHOCARSE: *txokoratu*, *txokoan gorde* "achocar" (cf. *txokoratu* "acorrallar a uno", "arrinconar").

AHUCCHAR: *hutxaratu*, *kutxaratu*, *hutxan*, *kutxan gorde* "ahuchar, ir guardando dinero", *hutxaratzallea*, &c. "ahuchador".

AINA: *eiña* "aina" (cf. *eiña* "fácilmente").

AJAR: *igartu*, *iartu* "ajar" (cf. *iartu*, *igartu* "desecar", "secar a un árbol, a un cuerpo", etab.).

BARRAGAN: *berregina* "barragán" (cf. *berregiña* "curioso, aseado").

BIZARRIA: *bizarra* "bizarro" (cf. "barba").

CACA: *kaka* (EH 1562) "caca", *kaka agertu* "(descubrir la) caca", *kakaldia* "cagada", *kakategia* (1745) "cagadero", *kakatsu txarra* "cagadillo", *kakeria* (1745) "cagalera", *kakegin* "cagar", *kakaz betea* "cagado", *kakatsu bat da* (EH *kakatsu* 1562) "(es un) cagado", *kakajario* (EH 1745) "cagón".

CERRION: *txirria*, *jelatxirria* "cerrión".

CHICHA: *txitxia* "chicha" (cf. *sabeltxitxia* "salchicha" (etim.)).

CHICO: *txikia* "chico" (cf. "pequeño", etab.).

CHIRRIAR: *txir txir egin*, *egon* "chirriar", *txirria*, *txirriskada* "chirrido", *gurdatxirria* "chirrión, carro", *gurdatxirri zaia* "chirriero", *txirriskaa* "chicharra".

CHOZA: *txaola*, *etxola* "choza", *txaolatxoa*, *etxolatxoa* "chocilla" (cf. *txaola*, *etxola* "barraca", "cabaña", etab.).

MAXMORDON: *masmordoa* "maxmordón".

MOTILAR + MOZO: *moztu*, *moxtu*, *mutildu* "motilar" (cf. *moztu* "desmochar" (etim.), "esquilar", etab., *moxtu* "desmochar", "desplumar", "esquilar", etab., *mutildu* "desplumar", "pelar las aves").

TETA: *titia*, *ditia* "teta", *titichoa* "tetilla" (cf. *titia* "pezón del pecho", etab.).

ZAQUE: *zaguia* "zaque" (cf. *zagia* "cuero de vino", "odre", etab.).

ZARZA: *zartzia* "zarza", *sartzietia* "zarzal".

ZURRON: *zorroa* "zurrón", *zorrotxoa* "zurroncillo" (cf. *zorroa* "costal", "funda", etab.).

¹³⁷⁷ EH-ak *sarnaduna* HH-ari egozten badio ere, Añibarroengan bakarrik aurkitu ahal izan dut.

¹³⁷⁸ Adieraren egokitasunean sartu gabe: izan ere, etimologiak ordainean sortzen duen *ad hoc*-tasuna da interesatzen zaiguna hemen.

c) Etimoa osagaitzak daukaten hitz berriak:

AMA: *amaiñudea, agama* "ama, que cría".

BAHIA: *baiona* "puerto", "surgidero", *baionean eldu* "surgir, dar fondo a la nave".

BEHETRIAS: *beretiriak, bereterriak, behetiriak, beheterriak* "behetriás".

BUCHA: *lurbutxa, lurkutxa* "bucha", *lurbutxatu, lurkutxatu* "buchar" (cf. *lurkutxa* "alcancia").

BUCHE: *salbutxa* "buche", "buche, estómago o ventrículo", *salbutxan sartu, salbutxa bete* "embuchar".

CANTO: *arcanta* "canto". Cf. *arkantoina* (EH *har kantoin* 1571) "angular, piedra".

ESCUDO: *ezkutarma* "escudo" (cf. *ezkutarma* "arnés", "blasón, escudo", "rodela", etab.).

SILO: *garizuloa, gariziloa* "silo".

d) Ordain analogikoak:

GUARDIA: *goardia, zaiDIA, zainDIA*.

Lehendik aipatuta zeuden hainbat gai berragertzen dira hemen, hala nola *HH*-an onartuta dauden maileguen eta etimologiaren arteko zerikusia (§ 7.4), etimoen eta ordainen arteko erlazio estua (§ 6.5), hitz baten etimologiak familiakideen ordainetan izaten duen eragina (§§ 6.5 eta 7.4.1), euskarazkotzat dituen atzizkiek mailegua errazteko daukaten gaitasuna (§ 2.2.4.5),¹³⁷⁹ toponimia eta etimologiaren artean *HH*-an dagoen lotura zuzena¹³⁸⁰ (§ 8) edota ordain analogikoak sortzeko Larramendiren joera (§ 5.3). Baina, bestalde, bildu ditugun ordainek zenbait irakaspen berri eskaini dizkigute:

1) Iturritasunaren auziari gagozkiola, ordain zenbait iturriak zuzenean eskainitakoak dira, nahiz eta batzuetan, ziurtasun handi edo txikiagoaz, Larramendik iturriaz gainerako ezagutzarik izan behar zuela nabarmena izan:

Oihenartengandik: *alborotoa, alkatea, alkilatu, anda, ansia, atrebitu, azkona, baratatzea, beretiriak, behetiriak, berregin, berroa, daureta, eiña, txikia, txitxia, zamarra, zankoa, zapata, zaragollak, zartzia, zelata, zerra, zezina*.

Etxaberengandik: *bizarra, koarza, sarna eta titia*.

Isastirengandik: *gaztelua, kutxa, lancia*.

Moretengandik: *kuskulia*.

Etxabe edota Isastirengandik: *bekokina, estrata / estratea, eta kapusaia*.

Poza edota Isastirengandik: *utxa, zigarra*.

Etxabe edota Oihenartengandik: *kasta*.

Isasti edota Oihenartengandik: *alkandora*.

Etxabe, Isasti edota Oihenartengandik: *aldea*.

Poza, Etxabe, Isasti edota Oihenartengandik: *ama*.

2) "Etimologista" deiturikoek, bide batez, hainbat hitzen lehen lekukotasunak eskaintzen dizkigute, *EH*-ak emandakoa —baina Etxaberi dagokionez bederen ez *OEH*-koa¹³⁸¹— nahikoa aurreratuz batzuetan:¹³⁸²

estrata (*OEH* 1607 [= Etxabe] vs *EH* 1745), *kapusai* (*OEH* 1607 [= Etxabe], *kaposei* ~1600 vs *EH* 1638), *kasta* (1607 vs *EH* 1627 baina *OEH* 1571), *koartza* (*OEH* 1607 [= Etxabe] vs *EH* 1745), *titi*

¹³⁷⁹ Egin dugun bildumatxoan *-ada* (*lanzada, lanzetada, zankada, zenzerrada*), *-dia* (*goardia*), *-dura* (*asmadura*), *-eria* (*barateria, txokarrera, txotxeria, zapateria*), *-eta* (*lanzeta, zapateta*), *-ota* (*koarzota*; cf. *-skote?*) eta *-zko* (*saialeskoa*).

¹³⁸⁰ Gure adibideen artean, *ormaistegi* "(lugar donde se) empareda" eta *ormatza* "tapiería".

¹³⁸¹ *OEH*-an nabari da Mitxelenak Etxabe fitxatuta zeukala; Sarasolak, ordea, ez dio honetan maisuari jarraitu.

¹³⁸² Gorago, ordainen zerrendan, *EH*-ak jasotzen dituen datatzeak eman ditudanez gero, han nabarmen geratu da batzuetan ez duela *HH* ere kontuan hartu. Gai honetaz, dena dela, ondoko atal batean (§ 12.3) xehekiago arituko naiz, bai *EH*-aren, bai *OEH*-aren *HH*-arekiko jarrera iruzkinduaz.

(1607 vs EH 1745, *diti* 1545), *txitxi* (1656 vs EH 1745), *zaragoila* (1656 vs EH 1745), *zezin* [sic] (1656 vs EH 1745).

3) Larramendik iturriek emandako zenbait hitzen esanahia “bestela” jaso du:

EIÑA: Oihenart “facilis, unde aduerbia *ehin-qui* & *ehin-ara*, id est facillimè” vs *HH eiña* “aina”, “fácilmente”.

NABA: Garibai “...*navaerria*, que compuesta de las lenguas vizcaína y castellana es lo mismo que tierra llana. Los castellanos llaman *navas* a las llanuras, los cántabros a la tierra llaman *erria*, todo junto querrá decir tierra llana” vs *HH naba* “nava, tierra llana”.¹³⁸³

4) Homofonoaren ordainak iturriek era batera edo bestera iradoki ditzakete:

horma “horma de zapatero”: cf. Moret “...él mismo [Plinio] les da [*hormazos* hitzari] la derivación Latina de la palabra *Forma*, por hacerse como con hormas”.

HH-aren ontze prozesuari buruzko xehetasun jakingarri batzuk ere erator daitezke gure azterketatik. Alde batetik, etimologia nagusiak (erdal iturriek eskaini edo iradokitakoak) lotuta daude *HH* guztian zehar bestelako etimologiekin (*amontonar* + *montón*, *andas* + *baranda*, *atapar* + *tapa*, *tapar*, *balsa* + *embalsar*, *rebalsa*, *cabo* + *acabar*, *cecina* + *acecinar*, *cencerro* + *encencerrado*, *dureta* + *taburete*, *lanza* + *alancear*, *modestia* + *immodestia*), ordainak ere edo ordain-moduak batetik bestera igaroz. Bestetik, iturri hauetan ikasi dituen ordainetatik zenbaitek esanahikideetara hedatzeko gaitasuna dute; askok, gorago iradoki bezala, Larramendik lehendik ezagutzen zituela baino ez bide dute adierazten, baina badira beste azalpenbiderik uzten ez duten zenbait, hala nola *baia* “escala, puerto”, “puerto”, “surgidero”, *baiona* “puerto”, “surgidero”, *baionean eldu* “surgir, dar fondo a la nave” eta *daureta* “silleta”. Bi gertakariok bata bestearekin lotuaz, gardenki ageri da erdal liburuek eskainitako etimologiak *HH*-ko lehendabiziko osagaietatik izan zirela, zeina erabat ongi baitator haiei buruz dakigun beste xehetasun batekin: alegia, gramatika baino lehen hiztegia egiten hasi zela eta gramatika argitaratu orduko *De la Antigüedad...*-en bilduta zeudela hemen aztertu ditugun etimologia gehienak.

Azkenik, azpimarratu nahi nuke Etxabek egindako *lanza*-ren etimologiari, eta batez ere bertatik Isastik egiten duen orokortzeari zor zaion *zi* “punta” hitzak *HH*-ko ordain elkartu berrietan daukan eragina (§ 3.1.6.2.v):

...y lo que más admira es que las cosas puntiagudas se acaban en *cia*, que es el palo aguzado como *Lancia*, que es hasta aguzada (...): *Guecia* es un dardillo arrojadizo con los dos dedos metidos en una evilla de cerda en medio, con que pelearon los nuestros con los Romanos; *burruncia*, el asador; y *ciria*, la cuña (Isasti, c. 1620: 168).

11.6.2. Bestelako ordainak

Alabaina, esan bezala, aski nabarmena da erdal iturriak ez zituela hitz “arrunten” iturri gisa erabili, bakanki ez bada: adibidez, Moretengandik *coscoja*-ren etimologia eta *cusculia* lapurterazko forma hartu bazituen ere, alde batera utzi zuen hark aipatu nafarrerazko *zubial* hitza.

¹³⁸³ Cf. *DAut*. “NAVA. Espacio de tierra mui llana y rasa”; azalpena, ikusten den bezala, Garibairen alde dator. Edonola ere, *EH*-ak *naba* “zelaia, toki laua” eta “(batez ere zub.) ibarra, harana” adierak euskaraz jasotzen ditu, ondoko datatzeak emanez: *~1665, 1759; *nabe* 1627). *OEH*-aren XII. liburukira itxaron beharko dugu zeri dagozkion egiaztatzeko, baina dena dela ikusi dugu Oihenartek ere bederen esanahi horrekin jasotzen zuela.

Nolanahi ere, salbuespen argiren bat badenez gero, komeniko litzateke honelako iturriak ez zeharo alde batera uztea *HH*-aren gainerako hitzak xehekiago aztertzerakoan. Oraingo hurbilketa honetan Marineo Siculoren zerrenda iturri modura erabili zuen ala ez eztabaidatuko dut (§ 11.6.2.1), Marcaren ekarria zertara mugatzen den ikusiko dugu (§ 11.6.2.2), eta Etxabe (§ 11.6.2.3), Oihenart (§ 11.6.2.4), Isasti (§ 11.6.2.5) eta Garibairengandik (§ 11.6.2.6) hartuta diruditen hitzak aurkeztuko ditut. Kontuan izan dezagun, dena dela, ohiko corpusetik (euskarazko A letratik kanpora) ez dudala ziurtasun osoaz jokatzeko eta, beraz, batez ere azken hiruren kasuan hurbilketa modura bakarrik ulertu dudala saioa.

11.6.2.1. Marineo Siculo

Honako hitzokin aurkeztu zuen Larramendik Siculoren lana:

Y para dar algún gusto desta antigua Lengua de los Españoles, pone muchos nombres Bascongados en el dialecto de Bizcaya, y después el modo de contar hasta ciento (Larramendi 1745: lxxxvi).

Halako aipamen batetik, Siculoren hitz zerrenda iturri gisa kontuan izan zuela espero daiteke.¹³⁸⁴ Halaz ere, Larramendik handizkatu arren (zerekin konparatzen den, agian), ez ditu “muchos nombres bascongados” jasotzen, orotara 38 bakarrik baizik, eta haietatik anitz *zerua*, *lurra*, *etxea* edo *eguzkia* bezain oinarritzkoak. Zaila, beraz, hitz bakan batzuekin ezer frogatzea.

Ezezkoetatik hasita, *HH*-ak ez ditu *irarguia* “luna” (*HH illarguia*, *ilarguia*), *ardoa* “vino” (*HH ardoa*, *ardaua*, *arinoa*), *ocea* [sic] “cama” (*HH oea*), *onerextea* “amar” (*HH oniritzi*) eta *bacust* “veo” (*HH dacust*, “y con mas frecuencia *badacust*”) formak

jasotzen. Baiezkoan bezala, berriz, *lonaça* “duermo” (*HH* “(estar echado y) durmiendo, *lo etzan*, y los irregulares *lo natza* <no->...”), *anagea* “hermano” (*HH anagea* “hermano”), *laster eguitédot* (*HH lasterreguin* “correr”), *vedrací* “nueve” (*HH bedratzi* “nueve”). Halaz ere, *lo etzan* eta *laster egin* oso ondo lekukotuta daude aurreneko literatuan;¹³⁸⁵ gauzak honela, *bedratzi* egiantz handiagoz Leizarraga, Berian zein Elizalderengandik har zezakeen (ik. *OEH*, s.v. *bederatzi*) eta *anagea* —gaurko <anajea> idazkeraren ordean erregularra *HH*-an— badirudi ahozko forma bat besterik ez dela (ik. § 12.2.7).

11.6.2.2. Pierre de Marca

Leizarragarekin batera Marca da, dakigunez, hiztegiko sarrera batean bere izenaz aipatua agertzen den iturri bakarra (I, § 3.5):

¹³⁸⁴ TAV 146-147ko argitalpena baliatuko dut, nahiz eta Lakarra 1993: 9-10koa ere kontuan izan. Bide batez, dakusgunez Urquijo ez da zerrenda bizkaierazkoa dela uste izan duen bakarra (ap. Lakarra *loc. cit.*).

¹³⁸⁵ Ik. *OEH*, s.v. *lo 2* eta *LASTER EGIN* s.v. *laster*.

Procuración, contribución que los prelados sacan de las Iglesias que visitan, *arceutsa*. Lat. Pro cibo, aut hospitio contributio. De estavo voz *arceuts* en este significado ay mucha memoria en la historia de Bearne de el señor Marca.

Eta halaxe da; lehenengo agerraldia bakarrik ekarriko dut:

Et d'autant que les Euesques faisans les visites de leurs Dioceses se retiroient anciennement dans les maisons de ces Abbés Laïques; & que ces derniers estoient compensés avec le logement, on nomma en langage vulgaire cette redevance les *Arceuts*, ou bien *Arciuts* suivant la prononciation de ce temps; á l'exemple des droits des seigneurs seculiers. Car les seigneurs de Bearn & les autres seigneurs particuliers iouïssoient du droit de hebergement en plusiurs maisons; lequel droit es nommé *Albergata* en langage Lombardique, & en Latin dans les vieux tiltres, *Commeatus*, *Discursus*, *Procuratio*, *Receptus*, *Receptio*. Ce droit est aussi nommé *Arceut* dans les anciens Contracts con cens en langage Bearnois, laquelle diction explique mot pour mot le Latin *Receptio*: *Arceber* en langage pur Bearnois significant *Recevoir* (Marca 1640: 222; ik. *ib.* 326 ere).

Ez dago esan beharrik, pasarte oso gardena baita, *arceuts* egiatan *arceut*-en plurala dela.

11.6.2.3. Etxabe

Iturri erabilienetako dugu etimologien arloan, Oihenarten ondoren. Honetaz gainera, badirudi ondoko hitzetarako ere bederen haren lekukotasuna kontuan hartu beharko dugula:

MURUA, MORUA, MUKURUA: Colmo, *murua*, *morua*, *mucurua*... (HH) < *Muro Briga* o *Muro Vriaga*, que es población par de cabeços de Montañas, como significa Muruz o Muros; y las que tenemos en estas Montañas de Cantabria con nombres de *Murua*, *Murueta*, *Muruaga*, *Murga*, *Murguia*, *Murgoiti* o *Murugoiti* y *Muruçabal*. También se toma esta palabra *Muru* en mi lenguaje por colmo o colmar, y lo mismo significa *Mucuru* (Etxabe 1607: 25r). Cf. EH *mukuru* (1636).

UMANZI: Laguna, *aintzira*, *umancia* (HH) < *Vmancia*, que quiere dezir laguna o parte cienegosa (Etxabe 1607: 32v). Cf. EH *umantzi* (1745).

Eta ez da meziprezatzekoa *elia*-rako, nahiz hautagai gehiago izan (EZ *Man* II, 103, ap. OEH, s.v. 1 *eli*): cf., besteren artean, Etxabe 1607: 34r “*Veizelia*, que es lo mismo que hato de vacas o legión de vacas” eta HH “dula, piara de ganado mayor, *elea*, *elia*”, “ganadería, *elea*, *elia*”, “ganado mayor, *elea*, *elia*, *abrea*...”, “ganado, en general, *elea*, *elia*, *ganadua*”, “manda de ganado mayor, *elia*, *elea*” (vs *Erans* “rebaño” < RS).

11.6.2.4. Oihenart

Notitia-n sakabanatuta dauden euskal hitzak ez dira gutxi eta, halaz ere, ez dute orain artean arreta berezirik erakarri, nahiz lehen lekukotasun zenbait ediren daitezkeen. HH-ko edukiari dagokionez, jadanik eztabaidatu ditugu *abre* eta *aitoren seme* (§ 9.2.5) eta, itxura denez, *escu-nava* (“manus vola seu concaua pars” Oihenart 1656: 74)¹³⁸⁶ da HH *nabescua* “palma de la mano” (s.v. *nava* ere aipatua) azaltzeko daukagun bide bakarra, OEH-aren datuen zain bederen.

¹³⁸⁶ OEH-ak (ESKU-NABA, s.v. *esku*) Maurice Harrieten lekukotasuna bakarrik jasotzen du.

11.6.2.5. Isasti

Isastiren ekarpena errefrau gutxi batzuetan ere somatu izan dugu (I, § 3.6.4). Honezaz gainera, *OEH*-ak (s.v. *adiagile*) *HH*-ko sarrera baten ("Plañidera, *adiaguillea*, *aldiaguillea*, *erostaria*") eragilea ere izan dela iradokitzen digu, "*Adiagille, erostari, plañidera*" (Isasti, c. 1620: 201-205) aipua eginez. Beldur naiz ez ote den okerren bat tartean egon,¹³⁸⁷ orrialdeak egiatan "De la costumbre de Guipuzcoa en sepultar a los muertos, ritos y ceremonias, llantos, luto, oblaciones y sufragios por las ánimas del Purgatorio" deritzan haren liburuko atalari baitagozkio, baina ez dago bertan (cf. batez ere § 3) euskal hitzik bat ere.

11.6.2.6. Garibai

Garibairen liburu erraldoia etimologia eta euskal hitz bila batez ere irakurri izan dut, ahal bezain ongi alde horietatik hustuaz. Alabaina, toponimian interes gehiago jarri duen Zubiaurren lanean (1990), etorki honetako ordain zenbait neurri batean edo bestean Garibairi zor dakizkiokeela egiaztatu ahal izan dut. Esan gabe doa alderdi hau ikerkizun dugula honezkero. Lehenagoko zerrendetan (§ 8) agertu direnetatik bi hauek berragertzen dira Garibairengan:

IKAZTEGIETA "carbonal" (1571: II, XIII. lib., VI. kap., 264. or., ap. Zubiaur 1990: 184): cf. *HH* "carbonera".

LIZIAUR "...que primero se dixo Eliçaur, que en la mesma lengua significa cosa que está cerca de la Iglesia, como lo está este pueblo" (1571: II, XV. lib., XII. kap., 340. or., ap. *ibid.*): cf. *HH* "monacillo".

Argi hauei ziurrenik hurrengoia ere erantsi beharko zaie, *OEH*-aren datuen zain:

MUXIKA "frisco" (1571, ap. *ib.* 185, nondik hartu duen aipatu gabe): cf. *HH*.

11.7. Ondorioak

Euskara Hispaniako antzinako hizkuntza izan zela frogatu nahian erabili izan ziren argudioetatik hiruk —alegia, euskara hizkuntza filosofikoa dela, idazle zaharrek jasotako antzinako hitzetatik batzuek euskaran dirautela edo haren bitartez azal daitezkeela eta gaztelaniak hainbat hitz euskarari zor dizkiola— halako etimologia tradizio bat sortu zuten horri buruz idatzi zutenen artean, eta tradizio horrexen erpinean aurkitzen dugu Larramendi: etimologiaren kopurua emendatzeaz gainera, aitzindarienak berrikusi eta, halaxe iritzi zionean, erabili egin zituen, sarritan etimoak eta azalpenak zorrotzuz bada ere. Honetarako, begi aurrean izan zezakeen saioren handienaz —Oihenarten zerrendaz— baliatu zen batez ere, haren begi zolien lorpenak ez eze, berrikuntzarik interesgarrienak ere (hots-aldaketei buruzko iruzkinak, toponimiaren eta hizkuntzaren azterketak bereizi beharra) bere eginez.

Larramendiren asmoa ez zen etimologiak besterik gabe pilotzea, ostera, euskal hiztegia antzinako hitzez eta "ahaztutako" osagaiez janztea baizik. Erdal idazleen liburuek, beraz, batez

¹³⁸⁷ Balirudike Larramendiren *HH* eta *Corografía*-ko lekukotasunez gainera Isastiren gaiari (baina ez hitzei) buruzko aipamena biltzen zuen Mitxelenaren fitxa bat izan litekeela.

ere alderdi honetatik osatu zuten *HH*-aren edukia, batzuetan zuzenean (etimoak eta azalpenak eskainiaz) eta bestetan zeharka (delako hitz baten etimologia egiteko ideia iradokiaz), batera zein bestera euskal ordain anitzetarako oinarria eskainiaz. Gainerantzean, badirudi xede trinko eta bakar horrekin irakurri zituela, bakanki baizik ez baitzituen bestelako hitzen iturri gisara erabili.

12. Entzundako hitzak

Larramendik euskaldunen ahotik ikasitako hitzak zein diren eta nondik erdietsi zituen zehaztea, oso ikerkizun labaina izanik ere, *HH*-ko edukiari buruzko lehen saio honek peit zezakeen arlorik funtsezkoenetakoa da, bai haren iturrien arteko oreka bilatzeko, baita haren hiztegi gintzaren alderdi hau datzan ilunpe beltzetik ateratzeko.

Lanaren zailtasuna begibistakoa dateke Larramendiren hiztegiak sortzen dituen arazoak edota euskal lexikoaren historiari buruz dakigunaren mugak ezagutzen dituenarentzat. Dagoeneko azaldu dugu Larramendik ez zuela hitzen etorkirik aitortu (I, § 3.4.3), nahita ez aitortu ere, denak behinola euskara komunaren hitzak zirelakoan, eta aurrerantzean euskararen hitz komunak izan zitezen; alde honetatik, beraz, laguntza gutxi izango dugu aztergaiaren partez. Bestalde, oso gaizki ezagutzen dugu 1745 baino lehenagoko euskal lexikoaren egoera, bai bere osagaietan baita bakoitzaren hedaduraren aldetik: Iparraldeko literatura, 1745 arte zabal xamarra izaki, orduko mintzairaren ordezkari aski ontzat har daiteke, Pouvreau eta Urteren hiztegi handiek eskaintzen duten laguntza, sarritan osagarria, ahaztu gabe; eta, halaz ere, muga jakinak ditu, dela edukiek berek sortutakoak,¹³⁸⁸ edo dela idazleen etorkiarengatik¹³⁸⁹.

Kontuak larriago bilakatzen dira begiak Hegoaldean jartzen baditugu: ekoiztutako idatziak gutxi eta maiz eskasak izateaz gainera, tamaina bateko hiztegi bakarra Landuccirena dugu. Larramendiri lekukotasun idatziok, deitoratu zuen bezala, ezer gutxirako balio izan zioten, eta neurri beretsuan balio dezaigukete guri, *HH*-an bildutako hiztegi altxorra kokatzen eta neurtzen saiatzeko.

¹³⁸⁸ Lehenagoko atal baten aurkezpenean (§ 3) honi buruzko ikuspegi bat eman dut, baita adibide argi zenbait ere.

¹³⁸⁹ Denetan hutsunerik larriena behenafarreran dukegu: artean zerbait agertu bada ere —BN-mix-eko (?) espiotzako gutuna (1595; Floristán 1993: 204-205 eta Satrústegui 1993: 446-449)—, puskek baino ez dira, eta nekez betetzen dute Etxeparerengandik Alfonsa Rodrigezengana doan tarte itzela, adibidez.

Euskararen historiari dagozkion eragozpen hauei metodologiarekikoa erantsi behar diegu, zeren eta oro har saiatzen ari naizen ikermodua ezohikoa izateaz gainera, oraingo arloa, ahozko ekarriarena alegia, zalantzarik gabe ezezagun edo saihestuena baita (ik. Aurkezpena, bereziki § 2.4). Hau ez da gertatzen emaitza badaezpadako eta urriak espero daitezkeelako bakarrik —aipatu atalean iradoki dudan bezala—, baizik eta hiztegi gintzari funtsean dagokion ezaugarri bategatik: sortzetik literaturarekin (hizkuntza idatziarekin, alegia) lotuago egon da, egon ere, mintzairarekin baino: dialektologiarako eta oro har herri hizkuntzarako zaletasuna, jakina denez, Erromantizismo garaiko kontua da gehienbat,¹³⁹⁰ eta jadanik mendeetako tradizioa zeukan hiztegi gintzan dudarik gabe honek eraginik izan bazuen ere, egiatan zeharkakoa (hiztegi dialektalak, etab. eraginaz, batez ere) handiagoa izan da, zuzena baino. Larramendik berak, ahal izatera, liburuetara joko zuen, esana utzi zuen bezala, baina ezinbestekak eraman zuen bestela jokatzerara:

Para saber sus voces [euskararenak] no hai recurso a los Libros, sino a los pocos que he citado, y esos en un solo Dialecto, y se hizo preciso recurrir a todas las Provincias, y adquirirlas preguntando de viva voz (Larramendi 1745: lii).

Bere garaian, orduan ere halako interes bat soma daiteke ahozko hitzei buruz, hau da, hiztegietan jaso gabe zirauen hiztegi altxorraz. Espainiako Akademiak, hiztegiaren egitasmoa eratzetarakoan, ez zituen hitz dialektal eta zaharkituak alde batera utzi, Frantziakoak edo Cruscarenak —zeinek bere modura¹³⁹¹— egin bezala:

A diferencia del exclusivismo parisiense del diccionario francés, el de Autoridades desea acoger todas las voces provinciales que pueda (...). Es cierto que esta aportación de voces extra-castellanas fue irregular y aleatoria, pero correspondía a una intención explícita de la Academia; si no resultó más extensa, fue culpa de las prisas, y siempre se sintió como imperfección (Lázaro-Carreter 1980: 90-91).¹³⁹²

Izan ere, hiztegi gilea aldi berean inkestatzaille izatea oso gertakari bakana eta berankorra bide da. Johnson-ek, ingelesezko lexikografia goitik behera berriztu zuen hiztegi gileak (cf., adibidez, Starnes & Noyes 1946: iv), honela zioen bere hitzaurrean:

That many terms of art and manufacture are omitted, must be frankly acknowledged; but for this defect I may boldly allege that it was unavoidable: I could not visit caverns to learn the miner's language, nor take a voyage to perfect my skill in the dialect of navigation, nor visit the warehouses of merchants, and shops of artificers, to gain the names of wares, tools and operations, of which no mention is found in books; what favourable accident or easy inquiry brought within my reach, has not been neglected; but it had been a hopeless labour to glean up words, by courting living information, and constesting with the sullenness of one, and the roughness of another.

¹³⁹⁰ Jakina, lehenago ere izan zen halako interesik, Errenazimenduko herri hizkeraren lehenengo hitz bildumak eta erakuskariak (Italiako adibiderik esanguratsuenak Tagliavini 1973: 58, 21. oh.ean ikus daitezke) eta erretra bildumak (cf. Lakarra 1996b), besteak beste, horren lekuko.

¹³⁹¹ Lehena bere garaiko *bel usage*-ari atxiki zitzaion, hots, Gorteko hizkuntzari (hitzaurrean aldarrikatzen duen bezala: ik. Finoli 1959: 133-134, eta pasarteari buruzko iruzkina, *ib.* 111 eta 114-115); Cruscaren Akademia, berriz, "mende onaren" (*Trecento*-aren) eredu eta autoritateari, eta horrek "...implicava il carattere letterario e cristallizzato della lingua maggiormente accolta nel *Vocabolario*, la conseguente esclusione delle voci tecniche non appartenenti all'uso letterario e, in linea di principio, il rifiuto a un frequente ricorso alle voci dell'uso vivo e parlato" (Vitale 1959: 47).

¹³⁹² Adibidez, "Continuación de la Historia de la Real Academia Española"-n (*DAut* 1739: (10)) Aragoiko hitzak Blas Antonio Nassarre, Joseph Torrero y Marzo, Francisco Escuder eta Joseph Siesso de Bolearen artean bildu zirela zehazten da.

To furnish the academicians della Crusca with words of this kind, a series of comedies called *la Fiera*, or *the Fair*, was professedly written by Buonaroti; but I had no such assistant, and therefore was content to want what they must have wanted likewise, had they not luckily been so supplied.

Not are all words which are not found in the vocabulary, to be lamented as omissions. Of the laborious and mercantile part of the people, the diction is in a great measure casual and mutable; many of their terms are formed for some temporary or local convenience, and though current at certain times and places, are in others utterly unknown. This fugitive cant, which is always in a state of increase or decay, cannot be regarded as any part of the durable materials of a language, and therefore must be suffered to perish with other things unworthy of preservation (Johnson 1755: 237-238).

Pasartea bereziki interesgarria iruditu zait, ez bakarrik hitzei buruz erakusten duen pentsaeragatik, baizik eta hasierako hitzengatik batez ere, Johnsonek egin ez zituen gauzak, *mutatis mutandi*, Larramendik egin zituenak baitira. Ondoren, behar baino askoz luzeagoa dela jakin arren, oraintsu artean batere arretarik erakarri ez duen *HH*-ko honi buruzko pasartea kopiatuko dut, gorago aipatutakoaren jarraipena, hain zuzen, Johnsonenarekiko erkaketan oraindik nabarmenduagoa geratzen delakoan:

...y se hizo preciso el recurrir a todas las Provincias, y adquirirlas [hitzak] preguntando de viva voz. Las he andado todas con sobrada fatiga, aunque algunas con más celeridad de la que quisiera, preguntando y apuntando quantas voces oía, para colocarlas después en las correspondientes Castellanas. Y aquí entra mi mayor trabajo.

A dos géneros de personas he dirigido mis preguntas: en los dialectos de España, a los que saben Castellano y Bascuence, y en el de Labort, a los que saben Bascuence y Francés, y a los que en todos los dialectos sólo saben el Bascuence. Los primeros son los que me han sido más inútiles para disponer el Diccionario. Los que en Guipúzcoa, v. gr. y en Bizcaya saben el Castellano y Bascuence, sólo saben una pequeña parte del Castellano, reducida a las voces necesarias para explicarse en las materias obvias y manuales de cada día, y no más: y si han de hablar de otros objetos no tan usuales y ordinarios, se hallan atajados y sin voces (...). Lo que me causaba mucho disgusto y pena era ver que no acertaban a darme las voces Bascongadas correspondientes al Castellano usual que sabían y hablaban, ni tampoco al contrario (...).

Escarmentado con esta experiencia busqué para mi intento a los puros Bascongados, pero con el desconsuelo de que no entendían las voces Castellanas. Valime de dos medios, el 1. señalarles con el dedo, con el ademán, con el gesto los objetos, cuyas voces Bascongadas quería yo saber, *au cer da? oni nola deritza?* Y me respondían lo que yo quería saber, y lo apuntaba luego. Pero qué de tiempo ha sido menester, qué viages, qué molestias? En los puertos de mar me detenía a saber los nombres de los pescados, de las olas, tempestades, navegación, Navíos, y sus partes sin número, sus movimientos, dirección y gobierno. En tiempo de sementera y cosecha iba a las Caserías a preguntar de tanto instrumento, de su manejo vario, de tan repetida diferente labor, tan multiplicadas acciones, tanta yerba perjudicial a los sembrados, la faena de innumerables objetos y ejercicios en el segar, recoger, macollas, manojos, montones, eras, trillos, &c. Iba a un monte, y allí me informaba de los árboles, de sus especies, de las partes de cada uno, plantíos, cortes, trasmochos, de los arbustos y matorrales, fuentes, prados, arroyos, quebraduras, precipicios, cumbres, laderas, cuevas, hongos, setas, helechos, yerbas, flores, y la diferencia y multitud de voces que en los más destos objetos se hallan: allí de los animales, y su diferencia, de las aves y pájaros sin número, colmenas, abejas, hormigas, insectos, &c. Y era necesario repetir los viages, para demostrar estos objetos, que no estaban siempre prontos. Iba a estas Herrerías (...), y allí los nombres de minerales, venas, preparaciones, fundiciones, machinas, oficios, instrumentos, presas y saltos de agua, barquines y viento continuado sin ellos, masas, tochos, barras, planchas, &c.

El 2º. medio fue oír con observación sus conversaciones, unas veces las que entre sí, sin influxo mío, entablaban, otras las en que yo de propósito los metía, sobre determinadas materias y objetos, en que precisamente avían de salir aquellos verbos y nombres que yo deseaba saber. Este medio es el que más me ha costado, de tiempo, de aguante y fatiga, pero es el que más me ha servido, pues es increíble la copia de nombres y verbos que he apuntado y recogido oportunísimos, aunque poco frecuentados entre los Bascongados que hablan el Castellano, y aún nada entendidos, aunque sean términos de su mismo lugar, como he hecho cien experiencias aquí en Azpeitia y otros lugares, llevándolos, para el desengaño a los meros Bascongados. Este es el medio único que hai para descubrir las voces Bascongadas que faltan, y son muchísimas, assí deste dialecto de Guipúzcoa, como de el de Bizcaya, y de los demás, en que no he podido hacer, ni repetir esta diligencia a mi satisfacción (Larramendi 1745: lii-liii).

R. M. Pagolak (1992) erakutsi duen bezala, Larramendiren galdeketa-lanaren deskribapen hau ezohikoa da garai hartarako, eta lana bera oso goiztiarra, zeren eta XVIII. mendean ahozko hizkuntzaren datuak bildu eta aztertzeko zaletasuna biziki hedatu bazen ere, izenik handienak mendearen azken aldekoak baitira: Oberlin (1775) eta Court de Gebelin (1778) Frantzian, Pasqualino (1785-1795) eta Galiani (1779) Italian, Sarmiento (c. 1745) Galizian edota Jovellanos (1791) Asturiasen.¹³⁹³ Nolanahi ere, Larramendik emandako xehetasunek lana benetakoa eta, areago, tajuz eginikakoa dela frogatzen dutela jakitea askoz garrantzizkoagoa da guretzat.¹³⁹⁴

Larramendi txikitan atera zen jaioterritik Bilbora, eta gaztaroan (1707-1730) Gaztela aldean ibili zen, artean euskara askitto ahaztuaz:¹³⁹⁵

Para salir con este intento, lo segundo a que me dedicué fue a aprender el Bascuence, venciendo cien dificultades y repugnancias. Todos los que salen fuera deste País Cantábrico a Castilla, y a otras partes, han aprendido a hablar solamente dialecto de su tierra, y es certísimo que no saben aun la vigésima parte del, y que por el ningún uso, aun essa se les olvida con el tiempo. Esto me sucedió a mí, como a todos los demás, y me fue preciso renovar las especies del Bascuence, imponerme primero en mi dialecto Guipuzcoano, y después en los otros, hasta que los reduje a método y Arte (1745: lii).

Hiztegia egiteko asmoak bultzatu zuen euskara berrikastera, baina hartan ez zen herrikoa ikastera mugatu, bere ustetan ziren hiru euskalkien —bizkaiera, gipuzkera eta lapurteraren¹³⁹⁶— bereizgarriak ere aztertu baitzituen, gramatikan haien berri zenbait emanez,

¹³⁹³ Pagolaren lanean aurki daiteke honi buruzko bibliografia; bertatik hartu ditut goiko izen guztiak. Italiako dialektoei buruzko jakinahiaren garapenaren laburpen argigarri bat ikus daiteke Tagliavini 1973: 58-60, 21. oh.ean. Dialektologiaren eremutik kanpora, eta garai beretsuan, Espainian aipatu behar da Terreros josulagun hiztegiilea, gaztelaniazko hiztegi teknikoak biltzeko asmoz lantegietara jo eta langileek erabilitako hitzak lehen eskutik jasotzen aritu baitzen (Lázaro Carreter 1985: 285-286).

¹³⁹⁴ Pagolaren lanetik bereziki interesatzen zaigu “Euskalkiak jasotzeko metodologiaz” atalean (*op. cit.* 255-258) dioena. Lana oso garrantzitsua da, guri dagokigunez, ixilpean zeuden hainbat gauza agerian ipini dituelako. Halaz ere, baliteke egileak behar baino berotasun gehixeago ipini izana Larramendiren aitzindaritasun, modernotasun eta zientifikotasuna gorai patzerakoan. Dena dela, ohargarria da dagoeneko azpimarratu izan dela —Larramendi ezagutu gabe, noski— oro har gramatikari buruzko hausnarketak kultur kontaktuek suspertu dituztela eta, zehazkiago, XVIII. mendean “paleodialektologia” bat eremu elebidunetan sortu izana ez dela inolaz ere kasualitatea (Swigger 1990: 22).

¹³⁹⁵ Altunak (1992a: 7) gogoeta interesgarri bat egiten du, Bilbora zenbat urterekin joan zen jakitearen garrantziaz, “...ez baitio etxetik umetan ateratzen den haurrak modu berean eusten umetako hizkuntzari, hamar urtez edo hamabiz atera”. Halaz ere, badirodi Altuna Larramendik euskara osoki edo ia ahaztu zuelako iritzia alde makurtzen dela, “euskaldun berritua” deitu eta, honen alde “...berritua ez denak sartuko ez lukeen puntuan berritua hanka sartzea edo huts egitea” (1992b: 39) erabiltzen duenean. Arrazoiak arrazoi, eta funtsean egia izan daitekeela ukatu gabe, uste dut bereizi beharko lirakeela hitz egitea eta idaztea, alde batetik, eta hizketan aritzea eta sermoiak ematea, bestetik: egunero euskaraz —eta euskara dotorean— hitz eginda ere, gure herritar asko (eta hau edozein hizkuntzako hitzunez ere esan daiteke) ez dira gai behar bezalako idatzirik egiteko, ezberdinak baitira ahozko eta idatzizko hizkuntzaren legeak, eta erraztasunik ez duenak (baita batzuetan duenak ere) gogortuta bezala sentitzen baitu luma, mingainaren aldean; beste horrenbestetsu esan daiteke sermoiak predikatzeari buruz, areago kontuan izanik Larramendik Salamancan irabazitako ospea bere herrialdean ere mantentzeko gogoia (ulergarria) izan zezakeela. Halaber, uste dut halako ikerketa bat Añibarro eta Lardizabalekin egingo balu —hobekien ezagutzen ditudan idazleak baino ez aipatzeagatik— gutxienez Larramendi bezain akastunak direla eta, beraz, hauek ere euskaldun berritua direla baieztatzeko argudioak izango lituzkeela. Baina, oso esanguratsiki, inor ez da bide honetatik abiatu (ez eta abiatuko ere, nik uste) gainerako euskal idazleekin. Egin daitekeen pasartearen beste ulerpen baterako, ik. § 1.2.

¹³⁹⁶ Jadanik gramatikan (Larramendi 1729: 12). Denboraz, bere iritzia ez da hain erabatekoa izango, Zuazok (1988: 90-91) agerian jarri bezala; *Corografía*-n (295-302. or.), zehazkiago, orotara bost euskalki ezberdinez (zuberera, lapurtera, bizkaiera, nafarrera eta gipuzkera, hurrenez hurren) mintzo da,

nahiz eta lan hau egin orduko oraindik Salamancan zegoen.¹³⁹⁷ Inolaz ere, gramatikan agertzen duen euskalkiei buruzko ikuspegia motza da geroago lortuko zuen ezagutza sakonagoaren aldean.¹³⁹⁸ Urte batzuk beranduago Baionara joateko aukera izan zuen, baita inguru hartako liburuak lortzeko¹³⁹⁹ eta —goraxeago irakurri diogunez— hizkuntza bizia ikasteko ere, han eman zituen urteetan (1730-1733).

Baionatik, Donostian zazpi hilabete egin ondoren (1733-1734 bitartean),¹⁴⁰⁰ Loiolara joan zen. Jadanik aipatu dut jarraian lan egiteko betaren aldetik bertaratzeak izan zukeen erabateko garrantzia hiztegirako (I, § 9.3), baina orain erants dezakegu bertako egotaldia izan bide zuela hitz ehizan ateratzeko paradarik onena, hiztegia bukatu bitartean hamar urtez ingurune euskaldun batean bizi izan baitzen, ordura arteko denboraldirik luzeena inondik inora ere. Halere, deus gutxi dakigu ibilaldi hauei buruz,¹⁴⁰¹ ezpada Frai Bartholomé de Galarza agustinotar oniritzigileak dioskuna:

Aplicóse con suma vigilancia a la investigación de los términos más ocultos del Bascuence, en las Facultades de Arquitectura, Agricultura y otras, de que me consta. Dio muchos passos: corrió a este fin varios Lugares del Señorío de Bizcaya y Guipúzcoa, en que concibió se conservaba aún en su nativo esplendor el Bascuence.

Bestela ere pentsatzekoa zen aldameneko bi probintziak errazago eta hobeto ezagutu ahal izan zituela, batez ere Loiola izan bazen, uste dudana bezala, bere txangoen abiapuntua. Goragoko aipamen luzearen hasieran hiztegi hitzak biltzeko "...se hizo preciso recurrir a todas las Provincias" (1745: lii) badio ere, beraren bukaeran, Galarzaren esanarekin bat, hori alde bakarririk egin ahal izan zuela aitortzen du, hain zuzen Bizkai-Gipuzkoetako hitzekin asebeteenik agertzen delarik: "...son muchísimas [euskal hitzak], así deste dialecto de Guipúzcoa, como de el de Bizcaya, y de los demás, en que no he podido hacer, ni repetir esta diligencia a mi satisfacción" (*ib.* liii); gainerako horiek zein diren, beste pasarte batzuen artean,

bakoitzeko testuak adibidetzat emanaz, Arabako euskarari buruzko aipua, gramatikakoa (*loc. cit.*) baino laburragoa, dena dela (cf. Mitxelena 1958: 38, 26. oh.). Are intesgarriagoak dira, noski, euskalki hauen barruko ezberdintasunez (gutziz gipuzkeraren barrukoez) ematen dituen xehetasunak. *HH*-aren hitzaurrean bildutako ezaugarrien laburpena Zuazok (1988: 89-91) egin du, eta Pagolak (1992: 261-263) bertako eta *Corografía*-koena.

¹³⁹⁷ Altunak (1992a: 13-14) bildu ditu Gaztelako egotaldi hartan Euskal Herrira egin zituen bidaia ezagunak.

¹³⁹⁸ Hiztegian erantsi zituen gramatikazko berri ugariei buruz, ik. I, § 3.3 atala.

¹³⁹⁹ Leizarraga bai, bederen. Honi buruzko atalean (§ 9.1.1.1) azaldu dut gainerako Iparraldeko liburu gehienak ere egotaldi hartan erdiets zitzakeelako susmoa.

¹⁴⁰⁰ *Autobiografía* 25, eta cf. argitaratzailearen 27. oh.

¹⁴⁰¹ Bada *Autobiografía*-n (c. 1764: 29) "Lo que escribieron a Nuestro Padre sobre mis excursiones" izeneko atal bat, non "Tienen muy en la memoria las excursiones que hago fuera del Colegio, como que son rusticaciones y villageaturas" dioen; bestelako kontuez ari da han, bere burua defendatu beharrez hain zuzen, eta hurrengo ataltxoan (*ib.* 30) argi geratzen da zein aldetatik: "...en mis excursiones he trabajado y ejecutado empresas de tanta gloria de Dios y de mi Madre la Compañía, que, a haber precedido a cada una de ellas una Misión, me hubieran calificado de... insigne Misionero. ¿Y éstas son las que se han de calificar de excursiones y bureos?". Azpimarra dezadan, oster, idatzi honetan aipatzen dituen auzi-mauzi eta ibilaldi gehienak *HH* ondu ondokoak direla (Oartzun 1744, *ib.* 30-32; Tolosa 1746, *ib.* 32-34, etab.); aurkitu dudana salbuespen bakarra Iruñea, Tolosa eta Donostiara eramanez (1737, *ib.* 34) izan da. Badirudi, hain zuzen, batez ere ondoren hasi zela bitarteko papera egiten zein komentuetako arauak aldatzen.

ondoko honetan zehazten du, bide batez berriro euskalki guztiak nahi bezain astiro aztertu ez zituela esanik:

Pero tengo prueba claríssima de que son innumerables las [voces] que faltan, y están derramadas y escondidas en Bizcaya, Navarra, Guipúzcoa, Alaba, Labort y Zuberoa (Larramendi 1745: xlv).

Lanaz den bezainbatean, Larramendiren hitzek argi eta garbi adierazten dute eginez ikasten zuela, praktikaz beste maisurik gabe, antza denez. Bi lekuko mota saiatu zituen: lehenbizi elebidunekin, baina hauetatik ezer askorik lortu gabean, euskaldun hutsekin aritu zen.¹⁴⁰²

Metodoak ere bi izan zituen, euskaldun hutsekin hasi zenetik: “deixiaren bitartez informazioa jasotzea” (Pagola 1992: 257), hau da, atzamar hutsez gauzak seinlatu eta haien izena galdetzea, eta bigarrena “elkarrizketa, nahiz askea nahiz arteztua” (Pagola *ibid.*),¹⁴⁰³ hau da, jendeari entzun, besterik gabe edota gaia proposatuaz.

Pasartetik —baita Galarzaren iruzkinetik ere— ageri da arlo semantiko zenbait bederen bereziki jorratu zituela, haietaz jabetzeko apropos ziren inguruneetara joaz. Ez dago esan beharrik Euskal Herriari zegokionez arlorik begibistakoenak ez zituela ahaztu: itsasoa eta mendia, nekazaritza eta burnigintza, animaliak eta landareak eta, Galarzaren hitzetan, baita etxegintza ere. Egin dezadan hemen erakusgarri bat, beste euskal hiztegiele ospe oneko zenbaitekin (Urterengan pentsatzen ari naiz, bereziki: ik. Urkizu 1989: 126-149)¹⁴⁰⁴ egin den modutsuan, euskal hitz bakoitzaren aldamenen lehen datatzea¹⁴⁰⁵ aipatuaz; animalia izen batzuek bakarrik, burura etorri ahala jasoak, honelako emaitzak ematen dituzte, lurralde honetan arruntenak zirenetatik batzuk berak lehenengoz jaso zituela, eta gehienetan deitura batekin baino gehiagorekin, erakusteko:

besugo, *errosela* (1745).

¹⁴⁰² Ondorio berera iritsi zen galegoz A. Sarmiento ere, berriemaileak Larramendik baino xehetasun gehiagorekin (adinarean eta bizilekuaren arabera) —esplizituki behintzat— hautatu bazituen ere (ik. Brea Claromonte 1985: 13). Gogora dezagun, bide batez, *-tasun* eta *-keria*-ren arteko bereizketa ulertzeko ere euskaldun hutsei galdetu ziela (§ 2.1.2, 16. oh.); ez zen izan, beraz, hitzak erdiestera bakarrik zuzendutako galdeketa.

¹⁴⁰³ Pagolak (*loc. cit.*) nahasteren bat izan du, deixiaren metodoari buruz “metodorik onena bezala aurkezten du andoaindarrak, neketsuena ere bai, eta denbora gehien eramaten duena” eta elkarrizketarenari buruz “bide ona eta deixiarena baino errazagoa dela” dioenean; izan ere, bertan kopiatzen duen pasartean, Larramendik bigarrenari buruz hauxe dio: “Este medio es el que más me ha costado, de tiempo, de aguante y fatiga, pero es el que más me ha servido...” (1745: liii).

¹⁴⁰⁴ Urkizuk Larramendi Urterekiko erkaketara ekarri zuen eta, bere ustetan, galduan aterarazi. Alabaina, lehiaketa herrikoitasuna baldin bada, *nil ibay arragn legúna* “alabes”, *itsassdeabrua*, *itsass aphoa* “batrachus” edo *çola arragna* “buglossus” baino arrainetarako adibide hoberik edireten saiatu behar zuela deritzat. Halaz ere, “...natur zientziez arduratzen direnek Urteren hiztegian aurki dezaketela izen egoki eta arrain mota ezezagunen euskarazko ordain bikainik” (Urkizu 1989: 137) esanda gero argi xamar geratzen da beste joku batean ari dela. Joku berebean unetxo batez sartuta, ez dut uste Donibaneko arrantzaleak ados egongo zirenik (eta direnik) *legatza* eta *bacaillaüa* biak “asellus” edo *antçhoa*, *çhardigna* eta *lotçha* hirurak “apua” direla idatzita utzi duen hiztegielearekin. Urkizuren Urteri buruzko jarreraren iruzkin zehatzagoetarako, ik. Lakarra 1994b.

¹⁴⁰⁵ Lehen datatzeak *EH*-tik hartu ditut, erraztasunari amore emanez, baina *OEH*-koekin osatuaz hark jasotzen ez dituen hitz edo formetan. Data bat (*ainhara*; ik. § 10.3.1.2) aurreratu ahal izan dut. Osterantzean, galdera markaz azaltzen direnak neuk erantsitakoak dira eta, hortaz, *OEH*-aren datuak iritsi bitartean zalantza-koak.

comadreja, *erbiñudea* (1745), *pirocha* (1745?), *oguigaztaya* (1745).
 conejo, *unchia* (1745), *coneja* (1562).
 escarabajo, *cacalardo* (1745), *caramarroa* (1745).
 golondrina, *enada* (1660), *elaya* (*elae* 1596), *ainhara* (1741).
 gorrión, *choarrea* (1745), *curroea* (*kurloi* 1898, *kurloe* 1905, *kurrioe* 1802), *echachoria* (1804, *etxexori* 1715), *ormachoria* (1745), *parrachoria* (1745?).
 hormiga, *chingurria* (1745), *chindurria* (~1620), *chinaurria* (1643).
 lagartija, *suranguilla* (1745), *sugalinda* (1745).
 lagarto, *musquera* (1562).
 mariposa, *inguma* (1745), *chiqueta* (1745?), *chirita* (1745?), *micheletea* (1745), *ulifarfalla* (1643?).
 marisco, *lapa* (1745), *magurioa* (1745).
 merluza, *legatza* (1600), *lebatza* (1745).
 mosca, *eulia* (1562), *ulia* (1571).
 murciégalo, *sagusyarra* (1745).
 nutria, *igaraba* (1745), *ubagarea* (1745?).
 pulga, *cucusa* (1745, *kukusu* ~1620, *kukuso* 1657), *arcacuso* (1745), *ardia* (1562).
 rana, *iguela* (1571), *inguela* (1745), *zarrapoa* (1745?), *ugarayoa* (1745?).
 sapo, *zapo* (1745), *apoa* (1627).
 topo, *satorra* (1653), *satsuria* (1745?).
 trucha, *amurraya* (1745), *amuarraina* (*XVII ea.), *arrancaria* (1596).

Lan hau, zalantzaz geratutakoak argitzera behin eta birritan ere leku berera joaz egindakoa da, berak esandakoaren arabera, gutxienez gehien jorratu zituen euskalkietan. Gainera, bistan da —baina ziurrenik Pagolak (1992: 258) ongi egiten du gogoratuaz— aipatutako arlo semantikoak adibide gisa baizik ez zituela eman, alegia ezinbestean arlo gehiagotara zabaldu behar izan zuela bere egitekoa.

12.1. Metodoak, mugak eta arazoak

Larramendik hustu zituen iturri idatziek corpuseko hitzen kopuru txiki bat baino ez dute azaltzen —berak gaztigatu zuen bezalaxe— eta, nolana ere, sarritan eskaintzen duten azalpena ez da asebetetzeko modukoa, dela *HH*-ko berriarekin zeharo bat ez datozelako, dela hitza bestela ere ezagutu behar zuela uste izateko arrazoi sendoak baditugulako (§ 9.2.7.1). Ez genuke ahaztu behar Larramendik bateko eta besteko berriak, literaturakoak eta belarriz jasotakoak, dena biltzen saiatu zela; halaxe erakusten digu bereziki, Leizarragaren Testamentua dela eta, *sarraski* hitzari buruz eskaintzen duen informazio aberatsak, Leizarraga, Argaignarats eta Gasteluzarrekin batera, “Oiartzun eta beste leku batzuetako” erabilera aipatuaz (§ 9.1.1.2).

Beste horrenbeste gertatzen da hitz berriak egiteko erabili zituen baliabideekin, alegia, honek ere hitz kopuru batetik aurrera nabarmenki galtzen du *HH*-ko hitzak azaltzeko daukakeen gaitasuna, nahiz arlo honen mugak ezartzea askoz irristakorragoa izan. Jadanik adierazi dudanez (cf. § 9.2.2, adib.), lehenagoko aurreiritziak gainditzeko modua, ene ustetan, hasiera batean hitzak denak egiazkotzat hartzea izango dela, Larramendiren esanak merezi duten heinean sinistuz:

Los Bascongados, al ver en el Diccionario una cantidad tan prodigiosa de su Language vulgar, unos preguntarán si todas son voces del Bascuence. Y otros resueltamente dirán que no lo son, sino de mi fábrica y invención. A los que preguntaren con modestia y sin pasión, digo que todas son Bascongadas, y que no pongo ninguna que o no aya leído en los libros impressos, u oído en alguno de los dialectos del Bascuence, apuntándolas todas de antemano con toda prolixidad, para que no se me olvidassen. (...) A los que magistralmente dixeren que no son voces del Bascuence

(impertinencia por cierto intolerable) les responderé que no tienen voto para hablar en esta materia, y assí que el callar ha de ser su partido (1745: xlvii).

Hein hori zein den erabakitzea, berriz, ikertzaileon lana da. Larramendik badirudi hordago bota ziela bere garaiko euskaldun ezjakin berritsu asmo txarrekoiei, gainerantzekoan mesedetan. Desafioa edukita, gaiaz hitz egiteko eskubidea iritsi dugula frogatu beharko genuke, berak erabilitako sorbideak agerraraziaz, hain zuzen. Ikuspuntu honetatik, euskal sorbideen tradiziozko erabilera eta bilakaera ezagutzen ditugun neurrian, haien aurkako jokabideak soilik izan daitezke Larramendiren eskuaren salatzaile ziurak, aurreko hainbat ataletan ikusi dugunez (ik. bereziki §§ 2 eta 3).

Haatik, aho biko ezpatak mehatxatzen gaitu auzi honetan, errazkeria filologikoan erori nahi ez baldin badugu, behinik behin: ez dago inondik inora esaterik Larramendik tradizioaren kontrako hitzak bakarrik egin zituenik, ez eta ezinbestean tradizioaren kontrako ezer duten hitz guztiak Larramendirenak direnik ere. *Pouvreauk* bezalaxe eta, agian hurbilago, *Urtek* bezalaxe, “tradizioa” bere modura ezagutu zuen —ezagutu ahal izan zuen moduan, alegia— eta bere ustetan den-denak euskararen legeen arabera egiten ari zelakoan zegoen, inolako dudarik gabe.

Alde batetik, “ongi egindako hitzak” asmatuak direla frogatzea oso zaila da, euskaraz egin daitezkeen gauzak lehenago zein hiztunek egin dituen erabakitzea ezinezkoa den neurrian; gehienera jota, delako baliabide baten erabilera maiztu zuela egiazta daiteke eta, bestelako lekukotasunen arabera, ale berriak zeintzuen artean egon daitezkeen proposatu, denok ezagutzen baitugu —edo hala beharko genuke, behintzat— *ex silentio*-ko argudioen badaezpadako izaera. Honezaz gainera, ereduak (*DAut*-ek, gure kasuan) eskain ditzake hitz bakan batzuetarako argudio osagarriak, ikusi dugun bezala.

Bestetik, “gaizki egindako hitzak” ez dira sekula ezerezetik sortuak, Larramendik ezagutu zuen euskara bizi eta —oker edo zuzen— aintzat hartu zuen euskara hiletik eratutakoak baizik. Bigarren euskara mota honi dagozkion gauzei bi aldetatik heldu diegu orain artean: etimologienetik (§§ 6 eta 11) eta hortik gehiegi ezin urrun dezakegun toponimiarenetik (§ 8). Euskara bizia da, berriz, atal honetan interesatzen zaiguna, hau da, XVIII. mendeko euskaratik zer-nolako berri demaigun eta nongo gauzak jaso zituen, gutxi gorabehera behinik behin.

Helburu honekin, bada, arazoari beste mutur batetik hel dakiok, hitzen zabalkunde eta izaeraz dakigunaren laguntzaz *HH*-an bildutakoan artean herrikoia direnak edo izan daitezkeenak nabarmenduaz, eta haien kokapen dialektala ahaleginean zehaztuaz, alegia. Azterketa mota hau emankorra izan dadin, corpuseko hitz guzti-guztiak lupapean jarri behar ditugu, haien eitea gorabehera, eta arrazoi honexegatik esan dut denak egiazkotzat jo behar ditugula, ezertxo ere itzuri ez dakigun, hain zuzen ere.

Gidari gisa, beti bezala, *OEH* izan dut, nahiz bestelako informazio iturriak ere, berriak zein honek ez erabilitakoak, biltzen saiatu naizen. Izan ere, Mitxelenaen *OEH*-ak eman izan dio hasiera hemen saiatu behar dudan ikerbideari, berak (baita kontu hauetan bere ondorengoa

den *EH*-ak) sartu baitzuen Larramendi Azkueren hiztegiak gerozko euskal lexikografian, eta halaxe agerian ipini baitu, behin baino gehiagotan, *HH* dela hainbat eta hainbat hitz ezagun eta herrikoiren lehen lekukoa, sarritan oso goiztiarra gainerako lekukotasunen aldean. Adibide bat emango dut: G-GAR zatian, lehenengo adierari bakarrik begiratuta, *HH* 89 hitzetan (%15, gutxi gorabehera) agertzen da *EH*-an hitz baten edota hitz baten aldaera baten lehen lekukotzat, eta ez dezagun ahaztu *hauta-lanerako* bakarrik pentsatutako hiztegia izateak hitz asko kanpo utzi dituela.

OEH-an, baina, lana hizka egina da, ikuspegi orokorrago batek egin dezakeen argia —batzuetan ezinbestekoa datuak ulertzeko— galduaz. Bestalde, dialektologi xehetasunak jasotzen baditu ere, nabaria da hitzen literatur bilakaerari arreta gehiago jartzen diola, bestelako informazioak gehigarri gisa baino ez emanaz eta, hortaz, arlo horretan izan dituen iturrien berriak diren bezalaxe —kontrastatu gabe, alegia— kopiatuaz ez eze, laburdura sistema trinkoago baten bitartez laburbilduaz. Ondorioz, *OEH*-tik abiatuko banaiz ere, ahal dudan guztian bahetu eta osatu egingo dut, eta emaitzen interpretapena saiatu.

12.1.1. Azkueren “dialektologia”

XVIII. mendeko lexikoaren egoeraz esanak esan ondoren, hartara hurbiltzeko gelditzen zaigun bide ia bakarra bestelako lekukotasunez (ahozkoez batik bat) baliatzea da, areago *HH*-ko hitz gehienetarako hipotesirik merkeena Hegoaldekoa izatea dela kontuan izanik; lekukotasun hauek, baina, gutxieneko kontuan mende eta erdiz beranduagokoak dira, batetik; bestetik, eratzen duten sareak zulo handiak ditu, hitz batzuen zabalkundeari buruz berri engainatzaileak eskainiaz,¹⁴⁰⁶ eta, azkenik, batzuetan eurak ere zalantzazkoak dira. Hortaz, arradaki bat erabili dut Izagirre bezalako lekuko fidelekin, eta beste bat —askotan arradaki baino gehiago bahe izan dena— Azkue, Lhande eta Toribio Etxebarriarekin, adibidez.

Lhande 1926, alde honetatik, ia osoki *codex descriptus* bat da Mitxelenaren adieran (1970: 27), aurreko hiztegiek (guztiz Azkue eta Maurice Harrietek) azal baitezakete haren eduki gehiena (erabiltzen dituen laburdurek agerian jartzen dute)¹⁴⁰⁷ eta, dagokigun arloan, bietan aurkitzen baita eskaintzen dituen dialektologi marka ia guztien etorkia.

Etxebarriaren lana (1965-1966), jakina denez, erraldoia da, eta alde askotatik oso goraiagarria. Halaz ere, interesatzen zaigun alderditik kontuz baino ezin erabil daiteke, ez baitzen zena zen bezala deskribatzera mugatu, beharko zukeena ere tartekatu baizik: literatur hitzak, batzuetan lainoki aitortu zuen bezala, toponimia-antroponimietatik deduzi zitezkeen

¹⁴⁰⁶ Hau idatzi bitartean, Euskaltzaindiaren babespean egiten ari den Atlasaren lehendabiziko liburukia kaleratzear dagoela irakurri izan dut egunkarietan. Ziurrenik, hitz zenbaitetarako behintzat, bestelako lekukoa izango dugu laster.

¹⁴⁰⁷ Adibide bat jartzea komeni da, dena dela, kontua aztertzeke baitago, dakidalarik. Lehentxeago bezala, G-GAR zatiko lehen adierak bakarrik aintzat hartuaz, 680 inguru sarreretatik Harrietek 241 (%35), Azkuek 240 (%35) eta, jadanik urruti, Hiribarrenek 39 (%5,7), Foixek 38 (%5,6) eta Xahok 18 (%2,6) eskaini dizkiete; eta denen artean 576 (%84,7), iturri idatzi txikiago anitz (Oihenart, Gèze, Duvoisin, 1828ko *TB*...) kontuan sartu ez baditut ere.

antzinako hitzak, noizbait izan behar baina galdu omen direnak,... saski-naski eder bat eraiki zuen Eibarko hizkuntzaren omenetan.¹⁴⁰⁸

Alabaina, Etxebarriak-eta ezartzen dizkiguten oztopoak ez dira ezer Azkueren aldean. Izan ere, herriaren ahotik jasotako hitzak ezagutzeko iturririk handi eta zabalena, gehienetan bakarra, bere hiztegia da eta, Azkuek —jadanik Mitxelena (1970: 27 t. hur.) frogatu bezala— Larramendiri ateak itxi nahi bazizkion ere, kontaezinak dira ia, ordea, legea hausteko hitzek aurkitu dituzten zulo eta atakak. Azkuek “seriotzat” hartzen zituen idazle-hiztegiak anitz eta anitz, ia denak, arerio bilakatu zitzaizkion honetan: Añibarro eta Duvoisin-en hiztegiak, Zabalak egindakotzat inolako dudarik gabe jo behar dugun “Otxandioko eskuizkribua”, eta XVIII-XIX. mendeko idazle gehienak, batez ere Hegoaldekoak (Uriarte, Lardizabal, Añibarro, Mogel, Mendiburu, Kardaberatz...), baina inoiz baita Iparraldekoak ere (Harrietek paratutako Haranederren Testamentuaren argitalpena, Duvoisin, Inchauspe...).

Dena dela, gertakari hauek ez dira oso kezkarriak guretzat, joan-etorria egiaztatzea eta Azkue azken finean *HH*-aren zordun dela erabakitzea aski lan erraza baita. Askoz irristakorrago deritzat, ostera, besteri: Azkueren hiztegia maiz erabili eta maiz bestelako testuekin erkatu dugunon susmoa da —lan sakona merezi luke, zalantzarik gabe— estrapolazio ugari aurkitzen direla bertan. Azkuek sarritan, baina ez beti, idazle batek erabiltzen duen hitza idazle horren berorren euskalkikotzat, are inoiz herriko hizkerakotzat jotzen du; hona adibide batzuk, A-AL zatitik ateratakoak:

- Agirre Asteasukoa (= G) *agertu, aldar, aldexko, alferrik, almilla, alsuma*.
- Añibarro (= B edo B-a) *agindupeko, al bait, amaka, ameneko, apal*.
- Astarloa (= B) *alaari*.
- Axular (= L) *ahalkesun, habaila, aitzitik, alakairu, aldaka, alde*.
- f. Bartolome (= B) *agintzari, agiriko, aldapatsu*.
- CatS (= S) *alabena, aldepekoak*.
- Duvoisin (= L) *ager, agude, aizatu, albista, alderdi, altxa-arrastelu*.
- Haraneder/Harriet (= L) *ahapaldika, abadote, adelatu, haina, ahipen, ahitu, aitzitik, alhan, aldagarri, aldatzaile, alderdikatu, alditsu, altxagarri*.
- Intxauspe (= S) *aihaitan, hainsarri, haitatu, alhaba, alegi, altxaturazi*.
- Iturriaga (= G) *abaraska*.
- Iztueta (= G) *adigarri, adikatu, ainatu*.
- F.I. Jauregi (= G-goi) *aldondu, alzaidu*.
- Jauretze (= L) *hagoatu*.
- Kardaberatz (= G) *abegor, adirazi*.
- Larramendi (= G) *agorrola*.
- Lardizabal (= G) *agiri*.
- Lizarraga Elkanokoa (= AN) *abramatasun, abrer, absarta, agerri, agitu, aialdeko, aienatu, ajolakabe, aiots, aisura, aizaro, alogeratu, alokairu, alokatu, alsistu, aitzindari*.
- J. A. Mogel (= B, B-m edo G) *aal, aar, aardi, aari, aasa, aasaba, abagune, abegi, abetxu, adeg, adionez, adore, agarri, agintari, agintaritza, aginteta, aieria, aiuika, alango baten, alboroka, aldabar, aldera, alderatu, algara, alkartasun*.
- J. J. Mogel (= B edo B-m) *-agino, ailagiña, aiña, alda*.

¹⁴⁰⁸ Cf. *anker*-i buruz (*RS*-ko hapaxa, XX. mendeko literaturan berpiztua; ik. *OEH*, s.v.) dioena: “Culto en Eibar, donde comúnmente se echa mano de algún adj. socorrido como *sazkarra, zatarra* o una perífrasis como *erruki-gabia*”. Hona beste adibide batzuk: *abata* “Lo mismo que *apata* de *Apatamusturix*. *Abata eta abadia, sustrai batetiko itzak*”, *abendua* “No es común en Eibar, donde de no incurrir en erderismo, se dice *Gabon-illa*”, *abera* (sic) “Aunque recesivo, aparece corrientemente en *abergorrixa, abeletxia, aberatsa, aberastasuna*. En su lugar se ha generalizado la voz romance: *ganaua*”, *elgaitza* “Voz en Eibar recibida por vía de la literatura” edo *elbitza* “Creo que cierta gramínea. Patronímico en Eibar. *Eibar'en ba'ziran Elbitza'nekuak*”.

Oihenart (= S) *aharra, adausi, aiduru, haizolbe, alabaizun, alga.*

Tartas (= S) *aiztore, alzo.*

Uriarte (= B edo G) *abe, aberetxe, adabau, adiakatu, adirazi, agintaritza, agintau, aiñeneko, allagiñako, aldeera, aldekoenak, aldendu, alderri, aldra, alkitsu.*

Berdintsu egin ohi zuen hiztegitik oniritziekin. Har ditzagun Añibarro eta Duvoisin, esate baterako. Añibarroren hiztegia zeharo akritikoki erabili zuen gehienetan, haren euskalki markak bere eginez; hona lehen erabili dudana tarte berean aurkitu ditudan adibideak (izarrak Azkueren marka iturrikoa bera edo haren baliokidea dela adierazten du):

*adiuntza (B, Añ., Mog.), *aide (c., Añ.), *aidur (AN, Añ.), aiño (AN, B, G, Añ.) [Añ-k markarik gabe], *aio, aiorra (G, Añ., Duv.), aise (AN-b, BN, L, S, Añ.) [Añ-k N], *aitobe (B, Añ.) eta *aitaxe (B, Añ.) [biak s.v. *aitaita*], *aizaro (G)... (Añ.), *akarro (B, Añ.), akirin (B, Añ.) [Añ-k markarik gabe], *alas (B, Añ.), *alazoko (B, Añ.), alberdania (B, Añ.) [Añ-k G], alkeri (R, Añ.) [s.v. *alkeizun*; Añ-k N], *alsistu (AN, Liz. 71-22, G, Añ.), *altegi (G, Añ.).

Alde batetik, beraz, okerrez gainera (cf. *alberdania*), honetan ere estrapolazioak egiten jakin zuen, bizkaierazkotzat joaz Añibarro markarik gabe emandako hitz batzuk (*aiño, akirin*). Bestetik, Añibarroren marken badaezpadakotasunaren kontuan sartu gabe ere, haren iturri garrantzitsuenetakoa *HH* zela jakin (nahi) gabean aritu zen Azkue, hark ezarritako markak besterik gabe ontzat emanez; nabarmenki, ostera, Añibarro *HH*-tik hartutako hainbat hitz gipuzkerazkotzat jo zituen han agertzen zirelako besterik gabe. Ikus ditzagun zalantzazko zenbait, bide batez Añibarroren markagabetasuna hemen ere bere kasa ulertu duela oharturik (cf. *añoa, akirin*):

Larramendi	Añibarro	Azkue
Niebla en las miesses, <i>añoa, ludoa</i> .	Niebla: c. <i>lañoa</i> . En parajes bajos: <i>añoa</i> .	AIÑO (...). — 3º (AN, B, G, Añ.), niebla en parajes bajos, como campos, prados, etc.
Harre, con que se avivan las bestias, <i>arre, arri</i> ; a los bueyes, <i>ayo, ayorra, aida</i> .	Arre a las bestias, c. <i>arre, arri</i> ; a los bueyes: g. <i>aida, ayo, ayorra</i> ; b. <i>ia</i> .	AIO, AIORRA (G, Añ., Duv.), arre a los bueyes.
Noche de Jueves Santo, <i>aizaroa</i> .	Noche (...) de Jueves Santo: g. <i>aizaroa</i> ; b. <i>eguenguren gaua</i> .	AIZARRO: 1º (G), noche de Jueves santo (Añ.).
Cabrón castrado, <i>aquirina</i> .	Cabrón: c. <i>aquerria</i> . Cabronada: c. <i>aquerqueria</i> . Cabrón capado: <i>aquirina</i> .	AKIRIN (B, Añ.), cabrón castrado.
Granero, <i>alsistua, alteguia, bihiteguia, garauteguia</i> .	Granero: b. <i>garauteguia</i> ; g. <i>alteguia, alsistua</i> ; n. <i>bihiteguia</i> .	ALSISTU (AN, Liz. 71-22, G, Añ.), granero. ALTEGI (G, Añ.), granero.

Duvoisinekin bestelako gertakariak ditugu: honek euskalki marka ezarri zuenean Azkue kopiatzea zentzuzkoa da, ez baitzen alferrik Bonaparteren laguntzaileetatik bat. Ordea, ezer gabeko hitzetan, Azkue idazleekin ikusi dugun jarrera bera hartu zuela dirudi, hots, “L” zein, sarriago, “L-ain” (= Ainhoa, Duvoisinen jaioterrria) markak bere kabuz ezarriaz. A letrako zatian “(L, Duv.)” adierazpena maiz aurkitzen da; cf. s.vv. *hagin-atheratzaile, aizeztatu, aizigara, haizkorari, haizkoratu, akhipen, akubitu*, etab.; behin bederen (s.v. *ahizperdi*) “(L, BN, S, Duv.)”. BA-BAP zatian ostera bat eginda,¹⁴⁰⁹ ez dut antzekorik bat ere aurkitzerik izan. Duvoisin hiru

¹⁴⁰⁹ Leku ziurragoa iruditu zait, Duvoisinen eskuizkribua eskura ez dudanez gero; erants bekio *OEH*-aren lehen liburukian honen lekukotasuna peitu dela zenbaitetan (honetako gorabeheraz, ik. § 9, 5. oh.).

bider aipatzen da (s.vv. *balderna*, *balditu* eta *baragailu*), behin ere aldean euskalki markarik izan gabe; artean, Duvoisinin hiztegitik estrapolatuak izan daitezkeen anitz idorotzen dira; hona nabarmenenak:

bahakin (L-ain): *OEH*-ak Azkue, Duvoisin eta Harriet bakarrik aipatzen ditu.

bahaska (L-ain): Beste horrenbeste forma honi dagokionez.

baiadun (L): “Injuste” Ht. “Injusto” Lar. “Défectueux, imparfait” Dv. “Fautif” H. “Defectuoso” Azkue.

balioski (AN, L, BN, S): *OEH*-ak Azkue eta Duvoisin bakarrik aipatzen ditu.

Azken adibide bat, hiztegiekin bukatzeko: Lacoizquetak beti “AN” marka eragiten dio Azkueri, hitzen izaera gorabehera, gehienak zehazgabeak edo *HH*-tikoak badira ere:

abariz (sic, Lcq 152 *abaritza* < Aizkibel < *HH* *abarizketa*), *adakai* (*HH*), *adaska*, *adasko*, *akal* (“...en este distrito...” Lcq 33), *albetxe* (< *HH*, Lcq 56an agerian esana), *alke-belar*, *allorbe* (*HH*, baina Lcq 70ean “en cinco villas de Navarra” zehaztua), *aloz* (sic, Lcq 175 *allosa* < *HH*), *alzia* (*HH*).

Azkuek, beraz, maiz ez zuen aintzat hartu idazle-hiztegiak ez direla jaioterriko hizkeraren lekuko fidelak, salbuespenak salbuespen; are gutxiago *HH* ondokoak. Ez genuke azterketaren muga *HH*-ko hitzak diren ala ez ebaztean jarri behar. Gogora dezagun Larramendiren ostean idazle gehienak irakurle ere izan zirela, tradizio idatzi baten partaide orobat. Hortaz, inoren hitzak erraz ikasteko aukera izateaz gainera, bistan da askok ez zutela herriko hizkera islatzeko inolako asmorik, alderantziz baizik: eraikitzen ari ziren literatur euskara —nahi bezain zalantzati eta aldakor— haren barruan bere burua gorago edo beherago kokatzeko premiak baldintzatzen zituen erabiliko zituzten ereduak eta, guri dagokigunez, hautatuko zuten lexikoa.¹⁴¹⁰

Testuinguru honetan sor daitezke Lizarraga Elkanokoa bezalako kasuak: orainago ongi ezagutu dugunean¹⁴¹¹, agerian geratu da Lizarraga hiztegiaren aldetik larramenditarra zela, bere mendeko idazle bati dagokion bezala, eta honetaz gainera

“bere jakinduria erakutsi behar zuen eta ongi zekien horretarako egokiagoa zela erdara euskara baino. Nahiz entzuleen kaltetan izan” (Mitxelena 1984: 21). Interpretapen (inolaz ere egoki) honen argitan, beraz, ezin dugu Elkanoko hizkera bereziki maileguz betetako hizkeratzat hartu: idazleak darabiltzan *apassionatu*, *atenazatu*, *barahunda*, *brevequiro*, *castoqui*, *compasione*, *comprehenditu*, *concebitu*, *contricione*, *conversione*, etab., nekez izan zitezkeen hango hitzak, denak batera behintzat, eta beste horrenbeste gertatzen da, nahiz beste mutur batetik, *aldiritar* “aldeano”, *ambate* “tamaño”, *antuste* “orgullo”, *araguitu* “encarnarse”, *bertitztu* “abortar”, *bozkariunde* “gozo”, *desloratu* “desflorar”, etabarrekin.¹⁴¹²

Beraz, Azkuek egin zuen ‘Lizarraga = AN’ ekuazioa nahi baino gehiagotan okerra izan daiteke; baina kontua oraindik korapilotsuagoa da, eta Azkueren okerra are handiagoa: eskura zegoen nafarraren liburu bakarra (Lizarraga 1846), Iturriagak arras ikutua atera zen: Ondarrak

¹⁴¹⁰ Oro har, ik. Lakarra 1985a eta b, eta Sarasola 1986; alderdi honetatik zertxobait ikertuak izan dira Agirre Asteasukoa (F. Altuna 1999: xcvi-cxviii), Antia (Beola 1995: xix-xxi), Añibarro (Urgell 1987b) eta Lardizabal (Urgell 1995: xlv-lvii), behinik behin.

¹⁴¹¹ Apecechearen argitalpenei esker, batez ere.

¹⁴¹² Adibide guztiak Apecechea 1979ko (= LE Doc) hiztegitxotik aterak.

(1980) erakutsi duen bezala, Azkuek Lizarraga bitarte zela ANkotzat jo zituen hitz asko, honek erabili ere ez zituen egin, eta argitaratzaileari egotzi behar zaizkio erabat: goraxeago Azkueren hiztegitik hartu ditudan adibide apurretatik atera gabe, *abramatasun* (sic, *abramastasun*-en ordez)¹⁴¹³ *temeridáde* zen jatorrizkoan, *aizaro*-ren ordez *tenebra* (*tenebren*, genit.) zegoen, *alogeratu*-ren ordez *alokatu* eta *alsistu*-ren ordez *granero*.

Duvoisinekin ikusi duguna, alegia Azkuek hiztegian aipatu gabe erabili bide zuela, esan gabe doa gehiagorekin ere gerta litekeela, eta hau ia antzemanezina da, idazlez idazleko azterketa egin ezean. Honegatik, adibide nabarmen bat baino ezin dut eskaini nire hipotesiaren bermagarri: Azkueren hiztegian zehar “B-arc” (bizkaiera arkaikoa) marka daramaten hitzak ugari dira, guztiz *Refranes y Sentencias*-etik (*abu*, *agirtu*, *alaune*, *alberdau*, *alogadu*) eta Mikoletagandik (*aen*, *agirtu*) aztertu zatian. Hauen aldamenean, ostera, *abe*, *abonau* eta *adinon* hitzek, gutxienez, marka bakarrik jasoten dute, inferentzia zeren gainean egin den adierazi gabe.¹⁴¹⁴

Beraz, *HH*-ko hitzak euskalki hedaduraren aldetik kokatzeko izan dezakegun iturririk garrantzitsuenak jokabide aldakorrekoa da, zeharo, buruak zer eman zion eta horren arabera epaitu baitzituen iturri idatziak: batzuetan adibide gisa bakarrik agertzen dira, dagokien euskalki markarik gabe; bestetan jaioterriko hizkeraren lekuko dira eta, azkenik, testuaren arabera, euskalkiaren edota inguru handiago baten (adib., Duvoisin Iparralde osoaren) lekuko. Egia da inoiz edo behin galdera markaz zalantza aitortzen duela (cf., adib. *ahaku* L? < Duvoisin, *aharai* L? < Haraneder-Harriet, *alzifre* L? < Duvoisin, *apaingora* AN?, B?, G? < Añibarro), liburuetan bakarrik ikusiak direlako seinale, baina hau ez da ohikoena: nola jakin, beraz, Mogeli irakurtzeaz gain delako hitza Markinaldean ere entzun zuen ala ez? Erantzun bakarra dago, noski: Markinaldean berriz entzunaz, hau da, Azkueren lana goitik behera berreginaz.

Badirudi, hortaz, dudazko kontuan ezezkoaren alde jokatu behar dugula, Azkueren lekukotasunaren berme berririk agertu ezean: adibide argiak gehiegi dira, nik uste, kontrakoa mantendu ahal izateko. Honelako ekintzek euskal lexikoaren historarako Larramendiren hiztegiak baino kalte gehiago egin izan dute, azken finean Azkuerena dialektologiaren menpe egindakoa eta herriko hizkuntza zen bezalakoa jaso nahi zuena omen baitzen.

12.1.2. Gure jokabidea

Honezkero, eta ezinbestean, Azkueren datuei tentuz begiratuko diegu hemen: ahaleginean euskalki markak nork emanak diren zehaztuko dut, beraz, bakoitzak nahi duen ondorioa atera dezan haietatik eta, honako lan honi dagokionez, egingo ditudan interpretapenek oinarri ziur ala zalantzazkoak dituzten adierazteko asmoz.

¹⁴¹³ Badirudi Azkueren okerra argitalpenaren hiztegitxoari zor zaiola, bertan *abramaitasuna* irakurtzen baita (cf. *OEH*, s.v. *abramastasun*, eta Ondarra 1990: 388).

¹⁴¹⁴ *OEH*-ari esker, arkaikotasuna beste era batekoa dela jakitun ipintzen gara: hurrenez hurren, Mogel edota Astarloa (s.v. *abe* 4), f. Bartolome (s.v. *abonatu*) eta Mogel (s.v. *adinon*). *Abe*-z ik. Azkue 1935: 90.

Larramendiren eraketa izateko itxura daukaten hitzak alde batera uzten saiatu naiz, inoren datuak (Azkuerenak batik bat) mesfidatzekoak iruditu zaizkidan orotan. Hona nire jokabidearen erakusgarri zenbait:

AHAIKOBATZA "Parentela, *aideac, ahaicoac, aidebatza, ahaicobatza*".

L? (Azkue). Honi dagokiona *OEH*-ak ederki askatu du: "(Lar > Aizk y A [zehazkiago: Lar > Aizk > Azkue]). Sin duda neol. (...). Larramendi traduce parentela, *aideak, ahaikoak, aidebatza, ahaikobatza*, por pensar que *aide* = *ahaiko* 'pariente'".

ADARBAKOTX "Unicornio, animal". "Abada o rinoceronte, *aberé adár bacocha*". "Monocerote, monoceronte, *abere adar bacocha*". "Narval, pescado terrible con un cuerno que parece al de el unicornio, *arrai adar bacocha*".

adarbakhotx Sal, R "de un solo cuerno" (< Azkue), S (< Lhande), *adarbakoitz* S "amputé d'une corne" (< Lhande). 1745 (*OEH*, s.v. *adarbakoitz*). Jadanik Mitxelenak inoiz ohartu bezala (cf. *OEH*, s.v. *aldakoi*, adib.), Azkuek Pirinioetako euskalki txikiotan gauzarik xeblebreenak aurkitzeko halako ixuri bat bazuela ahaztuta ere, ohartu esanahi zentzuzkoagoa —'adarra galdu duen animalia'— egozten diola, baita Lhandek ere hari jarraiki, Larramendirenaren aldean: zeren ez errinozeroa, ez narbala, ez adarbakoitza bera ibiliko ziren egunero XVIII. mendeko baserritarren aho-mihitan. Baliteke entzuna izatea, baina, dena dela, esanahi hedadura Larramendirena da, zalantzarik gabe, prozeduraren hedadura ere den bezalaxe: *beguibacocha* "monóculo", *bereisbacocha* "monostrophe", *gueibechi bacocha* "monosylabo".

AKIRIN "Cabrón castrado, *aquirina*". "Castrón, *aquirina, aquer chiquiratu*".

V (< Azkue [< Añibarro, gorago ikusi bezala]). 1745 (*OEH*). Larramendiren elkartuen baldintza guztiak betetzen ditu: *aker* + *irin(du)* "castrado", haplogiaz laburtua (§ 3.2.3.2.d), aditzoina izenki modura erabilia (§ 3.2.3.7.2) eta gazt. *cabrón castrado*-ren kalkoa (§ 3.3.1.3).

ALTEGI "Granero". "Hórreo". "Panera", etab.

G (< Añibarro), *aletegi* G (< Uriarte) (Azkue). 1745 (*OEH*, s.v. *aletegi*). *aletegi* gipuzkeraz ezaguna balitz ere, e-ren galerak Larramendiren eskua salatzen du (cf. *alzati* eta *alzi*, biak < *ale*; § 3.2.3.1.a).

ALZI "Pepita".

alzia (AN, Lacoiz.) "pepita" (Azkue). 1745 (*OEH*, s.v. *altzia* [sic]). Larramendiren elkartua (bokalaren galeraz cf. *altegi*): *ale* "grano" + *zi* "punta", ziurrenik, Lacoizquetak azaldu bezala.

ANTE "Ardid, engaño dispuesto con sagacidad". "Morisqueta, ardid, treta". "Treta".

G-and [= Andoain] "habilidad" (Azkue). 1745, "Posiblemente relacionado con *antze*" (*OEH*). Nire ustetan, oso egiantzekoa da ez *antze*-rekin erlazionatuta egotea bakarrik, baizik eta haren ordezeko hutsa izatea; hots, oraingoz aurkitzerik izan ez dudana iturri idatzi bat proposatuko nuke, Iparraldekoa, jakina. *OEH*-ak ez du argitu hitza zein bidetatik iritsi zen Azkueganaino: "G-and" marka ez ote honetan Larramendi bera?¹⁴¹⁵

AOKASTU "Mellado, el que le falta un diente o más, *aocastua, aomellatua*".

"(G), mellar un instrumento cortante" Azkue (< Aizkibel "aokastu, akastu (G), mellar", nondik G *akastu* dela atera behar den, eta ez besterik). De *aho* + *akastu* (*OEH*). Larramendiren elkartua (elkarmoduaz ik. § 3.2.3.3.a).

ATXERE "Guadapero, peral silvestre, *acherea, macatza, basaudarea, astamadaria*". "Pera, silvestre". "Peruétano, pera silvestre, *macatza, acherea, achudarea, basaudarea, astamadaria*".

G ap. Azkue; Lar > Lcq 83; H <ch> [zehazkiago, Lar > Lacoizqueta eta Harriet, grafiak salatzen duen bezala], 1745 (*OEH*). Azkueren lekukotasuna ez da fidatzekoa: cf. Larramendi 1745: xvi (grekerazko etimologietan): "*Achras*, peruétano, pera silvestre, es de el Bascuence *acherea, acharea*, que significa lo mismo, y es contracción de *achudarea*, pera de peñascos o entre peñascos".

Ondoren aztertuko ditudan hitzak ez dira, ez eta hurrik eman ere, *HH*-an aurkitzen diren hitz herrikoi guztiak; honako sail hauetan sar daitezke jakinaren gainean alde batera utzi ditudanak:

¹⁴¹⁵ Marka bera darama *artzelari*-k ere, jadanik markatu dudanez (I, § 8.5.2.1). Antzerako uste bat adierazi zuen Lakarrak (1985b: 264), *abarrakitu* dela eta.

1) Hitz orokorrak izanik, aurreneko literaturan bai Hegoaldean eta bai Iparraldean ongi lekututakoak: asko dira *HH*-an zehar, gehienak oinarrizko hiztegikoak (*aita, alaba, ama, (h)arri, ate...*), eta halakoak batzen aritzea denbora alferrik galtzea da, nik uste; halaz ere, jaso ditut lehenago —dela oro har, dela Hegoaldean bakarrik— jaso gabe zeudenak, *aizpa* edo *aizta* bezain arruntak izan arren.

2) Larramendik ezagutu zituen Iparraldeko liburuetan lekukotu eta, itxura guztien arabera, Iparraldekotzat bakarrik jo behar direnak, irakurketei zor zaizkielako hipotesian (cf. § 9); Hegoaldeko hitzak ere izan daitezkeela baieztatzeko datuak aurkitu ditudanean, ordea, jaso egin ditut, bai baitakigu liburuetako eta herriko jakintza *HH*-an bat eginda ager daitezkeela (cf. gorago *sarraski*-z esana).

3) Hegoaldeko hitzak izanik, aurreneko idatzietan lekukotuta dauden hitzak: badakit maiz zuzenean entzunak izan direla, halabeharrez, baina Hegoaldeko literaturan Larramendiren iturriak antzemateko izan ditudan arazoak direla kausa (cf. § 9.3), batetik, eta gehienez hitz arrunt xamarrak direla kontuan izanik, bestetik, oraingoz alde batera uzteari hobe iritzi diot.¹⁴¹⁶

4) Hitz gramatikalak: bai Sarasolaren (1981), bai Lakarraren (1984) lexikoietan baztertuta geratu zirenez, *OEH*, batez ere *A* letran, herren xamar dabil eta, beraz, egin ezin nezakeen azterketa berezi bat eskatzen dutela nabari da.

17. eranskinean, arrazoi bategatik edo besteagatik herrikoitzat jo daitezkeen *HH*-ko hitzak bildu ditut, azaldutako salbuespenak izan ezik. Ondoko lerroetan, eranskineko zerrendan agertzen diren hitzen zertzeladetatik atera daitezkeen ondorioak ateratzen saiatuko naiz. Asmo honekin, orokorretik berezira jaitsiko naiz, hau da, hedadura handiko hitzetatik hedadura murrizkeoetara, orokorrak edo ia orokorrak diren hitzetatik abiatuaz. Kontuan izan bedi halako balorazioak egiteko izan ditudan iturrien izaera ezberdina: baliteke, beraz, batzuetan egiatan daukaten baino hedadura zabalagoa agertzea (Azkueri jarraiki, adibidez) eta bestetan, berriz, askoz murriztagoa, iturri txiki bakar batek jaso dituelako. Gutxi batzuk, iturriek eman baino hedadura zabalagokotzat jo izan ditut egoki iruditu zaidanean, nahiago baitut zehaztasunean zertxobait galdu, ezen ez motzegi gelditu: adibidez, *andiki* hitza Azkuek bizkaierazkotzat bakarrik jotzen badu ere, baderitzat Larramendik hitza erabiltzeko daukan erraztasunak berak erabilera zabalagoaren lekuko aski fidela dela.

Orotara 532 hitz, hitz-aldaera, hitz-adiera edo esapide bermatu ahal izan ditut honela, hots, erabilitako corpusaren %10 inguru; gehixeago genuke, zalantzarik gabe, gorago zehaztutako salbuespenez gain maileguak ere —euskararen barruko

nolabaiteko bilakaera izan dutenez besteak— hemen sartu izan banitu (ik. § 7); halaber, euskal jatorriko hitzei dagokienez, komeni da gogoratzea hitz bakunek eratorri-elkartuek baino lekukotasun gehiago eta hobeak izan ohi dituztela.

¹⁴¹⁶ Haietako batzuk, dena dela, iruzkinduta daude *RS* (§ 9.3.2) eta Landucciri buruzko (§ 10.2) ataletan.

12.2. Azterketaren emaitzak

12.2.1. Lehen lekukotasunen garrantzia

HH-ko lekukotasunak hitz askoren lehen datatzeak dira, ez bakarrik hitzbeirrigintzagatik, baita Larramendik ordura arte idatziz jasoak izateko aukera izan ez zuten hainbat eta hainbat hitz bere hiztegi handian bildu zituelako ere. Alabaina, esan gabe doa ez zituela geroko ikertzaile edota jakinahien gozamenerako bildu, bereziki eta nahita etorkizuneko idazleen eskumenean ipintzeko baizik.

HH-ko pitxikeriak XVIII-XIX. mendeetako idazleengan ehizatzen aritzeko zaletasunak —Larramendiren eragina berrezagutzen hasteko lagungarri izan bazaigu ere, ausaz— gertakari are garrantzitsuago batzuk ia erabat estali ditu: hiztegia —hiztegiak, oro har— ez da maila bateko hitzak aurkitzeko bakarrik erabiltzen, gogoratzen ez ditugun, edo nola idazten diren ez dakigun, edo zein aldaera hobetsita daukaten egiaztatu nahi ditugun hitz arruntak begiztatzeko ere baizik. Aldeak alde, Larramendiren hiztegiak mende haietan gure egunotan Kintanak lehen eta Sarasolak gero (nabarmenenak aipatzearren) jokatu duten papera jokatu zuen idazle anitzentzat,¹⁴¹⁷ bertan ez jasotako aldaerak (esannahikideak ere, agian) txokorarazteko eta, batez ere, bertan jasotakoei lehentasuna (literaturtasuna) ezagutzeko joera sortuaz. Kasu nabarmen batzuetan katea guganaino iritsi da, gaur egungo forma estandarra erabakiaz.

Adibideek erakutsiko dute hobekien adierazi nahi dudana. Gaur egun erabat nagusituta dagoen *armiarma* hitzaren aldaerak ia ezinkontatuzkoak dira (*OEH*-ak, s.v., 24 bildu ditu), baina haren historia, berriz, aski bakuna, gutxienez Hegoaldean. 1745 baino lehenago, aukera egiteke zegoen agerriki: *amiarma sare* (1686, Gasteluzar), *armierme* (1664, Pouvreau *Phil* eta hiztegia), *ermiarma* (1715, Urte). Larramendik bi aldaera (*armiarma* eta *armiama*) jaso zituen, baina s.v. *araña* agertzen den bakarra *armiarma* da, bestea soilik “musgaño” eta “tarántula” sarreretan dagoen bitartean. Harrezkero, XVIII-XIX. mendeetan gipuzkeraz idazten duten guztiek (Kardaberatz, Mogel, Iturriaga) eta Iparraldeko zenbaiten ere (Haranederer, Duvoisin) *armiarma* erabiltzen dute eta, halabeharrez, Azkuek “gipuzkera osoturako” hautatu zuen (cf. *Ardi* 128), batera zein bestera XX. mendeko idazle askoren —lehen gipuzkeraz eta gero batuaz-edo idatzi dutenak (Orixé, Zaitegi, Olabide, Lizardi, Anabitarte, Aresti, Villasante, N. Etxaniz...)— aukera eraginaz. Iparraldean, berriz, aipatutako salbuespenekin, ez da inolako batasunik izan: *armiarmo* eta *armiarmu sare* (Oxobi), *irmi-armu* (Barbier), *armi-mau* (E. Salaberri “So Egilea”), etab.

Antxume hitzaren kasua alde askotatik ezberdina da, nahiz eta ondorena berbera izan. 1745 baino lehen, Hegoaldean zein bere aldetik dabilta (cf. *OEH*, s.v.): *auntxume* (Landucci), *anzume* (Ibargüen-Cachopin, Isastiren errefrauak); Iparraldean Axularrek (eta ondoren Etxeberri

¹⁴¹⁷ Jakina, oso baldintza ezberdinetan aritu dira bata eta besteak: Larramendik ez zuen mende eta erdiz ia lehiakiderik izan, eta nekez sinets daiteke modernoak marka hausteko moduan daudenik.

Sarakoak) *ahuntzume* forma erabiltzen du, baina Pouvreaux *ahuntzkume* jasotzen du hiztegian. Larramendik *antxume* aldaera bakarrik bildu¹⁴¹⁸ eta, zuzen edo zeharka, hauxe da ondoko idazleengan (Lizarraga Elkanokoa, Mogel —bizkaieraz—, Iturriaga, Iztueta, Lardizabal, Arrese-Beitia, D. Agirre) agertzen dena, salbuespen bakarra Arrue (*auntzume*) izanik. Azkuek “gipuzkera osotuan” erabili (cf. *Ardi* 130) eta esan gabe doa geroko idazle nagusietan ere (T. Agirre, Orixe, Etxaide, N. Etxaniz, Ibiñagabeitia) beste horrenbeste aurkitzen dugula. Artean Iparraldeko lekukotasunik ez dugu, Zerbitzariren *ahuntzkume* izan ezik.

Bi aldaeraren arteko borrokaren bilakaera adierazteko, *antzina*-ren historia berreraiki dezakegu:¹⁴¹⁹ Ez dago Larramendi aurreko lekukotasunik hitz honetarako, beste arrazoi batzuen artean ziurrenik Hegoaldean bakarrik ezaguna izan delako, histori garaian bederen. Larramendik hiru aldaera jaso zituen, *anciña*, *anchina* eta *aunciña*, eta lehenengo biei eman zien hirugarrenaren gaineko erabateko lehenetasuna, elkarrekin sarri aipatuaz (cf. s.vv. *ancianidad*, *antiguamente*, *antiguo*, *antepassados*, *antiquado*); halaz ere, nabarmenki *HH*-an nagusi den forma *anciña* da, bai eratorriak

egiteko (*anziñaera*, *anziñaketa*, etab.), bai bestelako sarreretan hitza erabili behar dueneko (cf. s.vv. *amphiteatro* eta *bohordar*). Nagusitasun honen azpian *anzina* gazt. *anciano*-ren familiaren etimoa izatean datza. *OEH*-ak (s.v. *antzina*) dioen bezala: “Las formas más frecuentes son *antxina* en la tradición vizcaína y *antziña* en la guipuzcoana”. Tradizio batak Mogelengan du hasiera, eta besteak Kardaberatzengan (Mogelek ere, gipuzkeraz idazterakoan, jarraitua); halabeharrez edo bestela, ostera, bietatik *antxina* formak bakarrik erdietsi ditu ahozko bermeak XX. mendean (Azkue, Etxba *Eib*, Iz *Uiz* eta *ArOñ*) eta, dena dela, *antzina* dugu nagusi, gipuzkeraz idazten duten idazleak tradizio jadanik luzeari atxiki zaizkiolako. Halere, kasu honetan gipuzkerazko tradizioetik euskara baturako igarobidea ez da hain gogorra izan: izan ere, Arrese-Beitiarengandik hasita (cf. *AmaE* 56), D. Agirre, Krikiño, Enbeita eta Lauaxetak ere, noizbait bederen, erabili izan zuten, literatur hizkuntzako hitzat —ez euskalki bateko edo bestekotzat— ezagutzen zutela agerian jarriaz.

12.2.2. Hegoaldeko lehen lekukotasunak

Hitz askoren lehen lekukotasun guztiak Iparraldekoak dira, eta Hegoaldean jaso gabe zeuden 1745 baino lehen, aldizka Erdi Aroko dokumentuetan, toponimian edo —*are* bezala— erdarazko testuinguruetan izan ezik, ahozko datuek hemen ere —zabalkunde handiago edo txikiagoaz— ezagunak direla bermatzen badute ere.

¹⁴¹⁸ Kontuak erraztuaz; izan ere, *aumea*, *aumia* ere jaso zituen, baina honek ez du bizkaieratik kanpoko tradizioirik sortu eta XX. mendean ahozko testuetan bakarrik (Azkue *EY*) ageri da, Ibiñagabeitiaren salbuespen garaiarekin (ik. *OEH*, s.v. *auma*).

¹⁴¹⁹ Iruzkin zehatzagoa aurki daiteke Urgell 1999b-n.

Zerrendan halako guztiak biltzeaz gain, parentesi artean aurreneko erabiltzaileak jaso ditut, "Ipar." laburduraz hainbat direla adieraziaz eta grafi aldaera txiki edo ezagunak (<h>, afrikatu inplosibo etimologizanteak) jakintzat emanaz:

abaila (Ax, SP, Urt), *abar* (SP, Urt), *abatx* (SP), *abiatu* (Ipar.), *aboztu* (Urt, *abostu* Ht), *adaki* (SP), *adar* "rama" (Ipar.), *adartsu* (Urt), *aditzaille* (Urt, *CatLav*, Ht), *afalondo* (Lç, SP, Urt), *afrikar* (Urt), *aga* (Oih, SP), *agan* (SP), *agererazi* (Bp), *agian* (Ipar.), *agor* (Ipar.), *agortu* (Ipar.), *aien* "sarmiento" (SP), *aingira* (Urt, ES), *aingura* (Ipar.), *aiotz* "podón" (Ax, Oih, SP), *aire* (Ipar.), *aitamen* (SP), *aitu* (Ipar.), *aizerrota* (*haize errota* INav), *aizpa* (Ipar.), *alabatxo* (Lç, Urt), *alargundu* (EZ, Ax, SP), *alboka* (Hm, O-SP), *aldizkatu* (SP), *aldizko* (Bp), *altz* (Ipar.), *altzo* "seno, regazo" (EZ, Ax), *amazazpi* (Ipar.), *andinai* (SP), *anega* (SP, Urt), *anoa* (Oih, SP), *antzu* (Ax, SP), *aosapai* (EZ, SP *aha sabai*), *apaingarri* (EZ, Urt), *apur bat* (Ipar.), *apurka* (EZ, SP), *arakin* (Oih, SP), *arbazta* (SP *arbatsa*), *ardai* (Zalgiz, SP), *ardantza* (Ax, SP), *ardit* (Lç, Oih, SP, Urt), *are* (*arhe* Ax, SP), *aretxe* (Zalgiz), *argaltasun* (SP), *argi eman* (Urt), *argi-izpi* (SP), *arilkai* (SP, Urt), *arintasun* (Ipar.), *aritu* (Ipar.), *ariztatu* (Urt), *arlantz* (SP), *arpa* "calambre" (SP, O-SP), *arrantxo* (Lç, SP), *arrano* (Ipar.), *arrantzale* (Ipar.), *arrapatu* (Ipar.), *arri* "pedrisco" (EZ, SP), *arri* '¡harre!' (Zalgiz, SP), *arritsu* (SP, Ht, *harrizu* Lç, Oih), *arritzko* (Ipar.), *arrobi* (EZ, INav), *arroka* (Ipar.), *arrokazko* (Gç), *arropatxo* (Urt), *artemein* (SP), *artizar* (Ipar.), *arto* "pan de maíz" (Oih), *artzekodun* (Ax), *ase* "hartura" (Rabelais, Ax, Oih), *aserrealdi* (EZ *Eliç*, SP), *aska* (Zalgiz, SP, Urt), *aspaldi* (Ipar.), *aspaldian* (Ipar.), *aspaldiko* (Ipar.), *aspil* (EZ, Urt), *astakeria* (Urt, *astokeria* SP), *astearte* ("espiotzako gutunak", EZ), *astegun* (Ipar.), *aste santu* (*a. saindu* EZ, Urt, *a. saintü* Bp), *astotxu* (Volt, Urt), *ataka* (Ax, *atheka* ES), *ateri* (*atheri* Ax), *ateru* (Volt, SP), *ats egin* (Urt), *atsegin* (izond.) (Ax, SP), *atsegin eman* (SP), *atsokeria* (Urt), *atsotasun* (Urt), *atzapar* (Ipar.), *atzaparka* (EZ, Urt), *atzaparkatu* (Ax), *atze* "extranjero" (Ipar.), *aunditu* (Urt), *aunzki* (SP), *aurmin* (Oih), *aurtu* (Bp, Urt), *aurtxo* (Ipar.), *austerri* (Ipar.), *auzkora* (EZ *ahoz gora*), *auzoko* (Ax, SP), *auzpez*, *auspez* (*ahuzpez* SP, Gç, *ahuspez* Ipar.), *axal* (Urt), *azkatu* (Urt), *azkor* (SP), *azpizun* (SP, Oih).

Zerrenda berez mintzo da Larramendiren lanaz. Zenbaitetan (cf. *aosapai*, *aste santu* eta *auzkora*) Iparraldeko tradizioak eskaintzen duen aldaeraz bestelakoa jaso du, hain zuzen ere haien Hegoaldeko ahozko etorkia guretzat argiago eginez.

Hauen artean bereziki azpimarratzekoak dira Hegoaldean bestelako aldaeratan —eskuarki mendebalderagokoetan, noski— baino jasota ez zeudenak:

abuztu (EZ; *abustu* Lcc, SP), *agure* (EZ, SP; *agura* RS, Mik), *aizkora* (Ipar.; *axkora* Lcc), *amets* (Ipar.; *ames* Mik, Kap, OA), *amuarrain* (SP, Urt; *amuarrai* Isasti), *arrasto* (EZ, SP, INav; *rastro* Iraz), *arropa* (Ipar.; *erropa* EgiaK, Kap, Urkz), *azti* (Ipar.; *aztu* RS).

12.2.3. Hitz orokorren lehen lekukotasunak

Gutxiagotan bada ere, Larramendik gutxi-asko orokorrak diren zenbait hitzen lehen lekukotasun erabatekoa eskaintzen du batzuetan:

adarkari, *adarkatu*, *ados*, *ailorbe*, *aker* (tresna), *aldakor*, *aldaska* 'kimua', *alkotz*, *andere* 'panpina', *anditzar*, *ankaezur*, *anpulu*, *antxu*, *aozabalka*, *apurtu*, *arizpi*, *arrabio*, *arranzari*, *arratoi*, *artaburu*, *artanzu*, *artzanor*, *astamenda*, *astigar*, *ataburu*, *aterri* (ad.), *aunditzar*, *ausmartu*, *azao*, *azgale*, *azpildu*, *azpildura*.

Bestetan ordura arte lekukotu gabeko aldaerak ematen ditu, eskuarki hegoaldekoak eta, mendebaldetik ere konparabiderik dugunean, sarritan erdialdekoak, espero genezakeen bezala:

abaraska (Ax, SP *beraska*; Oih *breska*; Hm *bereska*), *abo* 'ahoa' (Lcc *agu*; Lç, RS, etab. *a(h)o*), *adrailu*, *adrilu* (SP *adreilu*, Urt *ardillu*), *aisa* (Ipar. *aise*), *aizetu* (SP *haizatu*), *ajola* (Ipar. *axola*), *ajolakabe* (Ipar. *axolagabe*), *ajuda* (Ipar. *aiuta*), *albiste* (Ipar. *albiriste*), *aloza* (SP *alosna*), *altzatu* (Ipar. eta Ber *altxatu*; Mat, Ax *ailtxatu*), *amagutxi* (CatLav *amabutxi*), *amildu* (Hm, SP *anbildu*), *amilka* (SP *anbilka*), *amurrai* (Isasti *amuarrai*; SP, Urt (*h*)*amuarrain*), *andrazale* (Urt *andrezale*), *antxume* (Lcc *auntxume*; Ibarгүйen-Cachopin, Isasti *anzume*; Ax, ES *ahuntzume*; SP *ahuntz-kume*), *arestian* (SP *araistian* eta *oraixtian*, Barrutia *araisteko*), *armiarma* (SP *armierma*, Urte *ermiarma*), *arraultza kosko* (Lcc *arraunza kaskola*), *arraun* (Ipar. *arrau*), *arre* '¡harre!' (*harri* Zalgiz, SP), *arre* "arado" (Ax,

SP *arhe*), *asmo* (Ax, SP *asmu*), *astamats* (Urt *astomahats*), *aterri* (iz.) (Ax *atheri*), *atzetu* (SP *atzatu*), *ausmar* (Ax, SP *hasnaur*; ES *ausnar*), *auspo* (EZ, Ax *hausko*).

12.2.4. Hegoaldeko hitz orokorrak

Hartakotzat hartu ditut bizkaieraz eta gipuzkeraz, baita batzuetan goinafarreraz ere, aurki daitezkeen hitzak; Larramendirenak denak lehen lekukotasunak dira kasu honetan eta, ikus daitezkeen bezala, ez dira gutxi:

abots, *adobaki*, *agertu* (iz.), *agudo*, *aida*, *aitzurlari*, *akastu*, *akats*, *alai*, *alasai*, *aldamio* “andamio”, *ale*, *alegindu*, *algain*, *algaindu*, *algara*, *almen*, *altsia*, *amil*, *amorratu*, *andeja* (Ibargüen-Cachopin *andeza*), *andiki*, *andraketa*, *andraketari*, *anezka*, *antxina*, *antxiti* “ante”, *anzina*, *ao betean*, *apal* “anaquel”, *apar*, *apote*, *apuko*, *arategi*, *arazo*, *ardazketan*, *arlandu*, *arragoa*, *arrandegi*, *arrangorri*, *arraska* “canalón”, *arraska* “rascador”, *arrastaka*, *arrazko*, *arre* “pardo”, *arreta*, *arretu*, *arribizi*, *arrikada*, *arrikatz*, *artakoskor*, *artale*, *artatxiki*, *artxo*, *artzea* “criba”, *aski* “grama”, *askordin*, *astailar*, *astindu*, *astundu*, *atal*, *aterrune*, *atseden*, *atz* “sarna”, *atzen*, *atzenurren*, *atzerapen*, *atzesku*, *aukeran* “a pedir de boca”, *aukeratu*, *aurreraka*, *aurreku*, *aurrez aurre*, *ausaz*, *autsi*, *auzalan*, *azaldu*, *azaltsu*, *azaro*, *azenia*.

12.2.5. Hego erdialdeko hitzak (G-GNkoak)

HH-an badira bizkaieraz aurkitzen ez diren eta gainerako bietan, guztiz elkarren aldamenen dauden hizkeretan, ezagunak diren hitz asko; hauekin batera sailkatu ditut gaurko lekukotasunen arabera nafarreraz bakarrik —baina eskuarki gipuzkeratik ez urrutiko hizkeretan— aurkitu diren hitzak ere. Hipotesirik merkeena, Larramendik batzuk zein bestek bere probintziatik aldendu gabe ikasitakoak direla egitea dateke, zeren eta, gure lekukotasunen zehazgabetasunaz gainera, nabarmena baita harrezkero zenbait hitzek atzeraka egin ahal izan dutela; ez dezagun ahaztu, dena dela, gutxienez Gipuzkoako nafarrera ongi xamar ezagutzen zuela:

aba ‘ahoa’ (G-bet, AN-gip), *adia* (AN-gip, B), *adiurre* (G-to, AN-larr), *agaia* (G-bet, AN-5vill), *aino* (G-to-goi, AN-olza), *aitona* (G, AN), *aldameneko* (AN-larr), *aldaro* (G-to, AN-larr), *aldean* (AN-gip), *alegia* “a fe que” (G, AN, B), *aletu* “granar” (AN-larr), *amen* “pedazo” (B, Sal, R), *andregizon* (B, *andregixon* G-nav), *anre* (G-to, AN-larr, *anra* G-goi), *anyere* ‘panpina’ (AN-gip, *anddera* G), *aribil* (GN),¹⁴²⁰ *arkakuso* (G, AN), *arrakatu* (G, AN-larr), *arrazalde* (AN-5vill), *arraua* (*arraba* G-bet, AN-gip), *arsaldo* (G-nav, AN-larr), *asteartiotte* (G-to, AN-larr inguruan), *asteleniote* (G-to, AN-larr inguruan), *atalburu* (G, AN-gip, B), *atzeneko* (AN-larr), *atzitu* (G, AN-gip), *aunatu* (G-to-goi, AN-gip-egüés), *aurroial* (G, AN-ulz-5vill, B), *autzandi* (AN-5vill), *axurtegi* (AN-larr), *aztarna* (G, AN-larr), *aztarriaka* (*aztarrika* G-goi-bet, *aztarriken* G-nav), *aztiatu* (V?, G, AN-larr-erro ap. Azk).

12.2.6. Gipuzkerazkoak

Gipuzkeraz bakarrik lekukotutako hitzak edo aldaerak *HH*-an lehendabizikoz agertzea ez da dagoeneko ustekabeen harrapa gaitzakeen zerbait:

alberdania (G-to), *alda-aldi* / *aldaldi* (G-goi-to), *aldegain* (G-goi-to), *alderanzi* (G-goi-to), *aldeontzi* G-nav, AN-gip), *alderanziz* (G-to), *alderontziz* G-azp), *alegia* “es decir” (G-goi), *algaraz* (G-to), *amarra* “cangrejo” (G-azp-bet), *apaidin* (G-bet), *arangorri* (G), *ardazle* (G), *argorri* (G-goi-to), *arkaizdi* (G-to),

¹⁴²⁰ Alabaina, ziur xamar egon gaitzke Larramendiren berreraiketa baino ez dela, nahiz —halaberrez— zuzena ez eze, lekukotua ere egon (arazo honen eztabaidarako, ik. § 6.5).

armiama (G-bet), *aroi* (G-goi), *arrapal* (G-to), *asnaska* (G, *arnaska* G-to), *atzeki* (G-goi), *aukeran* “a escoger” (G-goi), *aunzina* (G-to), *aurlagun* (G-bet), *austontzi* (G-to, Sal, R), *azolío* (G-bet).

Hitzak bezain interesgarriak izan litezke *ansiya* “pena, cuidado” edo *aztiya* (*ansia* eta *aztia*-ren aldamenean) bezalako ahozko formak (ik. I, § 8.1.1).

12.2.7. Bizkaierazkoak

Jorratzen ari garen arloa zailduz doa zenbat eta hitz baten zabalkundea murriztago proposatu, batez ere *HH*-an —zentzuzko aurreiritziz, ziurrenik— oinarrizkoizat jo dezakegun gipuzkeratik ateratzen garen bezain laster. Goinafarreraren arazoa nolabait saihestu badut ere, zeharo ezberdintzat jo behar dugu bizkaierarena, ziurtasun osoaz baitakigu, eta hurrengo hitzetatik askok halaxe bermatzen dute, Larramendik euskalki hau beste asko baino hobeto ezagutzeko astia hartu zuela.¹⁴²¹ Halaz ere, ez nuke ahaztea nahi probintzien arteko muga ez eze, euskalkien artekoa ere gainditzen duten hitzei buruz gutxitxo dakigula eta, beraz, hemen sailkatu behar izan ditudanetatik zenbaitek bederen, baliteke zabalkunde handixeagoa izatea, areago kontuan izanik Gipuzkoako bizkaierarako lekuko handi eta aberatsak ditugun bitartean, Azpeitialeko gipuzkerarako ezer gutxi dagoela:

a ‘hura’, *adala* (V-ger), *adur* (V), *agaatu* (V-gip), *aien* “estaca” (V-ger), *ailoz* (*ailotz* V), *aizta* (V), *ajutu* (V), *alaga* (V-ger), *alboratu* (V-ple-m), *aldor* (V), *anajea* (V-oro-z-ple), *andrakume* (V-m-gip), *anpoila* “cereza” (V-arr-ger-oro-z), *antxiti* ‘aurrekoa’ (V-gip), *aokada* (V-m...), *apain* (iz.) (V-gip), *aratepaille* (V-m), *aratinez* (cf. *aratenes* V-ple), *aratinik* (V-arr, *aratenik* V-ple, *atinik* V-arr), *aratu* (V-ger-m), *arazea* (*arasa* V, G, *araza* V (!?), *agasa* G-azp), *arinka* (V-gip?), *aringa* V?, *arin-arinka* V-ger, *arin-aringa* V-m, *aringa-aringa* V-m), *ario* (V-oro-z-arr-ger), *arlata* (V), *arrastegi* (V-oro-z, *arrastei* V-arrig-arr-ple), *arzubi* (V-arr), *aspirea* (mug.) (V-ple-arrig-ger-m), *astun* (iz.) (V-arr-gip), *atsemon* (V-m), *atzazal* (V-ple-ger), *aul* “insulso, insípido” (V-oro-z-ger-m-gip), *aurdiko* (V-ple-ger-gip, *aburdiko* V-ple-oro-z-arr), *aumea* / *aumia* (V), *ausa* (V-ple-oro-z-ger-gip, *ausaa* V-m), *auspuruko* (V-m), *autsarri* (V-m), *azarton* (V-m), *azta* “asidero” (V-ple-oro-z-m).

Benetan bizkaierazko ahotik entzundakoak diren hitzei dagokienez, inoiz edo behin arrasto argiak edireten dira, hala nola: 1) <s> <z>ren orde (leherkari aurrean izan ezik, noski): cf., adibidez, corpusetik kanpo aurkitu dudak *santarra* “ruin, pequeño, desmedrado”; hiperezuzenketa izan liteke, berriz, goian jasotako *arazea* hitzeko txistukaria, bizkaitar ahotik entzundako hitza balitz, ematen duen bezala; 2) -ea forma mugatua (*aspirea*), nahiz kontua zabalagoa izan, jadanik dakigunez (I, § 8.5.2.1).

¹⁴²¹ Gorago Loiolatik atereaz egin bide zituen txangoez aritu gara bakarrik. Haatik, euskalki honi dagokionez, gogora liteke urte batzuez Bilbon bizi izan zela Villagarcíako nobiziadura joan baino lehen (1707 baino lehen; Altuna 1992a: 7-8) eta, edonola ere, bai bertan baita geroko urteetan lagun bizkaitarrak izateko aukera handia izan zezakeela. Gramatikako bizkaierazko paradigmak aztertzeo badaude ere, hainbat alderditatik harriigarriak dira (adib. *ceban* “lo comía” baina *even* “lo comían”, Larramendi 1729: 68). Bizkaierari buruzko hitzaurreko atalean (1745: xxviii-xxix), bestalde, *donguea*, *esquerguea*, *nascaria* / *nastaria*, *arerioa* eta *emarcariac* aipatzen ditu hitz bereizgarritzat; eta *acha*, *gacha*, *ecacha* aldaerak (gip. *aitza*, *gaitza*, *ecaitza*) hala nola *i* > *u* aldaketaz azaltzen dituen *ulea*, *uria*, *ucutu*, *lurrundu* (gip. *ilea*, *iria*, *uquitu*, *lurrindu*).

12.2.8. Loiola inguruko euskara

Larramendirengan pentsatzerakoan, egia esan behar badut, Andoingo euskararen pentsatzen nuen lan honen hasieran: bere jaioterriko euskararen. Beharbada beste hainbeste gertatzen zaio euskalari-euskaltzale gehiagori eta, gorago esana egiazta balitz, Azkue bera ez zatekeen beste bide batetik ibili.

Ustea alderdi zehatz batetik ustela da: Larramendik, gehienetan behintzat,¹⁴²² bere burua Hernanikotzat zeukan, amaren herrikotzat hain zuzen; aitaren herrian familia hiruzpalau urtez baino ez zen bizi: 1694an, Larramendi jaio eta hirugarren urte pasatxora, hurrengo arreba jadanik Hernanin jaio zen, ondoko guztiak bezalaxe. Hau lot daiteke, jakina, Garagorriren ordeztu Larramendi deitura erabiltzeko hartu zuen erabakiarekin eta, oro har, amaren familiaren partetik hau alargunduta gero jaso zuten laguntzarekin.¹⁴²³

Andoain zein Hernani, hizkerari dagokionez oso urruti ez gabiltza eta, nolnahi ere, gaztaroan ikasitakoa, dena edo gehiena, Gaztela aldean galduta ere, euskara berreskuratzen hasteko eta, oro har, Euskal Herrira ikusiak egiteko lekuri egokiena etxea izan zitekeela dirudi: euskararen ezagutzan aurrera egiteko hara-hona ibili arren, oinarria, funtsa, familiarrean aurkitu behar zuela, alegia. Badakigu, adibidez, Baionatik ihes egiterakoan Hernanira inguratu zela, lehengusu baten gaixotasunaren aitzakian (*Autobiografía* 20). Honetaz dena dela, Lakarrak erakutsi du (1985b: 248-258) Azkoitiko sermoian azkoitiar entzuleengana hurbiltzeko erabiliak bide diren ezaugarri zenbaitekin batera, ekialderagokoak ugari idorotzen direla.

Halaz ere, ez dago Andoain zein Hernaniko hizkeraren aipamen berezirik Larramendiren lanetan;¹⁴²⁴ hitzek, ostera, bestera garamatzate, hiztegia bukatzeko hautatu zuen lekura, hain zuzen: Loiolara. Haren, eta Azpeitiaren, aipamenez betea aurkitzen da hiztegiaren hitzaurrea:

Aquí, en Azpeytia y Azcoytia... (Larramendi 1745: xxx).

y aquí en Loyola y Azpeitia... (*ib.* xxxix).

No salgo vez a estas cercanías que no vuelva con muchas voces que añadir al Diccionario (*ib.* xlv).

...como he hecho cien experiencias aquí en Azpeitia y otros lugares... (*ib.* liii).

Para afirmar oy, que son antiquísimos estos solares, que están sembrados en la jurisdicción de Azpeitia y Azcoitia, y que están, y estuvieron habitados en tiempo inmemorial, qué necessito yo, ni nadie, testimonio de antiguo Autor? No basta el verlos con los ojos, el ver su aspera situación, los indicios de su vejez, y otras señales? (...) Ningun Autor antiguo tengo, que afirme, que existia mil años ha este montañón formidable que está entre Azpeitia y Azcoitia llamado *Izarriz* todo peña, y jaspe durísimo (*ib.* lxxv-lxxvi).

Larramendik normalean erabil edo gehien menpera zezakeen hizkera eta aldarteka gainerako euskal herrietan egin zitezkeen txango luzeagoak gorabehera, halako aipamenek begi aurrean jarri didate ziurrenik begibistakoena: galdeketa gehienak 1734-1744 artean egin behar izan zituela, Loiolan bizi zela. Tarte hartan ez dirudi mugaz bestaldera berriz joateko

¹⁴²² Altunak azpimarratu du (1992a: 3-4) andoaindarren artean, behar ere bezala, andoaindartzat aurkezten duela bere burua, baita aitaren deitura, Garagorri, erabili ere.

¹⁴²³ Xehetasunak oro Altuna 1992a: 3-8tik hartuak dira; ez, ordea, interpretapena.

¹⁴²⁴ *Corografía*-n (300-301. or.) Beterriko herrien artean Irun, Errenteria, Donostia, Tolosa, Hondarribia eta Oihartzun bakarrik aipatzen ditu. *HH*-an (1745: xxx) ez dago gehiago.

aukerarik izan zuenik baina, gainerakoan, haren ibili sarrien berri izanik ere, ez dugu zertzeladarik ezagutzen, gorago esan bezala. Nolanahi ere, bistan da galdeketa-lekurik errazenak inguruetakoa herriak izan zitezkeela, atera eta oinez-edo egin zitzakeenak. Batez ere halakoei egoki dakieke hitzak eta hitzen erabilerak bermatzeko egin zituen joan-etorriak, adibidez.

Gipuzkeraren azpieuskalkien deskribaketa egiterakoan, honela ezaugarritzatu zuen berak Azpeitiako hizkera, guretzat motzegi geratzen den hurrengo pasarteetan:

En Azpeitia *ondo diala, bia ondo*, y en las vecindades; y también *barruan, barruna, aujaz, ausar, eman eguidazu, esan eguidazu*, por *indazu, emadazu, esadazu* (...). También *aitea, amea, damea, señora*, por *aita, ama, dama, señora*. También *eguingon* por *eguín guinion* (*Corografía* 301).

Lehenengo ezaugarriarekin lotutako forma gehiago eskaintzen ditu *HH*-aren hitzaurrean, bestalde, grek. *cinesis*-en euskal etimologia sendotzeko:

...porque tenemos en este dialecto de Guipúzcoa en Azpeitia y sus cercanías un irregular, *cian, bacian*, en la significación de *iba*; cuya raíz no nos ha quedado (Larramendi 1745: xv).

Ezaugarrietatik, hiztegian zer jaso zezakeen eta ondoko gauzak aurkitu ditut:

1) *ondo diala, bia ondo, cian, bacian*: okerrik izan ezean, ez ditu dagokien lekuan jasotzen (s.v. *ir*, trinkoen artean, alegia), baina lehenengo bi formek agerraldi gehiago dituzte, dena dela:¹⁴²⁵

Puede venir de el Bascuence *bialá*, que significa passe adelante, ande, y lo mismo *diala*, siendo ambas voces *bia, dia* verbos, y la terminación *la*, aunque *bialá, dialá*, acentuada la última son nombres (1745, s.v. *albala*).

Cambiar viene de el Bascuence *gambia, gambiatu*, que significa lo mismo. Al trocar o permutar las cosas, es frecuente dar algo encima, o sobre lo que se da por otra cosa mejor; y eso se explica bien con estas dos voces *gan* y *bia*, que significan vaya encima, además (*ib.*, s.v. *cambiar*).

...y *gambija* es de *gan bjoa, gan bia*, que quiere dezir vaya por arriba, por encima... (*ib.*, s.v. *cambija*).

Orobias, incienso de los más finos, *orobia*, de donde se tomó, y quiere dezir todo se va y consume (...), de *oró*, todo, y *bia*, vaya (*ib.* s.v. *orobias*).

Hauetaz gainera, *diala* eta *biala* izen gisa erabilita (cf. goian "son nombres") agertzen dira gazt. *albala*-ren euskal ordainen artean, eta *biala* gazt. *passaporte, passe* eta *salvoconducto*-renetan.

2) *barruan, barruna*: ez dira oso esanguratsuak, Goierri ere erabiltzen direla baieztatzen baitu Beterrikoen *barrena, barrenen*-en aldean (*Corografía* 301). Edozelan ere, *HH*-an *barrena, barrenen* eta *barruan, barrura* bakarrik aurkitzen dira, nahiz eta *barrundu* "penetrar" bederen baden.

3) *aujaz* jasota dugu *HH*-an (s.vv. *acaso* eta *quizá*).

4) *ausar*, argitalpenaren hutsa ez baldin bada, ez dakit zer izan daitekeen: *ausaz*, agian?

¹⁴²⁵ Badirudi *joan*-en trinkoetan forma nahaspila bat eratu baino, nahiago izan zuela beste zereginetan jarri. Zeregin horiek denak etimologikoak direla ikusita, susma dezakegu grekozko etimologiak (eta partizipioa galdutzat emanak) antzinako euskararen arrastoa dela erabakiarazi ziola eta, beraz, badagoke hemen "denborarik gabeko" euskararen kontzeptutik nola ere bait urruntzen den ezaugarri bat Larramendiren aldetik.

5) *egidazu (oroit nazazu, comuta eguidazu, acorda zadazu s.v. acordar)*, eta besteren bat agian, baina honelakoak esan gabe doa orokorrakoak direla. Aipatutako agerraldian, zehazkiago, agerian dago hiru euskalki nagusien adibideak eskaintzen ari dela, hainbat sarreratan bezala (I, § 8.3.7).

6) *-a + a > -ea*: aldaketa honi buruz jadanik mintzatu gara (I, § 8.5.2.1).

Begiratu amaitzeko, ingurune honetan lekukotutako hitzak bil ditzakegu:

a) Euskalki mugaren bi aldeetako hitz edo aldaerak:

alkotz (V-gip, G-to, *algotz* V-ger, *agotz* Vc, B, *aotz* V-m, AN-larr, *ahotz* L, BN, S), *amelaun* (V-gip, G-azp, *amalaun* G-azp), *antxitu* (V-gip, G), *apartatu* 'hautatu' (V-ger-gip, G-azp), *apatz* (V, G-goi), *arrakada* "rajadura" (V-gip), *arratza* (V-gip), *artzari* (V-gip, G-azp), *asmazio* (*asmazino* V-gip), *atagaia* (*ataga* V-m, G),¹⁴²⁶ *atzaparkada* (V-gip, G-goi, *atzamarkada* V-ger), *atzaparka* egin (V-gip), *atzendu* "acabar" (V-m?-gip), *auno* (V-gip), *auspeko* (V-gip), *austu* (V-gip), *azkarri* (V-gip, G-azp-goi).

b) Azpeitaldeko gipuzkeran (G-azp) bakarrik lekukotu ahal izan ditudan hitzak:

aizapelota / aizapillota (*aize-pelota* G-azp < Gketx *Loiola*), *akats* 'falto' (G-azp < *OEH*, s.v. *akats* 3), *aujaz* (cf. gorago esana), *azaoketa* (*azauketa* "hacer gavillas de trigo, etc. [sic]" G-azp [barrio de Loyola] < *LexEV* 146; cf. *azaoketan* ari *TAg GaGo* 94, ap. *OEH*), *azitu* (G-azp < Gketx *Loiola*).

12.2.9. Ekialdeko hitzak edo aldaerak

Ekialdeko hitzak (hartakotzat GNn hasi eta ekialderantz zabaltzen den euskararen eremu osoan edo haren zati batean aurkitzen direnak harturik) Larramendik eskuarki liburuetatik erdietsi zituen, dakigunez; halaz ere, bada *HH*-an —*Erans*-ean ere bezala, bide batez— ohiko iturri idatzietan azalpenik aurkitzen ez duen hitz mordoxka bat eta, beraz, bestelako azalbideren zai dagoena.

Hitzak, *HH*-ari dagokionez, hiru eratakoak dira:

1) Lehenagoko lekukotasunak izan arren, dakigularik Larramendik ezagutu ezin zitzakeenak dauzkatenak:

habe (SP), *agorri* (Lç), *ailis* (SP), *alaba bitxi* (SP, Urt), *alarazi* (O-SP, SP), *alasea* (*alhase* SP), *anbilka* (SP), *andoila* (SP, Urt), *anjereder* (SP), *arilkatu* (SP, Urt), *arilko* (SP, Urt), *arrasatu* (SP), *arrastelu* (SP), *arro* (Oih, O-SP), *arthadun* (Urt), *arthatu* (Oih, SP), *arteko* (SP, Bp), *askari* (Oih, SP), *astalkai* (SP), *atabalari* (SP), *atz* "gana de rascarse" (SP), *atzodanik* (SP, Tt), *ahul* (SP, *aul* Lcc), *ahur* (SP, Mong), *aurtendanik* (Oih), *axa* (SP), *azakoba* (SP, Urt), *azun* (SP).

2) Lehenagoko lekukotasunak aldaera ezberdinekoak dauzkatenak:

aiztur (Volt *aistor*, SP *aixtur*), *amirun* (SP *amiruin*, Mong *amiron*), *arrada* (Oih, SP *errada*, Ht *adarr*), *atalapist(e)* (Urt *athalapust*).

3) *HH*-an euren lehen agerraldia iritsi dutenak:

ahantzura, *aburikatu* (*(h)aurikatu* BN-baig ap. Azkue), *aburiko*, *adaro* (Lc, BNc ap. Azkue), *aierukor*, *aiztua* (*aizto* R-uzt-is), *akabaila* (B, BN < Azkue eta Izeta *BHizt*), *aldaira* (L-sar-ain ap. Azkue),

¹⁴²⁶ Ezaugarri hau, hots, *-a + a > -aia* egitea, *-tza + a > -tzaia* testuinguruan bederen, Arabako erdialdean eta Leintz-Aramaio-Oiñati aldeko hizkeretan ongi lekukotuta dago (Zuazo 1998: 136). Izagirre 1970-n, oster, testuinguru gehiagotara zabaltzen dela ikus daiteke: *albáaska bat*, *albáaskaia* 'alboranzkada', *blastaia* 'blastada?', etab.

hamabika (V, G sg. Azkue), *ami* (cf. gask. *hami*), *amoko* (BN < Azkue eta EAEL vs *amuko* V, G, AN-larr), *antxume* “cabra, cabrilla en las piernas” (AN-araq, L-côte), *anyere* “soplado, demasiadamente pulido” (BN-lab “elegante” ap. Azkue), *argizaita* (*argiza(g)ita* BN-ad-mix, *argizagite* BN-mix, etab.), *arkanbele* (*arkamele* L ap. Azkue), *arradiza* / *arradizatu* (*ar(r)adiza(tu)* S ap. Azkue), *arranpa* (AN-gip, L, B, BN, S < Azkue, Lrq, Satr *VocP*, *Gte Erd*), *hatu* (BN, S ap. Azk; cf. *HH* “Bascuence labortano”), *atzipe* (BN-lab “dolo, engaño”, BN “robo” ap. Azkue), *autin* (BN-mix ap. A *Apend*, S ap. Lhande), *azundu* (G-nav, L, B, BN, S < Azkue, Iz *Als*, *EtxArEusk*).

4) Ezagut zezakeen lehenagoko lekukotasun bakarria Etxeberri Sarakoaren idatziak izatea:

aberia (ES; cf. *HH* s.v. *avería* “...en el dialecto Labortano significa gasto...”), *aierupen* (ES), *alamen* (SP, ES), *halatan bada* (ES), *antzatu* (Oih, ES), *apal* <appalla> (ES), *aur denbora* (ES), *ahurka* (SP, ES).

Hipotesirik begibistakoenak hiru dira oraingo honetan: 1) ezagutzen ez dugun Etxeberri Sarakoaren hiztegitik hartutako hitzak izatea;¹⁴²⁷ 2) Baionako egotaldian (1730-1733)¹⁴²⁸ erdietsitako hitzak izatea (cf. “...he dirigido mis preguntas (...) en el [dialecto] de Labort, a los que saben Bascuence y Francés”, 1745: lii); eta 3) haietako batzuk mendebalderagoko hizkeretan entzunak izatea: hau, itxuraz, errazagoa izan liteke *aiztur* (G-goi, AN-5vill), *antxume* (AN-araq), *arranpa* (AN-gip), *askari* (AN-erro), *astalkai* (AN-gip-5vill) eta *azundu* (G-nav) hitzetan.

Dena dela, badira arrazoi sendo eta ez hain sendo batzuk, bildutako hitz horietatik zenbait bederen Etxeberri Sarakoaren hiztegitiko hitzak direla baieztatzeko:

1) Entzundakoa nor bere ohituraren arabera idazten dugunez gero, ez genuke bide honetatik iritsitako hitzetan grafiazko gorabeherarik itxaron behar, eta halaz ere halakoren bat badugu gure zerrendan: <angereder>en, cf. SP <angue-> (sic), <ng>k Larramendik <ny> idatziko zukeen taldea adierazten du (I, § 8.4.9); <acha>, *axa* irakurri beharrekoa (I, §§ 3.4.10 eta 6.2.5); <apalla>, cf. ES <appall->.¹⁴²⁹

2) Larramendiren sistematik kanpoko <h> (I, § 8.4.13) aurrekoa baino argudio ahulagotzat daukat, ez baitakigu hasperenketa entzunez gero idatziz jasoko zukeen ala ez; dena den, batzuetan bederen idatzitik hartuak izatea espero dezakegu: *ahantzura*, *habe*, *hamabika*, *arthadun*, *arthatu*, *hatu*, *ahul*, *ahurka*. Argudio ona iruditzen zait, ostera, *ahul*-erako, hitza orokorra izan arren, *aul* idazkera adiera zeharo ezberdin batean bakarrik (“insulso”) jasotzen baita *HH*-an.

¹⁴²⁷ Sbarbi-Urquijo eta Etxeberriren hiztegiaren arteko auziaz, ik. § 10.1. Jakina, haietako batzuk baliteke Argaignaratsen *Avisu* liburutik izatea, baina, kontua erraztearren, Etxeberriekin bakarrik jokatu dut hemendik aurrera. Edonola ere, gutxi izango lirarteke, nik uste, lehenago (§ 9.2.2) emandako arrazoiengatik.

¹⁴²⁸ Cf. “Pasé con la Reina a los baños de Tercis y a la vuelta me detuve en Dax” (*Autobiografía 7*) eta argitaratzaileak oharrean: “Se refiere a las aguas termales de Tercis y Cambó, cerca de Dax”. Han egindako itzulien berri bakarria. Dena dela, idatzi honetan bestelako gauzez (politikoez, alegia) bakarrik arduratzen da alderdi honetan.

¹⁴²⁹ Etxeberriren adibide guztiak (ik. *OEH*, s.v.) izenondoak dira eta Larramendik, ostera, “baxeza”, “bellacada” itzuli zuen: oro har, izen bihurtutako izenondoetarako ik. § 5.2.1; honako honetan zerikusirik izan dezake, agian, Larramendik *apal* “anaquel” izena bakarrik ezagutzeak.

3) Iparraldeko hiztegi batean agertzeko posibilitatea ere aintzat har dezakegu, oso gertuko hizkerak islatzen dituzten *Pouvreau* edota *Urtek* jasotzen dutenaren arabera neurtuz (izardunak artekoak aldaerak dira):

Pouvreau + Urte: *alaba bitxi, andoila, arilkatu, arilko, azakoba*.

Pouvreau: *habe, ailis, *aiztur, alamen, alarazi, alase, *amirun, anbilka, anjereder, *arrada, arrasatu, arrastelu, arteko, askari, astalkai, atabalari, atz, axa, azun*.

Urte: **atalapist(e)*.

4) Badira zalantza eta oker batzuk *HH*-ko lekukotasunetan, baina ez dira denak interpretapen bakarrekoak:

ailis "levadura": cf. SP *ogj aillisa* "pain qui n'est pas levé".

aierukor "sospechoso, suspicaz" vs *aieru* "guiñada, guiño" (< Ax; § 9.2.4.2) eta *aierupen* "indicio" (< ES?; cf. ES 120 *aierupenezko kontairei sobera fede emanik*, *OEH*-ak "conjetura" itzulia).

aiztua "cuchillo": *OEH*-ak eta *EH*-ak *aiztu* interpretatua, nahiz eta ziurrenik *o + a > -ua* ezagunaren islapena baino ez izan.

**alakairu* <allacairua> "jornal": *alokairu* Lç, *TAV* (AN, 1609), Ax, SP, *alacairu* Ax GGer. Forma honek arazo bereziak aurkezten ditu: <ll> grafikoa baino ez bide da eta, hortaz, iturri idatziren batean irakurri zuela dirudi: nekez Axularrengan honexegatik (§ 9.2.7.3), baina ezinbestean Axularren testua ezagutu zuen batengan. Cf. grafema bera ziurrenik Etxeberriri zor zaion *apalla* hitzean.

hamabika "adozenas": Azkuek (Añibarrori jarraiki) V, Gkotzat jo arren, azken iturria *HH* da eta hitza, <h>ak kasu honetan zalantzarik gabe salatzen duen bezala, Iparraldekoa.

atalapistea "tranco, el umbral batiente de la puerta": cf. Urte I 8 *athalapustetik, athalapustéan*, Urte Ex 12, 22 *athalapusta*. *OEH*-ak *atalapiste* interpretatzen du, baina ez zait batere ziurra iruditzen.

Zerbaiten aztarnak izatekotan, baderitzat *ailis* eta *aiztua* gehiago mintzo direla ahozko iturri batez, ulerpen kontuak (eta badakigu Larramendi frantsesarekin ongi moldatzen zela, Etxeberrirenean gaztelania eta latina ere bazituela ahaztu gabe) eta eufoniakoak (Etxeberriren hiztegian ezinpentsatuzkoak) baitira; *aierukor*, berriz, Etxeberriren hiztegiakoa dela daukat, *aierupen*-en esanahiarekin ongi baitator; baita, ia zalantzarik gabe, **alakairu*; *hamabika*-ren kasuan, oinarria zeharo arrunta denez gero, errazagoa iruditzen zait grafia idatzitik gordetzea ezen ez fonema ahozkotik transkribatzea; eta, azkenik, *atalapisetea* ambiguoztat daukat erabat darabilgun arazoari buruz, nahiz eta, bestalde, formaren aldetik *atalapist* bada, dirudien bezala, orduan iturriak leku-kasuren bat eskaini ziola egin beharko genukeen: Etxeberriren hiztegiaren izaera eta tamaina (Urterenaren aldean behinik behin) kontuan hartuta, beharbada entzuna izatea egiantzekoagoa den arren, ez da zaila pentsatzen hiztegian zein erataro ager zitekeen. Honezkero, nabarmen geratu bide da gutxienez bi iturri, Etxeberri Sarakoa eta ahozkoa(k), proposatzen ari naizela.

Azkenik, hasiera batean Iparraldeko iturri ezezagunari edo ezezagunei egotzi nahi nizkien, halaber, *-(t)zale* (= *-tzaille*) aldaeradun hitz guztiak ere, baina lehenago (§ 9.2.7.2) eman uste dut halako hipotesia baztertzeko dagokeen arrazoia.

Gainerako hitzei buruz esan dezakedan bakarra hauxe da: ekialdeko lekukotasunak bakarrik dituztela. Begirada bat eman diezaiokegu bakoitzari egotzi zaion euskalki hedadurari, gauzak nola dauden (nahasita gehienbat, itxuraz) antzemateko, orokorrenetatik hasita:

GN...BN, (Z): *habe, aiztur, arilko, arranpa, askari, azundu*.

L, BN, (Z): *adaro, ailis, aiztur, amirun, andoila, anjereder, arilkatu, atz, azun*.

BN, Z: *arrasatu, arrastelu, hatu, autin*.

(B), L, (Z): *alarazi, alase, aldaira, arilkatu, arilko, ahurka, azakoba*.

(B), BN: *akabaila, amoko, anyere, argizaita, arrada, atzipe*.

B, Z: *atabalari, autin*.

Z: *arradiza/arradizatu, arrasatu.*

R: *aiztua.*

Ahozkoak izan zein hiztegikoak, bistan da haietako batzuen hedadura (guztiz, bukaera aldetik hasita, *aiztua, arradiza(tu), arrasatu, atabalari* eta *autin*-ena) berrikusi beharko dela.

12.2.10. Bestetan lekukotu gabeko hitz edo aldaerak

Orain artean *HH*-ak gordetzen dituen ageriko aberastasunetatik zenbait bederen antzeman ondoren, konpli da ausartago izan gaitezen, eta hain ageriko ez diren beste zenbait agerraraztera ekin diezaiozun. Oinarrizko hipotesia da nahitaez inon berriz jaso ez diren hitzak edo esapideak badaudela Larramendiren hiztegiari: berea bezalako lanik gutxi izan dugu XX. mendera arte eta, beraz, dela artean desagertu direlako edo dela halabeharrez inork berriro jaso ez dituelako, baliteke hainbat hitzek, gerokoen ezaxolaz, izkutuan irautea *HH*-ko orrien artean.

Halakoen bila abiatzerakoan, hiru hipotesi lagungarri jarraitu natzaie nagusiki:

1) Gertuko aldaerak, adierak edota formak jasota egotea forma ezezaguna egiaztatzeko bide ziurra da, besterik ezean.

2) *HH* barruko argudioak aurki daitezke zenbait forma bermatzeko.

3) Larramendiren sorbideek azal ezin ditzaketen hitzak herrikoiak dira, kontrakoa frogatzen ez den bitartean eta geroago azalduko ditudan baldintzen azpian.

12.2.10.1. Gertuko laguntzak

Larramendik harrotu zituen hautsak oraindik barraiatuxe ditugunez gero, hauxe izan daiteke *HH*-an galduta dabilzan hitz herrikoi zenbait berreskuratzeko biderik errazena, uzkurrenak ere irabazteko modukoa. Erabiliko ditudan argudio guztiak ez dira, nabarmenki, garrantzi berekoak izango baina, bestalde, hitz batzuetarako argudio bat baino gehiago bildu ahal izan dut. Egiantzekoenetatik hasita honako hauek ditugu:

a) Bestelako aldaeratan ongi lekukotutako hitzak:

aioz "cuchillón", "cuchilla", "xifero, el cuchillo de matar reses": cf. *aioz* "machete" Vc, G-goi, eta *HH aioz* "hocino", "podón", "podadera" (cf. *aioz* L, BN-baig, S "podadera" ap. Azkue). *OEH*-ak Larramendik "unas veces -tz, otras -z" dioenean, bi formen artean dagoen adiera ezberdintasuna saihestu egiten du. Forma bakoitza beti adiera berari lotuta agertzeak bi iturri oso ezberdin izan zituela erakusten digute.

aizape "sotavento": cf. *aixebe* V-m-ger, *aizabe* G, *aizebe* V, G.

albinotu "enhebrar": cf. *albenitu* V-gip.

alborakia (mug.) "el agasajo que se da a los que dan la alborada": cf. *alboroke* V, AN-araq, S, *alboroka* V, G, *alboka* G-nav, AN-gip.

amama "telaraña": cf. *amauma* G-azp-goi, *amoma* G-nav.

almirez "almirez": cf. *almeriz* V, G, R, *almaiz* V, G, AN, B, *almiz* V, *almirez* Lcc.

anean dago "está en un tris": cf. *hain-hainean ciren periletaric escapateagatic* "pour eviter quelque peril eminent" (ES 111).

andora "sauquillo": cf. *andura* G, AN, L-ain, *anddura* AN-5vill, *aindura* AN-gip; *HH andura* "yezgo".

arbezta "broza de lo cardado en el lino": cf. *arbasta* G-goi, *arbazta* G-azp-goi; *HH arbazta* "tamaras, el despojo de la leña gruesa".

arpeo "harpeo": cf. *arpio* V-ger, *arpeu* V-m, L-côte.
arregura "vituperio": cf. *arrangura* BN, *errenkura* V, G, AN, L, *arrenkura* V, G, AN, L, etab.; *HH errenkura* "quexa".
astiar "arze, árbol": cf. *astigar* gral, *aistigar* S, *gastigar* L-sar, Sal, etab.; *HH astigar* 'ib.'.
ateleka "riñendo": cf. *atralaka* V-oroz-m-gip, G-goi.
auzkoz "boca arriba", "espalditendido": cf. *auskora* V-ple, *ahoz gora* (EZ), *auzgora* Sal, R, *agoz gora* B; *HH auzkora* 'ib.'.
azkaia (mug.) "caspa": cf. *ezkabia* (AN-mer), *ezkabi* V, G, AN-larr, B, L-ain, Ae, Sal, S, *azkabia* S; *HH ezkabia* "tiña".
aztin "adivino", "agorero", "présago", "pronosticador": cf. *azti* *HH*-an bertan.

Oro har, argudiorik indartsuena deritzat, non galdetu eta han itxura ezberdinean, baita batzuetan adiera zertxobait ezberdinaz jasotzea Larramendik egin zuen galdeketatik berez bezala datorren ondorioa baita. Dena dela, hitzon artean bereizkuntza zenbait egin daitezke: 1) aldaera normalak diruditenak (*aizape*, *albinotu*, *amama*, *arpeo*); inoiz (*astiar* / *astigar*, *aztin* / *azti*) bi formak elkarren aldamenean agertzen dira; 2) *HH*-an ezagutzen dugun formarekin batera lekukotuta daudenak, baina adiera ezberdinetan (*aioz* / *aiotz*, *andora* / *andura*, *arbezta* / *arbazta*, *arregura* / *errenkura*, *azkaia* / *ezkabia*); 3) forma zalantzazkoak: *alborakia* (gainerako lekukotasunengatik *e + a > -ia* arauaren beste adibide bat baino ez bide da, dirudienez Larramendik *-ki* atzizkia ikusi uste izan bazuen ere: ik. § 6.3.1.1.f) eta *ananean* (Etxeberriren agerraldiarekin zuzenean lotu behar dugu, ala haren aldaera dela pentsatu?).

b) Eratorpen edo elkarketa forma ezagun eta zalantzagabekoak:

adakai "rama": cf. *adaki* (*HH*, etab.), zeinarekin estuki lotuta bide dagoen, *errekierrekai*, *arradaki*-*arradakai* eta antzeko bikoteen modura.
adatsu "ramoso": *-r*-aren galerarako cf. *adabegi*, *adaburu*, *adagan-*, *adaje*, *adaka*, *adaki*, *adaska*, etab.
aizkolketa "hachazo": *aizkol-* forma zaharraren agerraldi bakarra *HH*-an (§ 2.2.5.1).
akuilu-makuiluak "zancos de palo": elkartuaren formaz gainera, kontuan izan dezakegu gainerantzean *HH*-ak *akuilo* eta *akulu* aldaerak baino ez dituela.
andrezurrian "andar divertido": cf. *-zurri* G-to [Andoain], L-ain "a causa, a fuer", *merke-zurrian* "por causa de ser baratos", *aberats-zurrian ezkondu zan zar batekin* "a fuer de rico..." (Azkue).
ardan-upel (s.v. *aforar*): *ardanle* "vinatero" berea bada ere, eskuarki Larramendik *arda-* forma "ezinezkoa" erabiltzen du, hala nola *ardabeltx* "vinillo", *ardaspilla* eta *ardasuila* "colodra de los que venden vino" (§§ 3.2.1.1.a eta 3.2.2).

Argudioak balio izan dezan, baldintza bat bete behar dute hitzek: Larramendik, itxuraz bederen, formaren nondik norakoei erreparatu gabe jasoak izatea edo, guretzat berebat dena, baliabidearen *HH*-ko agerraldiak bakarrak edo bakanak izatea.

c) Familiako lekukotasunak:

adaburutsu "ramoso": cf. *adaburu* V-m, AN, L-ain, *adapuru* V-arr-m, etab.
agira uts "baladronada" eta *agirakatu* "reñir, reprehender", "baladronear": cf. *agira egin* "reprender" (Kapanaga), *agirika* V "reprendiendo", *agirika* V-ple-ger "chillando, riñendo".
akertxo "orejeras en el arado": cf. *aker*, antzeko adieretan oso zabaldua, eta *HH aker* "palo que en el remate detiene el cabrío".
apaldizkari "maldiciente": cf. *ahapaldi* "expresión, frase (injuriosa)".
atuaje "limonage, llaman al salir las lanchas de el puerto para entrar algún navío": cf. *atua* V-ger "remolque".
autsiabar(t)za "alboroto": cf. *ausiabar* V-m-gip, G-azp.

Larramendik hitz familia zabalagoetatik forma eratorri bakartuak (*adaburutsu*, *atuaje*, *autsiabartza*) edo geroago berriz lekukotu ez diren kideak (*agira*, *agirakatu*, *akertxo*) entzun zituela dirudi.

d) Antzeko lekukotasunak:

adats "trenza", *baratzurien adatsa* "ristra de ajos": cf. *berakatzaren adatsa* V (Azkue).
(ha) de poja / pota "¡ha! que buena alaja!": cf. Urte I, 439 O qualis agitatrix! *aidepote noláco feldarácoa!*; cf., bestalde, gazt. *hi de puta* eta *DAut*-en azalpena, euskal lekukotasunen adiera, gaztelaniaz ere arrunta, ezin hobeki azaltzen duena: "Algunas veces se dice esta expresión sin que denote injuria u denuestos; sino se usa de ella como admirandose, y entonces es interjección que alaba alguna cosa".
aidur "maligno": cf. "pesado, grave" AN (Añ, msBon), "mentecato, sin brío" V, G (Azk); cf., bestalde, *haidor* "altanero, orgulloso", etab. (OEH) eta *andur* "ruin" RS, etab.
ajubetatu "majolar, poner correas a los zapatos": cf. okz. *ajoatar* "atteler les boeufs au joug; fig. assujettir" (ap. Alibert 1966, s.v.), itxura denez gask. *jú* "joug" (ap. Palay 1980, s.v.) hitzarekin erlazionatua.
aizurte "molice, pecado torpe": cf. *aisura* "comodidad" (Lizarraga Elkanokoa), antza denez *aisa* + *-(t)jura* (adib., *Obe da igortzea emen nekeak, ezi ez aisurak* (13). LE-Ir, ap. OEH).
alagoza "dote": cf. *alaroza* "esposa" AN-uterga, 1547 (cf. Lakarra 1993: 341, 51. oh. eta 1997: 467, 39. oh.).
alper potz "perezoso": cf. *alfer zotz* "gran holgazán" (JE *Ber*, Barb *Leg*); gainera, badakigu *HH*-ko aldaera nongoa den: cf. *Corografía* 300, non gipuzkeraren adibidearen barruan erabiltzen duen.
alsistu "desván de caserías", "granero", "pajar": cf. *altsiztu* V-arr "especie de jaula de seto que se cuelga de la techo de la cocina en la cual se conservan castañas, fruta, queso, etc." (Azkue).
amarraz "cangrejo": cf. V-ple-ger-och-gip (eta Landucci) "araña", V-m (eta Mikoleta) "pulpo" eta, adibidez, *kar(r)amarro* V, AN-gip, etab. "cangrejo" baina V-gip "escarabajo" (OEH, s.v.).
andartaro "despacio, por mucho tiempo": cf., agian, *andarka haritzea, ibiltzea* "chanceler, faire des zigzags" (Dv), etab. (OEH, s.v. *andarka*); bukaera -ro atzizkia da, dudarik gabe.
antzetu "fortificar, dar vigor": cf. *antzatu* "preparar(se), adiestrar(se); cuidar, cultivar" (OEH); cf., adib., *Golosoak dabilta triparen esklabo, nondik antzatuken duten gehiago ta gehiago* (LE Urt 231); *HH antzatu* "manejar, tratar con las manos".
apukan "puede ser que sí, bearbada bai, naskiro bai, apukan bai": cf. *apika* eta, agian, *apukadu* "suceder, acontecer" ere (TAV 3.1.5 eta Lcc).
arbililitxa "nabiza": cf. *arbi-lili* Sc "flor del nabo", *arbi-litxa* BN-baig, *arbi-listo* S.
ardore "humor", *ardore onekoa* "de buen humor": cf. *adore* eta *ardura* 2 eta 3 (OEH).¹⁴³⁰
arrarteko "saxátil" [= 'entre peñas']: cf. *harrarte* Etxeberri Zib.
arratsalde-gosari "merienda": cf. *atsaldeko gosari* B (*VocB*).
artzia (mug.) "raridad, extrañeza": cf. *hartzi* L, BN, S "desparramado, en desorden".
aspigun "riñones en plural": cf. *azpigun* V-ple-m "nalga", *azpigun aterea* V-ple "la dislocación de la cadera".
atapea (mug.) "escotilla", "escutas, escutillas en el navío, son las puertas por donde se baja de una estancia a otra": cf. *atapa, atape* V-ger "musgo o argoma con [que] se cubre la pila de leña destinada a carbón" (Azkue).
atorrajario "pañalón, a quien le cuelga el pañal": cf. "*Alkate-Jauna, athorra dariozu! athorra!*" *Eta Alkate-jauna loriatua, (...), oihuka zioarik: "Duenak dario, duenak dario"* (Barb *Sup* 40).
atz lodí "pulgar": cf. V-ger "dedo corazón".
atzirri "araño, rasguño": cf. *atzirikatu* G-azp "tentar".

Adibideek erakusten digutenez, oso bide emankorra da *HH*-ko hainbat hitzetarako, batzuetan haien etorkia nahikoa argi iradokitzeaz gainera.

e) Mailegu herrikoa izateko posibilitatea:

aboria "ocupación, negocio": antzeko lekukotasun bakarra *abori* L "tropiezo" da, baina hau oso susmagarria izateaz gainera,¹⁴³¹ ez dirudi gurearekin zerikusirik duenik; baliteke, ostera, *labore*-ren aldaera zahar bat izatea, nire ustez (hasierako *I*-aren galeraz, ik. Mitxelena 1977a: 323-324).
abroila "engaño en comprar y vender": gazt. *ambrolla* "enredo, trampa, engaño" eta *hadrolla* "trapaza o engaño que se hace a otro, comprando o vendiendo fiado"-ren etimologietan agertzen da aipatua.
amizkle "almizcle": cf. *HH amirez, amirun*, testuinguru berean berdin bilakatuak.

Goian aipatutako zenbait ere (*ajubetatu, alagoza, amirez, arpeo*, etab.), esan gabe doa hemen sartzen direla, nahiz eta bestelako argudioengatik hemengoak baino askoz ziurragoak izan.

¹⁴³⁰ Mitxelenak (1977a: 339) jadanik azaldu zuen, Larramendiren lekukotasuna erabiliaz, *ardore* > *adore* bilakaera, disimilazioz.

¹⁴³¹ Ik. eranskinean, s.v.

f) Hitz ezagun batetik eratorria izateko posibilitatea:

alaenda "despecho": -*da* Larramendiren atzizkia izan baliteke ere (§ 2.1.11), oinarria ziurrenik *alaen*-ekin lotu beharrekoa da; hala balitz, hitzaren historia ia mende eta erdiz luzatuko genuke (cf. *OEH*, s.v. *alaen*, baina honetaz erreparatu gabe).

alainzo "talento, talentos, habilidad, prendas": *alajainko*-ren aldaera eufemistikoekin lot daitekeela dirudi: *alaintso* (HU eta Zub, ap. *OEH*, s.v.), *alazainko* (Ldi eta *ala zankoa* Zab, ap. *OEH*, s.v.), etab.

Halabeharrez, bi adibideok oso antzerakoak dira, bietan tabu edo erdi-tabu diren hitzak izkutatzen direla baitirudi, nahiz eta era ezberdinetara estaliak izan.

12.2.10.2. HH barruko argudioak

Tesi-lan honen lehenengo atalean *HH*-aren egitura eta edukia aztertu ondoren, han antzemandako berezitasun batzuk hemen erabiltzeko paradan gaudela deritzat, euskarak berak —eta ez eredia berdindu beharrak— eragindako gauzak nabarmenarazteko, hain zuzen:

a) Larramendik euskaraz ezagutu zituen zenbait gauza jaso ahal izateko *DAut*-ek ez dakartzan sarrerek erantsi behar izan zituen:

agertutxo "assomadita".

alkontxo "niño regordete, quieto y suave", "suave (...) aplicado a un niño".

atuaje "limonaje".

b) Esapideak, guztiz erdal kidearekin inolako zerikusirik gabekoak, erabat zalantzagabekotzat hartu behar ditugu, eta Larramendik herritarren solasak parte hartu gabe entzuteari eskaini zizkion txolarteekin lotu:

agertutxo bat, ikusitxo bat egin "dar una vista": cf. *agertu bat egin* G (eta *HH*), *ikusi bat egin* G, *eldu bat egin* V eta, txikigarriaz, *onontz-alditxu bat egin* V (Mocoroa 1990: II, 1659).

agira uts "baladronada", *agira utsak egin* "baladronear".

buruz gorako aizkolketa "lo que se trabaja en balde, frase proverbial", *hori da buruz gorako aizkolketa* "es tirar cozes contra alguien".

ardore oneko, gaistoko "de buen humor, de mal humor", "de buen aire, talante, de mal aire", "de buen talante".

arret zarret "a tuertas o a derechas", "a diestro y a siniestro", "roso y veloso".

atze otz gelditu dira "ya han quebrado".

c) Eratorri bat *HH*-an haren oinarriak dituen adieren arabera azaltzeko ezintasunak lehenik eta behin hitza Larramendik eratorritakoa ez dela adierazten du; halabeharrez, beraz, beste bide batetik lortu zuen:

antzetu "fortificar, dar vigor": cf. *antze* "maña", "modo", "genio" eta, ostera, *anzia* "vigor".

azpilduragabe "hombre abierto, sin doblez": cf. *azpildura* "bastilla", "dobladillo", "repulgo".

d) Beste hainbeste esan dezakegu elkartuek espero ez diren osagaiak izateaz:

arrano urdin "gerifalte, especie de halcón": *arrano*, eta ez *mirotza* "halcón".

e) Edo maileguez esanahi berezia izateaz:

agorgea "oy se llama *agorguea* en muchas partes a aquella comida con que ceban por fuerza y a la mano a los capones y otras aves": cf. *gorga* "El alimento o comida que se les dispone a las aves de cetrería" (*DAut*).

aldamio "añadidura"; cf. *HH*: "Andamio, viene de el Bascuence *aldamio*, que significa lo mismo, y *aldamioa* en un dialecto significa también añadidura...".

f) Edo *HH*-an emankorra ez den atzizkia izateaz:

aizetiar "animal volátil": cf. *HH urtar* "animal aquatil", *lurtar* "animal terrestre". Atzizkia berez ekialdekoa da (cf. Azkue 1923-1925: § 212).

asmaengo "agüero": *-go* Larramendirena izan daitekeen arren (§ 2.1.2), *-en* atzizkia ez (cf. *alaenda-z* goraxeago esana).

g) Edo esperoezinezko adierez (Larramendik egindako esanahi hedaduratzat ezin har daitezkeenak):

aino "sombra": cf. *HH aino* "añublo en las miesses", "alheña, nublo, roña en las miesses", "niebla en las miesses" eta *ainoatu* "alheñarse el trigo", "anieblarse el trigo, &c"; Azkuek *aiñu* V "sombra" dauka, baina ez dakit fidatzeko moduko lekukotasuna den.

h) Larramendik "en un dialecto" dioenean, badakigu dagoeneko ez dela txantxetako kontua, identifikatu ahal izan ditugun iturri idatziak izkutatzen baitira maiz adierazpen horren azpian; ahozkoak ere badira *HH*-an, goraxeago aipatu dudana *aldamio* "añadidura"-ren arabera.

i) Esanahi zehaztasun bereziak, hitza xeheki ezagutzen zuelako seinale izan daitezke:

apoita "misericordia, desgracia, pobreza", "necesidad grave y extrema", *apoitán bizi naiz* "vivo en la última miseria".

j) Behin eta berriz esanahi berarekin agertzeak, Larramendirentzat arrunta zela adieraz lezake:

akopilatu "acometer", "arremeter", "assaltar", "atacar al enemigo", "avanzar, acometer", "insultar, acometer".

alara "cacareo", "cacareo de gallina" (s.v. *alaraca*, etimologian), "cacareo" (s.v. *alarido*, etim.), *alara bai, errun* ez "cacarear y no poner huevo" (halaz ere, atzeranzko eratorria izan liteke: ik. § 6.3.1.1.g).

aspesa "duda", "fluctuación", "hesitación", "perplexidad", *aspesan egon* "estar en tabletas, en duda", *aspesan dagoana* "perplexo", *aspesan ibilli* "andar en balanzas".

k) Aldamenean *-(t)zale* (= *-tzaile*) itxurako eratorria izatea, benetakoa ez eze Iparraldekoa dela adierazten du, ziurrenik (ik. § 9.2.7.2):

akopilatu "acometer", "assaltar", etab. + *akopilatzaile* "agresor", "assaltador".
**alakairu* "jornal", "premio" (cf. goraxeago esana) + *alakairuzale* "premiador".

Hitza bera *-zale*-duna izatea are arrazoi hobea izan daiteke, noski:

amorrzale "saludador de el mal de rabia".

l) *-ea* bukaera izatea (?):

akoskea "tranquero de puertas y ventanas".

aldaperea, *aldatserea* "declive": nire ustetan, bietako bat bakarrik dateke herrikoa, eta bestea, berriz, haren erara egindakoa (baliteke ez *-era* atzizkia, *-behere* baizik izatea: ik. § 2.1.12).

arikerea "entresijo, mesenterio": cf. *eraa*, *erea* "molleja" (*HH*).

azalkerea "barbaria, barbarie".¹⁴³²

12.2.10.3. Azalpenik gabeko hitzak

Larramendiren elkarbideak gutxi-asko ezagutu ondoren, badakigu gutxienez beraren hitzek zerbaiten eitea izan ohi dutela, hots, beren esanahiarekin loturaren bat duten euskal hitz ezagunetan zatika daitezkeela, zenbait hots-aldaketa, batzuetan oso gogorak, berreraiki eta gero (§ 3). Hortaz, zilegi zaigu lehenik zatikaezinak diruditen hitzak entzundakoak direla sinestea; bigarrenik, beste horrenbestetsu esan daiteke euren zatien artean inolako erlazio

¹⁴³² Baliteke azken hau bestela azaltzea: *OEH*-ak, s.v. *azalkeria*, "acto escandaloso" adiera dakar, frai Bartolomeren hiru adibiderek (cf., adib., *Esaten ditubeela berba desonestubak ta lotsarizko errazoiak; ta egiten ditubeela, arei darraikuzan azalkerija berdiak*. fB *Olg* 60). Ez zait ezinezkoa iruditzen antzeko zerbaiten ordez egotea.

semantiko *ad hoc*-ik soma ezin daitezkeen hitzez; eta, azkenik, baita zati argi batetik gainerakoa erabat iluna daukaten hitzez ere, agian:

abegor "azomamiento", "faena, con mucho afán y ruido", "quexura, apresuración congoxosa" eta *abegortu* "azomar, azuzar al perro".

adun "trigo nuevo" (cf. § 8.1).

aindurrin "almaro, maro, especie de orégano con flor semejante": bigarren osagaia *urrin* izan liteke (cf. *DAut.* "Su flor es semejante a la del orégano, aunque mucho más olorosa"), baina lehenengoak *aindur(a)* dela dirudi, nahiz Larramendik, ikusi bezala, *andura* "yezgo" eta *andora* "sauquillo" aldaerak bakarrik jaso. Gainera, *oregana* "orégano" dugu *HH*-an.

aiorra "harre (...) a los bueyes": bigarren zatia *orra* 'horra' bide dugu.

aizaro "Jueves Santo", "Noche de Jueves Santo", "Tinieblas de Semana Santa": elkartu argia dirudi, baina haren esanahiarekin, dakidalarik, loturarik gabekoa.

akale "usagre, especie de sarna".

akoskea (mug.) "tranquero de puertas y ventanas".

alarazi "empeñarse, obligarse a algo": aditz arazlea dugu, bistan denez, baina oinarri ezezagunekoa.

albetxe "neguilla, *usagaria*, *albechea*": cf. "agenuz, *usagaria*", zeinarengatik bai baitirudi bigarren liburukirako ikasi zuela.

aputio "ultraje".

arafut "malo, interjección".

arrigola "relleno de estómago", "repleción de comida".

Esan gabe doa hauetako eta haietako zenbait, beharbada, oraindik ere bizirik egon daitezkeela eta, beraz, hemen egiten dudan saioa horretzek bermatuko lukeela. Hala ez balitz ere, argudioek ez dute zertan euren indarra galdu, dena dela, XVIII. mendeko euskararen lexikoa berrezagutzeko bide bakarra izan daitezke eta.

12.3. Ondorioak

Azkuez geroztiko hiztegi-gileek ezikusiarrena egin diotenez gero, *OEH* eta *EH*-ak Larramendiren lekukotasunei euren burua agertzeko aukera emanaz aldaketa aipagarri bat sortarazi dute alde honetatik. Haatik, urteetako aurreiritziak bere zama utzi du baita bi hiztegiotan ere. Lehenik eta behin, Larramendiren lekukotasuna hainbat bider peitzen dugu bi hiztegiotan, axolagabekeriaz edo bestela:

1) *EH*-ak, orotara 150 hitzetan aipatzen badu ere, beste 42tan ez du lehen lekukotasuntzat ematen,¹⁴³³ beharko lukeen arren; haietatik 4tan *OEH*-ak bezalatsu jokatzen du eta gainerantzekoetan, berriz, bere kasa. Ostera, birritan behar gabe aipatzen du edo, hobeki esanda, aipamena nondik nora doan zehaztu gabe: s.v. *adaburu* (*HH*-ak *adaburutsu* bakarrik) eta s.v. *hausnartu* (*HH*-ak *ausmartu* bakarrik).

¹⁴³³ Ik. *ahantzura* (1831), *abar* (1746), *abegortu* (1760), *aberia* "kaltea" (1855), *adobaki* (1754), *ados* (1858), *agertu* (1808), *agudo* (1755), *ajolakabe* (1761), *ajutu* (1757), *aldameneko* (1808), *aldaska* (1750), *aldeen* (1847), *alegindu* (1916), *aloza* (1885), *amama* (1808), *amilka* (1808), *anbilka* (1809), *andere* (1846), *anditzar* (1802), *anjereder* (1852), *anpoila* (1800), *antxitu* (1762), *antxu* (1766), *anyere* (1905), *aratu* (1746), *arazo* (1747), *arrangorri* (1905), *arranzari* (1783), *arrastegi* (1802), *arsaldo* (1880), *artzanor* (1783), *asmazio* (1759), *atabalari* (XIX ea.), *atzaparka* egin (1966), *aukeran* 2 (1785), *aukeratu* (1855), *aunzki* (1804), *aurmin* (1816), *aurreraka* (1897), *ausmar* (1860), *auspeko* (1859), *austu* (1802), *axal* (1853), *azkarri* (1800) eta *azpildura* (XIX b.) 17. eranskinean.

2) *OEH*-ak berak beste hainbeste egiten du 22 aldiz;¹⁴³⁴ lehen lekukotasuna ez denean ere 6 aldiz ahaztu du *HH* aipatzea,¹⁴³⁵ eta behin bederen *HH*-aren lekukotasuna kontuan ez hartzeagatik iratxo bat itzuri zaio.¹⁴³⁶ Honetaz gainera, azpimarragarria da *HH*-ak data aurrera dezakeenetatik hiru hitzetan¹⁴³⁷ *OEH*-ak Larramendiren *EGH*-aren lekukotasuna hobetsi duela, beste hiztegiaren kaltetan. Behin, s.v. *azpigun*, honako hau dio: «Harriet trae “*azpiguna*, ceinture, milieu du corps”, que atribuye a Larramendi, pero, salvo error, no se encuentra en éste»; errua Larramendik asp- ekartzeak sortu du, baina AS liburuki bereko atala da!

3) Larramendiren lekukotasun soila daukaten hitzek, espero zitekeen bezala, are patu txarragoa izan dute Mitxelenaren hiztegiaren aldizka: orotara 31 ez ditut aurkitu *OEH*-an. Oso arazotsuak izan daitezkeen hitzen aldamenean,¹⁴³⁸ ostera, badira *OEH*-ak berak eskaintzen dituen bestelako datuen laguntzaz egiazta zitezkeenak,¹⁴³⁹ ongi menperatzen ez dituen iturrietan berraurki daitezkeenak,¹⁴⁴⁰ arrazoi jakinik gabe alde batera utzi direnak¹⁴⁴¹ edota beren itxura edo esanahiagatik erraz xamar nondik nora dabiltzan erakusten dutenak.¹⁴⁴²

4) Aintzat hartu ez diren lekukotasunen artean bereiz aipatzekoak dira *HH*-ko etimologietan baino agertzen ez diren hitzak, hala nola *andere* “pampiña” (*andrajo*-ren etim.) eta *adala* “adala”, *OEH*-ak alde batera utziak; arrazoi beragatik ez bide ditu jaso *EH*-ak *aberia* eta *aurreraka*.

Bigarrenik, jasotzen direnean ere oso modu xelebreetan egiten dira batzuetan:

1) Esaten ez duena, aurreiritziz, jakintzat emanez:

HABE: *OEH*-ak Larramendik *habe* eta *abe* dakarrela diosku (s.v. 2 *habe*), baina bigarrena ez dago inon.

ALBIRISTE: *OEH*-ak *HH* “noticia” adierapean ere (s.v., 2. adieran) jaso du, nahiz honen agerraldi bakararra “albricias, buenas nuevas, noticias” azpian izan, hots, lehen adierakoa (“albricias”) bakarrik. Hegoaldekoa denez gero ekarri behar zuela jakintzat emanez, “noticias” bakartu da, nahiz agerriki “buenas...noticias” ulertu behar den.

¹⁴³⁴ Ik. *a* (1819), *adala* (1905), *adaro* (XIX b.), *ados* (1858), *aindurin* (~1760), *ajutu* (1757), *akats* (~1987), *alboratu* (1934), *alegia* 2 (~1910), *algain* (1905), *algaindu* (1905), *alkotz* (XIX b.), *amama* (1808), *andere* (1846), *arrapal* (1905), *arraultza-kosko* (1905), *arre* III (1847), *aterrune* (1847), *aukeran* 2 (1785), *ausa* (1872), *axurtegi* (~1760) eta *azkarri* (1800) eranskinean.

¹⁴³⁵ Ik. *halatan bada*, *aldizko*, *andeja*, *antzatu*, *ahurka* eta *auzkora* eranskinean.

¹⁴³⁶ Azkueren “*aukoz* (G), boca arriba” sarrera, Añibarrok (*aukoz*, *auzkora* (G) “boca arriba”) sorrarazia, antza denez; honen iturria (eta “G” markaren arrazoa; cf. gorago, § 12.1.1) *HH* *au[z]koz*, *auzkora* “boca arriba” hutsa da.

¹⁴³⁷ Ik. *aindurin*, *ajutu* eta *axurtegi* eranskinean.

¹⁴³⁸ Ik. *aboria*, *abroila*, *agorgea*, *akoskea*, *alaenda*, *alainzo*, *arikerea*, *arrigola*, *asmaengo* eta *azalkerea* eranskinean.

¹⁴³⁹ Ik. *aizurte*, *alagoza*, *alper potz*, *arbillitxa*, *arranteko*, *atagaia*, *atuaje*, *atzirri*, *azkaia* eta *azpilduragabe* eranskinean.

¹⁴⁴⁰ Ik. (*ha*) *de poja* (Urte) eta *aierupen* (ES) eranskinean. *ananean*-en kasua (cf. *hain-hainean* ES) are xelebregoa da, *OEH*-ak I. liburukian “2 *hain*. v. *hein*” deia jartzen duen arren, gerokoan ez baitago honen arrastorik ere.

¹⁴⁴¹ Ik. *afrikar* eranskinean; eta cf., *ordea*, *amerikar* eta *europar* *OEH*-an.

¹⁴⁴² Ik. *ajubetatu* (itxuragatik baino ez bada, ekialdeko mailegua dirudi), *andrezurrian* (atzizki ezagunekoa) eta *apukan* (berehala *apika* dator gogora) eranskinean.

ALDARO: *OEH*-ak *HH* 1-2 adieretan jasotzen du, 1.ean ondo ("desigualdad en la parte inferior de los pliegues de un vestido", baina 2.ean ez dagoena (*HH* "desigualdad en el plano") demaigu, egiazko aipamena "desigualdad en plano, *biurria*; en la ropa, vestido, &c., *aldaroa*" baita: "inclinación" Azkuerengan jasotzeak lagundu bide duen hutsa da.

ASMO: *OEH*-ak Larramendiri egozten dion "intención" adiera ez da berea, Añibarrorena bakarrik baizik.

2) Dazkan xehetasunei arretarik ez eskainiaz:

AGA(A): *OEH*-ak (s.v. 1 *haga*) *HH*-ak behin izan ezik beti *aga* forma mugatua lekukotzen duela estaltzen du; xehetasun txiki hau, oster, *haga* eta *agaia* sarrerak, bertan berezita agertzen direnak, bat egiteko adinakoa da.

ALBOKEA (mug.): *OEH*-ak *alboka* forman aipatzen du *HH*, beste azalpenik gabe, *EGH*-ak *albo*ge dakarrela erantsiaz. Ez bata, ezta areago bestea dira ziurrak, eta zalantza agertaraztea merezi zuen.

ALDARO: *OEH*-ak *aldarao* sarrera bat dakar, *HH* "calandrajo, pedazo desgarrado de vestido, *aldarao*, *zerrendatsa*" sarreratik jalkia, zazpi orrialde aurreago, s.v. *aldaro*, *HH* "pingajo", besteak beste, daukan arren. Ohartzeko zen *aldarao* mugagabea dagoela eta hau, ezinezkoa ez bada ere, susmagarria bederen bada, <ao> <oa> irakurri behar dela iradokitzeke adinakoa.

ANJEREDER: *OEH*-ak (s.v. *andere*) *HH* *anddereder* formaren azpian aipatzen du, *anj*- idatzi zuela zehaztuaz; alabaina, Larramendik egiatan *ang*- idatzi zuen, ohi ez bezala, zeinak litekeen iturriari buruzko iradokizunak egiten dizkigun.

ANDRAKETA: *OEH*-ak ez du *HH*-ko "fornicación" adiera jasotzen, ezpairik gabe Azkueren zuzen edo zeharkako iturria, ez eta *HH*-ko *andraketa*n (formaren lekukotasun bakarra), nahiz eta forma horixe porposatzen duen *andraketa* izenaren jatorritzat.

ANYERE 2: *OEH*-ak "muñeca" adieran (1.an) jaso du Larramendiren "soplado, demasiadamente pulido" sarrera, *HH*-ko gainerako agerraldiekin nahaste, argi eta garbi 4.ekoa ("(adj.), elegante") den arren.

ANTXITI: *OEH*-ak (s.v., 1. adieran) "ante anteayer" adiera egozten dio Larramendiri, honek "ante anteayer, *erenegun anchiti*" dakarren arren; honetaz gainera, "ante antenoche, *berdanzat anchiti*" eta "antepenúltimo, *azquén úrren anchitia*" *HH*-ko gainerako lekukotasunak alde batera utzi ditu.

ATZEN: *OEH*-ak bigarren adieran ere ("fin, final, término") Larramendi aipatzen duen arren, ez dut halakorik aurkitu.

2) Aldaerarik edo erabilerarik bitxia bakarrik jasoaz:

ANKAEZUR: *OEH*-ak (*HANKA-HEZUR*, s.v. *hanka*) *HH*-ko *ankazur* bakarrik aipatzen du, bi formak s.v. "cadera" elkarrekin agertzen diren arren.

3) Inoren gauzei, bigarren eskukoak izan arren, Larramendirenei baino arreta gehiago ipiniaz:

AMI: *OEH*-ak (s.v. 2 *ami*) buruan jasotzen ditu Maurice Harriet eta beronen HeH *Voc*-eko lekukotasunak, *HH*-koa "cf." batekin bereziaz; hitza Iparraldekoa denez gero (jadanik Harrietek lotu zuen gaskoierarekin), jakintzat ematen da Harrietek gehiago dakiela, hitzaren iturri aske bakarra den Larramendik baino gehiago bai, behintzat.

Dena dela, azterketak batez ere *HH*-ko aberastasuna antzematen hasteko parada eman digu, gauzak aurrerantzean bestelakoak izan daitezten. *HH*-ko lehenengo lekukotasunen ugaria neurri handi batean ahozko ekarriari zor zaiola ikusi ahal izan dugu. Larramendik, bestalde, haren hemen erdal hitz askotarako euskal esanahikide bat baino gehiago erdiesteaz gainera, euskal hitz askoren aldaera ezberdinak eskuratu zituen:

aoa, ahoa, auba, aba, aboa / abatz, apatz / aboztu, abuztu / adrailu, adrilu / agaa, agaia / aizpa, aizta / albiste, albiriste / amilka, anbilka / amuarrain, amurrai / andora, andura / antxina, anzina, aunzina / andere, anyere "panpina" / arbazta, arbezta / armiama, armiama / arre, arri "harre" / aspil, aspirea / astiar, astigar / ateri, aterri / aujaz, ausaz / aztia, aztina.

Frogatuta utzi uste dut, azkenik, bizkaiera galdeketapean ipini eta hango berriak ugari bildu zituela, eta iradoki dut abialekua Loiola izan zitekeela, zeinagatik hobekien ezagut zitzakeen hizkerak Gipuzkoako bizkaiera eta haren ingurukoak diren, agian. Ildo beretik, *HH*-an agertzen diren hainbat eta hainbat hitzen etorki zuzena, gaur egun daukaten zein orduan zeukaten

hedadura gorabehera, Loiola ingurua bera —Azpeitia, Azkoitia eta, oro har, Urola bailara, alegia— izan behar dela erakusten saiatu naiz, ez bakarrik logikoena dirudielako, ezpada *HH*-an bertan badirelako hori sinisten laguntzen duten zenbait xehetasun (hitz zein gertakari fonetikoak).

Gainerako gipuzkerari dagokionez, nago Azkuren “G-and” marka guztiak berraztertu behar direla, batetik, eta, nolana ere den, Larramendiren euskaran bertako hizkerak baino Hernanikoak eragin handiagoa izan zuela, bestelako hizkerak ere (baina Beterrikoa Goierrikoa baino hobeto, ziurrenik) ezagutu zituela ahaztu gabe.

Nafarrerari dagokionez, ziurtasunez Oiartzun ingurua ongi xamar ezagutzen zuela dakigu (cf. berriz *sarraski*-z esana, besteak beste), eta beste leku batzuetan ere ostera zenbait egin zitzakeela ez genuke erabat saihestu behar. Iparraldeko hizkeretarako, berriz, lekukotasun idatziez gainera ahozkoen bat datekeela proposatu dut, baina Baionan hiru urtez bizi izan zela baino beste daturik ez dugu iturri hori(ek) nongoa(k) d(ir)en gehiago zehazteko.

HH-ko ahozko ekarria aztertzeak dauzkagun baino lekukotasun hobeak eskatuko lituzke alde guztietatik. Halaz ere, dagoen apurrarekin ere aurrerapen zenbait egin ahal izan ditugu, eta gehiago egin ahalko dira aurrerantzean, baldin eta *HH*-ko berriei orain artean baino begirune gehixeagoz begiratzen bazaie, zalantza bere alde erabiltzeko eskubidea aitortuaz, behinik behin.

ONDORIOAK

Tesi-lan honen helburua hurrengo galderari lehen hurbilketa batean ahalik eta osoenik erantzutea zen: Zein dira *HH*-aren osagaiak? Honelako galdera batek aurrez eskatzen du erantzunak edo erantzunek interesen bat izatea. 1984 arte galdera, beraz, ezinpentsatuzkoa zatekeen, erantzuna jakintzat ematen baitzen: Larramendik euskara hizkuntza basa, landugabe eta txiroa dela ziotenak ixiltzeko egin omen zuenez, gaztelaniazko hitzen aldamenen bururatu zitzaizkion euskal hitzak edota asmatu ahal izan zituenak nahaste jarriaz osatu omen zuen bere hiztegia.

Erantzun hau mendearen hasieran *HH*-ari (eta oro har XVIII-XIX. mendeetako edozeri) begiratzen zitzaion erdeinuaren ondorio nabarmena zen, baina batez ere gerotxoago sortzen hasi zen hizkuntza biziaren kontrako jokabide garbizaleengatik ezinegonaren: saio garbizale guztiak, zahar eta berriak, neurri beraz neurtu ziren, asmo, egin eta ondorenetan berdinak eta batzuk besteen eragile bailiran. Ez zuen erru gutxiago izan, ziurrenik, gai honi dagokionez nagusi zebilen aislazionismoak, euskal lexikografia bere baitan, bere baldintzen barnean bakarrik azaldu beharrez.

Hala eta guztiz ere, istorio honen alderdirik beltzenak ez bide dira *HH* honela balioestera bultza egin zuten aurreiritziak, beren ondorenak baizik; E. O. Wilson (1999: 65) dioenez: “en la medida en que las posiciones filosóficas nos confunden y cierran las puertas a indagaciones posteriores, es probable que sean erróneas”. Izan ere, Ibar eta ibararren erantzunak *HH*-aren azterketari ateak itxi zizkion, ez bertan deus jakingarrik ez zegoelakoan —badakigu Mitxelena aurkakoaz etsita zegoela—, baizik eta ezein metodologia ezagunek inolako etekinik atera ezin ziezaiokeen “labirintu askaezin” bihurtu baitzuen. Egiatan, hortaz, erantzunik gabeko galdera genuen, alferrikakoa.

Galdera egiten bederen hasteko, beraz, erabat ezberdina den *humus* kontzeptual bat sortu behar izan da aurretik. Aldagunea, argi eta garbi, 1745 arteko euskal hiztegitantza zaharra Europako lexikografiaren testuinguruan kokatzean eta hari atxikitako gainerako gaiak (hizkuntz ideien historia, batik bat) kontuan hartzean datza. Ildo honetatik, Larramendiren lana ulertzeko funtsezkoak diren bost oharpen egin ahal izan dira:

1) Larramendiren hiztegia ez da objektu bakartu bat, askoz zabalagoa den egitasmo baten zatia baizik: apologia eta gramatika ere barnean daude, eta egitasmoaren xedea euskara kultur hizkuntza bilakaraztea da, gaztelaniaren parean behinik behin jartzera iritsiaz.

2) Egitasmoa oro har garai historiko jakin batean sortzen da: Europa guztian Errenazimenduaz gero honelako egitasmoak elkarren gainka agertzen dira hizkuntza askotan, zeren eta lehendabizikoz norberaren hizkuntza hizkuntza klasikoak adinakoa dela edo bilaka daitekeela baitzeritzen. Hizkuntza “arrunten” apologiak, lehen gramatikak eta hiztegi elebidunak halako egitasmoen zutabeak izan ohi dira.

3) Hiztegi elebidunen artean, zehatzago, lehen lekuan kultur hizkuntza eta bigarreanean norberaren hizkuntza daramaten hiztegi elebidunak hizkuntza estandarizatzeko eredu ezagunak dira, bai orduan, baita gero ere.

4) Halako hiztegi elebidunetan, ereduari neologismoaren bitartez erantzutea ez da ohikoa bakarrik, baita aterabide bakarra ere: maileguetara edo hitz berrietara jo behar da, edo bietara neurri ezberdinetan. Dagokigun garai hartan, neurrizko garbizaletasun batez mintza daiteke, zeren eta nork bere hizkuntzaren ahalbideetan sinesteak ez baitu nahitaez eskatzen mailegurik ez onartzea, baina bai mailegu eta berezko hitzen arteko halako oreka bat bilatzeko ahaleginak egitea behintzat.

5) Garai hartan morfologia gramatikaren errege da. Gramatikariak miretsi egiten dira beren hizkuntzaren botere sortzailea igarriaz, eta gramatika-hiztegiak, hiztegia gramatikaren luzapena —gramatikaren aurrean gauzatzea— baino ez dela jakintzat emanik, hitz sorbideetan arreta handia jartzen dute, ikasitakoa euren hizkuntzaren aberasgintzan erabiliaz.

Oharpen hauek, gai hauei buruzko bibliografian ongi ezarriak (ik. bereziki III, § 1), tesiari abiapuntua ematen dion lan-hipotesira garamatzate: *HH*-aren osagaiak zein diren eta Larramendik nola eta zertarako erabili zituen jakingarri izateaz gainera, jakin daitekeen zerbait ere badela, alegia.

Alabaina, hiztegi erraldoi honen konplexutasunak hitzez hitzekoa baino hurbilketa orokorragoa eskatzen zuen, eta anitzez teorikoagoa, Larramendiren jokabideari buruzko ikuspegi zabal baten barruan bakarrik uler baitaiteke, tesian zehar frogatzen saiatu naizen bezala, *HH*-ko edukia. Bertako hitzak talde itxitan —zaharrak alde batetik, berriak bestetik— sailkatzea baino zer ikasi handiagoak daude, bai hiztegiaren osakerari, bai Larramendik hizkuntzari buruz zituen ezagutza eta usteei dagokienez. Eta, gainera, hauek kontuan hartu gabe, funtsezko ezaugarriak alde batera uzteko arriskupean baino ezin egin daiteke halako sailkapenik. Honegatik, lehenagoko lanek (batez ere Lakarra 1993) iradokitako hiru sarbideetan barrena abiatu naiz, bakoitzari tesiko atal nagusi bat eskainiaz: ereduarekiko erkaketa egitea, *Erans*-eko iturrien erabilera aztertzea eta hiztegiak edukia filologiaren eta hizkuntzalaritzaren ohiko metodoez mizatzea.

Lanean zehar, han-hemen, honetarako edo hartarako esanguratsu izan daitezkeen hamaika datu agertu dira, baita espero zitezkeen eta batez ere espero ez zitezkeen hamaika arazo ere; hainbatetan hortxe zirela nabarmenarazi eta inoiz azalbidea iradokitzea edo iruzkin txiki bat egitea baino askoz gehiago ezin izan diet eskaini, xehetasunetan sartu gabe. Gaiari aurrera egiteko tesitik kanpora zertxobait landu behar izan ditudanak, Bibliografian “Urgell 2000”

izenarekin jasota daude, aurki burutu ahalko direlako ustean, baina oro har gai asko geroko lanen eske utzi dira. Egin beharreko hautua zen, noski, noraezean ez barreiatzekotan. Tesi guztian zehar interesgune argi zenbaiti atxikitzen saiatu naiz, batez ere atal bakoitzaren ondorioetan. Ondoren datozen lerroetan, beraz, marra nagusi hauetan erdietsitakoa laburbilduko dut, baina, aldi berean, aurrerantzean ikertzaileen arreta mereziko duten zenbait alderdi bederen agerian jartzeari ere beharrezkoa iritzi diot.

1. *HH*-aren lexikografi ezaugarriak

Europako lexikografiaren historiaren alderditik egin dugun hurbilketak erakutsi digu, orainago ikusi bezala, *HH* hizkuntza baten lexikografiaren hastapenetan egin ohi diren urrats jakinen beste adibide bat baino ez dela, zioa haren kultur normalkuntza denean, hain zuzen. Honek zilegi egin du berarekiko oraintsu artean mantendu den jarrera teoriko berezia eta urruntasun praktikoa behin betikoz haustea, zeren eta, honela iritzita, ez baita euskal pitxi zahar bat, metalexikografiaren parametroekin neur daitekeen —neurtu behar den— hiztegi normal bat baizik, ongi ulerturik “hiztegi normalaren” definizioan haren hitz ondarearen tasunak (gaurkotasuna zein “lehenago erakotasuna”, berritasuna zein zahartasuna, asmazaletasuna zein jatortasuna, etab.) ez direla (oraingoz) kontuan hartzen.

Azterketa lexikografikoak hiztegiaren ezagutzari dagokionez zenbait norabidetan nahikoa aurreratzeko bide eman digu. Bere izaeraren hiru alderdiz kezkatu gara bereziki: nolakoa den, norentzat egina den eta nola dagoen egina. Berpasa dezagun, beraz, bakoitzean erdietsi duguna.

1.1. *HH*-aren definizioa

Beste bietara baino lehen, ezinbestekoa genuen lexikografiaren ikuspuntutik itxuran eta antolamenduan zer nolakoa den zehaztea, eta egiazki gaztelaniazko ereduak zer ikuskizunik duen horretan. Galde hauen azpian sartzen diren alderdiak oro neurgarriak dira eta, beraz, geroago erabil daitezke hala *HH*-aren irudizko erabiltzailea, nola haren historia berreraikitzeke.

Oinarrizkoenetik hasirik, *HH*-aren lexikografi definizioan ezin daiteke alde batera utzi hiztegi handia dela, bi zutabetan banatutako 828 foliokoa; gutxi gorabehera, 40.000 sarrera baino gehiago dituzke eta, beharbada, 40.000-50.000 euskal hitz orotara (I, § 1.1). Zalantzarik gabe, XIX. mendearen bigarren zatira arteko euskal hiztegiak handiena dugu. Bidenabar, honek berak, besterik gabe, gezurtatzen du txantxetan —erdaldunak zapuzteko— egindako hiztegia dela; gainerako arrazoi guztiak zerrendatzea, ia-ia ezinezkoa izateaz gainera, nago dagoeneko lan alferra izango litzatekeela. Halaz ere, ez da alferrikakoa izango ondorio hauetako atalak, guztiak batera eta bakoitza berez, beste hainbeste gezurtamen direla gogoratzea.

Nolanahi ere, *HH*-ra deusik ere jakin gabe hurbilduko bagina, bere itxuraz eta antolamenduaz aipatzea mereziko luteketen ezaugarriak honako hauek dira:

1) Hizkuntz hiztegi orokorra da, hots, denetariko hitzak (hitz gramatikalak barne) batu eta erabiltzailearen delako hizkuntza bati buruzko jakinmina ase nahi duena (von Gemmingen 1992: 27).

2) Sasi-hirueleduna, gaztelania-euskara-latina hurrenkeran antolatua; egiatan hiztegi elebiduna dugu, bigarren mailan baino ez dagoen hirugarren hizkuntza bat erantsirik (I, § 9.1). Latinari dagokionez, Mendebaldeko Europako kulturen eta, zehatzago, haren lexikografiaren hasiketan hizkuntza honek izan zuen garrantziaren hondarrak baino ez dira (I, § 1.4).

3) Aurkezpen tipografikoa arkaikoa da, hots, bereizmen gutxikoa (I, § 1.5). Zutabe bakoitzaren gainean eta zutabe barruan, bi letraren konbinazio bakoitzaren hasieran, bi letrako izenburutxoak daude (AB erakoak), baina ez dago inolako hierarkiarik sarrera eta azpisarreraren artean, adieren artean, ez eta esapide, erretra eta enparauen arteko bereizketarik, ezpada osagai ezberdinak frantses lerrokatetan banatuta egoteagatik. Era berean, lerrokada hauen osagaien artean ere ez dago ageriko hierarkia edo bereizkuntzarik: euskal ordainetarako letra etzana eta latin ordainen aurreko “Lat.” laburdura dira bereizgarri bakarrik.

4) Ez osoki alfabetatua, batez ere aurkezpen tipografikoagatik, baina baita hitzak familiak eta familien barruan adieraka biltzeko joera asistemikoagatik eta gaztelaniaren normalkuntza grafiko eskasagatik, besteak beste (I, § 2).

5) Hitzak ez eze, hitzen adiera ezberdinak, esapide-kolokazioak eta, oso bakan bada ere, atsotitzak ere biltzen ditu (I, § 3).

6) Hizkuntza bitik gora hartzen dituzten hiztegiei dagokien bezala, oro har hiztegi itzultzailea da, hau da, gaztelaniazko hitzen euskal eta latin ordainak eskaintzen ditu. Halaz ere, bestelako osagaiak ugari aurki daitezke; lau dira maiztasun gehiago edo gutxiagorekin hiztegi guztian zehar itxaron daitezkeenak: (a) erdal hitza ezaugarritzatzeko eta batez ere adieren artean bereizteko azalpen-zehaztapen sistema trinko bat (I, § 5); (b) euskarari buruzko gramatikazko informazio ugari, gehienetan egile beraren gramatikaren osagarri (I, § 3.3); (c) gaztelaniazko hitzen euskal etimologiak (I, § 3.4.8); (d) delako hitz bat gaztelaniaz zaharra edo zaharkitua delako zehaztapena, gehien bat “antiquado” adierazpidez (I, § 3.4.2).

Ezaugarri hauek guztiak aldez ereduaren ondarea, aldez hiztegiaren erabakien ondorena dira, ereduarekiko erkaketak erakutsi digunez. Egiazki, gorago iradoki legez, garai hartan oso ezaguna izan zen hiztegi mota batekoa dugu: lehenagoko elebidun bati hirugarren hizkuntza bat —euskara, gure kasuan— erantsiaz erdietsitakoa, alegia (Malkiel 1975: 13). Nabaria da honelako bihurteta batek ia beti ondorioak izan behar dituela hiztegiaren alderdi ezberdinetan: *HH*-ak eta *DAut*-ek elkarrekin zerikusi handia badute ere, aldaketak hainbat dira, eta haietako gehienak ez datoz elebiduna hirueledun bihurtzetik bakarrik, baita interesgunea gaztelaniatik euskarara aldatzetik ere.

Gaztelaniazko ereduaren azterketaren garrantzia azpimarratu nahi nuke: Echeniquek (1997: 220 eta 224) salatu bezala, edozein euskal hiztegi dela, orain artean jomuga euskal zatian bakarrik egon da, erdal zatiarekiko zorraz eta bien arteko erlazioez oro har kezkatu (nahi)

gabe, beste hizkuntzetan (lexikografia katalanaz, adibidez, cf. Colon & Soberanas 1986) ikerbide emankorra ez eze, ezinutzizkoa ere badela ikas genezakeen arren. Bidegabea are handiagoa da, hiztegiak ere duela zein den agerrian aitortzen baitu, gainerako euskal hiztegi gehienetan ez bezala.

HH eta *DAut*-en arteko erlazio aberatsak —Urte eta Oudinen arteko erlazio erabat ezberdinak bezalaxe (Lakarra 1995a)— agerian jartzen du euskal hiztegiak honelako oinarritzko azterketa baten beharrean daudela, gertakari esanguratsuak alde batera uzteko eta hiztegiaren izaera bera desitxuratzeko arriskua gainditu nahi bada, behintzat. Esate baterako, nabarmena da Urteren ereduak (edo ereduak) aurkitzeko ahalegina egin beharrekoa dela, “berarekin ihesialdian eramango zuen latin-frantsesezko edo latin-latinezko batetik moldatua” dela (Urkizu 1989: I, 93) aurretiaz jakintzat eman gabe, nik uste, eta ingelesezko erretrauak egoteari (Urkizu, *ib.* 102) garrantzi gehixeago emanez, adibidez.

Halako azterketa bat berez onuragarria izan ohi bada ere, *HH*-aren kasuan areagokoa izan liteke, euskal zatiari berari ekiteko hain herabe ibili garenez gero, eta bi arrazoigatik batik bat: Alde batetik, aski —baita soberan ere, egiatan— azpimarratu da gaztelaniazko ereduak orkoi modura jokatu duela zer nolako euskal hitz (eta zer nolako itxuran, agian) sartuko ziren erabakitzerakoan. Eta, bestetik, ereduaren beraren konplexutasunagatik: hitz zaharkituak, dialektalak, berezituak zein arruntak, lagunartekoak zein gortekoak, garai eta maila guztietakoak jasotzen ditu erruz, definizioaz eta adibideez lagundurik eta, gainera, hala dagokionean, bakoitzaren hamaika adiera ere, ezin konta ahala esapide eta erretrauekin batera: esan gabe doa Larramendik material honetatik guztitik zenbat hartu eta itzultzen saiatu zen jakiteak ikuspegi berri bat eskain diezaigukeela haren lana osoki —bere ilun eta argiuneetan orobat— ulertzeko.

Erkaketak bi alderdi interesgarri eskaintzen ditu hasiera-hasieratik: batetik, Larramendik edukiaren zein formaren aldetik zer nolako gauzak profitatu zituen halako maila garaiko hiztegi batek eskain diezaiokeneetik, bere hiztegia hobe eta osoagoa egin ahal izateko; eta, bestetik, zer alde batera utzi behar edo nahi izan zuen, dela leku arazo hutsengatik, edo dela bere xedeari begira gehiegizko informazioa izateagatik. Bi alderdiok laburbiltzen dituzte ereduaren eta haren euskal ondorengoaren artean dauden berdintasun eta ezberdintasunak.

Tipografi eta alfabetatze ezberdintasunak azpimarratuko ditut lehenik (I, § 9.1.1 eta 9.1.2): *HH*-an egundoko bereizmen galera dago, gaurko erabiltzailearentzat hiztegi erabilgaitz bihurtuaz, zeren eta informazioa —*DAut*-en ez bezala— halako maiztasun batez sakabanatuta eta ordena jakirik gabe ezarrita baitago, nahi den informazioa goraxeago edo beheraxeago —inoiz nekez asma daitekeen lekuan— bilatzera behartuaz: gaztelaniazko hitz bat grafia ezberdinez jasota egon daiteke bitan (*abil* eta *habil*, adib.), edo grafia beraz baina alfabeto hurrenkeraren bi lekutan —zuzenean eta beste batean— kokatuta, euskal ordain berdin zein ezberdinekin. *HH*-an, mota bereko hiztegi askotan bezala, makrosarrera kontzepturik dagoenik

ere ezin daiteke esan: mikrosarrerak —makrosarreraren osagaiak— elkarren arteko ageriko loturarik gabe agertzen dira, gehiago edo gutxiago barreiatuta (Colon & Soberanas 1985: 60).

Baliteke tipografi galera, argitaratzaile donostiarraren arazo teknikoei ez eze, Larramendi bera —baita oro har euskara— alor honetan erabat hasberria izateari zor izatea: honek behar baino garrantzi gutxiago emanarazi bide zion Europako lexikografian gero eta estimu handiagoan zegoen alderdi honi: antzeko hiztegiak, Espainian behintzat, mende eta erdiz lehenago bakarrik (Covarrubias 1611, adibidez) aurkitu ditugu (I, § 1.5.3).

Hiztegiaren alfabetatzeari dagokionez, Larramendiren “bekatua” ez da hain argia, zeren eta, begi aurrean ia erabat alfabetizatutako eredu bat izan arren, hau ez baita garai hartan hain erraz aurki zitekeen eta orain beste balioesten zen zerbait (I, § 2). Oharkabeko jauzi gutxi zenbait alde batera utzita, *DAut*-ek jakinaren gainean bi salbuespen baino ez ditu egiten hurrenkeran: partizipioak eta aditz-adjektiboak infinitiboaren ostean agertzen dira beti, honen adiera guztiak haietan errepikatu beharra saihesteko asmoz. Haatik, alfabeto hurrenkeraren nagusitasuna (ia beharrezkotasuna) beranduago baizik ez zen iritsiko: orduan orain baino indar gehiagoz ordena etimologikoa harekin norgehiagokan zebilen (Akademia Frantsesaren lehentxeagoko hiztegia gogoratzea baino ez dugu) eta, nolana ere, hiztegi gutxitan idorotzen da *DAut*-en ordena zorrotza. Larramendiren hiztegia gorabehera hauen erakusgarri ona dugu: izan ere, ereduaren hurrenkera oro har errespetatzen badu ere, harekiko desbideratzeak ugari bezain nabariak dira, arreta gutxiago baina baita bestelako asmo zenbait aditzera emanez.

Alfabeto hurrenkeraren aurkako desbideratze gehienak lehendabiziko orrialdeetan (A letran, baina honetan bertan gainbehera doazela) aurkitzen dira, hasiera batean hurrenkera etimologikoa bilatzen aritu zela agerriki erakutsiaz. Halako joera ahul bat hiztegi guztian zehar antzeman daiteke, nahiz eta oro har alfabetoaren arabera antolatutako hiztegia dela esan behar. Ordena etimologikoaren aldeko aldaketek bi ezaugarri nagusi dituzte *HH*-an: lehena, eratorriak aditzaren inguruan batzeko joera, jadanik *DAut*-en somatutakoa zeharo indartuaz; bigarrena, eta ziurrenik hiztegiaren makroegitura gehien eragin zuena, familien barruan hitzak adieraka antolatzeko joera, guztiz infinitibo-partizipio bikoteetan.

Bigarren desbideratze mota indartsua grafiari zor zaio. Sarritan Larramendi ez dator bat Akademiak aldeztu eta erabili zuen grafi sistema neurri bateraino berri eta batez ere aski trinkoarekin. Honen kariaz, hitzak letraldatu baina lehengo lekutik mugitu gabe, letraldatu eta mugituta baina okerreko lekuan sartuta eta mugituta baina grafia aldatu gabe idorotzen dira batzuetan.

Edukiaren aldetiko ezberdintasunak (I, § 3) interesgarriagoak dira guretzat, zeren eta eskuarki adierazgarriago baitira Larramendik egin nahi izan zuen hiztegiak, bertan garrantzi gehien daukan hizkuntzaz eta, azken buruan, zuzendu nahi izan zitzaion irakurle motaz. Eta edukian aurkitzen dugu, aurkitu ere, bigarren ezberdintasun nagusia: latinaren egoera testimoniale oraingoz alde batera utzita, *DAut* hiztegi elebakarra da, gaztelaniazko lema gaztelaniazko azalpenez (batzuetan oso luzeak, entziklopedi motakoak) eta gaztelaniazko literatur adibideez hornituta eskaintzen dituena; honetaz gainera, hitzaren kategoria gramatikala

eta etimologia eman ohi du, baita, hala dagokionean, haren dialekto hedadura, zahartasun edo berritasuna, erabilera maila, etab. Informazio honetatik guztitik, gaztelaniazko nomenklaturaz at, ezer gutxi geratzen da *HH*-an, lemaren esanahiari buruzko azalpen laburrak eta noizbehinka baizik aurkitzen ez diren bestelako xehetasun zenbaitez besterik. Eta gaztelaniari dagokionez erantsi, euskal etimologiak bakarrik erantsi zituen. Bistan da gaztelaniazko hitzak bere burua aurkezteko behar zituzkeen gutxieneko datuak bilduta gainerakoa uxatu zuela, euskarari lekua egiteko: izan ere, eransketa gehienak euskarari dagokion gramatikazko informazioa (hitzen erabilera, aditzen jokia, trinkoen paradigmak, etab.) eta batzuetan semantikoa ere eskaintzeko eginak dira.

Beraz, gaztelaniak, iturri-hizkuntza eta hiztegiko metahizkuntza gisa, nagusitasuna duela dirudien arren, egiatan hiztegian garrantzi gehien daukan hizkuntza euskara da, bai hitzaurre osoaren, baita hiztegi barruko azalpen gehienaren xedea baita. Naturaltasun osoz Euskal Herriko Adiskideen Elkartearen Batzar Nagusiaren agirietan (1773) jasota dagoen Campomanesen euskal hiztegi egitasmoaz egindako laburpenak dioenez (ap. Echenique 1997: 184, 4. oh.), “un Diccionario *de/* Bascuence *en* castellano” dugu *HH* (etzanak nireak dira), eta ez besterik.

Eduki orokorraz orain artean esandakoa nomenklaturan eta sarrera barruko atal nagusietan (adierak, esapideak eta errefracuetan) gertatutako bilakaeraz osatu behar da (I, § 4). Larramendik *DAut*-en hitz guztiak (germaniakoak salbu) hartu eta baten batzuk erantsi ere egin dituela aldarrikatzen du hitzaurrean, zaharkitutako hitzen bat edo beste itzuri bide zaiola aitortuz bada ere. Egiatan inausketa handixeagoa izan da (%25, gutxi gorabehera), germaniako gehienak eta zaharkitutako zenbaitez gainera bestelako hitzik ere kentzen jakin zuelako: talderik kaltetuenak partizipioak, hitz eratorriak (guztiz txikigarriak eta superlatiboak) eta ezohiko hitzak (batez ere gutxi erabilitakotzat edo dialektaltzat *DAut*-ek markatutakoak). Inausketak informazio gehiegi galdu gabe lekua aurrezteko bidea eman zion, inondik ere, eta sarrienik euskaraz sor zitezkeen erredundantziak saihesteko egin dirudi; gogora dezagun 1) euskaraz gaztelaniazko infinitiboa eta partizipioa, biak partizipioaz ordezkaturak agertzen direla; 2) gaztelaniak hainbat txikigarri (*-ito*, *-ico*, *-illo*...) esanahi bereko edo beretsuko dituen bitartean, *HH*-ko euskaraz *-txo* atzizkiak ordezkaturak direla ia beti; eta 3) gazt. *-isimo* superlatibo atzizkia euskaraz maila-adberbioen bidez baizik ezin adieraz daitekeela. Ezohiko hitzei dagokienez, bistan da gaztelaniak berak gutxi edo batere behar ez dituen hitzak itzultzea hein handi batean alferrikako lana izan zitekeela.

Inausketa lan handiena bestetik dator: izan ere, ereduko adiera franko (%50 g.g.b.), esapide asko (%85 g.g.b.) eta errefracu gehienak (%95 g.g.b.) *HH*-tik kanpo geratu dira. Adierez den bezainbatean, oso hitz gutxi gordetzen dute ereduko adiera kopuru berbera: oro har, adiera nagusia bakarrik gorde ohi du eta bakanketa, ia beti, euskaraz behin eta berriz ordain berberak eman beharrak ezerk baino hobeki azaltzen bide du. Dena dela, lemak ezabatzeko antzeman ditugun arrazoi berek (adierak zaharkitua, hedadura gutxikoa, germaniakoa zein gutxi

erabilia izatea) eragina izan dute hemen ere, nahiz eta beharbada eraginkorrena adiera figuratua izatea den.

Esapide eta errefracuetan, azkenik, Larramendik artaziak inolako begiramenik gabe erabili ditu: antza denez, gaztelaniazko esapideak euskaraz baliagarriak izan zitezkeen neurrian baizik ez ditu jaso, eta errefracuak euskal ordain egokia ezagutzeak edo gaztelaniazkoa itzultzeko gogoak eraginda baino ez.

Nomenklatura gehiegi desitxuratu gabe hiztegia laburtzeko Larramendik aurkitu zuen beste bide bat hainbat eta hainbat sarrera bidalketa-dei huts bihurtzea izan zen: honela, lemak badirau ere, euskal eta latinezko ordainak emateko (eta, bistan denez, errepikatzeko) beharra saihestu ahal izan zuen. Normalean *DAut*-ek berak (dela definizioan edo dela batzuetan eransten dituen “véase”etan) eskainitako esanahikideez baliatzen da bidalketa-deia antolatzeko, eta halako informazioa egitea izan bide da bidalketa-dei gehien eragilea, nahiz eta hitza zaharkitua edo gutxi erabilia izateak, berriro ere, zerikusiren bat izan duen.

Kenketa-laburketa lan honetaz guztiaz gainera, hiztegi-biltzaileak aipatutako eransketak zein eta zenbaterainokoak diren ikertzea genuen. Lema berriez den bezainbatean, egia esan gehienak interes lexikografiko gutxikoak dira (aldaera ortografikoak batik bat), baina oso nabarmena da A letran eransketak garrantzi handia izan duela, hitz berriak ez eze familia berriak ere eransterainokoa.

Eransketa indar gehiagoz aritu da adiera eta esapide mailan, esanguratsuki kenketa lana ere handiagoa izan den guneetan. Oro har beti ere A letran joera handiagoz bada ere, esan daiteke hiztegi guztian zehar euskal gertakariak hobeto azaltzeko behar zuen adina adiera eta, batez ere, esapide berri erantsi zituela, euskaraz ezer berezirik eransteko ez zegoenean behar adina ezabatu zituen bezalaxe. Esate baterako, *DAut*-en adiera konplexuak banatu egin ditu batzuetan, euskal ordain ezberdinak eskatzen zituztenean, alegia; eta bertako azalpen zein adibideetan somatutako esapideak, euskaraz nola esaten diren argitzeko esapide bereziak antolatu ditu. Oro har, esapideetan euskaraz lexema konplexuen (eskuarki eratorrien) bidez adierazten diren hainbat gauza jaso ditu (hala nola gazt. ‘*hacerse* + izenondoa’ = eusk. ‘izenondoa + *-tu*’, gazt. ‘*de* + izena’ = eusk. ‘izena + *-zko*’, ‘talde/multzoa’ edota ‘langilea’ zein ‘lanbidea’ adieradunak), baita gaztelaniazko hitzaren esanahi orokorra mugatzen duten euskal hitzak, etab.

Euskara gehiago, beraz, gaztelania gutxiagoren truk.

1.2. *HH*-aren erabiltzailegaiak

Ibarren teoriaren (1935: 121) eta Mitxelenak (1960: 907) hartaz egin zuen garapenaren abiapuntua *HH*-ko hizkuntzen hurrenkeran —gaztelania-euskara izatean— datza. Hurrenkeria hau hiztegia erdaldunei zuzenduta dagoelako seinale nabarmentzat hartzen da, euskara edozein hizkuntza bezain aberatsa dela uler dezaten, iruzur eginez bada ere. Halaber, *HH*-ari buruzko ikuspuntu berriaren abiapuntua (Mitxelena 1983a, 1983b, 1984, Lakarra 1985a...)

hizkuntzen hurrenkera da, baina hain justu alderantzizkoa aldezteko: euskaldunei zuzendutako hiztegia da, hobeto itzul dezaten pentsatutako tresna. Ez da hau, beraz, erraz alde batera utz daitekeen gaia *HH*-ari dagokionez.

Hasiera batean, ibartarrak baieztapen oker batetik abiatzen dira: ezaguna da, eta gaurko metalexikografiak gero eta balioetsiagoa, hiztegiaren norabideak ez duela nahitaez bere nolakoa baldintzatzen; aitzitik, hiztegiak zer nolako erabiltzaileak —zer nolako hiztunak— buruan dituen eta horren arabera egingo du hiztegia, hurrenkera gorabehera (cf. Harrell 1975). Halaz ere, honek ez du lobarren teoria berez gezurtatzen, zeren eta ñabardura gehiago izateaz gainera, egundoko eragina izan baitu euskal ikerketen arloan. Honegatik batez ere merezi izan du tesian arlo honi arreta jartzea.

Erabiltzailegai euskaldunaren alde eman izan diren lehen argudioak, eskuarki kanpoko argudioak izan dira, euskararen eta euskal lexikografiaren historiarekin (Mitxelena 1983 eta 1984, Lakarra 1995a eta 1993, Sarasola 1986, etab.) edo oro har lexikografiaren historiarekin (Lakarra 1993 bereziki) lotuak, logika hutsari dagozkionak ahaztu gabe. Tesian (I, § 1.4), azken urteotan pilatu diren honelako argudio teorikoak biltzen eta iruzkintzen, baita ahaleginean osatzen ere saiatu naiz eta, gaurko metalexikografia elebidunaren irakatsietan oinarri harturik, barruko argudio zenbait ere erantsi ahal izan ditut (I, § 9.2).

Kanpoko argudioen artean garrantzizkoenak, Europako hiztegi gintzaren jaiotza eta bilakaerari dagozkionak dira. Europako hiztegi gintza goiztiar guztiak 'latina-bertako hizkuntza' ereduko hiztegi elebidunekin abian jarri ziren eta, latinaren gizarte eta kultur mailako gainbeherarekin bateratsu eredu honetatik pixkanaka aldentzen hasi ziren neurrian, hizkuntza batzuen hiztegi gintzak eragin zuzena izan zuen gainerakoek hastapen eta garapenean, eskuarki eredu elebidunari eutsiaz (nahiz gero eta sarriago latina alde batera edo, gutxienez, zokoan utzita). Elebitasunak garai honetan guztian zehar lexikografian hartu zuen garrantzia erabat logikoa da, lehendabizi latinari eta gero gerokoei aitortzen zitzaieen nolabaiteko (Europa guztiko zein norberaren alderdiko) kultur nagusitasuna dela kausa: kasurik arinenetan, hiztegi hobeak ateratzeak eragina izan zezakeen tankera bereko hiztegiak egiteko asmoa zeukaten egileetan; larrienenetan, zerotik hasi beharrekoetan, latinaren edo kasuan kasuko hizkuntzaren bitartez bakarrik erdiesten ari zen kultura ulertu edota itzultzeko premiak berak eskatzen zuen hiztegiak lehen eta nagusiki elebidunak (gutxienez) izan zitezela.

Lexikografiarik aurreratuenei ere, dena dela, kosta egin zitzaieen eredu elebidunetik alde egitea: adibide ona dugu *DAut*, itxuraz elebiduna baina funtzionalki elebakarra, buru-hitzak, definizioak eta metahizkuntza, dena gaztelaniaz baitago. Testuinguru honetan, beraz, hizkuntz hiztegi orokorrak elebidunak izaten dira, lehen hiztegi osoki elebakarrak bereziak izaten diren bitartean, hitz zailak argitzeko (oro har zalantzak konpontzeko) pentsatutakoak.

Euskal Lexikografiaren kasua alde honetatik erabat arrunta da: XVIII. mendera arteko hiztegi guztiak gutxienez elebidunak dira, dela latina edo dela aldameneko bi hizkuntza indartsuetatik edozein euskararen lagun datozelarik. Hiztegia biltzerakoan Larramendiren asmoa agerikoa da, gainera, berak luzez azaldua (1745: xliii): gaztelaniaz bakarrik iritsi

daitekeen kultura euskara itzultzeko (eta, hortaz, euskaraz beraz ekoiztu ahal izateko) lanabesa eskaintzea. Asmo honekin egindako hiztegia, ezinbestean gaztelania-euskara ordenan antolatu behar, gaztelaniaz idatzitako liburuak eta jasotako ezagutzak euskaratzeko bide bakarra baita: gaztelaniak bitarteko papera hartzen du, (Hegoaldeko) euskaldunak, letradunak izatekotan, gaztelaniaz bakarrik baitziren letradunak eta, honegatik, erabiltzen zuten kultur hizkuntza gaztelania baitzen eta itzul zezaketen kultura nagusiki gaztelaniaz baitzegoen.

DAut bezalako eredu bat hautatzeak —ikusi ditugun kanpoko adibideetan bezalaxe— inplikitzen du, ez bakarrik Larramendik gaztelaniazko kultur lexiko *guztia* itzuli, baita euskaldunen eskumenean hizkuntz hiztegi orokor bat jarri nahi izatea ere; gogora dezagun hitz fakultatiboak peitzeaz gainera, euskaran Larramendiren ustetan hitz arruntak euskalkietan barreiatuta zeudela, ahaztutako berezko hitzen ordez mailegu behargabekoei sarbidea irekiaz.

Gogoeta hauen ondorioa hauxe da: hiztegiak bere irakurlegaiengan ikusi uste dituen baldintzak eta beharrak, baita hauei nola erantzun nahi dien, hauek erabakitzen dute hiztegiaren hurrenkera eta, are garrantzitsuago, baita hiztegi barruan jasoko dituen informazio motak ere.

Ikasi dugu, azkenik, gerora erabilera gutxi edo batere izango ez zuten hitzak hiztegietan jasotzea lexikografiaren historian guganaino iritsi den joera iraunkorra dela. Hiztegiak hitzen erabilera, erabiltzaileen egiazko beharren edota erabiltzeko egiazko aukeraren menpe dago. Eta, Larramendiri gertatu zitzaion bezala, batzuk eta besteak hiztegiak itxaron baino askoz laburragoak izan daitezke.

Honegatik, *HH* bezalako hiztegi sortaile bati buruz mintzatzerakoan, hedatzea lortu zituen hitzen kopuruaren arabera neurtu beharrean, komenigarriago izan daiteke, lehenik eta behin, bere baitan neurtzea, bere lanaren arabera. Hiztegiaren deskribaketa eta ereduarekiko erkaketa bukatu ondoren, beraz, hiztegi barruko argudio zenbait erantsi ahal izan ditugu (I, § 9.2). Argudio hauek ezagutzera ematen dute ez bakarrik are indar gehiagoz euskara dela hiztegiak hizkuntzarik garrantzizkoena, baita erabiltzaile bilatua euskalduna dela ere; baina ez edozein euskaldun, esan bezala, gaztelaniaz letraduna zena baizik.

Lehenik *DAut*-eko edukiaren hautaketari errepara dakioko: inolako dudarik gabe, hiztun neutro —dialektalismoak gabeko— eta jaso —baino ez jasoei— baten argazkia erdiesten dugu. Esan gabe doa hau ongi datorrela orduko euskaldun letradunen batz bestekoarekin.

Argudiorik begibistakoena, dena dela, euskaraz bakarrik ematen diren azalpenak dira, euskara ikasi nahi lukeen irakurlearentzat alferrikakoak, baina oso interesgarriak gaztelaniazko hitz zail batzuen esangura ezagutu nahi lukeen euskaldunarentzat.

Hala eta guztiz ere, Larramendiren ustezko asmoaren aurkako argudiorik indartsuena, bi hizkuntzen artean somatu zituen asimetriak euskararen alde itzultzeko egin zituen ahaleginak dira: mikrosarrerak (adierak, esapideak, etab.) erantsi edo kendu egin zituen sarritan euskararen semantikak, morfologiak eta are sintaxiak halaxe eskatzen zutenean eta ez gutxitan latina bere alde erabili zuen, gaztelaniarekiko erkaketa zuzena gaindituaz.

Honek guztiak bermatzen du *HH* dela “literatur hizkuntza sortzaile” izan nahi lukeen hiztegi bat (Zgusta 1989: 71). Ez du besterik adierazten, gainera, Larramendik euskal literaturari eta euskararen kultur hizkuntza gisako bilakabideari handik aurrera egin zion jarraipena, agertu berriak (*RS*, Harriet) hiztegian barneratzen hasita hil arte, bai pasarte esplizitueta (cf. *Autobiografía* 28-29, sermolariei buruz, eta *Corografía* 295-302, euskalki ezberdinetako erakuskariak emanez), baita inplizituan ere: bere bibliotekako euskal libururik berriena Peñaflores 1764 dugu.

1.3. *HH*-aren historia

Egilearen beraren esanetan eta hiztegiak eskaintzen dituen datuetan oinarrituta, *HH*-aren historia ere —kanpoko eta barneko historia— berreraiki ahal izan dugu. Esan gabe doa bi gai hauek oso garrantzizkoak direla hala Larramendiren asmoak, nola gauzatuaz joan ziren modua ulertzerakoan. Beraz, *HH*-aren osagaietarantz hurbiltzen gara, Larramendik noiz-nola eskuratu zituen, nola erabili zituen eta hiztegian non kokatu zituen ezagutuaz. Lan hau I. atalaren ondorioetan hasi dugu (§ 9.3), baina hari buruz erne egon izan gara tesi guztian zehar, datu berriak aurkitu ahala erantsi eta lehengo bertsioa osatu eta borobildu nahian.

Kanpoko historiari dagokionez, badakigu hiztegia izan zela Larramendiren lehen asmoa, eta ziurrenik bere hasikinak *De la Antigüedad...*en argitaratu zuen etimologia zerrenda izan zirela, Oihenarten ereduari hertsiki jarraiki. Lehengo asmo hura alde batera utzi eta euskara ikasteari ekin zion, baita euskarari buruz eskuetara zuen guztia irakurtzeari ere. Tarteko lan honen begibistako etekinak bi izan ziren: alde batetik, gramatika, *Imposible Vencido* (1729), non islatu baitzuen euskarari buruzko azterketaren fruitua, hitz eraketari buruzko ia guztia hiztegirako utziaz bada ere. Eta, bestetik, euskararen etorki eta izaerari buruzko teoria, *De la Antigüedad...*en (1728) lehendabizikoz garatua, nahiz ordurako oso ondo mugatua, eta hiztegi egitasmoaren oinarrian dagoena: hiztegia zerez osatuko zen eta oro har euskara nola aberastuko zuen, alegia (III, § 1).

Artean eta hiztegia amaitutzat eman arte (1743, ziur aski), Larramendi euskal liburuak biltzen eta euskaldunei galdeketak egiten aritu zen. Baionako egotaldia (1730-1733) bereziki emankorra izan bide zen, ia Iparraldeko literatura guztia (zubererazkoa izan ezik) ezagutzeko eta, ezpairik gabe, eskualde hartako euskara ahoz ikasteko aukera eman baitzion. Baliteke urte hauetan A letraren zati on bat idatzi izana, gainerakotik hain ezberdina baita.

Loiolara iristeak (1734) ondorio garrantzitsuak izan bide zituen hiztegiaren idazketan. Alde batetik, idazketa jarraia egiteko bide aurkitu zukeen, sarreren uniformitate handiagoan eta oro har egitasmoa errazago —batez ere *DAut*-en ereduari atxikiago lan eginez— burutzeko moduan berregiterakoan islatzen den bezala. Bestetik, ahozko galdeketak egiteko —baita berregiteko ere— aukera handiagoa izan zuen, lehenengoz ingurune erabat euskaldunean murgiltzen baitzen; honek berekin dakar, dudarik gabe, hiztegian ahozko material gehiago sartu ahal izatea, baita material hori hizkeren aldetik ñabarragoa izatea ere. Ziurrenik, etorki honetako

hitzak nagusiki Loiolaldeko hizkeretakoak (G-azp, baita agian B-gip ere gutxienez) dira, begibistan diren arrazoiengatik.

Hitzaurrea 1742an idatzi zuenez gero, gehixeago zehatz daiteke, ordurako hiztegia oro har egindakotzat jo zuela eginik; honek esan nahiko luke *Erans*-eko iturriak 1742-1743 tartean agertuaz joan zirela, lehenik Harriet (1741ean argitaratua), oraindik hiztegian sartzeko ahalegina egin baitzuen, eta gero gerokoak, pilatu ahala eransketaren zaila eta *Erans* egin beharra nabarmenagoa eginez.

Barneko historiari dagokionez, berriz, bi norabidetan aurrera egin ahal izan dugu: 1) *HH*-an bi hiztegi eredu (A letra eta gainerakoa) lotuta daudela agerian jarri dugu. Egiantan ezerk ez du adierazten etena non dagoen; aitzitik, ezaugarri multzo batek A letran zehar daukan pixkanakako bilakabidean igartzen da eta, ziurrenik, ezer baino gehiago, denboran zehar hiztegi-gilearen irizpideak aldatuaz joan zirela adierazten du, gogoko hiztegi eredu (Btik aurrerakoa) erdietsi arte. Eta 2) Larramendiren lan egiteko forma berreraiki dugu, hein batean bederen, bai xehetasun materialetan, baita denboraren aldetik ere.

HH-aren barruan “bi hiztegi” ezberdin egotea funtsatzeko, ezpairik gabe pentsatu behar dugu Larramendi, une batez, hartutako bideari jarraituz gero, hiztegia inoiz ere bukatuko ez zuela ohartu zela. A letraren hasieran, Larramendi oso urruti dabil gaztelaniazko eredutik, hitz bat aukeratu eta jarraian bururatutako guztia bilduaz, gaztelaniazko eratorri samalda barne; euskal zatia izan litezkeen ordain guztiez osatuta dago, hau da, erro guztien atzizki guztiekiko konbinazioez. Exhaustibitate honen alde lan egiten dute, halaber, adibideen eransketa sistematikoak eta bururazten zaizkion iruzkin guztien eransketek ere. Badirudi, beraz, honela jarraitzera hiztegi interesgarriago bat izango zela —batez ere guretzat—, baina egilearen beraren begietan egingaitza, inondik ere. Ezin esan gabe utzi honek daukan garrantzia, hitza A letran egon edo bestean egon eta honen arabera gauzak zeharo ezberdinak izan daitezkeela jakiteko.

Osagaien sar-ordenaren berreraiketa ere egin ahal izan dugu, nahiz behin-behinekoa eta aurrerantzean osatu beharrekoa izan. Badirudi Larramendik (B letratik aurrera ari naiz) lehen zirriborro bat —*HH*-aren eskuizkribu bakarra, nik uste— egin zuela *DAut*-eko buru-hitza eta iturri honetatik edo honen inguruan aipagarri edo erabilgarri iruditu zitzaion guztia sartuaz: gaztelaniazko azalpen-zehaztapenak, latinezko ordainak, euskal etimologiak eta, sarritan, bat-batean burura zetozkion euskal hitzak ere.

Lehen idazketa honetan bi etorkiko euskal hitzak bildu bide zituen: berak menperatzen zuen euskarak eskaintzen zizkionak eta bertatik asmatu zituen hitz berriak. Larramendik menperatzen zuen euskaraz hitz egiterakoan, lehenik eta behin bere ama-hizkeran ohikoak ziren hitzak (gogora dezagun: Hernani, ez nahitaez Andoain; III, § 12) aintzat hartu beharrekoak dira, baina erantsi behar zaie urteetan ikasi zuen guztia, asko dudarik gabe, belarria erne inguratzen zen edozein herritan edo aldera zetorkion edozein euskalduni adi. Hitz berrien alderdia, aurrenekoan eta baliabideen ezagutza sendo batean oinarritua, estratu honetan erraz

hautematen da, zeren eta *DAut*-eko informaziotik zuzenean baitator: mailegu berriak, gaztelaniazko hitzen kalkoak eta definizio, adibide zein etimologietan oinarritutako hitz berriak.

Pentsatu behar dugu oinarritzko hiztegi hau idazteko nahitaez *DAut*-en liburuak guztiek argitaratuaz joan behar izan zutela (1739 arte) eta, beraz, hiztegia nagusiki honela idatzi zela, *DAut*-en argitalpenari jarraiki, hasi eta buka. Alabaina, urteak igaro ahala hezurdura honi hainbat eranskin egiteko parada izan zuen, literaturatik eta galdeketatik erdietsitakoa batik bat. Gogora dezagun ziurrenik liburu bakoitzeko zerrenda bat osatu zukeela (II, § 3.6), iturri batetik erdietsitako hitz guztiak bertan jasoaz. Beste horrenbeste egin dezakegu galdeketei buruz, noski, zeren bai baterako, bai besterako koaderno bat, edo orri aske zenbait, erabilgarriagoak baitira inondik ere, hiztegiaren eskuizkribua bera baino. Edonola ere, badirudi euskal liburuak direla, eskuarki, hiztegiak erregularri izan zituen azken eransketen iturriak (III, § 9.2.8.3), baina gogora dezagun alde honetatik ahozko iturriei ez diegula oraingoz etekin handirik atera.

Hurrenkera kronologiko honi pareko garrantzia daukan hurrenkera logiko bat gainjartzen zaio, Harrieten hiztegitik hartu zituen hitzen laguntzaz egiaztatu ahal izan dugunez (III, § 10.3.1.10): ordain bakunak perifrastikoak baino lehenago agertu ohi dira sarreran, familia berekoak (aldaerak...) elkarrekin joan ohi dira, baita eratorbide berekoak ere, eta maileguak bukaeran uzteko joera dago.

Hiztegiaren ontze prozesua ulertzeko, ordainen ezker-eskuineko banaketa bezain garrantzizkoa da goitik beherakoa, hitz familian zeharkakoa. Oro har, familia bereko hitzak elkarrekin estuki lotuta daude (I, § 8.3). Sistemarik ohikoena —baita ezagunena ere— oinarritzko ordainak bilduta dauden sarrera batetik abiatzea da, gainerako sarreretan haien elkartuak eta batez ere eratorriak eskainiaz; baina ezin ahantz daiteke, halaber, iturrian bakartuta dagoen hitz elkartu edo eratorri batetik erroa erauzi eta eratorri berriak ere egiten bazekiela (III, § 9.2.8.2). Eratorpena, erregularra izateaz gainera, exhaustiboa da A letran, jadanik esan dudanez, baina hiztegian aurrera ahala selektiboa izaten da, kasurik aberatsenetan erroen eta atzizkien artean egin litezkeen konbinazioetako batzuk bakarrik eskainiaz. Beharrak hartarata, irakurle zuzenaren baitan utzi bide zuen litezkeen bestelako konbinazioak nahi izanez gero gauzatzea.

Erregularitasun hau familiakide urrunetara iristen da (gaztelaniazko aurrizkidun hitzetara, adibidez), baina batzuetan adostasunik eza somatu dugu I. liburukian geroago agertzekoak ziren familiei buruz (III, § 4.3). Honek berresten digu idazketa nagusiki lineala izan zela, hasi eta buka, atzera begiratu gabe egindakoa; eta ziurrenik idaztaldi bakarra —eskuizkribu bakarra— egon zela, inprentara joan zena, alegia. Azken honek azal ditzake *HH*-ko hainbat desordena, hala nola bata bestearen ondoko zein bata bestetik urrun kokatutako sarrera errepikatuak, hiztegiak zuzentzeko eta batzeko lanari uko egin izan bazion bezala, edota argitaratzaileak eransketa batzuen txertalekua ongi ezagutzeko arazoak izan bazituen bezala (I, § 4.5). Oro har, hainbat datuk erakusten digute azkar —amaitu beharrez— aritu zela Larramendi.

Familiakideen ordainen artean egon ohi den bana-banako erlazioa hautsi egiten da batzuetan, eta ordain bat edo batzuk bakartuta agertzen dira, eskuarki (gorago aipatu ditugun hertsapen logikoak tartean ez izatera) sarrera bukaeran. Honelako hitz asko Harrietenak izateak (III, § 10.3.1.10) —*HH*-aren azken iturri ezagunekoak, alegia— bide ematen digu berandu iritsitako datuetan pentsatzeko eta, zehazkiago, bere harako esan hartan: “No salgo vez a estas cercanías que no vuelva con muchas voces que añadir al Diccionario” (1745: xlv). Honegatik, baliteke, Harrietenak ez direnean, ahozko galdeketatik datozen hitzak izatea, hots, *Erans* hasi aurretik *HH*-an bertan barneratu ahal izan zituen etorki honetako azken hitzak, *Erans*-ean ere etorki bereko hainbat hitz daude eta (II, § 2.4).

Laburbilduz, dagoeneko *HH*-an aiseago murgiltzeko moduko mapa bat eratu dugu, nahiz oraindik arlo honetan zeregin handia egon. Ezarrita geratu da, gainera, *HH*-ko sarrera bat osoki —edozein alderditan eta edozein hizkuntzatan— ulertzeko komenigarria ez eze, beharrezkoa ere dela *DAut*-en kidekoa kontuan hartzea.

2. *Erans* eta *HH*-aren arteko erlazioa

Erans-aren azterketa beste zentzu batean oinarrizko suertatu da, *HH*-aren osagaien benetako erabileratik hurbilago dagoen zentzu batean, *DAut*-en ekarpen garrantzitsua alde batera utzita. Honetarako jakintzat eman beharra zegoen *Erans* ez dela *HH*-aren eranskina baizik eta, beraz, Larramendik berdin tratatu zituela bateko eta besteko iturriak. Ustekabeko bermea, zeharkakoa, erdietsi dugu inoren euskal aipuak Larramendik nola letraldatzen zituen aztertzean (III, § 9.1), zeren eta hemen ere, jakinaren gainean batzuetan, oharkabean bestetan, beharbada, grafi aldaketak, zuzenketak, aldaera aldaketak, Hegoalderatzeren bat, etab. egiten baititu.

Lehenik, frogatu ahal izan dugu *Erans* egiatan ez dela *HH*-aren zatirik interesgarriena, Larramendik *HH*-an gauzatu zuen lan erraldoiaren isla hits bat baizik. Hasteko, *RS*-ren azken orduko lorpena salbu, *Erans*-aren iturriak jadanik *HH*-an, zatika bada ere, ustiatutako iturriak dira denak: ezagunena Harriet dugu, zati bat batean eta bestea bestean sartu baitzuen, baina hala etengabeko ahozko iturria, nola Axular eta Landucci bietan jasota daude, azken biak nabarmenki bigarren hustualdian lehen itzuritako hitzak —ulergaitzak, oharkabean igarotakoak— berreskuratzearen erantsiak (III, §§ 9.2.4.2 eta 10.2). Bestalde, *Erans*-aren iturriak ez dira ezer *HH*-an erabilitakoen aldean: gutxienez hamabost euskal liburu, hiru hiztegi eta hainbat erdal liburu (Oihenart, Etxabe, Isasti...), gehi ahozko galdeketa askoz ugari eta ñabarragoak. Eta, azkenik, gogora dezagun *Erans*-aren iturriak, garrantzizkoak izan arren, ezin izan zituela ustiatu azaletik baizik, sinonimiara eta eratorpenera jotzeko ia aukerarik gabe.

Edonola ere, *Erans*-ak begiak ireki dizkigu Larramendik iturriekiko izan zuen jokabidearen alderdi anitzi buruz: gorago aipatutako aldaketez gainera, iturrietako hitzak ongi irakurtzeko, hiztegiak eskatzen duen forma neutroan jartzeko eta haien esanahia asmatzeko izan zituen laguntzak eta oztopoak xeheki ikuskatu ahal izan ditugu lehendik hain ongi

ezagutzen genuen corpus txiki honetan, azterketa ez hitzei eurei zuzenduaz, hiztegiaren jokabideari baizik (II, § 1). Iturri ezaguneko hitzetan hauteman ahal izan ditugun joerek, iturri zalantzazko edo ezezagunekoei buruz lehen baino hipotesi zehatzagoak egiten lagundu digute (II, § 2) eta, azken buruan, *HH*-aren azterketarako oinarri sendoak eskaini.

Zalantzarik gabe lorpenik garrantzikoena, *Erans*-ean funtsean hitz berririk ez dagoelako aurreiritzia gezurtatu ahal izatea izan da (II § 3.3). Nahiz eta, oraintsu esan bezala, *HH*-an baino neurri laburragoan —beta arrazoi nabarmenengatik—, eratorpena eta atzeranzko eratorpena (Larramendirekiko erabili behar den adiera zabalean: hots, hitza atzizkiez biluztea, zuzen zein oker) antzeman ditugu, baita atzizki bat identifikatu (uste) izana inplikutzen duten hitz ulerpen edo irakurketak egiteko joera handia ere. Aurkikuntza hauek berresten dute *HH*-ko hitzberrigintza euskal hitzen jakinaren gaineko berranalisian oinarritzen dela, eta prestatzen gaituzte *HH*-an aurkituko dugunerako.

3. Hitzberrigintza eta tradizioa

Larramendiren pentsamoldean hitzberrigintzak eta gainerako iturriek betetzen duten tokiari buruzko ondorio nagusiak azken atalaren hasieran (III, § 1) aurkeztu ditut, ondoko kapituluetan egin behar zen datuen analisi xehea txertatzeko oinarri teoriko modura. Halaber, Larramendiren pentsamoldea, berrikuntza zenbaitekin bada ere, oro har bere garaiari zegokiona baino ez dela azaldu dut bertan. Zilegi bekit, beraz, orain ikuspuntu orokorrago batetik mintzatzea, eta nagusiki honek dakarzkigun analisi arazoak nabarmentzea.

Hiztegiaren osagaien taxutzeari dagokionez, bere pentsamoldearen zutabeak hiru dira: 1) euskararen berezko izaerak denboran zehar aldagabe iraun izana; 2) jatorrizko aberastasuna euskalkietan barraiatuta egotea; eta 3) euskararen filosofikotasuna. Bestela esanda, bere ustetan, euskara beti bat da, denboraren aldetik (Babeldik hona) zein lekuaren aldetik (Bizkaitik Zuberoara), eta lege jakinak ditu: beraz, euskaraz antzina izan zena edo zitekeena, orain dena (edozein euskalkitan dela) eta gerora hizkuntzaren legeei jarraiki egin daitekeena euskal hitza da. Honegatik, Larramendiren neologismoez hitz egiten dugunean, ezin gaitzke hitz berrietara mugatu, *HH* erabiliko zutenen lexikoa hiru norabidetan hedatzen saiatu baitzen:

1) Gerora begira, hitz berriak eginez, noski. Haatik, hitz berri hauek ezin dira nolana hikoak izan, euskararen arimaren araberakoak baizik, hots, hizkuntzan antzeman ahal (edo uste) izan dituen arauen araberakoak. Berreraiki zituen eratorpen paradigmeaz gainera, euskararen filosofikotasunak zilegi egin zion gauzaren ezaugarriren batean oinarrituako hainbat eta hainbat hitz elkartu sortzea.

2) Orainaldira begira, euskalki, hizkera eta maila guztietako hitzak (ahozkoak zein liburuetakoa) bilduaz, bere eginahala beste mugarik gabe, eta erabiliak eta ulergarriak ziren maileguak onartuaz.

3) Atzera begira, bide ezberdinetatik (batez ere erdal hitzen etimologiatik eta toponimia-antroponimiaren analisitik) erdietsi ahal izan zituen euskara zaharraren (benetako zein ustezkoaren) aztarnak berpiztuaz.

Denak berrikuntzak dira, azken buruan, neurri batean edo bestean. Ezen berrikuntza da, eta ez txikia, euskalki guztietako hitzak orokor bilakatu nahia. Halaber, Larramendi murgiltzen zen teoria pankronikoaren barruan, *RS* zein Leizarragaren hitz zaharkituak, demagun, eskubide osoaz euskal hitzen taldean sartzekoak zirenez gero, alferrik dateke zaharkituztat ezagutzeko gaitasunik izan zuen ala ez galdetzea. Ohar bedi, ordea, alde honetatik Larramendik zegoenekoak galduta bide ziren zenbait hitz berriro jendartera atera zituela, ez bakarrik ahazturatik nolabait gordeaz, baita berriro erabiliak izateko aukera eskainiaz eta, beraz, hertsiki neologismoa eginez.

Eta denak elkarrekin estuki lotuta daude, hain non egiazki esan baitaiteke *HH*-ko osagaiez den bezainbatean, hizkuntzaren berranalisan hasten den eta hitzberrigintzan bukatzen den gupil batez mintzatu behar garela. Ezin da ahozko euskara, liburuetakoa, toponimian gordea edo etimologietan aurkitua asmatutako hitzetatik erabat bereizi, batzuk bestearen legamia eta eredu baitira. Azterketak erakutsi digu Larramendi oso berritzaile izan zela, ordura arte inor bainoagoa hainbat alderditan, baina aldi berean agerian geratu da eredu jakinak izan zituela, berreraiki ahal izan ditugun neurrian, hartu zituen erabaki guztietan.

3.1. Hitzberrigintza

Esandakotik atera behar dugun lehen ondorio nagusia, hitzberrigintzari dagokionez, hauxe da: hitz berriak ez dira arbitrarioak, hala moduz eginak, hizkuntzaren berranalisiak erakutsitako bideetatik sortuak edota naturalak, gauzen izaeraren arabekoak baizik. Ez dira, hortaz, azalezinak, batzuetan azalgaitzak izan badaitezke ere: ikertzaileari exegesi ahalegin handia eskatzen diote, bereziki pairatu dituzten ezohiko hots-aldaketengatik. Baina honek gure mugak adierazten ditu, ez hiztegiaren maltzurkeria, noski.

Gure mugak..., hauxe da tesian zehar biziki kezkatu nauen eta orain agerian jarri nahiko nukeen gaia, Larramendiren jokabideaz dakiguna eta ez dakiguna laburbilduaz. Eta hots-aldaketen gaia oso abiapuntu ona izan daiteke, zeren eta, honi dagokionez, hasi besterik ez baitugu egin.

HH-an lau aldaketa mota daudela ezarri ahal izan dugu (III, §§ 2.2.5 eta 3.2): 1) aldaketa bakartuak, hiztegiak oharkabean jasoak eta, beraz, ordezkatzan dituzten arau zaharren hondarrak baino ez bide direnak; 2) aldaketa zahar ezagunak, ordurako jadanik zaharkituak ziur aski, baina Larramendik igarri eta —maiztasun eta zuzentasun gehiago edo gutxiagorekin— hitz berrien eraketan erabili zituenak; 3) gaizki ezagutzen ditugun aldaketa zenbait, ziurrenik denak herrikoiak eta beharbada Larramendik ezagutzen zuen euskaran bizi-biziak; eta 4) aldaketa ezezagunak, lehen osagaiaren bukaera, zein bigarrenaren hasiera, zein

—are harrigarriago— bietako edozeinen barrualdea zein bigarrenaren bukaera eragin dezaketenak.

Hots-aldaketen gaia aipatutako puntu guztietan irekita geratzen da, arrazoi praktikoko bategatik: zenbat eta corpora handiago, hainbat eta arauak edo joerak aurkitzeko aukera handiago. Gure corpusean ohikoenetako batzuk antzeman ahal izan ditugu, baina handiago batek gurean bazterreko modura agertzen direnetako batzuk azalduko ditu, dudarik gabe.

Gaia irekita geratzen da, gainera, hitz berriak eta etimologiak (bai erdal hitzenak, baita toponimiarenak) elkarrekin aztertuz gero, ziurrenik paralelismoak kausituko ditugulako bien artean. Hauxe da, behinik behin, analisi morfologikoaren eta hitz sorkuntzaren artean proposatu dugun lotura estuaren teoriak eskatzen duena.

Hots-aldaketen inguru guztiak ongi ulertzeko oraindik alderdi pisutsu bat geratzen da: euskal hitzen erroari buruzkoa, alegia. Alabaina, honetara iristeko berriz miatu behar dugu gure azterketaren nondik norakoa.

Izan ere, Larramendiren hitzberrigintzaren azterketari ekiteko ez zegoen ondoko iradokizuna baino bide zuhurragorik: maila bateko edozein testu zaharretan, areago hiztegi batean, egilearen sorbideak antzematea erraza izan behar da, zeren eta —adibiderik gardenena emanez— atzizkien eremua aurretiaz erabaki gabe baitzegoen orduan (Lakarra 1993: 345-346).

Horren arabera, *HH*-ko elkartu-eratorriak elkarbide eta eratorbideari buruz dakigunaren arabera sailkatuz gero, lehenik, Larramendiren jokabidearen ohiko arauak antzeman ahalko genituzke: zein norabidetan (zein atzizki, zein elkarbide) garatu zuen bere sorkuntza lana tradizioaren bidetik jo zuenean; eta, bigarrenik, Larramendiren berrikuntzak agerian geratuko lirateke, tradiziotik noiz eta nola aldendu zen ulertzen lagunduko digun antzeko hitzen kopuru bat biltzeko esperantzan.

Sailkapen modu hau ez da antzua izan. Berretsi ahal izan dugu Larramendik, ongi ezagutzeaz gainera, erabili ere erabili zituela ohiko elkarbide eta eratorbidea bere hitz berrietan. Halaber, ezagutu ahal izan ditugu bi arloetan ireki zituen hainbat bide berri (III, §§ 2.2 eta 3.1). Eta, areago, sorbideen historian arreta berezia jarriaz, frogatu dugu lehen begiratuan berriztat eman zitezkeen joera zenbait bere aitzindariengan ediren daitezkeela, kimuan baino ez bada, baita gaurko hizkera jasoan arruntzat ematen ditugunetako batzuk berak asmatu edota hedarazi zituela (cf. bereziki III, § 4).

Alabaina, lorpen hauek ez luteke estali behar erabilitako sailkapenak, zein ere den egoki eta zehatza, oinarrizko akats bat baduela: euskarari buruz eta, oro har, hizkuntzari buruz dakiguna edota jakintzat ematen duguna bakarrik jasotzea, alegia. Ez nahitaez Larramendik zekiena edota jakintzat ematen zuena, azterketa guztian zehar ustekabez ustekabe ibiltzeko eskarmentuak erakusten duen legez.

Lehenengo ustekabeetako bat, toponimia-antroponimiek ere *HH*-an zeresana daukatela ohartzea izan da (III, § 8). Azaletik baizik ezin arakatu izan dudan arloa da, zeren eta toponimia txikia ere nabarmenki tartean egoteak gauzak asko zailtzen baititu eta eskatuko bailuke —eskatuko du— azterketa zehatzagorik. Halaz ere, ez dut uste toponimiaren *HH*-ko papera frogatu izana txikikeriatzat har daitekeenik, hitz iturri zuzen izateaz gainera, atzizki eta erro iturri garrantzitsu ere izan baitzen. Honi dagokionez, ihartutako hitz eta atzizkiak ezagutzeko bideak aurkitzen eta Larramendik berpiztutakoak nabarmenarazten saiatu naiz batez ere, euskararen historiarako inplikazio ezin interesgarriagoak dituzke eta: ihartutakoa bizirik zirauenetik bereizten jakinez gero, *HH*-ak XVIII. mendeko egoera ezagutarazten digu, baita geroko euskara jasoan gorde diren joera batzuk (*-di* atzizkiaren erabilera izan daiteke adibiderik ezagunena) nondik datozen ere.

Bigarren aurkikuntza ere interesgarria da, baina ez erabat ustekabekoa: hitz sorkuntzan etimologiak izan zuen garrantziaz ari naiz (III, § 6). Arlo honek ikertzaileari bi hurbilketa modu eskaintzen dizkio; haietako lehena, datuei hertsiki lotua, hein batean bederen Ibarren teorien ondorena da, nahiz goitik behera berriztua. Gain-gainetik definitzeko, aurreneko esaldia honela alda dezakegu: hitz sorkuntzan erdal hitzen euskal etimologiek izan zuten garrantzia.

Lehen formulazioa (Mitxelena 1983a: 914-915), askoz murriztagoa, ondoko hau zatekeen: gaztelaniazko hitzen euskal etimologiek maileguak —zalantzarik gabe beharrezkoak— euskaran sartzeko oinarri teorikoa eskaini zioten Larramendiri. Azterketaren ondorioei esker, zuzenketa bat eta eransketa garrantzitsu bat egin behar zaizkio hipotesi honi: Larramendik ez du etimologia egiten maileguak zuritzeko, nahiz eta bere teoriaren ondorio ezinutzizkoetako bat izan. Aitzitik, Larramendik etimologia egiten du aurkitu uste dituen ahaidetasun erlazioen bitartez denborarekin galdu izan diren euskal hitz zaharrak —hobeto *erro zaharrak*, beranduago azalduko dudanez— aurkitzeko. Etimologia erabiltzen du, beraz, euskara zaharra —aberats eta osobeteagoa, noski— berreraikitzeke ezagutzen duen bide bakar modura, gaztelanian (eta latin, frantses, greko eta italieran) antzinako euskararekiko erlazioaren —eta, beraz, euskara zaharraren— arrastoek iraun dutelakoan. Arrasto hauek euskararen barruan bertan —euskalkietan sakabanatuta bada ere— bil daitekeena osatzen laguntzen diote.

Dena dela, tresna boteretsuegia da, baldin eta Larramendiren kezka bakarra lexiko-lexikografikoa izan balitz: honelako azterketa batean gaurko lexikoari inolako mesederik egiten ez dioten —eta, jakina, hiztegiak nekez erabiltzen dituen— erlazioak (cf. *capu* “cabeza” vs *buru*) argitara ateratzen ditu. Bestalde, esan gabe doa honek ahozko euskararen zein literaturan aurkitzen dituen mailegu zahar zenbaiten alderantzizko norabidea berresteko aukera ematen diola, baita azalpen honen azpian berri zenbait sartzeko ere (III, § 7), baina alde honetatik ere boteretsuegia da, zeren eta euskal etorkia somatzen baitu baita alde guztietatik edozein hiztunen lexikoan ia-ia anekdota baino ez diren hitzetan ere (cf. *arienzo* = *aritxo*, *assurar* < *sua*, etab.). Eta, azkena baino ez mendreena, etimologiek aukera ematen diote proposatzen dituen euskal etimoetan era ezberdinetara oinarritutako hitz berriak egiteko (cf. *ardiketa* < *ardi* < *gazt. ardid*, adib.).

Hau denau garrantzizkoa eta berri-berria da, baina aurrerago eraman beharrekoa, ezpairik gabe. Itzul gaitezen esaldiaren hasierako formulaziora: hitzberrigintzan etimologiak (honela, “euskal”, “erdal” gabe) izan zuen garrantzia. Eta gorora dezagun orain hasieran ezarritakoa: hitzberrigintzaren lehen urratsa hitzak biltzea da, bigarrena analizatzea, eta hirugarrena bakarrik dagokio hitzberrigintzari berari. Baina hitzberrigintza —Larramendik hainbat aldiz azpimarratu bezala— euskararen izaera eta itxuraren (“el aire y carácter”) arabera egin behar da eta hitz bakunen esanahi egokiari begira, hau da, hitz berriek zaharrak bezain egokiak —adierazten duten zerari egokituak— izan behar dute. Etimologia eta hitzberrigintza, cratilismo etimologikoa eta neologikoa, hauxe izango litzateke, gaingiroki, Larramendiren egitasmoaren zutabea.

Eta hauxe da euskal erroaren arazo askatugabea berragertzen den unea: tesian zirriborraturik baino geratu ez den gaia, geroko azterketetan, nire ustez, gai nagusi izan beharko balitzateke ere.

Corpusaren azterketak, Larramendiren esanak aintzat hartzearekin eta bere pentsamoldea testuinguru egokian jartzearekin batera, bide eman digu tesi honetan Larramendik hitzberrigintzan erabili zituen oinarri teorikoei buruzko hipotesi zehatz bat eratzeko. Alde linguistiko eta historikotik, berriz, Larramendiren jokabide praktikoa ulermen handiagoa eskaini behar zigun eta, halaz ere, esan bezala, erdizka bakarrik lortu dugu. Hitz gutxitan esanda, nire ustetan, lehenik Larramendik izan zuen euskal erroari buruzko ikuspegia ezarri gabe, ezinezkoa izango dugu bere hitz berri guztien kontu osorik ematea.

Honek ondorio garrantzitsuak ditu, eta ez bakarrik *HH*-aren ikerketarako, zeren eta halako ezadostasun bat agerian jartzen baitu gaurko aztergai indartsuen eta lehenaldiko gizakien buruan zegokeenaren artean. Zehazkiago, eratorri askoren oinarriaren eta elkartu askoren osagaien gramatika kategoria ezartzeko izan ditudan zailtasunak (III, §§ 2.2.3 eta bereziki 3.2.3.7), ez dirudi Larramendiren jakinezaren edo utzikeriaren ondorio direnik (ez eta tesigile honenak, beharbada), baizik eta aipatutako ezadostasunaren. Gure sailkapenen zutabeetako bat osagaien gramatika kategoria da, izan ere, baina honek badirudi ez duela Larramendirekin beti funtzionatzen, zeren eta, itxura guztien arabera, maiz oinarrizko forma zehazgabe batekin —“erroa” dei dezakegunarekin— jokatu baitzuen, hain zuzen.

Ondorio honetara iristeko lehen aztarna, atzeranzko eratorpen fenomeno konplexuak izan dira (III, § 5.4), eta hementxe aurkitzen da, nik uste, azalpena. Teoria datuekin berriz erkatuko duen ikerketa baten beharretan geratzen den arren, dagoeneko aurrera daiteke Larramendik, etimologia egiterakoan, nola edo hala azken oinarri lexikora —euskararen lehengaietara— iritsi nahian zebilela, *aitizki* “patronímico”-ko *-iz-* (< (*h*)itz < *izen*) eta *argimotrairu* “morterete de cera”-ko *argi-* (< *argi* < *argizagi*, *argikai*) osagai biluztuek erakusten duten bezala.

Honek ez du esan nahi, dena dela, behar izanez gero atzizki-kateak edo bi osagai baino gehiagoko elkarteak egiten ez zekienik: izan ere, kate berri-berriak eta korapilotsuak

baditu (III, § 2.2.6), baita era ezberdinetara eraturako osagai aniztuneko elkarteak ere (III, § 3.1.5); baina, ahal izatera, atzizki edo sasi-atzizki pilaketei ihes egiten die, hitz berrietan antzinako itxura berreskuratu beharrez.

Eta antzinako itxura hori ez da ezinbestean geuk espero dezakeguna, jakina, ez eta euskara biziak begi aurrean jartzen ziona ere, berranalisiak erakutsi ziona baizik. Honen adibiderik argienak, *-atu* aditzetatik atzerantz eratorritako *-a* bukaerako izenak bide dira (III, § 5.4.1): *ahalka* “vergüenza” < *ahalkatu* edo *anpara* “amparo” < *anparatu* izenak (berr)eraikitzen ditu, *ahalke* eta *anparo* ongi ezagutu arren. Haren ustetan, antza denez, honelako antzinako erroetatik eratorriak dira nolabait *ahalkagarri* edo *anparatzaile*, baita aditzak eurak ere, noski: badirudi, beraz, eratorrien azpian (aditzak barne) beti izenki bat izkutatzen dela erabaki zuela. Honexegatik, *abrasma* (< *ab(e)re* + *asmatu*) bezalako elkartu ugariak (III, § 3.2.3.7.2) nekez dira, gure sailkapenak aditzera ematen duenez, ‘izena + aditzoina’ elkartuak —euskaraz zeharo ezohikoak—, honelako erroetatik abiatuta sortutako ‘izena + izena’ elkartuak —euskaraz ezin arruntagoak, dakigunez— baizik.

Jakintzat eman behar dugu Larramendiren jokabidean honelako (ustezko) kontraesanak arlo gehiagotan aurkituko ditugula. Esate baterako, *HH*-ko sarrera batzuetan (baita *Erans*-ekoetan, bide batez; ik. II, § 2.4.1.2) ongi lekukotutako hitz batez eta Larramendiren ohituren edo ulerpenaren araberrako haren kideaz osatutako bikote zenbait daude, hala nola *ahakoa* (1571) / *aidagoa*, *argintza* (XVII. ea.) / *arrikintza* (III, § 2.2.5.5). Eratzen ari garen azalpenaren arabera, honelako bikoteetan hizkuntza biziaren (ustezko zein benetako) uzkurdurei antzinako hitz “osoagoa” kontrajartzen zaie: ez hitz berri bat, berranalisiak (etimologiak) erakutsitako osagaiak behar bezala agerian daramatzan hitz “zaharra” baizik. Ikus dezagun Larramendik berak, beste hizkuntzetako etimologiez ari dela, honetaz dioskuna:

Las voces, muchas por lo menos, con el uso, con el tiempo, con el capricho, se añaden, se cortan, se invierten, se desfiguran: y qué remedio para reducir las a su primer estado, esto es, para saberle, hallándoles su origen? No hay otro remedio que añadir lo cortado, y cortar lo añadido, enderezar lo torcido y poner en su lugar lo trastrocado de las sílabas y letras (Larramendi 1745: cxlv).

Eta, halaz ere, badirudi bestetan uzkurdurarako joera bere alde erabiltzen duela, hala nola *-kinde* (< *jakinde*; III, § 3.1.6.2.n) edo *-goki* (< *egoki*; III, § 3.2.3.3) atzizki “uzkurtu” berriak —“contrahido”, Larramendiren hitzetan (1745: xlix)— sortzen dituenen. Honelako kasuetan, baita haplologiarako edo atzizki-kateak mozorrotzeko joera nabarmenetan (III, § 2.2.5.4), adibidez, eufonia ere lortu beharreko ezaugarritzat jotzen zuela antzeman dezakegu: euskararen izaerari ez eze, gogora dezagun, haren itxurari ere egokitu beharra dago hitz berriak egiterakoan.

Oro har, azpimarratzekoa da gramatikako deskribaketa zuzenen eta *HH*-ko praktika berritzaileagoaren artean dagoen alde handia, zeren eta inplikatzeko baitu artean hiztegiak bakarrik argitu ahalko dizkigun ondorioetara iritsi zela (III, § 2.2). Nolanahi ere den, Larramendiren berrikuntzen artean maila ezberdinak daudela azpimarratu beharra dago, ez baita maila berean kokatzen atzizkien oinarriak hedatzea (III, § 2.2.3) —ia unibertsaltzat eman

daiteke, eta euskararen historiak hainbat adibide eskaintzen ditu— eta erator-atzizkien alomorfo berriak (III, § 2.2.2) edota aurrizki berriak (III, § 4) sortzea, adibidez.

Errepika dezadan orain lehenagoko gogoeta bat: Larramendi oso berritzailea izan zen, baina aldi berean eredu jakinak izan zituen, berreraiki ahal izan ditugun neurrian, hartu zituen erabaki guztietan. Hortaz, ezagutzen dugunetik urrutien dabilela dirudienean, ziurrenik kate-begi egokia peitzen ari gara. Honek esan nahi du, besteak beste, bere lana ulertzeko biderik egokiena ikuspuntu gradualista bat izan daitekeela: ezagutzen zuenetik analogiaz antzeko hitzak egitera, eta gero handik bestetara, arian-arian eta oharkabeaz bezala, igarotzen zela aditzera ematen duena, alegia.

Analogia, eta analogian harat egindakoa, dena da hizkuntzaren berranalisiaren (etimologiaren) ondorena, baina horren ekarria ez dago agerian, esan bezala, *HH*-ko hitzetan inplizitua baizik. Eta ariketa honetan begi zorrotzak zituen, *arilko*-tik abiatuta *aril* > *aribil* berreraiki (III, § 6.3.11.g eta 37. oh.) edota *ahakoa aidago*-ren bitartez azaldu izanak erakusten digunez, esaterako. Gure erronka, beraz, hitz berrien azpian dautzan baldintzak idorotea eta berranalisiaren zein gunetan sortu diren erabakitzea da, Larramendik maltzurki edo ezjakinez jokatu zuelako aterabide errazak atzipetzen utzi gabe.

3.2. Tradizioaren garrantzia

Pouvreuren hiztegia “autoritate hiztegi” ez dela dagoeneko ongi frogatuta geratu bada ere (Lakarra 1995a), Larramendiren hiztegiaren azterketak are nabarmenago utzi du harekin egin den neurritz gaineko balioespena edota honekin egin den neurritz gaineko gutxiespena. Larramendik Pouvreaux baino euskal liburu gehiago ezagutu zituen, baita baieztapena Iparraldekoetara bakarrik mugatzen badugu ere, eta agian Pouvreaux baino etekin gehiago atera zien; ez berak baino gutxiago, behintzat.

Aipua merezi duen lehenengo gertakaria, ibartarren ikuspuntutik bakarrik harrigarria izan badaiteke ere, Larramendiren lexiko berrikuntzaren lehen zutabea Iparraldeko literatura izatea da (III, § 9.2). Ongi ezarritako tradizio bati —bakarrari— atxikitzen zaio, behar ere bezala, bere egitasmoari oinarri eta halako sendotasun bat emateko. Herri-hizkuntzak eman ezin ziezaiokeen hiztegi jaso bertatik erdiesten du, baita hitz berriak egiteko ereduak ugari ere. Iparraldeko liburuetatik ateratako hitzak astiro barneratu zituen hiztegiaren, esanahikideetara ere eramanez eta familia osoak (berr)eraikiaz, bertako ekarria apaindura hutsa ez zelako seinale.

Iparraldeko tradizioaren barnean Leizarragak garrantzi berezia dauka *HH*-an (III, § 9.2.4.1): liburuaren tamaina eta gai-ugaritasunari dagokionez, bereak dira errazenik eta ugarienik aurkitu ahal izan ditugun hitzak. Alabaina, badago erabilera nasai honen azpian zalantzarik gabe are pisu gehiago izan duen zerbait: Testamentuaren itzulpena izatea, alegia. Hiztegiaren hitzaurrean eskaintzen dion atal luzea, bertako laudorioak, eta hitzaurreko beste pasarte garrantzitsu batzuetan (guztiz hitzberrigintzari buruzkoan) Leizarragaren autoritatea gida eta eredutzat errebindikatzeko, hauek denek erakusten digute Larramendik tradizio guztien

gainetik dagoen Tradizioari —biblikoari, alegia— atxiki zitzaiola, edozein kristau jantzik egingo zukeen bezalaxe.

Axular bigarren mailan bakarrik geratzen da haren aldean, *Erans*-ak sortu zuen inpresioa deuseztatuaz (III, § 9.2.4.2). Antza denez, denborarekin bakarrik iritsi zen denen gaineko maisutzat hartzera: balirudike, ostera, lehenengo irakurraldian arazoak izan eta honegatik bigarrenez saiatu zela, behin lapurteraz ziurrago sentitu eta gero.

Gaitza da corpus mugatu batean gainerako Iparraldeko idazleen ekarria banan-banan neurtzea. Halaz ere, akats dirudien ondorio honek emaitza interesgarriak izan ditu: ezen, ez honen edo haren, baizik eta oro har Iparraldeko tradizio osoaren hitzak jaso baititu sarrienik *HH*-an, idazlerik berezienak bakarrik beren burua agertzeko moduan utziaz. Gainerakoak, tradizio horren barruan arazorik gabe eta gaiak zein estiloa gehiegi aldatu gabe murgildu ziren neurrian, identifikagaitzak dira filologoarentzat, baita tradizioaren sortzaile izan zen Materre bat ere.

Iparraldeko tradizioaren bigarren emaitza, ez nolana hikoia, hitz berriak egiteko oinarriak eta ereduak eskaintzea da. Bertan aurkitu zituen elkarmoduak eta eratorbideak (gogora dezagun Leizarragaren *serbitzarikide*-z hitzaurrean esana) bakartu eta emankor bihurtzeko gauza izan zen. Beraz, Iparraldeko eraginaren neurri osoa emateko, banakako hitzei baino honi arreta gehixeago jarri beharko diogu aurrerantzean. Oraingoan, badirudi *-go* eta *-di* atzizkien erabilera Etxeberri Ziburukoari egotz dakiokela (III § 9.2.4.3), bigarrean Toponimiak ere, bistan da, eragina izan arren.

Honen aldean, ezer gutxi eskain ziezaiokeen ezagutu zuen Hegoaldeko dotrinatxo multzoak, nahiz iturrigai batzuk identifikatu ahal izan ditugun (III, § 9.3). Txirotasunean murgilduta bada ere, bazuten zer eskaini, eta erakutsi dugu Larramendik gutxienez bi gaitan begiak erne zituela: Alde batetik, eratorpenean, noski, eta badirudi Otxoa izan litekeela *-era*-ren atzizkiaren *HH*-ko hedadura handiaren azpian dagoen eredu. Bestetik, lexiko erlijiosoa garbitzeko ahaleginean, eta alde honetatik Iparraldean aurkitu zuen *Agur Maria*-ren lorpenari Elizalderengan aurkitu zuen *Aita Gurea* erantsi zion. Gainerantzean, esan gabe doa oro har Hegoaldeko dotrinen aztarrenak, baita bizkaierazkoak ere, *HH*-an urtuta daudela ahozko euskarak berak eskain ziezaiokeenaren barruan, eta esan behar da dotrinak eurak ere zein diren eta zenbat jakitea —Larramendik ez baitzituen behin ere izenez bereizi— lan gaitza, agian ezinezkoa, izan daitekeela.

3.3. Bestelako tradizio ezkutuez

Tovar-ek (1980: 11) euskarari buruzko lan zaharretan jarraitasunik ez dagoela baieztatu zuen, bere lanean bertan baieztapen hau gezurtatzen duten hainbat adibide egon arren. Izan ere, euskal apologiagile biren ekarpenak nola edo hala erkatu diren bakoitzean (cf. Zubiaur 1990: 258 eta batez ere Ramos 1994), haien artean erlazioren bat badela agerian geratu da. Tesi honetan ere ezin izan dugu gai honek merezi duen azterketa xehea egin, baina, abiapuntutzat Larramendi harturik, ezinbestean aitzindari asko batera eskuztatu behar izan

ditugunez gero, lehenik berak guztiak ezagutu zituela egiaztatu ahal izan dugu eta, honen kariaz, baita haiek guztiak uste baino sarriago lotuta daudela somatu ere (III, § 11). Euskarari buruzko lanetan bada, beraz, tradizio luze eta jarrai bat, bai etimologigintzan, baita hizkuntzari buruzko ideien arloan ere.

Etimologigintzari dagokionez, tradizio honetan Larramendi gailurtzat agertzen zaigu, aurrekoen aurkikuntzak biltzen, bahetik igarotzen, eraberritzen eta ugaltzen dituen neurrian. Ildo honetatik, merezi du tradizioa ez atzerantz bakarrik, baita aurrerantz ere berreraikitzea, ezin baita XIX. mendeko etimologiaz —ez eta batzuetan XX.ekoaz ere— zuzen mintzatu Larramendiren lana ezagutu gabe: tradizioa ez da *HH*-an etentzen, eta handik ondokoengana (Astarloarengan pentsatzen ari naiz, noski, baina ez da bakarra) doazen loturak, batzuetan jakintzat ematen badira ere, oraindik aztertzeke ditugu.

Edonola ere, tradizio zahar honetan beste gailurrik ere izan da, eta haien artean, Larramendiri dagokionez, Oihenart dukegu nagusi (III, §§ 6.3.2.2, 11.4 eta 11.5). Honen lanak, besteen aldean, abantaila nabarmena zuen: euskara eta gaztelaniaren arteko erlazioa sistematikoki —hitz zerrenda ordenatu baten bidez— azaltzea, hain zuzen. Hasieran haren ereduari atxikitzeaz gainera, jadanik aipatu bezala, eta oro har haren etimologia asko onartzeaz gainera —onenak Oihenartengandik hartuak izaten dira—, bi hizkuntzak hotsen aldetik erkatzeke hasikinak —zenbait egokitasun oso nabarmen— berarengan ikasi zituen Larramendik, baita hitz arrunten etimologia eta toponimoena zein bere aldetik egiteko eta ulertzeko joera ere.

Etimologigintza tradizioa baino are garrantzikoagoa izan liteke teoria mailan, euskararen historiaz, bizitzaz eta izaeraz apologiagile eta antzekoen artean somatu ditugun harremanak. Larramendiren hiztegi-gintzari oinarri ematen dioten neurrian bakarrik aztertu ditugu erdal iturriak, eta halaz ere, nabarmen geratu da bi zutabeak —gramatikotasuna eta filosofikotasuna— aitzindariengan ikasi zituela (III, § 1.1). Ez dago esaterik, halaz ere, Mitxelenak behinola esan bezala (1960: 901-902), alderdi honetatik Larramendik berrikuntzarik egin ez zuenik. Aitzitik, orain badakigu egin zitekeen handiena egin zuela, teoriaren arlotik praktikarenera jauzi eginez eta bertan teoriaren ekarriak erabiliaz: euskararen antzinasun aldagabea eta filosofikotasuna emankor bihurtuaz, alegia.

3.4. Testu irizpideak eta hizkuntz irizpideak elkarren lagun

Hauxe izan da *HH*-aren iturriak frogatzeko erabili dudan bidea; baita, adibidez, *RS* haietako bat ez dela frogatzeko ere (III, § 9.3.2). Ez dago beste biderik, hiztegi-gileak bere iturriak hitzez hitz aitortuz gero baizik.

Iturri bat erabili dela frogatzeko dagokeen lehen urratsa, frogarik errazena, batetortzeen pilaketa dugu. Hori da Leizarragarekin eta, hein laburxeagoan bada ere, Axularrekin erabil daitekeena, baita erabat Iparraldeko XVI-XVIII. mendeetako literaturarekin iturri orokor modura

hartuta (III, § 9.2.5). Batetortzeak hain dira nabari eta ugariak non, besterik gabe, halako iturriak frogatutzat eman daitezkeen.

Bestelakoa da, berriz, tradizio horren barruan bere burua gehiegi nabarmentzen ez duen idazlea erabili izan dela frogatzea. *Corpusa* handitzeak aukera gehiago emango duela jakin arren, komeni da bestelako biderik saiatzea, batetortzeak halabeharrezkoak ez direla ziur egoteko. Honetan ez dagoke huts bateratzailea —betiko filologiaren arma ezaguna— baino froga indartsuagorik (cf. III, § 9.2.4.5, honelako saio batzuetarako).

Erans-aren azterketan beste frogabide zenbaiten —batzuk orokorrak, besteak lexikografian soilik erabiltzekoak— indarra neurtu dugu, hala nola grafia bateratzaileak, testuinguru semantiko edo sintaktikoa, iturri bereko eta are pasarte bereko hitzak, hitz familiak eta iturriaren erabileraz —osoki ala zatika ezagutu edo erabili zuen— jakin daitekeen guztia, baita iturrien sar-ordenaz berreraiki daitekeena ere (II, § 2).

Hala ere, *HH*-an literatur iturrietan ia bakarrik batetortze zurrak (lekukotasun bakartuak batez ere) aintzat hartu ditut, gehiagotara gabe. Iparraldeko literaturak izan zuen garrantzia erakusteko aski bada ere, bistan da gaia agortu gabe geratu dela: tesi oso bat era nezakeen euskal liburuen inguruan, *Erans*-aren tankerako azterketa bat egin izan banu. Baina, honela jokatzera, ziur naiz ez ginatkeela “nola froga daiteke eratorri edo mailegu bat iturritik hartua dela, eta ez asmatua?” bezalako galderen erantzunen bila abiatuko (III, § 9.2.7); tesi honek islatzen duen ikuspegi orokorra eratu gabe, nekez ausart gintezkeen galdera bera egitera ere.

Haren ordeaz, beraz, nahiago izan dut *Erans*-ak zehazki eman ez dizkigun edo, egin badu ere, hain larriki eman ez dizkigun zenbait arazotan sakondu. Zeren eta, ezpairik gabe, arazo nagusia ez da hitz guztien iturria kausitzea, ez eta halako edo holako liburua iturri dela frogatzea, hori egiteko bideak eta horretarako ditugun baliabideen eraginkortasuna ezagutzea baizik.

Batzuetan bide ezberdinetara jo beharra dago, eta edozein azterketa motak ez du beti berdin balio. Honegatik, orain berrikusi nahi nituzke iturri ezezagun batekin (Etxeberriren hiztegia), frogatzen erraza ez den iturri bategi batekin (Landucciren hiztegia) eta bi baldintzak batera betetzen dituen batekin (ahozkoa) erdietsitako ondorioak.

3.4.1. Iturri ezezaguna: Etxeberriren hiztegia

Edozein hiztegi gileren iturririk preziatuena hiztegiak izanik, salbuespen laudagarri bezain urriekin, Larramendi agerrian kokatzen da lehenagoko hiztegi baten edo batzuen gainean lan egin nahiago dutenen taldean. Zoriak hala nahita, hiruren ezagutza bakarrik izan zuen, eta hiru haiek ez dira, batez ere tamainaz, lana gehiegi erraz ziezaioketen modukoak. Halaz ere, pentsatu behar dugu ahalik gehiena eta ongiena erabili zituela, bakarrak izategatik, hain zuzen.

Hau sinisteko oinarririk irmoena, berak esana aski ez balitz, Harrieten erabilera da. Berandu jaso zuen, hiztegia beharbada jadanik moldiztegia —edo hortik oso gertu— zegoela, eta honegatik ez zuen nahi adina, ez nahi bezala erabiltzerik izan: zati bat *HH*-an, bestea *Erans*-ean sartu zuen, hitzak sinonimoetan ere barneratzeko, eta familiakideetan eratoritzeko beta handirik gabe. Halaz ere, hitzak franko hartu zituen bertatik, jadanik liburuetatik erdietsia zuena kenduta, ia-ia hustu zuela esan ahal izateko moduan (III, § 10.3).

Egin dezakegu Etxeberriren hiztegia askoz lasaiago erabili ahal izan zuela, bi egunez bakarrik eskuartean izan arren, zeren ez baitzen oso handia. Hitzaurrean “hainbat hitz” kendu zizkiola aitortzen du (1745: xxxvi), eta ziurrenik bi egun haietatik aurrera bertako hitzak patxadaz sinonimo ezberdinetan jartzeko eta familiakideetan eratoritzeko aukera izan zuen, oraindik ez baitzebilen presak estututa, Harrietekin bezala. Alabaina, arazo tiki bat dugu iturri inolaz ere garrantzitsu honekin: ez dugu ezagutzen.

Ez da horregatik bertan behera utzi beharrik. Iparraldeko iturri ezagunekiko erkaketak iturri ezezaguneko baina ekialdeko itxurako zenbait hitz biltzeko bidea eskaintzen du, testu argudioak (grafia, adib.) hizkuntz argudioekin (hitzen etorkia, adib.) gurutzatuaz (III, § 12.2.9). Irizpide zehatzagoak ere erabil daitezke, hala nola Etxeberrik bakarrik erabilitako hitzak, haren grafi ezaugarrien aztarnak gordetzen dituztenak edota etorki idatzi argia daukatenak.

Bigarren urrats nabaria, Etxeberriren hiztegiaren moldaketa-edo izan litekeen Sbarbi-Urquijora jotzea da, eta azterketaren ondorioak berarekin erkatzea (§ 10.1). Baina filologian ere ez dira beti (inoiz?) gauzak batek nahiko lukeen bezain errazak. Honek ez du esan nahi, dena dela, zailak izanda txarrak ere izan behar direnik. SbUrq-ek berak azaletik bakarrik miatu den arazo filologiko handi bat aurkezten du: Etxeberriren hiztegiarekin daukan erlazio zehatza, alegia. Etxeberriren hitz zenbait baditu, baina baita Larramendiren hitz nabarmenak ere.

Aurrerapen zenbait (grafian eta (berr)egilearen hizkuntz gaitasunean batik bat) egin uste ditut, gehienera jota bermoldaketa delako hipotesiaren alde: inolaz ere ez da Larramendik eskuztatu zuen hiztegia, eta nekez sinets daiteke berregilea Etxeberri bera denik, grafi berrikuntzak eta latinez erakusten duen ezjakintasuna lekuko.

Edonola ere, tamalez, SbUrq-ek ez du balio Etxeberriren ekarria *HH*-an aurkitzeko, zeren eta, itxura guztien arabera, nagusiki *HH* oinarri hartuta berregina izan baita eta, egiatan Etxeberriren hiztegiarekin lotura zuzenik balu, hitzen joan-etorriak zeharo nahasi dira, halako moduan non norabidea *HH*-tik SbUrq-era doanean bakarrik argitzat eman baitaiteke: buru-hitzak, grafia eta frantsesaz gainerako hizkuntzetako ordainak *HH*-koak dira, oso salbuespen gutxirekin, interesatzen zaizkigun hitzetan, edota *HH*-ak bakarrik azal ditzake SbUrq-en huts eta gorabeherak.

Bidea antzua da, beraz, baina ez nahitaez ondorioak: SbUrq-en izaera hobeto ezagutzeko —baita Etxeberriren hiztegia direlako ospean burua ager dezaketen bestelako hautagaiak neurtzeko ere— aurrerantzean ezinbestean *HH* ere erabili beharko da, batetik. Eta, bestetik, hizkuntz eta testu irizpideen laguntzaz bildutako hitzak ugaltu ahala, haren hiztegia

berreraikitzea ezinezkoa bada ere, noski, gutxienez *HH*-ak bertatik hartu zuena bereizten ikasiko dugu, baita halako ziurtasun batez galdu bide dugun hiztegi hura nolako hitzak zituen somatuko, ausaz.

Ez genuke hau ahaztu behar, bidenabar, *HH*-ko lekukotasunak aintzat hartzeko zalantzak sortzen zaizkigunean, edota Iparraldeko hitz bati buruz aukeran Maurice Harrieten lekukotasuna, esaterako, hobetsi behar genukeela dirudienean (cf. III, 12.3), zeren eta sarritan ezagutzen ez ditugun lehen eskuko iturriak —Etxeberriren hiztegia, kasu— erabili baitzituen Larramendik, eta honelakoetan bere kopiatzaileek ez baitute inolako lehentasunik, gure aurreiritziek ematen dietenez besterik, behinik behin.

3.4.2. Iturri labaina: Landucciren hiztegia

Tesi honetako aurkikuntzarik ustekabekoena, ustekabe frankoren artean, Landucciren hiztegia *HH*-an ere erabilia da, beharbada. Ustekabekoa izan da, baina ez bilatu gabekoa. Zerbait jakintzat eman aurrerik bideak agortu beharraren adibide ezin hobea dugu.

Izan ere, aurreiritziak, baita datu objektibo zenbait ere, kontra zituen, baina logika erabileraren alde mintzo zen. Aurreiritziak esaten zigun nahikoa eta sobera zela Larramendik *Erans*-ean erabilia, gutxietsi zuenez gero; honi gaineratzen badiogu *Erans*-erako inolako dudarik gabe hasi eta buka irakurri zuela, areago. Eta azalpen bat aurkitu zitzaion: berandutxo baina azkenik damutu omen zen, hiztegiko aberastasunez jabetuta. Haatik, gogora etor dakiguke Axular ere birritan bederen osorik husten saiatu zela, *HH*-rako eta *Erans*-erako. Eta logikak esaten du nahikoa goiz ezagutu zuen eta, bera lortzeko, txarra zein ona izan, kopia bat egin edo eragiteko lanak eman zizkion testu bat ez zela bukaera arte apalean uzteko modukoa, hiztegi bat are gutxiago.

Landucciren hiztegia eta *HH*-aren arteko batetortzeak ugari izatea, eskuarki erabileraren erakusgarri ona izango litzateke, gorago esan bezala; ahul bihurtzen da, ordea, Larramendik menperatu ahal izan zituen hizkeretako batzuk Landuccik ordezkatzeko duenetik oso ezberdinak ez bide zirela gogoratu bezain laster. Honegatik, testu argudioak erabili behar dira derrigorrez, batetortzeetako batzuk bederen halabeharrezkoak ez direla erakusteko. Tesiko hainbat atal bezala xehetasun gehiagorekin berregin daiteke, baina Larramendik *HH*-an ere erabili zuela baieztatzeko argudio nahikoa aurkitu uste dut. Azken buruan, aitortu behar dugu nekez izan zukeela eskuartearen Landucciren hiztegia baino Hegoaldeko iturri (idatzi) hoberik.

3.4.3. Iturri ezezagun eta labaina: ahozko hitzak *HH*-an

Zalantza izpirik gabe Larramendiren galdeketek *HH*-ko edukian garrantzi handia izan zuten. Erraz froga daiteke ezein iturri idatzi ezagunetatik ez datozen eta, beraz, zehatz-mehatz lehen lekukotasunak diren euskalki guztietako hitzak edota aldaerak daudela bertan. Agian peit daitekeen ekarpen bakarra ekialdeko hizkerena da (zuberera, baita agian behenafarrera ere),

zeren eta ez literaturaren bitartez, ez eta bestela ere, ez baitzuen beranduago arte haien berri zehatzik izan, dakigularik. Halaz ere, ez genuke ezezko borobilean gehiegi fio izan behar: cf. *buruia* “cabeza”, kasualitate hutsaz aurkitua eta besterik ere egon litekeela iradokitzen duena. Dena dela, gogora dezagun ez dirudiela Pouvreak berak ere Etxepare ezagutu zuenik, literaturaz bakarrik mintzatzearren.

Aitzitik, bizkaiera eta gipuzkera, baita ziurrenik goinafarrera ere heinen batean, denak ongi ordezkaturik daude hiztegian. Azpieuskalkiez den bezainbatean, hitzen banaketaz dakigun gutxia kontuan harturik, oraingoz zaila da xehetasunetan sartzea. Halaz ere, batzuk behintzat aipa daitezke: Hernani (amaren jaioterria eta bizpahiru urte zituenetik bere bizilekua), Donostia (1733-1734an zazpi hilabetez bertan bizi izan zen), Oiartzun (cf. 1745: xxxviii, *sarraski*-z), Loiolaldeko inguru gutzia (G-azp, B-gip?...), baita agian Bilbo aldea ere (III, § 12.2.7, 34. oh.).

Atal honek aurkezten duen gairik interesgarriena ez da, ostera, *HH*-ak biltzen dituen hitz ziurrak, hainbat eta hainbaten lehen lekukotasuna —sarritan mendeetako aldeaz— bertan izatea nolana hikoia ez izan arren. Aurkezpenean hiztegiek lekukotasun gisa dauzkaten arazoez luzez mintzatu eta gero (§ 2.4), berriz errepikatuko dut *HH*-aren garrantziko lekukotasun gutxi ditugula eta, arazoak arazo, orain artean baino oraindik ere gehiago profitatzeko eskubidea ez eze, beharra ere badugula. Hitz ziurrak, beraz, ezer gutxi dira, asko izanik ere, hitz ez ziurren aldean. Lakarrak (1985a: 25, 21. oh.) azpimarratu bezala, aurreikusi behar dugu hapaxek ugari egon behar dutela; eta inolako dudarik gabe orain artean jaso gabe dirauten baina bizirik dauden (edota duela gutxira arte egon diren) hainbat gauza ere entzun ahal izan zituen Larramendik galdeketetan.

Ahozko ekarriari, itxura batean, hizkuntz argudioak bakarrik dagozkie, tartean testurik ez baitago. Halaz ere, eskura ditugun baliabideak (bestelako lekukotasunak) agortzen direnean, testu argudioetara ere jo beharra agertzen da: ez bi testu elkarrekin lotzen dituztenetara, aztertzen ari garen testuaren ezaugarri direnetara baizik.

Ildo honetatik, tesian baliatu dudana lehen irizpidea —irizpide nagusi eta emankorrena—, ahalik eta hitz, adiera eta esapide gehienak lekuko askeen bitartez berrestea izan da: Larramendik ezagutu ez zituen lekuko zaharrak eta lekukotasun dialektal modernoak, batik bat. Oinarrizko lan honekin, hitz askoren berrespenaz gainera, berme sendoa erdietsi dugu, egiatan, aurreiritzi guztien aurka, *HH*-an egiazko hitz eta adierak, egiazko esapide eta egiturak kausitzen direla. Eskarmentua daukat, ateratzen den herri bateko lexikoaren bilduma ia bakoitzean aurki daitekeela bestetan berrespen gutxi edo batere ez zeukan hitzen bat. Informazio gehiago izan ahala, *HH* fidagarriago bilakatzen da.

Hemendik hegan abia gaitzke, hapax edo erdi-hapaxen bila. Honelakoak ezagutzeko, lehenik eta behin ezinbestekoa da Larramendiren hitzberrigintza menperatzea; zeren, oraindik menperatzetik urruti bagaude ere, gutxieneko kontuan dagoenekozi ziurtzat eman dezakegu ez zuela inoiz hitz arbitrariorik sortu, egiazko euskaran nola edo hala oinarrিতuta ez dagoenik, alegia. Baieztapen honen gainean bakarrik eman daiteke azken urratsa: hau hala baldin bada, orduan Larramendiren hitzberrigintza joerez ezin azal daitezkeen hitzak herrikoiak dira

definizioz. Jakina, baieztapen borobil hau, ahaleginean bestelako frogak —testu frogak zein hizkuntz frogak— bilduaz bermatu beharrekoa da. Hizkuntz frogen artean, *HH*-ak jasotzen duen formaren aldaerak edo familiakideak ezagunak izatea, edo maileguz azaldu ahal izatea aipa daitezke. Eta, testu frogen artean, *DAut*-ek ez dakarren sarrera berria erantsi izana, halakoak —arlotan dagokionez— euskaraz ezagutu ahal izan zuen zerbait sartzeko egin baitzuten beti.

Zenbat eta hitz bati buruz honelako argudio gehiago bildu, bistan da hainbat eta bermatuago dagokeela haren herrikoitasuna. Halaz ere, lehengora itzultzen naiz: hots, badirudi hitz baten osakeraz ezertxo ere ezin esan dezakegunean, Larramendiren elkarmoduek azaltzen ez dutenean, argudioa berez sendoa ez izan arren, zalantza herrikoitasunaren alde erabili behar dugula, hapaxik garrantzizkoenak —ezagugaitzenak, alegia— itzurtzea nahi ez baldin badugu, behintzat.

Ez nuke esan gabe utzi nahi, azkenik, etimologietan aurkitzen diren euskal etimoak hainbatetan (adib., *alborakia* eta *arrada*, *alboroque* eta *rada*-ren etimologietan, hurrenez hurren) egiazkoak direla erabat, eta ez nahitaez euskara arruntenekoak. Honelakoak ere aintzat hartzeko moduko lekukotasunak dira, oraindik ilun egiten zaizkidan arrazoiengatik etimologietan bakarrik —eta ez dagozkien sarreretan— agertu arren batzuetan.

4. Gerora begira

828 orrialdeko hiztegi bati, badirudi beste horrenbeste pasatxo eskaintzea ez dela ez asko, ez gutxi, batez ere “labirintu askaezin” omen den honi. Eta, halaz ere, ez dut uste tesi hau *HH*-ari emandako lehen begiralditzat —ikuspegi orokortzat, nahi bada— baino askoz gehiagotzat har daitekeenik.

Arlo askotako berezituaren elkarlana beharrezkoa izango da Larramendiren lekukotasun erraldoi hau zuzen eta xeheki balioztatu eta ustiatzeko euskararen historian aurrera eta atzera eginez.

Euskal lexikoaren historian, behar bezala erabiliez gero, *HH*-ak funtsezko ekarpenak egin ditzake, hala hitz anitzen, nola sorbide ezberdinen historiari dagokionez, haien zahartasuna, hedadura eta iraupena zehazten lagunduaz, baita honekin zerikusia duten gaietan ere (hots-aldaketak, kategorien arteko mugak, etab.).

Eskuarki *Imposible vencido*-ra jo izan da Larramendi gramatikari modura ezagutzeko, baina gaurdanik nabari da *HH*-an, hitzaurrean eta hiztegi barruan, sarrera arruntetan eta etimologietan, inork oraindik ustiatu ez duen gramatikazko osagai garrantzizko bat dagoela, hainbat aldetan gramatikakoa baino aberatsagoa (I, § 3.3).

Larramendik Iparraldeko tradizioarekin izan zuen loturan ere sakondu beharko da, eta *HH* ardatz gisa erabili, Pirinioen bi aldetako literatur hizkuntzaren bilakaeran izan diren harremanak hobeto ulertzeko.

Askoz gai gehiago aipa daitezke, hala nola euskal etimologigintzaren (III, § 6) edo errefrautegiaren historia (I, § 3.6), zeren eta egiatan, euskal filologiaren gai garrantzitsuetako asko *HH*-an hasten —edo bukatzen— baitira. Nolanahi ere, azpimarratu nahi nuke, hiztegi elebakarra ez denez gero, haren balioa ez dela inolaz ere euskal baranora mugatzen. Ez dira alde bat uztekoak gaztelaniaren arloan egin ditzakeen ekarpenak. Adibidez, gaztelaniazko hitz, adiera eta esapide zenbaiten lehen datatzeak eskaintzen ditu (I, § 4.4), zeren eta hemen ere —Europako beste hizkuntza batzuetan egiaztatu denez— elebidunetan ahozko hizkuntzaren isla errazago eta lehenago agertzen baita. Gaztelaniaren ortografiaren historian ere badu zer esanik, Akademiak aldeztutako normalkuntzaren aurkako ikuspegia —zalantzarik gabe beste askorena ere izan zena— ederki ordezkatzeko baitu Larramendik (I, § 6).

Egia esan, labirintua askatu, ez dut uste osoki askatu dudanik, jarraitzekoak diruditen zenbait hari aurkitu uste badut ere. Haietako nagusienak dagoeneko azalduta daudenez gero, orain mintza gaitzke ireki dudan Pandoraren kutzaz: gaiak, estalkia altxatzen hasi baino ez, berehalakoan bertatik jauzi egin eta barraiatu zaizkit, eskain ezin niezaiekeen arretaren eske.

Tesian egindako aurrerapen bakoitza, argi eta garbi eskumenean zeuden gai batzuk oharretara txokoratu edo —ia beti jakinaren gainean— alde batera uztearen truk egin izan da. Gai handiak eta txikiak, denetarik geratu da bazterrean, eta baderitzat haietako batzuk, lanaren bukaeran bihotzmin gehiena edo jakingura handiena ematen didatenak behinik behin, agerian jartzea komeni dela, bestek ere, zein bere arloan, haietaz zer esana izan dezaketelako uste osoan.

Hizkuntz ideien historiari dagokionez, alde batera geratu dira —edo ohar apur batzuetan iradokita bakarrik— izan litezkeen eragin zenbait. Baliteke, adibidez, mailegu beharrezkoak direla eta (III, § 7), Feijoorekin loturaren bat aurkitu ahal izatea, baita Mayansek ere hizkuntz historiari buruzko zenbait gaitan; euskararen auzian valentziarrarekin izan zuen eztabaidak ez gintuzke itsutu behar, nik uste.

Espero daitekeen erlazioaren txikia gorabehera, ez da erdeinatzekoa Larramendik Descartes aipatzea, XVIII. mendean eta Espainian ez baita, ziurrenik, oso ohikoa. Gogora dezagun, Iparraldean urte batzuk emateaz gainera, frantsesa menperatzen zuela eta bere liburutegiaren hizkuntza honetan idatzitako hainbat liburu —ez Descartes bera, ordea— bazituela.

Interesgarria izan daiteke, halaber, idazkera eta ahoskera berdindu nahi zukeen tradizioari atzerantz jarraitzea. Nebrixaren hitzek (“assí tenemos descrevir como hablamos y hablar como escrivimos”; *Reglas de Ortographía...*, 1517, ap. Lope Blanch 1990: 47) eta Valdésenek (“scribir como pronuncio”; 1535, ap. *ib.* 58) gogora ekartzen dute euskaraz Larramendik hainbatetan idatzi zuen hura, alegia, “Escribese como se habla, y quanto se habla puede escribirse con facilidad” (1728: 88).

Beste alde batetik, Lucio Marineo Siculoren etimologia grekoak miatu behar dira; Tovar-en (1980: 27) zerrendatxoa bakarrik ezagutzen dut, eta bertan agertzen da gazt. *artesa* < gr. *ártos* ‘ogia’, Larramendik eusk. *arto*-rekin borobilduko zuena. Aztertu beharko dira, halaber,

zerrenda amaigabe —eta oraindik ez oso— batean bildu ditudan egile espainiar guztiak, bai hizkuntzari eta euskarari buruzko ideietan izan zezaketen garrantziarengatik, baita agian Larramendiren etimologia zehatz zenbaitetan izan zezaketenarengatik. Jadanik aipatu dut Juan Cortés Ossorioren liburuan (1684) aurkitu bide zituela *lauburu* eta *lábaro* berdinduak (Tovar 1980: 64; bide batez, *lauburu* hitzaren berezitasuna ohartzekoa da), eta zerbait itxaron daiteke alde honetatik, beharbada, Huerta y Vegaren liburutik (1738-1740), hainbat euskal etimologia eskaintzen baititu, dirudienez (Tovar, *op. cit.* 97).

Tesiaren hasikinetan nahikoa denbora eskaini banion ere, alde batera geratu da, berebat, *HH*-ko etimologiei dagokien ia guztia, hari buruzko atalaz (III, § 6) eta han-hemen profitatu ahal izan ditudan datu zenbaitz gainetako. Alabaina, euskaraz eta Larramendik euskarari buruz zituen usteez informazio ugari dago etimologietan. Esan gabe doa, bestalde, balioztatu gabe daudela, Giambullarirekin Coseriuk egin zuen moduan, alegia, Tovar-en hurbilketa (1980: 71 eta 92) positibistegia baita. Jadanik azpimarratu dut (III, § 6.3.2) lehenengoz hainbat bikote etimologiko egiazko aurkitu izana, berez jakingarria baita, maileguaren norabideaz zeukan ustea gorabehera.

Erdal iturri / ereduaren arloan *DAut*-en gelditu naiz ezinbestean, hain nabarmen eta nahitaezkoa izanik ere, zeharo aztertu gabe zegoelako. Lanak izan ditugu tesiaren lehen atalean haren inguruko gaiak jorratzen hasteko, eta lan handia geratzen da oraindik aztertu dugun corpusetik kanpo. Halere, badaude, egon ere, honenbesteko garrantzia izatera iritsi gabe, begiztatu beharko diren iturrigai batzuk. Pomeyren *Universo abreviado*-k (Altuna 1984: 42. zb.) erlazioren bat izan lezake *DAut*-ek azaltzen ez dituen hitz “filosofiko” batzuen eraketan, adibidez. Aztertzeke daude, halaber, aldean izan zitzakeen latinezko hiztegiak, calepinoak (I, § 7), baita grekorako izan zuen iturri ezagugaitza (cf. 1745: xvi, ertzean) eta, honekin bateratsu, bere bibliotekan agertzen den *Lexicon graecolatinum* (Altuna 1984: 17. zb.), besteak beste.

Gaia behin baino gehiagotan proposatu dudana arren, gogoratu nahi nuke, amaitzeko, Iparraldeko tradizioak Larramendiren bitartez Hegoaldeko literatur euskararen izan zuen eraginak azterkizun erakargarri dirudiela. Larramendiren ekarria zenbaitetan gutxietsi baldin bada, agian alderdi honetan egin da gehienik, *garrantzi* bezalako pitxikeria apur batzuk bakarrik zor dizkiogulakoan. *HH*-aren lexikoaren eta Larramendik hedatutako ideia eta gomendioen gainean eratu zen Hegoaldeko euskara idatzia, eta bataren eta bestearen zutabeetako bat Iparraldeko liburuak —hitz iturri gisa, irakurketa beharrezko gisa— izan ziren. Beharbada hau aztertuez gero ikuspegi historiko handixeagorekin hitz egin ahalko dugu gaurko euskara estandarraz, hainbat aukeratan (eta ez bakarrik Iparraldeko lexikoan; cf. III, § 12.2.1, aldaera hautapenez) Larramendiren bilobak baikara, nahi gabe edota jakin gabe bada ere.

BIBLIOGRAFIA Errorea! Laster-marka definitu gabe.

Laburdurak

- AHA = *Azkue hiztegiaren aurkibidea*, l. g., 1987.
ALM = Lewis / Short 1980.
AxH = Villasante 1973.
BDELC = Corominas 1976.
ConTAV = Sarasola 1983.
DAut = Real Academia Española 1726-1739.
DCECH = Corominas & Pascual 1980-1983.
DELL = Ernout-Meillet 1939.
DLE = Nebrixa 1492.
DLF = Gaffiot 1934.
DRA = Sota *et alii* 1976-1989.
DVEF = Azkue 1905-1906.
DOF = Alibert 1966.
EGH = Larramendi, *Euskara-Gaztelania Hiztegia* (ik. Altuna 1967).
EH = Sarasola 1996.
Erans = HH-aren *Eranskina* (ik. Mitxelena 1970).
HH = Larramendi 1745.
MDELV = Agud & Tovar 1988-.
OEH = *Orotariko Euskal Hiztegia* (ik. Mitxelena).
PT = Mitxelena 1987.
SHLV = Mitxelena 1988.
TAV = Mitxelena 1964.
TLL = *Thesaurus Linguae Latinae*.
VRL = Nebrixa, c. 1495.

Erreferentziak

- Aarsleff, H. *et al.* (arg.), 1987, *Papers in the History of Linguistics. Proceedings of ICHoLS III, Princeton 1984*, (Studies in the History of the Language Sciences, 38), Benjamins, Amsterdam/Philadelphia.
- Abellán, J.L., 1986, *Historia Crítica del Pensamiento Español. II. La Edad de Oro (siglo XVI)*, 2. arg., Espasa-Calpe, Madrid.
- Acero, I., 1985, "El *Diccionario latino-español* y el *Vocabulario español-latino* de Elio Antoni de Nebrija: análisis comparativo", *Anuario de Lingüística* I, 11-21.
- Agud, M. & Mitxelena, K., 1958, ik. Landucci.

- Agud, M. & Tovar, A., 1988-, *Materiales para un Diccionario Etimológico de la Lengua Vasca*. ASJU XXII-1etik aurrera zatika argitaratua.
- Agustín, A., 1587, *Diálogos de Medallas, inscripciones y otras antigüedades*, Tarragona. Arg. faksimilea, Jano, Madrid, 1987.
- Ahlquist, A. (arg.), 1987, *Les premières grammaires des vernaculaires européens*, = HEL IX-1.
- Aizkibel, J. F., 1883 [1855], *Diccionario basco-español titulado Euskeratik Erderara biurtzeco itztegia*, E. Lopez, Tolosa. Arg. faksimilea, Izaro, Donostia, 1984.
- Akesolo, L. (arg.), 1970, *Joannes Etcheberri. Noelak*, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, Donostia.
- (arg.), 1983, *Bernard Gasteluçar. Eguiac [sic] catolicac, salvamendu eternalaren eguiteco necesario direnac*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- , 1985, "Zahar hitz, zuhur hitz: zuhur hitz bilduma berria, Iparraldeko bertsularien lagunek eskaiña", *RIEV* 30, 23-35.
- Al, B.P.F., "L'organisation microstructurelle dans le dictionnaire bilingue", in Hausmann *et al.*, 2828-2837.
- Alberdi, J., 1989, "Ohar batzuk euskal deklinabidearen historiografiarako", *ASJU* XXIII-2, 411-434.
- Aldrete, B.J., [1606], *Del origen y principio de la lengua castellana o romance que oi se usa en España*. L. Nieto-ren arg. faksimilea eta azterketa (2 lib.), Consejo Superior de Investigaciones Científicas, Madrid, 1975.
- Alibert, L., 1966, *Dictionnaire Occitan-Français*, Institut d'Études Occitanes, Toulouse.
- Alonso, A., 1951, "Formación del timbre ciceante en la c, z española", *NRFE* V, 121-172 eta 263-312.
- Alonso, A., *et al.*, 1994, *II Encuentro de Lingüistas y Filólogos de España y México* (Salamanca, 1991), Universidad de Salamanca.
- Alonso, L. & Zurro, E., 1977, *La traducción bíblica: Lingüística y Estilística*, Ediciones Cristiandad, Madrid.
- Altuna, F. (arg.), 1995, "Loiolako Dotrina (XVIII. mendea)", *ASJU* XXIX-2/3, 611-649.
- , 1999, *Juan Bautista Agirre. Erakusaldiak. Antologia*, Klasikoak 86, Donostia.
- Altuna, P., 1967, "Larramendiren iztegi berria", *Euskera* 12, 139-300.
- , 1979, *Etxepareren Hiztegia*, Mensajero, Bilbo.
- , 1982, *Mendibururen idazlan argitaragabeak (edizio kritikoa)*, 2 lib., Euskaltzaindia, Bilbo.
- , 1984, "La auténtica biblioteca de Larramendi" *Muga* 228, 66-81.
- , 1992a, "Aita Larramendiren bizitza", in Lakarra (arg.) 1992a, 3-26.
- , 1992b, "Larramendi euskaldun berritua", in Lakarra (arg.) 1992a, 39-48.
- , 1995, ik. Tartas 1666.
- , 1996a, ik. Tartas 1672.
- , 1996b, "Pedro de Axular (1572?-1644)" in Aulestia (arg.), 177-208.
- Altuna, P. & Lakarra, J.A. (arg.), 1990, *Manuel Larramendi. Euskal testuak*, Andoaingo Udala, etab., Donostia.
- Altzibar, X., 1986, "Euskaldunen nazio eta hizkuntza (1770-1830)", *Euskera* 31-1, 17-45.
- , 1992, "Larramendi eta literatur gipuzkera", in Lakarra (arg.) 1992, 325-360.
- Alvar, M. & Pottier, B., 1983, *Morfología Histórica del Español*, Gredos, Madrid.

- Alvarez de Morales, A., 1985, *La Ilustración y la reforma de la universidad en la España del siglo XVIII*, Pegaso, Madrid.
- Amuriza, X., 1974, "Euskal aurrizkiak", *Euskera* XIX, 9-104.
- Añibarro, P.A., ik. Villasante (arg.) 1963 eta 1969.
- Apecechea, J. (arg.), 1978, *Joakin Lizarraga, Elkanokoa. Doctrina Christioarén Catechimea I. Fede Christioarén gáin*, Euskararen Lekukoak I, Diputación Foral de Navarra, etab., Iruñea.
- Arakistain, J. M., 1746, ik. Fita (arg.) 1880-1881.
- Arana-Goiri, S., *Obras completas de Arana-Goiri'tar Sabin*, (3 lib.), Buenos Aires, 1965.
- Arbelaiz, J.J., 1978, *Las etimologías vascas en la obra de Luis Michelena*, Kardaberaz Bilduma 31, Gasteiz.
- Arejita, A., & Alberdi, M., 1985, "Amilletaren dotrinea", *Euskeraren Iker Atalak* III, 7-68.
- Aresti, G., 1973, "Léxico empleado por Leizarraga de Briscous", *FLV* 13, 61-128.
- Ariza, M. et al. (arg.), 1988, *Actas del I Congreso Internacional de Historia de la Lengua Española* (Cáceres, 1987), Arco, Madrid.
- Arluziaga, M., 1952, "Refranes", *BAP* VIII, 509-511.
- Arretxe, J., 1994, *Basauriko euskara*, Basauriko Udala.
- Arzamendi, J., 1981, "Euskal lexicografiaren historiako hastapenak" in ZZEE, *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak*, Bilbo (163-193).
- , 1985, *Términos vascos en documentos medievales de los ss. XI-XVI*, Bilbo.
- Atutxa, I., 1999, "Joannes Etcheberri Ziburukoa: Noelac eta testu kritika", *Lapurdum* IV, Numéro Spécial 1, 233-312.
- Aulestia, G. (arg.), 1996, *Los Escritores. Hitos de la Literatura Clásica Euskérica*. Sancho el Sabio Fundazioa, Gasteiz.
- Axular, P., [1643], *Guero*, Bordelen, G. Millanges Erregueren Imprimaçaillea baithan. Arg. faksimilea, Euskaltzaindia, 1988. Villasanteren arg., Jakin, Oñati, 1976.
- , d.g., *Guero guero, (...) Bigarren edicionea corrigetua eta emendatua*, Bordelen, G. Millanges Erregueren Imprimaçaillea baithan.
- Ayres-Bennett, W., 1990, "Dangers and Difficulties in Linguistic Historiography: The Case of Gilles Ménage (1613-1692)", in Hüllen (arg.) 1990a, 195-206.
- Azkarate, M., 1989, "Basque Lexicography" in Hausmann et al. (arg.), II, 2371-2375.
- , 1990, *Hitz elkartuak euskaraz*, Mundaiz, Deustuko Unibertsitatea, Donostia.
- , 1991, *Irakaskuntza proiektua*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Filosofi eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea, Euskal Filologia Saila (argitaragabea).
- , 1992, "Larramendiren hitz eraketa", in Lakarra (arg.), 1992a, 207-219.
- , 1994, "Oihenarten lexiko-sorkuntza", in *Oihenarten laugarren mendeurrena* (= *Iker* 8), Euskaltzaindia, Bilbo, 49-77.
- Azkue, R.M., [1905-1906], *Diccionario Vasco-Español-Francés*, (2 lib.), Bilbo. Arg. faksimilea, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 1969.
- , [1923-1925], *Morfología Vasca*, 2. arg., LGEV, Bilbao, 1969.
- , 1934-1935, "Gipuzkera Osotua", *Euskera* XV, berezko zenbakuntzarekin, eta XVI, 151-184.
- , 1935, "Evolución de la lengua vasca", *Euskera* XVI, 61-120.
- , [1945], *Euskalerraren Yakintza*, III, 3. arg., Espasa-Calpe, Madrid, 1989.

- Azorín, D., 1988, "El Suplemento al Tesoro de la Lengua Castellana o Española de Sebastián de Covarrubias y Orozco", in Ariza *et al.* (arg.), 683-693.
- Balduino, A., 1983, *Manuale de filologia italiana*, Seconda edizione, Sansoni, Firenze.
- Bahner, W., 1966, *La lingüística española del siglo de oro. Aportaciones a la conciencia lingüística en la España de los siglos XVI y XVII*, Ed. Ciencia Nueva, Madrid.
- Bandry, G., 1993, "Caracteres de imprenta", in *Gran Larousse Universal*, VII, 2336-2338.
- Barbolani, C., 1990, ik. Valdés 1535.
- Baron, S.W., 1968, *El idioma y la literatura hebreas (Historia Social y religiosa del pueblo judío VII)*, Paidós, Buenos Aires.
- Barrutia, E., 1996, *Bermeo eta Mundakako arrantzaleen Hiztegia*, UEU, Bilbo.
- Bartolomé, B. (arg.), 1995, *Historia de la acción educadora de la Iglesia en España. I. Edades Antigua, Media y Moderna*, Biblioteca de Autores Cristianos, Madrid.
- , 1995a, "Las escuelas de gramática", in Bartolomé (arg.), 631-643.
- , 1995b, "Los textos escolares de gramática", in Bartolomé (arg.), 954-957.
- Bauer, L., [1983], *English Word-formation*, Cambridge Textbooks in Linguistics, University Press, Cambridge, 1993ko berrargitalpena.
- Baum, R., 1989, *Lengua culta, lengua literaria, lengua escrita*, Alfa, Barcelona/Caracas.
- Béjoint, H. & Thoiron, Ph., 1996, *Les dictionnaires bilingues*, Editions Duculot, Louvain-la-Neuve.
- Beola, A. (arg.), 1995, *Manuel Antonio Antia. Aita San Franzisko Asiskoaren Bizitza*, Euskal Editoreen Elkarte, Klasikoak, Donostia.
- Bernabé, A., 1984, "Lingüística histórica y Filología: un diálogo necesario", *REL* 14/2, 291-299.
- Bianako Printzea, c. 1545, *Crónica de los Reyes de Navarra*, J. Yanguas y Miranda-ren arg. (Iruñea, 1843), A. Ubieto Artetak zuzendua, Textos medievales, Valencia, 1971.
- Bilbao, G., 1991, "Larramendiren garaikide bat: zenbait xehetasun Joanes Etxeberri Sarakoaz", *ASJU* XXV-3, 751-768.
- , 1992, "Pouvreuren hiztegi laukoitza", *ASJU* XXVI-2, 341-389.
- Bilbao, J., 1978-1981, *Eusko Bibliographia*, (10 lib.), Auñamendi, San Sebastián.
- Bleuca, A., 1983, *Manual de crítica textual*, Castalia, Madrid.
- , 1991, "Los textos medievales castellanos y sus ediciones", *Romance Philology*, XLV-1, 73-88.
- Bray, L., 1986, "Richelet's *Dictionnaire françois* (1680) as a Source of *La porte des sciences* (1682) and le Roux's *Dictionnaire comique* (1718)", in Hartmann (arg.), 13-22.
- , 1989a, "Consultabilité et lisibilité du dictionnaire: aspect formels", in Hausmann *et al.* (arg.), 135-146.
- , 1989b, "La lexicographie française des origines à Littré", in Hausmann *et al.* (arg.), II, 1788-1818.
- Breva Claramonte, M., 1985, "Prólogo", in Lázaro Carreter 1985, 7-34.
- Bronstein, 1986, "The History of Pronunciation in English-Language Dictionaries", in Hartmann (arg.), 23-33.
- Brunot, F., 1966-1972, *Histoire de la Langue Française*, (13 lib.), Armand Colin, Paris.
- Buceta, E., 1925, "La tendencia a identificar el español con el latín" *Homenaje a Menéndez Pidal*, Madrid, I, 85-108.
- Buridant, C. (arg.), 1998a, *L'étymologie, de l'Antiquité à la Renaissance*, Lexique 14, Presses Universitaires du Septentrion.

- , 1998b, "Les paramètres de l'etymologie médiévale", in Buridant (arg.), 11-56.
- Buzzetti, C., 1986, *La Biblia y sus transformaciones. Historia de las traducciones bíblicas y reflexiones hermenéuticas*, A. Ortiz García, Ed. Verbo Divino, Estella.
- Bynon, Th., 1981 [1977], *Lingüística histórica*, J.L. Melenaren itzulpena, Gredos, Madrid.
- Camino, I., 1997, *Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa*, Nafarroako Gobernua, Hezkuntza eta Kultura Departamentua, Donostia.
- Campbell, L., 1990, "Philological studies and Mayan languages", in Fisiak (arg.), 87-105.
- Camus, B., 1996, "Analogía y Morfología contemporánea", *Dicenda* 14, 69-78.
- Caro Baroja, J., 1979, "Sobre la hipótesis del Vascoiberismo" in *Sobre la Lengua Vasca*, San Sebastián, 11-120.
- , 1981, *Los vascos y el mar*, Donostia.
- Carrasco, P., 1992, "Los criterios etimológicos en la obra lexicográfica del cordobés Francisco del Rosal" in Lorenzo (arg.), 77-94.
- Casares, J., 1992, *Introducción a la Lexicografía Moderna*, CSIC, Madrid.
- Castaños, F., 1963-64, "Apologistas Vascos", *Euskera* VIII-IX, 197-212.
- Catach, N., 1995, "Les dictionnaires de l'Académie française", in Wooldridge/Lancashire (arg.), 143-156.
- Chien, D. & Creamer, Th., 1986, "A Brief History of Chinese Bilingual Lexicography" in Hartmann (arg.), 35-45.
- Cirlot, J.-E., 1985, *Diccionario de símbolos*, 6. arg., Editorial Labor, Barcelona.
- Civil, M., 1989, "Sumerian and Akkadian Lexicography", in Hausmann *et al.* (arg.), II, 1682-1686.
- Colon, G., 1979, "Léxico y lexicografía catalanes", *REL* 9, 441-461.
- & Soberanas, A.-J., 1986, *Panorama de la Lexicografía catalana. De les glosses medievals a Pompeu Fabra*, Enciclopèdia Catalana, Barcelona.
- Cooper, L., 1960a, "Sebastián de Covarrubias: una de las fuentes principales del *Tesoro de las dos lenguas francesa y española* (1616) de César Oudin", *BH* 62/4, 367-397.
- , 1960b, "Girolamo Vittori y Cesar Oudin: un caso de plagio mutuo", *NRFH* 14/1-2, 3-20.
- , 1962, "El *Recueil* de Hornkens y los diccionarios de Palet y de Oudin", *NRFH* 16/3-4, 297-328.
- Corominas, J., 1976, *Breve Diccionario Etimológico de la Lengua Castellana*. Madrid.
- Corominas, J. & Pascual, J.A., 1980-1983, *Diccionario Crítico Etimológico Castellano e Hispánico* (5 lib.), Madrid.
- Coseriu, E., 1972, "Andrés de Poza y las lenguas de Europa", *Studia hispanica in honorem R. Lapesa* III, Gredos, Madrid, 199-217.
- , 1977a [=1972], "Las etimologías de Giambullari", in *Tradición y novedad en la ciencia del lenguaje*, Madrid, 103-116.
- , 1977b [=1967], "L'arbitraire du signe. Sobre la historia tardía de un concepto aristotélico", in *Tradición y novedad en la ciencia del lenguaje*, Madrid, 13-61.
- Cotarelo y Mori, E., 1914, "La fundación de la Academia Española y su primer director D. Juan Manuel F. Pacheco, Marqués de Villena", *BRAE* I, 4-38 eta 89-127.
- Covarrubias, S., [1611], *Tesoro de la Lengua Castellana o Española, según la impresión de 1611, con las adiciones de Benito Remigio Noydens publicadas en la de 1674*. M. de Riquer-en arg., Barcelona, 1943.
- Demonet, M.-L., 1998, "Renaissances étymologiques", in Buridant (arg.) 1998a, 57-67.

- Díaz Esteban, F., 1982, "La Lengua del Paraíso", *Anuario de Filología* 8, 111-135.
- Díaz y Díaz, M.C., 1982, "Introducción general" in S. Isidoro, *Etimologías. Edición bilingüe I*, BAC, Madrid, 1-257.
- Dodgson, 1907, oharra in *Notes and Queries*, 16. zb., martxoak 16.
- Dolezal, F., 1986, "How abstract is the english Dictionary?", in Hartmann (arg.), 47-55.
- Dreyfus, J. & Richaudeau, F., 1990, *Diccionario de la edición y de las artes gráficas*, Pirámide, Madrid.
- Echenique, M. T., 1997, *Estudios lingüísticos vasco-románicos*, Istmo, Madrid.
- Eco, U., 1994, *La búsqueda de la lengua perfecta*, Crítica, Barcelona.
- Elhuyar, 1993, *Hiztegi Entziklopedikoa*, Elhuyar Kultur Elkarte, Usurbil.
- , 1996, *Hiztegia. Euskara-gaztelania. Castellano-vasco*, Elhuyar Kultur Elkarte, Usurbil.
- Elizalde, F. Mtz. de, 1735, *Apezendaco dotrina Christiana uscaras*, Iruñan: alfonso Burguete alargunaren echean. Ik. Salaberri Zaratiegi1994.
- Ernout, A. & Meillet, A., 1939, *Dictionnaire étymologique de la Langue Latine*, C. Klincksieck, Paris.
- Etxabe, B., 1607, *Discursos de la antigüedad de la lengua Cantabra Bascongada*, México. Berrarg. faksim., LGEV, Bilbo, 1970.
- Etxebarria, J.M., 1990, "XVIII eta XIX. gizaldietako sei hiztegi argitaragaberen berri", in E. Pérez & P. Urkizu (arg.), *Patxi Altunari Omenaldia*, Mundaiz, EUTG, Donostia, 63-83.
- , 1994, "Vocabulario Vasco-Francés izeneko XIX. mendeko hiztegia", *Cuadernos de Sección, Hizkuntza eta Literatura* 12, 9-140.
- Etxebarria, T., 1963-1966, "Lexicón del euskera dialectal de Eibar", *Euskera*; berrarg., Euskaltzaindia, Bilbo, 1986.
- Etxeberri, J., [1712]. Ik. Urquijo 1907a.
- Etxegarai, C., 1901, *Apéndice a la obra "Noticias de las cosas memorables de Guipúzcoa"*, Tolosa.
- Etxepare, B., [1545], *Linguae vasconum primitiae*, P. Altunaren arg., Mensajero, Bilbo, 1980.
- Euskaltzaindia, 1987, *Hitz-elkarketa/1*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- , 1991, *Hitz-elkarketa/3*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Fabre, M.-H.-L., 1870, *Dictionnaire français-basque*, Bayonne.
<121> *Observare* = (Observar, advertir). *Observare. Servare* > *Servare, observare* (Observar, guardar). *Exactus. Obediens. Observans* > *Observans* (Observante). *Specula observatoria* = (Observatorio). *Obsessio* = (Obsesión). *Obsessus* = (Obsesso). *Lapis obsidiana* > *Lapis obsidianus* (Obsidiana). *Obsoletus* = (Obsoleto). *Obstaculum* (ETIM). *Inpedimentum. Obex* > *Obstaculum* (Obstáculo). *Obstare* = (Obstar). *Obstans* > *Nihilominus* ([No] obstante). \emptyset > *Viribus, & consuetudinibus non obstantibus* (No obstante, siguiéndose plural). *Obstinatio* = (Obstinación). *Obstinatè. Pertinaciter* > *Obstinatè* (Obstinadamente). *Obstinari* = (Obstinarse). *Obstinatus. Pertinax* > *Obstinatus* (Obstinado). *Obstructio. Obductio* > *Obstructio* (Obstrucción). *Obstruere* = (Obstruir). \emptyset > *Obstructus* (Obstruído). *Obtusangulus* = (Obtusángulo). *Obtusus, a, um* > *Obtusus* (Obtuso). *Obventio* = (Obvención). \emptyset > *Obvenire* (Obvenirle). *Obvius* > *Obvius, a, um* (Obvio). *Objectus, a, um* = (Obyecto). *Ludus sic dictus, ex ansare [sic] depicto* > *Ludus ex ansere depicto* (Oca, juego de la oca). *Peruana radix, sic dicta* > *Peruana quaedam radix* (Oca, una raíz dulce de el Perú). *Pyri species, sic dicta* > *Pyri species quaedam* (Oca, pera). *Bombycis folliculus duplicatis filis contextus* = (Ocal). *Occasio* = (Ocasión). \emptyset > *Occasio opportuna, importuna* (Buena ocasión, mala ocasión). *Ansam arripere, vel Causam quarere* (Tomar ocasión) > *Ansam dare, vel arripere* (Dar o tomar ocasión). *Occasio proxima* = (Ocasión próxima). *Occasio remota* = (Ocasión remota). \emptyset > *Occasionalis* (Ocasional). *Occasione data vel oblata. Per accidens* > *Datâ occasione, occasionaliter* (Ocasionalmente). *Ansam praebère. Occasionem dare, vel causam* > *Ansam praebere, occasionem dare* (Ocasionar). *Causatus* > *Occasione datus* (Ocasionado). *Causam praebens. Provocans* > *Contentionum cupidus* (Ocasionado, provocativo). *Occasus. Occidens* > *Occasus, occidens, tis* (Occaso). *Occidentalis* = (Occidental). *Os occipitis* = (Occipital). *Ferae ocisae [sic] buccinâ signum dare* > *Feram occisam buccinâ canere* (Tañer de occisa). *Oceanus* = (Océano). *Octava pars unciae vel mensurae* > *Octava pars* (Ochava). *In octangulum formatus* = (Ochavado).

<171> *Blatterare, garrire* = (Picotear). *Loquax. Garrulus* > *Garrulus* (Picotero). *Rostratus, cuspidatus* = (Picudo). *Pes, edis* > *Pes, dis* (Pié). *Planta. Truncus* (PIÉ) > *Truncus, arbor* (Pié, tronco u árbol). *Basis. Radix* > *Radix* (Pié de montaña). *Crassamen. Sedimen* > *Sedimentum* (Pie, en los licores). *Pes vinaceus* = (Pié de uba). *Emolumenta altari inservientum* > *Emolumenta ex altari* (Pié de altar). *Fulcrum. Furca* > *Fulcrum* (Pié de amigo). *Pes gallinaceus* = (Pié de gallina). *Scruporum dispositio in modum pedis galli* = (Pié de gallo). *Lagopus* = (Pié de liebre). *Tuis pedibus summissus, vel devolutus* > *Tuos ad pedes devolutus* (A los piés de v.m.). *Ad radices, vel ad basim. Juxta* > *Juxta* (Al pié de un roble, &c.). [*Propè. Ferè* > *Ferè*]. [\emptyset > *Erant ferè quingenti homines*] (Al pié de, casi). *Pedibus* > *Pedes, itis, pedibus* (A pie). *Sicco vestigio* = (A pié enxuto). *Stabiliter. Constanter. Securè* > *Firmo pede* (A pié firme). *Pedibus* > *Supra pedes, stans* (En pié). “Véase Letra” (Al pié de la letra) + *Ad verbum. Exactè* (Al pié de la letra) > *Omnia ad verbum* (Al pié de la letra). *Brevissimè* = (En un pié de tierra). *Absque labore, vel curâ* > *Absque labore* (A pié quedo). *Pediculus. Pedusculus* > *Pedusculus, petiolus* (Piececillo). *Petra* > *Lapis, saxum, petra* (Piedra)². *Grando, inis* > *Grando* (Piedra, granizo). *Cos, otis* > *Cos, cotis* (Piedra de amolar). *Aétites* = (Piedra de el águila). *Lidius lapis* > *Lapis lidius* (Piedra de el toque). *Lapis infernalis, vel causticus* > *Lapis infernalis* (Piedra infernal). *Lapis*

² *saxum* eta *petra*-ren artean ez dago kakorik, baina esanahikideak dira.

philosophicus = (Piedra filosofal). *Pumex, icis* > *Pumex, cis* (Piedra pómez). *Unio. Gemma. Bacca, ae* > *Lapis pretiosus, gemma* (Piedra preciosa). Ø > *Mola asinaria* (Piedra de molino). Ø > *Lapis pilae emittendae destinatus* (Piedra de el saque). *Firmiter. Stabiliter. Durè* > *Lapide, & caemento, firmiter* (A piedra y lodo). *Pellis* = (Piel). *Pelagus. Gurges* > *Pelagus* (Piélago). *Pabulum. Pastus* > *Pabulum* (Pienso). *Perna* (ETIM). *Crus, uris* > *Crus, uris* (Pierna). *Cora carnea* > *Coxa* (Pierna de carnero, &c.). *Pars oblonga* = (Pierna de sábana). *Quietè. In otio. Placidè* > *Laxè, ac placidè* (A pierna suelta). *Portio. Pars* > *Pars, portio* (Pieza, pedazo). *Nummus, vel Assis* > *Nummus* (Pieza de a ocho). *Vas, sis. Supellex, tilis* (PIEZA) > *Vas aureum, &c.* (Pieza de oro, &c.). *Tela* = (Pieza de paño). *Latrunculi* = (Piezas en el juego de damas). *Habitaculum. Cubiculum* > *Habitaculum* (Pieza, sala). *Tormentum curule, vel bellicum* > *Tormentum bellicum* (Pieza de artillería).

<221> *Humoris raptus* > *Raptus, us* (Rapto a la cabeza). *Raptus* = (Rapto de muger). *Raptor* = (Raptor de muger). *Ludus quo pila reticulo impellitur* > *Ludus pilae reticulis exceptae, ac redditae* (Raqueta, juego). *Reticulum ad pilae ludum* = (Raqueta, la pala). *Rarò* = (Raramente). *Rarefactio* = (Rarefacción). *Rarefieri. Rarescere* > *Rarefieri* (Rarefacerse). *Rarefactus* = (Rarefacto). *Raritas. Raritudò* > *Raritas* (Raridad, rareza). *Raritas* = (Raridad, extrañeza). *Rarus* = (Raro, ralo). *Rarus* = (Raro, extraordinario). *Plana superficies, vel aqua. Planè plenus* > *AEqualis* (Ras, igualdad en la superficie). Ø > *AEquè* (Ras con ras). *Levi tactu* > *Juxta* (Ras con ras, junto, pegante). *Hostimentum* = (Rasadura). *Planè omninò* > *Planè* (Rasamente). *Hostire. Radío adaequare* > *Hostire* (Rasar). *Hostitus. Levitèr tactus* > *Hostitus* (Rasado). *Radula. Scalptorium* > *Radula* (Rascador, instrumento). *Calamister scalptorius* > *Calamistrum scalptorium* (Rascador, adorno). *Scalptura. Scalptus. Unguis perstrictio* > *Scalptura* (Rascadura). *Scalpere, scabere* = (Rascar). Ø > *Scabere* (Rascar la sarna). Ø > *Prurigo, pruritus* (Gana de rascarse así). Ø > *Plagam, ictum accepit* (Ya lleva qué rascar). *Iocum appetere* (Tener gana de rasco) > *Jocari appetis* (Tienes gana de rasco). *Hostiorium [sic]* > *Hostorium* (Rasero). *AEqualitas. Aequitas* (RASERO) > *Omnes eodem jure, eodem pede* (A todos por un rasero). *Discindere, scindere* = (Rasgar, romper). *Scissus* > *Discissus, scissus* (Rasgado). *Plenâ manu fides pulsare* = (Rasgar, rasguear). Ø > *Plenâ manu pulsatus* (Rasgado, rasgueado). *Praegrande os* (Boca rasgada) + *Patuli oculi, longique* (Ojos rasgados) > *Apertus* (Ojos rasgados, boca rasgada). *Linealis ductus calami, vel liberior* > *Ductus calami liberior* (Rasgo de letra). *Scissura* > *Scissio, scissura* (Rasgón). *Liberiùs ductus calami effingere* > *Calami ductus liberiores formare* (Rasguear). *Liberiùs ductus, a, um* > *Liberius ductus* (Rasgueado).

<271> Ø > *Salvatus* (Salvado, salvo así). *Re intacta, relicto, ipsam superare, vel praeterire* > *Rem intactam praeterire* (Salvar, passar por encima). *Salutem aeternam assequi, vel adipisci* > *Salvari, salutem aeternam consequi* (Salvarse, al Cielo). *Salvum fieri. Incolumen evadere, vel servari* > *Incolumen evadere* (Salvarse de algún riesgo). *Salvus, a, um* = (Salvo, salvado). *In tutum. Ex tutò. Tutò* (En salvo) > *In locum tutum se recipere* (Ponerse en salvo). *Tutò. Securè. Certè. Impunè* > *Tutò* (A su salvo). *Exceptó. Seclusò. Praeter* (SALVO) > *Praeter unum omnes* (Salvo uno, todos los demás). "Voz latina" > *Salve* (Salve). Ø > *Salve Regina* (Salve, oración). "Es voz puramente latina" > *Salvia, ae* (Salvia). *Patella plana, & circularis ad sustinenda pocula* > *Discus ad pocula ferenda* (Salvilla). *Fides publica* = (Salvoconducto). *Sagum infame, quò notantur qui à fide defecerunt* > *Sagum infame decussatâ cruce rubens* (Sambenito). "Es voz Latina" > *Sambuca* (Sambuca). Ø > *Sanctus* (San). *Sanabilis* = (Sanable). *Panchestrum remedium, vel medicamen* > *Medicamen cuicumque malo* (Sánalo todo). *Bono animo. Mente sana. Cordatè* > *Bono animo, sanâ mente* (Sanamente). *Sanare, sanum facere* = (Sanar). *Sanum fieri. Convalescere. Consanescere* > *Sanari, sanum fieri* (Sanar, cobrar la salud). *Malè, vel levitèr aliquid coquere, vel frigere* > *Malè coquere* (Sancochar). *Malè coctus, vel frixus* > *Malè coctus* (Sancochado). *Sandalium, ii* > *Sandalium, solea, ae* (Sandalia). *Menta sarracénica* = (Sándalo, yerba). *Santalum indicum* = (Sándalo, árbol de Indias). *Sandaracha* = (Sandaraca). *Stoliditas. Insania, ae* > *Insania* (Sandez). Ø > *Aquosus pepo* (Sandía). *Insanus* (ETIM). *Stolidus* > *Insanus* (Sandío). *Satisdatio, cautio* = (Saneamiento). *Satisdare, vel cautionem praebere* > *Satisdare, cautionem praestare* (Sanear). *Satisdatus. Cautione munitus. Reparatus* > *Satisdatus* (Saneado). *Emissarium. Aquaellcium, i* > *Emissarium* (Sangradera). *Phlebotomus, i* > *Phlebotomus* (Sangrador). *Pars brachii, qua vena inciditur, vel sanguis emittitur* > *Pars brachii, qua vena inciditur* (Sangradora). *Venam incidere, aperire* > *Venam incidere* (Sangrar, abrir la vena). *Incisionem venae passus*³ > *Incisionem venae passus* (Sangrado así). *Aquam ab amne derivare, per emissarium accipere* > *Aquam per incilia derivare* (Sangrar algún río). *Sanies. Sanguis aquosus*

³ Ordaina sangrar aditzaren adiera guztiak biltzen dituen sangrado sarrera bakarrean agertzen da.

> *Sanguis aquosus, lividus* (Sangraza). *Sanguis* > *Sanguis, inis* (Sangre). *Sanguinis fluxus, vel profluvium* > *Sanguinis fluxus* (Sangre lluvia). *Sedato animo, vel ira* > *Deferente irâ, sedato animo* (A sangre fría). *Igne, ferroque* = (A sangre y fuego). *Venae incisio, vel sanguinis emissio* > *Venae incisio* (Sangría).

<321> *Tremere* = (Temblar). *Pensile monile tremens* > *Monile tremens* (Tembleque). *Tremiscere. Nutare* > *Tremere, contremiscere* (Temblequear). *Tremiscens* > *Tremens* (Temblón). *Tremor* = (Temblor). *Timere* (ETIM). *Formidare* > *Timere* (Temer). *Omnia audet, consilio praeceps est* = (Ni teme, ni debe). *Timens* = (Temiente). *Veritus. Formidabilis* > *Formidandus* (Temido). *Audacter. Temerè* > *Temerè* (Temerariamente). *Temerarius* (ETIM). *Consilio praeceps. Audax* > *Temerarius* (Temerario). *Temeritas* = (Temeridad). *Propiae virtutis blatero. Supercilio, & incessu timidus* > *Propiae virtutis blatero* (Temerón). *Timidè. Trepidè* > *Timidè* (Temerosamente). *Metuendus. Formidandus* > *Metuendus* (Temeroso, que causa miedo). *Timidus* = (Temeroso, medroso). *Metuendus. Formidabilis* > *Metuendus* (Temible). *Timor* = (Temor). *Suini corporis pars dimidia trunca, vel tympanum* > *Suini corporis dimidium* (Témpano). *Tympanum* = (Témpano, en el pandero). *Tympanum cuppae* = (Témpanos de cuba). *Temperamentum* = (Temperamento). *Temperies* = (Temperie). *Temperies. Temperatura* > *Temperies* (Tempero). *Tempestas, procella, ae* > *Tempestas, procella* (Tempestad). *Dura vel gravia verba* > *Dura verba* (Tempestades). *Tempestuosus* (ETIM). *Procellosus* > *Procellosus* (Tempestuoso). *Temperatio pictorica* = (Templa de pintores). *Temperatè. Parcè. Moderatè* > *Temperatè, moderatè* (Templadamente). *Temperator* > *Temperator, moderator* (Templador de afectos). *Clavicula ad lyrae consonantias componendas* > *Clavicula pro fidibus lyrae componendis* (Templador de harpa). *Temperatio* = (Templadura). *Temperantia* = (Templanza, virtud). *Temperantia. Moderatio* > *Moderatio* (Templanza, moderación). *Temperare* (ETIM). *Moderare* (TEMPLAR) > *Temperare* (Templar apetitos, &c.)⁴. *Temperatus. Moderatus* > *Temperatus* (Templado). *Temperare. Sedare* > *Sedare* (Templar, moderar). *Temperare* = (Templar metales). *Ad concordiam, vel consonantiam adducere, componere* > *Fides ad concertum componere* (Templar instrumentos). *Modum habere. Moderari. Sedari* > *Sibi in aliquo temperare* (Templarse). *Templarii* = (Templarios). *Temperies* = (Temple, sazón). *Temperatura* = (Temple de humores, metales, &c.). *Indolis, vel genii qualitas, aut modus* (TEMPLE) > *Solutus, atque hilari animo est* (Está de buen temple) + *Male affectus est* (Está de mal temple). *Templum* = (Templo). *Dies quatuor temporum* > *Quatuor tempora* (Temporas).

<371> *Vernalis* (ETIM). *Vernus, a, um* > *Vernus, a, um* (Vernal). "Dixose quasi *Vera*-icon, que significa verdadera imagen" > *Veronica, vera icon* (Veronica). *Verres* > *Verres, is* (Verraco). *Dentibus infrendere* = (Verraquear). *Subatio, onis* > *Subatio* (Verriondez). *Subans, antis* > *Subans, tis* (Verriondo). *Verruca, ae* > *Verruca* (Verruga). *Verrucosus, a, um* > *Verrucosus* (Verruguento). *Versatus. Exercitatus* > *Exercitatus* (Versado). *Versatilis* = (Versátil). *Locus in quo cantus libri collocantur* > *Locus in quo libri cantus collocantur* (Versícula). *Versicularius* = (Versiculario). *Versiculus* = (Versículo). *Versificare* (ETIM) > *Versus, carmina facere, condere* (Versificar). *Versificator* = (Versista). *Versus, carmen* = (Verso). "Es voz Latina" > *Vertebra* (Vértebra). *Locus quo aliquid effunditur* > *Locus quo aqua effunditur* (Vertedero). *Situla nautica* = (Vertedor). *Globi lignei versatiles* = (Vertellos). *Vertere* (ETIM). *Fundere. Effundere* > *Fundere, effundere* (Verter). *Fussus* [sic]. *Effussus* > *Fusus* (Vertido). *Fluentum. Fluens* > *Aquarum divortia, fluens* (Vertiente, lo que vierte). *Montis, vel collis declive. Alveus, ei* > *Declive montis, &c.* (Vertiente, sitio por donde corre el agua). *Vertibilitas* = (Vertibilidad). *Vertibilis* = (Vertible). *Verticalis* = (Vertical). *Vertex* > *Vertex, icis* (Vértice). *Vesperus* = (Vespero). *Vespertinus, a, um* > *Vespertinus* (Vespertino). *Vestitus* (ETIM). *Vestis* > *Vestis, vestitus* (Vestido). *Vestimentum* > *Indumentum* (Vestidura). *Vestigium* = (Vestigio). *Spectrum horridum* = (Vestiglo). *Vestire* (ETIM). *Induere* = (Vestir). *Quod integram vestem componit, vel complet* > *Vestimenta* (Vestuario, vestidos). *Vestiarium, ii* > *Vestiarium* (Vestuario, donde se viste). *Venis distinctus* = (Vetado). *Veteranus* = (Veterano). *Vexatio* = (Vexación). *Objurgatio satyrica, cavillatio* = (Vexamen). *Vexare* = (Vexar). *Vexatus. Satyricè objurgatus* > *Vexatus* (Vexado). *Vesica, ae* > *Vesica* (Vexiga). *Vesica, vel vesicula* > *Vesicula* (Vexiga, la que se levanta en el cutis). *Splenium ad vesicas in cute excitandas* = (Vexigatorio). *Inflatae vesicae ictus, vel percussio* > *Inflatae vexicae* [sic] *ictus* (Vexigazo).

⁴ Dakusgunez, ez dira zeharo sarrera berak, Larramendik *templar* aditzaren adieren artean egindako berregituraketatik. Antzera gertatzen da ondoan demaigun partizipioarekin.

5. ERANSKINA — *Erans*-eko hitzak

Ahalegina egin dut gaurko erara ezartzen Larramendik jasotako hitzak, grafikoki zein morfologikoki (beharrezkoa zenean hitz erroak eta aditzen partizipioak berreraikiaz, besteak beste), eta itxura berri honen arabera sailkatuak agertzen dira ondoko zerrendan. *Erans*-ak aurkezten dituen arazoetatik asko berezi-bereziak dira, proportzioan hiztegiaren gorputzekoak bainoago agian. Zeuden-zeudenean uztea erosoago zen inondik ere. Alabaina, beste asko, gehienak beharbada, hartan gero begi-aurrean izango ditugun berak dira. Hiztegiko hitzekin egin asmo dudan bera honetan saiatzea bidezkoena ez eze praktikoena zen, alde batetik. Bestetik —eta batez ere—, testu baten berreraiketaren jomuga eta, beraz, bete-betean dagokigun eginbeharra dela deritzat.

Sarrera hitzaren ondoren, agertzen den *Erans*-eko sarrera(k) osorik kopiatu d(ir)a. Azpian, Mitxelenak edota Lakarrak egindako iruzkina eta, hala dagokionean, neronek erantsi ahal izan ditudanak; argiren bat egin zezaketenean, *OEH*-aren xehetasunak ere erabili dira, une honetan kalean den XI. liburukira (KOR-MAJ) arte. Axularren aipamenak eskuarki bigarren argitalpenetik (*GGero*-tik) egin ditut, honen eta lehenaren orrialde zenbakiak bat ez datozenean bakarrik (eta hau gutxitan gertatzen da) *princeps*-arena (*Gero*-arena) erantsiaz, aurkikuntza errazteko. Jauzia *Gero*-n zenbakuntza huts bat (438-439-440-439-440-441) dagoelako gertatzen da: *GGero*-k zuzentzen du eta, hortaz, handik aurrera beti bi orrialdeko aldea dago.

1. AHAMEN: "Bocado, *ahamena*" 100.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 67): ...ez du atseguinic hartcen, iaten hastean, lehenbiccico pochinean eta *ahamenean* (*GGero* 492 [*Gero* 490]).

2. *AHARTARA [ahatar]: "Bocanada, sorbo,⁵ *ahartara*" 99.

⁵ Jat. *sorbo* letra etzanaz.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 67): *Bertce hegaztinec edateco curca gustietan, ahartara baccotchean, burua goiti ailtchatcen dute* (GGero 342), nondik ziurrenik *curca* (ik. **kurea*) ere hartu baitzuen. Beraz, *ahatara*-ren ordezeko hutsa ez da Larramendirena, bigarren argitalpenarena baizik.

3. ? ABARESKU [abarresku?]: "Roso y belloso, *abarescu*" 587.

RS-ren zati galdutik (Mitxelena 1970: 122): ziurrenik *abarresku* ulertu behar da, eta RS-n <rr>-ren ordezeko <r> grafia ez da ezezaguna; gainera, baliteke mailegu izatea, eta zehazkiago gazt. eta port. *a barrisco*-ren ahaidea (DAut-ek "Indistinta y desordenadamente..." azaltzen du, s.v. *abarisco*). Cf. DAut s.v. *roso*: "Roso y belloso, [...] todo, sin excepción ni distinción alguna en la materia de que se habla".

4. ABENIKOA: "Avenencia, *avenicoa*" 83.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 65). Hiru agerraldi ditu, denak orrialde berean; ulerterrazena dirudiena baino ez dut aipatuko: *...baldin hasserre direnen eta haucitan dabilçanen hartean [sic] ongunderic eta auenicoaric eguin nahi baduçu...* (GGero 302).

5. HABUIN: "Espuma, *habuina*, *zarrapoa*" 252.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 86): *...nola ahotic habuina darion* (GGero 280). Ez dago, beraz, Larramendiren sistemaren arabera oso bitxia izango litzatekeen <iñ> : <in> aldaketarik, Gero-ko *habuiña* (ibid.) erabiliaz ematen zuen bezala. HH-an ere: "Espuma, *aparra*, *bitsa*, *pitsa*, *abuina*, *haguna*".

6. ADISKIDE MAMI: "Amigo íntimo, *adisquide mamia*" 45.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 59): *...bere adisquide mamiataric bat* (GGero 394). Bada oraindik bigarren agerraldi bat: *...adisquide mami batequin beçala...* (ib. 325).

7. *AFANTU [asantu]: "Muro, *afantua*" 436.

Harrietengandik (Lakarra 1991: 223-224): "mur, *afantua*, *pareta*, *murrua*" (FE 388). Mitxelenak (1970: 105) igarri bezala, <í> eta <f>-ren arteko nahasketaz sortutako hutsa da. Lakarraren ustez, errata jadanik Harrietengan zegoen; nago, ordea, han <í> irakurri behar dela, <f>-ak goitik zabalagoak direlako, eta hutsa, beraz, Larramendirena dela.

8. AIEN: "Pámpano, *ayena*" 481.

Harrietengandik (Lakarra 1991: 228): "Pampre, *aïena*" (FE 395).

9. AIHERKUNDE: "Aversión, odio, *errá*, *aihercunde*" 85.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 65): *Emaztètaric beguiratu nahi duenac, beguiratu behar du halaber emaztey behatcetic, behintçat bai, aihercunde gaixtoz...* (GGero 393). Agerraldi hobea erabil dezakegu orain, Erans-eko sarrerako bi hitzak elkarrekin agertzen baitira: *faltari bai, baiña faltaren iabeari herraric eta aihercunderic eduqui gabe* (GGero 278). Ohartu, gainera, beste adibidearen bidez Larramendik emandako itzulpena nekez lor zitekeela.

10. AIHERTU: "Inclinarse, *aihertu*" 336.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 95): *Baina guztiarequin ere aihertcen naiz erraitera, eta erraitendut, parabisuko bidea errazago, plaun ago eta placent ago dela...* (GGero 483 [Gero 481]). HH-an ere: "Inclinarse de propensión y afecto, *jarquitu*, *griñatu*, *lisnatu*, *ecarraitu*, *jayeratu*, *jaiguratu*, *ayertu*".

11. AIERU: "Seña, amago, *ayerua*" 602.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 124). Lakarrak (1991: 247-248) Harriet zeharo baztertu du, beste adiera batean jaso baitzuen: "sopçon, *aierua, suspitcha*" (FE 426). Orotara sei agerraldi ditu; Mitxelenak eskainia aski argia da berez: "...*hasi ceizquidan niri neroni aditceira* [sic] *emaiten, lehenbician kheinuz eta ayerus* [sic], *eta guero azquenean, clarqui eta aguerriz...* (GGero 15), baina agian interesgarriagoa da latinezko itzulpena daraman beste hau: "...*çure hitz simpleari eta bakhunari, eta ere kheinuari eta aieruari ere, sinheste guehiago eman lequidicaiola...* "solo nutu" (ib. 265). Azken honetan <i> darabil, bi grafiak baliatu baitzituen Axularrek (ik. <y> ib. 22, 127 eta <i> 287, 403); halaz ere, ezin daiteke argudiotzat erabili. HH-an ere, itzulpen doi bat ezberdin batekin: "Guiñada, guiño, *queñua, queñada, ayerua*".

12. AISIA: "Ociosidad, *aisia*" 464.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 109): *Letra gabeco aisia, deus eztaquienaren alferqueria...* "Otium sine litteris..." (GGero 42). Lakarraren ustez (1991: 249)⁶, berriz, ezin daiteke Harrieten lekukotasuna zeharo alde bat utzi: "repos, *aisia, facegua*" eta "il est en repos, *aisian da, faceguan da*" (FE 417), Axularrena "zuzeneko iturria izateko egiantz handia badu ere". Laburpenean (1993: 235) Harrieten alde makurtzen da. Haatik, honetatik balitz, "reposo" itzulpena esperoko genuke; arrazoi beragatik Axularren pasarte oso esanguratsua da, latinezko itzulpenagatik hain zuzen, eta hura "otium" delako.

13. AISIT: "Facil, *aisit*" 267.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 88). Hiru agerraldi ditu, eta onena Mitxelenak lehen lekuan emandakoari deritzat: *eta cein placent, aisit eta erraz idurituco çayen laincoaren cerbitçatcea...* (GGero 485 [Gero 483]), *erraz-en* aldean agertzen baita. Oso antzekoa da 492koa (Gero 490); ik. *ib.* 500 (Gero 498) ere.

14. *AIUBI [aiuibì]: "Alarido, *ayubia*" 28.

Landuccirengandik (Mitxelena 1970: 58), aldaketa (errata?) txiki batekin bada ere: "alarido, *ayuibia*" (230v); cf. "alaridos, dar, *ayuiby*" (*ibid.*) eta "clamor, gran boz, *deadarr andia, ayuiuia*" (247r)⁷.

15. HAIZUGOA: "Permisión, *haizugoa, cilleguigoa*" 510.

Harrietengandik, sarrerakidea bezala eta leku beretik (Lakarra 1991: 240): "permission, *haiçugoa, cilheguigoa*" (FE 400).

16. AKAMELU: "Yezgo, *acamelua*" 688.

Iturri ezezagunekoa, agian Iparraldekoa. Bigarren lekukotasuna da, Pouvreauren hiztegiaren ondoren (OEH s.v. *akamailu*). Halaz ere, Larramendik ez ezagutzeaz gainera, *akamaillu* aldaera dakar (Mitxelena 1970: 133). Iturriaz dena dela, aldaera bat baino gehiago duen hitza da (zeina duen edo izan duen bizitasunaz mintzo den) eta,

⁶ Egiten duen egiaztapena, "Soilik Pouv[reau] eta Urterengan ematen dute OEH-koek aurretik" alegia, nahasteren bat da.

⁷ OEH-ak bereizi ditu inolako zalantzarik gabe bat diren *aiui* eta *aihubi*. Lehenean, non mendebaldeko lekukotasunak batzen dituen, Landucciren lekukotasuna *aibibi* itxuran interpretatu du, zalantza bada ere, baina etorkia (*aiui*, etab.) kontuan hartuta, ez dut ikusten *aiuibì*, dagoen-dagoenean, irakurtzeko arazorik. Bigarrean, berriz, ekialdeko datuak batu ditu, baina ez dago bakar bat ere Larramendiren honen zordun argitzat har ez daitekeenik; besteak beste, *aihubi* hiatoa apurtzeko konbentzio bat besterik ez da, eta Hiribarrenek *aiubè*-n azken bokala gaizki ondorioztatu zuen. Nolanahi ere, gakoa falta zuen, ez baitu ez batean ez bestean Larramendiren lekukotasuna jasotzen.

ezagutzen dugun neurrian, ekialdekoa,⁸ gipuzkeraz *andura* eta aldaerak (cf. *OEH*) nagusi diren bitartean; cf. *HH*: "Yezgo, planta, la que es mayor, *mausá, osillapicoa, andurá*".

17. AKOMENDAGARRI: "Pañales, *acomendagarriac, seilac*" 483.

Iturri ezezagunekoa. Ez dago beste lekukotasunik (*OEH*)⁹. Mitxelenak (1970: 111) gazt. zah. *acomendar* iradokitzen du erkaketarako, eta honen esanahiaren arabera ("babestu, lagundu") oso egiantzeko proposamena dugu.

18. AKOTATU: "Citar, *acotatu*" 137.

Iturri ezezagunekoa. Mitxelenak (1970: 72) bizkaierazkoa izan litekeela iradoki zuen, errom. *acotado* Erdi Aroan Euskal Herrian, baina batez ere Bizkaian, sarri aurkitzen baita. Beranduagoko lan batean (1974: 388) iritzia aldatu zuen, *acotatu* (eta *acotamendu* eratorria) Leizarragarengan lekukotzen delako. Honi jarraiki, *OEH*-an Leizarragaren pasartea aipatzen da: *guk ditugu aborritzen Aitasaindu erraiten denaren arauetzko sinagogák eta kongregazioneak, zeren hetarik lainkoaren egiazko hitza banitu eta akotatu izan baita (Ins G 6r)*, eta honako iruzkin hau eskaintzen: "Coincide, por lo tanto, con el valor que en *FDA* se le asigna: lo mismo que *banitu* es el normal *acotado* de que se habla en disposiciones legales, sobre todo de Vizcaya, en la Baja Edad Media..." (esanahia 'legetik kanpo ezarri' da). Azalpenok hitzaren hedadura argitzen digute, baina aldi berean *Erans*-eko lekukotasunaren iturria ilunagotzen: Leizarragaren pasartea ezin aintzat har daiteke, esanahiaren aldetik oso zaila izateaz gainera, Larramendik ez zuelako Testamentu aurreko zatitik eskaintza baino ezagutu. *HH*-an beste *akotatu* bat agertzen da, esanahiaz ("morder") eta etorkiaz guztiz beste jatorri batekoa.

19. ALHADURA: "Reprehensión, *alhadura*" 576.

Axularrengandik, zehaztasunik gabe itzulia (Mitxelena 1970: 121): *Edo behinçat badute bere baithan barrena atsecabe bat, concientciaren alhadura eta minberadura handi bat (GGero 104)*. Badago bigarren agerraldi bat aski antzekoa: *...concientciaren accusamendua, autsiquia, alhadura, chimicoa, erançutea (ib. 596 [Gero 594])*.

20. *ALAIIO [alako]: "Semejante, *alayo*" 600.

Mitxelenaren ustez (1970: 123), nekez izan liteke (*h*)*alako*-ren ordezeko hutsa; <c> : <y> aldaketa bitxia —ia ezinezkoa— zeukan gogoan, jakina. Lakarrak (1991: 224) erakutsi du badela hutsa, ez Larramendirena, iturriarena —Harrietena— baizik: "*halaioa*, pareil, semblable" (*EF* 299). <c>-ren ordezeko <i> hutsak erraza dirudi, baldin eta <c> hori gutxi borobilduta bazegoen Harrieten eskuzko testuan; era honetara Lakarrak proposatutako azalpen korapilatsuagoa (<c> : <e> : <i>) errazten delakoan nago, hutsa inolako zalantzarik gabe inprimatzailearena izan baitzen, Harrieten zuzenketa ("Fautes à corriger dans les dictionnaires" atalean, *Gram* 511n) lekuko. Larramendik, berriz, hutsaz eta zuzenketa erreparatu gabe, hitza hartu eta bere grafi-sisteman barneratu zuen, bokal arteko <i> <y> bihurtuaz.

21. HALAKATU: "Assí, *hunela*. Ponerse assí, *halacatu*" 69.

⁸ Halaz ere, erabat asketzat jo daitezkeen lekukotasun guztiak XX. mendekoak dira: tarte handiegia, agian, deus ziurrik ezartzeko. Esan dezadan, bukatzeko, *akamelu* Azkuek (L,S)-tzat dakarrela (s.v. *akamailu*), *OEH*-ak ez badio ere.

⁹ "Sg. Lar *Sup*" dio, baina ez dago inolako arrazoirik lekukotasuna zalantzan jartzeko.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 63-64). Eskaintzen duen adibidea honako hau da: *ceren bere faltaz, treballatu nahi gabez, eta ethorquiçunera ez behatuz halacatu baitira* (Gero 44), baina GGero-n (*ibid.*) *halocatu* irakurtzen da; beraz, agian agerlekua bestean ezarri beharko genuke: *Baina miresteco da nola [...] etçaren guztiarequin ere cençatcen, eta ez berriz halacatcetic beguiratcen* (GGero 408).

22. ALAPIDE: "Camino libre, *alapidea*. Temple de camino, *bidaguiroa*" 117.

Axularrengandik, gaizki itzulia (Mitxelena 1970: 69): *Ardia bere laguney azquentcen çaienean, halaco moldez bide onetic, eta bere ardi lagunen alhapidetic aldaratcen, eta hastantcen da, non guero ago... errebelatcen ago baita* (GGero 78); badirudi *bide*-k eragin duela irakurketa txarra.¹⁰

23. ALHATU: "Reprehender, *alhatu*" 577.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 121). Itzulpena ez da zuzen-zuzena, baina *alhadura*-ri emandakoari dagokio erabat. Dauden adibideak, bat izan ezik (ik. behean *bere buruari alhaturik*) denak dira egokiak eta antzerakoak; eman dezagun, beraz, Mitxelenak emana: *...beccatu hartçaz orhoitcen çara arratsean, alhatcen çaitçu cuere concientcia* (GGero 106). Hau ez da *alhatu* ulertzeko egin zuen saio bakarra; cf. HH: "Despecharse, *gogaitu, alatu*" eta ondoko oharrean: "Con el verbo *alatu* se hazen las inflexiones assí. *alazten zait, zatzu, zayo, &c.* me despecho...".

24. (BERE BURUARI) ALHATURIC: "Cansado¹¹ de sí mismo, *bere buruari alhaturic*" 119.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 69-70): *...eta bere buruari alhaturic, ethorquiçunaz gogoetan iartcen da* (GGero 97-98).

25. ALAZAGIN: "Comezón, *alazaguiña, atzguillea*" 151.

Iturri erabat ezezagunekoa. Ez dago beste lekukotasunik (OEH). Nolanahi ere, -a mugatzailea dela¹² eta bukaera -gin izan daitekeela erants daiteke, *atzgile*-an dagoen -gile atzizkiaren kidea. Ostera, aurreko *alaza*-ri zer ote den ezin igerri diot.

26. ALBALDINBERE: "Cierto, de cierto, *baldimba, balimba, albaldimbere*" 136.

Iturri ezezagunekoa, beharbada gipuzkerazkoa. Ez dago lehenagoko lekukotasunik (OEH, s.v. *baldinbere*).¹³ Cf. HH: "(Ya se) ve, claro está, *baldinbere, albaldinbere*" eta batez ere *Corografía* 183: "¡Guipuzcoanos todos, caballeros hijosdalgo! ¡*Baldin bere!* ¿Cómo quiere Usted que yo falte a don fulano de quien soy dependiente?", zeinak orduko gipuzkeraz ohikoa zela iradokitzen digun.¹⁴ Cf. gainera Andoaingo sermoian (Altuna & Lakarra 1990: 75): *Atocea, amatzen dezu, maite dezu urlia? Albaldin bere! bai, maite det...*

27. ALBENIA: "Orla, *albenia*" 473.

¹⁰ Gainera dakioke *aldaratu* eta batez ere *hastandu* ere ez zituela ondo ezagutzen (ik. biak 11. eranskinean).

¹¹ Mitxelenak *Cansarse*.

¹² OEH-ak dagoen-dagoenean uzten badu ere.

¹³ Ez du *Erans*-eko lekukotasuna jasotzen.

¹⁴ Mitxelenak aipatzen duen lekukotasun bakarra, Mendibururen *Ez baldin bere!* "absit", hala nola OEH-k jasotzen dituen honexen beste agerraldiak (*Bai, baldin-bere* barne) ere honen alde mintzo dira, erabat aske direla baitirudi.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 109-110): *Nolaco baita cheiten*¹⁵ *den ehuna eta oihala, halaco içanen da oihalaren albenia, eta bazterra ere* (GGero 215). Cf. HH: "Orla, ertza, albenia", esanahi beretsuko agerraldi gehiagoren artean.

28. ALDAKA: "Lado, *aldaca*" 353.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 97). Berak ematen duen adibidea argiena dateke, genitiboa baitarama: *...coleraren irunguitceco*¹⁶, *on da adisquide baten, Mecenas baten aldacan içaita* (GGero 317); ik., beti ere NON kasuan jokatua, *ib.* 419 eta 561 (Gero 559) ere. HH-an agertzen den *aldaka* oso bestelakoa da: "Haz, manajo de trigo, leña, &c."

29. ALDARTE: "Lunas, *aldiac, aldarateac*; y esta voz última, *lúcidos intervalos*" 385.

Axularrengandik izan liteke (Mitxelena 1970: 100-101): *Ceren laincoa baithan ezta, ez-orenic, eta ezaldarte*¹⁷ *gaitcic, munduco iendetan ohi den beçala* (GGero 462 [Gero 460]). Azalpen hoberik ez izan arren, ezin gaitu asebate (Mitxelena bera bezala): *aldarte* edo *aldarte gaitza* itxarongo genuke edo, asko jota, *aldarte ona* eta *aldarte gaitza*. Halaz ere, nabarmena denez, Larramendik berak egin zitzakeen inferentzia hauek guztiak, eta bertatik *aldarteak* atera, ondo ezagutzen bide zuen *aldiac*-en eredura. Alabaina, *aldarte gaitz*-etik nola igarotzen da "lúcidos intervalos"-era, hots, ia-ia kontrakora?

30. ALDEKOR: "Parcial, *aldecor*" 487.

Harrietengandik (Lakarra 1991: 228): "partial, *aldecor*", "il est partial, *aldecor da*" (FE 396).

31. ALDI: "Lunas, *aldiac, aldarateac*; y esta voz última, *lucidos intervalos*" 385.

Iturri ezezagunekoa, agian Larramendiren euskarakoa. Mitxelenak (1970: 100-101) ez zuen ezer berezirik esan hitz honetaz, eta OEH-ak ez du adiera bereizten, bilaketa gaitza eginaz. HH-an ere: "Lunas, tener lunas, *aldiac izatea, euquitzea*".

32. ALDION [aldi on]: "Sazón, *aldiona*" 595.

RS-tik (Mitxelena 1970: 123): *Quibel ecachari, bular aldionari* "...pecho a la buena sazón" (239), nondik *quibel* ere hartu baitzuen.

33. ALIAKA: "Passatiempo, *aliaca*" 496.

Harrietengandik (Lakarra 1991: 231-232)¹⁸: "*aliaqua, passetemps*" (EF 271).

34. ALMUTE: "Motivo, *almutea*" 433.

Harrietengandik (Lakarra 1991: 231): "motif, *arraçoiña, almutea*", "il a son motif, *badu bere almutea*" (FE 387).

¹⁵ Halaxe, Gero-ko *ehaiten*-en ordez.

¹⁶ Halaxe jat., *iraunguitceco*-ren ordez.

¹⁷ Halaxe jat.

¹⁸ Oraindik Larramendiren *Erans*-aren eta Harrieten hiztegiaren arteko erlazio estua ezaguna ez bazen ere, OEH-aren iruzkina ("Ht y Lar *Sup* son prácticamente contemporáneos") ez da kronologiaren —ez eta filologiaren— aldetik zorrotzegia. Hauxe da, hain zuzen, aipatu erlazio hori ezartzen hasteko oina eman zuten datu bitxi eta begibistakoenetatik bat.

35. ALOGADU: "Alquiler, *alogadu*" 37.

RS-tik (Mitxelena 1970: 58): *Ese palagaduabaño, alogadua obeago* "Mejor es la casa alquilada, que la prestada" (388), nondik *palagadu* ere hartu baitzuen.

36. AMAMERUA (mug.): "Alguacil, *amamerua*" 34.

Iturri ezezagunekoa, agian gipuzkerazkoa. Mitxelenak (1970: 58) ez du lztuetaren agerraldi bat baizen aipatzen, baina honen lekukotasunak gehienetan ez dira aske Larramendiri buruz. *OEH*-ak argibide gehixeago eskaintzen ditu, baina denak Larramendiren ostekoak.¹⁹ Bada bat bereziki interesgarria guretzat: "*Almameru* (G), *alguacil*" Azkueren hiztegian; berri honek, egiazkoa bada,²⁰ *alguacil-aguacil* ereduko bikoteak gogorarazten ditu, eta hipotesia bukaerak (-*erua* < errom. -*ero*?) berma lezake, alegia, mailegua izan daitekeela. Oraingoz antzekorik aurkitu ez badut ere, gogoratu "aguazilak" gurean dituen eta izan dituen izen ugariak,²¹ eta haien artean maileguak zeinen usu agertzen diren.

37. AMAÑO: "Nudriza, *amañoa*" 456.

Iturri ezezagunekoa (Mitxelena 1970: 107). *OEH*-ak (s.v. 1 *amaño*) eskaintzen dituen lekukotasun guztiak gerokoak dira, baina hitza ekialdekoa dela gardenki ageri da.

38. AMARAU: "Telaraña, *amarauna, amaraña*" 635.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 127): *...baina vrthean behin baicen garbitcen eztena [etchea], neque baita, eta gaitz, ceren harc herrautsa; eta amarauna lodi baitu* (GGero 542 [Gero 540]).

39. AMARAUN: "Telaraña, *amarauna, amaraña*" 635.

Mitxelenak (1970: 127) gaur galdutako bizkaierazko iturri batetik etor litekeela iradoki zuen, eta honek interpretapen bakarra du bere lanean: *RS*-ren zati galdutik datorkeela, alegia. *OEH*-aren arabera, aldaera ia bizkaieraz bakarrik aurkitzen da, eta bereziki ziur egon gaitezke B-gip-ari dagokionez, Oñatiko eskuizkributik hasita. *HH*-an, ostera, *amama* eta *amelauna* bakarrik jaso zituen, mende honetako lekukotasunen arabera biak G-azp, besteak beste; ez dago gogoratu beharra baino Larramendi non bizi zen. Alabaina, B-gip ez dago handik urrun: *RS* beharrezkoa ote, benetan?

40. AMARRU: "Malicia, *amarrua*" 391.

Harrietengandik (Lakarra 1991: 227 eta 251): "malice, *amarrua*" (*FE* 382). *HH*-an "astucia".

41. *AMASA [amasa]: "Resuello, *amasa*" 579.

Mitxelenak (1970: 121) *amasa*-ren ordeztu hutsa alde batera utzi zuen, "pues Larramendi ya había citado *arnasea* y *asnasea*, s.v. *respiración*", ez Landuccirengan ez ezagutzen dugun *RS*-n agertzen dela erantsiaz. Argudioa ahula da, *Erans*-ean jadanik hiztegiaren gorputzean agertutako hitzak maiz errepikatuak baitaude, are

¹⁹ Eta honako iruzkina egiten: "De procedencia ignorada. No se puede excluir que se trate de errata en Lar *Sup*. Faltan testimonios independientes del de éste". Nire ustez, hutsa zein izan litekeen edo gutxienez hutsa izan litekeela esateko zertan oinarritzen den esan gabe, alperrik esana dago.

²⁰ *OEH*-ak ez du aintzat hartzen, ez onerako ez txarrerako. Nahitaez kontuz ibili beharra dugu Azkuek hain orokorki kokatzen duen hitz batekin.

²¹ Azkuek gipuzkeraz (*AHA*-ren laguntzaz) *albiente, amabi, amaina, jurau, probestu* eta *prostu* gutxienez jaso zituen.

arrazoi gehiagoz *amasa* Larramendiren irakurketa txarra edo jatorrizko testuaren irakurketa —eta, beraz, berarentzat hitz zeharo berri bat— dela suposatzen badugu. Hutsa, bestalde, erraz-erraza da (<m> <m>ren ordez), baina hau frogatzeko iturri idatzia nahitaezkoa da. Larramendi aurreko lekukotasun bakarrak Mikoleta ("aliento, *arnasea*") eta Kapanaga (*arnasa eta animo arreçau* "cobrad huelgo", 1893ko arg., 153) dira, baina, ezagutu izan balitu ere, bietan itzulpena gaizki datorkio eta Mikoletaren kasuan, **amasea* esperoko genuke. Honegatik, baliteke RS-ren zati galdukoa izatea, nire ustez.

42. AMIA: "Tirano, *amia*" 643.

Harrietengandik (Lakarra 1991: 228): "tiran, *tiranoa, amia*" (FE 432).

43. AMITU: "Transido y pasado, *amitua*" 652.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 129): *Han sabel-darraio, golosa, lamitia, ian edanera emana..., vr chorta bat ere ecin erdietsiz, amitua ibilicoda, flacatua eta iragana iarrico da* (GGero 593 [Gero 591]), nondik *lamitia* ere hartu baitzuen. Itzulpena ondoko esapidetik, *flacatua eta iragana*-tik, hartu zuen.

44. AMORANTE: "Enamorados, *amoranteac, amurusac*" 230.

Axular eta Landuccirengan agertzen da (Mitxelena 1970: 83), bietan hemengotik aski ezberdina den esanahiarekin: 'maitalea' da Axularrengan, eta adibidez honako pasarte argi hau aipatu zuen: *Sarthucen Absalon mundu guztiac cecusala bere aitaren amorantètara edo emaztetara, "ad concubinas patris sui"* (GGero 349); honen antzera, "Mañceba o amiga, *amorantea, apaezâdrea*" dugu Landuccirengan. Lakarrak ere (1993: 230) zalantzan uzten du. *OEH* (s.v.) Axularren alde agertzen da, ordea, nahiz eta ez digun arrazioak ezagutzeko biderik ematen. Nire ustez, esanahi aldaketa hori azaltzerik badago, Axularrengan bakarrik dago: ez soilik bere liburuan daukan agerraldi kopuru handiarengatik (19 bat adibide), ez eta laguntzat daraman *amurusac*-ek ere etorki hori duelako, baizik eta hiztegiko sarrera baten aurrean Larramendiren jokaera askeari askoz zailagoa —eta ezohikoa inolaz ere— deritzadalako; gainera, familiakide guztiak etorki berekoak dira, eta itzulpen beretsukoak.

45. AMORANTIA: "Enamoramiento, *amorantia*" 231. "Galanteo, *amurusia, amorantia*" 291.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 83). Bi agerraldi ditu, jadanik Mitxelenak aipatuak, eta biak hobeto dagozkio "galanteo" itzulpenari, nahiz eta bestea ez den ezinazalduzkoa, batez ere familiako gainerakoei Larramendik eman zien itzulpena kontuan hartuta: *Cer esquer vste duçu içanen duela [...], amorantia gaztean beçala ez ioaiteaz?* (GGero 177) eta *Amorantian, ohoinquerian, iocoan, gau-egunac aise eta guti sentituric iragaiteintuçu* (ib. 519 [Gero 517]). Sarrera beren azpian dugu *HH*-an ere: "enamoramiento, *amorantia, amurustea, amaraztea*", "galanteo, *galanteoa, galaiteoa, amorantia, amurusia*".

46. AMORATU: "Enamorar, *amratu*" 229.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 83). Bi agerraldi ditu, eta onena Mitxelenak aipatua da: *...peril da, baldin choil gogor expada²², bera dadin, limbur dadin, amora dadin* (GGero 350), zeren bestean hobekiago ageri baita benetan daukan esanahia.²³ *Ceren munduari barccatcera, ecin deusec ere balacatu çuen* [laincoa], *eta ez amratu, bere semearen heriotceac baicen* (GGero 141).

²² Halaxe jat.

²³ *OEH*-an ikus daitekeen bezala, Larramendik ematen duen esanahian ez zen batere ezezaguna testu zaharretan; haien artean ez dago ezagutzen zuenik, ordea.

47. AMURUS: "Enamorados, *amoranteac, amurusac*" 230.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 83). Beronek ondoko pasarte hau aipatu zuen: *Gaitz dela, amurus içaitea, eta centçuan egoitea* (GGero 341); GGero-k azaltzen du, beraz, Mitxelenari azalgabe geratzen zitzaien kontu bakarra, hots, Gero-n *amuruz* agertzea; nolana ere, bada agerraldi gehiago (11 orotara), eta bestetan Gero-n ere *amurus* dugu. Pluralean: *laincoec ere dissimulatcen cituztela amurusen iuramentuac eta promesac* (GGero 352).

48. AMURUSIA: "Galanteo, *amurusia, amorantia*" 291.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 90): *Mars guerla guiçona eta Venus amurusiaren patroina. Guerla eta amurusia ezcondu cituzten elccarrequin* (Gero 354). Adibide hau ez da bereziki ona Larramendik eman adiera azaltzeko; cf., adibidez, *Ceren neccaçaleac bere nequeaz eta travailluaz baitaduca contu, eta ez amurusias* (GGero 377) edo *Eztagoca çahartasunari amurusia, eta ez comunzqui gaztetasunari auaricia* (ib. 178). HH-an ere jasoa zuen, sarrera beraren pean, *Erans*-eko sarrerakidea bezala: "Galanteo, *galanteoa, galaiteoa, amorantia, amurusia*".

49. ANBATIK ANBATEAN: "Caeteris paribus, *ambatic ambatean*" 135.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 72), eta latina ere bertan aurkitzen da: *Hanbatic hanbatean hobe da hoben gabetasuna, eta behin ere liquistu gabe egoitea, liquistu ondoco garbitasuna baino, "Caeteris²⁴ paribus, innocentia dignior est et magis dilecta"* (GGero 552 [Gero 550]). Hau bezain ona dateke hurren aurkitzen den agerraldia: *Hanbatic hanbatean. Caeteris paribus* (GGero 553 [Gero 551]). Harrietek ere badakar, baina horren aldean ez dauka zereginik, itzulpena eta agerlekuagatik: "*hambatic hambatean, tant pour tant*" (EF 300).

50. *ANDIZURA [andizuren]: "Honor, *andizura*" 322.

RS 392-tik,²⁵ gaizki ebakitakoa (Mitxelena 1970: 94): *Emaytea andizuren, arcaytea* [sic, *arçaytea*-ren ordezt] *mingarri*, "El dar es honor, y el tomar causa dolor".

51. *ANDRAURA [andrauren]: "Matrona, *andraura*" 406.

Mitxelenak (1970: 70) erakutsi zuen RS-tik hartu eta gaizki ebakitako hitza dela, baina elkarrekin azaldu zituen *urena* (*Erans* 123, 313), *hurrena* (ib. 540) eta *andraura*, eta hemendik nahaste zenbait etorri dira: "¿Confusión con *anderauren*?" dio OEH-ak (s.v. *andraura*), RS aipatu ere gabe, *anderauren* benetako hitzaren buruko formatzat hautatu duen aldaera besterik ez delarik.²⁶ Lakarrak ere (1993: 234 eta 228) *Erans* 406tik 123ra bidaltzen du, denon iturriztat RS 210 emanaz: *Andra vrenac esea lauçatu guino daroa betatu*, "la muger de buen recado, la casa suele hinchar hasta el tejado". Baina Mitxelenak hurrenez hurren hiru erretrau aipatu zituen, ziurrenik —nik honelaxe ulertzen, behintzat— azalgai bakoitzari bat dagokiola. Ikus dezagun: RS 210 *uren*-en harlekua izaki, argi eta garbi, nekez sinis daiteke *uren* hori eta hemengo *andraura* erretrau beretik hartuak direla. RS 317, bere aldetik, *hurren* "principal"-ena da eta, azkenik, RS 527 (*Andrauren en essea, garazazal*, "La casa de la señora de buen recado, acolmada") dateke gure *andraura* honena, batuta agertzen delako, hain zuzen. Azalpen hau, orain kezkatzen gaituen hitzari nagokiola, arazotsua da, dena dela, 527. erretraua Larramendik ezagutu ez bide zuen 4. koadernotxokoa baita.

²⁴ FDA-ko *Ceteris* hutsa da, bi argitalpenetan *Cae*- irakurtzen baita.

²⁵ Eta ez hortik eta RS 507-tik, OEH-ak dioenez: bigarrenaren itzulpenak —"principal"— ez du dudarik uzten.

²⁶ Bide batez, cf. Harriet: *andreorena* "pucelle" (FE 410), OEH-ak ez aipatua.

52. ANGELU: "Suelo, *anguelua*" 621.

Landuccirengandik (Mitxelena 1970: 126): "ladrillado suelo, *anguelu ladrilladua*", "ladrillar el suelo, *anguelua ladrilladu*" (285r).

53. ANTSIATU: "Afligir, *antsiatu*" 19.

Mitxelenak (1970: 56) Axularrengandik dela erabaki zuen agerraldi bakar bat erabiliaz, gainerakoetan *ez-antsiatu* "descuidado, despreocupado" agertzen delarik: *Comunzqui beccatorea, beccatu eguin berrian, veldur ago, senticor ago eta antsiatu ago da* (Gero 544). Alabaina, ez lehenengo argitalpenean, ez bigarreanean (GGero 546) irakurtzen da *antsiatu*, *antsiatu* baizik.²⁷ Halaz ere, ez dugu Axular baino azalpen hoberik. Mitxelenak berak egin zuenez gero, beharbada ez genuke *antsiatu*-ren ordezkio irakurketa txarra Larramendik ere egin zezakeela zeharo baztertu behar, *antsiatu* ez baita ez *Erans*-ean, ez *HH*-an agertzen. *Antsiatu*, berriz, sarri aurkitzen da *HH*-an, bai itxura berean (s.v. "angustiar", "acongojar"), bai *antsiatu* gisa ("afligir", "atribularse"), baina hango iturriak ñabarragoak izan daitezke (ik. 11. eranskina). Dena dela, *ez-antsiatu*-etatik bat ere izan liteke iturria; cf., adibidez: *behar duçu halaber, berriz cofesatcera bihurtu. Ceren halatan etçara hala beccatutan gogortuco, eta ez, ez ansiatuco* (*ib.* 542).

54. ANZATSU: "Hábil, *anzatsua*"²⁸ 307.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 92): *Colpeca hasten direnean, comunzqui sendoenac, edo ançatsuenac garaitcen du bertcea* (Gero 205). Bigarren argitalpenak, dena dela, *antçasuenac* dio (*ibid.*), eta horregatik agerleku egokiena, ziurrenik, beste agerraldia izango litzateke: *Ceren anhitz içan baita orainocoan, eta baita orai ere, ni ez beçalacoric, ni baiño hunetaco gai agoric, eta ançatsu agoric...* (GGero 16).

55. ANZATSUTU: "Habilitarse, *anzatsutu*" 308.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 92): *ordea guero handic dembora gutiren barreanean, hain soldadutu cen eta harmetan vsatu, trebatu, eta ançatsutu, ecen...* (GGero 89).

56. AHOPALDI: "Bocanadas, *ahopaldiac*" 98.

Axularrengandik, aldaketa txiki batekin eta esanahia okertuta (Mitxelena 1970: 67): *Erran beharda misericordios dela laincoa, hunelaco ahapaldiac, hunein itsusiatic pairatcen dituenean* (GGero 137). Bigarren bokala ez da ondo ikusten, ez eta mikrofilmean ere. Itzulpenerako, cf., agian, *DAut*: "Echar bocanadas. Phrase translaticia, que vale jactarse y vanagloriarse de sabio, valiente, noble, poderoso, y así de otros títulos".

57. AOZTEGI: "Pajar, *aozteguia*" 478.

Iturri ezezagunekoa. Mitxelenak (1970: 110) *a(g)oztegi* oso zabaldua dagoela gogoratu zuen. Lehengo lekukotasuna da, eta aldaerari dagokionez, bakarra (*OEH*, s.v. *agoztegi*); *a(h)otz*, berriz, B-gip eta GN-larr da (*ib.*, s.v. *agotz*), gutxienez. Baliteke, beraz, gipuzkeraz (edo gipuzkeratik ez oso urrutiko hizkera batean) entzuna izatea.

58. APUKATU: "Acaecer, *apucatu*" 9.

Landuccirengandik (Mitxelena 1970: 54): "acaecer, *apucadu*" (227v).

²⁷ *OEH*-ak (s.v. *antsiatu*) ez du *Erans*-eko lekukotasuna jasotzen eta, beraz, ez dio eztabaidari lekurik ere ematen; nolahi ere, agerraldia bere lekuan (s.v. *antsiatu*) ezarrita dago.

²⁸ Mitxelenarenean *anzatzua*, hutsaz.

59. ARAN: "Endrina, *arana*" 236.

Mitxelenak (1970: 84) RS-ren zati galdutik datorkeela iradoki zuen, *arana*-k, Azkueren arabera, adiera hori bizkaierazko lurralde batzuetan daukela argudiotzat erabiliaz, Arabako erdaraz *aran* "fruto del endrino" dela ahaztu gabe (cf. "ciruela passa, *ocaran passea*", etab. (256r) Landuccirengan). Lakarrak (1991: 244) Harriet ekarri du erkaketara, haren iturritasuna ukatuaz, "bere hizkerarako espero bezala", "*arana*, prune" (EF 273) eta "prune, *arana*" (FE 410) baitakartza. OEH-ak Mitxelenaren hipotesia errepikatzeaz gain, hitzaren hedadura hobeki zehazten du, bizkaieraz (eta Araban) ez eze GN-gip-ez ere 'endrina' dela ezarri. Larramendik ere lehen egotzi zion adiera orokorra da (HH "ciruela"). Alabaina, ikusiak ikusirik, Mendebalde osoan (hitz honen zentzurik hertsienean) ezaguna dela edo izan dela jakinik, hautagai bakarra RS dela esatea, beharbada aukerak gehiegi murriztea da.

60. ARATZ: "Puro, *aratz*" 553.

Axularrengandik (Mitxelena 1974: 388)²⁹: ...*haraguiaren* <harra-> *lohian ez sartceco, eta sarthuz guero ere, fite ilquitceco, aratz eta garbi guelditceco eta egoiteco...* (GGero 366). HH-an ere, s.v. *limpio*.

61. ARBIN: "Estrecho, *arbina*" 263.

RS-tik hartutako *arbindu*-tik Larramendik erauzia (Lakarra 1993: 231).

62. ARBINDU: "Estrechar, *arbindu*" 262.

RS-tik (Mitxelena 1970: 87): *Larrac larriçen, guichiac arbinçen*, "Lo demasiado congoxa, lo poco estrecha" (260).

63. ARBUIO: "Deshecho, sobras, *arbuyoa*" 202.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 80): *Gaiñac picaiñac, eta hautuac bertceren, hondarrac, eta arbuyoac laincoaren* (GGero 181), nondik *gaña ta picaña* eta agian *autu* ere hartu baitzuten. Hobeto ezagutzen bide zuen *hondarrac*-en arabera itzuli zuela dirudi.

64. ARDANKOI: "Borracho, vinolento, *ardancoya*" 104.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 67): *Baina hordia, ardancoia, abre da, ezta guiçon* (GGero 407).

65. AREAGO: "Más, mucho más, *areago*" 403.

Axularrengandik (Mitxelena 1974: 388):³⁰ *Ceren laincoac behatcen badu ere iragaiten dugun penara, ordea are ago behatcendu, hartaco vorondatera* (GGero 159), *Ceren laincoac behatcen badu ere emaitçara, ordea are ago vorondatera*³¹ (ib. 230) eta *Orhoitu behar dugu parabisuaz, eta hango placer handiez: baina are ago, ifernuaz, eta hango penaici arriez* (ib. 575 [Gero 573]). HH-an ere.

66. AREAN: "Nada, *arean*" 437.

RS-tik (Mitxelena 1970: 105): *Hordia ganic ençindu çe eguic arean*, "De borracho no fies nada" (526). Oihenartek jasotakoan artean ere bada beste agerraldi bat: *Ilbeeran erein zegik arean* (RS 558), eta azken honek

²⁹ Lakarrak (1993: 237) ez du bere laburpenean Mitxelenaren zuzenketa kontuan hartu.

³⁰ Lakarrak (1993: 234) ez du kontuan hartu.

³¹ <-teera> bi argitalpenetan.

(edo antzerako batek) hobeki azalduko liguke *Erans*-eko sarrera, RS 526 Larramendik ezagutu ez bide zuen 4. koadernotxokoa baita (Lakarra 1996a: 42).

67. ARETX: "Roble, *arecha*" 582.

RS-tik (Mitxelena 1970: 121): *Arecherean artera, ecandu gaxtoa arçaytenda*, "Del roble al eñino, se toma mala costumbre" (279). Beste agerraldiak (37 eta 109), bietan "bellota" itzulita egoteaz gain, lehenengo koadernotxokoak dira. *HH*-an "árbol" adieran.

68. ARLOT: "Pobre, *chiroa, arlota, landerra*" 521.

Mitxelenak (1970: 115) RS eta Axularrengan aurkitu zuen. RS-n hiru bider agertzen da: *Arloteari emayoc ar[r]auça, escatuco dic zoça*, "Al mendigo dale el hueuo, pedir te ha el palillo escarcador" (25), *Doguna jandogu / ta arlot gara biortu*, "Lo que tenemos hemos comido / y nos hemos buuelto pobres" (329) eta *Chiroac arlotea yguy*, "El pobre al pobre aborreçe" (493). Axularrengan adibide bakarra dugu: *Agueri diren arlote, errumes eta bertce iende suerte guztiey* (Gero 262). Lakarrak (1991: 237) zehaztu du RS 329tik hartua dela: RS 25 eta 493 alde batera uztekoak dira, 1. eta 4. koadernotxoetakoak baitira; gainera, bietan zein Axularrengan agertzen den *arlotea*-Larramendik mantenduko zukeen. *HH*-an *arlotea* (s.v. *arlote*).

69. ARMORA: "Pared, *armora, oltza*" 488. "Tapia, *armora*" 631.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 111-112): *eta hesiac hersteguiac eta harmorac ere, eroriac eta deseguinac* (GGero 40). *HH*-an ere, s.v. *pared maestra*.

70. ARRAIO: "Siguele, *arrayó*" 607.

RS-tik (Mitxelena 1970: 124): *Ynurriari arrayo*, "Sigue a la hormiga" (183), nondik ziurrenik *inurria* ere hartu zuen.

71. ARRASTELU: "Bieldo, *arrastelua*" 96.

Mitxelenak (1970: 67) ekialdeko iturri batetik izan daitekeela iradoki zuen, Axularrengan aurkitu ez arren, Pouvreauren hiztegian bazela zehaztuaz. Lakarrak (1993: 203) "forma ezberdintasun txikiak gora behera" Harrietengan ikusi nahi du iturria: "rateau, *arrestellua*" (FE 413). *Erans*-eko forma bera hiztegian ere jaso zuen ("vieldo, viendro, *arrastelua*"), Harrieten eraginik suposatu ezin dezakegun II. liburukian, hain zuzen.

72. ARRI IRAZTU: "Rayo, *arri iraztua, ozprina*" 564.

Mitxelenak (1970: 119) Landuccirengan "relámpago, *yrastua*", "relampaguear, *yrastuca egon*" (311r) eta "rayo del cielo, *çeruco yrastua*" (309v) aurkitu zituen; baina *Erans*-ekoaren *arri*-k (adiera bereko hitzetan aski ezaguna), eta <-zt-> grafiak beste iturriren batean pentsatzera eramán zuten, RS-ren zati galduan, hain zuzen (OEH-ak hipotesi berari eutsi dio, sv. *arri-iraztu*). Bestalde, *irastu* (*iraztu* ere izan daitekeena, jakina), Azkueren arabera, Arrasaten eta Leintz Gatzagan erabiltzen edo gutxienez erabili dela gogoratu zuen. Nire ustez, grafia ez da oztopo, baina bai *arri*. Alabaina, benetan *iraztu-irastu* B-gip eremuko bada, ez ote entzuna, eta ez nahitaez irakurria? Dena dela, pentsa liteke Larramendik partizipiotzat hartu zuela eta, honen arabera, izena "berreraiki" zuela.

73. ARRITU: "Reñir, *arritu*" 575.

RS-tik (Mitxelena 1970: 121). Aukeran bi errefrau oso antzeko ditugu: *Vnayoc arri citean, gastaec aguir citean*, "Los pastores riñieron, los quesos parecieron" (52) eta *Arzayoc arricitea, gaztaec aguircitea*, "Riñieronse los

pastores de ovejas, y parecieron los quesos" (386). Lehena 1. koadernotxokoa denez, bigarrenaren alde egin behar dugu (Lakarra 1996a: 43).

74. ARRONT: "Ordinario, común, *arrontera*, *arronta*" 471.

Mitxelenak (1970: 109) eta Lakarrak (1993: 235) ez dute zehazten hitz honen etorkia, familiako beste sarreretara (*Erans* 18 eta 154ra) bidaliaz. Besteen etorkia Axular dela dirudenez gero (ik. *arrantatu* Harrieten iturritasunaren eztabaidarako), badirudi hemen ere zilegi dela beste horrenbeste sinistea. *OEH*-aren arabera (s.v. *arrant*), ordea, Axularrek Mitxelenak iragaitzaz aipatzen duen adieran bakarrik ('muy, completamente, totalmente') erabili zuen, eta pasarte bakar batean: *Ceren hala çahartcean nola gaztean, arront baitira bat, bethiere baitira maliciaz eta gaixtaqueriaz orobat* (GGero 166); dagokigun adieran, bestalde, ez dago Larramendik ezagut zezakeen ezer. Iturri ezezagun bat egotea ezinezkoa ez bada ere, aldaera Axularren alde mintzo dela deritzat, eta Larramendiren itzulpena azaltzeko bide bat bederen badagoela: familiako beste hitzen arabera ulertu eta itzuli zuela, alegia.

75. ARRONTATU: "Adocenar, *arrantatu*"³² 18. "Hacer común, *arrantatu*" 155. "Mancomunar, *arrantatu*"³³ 393.

Mitxelenaren ustez (1970: 56), Axularrengandik hartu eta gaizki itzulitakoa izango litzateke, *arrant* eta *arronter*-en esanahien arabera, hain zuzen: *Heriotzearen sega, onen eta gaixtoen arrontatzeko, haiotza zorroztua eta prestatua dagoela* (Gero 572). Lakarrak (1993: 200) Harrietek ere familia bereko hainbat hitz dituela gogoratu du: "simplément, *arronqui*, *laiñoqui*" (FE 424), "sobre, *sobrea*, *arrontera*", "sobremment, *arronqui*, *herdiqui*", "sobriété, *arrantassuna*, *sobretassuna*" (ib. 425), "raser, *arrantatcea*" (ib. 414), "*laiecoa*, *arrontera*, laiïque" (EF 309), "simple, *laiñoa*, *arrontera*, *bakhuna*" (FE 424). Hauxe da bere ondorioa: "badirudi, gainera, Axularrek baino aukera haboro lukeela Larramendiren huts (ala berariazko asmaketa?) hau azaltzeko". Laburpenean (1993: 226) hitza Harrieti egozten dio.

Ez naiz asebeteta geratzen azalpenarekin. Irizpide orokor gisa, itzulpenik gabeko testuak beste ezerk baino "aukera haboro" eskaini zion, behin eta berriz, itzulpen askeak (ez gutxitan okerrak) egiteko; badakigu, gainera, frantsesez ondo moldatzen zela. Inolako zalantzarik gabe Harrieten "raser" [gaur egun *raser*] horrek nekez sortarazi zitzakeen Larramendiren itzulpenak; Axularren pasarteak, aldiz, baluke aukerarik, beharbada, 'onak eta gaiztoak berdintzeko'-edo ulertu izan balu. Baina Lakarrak familia osoa azaldu nahi du Harrietekin: hiru hitzetatik bi eskaintzen ditu, eta hirugarrena (*arronta*) erauzteko, bistan da ez zeukala oztoporik. Alabaina, Harrieten sarreretatik batek ere ez du azaltzen familiari eman esanahia; Axularrek, berriz, hiru hitzak eskaintzen dizkigu, eta *arrontera*-tik atera zezakeen gainerako biei eman esanahia, beste ezeri erreparatu gabe.

76. ARRONTER: "Común, *arrontera*" 154. "Ordinario, común, *arrontera*, *arronta*" 471.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 74). Beronek eskaini zituen adibideetatik onena honako hau da, nik uste: *Erregue vezti bedi oihalic hoberenaz: aitonen semeac [sic] erdicoaz, eta neccaçalea arronteraz* (GGero 417). Harrieten iturritasunaren eztabaidarako, ik. *arrantatu*.

77. ARROXINA: "Resina, *arrochina*" 578.

³² Mitxelenarenean *arrantatu*, baina inprentako hutsa da, ez baitu kontuan hartu iruzkina egiterakoan.

³³ Jat. *arrantatu* letra borobilaz.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 121): *Cerda haur? Ez otheda arrochinaric edo atriacaric Galaadteco hirian, edo midicuric han berean?* "Numquid resina non est in Galaad?" (GGero 531 [Gero 529]).

78. ASAKATU: "Acabarse, *asacatu, neitu*" 8.

RS-tik (Mitxelena 1970: 54): *Asiac eguina dirudi, asacatuac eder*, "Lo comenzado parece acabado, lo acabado hermoso" (171).

79. ASKIETSI: "Satisfacer, *asquietsi*" 593.

Mitxelenaren ustez (1970: 123) Axularrengandik izango litzateke: *Asqui estendu edo sobera estendu, bere batez aitcinago* (GGero 114). GGero iturri hobea da, Gero-k (ibid.) *Azqui estendu* baitakar. Alabaina, Harrieterengandik da (Lakarra 1991: 240), honek bakarrik azal ditzakeelako *Erans-ean* —ohi ez bezala— segidan datozen aditz hau eta honen partizipio adjektiboa (*askietsia*): "satisfaire, *asquiestea*", "satisfait, *asquiexia*" (FE 421). Familiako gainerako hitzek ere (*askikuntza, askitsu*) etorki bera dute.

80. ASKIETSIA: "Satisfecho, *asquietsia*" 594.

Harrietengandik, familiako gainerakoak bezala —eta batez ere *askietsi* bezala— (Lakarra 1991: 240): "satisfait, *asquiexia*" (FE 421).

81. ASKIKUNTZA: "Suficiencia, *asquicuntza*" 616.

Harrieterengandik (Lakarra 1991: 242): "suffisance, *asquiqunça*" (FE 428).

82. ASKITSU: "Suficiente, *asquitsua*" 617.

Harrietengandik (Lakarra 1993: 221): "suffissant, *asquitxu*" (FE 428).

83. ASPERTU: "Vengarse, *aspertu*" 668.

RS-tik (Mitxelena 1970: 130). Hiru errefracutan agertzen da (10, 361 eta 362), baina lehena 1. koadernotxokoa denez gero, beste bietan dukegu iturria (Lakarra 1996a: 44): *Sayra noçu asper çaquidaz*, "En la buytrera meteneys uêgaosme" (361) eta *Sayra noçu, asper[r]jetan gach ez toçu*, "En la buytrera me teneys, no os sera difícil vengaros" (362). Bigarrena alde batera utziko nuke, dena dela, partizipioa gaizki berreraikitzeo aukera handia ematen du eta. Axularrek ere badakar (OEH, s.v. *aspertu* 3): *Erdietsicoitut, atrapatucoitut aspertuco natçaye, guztiac ezpataren ahotic iraganeintut* (GGero 115), baina askoz errazago zuen Larramendik itzulpendun testutik hartzea.

84. ASTO: "Fiador, *astoa*" 275.

RS-tik (Mitxelena 1970: 89): *Asto dina zordun*, "El que se haze fiador deudor" (249).

85. ATARTE: "Portal, *atartea*" 528.

RS-tik (Mitxelena 1970: 116): *Seyac danzuana escarazeen, esan daroa atartearen*, "Lo que oye el niño en el fogar, suele dezir en el portal" (238). HH-an ere, adiera doi bat ezberdin batean: "atrio".

86. ATROIATU: "Confessar, *atroyatu*" 156.

Harrietengandik (Lakarra 1991: 230): "avoüer, *atroiatcea*" (FE 331).

87. *ATXIKITU [atxiki]: "Tener, assir, *achiquitu*" 639.

Mitxelena (1970: 128) *datcheca* (Gero 503) bezalako trinkoetan aterea ote zen zegoen, ez baitzuen partizioa geroko testuetan baizik aurkitzen; harrigarriki, "Gramática de Harriet" haien artean aipatu zuen. Alabaina, Harrietengandik dator (Lakarra 1991: 250): "*atchiquitcea*, tenir, retenir" eta "*atchiquia*, retenu" (EF 274), "tenir, *atchiquitcea*" (FE 431), "retener, *atchiquitcea*" (ib. 418). Iturria nahitaez FE da, kokalekuagatik ez eze, EF-ko partizioaren arabera ez baitzukeen hutsik egingo; eta, zehazkiago, itzulpenagatik FE-ko bietatik lehena.

88. ATXITAMATXI: "Mariposa, *achitamachia*" 402.

Landuccirengandik (Mitxelena 1970: 102): "mariposa, *achitamachia*" (291r).

89. ATXITI: "Adelante, *achiti*. De aquí adelante, *equix*" 16.

Iturri ezezagunekoa. Mitxelenak (1970: 55-56) *a(n)txiti* mendebalekoa dela gogoratu zuen eta, hortaz, beharbada RS-ren zati galdutik izan daitekeela iradoki.

90. ? ATZAGA [azaga?]: "Fin, postre, *atzaga*" 277.

RS-tik (Mitxelena 1970: 89): *Azaga onic eztau mandazaic*, "Postrimeria buena no la tiene mulatero" (302). Larramendik, berreraiketa egiteko, dudarik gabe *atze*-rekin lotu zuen. HH-an *zaga*-ren euskal etimologian etimotzat erabili zuen. Mitxelenaren ustetan, mailegua da, gazt. *zaga*-rekin lotu beharrekoa, Cuenca-ko Fuegoan *in azaga* bezalakoak agertzen direla kontuan izanik (cf. OEH ere). Berrikiago, Zuazo (1992) Larramendiren irakurketaren alde makurtu da, baina bere ustez esanahia oso bestelakoa izango litzateke, RS-ren itzultzaileak ere maileguan pentsatuta okertu zela suposatuz: "ardi-mandoak hazka egiteko ezarritako haga", eta gaurko modura, *hatzaga* idatzi beharrekoa, beraz. Lakarra (1996c: 322) bi aukerak aurkeztera mugatzen den arren, hiztegian (ib. 202) *azaga* jasotzen du.

91. ATZGILE: "Comezón, *alazaguiña*, *atzguillea*" 151.

Axularrengandik, zehaztasunik gabe itzulia (Mitxelena 1970: 74): *Beccatua, çauri hatz-guillea beçala da* (GGero 431).

92. AUHEN: "Suspiro, *auhena*" 625.

Mitxelenaren ustez (1970: 126) Axularrengandik dator: *Ceren ez tute ençunen, oihuric, nigarric, marrascaric, deihadarric, deithoranic, auhenic, eta nigarric baicen* (GGero 590 [Gero 588]). Lakarraren ustez (1991: 240), bai hau eta bai *auhendu*, biak Harrietengandik izatea errazagoa da. Hipotesi honen eztabaidarako, ik. *auhendu*. HH-an ere jasoa zuen adiera ezberdinetan.

93. AUHENDU: "Suspirar, *auhendu*" 624.

Mitxelenaren ustez (1970: 126) Axularrengandik dator: *hasico dira bere ondico handiaren deithoratcen eta auhentcen* (GGero 609 [Gero 607]). Lakarraren ustez (1991: 240), errazago da bai hau eta bai *auhen*, biak Harrietengandik hartuak izatea: "sourir, *auhena*", "soupirer, *auhendatcea*" (FE 427). Dudarik gabe Lakarrak neurri handian arrazoa du, Harrieten erdal ordainak aski bereziak direlako (cf. OEH, s.v. *auhen*, *auhendatu* eta *auhendu*). Alabaina, azalgabe geratzen da zeri zor zaion *auhendatu* / *auhendu* ezberdintasuna: badirudi Axularren forma eta Harrieten itzulpena bata bestearekin lotu zituela.

94. AUN: "Ladrado, *eusia*, *sainga*, *auná*" 355.

Landuccirengandik (Mitxelena 1970: 97): "ladrado de perros, *oran aunac*" (285r).

95. AURGINA: "Ocasión, *aurguina*" 463.

Harrietengandik (Lakarra 1991: 225): "occasion, *parada, arguina*" (FE 391).

96. *AURIZKITU [aurizki]: "Acalcar, *aurizquitu*" 10. "Golpear, *aurizquitu*" 296.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 54-55): *Eta itsuac incontru ioitea, eta iragaitean aurizquitcea ezta miretsteke* (GGero 310). Badira bi gehiago: *Ene beccatuec [...] carga sortha pisubatec beçala, aurizqui, eta çapatu naute naicen <-cea> guztia*, "& sicut onus grave grava ae sunt super me" (ib. 501 [Gero 499]) eta *Hala dabillanac, eguiten duen irabaciguztia da, lurraren aurizquitcea, çapatzea eta gogortzea* (ib. 97). *Aurizkitu* ateratzeko, lehen a zein azkena dira egokienak. *Erans*-eko adierei gagozkiela, lehenak "golpear" eskain zezakeen (cf. aldamenteko *ioitea*), eta bigarrenak, berriz, "acalcar". *HH*-an ere, agian beste iturri batetik.

97. AURKIENTZA: "Parte, *endrecera, aurkientza*" 490.

Axularrengandik, sarrerakidea bezala eta leku beretik (Mitxelena 1970: 112). Biak batzen dituen adibide bi eskaini zituen: *Beccatoreac [...] badirudi ecen oraiño [...], samur duen parteric, vxter duen aurkientçaric, endrecera onic eta goçoric baduela* (GGero 97) eta *gorputceco endrecera, aurkientça, iuntura, eta parte guztietan* (ib. 592 [Gero 590]). Ohartu bietan *parte* ere ageri dela.

98. AURREN: "Principal, *hurrena, aurrena*" 540.

Iturri ezezagunekoak. G eta GN da, eta bere dokumentazio zaharrak ez dirudi oso aberatsa (Mitxelena 1970: 117). Larramendirenak (*HH*-an ere badago) lehenengo lekukotasunak dira (*OEH*); *HH*-an, gainera, maiztasun handiz agertzen da. Balirudike, beraz, hitza ez zela batere ezezaguna Larramendirentzat, are agian bere euskarakoa zuela. Beste batzuek bezala, honek ere Larramendiren gaitasunari zor zaiola dirudi, beraz, eta kasu honetan zehazkiago, hots aldetiko hurbiltasunari.

99. AHURTARA: "Puñado, *ahurtara*" 552.

Harrietengandik (Lakarra 1991: 232): "poignée, *ahurtara*" (FE 405).

100. AURTIKI: "Arrojar, *aurtiqui, urtigu*" 65.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 62-63). Dauden agerraldi anitzetarik (zazpi, orotara) honako hau eskaini zuen: *Egun batez Arquelao Erregueari, carrican iragaiten cela, aurtiqui cioten cenbait vr burutic behera* (GGero 312). *HH*-an ere, s.v. *lanzar*.

101. AUSARTATU: "Atreverse, *ausartatu*" 79.

Harrietengandik (Lakarra 1991: 225-226): "oser, *ausartatcea*" (FE 394) eta "*atrebitcea, ausartacea, oser*", "*ausartatua, osée*" (EF 274). *HH*-an ere.

102. AUSIN: "Ortiga, *ausina*" 474.

Iturri ezezagunekoak. Axularrek *hasuiña* (Gero 40 eta 41) erabiltzen du, Landuccirengan ez dago eta *RS* 72an *asun* agertzen da (Mitxelenak (1970: 110). Aldaera ez dago *HH*-an jasoa: "ortiga, *osiña, osiná, asuna*". Erratari zeharo alde batera uztekoa deritzat, nahiz eta *h*-aren galera ez den ezohikoa: *GGero*-k ez du azaltzen, bederen, eta *-iña > -ina* aldaketa ezohikoa izango litzateke. Ahozkoa bide da, beraz, eta *OEH*-aren arabera (s.v. *asun*), ekialdekoa.

103. AUTEMAN: "Escudriñar, *auteman*" 250.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 86). Beronek eskaintzen dituen bi adibideak —diren guztiak— *kontzientzia*-ri buruz dira; ikus dezagun bata: *Guiristino, guiristino denac, batean ezpada bertcean, noizic behin bedere, autemaitendu bere concientcia, visitatcendu bere arima* (GGero 454 [Gero 452]).

104. AUTSAILE: "Quebrantador, *autsaillea*" 555.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 118): *Gaztigu hunetçaz, mehatchatu cituen, gure laincoac, bere manamenduen hautsailleac* (GGero 433).

105. AUTU: "Elección, *autua*" 224.

Mitxelenak (1970: 82) batez ere adjektiboa dela gogoratu zuen Axularren eta Etxeberri Ziburukoaren adibideekin. *OEH*-aren arabera (s.v. *hautu* 3), izena ere ez da ezezaguna Iparraldeko testu zaharretan, baina, Larramendik ezagutzen zituenetik Xuriorengan bakarrik aurkitzen da, eta ez dago arrazoirik hau *Erans*-eko iturri izan zenik uste izateko. Aitzitik, Axularren agerraldiak aski erraz izena dela iradoki dezake, izenez inguratuta dago eta: *Gaiñac picaiñac, eta hautuac bertceren, hondarrac eta arbuyoac laincoaren* (GGero 181), nondik gainera, *gaña ta picaña* eta *arbuio* ere hartu baitzituen.

106. AUZNARTU: "Roer, *auznartu*" 584.

Mitxelenaren ustez (1970: 121-122) Axularrengandik hartutakoa izango litzateke: *nahi nuque [...] animalia suerte batçuec, gauaz hausnaur eguiten duten beçala, çuc ere gauça hunetçaz, cenbait aldiz bedere, hausnaur, eta gogoeta eguin baceneça* (GGero 600 [Gero 598])³⁴. Bada beste bat oraindik: *Hartan pensa eçaçu, hartçaz eguiçu pensamendu, hasnaur [sic] eta gogoeta* (ib. 622-623 [Gero 620-621]).

Egozketa gutxienez zalantzazkoa iruditzen zait: banan-banan, behar diren aldaketak ez dira ezinezkoak: *h-*kentzea, *ns* > *nz* bihurketa, *-au-* > *-a-* zein *-asnaur* > *-ausnar* (hutsaz) eta *hausnaur egin* > *hausnartu*, baina denak batera gehitxo dirudi. Gainera, itzulpenak ere arazoak ematen ditu, Axularrek bi agerraldietan azpimarratzen duen esanahi figuratuari begira (cf. *DAut* eta *HH* s.v. *roer*, eta Mitxelenak aipatzen duen frai Luis de Granadaren bertsioa: *rumiasas*). Eta, azkenik, *OEH*-ak (s.v. *hausnartu*) aldaera ezberdinetan Hegoaldean ere —Hegoaldean batez ere— ezaguna dela erakusten digu, Larramendi aurreko lekukotasunik ez egon arren. Laburbilduz, Axularren iturritasuna nahitaez iturri ezagun batean azalpena aurkitu nahiak baino ezin lezake defenda, nik uste; ahozko iturri bat proposatu behar delakoan nago.

107. HAUZU: "Lícito, *sori, cilhegui*,³⁵ *hauzu*" 372.

Mitxelenak (1970: 99) Leizarragarengan aurkitu zuen, baina ez Axularrengan. Lakarrak (1991: 234-235) Harrietengandik hartutakoa izan daitekeela iradoki du, "diptongoa aldatu edo hutsen bat izan duela suposatzen badugu": "permis, *haiçu, cilhegui*", "il m'est permis, *haiçu çait, cilhegui çait*" eta "j'ai la permission, *haiçu naiz, cilhegui naiz*" (*FE* 400) edo, bestela, *Erans*-ean jasota dagoen etorki bereko *haizugo*-tik. Nago, ordea, hipotesia garestiegia ez ote den; azken finean Larramendik hitza ezagutzen zuen (cf. *HH* "Lícito, *cileiya, cilleguia, bidezcoa, bidedana, hauzua, soria, legaraucoa*") eta, beraz, agian buruz aipatu zuen, besterik gabe.

³⁴ Honek lehenengo agerraldian *hasnaur* dakar, bigarren argitalpenean zuzendua.

³⁵ Jat. koma falta da.

108. AXOLDURI: "Cuidadoso, *acholduria*" 182.

Ziurrenik *axolduritu*-tik Larramendik erauzia. *HH*-an *aisolduria* "cuidadoso".

109. AXOLDURITU: "Hacerse cuidadoso, *acholduritu*" 183.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 77-78): *Hala guerlequin etsaiequin eta contrastequin ernatcen, iratçartcen eta acholduritzen da* (GGero 27).

110. AZAMA: "Ama de criar, *azama*" 38.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 58-59): *Naguitasuna da necesitatearen <-m> eta probeciaren vnhidea eta haz-ama*, "Pigritia est nutrix egestatis" (GGero 42). *HH*-an ere, baina esanahi ezberdinaz: "madrastra".

111. AZARKUNZA: "Atrevimiento, *azarcunza*" 78.

RS-tik (Mitxelena 1970: 64): *Azarcunzeac bildurra vzabez, çe ylteco edo vicico gudura goaquez*, "el atreuimiento auyente el miedo..." (165). Nabarmenki, Larramendik atzizkia identifikatu zuen, bestetan egin ez zuen -*ea* > -*a* bihurketa baitago hemen.

112. AZARO: "Rocío, *azaroa*" 583.

Mitxelenak (1970: 121) bizkaierazkotzat jo zuen, iturria *RS*-ren zati galdua izan daitekeela iradokiaz. Bere oinarria Azkuerengan dago,³⁶ eta honena Añibarroengan; azken hau ziurrenik Larramendiren zordun den arren, bizkaierazko marka bere burutik ezarria da eta, beraz, fidatzekoa. Zabalkundeaz jabetzeko lagungarri izan daiteke Azkueren "(B-oro-z-ple-ger-m), lluvia benéfica de cualquier época" adiera ere.

113. AZARRI: "Atrevido, *azarria*" 77.

RS-tik (Mitxelena 1970: 64): *Edoçeyn da azarri, vaya gudura doa guichi*, "Cada uno es atreuido..." (383).

114. AZARTU: "Atreverse, *azartu*" 76.

Mitxelenak (1970: 64), familiako beste bi hitzetan oinarri harturik, *RS*-ren zati galdutik izan daitekeela iradoki zuen. *OEH*-ak erakusten digu anartean ezagut zezakeen beste lekukotasunik ez zegoela, batetik, eta hitza, *XX*. mendera arte bederen, bizkaierazko testuetan bakarrik agertzen dela.

115. HAZBEGI: "Facciones, *hazbeguiac*" 266.

Harrietengandik (Lakarra 1991: 230-231): "traits de visage, *hazbeguiac*" (*FE* 433).

116. ?AZIA [atze?]: "Espalda, *quibela, acia*" 251.

Mitxelenak (1970: 86) ez zion antzik hartu, mend. *atzea* "la parte posterior"-en kidea izan daitekeela gogoratzeaz besterik. Lakarrak (1991: 234) Harrietengandik hartu eta aldatutakoa izan daitekeela iradoki du: "derriere, *atcea, quibela, uzquia*" (*FE* 347), "ezagunei lotzen bagatzaizkie, bederen [...] e > i / __a aldaketa ez bada ere arrunta, ez Harrietengan ez harengandik hartutako Larramendiren hitzetan". Nire ustez, halako huts larria egiteko *atze* ezagunegia da (cf. *OEH* s.v. 1 *atze*), eta aldaketa "arrunta" ez eze zeharo ezezaguna da, dakidalarik, *Erans*-ean. Beharbada azalpenik errazena, hitza *RS*-ren zati galdutik hartua dela suposatzea da. *RS*-n ez dira falta <z> edo <ç> grafiak hots afrikatuak ordezkatzeko; halakoak Larramendik noiz antzeman eta aldatu, noiz (<e, i> aurrean) <c>

³⁶ Azkuek ematen duen esanahia bertan eztabaidatzen du Mitxelenak.

bihurtu ditu. Areago, *açean* (201), *açera* (202), *azera* (423), *azecoaz* (207) eta *azeranz* (456) bederen baditugu Darmstadtokoan, nahiz beti ohikoago den "(a)trás" adieran. Eman dezagun, bada, han *azian* edo *açian* bat agertzen zela, "a la espalda" itzulia (*atzean utzi* bezalako esapide batean).

117. AZIZURRI: "Papera, *acizurria*" 484.

Mitxelenak (1970: 111) proposamen ausart bezain erakargarri bat aurkeztu zuen, hots, *RS*-ren zati galdutik Oihenartek kopia errefracu batean —*Guiçon onac azcurriac bere*, *RS* 546—, *aciçurriac* irakurri beharko litzatekeela, *azkurri* ez delako pluralean erabili ohi, eta gainera ez delako mendebaldeko hitza. Bere zalantza bakarra errefracuaren interpretapena da, eta honetarako Lakarrak (1996c: 377) Hernán Nuñez-en bildumako antzeko errefracu bat aipatu du.³⁷ Oihenarten hutsak oso erraza dirudi, *RS*-n <aziçu-> egonez gero.

118. AZKAR: "Vigoroso, *azcarra*" 675.

Harrietengandik, *azkartasun* bezala (Lakarra 1991: 240-241): "vigoreux, *hazcarra*, *indarsua*" (*FE* 437). *HH*-an ere: "fuerte".

119. AZKARTASUN: "Vigor, *azcartasuna*" 674.

Harrietengandik (Lakarra 1991: 240-241): "vigueur, *hazcartasuna*" (*FE* 437).

120. AZKIN: "Casera, hacendosa, *urena*, *azquina*" 123. "Hacendosa, *urena*, *azquina*" 313.

Iturri ezezaguneko, agian *RS*-ren zati galdukoa: cf. *RS* 75 *auzquin* "pleitista" (Mitxelena 1970: 70). Ohar bekio femeninoari, ezinbestean iturri itzulpenduna (eta, beraz, idatzia) eskatzen baitu.

121. AZTORE: "Azor, ave,³⁸ *belaza*, *aztorea*" 87.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 65-66): *Aztorea escuan daducaçunean, higitcen da, iharrosten da, hegaldatcera appoderatcen da eta oldartcen da* (GGero 46). Badago beste bat: *...guiçon batec cituela hirur aztore onac, eta famatuac [...] Eta guero handi fite, aztore hetaric bata, ioan baitcen airaturic, eta ez guehiago bihurtu* (*ib.* 247-248).

122. AZTURA: "Costumbre, *ecandua*, *aztura*" 171.

Mitxelenak (1970: 76) ez dio iruzkinik egiten. Lakarrak (1991: 233-234) Harrietengandik izan daitekeela iradoki du, Hegoaldeko tradizioan ezezaguna ez dela gogoratzeaz batera: "usage, *ohitça*, *haztura*, *usaia*" (*FE* 439). Alabaina, hipotesia oso zalantzakoa da, Larramendik *oitza* sarrera honexetatik hartu baitzuen: beraz, "uso, *oitza*, *aztura*" espero genezakeen; berriz, Harrieten beste aukera, "coûtume, *hazdura*, *bereguitea*" (*FE* 342), erdararen aldetik hobea da, baina euskararenetik askoz garestiagoa. Gainera, alferrik dela uste dut, zeren *Erans*-eko forma, dagoen-dagoenean, Axularren liburuan maiz (22 aldiz, orotara) agertzen baita.³⁹ *OEH*-ak ematen dituen lau adibideetatik, argi bi hauek hautatuko nituzke: *Vsantçac, azturac, gaztean hala, han, eta hetan seguitu, eta vsatu baitçu eta vsantça hura heçurretan barrera sarthu baitçaitçu* (GGero 94) eta *Biluci naiz behin aztura gaixto guztietaric, nola bada berriz veztituconaiz?* (*ib.* 474 [Gero 472]). Eta hurrengoan, latinezko itzulpena ageri da: *Solhas*

³⁷ Oharrean agerriki Mitxelenaren iritzia atxikitzen bazaio ere, ez testuan ez hiztegian (Lakarra 1996c: 202) zuzendu du.

³⁸ Jat. *ave* letra etzanaz.

³⁹ Ondorioztatu behar dugu, beraz, Mitxelenaren hutsunea zeharo oharkabekoa izan zela.

gaixtoec galtcen dituzte aztura onac "bonos mores" (*ib.* 396). *HH*-an ere: "Hábito, costumbre, facilidad de hazer algo, aztura, oitura".

123. *BADAMIN [udamin]: "Calentura, *badamina*" 115.

Landuccirengandik, gaizki irakurria (Mixelena 1970: 69): "calenturas,⁴⁰ *vdamina*" (244v).⁴¹ Huts beretsua *biya*-n.

124. BAI: "Prenda, *baya*" 534.

Mixelenak (1970: 116) denetariko aukerak eskaini zizkigun, ezagutzen zituen iturri bakoitzetik bat, hain zuzen: *Baguila, sey goseen bayla*, "Junio prêda muerta de los niños hâbrientos" (*RS* 523), "prenda, *vaya*" (Landucci 306v) eta *Bahibat tabernara arnoçun igortcen duçunean, gaztigatcen dioçu tabernari ari eduqui deçala cenbait egunez bahi hura, eta guero hequen buruan atheraco duçula* (*GGero* 80). Hau gutxi bailitzan legez, Lakarrak (1991: 245-246) Harrieta ere erantsi zuen: "gage, *bahia*" (*FE* 366) eta "*bahia*, gage" (*EF* 275); laburpenean (1993: 237) honixe egozten dio. Berriki (1996a: 35 eta 43), ostera, erretra (4. koadernotxokoa baita) iturritzat ezinezkoa dela zehazteaz gain, Landucciren alde makurtu da, "baina ez segurtasun osoz".

Nire ustez, bada erdal itzulpenaz gaineko argudio gehiago (hau ezer gutxikoa ez izanik) Landucciren alde egiteko, beti ere eztabaida azken buruan bi hiztegien artean geratu dela ulertuaz.⁴² Harrieti dagokionez, <h> grafema ezabatzeko joera txiki bat aurkezten du Larramendik, eta B<i>B <y> bihurtu ohi du ia beti, baina ez dugu biak batera egingo zukeelako inolako ziurtasunik, hots, ez dakigu <BhiB> ere <y> egiteko urratsa emango zukeen ala ez. Landucciri begira, berriz, <v> : maiztasun handiko aldaketa baino ez genuke behar.

125. BAIMEN: "Licencia, *baimena, baimendua*" 371.

Iturri ezezagunekoa, agian gipuzkerazkoa. Gaur egun, Gipuzkoan adibidez, herrikoia dela gogoratzen du Mixelenak (1970: 99). Lehenagoko lekukotasun bakarra *CatLav*-en dago (*OEH*, s.v.)⁴³, baina ez dugu arrazoirik liburu hau *Erans*-aren iturrietatik bat izan denik uste izateko. *HH*-an jaso zuen ("permissão, *baimena, bialuztea, cileguitzea, cileguiera*") eta agian sarrerakideak burura ekarritakoa da.

126. BAIMENDU: "Licencia, *baimena, baimendua*" 371.

Axularrengandik (Mixelena 1970: 99): *Ceure lurrean, çure baimendua, eta licencia gabe, etche bat hasten deratçutenean* (*GGero* 79); itzulpena eusk. *licencia*-k iradoki zion.

127. BAKOTXI: "Nones, *bacochia*" 452.

Harrietengandik, *biritxia* bezala (Lakarra 1991: 239). Harlekuak bi izan litezke: "impair, *bakhotchia*" (*FE* 395) eta "*bakhotchia*, impair" (*EF* 276), baina bi hitzak elkarren segidan agertzen diren *FE*-ko agerralditik hartu zuen, ziurrenik.

⁴⁰ Mixelenarenean *calentura*.

⁴¹ Iratxo honen bizitzaren gorabeheretarako, ik. *OEH* s.v. *badamin*.

⁴² *RS*-ko erretra ezagutu izan bazuen ere, *bayla* "prenda muerta"-k ulerpen bat baino gehiago eragin zezakeela nabarmena da (*ba-yla*, adibidez).

⁴³ Okertuta, "licencia" adiera *HH*-koa eta ez *Erans*-ekoa bailitzan aurkezten du.

128. BALBEA (mug.): "Muerte, *balbea*" 435.

Iturri ezezaguneko, bizkaierazkoa. Hitzaren lehen lekukotasuna da (Mitxelena 1970: 105 eta *OEH*, s.v. *balbe*).⁴⁴ Hitza zeharo herrikoa da, berandu arte eta nekez baizik iritsi ez dena testuetara. Iturriaz dena dela (ezin da inoiz *RS* galdua zeharo baztertu), Larramendik hemen sekulako lekukotasuna eskaini zion euskararen historiari.

129. BALDINBA: "Cierto, de cierto, *baldimba*, *balimba*, *albaldimbere*" 136.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 72). Maiz agertzen da; hona hemen Mitxelenak eskaini zituen adibideak: *Baldinba bada hauc baiño beccatu handiagoric* (*GGero* 189) eta *Baldinba iguzquiac, bethiere agueri den beçala, luce ago <ego> eguin behardu itçala arratz aldean egu-erdian baiño* (*ib.* 192).

130. BALDOKI: "Mollera, *bururaldea*, *baldoquia*" 425.

Iturri ezezaguneko, Hegoaldekoa. Azkueren arabera adiera honetan Lekeition eta Ondarroan erabiltzen da (Mitxelena 1970: 104). Lakarrak laburpenean (1993: 234) bizkaierazkotzat jasotzen du. *HH*-an ere jaso zuen, nahiz eta adiera doi bat ezberdinean ("sien, sienes, *loac*, *baldoquiac*"), Azkuek, Añibarrori jarraiki⁴⁵ aitortzen duen bezala, G-tzat jotzen duena. Bizkaierazkoa (bakarrik?) bata, etorki ezezaguneko baina mendebaldekoa ziurrenik bestea, badirudi hipotesirik errazena biak herriaren ahotik jasoak izatea dela.

131. BALINBA: "Cierto, de cierto, *baldimba*, *balimba*, *albaldimbere*" 136.

Balirudike *baldinba*-ren aldaera "automatikoa" dela.

132. BALIZKATU: "Suponer, *balizcatu*" 622.

Harrietengandik (Lakarra 1991: 225): "suposer, *balizcatcea*" (*FE* 429).

133. *BARAZ [baratz]: "Perezoso, *baraz*" 511.

Mitxelenaren ustez (1970: 114) *RS*-tik letorke: *Açerrian lurra garraz, hoña ybinieguic baraz*, "En patria estraña la tierra es agra, el pie pondrasle espaciosamente" (9). Alabaina, errefraua 1. koadernoan dago; honexek azalduko luke itzulpen ezberdintasuna (Lakarra 1996a: 38 eta 43). Inork aipatu ez badu ere, Axularrengan ere badugu: *...officialearc abiadura handia daramala, pontuac hussu, eta laster emaiten [sic] tuela: Baiña aprendiça bakhan, baratz, eta pontuac contatuz beçala hari dela* (*GGero* 91)⁴⁶. Izan ere, hitza adiera honetan aski ongi lekukotuta dago (*OEH* s.v. *baratz* 2)⁴⁷, bai Iparraldean, baita bizkaieraz ere (Azkuek B-I-mu-ond-kotzat ematen du). Grafiak, halere, *RS*-ren alde egitera garamatza, inolako ezpairik gabe. Azkenik, Larramendik *baraz*, mugatzailerik gabe, dakarrenez gero, *RS* 9an bezalaxe jatorrizko testuan ere *baraz* bide zegoen.

134. *BARKUIN [barzuin]: "Badil, *barcuina*" 88.

Landuccirengandik, gaizki irakurria (Mitxelena 1970: 66): "badil, *barçuyña*" (239r). *HH*-an *berzuna*, *barzuna* eta *burciña*, besteak beste.

⁴⁴ Bide batez, "En Añ *balbea* (det.)" dio, baina beste horrenbeste zorko litzaioke *Erans*-eko lekukotasunari ere; dena dela, datu gehienek *balba* aldaeraren alde egiten dutela dirudi.

⁴⁵ Añibarrok *HH*-ko hitzei ezartzen dien G markak, ezagutzen zuen bizkaieraz (eta goi-nafarreraz) ezagunak ez zirela, eta besterik ez du esan nahi sarrienik (cf. Urgell 2000e).

⁴⁶ Lehenengo argitalpenean (*ibid.*) *barath* irakurtzen da, ziurrenik <baratch>-en ordez.

⁴⁷ *Erans*-eko lekukotasuna adiera honen bukaeran ematen du, bereizita.

135. BARRENDARI: "Entremetido, *barrendaria*" 241. "Introducido, entremetido, *barrendaria*" 346.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 85): *Ezta on barrendari içaitea, ezta on celatan egoitea, eta ez iragaiten <e-> diren gauça guztien iaquitea* (GGero 311-312). *HH*-an ere, s.v. *penetrador*.

136. BEAR: "Obra, *bearra*" 461.

RS-tik (Mitxelena 1970: 108): *Hurrieteac hurri gauçac, ta hurri dira aren bearrac*, "...y minguadas son sus obras" (149).

137. BEHARTU: "Precissar, necessitar, *behartu*" 531.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 105-106); azalpen bakarra eman zuen *beartua* eta bietarako. Eskaini zituen adibideak: *Nor da euscal-herrietan aldez edo moldez, çordun eta obligatu etçaitçunic? Behartu eta empletatu etçaituenic?* (Gero 5), *ezañaçula guehiagotara behar* (ib. 269) eta *Cer esperança ahalduqueçu guero haren behartcen eta meneratcen çarenean?* (ib. 451). Cf. *HH*: "(hazerse assí) necessitado", "empobrecer".

138. BEARTUA: "Necessitado, *ombearra, beartua*" 440.

Mitxelenaren ustez (1970: 105-106), Axularrengandik dator, zeren eta pasarte batean *behartu*, egiatan *on-behar*-en esanahikidea ez bada ere, itzulpenak hori sinisteko oina eman baitezake: *Nor da euscal-herrietan aldez edo moldez, çordun eta obligatu etçaitçunic? Behartu eta empletatu etçaituenic?* (Gero 5). Cf. *HH*: "Necessitado assí".

139. BEAZA: "Amenaza, *beaza*" 42.

Landuccirengandik (Mitxelena 1970: 59): "amenazar, *beaça eguina*", "amenazador, *beaça eguilea*", "amenazando, *beaça eguiten egona*" (233r).

140. BEGIBARREN: "Cuenca de los ojos, *betzuloa, beguibarrena*" 174.

Iturri ezezagunekoa. Mitxelenak (1970: 76) ez zuen lekukotasun zaharrik aurkitu. *OEH*-aren arabera, ez dago adiera honetan asketzat jo daitekeen beste lekukotasunik, zeren Añibarrok *barren* > *barru* eta Hiribarrenek *barren* > *barne* egin zutela zalantzarik egiteko arrazoi gutxi baitago.⁴⁸ Interesgarriagoa da, berriz, *begi-barren* G-naven (Ziordian, zehazkiago) "párpado" dela jakitea, Larramendiren lekukotasuna bermatzeaz gain, gipuzkeraren eremuko iturri bat (ahozkoa, noski) suposatze bidea ematen baitigu.

141. BEGIETSI: "Mirar, *beguietsi*" 421.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 104): *...han gauça itsusien... eta atsecabe-corren, begui-esteaz dolozqui penatuco baita* (GGero 590 [Gero 588]). Itzulpena ezin hobeto dator (cf. *AxH*). *HH*-an ere, adiera doi bat ezberdinaz: "acechar" eta "atisbar".

142. BEGILASTO: "Ceja, *beguilastoa*" 130.

Iturri ezezagunekoa. Mitxelenak (1970: 71) ez zuen honen iturria izan litekeen lekukotasunik aurkitu. Honen datuak *OEH*-koekin erkatuaz (s.v. *begilasto*), honelako eskema bat ateratu daiteke: alde batetik, *Erans*-ak sortutako tradizioa genuke, 'bekaina' adieran (Hiribarrenen bitartez Lhandeganaino); bestetik, *betalasto* 'betilea'-rena, *Pouvreauk* sortua (Duvoisin, Harriet, Azkue). Bien bitartean, badago Duvoisinek eskainitako *begilasto* 'betilea' (Azkuek, Mitxelenak ikusi zuen bezala, bere kasa L-ain-tzat hartua); nago, haatik, Duvoisinen *begilastoa* bera ere ez

⁴⁸ Honelako gauzak, prestatzen ari naizen lan batean (Urgell 2000e) demostratzeko asmoa daukat.

dela askea, Larramendiren lekukotasuna berarentzat ziurrago zatekeen Pouvreaurenaren arabera "zuzendua" baizen. Hala balitz, Larramendi genuke *begilasto* formaren bermedun bakarra; aldaera ez litzateke horregatik zalantzazkoagoa izango (Mitxelenak adierazi bezala), baina atea irekiko lizkiguke bere iturria (ahozkoa?) Pouvreau eta Duvoisin baino mendebaldekoagoa izan litekeela suposatzeko. Amaitzeko, gauza bien izaerak berak eta euskaraz bakoitzari eman ohi zaizkion izenak kontuan hartuta, Duvoisinekin ados nengoke, alegia 'betilea' esanahia ziurrago dirudiela 'bekaina' baino; halaz ere (OEH-an, s.v. *betile*, ikus daitekeen bezala, esate baterako), bataren izena bestera hedatzea ez da ezezaguna euskaraz.

143. BEITA: "Cebo, *peita*, *beita*" 129.

Axularrengandik (Mitxelenak 1970: 71): *Arrantçaleac egotztendu amua vrera beitarequin, cenbait iateco, eta bazcarequin* (GGero 513 [Gero 511]).⁴⁹

144. ? BEKARRE: "Lagaña, *becarria*" 357.

Mitxelenak (1970: 98) Landuccirengan gaizki irakurri eta bestela itzulitakoa izan litekeela iradoki zuen: "pauesada de candela, *vecarra*". Lakarrak (1993: 233) halaxe jasotzen du bere laburpenean. Halaz ere, asko deritzat bi gertakari horiek batera azaltzeari, eta erants bekie jatorrizkoaren itzulpenari gorde ohi zion fidelotasuna, eta Landuccik eskaintzen zion esanahia zeharo ezezaguna zela Larramendirentzat (cf. *HH* "pavesa, *gueldoa*"). Bestalde, berak ematen duen formatik hurbilago dagoen bat jasoa zuen *HH*-an: "lagaña, [...] *Macarrá, becarreá, pistá, beteria*". *OEH*-ak (s.v. *bekar*) *bekarre* aldaera, gaur behintzat B-gip-en eremuan kokatua, badagoela berresten du, baita *Erans*-ekoa, zalantza bada ere, honen azpian sartzen. Ahozkoa, beraz, dudarik gabe, eta ziurrenik *-ea > -ia* aldaketaz.

145. BELAR: "Frente, *belarra*" 284.

Mitxelenak (1970: 90) Landuccirengandik hartutakoa izan daitekeela erakutsi zuen ("frente, *velarra*"), Axularrengan ere agertzen dela ahaztu gabe: *Occasinoa copetan belarrean, aiccin aldean, illetsu da, eta cherlotsu, baiña garhaitean, garcetan, guibel aldean...* (Gero 153). Lakarrak (1991: 249 eta 1993: 208) auzipera ekarri du Harriet ere: "front, *belarra*" (*FE* 365) eta "*belarra*, front" (*EF* 277), eta laburpenean (1993: 231) aukera Landucci eta Harrieten artean uzten du. *HH*-an ere.

146. BELAZ: "Azor, ave,⁵⁰ *belaza*, *aztorea*" 87.

Landuccirengandik (Mitxelenak 1970: 65-66): "açor, *velaça*" (228v)⁵¹.

147. BELORIT: "Rollo, *belorita*" 586.

RS-tik (Mitxelenak 1970: 122): *Beloritac berea daroa*, "El rollo, lo suyo lleua" (*RS* 196) eta *Belorita ezcur ona*, *esquequi asco baleuco*, "El rollo buen frutal, si tuviese muchos colgajos" (*ib.* 197).

⁴⁹ *OEH*-ak buruan bestela badio ere, *HH*-an Larramendik *peita* aldaera bakarrik zuen jasoa, bertako sarrera kopiatzen duenean ("Cebo, *bazka*, *peita*") ikus daitekeen bezala.

⁵⁰ Jat. ave letra etzanaz.

⁵¹ *OEH*-ak, bide batez, ez du *Erans*-aren iturriaren berri ematen eta, gainera, Landuccirena *belatza* transkribaturik dago, beste azalpenik gabe, irakurlea hura ezagutzeko aukera gabe utziaz. Bertan ezagut daiteke, ordea, *belaza* gutxienez lztuetarenganaino iritsi zela.

148. BERASKA: "Panal, *berasca*" 482.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 110-111): *Ceren eztiá darion berasca bezala dira haren ezpainac*, "Favus enim distillans labia meretricis" (GGero 355); hurrengo orrialdean *ezti-berasca* (Gero-n *ezti-berazca*).

149. BERE ARAUAZ: "Tanto, en tanto, *bere arauaz*" 630.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 127); bi adibide eskaintzen ditu: *Bada itzasoari [sic], beçala ibiniderauca laincoac guiçonari ere, bere arauaz bere cedarría, seiñalatu dio noreraiño hel, bere chedea, bere mugarría eta marra* (Gero 114) eta *baiña eguin çuen lurrean ere bertce bat, ez bere arauaz atsequinagoa, baldin erremedioric ordenatu ezpaliçaica* (ib. 140). Bada gutxienez hirugarren bat (OEH ARAUAZ s.v. *arau*), agian haiek baino hobea: *Bere arauaz, lainkoaz bezala, munduaz ere [...] eguin behar da kontu* (ib. 402). Nolanahi ere, itzulpena zehaztasunik gabekoa da, Larramendik "en tanto [= bitartean]" eta *Pouvreauk*, adibidez, "de sa portée [= berez]" baitute.

150. BEREGAIN: "Aparte, *berech, beregain*" 491.

Harrietengandik, sarrerakidea bezala eta leku beretik (Lakarra 1991: 239): "à part, *berech, beregaiñ*" (FE 397). *HH*-an ere, baina "señor de sí" adieran.

151. BERETAKOTU: "Apropriadlo, *beretacotu*" 56.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 61). Bi adibide eskaini zituen: *Haur da erremedio ona, eta hartu behar den bidea, itsutua, eta beretacotua çadutçan, emaztearen vtzeco* (Gero 371) eta *baiña emazteac bere hitz leunaz..., beretacotuco çaitu* (ib. 398). Bada gehiago (bost orotara), eta argienetako bat honako hau izan daiteke: *Hazienda haur, nabaski, gaizki eta bide gabeki beretakotua zuen* (ib. 245).

152. BEREX: "Aparte, *berech, beregain*" 491.

Harrietengandik, sarrerakidea bezala eta leku beretik (Lakarra 1991: 239): "à part, *berech, beregaiñ*" (FE 397).

153. ?BERIERTU: "Pensativo, *beriertua, gogoetatsua*" 507.

Mitxelenak (1970: 113) zerbaiten usteldura izan litekeela iradoki zuen.⁵² Lakarrak (1991: 236 eta batez ere 1993: 217-218) *RS*-n hain maiz agertzen den (*h*)*ulertu*-etatik bat, ezagutzen dugun zatitik zein ezagutzen ez dugunetik, honen (eta *inertu*-ren) iturburutzat proposatu du, <hule-> = <beri-> urratsa tartean suposatuz. Alabaina, nik uste, ezagutzen dugun *RS* ezin daiteke *beriertua*-ren iturria izan, *ulertu*-ren agerraldiak *vlerretan deustat* "te entiendo" (49), *Vler ezac* "Entiende" (194) eta *Hulerzen eztan* "que no se entiende" (216) izaki,⁵³ bat ere ez baita gai, ez formaz ez esanahiaz, Lakarraren hipotesia sustengatzeko. Areago, *ulertu* eta "pensativo", nago elkarrengandik aski urruti daudela batetik bestera igarotzeko, hots, aitortu behar dut ez dudala somatzen zein testuingurutan **hulertua* "pensativo" itzul daitekeen. Niri neuri, *beriertua*-k beti *RS* 408 *bar[r]i ertuna* "la nueva desdichada" dakarkit gogora (cf. 120 *barri ertunac* "la mala nueva"), nahiz eta ezinezkotzat jo beharrean nago, bertatik *ertuna* "desdichado" (200) atera baitzuen Larramendik. Ez dut etsiko, halere: *bariertuna* > *beriertua* aldaketa hain erraza izanik, ba ote liteke "berri txarrak norbait pentsakor jartzen duela"-edo adierazten zuen erretra bat? Aldagaiak gehiegi dira, ordea, *RS*-ko zenbakiak gaizki zeudela edo Larramendik okertu zituela suposatu beharko baikenuke, besteak beste.

⁵² Halaz ere, *OEH*-ak zalantza markarik ere ez dio ezartzen.

⁵³ *TAV*-en bildu berrietan ez dago besterik.

154. BERIÑA: "Vidrio, *beraña*" 672.

Harrietengandik (Lakarra 1991: 229): "vitre, *beraña*" (FE 438).

155. BERNAJE: "Linage, *narea, bernagea*" 379.

Mitxelenarentzat (1970: 100) iturri ezezagunekoa zen, baina ez ezezaguna, gazt. eta fr. zaharretan honen kideak aurkitzen baitzituen; hauen arabera, besteak beste, *bernaje* ulertu behar dela, eta ez **barnaga* (Azkuek jasotzen duen bezala), behin betikoz ezarri zuen. Lakarrak (1991: 235 eta 1993: 211 eta 233) baieztatu du Harrietengandik datorrela: "parent, allié, *ahaidea, bernaiea*" (FE 396). Grafi aldaketa ez eze esanahi aldaketa ere, biak *-age* atzikia antzeman uste izanagatik azalduko nituzke. Cf. *HH*-an "(No somos) parientes, ni tenemos inclusión ni relación alguna, ez *aide*, ta ez *bernage guera*".

156. BERRA NAIDUENA: "Diga lo que quisiere,⁵⁴ *berra naiduena*" 211.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 81): *Nahi duenac berra nahi duena* (GGero 332)⁵⁵.

157. BERRETURA: "Recaída, *berretura*" 566.

Axularrengandik, zehaztasunik gabe itzulia (Mitxelena 1970: 120). Agerraldi bat baino gehiago dago (cf. *OEH*), baina bakar batek eragin zezakeen *Erans*-eko itzulpena, Mitxelenak eskaini ziguna, hain zuzen: *Ceren gaixto da eritasuna, baina gaixto ago berretura* (GGero 471 [Gero 469]).

158. BERZEAK BERZE DIRELA: "De lo demás sea lo que fuere, *berceac berce direla*" 193.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 78). Eskaini zuen agerraldia honako hau da: *Ceren bertceac bertce direla... gasteco vsantçac, iarraiquitcen ohi çaitça nehori, çahartcean ere* (Gero 175), baina ez da bakarra; *OEH*-ak beste bi jartzen dizkigu eskura: *Nola bertzeak bertze direla, alferkeriatik ihes egiteagatik ere behar den travaillatu* (Gero 21) eta *Zeren maizkofesatzeaz, bertzeak bertze direla, aisia handi bat emanen diozu zeure buruari* (ib. 546s). Gure auzia, <rc> : <rc> aldaketa Larramendiren sistemari ezohikoa izatea da, are batzuetan, aldaketa egitekotan, alderantzizkoa egin zuela jakinik. Erdizkako arrazoia, *berceac bertce direla* GGero-n egotea izan daiteke (258 eta 549).

159. BESTALE: "Alegrador, que sirve a uno de consuelo, *bestalea*" 32.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 58): *munduac eta munducoec beretçat on eztaducatenena [...] nahi duçu çuc hardeçan laincoac bere bestale, maita deçan, besarca deçan?* (GGero 182-183).

160. BETIZU: "Indómito, *betizua*" 331.

Iturri ezezagunekoa. Mitxelenak (1970: 95), Azkuek baliatuz, G-GN eremukoa dela gogoratu zuen. *OEH*-aren datuek (s.v. 1 eta 2 *betizu*)⁵⁶ Azkuerenak bermatzen dituzte aberaski, hitza itxura honetan G-n batez ere, baina baita GN-aren inguruko azpieuskalkietan (GN-gip, GN-5vill) erabilia dela frogatuaz; bizkaieraz, berriz, *betuxu* aldaera bakarrik dago lekukotuta. Honenbestez, ahozkoa dateke.

⁵⁴ Mitxelenak *quisiera* dakar.

⁵⁵ Mitxelenarenean 232, oker.

⁵⁶ Bide batez, ez da ongi ulertzen zergatik bi sarreratan banatu dituen inolako zalantzarik gabe hitz berarenak diren bi adiera hauek.

161. BETZULO: "Cuenca de los ojos, *betzuloa, beguibarrena*" 174.

Iturri ezezagunekoa. Mitxelena (1970: 76) ez du lekukotasun zaharrik aurkitzen.⁵⁷ *OEH*-ak (s.v. *begi-zulo*) halaxe egiaztatzen du; tamalez, ahozkoak orokorregiak dira (Azkueren Bc besterik ez) ezer ziurrik baieztatzeko, mendebaldean bakarrik erabili den forma dela ez bada.

162. BEU: "Tenga, *beu*" 637.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 127): *Ordea beguira beu bat bederac, beccatuen contra hasserretcen denean, sobera hasserretcetic (GGero 277) eta Beu bethi dolore, eta doloreaz goço, eta çappore "Semper doleat" (ib. 503 [Gero 501])*. Itzulpena bigarrenak bakarrik sortaraz zezakeen.

163. BEZALA: "Como, *laso, leguez, bezala*" 152.

Mitxelena (1970: 74) Axularrengan daukan maiztasuna gogoratu zuen. Lakarrak (1993: 229) iturri ezezagunekotzat jotzen du. Bat hautatu behar izatekotan, cf. Harriet: "comme, *beçala*" (*FE* 341). Esan gabe doa, ostera, Larramendiren euskarako lehengaietatik bat zela: ez zuen iturririk behar hitza burura etor zekion.

164. *BEZAR [berar]: "Acelga, *zarba, bezarra*" 11.

Landuccirengandik, gaizki irakurria (Mitxelena 1970: 55): "*açelga yerua, açelguea verarra*" (228r), non *verarra* "yerua" den, eta ez besterik.⁵⁸

165. BIAORE: "Tumulto, *biaorea*" 657.

Harrietengandik (Lakarra 1991: 232): "tumulte, *biahorea, alarma*" (*FE* 435).

166. *BIAOTA [biao]: "Siesta, *biaota*" 606.

RS-tik, erroa gaizki aterata (Mitxelena 1970: 124): *Biaotan, çeguic lo ynsaur petan*, "En la siesta, noagas dormida debaxo de nogales" (366). Hau bezain interesgarria da egiten duen bigarren baieztapena, hots, *RS* 506 (*Zajagauzi eguinau biao loac*, "Dejatiuo me ha hecho el dormir de la siesta") ez zuela ezagutu, besteak beste hitz bera, baina oraingoan biluzik, agertzen delako.

167. BIAR: "Mañana, *biar*. Después de mañana, *etzi*. Dos días después, *etziluma*. Tres días después, *etzicaramu*" 400.

Sarrera osoa *RS*-tik dator (Mitxelena 1970: 102): *Beyçut nai baoçu, gaur, biar, ezi eziluma ezicaramu*, "Hareoslo si quereys, hoy, mañana, despues de mañana" (*RS* 410). *HH*-an ere, jakina.

168. BIDAGIRO: "Camino libre, *alapidia*. Temple de camino, *bidaguiroa*" 117.

Mitxelena (1970: 69) Mendibururengan bakarrik berraurkitu zuen. *OEH*-ak bermatzen du testuei dagokienez gauzak halaxe direla baina, bestalde, ahozko datuen arabera hitza G-GN-L ingurunean ezaguna dela diosku. Nago, beraz, errazki hiztegiaren belarria izan litekeela kasu honetan iturria.

169. BIDERANTA: "Viagero, *bideranta*" 671.

Harrietengandik (Lakarra 1991: 229): "voyageur, *bideranta*" (*FE* 439).

⁵⁷ Eskaintzen duen Añibarrorena ez da Larramendirengandik aske izan ohi.

⁵⁸ *Bezar*-en geroko bizitza luze eta korapilotsuaz, ik. *OEH*.

170. BIKOR: "Gajo de uvas, *bicorra*" 290.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 90): *Ezterautate morcoxta bat ere, eta ez biccor bat, ahoan eman ahal ditequeyenici vtci* (GGero 173), nondik *morkosta* ere hartu baitzuen. *HH*-an beste adiera batean bakarrik: "sebo".

171. BILAKATU: "Arruinar, *billacatu*" 66.

Mitxelenak (1970: 63) Axularrengan aurkitu zuen, eta bi adibide on eskaini: *Eta nola laincoac ezpaitu, behin ere nehor bide gabequi gaztigatcen, emaiten du arraçoina, Ieremias prophetac, ea cergatic laincoac hiri hura ahal deseguitera eta bilhacatcera vtci çuen* (Gero 190) eta *ezta cerrenic oihala hala eta hain guisa gaizqui bilhacatcen duenic* (ib. 423). Haatik, Harrietengandik errazago har zezakeen (Lakarra 1991: 242-243): "ruiner, *billaquatcea*" (FE 419). Itzulpena eta agerlekua Harrieten alde datoz eta, gainera, Axularren pasarteek bestelako itzulpena emateko oina eskaintzen dute: cf. *AxH* "*bilhakatu*, destruir, deteriorar, maltratar".

172. BILI: "Pollo, *bilia*" 524.

Landuccirengandik (Mitxelena 1970: 115): "piar el pollo, *biliac osç eguin*" (304r). Ez dago zalantzarik formari buruz, nahiz Mitxelenak bizk. mod. *bilio* bakarrik jasotzen dela azpimarratu, ez bakarrik Landuccirengan errepikatuta dagoelako ("ansarino pollo, *ancar* [sic] *bilia*" 234r), baina are Larramendik *HH*-an ere bildua zuelako ("gansarón, *antzarcumea, bilia*") eta Eibarren gutxienez ezaguna delako (Etxba *Eib*, ap. *OEH*).

173. BILTZAPEN: "Cosecha, *uztailla, biltzapena*" 169.

Harrietengandik, hitza ez eze sarrera osoa (Lakarra 1991: 238): "saisons, *ustailac, bilçapenac*" (FE 420).

174. BIOTZAREN UKALDI: "Remordimiento, toque del corazón, *biotzaren ucaldia*" 570.

Axularren *bihotz-ukaldi*-ren egokitzea (Mitxelena 1970: 120):⁵⁹ *Etsaigoan dabillanac cenbat iccara, cenbat bihotz-vccaldi errecibitu behar du, bere etsaiac mendecatceco?* (Gero 513) eta *Cer damu, cer bihotz vccaldi errecibituco duçu. Cer pena eta atsecabe sentituco duçu...?* (ib. 57).

175. BIPILDU: "Pelar, *bipildu*" 502.

Mitxelenaren ustez (1970: 113) Axularrengandik datorke: *Hala bada amoranteac, bipiltcen du larrutcen du, ariman eta gorputxean ihartcen du* (Gero 360) eta *vzquitçu, baldin nahi baduçu colpea segur eguin, appur bat hotztera, vnhatcera eta elccarren bipiltcera* (ib. 302). Alabaina, Harrietengandik hartutakoa da (Lakarra 1991: 249 eta 1993: 217): "*bipilcea*, peller", "*bipildua*, pellé" (EF 279) eta "peler la pomme, *churitcea*" baina "peler la poule, *bipilcea*" (FE 399); Axularren pasarteek, bestalde, bestelako itzulpena emateko oina eskaintzen dutela aski argia da: cf. *AxH* "*biphildu*, desplumar".

176. *BIRAPORA [birapo]: "Papo, *birapora*" 485.

RS-tik, gaizki ebakia (Mitxelena 1970: 111): *Ollac biraporean, arrauçea ta ez ollarrerean*, "La gallina del papo el hueuo..." (219).⁶⁰

177. BIRITXI: "Pares, *birichia*" 489.

⁵⁹ *OEH*-ak ez du esapidea bereizi, bestelako lekukotasunen bilaketa ezinezkoa eginez.

⁶⁰ Mitxelenak eskainitako *msOtx*-en zuzenketari, Añibarroren lekukotasuna erants dakioke: "Papo [...] en las aves: *birapoa*".

Harrietengandik, *bakotxi* bezala (Lakarra 1991: 239): "paire, pair, *parea*, *biritchia*" (FE 395) eta "*biritchia*, pair" (EF 279). Biak elkarrekin agertzen direneko FE-ko agerraldia hobetsi behar dugu. Cf. HH-an "Géminis, Signo de el Zodiaco, *Birichiac*".

178. BIRLORATU: "Reflorecer, *birloratu*" 568.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 120): *Badira çuhaitz batçuc, vdaren finean, sasoiñetic campoan hasten baitira loratcen, edo bir-loratcen* (GGero 211). HH-an ere.

179. BITIÑA: "Cabrito, *bitiña*" 108.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 68): *Bitiña, ahuntz-vmea, gazte deiño, on da iateco...* (GGero 97). HH-an ere: "Cabritillo, cabrito, *anchumea*, *aumea*, *bitiña*".

180. BITORETU: "Justificar, *bitoretu*" 352.

Harrietengandik (Lakarra 1991: 226-227): "justifier, *bithoretcea*" (FE 377).

181. BIURGUNE: "Vuelta, *biurgunea*" 682.

Axularrengandik, zehaztasunik gabe itzulia (Mitxelena 1970: 133): *Haur da bihurgune gaixtoa, dembora gutiz ontasunean <onat-> irautea eta perseueratcea* (GGero 459 [Gero 457]). Pasartearen itzulpena gorabeheratsua izan da historian zehar (ik. OEH, s.v.).

182. *BIYA [ui]: "Pez, brea, *bija*" 512.

Landuccirengandik, gaizki irakurria (Mitxelena 1970: 114): "Pez, *vya*" (304r). Huts beretsua *badamina*-n. Iturrian badago bigarren agerraldi bat: "Pegar con pez, *vyaquin eranç*" (302r).

183. BIZIKAI: "Alimentos, *bicicayac*" 35.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 58): *Eta gaitz liçateque contatcea nola [...] [erle] gazteac, bere mantenuaren, eta bicicayen garrayon, campotic hari diren* (GGero 35). HH-an ere, baina adiera ezberdinetan: "espíritu vital, *bicicaya*" eta "pegujalillo, *vicicaichoa*".

184. BIZIO: "Lombriz, *bicioa*" 384.

Iturri ezezagunekoa, bizkaierazkoa, ziurrenik RS-ren zati galdukoa (Mitxelena 1970: 100). OEH-ak (s.v. 2 *bizio*) bizkaierazko etorkia bermatzeaz gain, aurreko lekukotasun bakarra Mikoletarena dela diosku. HH-an ere.

185. BOHATU: "Arranciarse el tocino, *bohatu*" 62.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 62): *ezta cedenic vrdaia hala bohatcen eta iaten duenic* (GGero 423), eta *urdaia* bertan azaltzea aski frogagarri da. HH-an ere: "pandear la pared, &c., *boatu*, *macurtu*" eta "pudrir, pudrirse, *usteldu*, *marriatu*, *bohatu*".

186. BOKETA: "Colada, *boqueta*" 143.

Iturri ezezagunekoa, ekialdekoa (Mitxelena 1970: 73). Hitzaren edozein aldaeraz dela testu-agerraldiak Larramendiren ostekoak (Mendiburu...), eta lehenagoko hiztegietaoak beste aldaerenak (Pouvreau eta Deen *bokata*, HH *gobada*) dira (OEH, s.v. *bokata*).

187. BORDOINKATU: "Bastón (afirmarse en él), *permatu, bordoincatu*" 95.

Axularrengandik (Mitxelena 1974: 388).⁶¹ Lehenagokoan (1970: 118) giltza bederik aurkitua zuen: Azkuek *pordoinkatu*-n Axularren 3. argitalpeneko (Inchausperena) aipamena egiten zuela. Ez da erabat zaila, nahiz —jakina denez— buruen ordena bera aski ezberdina den, 3.etik 1. edo 2.era igarotzea,⁶² *pordoinkatu* Axularren jatorrizko testuan —eta guztiz bigarren argitalpenean— ere badagoela egiaztatzeko; nolana ere, Villasanteren AxH-ak ere ondorio berera eraman gintzakeen: "*Pordoinkatu*, apoyarse sobre un bastón (bordón), apoyarse, apoyar, apuntalar". Bide batetik zein bestetik lortzen dugun adibidea bat eta bera da beti: *...maquillaren permatceco eta pordoincatceco vrrats guztiaz, escuan beçala iuramentuaren ere ahoan* (GGero 259). Hau ikusita, nago ezin daitekeela zalantzan jarri Erans-eko sarrera osoak pasarte honetan duela etorkia, behar genituzkeen osagai guztiak (*makila* eta *permatu*, alegia) bere baititu. Zailxeago da azaltzen zergatik *bor-* eta ez *por-*, baina jadanik Mitxelenak gogoratzen zuen Landuccik *bordoi* dakarrela (s.v. *bordón*), eta Larramendik berak *bordoya* ematen du (*ibid.*).

188. *BUGES [bujes]: "Higa, *bugesa*" 320.

Landuccirengandik, gaizki irakurria (Mitxelena 1970: 93): "*higa, bugesa, pujessa*", "*higas dar, bugesac emon*" (281r).

189. BULARKA: "Pechos, á pechos, *bularca*" 500.

Axularrengandik (1970: 113): *Beraz hunelatan cintqui eta fintqui, maiz eta lehiatuqui, behargatçaitça [...]* *escatu: eta hunetan gueure ahal guztiaz permatu, eta bulharca iarri* (GGero 462 [Gero 460]). HH-an agertzen den *bularka* ("buque de navío", "carena") oso ezberdina da.

190. BURKIDE: "Igual, *burquidea*" 330.

RS-tik (Mitxelena 1970: 95): *launa burquide gaxto*, "El señor malo para igualarse con el" (295).

191. BURUEMAN: "Cobro, dar cobro, *burueman*" 139.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 73): *Ceren munduco iduriz erremedioric eztuten eguitecoey ere harc edirenen deraue eta emanen buru* (GGero 129).

192. BURURRALDE: "Mollera, *bururraldea, baldoquia*" 425.

Landuccirengandik (Mitxelena 1970: 104): "*mollera de cabeça, buru urrealdea*" (294r).

193. BUTHUN: "Carta, *lequea, buthuna*" 122. "Esquela, *buthuna*" 255.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 70): *...esquiribatu cioen Mecenas bere adisquideac, eta igorri escutic escura, bera iend'artean vrrun egonez, buthun laburbat* (GGero 318).

194. DEBLAUKI: "Franca y lisamente, *deblauqui*" 281.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 90): *Baina maliciaric, edo enganamenduric ahalçatequeyenz gogora ere gabe, erran cioen deblauqui Erreguec, baietz deusetan ere dudatu gabe* (GGero 345); adibide honi bigarren bat erants dakioke: *laincoaren icen saindua, hain deblauqui, antsicabequi eta contu guti eguinic erabilceco vsantça* (*ib.*).

⁶¹ Lakarrak (1993: 228) ez du eransketa kontuan hartu.

⁶² Xehetasunak prestatzen ari naizen lan batean emateko asmoa dugu (ik. Urgell 2000d).

262). Itzulpenari lehenak bide errazagoa demaiolakoan nago. *HH*-an ere: "Absolutamente, *ichiró*, *ertsiró*, *guciró*, *deblauqui*, *deblauquiró*".

195. DENKI: "Sustancia, fundamento, *denquia*" 626.

Mitxelenak (1970: 126) *den* "que es" + *-ki* atzizkiaz eraturakoa izan daitekeela iradoki zuen. Lakarrak (1993: 238) LE ("beharbada Larramendik eraturakoa") taldean sailkatu du. Ez dago hipotesi hoberik, oraingoz behintzat.

196. DESARRA: "Efecto,⁶³ acto, *desarra*" 223.

Axularrengandik, zehaztasunik gabe itzulia (Mitxelena 1970: 82): *Iusticiaren lehenbico colpea, eta desarra ičan cen, ceruco Ainguiruetan Luciferren, eta haren lagunen gaiñean* (GGero 139). Benetako itzulpena "disparo, descarga" da (cf. *OEH*), baina adibidearen testuinguruak errazki azaltzen du Larramendiren ulerkerara. Cf. *HH*-an *besarra* "tiro".

197. DESGOGARA: "Disgusto, à disgusto, *desgogara*" 214.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 81): *Nola gueure gogaraco gaucequin naturalzqui bozten eta alegueratcen baicara, hala desgogaracoequin eta contracoequin tristetcen eta hasserretcen gara* (Gero 271) eta *Ceren ezta bide bat baicen eta bat hura ere, guztia da mehar, malccar, buruz gora, haraguiaren contra, eta desgogara* (ib. 475).

198. DESOREN: "Deshora, *desorena*" 208.

Iturri ezezagunekoa. Axularrek *ez-oren* erabiltzen du, eta Tartasen *Onsa*-n *desoren* sarri agertzen da (Mitxelena 1970: 81). Lakarrak laburpenean (1993: 230) Tartas ematen du iturritzat, zalantzaz. Tartasen iturritasuna zeharo arbuia behar da: nire ustez, iturria Axular bera dateke, *ez-orena*-ren lekukotasun bakarra (*OEH*) eta, beraz, Larramendiri oina eman zezaiokeen bakarra baita. *HH*-an ere *des-* aurrizkidun ordainak bakarrik jasotzen ditu: "deshora, *desordua*, *desorena*". Balirudike, beraz, Axularren *ez-oren* irakurri zuen bakoitzean bere sistemara erakarri zuela, bere ustez euskal etorkiko aurrizkia zen *des-* erabiliaz.

199. DESPITATU: "Abrasarse de ira, *despítatu*" 4.

Axularrengandik, zehaztasunik gabe itzulia (Mitxelena 1970: 53): *Orduan erreco da bere baithan barrena, despítatuco da, tristetuco da* (Gero 282). Itzulpena *erreco da* horri zor bide zaio. Cf. *HH* "irritar, enojar".

200. DESTATU: "Disponer, *destatu*" 216.

Axularrengandik, gaizki ulertua (Mitxelena 1970: 81): *Hala dira bada guerotic guerora dabilçanac ere, kheinatcen dira, eta eztute aurthiquitcen: destatcen dira, eta eztute desarratcen* (Gero 54). Honen antzekoa da *ib.* 270; baina itzulpena azaltzeko, hobeak dira hurrengo bi adibide hauek: *Ethorquizuneco gauzac, fortunaren escuan eta venturan daudecinac, nahi ditutzu oraidanic gobernatu, trazatu eta destatu* (ib. 66) eta *...eta guc destatcen, eta ordenatcen dugun guero hartara heldu gabe, contu hura conpli ditequeiela, eta neurria betha* (ib. 117). Ik. orain *OEH* (s.v.) hitz honetaz egon diren gaizki ulertuetarako. Cf. *HH* "assestar artillería".

201. DEUNGA: "Malo, *gestoa*, *deunga*" 387.

⁶³ Mitxelenaren argitalpenean *Afecto*.

RS-tik, sarrerakidea bezala (Mitxelena 1970: 101). Ez berau ez Lakarra (ik. adibidez 1996a: 53) saiatu dira RS-n kokatzen, eta balirudike honegatik (eta Mitxelenak "donde es voz frecuente" diolako) ia-ia orrialdero espero behar dugula, filologoaren lana astuna ez eze alferrikakoa ere bilakatzeko moduan. Alabaina, nik 3 *deunga* baino ez ditut aurkitu (RS 222, 387 eta 440)⁶⁴, eta azkena, 4. koadernotxokoa izanik, baztertzekoa da. Hona hemen, beraz, iturri izan daitezkeen biak: *Hoea ataostean deunga*, "La cama de tras la puerta mala" (222) eta *Albia, deunga dustien abia*, "Albia, nido de todos los malos" (387).

202.DIADA: "Darete, *diada*" 186.

RS-tik (Mitxelena 1970: 78): *Yndac micabat orban бага, diada nesquea gajpaga*, "...darte he la moça sin mal" (174), nondik *orban* ere hartu baitzuen.

203.DILISTEA (mug.): "Lenteja, *dilistea*" 364.

Landuccirengandik (Mitxelena 1970: 98): "lentejas,⁶⁵ *dilistea*" (286r). Cf. *HH dilista* "lenteja".

204.?DIPIDIA [dipina?]: "Olla, *dipidia, lapicoa*" 468.

Iturri ezezagunekoa, ekialdekkoa, beharbada *dip(h)iña* (BN-mix ap. Azkue), *dupina* / *tupina*-ren aldaera, ulertu beharrekoa (Mitxelena 1970: 109). Hipotesia jadanik Maurice Harrietek aurreratu zuen (*OEH* s.v. *dipidia*). Errata azalgabe dago eta, nolana ere, oso azalgaitz iruditzen zait: entzun uste zuena islatzen ote du, beraz?

205.DITIBURU: "Pezón del pecho, *ditiburua*" 513.

Landuccirengandik (Mitxelena 1970: 114): "peçon de teta, *ditiburua*" (302r).

206.DONARI: "Galardón, *donaria, donarioa*" 292.

RS-tik (Mitxelena 1970: 90-91): *Ondo eguioc landerrari, layncoac diquec donari*, "dar te ha Dios galardón" (265).

207.DONARIO: "Galardón, *donaria, donarioa*" 292.

Iturri ezezagunekoa. XIX. mendeko gipuzkoar idazle zenbaitetan "sosiego, calma, tranquilidad" adieran erabilia izan zen (Mitxelena 1970: 90-91). Agian Larramendiri *donaria*-k burura erakarritako aldaera da.

208.DONEANE: "San Juan, *Doneane*" 350.

RS-tik (Mitxelena 1970: 96): *Doneaneco euria, garien galçaygarria*, "Lluuia de San Juan..." (254 eta, "San loan" itzulpenaz beste ezberdintasunik gabe, 280)⁶⁶. Cf. *HH Done Joane* s.v. *degollación*.

209.DONE BEREZI: "Cáthedra de San Pedro, su día, *done berecia*" 127.

Iturri ezezagunekoa (Mitxelena 1970: 71 eta Lakarra 1993: 228). *done*-k RS-n duen maiztasuna kontuan izanda (cf. *Done Viçen* "San Viçente" 318, *Done Meterij* "sant Meterio" 330), hipotesirik egiantzekoena RS-ren zati galdukoa izateari deritzat. San Pedrori buruzko erretrauetarako, ik. Garate 1998: 11807-11818. zb.

⁶⁴ Nire datuak bat datoz Soto-Mitxelenarenekin (1978-79: 39); beste bi agerraldi eskaintzen ditu, baina *deungen* (207) eta *deungueaenean* (96) dira, eta nekez *deunga* eta bai *deungea* (jadanik ezagutzen zuena: cf. *HH* s.v. "malo") iradokiko zioten.

⁶⁵ Mitxelenarenean *lenteja*.

⁶⁶ Mitxelenak 281 dio, oharkabeen.

210.DONE FRANZI: "San Francisco, *Done Franci*" 282.

Iturri ezezagunekoa (Mitxelena 1970: 90 eta Lakarra 1993: 231). Aurreko *done*-a bezalaxe, hau ere RS-ren zati galdukoa delakoan nago (ik. *Done Berezi*). Cf. *San Frantzisko urriko, liñua iru orriko* (Garate 1998: 11704. zb.).

211.DONE MATRO: "Bartholomè (San), *done Matro*" 94.

Iturri ezezagunekoa, agian bizkaierazkoa (Mitxelena 1970: 66 eta Lakarra 1993: 227). Nire ustez, RS-ren zati galdukoa (ik. *Done Berezi*). San Bartolomeri buruzko errefratuetarako, ik. Garate 1998: 11683-11689. zb.

212.EBAEA (mug.): "Gusto, *ebaea*. A gusto, *gogara*" 306.

Iturri erabat ezezagunekoa (Mitxelena 1970: 92).

213. HEBRO: "Hado, *hebroa*" 312.

Ez Mitxelenak (1970: 93) ez Lakarrak (1993: 232) antzik hartu ahal izan diote. Baliteke Landuccirengandik etortzea, irakurketa txar baten medioz: "hado, lo que se hada, *hadua*" (279v), baldin eta Larramendik, edo kopiagileak, <adu> <ebru> irakur zezaketela, eta gero *-ua* > *-oa* aldatu zuela onartzen bazait. Eskuizkribuari begiratuta, <hebrua> oso irakurle axolakabeak baino ezin irakur zezakeela aitortu behar dut.

214.EDERGAILUZ: "Parecer (por bien), *edergailluz*" 486.

Mitxelenak (1970: 111) hitza Axularrengan zegoela, baina -z atzizkirik gabe erabiltzen zuela adierazi zuen: *hautçaz guztioz escatuco çaicu contu, ea edergaillu, munduagatic, ala laincoa gatic eta intencione onez vanaloriaric gabe eguin ditugun* (Gero 163) eta *ez edo cein moldez, ez hitzez itchurapenez, campotic eta edergaillu: baiña cin cinez eta gogotic barrenetic eta bihotzetic* (ib. 335). Lakarrak Harrietek ere ezin azal lezakeela erakutsi ondoren (1991: 247), laburpenean Larramendiren eraketatzat jotzen du (1993: 236). Egiatan, bigarren argitalpenaren berrikuntza da: *...ez edo cein moldez, ez hitzez itchura-penez, campotic eta edergailluz* (GGero 335). Cf. HH: "Infulas", "Quita y pon", "Arrequite", "Adorno".

215.EGALATEA: "Menstruo de muger, *egalatea*" 417.

Landuccirengandik Larramendik ateratakoa (Mitxelena 1970: 103): "mestruo⁶⁷ de muger, *egalateacoac*" (292v).

216.EGARBERAA: "Amigo de conversación, *solasturia*. De beber, *egarberaa*" 46.

Etorki ezezagunekoa, ziurrenik mendebaldekoa. Mitxelenaren iruzkina (1970: 59) baliogabekoa da, oharkabean *egarberaa* kopiatu baitzuen: ez dago, beraz, *a + a > ea*-rik. *otz-beraa*-n ikus daitekeen bezala, *beraa* forma bestetan ere aipatzen du Larramendik. Ez dago lehenagoko lekukotasunik (OEH, s.v. *egarbera*), baina ahozko datuek hitza B-gip bederen dela erakusten digute.

217.EGARTSU: "Sed, *egartsua*" 597.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 123): *Egun batez Israeleco iendeac hain çuen egartsu idorra eta edateco desira handia, non... hequen guthiciac, hequen desirac eta egartsuac...* (Gero 511) eta *Erregue Lisimacoco, egartsua iaunduric, behin edatea gatic, errendatu cenean, esançuen* (ib. 389); beharbada *edateco desira*-ren laguntzaz itzulitakoa.

⁶⁷ Mitxelenarenean *mestruos*.

218. EGINKATU: "Estipular, *eguincatu*" 259.

Harrietengandik (Lakarra 1991: 242 eta 1993: 207): "stipuler, *eguincatcea*", "il stipule bien, *ongui eguincatcen du*" (FE 428).

219. EGIPIDE: "Obligación, *eguipeida*, obligar, *erchatu*" 460.

RS-tik (Mitxelena 1970: 108): *Badaguic eguipeida, ona doquec erioçea*, "Si hazes lo que eres obligado..." (215). Beronek erkaketara Axular ekarri zuen, *eguinbide* erabiltzen baitu, eta Lakarrak (1993: 214) Harrieten "obligation, *çorra, eguiñbidea*" gogoratu du.

220. EGITEKOTSU: "Negocioso, *eguitecotsua*" 444.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 106): *Eguiazco penitencia, cein baita, gauça handia, eguitecotsua, eta osasuna duenari ere, lanic eta ekhairic asco emaiten dioena* (Gero 202) eta *Dembora hertsia, eta eguitecotsua da, heriotceco dembora* (ib. 201); lehenetik **ekaira* ere har zezakeen, eta hobe da, familia bereko itzulpenagatik ("negocio" / "negocioso").

221. EGUZARI: "Festividad, *eguzaria*" 274.

Mitxelenak (1970: 89) Landuccirengandikotzat jo zuen: "feria o fiesta, *eguçaria, edo feria*", "fiesta de guardar, *eguçari euchayteco*" (275r). Lakarrak (1991: 245) Harrieten alde egiten du, berriz; hona hemen bere argudiaketa: "Harriet kontutan hartuz geroz Landucci ez da nahita nahiezko hartzekoduna: cf. "*pezta, eguçaria, fête, f.*" (EF 318). Urrutiago joaz, egiantz gehiago du Harrieten aukerak, besterik ez bada ere *eguçari euchayteco* hori Larramendiri ez bide baitzitzaiokeen meziprezagarri begitanduko". Alabaina, laburpenean (1993: 231) biak aipatzen ditu. Erabat ados nago Lakarraren azken erabakiarekin, hots, biek aukera bera edo beretsua dutelakoarekin. Izan ere, Landucciren erdarazko hitzak ez gordetzea haren kontra doakeen neurri berean, Harrieten alde erabiltzen duen argudioa (*eguçari euchayteco* ez hartua, alegia) ez baita zeharo zuzena: Mitxelenak elkarrekin aipatzen baditu ere, eta hiztegiko orrialde berean agertzen badira ere, ez daude elkarren jarraian, 14 sarreren tarteak berezita baizik. *HH*-an ere: "día de fiesta" eta "fiesta de guardar".

222. EGUZKIZ EGUZKI: "Sol, de Sol á Sol, *Eguzquiz Eguzqui*" 612.

Axularrengandik, aldaketa txiki batekin (Mitxelena 1970: 125): *Ezteçala iraun iguzquia sar arteño, etçoaztela, oherat, mendecatceco desirarequin: accaba differentciac iguzquiz iguzqui* (GGero 271).

223. *EKAIRA [ekai]: "Negocio, *ecaira*" 443. "Quehaceres, ocupaciones, *ecairac*" 556.

Axularrengandik, gaizki bilusitakoa (Mitxelena 1970: 106): *Eguiazco penitencia, cein baita, gauça handia, eguitecotsua, eta osasuna duenari ere, lanic eta ekhairic asco emaiten dioena* (GGero 202), nondik *egitekotsu* ere hartu bide zuen. Erro bera atera zuen *HH*-an: "(buelvo al) punto", "embarazo", "ocupación", eta *ekairatu* "ocupar, dar que hazer".

224. EKANDU: "Costumbre, *ecandua, aztura*" 171.

RS-tik (Mitxelena 1970: 76): *Ecandu gextoa belu anztudoa*, "Costumbre peruersa..." (156) eta *Arecherean artera ecandu gaxtoa arçaytenda*, "...se toma mala costumbre" (279).

225. EKIX: "Adelante, *achiti*. De aquí adelante, *equix*" 16.

RS-tik (Mitxelena 1970: 55-56): *Equix nago guertuago ynox baño guduraco*, "Mas aparejado que nunca estoy de aqui adelâte para la guerra" (331). Bildumagileak gaizki itzulitako hitza da eta ez hapaxa, mailegua baizik, gaztelaniaz "mozkor, hordirik" esanahiarekin (Lakarra 1996c: 328, 331. oh.); "bestelako" esanahikoa dugu, beraz, atsoitza.

226.ELHABERRI: "Novedades, *elhaberriac*" 453.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 107): *Anhitz etan ere eccartcen derauzquigute elha-berriac, erran-merranac* (Gero 312) eta *Han da munduco elha-berri, erran-merran eta nahasteca guztia* (ib. 358). *Erans*-eko pluralarengatik, lehenengoa hobetsiko nuke.

227.ELHABERRITI: "Novelero, *elhaberritia*" 454.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 107): *Iccusten duçunean ecen presuna bat dela erasle handi, minçatçaille, aha çabal, hitz mitzti, elha berriti, eta salhati, eztiçu halacoari sequereturic fidatcen* (GGero 540 [Gero 538]), nondik *hizmitzti* ere hartu baitzuen.

228.ELHE: "Fábula, cuento, *elhea*" 265.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 88): *Ala elheac, ametsac, edo gueçurrac, othe dira hauc?* (Gero 599). Bada beste agerraldi bat, itzulpena eragiteko egokiagoa, bidenabar: *Bada exenplo bat, edo elhe bat, elkhar hil nahi zuten batzuen artean gerthatua* (ib. 467). *HH*-an ere, s.v. *fábula*.

229.ELI: "Rebaño, *elia*" 565.

RS-tik (Mitxelena 1970: 120): *Semez elliric ez*, "De hijos no rebaño" (235). Grafi aldaketa, hitza lehendik ezagutzeari zor zaio: cf. *HH* "dula", "ganadería", "ganado mayor", "ganado, en general" eta "manada".

230.ELIKATU: "Probar gustando, *elicutu*" 542.

Axularrengandik, zehaztasunik gabe itzulia (Mitxelena 1970: 117): *Ceren etchathera esque ethorriceican probe gosse premian cegoenari, ezpaitcioen bere mahay assetic, assetcecoric eman eta ez are elicatcecoric ere* (GGero 233). Nahiz beste agerraldi bat egon (ib. 416), honetan dago *Erans*-eko itzulpenaren zioa, ase "bete" vs *elikatu* "dastatu, pittin bat hartu" ulertu baitzuen. Antza denez, aditz honekin arazo gehiago izan zituen: cf. *HH* "cocer en agua".

231.ELIKATURA: "Mantenimiento, *elicutura*" 398.

RS-tik (Mitxelena 1970: 102). Bi aukera esakaini zituen, baina bata (RS 76) alde batera uztekoa dugu, 1. koadernotxokoa baita (Lakarra 1996a: 42); iturburua, beraz, honako hau genuke: *Oguiagaz hura, oragaz heroen elicutura*, "Pan con agua mantenimiento de loco y mastin" (246).

232.EMAI: "Dádiva, *emaya*" 184.

RS-tik (Mitxelena 1970: 78): *Escu onerean emayona*, "...buena dadiua" (175).

233.EMAIEN: "Albricias, *emayenac*" 29.

Iturri ezezagunekoa. *RS*-n agertzen den *vidarien* (120) hitzaren antzera eratutakoa da (Mitxelena 1970: 58). Baliteke, beraz, *RS*-ren zati galdukoa izatea (Lakarra 1993: 226).

234.EMENDAILU: "Supererogación, *emendaillua*" 623.

Axularrengandik (Mitzelena 1970: 126): *ezterauzquigu emaiten fabore bere gaiñezcoac, abantaillezcoac, eta emendailluzcoac, ceren ezpaitugu errecibitcen comunac eta arduracoac* (Gero 103). Lakarrak (1993: 238) uzurtasuna agertu arren, ez dago zalantzarik, beste pasarte batean latinez itzulita agertzen baita; bigarren hau da, ezpairik gabe, Larramendiren iturria: *Opera super erogationis, obra emendailluzcoac, emanen gainecoac, gure escuco direnac, libreac, nahi badugu baicen, eguitera obligatu ezcarenac* (GGero 499 [Gero 497]).

235.ENHARDATU: "Dislocar, *enhardatu*" 213.

Axularrengandik (Mitzelena 1970: 81): *Ceren nola, çangoa, besoa edo gorputceco bertce parte bat, bere toquitic eta iunturatic ilquitcen, maccurtcen, aldaratcen edo enhardatcen denean, ecin sosega baititeque...* (GGero 422).

236.ENDEA (mug.): "Ausencia, *endea*" 81.

Iturri erabat ezezagunekoa. Mitxelenak (1970: 65) *indea*-ren antza azpimarratu zuen.

237.ENDELEGAMENDU: "Uso de razón, *endelegamendua*" 685.

Axularrengandik (Mitzelena 1970: 133): *...eta adimendura edo endelegamendura heltcen garen pontu beretic, gure obren primicia: eta lehena dasta deçan* (GGero 172).

238.ENDREZERA: "Parte, *endrecera, aurquientza*" 490.

Axularrengandik, sarrerakidea bezala eta leku beretik (Mitzelena 1970: 112). Biak batzen dituen adibide bi (diren guztiak) eskaini zituen: *Beccatoreac [...] badirudi ecen oraiño [...], samur duen parteric, vxter duen aurquientçaric, endrecera onic eta goçoric baduela* (GGero 97) eta *gorputceco endrecera, aurquientça, iuntura, eta parte guztietan* (ib. 590). Bietan *parte* ere azaltzen da, itzultzaileari laguntza eskainiaz. *HH*-an ere, s.v. *lado*.

239.ENKINA: "Rencor, *enquina*" 574.

Iturri ezezagunekoa, ziurrenik *RS*-ren zati galdukoa (Mitzelena 1970: 120 eta Lakarra 1993: 237). Bistan da, Mitxelenak ohartu bezala, gazt. *inquina*-ren *enquina* aldaera baino ez dela.

240.ERAGO: "Continuar, *erago*" 160.

Iturri ezezagunekoa, bizkaierazkoa (Mitzelena 1970: 75 eta Lakarra 1993: 229).

241.?ERAITOKI [erailoki?]: "Sienes, *eraitoquia*" 605.

Iturri ezezagunekoa, ziurrenik *RS*-ren zati galdukoa (Mitzelena 1970: 124 eta Lakarra 1993: 238). Mitxelenak adierazi bezala, ezin ziur egon gaitezke bizk. *erailoquia*-ren aldaera ala errata den. Dena dela, iturria *RS* baldin bada, egiantzekoena <l>-ordezko <t> irakurketa txarrari deritzat, Larramendik bertan *-toqui* ikusi uste izan baitzezakeen, edo zuzendu.

242. ERAK: "Mátale, *erác*" 404.

RS-tik (Mitzelena 1970: 93): *lac, emac, erac, ta çeguioc trancart*, "Hierele, dale, matale..." (272), nondik *erac* eta *trancart* ere hartu baitzituen.

243.ERAKUSPEN: "Doctrina, instrucción, *eracuspna*" 218.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 81): *Ceren ezta munduan halaco aitcindariric, guidariric, argui-eguilleric eta ez eracusleric, nola baita arraçoïn naturala [...] eta concientciaren lehenbico muguida, abiadura, eracuspena eta conseillua* (GGero 420).

244.ERAUKI: "Vencido, *erauquia*" 666.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 130): *Gueureaz denaz beçan batean, errendatuac iarriric, garaitia emanic, erauqui erranic, ezugula indarric asco eçagaturic* (GGero 365).

245.ERAUZI I: "Arrancar, desquiciar, *erauci*" 63.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 62): *Ceren emazte ezcôdua eztu deusec ere, hala guiharran vquitcen, crozcan erauzten, eta ez bere tentutic eta pacientciatic atheratcen, nola bere senharra bertcerequin diabilcola iaquiteac* (Gero 358) eta *çure etsai, colerac erauciric dagoen harc* (ib. 309). Agerraldirik onena ziurrenik ondokoa da: *amorio desordenatuac, hain flacatcen eta cordocatcen du amorio natural haur, non batçuetan erroetaric erauzten eta atheratcen baitu* (GGero 354), "desquiciar" itzulpena erro "quicio"-k eragin baitzion.

246.ERAUZI II: "Levantar testimonio, *erauci*" 369.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 99): *Nola baitira ebatsien bihurtcea, çorrèn pagatcea erauci dituen falso testimonioen satisfatcea* (Gero 242), *Falso testimonioric ez erauztea?* (ib. 516) eta *erauzaraci ceraucan falso testimonio gaixto bat* (ib. 378). Cf. *HH* "conturbar" eta "levantar algún testimonio".

247.ERAXTURA: "Añadidura, *erachtura, iraistura*" 50.

Azalpen errazik gabekoa, beharbada Axularrengandik hartu eta Larramendik moldatua (Lakarra 1993: 227). Azalpen saio baterako, ik. *iraistura*.

248.ERBATZ: "Tasco, *erbatza*" 633.

Iturri ezezagunekoa, mendebaldekoa. Mitxelenak (1970: 127) "estopa gruesa del cáñamo o lino" dela zehaztu zuen, Azkuerenean bizk. eta gip. dela gogoratzeaz gain. *OEH*-ak jasotzen dituen lekukotasun ia guztiak, adiera honetan eta bestetan, bizkaierazkoak dira. Dena dela, *HH*-an ere ondo jasota dago: "carmenar y estregar el lino", "cañamiza" eta "tascado de el lino".

249.ERDITSUKO: "Mediano, mediocre, *erditsucoa*" 407.

Harrietengandik (Lakarra 1991: 231)⁶⁸: "médiocre, *erdixucoa*" (FE 384).

250.*ERDIZTAPEN [erditzapen]: "Parto, *ertzea, erdiztapena*" 497.

Harrietengandik (Lakarra 1991: 236): "accouchement, *erditçapena*" (FE 325). Lakarrak forma ezberdintasunagatik uzkuratzen duela eman arren, laburpenean (1993: 236) Harrieti egozten dio. Ezen begibistakoa da, izan ere, Larramendik —edo inprimatzaileak— huts egin zuela.

⁶⁸ Bertan Larramendiri <erdixucoa> egozten dio, eta honen azalpenean xehetasun asko (bestela oso jakingarriak) eskaintzen. Hurrengo lanean (1993: 211-212) hutsa zuzendu zuen.

251.EREDU: "Conformidad, *eredua*" 157.

Mitxelenak (1970: 75) Axularrengandikotzat jo zuen: *Hunen arauaz, eta ereduz erraiten du Senecac ere* (Gero 279). Lakarrak (1991: 248) honako iruzkin hau egiten dio: "Alabaina, hitz hori hapax izaerara iristetik urrutiko dago (*Man.dev., Noelak, Oih, Pouv, EtxSar, etab.*) eta ezin zokora daiteke H[arriet] "selon, suivant, *arabera, eredura*" ere. Honenbestez, laburpenean (1993: 229) Harrieten alde erabakitzen du. Ausartegia iruditzen zait; hona zergatik: (1) Larramendiren iturriko itzulpenarekiko fideltasuna hausten du; (2) askoz errazagoa da literatur iturri batetik deklinabidez askatuta jasotzea, ezen ez hiztegiz hiztegiko transmisioan; hots, "según, *eredura*" esperoko nuke, iturria Harriet balitz. Egia da *lacho* "libertad"-en hiztegiko hitza atzizkiz askatu zuela, baina gauza bera preposizio batekin egiteari sinetsaizta deritzat; eta (3) aipatu Axularren pasarte zeharo dagokio itzulpenari, honen arabera *ereduz* "en conformidad (con)" baita.

252. EREGI: "Levantar, *jasan, jasaitu, eregu*" 367.

Mitxelenak (1970: 98) *RS* eta "sobre todo" Landucci dakartza hitz hau azaltzera. Alabaina, Landucciren hiztegia da iturria, ezpairik gabe, *RS*-ko agerraldi bakarra (79. erretrauan), 1. koadernotxokoa izateaz gain, *erigui* baita; italiarrak, berriz, behar dugun formaz hornitzen gaitu: "leuantar otra cosa, *eregui veste gauça*" (286v) (Lakarra 1996a: 38).

253.ERGARRI: "Pendenciero, *ergarria*" 505.

RS-tik (Mitxelena 1970: 113). Bi aukera ditugu, bietan itzulpen ezberdinarekin ("causa (de) riña"), baina haietatik bat (443. erretraua) 4. koadernotxokoa izaki (Lakarra 1996a: 43), iturria honako hau dateke: *Eguia ergarria*, "La verdad causa riña" (291).

254.ERGEL: "Necio, simple, *erguela*" 441.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 106): *Erranen deraue halaber halacoey, Euangelioco borz virgina erguel hey erran cerauena* (Gero 213). Bada agerraldi gehiago (cf. *AxH*). *HH*-an ere, nahiz adiera ezberdinetan: "afiligranado", "fileno", "hazañero", "melindroso".

255.ERGELKERIA: "Necedad, bobería, simpleza, *erguelqueria*" 442.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 106): *Alfertasuna da erguelqueriaren ama...* "Otiositas est mater nugarum" (Gero 39). Bada agerraldi gehiago (cf. *AxH*). *HH*-an ere, nahiz adiera ezberdinetan: "hazañería", "melindre, demasiada delicadeza", "afeminarse".

256.*HERGIDIKI [hertsidiki]: "Ojos (abrir y cerrar dellos), *herguidiqui bat*" 467.

Axularrengandik, gaizki irakurritakoa (Mitxelena 1970: 109): *eta penitencia eguiteco, asco da pontu bat, buru-itçulce bat, begui herts-idequi baten bitartea* (GGero 196). Hutsa ez da zati guztietan berdina zaila edo erraza azaltzen. Bigarren zatia, Larramendik ongi ezagutzen zuen *idiki* aldaera da (cf. *HH*-an honetaz egindako eratorriak: *idikiera, idikipen* "abertura", *idikiro* "abiertamente"): egokitzapen bat izan daiteke, beraz. Lehena oso iluna da, nahiz eta hor nonbait errataren itzala dabilela argia izan. Hona hemen bururatzen zaizkidan bi azalbideak, zein baino zein ahulagoa, dena dela: (1) tarteko zerrendako <herchi->ren ordezkio hutsa izatea; (2) tarteko zerrendan <hergi-> egotea, gaur egun <herxi-> idatziko genukeena, alegia; honen azalpena, batzuetan Axularri gorde zion <g> grafia izango litzateke, baina transkribatzerakoan Larramendiren buruan sekulako nahaste bat gertatu zela uste izatea litzateke, jakina.

257.ERLASTU: "Enronquecer, *marrantatu, erlastu*" 242.

Axularrengandik, sarrerakidea bezala eta leku beretik (Mitxelena 1970: 85): *Conciencia da behin ere lohacartcen ezten cerbitçari bat, marrantatcen edo erlasten ezten predicari bat* (GGero 426). HH-an ere.

258.*ERLATERA [erlatei]: "Colmena, *erlatera*" 147.

Landuccirengandik, gaizki irakurria (Mitxelena 1970: 73): "colmena, *colmenea, errlateya*" (248r). Mitxelenak irakurketa txarra ala errata ote den galdetzen dio bere buruari. Larramendik kopia bat erabili zuela jakinik, badirudi kopiatzaileak <erlateia> aldaketa egin zukeela, eta Larramendik <i>-ren ordezt <r> irakurri, berak bokal arteko <y> gordeko baitzukeen. Badago beste agerraldi bat: "abejera, *colmena, erlateya*" (227r).

259.ERNETASUN: "Inspiración, *ernetasuna*" 345.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 96): *...ernetasun iratçarpentasun, barreneco berotasun eta bertce fabore handi ichil batçuc* (GGero 105).

260.ERRA: "Aversión, odio, *errá, aihercundea*" 85. "Odio, *erra*" 466.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 65): *baldin barrenean nehoi herraric, heguigoaric, gorroturic edo vorondate gaixtoric badiaduçoçu* (Gero 336). AxH-ak adibide gehiago eskaintzen ditu, eta bada bat gutxienez, sarrerako bi hitzak batzen dituena: *faltari bai, baiña faltaren iabeari herraric, eta aihercunderic eduqui gabe* (GGero 278). HH-an ere, s.v. *odio*.

261.ERRAGARRI: "Aborrecible, *erragarria*" 3.

Axularrengandik, zehaztasunik gabe itzulia (Mitxelena 1970: 53): *Ezta conciencia gaixtoa beçain gauça gaixtoric eta erragarriric* (GGero 423). Villasantek (AxH, s.v.) "que quema, quemante" itzultzen du; adiera figuratuan izaki, Maurice Harrieten itzulpena (ap. OEH, s.v. *erregarr*) hobe da, zalantzarik gabe: "irritant, intolérable".

262.ERRAIZUN: "Decir, qué decir, *erraizuna*" 210.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 81): *Nahi eztauenac erraiçunic, eztemela* [sic] *occasinoric* (GGero 403).

263.ERRATSU: "Colérico, *erratsua*" 145.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 73): *...presuna herratsuen, erriertatsuen eta haserre corren artean ere* (GGero 270).

264.ERRAZTU: "Facilitar, *erraztu*" 268.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 88): *Hala bada guiristino onari ere, amorioac, gogotic egoiteac, arintcê, errazten, goçatcen eta ahantz aracitcen* <aratci-> *derautça* (GGero 491 [Gero 489]). HH-an ere, s.v. *facilitar*.

265.ERRELLA: "Reja de arado, *errellea*" 569.

Landuccirengandik (Mitxelena 1970: 120): "reja de arar, *errellea*" (311r).

266.ERREMUSINARI: "Limosnero, *erremusinaria*" 378.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 100): *Franciaco lehenbico erremusinari* (GGero 3).

267.ERRIDOI: "Cortina, *erridoia*" 167.

Iturri ezezagunekoa (Mitxelena 1970: 76 eta Lakarra 1993: 229). Lekukotuta dauden beste aldaeren arabera (ik. OEH s.v. *erridau*) ekialdekkoa dela dirudi.

268.ERRO: "Quicio, erroa, crosca, üala" 557.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 119): *Athea bere erroetan <erroae-> beçala itçultcen da naguia ere bere ohean edo camastran. Athea bere erroetan eta uhaletan ongui iarria eta pausatua dagoenean, erraxqui hersten eta idequicenda "Sicut ostium vertitur in cardine suo..." (GGero 45-46). Bada beste agerraldi egoki bat: amorio desordenatuac, hain flacatcen eta cordocatcen du amorio natural haur, non batçuetan erroetaric erauzten eta atheratcen baitu (ib. 354).*

269.ERROZTATU: "Arraigar, erroztatu" 61.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 62): *...behar da maiz cofesatu. Ceren maiz cofesatcen dena baithan, eztira beccatuac, hala gogortcen, eta ez fincatcen, eztira hala erroztatcen, eta ez hain barrena sartcen (Gero 539). Bada beste agerraldi bat: Zuhaitz ttipiac, oraiño erroric eztutenac, ecin athera ditzaquezu, cer eguinen duzu bada errozta, eta handi ditezinean? (ib. 83). Cf. HH erroztatze "radicación".*

270.ERRUMES: "Mendigo, errumesa, noharroina" 414.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 103): *eta halaric ere bethi dira errumez [sic], noharroin, eta on-behar (GGero 232). Nahiz eta hau baino askoz adibide gehiago dagoen (cf. AxH), Mitxelenak, arrazoi osoz, sarrerako bi hitzak jasotzen zuena hautatu zuen. Izan ere, errumes hitza aski ongi ezagutzen zuen Larramendik: cf. HH "mendigo" eta "pordiosero".*

271.ERTUN: "Desdichado, ertuna" 200.

RS-tik (Mitxelena 1970: 80): *Bar[ɾ]i ertuna lelengo ençuna, "La nueva desdichada..." (408).*

272.ERTZE: "Parto, ertzea, erdiztapena" 497.

Mitxelenak (1970: 112-113) Leizarraga aipatu arren, egiatan Larramendik Landuccirengandik hartu zuen (Lakarra 1991: 236 eta 1993: 217): "parto, erçea" (301r).

273.ERXATU: "Obligación, eguipidea, obligar, erchatu" 460.

Harrietengandik (Lakarra 1991: 235): "obligar, erchatcea", "nous sommes obligés à faire cela, erchatuac gare hori eguiterat" (FE 391).

274.ESKARATZ: "Hogar, escaratza" 324.

RS-tik (Mitxelena 1970: 94). Bi aukera ditugu, baina bat (RS 469) 4. koadernotxokoa izaki (Lakarra 1996a: 42), honako hau dateke iturria: *Seyac danzuana escarazean, esan daroa ataartean, "Lo que oye el niño en el fogar..." (238), nondik atarte ere hartu zuen. HH-an bestelako adieran: "portal" eta "zaguán".*

275.ESKARNIATU: "Escarnio, hacerle, escarniatu" 246.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 85): *Hori da laincoaz, eta laincoaren misericordiaz escarniatcea (Gero 150), adibidez. Ik. AxH adibide gehiagotarako.*

276.ESKOLATU: "Disciplinar, escolatu" 217. "Enseñar, escolatu" 239.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 81): *Semeac ditutçunean, escola itçatçu haurretic, "...erudi illos" (Gero 88), Doctor handi içanen denac haurretic behardu escolatu (ib. 175). Bada oraindik beste agerraldi bat: Bertceren escolatceco eta gobernatceco cargu dutenec (ib. 277).*

277.ESKUBI: "Mano derecha, *escubia*" 396.

Landuccirengandik (Mitxelena 1970: 101): "derecha mano, *escubia*" (258v). Badago beste agerraldi bat: "Mano diestra, *escubia*" (290v).

278.ESKUDENZIA: "Libertad, *escudencia, lachoa*" 370.

Mitxelenak (1970: 99) ezinbestean Axularrengandikotzat jo zuen, nahiz honek *eskudantzia* erabili, hurrengo pasartean oinarrituta: *Ceren la[n]coa de bihotz bera, eta misericordios, ezta ez hunetario hartu behar occasinoric eta ez ezudântciaric beccatu eguiteco* (Gero 143). Harrietengandik hartua da, sarrerakidea bezala (Lakarra 1991: 251), honek eskaintzen baitzizkigu itzulpen eta forma berberak: "liberté, *escudencia*", "il a pris la liberté, *escudencia hartu du*" (FE 379). Mitxelenak aipatu forma bildua zuen HH-an, s.v. *licencia*.

279.ESKUEDA: "Palma de la mano, *escueda*" 480.

Iturri ezezagunekotzat joa (Mitxelena 1970: 110 eta Lakarrak 1993: 235). Baliteke Landuccirena izatea, irakurketa txar baten bitartez: "palma de mano, *arra escucoa*" (300r), baldin berak edo kopiagileak hor bi hitz daudela (*arra* eta x; cf. *bezarra*) eta bigarrenean <coa>ren ordez <eda> irakurri izan balu. Eskuizkribuan, lehen begiratuan *escueda* oso erraz irakur daiteke, bigarren <c>a <c> zein <e> izan litekeelako eta <o>k eskuinaldean goranzko zikin bat (<d> egiteko modukoa) daukalako. Cf. HH "arra" eta "arras de esposo".

280.*ESKUSAU [eskuzabau]: "Manteles, *escusauac*" 399.

Landuccirengandik, gaizki irakurria (Mitxelena 1970: 102): "manteles, *escuçauauac*" (290v). Italiarraren berri-emaileak *escuçauac* behin idatzi, eta gero gainean, azken -a-ren eskuinean, *uac* erantsi egin zuen (Agud & Mitxelena 1958: 151. oh.); Larramendi, edo kopiatzailea, ez zen aldaketaz ohartu. Eskuizkribuari begiratura, ohartu behar da eransketa urrutitxo dagoela, non kokatu behar den argitu gabe; bestalde, <ç> zerbaiten gainean zuzenduta dago, eta <s> ere irakur daiteke.

281.ESLEITU: "Separar, *esleitu*" 603.

Mitxelenak (1970: 124) Axularrengandikotzat jo zuen: *Eta eztuçu ez pensatu behar, ondocoetara vtzteaz cumplitcen duçula. Ez eta ondoco hey, certçaz paga esleituric, bereciric, eta seinalaturic vtzten baderaueçu ere* (Gero 242). Lakarrak (1991: 250) Harriet ekarri zuen eraketara: "indiquer, *esleitcea*" (FE 374), "instituer, *esleitcea*" (FE 375) eta "ordonner, *esleitcea*" (FE 393). Honako hau da bere azalpena: "...gaurko gazteleratik abiatuta frantsesezko azalpena urrutixeago egiten bazaigu ere; ongi begiratzen bada, bat datoz Axular eta Harriet hitzaren esanahian". Eta, horrenbestez, laburpenean (1993: 238) Harrieten alde egiten du. Argudiaketari oso ahula deritzat; hona zergatik: (1) Harrietek nahi beste aukera eman arren, bat ere ez dago ados Larramendiren itzulpenarekin, Lakarrak berak ohartu bezala: "indicar", "instituir" zein "ordenar" esperoko genuke; (2) arrazoia du hein handi batean, Axularren eta Harrieten esanahiak bat datozela dioenean; alabaina, ez gara "gaurko gaztelerarekin" gonbaratzen ari, Larramendik hautatu zuenarekin baizik: eta hau Axularrekin dator bat (ohartu aldameneko *bereciric* horri, itzulpenerako zantzua eman bide baitzion), eta ez Harrietenekin.

282.*ESPARKOA [epaskoa]: "Hurto, *esparcoa*" 329.

Axularrengandik, gaizki irakurritakoa (Mitxelena 1970: 94): *eta Poetec adulterioa deitcen çuten, epascoa, ohoin queria* (GGero 359).

283.?ESSE: "Buen provecho, *essé*" 545.

Iturri erabat ezezagunekoa (Mitxelena 1970: 117 eta Lakarra 1993: 237). *OEH*-ak egiten duen ese interpretapena (s.v. 2 ese) zalantzazkoa da, abisatzen ez badigute ere: iturria *RS* galdua balitz, <etse> ere izan liteke.

284.ESTAKURU: "Pretexto, *estacurua*" 538.

Mitxelenak (1970: 117) Axularrengandikotzat jo zuen, honako pasarte hau (besteren artean) eskainiaz: *Cer desencusa, cer estacuru ahal duqueçun* (*Gero* 57). Lakarrak (1991: 249-250) Harrieten lekukotasunak ekarri ditu erkaketara: "*estacurua, pretexte*" (*EF* 292) eta "*pretexte, estacurua, atciquiã*" (*FE* 409), eta laburpenean (1993: 237) hitza Harrieti egotzi ere. Izan ere, itzulpenak eta agerlekuak zeharo Harrieten alde egiten dute. *HH*-an ere, s.v. *pretexto*.

285.*ESTALGUNA [estalgune]: "Escondrijo, *estalguna*" 248. "Secreto, *estalguna*" 596.

Mitxelenak (1970: 86 eta 123) Axularrengandikotzat jo zuen. "Escondrijo"-rako adibide hauek ekarri zituen: *Itçalpean, cañaberaren estalgunean eta gueriçan eguitendu bere loa*, "Sub umbra dormit, in secreto calami" (*GGero* 39) eta *Ezta harentçat golccoric, çoccoric, eta ez estalguneric* (*ib.* 435). Besterako, berriz: *Eta halatan, berac bere buruz, bere falta eçaguturic eta hobendun cela nabarbenduric, estalgunea bilhatu çuen* (*ib.* 434). Itxura guztien arabera, *GGero* 39 da *Erans*-eko bi sarreren iturria; izan ere, latinak berak ematen digu lehen itzulpena zuzenean (cf. gazteleraz *DAut*: "Secreto. Se llama también el parage o sitio oculto y escondido...") eta bigarrena horren esanahikide baino ez bide da; forma ere azaltzen du, *-nean*-etik berez *-n* zein *-ne* erroa atera baitaiteke. Ezin aipa gabe utzi Harrietek ere —nahiz eta ez Larramendiren sarrerak zurtzeko moduan— badakarrela: "à l'abri, *maldan, estalgunan, atherian*" (*FE* 325); bermatu ote zuen sarrera honek Larramendik *estalgun*-en izaeraz zeukan inpresioa?

286.ESTEKU: "Embarazo, *trabua, estecua*" 227.

Harrietengandik (Lakarra 1991: 234): "obstacle, *estecua*" (*FE* 391).

287.ESTOKATU: "Obstinarse, *hisicatu, golpagogortu, estocatu*" 462.

Harrietengandik (Lakarra 1991: 235-236): "obstiner, *estocatcea*" (*FE* 391). *HH*-an oso adiera ezberdinean: "estoquear".

288.ESUGI: "Morder, *esugui*" 431.

RS-tik (Mitxelena 1970: 104): *Leussindu buztanaz, ta esugui hahoaz*, "...y morder con la boca" (372),⁶⁹ nondik *leusindu* ere hartu baitzuen.

289.*ETSEKI [exeki]: "Encender, *etsequi*" 233.

RS-tik (Mitxelena 1970: 83-84): *Lastategui zaarra exequi azquero, gachdaasedeyten*, "El uiejo pajar despues de encêdido..." (399).

290.ETXALEKU: "Descanso (lugar de), *etchalecua*" 199.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 80): *Badu gure Guero hunec hemen ere bere etchaleccua, eta ostatua* (*GGero* 466 [*Gero* 464]).

⁶⁹ Mitxelenak 72 dio.

291.ETZI: "Mañana, *biar*. Despues de mañana, *etzi*. Dos dias despues, *etziluma*. Tres dias despues, *etzcaramu*" 400.

Sarrerako hitz guztiak RS-tik hartu dira (Mitxelena 1970: 102): *Beyçut nai baoçu gaur, biar, ezi eziluma ezicaramu*, "Hareoslo si quereys hoy, mañana, despues de mañana" (RS 410). Hitza ongi ezagutzen zuen (cf. *HH* "(passado) mañana", "trasmañana"), eta *etziluma* eta *etzcaramu*-ri zor bide zaie sarrera.

292.ETZIKARAMU: "Mañana, *biar*. Despues de mañana, *etzi*. Dos dias despues, *etziluma*. Tres dias despues, *etzcaramu*" 400.

RS 410tik hartua, sarrerakide guztiak bezala (ik. *etzi*).

293.ETZILUMA: "Mañana, *biar*. Despues de mañana, *etzi*. Dos dias despues, *etziluma*. Tres dias despues, *etzcaramu*" 400.

RS 410tik hartua, sarrerakide guztiak bezala (ik. *etzi*).

294.EURZIRI: "Trueno, *eurciria*, *üsturia*" 656.

Harrietengandik (Lakarra 1991: 237): "*ehurciria*, tonnerre" (*EF* 293) eta "tonnerre, *eurciria*" (*FE* 432). <h> kentzen badaki ere, formak eta lekuak bat egiten dute iturria *FE*-ko sarrera izan zela erabakitzeko.

295.EUSI I: "LadRAR, *eus*" 354.

RS-tik (Mitxelena 1970: 97). Aditza Larramendik inferitu du, dudarik gabe ondoko errefrau honetatik, *dayan-en egin-en* adizki bat ikusi gabez: *Ecin eusi dayan orac ynciria*, "El perro q(ue) no puede ladRAR..." (380).

296.EUSI II: "Ladrido, *eusia*, *sainga*, *auná*" 355.

RS-tik (Mitxelena 1970: 97). Bi errefrau daude aukeran: *Ecin eusi dayan orac ynciria*, "El perro q(ue) no puede ladRAR..." (380) eta *Chacur andiac eusi andia*, "...gran ladrido" (397), baina badirudi lehena *eusi* "ladRAR"-en jatorrian dagoela.

297.EUZU: "Ten, tómalO, *euzu*" 636.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 127): *Baldin ezpaduçu emaitecoric, euçu damu, ceren eztuçun: eta damu harequin baten, euçu vorondate, baldin bacendu emaiteco* (*Gero* 230). Badira hiru agerraldi gehiago: *Nahi duzu ez behin ere izan triste? Zaren prestu, euzu concientcia ona* (*ib.* 440b; erantzun bera *ib.* 449) eta ...*badacusazu nola nagoen, su hunetan errea, eta idor elkhortua, euzu bada nitzaz misericordia* (*ib.* 597), baina *GGero*-n *ençu* irakurtzen da lehenengo hiru agerraldietan (230, 442, 451), eta *euçu* berriz azkenekoan bakarrik (*GGero* 599).

298.*EZAI [ezâi]: "Fea cosa, *ezaya*, *marquetsa*" 273.

RS-tik (Mitxelena 1970: 89): *Onerechien beguietan gauça ezayric eztan*, "...no ay cosa fea" (242). *HH*-an *ezaña* "feo, fea".

299.EZERTU: "Prohibir, *ecertu*" 543. "Vedar, *ecertu*, *guebendu*" 665.

RS-tik (Mitxelena 1970: 117): *Bayt aguindua ta ezertua*, "Hare lo mandado y lo que vedays" (407).

300.EZIN: "Impotencia, inhabilidad, *eciña*" 332.

Mitxelenak (1970: 95) Axularrengandikotzat jo zuen: *ecinac eztu legueric* (Gero 243). Lakarrak (1991: 251) Harrieten lekukotasuna hobesten du, *ezin* eta *ezindua*, biak segidan leku berean aurkitzeko moduan baitaude: "impossible, *eciña*" (FE 373), "incapable, *ecindua*" eta "incapacité, *ecindura*" (Ib. 374). Laburpenean (1993: 232), biak Harrieti egozten dizkio. Lakarraren argudiaketa oso ahula iruditzen zait; hona arrazoiak: (1) Harrieten hiztegiari *Erans*-eko bi sarrerak ez daude segidan, aski hurbil egon arren: 8 sarrera daude tartean, eta orrialde aldaketa; (2) itzulpenak ez datoz bat, batez ere "impossible" / "impotencia, inhabilidad", eta hein txikiagoan "incapable" / "impotente, inhabil"; (3) *ezindua*-ren izena *ecindura* da Harrietenean, ez *ezina*: bera da egiazki segidan dagoena, adiera-familia berean dagoena eta, ustez behintzat, Larramendik hartu behar zuena *ezina*-ren orde; (4) sarrerak ez *Erans*-erako, *HH*-rako baizik erabili zituen orrialdeetan kokatuta daude; areago, "impossible, *eciña*, *ecingarría*..." eta, berezi-bereziki "incapacidad, ineptitud, incapaz, *ecindura*, *ecindua*, *gayeza*, *cintzoeza*" aurkitzen ditugu *HH*-an. Honezkero, nire ustez alperrikakoak dira gainerako argudio guztiak.

Bi sarrerak Axularri zor zaizkiola etsita nago erabat. Mitxelenak, haatik, *ezina*-ri dagokionez adibide ahul bat eskaini zigun; zeharo asmatu zuen, berriz, *ezindua*-ri eskaini zionarekin. Zeren Lakarrak ezarri baldintza, alegia, bi hitzak leku beretik hartuak izatea, Axularrek ederki betetzen baitu 176-178. orrialdeen bitartean dagoen zahartasunari buruzko pasartean (Villasantek bere argitalpenean 119. zenbakiarekin bereizi duen hartan). Pasarte osoa transkribatu beharko litzateke *zahar ezindu* eta *ezin*-en erabilera ezberdinen artean egiten dituen jokuak osoki antzemateko; *ezin* interesatzen zaigun adieran agertzen deneko bi esaldirekin ase gaitzeko, ordea: *Çahartasuneco pairua eta pairatcea, ecina da, eta ez pairua, eta ez pairatcea: indarraren escastea da, ahalaren faltatcea, ecin eguinez egoitea...* (GGero 176) eta *Ordea nolatan eztuçue eguiten? Ecin baitai diqueçue. Beraz ecinari esquer, eta ez çuen vorondateari* (ib. 178).

301.EZINDU: "Impotente, inhabil, *ecindua*" 333.

Mitxelenak Axularrengandik hartutakotzat jo zuen, honako pasarte honetan (nahiz Gero 99 ere aipatu) oinarri harturik: *Cer esquer vste duçu duela... çahar ecinduac etsaiari bidera harmaturic ez ilquitceaz?* (Gero 177). Lakarrak (1991: 251) Harrieten lekukotasuna kontrajartzen dio, eta laburpenean honi egozten (1993: 232). Bion hipotesien eztabaidarako, ik. *ezin*.

302.*EZKABAR [ezkarar]: "Granizo, *ezcabarra*" 300.

Landuccirengandik, gaizki irakurria (Mitxelena 1970: 91): "granizo, *ezcararra*" (278v); cf. "granizar, *escararr eguin*" (*ibid.*). Balirudike Larramendik *kazkabar* eta kideak buruan zituela (eta orduan hutsa baino gehiago nahita egindako aldaketa izan daiteke), baina *HH*-an bederen ez du halakorik ezagutzen zuelako seinalerik ematen (cf. s.v. *granizo* eta *pie**dra*); beste azalbide bat <r> : <v> : izan liteke.

303.EZTEGU: "Bodas, *ezteguac*" 101.

Iturri ezezagunekoa, bizkaierazkoa, beharbada *RS*-ren zati galdukoa (Mitxelena 1970: 67 eta Lakarra 1993: 228); Landuccik *ezteyac* dakar, berriz, Mitxelenak adierazi bezala.

304.HEZUERIA: "Huessos (enfermedad de), *hezueria*"⁷⁰ 327.

Axularrengandik (Mitxelena 1870: 94): *Çahartcean [...] belhaunetan heçueria iartcen da* (GGero 182).

⁷⁰ Jat. *he zu eria*.

305.EZZERIA: "Miseria, *ezceria*" 423.

Harrietengandik (Lakarra 1991, 224-225): "misere, *ezceria*, *escasia*, *laceria*" (FE 386).⁷¹

306.FADER: "Monge, *faderra*" 429.

Landuccirengandik (Mitxelena 1970: 104): "monge, *faderra*" (294r).

307.FIDAGAITZ: "Desconfiado, *fidagaitza*" 195.

Harrietengandik (Lakarra 1991: 238): "méfiant, *fidagaitça*, *iduricorra*" (FE 384).

308.FIDAGAIZTASUN: "Desconfianza, *fidagaiztasuna*" 196.

Harrietengandik (Lakarra 1991: 238): "méfiance, *fidagaiztassuna*" (FE 384).

309.?FISA: "Pulido, *fisa*" 549.

Iturri erabat ezezagunekoa (Mitxelena 1970: 118 eta Lakarra 1993: 237). Mitxelenak Axularren *fits* ekarri zuen eraketara, baina esanahia oso urruti geratzen dela erakutsiaz: *Fitsaren berdin, ez deusen pare daducagu dembora* (Gero 160). Oso iradokizun interesgarria egiten du, bestalde: *fexo*, *fixo*-rekin lotzea. Tamalez, OEH-ak bitan banatu ditu lekukotasunak, eta *fi(t)xo*-renak *pijo*-perako utzi. Dena dela, honela balitz <is> <ich>ren ordeztu egongo litzateke, Larramendik aldatua, eta bai aldaketa hau baita <-a> ere testu idatzia izateari zorko litzaioke.

310.FISTIA: "Sabandija, *fistia*" 590.

Iturri erabat ezezagunekoa; nabarmenki *piztia*-ren aldaera da (Mitxelena 1970: 122 eta Lakarra 1993: 238).

311.FOROGU: "Enojoso, *forogu*" 238.

Axularrengandik, gaizki itzulia (Mitxelena 1970: 84-85). Mitxelena aurkitu bi adibideetatik baten alde makurtzen da, Larramendiren itzulpena "menos mal" dagokiolakoan: *Haur da alferqueriatic... heldu den irabacia, probecia, errumesqueria; bataren eta bertzearen carga eta forogu izaitea, ondore gaixtoa, calte handia* (Gero 44). Lehentxeago ere bazuen adibide egoki bat: *Eta guero ecin har dezaquetenean eta ez ebats, eta bahitcecoric eta saltcecoric ere ez tutenean, abiatcen dira esquean, bataren eta bertcearen forogu, anhitz beltzuri eta bekhaitzcoa izaiten dutela, eta atheac ere maiz, ez ikhusi iduri eguinic hertsten zaiztela* (ib. 43).

312.FRESA: "Cabezón, *fresa*" 107.

Iturri ezezagunekoa. Mitxelenak (1970: 68) eta Lakarrak (1993: 228) RS-ren zati galdukoa izan daitekeela uste dute. Dena dela, Mitxelenak RS "cabezón" *chamaratilla* hitzez ordezkaturia dagoela gogoratu du. Honezaz gainera, oso kontuan hartzekoa dugu gaztelaniazko *fresa*-ren historia, ez baita XX. mendera arte lekukotzen, fr. *fraise* eta *fraisier*—nondik gaztelaniazkoaz datozen (BDLC s.v. *fresar*)—jadanik 1676an lekukotzen diren bitartean (Robert 1995). Ez ote, beraz, ekialderagoekoa?

313.GABENARA: "Morciélago,⁷² *gabenarea*" 430.

Landuccirengandik (Mitxelena 1970: 104): "morcielago, *gau enarea*" (294v).

⁷¹ Hitzaren "benetakotasunaren" auzian, ez zait inondik ere iruditzen, behin iturria aurkituez gero, zalantzan jar daitekeenik: ez-en eratorria dirudi, ziurrenik *-(k)eria* atzizkiak. Herrikoia ala Harrietek eratua, baina?

⁷² Jat. *Morciégalo*.

314.GABINETEA (mug.): "Cuchillo, *gabinetea*" 173.

Landuccirengandik (Mitxelena 1970: 76): "cabo de cuchillo, *gauineteá ondo*" (243v), "filo de cuchillo, *gauinetean filoa*" (275r), baina "cuchillo, *ganibetea*".⁷³

315.GAÑA TA PIKAÑA: "Nata, la flor de la cosa, *gaña ta picaña*" 438.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 105): *Gaiñac picaiñac, eta hautuac bertceren, hondarrac, eta arbuoac laincoaren* (GGero 181), nondik *arbuio* eta agian *autu* ere hartu baitzituen.

316.GAIZKOATU: "Malearse, *gaizcoatu*" 390.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 100). Bost agerraldi ditu liburuan zehar, baina erdaraz hautatu duen itzulpenaren ñabardura bereziarengatik (cf. *HH* "malear, *gaiztotu, idoitu, donguetu, gaiztoerazo, donguerazo*. Lat. Depravare, corrumpere"), balirudike sarrien agertzen den testuingurua —*zauria gaizkoatu*, alegia: ik. *Gero* 93, 123, 292 eta 465— ez dela honen iturria (beherago s.v. *zauri gaizcoatua* jasoa, eta "malcurada" itzulia), honako hau baizik: *...probearen bere probetasunaren gaiñera, bere gogoan eta bihotzean zaurtua, gaizcoatua eta tristetua igortzeco* (*Gero* 224). Villasantek (1976ko arg., 250) "lacerado" itzuli du testuinguru honetan.

317.GALDURO: "Malamente, *galduro*" 386.

RS-tik (Mitxelena 1970: 101): *Gaz esuroa galduro batu doa*, "...malamente se recoge" (353).

318.?GALENDIA [galen?]: "Peligro, *galenda*" 503.

Iturri ezezagunekoa (Mitxelena 1970: 113 eta Lakarra 1993: 236). Mitxelenak badirudi RS iradokitzen duela iturritzat, *galendua* "escarmentado"-rekin (RS 299, *Erans* 245) eta *gurenda* "victoria"-rekin (RS 308, *Erans* 679) lotuaz. Honela balitz, *galen da...* ulertu beharko genuke, noski.

319.GALENDU: "Escarmentar, *besteren buruan centzatu. Inertu, galendu*" 245.

RS-tik (Mitxelena 1970: 91): *Galendua dabil vberen billa*, "El escarmentado..." (299), nondik *ubera* ere hartu baitzuen.

320.GALTZAPEN: "Pérdida, *galtzapena*" 509.

Mitxelenak (1970: 113-114) Axularrengandikotzat jo zuen: *Nola eguiten, baitu galtzapen eta behegatzapen handia, probeari guibela emaiten dioenac* (*Gero* 233s). Lakarrak (1991: 249) Harriet ekarri du eraketara: "perte, *galzapena*" (*FE* 400), eta laburpenean berorri egozten (1993: 236). Larramendik lehenago ere ezagutzen zuen (cf. *HH* s.v. *destrucción* eta *pérdida*); itzulpen zehatza eta agerlekua erabat Harrieten alde daude. Alabaina, Axularren pasartean formaz berdina den *goratzapen* aldamenean dagoenez gero, ez dut uste iturritzat zeharo bazter daitekeenik.

321.GALTZAR: "Brazo, *galtzarra*" 105.

Harrietengandik (Lakarra 1991: 226 eta 1993, 203): "*galçarra, bras*" (*EF* 294). *HH*-an adiera ezagunagoan: "seno".

322.GARAGARRIL: "Julio, *garagarrilla*" 349.

⁷³ Argitalpenean ez da iragartzen *ganibetea* zuzenduta dagoela, ziurrenik lehenagoko <gauinetea>-ren gainean (zehazkiago <u> gainean <n> eta <n> gainean ezarriaz).

RS-tik (Mitxelena 1970: 96): *Garagar[ɹ]ylean nesq(ue)a ezarc alborean*, "En Iulio..." (313). Beronek ohartu bezala, hitza ongi ezagutzen zuen (OEH "junio"), eta esanahi berriari zor dio bere interesa.

323.GARAITIA: "Vitoria, *garaitia, gurenda*" 679.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 132): *Etsaitasuneco victoria eta garaitia, eztago ez mendecatcean*, "Victoria contra iram..." (Gero 320), adibidez. Cf. AxH adibide gehiagotarako.

324.GARBAL: "Calvo, *carsoilla, garbala*" 116.

Axularrengandik, sarrerakidea bezala eta leku beretik (Mitxelena 1970: 69): *Occasinoa copetan belarrean, aiccin aldean, illetsuda, eta chertlotsu, baiña garhaitean, garcetan, guibel aldean, motz, soil, garbal, carsoil, eta ille gabe*, "at post occasio calva" (GGero 153), nondik *garraita* eta *garzeta* ere jaso baitzituen.

325.GARBATU: "Arrepentirse, *garbatu*" 64.

RS-tik (Mitxelena 1970: 62). Beronek eman bi aukerak (RS 102 eta 521) 1. eta 4. koadernotxoak izaki, honela dio Lakarrak (1996a: 40): "Hitza, gainera, ez da inolaz ere hapax eta edozein dotrinatan —zein herriko hizkeran— eriden zezakeen". Alabaina, OEH-aren arabera (s.v.) ez dago RS-z bestelako lekukotasunik (Kapanagak *garbaitu* darabil) Mogelen *Crlc* arte. Beraz, hipotesirik errazena RS-ren zati galduan berriz agertzen zela uste izateari deritzat. Oso adiera ezberdinean jaso zuen HH-an: "(domar y ablandar el) lino", "assedar el cáñamo".

326.GARDIA: "Cuidado, *gardia*" 176. "Dictamen, *gardia*" 215.

Mitxelenak bizkaierazkotzat jo zuen, lekukotasun ezberdinetan oinarrituaz. Iturri arazo honetan interesgarriena, ene iduriko, RS-koa litzateke: *Edoçeynec edat ostean, dio vere gardia*, "Cada cual despues de beuer dize su parecer" (393), adieraren aldetik *Erans* 215ekin aski ongi datorrena. Lakarrak (1991: 226 eta 245, eta 1996a: 34), RS-ren zati galduan beste *gardia* bat egon zitekeela ukatu gabe, nahiago du Harrietengan ikusi iturria, merkeago delakoan. Honetarako honako sarrera sorta hau eskaintzen du: "sérieux, *gardiacorra*", "sérieusement, *gardiacorqui*" (FE 423) eta batez ere "fidèle pour tenir le secret, *gardiacorra*" (*ib.* 361). Honela dio: "Ez zait ezinezko iruditzen hauetarik ateratzea Larramendik erroa; esanahia ere azalpen honen alde litzateke". Ondorioz, laburpenean (1993: 229) Harrieti egozten dio.

Hasiera batean bederen, Mitxelenaren usteak eta Lakarrarenak bata bestearen kontra zertan joanik ez dutela deritzat. Mitxelenak batez ere *Erans* 215 "dictamen", eta Lakarrak batez ere *Erans* 176 "cuidado", nork berea azaltzen dute. Siniste honetan, har ditzagun banan-banan: *Erans* 215 "dictamen"-i buruz, iturria RS da, nik uste, "dictamen" eta "parecer" hertsiki esanahikideak baitira: cf. HH "dictamen, *ustea, iritzia*" eta "parecer, dictamen, *iritzia, ustea*". Areago, etsita nago, halaber, RS 393 dela iturri zehatza, eta itzulpen aldaketa, ezohikoa, arrazoi praktikoko batek eragin duela: "parecer" aditzat hartzeko arriskua uxatzea.

Erans 176 "cuidado"-rako, dena dela, Lakarrak eskaini zertzeladek ez naute asebetetzen: (1) ken ditzagun "sérieusement, *gardiacorqui*" eta "sérieux, *gardiacorra*" sarrerak, hitz familia zenbat bider agertzen den erakusteko baizik balio ez baitute; (2) Lakarraren benetako oinarria "fidèle pour tenir le secret, *gardiacorra*" dela onarturik, zergatik *gardia* eta ez *gardiakor*? (3) eta zergatik "cuidado" eta ez "fidelidad"? (4) kokalekua ezohikoa da. Harriet onartzekotan, askoz hobe deritzat "soin, *artha, goardia*" (FE 425) sarrerari, aldaketa —huts ala berariazko aldaketa?— txiki bat baino ez baitugu behar forman.

327.GARKOXILO: "Cogote, *garraita, garceta, garcochiloa*" 141.

Iturri ezezagunekoa, Iparraldekoa. Azkueren arabera, BN da, Iparraldeko beste euskalkietan aldakiak izanik, gainera (Mitxelena 1970: 73).

328.GARNU: "Orina, *garnua*" 472.

Iturri ezezagunekoa, bizkaierazkoa, agian RS-ren zati galdukoa (Mitxelena 1970: 109 eta Lakarra 1993: 235). *HH*-an *guernua* eta *gamura* [sic] "orina".

329.*GARRAITA [garaite]: "Cogote, *garraita*, *garceta*, *garcochiloa*" 141. "Nuca, *garraita*" 455.

Axularrengandik, sarrerakidea bezala eta leku beretik (Mitxelena 1970: 73): *Occasinoa copetan belarrean, aitcin aldean, illetsuda, eta cherlotsu, baiña garhaitean, garcetan, guibel aldean, motz, soil, garbal, carsoil, eta ille gabe*, "at post occasio calva" (*GGERO* 153), nondik *garbal* eta *karsoil* ere hartu baitzituen. Erroa gaizki erauzi zuen Larramendik (cf. *AxH* eta *OEH*, s.v.).

330.GARTXU: "Lentisco, *garchua*" 365.

Iturri ezezagunekoa, agian RS-ren zati galdukoa (Mitxelena 1970: 98 eta Lakarra 1993: 233). Alabaina, *OEH*-aren datuen arabera, G-goi-n ere bederen ezaguna da: ahozkoa, beraz?

331.GARZETA: "Cogote, *garraita*, *garceta*, *garcochiloa*" 141.

Axularrengandik, sarrerakidea bezala eta leku beretik (Mitxelena 1970: 73): *Occasinoa copetan belarrean, aitcin aldean, illetsuda, eta cherlotsu, baiña garhaitean, garcetan, guibel aldean, motz, soil, garbal, carsoil, eta ille gabe* (*Gero* 153), nondik *garbal* eta *karsoil* ere hartu baitzituen.

332.*GASO [gaxo]: "Dañoso, *gasoa*" 188.

RS-tik (Mitxelena 1970: 78). Beronek honako errefrau hau hautatu zuen, formaz eta itzulpenaz egokiena zelakoan: *Guibelego on dana, areco gasso*, "Lo que es bueno para el higado, dañoso para el baço" (141). Alabaina, badago beste hautagai bat: *Osticosa aculua ganaco, ydiençat gaso*, "Coz para el aguijon, para el buey dañosa" (180), formaren aldetik agian egokiagoa, nahiz eta <ss> vs <s> erabat erabakigarria ez izan.

333.*GEBENDU [geben]: "Vedar, *ecertu*, *guebendu*" 665.

RS-tik (Mitxelena 1970: 130): *Sardina gueben lecuán, bere caltean*, "El que entrare en lugar vedado..." (209). Izenondoa da, bildumako beste batzuk bezala (Lakarra 1996c: 300-301).

334.GEIDE: "Próximo, *gueidea*" 547.

RS-tik (Mitxelena 1970: 117-118): *On erexteco lanyncoari* [sic], *eguioc vrgaçi geydeari*, "...az ayudar al proximo" (339), nondik *urgazi* ere hartu zuen.

335.*GERTAETU [gertatu]: "Guisar, *guertaetu*, *guertucatu*" 305.

Iturri ezezagunekoa, bizkaierazkoa, ziurrenik RS-ren zati galdukoa (Mitxelena 1970: 92 eta Lakarra 1993: 232): *gertaeta*- batetik dator, inolako zalantzarik gabe, eta cf. *guertu* "aparejado" RS 160 (*afari guertua* "la cena aparejada"), 306 eta 331.

336.GERTAKUNTZA: "Caso, sucesso, *guertacuntza*" 125. "Sucesso, *guertacuntza*" 619.

Harrietengandik (Lakarra 1991: 242 eta 1993: 203): "succés, *guerthaqunça*" (*FE* 428).

337.GERTUKATU: "Guisar, *guertaetu*, *guertucatu*" 305.

Iturri ezezagunekoa. Mitxelenak (1970: 92) ez dio ezer berezirik honetaz. Lakarrak (1993: 232) sarrerakidea bezala *RS*-ren zati galdukotzat jo du. Alabaina, nire ustez, bata ala bestea izan litezke iturri horretatik, baina ez biak batera. Hautagairik onena *guertaetu* da, jakina, nahitaez bizkaierazko iturria eskatzen duelako. *Gertukatu*-k, berriz, *Erans*-en agertzen diren beste *-katu*-ak dakartza gogora: Larramendik eratua ote?

338.*GERTZA [geriza]: "Sombra, *guertza*, *itzalgaizca*" 614.

RS-tik, *gueriza*-ren orde (Mitxelena 1970: 125). Bi agerraldi daude, baina 495. erretra alde batera utzi behar da, 4. koadernotxokoa baita (Lakarra 1996a: 44). Gainera, hutsa jatorrizko testukoa da: *Gextoac on jaunen guer[i]zan*, "...a la sombra de los señores" (371). Mitxelenak berak erkaketara ekarri zuen Axular, agerraldi bitatik batean (*Gero* 10) zentzu metaforikoan ("amparo, protección"), baina bestean hertsian (*ib.* 39) erabiltzen baitu, baina orain alferrik da.

339.GESTO: "Malo, *gestoa*, *deunga*" 387.

RS-tik (Mitxelena 1970: 101). Beronek azaldu bezala, *guextoa* maizago agertu arren, bada *gesto*-ren adibide bat baino gehiago. Mitxelenak aipatuei Soto-Mitxelenaren glosariokoak (1978-79: 55) erantsiaz, orotara 3 hautagai ditugu (cf. orain Lakarra 1996c: 211): *Hurte gestoa barri vtsa*, "El mal año..." (151), *Mi gestoa da minago, mintea bano*, "La mala lengua..." (169) eta *Samarien osticoa da gestoa, noc verac arbez vere ydecoa*, "Coz de rocin mala ez..." (363). Grafia beti <gestoa> da eta, beraz, <gue-> Larramendiren interpretapena da.

340.GEZNA: "Mensaje, *guezná*" 416.

Iturri erabat ezezagunekoa. Mitxelenak (*SHLV I* 372) <mezua>-ren ordeko irakurketa txarra izan litekeela iradoki zuen, baina gero (1970: 103) <gu> <m>-ren ordeko irakurtzeari zaila zeritzan (*OEH*-ak proposamena gorde badu ere).⁷⁴ Nire ustez, hipotesirik merkeena iturrian *gueznazaya* egotea izango litzateke, eta bertatik Larramendik *guezna* eraztea.

341.GEZNAZI: "Mensagero, *gueznazaya*" 415.

Iturri ezezagunekoa (Mitxelena 1970: 103 eta Lakarra 1993: 234). Erabat arbuiaztekoa deritzat —Mitxelenak behin (ik. goian *guezna*) iradoki bezala— <mezua>-ren ordeko irakurketa txarra izateari, <mezuazaya> ezinezkoa delako. Azalbide bakarra, errata balitz, *guezna*-tik Larramendik *gueznazaya* eratorri izana litzateke, baina errazago deritzat alderantzizkoari: bietatik bat iturrian ez egotekotan *guezna* izango litzareke, *gueznazaya*-tik Larramendik erraz eraz baitzezakeen.

342.GEZTARA: "Muela, piedra, *geztara*" 434.

Iturri ezezagunekoa. Oso hedatuta dago, eta aldaerarik zabalduena ziurrenik *geztera* da (Mitxelena 1970: 105). *OEH*-ren datuek Mitxelenaren ustea baieztatzen dute, *geztara*-ren lekukotasun bakarra honako hau dela ere bermatuaz.

343.?GIRAKEA [geraka?]: "Inquieto, *guiraquea*" 344.

Iturri ezezagunekoa, ziurrenik bizkaierazkoa (Mitxelena 1970: 96 eta Lakarra 1993: 232). Mitxelenak Ibiñagabeitiaren proposamena bere egiten du, alegia, bizk. *geraka* izan daitekeela.

⁷⁴ Bide batez, identifikatzen ez duen Lhanderengandiko J.C.E.S. 476, zalantzarik gabe *OEH*-ak *TB* deitzen duen 1828ko *Testamenta* da, Larramendiren hitzez jositakoa.

344.GIRTAIN: "Asa, *guirtaiña*" 68.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 63): *Ceren guibeleraz guero, eztu escu-toquiric, eta ez lotceco guirthaiñic* (GGero 153) eta *eztute edireiten, ceri lot: ez tute edireiten guirthanic, escu-toquiric, sostenguric, eta ez consolatceco bideric, eta ez esperantçaric* (ib. 598). Bigarreneko hutsak iturburu ezinezko bilakatzen du.

345.GIZAKOI: "Puta, *ollaquea, guizacoya*" 554.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 118): *goacin aitcinago, eta edirenen dugu, ecen emazte guiça-coiac, eta guiçon ema-coiac, presuna putanerac eztuela deusetan ere soseguric, eta ez pausuric* (GGero 357). Povreak, Mitxelenak ohartu bezala, itzulpen egokiagoa eman zuen: "mulier lubrica".

346.GLOBA: "Poema, *globac*" 522.

Harrietengandik (Lakarra 1991: 240): "poème, *globac*" (FE 405).

347.GLOBARI: "Poeta, *globalia*" 523.

Harrietengandik (Lakarra 1991: 240): "poète, *globalia*" (FE 405).

348.GLOSTO: "Costo, *glostoa*" 170.

Iturri ezezaguneko. Errata ez izatekotan *gostu*-ren aldaera (aski bitxia) izango litzateke (Mitxelena 1970: 76). Harrietek *gosta* dakar, baina iturri gisa ezinezkoa da (1991: 243).

349.*GOGAI [gogaiera]: "Pensamiento, *gogaya, gogoa*" 506.

RS-tik, gaizki biluzitakoa (Mitxelena 1970: 113): *Gaba gogayeren Ama*, "La noche madre de los pensamientos" (395). *OEH*-aren iradokizuna (s.v. *gogai*) oso interesgarria da: "tal vez [Larramendi] leyó *Gaba gogaieren ama* como hace Urquijo [bere argitalpenean]".

350.GOGARA: "Gusto, *ebaea. A gusto, gogara*" 306.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 92). Hainbat adibide daude (cf. *AxH*), eta denak genitibo ostekoak dira, ondoko honetan ikus daitekeen bezala: *Presuna haserretuen artean bere gogara da Deabrua* (Gero 284). Cf. *HH* "acomodarse al gusto".

351.GOGO: "Pensamiento, *gogaya, gogoa*" 506.

RS-tik (Mitxelena 1970: 113). Itzulpen honekin 5 bider azaltzen da Darmstadtoko alean, baina haietatik lau (63, 413, 419 eta 458) alde batera utzi behar dira, 1. eta 4. koadernotxoetakoak direlako (Lakarra 1996a: 43). Iturria, beraz, honako hau genuke: *Loca jabilt aguina, ta gogoa dot arina*, "...y el pensamiento tengo liuiano" (398), nondik *loca ibilli* ere hartu baitzuen eta, gainera, Lakarrak ohartu bezala, "sinonimoa hiru erretrau gorago" ere.

352.GOGOETATSU: "Pensativo, *beriertua, gogoetatsua*" 507.

Mitxelenak (1970: 113) Axularrengandikotzat jo zuen: *...norc erranendu nola tristecen den? cein gogoetatsu iartcen den?* (GGero 58). Litekeena dela aitortuaz, Lakarrak (1991: 236) Harrietengan ere aurkitzen dela erakusten digu: "pensif, *gogoetaxua*" (FE 399); hiztegieleak idazleak baino aukera gehiago duelakoan (1991: 217), azkenik laburpenean (ib. 236) Harrieti egozten dio iturritasuna, ziurrenik arrazoiak, Larramendik <x> : <ts> aldaketa egiten jakiteaz gaieran, itzulpena eta agerlekua Harrieten alde baitatuz. Dena dela, Axularren pasarte aski gardena da berez.

353.GOITATU: "Prevenirse, *istalgaratu, goitatu*" 537.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 117): *Eta hainda çuhur eta goithatu, ecen campohan deus ecin içanez, bere vilduetara, vildu behar duenean, lehenic hozitu behar duen burutic hasten baitçaica bihiari* (GGero 36).

354.GOLDELARI: "Arador, *goldelaria*" 57.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 61): *Golde nabarretan, edo golde picoetan, lur lantcen, eta appaintcen, guibelat beha dagoela hari denac, hildoa maccur eguinendu, ezta hura goldelari on içanen "Arator respiciens retro..."* (GGero 470 [Gero 468]).

355.GOLPAGOGORTU: "Callecer, *caillutu, golpagogortu*" 114. "Obstinarse, *hisicatu, golpagogortu, estocatu*" 462.

Iturri ezezagunekoa. Mitxelenak (1970: 69) "su formación (cf. *gogortcen* en Ax. [ik. s.v. *kailutu* agerraldia]) lo denuncia como auténtico" zioen. Lakarrak iturri ezezagunekoat jotzen du lehen agerraldian (1993: 228) eta Larramendik eraturakotzat bigarreanean (*ib.* 235).

356.GONBURU: "Colmo, *gomburua*" 146.

Iturri ezezagunekoa, bizkaierazkoa, agian RS-ren zati galdukoa (Mitxelena 1970: 73). Ik. orain OEH (s.v.).

357.GONDU: "Provecho, *gondua*" 544.

RS-tik (Mitxelena 1970: 117): *Etorri vadaquic billaetan doan gacha gondu daquiala*, "prouecho te haga" (514). Arazoa da 4. koadernotxokoa dela. Lakarrak (1996a: 39), hau eta **coicati*-ren arrarotasuna kontuan hartuta, agian biak jasotzen dituzten lau orrialdeak (59-62) "edo orrialde zati[ak]" Larramendiren alean egon zitezkeela suposatu du.

358.GONDURA: "Vianda, *gondura, oquelia*" 673.

Iturri ezezagunekoa. Mitxelenak (1970: 131) *gondu* "provecho" esanahiaren aldetik urruti geratzen denez gero, agian errom. *gordura* "adepts"-en forma disimilatua datekeela iradoki zuen. Cf. HH "vianda".

359.GORATZAPEN: "Elevación, *goratzapena*" 225. "Levantamiento, *goratzapena*" 366.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 82-83): *Nola eguiten, baitu galtçapen eta beheratçapen handia, probeari guibela emaiten dioenac: hala eguiten du goratçapen mira garria probe beharrari, bere beharraren estaltceco emaiten dioenac. Eta goratçapen hura, eta handic heldu den irabacia galtcen du bihotz gogorrac...* (GGero 233-234). HH-an ere: "elevación", "levantamiento".

360.GORGOIL: "Degolladero, *gorgolla*" 189. "Nuez de garganta, *gorgolla*" 458.

RS-ren zati galdukoa izan daiteke, bizkaierazkoa delako (Mitxelena 1970: 108). Erans 189an Mitxelenak erratzat jo *gargolla*, egiatan berea da, Larramendiren testua aurrean ez zuelako seinale.

361.GORROTEILU: "Tramojo, *gorrotellua*" 651.

Iturri ezezagunekoa. Itxuraz errom. *garrote*-ren txikigarri bat izan daiteke (Mitxelena 1970: 129).

362.GORTA: "Cortijo, *gorta*" 165.

Iturri ezezagunekoa, bizkaierazkoa (Mitxelena 1970: 75). *Gortaisa*-ren argudiaketaren zutabeetarik bat baita (eta hara bidaltzen baitu), jakintzat eman behar dugu hitz hau ere RS-ren zati galdukotzat hartzen zuela.

363.GORTAISA [gortaixa]: "Estiércol, *gortaisa*" 258.

Ziurrenik RS-ren zati galdukoa (Mitxelena 1970: 87). Arrazoiak: (1) <s> afrikatuaren orde; (2) *gorta*-ren elkartua izatea (cf. *gorta*).

364.GRISOLA: "Turmas, *grisolac*" 658.

RS-tik (Mitxelena 1970: 129-130). Bitan agertzen da: *Chitac grisolac ta vrdaya Mayaçeco mayra*, "Pollitos, turmas y tocino..." (39) eta *Harien grisolac Mayaçean dira onac*, "Las turmas del carnero..." (115). Alabaina, biak 1. koadernotxokoak dira (Lakarra 1996a: 44); honegatik, zati galduan berriz agertzen zela uste izan behar dugu, edo "agian 115. hori Larramendiren alean gorde orri edo orri zatietan" (Lakarra, *loc. cit.*). Diodan bidenabar, nik bezalaxe "turmas" hitzak zer esan nahi duen ez dakitenentzat, *grisolak* "barrabilak" direla.

365.GUDU: "Guerra, *gudua*" 303.

RS-tik (Mitxelena 1970: 91-92). Sarritan agertzen den arren, 1. eta 4. koadernotxoetan daudenak kenduta, honako iturrigai hauek geratzen zaizkigu (Lakarra 1996a: 52): *Azarcûnzeac bildurra vzabez, çe ylteco edo vicico* [sic] *gudura goaquez*, "...yremos a la guerra" (165), *Equix nago guertuago / Ynox baño guduraco*, "...para la guerra" (331) eta *Edoçeyn da azari, vaya gudura doa guichi*, "...a la guerra pocos van" (383); 165.etik *azarcunza*, 331.etik *equix* eta 383.etik *azari* hartu zituen. Mitxelenak eraketara ekarri zuen Axular, honengan "combate, pelea" delako iturriztat arbuatua. Lakarrak (1991: 244) Harrieten "*gudua*, combat" arrazoi beragatik baztertzen du. *HH*-an azken adiera honetan jaso zuen: "certamen", "combate", "lid", "pelea".

366.GURARI: "Deseo, *guraria*" 201.

RS-tik (Mitxelena 1970: 80). Bi agerraldi ditugu: *Naya euguïarren, gurari geyago dogu arrê*, "Por tener lo que queremos, mas desseo entonces tenemos" (164) eta *Daucagunean naya, gurari vaga oygara*, "...sin desseos solemos ser" (248). *HH*-an ere, s.v. *antojo*.

367.GURDITXAPA: "Toalla, *gurdichapa*" 646.

Iturri ezezagunekoa, agian bizkaierazkoa. Lehen osagaian bizk. *igordî, igurdi* 'frotado, restregado' daukan elkarte bat izan liteke (Mitxelena 1970: 129; ik. halaber *OEH*, s.v.).

368.*GURENDA [guren]: "Vitoria, *garaitia, gurenda*" 679.

RS-tik (Mitxelena 1970: 132): *Gurenda andia odolbacoa*, "Gran vitoria la de sin sangre" (308). Hitza oso zalantzazkoa da, ziurrenik *guren da* irakurri beharrekoa, biltzaileak bestela ulertu bazuen ere: cf. Mitxelena 1979: 427-433 eta orain Lakarra 1996c: 323.⁷⁵

369.GURENDU: "Aumentar, *gurendu*" 80.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 65): *...eta nori berea errendaturic gueldituco çaitçan appur hec, sumatuco dira, berretuco dira, gurenduco dira* (GGero 249). *HH*-an beste adiera batean: "lozanear".

370.GURRANDU: "Cautivar, *gurrandu*" 128.

Iturri erabat ezezagunekoa (Mitxelena 170: 71 eta Lakarra 1993: 228).

⁷⁵ Bide batez, harrigarria da *OEH*-ak (s.v. *gurenda*) hipotesi honetaz ezer ez esana.

371.GURZILA: "Rueda de carro, *gurcila*" 588.

Landuccirengandik (Mitxelena 1970: 122): "rueda de carreta,⁷⁶ *gurrzila*" (314r).

372.GUZZITZ ERE: "Especialmente, *guzzitz ere*" 253.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 86): *Eta bertcetic, trabatcen eta guibelatcen çuten, leheneco vsantcec, eta guzzitz ere emaztèn balacuec, hitz ederrec eta placerec* (GGero 52). AxH-n hainbat adibide gehiago ikus daitezke.

373.IAK: "Hiérole, pégale, *iac, iyac*" 319.

RS-tik (Mitxelena 1970: 93): *lac, emac, erac, ta çeguioç trancart*, "Hierele..." (272), nondik *erac* eta *trancart* ere hartu baitzitu.

374.IBAR: "Llanos, valles, *ibarrac*" 382.

RS-tik (Mitxelena 1970: 100). Bi agerraldi ditu: *laxten dira aldasac, goraetan dira ybarrac*, "...alçanse los llanos" (211) eta *Ezta aldasic ybar bacoric*, "No hay cuesta sin valle" (262). Erdal sarrera berezia da, *llanos* eta *valles* ez baitira zehazki esanahikideak, baina bai RS-n agertzen diren itzulpen biak. Halaz ere, nago iturri zehatza 211. erretraua dela, pluralaren eta itzulpenarengatik: lehendik ezagutzen zuenez gero (cf. HH "valle" eta "vega"), 262koa gabe ere "valles" erraz erants zezakeen lagungarri gisa.

375.IBARJAUN: "Merino, Juez, ministro, *ibarjauna*" 419.

RS-tik (Mitxelena 1970: 103): *Oric eztan erria, ybar jaun da açeria*, "En la patria do no ay mastines, es Merino el raposo" (349).

376.IBILDAUN: "Vagabundo, *ibildauna*" 661.

Harrietengandik (Lakarra 1991: 229 eta 245): "vagabond, *ibildauna*" (FE 435).

377.IBILGUNE: "Andar (modo de), *ibilgunea*" 49.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 60): *...gogoeta eguiten duela, eta cer hari den daquiela, beguiac fincaturic, eta landaturic, emastearen beguiey, beguitarteari, gorputçari, edertasunari eta ibilguneari* (GGero 392).

378.IBILKATU: "Passear, *ibilcatu*" 498.

Harrietengandik (Lakarra 1991: 239-240): "se promener, *ibilcatcea*" (FE 409). HH-an ere, iturri beretik baina iturleku ezberdinetik: "exercer" < "exercer, *ibilcatcea*" (FE 357).

379.IBILKUNTZA: "Paseo, *ibilcuntza*" 499.

Harrietengandik (Lakarra 1991: 239-240): "la promenade, *ibilqunça*" (FE 409).

380.IBIRETU: "Aplacar, *ibiretu*" 54.

Iturri ezezagunekoa. Mitxelenak (1970: 61) *ibide*-ren aldaera baten eratorria dela adierazi zuen, Pouvreaux hiru aldaera (*ibiria, ipidia* eta *iuia*) dakartzala erantsiaz. Adieraren aldetik, berriz, bizk. mod. *ibitu* 'deshinchado', 'calmado' aipatu zuen. Azken honetatik dator, antza denez, Lakarrak (1993: 227) hitza, zalantzaz, bizkaierazkotzat ematea. Alabaina, *ibide* / *ibiri*-ren lekukotasunak gutxi izan arren (ik. OEH ss.vv.) denak lapurterazkoak dira.

⁷⁶ Mitxelenarenean *carro*.

381.IDEKO DIRA: "Uno, son para en uno, *ideco dira*" 684.

RS-tik (Mitxelena 1970: 133): *Argaloc ydeco eytenbadira, aec yndarsuen yçango dira*, "Si los debiles se hazen yguales..." (403). *Ideko* beste batean ere agertzen da: *Samarien osticoa da gestoa, noc verac arbez vere ydecoa*, "...tome su ygual" (363), baina formaz ezeze, Larramendik eman interpretapenez Mitxelenak aipatua da egokiena, zalantzarik gabe.

382.IDURIKA: "Semejanza, *idurica*" 599.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 123): *Urarequin nahi nuque, comparatu dembora. Ceren demborac, eta vrac elccarren idurica handi baitute* (GGero 155).

383.HIGATU: "Corromperse, *higatu*" 168.

Axularrengandik, zehaztasunik gabe itzulia (Mitxelena 1970: 76): *Eta halatan presuna hirosac, erreac, eta hasserrecorrac, ez ohidu, begui orde anhitz higatcen* (Gero 280). Pasarte honek ez du azaltzen itzulpena; AxH-ko sortatik, honako hau dateke onena: *Gure gorputz haur, arimaren canpoco, eta gaineco estalqui haur, zahartceaz higatcen eta deseguiten bada ere, ordea barrena, arima, hobetcen eta erraberritcen da* (ib. 187).⁷⁷ Axularren benetako erabilera hobeki islatuta dago HH-an: "consumir, deshazer", "consumirse", "gastar".

384.IGE: "Cuesta, *igea, iquea, patarra*" 175.

Mitxelenak (1970: 76) agian usteldura izan daitekeela iradoki zuen; bide batez, grafiak zer esanahi zuen (gaurko *igea*?) galdetzen zion bere buruari.⁷⁸ Lakarrak (1991: 234), Harrieten <ikhea>-tik (ik. beherago *ike*) zuzenean ezinezkoa dela ezarrita, hauxe dio: "...beste iturri bat edo *ikhea* > *iquea* > *iguea* > *igea* katea suposatu beharko genuke, lehendabiziko pausua Larramendiren letraldaketa, eta bigarrena eta hirugarrena bere edota inprimatzailearen hutsak izaki". Ondorioz, laburpenean (1993, 229) Harrieti egozten dio. Ezin naiteke bat etorri: proposatzen duen katea ezinatxakiatuzkoa izango litzateke, baldin eta baldin soilik *igea* balitz *Erans*-eko irakurketa bakarra. *igea* eta *iquea* biak batera azaltzeak, nik uste, hori baino azalpen korapilatsuagoa beharko luke, nobela bat ia: Larramendik Harrieten sarrera birritan kopiatu zuela; birritan kopiatze hartan behin *iguea* eta bestean *iquea* jarri (edo gero irakurri) zuela; sarrerak antolatzerakoan biak ber iturritik zirela oharkabea igaro zitzaiola eta, azkenik, berak edo inprimatzaileak *iquea* > *igea* egin zutela. Larregi, agian. "beste iturri bat edo..." Lakarraren esanari bihurtuko nintzateke, beraz.

385.HIGITU: "Menearse, *loca ibilli, higuitu*" 413.

Mitxelenak (1970: 103) Axularrengandikotzat jo zuen. Beste askoren artean (cf. AxH), honako pasarte hau hautatu zuen: *Naguia ere negu hotzean, atheac atheari darauntsanean, ohean higuicenda, bertce aldera itçultcen* <itcu-> *da, burua goitituric iarcenda* (GGero 46). Lakarrak (1991: 249) Harrieten lekukotasuna dakar erkaketara: "mouvoir, *higuitcea*" eta "mouvement, *higuidura*" (FE 388), eta laburpenean (1993: 234) Harrieti egozten dio. Axularren alde makurtuko nintzateke itzulpenarengatik: lehendik jasoa zuen (cf. HH "mover", "rebullir"), *Erans*-eko itzulpena RS-k (ik. *loca ibili*) eskainia da, Harrieten agerlekua ona da baina ez itzulpena eta, Lakarrak bere alde aipatzen badu ere, *higidura* ez du Larramendik jaso.

⁷⁷ Bada beste bat (Gero 154), baina Villasantek dioen bezala (1876ko arg., 170. or., 59. oh.), bi argitalpenetan *higartcea* agertzen da, oker.

⁷⁸ Galdera honetaz, OEH-ak (s.v. *ike*) bestela ikusten ditu kontuak: "tal vez *ije* en grafía moderna". Eztabaida, nire ahal eta xedeez at geratzen da, baina ezetz esango nuke.

386.HIGUINDU: "Aborrecer, *iguitu, higuindu*" 2.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 53): *appur bat asse behardut, aspertu behardut, ichiritu behardut: eta guero orduan asse, asper, ichiri eta nekha nadinean, vianda higuincten hasi daquidanean; orduan guztiac vtcicoitut* (Gero 51) eta *ceren ezta han assetceric eta ez higuincteric* (ib. 490-491). AxH-n adibide gehiago. HH-an ere: "aborrecer", "desagradar", "disgustar", etab.

387.IGUITU: "Aborrecer, *iguitu, higuindu*" 2.

Landuccirengandik (Mitxelena 1970: 53): "aborreçer, *aborreçidu, equsigura es, yguitu*" (227r). Darmstadtokoan biritan gertatzen da *yguy* "aborreçe" (RS 493) eta "aborrecido" (494), baina 4. koadernotxokoak dira. Cf. *iguitu* HH-an *passim*.

388.IKAZBIZI: "Ascuá, *icazbicia*" 72.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 64): *...sinhetz araci nahidu [...] iccatz bicien gainean orthusic, oin-çolac erre gabe, ibil dite queyela* (GGero 397), nondik *oin-zola* ere hartu zuen.

389.IKE: "Cuesta, *igea, iquea, patarra*" 175.

Harrietengandik (Lakarra 1991: 234): "pente, *pareta, ikhea, aldatxa*" (FE 399).

390.IKEDAK TA DIKEADA: "Darasme, y darete [sic] he, *iquedac, ta diqueada*" 185.

RS-tik (Mitxelena 1970: 78): *Yquedac ta diqueada*, "Darasme y darte he" (233).

391.IKUSKATU: "Visitar, *icuscatu*" 678.

Harrietengandik (Lakarra 1991: 242): "visiter, *ikhuscatcea, visitatcea*" (FE 437).

392.HILDUMATU: "Mortificar, *hildumatu*" 432.

Mitxelenak (1970: 104) Axularrengandikotzat jo zuen: *Hirur garrenac dira. Opera mortificata, Obra hilduac, hildumatuac, lohacartuac* (Gero 541). Lakarrak (1993: 201 t. hur.) Harrieten alde jokatzeko du: "mortifier, *mortificatcea, hildumatcea*" (FE 387). Nire ustez, iturri bata bestea bezain errazak dira, Axularrek ere *mortificata* azalpena alboan duelarik; Lakarrak *iltura*-rekin egiten duen loturaz, ik. beheragoko eztabaida.

393.ILTURA: "Amortecimiento, *iltura*" 44.

Mitxelenak (1970: 59) Landuccirengan oinarritutako irakurketa txartzat jo zuen: "amortecimiento, *iltua*" (233v). Lakarraren ustez (1993: 201-202), hori bezain erraza izango litzateke *hildura* > *iltura* aldaketa, Harrieten "appesantissement, *hildura*" (FE 328)-tik abiatu. Hipotesi honen abantailen artean, *Erans* 432ko *hildumatu* ere iturri beretik azaldu ahal izatea legoke. Bestalde, bigarren hipotesi batekin ere aritzen da: *hildumatu* horren iturria, Mitxelenaren ustetan, hurrengo pasarte hau izango litzateke: *Obra hilduac, hildumatuac, lohacartuac* (Gero 541). Eta honela dio: "Axularren esaldian, bat bestearen segidan ikusiz gero ez lirudike bestetara (ez Landuccigana ez Harrietgana) jo beharrik litzatekeenik bi hitzon etorkia segurutzat jotzeko, kontrako beste edozein hipotesi baino merkeago baikenuke, bai eskatzen duen aldaketaren azalpenean eta baita hiztegiaren ohizko lan moduari dagokionez ere. Alabaina, ohar bekio kategorian ezberdintasunari, zeinak Axularren aldeko hipotesia garestitzen duen". Honen guztionen ondorioz, laburpenean *iltura* Harrieti egozten dio (Lakarra 1993: 227).

Gauzak honela, hasieratik aitortuko dut niri neuri Mitxelenaren hipotesia errazen eta merkeena iruditzen zaidala, batez ere itzulpen zehatza eskaintzen digulako; ez da mezprezatzekoa, bestalde, Larramendik Landucciren

testuarekin izandako irakurketa arazoaren kopuru handia, eta kasu honetan itzulpenak erraz baino errazago, beste makiltxo bat —erdal atzizkiaren kide bat euskaraz lortzeko adinakoa— bazegoela edo behar zela ikusarazi ziezaiokeela hiztegiari.

Bestalde, Lakarraren argudiaketari puntu ahul bat baino gehiago aurkitu uste diot; hona hemen: (1) Larramendik *ildura* ongi ezagutzen zuen (cf. *HH* "adormecimiento de brazo", "amortiguamiento", "austeridad, mortificación" eta *hilduratu* "mortificar"); <Id> : <It> aldaketarako zio berezirik ez zeukan, bada, eta gainera bere ohituraren kontra doake; orduan erratatzen jo beharko genuke, baina honek, berriz ere, Landucciren hipotesia merkeago bilakatzen du; (2) "appesantissement"-ek bidea aske uzten zion, gaztelaniaz nahi zuen ordaina erabiltzeko; halabehar handiegia ez ote, bada, hain zuzen "amortecimiento" aukeratzea? Gainera, nago berez ez zukeela horixe hautatuko; ikus dezagun bere ustetan hitz horrek zer esan nahi zuen: "amortecimiento, *erdiltzea*, verbal. Lat. Semi extinctio, languor, ris"; (3) Harrieten sarrera ezohiko kokalekuan dago, *HH*-an sartu ohi zituen orrialdeetan; balirudike honetan horixe gertatu dela, hain zuzen: "Adormecimiento de brazo, pierna, &c. *sorrera*, *sortatzea*, *cordebaguetzea*, *hildurá*. Lat. Stupor, ris", *hildura* esanguratsuki azken lekuan eta familiako beste sarreretan kiderik ez duela. *HH*-ko *hildura* hau Harrietengandik hartua dela onartzen bazait, orduan nekezago sinis daiteke *Erans*-en berriz baliatu zuela, eta, bide batez, 2. puntuko galderari erantzuna ematen diogu; (4) Lakarrak azpimarratzen duen *iltura-hildura* eta *hildumatu*-ren arteko erlazioa, zalantzarik ez, egiazkoa da. Alabaina, ezin da *contracarra* / *contracartu* bikotearekin, adibidez, inondik ere parekatu: etorkiz ezeze adieraz eta lekuz elkarrekin doazen bi hitz ditugu, eta hauexen bilduma Harrieten iturritasunaren alde egiteko aski eta sobera da. *Ittura* eta *ildumatu*-ren adiera eta itxura ezberdintasuna (eta ustezko iturrian zein testu hartzailean daukaten urruntasuna bera) urrats luzeegia eskatzen diote, inondik ere, Larramendiri, ahal bada leku beretik hartuak nahiko genituzkeela baieztatzen denean; eta (5) Axularren hipotesia Lakarrak berak ezeztatzen badu ere, ez zait iruditzen begibistan diren arrazoiengatik egiten duenik: Oinarrizko nahaste bat izan bide du iruzkingileak Larramendiren *iltura* eta Landucciren *iltua*-ren artean; bestela ez baita ulertzen zer dela eta *hilduac* eta *hildumatuac* "bat bestearen segidan" agertzea hain garrantzizkoa den, ez eta zergatik aldaketa merkeagoa den.

394.INDEA (mug.): "Duelo, *indea*" 219.

Iturri erabat ezezagunekoa. Mitxelena (1970: 81) *endea*-rekin daukan antza azpimarratu du.

395.INDUSKATU: "Hozar, *induscatu*" 325.

RS-n oinarri hartuta Larramendik eraturakoa (Mitxelena 1970: 94): *Hurdeoc il azquero, bareoc yndusca*, "...hoçan los limacos" (379).

396.?INERTU: "Escarmentar, *besteren buruan centzatu. Inertu, galendu*" 245.

Iturri erabat ezezagunekoa (Mitxelena 1970: 85). Lakarrak (1991: 252, 19. oh.) *ulertu*-ren ordezkoko hutsa izan litekeela iradoki du, errataren erraztasuna, batetik, eta Azkuek ez jasoa eta, beraz, agian susmagarritzat arbuaiatua, bestetik, argudiotzat erabiliaz.

Lehen argudioa zentzuzkoa da erabat, baina errata gertakizun izen zedin iturri idatzi bat proposatu —eta ahaleginean aurkitu— beharko genuke. Lakarrak badirudi *RS* aintzat hartzen duela, aski sistematikoki berau ematen baitu *inertu*-ren etorkizat (1993: 231 eta 1996a: 52). Esan gabe doa halaxe izango litzatekeela, baldin eta irakurketa ona *ulertu* balitz. Alabaina, zalantza egin daiteke, *ulertu* beti "entender" itzulpenarekin agertzen baita Darmstadtteko alean (*RS* 49, 194 eta 216).

Bigarrenaz den bezainbatean, nahasteren bat izan du filologoak: berak dioen bezala, "ezaguna da [Azkuek] "B, arc" azpian RS-tik eskuzabal hartzeko zuen joera", baina hitza ez da RS-koa —ez bederen Azkuek eta guk ezagutzen dugun zatikoa—, *Erans*-ekoa baizik. Eta, nahaste horretaz dena dela, *Erans*-eko hitzak neurri batean baino ez zituen onartu bere hiztegian (cf. Urgell 2000a).

397.INES: "Huir, *ines*, *ines!*" 328.

RS-tik (Mitxelena 1970: 94). Bi agerraldi ditu, RS 243 eta 422, eta bigarrena 4. koademotxokoa izaki, badirudi lehenaren alde makurtu behar garela (Lakarra 1996a: 52): *Naztauenac ogenic, yñez begui guextoa ganic*, "...haga huyda del peruerso" (243), nondik *ogen* ere hartu zuen. Beste agerraldian <yñes>, hots, Larramendik eman formatik hurbilago dagoena agertzen den arren, aldaketa edo "zuzenketa" espero izatekoa da, hobeki ezagutzen zituen *iges*, *i(h)es* formen arabera (cf. HH s.v. *huir*).

398.INESI: "Huir, *ines*, *ines!*" 328.

Larramendik, *ines*-en oinarri harturik eraturako forma; cf. HH "huir, *iguesi*, *iesi joan*, *iesequin*, *iguesequin*, *itzur!*" eta "huido, *ies*, *igues*, *iesi*, *iguesi dabillena*...".

399.INGRATASUN: "Ingratitud, *ingratasuna*" 343.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 96): *Hain da handi, eta itsusi bi garren beccatua [...], non harc bere ingratasunaz, leheneco beccatu barccatuac ere bihurtcen beçala baititu* (GGero 472 [Gero 470]).

400.*INISTURA [inistra]: "Recámara, *inistura*" 567.

Landuccirengandik, gaizki irakurria (Mitxelena 1970: 120): "recamara, *ynistrea*" (310r); cf. "çelda o camara, *camarea*, *ynistrea*, *guelea*" (254v) ere.

401.INKAR: "Centella, *incarra*" 132.

Landuccirengandik (Mitxelena 1970: 72): "çentella de fuego, *yncarra*", "çentellear, *yncar egosçi*" (255r).

402.INPRENTZU: "Torno, *imprentzua*" 647.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 129): *Harc etsaiari bihotça hautsten eta arrobatcen dio, harc beguia arraitcen dio, harc imprentçuaz beçala bere mendecatceco gogoa bertce aldera ñçultçen dio* (Gero 295) eta *Etsai gaixtoac gauça hauc guzioc imprentsuaz beçala bertce aldera itçulteintu* (ib. 356). Formagatik bigarrena alde batera utzi beharrekoa dela dirudi, baina GGero-n <tç> zuzendurik dago.

403.INURRI: "Hormiga, *inurria*" 323.

RS-n eta Landuccirengan agertzen da (Mitxelena 1970: 94). RS-n hirutan dago (8, 183 eta 526)⁷⁹. Hemendik izatekotan, RS 183 genuke litekeen iturri bakarra, beste biak 1. eta 4. koademotxoetakoak baitira: *Ynurriari arrayo*, "Sigue a la hormiga". Bigarren, Landucciren lekukotasuna genuke: "hormiga, *ynurria*, *chinurria*" (281v). Lakarrak (1996a: 42) erabat Landucciren alde egin du, hiztegiak iturritzat daukaten lehentasuna argudiotzat erabiliaz. Alabaina, kasu honetan RS-k ere itzulpena agerian duen testua izateak argudioa lainotzen du eta, bestalde, RS-ko erretrau beretik *arrayo* hartua izatea, bilduma horren iturritasunaren alde erabakitzekeo adinako gertakaria da, nire ustez. Cf. HH "aluda", "calambre".

⁷⁹ Eta ez 326.a, Lakarrak inoiz (1996a: 42) aipatu bezala. Kontuak bestelakoak dira, jakina, zuzenketa-oren hautagai bakarra geratzen baita, testuan hurren ikusiko dugun bezala.

404.IPIRDI: "Culo, *ipirdia*" 178.

RS-n eta Landuccirengan agertzen da (Mitxelena 1970: 77). RS-n lautan dago (33, 247, 385 eta 469). 33 eta 469 baztertu behar ditugu, 1. eta 4. koadernotxoetakoak baitira. Bi hautagai ditugu, beraz: *Pucheac ogui vaga, ypirdira dau bidea*, "...al culo tiene camino" (247) eta *Arrien ganean jarri dina, ypidian atera day mina*, "...en el culo sacara dolor" (385). Landuccik hauxe dakar: "rabo por culo, *ypirdia*" (309r) eta "medicina, *melezinea, ayudea, ypirçiria*", baina "culo, *ypurdia*" (253v). Lakarrak, itxura denez, Landucciren alde erabaki du auzia azkenik, ez baitakar RS-tiko hitzen zerrendan (1996a: 51-53). Alabaina, niri neuri RS aukera hobea iruditzen zait —gutxienez ez meziprezatzekoa— beti forma bera, beti gardenki eta beti itzulita dakarrelako, Landucciren lekukotasunetatik "rabo por culo" itzulpendunari bakarrik aintzat hartzekoa deritzadan bitartean.

405.IRAGAITZAZ: "Depaso, *iragaitzaz*" 192.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 78): *Iragaitçaz edo vste cabean* (Gero 392). Bada agerraldi gehiago: *Baiña iragaitzaz beçala, gure heriotzera condenaturic egoiteco pontu haur ukhi dezadan* (ib. 56) eta *Mundu haur bideazcoen ostantua da, iragaitzaz gare hemen* (ib. 240).

406.IRAIO: "Caer (hacer), *irayo*" 110.

Iturri ezezagunekoak. Mitxelenak (1970: 68) HH-an agertzen den *erayo* "estellar", Iparraldeko idazle zenbaitegan agertzen den *irio*, jo-ren kausatiboa, Azkuek (EY III, 141) aipatutako errefrau bat (*Azkarate ta Bedayo, elkar ezin erayo*, "Azkarate (alدهuela navarra cerca de Tolosa) y Bedayo (barrio de Tolosa, límite de Azkarate), no pueden arreglarse mutuamente") eta, agian, *eraitoquia* bera ekarri zituen elkarketara. Nabarmena da inguruko ahozko euskaratik har zezakeen zerbait izan daitekeela, nik uste.

407.*IRATIOTU [iratio]: "Revolver, *iratiotu*" 580.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 121). Partizipioa gaizki berreraikita dago, *iratio*-ren orde (cf. *iratoric* Gero 169). Hala gerta zedin, *iratiotze*- bat behar genuen, Mitxelenak aurkeztua: *Guztiac..., saltsa nahasten, eta iratiotcen dute guztiac hartçaz mintço dira* (ib. 358), edo beste hau bezalakoa: *Baiña orduan diren gaixtoenac ere, hasten dira, bere concientcien iratiotcen eta iraultcen, batari eta bertceari barkhamendu escatcen, eta bertce eguiteco guztiac vtciric, ahalez laincoa bera baithan pensatcen* (ib. 204), nahiz eta adieraz lehena egokiago izan, agian. HH-an ere: "trastornar", "volver".

408.IRATXIKI: "Añadir, *irachiqui*" 51.

Axularrek darabilen formarekin ez dator zeharo bat (Mitxelena 1970: 60): *beccatua beccatuari iratchequiric* (Gero 106). Lakarraren ustez (1991: 246), eta iturria Harriet ez dela ("allumer, *erachiquitcea, piztea*" baino ez baitakar) erakutsi ondoren, Larramendik Axularrengandik hartu eta berak aldatutakoa izan daiteke. Aditza oso sarri agertzen da, guztiz ere dagokigun adieran (aipatuaz gain, ik. GGero 72, 81, 85, 157, 510 [Gero 508], 538 [Gero 536] eta 539 [Gero 537]), baina ez dago Larramendiren irakurketa zuri zezakeen erratarik. Beraz, Mitxelena eta Lakarrarekin bat etorri beharra dago. Gehixeago aurreratu nahiko nuke, ordea: *iraxiki*, ezinezkoa ez den arren, dirudienez 1800 ingurura arte, Monho arte demagun, ez da beste inon aurkitzen (OEH, s.v. *eraxiki*). Balirudike, beraz, errazago dela irakurketa edo kopia txarraz azaltzea, bestela baino. Ik. *iraistura*, honetaz ematen den azalpenerako.

Dena dela, *iraistura*-k bide bereko itzulpena hartu eta beretsuko aldaketa jasan baitu, pasarterik onena biak batera azaltzen direnekoari deritzat: *Venturaz hura Euac berretu eta iratchequi ceraucan, eta berretura eta iratchetura hartçaz, bere burua eta guztioc ere galdu gunituen* (Gero 72).

409.IRATXO: "Duende, *irachoa*" 220. "Fantasma, *irachoa*" 272.

RS-tik (Mitxelena 1970: 82): *Gassoto yrabacia, yrachoen da yracia*, "...es del fantasma esprimido" (301).

410.IRAXTURA <iraistura>: "Añadidura, *erachtura, iraistura*" 50.

Axularrek *iratxetura* darabil (Mitxelena 1970: 60):⁸⁰ *Venturaz hura Euac berretu eta iratchequi ceraucan, eta berretura eta iratchetura hartçaz, bere burua eta guztioç ere galdu guinituen* (GGero 72). Lakarraren ustez (1991: 246), Larramendik Axularrengandik hartu eta berak aldatutakoa izan daiteke, hala nola *irachiqui*, Axularren *iratchequi*-ren orde. Nerau ere etsita nago. Alabaina, badirudi azalpenean aurreraxeago egin daitekeela. Hasteko OEH-ak egiten duen interpretapenari, Larramendiren bi aldaerok bestela lekukotuta ez dagoen *erastura*-pean jarriaz, erabat oker deriztat: aski nabaria da dagoeneko, Axularren *iratxetura*-rekin batera *eraxikidura*-pean joan behar zutela. Nolanahi ere, honexek bermatzen du egindako hipotesia, hots, bi hitzak Larramendik nonbait eratuak direla. Bestalde, kontuan har bedi Larramendik (ik. OEH, s.v. *eraxiki*) *eraxiki* eta *eraxeki* aldaerak ere ezagutzen zituela. Xehetasun guztiok bilduta, demagun Larramendik <iratchetura> irakurri edo idatzi orde <irachtura> egin zuela: *erachtura* horren e-dun aldaera baino ez litzateke izango, eta *iraistura* bere sistema grafikoari hobeki egokitutako forma.

411.*IRIOITU [irion]: "Echar, *irioitu*"⁸¹ 222.

Axularrengandik, partzipioa gaizki berreraikita (Mitxelena 1970: 82): *dembora luceaz bide bat eduquiduen vrari, ezta erraz, bertcetarat irioitea, eta eraguitea* (GGero 86). HH-an ere, adiera ezberdinetan: "conducir, guiar", "desperdicar", "llevar", "malbaratar, destruir".

412.IRISKA: "Aldea, *irisca, urisca*" 31. "Village, *irisca, urisca*" 676.

Harrietengandik (Lakarra 1991: 233): "village, *hirisca, herria*" (FE 437).

413.IROL: "Caduco, *irola*" 109.

RS-tik (Mitxelena 1970: 68): *Yrolagaz gaztea nequea*, "Con el caduco la jouen trabajo" (185).

414.IRUNSI: "Tragar, *irunsi*" 650.

RS-tik (Mitxelena 1970: 129). Bi errefracutan agertzen da, 37 eta 214.ean, baina lehena 1. koadernotxokoa da. Iturria bestean legoke, beraz: *Ysasoac errecaac, yturriac ta ybayac yrunsi*, "La mar traga..." (214). HH-an ere.

415.*ISGILU [iskilu]: "Armas, *isguiluac, isquilosac*" 60.

Inolako zalantzarik gabe RS-tik, kidea bezala. Alabaina, agerraldi bakarra RS 7 da (Mitxelena 1970: 61-62) eta, beraz, 1. koadernotxokoa (Lakarra 1996a: 40): hortaz, RS-en zati galduan berriro ere agertzen dela uste izan behar; Lakarrak (1996c: 251) emandako bigarren azalbidea, hots, *isquilosac*-tik berreraikia izatea, zailagoa ezeze oso garestia iruditzen zait, Larramendik -u asmatzea halabehar handiegia da eta. Formari buruzko eztabaidan sartuaz, batetik *isquil*-ek segurua dirudi, ezagutzen ditugun bi aleek, aipatua eta *isquilosac*, bermatzen baitute; *isg*-hutsa, ordea, Larramendirena zein iturriarena izan liteke, jakina, eta ezin errazagoa da. Bestetik, aitortu behar dut Lakarrak (1996a: 40) darabilen argudiaketa ez dudala ongi ulertzen, ez eta zergatik nahitaez bietatik batek ustelteta

⁸⁰ Pouvreak Axularri egozten dizkion *iratchequidura, iratchequitura* horiek, Mitxelenak bide batez aipatuak, egiatan ez daude Gero-n, orain AxH-ri esker dakigun bezala.

⁸¹ Mitxelenarenean *iriotu*.

izan behar duen. Balirudike ezagutzen dugun *RS*-n behin, eta ezagutzen ez dugunean berriro agertzeak aski ongi bermatzen duela *isquilu* hitza; *isquilos(a)*-ri dagokionez, ez ote liteke *iskil(u) + (h)ots*, *RS*-n afrikatuak ez bereizteko joera ezagututa? *OEH*-ak, zeharo akritikoki, *iskilos iskilu*-pean ematen du, aldaera bailitzan; Lakarrak, berriz, argitalpeneko hiztegitxoan (1996c: 213), *iskillots* letraldatu du, azalpenik eman gabe.

416.HISIKATU: "Encapricharse, *hisicatu*" 232. "Obstinarse, *hisicatu, golpagogortu, estocatu*" 462.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 83): *Baiña hi handi ni handi hissicaturic egoiteac, handirasunetan ibiltceac, amoreric ez emaitceac, guibellatcen du nehorceguin nahi duen ontasuna* (GGero 295).

417.?ISKILOS [iskilots?]: "Armas, *isguiluac, isquilosac*" 60.

RS-tik (Mitxelena 1970: 61-62): *Butroeco meniac gayti ez ysquilosay echi*, "...no dexes las armas" (404). Hitzaren interpretapenerako, ik. *isgilu*.

418.ISTALGARATU: "Prevenirse, *istalgaratu, goitatu*" 537.

Axularrengandik, sarrerakidea bezala (Mitxelena 1970: 117): *Ceren baldin gogotic, cin cinez prestatuic eta istalgaraturic, abia bacin deci eta perma, etcindezque ici eta ez iccara* (GGero 487 [Gero 485]). *HH*-an ere: "disponerse con viveza".

419.ISTINKARI: "Calafate, *istincaria*" 112.

Iturri ezezagunekoa (Mitxelena 1970: 69). Ik. *istinkatu*.

420.ISTINKATU: "Calafetear,⁸² *istincatu*" 113.

Iturri ezezagunekoa. Mitxelenak (1970: 69), errom. *estancado*, etab. proposatu zuen etorkitzat, nahiz bigarren *i*-ak zertxobait uzkuratzen zuen. Cf. *HH*-an *istinga* "viscosidad", "viscoso". Familiari buruz, baliteke iturrian *istinkari* izatea, eta aditza bertatik aterea.

421.HISTU: "Conseguir, *hitsi, histu*" 158.

Axularrengandik, zehaztasunik gabe itzulia (Mitxelena 1970: 75): *Nahiz bere gogoac historic, eta nahiz histu gabe* (Gero 280) eta *Ceren bere desiren hstea gatic prometatcen dute anhitz* (*ib.* 351). Honako hau lehenetik aterea da, bigarrenetik **hitsi* sarrerakidea atera zuen bitartean.

422.ISTUPA: "Estopa, *istupa*" 261.

Mitxelenak (1970: 87) Axularrengandikotzat jo zuen; bi agerraldi ditu: *istupa* (Gero 400) eta *iztupa* (*ib.* 418). Ez dago hitz honetan kontraesanik Gero eta GGero-ko irakurketen artean. Hona hemen bi adibideak: *Ceren guicoña eta emaztea, sua eta istupa beçala baitira* (GGero 400) eta *Vrruititic ere berotcen du suac, cer equinenda bada hurbil dadinean? Gaixqui doha iztupaz, suac utqui deçanean* (*ib.* 418). Harrieten hiztegian ere badago (Lakarra 1991: 248): "*istupa, étoupe*" (*EF* 307); laburpenean (1993: 231) honixe egozten dio. Ez dut nik ziurtasun berbera, agerlekua (*EF*) desegokia baita: mailegu garden baterako salbuespena egin beharra gogorregia iruditzen zait, forma *HH*-an jaso gabe ("estopa, *mulloa, muloa, amelua*") bazegoen ere. Honenbestez, Axular proposatuko nuke iturritzat edo, gehienera jota, auzia bien artean erabaki gabe utzi.

⁸² Gaur egun *calafatear* erabiltzen dugun arren, bai *HH*-k hiztegi barruan, baita *DAut*-ek berak ere, *calafateador* baina *calafetear* jasotzen dute.

423.ITOGIN: "Gotera, *itoguina*" 298.

Mitxelenak *RS*-tikotzat jotzen du, eta baliteke hala izatea, baina zati galdutik, zeren dagoen agerraldi bakarra (*RS* 16) 1. koadernotxokoa baita (Lakarra 1996a: 41). Beronek dioenez, "hitza erabat arrunta da oraindik", zeinagatik entzuna izatea ere ez baita arbuiaitzekoa.

424.*HITSI [histu]: "Conseguir, *hitsi, histu*" 158.

Axularrengandik hartu eta gaizki berreraikitako partizipioa: ik. *histu*.

425.ITXINDI: "Tizón, *supita, ichindia*" 645.

Harrietengandik (Lakarra 1991: 236-237): "*itchindia, tison*" (*EF* 307) eta "*tison, itchindia*" (*FE* 432).

426.?ITZAGO [itzego]: "Caballo, à caballo, *itzagoz*" 106.

Landuccirengan oinarri hartuta Larramendik erauzitakoa (Mitxelena 1970: 68), oinarria zertxobait aldatuaz edo gaizki irakurriaz: "caualgar a caballo, *çaldian yguo, ysçego*", "caualgar, *ysçego*", "caualgadura, *ysçegaytauerea*" eta, batez ere, "cauallero a cauallo, *ysçegozcoa*" (247r).

427.ITZALGAIZKA: "Sombra, *guertza, itzalgaizca*" 614.

Axularrengandik, gaizki itzulia (Mitxelena 1970: 125): *Norc erranen du... nola compaiña prestuac vtciric, bere eguitecoey guibela emanic, loa galduric, bera baccarric itçal gaizca, airatua, basatua eta iduricortua ibiltcen den?* (Gero 357). Bada agerraldi gehiago: *Ceren aieru hek, itzalgaizca ibiltce hec, baitira frogantçaric asco, gogan behar aracitceco* (*ib.* 403) eta *...ohoiñac edo gizon hilzailleac sentitcen duenean iusticia, berehala bera bere buruz, nehor orhoitcen ezteela [...] ihesi itzalgaizca abiatcen dela* (*ib.* 432). Itxurak engainatu zuen; Villasantek (*AxH*, s.v.) "a escondidas, ocultamente, furtivamente" itzuli du.

428.*ITZULPIDE [itzurpide]: "Escapatoria, *itzulpidea*" 244.

Axularrengandik. Mitxelenak (1970: 85), zalantza, Axularren pasarte bat ekarri zuen: *Hala edireiten ditugu bada guc ere occasinoac, desencusac, estacuruac, atchaquiac eta itçurpideac* (Gero 51). Lakarrak (1993: 231) iradokizuna onartu dio. Hitza leku gehiagotan errepikatzen da: *...edireiten du gure maliciac eta borondate gaixtoac, cenbait itzurpide, cenbait desencusa, eta escapateco bide, obratcea utciric, desiratan denboraren iragaiteco* (*ib.* 50) eta *Baiña zuc orai ere itzurpideac bilhatceintuzu* (*ib.* 186). Mitxelenaren hipotesia ona da, baina askoz oinarri sendoagoa eskaintzeko paradan gaude: izan ere, GGero 50 eta 51eko irakurketa *itçulpide* da (*itçurpide*, ordea, *ib.* 186an); hutsa, beraz, 2. argitalpenarena da, eta ez Larramendirena. *HH*-an ondo jaso zuen *escapatoria* eta *evasión*.

429.IUSTURI: "Trueno, *eurciria, iusturia*" 656.

RS-tik (Mitxelena 1970: 129): *Iusturiaen açean euria*, "Tras los truenos, lluvia" (201). *HH*-an ere.

430.IYAK: "Hiérole, pegale, *iac, iyac*" 319.

Ik. *iac*, *RS*-tik hartutakoa: Larramendik hiatotzat jo zuen (cf. <î>), eta hortik <iyac>eko epentesia.

431.HIZMIZTI: "Hablador, parlón, *hizmiztia*" 311.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 93): *Iccusten duçunean ecen presuna bat dela erasle handi, minçatçaille, ahaçabal, hitz mitzti, elha berriti, eta salhati, eztiöçu halacoari sequereturic fidatcen* (GGero 540 [Gero 538]) eta

Iccusiric ecen haren iduriz hitz mitzti, eta salhati çarela (ibid., lerro batzuk beherago); pasarte beretik elhaberriti ere hartu zuen.

432.IZORONDU: "Zurrar cueros, &c. *izorondu*" 691.

Iturri ezezagunekoa. Mitxelenak (1970: 133) *ondu* "madurado", "curado", "abonado", "compuesto (hablando de versos)", etab. hitzarekin egindako elkarteak izan daitekeela uste zuen.

433.IZPIZATU: "Renegar, *izpizatu*" 573.

RS-tik (Mitxelena 1970: 120): *Yzpiçazen dot ayta ez ama dirudian abereaz*, "Reniego de..." (370).

434.IZTEGI: "Ingle, *izteguia*" 338.

Mitxelenak (1970: 95) RS-en zati galdutik ote den zegoen, bizkaierazkoa baita Azkueren arabera. Ik. orain OEH s.v. 1 *iztai*.

435.*JAGOTU [jagon]: "Guardar, *jagotu*" 302.

Beharbada RS-en zati galdukoa (Mitxelena 1970: 91), *jagote*- batetik Larramendik gaizki aterea.

436.JAIBAL: "Infructuoso, *jaibala*" 341.

RS-tik (Mitxelena 1970: 96): *Hurte jaybala bano, belua obago*, "Mejor es el año tardío, que el infructuoso" (341).

437.JAINKOARI AILLIOTSA, LIREN ASKO: "Quisiera Dios, que fueran bastantes, *Jaincoari ailliotza, liren asco*" 558.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 119): (*eta laincoac ailliotza liren asco*) (GGero 419). Aldaketa, beharbada aditzeko *-io*-k —datibo markatzat har baitzezakeen— eragin du.

438.JAKIZU: "Sábete, *jaquizu*" 591.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 122-123): *consola çaite eta iaquiçu ecen, laincoa mendecatuco dela* (GGero 333). Bada askoz agerraldi gehiago (cf. AxH).

439.JARAUNSI: "Heredar, *jaraunsi*" 317.

RS-tik (Mitxelena 1970: 93): *laraunsi edo yrabaci eguia*, "Heredolo, o ganolo" (319).

440.JARREKIN: "Hallar, *jarrequin*" 314.

RS-tik (Mitxelena 1970: 93): *Hurrungo ynssaurra burua laso, jarrequin ezequida erricoa laso*, "...mas no la alle como la de la patria" (344), nondik *laso* ere hartu zuen.

441.JARRIKI: "Continuo, *jarriquia*" 161.

Mitxelenak —baina bere argitalpenean *jarriquia* kopiau eta erabiltzen ari zen— Axularrengandik hartutakotzat jo zuen, besteren artean hurrengo pasarteak adibidetzat emanik: *Nola guiçô ezcôduac bethi ere baitu bere emaztea bere escuco bereaz franquia, eta bertcerenez escasia eta escas den gauça maitaro eta iarraiçiz içaiten dena [baiño] desiratcen ago, eta goço iduricen [baita]* (Gero 359). Lakarrak (1991: 246-247), nahi gabe bada ere, benetako aztarna non dagoen erakutsi digu: Mitxelenaren argitalpenari jarraiki, erkaketara (baina ezezko kontuan), beste zenbaiten artean Harrieten *jarriqui* aipatzen du: "assidu, *jarriquia*" (FE 329) eta "diligent, *jarriquia*,

joancara" (ib. 349), hala nola "suivre, *seguitea*, *jarriquitea*" (ib. 429). Ez dago esan beharrik, *Erans*-eko benetako irakurketari begira, Harriet (beharbada FE 329 "assidu") proposatu beharra dagoela gaugerero sarrera honen iturrizat.

442.JARRUGI: "Encontrar, *jarrugui*" 235.

RS-tik (Mitxelena 1970: 84): *Guextoto oydanari bildurra jarraygui ta caltea jarrugui*, "Al que mal habita, el miedo le sigue, y el daño encuentra" (341).

443.*JASAITU [jasan]: "Levantar, *jasan*, *jasaitu*, *eregui*" 367.

Lakarrak (1993: 233) Larramendik eraturakotzat jotzen du. Bistan da *jasaitu*- gaizki ulertu batetik datorrela; iturria Axular izan daiteke, *jasan*-ena bezala (cf. **hisi / histu* iturri bereko bikotea): *iasaitu*- hainbat bider agertzen da, eta sarritan *Erans*-eko adiera aditzera eman dezake; cf., adib.: *Sendoac iasaiten eztena, flacoac nola manaiatucco du?* (Gero 180), *...eta vztarria, biac iasaiten eta eramaiten baitute* (ib. 494), *...carga arina dela, eta iasaiteco erraça* (ib. 499).

444.JASAN: "Levantar, *jasan*, *jasaitu*, *eregui*" 367.

Mitxelenak (1970: 98) *iasan* "soportar" (Gero 23, 494, 495, etab.) eta "producir (fruto)" (ib. 38, 39, etab.) adieretan Axularrek sarri erabiltzen duela gogoratu zuen. Alabaina, Larramendiren itzulpena eragin zezakeen adibiderik bada, izan ere: *Eta zama bat eguinic, lothu zuenean, hasi zen enseiatcen ea iasan ahal zezakeienz* (Gero 85). Ohartu, ordea, *jasaitu* ere agertarazteko, *iasaitu*- beharko genukeela; AxH-ak eskaintzen dituen adibideetan ez dut, baina, asebetetzekorik ediren. HH-an ere.

445.JATS: "Escoba, *jatsa*" 247.

Harrietengandik (Lakarra 1991: 230): "balay, *jatxa*" (FE 332).

446.JAUTSAPEN: "Bajada, *jautsapena*" 91.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 66): *Halaco suertez non Esaiaz Prophetac hain iautzapen hâdiaz miretsiric, galdeguiten baitio Lucifer berari* (Gero 140). Zuzenketa bigarren argitalpenekoa da: *iautsapen* (GGero ib.). HH-an ere, beste adiera batean: "sumisión".

447.JAZKA: "A medio vestir, *jazqui*, *jazca*" 670.

Ziurrenik RS-en zati galdukoa, formaz bizkaiera zaharrarekin oro har eta zehazkiago RS 560n (*Erans* 451) agertzen den *ucuzca*-rekin lotu behar baitugu (Mitxelena 1970: 131).

448.JAZKAI: "Vestido, *jazquerea*, *jazcaya*" 669.

Iturri ezezagunetozat joa (Mitxelena 1970: 130-131 eta Lakarra 1996a: 53). HH-an ia ager zitekeen leku guztietan agertzen denez gero ("hábito", "ropa", "trage" eta "vestido"), Larramendik erkaketarako edo lagungarri gisa dagoeneko ezagutzen zuen hitza ekarri duela dirudi.

449.JAZKERA: "Vestido, *jazquerea*, *jazcaya*" 669.

RS-tik (Mitxelena 1970: 130-131): *lazquereac parrhua eguite ez du*, "El vestido..." (220), nondik *parrua* ere hartu baitzuen.

450.JAZKI: "A medio vestir, *jazqui, jazca*" 670.

Mitxelenak (1970: 131) *jazca*-z baino aritzen ez da. Lakarrak (1993: 239 eta 1996a: 53) agerian jartzen du biak *RS*-en zati galdutikotzat dituela. Haien arteko erlazioa eztabaidatu gabe dago. *Jazqui* formaz iluna da. Batetik, ohi ez bezala mugagabean agertzen delako. Bestetik, badirudi galdera dela ea sinistu behar ote dugun *RS*-en zati galduan biak, bakoitza bere aldetik, agertzen zirela, ala biak hango agerraldi bakar baten ondorio direla. Errazago dirudi bigarrenak, inondik ere, baina hala balitz arrazoi sendoak daudela begitantzen zait, *jazqui* nolabait han zegoen hitza erabakitzeko, eta *jazca*, bestetan ikusi bezala, Larramendik euskaraz zekienaz baliatuz lagungarri, azalpen edo gehigarri gisa ezarritakoa. Lehengo arrazoa formala da: bestetan hartua lehen, eta ezaguna edo deduzitua gero ezartzen zuen (cf. *bezala, inesi, jazcaya, lapicoa*). Bigarrena, berriz, hizkuntzarekikoa: Larramendik (*ucuzca*-n, adibidez) bizkaieraz *-ka* 'gabe' atziki bat zela ezagutzen zuen, eta *jazki*-k, dena dela, horixe ekar ziezaiokeen burura. Demagun, beraz, *jazqui* dela iturritik aterea, eta *jazca*, berriz, Larramendik ezarria. Zer da, baina? Ezin da **jazquia* suposatu, *Erans*-ean mugagabe dagoelako. Ziur gaude benetan iturria *RS*-ek izan behar duela? Eta ekialderagoko iturria balitz, eta *jazki*, "a medio vestir" ez "desvestido", "desnudo"-edo itzulia, *ibilki* eta kideen sailekoa balitz, hots, honi Lhandek ematen dion itzulpenaz baliatuz "en train de"?

451.JOKAKIDE: "Juglar, compañero del juego, *jocaquidea*" 348.

Iturri ezezagunekoatza joa (Mitxelena 1970: 96 eta Lakarra 1993: 233). Baliteke Landuccirena izatea, zeren hurrengo bi sarrerok jarraian topatzen baitira han: "jugador, *jugadorea, joçaylea*" eta "juglar, o truhan" (282), bigarrena itzulpenik gabe: lehenengoaren itzulpena bigarrenekoatza jo, eta <jocaidea> irakurri izan balu, gero *jocaquide* alda zezakeen, hobeto ezagutzen zuen atzikiaren forma hautatuaz. Eskuizkribuan <joçaydea> irakur liteke, baldin eta beste <d>-ak nola diren egiaztatu gabe egiten bada.

452.JOLASTURI: "Eloquente, *jolasturia*" 226. "Hablador, eloquente, *jolasturia*" 310.

Mitxelenak (1970: 46), *solasturia* bezala, Axularrengandikotzat jo zuen, "con un pequeño cambio en la forma". Halaxe dirudi, Larramendi ezagunago zukeen aldaeraz baliatuz "hurbildutako" forma dela, hain zuzen. Aukera bat baino gehiago dugu: Mitxelenak *solasturi*-rako eskaini hau: *Alferrac choil dira solhasturi andi: hequen compaiñian çarenean ezta çure aldiric* (Gero 44) ala, agian hobe, ondoko hauetatik edozein: *...guztiequin behar da içan orobat, guztiequin behar da izan solhasturi amoltsu eta arronter* (ib. 327) eta *...guztiequin adisquide, arronter eta solhasturi den bat* (ib. 339).

453.KAFIA: "Nido, *oántzea, cafia*. Y el refrán, *fin gaitz eguiñen duc choria, baldin gaztedanic ezpadaguic cafia*" 446.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 107): *Fin gaitz eguinen duc choria, baldin gazte danic ezpadaguic cafia, dio errefranac* (GGero 178). *HH*-an ere: "nido, *cabia, abia, cafia, ohatzea*".

454.KAILUTU: "Callecer, *caillutu, golpagogortu*" 114.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 69): *Eta ez sentitceco, escuetaco larrua ere loditcen, gogortcen eta khaillutcen çaica* (GGero 90).

455.KANORA: "Forma, manera, *orcoya, canora*" 280.

Iturri ezezagunekoa. Mitxelenak (1970: 90) bizk. *ganora* "aptitud, destreza, soltura" ala lab. *k(h)anora* "apariencia, fundamento"-ren ordezkari den zalantzan zegoen. Cf. *HH* "apariencia".

456.KANTITU: "Ablandarse, *cantitu*" 1.

Axularrengandik, gaizki itzulia (Mitxelena 1970: 53): *etçara bat ere assaldatcen, eta ez ceure sosegutic cantitcen* (Gero 310). Hurrengo adibide hau askoz egokiagoa da okertzeko, *beratceco-gatik*, besteak beste: *anhitz nigar purpuilla isuri çuen, asco baitciratequeyen, den bihotcic gogorenaren* [sic] *ere hautsteco, eta beratceco; baina gureac etciren cantitu ere, etceicun vrricaldu, ezquenduen entçun* (ib. 439). Villasantek (1976ko arg., 492) pasarte honetan "ni se inmutaron" itzultzen du.

457.*KAPELARI [zapelari]: "Cernícalo, *capelaria*" 133.

Landuccirengandik, gaizki irakurria: "çernicalo aue, *çapelaria*" (255v).

458.KARRAKA: "Lima, *carraca*" 376.

Harrietengandik (Lakarra 1991: 231 eta 244): "lime, *lima, kharraca*" (FE 380).

459.KARSOIL: "Calvo, *carsoilla, garbala*" 116.

Axularrengandik, sarrerakidea bezala eta leku beretik (Mitxelena 1970: 69): *Occasinoa copetan belarrean, aitcin aldean, illetsu da, eta cherlotsu, baiña garhaitean, garcetan, guibel aldean, motz, soil, garbal, carsoil, eta ille gabe* (GGero 153). *HH*-an ere: "calvo, calvino, *carsoilla, coroilla, illebaguea, ulebaga*".

460.KIBEL: "Espalda, *quibela, acia*" 251.

RS-tik (Mitxelena 1970: 86). Bitan gertatzen da, 239 eta 466.ean, baina, bigarrena 4. koadernotxokoa denez, iturri zehatza lehena dela dirudi (Lakarra 1996a: 41): *Quibel ecachari, bular aldionari, "Espaldas a la tempestad, pecho a la buena sazón"*. Uste honetan sendotzen gaitu *aldiona* ere leku beretik hartuak.

461.KIDOIN: "Guía, *quidoina*" 304.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 92): *Eta Ainguiru guztien lehena, aiticindaria, eta aguintaria, eguin cen Deabru, eta Deabru guztien buruçagui, quidoin, eta capitain* (GGero 139).

462.KIRASTU: "Hediondo, *quirastua*" 316.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 93): *Lazaro, laur egunetaco hil quirastua* (Gero 95). Bada agerraldiren bat gehiago (ib. 95 eta 529). *HH*-an ere.

463.KIRIKIO: "Erizo, *sagarroya, quiriquioa*" 243.

Iturri ezezagunekoa, agian bizkaierazkoa. Mitxelenak (1970: 85) *RS*-en zati galdukoa izan daitekeela iradokitzen du, testu honek idatziz markatzen ez diren bokal eta diptongo sudurkariak baitauzka. Alabaina, forma bera jasoa zuen jadanik *HH*-an: "erizo, *tricua, quiriquioa, sagarroya*".

464.KOI: "Silla, *coya*" 609.

Iturri erabat ezezagunekoa (Mitxelena 1970: 124). Beronek iradokitzen duen bezala, *koitigia*-rekin (q.v.) lot liteke. *HH*-an ere.

465.*KOIKATI [koikari]: "Sobrado, abundante, *coicatia*" 613.

RS-tik, gaizki irakurritakoa (Mitxelena 1970: 125): *Esa jaunen saria ezta ayn coyçari çeyn dirudi, "La dadiua del duende no es tan sobradissima como parece"* (497). 4. koadernotxokoa izan arren, Lakarra (1996a: 39) makurtzen da, beharbada hau eta *gondu* jasotzen dituzten lau orrialdeak (59-62), "edo orrialde zati[ak]" eskuetan izan

zitzakeela aitortzera, bi hitzen arrarotasuna dela eta. Bestalde, hutsa norena den ebazteko, kontuan izan beharko dugu Larramendik *-(k)ari* atzizkia izen bizidungile gisa bakarrik ezagutzen zuela eta, hortaz, erraz *-ti* atzizki izenondogilea ikus zezakeela, edo "zuzendu".

466.KOIPATU: "Pringar, *coipatu*" 541.

Ez Mitxelenak (1970: 117) ez Lakarrak (1993: 237) aurkitu ahal izan diote iturririk. Alabaina, azalpena RS-n dagoke: *Herrebaga coypasu*, "Sin assar pringar" (225), itzulpenak okertuta Larramendik <í>ren ordeztu irakurri edo zuzendu zuela eginez. HH-an ere: "lardar", "pringar".

467.?KOITIGI [koitegi?]: "Cena, *coitigui*" 131.

Iturri ezezagunekoa, agian bizkaierazkoa. Mitxelenak (1970: 71) Ibiñagabeitiaren proposamena bere egiten du, hots, gaztelaniazko hitza "cenáculo, cenador"-en ordeztu egon daitekeela, eta euskal hitza *koi* "silla" (q.v.) + *-tegi* izan litekeela; oro har, bizk. *goitegi* "desván sobre el pajar en las aldeas, etc." eta haren aldaera den B-arr *goitigi*-ren aldaki bat besterik ez litzateke izango.

468.KOLORE PIKARDATU: "Variedad de colores, *nabardura, colore picardatuac*" 664.

Axularrengandik, sarrerakidea bezala eta leku beretik (Mitxelena 1970: 130): *Mahiru herrico mairu beltçac bere larrubeltça, eta Tigre arrac ere, bere nabardurac, colore picardatuac, alda, vtz, eta mudadiçanean...* "pardus varietates suas" (GGero 93).

469.KONTRAKAR: "Oponerse, *contracartu, oposición, contracarra*" 470.

Mitxelenak (1970: 109) Axularrengandikotzat jo zuen: *Ordea cergatic erraiten da, bertce beccatuac deffendatuz, eta contra carrean iarriz, behar ditugula garaitu...?* (GGero 399); bigarren hau erants dakioke: *Eta han anhitz travaillu iragan[ic], contra-carra içanic, eccarri cenduen, guero ere beharcen erremedioa (ib. 7-8)*. Harrieten lekukotasuna hobetsi behar dugu (Lakarra 1991: 252), izena ezeze aditza ere azaltzen digulako: "opposition, *contracarra*", "opposer, *contraca[r]tcea*" (FE 393).

470.KONTRAKARTU: "Oponerse, *contracartu, oposición, contracarra*" 470.

Harrietengandik, sarrerakidea bezala (Lakarra 1991: 252): "opposer, *contraca[r]tcea*" (FE 393).

471.KONTRAPUINTA: "Frazada, *contrapuinta*" 283.

Iturri ezezagunekoa, ziurrenik Iparraldekoa, fr. *courtepointe*, etab.en arabera (Mitxelena 1970: 90).

472.KORRINKO: "Molleja, *corrincoa*" 424.

Landuccirengandik (Mitxelena 1970: 104): "Molleja de aues, *corrinco pistiana*" (294r).

473.KORROMIOTU: "Corcomerse, *corromiotu*" 166.

Iturri ezezagunekoa, izena Axularrengan agertzen den arren (Mitxelena 1970: 75 eta Lakarra 1993: 229): *Ceren hasseretunac, mendecatu nahiac, barreneco heguigoac, iraquidurac, hudigoac, gorrotuac, corromioac, eta herrac, arimari eta gorputzari eguitê deraue calte* (Gero 279-280). Axularren aurka, iturriko hitza ez baina bai bertatik eratorritakoa *Erans*-ean jaso deneko adibide bakarra izatea genuke; alde, berriz, bestelako lekukotasunen mugatua

(cf. *OEH*, s.v.) eta, nik uste, *corcomerse*-ren taiuko izenik emateko zailtasuna:⁸³ bistan da, ene usteko, Larramendik lotura etimologikoa egin zuela.

474.KRESAL: "Agua salada, *cresala*" 23.

Iturri ezezagunekoa, bizkaierazkoa, agian *RS*-ren zati galdukoa (Mitxelena 1970: 57).

475.KRINA: "Cuidado, escrúpulo, *crina*" 177.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 77): *cer içanen da, laincoz, munduz eta concientciáz conturic eguin gabe laçoqui eta antsicabequi bat ere crinaric gabe bicitcen direnez?* (GGero 353).

476.KRISELA: "Parrillas, *criselac*" 495.

Iturri erabat ezezagunekoa. Mitxelenak (1970: 112) Azkuek dakarren L-ain marka ziurrenik Duvoisinen hiztegiari, eta ez besteri, zor zaiola ohartu zuen. Dena dela, ekialdekoa izan daiteke: cf. *grisella* (EZ, SP), *gresilla* (Z), etab. (*OEH*, s.v. *grisella*).

477.*KRONPO [tximio]: "Mona, *crompoa*" 427.

Iturri ezezagunekotzat joa (Mitxelena 1970: 104 eta Lakarra 1993: 234). Nire ustez, Landucciren hiztegitik datorren usteldura da: "mona, *chimioa*" (294r) da Agud & Mitxelenaren argitalpeneko irakurketa, baina, hau ikusi gabe, eskuizkribuan <c?rompoa> erraz irakur daiteke: <h> ez da batere ongi ikusten, eta bigarren <i>ak hanka luze bat dauka beherantz. Ohartu bietako femenino esanguratsuari.

478.KROSKA I: "Mella, *croscá, orca*" 411.

Landucciren *croscatu*-tik Larramendik erauzia (Lakarra 1993: 234).⁸⁴

479.KROSKA II: "Quicio, *erroa, croscá, üala*" 557.

Axularrengandik, aldaketa txiki batekin (Mitxelena 1970: 119): *Ceren emazte ezcondua eztu deusec ere, hala guiharran vquitcen, crozcan erauzten, eta ez bere tentutic eta pacientciatic atheratcen, nola bere senharra bertcerequin dabilcola iaquiteac* (GGero 358), nondik *tentu* eta *erauzi* ere hartu baitzuten. Mitxelenak <crozca> dakarren arren, <croscá> da irakurketa zuzena.

480.KROSKATU: "Mellar, *croscatu, orcatu*" 412.

Landuccirengandik (Mitxelena 1970: 103): "mellar vasos, *vasoac croscatu*" eta "mellado, *croscatua*" (292r); cf. "abollar, *croscatu*" (227r) ere. *HH*-an "descascarse".

481.KROZKA: "Punto, estado, *crozca*" 550.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 118): *Mundu hunetaco gauçac eztaude behin ere crozca batean* (GGero 602 [Gero 600]) eta *Ezta aitcinatcen, eta ez guibelatcen, bethi dago egoitça batean, Crozca batean* (ib. 604 [Gero 602]).

⁸³ Ohiko hiztegieta (*DAut*, Moliner) aurkitzen ez dudan arren, niretzat ere normala da *corcomerse*, itxura guztien arabera adiera bereko *carcomerse* eta *concomerse*-ren arteko kutsaduraz sortua.

⁸⁴ *OEH*-ak "mella" Landuccik ere badakarrela dio, baina okerren bat izan behar du (cf. orain Mtz. de Madina 1998).

482.KUNXOIN: "Colchón, *cunchoiña, matelasa*" 144.

Harrietengandik, sarrerakidea bezala eta leku beretik (Lakarra 1991: 238): "matelas, *cunchoiña, matelaça*" (FE 383).

483.*KUREA [kurka]: "Inclinación, *curea*" 335.

Mitxelenak, lehenago msOch-k bezala, testu zaharretan bizkaieraz ezeze lapurteraz ere agertzen den *gura*-rekin lotu zuen. Lakarrak ere (1993: 232) zalantzapean uzten du hitzaren iturria. Halarik ere, azalpen erraza dauka: *Bertce hegaztinec edateco curca gustietan, ahartara baccotchean, burua goiti ailtchatcen dute* (GGero 342), nondik *curea* irakurri bide zuen Larramendik; beraz, "inclinación" adiera literalean ulertu behar dugu. Ik. *OEH* (s.v. 1 *kurka*) esanahiarekiko gorabeheretarako.

484.KUSUMA: "Asco, *cusuma*" 70.

Landuccirengandik (Mitxelena 1970: 64): "asco auer de algo, *cusuma euqui cerbayter*" (236v).

485.KUSUMATSU: "Asqueroso, *cusumatsua*" 71.

Landuccirengandik, moldatutakoa (Mitxelena 1970: 64): "ascoroso, *cusumosoa*" (236v).

486.LAKETU: "Agradar, *laquetu*" 22.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 57): *Eta hanbat vsatcen duçu beccatu eguitea..., non guztiz veldurra galtcen baituçu; vsatuari beçala, hetan laquetcen baitçaitçu* (Gero 106). Ik., beti NON kasuaz lagundurik, *ib.* 108 eta 275 ere.

487.LAMITI: "Goloso, *lamitia*" 295.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 91): *Han sabel-darraio, golosa, lamitia, ian edanera emana [...], vr chorta bat ecin erdietsiz, amitua ibilicoda* (GGero 593 [Gero 591]), nondik *amitu* ere hartu baitzuen.

488.*LAMHOPE [lanhope]: "Niebla, *lamboa, lamhopea*" 447.

Axularrengandik, sarrerakidea bezala, eta agian orrialde beretik (Mitxelena 1970: 107): *Argui asco içanenda, lanhope batean beçala, elccarren icusteco [...]. Ceren argui lambo harequin batean, iccusico dute hanbat liquitsqueria...* (GGero 589 [Gero 587]).

489.LANARTE: "Vacaciones, *lanarteac*" 659.

Harrietengandik (Lakarra 1991: 229): "vacances, *lanharteac*" (FE 435).

490.LANBO: "Niebla, *lamboa, lamhopea*" 447.

Axularrengandik, sarrerakidea bezala (Mitxelena 1970: 107): *iraquin hartaric ilquitcen da, khe bat, lambo bat* (GGero 289) eta *Argui asco içanenda, lanhope batean beçala, elccarren icusteco [...]. Ceren argui lambo harequin batean, iccusico dute hanbat liquitsqueria...* (GGero 589 [Gero 587]). Nahiz eta bigarrean bi sarrerakideak egon, *lambo* izenondoa da: Villasantek (AxH, s.v.) "obsuro, tenebroso" itzuli du.

491.LANBOTU: "Flaquear la vista, *lambotu*" 278.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 89): *Erraiten çaitçu çahartcen hasi çarela, bi illetan iarri çarela, beguiac lambotcen hasi çaiçquitçula* (GGero 71).

492.LANDER: "Pobre, *chiroa, arlota, landerra*" 521.

RS-tik (Mitxelena 1970: 115): *Ondo eguioc landerrari, layncoac diquec donari*, "Haz bien al pobre..." (265). Harrieten hiztegian ere bazeukan (Lakarra 1991: 237): "pauvre, *erremesa, escalea, landerra*" (FE 398). Halaz ere, ez dago zalantzarik: gainerako hitz biak ere iturri berekoak izatez gainera, errefrau horretan bereziki geratua *donari* ere hartuak erakusten digu. Cf. *HH* "ruin", "villano".

493.LANGIADURA: "Melancolía, *languiadura*" 410.

Harrietengandik (Lakarra 1991: 227): "melancolie, *languiadura*" (FE 384). *HH*-an ere: "languidez".

494.LANKATU: "Trabajar, *lancatu*" 649.

Harrietengandik (Lakarra 1991: 242 eta 1993: 223): "travailler, *lancatcea*" (FE 434).

495.LANZARO: "Ocupación, *lanzaroa*. Ocupar, *pochelatu*" 465.

Harrietengandik, sarrerakidea bezala (Lakarra 1991: 239): "occupation, *lançaroa*", "mes occupations sont dans l'hiver, *ene lançaroac neguan dire*" (FE 392).

496.LAPIKO: "Olla, *dipidia, lapicoa*" 468.

RS-en zein Landuccirengan dagoen hitza (Mitxelena 1970: 109). Alabaina, RS-ko agerraldia, 69. errefracuan, baztertu behar dugu, 1. koadernotxokoa baita. Beraz, balirudike iturria italiarraren hiztegia dela: "ola del agua, *lapicoa*" (Lakarra 1996a: 38). Erants bekio Harrieten "pot à faire la soupe, *elcea, lapicoa*" (FE 406). *HH*-an ere: "olla", "puchero".

497.LAPITZ: "Piedra, *lapitza*" 514.

Axularrengandik, zehaztasunik gabe itzulia (Mitxelena 1970: 114): *Hura da lapitçaren gainean ereiten den hacia beçala* (GGero 458 [Gero 456]). *HH*-an ere, beste adiera batean: "lápiz".

498.LARRU ARRAS: "Carnes (pegado à las), *larru arras*" 120.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 70): *Gaitz da çur baten gaiñean, ceure ohe ona vtciric, eta larru arras cilicio bat, cerdazco guerrico bat harturic etçatea eta ibiltcea* (Gero 481). Badago beste agerraldi bat, oso antzekoa: *Cilicio bat, cerdazco guerrico bat, larru arras bethiere erabil cenezala* (ib. 57).

499.LARU: "Amarillo, *larua*" 41.

Iturri ezezagunekoa, bizkaierazkoa, agian RS-en zati galdukoa (Mitxelena 1970: 59).

500.LASO: "Como, *laso, leguez, bezala*" 152.

RS-tik (Mitxelena 1970: 74). Honek aipatutako agerraldia (RS 88) baztertu beharra dugu, 1. koadernotxokoa baita, hala nola ez aipatutako 413.a, 4.ekoa baita. Larramendik ezagutu zatian, ostera, badugu hautagai bat (Lakarra 1996a: 38, 17. oh. eta 41): *Hurrûngo ynsaurra burua laso, jarrequinezequida erricoa laso*, "El nogal de lexos como la cabeça, mas no la alle como la de la patria" (344), nondik *jarrequin* ere hartu zuen.

501.LAURENBAT: "Sábado, *laurembata*" 589.

RS-tik (Mitxelena 1970: 122): *Eguzqui baco laurê batic ez*, "No ay sábado..." (159).

502.LAUZATU: "Texado, *lauzatua*" 634.

RS-tik (Mitxelena 1970: 127): *Andra urenac esea lauçatu guino daroa betatu*, "...hasta el tejado" (210).

503.LAXO: "Libertad, *escudencia, lachoa*" 370.

Harrietengandik, sarrerakidea bezala (Lakarra 1991: 251): "libre, *lachoa*", "il est en liberté, *lachoan da*" (FE 379). Mitxelenak (1970: 99) jadanik azpimarratu zuen bai Axularrengan, bai ekialdeko beste testuetan (Harrietenean ere bai, noski), *laxo* izenondoa dela. HH-an era honetara jasoa zuen: "floxox, perezoso".

504.LEGAR: "Arena, *sablea, legarra*" 59.

Axularrengandik, sarrerakidea bezala eta leku beretik, nahiz Larramendik gaizki ulertu zuen, biak esanahikidetzat hartuaz (Mitxelena 1970: 61): *Badu itsasoac bere chedea, bere marra, bere mugarria eta cedarri iaquina, cein baita costa, eta costago* [sic] *sablea, harea eta legarra*, "arenam" (GGero 113). Bada pare bat agerraldi gehiago (biak 425. or.), baina ez dute Larramendiren hutsa azaltzeko balio. Aurreko irakurketan ere interpretapen bera egin bide zuen, HH-an ere "arena" baitakar.

505.LEGEZ: "Como, *laso, leguez, bezala*" 152.

RS-tik, *laso* bezala (Mitxelena 1970: 74). Hiru errefracutan agertzen da,⁸⁵ 127, 195 eta 454.ean, baina lehena eta azkena 1. eta 4. koadernotxoetakoak izanik, aukera bakarra geratzen zaigu (Lakarra 1996a: 52): *Nesquea açidinleguez, quirrua yrundinleguez* (195). HH-an ere.

506.LEJAR: "Fresno, *lejarra*" 285.

RS-en zati galdukoa izan daiteke, beste euskalkietan *leizar* edo *lizar* baitago, bizkaierazko *lexar*-en ordeztzat (Mitxelena 1970: 90; ik. orain OEH, s.v. 1 *lizar*).

507.?LEKA: "Carta, *lequea, buthuna*" 122.

Iturri ezezagunekoa; beharbada *leka* "vaina de legumbres"-ekin lotua (Mitxelena 1970: 70). Iradokizun hau ontzat emanaz gero, iturria mendebaldekoa izan zela onartu behar dugu.

508.LEKEDA: "Cola de encolar, *lequeda*" 142.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 73): *elccarri lotceco, cola, visca eta lequeda* (GGero 397).

509.LEKEDATU: "Encolar, *lequedatu*" 234.

Nahiz etorki ezezagunekotzat jo izan den (Mitxelena 1970: 84 eta Lakarra 1993: 230), nabarmena da Larramendik *lekeda*-tik eratorritakoa dela.

510.LENKATU: "Preferir, *lencatu*" 533.

Harrietengandik (Lakarra 1991: 240): "préferer, *lehencatcea*" (FE 407).

511.LENKUNTZA: "Preferencia, *lencuntza*" 532.

Harrietengandik : (Lakarra 1991: 240): "préference, *lehenqunça* <loh->" (FE 407); hutsa zuzentzeko, *lehencatcea* "préferer" sarreraren laguntza izan zuen (ik. gorago *lencatu*).

⁸⁵ Mitxelenak bat aipatzen du, eta Soto-Mitxelenak (1978-79, 67) hori ez baina beste bi dakartza.

512.LEOTZ: "Calabozo, *leotza*" 111.

Iturri erabat ezezagunekoa (Mitxelena 1970: 69). Cf. *HH*-an *lecotza* "calabozo" (*OEH*-ak s.v. *leotz* zuhurki honekin lotua), dudarik gabe *leku* + *otz*: Larramendiren hitz berria ote?

513.LEPOKO: "Corbata, *lepocoa*" 164.

Landuccirengandik (Mitxelena 1970: 75): "beça [sic, *beca*-ren orde] ⁸⁶ para el cuello, *lepocoa*" (240v). Esanahi aldaketa, ezohikoa, *beca* zaharkituta zegoelako (cf. *DAut* s.v.) gertatu da. Esanahi ezberdineko beste agerraldi bat dago: "pescoçada" (303v).

514.LERDENDU: "Adelgazar, *lerdendu*" 17.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 56): *Halaber saindu harc berac, iccussiric, ecen nescato bat, copetaren edertceco, cherloac goiti thiraturic, penatcen cela: eta guerriaren ere lerdentceco, bortizqui hersten cela...* (*GGero* 518 [*Gero* 516]).

515.LETRAIA: "Silaba, *letraya*" 608.

Harrietengandik (Lakarra 1991, 245): "sillabe, *letraia*" (*FE* 430).

516.LEUSINDU: "Alagar, *leusindu*" 27.

RS-tik (Mitxelena 1970: 57): *Laztana ta apea? Leusindu ta caltea?*, "Beso y abraso [sic]? alago y daño?" (205)⁸⁷ eta *Leusindu buztanaz, ta esugui hahoaz*, "Alagar con la cola..." (372). Ez da alferrik esango aditz gisako itzulpenaz batera *esugui* ere 372.etik hartu zuela.

517.LIÑIA: "Lienzo, *liñia*" 373.

Harrietengandik (Lakarra 1991: 227): "*liñia*, linge" (*EF* 311).

518.LIPAR: "Momento, *liparra*" 368.

Harrietengandik (Lakarra 1991: 227): "instant, *liparra*", "un instant, *lipar bat*", "dans un instant, *lipar baten buruan*" (*FE* 375). Benetako iturria Lakarrak aipatuetatik kanpo dago: "suposons pour un moment, *dugun utz lipar baten, baliz beçala*" (*FE* 429). *HH*-an "instante".

519.LISKO: "Abundoso, *liscoa*" 7.

Iturri ezezagunekoa, Azkueren berri gehienak azken finean *Erans*-etik baitatuz (Mitxelena 1970: 54). Orain *lisko* (AN-5vill, L-ain, B) eta *lisku* (G, AN) "brote, renuevo, vástago"-rekin lot dezakegu (ik. *OEH*, s.v. 2 *lisko*): kategoria aldaketa ote da, ala Larramendiren ulerpen txarra?

520.LLOBAIDE: "Primo, *llobaidea*" 539.

Landuccirengandik (Mitxelena 1970: 117): "primo, *llobaydea*" (307r).

521.LOKA IBILI: "Menearse, *loca ibilli, higitu*" 413.

RS-tik (Mitxelena 1970: 103): *Loca jabilt aguina, ta gogoa dot arina*, "Temblante me anda..." (398).

⁸⁶ Zuzenketa Landucciren eredia den Nebrixaren hiztegiari esker egin ahal izan dut.

⁸⁷ Mitxelenak (eta Lakarrak hari jarraiki) 295 dakar, oharkabeko hutsaz.

522.LUKI: "Raposo, *luquia*" 563.

RS-tik (Mitxelena 1970: 119). Badira bi agerraldi (RS 64 eta 437) ezagutzen dugun zatian, biak "raposo" itzulpenarekin, baina biak 1. eta 4. koadernotxokoak izaki (Lakarra 1996a: 39), beharbada ezagutzen ez dugun zatian *lukia* berriz azaltzen zen, animaliei eta, zehazkiago, *lukia*-ri buruzko errefracuen usua ezagututa.

523.LUPARIA: "Atolladero, *luparia*" 74.

RS-tik (Mitxelena 1970: 64): *Edoceyn cidorrec dau luparia*, "Cada qual sendero tiene atolladero" (367), nondik *zidor* ere hartu zuen.

524.MAHATS ONDAR MONDARRAC: "Racimos que quedan, hecha la vendimia, *mahats*⁸⁸ *ondar mondarrac*" 561.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 119): *ceren ni eguin naiz vdaren finean, bertceren bil ondoan mahats hondar-mondarren, bilha dabillana beçala*, "racemos vindimiae" (GGero 173).

525.MAGITA: "Mexilla, *maguita*, *mocaldea*" 420.

Iturri erabat ezezagunekoa (Mitxelena 1970: 104).

526.MAKER: "Contrahecho, *maquerra*" 162.

RS-tik (Mitxelena 1970: 75): *Eyquec senar maquerra, ta ac aucaque andera*, "Harás marido contrahecho..." (290).

527.MALDA: "Abrigo, *malda*" 5.

Harrietengandik (Lakarra 1991: 230): "abri, *leiorra, malda*" (FE 324), "à l'abri, *maldan, estalgunan, atherian*" (ib. 325).

528.MALKAR: "Duro, áspero, *malcarra*" 221.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 82): *Ceren ezta bide bat baicen, eta bat hura ere, guztia da mehar, malccar, buruz gora, haraguiaren contra, eta desgogara* (GGero 477 [Gero 475]). HH-an izen balioaz: "falda" eta "falda de monte".

529.MALKOR: "Precipicio, despeñadero, *malcorra*" 529.

Axularrengandik, nahiz izenondoa den (Mitxelena 1970: 116): *Bertce guztiaç dira bidexcac, bide chidorrac, hertsiaç, meharrac, malccorrac, eta perilez betheac* (GGero 216). HH-an benetako adieran (eta cf. gorago *malkar* ere): "áspero".

530.MALKORTU: "Precipitar, despeñar, *malcortu*" 530.

Axularrengandik hartu bide zuen *malkor*-tik Larramendik eratorria (Lakarra 1993: 236). Cf. HH: "(hazerse) áspero".

⁸⁸ Jat. *mahats*,.

531. *MAMEANA [maemana]: "Inexcusable, *mameana*" 337.

RS-tik, gaizki irakurri eta ulertua (Mitxelena 1970: 95): *Maemana daqui emayten*, "Lo q[ue] no se le excusa de dar sabe dar" (307).

532. MANAIAKOR: "Manejable, *manucorra*, *manaiacorra*" 394.

Axularrek *manaiucor* dakar (Mitxelena 1970: 101): *gaztea çalhui, eta manaiucor beçain, da çaharra gogor eta çurrun* (GGero 181). Lakarrak laburpenean (1993: 234) iturri ezezaguneko zat markatu arren, iturria Axular da: pasarte beretik *zalhui* eta *zurrun* hartu zituen, zeinarengatik ziur baikaude esaldi horretan begiak bereziki ipini zituela, eta *manaiucor* > *manaiacor* aldaketaren antzeko gehiago daude *Erans*-ean. Cf. *HH manaiatu* "manejar".

533.MANTENATU: "Mantenerse, *mantenatu*" 397.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 102). Mitxelenak iragarri bezala, hainbat dira agerraldiak; alabaina, batzuk alde batera utz daitezke, *mantenatu*-ren erabilera iragankorraren lekuko baitira (cf. *AxH*); itzulpena eragin zezaketenak honako hauek dira: *çuhaitzac* [...] *bere azpico lurraren goçoa eta guicentasuna, bere gana, bere erroez thiratz eta edosquiz, hazten, handitcen eta mantenatcen baitira* (GGero 24), [*chinhuriac*] *eragusten* [sic] *dio bat bederari, nola eta cer moldez beharduen mantenatu, gouernatu eta alferqueria guztiac vtciric, bere denboran travaillatu* (ib. 37) eta *Bada erraiten duenic, eta egia: haurretic poçoin iaten vsatcen dena, azquenean poçoiñez haz ditequeyela, eta mantena* (ib. 92).

534.MANUKOR: "Manejable, *manucorra*, *manaiacorra*" 394.

Axularrengandik (Mitxelena 1974: 388)⁸⁹: *Maiz biluzten, eta erabiltcen den ezpata, prest da, manucor da* (GGero 542 [Gero 540]).

535.MANUKORTU: "Manualizar, *manucortu*" 395.

Axularrengandik, zehaztasunik gabe itzulia (Mitxelena 1970: 101) *Ceren behin handituz guero, eztitutçu, hobequiago, manucortuco, escuperaco, eta ez plegatuco* (GGero 88). Lakarrak laburpenean (1993: 234) iturri ezezaguneko zat jo arren, bestetan bezala itzulpen txar baten aurrean gaude. Pasarteak berehala iradoki lezake *manukor*-erako "manejable" itzulpena, baldin Larramendik bezala *manukortu* 'manukor bihurtu' ulertzen badugu. Alabaina, horren aditza gaztelaniaz zein da? Larramendik eskaintzen duena, *manualizar*, ez dator *DAut*-en, ez eta *HH*-an ere; dena dela, *manual* eta *manejable* adiera batean bederen esanahikideak ziren: "manual, manejable, *escugarria*. Lat. *Manualis, tractabilis*"; hitz berri bat egitekotan, balirudike "manejabilizar" baino "manualizar" errazago irten zitzaiola Larramendiri.

536.MARADIKATU: "Maldecir, *maradicatu*" 388.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 101). Adibide bat baino gehiago dago (cf. *AxH*), baina berorrek eskainia hobetsi dut, *maradizino* ere azal baitezake: *Ceren bataz, berceac bertce direla, handic iccasten dute vmec ere maradicino egosten eta burho eguiten: eta berriz bertcea, ceren burhasoen maradicioneac anhitz etan heltcen çaitze vmey, eta guelditcen dira maradicatuac, Noeren ilhoba Chanaan maradicatua, guelditu cen beçala* (GGero 258).

⁸⁹ Lakarrak (1993: 234) ez du Mitxelenaren eransketa kontuan hartu.

537.MARADIZINO: "Maldición, *maradicino*" 389.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 101). Adibide bat baino gehiago dago (cf. AxH), baina s.v. *maradikatu* dagoke egokiena.

538.MARDUL: "Gordo, grassiento, *mardula*" 297.

Etorki ezezagunekoa, mendebaldekoa. Mitxelenak berak (1970: 91) iradoki zuen Larramendik entzuna izan zitekeela. Cf. HH "gordo, con una gordura dulce".

539.MARKETS: "Fea cosa, *ezaya, marquetsa*" 273.

Axularrengandik, gaizki itzulia (Mitxelena 1970: 89): *Baina itsusiac, marquetsac, behar du anhitz estalqui, anhitz verniçadura eta appaindura* "deformia corpora" (GGero 513). Itzulpena *itsusi*-k eragin du.

540.MARRANTATU: "Enronquecer, *marrantatu, erlastu*" 242.

Axularrengandik, sarrerakidea bezala eta leku beretik (Mitxelena 1970: 85): *Conciencia da behin ere lohacartcen ezten cerbitçari bat, marrantatcen edo erlasten ezten predicari bat* (GGero 426). HH-an ere: "enronquecer, ponerse ronco, *marrangatu, marrantatu, erlastu*" eta "ronquear, *marrangatu, marrantatu*".

393.MARRUSKATU: "Ajar, *marruscatu*" 26. "Estregar, *ajar, marruscatu*" 264.

Mitxelenak (1970: 57) Axularrengandikotzat jo zuen, nahiz eta adierarekiko uzurtasun pittin bat agertu: *Hasuiñac significatcendu naguitasuna: baldin malguqui, leunqui, emequi, naguiqui eta balacuz beçala hazcatcen, ferecatcen eta erabiltcen baduçu, erreco çaitu: baiña ez nabasiqi eta ausartqui hersten eta marruscatcen baduçu* (Gero 41), hurrengoaren itzulpen edo emendaketa: "Urtica figurat acediam: si molliter tangis, urit; si fortiter astringis, non pungit". Lakarrak (1993: 201) Harriet proposatzen du: "froter, *marrusquatcea*" (FE 365), Erans-ean "atzizki horrekin eratuak diren aditz guztiak hartu ditu[ela] Larramendik harengandik" argudiotzat emanez; alabaina, berak lehenago ohartu bezala (1991: 242), bada salbuespen bat: *hisicatu*. Nolanahi ere dela, laburpenean (1993: 226) Harrieti egozten dio. Axularren alde honako argudio hauek ditugu: (1) Harrietengandik balitz, "frotar" itzulpena esperoko genuke; dena dela, "ajar, estregar" ez da horren esanahikide hertsia; (2) lat. *astringere*-k badu fr. *froter*-ek ez daukan "estutu" adiera; eta (3) Harrieten agerlekua ezohikoa da. HH-an beste adiera batean jasoa zuen: "desmenuzar".

394.MASKUR: "Gafo de manos, *mascurra*" 288.

Axularrengan agertzen den *mascurtu* aditzetik Larramendik erauzia (Lakarra 1993: 231).

395.MASKURTU: "Hacerse gafo, *mascurtu*" 289.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 90): *Halacoari, eta haiñari, etçaitça hain fite escuac mascurtcen, icccorcinirac [sic] eguiten* (GGero 90).

396.MASMAKI: "Racimo, *masmaquia, morcosta*" 560.

Landuccirengandik (Mitxelena 1970: 119): "razimo de vbas, *masç maquia*" (310r).

397.MATELAS: "Colchón, *cunchoiña, matelasa*" 144.

Harrietengandik, sarrerakidea bezala eta leku beretik (Lakarra 1991, 238): "matelas, *cunchoiña, matelaça*" (FE 383).

398.MATRAZU: "Virote, *matrazua*" 677.

RS-tik (Mixelena 1970: 132). Hirutan (51, 228 eta 485) agertzen da, hiruretan "birote" itzulia; alabaina, lehena eta azkena 1. eta 4. koadernotxoetakoak izanik (Lakarra 1996a: 44), aukera bakarra dugu: *Matrazu orrec hurte ezaban carcaj orretarean*, "Esse birote no salió de essa aljaba" (228).

399.MEAKA: "Hijada, *meaca*" 321.

Iturri ezezagunekoa. Mixelenak (1970: 93-94) "por la falta de *h* y por el sentido" bizkaierazkoa dela uste zuen. Bigarren argudioa ona den bitartean, badakigu <h> ezabatzen jakin zuela Larramendik. Cf. *HH* "costado", "maca".

400.MENDE: "Tiempo, *mendea*" 642.

Axularrengandik (Mixelena 1970: 128): *Nola halaber bere mendean gaizqui bici içatu dena, azquen fineâ erremedia baititeque, ohoin ona eguin cen beçala* (Gero 215). Adiera beretsuko adibideak asko dira (cf. *AxH*).

401.MENDEBAL: "Vendabal, *mendebala*"⁹⁰ 667.

Axularrengandik (Mixelena 1970: 130): *Çuhaitça norat ere erortcen baita, nahiz iguzqui haicerat edo mendebalerat: escuinerat, edo ezquerrerat, errotcen [sic] den leccucan [sic] guelditcenda...*, "ad Austrum aut ad Aquilonem" (GGero 605-606 [Gero 603-604]).

402.MENDOZA: "Otero, *mendoza*" 475. "Terrero, *mendoza*" 640.

Iturri ezezagunekoa. Mixelenak (1970: 110) Garibairen pasarte bat (*Compendio*, 1571, VII. lib., XLV. kap.) ekarri zuen erkaketara, baina hango esanahiak —"cuesta pequeña" eta "montaña fría"— ez dirudi *Erans*-ekoa azaltzeko aski direnik.

403.MENIA: "Treguas, *meniac*" 653.

RS-tik (Mixelena 1970: 129): *Butroeco meniac gayti, ez ysquilosay echi*, "Por las treguas de Butrón..." (404), nondik *isquilosac* ere hartu zuen.

404.MEN-MENEAN: "Ultimo, en lo último, apretado, *men menean*" 683.

Axularrengandik (Mixelena 1970: 133): *Orai bada orai, men menean iarri gabe, succarrac nahasi gabe, eta eritasuna iaundu gabe, eguitçatçu* (GGero 218). Beste agerraldiak (*ib.* 137) ez dio ezer eransten azalpenari, *men menera gaitecinean* baita. Cf. *HH*: *men menean* "(a más no) poder", eta batez ere *men menean jarri, men menera etorri* "llegar a los últimos lances, aprietos".

405.MESTOA (mug.): "Legumbre, *mestoa*" 363.

Landuccirengandik (Mixelena 1970: 98): "Hollejo de legumbre,⁹¹ *mestoan açala*" (281v).

406.MIAU: "Pedigüeña, *miaüa*" 501.

Axularrengandik (Mixelena 1970: 113): *Ceren amorantea, eta guztiz amorante miaüa eta escalea, huntz adarra beçala da* (GGero 360).

⁹⁰ Mixelenarenean *mendabala*, oharkabeko hutsa, ez baitu iruzkina eragiten.

⁹¹ Mixelenarenean *legumbres*.

407.MIAZTU: "Lamer, *miaztu*" 360.

Landuccirengandik (Mitxelena 1970: 98): "lamer, *miaztu*" (285v); cf. "lamedura, *miazquetea*" (*ibid.*) ere.

408.MIDIKUNTZA: "Medicamento, *midicuntza*" 408.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 102): *Ceren sentimendua galduz guero, oinhaceac hillez guero, ezta senda gai, ezta senda quiçun, eta ez midicuntçatan ibiltceaz probetchuric, "...quod est inmedicabilis aegritudo"* (Gero 425) eta *Arraçadura vrthatua, nario çahartua, çauri gaizcoatua, ezta pontu bateco midicuntçaz sendatcen* (*ib.* 93).

409.MILISTU: "Comedirse, *milistu*" 148.

Iturri ezezaguneko, agian bizkaierazkoa. Mitxelenak (1970: 74) bizk. *milika* "melindroso", "delicado", etab.ekin lot daitekeela iradoki zuen.

410.MINDEGI: "Vivero, *nintegua, mindegua*" 680.

Mitxelenak (1970: 132) Axularrengandikotzat jo zuen: *Haragui iatea, arno edatea, eta sabelaren bethatcea, guticia desordenatuen haz-leccua da, eta mindegua "seminarium"* (GGero 409). Lakarrari (1991: 237) Harrietek Axularrek "duen bezainbateko aukera" duela deritza: "pepiniere, *mindegua*" (FE 400). Aukerak aukera, laburpenean (1993: 239) Harrieti egozten dio. Lakarrak hasieran esandakoarekin bat etorriaz, Axularrenak, agerian "seminarium" itzulita, Harrietenak beste aukera du. Alabaina, zati beretik *birboratu* ere hartuak, Axularri aukera handixeagoa ematen diola esango nuke.

411.MINGRANA: "Granado, a, *mingrana*" 299.

Landucci eta Axularrengan agertzen da (Mitxelena 1970: 91). Alde batetik, italiarraren hiztegian "granado arbol, *mingranea errexala*" eta "granado fruta, *mingranea*"; bestetik: *Aaron sacerdote handiaren veztidurac, behereco bazterrean inguru, cituen Mingrana Pintatuac. Mingranac, bertce fruituec ezutena, badu coroa iduri bat* (Gero 458). Lakarrak ere biak aipatzen ditu laburpenean (1993: 232). Itzulpenak Landucciren alde egiten badu ere, hitza ez zen ezezaguna Larramendirentzat (cf. *HH* "granada", "granado, árbol"); forma, ordea, Axularren alde mintzo dela dirudi, -ea bukaera gordetzeko zeukan atxikitasuna ezagututa. Lapurtarraren pasartea, gainera, argia da.

412.MINTE: "Amargura, *mintea*" 40.

Landuccirengandik (Mitxelena 1970: 59): "amargura, *mintea*" (233r).

413.MINTZAIA: "Habla, *mintzaya*" 309.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 93): *...baiña biz çuen hitzcuntça, solhasa, eta mintçaia: ez, ez, bai, bai "sermo"* (GGero 252). Bada beste agerraldi bat: *çure mintçaian eçagun çara "loquela tua"* (*ib.* 260).

414.MOKALDE: "Mexilla, *maguita, mocaldea*" 420.

Landuccirengandik (Mitxelena 1970: 103-104): "mexilla de cara, *arpeguico mocaldea*"⁹² (293r); cf. gainera "carrilludo, *mocaldoso*" (246r) eta "papo de papudo, *mocaldosoan mocaldea*" (300v).

415.MOKETA: "Espabiladeras, *moquetac*" 249.

⁹² Mitxelenarenean *mocaldea* soilik.

Iturri ezezagunekoa, ziurrenik ekialdekoa: cf. Pouv. *mucaderac* eta *mucadac* "mouchettes" (Mitxelena 1970: 86).

416.MORKOSTA: "Racimo, *masmaquia*, *morcosta*" 560.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 119): *Ezterautate morcoxta bat ere, eta ez biccor bat, ahoan eman ahal ditequeyenit vici* (GGero 173), nondik *bikor* ere jaso baitzuen. Azpimarratu behar da bi argitalpenen irakurketa *morcoxta* dela, Mitxelenak *morcosta* badakar ere: aldaketa Larramendirena da, eta berariazkoa.

417.MORROINTASUN: "Pubertad, *morrointasuna*" 548.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 118): *hautasunaren ondoan hiltcen da, morrointasuna: morrointasunaren ondoan hiltcen da gaztetasuna* (GGero 63); pasarte beretik *sentontasun* ere jaso zuen.

418.MOTZOR: "Tronco, *motzorra*" 655.

Harrietengandik (Lakarra 1991: 228): "tronc, *motçorra*" (FE 434).

419.MURKO: "Jarro, *murcoa*" 347.

RS-tik (Mitxelena 1970: 96): *Hurtealango murcoa*, "Qual el año tal el jarro" (191). Bestean (RS 94) "cántaro" itzulita dago, Mitxelenak adierazi bezala, eta gainera 1. koadernotxokoa da (Lakarra 1996a: 42).

420.MUTHIRI: "Desvergonzada, *muthiria*" 205.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 80): *Demostenec aditu çuenean ema-muthiriaren demanda, ihardetsi cioen, ez vste beçala* (GGero 388). Femenino kutsua eransten zion *ema-* ez jaso arren, Larramendik femeninoan itzuli zuen. *HH*-an ere: "desvergonzado, dízese también *mutiria*".

421.NABARBENDU: "Descubrirse, *nabarbendu*" 198.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 79). Larramendiren itzulpena azaltzeko, liburuko bi adibideetatik, zalantzarik gabe onenak hauexek dira: *ohoinac (...) bere concientiac [sic] accusaturic, ihesi itçal gaizca abiatcendela: eta handic nabarbenduric gaizquiere heltcen dela* (GGero 432) eta *Erregue Dauitec ahalquez, eta bere buruaren ez nabarbentcea gatic, vtzen zituen eguin gabe, haren beccatuença ordenaturic ceuden sacrificioac* (GGero 528 [Gero 526]). Erka bedi beste honekin, inondik ere bestela ("notar"?) itzuliko zukeena: *Eta halatan, berac bere buruz, bere falta eçagaturic, eta hobendun <-um> cela nabarbenduric, estalgunea bilhatu çuen* (ib. 434). Mitxelenak, buruburuan, Landucciren "publicar, *publicadu, navarbêdu*" (308r) aipatu zuen, eta honexek eragin bide du Lakarrak laburpenean (1993: 230) italiarrari egoztea. Cf. *HH* "azorarse", "precipitarse".

422.NABARDURA: "Variedad de colores, *nabardura, colore picardatuac*" 664.

Axularrengandik, sarrerakidea bezala eta leku beretik (Mitxelena 1970: 130): *Mahiru [sic] herrico mairu beltçac bere larrubeltça, eta Tigre arrac ere, bere nabardurac, colore picardatuac, alda, vtz, eta mudadiçanean, "pardus varietates suas"* (GGero 93).

423.NAGUSTU: "Crece, *nagustu*" 172.

Iturri ezezagunekoa, agian bizkaierazkoa. Mitxelenak (1970: 76) *RS*-ren zati galdukoa izan daitekeela iradoki zuen, 27.ean *nagusi* "mayor" eta *andi* "grande" erkatuak agertzen direlako. Beronek Axularrek, beste adiera batean, *nabusitu* erabiltzen duela ohartu zuen. Lakarrak (1991: 243) Harrietek *nausitcea* "maïtriser" dakarrela erantsi zuen. Bizkaierazko testu batean *nagusitu* esperoko genukeela gaineratzen du, *otzitu, utsitu, atsitu, gatzitu, baltzitu,*

satsitu, etab.etan bezala. Alabaina, oker dabilelakoan nago: berak aitortzen duen bezala, ematen dituen kontraadibide guztietan txistukaria afrikatua da. Izan ere, B *itsustu* / G, etab. *itsusitu* oposaketa izango litzateke erkaketarako egokiena eta, bistan den bezala, Mitxelenaren hipotesiaren alde dator.

424.?NAREA [narrea?]: "Linage, *narea*, *bernagea*" 379.

RS-tik (Mitxelena 1970: 100): *Narea onaganic ezta gauza gassoric*, "De buen linage..." (303). Zuzenketa proposamenaren arrazoiatarako, ik. Lakarra 1996c: 322.

425.NARRAIO: "Tacha, *narraioa*, *narrioa*" 629.

Harrietengandik (Lakarra 1991: 224): "tâche, *notha*, *narraioa*" (FE 430). Mitxelenak (1970: 127) iratxo bat zela uste bazuen ere, Harrieten beste lekukotasunek sendotua dugu: "incommodé, *narraiotua*", "incommoder, *narraiotcea*", "incommodité, *narraiotassuna*" (FE 374).

426.NARRIO: "Mancha, *orbana*, *notha*, *narrioa*" 392. "Tacha, *narraioa*, *narrioa*" 629.

Axularrengandik, *notha* bezala (Mitxelena 1970: 101): *Arraçadura vrthatua, narrio çahartua, çauri gaizcoatua, ezta pontu bateco midicuntçaz sendatcen* (Gero 93). Beste zazpi agerraldi gehiago ere badira: ik. *ib.* 182, 426, 430, 442 eta 465, eta bereziki 440b (s.v. *notha* aipatua) agian *Erans* 392ko bi hitzen iturria. Lakarrak (1991: 247) erakutsi bezala, *Erans* 629ko *narraioa* Harrieten sarrera batetik hartua da; ez genuke zeharo alde batera utzi behar, agian, fr. *tâche*-k iradokitako itzulpenaren azpian *narrioa* ere jasoa *narraioa*-rekin daukan begibistako antzekotasunarengatik, hain zuzen, nahiz eta Axularrengan egon badauden itzulpen hori eragiteko gai diren adibideak (cf. *GGero* 182, adib.). Cf. *HH* "achagues", "bascas".

427.NARRITAMENDU: "Impugnación, *narritamendua*" 334.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 95): *...baina beccatuaren accometamendua, naritamendua [sic], eta tentamendua, batean behar da ihez eguinez, eta apartatuz garaitu*, "impugnatio peccati" (*GGero* 401). Bada beste adibide bat: *Gauça ona da coleraren lehenbico narritamenduari, muguidari eta abiadurari beguiaren eduquitcea...*, "primum irritamentum irae" (*ib.* 271). Latinezko itzulpenek erakusten digute Mitxelenaren hautaketa onena dela, errata gorabehera.

428.NARRITATU: "Provocar, *narritatu*" 546.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 117): *etçaitu handic aicina hanbatetan tentatcen, eta ez beccatu eguitera narritatcen* (*GGero* 538). Bada beste agerraldi bat: *Çurari pipia, oihelari [sic] cerrena, vrdaieri cedena, eta haraguiari harra beçala, gau eta egun alha çaicuna; tentatcen, eta narritatcen gaituena, gueure ganic ecin egotz deçaqueguna* (*ib.* 340). Eta, itxuraz behintzat, honelatsu ulertu ahalko da *HH*-ko honako sarrera hau: "incitar, *narritzatu*, *accullatu*, *sucarritu*", nondik *narritza* "incitamento" eta *narritzarria* [sic] "incitador" atera bide zituen.

429.*NAUKERA [maukera]: "Porfía, *nauquera*" 526.

Iturri ezezagunekoa. Mitxelenak (1970: 116) *nauquera*-rekin daukan antzekotasuna azpimarratzen du; hitz hau Isastiren errefrau batean (*R/Is* 11) eta *HH*-ko sarrera batean ("elección, y aquí el refrán...") agertzen den *auqueraren nauquera* esapidearen bigarren zatia baino ez da, Mitxelenak ohartu bezala beregain ez dena. Litekeena da errefrau *RS*-en zati galduan ere jasoa izatea, hutsa (cf. *nintegi*) eta itzulpena zuri lezakeen moduan.

430.NEITU: "Acabarse, *asacatu*, *neitu*" 8.

Harrietengandik (Lakarra 1991: 233): "achever, *neitcea*, *akhabatcea*" (FE 325).

431.NIGAR PURPUILA: "Lágrima, *nigar purpuilla*" 358.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 98): *anhitz nigar purpuilla isuri çuen* (GGero 439).

432.*NINTEGI [mintegi]: "Vivero, *ninteguia, mindeguia*" 680.

RS-tik (Mitxelena 1970: 132): *Deungen ninteguia macur, ta galçera azecoaz aurrera*, "El bibero del peruerso..." (207). RS-ko hutsa da (Lakarra 1996c: 300).

433.NOHARROIN: "Mendigo, *errumesa, noharroina*" 414.

Axularrengandik, sarrerakidea bezala eta leku beretik (Mitxelena 1970: 103): *eta halaric ere bethi dira errumez, noharroin, eta on-behar*, "et semper sunt in egestate" (GGero 232). HH-an ere.

434.NORTU: "Gastarse, *nortu*" 294.

Iturri erabat ezezaguneko (Mitxelena 1970: 91).

435.NOTHA: "Mancha, *orbana, notha, narrioa*" 392.

Axularrengandik, *narrioa* bezala (Mitxelena 1970: 101): *Badaquigu parabisuraco denac, ez tuela behar beccaturic, eta ez beccaturen notharic, eta ez cimurduratic*, "non habentem maculam aut rugam" (GGero 193). Bada agerraldi gehiago; bi hitzak elkarrekin hurrengo honetan agertzen dira: *...behar dugu egun beretic, gueroco beguira egon gabe, gueure concientciatic, cer ere notha, falta, eta narrio baitugu khentcera enseiatu* (ib. 440 [Gero 440^a]); eta cf. *Beccatua, eta beccatuaren culpa, hobena, eta notha guelditcen da seculacotz* (ib. 614 [Gero 612]) eta *Ordea guelditcen den seinalea, marca, notha, culpa, çorra eta obligacinoa, seculacotz guelditcen da* (ib. 615 [Gero 613]). Alabaina, benetan hitza ezagutzen ez bazuen (HH-an bederen ez da agertzen), balirudike adibide hauetan "culpa" edo "falta" itzul zezakeela, ez "mancha", eta horregatik Mitxelenak hautatua hautatuko nuke nik ere, "macula" itzulpena aldean baitu. Halaber, Harrieten lekukotasuna ("tâche, *notha, narraioa*" FE 430) alde batera utzi behar da, hau iturria izatera, "tacha" sarrerapean (*narraioa* bera bezala) agertzea esperoko baikenuke.

436.ÑAFLATU: "Comer con gusto, *ñaflatzea*" 150.

Harrietengandik (Lakarra 1991: 238): "manger avec goût, *ñaflatcea*" (FE 382).

437.OANTZE: "Nido, *oántzea, cafia*. Y el refrán, *fin gaitz eguiñen duc choria, baldin gaztedanic ezpadaquic cafia*" 446.

Harrietengandik (Lakarra 1991: 235): "nid, *ohancea*" (FE 389) eta "*ohancea, nid*" (EF 315).

438.OBEKUNTZA: "Mejoras, *obecuntzac*" 409.

Harrietengandik (Lakarra 1991: 242): "meliorations, *hobequñçac*" (FE 384).

439.HOBENDURI: "Culpado, *hobenduria*" 179.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 77): *Presuna hobenduria, faltatsua, ezta behin ere segur*, "Numquam securus est reus animus" (GGero 435) eta *Bertce guztiac complitu agatic, batetan behaztopatcen bada, guztietan eguitenda hobenduri* "factus est omnium reus" (ib. 477 [Gero 475]). Bada adibide gehiago (ik. 123, 140 eta 295), baina Mitxelenak eskainiak bereziki onak dira, besteak ez bezala itzulpena aldean dutelako.

440.OBUA (mug.): "Fiel, equilibrio, *obua*" 276. "Justo, al justo, *obuan*" 351.

RS-en zati galdukoa izan daiteke (Mitxelena 1970: 89). Arrazoiak: msOch-en egilearen hitzarekiko familiaritasuna, eta Azkuek eskaini —eta metaforikoki erlazioa izan behar duen— *obo* "argolla", "círculo de hierro puesto en el yugo, al cual se adhiere la cadena" hitza, bizkaieraz bakarrik jasoa. Aipa zezakeen, halaber, Azkueren *obo*en "1º (B-g), circularmente. 2º (B-a-beg-o-tx), a penas, trabajosamente. *Oboen dabil*, anda muy trabajosamente. *Oboen-obo*en (B,...) balanceándose, andar a duras penas". Nire ustez, *obuan* dateke iturriko forma eta *obua*, berriz, Larramendik erauzitakoa.

441.OGEN: "Engaño, *ogena*" 237.

RS-tik (Mitxelena 1970: 84): *Naztauenac ogenic, yñez begui guextoa ganic*, "Quien no quiere engaño,..." (243). Berak ohartarazi bezala, hitza hainbatetan agertzen da, baina aipatutakoan bakarrik gertatzen da Larramendik jasotako itzulpena, bai eta grafia ere: <ogena>, gainerakoen <oguen>-ren ordeaz.

442.OILAKA: "Putá, *ollaquea, guizacoya*" 554.

Iturri ezezagunekoak. Mitxelenak (1970: 118) Pouvreuren "*Oillaca. Or oillaca*, leurette, felderaca" sarrera aipatu arren, grafiaz (<ll> eta ez <il(l)>) eta bukaeraz (-ea) bizkaierazko etorki baten alde egin zuen. Alabaina, orain badakigu grafia aintzat hartu ezin daitekeen argudioa dela.

591. OILERA: "Alcuza, *ollerea*" 30.

Landuccirengandik (Mitxelena 1970: 58): "alcuza o azeitera, *ollerea*" (231r).

592. OINATU: "Cansar, *oñatu*" 118.

RS-tik (Mitxelena 1970: 69): *Dagoana belaunean oñatu, dabilena sabelean obatu*, "El que está, cansa en la rodilla..." (365).

593. OIN-HATZ: "Pisada, vestigio, *oin-hatza*" 516.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 114): *eta anhitz ibiltcenda bide hartan, eta bai athean ere sartcen: bada han oin-hatça franco, eta ez compainia escasic* (GGero 481 [Gero 479]). Cf. *oñaça* "pisada" (RS 418), baina formaz gainera errefraua 4. koadernotxokoa da. Cf. *HH oñatza* "huella".

594. OINON EGIN: "Gruñir, *oñon eguin*" 301.

RS-tik (Mitxelena 1970: 91): *Ydiac oñon bidean gurdia*, "En lugar de gruñir los bueyes..." (305). Beste bi agerraldi ere baditu, baina batean "porfia" (19) eta bestean "hablando" (179) itzulita dago, lehena 1. koadernotxokoa izateaz gain (Lakarra 1996a: 41).

595. OINZOLA: "Planta del pie, *oinzola*" 518.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 114-115): *sinhetz araci nahidu (...)* *iccatz bicien gainean orthusic, oinçolac erre gabe, ibil dite queyela* (GGero 397), nondik *icazbizi* ere hartu baitzuen. *HH*-an ere: "planta, de el pie, *oñazpia, oinzola, oinchaba*".

596. OITZA: "Uso, *oitza*" 686.

Harrietengandik (Lakarra 1991: 229): "usage, *ohitça, haztura, usaia*" (FE 439).

597. OIUTU: "Rogar, *otu, oyutu*" 585.

Ziurrenik *otu*-ren Larramendiren interpretapen etimologikoa (Mitxelena 1970: 122).

598. OKELA: "Vianda, *gondura, oquelia*" 673.

Mitxelenaren (1970: 131) eta Lakarraren (1996a: 53) ustez, *RS*-tik hartutakoa da; alabaina, biak 1970eko argitalpenarekin jokatzeko ari dira, eta han *oqulea* transkribatu zen;⁹³ honek *RS* 176 zein 468rekin erkatzeko bidea eskaintzen zien, bietan *oqulea* baitator. Lakarrak (1996a: 44 eta 24. oh.), transkribapen hutsaz ohartuta, bereari eusten dio, halaz ere, "litekeena da forma hau Larramendiren hutsa izatea" esanez; bere ustez, beraz, iturria *RS* 176 genuke, bestea 4. koadernotxokoa baita. Haatik, formaz ezeze itzulpenaz ere ez datoz bat *Erans*-eko eta *RS*-ko lekukotasunak (*RS*-n beti "tajada"). Bi ezaugarriok batera ustezko iturriaren kontra doazenean, halaz ere ezinbestean hura iturritzat proposatzea zein arriskutsua den erakusten digun hitza da, jatorri zuzena Harriet baita: "viande, *okhelia, haraguia*" (*FE* 436).

599. OLDARTU: "Acometer, *oldartu*" 14.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 55): *Aztorea escuan daducaçunean, higitcen da, iharrostenda, hegaldatcera appoderatcen eta oldartcen da* (*GGero* 46). Badira hiru adibide gehiago: *Otsoac dembora gaitça, vritsua, eta igorciritsua, artaldeari oldartceco [desiratcen du]* (*ib.* 283-284), *Anhitcetän hazteintu osoki oilloac bere chito guztiac, mirua oldartu gabez* (*Gero* 350) eta *Baiña demandatuz guero, oldartuz guero, bulkhatuz guero, (...) peril da baldin choil gogor ezpada, bera dadin* (*ibid.*). *Erans*-eko itzulpena hobekienik 283-284 eta 350ko adibideei dagokie. *HH*-an ere: "arrojarse al riesgo", "derrumbar" eta "precipitar".

600. OLDOZKERA: "Descuido, *oldozquera*" 197. "Pensar, *oldoztu*. Sin pensar, *oldozqueran*" 508.

RS-ren zati galdukoa izan daiteke (Mitxelena 1970: 79). Hipotesia sendoagoa izango litzateke, berak — Boudari jarraiki— proposatu bezala (1978: 363-366) *oldoztu* "pensar"-tik *oldozqueran* "sin pensar"-a daraman ezeztapena *-ka* atzizkia balitz. Arazoa hain iluna, eta nire aitzindaria hain argia izanik, ziurrenik hobe nuke isilik egon, baina ezin esan gabe utzi *-(k)era* atzizkia aditzoinari⁹⁴ eransten zaiola, formalki hemen ikusten dugun bezala: *oldoz + -kera*. Tartean *-ka* egon daitekeela, eta beraz atzizkia izenondo bati erantsi zitzaioa siniskaitza iruditzen zait. Ik. *oldoztu* argudio gehiagotarako.

601. OLDOZTU: "Pensar, *oldoztu*. Sin pensar, *oldozqueran*" 508.

RS-ren zati galdukoa izan daiteke (Mitxelena 1970: 79). Nire iritziz, *oldozkera* iturrian dagokeen *oldozqueran*-dik Larramendik erauzitakoa da inolako zalantzarik gabe; *Erans* 508, berriz, oso errazki lehenik eta behin *oldozqueran* jasotzeko egina izan daiteke, eta hasierako "pensar, *oldoztu*" ere bide horretatik lortua, kontraesanaz ohartu gabe.

602. OLTZA: "Pared, *armora, oltza*" 488.

Landuccirengandik (Mitxelena 1970: 111-112): "pared, *olça*" (301r). *HH*-an ere, errefrau batean: "*Oltzac beguiac, sasiac belarriac*. Refrán que enseña el gran tiento en el hablar aun a solas y en secreto; porque, como dicen, las paredes oyen: literalmente significa, que el aparador tiene ojos, y el zarzal oídos" (s.v. *aparador*), Mitxelenak jadanik ohartu bezala; cf. gainera (s.v. *pared*): "Las paredes tienen ojos, las paredes oyen, *beguira; oltzac beguiac, sasiac belarriac*".

603. ONARTU: "Aceptar, *onartzea*" 12.

⁹³ msOch-ek, Mitxelenak bertan aipatua, bazekarren irakurketa zuzena: "*oquelia*, lee *oqulea*...".

⁹⁴ Eta batzuetan izenari: cf. Azkue 1923-25: §§ 116A eta 118B.

Harrietengandik (Lakarra 1991: 225):⁹⁵ "*acceptatcea, on harcea, accepter*" (EF 268) eta "*accepter, topatcea, onharcea*" (FE 325).

604. ONBEAR: "Miserable, desdichado, *ombearra*" 422. "Necessitado, *ombearra, beartua*" 440.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 104): *Eta halaric ere bethi dira errumez, noharroin, eta on-behar* (Gero 232). Adibidea oso ona da, bertatik *errumesa* eta *noharroina* hartu baititu; halaz ere, orotara beste hamasei adibide dauzka (*ib.* 44, 224, 250, 282, 385, 507, 579, 590, 595, etab.). Demagun *Erans* 440erako aipatu adibidea edo antzeko bat erabili duela; *Erans* 422rako, nahiz beste batzuk ere egoki diren, honako hau hautatu dut: *Orduan cinez cinateque on-behar, ondicozco eta urricalquizun* (*ib.* 590), nondik agian *ondicozco* ere hartu zuen.

605. ONDIKO: "Infelicidad, *ondicoa*" 339.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 96): *Çuri [guztiec] bere arrencurac, eguitecoac coaitac, eta ondicoac conta* (Gero 5). Badira hiru agerraldi gehiago: *Erran behar da handia dela ifermuan daudenec duten miseria, eta ondicoa, orai guc hemen gutien nahi dugun gauza, zein baita heriotcea, hec han hura gehienic bilhatcen, eta desiratcen dutenean* (*ib.* 593), *Cer pena, cer dolore, eta ondico izanen da, arguituco ezten gau hartan, (...) suguina gogorrean seculacotzat etzatea, eta egoitea?* (*ib.* 599) eta *hasico dira bere ondico handiaren deithoratcen eta auhentcen* (*ib.* 607). Nago hiru berri hauek hautagai hobeak direla, singularrak bakarrik azal baitezake "infelicidad" itzulpena. *HH*-an ere: "calamidad", "castigo, pena", "desgracia".

606. ONDIKOZKO: "Infeliz,⁹⁶ *ondicozcoa*" 340.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 96): *Ceren badira iende batçuc hain occasinotsuac, arrunquide gaitzac, batcari ondicozcoac, eta incontru gaixtotacoac...* (GGero 326). Badira hiru agerraldi gehiago: *Halacoac [probe-eriac] dira alde guztiz on behar, ondicozco, eta vrricalquiçun* (*ib.* 231), *Orduan cinez cinateque on-behar, ondicozco, eta vrricalquiçun* (*ib.* 592 [Gero 590]) eta *Nahi baduçu iaquin cer den su fin gabecoa, accabatuco eztena, frogatcen duten ondicozcoec daquite, eta ez bertcec* (*ib.* 604 [Gero 602]).

607. ONERETSI: "Amante, *oneretsia*" 39.

RS-tik (Mitxelena 1970: 59): *Onerechien beguietan, gauça ezayric eztan* [sic], "En los ojos del amante..." (242).

608. ON(T)SATU: "Acomodar, *onsatu*" 15. "Componer, *ontsatu*" 153.

Harrietengandik (Lakarra 1991: 230): "*accomoder, onsatcea*" (FE 325). Erants bekio "*préparer, antolatcea, onsatcea*" (*ib.* 408).

609. OPARIN: "Necessidad, *oparina*" 439.

RS-tik (Mitxelena 1970: 105). Bitan (75 eta 244) agertzen da, baina lehena 1. koadernotxokoa izanik, nahitaez bigarrenetik hartua behar du: *Onçoriçat neuca, baya oparinac eroa eusta, "...mas lleuomelo la necesidad"* (244).

610. OPE: "Abril, *opea*" 6.

⁹⁵ Laburpenean (1993: 226) "Cf. H" dio, oharkabeen agian, ziurtasunez "H" jarri behar zuen tokian.

⁹⁶ Jat. *lefeliz*.

RS-tik (Mitxelena 1970: 54): *Opeco erlea eneçat, Mayacecoa anajeençat*, "Enjambe de abril..." (266).

611. OPIL: "Bollo, *opilla*" 103.

Mitxelenak (1970: 67) Landuccirengandikotzat jo zuen: "bollo de pan, *ogui opila*" (242r). Lakarrak (1991: 245), berriz, "hori bezain ongi, eta agian errazkiago, cf. *-l-a*, har zezakeen Larramendik Harrietengandik" baieztatzen du: "masse, *meta, opilla*", "la masse de sang, *odol opilla*" (FE 383). Laburpenean (1993: 228), Harrieten alde erabakitzen du. Beranduago (1996a: 34) ereduko erdara bere hipotesiaren kontra doala aitortzen du, alegia, Harrieten "masse"-tik "masa" esperoko genukeela, eta ez "bollo". Pare bat xehetasun Landucciren alde: (1) <illB> : <illB> aldaketa ez da ezinezkoa, bigarrena Larramendiren sisteman ohikoena baita: ez da, beraz, Harrieten alde egiteko nahikoa; (2) Harrieten alde ez egiteko, kontua ez da "*masa / bollo" bakarrik, baizik eta nolatan etor zekioken Larramendiri "bollo" itzulpena burura, *odol opila* ikusi ondoren. Cf. HH-an: "alpistoleta, torta de huevos, harina y ajonjolí, *arraultz irin taloa, opillá*", "bodigo, *olatá, opea, opillá*" eta "bollo, bollito, panecillo (...). *Bolloa, opechoa, opilchoa*".

612. ORAIN BEREON: "Aora luego, *orain bereon*" 53.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 61): *Eta orai bereon, presenteon hastennaiz* (GGero 53). Bada bigarren agerraldi bat: *...hargatic bera gatic ere behar guenduque, lehen baino lehen, guerotic guerora ibili gabe, egunetic biharrera luçatu gabe, orai bereon, conciencia onaren, ontasan handi hunen erdiestera enseiatu* (ib. 455 [Gero 453]).

613. ORAPIN: "Nudo, *orapina*" 457.

Landuccirengandik (Mitxelena 1970: 107-108): "ñudo, *orapina*", "ñudosa cosa, *gauça orapinez betea*" eta "ñudo hazer, *orapin eguin*" (297r). Cf. *saltorapina*.

614. ORATU: "Agarrar, *oratu*" 21.

RS-tik (Mitxelena 1970: 56). Hirutan agertzen da: *Ostenduco zara, ta aldi ygaroa oraetan gajta*, "...es difícil de trabar" (144), *Egaz manequi, ora nequiqueo choriari*, "...trabaría el paxaro" (230) eta *Guenac sagua asçaçen, ta eullia oraçen*, "...y a la mosca apaña" (298). Lakarrak (1996a: 51), beharbada oharkabeen, RS 144 bakarrik aipatzen du, baina hauxe da gaitzena, Larramendik halakoetatik partizipioa berregiteko izaten zituen zailtasunak ezaguturik.

615. ORBAN: "Mancha, *orbana, notha, narrioa*" 392.

RS-tik (Mitxelena 1970: 101): *Yndac micabat orban бага, diada nesquea gajpaga*, "Dame una picaza sin mancha..." (174), nondik *diada* ere hartu zuen.

616. *ORKA [orz]: "Mella, *croscá, orca*" 411.

RS-tik: *Mayaçean berarra / luceda eta sendo / eguitayereu orcac* [sic, *orçac*-en ordez] *ebagui leydi ondo*, "...las mellas de la oz / podrían la bien cortar" (268). Mitxelenak (1970: 103) *ozca*-ren ordezko hutsa izan zitekeela uste zuen. Lakarrak (1993: 234) "LE" ("behabada Larramendik eratua") markaz dakar; RS-ren argitalpenean (1996c: 314) ez da hutsaz ohartu, faksimilean (ik. *ib.* 268) nabarmen izan arren.

617. *ORKATU [orz-]: "Mellar, *croscatu, orcatu*" 412.

Larramendik **orka*-tik eratorria.

618. ORKOI: "Forma, manera, *orcoya, canora*" 280.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 89): *Çapatac iauntci berrian, heRStendu, min eguiten du, baina appur bat erabiliz guero, moldatcen da, oinaren neurrira, eta orcoiera ethortcenda* (GGero 492 [Gero 490 orcc-]) eta *Finean gauça guztiec lehenbician hartcen dute bere plegua eta ortkhoa* (ib. 87). Erkaketara ekarri behar dira Harrieten "orkheia, forme" (EF 316) eta "forme, orkheia" (FE 363). Erdaren antzekotasuna gorabehera, agerlekuak ezohikoak dira, eta forma dudarik gabe Axularrena. Honen adibideen artean hautatzekotan, formak 492koaren alde egiten badu ere, *ortkoi > orcoi* ez da ezinezkoa. *HH*-an ere: "forma, molde".

619. OROTAKO: "Soberano, *orotacoa*" 610.

Harrietengandik (Lakarra 1991: 228): "souverain, *orotacoa*" (FE 427).

620. ORRIKAK: "Tenazas, *orricac*" 638.

Iturri ezezagunekoa; *RS*-ren zati galdukoa izan liteke (Mitxelena 1970: 128).

621. ORTOZ: "Descalzo, mal vestido, *orthusa, ortoza*" 194.

Agian *RS*-ren zati galdukoa (Mitxelena 1970: 78). *HH*-an ere bildua zuen ("descalzo", "descalzar"), eta baliteke iturri beharrik gabe Axularrengandik hartutako *orthusa*-k burura ekarria izatea.

622. ORTHUS: "Descalzo, mal vestido, *orthusa, ortoza*" 194.

Mitxelenak Axularren lekukotasuna eskaini zuen, *Erans*-ekoa agian etorki honetakoa izan zitekeelakoan: *Biluz da: ortuz da: eztu aldatceco athorraric* (Gero 224). Lakarrak (1993: 230) ez du hipotesia onartu, nonbait, laburpenean etorki ezezagunekotzat jotzen baitu. Alabaina, Mitxelena bide onean zebilen: berak, oharkabean zein errataz, *ortuz* irakurketa eman arren, *Gero*-n *orthuz* irakurtzen da eta, areago, *GGero*-n *orthus*, Larramendiren irakurketa bera, hain zuzen. Berrito ere agertzen da (ib. 259), baina *orthusic* itxuran.

623. OSKI: "Zapato, *osquia*" 690.

RS-tik (Mitxelena 1970: 133): *Aroz dīnean çīrola, osqui guichi v[ɪ]jatudoa*, "...pocos çapatos se desgarran" (275). Bada beste agerraldi bat: *Hosqui osoa nayz etena / escuan baño oñean obea* "Çapato roto o sano...". *HH*-an aldaera bat jasoa zuen: ik. "zapato", "zapatico", "zapatero".

624. OSPE: "Fama, *ospea*" 271.

RS-tik (Mitxelena 1970: 88-89). Sarritan agertzen da (2, 107, 188, 507 eta 542), baina benetako hautagai bakarra dugu, gainontzekoak 1. zein 4. koadernotxoetakoak baitira (Lakarra 1996a: 41): *Galbidi guizona, ta ez aren ospe ona*, "y no su fama buena" (188). *HH*-an ere.

625. OSTELEURI: "Agua de tempestad, *osteleuria*" 24.

Iturri ezezagunekoa. Mitxelenak (1960: 57) —Bähr-ek gipuzkeraz jasotako aldaeretan, eta batez ere Zerainen (G-goi) jasotako *ostaleuria*-n oinarri hartuta— errazki bizkaieraz ere erabil zitekeela iradoki zuen. Iradokizun honek, Mitxelenarengan, aterabidea *RS*-ren zati galdua dela esan nahi du. Alabaina, Larramendik hobeki menperatzen zuen euskalkian hain ongi lekukotuta egoteak, merkeago bihurtzen du herriaren ahotik jasotakoa izan daitekeelako hipotesia, nik uste.

626. OTU: "Rogar, *otu, oyutu*" 585.

RS-tik (Mitxelena 1970: 122). Aukera bat baino gehiago izan zuen: *Otu ceguioc oean andreari, ez hurtan çaldiani*, "No le ruegues..." (217), *Dollo[r]ja otuago asapuzago*, "El ruyn, más rogado..." (255) eta Oihenartek gordetako RS 545 (*Otu doneari ygarartean nequea*) eta 550 (*Jaunen hotua oy da aguindua*).

627. OTZ BERAA: "Friolento, *otz beraa*" 286.

Iturri ezezagunekotzat joa (Mitxelena 1970: 118 eta Lakarra 1993: 231). Axularren *otz beratu*-tik Larramendik erauzia da; *beraa*-rako, cf. HH "blando, *beraá*, *biguna*, *samurrá*" eta, batez ere, "blando de corazón, *biotz beraa*, *biotz beraatia*", Axularrengan *bihotz bera* (Gero 220).

628. OTZ BERATU: "Hacerse friolento, *otz beratu*" 287.

Axularrengandik (Mitxelena 1974: 388):⁹⁷ *...presuna çaharra, hotz beratcen min beratcen, iduricortcen, haserrecortcen, eta alde guttiz on behartcen eta vrricalquiçun eguiten da* (GGero 182).

629. *OZAZT [orast]: "Al presente, *ozazt*" 36. "Presente, al presente, *ozazt*" 535.

Landuccirengandik, gaizki irakurria (Mitxelena 1970: 58): "al presente, *orast*" (232v); beste bitan ere agertzen da: "agora, *orayn*, *orast*" (229v) eta "antaño, *orast vrte bete*" (234r).

630. OZENKI: "Claramente, con voz clara, *ocenqui*" 138.

Mitxelenak (1970: 73) Axularrengandikotzat jo zuen: *Eta comunzqui lehenbicio aldián, ezcaitu guttiz ocentqui, eta bortitzqui <bortirz-> deitzen londone Paulo bat, deitu çuen beçala* (GGero 102). Lakarrak (1991: 248) Harrieten lekukotasuna dakar erkaketara: "clair, *clar*, *ocena*, *argui*" eta "clairement, *ocenqui*, *clarqui*, *bidesqui*" (FE 340), laburpenean (1993: 228) Harrieten alde erabakiz. Alabaina, egozketa honen aurkako argudio sendoak daudela uste dut: (1) Axularren pasartea argi xamarra da, eta berak bakarrik azal lezake "con voz clara" itzulpena; (2) *ocentqui* > *ocenqui* aldaketa ez da ezinezkoa; eta (3) Harrieten ezohiko harlekuan kokatuta dago; argudioa ez da berez indartsuegia, baina bai kontuan hartzen badugu hiztegiaren gorputzean "clairement" sarrera jadanik erabili bide zuela: "claramente, *arguiró*, *claruró*, *clarqui*, *ocenqui*, *ocenquiró*", non *clarqui* eta *ocenqui*, esanguratsuki azken lekuetan, Harrietengandik hartuak bide diren, eta *ocenqui* Larramendik bere ohizko erara eratorria.

631. OZPRIN: "Rayo, *arri iraztua*, *ozprina*" 564.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 119-120): *Çaren conciencia onarequin, ez etsairen, ez igortciren, ez ozprinaren, ez vren, ez suren, ez incontruren, ez fortunaren, eta ez munduan den bertce perilen ere, etçara velduriçanen* (GGero 451 [Gero 449]).

632. PAIRU: "Sufrimiento, *zafira*, *pairua*" 618.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 125): *Hala Cotys Traciaco Erregue harc ere, iccusiric..., bere hala... colera burura igaiten, eta nabusitcen ceicala, pairuric batere etçuela, senticor eguin cela...* (GGero 288). Beste 6 agerraldi daude (*ib.* 176 (2), 286, 314, 386 eta 601 [Gero 599]). Lehenak (176.ekoak) bederen zalantzazkoagoak dira iturri gisa, lat. "temperantia"-ren itzulpena baitira; antzera deritzet 314 eta 601ekoei, *eta paciencia*-rekin elkartuta baitaude, hala nola *iguriquitça*-rekin lotuta dagoen 386koa ere. Onena, beraz, Mitxelenak aipatuarekin batera honako honek dirudi: *...perilos bada, quillica bera bada, pairu gutitaco bada* (*ib.* 286). Cf. DAut: "sufrimiento, paciencia,

⁹⁷ Lakarrak ez du Mitxelenaren eransketa kontuan hartu (1993: 231).

conformidad y tolerancia con que se sufre alguna cosa", gaur ezagunegia ez den adiera ulertzeko. *HH*-an ere, adiera zertxobait ezberdin batean: "moderación".

633. PALAGADU: "Prestar, *palagadu*" 536.

RS-tik (Mitxelena 1970: 116): *Ese palagadua baño alogadua obeago*, "Mejor es la casa alquilada que la prestada" (388), nondik *alogadu* ere hartu zuen.

634. PARAPARDIN: "Molleja, *parapardina*" 426.

Iturri ezezagunekoa, ziurrenik mendebaldekoa. Azkuek Oñatin *parapardi* aurkitu zuen eta Larramendik berak beste aldaera bat (*parapardoya*) jaso zuen *HH*-an (s.v. *molleja, ventrículo de las aves*) (Mitxelena 1970: 104). Datuoi beste xehetasunik eransteko gauza ez garen bitartean, errazena ahozkoa izatea da.

635. PARRAU: "Hermitaño, *parraúa*" 318.

RS-tik (Mitxelena 1970: 93): *lazquereac parrahua eguite ez du*, "El vestido al hermitaño no le haze" (220), nondik *jazquerea* ere hartu zuen. Cf. *RS* 419 *perrau* "hermitaño", 4. koadernotxokoa.

636. PARTIKARI: "Apreciador, *particaria*" 55.

Iturri ezezagunekoa. Mitxelenak (1960: 61) batez ere Iparraldeko gauzak ekarri zituen erkaketara: *partale* (Axular, Etxeberri Ziburukoa, Haranburu, Harizmendi, Xurio, etab.), *partaide* (Etxepare), *pharteliar* (Z), *parçuner* (Haranburu), baina *partari*, *partil* (B) ere bai.

637. PARZELA: "Partición, partida, *parcela*" 493.

Axularrengandik (Mitxelena 1960: 112): *Ardi artaldeac beçala tropelaca, eta parcelaca ifernuan egonen dira* (GGero 594 [Gero 592]).

638. PARZELATU: "Hacerlas, *parcelatu*" 494.

Axularrengandik (Mitxelena 1950: 112): *...finean quideac quidèquin, eta suertecoequin egonen dira, bereciac, eta parcelatuac* (GGero 593 [Gero 591]).

639. PATAR: "Cuesta, *igea, iquea, patarra*" 175.

Lakarrak (1991: 234) Mitxelenak eskainitako lekukotasun guztiak gogoratu ondoren, Harrieten alde egiten du: "coline, *mendía, biscarra, petarra*" (*FE* 340) edo "montagne, *mendía, pectarra* [sic]" (*ib.* 387). Berarekin bat etortzeko arazo bat baino gehiago dago, ordea: (1) begibistakoena itzulpena da: "colina" edo "montaña" esperoko genuke; (2) euskal hitzaren forma: *patar* ongiegi lekukotua dago, beharko genukeen *petar* > *patar* aldaketa, egon baten, halabeharrari zor zaiola sinisteko. Alabaina, Larramendik ez bide zuen *patar* bera ezagutzen: *HH*-an behintzat ez dago; lehendabizikoz jasotzen ari zen, beraz; (3) Harrieten sarrerak ez dira batere argiak: batean irakurtzen dena <petrra> da, eta <trr> hori berori oso nekez; bestean, berriz, <pectarra>; (4) "coline" sarrera ohiko orrialdeetatik kanpo dago eta, beraz, bietatik hautagarik txarrena da, inolaz ere.

Beharbada argudio guztiok banan-banan hartuta ezer gutxi dira. Denak batera, berriz, Larramendik hitza Harrietengandik hartu ez zuela erabakitzeke adinakoak, nik uste: Ez ote da oztopo gehiegi gainditzea, usteldutako forma haietatik <petarra> berreraikitzea, eta gero formaz eta esanahiaz "hobe" zitekeela buruak ematea? Ez genuke ahaztu behar, oraindik badela inolako zalantzarik gabe ekialdeko (ahozko?) iturri ezezagun batetik lortu zuen hitz mordoxka bat.

640. PEDAZATU: "Despedazar, *pedazatu*" 203.

Mitxelenak (1970: 80) Axularrengandik hartu eta gaizki ulertutakotzat hartu zuen: *Hanbatic hanbatean*. Caeteris paribus. *Hobeda arropa ossoa, pedaçatua baino* (GGero 553). Lakarrak (1991: 224 eta 1993: 206) Harrietengandik hobe azal daitekeela uste du, ez baitezake sinets "Ax-en pasarte argi hori izan zenik" Larramendi desbideratu zuena, eta gainera, Larramendiren itzulpena iturriko erdaratik "letraz letrakoa" baita: "piece, *pusca, pedechua*", "rapiecer, *pedechatcea*" (FE 402). Laburpenean (1993: 230) Harrieten alde erabakitzen du auzia. Haatik, Lakarraren ziurtasuna zalantzan jartzeko xehetasun bat baino gehiago dago: (1) *Erans*-eko forma Axularrenarekin dator bat, ez Harrietenarekin. Ez zait oztopo makala iruditzen, ez baitugu halako *pedechu* > *pedazu* aldaketaren moduko beste ezer. (2) Axularren pasartearen argitasuna, Mitxelenak jadanik ohartu bezala, jarraipenari zor zaio, bertan *pedaçua, appaindura* eta *berretura* (GGero-n <barretura>) elkarrekin agertzen baitira. Baina liburua hitz bila (arineketa, agian) berpasatzen ari zen Larramendi: goian aipatu esaldian bakarrik begiak ipini izan balitu, *ossoa / pedaçatua* oposaketa baino ez zukeen antzemango, nahasteari bide emanek. Lehentxeago (GGero 552) *hobe da arropa berri ossoa, çahar pedaçatua baino* ere irakurtzeko parada izan zuen, besteari laguntzen dion testuingurua gabe. (3) *rapiecer* > *despedazar* itzulpena "letraz letrakoa" dela sinisteko, Larramendi itsuka asmatzen ari zela sinistu beharko genuke, frantsesez ederki moldatzen zela jakin arren. (4) Axularren esaldi horrexetan bereziki geratu zela badakigu, "*Hanbatic hanbatean*. Caeteris paribus" ere ziurrenik bertatik hartu baitzuen.

641. PEITA: "Cebo, *peita, beita*" 129.

Iturri ezezagunekoa, ekialdekkoa. Etxeberri Ziburukoa eta Arambillagarengan, adibidez, agertzen da (Mitxelena 1960: 71). Larramendik lehendik ondo jasoa zuen (cf. *HH* "(una cosa has) menester", "cebo", "(te) falta una cosa"), eta litekeena da Axularren *beita* jasotzerakoan beste hau burura etortzea.

642. PERMATU: "Bastón (afirmarse en él), *permatu, bordoincatu*" 95.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 66). Sarri agertzen da eta Mitxelenak ezin izan zuen adibide erabakigarria ediren; honako hau da: *Premia gabe eguiaz ala gueçurrez mintço den behatu gabe maquillaren permatceco eta pordoincatceco vrrats guztiaz, escuan beçala iuramentuaren ere ahoan* (GGero 259); pasarte beretik *bordoincatu* ere hartzeaz gain, *maquilla*-k azaltzen du itzulpeneko *bastón*. *HH*-an oso adiera ezberdinean: "apresurar".

643. PETRAL: "Rabos, *suderac, petralac*" 559.

Iturri ezezagunekoa, agian Iparraldekoa. Mitxelenak (1970: 119) *petrala* Pouvreauren hiztegian eta Harizmendirengan (106) aurkitu zuen; *pertala* Pouvreaurenean eta Etxeberri Ziburukoarengan (*Man* II 81 eta *Eliçara* 72). Cf. *HH* "pretal".

644. PINTXATU: "Pintado, el mas pintado, primoroso, *pincheatuena, pinchatuena*. Y es de donde viene el Castellano" 515.

Iturri ezezagunekoa, ziurrenik gipuzkerazkoa. Mitxelenak (1970: 114) halaxe uste zuen, zalantzarik gabe etimologiak eta beharbada itxurak ere hartaratua. Beste sarrera batzuen egiturari oinarrituta, balirudike *pintxeatuena* dela formarik ziurrena, honako hau etimologiak baldintzatua izan daitekeen bitartean. *Erans*-ean dagoen etimologi saio bakarra da. Larramendik egin lotura baino, zerbaitekin lotzekotan, gazt. *pincho* "presumido..."-rekin lotu beharko litzatekeela dirudi, baina Corominasek (*BDELC*, s.v. *pinchar*) c. 1800 arte ez du lekukotzen.

645. PINTXEATU: "Pintado, el mas pintado, primoroso, *pincheatuena, pinchatuena*. Y es de donde viene el Castellano" 515.

Iturri ezezagunekoa, ziurrenik gipuzkerazkoa. Ik. *pintxatuena*.

646. PIZTIA: "Ave, *piztia*" 82.

Landuccirengandik (Mitxelena 1970: 65): "caça de aues, *pistian caça*" (243v), "molleja de aues, *corrinco*⁹⁸ *pistiana*" (294r), "pico de aue, *pistian picao*" (304r). Alabaina, Agud & Mitxelenaren argitalpenean itzuritako orrialdean dago harlekurik ziurrena: "aue, *pistia*" (238r).

647. PLAZENZIA: "Contentamiento, *placencia*" 159.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 75): *bicitce onac bethi du berequin arraitasuna, irri nahia eta placencia* (GGero 442 [Gero 440b]). Bada agerraldi gehiago (9, orotara); cf., adib.: ...*eta halaco concientcia [gaixtoa] duenac, hala dueino, placencia ossoric eztuqueyela* (ib. 441 [Gero 439b]), *berequin du halacoac, mundu hunetan erdiets ahal ditequeyen loria, eta placencia* (ib. 445 [Gero 443]) eta ...*cerbait travaillu badu ere, du appurra eta laburra: eta labor hura ere arintcen, gutitcen eta goçatcen du, ondoreco irabaciaren eta placenciaaren segurantzac* (ib. 523 [Gero 521]).

648. PONPATSU: "Soberbio, *pompatsua*" 611.

Harrietengandik (Lakarra 1991: 228): "superbe, *pompaxua*" (FE 429).

649. POXELATU: "Ocupación, *lanzaroa*. Ocupar,⁹⁹ *pochelatu*" 465.

Harrietengandik, sarrerakidea bezala (Lakarra 1991: 239): "ocupar, *pochelatcea*" (FE 391).

650. POZKARI: "Alegría, *pozcaria*" 33.

Iturri ezezagunekoa, beharbada bizkaierazkoa. Mitxelenak (1970: 58) Axularrek *bozcario* erabiltzen duela eta RS-n (baina 443.ean, 4. koadernotxoan) *pozcarri* "regozijo" dagoela gogoratzen digu.

651. PUTZAIKI: "Aventadera, *putzaiquia*" 84.

Landuccirengandik (Mitxelena 1970: 65): "aumentadero, *pusçayquia*" (238v).

652. SABLE: "Arena, *sablea, legarra*" 59.

Axularrengandik, sarrerakidea bezala eta leku beretik (Mitxelena 1970: 61): *Badu itsasoac bere chedea, bere marra, bere mugarría eta cedarri iaquina, cein baita costa, eta costago [sic] sablea, harea eta legarra* (GGero 113).

653. SAGARROI: "Erizo, *sagarroya, quiriquioa*" 243.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 85): *Sagarroya, bere eguitez ere, nequez erditcen da* (GGero 78). HH-an ere: "erizo, *tricua, quiriquioa, sagarroya*".

654. SAINGA: "Ladrido, *eusia, sainga, auná*" 355.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 97): *Halacoac concientciaren sainga guti aditcendu* (GGero 426). Bada beste agerraldi bat orrialde berean: [Concientcia] *eztago ez alferric ere, alha çaicu, saingaz, eta erançutez dagocu*. Bi adibideak esanahiaren aldetik erabat ilunak dira; balirudike, beraz, hitza lehendik ezagutuak lagundu ziola: cf. HH "ladra", "ladrador", "ladrar".

⁹⁸ Mitxelenarenean "...aue, *corrincoa*...".

⁹⁹ Mitxelenarenean *Ocupar*Se.

655. SAKAILA: "Matanza, *sacaila*. Hacerla, *sacailatu*" 405.

Harrietengandik, aditza bezala (Lakarra 1991: 239): "massacre, *sacaila*" (FE 383). HH-an beste adiera batean: "llaga, *zauria*, *sacalla*".

656. SAKAILATU: "Matanza, *sacaila*. Hacerla, *sacailatu*" 405.

Harrietengandik, izena bezala (Lakarra 1991: 239): "massacrer, *sakhaillatcea*" (FE 383).

657. SAKELA: "Faltriquera, *saquela*, *chiscua*" 270.

Gero laburpenean (1993: 231) uzkuratzen bat agertu arren, Lakarrak (1991: 238-239) erakutsi du Harrieten hiztegitik *chiscua* ezeze *saquela* ere har zezakeela Larramendik. Alde batera utzi beharko genuke hitza ezagunegia delako ustea, HH-an jasota ez dagoenez gero; bestalde, sarrerak iturrian bata bestearen ondoren egotea —Larramendik eman ordena berean, bide batez— aski frogabide ona da, inondik ere: "poche, *saquela*", "pochette, *chiscua*" (FE 404).

658. SALTORAPIN: "Lazada, *saltorapina*" 361.

Landuccirengandik (Mitxelena 1970: 98): "lazada, *salto orapina*" (286r). Cf. *orapina*.

659. SARALE: "Sustento, *saralea*" 627.

Iturri ezezagunekoa, ziurrenik mendebaldekoa. Mitxelenak (1970: 127) halaxe uste zuen, *msOch*-aren hitz honekiko familiartasunean ("*saralea*, *sarallea*, sustento de animales, tomado del campo") eta Azkueren lekukotasunean —"(B-g-gald-i-m-mond), heno comida del ganado"— oinarrituta. Azkuek G-tzat ere jotzen du, baina Larramendiren zordun ezaguna den Iztuetaren *Condaira*-ko pasarte batean (224-28) ikusi duelako, besterik gabe. Azkuek berak erakusten digu hitz hau beste adiera batzuetan (metonimiziaz?) Bizkaitik kanpo ezaguna dela: "2° (AN, Araq.), artolas grandes para llevar heno. 3° (AN-lez, G-etx), trampa por donde se arroja de un piso al pesebre de la cuadra la comida del ganado".

660. *SARUK [saru]: "Obero, overo caballo, *saruc*. Y el refrán, *saruc bat uste, tresnatzen dauenac beste*" 459.

RS-tik (Mitxelena 1970: 108): *Saruc bat uste, tresnaçen dauenac beste*, "Uno piensa el obero, otro quien le apareja" (335).¹⁰⁰

661. *SASITU [satsitu]: "Estercolar, *sasitu*, *sastu*" 257.

RS-tik (Mitxelena 1970: 87): *Sasitu ta jorratu ta garria* [sic] *artu*, "Escardar y estercolar..." (236).

662. SASTAMAR: "Barreduras, *sastamarra*" 92.

Landuccirengandik (Mitxelena 1970: 66): "barreduras, *sastamarra*" (239v). Bi hiztegieta euskal hitza singularrean agertzen da: Mitxelenaren argitalpeneko Larramendiren plurala hutsa da.

663. SASTU: "Estercolar, *sasitu*, *sastu*" 257.

¹⁰⁰ Ez dut *laru* zuzenketa onartu (ik. Lakarra 1996c: 330), ez dudalako ulertzen: esanahiaren aldetik, ez dut lotura antzematen (cf. OEH, s.v. *laru*), eta formaren aldetik, RS 522ko <s>ren ordeko <l> aipatzen du Mitxelenak (SHLV 480) alde, baina nahasketa <í> eta <l>ren artean gertatu dela ulertu behar dugu, noski: hemen, ordea, <S> <L>ren ordeko dagoela egin beharko genuke (?).

Landuccirengandik: "estercolar el campo, *sastu campua*" (273r). Ez Mitxelena (1970: 87) ez Lakarra (1993: 231) ohartu dira honetaz, Larramendik iritzira erantsitako *sasitu*-ren aldaeratzat joaz, nonbait.

664. SEGADA: "Lazo, *segada*" 362.

Mitxelenak (1970: 98) Axularrengandikotzat jo zuen. Lakarrak (1991: 249) Harrieten lekukotasuna eskaini du, nahiz eta zeharo honen alde ez ebatzi (1993:233): "lacet, *segada*" (FE 377). Zuhurtziaz jokatu du, ene iritzian, Axularren adibideak, zein bere latinezko testuaren itzulpenean ageri baitira, bietan *segada* "laqueo" delarik: *...sed sicut pisces capiuntur hamo & aves laqueo comprehenduntur (...) baiña nola amuac atcemaiten baititu arrainac, eta hegazitnac [sic] segadac...* (GGero 60) eta *Nulla tot Diabolus animas reti capit, quod laqueo pessimarum mulierum. Deabruiac anhitz sare badu ere arimen atcemaiteco, eztu batez ere hanbat atrapatcen, nola emazte gaixtoez, eta hec hedatcen eta paratcen dituzten artèz, sarèz, lachioez eta segadez* (ib. 340-341).

665. SEGIENZA: "Seguimiento, *seguientza*" 598.

Axularrengandik, zehaztasunik gabe itzulia (Mitxelena 1970: 123): *Iccussaçue iaunac cer eguitenduen vsantçac, cein indar handia duen hazcuntçac, lehenbico sequientçac, eta ohicundeac* (GGero 88). Villasantek (1976ko arg., 94 eta AxH s.v.) "práctica" itzultzen du; cf. HH "práctica, uso continuado, *oitura*". Badago beste agerraldi bat: *...arrazoin bat, are claragoa eta aditzeco errazagoa, zein baita usantza, segientza, denbora luzeaz bekhaturan egoitea* (ib. 106). Ez diruri bataren baino bestearen alde egiteko arrazoi argirik dagoenik, itxuraren arabera itzuli baitu, nahiz agian bigarrenak *usatu-segitu-egon* progresioa iradoki ziezaiokeen.

666. SEI [sêi]: "Niño, *seya*" 450.

RS-ren zati galdutik (Mitxelena 1970: 107), Larramendik jaso zuen RS 560tik, hain zuzen (ik. hurrengo sarrera). RS 238n ere irakur zezakeen: *Seyac danzuana escarazean, esan daroa ataartean*, "Lo que oye el niño...". Beste bitan (55 eta 523) agertzen den arren, 1. eta 4. koadernotxoetakoak dira.

667. SEIAKAZ ETXUN DINA...: "Quien con niños se acuesta, sucio se levanta, *Seyacaz echun dina, ucuzca]r[jaigui d[õ]a*" 451.

RS-ren zati galdutik, Mitxelenak (1964: 174-175) 560. zenbakiarekin Oihenartek gordetakoei erantsia. Ik. bertan zuzenketen nondik-norakoa. Cf. *ucuz[c]a*, ziurrenik honetatik jalkia. Mitxelenaren argudio nagusia, <sey>-k —idatziz jasotzen ez den diptongo sudurkaridunak— RS-n daukan maiztasuna da.

668. SEILA (mug.): "Pañales, *acomendagarriac, seilac*" 483.

Iturri ezezagunekoa, bizkaierazkoa. Mitxelenak (1970: 111) **sen-oi(h)alak* edo **sei(n)-oihalak* eredutik datorrela erakusten digu. Cf. *seiala* "cobertor", "manta" HH-an (?).

669. SEIZARO [sêizaro]: "Niñada, *seizároa*" 448.

RS-tik (Mitxelena 1970: 107): *Hurdinetan assiazquero, prestuesta seyzarora, ynoc çebез aurqui guero, çe aldia eldudoa*, "...no es de prouecho el niñear..." (166).¹⁰¹ Itzulpena eskasa da, noski (cf. Lakarra 1996c: 220).

670. SEIZAROTU: "Niñear, *seizarotu*" 449.

Larramendik *seizaro*-tik eratorria (Mitxelena 1970: 107 eta Lakarra 1993: 235).

¹⁰¹ Lakarrak (1996a: 53) iturritzat RS 449 egozten dio, zalantzarik gabe oharkabeko hutsez.

671. SELARUGAIN: "Desván, *selarugaina*" 206.

Iturri ezezagunekoa, ekialdekoa. Familia guztia (*sel(h)aru, sel(h)auru, solairu, sollaru*) ekialdekoa da, eta 'granero', 'galería' eta 'piso' adierak bere gain biltzen ditu (Mitxelena 1970: 80). Cf. Harriet: "salle, *taulada, selarua*" (FE 420).

672. SELDOR: "Carga, *seldorra*" 121.

RS-ren zati galdukoa izan liteke (Mitxelena 1970: 70).

673. SENDAGAILA: "Vanidad, *sendagalla*" 663.

Axularrengandik, zehaztasunik gabe itzulia (Mitxelena 1970: 130): *doillorqueriaz preçatcea loriatcea eta sendagaila eguitea* (GGero 96). Beronek azaldu bezala, Pouvreaux "plaisir, chose rejouissante, bel exploit" itzultzen du, azkena gutxi gorabehera "hazaña" delarik. Badira lau agerraldi gehiago: ...*eta azkenean, ahalqua galduric hartaz prezatzea, loriatzea eta sengagaila eriztea* (ib. 110), *londone Marthiec bere caparen erdia probeari eman zioenean abiatu zen lainkoa gaur hartan berean, capa hartaz estaliric, erraiten zuela sendagailaz*: Martinus, hac me veste contextit. *Iklusazue, ikhusazue zer balentia egin duen Martinek...* (ib. 226-227), ...*berehala, sendagailaz bezala eta ohore bailliz bezala, iuramentuac ibenzeintuzte brankan, lehenbico hastean* (ib. 261) eta *eta guero ediren duenean, alegeratcen baita, eta contatcen baiteraue bere hauzocoei bere sendagaila, eta erraiten eguin diatzotela bozcarioac* (ib. 549-550). Bigarrenari (226-227. or.) bederen, iturritzat arbuaiatu beharrekoa deritzat, nekez sinis baitaiteke Larramendik "vanidad" Jainkoari egotziko zionik,¹⁰² azkenak (549-550. or.), berriz, badirudi ezin eragin zezakeela halako itzulpenik. Ene ustez, aukerakoena 261. or.koa da, nahiz eta 96 eta 110. or. etakoak (elkarren oso antzekoak) ez erabat ezinezkoak izan. HH-an ere, oso adiera ezberdinetan: "alborozo", "fortaleza", "gozo", "medicamento", "ojetera".

674. SENGEA (mug.): "Estéril muger, *senguea*" 256.

RS-ren zati galdukoa izan liteke (Mitxelena 1970: 87).

675. SENTON: "Decrépito, *sentona*. Decrepitez, *sentontasuna*. Hacerse, *sentontu*" 190.

Mitxelenak (1970: 78) Axularrengan ez baina Harizmendirengan, adibidez, aurkitzen zuen. Lakarrak (1993: 229), laburpenean, etorki ezezagunekotzat jotzen du. Nire ustez, eratorriak Axularrengandikoak direla jakinik, *sentona* beste nonbaitetik atera zezakeela uste izatea, hipotesirik garestiena da: Larramendik berak atera zezakeen haietatik, inolako zailtasunik gabe. Nolanahi ere den, Harizmendiren lekukotasunari Oihenarten bat bederen erants dakioko: Pr 669. HH-an ere: "decrépito", "decrépita".

676. SENTONTASUN: "Decrépito, *sentona*. Decrepitez, *sentontasuna*. Hacerse, *sentontu*" 190.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 78): *hautasunaren ondoan hiltcen da, morrointasuna: morrointasunaren ondoan hiltcen da gazetetasuna: gazetetasunaren ondoan hiltcen da çahartasuna: çahartasunaren ondoan iltcenda sentontasuna* (GGero 63).

¹⁰² Bide batez, Villasanteren itzulpenak ez nau asebetetzen: ez dut uste "de la hazaña" denik (1976ko arg., 254 eta AxH, s.v.), "jactándose" baizik, hurrengo adibidean (aip. arg., 292) *sendagailaz bezala* itzultzen duen erara.

677. *SENTONTU [sentondu]: "Decrépito, *sentona*. Decrepitez, *sentontasuna*. Hacerse, *sentontu*" 190.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 78): *Çahartcea, sentontcea, vrthe anhitcez bicitcea, bere eguitez on da* (GGero 186). Formari dagokionez, *sentondu* behar zukeen (cf. *AxH*, s.v.), baina Larramendik ahoskabeaz berreraiki zuen, ohi ez bezala, agian *sentontasun*-en itxuran oinarrituta.

678. SIRATX: "Nervio, *siracha*" 445.

RS-ren zati galdukoa izan liteke (Mitxelena 1970: 106).

679. SOKIL: "Pella, *soquilla*" 504.

Landuccirengandik (Mitxelena 1970: 113): "pella redonda, *soquilla*" (302v). *HH*-an *soquilla* "terrón".

680. SOLASTURI: "Amigo de conversación, *solasturia*. De beber, *egarberaa*" 46.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 59): *Alferrac choil dira solhasturi andi: hequen compaiñian çarenean ezta çure aldiric* (Gero 44). Badira bi agerraldi gehiago (*ib.* 327 eta 339), baina *jolasturi*-ren oinarrian daudela deritzat.

681. SONTSITU: "Dessustanciarse, desvirtuarse, demolido y cansado, *sontsitu*" 207.

Iturri ezezagunekoa, ziurrenik ekialdekkoa. Mitxelenak (1970: 80) *suntsitu* bakarrik aurkitu zuen Iparraldeko idazleengan (Leizarraga, Etxeberri Ziburukoa eta Xourio).

682. SORI: "Licito, *sori, cilhegui*,¹⁰³ *hauzu*" 372.

Axularrengandik, *sori* bezala eta leku beretik (Mitxelena 1970: 99): *Eta bestea egunean ere debecu cen, etcen sori eta ez cilhegui bide luceric iragaitea, vrrun ioaitea* (Gero 200). Berriro ere agertzen da (*ib.* 359), baina bera bakarrik. *HH*-an ere.

683. SOSLAI: "Soslayo (al), *soslay*" 615.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 125): *Ceren [iguzquiac] eguerdian gaindic behera, artez, eta arratz aldean saihetsetic, soslay emaiten baitu* (GGero 192).

684. SOTO: "Bodega, *sotoa*" 102.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 67): *Leheneco bihiteguiac, ardandeguiac, sotoac, salac, eta gambarac handitucoitut* (GGero 75). Cf. *HH*: "portal", "sótano", "zaguán".

685. SUDERA: "Rabos, *suderac, petralac*" 559.

Landuccirengandik (Mitxelena 1970: 119): "rabo de vestidura, *suderac*" (309r).

686. SUGINA: "Volcán, *suguina*" 681.

Axularrengandik, gaizki itzulia (Mitxelena 1970: 132-133): *Cer pena, cer dolore, eta ondico içanen da, arguituco ezten gau hartan, ez hemengo eriac beçala, ohe bera onean, baiña labe gori beroan, suguina gogorrean seculacotçat etçatea, eta egoitea?* (GGero 601 [Gero 599])¹⁰⁴. Beronek azaldu bezala, Pouvreaux "place de foyer,

¹⁰³ Jat. koma falta da.

¹⁰⁴ Mitxelenarenean 559.

sucaldearen sola" itzuli zuen. Larramendiren okerra ez da batere zaila azaltzen; gainera, badirudi *su* + *-gin* ulertu zuela.

687. *SUKAIN [sukai]: "Pábulo del fuego, *sucaina*" 476.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 110): *Bi garren erremedioa eltceari bere iraquinaren gueldi aracitceco, da egurren edetea, succaien gutitea* (Gero 291). Beronek iragarri bezala, *sucaina* irakurri behar da, jakina. Alabaina, hutsa ez da Larramendirena, bigarren argitalpenarena baizik, han *succain gutitcea* (*ibid.*) irakurtzen baita.

688. SUKOI: "Fogoso, *sucoya*" 279.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: *Batçuey den occasinoric ttipianean, sua lotcen çaye: ceren succoi baitira, ihar baitira* (GGero 286).

689. SUPITA: "Tizón, *supita*, *ichindia*" 645.

Iturri ezezagunekoa, beharbada *RS*-ren zati galdutik. Mitxelenak (1970: 128) adierazi bezala, bilduma honetan *supita* "refrán" dago (RS 32), baina 1. koadernotxokoa dela gogoratu behar dugu (Lakarra 1996a: 44). Cf. Azkue: "(B-mur), pieza de junco o materia semejante sobre la cual se colocan las calderas y herradas en la cocina".

690. SUTANZA (mug.): "Amor de la lumbre, *sutanza*" 43.

RS-tik (Mitxelena 1970: 59): *Hosaylean aldiz eguzquitan, aldiz sutanzean, "...al amor del fuego"* (323).

691. TAZTABI: "Barrena, *taztabia*" 93.

Landuccirengandik (Mitxelena 1970: 66): "barrena, *tastauia*" (239v).

692. TEMATU: "Porfiar, *tematu*" 527.

Harrietengandik (Lakarra 1991: 228): "soutenir, *thematcea*", "il me soutient que son affaire est bonne, *thematcen çait bere eguitecoa ona duela*" (FE 427). Mitxelenak (1970: 116) erkaketara Axular ekarri zuen, *thema* "apustua" adieran erabiltzen baitu. Erants bekio, bestalde, adiera berberean hauxe dugula Landuccirengan: "porfiar, *porfiadu, tema euqui*" eta "porfiado, *porfiadua, temosoa*" (306r).

693. TENTU: "Tesón, *tentua*" 641.

Axularrengandik, gaizki itzulia (Mitxelena 1970: 128): *Ceren emazte ezcondua eztu deusec ere, hala guiharran vquitcen, crozcan erauzten, eta ez bere tentutic eta pacientciatic atheratcen, nola bere senharra bertcerequin dabilcola iaquiteac* (GGero 358). Villasantek (AxH s.v.) "juicio, razón" itzuli du. Bada beste agerraldi bat: *Zeren zu baitzara argi, eta hura itsu: zu zuhur, eta hura erho: zu zeure tentuan eta zentzuan, eta hura handi athean eta kanpoan* (*ib.* 310-311), baina, nire ustez, lehena da aproposena: alde batetik, *tentua eta pacientcia* "tesón y paciencia" itzultzea oso erraza delakoan; bestetik, esaldi horrexetan bestegatik ere begiak ipini zituela bai baitakigu: ik. *crozca* II eta *erauci*.

694. TOLIAKUNTZA: "Tormento, *toliacuntza*" 648.

Harrieten *toliatu* harturik eta haren eredura (hots, *-kuntza* atzizkia erabiliaz) Larramendik eraturakoa dirudi (Lakarra 1991: 242 eta 1993: 223).

695. TOLIATU: "Atormentar, *toliatu*" 75.

Harrietengandik (Lakarra 1991: 242): "tourmenter, *toliatcea*" (FE 432).

696. TRABU: "Embarazo, *trabua*, *estecua*" 227.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 83). 13 bat agerraldi ditu, orotara; hona hemen Mitxelenak adibidetzat eskainia: *Naguiac, bere leccutic higitu nahi eztuenac, trabu handiac edireiteintu* (GGero 51).

697. TRAGAZA: "Saeta, *tragaza*" 592.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 123):¹⁰⁵ *Tragaça colpeca hari dena beçala buiracan edo buruan direnec dirauteiño, pensa ahalac, edo daquizquienac aurthiqui <aurrh-> arteino, ezta ichiltcen, "Sic durant donec convitia, sicut sagittae deficient" (Gero 292) eta Baldin quen baitçatçu alferquericac galdu dirateque Cupidoren arcuac, eztu nehor bere tragacéz çaurtuco* (ib. 379). Lehenak egokiagoa dirudi, "sagittae" itzulpenagatik.

698. TRANKART: "Falsía, *trancarta*" 269.

RS-tik (Mitxelena 1970: 88). Hirutan (49, 272 eta 437) azaltzen da. Mitxelenak ikusi bezala, azkena ezinezkoa da, itzulpena "engaño" izateaz gain, *trañcart* irakurtzen baita; 49.ean ere itzulpena "engaños" da. Erants bekie xehetasun hauei, bi errefrauok 1. eta 4. koadernotxokoak direla (Lakarra 1996a: 37). Iturri zehatza, bai itzulpenaz baita kokalekuaz ere, hauxe da, beraz: *iac, emac, erac, ta çeguioç trancart*, "y no le haga falsa" (272), nondik *iac* eta *erac* ere hartu baitzituen.

699. TRASUMENA (mug.): "Mal galardón, *trasumena*" 293.

Iturri erabat ezezagunekoa (Mitxelena 1970: 91). Itzulpenagatik, baita itxura bitxiagatik ere agian, badirudi RS-ren zati galdukoa izan litekeela.

700. TRISKA I: "Baile, *trisca*, *tritea*" 90. "Danza, *trisca*" 187.

RS-ren zati galdutik izan liteke. Darmstadt-ekoan bi bider azaltzen da (79 eta 436), baina bigarrenean Larramendik berez dagoen-dagoenean utziko zukeen *trisquea* forman agertzen eta, gainera, "salto" itzultzen denez gero, alde bat utzi beharreakoa da, Mitxelenak (1970: 66) jadanik egin bezala. Bestea, berriz, ezin balia dezakegu *trisca* hauek eta *tritea* irakurketa txarra, denak batera azaltzeko.¹⁰⁶

701. TRISKA II: "Castañuelas, *triscac*" 126.

Landuccirengandik: "castañuelas de dedos, *triscac*" (246v). Ez Mitxelena (1970: 71) ez Lakarra (1993: 228) ohartu dira honetaz: cf. aurreko *trisca*, zeinarekin lotzen baitute batak eta besteak.

702. TRISKARI: "Bailador, *triscaria*" 89.

RS-ko triska-n oinarri hartuta Larramendik eraturakoa (Lakarra 1993: 227). *-ari* atzikia guztiz emankorra da *HH*-an, baina *trisca* I-en iturriko kokalekuarekin ditugun arazoak ezagututa, agian ez litzateke erabat baztertu behar RS galduan *triscari* ere —edo *triscari* bakarrik— agertzen zelako hipotesia.

703. *TRITEA [triska]: "Baile, *trisca*, *tritea*" 90.

RS-tik, gaizki irakurria, aldamenean daraman eta RS-n behin baino gehiagotan agertzen den *trisca* I-en orde (Mitxelena 1970: 66). Mitxelenaren proposamena oso erakargarria da: *Trisean* [sic] *badabil asoa, aus asco*

¹⁰⁵ Lakarrak, oharkabean ziurrenik, laburpenean (1993: 238) ez du ezer jasotzen.

¹⁰⁶ Lakarrak eskaini RS-tiko hitzen zerrendan (1996a: 51-53) ez hitz hau, ez eta *tritea* aipatzen dira (bai *ibid.* 30; informazioaren galera 36. orrialdetik aurrera antzematen da): erants bekizkio, beraz.

eriguidarora, "Dançando si anda la vieja..." (79), non <í> Larramendik <t>tzat har zezakeen. Hipotesiak arazo bat dauka: 79. errefraua 1. koadernotxokoa da; haatik, ulerpen txarrerako honek ematen duen aukera birritan errepika zitekeela sinestea gogorregia da, agian.

704. TURUNTA: "Trompeta, *turunta*" 654.

Mitxelenak (1970: 129) bizkaierazkotzat jo zuen. Lakarrak (1991, 243) Harrietek "trompette, *tuhunta*, *trompetta*" (FE 434) daukala gogoratu arren, laburpenean (1993: 239) iturria ezezaguntzat ematen du. cf. HH-an "clarín". Beharbada Harrieten lekukotasuna ez da erabat iturritzat arbuaiatu behar, besteak beste itzulpena eta iturlekua egokiak direlako: gainerakoan, aski da Larramendik "itzuli" edo "zuzendu" zuela pentsatzea.

705. TXIRIBOGIN: "Tabernero, *chiriboguina*" 628.

RS-tik (Mitxelena 1970: 127): *Neguan hoquin, hudan chiriboguin*, "...en verano tabernero" (373).

706. TXIRKANDA: "Dedo meñique, *chircandea*" 191.

RS-tik (Mitxelena 1970: 78): *Dienean ereztuna, yfinc chircandea*, "...pondrás el dedo meñique" (192).

707. TXIRO: "Pobre, *chiroa*, *arlota*, *landerra*" 521.

RS-tik, sarrekideak bezala (Mitxelena 1970: 115). Sarri agertu arren (3, 78, 314, 435, 467 eta 493), beti ere "pobre" itzulpenarekin, nahitaez 314.etik behar du (*Doguna jan ta chiro yçan*, "...y ser pobres"), gainerakoak 1. eta 4. koadernotxoetan baitaude (Lakarra 1996a: 43).

708. UAL: "Quicio, *erroa*, *crozca*, *üala*" 557.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 119): *Athea bere erroetan eta uhaletan ongui iarria eta pausatua dagoenean, erraxqui hersten eta idequitcenda* (GGero 45-46). Azkuek (s.v.) "quicios y goznes" itzuli zuen; Villasantek (AxH, s.v.) "correa de cuero, gozne o bisagra de la puerta", eta adibidea, berriz, "goznes y pernios". Itxura batean, ez dira erabat esanahikideak: *erroa* "ateak-eta finkatzen diren atala" (EH, s.v.) da eta *uhala*, berriz, "finkatzen duen zera" izango litzateke, hain zuzen.

709. HUARRIZA: "Ribera, *huarriza*" 581.

RS-ren zati galdukoa izan daiteke, *huerriza* bezala (Mitxelena 1970: 121). Argudiorik sendoena <hu-> grafia da.

710. UBERA: "Vado, *ubera*, *huerriza*" 660.

RS-tik (Mitxelena 1970: 130): *Galendua dabil vberen billa*, "...buscâdo el bado" (299), nondik *galendu* ere hartu zuen. HH-an ere: "Vado, vadera, *ondajoa*, *uberá*", "Menguante, de el mar, los ríos, *ubera*".

711. HUERAGIN: "Lindero, *hueraguina*" 380.

RS-ren zati galdukoa izan liteke (Mitxelena 1970: 380). Argudiorik indartsuena <hue-> grafia da. Mitxelenak, bestalde, *u(b)era* "vado" (ik. *supra*) + *guen* proposatzen du, baina ez zait iruditzen *-gin* ezinezkoa izango litzatekeenik.

712. HUERRIZA: "Vado, *ubera*, *huerriza*" 660.

RS-ren zati galdukoa izan daiteke, *huarriza* bezala (Mitxelena 1970: 121). Argudiorik sendoena <hu-> grafia da. HH-an, bestelako grafia eta esanahiaz: "movimiento, *mugida*, *ibillia*, *iguina*, *uherriza*".

713. UFAS: "Regüeldo, *ufasa*" 572.
Landuccirengandik (Mitxelena 1970: 120): "regoldo, *vřassa*" (311r).
714. UFASTU: "Regoldar, *ufastu*" 571.
Landuccirengan oinarri hartuta, Larramendik eratutakoa: "regoldar, *vřas eguin*" (311r).
715. UKABA (mug.): "Codo, *ucaba*" 140.
Landuccirengandik (Mitxelena 1970: 73): "codo de braço, *hucaua*" (247v).
716. UKARAI: "Puño, *ucaraya*" 551.
Harrietengandik (Lakarra 1991: 232): "poing, *ukharaia, escumuturra*" (FE 405). Cf. HH: "muñeca".
717. *UKUZA [ukuzka]: "Sucio, *ucuz[c]a*" 620.
RS-ren zati galdutik (Mitxelena 1970: 126). Oharkabeko hutsa da inolaz ere: cf. *ucuzcatu* eta Larramendik berak bildutako *Seyacaz echun dina, ucuzcari jaigui doa*, "Quien con niños se acuesta, sucio se levanta" (451). Azaldu gabe dugu, ostera, nolatan erretrauan *ucuzcari* eta gero *ucuz[c]a* ondo jaso duen.
718. UKUZKATU: "Ensuciar, *ucuzcatu*" 240.
Larramendik *ucuzca*-tik (ik. *ucuzca*) aterea dirudi (Mitxelena 1970: 85).
719. ULITU: "Amilanar, *ulitu*" 47.
Axularrengandik (Mitxelena 1970: 59): *Conciencia gaixtoac hotzten, eztheusten eta vřitcen du gogoa; baina onac, berotcen, valentcen, esportçatcen, ausartcen eta esperantçatcen* (GGero 452 [Gero 450]).
720. HUNELA: "Assí, *hunela*. Ponerse assí, *halacatu*" 69.
Axularrengandik, sarrerakidea bezala (Mitxelena 1970: 63-64). 59 bat agerraldi ditu, orotara; hona hemen Mitxelenak adibidetzat eskainia: *Hunela erranen deraue* (Gero 213).
721. URATXI: "Acercarse, *urachi*" 13.
Iturri ezezagunekoa. Mitxelenak (1970: 55), lztuetak jaso zuela esateaz gain (baina hau Larramendiren zordun ezaguna da), bizk. *ur* "cerca" eta kom. (*h*)*urko* "prójimo" ekarri zituen erkaketara.
722. URDABIL: "Estómago, *urdabila*" 260.
Landuccirengandik (Mitxelena 1970: 87): "estomago, *vřdauila*" (273v). Cf. "ahito de estomago, *vřdabil dollorra*" (230r) ere.
723. URDABILAREN AO: "Boca de estómago, *urdabilaren aoa*" 97.
Landuccirengandik (Mitxelena 1970: 67): "boca de estomago, *vřdabilan agua*" (241v).
724. *UREN [andrauren]: "Casera, hacendosa, *urena, azquina*" 123. "Hacendosa, *urena, azquina*" 313.
RS-tik (Mitxelena 1970: 70): *Andra vřenac esea lauçatu guino daroa betatu*, "La muger de buen recado..." (210), nondik *lauzatu* ere hartu zuen. Cf. *hurrena*.

725. *URGAZI [urgatzi]: "Ayudar, *urgaci*" 86.
 RS-tik (Mitxelena 1970: 65): *On erexteco lanyncoari* [sic], *eguioc vrgaçi geydeari*, "...az ayudar al proximo" (339).
726. URGOITU: "Llenarse de fatiga, cansancio, *urgoitu*" 383.
 Axularrengandik (Mitxelena 1970: 100): *Iguriçaue* [sic] *oraino appurbat, goiz vrgoitu çarete* (GGero 608 [Gero 606]). Azkuek (s.v.) "fastidiarse, aburrirse" itzuli zuen, eta Villasantek (AxH s.v.) "cansarse, aburrirse".
727. URISKA: "Aldea, *irisca, urisca*" 31. "Village, *irisca, urisca*" 676.
 Harrietengandik hartutako *irisca*-ren eredura Larramendik eraturako aldaera, "hiztegiko hainbat bikote bezala: cf. s.u. *abacero, abarrisco, abjuración, abonanzar el tiempo, etab.*" (Lakarra 1991: 233). Erants dakiok, *iri-luri*- bikoteak bereziki usuak direla *HH*-an; cf., adibidez, "ciudad, *Iria, Vria*", "ciudadano, *iritarra, uritarra*", "civil, que toca a la Ciudad, *iricoa, uricoa*", "común, el Pueblo, *iritargoa, uritargoa*", "derecho civil, *Vritaraudea, Iritaraudea...*", "pueblo, la gente de él, *iritarrac, iridia, uritarrac, uridia*".
728. *HURREN [huren]: "Principal, *hurrena, aurrena*" 540.
 RS-tik, gaizki ulertua (Mitxelena 1970: 117): *Andra hurenac ese husa betatu*, "La muger principal..." (317). Cf. *urena*.
729. URRINZTATUA IBILLI: "Olor (andar lleno de), *urrinzatua ibilli*" 469.
 Axularrengandik (Mitxelena 1970: 109): *Bide gabe handia eguiten derauca bere buruari, emaztequi bat beçala, vrrinzaturic, eta vsain onez betheric dabillan guiçonac* (GGero 414). *vrrinzatua*- (Gero) > *vrrinzatua*- aldaketa bigarren argitalpenekoa da.
730. URRU: "Arrullo, *urrua*" 67.
 Hasieran iturri ezezagunekotzat joa izan arren (Mitxelena 1970: 63 eta Lakarra 1991: 243), Landuccirengandik hartua da (Lakarra 1993: 227): "arrullar el niño, *vrru eguin seguiay*" eta "arrullarse la paloma, *vsoa vrruetâ eguô*" (236v).
731. URTHATU: "Añejo, *urthatua*" 52.
 Axularrengandik (Mitxelena 1970: 61): *Bada arima galdua hanbat vrthez, harria beçala beccatutan vrthatua dagoena eta egon dena...* (GGero 109-110) edo *Arraçadura vrthatua, nario çahartua, çauri gaizcoatua, ezta pontu batetaco midicuntçaz sendatcen* (*ib.* 93). Bigarrena bide da itzulpena errazkienik iradoki ziezaiokeena.
732. URTIGI: "Arrojar, *urtigui, urtigu*" 65.
 RS-tik (Mitxelena 1970: 63): *Arria vrtigui ta escua ostu, ax guiçon galdu*, "Tirar la piedra..." (405).
733. ?URTIGIN: "Tirar, *urtiguin*" 644.
 Iturri ezezagunekoa, ziurrenik bizkaierazkoa. Mitxelenak (1970: 128) ez zuen aldaera honen beste lekukotasunik ezagutzen. Nahiz eta ezinezkoa ez izan (cf. *HH* "arrancar"), gogoratu behar da *urtigui* (*Erans* 65) "arrojar" itzulia agertzen dela, RS-ko bere iturriak "tirar" dioen bitartean: ez ote liteke bertatik hartu eta —oharkabeen edo nahita— Larramendik aldatua?
734. URTSATU: "Aguar, *urtsatu*" 25.

Axularrengan agertzen den *urtzutu* izan daiteke (Mitxelena 1970: 57): *Corinthioec bere Erreguearen icendatcean, eta corroatcean, vsatcen çuten cirimonietaric bat cen, eccartcea, bere aiticinera, beira bat vr, aditcera emaita gatic, etçuela handic aiticina, arnoric edan behar, edo edanê çuena, ongui ematuric, eta vrtçuturic edan beharco çuela* (GGero 406). Ez dagoke azalpen hoberik: Larramendik *urtsua* ederki ezagutzen zuen (cf. *HH* s.v. *aguanoso* eta *aquoso*); *u* > *a* aldaketak, eratorpenari buruz zituen iritzietan du oinarri.

735. HURUN: "Harina, *huruna*" 315.

RS-tik (Mitxelena 1970: 93): *Hurunic estan esea, ezin liçate asea, ta vay gosea*, "Casa do no ay harina..." (287). Mitxelenak berak erkaketara ekarri zuen Landucciren "harina, *vruna, yrina*", baina grafiak *RS*-ren alde erabakitzen du.

736. *UHUN [uhufi]: "Ladrón, *uhuna*" 356.

RS-ren zati galdutik; cf. Oihenartek bildu *Huhuñenera* [sic]¹⁰⁷ *hoxtuac bulea* (RS 544) (Mitxelena 1970: 97; ik. Lakarra 1996a: 47).

737. HUTXA: "Arca, *hucha*" 58.

RS-ren zati galdutik; cf. Oihenartek bildu *Ojal ona huchan saldu doa* (541) (Mitxelena 1970: 61; ik. Lakarra 1996a: 47 ere). Larramendik bestela ere ezagutzen zuen: "...*arcá*, con que significamos los arquetones muy grandes, a diferencia de las arcas menores, que llamamos *cuchá, uchá*" (s.v. *arca*) eta batez ere "Ahuchar, viene de el Bascuence *hucha* o *cucha*, que significa arca, cofre".

738. UZKALDU: "Atar, amarrar, *uzcaldu*" 73.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 64): *Baina gaineracoan, bata hasserre, eta bercea erho diren, bitartean, hain ongui, lot, vzcal, eta amarra, ahal deçaquete bata, nola bertcea* (GGero 301). Itzulpena lortzeko *amarra(tu)* > "amarrar" egin zuen.

739. UZKURTU: "Agacharse, *uzcurtu*" 20.

RS-tik (Mitxelena 1970: 56): *Vzqur baquio ecachari...*, "Si te agachas a la tempestad..." (251). Mitxelenak berak erkaketara ekarri zuen Axularren lekukotasuna: [semeak] *uzcur itçatçu, eduqui ttipi direino azpitic* "curva illos a pueritia eorum" (Gero 88); erdarak *RS*-ren alde argi eta garbi egiten du.

740. UZTAIL: "Cosecha, *uztailla, biltzapena*" 169.

Harrietengandik, sarrerakidea bezala eta leku beretik (Lakarra 1991: 238): "saisons, *ustailac, bilçapenac*" (FE 420).

741. UZULARI: "Partera, *uzularia*" 492.

Iturri ezezagunekoa. Mitxelenak (1970: 112) *-(l)ari* atzizkiaz osatutakoa dela erakutsi zuen, eta kom. *emagin* eta bizk. *andra maestra*-rekin gonbaratu.

742. XEDATU: "Limitar, *chedatu*" 377.

Harrietengandik (Lakarra 1991: 227): "limiter, *chedatcea*" (FE 380). Cf. *HH*: "intencionado".

¹⁰⁷ Azken zatia oraindik ere eztabaidapean dago: ik. azkeneko ekarpena Lakarra 1996c: 376n.

743. XEHE: "Moneda, *chehea*" 428.

Harrietengandik (Lakarra 1991, 227-228): "monoye, *moneda, chechea* [sic]", baina hurren "la monoye d'un écu, *luis baten chehea*" (FE 387).

744. XIFLATU: "Comer demasiado, *chiflatzea*" 149.

Harrietengandik (Lakarra 1991: 238): "manger par excés, *chiflatcea*" (FE 382).

745. XISKU: "Faltriquera, *saquela, chiscua*" 270.

Harrietengandik (Lakarra 1991: 238-239): "pochette, *chiscua*" (FE 404). Cf. HH: "bolsa", "bolsilla", "cica".

746. ZAFIRA: "Paciencia, *zafira*" 477. "Sufrimiento, *zafira, pairua*" 618.

Iturri erabat ezezagunekoa (Mitxelena 1970: 110). Mailegu itxura dauka: gazt. *zaherir* (*facerir*-en metatesia) formarekin lot daiteke?

747. ZAGUTKUNTZA: "Marca, señal, *zagutcuntza*" 401.

Harrietengandik (Lakarra 1991: 231): "marque, *siñalea, çagutqunça*" (FE 383).

748. ZAIIO: "Espera, *zayoa*" 254.

Iturri ezezagunekoa, beharbada bizkaierazkoa. Mitxelenak (1970: 86) Azkuek jasotako *zai*o (B-a-d-i-mond-o-tx) "recelo, sospecha" aipatzen du; baita mendebaldeko *zai(n)* ere, batetik, eta "ene ayoan egon da, il a demeuré a m'attendre" (Pouvreau), berak erakutsi bezala Larramendik jadanik ezagutzen zuena: cf. HH s.v. *lacayo*.

749. ZALHUI: "Ligero, ágil, *zaulia, zalhua*" 374.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 99). Agerkua, bere gardentasunean, honako hau dateke: *Guti da çahartcean, gaztean baiño çalhui ago, arin ago, eta iauzcalari handi ago* (GGero 180); beheraxeago berriz agertzen da: *...gaztea çalhui, eta manaiucor beçain, da çaharra gogor eta çurrun* (*ib.* 181), nondik *manaiacorra* eta *zurruna* hartu baitzituen.

750. ZALHUITU: "Hacerse ligero, ágil, *zaulitu, zalhuitu*" 375.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 99): *...baina behin iaiquiz guero, eta appurbat higituz guero*, [oina eta gorputza] *bere hala çalhuitcen, manaiucortcen eta iratçartcen dira* (GGero 492 [Gero 490]). Bada beste adibide bat orrialde berean: *laincoaren cerbitçuan ibili nahi dena ere, lehenbician hotzquida, çurrûda, hotz <host> eta nagui da; baina enseia bedi, has bedi, eta bere hala berotuco, eta çalhuituco da, trebe, bithore eta entregu içanenda, aise ibilico da.*¹⁰⁸

751. ZANKABE: "Corba, *zancabia*" 163.

Iturri ezezagunekoa, bizkaierazkoa (Mitxelena 1970: 75). Halaz ere, Azkuek (s.v. *zankabe*) "B-g-i-mond, G, Araç." jasotzen du.

¹⁰⁸ Hirugarren bat, *Elefantac* (...) *bere gazte denboran belhaunac, eta gaiñeraco bertze iunturak zalhuitu, erraxqui doblatcen eta plegatcentu* (*ib.* 180), nago errata dela, eta *zalhui ditu* irakurri beharko litzatekeela (AxH-n aditzaren pean dago jasota, baina bai bertan, bai bere argitalpenean ere (1976: 200) Villasantek "...tiene las rodillas y demás articulaciones bien flexibles" itzultzen du, ezinbestean).

752. ZAPAILOR: "Rana, *zapallorra*" 562.

Landuccirengandik (Mitxelena 1970: 119): "rana, *çapallorra*" (309v).

753. ZAPATU: "Pisar, *zapatu*" 517.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 114): *Hala dabillanac, eguiten duen irabaciguztia da, lurraren aurizquitcea, çapatcea eta gogortcea. Eta cenbatenaz eta guehiago baitabilla, hanbatenaz çapatcen ago, eta gogortcen ago du* (GGero 97). Liburuan barrena beste bi adibide aurkitzen dira (*ib.* 430 eta 499), baina bietan adiera figuratuan (AxH-n "agobiar, oprimir") erabilia. Lakarrak (1991: 247) ohartarazten digun bezala, Harrietek ere badakar, baina beste adiera batean: "presser entre les mains, *çaphatcea*" (FE 408). HH-an ere.

754. ZAPOTZ: "Tapón, *zapotza*" 632.

Iturri ezezagunekoa, ziurrenik bizkaierazkoa. Mitxelenak (1970: 127) Azkueren *zapotz* (Bc,...), *tapotz* (B-d-mu) eta *taputz* (B-i) aipatzen ditu, baita *msOch*-en lekukotasuna ere (*zapotza*-ri *tapotza* eransten baitio), gipuzkeraz *zipotza* jasotzen den bitartean (HH-an, adibidez).

755. ?ZARANPO [zaranpe?]: "Cesto, *zarampoa*" 134.

Iturri ezezagunekoa. Mitxelenak (1970: 72) RS 34 *zaran* "cesto" aipatu zuen, bestela erabat ezezaguna dugun *zarampoa* ez horren aldaera (Azkuek hiztegian baieztatu bezala), ustelketa bat baizik izan daitekeela iradokiaz. Lakarrak (1996^a: 40-41) uste honetan sendotzen gaitu, lekukotasuna 1. koadernotxokoa baita. Ez litzateke erabat ezinezkoa, nolana ere, hitzaren zein ustelketaren iturria guk ezagutzen ez ditugun RS-ko gainontzeko orrialdeetan egotea. Ustelketa, bestalde, RS-n *zarampoan* "en el cesto" *zarampean*-en ordeztuz agertzen zela eginez azal liteke, *Gizona gizon, otarrapean ere* errefracu ezagunaren aldaera batean, adibidez (Garate 1998: 5827. zb.).

756. ZARBA: "Acelga, *zarba, bezarra*" 11.

Iturri ezezagunekoa, ziurrenik bizkaierazkoa. Mitxelenak (1970: 55) gogoratu zuen *zarba* bizkaierazko hitza dela (cf. Azkue "B-a-d-mond-o"), gainerako euskalkietan (cf. Azkue "AN, BN, L, S") *zerba* aldaerarekin.

757. ZARRALDO: "Andas de muerto, *zarraldoa*" 48.

Iturri ezezagunekoa. RS-n bada *çerraldo* "andas" (420), iturria izateko antza dukeen lekukotasun bakarra, baina bokalaren aldaketaz gain orrialde bereko hitz interesgarri guztiak jaso gabe utzia zalantza egiteko arrazoi sendoa da (Mitxelena 1970: 59-60), eta gainera 4. koadernotxokoa da (Lakarra 1996a: 40). Mitxelenak (*loc. cit.*) eta Azkuek (s.v. *zarraldo*) bestelako lekukotasunak jasotzen dituzte, batzuk bederen erabat askeak, eta *zarraldo* aldaera ere bazela egiaztatze adinekoak; Azkueri jarraituz, aldaera hau erdialdekkoa da (AN-lez, L), nahiz eta dirudienez lapurterazkoa dela esateko daukan arrazoi bakarra Haraneder-Harriet susmagarria den.

758. ZARRAPO: "Espuma, *habuina, zarrapoa*" 252.

Iturri ezezagunekoa, beharbada Iparraldekoa. Azkueren lekukotasuna oso zalantzakoa da, Haraneder-Harrietengan bakarrik (Larramendiren zordun ezaguna) oinarri harturik lapurterazkotzat jo baitzuen; nolana ere den, *arrapo* aldaera euskalki berean ongi lekukotua dago (Mitxelena 1970: 86; ik. orain OEH, s.v.). Halaz ere, honek ez digu *zarrapo* aldaeraren euskalki hedaturaz batere ziurtasunik eskaintzen. HH-an, oso adiera ezberdinean (Mitxelenak "alavés y navarro"-tzat jotzen du): "rana".

759. ZAULI: "Ligero, ágil, *zaulia*, *zaluia*" 374.

Iturri ezezagunekoa (cf. beherago *zaulitu* ere). Mitxelenak (1970: 99) Pouvreauren hiztegiko ("*çaulia*, souple, salhuia") eta Etxeberri Ziburukoaren lekukotasunak (*longoicoa*, *iguzquitçu* / *arren erhi çauliac* [Man II, 134]) eskaini zituen. Azkueren arabera, erdialdeko aldaera da (AN-b-lez-oy, G-als, L-ain). Baliteke *zaluia*-k burura ekarria.

760. ZAULITU: "Hacerse ligero, ágil, *zaulitu*, *zaluitu*" 375.

Iturri ezezagunekoa (cf. gorago *zauli* ere). Mitxelenak (1970: 99) Pouvreauren hiztegiko lekukotasuna ("*çaulitcea*, rendre ou deuenir souple, salhutcea") eskaini zuen. Azkuek Baztanen bakarrik jaso arren, cf. *zauli*-z esana.

761. ZAURI GAIZKOATU: "Llaga mal curada, *zauri gaizcoatua*" 381.

Axularrengandik, gaizki itzulitakoa: "enconada" beharko luke (Mitxelena 1970: 100): *Ceren hori da harriac harriaren contra ioitea bietaric suaren pitztea, çauriaren gaizcoatcea, eta etsigoan barrenago sartcea* (Gero 292). Beronek eskaini adibidea ez da bakarria (ik. *ib.* 123 eta 465 ere); alabaina, izena + izenondoa egitura honako honetan bakarrik aurkitzen da: *Arraçadura vrthatua, narrio çahartua, çauri gaizcoatua, ezta pontu batetaco midicuntçaz sendatcen...* (*ib.* 93). Ik. gorago *gaizcoatu*.

762. ZEHE: "Palmo, *cehea*" 479.

Iturri ezezagunekoa, ziurrenik Iparraldekoa. Mitxelenak (1970: 110) Pouvreauren eta Oihenarten lekukotasunak aipatu zituen; orain interesatzen zaigun heinean, hauen grafiak (<sehe-> bietan) iturri ezinezkoak direla bermatzen du.

763. ZEJA: "Mercado, *ceja*" 418.

RS-tik (Mitxelena 1970: 103). Hirutan (33, 82 eta 253) agertzen da, hiruretan "mercado" itzulpenarekin, baina lehenengo biak 1. koadernotxokoak izanik, azkena dateke iturleku zehatza (Lakarra 1996a: 42): *Cejan esea hurrezco atea*, "Casa eñil mercado, de oro la puerta" (253).

764. ZELAI: "Plaza, *çelaya*" 520.

RS-tik (Mitxelena 1970: 115): *Ycasi eztaguianac esean, ez lequique çelayan*, "...en la plaza" (241).

765. ZENERRAKE: "Dirías, dixerás, *cenerraque*" 212.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 81): *cer othe cenerraque? Gutienean bacenerraque hura dela luthertasun handia* (GGero 262).¹⁰⁹ Bada beste adibide bat: *Cer cenerraque, baldin gau ilhunean, pausu hertsí, gaitz perilos batean iragan behar duenac, erran baliace bere muthiley, daudela gibelat, eta guibeletic eta vrruititic daguiotela argi?* (*ib.* 236).

766. (BESTEREN BURUAN) ZENTZATU: "Escarmentar, *besteren buruan centzatu*. *Inertu, galendu*" 245.

Mitxelenak erakutsi zuen Axularrengandik izan daitekeela, nahiz honek bertceren *gaiñean* z. darabilen: *Eta hec hala iccussi nituenean, equin nuen gogoeta, hartu nuen exemplo (...)* eta *centçatu nintcen bertceren gaiñean*

¹⁰⁹ Mitxelenak hasiera ondo ematen du, baina gero Gero 422ko esaldi batekin jarraitzen du, *Erans* 213.ean aipatzen duen berbera, alegia. Nahasteren bat egon da argitaketean, zalantzarik gabe.

(GGero 40), *Gaitecin beraz bertceren gaiñean centça* (ib. 76). Bada antzeko beste egitura bat, *haren baithan zentzatu*, baina urrutiago dago: *Beha iaçoçu bada halaco bati, eta centça çaitte haren baithan* (ib. 281) eta *Orhoit gaitecilla Loten emazteaz, centça gaitecilla haren baithan* (ib. 469 [Gero 467]).

767. ZENZUN: "Seso, juicio, *cenzona*" 604.

RS-tik (Mitxelena 1970: 124). Hirutan (7, 289 eta 481) agertzen da. Mitxelenak jadanik 7.a baztertu zuen, itzulpena "entendimiento" baita. Lakarrak (1996a: 44) hori eta 481.a 1. eta 4. koadernotxoetakoak direla gogoratuaz auzia ebatzi zuen; iturria, beraz, honako hau dateke: *Hule luzea ta cêçun chaburra* "Cabello largo, y seso corto" (289). Berak eman epaia, alegia 481.ean "iuyzio" agertzea ez dela ezinbestekoa sarrera azaltzeko, Larramendiren beraren beste lekukotasun batek bermatzen du: cf. *HH* "Seso, juicio, *burua, cenzona, bururic eztu, no tiene seso*".

768. *ZESTOL [koskol]: "Cáscara de huevo, *cestola*" 124.

Landuccirengandik, gaizki irakurria (Mitxelena 1970: 70): "cascara de huebo, *arraunça cascola* [edo *coscola*]" (246v). Eskuizkribuan <e> erraz irakur zezakeen aurreiritzirik gabeko irakurle batek; <sc>, berriz, betikoa da (beheraxeago *triscac*-en Larramendik edo kopiagileak ondo irakurria), baina konparaketarik egin gabe, <s> goitik lotzen da <c>-rekin, <t> baten antzeko zerbait eratuaz.

769. ZEHUME: "Xeme, *cehumea*" 687.

Iturri ezezagunekoa, ziurrenik Iparraldekoa. Mitxelenak (1970: 133) *cehea* "palmo"-rekin lotu zuen. Nolanahi ere den, hitza (jadanik grafiak iragarri bezala) Iparraldekoa da: Azkuek ("palmo" itzulpenaz) L-ain-s eta BN ematen ditu euskalki-markatzat.

770. ZIDOR: "Senda, sendero, *cidorra*" 601.

RS-tik (Mitxelena 1970: 123-124): *Edoceyn cidorrec dau luparia* "Cada qual sendero tiene atolladero" (367), nondik *luparia* ere hartu zuen.

771. *ZIKOZ [zikotz]: "Curiosa, *cicoza*" 181.

Ziurtasun osoz RS-ren zati galdukoa (Mitxelena 1970: 77). Argudioak honako hauek dira: (1) femeninoa, itzulpena alboan daraman iturri bat eskatzen baitu. 2) "txukuna, garbia" esanahia, mendebaldeko bizkaieran bakarrik (Azkuek) jaso, hedatuago den gatzespenezkoaren ("zekena" zein "zikina"-ren) aldamenean.

772. ZILEGI: "Lícito, *sori, cilhegui*,¹¹⁰ *hauzu*" 372.

Axularrengandik, *sori* bezala eta leku beretik (Mitxelena 1970: 99): *Eta besta egunean ere debecu cen, etcen sori eta ez cilhegui bide luceric iragaitea, vrrun ioaitea* (GGero 200). Harrietek ere badakar: "permis, *haiçu, cilhegu*", "il m'est permis, *haiçu çait, cilhegui çait*" (FE 400), baina *sori*-k Axularren alde egiten du; halaxe ulertu bide du Lakarrak (1993: 233) ere. *HH*-an ere: "lícito", "permitido".

773. ZILEGIGOA: "Permisión, *haizugoa, cilleguigoa*" 510.

Harrietengandik, sarrerakidea bezala eta leku beretik (Lakarra 1991: 240): "permission, *haiçugoa, cilheguigoa*" (FE 400).

¹¹⁰ Jat. koma falta da.

774. ZINBOTA (mug.): "Desperdiciador, *cimbota*" 204.

RS-tik (Mitxelena 1970: 80): *Etseco andrea cimbota, ese duztia cimbota* "Casera desperdiciada, desperdiciada la casa toda" (259). HH-an ere: "(Es un) perdido, *galdari bat da. (...) Item galgarria, eriatzallea, cimbotá*".

775. ZINKI TA FINKI: "Deveras, *cinqui ta finqui*" 209.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 81): *Guztiac tentaceintu [sic] Deabruac, baiña cintquienic, eta fintquienic, çaharrac* (GGero 175). Alabaina, badira liburuan zehar egitura berbera jasotzen duten hiru pasarte: *asco içanen da beraz halaber beccatu haren beraren erremediatceco ere, (...) vorondateac cintqui eta fintqui laincoa gatic, beccatuaren vtzte bat, eta gaitceste bat* (ib. 199), *Beraz hunetalan cintqui eta fintqui, maiz eta lehiatuqui, behargatçaitça azquen fineco iraupenaren eta perseueratceco donuaren escatu* (ib. 462 [Gero 460]) eta *...maite ago duela halaco beccatorea, hala cintqui eta fintqui penitencia eguiten duena...* (ib. 554 [Gero 552]).

776. *ZIORREA [zior]: "Vara, *ciorrea*" 662.

Mitxelenak (1970: 130) bizkaierazko iturri bat proposatu zuen, Axularrek *cigor* baitarabil (Gero 333). Alabaina, cf. Harrieten "baguette, *cihorra*" (FE 331), egiantz handirekin Larramendiren hutsaren eragilea.

777. ZIPIA (mug.): "Ponzoña, *çipia*" 525.

Landuccirengandik (Mitxelena 1970: 115): "ponçoña, *çipia*" (305v).

778. ZIRAR: "Plata, *cirarra*" 519.

Mitxelenaren ustez (1970: 115), RS-ren zati galdukoa izan daiteke. Izan ere, mendebaldeko forma da, eta gure hango beste iturri bakarrak, Landuccik alegia, *vrre çuria dakar* (304v).

779. ZIROLA (mug.): "Zapatero, *çirola*" 689.

RS-tik (Mitxelena 1970: 133). Bitan agertzen da: *Zitel zirola, noc gudura aroa* (21) eta *Aroz dinean çirola, osqui guichi vr[ç]ratudoa* (275), bietan "zapatero" itzulpenarekin. Alabaina, 1. koadernotxo ezinezkoa denez gero, lehena albo batera utzi eta 275.a emango genuke iturritzat, kontuan izanik, gainera, bertatik *osqui* ere hartu zuela (Lakarra 1996a: 44-45).

780. ZIYA (mug.): "Cuña, *çiya*" 180.

RS-tik (Mitxelena 1970: 77): *Ezcur berereango çiya* "Del mismo árbol la cuña" (182).

781. ZOPATU: "Empapar, *zopatu*" 228.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 83): *Nahi dena içan casto, eta ala baiña arnoan çopatua egon, eta assean ibili...* (GGero 411). HH-an ere: "Ensopar, *zopatu*".

782. ZULANPO: "Laguna, *zulampoa*" 359.

Landuccirengandik (Mitxelena 1970: 98): "laguna de agua, *çu lampoa*" (285v).

783. ZURRUN: "Inflexible, *zurruna*" 342.

Axularrengandik (Mitxelena 1970: 96). Beronek eskainitako pasarte, nik uste, aukerakoena da: *...gaztea çalhui, eta manaiucor beçain, da çaharra gogor eta çurrun* (GGero 181), gardena eta "inflexible" itzulpena berehala iradokitzen duena izateaz gain, *zalhui* eta *manaiakor* ere ziurrenik bertatik hartu baitzituen. Bigarren bat bada, halere:

Hala bada laincoaren cerbitçuan ibili nahi dena ere, lehenbician hotzquida, çurrû da, hotz eta nagui da (ib. 492 [Gero 490]).

784. ZURTZ: "Huérfano, zurtza" 326.

*RS-tik (Mitxelena 1970: 94). Darmstadtokoan bitan (199 eta 450) agertzen da, baina azkena ezin dugu aintzat hartu, 4. koadernotxokoa baita (Lakarra 1996a: 42). Bestean dukegu, beraz, iturria: *Yla vsteldu ta zurça açi*, "El muerto podrece y el huerfano crece" (199). *HH*-an ere: "Huérphano, zurtza, emazurtza, humezurtza".*

6. ERANSKINA — Eratorpena

-TXO

**ahaletxo* ‘anadón’, *aberetxo* ‘animalejo’, ‘bestezuela’, *adartxo* ‘cuernecico’, *adinontxo* “razonablejo”, *adrilutxo* ‘ladrillejo’, *ageritxo* “assomadita”, *agerutxo* “assomadita”, *aguretxo* ‘viejecito’, *ainbatxo* ‘tántico’, *ainbestetxo* ‘tántico’, *aingerutxo* ‘angelito’, *aintziratxo* ‘balsilla’, *aizetxo* ‘airecillo’ (1715), *aizkoratxo* ‘hacheta’, ‘segureja’, *ajolatxo* “cuidadito”, *akertxo* ‘orejera de arado’, *akeztxo* “diminutivo de *aketz*” (*gacho*-ren etim.), *alabatxo* ‘hijita’ (1571), *alajatxo* ‘alajuela’, *aldapatxo* ‘cuestecilla’, *aldaretxo* ‘altarico’, *aldastxo* ‘cuestecilla’, *aldeatxo* ‘aldegüela’, *aletxo* ‘granico’, *alkandoratxo* ‘camiseta’, *alkitxo* ‘banquillo’, *alkobatxo* ‘alcobilla’, *alkontxo* “niño regordete, quieto y suave”, ‘suave, aplicado a un niño’, *alortatxo* ‘frutilla’, *amentxo* ‘pedacico’, *anderetxo* ‘madamisela’, *anditxo* “grandecito” (*ancho*-ren etim) (1656), *anezketxo* ‘espolín, lanzadera pequeña’, *animaliatxo* ‘animalejo’ (1715), *anpoilatxo* ‘ampolleta’ (1715), *antsiatxo* “cuidadito”, *antzartxo* ‘ansarón’ (1715 *antzaratxo*), *anyeretxo* ‘damisela’, *aomentxo* ‘bocadillo’, *aotolestxo* ‘pucherico de niño’, *aotxo* ‘boquilla’, ‘boquita’, *aotzitxo* ‘piquillo’, *apaingarritxo* ‘miriñaque, alhajueta de poco precio’, *apatxo* ‘besito’, *apaztxo* ‘colodra de pastores’, *apezikutxo* ‘obispillo’, *arastetxo* ‘pino, pinico de niños’, *arboiltxo* ‘tejuelo’, *arditxo I* ‘ovejita’, *arditxo II* ‘pulguilla’, *arduratxo* “cuidadito”, *arealdiatxo* (*bat lurrari eman*) “arrajacar, aricar los sembrados”, *argikaitxo* ‘candelilla’, *arilkotxo* ‘ovillejo’, *ariltxo* ‘ovillejo’, *arin arintxo* ‘(sobre) peine’, ‘ligeramente, blandamente’, *arintxo* ‘levemente’, *aritxo* “carnero pequeño” (*arienzo*-ren etim.), *arkakustxo* ‘pulguilla’, *arkumetxo* ‘corderillo’, *arpegitxo* ‘carilla’, *arraiatxo* ‘rayuela’, *arraitxo* ‘pececillo’, ‘pescadillo’ (1571), *arraitxo* ‘pececillo’, ‘pescadillo’, *arrakotxo* “rajadillo, confitura”, *arraultzatxo* ‘huevecico’, *arrauztxo* ‘huevecico’, ‘ovecico’, *arretxo* ‘pardito’ (s.v. *mosqueruelas*), *arritxo* ‘china’, ‘chinarro’, ‘chinilla’, *arropatxo* ‘ropeta’, *artatxo* “cuidadito” (1715), *artxo* ‘corderillo’, *arzaixto* ‘pastorcico’, *arzeilutxo* ‘bolsilla’, *asostomatxo* ‘sustillo’, *astotxo* ‘asnillo’, ‘borriquillo’, ‘pollinejo’, *ataritxo* ‘portalico’, *atatzxo* ‘anadón’, ‘patico’, *atetxo* ‘anadón’, *atorratxo* ‘camiseta’, *atxurixto* ‘corderillo’, *ahumentxo* ‘bocadillo’, *aunztxo* ‘cabrita’, *aurdikotxo* ‘cabezalejo’, ‘acerico, almodica pequeña’, *aurtxo* ‘chicuelo’ (1571), *austxo* ‘polvillo’, *autxo* ‘boquita’, *azaltxo* ‘cascarilla’, ‘cortecita’, ‘foliculo’, *aziendatxo* ‘hacendilla’, *azitxo* ‘granilla’, *azkenaitxo* ‘codicilo’, *azpilduratxo* ‘doblado’, *aztxo* ‘dedillo’, *azukroretxo* ‘pellizco de monja’, *azurtxo* ‘chita’.

-TZAR

aberetzar ‘alarbe, bárbaro, bestial’, ‘animalón’ (1715), *aguretzar* ‘vejancón’, ‘viejazo’, *aingerutzar* ‘angelote’, *aiztzar* ‘peñón’, *akertzar* ‘cabronazo’, *alaitzar* ‘guapazo’, *alatzar* ‘tafurca’, *aldeatzar* ‘aldeorrio’, *alkandoratzar* ‘camisón’, *alpertzar* ‘sobón’, ‘bragazas’ (1715 *alfertzar*), *amatzar* ‘madrona’, *anditzar* ‘grandón’, *animaliatzar* ‘animalón’, *aotzar* ‘bocaza’, *aragitzar* ‘carnaza, mucha carne’, *arkaiztzar* ‘peñón’, *arpoitzar* ‘grapón’, *artoretzar* ‘pastelón’, *artzar* ‘cantazo’, *astotzar* ‘asnazo’, ‘borricón’ (1715 *astatzar*), *ataritzar* ‘portalazo’, *atorratzar* ‘camisón’, *atorritzar* ‘pañalón’, *aunditzar* ‘descomedido, muy grande’, *aurpegitzar* ‘caraza’, *azeritzar* ‘zorrastrón, astuto’.

-TXAR

abadetxar ‘cleriguillo’, *akertxar* ‘cabroncillo’, *apaiztxar* ‘cleriguillo’, *atezaitxar* ‘porterillo’.

-XKA, -SKA

aizuriska ‘ventisca’, *amorraxka* ‘rabieta’, *antulaska* “baladronada”, *artexka* ‘coscoja’, *ataska* ‘compuerta’, *atiska* ‘válvula’.

-TO

azauto 'haz, manajo' (1571).

-SKO

arinsko 'ligero, fugaz' (*arisco*-ren etimologian).

-SKOTE

arinskote 'ligero, fugaz' eta *arriskote* 'duro como piedra' (biak *arisco*-ren etimologian).

-XAR

agurexar 'vejete'.

-TASUN, -dasun

aberastasun 'riqueza' (1617 *aberatstasun*), *aberetasun* "bestialidad", "brutalidad" (XVII ea. *abretasun*), *abrestasun* 'riqueza', *adiskidetasun* 'amistad' (1571), *agortasun* 'secura' (XVII ea.), *aguretasun* "senectud, en el hombre", *aidetasun* 'parentesco' (1653), *aitatasun* 'paternidad' (1571), *ajolakabetasun* 'acidia', *alaitasun* 'aliento, vigor', 'despejo, desenfado', *albotasun* 'afinidad', *aldetasun* 'afinidad', 'cercanía', *alfertasun* "pereza" (1627), *alpertasun* 'acidia', "pereza", *amagarritasun* 'amabilidad', *amatasun* 'maternidad' (1617), *anaitasun* 'fraternidad' (1571 *anaietasun*, 1643 *anaiatasun*), *anditasun* "amplificación", 'grandeza', 'grandor', 'magnitud' (1571), *anzinatasun* 'ancianidad' (1638 *ainzinatasun*), *araztasun* 'limpieza' (1627), *ardurakabetasun* 'acidia', *areriotasun* 'enemistad', *argaltasun* 'flaqueza' (XVII ea.), *argitasun* 'lucimiento' (1621), *arintasun* 'agilidad', 'levedad', 'ligereza, poco peso', 'ligereza, presteza',... (1571), *arretasun* 'turbulencia', *arrotasun* 'arrogancia', 'vuelo en los vestidos', *astundasun* 'peso, pesadez', *atsotasun* "senectud, en la mujer" (1715), *aunditasun* 'grandeza' (1715), *aurtasun* "puerilidad" (XVII ea.).

-KERIA, -eria

aberekeria "bestialidad", "brutalidad", *abrekeria* "bestialidad", "brutalidad" (XVII ea.), *agurekeria* "vejez, impertinencia de viejo", *aidurkeria* 'malignidad', *aiozkeria* 'cuchillada', *aisakeria* 'ociosidad', *alfereria* "alferecía" (etim.), *alferkeria* "pereza" (1636), *alperkeria* 'acidia', 'desidia', 'holgazanería', "pereza"... (1596), *amorreria* "rabia", *anyerekeria* 'melindre', *arokeria* 'haragancia', 'ociosidad', *arrapakkeria* 'rapiña' (1571), *arrauberia* 'arrebatiña', 'rapiña' (1571), *askeria* 'ascosidad', 'porquería' (1643), *astakeria* 'borricada', 'majadería' (1715), *atsokeria* 'cuento de viejas', "vejez, impertinencia de vieja" (1715), *atzakeria* 'rascadura', *atziperia* 'superchería', *aurkeria* 'chilindrina', 'muchachada', 'niñería', "puerilidad",... (1715), *azañeria* 'hazañería', *azerikeria* 'raposería', 'zorrería'.

-GO, -ko

ahaiko 'pariente' (1627), *ahakoa* 'cognación', 'parentesco' (1571), *adorgo* "enfado", *aidago* 'cognación', *aitakidago* 'compadrazgo', 'compaternidad', *aitorgo* 'confesión', *alaigo* 'valor', *aldekigo* 'libelo de repudio', *aldizgo* 'vicisitud', *alkargo* 'compañía', 'concomitancia', *amatigo* "serenidad", *anaikidago* 'cofradía', *andigo* 'magnitud' (1627), 'presunción, vanidad' (1627), 'bulto', 'mole', 'volumen', 'acrecentamiento', 'creces, aumento', 'crecimiento', 'hinchazón', *anizkidargo* 'comunidad', *apaizgo* 'clericato', 'presbiterado', *apezgo* 'clericato', 'presbiterado' (1627 *aphezkoa*), *apezpikugo* 'obispado', *aragigo* 'carnalidad, lujuria', *arartekidago* 'compatronato', *arazigo* 'coacción', *arimandigo* 'magnanimidad', *arkidago* 'inducimiento', *arrego* 'causa final', 'causa, motivo', 'causal', 'fin, motivo', *arrog* 'lilao, vana ostentación', 'raridad, rareza', *asigo* 'comienzo', *askogo* 'multitud', *asmaengo* "agüero, adivinación supersticiosa", *atsedago* "descanso", *aturdigo* 'aturdimiento', *aundigo* 'acrecentamiento', *aurkego* 'careo', *aurrego* 'delantera', *autorgo* 'confesión', *autsigo* 'fracaso, rompimiento', *azaldago* "comentario", *azalgo* 'declaración'.

-TZA,

haindurtza 'austeridad', *alarguntza* 'viudedad' (XVII ea.), *andientza* 'majestad', *arran(t)za* 'pesca, oficio de pescar', 'pesca, el pescar', 'pesquería' (1627), *artzaitza* 'pastoreo', *arzantz* 'pastoreo', *aurduntza* 'preñez'.

-DADE

abilidade 'habilidad' (1653), *argaldade* 'flaqueza', 'imbecilidad'.

-KINTZA, -gintza, -intza

adrilukintza “frega, fábrica de ladrillo”, *aitzurkintza* “(oficio de) cavadores”, *altzairukintza* “(el oficio de fabricar) acero”, *anbakintza* “contaduría, oficio”, *antzeskintza* “pintura, arte”, *arakintza* “xifería, ejercicio de matar las reses y desollarlas” (1571), *argintza* “cantería, arte de canteros” (XVII ea.), *arozkintza* “carpintería, el oficio”. *arrikintza* “cantería, arte de canteros”, *arropakintza* “ropería, oficio, arte”, *astelarintza* “semanería”, *atxorrokintza* “(el oficio de) guantero”, *atxurkintza* “(oficio de) cavadores”, “labranza, la ocupación del labrador”, *atxurkinzea* “agricultura”.

-KIDA

abisukida “commonitorio”, *agerkida* “comparición, comparencia”, *agurkida* “resalutación”, *aitabitxikida* “padrinazgo”, *aitapontekida* “padrinazgo”, *alaikida* “confortación”, *alkarkida* “conspiración”, *anbatkida* “contribución”, *anizkida* “común, lo que es de muchos”, *araukida* “concordancia”, “concordia”, “conformidad”, “constitución, estatuto, ordenanza”, *arazkida* “constreñimiento”, *argizaikida* “(paje de) hacha”, *atakida* “compuerta”, *atsekida* “consuelo”, *aurkakida* “confrontación”.

-(T)ZIA

ausar(t)zia ‘denuedo’ (1617).

-ARI₁, -tari, -dari, -lari, -kari

ahaikari “provocador”, *abailari* ‘hondero’, ‘pedrero, soldado’ (XVII ea.), *abekari* “cabalgadura”, ‘caballería, bestia’, *aboari* ‘confesante’, *aboilari* ‘abollador’, *abrildari* ‘inmolador’, *adarkari* ‘corneador’, *adiakari* ‘endechera’, ‘gemidor’, “autillo”, *adindari* ‘tanteador’, *adrilari* ‘enladrillador’, *agaari* ‘apaleador’, *agakari* ‘apaleador’, *agertari* “manifestador”, “revelador”, *agindari* ‘prometedor’, *agintari* ‘comandante’, ‘superior’, etab. (1627), “ofrecedor”, *agirakari* ‘baladrón’, *agurtari* “saludador”, *aintzatari* “motejador”, *aipari* ‘proponedor’, *aitorrari* ‘confesante’, *aitzindari* ‘adalid’, etab. (1571), ‘guía de danzas, etc.’, *aitzinkidari* ‘conductor, el que guía’ (1630 *aitzingidari*), *aitzurlari* “cavador”, *aitzurriari* ‘gastador en el ejército’, *aizeztari* ‘soplador’, *aiztari* ‘ventor, perro de caza’, *akordari* “acordador”, *akotari* “mordaz”, *akuilatar* ‘incitador’, *alabardari* ‘alabardero’, *alabari* ‘laudatorio’, *alaikidari* ‘confortante’, *alakairutari* ‘jornalero’, *alakoztari* “calificador”, *alamenari* ‘detractor’, *alamendari* ‘murmurador’, *alarakari* ‘cacareador’, *alarari* ‘cacareador’, *aldedari* ‘parcial, que sigue el partido de otro’, ‘partidario, secuaz’, *algarari* ‘algarero’, *algebrari* ‘algebrista’, *alkabalar* ‘alcabalero’, *alkanzari* ‘alcanzador’, *almenari* ‘potente’, *alogerari* ‘jornalero’, ‘peón jornalero’, *alokari* ‘jornalero’, *alordetari* “poderhabiente”, *alortari* ‘frutera’, *altxari* ‘levantador’, *amartari* “decurión”, *amenbeartari* ‘porcionista’, *amesari* “soñador”, *amilkari* ‘rodador’, *amuruskari* “enamorado”, *anbalari* “venerador”, *anbatari* “contador”, *andizkari* ‘encarecedor, exagerador’, ‘ponderador’, ‘ponderativo’, *andraketari* ‘rufián’, *animari* ‘animero’, *antolari* ‘componedor’, ‘compositor, en Música’ (XVII ea.), *antulari* ‘baladrón’, ‘xácaro, guapo’, ‘xaquetón, valentón’, *antustari* “blasonador”, ‘fantástico, entonado’, *antustelari* ‘vanaglorioso’, *antxitari* “rodrigón, que acompaña a las mugeres”, *anzaztari* “gobernador”, *anzinari* ‘anticuario’, *aopikari* “coscojo(s), en el freno”, *aotzilari* ‘pico, ave’, *apaingorari* ‘lisonjeador’, *apaldizkari* ‘maldiciente’, *aratar* “apurador, averiguador”, *araulari* “trabucante”, *arautari* “concertador”, *arautzari* “delincuente”, *arbotari* “arbotante”, *argeitari* ‘mohatero’, *argidorari* ‘ilustrador’, *argikari* “lumbera”, *argoari* “gatillo de escopeta”, *arguimendari* ‘argumentador’, *ari biurkari* ‘torcedor, huso grande de torcer la hilaza’, *ariltari* “devanador”, *arkedari* ‘resplandeciente’, *arkidari* ‘inducidor’, *arkuari* ‘arquero’, *arlankaitzari* ‘mampostero’, *arnegari* ‘blasfemo’, ‘renegado, maldiciente’ (1643), *arpari* ‘arpista’, *arpeztari* “declarador”, ‘definidor’, ‘intérprete’, etab., *arradari* ‘rapante, del pelo’, ‘rapista, barbero’, *arraitzari* “abrazador”, *arrakari* ‘linajudo’, *arrandari* ‘pescadero’, *arranzari* ‘pescador’, *arrapari* “agarrador”, “arreatador”, ‘rapaz, amigo de hurtar’, etab. (1571), *arrari* “ralea” (etim.), *arrastakari* ‘rastrero, lo que va arrastrando’, *arraunari* (s.v. *buena voya, galeote, rebenque*), *arraundari* “remero”, ‘espalder’, *arrauztari* ‘huevo’, *arrazkoalari* ‘adufero’, *arreitari* ‘asecla’, *arrendetari* “convidador”, *arretari* ‘apuntador’, ‘observador’, *arrikari* ‘pedrero, soldado’ (1283), “petraria, para disparar piedras”, *arritxari* ‘echacantos’, *arrotzari* ‘hospedero’, *arteskari* “logrero, usurero”, *artezari* “director”, *arteztari* “enderezador”, *artilari* “artillero”, *artxari* ‘archero’, *artzari* “zarandador”, *artzelari* “zarandador”, *askari* “solvente”, *asmari* “acertador”, ‘présago’, *asmegitari* “profeta”, “profetisa”, *asmekotari* “pronosticador”, *aspilari* “pilonero, de noticias”, *astelari* ‘semanero’, *astindari* ‘arqueador’, ‘mullidor’, “sacudidor”, *atabalari* ‘tambor’, *ataikari* “provocador”, *atameaukari* ‘meauca, ave’, *atauskari* “petardo”, *atiskari* ‘falleba’, *atseslari* ‘sofocador’, *atxurlari* “cavador”, *atzapartari* “arrebajador”, *atzenailari* ‘testador’, *atzipari* “superchero”, *atzipelari* “superchero”, *audiakari* ‘blasonador, jactancioso’, ‘vanaglorioso’, *ahuenari* ‘clamador’, *aukeztari* ‘despreciador’, *aurbentari* “expositor”, *aurkarari* ‘opositor’, *aurkezari* ‘presentador’, ‘representador’, *ausboilkari* ‘tolvanera’, *auskari* “quebrantante”, *autari* “elector”, *autindari* ‘sarmentador’, *autorrari* ‘confesante’, *autsikitari* “mordaz”, *auziabartari* “pendenciero”, *auzilari* ‘litigante’, ‘pleiteador’ (1627), *(txakur) auzkari* “perro de presa”, *azaldari* ‘comentador’, ‘expositor’, ‘glosador’, ‘intérprete’, *azalendari* “imprimador”, *azañari* ‘hazañero’, *azilari* ‘seminarista’, *aztiatari* “pronosticador”, *azurtxeari* ‘quebrantahuesos, ave’.

-TZAILE, -LE, -tzale, -zale, -aile, -daile, -taile

ahaikatzaille 'provocador', *aboilatzaile* 'abollador', *abrebasle* 'cuatrero' (cf. *ebasle* 1571), *adierazle* 'significativo', *adierazotzaile* 'amonestador', 'monitor', *aditzaille* 'entendedor', 'inteligente' (1571 *aditzale*), 'auditor', 'oyente', etab. (1715), *administratzaile* 'administrador' (1571 *administrazale*), *adobatzaille* 'remendón', *adoratzaile* 'adorador' (1571 *adorazale*), *agasajatzaille* 'agasajador', *agerle* 'manifestador', 'revelador', *agerrerazle* 'manifestador', *agertzaille* 'descubridor' (XVII ea.), *aginatertzaille* 'sacamuelas', *aginde-emaile* 'preceptista' (cf. *emaile* 1571), *aginidadokitzaille* 'sacamuelas', *aginsakale* 'sacamuelas', *agintzaille* 'ofrecedor', *agripetzaille* 'certificador', *agurtzaille* 'saludador', *aingeru begirale* 'ángel de la guarda' (1617), *aingeru zaitzaille* 'ángel de la guarda', *aipale* 'proponedor', *aitezarle* 'empadronador' (cf. *ezarle* 1571), *aitorkidale* 'confesor', *aitzinatzale* 'adelantador', 'anticipador' (1643 *aitzinatzaille*), *aitzinle* 'adelantador', *aitzurle* 'cavador', 'labrador', etab. (XVII ea. *ainzurle*), *aizeartzaille* 'ventor, perro de caza', *aize-emaile* 'abanico', 'soplador', *aizemaile* 'abanico', *akopilatzaille* 'acometedor', *akopilatzale* 'agresor', 'asaltador', *akordatzaille* 'acordador', *akusatzaile* 'acusador' (1643), *alabatzaile* 'laudatorio', *alakairuzale* 'premiador', *alangotzaille* 'calificador', *alderagile* 'apartador', *alkilatzaile* 'alquilador', *alogaemaile* 'premiador', *alogeratzaille* 'destajero', 'premiador', 'alquilador', *alokatzaile* 'alquilador', *altxatzaile* 'erector' (1715), *altzairutzaille* 'acerador', *amaraztzaile* 'enamorado', *amarazle* 'amartelado', *amarratzaille* 'amarrador' (1715), *amatigatzale* 'apaciguador', *amatzaile* 'amador', 'amante', *amerazle* 'amartelado', *amesle* 'soñador', *amorratzale* 'saludador del mal de la rabia', *anai eraile* 'fratricida' (cf. *eraile* 1571), *anai hiltzaille* 'fratricida', *andiagotzaille* 'abultador', *anditzaille* 'abultador', *andrazaitzaille* 'guardamujer', *anparatzaille* 'amparador', 'apadrinador', *ahorratzaille* 'ahorrativo', *apainle* 'adornador', *apaintzaille* 'adornador' (XVII ea.), *apaiz laguntzaille* 'acólito', *apartatzaille* 'apartador' (1715), *arakausle* 'sarcófagos, piedra', *aratepaile* 'abacero, carnicero' (cf. *epaile* 1664), *aratzaille* 'registrador', *araulitzaille* 'trastornador', *araulze* 'facinoroso', 'reo, culpado', *arauzle* 'delincuente', *arazo-emaile* 'lo que da embarazo', *arazotzaille* 'amotinador', *arbotale* 'algarrada, máquina', 'catapulta', *ardanle* 'vinatero', *ardaubile* 'cosechero', *ardazle* 'hilandera', *ardesle* 'impetrante', *ardiesle* 'alcanzador', *ardobile* 'cosechero', *ardoneurtzaille* 'mojonero, medidor de vino', *argedaille* 'retentiva', *argiemaile* 'dilucidario', 'iluminador', *argile* 'revelador', *argipetzaille* 'definidor', *argitzaille* 'alumbrador', 'iluminador', 'revelador' (1617), *arguitzaille* 'argumentador', 'arguyente', *aribatle* 'aribo, tornillo para hacer madejas', *arikatzaille* 'brumador', *ariltzaille* 'devanador', 'encañadora', *arkitzaille* 'hallador', *arle* 'tomador' (*carlear*-en etim.), *arneguzale* "blasphemador", *arneurtzaille* 'mojonero, medidor de vino', *arnobile* 'cosechero', *arpeztaille* 'declarador', *arraiepaile* 'abacero, pescadero', *arraitzale* 'hendedor', *arrai-saltzaille* 'pescadero' (XVII ea. *arrai-saltzaille*), *arraitzaille* 'abrazador', *arrapatzaille* 'agarrador', 'arreatador' (XVII ea.), *arraunle* 'remador', 'remero', *arrazutzaille* 'huevero', *arrendatzaille* 'arrendador', 'publicano', *arrenkuratzaille* 'vituperador' (XVII ea.), *arretartzaille* 'reparador, observador', *arritzaille* 'encantador', *arrotzaille* 'arqueador', 'mullidor', *artaltzaille* 'empedrador', *arteztzaille* 'enderezador', *artzaille* 'acogedor', 'recipiente', 'tomador' (1596), *hartzarazale* 'prohibitivo, prohibitorio', *asitzaille* 'principiador', *askatzaille* "soltador", *askijakile* 'filólogo', *asle* 'autor', 'inceptor', 'principiador', *asmatzaille* 'acertador', 'adivino', 'agorero', etab., *astinle* 'sacudidor', *astintzaille* 'sacudidor', *astitzaille* 'castigador', *ataikatzaille* 'provocador', *ateratzaille* 'el que saca' (1715), *atsarle* 'el que toma aliento', *atsegile* 'espirativo, espirante', 'soplante', *atsemaile* 'soplador', 'soplante', *atxurle* 'cavador', 'labrador', *atzemale* 'agarrador' (1630 *atzemaile*), *atzipetzaille* 'engañador', *aubentzaille* 'lamentador', *aunzedosle* 'chotacabras', *aurbentzaille* 'expositor', *aurdigitzaille* 'tirador' (1715 *aurtikitzaille*), *aurizkizale* 'pisador', *aurrandetzaille* 'continuador', *aurratzaille* 'adelantador', *aurreiaile* 'infanticida', *aurreratzaille* 'adelantador', 'anticipador', *aurriltzaille* 'infanticida', *ausle* 'infractor', 'quebrador', 'quebrantante' (1571 *hautsle*), *ausmarle* 'rumiador', *autakintzaille* 'libertador', *autesle* 'elector', *autsiabartzaille* 'alborotador', *autsi[t]zaille* 'quebrador', *autzaille* 'elector', *autzaiole* 'corneta', *auziemaile* 'pleiteador', *azaldaile* 'declarador', *azalentzaille* 'imprimador', *azasaltzaille* 'bercero', 'verdulera', *azitzaille* 'criador, el que cría animales' (1696 *hatzale*, 1715 *hartzaille*), *azpiratzaille* 'abatidor'.

-KIN, -gin

aderaskin 'aderezo', *adikin* 'entendimiento', *adraskin* 'aderezo', *aisakondairakin* 'novelador, el que escribe novelas', *aizekin* 'abanico', *aizkin* 'aventador', *albendakin* 'albendera, tejedora de albandas', *altzairugin* 'fabricador de acero', *amarazkin* 'filtro, hechizo amorio', *ameskin* 'soñador', *antzesakin* 'parabolano, parabolero', *antzeskin* 'pintor', *argin* "cantero" (1366), *arraskin* "rasero", *arropakin* 'ropero, el que vende los vestidos hechos', *artizkin* 'ortógrafo', *asgin* 'festejo', 'fiesta, regocijo', *atsekabekin* 'molesto', *atzenaikin* 'albacea', 'testamentario', *autakin* 'albedrío', 'libertad'.

-GILE

abarrosigile 'triscador' (1715), *adiagile* 'plañidera' (1620), *agurgile* 'saludador', *aitagiletu* "padrear los animales", *aizegile* 'abanico', 'soplador', *albandagile* 'albendera', *aldagile* 'año climatérico, en que dicen se altera y muda el temperamento', *aldiagile* 'plañidera', *algaragile* 'algarero', *alkabuzgile* 'arcabucero', *altaregile* 'altarero', *altzairugile* 'fabricador de acero', *amesgile* 'soñador' (1715), *amodiogile* 'amatorio', *aragigile* 'encarnativo', *arakile* 'sarcótico, que cría nueva carne en las heridas', *arazigile* 'coactivo', *arilgile* 'encañadora', *arlangile* 'cantero', *armagile* 'armero, fabricante', *arraigile* 'chazador', *arrazugile*

'ovíparo', *artezgile* 'enderezador', *artogile* 'panadero (de maíz)', *astalgile* 'pantorrillera', *atxorrogile* 'guantero', *auspogile* 'follero'.

-KO₁

aitzinako 'antepasado', *amairualdiko* 'trece, en la Caballería de Santiago', *amaldeko* 'madrina de boda', *antxinako* 'antepasado', *anzinako* 'antepasado', *ararteko* 'intercesor' (1545), *arteko* 'intercesor' (1664), *atzerriko* 'advenedizo', 'exótico', 'extranjero', *aurkako* 'el de delante' (1571), *auzoko* 'vecino' (1643), *azitetxeko* 'seminarista'.

-KIDE, -ide

adinkide 'coetáneo', *adiskide* 'amigo' (1545), *afespikukide* 'coepíscopo', *agerkide* 'conspicuo', 'lo que consta', *aide* 'pariente' (1564), *aitakide* 'compadre', *albokide* 'convecino', *aldekide* 'convecino', *amakide* 'comadre', *anaikide* 'cofrade', *anbatkide* 'contribuyente', *apaizkide* 'compresbítero', *arartekide* 'compatrón', *araukide* 'conforme', 'constitutivo', *arimegokide* 'longánimo', *asberkide* 'connovicio', *auzbakide* 'audiencia, tribunal', 'consistorio', 'chancillería'.

-ZAI, -zain

adarzai 'corniculario', *aduanazai* 'aduanero', *agapuruzai* 'macero', *alortazai* 'frutier, en Palacio', *altegizai* 'horroro', *andrazai* 'guardamujer, criada de la reina', *antxuzai* 'borreguero', *arageizai* 'sensual', *ardizai* 'ovejero, pastor', *argiontzi zai* 'lamparero', *arkazain* 'arquero, de arca', *arkumezai* 'borreguero', *armazai* 'ujier de armas', *arraunarizai* 'comitre de galera', *arropazai* 'ropero, el que cuida', *arrotzain* 'hospedero', *arroztegezai* 'hospitalero de pobres y peregrinos', *artzai* 'carnerero', *arzai* 'pastor', 'pastora' (1183), *arzain* 'pastor' (1545), *astazai* 'asnero' (1652), *ataurrezai* 'ujier de saleta', *atazai* 'uxier, oficio de Palacio', *atezai* 'ostiario', 'portalero', 'portero', *atezain* 'ostiario', 'portero' (1715), *hatuzai* 'hatero', *atxurizai* 'borreguero', *auntzai* 'cabrerizo, cabrero' (1562), *auntzain* 'cabrerizo, cabrero', *aurzai* 'ayo', 'cenzaya' (XVII ea. *haur zain*), *azokazai* 'alhondiguero', *azokazain* 'alhondiguero'.

-DI, -ti, -ri

aberedi 'atajo de ganado', *agadi* 'palazón', *agaidi* 'palamenta, conjunto de remos', *aintziradi* '(lugar) paludoso', *ait-etxadi* 'padre de familias'¹¹¹, *aitzadi* "peñascal", 'serranía', *aizapidi* 'velaje', *albendi* 'junta de albandas', *aldaskari* 'pimpollar', *almendradi* 'almendral', *almendrari* 'alozar', *amezti* "quexigal" (XVII ea.), *andredi* 'mujeriego, conjunto de mujeres', *aranzadi* "espinar, espinal" (1364, top.), *arbidí* "nabal, nabar", *arboladi* 'arboleda' (1627), *argikaidi* 'candelada', *arizti* 'roble dal' (1052, top.), *arkaizdi* 'peñascal', *arkoskadi* 'cascajal', 'pedregal', *arkoskati* 'lapizar', *arpaindi* 'cornijamiento', *arraundi* 'palamenta, conjunto de remos', *arsundi* 'trasteado, número de trastes de un instrumento', *artadi* 'maizal' (1650, top.), *artelazdi* 'alcornocal', *artexkadi* 'coscojar', *artezardi* 'moeda, encinar viejo', *artistadi* 'pedrería', *arzaidi* 'pastoría', *astamaizadi* 'alcandial', *astigardi* "(arboleda de) tilos", *atxoldi* 'teclado', *azurdi* 'osamenta'.

-AGA, -ga

aginaga 'lugar donde hay tejos' (1114, top.), *aitzaga* "peñascal" (top.), *alkaparraga* "alcaparral", *altzaga* 'alial' (top.), *amezaga* "carvallar" (1025, top.), *aranzaga* "espinar, espinal", *arauga* 'arte, libro en que están las reglas', *aretxaga* 'arboleda' (top.), *arizaga* 'roble dal' (1620, top.), *arraianaga* 'arrayanal', *arriaga* 'guijarral' (1025, top.), *arteaga* 'encinal, encinar' (1025, top.), *astigarraga* "(arboleda de) tilos" (1668, top.), *atunaga* 'atunara', *atxaga* 'peñascal', 'breñas, tierras ásperas y de peñascos' (1478, top.), *atxereaga* 'lugar donde hay muchos peruéтанos', *atxorroaga* 'guantería'.

-ETA, -keta, -deta

abarizketa 'carrascal' (1652, top.), *adiereta* 'anagogía', *aitzeta* 'breñas, tierras ásperas y de peñascos' (top.), *alkaparreta* "alcaparral", *amezketa* "carvallar", "quexigal" (XIII. m., top.), *apaindileta* "tocador", *arindeta* 'estadio, donde se corre', *arrieta* 'pedregal' (1066, top.), *atsegindeta* 'pláceme, placemes'.

-TZA₂

amiltza 'precipicio', *arbitza* "nabal, nabar" (1620, top.), *ardantza* 'viña' (1164).

-TE₁

aintzirate 'marjal, valle pantanoso', *amarte* 'década, número de diez', 'decena', 'decenario', *aranzate* 'maleza de espinas, etc.' (1325, top.), *arkaizte* 'breña, tierra áspera y de peñascos'.

¹¹¹ *etxadi*-ren lehen lekukotasuna ere *HH*-koa da.

-ZU

arbizu "nabal" (1200, top.).

-ADA₁

atzada 'dedada'.

-GARRI₁, -karri

absolbigarri 'absolvederas, manga ancha en un confesor', *adigarri* 'sentido de algún dicho, etc.' (1657), *agergarri* 'manifiesto (iz.)', *aldagarri* 'vestido' (1636), 'mueble', *altxagarri* 'levadura' (1571), *idunaren altxagarria* 'alzacuello', *apaingarri* 'adorno', 'arreo, atavío', 'ornamento', etab. (1627), *argigarri* 'emblema, símbolo', *arpezgarri* 'manifiesto (iz.)', 'mote, sentencia breve', *arrigarri* 'hechizo, atractivo', *astungarri* 'pesa', *azalgarri* 'lema', *atsedengarri* 'sabatismo, descanso', *azgarri* 'carácter, señal', 'señal', 'carácter, letra', *azkarri* 'levadura'.

-KI₁

adiraki 'nota, marca, señal', *adobaki* 'remiendo', 'capellada', *akaski* 'tarja, palo en que se hacen las muestras de las veces que se vende fiado', *alki-estalki* 'alquicel, cubierta de banco' (cf. *estalki* 1571), *alkoizki* 'pulidor, de las que devanan', *ankestalki* 'gualdrapa', *aoteski* 'rienda', *arirrazki* 'broca, rodajuela en que los bordadores tienen recogidos los hilos', *artezki* 'mira, en escopetas', 'mira, intención'.

-KAI₁, -gai

aburikai 'tropezadero', *adinkai* 'templador de arpa', *adrakai* "reglamento", *agerkai* 'escritura', *aginerakai* 'sacamuelas', *aginidadokai* 'sacamuelas, instrumento', *aginsakai* 'sacamuelas, instrumento', *agorkai* 'enjugador', *alagai* 'botador en las barcas', *aldakai* 'muda de ropa', *antzeskai* 'pincel', *apaingai* 'adorno', *arbelokai* 'molde de hacer bodoques', *argi biurkai* 'torcida', *argikai* 'cera', 'candela', *arilkai* 'devanadera' (XVII ea.), *arkai II* 'puño de espada', *arkai III* 'vela de cera', *arradakai* 'raedera', 'rallo', *arrazkai* 'regalador de boteros para alisar las corambres', *arregakai* 'regadera', *arrendekai* 'invitatorio', *askai* 'festejo', 'fiesta, regocijo', *astalkai* 'aspa' (XVII ea.), *astikai* 'azote', 'canelones, azote', *atzikai* 'orzuelo, instrumento de coger perdices, etc.', 'ratonera', *azalenkai* 'imprimadera', *azalkai* 'lema'.

-KI₂

abetxalki 'capitel de columna', *abiurki* 'torzal', *aboztuki* 'agostizo, nacido en agosto', *adaki* 'rama' (XVII ea.), *agorriki* 'agostizo', *ailoizoki* 'puchada', *aitziki* 'patronímico', *akaraki* 'nardino', *alabezki* 'rodezo de molino', *aldeki* 'cuarto (de ave, carnero,...)', *alortaki* 'frutal', *alsarki* 'asadura', *alsiki* 'lechino, clavo de hilas', *andiki* 'magnate', *antarauki* 'máxima de estado', *antxumeki* 'cabrito, muerto y para comer', *aoski* 'vocablo', *aozki* 'voz', *aragiki* 'carnaje, para proveer los navíos' (1715), *arexki* 'ternera, muerta', *argizki* 'pedazo de cera', *ariki* 'carne de carnero muerto' (1562), *arinki II* 'perfunctorio, lo que pasa ligeramente', *arraianki* 'murtón, fruta del arrayán', *arrauki* 'caviar', *arroki* 'esponja', *artelazki* 'corcho', *arurrezki* 'filigrana', *aruski* 'piltrafa', *aseki* 'embargo de estómago', *asizenki* 'acróstico', *astorki* 'onobryche, planta', *ataurki* 'atrio', *ataurreki* 'ataurique', *ateraki* 'resalte, resalto', 'nudillos, en las medias', *atzalki* 'uñero', *atzeki* 'cola de animales', 'rabo', *atzenki* 'novísimo, postrimería', *aunzki* 'cabra muerta', *aurgintzaki* 'feto nacido', *aurreki* 'delantero', *auskeztiki* 'girapliega', *azalki* 'falquias', *azkenki* 'novísimo, postrimería', *azoteki* 'azote, golpe'.

-KAI₂

adakai 'rama', *arakai* 'cecina', *ardikai* 'calderilla, moneda de cobre', *arkai* 'cecina', *auzikai* 'litigioso, sobre lo que hay pleito'.

-KO₂

aletistezko 'diamargaritón', *amabizko* 'docena', *amaikaldeko* 'undecágono', *amaikaurkeko* 'endecágono', *arbizuko* 'nabería', *autzeko* 'bofetada' (1630), *azpiko* 'aforro'.

-ADA₂, -kada, -tada, -da

